# Egungo Euskararen Hiztegia

## —Z—

[bertsioa: 2024-01-09]

---

**zabal** **1** *izond* albo batetik bestera hedadura handia edo ohikoa baino handiagoa duena; zabalera gainerako dimentsioak baino aski handiagoa duena; irekia. ik **mehar; estu.** (ikus beheko konbinatorian zabal izenondoaren agerraldi maizkoenak)

**2** (adizlagun gisa; ik beherago **13**)

Inork ez zezakeen susma, orobat, XIX. mendearen amaieratik medikuntza eta osasun publikoa hain bizkor eta hain **zabal** hedatu izanak munduaren halako gainpopulaziora ekarriko gintuenik. Juan Garzia

Nafarroa han, luze eta **zabal** hedatuta. Pello Zabala

Neure eskuaz lanean hasi nintzenean, luze eta **zabal** etzan zen ohean ahozpez. Aitor Arana

Egunotan luze eta **zabal** hitz egin beharko diagu. Rafa Egiguren

Etxearen atzealdeko lorategi zaharra herriaren muturrean hasi eta inguruko zelaietaraino hedatzen zen, luze eta **zabal**. Jose Morales

Iristear omen zeuden, laster hitz egingo zuten lasai eta **zabal**. Migel Angel Mintegi

Kristina **zabal** jarria zen orain besaulkiaren gainean, hanka luzatuak ohean ezarririk. Aingeru Epaltza

Metodo zuzenarekin, berriz, **zabal** barreiatzen ziren emaitzak, eta haietatik laurden bat pasatxo, arauzko gutxienekotik behera baitzegoen, bere garaian atzera boteak behar zuten loteei zegokien noski. Juan Garzia

Gogoak, beraz, joan eta ibili nahiak eraginda, gorputz guztiko lohadar eta organo guztietan zehar **zabal** dagoen arimaren izatea ziztatzen du. Xabier Amuriza

Garaile ageri zen, **zabal** eta eroso hartzen zuen arnasa haritz argizko jangelan. Karlos Zabala

**3** (adizlagun gisa, izen mugatu baten eskuinean)

Besoak **zabal**, leher eginda, barazki zama izugarriari besarka, balantzaren batek lurrera botako zuen beldurrez, aurrera begira zihoan. Karlos Zabala

Eraikuntzari buruzko azalpenetan jarraitu nuen: berak begiak **zabal** eta erne beti ere. Joxe Austin Arrieta

Ahoa **zabal** geratu zen, "ez duk posible!" esanez bezala. Anjel Lertxundi

Ahoa **zabal** dugula koilarari eusten dion eskuari begira-begira egon beharra, besterik ez. Iñigo Aranbarri

Aldakak **zabal**, tente-tente jarririk bere mantal zuriarekin, mingainari eusten zion hitz itsusiren bat ihesi joan ez zekion. Karlos Zabala

Erortzen eta amiltzen gara zuloan beheiti, non herensugeak eta munstroak ditugun aiduru [...] ahutzak **zabal** eta hortzak zorrotz. Joan Mari Irigoien

Galtzeak alabaina nonbaitetik harrapatzea ekartzen du, alorra huts eta **zabal** utziz aurkitze berrien onartzeko. Itxaro Borda

Tatuaje baten moduan markatuta gelditzen ari, gero eta **zabalago**, gero eta sendoago. Bernardo Atxaga

**4** (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa, elkarketak izenondo balioa duela)

Neska adimen-**zabal** bezain oin-**zabal** horietako bat. Antton Olano

Neska ile-horail, sudur-fin, ezpain-**zabal** hura, nire saihetsean kokorikatu zen eta belarri zulora erran zidan:[...]. Daniel Landart

Lehenengo egunetan gurpil-aulkian zebilen haur isil begi-**zabal** hari erreparatuko zioten. Alberto Ladron Arana

Polizia frantsesek, kepis eta kapadun jendarma bibote-**zabalek**. Felipe Juaristi

Goiko leihoetan emakume aurpegi-**zabalak** ikusten ziren, kalera begira. Jose Morales

Handiz erdi modukoa zela, bizkar **zabala**, hanka-**zabal** samarra, aurpegiz beltzarana eta bizar-gorria. Patxi Ezkiaga

Haren ibilera hanka-**zabalak** pentsarazi zidan ohituta egongo zela zaldiz ibiltzen. Anjel Lertxundi

Talde erdi biluzi, papar-**zabal** eta zalapartari horrek alde guztietatik inguratu zuen. Jose Morales

Filosofiak, berriz, bihotz **zabal** egiten du arkitektoa. Santiago Iruretagoiena

Seguraski elkor hutsa izango da antigoalekoak garenokin, pentsatu zuen Bankes jaunak, bihotz-**zabal** izateko ahalegin guztiak eginez. Anton Garikano

Botila lepamotz aho-**zabal** batzuetan sarturik. Karlos Zabala

Non duk heure harrokeria, aho-**zabal** horrek? Elizen arteko biblia

Onddo-itxurako kapela hegal-**zabal** bat soinean. Irene Aldasoro

Soineko zuri behe-**zabal** bat jantzirik, jira eta bira, jira eta bira. Joan Mari Irigoien

Plazatxo estu eta luze baten erdian, intxaurrondo adaburu-**zabal** ikaragarri bat dago. Koro Navarro

**5** (beste izenondo batekin)

Izan ere, nola babestu ninduen umetan haren sabel **zabal** joriak, izuak handik edo hemendik mehatxatzen ninduenean. Joan Mari Irigoien

Zubi erdian dauden harri **zabal** ederrak. Piarres Aintziart

Jende guztia bezalaxe bizi nintzen ni, bizitza gizonaren begi **zabal** itsuez ikusten, harritu gabe eta ulertu gabe. Josu Zabaleta

Humanitatea familia handi bat duk, Adan eta Evarengandik jaio den familia handi **zabala**. Anjel Lertxundi

Sagar aurpegiko gizon lodi **zabal** batek. Felipe Juaristi

Gure mundu tipi **zabal** hartan geundela, hala erran zenidan bertze egun batean: [...]. Joan Mari Irigoien

Bidea zelai neurrigabeetan aurrera hedatzen zen batzuetan, begiari ikuspegi **zabal** irekia eskainiz. Karlos Zabala

Erromako herria eta senatua, beldur guztietatik libre, zure pentsakizun eta aholku **zabal**-ospetsuen esanetara gobernatzen hasita zeudenean, [...]. Santiago Iruretagoiena

Ondoan, intsigniaz beteriko fardelek odol zetaka **zabal** eskergak osatzen zituzten. Karlos Zabala

Irribarre egin zioten elkarri beren begitarte **zabal** biribilez, amak honela errepikatzen zuen bitartean. Karlos Zabala

Ozta-ozta ikusten zituen begien aurrean igarotzen zitzaizkion estepa luze-**zabal** haiek, istant batez galaraziak izan zituenak. Karlos Zabala

*ik* luze 16.

Gain jantzi **zabal** luzea. Josu Zabaleta

Germaniar haietako batek bainujantzi handi-**zabal** bat zeukan jantzita eta bestea slip ñimiño batez ari zen jolasten. Joxemari Iturralde

Nire buru gainean, ilargi handi, bete, **zabal** bat hedatzen zen. Josu Zabaleta

**6** (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa, elkarketak adizlagun balioa duela)

Erroma aldera: ez zen batere petraldu, alderantziz baizik, beti bezain bihotz-**zabal** mintzatu zitzaidan. Joxe Austin Arrieta

Hura ohatzean izter-**zabal** etzateko adina denbora erabili nuen, neure burua arruntik biluzteko. Aingeru Epaltza

Beldurra ematen zuen norbaiten aurrean hanka-**zabal** jartzen zenean. Koldo Biguri

Aita elizaren erdian zegoen, eskopeta besapean, hanka-**zabal**, harkaitza bezain tinko. Koldo Biguri

**7** (-en atzizkiaren eskuinean izen gisa)

Hala bada, Rosaren mundua aintzira hura zen, non munduaren **zabala** islatzen eta baretzen baitzen. Sutsuki goraipatu zuen lurraldearen **zabala** , esanez behialako inperio erromatarra ez zela hain handientsua izan eta atzerritarrek arrazoiz miresten zutela Errusia. Joan Mari Irigoien

Hango iluntasun lodian tarteka baino ez zen itsasoaren **zabala** ikusten. Edorta Jimenez

Lau bat mila metro goratik, Mendi Harritsuen **zabala** dugu begien aurrean. Xabier Olarra

Haren gorpuzkerak eta pausajeak, haren itzalak eta itzalaren **zabalak** , guztiak batera nahiz banaka, harritu eta zur-lur utzi ninduten. Patxi Ezkiaga

Zeru eta ortziaren **zabalak** ezin zaitu eduki, eta nik eraiki dizudan tenplu honek eduki ote zaitzake, bada? Elizen arteko biblia

Izadia serioski aztertzen hasi garen honetan, ageri-agerian dugu auzien **zabala** eta haiei aurre egiteko geratzen zaigun bide luzea. Juan Garzia

Zerua izarrez beterik zegoen, gauaren **zabalaz** puzturiko izar lodiz. Juan Garzia

Aspaldi utzi zion bere ikasleen ezjakintasunaren **zabalaz** harritzeari. Oskar Arana

Angela Duval hegaldatu eta kuxkur itsasoari begira egon nintzen unearen **zabalaz** ez nintzen jada oroitzen. Itxaro Borda

Parean kokatu zaio Gabin, taldeari eta aretoaren **zabalari** aurpegia emanda-. Iñaki Iñurrieta

Emakumezkoek musu eman ziguten, esker eta eskuin, irribarrearen **zabalak** belarrietan min eman behar zielarik. Edorta Jimenez

## 8 (izen gisa)

Bokalean jadanik, ateko bandara begiratuko duzu, **zabalera** , eta abanikoa bezala zabalduko da itsasoa. Joseba Sarrionandia

-Ea mutila,hoa pittin bat **zabalera** ! -agindu zion Kristobali. Edorta Jimenez

## 9 (izen gisa, pilota-jokoan)

**Zabalean** , zein txokoan, Goizuetakoa maisuki aritu zen. Berria - Kirola

**Zabalera** joana zen Xala, korrikaldi baten ostean irristaka iritsi zen, Olaizolak atzean erantzun zuen. Berria - Kirola

Xalak **zabaletik** pilota zail bat jaso zuen, Titinek txokora bidali zuen pilota, baina Pascualek jaso zuen, eta errioxarrari nahiko lan zaila jarri **zabalean** . Berria - Kirola

Irujok azken tantoa **zabalera** botariko gantxo batekin egin baitzuen. Berria - Kirola

Martinez Irujo txokotik **zabalera** sakatzen hasi arte. Berria - Kirola

Mugicaren zaflakoak, berdin airetik **zabalera** , edo xixtakoak ere, eta Etchegoinen lan izigarria eta borondatea, xokoetara barreatuz eta bera helduz. Herria

Etxarrikoak, ahal zuen guztietan Titinen **zabaleko** gantxoak jasotzera joateaz gain, bizkarra erakutsi zion Fernando Goñiri partida osoan. Berria - Kirola

## 10 ***aire zabal*** barruti estalietatik at dagoena. ik beherago **11.**

-Hilobia **aire zabalean** dago ala estalia da? Patxi Zubizarreta

Iruditzen zait hirietan ere komeni dela **aire zabalean** eta eguzkitan pasealekuak egitea. Santiago Iruretagoiena

Dohakabeek, aterperik gabe, **aire zabalean** nozitu behar ekaitz zitala. Karlos Zabala

**Aire zabalean** biluzik egotea, horra egun hauetan Mikelek ahanzturatik erreskatatu duen bertze sentsazio bat. Aingeru Epaltza

Portikoen tartean eta **aire zabalean** geratzen diren espazioak landare berdeekin apaindu behar dira, aire librean egindako paseoak oso osasungarriak izaten baitira. Santiago Iruretagoiena

Material merkea da, **aire zabalean** egonkorra, ez da herdoiltzen, isolatzaile termiko, elektriko eta akustikoa da eta erresistentzia mekaniko egokia du. Berria - Gaiak

Gure artean, ordea, **aire zabaleko** pasealekuei deitzen diegu *xysta,* eta horiei grekoek *paradromidas* deitzen diete. Santiago Iruretagoiena

Iluntzean Plaza Gorriaren inguruko **aire zabaleko** jatetxe horietako batean jaten duen italiar erako platerak asetzen du Carlsen. Edorta Jimenez

Karrikara atera behar zenuke, **aire zabalera** , osasuna galduko ez baduzu. Alberto Ladron Arana

Konradek haurtzaroko eta gaztaroko zurbiltasun bera zeukan, eta etxetik atera gabe bizi zela ematen zuen, **aire zabalera** atera gabe. Xabier Olarra

Kaleak baleude haizeen kontra zuzenean jarrita, haize zakar eta ugariak sartuko lirateke zeruko **aire zabaletik** . Santiago Iruretagoiena

## 11 ***egurats zabal*** aire zabala.

Haren azpian, putzu bertikal bat, zeinak galeria horizontal luze batera ematen baitzuen; hura, berriz, muino-mazelara irteten zen **egurats zabalera** , lantokitik gora. Juan Garzia

**Egurats zabalean** egin zuten lo, gurutze-tontorretatik hurbil. Juan Garzia

Norbaitek beranduago edan nahi bazuen, zubian edatea zeukan, gau ilunean, **egurats zabalean** . Juan Garzia

Ordokiaren erdi erdian ageri da, teilatu-hormak **egurats zabalari** emanak. Jokin Muñoz

## 12 ***luze-zabal*** *(orobat* ***luzezabal*** *g.er.)* *iz* eremua, tamaina.

Haien xehetasunak buruz nekizkien, gaiak ez ezik, **luze-zabalak** ere. Aingeru Epaltza

Etxe haren **luze-zabala** neurtu izan balu, mintzatuko zatekeen agian huste lan nekagarri eta halaz ere askatzaile honi buruz. Joxan Elosegi

Munduaren **luze-zabalean** gosea gero eta handiagoa da. Pako Aristi

Inperioaren **luze-zabal** osoan. Iñaki Iñurrieta

Lurraren antzeko tasunak dituzten planeta asko eta asko baitaude haien iritziz unibertsoaren **luze-zabalean** . Juan Garzia

Andre bat nigana makurtzen da, bera zinez zer den nire **luze-zabalean** aztertuz. Bernardo Atxaga

· *pl* Hein Völker militante gaztearen ia gorputz osoko fotograma batek hartzen zituen kartelaren **luze-zabalak** . Anjel Lertxundi

**Luze-zabalei** zegokienez, gela hura aurrekoaren antzekoa zen. Patxi Zubizarreta

## 13 ***zabal izan*** (neurriekin)

Jenisei ibaia versta eta erdi **zabal da** leku hartan, eta bi adar nagusi ditu, bata bestea baino handiagoa. Karlos Zabala

Leku hartan, ibaia versta erdi **zen zabal** . Karlos Zabala

Behinola Indiako azpikontinentearen zatirik handienean subiranotasun eraginkorra zertu zuen inperioa 250 milia luze eta 100 milia **zabal zen** gorputz-enborrera murriztuta geratu zen. Iñaki Mendiguren

Tenpluko sala handiaren aurreko atalondoa hamar metro **zabal zen** . Elizen arteko biblia

Sei metro luze eta sei metro **zabal zen** , eta hutsik zegoen, noski. Iban Zaldua

60 zentimetro luze eta 50 zentimetro **zabal da** buruezurra eta zientzialariek uste dute ur gezako Baru espezieko kokrodiloarena dela. Berria - Gaiak

Santutegia hamar metro zen luze, hamar metro **zabal** eta metro bat gora. Elizen arteko biblia

Horma-irudia metro eta erdi luze eta metro bat **zabal da** ; pieza bakarrekoa. Monika Etxebarria

Beheko solairua bi metro eta erdi **zabal zen** , erdikoa hiru metro eta hirugarrena hiru metro erdi. Elizen arteko biblia

Izugarrizkoak dira, ehun kilometrotik gora baitira **zabal** . Josu Zabaleta

· *(aditza ezabaturik)* 8.000 kilometro luze, 3.000 **zabal** ! Jon Muñoz

-21 metro 60 luze eta 34 metro 40 **zabal** . Jon Muñoz

Arauzko alkandora faxistaren ordez, kokospeko beltz xelebre bat, arra bat **zabal** , zeina mugimendu zakar bakoitzean jakaren ertzetatik irteten baitzitzaion. Juan Garzia

## 14 ***zabal-zabal*** *izond*

Burua erdi joanda, so egin eta ozeano **zabal-zabala** ikusi nuen. Koro Navarro

Leku **zabal-zabal** baten erdian azaldu ziren, milaka lagunek inguraturik. Xabier Aranburu

Areto **zabal-zabal** bat zen, keztatua eta hutsa. Juan Garzia

Turkiaren lurralde **zabal-zabalaren** eremurik handiena. Berria - Mundua

Eguzki esaten diogun su-masa hori, eta maitasuna, zeinak guztia baitauka bere baitan, esfera **zabal-zabal** bat irudi. Juan Garzia

Izeba Petuniaren esku hezurtsuan kolpetxoak eman zituen bere esku **zabal-zabalaz** . Iñaki Mendiguren

Izan ere, han, plazan, aho **zabal-zabal** horien aurrean, ez al naiz egongo haiek guztiak baino gorago? Jose Morales

Itsuaren begi **zabal-zabaletan** gelditu du bere begirada ikaratua. Karlos Zabala

Badakit bihotz **zabal-zabaleko** gizona zarela eta zuk ere gaixoak sendatzen dituzula. Jose Morales

Hor dago Ixidro irribarre **zabal zabal** batekin. Joseba Sarrionandia

Ezin genuen egin deialdi **zabal-zabala**, ez zegoelako denontzat zertan behar egin. Berria - Euskal Herria

Toki hartatik, ibaiaren ibilbidea ageri zen ehun bat oineko distantzian, eta, hortaz, ikuspegia **zabal-zabala** zen guztiz. Karlos Zabala

Eremu **zabal-zabala** da autoerreferentziarena, eta emaitza onik aterako badugu, mugaketa lanari ekin behar diogu ezer baino lehen. Iñaki Arranz

**15** (adizlagun gisa)

Kama ibaia **zabal-zabal** hedatzen zen orduan, eta xarmangarriak ziren haren ertz oihantsuak. Karlos Zabala

Joanesen begiak **zabal-zabal** ireki ziren. Felipe Juaristi

Krexako haurrak bere besoak **zabal zabal** luzatzen ditu harenganat heldu direneri ongi etorri egiteko. Herria

Garnerrek **zabal-zabal** egin zuen irribarre. Anton Garikano

Besoak jaso eta **zabal-zabal** eginik, oihu egin zuen. Anjel Lertxundi

Animaliak bertan behera omen doaz lurrera **zabal-zabal** eta ezin omen dira ostera handik altxatu. Juan Garzia

Begi-ahoak itxita arnasa hartuz, horma baten kontra bermaturik, hankak **zabal-zabal**. Joxe Austin Arrieta

Begiak **zabal-zabal** begiratu zion Jonathanek amari. Jon Muñoz

Begiak **zabal-zabal** egin zituen, ni ikusita. Juan Kruz Igerabide

-Zeuk esan, Hester -eskaini zitzaion Mathilde, begiak harriduraz **zabal-zabal**. Anjel Lertxundi

Vaclav erori egin zen atzeraka eta lurrean zerraldo gelditu eskuak **zabal-zabal** eginda, zuhaitz eroria, zuhaitz etzana, zuhaitz hila. Felipe Juaristi

Eserita dago, belaunak **zabal-zabal** dituela eta oinak elkartuta. Anjel Lertxundi

Hermione lurretik altxatuta zegoen, begiak **zabal-zabal**, Lupin seinalatuz. Iñaki Mendiguren

Azken harmaila jaitsi zuen eta alabarengana zuzendu zen, besoak **zabal-zabal**. Joxemari Iturralde

**16** ***zabal-zabala*** *adlag ipar* zabal-zabal.

Aita lurrean, **zabal-zabala**, trenputxartua, ezagutza galdua. Daniel Landart

Beha ezazue hordi hori lurrean **zabal-zabala** eta besteak hor traban! Itxaro Borda

Luzaz egon naiz ohean **zabal zabala**. Piarres Aintziart

Eta, funtsean, ikaskideak ahoa **zabal-zabala** gelditzen dira-. Eneko Bidegain

Poloniarra arras hunkiturik gelditu zen, ahoa **zabal-zabala**, Joanesi begietara so. Eneko Bidegain

Atea **zabal-zabala** idekia, deneri ongi etorri eginez. Herria

Kattalin eta Sophie-k begiak **zabal zabala** ezartzen dituzte. Eneko Bidegain

**17** *zabal-zabalik* ik **zabalik.**

**hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 6 aldiz agertzen direnak)**

**adostasun zabal** (6); **aho zabal** (13); **ahoa zabal** (30); **ahoa zabal zabal** (6); **ahoa zabal zabalik** (17); **akordio zabal** (10); **atea zabal** (20); **atea zabal zabalik** (11); **ateak zabal** (22); **ateak zabal zabalik** (17); **aurpegi zabal** (10); **bat zabal** (18); **begi zabal** (11); **begiak zabal** (160); **begiak zabal zabal** (46); **begiak zabal zabalik** (101); **behako zabal** (7); **besoak zabal** (19); **besoak zabal zabal** (6); **bezain zabal** (20); **bi metro zabal** (7); **bide zabal** (18); **bide zabal bat** (6); **bide zabal eta** (6); **bidea zabal** (9); **bihotz zabal** (8); **bizkar zabal** (8)

**erdi zabal** (18); **eremu zabal** (41); **eremu zabal bat** (7); **errepide zabal** (6); **eskailera zabal** (7); **eskuak zabal zabal** (7); **esparru zabal** (13); **espazio zabal** (11); **gehiengo zabal** (18); **gehiengo zabal batek** (10); **gela zabal** (12); **hamabost zentimetro zabal** (6); **hamar metro zabal** (7); **hanka zabal** (7); **hankak zabal** (21); **hankak zabal zabal** (10); **hankak zabal zabalik** (7); **hegal zabal** (8)

**ikuspegi zabal** (12); **irri zabal** (20); **irribarre zabal** (50); **irribarre zabal bat** (15); **irribarre zabal batekin** (9); **itsaso zabal** (10); **kale zabal** (17); **kilometro zabal** (8); **landa zabal** (9); **lautada zabal** (6); **leiho zabal** (11); **leihoa zabal** (7); **lur zabal** (7); **lurralde zabal** (15); **luze eta zabal** (89); **luze zabal** (51); **luze zabal osoan** (9); **metro bat zabal** (6); **metro zabal** (31); **mugimendu zabal** (16); **mugimendu zabal bat** (9); **mundu zabal** (10)

**operazio zabal** (9); **ordezkaritza zabal** (10); **ordezkaritza zabal batek** (6); **oso zabal** (11); **publiko zabal** (13); **publiko zabal bati** (6); **sare zabal** (10); **sektore zabal** (8); **talde zabal** (10)

**zabal aztertu** (7); **zabal bezain** (7); **zabal eta sakon** (9); **zabal hitz egin** (13); **zabal mintzatu** (9); **zabal samarra** (6); **zabal zabal** (166); **zabal zabal egin** (21); **zabal zabal eginda** (26); **zabal zabal eginik** (6); **zabal zabal ireki** (10); **zabal zabala** (44); **zabal zabalik** (263); **zabal zabalik ditu** (6); **zabal zabalik zituela** (11)

**zelai zabal** (11)

**adostasun zabala** (15); **akordio zabala** (28); **akordio zabala lortzea** (9); **aski zabala** (16); **aukera zabala** (23); **aurpegi zabala** (12); **babes zabala** (31); **babes zabala jaso** (8); **banda zabala** (8); **bezain zabala** (28); **bezain zabala da** (7); **bide zabala** (18); **bihotz zabala** (21); **biziki zabala** (6); **bizkar zabala** (12); **dei zabala** (10); **dei zabala egin** (6); **deialdi zabala** (10); **deialdi zabala egin** (7)

**egitarau zabala** (18); **egitarau zabala prestatu** (8); **erakusketa zabala** (9); **erantzun zabala** (13); **erantzun zabala izan** (8); **eremu zabala** (25); **errepertorio zabala** (7); **eskaintza zabala** (27); **esparru zabala** (8); **esperientzia zabala** (11); **eztabaida zabala** (6); **garaipen zabala** (7); **gehiengo zabala** (29); **handi eta zabala** (8); **handia eta zabala** (6); **hautu zabala** (6); **hitzarmen zabala** (7)

**ibai zabala** (8); **ikuspegi zabala** (17); **informazio zabala** (7); **irri zabala** (27); **irri zabala egin** (13); **irribarre zabala** (50); **irribarre zabala aurpegian** (6); **irribarre zabala egin** (13); **itsaso zabala** (24); **itsasoaren zabala** (6); **izortz zabala** (11); **kanpaina zabala** (6); **lan zabala** (7); **leku zabala** (10); **luze zabala** (13); **mugimendu zabala** (9); **multzo zabala** (7); **mundu zabala** (18); **nahiko zabala** (10)

**oihartzun zabala** (11); **onarpen zabala** (7); **ordezkaritza zabala** (44); **ordezkaritza zabala izango** (7); **oso zabala** (64); **oso zabala da** (24); **oso zabala zen** (6); **sail zabala** (6); **sare zabala** (8); **sorta zabala** (10); **sostengu zabala** (27); **sostengu zabala jaso** (7); **tarte zabala** (23); **toki zabala** (6)

**zabala eta askotarikoa** (7)

**zeru zabala** (8)

**baino zabalago** (13); **gero eta zabalago** (15); **ikuspegi zabalago** (7); **zabalago egin** (6); **zabalago egiten** (7)

**adostasun zabalagoa** (7); **are zabalagoa** (6); **askoz ere zabalagoa** (13); **askoz zabalagoa** (12); **askoz zabalagoa da** (7); **baino zabalagoa** (37); **eremu zabalagoa** (10); **eskaintza zabalagoa** (6); **esparru zabalagoa** (7); **ezin zabalagoa** (13); **gero eta zabalagoa** (19); **irri ezin zabalagoa** (6); **leku zabalagoa** (9); **sostengu zabalagoa** (8); **zabalagoa egin** (11); **zabalagoa egiten** (8); **zabalagoa hartzen** (6); **zabalagoa izan** (19); **zabalagoa izango** (16); **zabalagoa izango da** (10)

**gero eta zabalagoak** (6)

**zentzu zabalagoan** (10)

**akordio zabalak** (7); **aski zabalak** (7); **bezain zabalak** (7); **eremu zabalak** (15); **galtza zabalak** (6); **gehiengo zabalak** (19); **luze zabalak** (9); **oso zabalak** (7)

**itsaso zabalaren** (6); **mundu zabalaren** (13); **zabalaren erdian** (6); **zabalaren gainean** (12)

**mundu zabalari** (16); **publiko zabalari** (10)

**aire zabalean** (32); **atari zabalean** (7); **eremu zabalean** (17); **itsas zabalean** (20); **itsaso zabalean** (48); **landa zabalean** (8); **mundu zabalean** (196); **ohe zabalean** (7); **pasealeku zabalean** (6); **plaza zabalean** (7); **zelai zabalean** (6); **zentzu zabalean** (33); **zeru zabalean** (7)

**aire zabaleko** (11); **bihotz zabaleko** (11); **hegal zabaleko** (11); **itsas zabaleko** (7); **itsaso zabaleko** (7); **mundu zabaleko** (158)

**bihotz zabalekoa** (10)

**adostasun zabalena** (6); **ahalik eta zabalena** (9); **akordiorik zabalena** (6)

**esanahirik zabalenean** (7); **zentzurik zabalenean** (15)

**aire zabalera** (10); **itsaso zabalera** (21); **metroko zabalera** (22); **mundu zabalera** (26); **txokotik zabalera** (8); **zabalera atera** (7)

**eremu zabaletan** (11)

**mundu zabaletik** (7)

**bihotz zabalez** (12); **esku zabalez** (6)

**aho zabalik** (219); **aho zabalik begira** (6); **aho zabalik begiratu** (6); **aho zabalik gelditu** (11); **aho zabalik geratu** (33); **aho zabalik geratzen** (9); **aho zabalik utzi** (20); **ahoa zabal zabalik** (17); **ahoa zabalik** (55); **artean zabalik** (9); **ate guztiak zabalik** (12); **atea zabal zabalik** (11); **atea zabalik** (121); **atea zabalik utzi** (14); **atea zabalik zegoen** (25); **ateak zabal zabalik** (17); **ateak zabalik** (116); **ateak zabalik izanen** (9); **ateak zabalik izango** (6); **aukera zabalik** (10); **begi zabalik** (7); **begiak zabal zabalik** (101); **begiak zabalik** (74); **beso zabalik** (25); **besoak zabalik** (56); **besoak zabalik hartu** (8); **beti zabalik** (23); **bidea zabalik** (20)

**egongo da zabalik** (20); **epea zabalik** (15); **epea zabalik dago** (8); **erakusketa zabalik** (8); **erdi zabalik** (31); **esku zabalik** (7); **eskua zabalik** (16); **eskuak zabalik** (9); **guztiak**

zabalik (35); hanka zabalik (8); hankak zabal zabalik (7); hankak zabalik (21); hegoak zabalik (7); hipotesi guztiak zabalik (6)

leihoa zabalik (21); leihoa zabalik zegoen (7); leihoak zabalik (13)

operazioak zabalik (8); oraindik zabalik (14); prozesua zabalik (7)

zabal zabalik (263); zabalik aurkitu (6); zabalik begira (8); zabalik begiratu (8); zabalik begiratzen (9); zabalik da (17); zabalik dago (80); zabalik dago oraindik (10)

zabalik eduki (8); zabalik edukitzen (10); zabalik egon (27); zabalik entzuten (9); zabalik eutsi (6); zabalik gelditu (14); zabalik geratu (49); zabalik geratu zen (27); zabalik geratzen (14); zabalik hartu (18)

zabalik ikusi (13); zabalik izan (19); zabalik izanen (14); zabalik izango (25); zabalik jarraitzen (10); zabalik jarraitzen du (6)

zabalik utzi (68); zabalik utzi zuen (8); zabalik utziko (14); zabalik utzita (10); zabalik utzitako (6); zabalik uzteko (14); zabalik uzten (35); zabalik uzten du (6); zabalik zegoela (14); zabalik zegoen (82); zabalik zegoen eta (11); zabalik zeudela (11); zabalik zeuden (27); zabalik zeuden eta (6); zabalik zeukan (17); zabalik zeuzkan (7); zabalik zituela (14); zabalik zituen (10); zabalik zituzten (10); zabalik zuela (9); zabalik zuen (11)

---

## **zabalagoki** *adlag ipar* era zabalagoan.

Hamar urteren buruan, ez bagira erne egoiten, nolako Bidarrai ikusiko ote dugu? Eta, **zabalagoki**, nolako Euskal Herria? Herria

Trinketaren geroa, eta **zabalagoki** iparralde huntako pilotaren geroa jokoan da, pilota-eskoletako haurren etorkizunatik haste. Eleberri bat, doi bat autobiografikoa, Laxaltarren eta **zabalagoki** hango euskaldunen gora-beherak kondatzen dauzkiguna. Herria

---

## **zabalagotu**, zabalago(tu), zabalagotzen **1** da/du *ad* zabalago bihurtu.

Bere herriaren mugak **zabalagotu** zituen eta herrialdeak menperatu. Elizen arteko biblia

Biek ala biek blujin estuak, orkatilan **zabalagotzen** zirenak. Unai Iturriaga

Ehud Olmert Israelgo lehen ministrordeak Ameriketako Estatu Batuei hitzeman diela etxe desegite gehiago ez dela egongo eta Filadelfia pasabidea ez dela **zabalagotuko**. Berria - Mundua

Bidea **zabalagotu** didazu eta nire oinak ez dira oztopatu.

Boza behar baino gehiago goititu nuen, begiak **zabalagotu** baitzitzaizkion harritu antzo. Aingeru Epaltza

Haren aurpegi zimelean **zabalagotu** egin zen irribarrea. Irene Aldasoro

Bi zabortegi horiek gero eta handiagotzen ari dira, gero eta **zabalagotzen**. Joan Mari Irigoien

**2** (era burutua izenondo gisa)

Badira triangelu **zabalagotuak**; kamutsak, angelu bat kamutsa eta besteak zorrotzak dituztenak; zorrotzak, angelu guztiak zorrotzak dituztenak. Jon Muñoz

---

## **zabalalde** *iz* pilotalekuetan, alde zabala. ik **zabal 9**.

Atzelari jotzaileak errege diren garai batean, elgetarrak tanto pare bat lortu baitzituen **zabalaldea** eta bi parteak bilatuz. Berria - Kirola

---

## **zabalanditu**, zabalandi(tu), zabalanditzen da/du *ad* zabaldu eta handitu.

Herriak ere, Spencer-en historiaren filosofian, hasieran bereiziz doaz, bakoitza bere diferentzian garatu eta handituz, gero atzera elkartu eta handiagotuz, azkenean herri guztiek herri bakar bat **zabalanditzeraino** mundu guztian. Joxe Azurmendi

---

## **zabalarazi**, zabalaraz, zabalarazten *(orobat **zalbalduarazi** g.er.)* **1** du *ad* zabaltzera behartu.

Alfonbra eder bat **zabalarazi** zuen bere aurrean, ia dena gurutze txikiz josia. Askoren artean

Erakaskuntza sistema edo sare hau ezagutarazi eta **zabalarazi** nahian, " Aihertarrak " izeneko batasun batean elkartuak dira Ezkia ikastolan ibiltzen diren aihertar haurren burraso horiek. Herria

Erregearen aginduak **zabalarazi** egin zuen Mardokeoren izena erreinu osoan. Elizen arteko biblia

**2** irekiarazi.

Atzealdean, ardatz metalikotan lerratuz irekitzen zen atetzarra **zabalarazi** zuen espaziorik ez galtzeko. Bego Montorio

Maleta **zabalarazi** zioten karrikan bertan. Koldo Izagirre

Otoitza amaiturik, liburua hiru bider **zabalarazi** zuen anai Leonen eskuz. Askoren artean

Baionetarekin, hankak **zabalarazi** zizkion, eta, armarekin ziztatuz, beste aldera begira jarrarazi zuen. Juan Kruz Igerabide

Ikusi nuenak begiak **zabalarazi** zizkidan. Juan Kruz Igerabide

Azkenean ahoa **zabalarazi**, eta musu eman zidan, sakonki. Ramon Saizarbitoria

Bezperako Wall Streeten goranzko itxierak Europako merkatuak igoeren bidean **zabalarazi** bazituen ere, [...]. Berria - Ekonomia

---

## **zabalaro** *iz* aro zabala.

*Aprilis* hori, **zabalaroa** baita, dena xabaltzen-xabaltzen doan izadiaren ispiluan nork bere burua ikusteko deia edozein paraje eta zokotan, eta beti xori-musika atseginetan gozatzeko moduan. Pello Zabala

---

## **zabaldegi** *iz* eremu zabal laua, eskuarki gizakiak eraikia. ik **zabaltoki**.

Basilikaren **zabaldegian** belaunikaturik. Piarres Aintziart

Lekua: Bilboko Guggenheim museoko **zabaldegia**. Berria - Kultura

Igandean, lagun batekin joan nintzen probatzera, Saint-Denisko **zabaldegira**. Karlos Zabala

Aroa alde izanez geroz, Zelaietako **zabaldegian**, zerutik beheiti ikusiko ditugu erortzen soldadoak, aireko hegazkinetarik. Herria

Gero, inguruetako **zabaldegi** batera eraman eta bortxatu egin zuten, biek. Iñigo Aranbarri

Berak eta Hermionek atera zuten Ron estadiotik kanpora, eta **zabaldegian** zehar oihanaren ertzerantz eraman zuten. Iñaki Mendiguren

Gero, inguruetako **zabaldegi** batera eraman eta bortxatu egin zuten, biek. Iñigo Aranbarri

Urrezko herri baten soslaia bezala gelditu zitzaidan gogoan, kanpandorre zorrotzarekin, hondoko golko urdinarekin **zabaldegi** mugagabean. Koldo Izagirre

---

## **zabaldi** *(69 agerraldi, 29 liburu eta 29 liburutan; cf **lautada** 452 agerraldi, 59 liburu eta 60 artikulutan eta **ordoki** 301 agerraldi, 59 liburu eta 78 artikulutan)* **1** *iz* eremu natural zabal eta laua. ik **zabaltza; zabalgune 3**.

Lizarragako tunela igaro eta Lizarrako **zabaldi** aldera jaisten hasi ziren. Koro Navarro

Beti basoak, basotxoak, ibaiak ibaien itxurako, **zabaldiak zabaldien** itxurako, dena da berdin eta monotono. Josu Zabaleta

Gaztelako **zabaldian**, aldiz, euria eskasten doa udazkenera artekoan. Pello Zabala

Dagoeneko ageri ziren **zabaldiak** arroz-soroekin eta laranja-arbolekin, barraka zuriak estalki beltzarekin, palmondoren bat edo beste martxaren abiadan igarotzen zen, zerua ukituz bezala. Josu Zabaleta

Erebo -infernua, Zelai Eliseoen azpian zegoen **zabaldia** eta hango ibaia-. J.M. Olaizola "Txiliku"

**2** (izenondo eta izenlagunekin)

Gizon zaurituez eta hilez josia zegoen mendi gaineko **zabaldi** handia. Koro Navarro

Espainia aldean, **zabaldi** garai horretan batik bat, ur eskasia eta ur-egarria anitzetan aipaturiko kontua bilakatzen da. Pello Zabala

Geure inguru hauetan [...] barrualdeko **zabaldian** eta Nafar aldean eta Erriberan. Pello Zabala

**3** zabaldegia, zabalgunea.

Meskiten arteko **zabaldia** zeharkaturik, Divan Yolu kaletik jarraitu dut gorantz, Bazar Nagusiaren parera ailegatu arte. Jon Arretxe

Handik gutxira San Francisco plazako **zabaldian** agertu zen Andres, orube handi baten aurrean. Josu Zabaleta

Berezkoa baldin badu mugimendu hori, hots, berez duen energiari esker sortzen, kontserbatzen eta espazioko **zabaldi** amaigabeetan. Juan Martin Elexpuru / Bego Montorio

**4** irud/hed

Eta banator oroimenaren **zabaldi** eta jauregi handietara, bertan baitaude ezin konta ahala errainuren gordailuak, zentzumenek ekarriak. Imanol Unzurrunzaga

---

**zabaldu**, zabal(du), zabaltzen *(orobat **zabaltu** g.er.)* **1** du *ad* zabalera handiagoa eman; barreiatu. ik **hedatu**.

Beren lurraldea **zabaldu** ahal izateko. Elizen arteko biblia

Zonalde mistoa **zabaltzea** eskatuko dugu. Berria - Euskal Herria

Kokaguneak **zabaltzeko** planak Gazan bizi diren kolonoak lurraldetik ateratzeko ekimenarekin lotzen du Sharonek. Berria - Mundua

EB ekialdera **zabaltzeak** eragin dizkien kalteak azpimarratu zituen. Berria - Euskal Herria

Errepide hori hiru bidetik lau bidera **zabaltzeko** aukera. Berria - Euskal Herria

Zeure ospea agertu duzu eta gure lurraldearen mugak **zabaldu**. Elizen arteko biblia

Euskal nazionalismo moderatuaren apustu garrantzitsua da bere esparru politikoa **zabaltzeko**. Berria - Euskal Herria

Ipar Euskal Herrian abertzaleek ez dute bertze aukerarik beren eremua **zabaldu** nahi badute. Berria - Euskal Herria

Trukeen eremua **zabaltzeari** esker haz daiteke ekonomiaren produktibitate globala. Koro Navarro

Horri esker, antzinateko jakinduria matematikoa bereganatu zuten, eta hura gogotik **zabaldu**. Jon Muñoz

Kasu batean zein bestean, espazio politikoaren irazkortasunak eta pluraltasunak [...] **zabaldu** zuten merkataritza hiri beregainetan. Koro Navarro

Amodio guztien gainetik dagoen egiazko maitasunaren hazia **zabaltzen**. Askoren artean

Francisque Michel-ek xeheki aipatzen du hain xuxen Castellane prefetak 1802-an buhami guzien arrastatzeko **zabaldu** zuen manua. Herria

Zuen artean ere izango dira sasimaisuak, doktrina kaltegarriak **zabaltzen** saiatuko direnak. Elizen arteko biblia

Eguerdia pasatxo zela, beste prentsa ohar bat **zabaldu zuen**: [...]. Iñigo Aranbarri

Kritikari askok (Eric Rohmer-ek, besteren artean) filma, beste gauza askoren artean, "bere filmaketaren dokumental bat" ere badelako ideia **zabaldu** zuten. Josu Zabaleta

Eguberri kari, esperantza eta bakezko mezuak **zabaltzen** ohi dira, mundu hunek bide hobeago bat har dezan. Herria

Solidarioek zinpekoa "bortizki jo" zutela **zabaldu** zuen. Edurne Elizondo

Oraintxe bertan kalumnia bat **zabaldu** du bere aurka, ezin dela berarekin ezer ikasi. Bernardo Atxaga

Ur barera jaurtitako harria bezala erori zen esaldi hura, uhin isilak **zabalduz** sala guztira. Joseba Sarrionandia

Ogi egin berrian gurina **zabaldu** eta ahoan sartu zuen. Anjel Lertxundi

Taket hark ene uzkian berriz ere bero handia **zabaldu** zuen eta beroa nire erraietan hedatu zen. Aitor Arana

François Mitterand: France 2 gatean **zabaltzen** dituzte emankizun luze baten bortz zatiak. Herria

• **2** da *ad* zabalera handiagoa hartu; barreiatu.

Une horretatik aurrera, gero eta handiagoa da lanaren banaketa, eta merkataritza-eremua **zabaldu** ahala zabaltzen da banaketa ere. Koro Navarro

Goitik ikusita, gerrialdea **zabaldu** egin zitzaiola iruditu zitzaidan. Ramon Saizarbitoria

Kooperatiba horien adarrak mundu guzira **zabaltzen** dira. Herria

Kapitalismoaren sorrerarekin batera, Mendebaldea mundu osora eta etengabe **zabaldu** zen. Koro Navarro

Europar mundu-ekonomiaren nolakotasun kapitalistatik dator haren bokazio unibertsala, bestela esanda, munduko espazio osora **zabaltzeko** joera. Koro Navarro

Denok aztoratu ginen Longarte libro utzi behar zutelako berria **zabaldu** zenean. Koldo Izagirre

Zola 1902ko irailaren 29an hil zenean, haren heriotza hilketa izan zelako susmoa **zabaldu** zen berehala. Karlos Zabala

Hotsa **zabaldu** zen saindua zela eta goi-argia bi hizkuntzatan etortzen zitzaiola aldi berean, arabieraz eta ingelesez! Patxi Zubizarreta

Berbaroa **zabaldu** zen liburutegian, irriren bat entzun zen. Koldo Izagirre

Guareschik asmatutako pertsonaien izena herrialde askotara **zabaldu** eta mundu osoaren literatur ondarean sartu ziren. Koldo Biguri

Mugimendu heretikoak ere oso **zabalduak** zeuden Italiako erdi eta iparraldean, kataroena batik bat. Askoren artean

Ereinotzaren usain mela **zabaldu** zen airean. Bernardo Atxaga

Errautsa su hartzen hasi zenean, kea **zabaldu** zen sukaldean. Anjel Lertxundi

Azak egosten ari ziren nonbait, pernilarekin batera, hori esaten zion gelan **zabaldua** zen lurrinak. Felipe Juaristi

Horregatik eraman genituen funtzionario guztiak irteera ondora; sutea **zabaldu** eta alde egin behar izanez gero, arriskurik egon ez zedin. Rafa Egiguren

Gainean, erretako adreilu-puskekin egindako nukleoa **zabalduko** da, karea nahastuz hirutik bateko proportzioan. Santiago Iruretagoiena

Tresna hori oso **zabalduta** eta boladan egon zen XIX. mendearen erditik aurrera. Josu Zabaleta

Hildakoaren homosexualtasunaz **zabaldutako** zurrumurru zahar bat etorri zitzaidan gogora. Anjel Lertxundi

• **3** da/du *ad (tolesturik edo bildurik dagoenari)*

Gizonak eskua **zabaldu**, eta hatzekin zenbatzeari ekin zion. Bernardo Atxaga

Ukabileko hatz bat edo bi **zabalduz** gero, okerrago oraindik. Jose Morales

Hegalak lasai **zabaltzen** ahal dituzu, begiak errazago zorroztu zure azpian dagoen ihizia harrapatzeko. Filipe Bidart

Papera hartu eta **zabaldu** egin zuen, arraioak. Koldo Izagirre

Oholtzaren erdiraino joan, urka-bilurrei bizkar emanda jarri, eta agiri bat **zabaldu** zuen hartara ohitutako baten keinu irmoez. Anjel Lertxundi

Erdian te arrasto bat zeukan oihal zuri bat **zabaldu** zuen mahai gainean. Koro Navarro

Aldareko errautsak garbitu eta purpura gorrizko oihala **zabalduko** dute gainean. Elizen arteko biblia

Bazter uhin-hauslean eskegitako jantziak hezatu egiten dira; eguzkitan **zabaldurik**, ordea, lehortu. Xabier Amuriza

-**Zabaldu** mantal hori, erdibana egingo dugu -esan nion neskari. Koldo Biguri

Merkataritzak jarduera guztiak hartzen ditu pixkana, eta mugak gainditzuz **zabaltzen** ditu bere sareak, harik eta planetaren mailako merkatu bakarra osatzen duen arte.

Koro Navarro

Nork **zabaldu** ote du mapa zaharkitu hau lurrean, etxearen atarian, bisitarien lokatzak eta hautsak jasotzeko? Joseba Sarrionandia

Martinek besoak **zabaldu** zituen. Bernardo Atxaga

Berotuko niela otordu ganoratsua, **zabalduko** nizkiela bi ohe. Anjel Lertxundi

Lehortzeko **zabalduta** zuen alkandora batean hauts izpi bat aurkitzen bazuen, bizilagunei leporatzen zien errua. Koro Navarro

Pankarta handi bat **zabaldu** zuen han goian. Joxan Elosegi

**4** ireki.

Haren ondoren Taibeleren sabela itxi egin zen, eta ezerk ezin izan zuen hura gehiago **zabaldu**. Koro Navarro

Leihoa **zabalduko** bazenu sikiera... Anjel Lertxundi

Atea **zabaltzen** zidaten zaintzaleetarik kanpo, ez nuen nehor ikusten. Filipe Bidart

Ate bat **zabaltzen** han urrun, berriz hesten, beste ate bat **zabaltzen**, berriz hesten. Herria

Ostiko batez bere kutxa **zabaldu**, makila magikoa atera eta osaba Vernoni begira jarri zuen. Iñaki Mendiguren

Berehala nabaritu dut gure bizilekuko giro gozoa, frigorifikoa **zabaldu** eta orea ikusi dudanean. Joseba Sarrionandia

Ni naiz, bada, liburua **zabaldu** duen lehena. Anjel Lertxundi

Ordu hartan, kioskoa **zabaldu** gabe izaten zuen. Joxemari Iturralde

Gutuna **zabaldu** baino lehen jakin nahi zuen nor zen igorlea. Joxemari Iturralde

Motxilak **zabaldu** genituen, otartekoak, arrautza gogorrak eta haragi orea elkarren artean banatu, eta txandaka edan genuen termoetatik. Koro Navarro

Ondoan nuenak nire eskola-zorroa **zabaldu** zuen, eta entziklopedia ateratzen hasi zen. Juan Kruz Igerabide

Gas iturria **zabaldu** zuen. Gotzon Garate

Begiak **zabaldu** zituen. Anjel Lertxundi

Hermionek ahoa **zabaldu** zuen, beharbada Roni esan nahi ziolako zehazki nola erabili Deabruen Madarikazioa. Iñaki Mendiguren

Haren ezpain gerezi kolorekoak **zabaldu** egin ziren harriduraren harriduraz. Felipe Juaristi

Dusselek bere dentista kontsulta **zabaldu** du. Josu Zabaleta

"Ikasle hegalarien" ehiza **zabaldu** zen herrian. Josu Landa

Jendea semaforoa **zabaldu** zain gelditzen da, presatua doa espaloietan. Koldo Izagirre

Neurri batean, V. Biltzarrean **zabaldutako** lau fronteen estrategia jartzen zuten zalantzan. Rafa Egiguren

Europarren helburu nagusia, lehen garaian, urrearen eta boliaren bidea **zabaltzea** zen, eta esklaboen bidea **zabaltzea** XVI. mendearen bukaeratik aurrera. Koro Navarro

Asmo txarrarekin **zabaldutako** bidea balitz? Rafa Egiguren

Ontzia burdin sare batez estalia zegoen zuhurtzia handiz; estalkia **zabaldu** zuen. Karlos Zabala

**5** (era burutua izenondo gisa)

Hori zen iritzirik **zabalduena**, baina horrekin batera baziren, nork kontatzen zuen arabera, aldaketa nabarmenak. Felipe Juaristi

Egungo iritzi **zabalduenaren** arabera interesak daude, beti ez bada gehienetan, ideien aurretik. Iñaki Heras

Ile-adats solteak ziren, haragizko bandera **zabalduak**, kareaz garbituak izan balira bezalaxe zuritasunean are zuriagoak ziruditenak. Aritz Gorrotxategi

Esku **zabalduan** ipini zion erreboiloa, paper lodi horizko orri batean bildurik. Karlos Zabala

Mahaia inguratu eta kajoi **zabaldura** joan nintzen. Matías Múgica

Ate **zabalduan** neska beltz baten aurpegia begiz jo, eta bidean aurrera joan zen etxe atzeraino. Anton Garikano

Gero, mahaikideei mintzatu zitzaien, beso **zabalduez** hitzei lagunduz. Anjel Lertxundi

Haize korrontea sartzen zen ate handi **zabaldutik** eta freskura pixka bat zekarkion ardo usainezko giro bero hertsi hari. Karlos Zabala

**6** ***luze-zabaldu*** hedatu.

**Luze-zabal** ezazu gorputz puska hori zoru gainean eta zenbatu hemeretzi maila. Juan Garzia

### hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 8 aldiz agertzen direnak)

**agentziak zabaldu** (10); **agentziek atzo zabaldu** (11); **agentziek zabaldu** (30); **agentziek zabaldu zutenez** (18); **agindua zabaldu** (11); **ahoa zabaldu** (104); **ahoa zabaldu orduko** (8); **ahoa zabaldu zuen** (36); **ahorik zabaldu** (20); **aipatuz zabaldu** (11); **apur bat zabaldu** (18); **are gehiago zabaldu** (10); **argia zabaldu** (11); **armairua zabaldu** (12); **asko zabaldu** (41); **asko zabaldu da** (11); **ate bat zabaldu** (23); **atea kolpean zabaldu** (8); **atea zabaldu** (357); **atea zabaldu zen** (29); **atea zabaldu zuen** (47); **ateak zabaldu** (86); **ateak zabaldu ziren** (8); **aterik zabaldu** (10); **atzeko atea zabaldu** (8); **atzo zabaldu** (95); **atzo zabaldu zuenez** (26); **aukera zabaldu** (15); **aurrean zabaldu** (9); **azkar zabaldu** (16)

**barrena zabaldu** (10); **begiak zabaldu** (147); **begiak zabaldu orduko** (8); **begiak zabaldu zituen** (29); **beldurra zabaldu** (15); **berehala zabaldu** (27); **berehala zabaldu zen** (19); **berri agentziek zabaldu** (27); **berri bat zabaldu** (14); **berri zabaldu** (21); **berria zabaldu** (45); **berria zabaldu zen** (9); **berriak zabaldu** (16); **berriro zabaldu** (23); **berriz zabaldu** (10); **besoak zabaldu** (92); **besoak zabaldu zituen** (50); **bezala zabaldu** (17); **bidea zabaldu** (52); **bideak zabaldu** (10); **bihotza zabaldu** (14); **bolo bolo zabaldu** (9)

**camillok besoak zabaldu** (22)

**dei bat zabaldu** (13); **deia zabaldu** (40); **deia zabaldu zuen** (8); **deialdia zabaldu** (11); **denda zabaldu** (8)

**eguna zabaldu** (15); **egunkaria zabaldu** (14); **egunkariak atzo zabaldu** (9); **egunkariak zabaldu** (9); **epea zabaldu** (10); **erabat zabaldu** (15); **erakusketa zabaldu** (48); **erakusketa zabaldu dute** (22); **eremua zabaldu** (8); **eskua zabaldu** (14); **eskuak zabaldu** (12); **espedientea zabaldu** (23); **etxeko atea zabaldu** (11); **ezpainak zabaldu** (10); **eztabaida zabaldu** (9)

**gateak zabaldu** (14); **gateak zabaldu du** (9); **gehiago zabaldu** (42); **gelako atea zabaldu** (11); **gunea zabaldu** (8); **gutxi zabaldu** (8); **hamar herrialdetara zabaldu** (8); **hankak zabaldu** (12); **hegoak zabaldu** (13); **herrialdetara zabaldu** (16); **herrialdetara zabaldu da** (10); **herrian zabaldu** (12); **hil zela zabaldu** (9); **hotsa zabaldu** (17); **hotsa zabaldu zen** (11)

**informazioa zabaldu** (14); **irudiak zabaldu** (11); **iturriak aipatuz zabaldu** (9); **izua zabaldu** (8)

**jaiegunetan zabaldu** (8)

**kezka zabaldu** (11); **kolpean zabaldu** (15); **kolpean zabaldu zen** (11); **kutxa zabaldu** (15)

**lasaitasun mezua zabaldu** (17); **laster zabaldu** (16); **laster zabaldu zen** (11); **lau haizeetara zabaldu** (13); **lau haizetara zabaldu** (13); **leiho bat zabaldu** (9); **leihoa zabaldu** (41); **leihoa zabaldu eta** (11); **leihoa zabaldu zuen** (12); **leihoak zabaldu** (14); **liburua zabaldu** (32)

**mahai gainean zabaldu** (10); **mezua zabaldu** (47); **mezua zabaldu nahi** (18); **mundu osora zabaldu** (15); **mundura zabaldu** (8); **museoa zabaldu** (9)

**nazioartera zabaldu** (9); **nola zabaldu** (15)

**ondo zabaldu** (8); **osoan zabaldu** (32); **osora zabaldu** (64)

**pankarta zabaldu** (12); **pare zabaldu** (10); **parez pare zabaldu** (10); **pixka bat zabaldu** (11); **poltsa zabaldu** (8)

**txostena zabaldu** (8)

**zabaldu ahal** (28); **zabaldu ahal izateko** (11); **zabaldu ahala** (18); **zabaldu arte** (13); **zabaldu aurretik** (23); **zabaldu baino lehen** (16); **zabaldu beharra** (14); **zabaldu berri** (33); **zabaldu bezain laster** (13)

**zabaldu ondoren** (30); **zabaldu orduko** (38); **zabaldu ostean** (8)

**zabaldu zen atea** (9); **zabaldu zen atzo** (17); **zabaldu zituen atzo** (11); **zabaldu zituen begiak** (12); **zabaldu zuen atea** (10); **zabaldu zuen atzo** (45); **zabaldu zuten atzo** (42)

**zehar zabaldu** (12); **zurrumurru bat zabaldu** (8); **zurrumurrua zabaldu** (33); **zurrumurrua zabaldu da** (9); **zurrumurrua zabaldu zen** (12); **zurrumurruak zabaldu** (10)

**aski zabaldua** (9); **dei bat zabaldua** (12); **oso zabaldua** (56); **oso zabaldua dago** (25); **zabaldua da** (42); **zabaldua dago** (32); **zabaldua izan** (24); **zabaldua izanen** (22); **zabaldua izanen da** (16); **zabaldua zegoen** (16); **zabaldua zen** (30)

**iraken zabalduak** (12)

**ahoa zabalduko** (8); **atea zabalduko** (15); **ateak zabalduko** (15); **berriak zabalduko** (14); **bidea zabalduko** (10); **epea zabalduko** (9); **erakusketa zabalduko** (14); **euskal irratiek zabalduko** (8); **gaur zabalduko** (16); **gehiago zabalduko** (12); **irratiek zabalduko** (8); **noiz zabalduko** (16); **osora zabalduko** (18); **zabalduko ditu ateak** (9)

**oso zabaldurik** (10)

**atzo zabalduriko** (15)

**gainean zabalduta** (8); **iraken zabalduta** (8); **oso zabalduta** (32); **oso zabalduta dago** (9

**zabalduta dago** (19); **zabalduta dagoela** (8); **zabalduta dagoen** (19); **zabalduta daude** (8); **zabalduta dauden** (14); **zabalduta zegoen** (17)

**atzo zabaldutako** (37); **bidez zabaldutako** (11); **inguruan zabaldutako** (8)

**zabaldutako agiri** (14); **zabaldutako agirian** (9); **zabaldutako bidea** (8); **zabaldutako bideo** (15); **zabaldutako bideo batean** (10); **zabaldutako datuen arabera** (17); **zabaldutako mezu** (8); **zabaldutako oharrean** (8)

**zabaldutakoaren arabera** (8)

**begiak zabalduz** (8); **besoak zabalduz** (15); **zabalduz doa** (10); **zabalduz joan** (17)

**atea zabaltzea** (8); **ateak zabaltzea** (11); **bidea zabaltzea** (9); **gaitza zabaltzea** (11); **gehiago zabaltzea** (11); **guztietara zabaltzea** (9); **informazioa zabaltzea** (13); **osora zabaltzea** (12)

**zabaltzea erabaki** (29); **zabaltzea eragozteko** (16); **zabaltzea espero** (9); **zabaltzea lortu** (11); **zabaltzea proposatu** (10)

**atea zabaltzeko** (21); **ateak zabaltzeko** (18); **berri bat zabaltzeko** (9); **berriak zabaltzeko** (10); **bidea zabaltzeko** (13); **gehiago zabaltzeko** (8); **informazioa zabaltzeko** (14); **mezua zabaltzeko** (17); **mundura zabaltzeko** (10); **prozesu bat zabaltzeko** (8)

**zabaltzeko agindu** (16); **zabaltzeko arriskua** (11); **zabaltzeko asmoa** (28); **zabaltzeko asmoz** (13); **zabaltzeko aukera** (40); **zabaltzeko bide** (8); **zabaltzeko eskatu** (31); **zabaltzeko prest** (10)

**ahoa zabaltzen** (19); **asko zabaltzen** (14); **ate bat zabaltzen** (13); **atea zabaltzen** (75); **ateak zabaltzen** (51); **aukera zabaltzen** (17); **aukerak zabaltzen** (10); **bakarrik zabaltzen** (9); **begiak zabaltzen** (21); **berri zabaltzen** (11); **berria zabaltzen** (10); **berriak zabaltzen** (13); **berriz zabaltzen** (8); **besoak zabaltzen** (8); **bidea zabaltzen** (25); **bidez zabaltzen** (30); **bidez zabaltzen da** (8); **bitartez zabaltzen** (10); **bizkor zabaltzen** (18); **bizkor zabaltzen ari** (13); **dei bat zabaltzen** (8)

**gainean zabaltzen** (10); **gaitza zabaltzen** (8); **guztietara zabaltzen** (9); **herrian zabaltzen** (9)

**informazioa zabaltzen** (11); **leihoa zabaltzen** (8); **liburua zabaltzen** (9); **mezua zabaltzen** (12)

**zabaltzen ahalegindu** (8); **zabaltzen ari** (264); **zabaltzen ari da** (59); **zabaltzen da** (146); **zabaltzen du** (102); **zabaltzen hasi** (60); **zabaltzen hasia** (8); **zabaltzen jarraitzen** (15); **zabaltzen jarraitzen du** (12); **zabaltzen joan** (11); **zabaltzen saiatu** (8); **zabaltzen zen** (88); **zabaltzen zuen** (84)

**zehar zabaltzen** (12)

**atea zabaltzera** (19); **zabaltzera joan** (14); **zabaltzera joan zen** (8)

---

zabalduarazi ik **zabalarazi**.

---

# zabaldura *iz* zabaltzea; hedadura.

Ohartua zinen jada zu, irakurle ximena, bazuela gure kasetak gero-ta-gehiago freskotasun bere argazki-marrazkietan, bai-eta idekitasun eta **zabaldura** bat ere berriketan. Herria

Angelu zuzenean ebakitako horma handi bat da fatxada, leihorik gabe, banorik gabe, eta portikoa beste **zabaldurarik** eskaintzen ez diola bistari. Koldo Izagirre

Ostatuko **zabaldurak** begiz zeharkatzen zituela, Man-ek erran zion: [...]. Itxaro Borda

Gorputzak [...] baditu zelula batzuk presioarekiko sentikor direnak, arteria handietan, bai eta beste zelula batzuk ere **zabaldurarekiko** sentikor direnak, zain nagusietan eta bihotzeko aurikuletan. Irene Aldasoro

Ibai horrek lekuka ehun kilometroko **zabaldura** duelarik. Herria

Egitate hauen **zabaldura** gutxitzeari eutsi zion beste behin. Berria - Mundua

---

# zabalduxe 1 *adlag* zabaldu samar.

Lehenago ere, kalean ez bada baserrietan bederen, **zabalduxea** egon behar zuen, zeren eta 1838ko azaroaren 27an Esparterok debekatu egin baitu txapela janztea. Koldo Izagirre

Atea **zabalduxe** utzi du. Jokin Muñoz

Umeak betazalak **zabalduxe** dauzka. Jokin Muñoz

**2** (izenondo gisa)

Gonak odolez zipriztinduak, hankak **zabalduxeak** belaunburuen aldean, polizia aleman bat, SSetako bat, espaloi erdian barrez, eskuak aldakan. Felipe Juaristi

Badirudi esaera horrek, gure artean **zabalduxea** den sinesteren batean dituela bere erroak. Patziku Perurena

---

# zabalera *(orobat **zabalero** g.er.)* 1 *iz* zabaltasunaren neurria; bigarren dimentsioaren neurria.

Neurtu zuen, bada, hiria makilaz, eta bi mila kilometrotik gora zen; luzera, **zabalera** eta altuera berdinak ziren. Elizen arteko biblia

Gero hauteman nuen ezberdinak zirela mailen **zabalera** eta garaiera. Juan Garzia

Hogei bat yardako **zabalerako** eremu irekia zen, karelak inguraturik behealdean. Agustin Otsoa

Otea pikatua zuen metro bat **zabalerako** eta ehun metro luzerako lerroan. Eneko Bidegain

Gordelekua zer-nolakoa zen asmatu zuen lehenengoz, alegia pasillo labur baten tankera zuela, luzeran sei pauso betekoa eta **zabaleran** bi eskasekoa. Bernardo Atxaga

Obraren elementuak egokitu behar dira elkarrekin, altuera **zabalerarekin**, eta **zabalera** luzerarekin. Santiago Iruretagoiena

Lerroa, berriz, **zabalerarik** gabeko luzera da. Jon Muñoz

Azalera, azkenik, **zabalera** eta luzera baino ez duena da. Jon Muñoz

Tamaina handiagokoa zen hau, **zabaleraz**; nahiz mehe-mehea. Txillardegi

Tenpluko sala handiaren aurreko atalondoa hamar metro zabal zen -tenpluaren **zabalera** bera-, eta bost metro luze tenplu barnerantz. Elizen arteko biblia

Eraikin-multzo hark, iparraldetik, berrogeita hamar metroko luzera zuen, eta hogeita bosteko **zabalera**. Elizen arteko biblia

Atalondoaren luzera hamar metrokoa zen, eta **zabalera** seikoa. Elizen arteko biblia

**Zabalera** hori duten espazioak markatuko dira luzera guztian. Santiago Iruretagoiena

Erdialdea, jakina, hura baitzen **zabalerarik** handiena, amildegi irekiaren gain-gainera zetorren. Koro Navarro

Kale bat eraiki zuen oso **zabalera** handikoa, eta haren erdian Mausoleoa egin zuen. Santiago Iruretagoiena

Plataformak gutxienez hamabi oineko **zabalera** izango du. Santiago Iruretagoiena

Hirurak abian jartzen ziren, orpoak arrastaka, espaloien **zabalera** guztia hartuz, jendea galtzadara jaistera behartzen zutela. Karlos Zabala

Ildaxken **zabalera** aldatzen joango da. Santiago Iruretagoiena

Adin ertaineko gizon bat zen, luzera baino **zabalera** handiagokoa, baldarra oso. Joxerra Garzia

**2** hedadura.

Zeruaren garaiera, lurraren **zabalera**, leizearen sakonera, nork arakatu? Elizen arteko biblia

Zuhaitzari ebakia egin behar zaio erdiko bihotzeraino **zabalera** guztian, eta horrela utzi, ebaki horretatik lehor dadin ondo izerdi guztia. Santiago Iruretagoiena

Merkatu bikaina eta gari-lurrak “Egipto osoaren **zabalera** hartzen zutenak”. Santiago Iruretagoiena

Hartara, Euskal Herriaren **zabalera** subjektiboa kalkulatuko genuen, hala nola tenperatura subjektiboa kalkulatzen den. Bernardo Atxaga

Une hartan distira bizi bat Angararen **zabalera** guztia argitzen ari zen. Karlos Zabala

Espazio baketsu honen **zabaleran** istant honen edo haren puntuak ez du muntarik. Piarres Aintziart

Ez duzu pentsatu behar misterio sakon horiek gutariko bakar batek ere bere **zabalera** osoan ezagut ditzakeenik. Xabier Kintana

**3** (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

Ez da harritzekoa izango hain lur-**zabalera** handian ezin konta ahala zuku-barietate egotea. Santiago Iruretagoiena

Basilikaren kolomak portiko-**zabaleraren** neurrikoak egin behar dira altueran. Santiago Iruretagoiena

Zakurrok ez ezik, 20 kilotik gorakoak, 60-80 zentimetroko bular **zabalera** dutenak, 50-70 zentimetro gora. Gotzon Garate

**4** ***luze-zabalera*** *(orobat **luzezabalero**)* eremua, azalera.

Zaindariak kokatu behar izan ditugu oholesiaren **luze-zabalera** osoan, eta gizon ugari gauean zehar ateak begiratzen. Agustin Otsoa

Handiagoa egin zuen **luze-zabaleran**. Juan Kruz Igerabide

Zaindariak kokatu behar izan ditugu oholesiaren **luze-zabalera** osoan, eta gizon ugari gauean zehar ateak begiratzen. Agustin Otsoa

Ez gure herri horretan bakarrik, baizik eta munduaren **"luzezabalero"** guzian. Patziku Perurena

Bi oihalek **luze-zabalera** bera zuten. Monika Etxebarria

**hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**

**abakoaren zabalera** (5); **bere zabalera osoan** (3); **erdiko zabalera** (5); **hiru metroko zabalera** (4); **luzera eta zabalera** (5); **metro bateko zabalera** (4); **metroko zabalera** (22); **tenpluaren zabalera** (3); **tenpluaren zabalera bera** (3)

**zabalera bera** (5); **zabalera emanez** (3); **zabalera eta lodiera** (4); **zabalera guztia** (5); **zabalera guztia hartzen** (3); **zabalera guztian** (5); **zabalera handiko** (5); **zabalera hartu** (3); **zabalera hartzen** (3); **zabalera izan** (3); **zabalera izango** (7); **zabalera izango du** (5); **zabalera osoan** (10); **zabalera zuen** (6)

**metroko zabalerako** (4)

**zabaleraren erdia** (3)

**zabalerarik gabeko luzera** (3)

---

zabalero ik **zabalera**.

---

# zabalgailu *iz* zabaltzeko gailua.

Utero-lepoan zunda bat sartzen zizun **zabalgailu** baten laguntzaz. Joseba Urteaga

Nire hanken artean ahaleginduz **zabalgailua** sartzen didan emakumea ikustean, iruditzen zait neu naizela mundura jaiotzen ari dena. Joseba Urteaga

---

# zabalgarri 1 *izond* zabal daitekeena.

Hemen nabil, labana handienen artean, gazta **zabalgarriarekin** eta yogurrekin egin litezkeen saltsak eta desertak irakasten moja xahar bati eta lau sozial gazteri. Koldo Izagirre

**2** ***giltza zabalgarri*** ik **giltza 18**.

Kamioiaren azpian aurkitu nuen, eskuan **giltza zabalgarri** bat zeukala, bihotzekoak jota, hilik. Juan Kruz Igerabide

**Giltza zabalgarriak**, aliketak, bihurkinak, xingola isolatzailea ere izaten zituen. Koro Navarro

---

# zabalgune *(106 agerraldi, 28 liburu eta 28 artikulutan; orobat **zabalune** 17 agerraldi, 11 liburu eta artikulu 1ean; Euskaltzaindiaren Hiztegian **zabalgune** erabiltzea gomendatzen da)* 1 *iz* hiri batean, alderdi zaharretik at etxe berriak eraikitzen diren gunea.

Garai hartan, zabaltzen ari zen hiria, **zabalgune** berriak eraikitzen ari ziren, eta horrek modernitate kutsu nabariagoa eman zion. Askoren artean

Bigarrenik, hiri eta herrien **zabalguneetan** eraiki direnak daude, industriarako erabiltzen ziren orubeak baliatuta. Berria - Ekonomia

Mortonek New York-eko **zabalgunerako** proiektua sinatu du. Lopez de Arana

Amarako **zabalgunearen** obrak hasten dira. Askoren artean

Bilboko hirigintzaren **zabalgune** garaian sortua. Berria - Kultura

**2** *(Z larriarekin)*

Kokapena, berriz, alde zuen, **Zabalgunean** bai, baina Alde Zaharreko nire bizitegi berrira auto-minik gabe ailegatzeko maneran. Aingeru Epaltza

Alde Zaharreko eta **Zabalguneko** hainbat karrika itxita egongo dira. Berria - Euskal Herria

200 metro karratu, **Zabalgunearen** erdi-erdian. Aingeru Epaltza

Arriagaren partitura, marrazki eta objektu pertsonalen erakusketa (**Zabalguneko** eraikinean, abenduaren 1etik 29ra). Berria - Harian

**Zabalguneko** Merkatarien Elkarteko presidenteak. Berria - Harian

Denda-mutil hasi zen **Zabalguneko** merkatu-plazako postu batean. Aingeru Epaltza

Kaleak ez ziren jadanik irregularrak eta Vedado auzoan aurkitu nintzen, angelu zuzenen tankeran baitzegoen antolatua, Bartzelonako **Zabalgunea** bezalaxe. Jon Muñoz

Donostiako **Zabalguneko** kafetegi bateko komuneko atean rotuladorez idatzia. Iñigo Aranbarri

Teknologia berrien bidezko proiektuen erakusketa (**Zabalguneko** azokan), eta Teknologia Berrien Nazioarteko Biltzarra (Euskaldunan). Berria - Kultura

-Eta **Zabalgune** zaharreko txaleten aldean ibiltzen zen emakume erdi eroari egin hiona? Aingeru Epaltza

Bigarren **Zabalguneko** auzokideak kontuan izan ditu, halaber. Berria - Euskal Herria

**3** zabaldia.

Barrualdean musikarien aterpea zegoen, eta haren aurrean **zabalgune** handi bat, maiz futbolean egiteko eta bizikletan ibiltzeko baliatzen genuena. Pedro Alberdi

Oihanera eraman zituen gero, eta **zabalgune** batera heldu zirelarik, zalditik jaitsi, gazteak lurrean belaunikarazi, eta ezpata atera zuen zorrotik. Patxi Zubizarreta

Hondakinak besterik ez ditut ikusten, lauzaz eginiko bidea eta **zabalgune** bat. Koldo Izagirre

Mendian gora lau bat kilometro egin ondoren, zelaiz eta pinudiz inguratutako **zabalgune** batera helduko zarete. Aitor Arana

Baso hartan, belarrak estalitako **zabalgune** bat zegoen eta hantxe gelditu ginen. Aitor Arana

Santik, berrehun metro aldapan behera gidatu ondoren, bide bazterreko **zabalgune** batean gelditu du kamioneta. Patxi Iturritegi

Israelgo Armadak alerta gorena ezarri eta bost mila polizia bidali ditu Meskiten **Zabalgunera**. Berria - Mundua

**4** zerbait zabaltzen den gunea.

Ilargia bera, berriz, zeruan eta errekaren **zabalgune** hartan aldi berean ikus genezakeen. Aitor Arana

**hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**

**meskiten zabalgunean** (4)

**zabalguneko azoka** (3); **zabalguneko azokan** (3)

---

## zabalgunetxo *(corpusean **zabalunetxo** soilik) iz*

Osabak begiralditxo bat eman du San Bizente elizaurreko **zabalunetxora**. Txillardegi

---

## zabalik 1 *adlag* zabalduta; irekita.

Inork itxi ezin duen atea utzi dut zure aurrean **zabalik**. Elizen arteko biblia
Antzinako ateak, zaudete **zabalik**, badator-eta erregea, aintzaz betea!
Bere buru gainean eta azken solairuan, leiho bat ikusi zuen **zabalik**. Aitor Arana
Gero kutxa Harryren logelan zehar eraman zuten **zabalik** zegoen leihora. Iñaki Mendiguren
Hara, zerua **zabalik** ikusten dut eta Gizonaren Semea zutik Jainkoaren eskuinaldean. Elizen arteko biblia
Irakurketa-gela **zabalik** zegoen, eta bertara sartu nintzen bakarrik egoteko. Anjel Lertxundi
Ikastetxea **zabalik** edukitzeko arrazoi bakarra. Iñaki Mendiguren
Liburuari **zabalik** eutsi eta irakurtzeko itxura egiten saiatu nintzen. Ramon Saizarbitoria
Hirugarren galdeketa dozier bat bada **zabalik** mahaiaren gainean. Marzel Etxehandi
Ikerketa **zabalik** dago oraindik eta, zenbait iturriren arabera, 13 emakume hil zituela pentsatzen da. Berria - Gaiak
"Jokoa **zabalik** dago" esan zuen karta-emaileak. Iñaki Zabaleta
Poltsa **zabalik** zegoen, eta haren edukia desordenuan. Aingeru Epaltza
Udan **zabalik** uzten zituzten ateak, barrena egurasteko. Anton Garikano
Logelara igo zenean leihoa **zabalik** utzi zuen, izarrak bistan izateko. Joseba Sarrionandia
Amaren logelarantz begiratu zuen, zurezko kontraleihoak **zabalik** baitzeuden. Joseba Sarrionandia
Seguru zegoen gurasoek leihoa beti **zabalik** utziko zutela. Julen Gabiria
**Zabalik** uzten dira, batzuetan hogei kilometro luzerakoak. Joseba Sarrionandia
Arduragabekeria barkaezina zela medio, kanila bat **zabalik** ahaztu zuen. Bego Montorio
Ezker begia **zabalik** zuen, baina begiaren zuria baino ez zitzaion ikusten. Unai Iturriaga
Ahoa **zabalik** du, Ophelia-n bezala, goiko hortzak agerian. Ramon Saizarbitoria
Begiak **zabalik** edukitzen saiatu zen, baina sugar berdeen zurrunbiloak zorabiatuta sentiarazi zuen. Iñaki Mendiguren
Izan ere, begiak **zabalik** ditu, baina arraildurak besterik ez dira. Monika Etxebarria
Ahaleginak egiten zituen bere begi txundituak **zabalik** edukitzeko. Karlos Zabala
Bidea **zabalik** dago. Patxi Zubizarreta

**2** (ezkerrean duen izenari lotua)

Trenari begira, eskuak gora eta zangoak **zabalik** jarri gaituzte eta paper eske datoz, banan bana. Joseba Sarrionandia
Izpirituaren erabaki aske bati esker mintzatzen direla, isiltzen direla, edo zernahi egiten dutela uste dutenek begiak **zabalik** egiten dute amets. Piarres Xarriton
Bi besoak **zabalik** hartu ditu Frantziak [...] langileak. Herria
Amak besoak **zabalik** hartu zituen. Eskarne Mujika
Horra 8 hilabete kanpalekuan naizela -anitz sofritu dut, anitz ibili harat-hunat, anitz so egon, beharriak **zabalik** -. Marzel Etxehandi
Belarriak **zabalik** ematen genuen gaua gurasoek gauza interesgarririk esaten ote zuten. Pello Lizarralde
Neska ohean utzi zuen, izterrak **zabalik**, lekeda zeriola azpietan behera. Itxaro Borda
Begiak **zabalik** behatzen zion Akilesek osabari. Joan Mari Irigoien
Ez dago alderatzerik aterkia **zabalik** zetorkidan mutila ikusterakoan sentitzen nuen hutsunea eta hildakoak utzi zidana. Anjel Lertxundi

**3** (ezkerrean duen izenari lotua eta aditza ezabaturik)

Baineran zegoen Jean Claude odol putzu zabal batean, begiak eta ahoa **zabalik**. Xabier Mendiguren Elizegi
Geldi-geldirik egon nintzen, ahoa **zabalik**, hain nengoen harritua. Fernando Rey
Ziegako atea itxi bezain laster, salto bat eman eta, eskua **zabalik**, kolpe bat eman diozu paretari indarrez. Rafa Egiguren
Besoa tinkatu zion Vernerri, urduri, hatzak **zabalik** eta gogor estutuz. Jose Morales
Gero, futbol atezainaren posturan jarri naiz, hankak **zabalik** eta enborra makur. Harkaitz Cano
Jaunaren etxeko santutegian ezarri zituen Salomonek hegadun izakiak, hegoak **zabalik**. Elizen arteko biblia
Israeldarren biltzar osoaren aitzinean, eskuak zerurantz **zabalik**. Elizen arteko biblia
Urte osoan **zabalik**. Josu Zabaleta

**4** (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa, elkarketak adizlagun balioa duela)

"Greziarren opariak" esku **zabalik** onartzea, erlijioak izan edo gailuak izan. Iñaki Mendiguren
Emaztea une batez begira gelditu da aho **zabalik**, aurpegia atezuan eta irrikor. Monika Etxebarria
Harry aho **zabalik** geratu zen, ikusten ari zenaz erabat ohartu zenean. Iñaki Mendiguren
Arrietak, aho **zabalik**, sinesgaitz begiratzen zion pistolari zerion ke hariari. Migel Angel Mintegi
Gurasoek beso **zabalik** hartu ninduten. Harkaitz Cano
Esan behar da, hala ere, Bordelek beso **zabalik** eta atseginez hartu gaituela. Edorta Jimenez
Neskak gizonen gainean hanka **zabalik** eserita. Xabier Mendiguren Elizegi
Bo Derek zango **zabalik** baino lizunagoa zen mugimendu sotil hura. Unai Iturriaga
Neskamearen aurretik iraganarazi zuen, ate **zabalik** baitzuten zain. Mirentxu Larrañaga

**5** ***zabal-zabalik***

Koadernotxoa **zabal-zabalik** jarri du mantelaren gainean. Monika Etxebarria
Gero **zabal zabalik** egon da luzaz lurrean, anartean besteek ez zutela deus egiten ahal. Herria
Korintoarrok, xalotasun osoz mintzatu natzaizue, **zabal-zabalik** ireki dizuet neure bihotza. Elizen arteko biblia
Arrats batean, Florent etxera zihoalarik, Claireren atea **zabal-zabalik** zegoela ikusi zuen haren gelaren aurretik igarotzean. Karlos Zabala
Orduan **zabal-zabalik** izango ditu ate guztiak. Berria - Harian
Haien begiek, **zabal-zabalik** eta tinko, itsasoa eta zerua islatzen zuten geldotasunez. Monika Etxebarria
Begiak **zabal-zabalik** ditu eta lepoa gora. Harkaitz Cano
Ate ondoan zutik, **zabal-zabalik** ditu begiak. Pello Lizarralde
Honela esan zien begiak **zabal-zabalik** zituztela begiratzen ziotenei: [...]. Aitor Arana
-Zerk kezkatzen zaitu? -esan zuen, begi urdin handiak **zabal-zabalik** zituela. Fernando Rey
Eskua eztarrira eraman du, begiak harriturik, **zabal-zabalik** dituela. Monika Etxebarria
Eskuak altxatu zituen **zabal-zabalik**. Karlos Zabala
**Zabal-zabalik** zeuzkaten begiak, ahariaren antzera. Jose Morales

**Zabal-zabalik** nitian nik begiak, harat eta honat beha. Joan Mari Irigoien

Haren lagun onei, berriz, **zabal-zabalik** dizkiet eskainiko besook, eta, pelikano bizi-emaile amultsuak legez, neure odolaz ditut bazkatuko. Juan Garzia

Txitxikovek biribil-biribil begiak eta **zabal-zabalik** ahoa begiratu zion Kostanjoglori begietara, harri eta zur geratu balitz bezala. Jose Morales

**6** (ezkerrean duen izenari lotua)

Jendeak barrez eta begiak **zabal-zabalik** begiratzen zion. Iñaki Mendiguren

Belarriak **zabal-zabalik** entzuten nituen kontu haiek guztiak. Aitor Arana

Aizu, ez zara horien atzetik ibiliko ezta? -begiak **zabal-zabalik** galdetu zion. Migel Angel Mintegi

Bularra igurtzen zuen, ahoa **zabal-zabalik** hartzen zuen arnasa. Jose Morales

**7** (ezkerrean duen izenari lotua eta aditza ezabaturik)

Tente dago, begiak **zabal-zabalik**. Monika Etxebarria

Kontaketak iraun bitartean txundituta egon zen Lisa, belarriak tente eta begiak **zabal-zabalik**, ia kliskatzerik gabe. Migel Angel Mintegi

Izuaren izuz begiak beren zuloetatik zoro-zoro aterata, ahoa **zabal-zabalik**, dardarka, hatsanditurik, isilik. Jose Morales

Untxi larrutu bat zegoen etzanda, barren hustua, lau gorputz adarrak **zabal-zabalik**, burua odoletan. Karlos Zabala

Aurpegia ubela zeukan, begiak iraulita, ahoa **zabal-zabalik** eta mihia zintzilik alde batera okertuta. Migel Angel Mintegi

Hainbat txorimalo zegoen, haga luzeetan jarririk eta besoak **zabal-zabalik**, txoriak uxatzeko hain zuzen ere. Jose Morales

Norak, begiak **zabal-zabalik**, ez zuen deus erantzun. Anjel Lertxundi

**hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**

**aho zabalik** (219); **aho zabalik begira** (6); **aho zabalik begiratu** (6); **aho zabalik begiratzen** (4); **aho zabalik dago** (4); **aho zabalik entzun** (4); **aho zabalik entzuten** (4); **aho zabalik gelditu** (11); **aho zabalik geratu** (33); **aho zabalik geratzen** (9); **aho zabalik utzi** (20); **aho zabalik utziko** (5); **aho zabalik uzten** (5); **aho zabalik zegoen** (4); **ahoa erdi zabalik** (5); **ahoa zabal zabalik** (17); **ahoa zabalik** (55); **arte dago zabalik** (6); **arte zabalik** (12); **arte zabalik egongo** (5); **artean zabalik** (9); **ate guztiak zabalik** (12); **atea beti zabalik** (5); **atea erdi zabalik** (5); **atea zabal zabalik** (11); **atea zabalik** (121); **atea zabalik dago** (6); **atea zabalik utzi** (14); **atea zabalik utzita** (4); **atea zabalik zegoen** (25); **ateak beti zabalik** (4); **ateak ere zabalik** (4); **ateak zabal zabalik** (17); **ateak zabalik** (116); **ateak zabalik daude** (5); **ateak zabalik izanen** (9); **ateak zabalik izango** (6); **ateak zabalik uzteko** (4); **aukera guztiak zabalik** (5); **aukera zabalik** (10); **aurkezteko epea zabalik** (4)

**begi zabalik** (7); **begiak zabal zabalik** (101); **begiak zabalik** (74); **begiak zabalik zituen** (4); **belarriak zabal zabalik** (4); **belarriak zabalik** (4); **beso zabalik** (25); **beso zabalik hartu** (4); **besoak zabal zabalik** (5); **besoak zabalik** (56); **besoak zabalik eta** (4); **besoak zabalik hartu** (8); **beti zabalik** (23); **bezain zabalik** (5); **biak zabalik** (5); **bidea zabal zabalik** (5); **bidea zabalik** (20); **bidea zabalik dago** (4); **bideak zabalik** (5); **bihotza zabalik** (4); **borta zabalik** (4)

**dago zabalik** (18); **daude zabalik** (12); **denda zabalik** (4)

**egongo da zabalik** (20); **epea zabalik** (15); **epea zabalik dago** (8); **erabat zabalik** (5); **erakusketa zabalik** (8); **erdi zabalik** (31); **eskolak zabalik** (4); **esku zabalik** (7); **eskua zabalik** (16); **eskuak zabalik** (9); **etxeko atea zabalik** (5)

**guztiak zabalik** (35); **guztiak zabalik zeudela** (5); **guztiz zabalik** (5)

**hanka zabalik** (8); **hankak zabal zabalik** (7); **hankak zabalik** (21); **hegalak zabalik** (4); **hegoak zabalik** (7); **hipotesi guztiak zabalik** (6)

**ikerketa zabalik** (5)

**leihoa zabal zabalik** (5); **leihoa zabalik** (21); **leihoa zabalik zegoen** (7); **leihoak zabalik** (13)

**mahai gainean zabalik** (4); **mundura zabalik** (4)

**ni aho zabalik** (4)

**operazioa zabalik** (5); **operazioak zabalik** (8); **operazioak zabalik jarraitzen** (4); **oraindik zabalik** (14)

**parez pare zabalik** (5); **prozesua zabalik** (7)

**zabal zabalik** (263); **zabal zabalik begiratzen** (4); **zabal zabalik ditu** (6); **zabal zabalik entzuten** (4); **zabal zabalik geratu** (4); **zabal zabalik utzi** (4); **zabal zabalik zegoen** (5); **zabal zabalik zeuden** (5); **zabal zabalik zeuzkan** (5); **zabal zabalik zituela** (11); **zabal zabalik zuela** (4)

**zabalik aurkitu** (6); **zabalik begira** (8); **zabalik begiratu** (8); **zabalik begiratzen** (9); **zabalik begiratzen zion** (4)

**zabalik da** (17); **zabalik dago** (80); **zabalik dago oraindik** (10); **zabalik dagoela** (22); **zabalik dagoen** (31); **zabalik dagoena** (5); **zabalik daude** (25); **zabalik daudela** (14); **zabalik dauden** (6); **zabalik dauka** (5); **zabalik dauzka** (4); **zabalik den** (8); **zabalik ditu** (17); **zabalik dituzte** (4); **zabalik dituztela** (4); **zabalik du** (6); **zabalik duela** (5)

**zabalik eduki** (8); **zabalik edukitzea** (4); **zabalik edukitzeko** (4); **zabalik edukitzen** (10); **zabalik egiten** (4); **zabalik egoitzan** (6); **zabalik egon** (27); **zabalik egon behar** (6); **zabalik egon zen** (5); **zabalik egonen** (8); **zabalik egonen da** (4); **zabalik egongo** (27); **zabalik egongo da** (8); **zabalik egongo dira** (4); **zabalik egoten** (16); **zabalik egoten ziren** (5); **zabalik entzun** (4); **zabalik entzuten** (9); **zabalik eusten** (4); **zabalik eutsi** (6)

**zabalik gelditu** (14); **zabalik gelditu zen** (5); **zabalik geratu** (49); **zabalik geratu da** (5); **zabalik geratu zen** (27); **zabalik geratu ziren** (4); **zabalik geratuko** (5); **zabalik geratzen** (14)

**zabalik hartu** (18); **zabalik hartzen** (4)

**zabalik ikusi** (13); **zabalik ikusten** (4); **zabalik izan** (19); **zabalik izanen** (14); **zabalik izanen da** (4); **zabalik izanen dira** (4); **zabalik izango** (25); **zabalik izango da** (4); **zabalik izango ditu** (4); **zabalik izaten** (4)

**zabalik jarraitzen** (10); **zabalik jarraitzen du** (6); **zabalik jarri** (4)

**zabalik utzi** (68); **zabalik utzi ditu** (5); **zabalik utzi du** (7); **zabalik utziko** (14); **zabalik utzita** (10); **zabalik utzitako** (6); **zabalik utziz** (5); **zabalik uztea** (5); **zabalik uzteko** (14); **zabalik uzten** (35); **zabalik uzten ditu** (4); **zabalik uzten du** (6)

**zabalik zegoela** (14); **zabalik zegoen** (82); **zabalik zegoen leihotik** (4); **zabalik zeudela** (11); **zabalik zeuden** (27); **zabalik zeukan** (17); **zabalik zeuzkan** (7); **zabalik zeuzkaten** (4); **zabalik zituela** (14); **zabalik zituen** (10); **zabalik zituzten** (10); **zabalik zuela** (9); **zabalik zuen** (11); **zangoak zabalik** (4); **zegoen zabalik** (6); **zen zabalik** (4); **zeuden zabalik** (4)

---

# zabalka 1 *adlag* zabaltzen; zabalik.

Buztankadak jotzen hasi zen ahoa **zabalka**. Karlos Zabala

Atuna, azal-laua eta bernizatua, larruzko zorro belzkara baten antzekoa; lupina biribila, aho handi-handia **zabalka**, eztarri zulotik ihesi bere arima lodiegia Egileari itzuli berri diona, hilzoriaz txunditurik. Karlos Zabala

**2** (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa, elkarketak adizlagun balioa duela)

Aho **zabalka**, airez biriketaratu beharrez, ibili nintzen hara eta hona, zer egin ez nekiela. Anjel Lertxundi

Ibilbide itzaltsu hartan luze-**zabalka** nenbilen. Josu Zabaleta

Afaltzera! entzun genion aho **zabalka**. Xabier Montoia

Otoitza bukatu zutenean, haurra aho-**zabalka** hasi zen emeki-emeki, eta, begiak ireki eta besoak jasorik, bere kabuz altxatu zen. Askoren artean

Joan ziren kapitainarengana eta muino gainean aurkitu zuten hura, itsasoari begira, bake-**zabalka**. Felipe Juaristi

Azokara edo mezatara zihoazen emakumeak, ahoa tresna bihurturik, kantuan, txoriak baino alaiago, poz-**zabalka**. Felipe Juaristi

**3** ***aho-zabalka*** *adlag* aharrausi eginez.

Humirzahk izerdia botatzen zuen, dominististiku egiten zuen, zotinka eta **aho-zabalka** aritzen zen. Koro Navarro

Batzuei urrutitik antzematen zaie aspertuta daudela (**aho zabalka**, begirada galduta). Arantxa Iturbe

Beste zazpi txirrindulariek komeriak izan zituzten **aho-zabalka** ez hasteko, bai baitzekiten eurentzat galdera askorik ez zela egongo. Berria - Kirola

Datu faltak ere lagundu zuen asperduran, eta horri Jean Claude Trichet EBZko irakasleak atzo Europako Parlamentuan eman zuen irakasgaia ondo ikasia zutela gaineratuz gero, uler liteke zergatik amaitu zuten **aho zabalka**. Berria - Ekonomia

**hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**

**aho zabalka** (21)

---

## zabalkada *iz* zabaltzea.

Azkenean, konplexuena eta nekagarriena den kirurgia-saioan bi ordu eta erdi eman ondoren, lana bukatu zuen Bennettek; guztiei eskerrak eman, aho-**zabalkada** bat egin, eta nagiak atera zituen. Xabier Olarra

---

## zabalkera *iz* zabaltzea.

Janariak, gorputz eta lohadar guztietan zehar zabaldurik, desagertzen eta beragandik beste izate bat ekoizten duenez, halaxe arimak eta gogoak, gorputz jaioberrian osorik sartu arren, **zabalkeran** disolbatu egiten dira, arimaren izaera egiten duten partikulak zirritu guztietan zehar lohadarretara zabaltzen diren bitartean. Xabier Amuriza

---

## zabalketa *iz* zabaltzea.

Eta atetzar barradun astunen **zabalketa** hasi zen mantso. Txillardegi

Bai Carlos VII.ak, iazko urriaren 5ean kurtso-**zabalketan** bere buruaz parte hartuz; eta bai Zazpi Urteetako gerratean beronen aitona zen Carlos María Isidrok, 1836an bir-zabaldu zuenean [...] Oñatiko Unibertsitate Katolikoa karlistek zabaldu zuten bi aldiz. Txillardegi

---

## zabalki 1 *adlag* zabaltasunez.

Gure kasetak Euskal Herriko berri gehientsuenak jorratzen ditu, **zabalki** edo laburki, molde ahal bezain argian, gero-eta gehiago argazkirekin. Herria

Gero gogoetak eginen dira **zabalki** , Jaun Apezpikuak erabaki zenbait hartu aintzin, erakusteko zeri buruz joan behar litaken, eskuz-esku elgar lagunduz. Herria

Herriko pestak nola iragan diren eta karrikaren edertzea **zabalki** irakurtzerat ezarria da. Herria

Geroztik abertzaleer eta **zabalkiago** eüskalzaleer esker sortü dira ikastolak, gaü eskolak, irrati libroak, gela elebidünak eskola püblikoan eta katolikoan. Herria

**2** zabalez.

Igandeko eskeko dirua ostu zion hiru gauez bihotz **zabalki** aterpea eman zion Jainkoaren Zerbitzari suharrari. Itxaro Borda

---

## zabalko *iz* zabaldegia.

Pont-Neuf ondoko zementuzko **zabalkoan** ziren biak, hiru gorputzeko sofa berdean eserita. Harkaitz Cano

Tupustean, Isabelle sofatik altxatu eta ibai ezpondarantz abiatu zen zementuzko **zabalkoan** zehar, lasterka. Harkaitz Cano

---

## zabalkor *izond* zabaltzeko joera duena.

Uzkur zebilen beste zulo bat neskaren uzkia zen, potxona baino pixka bat gorago tentagarri eta **zabalkor** ikus nezakeena. Aitor Arana

---

## zabalkunde 1 *iz* zabaltzea. ik **zabalkuntza; hedamen.**

Hazkundeak eta **zabalkundeak** premia berriak ekarri zituzten: antolamendu eta zehaztasun juridiko handiagoa, eraikuntza materialak, hezkuntza eta kultur eskakizunak, [...]. Askoren artean

Kapitalismoaren sorrerarekin batera, Mendebaldea mundu osora eta etengabe zabaldu zen; txinatarren **zabalkundea** , ordea, guztiz bat-batean eten zen. Koro Navarro

Zelanok Ordenaren sorrera eta **zabalkundea** kontatzen du aurrena. Askoren artean

Gaitzaren **zabalkundeak** ez du etenik Europan. Berria - Gaiak

Egitura politikoen ahultasuna eta gogorkeria etniko edo erlijiosoaren **zabalkundea** . Koro Navarro

Krisiaren handitasunak eta **zabalkundeak** harriturik utzi zituen ia behatzaile guztiak. Koro Navarro

Bizirik irauteko adinako **zabalkundea** lortzen ez duen egunkari bati. Koldo Biguri

Dirua erabiltzeko ohituraren **zabalkundearen** ondorioz. Koro Navarro

Psikoanalisiak alemaniar hizkuntzako herrialdeetan izan zuen **zabalkundearekin** batera. Josu Zabaleta

Kapitalen, tekniken eta antolamendu-metodoen **zabalkundean** . Koro Navarro

Paperaren erabileraren **zabalkundea** . Iñaki Mendiguren

Askotariko enpresek egin beharko diote desafio Europako Batasunaren **zabalkundeari** . Berria - Ekonomia

Atzerriko erlijioen praktika eta **zabalkunderako** elkarte pribatuei. Iñaki Mendiguren

Bost kasu aukeratzen ditu urtero Nazioarteko PEN Klubak, Idazle Presoen Nazioarteko Egunean haien **zabalkundea** egiteko. Berria - Kultura

Interesgarri da, haatik, gogoratzea Euskal fonologia sinkrornikoari buruz argitaratu lehen lan monografikoa, Txillardegi-ren 1980ko Euskal Fonologia, erabat horretan oinarritua egoteak gurean eman zion **zabalkundea** . Lourdes Oñederra

**2** (hedabideez eta kidekoez mintzatuz)

Normalizazio bidean, hezkuntza sistemak eta hedabideen **zabalkundeak** errotik aldarazi dute egoera azken 40 urtean. Iñaki Arranz

Lurreko Telebista Digitalaren **zabalkunderako** Nafarroan bost barruti ezarri ziren. Berria - Harian

Nazionalsozialismoa boterera heltzeak lehenbizi oztopatu eta gero debekatu egin zuen bere liburuen **zabalkundea** . Anton Garikano

Hor dugu euskara batuaren hazkundea, euskal irakaskuntzaren, komunikabideen eta literaturaren **zabalkundea** . Piarres Xarriton

Ardura handiarekin lanak egin zituenean, iruditu zitzaion hori ez zela nahikoa izango, ez baldin bazen aldi berean **zabalkundea** egin eta liburutegi hura handitzen saiatzen. Santiago Iruretagoiena

**3** (izenondo eta izenlagunekin)

Kontua da uste ustel asko zabaldu zituela Zabalak, eta, bizkaierazale sutsuei esker, **zabalkunde** handia izan zuten ondorengo belaunaldietan ere. Koldo Zuazo

**Zabalkunde** handiagoa eta erabilera erosoagoa izan zezaten, bilduma berezietan agertu ziren, *Arauak* izenburupean. Koldo Zuazo

Argitaratzen diren liburuek ere **zabalkunde** txikia izaten dute. Berria - Kultura

Aldi huntako liburuak **zabalkunde** mugatua du haatik. Herria

Globalizazioa kapitalismoaren **zabalkunde** espazialaren adierazpen da. Koro Navarro

Hirurogeita hamarreko hamarraldian [komikiak] izan zuen **zabalkunde** harrigarria oso ados etorri zen beti "nork bere fantasmak" adierazi behar zituelako ideiarekin. Josu Zabaleta

Krisiaren 1998ko nazioarteko **zabalkundeak** ere krisi horren berorren globaltasuna azpimarratzen du. Koro Navarro

Aurretiazko propagandaz eta atergabeko **zabalkundeaz** erruz baliaturik. Juan Garzia

**4** (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

Berpizte hori bat etorri zen munduko espazio ekonomikoari apurka-apurka gaur egun duen tankera emango zion itsasoko **zabalkunde** -prozesuarekin. Koro Navarro

Zer da, ordea, liburu bat errepikapen-, eragin- eta **zabalkunde** -efekturik gabe? Anjel Lertxundi

Beren kapitalak, beren **zabalkunde**-sareak eta beren jakintza estatuen zerbitzura ipinita, bi bider ateratzen ziren irabazian negozio nazionalen zirkuluak. Koro Navarro
Astronomiaren inguruko hezkuntzan eta **zabalkunde** arloan ere egin du lan. Berria - Kultura
Emigrazioa eta kapitalen esportazioa europar mundu-ekonomiaren **zabalkunde**-bide berria gertatu ziren. Koro Navarro

**5** (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa)

Finantza-**zabalkundearen**, truke-tasen egonkortasunaren eta diru-politikaren autonomiaren arteko hiru dimentsioko arbitraje honen baldintzak. Koro Navarro
Horren ondorioz, modu ikusgarrian berpiztu zen kolonia-**zabalkundearen** ekimena. Koro Navarro
XV. mendearen erdian hasi zen Mendebaldeko Europaren merkataritza- eta kolonia-**zabalkundea**. Koro Navarro
Kapitalismoaren espazio-**zabalkundearen** ondorioei. Koro Navarro
Informazio **zabalkundeak** asko laguntzen dio atzerritarrei kontzertu batean. Pako Aristi

**6** zabaltzea, irekitzea.

Aurtengo ikasturte-**zabalkundera** joatekoa nintzen ni, bestalde, 1874ko urriaren hasieran. Txillardegi

**7** propaganda.

Indian azken urteotan haur gutxiago izateko **zabalkunde** handia egiten ari dira. Gotzon Garate

**8** dibulgazioa.

**Zabalkundeko** psikoanalisi eskuliburuak ez dira, jakina, zakurrentzat eginak, eta aspaldi ezagutu nituen nik neurosi horren arrazoiak. Josu Zabaleta

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
> **zabalkunde handia** (8); **zabalkunde handia lortu** (3); **zabalkunde handiagoa** (3)
> **ebren zabalkundea** (4)

---

## **zabalkuntza** 1 *iz* handiagoatzea.

Europako Batasunaren **zabalkuntzaren** ondorioz Estatu bakoitzari diputatu gutxiago egokituko baitzaizkio. Berria - Euskal Herria
Europako eta Latinoamerikako nekazari elkarte eta gobernuz kanpoko erakundeek abiatu zuten kanpaina martxoan, Hego Amerikan soja soroen **zabalkuntza** gelditzeko asmoz. Berria - Gaiak
Ertzaintzaren **zabalkuntza** eta Ertzaintza bera Europako polizien datu baseetara atxikitzea. Berria - Euskal Herria
«Gerrako borroka nagusiak amaitu direnetik, marine-en **zabalkuntza** nagusia da», azpimarratu zuen AEBetako Armadako elite unitate honetako eledun Dan McSweeney kapitainak. Berria - Mundua
Ohartu ginen zailtasun handiena ez zegoela XVI. mendeko komentu zaharraren **zabalkuntzan**, baizik eta Ugull mendiarekin, espazio naturalarekin zuen errematean zegoela gakoa. Berria - Harian
Gizartea **zabalkuntza** lasterregi batetik edo konkurrentzia-mekanismoaren aplikazio sistematikoegi batetik babesteko. Koro Navarro
**Zabalkuntza** semantikoa. Iñigo Aranbarri

**2** zabalkundea.

Kolonbiako kafearen historian eta **zabalkuntzan**. J.M. Olaizola "Txiliku"
Birusaren **zabalkuntza** moteltzeko ahalmena dute. Berria - Harian
Hortik sorturiko merkataritza-sareen **zabalkuntza** dago XV-XVI. mendeetako planeta mailako integrazio handiaren sorburuan. Koro Navarro
Beste gauza bat da, ordea, zientzia eta jakintzaren **zabalkuntza** egiteko orduan zer hizkuntza erabili behar dugun. Juan Ignacio Pérez / Pello Salaburu
Guerrero fundazioaren goraipamena eskuratu du Bilboko musikagileak; sorkuntzan eta **zabalkuntzan** egin duen lana eskertu dio. Berria - Kultura
Pentsamenduaren elkar-trukatzearekin, giro aske batean, literaturaren **zabalkuntzan** laguntzea. Berria - Kultura
Eraketa prozesuan zegoen erakunde maltzur horren euskal adarra, material guztiaren itzulpenaz eta **zabalkuntzaz** arduratuko zena, sustatu.com-en azpitalde sekretu baten babespean. Iban Zaldua
Hegemoniak balio berdinen kate demokratikoaren **zabalkuntza** igualitarioa du bere logika. Joseba Zulaika

**3** (hitz elkartuetan)

Hori dela eta, 1.100 milioi euroko kapital **zabalkuntza** %38koa egingo duela iragarri zuen eraikuntzako enpresak. Berria - Ekonomia

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
> **kapital zabalkuntza** (3)

---

## **zabalpen** 1 *iz* hedatzea, zabaltzea. ik **zabalkunde**.

Indarrok Ramadi eta Faluja hiruki sunitaren barruan diren hirialdeetan banatuko dira eta **zabalpena** amaitzean, 25.000 inguru izango dira. Berria - Mundua
Denbora hartan -plastikoaren **zabalpen** erabatekoa baino lehenago-, portzelanazko figuratxo eta antzeko objektu hauskorrak babesteko erabiltzen zena. Bernardo Atxaga
Disketxeak urte hauetan guztietan argitaratu dituen disko eta DVDek jarraituko dute izaten **zabalpena** eta merkaturatzea. Berria - Harian
Zientziaren soziologia klasikoaren **zabalpenak**, Thomas Kuhn-en lanaren irakurketa erradikala dela medio, zientziaren irudi berri bat nola eskaintzen digun ikusten saiatuko gara. Askoren artean
Euskal artearen alde lanean ari dira jo eta ke; euskal arteak **zabalpena** eduki dezan. Berria - Kultura
Frantsesera itzultzeak ahalbidetu zuen beste hizkuntzetarako **zabalpena**. Berria - Kultura
Diskurtsoen **zabalpen** historikoa. Xabier Arregi
Literaturaren **zabalpen** egitasmoaren lehen proiektua Mariasun Landa idazle eta EHUko irakasleak landuko du. Berria - Kultura

**2** handiagotzea. ik **zabalkuntza**.

NATO Ipar Atlantikoko Itunaren Erakundeak bere historiako **zabalpenik** handiena gauzatu zuen atzo. Berria - Mundua
EBko **zabalpena** eta enpresen lekualdatzeak dira kontuan hartu beharreko faktoreak. Berria - Ekonomia

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
> **kanpo zabalpenaren** (3)

---

## **zabaltasun** 1 *iz* zabala denaren nolakotasuna.

Guztiz egokia iruditzen zait Euskaltzaindiak erakutsitako malgutasuna eta **zabaltasuna**. Koldo Zuazo
Eskuartean darabilten materialaren aniztasuna eta **zabaltasuna**. Iñaki Arranz
Ekitaldia ere **zabaltasun** horren adierazgarri izan zen: Bilboko Sheraton hotelean alderdi politiko, erakunde, sindikatu, hedabide eta kultur munduko ordezkari ugari bildu zen. Berria - Harian
Egitasmoaren **zabaltasuna** bermatzeko bertze zenbait hedabideri Info 7 hedagune bezala baliatzeko parada eskaini diete. Berria - Euskal Herria

Etsaia barreiatua baitzen, landa eremuaren **zabaltasunean** urturik bezala. Josu Zabaleta

Begirada hurrengo aldian zein lekutan finkatuko den, bilaketaren helburuak, orain finkapenaren izaerak eta ikusmen-eremuaren **zabaltasunak**, determinatzen dute. Josu Zabaleta

Budak eta haren jarraitzaileek ongiaren esanahiari eman dioten **zabaltasunaren** araberakoa. Felipe Juaristi

Pasteurri bere mikroskopioaren eremuak ematen zion **zabaltasuna**, poemak zabaltzen duen **zabaltasuna**. Josu Zabaleta

Ez da beste dohainik Jaunak hainbesterainoko **zabaltasunez** eta atseginez egin ohi duenik. Joan Mari Lekuona

Bolatxo hori irudikatzea, hantxe espazioen **zabaltasunean** eskegia. Juan Garzia

**2** hedadura.

Aloadin, ene printze eta jabea, bortz eguneko **zabaltasuna** duen probintzia bat iraganik, Karaianera helduko zara. Aurelia Arkotxa

Probintzia baten **zabaltasuna** duen eremua ikustatzen dut nire hamar mila metro hauetatik. Josu Zabaleta

Espazioaren **zabaltasun** kalkulaezinari so egin, munduen kopuru eta izari harrigarriari. Juan Garzia

Pabiloien **zabaltasuna**, makinak muntatzeko erraztasunak eta bisitariei begira prestatutako azpiegiturak. Berria - Ekonomia

Begirada hurrengo aldian zein lekutan finkatuko den, bilaketaren helburuak, orain finkapenaren izaerak eta ikusmen-eremuaren **zabaltasunak**, determinatzen dute. Josu Zabaleta

Supituki etxea txiki gelditu zitzaion, hiru **zabaltasunetara**, hiriarenera, ibaiarenera eta zeruarenera irekiriko leihoa bera ere ateska itsu bat iruditu zitzaion. Jon Alonso

Zaila da musikoaren hitzetatik liburu bat ateratzea; muga estuak dira horiek **zabaltasuna**, anplifikazioa helburutzat dauzkan adierazpide batentzat. Pako Aristi

**3** (izenondo eta izenlagunekin)

Gizonek leku gutxi hartzen dute lurraren **zabaltasun** mugagabean. Josu Zabaleta

Bizitza arruntari begiratu beharko diot bere **zabaltasun** osoan. Jose Morales

Inongo gizonek ez duela sekula lortuko beste inor bere misterioaren **zabaltasun** eta sakontasun osoan ezagutzea. Bego Montorio

Bideak bezala, norabait eramaten badute, horiek zabaltzen baitiote gizonari beren barneko **zabaltasuna**. Josu Zabaleta

Egiazko **zabaltasuna** ez da begiarentzat egina, gogoari baizik ez zaio agertzen. Josu Zabaleta

Basamortu eta leizko **zabaltasun** baztergabetan gaindi. Juan Garzia

Bitartean, auziak neurrigabeko **zabaltasuna** hartu zuen auzitegian eta Ganberan. Jose Morales

Ez da beste dohainik Jaunak hainbesterainoko **zabaltasunez** eta atseginez egin ohi duenik. Joan Mari Lekuona

**4** (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa)

Haren zerrendan asko dira antzinatasunaren eta eremu **zabaltasunaren** baldintza zuzen betetzen duten hitzak. Koldo Zuazo

Beti izan duzu ikuspegi **zabaltasuna**. Ramon Etxezarreta

-Kafea eta beste salgaiak esku **zabaltasun** gehiagoz pagatuz! Elena Touyarou

Halako etsai-sail bati leporatuz horren errua eta bere burua zerbaiten erruduntzat jotzeko gogo-**zabaltasunik** gabe. Jose Morales

Hitz handiak ziren horiek, pentsamendu handiak, eta gogamen-**zabaltasunaren** eta adorearen sentipenak handiagotzen zuen Temple orain nire begietan. Xabier Olarra

**5** zabalera.

Baia izan zen, bainan lekuan mugatua izan zen luzetasunean, **zabaltasunean** eta goratasunean, oroitu behar da Bankako herria "site classé" ekarria dela. Herria

Aturriko etorbide horren **zabaltasuna** hemezortzi metrotara heltzen da kilometro pasako luzetasunean. Herria

**6** ***bihotz zabaltasun***

Abnegazioa, **bihotz-zabaltasuna** une erabakigarrietan, ausardia eta buruargitasuna. Jose Morales

Heroismoa, argitasuna, gizatasuna, **bihotz-zabaltasuna**, pitzadurarik gabeko elkartasuna, hona hemen maitaleak bere maitatuaren oinetan jarri beharko dituen tituluak. Juan Martin Elexpuru / Bego Montorio

Zerbait egiteko gogo hura, **bihotz-zabaltasun** hura, arrisku hura, eta umore hura, txokolatea bezalakoa. Juan Kruz Igerabide

**Bihotz-zabaltasun** apur bat, eta parerik gabeko jendea izango zinatekete euskaldunak. Anjel Lertxundi

Gizadiaren **bihotz-zabaltasunaren** alde mintzatzen da jarrera hau, baina onura publikoaren kontrakoa da. Juan Martin Elexpuru

**hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**

**bere zabaltasun osoan** (4); **bihotz zabaltasun** (9)

**bihotz zabaltasuna** (6)

**bihotz zabaltasunaren** (4)

**bihotz zabaltasunari** (4)

**bihotz zabaltasunez** (7)

---

# **zabaltoki** *iz* zabaldegia, zabaldia.

Miradorea, begiralekua, hotelaren aurreko 2.000 metro karratuko **zabaltokia** zen. Bernardo Atxaga

Zerrategia baino beherago ibaiak zeukan **zabaltokia**, gure igerileku nagusia zen. Bernardo Atxaga

Basoan barrena jarraitu genuen, zuhaitzez zuhaitz eta **zabaltokiz zabaltoki**. Bernardo Atxaga

---

# **zabaltto** *izond adkor* zabaltxoa.

Bazter gozo ezti eta ixila da Baztan haranaren altzoa, Hauza mendi gotorrak ongi zaindua ipar-iguzkialdetik, aldiz erreka **zabaltto** apalak idekitzen diotela xirrito bat beheiti, Bidasoa eta itsaso alderat. Herria

---

# zabaltu ik **zabaldu**.

---

# zabaltxe ik **zabalxe**.

---

# **zabaltxo**[1] *iz* zabaldi txikia.

Hiru lagunek ez zioten begiratu ere egin: ez zioten jaramonik egin biga hari, han, **zabaltxoan**, oinak ur-belar bigunean zituela, nork jakin zeren begira zegoen hari. Josu Zabaleta

---

**zabaltxo**[2] *adlag adkor*

Joandaneko sei urtean, ba ei darabil beste disko bat buruan, trikitia **zabaltxoago** hartuta, aprobetearren lez eta inongo helburu handi barik. Xabier Amuriza

---

**zabaltza** *iz* zabaldegia. ik **zabaldi; zabaltoki**.

**Zabaltzak**, almenak eta alkazarreko erronda-bideak, denak daude mairu ilun eta bizardunez beterik. Jon Alonso

Plazako Lastiry ostatu aintzineko **zabaltza** edo terraza herriak du berritzen. Herria

Hhan orkideo-usaineko **zabaltzak** zeuden eta [...] tango baten doinu geldia aditzen zen. Lopez de Arana

Katedrala hestera zoala, doi-doia bisitatu dut eta egon naiz luzaz bar baten kanpoko **zabaltzan**. Piarres Aintziart

Kalez kale, patioz patio, **zabaltzaz zabaltza**. Jon Alonso

---

**zabaltzaile** *(orobat **zabaltzale** g.er.)* **1** *izond/iz* zabaltzen duena.

Iturriek, freskuraren **zabaltzaileek**. Xabier Amuriza

Egia anaia nafarrak Erasmoren **zabaltzaileak** eta, Inazio Loiolakoarekin batera, aritu ziren irakaskuntza katoliko eta bateratzailearen alde. Askoren artean

Atxilo hartutakoen artean, Román Eguiazabal zegoen; apaiz gaiztoa eta españar gaiztoagoa, euskal nazionalismoaren heriozko doktrinen **zabaltzaile** setatsua. Inazio Mujika Iraola

Gutartean ginituen, mezu horren **zabaltzaile**, [...] Paul Nicholson bizkaitar laborari sindikalista, Mikel Berhocoirigoin ELB-koa, [...]. Herria

Hura Ordenaren **zabaltzailerik** handiena izan zen. Askoren artean

Erlijioa hau ez baduzue guztiz debekatzen, bere **zabaltzaileek**, lehengo bitarteko berberak dituztenez, helmuga berera iritsiko dira. Juan Martin Elexpuru / Bego Montorio

Hasier Etxeberria berriketaria, “Sautrela” literatura emankizunaren **zabaltzailea**. Herria

Horrek bihurtu du Oteiza, Atxagaren ustez, nazionalismo esentzialistaren eragile edo **zabaltzaile** nagusi. Berria - Harian

Mendebaldeko kristau-bizimoduaren normandiar adierazle eta **zabaltzaile**. Iñaki Mendiguren

Beraiek dira ihesaren **zabaltzaile** nagusiak, kondoirik ez erabiltzeko gomendatzen dute. Berria - Kultura

Egia esateko, euskararekiko gaietan ikertzailerena baino transmisore eta **zabaltzaile** papera betetzen du. Berria - Kultura

**2** (izen gisa hitz elkartuetan)

Berearen ondoko zalgurdira igoarazi zuen, haren aurretik bide **zabaltzaileek** oihu egiten zutela: "Eman kasu!". Jose Antonio Mujika

-Agitadore edo nahaslea -gogoratzen ari nintzen-, finantzaria, herriko batzordeko partaidea, asaldaria, armadaren izen onaren zikintzailea, milizianoa, salataria, medikua frontean, propaganda **zabaltzaile** zorrotza eta zinikoa... Edorta Jimenez

Birus sortzaileak eta 'spam' **zabaltzaileak** elkartu egin dira, irabaziak handitzeko. Berria - Gaiak

Zernahi liburu bada agerturik gai hortaz, bainan gehienak gezur eta faltsukeriz beteak, espainol eta frantses estadoen mezu **zabaltzaile**. Herria

• **3** *iz* errugbian, jokoa zabaltzen duen jokalaria.

Traille Frantziarekin ariko denez, berriro Peyrelongue izango da **zabaltzailea**. Berria - Kirola

Feather eta Sudre izango da bikoa **zabaltzaile** postuetan. Berria - Kirola

Berrio Yachvili eta Peyrelongue aritu ziren **zabaltzaile** lanetan, eta bistan da oso uztardura egokia dutela. Berria - Kirola

Zeelanda Berriko Feather lotu dute, Larretxea eta Thiery joko **zabaltzaileekin** bat egiteko. Berria - Kirola

Joko **zabaltzaile** eta uztartze erdia izan daiteke. Berria - Kirola

Dambielle jokalari gazteak beteko du Peyrelongueren hutsunea joko **zabaltzaile** postuan. Berria - Kirola

**hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**

joko zabaltzaile (15); joko zabaltzaile postuan (3)

da joko zabaltzailea (6); joko zabaltzailea (18); joko zabaltzailea da (3)

joko zabaltzaileak (5)

---

zabaltzale ik **zabaltzaile**.

---

**zabaltze** **1** *iz* zabalera handiagoa ematea; barreiatzea. ik **hedatze**.

Sarriegi hiriaren **zabaltze** haren lekuko izan zen. Askoren artean

Ildaxken zabalera aldatzen joango da, justu kolomaren erdian egiten den **zabaltze** edo handiketaren arabera. Santiago Iruretagoiena

Une hartan bertan ate baten **zabaltze** lasterraren hotsa zirudiena etorri zen nire gainetik. Koro Navarro

Bi hosto, bi esku tipi bezalakoak, zabaldu eta hertsi egin zitezkeenak, eta beren **zabaltze** eta herste hartan intsekturen bat edo bertze harrapa zezaketenak. Joan Mari Irigoien

Parte handi bat aortan geratzen da, aortaren pareten **zabaltzeari** egokituta. Irene Aldasoro

**Zabaltze** handia izan zuen. Berria - Kultura

Hona, beraz, non, errealitatea berrasmatzearen kontuaz ari garelarik, poesia-liburu on bat **zabaltze** hutsak mugaz bestalde jartzen gaituen: [...]. Anjel Lertxundi

Finantzaketa zuzenaren mekanismoak garapen-bideko zenbait herrialdetara **zabaltze** hori finantza-egongaiztasuna gero eta handiagoa delarik gertatzen da. Koro Navarro

**2** (hitz elkartuetan lehen osagai gisa )

Duplexa zegoeneko eraikina XX. mende hasierako etxe dotorea zen, hiriaren **zabaltze** garaikoa. Patxi Iturritegi

Alternatiba hori urjentzia bihurtu da Europako Batasunaren **zabaltze** prozesuarekin. Berria - Euskal Herria

**Zabaltze** proiektua kokaguneetako mugen barruan egingo dela ziurtatu nahi du Sharonek. Berria - Mundua

Badugu jadanik asko eta asko egina, Euskararen onarpen, **zabaltze** eta barnatze mailean. Herria

Bere filma hautatu dute *La Cita*, kultura eta zinema latinoamerikarraren jaialdiaren **zabaltze** gauerako. Berria - Kultura

Diskojogailuaren platera biraka ari den bitartean, itxurazko estutze edo **zabaltze** mugimendu bat sumatzen da, espiralaren zentzuaren arabera. Josu Zabaleta

Produkzio eta **zabaltze** sare handiei zaharkituta geratu zaizkien argazkiak edo bideoak. Berria - Harian

EHEko kideek salatu zuten «inoiz baino erdarazko hedabide gehiago» dagoela, eta, administrazioaren laguntza dutela **zabaltze** bide horretan. Berria - Euskal Herria

Idazleak sortu egin behar du eta beste profesional batzuek egin behar dute idazle horren sormen lanaren **zabaltze** eta hedatze lana. Ana Urkiza

Atearen **zabaltze** hotsa entzun zuen bizkarrean. Josu Landa

Oinarrizko ikasketa ama-eskolako azken urtetik CE1 mailaraino litzateke, sakontze fasea CE2tik seigarrenera, eta **zabaltze** fasea bosgarrenetik hirugarrenera. Berria - Euskal Herria

**3** (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa )

Enpresak inoiz egindako kapital **zabaltze** handiena. Berria - Ekonomia
"Ate **Zabaltze"** egun bat antolatua da San Mixel Garikoitz kolegioan 2003ko otsailaren 7an. Herria
Egun-**zabaltze** urdin bat bezain argia da ez naizela ni deitua izango Parnasoko ezti gozoak dastatzera. Karlos Linazasoro

---

**zabaltzear** *adlag* zabaltzeko zorian.
Gizonak esan zion: -Uztazu joaten, eguna **zabaltzear** baitago. Elizen arteko biblia
Hain zuzen ere, Pferd Ruggebergek lantoki berria **zabaltzear** zuen Jundizko industrialdean, 42 milioi euro inbertitu ondoren. Berria - Harian
Hozten hasi eta negua **zabaltzear** denean. Pello Zabala

---

**zabaltzeke** *adlag* zabaldu gabe.
Begiak **zabaltzeke** egin zuen hitz, doinuan zuen ezagun. Koldo Izagirre
Barrara hurbildu zen gero eta, **zabaltzeke** zegoen arren, garagardo bana lortu zituen. Unai Iturriaga
Atsegin izan zuen, nonbait, haserrea baretu egin baitzitzaion eta, begiak **zabaltzeke**, beste bat eskatu baitzidan. Aitor Arana

---

zabalune ik **zabalgune**.

---

zabalunetxo ik **zabalgunetxo**.

---

**zabalxe** *(orobat* ***xabaltxe*** *g.er.)* *izond* zabal xamarra.
Gerri buelta **zabalxea** zuenez, nasaiago ibiltzen zen bakeroekin baino. Unai Iturriaga
Hassan integrista zen, inondik ere, eta are integristagoa izango da talde batek bereganatu eta orain daukana baino teoria **zabalxeagoa** ematen dionean. Bernardo Atxaga
Ikustekoa izan zen apustu hau, goiko bueltan aginarrak bazterretik jo zuen eta aurrea hartu ere bai, baina Piok, **zabalxeagotik** hartuta, ez zuen abiada galdu eta lehentxeago iritsi zen gora. Xabier Etxabe
Iñakik idatzi izan zuen, errima laxotuko bagenu, hain estu hartu ez, Iparraldeko usadioari segiko bagenio errima **zabalxeago** hartze horretan, emaitza hobeak izango genituzkeela bertsolariok. Andoni Egaña
· Beraren bizimodua, zeinaren monotoniaz ezin baita pentsatu izulaborririk gabe, bero-hotzen txandaketa gupidagabe bat da, hots, (beti maiztasun bereko) oszilazio mehartxeago zein **zabaltxeagozko** segida bat. Juan Garzia

---

**zabar** **1** *izond/iz* eginbideak behar den arretaz, lastertasunaz edo txukuntasunaz egiten ez dituena.
Hor aurkituko dugu lurjabe **zabar** arduragabea, etxekoandre goganbehartsua, gazte festazale txoriburua. Jose Morales
Heriotzaren mekanikak tanta izoztu bat isuri die bizkarrezurrean behera euskaldun **zabarroi**, eta zure soseguak ez die onik egin. Koldo Izagirre
Ez dut inoiz ikusi zuek baino jende **zabarragorik**! Fernando Rey
Mutil gehienak horrelako kasuetan **zabarrak** eta utziak izaten diren arren, Oriol txukun ibiltzen zela beti. Xabier Mendiguren Elizegi
Inoiz **zabar** eta esker txarreko izan baziren, zentzabidea eta penitentzia eskatzen zioten apalki aita santuari eta baita gogo onez onartzen ere. Askoren artean
Epelak, alferrak edo **zabarrak** garelako geure gogojardunetan. Patxi Altuna
Eriklea: ondo zaindu al duzue kanpotarra, horretan ama **zabar** samarra da eta? Juan Kruz Igerabide
-Lodiak **zabarrak** dira, koipetsuak edo. Alberto Barandiaren
Gortetik etorritako ezker «dotorearen» kazetarientzat, ostera, Castro **zabarregia** da. Berria - Kultura
Sartu alkandora gerrian, **zabar** hori! Iñaki Mendiguren
Laborategiko denek **zabartzat** daukate Jon. Itziar Laka
Alferkeriak lozorroa ekartzen du, **zabarrak** gosea pasa beharko. Elizen arteko biblia
Nagiaren sabaia erraz eroriko, **zabarraren** etxean itaizur franko. Elizen arteko biblia

**2** behar den arretaz, lastertasunaz edo txukuntasunaz egin ez dena.
Zein atsegina zen hiritik kanpo egotea, are Dot's bezalako ostatu-zulo **zabar** eta ilun batean eserita egonik ere. Oskar Arana
Gela jendez bete, honda-honda egindako bazterreko mahai **zabarrean**. Koro Navarro
Tea buztinezko ontzitxo **zabarretan** zerbitzatuko dizute. Gotzon Garate
Liho **zabarrez** egindako oihala da. Javi Cillero
Irri **zabar** bat egin zuen. Koldo Izagirre
Birao **zabar** bat bota zion bere buruari. Koldo Izagirre
Orduan ordezkari sindikalek eskaleen antza edukitzen zuten euren bizar **zabar**, trikota ilun eta praka zaharkituekin. Hasier Etxeberria
Nork esango luke horien hizkera **zabarra**, zakarra eta baldarra dela? Koldo Zuazo
Plagio **zabarra** izan zitekeen [...] hitzez hitzekoa, literatur lapurreta lotsagabe bat. Iban Zaldua
Erliebezko irudi koloretsuz hornituak, errusiarron izaera **zabarrari** esker Torjok hiriak ugari salerosten dituen horietakoak. Jose Morales
Tomasi "Kondea" erraten genion erredakzioan, bertzeengandik urruntzen zuen dotorezia **zabarraz** hornitzen baitzuen bere burua. Aingeru Epaltza
Ifrentzuan letra handi **zabarrez** idatzitakoa irakurri zuen. Karlos Zabala
*Kaiku* deitzen nuen nik, bere ibilera **zabar**-kankailuarengatik. Gotzon Garate
Harresia eraitsi aurreko Putzu kale mehar-**zabarra**, oso oso bizia zen. Txillardegi
Riddleren erantzuna berehala iritsi zitzaion, idazkera gero eta **zabarragoaz**, zekien guztia esateko presaka ari balitz bezala. Iñaki Mendiguren
Oihu pare batez amaitzea epaiketa apurtzeko modurik **zabarrena** da, nire irritzian. Koldo Izagirre
Bat-batean, kirioen dardar bizi batek bortizki inarrosi zizkion sentimendu guztiak, ordu arte alferraren nagitasun **zabarrean** murgildurik eduki baitzituen. Jose Morales

**3** (predikatu gisa)
[Bertsolarien] hizkera ere, **zabarra** omen da, oso, eta erdarakadez josia. J. Garzia / A. Egaña / J. Sarasua
Aurkezpen hori **zabar** xamarra zen SPE-n, Fonologia Sortzailearen lehen formulazioan. Lourdes Oñederra
Lonbardiar gotzaina ezpal **zabarrekoa** zen. Iñaki Mendiguren
Vladimir gure herri mozkor ustel **zabarra** inarrosten. Koldo Izagirre

"Zer zara zu?" galdetu nahi izan zion, baina hori **zabarregia** iruditu zitzaion eta, horren ordez, zera galdetu zion-: Nor zara zu? Iñaki Mendiguren

**3** (adizlagun gisa) ik **zabarki**.

Otoi, senideok: zentzarazi **zabar** dabiltzanak, eman adore bihozgabetuei, eutsi ahulei, izan eramanpen guztiekin. Elizen arteko biblia

Alfer zuriak ziren, zabal eta **zabar** etzanda egoten ziren beti. Jose Morales

Saiakera guztietan berantetsi, gehiago itxaroteko pazientziarik ez, eta, azkenean, **zabar** apurtzen nuen eszena imajinatuaren lilura. Patxi Zubizarreta

Egiaz, ez dago **zabarrago** portatzerik. Patxi Iturritegi

Pantxo ero hori gero eta **zabarrago** zebilek. Bernardo Atxaga

Etxeparek jadanik "berceac" ditu eredu, eta geroztik auzoen ipurditik datorkigu euskalduna beti arrastaka, gero eta **zabarrago** eta jitoago. Patziku Perurena

Barruan zurezko txirula bat zegoen, **zabar** landua. Iñaki Mendiguren

**Zabar** eta azkar esaten hasita, esango nuke hiru garela urte, mende eta milurte aldaketa bizitzeko ohorea izan dugun belaunaldiak. Joxerra Garzia

**4** (-en atzizkiaren eskuinean izen balioa duela)

Neskaren abaildura arindu ordez, Andreasen ateraldiaren **zabarrak** muzindu egin zuen Nora. Anjel Lertxundi

**hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**

**mozkor ustel zabar** (6); **zabal eta zabar** (4)

**oso zabarra** (3)

**zabartzat daukate** (4)

---

# zabarkeria 1 *iz* zabarra denaren egite edo jokaera gaitzesgarria; egitekoetako ardura edo txukuntasunik eza. ik **zabartasun**.

**Zabarkeria**, arduragebekeria, lapurreria eta mozkorkeria ziren han nagusi. Jose Morales

Gehienetan, **zabarkeria** da nagusi, inprobisazioa. Iñigo Aranbarri

Menditarrak versus kaletarrak, abarkak versus abarketak, euskara versus erdara, ohitura onak versus **zabarkeria**. Anjel Lertxundi

Irudituko zaizue nahi duzuenean itzul zaitezketela lehengo bihotz-berotasun hartara [...] baina **zabarkeria**, behin sustraituz gero, ez da erraza kentzen. Askoren artean

Ezin baitzituen desordenua eta **zabarkeria** eraman, aise urduritzen zen halakoetan. Anjel Lertxundi

Cromwell puritanoa zen, kalbinismoaren jarraitzailea eta Ingalaterrako eliza erreformatuaren **zabarkeria** begi txarrez ikusten zuen. J.M. Olaizola "Txiliku"

Ohartu zen Moises Aaronen **zabarkeriagatik** herria bere onetik aterata zebilela, etsaien barregarri. Elizen arteko biblia

Zure senarra tren batek harrapatu eta ia-ia hil zuen, New York Central tren-konpainiako langileen **zabarkeriaren** erruz. Lopez de Arana

Egoitzetan ohikoena profesionalaren **zabarkeria** da: «Langileak bere eginbeharrak alde batera uzten dituela esan nahi du horrek». Berria - Euskal Herria

Ihes egin behar du desertzioaren krimen barkaezinetik, baita "betebeharrarekiko **zabarkeriaren"** hutsegite larritik ere. Iñaki Mendiguren

Hondamendira eraman zuten abereen gaixotasunek, administratzaileen jukutriek [...] eta, azkenik, lurjabearen beraren **zabarkeriak**, bere ondasun guztiak xahutu baitzituen Moskuko etxe bat azken orduko gustuaren arabera apaintzeko. Jose Morales

Danieli erruren bat nola aurkitu zebiltzan; baina ezin zuten lortu, leiala baitzen, **zabarkeriarik** gabea. Elizen arteko biblia

Hiztun bikaina, aurpegiz alaia, begitartez atsegina, **zabarkeria** eta lotsagabekeriarik gabea. Askoren artean

Zigarrokina leihotik behera bota du, **zabarkeriaz**. Sonia Gonzalez

Lurreko gauza hauek ez daudela jainkozko Probidentziaren esku, edota axolagabe eta **zabarkeriaz** gobernatzen dituela. Imanol Unzurrunzaga

Nola alde egin guk zigorrari, horrenbesteko salbamen-bidea **zabarkeriaz** galtzen badugu? Elizen arteko biblia

Ez zuen **zabarkeriaz** alferrik pasatzen uzten Espirituaren inolako bisitarik. Askoren artean

Zeren jakin baitugu zuetako batzuk **zabarkerian** bizi direla, ezer ez egiten zeregintsu. Elizen arteko biblia

**2** (pertsona bihurtua)

Diru-goseak **Zabarkeriari** eskatzen dio laguntza. Askoren artean

**3** (izenondoekin)

Poliziaren ikerketa **zabarkeria** handiz egin zela ohartu zen eta ondorio garbi bat erdietsi zuen: Zolaren heriotza hilketa politikoa izan zela. Karlos Zabala

**Zabarkeria** hutsa izango zela esaten nion lagunari. Xabier Mendiguren Elizegi

Bazegoen egitate hartan krudeltasun harro bat, tronpatuaren mindurak desenkusatzen ez zuen ardoaz barnagoko **zabarkeria** anker bat, enerbatu egiten ninduen zehaztasun mingarri bat. Koldo Izagirre

Geroztikako **zabarkeria** urbanistikoek bizitegi jatorraren eredu bihurtu duten arrantzale txiroen auzune hartan. Koldo Izagirre

**4** *pl*

Ez zuen amorantearen errua egin "Behartu egin nau!" edo "Nik ez nuen nahi!" bezalako **zabarkeriak** asmatuz. Koldo Izagirre

Anaien hutsegite eta **zabarkeriengatik**. Askoren artean

**5** (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

Aise antzematen zen ez zela aberatsa, baina alferrik bilatuko zenuen **zabarkeri** arrastorik haren arropetan. Karlos Zabala

La Sarriette zoragarri zegoen, bere fruituen erdian, neska eder batzuek izaten duten **zabarkeria** kutsu horrekin. Karlos Zabala

Kontua da aitzakia merkeetan babestutako **zabarkeria** politika honekin -"gazteek horrela berba egiten dute" eta antzekoekin- hutsari emandakoak direla milaka irakasle txepelon soldatak. Iñigo Aranbarri

**hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**

**bere zabarkeria** (4)

**zabarkerian bizi** (4)

---

# zabarki *adlag* zabarkeriaz. ik **zabar 3**.

Ile-adats zurrunak **zabarki** sakabanatuta zituen aurpegian zehar. Mirentxu Larrañaga

Barbaroek ateratako ondorioa zera izan zen: erromatarren gorputz politikoa hain **zabarki** kudeatua zegoenez, erasotzera gonbidatzen zuela argi eta garbi. Iñaki Mendiguren

Hagitz jostagarriak iruditu zitzaizkion haren berba bizi eta **zabarki** ahoskaturikoak. Mirentxu Larrañaga

Jainkoari eskerrak emanez eta egin gabe utzi edo **zabarki** eginengatik negar eta intziri eginez. Askoren artean

Kotxezain berritsuaren eskuek **zabarki** eusten zieten hedeei. Jose Morales

Erresistentzian hasi berritako gazte batek **zabarki** jarri zion hitzordua kale itsu batean; Gestaporen torturapean, kontaktuaren izena eman zuen azkenean gazteak. Joxan Elosegi

Nola gertatu da bera bizirik egotea bere aurre-aurreko belaunaldiaren itxaropen zentzuzko samarrak hain **zabarki** huts eginda ikusteko? Iñaki Mendiguren

Lodiegi dago, **zabarki** eta osasunik gabe lodi. Oskar Arana

Horixe izan zen ideia nagusia, agian **zabarkiago** azaldua, baina horixe. Karlos Linazasoro

## **zabarkiro** *adlag* zabarki.

Nire korapiloak traketsak ziren, gona gerrian inguruka erabiltzen nuen eta elastikoak **zabarkiro** zimurtzen. Joxan Elosegi

Tiraderaren hondoan barneraturiko oroigarriak, leiho hegian **zabarkiro** pausaturiko bitxia, oheburuko liburuaren orrien artean tartekaturiko marrazki, argazki edo gutuna. Joxan Elosegi

## **zabartasun** *iz* zabarra denaren nolakotasuna.

Tximista eta trumoia bezala, Indian ustelkeria eta **zabartasuna** batera doaz. Gotzon Garate

Lehen bezala janzten ziren denak, etxeko arropa arruntekin, eta begi erne-erne batek soilik antzeman zezakeen halako narrastasun eta **zabartasun** doi baten arrasto hautemangaitza, gogotik ahalegindu arren Shevirev doktoreak ezin ezaba zezakeena. Jose Morales

## **zabartu**, zabar(tu), zabartzen **1** da/du *ad* zabar bihurtu.

Errusiarra halako moldez eginik dago, ezen norbaiten akuilua behar baitu beti..., bestela, alfertu eta **zabartu** egiten da. Jose Morales

Eibarren, langileen aldeko mitinean esaten ditu hitz horiek Joanes artzainaren iloba Martinek, Somorrostroko lur gorrietan **zabartutako** euskaldun haietako bat baitzen, Txomin Agirrek *Garoa*n dakarrenez. Iñaki Segurola

Bera behintzat inoiz ez zen bere erabakietaz damutuko, oztopoei itzuri egingo edo eginbeharretan **zabartuko**. Anton Garikano

Beharbada izango zuela gaztetxo ausart horri honelako edo halako laguntza ematea, bere egiteko garrantzitsuan ezertan ere **zabartu** gabe. Karlos Zabala

Horrekin trakesturik, **zabartzen** dira osasunera eta arimen espiritu-onurara daramaten egintzetan. Patxi Altuna

Eta San Martin auzoa bera ere, zahartuta, **zabartuta** ere bai, "ukitua" atxeman dut. Txillardegi

Badian barrena zebiltzan ontziek estela zurixkak uzten zituzten urazal leunean, segituan **zabartzen** hasten ziren lerro zuzenak. Bernardo Atxaga

Gu bion artekoa zoragarriegia da bertan behera **zabartzen** uzteko. Mirentxu Larrañaga

**2** (era burutua izenondo gisa)

Etxera itzultzen zenean, tabako eta lurrin usaina ekartzen zuen, eta itxura **zabartu** samarra, aire mundutarrek horditutako nerabe baten itxura. Xabier Olarra

Etxe azpiko baratze abandonatuak sagarrondo bat zeukan erdian eta zuhaixka **zabartu** batzuk han-hemen. Irene Aldasoro

## **zabartxo** *izond adkor* zabarra.

Urrats **zabartxoekin** niregana hurbildu zen. Gotzon Garate

## zablaka ik **zaflaka**.

## **zabor** *(900 agerraldi, 131 liburu eta 203 artikulutan)* **1** *iz* baliatzen ez den zatia, hondakina. ik **zarama**.

Suari indartsu haize emanez metalari **zaborra** kentzen zaio. Elizen arteko biblia

Lokatza biltzen zen bertan eta gainean euliak ibiltzen ziren hegaldaka, bazterretan **zaborrak** pilatzen ziren bitartean. Patxi Zubizarreta

Erandion bizi zela; maiz inguru haietan ibiltzen zela, txatarra eta **zaborra** biltzen. Gotzon Garate

**Zaborra** erregai bihurtzeko gailua. Berria - Gaiak

Zilarra kalera botako dute, urrea **zabortzat** hartuko. Elizen arteko biblia

Lehen zilar ziren, orain **zabor**; lehen ardo on, orain urardo. Elizen arteko biblia

Nola errota azkarrak aitaren batean bihurtzen baititu aleak irin, halaxe bihurtuko zituen berak diru hondakin eta **zabor** guztiak. Jose Morales

Bizitza osoa **zaborra** biltzen eman nahi al duk itsasontzi zikin bateko sukaldean? Lopez de Arana

**Zaborraren** kamioia brru brru joango da zuen aurrean astiro. Joseba Sarrionandia

Belaunetaraino **zaborrean** sartuta ontziak husten. Joseba Sarrionandia

Kristorengatik dena galdu dut eta dena **zaborraren** pareko jotzen dut, hura irabaztearren. Elizen arteko biblia

Hondakinak ateratzeko sistema bat ere behar da, oxigenoak bere lana egin eta gero erabilgarri ez diren **zaborrak** tratatzeko. Irene Aldasoro

Zoaz **zaborrak** erretzen dituzten tokira eta ea zer ikusten duzun. Joxean Agirre

Ezin digerituzko hondakinak, heste-paretetako **zaborrak**. Irene Aldasoro

Kendu egin zidan burdinazko pistola eta **zaborretara** botako zuela esan zuen. Joseba Sarrionandia

**Zaborretan** ibiltzen zen Mohamed, jan zitekeena jaten zuen. Pablo Sastre

**Zaborretan** aurkitu dituzte dozenaka hautestontzi, milaka boto barruan zirela. Berria - Mundua

9etan **zaborra** hartu -ohitura finkoak ditu- eta etxeko atean uzten du, eraman dezaten. Antton Olano

**Zaborrez** beteriko espaloien gainean umeak katuka zebiltzan. Lopez de Arana

Ondorioz, **zaborrentzako** guneak sortzea ia ezinezkoa da. Berria - Euskal Herria

**2** irud/hed

Batek daki zer-nolako **zaborrez** eginiko edabe nazkagarri bat asmatzen du, [...]. Jose Morales

Badakizu jada ez dudala **zabor** hori sartzen eta... mesedez, utzi bakean! Sonia Gonzalez

Tipo honek zainetan **zaborra** baino zerbait gehiago zeukak! Pako Aristi

Hori ez zela beraientzako, berak **zaborrak** zirela, eta **zabor** bezala bizi behar zirela. Pablo Sastre

Idatzi den gehien-gehiena **zaborra** da. Jon Alonso

Informazio ona lortzeko, egokiena bilaketa estrategia bat prestatzea da (bestela **zabor** gehiegi aterako zaizu). Askoren artean

Gizateriaren **zaborra** dira. Karlos Zabala

Eskola hori **zabor** hutsa izan da nire Aritmomantziako eskolaren aldean! Iñaki Mendiguren

**Zabor** intelektual hori apezño berriek serio hartzen dutenean, arrisku bilakatu daiteke. Berria - Harian

**Zaborrik** baztertuena ere birzikla dezakeen artea baita literatura. Anjel Lertxundi

Jakingo balu berorrek zein garrantzitsua den guretzat, mundu magikoan maila beherenean, esklabo bihurturiko **zaborra** garenontzat! Iñaki Mendiguren

Nork eta **zabor**-fardel horrek eman behar zizkion lezioak, arraioa! Jokin Muñoz

**3** (izenondoekin)

**Zabor** errearen, liburu umelen edo ur ustelduen usaina sentitzen da. Joseba Sarrionandia

**Zabor** nazkagarri bihurtu gaituzu beste herrien artean. Elizen arteko biblia

Agian, emakume miresgarria izatera iritsiko duk, edo beharbada **zabor** huts bihurtuko ditek, bai, seguraski **zabor** huts bihurtuko ditek! Jose Morales

Bai *fast food* moduko **zabor** sasi-jangarriak, baita *delicatessen* plegukoak ere. Edorta Agirre

**Zabor** nuklearra garraiatzen duten trenen aurkako protestak dolu ekitaldi bilakatu ziren atzo. Berria - Gaiak

Bere izena argiz blaitu nahi duen edozein lastargirentzat aproposa den **zabor** erregaia. Xabier Olarra

## 4 (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

Azken **zabor** kamioiak lana amaitzen ari dira. Pako Aristi

"Turgeniev"en aurrean, bidearen bestaldean, zelai muttur bat dago, bizpahiru zume negartik babesten duten oasi bat **zabor** kontainerren artean. Pako Aristi

Poltsa **zabor**-edukiontzi batean ezarri ondotik, isil-misilka itzuli ginen etxera. Josetxo Azkona

Planean **zabor** produkzioa gutxitzea aurreikusita dago. Berria - Euskal Herria

**Zabor**-bilketako kamioien denborak eta kostuak arrazionalizatzeko. Iñaki Iñurrieta

**Zabor**-poltsa gordetzen duen plastikozko ontzia. Josetxo Azkona

**Zabor** arrasto sakabanatuak. Sonia Gonzalez

**Zabor**-pilo batean piztu den sute ziztrin bat baino ez. Horregatik bihurtu dituzu hiri-gotorrak **zabor**-pila. Lopez de Arana

**Zabor** muino eta lautadak, **zabor** unibertsoa ia. Joseba Sarrionandia

Kalearen bukaerara iritsita, nasaren ondoko **zabor**-txirrista grisaren gainean etzan zen. Lopez de Arana

**Zabor**-itsaso bat ni irentsi beharrean zegoen eta, horrela gerta ez zedin, olatu ilunetan argi-une bat bilatzea nuen aterabide bakarra. Aingeru Epaltza

## 5 (hitz elkartuetan lehen osagai gisa, elkarketak izenondo balioa duela)

Zer eta legearen zerbitzari leial baten hitza, noren eta kazetari **zabor**-zaku batenaren aurka. Aingeru Epaltza

## 6 (aposizioan)

Egungo **"zabor** jana" desagertu egingo da lehen mundu honetatik. Edorta Agirre

**Zabor**-kontratuak, **zabor**-janaria: Ableei sua! Urtzi Urrutikoetxea

Draggaccik berak auzibide hauek **'zabor** sumarioak' deitu zituen. Berria - Mundua

Ttipi finagoa zen, zibilizatuagoa, **zabor**-solasaren etsai. Aingeru Epaltza

**Zabor**-jendeak ez bezala, andre-gizon gisakoek halako gider koipetsuei kontzen diete. Aingeru Epaltza

Gorroto zituen **zabor**-telebistaren saio haiek. Joxan Elosegi

**Zabor** lana askotan, baina ezin da ezertxo ere egin. Ana Urkiza

## 7 (izenondo gisa)

-Presta hadi hire aitasaindu **zabor** hori sarri egonen den toki berera joateko. Aingeru Epaltza

## 8 (neurriekin)

Hiri honetan 13.000 tona **zabor** produzitzen dira egunero. Harkaitz Cano

Milaka tona **zabor** gure egunerokotasun txepelean. Iñigo Aranbarri

New Yorkek 12.000 tona inguru **zabor** sortzen ditu egunero. Berria - Gaiak

## 9 *zaborpean*

Elurpean edo etxe hondatuetako **zaborpean** edo ur azpian itorik daudenak aurkitzeko ez da zakurra baino. Gotzon Garate

## 10 *zabor-biltzaile* *iz* zaborra lanbidez biltzen duen pertsona. ik **zaborketari.**

Haien atzetik, **zabor biltzaileek** zakarrak botatzen zituzten artagabe hogei pausotik hogei pausora gelditzen ziren iraulki orga batzuetara. Karlos Zabala

**Zabor biltzaile** bakarti eta duin batek bost kilometro egin zituen trenbidearen ertzetik, ikatz zaku zimur bat eta parke zaindarien makila altzairu-puntaduna hartuta. Koro Navarro

Ondoren **zabor-biltzaileen** kamioia. Urtzi Urrutikoetxea

Joan den igandean greba hasi zuten Udalarentzat lan egiten duen Ferroser enpresako kale garbitzaileek eta **zabor biltzaileek**. Berria - Euskal Herria

Hernaniko **zabor biltzaile** gizagaixoari agindu zioten zaborrak biltzeko erabiltzen zuen gurdiarekin gorpuen bila joateko. Jokin Urain

## 11 (adizlagun gisa)

Ioioren lehengusu Iñaki **zabor-biltzaile** dabil. Urtzi Urrutikoetxea

## 12 *zabor-ontzi* ik **zaborrontzi.**

**hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**

**etxeko zabor** (4); **kilo zabor** (10); **kilo zabor sortu** (3); **plastikozko zabor** (3); **sortutako zabor** (3); **tona zabor** (16); **tona zabor sortzen** (4)

**zabor artean** (8); **zabor artetik** (3); **zabor asko** (3); **zabor bilketa** (3); **zabor biltzaile** (5); **zabor biltzaileak** (4); **zabor biltzaileen** (10); **zabor biltzaileen greba** (3)

**zabor gehiago** (7); **zabor gehiegi** (4); **zabor gehien sortzen** (3); **zabor gutxiago** (9); **zabor gutxiago sortu** (4); **zabor gutxiago sortzeko** (3); **zabor guztia** (4); **zabor guztiak** (4); **zabor huts** (3); **zabor hutsa** (5)

**zabor jana** (4); **zabor kontratuak** (9); **zabor kopuru** (3); **zabor kopurua** (3); **zabor kopuruaren** (3)

**zabor ontzi** (6); **zabor ontziak** (4); **zabor ontzian** (3); **zabor organikoa** (4); **zabor pila** (6); **zabor poltsa** (18); **zabor poltsak** (6); **zabor produkzioa** (6); **zabor sortzen** (8)

**tonako zaborra** (3); **usaintzen zuen zaborra** (3); **zaborra baino** (4); **zaborra besterik** (4); **zaborra besterik ez** (4); **zaborra biltzea** (3); **zaborra biltzen** (4); **zaborra botatzera** (3); **zaborra da** (3); **zaborra ere** (3); **zaborra erretzeko** (4); **zaborra eta** (10); **zaborra jasotzeko** (3); **zaborra kudeatzeko** (3); **zaborra tratatzeko** (10); **zuen zaborra** (6)

**zaborrarekin zer egin** (3)

**zaborraren arazoa** (5); **zaborraren bolumena** (3); **zaborraren kudeaketa** (5)

**zaborren edukiontzien** (4); **zaborren kudeaketa** (3)

**zaborretara bota** (6); **zaborretara botako** (4); **zaborretara botatzea** (3); **zaborretara botatzen** (4)

**zaborrez beteta** (4)

---

# zaborjale *izond/iz* zaborra jaten duena.

**Zaborjale** amorratua zarela pentsatzeak artegatu egin zaitu. Lutxo Egia

---

# zaborkeria *iz* zabor gaitzesgarria. ik **zaborreria.**

Nire bihotzak marru bizi egiten zuen ene irudipen guztien aurka, eta ukabilka uxatu nahi nituen adimenetik inguruan zebilzkidan **zaborkeria** haiek guztiak. Imanol Unzurrunzaga

Inoiz jakingo ez duguna sumarazten digu, gure pentsamenduetako errealitateak **zaborkeria** erdeinagarria besterik ez dela ulertarazten digu. Josu Zabaleta

---

# zaborketa *iz* zabor bilketa.

Karrikako bazter banatara aldendu zineten **zaborketako** zaldiari bide egitearren. Koldo Izagirre

**zaborketari** *iz* zabor-biltzailea.

Ez nuen etxera joan nahi, **zaborketariak** azaldu arte geldituko nintzen kalean, haiek jakiten zituzten istiluetako zertzeladak, zabalik edukitzen zuten haiendako garbiketan aritzen ziren tabernariek. Koldo Izagirre

Berandu genbiltzala, zatirik onenak estibatzaileek berek eta gero **zaborketariek** eramanak zituztela. Koldo Izagirre

Gero **zaborketariek** maltzotan biltzen ditek eta dena txukun paratutakoan Muñoz etortzen duk, ustiaketako komisarioa, hiri hainbertze, hiri hainbertze, paga banatzen dik eta moila gaineko txatarra guztia beretako. Koldo Izagirre

---

zaborpean ik **zabor 9**.

---

zaborreri ik **zaborreria**.

---

**zaborreria** *(orobat* ***zaborreri*** *g.er.)* **1** *iz* zaborrak, zabor multzoa.

Astiro begiratu zien oin iletsuei, gelako **zaborreria** guztiari, bazter batean dardarka zegoen neskari. Jose Morales

Baina, **zaborreria** harekin batera, edo hobeki erran, haren azpian, beste zerbait zegoen. Alberto Ladron Arana

**2** irud/hed

Ez diat irakurri, baina seguru nagok Isabel Sanjosek ere suizidioa aipatu zuela larunbateko bere **zaborrerian** . Aingeru Epaltza

Sekta sataniko eta okultisten gaineko **zaborreriaren** ondoan. Aingeru Epaltza

Ama, berriz, oraindik harrapatzen ahalko nuen atzarririk [...] telebistak tenore horretan eskainiko zuen **zaborreriari** estekatua. Aingeru Epaltza

**3** (beste izen baten eskuinean)

Batzuetan, herrialde berri batean mundu zabaleko jende **zaborreri** guzia biltzen da, eta orduan jendaje harroputz, barrenuts, eta gizagihar zaildurik gabekoa sortzen da. Patziku Perurena

---

**zaborrontzi** *(69 agerraldi, 24 liburu eta 20 artikulutan; orobat* ***zabor-ontzi*** *19 agerraldi, 6 liburu eta 8 artikulutan; Euskaltzaindiaren Hiztegian* ***zaborrontzi*** *agertzen da)* **1** *iz* zaborraren ontzia. (kalekoa)

Poltsa esku biekin oratuz maldan gora, farolen artean, estuegia den kale honetako **zaborrontziak** saihestuz. Eider Rodriguez

Kalera irten eta espaloian [...] cocacola latak, botila hustuak, egunkari zatiak, kristal apurtuak **zaborrontzira** biltzen hasiko zara. Joseba Sarrionandia

**Zaborrontzia** lurretik jaso eta sinestezinezko azkartasunarekin altxatuko diote behekoek kamioi gainekoari, honek **zaborrontzia** irauli eta berehala itzuliko du, behekoek itzelezko trebeziarekin atarian **zaborrontzia** hutsik eta zutik utz dezaten. Joseba Sarrionandia

Latorrizko **zaborrontziak** mukuru beteak zeuden espaloietan. Iñaki Zabaleta

Andra zahar bat beirazko botilak botatzen ari zen **zaborrontzi** berde batera. Sonia Gonzalez

**2** (etxekoa)

Kafesnea berotzen ari nintzela, sagu batek **zaborrontzitik** jauzi egin eta sukaldearen eta hormaren arteko zirrikitutik ihes egin du. Harkaitz Cano

Sukaldera joan eta trapu batekin eta **zaborrontziarekin** itzuli zen, plater puskak eta janaria jasotzeko asmotan. Gutun berria ere beste lau puskatan hautsi, eta **zaborrontzira** bota nuen. Joan Mari Irigoien

Saltoka hurbiltzen ziren sukalde atzeko **zaborrontzietara**, edo hegaldi laburrak eginez. Bernardo Atxaga

**3** (bestelakoak)

Sakelakoaren **zaborrontziaren** dantzak baino ez du lasaitu. Eider Rodriguez

**4** (irain gisa)

-Hator hona, **zaborrontzi** hori. Karlos Zabala

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
> **zaborrontzi bat** (4); **zaborrontzi batean** (3)
> **zaborrontziaren gainean** (3)

---

**zabortegi** **1** *iz* zabor biltegia.

Nahikoa litzateke poltsak **zabortegira** bota eta alde egitea. Oskar Arana

Tiro bat buruan zuela agertu zen bere gorpua Hamburg-eko **zabortegi** batean. Hasier Etxeberria

Eleuteriok eta bere anaiak etxeko eltzea betetzen laguntzen zuten, **zabortegietan** txatarrak eta trapuak bilduz. Pablo Sastre

Zementuzko bide batean eta zarama-pilo ketsuz beteriko **zabortegien** artetik. Lopez de Arana

Kamioi, orga edota gurdirik ez zen sartzen kale itsu hartara: barren-barrenean **zabortegi** bat zegoen, herdoildutako ohe-burdina ugerrak eta galdara apurtuak eta eltze ipurdirik gabeak biltzen zituena. Mirentxu Larrañaga

**Zabortegi** hori hondakin toxiko eta arriskutsuak botatzeko eraiki zen 1995ean. Berria - Euskal Herria

Kontratua lortu du Uruguaiko Las Rosas herrian **zabortegiko** biogasaren bitartez argindarra sortuko duen planta bat eraikitzeko eta martxan jartzeko. Berria - Ekonomia

Hain harroa ez izatera, **zabortegira** botako zuela orijinala. Bernardo Atxaga

Objekturik arruntenak erabiltzen zituzten, Suitzako edozein **zabortegitan** aurkitzeko modukoak. Berria - Kultura

**Zabortegitik** salbatu plastikozko bidoinekin eta boteilekin egina dago. Herria

Txiki-txiki egingo zaituztet eta zuen etxeak **zabortegi** bihurtuko. Elizen arteko biblia

Ozeanoak **zabortegi** bihurtzeko joerak alarma gorria piztu du. Berria - Gaiak

Itsasoa ez da **zabortegi**, bizileku da eta Jainkoaren dohain. Herria

San Markoseko **zabortegia** itxi eta errauste planta martxan jarri arte bost urte pasatuko direla aurreikusi du Gipuzkoako Foru Aldundiak. Berria - Euskal Herria

Libanoko **zabortegi** batean hondamendi ekologikoa sortzeko arriskua dago. Berria - Gaiak

**2** (izenondoekin)

Bilboko **zabortegi** nagusian. Unai Iturriaga

Errausketaren ondoren geratzen den zepa eta errautsak, 112.000 tona urteko, **zabortegi** berezietara eraman behar dira. Berria - Euskal Herria

**Zabortegi** kontrolatuen sistema bertan behera utzi dugu. Berria - Euskal Herria

**Zabortegi** nuklearra. Berria - Mundua

San Kosme inguruan **zabortegi** erraldoia egiteko proiektuaren alde agertu zen. Berria - Euskal Herria

**3** (hitz elkartuetan)

Sistema horrek **zabortegi** azalera handia edukitzeko beharra eskatzen du. Berria - Euskal Herria

· Ez zen han putzurik ez mea-zulorik ez harri-**zabortegirik**. Juan Garzia

**4** irud/hed

Eta nire hitzek, noski, **zabortegian** amaituko dute. Koldo Izagirre

Ospearen betiereko **zabortegia**. Xabier Olarra

Arraroa da hizketan klixeak besterik erabiliko ez duen eguna -klixeak edo egungo jakituriaren **zabortegiak** gainez egiteraino betetzen dituzten esaldi akitu eta bigarren eskuko ideia horiek oro. Oskar Arana

Ezin jarrai dezakegu munduaren parte bat giza **zabortegi** bihurtzen, arazoari erabat bizkarra emanda. Iñaki Heras

**hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**

**san markos zabortegia** (4); **san markoseko zabortegia** (13); **san markosko zabortegia** (3); **zabortegia itxi** (5); **zabortegia ixtea** (4); **zabortegia ixteko** (10)

**san markoseko zabortegiak** (4)

**san markoseko zabortegian** (3)

**zabortegiaren itxiera** (5)

**zabortegietara eraman** (3)

**zabortegira bota** (3); **zabortegira botatzen** (5); **zabortegira eraman** (3)

---

## zabortsu *izond* zaborrez betea.

Ibilaldi bat egingo zuen hiriko kale zikin eta **zabortsuetan** zehar East River-eko ontziraleku hartaraino, bertan pilatzen baitziren kaobazko habe handiak. Lopez de Arana

---

## zabortu, zabor(tu), zabortzen **1** da/du *ad* zabor bihurtu.

Honela, mundu zabala inguratzen duten murru erasoak ere suntsitu eta **zabortu** egingo dira. Xabier Amuriza

**2** (era burutua izenondo gisa)

Bere oinazearen zikina isurtzen digu orduan gainera, besterik ez baitira ibaia kutsatuak, mendi **zabortuak**, hiriaren estolda ustel-kirastuak. Pako Aristi

---

## zabra *iz* bi mastako itsasontzia, ozeanoan zehar salgaiak eramateko erabiltzen zena.

Halaxe izkiriatu nuen Zazpigarren Eskuadra patatxena eta **zabra** izeneko ontzixkena zela, eta hogeita bi zirela halakoak. Edorta Jimenez

Arroztasun sentimendu hartaz hordituriк kasik, Bizkaiko **zabra** taxuko ontzitxo baten ondoan igaro ginelarik, euskarazko berba batzuk aditu genituen. Edorta Jimenez

Beste **zabra** baten ababor mandaren parean igaro ginelarik ohartu nintzen zergatik zitzaidan dena hain arrotz. Edorta Jimenez

---

## zabu **1** *iz* bi soka edo kidekoetatik zintzilik ipintzen den esertokia, kulunkatzeko erabiltzen dena; kulunka egiteko zernahi tresna. ik **kulunka 3**.

Loretegia baino gehiago jolasleku txiki bat zen, bazter batean **zabuak**, beste batean plastikozko txirrista bat eta bitartean jostailu eta gomazko baloi andana bat ageri zirela. Oskar Arana

Kristalak garbitzen ari zen, eserleku batean jarrita, eraikinaren gorenetik soka batzuetatik zintzilik, **zabu** batean bezala. Juan Kruz Igerabide

Ume bat ikusi nuen **zabuan** obsesiboki dilindan, ahalik eta gorena igoz, **zabuak** eman ahala. Xabier Olarra

Kontua da **zabuak**, atzerako mugimenduan, betean harrapatu zuela Karmele. Joan Mari Irigoien

Jolasleku publikoko **zabu** biribilean, eskolaurreko umeek bultza egiten zieten beren buruei, zoriontsu eta zorabiaturik. Koro Navarro

Ordurako iluna sartzen hasia zen eta, bai han bai izugarri atsegina egin zaidan **zabu** erraldoian, pozarren ibili gara. Patxi Zubizarreta

Bi haur ari ziren han **zabuan** jolasean, hots, egur bat beste baten gainean gurutzatu eta bakoitza ertz batean eserita, gora eta behera zebiltzan. Askoren artean

Bitartean heldu zen jendea eta harritu egin zen anai Junipero **zabuan** zebilela ikustean. Askoren artean

Kristalaz bestaldera, **zabuetan** ari dira haurrak. Alberto Barandiaran

**2** kulunka.

Penduluaren **zabua** angelu zuzenean zetorren nire gorputzari buruz. Koro Navarro

Nire matematikariak suspensio-sistema bat landu zuen, ontziaren kulunkek eta **zabuek** eraginik izan ez zezaten itsasorratzean. Jon Muñoz

Gorputzaren mugimenduak ere esna zegoela adierazten zuen, alderik alde kulunkatzen baitzen **zabu** arin baina etengabe eta beti-berdin batez. Koro Navarro

Arnasestuka eta askatzeko lehian hasten nintzen penduluaren **zabu** bakoitzean. Koro Navarro

Jira eta jira aritu ginen, ez mugimendu uniformeetan, **zabu** eta astindu zorabiozkoetan baizik. Koro Navarro

**Zabu** eta astindu haiek iarda gutxi batzuk mugiarazten gintuzten zenbaitetan, eta besteetan berriz zurrunbiloaren jira osoa eginarazten ziguten ia-ia. Koro Navarro

Bat-batean, haiengandik hurbilen zegoen soldaduak **zabu** arina egin zuen, besoak lasaitu eta fusila askatu zuen. Jose Morales

Bihotzak **zabuak** ematen zizkidan. Joxean Agirre

**3** (hitz elkartuetan)

Ponpak hutsik ponpatzen segitzen zuen, eta orratza atmosfera heren baten inguruan **zabu**-dantzan zebilen. Juan Garzia

· Jimmy alderrai zebilen ferian zehar: Arkakusoen Zirkura, zaldiko-maldikoetara eta lurrin-**zabuetara** joan zen, jostailuak eta gozokiak erosi zituen, [...]. Lopez de Arana

**4** ***zabu egin*** kulunkatu.

Bat-batean, **zabu egin** zuen zamaontziak; isiltasun moduko bat izan zen zalapartaren erdian; makinaren hotsa gelditu egin zen. Jon Muñoz

Ronek **zabu egin** eta oreka galdu zuen, eta Harryk heldu eta ohean etzanarazi zuen berriro. Iñaki Mendiguren

Bien arteko lehian, abadiñarrek bi tiraldiak irabazi zituzten, indartsu eta **zabu egin** gabe tiratuta. Berria - Kirola

**Zabu egin** eta gurdiaren endaitzari nola oratzen zion ikusi zuen laborariak. Karlos Zabala

Ontzia seguru mugitzen baitzen, maila beti berean, zurrunbiloaren olatu eta mugimendu ikaragarriekin **zabu eginez** bakarrik. Koro Navarro

Oinarrietaraino dardaratzen zen mendia, eta harkaitzek **zabu egiten** zuten. Koro Navarro

Ez zuen ematen koinatua gizon arriskutsua zenik, zeren, itxura guztien arabera, mozkor-mozkor eginik baitzegoen, eta, mahai alboan eseririk, buruak **zabu egiten** zion etengabe. Jose Morales

**5** (osagaiekin)

Patxadaz mintzo da, baina **zaburik** egin gabe, begietara begira. Berria - Kirola

Hagrid zen gaztelura bidean, bere indar guztiz kantan, eta ibiltzerakoan **zabu** batzuk **eginez**. Iñaki Mendiguren

Oso azkar zetorren eta, abiaduragatik, **zabuak egiten** zituen. Anjel Lertxundi

**Zabu** txikiak **eginez**, Emileren atzetik joan zen barraraino. Lopez de Arana

Ez al nintzen nire helduleku berrian kokatu, **zabu** ikaragarria **egin** genuen istribor aldera, eta zuzenean amildu ginen zulora. Koro Navarro

### 6 ***zabu eragin*** kulunkarazi.

Zutik geldi zegoela, sedazko euritako handi baten gainean bermaturik, bere gorputz sekulakoari **zabu eragiten** zion gizon leun adineko bat zen. Irene Aldasoro

### 7 *zabu-zabuka* ik **zabuka 2.**

---

## zabuka 1 *adlag* zabu eginez. ik **kulunka**.

Baldwinek eskailerak **zabuka** jaitsi zituen, zorabioak jota. Lopez de Arana

Aulki batera igo zuten eta emakumea **zabuka** hasi zen noiz hanka batean, noiz bestean. Lopez de Arana

Barrez hasi ginen eta belarraren gainean **zabuka** . Koro Navarro

Ilea oparo erortzen zitzaion bizkarrean behera eta bere bularrak **zabuka** suma nitzakeen nire bularraren kontra. Joxean Agirre

Ez genien tabakorik eskatu Stella Maris-etik **zabuka** zetozen finlandiarrei. Koldo Izagirre

Gautxori-busak **zabuka** segi zuen aurrera ilunpetan. Iñaki Mendiguren

Harry ohean etzan zenean, besoa **zabuka** geratu zitzaion zintzilika. Iñaki Mendiguren

Urka-bilurrak panpinen modura airean **zabuka** dantzatu zuenean ere, jende artera begira segitzen zuten haren begi hondoratuek. Anjel Lertxundi

**Zabuka** desagertu zen gortinen artetik. Lopez de Arana

Tranbia, jendez gainezka, **zabuka** zihoan. Anjel Lertxundi

Suge itsutua **zabuka** zebilen, nahasita, hilzorian, baina oraindik hiltzeko gauza zela. Iñaki Mendiguren

Begia **zabuka** dabilkio leihotik orri zurira eta orri zuritik leihora. Harkaitz Cano

Batera eta bestera **zabuka** darabil hornizio saskia. Josu Zabaleta

**Zabuka** , erortzeko zorian, elkarrekin behaztopa eginez aienatu zarete. Xabier Montoia

Eskuak aldamenetan zituela ibiltzen zen, gorputza tente eta burua alde batetik bestera **zabuka** . Irene Aldasoro

Itzal zaratatsuak dantzan ari ziren **zabuka** . Lopez de Arana

Orduan Adderley-k uharriaren albo batean alga zuri eder bat ikusi zuen, **zabuka** . Juan Garzia

### 2 irud/hed

Beti arrangura bera **zabuka** bihotzean. Anjel Lertxundi

Nik bihotza **zabuka** bainuen eta pultsua urduri. Joxean Agirre

### • 3 *iz* kulunka.

Donostiara heltzen ziren dilijentziak hantxe gelditzen zirelako; eta birrindutako zaldiak eta txorabiatutako andereen **zabukak** ikusteko parada ematen zigulako. Txillardegi

### 4 ***zabuka egin*** ik **zabukatu**.

Azkenean, **zabuka egin** eta geldi geratu zen zalgurdia, eta Hermione eta Ron kanpora irten ziren. Iñaki Mendiguren

Lo bete gozoan zegoen eta **zabuka egiten** zuen trenarekin batera. Anjel Lertxundi

**Zabuka egin** zuen neskak, ontziaren higidurara egokitu ezinez. Anjel Lertxundi

Txalupak **zabuka egin** zuen iraultzeko zorian. Joanes Urkixo

Hain zen indartsua haizea, ezen **zabuka egin** baitzuten joko-zelaira irtetean. Iñaki Mendiguren

Haize bolada batek jo du une horretan, eta **zabuka egin** duen altzipresetik euri mehe bat hedatu da. Pello Lizarralde

Autoak **zabuka egin** zuen zakar. Iñaki Mendiguren

Autoak berriro **egin** zuen **zabuka** . Iñaki Mendiguren

Gorputz osoa zurrun, zegoen lekuan **zabuka egin** eta zerraldo erori zen ahoz behera, ohol bat bezain zurrun. Iñaki Mendiguren

### 5 ***zabu-zabuka*** *(orobat **zibu-zabuka**) adlag*

Bi itsas kolpek, bata bestearen atzetik, **zabu-zabuka** utzi zuten ontzia. Jon Muñoz

Autoak **zabu-zabuka** zebiltzan bidean, euritan, harrien gainean jauzika balebiltza bezala, mendibideetan gehiegizko abiaduran zihoazela. Aitor Arana

Belarrira xuxurlatu zion: "Ergela halakoa", eta gero, **zabu-zabuka** , bere logelara heldu eta ohean etzan zen. Julen Gabiria

Galduz gero, ordea, **zabu-zabuka** jarraituko du Amorrorturen taldeak. Ez dituzu maite irudi zalantzati horiek, poltsa bat alde banatan, **zibu-zabuka** ari direla? Berria - Kirola

---

## zabukada *iz* kulunka. ik **zabuka 3.**

-Ingelesentzat egiten du lan? -galdetu zion Del Vallek, Peugeot orrolariaren **zabukaden** artean gorbata ongi lotzen saiatuz. Alberto Ladron Arana

---

## zabukaldi *iz* kulunka. ik **zabuka 3.**

Hegalak ere distiratsu, hutsunean finko, **zabukaldirik** gabe dagoeneko, oskarbian geldi. Joxe Austin Arrieta

---

## zabukari *izond* zabuka egiten zuena.

Hareazko duna berdeak basabelar **zabukariekin** gainean, beti ihesi bezala, ilargiko lurralde batera, biztanlerik gabea. Anton Garikano

John Waynek nola botatzen zituen gaiztoak Salooneko ate **zabukarietatik** ? Joxean Sagaztizabal

---

## zabukatu, zabuka(tu), zabukatzen da/du *ad* zabuka egin, kulunkatu.

Martxa-lerroan igaro zitzaizkidan albotik, besoak batera-batera **zabukatzen** zituztela, botoiak eta botak distiratsu ageriz, eta eguzki-argiak baionetetan diz-diz egiten zietela. Mirentxu Larrañaga

Behin ere ez baitzuen asmatzen besoak besteenekin batera **zabukatzen** , bost axola hari zenbat bider ekiten zioten orroka sarjentuek eta kaporalek. Mirentxu Larrañaga

Semeak ikusmin haserrez begiratzen zuen nola **zabukatzen** ziren amaren buru ile-urdina eta kapela beltz parpailaduna. Jose Morales

---

## zabulondar 1 *iz* Bibliako Zabulonen leinuko kidea.

Kanaandarrak **zabulondarren** artean bizi izan ziren, baina lanera behartuak. Elizen arteko biblia

**Zabulondarrek** , bai, ia hiltzeraino arriskatu zuten bizia, orobat Neftalik ere zelai garaietan. Elizen arteko biblia

**Zabulondarren** buruzagia Helonen seme Eliab izango da. Elizen arteko biblia

**2** (izenlagun gisa)

Horiek ziren **zabulondar** senitarteak: 60.500 gizonezko guztira. Elizen arteko biblia

---

**zabulundu**, zabulun(tu), zabuluntzen da/du *ad* zabukatu.

Zakurrak lasai zihoazen, buztana ezker-eskuin **zabulunduz**, ezagun bati ongi etorria eginez bezala. Gotzon Garate

---

zabumba ik **zabunba**.

---

zabunarazi ik **zabunkarazi**.

---

**zabunba** *(corpusean **zabumba** soilik)* *iz* eltzagorra.

Oraiko eta ohizko musika tresnak nahasirik (sanfona, **zabumba**, ganza...), musikaldi bikain bat eskaini dauku Brasilgo xantreak, bere bost lagunekin. Herria

---

**zabunka** **1** *adlag* zabuka.

Jaka arina, azpian elastiko kolore bizikoa eta biribilguneak ongi markatzen zizkioten praka malguak janzten zituen; haien barruan aldakak **zabunka** eta bularrak itxialditik alde egin nahirik zebilzkion. Migel Angel Mintegi

Nazio lotsagabea **zabunka** hasi eta erori egingo da, ez du inork jasoko. Elizen arteko biblia

**2** ***zabunka egin*** zabuka egin.

On eginaz erantzuten duenak etorkizuna du gogoan, **zabunka** egiten badu aurkituko du euskarririk. Elizen arteko biblia

---

**zabunkarazi**, zabunkaraz, zabunkarazten *(orobat **zabunarazi**)* du *ad* kulunkarazi.

Iluntasun beltzean dabiltza itsumustuan eta mozkorrak legez **zabunkarazten** ditu Jainkoak. Elizen arteko biblia

Neure ahurraren gainean zutik egon behar dute, nik ezker-eskubi **zabunarazten** ditudan bitartean. Gotzon Garate

---

**zabunkari** *izond* zabukaria.

Onarpen zuhur nahiz behin eta berriro ukatutako baten egoera **zabunkaritik** abiatuta. Ibon Uribarri

Aski da arrazoimenaren landualdia zientziaren ibilera segurutik abiatzen ikustea eta kritikarik gabeko bere joan-etorri itsu eta **zabunkariarekin** alderatzea. Ibon Uribarri

---

**zabunkatu**, zabunka(tu), zabunkatzen da/du *ad* zabukatu.

Komunitateak uste badu, ordea, arrazoikerizale sotilek ongizate publikoaren oinarriak **zabunkatu** nahi dituztela, orduan ez dirudi zuhurtziari soilik dagokionik. Ibon Uribarri

---

**zador** *iz* bidexka, bidezidorra.

Gainera, usain, ke, kolore eta horrela hedatzen diren antzeko beste zer guztiak gauzetan ugari badira, barruan sortu eta handik goranzko **zador** bihurrietan banatzen direlako da, ez baitaukate denek batera alde egiteko irteera zuzeneko biderik. Xabier Amuriza

---

zafarrada ik **zaparrada**.

---

**zafarradako** *iz* masailekoa, belarrondokoa.

Aise geldiarazi nuen hurrengo **zafarradakoa** ere. Aingeru Epaltza

---

**zafiro** **1** *iz* kolore urdin argiko harri bitxia.

Mota guztietako harribitxiz apaindua, kornalina, topazio eta beriloz, krisolito, onize eta jaspez, **zafiro**, errubi eta esmeraldaz apaindua. Elizen arteko biblia

Korala baino gorriztago haien gorputzak, **zafiroa** bezain urdin haien zainak. Elizen arteko biblia

Turkesatik **zafirorainoko** urdinaren ñabardura guztiak dauzka zeruak. Koldo Izagirre

Harritzeko moduko begi urdinak zituen, **zafiro** zurbilak bezalakoak. Iñaki Mendiguren

Fruitu miresgarri haietako batzuk hartu zituen, izan ere errubiak, esmeraldak eta **zafiro** koloretsuak baitziren. Patxi Zubizarreta

Bildumako diskorik zaharrena da, Pathé disko bat, **zafirozko** orratzerakoa. Monika Etxebarria

Howard Hughesek oparitu zion diamantezko eta **zafirozko** bitxi bat 16.500 eurora irits daiteke. Berria - Kultura

Jaspezko oinarri gainean eraikiko zaitut, **zafirozko** zimendu gainean ezarriko. Elizen arteko biblia

Haren bularra marfilez landua, **zafiroz** estalia. Elizen arteko biblia

Oinazpian **zafirozko** solairua bezalakoa zuen, zeru-sabaia bezain gardena. Elizen arteko biblia

**2** (hitz elkartuetan)

Beraren harkaitzak **zafiro**-toki dira, beraren hautsetan urrea aurkitzen da. Elizen arteko biblia

Teilatuez eta tximiniez haraindi, zeru urdina ikus zitekeen, **zafiro**-kolorekoa. Lopez de Arana

**3** ***zafiro harri*** zafiroa.

Han, sabaiaren gainean, tronu-itxurako zerbait ikusi nuen, **zafiro harriaren** antzekoa, eta tronu-itxurakoaren gainetik, goren-gorenean, gizaki-antzeko irudia. Elizen arteko biblia

Kerubinen buru gainean zegoen sabaiaren gainean, tronu-itxurako zerbait ikusi nuen, **zafiro harriaren** antzekoa. Elizen arteko biblia

---

## **zafla-zafla** *adlag* zaflatzearen onomatopeia.

Ez du bere hegaldiaren aztarnarik uzten; bere hegoez **zafla-zafla** jotzen du aire arina eta ziztu bizian airea urratzen eta bidea irekitzen hegaldaka, baina ez du igaro den seinalerik uzten. Elizen arteko biblia

Haizean **zafla-zafla** zebilela ohartu nintzen. Itxaro Borda

---

zafla[1] ik **xafla**[1].

---

## **zafla**[2]

### **1** ***elur zafla*** elur multzoa.

Elur **zafla** bat on da denen hurbiltzeko. Herria

Elur **zafla** bat aski elgar laguntzeko. Herria

Elkarri lapata, pega-pega, multzotuta datorrenean, elur-moltso, elur-hosto, elur **zafla**, hauek jada puska handiak direnean, mataza baten irudian, hortik elur-matazea deitzearena. Pello Zabala

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
> **elur zafla** (3)

---

## **zafla**[3]

### **1** ***irri zafla*** irri karkaila.

Zer **irri zaflak** eta karkailak egin ditugun horier begira, ez baita kalte artetan bederen, egun guzietako griñetarik baztertzeko. Herria

Itxura horien aitzinean zer balio du asko borondate oneko politikariek piztu eztabadak, afera irringarria balitz, zer **irri zaflak** egin ginezazken zuen astokeriez. Herria

Zonbat karkaila ta **irri zafla** ba ote dituk sorturik. Herria

Jendearekin elgarrizketa bat baitzen, denen **irri zafla** eder batzuez noiztenka moztua. Herria

Ostatura bertze hiru lagun sartu dira, xutik daude eta nahiko azantz egile handiak dira, **irri zafla** ozenak botatzen dituzte noiz nahi. Eneko Bidegain

-Zer duk hik eskua hain idorra, Kattinak ez nahi ukaiteko?, eta gaitzeko **irri zafla** bota zuen. Janbattitt Dirassar

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
> **irri zafla** (6)

---

## **zaflada** *(17 agerraldi, 15 liburutan)* **1** *iz* masailekoa; kolpea. ik **zaflako**.

Eta zauritzen, eta aurpegia estaltzen zioten, eta **zafladak** ematen. Patxi Altuna

Alferrik egin zuen zin apezpiku batek eman ziola **zaflada** batez sendotza, hamar urte zituelarik. Juan Garzia

Kristori **zaflada** bat eman zioten, esanez: "Horrela erantzuten al diok apaiz nagusiari?". Patxi Altuna

Une horretan gustura emango nieke **zaflada** bana biei. Josu Zabaleta

Hemen erantsi zion komisarioak bigarren **zaflada**, gidoiak aginduta bezalaxe. Harkaitz Cano

**Zaflada** bat bezala sentitu zuen usaina, ia zorabiatzeraino. Iban Zaldua

Eskua jarri zuen txaluparen sabelean, **zaflada** maitekor batzuk eman zizkion, hiltegian harakinak behorrei egiten dien moduan, horrelaxe. Koldo Izagirre

**Zaflada** leun bat eman nion bolanteari, eta azeleragailua sakatzen hasi nintzen berriro. Anjel Lertxundi

### **2** (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

Bizar moduko bat daukat, lehengo **zaflada** sortak utzitako marka. Agurtzane Juanena

### **3** (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa)

Poliziek adiskidetasun **zafladak** eman dizkiete hiltzaileei bizkarrean. Gotzon Garate

Polizi auto baten argi **zaflada** urdin eta gorriek iluntasuna ebakitzen zuten. Iñaki Zabaleta

Violetak haize **zaflada** beroa sumatu zuen lepo atzean. Aritz Gorrotxategi

Moab herrixkako kanpinera heldu garenean, furgonetako aire egokitutik irten (oporraldi honetan horixe da bulegoa oroitarazten didan gauza bakarra), eta sekulako bero **zafladak** kolpatu gaitu. Patxi Zubizarreta

---

## **zaflaka** *(orobat **zablaka**)* **1** *adlag* zaflakoak ematen.

Itsuak hartuta, urrats egin du niregana, eta eskua jaso du **zaflaka** hasteko bezala. Koldo Izagirre

Haserretu zen gazte hura eta elkarri **zaflaka** hasi ziren. Gotzon Garate

· Elkarri loturik zagotzin denak, **zaflaka**, haizea lagun, elkar besarkatzen zutela... Herria

### **2** (hitz elkartuetan)

Ingeles soldaduek, erruki zuela pentsaturik, esku-**zaflaka** ekin eta ezpatak gora jazarri zitzaizkion. Juan Garzia

Hegal **zaflaka** beti nabila, ingura eta ingura. Herria

---

## **zaflako** *(40 agerraldi, 15 liburu eta 9 artikulutan)* **1** *iz* masailekoa. ik **zafrada**.

**Zaflakoak** bizkarra kordokatu zidan. Aingeru Epaltza

Laneko buruzagi batek frantses bati **zaflako** bat eman zion aleman batek protesta egin zuen. Marzel Etxehandi

**Zaflako** bat ere jo zidan nire zerbitzuak nahi ote zituen galdetu nionean. Joxan Elosegi

**Zaflako** bat hartuta ere, Maitek burua makurtu eta ez zuen hasperenik ere egingo. Gotzon Garate

Estefaniarengandik ez bezala, ez dut gogoan sekula haren **zaflako** edo ostikorik jasorik. Aingeru Epaltza

Ez dut nahi **zaflako** bat bildu. Menane Oxandabaratz

**2** kolpea.

Airean nengoela, metalezko saihets batek **zaflako** egin zidan gerrialdean. Aingeru Epaltza

Entzuten dira hegal azkarren **zaflakoak**. Michel Oronoz

Hogoietan berdin ziren halere baina Larrechearen 10 boteak eta **zaflakoak** ez dira aski izan, Aramburuk eta Martiarenak beren bikotea ponduan ezarri dutelarik. Herria

Jasan ahalako **zaflakoak** zituen hartzen pilotak. Herria

**3** (izenondo eta izenlagunekin)

**Zaflako** latza eman zidan bizkarrean eta gero karkailaka lotu zen. Aingeru Epaltza

Autoan sartzean, haize **zaflako** galanta bildu eta tenpestak tenpestari etxeraino irauteko, danba-danbaka irakurgailuan tekno musika ezarri nuen. Itxaro Borda

Mignon besarkatu eta **zaflako** amoltsu bat eman zion ipur-masailean. Joan Mari Irigoien

Gaztiguak, baztertzeak eta haur hotzean dudarik gabe merezi nituen **zaflako** finak. Itxaro Borda

Ekaitza ez zetorkidan aitzinaldetik, baina albotik eta saihetsetik, noiz eta aitak sekulako **zaflakoa** eman baitzidan. Joan Mari Irigoien

**3** irud/hed

Oraingoan ere «Raffarin eta patronalaren gobernuari **zaflakoa**» emateko parada dela azaldu zuen Krivinek. Berria - Euskal Herria

Alemanian, Gerhard Schroeder presidentak **zaflako** bat hartu du igande huntan Ipar Rhenania-Westphalian egin duen boz galtzearekin. Herria

Sinesmena hedatzeko eta superstizioa borrokatzeko hark eman ordenantza bakoitza **zaflako** bat zen gure inguruko jende ezjakinendako. Aingeru Epaltza

Eta sekulakotz emana izan dadin Espainietako Erreinuentzat **zaflakoa**, bulda erregistratua izan da Erroman. Piarres Xarriton

---

## zaflakoka *adlag* masailekoka.

Badin orain bulta bat ostikoka eta **zaflakoka** erabiltzen nauela. Itxaro Borda

**Zaflakoka** hasi nahi izan zuten jendarmeek, baina zurturik geratu ziren, bat-batean, begiak zabal-zabalik. Joxan Elosegi

Kattinak, salbatzaile diploma zeukanez, bizkarrean **zaflakoka** lehen artak, menturaz ere azkenak, eskaini zizkidan. Itxaro Borda

---

## zaflari *izond* zaflatzen duena.• (adizlagun gisa)

Yahvéren eskaera hilezkorrari gogoz kontra bai ihardesten zion Abrahamen eskua nuela eta hori dena, sarrera nagusitik Hazparneko ostatura zihoan barrakiaren gainetik iraganez, haizearen buhakoak aurpegian **zaflari** nabaritzean. Itxaro Borda

---

## zaflatu, zafla(tu), zaflatzen du *ad* jo.

Mahoma profetaren bilobaren martirioa itxuratzearren, euren gorpuak azoteekin **zaflatuta** edo buruak ezpatekin jota ibili ziren Kerbalako kaleetan. Berria - Mundua

Haizeak **zaflatua** zidan aurpegia beroak hartu dit. Piarres Aintziart

Goizeko freskurak **zaflatu** nau, baina berotzen hasi naiz emeki emeki eta laster gogoratu zait Sahagúnerainoko bide luzeak dukeen terrenta. Piarres Aintziart

Borobil perfektuan landatu harriak **zaflatzen** zituzten euriak oraino eta haize oldeak beti. Itxaro Borda

---

## zaflatxo *iz* indar gutxiko zaflakoa.

**Zaflatxo** goxo batzuk jo astoari ipurtaldean. Gotzon Garate

---

## zafra[1] *iz* kolpea.

Haatik hor zuen ere bere Biriatuko auzo gaztea, Sorhuet, sakari segura eta oro biltzen, **zafra** hura bestalde. Herria

Haatik ondarrerat berriz ere bere **zafra** atera Ibarrolak eta berriz ere gaina. Herria

Gero, Kurutcharry on batekin, eta Ibarrolaren **zafra**, 23tan ados, 24etan ere, eta 33tan ere. Herria

---

## zafra[2] *iz* azukre kanaberaren uzta.

Larunbat eta igandetako **zafraz** baliatzen gara, Caracaseko beste sektoreetan ia ez baitago bezerorik. Pako Aristi

Vladimirrek aparailuak zeuzkan, aparailu elektrikoak ez ezik **zafran** eta, orokorrean, azukrearen industrian erabiltzen diren tresna tradizionalak. Jon Alonso

---

## zafrada *(9 agerraldi, 7 liburutan)* **1** *iz* kolpea. ik **zaflako**.

Fraideen **zafradek** aspaldian ziguten irakatsi hobe dela sobera errazak diruditen galderei erantzun gabe. Airearen **zafrada** askatzailea sentitu nuen aurpegian, eguzki izpien epela. Koldo Izagirre

Onezko izpiritu izan zein iratxo madarikatu, zeruko haize gozo ekarle zein infernuko **zafrada**, hire asmoak makur izan zein onbera, [...]. Juan Garzia

**2** (hitz elkartuetan)

Haren ezpata-ukaldiaren haize-**zafradaz** aitaso erkindua hor doa lurrera. Juan Garzia

Orduan, hego-**zafrada** entzun zen, Fawkes buru gainetik igaro zen berriro eta zerbait utzi zuen erortzen Harryren altzora: egunerokoa. Iñaki Mendiguren

**3** irud/hed

Mila jostorratz herdoildu aldean, leihorik gabeko begirada, **zafrada** garratz bat bihotzean. Patziku Perurena

---

## zafraka *adlag* kolpeka.

Susana San Juanek leiho itxiaren kontra **zafraka** entzuten du haizea. Juan Garzia

Haizea eta euria leihoaren kontra **zafraka**. Anjel Lertxundi

Harry Higgs baino bizkorragoa zen... han ikusten zuen pilotatxo biribila, hegoak **zafraka**, ziztu bizian aurrera... Iñaki Mendiguren

---

## zafrako *iz* kolpea.

Frantxuak gaitzeko **zafrakoak** biltzen zituen, aitak liburu bat eskuetan harrapatzen zuen aldi oroz eta ongarria hedatzera igortzen zuen, zalu. Itxaro Borda

Pilotarietan, aise nausi Ibarrola, defentsan bezala **zafrakoan**, aise ari baitzen Ezcurra gaztea harekin. Herria

---

**zafraldi** *(69 agerraldi, 29 liburu eta 29 artikulutan)* **1** *iz* jipoia.

Eskailerapeko barrika erdia hustu eta inoizko **zafraldirik** bortitzena eman zion gau hartan gizonak emaztekiari. Aingeru Epaltza

Hura zen, hura, **zafraldia**, sor-seinale txar harengatik bildu zuena. Eneko Bidegain

Sudurretik odoloa zerion eta **zafraldi** latz baten marka zuen kopetan. Aingeru Epaltza

Gero, Indotxinako gerla hasi zuen, Vietnam, Laos eta Kanbodiako nazioen aurka: oroitzeko **zafraldia** jasan baitzuen orduan, Dien-Bien-Phu-ko setioan. Piarres Xarriton

Roldán-en armadak sekulako **zafraldia** jasan zuen egun hartan euskaldunen gandik. Angel Aintziburu / Jean Baptiste Etxarren

Igandeko hauteskundeetan eskuinak jaso **zafraldiaren** ondotik, Nicolas Sarkozy Ekonomia ministroak bazterrak lasaitu nahi izan zituen atzo. Berria - Ekonomia

Partida hasieran ikusi beharra zen Parisek Baionari **zafraldia** emanen zion ala Baionak buru eginen zuen. Berria - Kirola

Pauek eta Baionak, aldiz, sekulako **zafraldia** bildu dute, Pauetarrek Tolosarren kontra eta Baionesek Paristarren kontra. Herria

Errugbia: Zer **zafraldia**! 45 eta 6. Herria

**2** (hitz elkartuetan)

Gestapoko komisarioak sekulako azote **zafraldia** emaiten daut. Michel Oronoz

**3** irud/hed

Aurreko gauean emazte ohiak eman zidan hitzezko **zafraldiaren** ostean. Oskar Arana

**4** haizeaz-eta mintzatuz, kolpea.

Denbora guztian euria jauts-ahala ariøøø eta haize basaren **zafraldiak** hezurretan barna sartzen zitzaizkidan. Daniel Landart

Segur, galernaren **zafraldi** batzu jasan behar ukan ditu bainan araberan gutiago. Herria

Kanpoko euri **zafraldier** nagusitu baita barnean zen iguzki edo elkartasunaren sua... Herria

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
> **zafraldi bat ona** (3); **zafraldi eder bat** (4)
> **gaitzeko zafraldia** (3); **sekulako zafraldia** (3); **zafraldia hartu** (3); **zafraldia jasan** (3); **zer zafraldia** (4)
> **zafraldiaren ondotik** (3)

---

**zafrarazi**, zafraraz, zafrarazten du *ad* zafratzera behartu.

Enrieta hetsi zuen, nehork ikus ez zezan egoera esperantzagarri hartan, haren maitalea makilaz **zafrarazi** zuen... eta haurñoa aldiz... Elena Touyarou

---

**zafratu**, zafra, zafratzen **1** du *ad* jo; jipoitu.

Gaurdanik ez duzu zeure burua nehoiz ere zigorrez **zafratuko**. Joan Mari Irigoien

-Makilaz **zafra** nazaten, berdin? Elena Touyarou

Joantto bat-batean itzuli zen zaharo batek **zafratu** balu bezala. Elena Touyarou

Ukabil batek bezala **zafratu** ninduen inguruko isiltasunak. Aingeru Epaltza

Haien bihotz gogorrak berrehun makil ukaldiz **zafratu** zuen Borddel-en bizkar dohakabea. Angel Aintziburu / Jean Baptiste Etxarren

Aurpegia **zafratua** nuen hainbat tokitan. Aingeru Epaltza

Norbait ederki **zafratu** bide zuten haien guzien aitorrarazteko... Eneko Bidegain

Ezpata altxatu eta indar guztiz **zafratu** nuen atea. Aingeru Epaltza

Beraz, Harry Harrison [...] gizartea **zafratzen** zuen terrorismoaren aurkako borrokalaria, traidorea zen. Jon Alonso

Turkian, emazteen zuzenen alde manifestatzen zuten 63 lagun **zafratu** ditu poliziak. Herria

Hori Gonzalez bati esker parte, hau usatua baita pilotaren **zafratzen**, ez perekatzen. Herria

Bi gibelekoek **zafratu** dute pilota gogotik, Larrecheak ere bai eta publikoa nasai eta indarrean zuten txalotzeko. Herria

Minutu bat gabe argiak begi gainean **zafratu** du berriz. Aingeru Epaltza

Goizuetarrak **zafratu** du Etxarri Aranatz-ekoa 5 sake eta 5 dejadarekin. Herria

Berriz erranen dizut Magaliren uzteak azkarki **zafraturik** ezarria ninduela. Janbattitt Dirassar

**2** (era burutua izenondo gisa)

Min sor batek hartu ninduen, nire gorputz **zafratuak** bidaltzen zidana baino sakonago eta eramangaitzagoa zen min batek. Alberto Ladron Arana

Kristina, bederen [...] deus guti larritu zuen nire bisaia **zafratuak**. Aingeru Epaltza

Alde **zafratuan** zanpatu zuenean, oihu egin nuen. Aingeru Epaltza

Gure herri **zafratu** honetan, zabor intelektual hutsa den psikoanalisia oraindik zientzia gisa (--?!) aurkeztu nahi izan da. Berria - Harian

Zorioneko hitza moldatu zuen, letra gero eta handiagoaz, bere paper **zafratuan**. Aingeru Epaltza

**3** (haizeak-eta)

Kalean, aire freskoak begitartea **zafratu** zuen, eta bizkortu. Patxi Zubizarreta

Gailurretik eta haranetik datozen haize bolada leunak nahasirik heltzen zaizkie tarteka eta aurpegia eta ilea **zafratzen** dizkiete. Pello Lizarralde

Haizeak **zafraturiko** kale horietatik joango naiz, ilargiaren argitan. Eskarne Mujika

Urriko euriak etxearen horma grisak errukirik gabe **zafratu** eta haizeak leihoak dardaraz jarri zituen batean. Eskarne Mujika

Patiora irten zirenean, iluntasun hezeak eztiki baina epel eta gogor **zafratu** zizkien begiak eta aurpegia. Jose Morales

Bainan noiz zirimolak **zafratzen** duen, pottokak arkaitz tartetan gerizatzen. Herria

---

**zafratzaile** *izond/iz* zafratzen duena.

Ondoko partida azaroaren 5ean beharra da, Donostian, joan den asteko **zafratzaileen** kontra. Herria

---

zagi ik **zahagi**.

---

**zahagi** *(orobat **zagi** g.er. eta **zaragi** g.er.)* **1** *iz* abere larrua, gehienetan ahuntzarena, zaku eran josia, ardoa edo olioa gordetzeko erabiltzen dena.

Ahari-larruz egindako **zahagi** bat urez betetzera putzuratu zen emakume bati inguratu zitzaion mutila. Xabier Aranburu

Atzera kortara joan, eta **zahagiko** olioaz pertz bat bete zuen sukaldean. Patxi Zubizarreta

Orduan, hartu labana bat eta, **zahagiari** behetik gorainoko ebaki bat eginez, hustu egin zuen. Bernardo Atxaga

**Zahagi** hutsek ahoa estu samarra zutenez, buruzagiak ahoa doi bat zabaltzeko agindu zuen. Patxi Zubizarreta

Betetako **zahagian** ez da ardo gehiagorik sartzen sekula. Hasier Etxeberria

Upeletik **zahagiak** betetzeko dolarearen azpian jarri zenean, ustekabean egurrak mugitu eta harritzarrak erori zitzaizkion gainera, kolpearekin burua lehertuz. Askoren artean

**Zahagi** bat bezala gizendua zen. Juan Kruz Igerabide

**Zahagi** eginda hago, Marro! Juan Kruz Igerabide

**2** (neurri gisa)

Haurrarekin batera, hiru urteko zekorra, anega bat ogi-irin eta **zahagi** bat ardo eraman zituen. Elizen arteko biblia

Hiru hektareako mahastiak **zahagi** erdi bat ardo besterik ez du emango. Elizen arteko biblia

Bi **zahagi** bete ur zeramatzan aldean, bata berarentzat eta bestea kalifarentzat. Jon Arretxe

**3** (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

Jakin behar baitu, oraindik ez badaki, **zahagi**-ardoa dela berorrek hildako erraldoia. Patxi Ezkiaga

Ur-tanta apurrik apurrena **zahagi**-ardoarekin nahasten denean. Joan Mari Lekuona

**4** (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa)

-Ogi lizundua, sagardo mindua, olio zaharra eta ahuntz **zahagiko** ardoa. Koldo Izagirre

Batak hiru antxume eramango ditu, besteak hiru opil eta hirugarrenak ardo-**zahagia**. Elizen arteko biblia

Bertan preso zegoela, ilunpean [...] don Pedro ardo **zahagi** batzuen gainean etzan zen etsita. Bernardo Atxaga

Hogeita hemezortzi olio **zahagi**, bakar bat beterik eta gainerakoak hutsik. Patxi Zubizarreta

Emakumeak, esne-**zahagia** irekirik, eman zion edaten eta ezkutatu egin zuen berriro. Elizen arteko biblia

Makila luze pare bat, oihal batzuk eta ur **zahagiak**. Joanes Urkixo

---

# zahagitxo *iz* zahagi txikia.

-Hor bada iturritxo bat; hura ekarri dut -**zahagitxoa** erakutsi zidan. Edorta Jimenez

---

# zahamiola *(orobat **zaramiola**)* *iz* oboearen antzeko musika-tresna arrunta.

Zinez klasa handiko musika zen **zahamiola** (*haut bois*) xaramela biziki ederra, Elizako orgina lagun eta emazte baten boz paregabeak atxiki dute jendea xoraturik, bi orduz hurbil arizan direlarik. Herria

Orduan biolin oldeei **zahamiola** zehargiak uztartu zitzaizkien, su eta oihar. Itxaro Borda

Hamar bat egunez, xirribika, **zahamiola**, pianoa eta bertze musika tresna frango entzunen da, musikari hoberen batzuen obrak preziatuz. Herria

Uztailaren 31an,ortzegunez, 18.30etan: piano eta **zaramiola**, Marina Pacowxki, Jacky Morel eta Iona Chis-ekin. Herria

---

# zahar **1** *izond* pertsona eta izaki biziez mintzatuz, adin handia duena. ant**gazte**. ik **adintsu**; gauzez-eta mintzatuz, aspaldi sortua, egina, gertatua; luzaz iraun duena edo erabilia izan dena. ant **berri**. (ikus beheko konbinatorian zahar izenondoaren agerraldi maizkoenak)

**2** (beste izenondo batekin edo batzuekin)

Kearney andreak zorrotz aztertu zuen aurpegi **zahar**-antzeko hura. Irene Aldasoro

Badakik zer dioen erran **zahar**-zuhurrak: [...]. Joan Mari Irigoien

Lotura **zahar**-sakon sendoa. Edorta Jimenez

Aldarrikapen **zahar**-berri haiek aditu ahala sentitu nuen, halaber, aspertuta nengoela batetik bestera ibiltzeaz. Xabier Mendiguren Elizegi

*ik beherago* 14. Askoren artean

Hara non, ordea, [...] espetxe politika **zahar**-berria trinkotzen ari den: bizi arteko espetxealdia hain zuzen. Berria - Euskal Herria

Bekorotz **zahar**-berriz jositako bidezidorretan barrena. Juan Garzia

Gure herrian, bestetan bezala, baziren gero eta gehiago kanpotik etorriak, ezkontzaz edo, etxe **zahar**-arraberritua erosirik edo, [...]. Daniel Landart

Errepidetik ikusita, etxe **zahar**-okitu, legendun, makurtuz osatutako sorta baten moduan ageri da Urbia. Koro Navarro

Kale zaharreko puntan, zubi parean, elkargainka, zenbait etxe **zahar**-oker. Pablo Sastre

Emakumeen nezeser **zahar**, eder bat, karnalitazkoa. Anton Garikano

Atsegin **zahar** ilun baten fragmento galduak. Patziku Perurena

Janari gozo mamitsuz, ardo **zahar** bikainez. Elizen arteko biblia

Armairuko ispilu **zahar** arrailduan. Aingeru Epaltza

Segura aldean ere usadio **zahar** aspaldikoan, artoa eta india-baba ereitekoak bedeinkatzen dira. Pello Zabala

Leher eginik utzi naik atso **zahar** madarikatu horrek. Jose Morales

Agure **zahar** ihar batekin. Oskar Arana

Matematikari **zahar** urre-biltzaile batena zen Manausko loro bat. Jon Muñoz

Hiri, puta **zahar** titi-handi horri. Juan Kruz Igerabide

Han zegoen, eserita, Freddy Malinsen ama: andre **zahar** handikote makal buru-zuri bat. Irene Aldasoro

Flitwick maisuak [...] txakur **zahar** azeri horrek. Iñaki Mendiguren

Zaldi **zahar** hanka-motelak. Karlos Zabala

Mihuraren sinbologia **zahar** ugariaren sekretuak. Patziku Perurena

Apaiz baten sotana **zahar** koloregaldu baten gutizia. Koldo Biguri

Harri hutsezko horma **zahar** anonimo haiek. Patziku Perurena

Bizkarra euritik babesteko zaku **zahar** ireki bat burutik behera botea. Juan Luis Zabala

Begira; guk sei ontzi **zahar**, txar eta geldi ditugu Kubako Santiagon. Josu Zabaleta

Kamioneta **zahar**, berde eta luzexka. Aingeru Epaltza

Haritzezko ohe **zahar** habedun bat. Josu Zabaleta

Aitaren jaka **zahar** botoiduna. Pello Lizarralde

Ogi **zahar** biribil erdi bat eta edontzi bat esne apur bat garratz. Lopez de Arana

Ohiko paper **zahar** erabilian. Aingeru Epaltza

Bezperan ekarritako [betaurreko] ordezko **zahar** lodi gorrotagarriak. Aingeru Epaltza

Sukaldetik gertu, zakur **zahar**, ia itsu, bibote luzeko bat zegoen. Josu Zabaleta

**3** *(izenondo multzoetan izenondo konplexuen ezkerrean).*

Larrabide **zahar** belarrak hartuan. Patziku Perurena

Geure tradizio **zahar** mila bider isekatu batentzat bere ohorea errebindikatu. Joxe Azurmendi

Argazki **zahar** aspaldi horitutako batetik aterea zirudien gizon hura. Juan Luis Zabala

Gure erjilioso **zahar** zibilberritu ustekook. Patziku Perurena

Haien koloreak adreilu **zahar** txarto egosiena gogorarazten zuen. Jose Morales

Deabruak naramala nire kide **zahar** Darby Mullin urkatzen ez badugu. Juan Garzia

Etxe **zahar**, erdi erori baten aterpean. Gotzon Garate

**4** (izenondo multzoetan beste izenondo baten eskuinean)

Muinoko etxe handi **zahar** hura! Ramon Etxezarreta

Aspaldiko borroka berri **zahar** hori. Joxe Azurmendi

Gatibu-jantzi marradun **zahar** batekin. Urtzi Urrutikoetxea

Behinolako Parisko zenbait fatxada hori **zahar** txertatzen zituzten Pont Neuf kale berriaren itxura ederrean. Karlos Zabala

Haien pare-parean gizon txiki, **zahar**, biribil, musu-gorri alai bat eseri zen. Koro Navarro

**5** (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

**Zahar** kutsua darien zuri-beltzezko argazkiak. Joxemari Urteaga

**Zahar** kutsua hartzen diot nik. Patziku Perurena

Urahiak, manifestuek eta mahuka hutsik zeuden gizonek isuritako **zahar**-usaina nagusi zen bulego hartan. Lopez de Arana

Inguru zaharkitu horietan, San Bizente eta Santa Teresa inguruko aldapetan dagoen **zahar**-giro bertsua antzeman dut. Txillardegi

Zeren hargin-lana egiten duzunean **zahar** aurpegia jartzen zaizu. Fernando Rey

Ahots apalez, **zahar**-ahotsez, ia haur ahotsez. Xabier Olarra

Urre-koloreko esekitokian, **zahar**-itxurako hegazti bat zegoen. Iñaki Mendiguren

Jubilazio edo **zahar**-sariaren jabe egiteko zauria da premiazko, eta **zahar**-zauri hori bat da, bat eta ikaragarria, Jainkoa bezala. Iñaki Segurola

Nork esan zuen **zahar** hitz, zuhur hitz? J.M. Olaizola "Txiliku"

Honezkero nekatu zarete **zahar**-kontu hauek entzuten. Arantxa Iturbe

Urte horietan neska kozkortu egin da, eta gu **zahar** bidean jarri gara. Aitor Arana

Euskal-Herria zahartzen ari dela, edo hobeki erraiteko **zahar** herri bilakatzen ari dela! Herria

**Zahar** jendea, euskaraz apenas dakiena, zintzo egon da frontoiko eserlekuetan. Pako Aristi

Eskola gutxiko **zahar**-jendearengana. Iñaki Segurola

**6** (hitz elkartuetan lehen osagai gisa, izenaren izenondo gisa)

Hitz eta kanta **zahar** mordoa daki. Koldo Izagirre

-Hauxe da traste **zahar** pila! Joxemari Urteaga

Aldizkari **zahar** sorta bat ere bai, eta tabako apur bat. Anton Garikano

Liburu **zahar** metek eta, oro har, denetariko trasteen pilaketak sentsazio estugarri hura areagotu egiten zuten. Alberto Ladron Arana

Ilunabarrean aski zuten haiek ardi **zahar** pusketa urri batzuekin. Koldo Izagirre

Hiriak, goizeko zazpietan, gauak eman ohi dion etxe **zahar** aire horri eusten zion artean. Juan Garzia

Oihenartetik Garaterenganainoko balizko erran **zahar** biltzaileak oro madarikatzen nituen. Itxaro Borda

**7** (izen gisa) pertsona zaharra.

Pianojolea **zahar** argal apaindu bat zen. Josu Zabaleta

Hargatik dira **zahar** jakintsu kontseilu-emaileak horren antojagarriak. Iñaki Segurola

**Zahar** bihozgogorren esamesek xentimorik ere ez dutela balio pentsa dezagun. Bernardo Atxaga

Urte hartan, herriko bi **zahar** izendatu zituzten epaile.

Augustus **zahar** gizarajoak beste platerkada zopa eskatu zuela -hori zen dena. Anton Garikano

**Zahar** bizar-urdin bat dute herritarrek ordezkari. Xabier Montoia

Baserri-atarietan egoten ziren **zahar** haiengana eraman nau Abdul Karimen irudiak. Pako Aristi

Txikitu ditut zurekin gizon eta emakumeak, txikitu **zahar** eta gazteak, txikitu mutil eta neskak. Elizen arteko biblia

**Zahar**, gazte eta esklaboen betebeharrak. Elizen arteko biblia

Gizon eta emakume, gazte eta **zahar**, behi, idi eta asto, ezpataz hil zituzten guztiak. Jose Antonio Mujika

**Zahar** edo gazte, horretan denok ados: [...]. Txillardegi

Espainiarrek ez zuten barkatu ez **zahar** ez ume, ezpataz hil zituzten harrapatu zituztenak oro. Felipe Juaristi

Egia da, haste hartan, eta aski luzaz, **zahar**-gazteen arteko eztabaidatzat hartu dugula abertzaleen arteko gatazka. Piarres Xarriton

**8** (adizlagun gisa)

**Zahar** ikusten da orain hiria. Anjel Lertxundi

Misterio zulagaitza izan ohi da denontzat ere gure aurrekoak gazte eta sasoiko imajinatzea: gure gurasoak arduragabe, gazte eta berde zirenekoa; beti **zahar** eta zimur ezagutu ditugunak mardul eta eder zirenekoa. Xabier Mendiguren Elizegi

Eta halaxe egin zuten bidaia, biak isilik, konkorturik, ile-urdin, **zahar**, pentsakor. Jose Morales

**Zahar** zeu egongo zara! Sonia Gonzalez

**9** ***Gabon zahar*** *(orobat* ***gabon zahar*** *g.er.)* Urtezaharra.

Hauetxek dira Ibarretxe lehendakariak **Gabon zahar** gauean irakurritako mezuaren pasarte esanguratsuenak: [...]. Berria - Euskal Herria

Gutuna New Yorkeko Euzkadi'ko Lehendakaritzan sinatua da 1941eko abenduaren 30ean, **Gabon Zaharraren** bezperan. Edorta Jimenez

**Gabon zahar** arratsaldean auzoko neskamutilekin urte berri kantatzen eta eskean ibili zen baserririk baserri. Joseba Sarrionandia

Detektibeek Dryer-en arrastoari jarraitu zioten New Yorkeraino, eta **gabon zaharreko** ospakizunean atxilotu zuten Christopher Street-eko ostatu batean, 1988. urtea hasi eta minutu gutxira. Oskar Arana

**10** ***kaka zahar***

Muxu goxoak ematen zizkion *tren txikia txu-txu-txu* edo gisa horretako **kaka zaharren** bat kantatu ondoren. Karlos Zabala

-Zer **kaka**-zahar argitaratu huen lehengoan autobideko lapurretez? Aingeru Epaltza

**Kaka zahar** horretan sinetsi nahi badu, ongi, ez zait axola. Oskar Arana

Intelektualak **kaka zaharra** dira, Nathan. Oskar Arana

Garai hartan kontzientziaren benetako erredentzioa iruditzen zitzaidan, eta arrazoiaren eta praktikaren arteko uztartze perfektua, gaur egun, ordea, **kaka zahar** zitala iruditzen zait. Karlos Zabala

Horrelakoxea da bizitza, **kaka zahar** handi bat. Hasier Etxeberria

-Hau duk hau **kaka** zaharra! Aingeru Epaltza

Lehenbizi jakin nahi diat zer **kaka-zahar** klase den hau. Aingeru Epaltza

Inork ez du gogoko **kaka zaharretan** igeri ibiltzea. Hasier Etxeberria

Arestian baino **kaka**-zaharragoa sentitu nintzen. Aingeru Epaltza

## 11 ***kaka zaharra*** *interj*

**Kaka zaharra**! O, **kaka zaharra**! Jesus Mari Mendizabal

**Kaka zaharra**! hau ere niri gertatu behar! Patxi Iturritegi

**-Kaka zaharra**! bapo izorratu gaitik. -**Kaka zaharra**, blai eginda nago! -esan zuen Jimmy Herfek goraki. Lopez de Arana

**"Kaka zaharra,** orduan!", zapuztu zen Pantxo tximeleta airera botaz. Bernardo Atxaga

Tira, egizu nahi duzuna, **kaka zaharra**! Lopez de Arana

**Kaka zaharra,** ezta, Damian? Hasier Etxeberria

· Kaka **zahar-zaharra**. Hasier Etxeberria

## 12 *mutil zahar* ik **mutilzahar.**

## 13 *urte zahar* ik **Urtezahar.**

## 14 ***zahar-berri*** *iz*

Semea zela eta, andrearen betseinak poxi bat handitu zirela ohartuta, mutilaren **zahar-berriak** eskatu nizkion.· Turismoa egiteko lekurik onenak egunerokoak direla, **zahar-berri** bihurtzen baitira gure begietan. Javi Cillero

Ez zirudien gizakien pentsamendu eta oroitzapenen **zahar-berrian** oinarrituta erabaki daitekeenik zer zaigun benetan urrun eta hurbil. Ibon Uribarri

## 15 *zahar-berritu* ik **zaharberritu.**

## 16 *zahar-berritzaile* ik **zaharberritzaile.**

## 17 ***zahar-estali*** cf **zikin 15.**

Matrikula ikusi gabe ere ezagun zitzaizkion urteak eta pintura **zahar**-estaliak metalezko zaldiari. Aingeru Epaltza

## 18 ***zahar egoitza*** *(**8** agerraldi, **3** liburu eta **5** artikulutan)* zahar etxea.

Lasarteko **Zahar Egoitzako** sukaldariek adierazi dutenez, [...]. Berria - Ekonomia

Ala Etxepareko Janinaren maneran, kantonamenduko hiriburuko **zahar egoitzara** jo behar zuen? Itxaro Borda

## 19 ***zahar etxe*** *(**111** agerraldi, **14** liburu eta **61** artikulutan; orobat **zaharretxe** **24** agerraldi, **5** liburu eta **17** artikulutan)*

Ipar Euskal Herriko ospitale, erietxe eta **zahar etxeek** zenbait neurri hartu dituzte, beroaldi bat gertatzen bada zaharrek egoera hobeki jasan ahal izan dezaten.Geroz eta antz handiagoa du **zahar-etxeetako** korridoreetan oinak tarras eta beren buruari marmarka ibiltzen diren emakume horiekin. Berria - Euskal Herria

**Zahar etxeetako** arduradunak ere mesfidatzen dira, Basusarriko Egoa **zahar etxeko** Jean Louis Belmar arduraduna bezala: [...]. Berria - Harian

Lasarteko **Zahar Etxeko** sukaldariek salatu dute alkateak baztertu dituztela. Berria - Ekonomia

**Zahar-etxeko** agure elbarri horietako bat ematen zuen oso-osorik. Josu Zabaleta

**Zahar-etxe** eta jubilatu-egoitzetan ohikoak dira memoriak lan egin dezan prestatzen dituzten ikastaro eta ariketak. Andoni Egaña

Erandioko San Jose **zahar etxe** pribatuko garbitzaileak greban daude joan den abenduaren 31tik. Berria - Ekonomia

**Zahar etxeetan** dauden adinekoak etxean bakarrik bizi direnak baino hobeto elikatzen direla esan dute. Berria - Gaiak

**Zahar etxe** batean zuen egoitza, uste etzutela hilik hatxeman dute. Herria

Aitona-amonak familian bertan zaintzeko diru laguntzak dira, **zahar etxe** batera eraman ordez. Berria - Euskal Herria

Zorioneko geriatria, **zahar-etxeak** haurtzaindegi bihurtu baititu! Triestek ez du **zahar-etxeen** premiarik, hiri osoa baita **zahar-etxe** handi bat. Anjel Lertxundi

## 20 ***zahar-zahar*** *izond* oso zaharra.

Ate beiradun handiaren atalasean, agure **zahar-zahar** bat agertu zen, morroiaren atzean. Xabier Olarra

Atso **zahar-zahar** txiki-txiki bat, sudur okerra duena. Julen Gabiria

Gizon **zahar-zahar** kasko-pelatu bat zen. Daniel Landart

Dena hautsi eta eroriko zela, zapi **zahar-zaharrak** ukitzean hausten diren bezala. Xabier Olarra

Mahai bat, aulki batzuk, apal batzuk, telebista **zahar-zahar** bat, ziur asko zuri-beltzekoa, bonbilla bat sabaitik zintzilik. Jon Muñoz

Goian ilargi izoztu eta **zahar-zaharra** ñirñirka ari zen, mendigainak erdizka estalirik. Fernando Rey

-Kamioneta berde luzexka bat, **zahar-zaharra**. Aingeru Epaltza

**Zahar-zaharra** eta zirpiltsua zenez, poltsikoan eramaten saiatu ninduan. Lopez de Arana

Gau batean, **zahar-zaharra** sentitu zen, eta ikaraturik pentsa-tu zuen ez zuela inoiz nahikoa denbora izango, halako etxea, halako kalea, berriz ikusteko. Eskarne Mujika

### hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 6 aldiz agertzen direnak)

**adiskide zahar** (14); **agure zahar** (38); **agure zahar bat** (10); **ale zahar** (6); **andre zahar** (45); **andre zahar bat** (10); **andre zahar batek** (9); **argazki zahar** (15); **argazki zahar bat** (6); **arrantzale zahar** (7); **arropa zahar** (12); **atso zahar** (35); **atso zahar bat** (9); **auto zahar** (9); **azti zahar** (8)

**balada zahar** (9); **baserri zahar** (7); **beltz zahar** (6); **bezain zahar** (6); **bezero zahar** (6); **bi zahar** (7)

**disko zahar** (8)

**eliza zahar** (13); **emakume zahar** (39); **emakume zahar bat** (13); **emakume zahar batek** (7); **eraikin zahar** (7); **erran zahar** (36); **esaera zahar** (85); **esaera zahar bat** (8); **esaera zahar batek** (13); **etxe zahar** (75); **etxe zahar bat** (9); **etxe zahar batean** (6); **europa zahar** (7); **euskaldun zahar** (6)

**gabon zahar** (7); **gauza zahar** (7); **gazte eta zahar** (12); **gaztelu zahar** (34); **gizon zahar** (75); **gizon zahar bat** (30); **gizon zahar batek** (7)

**haritz zahar** (8); **harri zahar** (10); **herri zahar** (13); **historia zahar** (6); **hitz zahar** (7); **hizkuntza zahar** (8)

**istorio zahar** (12); **itsaso zahar** (6); **izeba zahar** (7)

**jantzi zahar** (6); **jaun zahar** (7)

**kaka zahar** (20); **kamioneta zahar** (6); **kanta zahar** (14); **kantu zahar** (19); **kapela zahar** (6); **kontu zahar** (25); **kopla zahar** (7); **kutxa zahar** (7)

**lagun zahar** (46); **lagun zahar bat** (12); **liburu zahar** (30); **liburu zahar bat** (7)

**marinel zahar** (6); **mundu zahar** (9)

**ohitura zahar** (8); **ontzi zahar** (8)

**paper zahar** (36); **pareta zahar** (8); **puta zahar** (7)

**sineste zahar** (10); **sorgin zahar** (10)

**trapu zahar** (15); **traste zahar** (14); **txoro zahar** (10); **txoro zahar bat** (6)

**urte zahar** (17); **urte zahar egunean** (6); **usario zahar** (6)

**zahar ala gazte** (7); **zahar asko** (18); **zahar bat bezala** (14); **zahar bat da** (13); **zahar bat dago** (7); **zahar bat ikusi** (9); **zahar bat zegoen** (14); **zahar bat zen** (21); **zahar berriak** (7)

**zahar eta berri** (8); **zahar eta berriak** (12); **zahar eta berrien** (6); **zahar eta gazte** (32); **zahar etxe** (21); **zahar etxea** (9); **zahar etxeak** (11); **zahar etxean** (12); **zahar etxeetan** (11); **zahar etxeko** (14); **zahar gazte** (6); **zahar guztiak** (25); **zahar handi** (6)

**zahar itxura** (6)

**zahar samarra** (9)

**zahar ugari** (6); **zahar zahar** (14); **zahar zahar bat** (8); **zahar zaharra** (16)

**zaku zahar** (8); **zakur zahar** (13); **zubi zahar** (9)

**adiskide zaharra** (6); **agirre zaharra** (6); **aita zaharra** (14); **alde zaharra** (39); **ama zaharra** (10); **anaia zaharra** (18); **andre zaharra** (26); **atso zaharra** (12); **azeri zaharra** (11); **bera bezain zaharra** (10); **bezain zaharra** (43); **bide zaharra** (6); **bilbo zaharra** (29)

**emakume zaharra** (18); **ere zaharra** (7); **erran zaharra** (54); **errege zaharra** (6); **errota zaharra** (6); **esaera zaharra** (18); **eta bilbo zaharra** (8); **eta zaharra** (29); **etxe zaharra** (16); **etxea zaharra** (6); **eztabaida zaharra** (6); **fabrika zaharra** (12); **gaztelu zaharra** (11); **geltoki zaharra** (8); **gizon zaharra** (43); **gizon zaharra zen** (7); **hain zaharra** (19); **herri zaharra** (6); **hiri zaharra** (11); **hizkuntza zaharra** (10); **horren zaharra** (6)

**itun zaharra** (6); **izen zaharra** (12); **jaun zaharra** (9); **jauregi zaharra** (7); **kaka zaharra** (118); **kontu zaharra** (13); **lagun zaharra** (23); **lege zaharra** (18); **maisu zaharra** (6); **marfa zaharra** (7); **mundu zaharra** (20); **ni zaharra** (10)

**ohitura zaharra** (8); **osaba zaharra** (7); **oso zaharra** (47); **oso zaharra da** (13); **parte zaharra** (9); **puta zaharra** (7); **senperena zaharra** (6); **siberiar zaharra** (6); **trapu zaharra** (11)

**urte zaharra** (8); **usadio zaharra** (7)

**zahar zaharra** (16); **zaharra berri** (10); **zaharra besterik ez** (7); **zaharra bezain** (6); **zaharra bezala** (12); **zaharra da** (130); **zaharra dago** (8); **zaharra deitzen** (8); **zaharra ematen** (9); **zaharra eta berria** (16); **zaharra hartu** (11); **zaharra ikusi** (8); **zaharra izan** (21); **zaharra izango** (8); **zaharra izanik** (13); **zaharra kalean** (6); **zaharra zegoen** (10); **zaharra zen** (74)

**zakur zaharra** (23); **zauri zaharra** (6); **zubi zaharra** (7)

**askoz ere zaharragoa** (9); **askoz zaharragoa** (17); **baino askoz zaharragoa** (12); **baino zaharragoa** (82); **baino zaharragoa da** (10); **baino zaharragoa izan** (7); **baino zaharragoa zen** (9); **bat zaharragoa** (9); **bera baino zaharragoa** (19); **bi urte zaharragoa** (6); **gero eta zaharrago** (7); **hamar urte zaharrago** (6); **hamar urte zaharragoa** (8); **ni baino zaharragoa** (13); **urte zaharrago** (17); **urte zaharragoa** (49); **urte zaharragoa zen** (10); **urtebete zaharragoa** (6); **zaharrago bat** (6); **zaharrago baten** (7); **zaharrago izan** (6); **zaharragoa da** (33); **zaharragoa ematen** (14); **zaharragoa ematen zuen** (9); **zaharragoa eta** (11); **zaharragoa izan** (10); **zaharragoa zen** (34)

**ni baino zaharragoak** (6); **zaharragoak dira** (7)

**adiskide zaharrak** (9); **alde zaharrak** (12); **ama zaharrak** (8); **anaia zaharrak** (14); **andre zaharrak** (22); **arazo zaharrak** (6); **argazki zaharrak** (17); **arropa zaharrak** (10); **atso zaharrak** (7); **bertso zaharrak** (9); **bezain zaharrak** (9); **bi zaharrak** (6); **dio esaera zaharrak** (17)

**egunkari zaharrak** (6); **emakume zaharrak** (36); **erran zaharrak** (26); **errege zaharrak** (14); **esaera zaharrak** (67); **etxe zaharrak** (8); **garai zaharrak** (7); **gauza zaharrak** (6); **gehienak zaharrak** (7); **gizon zaharrak** (50); **gotzain zaharrak** (7); **gure zaharrak** (11); **harri zaharrak** (8); **haurrak eta zaharrak** (6); **hitz zaharrak** (6)

**irakasle zaharrak** (14); **istorio zaharrak** (10); **izen zaharrak** (6); **jantzi zaharrak** (7); **kanta zaharrak** (6); **kantu zaharrak** (33); **kontu zaharrak** (22); **kopla zaharrak** (8); **lagun zaharrak** (23); **lege zaharrak** (22); **liburu zaharrak** (12); **maisu zaharrak** (22); **marinel zaharrak** (13); **nafarroako kantu zaharrak** (11)

**ohitura zaharrak** (15); **oroitzapen zaharrak** (7); **oso zaharrak** (14); **paper zaharrak** (17); **trapu zaharrak** (11); **traste zaharrak** (9)

**zaharrak atera** (8); **zaharrak baino** (8); **zaharrak baizik** (6); **zaharrak bere** (18); **zaharrak berreskuratu** (7); **zaharrak berri** (60); **zaharrak berritu** (7); **zaharrak bezala** (10); **zaharrak biltzen** (9); **zaharrak dira** (39); **zaharrak direla** (7); **zaharrak ekarri** (6); **zaharrak eta berriak** (11); **zaharrak eta gazteak** (15); **zaharrak ez** (46); **zaharrak ezin** (7); **zaharrak gogoan** (7); **zaharrak hil** (8); **zaharrak izan** (11); **zaharrak zirela** (6); **zaharrak ziren** (20)

**zerbitzari zaharrak** (8)

**agirre zaharraren** (13); **alde zaharraren** (12); **anaia zaharraren** (10); **emakume zaharraren** (7); **errege zaharraren** (7); **etxe zaharraren** (7); **europa zaharraren** (6); **gizon zaharraren** (10); **gradelle zaharraren** (6); **hiri zaharraren** (7); **kantu zaharraren eguna** (10); **muga zaharraren** (6); **mundu zaharraren** (10); **trenbide zaharraren** (8); **zaharraren aurrean** (9); **zaharraren bila** (6); **zaharraren eguna** (10); **zaharraren eta berriaren** (7); **zaharraren ondoan** (14); **zaharraren zaharrez** (12)

**andre zaharrari** (6); **gizon zaharrari** (7)

**alde zaharrean** (104); **antzoki zaharrean** (70); **bilbo zaharrean** (8); **bilboko alde zaharrean** (7); **donostiako antzoki zaharrean** (31); **donostiako parte zaharrean** (14); **eko alde zaharrean** (17); **europa zaharrean** (7); **grezia zaharrean** (6); **hiri zaharrean** (7); **iruñ itun zaharrean** (8); **mundu zaharrean** (10); **parte zaharrean** (47); **portu zaharrean** (14); **trinket zaharrean** (9)

**zaharregia zen** (6)

**asaba zaharrek** (6); **esaera zaharrek** (6); **gure zaharrek** (18); **lehengo zaharrek** (7)

**alde zaharreko** (135); **alde zaharreko kale** (6); **alde zaharreko kaleetan** (6); **antzoki zaharreko** (6); **bilbo zaharreko** (22); **bilboko alde zaharreko** (7); **donostiako alde zaharreko** (7); **donostiako parte zaharreko** (14); **eko alde zaharreko** (11); **era zaharreko** (6); **eskola zaharreko** (9); **estilo zaharreko** (10); **estilo zaharreko dotorezia** (6); **europa zaharreko** (13); **grezia zaharreko** (12); **hiri zaharreko** (6); **iruñ itun zaharreko** (17); **kontinente zaharreko** (6); **lege zaharreko** (8); **mundu zaharreko** (13); **parte zaharreko** (35); **plaza zaharreko** (10); **testamentu zaharreko** (12); **urte zaharreko** (6); **zaharreko eta berriko** (6)

**eskola zaharrekoa** (10)

**arropa zaharren** (7); **asaba zaharren** (16); **asaba zaharren baratza** (8); **atso zaharren** (6); **esaera zaharren** (16); **harri zaharren** (6); **kantu zaharren** (14); **lagun zaharren** (8); **lege zaharren** (9); **liburu zaharren** (16); **paper zaharren** (9); **testu zaharren** (6); **traste zaharren** (6); **uso zaharren** (7)

**zaharren antzera** (7); **zaharren arabera** (17); **zaharren artean** (35); **zaharren aurrean** (8); **zaharren egoitzako** (8); **zaharren egoitzan** (7); **zaharren egoitzara** (6); **zaharren egoitzetan** (6)

**ahizpa zaharrena** (6); **alaba zaharrena** (12); **anaia zaharrena** (22); **arreba zaharrena** (6); **herririk zaharrena** (6); **seme zaharrena** (37); **semerik zaharrena** (7); **zaharrena da** (25); **zaharrena zen** (21)

**alaba zaharrenak** (12); **anaia zaharrenak** (23); **seme zaharrenak** (20)

**anaia zaharrenaren** (6)

**seme zaharrenari** (6)

**zaharrenetakoa da** (6)

**zaharrenetarik hasita** (6)

**alde zaharrera** (15); **parte zaharrera** (9); **zaharrera eraman** (6); **zaharrera sartu** (7)

**garai zaharretako** (8)

**esaera zaharretan** (13); **paper zaharretan** (12)

**alde zaharretik** (13); **bide zaharretik** (11); **errepide zaharretik** (6); **iturri zaharretik** (6); **mundu zaharretik** (11)

**urte zaharrez** (6)

---

**zaharberri** *iz* zaharberritua.

Fede zaharraren aldeko gerla piztu behar dugu berriz... -Zeus-Jovis-Deus-Alá **zaharberriaren** itxura daukan beste batek, agintzen duenaren airez. Jose Angel Irigaray

---

**zaharberritu**, zaharberri(tu), zaharberritzen *(orobat **zahar-berritu** g.er)* **1** du *ad* zaharra berritu; zaharrari berri itxura eman.

Gure aitak etxea erosi eta **zaharberritu** egin duela. Aitor Arana

Eliza erromaniko bat **zaharberritzeko**. Xabier Mendiguren Elizegi

Garai hartan, Hauzeko elizako zureria ari omen zen **zaharberritzen** eta txukuntzen. Txillardegi

Eraikinak **zaharberritzeaz** arduratzen den Irungo enpresa batean. Berria - Ekonomia

Sasoi hartan, gainera, auzunea **zaharberritzeko** lanak hasiak zeuden. Berria - Kultura

Hiria **zaharberritzeko** egin duen proiektua erakutsi behar diat. Lopez de Arana

Tizianoren 'Salbatzailea' koadroa **zaharberritu** dute. Berria - Kultura

Joko maila galdu barik taldea **zaharberritzeko** ardura eman diote. Berria - Kirola

Mosaikoak **zaharberritu** dituzte, eta jatorrizko kokagunean paratu. Berria - Harian

Ernest Hemingwayren 1.500 lanetik gora **zaharberritzen** ari da kubatar aditu talde bat. Berria - Kultura

Nekeak, estresak eta zahartzeak galarazi egiten dute loaldian azala behar bezala garbitu eta **zaharberritzea**. Patxi Zubizarreta

Arimak **zaharberritzeko** elkartea. Aingeru Epaltza

**Zaharberritu** beharra dago Gizona. Josu Zabaleta

Nehemiasek usadioak **zaharberritu**. Elizen arteko biblia

**2** (era burutua izenondo gisa)

Istiklal kalera heldu naiz, tranbia **zaharberrituak** zeharkatzen duen oinezko eremura. Jon Arretxe

Gorriz eta horiz eta laranja argiz margoturiko fatxada **zaharberrituak**. Iban Zaldua

Oñatiko Unibertsitateko kaperako erretaula **zaharberritua** aurkeztu zuten atzo. Berria - Kultura

Euskaldun **zaharberritua** akaso, edo euskaldun berri zahartua. Beste mundu bat posible da, horixe da aldarri idealista **zaharberritua**. Joxerra Garzia

Egoera ez aldatzearen aldeko den ortodoxia kontserbadore **zaharberritua**. Iñaki Heras

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
> **garbitu eta zaharberritzea** (3)
> **eraikina zaharberritzeko** (5); **zaharberritzeko ardura** (3); **zaharberritzeko lanak** (6)

---

## **zaharberritzaile** *(orobat **zahar-berritzaile**)* **1** *izond/iz* zaharberritzen duena.

Ofiziale **zahar zaharberritzaileak** sarituak. Herria

Lozio **zaharberritzaile** meritu onekoa. Jon Alonso

**2** *iz* zaharberritzen lanak egiten dituen pertsona.

Orain **zaharberritzaileei** dagokie polikromiekin lanean hastea. Berria - Kultura

Marcela Crisostomoren *Gorpuari begira* olioa eta Valentin Zubiaurreren (Madril, 1879-1963) *Bertsolariak* obrak konponduko ditu Bilboko museoko **zaharberritzaileen** taldeak. Berria - Kultura

Besteak beste, El Pradoko **zaharberritzaile** taldeko burua izan dut irakasle. Javi Cillero

Beste lan bat bilatu behar izan zuen, eta Erbil-eko **zahar-berritzaile** batenean aurkitu zuen. Juan Kruz Igerabide

---

## **zaharberritze** *(orobat **zahar-berritze**)* **1** *iz* zaharra berritzea; zaharrari berri itxura ematea.

Delako **zaharberritzeak** modu harrigarrian errespetatzen zituen herdoila, lizuna eta armiarma-sare lodiak. Ramon Saizarbitoria

Holako berrantolatze askotan gaur egin eta egiten diren lan eta **zahar-berritzeak**. Herria

Andregaiaren etxea **zaharberritzearekin** batera, andregaiak berak artak eta zainketak behar izan zituen. Patxi Zubizarreta

Ojiba hauetarik zenbaitek **zaharberritze** ez aspaldiko eta, esan dezadan, inteligente baten zantzuak dauzkate. Koldo Izagirre

**2** (hitz elkartuetan)

Enpresa osatzen duten giza talde guztientzat onuragarria izan daiteke antolaketa ereduen **zaharberritze** lana. Iñaki Heras

Eraikuntzak hor, **zaharberritze**-lanak han, karea, adreiluak eta habeak kale guztietan pilaturik. Jose Morales

Ezin izan dugu aurkikuntzaren aurkezpena egin **zaharberritze** lan guztiak amaitu arte. Berria - Gaiak

Haiek abiarazitako **zaharberritze** inbertsioek mugatzen dituzte zikloak. Iñaki Heras

Agustin Azkarate EHUko irakasle eta **zaharberritze** proiektuko buruaren ardurapean. Berria - Ekonomia

Parlamentuan zuzendaritza batzordeko hainbat buruzagik izen aldaketa proposatu zuten, **zaharberritze** moduko bat. Berria - Euskal Herria

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
> **eko harresien zaharberritze** (3); **iruñ zaharberritze lan** (4); **zaharberritze lanak** (8); **zaharberritze lanek** (3); **zaharberritze lanen** (14); **zaharberritze lanen ondoren** (3)

---

## **zahardade** *iz* zahartzaroa.

Gaztetasunaren eta **zahardadearen** arteko kontrastea egiten du Ronsard-ek. Koldo Izagirre

Gure existentziaren ardatz bakarra **zahardadea** dela, zaharrak egiten gaituela nor, zaharrok ez dugula bizi-pozetarako eskubiderik. Anjel Lertxundi

**Zahardadeak** optimista egiten zaitu. Iñaki Segurola

Orain, **zahardadean**, gaixotzeko beldur naiz, bakardadeak izutu egiten nau. Felipe Juaristi

**Zahardadea** ez da hemengo arduradunentzat bizi-etapa bat; eritasuna da, gaitza da. Anjel Lertxundi

Errealismo amorratua gaitz txarra da, maisu, **zahardadearen** parekoa edo. Iñaki Segurola

Jakobek, **zahardadez** begi-lausoturik, ezin zuen ikusi. Elizen arteko biblia

**Zahardadearen** sintometako bat da. Anjel Lertxundi

**Zahardadean** sartuak ez dauka gauza onik, *agurea* izen tristea da. Koldo Izagirre

Exekutibo dirugile edo dirugile exekutiboaren atarramentua jolas txoro edo umekeria gisa ikus liteke [...] baina baita **zahardade** goiztiar gisa ere. Iñaki Segurola

---

## **zahardi** *iz adkor* cf **gaztedi**.

**Zahardiek**, tradizioaren ikur agergarria eta Gaztediek orainaren iraganarekiko lotura bizia zelako deitzen zuten batera, kantatzera, bere euskalki hain berezian istorio kontatzera, afari edo bazkari herrikoietan parte hartzera oro bat. Itxaro Borda

---

## **zahargai** *iz* zaharkina.

Zolaldetan artegintza eta **zahargai** komertsak ideki beharrak dituzte, horrela katedralaren bisitatzera datozenek (40 000 urtean) tirria zerbait izan dezaten hortik iragaitean. Herria

---

## **zaharkeologo** *iz adkor* cf **arkeologo**.

Trebukari eta Apo Kardanga politikari andeatzaileak, Betoker **zaharkeologoa**, Akio eta Makio sorginak eta Frikun Kokin eta Motots Punpoila biloapaintzaileak. Jose Angel Irigaray

---

## **zaharkeria** *iz* gauza zahar gaitzesgarria.

Ez zekiat zer harreman dagoen hire musika ustez moderno horren eta nire **"zaharkeriaren"** artean. Iban Zaldua

Euskara **zaharkeria** bat baizik ez zela, gaurko gizarte modernoan ez zuela tokirik merezi. Herria

Aitaren gurasoentzat euskaraz mintzatzea **zaharkeria** zen. Berria - Kultura

**Zaharkeria** triste hura, arrantzaleak uretan igerian egonean, pneumatiko beltz handien gainean lotutako oholetan eserita, ilunabarra, jendea... horra zergatik dei egiten dien oroz gainetik unibertsitateko bere lagun intelektualei, abertzale intelektualei bereziki, ez daitezen izan, ongi ulertu badugu, ez **zaharkeriaren** morroi, ez indarkeriaren beretter. Jon Muñoz

---

zaharki ik **zaharkin**.

---

## **zaharkilo** *izond adkor* zaharra. ik **zaharkilun**.

-Oraino ez zakiat zer haizen -xuxurlatu zidan, bere aurpegia nirera hurbilduz-, marikoi **zaharkilo** bat edo, bertzerik gabe, memelo hutsa. Aingeru Epaltza

Niri gizanddere itxurako **zaharkiloa** iruditu zitzaidan. Aingeru Epaltza

---

## **zaharkilun** *izond adkor* zaharra. ik **zaharkilo**.

Kafe-etxe handi, **zaharkilun**, antigoaleko horietako bat zen, urteen hautsak zikindu ez baizik patina ohoragarria ematen dien horietakoa. Xabier Mendiguren Elizegi

---

## **zaharkin** (*orobat* ***zaharki***) **1** *iz* antzinako altzari edo objektua.

Autografo eta eskuizkribu bildumak egiten zituen, **zaharkinak** erosten zituen, xake klubetako kide zen, eta gourmet eta Don Juantzat jotzen zuen bere burua. Koro Navarro

Bagdadeko Museotik ostutako 15.000 **zaharkinen** arrastorik gabe jarraitzen dute. Berria - Kultura

Itxura guztien arabera, bizitza osoa eman dute lantokiko biltegitik irten gabe, enkanterako gauza, traste, altzari, arropa eta era guztietako **zaharkin** artean. Berria - Kultura

**2** (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

Ederki asmatua zuten lekua, **zaharkin**-saltzaile zeken haiek, ametsetako karrika hartan. Josu Zabaleta

Horretan XVII. mendeko italiar altzari bat begiztatu nuen **zaharkin** denda batean. Josu Zabaleta

Laukia bera ez da arrunta, **zaharkin** dendara konpontzera ekartzen dizkidatenen antzekoa. Javi Cillero

Ez da hau bi erakunde horien arteko elkarlanaren ondorioz eratzen den aurreneko **zaharkin** erakusketa. Berria - Kultura

**3** gauza zaharra.

Memoriaren gordailuetan aurkitzen ditugun **zaharkinek** ez digute gutiziarik pizten askori. Joxean Agirre

Bidaikidearekiko amodioa dagoeneko **zaharkin** bat dela sumatzea. Patxi Zubizarreta

Kalte handia egin zion Ingalaterrako egonaldiak [...] hegoaldeko paisaje eguzkitsuetatik atera eta "ingeles herri goibeltsu" batean utzi baitzuten, bakarrik, iparreko lainoetan, **zaharkinen** artean. Koro Navarro

**4** (izenondo gisa)

"Talmúd Thorà"ko -Legearen Eskolako- soinketa-gelan biltzen ginen, izen harro hori ematen baitzitzaion juduen oinarrizko eskola **zaharkinari**.· Bazirudien aspaldiko garaiak berriz etorriak zirela, itsasontzia bere kaskarrean, bere **zaharkinean**, plazer-emaile bihurtu baitzen berriro ere. Juan Garzia

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
> **zaharkin denda** (4)
> **udako zaharki erakusketa** (3); **zaharki feria** (29); **zaharki merkatu** (3); **zaharki merkatua** (16)

---

## **zaharkinzale** *izond* zaharkinen zalea dena.

Gauza zaharretarako zaletasuna berriro ari zitzaidan pizten **zaharkinzalez** betetako hiri honetan. Josu Zabaleta

---

## **zaharkitu**, zaharki(tu), zaharkitzen **1** da/du *ad* berriagoren batek baztertu duelako erabilerarik gabe gelditu.

Gaizki eginak zirelakoan edo ez behar den bezala zainduak **zaharkitu** dira laster. Herria

Ezin esan haren prosa **zaharkitu** ez denik, ezin ukatu literaturaren historian leku eskaxa aitortzen zaiola. Berria - Harian

Arriagaren ondarea **zaharkitu** ez den seinale. Berria - Kultura

Eskaeretako batzuk denboraren joanarekin **zaharkitu** egin baziren ere, baldintza gehienen oinarrian subiranotasun aitortzaren exijentzia zegoenez, 1996ra arte indarrean eduki zuen proposamena ezker abertzaleak. Berria - Euskal Herria

Hitz zaharkituentzat edo **zaharkitzeko** bidean direnentzat. Xabier Olarra

Celia Cruz eta Tito Puente ez zirenen abestiak entzuten ziren, ez nuen bat ere ezagutzen, **zaharkituta** nengoen. Mikel Hernandez Abaitua

Lizunduta zegoen diskurtsoa berritu du buruzagi zapatistak, **zaharkituta** zegoen kodea gaztetu eta lozorroan zeuden hartzaileak iratzarri egin ditu. Txema Ramirez de la Piscina

Informazioen, irudien eta kapitalen mugikortasunak, komunikazioen iraultzari esker izugarria bihurtu baita, **zaharkituta** utzi ditu, kasu askotan, mugaren edo lurraldearen ideiak. Koro Navarro

Geroztik, ordea, lege horien azalpen neurologikoa erabat gaindituta eta **zaharkituta** geratu delarik, galdua dute beren behinolako ospea. Josu Zabaleta

**Zaharkituriko** panpina sentitzen zen. Fernando Morillo

Biologiako liburu batzuk, orduko **zaharkituak**, bere osaba Iturriozek eman zizkion. Josu Zabaleta

Desesperamendua irakur zitekeen haien begitarte goizegi **zaharkituetan**. Daniel Landart

**2** irud/hed

Gure amak, egia esan, 51 urte besterik ez du. Baina **zaharkituta** dago erabat. Txillardegi

Aitaren babesik gabe, gaixotasunak eta etsipenak **zaharkitutako** ama kexatiaren arduratik urrun, nerabetasunak munduaren argiak erakutsi bezain azkar gau-klubetako argi koloretsuak aukeratu zituen Ruthek. J.M. Olaizola "Txiliku"

**3** (era burutua izenondo gisa)

Plastikozko ontziak eta etxeetan beharrezkoak ez ziren mila gauza **zaharkitu**. Itxaro Borda

Nik ere badakit aparatu **zaharkitu** eta maiztuokin ez duzuela ezer baliozkorik lortuko. Juan Garzia

Xarma bereziko etxalde **zaharkitu** eta erdi erori batetik. Jose Angel Irigaray

Harri eta zurezko kai **zaharkitua** eta inguruko tegi arrailatu zenbait. Jose Angel Irigaray

New Yorkekoa, metro zikin, **zaharkitu** eta zaratatsua da. Harkaitz Cano

Tabako **zaharkituak** ohi duen usain lizuna nagusitu zitzaien txerri-jan egosiarenari eta estoldetako kiratsarenari. Anjel Lertxundi

Mendebaldeko tankeran administratzaile eraginkor izatera behartu nahi izan zuen noblezia **zaharkitua**. Iñaki Mendiguren

"Latindar Inperioaren" eraikin **zaharkitua** behera erori zen Konstantinoplan. Iñaki Mendiguren

Ohiko kode **zaharkituegiak** maneiatu zituztelako. Txema Ramirez de la Piscina

Oso zubi alemaniarra da, nolabait esatearren: altzairuzkoa, x formako trentzaduraz betea, graffitiz estalia, itxura **zaharkitua** duena. Harkaitz Cano

Estilo **zaharkitua** eta esaldi hanpatuak erabiltzen zituen. J.M. Olaizola "Txiliku"

Izan ere, idazle batek hitz **"zaharkituekin"** duen jarrera haren trebetasun literarioaren neurri zuzena da, beste edozeinen parekoa, obraren funtsa salbu. Xabier Olarra

Ikusita nolako apainkeria **zaharkituarekin** adierazten zituen esaldiak, [...]. J.M. Olaizola "Txiliku"

Apaizek ere bedeinkatuko luketen ikasbide eta guzti ematen saiatu naiz, beti ere hemen asko estimatzen duten **zaharkitu** itxura emanez idatzitakoari. Anjel Lertxundi

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
> **ohitura zaharkitu** (3)
> **eredu zaharkitua** (5); **teknologia zaharkitua** (4); **zaharkitua da** (10); **zaharkitua dago** (9); **zaharkitua dagoela** (10); **zaharkitua dela** (5); **zaharkitua gelditu** (3)
> **orduko zaharkituak** (3); **zaharkituak dira** (5); **zaharkituak direla** (3); **zaharkituak gelditu** (3); **zaharkituak geratu** (3)
> **zaharkiturik daude** (3); **zaharkiturik geratu** (4)
> **zaharkituta dagoela** (6); **zaharkituta daude** (4); **zaharkituta gelditu** (3); **zaharkituta geratu** (14); **zaharkituta geratu dela** (4); **zaharkituta geratu den** (4); **zaharkituta geratzen** (4); **zaharkituta utzi** (4)

---

## zaharkitutasun *iz* zaharkitua denaren nolakotasuna.

Euskararen berezko pobretasun eta barne egituren **zaharkitutasuna**. Joxe Azurmendi

Bereiz dezagun, zati-zatika, guri interesatzen zaiguna: 1) euskararen [...] (a) berezko **zaharkitutasuna**, eta (b) ondoriozko baliogabetasuna mundu modernorako; 2) arraza, hizkuntza eta herri gogoaren arteko erlazioa. Joxe Azurmendi

---

## zaharkituxe *izond* zaharkitu samarra.

Ezin izan ginen inorekin ere euskaraz mintzatu, eta Lauaxetaren frantses dotore baina aukeran **zaharkituxea** izan genuen komunikaziorako tresna. Juan Luis Zabala

---

## zaharkitzapen *iz* zaharkitzea.

Kapital ondasun eskasia eta **zaharkitzapena** nagusi dira hortaz, eta horren ondorioz lanaren produktibitatea apala izanik, horrek errenta maila ez oso garaia izatean eragiten du berriz ere, gurpilaren jira-bira berrituz. Iñaki Heras

---

## zaharkitze *iz* berriagoren batek baztertu duelako erabilerarik gabe gelditzea.

Kolpetik gertatutako **zaharkitzea** izan zen. Berria - Kultura

Izutu beharrean, irakurketa batek, esate baterako, nire baitan piztuko zuen interes berberaz jarraitu nion **zaharkitze** hari. Berria - Kultura

Azaleko gaixotasunak (azalaren **zaharkitze** goiztiarra, edo azaleko minbizia, besteak beste). Berria - Harian

Denborak bere **zaharkitze** lana bete du eta keinuen, ahotsen eta pertsonaien groteskotasunak ezin ditu salbatu egoera bakoitzaren gehiegizko luzamendua eta erritmo falta. Berria - Kultura

Biztanleriaren **zaharkitze** prozesua eta migrazio fluxuak dira, azterketa horren arabera, pentsio sisteman eragingo duten arazo nagusiak. Berria - Ekonomia

Ildo horretan, biztanleriaren **zaharkitze** prozesuak pentsio sistema publikoan sortuko dituen ondorioei aurre egiteko neurriak proposatu zituen Lan sailburuak. Berria - Ekonomia

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
> **biztanleriaren zaharkitze** (3)

---

## zaharkote *izond adkor* zaharra.

Sala hartako sendagilea, Julioren adiskidea, **zaharkote** barregarri bat zen, patilla zuri luzekoa. Josu Zabaleta

---

## zaharmin *izond* zahartasunak eraginiko mina.

**Zaharmina** eta unadura eta atsekabea behar zituen horretarako [...] eta orduan erruz jaso zuen emakumeen errukia, eta bere artean imajinatu zuen nola goxatu eta errukituko zuten haiek. Anton Garikano

Pentsatzen saiatu zen sexuaren ze hedadura eta sakonera ezagutu zuen bere hirurogeita zazpi urteetan, eta orduan pentsamendu hura bere **zaharminaren** adierazgarri zela iruditu zitzaion. Ibon Uribarri

Agure haiek **zaharminak** jota zeudelako eta neskatoa sakonki lokarrarazi zutelako, beraz. Ibon Uribarri

Etxe hartara hurbiltzen ziren agure errukarrien **zaharmin** higuingarriak urte gutxi barru hertsatuko zuen Egutxi ere. Ibon Uribarri

---

## zaharmindu *izond* zahar kutsua hartu duena.

Leihoko kristalak irainkiro zikin ageri ziren, paretak belztuak, eta tabako **zaharmindu** usain goibel bat zirauen airean istilkaturik. Juan Garzia

Gela hoberenari naftalina usaina zerion, larru eta hezetasun usaina, landare ustelena eta gela itxi **zaharminduena**. Koro Navarro

Paperak mostaza **zaharminduaren** kolorea ageri zuen. Mirentxu Larrañaga

Kale-kantoiko drogeria, toldo berdearen azpitik soda eta izozkiaren freskura **zaharmindua** isurtzen zuena. Lopez de Arana

---

### zaharño *iz adkor* pertsona zaharra.

Ez zen harritzekoa beraz, **zaharño** hura beldur baldin bazen. Elena Touyarou

---

## zaharo *iz* makila mehea eta malgua. ik **usta**.

Kotxezaina, zaldia **zaharoaz** bizkortzeaz batera, Andresi gertatutakoen berri emanez zihoan. Josu Zabaleta

Joantto bat-batean itzuli zen **zaharo** batek zafratu balu bezala, eta Agathari so beltz bat bota zion. Elena Touyarou

Gai berberaz egindako otartxo, gerriko eta zaldi-**zaharoak** zeuden, berriz, kalesak atzealdean zuen apalean. Anjel Lertxundi

---

## zaharrakatu, zaharraka, zaharrakatzen da/du *ad adkor* zahartu.

Kasernaren aurrez aurre, eta mendebal aldeko kaxko baten gainean, dorretxo borobil zahar-zahar bat zegok, aspaldixko honetan **zaharrakatzen** hasia. Txillardegi

Santa Klarakoa neukan ezkerretan, eta San Benito **zaharrakatua** eskuinetan. Txillardegi

Eta [txabolak] oso **zaharrakaturik** bederen, hau ziur. Txillardegi

---

**zaharrarazi**, zaharraraz, zaharrarazten du *ad* zahartzera behartu.

Hark berak **zaharrarazten** zuen haritzezko upeletan. Bego Montorio

Gauzadiak osorik dirauela ageri da, alde egiten duten gorputzek uzten dutena txikitzen baitute eta nori batzen hura handitzen, lehengoa **zaharrarazten** eta hau, ordea, loratzen. Xabier Amuriza

---

**zaharreria** **1** *iz* zahartasuna.

Pasadan ohartu zen gizonaren ilajean xerlo horiak bazeudela, tindagaiaren hondakina, agian, **zaharreriaren** seinale behin-betikoa, agian, antzinakoa den bolian bezala, zeina iluntzen eta pitzatzen hasten baita. Jon Alonso

Luzamenez luzamen, ez du iduri bere Xilerat itzulirik ere han jujatzeko bezperan dagoenik, zeren, beti, estakuruak kausitzen diozkate, batean **zaharrerian** eroria dela eta beste holako zerbait, beraz ez ditakeela holako gizon bat gehiago juja. Herria

**Zaharreria** nagusitu da hemengo fraileetan; akitu dira. Hasier Etxeberria

Gorra eta **zaharreriak** joa behar du egon, ez zuen burutik sano ematen. Koro Navarro

**2** (gauzez mintzatuz)

Haien argitalpena hogeita lau orduz geroratuz gero, **zaharreriak** jotzen ditu, eta **zaharreriarekin** batean heriotzak, hots, albiste izaeraren galerak. Aingeru Epaltza

**3** pertsona zaharren multzoa.

**Zaharreria** buruxuriduna, elizan. Piarres Aintziart

---

**zaharretsi**, zaharrets, zaharresten du *ad* zahartzat hartu.

**Zaharresten** zituen noski [aurpegiko kolpe-arrastoak]. Aingeru Epaltza

---

zaharretxe ik **zahar 19**.

---

**zaharrezia** *iz* zaharreria.

"Nik, egun batez, istripuz edo eritasunez edo **zaharreziaren zaharreziaz** bizia galduko dudalarik, nahi dut ene gorputza errea izan dadin. Daniel Landart

---

**zahartasun** **1** *iz* zaharra denaren nolakotasuna; zahartzaroa.

Halako **zahartasun** berealdikoa atzeman zien Txitxikovek zurezko eraikuntza haiei guztiei. Jose Morales

Zaharrak dira erdiguneko hizkeretan *izandu, egondu, ibildu, bizitu, jakindu, ateratu* tankerako partizipioak, eta begirunez begiratuko nieke **zahartasun** eta zabaltasun hori aintzakotzat hartuta. Koldo Zuazo

Digitalizatzeko garaian aldizkariaren egoera edo **zahartasuna** kontuan izateaz gain, «eduki aldetik eta ikuspuntu literariotik aberatsak direnak» lehenetsi dituzte. Berria - Kultura

Diskurtso-mota ezberdin hauetako bakoitzaren hedapena, bakoitzari aitorturiko ospea, bere **zahartasunari** (edo aitzitik berria izateari) dagokion balioespena. Xabier Arregi

Egoera horretan, neskatoen gaztetasuna eta agurearen **zahartasuna** aurrez aurre daude, eta neskatoen betiko loa dirudienak hurbil duen heriotza iradokiko dio Egutxiri. Ibon Uribarri

Amaren espirituak ez zekien zahartzen eta ez zuen inoiz ezagutu **zahartasuna**, honetan baitatza: zoko batean gelditzea kuxkurturik, iraganaren gainbehera deitoratzen. Fernando Rey

Gaztetasunaren iturriaren bila, gaztetasuna aurkitu beharrean **zahartasuna** eta heriotza baizik aurkitu ez zituela. Joan Mari Irigoien

Zertaratua da frantses gizartea? Non da **zahartasunari** zor zaion errespetua, hilei bereziki zor zaiotena? Herria

Jakobek lausotuak zituen begiak, **zahartasunez**, eta ez zuen ia ikusten. Jose Antonio Mujika

**2** (hitz elkartuetan)

Baita aspaldidanik oso landua zegoen Egiptoko lurraldea ere, hango zibilizazioa iritsia zelarik **zahartasun**-puntu batera, non ez baitzen gai auzoko arrotzei atzera eusteko beste baten zerbitzuak erabili gabe. Iñaki Mendiguren

· Edozein giza arima edo giza erakunderentzat hilezkortasuna mundu honetan martirioa litzateke, baita ez balitz gorputz- edo gogo-**zahartasunarekin** batera joango ere. Iñaki Mendiguren

**3** *ipar* enplegu eta kargu batean igaro den denbora.

Zuzendaritzak dio Bonnet-Nevé lantegiaren sektoreko lan konbenioa duela aplikatzen eta, bana beste, langilek 9900 libera irabazten dutela **zahartasuna** kontutan hartuz. Herria

Lan **zahartasunik** pagatu gabe eta hamahirugarren hilabetea berantago pagatuz. Herria

---

**zahartatu**, zaharta, zahartatzen du *ad adkor* zahartu.

Kazkabarrak Egiptoko landetan zegoen guztia hondatu zuen, gizonak eta abereak; landareak erre eta zuhaitzak ere **zahartatu** zituen. Jose Antonio Mujika

---

**zahartegi** *iz* zahar etxea.

-Don Andresi ardoa gustatuko balitzaio -esan zuen Doroteak-, **zahartegian** daukagun ardo urtetsu horretatik baso bat emango genioke. Josu Zabaleta

Gure **zahartegietan** balekite! Patziku Perurena

---

**zaharti** *izond* zaharkitua.

Oinez ibili ziren plazaren inguruko karrika ttipietan hiriaren xarma **zahartiaz** gozatu ziren. Ramuntxo Etxeberri

**zahartto** *iz* zahartxoa.

Makurrak izan badira ere, bereziki etxe **zahartto** batzuen lehertzeak, halere ez da izan hilik ez-eta zauriturik. Herria

**zahartu**, zahar(tu), zahartzen **1** da/du *ad* zahar bihurtu; zahar itxura hartu edo eman.(pertsonak)

Ez zara handitzen, **zahartu** egiten zara. Lourdes Oñederra

«Bizitzan makilakada asko jaso dituenaren eleberria da» esan zuen, «erbesteak **zahartu** duenaren lana». Berria - Kultura

Uste dut praka luzeegiek **zahartu** egiten dutela apur bat. Lopez de Arana

Bahiketak aldez aurretik **zahartu** zuen, hondatu, *Arruti cabrón irás al paredón* oihukatzen zuten langileek kalean. Mikel Hernandez Abaitua

Zimurrez beterik zeukan Ninik aurpegia, eta arrosa-antza: oihalik finenak bezala **zahartzen** zen, zeta fin eta antzinakoen antzera. Xabier Olarra

- **Zahartzen** hasia haiz. Elena Touyarou

Ikusten al didak **zahartzen** ari naizen seinalerik, ala zer? Irene Aldasoro

Pixkanaka **zahartzen** gaituk. Xabier Olarra

Azkar ari zen **zahartzen** Konrad. Xabier Olarra

-Duela gutxi ikusi nuen; ikaragarri gaizki **zahartu** da. Ramon Saizarbitoria

-Hara, seme, ni **zahartua** nagok, hezurrak gero eta minberago ditiat. Joan Mari Irigoien

Helduak **zahartu**... eta zaharrak hil! Unai Iturriaga

Sinetsi egin zuen bere emazteak **zahartu** gabe, beti gazte eutsiko ziola denboraren tirainari. Pako Aristi

**Zahartu** gabe ezin bizi, diotenez, eta **zahartuta** ere nekez. Iñaki Segurola

Hamar-hamabi urtetan ikaragarri **zahartua** zen. Josu Zabaleta

Ama **zahartua** zuen, eta biak bakarrik bizi ziren. Elena Touyarou

Gau hartan, ordea, **zahartuta** ikusi nuen neure burua. Anjel Lertxundi

Zaharra nintzelako eta **zaharturik** nengoelako. Joan Mari Irigoien

Nekaturik eta **zaharturik**, existitzen segitzen zuten, gogoz kontra, hiltzeko ahulegiak zirelako. Monika Etxebarria

Umetan zer izan garen, horixe gara, neurri handi batean, **zahartzean**. Joxerra Garzia

Gazte goizegi **zahartuak**. Harkaitz Cano

Bada beste natur ziklo bat, oso bestelakoa, ezin dena baztertu, hau da, giza belaunaldiaren zikloa jaio, hazi, ugaldu, **zahartu** eta hiltzeko. Iñaki Mendiguren

Biztanleria **zahartuz** doan honetan, gero eta ahalegin handiagoa egiten du medikuntzak heriotza atzeratzeko. Irene Aldasoro

**2** (bestelakoak)

Zerk **zahartu** dizu aurpegia horrela? Juan Kruz Igerabide

Ontzi bat **zahartzen** denean, puskatan eman, eta su ematen zaio. Juan Garzia

Konponketa bat nork egin, nork taxutu, nork igeltsuztatu ez duenean, sekulako abiadan **zahartzen** da makina. Josu Zabaleta

"Erromeria" hitza bera **zahartu** egin da. Pako Aristi

Misioa **zahartu** egiten da. Josu Zabaleta

Eskuak, zainak hazita, bereziki **zahartuta** zituen eta etengabe dardaran. Ander Irizar

New Yorkeko beste maritxu bat besterik ez zela, **zahartzen** ari zen maritxu bat. Oskar Arana

Gero, gorputza **zahartzen** zaiguk. Xabier Olarra

Gero, bat-batean arima hasten zaiguk **zahartzen**. Xabier Olarra

**Zahartu**, ordea, arras modu diferentean **zahartzen** dira teknologiok. Joxerra Garzia

Wilderen idazlanak **zahartu** badira ere, zeren-eta klasikoak bihurtuko lituzketen unibertsalitate ezaugarriak falta baitituzte, bizirik diraute. Mikel Hernandez Abaitua

Orain ardoa **zahartua** zegok. Xabier Olarra

**Zaharturik** ere fruitu emango du, mardul eta heze iraungo beti. Elizen arteko biblia

**3** (era burutua izenondo gisa)

Ameskeria lausoetan murgilduko nintzateke, tirano **zahartu** bat bezala. Josu Zabaleta

Espaloietan pauso geldi-geldian doazen erretiratu **zahartuak**. Oskar Arana

Ez izan lotsa buru gutxikoa eta zentzugabea edo lizunkerian dabilen agure **zahartua** zentzatzeaz. Elizen arteko biblia

Dyane 6 **zahartu** eta herdoildu bat, bultzaka erabili beharrekoa dirudien karraka zaharra. Xabier Mendiguren Elizegi

Zenbat oin, zenbat oinaze, utzi ote dute grabatua bide **zahartuotan**? Patziku Perurena

Gero eta jende gehiago bizi da eraikin **zahartuetan**, gizarte erakundeen arabera. Berria - Harian

Eguterako ardiborda itzalduak, udal mintegi antzutuak, belasoro **zahartuak**, barruti zakarrak hartuak. Patziku Perurena

Jantzi **zahartuak** eta higatuak darabiltza, baina atorra itsutzeraino zuria du. Monika Etxebarria

Azido fosforikoak berebiziko garrantzia zuen karbohidrato **zahartuak** berritzeko orduan. Juan Garzia

**4** (hitz elkartuetan lehen osagai gisa, izenaren izenondo gisa)

Haren masail gorri-gorrituak, haren barrexka lotsatua haur **zahartu** aurpegian. Ander Irizar

**5** (era burutua izen gisa)

Txakurraren **zahartua** bapatekoa iruditzen zitzaidan. Bernardo Atxaga

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
>
> **zahartu ahala** (10); **zahartu eta gero** (5); **zahartu eta hil** (3); **zahartu gabe** (5)
>
> **oso zahartua** (3); **zahartua da** (3); **zahartua nago** (3); **zahartua naiz** (3); **zahartua zegoen** (5); **zahartua zen** (4)
>
> **zahartuta zegoen** (4)
>
> **zahartuz joan** (3)
>
> **zahartzen ari da** (7); **zahartzen ari dela** (5); **zahartzen ari naiz** (4); **zahartzen ari naizela** (4); **zahartzen ari zen** (6); **zahartzen da** (6); **zahartzen dira** (4); **zahartzen garenean** (3); **zahartzen hasi** (7); **zahartzen hasia** (6)

**zahartuxe** *izond* zahartu samarra.

Nik hogeita bost urte bakarrik nituen eta **zahartuxeak** iruditu zitzaizkidan. Joxean Agirre

Aita Sainduak, nahi zituen haren bilo zuriak ohoratu, "troppo vecchio" **zahartuxea** bazirudien ere. Piarres Xarriton

Txitxikovek gaingiroki aztertu zuen gela begirada arin batez: marradun paper **zahartuxea** hormetan; hainbat margolan, txori desberdinen irudiekin. Jose Morales

zahartxago ik **zaharxe 2**.

---

zahartxeago ik **zaharxe 2**.

---

**zahartxo** **1** *izond/iz adkor* zaharra.

Jendea, lurrean eserita dagoen gizon **zahartxo** baten inguruan dago. Gotzon Garate
Santua Marsiko gotzainaren jauregian zegoela, emakume **zahartxo** bat etorri zitzaion limosna eske. Askoren artean
Doña Pitusa andre **zahartxo** txiki bat zen, sudur-kakoa. Josu Zabaleta
Berehala oihala lepotik askatu eta pobre **zahartxo** hari eman zion, nahiz eta ez zuen berea. Askoren artean
Bere gelara joanda, zorro **zahartxo** bat ekarri zuen. Patxi Ezkiaga
Tartean baziren lauzpabost lokomotora **zahartxo** polit ere, guztiak turuta zorrotza jotzen. Gotzon Garate
Ahizpa biak **zahartxoak** ziren. Gotzon Garate
Ni baino **zahartxoagoa** zen eta gaztelania ikasten ari zen. Ana Urkiza

**2** (izen gisa)

Horregatik gustatzen zaie horrenbeste **zahartxoei**, bizitza ia agortu zaienei, hitz egitea, kontatzea, esatea. Lourdes Oñederra
Biloba biologikoek nahikoa entretenitzen baitituzte **zahartxoak**. Berria - Gaiak
**Zahartxoenek** ez baitute nahi gazteagoak agertzerik. Xabier Mendiguren Elizegi

---

**zahartzaro** *(orobat **zaharzaro** g.er.)* **1** *iz* giza bizitzako aldia, heldutasunari darraikiona. ik **zahardade**.

Udazkena **zahartzaroarekin** parekatzen zuten. Pello Zabala
Zaldiarengan **zahartzaroak** indarra eta kemena makaltzen dituenean. Xabier Amuriza
Horra, zure lehengusu Isabelek semea izango du **zahartzaroan**. Patxi Altuna
Orain, **zahartzaroan** sartu aitzin. Piarres Aintziart
Margolaritzan, zineman, literaturan, filosofian, zenbait obra funtsezko ezin izan da sortu **zahartzaroan** baizik. Markos Zapiain
Gaztetan ere zahar itxura izanik **zahartzaroan** hain zaharrak ez diruditen pertsona klase horietakoa dela. Ramon Saizarbitoria
Jose zen Israelen kuttuna, **zahartzaroko** semea baitzuen. Jose Antonio Mujika
**Zahartzaroko** gaitzak jota zegoela esaten hasi ziren, burua galtzen hasia. J.M. Olaizola "Txiliku"
Pedro Juan ohartu zen ezin zuela hortik bizimodua egin, musikariek ez baitzuten **zahartzaroko** pentsiorik ere. Berria - Kultura
**Zahartzaroaren** itsustasuna berari ere hurbiltzen ari zitzaiola pentsatu zuen. Ibon Uribarri
Agure haiek **zahartzaroaren** errukarritasunari, zatartasunari, dohakabetasunari ihes egin eta gaztetasunaren dohainez gainezka izango balira bezala. Ibon Uribarri
Esperantzaren bat gordetzea dela **zahartzaroari** aurre egiteko modu bakarra. Anjel Lertxundi
**Zahartzarora** iritsi baino lehenago zahartu naiz. Jose Morales
Besteak bezala ugaltzen, hazten eta murrizten da; besteak bezala **zahartzarora** heldu eta ezerezean amiltzen da, naturak abere espezie bakoitzari izendatzen dion epea amaitutakoan. Juan Martin Elexpuru / Bego Montorio
**Zahartzaroa** hondamendia da, ez dakarkizu deus onik. Karlos Zabala
**Zahartzaroak** baditu bere pribilejioak, eta horietako bat, garrantzitsuena akaso, ahanztura da. Karlos Linazasoro
Gero arrazoimenak ikusiko du berak eragindako iraultzak ez duela itxarondako paradisurik ekarri, eta arima etsiaren hirugarren fase historikoa hasten da, **zahartzaroa** edo gainbehera. Joxe Azurmendi
Alzheimerraren ondorioz ahaztu egin zituen suizidatzeko betidanik izan zituen asmoak, eta **zahartzaroaren** ondorioz hil zen. Harkaitz Cano
**Zahartzaroko** eta Baliaezintasuneko Derrigorrezko Aseguruko pentsiodunak ere lege-proiektuaren barnean sartzea eskatu zuten Aralarrek. Berria - Ekonomia

**2** (izenondoekin)

**Zahartzaro** ona eman ondoren hil zen, urtetan aurreratua, aberastasun eta ospez betea. Elizen arteko biblia
Zu, berriz, **zahartzaro** luzea izan ondoren, zeure arbasoekin bilduko zara bakean. Jose Antonio Mujika
Aldamenean daukazun gizonak, zure senarrak, **zahartzaro** dotorea izango du, ordenatua eta oparoa. Lourdes Oñederra
Bihotza ustez zimel nuen, eta ez bainuen neure baitan irritsa baizik kausitzen, **zahartzaro** goiztiarraz arranguratzen nintzen. Jon Muñoz
Begietako kolorea zurbildu zitzaion, **zahartzaro** ihartuaren itxura zurizta emanez. Anton Garikano

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
> zahartzaro luze (4)
> zahartzaroa eta heriotza (4); zahartzaroa iristen (3)
> bere zahartzaroan (7)
> zahartzarora iritsi (3)

---

**zahartze** **1** *iz* zahar bihurtzea; zahar itxura hartu edo ematea; zahartzarora heltzea.

**Zahartzea** omen, Trotskyren ustetan, gizakiak gutxien espero duen kontua. Pello Salaburu
**Zahartzearen** kontrako Kongresuan eman dute ikerketa horren berri. Berria - Gaiak
**Zahartzearen** hondatze progresiboaren aztarnak modu naturalean, espanturik gabe ageri dira hemen. Unai Elorriaga
**Zahartzeak** ez dit oroimena erabat kendu. Edorta Jimenez
Nekeak, estresak eta **zahartzeak** galarazi egiten dute loaldian azala behar bezala garbitu eta zaharberritzea. Patxi Zubizarreta
Zer da **zahartzea** pertsonaren garapen oso eta etsigarria besterik? Iñaki Segurola
Hori ere **zahartzearen** seinalea duk. Xabier Olarra
Gizartearen **zahartzeak** eta emakumeak lan merkatura jo izanak «kinka larrian» utzi dute orain arteko eskema. Berria - Harian
Kanpotik zailtasunak eta eragozpenak izan ditzakeen langintza, ohituraren nekeari eta denboraren **zahartzeari** loturik dagoena. Joan Mari Lekuona
Jendearen **zahartze** biologikoaren ondorioak geldiarazteko. Berria - Kultura
Zibilizazio Helenikoaren beheraldian, beren gizartearen gainbehera **"zahartze** kosmikoak" eragina zela zioten idazleek, pagano eta kristauek. Iñaki Mendiguren

**2** (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

Lehenengo bidaiatik itzultzean ere **zahartze**-prozesuaren bizkortze bat jasaten zuen subjektuak. Iban Zaldua
**Zahartze** egoera demografikoan bagaude, garapen ekonomiko iraunkorrik ez da posible. Berria - Euskal Herria
Euskal Herriko **zahartze** indizea (130,0) Europako Batasuneko (EB) estatu guztietakoa baino handiagoa da: Espainia (102,7), Frantzia (81,1), Irlanda (50,4)... Berria -

Harian

**hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
estresak eta zahartzeak (3); zahartzeak galarazi (3)
zahartzeari aurre egiteko (4)

---

# zaharxe

## 1 *zaharxeago* *(orobat* ***xahartxeago*** *g.er. eta* ***xahartxago*** *g.er.)*

Neskak hogei urte bete berriak zituen, eta Virgil, berriz, **zaharxeagoa** zen. Lokal hartan baziren nire adin modutsukoak, eta baziren **zaharxeagoak**, hamazortzi urtekoak eta hortik gorakoak. Xabier Olarra

Noski primeran nengoela, eta are noskiago, bainu-gelan, beste makina bat baneukala, **zaharxeagoa** baina bazebilena. Joxe Austin Arrieta

Gu baino apur bat **zaharxeagoa** zen gazte bati. Urtzi Urrutikoetxea

Ni baino lagun **zaharxeago** batekin, ordu batzuetarako baimena lortu genuen, eta Mahabad-era joan ginen. Juan Kruz Igerabide

Besteok baino **zaharxeagoa** zen Lubis. Bernardo Atxaga

Dergaud baino **zaharxeagoa** izanagatik, gaztea duzue oraino. Xabier Montoia

Urtebete edo bi **zaharxeago**, berriz, erdiko neskatikoa. Aingeru Epaltza

Biak adin bertsukoak, hura urte pare bat **zahartxago** uste dut. Janbattitt Dirassar

Azkenean lauoinka eta atzeraka irteten zinen leizezulotik, sartu zinenean baino **zahartxeago**. Juan Garzia

---

zaharzaro ik **zahartzaro**.

---

**zahato** 1 *iz* zahagi txikia, udare baten eitea duena, eskuarki ardoa gordetzeko, eramateko edo bertatik zuzenean edateko erabiltzen dena. ik **xahako.**

Kantinplora urez eta **zahatoa** ardoz bete eta bidean jateko zerbait erosi ondoren, [...]. Juan Luis Zabala

Abiatu aurretik, **zahatoa** eskaini nion eta hurrupa bana egin genuen. Juan Luis Zabala

Neska **zahatotik** edaten hasi da dzanga-dzanga. Anjel Lertxundi

Tragua jo zuen, Jabiri **zahatoa** pasatu, eskuak igurtzi zituen. Pablo Sastre

Mutilak ez zuen jatekorik onartu, baina trago handia eman zion eskuetaratu zioten **zahatoari**. Felipe Juaristi

Emaztea lurrera erori da, atorra azpiko **zahatoari** ardoa dariola, odola balitz bezala. Martin Anso

**Zahatoko** ura ahitu zitzaionean, zuhaixka baten azpian utzi zuen haurra. Jose Antonio Mujika

**2** (neurri gisa)

Abrahamek, goizean goiz jaiki, ogia eta **zahato** bat ur hartu eta Agarri ezarri zizkion bizkarrean. Elizen arteko biblia

**3** (hitz elkartuetan)

Ardo **zahato** eta zahagiak. Josu Zabaleta

---

**zahi** *(orobat* ***zai*** *g.er.)* **1** *iz* eho ondoren irinarekin nahasirik gertatzen den ale-azal xehatua.

Garagar-irinez edo **zahiz** egindako hiruzpalau ogi koskor. Askoren artean

**Zahiarekin** orea egingo zitzaien, tartean asun-berdura, txiki-txiki eginda nahasturik. Pello Zabala

Familietako kide azkarrenak aiduru egoten ziren, herriko etxe aitzinean, arto irin pixka bat, **zahiarekin** nahasirik, edo egoitzen berotzeko enbor zenbaiten erdiesteko. Elena Touyarou

Berak garbitzen zien usategia bi egunetik behin eta ura aldatzen zien eta **zahia** jartzen. Fernando Rey

Ez zen [...] **zahiarekin** eta hondarrekin kontentatuko zen gizona, baina irinarekin eta hoberenarekin. Joan Mari Irigoien

**2** (hitz elkartuetan)

-Jakesen emazteak **zahi**-zaku antza erabiltzen xitu. Itxaro Borda

**Zahi** garia: zahi asko eta irin gutxi ematen duen gari mota. Patxi Ezkiaga

**3** buruko larruazalean agertzen den zahi modukoa.

Errituen bidez, aerofagia, sabeleko mina, umeen buruko **zahia**, zornatutako zauriak, sugeen hozkadak eta beste hainbat osasun arazo sendatzeko moduak filmatu zituen Laburuk. Berria - Kultura

Neskak **zahiaren** gaitza sendatuko du, nonahi ere sortzekotan. Lopez de Arana

Ile-**zahiaz** bilduta erortzen dira. Itziar Otegi

Poliesterrezko traje zimurtuak (marroiak gehienetan), betaurreko lodi oskolezko erzdunak, buruan **zahia** beti. Oskar Arana

**4** ***sega zahi***

Seietako iratzargailuaren orroa ikaragarri zaigu, haragiak, oraino osoki errekuperatua ez dela [...] **sega zahiz** hanpatu eskorga herdoilduaren antzera. Itxaro Borda

Orduan, gatuak segurkiro mihiperatzen zitzaizkion: jatekoa, garbitasuna, sega **zahia**, ura, artak eta milaka balakak. Itxaro Borda

Haren ele eta jarioak oro lurrean hedatu **sega-zahian** amiltzen ziren. Itxaro Borda

---

**zahidun** *izond* buruan zahia duena.

Galina, etengabeko gainbeheran dagoen markesa; Dario Riffo, herririk herri dabilen saltzailea edo Barry Lutton, estatubatuar kantari **zahiduna**. Berria - Kultura

---

zai ik **zain**[1].

---

**zaia** 1 *iz* gona.

Hemen saltzen dituzte gizonki ala emazteki arropak: **zaiak**, athorrak ala edozoin motako ekoizpenak. Herria

Gela ttipi hartan, **zaia** beheititu eta kortsearen gibelean, gerriari kontra, dokumentuak gorde zituen. Erreka hegian belauniko zen, beso hats eta **zaia** bildurik. Eneko Bidegain

Atsoak kapelu edo zapel bat badu, elorriz apaindurik, eta soinean **zaia** zahar bat. Angel Aintziburu / Jean Baptiste Etxarren

-Zinez ederra zara, Magali, oraino ederragoa **zaia** lorekatu horrekin. Janbattitt Dirassar

Maianak Frantxuaren zetazko **zaia** orraztatzen zuen. Itxaro Borda

Batzu arrangura emazteak urerat sartzen zirela biziki **zaia** arinak soinean eta gizonak, batzu segurik, biluz-gorri, hori etzela manera! Herria

Eskuak bustirik ditu, **zaia** ere bustirik. Jon Alonso

**2** irud/hed

Sotana soinean nenbilen aspaldidanik, 18 urteak bete aitzin hartua bainuen **zaia** beltza, Uztaritzen. Piarres Aintziart

---

**zail** **1** *izond* erraza ez dena, eragozpen handiak dituena, nekeza, gaitza. *(ikus beheko konbinatorian* zail *izenondoaren agerraldi maizkoenak).*

**2** (predikatu gisa)

Pasartea **zaila** da. Oskar Arana

Elkarrizketa **zail** gertatzen zen. Juan Garzia

Inoiz, lana aspergarria edo **zaila** gertatu arren [...] ez zen damutu. Ramon Saizarbitoria

Gainera, **zaila** iruditzen bazaigu, buelta eman eta hona itzuliko gaituk. Bernardo Atxaga

Hasieran ez zuen **zaila** ematen. Fernando Morillo

Egia da gaia frango **zaila** dela. Herria

**Zaila** da izugarri, baina lortutakoan txit dotore emanen duzu lagunartean. -**Zaila** da, Miguel. Koldo Izagirre

**Zaila** da hezurraren eta altzairuaren arteko lotura estu eta iraunkorra lortzea. Irene Aldasoro

**Zaila** suertatzen **zen** ibilera harekin hitz egitea. Bernardo Atxaga

Aspaldiko maitasunak norberaren sistematik kanporatzea **zaila** da. Oskar Arana

**Zaila** du mugitzea. Anton Garikano

Oro har, **zailagoa** da hizkuntzalaritza estatikoa egitea hizkuntzalaritza historikoa egitea baino. Isabel Arrigain

Ikaragarri **zaila** da, ordea, mundu honetan hain ugariak diren gizaki arrunt horien potreta pintatzea. Jose Morales

**Zail** da esaten programak eragin ote zuen, sortu eta bizpahiru urtera, bertsolaritzaren "booma" deitu izan den fenomenoa. J. Garzia / A. Egaña / J. Sarasua

Autore horren bokalei buruzko lana **zaila da** gainditzen pentsamendu teorikoaren sakontasunari dagokionez. Lourdes Oñederra

Optimo hori oso **zaila** da betetzen. Askoren artean

Kontatzeko **zailak** direnak, eta entzutean min handia egiten dutenak. Xabier Etxabe

Artozki zen Cenonen txokoa mundu zabal honetan, eta galdu izanak azaltzeko **zailegia** den tristura piztu dio bihotzean. Edurne Elizondo

Hitz bat ahoskatzeak, delako hitza txiki-txikia bada ere, jakiteko eta irudikatzeko oso **zailak** diren gihar mugimendu kontagaitzak dakartza berarekin. Isabel Arrigain

**Zail** gertatzen zait hura dena azaltzea. Ander Irizar

-**Zail** iruditzen zaidak hor aurkitzea. Migel Angel Mintegi

Ez zitzaion hari **zaila** gertatu tramiteak noren mesedetan ziren jakitea. Ramon Saizarbitoria

**Zaila** iruditzen baitzitzaion talde handitan pobretasuna gordetzea. Askoren artean

-**Zail** iruditzen zaidak hor aurkitzea. Migel Angel Mintegi

Ekintza zehatzen bat aukeratzeko orduan, **zail** du: [...]. Edurne Elizondo

Belarriak daukan kontrol- eta egonkortze-mekanismo landu hori gabe, **zail** genuke zutik egotea edo ibiltzea. Irene Aldasoro

**3** (adizlagun gisa)

Agoitzera itzultzea **zail** ikusten du. Edurne Elizondo

Nekazarien arimetan erlijiozko iraultzarik gertatu gabe, **zail** ikusten zen munduaren malthusiar arazoa konpontzea. Iñaki Mendiguren

Oso **zaila** ikusten zuen gure itsasertzean finkatutako italiarrei negozio hartan aurre hartzea. Joxemari Urteaga

Lurrin-dendatik kanpora eraman nahi izan gintuen, gauzak **zail** jar baitzitezkeen beltz batekin. Joxan Elosegi

**Zaila** jartzen zidan egitekoa, eta ez zitzaidala ezer bururatzen aitortu nion. Xabier Mendiguren Elizegi

**4** gogorra, nekez urratzen dena.

Putiko azkarrak eta **zailak** atera direlakotz Frantxix eta Thierry. Herria

Bertze alde, larru **zaila** dut, eskualdun larrua. Xipri Arbelbide

Zuntzak eta zainak ikusi nizkion tenkatzen, zintzur aldean hasi eta zango **zailetan** buka. Joxan Elosegi

Izan ere, lurra zikoitza da lurra **zaila** da. Koldo Izagirre

Lan **zaila**, mutil zailduak behar dituena. Xabier Mendiguren Elizegi

**5** haragiaz mintzatuz, samurra ez dena, nekez mamurtzen dena.

Haragiagatik dioguna: samurra eta **zaila**. Iñaki Segurola

Haragia **zail** eta odola herdoil gustuko, prakadunok. Koldo Izagirre

Txuleta bat zein prozesuren bitartez bilakatzen den sentsazio samur edo **zail**, txuleta moztu zaion animaliaren adinaren arabera. Xabier Olarra

Haragi **zaila** doaike. Ramuntxo Etxeberri

**6** ***zail egin*** zaildu.

Emakumeak banantzeak, itxiturak, eunukoek, sarrailek, hain **zail egiten** dute adulterioa, non legeak ezinezko jotzen baitu. Iñaki Iñurrieta

Errektorea bihar aukeratua izateko, zazpi hautagaietako batek gehiengo absolutua lortu beharko luke, eta horrenbeste hautagai egoteak **zail egiten** du hori. Berria - Euskal Herria

**Zail egiten** zaio imajinatzea Yolo baserri hartan jaiotzen. Pako Aristi

**Zail egiten** zaizu ama, zure ama izan aurretik, imajinatzea. Lourdes Oñederra

**Zail egiten** zitzaion, Amyk esan zigunez, mendien itxuraren eta une hartan oinpean zuen mendiaren arteko lotura egitea. Xabier Olarra

Azkenean nekatu zen hari aditzen Frantzian ez zegoela halako maistrarik eta **zail egiten** zela halakorik izan zitekeela pentsatzea ere. Fernando Rey

Aspaldi honetan **zail egiten** zaigu belaunaldiz belaunaldi sinesmena hedatzea. Herria

**Zail egin** zait sinesten, esan didaten legez, horrelako gizon dotorea ere gu bezalako presoa dela. Urtzi Urrutikoetxea

**Zail egiten** zait haren gogo-egoerari antz ematen, ematen baitu gogobetetasun itun baten eta bere buruaren ohartasun artega eta ezeroso baten artean dabilela. Oskar Arana

**7** ***zail-zail***

Alpinista bikaina baitzen eta tontor **zail-zailetara** igotzen baitzen bere adiskide batekin. Fernando Rey

Lan **zail-zaila** da niretzat garaipena lortzea. Berria - Kirola

Haien etxean partida bat irabaztea **zail-zaila** delako. Berria - Kirola

Euskaraz irakurtzea bururatu ere ez, **zail-zaila** iruditzen zitzaidan. Ana Urkiza

Ia 40 partida falta direla, **zail-zaila** dirudi 10 porroteko mugaren azpitik geratzea. Berria - Kirola

**hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 7 aldiz agertzen direnak)**

egoera zail (12); lan zail (9); luze eta zail (8); oso zail (67); oso zail du (8); oso zail ikusten (9); oso zail izango (11); une zail (17)

zail da (62); zail du (20); zail dute (8); zail egin (7); zail egingo (9); zail egiten (48); zail gertatuko (10); zail gertatzen (14); zail ikusten (44); zail ikusten du (20); zail izango (65); zail izango da (14); zail izango du (21); zail jarri (11); zail samarra (23); zail samarra da (9); zail zaila (9)

arras zaila (7); aski zaila (38); aski zaila da (7); askotan zaila (8); asmatzea zaila (7); aurkari zaila (24)

benetan zaila (11); berez zaila (9); bereziki zaila (16); bezain zaila (21); bidea zaila (7); biziki zaila (22)

egitea oso zaila (26); egitea zaila (40); egitea zaila da (10); egitea zaila izango (10); egoera oso zaila (8); egoera zaila (46); egoera zaila da (13); egun zaila (7); ematea zaila (8); erabaki zaila (21); erabaki zaila izan (8); erronka zaila (20); esatea zaila (9); ez zen zaila (32)

galdera zaila (11); gauza zaila (27); gogorra eta zaila (9)

harreman zaila (7); hori zaila da (10); horrela zaila da (13)

ikaragarri zaila (10); irabaztea oso zaila (10); irabaztea zaila (11); iristea zaila (8); izatea zaila (9); izugarri zaila (7)

jakitea zaila (11); jakitea zaila da (7)

lan zaila (80); lan zaila da (8); lan zaila izango (18); lantegi zaila (7); lortzea oso zaila (14); lortzea zaila (24); lortzea zaila da (7); luze eta zaila (7); luzea eta zaila (10)

nahiko zaila (35); nahiko zaila da (7)

oso gauza zaila (9); oso lan zaila (7); oso oso zaila (13); oso zaila (864); oso zaila baita (21); oso zaila da (335); oso zaila du (18); oso zaila egiten (15); oso zaila ikusten (13); oso zaila iruditzen (10); oso zaila izan (24); oso zaila izanen (13); oso zaila izango (129); oso zaila izaten (16); oso zaila zela (9); oso zaila zen (28)

partida oso zaila (7); partida zaila (69); partida zaila izanen (7); partida zaila izango (24)

sartzea zaila (11)

talde zaila (11)

ulertzen zaila (7); une zaila (15); urte zaila (16); urte zaila izan (9)

zaila bada (39); zaila bada ere (23); zaila baita (69); zaila baitzen (12); zaila da (1309); zaila da bere (7); zaila da esatea (24); zaila da eta (13); zaila da hori (37); zaila da jakitea (10); zaila da jakiten (7); zaila da oso (17); zaila da ulertzea (8); zaila da ulertzen (7); zaila da zehaztea (7); zaila dago (18); zaila dauka (13); zaila dela (245); zaila dela adierazi (8); zaila dela dio (9); zaila dela onartu (7); zaila delako (61); zaila den (114); zaila den arren (11); zaila dena (10); zaila dirudi (20); zaila du (47); zaila duela (7); zaila duk (20); zaila dute (17)

zaila egin (28); zaila egingo (17); zaila egiten (111); zaila egiten da (16); zaila egiten zaie (7); zaila egiten zaigu (11); zaila egiten zaio (8); zaila egiten zait (17); zaila egiten zitzaidan (8); zaila egokitu (10); zaila ematen (7); zaila eta gogorra (10); zaila eta luzea (8); zaila gertatu (28); zaila gertatuko (17); zaila gertatzen (22)

zaila ikusten (53); zaila ikusten du (15); zaila ikusten dut (18); zaila iruditzen (29); zaila iruditzen zait (11); zaila izan (236); zaila izan arren (19); zaila izan behar (11); zaila izan da (46); zaila izan daiteke (9); zaila izan dela (12); zaila izan ohi (8); zaila izan zela (9); zaila izan zen (46); zaila izanen (100); zaila izanen da (39); zaila izanen dela (22); zaila izanen zela (10); zaila izango (565); zaila izango da (252); zaila izango dela (116); zaila izango den (10); zaila izango du (30); zaila izango duela (8); zaila izango dute (13); zaila izango litzateke (10); zaila izango zaio (7); zaila izango zela (27); zaila izango zen (11); zaila izanik (9); zaila izaten (86); zaila izaten da (58); zaila izaten dela (7); zaila jarri (7); zaila litzateke (22)

zaila omen (8)

zaila zaio (8); zaila zait (14); zaila zela (39); zaila zen (198); zaila zen jakitea (7); zaila zitzaion (7); zaila zuen (16)

zehaztea zaila (7); zein zaila (44); zein zaila den (31); zeinen zaila (9); zeinen zaila den (8); zelai zaila (9)

are zailago (10); gero eta zailago (27); zailago da (14); zailago egiten (25); zailago egiten du (9); zailago izango (7)

are eta zailagoa (12); are zailagoa (57); are zailagoa da (15); askoz ere zailagoa (10); askoz zailagoa (24); askoz zailagoa da (8); baino zailagoa (67); baino zailagoa da (14); baino zailagoa dela (7); baino zailagoa izan (8); eta are zailagoa (7); gero eta zailagoa (62); geroz eta zailagoa (8); orduan eta zailagoa (7); uste baino zailagoa (12); zailagoa baita (11); zailagoa da (167); zailagoa dela (28); zailagoa du (8); zailagoa egingo (9); zailagoa egiten (15); zailagoa izan (28); zailagoa izan zen (10); zailagoa izanen (14); zailagoa izanen da (9); zailagoa izango (84); zailagoa izango da (31); zailagoa izango dela (13); zailagoa izango du (9); zailagoa izaten (13); zailagoa izaten da (9); zailagoa zen (26)

zailagoak dira (14)

egoera zailak (8); galdera zailak (8); garai zailak (22); garai zailak bizi (7); gauza zailak (7); oso zailak (40); partida zailak (9); une zailak (24)

zailak bizi (14); zailak bizi izan (7); zailak dira (37); zailak diren (21); zailak izan (29); zailak izan ziren (8); zailak izango (12); zailak izaten (14); zailak ziren (13)

egoera zailean (34); oso egoera zailean (9)

aurkari zailena (8); gauzarik zailena (13); lanik zailena (12); zailena da (12); zailena egin (8); zailena egina (9); zailena izan (9)

zailenetako bat (7)

zailenetakoa da (7)

unerik zailenetan (9)

egoera zailetan (7); une zailetan (13)

zailtzat jo (7)

---

**zailagotu**, zailago(tu), zailagotzen da/du *ad* zailago bihurtu.

Gauzak **zailagotu** egin omen ziren, ordea, Joachim eta Hannaren artean. Joxe Austin Arrieta

«Misioa **zailagotu** daiteke», ohartarazi zuen Bushek. Iñaki Heras

Hannak oraingoan ere negarrik ez, eta horretxek **zailagotzen** egoera; zutitu zen... Joxe Austin Arrieta

---

**zaildu**, zail(du), zailtzen **1** da/du *ad* lan gogorretarako prestatu.

Lan gogor hark neu ere gogortu egin ninduen, **zaildu**. Juan Kruz Igerabide

Hilabete zenbaitez ondo penarazi zuten, gogorrean **zaildu**, ea oilartzen zen ikusteko. J.M. Olaizola "Txiliku"

Etorkizuneko bertsolariak **zailtzeko** eta trebatzeko. J. Garzia / A. Egaña / J. Sarasua

Berehala lan haunditan ezarria da eta beharko du emeki emeki zohitu eta **zaildu** beste putiko horien artean. Herria

Gorputza **zailtzen** laguntzen zidaten ariketa fisikoen artean, beste bat zen dutxarena. Anjel Lertxundi

Eta bitartean, gorputza **zailtzen** nuen, eta aldizkari ilustratuek hegazkinlariari egindako elkarrizketak eta argazkiak biltzen. Anjel Lertxundi

Andres Untzain eta Juan Duñabeitia lagunak, biak ere [...] Iparraldeko Frontean **zailduak** eta, tarteka behintzat, Pilar-en izaten direnak. Edorta Jimenez

Ez handiak, baina bai sendoak eta lan gogorretan **zailduak**. Xabier Mendiguren Elizegi

Portuko zamaketariak, bizitzak **zaildutako** gizonak, gogortasunera ohitutako gizonak. Felipe Juaristi

Aurpegi lurkolorea zuen, eguzkiak **zaildua**. Anjel Lertxundi

Idiak baino **zailduagoa** nago ni. Itziar Otegi

Alexisek adiskideengana jo zuen, gerra ekintzetan **zaildutako** gizonengana. Felipe Juaristi

Mutila, berriz, handia, sendoa eta gimnasioan **zaildua**. Gotzon Garate

Negozioetan polito **zaildutako** gizonak ziren. Urtzi Urrutikoetxea

Hegaztien zirinen kontrabandoan **zaildutako** patibularioak. Jon Alonso

**Zaildua** behar duk egon, diziplinatua behar duk izan. Anjel Lertxundi

Hamaika egitekotan eta kinka gaiztotan ibilia eta **zaildua**. Txillardegi

Aurpegia eguzkiak erre-**zaildua**, bekokia mehar ile lerroaren azpian. Juan Garzia

**2** irud/hed

Zuhurtasuna **zaildu** behar nuen, gorputza bezalaxe. Anjel Lertxundi

Bakardadea **zaildu** zait ene baitan. Piarres Aintziart

**3** (era burutua izenondo gisa)

Heldu berritan ziren ume gorriak soldadu **zailduak** ziren Madrilgo defentsa giza-larruazalez gotortu zenean. Edorta Jimenez

Denak gudari trebe eta **zailduak** ziren. Elizen arteko biblia

Marinel jendea gehien bat, gizaki **zaildu** eta grinatsuak denak. Felipe Juaristi

-Gizon argalak gizon **zailduak** dira -esan zuen La Sarriettek uste osoan. Karlos Zabala

Gizonik **zailduena** ere mareatzen duen puta anker horrek senarra kendu diolako. Koldo Izagirre

Oker handia zen Errekalde gizon **zailduaren** lekuan lehorreko oilar bat jartzea. Edorta Jimenez

Bizitzez eta jakitez findutako gizon **zailduak**, aldiz, badaki tolerantzia eta aldi berean jakinmina gordetzen. Ekintza-gizon **zaildu** bat espero nuen, ez atso zarpail hura. Patziku Perurena

Lucho Vargas partidaren erritmoa haustera ateratako erdilari **zaildu** bat zen, zelai lohitsu baten erdian. Jon Alonso

18 urte ziztrinekin 30 urteko jokalari **zailduen** eskarmentua. Berria - Kirola

Ehiztari siberiar **zailduena** ere ezin sekula ohitu sastada horietara. Karlos Zabala

Gerra kontseilu sumarisimoan epaitzen ninduten kriminal **zaildua** nintzen, edozelako bortxakeriak egin nitzakeen. Koldo Izagirre

Gutarteko erredaktore **zaildu** batek ez zukeen bertzelako irudirik agertuko. Aingeru Epaltza

Bai, emaile trebea bihurtu nintzen bi urte haietan: adarkari bizia, bugre **zaildua**, sodomatar peto-petoa. Aitor Arana

Abere **zaildua** zen, nekeak luzaro eramateko gai. Karlos Zabala

Haien argazkietan bizimodu aszetikoaren markak agertzen ziren: ez zegoen haien aurpegi **zailduari** begiratu besterik. Anjel Lertxundi

Ikustekoa zen zein bizkor pasatzen zuen haria hatz-mami **zailduen** artetik. Anjel Lertxundi

Larrupean hanturik nabarmentzen zitzaizkion besoetako giharrak, aparailuetako sokak baino **zailduagoak**. Orduan jendaje harroputz, barrenuts, eta gizagihar **zaildurik** gabekoa sortzen da. Edorta Jimenez

### **4** zail edo zailago bihurtu.

Bigarren golarekin, ordea, asko **zaildu** zaigu partida. Berria - Kirola

Gorrotoak **zaildu** egiten zizkidan amarekiko harremanak. Bernardo Atxaga

Azken minutuetan egoera apur bat **zaildu** zitzaion Portlandi, Veszpremek 28. gola sartu baitzuen. Berria - Kirola

Badira egoera **zailtzen** duten hainbat auzi; esaterako, errefuxiatuak, mugak, segurtasuna eta ekonomia. Berria - Harian

Erran du alabainan departamendu baten bi partetan ezartzea gauza frangoren **zailtzea** dela, aldiz bi departamenduren batetaratzea gauza ainitzen errextea. Herria

Ez dakigu zuzen zer izan daitezkeen ondorioak, ez eta erraztuko ala **zailduko** ote duten gobernatzaileen edo iraultzaileen lana. Piarres Xarriton

Axenario, jakinaren gainean, ez da haserretzen eta agurearen apeta horiek apenas **zailtzen** duten haien arteko harremana. Itziar Otegi

Bistan da distantziak lehengo harremana **zailtzen** duela. Paddy Rekalde

Idazmolde arrotzak beti **zailtzen** du irakurlearen lana. Koldo Zuazo

Kontrolik gabeko erudizio-erakusketek **zaildu** egiten dute irakurketa eta argudioari ez diote onik egiten. Askoren artean

Bigarren heriotzak **zaildu** egiten zuen lehena argitzea. Migel Angel Mintegi

Horiek bai **zaildu** zezaketen ibilera, atzerapenak sortu, bai eta beharbada almadia geldiarazi ere, gainditu ezineko oztoporen bat ur bidean ezarriz. Karlos Zabala

Ur lasterra bortxaz eta jauzika zihoan aitzina, uharra irudi, ibaia gurutzatzea erabat **zailduz**. Karlos Zabala

Esan dezakegu gustuaren estandarraren bilaketa nahastu eta **zaildu** egiten dela Humeren lanean. Askoren artean

Etsi genuenean, gauzak ez **zailtzeagatik**, istripua isilpean gordetzea erabaki genuen. Migel Angel Mintegi

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
>
> **are gehiago zaildu** (6); **asko zaildu** (17); **asko zaildu zuen** (6); **bidea zaildu** (4); **dezente zaildu** (5); **egoera zaildu** (5); **gauzak zaildu** (8); **gehiago zaildu** (10); **gehiago zaildu zuen** (3); **gizon zaildu** (3); **izugarri zaildu** (3); **lana zaildu** (8); **nabarmen zaildu** (3); **sailkapena zaildu** (3)
>
> **zaildu bat** (5); **zaildu batek** (3); **zaildu da** (4); **zaildu du** (3); **zaildu dute** (8); **zaildu zaio** (3); **zaildu zen** (4); **zaildu zion** (4); **zaildu zuen** (14); **zaildu zuten** (4)
>
> **gizon zaildua** (5); **zaildua da** (5); **zaildua dela** (3); **zaildua zen** (3)
>
> **soldadu zailduak** (3); **zailduak denak** (3); **zailduak dira** (3)
>
> **asko zailduko** (6); **gehiago zailduko** (4); **zailduko du** (6)
>
> **zailduta dago** (4)
>
> **zaildutako gizonak** (3)
>
> **aurkariaren lana zailtzeko** (3); **gauzak zailtzeko** (3); **lana zailtzeko** (6)
>
> **asko zailtzen** (19); **asko zailtzen da** (3); **asko zailtzen du** (9); **gauzak zailtzen** (3); **gehiago zailtzen** (3); **gorputza zailtzen** (5); **horrek asko zailtzen** (6); **lana zailtzen** (8)
>
> **zailtzen da** (5); **zailtzen du** (26); **zailtzen dute** (6); **zailtzen saiatu** (4)

---

## **zailtasun** 1 *iz* zaila denaren nolakotasuna.

Bertsolari ez den batentzat muga eta **zailtasun** dena, laguntza-bide izan daiteke trebatua dagoenarentzat. J. Garzia / A. Egaña / J. Sarasua

Azkenean, ezintasuna, **zailtasuna** da; eta **zailtasuna**, linguistikoa gabe, sozial pragmatikoa. Joxe Azurmendi

Plano makur batean behera, eragozpenik gabe, inongo **zailtasunik** gabe doan esfera baten antzeko zerbait dira. Koro Navarro

Bere egoera arautzeko **zailtasun** eta oztopo ugari izan zituela nabarmendu zuen. Berria - Euskal Herria

Aurki konturatu nintzen jolasaren **zailtasunaz**. Iban Zaldua

Gaiaren **zailtasunak** moteldu egiten du irakurketaren erritmoa. Askoren artean

Bertutearen **zailtasunak** bekatuaren goxoak baino goxoago izan behar du alabainan. Piarres Aintziart

Ikaste faltatik (edo ahaztetik) zetorkion **zailtasuna**, gure irudiko. Xabier Olarra

Lege naturalen eta giza legearen arteko batasuna erdiesteko zegoen **zailtasuna** aprobetxatuz. Askoren artean

Euskaldunek batak besteari ulertzeko **zailtasuna**. Koldo Zuazo

Horrek areagotu egiten du organo matxuratuak aldatzeko **zailtasuna**. Irene Aldasoro

Enpiristak [...] **zailtasun** hori gainditzen ahalegindu dira analitikotasunaren nozio berriak garatuz. Askoren artean

Ikusiko dugu nola **zailtasun** beraren aurrean irtenbide ezberdinak dauden. Lourdes Oñederra

Hemen gaua pasatzeko **zailtasunik** ez: ostatua franko bertan eta inguruetan. Txillardegi

Irakurlea ez dela irakurle erraz irakurtzen duelako, baizik eta **zailtasunez** ere irakurtzeko gauza delako. Xabier Mendiguren Elizegi

Jiratuta, narrasean bueltatu zen zuhaitzean gora, **zailtasunez** baina. Julen Gabiria

**Zailtasuna zailtasun** erdi bilakatua da halatan, eta askorik galdu behar izan gabe ere. Jon Muñoz

Eskalatzaile goierritarrak pena hartu du, ezin izan duelako 9a **zailtasuneko** bidea egin. Berria - Kirola

Fitz Royk 3.400 metro baino gehiagoko garaiera du, eta 7b **zailtasun** inguruko paretak ditu. Berria - Kirola

### **2** (izenondo eta izenlagunekin)

Erraztasuna bera dute Schumannen piano-lanek **zailtasun** nagusi. Anjel Lertxundi

Kirurgialariak ez du **zailtasun** handirik hondatutako giltzadurara iristeko eta, behar izanez gero, kentzeko. Irene Aldasoro

**Zailtasun** handiena hau da: gorputzak eta haren inguruneak oso egitura eta osaera desberdinak dituztela. Irene Aldasoro

Hitz egiteko **zailtasun** nabarmena zuen, hortzen artean trabatzen baitzitzaizkion hitzak. Ramon Saizarbitoria

Murrizte horietan datza **zailtasun** osoa. Jon Muñoz

Hizkuntza egoera bat denboran mugatzea ez da izango aurki dezakegun **zailtasun** bakarra hizkuntza egoera hori definitzeko unean. Isabel Arrigain

Igobidea "muturreko **zailtasunekoa"** zen, gidaren kalifikazioaren ariora. Aingeru Epaltza

Bigarren arazoa, lehen arazoaren jarraipena eta gaineraturiko **zailtasun** bat baizik ez da. Isabel Arrigain

**3** (pluralean)

**Zailtasunak** gorabehera, iragan hurbileko mezulariak ekinean zeuden, aditzera eman nahi zuten beren burua. Bernardo Atxaga

Umeak dituzten bikoteei banatzerakoan sortzen zaizkien **zailtasunak** hartu genituen hizpide. Anjel Lertxundi

Inork ez zituela ezagutzen, ez problemaren mamia, ez haren **zailtasunak**. **Zailtasunak** gaindituz, onura galantak ere topatu eta eskuratu izan ditu, ordea, fraideak komentuko bazterretik. Jon Muñoz

Lana eta etxebizitza topatzeko **zailtasunek** eragindako gaitz psikosomatikoak. Berria - Euskal Herria

Konfiantza **zailtasunen** artean. Elizen arteko biblia

Ur gezatako arrainak **zailtasunak** ditu odoleko mineral kantitatea behar den neurrian mantentzeko. Irene Aldasoro

**Zailtasunak** ditu egin duenaz gogoeta egiteko, batez ere ez da bere ekintzaren larritasunaz konturatzeko gauza. Jon Alonso

Janariak negu partean banatuak izanen dira **zailtasunak** dituzten familieri. Herria

Arnasa hartzeko **zailtasunak**? Anjel Lertxundi

Ikasketetan gora egiteko **zailtasun** batzuk izango bazituen ere, bere adineko jendearekin ibiltzea komeni zitzaion. Era guztietako **zailtasun** eta larritasunekin egin zuen topo. Iban Zaldua

Hirurehun verstako inguru batean, naturaren **zailtasunak** izugarriak izan zitezkeen. Karlos Zabala

Idazleak berak jartzen dizkio **zailtasunak** bere buruari, gero haiei gaina hartzen diela erakusteko. Xabier Olarra

**Zailtasunak zailtasun**, funtsezkoa izan zen, Curryren hitzetan, alderdi guztiek barneratuta izatea preso guztiak askatzea beharrezkoa zela. Berria - Euskal Herria

Moraledak ere berretsi zuen bakerantz egin daitekeen bidea ibiltzeak merezi duela, **«zailtasunak zailtasun**». Berria - Euskal Herria

**4** (pluralean izenondo eta izenlagunekin)

**Zailtasun** handiak gaindituz. **Zailtasun** izugarriak zituen, ordea, gizakiak eta haien kode eta seinaleak nahiz haien portaerak ulertzeko. Xabier Olarra

Ingeleserako egoera mugatuko gramatika bat eraikitzeak hasiera-hasieratik aurkitzen ditu oztopo eta **zailtasun** larriak. Itziar Laka

**Zailtasun** gaindiezinekin topo egin duzu. Imanol Unzurrunzaga

Halako prezio bat definitzeko **zailtasun** edo ezintasun teorikoak gorabehera, [...]. Koro Navarro

Umeek **zailtasun** objektiboak izan ditzakete, laguntzarik ez dutenez, lan horiek behar den bezala egiteko. Pello Salaburu

Deslokalizazioari eta **zailtasun** ekonomikoei aurre egiteko. Berria - Ekonomia

Nolako **zailtasun** neurologiko eta psikologikoak izan zitzakeen Virgilek. Xabier Olarra

**Zailtasun** terminologikoak gaindiezinak gertatzen direnean. Santiago Iruretagoiena

Eztabaidaren oinarrian adierazleak osatzeko **zailtasun** metodologikoak ere izan dira hizpide. Iñaki Heras

Haietako batzuek horri ezinezkoa deritzote, eta onartzen dutenek berek ere aitortzen dute badirela hor kontaezinezko **zailtasunak**. Xabier Kintana

Sekulako **zailtasunak** omen zituen haurrekin. Xabier Olarra

Ikusmena berriki berreskuratu duten guztiek izaten dituzte, ia salbuespenik gabe, halako **zailtasunak**. Xabier Olarra

Hainbesteko **zailtasunekin** zaila da historia berridaztea, ezta? Berria - Harian

**5** (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

Aldaerak askotarikoak izan daitezke, jolasaren **zailtasun** maila arau hertsiagoen edo nasaiagoen pean kokatu nahi dugun. Iñaki Arranz

Lan birtuoso honen **zailtasun** maila gorena da eta Atxukarrok arazorik gabe gailendu zuen. Berria - Kultura

Bide handiak **zailtasun** izpirik ez du, baina ez da hautatu behar. Itxaro Borda

· Begiratu genion zenbateraino erraztu genezakeen, eta **zailtasun**-oztopoak gehiago ziren, erruz. Pello Zabala

**6** (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa)

Finantza **zailtasunak** dituzten enpresa handiei laguntzeko. Berria - Ekonomia

Enpresan tamaina, zenbait ekoizpenen teknologia urria eta finantzaketa **zailtasunak** desabantaila lirateke globalizazioaren eraginei aurre egiterakoan. Berria - Ekonomia

Vitruvioren hizkeraren "iluntasunari" eta ulermen-**zailtasunei** buruzko eztabaida antzinakoak. Santiago Iruretagoiena

Hizkuntzaren murrizte batzuk ahoskera **zailtasunak** islatzen dituzte. Lourdes Oñederra

**hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**

**aurkitzeko zailtasun** (4); **beste zailtasun bat** (4); **egiteko zailtasun** (8); **eragozpen eta zailtasun** (3); **gero eta zailtasun** (6); **hainbat zailtasun** (9); **hainbat zailtasun izan** (3); **inolako zailtasun** (3); **lortzeko zailtasun** (4)

**zailtasun asko** (16); **zailtasun asko izan** (5); **zailtasun bakarra** (8); **zailtasun bat** (10); **zailtasun batzuk** (7); **zailtasun berezirik** (7)

**zailtasun ekonomikoak** (6); **zailtasun ekonomikoen** (3); **zailtasun fisikoei** (3); **zailtasun gehiago** (21); **zailtasun gehien** (5); **zailtasun gutxiago** (3); **zailtasun guztiak** (13); **zailtasun guztien gainetik** (5); **zailtasun handi** (3); **zailtasun handia** (6); **zailtasun handiagoa** (4); **zailtasun handiagoak** (24); **zailtasun handiagoak izan** (4); **zailtasun handiak** (79); **zailtasun handiak daudela** (3); **zailtasun handiak dituzte** (6); **zailtasun handiak izan** (13); **zailtasun handiak izango** (3); **zailtasun handiak izaten** (6); **zailtasun handiena** (11); **zailtasun handienak** (9); **zailtasun handiko** (4); **zailtasun handirik gabe** (9); **zailtasun handiz** (3); **zailtasun hori gainditzen** (3)

**zailtasun izugarriak** (3); **zailtasun larriak** (3); **zailtasun maila** (3); **zailtasun nabariak** (3); **zailtasun nagusi** (5); **zailtasun nagusiak** (3); **zailtasun osoa** (3); **zailtasun teknikoak** (7); **zailtasun ugari** (11)

**zailtasunak zailtasun** (24); **zein zailtasun** (4); **zer zailtasun** (8)

**benetako zailtasuna** (4); **egiteko zailtasuna** (3); **hautemateko zailtasuna** (3); **lortzeko zailtasuna** (4); **ulertzeko zailtasuna** (5)

**zailtasuna aipatu** (4); **zailtasuna da** (6); **zailtasuna dela** (3); **zailtasuna izan** (5); **zailtasuna zen** (3)

**arnasa hartzeko zailtasunak** (9); **aurkitzeko zailtasunak** (5); **aurre egiteko zailtasunak** (3); **dauden zailtasunak** (13)

**egiteko zailtasunak** (24); **egiteko zailtasunak izan** (3); **eramateko zailtasunak** (4); **eskuratzeko zailtasunak** (4); **eusteko zailtasunak** (3); **gauzatzeko zailtasunak** (4); **halako zailtasunak** (4); **hartzeko zailtasunak** (11); **hitz egiteko zailtasunak** (6)

**ikasteko zailtasunak** (3); **ikusteko zailtasunak** (4); **iristeko zailtasunak** (8); **izandako zailtasunak** (3); **jartzeko zailtasunak** (4); **lortzeko zailtasunak** (10); **mugitzeko zailtasunak** (6); **nolako zailtasunak** (6)

**sartzeko zailtasunak** (9)

**ulertzeko zailtasunak** (5)

**zailtasunak aipatu** (5); **zailtasunak azpimarratu** (3); **zailtasunak dakartza** (3); **zailtasunak daude** (7); **zailtasunak daudela** (12); **zailtasunak daudela onartu** (3); **zailtasunak dauden arren** (3); **zailtasunak dira** (4); **zailtasunak direla eta** (4); **zailtasunak ditu** (23); **zailtasunak ditugu** (3); **zailtasunak dituzte** (19); **zailtasunak dituzten haurren** (3); **zailtasunak dituztenei** (3)

**zailtasunak egon** (5); **zailtasunak egongo direla** (3); **zailtasunak ekarriko** (3); **zailtasunak eta eragozpenak** (3); **zailtasunak eta oztopoak** (3); **zailtasunak gainditu** (7); **zailtasunak gaindituz** (3); **zailtasunak gainditzeko** (9); **zailtasunak gainditzen** (4); **zailtasunak handiak** (7)

**zailtasunak ikusita** (6); **zailtasunak ikusten** (7); **zailtasunak izan** (58); **zailtasunak izan ditu** (5); **zailtasunak izan dituzte** (4); **zailtasunak izan ziren** (3); **zailtasunak izan zituen** (7); **zailtasunak izan zituzten** (16); **zailtasunak izanen** (5); **zailtasunak izango** (21); **zailtasunak izango ditu** (4); **zailtasunak izatea** (3); **zailtasunak izaten** (15); **zailtasunak izaten dira** (3); **zailtasunak izaten dituzte** (4); **zailtasunak jarri** (3); **zailtasunak jartzen** (3); **zailtasunak nabarmendu** (5)

**zailtasunak salatu** (6); **zailtasunak sortu** (5); **zailtasunak sortzen** (5)

**zailtasunak ukan** (7); **zailtasunak ukan zituen** (4); **zailtasunak zailtasun** (24); **zailtasunak zituen** (12); **zailtasunak zituzten** (10); **zer nolako zailtasunak** (3)

**zailtasunaren arabera** (4)

**zailtasunei aurre egiteko** (7)

**zailtasunen artean** (4); **zailtasunen aurrean** (3); **zailtasunen bat** (7); **zailtasunen gainetik** (3)

**zailtasunetan diren** (4)

**zailtasunez beteta** (3); **zailtasunez betetako** (4); **zailtasunez jakitun** (3)
**aparteko zailtasunik** (7); **batere zailtasunik** (8); **ez du zailtasunik** (5); **ez zailtasunik gabe** (3); **inolako zailtasunik** (11)
**zailtasunik ez** (10); **zailtasunik gabe** (24); **zailtasunik gabeko** (3); **zailtasunik handiena** (6)

---

zailtxago ik **zailxe**.

---

**zailtxo** *izond adkor* zaila. ik **zailxko.**

Lan **zailtxoa**, urrats bat egitean joan-etorrian zebiltzan jende multzoek ezker-eskubitara bultzatzen baikintuzten. Gotzon Garate
Ilbeheran, lan **zailtxoenak** ere, errazago menderatuko dituzu. Pello Zabala
Egungo egunean **zailtxo** da Indian suge-liluratzailerik ikustea. Gotzon Garate
Gainerako orok irakurketa erraza du, eta zer edo zer **zailtxoago** gerta daitekeenean erraza egiten saiatu naiz. Pello Salaburu

---

**zailtzeke** *adlag* zaildu gabe.

Leitzako aurrelari bizia **zailtzeke** dago oraindik, eta txapeldun izandako batek mendean hartu beharko luke. Berria - Kirola

---

**zailxe**

**1** ***zailxeago*** *(orobat* ***zailtxago****)*

Ez zait behin ere tokatzen eritasun polit edo bitxirik sendatzea, eritasun **zailxeagorik**, eguneroko zeretik pixka bat ateratzen denik! Fernando Rey
Holako liburuxka biziki baliosa da preseski denek jakin dezagun nun barna egiten ahal diren biziki itzuli pollitak, luzeak edo laburrak, erretxak edo **zailtxagoak**, bakoitxak kausitzen ahal bere heinekoa. Herria
Ezkonduak eta aita edo ama ziren gehienak, eta **zailxeagoa** zen horrenbestez egiteko hura. Joxan Elosegi
**Zailxeagoa** gertatu zitzaien Tobolekoa baino. Karlos Zabala
Haiek ere oinetako eta galtzontzilo hutsetan egoteari aski iritzi; emakumeek **zailxeago** zeukaten, [...]. Joxe Austin Arrieta

---

**zailxko** *izond adkor* zaila. ik **zailtxo.**

Informatzaile **zailxkoa** gertatzen hasia zitzaidan. Aingeru Epaltza

---

**zain-belar** *(orobat* ***zainbelar****)* *iz* belar landarea, hosto handi luzaranak dituena eta sendagintzan erabiltzen dena *(Plantago major)* ik **plantain.**

Kalonjearen oturuntzaren **zain belar**-gainean eserita jarri zirenean, honela hitz egin zion honek, errukiturik: [...]. Patxi Ezkiaga
Groteskoa zen berak Tansley jaunaz zeukan ideia, ongi zekien hori Lilyk, **zainbelarrak** pintzelarekin zirikatu bitartean. Anton Garikano
Hara, hauek **zainbelar** hostoak dira. Joanes Urkixo

---

**zain**[1] **1** *iz* odola dabilen hodia.

San Luisen odola baitzebilkion **zainetan**. Aingeru Epaltza
-Harrizkoa al duzu bihotza, ozpina al dabilkizu **zainetan**? -bekaiztu zitzaion, ordea, Nora. Anjel Lertxundi
Lozorrotik esnatuxe, halako epeltasun jostarina nabaritu zuen **zainetan** barrena. Patxi Zubizarreta
Lepoko **zain** bat nabarmendu zitzaion. Anjel Lertxundi
Nire lokietan eta ukabiletan, **zainen** marra delikatua ikus dezakezue. Eskarne Mujika
Horra hor tigrearen lehia, lepoko **zainaren** bila, horra hor idiaren etsipena. Javi Cillero
*ik beherago* 16. Askoren artean
Korala baino gorriztago haien gorputzak, zafiroa bezain urdin haien **zainak**. Elizen arteko biblia
Bihotzaren taupadak sentitzen nituen **zainetan**. Joxean Agirre
Kopeta-ertzetako **zainak** nabarmendu zaizkio. Anjel Lertxundi
Polemika piztu da [...] garuneko **zainetako** gaitza zuela atzeman arren, hori tratatzeko eman zizkioten odolbilduen aurkako botikek eragindako ondorioengatik. Berria - Mundua
Eskumuturreko **zaina** ukitu zuenez, neskatoaren pultsua hartu zuen hatz erakuslearekin eta erdikoarekin. Ibon Uribarri
Begietatik odol-zorrotada jario zitzaion, besoan **zain** bat irekitzen denean bezala. Askoren artean
Harry konturatu zen osaba Vernon hartaz gogoeta egiten ari zela, nahiz eta hortzak agerian izan eta **zain** bat lokian lehertu beharrean taupadaka zebilkion. Iñaki Mendiguren
**Zain** bat lehertuko ahal zaik, pistolero madarikatua! Patxi Zubizarreta
Odolaldiak lehertzeko zorian jarri dizkizu **zainak**. Anjel Lertxundi
Gizon argal luzea zen bera, **zain** eta gihar. Felipe Juaristi
Orratza besoko **zain** batean sartua. Joan Mari Irigoien
Hemen, besoan, **zain** baten taupadak ikusten nituen. Josu Zabaleta
**Zain** horietatik, orratz batez ziztaturik odol tanta bat hartu. Juan Garzia
Bera da txakurrari geldirik eusten diona orratzak **zaina** bilatzen duen artean. Oskar Arana
Bere **zaina** ziztatu eta lauzpabost ordura gertatu zen, ziztadaren eragina jada iragana zenean. Joan Mari Irigoien
Bezperan ez bezala, egun hartan ez zuen jasan ahal izan egoera, eta berriro ziztatu zuen **zaina** arratsaldez. Joan Mari Irigoien
Lepoko **zainak**, puztuta. Anjel Lertxundi
Lokietako **zainak**, guztiz irtenak, lehertu beharrean zeuzkan. Anjel Lertxundi
Bihotzak taupadaka egiten dit, begia pizten zait, ikusten ditudanean, odola **zainetan** asaldatzen zait, arima altxatzen zait. Josu Zabaleta
Robertek **zainak** ebaki zituen bainuontzian. Eskarne Mujika
Orain dela hiru hilabete eskumuturretako **zainak** ebaki nituen, arrazoirik gabe bezala. Fernando Rey
Bakarrik utzi gaituzte berriro ere euskaldun karlistok, eta abandonaturik hustu dira erreketan gure semeen **zainak**. Txillardegi

Ez zuan odol bakarrekoa: bazian bere ukitu aleman eta italiarra **zainetan** . Xabier Olarra

Baina hik ez al duk odolik **zainetan** , sakristau arraioa? Koro Navarro

Jainko maitea, hiriko jendeak odol apur bat izango balu **zainetan** ... Lopez de Arana

Egunero, metodikoki, whisky kopan isuri zizkion tanta beltz haiek, pixkanaka, Raulen **zainetan** herioa barreiatu zutela. Aritz Gorrotxategi

Odola irakiten ari zitzaion **zainetan** . Iñaki Mendiguren

Burura bildu zitzaion **zainetako** odol guztia. Jose Morales

Barizeek **zainetako** gutxiegitasuna sor dezakete, esaterako. Berria - Gaiak

Literatura **zainetan** zeraman, horretarako egina zen. Berria - Kultura

**Zainetan** zebilkigun gaztetasunari nolabait etekina atera nahi izanez gero, ez. Juan Garzia

**2** (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

Gorputzeko atal gehienetan, arteria odolak bere oxigenoaren herena uzten du [...] gainerakoa, berriz, atzera bihotzera garraiatzen da **zain** -zirkulazioan. Irene Aldasoro

Besoek eta zangoek badute beste **zain** -sare bat larruazalaren azpi-azpian, eta, bero dagoenean, beste sistema horretara bideratzen da **zain** -odola gorputzari hozten laguntzeko. Irene Aldasoro

Dagoeneko [...] **zain** -odolak ez dauka oxigeno askorik. Irene Aldasoro

Begi txiki kizkur **zain** -gorritu haien gainean. Irene Aldasoro

Ematurik ere, alkoholaren karga eztia hasia zitzaidan **zain** -gaineratzen, eta ordu bi eta erdiak ziren. Aingeru Epaltza

Oxigenoa eta antibiotiko **zain** -barnetikoak ari zen hartzen. Xabier Olarra

**3** (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa)

Karbono dioxidotik garbiturik eta oxigenoa berriturik, birika- **zainetara** biltzen da odola. Irene Aldasoro

Odol-kapilarretan katigaturik daude tubuluak, eta giltzurrun- **zainetara** konektaturik kapilarrak. Irene Aldasoro

Diabetesa, depresioa, minbizia, bihotz- **zainetako** nahasmenduak, eta abar. Juan Garzia

Ez dago zientziarik foliolo baten tegumentuarenik, zelula baten filamentuenik, odol- **zain** baten makodurarenik, [...]. Juan Garzia

Odol- **zainetaraino** sartuta zeukan beldurrak eragin handiagoa zuela erabaki hartan maitasunak baino. Anjel Lertxundi

Giza **zainetan** mantso-mantso zabaltzen diren isurkarien ahalmen fina... Iñaki Mendiguren

**4** medikuntzan, odola ehunetatik bihotzera itzularazten duen hodia. ik **arteria**.

Arteria baten eta **zain** baten bidez lotzen zaizkio muskulu guztiak odol-zirkulazioari. Irene Aldasoro

Bendaren azpian, plastikozko hodi-begizta labur bat izaten du, arteria bat **zain** bati konektatzen diona. Irene Aldasoro

Hodi bat arteria batean sartzen zitzaion, odola irten zedin, eta, bestea, berriz, **zain** batean, odolak itzulerako bidea egin zezan. Irene Aldasoro

**Zain** horiek gibelera eramaten dute odola, eta, han, bihotzera itzuli aurretik, elikagai molekulak kentzen zaizkio prozesaketa kimikorako. Irene Aldasoro

**Zainak** , berriz, hondakinak eramaten ditu, motorraren ihes-hodiak betetzen duen funtzioa betez. Irene Aldasoro

Aski dira muskuluek egiten dituzten mugimenduak **zainak** estutzeko eta odola bultzatzeko. Irene Aldasoro

Bero kantitate nahiko handiak galduko lituzke arteria-odolak inguruetako ehunetan besoan behera igarotzean, eta itzulerako **zain** -odolak. Irene Aldasoro

Nire bularraren azpian gurutzatzen ziren **zain** - eta arteria-zirkuituak. Oskar Arana

**5** sustraia, erroa.

[Zuhaitzak] hala, tamainaz ikaragarri handiak egiteaz gainera, beren **zainak** ere, hezetasunez goraino beteta, hazi egiten dira. Santiago Iruretagoiena

Nahikoa duzu, intsusa-adar bat hartu, eta lurrean bere horretan iltzatu eta sartzea: **zainak** bota, eta hor emango dizu agudo hosto eta lore. Pello Zabala

Haritzak lurrean **zainak** dituela, lurreko indar trinkoenak bereganatzen baititu. Patziku Perurena

Zumarraren **zainak** zirela uste nuen. Fernando Rey

Airea falta izan zitzaidan, urtegiaren barruan banengo bezala; hondoko lokatz eta **zainen** artean trabatuta. Bernardo Atxaga

Lizarraren **zain** -zuztarrak gaiztoak omen ziren beste zuhaitzentzat. Pello Zabala

Landare baten menpekoa dela zomorroa zeharo, haren **zainetatik** xurgatuz, edo hosto berriak janez, dela elikatzen. Hasier Etxeberria

**6** irud/hed

Lurraren erraietan zabiltzala sentitzen duzu, denboraren **zainetan** . Berria - Kultura

[Elurra] ondoren urtzen denean, lurraren **zainetatik** zabaltzen da eta hala iristen da mendien beheko oinetaraino, eta handik, borborka, iturrietatik ateratzen da oparo. Santiago Iruretagoiena

Eta nork uka niri, poesiaren **zainak** , funtsean, analogia ezinasmatu horretan gordetzen ez direnik? Patziku Perurena

Han baititu **zainak** , kataroen garaitik datorren herejia kontu ilunak. Patziku Perurena

Barne tzarra ez da luzaz gordetzen ahal, gezurrak **zainak** labur baititu. Eneko Bidegain

Nongoa da, nondarra, zein etxetakoa?; non ditu **zainak** ? Iñaki Segurola

Kulturaren **zaina** non dagoen, Javierrek santu euskaldun bien izenak eta izanak ezagutu. Edorta Jimenez

Kutsadurak **zainak** egin ditu arima-zolan eta maisurik adituenak ere beharturik daude horien jarraipena egitera, errotik ateratzeko. Joan Mari Lekuona

Kulturaren **zaina** non dagoen, Javierrek santu euskaldun bien izenak eta izanak ezagutu. Edorta Jimenez

Behean, autoak eta ahizparen gorpua, kolpe bakar batean bizitzaren **zainetatik** deserrotua. Aitor Arana

Indian, musulmanek gizaldiz gizaldi, beren musika ez ezik beren puritanismoa ere **zainetaraino** txertatu zioten gizarteari. Gotzon Garate

**Zainetaraino** gorritu da. Monika Etxebarria

**7** leinua.

Garaipen handia izan da hau, data historikoa Ondarretako kartzelan, Aitzolen **zainekoek** gabonila esaten dioten abenduaren zazpia apuntatu nahi baduzu, 1944 honetan. Koldo Izagirre

**8** giharra hezurrari itsasten den zuntz sorta; nerbioa. ik beherago **14a;** ik **tendoi**.

Gainean **zainak** eta haragia zituztela ikusi nuen, eta larruazalez estaltzen ari zirela. Elizen arteko biblia

Gurutzearen besoan pitzadura luze bat zegoen, egurraren **zain** batetik irekia. Koldo Biguri

Giharrak dituela dirudi, **zainak** beharbada. Xabier Montoia

**Zain** -lotailuak urratuta, bi operazio egin arren ere, hanka makalik gelditu zitzaion. Pablo Sastre

Gaixotasun batek, odolaren zirkulazioko arazoren batek, nerbio **zain** bat gaitzitu izanak. Josu Zabaleta

Izter- **zainak** ebaki zizkiola, dagaz, eta horrela paralizatu eta hebaindu zuela dukeak zezen hura. Joan Mari Irigoien

Errebolbera ezkerreko eskuan, idi **zain** bat eskuinekoan. Michel Oronoz

**8a** *irud/hed*

Zain txiki urdin eta arrosak zauden, lore baten **zainak** ematen dutenak. Karlos Zabala

Eliza bat, nola erran, finezian finkatua: gora, hain gora, kupula, haren **zainek** zortzi puntako izar bat osatzen dutela. Piarres Aintziart

**9** *pl* nerbioak; buru egoera.

Kaosa egin da Joseren buruan, erle-saldo amorratu bat dabilkio buru-muinetan ziztaka, zuhurrena ere erotzerainoko oinaze zakar batek hartu dizkio **zainak** . Anjel Lertxundi

Ur sufredunak **zainetako** minak sendatzeko dira onak. Santiago Iruretagoiena

Bortz minutu geroago, **zainak** janak nituen barrenak. Aingeru Epaltza

Katekesiko arduraduna etorri zitzaion ate joka don Serapiori, **zainak** ikaran, karabineroek eskatu ziotela apeza bilatzeko. Koldo Izagirre

Egoera umorez hartzen ahalegintzen banintzen ere, **zainak** airean nengoen. Alberto Ladron Arana

Tarte luze batez egon ziren aiduru, **zainak** airean. Elena Touyarou

Itzul hona, itzul hara, konturatu nintzen **zainak** arrunt altxatuak nituela. Daniel Landart

**Zainak** korapilo zeuzkan eta monologatzen segitzen zuen itsasertza hotzean nola:[…..]. Itxaro Borda

Pentsamenduaren latzaz eta musikaren indar zaplastatzaileaz **zainak** daldaraka susmatzen nituen. Itxaro Borda

**Zainak** kiskailtzen dizkidaten bilkuretara joateko. Itxaro Borda

Kafeak noski **zainak** inarrosi zizkidan. Itxaro Borda

Artalde multzo mantsoa ezker aldean irudikatuz **zainak** jabaltzen zaizkit. Itxaro Borda

Begien inguruan nekeak eragindako halako azkura bat, **zainak** txinaurrien ibilbide bilakaturik. Pako Aristi

Gérard-ek ez du aski odol hotza, **zainak** airatzera ez uzteko. Eneko Bidegain

Denak aitortu ditu bainan erranez **zainak** zaizkiola nagusitu, sobera edana zuen batez. Herria

Dardarka eta **zain**-ikara batek astindurik hasten zen Nathaniel. Anjel Lertxundi

Ematurik ere, alkoholaren karga eztia hasia zitzaidan **zain**-gaineratzen, eta ordu bi eta erdiak ziren. Aingeru Epaltza

**Zainen** jabaltzeko pilulak eta haien arraberritzeko medikuaren ordenantzak ez zituen ordea ahantzi. Itxaro Borda

Bata **zainetarik** eri, bestea langabezian, azkena estatuak lagundu enplegu batean! Itxaro Borda

**Zainen** uzkurduraz gorputz-adarrak zurrun zituen, hildako batek bezala. Askoren artean

Orgasmoa **zainetan** gora zetorkion neurrian, aurpegia aldatuz joan zitzaion. Aitor Arana

Beharko dute beste **zainik** erakutsi hurrengo partidetan. Herria

## 10 material gertatzen den beste kolore edo gai bateko zerrenda mehea.

Haren aurpegi eta gorputzean zehar, habe-zuraren **zainak** eta erretenaren gaineko belarra ikusi nituen. Koldo Biguri

Sasoi horretan huts eta heze egoten direnez, egurra ere hutsa eta ahulduta egoten da barruko **zainengatik**. Santiago Iruretagoiena

Mea-**zain** bat aurkitzen duela, ez diola inori deus esaten, harria berak bakarrik induskatzen saiatzen dela. Juan Garzia

Zilar eta urre **zainak** diren lekuan. Xabier Amuriza

Ez dago han urrezko pipitarik, ezta urre **zainik** ere. Berria - Gaiak

Lur haren azpian mea-**zain** mataza ikusgarri batek egon behar zuen. Juan Garzia

Metal arruntezko mea artean urre-**zain** bat bezala. Juan Garzia

## 11 irud/hed

Ttipiren txostenaren lehen zatian ustiatu gabeko **zainei** mea guztia agor-agorrik uzteraino erauzteari lotu nintzaion. Aingeru Epaltza

## 12 ***zainen gainean*** *adlag ipar* oso urduri.

Sozialixtak **zainen gainean** dira. Herria

Aste hartan, **zainen gainean** zegoen Josepe. Partida zer izan den: **zainen gainean** jokatua, eta sobera harrabots, oihu eta musika, eta ez dutela beren hoberena erakutsi biek ere. Janbattitt Dirassar

Ekialde-Hurbilean, berriz ere nahasmendu asko, sei palestinar hilak, ehun bat kolpatu bestalde, denak **zainen gainean**. Herria

Ni kruxitua, zer gertatzen ote zen, bihotza dena koropilo, arrunt **zainen gainean**. Janbattitt Dirassar

## 13 ***zainetan*** *adlag ipar* urduri.

Publiko haundi horren aintzinean, gu ikasleak **zainetan** ginen. Herria

"Redios!" Mikel **zainetan** zen. Ramuntxo Etxeberri

Ahapetik ihardetsi nuen, hain bainengoen **zainetan**:[...]. Aingeru Epaltza

Ez nuen lorik egin ahal izan, sobera **zainetan** bainintzen. Filipe Bidart

Ez diet jendeei irririk eskaini, ez ditut ongi-hartu, **zainetan** jarri naute. Berria - Kultura

Zaintzaleak arrunt kexu eta **zainetan** senditu nituen, eta enetzat arrazoi bat gehiago alaitzeko. Filipe Bidart

Baina odol-jario ñimiño hura gelditzen ez zela erreparaturik, **zainetan** jarri nintzen. Txillardegi

Bertsulariak aldiz erdi-**zainetan**, buruari hazka, mikroa hunki eta hunki, eskuak umi... Herria

Irujok nahi zuena egiten zuela eta Olaizolak, arras **zainetan**, ez pilotarik mugitzen. Herria

Batzuk **zainetan**, bertzeak kezketan. Aingeru Epaltza

## 14 ***zainetako*** *iz*

Jauzi egin dut kamainatik, **zainetakoak** eraginda. Koldo Izagirre

-Gaixotasunen bat sinatuko dik hemengo medikuak, esaiok **zainetakoa** duala. Koldo Izagirre

Bien bitartean **zainetakoa** berotzen zihoakion ziztu bizian, eta aurrekoaren begirada samurrak, haren hurbiltasunak ez zioten batere laguntzen sua amatatzen... Migel Angel Mintegi

## 14a ***gihar zain***

Guraizeekin mihi-azpiko **gihar-zaina** mozten zien. Juan Garzia

*ik* mihipeko.

## 15 ***hanka-zain*** (*orobat* ***hankazain*** *g.er.*) tendoia.

Izterrean edo **hanka-zainetan**. Anjel Lertxundi

Zakur hark auzokoen ipurdi mazelak bezain gustukoak zituen arrotzen izterrak eta **hanka-zainak**. Gotzon Garate

Uhurika urrutiratu nintzen handik, **hanka zainetan** makilazoa hartutako zakurra bezala. Bernardo Atxaga

Etxera joan eta aitak areago berotu zizkion **hankazainak**. Gotzon Garate

## 16 ***lepo-zain*** (*orobat* ***lepozain*** *eta* ***lepazain***) *iz* lepoko zaina.

Agustinen **lepo-zaina** ebaki zuen dudarik gabeko kolpe batez. Itxaro Borda

Atzamarrak paratu dizkiot **lepazainean**. Koldo Izagirre

Hurrengo aldian ene eskuz bihurtuko diat **lepo zaina** bestela -mehatxatu zuen. Elena Touyarou

Eta abertzaleak jakina, hortzak tinko, **lepo zaina** hegian, oka egiteko zorian. · Ezpainetan behera egiten dion muztaxagatik bera zen, nire lagunek ahotan mesprezuka zerabilten huraxe, Liceuan harro eta **lepozain** barik ausartzen zen kriminala. Itxaro Borda

## 17 ***zain eta muin*** *adlag* gogotik, sakon.

Arrazoi pisuzkoa, oraindik **zain eta muin** heldu nahi ez izateko, ez bederen burua onbideratzen ez nuen artean. Aingeru Epaltza

Nonbait etsipenez gainez gain eginik, senar-emazteek, gurasoek alegia, egun asko, espero baino egun gehiago, baitzeramatzaten **zain eta muin**, eta itsasontziaren arrastorik ez. Felipe Juaristi

Biek ala biek itsasontziaren brankako saihetsean irakurri zuten Ainhoa, eta biak ala biak geratu ziren **zain eta muin**. Felipe Juaristi

## 18 ***zain txarra*** inpresio, uste txarra.

Ez nekien zergatik, baina oso **zain txarra** ematen zidan galdera hark. Alberto Ladron Arana

Asunto honek **zain txarra** ematen dit, gero. Joanes Urkixo

**Zain txarrak** jota, haren deiaren esperoan egon nintzen asteburuan eta hurrengo astearen hasieran. Aingeru Epaltza

Zerbaitek **zain txarra** piztu zion, haatik. Aingeru Epaltza

Emakumeak esku-poltsa arina darama aldean, eta hala ere, kosta egiten zaio trenetik jaistea, bertara eraman duen arazoak **zain txarra** emango balio bezala azken momentuan. Javi Cillero

### 19 ***zainak eman*** susmoa hartu, inpresioa hartu.

Ez, Miss Prism maitea, badakit, baina **zainak eman** dit buruko minez zinela. Antton Olano

**Zainak ematen** dit ikur hori nonbait ikusi nuela oso aspaldi. Fernando Rey

Baina **zainak ematen** dit ez zaiela burutik pasatu gai on hau. Fernando Rey

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
> **lepoko zain** (3); **zain eta muin** (3); **zain guztietan zehar** (3); **zain txarra** (5); **zain txiki** (5); **zain urdin** (5)
> **lepo zaina** (4); **lepoko zaina** (3)
> **eskumuturretako zainak** (3); **hanka zainak** (5); **hanka zainak ebaki** (3); **kopetako zainak** (3); **lepoko zainak** (8)
> **zainak airean** (8); **zainak ebaki** (13); **zainak handitu** (3); **zainak lehertzeko** (3); **zainak moztu zituen** (4)
> **zainen jabaltzeko** (4)
> **zainetako gutxiegitasun** (3); **zainetako odol guztia** (3); **zainetako odola** (11)
> **bere zainetan** (9); **gure zainetan** (5); **nire zainetan** (3); **odola zainetan** (5)
> **zainetan barna** (3); **zainetan barrena** (23); **zainetan gora** (10); **zainetan odol** (6); **zainetan odola** (5)

---

## zain[2] 1 *iz* zaintzailea, arduraduna.

Eta hala ere ez da ateko giltza ematen digutena, ateko giltza eman diezaguten bakoitzak bere solairuko **zainari** eman beharko dion papertxoa baino. Edorta Jimenez

### 2 (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa)

Esterrek [...] erregearen aurrera agertzeko txanda etorri zitzaionean, ez zuen bete gabe utzi **emakume-zain** zen irenaren agindu bat ere. Elizen arteko biblia

Atrezzo- **zaina** agertokira itzuliko dira, eta, haiekin batera, Konpainia-burua. Josu Zabaleta

Kotxea oihanaren ertzean gelditzen duk, ehiza- **zaina** eta zakurra zain dituk. Xabier Olarra

Atalondora sartu zen, freskurara, eta ehiza- **zainari** makila eta kapela eman zizkion hitzik esan gabe. Xabier Olarra

Zena zela, meza bururatu aitzin eliza- **zainak** Ttotte eskalea kanporatu zuen. Itxaro Borda

Andre Madalenen ahaide eta lagunen oin-arrastoak zeuden edekanaren, soldadu-buruaren, zerga- **zainaren** eta sindikoaren jauregietako atari elurtuetan. Anjel Lertxundi

Ester ere jauregira eraman zuten besteekin batera eta Hegairen, emakume- **zainaren**, ardurapean jarri. Elizen arteko biblia

Itsasargi **zainaren** gibeletik eta Maien eskutik, ehun eta laurogeita hamasei eskailera mailak igo genituen. Itxaro Borda

Bihurgune bat zatorrek orain..., trenbide- **zainen** adreilu gorrizko txabola..., [...]. Anjel Lertxundi

Kolore askotako espainiar armada- **zainak** ikusi nituen, harresiaren gaineko beren erronda-bidean kanoien artetik ibiltari. Txillardegi

Eta zer da ekintza handi horren ondoan lorategi **zainaren** haserrea? Pako Aristi

Metroko igogailu- **zaina** premia eternala da. Anton Garikano

Kafea hartzen ari da harrera- **zainarekin** hizketa adeitsuan, eta ez nau ikusi. Anjel Lertxundi

Azkarki segitua izan da tabako bulego **zainen** greba joan den astelehenean Ipar Euskal Herrian. Herria

### 3 zaintza.

Lehen saretik bera pasatzeko heineko xilo baten egitera heldu zen, ongi kasu emanez **zain-dorreetako** argiek ez zezaten harrapa. Eneko Bidegain

### 4 *kartzela-zain* ik **kartzelazain**.

### 5 *txakur-zain* ik **txakurzain**.

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
> **emakume zain zen** (4)
> **atrezzo zaina** (6); **ehiza zaina** (5); **txakur zaina** (3)
> **ehiza zainak** (6)

---

## zain[3] 1 *adlag* itxaroten. (ikus beheko konbinatorian zain adizlagunaren agerraldi maizkoenak)

### 2 (-en atzikiaren eskuinean)

Sarrerako atarian jarri ziren zelatan, Crabberen eta Goyleren **zain**. Iñaki Mendiguren

Haren atzean, beste bost emakume, beren txandaren **zain**. Anjel Lertxundi

Zorionaren **zain**, eta zoritxarra etorri zait. Elizen arteko biblia

Erreak ditut begiak zure salbazioaren **zain**, zuk hitz emaniko justiziaren **zain**. Elizen arteko biblia

Hor behean ikusten dut, Porta de Ferron, eraso egiteko aginduaren **zain**. Jon Alonso

Hitzak, berorietan, harat-honat dabilen izarren hautsa dira, zentzu batean finkatuko dituen begiradaren **zain**, edo beren baitan zentzu berria bilatuko duen begiradaren **zain**. Jon Alonso

Aurrekoaren jarraipena, bazkaltzeko orduaren **zain**. Anjel Lertxundi

Apezaren errezuen bukaeraren **zain**, pauso hotsak aditu nituen neure gibelera. Aingeru Epaltza

Mordor lur hilaren antzera zetzan Mendiaren inguruan, isilik, itzaletan bildurik, kolpe ikaragarriaren **zain**. Agustin Otsoa

Erantzunaren **zain**, ni. Joxe Austin Arrieta

Beste egun batean bisitan joan nintzaionean, jantokian zegoen, bazkariaren **zain**. Xabier Olarra

Ordurako, US-Armyko zortzi helikoptero zeuden muga mexikarrean, agintarien baimenaren **zain**, gure bila etortzeko prest. Joxe Austin Arrieta

### 3 (mendeko aditzekin)

Jendea Billy Garlic izeneko boxeolari txiletar bati buruz marmarrean ari da hurrengo zaldi lasterketa telebistan noiz hasiko den **zain**. Harkaitz Cano

Eta hodeiak han goian geratzen ziren, eguraldi onak haranera noiz jaitsaraziko zituen **zain**. Juan Garzia

Nonbait, denok geunden **zain** kapitainak zer esango. Joxe Austin Arrieta

Adelaren amak gorriak ikusi zituen gerra ondorenean, senarra heriotza-zigorrez noiz hilko zuten **zain**. Juan Kruz Igerabide

Sinesmenaren garaia heldu baino lehen, legepean gatibu geunden, sinesmena noiz agertuko **zain**. Elizen arteko biblia

Haur guztiak liburuei begira zeuden, lerro bat ere irakurri gabe, ondoren etorriko zenaren **zain**. Juan Kruz Igerabide

Ezkutik daude zelatan, nondik nora nabilen begira, niri bizia kentzeko **zain**. Elizen arteko biblia

Azken hiru urteotan, bera eta bere senarra Zeelanda Berriko kontsul-etxearen zerrenda bertan izan dira, emigratzeko **zain**. Oskar Arana

"Barkatu", esan nion zerbitzariari, gure helbide trukea bukatu **zain** baitzegoen. Bernardo Atxaga

Santosek Fonsecaren berri eman zionetik noiz ahoratu **zain** zeukan galdera-parrastada egin zion. Josu Landa

Komandantea iritsi **zain** egon gintuan kartetan sukaldariarekin. Txillardegi

Begiak hertsi eta (lorik egin gabe) eguna argiberritu **zain** gelditu nintzen. Juan Garzia

Utz ezazu dena orain dagoen bezala: betiko moduan igandea etorri **zain** geratuko naiz. Koldo Biguri

Segizioa hasi **zain** zeuden denak. Bernardo Atxaga

### 4 *zain eta zain adlag*

**Zain eta zain** egon ginen, baina ez zen beste ezer entzun. **Zain eta zain** egon ondoren, kezkatzen hasi ziren, goiko gelako ateak irekitzen ez zirelako. Josu Zabaleta

Ni zure zain nengoen, **zain eta zain**, nire patuaren zain bezala. Eduardo Matauko

Akitua nago deiadarka, errea daukat eztarria, lausoturik begiak, ene Jainkoaren **zain eta zain**. Elizen arteko biblia

### 5 *zain-zain adlag*

Badaki **zain-zain** naukala hemen. Mirentxu Larrañaga

Txango horien **zain-zain** egoten zen Stephen, antza, eta urduri ibiltzen zen igande goizetan, Margaret eta Andrew beraren bila noiz etorriko. Xabier Olarra

Ez egon **zain-zain**, noiz nik nire ezpatari helduko haien aurka. Patxi Ezkiaga

Zure lagunak sekula ikusi gabe, sekula kanpora irten barik, sekula beste inor ezagutu nahi gabe, hementxe jarrita, **zain-zain**, Garry delako horrek noiz telefonoz deituko. Mirentxu Larrañaga

Steffi Prokop etxeratu zenean, egongelan aurkitu zuen Stanislaus Demba, **zain-zain**. Anton Garikano

**hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 8 aldiz agertzen direnak)**

**aginduaren zain** (12); **aginduen zain** (18); **albisteen zain** (10); **amaitu zain** (8); **atarian zain** (8); **atean zain** (14); **aukeraren zain** (24); **aurrean zain** (13); **autobusaren zain** (13); **baimenaren zain** (14); **beraren zain** (11); **bere zain** (41); **berrien zain** (20); **beti zain** (10); **bukatu zain** (9); **dago zain** (8); **daude zain** (11); **dauka zain** (11); **deiaren zain** (27)

**ebazpenaren zain** (10); **egin zain** (17); **egiteko zain** (22); **egon zen zain** (12); **egon ziren zain** (9); **egunaren zain** (15); **emaitzen zain** (25); **emateko zain** (12); **entzuteko zain** (10); **epaiaren zain** (30); **epaiketaren zain** (44); **epaiketaren zain dago** (9); **erabakiaren zain** (40); **erantzun baten zain** (12); **erantzunaren zain** (124); **erantzunaren zain daude** (12); **erantzunaren zain egon** (20); **erantzunaren zain geratu** (10); **erantzunen zain** (9); **eserita zain** (9); **etorreraren zain** (11); **etorri zain** (14); **etxean zain** (8); **gehiagoren zain** (9); **gertatu zain** (10); **gertatzen zain** (8); **gure zain** (41); **haien zain** (21); **han zain** (14); **hantxe zain** (9); **haren zain** (67); **haren zain egon** (10); **harexen zain** (10); **hartu zain** (9); **hartzeko zain** (11); **heriotzaren zain** (21); **hire zain** (28); **honen zain** (13); **horien zain** (10); **horren zain** (50); **horren zain egon** (10); **horrexen zain** (9)

**igogailuaren zain** (9); **inoren zain** (19); **inoren zain egon** (10); **iritsi zain** (14); **jendea zain** (9); **joko zain** (9); **kanpoan zain** (16); **laguntzaren zain** (9); **ni zain** (9); **nire erantzunaren zain** (13); **nire zain** (135); **nire zain egon** (8); **nire zain zegoen** (9); **noiz agertuko zain** (24); **noiz ailegatuko zain** (8); **noiz aterako zain** (8); **noiz etorriko zain** (21); **noiz hasiko zain** (13); **noiz iritsiko zain** (34); **noiz itzuliko zain** (14); **noiz joko zain** (8); **norbaiten zain** (13)

**ondorioen zain** (10); **partidaren zain** (10); **sartzeko zain** (11); **trenaren zain** (28); **txandaren zain** (22)

**une egokiaren zain** (11); **unearen zain** (9)

**zain baitzegoen** (10); **zain balego** (15); **zain balego bezala** (14); **zain bezala** (23); **zain bizi** (10)

**zain da** (14); **zain dago** (164); **zain dagoela** (45); **zain dagoen** (40); **zain daude** (149); **zain daude orain** (8); **zain daudela** (31); **zain dauden** (39); **zain daukat** (9); **zain daukazu** (9); **zain dira** (24)

**zain eduki** (9); **zain edukiko** (13); **zain egon** (548); **zain egon balitz** (8); **zain egon behar** (83); **zain egon beharra** (10); **zain egon beharrean** (10); **zain egon da** (10); **zain egon gabe** (64); **zain egon izan** (8); **zain egon ondoren** (17); **zain egon zen** (52); **zain egonen** (11); **zain egongo** (83); **zain egongo naiz** (13); **zain egote** (12); **zain egotea** (78); **zain egoteko** (45); **zain egoten** (74); **zain egoten zen** (16); **zain eta zain** (12)

**zain gaude** (98); **zain gaudela** (8); **zain gelditu** (117); **zain gelditu da** (10); **zain gelditu zen** (25); **zain geldituko** (10); **zain gelditzea** (11); **zain gelditzen** (23); **zain geratu** (240); **zain geratu beharko** (8); **zain geratu zen** (99); **zain geratuko** (25); **zain geratzea** (8); **zain geratzen** (39); **zain geratzen naiz** (10); **zain geunden** (29); **zain ginen** (9)

**zain hago** (9)

**zain izan** (18); **zain izango** (33); **zain izaten** (9)

**zain jarraitzen** (8); **zain jarri** (14)

**zain nago** (61); **zain nagoen** (8); **zain nengoen** (64); **zain neukan** (16); **zain nuen** (12)

**zain zain** (33); **zain zaude** (16); **zain zegoen** (183); **zain zegoen bitartean** (8); **zain zen** (9); **zain zeuden** (163); **zain zeuden bitartean** (14); **zain zeuden denak** (10); **zain zeukan** (22); **zain zeukaten** (10); **zain ziren** (9); **zain zituen** (10); **zain zituzten** (8); **zain zuen** (12); **zain zuten** (15)

**zer gertatuko zain** (9); **zerbaiten zain** (29); **zeren zain** (60); **zeren zain hago** (9); **zeren zain zaude** (11); **zeuden zain** (18); **zeukan zain** (10); **zure zain** (82); **zure zain egon** (10)

---

## zainaje *iz* sustrai multzoa.

**Zainajea** lur erosoan duen zuhaitzeria, hau bai, hau udazkenak gorritu zuen, mantsoago eta bere garaian. Pello Zabala

---

## zainaldi *iz* zain egoteko aldia.

Ez zekien zenbateraino bihurtu zitzaion **zainaldi** bere amorrua eta mendeku-gosea. Xabier Olarra

Harik eta txakur zahar batek [...] bera ezagutu, eta emeki milikatuko zuen arte, eta orduan, isatsa mugitu, eta hil egingo zen txakurra, **zainaldia** beterik. Xabier Olarra

---

## zainart 1 *izond* zaintsua; errutsua.

Kapitain galtzak kitatzen zituenean Janinaren begiak ez ziren haren ipurdi mazela **zainart** eta ilezuetarik kantitzen. Itxaro Borda

Kartzelatutako mutiko gogor eta **zainartaren** bisean-bisean adi segitzen zuen. Itxaro Borda

Gatu **zainart** batek punpa egin zidan altzora. Itxaro Borda

Hala ezagutu zituen Eva zazpi urteko neskatxa ponpoxa eta Werner, okupazio armada alemaneko kapitain **zainarta**. Itxaro Borda

Ama familiako **zainartak** heldu ziren beren semeei arropaz hanpatu zakuak ekartzera, noiz libratuko zituzten oihuz eskatzen. Itxaro Borda

Karateka mugimendu **zainart** batean. Itxaro Borda

### 2 (adizlagun gisa)

Oraingo honetan, berriz, Legarde dauka zain, Donostiako matrikula duen auto zuri baten ondoan **zainart**, mendizaletasuna iradokitzen duen forro polar more batekin. Javi Cillero

---

## zainartu, zainart(u), zainartzen da/du *ad* zainart bihurtu.

Mendian zein gaueko ekintzetan **zainartu** mutikoen ipurdi alde gogor eta gotorrak desiragarri zitzaizkien "gixon" melengei. Itxaro Borda

---

## zaindari 1 *iz* herri, elkarte edo kideko batek babesletzat hartzen duen santua edo Ama Birjina.

*Cultus,* latinez, axolatia, arduratia, arduraduna, arretatsua da; baita **zaindaria**, zaintzailea, artatzailea, begiralea, jagolea ere; eta apaindua, dotoretua, edertua ere bai. Askoren artean

Gaur Arabarren **zaindariaren** eguna da, San Prudentzio. Berria - Kirola
Loinazko San Martin du Beasaingo herriak bere **zaindari**. Herria
Gure penintsulan, 200dik gora dira Bizente martiri hau **zaindaritzat** duten herriak. Pello Zabala
Santa Ana dute **zaindari** profesio mordoxka batetako lagunek. Santa Ana basilikan egiten zituzten bilera guziak, auzoko buruzagiaren agindura; biografiarik gabeko santa huraxe baitzuten **zaindari**. Pello Zabala
Santa Luzia, itsuon **zaindaria**. Patziku Perurena
Mesedearen Ama Birjinaren eguna zen, presoen **zaindaria**. Rafa Egiguren
San Blas, esate bateko, XII. mendeaz geroztik erromes milagrero eta behartsu eskazaleen **zaindari** izan zen. Patziku Perurena
Hitzordu nagusietarik bat, San Bartolome egunekoa izan da, Elgoibarko **zaindariaren** prozesioarekin. Herria
Nikolas Santuak (Errusiako **zaindari**, eta gainera Aita Noel edo Santa Klaus delakoen kide bihurtu denak), mila sorginkeria bereganatu zituen. Patziku Perurena
Elizak berak Jose hartu du **zaindaritzat**. Patziku Perurena
Omenaldi eta esker on gure **zaindari** sainduari. Herria

## **2** (izenondo gisa)

Zurgin bati San Krispinen irudi bat eginarazi zion, Iruñeko zapataginen saindu **zaindaria**. Aingeru Epaltza
Auzoko hiru parrokiek, patroin **zaindaritzat** izaki eta gure zeruko Ama ona, Andredena Mariz, ohoratzen dute, ospatuz haundizki egun dohatsu hori. Herria
San Benedikto Europaren patroin **zaindaria** dugu. Herria

## **3** zaintzailea.

Balkoi zizelatuen gainetik, **zaindari** ugari ikusten zituzten, isilean hara eta hona, fusila zut sorbaldaren kontra. Karlos Zabala
**Zaindari** batek ttattola baten gainetik barrandatzen zituen presoak. Eneko Bidegain
**Zaindariek** jipoitu zutela zigor ziegan sartzerakoan eta ubelak dituela behatzetan, besoan eta buruan. Berria - Euskal Herria
**Zaindari** aski ez dagoela dio presondegiko zuzendariak. Berria - Euskal Herria
-Beheko errekan furgona bat dago iraulia, txoferra eta **zaindaria** hilak daude. Koldo Izagirre
**Zaindariak** bota egin nahi izan zituen aretotik. Jon Muñoz
**Zaindari** eta gidariak diruz koipetu arren, [...]. Jon Muñoz
Jokoan ari dira **zaindariak**, eta atera inguratuta guardia! egin duzu oihu burdin zirietatik gertu. Rafa Egiguren
Zu zara gure **zaindari** eta defendatzailea. Askoren artean
Agertzeko eta desagertzeko dohain bereziaren jabea; ez autoaren ez emaztearen **zaindari** utziko zenukeen laguna.Hiritik hain gertu non harresiko **zaindarien** oihuak entzuten baikenituen. Aingeru Epaltza
Errebisorearekin eta estazioko **zaindariarekin** ibili behar duk kontuz. Harkaitz Cano
Bere kabinatik, hurbiltzeko keinua egin zion aparkalekuko **zaindariak**. Aingeru Epaltza
Noranahi hoala ere, dorreko erlojua adi daukak, preso-eremuetako dorreko **zaindariaren** begia bezalaxe. Koldo Biguri
Ilundu baino ordubete lehenago ixten zutela egin zuen garrasi museoko **zaindariak**. Jon Muñoz
Parkeko **zaindariaren** beldur, ala? Anton Garikano
Errito dionisiakoetan, infernuko ateetako **zaindari** Phylakosi bildots errea jaurtitzen zioten leizera, haren ama infernutik libratzeko. Patziku Perurena
Ataga haren aurrean Faramir Seneskala eta Hurin Giltzen **Zaindaria** zeuden zain. Agustin Otsoa
Sagarrondoa aurkitu zuen, hesiaren ondo-ondoan, **zaindarien** etxetxoaren atze-atzean justu. Felipe Juaristi
**Zaindarien** kuartela eta administrazioa kanpoan daude. Jokin Urain
Torino, Alpeak **zaindari** dituela. Anjel Lertxundi
Pertsona bati ezar diezaiokete zigorrik handiena bere **zaindari** bihurtzea da. Berria - Euskal Herria
Kutxen baloreen **zaindari** ere izan nahi du Norbolsak. Berria - Ekonomia
Aste beteko epea eman zioten Konstituzioaren **Zaindarien** Kontseiluari atzera egiteko. Berria - Mundua

## **4** (izenondo edo izenlagunekin)

"Pacific Star" izenekoa zen eraikina: zuriz tindatua; marmolezko sartzea; **zaindari** armatuak eta kontrolak sartzeetan. Ramuntxo Etxeberri
Bi **zaindari** arruntek, administrazioaren hotza begietan eta giltzak azantz, 853 ziegara gidatu zuten. Itxaro Borda
**Zaindari** aleman batzuek hala erran omen zietelako. Eneko Bidegain
Casellik, inoren famaren **zaindari** makurrezin hark. Juan Garzia
Biltzarraren, gertakari gogoangarri haren **zaindari** bakarra naiz dagoeneko lurrean. Juan Garzia
**Zaindari** estatubatuar eta britainiarrek erasoaren aurretik hanka egin zuten. Berria - Mundua
**Zaindari** txano-gorri eta txamarra-urdinen kasernatxoaren aurretik pasa. Txillardegi
Islamaren balioen **zaindari** boteretsuena izango da bizi bitartean. Jon Arretxe
Josemi eta Traore hegalak azkarrak eta **zaindari** finak. Berria - Kirola
Ordu erdi geroago zinpeko **zaindari** baten aurretik sartu zen hiri erdian zegoen bulego-eraikinean. Migel Angel Mintegi
Zinpeko **zaindariak** ere adiago ikusi ahal izan nituen, ehuntsu bat. Karlos Linazasoro
Enpresako gaueko **zaindari** gisa hartu zuen Napumoceno jaunak Dioguinho. Bego Montorio

## **5** (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

Indar guztiak mobilizatu, eta **zaindari** taldeak antolatzea segadak eragozteko. Koldo Biguri
Fotoan "Baltza" artzanor alemana besterik ez da ageri, neure kuttuna: bere etxetxoaren aurrean, kateatuta beti gizajoa (**zaindari** sena gal ez zezan, omen). Txillardegi
Lehenago bete zuelako zegokion **zaindari**-lana. Jon Alonso
Urduriaren urduriz, agente alemanak konpartimentuaren ateko bere **zaindari** postua utzi eta maletaren gainera makurtu zen. Alberto Ladron Arana
Arratsero bezala, eguneko **zaindari**-ordezkapena egiteko tenorean, beti bezalako komedia egin zuten soldaduek. Txillardegi
Ea, bada, pobreen abokatu horrek, bete ezazu gurekin zeure **zaindari**-ofizioa. Askoren artean
Otoitzean pasatu zuen gaua, bigarren **zaindari**-txandara arte. Jon Alonso
**Zaindari**-jantzia daraman gizon burusoil bat. Oskar Arana
Otsaileko bozetatik erreformazaleak baztertzeko ebazpena berraztertzeko agindu dio Konstituzioaren **Zaindari** Kontseiluari. Berria - Mundua

## **6** (hitz elkartuetan lehen osagai gisa, izenaren izenondo gisa)

Etxea hiru **zaindari** ingeles lerrok zaintzen zuten eta ez zen euli bat ere sartzen bertara. Koldo Biguri

## **7** (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa)

Vigon beste furgoi blindatu bat lapurtzerakoan hildako bi segurtasun **zaindarien** kasuarekin lotu zuten. Berria - Euskal Herria
Oso gauza harrigarria -esan zuen banku-**zaindariak**. Koro Navarro
Museo handi horretako txoko batera hurbiltzen zara, museo-**zaindarien** aulkia dagoen txokora hain zuzen. Unai Elorriaga
Kansas estatuko lautada zabal bat gogora duen aparkaleku-**zaindari** bat, Art, du pertsonaia nagusia. Iban Zaldua
Zaku zimur bat eta parke **zaindarien** makila altzairu-puntaduna hartuta. Koro Navarro
-Faro **zaindari** izatea zen ene haurtzaroko ametsa. Itxaro Borda

Zergatik hartu ninduzun arma- **zaindaritzat**, zeure ondoan egoteko ez bazen? Agustin Otsoa

Hitzok ez ziruditen arima- **zaindari** batek esanak. Jon Alonso

-Zakur- **zaindari** puska arraioak! Jon Muñoz

**8** (izenondo gisa)

«Estatu **zaindari** baten modura» jokatzea leporatu diote Alderdi Laboristari. Berria - Gaiak

Gero, aingeru **zaindaria** ikusi duzu zerutik jaisten. Elizen arteko biblia

Lur-mugak finkatu zizkien herriei, bakoitzari bere jainko **zaindaria** emanez. Elizen arteko biblia

Beste zenbaitetan [...] Kardinal **zaindariari** "Aita santu" titulua ematen dio Frantziskok. Askoren artean

Lehorreko Atean, soldadu **zaindariek** begia kentzen ez zigutela, beha egoten gintzaizkien. Txillardegi

Soldadu **zaindarietatik** bat haren gibeletik joan zen. Eneko Bidegain

Esklabo **zaindari** batzuek jo eta bertan hil zuten ilunpe beltzean. Juan Garzia

Presoekin batera etorritako fraide **zaindariak** lekuz aldatu zituzten. Jokin Urain

Gure atsedenaldien fraide **zaindariak** oihuka barreiatu gintuen, zer gertatzen zen galdetu ere gabe. Aingeru Epaltza

Aleman **zaindariek** esklaboen lana hurbiletik kontrolatu zuten. Eneko Bidegain

Zakur **zaindari** baten irribarrea. Alberto Ladron Arana

Aita **Zaindariak** hogeita hamar ziren, eta beren arteko antolamendua oso hierarkikoa zen. Jon Alonso

**9** (adizlagun gisa)

Polizia armatu bat dago **zaindari**. Rafa Egiguren

Gies jauna egon zen ezkutalekuaren **zaindari**, eta asteartean leihoak zabaltzen utzi ziguten azkenik. Josu Zabaleta

Beti edukitzen zuen mutil bat etxe ondoan **zaindari**. Koldo Biguri

Arrakasta bera lortu zuen Dorregarai jeneralak San Adriango gazteluan, bertan **zaindari** zeuden 150 karabineroek beren burua eman zutelarik. Txillardegi

Hain zebilen bere pentsamenduetan gogo bildurik non ez baitzen konturatu atarian **zaindari** zeuden soldaduek egin zioten diosal beroaz. Felipe Juaristi

Lau semeak makinatzar handi haren **zaindari** jarri ziren. Koldo Biguri

-**Zaindari** egon behar, sutondoan kartetan aritu beharrean. Alberto Ladron Arana

Aurkitu zuen lanik onena Market kaleko bulego-eraikin batean gauez **zaindari** aritzea izan zen. Oskar Arana

Gudari-taldea ipini zuen bertan Judasek, **zaindari**. Elizen arteko biblia

Taketak daudelako uretan sartuta, irlaren inguruan, eta horietako bakoitzean txori zentinela bat, egunez eta gauez **zaindari**. Julen Gabiria

Ikastetxe bateko gau-**zaindari** eta jardinero aritu zen. Berria - Kultura

**10** ***aingeru zaindari*** ik **jagole 6.**

Gero, **aingeru zaindaria** ikusi duzu zerutik jaisten. Elizen arteko biblia

**Aingeru zaindari** zerukoek gaitzatela anpara! Juan Garzia

Hori zela eta, ahal zuenak, dirua edo agintea zuelako, bere '**aingeru zaindariak**' izaten zituen; edozein unetan edozeri aurre egiteko eta edonondik etekina edo harrapakina ateratzeko taldea antolatzen zuen. J.M. Olaizola "Txiliku"

Konponduta gaude halako **Aingeru Zaindariekin**. Hasier Etxeberria

**11** ***zaindari andre***

Behera iritsi zenean, hesteak agerian geratu zen baldosa zuriaren gainean, **zaindari-andreak** erortzean harrotutako geranio-petaloekin nahasian. Jokin Muñoz

Udaletxeko **zaindari andreak** lore-poto guztiak ezkaratzean jarriak zituen. Jokin Muñoz

**hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**

**aingeru zaindari** (4); **atean zaindari** (4); **bere zaindari** (4); **bi zaindari zeuden** (3); **dute zaindari** (4); **gaueko zaindari** (3); **gure zaindari** (4); **kartzela zaindari batena** (3); **ordenaren zaindari** (5); **segurtasun zaindari** (3)

**zaindari bezala** (3); **zaindari egon** (3); **zaindari estatubatuar** (4); **zaindari gisa** (7); **zaindari izan** (3); **zaindari izatea** (3); **zaindari izendatu** (5); **zaindari izendatu zuten** (3); **zaindari lanetan** (5); **zaindari taldeak** (3); **zaindari zeuden** (10); **zakur zaindari** (4)

**aingeru zaindaria** (3); **giltzen zaindaria** (3); **zaindaria da** (7); **zaindaria zen** (3)

**aita zaindariak** (4); **esan zuen zaindariak** (4)

**aita zaindariek** (3); **konstituzioaren zaindariek** (3)

**aita zaindarien** (14); **konstituzioaren zaindarien** (30); **konstituzioaren zaindarien kontseiluak** (17); **konstituzioaren zaindarien kontseiluaren** (3); **konstituzioaren zaindarien kontseiluari** (6); **konstituzioko zaindarien** (4); **konstituzioko zaindarien kontseiluak** (4); **santuaren aita zaindarien** (3); **zaindarien artean** (5); **zaindarien kontseilua** (3); **zaindarien kontseiluak** (27); **zaindarien kontseiluak hartutako** (3); **zaindarien kontseiluaren** (5); **zaindarien kontseiluari** (6); **zaindarien kontseiluari eskatu** (3)

**zaindarietako batek** (3)

**bi zaindarik** (3)

**beren zaindaritzat** (3); **zaindaritzat aukeratua** (3); **zaindaritzat hartu** (6); **zaindaritzat hartu zuten** (3)

---

## **zaindariburu** *iz* zaindarien burua.

Apaila zure gauzak eta, prest zarelarik, ekarriko dizugu alaba, agindu zion hango **zaindariburuak**. Xabier Montoia

---

## **zaindarigo** *iz* zaindaritza.

Eguneko santuaren **zaindarigoa** izango zen batean; bestean, antzinako elizaren egutegian bere txokoa topatu zuen santu edo santaren zaingo estimatua, kasuan kasukoa. Pello Zabala

---

## **zaindaritza** **1** *iz* santu edo Ama Birjinez mintzatuz, zaindari izatea.

Jende asko izan da Jose deunaren **zaindaritza** nahi izan duena: hor daude arotz eta zurginak. Pello Zabala

Ordukoan, Migel Goiangeruaren **zaindaritza** eta laguntza ospatu zuten goraki. Pello Zabala

Santuen **zaindaritzaren** gureganako isuria alde guztietatik zaindu izan da. Pello Zabala

**2** zaindariaren betekizuna.

Luze gabe adinez nagusi izango haiz, eta **zaindaritzaren** hersturetatik at. Antton Olano

-Euskal Herria gurutzatu behar duten tren guztiek, hau ere badakik noski, **zaindaritza** armatu berezia eramate-ittek aspaldisko honetan. Txillardegi

ETAk barne agerkarian esandakoetan «Euskal Herriko prozesuaren gainean nolabaiteko **zaindaritza** politikoa egiteko» asmoa sumatzen dela ohartarazi zuen. Berria - Euskal Herria

Askoz ere hobe sentituko nintzen hemen **zaindaritzan** egotera beharturik ez bageunde. Agustin Otsoa

Argi dago Espainiako batasunaren **zaindaritza** izango dutela arrazoi nagusi. Berria - Euskal Herria

Amak amorante berriarekin gau bi eta egun bat igarotzeko asmoa baitu, bien bitartean Zazie osaba Gabrielen **zaindaritzapean** utzita. Markos Zapiain

Militar estatubatuarren **zaindaritzapean** egongo direla. Berria - Mundua

Ikerbideak libroki, inoren **zaindaritzarik** eta mugapenik gabe eramateko eskubidea zaindu behar du historigileak. Berria - Kultura

Administrazio-eginkizunetan, zuzendaritza literarioko lanetan, produkzio, zabalkunde eta gordetegikoetan dabiltzan langileak **zaindaritzapeko** munduan bizi dira, haientzat zuzentzailearen lana askatasunaren erresumakoa da. Jon Alonso

Presondegietako **Zaindaritzako** epaileari salaketa jartzeko instantzia. Koldo Izagirre

**3** (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

Hau gotorlekua eta **zaindaritza** dorrea da, eta orain gerrarako prest gaude. Agustin Otsoa

Inork ez harrapatzeko **zaindaritza** lana ondo antolatuta. Jon Arretxe

Ackermannek eta Mannesmaneko **zaindaritza** kontseiluko beste kideek. Berria - Ekonomia

**Zaindaritza** lanetan ari ziren inguruko orko ugarietako batzuk. Agustin Otsoa

**4** (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa)

Ingurumarian hesiak eta bideo **zaindaritza** egiteko kamera ugari daude. Berria - Euskal Herria

Informazio zerbitzuek bideo-**zaindaritza** ugaltzeko eskumena ukanen dute. Berria - Euskal Herria

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
> **zaindaritza dorreko** (3); **zaindaritza eskatu** (3)

---

**zaindegi** **1** *iz* geltoki edo aireportu batean bagajeak aldi baterako utz daitezkeen lekua.

Aireportuko kafetegian hitz emandako orduan elkartu, eta **zaindegira** abiatu ziren aurrez ezkutaturiko bidaia-pusken bila. Aritz Gorrotxategi

**2** haurrak zaintzeko tokia.

Ikastolako langileen aldetik ekipa bera: Christine Duguine kantinako xerbitxu eta jarraikiaren arduraduna, Maddi Larre goizetan haurren errezebitze eta kantinako xerbitxua, Françoise Trécu eguerdiko **zaindegi** eta garbiketa eta azkenik Jenofa Etxezaharreta, ama eskolako erakasleen laguntzaile eta arratseko **zaindegiaren** arduradun. Herria

Ikastegiak hesten duenetik edo oporrak direnean, haurrak bilduak dira **zaindegi** ala josta leku deitzen den batasun baten sabelean. Herria

Hazparneko Ezkia ikastolak, langile bat xekatzen du [...] ordezkaritza baten egiteko ama eskolako laguntzaile eta **zaindegia** segurtatzeko. Herria

Hiru urte zituenean [...] haur trastornatu eta ezinduentzako **zaindegi** -eskola berezi batera bidali zuen familiak. Xabier Olarra

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
> **eguerdiko zaindegi** (4); **zaindegi eta garbiketa** (3)

---

**zaindi** *iz*

Hornos lurmuturra gainditu ondoren, leku arriskutsu eta zaila hori ere, ekaitz guztien Akademia eta **Zaindia** baita, Valparaisora, bidaiaren amaiera, edo hasiera, nondik begiratzen den. Felipe Juaristi

---

**zaindu**, zain(du), zaintzen **1** norbaiten edo zerbaiten arta hartu, kalterik edo ezbeharrik gerta ez dakion; babestu. ik**jagon**.

Alaba **zaintzen** ari da, hura minetik babesten. Oskar Arana

Alcide Jolivetek, bere lankidea ondoan erori zitzaionetik, kontu handiz **zaindu** zuen, ardurarik saihestu gabe. Karlos Zabala

Gaixoaldian hura **zaintzeko** ardura hartuko duen beste norbaiten esku utz dezakete. Askoren artean

Izan dezazuela zeuekin beraren aingerua bidean zuek **zaintzeko**. Elizen arteko biblia

Jakinduriaz arduratuta bizi diren gazteek uko egin beharko diote gozamen sexual orori, tripa-festei, gorputza gehiegi **zaintze** eta apaintzeari, jolaserako zaletasun hutsalari. Imanol Unzurrunzaga

Abereak **zaintzen** lasai-lasai nengoela. Josu Zabaleta

-Nork **zaintzen** dizkizu beste txakurrak, Marge? Iñaki Mendiguren

Gure aitaren artaldea **zaintzen** nuenean. Elizen arteko biblia

Nik bazkaria prestatzen lagunduko dinat hemen etxean, eta hik belarra mozten eta landareak **zaintzen** amarenean. Joan Mari Irigoien

Soro eta basoak **zaintzen** dituena. Askoren artean

Dionisok kutxa batetik ondo **zaindutako** erretratu bat atera zuen. Felipe Juaristi

Jauregi hau gizon armatu askok **zaindua** baitago. Askoren artean

Ikasi hitz egin aurretik, eta **zaindu** osasuna gaixotu baino lehen. Elizen arteko biblia

Beren barneko bakea **zaintzen** zuten, ohituren arteko oreka. Askoren artean

Euskaldunak bake itxura eta neurriak **zaintzen** bazekielako. Itxaro Borda

Umbriako italieratik latinera itzultzen zuten, idazkera neurri batean behintzat **zainduz**. Askoren artean

Bere itxura **zaindu** beharrez. Piarres Xarriton

Bereizmenak **zainduko** zaitu eta zentzu onak babestuko. Elizen arteko biblia

Bonabenturak San Frantziskoren izen ona **zaindu** nahi du, haren bekatuzko gaztaroari buruz Zelanok aurkezturiko irudi iluna leunduz eta zuzenduz. Askoren artean

Xehetasun guztiak **zainduz** prestatzen zuen afaria eta ez zidan plater bat bera ere garbitzen uzten. Ramon Saizarbitoria

Baina ez ahaztu zu zeu zarela zeure lehenengo gaixoa eta zeure burua ere **zaindu** beharko duzula. Joan Mari Irigoien

Gaizki eginak zirelakoan edo ez behar den bezala **zainduak** zaharkitu dira laster. Herria

Gizabidea eta molde ona gehiegi **zaindu** gabe. Jon Alonso

**2** (-tik atzikziaz)

Alboan izango baituzu Jauna eta tranpa guztietatik **zainduko** zure oinak. Egunkariz babesten baitzuen bularra motozikletaz ibiltzen zenean, haizetik **zaintzeko**. Elizen arteko biblia

Ez dakite beren buruak pipitik eta herdoiletik **zaintzen**. Elizen arteko biblia

Eta **zaindu** dezagun geure burua mundu honetako jakinduriatik eta giza erako zuhurtziatik. Askoren artean

**Zaindu**, arren, zeure burua zentzugabe hauetatik. Joan Mari Lekuona

**3** norbati edo zerbait begiratu, egiten duen edo gertatzen zaionaren berri jakiteko, eta komeni edo nahi ez denik gerta ez dakion.

**Zaindu** gizon hau! ihes egiten badik, heure biziaz erantzun beharko duk. Elizen arteko biblia

Henryk, hasiera-hasieratik hartu baitzion susmoa Dubinsky-ri, Maureen **zaintzen** egona zen. Oskar Arana

Hurbiletik **zaindutako** morroia jipoirik gabe gelditzen ez den bezala. Elizen arteko biblia

Miserikordiako mojak arduratzen ziren emakume presoak **zaintzeaz**. Jokin Urain

Kustodioa obedientziaz tinko behartua bego hura gau eta egun presoa bezalaxe estu **zaintzera**. Askoren artean

-Ongi **zainduko** dugu -esan zuen presozainak, eskaintzen zion billeteari kasurik egin gabe. Fernando Rey

Hantxe aurkitu genuen Scwzs laguna, bi poliziez **zaindua**, negarrez. Karlos Linazasoro

Garaziko gaztelua handiagoa eta gotorragoa izanen zen, beharbada, muga **zaintzeko** egitekoa baitzuen orain. Aingeru Epaltza

Bertze batek atea **zaintzen** eta begiratzen zuela. Joan Mari Irigoien

Baionako zubia hertsiki **zaindua** zen gau eta egun. Marzel Etxehandi

Ahaztu egin zitzaion preso zegoela luxuzko jauregi ondo **zaindu** hartan. Jon Muñoz

Kontu handiz **zainduko** dut zure portaera Margeren bisitaldi osoan. Iñaki Mendiguren

Klasean, Francisco Francoren erretratua genuen, egunkarietan edo telebistan ikusten zena baino gazteagoa, arbel gainetik **zaintzen** gintuela. Joseba Sarrionandia

-**Zaindu** heure hitzak, Peregrin Took. Agustin Otsoa

Dorre gainetik patuaren aurreratzea **zaintzen** ahal dutela uste duten mairuak gara. Jon Alonso

## **4** bere hartan gorde. ik **atxiki**.

Gure nortasunaren **zaintzeko** menderen mendetan. Michel Oronoz

Guerrini bat zen, aski zaharra baina txit ondo **zaindua**. Bernardo Atxaga

Apaina eta ondo **zaindua**. Josu Zabaleta

**Zaindu** garbi kutsu guztietatik garbitu berria den etxe hau. Elizen arteko biblia

Dirutza hura tenpluan gorde zutenentzat osorik **zaintzeko** eskatzen zioten. Elizen arteko biblia

Notarioen jardunek eta euskal herritarren jaidurek luzaroan ahalbideratu zuten, Code Civil horren azpian, baserriak oso-osorik **zaintzea**. Andres Urrutia

Tenpluaren babespean gorde zituzten ondasunak osorik eta seguru **zaintzeko**. Elizen arteko biblia

Aspaldiko foruak **zaintzeko** gogoa. Andres Urrutia

Hiru mendez foruek **zainduriko** lege zaharren muina defendatzera. Iban Zaldua

Jar ezazue fedea Jainkoarengan eta **zaindu** ezazue bolbora lehor. J.M. Olaizola "Txiliku"

## **5** (era burutua izenondo gisa)

Galtza beltzak, zapata baxuak eta gorputz **zaindua**. Lourdes Oñederra

Gizon gizen alaia da, bizar **zaindua** du. Monika Etxebarria

Zerbitzarien lord-aurpegi ozar eta **zainduak**. Matías Múgica

Egoitzen arteko loratégi **zainduek** neguko lozorroan jarraitzen zuten. Alberto Ladron Arana

Azafaten irribarre **zaindua**, profesionala. Beste batzuk hizkera arduragabeetan gertatzen dira, baina gainditu egiten dira hizkera **zainduetan**, enfasia ematen zaionean esanari. Lourdes Oñederra

Eta hori ez bakarrik latinezko hizkeragatik -batzuetan xume eta traketsa, besteetan **zaindua** eta literarioa-, baita erakusten duten kultur mailagatik ere. Askoren artean

Gaueko hitzorduak luzatu nahian ibiltzen ziren beren galai itxura **zainduegi** horiek exhibituz. Joxean Agirre

Osasuntsuak ditut hortzak, eta oso **zainduak**. Ramon Saizarbitoria

## **6** ***ez-zaindu*** *izond*

Euskararen kasuan ikusten dugu nola beste hizkuntza batzuetan hizkera zainduaren ezaugarri diren fortitioak ere hizkera **ez-zainduetan** diren emankor. Lourdes Oñederra

Hortz **ez zainduak**, ikatz pagatu gabea, bularreko min ezin osatuzkoak, haur-zapata ez erosiak. Pablo Sastre

### hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 4 aldiz agertzen direnak)

**arreta handiz zaindu** (6); **arretaz zaindu** (8); **asko zaindu** (17); **behar bezala zaindu** (12); **bere nortasuna zaindu** (4); **bereziki zaindu** (9); **beti zaindu** (7); **bihotza zaindu** (5); **burua zaindu** (7)

**ederki zaindu** (4); **eskubideak zaindu** (5); **euskara zaindu** (5); **gehiago zaindu** (13); **gertutik zaindu** (20); **gorde eta zaindu** (5); **haurrak zaindu** (4); **hobeto zaindu** (13)

**ingurumena zaindu** (7); **interesak zaindu** (4); **kontu handiz zaindu** (8); **nortasuna zaindu** (5

**ondo zaindu** (45); **ongi zaindu** (17); **osasuna zaindu** (5); **oso ondo zaindu** (10)

**zaindu beharra** (35); **zaindu beharra dago** (6); **zaindu beharra dauka** (4); **zaindu beharrak** (5); **zaindu beharreko** (20); **zaindu beharrekoa** (4); **zaindu beharrekoak** (4); **zaindu beharrez** (5); **zaindu beharrik** (5); **zaindu eta gorde** (6); **zaindu gabeko** (4); **zaindu zeure burua** (4)

**ondo zaindua** (11); **ongi zaindua** (14); **oso zaindua** (4); **zaindua izateko** (6); **zaindua izateko eskubidea** (4)

**ondo zainduak** (4); **ongi zainduak** (10); **zainduak izan** (4)

**gertutik zainduko** (6); **hobeto zainduko** (4)

**zainduko haut** (5); **zainduko zaitu** (8)

**ondo zainduta** (29); **ondo zainduta dago** (6); **ondo zainduta egon** (4); **oso zainduta** (6); **zainduta dago** (8); **zainduta daude** (4); **zainduta egon** (6); **zainduta egongo** (4); **zainduta zegoen** (4)

**ondo zaindutako** (6); **ongi zaindutako** (4)

**ondo zainduz** (4)

**arretaz zaintzea** (3); **behar bezala zaintzea** (4); **ingurumena zaintzea** (5); **ondo zaintzea** (3); **ongi zaintzea** (6); **umeak zaintzea** (3)

**zaintzea behar** (3); **zaintzea izan** (6); **zaintzea izan da** (3); **zaintzea izango** (6); **zaintzea izango da** (6); **zaintzea merezi** (3)

**ni zaintzeagatik** (3); **zaintzeagatik egin** (3)

**atea zaintzearen ardura** (3)

**zaintzeaz arduratuko** (3); **zaintzeaz arduratzen** (12); **zaintzeaz arduratzen da** (3)

**alabak zaintzeko** (4); **arretaz zaintzeko** (4); **atea zaintzeko** (8); **atea zaintzeko ardura** (5); **babesteko eta zaintzeko** (3); **bakearen zaintzeko** (3); **basoak zaintzeko** (3); **bere burua zaintzeko** (6); **bere buruaren zaintzeko** (4); **beren buruaren zaintzeko** (3); **bioaniztasuna zaintzeko** (3); **burua zaintzeko gai** (3)

**eskubideak zaintzeko** (6); **etxea zaintzeko** (7); **gaixoak zaintzeko** (4); **gazteak zaintzeko** (3); **gorputza zaintzeko** (3); **gu zaintzeko** (7); **gu zaintzeko ardura** (3); **haurrak zaintzeko** (3); **hauteskundeak zaintzeko** (3); **herriaren zaintzeko** (4); **hobeki zaintzeko** (4); **hobeto zaintzeko** (4); **hura zaintzeko ardura** (4)

**ingurumena zaintzeko** (6); **interesak zaintzeko** (3); **kostaldea zaintzeko** (4); **mugak zaintzeko** (3); **natura zaintzeko** (4); **ni zaintzeko** (5)

**ondasunak zaintzeko** (3); **ondo zaintzeko** (6); **ongi zaintzeko** (3); **osasuna zaintzeko** (9); **sarrera zaintzeko** (3); **segurtasuna zaintzeko** (3); **seme alabak zaintzeko** (4); **semea zaintzeko** (4); **txikia zaintzeko** (3)

**umeak zaintzeko** (4)

**zaintzeko agindu** (11); **zaintzeko agindu zuen** (3); **zaintzeko ardura** (42); **zaintzeko ardura hartu** (4); **zaintzeko ardura izango** (4); **zaintzeko ardura zuten** (4); **zaintzeko beharra** (4); **zaintzeko eginkizuna** (6); **zaintzeko erabiltzen** (6); **zaintzeko esan** (6); **zaintzeko eskatu** (7); **zaintzeko gai** (5); **zaintzeko gauza** (3); **zaintzeko kargua** (4); **zaintzeko konpromisoa** (4); **zaintzeko lana** (3); **zaintzeko lanak** (3); **zaintzeko neurriak** (4); **zaintzeko sistema** (5); **zaintzeko sortu** (3); **zaintzeko utzi** (3); **zu zaintzeko** (4)

**ahuntzak zaintzen** (3); **alabak zaintzen** (3); **ardiak zaintzen** (11); **arreta handiz zaintzen** (4); **artaldea zaintzen** (9); **artaldeak zaintzen** (6); **asko zaintzen** (8); **atea zaintzen** (19); **atea zaintzen zuen** (3); **baratzea zaintzen** (4); **baratzea zaintzen zuen** (3); **behar bezala zaintzen** (7); **bere burua zaintzen** (7); **bereziki zaintzen** (5); **bideak zaintzen** (4); **burua zaintzen** (13); **dena zaintzen** (4)

**elkar zaintzen** (5); **eraikina zaintzen** (3); **eremua zaintzen** (3); **etxea zaintzen** (14); **gaixoak zaintzen** (7); **gaixoak zaintzen dituzten** (3); **gehiago zaintzen** (3); **gertutik zaintzen** (6); **gorpua zaintzen** (3); **guztiak zaintzen** (6); **harria zaintzen** (3); **haurra zaintzen** (4); **herria zaintzen** (4); **hobeto zaintzen** (10)

**ingurumena zaintzen** (3); **irteera zaintzen** (3); **itxura zaintzen** (4); **jaunak zaintzen** (4); **jauregia zaintzen** (3); **jokabidea zaintzen** (4); **kaleak zaintzen** (3); **kontu handiz zaintzen** (3); **loreak zaintzen** (3); **muga zaintzen** (5); **muga zaintzen zuten** (3); **ni zaintzen** (3); **nola zaintzen** (7); **nork zaintzen** (6)

**obrak zaintzen** (4); **ondo zaintzen** (15); **ongi zaintzen** (10); **ordena zaintzen** (5); **osoa zaintzen** (4); **peraltak zaintzen** (3); **pertsonak zaintzen** (3); **santua zaintzen** (3); **sarrera zaintzen** (7); **sarrera zaintzen zuen** (3); **semea zaintzen** (3); **txakurrak zaintzen** (3); **txerriak zaintzen** (3)

**umeak zaintzen** (7); **xehetasunak zaintzen** (3)

**zaintzen ahalegindu** (4); **zaintzen ari** (51); **zaintzen egon** (10); **zaintzen egon zen** (3); **zaintzen egoten** (3); **zaintzen eta babesten** (4); **zaintzen eta begiratzen** (6); **zaintzen**

eta zerbitzatzen (3); zaintzen geratu (7); zaintzen gintuen (4); zaintzen hasi (4); zaintzen hasteko (3); zaintzen ibili (4); zaintzen ibiltzen (3); zaintzen jarraituko (4); zaintzen jarri (3); zaintzen laguntzeko (3); zaintzen nau (3); zaintzen pasatzen (3); zaintzen saiatuko (3); zaintzen utzita (3); zaintzen zegoen (5)

zaldiak zaintzen (5); zer zaintzen (3); zerbait zaintzen (4); zerriak zaintzen (3); zorrotz zaintzen (8); zorrotz zaintzen ditu (3); zutoinak zaintzen (3)

---

## zaindugabe *(orobat **zaindu gabe**)* **1** *izond* zaindua ez dagoena.

Zelatariak zarete zuek, lurralde honetako alderdi **zaindugabeak** miatzera etorriak. Elizen arteko biblia

Sagasti **zaindu gabe** bat, erlauntza multzo bat bertan behera utzia, etxola bat basoan astigar-ziropa distilatzeko. Oskar Arana

Adrianok garai hartan bizarra zuen, bizar **zaindu gabea** eta kizkurra, beilegia. Fernando Rey

Haren esku **zaindu gabeak**, haren janzkera apala, haren begirada irmoa. Juan Garzia

**2** *adlag* zaindu gabe.

Horma eta lorategiaren aurrean zegoen zelai zabala ere **zaindugabe** ageri zen, belarra sekula moztu ez balute bezala. Iban Zaldua

---

## zaineldu *iz* arranpa. ik **kalanbre**.

Juleni **zaineldua** egin zitzaion ariman. Fernando Morillo

---

## zaineratu, zainera(tu), zaineratzen da/du *ad* zainera joan; zainera sartu.

Oraintxe **zaineratu** zaidan kezkak, berriz, bertze nonbait du etorkia. Aingeru Epaltza

Honako hau errepidean, horrako hori dama zuriarekin batean **zaineratutako** birusak suntsitua. Aingeru Epaltza

Itxuraz, Annualgo eta Alhucemasko batailez geroztik herdoila biltzen zegoen gumia zaharra. Eta hura **zaineratu**. Aingeru Epaltza

---

## zaingabe *izond* zainik gabea.

Berak ez daki besterik egiten, arima **zaingabe** kikilak, eta bera adinakoak, uste izaten du, behar dutela beste guztiek izan. Joxe Azurmendi

Ez dezazula pentsa hain dugunik barrena kamuts eta **zaingabe**, non hola-hola utz diezaiokegun inori arrisku gertuz gure bizarretik tira egiten. Juan Garzia

---

## zaingela *iz* gela.

Ekialdeko sarrerak sei **zaingela** zituen, hiruna alde bakoitzean, denak neurri berekoak. Elizen arteko biblia

**Zaingelen** aurrean, pasabidearen alde bietan, horma bat zegoen, metro erdikoa; **zaingelak** hiru metrokoak ziren luze-zabalean. Elizen arteko biblia

Bazituen **zaingelak**, hormak, atalondoa eta, inguruan, leihoak. Sarrera hogeita bost metro zen luze, eta hamabi eta erdi zabal. Elizen arteko biblia

---

## zaingo **1** *iz* zaintza.

Mugak zaintzeko ardura eman ziela, botere militarra, eta koroarenak ziren jabetzen **zaingoa**. Iñaki Iñurrieta

Eguneko santuaren zaindarigoa izango zen batean; bestean, antzinako elizaren egutegian bere txokoa topatu zuen santu edo santaren **zaingo** estimatua, kasuan kasukoa. Pello Zabala

**2** (hitz elkartuetan)

Euskal Herri osoko 71 ordezkarik osatzen dute EAJren ohiko Aberri Batzarra [...]: EAEko lehendakariak, Jaurlaritzako sailburuek, EUDELeko lehendakariak, EBBko kideek, Herrialde Buru Batzarrek, Aberri Epaimahaiak, Aberri Berme eta **Zaingo** Batzordeak, legebiltzarkideek, parlamentariek eta abarrek. Berria - Euskal Herria

Ez daramalako soinean giltza hori eta arriskutsua iruditzen zaiolako hesi altxagarria korrika pasatzea goardia jagoleak berehalaxe ikusiko duelako bere **zaingo** postutik. Joxemari Iturralde

· Joan den otsailean bozkatua izan den bide-**zaingoaren** buxeta agortua baita lan haundienak helduden urtean eginak izanen dira. Herria

---

zainhil ik **zainil**.

---

## zainil *(orobat **zainhil**)* **1** *izond* ahula, indargabetua.

Izaki **zainil** eta meharra, aurpegi zurbilduna, alferrik egingo dio zimiko, mina eragiteraino, bere larruazal odolgabeari. Itziar Otegi

**2** (adizlagun gisa)

Gaurko ibilbideak ez du muntarik eta urtean zehar erabili dudan tentsio goxoa airatu zait jada, halako huts baten hatsak hozturik, **zainhil** bezala nago. Piarres Aintziart

---

## zainketa **1** *iz* norbaiten edo zerbaiten arta hartzea, kalterik edo ezbeharrik gerta ez dakion; babestea. ik **zaintza**.

Amona gehienak zoriontsu azaltzen dira beren bilobekin (batez ere, beren biloben **zainketa** eguneroko betebehar ez denean). Arantxa Iturbe

Hura axolatzen zen jan-edanen banatzeaz eta kakatokien erabileraz, erien eta kolpatuen **zainketaz** eta teilaturik ez zutenen patua arintzeaz. Aingeru Epaltza

Egoitza eder eta lasaiak ziren, gaixo larrien **zainketarako** prestatuak. Agustin Otsoa

Horrek gorputzaren **zainketaz** ahaztera darama gainera, eta bera konserbatzeko hain beharrezko diren errukia eta maitasuna ukatzera. Iñaki Iñurrieta

Ingurumenaren **zainketari** buruzko sentsibilizatze lan honetan, [...]. Herria

**Zainketa** egiten zuten [...] alabarderoen janzkerak berak dotoreago agertzen ziren egun hartan. Txillardegi

Txandaka egiten zuten beren **zainketa** Don Carlosen etxe arruntaren aurrean. Txillardegi

Epaileak alabaren **zainketa** ukatu zion aitari, ahizpa biak elkarrekin egotea komeni zelakoan. Berria - Euskal Herria

Bazituen arazoak bihotzean, eta ez zituen behar bezalako **zainketak** izan. Berria - Harian

Sendagile bat joaten zitzaion maiz behar zituen **zainketak** eskaintzera. Askoren artean

**2** (izenlagun eta izenondoekin)

Ez da etxerik, sendatzea nahi dutenei **zainketa** hoberik eskain diezaiekeenik. Agustin Otsoa

Haurtzaroan eskaintzen dizkiguten **zainketa** interesatuak merezimenduak irabazteko baino ez dira, azken urteetan arreta berarekin trata ditzagun. Juan Martin Elexpuru / Bego Montorio

Bere bizitzari zentzu transzendentea emateko hainbesteko irrika zuenaren **zainketa** izpirituala. Joan Mari Lekuona

Jainko guztiz eskuzabalak ez zuen medikua mundu honetako saririk gabe utzi nahi izan bere **zainketa** adeitsuengatik. Askoren artean

Hiru aldiz eduki zuten **zainketa** berezien unitatean. Joxan Elosegi

Herenegun gauean hil zen [...] Imanol Larzabal kantaria, Orihuelako Vega Baja erietxeko **Zainketa** Berezien Gelan. Berria - Kultura

**Zainketa** Intentsiboetako Unitatera eraman dute. Berria - Euskal Herria

**Zainketa** Intentsiboetako gela hartan. Herria

Giro itogarria udan, denboraren ibilera motela, **zainketa** bereziko gune inguruak... Aitor Arana

Gelaren prezioa uztailaren 15etik 23ra, botikena, eguneroko **zainketena**, erditzeko aretoaren alokairuarena, [...]. Joxan Elosegi

Bertan jarduera ugari egiten dituzte, hala nola: norberaren **zainketa**, fisioterapia, musikoterapia, [...]. Berria - Euskal Herria

**3** (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

Tratamendu medikuak eta **zainketa** moduak. Berria - Harian

Gaixotasuna egunetik egunera larriagotzen zihoakion eta, antza denez, **zainketa** faltagatik areagotu zitzaion. Ameriketako Estatu Batuetako DTS Security **zainketa** enpresarentzat egiten zuen lan. Askoren artean

**4** (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa)

Noiznahi hurbiltzen nintzen Iruainera Lubisi zaldi **zainketan** laguntzera. Bernardo Atxaga

San Juan Plazatik pasatzean, mendebaldeko arkupe ilaran irmo, eguneko erregе-**zainketa** egiten zuten alabarderoak topatu nituen. Txillardegi

Osasun **zainketen** gainean egindako ikerketaren ondorioak. Berria - Euskal Herria

Inongo minik ez daukanari etor dakizkiokeenak (hau da, lekizkiokeenak) behar zaizkio ezagutarazi (alias "aurre-**zainketa"**, "profilaxia"). Iñaki Segurola

**5** (hiru osagaiko hitz elkartuetan)

Urtarrilaren bukaeran, Schroederrek osasun **zainketa** aseguruaren erreforma bertan behera utzi zuen. Berria - Mundua

**6** norbati edo zerbait begiratzea, egiten duen edo gertatzen zaionaren berri jakiteko, eta komeni edo nahi ez denik gerta ez dakion. ik **zaintza 2.**

**Zainketa** eta guzti, beste mezulariren batek ere zeharkatuko zituen lerroak. Jon Alonso

Kartzela, beraz, hiritarra errudun jotzen den arte zaintzeko lekua da soilik, eta **zainketa** honek, berez mingarria delako, ahalik eta laburrena eta bigunena behar du izan. Juan Martin Elexpuru

Argi zen ez zela **zainketarik**, ez armadarik, ez gobernurik, ez aro txarrik ere eskualde hartako jendea trabatuko zuenik bestaldera iragaitea kaskoan sartua zutelarik. Elena Touyarou

Ate aurretik, **zainketan** dauden polizien ondotik pasatzen naizenean (normalean beste espaloia aukeratzen dut baina), bihotzondoko batek hunkitzen nau. Agurtzane Juanena

Lau bizkartzain hogeita lau ordutan, beste hainbeste kontrazaingoa egiten, eta auskalo zenbat era guztietako **zainketetan**. Fernando Morillo

-Berako herria Frantziarren esku denetik **zainketa** ez da hain zorrotza. Elena Touyarou

Urdazubiko bidean ere **zainketa** areagotu zen, zazpi eginahalak eginez nehor ez zedin monasterioko mezara joan. Elena Touyarou

Ordena publikoaren **zainketa**. Juan Martin Elexpuru

Alemanek ez zuten zakurrik beren **zainketaren** laguntzeko. Eneko Bidegain

**7** (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

Hegazti kutsatuak aurkitu dituzten guneen inguruan hiru kilometroko babes gunea ezarriko dute, eta hamar kilometroko **zainketa** eremua. Berria - Gaiak

-Nora zoaz? -galdegin zion atearen **zainketa** buru zen sarjentuak. Elena Touyarou

Ez zuten **zainketa** soldadurik topatu, eta Sararainoko bidaia arazorik gabe egin zuten. Elena Touyarou

Kantonamendu guzietan **zainketa** talde bat osatua izanen da. Elena Touyarou

**Zainketa** komiteak igorri guarden ondotik, soldadu saldo bat igurikatzen zen frantses eremuan indarka sartzeko asmoa omen zuten espainolen pasaien eta hara-honen kontrolatzeko. Elena Touyarou

Akitaniako airearen **zainketa** erakundeak bietan kontrolatu ditu aireko errautsak ADA lantegian. Herria

Avtozavodskaiako geltokian **zainketa** bideo batek hartutako irudien arabera. Berria - Mundua

Herri buelta osoan guda gurdiak eta **zainketa** postuak zeuden jarrita. Jon Maia

Handik aurrera, ikaragarri zorroztu omen ziren **zainketa**-neurriak barruan. Rafa Egiguren

**Zainketa** neurri gogorrak hartu beharrean zeuden. Karlos Zabala

Polizia izandakoen itxura zeukaten, bankuek gero **zainketa** lanetarako kontratatzen dituztenena. Xabier Olarra

Eskoltako soldaduak adi eta zurt zebiltzan, presoei begirik kendu gabe, burua galduko baitzuten **zainketa** lanean huts eginez gero. Karlos Zabala

Azkeneko **zainketa**-trukea ikusten ari baikinen. Txillardegi

Lau pareten artean hetsirik dekretu berrikusten, **zainketa** txanden antolatzen edo [...] hautetsien dolamenen aditzen egoteak nekatzen zuen. Elena Touyarou

**8** (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa)

Kontsumo publikoko urak «osasun **zainketa** zorrotza» dutela ohartarazi du. Berria - Ekonomia

**9** (hiru osagaiko hitz elkartuetan)

Ez zen arimarik karriketan, ez eta **zainketa** soldadu saldorik ere. Elena Touyarou

**hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**

**erietxeko zainketa** (3); **izaki magikoen zainketa** (3); **osasun zainketa** (3); **ospitaleko zainketa** (7)

**zainketa berezia** (3); **zainketa berezien** (7); **zainketa berezien gelan** (3); **zainketa bereziko** (3); **zainketa egiten** (4); **zainketa intentsiboen** (8); **zainketa intentsiboen unitatean** (5); **zainketa intentsiboetako** (12); **zainketa intentsiboetako unitatean** (6); **zainketa intentsiboetako unitatera** (3); **zainketa intentsiboko** (4); **zainketa intentsiboko unitatean** (3); **zainketa lanak** (3)

---

# zainoratze *iz* zaineldua, arranpa.

Goio atsegin itsasoan jitoan zegoen, harik eta batbatean **zainoratze** eta barru kolpe goxoa sentitu zuen arte. Joseba Sarrionandia

---

# zainpe 1 *iz* zaintza.

San Juan de Dioseko ospitale zaharrera eraman zuten, **zainpe** berezirik gabe, ez baitzekiten Jean Laffitte ospetsua zeukatela preso. J.M. Olaizola "Txiliku"

Libre utzia zutenez, emakume **zainperik** gabea, erraza izan zitzaion. Felipe Juaristi

**2** (leku atzizkiekin)

-Gertrude laztana, jar ezazu **zainpean** zeure semea. Juan Garzia

Maiz utzi izan dut neure seme hau zuetako askoren ardurapean eta **zainpean**. Elizen arteko biblia

Atxilotu eta kartzelan sarrarazi zuen, bada, eta launa gudariko lau talderen **zainpean** jarri. Elizen arteko biblia

Paulo **zainpean** edukitzeko agindu zion ehuntariari. Elizen arteko biblia

Zuek, nire artalde, nire **zainpeko** ardi zarete. Elizen arteko biblia

Otoitz santuaren zale izango da, ordu batzuk bere arimarentzat eta beste batzuk bere **zainpeko** artaldearentzat gordeko dituena. Askoren artean

Emakumeak eta etorkinak gutxitan joan dira **zainpeko** kontsumo gelara. Berria - Euskal Herria

---

# zaintalde *iz* zaintza-taldea.

Lehenengo eta bigarren **zaintaldeen** ondotik igarota, kalera zeraman burdinazko ateraino iritsi ziren. Elizen arteko biblia

---

# zaintarazi, zaintaraz, zaintarazten du *ad* zaintzera behartu.

Bertze gai batzu eztabadatuko dituzte oraino, hala nola "Irriñoak" haur ttipien **zaintarazteko** prezioen finkatzea. Herria

---

# zaintinkaldi *iz* zaintiratua.

Zenbait egun haietan ez zuen lorik egiten, eta azken orduetako **zaintinkaldia** gaitza izan zitzaion, zinez. Elena Touyarou

---

# zaintiratu 1 *iz* zain, gihar edo giltzadura bat bortxaz eta bat-batean bihurritzea edo lasaitzea.

Hark ez du txakalaldirik izan, ez **zaintiratu**, ez bihurritu. Berria - Kirola

Autoan zihoazen lau lagunetatik batek **zaintiratua** du lepoan. Berria - Euskal Herria

Istripuaren ondorioz, Aiensaren arrebak zerbikaletako **zaintiratua** eta sorbaldako kontraktura izan ditu. Berria - Euskal Herria

Animalia haien jabeak hezita zeuzkan, antza, erabat ez gelditzera, hanketako giharrek, bat-batean gelditurik, **zaintiraturik** izan ez zezaten. Anjel Lertxundi

Iriartek eskuin hankako gihar bikian **zaintiratua** egin zuelako. Berria - Kirola

**Zaintiratua** sentitu zuen Matiasek biriketan eta arnasa hartu ezinda geratu zen. Unai Elorriaga

Nahiago dut **zaintiratu** soil bat dela pentsatu. Berria - Kirola

Tikok **zaintiratu** txiki bat du eskuin orkatilan, Yestek peronean du min eta Guerrerok, berriz, ezker izterrean kontusio txiki bat du. Berria - Kirola

## 2 irud/hed

Tren berriek **zaintiratuak** izaten dituzte eta zaharrek erreumak. Unai Elorriaga

---

# zaintoki 1 *iz* zaintzeko tokia.

Militarren basea eta kriminalen **zaintokia** izanda, turistentzako jolasleku bihurtu zuten [...] lur puska hura. Javi Cillero

Malkar hura ez zen ageri alemanen **zaintokietatik**. Eneko Bidegain

Zaindarien aitzindariaren boza aditu zen, eta ondotik **zaintokiko** gizon guzien erantzuna. Elena Touyarou

Haize Berri Kultur Etxeak, hirugarren mintzaldia antolatzen du Pees De Latsaga familiaren gazteluari buruz, Nafarroako erresumaren **zaintokia**. Herria

## 2 irud/hed

Bolizko kutxa bat izanen duk ale bakarraren **zaintokia**. Juan Garzia

---

# zaintsu 1 *izond* zainez betea.

Lerden, **zaintsu**, zail, azkar, erne, arin izan behar dik. Michel Oronoz

Berehala errenditu zuten bazter batera, arte sendo **zaintsu** baten azpira, eta han fin gaiztoa eman. Felipe Juaristi

Egur **zaintsu** honen gainean berniza bezala zabalduriko usain beltzean. Monika Etxebarria

Irakaslea [...] emakumezko bat zen, ikasleak ez bezala, argal eta **zaintsua**, dena zuntz eta gihar. Berria - Kultura

Luzeak, **zaintsuak**, behatz finekin: jakintsu edo artista baten egiazko eskuak. Monika Etxebarria

Atzerago, Bizkaiko herrietako berrehun alkate apalak, askotan musuak beltzaran, eta eskuak **zaintsu**. Txillardegi

Berotzen ari nintzela sentitu nuen, eta tramankulua, haragi bilduma **zaintsu** hura, eskuan hartu eta kemenez eragiten hasi nintzaion. Juan Martin Elexpuru

Itxi nituen begiak eta bultzaka sartu nuen ahora artaburu handi eta **zaintsu** hura, eta miaztu egin nuen apurka-apurka. Oskar Arana

Ez zuen dudarik patroi ona izanen zela, halako gorpuzkera zeukan gainera, zalua, zimela, **zaintsua**. Koldo Izagirre

Gorputz gazte **zaintsuak**, bizitzeko, maitatzeko eginak. Michel Oronoz

Esku bizartsua eta **zaintsua**, indar askoren seinale. Patxi Ezkiaga

## 2 kementsua.

Izotz hokeian, angeluarrak **zaintsu** ziren Clermontarren kontra, 6/3 emaitzarekin itzuli dira etxera. Herria

Unanue aintzinlari trebe eta indartsuak ereman du partida bere alde, Ruiz gazte **zaintsuaren** laguntzarekin. Herria

Prentsako ordezkariek irri **zaintsua** libratu zuten. Itxaro Borda

Ordenadorearen pantaila esku ukaldi xehe **zaintsuaz** garbitu zuen. Itxaro Borda

## 3 urduria, nerbiosoa.

Haren gainean hogeita bat urte lehenagoko nire kaligrafia **zaintsua**: "Eduardo Saragueta. 78-III-25". Aingeru Epaltza

Maitek eman zion bukaera itaunketari, urrats **zaintsuetan** gela zeharkatuz. Aingeru Epaltza

Belokiren patxadaren aldean, Eugi **zaintsu** hutsa izanez, huts asko egin du. Herria

Pilotariak usaian baino **zaintsuago** ziren, klasamenduko beldur hori gogoan naski eta beldurra beti lagun txarra. Herria

---

# zaintsuki *iz adlag* irmoki, kemenez; urduri.

Herritarren gehiengoa (emazteak berak horretan barne izanik) parte hartze horren kontra dago eta auzapezak ez du emazteen parekotasun hori **zaintsuki** defenditu. Herria

Hilerrian, Leoniek **zaintsuki** eraso zuen Gure Aitaren lehen erranaldia eta marmara iluna hedatzen zela. Itxaro Borda

Aldi hartan berarekin ekarri Monica ohaide gosetiaren azpi muturra **zaintsuki** eta desiraz zartatzear tinkatu zuela ohartu ginelako. Itxaro Borda

Zigarro meharrak biribilkatzen zituzten, tratulantak, martxandizari ohartu bitartean, **zaintsuki** eta frankotan erabat nazkaturik. Itxaro Borda

---

# zaintxo *iz* zain txikia.

Belarrietan **zaintxoak** ikusten zaizkio, filigrana gorri eta purpurazkoaren antzera. Oskar Arana

Durerok ere iritzi berbera adierazi zuen beste hitz batzuekin, esanez bere xedea "ximur eta **zaintxorik** txikienak ere" agerian jarriko zituen erreproduzioa zela, sendagileentzat beraientzat ere baliagarri izango zena. Bernardo Atxaga

Liken ttikien **zaintxoen** koxkak gero urak profitatuz [...]. Pello Zabala

---

**zaintza** 1 *iz* adingabe baten ongizateari eta hezkuntzari buruzko ardura.

Hori izan zen Aintzaneren eta bion arteko ituna: aita-erantzukizunak nire gain hartu behar nituela, eta abar; **zaintza**, dena dela, berarentzat izango zen, hori ez zegoen eztabaidatzerik. Iban Zaldua

Apaizarengana joan eta banakuntza lortu zuen Mooney andreak, eta haurren **zaintza**. Irene Aldasoro

Dibortzioa arautzeko Espainiako Gobernuak atzo onartutako proiektuak seme-alaben **zaintza** gurasoek partekatzeko aukera jasotzen du. Berria - Euskal Herria

Iragan urteotan amek jaso dute kasurik gehienetan seme-alaben **zaintza**. Berria - Euskal Herria

Kristinari auzi eman eta Unairen **zaintza** eskatzea, horra zer ibili zitzaidan, istant batez, gogoan. Aingeru Epaltza

Epai batek dio umeen **zaintza** kentzeko «funtsik gabeko txostenak» erabili zituela erakundeak. Berria - Euskal Herria

Epaileak aitari eman zion Maddiren **zaintza**. Iban Zaldua

Nire burua zaintzen aski lan eta, zertarako deabru nahi nuen Unairen **zaintza**? Aingeru Epaltza

Umeen etorkizuna erabakitzeko orduan ados jartzen dira bikote gehienak, eta epailearen aurrean seme-alaben **zaintza** partekatua eskatzen dute. Berria - Euskal Herria

**Zaintza** partekatua gurasoek hala nahi dutenean bakarrik ezarri beharko litzatekeela diote. Berria - Harian

Lan, etxebizitza, osasun-artatze eta ume-**zaintza** arloetan ere baztertuta daude. Berria - Mundua

Haurren **zaintza** onartu diote lesbiana bikote bati Frantzian. Berria - Gaiak

Derrigorrezko **zaintza** baztertzeko eskatu du Bilboko Emakumeen Batzordeak. Berria - Harian

2 *iz* zaintzea, begiratzea. ik **zainketa 6**.

Baina banintzen mutil sasoikoa, eta horrek sendatu ninduen, ez Angeloren **zaintzak**. Anjel Lertxundi

Estatu-kolpea gertatu zenean apezpiku-jauregiaren inguruan egin zuten **zaintza** euskal nazionalistek egunez eta gauez. Mikel Hernandez Abaitua

Nazien urpekariak inguru haietan dabiltzanez geroztik Sareak **zaintza** horri are zorrotzago ekin behar izan dio. Edorta Jimenez

Nazioarteko Erregulazioen Bankuaren babespean, finantza-erakundeen eta, bereziki, balantzaz kanpoko jardueren **zaintza** sendotu zen. Koro Navarro

Finantza publikoen datu bilketa eta argitalpenak bere biziko garrantzia du aurrekontuen **zaintzak** sinesgarritasuna izan dezan. Berria - Ekonomia

EBko mugetan **zaintzak** zorroztu dituzte, eta berrogeialdia ezarri diete Asiatik inportaturiko hegaztiei. Berria - Harian

Iparraldean Espainiako Poliziak iheslarien **zaintza** eta jarraipenak egiten zituela. Jokin Urain

Filch egon da hor **zaintza** egiten -esan zuen Ronek ahopean. Iñaki Mendiguren

Ginebrak, ordea, ez zuen gogo onez hartu **zaintza** hura, zaldun ankerra eta desleiala baitzen Mordret. Juan Kruz Igerabide

Orduz geroztik, Donostiako Udalaren esku egon da parkearen **zaintza** eta kudeaketa. Berria - Euskal Herria

Zerga handiak armada handia gustura mantentzeko, polizia zorrotza edozein ekintza politiko mugatzeko, manifestazioen debekua, ohituren **zaintza** eta bigilantzia. J.M. Olaizola "Txiliku"

Estatu pobreen eta enpresa multinazional erraldoien arteko harreman zaila [...] Latino Amerikan bereziki, desagertua da gaur; lankidetza eta **zaintzazko** harreman bat sortu da haren lekuan. Koro Navarro

Hiru kilometroko erradioan babes neurri zorrotzak jarri dituzte, eta hamar kilometrokoan, **zaintzazkoak**. Berria - Gaiak

3 (izenlagun eta izenondoekin)

Odola ez koagulatzeko **zaintza** berezia eta medikazio zehatza behar ditu Azkaratek. Azpiegituren **zaintza** egokiak saihestu egingo luke zuhaitzak eta bestelako objektuak kableen gainera erori eta argindar zerbitzua etetea. Berria - Euskal Herria

Baina presoaren xalotasunak errugabe zela adierazten zuenez, **zaintza** arinagoa ezarri zioten. Askoren artean

**Zaintza** berdina ez; askoz gogorragoa izango ziren Polonia eta Errusia artean egingo zizkigutenak. Edorta Jimenez

Laurehun urteetan jadanik, eliza hori guardian egon da, jarrera oso zurrunean eta **zaintza** lasaitugabeaz. Iñaki Mendiguren

**Zaintza** zorrotza ezarri zen Nabarrenkoxeko bizilagun behartuen arima eta gorputzen gainean. Aingeru Epaltza

Alain Sole preso bretainiarra larri, **zaintza** medikoari uko egiteagatik. Berria - Mundua

Aldi berean, **zaintza** eta arreta intentsiboko taldea antolatu du. Edorta Jimenez

**Zaintza** bereziko unitatetik gela arruntera eraman dute. Imanol Zurutuza

Oso larri dago, Soriako Santa Barbara erietxeko **Zaintza** Berezietako Unitatean. Berria - Euskal Herria

4 (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

Txarrantxa-hesia, lau bazterretan **zaintza**-dorre bana zuela, errepidearen ondotik hedatzen zen. Urtzi Urrutikoetxea

Izarrek ere distira egiten dute beren **zaintza**-postuetan, pozez beterik. Elizen arteko biblia

Europako hirietan **zaintza** kamerak gero eta gehiago direla eta kontrola areagotzeko ezartzen ari diren legedia salatu dute. Berria - Gaiak

Charlie, baina, atxilo hartu eta **zaintza**-gelara eraman zuten. Mirentxu Larrañaga

Ez zuela ezer entzun; beraz, **zaintza**-operazioa ongi atera zen. Antton Olano

Gau hartan, lo-ibiltari bat antzo, jaiki egin behar izan nuen **zaintza**-lanean aritzeko; nire txanda zen. Mirentxu Larrañaga

Bilboko Metroko zuzendaritzak **zaintza** sistemak indartzea eta segurtasuna bermatzeko langile gehiago hartzea erabaki du azkenaldian istiluak ugaritu direlako. Berria - Euskal Herria

Eskubideak murrizteko ahaleginean **zaintza** epaileek egiten duten lana giltzarria da askotan. Jokin Urain

Elur ekaitza dela-eta, DYA Gipuzkoak ere **zaintza** zerbitzurako bitartekoak jarri ditu abian. Berria - Euskal Herria

Eskubideen **Zaintza** Batzordeko arduradun Antton Izagirre. Berria - Euskal Herria

Urteko **zaintza**-sariaren erdia xahutu omen zuen aitatxik seme sortu berriaren ospakizunetan. Aingeru Epaltza

Whittaker andreak erabakia hartu zuen Agure Jauna zaharregi egiten ari zela bakarrik bizitzeko, Annie betierekoak soilik laguntzen ziolarik sukaldean eta **zaintza**-kontuetan. Mirentxu Larrañaga

Otegiren gaineko «segurtasun eta **zaintza** neurriak muturreraino» eramateko agindu du epaileak. Berria - Euskal Herria

Baldintzapeko askatasunean zegoen 2002ko ekainetik, Bilboko **Zaintza** Epaitegiak hala erabakita. Berria - Euskal Herria

Preso tolosarra baldintzapeko askatasunean uzteko eskatuko dute, berriz ere, Madrilgo **Zaintza** Epaitegi Zentralean. Berria - Euskal Herria

Madrilgo Audientzia Nazionaleko **Zaintza** Epaitegiak emandako agindu bati jarraiki. Berria - Euskal Herria

5 (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa)

Arkume **zaintzak** dituen lanetan trebeak ohi dira artzaintsa edo artzain-neskak. Araban, Gipuzkoan eta Bizkaian Umeentzako Hortz-**Zaintza** Programaz baliatzeko eskubidea dutenen artean, %66k erabiltzen du zerbitzua. Pello Zabala

Hiriko garbiketa orokorra, arloteen polizia-**zaintza**, eskupekoak ematea egun jakinetan txiro behartsuei, langabezia-laguntzak, [...]. Bego Montorio

Diruaren laguntzaz eta harreman onak izanez gero, bazegoen erabateko diskrezioaz beharrezko mediku-**zaintza** lortzea. Ramon Saizarbitoria

Bideo-**zaintza**, eszedentziak edota ordezkapenak izan dira, besteak beste, Jaurlaritzak ezarritako neurriak. Berria - Euskal Herria

Espetxe **zaintza** zentraleko epailea. Berria - Euskal Herria

Itsas **Zaintzako** Zerbitzuan. Edorta Jimenez

*ik beherago* 6. Askoren artean

Hamaika aldiz luzatu dio eskaria kartzela-**zaintzako** epaileari. Iban Zaldua

Diru mailan "Irriñoak" haur **zaintzako** etxean aldaketa batzuen ondorioak ikertuko dituzte. Herria

Gehien nabarmentzen dena Iragarpen Bulegoa bada ere, hor dira beste hainbat talde lanean, eta baita Hidrometeorologia **Zaintza** ere. Pello Zabala

## 6 ***zaintzako*** *izlag*

**Zaintzako** epaileak sekretupean jarri du sumarioa. Berria - Euskal Herria

Egun batean, **zaintzako** soldaduarekin batera espetxezainen burua sartu zen Tsiganoken ziegan. Jose Morales

**Zaintzako** soldaduen silueta grisak ikusten ziren kotxe bakoitzaren inguruan. Jose Morales

Irudi automatikoetan automatikoenak ere, **zaintzako** kamerenak, esate baterako, berariaz, gizarte-eragin jakin batzuk lortzeko kalkulatuta produzitzen dira. Josu Zabaleta

Gero norbaitek **zaintzako** txandetarako deia egin zuen. Edorta Jimenez

Mendiak **Zaintzako** Muinoarekin bat egiten zuen mutur esturaino. Agustin Otsoa

## 7 (izen gisa)

**Zaintzako**: toki bateko apaiz izateagatik jasotzen ziren diru eta ondasunak. Patxi Ezkiaga

-Benefizio soilen bat -esan zuen apaizak-, edo **zaintzakoren** bat, edo sakristautzakoren bat. Patxi Ezkiaga

## 8 ***zaintzape*** (leku atzizkiekin)

**Zaintzapean** utzi zuten gizona, ez baitzegoen oraindik erabakia zein zigor ezarri. Elizen arteko biblia

Poztu nintzen, loreak **zaintzapean** zenituen eta. Eduardo Matauko

Taldeka doaz alde batetik bestera, berdintsu jantzita [...] eta begirale gazteen **zaintzapean**. Iban Zaldua

Sendagileen **zaintzapean** jarri zenean, ikusmena eta entzumena ere galdu egin zituen. Askoren artean

Coria inguruko Santa Maria del Poyo monasteriora joateko aginduarekin, hango abadearen **zaintzapean**, eta bederatzi urtez predikurik egiteko debekuarekin. J.M. Olaizola "Txiliku"

Itoitzen eta inguruan Guardia Zibilaren **zaintzapean** bizi izan dira herritarrak urteetan. Edurne Elizondo

**Zaintzapeko** demokrazia batean bizi gara. Berria - Euskal Herria

Urtebeteko **zaintzapeko** askatasuna, gertatu ez zen sexu erasoa salatzeagatik. Berria - Euskal Herria

1530eko udazkenean, bere **zaintzapeko** gotorlekua begi parean izan zuenean, [...]. Aingeru Epaltza

Orain [haurrak] beste izen-abizen batzuk dauzka, Nafarroako Gobernuaren **zaintzapera** igaro zenean Gizarte Ongizateak jarritakoak, hain zuzen ere. Berria - Euskal Herria

**hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**

**alaben zaintza** (10); **auzitegi nazionaleko zaintza** (4); **bere zaintza saria** (3); **bilboko zaintza epaitegiak** (3); **erietxeko zaintza** (3); **espetxe zaintza** (5); **haurren zaintza** (3); **osasun zaintza** (4); **pertsonen zaintza** (5); **polizia zaintza** (5); **seme alaben zaintza** (10); **umeen zaintza** (7)

**zaintza behar** (5); **zaintza berezia** (3); **zaintza berezietako** (5); **zaintza berezietako unitatean** (4); **zaintza dorre** (3); **zaintza egitea** (4); **zaintza egiten** (5); **zaintza epaileak** (6); **zaintza epaitegi** (8); **zaintza epaitegi zentrala** (3); **zaintza epaitegiak** (4); **zaintza eta arreta** (4); **zaintza kameren** (3); **zaintza lan** (4); **zaintza lana** (3); **zaintza lanak** (7); **zaintza lanetan** (8); **zaintza neurriak** (4); **zaintza partekatua** (5); **zaintza partekatuaren** (3); **zaintza partekatzeko** (4); **zaintza saria** (5); **zaintza sistema** (4); **zaintza zorrotza** (8); **zaintza zorrotza izan** (3)

**espetxe zaintzako** (38); **espetxe zaintzako epaileak** (5); **espetxe zaintzako epaileari** (5); **espetxe zaintzako epaitegi** (20)

**zaintzako epailea** (3); **zaintzako epaileak** (6); **zaintzako epaileari** (7); **zaintzako epaitegi** (20); **zaintzako epaitegi zentrala** (5); **zaintzako epaitegi zentralak** (5); **zaintzako epaitegi zentraleko** (7)

**zaintzan ari** (3)

**aeben zaintzapean** (4); **ertzaintzaren zaintzapean** (5); **furgoneten zaintzapean** (3); **guardia zibilaren zaintzapean** (6); **poliziaren zaintzapean** (10); **zaintzapean egin** (5); **zaintzapean egongo** (4); **zaintzapean egongo dira** (3); **zaintzapean jarri** (10); **zaintzapean jarri zuen** (3); **zaintzapean jartzea** (3); **zaintzapean zegoen** (4); **zaintzapean zeuden** (5); **zaintzapean zuten** (3)

**bost urtez zaintzapeko** (3); **zaintzapeko askatasuna** (4); **zaintzapeko askatasunean** (5); **zaintzapeko askatasunean izateko** (3)

**zaintzarako mundu** (3)

**adin txikikoen zaintzaren** (3); **pertsonen zaintzaren** (3); **zaintzaren ardura** (5); **zaintzaren arduraduna** (3)

**derrigorrezko zaintzari** (3); **derrigorrezko zaintzari intsumisioa** (3)

**zaintzarik gabe** (3)

**zaintzaz arduratzen** (5)

---

# zaintzaile

*(orobat* ***zaintzale*** *g.er.)* **1** *iz* zerbait edo norbait zaintzen duen pertsona. ik **zaindari 3; jagole; zaintzailesa**.

*Cultus,* latinez, axolatia, arduratia, arduraduna, arretatsua da; baita zaindaria, **zaintzailea**, artatzailea, begiralea, jagolea ere; eta apaindua, dotoretua, edertua ere bai. Askoren artean

Kustodioa (*custos*=**zaintzaile**) deitura ez da besteak bezain zehatza. Askoren artean

Soinu apalak, urruneko murmurioak, hurbiltzen edo urruntzen diren **zaintzaileen** boz eta urratsak, sarrailak, zerrapoak, ateak, gakoak... Filipe Bidart

**Zaintzaile** asko daude eta umeak ondo zainduta daudela ikusten da. Berria - Harian

-Hiru jazarle, **zaintzaile** bat -esan zuen Harryk. Iñaki Mendiguren

Baimen-orria eman aitari edo **zaintzaileari**, izenpetu dezan. Iñaki Mendiguren

Biltegietara inguratu zen, **zaintzaileak** nor bere tokian ote zeuden ikustera. Jose Morales

Katez lotua eta **zaintzailez** inguratua zegoela. Askoren artean

**Zaintzaile** bat etorri zen eta isuna jarri nahi zidan, ezin zelako belardi gainean ibili. Pello Lizarralde

Gaueko txandarako **zaintzaile** bat behar zutela. Pako Aristi

**Zaintzaileak** presoen gelak miatzen hasi zirenean hasi ziren borrokak. Berria - Mundua

Etsaiek, **zaintzaleek**, aldiz, dena egiten dute gure artean holako harremanik sor ez dadin, eta horretarako gaituzte maiz zeldaz aldatzen. Filipe Bidart

**Zaintzaileak** zaintzeko kanpaina. Berria - Euskal Herria

**Zaintzailea** zapaltzaile bihurtua. Berria - Euskal Herria

**Zaintzaileen** buruak ezjakintasun-keinua egin zuen, besoak zabalduz. Jose Morales

## 2 (aipatzen denarena)

Nire auzokoaren **zaintzaile** al naiz, ba, ni? Bernardo Atxaga

Atera ziren Holofernesen **zaintzaileak** eta barrura pasarazi zuten Judit. Jose Antonio Mujika

**Zaintzaileak** zutoinak zaintzen ditu; jotzaileek bludgerrak urrunarazten dituzte beren taldetik. Iñaki Mendiguren

Jainkoaren ohorearen begirale txit leiala eta arimen **zaintzaile** errukiorra. Askoren artean

Apaiz jauna eta Sanson Karrasko batxilerra uzten ditut nire testamentuaren **zaintzaile**. Patxi Ezkiaga

Euskaldun batzuk ziren dorre horren **zaintzaileak**. Angel Aintziburu / Jean Baptiste Etxarren

Gazteluko **zaintzailea** dorrearen gailurrean lo zegoen. Askoren artean

Treneko **zaintzaileari** emaniko eskupeko eder batek ziurtatu zien Oskarren txartela Pariserainokoa zela. Alberto Ladron Arana

Komunetako **zaintzailea** gizon zakar bat zen. Pello Lizarralde

Trafikoko **zaintzaileen** ordezkoak egiten dituzte. Gotzon Garate

Kontzientziaren argi berezi, izen onaren **zaintzaile** eta zuzentasun ororen ikur. Askoren artean

"Nolatan gero Hitler eta Stalin sarraskikide?", zioten ortodoxiaren **zaintzaile** eta jagoleek, egiaren komisario politikoek. Felipe Juaristi

Apaltasuna bertute guztien **zaintzaile** eta apaindura da. Askoren artean

Ene familiaren memoriaren lekuko eta **zaintzaile** nahi dut izan, gaur adin handian sartuak diren errepublikar galtzaileek Gerra Zibilean jasan dituzten traumen **zaintzaile**. Ana Urkiza

## **3** (izenondo eta izenlagunekin)

Bat-batean, bidera irten zitzaidan **zaintzaile** gorbatadun bat, esku batekin patiora itzultzeko keinua eginez. Javi Cillero

Etxe barruan eta **zaintzaile** zintzoek inguraturik bazaude ere, ez pentsa gero seguru zaudenik. Gotzon Garate

Camberrak Atenasera **«zaintzaile** armatuak» bidaltzeko aukera aztertzen ari dela esan zuen. Berria - Mundua

Haren **zaintzaile** zorrotzak errita eman zionean, dotrina-gorputz baten bila zebilela argitu zion. Xabier Olarra

Burlagai eta gaizki ikusia laboratoriotik kanpo, beraren bertuteengatik berengatik: **zaintzaile** limurgaitz gogorra. Juan Garzia

Dena kontatuko dizut -esan zion azkenik **zaintzaile** errukarriak-. Patxi Zubizarreta

Beharrik sortzen dira eta publikoki agertzen, modu ezberdinetan, **zaintzale** gazte suharrak. Michel Oronoz

Ibai-bazter osoaren luzeran zut zuhaitzak, **zaintzaile** biluziak bailiran. Jon Muñoz

Zinpeko **zaintzaile** zolien baimen isilekoarekin. Karlos Linazasoro

Handik atera ezinik egongo baitzen preso, zorioneko **zaintzaile** hark esku hartu izan ez balu ustekabean. Karlos Zabala

Emakumezko **zaintzaile** batek deklaratu zuen Dorothyren sakelan hogei dolar aurkitu zituela. Fernando Rey

## **4** (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

Zelula horrek **zaintzaile** lana egiten duela diote zientzialariek. Berria - Gaiak

Erregea Jaunaren etxera joaten zen aldi bakoitzeko, **zaintzaile**-taldeak babeskiak hartu ohi zituen, eta gero berriro **zaintzaile**-gelara ekartzen. Elizen arteko biblia

Deitu egiten zidan **zaintzaile** txilibitu batekin. Pello Lizarralde

## **5** (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa)

Zaldun bat oihuka, museo-**zaintzaileen** look minimalistari. Anjel Lertxundi

Ate **zaintzaileek** bi ardo botila inguraturik zituzten ordurako-. Josu Zabaleta

Ez zuen inude edo haur-**zaintzaile** bati pagatzeko dirurik. Gotzon Garate

Goizean zakur-**zaintzaileak** zakurtegira agertu zirenean zakurrik gehienak hilak ziren, odolustuak. Gotzon Garate

Ez pentsa gero, zakurtegi-**zaintzaileek** zakurrok ez dituztela maite. Gotzon Garate

Carmen Fernandez Aparicio Reina Sofiako ondare **zaintzaileak** azaldu duenez, [...]. Berria - Kultura

Trafiko-**zaintzaileak** erotuxeak zebiltzan bidegurutzeetan andana hura ikustean. Pello Lizarralde

Segurtasun **zaintzaile** bat atxilotu dute Donostian, gazte bat jotzea leporatuta. Berria - Euskal Herria

Azkenik, feminista erradikalek eta Vatikanoko moral **zaintzaileek** bat egin zuten taldearen kontrako gurutzada sonatuan. Patxi Iturritegi

Bideo-**zaintzaileek**, teknologiak, [...], mediek zaintzen eta zabaltzen diguten "normaltasunak" ikaratzen nau. Ana Urkiza

## **6** (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa, elkarteak izenondo balioa duela )

Akerbeltz jenio azienda-**zaintzaileari** buruz nekizkientxoak eta Apuleiok Urrezko astoan basa-arrosei buruz esaten dituenak. Anjel Lertxundi

## **7** (hiru osagaiko hitz elkartuetan)

Badirudi sartu berri den kartzela **zaintzaile** promozio gazteak zuhurtasun handiz aplikatzen duela legea, jubilatu berrien gizatasun goxo haren aldean behintzat. Karlos Linazasoro

## **8** (izenondo gisa)

Eroetxeko zuzendariek eta emakume **zaintzaileek** neska gaixoei arropa eta jana ebasten zizkieten. Gotzon Garate

Diosala egin bertako agure **zaintzaileari**, eta aretoaren luze-zabal gunea korritu zuen begiez. Pedro Alberdi

Gauez, baina, katu **zaintzailearen** miauek esnatu zuten. Joan Mari Irigoien

Baso-mutilek, soldaduen begirada **zaintzailea** agintari, Joanesen eta Aloizen eskuak askatu zituzten, eta don Leonardorenak lotu. Felipe Juaristi

Itsasoetako kanibala zen, eta ez zuen behar begi **zaintzailerik**, bere ospe beldurgarriari esker lasai flotatzen zuen eta. Julen Gabiria

Iruaingo gazte hura Tobiasi lagundu zion Rafael haren parekoa zen, aingeru **zaintzailea**, bihoztuna eta argia. ik zaindari 10. Bernardo Atxaga

## **9** (adizlagun gisa)

Joan ziren bizikleta gordelekura, eta haienak baizik ez ziren geratzen han; gaztetxo logaletu bat zegoen **zaintzaile**. Josu Zabaleta

Zakur handi bat edo gehiago **zaintzaile** utziz. Gotzon Garate

Aterik ate doaz beren ezpatekin, Jerusalengo harresien gainean **zaintzaile** jarriak izan dira. Askoren artean

Aldi berean epaile, zuzendari eta ordena-**zaintzaile** jarduteko. Jose Morales

Buhamiak lau tokitan ezarri zituzten, jandarmeak **zaintzale**, Baionan, Maulen eta Donibane Garazin. Herria

**hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**

**bertute guztien zaintzaile** (3); **bi zaintzaile** (3); **israelen zaintzaile** (3); **segurtasun zaintzaile** (6); **segurtasun zaintzaile bat** (4)

**zaintzaile bat** (16); **zaintzaile batek** (10); **zaintzaile bati** (6); **zaintzaile eta apaindura** (3); **zaintzaile izan** (5); **zaintzaile lana** (3); **zaintzaile taldeak** (3) zinpeko zaintzaile (5)

**azkabango zaintzaileek** (3)

**zaintzaileen buru** (3)

**bakearen zaintzale** (4); **beste zaintzale** (4); **bizpahiru zaintzale** (3); **herriaren zaintzale** (3); **kartierreko zaintzale** (3); **zaintzale bat** (9); **zaintzale batek** (6)

**igerika zaintzalek** (3)

---

# zaintzaileburu *(corpusean **zaintzaile buru** soilik)* *iz* zaintzaileen burua.

Orduan Guardia haiek eta presondegiko **zaintzaile**-buruak, hasi ziren errebolderez tiro-tiroka. Jokin Urain

---

# zaintzaileorde *iz* zaintzailearen hurrengoa, eta, egoera jakin batzuetan, haren ordekoa.

**Zaintzaileordeak** eta zuzendaritzako bi andrek ere entzun zuten konplimendua. Irene Aldasoro

---

# zaintzailesa *iz* emakume zaintzailea.

Armenia Ttipiko zapelatz ederraren **zaintzailesa** eta nola den handik Amazoniara bide handia. Aurelia Arkotxa

**zaintzaldi** *iz* norbait edo zerbait zaintzen den aldia.

Instrukzioak, **zaintzaldiak**, ofizialen aginduak, armakide zaharragoen ziriak eta trufa krudelak... horiek guztiak bizi izanak nituen lehenago Garrüzen. Aingeru Epaltza

Haien ahaideak, aldian-aldian, beren herrixketatik etorri ohi ziren, zazpi egunetako **zaintzaldiak** haiekin batera egitera. Elizen arteko biblia

**Zaintzaldia** larunbatez hasten nahiz bukatzen zuten gizonak hartu eta Joiadaren aurrera etorri ziren. Elizen arteko biblia

**Zaintzaldian** egonagatik operazioa koordinatu duen epailearen aurrean [...] deklaratu beharko dute bi atxilotuek lehenik. Berria - Euskal Herria

---

zaintzale ik **zaintzaile**.

---

**zaintzaleku** *iz* zaintzarako lekua.

-Zerua goian eta infernua behean direla uste izan baduk, uste ustela -esan zidan, gabiako **zaintzalekura** begiratuz. Edorta Jimenez

---

zaintzape ik **zaintza 8**.

---

**zaintze** **1** *iz* norbaiten edo zerbaiten arta hartzea, babestea; begiratzea.

**Zaintze** hartan, oso plazer berezia sentitu nuen. Matías Múgica

Orduantxe maitemindu zen nire emazteaz, **zaintze** luze haren ondorioz. Karlos Linazasoro

Berak ezin izan bazuen bizar-labana komunetik atera, ezin itxaropen handirik eduki nik lortuko nuela, baina saiatu egin nintzen moldeak **zaintze** hutsagatik. Oskar Arana

1996az geroztik herrialdeko iparraldean ibili ohi diren izurdeei jarraitu die, eta duela gutxi **Zaintze** Bilogikoa izeneko txostena kaleratu dute. Berria - Gaiak

**2** (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

Maddalenen **zaintze**-lanei esker, osabaren zauriek hoberat eta hoberat egin zuten. Joan Mari Irigoien

Suteen kontrako **zaintze** lanak egin ahal izateko iaz baino postu bat gehiago izanen dira Nafarroan. Berria - Euskal Herria

**Zaintze** postu finko horiez gain, toki batetik bestera ariko da suhiltzaile talde bat, arrisku aurreikuspenen arabera. Berria - Euskal Herria

Urrunago, Malkias zilarginak egin zuen lan, tenpluko laguntzaileen eta merkatarien etxeraino, **Zaintze**-atearen aurretik Zokoko goiko gelaraino. Elizen arteko biblia

**3** (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa)

Otoi, balin baduzue zuen etxetan edo inguruan haur **zaintze**, arropa xuritze eta lisatze, jateko egite eta zerbitzatze, egin lezake omore onean. Herria

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
> **zaintze lanak** (6); **zaintze lanetan** (3)

---

**zainzulatu** *iz* zainetan eginiko zulatua.

Ez du bere bururik ere ordezkatzen, eta, ez letra eta ez kolore, dakartzan marka bakarrak **zainzulatuek** bere haragian utzitako haiexek besterik ez dira. Iñaki Segurola

---

**zainzuri** **1** *iz* baratxuriaren familiako landarea, urtero muskil mamitsuak eta jateko oso onak ematen dituen lurpeko zurtoina duena *(Asparagus offcinalis)*; delako muskil mamitsua. ik **esparrago**.

**Zainzuriekin** egindako arrautzopila. Juan Kruz Igerabide

Zerbitzariak esanda dakit ostiraletan aldatu egiten duela dieta, **zainzuriak**, amuarraina eta fruta eskatzen dituela. Ramon Saizarbitoria

Denak Nafarroako eta kanpoko **zainzurien** artean zein alde handia zegoen esatean bat etorri ziren, jaten eman zienak Peruko **zainzuria** jan zutela erantzun zien arte. Berria - Euskal Herria

**Zainzurietan**, orburuetan, patatetan... aurki dezakegu inulina; normalean, landare jatorriko produktuetan beti. Berria - Gaiak

**Zainzurien** buruak % 50 proteina dauka, xerrak baino askoz gehiago. Irene Aldasoro

**2** (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

**Zainzuri**-pote bat askatu, entsalada bat prestatu, eta arrautzopil bat egin genuen txanpinoiekin. Juan Kruz Igerabide

Behin **zainzuri** ekoizle batzuk bildu ziren Lodosan. Berria - Euskal Herria

Tartean, **zainzuri** itsasoak plastiko ilunez estaliak. Berria - Kirola

---

**zaiolatxo** *iz*

Txikitako ohituraren arabera bost Agur Maria eta Gure Aita bat osorik errezitatzen zituen, kuxetaren gainaldeko **zaiolatxoa** eho aurretik. Itxaro Borda

---

**zaizki** *(orobat **saizki**)* *iz* arraza, leinua.

Zelta, beraz, Donibaneko Joanes Uharteren antzera esateko, entendimentu eskaseko baina irudimen handiko **zaizkia** zela esan genezake, eta batez ere eskulanean trebe. Patziku Perurena

Badirudi, K.a.ko bigarren milaldian Alemania inguruan kokatu zen **zaizkia** dugula zeltena. Patziku Perurena

Nahasi eta nahasi: horrela sortu dira, bata besteagandik horren diferente diren arraza edo **saizkiak**. Gotzon Garate

Kukua ere usoaren **zaizki** berekoa duzu. Patziku Perurena

---

**zakar**[1] **1** *iz* larruazalean, zauriak-eta lehortzean gertatzen den gainalde gogortua. ik **zarakar**.

Jonas mantso zetorren; kaskamotzean **zakar** luze bat, beroki beltz luze batekin jantzita zegoen. Pablo Sastre

Babyk titiburuetako **zakarra** gantzarekin bigundu, eta gero garbitu egin zizkion. Anton Garikano

Ilea zorriz eta zauri-**zakarrez** josita. Patxi Zubizarreta

**2** *pl* etxe edo leku baten garbiketa egitean, botatzeko diren hondakinak. ik **zabor**.

26 urteko gazte bat **zakarretan** hondakinak bilatzen ari zela hil zuten Rafa hirian. Berria - Mundua

Biharamunean, **zakarrak** atera eta handik ordu batera, gaueko 10etan, etxetik irtetean paper batzuk ikusi zituen lurrean. Antton Olano

Yakartako agintariek salatu dutenez, inguruko 1.700 lantegik eta ospitalek errekara botatzen dituzte **zakarrak**. Berria - Gaiak

Haien atzetik, zabor biltzaileek **zakarrak** botatzen zituzten artagabe hogei pausotik hogei pausora gelditzen ziren iraulki orga batzuetara. Karlos Zabala

Suzko erratz batek eskobatu zuen lurra, **zakarrak** erreaz. Koro Navarro

Hau suntsitu eta **zakarretara** botatzeko. Harkaitz Cano

Bilobatxoarekin nago orain, eta nondik nora dabilen zaindu behar dut une oro, **zakar** artera sar ez dadin. Berria - Euskal Herria

Gorputz txiki bat, oinak hondar **zakarrez** betean sartuak zituena. Koro Navarro

**3** irud/hed

Nazionalista askotxo ezagutzen ditut euskerari begiko **zakarrari** baino garrantzi geiago ematen eztiotenak. Berria - Harian

Aldi berean, ordea, asko lezakeen zera bat da [dirua], eta hargatik da zakarretara botatzen ez den eta zakarrontzi batean egundo ikusten ez den **zakar** bakarra. Iñaki Segurola

**4** (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

Botila puska ezpalduen gainean eroso eserita zegoen aurreko gaueko katu argala, aurpegia garbitzen **zakar** pilo baten tontorrean. Koro Navarro

Elurrez pintakatuta, **zakar** eta traste pila zegoen. Pablo Sastre

Baserri edo borda ingurutan, berriz, denbora askoan kanpoan euritan eta lurraren kontra egondutako harri, enbor, iratze eta beste edozein **zakar** pila harrotzen hastea aski, azpian arrabioren bat azaltzeko. Patziku Perurena

Basauriko kaleetan **zakar** poltsak pilatuta izan arren, oraindik ez da usain handirik igartzen. Berria - Euskal Herria

Ogi koskor bat da, hezur bat, gaur egun erabiltzen diren **zakar**-edukiontziak nekez irekitzen dira, nekez lurrera botatzen. Jon Alonso

Obretan zegoen ezkerreko etxea: **zakar** kontainerra aurrean, zur plantxak atarian, kristalik ez leiho zuloetan. Pablo Sastre

Tuberkulosia, errakitismoa eta **zakar**-potez betetako kale zikin pilo bat uzten dizkigute. Lopez de Arana

**Zakar**, estolda eta ustel usaina zerion lekuari. Koro Navarro

**5** *zakar ontzi* ik **zakarrontzi.**

---

# zakar[2] **1** *izond* inolako gozotasunik ez duena. ik **gozakaitz**. (giza ekintza eta alderdiez mintzatuz)

Pintzelkada **zakarrekin**. Berria - Kultura

Kolpeak gero eta **zakarragoak** ziren, ez baitzuten esaten ari nintzaiena sinesten. Anjel Lertxundi

Batzuetan hitz-eztia izango da, beste batzuetan oldarraldi **zakar** gogorrak izango ditu. Josu Zabaleta

Ahots lakar **zakarrez**, listu jario, kexuka hasi zen: [...]. Patxi Zubizarreta

-Ez da nire aita -keinu ia **zakar** batez eskuetaratu zidan kandela-. Alberto Ladron Arana

Hari bekoz beko bota nion desafio **zakarrak** askoz ere hobeto sentiarazi ninduen idazmahaira itzultzerakoan. Mirentxu Larrañaga

Mespretxuzkorik ez hartan, amultsutasun **zakar** bat baizik. Aingeru Epaltza

Ero-bolada **zakar** hori, basakeria hori animalia gaixo batengana, lehentxeago maitasunez jaten eman ondoren. Anton Garikano

Hasierako kolonoen hizketa-modua gogorarazten zuen Noraren aitaren jardun **zakarrak**. Anjel Lertxundi

Espero ez nuen jario **zakar** erre batez hartu zuen ostera hitza: [...]. Anjel Lertxundi

Ahopeka kantatuz, ez txarto gainera, abesti **zakar** baten pasarteak. Julen Gabiria

Zer egiten duzue hemen? -galdetu zuen ahots **zakar** batek. Anjel Lertxundi

Garajetik, gizon-ahots **zakar** baten orroa atseginez jaso zuen belarrietan: "Oraintxe bertan, andereñoa". Lopez de Arana

Ezinezkoa zirudien haren eztarri zaharrak oihu eta madarikazio **zakar** haiek eratzea. Iban Zaldua

Fusilak besaburura eta lurrera behin eta berriz aldatuz aginte-oihu **zakarren** arabera. Txillardegi

Mugimendu **zakar** bat egin, eta eskuetatik itzuri zitzaion animatzaileari mikroa. Jon Muñoz

Lisa baino ederragoa zen, buruzapia kopetan, begitarte latz harekin, on itxura **zakar** harekin. Karlos Zabala

Honela mintzatu zen, bere bularpe hartatik barren-barrendik ahots ilun **zakar** bat ateratzen zuela:[...]. Elizen arteko biblia

Usainak eta soinuak; ahotsak, **zakar**, lodi, goxoak. Anton Garikano

Areto handia arakatzen zuen begiekin, eta sudurrean sartzen zituen hatz **zakar**, maskurtsu, kakoak. Jose Morales

Doinu ironikoa lagungarri da; doinu **zakar**-mindua baztergarri. Markos Zapiain

Hazpegi **zakarrak** zituen, sudurra motza, bekokia konkortua eta atzera luzatua, eta ezpainak irtenak eta handituak. Irene Aldasoro

**2** (eguraldi gertakariez mintzatuz)

-Bai, eguraldi **zakarra** egiten du, eguraldi txarra. Jose Morales

Giroa gero eta **zakarragoa** zen, euri-lanbro trinkoak kaleak husturik zituen. Migel Angel Mintegi

Riverside Drive-ra irten ziren eta han oso haize **zakarra** zebilen. Lopez de Arana

Hotzago eta **zakarrago** jotzen du haizeak. Jose Morales

Jantoki-bagoirantz abiatu nintzen, urduri eta kirio guztiak haize **zakar** batek jotako ihi herbal batzuk baino dardartiago. Anjel Lertxundi

Iparraren eraso **zakarrak** tabernan zeudenen buruak jirarazi zituen. Anjel Lertxundi

Horrek, hego haize segidoko lehor iharrak ekarri zituen, bolada oso **zakarrak** tartekaturik. Pello Zabala

Gure Allikenera ere etortzen ziren, batzuetan euri jasa **zakarren** artean. Txillardegi

Egun euritsu **zakar** batean lurperatu zitean, ia bakardade guztizkoan! Anjel Lertxundi

Gero eta **zakarrago** jotzen zuen eguzkiak. Aingeru Epaltza

Duela bi urteko bero **zakar** hura. Herria

Ekaitz **zakar** batek harrapatu ninduen azkeneko metroetan nintzela. Juan Luis Zabala

Elur bisuts **zakar** amaiezinak. Karlos Zabala

Eguraldia **zakar** samarra izanik ere, etxeak bizkarra ematen dio Boreasi. Jon Alonso

Manchako itsasarteko olatu gris dentso eta **zakar** haiek. Mirentxu Larrañaga

Seismoa izan eta ordu batzuetara itsasoa **zakar** zegoen oraindik. Berria - Mundua

Itsasoa **zakar** egon ala ez berdin zait, nahiago dut igandean **zakar** badago, baina sailkapenerako berdin dio Berria - Kirola

**3** (pertsonez mintzatuz)

Gizon **zakarra** zen bere maneretan, baina ez zen besteengandik ezertan nabarmentzen. Antton Olano

Egoista hutsa omen bainintzen, **zakarra**, gustu-kontuan barbaroa, eta emakumeekin gizabiderik gabea. Joxe Austin Arrieta

Burokrata frantses bat, frantsesik ulertzen ez zutenekin zeharo **zakarra**, eta gogoko zituenekin, berriz, erabat berritsua, ikaragarri xarmagarria. Joxe Austin Arrieta

Pertsonaia desatsegin eta **zakar** hura, batailoi karlistak ausardiaren arabera sailkatzen hasi zen gero. Koro Navarro

Etsaiengandik libratu nauzu [...] gizon **zakarrarengandik** askatu.

Lehen ministro odolbero, harroputz eta **zakar** bat. Berria - Kultura

Garai haietako ameskaiztoetan, alabak bera bezalako soldadu **zakar** baten besoetan higatzen zuen bizi. Aingeru Epaltza

Bihar da Frantziako zinemaren ikono handia izan zen aktore **zakar** eta goxoaren jaiotzaren lehenengo mendeurrena. Berria - Kultura
Asistenta narras, **zakar** eta axolagabe bat maritxuaren konfidente izatea txistosoa iruditu zait. Xabier Mendiguren Elizegi
-Zaldun **zakar** alaena, eskasa dirudi, bereari eusteko gai ez denari ekitea. Patxi Ezkiaga
Bere txantxa giroan umore punttua baduela onartu behar, tarteka **zakar** eta matxista eman dezakeen arren. Xabier Mendiguren Elizegi
Gutxiago orraztua, baldar-**zakarragoa**, ez hain biribila. Juan Garzia

## **4** (bestelakoez mintzatuz)

Izan ere, lurra zikoitza da lurra zaila da lurra faltsua da lurra **zakarra** da. Koldo Izagirre
Edozein lur **zakar**, edozein baxter, edozein harri-malkar. Pello Zabala
Toki bakarti horiek, hain **zakarrak** eta inhumanoak, fantasmak sortzen dituzte. Bernardo Atxaga
Hitz batean, Txitxikovek zekusan guztia fermua eta tinkoa zen, sendoa eta **zakarra**. Jose Morales
Gero ordu pare bat edo itxaronez gero, geltoki **zakar** batean, [...]. Xabier Olarra
Malda **zakar** batzuen erdian. Herria
Bilauen janari **zakarra** genuen, beraz, baba. Patziku Perurena
Hobeak egongo dira buñueloak kartzela honetako eltzekari **zakarrak** baino. Bernardo Atxaga
Destilatu gabeko vodka **zakarraren** usain ikaragarria zerion. Jose Morales
Partida gogorra izan zen, **zakarra**. Berria - Kirola
Zuhurrena ere erotzerainoko oinaze **zakar** batek hartu dizkio zainak. Anjel Lertxundi
Gas-lanparen argi **zakarraren** azpiko ohe-ilarak. Lopez de Arana
Gurpiletatik zetorren kexu **zakar** batek eman zigun izotzaren berri. Rafa Egiguren
Florentek ezezkoan jarraitu zuen, lehen baino harrotasun **zakarragoarekin**. Karlos Zabala
Poliziak kritikatu zituen, ordea, «modu **zakarrean**» sartzeagatik bulegoetan. Berria - Mundua
Vital Kutxako zuzendari nagusi Joseba Barrenak baztertu egin zuen prezioen jaitsiera **zakar** baten aukera. Berria - Ekonomia

## **5** (izen gisa)

Nola definitu Berdintasuna, norbanakoen mailan, zuhurraren eta **zakarraren** artean, ergelaren eta jeinuaren artean? Josu Zabaleta
Kontua duk delako Osorio horrek hire amari zera iragarri ziola, 'gau hartan ez zitzaiola itsatsi behar ezein gizoni, **zakar** bizian baitzegoen ilargia'. Juan Garzia
· Gerenteak, etenaren **zakarra** ahal bezala irentsi eta gero, hizketan segitu zuen. Anjel Lertxundi
Bere **zakarrean** ez zen Marta hain kontalari makala. Harkaitz Cano
Nik uste haiek gehiago ohartzen zirela: nire jokamoldeen **zakarra**, nire arropen xaxtarra... Xabier Mendiguren Elizegi

## **6** (hitz elkartuetan)

Hango urek **zakar** fama zuten, ur-laster askokoa baitzen, eta uda oro bainulari bat edo beste itotzen zen bertan. Anjel Lertxundi
Berriro ere aldatu egin du tonua, eta **zakar** itxuraz jarraitu du, histrionikoki. Bernardo Atxaga

## **7** (adizlagun gisa, giza ekintza eta alderdiez mintzatuz) ik **zakarki.**

Ez **zakar**, ez leun, batere ez erantzutea erabaki nuen orduan. Xabier Mendiguren Elizegi
Nik baietz erantzun nion, lakar eta **zakar**. Karlos Linazasoro
Azkar eta **zakar** esanda, potroetan jarri zaidalako egiten dut. Xabier Mendiguren Elizegi
Nire aldetik gaizki egina iruditu zitzaidan ama horren **zakar** tratatu izana. Josu Zabaleta
Raimundo Silvak, ohi baino **zakarrago**, esaten dio telefonistari galdetzeko ea hartuko duen edo poesia liburuko probak hango mahai gainean bertan uztea nahi duen. Jon Alonso
**Zakar** baitzegoen ustezko telefono entzuteen ondorioz, eta egunean hiru pakete erretzeak kontzientzia gaiztoa ematen ziolako, nik uste. Ramon Saizarbitoria
Altxa nintzen ohatzetik, eta zigarroa **zakar** jaurtirik arratoiarengana abiatu nintzen izerdi zuritan. Koldo Izagirre
Emakumeak **zakar** bultzatu zituzten atzeko gelarantz. Lopez de Arana
Julioren esku batek ileetatik heldu zidan, burua **zakar** jasoarazi, eta bestearekin masailekoa eman zidan. Juan Kruz Igerabide
Galga sakatu zuen, **zakar**. Iban Zaldua
Bukatu orduko, izeba Petuniak **zakar** kendu zion platera. Iñaki Mendiguren
Besoa **zakar** mugituz eman zion ezezkoa. Migel Angel Mintegi
Prezioaz **zakar** eztabaidatu ostean, hura zortzi liberetan ezartzea adostu zuten. Patxi Zubizarreta
Atea **zakar** zabaldurik, konkorduna topatu du, burua kazolan sarturik eta hankak airean dilindan. Patxi Zubizarreta
Lurralde hartako jaun den gizonak **zakar** hitz egin digu, eta zelataritzat hartu gaitu. Xabier Kintana
**Zakar** hasi zen Léa hizketan. Jon Muñoz
**Zakar** eta ozen erantzun nion, Adak bainugelatik entzuteko moduan. Anjel Lertxundi
-Alde hemendik -bota zion Percyk **zakar**. Iñaki Mendiguren
-Aizu, goiko hori! -oihu egin zion François andreak **zakar**. Karlos Zabala
"Non arraio sartu haiz?", egin zion oihu **zakar**. Aritz Gorrotxategi
-Itxi ezak atea, Florent -esan zuen **zakar**-. Karlos Zabala
-Eta zu? -galdetu zion **zakar** osaba Vernonek Harryri. Iñaki Mendiguren
Baina aita sartu da tartean, eta nahiko **zakar** baztertu nau handik. Josu Zabaleta
Ia ez zuen inorekin hitz egiten, eta **zakar** erantzuten zion bere lana eteten zionari. Iñaki Mendiguren
Tsiganokek **zakar** eta isekaz erantzuten zion beti. Jose Morales
Musiak begirada josi zuen **zakar** eta basatiki begiratzen zioten begi zorrotz eta ero samar haietan. Jose Morales
Oso **zakar** hartu ninduen. Anjel Lertxundi
Elkar **zakar** hartzen jarraitzen dute, bera kanpoan egon izana ezertarako izan ez balitz bezala. Oskar Arana
Tapaki bat bota nion **zakar**, hain **zakar** ere, sofa ondoko mahaia jo eta telefonoa bota bainuen lurrera. Inazio Mujika Iraola
Arabiar musulman primitiboek **zakar** astindua zuten beren bizimodu arkaiko tradizionala. Iñaki Mendiguren

## **8** (adizlagun gisa, eguraldi gertakariez mintzatuz)

Gertatu zen egunetan itsasoa **zakar** samar omen zebilen, eta uhin kolpe batek egotziko zuen itsasora Gabrielle. Migel Angel Mintegi
Haizea lehen bezain **zakar** ez zebilenez, [...]. Karlos Zabala
Uhinek **zakar** astintzen dute aurretik atzerantz. Koldo Izagirre

## **9** landugabea.

Ahoa paper **zakar** batekin garbitu, eta iturripean jarri zuen burua. Aritz Gorrotxategi
Paketea zabaldu dut; eta bi atal-edo topatu ditut barruan, biak paper lodi **zakar** banatan bilduak. Txillardegi
Lau ohol **zakar**, asto biren gainean. Patxi Ezkiaga
Artilezko longain **zakarra** soinean. Jose Morales
Zapi zuria buruan, soineko baldres **zakarra** gorputzean. Felipe Juaristi

Senarra marra lodiko pana **zakarrez** jantzita zegoen. Harkaitz Cano

Lur biluzia zuen gehienetan bere gorputz nekatuarentzat ohe, harria edo egurra buruko eta bere jantzi xume, **zakar** eta latza estalki. Askoren artean

Iztupa **zakarreko** oihalak nola josten diren erakutsi zidan. Juan Garzia

Mahaia, besaulkiak, aulkiak..., ezinago astuna eta **zakarra** zen dena. Jose Morales

Harri **zakarra** edo zura jotzen badu, bertan puskatzen da. Xabier Amuriza

Kamiseta lodi bat zeukan soinean [...] galtza eta zapatilla **zakar** batzuk, [...]. Xabier Olarra

Eskalapoietatik txapinetara, eta oihal **zakar** merkezko gonetatik zetazko soineko harro finetara. Patxi Ezkiaga

**10** (adizlagun gisa)

Izokina, zilar landua iduri, ezkatak metal leunduan gubilez joka eginda dauzkana; korrokoia, ezkata handiagokoa, eta **zakarrago** zizelatua. Karlos Zabala

**Zakar** dago zura, eta burdinak herdoildurik dauzka. Anjel Lertxundi

**11** ***zakar-zakar*** *adlag*

**Zakar-zakar** tratatzen zuen, nagusiak langile alferra bezala. Karlos Zabala

**Zakar-zakar** eseri zen, ukabilkada jo zuen mahaian, egunkaria baztertu zuen. Karlos Zabala

Izkinatik desagertu aurretik, Mikel jiratu eta, **zakar-zakar** oraindik, anaiari zuzendu zaio: [...]. Jokin Muñoz

· Haizea **zakar-zakarra** zetorren *Il Corso* deitzen dieten mendietatik, eta hotza gero eta minagoa zen. Anjel Lertxundi

**hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**

**ahots zakar** (16); **ahots zakar batek** (3); **ahots zakar baten** (3); **azkar eta zakar** (3); **bero zakar** (4); **bezain zakar** (5); **bota zion zakar** (8)

**erantzun zakar** (3); **erantzun zion zakar** (3); **esan zion zakar** (8); **esan zuen zakar** (6); **esku zakar** (3); **galdetu zion zakar** (3); **hagridek zakar** (4); **hain zakar** (12); **haize zakar** (15); **haize zakar batek** (5); **haizea zakar** (3); **hitz zakar** (6); **horren zakar** (7); **hots zakar** (3)

**itsaso zakar** (4); **itsasoa zakar** (7); **keinu zakar** (3); **kolpe zakar** (6); **kolpe zakar batez** (3); **maniobra zakar** (3); **mugimendu zakar** (7); **mugimendu zakar batez** (4)

**oihu zakar** (3); **oso zakar** (14)

**zakar antzean** (5); **zakar astindu** (3); **zakar bota** (3); **zakar bultzatu** (3); **zakar erantzun** (11); **zakar erantzun zion** (4); **zakar esan** (4); **zakar eta gordin** (3); **zakar eten** (3); **zakar hartu** (5); **zakar hitz egin** (6); **zakar jiratu** (5); **zakar jotzen** (3); **zakar kendu** (3); **zakar mintzatu** (5); **zakar moztu** (3); **zakar samar** (26); **zakar samarra** (10); **zakar tratatzen** (3); **zakar zakar** (4)

**ahots zakarra** (10); **bezain zakarra** (8); **eguraldi zakarra** (4); **erauntsi zakarra** (3); **gizon zakarra** (4); **hain zakarra izan** (3); **haize zakarra** (16); **itsaso zakarra** (10); **jarrera zakarra** (3); **kolpe zakarra** (3); **oso zakarra** (6)

**zakarra eta baldarra** (3); **zakarra izan** (21); **zakarra izan nahi** (4); **zakarra izango** (4); **zakarra zen** (9)

**baino zakarrago** (12); **gero eta zakarrago** (4)

**baino zakarragoa** (3)

**gero eta zakarragoak** (3)

**itsaso are zakarragoan** (3)

**ahots zakarrak** (4); **hain zakarrak** (5); **haize zakarrak** (11); **hazpegi zakarrak** (3); **itsaso zakarrak** (3)

**haize zakarraren** (3); **itsaso zakarraren** (6); **zakarraren menpe** (4)

**hain modu zakarrean** (3); **itsaso zakarrean** (3); **modu zakarrean** (14)

**olatu zakarren** (3)

**ahots zakarrez** (23)

**hitz zakarrik** (3)

---

## zakardi *iz* zakarrak dauden tokia.

Sasi, lahar eta **zakardietan** basurdea bere gogara bizi da. Gotzon Garate

---

## zakarkeria *(orobat **zakarreria** g.er.)* **1** *iz* egintza zakarra; zakartasun gaitzesgarria.

**Zakarkeria**, hitzen lehorra ezin daiteke bazter utzi. Jon Alonso

Ez bainituen atsegin ez aitaren **zakarkeria**, ezta amaren apalkeria ere. Joan Mari Irigoien

Drogazalea anaia duela esaterakoan ahotsak dardara egin badio ere, hunkipenaren eremutik **zakarkeriarenera** ekartzen du berriro jarduna. Anjel Lertxundi

Eguneroko jokabidea ez zen gizalegea eta forma demokratikoak zaintzea, ezpada **zakarkeria**, mehatxua eta gezurra. Berria - Harian

Ez dakit zertara zetorren hainbesteko presa eta **zakarkeria**, egia esan. Harkaitz Cano

Ruche jaunak ez zuen **zakarkeriarik** esateko ohiturarik. Jon Muñoz

-Tira, Perrette, barkatu **zakarkeria**, baina ergelkeria galanta esan duzu! Jon Muñoz

-Gilly, ez **zakarkeriarik** bota. Lopez de Arana

Eutsi egin dio jendetasunari hala ere, **zakarkeriaren** bat erantzun beharrean. Koldo Izagirre

Hori da Japonian jendaurrean egin daitekeen **zakarkeria** handienetako bat. Joxan Elosegi

Eta barka ezak **zakarkeria** -desenkusatu zuen bere burua-. Jon Muñoz

**Zakarkeria** leuntzen saiatu nintzen: [...]. Anjel Lertxundi

Polizia uniformedunen itxurazko gizabideak -zinez ohargarria, harat eraman nindutenen **zakarkeriaren** aldean- ez zuen nire kolera apaldu. Aingeru Epaltza

Kristorengatik edozer **zakarkeria** jasateko guztiz prest zegoela. Askoren artean

Begien bistan zegoen leuntasunez errefusatu zuela, **zakarkeriarik** gabe. Patxi Zubizarreta

Gizonak eutsi nahi izan zion, baina emakumeak burua mugitu zuen, urrundu egin zen, gizonaren besoetatik atera zen **zakarkeriarik** gabe. Jon Alonso

-Hire **zakarkeria** maitagarria duk, ez pentsa. Josu Landa

Bere baitan ulertu zuen galdera hark, **zakarkeriak zakarkeria**, adiskidetzea zekarrela. Patxi Zubizarreta

Ankerkeria erakusten zuen koldartasuna ezkutatzeko, **zakarkeria** tolesgabetasun-itxurak egiteko eta zitalkeria trebetasuna bailitzan adierazteko. Koro Navarro

Borrero baten gerizpean hazia nintzen, goarnizioko soldaduen **zakarkerian** eta haien ausarkerian hezia. Aingeru Epaltza

**2** (izenondo eta izenlagunekin)

Kalean zela konturatu zen nolako **zakarkeria** ikaragarria egin zuen. Koro Navarro

Ziren bezala txiroak izanik, auzoen txirotasuna gorrotatzen zuten gehien, gurea, ez baikenuen proletarioen **zakarkeria** gordinarekin zer ikusirik nahi. Eduardo Matauko

Osasunako jokalarien **zakarkeria** nabarmenari ez zion trabarik jarri. Berria - Kirola

Baina ez nion ametitu nire buruari pentsamendu makur hura, **zakarkeria** matxista atzerakoi hura. Karlos Linazasoro

Haren **zakarkeria** kontrolatuak, berriz, ordenaren zerbitzariek administratu arruntekin ohi duten jokamoldearen urrintto nahastezina zuen. Aingeru Epaltza

-Nor zarete zuek, jaunak? -galdetu zien errusieraz hotz-hotzik, baina ohiko **zakarkeriarik** gabe. Karlos Zabala

**3** (hitz elkartuetan)

Berezkotasun honek **zakarkeria**-itxurak oro kentzen zizkiela, zutitu eta mahaira joan zen. Jon Alonso

**4** ***zakarkeriaz*** *(15 agerraldi, 7 liburutan)* *adlag* ik **zakarki; zakar$^2$ 7.**

Zerbait eskatzera zetozkien guztiei, **zakarkeriaz** errieta egin, bizioak aurpegiratu, eta batzuetan irain egin ondoren, iruditzen zitzaiona ematen zien. Koro Navarro
Neskatxa, baina, **zakarkeriaz** mintzatu zitzaion, begirakune betizua josirik: [...]. Patxi Zubizarreta
Neskak, gizonarengana itzulirik, **zakarkeriaz** eten zuen: [...]. Patxi Zubizarreta
-Jakina! -moztu nau, ohiko **zakarkeriaz**, eta itxi egin dit leihatila. Jon Arretxe
Berehalakoan, soldaduek gatibuen taldeak miatu zituzten **zakarkeriaz**. Karlos Zabala

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
> **zakarkeriaren bat** (6)
> **zakarkeriarik gabe** (8)
> **zakarkeriaz esan** (3)

---

# **zakarki** *adlag* zakarkeriaz. ik **zakar**$^2$ **7**.

-Burutik zaude! -esan zuen berak, **zakarki**. Jose Morales
-Ospa hemendik! -esan zion **zakarki** On Camillok. Koldo Biguri
Gela arin zeharkatu eta, aldamenetik igarotzean, **zakarki** bota zion: [...]. Jose Morales
-Ez dut uste hemen denik -esan zuen Tomek, ordura arteko taktika **zakarki** aldatuz. Oskar Arana
Neskatoa **zakarki** esnatzeko gogoa. Ibon Uribarri
Neskak besoa askatu zuen **zakarki**, zer edo zer esanez. Xabier Mendiguren Elizegi
Irainka hasi zitzaizkion **zakarki**, erotua eta burutik egina zegoela hots eginez. Askoren artean
Motorra pizten du, eta **zakarki** eragiten dio bolanteari. Oskar Arana
Hernanin sartzerakoan, bideak eskuinera egiten du **zakarki**. Koldo Izagirre
Gordetzen dut, oraindik ere, garai haietako *Manuscritos de economía y filosofía* liburuaren ale zahar ia birrindua, boligrafo urdinez **zakarki** azpimarratua. Iban Zaldua
Emakumea ez zait (barka honen **zakarki** mintzatzea) batere "zerutiarra" iruditu. Txillardegi
Bi trumoi lehertu ziren hiriaren gainean eta euria **zakarki** erori zen. Bego Montorio
Naturak masa astunak arintzen ditu, zuzentasun **zakarki** nabarmena ezabatzen du. Jose Morales
Neska gazteek [...] aparrez zuri itsasoa **zakarki** haienganaino goratzen delarik lehoia sumintzen eta bihurtzen den gisan, gona jaso eta algara handitan egiten dute gibelera. Koldo Izagirre

---

# zakarontzi ik **zakarrontzi**.

---

# **zakarragotu**, zakarrago(tu), zakarragotzen da/du *ad* zakarrago aritu.

-Beroago egongo duk infernuan eltzea! - **zakarragotu** nintzaion. Inazio Mujika Iraola

---

# **zakarraldi** *iz* zakarkeriazko aldia.

Aitaren **zakarraldiren** batek ama negarrez jarri zuen. Anjel Lertxundi
-Sekulako **zakarraldiak** izaten ditu, nik ikusi dudan erorik berezienetako bat da. Josu Zabaleta
Gizonak **zakarraldiren** batean emakumea jotzeko keinurik egiten badu, heriotz mehatxu garbia izan dela erakutsiko dio abokatuak. Patziku Perurena
Urakanak **zakarraldi** bortitzagoa jo zuen orduan. Karlos Zabala
Jauregian zeraman denboraldian ikasia zuen itsas soinua bereizten, bai barealdian eta bai **zakarraldian**, bai kidetasunean eta bai etsaigoan. Felipe Juaristi

---

# zakarreria ik **zakarkeria**.

---

# **zakarro** *izond adkor* zakar aritzen dena.

Kleo Kleenetoko hau, haatik, Tuzididesek beti sokor-mazo **zakarroa** bezala erabiltzen baitu, kirten baten antzera, haren kontrairudia bere arrazoiketan ikustea, Diodoto Eukratekoa, gizon burutsu zuhurra, interesgarria gertatzen da guretzat. Joxe Azurmendi

---

# **zakarrontzi** *(orobat **zakar ontzi** g.er.eta **zakarontzi** g.er.)* **1** *izond* zakarrak botatzen diren ontzia.

Hiri-altzariak, bankuak, **zakarrontziak**, farolak, asko eta asko kenduak izan ziren, umeen jokoa eragotzi egiten zutela eta. Karlos Linazasoro
Horiek guztiak ez direla komunetik behera botatzeko, horretarako daukatela gai organikoen poltsa **zakarrontzian**. Berria - Euskal Herria
**Zakarrontziak** berebiziko kiratsa botatzen zuen. Josu Zabaleta
**Zakarrontzia** noizbehinka hustu egin behar da. Juan Kruz Igerabide
Gatzontzia **zakarrontzian** husten zuen bitartean. Jon Muñoz
Teresak txoria **zakarrontzi** batean utzi zuen. Bernardo Atxaga
Egunkari guztiak bagoiko **zakarrontzira** bota nituen. Alberto Ladron Arana
Beste batzuek diote inprimatzaileek **zakarrontzira** bota zituztela orriak, besterik gabe, edo beren pipak pizteko erabili zituztela. Oskar Arana
Arrosa zuria bakar-bakarrik zimeltzen zen tokira joan, eta **zakarrontzira** bota baitzuen, **zakarrontziko** tapakian kolpe indartsua emanez. Jon Alonso
**Zakarrontzietan** aztarrika ibiltzen diren agure triste horietako baten moduan amaituko duzu. Oskar Arana
Ohetik jaiki eta, kafegailua sutan zegoen bitartean, gutuna hartu zuen **zakarrontzitik**. Eider Rodriguez
Ni, berriz, txostena hartu eta kalera irten orduko garbi geratuko naiz, aurreneko **zakarrontzira** joango baita txiki-txiki eginda. Migel Angel Mintegi
Horrez gain, **zakarrontziak** erre zituzten. Berria - Mundua
Parisen aspaldi itxi baitzituzten **zakarrontzi** guztiak mairuen bonben beldurrez. Hasier Etxeberria
Autobusa hurbildu ahala, kaleko argi-ilarek, postontziek eta **zakarrontziek** salto egiten zuten paretik kentzeko. Iñaki Mendiguren
Irudipena zeneukan, eztarritik kendu berri zizuten minbiziaren alea **zakarrontzira** bota zuela Aldaba doktoreak. Hasier Etxeberria
Aurkitutako lehen **zakarrontzira** bota nuen papertxoa, keinu horrekin istorio guztiaz ahazteko itxaropenaz. Iban Zaldua
Galduta dabilen zakurra, **zakarrontzian** usnan. Xabier Etxabe

Gainerako guztia **zakarrontzira** botatzeko modukoa dela, alegia. Iban Zaldua

Nafarroarentzat boto baliagarriena CDNk ordezkatzen du, eta UPN-PP eta PSOE alderdi nazionalei botoa ematea botoa **zakarrontzira** botatzea da. Berria - Euskal Herria

Hori euskal xakearen bukaera izango litzateke, eta jende askoren urteetako lana **zakarrontzira** botatzea. Berria - Kirola

Betaurrekoen lente pitzatua kendu eta **zakarrontzi** moduan zegoen poltsa batera bota zuen. Fernando Morillo

**2** irud/hed

Gelak **zakarrontzi** bat zirudien. Patxi Zubizarreta

Ordenagailuko **zakarrontzi** birtuala ere hustu zuen, jarraian. Fernando Morillo

**3** (hitz elkartueetan)

Paper **zakarrontzi** handi bat zen nire apartamentua. Koro Navarro

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
> **zakarrontzira bota** (31); **zakarrontzira bota zuen** (4); **zakarrontzira botako** (7); **zakarrontzira botatzea** (4); **zakarrontzira botatzen** (4)

---

## zakartasun **1** *iz* zakarra denaren nolakotasuna. ik **zakarkeria**.

Suak egurra pizten duen bezala, aienatzen ditu hezetasunak, berdetasunak, **zakartasunak**. Joan Mari Lekuona

Bizarra egin gabeko musuen **zakartasuna**. Berria - Kultura

Aginduak emateko ahotsik gabe, kemenik gabe, **zakartasunik** gabe. Felipe Juaristi

Buru gaineko kalpar latzak gogotik ferekatu nizkion, amultsutasuna mozorrozteko xedea zuen **zakartasun** gehiegizkoaz. Aingeru Epaltza

**Zakartasuna** eta goxotasuna noiz bat noiz bestea nahasian zebiltzan. Juan Garzia

Taldearen aurreko lanetan nagusi zen **zakartasunak** eta gordintasunak lekua utzi diote Akauzazteren alderdi akustikoenari. Berria - Kultura

Sudurraren zabalak areagotutako zintzur-hotsaren **zakartasunak** traizionatzen zuen, zaunkaka hitz egiten zuela irudi baitzuen-. Anjel Lertxundi

Ez nuen horrelakorik esateko asmorik, ez nion **zakartasunik** erakutsi nahi amari, baina hor etorri zitzaidan gorrotoa berriro goraka. Anjel Lertxundi

Fenomenoaren ezaugarririk bereziena, agian, mugimenduen **zakartasuna** izan zen. Josu Landa

Gizarte primitibo eta rustiko guztietan bezala, Euskal Herrian politak neskak daude, oraindik gizartearen **zakartasunak** zakartu gabeak, loreak. Koldo Izagirre

Bidaia osoa pasa nuen [...] errimarik gabeko ahapaldi estu sentimenduz bete haiek, irudiz eta sentipenez gainezka, bere **zakartasunean** hunkigarriak neureganatzen. Jon Muñoz

Betidanik izan duen **zakartasunerako** joera areagotu egin zitzaion alargunduz geroztik. Xabier Mendiguren Elizegi

"Bedeinkatua izan bedi basoko mutilen **zakartasuna**!", hots egin dut. Bernardo Atxaga

**2** (izenondo eta izenlagunekin)

Klodiak ezin zuen jasan haren **zakartasun** basa, landa usainekoa. Juan Garzia

Ondoko sotoetatik mota guztietako usainak iristen zitzaizkien oholetatik zehar: barazkien gezatasuna, arrainaren laztasuna, gaztaren **zakartasun** kirasduna, hegaztien bero bizia. Karlos Zabala

Zirinen **zakartasun** alkalinoa zen nagusi. Karlos Zabala

Jatorrizko **zakartasuna** aurkitzen da han, beste espirituren batek ahuldu gabeko espiritua. Iñaki Iñurrieta

**3** (hitz elkartuetan)

Maitasuna sentitu bai baina adieraztea onartzen ez duen **zakartasun** mota hori zeukan. Pako Aristi

· Ez zela gehiegi saiatu bere adierazpen-**zakartasunak** leuntzen. Joan Mari Lekuona

**4** ***zakartasunez*** *(**8** agerraldi, **6** liburutan) adlag* ik **zakarkeria 4**.

Bernardino negar batean ari zen, eta autoaren inguruan zebiltzan falangistek isiltzeko agindu zioten **zakartasunez**. Bernardo Atxaga

Ama kontuak hartzen hasten zitzaidan **zakartasunez**. Anjel Lertxundi

Hemen lefa usaina dago! -esan zigun, **zakartasunez**. Jon Arretxe

---

## zakartegi *iz* zakarren biltegia.

Barne zirkuituak erretzean **zakartegi** munizipalerako baizik ez zara on. Itxaro Borda

Irakurle maitea, honainoko istorioa gustatzen ez baldin bazaizu, liburua abandonatzen eta SIVOM anitzek ordaindu **zakartegietara** botatzen ahal duzu: ulertuko dut. Itxaro Borda

---

## zakartu[1], zakar(tu), zakartzen **1** da *ad* zakar bihurtu.

Hasieran **zakartu** egiten naiz, gero triste jartzen. Josu Zabaleta

Leuna **zakartzen** edota mikatza eztitzen. Patxi Ezkiaga

Larunbatetako alkoholak kitzikaturik, erraz **zakartzen** ziren. Juan Garzia

-Agian ez da sobera **zakartuko**, atzarri eta zu hemen ez ikusita. Aingeru Epaltza

-Zoaz kukusoak orraztera! -**zakartu** zitzaion Noraren aita, ez baitzekien Andreas adarra jotzen ari ote zitzaion. Anjel Lertxundi

-Baina Ivan Grigorievitx ez da bakarra, beste batzuk ere badira tartean -**zakartu** zitzaion Ivan Antonovitx. Jose Morales

Gero, senarraren segurtasunarekiko izuak behin uxatuta, **zakartu** egiten zitzaion aldartea eta minduta sentitzen zen. Mirentxu Larrañaga

Hala bada, akaberan ustelkeria bere baitan nagusitu zelarik, **zakartu** egin zen, pasioen mende gertatu. Patxi Zubizarreta

Bepen hotzeria ez da gripe bihurtu, ahotsa **zakartu** zaio, besterik ez. Josu Zabaleta

Eztarritik ateratzen zaion ahotsa lakarra da, amorruz **zakartua**. Oskar Arana

Motor-hotsak **zakartu** egiten dira, arrisku-seinaleak bailiran. Javi Cillero

-Sekula ez dizut maitasunik agindu, orain arte ez dut-eta jakin maitasuna zer den -esan, eta ahoa **zakartua** zuela konturatu zen mutila. Felipe Juaristi

Pixkana-pixkana irribarrea itzali zitzaion eta begitartea **zakartu**. Anjel Lertxundi

Eguerdi aldera itsasoa **zakartzen** hasi zen. Migel Angel Mintegi

Eguraldia, ordea, oso **zakartu** zen. Berria - Kirola

Herriko giroa ere **zakartu** da. Berria - Harian

Askotan, entzuten diezu politikari profesionalei, eta horren falta sumatzen duzu, beti **zakartuta** ikusten dituzu, beti mikaztuta, beti haserre, eta jeneralean gainera builaka. Bernardo Atxaga

"Zuekin ezin duk!", esan zuen Carlosek **zakartuta**, eta alde egin zuen bileratik. Bernardo Atxaga

Bigarren zatian partida erabat **zakartu** zen epaileak Celtako Angel eta Mendez kanporatu zituen. Berria - Kirola

Gizarte primitibo eta rustiko guztietan bezala, Euskal Herrian politak neskak daude, oraindik gizartearen zakartasunak **zakartu** gabeak, loreak. Koldo Izagirre

**2** (du aditz gisa)

Gogotxartu eta **zakartu** egin ohi nau horrek, eta zakar samar moztu nion Monikari ere. Joxean Agirre

Ahotsa **zakartzen** zuela, erantsi zuen-: Eta guk, zer...? Joan Mari Irigoien

Gosariaz geroztik fitsik ahoratu gabea nintzen, eta jan zaharra egoteak muturtzen eta **zakartzen** ohi nau. Aingeru Epaltza

Mathildek benetako ahalegina egin zuen bere jarduna ez **zakartzeko**. Anjel Lertxundi

Benetan irrigarriak dira kontraesan hauek: sineskeriak **zakartutako** herri batek bakarrik sinets eta onar ditzake. Juan Martin Elexpuru / Bego Montorio

Haize bortitzak [...] itsasoko azala **zakartzen** zuen. Joanes Urkixo

Haize boladek erabat **zakarturik** zeukaten berez zakarra zen gaua. Migel Angel Mintegi

**3** (era burutua izenondo gisa)

Zirimolaren lekuko denaren ahots **zakartuaz**. Felipe Juaristi

Langile eskuak dira, zikinak, **zakartuak** baina zintzoak. Matías Mujika

Biluzik etzan ginen belar **zakartuaren** gainean, gure mendekuaz harro eta barruko piztia sosegatuta. Koldo Izagirre

Lerroak itsaso **zakartua** zirudien Ararateko mendi-mazeletan. Fernando Rey

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
> **itsasoa zakartu** (3); **zakartu egin zen** (5); **zakartu zitzaion** (7)
> **itsasoa zakartzen** (4)

---

# zakartu[2], zakar(tu), zakartzen da *ad* zakarrak atera.

Ihuriko urak gorputza pozoituta, giharrak eta burua mindu zitzaizkidan, hotzikarak nire gorputzaz jabetu, bularretako eta besoetako larru-azala **zakartu**, burua galtzerainoko kalentura piztu. Aingeru Epaltza

Gizon legenez oro **zakartu** bat, erdu usteldua, heldu zaio oihuz: [...]. Xipri Arbelbide

---

# zakartxo *izond adkor* apur bat zakarra.

Haize **zakartxoak** errotik atera lezakeen txabolatxoan bizi da Sheela. Gotzon Garate

---

# zakarxe *adlag* zakar samar.

Hitz emandako txostenaz galdetzeko asmoa nuela kontuan hartuta, nahi baino **zakarxeago** ihardetsi nion. Aingeru Epaltza

---

# zakarxko **1** *izond* zakartxoa.

**-Zakarxkoa**, ezta?, gure Klara. Aingeru Epaltza

**2** (adizlagun gisa)

Hor ikusten da, tarteka urrutisko ere joaten zela zirri kontua, eta inoren kontsentimentuaren kontra, eskua **zakarxko** luzatzen zuenak, taldean bazen eta aiseago, jakina, kartzela edo isuna pagatu ere bai. Patziku Perurena

---

# zakatz **1** *iz* uretako animalien arnas organoa, mintzezko xafla batek edo hari izpi multzo batek osatua. ik **brankia**.

Sardinzarrek, apur bat bihurriturik, beren **zakatz** odoltsuen zauria erakusten zuten urrezko hariz apainduriko soinekoen gainean. Karlos Zabala

Arrain haien begi bizien eta **zakatz** oraindik odoltsuen erdian, arraia handi bat ageri zen, gorrikara, orban ilunez pintarratua. Karlos Zabala

Hau besterik ez baita itsasoarekiko substantzia-trukaketa: oxigenoa **zakatzetatik** igaro, janaria ahotik hartu, eta hondakinak organo espezializatuetatik, hala nola giltzurrunetatik, kanporatu. Irene Aldasoro

**Zakatzetatik** sartzen den uraren parte bat odolera igarotzen da ezinbestean, eta giltzurrunen bidez atera behar da. Irene Aldasoro

Slightly, arrainaren **zakatza** baino zuriago, konturatu zen Kako-okerrek sekretua aurkitu zuela. Julen Gabiria

**2**

Eta malkoak ageri zituen, **zakatzak** gorri, trenbidea iragaiten genuelarik. Koldo Izagirre

**3** *izond (irain gisa)*

Amorru handiagoz esaten nuen, isilean baina garrasika: txepela!, kaskaila!, **zakatza**!, Anjel Lertxundi

---

# zakil **1** *iz* gizakiaren eta abere arren ernalkinaren zatia, hazia nahiz gernua kanporatzeko organo zutikorra, sabelpean kokatua dagoena. ik **buztan**.

Begien aurrean duzun Venusen makila hau, Eugeni, amodio-atseginen eragilerik nagusiena da: **zakila** esaten zaio. Juan Martin Elexpuru / Bego Montorio

Eboluzioaren historian, beraz, **zakila** narrastien asmakizuna izan da, lehorreko lurretara aldatu eta bertan ugaltzeko pentsatua. Luis Elberdin

Gizakien koitoan **zakilak** eta klitoriak ez dute elkar ukitzen. Luis Elberdin

Ohartu ziren emakume heterosexualak, normalean, gizonaren **zakila** baino ez dutela ferekatzen, eta gayek, berriz, lagunaren frenulua, barrabilak, perineoa, ipurdiko zuloa, izterrak, pubisa eta sabelaren behealdea ere laztantzen dituzte. Luis Elberdin

**Zakilari** eragiten zion eman ahala guztian. Juan Martin Elexpuru

Ponpatuz bezala eragiten zaio lagunaren **zakilari**; atzera-aurrera batzuen ondoren, hazia isuri egiten da. Juan Martin Elexpuru / Bego Montorio

**Zakila** eroki torratuz gidatzen zian *trucka son of bitch* hark. Itxaro Borda

Emakumeei begiratzea, fantasiak egitea, eta **zakila** urratu arte masturbatzea. Urtzi Urrutikoetxea

Bere emaztea ez den norbaitek EEBBtako lehendakari bati **zakila** miazkatzen dion lehen aldia balitz bezala. Harkaitz Cano

Hura beldurrez ni desloratzeko eta ni aspalditik gogo bizian haren **zakila** xurgatzeko. Karlos Zabala

Zuk bati **zakila** zurrupatzen diozun bitartean, beste batek sartzen dizu hondoraino, ez dago gaizki lagunen eta maitaleen artean bazaude. Karlos Zabala

-Jode Yolo, **zakila** jateak on egin dik! Pako Aristi

**Zakilaren** mokoa edo glandea sentimen errezeptorez josita dago. Luis Elberdin

**Zakila** iratzarri egiten da, aztoratu, handitu, gogortu, berotu, eta burua altxatu, inguruetara begiratu eta aterpe epel eta heze baten bila hasten da. Luis Elberdin

**Zakila** tente-tente du, eta harekin ukitu du neskaren saihetseko haragia. Juan Martin Elexpuru

Galtzontzilo barrenean gogor eta zut zeukan **zakila**. Unai Iturriaga

Haren **zakilak** tinkotasun nabarmena zuen dagoeneko. Juan Martin Elexpuru

**Zakila** izter gainean neukan eta izterrean hazia. Aitor Arana

**Zakila** burdina baino gogorrago neukan. Aitor Arana

Zure hurbiltasun hutsak kemenez betetzen du izorratzen nauen **zakila**. Juan Martin Elexpuru / Bego Montorio

**2** (izenondoekin)

**Zakil** txikia ez da gauza bera, nola izango da bada? Karlos Zabala

Halako batean **zakil** luze eta txuri-txuria hantxe nuen nire aurrean, apaiz baten eskuen artean. Alberto Barandiaren

Haren **zakil** gogorrak masaila ukitzen ziola sentitu zuen. Karlos Zabala

"Ikusten al duzu zein egoeratan utzi nauzun, zaldun laztana?", esan zidan bere **zakil** zaildu eta burugogorra eskainiz. Juan Martin Elexpuru / Bego Montorio

Haren **zakil** gihartsu eta zaintsua ikusten nuen sartzen, gero eta barnerago haren baitan. Juan Martin Elexpuru

**Zakil** eder hura estutu nuen hatzen artean, laster aho-barrenean izango nuela burutik kendu ezinik. Karlos Zabala

Zu baino neska gazteagoak ikusi ditut nik **zakil** lodiagoak jasaten. Juan Martin Elexpuru / Bego Montorio

Bere **zakil** bero eta gogorra izterraren kontra sentitu nuen. Aitor Arana

Bere **zakil** tentea harro eta prest azaldu zitzaidan begien aurrean. Aitor Arana

Haren **zakil** bigundua berez irten da preso zuen kutxatila ederretik. Juan Martin Elexpuru

Hanka artean izter erdialderainoko **zakil** sendoa zeraman zintzilik. Aitor Arana

**Zakila** izter gainean neukan eta izterrean hazia. Aitor Arana

Gizonak irristagarriz igurtzi ditu bere **zakil** ezin tenteagoa. Juan Martin Elexpuru

**3** (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

Erroma zaharrean, garai batean, emaztegaiek Priaporen **zakil**-burua ferekatzen zuten edo haren gainean esertzen ziren. Karlos Zabala

Bere kanpai-jotzea azkartzen zuela ikusi nuen, batzuetan bere **zakilburuak** nire ipurmasailak astintzen zituela sentitzen nuen. Juan Martin Elexpuru

Osabak **zakilburuko** azalari "mottoa" esaten zion beti. Aitor Arana

Eskuan ttu pixka bat hartu eta **zakilbaban** zabaltzean amaitu zen deserosotasuna. Aitor Arana

Zer dira ba **zakil**-baba zarbelak! Anjel Lertxundi

Zeuen **zakil**-muturra erdainduko duzue: horixe izango duzue nire eta zuen arteko itunaren ezaugarria. Elizen arteko biblia

**Zakil** punta laru bat bezala. Jon Alonso

Zenbat eta **zakil**-haria gehiago tenkatu, orduan eta erekzio harroagoa eragingo didazu. Juan Martin Elexpuru / Bego Montorio

Ipurtestua eta bizkarzabala baitzen, gorputzean ile gutxikoa eta **zakil**-erro handi samarrekoa. Aitor Arana

**Zakil** egarriz zegoen potxon irrikatsu bati ene esnea eskaini nion babes gabe. Aitor Arana

Larru-jotzeak eta **zakil**-miazteak hainbestean ziren baliagarri, oharturik zen horretaz. Oskar Arana

· Gerra zauri baten ondorioz **zakil**-barrabilak moztu zizkioten. Pablo Sastre

**4** (hitz elkartuetan lehen osagai gisa, elkarketak izenondo balioa duela)

Gizarte baino gehiago emarte edo ema-gizartea zena, matriarkala, ekologista, auzolangilea, berdinzalea, ekialdetikako izurri hondatzaile, menderatzaile, gerrazale, patriarkal, **zakil**-harroak desegin zuena. Iñaki Segurola

-Zizare **zakil**-beroa! Aingeru Epaltza

Neska putaziringa **zakil**-berotzailearen adar-jotze krudelak larregikoak ziren. Jon Arretxe

**5** (izenondo gisa)

Ardiak, beldurrak bakarrik mugiarazten dituen abere **zakilak**, pentsatu zenuen. Hasier Etxeberria

**Zakila** esaten digu, pertsona **zakila** edo astazakila, astapotroa, astopitoa, kirtena, eta kirtenkeria, pitokeria eta abar. Iñaki Segurola

Ikas ezak, ikas ezak, tedesko urde-lerde **zakil** horrek, dena badakizuela uste duzue-eta! Anjel Lertxundi

**6** ***zakil moko*** (*orobat* ***zakilmoko***)

Marroren maitasuna **zakil-mokotik** poltsikora eta poltsikotik **zakil-mokora** zebilen, ez zekien-eta beste biderik. Juan Kruz Igerabide

Gizonak maisuki bildu eta zurrupatzen zidan **zakilmokoa** bere ezpain bustiez. Aitor Arana

Tarteka potroazala eta **zakilmokoa** ferekatzen nizkion esku batez, atzetik hartzen zuen plazerra aurretik har zezakeenaz areagotzeko. Aitor Arana

**hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**

**bere zakil tentea** (3); **zakil barrabilak** (3); **zakil eder** (6); **zakil handi** (3); **zakil lodi** (3); **zakil muturra** (6); **zakil osoa** (3); **zakil puntan** (3); **zakil tente** (5); **zakil tentea** (6); **zakil tentearen** (3); **zakil txiki** (4); **zakil txikia** (3)

**gizonaren zakila** (4)

**zakila ahoan** (6); **zakila aluan** (3); **zakila atera** (11); **zakila eskuan** (3); **zakila gogor** (3); **zakila gogorra** (3); **zakila gogorra zuela** (3); **zakila miazkatzen** (3); **zakila sartu** (7); **zakila sartzen** (6); **zakila tente** (11); **zakila tente jartzen** (3); **zakila ukitu** (7); **zakila ukitzen** (5)

**inolako kontakturik zakilaren** (4); **klitoriaren eta zakilaren** (5); **zakilaren barrena** (3); **zakilaren eta klitoriaren** (6); **zakilaren glandean** (3); **zakilaren jabea** (3); **zakilaren mokoan** (3); **zakilaren mugimenduen** (3); **zakilaren neurriak** (3)

**zakilari eragiten** (3); **zakilari heldu** (3)

---

## zakilbaba ik **zakil 3**.

---

## zakilburu ik **zakil 3**.

---

## **zakildu**, zakil(du), zakiltzen **1** da/du *ad* zakilaz hartu.

Begira, aingeru eder hori, ikusten al duzu **zakildu** behar duzun zuloa? Ezin nuen ia intziririk ere egin, **zakildua** sentitzen nintzen alde guztietatik, garunak lehertzeko zorian nituen. Juan Martin Elexpuru / Bego Montorio

Nire erraietan nola **zakiltzen** zuen jabetzen nintzen, eta ordurarte inoiz sentitu gabeko zerbaitek atsegin-zotinak atera zizkidan. Juan Martin Elexpuru

**2** zakil itxurakoa bihurtu.

Garapena, garatzea, badakigu zer den: letxugarekin edo tipularekin gogoratzea aski, jabetzeko garatzea (bestelako hitzez: ziltzea, makila egitea, zakartzea, **zakiltzea** (sic)...) alferrik galtzea dela, gehiago jateko modukoa ez izatea. Iñaki Segurola

---

## **zakildun** *izond/iz* zakila duena.

Neska puska ederra... Sinetsi nahi al didak konketa-musu hori, zera, **zakilduna** dela? Juan Kruz Igerabide

Prozesu fisiologiko horrek, bai **zakildunari**, bai hura iratzartzen duenari, betidanik sortu die ikusmina, erakarpena, harridura, mirespena. Luis Elberdin

**zakileratu**, zakilera(tu), zakileratzen da *ad* zakilera joan.

Odola **zakileratzen** zitzaidala sentiturik, *menage à trois* zoragarri bat irudikatzen hasi nintzen. Juan Luis Zabala

**zakilgabe** *izond* zakilik ez duena.

**Zakilgabea**! Iñaki Zabaleta

**zakilki** *iz*

Segi zuen **zakilki** horri buruz hizketan. Unai Iturriaga

zakilmoko ik **zakil 6**.

**zakilmotz** *izond* zakila motza duena.

Nik orduan ahal nuena egiten nuen, padrek esaten zuen moduan, Franco ipurdi zuri putre nano **zakilmotz** basurdekume hankoker haren kantu faxistaketa ez ikasteko. Jon Maia

**zakilño** *iz* zakil txikia.

Komunean **zakilñoarekin** zuloan aparatzen saiatu zen. Unai Iturriaga

**zakilote** *iz*

Ez dute konprenitzen, motzak direla **zakiloteok**. Koldo Izagirre

**zakilpoto** *izond (irain hitza)*

Jakingo bazenu zein **zakilpoto** den etxean, nola hitz egiten duen zutaz... Iñaki Iñurrieta

**zakilpotro** *izond (irain hitza)*

Galtzak orkatiletara, galtzontziloak belaunetara, **zakilpotro** ilun tristeak erakutsiz hasiko da pinguinoen ibilera imitatzen. Joseba Sarrionandia

-Antonio, **zakilpotro** halakoa, ziztuan ohera! Aingeru Epaltza

**zakiltxo** *iz* zakil txikia.

Izan ere, bere **zakiltxoa**, gogorrean ere, ez zen nire erpurua baino handiagoa. Aitor Arana

Emakumeak ere **zakiltxoan** eta pottottan atxiмur egiten die; ondoren, atzetik jartzen zaio Gizonari eta, azazkalez sorbalda urratzen dion bitartean, pepino moduko zer edo zer sartzen dio ipurditik. Xabier Mendiguren Elizegi

Uilek lo jarraitzen zuen zutik, baina amonak **zakiltxo** bigun eta argala hara eta hona ibiltzen zion, hatz txiki bat bezala, harik eta esnatu eta pixa erreka bero horia egiten zuen arte. Juan Kruz Igerabide

**zakiltzar** *iz adkor* zakil handia.

Hogeita bi zentimetroko **zakiltzar** honek mirariak egiten ditu. Jon Arretxe

Nola gustatzen zaidan **zakiltzar** hau birjina baten klitoriaren gainean igurztea! Juan Martin Elexpuru / Bego Montorio

Elefantea sudurraz edo zaldia bere **zakiltzarraz** popatik ematen ari balitzait bezala sentitzen nuen. Aitor Arana

Orduan gure gonbidatua, **zakiltzarra** Antonioren uzkitik atera gabe, pixka bat tentetu eta zaldi baten gainean bezala eseri zen bere hartuaren ipurdi gainean. Aitor Arana

**zakilzut** *adlag* zakila zutik duela.

Dolmancé, Saint-Ange Anderearen eskuetatik **zakilzut** irtenez: Eugeni, utzidazu amaren ipurdia, nire txanda da eta. Juan Martin Elexpuru / Bego Montorio

**zaku** **1** *iz* plastiko, ehun edo paper sendoz eginiko zorroa, gehienetan handia eta sakona, goialdean itxi daitekeena. ik **xaku**.

Ez, ez nuen neure burua ikusten **zaku** bat ikatzez bete, bizkarrean hartu eta hiriaren beste muturrera eramaten. Anjel Lertxundi

Agudo-agudo jaitsi zituzten **zakuak** lurrera, nork berea, eta ireki egin zituzten. Jose Antonio Mujika

**Zaku** bat bete orduko, bi gizonen artean hartzen zuten eta baskulan pizatzen. Angel Aintziburu / Jean Baptiste Etxarren

**Zaku** hark hotzetik eta euritik babesten zituen. Eneko Bidegain

Segidan, ikatza **zakutan** sartu eta **zakuetan** hogeita bosna kilo zegoela begiratu behar nuen. Anjel Lertxundi

**Zaku** batzuen gainean jesarri zen. Koldo Izagirre

Ura sartu zen **zakuetan** eta irina alferrik galdu zen. Koro Navarro

Agureak urrea **zakuetan** sartzen lagundu zion eta, badaezpada ere, **zaku** bakoitzaren gainean olibak ipintzen. Patxi Zubizarreta

Hirurehun bat kilo zilar utzi nituen, **zaku** batzuetan gordeta, bahi gisa, Gabael zeritzan gizon baten etxean. Jose Antonio Mujika

Gorpuak **zakuetan** bildu eta herri erditik igarotzen den ubidera jaurti zituzten. Gotzon Garate

-Nahi baduzu nik eremanen dizut **zakua** -proposatu zion Joanesek. Eneko Bidegain

Ukabilkadak ematen sabaitik zintzilika jarri nuen hareaz betetako **zakuari**. Anjel Lertxundi

Trapu zaharrez jantzirik ziren eta armak zein **zakuan** metatu puskak zamatzen zitzaizkien soin gainean. Itxaro Borda
**Zakua** burutik behera sartu, eskuak lotu eta hesi atzera eraman besterik ez nian egin. Koldo Biguri
Gero, zakurra **zakura** sartu zuen. Harkaitz Cano
Norbaitek, auskalo noiz, gizon bat garbitu dik, sartu dik **zaku** batean eta **zakua** ibaira bota gero. Koldo Biguri
**Zakuen** jostura batzuk askatu egin dira, pisuagatik. Josu Zabaleta
**Zakuzko** jantzia eta **zakuz** estaliriko larruzko txanoa zeramatzan. Askoren artean
-Egurra hor dago, eta zuek ekarri lo egiteko **zaku** eta hemengo ohe estalkiekin aski izanen duzue. Aurelia Arkotxa
*ik beherago* 15. Askoren artean
Zakulariek 80 kiloko **zakuarekin** jardungo dute, eta Mutrikuko hiru talde lehiatuko dira; haiek irabazi zuten iaz. Berria - Kirola

**2** (izenondo eta izenlagunekin)

Puskak, arropak, aldizkariak **zaku** plastikoetan zerratu zizkioten. Itxaro Borda
Kalamu-zuntzaz egindako **zaku** normal-normalak ziren. Anjel Lertxundi
Hilabete batzuk geroago, airekotik jaitsi zen New Yorken, txapela kaskoan eta puskilaz bete **zaku** txikia ahurrean. Itxaro Borda
Boxeo entrenamenduetarako erabili ohi ziren bi **zaku** erraldoi, hareaz beteta dauden horietakoak. Harkaitz Cano
Bizkarra euritik babesteko **zaku** zahar ireki bat burutik behera botea. Juan Luis Zabala
Tentuz ibili, **zaku** huts guztiekin itzuli behar duk. Anjel Lertxundi
**Zaku** bete-betea urratu eta gero aleari eutsi nahi balio bezala. Juan Garzia
Gero, horman zegoen kako batean eta oholesiko beste batean eseki zuen **zaku** uztaiduna. Anjel Lertxundi
Tabakoa postako **zakuetan** ekartzen zuten. Josu Landa
Joanesek ogi zatiak bizkarreko **zakuan** sartu eta urruntzekotan ziren mementoan, SS batek oihu bat bota zuen. Eneko Bidegain
*ik beherago* 11. Askoren artean
Orduan erabaki ninan soinekoa behintzat edukiko nuela, laneko **zaku** zaharra izan gabe. Anton Garikano
Bizkarra eta burua babesteko jarri duen arpillerazko **zakuak** ia aurpegiaren erdia estaltzen dio mutilari. Pello Lizarralde
Erabat zuritu zaizkie jutezko **zakuak** eta eskuak. Pello Lizarralde
Ordubete doi-doia geratzen baitzait gerrian daramadan kalamuzko **zakua** lanpernez betetzeko, atzera itsasgora hasi baino lehen. Anjel Lertxundi
Plastikozko **zaku** beltz batean ezkutatu nuen eguzki lorea. Juan Kruz Igerabide

**3** (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

Oinarria egurrezkoa da, gainean lastoa, eta horren gainean **zaku**-oihala. Urtzi Urrutikoetxea
Urteko zergaren dirua eramaten huen **zaku**-oihalezko galtzetan josirik edo boten barruan sarturik. Jose Morales
**Zaku** puska bategaz biltzen dut. Koldo Izagirre
Makurtu eta mahats-aizturrez ebaki zuen **zaku**-ahoa ixten zuen burdinaria. Koldo Biguri
Motore urrina zerien **zaku** meta gurintsuetan pausatzen zuten Rafa, lo egin zezan. Itxaro Borda
Lokotxak, txingak, **zaku** joko, toka, trontza, soka-tira. Herria
Eta **zaku**-karrerarekin eta eltzetxoak apurtzeko jokoan ere dibertitu zen. Koldo Biguri
Taldekako **zaku** lasterketan, iazkoaren mendekua eman zion Beskoitzek (1: 31) Ñapurrak taldeari. Berria - Kirola
Zelaian denbora pasa eta jolasak ere ez zituzten eskas: txistulariak, **zaku** karrerak, abeslari eta dantzari saioak, bertsolariak... Jokin Urain
· Jendea mukuru pilatua, **zaku** patatak balira bezala. Gotzon Garate

**4** (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa)

Intertestualitatea deitzen zaion lapur-**zaku** hondorik gabea. Anjel Lertxundi
Den-dena lepo-**zaku** umil batean batuta. Edorta Jimenez
Lubisek pentsu-**zaku** bat zeukan bularraren parean bi besoekin hartuta. Bernardo Atxaga
Egoskari **zakuak** armairu-atearen atzean dagoen korridorean zeuden gakoetatik eskegita. Josu Zabaleta
Neure hornigai-**zakua** aurkitu diat zoruan botatako zapi batzuen artean. Agustin Otsoa
Hautsez estalitako olio-bidoien eta azukre- eta te-**zakuen** artean. Juan Kruz Igerabide
Ogi **zaku** higatuak zeramatzaten soinean. Itxaro Borda
Ni azokara nentorren, astelehenero bezala, irin-**zakuak** hartu eta irina erostera. Anjel Lertxundi
-Jakesen emazteak zahi-**zaku** antza erabiltzen xitu. Itxaro Borda
Besapean zerbait zeramala lur-**zaku** batean bilduta. Anjel Lertxundi
Ez zuen batere arazorik izan boxeo **zakuak** maileguan hartzeko. Harkaitz Cano
Pasaiako klubeko kide batekin punching **zakuak** ekartzera etorri ninduan atzo. Harkaitz Cano
Patata **zakuen** tamainako ukabilak zituen mutila. Koldo Biguri
Kamioi batetik lurrera botatako porlan-**zaku** batena bezalako hotsa etorri zait leihotik. Anjel Lertxundi

**5** irud/hed

Ez nolanahiko gatazkak, gainera, ikastolak publiko bihurtzearen alde atera zen jendea, holakoetan sistematikoki gertatzen denez, antieuskaldunen **zakuan** sartzen ahalegindu baitziren. Pello Salaburu
Arreta bereziko gaien **zakuan** «autogobernuari» buruz Legebiltzarrera iritsi diren ekimenak sartu zituen Sanzek. Berria - Euskal Herria
**Zaku** handi horren barruan sartzen dira XVI. eta XVIII. mende bitarteko lan asko. Gure musika estiloa ezin dugu sartu **zaku** bakarrean. Berria - Kultura
-Ezkondu eta handik bi urtera -esan zuen Anshelek-, **zaku** zahar bat izango da. Koro Navarro
Besteak beste, Fonetika Historikoaren lanak ahanzturaren **zakuan** galdu dira. Lourdes Oñederra
Gainezka bainuen ilusioaren **zakua**, gainezka halaber erantzukizun eta egin beharrekoen zerrenda. Xabier Mendiguren Elizegi
Gauaren **zaku** iluna hotsez eta zarataz betetzen joan zen. Edorta Jimenez
Ingoren heriotza eta aitarekin ezkondu izana sartzen nituen nik, denak batera, arranguraren **zakuan**. Anjel Lertxundi
Efemerideen **zakura** bota ditugun hainbat datu klimatologiko. Pello Zabala
-Nori? -ezusteen **zakua** mukuru betetzen ari zitzaidan. Aingeru Epaltza

**6** (irud/hed, hitz elkartuetan bigarren osagai gisa, elkarketak izenondo balioa duela)

Gizaseme ele-**zaku** horietako bat eseri zitzaidan ondoan. Anjel Lertxundi
Potzoloren menpeko polizia gihar-**zakuak** [...] utzitako oroigarria. Aingeru Epaltza
Zer eta legearen zerbitzari leial baten hitza, noren eta kazetari zabor-**zaku** batenaren aurka. Aingeru Epaltza
Zer egin zezakeen agure gorotz-**zaku** hark? Anjel Lertxundi

**6a** (irud/hed, hitz elkartuetan bigarren osagai gisa, elkarketak izen balioa duela)

Zoruko zikinkeriaz kexatzen zara, koipe-**zaku** hori, baina nitaz ez zara batere kezkatzen. Jose Morales
Orduan bai, orduan ederki isildu zen hezur-**zaku** madarikatu hura, igerian batere ez zekien eta. Patxi Iturritegi
-Jakin daiteke non sartzen haizen, kaka-**zaku** hori? Aingeru Epaltza

Azken urteotan ondra handienaz ohoratu diagu Olentzero mozkorra, ume-jalea, ikazkin aldrebesa, baba-**zaku** tripandia. Anjel Lertxundi

Ondo egongo litzateke ile-**zaku** ergel handi horrek bakean utziko balu! Iñaki Mendiguren

Ikazkina bezalako birao-**zaku** desatsegin baten esku. Anjel Lertxundi

**7** zorro horren edukia.

Egunero, hamabi **zaku** irin.

Lino Etxaburu, lau konejo; Gregorio Erroteta, lau **zaku** patata. Joseba Sarrionandia

Hamar kiloko bi **zaku** pentsu husten dituzte. Oskar Arana

**8** (neurri gisa)

Ximurrak eta Charlyk jatetxetik beretik eraman ninduten, herrestan, **zaku** bat patata bezala. Aingeru Epaltza

Esku batean **zaku** bete arrautza zekarren. Aingeru Epaltza

**Zaku** bete denario bildu zuen eskean. Juan Garzia

Belaskok **zaku** bete fruta dauka. Joanes Urkixo

Gau batean **zakua** bete harri joan zuan fabrika kanpora eta, klinki, klanka, kristal guztiak txikitu zizkian. Pablo Sastre

**Zakuak** bete perretxiko, sendabelarrak eta beste landare batzuk ekartzen zituen. Joanes Urkixo

**9** *ipar* poltsa.

Amak artean **zakua** ireki eta bere puskak semeak seinalatu armairu batean pausatu zituen. Itxaro Borda

Beilatokietan, beilari guzien **zakuak** miatuak izanen dira, eta nortasun ageriak erakutsi beharko dira. Herria

Oporretan **zakua** bizkarrera hupatzen zuen eta, haurtzaroko urteetan bezala, bidez bide abiatzen zen. Itxaro Borda

-Zuen **zakuak** Hong-Kongeko aireporturaino erregistratzen... eeee... ditut? Ramuntxo Etxeberri

Bakoitzak bere **zakua** prestatzen du, soinekoak apailatzen. Marzel Etxehandi

Seguruenik Ortesera itzuliko naiz, lerro bat irakurri gabe, eta **zakuaren** sakelatik aterako ditut bi liburu berri berriak. Piarres Aintziart

**10** bizkar zakua.

Etapa batzu lau orenetakoak ziren, bertze batzu haatik berdin hamar orenetakoak, 12-15 kiloko **zakua** bizkarrean, 5500 metretako goratasunetik pasatuz, haize hotz ikaragarri batekin, tokika horma eta elurretan gaindi. Herria

**11** lo zakua.

Goizaldera, greba ez egitea erabaki zuten langileek bidea zulatu zuten sarrerako giza-zutoinen eta fabrikan berean loak hartzeko hedatu ziren **zaku** eta matalaza arinen artetik. Itxaro Borda

Hotzak atxiki gintuen gau batez atzarririk, mendilepo baten gainean, gure **zakuen** barnean daldaran. Piarres Aintziart

Nagi bati hankatik tira, loti hari **zakua** ken. Xabier Mendiguren Elizegi

Hagitz akituak ziren eta **zakuetan** biribilkatuz berehala lokartu ziren. Aurelia Arkotxa

**12** ***bidaia-zaku*** *(orobat* ***bidai zaku****)* *iz*

Gizon hark ez zuen **bidaia-zakurik** eta, agian, arratsaren parte bat geltokian pasatzen zuten eskaleetarik bat zela iritzi zuen andereak. Itxaro Borda

Linjeria eta paperen metatzen ari nintzelarik ene **bidaia zakura**, aita abadea heldu zait erraitera: [...]. Marzel Etxehandi

Neon argiek argitzen zuten gela erraldoian sartu ziren **bidai zakuen** eskuratzeko. Ramuntxo Etxeberri

**13** ***bizkar zaku*** *(14 agerraldi, 6 liburutan)* bizkar zorroa. ik **motxila**.

Baditu bi korrea, haiei esker Andreasek **bizkar zaku** gisa eraman dezake. Pablo Sastre

**Bizkar zakua** 7 kilokoa, ez gehiago, behar zen. Piarres Aintziart

Baina ezarriko dut **bizkar zakuan** argazki miresgarriek beterikako liburuxka. Piarres Aintziart

Aski akitua naiz hor berean eta berehala **bizkar zakua** pausatzeko. Piarres Aintziart

Bezperan Auzterlitz geltokira heldu nintzen, **bizkar zaku** arina sorbaldan. Itxaro Borda

Txokok txabolan zeuzkan puskila apurrak **bizkar zakuan** sakatu zituen. Itxaro Borda

**14** ***esku zaku*** esku poltsa.

Polizak bere saretarat bildu ditu hiru gaztetxo, oraino haurrak erran ditake, 13 eta 14 urte alabainan, **esku zaku** bat ebatsirik iheska abiatuak zirenak. Herria

Bere **esku-zakuan** zeukan lexomil pastilla bat eman zidan, ur baso batez lagundurik, jabal nendin bederen. Itxaro Borda

**15** ***lo zaku*** *(orobat* ***lozaku****)*

Ez dute deus eraman, ez **lo-zakurik**, ez bizkarreko zaku handirik. Berria - Euskal Herria

Batzuetan **lozakua** hartu eta kanpoan ematen zuten gaua. **Lo zakuak** zeramatzaten, janaria, kartak, whiskia. Javi Cillero

-**Lo zakuak** eta mendiko zapatak ekar itzazue. Itxaro Borda

**Lozakua** bizkarrean eta Iruñeko Jai-Alai gaztetxearen gaineko liburua eskuan, kanpoan zain zituenengana jo zuen gazteak. Berria - Euskal Herria

**16** ***zaku berean sartu***

Gero modu batera bakarrik interpretatu ditugu arau horiek, **zaku berean sartuz** Euskaltzaindiak esan dituenak eta esan ez dituenak. Pello Salaburu

ETAren atentatuak ere **zaku berean sartu** zituen. Berria - Harian

Denek badakigu artisten artean -ez otoi **zaku berean sar** denak- badabiltzala ez bakarrik alkoola, bainan bai droga motak guziak. Herria

"Errusiar intelektualen jarrera gaitzesten dugu" hori onestezin zaio, Errusiako intelektual denak **zaku berean sartzea** omen delako. Edorta Jimenez

Ezin dira denak **zaku berean sartu**. Berria - Kirola

Besteak, aldiz, biak batera **sartzen** ditu **zaku berean**. Berria - Gaiak

· Azken urteetan Unamuno eta euskaltzaletasuna eta herri honen askatasuna **zaku** desberdinetan sartzen dituzten ustezko intelektualak ugaritu dira. Berria - Kultura

**17** ***zakutik edo zorrotik*** nondik edo handik.

Buruzagiek, **zakutik edo zorrotik**, Frantzia osatzen zuen lur puska honetan derrigorrezko bakearen segurtatzea manatzen zioten. Itxaro Borda

Ahal zuten guzietan elkar laguntzen zuten eta **zakutik edo zorrotik** erdiesten zuten ogi puxka gehigarria denen artean banatzen. Eneko Bidegain

Nik laguntza ekonomikoak eta errextasunak kausi ditzazket baina lurra lekuko hautetsiek hornitu beharko dute **zakutik edo zorrotik**. Herria

Lanean beharko genukeela **zakutik edo zorrotik**. Itxaro Borda

Zer eskuzartak ez dira gero ere izan! Ibarrolarendako gehienik, hain zen mustupilka joaiten gizona, pilota guzien biltzerat, eta frangotan kintze egiterat, **zakutik edo zorrotik**, edo lurrean herrestan etzanik ere berdin.· Orduan, "**zakutik** ala **zorrotik"** bakoitzak zerbait emaiten zion. Herria

**hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**

**arpillerazko zaku** (3); **betetako zaku** (6); **bi zaku** (10); **bizkar zaku** (3); **denak zaku berean** (5); **gari zaku** (3); **guztiak zaku berean** (7); **irin zaku** (5); **kaka zaku** (3); **larruzko zaku** (5); **lo egiteko zaku** (3); **lo zaku** (7); **ogi zaku** (4); **porlan zaku** (3)

**zaku bat gari** (3); **zaku bat hartu** (4); **zaku bat zeraman** (3); **zaku batean sartu** (7); **zaku baten antzera** (3); **zaku berean sartu** (11); **zaku berean sartzea** (4); **zaku berean sartzen** (6); **zaku bete** (9); **zaku eramate** (9); **zaku eramate lasterketa** (3); **zaku eramate lasterketan** (4); **zaku handi** (5); **zaku handia** (4); **zaku huts** (3); **zaku jantzia** (3); **zaku lasterketa** (4); **zaku lasterketan** (3); **zaku muturrean** (10); **zaku muturretan** (4); **zaku zahar** (8)

**bizkar zakua** (5); **garaipen zakua** (3); **garaipenen zakua** (3); **kiloko zakua** (3); **soinean zakua** (4)

**zakua bete** (4); **zakua beterik** (3); **zakua betetzen** (4); **zakua bizkarrean** (14); **zakua burutik behera** (4); **zakua hartu** (6); **zakua hustu** (3); **zakua ireki** (4); **zakua lepoan** (5)

**beteriko zakuak** (3); **betetako zakuak** (3); **gari zakuak** (4); **irin zakuak** (3); **lo egiteko zakuak** (3); **lo zakuak** (7); **lotarako zakuak** (3); **ogi zakuak** (3); **patata zakuak** (5)

**zakuak garraiatzen** (3); **zakuak hartu** (5); **zakuak hustu** (3); **zakuak ireki** (3)
**bere zakuan** (4); **bizkar zakuan** (5); **lo zakuan** (7); **zakuan sartu** (16); **zakuan sartuta** (3); **zakuan sartzen** (7)
**irin zakuen** (3); **irin zakuen gainean** (3); **zakuen artean** (5)
**gari zakuetan** (4); **lo zakuetan** (4)
**zakutik atera** (3); **zakutik edo zorrotik** (6)

---

## **zakudun** *izlag* zakua duena.

**Zakudun** gizonaren edo Sakamantekasen antza ari ote zen hartzen? Harkaitz Cano

---

## **zakuka** *adlag* zakua neurri hartuz.

Datorren udatzenean, antxumeloak (basakaranak) ez baina epuru pinportak bilduko dituk **zakuka** , eta jinebraz beteko hiru kupel. Patziku Perurena

Bazter guztiak lirio-lorez bitxiro betetzetik hasi zen kontua; petalo zeru-urdin fin, patata frijitu ñimiño batzuen tankeran siku eta hauskorrak **zakuka** . Juan Garzia

Salgaiak biltegira sartu eta zuzenean saltzen zizkieten txikizkariei, norberaren ahalbideen arabera baina betiere kaxa, **zaku** edo fardelka. Bego Montorio

---

## **zakukada** **1** *iz* zaku baten edukia.

Bizikletaz egiten zituen bidaiak, eta joanaldi bakoitzean, **zakukada** handi batekin edo birekin itzultzen zen. Anjel Lertxundi

Gelatxok **zakukada** bat partitura izango du etxean. Pako Aristi

**Zakukada** batzuk hondakin etxetik atera eta iturri ondoko edukiontzira eraman eta gero. Jon Alonso

Renfeko trenbidea igaro eta metalez betetako **zakukada** pisutsu bat lepoan hartuta N-1 errepidea zeharkatu. Harkaitz Cano

**2** zakukada baten edukia.

Handik aldegin zuen tximistak, **zakukada** hartuta han zen bueltan berehala. Xabier Olarra

Begiratzera joan eta **zakukada** baba zuri aurkitu zuen. Anton Garikano

**Zakukada** oliba jateko prest ni. Xabier Mendiguren Elizegi

Erantzun gisa galarrotsa besterik ez du jasoko, **zakukada** katurekin batera. Patxi Ezkiaga

**Zakukada** arroza gelan ipini zuen, eta ikatza kanpoan babesean, sukaldeko atearen aurrean. Juan Kruz Igerabide

Har itzazu **zakukada** bat gari xigortu eta hamar ogi hauek. Jose Antonio Mujika

**3** (hitz elkartuetan)

Burdinazko hesiaren kontrako kolpea eta zerutik eroritako porlan-**zakukada** batena bezalako hotsa. Anjel Lertxundi

Hondakin **zakukadak** handik kentzeko. Jon Alonso

Orain ontzi batzuk erreberrituz, orain ezkur **zakukada** bat ostuz, orain Portugalgo mugan kontrabando pixka bat eginez. Pablo Sastre

Diru **zakukada** ederra emango dizute, eroslerik agertzen bada behintzat, Damian. Hasier Etxeberria

---

## zakukarrera ik **zaku 3**.

---

## **zakuketari** *iz* zakularia.

Jokoak: soka tira, orga joko, lasto altxa, aizkolari, **zakuketari** , segalari. Herria

---

## **zakuki** **1** *iz* zakuzko ehuna.

Matatias eta semeek, jantziak urratu eta **zakukia** soinean harturik, dolu handia egin zuten. Elizen arteko biblia

Jantzi finen ordez **zakukia** , edertasunaren ordez burdin goriaren marka. Elizen arteko biblia

Anaia guztiak arropa zirtzilez jantzi bitez, eta **zakukiz** nahiz bestelako oihal-puskaz adaba ditzakete, Jainkoaren bedeinkapenaz. Askoren artean

**Zakukiz** jantzia duzun gorpuztxo horren gainean, estalki eder eta zetazko zapi asko jarriko dituzte. Askoren artean

Heriotzako orduan ere, hil-tunika **zakuki** latzez estaltzea eskatu zuen. Askoren artean

**2** (hitz elkartuetan)

**Zakuki** zatia josten zion bere tunikari. Askoren artean

---

## **zakulari** *iz* zaku jokoan aritzen den kirolaria.

Segalari, aizkolari, **zakulari** , lasto altxatzale, orga altxatzale, harri altxatzale, arto burutxa edo lokotxa biltzale, esneketari eta beste, zonbat kirolari mota joko zaharren sail aberats hortan! Herria

**Zakulariek** 80 kiloko zakuarekin jardungo dute, eta Mutrikuko hiru talde lehiatuko dira; haiek irabazi zuten iaz. Berria - Kirola

---

### **zakuño** *iz* zakutxoa.

AOC labela erdietsi duen Ezpeletako piper **zakuño** bat. Itxaro Borda

Elur-en zamukan larruzko **zakuño** batean gordetzen dut beti, agian hunatekoan ez da ene altxorra erre. Michel Oronoz

Biriatun, mugazainek "ecstasy" deitu droga hortarik tornu pollita atxeman dute Alemaniako autobus batean, kasik hogoi mila pirula **zakuño** batean ezarriak. Herria

---

## zakur ik **txakur**.

---

## **zakuraketa** *iz* zakuratzea, arpilatzea.

Laugarrena, hots, Milizia, aspaldian irabazi handiko ogibideen artean azaltzen zen, **zakuraketa** edo pirateria izenarekin. Esteban Antxustegi

**zakuratu**, zakura(tu), zakuratzen **1** da/du *ad* zakura joan; zakura eraman.

Sua egiterik ez genuenez, oso goiz **zakuratu** ginen, ilundu orduko, bizkar-zorroan genuenetik zerbait jan eta zahatoan geratzen zen ardo hondarra edan ondoren. Juan Luis Zabala

Zakuan sartu aurretik, katutxoek bizkarra igurzten zuten Joxe Mariren hanken kontra, amultsuki, erabat fidakor, eta ez zioten ihes egiten **zakuratzerakoan** ere. Juan Kruz Igerabide

· Heroe lapurren batek galasi guziak bere **zakuratu**, dama lirainen batek gizandiak umetu, txingurri urdinen batek Euskal Herri osoa salbatu... Patziku Perurena

**2** arpilatu.

Etorri ziren normandiarrak, eta arpilatu eta **zakuratu**, batez ere apaiz eta monakoei esetsi zieten, abadiak bilatu zituzten, leku erlijiosoren bat non aurkituko. Iñaki Iñurrieta

Baina Erromako herria bera, afrikarrekin eta asiakoekin hasi eta mazedoniarrekin eta akeoekin jarraituz, ia lurbira osoa birrindu eta **zakuratu** zuena, zer-nolako basaberea zen? Esteban Antxustegi

---

zakurbazka ik **txakur 19a**.

---

zakurdun ik **txakurdun**.

---

zakurjale ik **txakurjale**.

---

zakurkeria ik **txakurkeria**.

---

zakurki ik **txakurki**.

---

zakurkin ik **txakurkin**.

---

zakurkume ik **txakurkume**.

---

zakurño ik **txakurño**.

---

zakurreme ik **txakur 21**.

---

zakurreria ik **txakurkeria**.

---

zakurtasun ik **txakurtasun**.

---

zakurtegi ik **txakurtegi**.

---

zakurtu ik **txakurtu**.

---

zakurtxo ik **txakurtxo**.

---

zakurtzar ik **txakurtzar**.

---

zakurzale ik **txakurzale**.

---

zakurzaletasun ik **txakurzaletasun**.

---

**zakuski** *iz* errusiar sukaldaritzako zizka-mizkak.

Musika eslaviarra entzuten zuten, bortx eta **zakuskiak** jaten zituzten eta vodka edaten zuten arrain ketuarekin. Joxan Elosegi

---

**zakutaraka** *(corpusean **zakutraka** soilik)* *adlag* zakukadaka.

Penizilina buatak, **zakutraka** eremanak, kentzen zitzien fea futro eta amanda edo zigorra pollita emaiten. Angel Aintziburu / Jean Baptiste Etxarren

**zakuto** **1** *iz* zaku edo zorro txikia, eskuarki bidaietan erabiltzen dena.

Belaun gainean pausatu zuen bide osoan bizkarretik dingilizka eroandako **zakutoa**. Josu Landa

Ez **zakutorik** biderako, ez soinekorik aldatzeko, ez oinetakorik, ez eta makilarik ere. Elizen arteko biblia

Anaiak munduan zehar dabiltzanean, ez bezate biderako ezer eraman: ez poltsarik, ez **zakutorik**, ez ogirik, ez dirurik, ez makilarik. Askoren artean

Gerritik zintzilik zeraman larruzko **zakutora** joan zitzaizkidan begiak. Anjel Lertxundi

Orain, bada, poltsa duenak har dezala eta berdin **zakutoa** duenak; eta ezpatarik ez duenak sal dezala soingainekoa, hura erosteko. Elizen arteko biblia

Sorbaldan **zakutoa** zeramaten pertsonak ere pasatzen ziren, bizitza osoan goizean goiz nonbaitera doazen pertsona misteriotsu horiek. Jose Morales

**Zakutoaren** estalkia lotu gabe zeukala. Anjel Lertxundi

Aldean neroan atorra erantzi nuen, **zakuto** modura huraxe erabiltzeko. Edorta Jimenez

Zaldizkoak bidearen luzeran etzanda jarri eta **zakutoetatik** ateratako janariak banatzeari ekin zioten. Karlos Zabala

Mando gaineko **zakutoetan**, hiru soldaduen mantekin batera, inguruko baserrietan bildutako jakiak zeramatzaten. Alberto Ladron Arana

Denda zegoen kalean eseri eta liburu bat atera zuen **zakutotik**. Xabier Aranburu

**Zakutoaren** barruan zeraman jaka. Botilatxoa erosketen **zakutoan** sarturik, [...]. Xabier Aranburu

**Zakutoa** zabaldu zuen, eta edateko ontzi modura erabiltzen zuen zahagia atera. Edorta Jimenez

**2** (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa)

Honetan, itzuli zen kanpotik San Frantzisko, berak eta beraren lagunak eskean bildutako ogi **zakutoarekin** eta ardo bete ontzirekin. Askoren artean

Entzun zion Frantzisko dohatsuak, eta berehala harengana bidera atera eta limosna-**zakutoa** zekarren sorbaldan muin eman zion poz handiz. Askoren artean

Hogeita hamar, hamar bilkari Brasilgo tabako, eta esmeralda-**zakuto** batzuk eskaini zizkioten. Juan Garzia

---

**zakutotxo** *iz* zakuto txikia.

**Zakutotxo** bat zeukan eskuetan. Gotzon Garate

Kartarik ere **zakutotxoa** zeukan eskuan. Gotzon Garate

---

zakutraka ik **zakutaraka**.

---

**zakutto** *iz* zakutxoa.

Saltegi gehienetan,bereziki salgune handi horietan, erosi pusken ezartzeko izaiten dira plastikazko **zakuttoak**, biziki garbiak, arinak eta erabil erretxak. Herria

Angelun eta Bidarten, berriz ere, joanden urtarrilean bezala, kokainaz bete **zakutto** batzu uhainek ekarri dituzte ondartzarat. Herria

**Zakutto** asko haxix drogakiz beteak, orotarat tona bat pasaturik! Herria

-Ama, eginen al didazu beste **zakutto** bat? Joan Mari Irigoien

---

**zakutxo** *(orobat* ***zakutto*** **1** *iz* zaku txikia.

Halaber erakusten zituzten saltzeko zituzten ardi larruzko xamarrak, abarkak, makilak, abere joareak, tabako **zakutxoak**, ganibetak, [...]. Elena Touyarou

Sirok eta Petroniok txandaka eraman zuten beren pildak eta beren denarioak zeuzkan larruzko **zakutxoa**. Juan Garzia

Txanponez txanpon dirua bildu eta komodako kaxoietan ezkutaturiko ehun latzezko **zakutxoetan** sartzen duten andre lurjabe txiki horietakoa. Jose Morales

Prokuradoreak arrantzaleei so egin zien, eta sosez bete **zakutxo** bat atera zuen. Elena Touyarou

Normalean kondoi izena ematen zaio **zakutxo** honi. Juan Martin Elexpuru / Bego Montorio

Ez dakit nora eraman gintuzten, **zakutxo** bat jarri baitziguten burutik behera. Bernardo Atxaga

Nik ordezko jantzi hauek hartu ditut garbitegitik -esan zien Hermionek, **zakutxo** txiki bat erakutsiz-. Iñaki Mendiguren

**2** (hitz elkartuetan)

Trukean beti jasotzen zuen zerbait, hirugiharra, irin **zakutxoa** edo oiloa, zer edo zer. Jon Maia

Elektrikari jantziak eta leherkari **zakutxoak**. Josu Zabaleta

---

**zakutzar** *iz adkor* zaku handia.

Zarataka botatzen dititzek ilarrak eta artatxikia sabel sakoneko gabarretara, kaitik behera jaurtitzen dititzek oloz eta gariz beteriko **zakutzarrak**. Jose Morales

Etxeko andreak muzin egin zigun katuari eta bioi, atetik sartzen ikusi ninduenean, armadako **zakutzarra** bizkarrean eta katua altzoan. Javi Cillero

---

**zakuzar** *iz*

Otsailaren 5etik 7rat, Lesaka dute airostuko **zakuzarrek**. Herria

---

**zalagardatu,** zalagarda, lazagardatzen du *ad* desitxuratu.

Emakumeen hutsa ere, gizonak berak betetzen du emakume jantzitan, ororen parragarri eta lotsagarri **zalagardatuz** emaztekion irudia. Patziku Perurena

---

**zalakatu,** zalaka(tu), zalakatzen du *ad*

Eta hainbeste sortzailek **zalakatu** du, non atzenean sorkari arrotz, itxuragabe, eta izugarri bihurtu den. Patziku Perurena

---

**zalamala** *iz* nahaste-borrastea.

Gosea ere joan egin zitzaidan; **zalamala** hartatik irten behar nuen, onik ala gaizki, nola edo hala, baina urrundu handik, kalera ihes egin, etxekoa baino aire garbiagoa arnastu. Anjel Lertxundi

---

**zalamandrana** *izond* emakumeez mintzatuz, itsusia, zikina.

Emakume **zalamandranak** lepotik lotu ninduen. Aingeru Epaltza

Panpox hau hire bila etorrita, zertarako nahi duk hik atso **zalamandrana** hori? Aingeru Epaltza

-**Zalamandrana** saskela! Patxi Zubizarreta

Ez dezakezu susma **zalamandrana** deabru horrek zer nolako lazkeria parrasta izkiriatu dion nire bizkar. Jon Muñoz

---

**zalangatu** *izond* ehunez eta kidekoez mintzatuz, amore eman duena.

Barregarriro antzu eta miserable sentitzen da neskatila bere motxila **zalangatua** emakumearen sabel bipilarekin alderatu duenean. Harkaitz Cano

---

**zalantza** **1** *iz* zerbaiten egiatasun edo ziurtasunaz duda egiten duenaren, zenbait aukeraren artean norantz makurtu ez dakienaren arima-egoera. ik **duda; ezbai.**

Hamaika susmo eta **zalantza** nituen buruan bueltaka. Alberto Ladron Arana

Bestetik, **zalantza** hau nuen: [...]. Ramon Saizarbitoria

Baditut **zalantza** gehiago ere, denak hizkeraren ingurukoak. Pello Salaburu

**Zalantza** dut, ordea, egia ote orduan idatzitakoa, susmoa baitut gizakia, sarritan, txarrena egitera behartua dela, egiteko txarrena dela jakinda. Hasier Etxeberria

**Zalantza** nuen ikusi ere egiten ote ninduten. Juan Luis Zabala

Baina eginkizunari aurre egiteko gauza izango ote nintzen **zalantza** nik. Joxe Austin Arrieta

Agustinek **zalantzak** ditu arimen jatorriari buruzko bi jarreren artean, kreazionisten eta traduzionisten teorien artean, alegia. Imanol Unzurrunzaga

Pertsonaiak isildu egiten dira, hausnarrean dihardute, **zalantzak** dituzte, baita obsesioak ere. Koro Navarro

Ez zuen uste, bere idazkariak bezala, biolina deabruaren lana zenik, baina **zalantzak** zituen, eta **zalantzak** uxatzeko biolin jotzailearen emanaldia entzutea iruditu zitzaion egokiena. Felipe Juaristi

Bestalde, ordea -hortik nire **zalantza**-, zergatik ez erabili dirua laguna gonbidatzeko? Bernardo Atxaga

**Zalantza** duk amodioaren benetako funtsa. Antton Olano

Uda guztietako lana izaten diat -esan zidan berak **zalantza** baten ondoren-. Bernardo Atxaga

**Zalantza** guztiak joan zitzaizkidan orduan. Bernardo Atxaga

Orduan zetozkidan **zalantzak** eta ezbaiak, kezkak eta buruhausteak. Joan Mari Irigoien

Handik bizirik aterako ote nintzen **zalantza** hazi zitzaidan barruan. Jon Maia

Poliziak bazekien gu maneiatzen, eta gutako bakoitzaren baitan **zalantza** sortzen. Juan Kruz Igerabide

Gainontzekoen artean **zalantza** eta eztabaida sortu zen, nolatan izan zitekeen ezinbestekoa elikagaia gorputzarentzat, biziari eusteko jan nahi izaten baitugu eta bizia arimarena baita. Imanol Unzurrunzaga

Izan ere, baiespen horietako bakoitza, gutxi batzuk salbuetsirik, izatearen naturan agertzen denak gezurtatzen du, eta **zalantzak** sortzen dira. Xabier Kintana

Zorura begira gelditu zen Alkorta, buruari geldiro eraginez, **zalantzak** uxatu nahi eta ezin. Migel Angel Mintegi

**Zalantza** eragiten dit ea benetan fidatzen ote den Metropolisen lanaz. Oskar Arana

**Zalantzak** jota zabiltza. Lutxo Egia

Gero istantean **zalantza** etorri zitzaidan: bukatu da benetan historia hau? Fernando Rey

Ene herriari buruz aspaldian darabiltzadan **zalantza**, hausnarketa edo gogoeta batzuen biltzeko eta argitzeko unea etorri zaidala iduritu zait. Piarres Xarriton

Zu kontsolatzera eta zure **zalantzak** argitzera etorri baikara. Askoren artean

Lexikoaz **zalantza** bat: zergatik dira Marokokoak paterak eta kaiukoak Mauritaniakoak? Iñigo Aranbarri

**Zalantzen** ilunpeetatik irten ezinik ere, gure askatasuna nahi nuen nik, militarrek eraikitako harresi guztien erroketa. Txillardegi

Hau nahiko berria da euskal munduan eta, **zalantza** gabe, ez da batere seinale txarra. ik zalantzagabe. Pello Salaburu

Lerrook, **zalantza** gabe, ironia pixka batez daude idatziak. Joxe Azurmendi

Eta hala ere Harryk biak maite izan zituen, biekin maitemindu zen suhartasun saihestezin berberaz, eraspen **zalantza gabeko** berberaz. Oskar Arana

**2** (izenondo eta izenlagunekin)

**Zalantza** handiena Perfekzio Ispiluaren kokapenak sortzen du. Askoren artean

**Zalantza** handiak genituen horretaz. Xabier Olarra

Ez da memento egokia kezka eta **zalantza** larri horiek gure artean barreiatzeko. Txillardegi

Hasperen egin nuen: **zalantza** izugarri harekin bizi beharko nuen. Alberto Ladron Arana

Andreasek, **zalantza** labur baten ondoren, neskaren eskua hartu zuen. Anjel Lertxundi

Badut **zalantza** historiko bat, argitzen zaila dena. Harkaitz Cano

Badirudi senez-edo **zalantza** metodikoa aukeratua duela, mesfidantza orokorra Fakultatean eskaintzen dizkioten autore, teoria, eskola, joeren aurrean. Iñaki Iñurrieta

Utzi egin zion jaraunspenarekin zer egin **zalantza** amaigabean ibiltzeari, eta eraikina salgai jartzea erabaki zuen. Oskar Arana

**Zalantza** sortu berria argitzeko behar larria sortu zitzaion Pilarri. Aitor Arana

Sofismen lainoei, hizjario xarmatzaileei, eta **zalantza** lotsakorrei zirrikiturik utzi gabe. Juan Martin Elexpuru

Denek ezetz erantzun zuten; Navigiok nolabaiteko **zalantzak** zituen. Imanol Unzurrunzaga

Andrearen bihotzean zoritxarreko **zalantza** sortu zen berriro. Anton Garikano

Betiko **zalantza**, garagardoan egon edo kankarrora errenditu. Aingeru Epaltza

Hil edo biziko **zalantzak**, egiaz, hainbeste menderen bueltan gudari ahaztuari bat-batean sortzen zaizkionak. Karlos Linazasoro

**3** (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

Berak **zalantza** aurpegia jarri zuen. Bernardo Atxaga

Buruari eragiten dio **zalantza**-keinua eginez. Oskar Arana

**Zalantza** une batzuen ondotik, gazteak, irribarretsu: [...]. Patxi Zubizarreta

**Zalantza**, kontraesan eta manipulazio uneak izan ziren. Berria - Harian

**Zalantza** unetxo bat izan ondoren, nigana hurbildu da oso serio: [...]. Txillardegi

Espiritu guztietatik **zalantza**-lainorik txikiena ere uxatzeko. Askoren artean

**Zalantza** izpi bat agertu zen Raduan Husainiren begi berez argietan. Patxi Zubizarreta

Bultako Metraila baten motorra zen, **zalantza** izpirik gabe. Juan Kruz Igerabide

Jakin nuen, **zalantza** izpirik gabe, Stanleyren alaba bulartsu eta bihotz zabalekoa txora-txora eginda zegoela nire ilobarekin. Oskar Arana

Ordu arteko **zalantza** izpia, Teresak esandakoa gezurra ote zen, desegina zegoen betiko. Bernardo Atxaga

Gurekin zeudenek elkarri begiratu zioten, isilka; gero guri, galdezka bezala; eta, azkenik, **zalantza**-balantza batean esan ziguten: [...]. Xabier Mendiguren Elizegi

Hor ikusi dugu oraintsu Arnaldo Otegi **zalantza**-dantzan. Iñigo Aranbarri

**4** (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa)

Sexuaren inguruko galderak, sexu-**zalantzak**. Fernando Morillo
Bertan bildu genituen filosofia eta euskara gaietan adituak, terminologia **zalantzak** eztabaidatzeko. Askoren artean
Bedeinkatua zu ere, ene seme, jakinduriaz hitz eginez nire barne-**zalantzei** halako erremedio osasungarria ekarri diezulako. Askoren artean

## 5 ***zalantzan*** *adlag* zalantza egiten

Hegoaldeko xapela **zalantzan**. Herria
"Lucy, irten, zatoz hona!" egiten dio oihu, **zalantzan** oraindik, haien atzetik sartu ala mutila zaintzen kanpoan geratu ez dakiela. Oskar Arana
Corless's ondora iritsi zenean, lehengo artegatasuna hasi zitzaion gaina hartzen eta ate aurrean gelditu zen, **zalantzan**. Irene Aldasoro
Gol baten nahiaren eta ezinaren agonian bizi izan dira zaletuak igande batean bai eta bestean ere bai, Athletikek lehen maila gordeko ote duen **zalantzan**. Joseba Zulaika
Zeren-eta -ni neurekiko **zalantzan**- hilabeteko etendura luze horretan, ez ote zait ama... hil? Txillardegi
Ondorioz, Euskaldun Gazteriak daukan lanpostua **zalantzan** da. Herria
Orain heldu da Alstom-en afera, latza hau enpleguak direlakotz **zalantzan**. Herria
Une batez **zalantzan** egon zen, erantzun aurretik. Xabier Olarra
Frantzisko hasi, ez hasi **zalantzan** zegoen. Askoren artean
**Zalantzan** egon zen une batez, txirrina jo edo ez jo. Harkaitz Cano
Eraso egin edo atzera egin **zalantzan** nagoenean, ez naiz **zalantzan** minutu bat ere egoten, txotx ala motx egiten dut. Xabier Olarra
**Zalantzan** egon nintzen botila bat xanpain erosi ala ez. Ramon Saizarbitoria
**Zalantzan** geratu nintzen, ezpata atera eta burua moztuko ote nion, familiartekoa nuen baina. Juan Kruz Igerabide
Eta errealitatearen eta gogoaren artean **zalantzan** bizi gara beti. Joseba Sarrionandia
Orduan baitzuten Lutherrek eta Calvinek **zalantzan** jarri Erromako aita sainduaren boterea eta, orozbat, enperadorearen edo erregeena. Piarres Xarriton
Egilea Homero izan ote zen edo ez **zalantzan** jartzen du zenbait ikertzailek. Juan Kruz Igerabide
Enrico, ordea, aldarte gaitzean zen, eta **zalantzan** jartzen zuen dena. Juan Garzia
Inork ez du **zalantzan** jartzen hori posible denik eta hala gerta daitekeenik. Xabier Kintana
**Zalantzan** jar liteke horiek guztiak funtsezko modu sakon eta nahiko soil batean adieraz ote daitezkeen. Itziar Laka
Askojakina izan beharrik ez dago gauzak horrela gertatu zirenik **zalantzan** jartzeko. Bernardo Atxaga
Nik ordea, **zalantzan** ipiniko nuke. Patziku Perurena
Ahetze-k ez dezan Ahestarren geroa **zalantzan** ezarri, zor handien gatik. Herria
**Zalantzan** ikusi nuenean, galdetu nion: [...]. Imanol Unzurrunzaga
Gandar emirra **zalantzan** ikusi zuelarik, Asadek galdegin zion: [...]. Patxi Zubizarreta

## 6 ***zalantzazko*** *izond*

-Gaston, itsutu egiten nau -esan zuen emakumeak, **zalantzazko** barre batekin. Monika Etxebarria
**Zalantzazko** ezbide horretan nengoela, zuk arestian irakurri duzun eskuizkribu hori igorri zidaten Oxford-etik. Juan Garzia
**Zalantzazko** une labur baten ondoren, Lauaxetak ere lasterka jarraitu ninduen atzetik. Juan Luis Zabala
Itoizko herriak izan zuen urtegiari izena emateko **zalantzazko** ohorea. Edurne Elizondo
Kontuan izanik zenbaterainokoak ziren **zalantzazko** kreditu metatuak, bankuek ez zuten arrisku gehiagorik hartu nahi. Koro Navarro
**Zalantzazko** aktiboen bolumenak %1,3 gora egin zuen, 53 milioi eurora helduz. Berria - Gaiak
Zein egiazkoa eta ziurra zen, baita **zalantzazko** gauzetan ere, Frantzisko betetzen zuen profeta-espiritua. Askoren artean
Laburra da bizi duguna, etorkizun dagoena **zalantzazkoa**, bizi izan duguna egiazkoa. Imanol Zurutuza
Gertaera miragarri bat kontatuko dut orain labur, **zalantzazkoa** interpretazioari dagokionez, baina egiari dagokionez bene-benetakoa. Askoren artean
Baketze **zalantzazko** hau ospatzea ez zuen merezi. Jon Alonso
Higitzen ez den hainbat gorputz hauteman duzu ilunabarreko argi **zalantzazkoan**. Xabier Montoia
Mugitzen hasi zen nire begien aurrean, mugimendu arin eta **zalantzazkoekin**. Monika Etxebarria
Benetakoa benetakoa ez denaren truke ematea, segurua **zalantzazkoaren** truke. Jon Alonso
Tesi honek garrantzi handia du: oinarrian duen eredu psikologiko inplizitua aski **zalantzazkoa** baldin bada ere, badu alde on bat: [...]. Josu Zabaleta
Elkarrizketa hartan deskribatu ziren jarduera nemoteknikoen aplikazio praktikoa oso **zalantzazkoa** da bertsolaritzaren kasuan. J. Garzia / A. Egaña / J. Sarasua

## 7 *zalantza bide* ik **zalantzabide**.

## 8 *zalantza gabe* ik **zalantzagabe**.

## 9 ***zalantza egin***

**Zalantza egiten** bazuen ez zen sartuko, beraz lehenbailehen asmatu behar zuen aitzakia sinesgarri bat. Migel Angel Mintegi
Indarrak galtzen dituela sentitzen du, eta **zalantza egiten** du. Josu Zabaleta
Gero, astiro begiratu zien oin iletsuei, gelako zaborreria guztiari, bazter batean dardarka zegoen neskari, eta **zalantza egin** zuen. Jose Morales
**Zalantza egin** zuen, zaldi-gelara jarraitu edo nire azalpenaren zain gelditu. Bernardo Atxaga
Abasek **zalantza egin** zuen: adiskidearen proposamena onartu, edo Hamidari ikustaldi irrikatua egitera joan. Patxi Zubizarreta
Une batez **zalantza egin** du Antoniok, eseri ala ez. Iban Zaldua
Biek **zalantza egin** zuten, biratu ala ez, elkarri azken agurra egiteko. Harkaitz Cano
Sebastianek **zalantza egin** zuen, berak ere goxoa eskatuko ote zuen. Bernardo Atxaga
**Zalantza egin** nuen txantxetan ari ote zen. Ramon Saizarbitoria
Lehengo nahasmendu oinazetsu berberak harrapaturik, bere baitan **zalantza egin** zuen Abasen alboan joatea erokeria izan ote zen. Patxi Zubizarreta
-Idoia: zuk eman didazu inork eman ez didana, eta **zalantza egiten** dut inork aurrerantzean emango ote didan. Juan Kruz Igerabide
**Zalantza egin** nuen, eskatuko ote nion ala ez Obabako kirol zelaiaren inaugurazioko argazkia, baina isildu eta liburua hartu nuen esku artean. Bernardo Atxaga
Haren azal transluzidoari erreparatzean, **zalantza egin** genuen: agian espektroa zen hura, arima herratua. Iban Zaldua
Baina egun nehork ez du **zalantza egiten** guztientzako euskara horren premiaz. Herria
Erantzuna ere prest daukazu, eta sinesgarria gertatzea espero duzu, baina **zalantza egin** zaizu: giltzen marka! Ez dakizu markaren izena, ezta ba ote duten ere, eta ipurdia agerian gerta zaitezke. Rafa Egiguren
Onartzen zuen izan zela Alderdian **zalantza egin** zuenik, baina Errepublikaren alde gerran sartu izanari esker, hots, gerra galduz, irabazi egin zuten; duintasuna irabazi zuten, berentzat eta etorriko ziren belaunaldientzat. Ramon Saizarbitoria
Lapurtu zuten altxorra da gauza polita, ez dago zertan **zalantza egin**; C eta B letrek, berriz, altxorrera iristeko giltzak behar dute izan, Concepcion eta Bengoetxea izen-deituren lehen hizkiak estalgarri direla. Anjel Lertxundi
Makina bat **zalantza egin** ondoren, deliberatu nintzen hitz egitera. Matías Múgica

## 10 ***zalantza eginarazi***

Baina zerbaitek atzera eginarazi zidan, **zalantza eginarazi**. Mirentxu Larrañaga

**hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 4 aldiz agertzen direnak)**
**azken zalantza** (5); **bere zalantza** (7); **entrenatzaileak zalantza bakarra** (5); **ez dago zalantza** (5); **ez du zalantza** (9); **inguruko zalantza** (8); **kezka eta zalantza** (5); **nire**

**zalantza** (12); **oraindik ere zalantza** (5); **une batez zalantza** (7)

**zalantza agertu** (5); **zalantza apur bat** (6); **zalantza argitu** (5); **zalantza asko** (66); **zalantza asko dago** (5); **zalantza asko izan** (5); **zalantza askorekin** (17); **zalantza bakarra** (36); **zalantza bakarra du** (7); **zalantza barik** (53); **zalantza du** (8); **zalantza dut** (6)

**zalantza egin** (89); **zalantza egin nuen** (13); **zalantza egin zuen** (41); **zalantza egiten** (37); **zalantza egiten dut** (9); **zalantza egiten nuen** (6); **zalantza egiten zuen** (7); **zalantza eragiten** (5); **zalantza gehiago** (12); **zalantza gehien** (8); **zalantza gutxi** (28); **zalantza guztiak argitu** (5); **zalantza handia** (5); **zalantza handiak** (44); **zalantza handiak daude** (5); **zalantza handiak sortzen** (5); **zalantza handirik** (17); **zalantza handirik gabe** (5)

**zalantza izan** (19); **zalantza izan nuen** (5); **zalantza izpi** (6); **zalantza izpirik** (107); **zalantza izpirik ere** (11); **zalantza izpirik gabe** (50); **zalantza izpirik izan** (7); **zalantza izpirik utzen** (6); **zalantza nagusia** (7); **zalantza nuen** (5)

**zalantza oro** (6); **zalantza pixka** (6); **zalantza piztu** (8); **zalantza sortu** (26); **zalantza sortu zitzaion** (8); **zalantza sortzen** (18); **zalantza txiki** (8)

**zalantza ugari** (20); **zalantza ugari sortu** (5); **zalantza une** (36); **zalantza une bat** (12); **zalantza zuen** (5); **zalantzak zalantza** (8); **zalantzaz zalantza** (5)

**bere zalantzak** (13); **dudak eta zalantzak** (5)

**inguruko zalantzak** (12); **kezkak eta zalantzak** (5); **nire zalantzak** (9)

**zalantzak agertu** (20); **zalantzak agertu ditu** (7); **zalantzak agertu zituen** (5); **zalantzak agertzen** (5); **zalantzak areagotu** (8); **zalantzak argitu** (15); **zalantzak argitzeko** (23); **zalantzak argitzen** (8); **zalantzak azaldu** (5); **zalantzak daude** (9); **zalantzak ditu** (18); **zalantzak ditut** (19); **zalantzak dituzte** (6)

**zalantzak eduki** (5); **zalantzak eragin** (7)

**zalantzak izan** (25); **zalantzak izan zituen** (6); **zalantzak izatea** (5); **zalantzak izateko** (6); **zalantzak izaten** (6)

**zalantzak sortu** (18); **zalantzak sortu ziren** (5); **zalantzak sortzen** (17); **zalantzak sortzen dira** (5)

**zalantzak uxatu** (27); **zalantzak uxatu zituen** (6); **zalantzak uxatzeko** (11); **zalantzak zituen** (10); **zure zalantzak** (5)

**bertsio ofiziala zalantzan** (6); **dena zalantzan** (7); **eraginkortasuna zalantzan** (8); **eraginkortasuna zalantzan jarri** (5); **etorkizuna zalantzan** (12); **ez dago zalantzan** (11); **inork zalantzan jartzen** (8); **izatea zalantzan jarri** (6); **jartzen du zalantzan** (11); **jokatuko duen zalantzan** (7); **lana zalantzan** (13); **lana zalantzan jarri** (7); **oraindik zalantzan** (7); **sinesgarritasuna zalantzan** (13); **sinesgarritasuna zalantzan jarri** (8); **sistema zalantzan** (5); **une batez zalantzan** (7)

**zalantzan da** (15); **zalantzan dago** (63); **zalantzan daude** (9)

**zalantzan egon** (70); **zalantzan egon zen** (23); **zalantzan ez jartzeko** (6); **zalantzan ezarri** (6); **zalantzan ezartzen** (7); **zalantzan gelditu** (5); **zalantzan geratu** (16); **zalantzan geratu zen** (7)

**zalantzan ibili** (12); **zalantzan ipini** (8); **zalantzan izan** (7); **zalantzan jar** (25); **zalantzan jar daiteke** (5); **zalantzan jarri** (415); **zalantzan jarri du** (51); **zalantzan jarri dute** (39); **zalantzan jarri gabe** (9); **zalantzan jarri zuen** (92); **zalantzan jarriko** (37); **zalantzan jarriko luke** (5); **zalantzan jarriz** (19); **zalantzan jartzea** (28); **zalantzan jartzeko** (46); **zalantzan jartzeko modukoa** (5); **zalantzan jartzen** (306); **zalantzan jartzen da** (8); **zalantzan jartzen du** (26); **zalantzan jartzen dute** (16); **zalantzan jartzen hasi** (8); **zalantzan jartzera** (5); **zalantzan nago** (7); **zalantzan nengoen** (6)

**zalantzan utzen** (5); **zalantzan zegoen** (21); **zilegitasuna zalantzan** (14); **zilegitasuna zalantzan jarri** (9)

**zalantzarako izpirik utzen** (8); **zalantzarako tarterik utzen** (5); **zalantzarako zirrikiturik** (9); **zalantzarako zirrikiturik utzen** (6)

**batere zalantzarik ez** (5); **batere zalantzarik gabe** (15)

**ez daukat zalantzarik** (5); **ez du zalantzarik** (68); **ez dut zalantzarik** (29); **ez izan zalantzarik** (26); **ez nuen zalantzarik** (27); **ez zalantzarik izan** (13); **ez zegoen zalantzarik** (26); **ez zen zalantzarik** (6); **ez zuen zalantzarik** (42)

**inolako zalantzarik** (143); **inolako zalantzarik ez** (9); **inolako zalantzarik gabe** (81); **inongo zalantzarik** (35); **inongo zalantzarik gabe** (23)

**zalantzarik egin gabe** (14); **zalantzarik egon ez** (7); **zalantzarik ez** (183); **zalantzarik ez da** (8); **zalantzarik ez dago** (25); **zalantzarik ez du** (7); **zalantzarik ez dut** (14); **zalantzarik ez zegoen** (7); **zalantzarik ez zuen** (11); **zalantzarik gabe** (1094); **zalantzarik gabe esan** (8); **zalantzarik gabe jakin** (7); **zalantzarik gabea** (9); **zalantzarik gabeko** (19)

**zalantzaz beterik** (18); **zalantzaz beteriko** (5); **zalantzaz beteta** (6); **zalantzaz eta** (7)

**zalantzazkoa da** (25); **zalantzazkoa dela** (5); **zalantzazkoa zen** (5)

**zalantzazkoagoa da** (5)

**zalantzetarako lekua utzen** (19)

---

# zalantzabide *(orobat* ***zalantza bide****)* *iz* zalantza egiteko bidea.

Esaldi terrible bat entzun ahal izan genuen orduan, kirolari haren patuari buruz **zalantzabiderik** utzen ez zuena. Karlos Linazasoro

Irlandak idolatratu egiten zuen Kilpatrick; haren doilorkeriaren susmorik apurrenak ere **zalantzabidean** jar zezakeen matxinada; Nolan-en planak traidorearen hilkintza aberriaren askapenerako tresna bihurtu zuen. Juan Garzia

Ez bedi, bada, **zalantza biderik**, ez inorengan dudarik sor Jainkoaren betiko ontasunaren dohain honetaz. Askoren artean

Finean, **zalantzabiderik** gabea dirudi izar gartsu eta sumin bat agertu zela teilatuaren hirukian gaindi, izpi kedartsu, bihurri, gaizki korapilatuz egina, eta haur jaio berriak ukabila erakutsi ziola sabai-leiho batetik, izarrak haurraren gainera astintzen zituelarik suzko bere kiribil itxuragabeak. Juan Garzia

---

# zalantzadun *izond* zalantza duena.

Egañari buruz Egaña bera mintzo zen, egun berean argitaratutako elkarrizketan: «Egaña **zalantzaduna** ikusi zen, gauzak inoiz baino nekezago egiten dituena». Berria - Harian

---

# zalantzaezin *izond* zalantzan ezin jar daitekena.

Ondorengo esakunea argia eta modu **zalantzaezinean** ziurra da: baldintzatukia emana denean, guri horren bitartez baldintza ororen ilaran bertara doan itzulera ezartzen zaigula. Ibon Uribarri

Errealismo enpirikoa **zalantzaezina** da, h[au] d[a], gure kanpoko begiespenei zerbait erreala dagokie espazioan. Ibon Uribarri

Erabakiak bere konstituzio propioaren oinarrizko eta autoritate **zalantzaezineko** erregeletatik ateratzen dituen kritikak legezko egoera baten lasaitasuna sortzen du. Ibon Uribarri

Venezuelako egungo gobernuarekiko hurbilen diren Brasil eta Kubaz gain, Kolonbia, Peru eta Txilek ere **zalantzaezintzat** jo dute Chavezen garaipena. Berria - Mundua

Descartesek **zalantzaezinezkotzat** zuen barneko esperientzia ere kanpoko esperientziaren aurresuposiziopean besterik ez dela ahalgarria. Ibon Uribarri

---

# zalantzaezinki *adlag* era zalantzaezinean.

Hala, bada, Ortega-ren arraza kontzeptuaren ikerketa sistematiko batek, Spengler-en arrazaren kontzeptua arakatu beharko luke, eta hori **zalantzaezinki** genetiko biologikoa da. Joxe Azurmendi

---

# zalantzagabe *(orobat* ***zalantza gabe*** *g.er.)* *izond* zalantzarik ez duena.

Euskaltzaindiak lan handia egin du maila honetan, eta lan hori egin ahal izan du, besteak beste, gizartean onarpen **zalantzagabea** izan duelako. Pello Salaburu

Emakumeen artean zeukan arrakasta **zalantzagabe** hark zirikatuta-edo, sarritan pizten ziren Hankapaloren edertasunari buruzko eztabaidak. Xabier Mendiguren Elizegi

Aldaketa **zalantzagabe** eta begibistakoari aurre egin ezin zaion arte. Jon Alonso

Gero eta zailago bilakatzen ari da begirune sistematiko eta **zalantzagabe** bat gordetzea izadiaren baitan gertatzen diren prozesuei. Juan Garzia

Lerroa ezin zuzenago luzatzen zen tarte batez; gero [...] kurbatzen hasten zen, perfekzio geometriko osoa ageri zuen trazadura **zalantzagabean**. Iñaki Iñurrieta

Operazioa konplexua zen une askotan [...] baina mugimendua **zalantzagabea** zen, trabatu gabea, eta berez zihoan bere martxan, sindromearen inolako zantzurik gabe denbora guztian. Xabier Olarra

Ez baitakit nik, bada, gauzak bai orduan eta bai orain hain **zalantza gabeak** diren. Pello Salaburu

## **zalantzagarri** *izond* zalantza eragiten duena. ik **zalantza 6.**

Konplizeek, gehienetan, ihes egiten dute laguna atxilotzen dutenean; beren egoera **zalantzagarriak**, besterik gabe, erbestera eramaten ditu eta nazioa libre geratzen da beste gaiztakeria batzuetatik. Juan Martin Elexpuru

Baina Gol zutik jarri zen eta besoak zabaldu zituen, bere irribarre **zalantzagarri** haietako bat erakutsiz. Joanes Urkixo

Zergatik hasi, orduan, halako multzokatze **zalantzagarriak** egiten auzitan jartzen direnean agerikoenak diruditenak? Xabier Arregi

Nirea zerbitzu mota bat baizik ez duk -zuritzen zuen bere burua, hautatutako ogibidearen etikotasun **zalantzagarriaz** erasaten genionean-. Aingeru Epaltza

Baieztapen hau **zalantzagarria** da. Juan Martin Elexpuru

**Zalantzagarriak** diren 800.000 bat sinaduren gaineko erabakia hartu behar du orain. Berria - Mundua

**Zalantzagarria** dirudi banako bakoitzaz hain kausa txikietatik hain efektu boteretsua itxarotea. **Zalantzagarri** gertatzen da beti, noski, ausarkeriaz buruturiko norberaren zein besteren egintzen epaia. Ibon Uribarri

---

## **zalantzaka** *adlag* zalantza eginez.

Cerratok edaria zerbitzatu zidan: haren eskutzarra botilaren lepora **zalantzaka** zuzendu zen, botila berarengandik ihes egiteko hegoak astintzen ari balitz bezala; gero nire edontzirantz makurtu zuen, harekin tupust eginez behin eta berriro. Juan Garzia

Jauzi batean bertsoaren beste muturrera, entzuleak dauden aldera, iritsi ahal izateko behar duen abioa hasi da kalkulatzen, **zalantzaka**. J. Garzia / A. Egaña / J. Sarasua

---

## **zalantzakor** 1 *izond* zalantzazkoa, zalantza adierazten duena.

Hasiera-hasieratik hau bezalako pertsonaia **zalantzakorrarekin** bizitzeko zailtasunari egin behar dio aurre. Jon Alonso

Eta hurbiltzen zitzaidan, begi lagunak eri **zalantzakorraz** ozkan jarriz. Itxaro Borda

Astiro eta nagiki mugitzen zen haren inguruan, urrats txiki eta **zalantzakorrak** eginez. Jose Morales

Mentxuren begirada **zalantzakorraz** ohartuta, semearekin izandako buruz burukoa kontatu zion Santosek. Josu Landa

Aho zabalik begiratu zuen nola edaten zuen, astiro, hurrupa **zalantzakorrak** eginez. Jose Morales

Beldurrari aurre egiten dion bertute horietakoa da, eta ez zuhurtzia maxkala, bizitza ganorabako eta **zalantzakorra** eramateko gauza denak bakarrik jasan dezakeena. Juan Martin Elexpuru

Auskalo nondik ekarritako blue-jeanak nahiz etorki **zalantzakorreko** motozikletak, beti izaten zuen esku artean dirutzen ahal zen zerbait. Aingeru Epaltza

Jarrera **zalantzakorrenak** EAJk eta Ipar Euskal Herriko PSk izan dituzte. Berria - Euskal Herria

Jendeen arteko batasun **zalantzakorra** hormarik horma orekatuko zukeen akuilua altxatu zuen. Itxaro Borda

Magazineko emazte adindua bortxatzen zuelako lurretik lau metrotan zeuden ataletaraino igotzera, zurubi **zalantzakorrak** erabiliz, bere zango meheekin, zain odoluriak agerian, daldaraka. Itxaro Borda

**2** (adizlagun gisa)

Segidan, **zalantzakor** eta ikaratu antzean, kalea ikusmiratu zuen. Patxi Zubizarreta

-Ziur al zaude? -galdetu zuen Fogarty jaunak **zalantzakor**-. Irene Aldasoro

Emakumea pittin bat **zalantzakor** zegoen, hazka zebilen gonan. Monika Etxebarria

Buruhauste haiekin guztiekin **zalantzakor** ibili zen denboraldi batez. Patxi Zubizarreta

Behatzailearen karotida ebakitik lehenengo odol turrustak ihes egiten duenerako, eskuineko motorraren kapotetik, oraindik **zalantzakor**, sutegiko lehenengo su lama filtratzen denerako. Josu Zabaleta

---

## **zalantzaldi** *iz* zalantza egiten den aldia.

Aitonaren aita, alegia birraitona, gizon ausarta zen, adoretsua oso, **zalantzaldietan** beti aurrera jotzen zuena, arriskualdietan sekula ez atzera. Felipe Juaristi

Beste **zalantzaldi** baten ondoren, azkenean, katea askatu eta atea erdiraino zabaldu zuen emakumeak. Migel Angel Mintegi

Gezurretan ibiltzea alferrikakoa zela iritzita, halaxe ihardetsi zion Sarak, **zalantzaldi** baten ondoren: [...]. Joan Mari Irigoien

-Orain arte bai -esan zuen **zalantzaldi** baten ostean-. Antton Olano

---

## **zalantzalditxo** *iz* zalantzaldi laburra.

-Arratsalde on -esan zion detektibeari, **zalantzalditxo** baten ostean-. Migel Angel Mintegi

---

## **zalantzati** 1 *izond* zalantza adierazten duena.

David **zalantzatia** da, gure artista bezala -esan zuen Cesarrek. Bernardo Atxaga

Bere anaia ahula eta **zalantzatia** da erremediorik gabe, eta ez dut uste neuk ere inolako ondorerik eragingo niokeenik. Antton Olano

Idazle alferrak aupatzen, nartzisoak balakatzen, **zalantzatiei** segurantza ematen. "Ikusi dituzue inoiz altzairuzko bola erraldoi horiek, grua batetik zintzilik jarri eta etxeak botatzeko erabiltzen direnak?", esan die halako batean bere ingeles **zalantzatian**. Jon Alonso

Doinu berria zen hura, dardara pittin batekin, **zalantzatia**, ezohikoa, Idoiak ohituta nindukan adierazpen erabakitsu eta oldarkorren aldean. Juan Kruz Igerabide

Morse andreak abiada bizian eta urduritasunez erantzi zituen arropak, ohi zuen patxada **zalantzatiaz** arras bestela. Mirentxu Larrañaga

Mendiranzko martxari ekin zioten azkenik, zuzenean, ezkutatzeko asmorik gabe dagoeneko, nekea eta borondate **zalantzatia** gaindituz, aurrera eta aurrera egiteko ahalegin bakarrean tinko. Agustin Otsoa

Itsu baten moduko ibilera **zalantzatiarekin**, bere gelara itzuli zen. Agustin Otsoa

Kapelari, berriz, urteen erasanari zor zion kutsu **zalantzati** eta adoregabea zerion. Mirentxu Larrañaga

Batzuetan egoskor eta burugogorra da, baina apetatsu eta **zalantzatia**. Xabier Olarra

**2** (adizlagun gisa)

Stellak barre egin du **zalantzati**. Xabier Paya

Urduri eta, aldi berean, **zalantzati** zebilen. Xabier Aranburu

Hausnarrean egon zen, **zalantzati**, ezbaian, erabaki bat hartu ezinik. Patxi Zubizarreta

Honeyk zorroztu egiten ditu begiak, **zalantzati** eta aztoraturik aldi berean. Oskar Arana

**Zalantzati** baina dagoeneko sendo, udako argia orriotako zirritutxoetan barrena iragazten zen. Matías Múgica

Istant batez **zalantzati** egon naiz, baina, azkenean, liburua hartu, sakelako telefonoa itzali, eta Beatrice eta bere txakurtxoaren bidetik abiatu naiz. Iban Zaldua

-Zer galdera da hori? Zer muga? -galdetu zuen **zalantzati**. Askoren artean

Nahiezik eta **zalantzati**, baina galdera edo kexarik gabe -ez al zeukan obeditzeko gaitasuna maila perfektuan? -joan egin zen. Anton Garikano

Besoekin lepoa inguratu zion eta, **zalantzati**, bizkarra laztandu zion samurki. Ibon Uribarri
Begi-niniek ezker aldera egiten zuten, eta gero eta **zalantzatiago** eta nahigabetuago zegoen. Patxi Zubizarreta

---

# zalantzatsu 1 *iz* zalantzaz betea.

Maitatua sentitzea baino gura ez zuen haur izuti eta **zalantzatsu** baten zalapartak ziren haiek guztiak. Juan Martin Elexpuru / Bego Montorio
Jarraian beste galdera bat egin du, tonu **zalantzatsu** berean: [...]. Jon Arretxe
Semea etorkizun **zalantzatsu** hartarik salbatzeko kementsu agertu zen gizon gaztea. Elena Touyarou
Moldakaitz mugitzen zen [...] keinu tupusteko eta era berean **zalantzatsu** haiekin. Juan Garzia

**2** (adizlagun gisa)

Iragarpen batek ezin zaitu utzi, duda-mudan, lehen baino **zalantzatsuago**. Pello Zabala
-Aizu, Edurne -esan nion, **zalantzatsu**. Jon Arretxe
Hedabide errusiarrak **zalantzatsu** azaldu dira Kremlinak emandako bertsioarekin. Berria - Mundua

---

# zalantzatu, zalantza(tu), zalantzatzen da *ad* kordokatu.

Hauek ezin dira kanpotiko kolpez desegin, ez barrutik inola ere hondatu, ez beste ezein arrazoik erasota **zalantzatu**; dagoeneko azaldua dizut hau lehentxoago. Xabier Amuriza

---

# zalantzaxka *iz* zalantza txikia.

Baina, menturaz **zalantzaxka** bat gelditzen zaigu, ez baita hain ezohikoa gizakien bertuteak mirestea eta haiek berak goraipatzea. Piarres Xarriton

---

zalantzazko ik **zalantza 6**.

---

# zalantzondo *iz irud* zalantza-zuhaitza.

Zalantza haziak ereiten ditiagu **zalantzondoak** biltzeko. Patziku Perurena

---

# zalapart

Sartu eta bertzerik gabe ohe zabalaren gainean **zalapart** egitekoa egin zuenez, aitzindu eta neronek erantzi nizkion, jantzirik baino areago zintzilik, oraino soinean zituen atorra eta gona. Aingeru Epaltza
Aspaldiko oroitzapenak, ahantzi gabe: Napoleon Bonaparte, leher eta **zalapart**! Herria

---

# zalaparta 1 *iz* iskanbila, zarata.

Argi guztiak piztuta, kantak, algarak, **zalaparta**... besterik ez zegoen etxeetan. Rafa Egiguren
Zarata eta **zalaparta** horiek guztiek halako iratzartze bikain burrunbatsu baten xuxurla goxoaz betetzen zuten artean lokarturiko giro hura. Karlos Zabala
Protesta eta **zalaparta** askoren ondoren, Peter bere gelara joan zen azkenean. Josu Zabaleta
Isiltasun moduko bat izan zen **zalapartaren** erdian. Jon Muñoz
Atearen beste aldetik, bi zerbitzariak barruko **zalapartari** adi zeuden. Lopez de Arana
Noizean behin **zalapartak** entzuten dira tanpez, eroriko baldar eta urrunen antzekoak. Koldo Izagirre
Lasaigarria izan zen astelehenean ikastetxeko **zalaparta** eta zirriparrara itzultzea. Iñaki Mendiguren
Zaldi-hotsa, soldaduen **zalaparta** eta segizio ugariaren zaratotsa entzun zen atean. Askoren artean
Zonbat **zalaparta** eta nolako makurrak! Zonbait mila auto erreak besteak beste! Herria
Aurreko pagaditik bele baten **zalaparta** entzunik, atzera egin nahi izan du. Anjel Lertxundi
Eskinosoen **zalaparta** besterik ez zuen entzuten orduan. Imanol Zurutuza
Entzun **zalaparta** mendietan: jendetza handia dirudi. Elizen arteko biblia
Ez zen errekan, ezta Urtzan ere, igerilarien **zalapartarik** sentitzen. Bernardo Atxaga
-Gaurkoak **zalaparta** aterako dik, Pantxo, **zalaparta**! Aingeru Epaltza
Kaio-andana bat pasatu zen nire gainetik, gortzeko moduko **zalaparta** sortuz. Anjel Lertxundi
Bere lana ongi egin eta iskanbila eta **zalapartarik** sortzen ez zuen jende burutsua. Pello Lizarralde
Hitzok sortutako **zalapartaren** ondoren, barkamena eskatu du. Berria - Euskal Herria
Gauean, pattar botilak atera eta **zalaparta** hasten zenean, apaizetxera erretiratzen nintzen ni. Xabier Mendiguren Elizegi
Istiluaren **zalaparta** zabaldu da berehala giroan. Rafa Egiguren
"**Zalaparta** baretu da behinik behin" pentsatu dut. Jon Arretxe
Baionako Abokaten kontseiluak goraki salatzen ditu azaroaren 7an, demo-en auziaren karietara, auzitegian gertatu diren **zalaparta**. Herria
Gudu-garrasiak izango dira eta ekaitz-egunean bezalako **zalaparta**. Elizen arteko biblia
Gaztez gainezka zeuden jada leihoak, sekulakoa zen **zalaparta**. Anjel Lertxundi
-Hara, ikusi -esan zuen Terenciok- nolako **zalaparta** darabilten hor goian. Juan Garzia
Denontzako egongelan **zalaparta** gehiegi izaten da arratsaldeetan. Josu Zabaleta
Ilunabarrean oheratzean, ordea, zarata eta **zalaparta** egiten zuen, bere oheratzeaz denak ohar zitezen. Askoren artean
Haizea bezain hutsala haren **zalaparta**.
Kanpoko **zalapartak** jaikiarazi ninduen. Aingeru Epaltza
Eguzkirik gabe gelditu da ibai gaina, hegaztien **zalapartak** hartu du airea. Anjel Lertxundi
Kaleko **zalapartaren** gainetik, trikitixarena bozgorailuetatik. Anjel Lertxundi
Eliza osoa arrabotsez eta **zalapartaz** bete zen. Michel Oronoz
Halako batean berealdiko tutu hotsa entzun, eta, **zalapartaren** zalapartaz, esnatu gara. Patxi Zubizarreta

**2** (izenondo eta izenlagunekin)

Aferak **zalaparta** handia atera zuen. Karlos Zabala

**Zalaparta** handia ateratzen genuenean begiratu egiten ziguten, bai, baina ez kontu eske edo gaitzituta. Anjel Lertxundi
Kristala **zalaparta** handiarekin hautsi zen. Xabier Olarra
Autoen **zalaparta** ikaragarriak zakar ekarri zuen Ruche jauna bere gizaldira. Jon Muñoz
**Zalaparta** ezohikoz, balaztei karraska eginaraziz, neure etxe pareko ezkaratzean gelditu zen. Karlos Linazasoro
**Zalaparta** polita atera duk, bart ailegatzean. Aingeru Epaltza
1987ko urrian eman zuten BBCko programa, eta jakin-min eta **zalaparta** galanta sortu zituen. Xabier Olarra
**Zalaparta** politiko eta mediatiko nabarmena piztu zuen gertaera hark. Txema Ramirez de la Piscina
Hiri guztia **zalaparta** hutsa zen. Anjel Lertxundi
Kanpai-hots sekulakoa, jai giroko **zalaparta** alaian. Anjel Lertxundi
Eskaileretan **zalaparta** burrunbatsuan gora eta behera ibiltzen. Mirentxu Larrañaga
Badira ibai karramarroak, **zalaparta** nahaspilatsuan, zamo bizkar-belzkarak, oihal mugikorrak diruditenak. Karlos Zabala
Kalera irten, eta ibilgailuen ohiko **zalaparta** lagun dudala, Po ibaiaren ondoko Parco del Valentinora joan naiz egunkaria irakurtzera. Anjel Lertxundi
Aljerian, berriz ere gaitzeko **zalapartak**. Herria
Beste asko hura imitatzen hasi ziren, eta egundoko **zalaparta** antolatu zen berehala. Josu Zabaleta
Orduan sekulako **zalaparta** entzun zen. Felipe Juaristi
Zeruko trumoiak aditzea ere galaraziko zuen bozkariozko **zalaparta** eta iskanbila sortu zen. Berria - Euskal Herria

## **3** (adizlagun gisa)

Oihu eta **zalaparta** ibili ziren gelaz gela. Felipe Juaristi

## **4** (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

Danba, argi-lehertzea, **zalaparta**-hotsa. Oskar Arana
Zuk mututu duzu atzerritarren **zalaparta**-hotsa; lainoaren itzalak beroa bezala, hala ito dituzu jende ankerraren oihuak. Elizen arteko biblia
Haien tristura oso agerikoa zen kanpoan zegoen festa eta **zalaparta** giroaren aldean. Patxi Zubizarreta

## **5** (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa)

Pauso **zalaparta** kanpoan, lapurrek ihes egin zuten. Josu Zabaleta
Zaldiaren inguruan zetozen bizpahiru beleen bat-bateko hego-**zalapartak** airea dardarazi zuen. Anjel Lertxundi
Horretan, non entzuten dudan txilin eta kolpe **zalaparta** bat. Josu Zabaleta
Gero etxe guztian barrena metal-**zalaparta** izugarria aditzen zen: aita kranpoi, iltze eta pioleten bila. Fernando Rey
Trumoi **zalaparta** baitirudi jende horren barreak. Ramon Saizarbitoria
Bezperako jai-**zalapartak** jota utzia zian, eta zurrungan eman zian gau guztia. Juan Garzia
Behitegiak, handiak badira ere, leku lasaia izan ohi dira, baina marru **zalaparta** nabarmena entzuten zen gu iritsi ginenean. Xabier Olarra
Ikara-**zalaparta** bukatua zen. Xabier Olarra
Nire bizitza osoan ez nuen sekula ikusi jendearen joan-etorri halakorik, ez nuen sekula aditu halako gizadi-**zalapartarik**. Mirentxu Larrañaga

## **6** ***zalaparta batean*** zalaparta bizian.

**Zalaparta batean**, atea zabaltzea lortu zuten eta barrura sartu ziren. Anjel Lertxundi
**Zalaparta batean** abiatu ginen denok eskaileretan gora goiko solairuan zer gertatu zen ikustera. Josu Zabaleta
Astakiloa azaldutakoan frantziarrak eta hoteleko beste kanpotar guztiek beren geletara jo zutela **zalaparta batean** zezen bat zetorkielakoan. Bernardo Atxaga
Etxera hurbildu ahala kaioletan diren txakurrak entzuten dituzte **zalaparta batean**. Oskar Arana
Steinitzen ondoko aulkian zegoen emakumea protestaka hasi eta beste aulki batera joan zen **zalaparta batean**. Anjel Lertxundi
Ikasle andana bat, banakako ilaran, Auzo Latindarreko kaleetan barrena, **zalaparta batean**. Jon Muñoz

## **7** ***zalaparta bizian***

Zuhaitzen parera iritsi baino lehentxeago hegaldatu zitzaien, aurrez aurre, **zalaparta bizian**. Imanol Zurutuza
**Zalaparta bizian** altxatu zen gizona; mahai gainera billete bat bota, eta tabernatik irten zen, egunkaria eskuan. Jon Muñoz
Scabbers atera zuen, **zalaparta bizian**. Iñaki Mendiguren
Lotan ez dagoena, **zalaparta bizian** eta kantari ari da, gureganako batere ardurarik gabe. Anjel Lertxundi
Eliz teilatua ohiko elkarleku zuten usoak beldurrak airean ibiltzen ziren, saldo osoa hegaldatzen baitzen **zalaparta bizian** belatzak gerturatu orduko. Imanol Zurutuza
· Gau-pasa egiten ari duk errege, topaka, parrandan jo eta su, dantza-**zalaparta bizian**. Juan Garzia

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
>
> **egundoko zalaparta** (3); **hainbesteko zalaparta** (4); **ikaragarrizko zalaparta** (3); **jendearen zalaparta** (3); **ohiko zalaparta** (3); **oihu eta zalaparta** (3); **sekulako zalaparta** (8); **sortutako zalaparta** (3)
>
> **zalaparta aterako** (3); **zalaparta ateratzen** (3); **zalaparta bat** (6); **zalaparta batean** (13); **zalaparta bizian** (12)
>
> **zalaparta egiten** (3); **zalaparta entzun** (9); **zalaparta eragin** (5); **zalaparta eragingo** (3); **zalaparta eta iskanbila** (3); **zalaparta galanta** (3); **zalaparta gutxiago** (4); **zalaparta handi** (5); **zalaparta handi samarra** (3); **zalaparta handia** (44); **zalaparta handia atera** (4); **zalaparta handia ateratzen** (5); **zalaparta handia eragin** (6); **zalaparta handia sortu** (12); **zalaparta handirik gabe** (3); **zalaparta handirik sortu** (4); **zalaparta handiz** (6)
>
> **zalaparta ikaragarria** (3); **zalaparta izugarria** (5); **zalaparta sortu** (10); **zalaparta sortu zen** (3); **zalaparta sortuz** (3); **zalaparta sortzen** (4); **zarata eta zalaparta** (6)
>
> **sekulako zalapartan** (3)
>
> **zalapartaren artean** (3); **zalapartaren erdian** (13); **zalapartaren gainetik** (6); **zalapartaren ondoren** (3)
>
> **zalapartarik gabe** (15)

---

# **zalapartaka** 1 *adlag* zalaparta atereaz.

Luzaz jardun zuen han **zalapartaka** eta botekin lurra joz. Jose Morales
Txoriak **zalapartaka** ari ziren, zuhaitzetik zuhaitzera. Felipe Juaristi
Deiadarka, gaizki esaka, eta **zalapartaka** ibili zen harrezkero. Mirentxu Larrañaga
Agirre zaharra hainbat hilabetez ostatukide ukan genuenok, **zalapartaka** hasi ginen zorionak emanez eta bibaka. Koldo Izagirre
Zaldi-kotxe bat **zalapartaka** kalean behera. Lopez de Arana
Gizonak garrasika ekin zion, eta **zalapartaka** alde egin zuen eta bi egun eman zituen etxetik kanpo. Mirentxu Larrañaga
Emakumea ere oihu batean hasi zen, **zalapartaka**: [...]. Patxi Zubizarreta
Osaba Vernon sukaldera sartu zen **zalapartaka**. Iñaki Mendiguren
Azken egun horietan bele asko ibili da hor **zalapartaka**. Bernardo Atxaga
Berryko konde-ordeak alde egiteko deia berritu zuen, bitartean, etsipenez beterik, bihotza **zalapartaka**. Felipe Juaristi

## **2** (hitz elkartuetan)

Eta hankak lotuta zeuzkaten oilo batzuk hegal-**zalapartaka** ari ziren kaioletan. Koldo Biguri

**hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
**zalapartaka ari ziren** (3); **zalapartaka astindu** (3); **zalapartaka eta** (5); **zalapartaka hasi** (8)

---

## zalapartaldi *iz* zalaparta dagoen aldia.

Egundoko **zalapartaldiak** aditu ziren, bata bestearen atzean, tren jasoak handik igarotzean. ontzi **zalapartaldia** antolatu zuen herri eta hiri guztietan. Lopez de Arana

---

## zalapartari 1 *iz* zalaparta ateratzen duena.

Balea-koipeaz betetako upelak deskargatzen ari ziren marinel **zalapartari** batzuk, biraoa hark eta zimikoa horrek. Anjel Lertxundi
Gizon txiki **zalapartari** bat sartu zen atetik, mukiei zurrupaka eta belarriak hotz-hotz eginda. Irene Aldasoro
Gure Neskato Alaia deitu izan genion beti, eta familiaren jostagarria izanez hazi zen Wood-tarren etxean, klown beti maltzur eta **zalapartari** bat. Oskar Arana
Izan ere, arin ibili ezean, eskola-ume multzo **zalapartaria** antolatzen zen ate nagusiaren aurrean, eta irtenaldiak dexente oztopatzen zituzten. Pedro Alberdi
Jerusalem, hiri zaratatsu eta **zalapartari**, hiri jostalari, zure hildakoak ez ditu ezpatak bota, ez dira gerran hil. Elizen arteko biblia
Ilunabar gardenetan nitaz trufatu nahi bide zuten mentzigu eta hartxori arinak, aldra **zalapartaritan** agertzen eta desagertzen ziren eta egurats barea gurutzatzen. Txillardegi
Neska-mutikoen oihu **zalapartari** eta bihurriek behartuta, berriro isildu ziren. Fernando Morillo
Usoak nonahi, salto txiki **zalapartariak** eginez hurbiltzen zitzaizkidan nik zerbait ematea espero balute bezala. Anjel Lertxundi
Ellenek nahi gabe ikusi ahal izan zituen bisaia iheskorrak, farolak eta nikelezko gurpil **zalapartariak**. Lopez de Arana
Harantzago helduen iluntasun ikaragarria, **zalapartari** eta dardarati, leihoetan gora eta atearen zirrikituetan hatzak sartuz. Lopez de Arana

**2** (adizlagun gisa)

Baziren ume batzuk goiko pisuan, **zalapartari** ibiltzen zirenak beti jolasean. Kalesa desagertu egin zen gero, su bizira botatako lastoa erre ohi den moduan: bat-batean eta **zalapartari**. Harkaitz Cano
Zazpi eta erdietan kanpai-hotsa hasi da berriro, ordubete lehenago bezain **zalapartari**. Anjel Lertxundi
-**Zalapartari** daude; eta horrek eguraldiaren txartzea iragartzen duela pentsatzen dugu Bizkaian. Txillardegi
-Oso **zalapartari** zeudek; Jexuxa batez ere. Txillardegi

---

## zalapartatsu 1 *izond* zalaparta handikoa.

Azkenean, txalo-zaparrada **zalapartatsuari** gaina hartuta, James Merivalek bere hitzaldiari hunkiturik berrekin zion. Lopez de Arana
Virgilen ahotik ez zen bat-bateko oihu **zalapartatsurik** jalgi. Xabier Olarra
Nafarroako Volkswageneko langileek manifestazio **zalapartatsua** egin zuten atzo. Berria - Ekonomia
Ohartarazpenaren tximista txikitzaileaz eta trumoi **zalapartatsuez** bazterrak zipriztintzen ditu. Xabier Olarra
Eskolako egun **zalapartatsuak**. Xabier Olarra
Errepide bero **zalapartatsuan** zehar. Lopez de Arana
Mendi zintzur basak, errekasto **zalapartatsuen** pasabideak. Karlos Zabala
Ahaztu mundu **zalapartatsu** hau eta haren apeta liluragarriak oro. Jose Morales
Hiri handi **zalapartatsu** bat zen hura, urrezko hauts hodei baten barruan. Karlos Zabala
Oraingoz liskar **zalapartatsuak** baretu dira. Josu Zabaleta
Eztabaida **zalapartatsu** bat hasi zen horren ondoren. Jon Muñoz
Errusiar herriaren ohiko izaera etsipen otzana zen, amerikar herriarena urduritasun **zalapartatsua**. Iñaki Mendiguren
Hantxe eserita aritzen ziren berriketan eta elkarri ahots goraz deika, iskanbila biziki alai eta **zalapartatsuan**. Mirentxu Larrañaga
Zuritasun agerikoa, **zalapartatsua** ia. Fernando Morillo
Nire ustez, oso sistema **zalapartatsua** dugu: sari gehiegi, handinahikeria ere bai. Ana Urkiza
Hain leialak eta **zalapartatsuak** diren zaleei. Berria - Kirola
Eihera, normalean hain **zalapartatsua**, ia gogoz kontra hasi zen higitzen. Juan Garzia
Normalean baino **zalapartatsuagoa** gertatu zen eguna herrian. Josu Landa
Bi protagonisten arteko maitasunak aurrera egin ahala, negarra sentituagoa zen, baina baita **zalapartatsuagoa** ere. Anjel Lertxundi
Urte horietan, Barojaren kazetari-lanak bereziki oldarkor eta **zalapartatsuak** izan ziren. Josu Zabaleta

**2** (adizlagun gisa)

Gabiraietako batek hegoei **zalapartatsu** eragin, eta hegaldi laburra egin zuen. Anjel Lertxundi
Hegoak **zalapartatsu** astintzen ari zen kaiolako barren kontra. Iñaki Mendiguren
Kotxezainak hankaz jotzen zuen kanpaia, **zalapartatsu**. Patxi Zubizarreta
Han agertu zen, ekaitzaren muin-muinetik baletor bezain **zalapartatsu**, Fructuoso bera. Inazio Mujika Iraola
Lurra zapaldu orduko, armadura osoa zirtzildu zaio bat-batean, **zalapartatsu**, eta guda-jantziari eusten zion Herio agertu da, mutilak behar zuen tokian, zurbil eta itzaltsu. Anjel Lertxundi

---

## zalapartatu, zalaparta(tu), zalapartatzen da/du *ad* zalapartaz bete.

-Padraig hil zenean, mundua **zalapartatu** zen. Itxaro Borda
Barne patioa **zalapartatzen** zuten haur logaletuak nire begi paretik desfilatu ziren, banan-banan, beren guraso birika-handiekin batean. Aingeru Epaltza
Hegazti koloretsuek, ostera, ihes egiten dute eta gauez haien hegoek jainkoen oihanak bat-batean **zalapartatzen** dituzte. Xabier Amuriza

---

## zaldain *iz* zubi estu era arina, eskuarki oinezkoentzakoa.

Patin gurpildunetan inguratu zen neska batek strip-teasea egin zuen uraren gaineko **zaldain** batean. Joxan Elosegi
Orain juzga dezake ea oinezkoen **zaldain** hau errege-bide bihurtzen lagundu nahiko lukeen. Ibon Uribarri
Ivy izan zen **zaldainean** barrena lehorreratzen azkena. Joxe Austin Arrieta
Orgek, bizigarriz gainezka, egunero zeharkatzen zituzten lubakien gaineko **zaldainak**. Aingeru Epaltza

---

## zaldale *(orobat* ***zaldare*** *g.er. eta* ***zaldari*** *g.er.)* *iz* abereen bazka, eskuarki lehorra. ik **pentsu**[2].

**Zaldalea** eta ogalea. Patziku Perurena
Laneko abereen bizimodua adierazten du: goizeko bostetan **zaldalea** eman, seietan ura edanarazi, eta arre! Patziku Perurena
Bazkarekin batera **zaldale** pittin bat jasoko du abereak lansaritzat. Patziku Perurena
Ardien artean **zaldalea** berdin banatua zela sinesten genuen, jale handiek txikiagoentzat partea uzten zutela, hots! Itxaro Borda
Artoa **zaldaririk** hoberena da animalientzat eta ihiziek, izanikan ere basak, gauza ona zer den ezagutzen dute. Angel Aintziburu / Jean Baptiste Etxarren
Eliza dotore samarra, **zaldalearen** gordetegi bilakatua. Koldo Izagirre
Bordaren barnera egin zien bultza, eta azao bana **zaldale** bota zien. Koldo Izagirre

---

**zaldar** *(orobat* ***zuldar*** *g.er.)* *iz* larruazal azpiko zelulak zoltzean sortzen den pikorta. ik**erlakizten**.
-Badirudi **zaldar** bat zuela lepoan. Lopez de Arana
Larruazalean **zaldarra** izan eta, sendatu eta gero, [...]. Elizen arteko biblia
**Zaldarrak** sendatzeko edabe sinple bat egiten hasi ziren. Iñaki Mendiguren
Halakoxe zarakar bat da hazka eginda ere **zaldarretik** odolari ateratzen uzten ez diona. Jon Muñoz
Poesiaren lore urdinak **zaldarrekin** batera galdu zituen. Fernando Morillo
-Aurpegi-masaje txiki bat, jauna, **zaldar** horiek kentzeko, jauna? -murmurikatu zion bizarginak belarrira. Lopez de Arana
**Zaldarraren** gainean sortu den legena da. Elizen arteko biblia
**Zuldar** zornetuak burutik oinetaraino! Anjel Lertxundi
Orban gorri-horixkak nabari zaizkio, **zaldar** zornatsuen gisan. Urtzi Urrutikoetxea

---

zaldare ik **zaldale**.

---

zaldari ik **zaldale**.

---

**zaldartxo** *iz* zaldar txikia.
**Zaldartxo** bat izatea. Iñigo Aranbarri

---

**zaldi** **1** *iz* ugaztun handia, lepoa kakotua eta zurdazko adatsez hornitua, hanka lirain apodunak dituena, zama eta garraio abere gisa erabiltzeko gizakiak etxekotua; espezie horretako arra *(Equus caballus)*.
**Zaldi** eta behor, tuntunxeagoak izaki, harrapatu izan ditu elurte mardulaxkoak. Pello Zabala
Ni gorteatzen sei **zaldi** nahi omen ditu leherrarazi! Jon Muñoz
Bizkar sendoko **zaldia** . Elizen arteko biblia
**Zaldia** eta **zaldiarekikoak** baizik ez ziren falta. Aingeru Epaltza
Gudu-gurdiak eta gurdikoak irauliko ditut, eta **zaldiak** eta zaldizkoak eroriko dira, batak bestea ezpataz jota. Elizen arteko biblia
Lubis azaldu zen bidean, eta **zaldiak** zeuden saileranz egin zuen. Bernardo Atxaga
Osaba Juanen **zaldiak** zaintzen zituen Lubis hura azaltzen zen aurrena. Bernardo Atxaga
-Axa, **zaldiak** , axa! Anjel Lertxundi
Txalmatu **zaldiak** , igo gainera, zaldunok! Elizen arteko biblia
Hirira joatea erabaki zuen, nahiz eta **zaldiak** ferratu gabe egon. Jose Morales
Zaldizkoak prest zeuden ordurako, **zaldiak** putinka artega. Agustin Otsoa
Abian jarri ziren **zaldiak** . Jose Morales
Aitak, haserre, oihu egin eta **zaldiak** ezproinatu zituen. Anjel Lertxundi
Bridaren presioa laxaturik sentitu zuelarik, **zaldia** lauhazka atera zen. Jon Alonso
-**Zaldiak** etengabeko trostan! Anjel Lertxundi
Diligentziako **zaldiak** bainatzera eramaten zituztenean. Koro Navarro
Lepoa moztuko zaie jauregiko gotorlekuan nire **zaldia** lapurtu eta itzuli ez zuten lapurrei. Fernando Rey
Lera eta **zaldia** bide-bazter elurtuan lotu, eta trena abiatu arte itxaroten zuen han. Jose Morales
Zaldizko bat hor du **zaldiaren** gainean. Herria
Ai, nola desiratu izan nuen [...] miruaren gainera igotzea, zaldizkoa **zaldiaren** gainera bezala. Joan Mari Irigoien
Atea gurutzatu, eta bere **zaldiaren** kabestrua askatu zuen zutagatik. Juan Garzia
-**Zaldiaren** estalkiak ikur bat du -esan zuen Sofik-. Fernando Rey
**Zaldien** pabiloian lasaitasun handia zegoen. Bernardo Atxaga
Kosakoek, **zaldiei** bridatik eutsirik, iparraldeko bazterra hartu zuten. Felipe Juaristi
Idatziz eskatu beharko zuen **zaldientzako** oloa. Jose Morales
Zalgurdiz edo **zaldiz** joango zen, aukera izanez gero; oinez, ezinbestean. Karlos Zabala
Ez bitez **zaldiz** ibil, premia nabariak edo gaixotasunak beharturik ez bada. Askoren artean
Legoa bat egin genuen **zaldiz** , lur eremuen artean. Juan Garzia
Goraka abiatu gara, **zaldiz** buruzagiak, oinez gainerakook. Txillardegi
Mundua mundu denez geroztik, ba al dago inor bere atarira iritsitako **zaldi** bat itzuli duenik? Fernando Rey
Orduan Belasko heldu zen mornatarren **zaldi** bat aho-soketatik hartuta zekarrela. Joanes Urkixo
**Zaldiak** hamazazpi muskuluko sistema korapilatsua du belarriaren posizioa doitzeko edo kolpe batez euliak uxatzeko. Irene Aldasoro
**Zaldietan** (52 buru), bretoin arrazakoetan lehen sariak. Herria
Urkiagaren **zaldiek** 75 untze egin zituzten. Berria - Kirola
Egon bedi erne, argi eta erne, ea ikusten duen **bi zaldiko** gurdiren bat. Elizen arteko biblia
*ik beherago* 11. Askoren artean
· Troiako **zaldia** [...] izei oholez egina omen zen. Pello Zabala
Lau hanketan zuria, Herioren **zaldia** . Patziku Perurena
Asmakari mekaniko horiek guztiak -telefonoa, elektrizatea, altzairuzko zubiak, **zaldigabeko** ibilgailuak- ez dira alferrikakoak izango. Lopez de Arana
**2** (izenondo eta izenlagunekin)

## 2 (izenondo eta izenlagunekin)

Beldurrak **zaldi** grinatsu eta biziena mando bihurtu dezake. Berria - Kirola

Lau **zaldi** beltzek gidaturiko zalgurdi bat. Felipe Juaristi

Migel Mailuren salaketak **zaldi** arinei loturiko zorroetan bidaiatzen ziren Donibanera, eta Donibanetik Pauera. Aingeru Epaltza

**Zaldi** mardula zen, bizkarralde ederrekoa. Fernando Rey

Bazter haietan ez zen inor hain aberatsik, hain **zaldi** apaina izan zezakeenik. Fernando Rey

Tarantas bat, Siberiako **zaldi** margulek tiraturik, beti joango duk buhame gurdi baten aurretik! Karlos Zabala

Aroztegiaren aurrean **zaldi** zelatu bat zegoen. Fernando Rey

**Zaldi** ferratu batek bezainbat azantz edo arrabots egiten zuten Luzaideko karrikan ibiltzean. Angel Aintziburu / Jean Baptiste Etxarren

Nigromanteak, maitagarriak, **zaldi** hegodun edo adimendunak. Iñaki Iñurrieta

Gero, **zaldi** izutuaren brida ukabilaz hartuta, tiraldi ikaragarria eman dio. Karlos Zabala

Kalesa txiki bat zetorren nekez eta astiro, hutsik, lau **zaldi** ile-luzek tiraturik. Jose Morales

Ukuiluetatik gurdien endaitzetara itzuli ziren bizileku ibiltarietatik tiratzen zuten **zaldi** zahar hanka-motelak. Karlos Zabala

Paseoko **zaldi** talde haundi bat edukitzea. Patziku Perurena

Petrolioa eta euroa **zaldi** apokaliptikoak itzuli dira, eta euren ezpatakadek bi asteotako baikortasuna desagerrarazi dute. Berria - Ekonomia

Billarrak utzitako lekuan **zaldi** mekaniko lardats bat paratu dute. Patxi Iturritegi

Zurezko **zaldi** bi, aitzin-gibeletarat balantzaka ibiltzen zirenak. Joan Mari Irigoien

Plaza isilean, musikatxoaren oihartzuna zabaldu zen, jostailuzko **zaldi** bat airean tragedia baten iragarpen-jolasa egiten ari balitz bezala. Juan Kruz Igerabide

Odol garbiko **zaldi** arabiar eder bat. Fernando Rey

Hesien gainetik jauzi egiten zuten, ibaiak zeharkatzen, oztopoak gainditzen, **zaldi** odol-garbiaren adore paregabeaz. Karlos Zabala

*Podaroshna* bat ez da postako **zaldiak** hartzeko baimena besterik. Karlos Zabala

Ordezko **zaldiak** jarriko ditiat posta-geltoki guztietan. Jose Morales

Suzko **zaldiak** zituen suzko gurdi batek bereizi egin zituen elkarrengandik, eta Elias zerurantz igo zen zurrunbiloan. Jose Antonio Mujika

## **3** (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

**Zaldi**-tratulariek mika esaten dieten zalditxo zuri-horixka horietako batek tiratzen zuen gurditik. Jose Morales

Zaldizain trebe egin zen, eta turkoen aurkako gerra gaiztoaren kariaz, **zaldi**-lapur eta gerlari. Felipe Juaristi

Rantxoko **zaldi** talde bat Kaweah errekaren ertzean zegoen ura edaten. Bernardo Atxaga

Harresietara inguratu zelarik, mando, asto eta **zaldi** sail handi bat agertu zitzaion. Patxi Zubizarreta

-Gaur-gaurkoz, **zaldi**-tranbia duk (kristauak eraman behar direnean); eta mando-tranbia, jeneroa besterik eraman behar ez denean. Txillardegi

Praka barrenak **zaldi**-boten barruan bildurik eta kaki koloreko tabardoa lepotik belaunetaraino. Edorta Jimenez

Berehala etorri zitzaizkion lekaio edo **zaldi**-mutil bi, oinetarainoko soinekoz, zeta gorrizko soinekoz jantziak. Patxi Ezkiaga

Horretan, **zaldi**-hotsa, soldaduen zalaparta eta segizio ugariaren zaratotsa entzun zen atean. Askoren artean

Zaldia eta gizona, alabaina, ugaltzeko irritsak bultzatzen ditu biak, baina bata **zaldi** irritsak, eta bestea giza irritsak. Ez al dituk aditzen horko **zaldi**-irrintziak,eta turuta-soinuak, eta danbor-hotsak? Piarres Xarriton

**Zaldi**-trostak kalesari eragindako klanka-klankarekin. Anjel Lertxundi

**Zaldi**-hazkuntzan eta natur zientzietan eginiko azken aurrerapen eta hobekuntzen berri ematen. Jose Morales

Solaskideek **zaldi**-haztegiei buruz hitz egiten bazuten, **zaldi**-haztegiez aritzen zen bera ere. Jose Morales

**Zaldi**-karruseleraino inguratu zen, niri mesfidantzaz begiratzen zidala. Harkaitz Cano

Goazen kanpora, gizon horiek dotoreegiak dituk **zaldi** pabiloi batean sartzeko. Bernardo Atxaga

Zaldiei atzera eragiten saiatu zen, beste kotxeko **zaldi**-tresnetatik aska zitezen. Barka iezadazu, Wilmarth andereñoa, baina zer dela-eta izan behar duzu halako **zaldi**-eitea? Jose Morales

Ederki aditzen nuen **zaldi** ferren hotsa, lur gainean joka. Aingeru Epaltza

Gandua **zaldi** ferra baino itxiagoa zen. Harkaitz Cano

Denbora berean, ofizialeak, **zaldi**-ferratzailea ere egun guzian ferra eta ferra. Herria

Zelaren azpian, bizkar oso-osoa estaliz, feltrozko **zaldi**-estalki bat zuen. Fernando Rey

Bi **zaldi** eta **zaldi**-uhaleria oso bat ere ordaintzen zela. Iñaki Heras

Zurezko **zaldi**-buru eta gangarrak izba ezkutuetako gailurretan zizelaturik. Jose Morales

Poloniatik **zaldi**-zezina eta chucruta. Felipe Juaristi

Mamarro bibotedun bat zeukan aurrean, izugarri, tente, **zaldi**-buztan bat buruan. Jose Morales

Gasolinaren eta **zaldi**-gorotz zapalduaren usaineko hautsa. Lopez de Arana

Kobiza, biolontxelo antzekoa, irekia aurrealdean, **zaldi** zurdez hornitua eta arku batez igurtzitzen dena. Karlos Zabala

-Igandean, Garruzen, **zaldi** feria. Herria

Frantziako **zaldi** lasterketen denboraldian proba gehien irabazten dituen jockeyari ematen dioten saria. Berria - Kirola

Kantariak, dantzariak, **zaldi** lasterketa iskanbilatsuak izango ziren, eta jarraian orgia eta zalaparta. Karlos Zabala

Geltokiaren atzean **zaldi** lastertoki bateko oztopo guztiak ikusten ziren. Fernando Rey

Lau egunez jokatuko dira Aulestiko (Bizkaia) **zaldi**-mando probak. Berria - Kirola

Suak urrezko distira urdina zegien ene **zaldibegi** unatuetan. Karlos Linazasoro

## **4** (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa)

Giza **zaldia**, zentauroa. Xabier Kintana

Bere aitaren orga-**zaldia** erakutsi zidan. Mirentxu Larrañaga

Ez dugu ustea gudu-**zaldietan** jarriko. Elizen arteko biblia

Gerra-**zaldiaren** historia luzean, kasurik dramatikoena Mundu Berrian gertatu zen. Iñaki Mendiguren

Harrotua eta adoretua nengoen tamainan, guda-**zaldi** bat bezala, eta ahaltsua sentitu nintzen. Karlos Zabala

Izan ere, masturbazioa da borroka-**zaldia**. Juan Martin Elexpuru / Bego Montorio

Prelatu-pila batek posta-**zaldi** publikoak erabili dituelako. Iñaki Mendiguren

Troikako laguntza-**zaldi** izpildunari. Jose Morales

Ez duk txarra laguntza-**zaldi** hori; begiz jota zeukaat aspaldion, baina gizon horrekin ez zegok inolako traturik egiterik. Jose Morales

Ziegako horman zehar dozenaren bat mamu-**zaldi** sartu ziren, bakoitzak gainean bururik gabeko zaldizko bat zuela. Iñaki Mendiguren

## **5** (gainean, gainera eta kideoen ezkerrean)

Aurretik, taldeburu, **zaldi gainean** nagusi, gizon gazte bat. Txillardegi

Oso gaixo zegoenez, Frantzisko **zaldi gainean** zihoan. Egun osoa iragan dute **zaldi gainean**, Etxalar eta Zugarramurdiko mugak ferekatzen zituztela. Askoren artean

Noizbaiteko batean han zetorrek **zaldi gainean**. Patziku Perurena

**Zaldi gainean** sartu herrietan, txapela begietan, gerrian sablea, kanpaiak elizan jo eta jo ari diren artean. Koro Navarro

Gero Iruainera joan behar genuelako berak **zaldi gainean** ibiltzen erakuts ziezadan. Bernardo Atxaga

Bidez bide eta mendi tontorrez tontor **zaldi gainean** ibiltzeak, rugbyan aritzeak bezainbat sentsazio eskainiko didala, ez dut dudatzen. Daniel Landart
Gero, horrela jantzita, **zaldi gainean** erabiliko du hiriko plaza nagusian. Jose Antonio Mujika
**Zaldi gainean** eta zuriz jantzita, ezkutua besoan. Joanes Urkixo
Armetan trebatzen ninduen, **zaldi gainean** ere bai. Aingeru Epaltza
Eskalot **zaldi gainera** igo zuen Lancelotek, eta beste leku batera eraman. Juan Kruz Igerabide
Berriro ere **zaldi gainera** igoko naiz, eta loriazko egunak biziberrituko ditut. Oskar Arana
Legendunaren bake-besarkada hartu ondoren, berriro **zaldi gainera** igo eta aurrera jarraitu zuen. Askoren artean
Haien jauntziak eman zituzten soinean, eta **zaldi gainera** hupatu ziren. Elena Touyarou
Eta gero, berriro **zaldi gainera**, zamalka eta zamalka gau osoan. Agustin Otsoa
Gatibuak **zaldi gainera** igoarazi eta agudo eraman zituzten indarrez. Karlos Zabala
Legendunenganako nazka betikoa zuen arren, bere buruari gogor eginez, **zaldi gainetik** jaitsi eta txanpon bat eman zion, eskuan muin eginez. Askoren artean
Zaldizkoak lurrera jaitsi ziren **zaldi gainetik**. Karlos Zabala
Hona etorri eta begi aurrean jarri arte ez da jendea **zaldi gainetik** erortzen. Bernardo Atxaga
Eta harro baina errezeloz, begiratzen naute **zaldi gainetik**, irrifar isilez agurka. Patziku Perurena
Arrosa sorta bat biltzeko **zaldi gainetik** eskua luzatzen duen gizona bezala. Anton Garikano
Beti ere **zaldi gainetik**, epaia eman du Pierre Lancrek: [...]. Anjel Lertxundi

## **6** (toki atzizkien eskerrean)

Lubis, erakutsiko al diok Davidi **zaldian** ibiltzen? Bernardo Atxaga
Hamabost egunen buruan, hortxe nonbait izango zara **zaldian** ibiltzeko moduan, baina orain ez. Juan Kruz Igerabide
**Zaldian** ibiltzeaz gain, zer gustatzen zaizu? Berria - Kirola
Hornidura soila edo, hobeto esanda, irabazleen **zaldian** etorritako zaldun arrotza. Hasier Etxeberria
Postilioi bihurtuta, lehenengo mandoan edo **zaldian igota** joaten nintzen. Bernardo Atxaga
Olivier d'Oussant 1562. urtean hil zen, artean gazte zela [...] Paristik negozio on bat egin ondoren **zaldian** zetorrela busti eta hotzeriaz harrapatutako hetika baten ondorioz. J.M. Olaizola "Txiliku"
Berehala **zaldira** igo zen eta, alde batera eta bestera begiraturik, ez zuen inondik inora legenduna ikusi. Askoren artean
Sebastianek **zaldira** igotzekoa egin zuen, baina jiratu eta gonbitoka hasi zen. Bernardo Atxaga
Joantto beste hitzik gabe, **zaldira** igan, eta Baionarako bidean, ilunpean galdu zen. Elena Touyarou
Hitz haiek esanik, zalduna **zaldira** igo, eta joan egin zen. Juan Kruz Igerabide
Arin baino arinago, taldekideak **zaldietara** igo ziren berriro haien bila joateko. Joanes Urkixo
Eta horra non, bat-batean, nire laguna, ia anaia nuena, **zalditik** erori, buruz aurrera, eguzki kolpe batek jorik. Josu Zabaleta
Donostiatik Bilbora ordubete eskas behar zuela konturatzean, eta ez, bere gazte garaietan bezala, hiru ordu luze, **zalditik** erori eta bere fedeaz abjuratzeko zorian egon zen. Bernardo Atxaga
**Zalditik** jaitsi gabe, haren eskutan utzi nuen zorioneko zorroa. Aingeru Epaltza
**Zalditik** jaitsi, eta atea jo zuen. Juan Kruz Igerabide
Biak **zalditik** jaitsi eta harengana inguratu ziren. Joanes Urkixo
Dariok, pizti ehizan zebilela, **zalditik** jauzi egitean, hanka bihurritzea gertatu zen. Patziku Perurena

## **7** xake jokoko pieza.

Erregea, erregina, gazteluak, alfilak, **zaldiak** eta peoiak galdu egin dira. Joseba Sarrionandia
Abantaila nirea izaki nabarmen, **zaldi** bat jana bainion. Joxe Austin Arrieta
Taula den mundu txiki horretan, noranahi joan daitezke gainerako piezak: erregea, bere pauso motz eta uzkurrekin; dama, bere pauso luze eta ausartekin; dorreak, beren pauso astun eta beldurgarriarekin; **zaldiak**, beren ibilera aldrebes eta baldarrarekin... Imanol Zurutuza

## **8** *adkor* heroina.

Marihuana goxoa daukat eta **zaldi** ederra. Sonia Gonzalez
Yonkia gustura egongo da **zaldi** gehien dagoen tokian, eta, gogorra bada ere, kartzela nahiago izango du droga behar izanez gero. Berria - Euskal Herria
Droga gogorra txertatu zion gorputzean emakumeari, **"zaldia"** bezain gogorra, handik aurrera berriro dastatzeko gogo bizia izan baitzuen. Migel Angel Mintegi

## **9** potentzia unitatea, 735,5 watten baliokidea.

Duela 14 urte eraikia izanik Bretainian, 400 **zaldiko** motorra du. Herria
Motorrek 420 **zaldiko** potentzia dute. Berria - Ekonomia
Zer behar da 450 **zaldiko** auto bat gidatzeko? Berria - Kirola
400 **zaldiko** lokomotor pila bat. Pello Zabala
Furgona berri honen motor isila berrehun **zaldiko** bou zaharrarena bezain kolpekaria bilakatu da. Koldo Izagirre
Inbertsio handia egin dute 500 **zaldiko** potentzia duen autoa erosteko. Berria - Kirola
Kaietatik irten gabe egin beharreko bidaia hastekotan zegoen, nahiz eta Naumon-en 932 **zaldi**-potentziako makinak guztiz geldituta zeuden. Berria - Kultura

## **10** estira emateko tresna.

Heldu ziren goizean torturatzaileak eta, kartzelatik aterata, oinaze-**zaldian** zintzilikatu zuten, burdinazko pisu ugari beraren gainean jarriz. Askoren artean

## **11** ***bi zaldiko*** *iz* Citroen etxeko auto merkea.

Eta **bi zaldikoa** berriro hartu, eta etxera itzuli naiz, joan eta etorri, etorri eta joan. Joan Mari Irigoien
Hiriburuko ospitalera eramaten zuten tarrapataka, Xarlestegi herriko auto-jabe bakarraren **bi-zaldiko** urdin ilunean. Itxaro Borda
Behauzetik jiten zen bere bi **zaldiko** beribil xaharrean. Herria

## **12** ***itsas zaldi****sup_1 iz* zaldi itxurako arrain teleosteo txikia *(Hippocampus sp.)*.

**Itsas zaldi** bat aurkitu dute Tamesis ibaian, eta kutsadura gutxitu den erakusle dela esan dute. Berria - Gaiak
**Itsas zaldi** lehortu parea, plastikozko bi xaflaren artean jarria; iguana bat; kameleoi bat, eta hiru urteko boa bat kristalezko bere kaiolan; eta hantxe aurre-aurrean tente, Max, piztiaren mugimendurik txikienaren zelatan. Jon Muñoz
**Itsas zaldi** formakoa. Xabier Paya

## **13** ***itsas zaldi****sup_2 iz* itsasoan ibiltzen den zaldia.

Antza, urtero garai bertsuan, erregearen behorrak gisa hartan lotzen zituzten, **itsas zaldiek** estal zitzaten; horren ondotik, **itsas zaldiak** behorrak jaten ahalengintzen ziren, eta zaldizainen egitekoa zen haiek garrasika uxatzea eta itsasora bidaltzea. Patxi Zubizarreta
Une hartantxe **itsas zaldi** bat agertu zen eta estali egin zuen behorra. Patxi Zubizarreta

## **14** ***zaldi karrosa*** *(orobat* ***zaldikarrosa*** *g.er.) ipar*

**Zaldi karrosan** ibiltzen omen zen Luzaiden gaindi. Angel Aintziburu / Jean Baptiste Etxarren
Ordu arte aste bat osoa behar Parisetik ondo hotarat heltzeko zaldi-**karrosa** batzuekin. Herria
Aita bizar xuria ere ibili da **zaldi karrosean** haurrekin itzuli batzuen egiten hauen jostagailu. Herria
Jokoak izanen dira haurrentzat, ibilaldiak **zaldi karrosaz**. Herria

Denbora hetan, ez baitzen autorik, ez eta treinik, ez eta bixtan da airekorik, **zaldi karrosan** eginen zuen bidea! zernahi xapel, modakoetarik, eremaiten zuen berekin, xapel horiek Madrilen saltzeko hango emazte aberatseri. Herria

### 15 *zaldi kotxe* (*orobat* ***zaldikotxe*** )

-Kalmanek **zaldi-kotxea** seietarako presta dezala. Xabier Olarra

Orain **zaldi-kotxe** bat hartu eta buelta bat ematera joango gara parkean zehar. Lopez de Arana

Grafton Streetera iritsi zirenean, Power jaunak **zaldi-kotxe** bati txistu egin zion. Irene Aldasoro

Ostatuko gurdi-atetik **zaldi-kotxe** txiki eta nahikoa polit bat sartu zen, baleztaduna eta arina. Jose Morales

**Zaldi-kotxera** igo zen. Irene Aldasoro

Bi gurpileko **zaldi-kotxe** arina, baleztaduna eta estali gabea. Jose Morales

Argiontziekiko **zaldi-kotxeak**, bi jendarme sarreran, zaldizainen oihuak urrun. Jose Morales

Neska atzerritarrak xal eta mantaz estaltzen zuen bere burua **zaldi-kotxearen** atzealdean. Xabier Olarra

**Zaldi-kotxe** bat zalapartaka kalean behera. Lopez de Arana

### 16 *zaldi orga*

**Zaldi-orga** ere eskatu diat hiretzat. Antton Olano

**Zaldi orga** bat baratu berri da atarian, eta amak mezutu dit joateko berehala bere gelara. Jon Muñoz

**Zaldi-orga** zain zagok atarian. Antton Olano

Menturaz zeregin horretan ginatekeen oraino, baldin aditu ez bagenu **zaldi orga** bat etxe aitzinean sartzen. Jon Muñoz

Haren isilmandatari trebeak **zaldi orga** deituko zuen, atea irekiko zuen; eta bera, Prévan, orgara igo ordez, artoski itzuriko zen. Jon Muñoz

### 17 *zaldi larru* (*corpusean* ***zaldilarru*** *soilik*)

Gero buruak larrutu, kanpotik berriz **zaldilarruz** estali eta barrena urreztatuz edalontzitako erabiltzen dute etsien kaskezurra. Patziku Perurena

### 18 *zaldi zela* (*orobat* ***zaldizela*** *g.er.*)

Mikel Strogoff **zaldi zelan** eserita dago jadanik. Karlos Zabala

Turuta txiki batzuk zeramatzaten **zaldi zelaren** aurrealdeari loturik, haien graduaren ezaugarri. Karlos Zabala

Behin show porno batean ikusitako **zaldi-zela** bat marraztu ere egin nuen buruz. Karlos Zabala

Kondesaren **zaldizela** bihurtu nahi nikek, -eta zaldi beltza eta zela seinalatu zituen, [...]. Fernando Rey

Beyaren gizonek begirunez agurtu eta **zaldi-zelak** hartu zizkieten. Fernando Rey

**Zaldi-zela** bat erosten badut, ez ditek haragirik jaten hiru hilabetean. Xabier Olarra

**hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 4 aldiz agertzen direnak)**

**bere zaldi zuriaren** (4); **itsas zaldi** (7)

**zaldi bat bezala** (4); **zaldi bat ekarri** (5); **zaldi baten gainean** (12); **zaldi batengatik** (5); **zaldi beltz** (11); **zaldi beltza** (4)

**zaldi eder** (5); **zaldi ederra** (4); **zaldi ederrak** (4); **zaldi ero** (9); **zaldi eta gudu** (5); **zaldi eta mando** (4); **zaldi feria** (4); **zaldi gainean** (161); **zaldi gainean abiatu** (4); **zaldi gainean ibiltzea** (4); **zaldi gainean ibiltzeko** (5); **zaldi gainean ibiltzen** (6); **zaldi gaineko** (4); **zaldi gainera** (35); **zaldi gainera igo** (19); **zaldi gainetik** (37); **zaldi gainetik jaitsi** (10); **zaldi gorri** (4); **zaldi handi** (4); **zaldi hegaldun** (5); **zaldi hilaren** (4)

**zaldi irrintziak** (4); **zaldi karrosan** (4); **zaldi karrosaz** (5); **zaldi kotxe** (10); **zaldi kotxea** (5); **zaldi lasterketa** (9); **zaldi lasterketak** (6); **zaldi lasterketen** (5); **zaldi mando** (23); **zaldi mando probak** (17); **zaldikotxe bat** (3)

**zaldi ona** (5); **zaldi orga** (13); **zaldi orga bat** (4); **zaldi otzan** (4); **zaldi pare** (4); **zaldi talde** (4); **zaldi tropa** (4)

**zaldi xuri** (6); **zaldi zuri** (31); **zaldi zuri bat** (9); **zaldi zuri baten** (8); **zaldi zuria** (5); **zaldi zuriak** (6); **zaldi zuriaren** (8); **zaldi zuriaren gainean** (5)

**bere zaldia** (20); **haren zaldia** (7); **mikel strogoffen zaldia** (4); **nire zaldia** (5); **troiako zaldia** (5)

**zaldia baino** (5); **zaldia hartu** (5); **zaldia itzuliko** (6); **zaldia trostan** (4)

**bere zaldiak** (5); **bi zaldiak** (6); **gurdiak eta zaldiak** (4); **haren zaldiak** (5); **nire zaldiak** (4); **osaba juanen zaldiak** (4)

**zaldiak baino** (4); **zaldiak ekarri** (5); **zaldiak eta behorrak** (6); **zaldiak ikustera** (5); **zaldiak zaintzen** (5)

**bere zaldiarekin** (4)

**bere zaldiaren** (12); **bere zaldiaren gainean** (6); **zaldiaren bizkarrean** (4); **zaldiaren gainean** (31); **zaldiaren gainera** (4)

**bere zaldiari** (10); **zaldiari eragin** (4)

**zaldiek bezala** (4)

**bere zaldien** (4); **zaldien gainean** (10); **zaldien gainera** (5); **zaldien pabiloian** (4); **zaldien trosta** (6)

**beren zaldietan** (6)

**zaldietatik jaitsi** (5)

**lau zaldik** (4)

**bi zaldiko** (5); **eko zaldiko maldiko** (5); **iruñ zaldiko maldiko** (23); **zaldiko maldikoa** (5); **zaldiko maldikoak** (4); **zaldiko maldikoan** (6)

**zaldira igo** (8); **zaldira igo zen** (4)

**zaldirik gabe** (4)

**zalditik erori** (13); **zalditik jaisten** (5); **zalditik jaitsi** (37); **zalditik jaitsi gabe** (4); **zalditik jaitsi zen** (10); **zalditik jauzi** (4)

**oinez eta zaldiz** (4); **zaldiz ibili** (4); **zaldiz ibiltzea** (4); **zaldiz ibiltzeko** (7); **zaldiz ibiltzen** (16)

---

## **zaldibartar** *izlag/iz* Zalbibarkoa, Zaldibarri dagokiona; Zaldibarko biztanlea.

Ignacio Gallo Realeko lehendakaritzara aurkeztu zen hautagai **zaldibartarra** ere Realekoa zen. Berria - Kirola

Sarriugarte **zaldibartarrak** saio ona egin zuen. Berria - Kultura

**Zaldibartarra** izanik, realzalea zen Lezamara joan aurretik. Berria - Kirola

Futbolean emaitzek agintzen dute, eta emaitzek aldaketa egitera behartu zuten **zaldibartarra**. Berria - Kirola

---

## zaldibegi ik **zaldi 3**.

---

## **zaldibiar** (*orobat* ***zaldibitar***) *izlag/iz* Zalbiakoa, Zaldibiari dagokiona; Zaldibiako biztanlea.

Itxaso Garmendia eta Bittor Gartzia euskal preso **zaldibiarrak** aske geratu dira, bakoitzak 50.000 euroko bermea ordaindu eta gero. Berria - Euskal Herria

-Gure garaitzapenik handiena izan omen duk hau aspaldi honetan -argitu zidan Kaximiro Mendia **zaldibitar** lankideak-. Txillardegi

Jose Garmendia **zaldibiarra**, euskaltzain urgazlea, 80 urtetan zendua. Herria

**Zaldibiarrak** 24 urte ditu, eta txapelketa batean baino gehiagotan jardun du. Berria - Kirola

**Zaldibiarrek**, atzo ez ezik, herenegun ere ikusi zituzten militarrak herrian. Berria - Euskal Herria

---

zaldibitar ik **zaldibiar**.

---

**zaldidun** *iz* zaldia duen edo daraman pertsona. ik **zaldizko; zaldun**.

Horiek eta bertze kabala pare bat, han zirenak ikusten ahalko ditugu helduden martxoaren 20 ean primaderako feirietan, bezperan 19an zaldiaren egunarentzat Herriko Etxeak ezartzen ditu usaian bezala parke batzu **zaldidunen** zerbitzuko. Herria

1521an, Maiatzeko egun batez, ximixtaren pare iragaiten da **zaldidun** bat Iruñako karriketan eta gobernadorearen etxean sartzen. Jon Alonso

**Zaldiduna**, mezularia, gaztigu-emailea, Bazofias da, noski; gobernadorea da, kasu honetan, heriotzatik salbatu nahi den pertsona. Jon Alonso

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
> **zaldidunen zerbitzuko** (3)

---

zaldieri ik **zalditeria**.

---

zaldiferra ik **zaldi 3**.

---

zaldigabeko ik **zaldi 1**.

---

**zaldika** *adlag* zangoak zaldi gainean bezala jarriz. ik **zaldizka**.

Kikildu egiten dira, **zaldika** geratuz errepide erdian, bizikletaren koadroaren gainean, hankak lurrean. Berria - Kultura

Nanak ura prestatu zuen Michaelek bainua har zezan, eta **zaldika** eraman zuen bainuontzira. Julen Gabiria

Batzuk xenda normalak dira, albo bakoitzean baranda bat dutenak [...] baina beste batzuk nora ezean doaz, zabalak dira leku batzuetan eta, besteetan, hain estuak ezen **zaldika** jar baitzaitezke euren gainean. Julen Gabiria

---

**zaldikari** *iz* zaldizkoa.

Zapelatza bezain arina dela gure anderea; eta zaldi gainerako igo legeaz Kordobako nahiz Mexikoko **zaldikaririk** iaioenari ere erakutsi liezaiokeela. Patxi Ezkiaga

---

zaldikarrosa ik **zaldi 14**.

---

**zaldikatu**, zaldika(tu), zaldikatzen da *ad* zaldika mugitu.

Lehenagotik zetorren guztia, askoz lehenagotik, Conrad eta biok zure bizkarrean **zaldikatzen** hasi ginenean, hain zuzen ere. Bere gainean jarri naiz kokoriko, eta **zaldikatzen** hasi natzaio, jaisten naizen bakoitzean, mokor-kolpe indartsu batez aireratzen nau berriro, baina bere zakilak nire baitan jarraitzen du mirakuloski, hain atsegina dudan txipli-txapla hori entzuten dut. Aritz Gorrotxategi

Krema koloreko maindireen artean **zaldikatu** ziren behin eta berriro. Aritz Gorrotxategi

---

**zaldikatze** *iz* zaldiak mugitzea.

Nire tramankulu gogor eta adurtiaren gainean eseri zen; erditik bi egiteko, eztarriraino sartzeko gogoz nengoen, baina bere barruan osorik kokatu nintzenean, eskuak nire paparrean jarri zituen eta punpaka hasi zen, zoratzeko moduan jarri nintzen, bere ulutxoz laguntzen zuen **zaldikatze** itsu bati ekin zion. Juan Martin Elexpuru

Euskal sinesmen zaharreko **"zaldikatze** eroaren" arketipoa emazteek beren artean kontatzen zituzten ipuinetan zertan finkatzen zen zehazki, ahoan bilorik gabe azaltzen zuen. Itxaro Borda

---

**zaldiketa** *(orobat* ***zaldizketa*** *g.er.)* **1** *iz* zaldi gainean ibiltzea, eskuarki kirol gisa.

Hong Kongeko arduradunek **zaldiketako** probak han jokatzeko eskatu zuten, baina NOBk ez du gustuko ideia. Berria - Kirola

Beti izaten zen kantu parte-hartzaileren bat, argigailuaren, berbenaren, lore jokoen, kabalgataren, karrozaren, mozorroaren, danborraden, zezenen -egiazkoen eta suzkoen-, zaldiko-maldikoaren, **zaldiketen**, xedera jaurtitzearen, erraldoiaren eta buruhandiaren artean une jakin batean behar zenerako egokitzen zena. Askoren artean

Galtzen gainean **zaldiketan** ibiltzen dira kiribilka. Koldo Biguri

**2** (hitz elkartuetan)

Zaurituak artatzeko zentroa jarri zuen Nafarroako Gobernuak Zolinako **zaldiketa** klubean. Berria - Euskal Herria

---

**zaldiki** **1** *iz* zaldiaren haragia.

**Zaldikiak** prezioen partetik arrakasta izan du. Herria

Zorixarrez **zaldikiaren** prezioak joan den urtetik apalago daude. Herria

**2** (hitz elkartuetan)

Hirikoek **zaldiki**-bolak jaten zituzten euren etxeetan, eta garagardoa eskatzera etortzen ziren Boscacciora. Koldo Biguri

---

**zaldiko** **1** *iz* zaldi txikia.

Biraka ziharduen berebiziko abiaduraz, zurrunbiloaren erdigunera makurtuz, **zaldiko** bat zirkuaren pistan bezala, gero eta agudoago. Karlos Zabala

Gau hartan ez zen besterik entzun Miguel Páramoren **zaldiko** beilegiaren putinka baino. Juan Garzia

Longaina **zaldiko** gorrixka baten larruz egina zen. Fernando Rey

Gizonak feltrozko txanoekin, ahuntz, **zaldiko** edo orein larru kolore anitzekoetan bilduak. Fernando Rey

Atzamarrak hozmindurik, belarriak gorriturik, begiak gaziturik, sudurra **zaldiko** nekatuen antzean lurrina zeriola. Joseba Sarrionandia

**2** irud/hed

Karrusel abandonaturiko **zaldiko** baten gainean zegoen. Jon Alonso

**3** ***zaldiko-maldiko*** jolas parkeetako plataforma biribil birakaria, zaldiak, autoak eta besteako jarlekuak dituena eta jostagarritzat erabiltzen dena.

Liburutegi txiki bat, gazteentzako bilera-gela bat eta umeentzako jolastokia ipini ahal izateko, bere **zaldiko-maldiko** eta bilintzi-balantzarekin, eta beharbada igerileku txikitxo batekin. Koldo Biguri

**Zaldiko-maldikoan** ibiltzea baino, hark bira ematen zuen guztietan aita han zegoela ikustea zen, ororen gainetik, niri gustatzen zitzaidana. Anjel Lertxundi

**Zaldiko-maldikoak** bira-biraka segitzen zuen. Anjel Lertxundi

**Zaldiko-maldikoan** zelan zaldiak denak abian eta hala ere denak beti elkarren arteko distantzia berean, carroussel zoro-eroan, horrelaxe gabiltzala ematen dit niri. Edorta Jimenez

**4** irud/hed

Telebista piztu nuen, arreta pantailan jarri eta nire pentsamenduen gurpila gelditzeko; bestela **zaldiko-maldiko** bihurtuko zitzaidalakoan, zalapartatsua, figura beti berberen erakusle. Bernardo Atxaga

Haurtzaroan gurasoei erdi entzundako hainbat kontu berritu nuen nire arteko **zaldiko-maldiko** eroan. Anjel Lertxundi

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
> **bi zaldiko** (5); **zaldiko maldiko** (23); **zaldiko maldikoa** (5); **zaldiko maldikoak** (4); **zaldiko maldikoan** (6); **zaldiko potentzia** (3)

---

zaldikotxe ik **zaldi 15**.

---

## zaldikume *iz* zaldiaren kumea.

Belar sailaren alde batean bi zaldi zeuden, Ava eta Mizpa, eta hiru **zaldikume**; bestean, bakar-bakarrik, Moro, astoa. Bernardo Atxaga

Jaio diren **zaldikumeez** hitz egin beharko zeniguke, osaba. Bernardo Atxaga

Zaldizainak, gutxi gora-behera, behorrek umeak egiterakoan itzultzen ziren, eta **zaldikumeak** erregearentzat biltzen zituzten. Patxi Zubizarreta

Ez al dira **zaldikume** politak? Bernardo Atxaga

---

## zaldikunde *iz* zaldi eta kideko abereen multzoa.

Lehenean [ferian] **zaldikundea** nausi: asto, pottoka, zaldi. Herria

---

zaldilarru ik **zaldi 17**.

---

## zaldiratu, zaldira(tu), zaldiratzen da *ad* zaldira joan.

Aragorn jauzi batez **zaldiratu** zen Roherynen bizkarrera. Agustin Otsoa

---

## zalditegi *(orobat **zaltegi** g.er.)* **1** *iz* zaldiak gordetzen diren tokia.

Salomonek lau mila **zalditegi** zituen, gudu-gurdiak eta zaldiak gordetzeko, bai eta hamabi mila zaldun ere. Elizen arteko biblia

Zeppelina pausatu zen toki berean, **zalditegi** bat zegoen hainbat moxal eta zaldirekin. Anjel Lertxundi

**Zalditegietarantz** eraman zituzten animaliak. Bernardo Atxaga

-Hobie -esan zuen neskak-, ba al da **zalditegirik** ingurumari honetan, zaldi basatiak alokairuan dituenik? Mirentxu Larrañaga

Akerra ere ikusi zuten **zalditegian**, zeren eta, antzinako herri-sineskera zahar baten arabera, abere hori eduki beharra baitago zaldien artean. Jose Morales

Zonbat eta zonbat gazte eta adineko ez dira“ Armaneneko” **zalditegi** hortan ibili ikasten animaleak nola hezi, nola menperatu. Herria

Artilleriako maisu handia eta emirraren **zalditegiko** burua. Karlos Zabala

**Zalditegiko** zaintzaileak izango ziren, zaldi-kontuez ari baitziren. Anjel Lertxundi

Helduden larunbatean [...] Sarako plaza argi zabala bilakatuko da **zalditegi** erraldoi baten pare, begiluzeen plazer osoaren iturri; hor ikusten ahalko dire maxal albaitari eta tratulari, begi xorrotxez ikertuko baidituzte, gure mendiek, hazten dituzten pottoka pollitenetarik, zeren izanen da pottoken feria. Herria

**2** (hitz elkartuetan)

**Zalditegi** publikoan mando bat mailegatu zuen eta berehala abiatu zen Sara aldera. Elena Touyarou

Egurraren eta udaberriko belar freskoaren usain gozoa sumatu nuen, eta patio lasai nahasiarena, bere behitegi lur jo, zuri eta zikinarekin, bere **zalditegi** huts ate-zabalekin. Koro Navarro

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
> **zalditegira eraman** (4)

---

## zalditeria *(orobat **zaldieri**)* **1** *iz* zaldi multzoa; eskuarki, armadaren atala, zaldizkoek osatua. ik**zalduneria 4**.

Apokalipsiko **zalditeria** beren suzko apatxekin bertatik pasatu izan balitz bezala. Mila gudu-gurdi, zazpi mila zaldizko eta hogei mila oinezko atzeman zizkion Davidek; **zalditeria** osoari hanka-zainak ebaki zizkion, baina beretzat gorde zituen ehun gudu-gurdi beren zaldiekin. Jon Alonso

Etiopiar eta libiar gudarostea ere izugarria zen, beren gudu-gurdi eta **zalditeria** handiarekin. Elizen arteko biblia

Atera zen Israelgo erregea ere, triskatu zuen **zalditeria** eta gudu-gurditeria eta izugarrizko hondamendia egin zien siriarrei. Elizen arteko biblia

Etxea berrehun urte lehenago armadaren hornitzaile batek eraikia zen -Austriako armadako **zalditeria** oloz hornitzen zuen batek-. Xabier Olarra

**Zalditeria** inperialaren nagusia Harry Harrison Barne ministroa da. Jon Alonso

**Zalditeriaren** Zazpigarren ataleko buruak, ile luze gorriko Custer jeneralak. Josetxo Azkona

**Zalditeriako** ofizial baten antezko botei begira nengoen. Monika Etxebarria

Teniente postua zuen **zalditerian**, eta abenduan Albaniarantz abiatu zen. Berria - Kultura

Tatariarren **zalditeriako** destakamendu bat agertu zen eskuin aldean. Karlos Zabala

**2** (hitz elkartuetan)

Nola mantentzen zituen bertan **zalditeria** postuak. Agustin Otsoa

Mariskalak, **zalditeria**-eskuadra batzuen ondoan gelditurik, aginduak ematen jardun zuen luze. Jon Alonso

Eskolta behingoz gelditu zen **zalditeria**-dibisio baten erdian. Jon Alonso

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
> bere zalditeria (5)

---

**zalditoki** 1 *iz* zalditegia.

Garai batean Cid-en **zalditokia** izandakoa zen hau, herriko harresian. Jokin Urain

**2** hipodromoa.

25 lasterketa jokatuko dira Donostiako **Zalditokiko** Udaberriko sasoian. Berria - Kirola

Miarritzeri dagokionez, Polo **zalditokiko** zelaian egin zuen entrenamendua asteazkenean, lehen aldiz aurten. Berria - Kirola

Horri hiru txikane gehitzen zaizkio, abiadura mantsotu eta **«zalditoki**» ordez «zirkuitu» deitu ahal izateko. Berria - Kirola

---

**zalditxo** *iz* zaldi txikia.

Zaldi-tratulariek *mika* esaten dieten **zalditxo** zuri-horixka horietako batek tiratzen zuen gurditik. Jose Morales

Nekazariek inauteri-egunetarako bereziki apainduriko gurdiak iristen ziren aldirietatik, eta **zalditxo** argalei lepoan jartzen zizkieten kaskabiloek txilin-hotsez betetzen zuten airea. Jose Morales

Tiobiboan jira eta bira, gora eta behera, hor doa, joan eta joan, **zalditxoa**. Joxerra Garzia

Maite ditzakezu Santimamiñeko **zalditxoak** baina baita Jeff Koonsen zakur loratua ere. Joseba Zulaika

---

**zalditzar** 1 *iz adkor* zaldi erraldoia.

**Zalditzar** baten gainean heldu nintzen, galtzen artetik pistola eta zakutik ezpata ageri. Aingeru Epaltza

Halako batean, laster-orga kulunkari bati tiraka zetorren **zalditzar** bat belauniko jausi zitzaion, brasta, aurrez aurre. Mirentxu Larrañaga

Ilunabarrean bera eta bere **zalditzarra** neka-neka eginik eta goseak pasaturik zeuden. Patxi Ezkiaga

**2** heriona. ik **zaldi 8**.

Koadrila osoa **zalditzarra** hartuta zebilen eta mutil-laguna KO zeukala aprobetxatuta zamalkatu ninduen argoseak. Urtzi Urrutikoetxea

---

**zaldizain** 1 *iz* zaldiak zaintzen dituen pertsona. ik **zamaltzain**.

Argiontziekiko zaldi-kotxeak, bi jendarme sarreran, **zaldizainen** oihuak urrun; hitz batean, behar bezala zegoen dena. Jose Morales

Itsas zaldiak behorrak jaten ahalengintzen ziren, eta **zaldizainen** egitekoa zen haiek garrasika uxatzea eta itsasora bidaltzea; **zaldizainak**, gutxi gora-behera, behorrek umeak egiterakoan itzultzen ziren, eta zaldikumeak erregearentzat biltzen zituzten. Patxi Zubizarreta

**Zaldizainak** zaldia ezproiez jo eta trostan joan zen. Fernando Rey

Geltokiko burua bulegotik atera zen, **zaldizaina** zaldi gainetik jaitsi eta geltokiko buruari estribora ailegatzen lagundu zion. Fernando Rey

**2** (adizlagun gisa)

Mollyren aitak Etxandian lan egiten zuen, **zaldizain**. Mirentxu Larrañaga

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
> mendozatarren zaldizainarekin (3)

---

**zaldizale** *iz* zaldien zalea dena.

Gero amaren erretratua zegoen, kapela lumaduna buruan eta zaldi-zigor bat eskuan, zirkoko **zaldizaleen** tankeran. Xabier Olarra

Horra gure filosofoak ere, Fernando Savater, esaterako, **zaldizale** britaniar amorratu. Patziku Perurena

---

zaldizela ik **zaldi 18**.

---

**zaldizka** 1 *adlag* zangoak zaldi gainean bezala jarriz. ik **zaldika**.

Etengabeko musu sakonaz elkartzen ziren berriz, Janina aldion Werner hatsantuaren gainean **zaldizka** zihoala. Izeba Abigail, zeina ezkon-soinekoz mandeme zuri baten gainean **zaldizka** sartu baitzen Saluzzo-n. Itxaro Borda

Etxe baten gainean **zaldizka** ibilia baitzen. Xabier Olarra

Deposito gorrimina karelaren gainean **zaldizka** zegoen, eta motorra, freskera baten barruan, gure lurrun-jarioek janik herdoiltzen ari zen. Juan Garzia

**2** (izen gisa)

Mila urte bazen neskak ez zuela deabruak berak itxura ez zezakeen horrelako **zaldizka** hunkigarririk eskaini. Itxaro Borda

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
> gainean zaldizka (4)

---

**zaldizkari** *iz* zaldi gainean ibiltzen den pertsona.

**Zaldizkariak** beren pottoken gainean ibilaldiaren aintzinean. Herria

-10etan Karriketan Uztaritzeko **Zaldizkarien** kabalkada. Herria

---

zaldizketa ik **zaldiketa**.

**zaldizko** 1 *iz* zaldiz ibiltzen den pertsona, eskuarki zaldiz ibiltzen den soldadua.

Apokalipsiko laugarren **zaldizkoa**. Berria - Kultura
Ea zaldun ibiltariren batek ezkutaririk izan ote zuen, asto-gainean **zaldizko**. Patxi Ezkiaga
Zazpi lagun hartu zituen goarniziorako, hiru **zaldizko** eta lau oinezko. Aingeru Epaltza
Atzetik, karroza bat zetorren, inguruan lauzpabost **zaldizko** zituela laguntzeko, eta bi manda-mutil oinez. Patxi Ezkiaga
Ustekabean hiru **zaldizko** agertu ziren ilargiaren argipeko espektro hegadunen antzera. Agustin Otsoa
Hogeita lau egunez egon ziren asiriarrak beren oinezko, gudu-gurdi eta **zaldizkoekin** hiria inguratzen. Elizen arteko biblia
Hogei bat **zaldizkok** osatzen zuten destakamendua. Karlos Zabala
Aukerako hirurogei mila gizon eta bost mila **zaldizko** bildu zituen Lisiasek juduen kontra joateko. Elizen arteko biblia
Erortzen ari ziren bitartean, **zaldizkoen** lauhazka entzun zuten zubitik iragaten, orkoen oinen kolpeekin batera. Agustin Otsoa
Ondoren **zaldizkoen** konpainien txanda izan zen, baita kanoi mordoska batena, ilaran, eta aurrekoei jarraiki. Txillardegi
Izanen da ere ber denboran ibiltarien eta ere **zaldizkoen** ibilaldia. Herria
Hola, ez zen irririk, ez zen jostetarik, denak serioski ari ziren: zaldunak baziren eta **zaldizkoak**, ezpatak eta azkonak bazituzten, zilarrezko armadurak, kaskoak eta ere erredolak. Michel Oronoz

2 (izenondoekin)

Mikel Strogoff bezain **zaldizko** ona izan behar, zaldiaren erreakzio bortitzekin lurrera ez erortzeko. Karlos Zabala
Beti izan naiz **zaldizko** trebea; zaldia hartu eta distantzia luzeak korritzera ohitu nintzen. Juan Garzia
**Zaldizko** unatu odoltsu bat zetorren sortaldetik. Juan Garzia
Lehenbailehen aurre hartu behar zien **zaldizko** uzbekei Irkutskeko bidean. Karlos Zabala
Harrian **zaldizko** biluzi bat ageri da, lantza bat esku artean duela. Berria - Kultura

3 (hitz elkartuetan)

Biderako gudari- eta **zaldizko**-talde bat ere eman zidan. Elizen arteko biblia
Eguzkia ateratzen ari zen **zaldizko** talde bat agertu zenean, lauhazka bizian, aurreraka, zaldi zurien gainean. Fernando Rey

4 (izenondo edo izenlagun gisa)

Berrogei mila gudari oinezko eta zazpi mila **zaldizkorekin**. Elizen arteko biblia
Hantxe zegoen Jakoba andrea, Erromako dama txit ospetsua, senatari ziren bere bi semeekin, **zaldizko** gizon asko lagun zituela. Askoren artean
Iritsi ziren Trafalgar Squarera **zaldizko** poliziek diskretuki babestuta. Koldo Izagirre
Mikel Strogoffek uniforme militar dotore bat zuen jantzirik, **zaldizko** ehiztarien ofizialek gudan erabiltzen zutenen antzekoa. Karlos Zabala

**hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
**gainean zaldizko** (3); **zaldi eta zaldizko** (3); **zaldizko beltza** (4); **zaldizko beltzak** (4); **zaldizko hil** (3); **zaldizko talde** (3)
**rohango zaldizkoak** (10); **zaldiak eta zaldizkoak** (3)
**horrelako zaldizkoaren mende** (3); **zaldizkoaren mende dagoela** (3)
**zaldizkoen artean** (4)

**zaldun** 1 *iz* aitoren semea, eskuarki maila apalenekoa; zalduntza ordena bateko kidea.

Bai, seme, gu **zaldunak** gaituk, nobleak, eta ez didak halakorik oroitarazi behar. Joan Mari Irigoien
Don Frantzisko apez ezin hobea izan daitekeela herriarendako, baina ez jauregiarendako, zeren [...] **zaldunen** neurria zaldia da, ez astoa... eta gu **zaldunak** gara. Joan Mari Irigoien
Orduráko bilduta zeuden errege-erreginak, hainbat aitorenseme eta alaba, kapare, **zaldun** eta elizgizon. Anjel Lertxundi
Ez zegoen Edinburgon eta hurbileko herrietan **zaldunik**, jauntxorik, kaparerik, langilerik edo nekazaririk, bihotzaren zokoan [...] neskatxa hura gordetzen ez zuenik. J.M. Olaizola "Txiliku"
Aurrean sei **zaldun** eta atzean beste sei zetozen; erdian dama pinpirin bat, morroi bik eusten zioten dandar luzea jantzita. Julen Gabiria
Gai honetaz pentsatu eta pentsatu jardun ondoren, **zaldun** egitea erabaki zuen, horrela printze maila eskuratu ahal izateko. Askoren artean
Jantzirik ederrenak eginarazi zituen, Gentile izeneko kondeak **zaldun** izendatuko zuen itxaropenez. Askoren artean
Gazteluan [...] Montefeltroko kondeetako bat **zaldun** armatzen zutelako. Askoren artean
-Etxerik gabeko **zalduna** haiz, ordea, eta horrek buhame edo agot odol-zikin baten pare ezartzen hau. Aingeru Epaltza
Tirante Zuri **Zaldunaren** Kondaira. Patxi Ezkiaga
Egun haietan, hain zuzen, Asisko **zaldun** bat arma prestaketa handiak egiten ari zen. Askoren artean
Goñiko **zaldun** Teodosio bere gurasoak hiltzera tentatu zuen fraile deabrua ere gaztelu gaitz honetakoa ote zen uste du jendeak. Patziku Perurena
Maltako **Zalduna** da ondikotz! Jon Muñoz
Ordenara sartu zen lehen **zalduna** izan baitzen. Askoren artean
*Legion d'honneur* ordenako **zaldun** egingo dute. Itziar Otegi
Calatañazorko gerlan kapitain bi aldiz zauritua, **zaldunen** artean **zalduna**. Joan Mari Irigoien
Herritarrek era berean **zaldunen** soro eta mahasti eta zuhaitzak suntsitu zituzten. Askoren artean
**Zaldunen** armaz hornitua zegoen jauregia. Askoren artean
Heroiez ari garenez, aipa ditzagun adibide gisa Mahai Biribileko **zaldunek** edo Graal Santuko **zaldunek** eremutar jakintsuekin edo bidera ateratzen zitzaizkien dontzeila misteriotsuekin izaten zituzten topaketak. Jon Alonso
**Zaldunen** arteko meniak sakratuak dira. Martin Anso
**Zaldunen** lehiara abiatu zen Lancelot Kamelotetik, bere ezkutariarekin. Juan Kruz Igerabide
**Zaldunen** eginbehar nagusia Grial Saindua aurkitzea zen. Juan Kruz Igerabide
Gehiago baitzirudíten biek ere **zaldunen** nobeletako protagonistak, haragi-hezurrezko izakiak baino. Joan Mari Irigoien
**Zaldun** batek bere arma guztiak berarekin dituela joan behar baitu hobira. Jon Alonso
Danceny jaun **zaldunari**. Jon Muñoz
-Okerra ordea, **zaldun** jauna, honetan dago, hemen dirurik ez dudala. Patxi Ezkiaga
Adio, **zalduna**; jai zinez ederra litzateke niretzat zu berriz ikustea: jinen zarea? Jon Muñoz
Itxaron, **zaldun**, itxaron: nik neuk sartuko diot. Juan Martin Elexpuru / Bego Montorio
Zuri eskatzeko ezen izan zakizkion, nire alde, zeure **zaldunari** desleial. Jon Muñoz
**Zaldunak** badaki mintzaldi teorikoak bukatu arte ez dela bere beharrik izango. Juan Martin Elexpuru / Bego Montorio

2 (izenondo eta izenlagunekin)

**Zaldun** noblearen lotsa estali eta gizon pobrearen beharra arindu. Askoren artean
**Zaldun** zintzoa zuzentasunaren, behartsuen eta emakumeen babesle zen, eta **zaldun** maltzurren jokabide gaiztoa zigortzen zuen, aurrez aurreko borrokaren bitartez.

Juan Kruz Igerabide

-Menditarren artean zure ederraren lorea zimeldu behar bada, berdin zimelduko da senartzat **zaldun** arrunt bat edo errege bera hartuta. Martin Anso

Egun batean, **zaldun** pobre batekin egin zuen topo, erdi biluzik zegoena. Askoren artean

Gurutzadetara zihoan **zaldun** gazte batek ostatu eskatu zuen gazteluan. Martin Anso

Bahitu egin beharko nuen **zaldun** izukaitzen gisara. Fernando Rey

**Zaldun** ibiltari batek etxe batean ostatu hartzen bazuen, etxeko alaba ezkongabea izaten zuen zerbitzari. Juan Kruz Igerabide

Batzuetan, **zaldun** ibiltari ero bat sentitzen nintzen, eroen lurretan barrena; zer ziren, bestela, drogaren lurrak? Juan Kruz Igerabide

San Bartolome egunean, Parisen zen **zaldun** higanot ingeles batek ozta-ozta ihes egin zuen sarraskitik. Martin Anso

XX. mendeko zalduneria sortuko zuen, XII. mendeko **zaldun** teutoien ordenaren antzera. Alberto Ladron Arana

Béziers, **zaldun** gurutzatu frantsesek Erdi Aroan hainbeste kataro hil zuten lekua. Mikel Hernandez Abaitua

Bidean **zaldun** ezezagun bat topatzen du, zaldi erdi hil baten gainean. Juan Kruz Igerabide

Mador kementsu borrokatu zen ia bi orduz, baina zauriz beterik utzi zuen **zaldun** zuriak. Juan Kruz Igerabide

Ez bainuen ezpata-jokorik egin behar, ni bezala **zaldun** armatuak ez direnen aurka. Patxi Ezkiaga

Gwainek susmoa hartu zion, **zaldun** misteriotsua ezagutzen ote zuen. Juan Kruz Igerabide

-Bideetako **zaldun**, har ezazu nirean ostatu. Anjel Lertxundi

Erresumako **zaldunek** traidore batekin ezkondu nahi naitek. Juan Kruz Igerabide

Guztiz esaneko **zaldun** haiek ez zuten ezer obedientzia santuaren mandatuen aurretik jartzen. Askoren artean

· Berta Maurac-ekoa Parisera ezkondu zen, Karlos III.aren goi-goi mailako **zaldun** batekin. Martin Anso

Neska bat topatzen du negarrez, **zaldun** lepo egindako baten ondoan. Juan Kruz Igerabide

## **3** (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

-Nire **zaldun**-hitza ematen dizut. Martin Anso

Mutilak haren kontra borroka egin, hil, eta **zaldun**-jantziak eta armak kentzen dizkio. Juan Kruz Igerabide

Zera alegia gogoratu zitzaion, **zaldun**-armatzea beregan hartu gabe zegoela eta **zaldun**-legeen arabera, ezin zezakeela, eskubiderik ez zuela, inolaz ere **zaldun**-armarik jo. Patxi Ezkiaga

Ehizaldietan begirunea zieagu **zaldun**-lege eta -ohitura zenbaiti, begirunea zieagu, basapiztiei, esate baterako. Xabier Olarra

Bere buruari **zaldun**-agiria ematea. Patxi Ezkiaga

Erdi Aroko **zaldun**-guduetan bezala. Jon Muñoz

Nerabe zenerako, Frantziskok **zaldun**-ametsak erraustuak zituen. Pello Zabala

Bere **zaldun**-ordenaren arau zorrotzak zintzo betez. Jose Morales

-**Zaldun** gradua hartu zuen egun beretik maitemindu zuan Lancelot Ginebraz. Juan Kruz Igerabide

**Zaldun**-ezkutariei laguntzera etortzeko agindu zien dukeak bere ehiztariei. Patxi Ezkiaga

## **4** (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa)

Aurrena, uhartediko lurtxo hareatsu batean, biltzarra egin zuten fortuna-**zaldun** bihurtzeko. Juan Garzia

Islamera konbertitu ziren turkiar barbaroak ez ziren arerio antipatikoak garai hartako kristau-**zaldunentzat**. Iñaki Mendiguren

## **5** gizona; gizon prestua.

Gizon adeitsua, benetako **zalduna** zen. Berria - Euskal Herria

Tipo bikaina, gainera: erabateko **zalduna**, kontserbadore zaharretakoa! Irene Aldasoro

Egokia ote da **zaldun** batek gauean honen berandu, ilunpean, dama baten bisita hartzea? Josu Zabaleta

Berlusconik **zaldun** demokrazia ezarri nahi zuen. Berria - Mundua

Emanaldia Straussen Larrosaren **Zaldunaren** Suitea-k itxiko du. Berria - Kultura

## **6** zaldizkoa.

Menderen mendetan zaldiak gidatu du gizonaren arima, eta **zalduna** hiltzean, zaldia ere hil egiten zen, haren arima gidatzen jarrai zezan. Patziku Perurena

Martinek pistola kargatu zuen, zaldi bat eta **zalduna** kotxera hurbiltzen ikusi, su egin zuen eta zaldia astun erori zen lurrera. Koro Navarro

**Zalduna** zaldiaren pare: biluzik. Anjel Lertxundi

Oinezkoa **zaldun**. Aingeru Epaltza

Siriako errege Ben-Hadadek ere ihes egin zuen zaldiz, beste **zaldun** batzuekin batera. Elizen arteko biblia

Elefante bakoitzarekin aukerako bostehun **zaldun** zihoazen. Elizen arteko biblia

Leizarragak bere izkribuetan Joanes Teolojianoa deitzen zuen horren lau **zaldunak** munduaren laurdenean bezala sartu ginen Nafarroa Behereko hegoaldeko eta mendebaldeko lurretan. Aingeru Epaltza

Ehizaldi antolatuagoak, zakur ikasiak, zaldi gainean doazen **zaldun** dotoreak... J.M. Olaizola "Txiliku"

*Amberleig House* zaldia izan zen garailea Graham Lee **zaldunarekin**. Berria - Kirola

**hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**

**aipaturiko zaldun** (3); **asisko zaldun** (4); **beste zaldun batzuekin** (4); **bezalako zaldun** (4); **dabiltzan zaldun** (3); **erdi aroko zaldun** (5); **fortuna zaldun** (4); **kijote mantxako zaldun** (3); **kristoren zaldun** (6); **mahai biribileko zaldun** (3); **markako zaldun** (3); **munduan zaldun** (5); **munduan zaldun ibiltariak** (3)

**zaldun arrotzak** (5); **zaldun ausart** (3); **zaldun beltza** (3)

**zaldun egin** (4); **zaldun eta kapilauei** (3); **zaldun ezezagun** (4); **zaldun ezezaguna** (5); **zaldun ezezagunak** (5); **zaldun ezezagunari** (3); **zaldun figura trixte** (6); **zaldun gazte** (5); **zaldun gaztea** (4); **zaldun harro** (3); **zaldun harroak** (3); **zaldun hitza** (3)

**zaldun ibiltari** (26); **zaldun ibiltaria** (5); **zaldun ibiltariak** (8); **zaldun ibiltariei** (4); **zaldun ibiltariek** (8); **zaldun ibiltarien** (9); **zaldun ibiltariren** (4); **zaldun izan** (4); **zaldun izan nahi** (3); **zaldun jauna** (7); **zaldun kementsua** (5); **zaldun maitea** (5); **zaldun noble** (4); **zaldun noble batek** (3)

**zaldun ona** (3); **zaldun prestu** (3); **zaldun talde** (8); **zaldun talde bat** (4); **zaldun teutoien** (5)

**zaldun zuria** (3); **zaldun zuriak** (4); **zaldun zuriaren** (5)

**avilako zalduna** (3); **danceny zalduna** (4); **gwain zalduna** (3); **henrique zalduna** (12); **lehoiaren zalduna** (3); **lehoietako zalduna** (3)

**basoko zaldunak** (3); **danceny zaldunak** (24); **gurdi eta zaldunak** (3); **gutuna danceny zaldunak** (18); **henrique zaldunak** (4); **hiriko zaldunak** (3); **mahai biribileko zaldunak** (4)

**zaldunak gaituk** (4); **zaldunak merteuileko markesari** (3); **zaldunak valmonteko bizkondeari** (4)

**henrique zaldunarekin** (3)

**danceny zaldunaren** (4); **henrique zaldunaren** (12); **ispiluen zaldunaren** (3); **zaldunaren gutunak** (3); **zaldunaren hitzek** (3)

**danceny zaldunari** (17); **volangesek danceny zaldunari** (9)

**arturren zaldunek** (3)

**bere zaldunekin** (4); **zaldunekin batera** (4)

**gurdi eta zaldunen** (3); **mahai biribileko zaldunen** (4); **zaldunen artean** (9); **zaldunen arteko** (4); **zaldunen lehiara** (3)

**munduko zaldunik onena** (4)

---

# **zaldundar** *izond* zaldunei dagokiena.

Kixotear [...]: Burugabeki **zaldundarra**, Don Kixote bezala Xabier Olarra

---

## **zaldundu**, zaldun(du), zaldutzen da/du *ad* zaldun bihurtu.

Zakurrak **zaldundu** behar beherago iristeko. Xabier Olarra

---

## **zalduneria** 1 *iz* erdi aroko zaldunek osatzen zuten erakundea, eta erakuntze horren jarduera.

Erdi Aroan, Europa osoan zabaldu zen **zalduneria**. Juan Kruz Igerabide

Holgerren balentria guztiak [...] Erdi Aroan **zalduneriari** zegozkion modukoak dira. Martin Anso

Hortik **zalduneriaren** sistema miragarria sortu zen. Iñaki Iñurrieta

**Zalduneriako** liburu edo elaberri haiei zerien kiratsa eta harropuzkeria salatzeko. Patziku Perurena

Frantziako gudarosteak Afrika Iparraldean zuen bertako soldaduz osatutako **zalduneriako** gorputzeko soldadua. Josu Zabaleta

Liburu hauxe izan zen, **zalduneriazko** horietatik lehendabizi Espainian inprimatua. Patxi Ezkiaga

**2** (izenondoekin)

Eta denen aitzinean, gerla-tresnarik izugarriena: Frantzia osoko noble lehenen **zalduneria** harroa. Aingeru Epaltza

Nobleen arteko gerrate luze baten barealdian, bandalismoa eta lapurreta beste ametsik ez duen **zalduneria** feudala ugaldu da. Patziku Perurena

Ez mundua berritu nahian hasi, ezta **zalduneria** ibiltaria bere errotik ateratzen ere. Patxi Ezkiaga

**3** (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

Ezin zitekeela, uste baitzuen, borroka-arriskuetan lege onez sartu **Zalduneria**-Ordena hartu gabe. Patxi Ezkiaga

Labore lur onenetatik golde lur asko saldu zituen **zalduneria** liburuak erosteko. Patxi Ezkiaga

Gure **zalduneri** eleberriek areagotu egin zuten atsegin agertzeko gogo hori. Iñaki Iñurrieta

**Zalduneria** gairik ez ukitzeko asmoa. Patxi Ezkiaga

**Zalduneria**-legeak hautsi ditudalako. Patxi Ezkiaga

Nire osaba jauna **zalduneria**-minetik sendatu eta gero hauek irakurriaz buruan sartuko balitzaio... Patxi Ezkiaga

**4** zalditeria.

Gasteizen ez zen ia gerrarik izan, militarrak estatu-kolpearen alde agertu ziren hasieratik nahiz eta **zalduneria** eta artilleria lehen momentuetan ados ez egon. Mikel Hernandez Abaitua

Hala, SSen buruzagitza hartu zuenean, bere ametsak gauzatzeko aukera ikusi zuen: XX. mendeko **zalduneria** sortuko zuen, XII. mendeko zaldun teutoien ordenaren antzera. Alberto Ladron Arana

Lagungarri izan zuten horretan teknika militarren aurrerapena, hari esker azkenean zaharkituak geratu baitziren **zalduneria** eta gotorlekuak. Koro Navarro

Nahigabeak, jakingo duk noski, ez dituk etortzen lauoinkako zalapartan, hunoen **zalduneria** bezala, baizik eta isilka, itzalgaizka, epidemiak bezala. Juan Garzia

**5** (hitz elkartuetan)

**Zalduneria**-karga baten itxura ere har zezakeen inoiz estilo horrek.-Ikusiko duzu, **zalduneria** eskoadroi bat sartzen ahal da lerroan. Juan Garzia

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
> **zalduneria ibiltariaren** (5); **zalduneria ibiltariari** (3); **zalduneria liburuak** (7); **zalduneria ordena** (7)

---

## **zalduneriar** *izond* zalduneriari dagokiona.

Erabaki zuen, eramateko, uste izanaz noski, ohore gehiagoko abereren bat emango ziola horretarako egokiera sortutakoan; lehendabizi topo egindako **zalduneriarrari** zaldia kenduta. Patxi Ezkiaga

---

## **zaldungo** *iz* zalduntza.

Bai, zin dagit, gertaldi amoltsu eta biziki hunkitu zintuen haren kontaketa ederra irakurriz, gure **zaldungoaren** garai ederrenei egoki dagokion zure neurritasuna ikusiz, [...]. Jon Muñoz

---

## **zaldunki** *adlag* zaldunen eran.

Neska zarpatsu talde baten atzetik oldartu zen, bere harri-jaurtigailua, kargatu gabe, keinatzen ziela, eta, bi mutiko zarpatsu, **zaldunki**, harrika hasi zitzaizkigunean, haiei erasotzea proposatu zuen. Irene Aldasoro

---

## **zalduntasun** *iz* zaldunari dagokion portaera.

Damenganako **zalduntasun** (hain frantses!) hori halaber: [...]. Joxe Azurmendi

Merezi luke esaldiak, tripak ateratzea, britaniarren **zalduntasun** klasikoa hobeki ezagutze alde. Patziku Perurena

**Zalduntasun** heroikoa. Joxe Azurmendi

---

## **zalduntsa** *iz* emakumezko zalduna.

Eta berak, eskuak gerrian, suspirio batean: Apokalipsiaren **Zalduntsa** eszenatokira eskularrurik gabe atera? Harkaitz Cano

---

## **zalduntxo** *iz adkor* zalduna.

Orain, berriz, erran dizuet ezen zaldun horiek, edo, **zalduntxoak**, hobeki, oso liskartiak direla. Joan Mari Irigoien

Azkoitiko **zalduntxo** ilustratuen ibilerak. Berria - Kultura

Guarnizinoko soldaduek ez dituztela aintzakotzat hartzen **zalduntxoen** bilaukeriak... Joan Mari Irigoien

---

## **zalduntza** 1 *iz* zalduneria.

Pinotxok **zalduntzako** heroien herentzia darama berarekin, Pulci, Boiardo eta Ariosto heroiena. Pello Lizarralde

Zer ote zen ba Done Juan de la Cruz-en mistika, sentimenduaren jainko-erako **zalduntza** ibiltaria besterik? Joxe Azurmendi

**2** (hitz elkartuetan)

Don Duardos bere lan ezagunetariko bat da, eta bertan nabaria da oraindik **zalduntza** eleberrien eragina, zaldunen presentzian eta haien arteko gatazketan behin baino gehiagotan igartzen dena. Berria - Kultura

*Denak hasperenka* da nire liburuetan inspirazio horretatik gertuen dagoen liburua, aiton-amonen, osaba-izeben eta aita-amen mintzamoldearekin idatzia baita, haien artean bizirik baitzegoen **zalduntza**-poemen tradizioa. Fernando Rey

· Gudu-**zalduntza** batean ikusi badu Mirandek bere nazioaren salbabidea eta muina, berdintsu egiten zuen Ortegak. Joxe Azurmendi

---

**zale** **1** *iz* zerbait edo norbait oso gogoko duena, zerbaiti edo norbaiti atxikia dena.

"Partida irabazita dago", esan zuen **zale** batek. Berria - Kirola

Liejara joandako **zale** gehienek izugarri gozatu zuten Athleticen garaipenarekin. Berria - Kirola

Futbol-zelaian bezala egongo gara, **zaleen** oihuak entzuten. Migel Angel Mintegi

Madrilen atondu ei zuen **zaleen** espioitza-sare hori alde batera utzirik, [...]. Edorta Jimenez

Artista bati bere **zaleak** nola, halaxe jartzen zaizkit gelakoak, denak nire jiran. Anjel Lertxundi

Bruselara treneko bigarren asteburuan iritsi ginelarik, Ingalaterra eta Alemaniako **zaleen** artean giroa gori-gori zegoen. Edorta Jimenez

Pistatxo koloreak ere gero eta **zale** gehiago zituen. Harkaitz Cano

PSGko hiru **zale** zigortu dituzte bandera neonazia erakusteagatik. Berria - Kirola

Gauza bat dela **zalea** izatea (laztan-trukean, ez dirutan) eta beste bat, oso diferentea, puta edo profesionala izatea (dirutan, ez laztan-trukean). Iñaki Segurola

Gai honetaz jardun duten aditu eta **zale** askok, egitekoaren zailtasuna ikusita, arazoa saihestu eta prozedurak zerrendatzeari ekin diote, urrutiagora joan gabe. Iñaki Arranz

Hegazkinak lur hartu zuenean oso **zale** gutxi zegoen taldearen zain aireportuan. Aritz Gorrotxategi

**2** (izenondoekin)

**Zale** gorritxoak ez mintzearren, **zale** zuri-gorrien artean haserrea sortu zuen. Berria - Kirola

**Zale** nafarrek ez diote barkatzen orduan izan zuen portaera makurra. Berria - Kirola

Portugalera joateko asmoa zuten hamasei **«zale** arriskutsu» atxilotu dituzte Erroman. Berria - Kirola

Hemen arrazoimenaren, razionalitatearen eta holakoen misiolari asko daukagu Ilustrazioaren **zale** berrien artean. Joxe Azurmendi

Horrelako bildumetan harribitxi eder askoak topa ditzake begiak erne dituen **zale** saiatuak. Berria - Kultura

Ez aditu gisa, noski; **zale** ikasi gisa baizik. Jon Muñoz

Pertsonaia jenial hau zezenen **zale** sutsua da. Edorta Jimenez

Nire **zale** itsua zen Adela, erantzungailuan noiznahi uzten zizkidàn mezuek aditzera ematen zutenagatik bai behintzat. Joan Mari Irigoien

Ulertzen dut hori guztia, neu ere ez bainaiz maitasun erromantikoaren **zale** itsu horietakoa. Ramon Saizarbitoria

Argiaren **zale** porrokatua da urkia. Pello Zabala

Xurrut **zale** samarra ote zen diote. Patxi Ezkiaga

Hiztunak eta kontu-zaharren **zale** aspergarriak parrastaka aurkitzen ditugu. Xabier Olarra

Zenbakien **zale** gogaikarri mordoa dago bazterretan. Jon Muñoz

Victoriak gorroto zituen agure Rossetti-ren **zale** lizun haietako bat zela pentsatu nuen. Ramon Saizarbitoria

**Zale** frantsesek, amorraturik, baldekadak botatzen zizkioten aurpegian eta deskalifikatu nahi zuten gehiegizko abiadura zela eta. Pello Lizarralde

Mila jarraitzailetik gora bildu berri dituzte nazien **zale** estatubatuarrek. Harkaitz Cano

Ingalaterran azkar atzematen dituzte **zale** arrazistak. Berria - Kirola

**3** (hitz elkartuetan lehen osagarri gisa)

Estreinako gau epeletariko batean, **zale** talde batek berekin joatera gonbidatu ninduen entzunaldi-osteratxoa egitera. Juan Garzia

Kanpoan, Errealaren **zale** talde bat zegoen bandera zuri-urdinak lepoan hartuta. Ramon Saizarbitoria

Gasteizko **zale** multzo guztiek kritikatu dute klubak hartutako erabakia. Berria - Kirola

Lehen **zale** oldea abiatu zen bart arratsean Praga aldera, jokalari eta taldeko beste kide guztiekin batera. Berria - Harian

**4** (hitz elkartuetan bigarren osagarri gisa)

Ni baina, Karlos **zale** beti. Ministro Baas-**zaleari** aurrena txistu egin zioten, eta gero dena nahastu zen. Urtzi Urrutikoetxea

Barthes **zale** amorratua izanik, semiologiak Propp ezagutzera bideratu zuen Leandroren ezaguna. Anjel Lertxundi

**5** (hiru osagaiko hitz elkartuetan)

Tomate-zopa **zale** amorratua nauzu. Mirentxu Larrañaga

Nafar prehistoria-**zale** tanda batek harri zahar bat ediren du; arkitu harriari piedra bissardun izena eman diote. Iñaki Arranz

Madrilen gaindi-edo bidea egin duen XIX. mendeko hainbat eusko idazle nostalgikorekin, "ipuin heroiko **zale"**, [...]. Joxe Azurmendi

Gure Maddi [...] zer eta zabor UPN **zale** bilakatzeko bidean alu ustel ile-gorri batek garun-lixiba eginda! Aingeru Epaltza

**6** (-en atzizkiaren eskuinean)

Argi dut emakumeen **zalea** dela Miroslav, denentzat izaten baitzuen hitz politen bat. Edorta Jimenez

Mutikoen **zale** omen zen eta baita poliziaren mihiluze ere. Edorta Jimenez

Ernest Hemingway idazle ezaguna, orain Kuban bizi dena eta lehenago Espainiako Guda Zibilean izan zena, komunisten **zalea** dela, nahiz eta hark zaletasun hori ukatu. Edorta Jimenez

Hurtado Esproncedaren **zale** sutsua zen; Montaner, Zorrillarena. Josu Zabaleta

Inor ez urrezaleago, hura pobretasunaren **zale** baino. Juan Garzia

Zibilizazio gehienetan, gizabanakoa ez da trukearen **zale** izaten. Koro Navarro

Ez naiz liburu-pilen **zale**, baina honek ez du atzera egiteko egokierarik ematen. Anjel Lertxundi

Maite jolasen **zalea** naizela, marijakintsu bat naizela eta eleberri arrosa kolorekoak gustatzen zaizkidala. Josu Zabaleta

Aberatsa nintzenez, altzari zaharren eta antzinako gauzen **zale** nintzen. Josu Zabaleta

Hona hemen ni, gezurrezko ametsen **zale** diren profeten kontra. Elizen arteko biblia

Bat-batean espirituko gauzen **zale** bihurtu zela. Askoren artean

Mitinetan hitz egiten duten bizimodu onaren **zale** horiek? Josu Zabaleta

Beti zure **zalea** izan naiz, beti erakutsi dizut onginahia. Askoren artean

Jendetza arteko eta merkataritzako izakia zen, jatetxe onen eta arropa garestien **zalea**. Oskar Arana

Hain ziren elkarren **zaleak**, non bakoitzarentzat bestea baitzen lehenengoa. Askoren artean

*Laisser faire* erosoaren **zale** izaki, zera eskatzen zion estatuari: [...]. Anjel Lertxundi

Taxizalea bera Sportingen **zalea** da. Edorta Jimenez

Txantxak txantxa, ez naiz ni ezeren egunen oso **zalea**. Joxerra Garzia

Buru-talka deitzen genion jolasaren oso **zaleak** ginen eskolako lagunak. Anjel Lertxundi

Ez da ez dakienik Babiloniako populua logikaren -eta are simetriaren- oso **zalea** zela. Juan Garzia

Nola gustatu lekioke, bakea eta lasaitasunaren hain **zale** denari, nire zarata eta iskanbila? Josu Zabaleta

**7** (aditzaren era burutuaren eskuinean)

Mahukatik heldu nion, nahiz eta ez naizen hori egin-**zale**. Joxe Austin Arrieta

Tirano fanatiko horietako bat, besteei arauak eta legeak ezarri **zalea**, astopito santujale bat. Oskar Arana

Gure ama historiak kontatu **zalea** zen oso, narratzeko plazera maite baitzuen. Fernando Rey

Joko zuzena egin **zale** da Suediako selekzioa, konplikaziorik gabekoa. Berria - Kirola

Ikas bezate jauregietan bizi **zaleek**. Askoren artean

Esaten zidan beti ni sobera galdetu **zalea** nintzela. Fernando Rey

Barbuilaz barbuila ibili **zale**, unibertsitateko klaustroan gutxitan entzuten zen Garibairen hanka-hotsik. Anjel Lertxundi

Ahariei adarrak kendu **zale** ziren guztiei. Pako Aristi

Ez naiz hain luze mintzatu **zale**. Aingeru Epaltza

Ez ote ziren grekoak optimista eta axaleko bilakatu, eta mundua arrazoiz eta logikaz menderatu **zale**, aldi berean alaiago eta zientziazaleago, ahultzen, eskasten eta zahartzen hasi zirenean? Iñaki Segurola

Lotsatuta nengoen; ez naiz beti azkena ibili-**zale**. Joxe Austin Arrieta

Jendea ikasiago, informatuago, eta izen horiek erabil-**zaleago**. Iñaki Segurola

**8** (-tzearen atzizkiaren eskuinean)

Ondo erakusten du hori nabarmentzearen **zale** izan den askoren esperientziak, zeruraino igotzen baitira eta leizeraino erortzen. Askoren artean

Abertzale eskuindar, moderatu, poliki ibiltzearen **zaleak**. Xabier Mendiguren Elizegi

Gaur egun puntako bertsolariak ez dira puntako txapelketetan lau oinak jartzearen **zale**. Andoni Egaña

Ni ez nauzu Hizkuntza Iluna erabiltzearen **zalea**. Joanes Urkixo

Solaskidearen jendetasuna eta adeitasuna mirestearen **zale**, arrotz batek adiskide mamienetakotzat hartuko zuen. Patxi Zubizarreta

Serafin Baroja ez zela hizkuntza zaharra lantzearen oso **zale** izango irudituko zaio gaur egun askori: ez lukete batere asmatuko ordea. Askoren artean

**9** (-tzeko edo -tzen atzizkiarekin)

Ez naiz ni posizio literarioak hartzeko **zale**, liburu bat idazteko orduan edozein ikuspuntu, teoria edo erregistro balia daitekeela uste baitut. Bernardo Atxaga

-Ez, ez diat sinesten, hi ez hintzen-eta iraganari begiratzeko **zale**. Migel Angel Mintegi

Ni ez naiz duda-mudatan ibiltzeko **zale**. Karlos Zabala

Ez baita igandetan paseoan ibiltzeko **zalea**. Berria - Kirola

Nolanahi ere, **zalea** da urtarrila elur malutak erakusteko eta inguruak di-da batean zuriz janzteko. Pello Zabala

Gogotik gustatzen zaizkit pubis iletsuko emakumeak, ez naiz ileak larru-arras mozteko **zale**, ipar-ekialdean askok egiten duen bezala. Karlos Zabala

Batetik asmo oneko katedratikoak, azterketetan gainditzuko notak emateko **zaleak**, eta bestetik asmo txarrekoak. Josu Zabaleta

Honelakoak oparitzen **zalea** da ilargiaren koska horietakoren bat, dela batean ilgora, dela hurrengoan ilbehera. Pello Zabala

**Zalea** zen Jordan Alemaniara bidali zituzten lehen anaien pasadizoak kontatzen. Askoren artean

**10** zaletasuna.

François d'Arville ezkongabe geratu zen, ehizarako **zalez**. Josu Zabaleta

**hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**

**aditu eta zale** (4); **aldeko zale** (4); **anoetako zale** (3); **athleticeko zale** (8); **bildu zale** (3); **egin zale** (10); **ehunka zale** (3); **euskal zale** (6); **gauzen zale** (3); **ibili zale** (9); **ingalaterrako zale** (3); **jazz zale** (5); **jazz zale amorratua** (3); **liburu zale** (4); **literaturaren zale** (3); **milaka zale** (5); **oso zale** (7); **pobretasunaren zale** (3); **pobretasunaren zale baino** (3); **realeko zale** (3)

**zale amorratua** (27); **zale amorratua baitzen** (6); **zale amorratua zen** (5); **zale amorratuak** (8); **zale andana** (3); **zale asko** (14); **zale askok** (37); **zale askok ez** (8); **zale askoren** (12); **zale bat hil** (3); **zale beroen** (3); **zale den** (3); **zale denak** (3); **zale dira** (3); **zale diren** (5)

**zale egin** (6); **zale gehiago** (9); **zale gehien** (6); **zale gutxi** (9); **zale guztiak** (13); **zale guztiek** (9); **zale guztien** (11); **zale guztien ahotan** (5)

**zale inguru** (6); **zale itsua** (4); **zale izan** (10); **zale izan ziren** (3); **zale izango** (3); **zale izaten** (5); **zale joango** (3); **zale joango dira** (3); **zale joatea** (3); **zale kopurua** (3)

**zale orok** (3); **zale porrokatua** (9); **zale porrokatua zen** (3); **zale sutsuen** (5); **zale sutsuenek** (3); **zale talde** (3); **zale txuri** (3)

**zale ugari** (5); **zale zen** (13); **zale ziren** (7); **zale zuri gorriek** (5)

**baas zalea** (3); **egin zalea** (14); **egin zalea da** (3); **erlijio tradizionalaren zalea** (3); **galdetu zalea** (3); **hitz egin zalea** (6); **ibili zalea** (3); **idatzi zalea** (3); **miarritzeko zalea** (5); **oso zalea** (18); **oso zalea zen** (3); **ur zalea** (5)

**zalea baino ez** (3); **zalea baitzen** (6); **zalea da** (26); **zalea dela** (6); **zalea den** (4); **zalea ere bazen** (3); **zalea ez da** (3); **zalea izan** (14); **zalea izanik** (3); **zalea izatea** (5); **zalea naiz** (11); **zalea nintzela** (3); **zalea zara** (4); **zalea zelako** (3); **zalea zen** (29)

**zaleago zen** (3)

**apustu zaleak** (3); **bere zaleak** (3); **euskal zaleak** (3); **osasuna zaleak** (3); **oso zaleak** (6); **realeko zaleak** (5); **txirrindularitza zaleak** (3)

**zaleak dira** (10); **zaleak erakartzeko** (3); **zaleak haserre** (3); **zaleak izan** (4); **zaleak izanen** (3); **zaleak oso** (7); **zaleak pozik** (3); **zaleak urduri** (3); **zaleak ziren** (5)

**zalearen ilusioa** (3)

**bere zaleei** (5); **eskatu zien zaleei** (4); **euskal zaleei** (3); **zaleei eskaini** (4); **zaleei eskaintzeko** (3); **zaleei eskerrak** (3)

**anoetako zaleek** (4); **athletic zaleek** (3); **athleticeko zaleek** (9); **baita zaleek ere** (4); **baskoniako zaleek** (3); **bere zaleek** (4); **euskal zaleek** (5); **gasteizko zaleek** (14); **gure zaleek** (3); **jokalari eta zaleek** (4); **jokalariek eta zaleek** (9); **mendizorrotzako zaleek** (4); **osasunako zaleek** (3); **realeko zaleek** (7); **san mameseko zaleek** (3)

**zaleek asko maite** (3); **zaleek badakite** (4); **zaleek badute** (4); **zaleek begi onez** (3); **zaleek eskaini** (3); **zaleek espero** (3); **zaleek estu** (3); **zaleek ez dute** (17); **zaleek ezin** (3); **zaleek gogoan** (3); **zaleek ikusi** (3); **zaleek nahi** (3); **zaleek txalo zaparrada** (3); **zaleek txistuka hartu** (3)

**baas zaleen** (4); **bere zaleen** (32); **bere zaleen aurrean** (22); **etxeko zaleen** (7); **etxeko zaleen epelean** (3); **euren zaleen** (11); **euren zaleen aurrean** (9); **gasteizko zaleen** (5); **gure zaleen** (4); **gure zaleen aurrean** (4); **jokalariek zaleen babesa** (5); **literatur zaleen** (3); **sadarreko zaleen** (3); **san mameseko zaleen** (4)

**zaleen aldetik** (3); **zaleen arreta** (4); **zaleen artean** (47); **zaleen arteko** (6); **zaleen aurka** (3); **zaleen aurrean** (77); **zaleen aurrean ariko** (3); **zaleen aurrean aurkezteko** (4); **zaleen aurrean jokatzen** (3); **zaleen babesa** (45); **zaleen babesa eskatu** (10); **zaleen babesa izango** (6); **zaleen babesa izatea** (3); **zaleen babesean** (5); **zaleen begietara** (3); **zaleen berotasuna** (5); **zaleen bihotza** (4); **zaleen bultzada** (4); **zaleen epelean** (10); **zaleen epelean jokatuko** (3); **zaleen erantzuna** (7); **zaleen eta** (8); **zaleen gogoa** (3); **zaleen gozamenerako** (7); **zaleen jarrera** (8); **zaleen kuttuna** (3); **zaleen laguntza** (22); **zaleen laguntza eskatu** (4); **zaleen laguntzarekin** (15); **zaleen portaerarekin** (3); **zaleen presioa** (9); **zaleen taldean** (4); **zaleen txalo** (4); **zaleen txistuak** (5)

**bere zaleentzat** (3)

**hainbat zalek** (6); **milaka zalek** (3); **zenbait zalek** (5)

**antzerki zaleon** (3)

**zaleren babesa** (4)

---

## **zalegarri** *izond* zaletzen duena.

Usain **zalegarriak**; haragi-usainak haragijaleen jangura pizten du eta animalia ehizara bultzatzen. Irene Aldasoro

---

## **zalego** *iz* zaleria.

Azken urteetan izan duen arrakasta dela eta, **zalego** indartsua lortu du. Berria - Kirola
Ez litzateke komeni zaleak **zalego** bihurtzea ere. Andoni Egaña
Han txirrindularitza **zalegoa** ez da Hego Euskal Herrian bezain sendoa. Berria - Kirola

---

# zalejira *iz adkor*

**Zalejira**: futbol partida baten aurretik zaleek egiten duten kalejira. Iñaki Arranz

---

# zalekeria *iz* zaletasun gaitzesgarria.

Apaltasun santuak garaitzen ditu harrokeria eta gizaki munduzale guztiak eta munduko gauzen **zalekeria** guztia. Askoren artean
Otsoak bortizkeria itsua, ankerkeria, odol-**zalekeria** eta, oro har, gaizkia ordezkatzen du. Martin Anso
Gorde sasijainko-**zalekeria** den diru-gosetik, diru-gosea ez baita diruz aseko. Askoren artean
Eta zergatik hau, guri ere, giza grinei amore ematen diegunoi, mundu-**zalekeria** hautsa bezala itsasten zaigulako ez bada? Askoren artean

---

# zaleria *iz* zaleen multzoa.

Arriagaren jokaldi bi horiek **zaleria** berotu zuten eta **zaleriak**, taldea. Berria - Kirola
Asteburu hartako jarrerari esker Realak **zaleria** onenaren saria jaso zuen, denboraldiaren amaieran. Berria - Kirola
Gustuko dut Baskoniako **zaleriaren** grina. Berria - Kirola
Sei urte egin ditu athleticeko **zaleriak** horrelako lorpen baten zain. Berria - Kirola
Egoi Martinez izan zen atzo euskal **zaleriaren** kirioak proban jarri zituena. Berria - Kirola
Ez dago animatzen ez duen **zaleriarik**. Berria - Kirola

---

# zaletasun 1 *iz* zerbaiten edo norbaiten zale izatea, zerbaitetarako edo norbaitenganako joera edo atxikimendua.

Komunisten zalea dela, nahiz eta hark **zaletasun** hori ukatu, eta hala ere Habanako enbaxadoreak konfiantzako gizona duela. Edorta Jimenez
Harengan baitu bere irrika eta Harengana baitoaz bere desirak, nahimena eta **zaletasuna**. Joan Mari Lekuona
Euren **zaletasuna** horixe izan: lana ondo egitea. Pako Aristi
Elenak piztu zion **zaletasuna**. Iban Zaldua
Beharbada [...] saia daitezke beren **zaletasunak** betetzen. Juan Martin Elexpuru / Bego Montorio
Ikusiko dut ea **zaletasuna** sartzen zaidan. Josu Zabaleta
**Zaletasuna** hartu diozu karrerari? Josu Zabaleta
Kristinak gorroto zuen nire **zaletasun** hori. Aingeru Epaltza
Sakrifika ditzala, komeni bada, bere gustu eta **zaletasunak**. Juan Martin Elexpuru / Bego Montorio
Neure baitan funtsezkoagoa da irakurtzeko **zaletasuna** edo beharra, idaztekoa baino. Xabier Mendiguren Elizegi
Bere familian musikarako **zaletasuna** zabaldu zuen, eta horri esker iritsi dira guregana bestela bidean galduko ziren haren pieza asko. Pako Aristi
Estrada almiranteak, Itsas Institutu Sozialeko lehendakari-delegatu gisa, Askatzailearen arrantzarako **zaletasunaz** jardun zuen, eta etxadiaren eraikuntzaz. Koldo Izagirre
Otoitzerako **zaletasuna** eta otoitzaren ahalmena. Askoren artean
Ikerketak dio hiru zirkulu konzentrikotan bana daitekeela bertsotarako **zaletasuna** euskal komunitatean. J. Garzia / A. Egaña / J. Sarasua
Horrek guztiak XV. mendeko Toscanako gizarteak eredu matematikoetarako zuen miresmena eta **zaletasuna** erakusten du. Josu Zabaleta
Karlos Ignazia seduzitzen saiatu zenean, indar gehiago zuen ia berarengan Martini zion gorrotoak neskarenganako **zaletasunak** baino. Koro Navarro
Nolako irrika eta **zaletasuna** nireganako, nolako bizkortasuna erruduna zigortzeko! Elizen arteko biblia
Nik, ordea, lehen aipatutako egiarenganako **zaletasunarengatik**, gauza bera erantzun nion epaileari. Hasier Etxeberria
Nondik zetorkion zapatekiko **zaletasun** hura, ez zekien. Harkaitz Cano
Ongiarekiko zuen **zaletasunak** eta haren ontasunak aberatsa zela pentsarazten ahal zuten, eta munduaren ondasunen jabe zela. Patxi Zubizarreta
Heriotza aintzat ez hartzea, basakeria kirurgikorako halako **zaletasun** bat eta sentiberatasunaren mespretxu handi bat. Josu Zabaleta
Xala finalean egoteak ezker paretako jokoaren **zaletasuna** hedatzeko balio duela azaltzen du. Berria - Kirola
Euskal kulturgintzaren atxikimendua eta **zaletasuna**. Herria
Argi eta garbi adierazi zituen hartan bere ezinikusiak, haserreak, amorraldiak, eta bere **zaletasun** eta begikotasunak. Josu Zabaleta
Litekeena da **zaletasun** bat eritasun bihurtzea. Berria - Harian

**2** (izenondo eta izenlagunekin)

Haietako batek **zaletasun** handia zien anaiei eta Frantzisko santuaren guztiz debotoa zen. Askoren artean
Motorretara, ostera, **zaletasun** handia eukan. Xabier Amuriza
Soinurako **zaletasun** izugarria zekarren Joxeaustinek. Xabier Etxabe
Ez dago erabat garbi zergatik garatu zitzaion interes eta **zaletasun** berezi hori. Xabier Olarra
**Zaletasun** ia bokazionala zeukan maisutza jardunerako. Josu Landa
Behartsu eta zapalduen alde egiteko **zaletasun** sutsua. Iñaki Mendiguren
Lantegiko irakurgairen bat ekarri ez badut, **zaletasun** hutsezko liburuen bati heltzen diot. Xabier Mendiguren Elizegi
Nik emakumeak maite ditut, eta gizon amultsu batek horretara bultzatzen nauenean baino ez naiz horrelako **zaletasun** arraroetara makurtzen. Juan Martin Elexpuru / Bego Montorio
**Zaletasun** zentzugabe hori gordean eduki zuen. Josu Zabaleta
Neskak atzazalak haginka desitxuratzeko **zaletasun** inkontrolatua izaten zuen. Unai Elorriaga
**Zaletasun** zoragarria, naturaren eta plazeraren semea. Juan Martin Elexpuru / Bego Montorio
Eskatzailearen **zaletasun** dohatsua atera zen garaile. Askoren artean
Ez baitago norberaren esku **zaletasun** jakin batzuekin munduratzea. Juan Martin Elexpuru / Bego Montorio
Ez ditu **zaletasun** pribatuak eduki behar. Askoren artean
Sodomia, fantasia sakrilegoak eta **zaletasun** ankerrak. Juan Martin Elexpuru / Bego Montorio
Oinarrizko formen **zaletasun** bizia eta dinamikarako fanatismoa. Josu Zabaleta
Marraztea bai, betidaniko **zaletasuna** nuen, oroitzen dudanez. Xabier Mendiguren Elizegi
Pedro gazte sutsua zuan, pintatzeko-eta beregainezko **zaletasuna** zuena. Joan Mari Irigoien
Erakusketako lehendabiziko gelan eskegi diren paisaietan ikusten da Valverderen benetako **zaletasuna**. Berria - Kultura

Gurasoek ez ziguten argazkirik ateratzen, eta nik neuk ere ez dut aparteko **zaletasunik**. Xabier Mendiguren Elizegi

**3** (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa)

Egia zen, liburutegi hartan goialdeetako ordena **zaletasuna** ageri zen, ordena kanonikorako errespetua. Iñaki Iñurrieta

Nola delituen erakarmena handitzen den bakoitzaren bidegabekeria-**zaletasuna** handitzen den neurrian. Juan Martin Elexpuru

Bidez bide dabilenak, ostatu asko eta adiskide gutxi; hala dio esaerak, eta bidaia-**zaletasunak** egin nau, beharbada, hain bakarti. Anjel Lertxundi

Osterantzean, trikiti **zaletasuna** argi dago gorantz doana, Bizkaian behintzat. Xabier Amuriza

Amaren dantza-**zaletasunaren** berri banian, askotan esan baitigu gure aitonak Ama dantzari fina zela. Xabier Etxabe

Adingabeei tabako **zaletasuna** sortzeko produktuak sustatzea edo doan banatzea. Berria - Euskal Herria

Erakutsi behar hura, ordea, ez ote zen haren zehaztasun eta arreta-**zaletasun** tourettikoak eragina? Xabier Olarra

Lan-**zaletasuna**, zuhurtasuna eta erantzukizuna. Askoren artean

Haien lan-**zaletasuna** eta trebezia bikaina goraipatzen zuen, Jaunari aintza emanez. Askoren artean

Gizakiaren baitan ikusten ditugu, halaber, gorespen eta laudorio **zaletasuna** eta besteak menderatu nahia. Imanol Unzurrunzaga

Otoitz-**zaletasuna** eta profeta-espiritua. Askoren artean

Antzerki **zaletasuna**: eszenaratze baten gisa bizi du bere harreman bakoitza, non dekoratu, pertsonaia eta elkarrizketa ugari aurki daitekeen. Juan Martin Elexpuru / Bego Montorio

Ez da nekatuko ezberdinarekiko errespetua eta bakoitzaren sexu-**zaletasunak** edo orientabide sexuala defenditzen. Juan Martin Elexpuru / Bego Montorio

**hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**

**bere zaletasun** (10); **nire zaletasun** (5); **zaletasun eta grina** (3); **zaletasun gutxi** (3); **zaletasun handia** (32); **zaletasun handia dago** (5); **zaletasun handia zion** (3); **zaletasun nagusia** (3)

**aldeko zaletasuna** (4); **bere zaletasuna** (4); **datorkio zaletasuna** (3); **egiteko zaletasuna** (3); **irakur zaletasuna** (11); **irakur zaletasuna sustatzeko** (3); **irakurketarako zaletasuna** (4); **irakurtzeko zaletasuna** (6); **kirol zaletasuna** (4); **lan zaletasuna** (3); **literatur zaletasuna** (5); **literaturarekiko zaletasuna** (3); **musikarako zaletasuna** (3); **nire zaletasuna** (4)

**zaletasuna bultzatzeko** (4); **zaletasuna duen** (4); **zaletasuna dutenentzat** (3); **zaletasuna hartu** (3); **zaletasuna izango** (3); **zaletasuna pizteko** (4); **zaletasuna piztu** (4); **zaletasuna sustatzeko** (5)

**bere zaletasunak** (3); **dituen zaletasunak** (3)

**irakurtzeko zaletasunaren** (3); **zaletasunaren berri** (3)

**zaletasunen berri** (4)

**inolako zaletasunik** (3)

---

# zaletasuntxo *iz adkor* zaletasuna.

Weldon andreak bazuen beste **zaletasuntxo** isil-gordekorik ere, noizik behin aitortu ohi zuenik. Mirentxu Larrañaga

---

# zaletu, zale(tu), zaletzen **1** da *ad* zale bihurtu, zaletasuna hartu.

Panderoa jotzen **zaletu**, berriz, Ilurdan baserriko hiru anaiei beha **zaletu** omen zen. Iñigo Aranbarri

Western bakar bat ere ez zuen galtzen, erabat **zaletu** bainintzen haietara. Juan Kruz Igerabide

Egia da gauza arriskutsua dela bakardadea barne lanera **zaletuak** diren buruentzat. Josu Zabaleta

Ez nago ere **zaletuago** aberats izatera pobre izatera baino. Patxi Altuna

Zaila zen gure ama bere iloba batez **zaletua** irudikatzea. Aingeru Epaltza

Sinestezina zen: bera, ez medizina ez sendagileak egundo aintzat hartu gabea, hara non itsu-itsuan **zaletu** zen, beharbada bere nerbioetako gaitzaren beraren eraginez. Patxi Zubizarreta

Ez zuen nahi, anaiek, berritsuen eraginez, zeruko gauzen kontenplazio utzi eta lurrekoetara **zaletzerik**. Pedro Alberdi

Biziki desiratzen dut bera nigana **zaletu** dadin eta hala adieraz diezadan. Imanol Unzurrunzaga

Katua ere guztiz **zaletu** zen Ryokorekin, eta altzoan kiribiltzen zitzaion leun-leun orraz zezan. Javi Cillero

Multzo horretan sartu beharko ditugu hemendik aitzinat euskararekin **zaletu** diren batzuk ere beharbada? Pello Salaburu

Edonork barre egin dezake literaturan **zaletu** den gizaseme batek egiten dituen berealdiko ahaleginen kontura. Harkaitz Cano

Aste-amaieretako ohizko txikiteoan berriketan aritu naiz literatur kontuetan **zaletua** den adiskide batekin. J.M. Olaizola "Txiliku"

Guy Sonnois pedagogian **zaletuak** erranen dauku nola gogo erabilketa on batek laguntzen duen ikasgaiaren erran nahia bereganatzen. Herria

Hondartzako eguzkiaren **zaletua** penatuko bada ere, pentsa uda partean estimatua izan ohi den ura! Pello Zabala

Toboso alderantz abiatzeko lehenbailehen, baldin eta garrantzi gehiagoko gauzaren bat ez bazuen; berori ikusteko oso **zaletua** zegoela eta. Patxi Ezkiaga

Bere herriaren askatasunarekin guztiz **zaletutako** gizonak. Juan Martin Elexpuru / Bego Montorio

Hain sutsuki **zaletu** zitzaion minutu gutxiren buruan, non hika hasi baitzitzaion berehala. Jose Morales

• **2** du *ad* zale bihurtu, zaletasuna sortu.

Amak **zaletu** baininduen ipuinetara. Joan Mari Irigoien

Ez naiz ardozalea, gure aitak alkoholaren izpirituaz **zaletu** nahi baninduen ere, urtebetetze egunean kopa bete moskatel edanaraziz. Javi Cillero

**3** (era burutua izenondo gisa)

Zirkulurik zentralenean, gunerik **zaletuenean**, badago aski masa kritiko bertsolaritzarako agenteen etorkizuneko harrobia ziurtatzeko. Ikuslerik **zaletuenek** gogoratuko zutenez, [...]. J. Garzia / A. Egaña / J. Sarasua

Laster osatu genuen bikotea Joxe Marik eta biok, **zaletuenak** baikinen. Juan Kruz Igerabide

Judu, jito edo agote kastakoak zirela hidalgia agiriak ateratzen **zaletuenak**. Patziku Perurena

**4** (era burutua izen gisa) zalea, amateurra.

Zer zorion izan lezake paseatzaileak, ardura akademikorik gabe nagi eta gozo dabilen **zaletuak**, lotura bitxi samarrak egitea ez bada? Bernardo Atxaga

Mantala jantzi eta sukaldean "gutiziak" apailatzera prestatzen den emakume edota gizonezkoa, jubilatua, elkarteetako **zaletua**... Edorta Agirre

**Zaletu** gisa, gustu fina du. Berria - Kultura

Eta, txalo zaparradaren ondoren, **zaletuak** sari eske hasi ditun, painelu zuriak airean dantzatuz. Patxi Iturritegi

Zirkuan trebatu zen "makillajearen" artean, eta hastapenean **zaletu** gisara aritu bazen ere, gerora beharrak hartaratua jardun zuen. Patxi Zubizarreta

Bizirik dauden entziklopediagile guztiak *The Beatles* taldearen **zaletu** ezin diziplinatuagoak dira. Unai Elorriaga

Goizeroko mapa zabal hedatu hori zen egun bakoitzeko eguraldiaren egiaztapen benetakoa eguratsaren **zaletu** batentzako. Pello Zabala

Talde ezezaguna zen, baina Donostian izan den egunetan jazz **zaletu** guztien arreta bereganatu du. Berria - Kultura

Uso mezulari **zaletuen** elkarretaratze batean parte hartzen ziharduten edo erakusketa ikustera joan zirenen artean, 62 lagun hil eta beste 150 zauritu zirela zehaztu zuten atzo agintariek. Berria - Mundua

**5** kirol talde edo kideko baten zalea.

Osasunak **zaletuen** presioa izango du oztopo nagusia, kanpoan jokatzen duten talde guztiek bezala. Berria - Kirola

San Mamesen gol baten nahiaren eta ezinaren agonian bizi izan dira **zaletuak** igande batean bai eta bestean ere bai. Joseba Zulaika

Haietako batek baino gehiagok arazoak izan zituen hainbat **zaletu** txuri-urdinekin. Joan Mari Irigoien

Bazkide, peña eta **zaletuen** harremana estutzeko. Berria - Kirola

Indurainek ere, **zaletuok** ondo gogoratzen dugun bezala, sarritan aukeratu izan zuen ez irabaztea, irabazteko modua izan eta. Joseba Zulaika

**Zaletuentzat**, ez txirrindularientzat. Berria - Kirola

Arraunlarientzat proba gogorra eta ezerosoa izan daiteke, baina **zaletuen** gozamenerako proba aproposa izango da. Berria - Kirola

Kickboxing-a gorantz ari da azkenaldian eta **zaletuak** ere gero eta gehiago dira. Berria - Kirola

Realeko **zaletu** taldeak, oro har, baikor ageri dira, lautik hiruk Realak Lehen Mailari eutsiko diola seguru baitira. Berria - Kirola

**6** (hitz elkartuetan)

Segurako entzuleak estimatua zuenez, apurka zabaltzen zihoan hain eskasak ginen eguraldi **zaletuon** izena. Pello Zabala

**hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**

**hainbat zaletu** (3); **zaletu batek** (3)

**zaletzen hasi** (3)

---

# zaletuxe *izond* zaletu samarra.

Azkar pasa zion Fernandok fardela bera baino **zaletuxeagoa** zen Damian Zabalgogeaskoa Nabarnizkoari. Pello Zabala

---

# zaletze *iz* zale bihurtzea, zaletasuna hartzea.

Bertoko lazunak zaletu egin ziren odolarekin, bai, zaletu, eta **zaletze** hartatik odolaren beharrean hazi zirela... Paddy Rekalde

---

# zalgiztar *izond/iz* Zalgizekoa, Zalgizi dagokiona; Zalgizeko biztanlea.

Izanen du zer egin aita Laphitzek Argentinan Errekaborde **Zalgiztarra** bezalako aberats puxant baten eta bihotz oneko gizon ala emazte edo elkarte askoren laguntzarekin euskaldunen gorputzeko eta arimako beharren soleitzeko. Herria

Iruritar eta **zalgiztar** zaharrenak ere ez dira gogoratzen azkenengoak noiz egin ziren [maskaradak]. Berria - Kultura

Bi pastoral badütügü arren üda hontan: batetik "Xiberoko Makia" Sohütan üztailaren 15ean eta 21 ean; bestetik "Etxahun Iruri" bere herrian, **zalgiztarrekin** batean, üztailaren 29an eta agorrilaren 5ean. Herria

---

# zalgurdi 1 *iz* pertsonak garraiatzeko ibilgailu gurpilduna, zaldi batek edo gehiagok tiratua. ik**kotxe**.

Concordeko plazan **zalgurdi** bat hartu zuen. Josu Zabaleta

**Zalgurdi** edo kalesa bat ere eskuratu zuen Lázló-k. J.M. Olaizola "Txiliku"

Alkatea ere orduantxe sartu zen, beste aldeko atetik, eta eskuaz **zalgurdiko** sabaia joz, abian jartzeko agindu zuen. Felipe Juaristi

Bi gurpileko **zalgurdia**. Anjel Lertxundi

Zaldi bakarreko **zalgurdi** hura hain zegoen modu logikoan egina, ezen, ehun urte ibili eta gero, batera hondatu baitzitzaizkion pieza guztiak. Irene Aldasoro

Lau zaldi zurik tiratutako **zalgurdi** batean. Lopez de Arana

Abereak **zalgurdiari** berriro lotzeko lanaz arduratu zen. Karlos Zabala

Josefek bere **zalgurdia** prestarazi zuen. Xabier Kintana

Ez zen ohartu **zalgurdi** bat iristen ari zela jauregira, lau zaldi beltzek gidaturiko **zalgurdi** bat bazterrak zipriztinduz sartu zela jauregiko lurretan. Felipe Juaristi

**Zalgurdira** igo behar izan zuen, eta, gorputz osoa dardaraka, gobernadore militarrarenera abiatu zen, jendarmea aldamenean zeukala. Jose Morales

Eskua luzatu nion neskari, **zalgurditik** jaisten laguntzeko. Anjel Lertxundi

Leihoak eta errezelak itxita zeramatzan **zalgurdi** batetik. Harkaitz Cano

Egunero bere paseoa egiten zuen **zalgurdian**. Fernando Rey

Luisa, Violette eta Egea bidaliko zituzten lehendabizi, **zalgurdi** batean Suitzako Baselera, neskameak balira bezala jantzita. Felipe Juaristi

Apain-apain jantzitako dama bati erreparatu zioten, bere baitan kiribildurik zegoen **zalgurdi** baten txokoan. Karlos Zabala

Montmartre kalean sartzen ziren **zalgurdien** kirrinka entzuten zuen garbi-garbiro. Karlos Zabala

**Zalgurdiak** abiada hartu zuen gaztelura zihoan aldapatxo luzean. Iñaki Mendiguren

Arrasate inguruan, itzain eta baserritarren laguntza behar izan zuen **zalgurdia** lokatzetan trabatu zitzaielako. Bernardo Atxaga

Kalean, jendea presaka zihoan batetik bestera [...] **zalgurdiak** eta tranbiak itsumustuan saihestuz. Jose Morales

-Nire zaldiak nire **zalgurdian** geratuko dituk -esan zion Mikel Strogoffek. Karlos Zabala

**Zalgurdiz** edo zaldiz joango zen, aukera izanez gero; oinez, ezinbestean. Karlos Zabala

Apoloren **zalgurdia**. Bernardo Atxaga

**2** (izenondo eta izenlagunekin)

Gauero **zalgurdi** itxiek Tuilerietako jauregira emakumeak eramaten zituztela. **Zalgurdi** beltz bat zetorren maldan astun, koroaz gainezka. Karlos Zabala

-Arreba -esan zuen Mikel Strogoffek-, **zalgurdi** erosoagoa nahi ninan hiretzat, baina ez dinat besterik aurkitu. Karlos Zabala

Egun bat geroxeago atera ziren Paristik hegoaldera abian, lau zaldizko **zalgurdi** dotore batean. Felipe Juaristi

Arrisku bizi horretan berealdiko indarra aurkiturik, oin batzuk aurreraka bultzatzen du **zalgurdi** astuna. Sojournerren **zalgurdi** gurpil-handia. Karlos Zabala

Alokairuko **zalgurdien** hotsa entzuten zen urruti. Josu Zabaleta

Ibai ontzia baino arinagorik ezer ere ez zegoen Permera edo Kazanera iristeko, ez telega, tarantas, berlina, kalesa edo bestelako postako **zalgurdirik**, eta ez zaldirik ere. Karlos Zabala

**3** (hitz elkartuetanlehen osagai gisa)

Marjolinek txaleko gorri handi bat janzten zuen, belaunetaraino jaisten zitzaiona, **zalgurdi** gidari ibilitako aita Chantemesse defuntuarena izan zena. Karlos Zabala

Suitzako erlojuak, Lyongo belusak eta zetak, Ingalaterrako kotoiak, **zalgurdi** eta orga atalak. Karlos Zabala

Pragako **Zalgurdi**-Museotik hartua. Felipe Juaristi

**hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**

**zalgurdi bat hartu** (4); **zalgurdi batean** (14); **zalgurdi batera** (4)

**bere zalgurdia prestarazi** (3)

**zalgurdiaren atzetik** (3)

**zalgurdira igo** (5)

## **zalgurditxo** *iz* zalgurdi txikia.

Bainuetatik harrizko gelaxketara joan zen; esklaboek dadotan jokatzen zuteneko sotoak, sukaldari eta **zalgurdizainak** horditzen zireneko areto behereak ezagun izan zitzaizkion. Juan Garzia

Nikolai zelaian geratu zen larriki zaurituta, eta **zalgurditxo** batean berehala erietxera eraman bazuten ere, hilotz zen eguerdirako. J.M. Olaizola "Txiliku"

---

## **zalgurdizain** *(orobat **zalgurdi zain**) iz*

Bainuetatik harrizko gelaxketara joan zen; esklaboek dadotan jokatzen zuteneko sotoak, sukaldari eta **zalgurdizainak** horditzen zireneko areto behereak ezagun izan zitzaizkion. Juan Garzia

Entzun diot esaten ohitura zuela **zalgurdi-zainenen** antzeko kapa bat eramateko, galtzarbeetatik irekia. Juan Garzia

---

## **zali** *iz* koilara, eskuarki handia; burruntzalia.

Zapaldetan, suila, morko ta beste urontzi batzuk, lurrezko **zali** zabalak, erretilu handi sakonak, zurezko koilara belztuak. Xabier Mendiguren Elizegi

Zurezko **zali** batez arrautza jotzen ari da katilu batean. Josu Zabaleta

Mutu jarraitu zuen Azkaratek hondoko azukrea **zaliaren** giderraz mihiratzen. Koldo Izagirre

Azken hondarrak biltzen saiatzen ziren **zalien** latoi hotsak. Koldo Izagirre

Ene pitxarraren mokoak molde dotoreago eta leunagoko zurezko **zali** bat zeukan zintzilik. Koldo Izagirre

Jimmy artzain baten bordara joan zen eta esnea ekarri zion zurezko **zali** batean. Lopez de Arana

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
> **zurezko zali** (3)

---

## **zalitara** *iz* zali baten edukia.

Salda Hura hitz handia, **zalitara** bat ur berorentzat Eguerdi haietako salda ez baitzen bertzerik, ur bero xorta bat baizik. Eneko Bidegain

---

## **zalke** *iz* lekadunen familiako landare igokaria, lore arrosa handiak dituena, gari sail, belardi eta bide-bazterretan hazten dena *(Vitia sativa)*.

Zulo luzexka bat itxuratu nuen horrenbestez, har ernez eta **zalke** hoziz betea. Joxan Elosegi

Zurezko ontzi karratu-sakonetan sailkatzen genuen alea[...]: garia honetan, artoa horretan, oloa hartan, zekalea hurrengoan, eta garagarra; eta basartoa, eta artatxikia, eta **zalkea**. Txillardegi

Gure alorrak oraino zenbait ahago tzar, **zalke** edo kardu badu ere, ez girea hor aitzina segitzeko, garbi eta apaintzale lanean! Herria

Ilberriko baba eta **zalkeak**, leka askatu ta ixuri egiten dira. Pello Zabala

Zulo luzexka bat itxuratu nuen horrenbestez, har ernez eta **zalke** hoziz betea. Joxan Elosegi

---

## zaloin ik **zalu**.

---

## zaltegi ik **zalditegi**.

---

## **zalu** *(orobat **zaloin**)* **1** *izond* lasterra, arina; laster eta lotutasunik gabe mugitzen dena; malgua.

Argazki huntan, jazko mendi-lasterkari **zaluenak**. Herria

Tarte gaitza, haatik, gure ibilera motel, pisu eta trakets dudakorretik haien martxa segur eta **zalura**. Xabier Montoia

Egunero ordubetez oinez abiada **zaluan** ibiliz gero. Txillardegi

Harrituta utzi ninduten neskatxaren mugimendu **zalu** abegikorrek. Javi Cillero

Igorri nion Prévani behako **zalu** bat, ahalkez eta harriduraz betea ordea. Jon Muñoz

Zaldi **zaluenak** baino anitzez lasterrago. Michel Oronoz

Gero, kanal bat, ur urgoi eta **zalu** batez betea. Piarres Aintziart

Bide honek zango **zalua** eta hats gaztea eskatzen ditu. Jon Alonso

Errenazimenduko zintzel **zalu** eta espiritualak landu du zuraje guztia. Koldo Izagirre

Xapelketa hortan izaiten dira adin guzietako pilotariak, eta bi pilota mota ere, paleta goma, pilota tipi arras **zalu** batekin eta aspaldiko eskuzko pilota. Herria

Badu halako trebetasun **zalu** eta artega bat keinuetan. Oskar Arana

Behin jendeen artetik ihes eginez geroz, ez zitekeen errex gibeletik atzemaitea, izigarri **zalua** baitzen Perkain. Angel Aintziburu / Jean Baptiste Etxarren

Aurki gizon gazte bat inguratzen zaio, garaia, **zalua**, dotore jantzia. Oskar Arana

Iñaki Arrosagaray joko horretan izigarriko pilotari trebea agertu zaigu, begia xorrotx eta zangoak **zalu**. Angel Aintziburu / Jean Baptiste Etxarren

Ekainak gerri **zaluak** eta lanerako adorea eta prestutasuna eskatuko zizkion bai ugazabari eta bai morroiari. Pello Zabala

Zumea bezain **zalua** eta ibilera gozokoa, oso bere buruaren jabe ematen zuen. Anjel Lertxundi

Gorpuzkerak, tankeran, basahuntzarena zirudien, hain zen arin eta **zalua**. Felipe Juaristi

Etcheverry-k sake eder andana bat irabazi du eta Kurutcharryk, gatua bezain **zaloina**, gorputza edozoin maneran emanik pilota biltzen du. Herria

**2** (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa, elkarketak izenondo balioa duela)

Han ikusiko lituzke neskame-morroi guztiak saltoka, antzokian dantzaririk hanka- **zaluenak** nekez hobetuko lituzkeen jauziak eginez. Jose Morales

**3** (adizlagun gisa)

**Zalu** altxatu zen. Aingeru Epaltza

**Zalu** ibili da pilota, bereziki bigarren partidan. Herria

**Zalu** joan dira aferak batean eta bestean. Herria

Jauzika zihoan gida-aulkian, noiz gora eta noiz behera, troika bideko muinoetara **zalu** igo edo muinoetatik agudo jaisteaz batera. Jose Morales

Ordu zeno aski nuela haurraren galtzeko gisan behar zena egitea, **zalu** eta ontsa! Janbattitt Dirassar

Ama duntzetarik jaukitzear zegoen: izpiritua **zalu** zebilkion. Itxaro Borda

**Zalu** jokatu nuen; erran nahi baita, bisaian ostiko bat hartu berritan inork jokatzen ahal duen bezain **zalu**. Aingeru Epaltza

Zaldi-kotxe distiratsu bat, alde guztietatik argia dariola, bat-batean eta ustekabean **zalu** igarotzen baita lekutako herrixka zirtzil baten aldamenetik. Jose Morales

Frantxuak gaitzeko zafrakoak biltzen zituen, aitak liburu bat eskuetan harrapatzen zuen aldi oroz eta ongarria hedatzera igortzen zuen, **zalu**. Itxaro Borda

Berehala, tximista baino **zaluago**, belauniko zegoen nigandik hamar urratsera. Jon Muñoz

Jauzi batez igo zen Txitxikov kalesara, militarrak bezain **zalu** ia. Jose Morales

Bizkar-zorroak utzi dituzue ahalik eta **zaluen** lasterka egiteko. Xabier Montoia

### 4 ***zalu-malu*** *adlag adkor* zalu-zalu.

**Zalu-malu** alde egin nuen logelara eta "aitaren batean" aldatu nintzen, automatikoki arropa ilunak jantziz. Daniel Landart

Orduan, ni, **zalu-malu** berriz iratze metaren gainera joan! Daniel Landart

### 5 ***zalu-zalu***

Hiria **zalu zalu** iragan dut. Piarres Aintziart

Kanpoan ez zen inor ageri, baina atso konkorduna ikusi zuen **zalu-zalu** joaten legarrezko bidearen bestaldera. Javi Cillero

Hiria **zalu zalu** iragan dut, ohartuz halere, jalgi aitzin, ezker urgoiki eraikia dagoen kurutze finari. Piarres Aintziart

Rickshawlariak mila bihurrikeria eginez **zalu-zalu** ibiltzen dira. Gotzon Garate

Hango jende gehiena Erromako Satan handiaren ilunpeetatik atera eta **zalu-zalu** egiten ari zen Erreformaren argira. Aingeru Epaltza

### 6 ***zalu-zalua*** *adlag ipar* zalu-zalu.

Jan dut beraz **zalu zalua**, atzeman dudan lehen ostatuan. Piarres Aintziart

Bezti zaitez **zalu-zalua**, partitzeko tenorea jina zaizu. Janbattitt Dirassar

Ekintzaileak orain **zalu-zalua** behar zuen basera itzuli. Itxaro Borda

Jaurenea-ko nagusiak begi-ukaldi bat bota zion, eta emaztea **zalu-zalua** joan zen etxerantz, herabeturik, negarrak mantal hegiaz xukatzen zituela. Elena Touyarou

Euskal dantzetarik kanpo, bazen denen gustukoa, vals edo polka edo skotish edo mazurka, denak **zalu zalua** joiten zituen orkestrak. Angel Aintziburu / Jean Baptiste Etxarren

Hori guzia egiten ahalko zen, iparragoko lurrez, autoen edo treinen gaurko urratsean, **zalu-zalua**. Herria

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
> **mugimendu zalu** (4); **pilota zalu** (3); **urratsa zalu** (3); **zalu joan** (4); **zalu zalu** (7); **zalu zalua** (16)
> **bezain zalua** (4)
> **baino zaluago** (7); **zaluago joan** (4)
> **ahalik eta zaluen** (3)

---

## **zaluka** *adlag* lasterka. ik **zalukara**.

Gero, talde bakotxa **zaluka** igaiten da bere bagoirat. Michel Oronoz

---

## **zalukara** *adlag* lasterka; berehala.

Zaldi karrosa harturik, Aguirre badoa **zalukara** Donibane-Garazira, Lebrun medikua eta Andere Iturralde emagintsaren bila. Angel Aintziburu / Jean Baptiste Etxarren

Biharamun gauean, Dominique eta biak berriz agertu ziren toki hartara, eta ostalerrak **zalukara** eraman zituen, bezeroak haizu ez diren barneraino, haiek iragan eta oihala hetsiz. Elena Touyarou

Xifre hori onartua baldin bada, legearen gerizapean hetsiko dituzte **zalukara** Aldude eta Iholdiko bulegoak. Herria

---

## **zaluki** *adlag* zalu.

Ahal bezala, pollikiño-pollikiño, baina ahal bezain **zaluki** jaitsi nintzen, nik ere bi aldiz bederen ekilibrioa galtzen nuela... Daniel Landart

Agudo jaitsi gara, **zaluki**. Xabier Montoia

Zangoak baino **zalukiago** doazkizu pentsamenduak. Xabier Montoia

---

## **zalutasun** 1 *iz* laster eta lotutasunik gabe mugitzen denaren nolakotasuna.

Soweto-ko 32 gaztek, neska ta mutiko, zer trebezia, **zalutasuna** eta airostasuna erakutsi duten beren dantza eta kantuetan, tam-tam erne batzuek lagundurik! Herria

Lehengo kontrabandisten **zalutasun** eta hatsa agertzen dute gazte horiek beren lasterkari lehiaketetan. Herria

Ia ezinezkoa da giza garunak ematen duen **zalutasun** eta konfiantzaz eskailerak lasterka jaitsiko dituen makinarik diseinatzea. Irene Aldasoro

Gizakiarena ez zen **zalutasun** batez txori kirika haietako batzuk bota eta aienatu zen. Matías Múgica

Sua argitaletxeko ipar aldeko areto batean sortu da -azaldu zuen politikariak-, eskerrak prebentzio-zerbitzuek mirestekoa den **zalutasunaz** ekin dioten. Jon Alonso

Hala dira kontuak gure artean, malgutu ezinik **zalutasuna** baino bereago baitute batzuek zurruntasun zorrotz maiztua. Pello Salaburu

Badira euskaltzaleak frantsesezko orijinala eta euskal itzulpena elgarrekin parekatuz irakurtzen dituztenak, miretsiz itzultzailearen **zalutasuna** eta emaitzaren edertasuna. Angel Aintziburu / Jean Baptiste Etxarren

### 2 (izenondoekin)

**Zalutasun** handiko treinak heltzen dira Parisetik Hendaiaraino. Herria

Karrika batzuetan, autoak aise **zalutasun** handiegian dabiltzala. Herria

Gorbataren korapiloa lotzen ari zela, belauna tolestu, soina makurtu, eta kilimusi egin zuen **zalutasun** handiz. Jose Morales

Martak, ziztu bizian sofatik altxa eta **zalutasun** handiz sofapean ezkutatu berri zuen errebolber kargatua atera zuen, leihora inguratuz. Harkaitz Cano

Ez zuen ageri gaueroko **zalutasun** bizi hura. Mirentxu Larrañaga

Eusko Jaurlaritzak, Akitania-Euskadi egituratik hasita, egitasmoari **zalutasun** handiagoa emateko presioa eginen dio Frantziari. Berria - Euskal Herria

Arnasa hartu du beste ahapaldi eder bat jaurtitzeko, eta euskaraz baino are **zalutasun** arinagoan hasi zaio. Koldo Izagirre

Jauzi bi egin zituen gelan, **zalutasun** handiz orpoekin hankak leunki joz. Jose Morales

Ohorezko aurreskua dantzatu da **zalutasun** haundirekin. Herria

**Zalutasun** harrigarriz mugitu zen Franz bere zango motzen gainean. Alberto Ladron Arana

### 3 malgutasuna.

Usaia, bistan da, arian lortzen ahal duzu, abdominalak hilduratzearen poderioz etorri ohi da gerriaren **zalutasuna**. Koldo Izagirre

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**

**aise zalutasun handiegian** (3); **ez zalutasun handian** (3); **zalutasun handian** (7); **zalutasun handiegian** (10); **zalutasun handiko** (17); **zalutasun handiko trein** (5); **zalutasun handiko treina** (3); **zalutasun handiko treinak** (6); **zalutasun handiz** (3)

---

# zalutu, zalu(tu), zalutzen da/du *ad* zalu bihurtu.

Nola **zalutu** zitzaizkien zangoak erregeordeari eta haren bigarrenari, apezpikuari eta kalonjeei! Aingeru Epaltza

Iduritu zait karrikaren buruan zebilen silueta fina Mariarena zela eta urratsa **zalutu** dut. Piarres Aintziart

Urratsa luzatuz, abiadura **zalutuz**, azken aitzineko herrixkari hurbilduko naiz bai, ondarrean. Piarres Aintziart

"Besoa nekatu zitzaidan lehenik", aitortu zidan, pattarrak mihia **zalututa**. Aingeru Epaltza

Bere ixter-oinen **zalutzea**, bularren airestatzea, gu ginen putiko kozkorreri begi atxikitzea. Herria

**Zalu** eta modernotzeko, bihurritu eta desartikulatu beharra dago, airostu, zehaztu, lexikoa berritu, sintaxia malgutu. Joxe Azurmendi

---

# zaluxe

## 1 *zaluxeago* *(corpusean **zaluxago** soilik)* *adlag ipar* lasterxeago.

Horiek hola, sail horren kondu oraino gehiago egiten ahal balitz, eta **zaluxago** ibiliz, ez litake batere gaizkiago! Herria

Emekiño abantzatuz, "bare korkoilaren urratsean" berek erran dutenaz, denen buru **zaluxago** halere, orenean hogoi bat kilometra segurik egiteko gisan, joan dira Baionatik Biriatuko mugaraino. Herria

Hau **zaluxago** joan da nolazpait, bizixago ere menturaz bainan lehenarentzat erranak bali dira hunentzat ere. Herria

---

# zaluxko *izond adkor* apur bat zalua.

Txupa kenduta bular guriak nabari zaizkio, ez handiak ere, baina bai ongi biribilduak, dardara **zaluxkoak**, eta titiburuko mahats aleak gotor kamisetapean, bizirik baleuden. Pako Aristi

---

# zama 1 *iz* abere, ibilgailu edo pertsona batek daramana edo eramaten ahal duen gauza. ik**karga**.

Bazitekeela sorbaldan eramandako **zamaren** batek (motxila, otarra edo bestelako zerbaitek) utzitako arrastoak izatea. Hasier Etxeberria

Artaldea zaintzailearen ardurapean utzi, eta, **zama** hartuta, abiatu zen, Jesek agindu zion bezala. Jose Antonio Mujika

Bederatzi pudeko **zamak** jasotzen ditiztek bizkar gainera kakoen laguntzaz. Jose Morales

Ez baitzizaion duintasunik gabea iruditzen bere bizkarraz **zamari** eustea. Jon Alonso

Atsedena gozoa eta lurraldea ederra zela ikustean, bizkarra makurtu du, **zamak** eramateko. Elizen arteko biblia

Bizkarrean halako **zama** zeraman emakume gazteak indar handia eduki behar zuen. Javi Cillero

Gretta zihoan atezainaren atzetik, burua beheraturik, bere sorbalda hauskorrak **zama** bat balerama bezala makur. Irene Aldasoro

Honela jarraituz gero, bota egin beharko dugu **zamaren** parte bat. Jon Muñoz

Labanek, etxean sartu, gameluei **zamak** kendu eta lastoa eta belarra eman zizkien. Elizen arteko biblia

Larunbatean, ez atera **zamarik** zeuen etxetik, ez egin inolako lanik. Elizen arteko biblia

Gure zeregina **zamak** gakoan lotzea eta gora igotzen laguntzea zen. Edorta Jimenez

**Zama** orekatzen lagundu nahi izan dio, baina, azkenik, gazteak bi bizkar kolpez zakua egoki paratzea erdietsi du. Pello Lizarralde

Bidearen amaieran **zama** irauli, hondarra hustu, eta beste bidaia bat hasi, hondar gehiagoren bila. Juan Kruz Igerabide

**Zama** kentzen zion bitartean, Harryri kosk maitagarri bat egin zion mokoaz. Iñaki Mendiguren

**Zama** itsasora bota. Jon Muñoz

Gorpu haren **zama** lepo gainean inork eroan behar izatekotan, neuk. Edorta Jimenez

Kamioi baten **zamaren** artean ezkutatuta. Berria - Kultura

Lepoan saski bat zeraman zamaketari bat igaro zen, bizkarra oker-oker eginda **zamaren** azpian. Koro Navarro

**Zamako** abereak suaren inguruan jartzen direnean izutu egiten baitira. ik beherago zamako. Santiago Iruretagoiena

## 2 irud/hed

Tona bateko **zama** zuen harri bati bultza egin izan banio bezala esan nion hori. Jon Muñoz

Aurreneko txapelketa 1990ean irabazi zuen, baina harriak 174 kiloko **zama** zuen orduan. Berria - Kirola

Arin-arin zeraman hirurogei urteen **zama**. Jon Muñoz

Etxeak hipoteka txiki baten **zama** zuen artean. Ander Irizar

Frogaren **zama** beti bestearen zelaian jartzen da. Berria - Euskal Herria

Karguaren **zama** ote da holakoetan pisuegia? Herria

Inguruan bilatzen dugu gure haserrearen **zama** noren bizkarrera bota. Jose Morales

Lasaitu eta modorroturik erortzen da gorputza, loaren **zamak** zapaldua. Juan Garzia

Whiskyaren **zama**. Aingeru Epaltza

Desioa **zama** bat dela, eta hobeto biziko ginatekeela gabe. Oskar Arana

-Bakoitzak merezi duen **zama** dauka. Karlos Linazasoro

Ezin saihestu zuen **zama** zeraman, ordea, barrenean. Joxean Agirre

Bizitzaren **zamak** azpiratu dituenekiko samurtasuna eta horren kontra oldartzen direnekiko miresmena dira Rekalderen begiradaren ezaugarri nagusiak. Berria - Kultura

Bere borondatez arindu behar zuen Norak, inola arintzekotan, bere iraganaren **zama**. Anjel Lertxundi

Aurreiritzien **zama** arindu beharra daukat. Edorta Jimenez

Gerra-egile barbaroentzat, bestalde, gerra berbera ez da **zama**, aukera bat baizik. Iñaki Mendiguren

Luxuari zergen **zama** kentzea. Iñaki Iñurrieta

**Zama** bota nahi niri! Ken ezazue gainetik zeuen nahiaren **zama**, jaurti bekatuen pisua, hartu armak gizon ausartek bezala. Jon Muñoz

Horrelakoetan, bertsoaren **zama** ezkerraldeak hartzen du. Andoni Egaña

Hitz batean, txiki-txikia eta aldi berean pixkatxo bat handia izatearen **zama** hartzen duen oro da holandar. Iban Zaldua

## 3 (izenondo eta izenlagunetan)

Ez da hain **zama** astuna izango, berehala eskailera jaisten hasi zen bizkortasunari erreparatzen badiogu. Jon Alonso

Animaliek **zama** handia zeramaten. Koro Navarro

Graxik Mariren aginduak bete zituen eta **zama** ttipiño bat moldatu, barnean emanez larruzko xahako bat urarentzat, ogia, txorizoa eta sagar zenbait. Elena Touyarou

**Zama** handiegia iruditu zitzaion dirutza hura ordubetez bakarrik ere gainean eramatea. Askoren artean

**Zama** toxikorik ez duela frogatu arte Frantziako ontziari Suezko Kanala erabiltzen utziko ez diotela berretsi zuen Kairok. Berria - Gaiak
Faxismoaren **zama** beldurgarria gertutik ikusi dugunok. Pello Salaburu
Nola adierazi hitz sotilez oinaze psikikoaren **zama** eramanezina? Karlos Linazasoro
Bakartasuna **zama** dorpeegia zen eramateko. Itxaro Borda
Arimak, gorputzaren **zama** astunaz libro denean, jolas egiten du. Karlos Linazasoro
Alai daramate eta gustura Kristoren eta obedientzia santuaren **zama** eta uztarri gozoa. Askoren artean
**Zama** politikoa kenduta, bahiketa pirateria kontu hutsa zelako iritzia haizatu zuen. Berria - Kultura
Eta arkitekturak **zama** ideologiko hori eduki behar du? Berria - Kultura
Erregimen autoritarioek bideratu zituzten ordea politika-bide horiek, eta **zama** sozial izugarri astuna utzi zieten, kanpoko zor ikaragarri batez gainera. Koro Navarro
Emakumeon lepotik bidegabeko **zama** dagoela onartzea. Berria - Euskal Herria
Beste bizitza berri bat hasi beharko nuela Idoiarekin, arindurik, alferrikako **zama** haiek botata. Juan Kruz Igerabide
Eramanezineko **zamak** leporatzen dizkiezue besteei. Elizen arteko biblia
Gehiegizko **zama** zen niretzat sekretu hura. Ramon Saizarbitoria

**4** (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

**Zama** eramaleak iritsi zaizkigu, lehenbailehen beherako bidea hartzeko. Berria - Kirola
Zubi horren oinean dago bizkarrean **zama**-zaku bat daraman gizon baten irudia. J.M. Olaizola "Txiliku"
Mikel Strogoffek, ordea, ez zuen izango ez kanoirik, ez zaldizkorik, ez oinezkorik, ez **zama** abererik. Karlos Zabala
Garai hartan, **zama**-gurdiak iristen ziren, are hilean bat ere. Xabier Olarra
Makinara igo eta palankatik tiratu zuen eta **zama** trena abian jarri eta bagoiak eraman zituen. Fernando Rey
Trenbideak eta **zama**-bagoiak ikusten nituen. Fernando Rey
**Zama**-hegazkin errusiar galant bat ari da hurbiltzen lur hartzeko asmotan. Xabier Olarra
Galdegingo die Foronda **zama** aireportu gisa utzi nahi duten edo ez. Berria - Harian
Gizarte ereduak ekosistemaren **zama** ahalmena gainditu duela adierazi du Alberto Friasek. Berria - Euskal Herria
Etsipen hark ekarri zion, hain zuzen ere, bakardade eta **zama** sentimendu mingots hura. Karlos Linazasoro

**5** (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa)

Giza **zama** horiek, ondoren, Amerikara eraman eta gai tropikalekin trukatzen ziren. Koro Navarro
Haranean bizkar-**zama** daraman nekazaria. Ana Urkiza
Los Alamos gunetik dator 140 kiloko plutonio **zama**. Berria - Gaiak
Hesola baino gizon luzeagoak etxeraino lagundu zion egur-**zama** bizkarrean zuela. Anjel Lertxundi
Lehenengo ikatz-**zama** sartu zuenean, emakumea harat-honat zebilen sukaldean zehar. Lopez de Arana
Norvegiako Narvik portutik Pasaiako porturainoko bidea egitekoa zen, granito **zama** bat hartzera. Berria - Euskal Herria
Zetazko hari **zama** baten truk zenbat diru emanen zion galdetuz bentan sartu zen egunean. Elena Touyarou
Orduan hondar-**zama** guztia irauli beharko nuela neure baitako kamioitik. Juan Kruz Igerabide
Ikusi eta konzeptu horrek daraman diru **zama** (182 milioi euro), hemengo hautetsi guziak alde agertu dira. Herria
Lanak Eusko Jaurlaritzak ordainduko ditu bainan gastuak, urtero Espainiar gobernuari ordaindu kupo edo diru **zamatik** murriztuz. Herria
Plan berriak gehiegizko defizitaren muga %3an ezarriko du, baina estatuen finantza **zamak** malgutasunez kontuan hartuko ditu. Berria - Ekonomia
Zoriaren kontra borrokatzea zein alferra zen sentitu zuen: hori zuen urteek utzi zioten jakituria-**zama**. Irene Aldasoro
Bev Shaw ez da albaitaria, apaiza da [...] Afrikako animalia oinazetuen sufrikario-**zama** arintzen saiatzen dena. Oskar Arana
Hasieran sekulako erru-**zama** sentitzen nuen bizkar gainean hori dela-eta. Arantxa Iturbe

**6** (neurri gisa)

Hor izan da mintzaldi, soinu armadako aire batzuekin, gero 3 **zama** lore ere pausatuak izan dira eta jaun erretorak kantarazi du "Gure Aita". Herria

**7** ***lan zama***

Haurren **lan zama** arintzeko programarik handiena 1992. urtetik dago abian. Berria - Gaiak
Kargua **«lan zamagatik**» utzi du. Berria - Kultura
Ez du **lan zamarik** lortu eta ez du lantegia gaurkotu. Berria - Ekonomia
**Lan zama** ez ezik, negoziazio kolektiboa eta industria plana ere istilu iturri bihurtu dira. Berria - Ekonomia
Atzera lehiakorrak izan gaitezke, **lan zama** nahikoa lortuz gero. Berria - Harian
LABeko ordezkariaren esanetan, egungo **lan zama** eta erritmoa jasanezinak dira. Berria - Euskal Herria
Ontziolak **lan zamaz** hornitzeko plana. Berria - Ekonomia

**8** *zama lan* ik **zamalan.**

**9** zama ontzi ik **zamaontzi.**

**10** ***zamape***

**Zamape** horretan, egunbetetsuko bizarra ferekatu nuen, Kristinaren hitzen nondik norako guztiak mamitu nahirik. Aingeru Epaltza
Aren astoa **zamapean** erorita ikusten baduzue, ez ukatu zeuen laguntza, lagundu **zamapetik** ateratzen. Elizen arteko biblia
Zaldia gutxigatik ez zen lurreraino makurtu hain pisu astunaren **zamapean**. Jose Morales
Egurkari txiro bat, abarrez arras kargaturik, intziriz eta makur, pauso motelez zihoan, sortaren **zamapean**, bai eta ere urteenean, etxola ketura heldu nahian. Imanol Zurutuza
Lan astunegia nuen Angelaren heriotza izugarria onartzeko, handiegia ni neu egona nintzen arriskuaren **zamapean** ez erortzeko. Alberto Ladron Arana
Erretretaren eta Seguritate Sozialaren aldaketa sakonen ondorioz, pobrezia materialaren mugetan doi-doia burua itolarritik salbatzen saiatzen ziren oldeak, egiazko miseriaren **zamapera** uzkailiko ziren. Itxaro Borda
Zeru beltzaren **zamapean** zitalduta ageri zen itsaso gris, zuriz pitzatuari begira. Ramon Saizarbitoria

**11** (hitz elkartuetan)

Errotarria erabiltzera behartu dituzte mutilak, egur-**zamapean** lur jo dute gaztetxoek. Elizen arteko biblia

**12** ***zama-tren*** *(orobat* ***zamatren****)* *iz* zamak garraiatzeko trena.

Lehenbiziko trenbidetik **zamatren** luze bat pasatu zen. Fernando Rey
Nire ondotik **zamatren** bat pasatzen ari zen pozez txistuka. Fernando Rey
Makinara igo eta palankatik tiratu zuen eta **zama trena** abian jarri eta bagoiak eraman zituen, gainetik behien adarrak eta begiak ateratzen ziren bagoiak. Fernando Rey
Geltokitik **zamatren** bat pasatzen ari zen, tximiniatik txinparta botaka. Fernando Rey

**hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**

**arduraren zama** (3); **bere zama** (16); **berebiziko zama** (3); **beren zama** (4); **bizitzaren zama** (4); **diru zama** (22); **egundoko zama** (3); **egur zama** (6); **gehiegizko zama** (5); **gizon zuriaren zama** (3); **halako zama** (8); **iraganaren zama** (6); **iraganeko zama** (4); **isiltasunaren zama** (3); **izatearen zama** (5); **lan zama** (56); **lan zama lortzeari** (3); **lan zama lortzeko** (6); **munduaren zama** (5); **nekearen zama** (4); **nire zama** (6); **nire zama arina** (3); **sekulako zama** (3); **urteen zama** (3)

**zama arina** (10); **zama arindu** (9); **zama arintzeko** (14); **zama arintzen** (6); **zama astun** (18); **zama astun bat** (6); **zama astun batetik** (4); **zama astuna** (31); **zama astuna da**

(3); **zama astunak** (7); **zama astunegia** (14); **zama astunegia da** (3); **zama astunegia izan** (4); **zama astunen** (3); **zama bera** (3); **zama bihurtu** (3); **zama da** (5); **zama du** (4)

**zama eraman** (6); **zama eramateko** (3); **zama eramaten** (3); **zama garraiatzen** (3); **zama guztia** (13); **zama guztiak** (3); **zama handi** (8); **zama handi bat** (4); **zama handia** (28); **zama handia izan** (6); **zama handia izango** (3); **zama handiagoa** (3); **zama handiak** (3); **zama handiegia** (16); **zama handiegia da** (3); **zama handiegia izan** (5); **zama handiena** (3); **zama handirik** (4); **zama hartzen duen** (3)

**zama itzela** (4); **zama izan** (11); **zama izango** (4); **zama izeneko** (3); **zama izugarria** (3); **zama jasan** (3); **zama kendu** (8); **zama lanak** (4); **zama lanetan** (3); **zama lortzeari** (3); **zama lortzeko** (6); **zama nabaritzen** (3)

**zama ontzia** (3); **zama ontziak** (3); **zama sentitzen** (4)

**zama zen** (4); **zama zeraman** (5); **zama zuen** (4)

**izatearen zamak** (3)

**bere zamarekin** (3)

**lan zamaren** (4); **zamaren azpian** (6); **zamaren bat** (4); **zamaren inguruan** (3)

**lan zamari** (3)

**inolako zamarik** (5); **lan zamarik** (6); **zamarik eraman** (3); **zamarik gabe** (13)

**zamatik libre** (3)

**lan zamaz** (11); **lan zamaz hornitzeko** (4)

---

## zamadun *izlag*

Emakumeak **zamadun** irudikatzen dira, «erruaren arrasto iluna» segika dutela (haien senitartekoen zaindari finegiak ez izateagatik sentituriko zama eta errua). Berria - Kultura

---

## zamagabeketa *iz* zamagabetzea.

Zamaketa eta **zamagabeketa** izan zen lantsuena. Txillardegi

---

## zamagabetu, zamagabe(tu), zamagabetzen **1** du *ad* zama kendu.

Zergatik dago geldirik, askaturik eta **zamagabeturik**? Koldo Izagirre

**Zamagabetua** dago orain zamarik ez daukalako; askatua dago mandorik ez daukalako; geldirik, gelditu egin dutelako. Koldo Izagirre

**2** irud/hed

Entelekia benetakorik gabeko materia hori bere bizi-oldar eta kargu-hartzailearen inperatibo kategorikoaz jaurtitzen da, batzuetan, kontzientziaz **zamagabeturiko** gorputz-mekanismo baten irrealtasun neoberkeleytarraren kontra. Xabier Olarra

---

## zamagailu *iz* zamak igo edo jaisteko igogilua.

Igogailu edo **zamagailuen** erorketa gelditzeko automatikoki martxan jartzen den eragingailu mekanikoa. Xabier Olarra

---

## zamakatu, zamaka(tu), zamakatzen du *ad* zametan bildu. • *irud/hed*

Banindoaien, ahal bezala, bihotza kargaturik, tristura gogoan **zamakaturik**, San Anton zubian gaindi. Patziku Perurena

---

## zamaketa **1** *iz* zamatzea.

**Zamaketa** eta zamagabeketa izan zen lantsuena. Txillardegi

Erregaiaren **zamaketa** berriki bukatua. Karlos Zabala

Nahiz ordu erdi luzea behar zuen zortzietarako, **zamaketak** aspaldi hasiak ziren, bafore gehienen puntalak jiraka ari ziren. Koldo Izagirre

**2** (hitz elkartuetan)

Kale-kantoi batera iritsirik, portuko garabien lepo luzeak ikusten ziren, ontzien **zamaketa**-lanean. Anjel Lertxundi

Bien bitartean, itsasontzia Banusera arribatu zen eta Budur ikusminez inguratu zen **zamaketa** lanak ikustera. Patxi Zubizarreta

---

## zamaketari **1** *iz* zama-lanetan aritzen den langilea.

Horretarako, hirurogeita hamar mila **zamaketari** bildu zituen eta laurogei mila hargin mendian, hiru mila eta seiehun lan-arduradunen menpean. Elizen arteko biblia

Lepoan saski bat zeraman **zamaketari** bat igaro zen, bizkarra oker-oker eginda zamaren azpian. Koro Navarro

Pasaian 150 bat **zamaketarik** galduko lukete lanpostua. Berria - Ekonomia

Portuko **zamaketariek**, komunisten agindupean, greba egitea erabaki zuten. Felipe Juaristi

Honako **zamaketari** hauek, karga bizkarreratzen ari zirenak, harako saltzaile haiek, hizketa zakarrez eztabaidan. Karlos Zabala

**2** (izenondo eta izenlagunekin)

Harun Al-Raxid kalifaren garaian, bazen Bagdaden Hinbad izeneko **zamaketari** pobre bat. Bernard An Orienteko kaiko **zamaketari** ohia da. Patxi Zubizarreta

**Zamaketari** zikinduak, zamarra koipez lohi zutenak sorbaldan garraiatutako elikagai kargarengatik. Karlos Zabala

**Zamaketari** presoak gordetzeko erabiliko zuten itsasontzi herdoildu batean. Felipe Juaristi

Haren itxurari erreparatuz bat-batean iruditu zitzaion eragozpenik gabe izan zitekeela itsasportuko **zamaketari** greziar bat. Joxemari Iturralde

Ez zegoela jendearen aurrean eskalez jantzita agertzeko moduan, alkandora eta galtza zabal haiek ongi ematen ziotela **zamaketari** indigena bati, baina ez berari. Pello Lizarralde

Jovita izeneko emakumezko **zamaketariak** “maleta eramango dizut” esan zionean. Bego Montorio

**3** (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

**Zamaketari**-sorbaldak izan arren eta ibilera ausarta, samurra zen gizona. Jon Muñoz

Halakoxe egoeran irudikatu zituen aurrean zeuden gizonak, **zamaketari** lanak gogorturiko gizonak. Felipe Juaristi

**Zamaketari**-sindikatukoek antolatutako greba bakar hura. Iban Zaldua

**4** (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa)

Kai-**zamaketariak** nituen inguruan, beltzak gehienak. Joxe Austin Arrieta

**5** (hiru osagaiko hitz elkartuetan)

Lehen-lehenik Baionako portuan, docker gisa jardun zuen, ikatz-zaku **zamaketari** gehienbat. Pablo Sastre

**6** (izenondo gisa)

Alabaina, gertatu zen agurea ezustean gaizkitu zela eta, itsasontziko marinel **zamaketariak** Kamar Al-Samanen ekipajearen bila etorri zirelarik, hark geroago joango zela adierazi ziela. Patxi Zubizarreta

**7** (adizlagun gisa)

**Zamaketari** zebilela min hartuta maingu gelditu zelakotz eman omen zioten lan hura, ez dakit, hala erraten zuten, urgun eginagatik berdin heltzen ahal zion palari, nik uste. Koldo Izagirre

**8** zama-lanetan aritzen den ontzia.

Larrinagako espetxea faxistez betea genuen, eta gurea eta *Cabo Quilates* **zamaketaria** presondegi bilakatuak genituen, Agirrek ez baitzuen jendea fusilatzerik nahi. Koldo Izagirre

---

## zamako *iz* zamaontzia.

Mundua ezagutu nahi omen zuen **zamako** batean ontziratuta. Koldo Izagirre

Hik uste duk hidrofonoek hogei mila tonako **zamakoaren** makinarena baino lehenago atrapako dutela eskusoinuaren hotsa? Koldo Izagirre

Hamar mila tonako **zamako** zahar bat, masta bikoa. Koldo Izagirre

Hamar-hamabi lagun baforeko, horrela zebilen kontua berrogei tostarteko behar zituzten **zamakoetan**, beldurra. Koldo Izagirre

Txopa aldean jo zuen, instantean jarri zen brankaz gora **zamako** zaharra. Koldo Izagirre

Panamako banderapean zebiltzan **zamako** ugerdo haietarik batean. Koldo Izagirre

Kaietan ibil zitezkeen espiek halako egunean irten behar zuen **zamako** inglandarraren izena ematen zuten. Koldo Izagirre

---

## zamalan *(orobat **zama lan**) iz*

Ez du onartu **zamalanak** ontzi enpresen esku utzi nahi zituen araua, eta sindikatuak itxaropentsu agertu dira. Berria - Ekonomia

Banatzaileak **zama-lanetan**, furgonetekin bidea oztopatuz. Urtzi Urrutikoetxea

Legez kanpoko **zamalana** egiteagatik. Berria - Euskal Herria

Aita itsas portutik itzuli da, bakailao biltegi batean **zamalanak** egin eta gero. Javi Cillero

**Zama lanetan** eta antzekoetan dabiltzan 150.000 behargin daude lana galtzeko arriskuan. Berria - Ekonomia

Liexeko aireportua txikia da, **zamalanetarako** erabiltzen da gehienbat eta bere azpiegiturak ez dira aproposenak. Berria - Kirola

**Zamalanetarako** ordutegiak hobeto arautu, oinezkoen segurtasunaren alde. Berria - Euskal Herria

Furgoneta abiadura motelean doa orain, **zama-lanerako** gune bat baitago sartu den kalearen ertz batean. Josetxo Azkona

---

## zamalari *iz* zamaketaria.

Zortzi eta erdietan maisuaren gisan jaikitzen zen, ez zen egunean zehar izandako gizontxo erne alaia, bekokia, **zamalaria** zama astunegiaren mende bezala, gogoeta goratuen pisuaren mende zimurtzen zaion pentsalari benazkoa baizik. Josu Zabaleta

---

## zamalde *iz*

Jesusen nekaldi honen kontaketaren alboan munduratuak izango balira bezala zer nolako garbitasuna bere hizkeran!, lañotasun umila beren ahotsetan, misterio handiaren **zamaldean** gordeta. Berria - Kultura

---

## zamaldi *iz*

Hemen uztarriak barne-gizakia du adierazten; eta kanpoko gizakia, berriz, zaharra eta lurretikoa, **zamaldiaz** irudikaturik dago. Joan Mari Lekuona

---

## zamaldun *iz* zalduna.

Baziren ehunez goiti, ongi apainduak eta zernahi **zamaldunez** iganak; baziren gizonak asko, andere xotilak aski trebe beren zamarien gainean, bai eta ere haur zenbeit, beren plazerra ezin gordez holako andana bikainaren artean. Herria

---

## zamalka **1** *adlag* zamalkatzen.

Gero, berriro zaldi gainera, **zamalka** eta **zamalka** gau osoan. Agustin Otsoa

Lorategietatik **zamalka** ibiltzen duena gauero, txirula modu bikainean joz. Julen Gabiria

Ahalik eta lasterren etorri gaituk **zamalka**, hire deia heldu orduko abiatu ostean. Agustin Otsoa

Astiro joan ziren **zamalka** Eskualderako bidean aurrera. Agustin Otsoa

**2** irud/hed

Ezinegonean, urduri, bihotzaren taupada sentitzen duzu **zamalka**, baina etsita eta goibel agertzen saiatu zara bere aurrean. Rafa Egiguren

Sinetsiko al dit norbaitek adierazten badut William Lang paraxutista oinaztarri baten gainean **zamalka** galdu zela sekula betiko? Karlos Linazasoro

Zuraren zirrikituetatik antsiak eta aiotsak iristen zaizkie, dantzan denak haize gorrietan **zamalka**, uluka saldo ikusezinak. Alberto Barandiaren

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
> **gainean zamalka** (3); **zamalka ibili** (4)

---

## zamalkadura *iz* geologian, faila eta kidekoetan gertatzen den lur geruza handien higidura.

Casasek azaldu zuen Itoizko urtegiaren azpian, bost kilometroko sakoneran, faila bat badagoela; horizontala da, eta Orotz-Beteluko **zamalkadura** deritzo. Berria - Euskal Herria

**Zamalkadura** ez da mugitzen gainean bost kilometro haitz duelako; ura, ordea, haitz horien artetik, **zamalkaduraren** gainean kokatu da, eta, modu arin batean, haitzei gora eragin die. Berria - Harian

Inguruan beste faila bat dago, Kintoako **zamalkadura** deritzona, bertikala. Berria - Euskal Herria

Orotz-Beteluko **zamalkaduraren** berri ematen duten hainbat agiri eta mapa erakutsi dituzte Itoizko Koordinakundeko abokatuek. Berria - Euskal Herria

**hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
orotz beteluko zamalkadura (4)

---

# zamalkaldi *iz* zamalkatzen den aldia.

Reginak ondo ulertu zuen erretiratu behar zuela, di-da, azken **zamalkaldi** hark zuetariko edozeini ateratako orgasmoa baino hobea behar zuela. Urtzi Urrutikoeetxea

---

# zamalkarazi, zamalkaraz, zamalkarazten du *ad* zamalkaratzera behartu.

Mendi gainetan **zamalkarazi** zituen, eta landako fruituz elikatu. Jose Antonio Mujika

---

# zamalkari 1 *izond* zamalkatzen duena.

Eta trumoi **zamalkari** edo hezur arin pisugabe? Karlos Linazasoro

**2** *adkor* larrua jotzen duena.

Gizonzale guztiok nahi izaten dugu gure ohekideek buztan handia edukitzea eta **zamalkari** trebeak izatea. Aitor Arana

---

# zamalkatu, zamalka(tu), zamalkatzen 1 da *ad* zaldiz ibili.

Erregearen Eskoltako Zaldizkoak tumuluaren inguruan **zamalkatu** ziren orduan, zaldi zurien gainean. Agustin Otsoa

Zaldi egokien gainean **zamalkatuz**, emirraren esploratzaileak atzean uztea espero zuten. Karlos Zabala

Parkeko lakuaren inguruan polizia bi zaldiz **zamalkatzen** ari ziren oso lasterketa patxadatsuan. Lutxo Egia

**Zamalkatu** ziren lauhazka. Agustin Otsoa

**2** irud/hed

Haren bizkarrari itsatsia, erbia bezain belarri-erne **zamalkatzen** den mutikoa naiz ni. Ni oinez joango naiz, Joseluk kontatuko dizu honanzkoan zer trakeskeria egin behar izan ditudan gona hauekin burdina horiek **zamalkatzeko** -motoaren giltzak eman zizkion-. Aingeru Epaltza

"Efraimen gainean **zamalkatzen** ibiliko naiz", hau da, 'erreinarazi eta agintaraziko dut bera'. Xabier Kintana

Zeruaren gainean **zamalkatzen** dena, zuregana laguntzera etortzeko. Edorta Jimenez

**3** (irud/hed itsasontziez mintzatuz)

Itsasontzi bat ondo egina denean [...] haizeak bultzatzen du ekaitz gogorra denean, eta olatuak ontziaren azpitik irristatzen direla ematen du beti (oso gauza bitxia iruditzen zaio hori lehorrekoari); **zamalkatzea** esaten zaio horri itsasoko hizkeran. Koro Navarro

Kontua da ordu arte oso ondo joan ginela olatuen gainean, **zamalkatuz**;. Koro Navarro

Ferrya ontziralekutik ibaiaren ur izurtuaren gainean **zamalkatzen** aldentzean, halako inurridura bero bat sentitu zuen zainetan. Lopez de Arana

• **4** du *ad adkor* larrua jo.

Astopito horrek, nolatan huts egin duk Ana **zamalkatzeko** parada? Aingeru Epaltza

Koadrila osoa zalditzarra hartuta zebilen eta mutil-laguna KO zeukala aprobetxatuta **zamalkatu** ninduen argoseak. Urtzi Urrutikoetxea

-Hara, Ximu [...] lanbide hezkuntzatik hire ikuztegietara etorritako azken bulegariari sartzen ahalko diok ziri hori, hire bulegoko mahai gainean **zamalkatzen** duan bizkitartean. Aingeru Epaltza

**hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
zamalkatu ziren (3)
zeruaren gainean zamalkatzen (4)

---

# zamalkatze 1 *iz* zaldiz ibiltzea.

**Zamalkatze** urrun baten hotsa zen, lur idor baten gainean. Karlos Zabala

**2** *adkor* larrua jotzea.

"Bai, txirrin", erantzun zidan jauzika, eta, ipurmasailak estutzea ezproi sartzea izan balitz bezala, bizkorrago ekin zion **zamalkatzeari**. Inazio Mujika Iraola

Idazmahaia, alabaina, oso erabilgarria suertatu zitzaien Napumoceno jaunari eta Chica andreari zeren, gogor eta sendoa zenez, haien **zamalkatzeak** kexarik gabe jasan baitzituen, dela Napumoceno jauna zutik gona berdearen aurrean hankak zabalik gatuari sakatuz eta tiro eginez, dela Chica andrea haren gainean buruz behera jarrita, Napumoceno jauna atzetik kontuz saiatzen zela. Bego Montorio

---

# zamalko *iz* zaldikumea.

Begira zure **zamalko** argala; belarriak zut-zutak paratzen ditu kanoiaren erlatsa hurbilegi entzuten duenean. Jon Alonso

---

# zamaltzain *(orobat* ***zamalzain*** *g.er.)* 1 *iz* zaldizaina.

Batzuk **zamaltzain**, besteak sukaldari... denak zerbitzari. Hasier Etxeberria

Aratz mendiko begi honek **zamaltzain**, erromes, bidelapur, soldadu eta era guztietako hamaika bidaiariren ibilerak behatu ditu. Martin Anso

Horietaz guzietaz amets egin nuen -non ziren beilari erromesak?- ni Etxauzko mutila, **zamaltzain** edo eskutari, holako lekuetan ibili behar nuela. Michel Oronoz

Arkeologoen gisa dihardu iragana arakatzen, lurrazpiko aztarna ezkutuak agerian jartzen, mantsotasuna zamari, pazientzia **zamaltzain**. Imanol Zurutuza

**2** maskaradetako dantzaria, gerri inguruan loturik zaldi irudi bat daramana.

Entseñaria, txerreroa, gatüzaina, kantiniersa eta **zamaltzainaz** gain, [...]. Berria - Kultura

Hainbeste kanta, disko eta sinfonia, hainbeste aktore, pailazo eta txotxongilo, hainbeste aurreskulari, **zamaltzain** eta koreografo, hainbeste kopla, bertso, bertsopaper eta txapelketa. Juan Luis Zabala

Polo Garat argazkilaria, **zamaltzain** aritua Barkoxeko dantza taldean. Herria

Pentsatu dut orainokoan zu **zamaltzain** eta ni godaleta izan natzaizula, eta inguruan jostari eta trebe dantzatu ostean, nire gainean baldarki bermatu, eta godaleteko malko guztiak braustakoan isurarazi dizkidazula. Patxi Zubizarreta

Munduko iparraldeko lehendakariak Zuberoako **zamaltzainaren** zaldia soinean, gurutzada abiatzen du. Berria - Kultura

**hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**

zamalzain ikusgarria (3)

zamalzain ik **zamaltzain**.

## zamamutil *iz* zamak eramaten dituen mutila.

**Zamamutil**, enterradore, sukaldari, artillero, erizain, mando, zakur, otso eta hiena izan nintzen. Koldo Biguri

Apaiz bat ez duk beheratzen **zamamutil** mozkorti baten mailara! Koldo Biguri

## zamaontzi *(orobat **zama ontzi** eta **zamauntzi** g.er.)* *iz* zamak garraiatzeko itsasontzia.

Ibaitzat hartu nuenaren albo bietan, petroliontziak, **zamaontziak** eta osterantzeko barkuak ageri ziren ainguratuak. Xabier Montoia

*Etoile* munduko **zamaontzirik** handienetakoa da (125.000 tona) eta genetikoki eraldatutako artoa zeraman. Berria - Mundua

Atzo goizaldean *Keri* **zamaontzia** hondoratu zen Maltako kostaldean. Berria - Mundua

Irteera bezperan portua bonbardatu eta **zamaontzi** batzuk hondoratu zituztela kontatzen du. Jokin Urain

Irlandako kostaldetik gertu igarotzekoak dira **zamaontzi** nuklearrok. Berria - Gaiak

Muruetak arrantzarako ontzi handiak, ferry txikiak eta **zama ontziak** eraikitzen ditu. Berria - Harian

Noiz edo noiz, **zamaontziren** bat ostertzean. Joxe Austin Arrieta

Aliatuen 1.508 **zamaontzi**, 8.336.258 tona guztira, itsasoko hondora joan ziren; urtebetean. Edorta Jimenez

1887an jaioa, gaztetan **zamaontzietan** txo ibilia. Pablo Sastre

zamape ik **zama 10**.

## zamapetu *izond* zamapean dagoena.

Zatozte niregana, nekatu eta **zamapetu** guztiok, eta neuk emango dizuet atseden. Elizen arteko biblia

## zamar *(orobat **zamarra** g.er.)* **1** *iz* jantzi lodia eta iletsua, jaka modukoa, beste jantzien gainean jartzen dena.

Gizon lodikote bat, makila eskuan, feltrozko kapela buruan, plaka bat **zamarraren** ezkerreko papar hegalean. Karlos Zabala

Jaken ordez, **zamarrak** saltzen ditu; longainen ordez, bizkarrestaliak; txapelen ordez, sonbreiruak. Anjel Lertxundi

Karpako giroa ez zen egokiena: hotz pixka bat ( **zamarra** ugari ikusten zen), hezetasuna eta aulki gehiegi Garaje-gelatik irten aurretik, **zamarra** jantzi zuen Ruche jaunak; erdialdean moztutako **zamarra**. Berria - Kultura

Gizonak leporaino lotu zuen **zamarra**, eta emakumeak hobeto itxi zuen berokia. Koro Navarro

**Zamarra** erantzi eta sakelak irauli zituen. Anton Garikano

Ezer erantzun ordez, eskolako poltsa lurrean utzi eta **zamarra** eranzten dut. Anjel Lertxundi

Joxe, larru lodiko **zamarra** kendu, lurrean zabaldu eta orbelez betetzen hasi da. Pello Lizarralde

Hara metatu ziren turkomanak ere, jantzi nazionala soinean, galtza luze koloretsua, gamelu zurdez ehunduriko jaka eta **zamarra**, txano gorri konikoak edo kanpai formakoak, [...]. Karlos Zabala

**Zamarrak**, oihal indianoz eginak eta kotoi gordinez estaliak, gerrian estutzen zituzten, tatxet gorriz apainduriko gerriko baten bitartez. Karlos Zabala

Bala batek **zamarra** zulatzen diola sentitu du. Karlos Zabala

**Zamarraren** lepokoa jaso eta hondartza inguruko etxadietarantz hartu nuen. Anjel Lertxundi

Agure txikia guztiz babesten zen **zamarraren** astrakan faltsuzko lepoarekin. Karlos Zabala

Aurpegiko tantak **zamarraren** mahukarekin idortzean ohartu da Joxe labana odoldua oraindik eskuineko eskuan duela. Pello Lizarralde

Joxe, larru lodiko **zamarra** kendu, lurrean zabaldu eta orbelez betetzen hasi daZamaketari zikinduak, **zamarra** koipez lohi zutenak sorbaldan garraiatutako elikagai kargarengatik. Pello Lizarralde

**2** (izenondo eta izenlagunekin)

Robineren zapata onei eta **zamar** lodiari erreparatzen zien tarteka. Karlos Zabala

Ilehoriak kolore urdin iluneko husar-jaka dotore bat zeraman soinean; ilebeltzak, berriz, **zamar** arrunt bat, marraduna. Jose Morales

**Zamar** larrudun bat sorbalda gainean jarri, garaje-gelako atea ireki, [...] eta patioa zeharkatu zuen. Jon Muñoz

Estu loturik baitzeraman gaineko **zamarra** bakeroa. Aingeru Epaltza

**Zamar** berdexkaren azpiko gerriko gorri luzea estutu zuen. Karlos Zabala

Larruzko **zamarraren** lepoa kokotseraino jaso, Yamaha zaharra martxan jarri, eta bizkor abiatu zen itsasertzerantz. Migel Angel Mintegi

Jendearen arropetan nabari zen, zirak, sasoi arteko **zamarrak**, andreen kapelak. Fernando Rey

**3** (hitz elkartuetan)

Garbitu egingo du Egipto, artzainak bere **zamar**-larrua zorriak akabatzeko garbitzen duen bezala. Elizen arteko biblia

· Tom gaur unai **zamarra** batekin jantzirik agertu da, eta jeans batzuekin. Patxi Zubizarreta

Gabrieli lepo-**zamarretik** heldu, eta Hoxton-eko zelaietara eraman zuen herrestan. Juan Garzia

**hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**

bere zamar (4); zamar arrunt (3)

larruzko zamarra (3); zamarra erantzi (4)

eskuak zamarrako sakeletan (3)

zamarraren sakelan (3)

## zamarazi, *zamaraz(i), zamarazten du* *ad* zamatzera behartu.

Gainera, ez dugu zertan leporatu irakurleari zama handia, bizitzak **zamarazten** dionaz gainera. Javi Cillero

**zamargin** *iz* zamarrak egiten dituen eskulangilea.

**Zamarginak**, ehunki saltzaileak, hitz batean esateko, "traperoak", fama iluna ekarri du menderen mendetatik: pobrea, zarpaila, tranposoa... Patziku Perurena

Holako jendeak (jito, hunjaro, zingaro, buhame, agote) eragin erabatekoa izan du gure gizartean, bai merkataritza eta eskulan orotan (zurgin, arotz, **zamargin**, zapatagin...) bai festagiroko ikuskizun guzietan (dantza, musika, koplagintza, fartsa, ihauteri...) bai sendakuntza eta sineste guzietako sorginkeria orotan. Patziku Perurena

---

**zamari** 1 *iz* zamak garraiatzeko erabiltzen den zaldi, asto eta kidekoa; zaldia.

Gai zen arima hori suge baten, zerri baten, **zamari** baten, idi baten, zakur baten, elefante baten edo tximino baten gorputzean noiz sartuko zen zehatz esateko. Josu Zabaleta

Lo arineko eta bihotz leialeko txakurrak eta **zamarien** hazitik sorturiko espezie guztiak eta artiledun aziendak eta idi adar-haundiak, ostera, gizakion ardurapean jarriak izan dira denak. Xabier Amuriza

Etxeko **zamaria** asto bat zuen, eta ez zen Kaligularen zaldiari beha bizi. Joan Mari Irigoien

Zaldizkoak bere **zamaria** menderatu eta gobernatzen duelako. Xabier Kintana

Orduantxe entzun ziren zaldi irrintziak, **zamariei** zuzendutako oihuak. Felipe Juaristi

Mendira joan zen, hango larreetan zituen **zamariak** zaintzera. Felipe Juaristi

Haitzartearen sarreran, gizon bat eta bere **zamaria** hauteman dituzte. Pello Lizarralde

Kabestrutik dakar **zamaria**. Pello Lizarralde

Nire **zamaria** aho-sokatik hartu zuen. Aingeru Epaltza

Urez beteko da haran hau eta edan ahal izanen duzue bai zeuek, bai zuen abere eta **zamariek**. Elizen arteko biblia

Zorionez, kutxak finkatua ematen du **zamariaren** bizkarraren gainean. Aingeru Epaltza

Baziren gizonak asko, andere xotilak aski trebe beren **zamarien** gainean. Herria

**2** (izenondoekin)

**Zamari** nagiak akuilua behar duela eta asto odolgabeak eztena duela zain. Askoren artean

Zaldiak ez dira **zamari** iletsuak baizik, arrazarik gabeak. Jon Alonso

**3** (hitz elkartuetan)

Bere zerbitzariari **zamari**-lanetarako eman zion. Agustin Otsoa

· Egunsentia baino lehen, herriko gazte talde bat elkartu zen basoko bidean, mando **zamari** bat lagun. Jon Maia

Isakarrek ikuiluan etzanik dagoen asto **zamaria** dirudi. Elizen arteko biblia

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
> **gizona eta zamaria** (3)

---

**zamaritegi** *iz* zamariak gordetzen diren tokia.

Bastizak zutitu ziren, gaztelua, gotorleku ez ezik, bizitoki ere izan zedin: soldadu eta sehiendako bizitegiak, sukaldea, bihitegia, **zamaritegia**, kakatokia, oilategia, uharka... Aingeru Epaltza

Orduko, gazteluko lubakiek, **zamaritegiak** eta inguruko baratze eta soroek neskaren etzanaldiak ikusiak zituzten goarnizioko gizon andanarekin. Aingeru Epaltza

Donapaleura behar ez nuen egunetan, **zamaritegian** aritzen nintzen, azienden arduran. Aingeru Epaltza

---

zamarra ik **zamar**.

---

**zamategi** *iz* zamen biltegia.

Gogotsu jo gintuen bizkarraldean esku-ahurraz, eta esan zigun hiltzeko asmotan baginen, askoz ere hobeto hilko ginatekeela behean, **zamategian**, zaldiekin batean. Mirentxu Larrañaga

---

**zamatoki** *iz* zamak biltzen diren tokia.

Ondo begiratzen baduzue mea-**zamatokia** ageri da oraindik, handik zekarten minerala... Urtzi Urrutikoetxea

---

zamatren ik **zama 12**.

---

**zamatsu** 1 *izond* zama handikoa.

Saihetsetik sartu zion adarra saldo-buruak, eta, bizpahiru metro-edo eskuineko adarretik zintzilik herrestan eraman ondoren, pisu **zamatsu** hura arintze aldera-edo, hormaren kontra jaurtiki zuen bortizki. Josetxo Azkona

Harri **zamatsua** bizkarretik kentzeko. Itxaro Borda

Tanta gorri bat irristatu zaio kopetatik behera, aho ertzeraino, eta fardel **zamatsu** bat bezala etorri da zorura, telefonoa askatu gabe. Karlos Linazasoro

**2** irud/hed

Zenbait aldiz, ez zedin errepikapena **zamatsua** gerta, pisuaren kontuak ahaztu eta bere sonbreirua hartzen zuen gaitzat. Bernardo Atxaga

Percyri lotuta egonik alferrik galtzen ari zen bizitzagatik hasperen egiten zuen Edithek, egunerokotasun **zamatsu** eta aspergarri baten egonezinak jota. J.M. Olaizola "Txiliku"

Berriak eragin loeria **zamatsutik** aterarazi zituen bi polizia-gizonak. Itxaro Borda

Hautaketa eta selekzio lana poeta bakoitzaren lanak dira, eta izan, **zamatsuak** dira lanok. Bernardo Atxaga

Kontzientzia karga **zamatsuenetako** bat. Patziku Perurena

**3** (adizlagun gisa)

Eguna urratzeko gutxi falta zelarik, maskuria lehertzeko zorian eta burua **zamatsu**, iritsi zen etxera. Migel Angel Mintegi

Hankak gogorturik eta **zamatsu** neuzkan, harrizkoak balira bezala. Juan Kruz Igerabide

---

**zamatu**, zama(tu), zamatzen **1** du *ad* pertsona, abere, orga eta kidekoren baten gainean zama ezarri. ik**kargatu**.

Ontziak **zamatzeko** lana ez baitzen perilik gabea. Edorta Jimenez

Gurdia lastoz **zamatu** eta etxera itzuli dira hirurak. Alberto Barandiaren

Perrette sartu zen, etxekoandrearen otarre astunez **zamaturik**. Jon Muñoz

Bidelapur hilak gurdietan **zamatu**, inguruko hareatza batera eraman eta bertan lurperatu zituzten. Agustin Otsoa

Mirandek bizikletara igotzen lagundu eta zaku handi batez **zamatu** zion bizkarra. Javi Cillero

Kutxa handiz **zamatutako** hamar mandorekin abiatu da. Patxi Zubizarreta

Burdin hodiz **zamaturiko** kamioia azaldu zen arte. Joxe Austin Arrieta

Hostoz **zamatutako** adarrek halako baso muskerrez estaltzen dute zerua. Iñigo Aranbarri

Ibaian behera Belemeraino zihoan janariz **zamatutako** ibai-bazterreko ontzitxo batean. Jon Muñoz

Iluntzean karrakako bigarren txaneltxoa uretaratu genuen, upel batzuekin **zamaturik**, lehorrera joan zedin ur eta jaki berriak biltzera. Edorta Jimenez

Orga batek, irin zakuz goraino **zamaturik**, beste ate batetik egin zuen bidea. Koro Navarro

Bere beso esmeralda zeharrargiz **zamatuez** inguratzen zituen ardo apartsuz beteriko kraterak. Juan Garzia

Mendiarteetan sartzen zen, non zuhaitzak, txorien habiek **zamaturik**, hostoz janzten hasi berriak baitziren. Jose Morales

Lagun-talde handia berekin zuela, usaingarriz, urre ugariz eta harribitxiz **zamaturiko** gameluak zekartzala heldu zen Jerusalemera.

Tren erabat **zamatuekin** itsasotik ekarritako arrain saskiak zurezko kutxa garai leporaino beteetan garraiatuz. Karlos Zabala

**2** irud/hed

Tobin-ek [...] dibisa trukeak **zamatuko** lituzkeen zerga bat ezartzea proposatu zuen. Iñaki Heras

Tartea handia zela ikusita, Lizaso **zamatzen** hasi ziren, eta atzelariak ezin izan zion jokoari eutsi. Berria - Kirola

Hasiak dira jada gerora Ordena **zamatuko** duten barne-arazoen zantzuak. Askoren artean

Axenariok, larritasunak **zamatuta**, ezin du ihes egin. Itziar Otegi

Ez dira egileak laidoen pisuarekin **zamatu** behar. Jon Alonso

Ez dut kontakizuna gehiegi **zamatu** nahi antolamendu hierarkiko bitxi haren narrazioarekin. Jon Alonso

Perretti gogoratu zitzaion nola tupustean zahartu zen Ruche jauna istripuaren ondoren: hamar urtez **zamatu** zen egun gutxi batzuetan. Jon Muñoz

Artikulazioetan aspalditik nozitutako oinazeek gutxieneko beste hamarretan **zamatzen** zioten berrogeita hamarreko adina. Josu Landa

Bere kontzientzia **zamatzen** zuen zerbait burura etortzen bazitzaion, aitortu egiten zen berehala. Askoren artean

Ironia hilgarriz **zamaturiko** broma bat. Alberto Ladron Arana

**3** (nor/zer osagaia ezartzen den gauza bera dela)

Taxia hartu, maletak eta poltsak **zamatu**, eta harantz abiatu ziren. Joxemari Iturralde

Salamancako Udala, ordea, ez dago halakorik baimentzeko prest eta kamioiei debekatu egin zieten atzo paperak gordetzen dituzten 500 kaxak **zamatzea**. Berria - Mundua

Dannenberg hirian trenetik kamioietara **zamatu** zituzten Castor edukiontziak. Berria - Gaiak

Berriro ere, Frodo jaikiarazi zuen eta, bere eskuak bularraren kontra estututa, gainean **zamatu** eta aldapan gora hasi zen. Agustin Otsoa

Ezkerreko besoaren gainera **zamatu** zuen gorputza, ukondoa hiru milimetroko burdinan mindu arte. Koldo Izagirre

Bidelapur hilak gurdietan **zamatu**, inguruko hareatza batera eraman eta bertan lurperatu zituzten. Aberastasun haietako gutxi batzuk bere hiru astoetan **zamatu** zituelarik, haiek egurrez estali, harkaitzari ixteko agindu, eta hirirantza abiatu zen. Agustin Otsoa

Zoruan zegoen motxilan sartu eta, zutituz, bizkarrean **zamatu** zuen. Agustin Otsoa

**4** (era burutua izenondo gisa)

Zerri batez estaliriko telega **zamatu** batean. Jose Morales

Apalategi **zamatu** hauetan milaka eta milaka orrik itxaroten dute hasierako jakinmin baten dirdira. Jon Alonso

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
> **gainean zamatu** (3); **gehiegi zamatu** (4); **jokoa zamatu** (4); **zamatu zuen** (5); **zamatu zuten** (4)
> **harribitxiz zamaturiko** (3)

---

**zamatuxe** *izond* zamatu samarra.

Arnasa emango dio izenez eta adjetiboz **zamatuxea** zegoen bertsoari. Andoni Egaña

---

**zamatzaile** *izond*

Nazioarteko auziak ere eroaten ditu, atzerriko armadoreekin eta **zamatzaileekin** dituztenak eta. Josu Landa

Tarifak erregaien prezioen arabera automatiko eguneratzeko hitzarmena egina ei dute **zamatzaileekin**. Berria - Ekonomia

---

**zamatze** *iz* pertsona, abere, orga eta kidekoren baten gainean zama ezartzea.

Horretaz gain, **zamatze** lanak debekatzen zituen araua urratu izana ere leporatzen diote Espainiako Gobernuari. Berria - Mundua

---

**zamau** **1** *iz* mahai zapia, otorduak egitean mahaia estaltzeko erabiltzen den ehuna. ik**dafaila**.

Gelaren erdian bi mahai karratu zeuden elkarren kontra jarririk, eta mahaien gainean **zamau** handi bat berdintzen eta lisatzen ari ziren izeba Julia eta etxezaina. Irene Aldasoro

Ukondoak jarrita festa egunetarako harizko **zamau** zuri brodatuaren gainean. Anjel Lertxundi

**Zamau** ezkoztatuaren gainean, bi plater ipintzen ditut; hirugiharra eta arrautzak frijitzen hasten naiz. Eskarne Mujika

Biltzen dira hiriko jauntxoak udaletxean, deitzen dituzte hiriko miliziako konpainietako bina ofizial; jartzen dute **zamau** berde bat mahaiaren gainean; [...]. Koldo Izagirre

Poltsatik **zamaua** atera, belar gainean zabaldu, eta dena prantatzen hasi zen. Iñaki Iñurrieta

Annette sukaldetik itzuli zenean, **zamaua** jasotzeko agindu zion amak. Anjel Lertxundi

Deus ez zuen aipatu, ordea, lihozko maindirez eta damaskoz itxuraturiko **zamauez**, ez eta parpaila apain baliotsuez ere. Joxan Elosegi

Hagridek zintz egin **zamau** baten tamainako sudur-zapiaz. Iñaki Mendiguren

Doktorea kolpetik gelditu zen, **zamaua** baino zuriago. Josu Zabaleta

**2** irud/hed

Beheko aldean, merkatuko teilatuek beren **zamau** grisak hedatzen zituzten, gandutsu. Karlos Zabala

zamauntzi ik **zamaontzi**.

## zamautxo *iz* zamau txikia.

**Zamautxo** batez jantziriko mahai bat zegoen dibanaren aurrean. Jose Morales

## zambiar *(orobat* **zanbiar***) izlag/iz* Zambiakoa, Zambiari dagokiona; Zambiako herritarra.

GIB birusaz kutsatutako 541 ume **zambiarrek** parte hartu dute ikerketan. Berria - Gaiak

Nolatan nigeriarra, **zanbiar** eta hegoafrikar baten artean bereizteko gai ez bahaiz? Lutxo Egia

## zanbla *adlag* beherakako kolpearen onomatopeia.

Xuxurlaka mintzatzen zen eta aulki batean **zanbla** erori zen niri begiratu gabe. Xabier Olarra

Gero atzera egin zuen, dibanean gainean **zanbla** etzan eta eskuak bularrera eraman zituen. Fernando Rey

Hortaz, dapa, leku bat hutsik ikusi, eta han eseri da ziztuan joanda, **zanbla**. Xabier Olarra

Aulki batean **zanbla** jesarri naiz, enbor beltz handien artean. Monika Etxebarria

## zanbo *iz* gurasoak beltza eta amerindioa dituena.

Beheko mailan daudenak: beltzak, indioak eta **zanboak**. Pako Aristi

## zanbro *iz* larruazaleko urratua.

Eta ni, berriz, zuloan, **zanbro** gaiztoaren harrak bihotza janda! Anjel Lertxundi

## zanbuil(a) *iz* murgilaldia.

Murgil luzea egiten genuen geure **zanbuilaren** uberatik joan ahala urrun azaleratzeko. Koldo Izagirre

## zanbulu *iz* kulunka, balantza.

Hemingwayren **zanbulua** Iruñeko plazan. Berria - Kultura

Kamionetaren **zanbuluetan**, beste zortziei begiratu zien jiratu batean. Jon Maia

## zanbuluka **1** *adlag* zanbuluak eginez. ik **zinbuluka**.

Itsasgainean **zanbuluka** zebilen ontzi huraxe baitzuen aberri eta errealitatearekiko lotune bakarra. Xabier Mendiguren Elizegi

**Zanbuluka** iritsi nintzen etxera. Alberto Barandiaren

Txitxikov, bitartean, ohartzen hasia zen kotxea batera eta bestera **zanbuluka** zihoala eta oso astindu gogorrak ematen zizkiola. Jose Morales

**Zanbuluka** hurreratu zen ea nor zen ikusteko, eta beneziarrak alboratuta Eusebiaren aurpegi musugorri eta biribila ikusi zuen. Josu Landa

Jira-biraka hasi zitzaion gela, **zanbuluka** mahaiak, aldaroka funtzionarioak, eta kordea galtzeko zorian egon zen lipar batez. Jose Morales

Panfletoak, airean **zanbuluka** ibili eta gero, langileen buru gainera erori zirela. Bernardo Atxaga

Bigarren egunean, bigantxek Stewart eta Hemingway **zanbuluka** ibili dituzte harean. Berria - Kultura

Bata bestearen bizkarrera igotzen, zinbuluka eta **zanbuluka** nahiz ilunpetan nahiz egunargitan. ik zinbulu-zanbuluka. Anton Garikano

**2** irud/hed

Ondorioz gizarteak ez du egontasunik, orekarik, **zanbuluka** dabil etengabeko krisietan. Joxe Azurmendi

## zanbulukatu, zanbuluka(tu), zanbulukatzen da/du *ad* zanbuluka ibili.

Hegala, tarteka zakarki **zanbulukatua**, eta hegalaren gaineko argi berde etenkaria, horixe bakarrik ikusten nuen; lainotan, argi berdea bera ere ezkutatzen, ordea, eta orduan bai zeharo itsu. Joxe Austin Arrieta

## zanfona **1** *iz* arrabitaren itxurako musika tresna, hariak igurzten dituen gurpil bat eta teklatu bat dituena. ik**zarrabete**.

Laukotea ahots, **zanfona**, karamilo eta lautez osatua zegoen, eta hainbat aldiz instrumentua aldatzen zuten. Berria - Kultura

Instrumentuak hauexek dira: arpa, psalterio, laut etzanikoa, laut zutikakoa, zitola, fidula edo biola obala, **zanfona**, gaita, organeto eta aulos bikoitza. Berria - Kultura

**2** ***zanfona-jotzaile***

Piezen tartean Luis Delgado **zanfona** jotzaileak azalpen interesgarriak eman zituen programari buruz. Berria - Kultura

Gilles Chabenat **zanfona** jotzaile frantziarra. Berria - Kultura

## zanga[1] **1** *adlag* hurrupaldiaren hotsaren onomatopeia.

Elkarri begiratu, Herbertek eta biok, eta zerbezari **zanga**. Joxe Austin Arrieta

**2** ***zanga-zanga*** *adlag* hurrupaldi handietan edo zarataz.

Katilua bete kafesne edan zuen **zanga-zanga**. Inazio Mujika Iraola

Nire ron botilari heldu berriro, eta **zanga-zanga** edan nuen. Josu Zabaleta

Azken datila irentsi, eta azken te-hurrupa **zanga-zanga** edan zutenerako, lasaitua zen Habibi. Jon Muñoz

Udan, kanpinean gaudenean, luzeago, bazkarian baso bat ardo edan beharrean, bi edo are hiru ere edaten baititu **zanga-zanga**. Aingeru Epaltza

-Aza-zopa oso gozoa dago gaur, laztana! -esan zuen Sobakevitxek, platerkada zopa **zanga-zanga** edandakoan eta erretilutik niania-puska ikaragarri handi bat hartuz. Jose Morales

Hartu zurezko koilara eta **zanga-zanga**, kazuelatik jaten. Pako Aristi

**3** irud/hed

Honatx, zer esatera etorri natzaizuen, alegia beren jokoan garaitzen ez baditugu, **zanga-zanga** irentsiko gaituztela gu ere. Mirentxu Larrañaga

Argi eta garbi ikusten nituen nik haien zurikeriak eta manipulazioak, baina, nire harridurarako, **zanga-zanga** irensten zuten dena ikasle batzuek, ikasle askok. Xabier Mendiguren Elizegi

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
> **zanga zanga edan** (5); **zanga zanga edaten** (3)

---

## zanga[2] **1** *iz* lurrean egiten den zulo luze eta meharra.

Plataforma ere karratua zen, zazpi metrokoa alde bakoitzetik; kanpoaldetik metro laurdeneko zintarria zuen eta inguru guztian metro erdiko **zanga**. Elizen arteko biblia

Gotzainaren onespena jaso ondoren, joan eta egin bezate **zanga** handi bat bizilekua eraikitzeko hartu duten sailaren inguruan. Berria - Euskal Herria

Zulo bat hemen, **zanga** bat han, hodi berri bat ezkerretik eta zementu apur bat eskumarago. Hasier Etxeberria

**Zanga** hutsetara lurra bota, gorpu ikusezinak lurperatzea bezala: otoitzik gabe, lekukorik gabe, beilariri eta negarrik gabe ematen zion lur, ezerezari. Harkaitz Cano

Meatzean **zangak** betetzen. Harkaitz Cano

Lehenago tiroz botatako batzuk ere ba omen zeuden **zanga** haietan. Jokin Urain

Bertan eseri zen, oinak **zangan** sartuta. Joseba Sarrionandia

Aitak zauritua **zangan** utzi izan balu, frantsesek bertan garbituko zuten. Anjel Lertxundi

Loratégia, aurreko kalea, **zangaren** ertzaren kontra, jendez beteta zeuden denak. Josu Zabaleta

Zubi altxagarria jasota, **zangaren** gainetiko pasabide bihurtzen zenean, Loiolara abiatzen ginen. Txillardegi

Gutxi falta izan nuen, behin baino gehiagotan, bide ertzeko **zangara** erortzeko. Josu Zabaleta

Hala ere, bultza eta bultza, soldadu erdi hila **zangatik** ateratzea lortu zuen. Anjel Lertxundi

Ezponda berde-berdezko **zanga** baten ondotik ibili ziren. Josu Zabaleta

Ondo-ondoan zegoen; **zanga** batean etzan nintzen beldurrak eragindako mugimendu batez. Josu Zabaleta

Ezker-eskuin, bi aldeetara, drenajeko **zangak** egingo dira. Santiago Iruretagoiena

**Zanga** bidez, izan ere, urak itsasertzera eramango dira. Santiago Iruretagoiena

**2** (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

**Zanga** ertzean eseri ginen italiarrok fruta janez. Josu Zabaleta

**Zanga** ondoak-eta gustatzen zaizkio, bertako hezedura xurrupatu eta zorua lasaitu egin ohi du, zopa-zopa dagoen buztin-zola arindu eta aretu. Pello Zabala

Beste batzuk izaten zirela, ahulagoak, hankaz gora **zanga** zuloetan zilipurdika ibiltzen zirenak. Berria - Kirola

Goian behean aritzen baita, eta ur-lasterra bailitzan isurtzen da gure lubakiko hondoraino, lokatzez jositako **zanga**-zulo bilakatzeraino den-dena, lupetza likits kirasdun. Mirentxu Larrañaga

**3** (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa)

Gruaroko harresiak inguratzen zituen ur **zanga** igarota, altxatzen zen, lorategitxo baten erdian, Pitottitarren etxea. Josu Zabaleta

**4** irud/hed

Geroago, zabalduz joan zen bien arteko **zanga** ikusezin hura. Iban Zaldua

Jose Urioste imajinatu dut, zuhaitz deserrotua bezala, lekuz aldatua, eta historiaren **zangara** eroria. Joseba Sarrionandia

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
> **zanga ertzean** (6)

---

## zanga[3] *iz* hegazti palmipedoa, antzararen tamainakoa, zuria baina hego muturrak beltzak dituena, itsasertz pikoetan talde handietan bizi dena eta uretan murgilduz harrapatzen dituen arrainez elikatzen dena *(Sula bassana)*

Aztertu dituzten hegaztien artean daude oiloak, oilaskoak, antzarak, ahateak, usoak, oilagorrak, kaioak, ubarroiak eta **zangak**. Berria - Euskal Herria

---

## zangada **1** *iz* hurrupaldi handia.

Aitak **zangada** batez hustu zuen bere te-katilua. Juan Kruz Igerabide

Samek ur-**zangada** luzea edanarazi zion. Agustin Otsoa

Abiatu aurretik nirekin beste **zangada** bat edan nahi al duzue? Agustin Otsoa

**2** irud/hed

Dagoeneko suntsitu dute Belgika txiki ausarta, **zangada** bakarrean irentsi dute. Mirentxu Larrañaga

---

## zangaka *adlag* hurrupaldi handitan.

Maisuak gaitz bitxiren bat dauka, egunero hartzen du, denen aurrean eta **zangaka**, botila bete ozpin. Koldo Izagirre

---

## zangalatraba[1] *(**14** agerraldi, **11** liburutan)* *adlag* zangalatrau.

**Zangalatraba** neukan nire gainean eserita, belaunak nire saihetsetan, borrokarako edo amodiorako gertu. Xabier Mendiguren Elizegi

Printzesa **zangalatraba** jartzen zen orduan, eta barre egiten zuen esanez: *Vamos...* Bat-batean jaiki eta mutilaren izterren gainean eseri zen, **zangalatraba**. Koldo Izagirre

Erratz gainean kiribil-kiribil eginda zegoen, **zangalatraba**. Josu Zabaleta

Bide kaskar hartan erdi **zangalatraba** ibiltzen hasi zirenetik hiru bat kilometro egin zituztenean. Aitor Arana

Baktriar Greziar Inperio baten ondorengo Kusana estatuan, hindu-Kusanan **zangalatraba**. Iñaki Mendiguren

Han agertu da irakasle galdua, betaurrekoak **zangalatraba**, ileak erratz eta arropa hauts bihurturik. Joxerra Garzia

---

**zangalatraba**[2] *iz* zangotraba.

'Penalti!' oihu egin zuten ia aho batez Emilio erori zenean, Inazitok **zangalatraba** eginda. Joseba Sarrionandia

---

**zangalatrabatu**, zangalatraba(tu), zangalatrabatzen da *ad* estropozo egin. ik **zangotrabatu**.

Jendakiak, ahaideak, azkaziak eta auzoak traputzen zihoazen, **zangalatrabatzen** edanaren ondorioz. Itxaro Borda

---

zangalatraka ik **zangalatrau**.

---

**zangalatrau** *(19 agerraldi, 13 liburutan, eta* ***zangalatraka*** *g.er. eta* ***zangalatrauka*** *g.er.)* **1** *adlag* zangoak eserlekuaren alde banatara jarriaz eseririk. ik **zangalatraba**[1]**; istapeka.**

Beste aulkitxoaren gainean jarri zen, **zangalatrau**. Fernando Rey

Karmen nire gainean **zangalatrau** jarrita, gora eta behera, eta ni uhurika ari nintzaiola, sentitu nuen ate-hotsa aurrena, txirrinarena gero, ahots batena hurrena, dena batera geroago. Inazio Mujika Iraola

Karmenek ezin izan zuen gehiago; jauzi egin zion lepora, eta, behin azpian hartu eta gero, haren gainean **zangalatrau** jarrita, ukabilka erabili zuen lurrean. Inazio Mujika Iraola

Ulises, orduan, egur baten gainera igo zen, **zangalatrau**, eta Kalipsok emandako arropak kendu zituen. Juan Kruz Igerabide

Meharra azaldu zen lasterketa-bizikleta gainean eta amerikar erara galgatu zuen: alegia, zelatik atzerantz salto egin eta gurpil gainean **zangalatrau** eseriz, gauza aparta. Koldo Biguri

Mutiko haren begirada berbera zeukan, lurrean botata **zangalatrau** inmobilizatu eta burua esku ttipietan hartuta patioko zementuaren kontra kolpeka hasi nintzenean. Sonia Gonzalez

**2** irud/hed

Establezimendu mota hau auzoko denda txikia eta supermerkatuaren artean **zangalatrau** doa, bistan da. Edorta Agirre

Aldi berean garai desberdinetan **zangalatrau** dagoen sistemarik ez dagoenez, ez dago guretzat "gramatika historiko"-rik. Isabel Arrigain

Bi esparruren artean **zangalatrau** kokatua dago, zeren ez baitu jakin garbi bereizten egoeren eta segiden artean. Isabel Arrigain

**3** bertso lerro batetik bestera joskera-banako bat igarotzeen.

Ez dauka hitz bat bost silabako bi multzo horien arteko etenean **zangalatrau** uzterik. J. Garzia / A. Egaña / J. Sarasua

---

zangalatrauka ik **zangalatrau**.

---

zangaluze ik **zangoluze**.

---

**zangar**[1] **1** *iz* zangoaren zatia, oinaren eta belaunaren artekoa.

Gizonezko **zangar** bat ageri da bertan. Josetxo Azkona

Larritasunak kemenik aski eman zidan lurrean narraska abiatzeko[...] etxe aldera, ustez, izu-laborriarekin eta **zangarra** suzko aizto moduko zerbaitek ziztaturik, ezin bainuen argi ikusi non nengoen eta nora nindoan. Juan Kruz Igerabide

Uretan zutik oinutsik, gona beltzak **zangarretan** gora altxatuta. Anton Garikano

Horiek ez dira makinista batenak, sobera lirainak dira **zangar** horiek. Koldo Izagirre

Zezen bat bezain indartsua izan behar zuen; haren **zangar** mardulak miretsi ere egiten zituen. Karlos Zabala

Artaldea bizkor ibil dadin **zangarrean** ausiki egiten duen zakurraren imintzioa. Josu Zabaleta

**2** (hitz elkartuetan)

Bost xerra zekor-**zangar** jarri zituen mahai gainean Ruche jaunak. Jon Muñoz

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
> gainean zangalatrau (6); zangalatrau jarri (3)

---

**zangar**[2] *izond* ausarta, bihoztuna.

Grezian balio guztien erlatibismoa irakasten zuten sofista ganorabako haiek denak, behiala Platon **zangarrak** garaitu zituen. Joxe Azurmendi

Oso ideia ona; laster ikusiko dugu Agustin **zangarra** ipurditxo polit hau geure begien aurrean urratzen, eman ahala guztian. Juan Martin Elexpuru / Bego Montorio

Zezen **zangarra** eta gartsua zen, gorria, gainerakoak bezala. Joan Mari Irigoien

Pentsatu nuen zein dotore, **zangar** eta kementsu ziruditen gizonezko haiek beren uniforme distiratsuak jantzita. Mirentxu Larrañaga

---

**zangartasun** *iz* ausartasuna.

Ez baitziren beste deusez fidatzen, baizik eta beren indarraz eta kuraiaren eta lohadarren **zangartasunaz**. Patziku Perurena

---

**zangarte** *(orobat* ***zangoarte*** *g.er.)* *iz* gorputzean, zangoak biltzen diren aldea.

Aurpegia zafratua nuen hainbat tokitan, eskumuturretan eskuburdinen markak nabari nituen eta **zangarteko** oinazeak nire gernu aztarnak bi atzipetzaileek iragarritako une beltza baino lehen gerta zitezkeelako susmotan nindukan. Aingeru Epaltza

Mutikoa emazte larruhasari begira egon zen; **zangarteko** ileek osatzen zuten oihantxoak fazinatzen zuen. Itxaro Borda

Hatz erakusleak orbain ikaragarri bat erakutsi zion, amaren hatza bera bezain lodia eta luzeagoa, zilborzuloan hasten zena eta, sabel zurian behera, inondik ere begiratu nahi ez zuen **zangarteko** ilebaso ilun haren ia mugaraino iristen zena. Joseba Sarrionandia

Putetxean sartu zen, **zangartea** ahurraz banbaka joz. Itxaro Borda

Gure amaren **zangoartetik** imajinatu nuen bere buru borobil handia sortzen. Joseba Sarrionandia

Handik laster ordea, gauza borobila atera zen emaztearen **zangartetik**. Itxaro Borda
Nire sudur gaixoa **zangarte** kirastu haren aurka igurtzen, nire urdail gaixoa nahasten nire barnean, baina banekien zertan ari nintzen, eta pozik nengoen. Oskar Arana
Ahur bat titietan kilikari utzi eta bestea **zangartera** ekartzen zuen, bustitzen zihoakion gunean pausatzeko. Itxaro Borda
Goiti eta beheiti ari zen gizonaren sabelpeko makila gorria amaren **zangarteko** zuloan sartzen eta ateratzen segitzen zuen. Itxaro Borda
Pentsatze hutsarekin errebolta sumatu zuen **zangartean**. Unai Iturriaga

---

## zangarteka *adlag* urrats handiak eginez.

**Zangarteka** jarraitu zion, bernak zigorkatuz: "Jakingo du laster ni naizela dakiena". Juan Garzia

---

## zangarteko *iz* zangotraba.

Zoritxarrik gertatzen bazaizu, hantxe izango duzu aurrean eta laguntzeko aitzakiaz **zangartekoa** egingo dizu. Elizen arteko biblia
Tirabira labur baten ondoren, lodikoteak berriro atzeman du, eta **zangartekoa** eginez lurrera bota. Patxi Iturritegi

---

## zangatu, zanga(tu), zangatzen du *ad* zangak egin.

Bideak **zangatuta** daude erabat, kanpoko itxituratik atera dena arrastaka ekarri izan balute bezala. Josu Zabaleta

---

## zangilixka *adlag*

Ez dira hauek proposamen bakarrak, hizkuntza bera girbinera utzi nahi baitu, hiztun guztiak **zangilixka**: "on" preposizioa erabiltzea egoki ikusten du, esate baterako. Pello Salaburu

---

## zango *(orobat **zanko** g.er.)* 1 *iz* gizakiaren gorputzeko bi behe adarretako bakoitza. ik **hanka**.

Agondu, **zango** bat atera eta oina artoski ezarri duzu zola hotzean. Xabier Montoia
Animalia bi **zango** gainean ezarri eta, kapelu lumaduna erantziz, agur egin zien almenetakoei. Aingeru Epaltza
Sabel gainean nahiz lau **zangoen** edo gehiagoren gainean narrasta dabiltzan piztiak. Elizen arteko biblia
Koka-kola potoek ez dute **zangorik**, ezta? Oskar Arana
Eskua zanpa gelditua zen gaskoiaren **zango** azpian preso. Aingeru Epaltza
Esku bat sumatu dut nire **zangoan**. Mirentxu Larrañaga
**Zangoak** handituta izango ditu. Joseba Sarrionandia
**Zangoak** zabaldu eta gizonaren sabelean hankalatraba jarri zen, besoak oso gogor atxikita gizonaren bizkar gainean. Joseba Sarrionandia
Besoak eta **zangoak** zabaldu zituen nagiak ateratzeko. Jon Muñoz
Gero eroso jarri zen besaulkian, nire aurrean, **zangoak** gurutzatuta. Migel Angel Mintegi
Egunsentian, eskuak eta **zangoak** loturik, orga batera iganarazi zituzten. Elena Touyarou
Hala lotu nintzen harri hezeari, esku eta **zango**. Aingeru Epaltza
Sealsek diabetes arazoak zituen, eta orain dela bost urte **zango** bat moztu behar izan zioten. Berria - Kultura
**Zango** bat ebaki ziotenetik urtebete pasatu denean. Berria - Kultura
Sozialista gazte batek aipatzen ditu presoen familien nekeak eta arazoak, berak **zango** bat galdu duelarik ETA-ren atentadu batean. Herria
Mahai ertzean eseri zen [...] eta **zangoak** kulunkatzen hasi zen. Irene Aldasoro
Barauaren barauz, **zangoak** koloka ditut, gorputza argal eta ihar. Elizen arteko biblia
Milia erdi egin orduko, barauagatik bista lausotzen hasi zitzaien, **zangoak** ahultzen, belaunak kolokatzen, eta gorputz osoa indargabetzen. Askoren artean
Gol hori sartu ondoan, denbora gehienean baloia paristarren **zangoetan** zen. Berria - Kirola
Koska batetik behera jauzi egitean, konpresioa izango dute **zangoetako** hezurrek. Irene Aldasoro
Neskatilatxoak oinutsik eta **zangoetako** azazkalak pintaturik dabiltza. Gotzon Garate
Goraka jarraitzen du bere **zangoen** gihar guztiak behartuz. Bernardo Atxaga
Beso eta **zangoetako** ilea kenarazten zion aldizka. Oskar Arana
Arrastaka eraman dute, **zangoetatik** helduta menturaz. Koldo Izagirre
Han ez dik inork **zangoa** sartzen, nire gotorlekua duk. Koldo Izagirre
-Zuk? Behin ere ez duzu mendian **zangorik** sartu. Elena Touyarou
Begiak suzko zuziak bezalakoak zituen, beso eta **zangoak** brontze leundua bezain distiratsuak. Elizen arteko biblia
Euria jauts ahala, iduri eta gu ginela oraingoan **zangotik** harrapatuak. Angel Aintziburu / Jean Baptiste Etxarren
Hilabete gutxitan PCEko gazte egituretan buru-belarri eta **zango** begi nenbilen. Jon Maia

**2** (izenondo eta izenlagunekin)

Adineko gizon bat, bi **zango** zuriak askan sarturik. Piarres Aintziart
Bere **zango** meheak bastoiarekin bermatuz. Pako Aristi
Bidaiariaren bi **zango** sendoak bezala. Aitor Arana
Zalutasun harrigarriz mugitu zen Franz bere **zango** motzen gainean. Alberto Ladron Arana
Ongi sakatzen du eta asko ibiltzen da kantxan, **zango** indartsuak ditu. Berria - Kirola
Luzea den arren, **zango** arinak ditu. Berria - Kirola
Hezur galera larriak sendatzeko eta **zango** okerrak zuzentzeko. *ik* zangoker. Berria - Gaiak
Ezin zuen **zango** biluzi haietarik eta [...] gerriko hezur haietarik bere soa baztertu. Elena Touyarou
Harri baten gainean jarririk dago, **zango** eskuina luzaturik. Piarres Aintziart
Haren bi **zango** oinutsek arku bat marrazten zuten besaulkiaren gainean. Aingeru Epaltza
Neskaren **zango** lodixketako azazkal gorriz pintatuak. Aingeru Epaltza
Belaunikoz jabetu nintzen haren **zango** potoloek izararen gainean marrazten zuten angeluaz. Aingeru Epaltza
Gortinaren zirriztuetatik Monikaren **zango** zutun eta beso luzeei begira. Joxean Agirre
Bizkar garbi leuna; **zango** garbi leunak. Oskar Arana
Saiatu nintzen printzesaren izenaz akordatzen, haren **zango** luze, eratsu, galtzerdi beltzez jantziez. Koro Navarro
Nire **zango** dardartiak etxe baten parean gelditu ziren, zapataginen karrikan. Aingeru Epaltza

Gona txiki estua **zango** polit meharretan gora bildu zitzaion neskari. Mirentxu Larrañaga
Honek **zango** zalua eta hats gaztea eskatzen ditu. Jon Alonso
Zutarriaren gainean **zango** gurutzatuak erakustea beste egitekorik ez lukeen eskultura baten gisan. Joxean Agirre
Aitzineko patak edo **zangoak** beso bilakatu dira, ziminoak zuen gauzen erabiltzeko errextasuna atxikiz. Herria
Egurrezko **zango** berria erosi du. Pablo Sastre
Izpegin kolpatua niz ezkerreko **zangoan**. Michel Oronoz
Ezker **zangoan** herrena ekarri zuen Milanerritik, kanoikada baten oroigarri. Aingeru Epaltza

**3** (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)
Piztia baten **zango**-hezurra. Itxaro Borda
Nehor iratzarrarazi gabe, ortotzik eta **zango** punten gainean, komunetaraino eramanarazi zituen. Eneko Bidegain
**Zango**-eri batean kolpatua, zauria gaizkontzen ari zait. Marzel Etxehandi
Nire **zango**-zola azeleragailuan landatu zen. Aingeru Epaltza
Neska gazte bat bere **zango**-aztal eta oin-eri minberen artatzen ari da. Piarres Aintziart
**Zango**-bizkarrean tatuaje bat jarria zuen: *American Dream*. Berria - Mundua
Gona ere urdina darama, eta oinetan, berriz, **zango**-erdirainoko botak, takoi finekoak. Rafa Egiguren
Lesionatu egin zelako, **zango**-babesa hautsita. Berria - Kirola
Aurki nagusitzen zaiela buru-eskasia, guztizko **zango**-ahultasunarekin batera. Juan Garzia
**Zango**-jokoan ez zuten asmatu ez Peyrelonguek eta ezta Brusquek ere. Berria - Kirola
Liluratu lagunak eta nahastu etsaiak mendeku asmatu berriekin: ile-erortze, **zango**-biguntze, mihi-lotze eta beste askorekin. Iñaki Mendiguren
**Zango**-trabatze moduko bat: futbolean ikasia behar dute. Oskar Arana
Berrikuntzaren alde egin nahi duten enpresaburuek **zango**-trabatze larria jasango dute, eta nekez egingo dute aurrera hemedik aurrera. Berria - Gaiak
Bizilagun batek arratsalde horrexetan xafla hartatik zerrendak moztu eta haiekin, gauaz, motorako **zangobabesgarri** ederrak egin zituen. Fernando Rey

**4** (hitz elkartuetan lehen osagai gisa, elkarketak izenondo balioa duela)
Eper **zango** gorria ez baita neskatx **zango** gorria ordezkatzen duen metafora baizik. Patziku Perurena
Williams andrea emakume handia eta sendoa zen, bular-harroa eta **zango**-mardula. Koro Navarro
Hantxetan dudan mutiko **zango** zingil hori harrapatzen ari nauk. Piarres Aintziart
Aldameneko **zango**-motzari esan behar izan nion obispoarena ez zela ezer. Inazio Mujika Iraola
Laura zeritzan neskatxa **zangobakar** harekin. Joan Mari Irigoien
Pisatzen gaituzte, izartzen, ikuskatzen (hortzak, bularrak, **zangozabal** edo sabaidun). Marzel Etxehandi

**5** (hitz elkartuetan lehen osagai gisa, elkarketak adizlagun balioa duela)
Ikaragarriko eremuak zartagailuz estaliak, nehor ez gostuan ibiltzen ahal, zango puntarekin jo orduko lehergailu horiek zartatzen eta jendea **zango**-motz gelditzen. Herria
Apenas jasotzen zituen oinak lurretik, baina Bo Derek **zango** zabalik baino lizunagoa zen mugimendu sotil hura. Unai Iturriaga

**6** (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa)
Hiru gizaki-**zango** bakoitza norabide baterantz lasterka betean. Jon Muñoz
Untzi baten barnean zerri **zangoak** atxeman zituzten. Eneko Bidegain
Karramarro-**zangoen** gainean dabiltzan ibilgailu mekanikoek zaldiak desagerrarazi dituzte. Berria - Kultura
Ateburuak eta ate-**zangoek** bosna koska zituzten. Elizen arteko biblia
Ume-**zango** txikiak miresten nituen. Itxaro Borda
· Kristoren esku-**zangoak** zulatu zituzten iltze sainduengatik egiten ahalko zidan zin. Aingeru Epaltza

**7** irud/hed
Imanolek izara izkina ohearen **zangoan** lotzen duen artean, oinots arinak entzun dira Pauso Galduen Galeriatik. Joseba Sarrionandia
-Mahai batek lau **zango** baizik ez ditu behar ongi bermaturik egoteko. Aingeru Epaltza
Hazparneko eskualdeak **zango** bat du Lapurdin eta bertzea Nafarroa Beherean. Berria - Euskal Herria
Hiru **zangotako** gobernua, hiru alderdi partzuer, bainan laugarren zango bat ere behar nihundik ahalaz! Herria
Joanden munduko xapelgotik honara ez ginituen gehiago ulertzen, iduriz estekatuak zirela, ez zutela gehiago ez bururik eta ez **zangorik**. Herria

**8** ***beso-zango*** *pl* beso eta zangoak.
Unaik are eta kemen handiagoz eragin zien bere robotaren **beso-zangoei**. Aingeru Epaltza
Besoetan hartzen duenean, txotxongilo batenak bailiran zimurtzen zaizkio neskari **beso-zangoak**. Oskar Arana
Petrusek **beso-zangoak** luzatzen ditu, aurpegia eguzkiaren distirari bete-betean emanez. Oskar Arana
Neurri horretara iristen ez direnei, tira egiten die **beso-zangoetatik**, tamaina egokia iritsi arte. Joxerra Garzia
Burua dut guztiz sorgor, lokietan taupadak eta mailukadak, **beso-zangoak** minberatuta oso. Eduardo Matauko
Buru asko eta **beso-zango** ugariz hornitua omen zen, eta leku bat baino gehiagotan ikusi omen zuen aldi berean. Xabier Olarra

**9** ***zango-astun*** *(corpusean* ***zangoastun*** *soilik)*
Hanka-puntetan jarririk, gora eta behera higitu du gorputz oldarkotea, halako dotorezia **zangoastun** batez. Anjel Lertxundi

**10** *zango-baloi* ik **zangobaloi**.

**11** ***zango-beso*** *pl* zango eta besoak.
Han beraz gaixo bildotxak lau **zango-besoak** estekaturik. Herria
Xingolak, itzuli asko eginez, **zango-besoak** eta gorputza inguratzen zizkidan, eta burua bakarrik uzten zidan libre. Koro Navarro
Mugaide galdu berriaren sensazio beroak, hormatzen zihoazkion **zango-besoak** epeldu zizkion. Itxaro Borda
Astia du oraindik pentsatzeko, korderik galdu ez badut ondo nago, **zango-besoek** huts egin eta erori aurretik. Oskar Arana

**12** *zango luze* ik **zangoluze**.

**13** ***zangopean***
Haren **zangopean**, Ximurra biluziak hasperen apal bat jaurti zuen. Aingeru Epaltza
Gure bidexketan **zangopean** zapaltzen dugun istil beltzaren antzera aspalditik geldirik dagoen ur uherra. Pello Salaburu
Hipogrifoak hegoak astintzean **zangopean** ematen zizkion kolpeak ez ziren batere atseginak. Iñaki Mendiguren
Hilotzik lur hotzean, bai, hilotzik lur hotzean; burupean belar guri, harria **zangopean**. Juan Garzia
Lehiakarien **zangopean** belarraren mozteko molde egokia. Herria

**14** irud/hed
Hiru metro gorako hesi xixtadun eta tinke haien artetik, aleman armatuen **zangopetik**, zenbait minutaz ihes joaiten zirelako irudimena zeukaten. Eneko Bidegain
Mañaria herria Durangaldean kokatzen da, Bizkaian, Urkiola mendatearen **zangopean**. Herria
Gure **zangopean** Euskal Herri osoa, ipar eta hegoa. Herria
Konprenigarria, zure ustez, Gerla Handian eta Hirugarren Reicharen **zangopeko** Frantzian jasanen zuena jasan ondotik. Xabier Montoia

**15** ***zango sagar*** *(orobat* ***zangosagar****)*

**Zango-sagarrak**, izterrak, ipurdi-masailak. Itziar Otegi

**Zango sagarretarainoko** galtza motx beltzak. Elena Touyarou

Rosaren **zango-sagarra** laztandu zuen gero. Aritz Gorrotxategi

Zakur errabiatuak Hutx izengoitiko garaztar pottolo baten **zango-sagarra** ausiki zuen. Itxaro Borda

150 kilometro egin eta **zangosagarrak** kexatzen ez badira, hirugarren mendatea lehenengoa balitz bezala igotzen duzunean. Berria - Kirola

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
>
> **bere zango** (22); **beren zango** (5); **beso zango** (5); **bi zango** (13); **ene zango** (4); **eper zango gorria** (4); **lau zango** (8); **nire zango** (8); **xango altxa zango** (6)
>
> **zango artean** (6); **zango bakoitza** (3); **zango baloi** (4); **zango baloian** (3); **zango bat airean** (3); **zango bat galdu** (3); **zango besoak** (7)
>
> **zango gainean** (4); **zango gorri** (3); **zango gorria** (5); **zango luze** (4); **zango luzeak** (5); **zango mehaka** (3); **zango motz** (4)
>
> **zango pare** (4); **zango puntetan** (4); **zango sagar** (3); **zango sagarra** (3); **zango sagarrak** (5); **zango sendoak** (4)
>
> **zango tartean** (3); **zango zola** (3); **zangoa zango gainean** (3); **zure zango** (3)
>
> **bere zangoa** (4); **eskuin zangoa** (4); **zangoa hautsirik** (3)
>
> **bere zangoak** (6); **beso eta zangoak** (6); **beso zangoak** (12); **besoak eta zangoak** (18); **bi zangoak** (6)
>
> **esku zangoak** (3); **eskuak eta zangoak** (5)
>
> **nire zangoak** (6)
>
> **zangoak altxatu** (3); **zangoak azpian** (4); **zangoak dar dar** (7); **zangoak dardarka** (4); **zangoak eta besoak** (3); **zangoak gurutzaturik** (5); **zangoak gurutzatuta** (3); **zangoak luzatu** (6); **zangoak luzatzen** (5); **zangoak moztu** (4); **zangoak mugitu** (3); **zangoak urean** (4); **zangoak zabaldu** (5); **zangoak zabalik** (4); **zangoak zintzilik** (3)
>
> **eskuin zangoan** (3); **ezker zangoan** (7); **zangoan min** (3)
>
> **zangoaren gainean** (4)
>
> **bere zangoen** (7); **beso zangoen** (3); **bi zangoen** (3); **nire zangoen** (4)
>
> **zangoen artean** (12); **zangoen artetik** (4); **zangoen gainean** (16)
>
> **zangoetako ilea** (3)
>
> **beso zangoetatik** (3)
>
> **eskuin zangoko** (8); **ezker zangoko** (7); **zangoko bizepsean** (4); **zangoko iskiotibialetan** (3); **zangoko joko** (5); **zangoko jokoa** (4); **zangoko jokoan** (14)
>
> **besoz eta zangoz** (3); **jo zuen zangoz** (3); **zangoz baloia** (3); **zangoz gora** (4); **zangoz jo** (14); **zangoz jo ondoan** (3); **zangoz jo zuen** (4); **zangoz ongi** (3); **zuen zangoz** (4)

---

## zangoarte ik **zangarte**.

---

## zangoastun ik **zango 8**.

---

## zangobabesgarri ik **zango 3**.

---

## zangobakar ik **zango 4**.

---

# **zangobako** *adlag* zango gabe.

Gure mutikoaren aita **zangobako** itzultzen da frontetik. Berria - Kultura

---

# **zangobaloi** *(13 agerraldi 12 artikulutan; orobat* ***zango baloi*** *7 agerraldi 7 artikulutan)* **1** *ipar* futbola.

Kirol ekitaldiak ere egin dira (errugbi, pilota, **zangobaloi**). Herria

**Zangobaloian** adibidez, Bilboko Athletic-ek emaitza bikainak ateratu ditu. Herria

Errege kopan, **zangobaloiko** euskal talde bakar bat gelditzen da orain: Gasteizeko Alaves. Herria

Europak badu bestalde ere aipaldi, arrakasta gehiagorekin hain segur, larunbatean hasi den **zangobaloiko** Eurokoparekin. Herria

**2** (hitz elkartuetan)

Euskal Herri guzian ikusmin handia sortu du Baionako Aviron eta Bordeleko Girondins taldeen arteko **zangobaloi** partidak, Frantziako Koparen kondu. Herria

Asteazkenean, **zango baloi** lehiaketa. Herria

Lehiaketa huntaz behar girea loriatu, jakinez kirol baino gehiago diru-joko dela bilakatua **zangobaloi** jokoa? Herria

---

# **zangobaloilari** *iz ipar* futbolaria.

Partaidetza hunek hemen gaindiko **zangobaloilari** gazte talendutsuen aurkitzea du helburu, Iparraldeko gaztek ere Bilboko taldetan futbolean joka dezaten. Herria

Bainan Osasunako **zangobaloilariek** ezin izan dute Errege Kopa beretu. Herria

Iruñear **zangobaloilari** taldea. Herria

---

# **zangodun** 1 *izlag*

Erregina bat ageri da zuen karrika nagusian, herriko armarritik jaitsitako sirena **zangoduna**. Koldo Izagirre

Apoa, tutulu sodomitaren bidez putz eginik handitzen genuen, **zangodun** pilota berdea bihurtu arte. Joseba Sarrionandia

Mutilak, ile-**zangodunak**, Koronela bezalakoak. Mirentxu Larrañaga

Oin-zolen gainean dabiltzan lau **zangodun** piztia guztiak. Elizen arteko biblia

Gizakien aurpegiak irudi duten lainoak, edo herrialdeen mapak, edo ametsezko animalia hamar **zangodunak**. Oskar Arana

**2** ***bi zangodun*** gizakia.

Eguna ghettoko ostatuetan finitzen zuten, mozkor arrailak, edozein uniformez beztitu bi **zangodun** karrikan gurutzatzean "putakumeak" leitmotiva ezpaineratuz. Itxaro Borda

Bi **zangodun** guztiak joan arte igurikatzen zuen fotokopiagailuaren ondoan, eta hurbiltzen zitzaidan, begi lagunak eri zalantzakorraz ozkan jarriz. Itxaro Borda

**3** ***kulero zangodun*** gerrirainoko galtzerdiak.

Hasieran, gehien bat oinarrizko gauzei lotu gintzaizkion (galtzerdiak, barruko arropak, **kulero zangodunak**, kulero motzak, pijamak, izerditzeko elastiko txanoduna, nylonezko

zamarra, azazkal-moztekoa, hortz-eskuila, orrazteko eskuila eta abar eta abar). Oskar Arana

---

## zangokada *iz* oinkada.

Hala ere emaitza ona atera dute 18/10, Bixente Etxetoren **zangokada** fidagarriei esker. Herria

---

## zangoker *izonk* hanka-okerra.

Betoker, eskubeltz, **zangoker**, hilarrizale, eskuluze, haratustel, odolzale, [...]. Agustin Otsoa

---

## zangolari *iz* ibiltaria.

Orai 21. mendeko **zangolari** eta pirripitalariok, badugu gomita eta bide ederra, nahi badugu eskainia zaigun erronka onartu. Herria

---

## zangolotu, zangolot(u), zangolotzen du *ad* zangoak lotu.

Ikusleen samalda ikara baten zutundu da, haizeak astindutako zuhaitz gazteak dira, gura dute higitu baina elkarren preso daude, zango barik edo **zangoloturik**. Koldo Izagirre

---

## zangoluze *(orobat **zangaluze**)* **1** *izond* zangoak luzeak dituena.

Saint Michel bulebarrean emakume **zangoluze** batekin flirt luzea saiatu eta haren telefonoa nire eskuan apuntatu ostean [...] akordatu zen berriro planoaz. Harkaitz Cano

Txanogorrien ondoren, kappas-ak aztertu zituzten, uretan bizi ziren izaki nazkagarri batzuk [...] hegazti **zangaluzeak** itoz gozatzen zutenak. Iñaki Mendiguren

**2** (izen gisa)

Titiritero itxurarekin agertu zen ezustean, aretora sartzeko prest ginela, eta beren **zangoluze**, akrobata eta kale-orkestra txikiarekin argi utzi ziguten hastekotan zegoen emanaldia dantza baino gehiago ospakizuna izango zela. Berria - Kultura

Uda-Leku elkarteak haurrendako tailerrak eginen ditu, tindua, **zangoluzeak**, maskak eta bertze. Berria - Euskal Herria

---

zangomotz ik **zango 4**.

---

zangopean ik **zango 12**.

---

## zangoperatu, zangopera(tu), zangoperatzen du *ad* zangoen azpian erabili. • *irud/hed*

Euskara **zangoperatua** zen, urte haietan. Pello Salaburu

[Juduek] herri kristaua **zangoperatua** ei zeukatelako lukurreriaz. Joxe Azurmendi

---

## zangopetu, zangope(tu), zangopetzen du *ad* zangoperatu.

Berrogeita lau batailoi etorri dituk gugana, gu geu tximitxak bezalaxe **zangopetzera**. Txillardegi

---

## zangopilatu, zangopila(tu), zangolpilatzen **1** du *ad* oinpean erabili.

Joka ari zirela, zakua **zangopilatu** zuten eta barnean zuen guzia funditu. Marzel Etxehandi

Preso miatzaileek ikaragarriak egin zizkiguten, otoitz liburuak urratuak eta **zangopilatuak**, arrosarioak eta medailak berdin laidoztatuak. Marzel Etxehandi

Hemendik goiti, deputatuek onartu lege berria berme, frantses bandera zikintzen, urratzen, erretzen edo **zangopilatzen** duen norbaitek [...] sei hilabeteren presondegia ukaiten ahalko du. Herria

Gaixo loretegiak! **Zangopilatuak** izan dira, nehork ez zuela urrikalpenik heien suerte dohakabearentzat! Herria

Zuzendariak, presoekin hitz egin partez Polizia sarrarazi zuen kezko pote eta gomazko pilotak jaurtikiz, dena puskatu eta **zangopilatuz** eta, kartzeleroen laguntzaz presoak jipoitzeko. Jokin Urain

**2** irud/hed ik **oinperatu; azpiratu**.

Zoritxarrez, badira ere herrialdeak zointan holako eskubideak alde bat eta itsuski ostikatuak eta **zangopilatuak** baitira! Herria

Nazioen artean finkatuak izan ziren hitzarmenak **zangopilatu** zituen aleman armadak. Michel Oronoz

Demokraziaren zaintzaleak (hala direla diote segurik!) demokrazia **zangopilatzen**! Herria

Estatu frantsesak berriz ere Iparraldeko jendearen borondatea **zangopilatzen** du, demokraziaren kontzeptua oinarritik zapuztuz estatu arrazoiaren izenean. Berria - Harian

Uko egite hori handizki doa herritarren nahiaren kontra, demokraziaren oinarriak berak nunbait **zangopilatuz**. Herria

Garai batean, artzain bakarti bihurtzeko gogoa neukan, baina nekazaritzako ametsak **zangopilatu** nituen aski laster. Itxaro Borda

Eskubide nagusiak **zangopilatzen** dituzuenean. Itxaro Borda

Interneten garai hauetan, gero eta errazagoa da musika, testu, edo filmak kopiatzea, gehienetan, egile eskubideak **zangopilatuz**. Berria - Harian

**3** (era burututa izenondo gisa)

Torturak Otsabideko komisarian, jasan ezinezko errepresioa, giza eskubide **zangopilatu** eta ukatuak, demokrazia eskasa, familienganako presio justifika gaitzak. Itxaro Borda

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
> **zangopilatuak izan** (3)

---

## zangopilatze **1** *iz* oinpean erabiltzea; oinperatzea, azpiratzea.

Irak okupatzen duten indarrek «giza eskubideen **zangopilatze** larriak» egin dituztela, eta horiek egin dituztenak «zigortzea» behar-beharrezkoa dela. Berria - Mundua

Noraino joanen ote da Miguel Sanz-en gobernua euskara eta euskal nortasunaren **zangopilatze** errabiatu hortan? Herria

Txetxenian gertatzen diren giza eskubideen **zangopilatze** ugariak Errusiako indar armatu, unitate berezi eta zerbitzu sekretuen (FSB), baita Moskuren menpeko aginte txetxeniarraren polizia indarren eskutik datoz. Berria - Mundua

**2** (hiru osagaiko hitz elkartuetan)

Bizi dugun [...] giza eskubide **zangopilatze**, natur ondatze egoera huntan, hurbileko ohar-guneek beste aurpegi bat emaiten dute. Herria

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
> **giza eskubideen zangopilatze** (3)

---

# zangopilo *iz*

Arraileria, potroiska eta horderia nasai, kirika eta koroka barrastan, ez guti lo korrokan, sudurzilo, uzkuzilo eta uretra, **zangopilo** eta kultureta txotxalamotxean -elasturiaren kalamatika!- hitzaspertu, tirrita. Jose Angel Irigaray

---

zangosagar ik **zango 14.**

---

# zangotraba **1** *iz* zangoaz norbaiten zangotrabatzea hura erorarazteko. ik**zangarteko.**

Denon artean inguratu genuen, eta hantxe hasi ziren gure irriak eta irainak, bultzadak, **zangotrabak**. Anjel Lertxundi

Harengana abiatu zen, baina Harryk **zangotraba** egin zion. Iñaki Mendiguren

Orduan besarkatu zuen Anak gerria hartu nahirik, **zangotraba** egin zion ahul arren egoskor, halakoa zen. Koldo Izagirre

**2** irud/hed

Isolamenduaren eta torturen areagotzea; komunikazioen murriztapen eta **zangotrabak**; euskaraz bizitzeko eragozpena; edota hezkuntza librea jasotzeko debekua. "Asmakuntzak aipatu dituzu eta", egin dio aita Estanisek **zangotraba** Nemesioren jardunari, "horren harira etorri nahi nuke". Berria - Harian

Behin ekintza armatuak bazter utzita bake-ekintzetara igarotzeko tenorean gaudela ondorioztatzea da, orain arte bidean **zangotraba** nagusia izan denak bidea ireki baitu. Berria - Harian

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
> **zangotraba egin** (4)

---

# zangotrabagailu *iz* zangotrabatzeko gailua.

Gurearen sorburu den alfabetoan garai hartako kortxo-kentzeko zakarraren forma zeukan, eta bakarrik zegoenean (feniziarrek sekula lortu ez zuten gauza)*tallegal* esan nahi zuen, Brownrigg doktore jakintsuak **"zangotrabagailu"** baliokideaz itzultzen duena. Xabier Olarra

---

# zangotrabaketa *iz* zangotrabatzea.

Oposizio [...]: politikan, Gobernuari txikizio hiltzaileetara jotzea galarazten dion alderdia, **zangotrabaketaren** bidez. Xabier Olarra

---

# zangotrabatu zangotraba(tu), zangotrabazen **1** du *ad* zangotraba egin.

Bi taldeak jo eta su ari ziren, harik eta Celtako atzelari batek area barruan Nene **zangotrabatu** zuen arte. Berria - Kirola

Horko mandatariak **zangotrabatu** egingo nindikek bere ondotik pasatzerakoan. Anton Garikano

**Zangotrabatuta** lurrera erori zen. Lopez de Arana

Baloia hanketan neraman eta lagunak ezin zidan kendu, harik eta **zangotrabatu** egin ninduen arte. Joan Mari Irigoien

**2** irud/hed

Ez nabil lehen ministroaren plana **zangotrabatu** nahian: alternatiba bat aurkeztu nahi dut. Berria - Mundua

EAJren kideak prest daude pausoak emateko ezker abertzalearen hautetsien baztertzea konpontze aldera, eta ABBk, aldiz, pauso horiek **zangotrabatu** ditu. Berria - Euskal Herria

Presoen «ekarpena **zangotrabatu**» nahi dutela salatu du Kolektiboak. Berria - Euskal Herria

Pozak gutxi iraun zion, beharrean hilabete gutxi zeramatzala, Madrildik etorritako yuppie trepa batzuek **"zangotrabatu"** egin baitzuten. Jon Arretxe

Ordutik korridorean zorioneko bidai poltsa **zangotrabatu** arte, lau hilabete. Aingeru Epaltza

**3** (era burutua izenondo gisa)

Udalbiltzak, Euskal Herriko Udal eta Udal Hautetsien Biltzarrak, ibilbide **zangotrabatuari** aurre eginez, ordea, aurrera egiten du. Berria - Harian

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
> **zangotrabatu nahi** (3)

---

# zangotxo *iz* zango txikia.

Sokaren goiko muturrera heldu denean, **zangotxoak** gora jaso ditu eta geldi-geldi paratu, buruz behera. Gotzon Garate

Aulkia bere horretan geratzen da, bere bilo gorriarekin, milaka **zangotxo** gorri, airean, erabat tenkaturik, milaka **zangotxo** hil. Monika Etxebarria

---

zangozabal ik **zango 4.**

---

# zangozar *izlag/iz* Zangozakoa, Zangozari dagokiona; Zangozako biztanlea.

Joanes eta Katalinaren seme Henrike, Nafarroako II.a, **"zangozarra"** deitzen zutena, herri horretan sortua zelako. Aingeru Epaltza

**Zangozarra** nauk ni. Aingeru Epaltza

Nafarrak nagusitu ziren, batez ere **zangozarrek** eginiko balentriei esker, antza. Martin Anso

---

## **zangozlari** *iz* zangolari.

Kartaño hau lehen begi kolpearen emaiteko egokia balin bada, behar dira eskuratu bi karta Pirineo 3.a eta 4.a, **zangozlariei** dohazkienak, horietan aurki baititzakete behar diren xehetasunak. Herria

---

## **zankapalatu**, zankapala(tu), zankapalatzen da *ad*

Gizona iragaten ziren haurren burla erdian **zankapalatu** zen, hedailo. Itxaro Borda

---

## zankape ik **zango 13**.

---

## **zanko**[1] *iz pl* akuilu-makuiluak. ik **hankapalu 2**.

Gona estuak eramaten zituen, eta aztalak iletsuak ziren, eta zapatak beti takoi altukoak, **zankoen** itxurakoak. Pello Lizarralde

---

## **zanko**[2] ik **zango**.

---

## **zankutsik** *adlag* hanka-hutsik.

Tripako mina kentzeko gaueko ihintzetan zelaian **zankutsik** ibiltzea dela onena ikasi zion Zialtzetak. Koldo Izagirre

---

## **zanpa** **1** *adlag* kolpearen onomatopeia; kolpe baten indarraz.

Botika hartu eta, ezer esan gabe, atea **zanpa** zarratuta alde eginen du lasterka. -Informaziorik ez inspektoreordeak erabaki artean -atzera ere **zanpa** bere burmuin urrietan txertaturiko kaseteko "rewind-a". Joseba Sarrionandia

**Zanpa** ta **zanpa**, presoa lurrera erori eta ez zuen inporta, sahetsetan, sabelean, bizkarrean, alde guzitean ostikoka xehatzen zuten, gizagaizoa. Eneko Bidegain

Eskua **zanpa** gelditua zen gaskoiaren zango azpian preso. Aingeru Epaltza

Botika hartu eta, ezer esan gabe, atea **zanpa** zarratuta alde eginen du lasterka. Joseba Sarrionandia

**2** (hitz elkartuetan)

Orrazi edo eta **zanpa**-zilindro moduko bat. Juan Garzia

Bakoitzak lau kaxa astun hartu zituen eta etorri moldean atera zihoazela, zakur **zanpa** alimale bat entzun zuten. Itxaro Borda

1900 ean ere hilabete honen 10 ean egin omen zuen elur **zanpa** handia. Herria

**3** ***zanpa-zanpasup_1*** gelditu gabe, etenik gabe.

**Zanpa-zanpa** aitzinatzen ziren orduan, hatsa labur eta buruak apal. Itxaro Borda

-Nola joango gara bihar King's Cross-era, aita? -galdetu zion Fredek, txokolatezko budin gozo bat **zanpa-zanpa** jan ondoren. Iñaki Mendiguren

Mahaian eseri eta **zanpa-zanpa** hasten da, gehienetan txintik ere esan gabe. Jokin Muñoz

Platanondoen itzalaz ederki baliatuz, karrikaz karrika, **zanpa zanpa** banoa. Piarres Aintziart

**Zanpa-zanpa** urrundu zen ordea mendekua jaki hotza baino ez zitekeela murmuzikatuz. Itxaro Borda

**Zanpa-zanpa** ateratzen begiztatu nuen. Itxaro Borda

**4** ***zanpa-zanpasup_2*** erabat zapaldurik.

Ordu erdiz izan ninduen aparatuari itsasirik, belarria **zanpa-zanpa** uzteraino. Aingeru Epaltza

-Zure aurpegitxo hori **zanpa-zanpa** egitea nahi duzu? Xabier Olarra

Hortzak okerrak ditu eta sudurra **zanpa-zanpa** egina. Fernando Rey

**Zanpa-zanpa** egin eta txirtxilatu egingo zuen bertan gustura. Juan Garzia

Martin **zanpa-zanpa** eginda jarri zen lurraren kontra; tiro bat aditu zen, eta bala bat pasatu zitzaion buru gainetik. Koro Navarro

Soroek, zaldien apoez **zanpa-zanpa** eginda, tatariarrak han barrena pasa zirela erakusten zuten. Karlos Zabala

**Zanpa-zanpa** eginda zegoen, harkaitza bezain gogor. Karlos Zabala

-Zure aurpegitxo hori **zanpa-zanpa** egitea nahi duzu? Xabier Olarra

**5** ***zanpa-burdina***

Lehergailu-karga bat prestatzen ari zen, **zanpa-burdina** bat erabiliz (palankatxo moduko tresna bat, hamahiru libra pisu eta ia metro erdi luzekoa); lehergaiak, ordea, behar baino lehen egin zuen eztanda, eta **zanpa-burdinak** burua zulatu zion. Xabier Olarra

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
> **zanpa zanpa** (40); **zanpa zanpa eginda** (4); **zinpi zanpa** (4)

---

## **zanpagailu** **1** *iz* zanpa-zanpa egiten duen gailua, zapaltzeko gailua.

Etxea berak imajinatu zuen bezalakoxea da: altzari kaxkarrak, apaingarri mordoiloa (portzelanazko artzaintxoak, behi-arranak, ostruka-lumaz egindako euli-**zanpagailu** bat), irrati baten durundioa. Oskar Arana

**2** irud/hed

Izan ere Olaizolak eta Otxandorenak partidaren bigarren zatian **zanpagailua** martxan jarri baitzuten. Berria - Kirola

Baskoniaren **zanpagailua**. Berria - Kirola

**3** ***tinta-zanpagailu***

Atezain bat tabako rubioarekin sobornatuta lortu nuen lekualdaketari zegokion **tinta-zanpagailuaren** zigilua. Harkaitz Cano

**Tinta-zanpagailuarekin** nire txostena zigilatu eta kanpora egotzi ninduen konturatu orduko. Harkaitz Cano

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**

**zanpagailua martxan** (3)

## zanpagarri *iz* zanpatzen edo zapaltzen duena.

Greziako eta Mendebaldeko historiako zenbait adibide ematen da puntu hau argitzeko: bat-bateko porrot **zanpagarriak** bere etxea ordenan jarri eta garaipenezko erantzunerako prestatzera bultzatu ohi duela menderatutako alderdia. Iñaki Mendiguren

Hasieratik sentitu baitzituen teknologia garaileak izadi ez-gizatiarraz nagusitzen izandako arrakastak giza bizitzan zituen ondorio **zanpagarriak**. Iñaki Mendiguren

Urte askoan ikasia zuen argazki trukatuak benetakoak adinaxeko froga **zanpagarriak** zirela; ez zituen jada bereizten besteetatik. Matías Múgica

## zanpagarriro *adlag* era zanpagarrian.

Altxor intelektualen etxe bat, zibilizazioaren egunsentitik gutxiengo txiki batek arretaz gorde eta **zanpagarriro** ustiaturiko pribilegio bat, [...]. Iñaki Mendiguren

## zanpaila *izond* gisagabea, frikuna.

Luixa, bere irri argiarekin eta bere musu goxoekin, ez zela neska tzar **zanpaila** atrebitu bat baizik! Janbattitt Dirassar

## zanpaka *adlag* kolpeka; sakatzen.

Joanesek, ordea, ukaldirik ez zuen jasan, bera batere ohartu gabe **zanpaka** ari zen SS-aren bazterretik iragan baitzen. Eneko Bidegain

Trailutzar antzeko bat zebilkion dinbi eta danba, **zanpaka**. Mirentxu Larrañaga

Etxeko atarian lehenbizi eta etxebizitzako eskailburuan gero, txirrina **zanpaka** egin nuen denborak epeldu zizkidan haserrearen su-pindarrak. Aingeru Epaltza

Orduan izan dira gataska batzu, poliza **zanpaka** hasirik eta berriz ere nigar egin-arazten duen gas hartarik hedatzen! jendea jarririk, xutik, orroaz, txaloka, elgarri mehatxuka, zangoekin **zanpaka**. Herria

Distantzia kalkulatu -20 bat metro- objektiboa hurbilarazi eta **zanpaka** hasi zitzaion kliskagailuari. Aingeru Epaltza

· Emazteari **zanpa** eta tunakoka ordenak istantean betetzen ez baldin bazituen. Itxaro Borda

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
> **zanpaka hasi** (4)

## zanpakari *izond* zanpaka aritzen dena.

-Alimaleko zakur **zanpakaria** badugu eta lotsa gara hemengo baten bat ausikiko duela. Itxaro Borda

## zanpaketa 1 *iz* zanpatzea. ik **zapalketa**.

**Zanpaketak** eta erasoek ez dute etenik. Berria - Harian

**Zanpaketa** eta ukaziotik ez dator konponbidea. Berria - Harian

Gorputzez eta odolez sufritzen duzue Estatuaren mendeetako **zanpaketa**. Itxaro Borda

Euskal Herriak sufritzen duen **zanpaketa** gainditzeko. Berria - Euskal Herria

"Euskal Herri Langilearen gaineko **zanpaketa**" izeneko txostenak ekintza-errepresio-ekintzaren estrategiari buruzko azterketa luze bat zekarren. Rafa Egiguren

Elizgizonek nobleen **zanpaketa** sentitzen zuten erregearena baino gehiago. Iñaki Iñurrieta

'Marikoiak' bere gain darama irainaren zama, bazterketaren mehatxua, eskubideen ukapena [...] errespetuaren **zanpaketa**, nahigabearen kondena. Pako Aristi

1937ko urtarrilaren 4an **zanpaketa** itzela egin zuten hegazkin faxistek Bilbon. Koldo Izagirre

Bularreko **zanpaketak** zum-zum segitzen du, hor barrengo lohietan inor hanka atera ezinik balebil bezala. Anjel Lertxundi

Bularreko **zanpaketak** zum-zum segitzen du, hor barrengo lohietan inor hanka atera ezinik balebil bezala. Anjel Lertxundi

**2** (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

**Zanpaketa** egoera horretan larritasun berezikoa dugu euskal presoak eta bere senideak hiltzera zigortzen dituen sakabanaketa politika. Berria - Harian

Ez da prozesu demokratikorik izango Estatuaren **zanpaketa** estrategia ez bada bertan behera gelditzen. Berria - Harian

**Zanpaketa** politika horren muinean euskal presoen bidez Euskal Herriari txantajea eta eraso egiteko asmoa dago. Berria - Harian

Euskal Herriak ez du zatiketan oinarritutako **zanpaketa** formularen bigarren itzulirik behar. Berria - Euskal Herria

**3** (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa)

Eskubideak abokatuen elkarteak HZren ilegalizazioak eragindako eskubide **zanpaketa** eta igandean HZk jasotako emaitzak aztertuko dituen txostena egingo du. Berria - Euskal Herria

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
> **aurkako zanpaketa** (3); **zanpaketa egoera** (4); **zanpaketa eragiten duten** (3); **zanpaketa gainditzeko** (3); **zanpaketa politikan** (3)

## zanpako 1 *iz* kolpea.

Gorpua ongi aztertu eta buruan **zanpako** bat zuela ikusi zuen. Gotzon Garate

Ipurdi mazelak ere araberako **zanpakoa** jasan zuen berriz jaustearekin. Eneko Bidegain

Elgarren beldur zerbaitekin jokatu dira denak ere; 10etan ados, eta Larrechearen **zanpakoekin**, hauk 15-10, eta 21-13, baina 24-25 ziren partida erditan. Herria

**Zanpako** haundiak lehenak, eta menturaz buruz-burukan hanbat arizana ere, aldiz birazkan gibeletik gustagarria delarik senpertarra ere, hots, Kurutcharryk du finalerdia jokatuko. Herria

**2** (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa)

Dena mehatxu, jokaldi eta ostiko-**zanpako**, gaixtagin tzar batzuen lehertzeko egin ohi den bezala. Herria

Eta negar **zanpakoa** atera zaio, irribarre egin nahi didan une berean. Joseba Sarrionandia

## zanpakuntza *iz* zanpaketa.

Nik esaten badut baserriko argazki horretan txakurraren ondoan eta puñala eskuan ageri den mutikoa ni naizela, jauzi mental edo mortal bat egiten ari naiz, indoeuroparren

filosofia eta **zanpakuntza** guztien oinarrian dagoena. Xabier Mendiguren Elizegi

---

**zanpaldi** *iz* zanpaketa.

Halaber, «larriki eri diren edota kondena bukatzen ari diren presoen askatasuna ukatzea, zentsurak, **zanpaldiak**» eta beste salatu ditu. Berria - Euskal Herria

**Zanpaldiak**: azken asteetan euskal preso batzuk zanpatu dituztela salatu du Askatasunak. Berria - Euskal Herria

Zorion Zamakola euskal presoak **zanpaldi** larria jasan du preso zain baten gandik azaroaren 22-an, Parisen, La Santé-ko presondegian. Herria

---

**zanpan** *izond* tuntuna.

Azkoitia inguruetan marta eta **zanpan**-marta erabili izan dugu, aurrekoei hala entzunda, tuntuna edo zontzona esateko. Iñigo Aranbarri

Ez dago zaila jokaldia irudikatzen: geltoki bat, neska **zanpan** bat osoki maitemindua, gerrara doan mutil tonto bat, eta partitzeko tenorean, begiak malko-iturri, neskak bere mutil-gauzari: "xaindu xaite, mattia!". Iñaki Segurola

---

zanpaña ik **xanpain**.

---

zanpantu ik **zanpatu**.

---

**zanpantzar** **1** *iz* txorimaloa, handiusteko barregarria.

-Hoa, hoa hemendik, **zanpantzar** eroa! -oihu egin nion. Anjel Lertxundi

**2** (izenondo gisa)

Barre-algara batek beste barre-algara bat eragiten zion, aurrekoa baino bortitzagoa, aurrekoa baino **zanpantzarragoa**. Anjel Lertxundi

---

**zanpatu**, zanpa(tu), zanpatzen *(orobat **zanpantu** g.er.)* **1** du *ad* zapaldu, sakatu.

Horraino berdindu ondoren, zorua **zanpatu** egingo da erabakita dagoen lodiera ematera iritsi arte. Santiago Iruretagoiena

Dena, baita **zanpatzen** duen lurra ere, berea delako sentipen bitxiarekin. Jon Alonso

Siberiako lurra **zanpatu** zuenetik hasi ziren bene-benetako arriskuak Mikel Strogoffentzat. Karlos Zabala

Jerryk garagardoa bukatu eta potoa **zanpatu** zuen. Koro Navarro

Hortzetako pasta-hodiak **zanpatzeko** tresna. Jesus Mari Mendizabal

Zigarroa hautsontziaren kontra **zanpatu** nuen. Aingeru Epaltza

Joek zigarrokina bota eta takoiaz **zanpatu** zuen lurzoruaren kontra. Lopez de Arana

Hantxe gelditu zen une batez, hitzik esan gabe, makilaren eskutokia eskuaz **zanpatuz** Azerelagailua gehiegi **zanpatu** gabe jarraitu genuen. Jon Muñoz

Nik Faraoiaren kopa nuen eskuan; mahats-mordoak **zanpatu** eta kopa gainean zukutu nituen. Jose Antonio Mujika

Zorria bi atzazalen artean ipini eta **zanpatzea**, eta krak soinuak mendekuaren sinbolismoa zuen. Joseba Sarrionandia

Aurizki, **zanpatu** eta oinkatu bainuen sugea. Joan Mari Irigoien

Oinak herensuge bat **zanpatzen** du, eta herensugeak oinaren orpoan dauzka atzaparrak sartuta. Koro Navarro

Harkaitz batean goitik behera erori zela eta saihets-hezurrak pixka bat **zanpatuak** zekartzala. Patxi Ezkiaga

*Estampaciones Vizcaya* lantegian ziharduen, eta prentsa bat gainera erori eta besoa **zanpatu** zion. Berria - Ekonomia

-Kopla gutxi nirekin, zera; barrabilak **zanpatuko** dizkiat bestela! Rafa Egiguren

Taberna batean sartzen dira eta neska tabernariari titiak **zanpatzen** dizkiote. Xabier Mendiguren Elizegi

Gizonak eta emakumeak bultzaka sartzen ziren egurrezko tunel kirastuan, elkar estutuz eta **zanpatuz**, anteparatik dolarera erortzen diren sagarrak bailiran. Lopez de Arana

Zeren eta neguan euri-urak hartzen dituenean hazi egiten baita asko, eta orduan, pisuarekin eta bueloarekin hautsi eta **zanpatu** egiten baititu egituren paretak. Santiago Iruretagoiena

**2** irud/hed

Erabat bakarrik egotearen sentipenak harlauza baten pisu dorpeaz **zanpatzen** zidan bihotza. Alberto Ladron Arana

Haxix honek bularraldea **zanpatzen** dit. Patxi Zubizarreta

Iluntasunak asfaltozko hiri lurrintsua gogor **zanpatzen** zuen. Lopez de Arana

Errebolta bat **zanpatzeko** kariaz, errege bertan ez zegoela aprobetxatuz, ezezaguna zitzaion jauregiko alde bat bisitatzea erabaki zuen. Iban Zaldua

Zer duda egin, errefuertzoak ekarriak zituzten matxinada **zanpatzeko**. Koldo Izagirre

Itun horrek eskubide zibil eta askatasun publikoak **zanpatzen** ditu. Berria - Euskal Herria

**3** (txirrina eta kidekoak)

Ezkaratzean, igogailua etorrarazteko botoia **zanpatu** nuen. Aingeru Epaltza

Norbaitek urrutitik botoiren bat sakatuta ireki zen atea, nik txirrina **zanpatu** eta berehala. Aingeru Epaltza

Sarraila elektronikoa kontrolatzen zuen botoia **zanpatu** zuen. Fernando Rey

Kasetea galtzarbetik bildu eta "play" **zanpatu** nuen, bere horretan. Aingeru Epaltza

Teklak suelto **zanpatu** zituen, auto barneko argi piztuen laguntzaz. Aingeru Epaltza

**4** (pertsonak, herriak eta kidekoak)

Beste batzuei eskuak eta oinak moztu, eta bidera bota zituzten, gurdiak gainetik pasa eta zaldiek **zanpa** zitzaten... eta asko eta asko bizirik lurperatu zituzten. Koro Navarro

Korridorea mehartu egin zela zirudien [...] ni harrizko besarkada itogarri batean **zanpatuz**. Alberto Ladron Arana

Arreta pixka bat ipini behar zen lokartuak ez **zanpatzeko**, nahierara etzanda zeuden-eta han-hemenka. Atzera egin dut une batez, ikarak jota, eta, hurrengo, haiek lokatzetan **zanpatzeari** ekin diot, hil edo bizi. Karlos Zabala

Bere bizi osoan, behin baizik ez zuen manatu gizon bat **zanpa** zezaten eta, nahiago zuen hortaz batere ez oroitu. Elena Touyarou

Aldi guziz, preso bat edo bi guttienez ia hezurrak hausteraino **zanpatzen** zituzten. Eneko Bidegain

Bost guardia zibilek bi orduz zilarrezko paperez inguratu porra batekin **zanpatu** zuten, mehatxatu, iraindu, barrabiletatik heldu. Berria - Euskal Herria

Berdin da ezin onartuzkoa Masak gizon bakar bat **zanpatzea**. Josu Zabaleta

Soldata duin baten alde greban dauden emakumeak **zanpatzen** ari da PSE. Berria - Euskal Herria

Berri horrek Lecœur andrea **zanpatu** zuela zirudien, urre guzti hark azpian harrapatu izan balu bezala. Karlos Zabala

Ahulek asmatu dute legea, **zanpatuak** ez izateko. Askoren artean

Karabineroak ere badira herriaren semeak, kapitalismoak eta apaiz klerikalek **zanpatuak**! Koldo Biguri

Iraneko populua **zanpatzeaz** eta esklabotasunean ezartzeaz hobendun gira. Herria

Kurduak behin betiko **zanpaturik** zeuden. Juan Kruz Igerabide

Orduan, sabaiko ate ezkutua ireki eta, harrika, **zanpatu** egin zituzten erregea eta beronen lagunak. Elizen arteko biblia

Aurreneko aldia nuen, ez ninduten gogorregi **zanpatu**, kuartelilloan berriro entzun nuen "influentziak" neuzkala. Koldo Izagirre

Mundu zikin honetan **zanpatua** ez izateko **zanpatzeko** prest egon behar duzu, oihaneko legea gizalege bihurtu dugu. Migel Angel Mintegi

Sekula ez zen hain denbora luzea egon estralurtarren bat **zanpatu** gabe ordenagailuan. Iñaki Mendiguren

**5** irud/hed

-Eta orain, Ximu, kontaidak zer zakur-plasta **zanpatu** duan. Aingeru Epaltza

**6** (era burutua izenondo gisa)

Sutegia hotz zegoen, saltxitxa **zanpatu** bat besterik ez zen ageri, arranparrilaren gainean ahaztua. Kobrezko ontzia ura berotzeko, saltxitxa-pakete **zanpatu** samar bat, supala, te-ontzia, [...]. Karlos Zabala

Ingurura behatu zuen, higuina ezkutatu ezinik, horma berde ilunez papereztatuetara, [...] ohearen oinaldean zegoen txabusina urdin saretura, kristalezko hautsontzi malbakolorekoan zeuden zigarrokin **zanpatuetara**. Lopez de Arana

Kopa-kapela **zanpatua** buruan jarri zioten gizonari. Irene Aldasoro

Orain Crookshanks aulki huts batean jarrita zegoen, aurpegi **zanpatua** Ronen aldera jiratuta. Iñaki Mendiguren

Zer egin gizaseme haren ohore **zanpatua** atzera jasotzeko? Karlos Linazasoro

Emazteak zakur **zanpatu** soaz begiratu ninduen. Itxaro Borda

ETAk herri **zanpatuen** arteko harremanei buruz duen ikuspegia helarazi zion ERCri. Berria - Euskal Herria

**hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**

**aurka zanpatu** (3); **gogor zanpatu** (3); **kontra zanpatu** (9); **lurra zanpatu** (5); **lurraren kontra zanpatu** (3); **txirrina zanpatu** (5); **zanpatu gabe** (3); **zanpatu gabeko** (3); **zanpatu ondoren** (3)

**lurra zanpatua zegoen** (3)

**herri zanpatuen arteko** (4); **zanpatuen arteko harremanei** (3)

**kontra zanpatuz** (3)

**euskal herria zanpatzen** (7); **herria zanpatzen** (9); **kontra zanpatzen** (3); **zanpatzen gaituen** (3); **zanpatzen ninduen** (3); **zanpatzen zituzten** (3); **zanpatzen zuen** (7)

---

## zanpatzaile **1** *izond/iz* zanpatzen duena.

Inhibizio **zanpatzaile** horietatik hasi, eta zuhurtzia eta neurritasunetik askatzeko irrika gugan sortzeraino. Xabier Olarra

Espainiako Estatuak Euskal Herriari autodeterminazio eskubidea ukatzeko erabiltzen duen politika errepresibo eta **zanpatzailea**. Berria - Euskal Herria

PPk [...] azken zortzi urteotan garatutako estrategia **zanpatzaileak** huts egin duela. Berria - Euskal Herria

Baieztapen hau, ordea, ez da sozialki onarturiko gezur handi **zanpatzaile** horietako bat baizik. Iñaki Heras

Defizit publikoaren bidez hainbat inbertsio publiko egitea, bereziki, gerora **zanpatzailea** gertatuko zen gerra-makineria handian. Iñaki Heras

Munduan bi klase direla, zanpatuak eta **zanpatzaileak**. Aingeru Epaltza

-Gizon prestuak, bai -erantzun zuen Pepponek-, baina langileei zuzenbidez dagokiena ukatzen dieten **zanpatzaileak** ez! Koldo Biguri

Eliza, erregimen feudaletik hona, adostasunean bizi izan da boteretsuekin [...] eta euskarri ideologikoa eman die beti **zanpatzaileei**. Rafa Egiguren

Gure bizia osoki engaiatu diagu borroka hortan, ez etsaien kontrako herraz, ez gure **zanpatzaileen** amorruz, bainan bai gure herriaren ta gure herritarren maitasunez. Herria

**2** (adizlagun gisa)

Gora egiten du, **zanpatzaile**, ikus daitekeena baino askoz gorago, bihotz beltzetara irekitako ehunka leihorekin. Monika Etxebarria

---

## zanpatze *iz* zapaltzea, sakatzea.

Beren artean miseriarengatik edo bakartasunarengatik ardura bazen jokotzar, ebasketa, **zanpatze**, berdin kabala edo gizon hiltze. Michel Oronoz

Ez da juzgatu behar Frantzia herri honek jasan duen **zanpatzearen** ondorioen arabera. Josu Zabaleta

Kontzientziak, gizakiaren historian, jazarpenaren eta **zanpatzearen** zama nozitzen du. Berria - Kultura

---

## zanpez *(15 agerraldi, 6 liburu eta 7 artikulutan)* **1** *adlag ipar* tanpez. ik **tanpez**.

**Zanpez** eraso nauen haizeak eta ere eremu honek sortarazi goibeltasunak uzkurtu naute, kasik izitu. Piarres Aintziart

Ostatuko bazterrak **zanpez** betetzen dira eta marmarra biderkatzen. Eneko Bidegain

Mutikoa **zanpez** lokartu zen. Michel Oronoz

Jantzi militarraren sakelatik laban mehe bezain zorrotza **zanpez** atera eta Katxoren begitartea urrako sakonaz sardeskatu zuen. Itxaro Borda

Arrunt liluraturik zeudelarik mutikoak, edari bitxi bezain goxo bat eskaintzen zien eta lekuan berean gelditzen ziren **zanpez** lo. Aurelia Arkotxa

**2** mukuru.

**Zanpez** bete da ortziralean Lekuineko ezkerpareta. Herria

Joan den igandean *Sanoki* sala **zanpez** bete da Garaztarren errezebitzeko. Herria

Betea delarik, galeriak baineraino eta Eliza, **zanpez** betea, kantu egokiekin, orduan gainditzen da bihotza eta sakontzen fedea... Herria

**hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**

**zanpez bete** (4); **zanpez bete da** (4); **zanpez betea** (3)

---

## zanpur *(orobat **zapur**)* *iz ipar* kabalkadetako soldadu modukoa, alkandora eta galtza zuriak eta bularrean zerrenda gorria janzten duena, eta zurezko auzkora daramana.

Hona orain nola joaiten diren bi lerrotan: aitzinean, bi zaldizko, bi **zapur** eta bi banderari; ondotik, bi zigante-peko, gero bolantak, haundiak eta ttipiak; horien artean kontradantzak emaiten dituzten nexkatoak, eta denen gibeletik, Atsoa eta Tupina. Angel Aintziburu / Jean Baptiste Etxarren

Berehala euskaldun aroan jarriak mezaren hasteko prest, Besta Berriko oilar, **zanpur**, alardari banderari eta makilaria, dantzan klikaren soinuan. Herria

Ez du hautatzen ez kapitaina, ez "tambour Majora", ez banderari, ez oilarra [...] bainan hantxetako **zanpur** hura. Herria

Gure **zanpura** xut-xuta gelditzen da, ohartzen ere, kurutze bat lepoan, ez zela usaiako apez bat, behar bada apezpiku bat ere zela! Herria

**zantar** **1** *izond* itsusia, itxura txarrekoa; prestutasunik gabea; zikina, lizuna. ik**zatar**[1].

Eguzki aldeko mailaditik agure **zantar**, totel eta paraplegiko bat altxatu dun erruki-etxeko mojatxo baten laguntzaz. Patxi Iturritegi

Basoko atso **zantarrak** berarekin ezkontzeko eskatu zion. Pako Aristi

Abade gogorra eta **zantar** samarra egoan orduan Lemoizen. Xabier Amuriza

-A, Joanes, salatari **zantarra**! -ahopeka zuzendu nintzaion-. Edorta Jimenez

Entzun, entzun nola mintzo den erasotzailearen aho **zantarra**: [...]. Iñigo Aranbarri

Kuartelik gabeko gerla **zantarra**. Txillardegi

Pentsatzean ez ote den euren egintza **zantarrak** eta berba harroak kitatzeko ordu larria iritsi. Xabier Amuriza

Kirstenek keinu **zantarra** egin eta italieraz dakizkien irain guztiak bota dizkio Gianfrancori. Patxi Iturritegi

Birao **zantarren** erretolika hura erdi liluraturik errezitatzen zuenean, otoitz egiten ari zela iduri zuen. Karlos Zabala

Bere jardunean gustu txarreko iruzkinak eta hitz **zantarrak** tartekatuz. Anjel Lertxundi

Azkartu egin ziren zurrumurruak, eta hitz **zantarrak** ugaldu. Txillardegi

Usain **zantarreko** betuna. Xabier Amuriza

Politika harrabots **zantarra** bilakatu da, mehatxu etengabea. Pako Aristi

SEPIren «asmo **zantarrak**» arbuiatu zituzten. Berria - Ekonomia

Atsegin **zantar** bat sentitu nuen odol iluna ikusita. Alberto Ladron Arana

Ofizio zikin **zantar** lizunagorik. Karlos Linazasoro

Hiri **zantar** horretan hazia. Pako Aristi

**Zantarra** iritzi nion Atenasi, balkanikoa. Joxe Austin Arrieta

Hango lantegi **zantarrak**, ibai kutsatuak, etxe kaskarrak, hango zementuaren hoztasuna, apaingarririk gabeko etxe-atariak... Pako Aristi

Aldizkari **zantarrak** eta bideo degeneratuak nonahi. Patxi Iturritegi

Ura ugari eta eguraldi **zantarra**. Edorta Jimenez

**2** (izenondo bikoteetan)

Azeri edo basahuntz ehiza ageri zuten margo gogoikarriak, plastikozko lore **zantar**-erdokatsuak. Pako Aristi

Okerrago dena, apokaliptiko, dekonstruktibo, identitario eta horien tankerako berba **zantar** metakrilatozkoak. Iñaki Segurola

Kanitxe zuri **zantar** hori izango ez balu sikiera... Lopez de Arana

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
> **eguraldi zantarra** (3); **hitz zantarrak** (3)

---

**zantarkeria** *iz* itsuskeria; zikinkeria, lizunkeria.

Edertasuna **zantarkeriaren** aurka dabil beti borrokan, eta hor ez dute "egia" edo "gezurra" bezalako hitzek zentzurik. Pako Aristi

Madarikazio nahiz **zantarkeriak** gogoz bestera eta konpultsiboki botatzea (koprolalia). Xabier Olarra

Erantzunik ez, ordea; **zantarkeria** eta birao batzuk izan ezik. Txillardegi

-Gustatuko litzaioke berorri **zantarkeria** mordoa egin dudala aitortzea, ezta? Koldo Biguri

Onartuko didazue bakarrik eta ilunpean egotea komeni dela honelako **zantarkerietan** jarduteko. Juan Martin Elexpuru / Bego Montorio

Buruz genekien edozein **zantarkeria** esan behar genien [...] garrasika, lastoz beteriko txorimaloei. Mirentxu Larrañaga

Ez bide zituen inork nire **zantarkeriak** entzun. Txillardegi

Askoz ere doilorragoa da gizaki baten gogoz kontrako abusu sexuala, honek halako **zantarkeria** bortxaz burutu nahi duena hiltzea baino. Imanol Unzurrunzaga

Iruzur eta **zantarkeria** intelektual horiek salatu behar dira, inolako dudarik gabe. Berria - Harian

---

**zantarki** *adlag* era zantarrean.

Laugarrena hasi aurretik, handituta zeukan ezkerreko bekaina eta haragi ponpatuak bekokia desitxuratzen zion **zantarki**. Josu Landa

---

**zantarkilo** *izond adkor* zantarra.

Besteak beste, upategian franz hals bat esekita daukan **zantarkilo** hori. Javi Cillero

---

**zantartu**, zantar(tu), zantartzen da/du *ad* zantar bihurtu.

Zerua lurraren kronika jasotzen duen zirriborroz **zantarturiko** pergamino zaharra bilakatu delako baizik. Pako Aristi

---

zantilen ik **zentinela**.

---

zantza ik **xantza**.

---

**zantzo**[1] **1** *iz* oihua, eskuarki pozezkoa.

Eta **zantzo** handitan egin dute barre. Koldo Izagirre

Esku-argi elektriko batek argitu gintuen, goitik behera; gero, **barre-zantzo** handi bat entzun genuen. Juan Kruz Igerabide

Txamakok ere ongi uler dezan, **zantzo** batean amaitu dut: [...]. Koldo Izagirre

Marrok barre egiten zion sisi-basaka, **zantzo** asmatiko haiekin. Juan Kruz Igerabide

Inork ez dik gudu-**zantzorik** jaurti, inork ez ziek bulartsu aurre eman vikingoei. Juan Garzia

Belaskok **barre zantzo** egin bazuen ere, Fionnek bizkar eman eta Tabiraren begirada sakonari aurre egin zion. Joanes Urkixo

**2** ***barre zantzo***

Marrok **barre-zantzo** asmatikoa egin zuen. Juan Kruz Igerabide

**Barre-zantzo** lazgarriak entzun ziren aretoko ataurrean. Anjel Lertxundi
Tomek izan ezik, gainerakook **barre zantzo** ederrak egin genituen, baita Rakelek berak ere dena argitu zenean. Patxi Zubizarreta
Bere masaila guri udaberriko arrosa bezain gorriak dardaraka ari zitzaizkiola **barre-zantzoen** eraginez. Jose Morales
Hansen **barre zantzoen** oihartzun urrun gisa, irribarre baten itzal lausoa marraztu nuen ezpainetan. Alberto Ladron Arana
Gero, atearen atzean, **barre-zantzoa** egin zuen. Juan Kruz Igerabide
Emakumeen **barre zantzoak** itzaltzen hasi ziren. · Eta irribarre **zantzo** izoztuak oraindik ezpainetan, halako atakarik! Anjel Lertxundi

### 3 *negar zantzo*

Etsipenezko negarrari ekin dio orain, **negar-zantzo** eta uluka, ahizpak alde egin ondoren. Xabier Paya

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
> **barre zantzo** (6); **barre zantzoak** (5); **barre zantzoen** (3); **barre zantzotan** (3)

---

zantzo$^2$ ik **zantzu**.

---

## zantzoka 1 *adlag* oihuak, eskuarki pozezkoak, egiten.

Ikaskideak **zantzoka** hasi ziren. Anjel Lertxundi
· Emakume beltza, **zantzo** eta algaraka, barrez lehertzen etorri da kale kantoitik, mozkor-mozkor eginda. Xabier Paya

### 2 *barre zantzoka*

Gainerako lagunak **barre zantzoka** hasi ziren, gordin-gordin. Anjel Lertxundi
Gela osoa **barre-zantzoka** hasi zen. Juan Kruz Igerabide
Ez al zaitu horrek pixka bat gaitzitzen? -esan zuen Yi jaunak, eta aita **barre zantzoka** hasi zen. Juan Kruz Igerabide
"Non ezkutatzen haiz?", galdetu du gero, **barre zantzoka**. Anjel Lertxundi
Eta luzaroan jarraitu baitzuen **barre zantzoka**, bestea ere barreka hasi zen. Patxi Zubizarreta
Hi haiz, hi, gerra kontuetan aditua! -trufa egin zion Emmak **barre-zantzoka**. Lutxo Egia
Betaurrekoak **barre zantzoka** kendu ditu. Xabier Paya
Jendea jan-edanean ari zen, berriketa alaian, **barre zantzoka** eta dantzan... Alberto Ladron Arana
Gure albotik pasatzean, tutua jo zuen bi bider, **barre-zantzoka**. Juan Kruz Igerabide
Komedorera itzuli nintzenean **barre zantzoka** eta burlaka errezibitu ninduten. Joseba Sarrionandia
Kurtek, artean **barre zantzoka** eta keinu teatralak eginez, etxera sartzeko gonbita egin zidan. Anjel Lertxundi

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
> **barre zantzoka** (27); **barre zantzoka hasi** (8)

---

## zantzolari *iz* bozeramailea.

Apez hark burutik eragin behar zigun denoi, irakurri al duzue azkena, idatzi duela ederrik orain ere, Elizaren dotrina sozialaren **zantzolaririk** onena zen. Koldo Izagirre

---

## zantzu *(orobat* ***zantzo*** *g.er.)* **1** *iz* gertakari bat adierazten duen seinalea edo aztarna.

Argazkia **zantzua**, aztarrena bada, **zantzu** hori berori ere moldagarria da. Josu Zabaleta
Grima ez da **zantzu** edo augurio bat, heriotzaren eragilea da! Iñaki Mendiguren
Baditu beste **zantzu** batzuk oiloak, eguraldiaren ezinegonak kutsatuta egiten dituenak **Zantzu** gehienek seinalatzen digute ilargi amandrea gertuago sentitzen zuela euskaldunak, eguzkia bera baino. Pello Zabala
**Zantzu** haiek guztiek esanahi argia zuten, norbaitek bisita espero zuela. Iñaki Iñurrieta
Trauma ondoko estresaren **zantzuak**: insomnioa edo logurarik eza, amesgaiztoak, fobia, antsietatea... Berria - Euskal Herria
Batetik bestera ibili zen emakumearen **zantzurik** aurkitzeke. Migel Angel Mintegi
Koloniaren **zantzua** iritsi zitzaidan: lavanda arrasto bat airean. Bernardo Atxaga
Mikel Strogoffek, zeruaren **zantzuei** erreparatzera ohitua, naturaren indarrak borrokan hastear zeudela susmatu zuen. Karlos Zabala
Del Vallek musika urrun baten **zantzuak** antzeman zituen ateaz bestalde. Alberto Ladron Arana
Hasiak dira jada gerora Ordena zamatuko duten barne-arazoen **zantzuak**. Askoren artean
Gaugiroa, epela oso, uda hurbilaren **zantzu**. Txillardegi
Egun, zubererazko azentua morfologizatzen ari delako **zantzuak** daude. Lourdes Oñederra
Ahotsa **zantzuz** betea zeukan. Jon Muñoz
Haren **zantzuan** zebilen, haren aztarna aurkitzen zuen nonahi. Koldo Izagirre
Florenten presentzia azaldu beharra zegoen, polizia **zantzuan** jarri gabe. Karlos Zabala

### 2 (izenondo eta izenlagunekin)

Bai, **zantzu** ona da. Jon Muñoz
Bakardadea bete-betea zen eta menturaz **zantzu** txarrekoa. Juan Garzia
Milaka gauza xehe, **zantzu** argi bihurtzen direnak aintzat hartzen dituenarentzat. Karlos Zabala
**Zantzu** garbien bidez ikusi zuen anaia benetan damututa zegoela. Askoren artean
Ez zegoan horren **zantzurik** txikiena ere hiruron aurreagoko bizitzan, eta, hala, zentzugabetzat baztertu nian. Xabier Olarra
Auzi medikuaren txostenetik ezin daiteke ondorioztatu Otamendik salatutako tratu txarrak gertatu ez zirenik, **«zantzu** fisikorik» ez zuela baizik. Berria - Euskal Herria
Izotz Aroa berriz etorriko ote den ipar Europara aipatzen da batzuetan, eta **zantzu** zientifikoak badira hori pentsatzeko. Berria - Gaiak
Bi aste hauetan, **zantzu** baikorrak izan dira [...] baina azken egunotan iraganeko estrategien ondorio kezkagarri eta arriskutsuak nabarmendu dira. Berria - Euskal Herria
Satsukeria kirats hartaz ez zitzaigun artean iritsi inolako berri zehatzik, soilik **zantzu** lauso bezain goibelen bat. Juan Garzia
Haurrak indarkeria **zantzu** nabarmenak zituen. Berria - Euskal Herria
Oinazearen **zantzu** gogoilunak zeuzkan aurpegi tolesgabean. Anjel Lertxundi
Oso lagungarri gertatzen zaio Bermeoko aurpegi haiek guztiak ekartzea gomutara bizkaieraren kontrako lehen **zantzoak** entzuten dituen aldiro. Iñigo Aranbarri
Hori esanda, Guardia Zibilaren txostenetan «ageriko **zantzuak**» daudela ondorioztatzen du, Udaletxe proiektuan azaltzen zela Egunkaria, eta beraz egunkariak eta ETAk harremana zutela. Berria - Euskal Herria

### 3 (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

**3** (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

Askotan azpimarratu izan du argazkiak bere sorburu duen errealitatearekin zeinu-erlazioa ez baina **zantzu**-erlazioa duela gehiago. Josu Zabaleta

Barthesek, alderantziz, argazkiaren erregistro- eta **zantzu**-izaera azpimarratzen du, erregistro horren izaera mekaniko eta "objektiboa". Josu Zabaleta

**4** (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa)

Egunerokoenak zaizkigun hitzak ere geure pentsamenduen hatz-**zantzuen** moduko zera batzuk dira askotan. Anjel Lertxundi

Lurrean kleraz margoturiko oin **zantzuei** jarraiki. Felipe Juaristi

Gainera, ez nuen inon esne edo ezti **zantzurik** ikusi. Urtzi Urrutikoetxea

Bostak arte ez zen bizi-**zantzurik** iritsi haren gelatik. Xabier Olarra

Haize **zantzurik** ez eguratsean. Karlos Zabala

Delitu **zantzurik** badago alderdiak gogor egingo diela esan du PPk. Berria - Euskal Herria

Idoiaz neukan irudia [...] ez zetorren bat jokabide jeloskor harekin, inoiz ez bainion maiterre-**zantzurik** nabaritu. Juan Kruz Igerabide

Tuberkulosi- edo psikosi-**zantzuren** bat zirudien, edo eritasun neurologikoren bat. Xabier Olarra

Aurrez ezagutu ditu natur **zantzu** eta gertaera harrigarriak. Elizen arteko biblia

Galerna-hotsak ere, enbata-**zantzuak** zabaldu ohi dira batzuetan. Pello Zabala

Kritika **zantzurik** ez titulu nagusietan. Iñigo Aranbarri

Misterio **zantzurik** ere ezarri izan zaio, ilargiarekiko harremanik baduelakoz: Barikuko iretargia txarra izaten da. Pello Zabala

Haren ahotsean bada itolarri-**zantzu** bat. Oskar Arana

Gerra-**zantzuak**, azkarki sentitzen genituen etxe baketsu hartan. Txillardegi

Gauza bakarra falta zela ohartu naiz: etxeen inguruan ez zegoela mugimendu, bizitasun **zantzurik**. Urtzi Urrutikoetxea

Seguru aski pentsatuko huen [...] munduak bere kuttuntzat daukan pertsonak prostituta-**zantzuren** bat duela. Xabier Olarra

Alde guztietan heriotza-**zantzuak** ikusten hasiko zara, eta hori bera nahikoa izaten da edozein hiltzeraino izutzeko. Iñaki Mendiguren

**5** (hiru osagaiko hitz elkartuetan)

«Babes gabezia **zantzurik**» egon ez dadin erabaki du epaimahaiak epaiketa hogei egunez etetea. Berria - Euskal Herria

Fiskalak «terrorismo delitu **zantzuak**» ikusten ditu Anoetako ekitaldian. Berria - Euskal Herria

**hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**

**argi zantzu** (3); **beste zantzu bat** (5); **bortizkeria zantzu nabarmenak** (3); **delitu zantzu** (3); **gaitzaren zantzu** (3); **kriminalitate zantzu** (3)

**zantzu argi** (4); **zantzu argiak** (11); **zantzu argiak daudela** (3); **zantzu asko** (4); **zantzu bakar bat** (3); **zantzu bat** (27); **zantzu batzuk** (8); **zantzu fisikorik ez** (3); **zantzu garbiak** (4); **zantzu gisa** (6); **zantzu gutxi** (3); **zantzu guztien arabera** (9); **zantzu nabariak** (3); **zantzu nabarmenak** (7); **zantzu nabarmenak zituen** (4); **zantzu nagusiak** (7); **zantzu ona** (3); **zantzu positiboak** (3)

**lehen zantzua** (7)

**adierazten duten zantzuak** (5); **aldaketa zantzuak** (5); **delitu zantzuak** (10); **gaixotasunaren lehen zantzuak** (4); **heriotza zantzuak** (4); **hidratatuen zantzuak** (4); **indarkeria zantzuak** (5); **izanaren zantzuak** (4); **lehen zantzuak** (19); **lehen zantzuak agertu** (3); **lehenengo zantzuak** (7); **mineral hidratatuen zantzuak** (4); **nekearen zantzuak** (3); **ote den zantzuak** (3); **pneumonia atipikoaren zantzuak** (4); **tortura zantzuak** (5)

**zantzuak agertu** (9); **zantzuak agertzen** (5); **zantzuak antzeman** (4); **zantzuak atzeman** (4); **zantzuak aurkitu** (10); **zantzuak aurkitu zituzten** (5); **zantzuak badaude** (4); **zantzuak badaudela** (4); **zantzuak badira** (3); **zantzuak daude** (6); **zantzuak daudela** (12); **zantzuak direla** (4); **zantzuak direla eta** (3); **zantzuak dituzte** (3); **zantzuak dituzten** (4); **zantzuak egon** (6); **zantzuak eman** (4); **zantzuak ematen** (4); **zantzuak ez** (5); **zantzuak ikusi** (4); **zantzuak ikusten** (6); **zantzuak utzi** (4); **zantzuak zituen** (5); **zantzuak zituzten** (4)

**lehen zantzuen arabera** (3); **zantzuen arabera** (5); **zantzuen bila** (4)

**azaleko zantzuetatik** (3)

**zantzuren bat** (18)

**bizi zantzurik** (5); **delitu zantzurik** (7); **ez dago zantzurik** (4); **ez dagoela zantzurik** (3); **gaitzaren zantzurik** (4); **indarkeria zantzurik** (8); **inolako zantzurik** (8); **inolako zantzurik ez** (4); **inongo zantzurik** (3)

**zantzurik ageri** (5); **zantzurik agertu** (5); **zantzurik antzeman** (3); **zantzurik atzeman** (4); **zantzurik aurkitu** (13); **zantzurik ez da** (3); **zantzurik ez dagoela** (7); **zantzurik ez zuten** (5); **zantzurik gabe** (6); **zantzurik ikusi** (3); **zantzurik ikusten** (4); **zantzurik sumatu** (4); **zantzurik uzten** (3)

---

## zanzibartar *izlag/iz* Zanzibarkoa, Zanzibarri dagokiona; Zanzibarko herritarra.

**Zanzibartar** [...]: Zanzibarko Sultanerriko biztanlea; Afrikako Ekialdeko kostaldearen parean da. Xabier Olarra

---

## zapa[1]

**1** ***bero zapa*** bero bolada.

Hori guztia, egun hartako bero-**zapa** zela eta, piszinan gerta zedin prestatu nuen. Andoni Egaña

---

## zapa[2]

**1** ***ile zapa*** ile multzo ugaria.

Kapelarik gabe zetorren, eta ile **zapa** beltz bat zeukan, ile grisarekin nahasia. Koro Navarro

Kontuz ibili zen, gainaldeko ile **zapa** ukitu gabe, zeina, ezin trinkoago eta harrotuago, Husainek zut-zuta baitzeukan. Patxi Zubizarreta

---

## zapa[3] *adlag* bat-batean.

Ipar-haundi, itsasaldetiko trumilkakoa, ipar-beltza, **zapa** datorrenean. Pello Zabala

---

## zapaburu **1** *iz* apoaren edo igelaren kumea, hankarik gabea eta isatsduna. ik **txalburu**.

Animaliarik ez zen aspaldi hurbildu askatik edatera eta **zapaburuak** lasai ari ziren hara eta hona. Jon Maia

Etxe barrura sartu eta berarekin eraman du otarrea, Axenariok **zapaburuak** harrapatzeko eraman behar zuena. Itziar Otegi

**Zapaburuak** arrantzatuko ditugu otarreekin. Itziar Otegi

Igelarekin egindako saioetan, egiaztatu da posible zela berrosatze horren bitartez, kasu batzuetan, **zapaburuak** eta are igel helduak sortzea. Juan Garzia

**2** irud/hed

Zakilaren bulkaden eraginez, tanta bakoitzak aurrera joateko ahaleginetan zebilen **zapaburu** zuri bat zirudien. Aitor Arana

Euri tantak, leihoan, **zapaburuak** dira, labur eta iheskorrak. Alberto Barandiaren

---

**zapaburutxo** *iz* zapaburu txikia. • *irud/hed*

Hara: noizbait amaren sabelean **zapaburutxo** bat izan zena, hona orain hemen, bere existentzian tinko, bera inoiz izan den baino tinkoago. Oskar Arana

---

**zapadore** *iz* zulatze eta eraikitze lanetan aritzen den soldadua.

Eraikuntzen hondakinak garbitzen egon zen **zapadoreen** konpainiak zalantzarik gabe ikusi zituen gerrillari maoistek ipinitako dinamita-kargen aztarnak. Jon Alonso

Gero gerra etorri zen, eta aitona Terueleko frontean aritu bide zen, nazionalen armadako **zapadore**-unitate batean. Iban Zaldua

---

**zapal** **1** *izond* ohikoa baino garaiera txikiagoa duena; behar bezain irtena edo zorrotza ez dena.

Buru **zapala** du, krokodiloak bezala, eta mutur luzea, lehorrean animaliak ehizatzeko aproposa. Berria - Gaiak

Aurpegi **zapala** du, adierazkortasunik gabea. Oskar Arana

Haren bular txiki politak, titiburu tenteekikoak, haren sabelalde **zapal** eta leuna. Oskar Arana

Sonatua zen, halaber, bere sudur handi, zabal eta **zapalarengatik**. Patxi Zubizarreta

Esku **zapala** zintzur-sagarrera eraman zuen. Lopez de Arana

Zango motz sendoak zituen, zuhaitz-enborrak bezalakoak, eta oin **zapalak** babaz beteak. Iñaki Mendiguren

Itsas oilarrak bezalako arrain **zapalak**, itsas aingirak, txitxarroak eta bokartak. Berria - Euskal Herria

Artzainaren etxe parean ibi moduko bat zegoen, eta harri **zapalekin** egindako pasabide bat. Bernardo Atxaga

Arropa-gaineko mantal gris zikin-estali horietako bat baitzeraman soinean eta bisera moduko kapela **zapal** bat buruan. Anjel Lertxundi

Dena binaka: plater sakon eta **zapalak**, koilarak, sardexkak, labanak, edontziak... Joxemari Urteaga

Etxe zuriak, urdinak, arrosa-kolorekoak ikusten ziren, beren teilatu **zapalekin** eta gaindegiekin. Josu Zabaleta

Astiro hasi nintzen harmaila **zapal** haietan gora. Matías Múgica

Xorroa apurtu, lurrera bota eta kaxa **zapal** bat aurkitu zuen. Xabier Mendiguren Elizegi

Taloa bezain **zapal** eta mehea. Jose Morales

Pareta horri kanaberak josiko zaizkio luzera guztian buru **zapaleko** iltzeekin. Santiago Iruretagoiena

Umetan amamak negualdera inoiz prestatzen zigun opil **zapal** eta borobila gogoratu dut. Joseba Sarrionandia

Auzo proletario bat zen Adurtza, eta hala da oraindik: etxe merke eta **zapalak**, Mesetako ibaien izenak dituzten tabernak. Iban Zaldua

Tenplu horiek kanpoko itxura hankazabala izaten dute, astunegia, **zapala** eta zabala. Santiago Iruretagoiena

Gotorleku baten antzeko polizia-etxe **zapal** bateraino. Oskar Arana

Lurra **zapala** dela esango balu, sinetsi egingo al zenioke? Mirentxu Larrañaga

**2** (izenondo bikoteetan)

Harri **zapal** borobilak ur azalean egin behar duen arku hotsa. Joseba Sarrionandia

Harkaitz handi **zapal** baten gainean kokatu ondoren, [...]. Anton Garikano

Harrixka beltz **zapal** bat hartuko duzu. Joseba Sarrionandia

Bere ile beltz **zapal** distiratsua ikusi nituenean. Joseba Sarrionandia

**3** (hitz elkartuetan)

Etxekoandrea sartu zen gelan, gazte, sudur-**zapal**, zurbil, argal, moztaka, gustu onez jantzirik, Petersburgeko damak bezala. Jose Morales

Iltze buru-**zapalak**. Anton Garikano

**4** irud/hed

Dena dakienak dena jakina eta jakineko arrazoia du berekin, arrazoi **zapala** eta hila. Iñaki Segurola

Hiri gainbeheratu hartako ohiko ixiltasun hits eta **zapala**. Iñaki Segurola

Etsai-lagun kolaborazionista sasikoa zinen jendaila buru-**zapal** ortogonalarentzat. Iñaki Segurola

**5** (izen gisa -en atzizkiaren eskuinean)

Hitzek dezaketena, hitzen zorrotza, kamusten baita ideien **zapalak**, erraztasun eta segurantzia arinak azpian harrapatzen dituelarik. Iñaki Segurola

**6** (adizlagun gisa)

Txikia? -eskua **zapal**, belaunen parean jarrita. Jon Maia

Neskatoaren bularrak **zapal** estututa zeuden Egutxiren bularraren kontra. Ibon Uribarri

**7** ***zapal-zapal*** *adlag*

Muturra leihoan, sudurra **zapal zapal**, autoak istripuaren ondoren akordeoiaren moduan ikusiko nituelakoan. Joseba Sarrionandia

Haren familiak eta lagunek ez dakite nola azaldu hura goiz hartan, eskolara bidean zela, nola edo zergatik sartu zen buldozerrek **zapal-zapal** utzitako *no man's land*-ean. Berria - Mundua

Beti ere ispilua lagun, eskuz apaldu nituen neure kalpar urri harrotuak, **zapal-zapal** utzi arte. Aingeru Epaltza

Zeru oskarbi gorriminak hiria sakatu eta **zapal-zapal** utzirik zuela begitandu zitzaien, heltzean. Xabier Montoia

Buruz behera jauzi egin dut, soina lokatzetan **zapal-zapal** berdintzeraino. Mirentxu Larrañaga

**zapal-zapal** eginda zeuden sastrakek osatzen zuten pista gisako baten amaieran, ibai ondoko sahatsen kontra, auto zuri bati antzeman nion. Patxi Zubizarreta

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
> **bezain zapal** (4); **harri zapal** (10); **harri zapal bat** (4); **zapal zapal** (9); **zapal zapal eginda** (3)
> **sudur zapalak** (3)

---

**zapalberdindu**, zapalberdin(du, zapalberdintzen du *ad* zapaldu eta berdindu.

Dena **zapalberdindu** nahi duen modernitate baten aurka, identitateari eta askatasunari eusteko borrokan bere modernitate propio positiboa aurkitu duena, karlista. Koldo Izagirre

---

**zapalda** *(orobat **sapalda** g.er.)* **1** *iz* eskailera-maila, harmaila.

Bazirudien bat-batean eta harrigarriki tronu garai baten **zapaldara** igo zela eta handik arreta hotz eta zorrotzez aztertzen zuela oinetan zeukan gauza txiki, zalapartatsu eta errukigarri bat. Gizonek Firienfeld deitzen zioten: belar eta txilardegiz estalitako **sapalda**, Ibai Elurtuak indusitako ibilbide sakonak menperatzen zituena, mendi handien magalean kokaturik Jose Morales

**2** arasa, apala.

Bertan zeuden, su aurrean, zumitzezko jarleku apalak eta keak eta urteek leundu zuten zizailu galanta, ta **zapaldetan**, suila, morko ta beste urontzi batzuk, lurrezko zali

zabalak, erretilu handi sakonak, zurezko koilara belztuak. Xabier Mendiguren Elizegi

**3** irud/hed

Leihoko **zapalda** lurretik bi metro eta erdira egonen zen. Alberto Ladron Arana

---

**zapaldi** *iz adkor* joaldia.

Bai, badu zenbait **zapaldi** emanik Makeako elizako orgina zaharrari. Herria

---

**zapaldu**, zapal(du), zapaltzen **1** du *ad* zerbaiten gainean oina-edo jarri; oin azpian erabili. ik **aurizki**; **oinkatu**.

Lau soldadu hil eta hamar zauritu ziren mina bat **zapalduta** . Berria - Mundua

Virgilio berria ez zen ausartu bere oinekin hango zorua **zapaltzen**, hain benerazio handia sentitu baitzuen leku hartan. Jose Morales

Oin-hotsa sortuz korridorea **zapaltzen** zuen panpina mekaniko fusildun hura. Jose Morales

Ez diezaiogun egin **zapaltzen** dugun hautsari baino jaramon gehiago. Askoren artean

Atarte zabaletik sartu eta, barruan, ardi larruzkoa ematen duen alfonbra zuria **zapalduz** sartu gara salara. Joseba Sarrionandia

Ibiltzean ez zuen batere zaratarik egiten, feltroa **zapaltzen** ari balitz bezala. Jose Morales

Oin-hotsa sortuz korridorea **zapaltzen** zuen panpina mekaniko fusildun hura. Jose Morales

Mahatsa biltzen eta muztioa egiteko **zapaltzen** laguntzen zien nekazariei. Askoren artean

Perrettek zigarroa **zapaldu** zuen. Jon Muñoz

Denok, Rabinoaren agindura, eroa eta bere biolina **zapaltzen** ditugu, kalerako bidean. Felipe Juaristi

Axularren garaietan, gaizki ikusia zegoen inoren itzala **zapaltzea**, hurkoari arima **zapaltzen** zeniola adierazten baitzuen horrek. Anjel Lertxundi

Nik neuk belarrondoko ederra emango nion alu hari, oina **zapaldu** balit. Xabier Olarra

Besteei oinak **zapaltzeko** ohitura zuela jakinik, Txitxikovek tentu handiz mugitzen zituen bereak. Jose Morales

Gorputz eroriaren gainera jauzika hasi zen, haserre bizian ostikatuz eta **zapalduz**. Agustin Otsoa

Prentsako argazkilari baten arabera, istiluen aurkako poliziek ostikoka erabili zuten eta lurrean **zapaldu** . Berria - Ekonomia

Anaiei gomendatu zien, idatzitako edozein paper aurkitzen bazuten, bildu eta leku txukunean jar zezatela, han egon zitekeen Jainkoaren izen sakratua **zapaldua** gerta ez zedin. Askoren artean

**2** *adkor*

Ontzi baten kuberta inoiz **zapaldu** izan gabe mundua guk baino hobeto ezagutzen duen kapitain horrek. Koldo Izagirre

Batetik bestera dabil lurrean zehar, ihes egiten du **zapaltzen** duten lekutik. Iñaki Iñurrieta

Konkistatzaile helenikoek sekula **zapaldu** gabeko eskualdeetan. Iñaki Mendiguren

Are maitagarriago dira oraindik herri hau inoiz **zapaldu** gabe maitemindu badira. Joxean Agirre

Biharamunean Everesteko gailurra **zapaltzeko** espedizioa antolatzen ditek. Koldo Izagirre

Jainkoarren, kontuz ea non **zapaltzen** duzun! Lopez de Arana

Lau hilabete kantxa **zapaldu** gabe, luze egiten da jokatu gabe hainbeste denbora pasatzea? Berria - Kirola

Ni ez nauk moketak **zapaltzeko** jaio. Xabier Mendiguren Elizegi

**3** irud/hed

Taxiren bat pasatzen zen aldian behin galtzadako putzuak **zapalduz**. Bernardo Atxaga

Non **zapaltzen** dugun jakin behar dinagu abiatu aurretik. Lopez de Arana

Ez nazala **zapal** harroaren oinak, ez eta kanpora bota gaiztoaren eskuak! Elizen arteko biblia

-Jendeari behin **zapaltzen** uzten badiok, errespetua galtzen dik, eta orduan, akabo! Joan Mari Irigoien

Harkaitzak apurtu zituzten eta sasiak **zapaldu**, eta horrela, guri, beren ondorengoei, bide zelaia utzi ziguten. Askoren artean

Hain zuzen, gizakiak Jainkoaren Bildotsa mespretxatzen, profanatzen eta **zapaltzen** du. Askoren artean

Oso **zapalduta** egonda ere, izaera primitiboak kontzientziaren sakonean irauten du. Iñaki Mendiguren

Jainkoaren kimera **zapalduta** geratu zenetik. Juan Martin Elexpuru / Bego Montorio

**4** (aldizlagunekin)

Ongi **zapaldutako** bide horretatik zebilen oraindik Murad II.a sultanak [...] printzeentzako eskola ezarri zuenean Adrianopolisen. Dantzarien takoiek gogor **zapaltzen** zuten zorua. belarrak eta loreak itsuka **zapalduz**, etsaiaren atzetik ibili ginen egun eta gau batez. bere inguruan oinaz geldiro eta ia sentsualki **zapaltzen** zuen lurra, marra biribil bat markatzeko. Iñaki Mendiguren

Lurra danbaka **zapaltzen** zuten gudari-botak eta odolez zikinduriko jantziak suak erreko ditu eta irentsiko. Elizen arteko biblia

Agoitzen egin den manifestaldia ere gogorki **zapaldua** izan da. Herria

**5** gainean jartzen den zerbaiten bitartez sakatu. ik **zanpatu**.

Halako pisu izugarriak **zapalduta**, kolpe gogorraren eraginez hildakotzat jotzen zuten denek. Askoren artean

Eramailea **zapaltzen** duena, zama deitzen da. Joan Mari Lekuona

Objektu hauskor haren gainera eroriko zela ematen zuen, eta **zapaldu** eta hautsi egingo zuela. Bernardo Atxaga

Ez zuen oinazerik sentitzen, eta orduan ere ez zuen sentitu; eztul zital hura bakarrik, eta gehienez ere pisu bat, bularra **zapaltzen** ziona. Ramon Saizarbitoria

Haizeak astinduta, behea jo zuen etxeak, eta emakumeetako bi **zapaldu**, hil eta lurperatu egin zituen. Askoren artean

Tabernan hil hintzen?, edo orga zahar batek **zapaldurik**, bide erdian lo hengoela? Jose Morales

Marmol-harri leituaren gainean hotzak izoztu zaitzan, edo gaineko lurraren pisuak **zapal** eta galka zaitzan. Xabier Amuriza

Ministroak botoi bat **zapaltzen** du, eta atezaina etorri egiten da. Josu Zabaleta

Berriro **zapaltzen** dut ezkerreko palankatxoa. Josu Zabaleta

Enbragea **zapaldu** eta laugarren martxa sartzen dut. Mikel Hernandez Abaitua

-**Zapaldu** azeleragailua eta ez egin keinu arrarorik. Sonia Gonzalez

Botoia **zapaldu** duzu. Josu Zabaleta

Zigarro-muturra hautsontzian **zapaldu**, zigarro-paketea atera, zabaldu, eta bere solaskideari eskaini zion Albertek. Jon Muñoz

Oinetakoaren puntarekin **zapaltzen** hasi da zigarrokina, keinu kalkulatu batez. Iban Zaldua

Atzera ere aurpegi bat etorri da kristalaren kontra **zapaltzera**. Monika Etxebarria

Elkarren kontra **zapaldurik** daude zelula hil horiek, ehun sendo bat eratzeko. Irene Aldasoro

Gaztearen eskua itzaletik jalgi eta [...] tupustean, miru baten moduan oldartu eta karta bat **zapaldu** du oihalaren kontra. Monika Etxebarria

Mutil batzuk beisbolean ari ziren, belar **zapaldu**-usaina zabalduz. Lopez de Arana

Gorputzaren parterik handiena osatzen duen materiala, biguna eta **zapaldu**-erraza, aldaberagoa da. Irene Aldasoro

· Atzera egin [kamioak] eta langilea horma baten kontra **zapaldu** zuen. Berria - Ekonomia

**6** irud/hed

Gauza garbia da Estatuaren zamak **zapalduta** daudela uste dutenek sedizioRako joera dutela. Esteban Antxustegi

Ezbehar suntsigarriak jo eta **zapalduko** zaituzte.

Arkitekturak Oteiza **zapaldu** du. Berria - Euskal Herria

**7** mendean hartu, mendean eduki.

Guk eginiko armek Kuba **zapaltzeko** balio ditek. Koldo Izagirre

Guztiak babesteko indarra daukanak, berdin-berdin baitauka guztiak **zapaltzekoa** . Esteban Antxustegi

Kanpotarrek bertakoak **zapaldu** eta suntsitu. Gotzon Garate

Badakizue ainitz boteretsu eta indartsuk nola **zapaltzen** dituzten ttipi eta ezin bertzean direnak; ez egin holakorik. Herria

Sistema patriarkala emakumeak **zapaltzeko** sistema da eta kapitalismoa gizon eta emakumeak esplotatzeko sistema. Berria - Harian

Kondenatzea, zigortzea eta **zapaltzea** beste obsesiorik ez zuen orduko moral burgesaren aurrean, [...]. Juan Martin Elexpuru / Bego Montorio

Nik atera nuen Israel Egiptotik, eta nik askatu zintuztedan, **zapaltzen** zintuzteten egiptoar eta gainerako erreinu guztien menpetik. Elizen arteko biblia

**Zapaltzen** gintuzten haiexen balio-sistema bera geneukala ohartzen naiz. Xabier Mendiguren Elizegi

**Zapal** dezagun zintzo bizi den behartsua, ez diezaiogun alargunari errukirik izan. Elizen arteko biblia

Seme, **zapaldu** duzun etsaia ez duzu gutxietsi behar -esan zion begirada zorrotzez-. Joanes Urkixo

Ez dugu ulertzen nola bi lagunen ustezko ekintzengatik talde oso bat **zapal** daitekeen. Berria - Euskal Herria

1956an Hungarian herri iraultza bat izan zen, boterean zegoen Alderdi Komunistak erroz **zapaldu** zuena. Pello Salaburu

Espainia ez da Serbia, hemen ez da **zapaldutako** herririk. Berria - Euskal Herria

Taiwanen independentziaren aldeko mugimenduak **«zapaldu»** egingo dituela ohartarazi zuen atzo Pekinek. Berria - Mundua

Zaragozak nahi izan balu, **zapaldu** egingo gintuen. Berria - Kirola

Ekitatearen kontra zihoazela, baina eskubideak **zapaldu** gabe; zentzugabeak izan zirela, tiranikoak baino gehiago. Iñaki Iñurrieta

**8** (era burutua izenondo eta izen gisa)

Apo **zapalduaren** itxura zuen. Edorta Jimenez

Gal bitez ur isuria bezala, zimel bitez belar **zapaldua** bezala. Elizen arteko biblia

Bihar goizean aireportua den lur alor **zapaldura** joango naiz, Managuarako hegazkina hartzeko. Joseba Sarrionandia

Populu hanpatu-zanpatu eta apaldu-**zapaldu** moduan. Itxaro Borda

Bidezidorrera iritsi zirenean jakin zuten zabala zela eta harri koskorrez eta errauts **zapalduez** zolatua zegoela. Agustin Otsoa

Gasolinaren eta zaldi-gorotz **zapalduaren** usaineko hautsa. Lopez de Arana

Gerra galduaz zein herri **zapalduaz** ari zela. Bernardo Atxaga

Zein da "iragan **zapaldu"** hori, kultura berriaren osagai beharrezko izan litekeena? Joseba Zulaika

Goio tomate **zapalduaren** moduan lotsagorritu zen. Joseba Sarrionandia

Zapaltzaileen eta **zapalduen** arteko marra egiteko kultur irizpideak. Iñaki Mendiguren

Haien zerbitzuko intelektuala banintz, dudarik gabe egongo nintzateke gutxiengoen eta **zapalduen** alde, eta batik bat haien eskubide guztien alde. Iñaki Segurola

Estatu Batuek ez dute entzun herri **zapalduen** hasarrea. Herria

**9** zapalago bihurtu.

Horietako batek gorputz bat zeharkatzen duenean haren inguruko espazioa luzatu eta **zapaldu** egiten da, angelu zuzen bat marraztuz. Berria - Gaiak

**hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**

**adabegia zapaldu** (3); **askotan zapaldu** (3); **azeleragailua zapaldu** (5); **bat zapaldu** (13); **belarra zapaldu** (3); **berriro zapaldu** (8); **bezala zapaldu** (5); **bota eta zapaldu** (5); **botoia zapaldu** (5)

**elkar zapaldu** (3); **eskubideak zapaldu** (6); **gehiago zapaldu** (3); **gogor zapaldu** (7); **gogor zapaldu zituen** (3); **herri zapaldu** (3); **hondoraino zapaldu** (4)

**ilargia zapaldu** (4); **inoiz zapaldu** (8); **inor zapaldu** (3); **inork zapaldu gabeko** (4); **kantxa zapaldu** (4); **kontra zapaldu** (3); **lurra zapaldu** (6); **mahatsa zapaldu** (3)

**oina zapaldu** (4); **sekula zapaldu** (3)

**zapaldu ahal** (4); **zapaldu gabe** (19); **zapaldu gabea** (4); **zapaldu gabeko** (9); **zapaldu izan** (5); **zapaldu marra** (6); **zapaldu ondoren** (3); **zapaldu orduko** (7); **zapaldu zuen azeleragailua** (3)

**herri zapaldua** (3); **herria zapaldua** (4); **zapaldua izan** (3)

**zapalduak daude** (4); **zapalduak izan** (3)

**herri zapalduaren** (5); **iragan zapalduaren** (3)

**herri zapalduen** (4); **zapalduen alde** (6); **zapalduen arteko** (3)

**gehiago zapalduko** (3); **inoiz zapalduko ez** (3); **oinek zapalduko** (3); **sekula zapalduko ez** (3)

**zapalduko du** (5); **zapalduko dute** (7); **zapalduko duten** (3); **zapalduko ez** (11); **zapalduko ez zuten** (4); **zapalduko zuen** (3); **zuen oinek zapalduko** (3)

**kontra zapaldurik** (3)

**mina bat zapalduta** (6); **zapalduta daudela** (3); **zapalduta eta** (3); **zapalduta hil** (3)

**erresistentzia zapaltzeko** (3); **eskubideak zapaltzeko** (3); **ez zapaltzeko** (8); **hamas zapaltzeko** (3); **matxinada zapaltzeko** (3)

**eskubideak zapaltzen** (16); **eskubideak zapaltzen dituela** (3); **euskara zapaltzen** (3); **gehiago zapaltzen** (3); **gogor zapaltzen** (3); **hankapean zapaltzen** (4); **herria zapaltzen** (5); **herritarren eskubideak zapaltzen** (3)

**irakiarrak zapaltzen** (3); **itzala zapaltzen** (4); **jende xehea zapaltzen** (3); **kontra zapaltzen** (7); **lurra zapaltzen** (4); **mahatsa zapaltzen** (3); **nahita zapaltzen** (3)

**oinak zapaltzen** (8); **oinek zapaltzen** (3)

**zapaltzen eta itotzen** (3); **zapaltzen gaituen** (3); **zapaltzen hasi** (4); **zapaltzen jarraitzen** (4); **zapaltzen utzi** (3); **zapaltzen zuen lurra** (3); **zapaltzen zuten lurra** (3)

---

zapalduezin ik **zapalezin**.

---

# zapalezin *(orobat **zapalduezin**) izond* ezin zapalduzkoa.

Hebraieraz "jiahaom" deitzen omen zaio diamanteari: **zapalezina** , menderatu ezin daitekeena, harri horrek duen gogortasunari erreferentzia eginez. J.M. Olaizola "Txiliku"

Lur asmatu hura **zapalezina** zelako, alde batera utzi behar izan nuen nire lehen asmoa. Bernardo Atxaga

Gure aitzinekoak horrelakoak ziren, **zapalduezinak** beren zozo airearekin, apailakuntzarik gabe pairatu ehun mila hersturetarik bizirik atereak, ausarki jatea eta edatea saritzat zeukatenak. Itxaro Borda

---

# zapalgailu **1** *iz* zapaltzeko gailua.

Hainbat aparatu zeuden, hestekiak betetzeko ponpa bat, **zapalgailu** bat, haragia xehatzeko makina mekaniko bat, eta tramankulu haiek guztiek, beren gurpil eta biraderekin, infernuko sukalde baten ideia misteriotsu bezain kezkagarria irudikatzen zuten. Karlos Zabala

**2** zorua zapaltzeko gailua.

Orain ez dago "bideko"rik, gasoilez dabiltzan traktoreek ordezkatu dituztelako; lurrunez funtzionatzen zuten **zapalgailuak** bezalaxe eginak, baina aurreko alper-harria gabe. Koldo Biguri

Selim Aluan imajinatzen zuen, lurrean tanpalahara, **zapalgailu** bat behin eta berriro gainetik igarotzen zitzaiola. Patxi Zubizarreta

Horretarako beharrezko diren traste eta tresneria guztien buru, **zapalgailu** erraldoi bat zebilen, luze, zabal eta garai, izugarria. Joxerra Garzia

**3** ***zapalgailu zilindro***

Gutxi batzuek baino ez zuten jarraitzen "ez dira pasatuko" aldarriarekin tematurik, **zapalgailu** zilindroa gainetik pasatua zitzaiela jabetu ere gabe. Juan Kruz Igerabide

---

# zapalgarri *izond* zapaltzen duena.

Giro **zapalgarri** hartan, hala ere, batzuk baikorragoak ziren, eta besteak ezkorragoak. Joan Mari Irigoien

Hura ez zen egunik egokiena, ez futbolean aritzeko, ezta mendira joateko ere, hain zen **zapalgarria** giroa, eguzkiaren berunak-edo ehundua. Joan Mari Irigoien

Ezdeusean erortzen nintzen, guztizko ezdeusean, izate osoaren heriotzan, harik eta bularrean pisu **zapalgarri** bat nuela, eta ahoan nire bizitza jaten ari zitzaidan beste aho bat nuelako sentipen beldurgarri batek hartatik bortizki, era urragarri batez, ateratzen ninduen arte. Josu Zabaleta

---

# zapalgune *iz* gune zapala.

Alde batera utzi behar dira, gainera, sabai gangatuetan antzinakoen ohiturak, haien erlaitzetako **zapalguneak** beren pisu astunarekin zintzilik jarrita arriskutsu geratzen baitira. Santiago Iruretagoiena

---

# zapalkera **1** *iz* zapaltzeko era.

Hark animatuta abiatua zen Faustino gaztea Elgetarengana, soinu txikiaren zoko-moko eta **zapalkera** guztiak zekizkien aztiarengana. Koldo Izagirre

**2** ***zapalkeran*** zapaltzean.

Arimaren indar bitala gorputz jadanik perfektuan barnatzen bazaigu, jaiokeran eta bizitzako ataria **zapalkeran** hain zuzen, [...]. Xabier Amuriza

---

# zapalketa *(88 agerraldi, 31 liburu eta 34 artikulutan)* **1** *iz* zapaltzea, sakatzea.

Partiturak menderatzeko ahaleginean, elkarrizketa luze eta mamitsu samarrak egiten nituen neure buruarekin, nire hatz-**zapalketek** tuboetatik airera aterarazten zuten musika izeneko hura zer zen zehaztu nahian. Pako Aristi

**2** zapaltzea, menderatzea. ik **zapalkuntza**.

Gazte jendea arrazakeriaren eta **zapalketaren** kontra asaldatzen hasi da. Gotzon Garate

Horregatik guztiagatik mehatxuak eta **zapalketak** pairatu behar izan zituen. Askoren artean

Eragozpenak eta **zapalketak** eraman ezinezkoak izan direnean, ezin beltzean indarrera jo dute. Gotzon Garate

Banuen beti kontra agertzeko joera bat ere, aurreko urteetako anarkismoaren hondarra agian, inguruko hipokrisia eta **zapalketa** eta jauntxokeria guztien aurrean zutik jartzera ez baina zutik jartzen zirenak mirestera ninderamana. Xabier Mendiguren Elizegi

Sofrimenduak merezi du, etsaiaren **zapalketaren** ondorioak ontzen baldin badakizu. Koldo Izagirre

Etxerako bidean, afektibitatea, sexualitatea, emakumearen **zapalketa**, familia... beste modu batean bizitzeko aukera alienaziorik gabeko bat imajinatzen saiatu ginen etorkizunera begira. Rafa Egiguren

Mugimendu horren **zapalketan** hainbat lagun atxilotu eta fusilatu zituzten, tartean baita zerikusirik gabeko zibilak ere. Berria - Kultura

Ez **zapalketa** edo jauntxokeriarik ez dagoelako, alderantziz baizik: lan baldintzak gero eta eskasagoak izaki, ia erabatekoa delako alor horretako jauntxoen **zapalketa**. Joxerra Garzia

"Eskualduna" kasetak zuen preseski orduan xahartto itxura hartua ainitz gisatara: gerlako egun ilunak eta nahasketak zirela medio, aleman lehertzaileen **zapalketak** lehertuak eta apalduak ginituen. Herria

**3** (izenondoekin)

Gure gizarte historikoak, ostera, esklabotza edo ekonomia kapitalista bezalako **zapalketa** gogorretan oinarritzen dira. Joseba Sarrionandia

Afganistan izan daiteke **zapalketa** samin horren ispilu bortitza. Pello Salaburu

Hori kontuan izanda, hobeto uler daiteke duela oso gutxi arte izan dugun **zapalketa** ankerra eta gaur egun dugun nahasmena. Luis Elberdin

Duela gutxi asmatu diote izena lanean boterea duenak botererik ez duenari egiten dion **zapalketa** psikologiko-moral horri. Joxerra Garzia

**4** (hitz elkartuetan)

Espainiako administrazioak historikoki diseinatu dituen **zapalketa** neurriek segida izan dute Iparraldeko lurraldeetan. Filipe Bidart

**5** zapalago bihurtzea.

Gutxik dakite, esferoide batek duenaren antzeko **zapalketak** soilik galarazten duela lur irmoaren goraketek edo agian lurrikarek sortutako mendi txikiagoek ere lurraren ardatza jarraituki eta luze gabe nabarmenki higiaraztea. Ibon Uribarri

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
> euskal kulturaren zapalketa (3)

---

# zapalkuntza *(310 agerraldi, 38 liburu eta 174 artikulutan)* **1** *iz* zapaltzea, menderatzea. ik **zapalketa 2**.

**Zapalkuntza** eta esplotazioaren bitartez lortutako diru horren guztiaren zati bat itzultzeko eskatu zitzaionean, bere familiak ez zuen halakorik onartu. Hasier Etxeberria

Izan daiteke jaso duten heziketagatik -**zapalkuntzagatik** esatea egokiagoa litzateke-. Luis Elberdin

Buruzapia ez omen da kultura jakin baten ezaugarri, kultura jakin horretan emakumeak jasaten duen **zapalkuntza** eta bazterketaren sinboloa baizik. Joxerra Garzia

Itotzen ninduen errealitate haren **zapalkuntzatik** itzurtzeko, gogo hutsezko jardun batera jo behar izan nian. Jon Muñoz

-Ikusi dut, ikusi, nire herriak Egipton bizi duen **zapalkuntza** eta entzun dut zapaltzaileen zigorpean egin duen garrasia. Jose Antonio Mujika

Gizakiek **zapalkuntzaren** zamapean egiten dute garrasi, ahaltsuen ukabilpetik laguntza eske oihu. Elizen arteko biblia

Hoinbeste gisetarat hoinbeste bortizkeria eta **zapalkuntza** jasan eta jasaiten dituen Euskal-Herrian, bakearen aldeko urrats guziak on dira. Herria

Famiano Strada [...] flamendarrak espainiarren **zapalkuntzaren** aurka altxatu zireneko historia kontatzen duen liburuaren egilea. Juan Martin Elexpuru

Francoren **zapalkuntzaren** eredu bat izan ziren behartuta lan egiteko sortutako batailoiak. Berria - Euskal Herria

Jendea zenbat eta gehiago mugitu, orduan eta bortitzagoa zen Poliziaren **zapalkuntza**. Berria - Gaiak

Nazio bakoitzak badu ere bere Ohitura berezien araberako bizia eramaiteko eskubidea, baztertuz, jakina, edozein oinarrizko giza eskubide bortxatzeko bidea, eta bereziki herri gutituen **zapalkuntza**. Piarres Xarriton

Godo eta iberoen saldo batzuk, mairuen **zapalkuntzatik** ihesi, Luisen lurretan onartuak izan ziren. Iñaki Iñurrieta

Zapatistek, dagoeneko, jomuga oso garrantzitsuak lortu dituzte: Mexikoko indigenen **zapalkuntza** mundu guztiaren aurrean nabarmen gelditzea. Txema Ramirez de la Piscina

Japonian, ordea, kristautasun erromatar katolikoaren **zapalkuntza** berehalakoa eta errukigabea izan zen. Iñaki Mendiguren

Egiten duenaren **zapalkuntza**, inoren lanaren etekinetatik bizi denaren aberaste kontrolgabea. Juan Garzia

Von der Graf hori [...] animalien **zapalkuntzaren** kontrako muturreko militantea da. Joxerra Garzia

1936an altxamendu faxista bizkor nagusitu zen Galizian, eta Fronte Popularraren aurkako **zapalkuntza** bortitzari ekin zion. Berria - Mundua

Mundu guztia bizi da zela edo hala zapalduta, batetik ez bada bestetik, baina zapaltzaileak ematen dio **zapalkuntzari** kalitatea. Hasier Etxeberria

Ausarki erantzuteko, irain eta madarikazio ulertezinez, haiek ezarririko itxitura eta **zapalkuntzazko** errejimenari. Juan Garzia

**2** (izenondo eta izenlagunekin)

Iraken, Turkiaren eta beste herri batzuen **zapalkuntza** ikaragarria jasaten duten kurduei. Joan Mari Irigoien

Askatasuna berreskuratzeak esan nahi du **zapalkuntza** militar hori ezagutu eta aurre egin behar zaiola. Joseba Zulaika

Espainiako Gobernuari exijitu dio **zapalkuntza** politikoa desagerrarazteko eta herri nahiz giza eskubide guztiak errespetatzeko. Berria - Euskal Herria

44 urteko **zapalkuntza** sexuala ez da egun batetik bestera gainditzen. Luis Elberdin

Ez dakit sexu berekoon arteko konplizitatez izan zen, generozko **zapalkuntza** bera pairatzen dugunon arteko solidaritatez alegia. Xabier Mendiguren Elizegi

Irainak eguna joan eta eguna etorri, **zapalkuntza** etengabea, justizia oro urratua, giza karitatea erdeinatua. Karlos Zabala

**3** (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

Emakumeok **zapalkuntza** sistema biren menpe bizi garela: neoliberalismoa eta patriarkatua. Berria - Euskal Herria

Emakumeen **zapalkuntza** egoera gogorarazi zuten herritarrek. Berria - Euskal Herria

Barne botereak ezarritako errepresio eta **zapalkuntza** giroa agertzen da, barrutik begiratuta, militanteen artean. Berria - Kultura

Aristokrazia lurjabeak bere **zapalkuntza**-indar osoa berreskuratu zuen. Koro Navarro

EHEk dio Espainiako Konstituzioa «**zapalkuntza** tresna» dela. Berria - Euskal Herria

Hezkuntzaren, erlijioaren edo ez-dakit-zer **zapalkuntza**-motaren erruz, berez instintu hutsa dena jantzi ederragoz apaintzera jotzen dugu, eta hala asmatu genuen delako maitasuna, zikin usteko jardun hori itxura garbi batekin mozorrotzeko. Xabier Mendiguren Elizegi

**Zapalkuntza** eskubidea errespetatzeko borrokatzen dira integristak. Berria - Mundua

Estatu honek aspaldiko **zapalkuntza** ildoa darama gure herriaren kontra. Berria - Euskal Herria

**4** (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa)

Ekidistantziaren eredu izan behar zuena, hizkuntza **zapalkuntzaren** adibide goren bilakaturik ikusi genuen hor, bere zaldi zuriaren gainera igota. Hasier Etxeberria

Arraza-bereizkeria, bazterketa, kolonia-**zapalkuntza**. Itziar Eizagirre / Amaia Lizarralde

**hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**

**aurkako zapalkuntza** (3); **emakumeen zapalkuntza** (4); **eskubideen zapalkuntza** (3); **euskal herriaren zapalkuntza** (3); **kontrako zapalkuntza** (3); **mendeetako zapalkuntza** (4); **poliziaren zapalkuntza** (3)

**zapalkuntza eta tortura** (3); **zapalkuntza ildo** (3); **zapalkuntza salatu** (4); **zapalkuntza salatzeko** (3)

**hizkuntza zapalkuntzaren** (3)

**zapalkuntzaren aurka** (4); **zapalkuntzaren aurkako** (4); **zapalkuntzaren bidea** (3); **zapalkuntzaren bidez** (3); **zapalkuntzaren kontra** (5); **zapalkuntzaren kontrako** (6)

**zapalkuntzari aurre** (4)

---

## zapaltzaile **1** *iz* zerbait zapaltzen duen pertsona.

Doroteak eta alabak dolarea erakutsi zioten Andresi: antzinako modukoa, prentsatzeko hagarekin, **zapaltzaileek** oinetan janzten dituzten zurezko eta espartzuzko txinelekin, eta haiek lotzeko lotailuekin. Josu Zabaleta

Orroaka dihardu bere herrialdearen aurka, deiadarka mahats-**zapaltzaileen** antzera munduko bizilagun guztien aurka. Elizen arteko biblia

• **2** *izond/iz* zapaltzen, menderatzen duena.

Haur-bulkaden frustrazioak haserrea sortzen du, gorrotoa, eta gurari suntsitzaileak [...] autoritate **zapaltzailearen** aurka zuzenduak. Iñaki Mendiguren

Zoritxarrekoa Jerusalem, hiri errebelde, kutsatu eta **zapaltzailea**! Elizen arteko biblia

Populua ideologikoki menderatzen zuen jauntxo eliztarraren botere **zapaltzailea**. Itxaro Borda

Emakumea sistema **zapaltzaileetatik** askatzea. Berria - Euskal Herria

Pentsa liteke dispertsioarekin espetxe politika **zapaltzaileek** gaina joa zutela. Berria - Euskal Herria

Estatu kapitalista **zapaltzailea** zela gertaturikoaren erantzule bakarra. Hasier Etxeberria

Estatu arrotz **zapaltzailea** premiazkoa zaizue. Itxaro Borda

Herri santua, askazi akasgabea, nazio **zapaltzaileagandik** askatu zuen jakinduriak. Elizen arteko biblia

Gutxiengo menderatzailea, definizioz, gobernari-klase bat da, gidatzeari utzi eta **zapaltzaile** bihurtu dena. Iñaki Mendiguren

Tribalismoa, zokokeria morala, komunitarismo etnikoa eta, noski, nazionalismoa -bai **zapaltzailea** eta bai baztertu zalea- harriak dira, ahalegin zibilizatzaile unibertsala oztopatzen dutenak. Esteban Antxustegi

Hauts egin du Jaunak gaizkileen aginte-makila, **zapaltzailearen** nagusigoa. Elizen arteko biblia

Askatu zapaldua **zapaltzailearen** eskutik. Elizen arteko biblia

**Zapaltzaileen** eta zapalduen arteko marra egiteko kultur irizpideak, erlijiosoak bezalaxe, eragozpen asko jar dakizkiokeen arren, [...]. Iñaki Mendiguren

-Ikusi dut, ikusi, nire herriak Egipton bizi duen zapalkuntza eta entzun dut **zapaltzaileen** zigorpean egin duen garrasia. Jose Antonio Mujika

Zapalketak **zapaltzailea** bera hiltzen du eta injustizia ereiten duena deabrua da. Berria - Mundua

Gure **zapaltzailea**, gure etsaia...

**hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**

**zapaltzaile izan** (3)

**zapaltzailearen eskutik** (3)

**estatu zapaltzaileek** (3)

---

## zapaltze *iz* zerbaiten gainean oina-edo jartzea; gainean jartzen den zerbaiten bitartez sakatuzea; menderatzea.

Goizalde honetan lana eman zuen iruzurra berriz onartzeak, **zapaltze** mendekuzalea, kaskarkeria hitz egiten, oldarkeria hizkeratzat. Enuntziatuari berari ez dio eragiten bitan banatze horrek edo **zapaltze** horrek: hitzezko jardutearen existentzia modu bat da-eta, bera gauzatua izan den legez. Berria - Mundua

Etimologiak berak erakusten du **"zapaltze"** kontu bat dela, zerbait ateratzera behartzea, laranja baten zukua ateratzen den bezala. Josu Zabaleta

Oinetako puntaren **zapaltze**-ekintza sotila, pixka bat luzatzea atsegin duena. Iban Zaldua

---

## zaparketa *iz ipar* leherketa.

Epe hori behar izan dute **zaparketa** ustegabekoa izan dela erraiteko axurantza etxe guziek aho batez, hots ez dela atentatu bidez gertatu. Herria

Hor kokatuak diren enpresek badute beren barneko plan berezia, enpresa buruak bete behar duena zerbait sute edo **zaparketa** gertatzen baldinbazaio. Herria

Hiru **zaparketa** "Estoril" etxearen aitzinean. Herria

---

# zaparrada *(orobat* ***zafarrada*** *g.er.)* **1** *iz* euri jasa bortitza.

Gaur **zaparradak** eta ostarteak. Bernardo Atxaga

**Zaparrada** batzuk ere bota zituen, baina ez zuten luze iraun. Karlos Zabala

Erauntsiaren **zaparradek** gainerateko harrabots guziak estaltzen dituzte eta ibiltokiko hesiaren aitzinean tente, kartierreko zaintzale bat, euritako handi batek estalirik [...] eni so. Filipe Bidart

Ruche jauna zain gelditu zen, **zaparrada** noiz atertuko. Jon Muñoz

Arrats hartan udako egun sargorietako **zaparrada** izan zen. Jasone Osoro

**Zaparrada** batzuk izan ditugu bidean, baina arazorik ez. Berria - Harian

Mendietako **zaparradak** blai egiten ditu, non babesturik ez, eta harkaitzaren kontra jartzen dira. Elizen arteko biblia

Alferrik zihoala erantzun zenion, laster zela **zaparrada** gainean. Hasier Etxeberria

Orain ere **zaparradak** harrapatu behar ote nau? Iñaki Iñurrieta

Udakoa zirudien **zaparrada** eta trumoien erasana entzuten zen kanpoan. Harkaitz Cano

Egunak joan eta egunak etorri, **zaparradak** geroz eta sendoagoak ziren. Josetxo Azkona

## **2** (izenondo eta izenlagunekin)

-Zoaz jatera eta edatera, **zaparrada** handi baten hotsa sumatzen da. Elizen arteko biblia

Eurijasa eta **zaparrada** beteagoak, mardulagoak egiten dituela. Pello Zabala

Asteartean eta ostegunean euri **zaparrada** gogorrak erori dira Arabako Errioxan. Berria - Ekonomia

**Zaparrada** mardultxo laburra. Pello Zabala

Zeren, egia horixe, **zaparrada** bikaina ari baita prestatzen ezkerretara eta aurrean. Josu Zabaleta

Hauxe bai derrepenteko **zaparrada** zaratatsu eta haizetsua, azkar asko hustu da jendez etorbidea. Joxe Austin Arrieta

Garaiko ekonomilari batek zioen bezala, "Sua! Sua!", oihukatu zuten sekulako **zaparrada** ari zuen bitartean. Iñaki Heras

## **3** (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa)

Tarteka euri-**zaparradak** botako zituela, tenperatura asko jaitsi gabe. Pello Zabala

Orduko 290 kilometroko haize ufadak eta euri **zaparradak** eragin zituen Larry-k. Berria - Mundua

Geltokiko andenera ur **zaparradak** erortzen ziren lurrazalera ematen zuten burdinsareetatik. Iñaki Zabaleta

Ekaitz **zaparradaren** lehenengo tantak astunak eta bakanduak izaten dira. Josu Zabaleta

Horregatik huts egin dizute hodei-**zaparradek**, ez da udaberriko euririk izan. Elizen arteko biblia

## **4** irud/hed

Gau hartan ez nuen eskura etxekoandrearen **zaparradatik**, haren olio frijituaren usainetik eta ilobaren dohain telegenikoetatik libratuko ninduen deusik. Anjel Lertxundi

Barre-algaren **zaparrada** haren erdian, hara non azaldu zen Perrette. Jon Muñoz

Gelako atea bat-batean ireki zen txinparta gorrien **zaparrada** batekin. Iñaki Mendiguren

Bolada latz hartan hegazkin amerikarrek gure gainera botatako suzko **zaparrada** haietako baten erdian. Alberto Ladron Arana

Hitzak **zaparrada** dira azken urteotan eta ez da dagoeneko deus ganorazkorik entzuten harrabotsaren erdian. Hasier Etxeberria

Maisuaren heriotzaren berri izan zuenean, urteetako adiskidetasuna etorri zitzaion **zaparradan** Faustinori. Iñigo Aranbarri

## **5** (irud/hed, hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

Petalo-**zaparrada** bat jira eta bira hegaldatu zen haren esku gainera, eskularruen gainera, mahai gainera. Lopez de Arana

Eta bonba **zaparradaren** ostean, poema bonbardaketa helduko da hamabost egun barru. Berria - Kultura

Gure atzean, metrailetak tiro **zaparrada** gorgarri bat bota zuen egongela barnera. Alberto Ladron Arana

Bala **zaparradak**, kanoikadak, alde guztietatik datozkie. Edorta Jimenez

Altxa beza jaun horrek bere ezkutua, hor gezi-**zaparrada** bat dator eta. Jon Alonso

Kontsulak, bere onetik aterata, perdigoi **zaparrada** bat bota zion pertsona haren alderik nabarmenenera. Xabier Olarra

Erromatar soldaduen gainean erortzen dira harriak, eta ez dute haiek inoiz ezagutu hura baino jaurtigai-**zaparrada** hilgarriagorik. Jon Muñoz

Ostatuko etxekoandrearen ohizkanpoko jokabide haren zergatiak blaitu ninduen, hitz-**zaparrada** baten forma harturik. Anjel Lertxundi

Txalo **zaparrada** batek egin zion abegi Ruche jaunaren azken esaldiari. Juan Garzia

Berehala, klaska-**zaparradak** entzun ziren inguru osoan. Jon Muñoz

Haien lanbidea ez baita, soilik, galdera-**zaparradaren** erdian nolabait eustea. Juan Garzia

Ez dakit nola jasan zuen horrelako gutxieste **zaparrada**! Itxaro Borda

Gizonak irri **zaparrada** ozena airarazi zuen. Itxaro Borda

Handik aurrera, asaltoa amaitu arte, zartako **zaparrada** jasan behar izan zuen Joseluk. Josu Landa

Hori bai, gizon hari oinazerik latzenak ematen hasi aurretik Rafael Leonidas Trujillok berak ostikada **zaparrada** jo ei zion. Edorta Jimenez

Astakiloa, bestalde, ez zen ezertaz ere ohartu, lanpetuegi baitzebilen bi iheslarien kontrako birao eta irain **zaparrada** botatzen. Alberto Ladron Arana

Kolpe **zaparrada** bateko lehenengo kolpea baizik ez da. Josu Zabaleta

Une hartan, urre **zaparrada** bat erori zen emirraren eta haren aliatuen eskuetatik. Karlos Zabala

## **6** ***zaparradapean***

Gure sentsuak kanpoko munduaren irudi oso bat ematen hasiko balira, **zaparradapean** itoko ginateke bertan. Juan Garzia

Iluna da nagusi, arima zolaraino blaitzen dion bakardade **zaparradapean**, eta oso bakan, oso noizbehinka, argi kolperen batek istant batez eteten du ilunaldia. Iñaki Iñurrieta

### hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

**bala zaparrada** (4); **eskuzarta zaparrada** (3); **euri zaparrada** (28); **euri zaparrada hasi** (3); **galdera zaparrada** (3); **gezi zaparrada** (3); **gol zaparrada** (10); **hitz zaparrada** (4); **ikusleek txalo zaparrada** (3); **jendearen txalo zaparrada** (3); **kolpe zaparrada** (3); **kritika zaparrada** (6); **kritika zaparrada handia** (3); **tiro zaparrada** (7); **txalo zaparrada** (124); **txalo zaparrada bat** (3); **txalo zaparrada batek** (4); **txalo zaparrada batekin** (7); **txalo zaparrada batez** (6); **txalo zaparrada entzun** (5); **txalo zaparrada eskaini** (5); **txalo zaparrada galanta** (3); **txalo zaparrada handi** (4); **txalo zaparrada jaso** (10); **txalo zaparrada jasoko** (3); **zaleek txalo zaparrada** (3)

**zaparrada bat** (25); **zaparrada bat erori** (3); **zaparrada batekin hartu** (3); **zaparrada ederra** (5); **zaparrada entzun** (5); **zaparrada entzun zen** (3); **zaparrada eskaini** (5); **zaparrada galanta** (3); **zaparrada handi** (5); **zaparrada handia** (7); **zaparrada handia jaso** (3); **zaparrada handiak** (5); **zaparrada hasi** (4); **zaparrada itzela** (3); **zaparrada jasan** (3); **zaparrada jaso** (12); **zaparrada jaso zuen** (7); **zaparrada jaso zuten** (3); **zaparrada jasoko** (4); **zaparrada luze** (3)

**euri zaparradak** (12); **txalo zaparradak** (19); **zaparradak izan** (3)

**txalo zaparradarekin** (4)

**euri zaparradaren** (6); **txalo zaparradaren** (3); **zaparradaren azpian** (5); **zaparradaren erdian** (3); **zaparradaren ostean** (5)

**txalo zaparradari** (3)

**txalo zaparradaz** (4)

**txalo zaparradek** (3)

**txalo zaparradez** (4)

## zaparradaka 1 *adlag* zaparradetan.

Txaloak **zaparradaka** erori ziren patio gotikoko lorategi krabelin xuriz betean, eta guri, krak, zerbait hautsi zitzaigun bihotzean. Karlos Linazasoro

**2** (hitz elkartuetan)

Erramun bera gaitzeko trenpuan, musikari eta kantari lagunekin hoberena eskaintzen, publiko guzia berarekin komunionean, aldi bat gehiago xarmaturik, xutik txaloka, txalo **zaparradaka**... Herria

Egiaren peskizan bere bidea asmatzen eta hitz **zaparradaka** barreiatzen duen idazlea. Xabier Olarra

---

zaparradapean ik **zaparrada 6**.

---

## zaparradatxo *iz* zaparrada txikia. ik **zaparradaxka**.

Hasierako uholdea eurijasa bilakatu zen lehenik eta ondoren gero eta gutxiagotuz zihoala zirudien **zaparradatxoa**. Joxemari Iturralde

Ez dizute kobratuko, **zaparradatxoren** bat halako batean ez bada. Pello Zabala

Lantzean euri **zaparradatxo** bat edo beste botatzen duen arren. Edorta Jimenez

---

## zaparradaxka *iz* zaparrada txikia. ik **zaparradatxo**.

Arratsalde erdirako euri **zaparradaxka** laxa-laxa batek ekarri zigun gogora eguraldi eroa nolakoa izan daitekeen, hartara jartzen denean. Pello Zabala

---

## zaparrastatsu *izond* zalapartatsua, iskanbilatsua.

Auzokide **zaparrastatsuek** ezinbesteko bihurtzen dituzten tapoiak jarrita. Pako Aristi

---

## zaparro *izond* mozkotea. ik **txaparro**.

Ezustean egin zuen laguna, mehatxua amaitzen lagatzeke "Kaixo, Huck!" esan baitzion **zaparro** hark, "Ni Tom nauk!". Koldo Izagirre

'Aurrera, **zaparrook**!' esaten ziguten. Joseba Sarrionandia

-Hara gure **zaparroa**! Unai Iturriaga

Zer, gure **zaparro** denborak gogoratzen dituk? Joseba Sarrionandia

---

## zapart 1 *iz* eztanda.

Suaren noizik behingo **zapartak** baino hots handiago batek atera ninduen neure kabututik. Anjel Lertxundi

**Zapartak** entzuten dira, eta kea SS-en kaserna aldean. Marzel Etxehandi

Gero ta gehiago **zaparta** SS-en kasernatik, eta kea gero ta handiago eta beltzago. Marzel Etxehandi

Lurra dardarikan hasi zen, **zapartak** gero ta hurbilago eta ozenago. Marzel Etxehandi

Zeruan, Txina aldera behatuz, ikus zitezkeen konstelazioen **zapartek** hazi argitasunetarik soa lurreratzean. Itxaro Borda

Fini **zapart** eta tarrapata. Xabier Montoia

Lehorrean zeuden mutilek soka muturrak askatu eta piztien erara jauzi eta **zapart**, barrura egin zuten. Felipe Juaristi

**2** (hitz elkartuetan)

Karkailak areagotu ziren sukaldean, Graxiren harridurarako, ez baitzuen horrelako irri **zapartaren** zergatia ulertzen. Elena Touyarou

**3** ***leher eta zapart egin*** *adkor* leher egin.

Ahuldurik, **leher eta zapart** eginik zegoen, are gehiago lanetik itzultzean. Eneko Bidegain

Dorreek, adreiluzkoak balira bezala **zapart egin** zutenean, polizia eta suhiltzaile asko hil ziren. Gotzon Garate

Eta **leher eta zapart** egin dezala han! Koldo Biguri

Munduak **leher eta zapart** egin baleza, dena buka dadin azkenean! Elena Touyarou

**4** ***zapart egin*** *(**37** agerraldi, **23** liburutan)* eztanda egin. ik **zapartatu**.

**Zapart egin** gabeko obusak. Koldo Izagirre

Eguraldia epeldu baino lehen hil zen zure aita, lan egiten zuen meategiko galeria bateko grisuak **zapart eginda**. Anjel Lertxundi

Eztanda ikaragarri haren ondorioz, bestalde, kristal puskok, balak bailiran, **zapart egin** zuten han-hemenka. Josetxo Azkona

**5** irud/hed

Horretaz gain, bizileku berezi honetan sartu eta **zapart egiten** du egunak. Koldo Izagirre

Tronpeta eta platilozko txaranga batek **egiten** du **zapart** plaza nagusian. Koldo Izagirre

Ezin izan zion haserreari gehiago eutsi, **zapart egin** zuen: [...]. Iñaki Iñurrieta

Banekien kafea ez zela izanen **zapart egin** gabe egoteko lagungarririk hoberena. Aingeru Epaltza

Horixe du zigorrik onena agureak, **zapart egin** dezala bere harrokerian. Koldo Izagirre

Hitz horiekin **egingo** zian **zapart** tentsioak, neskak hautua egin beharko baitzuen gurasoen eta mutilaren artean, aurreiritzien eta maitasunaren artean! Anjel Lertxundi

· Haizeak bolada bortitzez astintzen du, gabardinaren hegalek **zapart egiten** dute, maindire bustien antzera. Jon Alonso

**6** ***zapart eginarazi***

Bere gainean toldo bat eraiki dute, brisak leunki **zapart eginarazten** duena. Jon Alonso

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
> **leher eta zapart** (10)
> **zapart egin** (20); **zapart egin zuen** (3); **zapart eginda** (3); **zapart egiten** (4)

---

## zapartagailu *iz* *ipar* lehergailua.

Izigarrikoa zuen indarra bonbak, 500 kiloko **zapartagailua** zaukalarik. Herria

500 kiloko **zapartagailuen** bidez. Herria

## **zapartagarri** *izond ipar* lehertzekoa, eskuarki irriz.

Gero berantago ere bertsu saio ederra eman dute, zonbait seriosak edo hunkigarriak, bertze batzu aldiz irriz **zapartagarriak**. Herria

Izen buruak dion bezala, zinez irri egiteko antzerki motzak asmatu ditu gure Pantzo Hirigaray **zapartagarriak**. Herria

---

## **zapartaka** *adlag* zapart eginez.

Ukabilak gorarik zebiltzan, barrak airean, botilak **zapartaka**, neskak elizen aterpean dardaraka izutuak. Itxaro Borda

---

## **zapartaldi** *iz* zapart egitea.

Fatihak ene zainen **zapartaldia** susmatzen zuen eta are eztikiago tinkatu ninduen bere besoen artean, lau haizeetara zarta zitekeen sumendi birtuala bainintzan. Itxaro Borda

Alde guztietatik zetozkidan olde haiek, basurdeen lauhazkaldiak sentitzen nituen nire garunetan, oinazturen **zapartaldiak** nire giharretan. Joxan Elosegi

---

## **zapartarazi**, zapartaraz, zapartarazten **1** du *ad* zapart eginarazi. ik **zapartatu 2**.

Auto bat **zapartarazi** dute Guardia Zibilaren kaserna aitzinean. Herria

Igande horren bezperan beste kamikaz horietarik batek bere bonba **zapartarazia** zuen Hebroneko otoitz-leku batean bere buruarekin batean hilez senar-emazte batzu. Herria

Bolborategiaren **zapartarazteko** kontratatu zuten bi gizonetarik bat zen. Elena Touyarou

**2** irud/hed

Baina muga hau **zapartarazten** hasiak gara. Berria - Kultura

---

## **zapartatsu** *izond*

Beharrezkoa da aleaziorik sendoenezko nerbioekin munduratua izatea, edo, nerbioak dardartsu eta **zapartatsuak** baldin badira, neurriz kanpoko pasio batek, aberriaren aldekoak edo antzekoak, inor beretua izatea. Jon Alonso

---

## **zapartatu**, zaparta(tu), zapartatzen *(90 agerraldi, 20 liburu eta 46 artikulutan)* **1** da *ad* eztanda egin. ik **zapart 4**.

Bonba tximiniatik behera amildu zen, eta korazatuaren labeetan **zapartatu** zen. Koldo Izagirre

Norbaitek telefonatu du *Gara* kasetari, erranez bonba bat **zapartatzera** zoala Barnabeuko zelaian. Herria

Badu jada hamar hilabete urberotegia **zapartatu** zela Erien Axurantza Kutxan. Herria

Frantxis bere betiko borroka lagunak suprefeturaren jautsarazteko preparatzen zuen auto-bonbarekin mila puxinketan **zapartatu** zen. Itxaro Borda

Jende baketsu horien artean auto bat **zapartatu** da gutienik ustean eta beldurrek eta ikarak egin dute gaineratekoa. Herria

Afrikan izanen nintzen 68ko maiatza **zapartatu** zenean. Piarres Aintziart

Hona non, 1989an, uste gabetarik, lehertzen eta **zapartatzen** den, Berlineko Harresiarekin batean, Sobiet Errepublika Sozialisten Batasuna, hots, "Langileriaren Aberria". Piarres Xarriton

Kontrakoek orroitarazi dute idia bezain lodi izan nahi zuen igelaren ipuina: loditu eta loditu, eta azkenean **zapartatu**! Herria

Irri sarkastiko ozen **batez** zapartatu zen emaztea. Itxaro Borda

Burua **zapartatzeko** heinean neukala eta, ohean itzul hona, itzul hara, ez nezakeen bakerik aurki. Daniel Landart

Giza harremanen eta sentimenduen oreka ederra nolatan doan geldika-geldika ahultzen, azkenik era ikusgarrian **zapartatzeraino**. Markos Zapiain

• **2** du *ad* eztanda eragin.

Nik erre nuen Irun, nik **zapartatu** nituen Bilboko zubi guztiak tropa faxistak sar zitezen baino lehen. Koldo Izagirre

Atea **zapartatuta** sartu ziren, ez ziren txukun jokatzen saiatu. Koldo Izagirre

Laclosek tratatu feminista harrigarri bat ere idatzi zuen, andreen joputza **zapartatzeko** iraultza handi bat eskatuz. Markos Zapiain

Harira: munduko xuxenak, ortografikoak eta hankabikoak, **zapartatzeko** eleberria duzu hau, aitaren aurkako gudu tresna. Markos Zapiain

• **3** (era burutua izenondo gisa)

Herdoilaren pikorrak blakaren geruza lehertzen, portilo **zapartatuak**, sopletearen pindarra ontziaren hesteetan. Koldo Izagirre

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
> **zapartatu da** (4); **zapartatu zen** (7)
> **zapartatzen den** (3)

---

## **zapartatze** **1** *iz* eztanda egitea.

Lau **zapartatze** izan dira larunbatetik iganderako gauean, Bergara, Beasain, Elgoibar eta Soraluzen. Herria

**Zapartatze** horrek kolpatu andana bat ere egin du. Herria

Horoskopoek zenbaitetan iragartzen duten bizitza aldaketa errausle baten premia dudala, **zapartatze** erraldoia. Itxaro Borda

Harresi ttipi bat iragan nuen etxe honen ingurua egiteko, eta zabalik aurkitu nuen beste aldetik, baina ikaratzeko maneran goitik beheraino zabalik, fatxada osoaren **zapartatzeaz**. Koldo Izagirre

**2** (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa)

Marokan laugarren hil bat kondatu da ondarrik, español industrilari bat, Casablancan izan ziren bonba-**zapartatze** haien ondorioz: maiatzaren 16an zen hori. Herria

Hamar kiloko dinamita **zapartatze** batek, Furianin, EDF eko etxe batean bulegoak jauzarazi ditu lantegiari kalteak eginez, bi auto eta berina asko andeatuz. Herria

Jazarketa bada denetan, bonba, auto-**zapartatze** eta beren burua zartagailuz beterik jauzarazten duten kamikaz bolontariak. Herria

Bagdad kapitalean berean lau jokaldi egin dira bonbez edo auto-**zapartatzez**, hilak eta zaurituak eginez andana. Herria

---

## **zapartatzear** *adlag* zapartatzeko zorian.

Xendaz xenda bulta honetan enekin dabilen irakurleari harriduraren mugetan **zapartatzear** nengoela aitortu beharra diot: [...]. Itxaro Borda

Tu mikatza irentsiz, haginak tinkatuz eta lepo zainak **zapartatzear**. Itxaro Borda

**zapartegingarri** *(corpusean* ***zapartingarri*** *soilik)* *izond ipar* lehertzeko modukoa, eskuarki irriz. ik **zapartagarri**.

**Zapartingarri** ere litake ez balitz nigarringarri! Herria

---

zapartingarri ik **zapartegingarri**.

---

**zapata** *(orobat* ***zapeta*** *g.er.)* **1** *iz* larruzko oinetakoa, zoru sendokoa, oina orkatileraino estaltzen duena. ik **oski**.

-Nik irakatsiko dinat **zapatak** lotzen. Anton Garikano

**Zapatak** askatuta eramaten dituzte. Anton Garikano

Leize baten tamainako tximiniaren ondoko aulkian eserarazi ninduen izebak segituan, eta **zapatak** erantzi zizkidan. Koro Navarro

Gero **zapatak** eta galtzerdiak erantzi eta galtza barrenak bildu zituzten. Koldo Biguri

"Baina kendu **zapatak**, aurrena", esan zidan. Bernardo Atxaga

Ormazabal, ken itzak **zapatak**, piratak oinutsik ibiltzen gaituk! Koldo Izagirre

Jaiki eta **zapatak** jantzi nituen. Fernando Rey

**Zapatak** jantzita zituzten eta itsasoaren erdian galdutako baltsa batean ziruditen biek. Harkaitz Cano

**Zapatak** higatzen nituelako halako lasterraldiak egiteagatik. Pello Lizarralde

Berrogeita hamar zentabo eta nickel bat **zapatak** garbitzeagatik. Lopez de Arana

Gonbidatuak **zapatak** busti barik hel daitezen dantzara. Julen Gabiria

Nire **zapaten** gomazko zolek zarata gehiegi egin dute ibilbide amaiezinean zehar. Iban Zaldua

Harriek mina ematen zioten oinetan, **zapaten** zola higatuetan iltzatzen baitzitzaizkion. Lopez de Arana

Boladan dago orain beltzen artean **zapatak** lokarririk gabe erabiltzea. Harkaitz Cano

Oinak arrastaka, aterantz jo zuen, **zapaten** lokarriak dilindan. Lopez de Arana

**Zapatentzako** krema horizontalki hedatuz **zapataren** gainean. Harkaitz Cano

Ohitura zen **zapatak** oliotan urtutako kedarrez lustratzea. Patxi Ezkiaga

Soineko berriena ahal bezain ederki plantxatzen, **zapatei** lustrea behin eta berriro ematen. Xabier Mendiguren Elizegi

**Zapatei** lustrea atera zienean, zutitu eta txalekoari behera tira egin zion. Irene Aldasoro

Dan Lewis-en dendan lan egiten zuen, **zapatak** saltzen-. Koro Navarro

**Zapatak** larruzkoak eta puntadunak ziren, eta distiratsu zeuden. Koro Navarro

Urratuak genituen jakak, bustiak galtzerdiak eta likatsuak **zapatak**. Koro Navarro

**2** (izenondo eta izenlagunekin)

Ez daki ondo non irakurri zuen, duintasuna mantentzen zutela adierazteko heriotzara kondenatutakoek zuten azken aukera **zapata** distiranteekin hiltzea zela. Harkaitz Cano

Apain eta dotore jantzi gintuan, gorbata eta **zapata** lustratuak. Josu Zabaleta

Oinetan, **zapata** zuri takoidunak. Bernardo Atxaga

Galtzerdi zuriak eta oinetan **zapata** puntadunak. Felipe Juaristi

**Zapata** plataformadunak erabiltzen ditu eta ilea kardatu egiten du altuagoa emateko. Berria - Mundua

Oinetan udako **zapata** zuri-beltzak, behatzentzako zuloekikoak. Koro Navarro

Bere **zapata** lodiei beha geratu zen. Blusa eskote handiduna, gona estu ñimiñoa eta **zapata** takoidunak. Lopez de Arana

Bi egun daramatzat ezer jan gabe -murmurikatu zuen bere **zapata** pitzatuei begira. Lopez de Arana

**Zapata** aho zabalak, galtza lisoak eta belusezkoak. Felipe Juaristi

Kristina **zapata** hutsean agertu zitzaidan, bere eder gorrian. Aingeru Epaltza

Gabardina zahar koipeztatua eta **zapata** maiztuak dituela. Javi Cillero

Tatariar **zapata** mutur-okerrak zeramatzan. Jose Morales

Txarolezko **zapata** arrakalatu baten puntaz zeraman konpasa. Lopez de Arana

Larru gorrizko **zapata** berri zorrotzek dir-dir egiten zuten bere oinetan. Lopez de Arana

Nire anaiaren galtza zaharrak eta nire gomazko **zapatak**. Pello Lizarralde

Gure neguko **zapatez** aita arduratzen zen. Fernando Rey

**3** (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

Pertsonaia biblikoak ziren **zapata**-garbitzaileak. Harkaitz Cano

-Ez nuen asko uste gure **zapata** lustreatzailea ikusi behar genuenik berriz han! Koldo Izagirre

Neskazahar, mirabe eta **zapata**-konpontzaile. Patxi Ezkiaga

Berak, Sergiok, **zapata** saltzaile profesionala izan nahi zuen. Jasone Osoro

Iltzetxoak ezpain artean zituela eta mailu txiki batez **zapata**-zoruak josten. Anjel Lertxundi

**Zapata** zolak gastatuak baitzeuzkan. Koro Navarro

Larru-puskak iltzatu genituen zapatariaren mahaian, hormetan eta atean, **zapata**-zolak josteko iltze txikiez. Anjel Lertxundi

**Zapatazolen** azpian elur hormatuaren krisk eta krask hotsak aditzen hasiak ziren. Fernando Rey

**Zapata**-zola erraldoien arrastoak ematen duten zulo bitxiz betea dago harkaitza. Koldo Izagirre

Izan ere, Maddik, gonak maite zituen orain, eta **zapatatakoinak**, eta ezpain-barrak. Aingeru Epaltza

Paolak ilea moztu nahi izanen zuen, **zapata**-takoi altuak eraman. Fernando Rey

**Zapata**-lokarriak ez dira sartzen! Anton Garikano

Urdinak zituen zapatak eta urdinak **zapata**-sokak. Felipe Juaristi

Gainean daramazun arropa aztertzen eman duzu istant bat: botoiak, **zapatak**, **zapata**-belarriak... Rafa Egiguren

Hark, zuk pagatutako **zapata**-larrua hautsi zuen bai, baina zuk gorputzeko larrua ebaki diozu. Patxi Ezkiaga

**Zapata**-krema saltzen duen baten gezurrak entzuteko. Koldo Biguri

Baionan ari lanean, **zapata** saltegi batean. Janbattitt Dirassar

**Zapata**-enpresa txiki bat omen daukate Istanbulen erdi bana. Jon Arretxe

Egunero joaten zen **zapata**-lantegi batera, bere zortzi orenen egitera. Daniel Landart

Argazkia **zapata** kaxa baten hondoan dago, egunkari txatal eta ginkgo hostoen artean. Harkaitz Cano

**Zapata**-kaxetan neukan dirua ere bazen zerbait. Juan Kruz Igerabide

**Zapata**-kutxa itxurako gela hura gaizki aireztatuta zegoen. Lopez de Arana

Dozenaka **zapata** pare berri ekarri zituen. Jasone Osoro

Nire ohe gainean nago eserita orain, aurrean **zapata** lerrokada bat daukat denak binaka jarrita. Joxemari Iturralde

Etxeetako obra txikiak edota **zapata** konponketak. Berria - Ekonomia

Farrukito dantzari bikaina da, eta berak parte hartu zuen dantza guztietan gaztetasunaren indarraren eta arintasunaren gainetik biribiltasuna azaldu zuen: hala nola **zapata** hotsetan, harroarena eta erratzarena egiten, itxidurak, ondulazioa,okerdurak... Berria - Kultura

· Bulegora iritsi bezain laster, komunean sartu eta **zapata**-galtzerdiak erantzi zituen. Karlos Linazasoro

**4** (hitz elkartuetan lehen osagai gisa, elkarketak izenondo balioa duela)

Aingeru **zapata**-garbitzaile bat emango dut, zilarrezko paperaz estaltzen nautenean. Harkaitz Cano

**5** (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa)

Limonada erosi zizkion mahai bateko neskatxa zuri bati, emakume-**zapata** takoidunak zeramatzan bati. Anton Garikano

Adi-adi begiratu zion bere buruari, arretaz, interes handiz, preso-**zapata** handietatik hasi eta sabeleraino, non atorra harrotzen baitzitzaion. Jose Morales

Traje txukuna, panty zuriak eta takoi-**zapata** irrigarri batzuk jantziko ditun. Joxan Elosegi

**6** (hiru osagaiko hitz elkartuetan)

Roberto Goaza komisarioak onaren eta gaizkiaren gainetik dagoenaren begirada zuzendu zion Cesarri, zure etorkizunaz dena dakitela eta etorkizun hori geratzen zaizkizun urte guztietan zapata-**garbitzaile** lanetan pasatzean datzala dakikenaren begirada. Harkaitz Cano

**7** galgaren atala, gurpilaren zatiren baten kontra ezartzen dena.

Bat-batean, berriro atera zituzten gurpilok, aurrean pistarik egon ez arren, eta galga-**zapatak** ere bai: urdailean ukabilkada bezalaxe, igogailuan goitik behera amiltzea bezalaxe sentitu nuen balaztada. Joxe Austin Arrieta

**8**

Perkusioetan Iñigo Egia izan dute eta Josu Salbide **zapata** eta dultzainarekin. Berria - Kultura

Jexux Aranburu teklistarekin eta Arkaitz Miner mandolina, biolin eta **zapata** jotzailearekin batera, Jonan Ordorika soinu teknikari zutela. Berria - Kultura

**9** ***zapatape*** (leku atzizkiekin)

**Zapatapean** sentitu egin behar dira lurraren zimur guztiak eta orduan erabaki, orduan bakarrik, norantz eman hurrengo urratsa. Hasier Etxeberria

Asfaltoa txarra da gero, ez dago **zapatapetik** kentzerik. Harkaitz Cano

Gainera, inguruko guztiak txakurrak baziren eta harrapatu nahiko balute, honezkero haien denen **zapatapean** zegokeen ahuspez. Unai Iturriaga

**10** (leku atzizkiekin, irud/hed)

Izen eta guzti, hantxe ziren Francoren **zapatapean** erresistentziari ekiten ziotenen izenak. Edorta Jimenez

**11** ***zapata-denda*** *(orobat* ***zapatadenda*** *g.er.)*

"Shoe Shop" **zapata-dendan**. Joxemari Urteaga

**Zapata-denda** handiaren erakustegiari beha gelditu zen, bota pare berriaren premia zeukan. Koldo Izagirre

Hermann ez beste guztiok **zapata-dendara** sartu ginen erakusleihotik. Anjel Lertxundi

Garai hartan hasi zen **zapata-dendan** lanean Sergio. Jasone Osoro

Pasatutako loteria-txartelak, **zapata-dendetako** ordainagiriak, elektrizitate-erreziboak. Unai Elorriaga

**hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**

**larruzko zapata** (7); **neurriko zapata** (4); **nire zapata** (7); **oinetan zapata** (3); **txarolezko zapata** (3)

**zapata bat** (11); **zapata batzuk** (3); **zapata beltz** (4); **zapata beltzak** (8); **zapata beltzak jiraka** (3); **zapata berriak** (7); **zapata denda** (6); **zapata dendan** (8); **zapata dendara** (4); **zapata garbi** (3); **zapata garbitzaile** (6); **zapata garbitzailea** (3); **zapata garbitzailearen** (3); **zapata gorriak** (4); **zapata kaxa** (13); **zapata kaxetan** (6); **zapata kutxa** (4); **zapata lokarriak** (3); **zapata marroiak** (6); **zapata pare** (26); **zapata pare bat** (8); **zapata pareak** (6); **zapata politak** (3); **zapata takoidunak** (13); **zapata takoidunak zeramatzan** (3); **zapata zahar** (3); **zapata zola** (7); **zapata zolak** (5); **zapata zuri** (6); **zapata zuriak** (7); **zapata zuriekin** (3)

**bere zapatak** (5); **gomazko zapatak** (3); **kendu zapatak** (4); **nire zapatak** (8); **takoidun zapatak** (3)

**zapatak egiten** (4); **zapatak eramatera** (3); **zapatak erantzi** (10); **zapatak erantzi nituen** (3); **zapatak erosi** (3); **zapatak eskuan** (3); **zapatak eta jaka** (3); **zapatak garbitu** (5); **zapatak garbitzeko** (3); **zapatak garbitzen** (11); **zapatak jantzi** (7); **zapatak jantzita** (6); **zapatak kendu** (13); **zapatak lokarririk gabe** (3)

**bere zapatei** (5); **zapatei lustrea** (4)

**bere zapaten** (4); **zapaten gainean** (5); **zapaten zola** (3)

**zapatetako lokarriak** (8)

---

zapatadenda ik **zapata 11**.

---

# zapatadun *izlag* zapatak dituena.

Autobusa gelditu eta kakalardo **zapatadun** gizona jaitsi da argitasunean galduz. Eider Rodriguez

---

# zapatagile *(9 agerraldi, 3 liburu eta artikulu 1ean)* *iz* zapagina. ik **zapatari**.

Jostuna edo **zapatagilea** edo larru-ontzailea izan nahi baduzu, gazte hasi beharra daukazu. Koro Navarro

Baina sutea ez zen **zapatagilearenean**; Henneren etxean zen. Koro Navarro

**Zapatagileen** kaleko egoitzan. Berria - Euskal Herria

Haiek erakusten dizute **zapatagile** zekena zigortzeko zeure oinak ebaki behar dituzula! Koldo Biguri

---

# zapatagin *(46 agerraldi, 10 liburu eta 2 artikulutan; orobat* ***zapatain*** *11 agerraldi, 2 liburu eta 4 artikulutan, eta* ***zapetain*** *g.er.)*

**1** *iz* zapatak egiten dituen pertsona. ik **zapatari**.

Baita Probka Stepan zurgina ere; eta Milushkin, adreilugilea; eta Maxim Teliatnikov, **zapatagina**. Jose Morales

Tomas Atondo, **zapataginen** karrikako ofizialea. Aingeru Epaltza

**Zapatagina** bota-parea josten, okina lantsu labearen alboan. Jose Morales

**Zapataginek** larrua lantzen dutelako, larruontzaile, eta larrugintzan dihardutenek eta zurratzaileek ere bai, San Markos hartu zuten. Pello Zabala

Aprendiz gisa jartzea nahi al duzu, demagun, **zapataginarenean**?" **Zapatagina** bezain mozkorra", dio esaera zaharrak. Itziar Otegi

**2** (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa)

Iruñeko **zapatagin**-mutila aitonen seme. Aingeru Epaltza

**Zapatagin**-ikastunari puska bat joan zitzaion armagizon haien artean bere mintzairaz egiten zuenik aurkitu arte. Aingeru Epaltza

Bentzutuak gotorlekutik kanporatzen ari zirenean, aitatxi oldartu zitzaien, **zapatagin**-mailua eskuan zuela. Aingeru Epaltza

Errexki deliberatu zen, baietz beraz eta Baigorrirat jin zen bere **zapatain** tresnekin eta emaztearekin. Michel Oronoz

**hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
**eko zapatagin** (3); **iruñ zapatagin ikastuna** (3); **zapatagin mailua** (3)
**eko zapataginen** (3); **iruñ zapataginen karrikako** (4)

---

**zapatagintza** *(orobat* ***zapataintza, zapataingo, zapetaintza*** *g.er. eta* ***zapetzaintza*** *g.er.) iz* zapatak egitea; zapataginaren lanbidea.

Bestelako ogibide batzuk ere badute tokia solairu horretan: artilearen prestakuntza, joskintza, errementaritza, **zapatagintza**, espartingintza eta abarkagintza, esaterako. Berria - Kultura

Hazparnen baziren 1400 langile oraino **zapatagintzan** ari zirenak orain dela 50 urte... Menane Oxandabaratz

Ordu hetan familia horrek egiten zituen eliza artatze, zeinu joite, ilharri apaintze, **zapataingoko** ofizioa atxikiz. Herria

*Les Tissages du Saison* enpresaren lehendabiziko jarduera izan zen **zapatagintzarentzako** oihalkiak fabrikatzea. Berria - Harian

Ez zuen sekula Etxarrin horrelako mugimendurik ikusi, ordura arte langileak plantan eta sanoki lanean ari izanak ziren, beharrean gune industrialeko **zapatagintzetan** hilortzen ziren grebez burlatuz. Itxaro Borda

---

zapatain ik **zapatagin**.

---

zapataingo ik **zapatagintza**.

---

zapataintza ik **zapatagintza**.

---

**zapatakazo** *iz adkor* zapata kolpea.

Gero sentitu zuen han zihoala don Pedro korridore luzeetan barrena, amorruak irakiten zegoenean ematen zekien **zapatakazo** haiek emanez. Juan Garzia

---

zapatape ik **zapata 10**.

---

**zapatari** *(118 agerraldi, 37 liburu eta 4 artikulutan)* **1** *iz* zapatak egiten dituen pertsona. ik **zapatagin**.

Jostunak eta **zapatariak** dira, larrua lantzen dute, erlojuak konpontzen dituzte, sendagaiak saltzen dituzte botiketan... Felipe Juaristi

Apodaka zen hiltzaile famatuena garai hartan Gasteizen, **zapatari** izandako polizia bat zen. Mikel Hernandez Abaitua

Irlandan jaio zen, eta **zapatari** gisa hasi. Juan Garzia

Bisita dezagun **zapatari** horren denda. Anjel Lertxundi

**Zapatari** aprendizak mira handia hartu zidan. Pello Lizarralde

Halakoetan, **zapatarien** karrikako bere lagunak ekartzen ditu gogora. Aingeru Epaltza

Ikusiko duzu Apelesek **zapatariari** eginiko alegia txalotu horrekin erantzungo dizutela, **zapatariak** irudi bateko sandalian okerren bat zegoela ohartarazi omen zuen, eta gero, artistak okerra zuzendu zuela ikusi zuenean, belauneko anatomiaz iritzia ematera menturatu zen, orduan Apelesek, haserre mihiluzearekin, zera esan zion, ***Zapatari***, *ardura hadi heure zapatez,* esaldi historikoa. Jon Alonso

**2** (izenondoekin)

**Zapatari** judu baten denda bisitatuko diagu. Anjel Lertxundi

Poeta ultraista izana zen Enrique, adibidez, eta Josep **zapatari** anarkista baten seme boxeolaria. Unai Elorriaga

Eta hartan ari zela, **zapatari** kopetatsu baten berri ematen hasi zitzaigun, eta haren dendaren helbidea ere esan zigun. Anjel Lertxundi

**3** (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

Lokala **zapatari**-dendatik oso hurbil zegoen, eta bezeroek derrigorrez entzun behar izan zituzten guk han ateratako zirriparrak. Anjel Lertxundi

Hori bere jostun eta **zapatari** familiatik zetorren. Pello Lizarralde

Benetan pentsatzen nuen nahiko ongi hasia nuen **zapatari** karreran jarraitzea. Pello Lizarralde

**4** (izenondo gisa)

Gure amaren anaia **zapatari** batek eta zerrategian mekanikaria zen beste batek askotan bota zioten aurpegira iritzi hori Federicori. Pello Lizarralde

Uda hartatik aurrera dirua irabaztearren osaba **zapatariaren** dendan jarri nintzen mutil. Pello Lizarralde

**5** ibaietako intsektu hankaluzea.

Sasiak, inguruko sahatsak, ur geldoa, **zapatariak**... Hasier Etxeberria

Horrelaxe ibiltzen dira ur gainean **zapatariak**! J.M. Olaizola "Txiliku"

Ez duzu aurkitu ez **zapataririk** ez eta bestelako intsekturik ere. Hasier Etxeberria

**6** (izenondo gisa)

Zomorro **zapatariek** soilik ximurtzen eta biziberritzen dute uraren azala, etengabeko dantzan. Hasier Etxeberria

**hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
**osaba zapatariak** (3)
**osaba zapatariaren** (4)

---

zapatatakoin ik **zapata 3**.

---

**zapatategi** *iz* zapatak gordetzeko altzaria.

Nire tokitik ezin tankerarik eman, **zapatategi** bat, beharbada, edo tamaina eskaseko hozkailua bertzenaz. Aingeru Epaltza

Gero, **zapatategi** edo hozkailu tiki, altzari nire begietarako zehaztu gabera jo zuen. Aingeru Epaltza

zapatatu ik **zapateatu**.

**zapatatxo** *iz* zapata txikia.

Lurrean bilaka eta miaka, hanka susmagarri bat topatu nuen, itxuraz emakume-hanka, zilar-koloreko **zapatatxoa**. Fernando Rey

**Zapatatxo** zilar-kolore arrunt polit hori. Fernando Rey

Zeta beltzezko galtzerdi distiratsuen eta borladun **zapatatxo** gorrien dirdaia gizonen aurpegietan islatzen zen. Lopez de Arana

Antza denez, jaun nahiz andereak, Porte Champerretera joan asmoz, igotzen edo jaisten zirenean, metodo sistematikoz oinperatzen zizkion txarolezko **zapatatxoak**. Xabier Olarra

**zapatatzar** *(orobat* ***zapatazar****)* *iz adkor* zapata erraldoia.

Zapatatxo bat eta **zapatatzar** bat zeuden mahai baten azpian nengoen, gizaseme bat eta emakume bat liluran amazonen borroka zela-eta. Fernando Rey

Nerabezarotik ozta-ozta irtena zen mutil gazte batek bere lan osoaren helburutzat dotorezia hartu izanak zer pentsatua eman behar zien jakitatean barrena **zapatatzarrak** jantzita abiatzen diren horiei. Jon Muñoz

zapatazar ik **zapatatzar**.

zapatazola ik **zapata 3**.

**zapateatu** *(orobat* ***zapatatu****)* *iz* espainiar dantza bizia takoi ukaldiz egiten dena.

Oinetara begira, **zapateatuaren** bizkortasuna jarraituz. Berria - Kultura

Canales-ek ez zuen apenas dantza mailarik erakutsi, eta **zapatatuaren** dohainak ere ez zituen eskaini. Berria - Kultura

Dantzatzeko irudi akademikoa azalduz eta gorputz enborra zirkinik mugitu gabe, zuzendariaren eskolako **zapateatu** ona eskaini zigun. Berria - Kultura

**zapategi** *iz* zapata-denda.

**Zapategiko** atean, Tomas Atondok bidea moztu nahi izan zion semeordeari. Aingeru Epaltza

**Zapategian**, akitzeraino egiten zuen lan Tomasen esku latzaren manupean. Aingeru Epaltza

Numeroen laguntzaz egin zitzakeen buruketak, **zapategi** bat kudeatzeko edo larru saltzaile baten iruzurra saihesteko ziren doi-doia. Aingeru Epaltza

Merezi izan ote dion aitaren **zapategia** utzi izanak, erregeren alde egiteko. Aingeru Epaltza

Tomas Atondok noski **zapategia** itxi eta San Nikolas ate-ra jo zuen, familia guztiarekin batean. Aingeru Epaltza

**zapatila** *(102 agerraldi, 44 liburu eta 12 artikulutan; orobat* ***zapatilla*** *52 agerraldi, 20 liburu eta artikulu 1ean)* **1** *iz* etxean ibiltzeko edo kirol egiteko oinetako bigunak. ik **txapin**.

Beldurrak airean, dardarka, txabusina eta **zapatilak** jantzi zituen. Lopez de Arana

Elliek **zapatilak** kendu eta ohera itzuli zen. Lopez de Arana

Horregatik utzi zenuen soinekoa, horregatik ekarri zenituen **zapatilak** sandalien ordez. Lander Garro

Gas pedalari atxikita daukat **zapatila**, Mack trailer bat aurreratu berri dut. Javi Cillero

**Zapatilen** zolaren ustezko eraldaketagatik. Berria - Kirola

Abadiñoko Edu Mendizabalek ez du ukatu **zapatiletako** takoak «lijatu» zituztela. Berria - Kirola

Tiralariek beti jardun dute nondik edo handik **zapatilen** atxikigarritasuna hobetzen. Berria - Kirola

Txabusina jantzita, **zapatilak** oinetan. Iñaki Iñurrieta

Halaxe geratu ginen denok urte amaiera hartan: buzoarekin **zapatiletan**. Jokin Urain

**2** (izenondo eta izenlagunekin)

Oinetan, kirol egiteko **zapatila** zuriak. Joxemari Iturralde

Ondoan eserita, esate baterako, atso ileurdin bat genuen, etxeko bata zarpail eta **zapatila** beroekin. Joxean Agirre

Marka ezaguneko **zapatila** garestiak oinetan. Jon Arretxe

Ia ilunpetan abiatzen da sukaldera, **zapatila** zaharrak arrastaka. Alberto Barandiaren

Gaztaina-koloreko **zapatila** zarpailak. Anjel Lertxundi

Buzo urdin bat eta udako **zapatilak** eman zizkiguten, ez barruko arroparik ez galtzerdirik. Jokin Urain

Etxeko **zapatiletan** irten nintzen atetik. Juan Kruz Igerabide

Etxeko **zapatiletan** egotea funtsean egoera mentala da. Berria - Kultura

Larruzko **zapatilak** -arabiar babutxen antzekoak- aldean, Ernest Hemingway Carlton hotelera iritsi zen. Edorta Jimenez

Jaka sarrerako kakoan eskegi eta koadrozko **zapatilak** jantzi ondoren, eroso eseri naiz egongelan. Patxi Iturritegi

**3** (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

-Zure gorputzak beharko lituzke **zapatila** ukaldi horiek, gantza urtu dakizun. Patxi Zubizarreta

**4** (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa)

Emakumeak dantza-**zapatilak** erantzi zituen eta kontu handiz sukaldea zeharkatu zuen. Lopez de Arana

Bakeroak, kirol **zapatilak** eta txandal antzeko txamarra. Sonia Gonzalez

Sinpatikoak dira untxi-**zapatilak**, kolore bizikoak, baina gutxitan izaten dute halako sorta bat fabrikan. Iban Zaldua

**hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**

**etxeko zapatilak** (4); **kirol zapatilak** (5); **zapatilak erantzi** (3); **zapatilak jantzi** (4)

**etxeko zapatiletan** (5)

zapatilla ik **zapatila**.

---

**zapatismo** *iz Askapen Nazionaleko Armada Zapatista* delakoaren erakunde politiko eta ideologikoa.

1994ko urtarrilaren 1ean Chiapasen EZLNko gerrillariak matxinatu zirenetik, **zapatismoa** ikur garbia bihurtu da. Txema Ramirez de la Piscina

**Zapatismoa**, eta bereziki Marcos komandanteordea, poetika berri horren adierazle garbia da. Txema Ramirez de la Piscina

Komunikazioa da **zapatismoaren** arma nagusia. Txema Ramirez de la Piscina

**Zapatismoa** ez da mundu osorako eskema baliagarria. Txema Ramirez de la Piscina

**Zapatismoa** ez da mundu osorako eskema baliagarria. Txema Ramirez de la Piscina

---

**zapatista** *(orobat **zapatixta** g.er. eta **zapatizta** g.er.)* **1** *izond* zapatismoarena, zapatismoari dagokiona.

Lizunduta zegoen diskurtsoa berritu du buruzagi **zapatistak**. Txema Ramirez de la Piscina

Contreras matxinatu **zapatista**. Berria - Kultura

EZLN Askapen Nazionaleko Armada **Zapatista** Chiapasko hainbat hiritan sartu zen. Berria - Mundua

Juan Gelman poeta argentinarrak Marcos komandanteorde **zapatistari** egindako elkarrizketa. Iñigo Aranbarri

Urte bat bete da komunitate indigena **zapatistek** beren buruak gobernatzeko erakundeen moldaketa iragarri zutenetik. Berria - Mundua

Egile eskubideekin jasotako dirua lurralde **zapatistara** bideratuko dute. Berria - Kultura

Mugimendu **zapatistaren** aldeko kanpaina baten barruan. Berria - Kultura

Bada Chiapasen talde paramilitar bat, Armada **Zapatistaren** kontra egitea duena xede. Iñigo Aranbarri

-Motibo **zapatistak** pintatzen hasi nintzen, lan errazak. Unai Iturriaga

• **2** *iz* zapatista den pertsona.

EZLNk «alerta gorria» ezarri eta Chiapasen bildu ditu **zapatistak**. Berria - Harian

**Zapatistak** dira Chiapas deitu probintzian gobernuaren kontra altxatuak. Herria

**Zapatistek** kontrolatzen dituzten eremuetan bizi diren indigenen bizi-baldintzek hobera egin dute. Txema Ramirez de la Piscina

Chiapasko estatuan **zapatistek** eremu indigena autonomoak sortu dituzte euren lege propiopean, Mexiko DFko agintetik at, kontroletik at. Txema Ramirez de la Piscina

Afaloste batean Nereak **zapatisten** komunitate batera berarekin joateko proposamena egin zion. Eider Rodriguez

**Zapatistek** mundu zabalean izan duten arrakastaren giltzetako bat hizkera bera izan da. Iñigo Aranbarri

Haatik, **zapatistek**, dagoeneko, jomuga oso garrantzitsuak lortu dituzte: Mexikoko indigenen zapalkuntza mundu guztiaren aurrean nabarmen gelditzea. Txema Ramirez de la Piscina

**Zapatisten** mobida hasi zenean. Unai Iturriaga

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
> **armada zapatistak** (7); **buruzagi zapatistak** (4); **marcos komandanteorde zapatistak** (3)
> **armada zapatistako** (3)
> **armada zapatistaren** (6)

---

zapatixta ik **zapatista**.

---

zapatizta ik **zapatista**.

---

**zapatu**[1], zapa(tu), zapatzen du *ad ipar* zapaldu, sakatu. ik **zanpatu**.

Kasik gelditu gabe, botoinak **zapatzen** zituen! Ramuntxo Etxeberri

Ordinagailu txiki baten pantailaren gainean **zapatu** behar ziren eskatu informazioak! Ramuntxo Etxeberri

**Zapaturen** ez dukan xendra. Herria

Beste seinale bat egin zien arma baten kanoia bere urdailaren **zapatzen** sentitu zuelarik. Elena Touyarou

Egun osoan gorputzak irentsi duen beroan murgildua naiz, Navarrete bera, sapak **zapaturik**, doi-doia higitzen hasia denean. Piarres Aintziart

Gaitzeko indarra behar zen zimitzaren barnean, ore mokor gotor haien kokatzeko, **zapatzeko**, tapalakaldi bakoitzean are gazur gehiago isurtzen zela. Itxaro Borda

Mokanes arrosa-xuri batekin **zapatzen** zituen sudur-ezpainak. Daniel Landart

Azpitik atxikitzea ez askiz, handiek ttipiak **zapatuko** dituztela eta lehertzerainokoan hertsatuko, gu beldur. Piarres Xarriton

Libertatearen segurtatzea, azkartzea, garatzea, lanjerrean delarik zaintzea, galdua edo **zapatua** delarik, ber-eskuratzea, mihiz, eskuz edo berdin odolez, borrokatzeko ditugun armekin. Michel Oronoz

Egun baketsuak barneko borrokak **zapatu** dizkit. Piarres Aintziart

Bakea finkatuko dela zapatzaileak **zapatuarekin** hartu emanetan sartuz, eta ere Jerusalemen gaindi haxean jar litaizkela gauzeri behatuz, palestindarrek zer nahi duten. Herria

---

**zapatu**[2] *iz* larunbata.

-Aizue, barkatu lehenago ezer ez esatea... baina asteburuan kontzertua daukagu, **zapatuan**. Unai Iturriaga

Joan den **zapatuan**, bizpahiru orduz, argindar barik geratu ginen Mundakan. Berria - Kultura

Pentsamendu maltzurra etorri zaizu azalpenen erdian, **zapatu** gaua gogoratuz. Urtzi Urrutikoetxea

**Zapatu** arratsaldean haurra zaintzen du, hirira joaten naizenean erosketak egitera. Eskarne Mujika

Urte bi egin zituan ofizioa ikasten, egunez behar, gabaz soinua ikasi, **zapatu** iluntzean etxera eta astelehen goizean beharrera. Xabier Amuriza

Noizean noiz, Yolande ikusten dut, **zapatu** gauez. Eskarne Mujika

Normalean **zapatu** gauean etxeratzen naiz, beranduan, baina batzuetan domeka goizera arte ere geratu izan naiz. Eskarne Mujika

**Zapatu** santuz ere, elizan goizeko kanpaiak [...] jo arte, ezin zitekeen ogia egiten hasi. Pello Zabala

Musikariek **zapatuan** jai. Juan Garzia

**Zapatuan**, ez da lanik egiten fabrikan. Eskarne Mujika

**Zapatuetan** ere eskola izaten genuen eta **zapatua** ipuinak irakurtzeko eguna izaten zen. Ana Urkiza

**Zapatuko** kontzertuan, kantu bat estreinatu zuen Mikel Urdangarinek. Berria - Kultura

**Zapatuetako** goatekeetan ezagututako mutilak, euren zirriak eta ausarkeriak atzean geldituak ziren. Urtzi Urrutikoetxea

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
> **zapatu arratsaldean** (4)

---

## zapatzaile *iz ipar* zapatzen duena, zapaltzailea.

Amerikako populuen gudukak **zapatzaileen** aurka. Herria

Bakea finkatuko dela **zapatzaileak** zapatuarekin hartu emanetan sartuz, eta ere Jerusalemen gaindi haxean jar litaizkela gauzeri behatuz, palestindarrek zer nahi duten. Herria

---

## zapazgarri *izond* zapalgarria.

Egia erran oraiko hiru egun bakar horiek bazuten halako eskas eta **zapazgarri** aire bat bizi berri batek daukan garantzi eta adieraren aldean. Herria

---

## zapaztatu *izond* zapaldua.

Bizkitartean, Bela azaldu zen: bufanda txuri-gorria, zapatilla eskasak, buruan ile **zapaztatu** batzuk. Pablo Sastre

---

## zapeatu, zapea(tu), zapeatzen du *ad* zaping egin.

-Orain hurrengoan, **zapeatzen** ari nintzela, orain arteko gauzarik kutreena ikusi nuen telesbistan. Iñigo Aranbarri

Ez du ikusten, **zapeatu** egiten du, eta maiz erabiltzen du hitz hori, batez ere lagun artean kalitate eskaseko zerbaiti buruz hitz egin nahi duenean. Iñigo Aranbarri

---

## zapel *(orobat* ***zapela****)* **1** *iz ipar* kapelua. ik **kapelu**.

Hok beren beztimenta berezietan dira, beren larruzko uhal zabalekin, bota eta **zapel** denak larruzkoak Argentinan baita zernahi larruzko gauza. Herria

Atsoak kapelu edo **zapel** bat badu, elorriz apaindurik, eta soinean zaia zahar bat. Angel Aintziburu / Jean Baptiste Etxarren

Luma urdin batek apaintzen zuen nire **zapela** eta zurezko gurutze batek nire paparra. Aingeru Epaltza

**2** txapela, eskuarki handia.

**Zapela** kendu du, burusoila da. Koldo Izagirre

Berbera dago bere **zapel** zaharrarekin eta haren idazkaria betiko neska ederra. Herria

**Zapela** zikin bat zeraman gizonak, atzeraka erorian, belarriak nabarmentzen zizkiola. Koldo Izagirre

Gazteenak **zapelari** atzera eta aurrera eragiteko ohitura dauka, berba egiten hasteko. Koldo Izagirre

Ttottek aldiz bizpahiru hilabeteko bizar nahasia zeukan, **zapel** zabala buruan eta zilarrezko gurutze saindu erraldoia papoan dil-dil. Itxaro Borda

---

## zapeladun ik **zapeldun**.

---

## zapelaitz ik **zapelatz**.

---

## zapelatz *(orobat* ***zapelaitz*** *g.er.)* *iz* miruaren antzeko hegazti harraparia, isats-laburra, gainalde arre iluna eta azpialde arre argiagoa duena *(Buteo sp).*

Belar eta urrebotoi artean etzaten ginen ibaialdean, eta gorantz begiratzen genuen, zeruan bizi-bizi lerratzen ziren hodeiei adi-adi, edota haizearen erauntsipean **zapelatz** marmarti baten atzetik zebiltzan beleei so. Mirentxu Larrañaga

**Zapelatz** bat jan bila ari da elurraren arrasean. Jokin Muñoz

**Zapelatza** bezain arina dela gure anderea. Patxi Ezkiaga

Badirudi benetan, bai era askotako txori-motaren pozkarioa, bai **zapelatzaren** kantua, Jainkoarengandiko zantzuak zirela. Askoren artean

Txabolako teilatuan **zapelatza** ari da karraka, ingurune elurtuak arakatzen. Jokin Muñoz

Gauero, santuak Jauna gorestera jaikitzeko ohitura zuen orduan, **zapelatzak** bere kantuz eta hotsez abisatzen zion. Askoren artean

Aireplano bi itzulinguruka dabiltza urrunean, **zapelatzak** antzo. Mirentxu Larrañaga

Gaztelu horretan **zapelatz** bat izigarri eder eta atsegina bere egon lekuan pausatua eta hura zaintzen duen lamia xarmagarria ikus daitezke. Aurelia Arkotxa

Del Valle SS taldeen artean zebilen, **zapelatz** begiez biktima egokiaren bila. Alberto Ladron Arana

---

## zapeldun *(orobat* ***zapeladun****)* *iz* zapela duena.

Eta ez baitzen, orain bezala, jende xehea menturatzen gobernuan agertzera, **zapeldun** horiek zituzten ardiesten anitz gauza herriaren edo herritar baten alde. Angel Aintziburu / Jean Baptiste Etxarren

Suposatzen dut sotana kakoan utzita kaleratuko zela orduan ere, mahonezko jantzian eta **zapeladun**. Koldo Izagirre

-Arma fabrikan egiten diagu lan, baina gu bortxakeriaren aurka gaudek -dino **zapeladunak** -. Koldo Izagirre

Josep Pla **zapeldunari** leitu nion pasartea. Patziku Perurena

---

## zapelgorridun *izond* zapel gorria duena.

Karlista **zapelgorridun** bat ikurriñari tiroka balkoitik. Patziku Perurena

---

## zapero *iz* zahiarekin egiten den janaria, etxe hegazti eta txerriei ematzen zaiena.• *irud/hed*

Gogotik afaldu dut, pozik nago eta hainbestekoa iruditu zait **zapero** hau, nire mehatxua betetzen ari da. Koldo Izagirre
Inonoiz jan behar izan dudan **zaperorik** higuingarriena ematen zuten hemen, eta kexa gogorra egin nion zuzendariari. Koldo Izagirre
Ez nion inori pasa, gauero emoten ziguten **zaperoagaz** batera joan zen hondakinen pertzera. Koldo Izagirre

---

zapeta ik **zapata**.

---

zapetagintza ik **zapatagintza**.

---

zapetain ik **zapatagin**.

---

zapetaintza ik **zapatagintza**.

---

**zapetaka** *iz ipar* zapata kolpea.
Nik maite dut errugbia ere eta **zapetaka** batzu emaiten dituzte bainan, ez baldin bada espres, norbait ez baldin bada zangopilatzen edo... Menane Oxandabaratz

---

**zapeteria** *iz ipar* zapata denda; zapatagintza.
Eta bestalde baziren etxeetan ari zirenak, **zapeteria** horietako lanean; hor larru-juntatzen ari zirenak. Ainitz urtez, **zapeteria** lantegi baten buru izanik bere familiarekin, ainitz ezagutua izan da eta guziz estimatua. Menane Oxandabaratz

---

zapetzaintza ik **zapatagintza**.

---

**zapi** **1** *iz* ehun zatia, gehienetan lauki itxurakoa, jantzien osagarri edo norberaren txukunketarako erabiltzen dena. ik**oihal**.
**Zapi** guztiak neurri berekoak izango dira: hamalau metro luze eta bi metro zabal. Elizen arteko biblia
**Zapiaren** ordez izara bat astintzen azaldu zen atarian. Ramon Saizarbitoria
Buruko estalkian **zapi** bat, bere maitasunaren seinale. Juan Kruz Igerabide
Lehenengo ekar ezazue mesedez ura eskuak garbitzeko eta **zapi** batzuk, xukatzeko. Askoren artean
Lepo-bueltan **zapi** bat lotu dio. Itziar Otegi
**Zapi** batez lotua zekarren Stillek eskua. Koro Navarro
Ahoa **zapiaz** garbitzen du. Koro Navarro
Tamarrek alargun-soinekoa erantzi eta **zapi** batez estali zuen aurpegia. Jose Antonio Mujika
Ezin zitzaion igarri nor zen, begiak **zapi** batez estaliak baitzituen. Elizen arteko biblia
**Zapia** kendu eta berak garbitu dio muki arrasto hori, xuabe-xuabe. Jokin Muñoz
Jira eta buelta begiradak, **zapia** toles eginda. Felipe Juaristi
Leihoa itxi zuen eta beti gerritik zintzilik zeraman **zapia** pasatu zuen kristaletan. Anjel Lertxundi
Lurrean belauniko, **zapi** batez estutzen zion berak zauria, hilzoria betiko luzatu nahian, dizipulu hark Senekari bezala. Imanol Zurutuza
Eskuburdinak jarrita eta begiak **zapiz** estalita atera zuten atxilotua autotik. Berria - Euskal Herria
Mihura ebakitzen du urrezko igitai batez, eta **zapi** zuri batean biltzen. Patziku Perurena
**2** (izenondo edo izenlagunekin)
Itsuak poltsikotik **zapi** zuri fin bat atera zuen. Felipe Juaristi
Mutil taldeak, buzoz eta **zapi** gorriz jantzita, edo behinolako partisano uniformez. Josu Zabaleta
Berehala xukatu zuten izerdia **zapi** gorriez. Felipe Juaristi
Baziren emakume errusiarrak, marta larruzko berokietan sartuak, zetazko **zapi** ñabarra buruan. Felipe Juaristi
Amari zetazko **zapi** dotore bat erosi nion, eta aitari atorra koadrodun bat. Xabier Montoia
Lepoan **zapi** koloretsuak daramatzate. Felipe Juaristi
Burua **zapi** ilun baten bildua zeukan. Koldo Izagirre
Amari zetazko **zapi** dotore bat erosi nion, eta aitari atorra koadrodun bat. Xabier Montoia
Manifestariak bandera beltzak, **zapi** palestinarrak eta buruzagiaren argazkiak eraman zituzten dolu ikur gisa. Berria - Mundua
Hirugiharra eta ogia, **zapi** garbi batean bildurik. Anton Garikano
Kutsaturik gaude guztiok, gure egintzarik onenak ere **zapi** zikinen antzeko. Elizen arteko biblia
Andreas oharkaren ertzean eseri zitzaion, **zapi** busti bat eskuan. Anjel Lertxundi
Ni arduratzen nintzen [kimu] hura zaintzeaz, inguruko belar txarrak kentzeaz, izotz beltza egiten zuenean **zapi** saretu batez estaltzeaz. Anjel Lertxundi
Bere **zapi** handi koadroduna atera eta harekin mahaiak eta aulkiak jotzen hasi zen, euliak uxatzen ibiliko balitz bezala. Koro Navarro
Txanoari begi parean josia artile eta lihozko **zapi** bat. Askoren artean
Ertz brodatuekiko **zapi** batistazkoa estutu zuen gero. Jose Morales
Bere buruko **zapi** loredun koloretsua zegoelako esekita. Ramon Saizarbitoria
Eguzkitako bat, eskularruak eta sakelako **zapi** bat ere aurkitu zituzten. Koro Navarro
Jantzi dotore, mantu, lepoko **zapi** eta poltsak, gona fin, durbante eta mantilak. Elizen arteko biblia
Paperezko **zapi** garbitzaileak. Mirentxu Larrañaga
Parpailazko **zapi** apaingarriak. Oskar Arana
**3** (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)
-**Zapi** mutur bat eman zidaan Garner andreak. Anton Garikano
Hatz-puntaz lehortu da, anaia nagusi Felixek busti gabe utzi dituen **zapi**-muturrekin. Itziar Otegi
Eskuak oihal zarpailez estalirik, aurpegia **zapi** zatiez gorderik. Felipe Juaristi
Ipini purpura morezko lokarriak bi **zapi**-sailen ertzetan. Elizen arteko biblia

Luzaz lagundu zioten beren diosalekin eta **zapi**-astinduekin. Jose Morales

**4** (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa)

Hau amaitzean, ezkontza **zapi** bat erostera joango gara. Juan Kruz Igerabide

Hauts-**zapia** gelako bazter guztietan pasatu genuen. Juan Kruz Igerabide

Buruko txano bat, lepo **zapi** bat eta beste gauza pila bat neraman. Josu Zabaleta

Artilezko sorbalda-**zapi** bat hartu eta lurrean zabaldu zuen, arrautza hantxe eror zedin. Josu Zabaleta

Txori bat bordatu behar zuela lerde-**zapi** batean. Joseba Urteaga

**5** irud/hed

Moisesen liburuak irakurtzen dituztenean, **zapi** hark adimena estaltzen die israeldarrei. Elizen arteko biblia

Elur gisan ari du oroimena: milaka orratz ixil ziztaka gogoan, denbora josten bihotza, irudimeneko **zapi** zurian. Patziku Perurena

**6** haize oihala.

Mastetan bildurik ziren **zapiei** begiratu nien. Edorta Jimenez

**Zapia** puztea,ez zen besterik falta *Ánimas* karraka nabigatzen has zedin. Edorta Jimenez

Aingura igo, haizeari **zapi** bat eman, eta hantxe abiatu ginen, astiro, airos eta uraren gainean harro. Edorta Jimenez

Ea gizonak, **zapi** bat gora! Edorta Jimenez

-Behera **zapiak**, prest aingurak. Edorta Jimenez

Berba haiek entzutean, aparailuak jaisten izan ginenok haietako trapuak, alegia, lehenago **zapi** harro izanak ziren oihalak, bizkar-gainean taxuz apailatzen genihardduen eta, trapu haietako batzuk norbaiten gorpuarentzat beztidura bihur zitezkeela begitandu zitzaidan. Edorta Jimenez

**-Zapiak** mendebaldean! -oihu egin genuen pilotu biok, pozezko aldarri bakarrean. Edorta Jimenez

**7** *aho zapi* ik **ahozapi**.

**8** *buru zapi* ik **buruzapi**.

**9** *esku zapi* ik **eskuzapi**.

**10** *ezpain zapi* ik **ezpainzapi**.

**11** ***mahai zapi***[1] (*28 agerraldi, 19 liburu eta 2 artikulutan; orobat* ***mahaizapi*** *g.er.)* jatorduetan mahaia estaltzeko eta babesteko ipintzen den zapia. ik **zamau; dafaila**.

Zerbitzaria **mahai**-zapiak kentzen hasia zelako. Ramon Saizarbitoria

**Mahai zapiari** begiratzen zion, eta dudazko mugimenduak egiten zituen labana eta sardearekin. Koro Navarro

Hemen ez dago ez **mahai-zapi**, ez aizto, ez taiel, ez plater, ez etxe. Askoren artean

Nire senideek edo nik **mahai**-zapiaren gainera baso bat irauli edo labana bat lurrera erortzen uzten bagenuen, aitaren trumoi-ahotsa aditzen zen. Fernando Rey

Zuloan egunero kartara jaten duk, **mahai**-zapi, ezpain-zapi eta guzti, eta funtzionarioek zerbitzatuta. Pedro Alberdi

**12** ***mahai zapi****sup_2 (orobat* ***mahaizapi****)* mahaian erabiltzen den eskuzapia.

Neskak berak luzatu zidan eskua garbitzeko **mahaizapia**. Aingeru Epaltza

-Beno, zer moduz Mexikon, hire bakantzetan? -galdetu zion **mahai zapia** belaunen gainean ezartzen zuen bitartean. Josetxo Azkona

**13** *muki zapi* ik **mukizapi**.

**14** *musu zapi* ik **musuzapi**.

**15** ***sudur zapi*** (*17 agerraldi, 4 liburutan; orobat* ***sudurzapi*** *7 agerraldi, 6 liburutan)* mukizapia.

**Sudurzapia** atera eta mukiak kendu dituk. Pedro Alberdi

-B-b-barkatu -esan zion Hagridek negar-muzinka, motadun **sudur-zapi** handi bat atera eta aurpegia han ezkutatuz. Iñaki Mendiguren

Horra iritsirik, malko bat xukatu zuen **sudur-zapiaz**. Jose Morales

Zamau baten tamainako **sudur-zapiaz**. Iñaki Mendiguren

Hagrid jiratu eta bere etxolara abiatu zen presaka, aurpegia **sudur-zapiaz** estalita zuela. Iñaki Mendiguren

Ez nuen izan ukatzerik bere **sudur zapia** erabil zezan, muturrean estutuz odoljarioari eusteko. Ramon Saizarbitoria

**hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**

**begiak zapi batez** (3); **buru zapi** (4); **burua zapi batez** (3); **buruan zapi bat** (4); **buruko zapi** (10); **esku zapi** (4); **ezpain zapi** (15); **ezpain zapi bat** (5); **lepoko zapi** (9); **lepoko zapi bat** (4); **mahai zapi** (9); **musu zapi** (4); **paperezko ezpain zapi** (3); **paperezko zapi** (5); **sudur zapi** (4)

**zapi bat atera** (4); **zapi bat eman** (4); **zapi bat hartu** (4); **zapi bat ipini** (3); **zapi batean bildu** (5); **zapi batean bildurik** (3); **zapi batez estali** (8); **zapi batez estalia** (3); **zapi batez estalirik** (3); **zapi batez estalita** (3); **zapi batez estaltzen** (3); **zapi batez garbitu** (3); **zapi beltz** (10); **zapi beltz batez** (4); **zapi beltza** (4); **zapi beltzaren azpian** (3); **zapi berde** (3); **zapi busti bat** (3); **zapi bustiak** (4

**zapi garbi** (4); **zapi gorri** (18); **zapi gorri bat** (9); **zapi gorria** (8); **zapi gorriak** (5); **zapi gorriko** (3); **zapi gorriz** (4); **zapi handi** (9); **zapi heze** (3)

**abarra** (3); **zapi ñ zapi koloretsu bat** (3)

**zapi puska** (3); **zapi txuri** (3)

**z2pi urdin** (6); **zapi urdin bat** (3); **zapi zahar** (5); **zapi zuri** (34); **zapi zuri bat** (10); **zapi zuri batean** (6); **zapi zuri batez** (4); **zapi zuria** (8); **zapi zuriak** (11); **zapi zuriz** (5)

**zetazko zapi** (14); **zetazko zapi bat** (4)

**aho zapia** (3); **buru zapia** (10); **buruko zapia** (13); **ezpain zapia** (8); **gaineko zapia** (3); **lepoko zapia** (7); **mahai zapia** (4); **muki zapia** (3); **sudur zapia** (8)

**zapia atera** (6); **zapia buruan** (6); **zapia eraman** (3); **zapia eskuan** (4); **zapia hartu** (3); **zapia jarri** (3); **zapia kendu** (10); **zapia lepoan** (3); **zapia pasatu** (4)

**ezpain zapiak** (6); **mahai zapiak** (6); **paperezko zapiak** (3); **sukaldeko zapiak** (3)

**buruko zapiarekin** (4)

**buru zapiaren** (5); **buru zapiaren gainean** (3)

**ezpain zapiaz** (7); **sudur zapiaz** (5); **zapiaz estali** (3)

**zapiz estalita** (3)

---

# zapigorri *iz* zapi gorria jantzen duen pertsona.

-Eta **zapigorri** horiek atzerritarrak edo beste erlijio batekoak al dira? -galdetu zuen Kristok. Koldo Biguri

---

# zapihabe *iz* masta.

Hain itzela ontzia, eta **zapihabe** bakarra! Edorta Jimenez

---

# zapikatu, zapika(tu), zapikatzen du *ad ipar* menderatu.

Lepoak xelaiak dira, artaldek ere beren laket lekuak dauzkate, hasteko uda partean, bero delarik freskura puska bat aurkitzen baitute eta han egoiten dira; **zapikatzen** dute zola hura, hortako da hor belar xehe leuna, arkinez ontua. Herria

zapin ik **zaping**.

---

**zapindu**, zapin(du), zapintzen **1** du *ad* zigor batez jo.

Apur bat makurtzen bada, ahal izango du, hori iruditzen zait behintzat, zalduna **zapindu** . Juan Martin Elexpuru / Bego Montorio

Sexu-kitzikadura areagotzeko ipurdiak zigorrez **zapintzea** . Juan Martin Elexpuru / Bego Montorio

Ezin zen [...] aurpegian jo baina ipurdi biluziak **zapindu** bai. Juan Martin Elexpuru / Bego Montorio

Ez zen putetxerik zigor sorta bat ez zuenik bezeroen esku, **zapintzeko** zein **zapinduak** izateko. Juan Martin Elexpuru / Bego Montorio

**Zapindu** odola ateratzeraino! Juan Martin Elexpuru / Bego Montorio

**2** (era burutua izen gisa)

Ai ene! Jainko maitea! Nolako **zapindua** ! Juan Martin Elexpuru / Bego Montorio

**Zapindua** eten du minutu batez bere langintza ikusteko. Juan Martin Elexpuru / Bego Montorio

---

**zaping** *(orobat **zapin**) iz* teleagindua erabiliz telebista kateak aldatzea.

Denbora-pasa ibili beharko du kate batetik bestera, **zaping** egiten. Jokin Muñoz

Gero eta gehiagotan jartzen da telebistaren aurrean, kate batetik bestera pasa eta pasa egiten, **zaping** zoroan. Jokin Muñoz

Telebista pizten dut eta **zapin** egiten hasten naiz, telebista kateak antzekoak dira leku guztietan. Mikel Hernandez Abaitua

Noiz edo noiz, **zaping** eginez, berak ere harrapatu izan du programa hori. Jokin Muñoz

Telebista piztu eta **zapin** pixka bat egiten dut, filmak, teleberriak, dokumentalak, frantsesez, italieraz, ingelesez, alemanez. Mikel Hernandez Abaitua

---

**zapipeko** *izlag* zapiaren azpiko.

Itsua ohartu baitzen [...] begibakarra, galdaldi baten ondoren, irabazten hasi zela, eta, itsutasunaren **zapipeko** begi zorrotzak begibakarrari emanez, berehala jakin zuen haren irabazaldiaren zergatia, eta jakinarazi zion nagusiari, keinu isilka, begibakarraren trikimailua zertan zen. Felipe Juaristi

---

**zapitxo** **1** *iz* zapi txikia.

Irakasleak zurezko kutxa batetik beste disko bat atera, **zapitxo** batez garbitu eta gramofonoan ipini zuen. Alberto Ladron Arana

Gero, kondesa hil zen, jeneralaren ama, eta Ninik ozpinetan bustitako **zapitxo** batez garbitu zion bekoki zuri, hotz, izerditua. Xabier Olarra

Zein tentagarri diren beren **zapitxo** argiekin, azala erakusten duten beren **zapitxo** arinekin. Josu Zabaleta

Hiru angeluko eta kolore ezberdinetako **zapitxoa** zeramaten paparrean esklabo horiek bereizgarri. Jokin Urain

**2** irud/hed

Ez liberal eta ez sozialista askok lotsaizunak estaltzeko **zapitxo** literario oportuno bat. Joxe Azurmendi

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
> **zapitxo batez** (3)

---

**zapla** **1** *adlag* kolpearen edo bat-bateko ekintzaren onomatopeia.

Baina bat-batean **zapla** bota nion: [...]. Xabier Olarra

-Ali Baba - **zapla** bota zion-, pobrearena egiten duzu, zuhurrarena eta txiroarena, eta urrea lakaritan neurtu beharra daukazu! Patxi Zubizarreta

Aitak aurki liburu azalak **zapla** itxi eta esango zuen: "Zer gertatzen da orain?". Anton Garikano

Jâcques jauna **zapla** zutitu eta, su eta gar, garrasi egin zidan: [...]. Itziar Otegi

**Zapla** erantzun Rondako maisuak: hiretzat eskazak, gizona, hiretzat eskazak. Patxi Iturritegi

Leihoa ireki, eta haize epelak **zapla** jo zuen aurpegian Ruche jauna. Jon Muñoz

Eta **zapla** , ez bat eta ez bi, kartak eskuetatik kendu dizkit. Patxi Iturritegi

Elkar zaintzen zuten, bestearen eskuan **zapla** jotzeko prest. Karlos Zabala

Eskua eraman zuen kopetara, eta, **zapla** !, jo zuen kolpea, hartaz lehenago gogoratu ez izanaz damuturik. Anjel Lertxundi

Galerada inprimatu berria bertzeekin pilatzerakoan gisako asotsa ateratzen zuen, **zapla** !, ukaldi bakoitzean. Aingeru Epaltza

**2** (izen gisa)

Badatoz honantz, entzuten da arraunen **zapla** ur leunaren gainean, endaien plisti-plasta, irudi orokorrak gutxi du falta lirismo hutsa izateko. Jon Alonso

Ez dut sekula utzi aurpegian kolperik eman diezadaten, baina esku-**zaplak** eta txapinez edo gerrikoz jotako kolpe arinak probatu nahi izan nituen, gustukoak ez, eta akabo. Karlos Zabala

**3** ***zapla-zapla** adlag*

Haren zapata takoidunek erauntsia zuten lehiakide, **zapla-zapla** , zein ozenago gertatuko karrapeko haurlauzen gainean. Aingeru Epaltza

Euskara ez dakiten arren, «harrigarria da, halaber, hauetako batzuk euskara batuari buruz-eta **zapla-zapla** iritziak ematen ikustea». Berria - Euskal Herria

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
> **zapla bota** (3); **zapla jo** (3)

---

**zaplada** *(78 agerraldi, 34 liburu eta artikulu 1ean)* **1** *iz* eskua irekirik ematen den kolpea. ik **zaplazteko; masaileko**.

Romanek pentsatu zuen **zaplada** bat ematea zerri hari. Berria - Kultura

Pentsatzen ahal duzu zer gertatu zen orduan: **zaplada** bat, belarrondoko bat, bultzada bat, liburua mahai gainean eta Peter ganbaran berriro. Josu Zabaleta

Batzuetan pozik emango nioke **zaplada** bat. Josu Zabaleta

Sarjentu nazi hura **zaplada** eder bat ematera etortzen zitzaidanean sekulako atxurrarekin [...] ezin alaiago jartzen zen. Fernando Rey

Bizpahiru hitz, **zaplada** bat edo beste, ahoak eman ahala mespretxu. Josu Zabaleta

Pirata amorratuek **zaplada** bana eman zieten ahoan. Julen Gabiria

Halako batean, Joek **zaplada** bat jo zion Skinnyri bizkarrean. Lopez de Arana

-Xurgatu, zerriori! -egin nion, bizkarrean **zaplada** bat emanez. Juan Martin Elexpuru

**Zapladak** jotzen zizkidan bizkarrean ikusten ninduen bakoitzean. Pello Lizarralde
Ipurdian **zaplada** bat eman zion Jonek, oholtzara igo baino lehen. Unai Iturriaga
Honek, amarekin onezkoak eginda, txorrota bat irekitzen zuen, arrainei **zapladak** ematen zizkien, ez zuen deus entzun, nonbait. Karlos Zabala
Baldwin kale-kantoian gelditu zen eta **zaplada** bat jo zuen bere maletan. Lopez de Arana

**2** irud/hed

Robertok **zaplada** galanta eman zion punching ball-ari. Harkaitz Cano
Nire handiusteari eta urguiluari **zaplada** bat emango hioan, baina hori ez zuan izango nire adiskide hintzelako egin huena bezain larria. Xabier Olarra
Kalera irten zirenean lehengo bero-**zaplada** berak jo zuen, ustekabean, Andres. Josu Zabaleta
Argiro adi zitekeen uraren **zaplada** eta tanta erorien zalaparta. Anton Garikano
**Zaplada** batean jaiki eta kasik salto egin nion gainera autotik, birikak haizez betetzen nituela. Aingeru Epaltza

**3** (hitz elkartuetan)

Peppone ez balitz astakumeetan azkena, ez zuen jarriko **zaplada**-jotze hau egitarauan. · Esku **zaplada** batekin lasaitu egiten dira. Koldo Biguri
Ipurdi gainean esku **zaplada** pare bat eman ondoren, honela esan zion: [...]. Patxi Ezkiaga

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
> **zaplada bat** (16); **zaplada bat eman** (6); **zaplada batean** (3); **zaplada batzuk** (6); **zaplada batzuk eman** (4)
> **zapladak jotzen** (3)

---

# **zapladaka** *adlag* zapladak emanez.

Bonbatxoduna orroaka hasten duk, eta lasaitu beharra zegok, ez aritu izterretan **zapladaka**. Josu Zabaleta
**Zapladaka** ari zaio sorbaldan. Monika Etxebarria

---

# **zapladatxo** *iz* zaplada txikia.

Emakumeak **zapladatxo** bat eman zion masailean. Lopez de Arana
Txerazko **zapladatxo** batzuk eman zizkion haurrari masailetan, haren mardultasuna miretsiz. Jose Morales
Gure sendagilea berehala joan zen bera agurtzera, bostekoa ematera eta besoan **zapladatxoak** ematera. Urtzi Urrutikoetxea
Neskak azken **zapladatxoa** eman zion eskuan eta kapitaina zutitu egin zen. Lopez de Arana
Bizkarrean **zapladatxo** batzuk eman eta barrez hasten zen, tea hartzera gonbidatzen zituen. Jose Morales
**Zapladatxo** batzuk nabaritu ditu bizkarrean. Joan Mari Irigoien
Dolmancék gorputz osoa laztandu dio, eta **zapladatxoak** eman dizkio ipurdian; tentetu egin zaio. Juan Martin Elexpuru / Bego Montorio

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
> **zapladatxo bat** (4); **zapladatxo batzuk** (11); **zapladatxo batzuk eman** (5)

---

# **zaplaka** *adlag* zapladaka.

Gero ahuspez jarrita **zaplaka** ekiten zion, baina orduan biraoa bota zuen. Koldo Izagirre

---

# **zaplastada** *iz* zaplada.

Balio absolutuen teoria goitik behera botako diozu, baina gorde zaitez orduan **zaplastadatik**, Patri. Hasier Etxeberria

---

zaplastako ik **zaplazteko**.

---

zaplastakotxo ik **zaplaztekotxo**.

---

# **zaplastatu**, zaplazta(tu), zaplazatzen da/du *ad* zaplatu; zapaldu.

Zenbateraino ezagutzen nauala uste duk? -arrapostu dio Yolok airera histeriak **zaplastatu** dituela diruditen hitzak jaurtiz. Pako Aristi
Bakartasunaren sentimendu leherkorrak ez **zaplastatzeko**, noiztenka ernatzen zen ahots hori bera, ulutxa nahasi, aitaren ahotik herotsik gabe jazartzen imajinatzen zuen. Itxaro Borda
Murruaren kontra **zaplastatzen** zen, arropak tarrapataka kendu ondoan, gurutzefikatua izateko gertu. Itxaro Borda
Horman zintzilikatu telefonoan 15 zenbakia **zaplastatu** zuen. Itxaro Borda

---

# **zaplastatzaile** *izond* zaplastatzen duena.

Pentsamenduaren latzaz eta musikaren indar **zaplastatzaileaz** zainak daldaraka susmatzen nituen: bat-batean saihetsean norbaitekin hitz egiteko gutizia bermatu zitzaidan. Itxaro Borda

---

zaplasteko ik **zaplazteko**.

---

zaplastekoka ik **zaplaztekoka**.

---

# **zaplateko** *(11 agerraldi, 7 liburu eta artikulu 1ean)* *iz* zaplaztekoa.

Eskuan **zaplateko** bat edo belarrondoko bat emateak ez zuela balio: zigorradaz ondo berotu behar zela. Irene Aldasoro

Esku ahurrekin bere aurpegiari **zaplateko** txiki batzuk eman eta komunetik irten zen. Unai Iturriaga

Ignatius Gallaherrek **zaplateko** zaratatsu batzuk eman zizkion lagunari bizkarrean. Irene Aldasoro

---

## zaplatekoka *adlag* zaplaztekoka.

Beste gizonak [...] lagunekin iskanbila sortzen ibili beharko zuen, harrokerietan bide bazterretan, tabernako barraren baten kontra jarrita, salto txikika eta **zaplatekoka** Mannesmann Hallen, edo ring bateko zokoan balde baten ondoan ahapeka hizketan. Koro Navarro

---

## zaplatu, zapal(tu), zaplatzen **1** du *ad* zaplada eman.

Mariok elastikotik heldu, eta esku ahur irekiaz di-da **zaplatu** du Natxo. Patxi Iturritegi

-Mando gaztea duzu -dio Joxek mandoari lepoa **zaplatuz** eta Txamarrorri begiratu gabe. Pello Lizarralde

**2** zapaldu.

Zilegi bedi, beraz, erantzunezko indarraren erabilera, herri honi bere eskubideak **zaplatzen** zaizkion artean, Patri. Hasier Etxeberria

**3** (era burutua izenondo gisa)

Guretzat ere galera ordezkaezina izanen da, eta Kantinplora **Zaplatuaren** Ordenako domina emango diogula jakiteak sendia poztu eta semeaz harro egoten lagunduko dizuen itxaropena daukagu. Harkaitz Cano

---

## zaplazo *iz*

**Zaplazo** berde eta marroixkak zituen jakak hurbilarazi zuen. Joxemari Urteaga

---

## zaplaztadatxo *iz* zapladatxoa.

-E, aizu, Marta, Marta, ez lo hartu -esaten dio, aurpegian **zaplaztadatxoak** emanez-. Xabier Mendiguren Elizegi

---

## zaplaztaka *adlag* zaplatakoak ematen. • *irud/hed*

Putzuaren jarraian urak beste ehun bat metro egiten zituen sastraka eta ihi artean, bizi-bizi orduan ere, **zaplaztaka** ildo harritsuan, harik eta haraneko errepidearen hasierara iristen zen arte. Bernardo Atxaga

---

zaplaztako ik **zaplazteko**.

---

## zaplazteko *(108 agerraldi, 37 liburu eta 33 artikulutan; orobat* ***zaplasteko*** *24 agerraldi, 12 liburu eta 9 artikulutan,* ***zaplastako*** *4 agerraldi 2 liburutan, eta* ***zaplaztako*** *3 agerraldi 3 artikulutan)* **1** *iz* eskua irekirik ematen den kolpea, eskuarki masailean. ik **zaplada**.

**Zaplazteko** bat ematea gaizki ikusia zegoen, baina zartailu batez ipurdia astintzea zigor noblea zen. Juan Martin Elexpuru / Bego Montorio

Bi **zaplazteko** eman zizkidan, eskua zabalik. Berria - Euskal Herria

Bikoteak aitortu zuten eztabaida izan zutela eta gizonezkoak emakumeari aurpegian bi **zaplazteko** eman zizkiola. Berria - Euskal Herria

41 urteko gizonezko bat atxilotu zuen Udaltzaingoak ostiral arratsaldean, neskalagunari bi **zaplazteko** eman zizkiolako. Berria - Euskal Herria

Sutan zinen barrutik, **zaplazteko** bat joko zenidakeen gustura asko, sorbalda bietatik oratu eta trapuzko panpina bat bezala aurrera eta atzera astindu. Eider Rodriguez

Eraso fisiko, tratu txar, **zaplazteko**, jipoi eta labankadez gain, ezin ditugu albo batera utzi beste mota bateko tratu txarrak. Luis Elberdin

Molly kexu agertu zitzaion behin, eta **zaplazteko** bat eman eta etxera bidali zuen. Mirentxu Larrañaga

**Zaplaztekoa** sentitu duzu masailean. Rafa Egiguren

**Zaplaztekoak** ematen dizkio ipurdian. Juan Martin Elexpuru / Bego Montorio

Lubis hura esnatzen ahalegindu zen masailetan **zaplazteko** arinak emanez. Bernardo Atxaga

Irainak oihukatzen zizkioten elkarri, bultzaka aritzen ziren, eta **zaplazteko** latzen bat ere itzuri zitzaien inoiz. Mirentxu Larrañaga

Esan dut, alde horretatik, nola, lehenengoan, **zaplazteko** izugarria eman zidan. Joan Mari Irigoien

-Bada, tooori! -eta sekulako **zaplaztekoa** eman zion Sarari masailean. Joan Mari Irigoien

**Zaplazteko** ozen bat jo nion masailean. Karlos Zabala

Del Vallek **zaplaztekoren** bat banatzeko beharra ere izan zuen. Alberto Ladron Arana

Pradhanak **zaplazteko** ikaragarria erantsi, eta lurrera bota zuen. Pablo Sastre

**Zaplaztekorik** ez, esan zuen, ukabilkoa, kokotsa ubel-ubela utzi ziona. Karlos Zabala

Matildek "Malco!" esan zuen, oihuka ia, eta **zaplaztekoa** jo zion lepoan sukaldeko zapiaz -**zaplaztekoak** lepoan jo ahal badira, edo sukaldeko zapiaz jo ahal badira-. Unai Elorriaga

**2** irud/hed

Beraz, Verreyk 1888an argitara emandako aurkikuntzak **zaplazteko** bat ziren onartutako doktrinarentzat. Xabier Olarra

Bi **zaplazteko** eman zizkidan, eskua zabalik. Berria - Euskal Herria

Jordi Mirallesek esan zuen Menak «demokraziari **zaplaztakoa**» eman ziola. Berria - Mundua

Alemanian, oposizio kontserbadoreak ziurtatu zuen auzitegiak **«zaplaztekoa»** eman ziola Hans Eichel Finantza ministroari. Berria - Ekonomia

**hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**

**bi zaplazteko eman** (7); **zaplazteko bat** (17); **zaplazteko bat eman** (7); **zaplazteko bat ematen** (3); **zaplazteko eman** (7); **zaplazteko eman zizkion** (3)

**zaplaztekoa eman** (10); **zaplaztekoa eman zion** (3); **zaplaztekoa emango** (3); **zaplaztekoa jo zion** (3)

**zaplaztekoak eman** (4); **zaplaztekoak ematen** (4)

**zaplasteko eman** (3)

**zaplastekoa eman zion** (3)

**zaplastekoak ematen** (3)

**zaplateko bat** (4)

## zaplaztekoka *(orobat **zaplastekoka**)* *adlag* zaplaztekoak ematen.

Ez da beharrezko **zaplaztekoka** ibiltzea; demokrazian aski da auzitegira jotzea. Berria - Harian

«Karga bortitza» izan zen, eta gazteei ez ezik, poliziak han bildutako adineko batzuei ere **zaplaztekoka** oldartu zitzaizkien. Berria - Euskal Herria

---

## zaplaztekotxo *(corpusean **zaplastakotxo** soilik)* *iz* zaplazteko txikia.

Gizona bai: gizona zutitzera behartu zuten, aurpegian **zaplastakotxoak** eman ondoren esnatu eta gero. Aitor Arana

---

## zapo[1] 1 *iz* apoa, ornodun urlehortarra.

**Zapoak** jauzika ari ziren goroldio eta huntz artean. Bernardo Atxaga

Gauaren isiltasunean **zapoen** kantua nabarmen entzuten zen. Bernardo Atxaga

Denak elkarrekin berriz etxe aldera zihoazenean, zeruan izarrak dirdirka hasten zirela ikusten zuten, eta **zapoak** aditzen zituzten, ilunabarreko isiltasunean beren flauta-nota misteriotsua jaurtikiz. Koro Navarro

**Zapoek** kantari jarraitzen zuten. Anjel Lertxundi

Illunabarrean klin-klon zebilen **zapoa** ere. Pello Zabala

Begira hemen daukat umea, hankak zumea baino meheago, begiak **zapoarenak** baino irtenago... Jon Maia

Tapiaren eta Izagirreren apoa ez da txerrikortako ordotsa, putzuetako **zapoa** baizik. Iñigo Aranbarri

**2** irud/hed

Dyna Panhard batean ibiltzen ginen: **zapo** mutur-biribil luze bat, hori kanario-kolorea, aulkiak eskai zebra imitaziozkoak eta lapiko zaharraren hotsa. Josu Zabaleta

Harro baina errezeloz, begiratzen naute zaldi gainetik, irrifar isilez agurka, poeta jadanik burgestu haren kantu lehor zatarra ahotan hartze hutsagatik, gusto zakarreko **zapoa** naizela adierazi nahian edo. Patziku Perurena

Kriminal hutsa naiz, **zapoa**, piztia zitala, eta erdeinu guztiak merezi ditut. Patxi Zubizarreta

**3** (esaeretan)

-Ez, baina pentsatu dut pertsona bakarrak irentsi beharko duela **zapo** hori. Xabier Olarra

Amonak hitz emanarazi zidan ez niola zigarro erretzen utziko, baina... harrapa ezak ba **zapoa** buztanetik: ezin! Jesus Mari Mendizabal

Gu hamabost bat ginen eta **zapo** lo geunden. Berria - Euskal Herria

**4** *(irud/hed, hitz elkartuen lehen osagai gisa; ik beherago* **5**

Ahotik ahora erantzun nik, nire **zapo**-hizkeran. Aingeru Epaltza

Nola beste bideak ere -kontzeptuak bere baitatik sortzeak-, aparte euskarak horretarako ez omen duela aski kulturarik, onenean ere **zapo**-euskara batera bakarrik eramaten duen, euskarak ez du inolako irtenbiderik modernitatera. Joxe Azurmendi

Beste batzuetan **"Zapo**-latina", "Italianismoak" "Helenismoak", "Anglizismoak" "Inge lays and sat", idazlearen asmoaren ildotik, agian neure partetik prozedurak gehixeago nabarmendu ditut. Xabier Olarra

**5** ***zapo-erdara***

Sorgin solasa, sorgin erdara, ***zapo erdara*** (zapaerdera) eta *ahuntz erdara* (auntz erdera, auntz berbetea) dira "hizkuntza" honen izenak, eta horretan aritzen denak esaldi bateko silaba guztiek p kontsonanteaz errepikatu behar ditu. Iñaki Arranz

Ez da harritzekoa ahuntz- eta **zapo-erdara** hitzak hizkera mordoiloa esateko ere erabiliak izatea. Iñaki Arranz

Gurean erabili izan den **zapo-erdara**, ahuntz-erdara edo sorgin-solas deritzeten horietako batean moldatu dut testua. Xabier Olarra

Nik ezetz, ez nekiela, eta orduan argitu zidan bere **zapo**-erdara harengatik jarri ziotela goitizena. Xabier Mendiguren Elizegi

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
> **zapo erdara** (7); **zapo latina** (4)
> **zapoen kantua** (3)

---

## zapo[2] 1 *iz* itsaspeko hondar eta lohietan bizi den arrain ezkatarik gabea, bizkarralde ilun eta sabelalde zurikoa, burua eta ahoa oso handiak dituena, sukaldaritzan oso aintzat hartua *(Lophius piscatorius).*

Gure amak, izan ere, **zapoa** botatzen zion arrain-zopari. Iñaki Segurola

Hori da hori maitasuna!", oihukatzen zuten arrandegietan etxekoandre eta jubilatuek, **zapo** eta bixiguen aho irekietatik soilik irten zitekeela zirudien harridura bozgoratu batez. Harkaitz Cano

Antxoa kuota funski apaltzen badio Europak Espainiari, honek eskaintza murritzagoa eginen dio Frantziari eta, legatz eta **zapo** kuota gutiago eskuratuko du. Herria

Oilarraren, **zapoaren** eta berdelaren arrantza baimenak %28,5, %20 eta %23 murriztea proposatu du, zehazki, Bruselak. Berria - Ekonomia

Laurehun gatzontzi, laurehun zotzontzi, haserreak harturiko ehun zerbitzari hara-hona korrika, karta luze samarra baina iruzurrez josia (onddoak txanpinoi, idia txahal, txangurroa **zapo**, etxekoa industrial), masibizazioa. Edorta Agirre

**2** (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa)

Entsalada, perretxiko nahaskia, itsas-**zapoa** eta mamia. Berria - Kirola

Horrelakoari serioski azaldu behar izaten zaio itsas **zapoa** ez dela inondik ere zapo mota bat. Xabier Olarra

Arrain-**zapoa** zirudien. Itxaro Borda

---

## zapoka *adlag*

Erreroko Mariasun eta Tobeneko Gema eta Jesusmarirekin maiz **zapoka** edo gordeka jolasten nuen. Gotzon Garate

---

## zapokeria *iz adkor* zitalkeria, doilorkeria.

Zakurrek ez dizkigutela egiten, gizakiek batzuetan egiten dizkiguten **zapokeriak**. Gotzon Garate

Gauza bera adierazten du "zakurkeria bat egin ziok": **zapokeria**, azpijokoa egin diola. Gotzon Garate

Galdera hau da: zergatik nahiko zuen inork horrelako **zapokeria** bat egin? Oskar Arana

---

## zapokume *iz (irain hitza)*

**-Zapokume** ... Iñaki Mendiguren

---

**zapore** **1** *iz* dastamenaz sumatzen diren gauzen nolakotasuna, janari eta edariena bereziki. ik**dasta; ahogozo**.

Oinarrizko lau **zapore** badirela frogatzen dute test zientifikoek: gazia, garratza, gozoa eta mingotsa. Usaimena, hala kitzikatua, dastamenaren osagarri gertatzen zaigu jakiei **zaporea** hartzerakoan. Irene Aldasoro

Ez zaizu alkoholaren **zaporea** gustatzen. Une horren **zaporea** dastatzeko prestatzen da listua haren ahoan. Joseba Sarrionandia

**Zaporea** aldatu zaio zertxobait baina izaera ez. Jokin Urain

Honen agindura suak bere beroa moteltzen du, urak **zaporea** aldatzen. Askoren artean

Abere haien okelak ez du **zaporerik**. Iñaki Iñurrieta

Lurraren **zaporea** zeukan. Juan Kruz Igerabide

Ez du galdu bere **zaporea**. Xabier Kintana

Eta gatzaren **zaporea** ezpainetan hasiko zara Edwini ikasitako doinua kantatzen. Joseba Sarrionandia

Laztanak, usainak eta **zaporeak**: koktel bikaina sexu festa baterako. Luis Elberdin

**Zapore** berria eta osasun berritua, bai edaria bai edalea goi-indarrez berritu zituztenak. Askoren artean

Hedonismo aldetik, plazera zerk ematen digun: usainak, **zaporeak**, ukituak, aurkezpenak, mahaikide dugun adiskideak, paisaiak, argiteriak, toki horren iraganeko oroitzapenak, altzariek, giroak, baxerak... Edorta Agirre

Populazio globalak onartzeko moduko usain eta **zaporeak** dituzten elikagaiak ekoitziko dira. Edorta Agirre

Ez zuten **zaporerik** batere. Aingeru Epaltza

Marrubi, masusta eta erregalizen **zaporekoa**. Patxi Zubizarreta

Oinarrizko **zaporekoak** direnez, erraz kontsumitzen dira ia-ia edozein kulturatan. Edorta Agirre

Bibragailu eta **zaporezko** preserbatiboen artean bildu nuen neure lehenbiziko literatur saria. Aingeru Epaltza

Baina bat-batean bere **zaporearen** nostalgia sentitu dut. Bernardo Atxaga

**Zaporearen** gazi-garratza. Anjel Lertxundi

Hasi oinetako behatzetan eta buka buruko ileetan, dena dardara eta **zapore** nintzen, ni neu osorik gozamen, eztitasun, estasi..., ez dakit. Juan Kruz Igerabide

**2** (izenondo eta izenlagunekin)

Iturri horretako ura oso garbia eta **zapore** onekoa da. Santiago Iruretagoiena

Usain eta **zapore** txarreko iturriak izaten dira. Santiago Iruretagoiena

Gatza ateratzen den lurretatik pasatzen delako, oso **zapore** gazikoa da. Santiago Iruretagoiena

**Zapore** hotz bat, gozoa, mertxikena bezalakoa, ahosabaiari itsatsia. Lopez de Arana

Eztarrian itsatsiriko ginebraren **zapore** metalikoa, bederen, eztitua zen. Aingeru Epaltza

Barruan hartzen zuen guztia bere **zapore** higuingarriz kutsatzen zuela ikusten zuelako. Xabier Amuriza

**Zapore** tradizionala. Edorta Agirre

Tradiziozko **zaporeak** ezagutu ez dituen jendeak eskaturik. Edorta Agirre

Kontsumitzaile zorrotzak "jatorrizko" **zaporearen** bila, "sustrai bila" segituko du gaur bezala. Edorta Agirre

**3** (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

Lurraren propietateek eransten dituzte, noski, **zapore**-desberdintasun hauek. Santiago Iruretagoiena

**4** (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa)

Odolaren gatz-**zaporea** ebakitako ezpainetik. Lopez de Arana

Mingaineko odol-**zapore** hori. Juan Garzia

Orain berton baditugu urdaiazpiko edota gazta **zaporeko** patata frijituak, antxoa gustuko olibak. Edorta Agirre

Zerbeza eta vodka **zaporeko** goma. Aingeru Epaltza

Makilajearen lur-**zaporea** geratu zitzaidan ezpain-puntan. Anjel Lertxundi

Ez zidala ezein urek halako onik egin, gerora ahoan kimika **zapore** berezi, garratz eta higuingarria gelditu arren. Urtzi Urrutikoetxea

Ezti **zaporeko** begietan gozatzen. Koldo Izagirre

**5** (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa, elkarketak izenondo balioa duela)

Erleek abaraska egin omen zuten Adrianaren ahoan eta ezti gozoa atera, ezti musikaduna, ezti sagar-**zaporea**. Felipe Juaristi

**6** (hiru osagaiko hitz elkartuetan)

Etxean hutsa hartzen zuen baina kanpoan gurago zuen esneaz nahastuta, kafe-**zapore** falta estaltze aldera. Josu Landa

**7** irud/hed

Tradizioaren **zaporea** duten testuak eratzen ditu. Fernando Rey

Hasierako argazkiek **zapore** gazia utzi ziguten. Berria - Gaiak

Ez zuen hala amaitu nahi, **zapore** gazi-gozoa utzi zion hark guztiak. Joxemari Urteaga

Aitorri egindako bisitak, betiko legez, **zapore** arraroa utzi dio aho-sabaian itsatsirik. Sonia Gonzalez

Aukera emango ziola, dudarik gabe, garaipenaren eta justiziaren **zaporea** dastatzeko. Juan Garzia

Mendekuaren **zapore** gozoa dastatu nuen, Isabel Sanjoseren muturra imajinatuz, biharamunean bere burua izterbegiak gezurtaturik ikustean. Aingeru Epaltza

-Herri batzuek zoritxar-**zaporea** diten. Juan Garzia

Georgek uste du behin iratxo-**zaporeko** bat ere atera zitzaiola. Iñaki Mendiguren

**hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**

**aho zapore** (7); **bere zapore** (3); **oso zapore** (5); **usain eta zapore** (4); **utzitako zapore gazia** (4)

**zapore bat** (3); **zapore garratza** (10); **zapore gazi** (28); **zapore gazi gozoa** (22); **zapore gazia** (11); **zapore gozoa** (8); **zapore guztietako** (9); **zapore guztietako gozokiak** (4); **zapore mikatza** (6); **zapore mikatzak** (3); **zapore mingotsa** (3); **zapore ona** (4); **zapore txarra** (4)

**bere zaporea** (4); **bestelako zaporea** (3); **kafearen zaporea** (5); **odolaren zaporea** (3); **okelaren zaporea** (3); **usaina eta zaporea** (6)

**zaporea dauka** (3); **zaporea uzten** (3); **zaporea zuen** (3); **zaporea zuten** (3)

**gazta zaporeko** (4)

**zaporerik ez** (5); **zaporerik hartzen** (3)

---

**zaporeatu**, zaporea(tu), zaporeatzen du *ad* zaporea hartu.

-Denok kutsatzen gaituk -erantzun zuen gonbidatuak Chablisa **zaporeatzen** zuen bitartean. Xabier Olarra

---

**zaporedun** 1 *izond* zaporea duena.

Alderdi gastronomikotik, olio ederra baliatzeak entsalada "**zaporedun**"ari eransten dion ahogozagarria esker on-onekoa da. Edorta Agirre

Koinak lurrindun zigarroekin hasi eta tabakorik gabeko menta **zaporedunekin** bukatu. Harkaitz Cano

Barauaren ondorengo lehen trago **zaporedunak** berehala dakarkit gose greba guztien ondorengo sentsazio atsegina. Jokin Urain

2 *izlad* zaporeko.

Oilasko **zaporedun** zopa begetariano hutsak. Edorta Agirre

Magdalenaren marrubi **zaporedun** xanpuaren lurrinarekin. Aritz Gorrotxategi

---

**zaporegabe** *(orobat **zapore gabe** g.er.) izond*

Hogei bat zilindrotxo gris zeuzkan barruan, gogor, koloregabe, **zaporegabeak**, eta ez zuen etiketarik. Juan Garzia

Pozoia -zerbait **zaporegabea**, arina eta minik gabekoa- zen bidea. Mirentxu Larrañaga

Aparteko mahai-tresneria dotorean zerbitzatutako ogi-zopak bezain **zaporegabea** urte berriko otordua. Berria - Euskal Herria

Kaleetako zarramarra **zaporegabean**. Juan Garzia

Honi esker hain adoreturik gertatzen da arima, non Jainkoaz kanpo **zaporegabe** eta mingotsa baitzaio dena. Joan Mari Lekuona

Bizitza bere kolorerik ilunetan, lizuntasun **zaporegabe** batez agertzen du. Berria - Kultura

Etxean apailatu 57 xingar peza presentatuak izan dira lehiaketara; epai mahaiak hamahiru baztertu ditu, **zapore gabe** edo freskoegi zirelako. Herria

---

**zaporegabetu**, zaporegabe(tu), zaporegabetzen da/du *ad* zaporegabe bihurtu.

Nekez edo oso gutxitan onartzen zuen janari egosirik eta, onartzen zuenean, errautsez maneatzen zuen edo ur hotzez **zaporegabetzen**. Askoren artean

---

**zaporetsu** *izond* zaporez betea.

Antxume erre baten haragi **zaporetsua**. Joan Mari Irigoien

Elementu horiek guztiek bat egiten dute lan horren koherentziaren baitan, eta argi dago su geldoan kuzinatu direla, plater **zaporetsu** eta goxo baten osagaiak balira bezala. Berria - Kultura

Egoera berriak aldiro, ukaldi sentsual berriak, usain guztiz berriak, gai exotiko guztiz **zaporetsuak**. Joxan Elosegi

Julenek beso artean estutu ninduen eta musu **zaporetsu** luzea eman zidan. Jon Arretxe

Musu laburra baina **zaporetsua** izan zen. Migel Angel Mintegi

---

**zapote** *iz* amerikar zuhaitz handia, hosto-iraunkorra, sagar itxurako fruitu gozo eta urtsuak ematen dituena.

Eta mangoak, eta aguakateak, eta kaimitoak, eta **zapoteak**, eta laranjak, eta limoiak ere ekartzen dizkiogu. Joseba Sarrionandia

---

**zapoteka** *izond/iz* Mexikoko Oaxaka lurralde bizi den indiar herrikoa.

Benito Juárez indio **zapoteka** purua, José Rizal txinar-tagaloa, espainolez pentsatu, sentitu, amestu duten "espainol" garbi-garbiak dira. Joxe Azurmendi

Maia, azteka, **zapoteka**, olmeka eta inka kulturei buruzko dokumentalak. Berria - Euskal Herria

Toltekak, **zapotekak**, aztekak aipagai, tenpluak eraikitzen bai baina gurpila zer zen ez zekitenak. Joxe Austin Arrieta

---

**zaprastatu**, zaprasta(tu), zaprastaten du *ad*

Han, Langogne herrian, emakume bati eraso egin zion piztia batek eta zauritu, **zaprastatu** eta erdi jan ere bai ondoren. J.M. Olaizola "Txiliku"

---

zapur ik **zanpur**.

---

**zaputz** 1 *iz* muzinaldia.

Lehenengo gutunei oinazea, amorrua, **zaputza** zerien. Jon Muñoz

Ulertzekoa da zure **zaputza**, zure frustrazio etsi hura. Xabier Mendiguren Elizegi

Isiluneen ondotik elkarri **zaputzak** eta purrustadak egitera ere iritsi ginen inoiz. Joxean Agirre

Etsia, nekea eta **zaputza** nagusi ziren giroan. Jon Alonso

Gero eta istilu handiagoetan sartzen ari nintzen, **zaputz** moldakaitzaren erakutsiak eginez. Fernando Rey

Normandiarrak ez zezan pentsa **zaputzaren** motiboa haren farfailazko korapiloa zela. Karlos Zabala

Bai gauza ederrak ezaupidea, konfiantza, adiskidetasuna; bai, baina gauza eder askotxok bezala, **zaputza**, errea eta ustela oso bertan eta berekin dituztenak. Iñaki Segurola

Bestea ohartu zen nire **zaputzaz**. Jon Alonso

Joandakoan ahaideei muzin egin zienez, itzulerakoan haiek **zaputza** itzuli zioten, baztertu eta zokoratu egin zuten. Felipe Juaristi

Ez-egitekoren bat egingo nion nik behin, ohartu gabe bada ere, eta hortik datorke haren **zaputza**. Joxerra Garzia

**Zaputzen** bat egiteko puntuan nago. Anjel Lertxundi

Lizek, berriz, txikitan bezalako **zaputza** harrapatu du. Bernardo Atxaga

ETAren atentatu batek bertan behera utzarazi zuen manifestazioa, gutxi batzuen bozkariorako eta gehienen **zaputzerako**. J. Garzia / A. Egaña / J. Sarasua

**Zaputzean**, beldurrean, errespetuan, azokan, bankuan, putetxean eta putetxe baten pare jarritako etxe-zuloko giro muzinduan ("ez da giro!") dena da mesedez, eta orduan, hartu-emanak kendu-emanak dira. Iñaki Segurola

"Goazen" esan nuen, eta Karmen joan zen aurrena, mauserra bizkarrean hartuta, **zaputzean**. Inazio Mujika Iraola

2 (hitz elkartuetan)

-Ispilu zikin hau gure egoeraren, gure **zaputz** sentimenduaren metafora bikaina duk. Iñaki Iñurrieta

· -Egia bai noski -Basokoak berriz- baldin eta buruko adi argia nahastuko ez baligute muzin-**zaputzek**. Patxi Ezkiaga

3 (izenondo gisa)

Aurpegiari begiratuta, begien bistan geratzen da neskato mimatua, **zaputza** eta berekoia dela. Lopez de Arana
Piztia gaiztoak eta gizartean bizitzeko gai ez diren gizaki **zaputzak** baino ez dituzu topatuko. Jon Arretxe
Hemen aurpegi kopetilun eta **zaputzak** baizik ez dira ikusten, intziriak eta ahopekako kexuak. Josu Zabaleta
Diru-kontuak blokeatu zizkion, enbargatu, gure arteko epelena ere amorrarazi zuen erabaki **zaputz** baten bitartez. Berria - Kultura
Husain, doi bat baretu ostean, lehengo hizketa molde **zaputzari** lotu zitzaion: [...]. Patxi Zubizarreta
**Zaputza** zen neskaren aita nirekin; **zaputza** bere zakurra ere, gaizki moldatzen ginen Fürst hura eta biok. Fernando Rey
Ederki dakit hori, bizitza dela handiena, baita nirea bezalako **zaputza** denean ere. Hasier Etxeberria
Pavesek gorrotoa zien adioei, eta joatean beti bezalako agurra egin zuen, bere esku **zaputzeko** bi behatz eskainiz justuan. Fernando Rey
Nik orain daukadan guztia bidaltzen dizut: nire sasoia, nire kemena, nire arnasa, nire gihar koxkor **zaputzak**. Jesus Mari Mendizabal

**4** (adizlagun gisa)

"Koilarek giderrik ez zuten garaian" oxtabenan egona zela esaten zuen maiz, batzuetan **zaputz**, gehienetan harro. Koldo Izagirre
Sartu egin da, **zaputz** eta mesfidati, bere hanka luzeen gainean koloka. Monika Etxebarria
Pedromarik Migeli bisita egiten uzten zidan, **zaputz** eta muturluze, baina utzi egiten zidan. Patxi Zubizarreta
Harekikoak zakar egitea edo bortitz eta **zaputz** errefusatzea ere ez zuen nahi. Patxi Zubizarreta
Norari begiraturik, **zaputzago** hitz egin zuen gero-: [...]. Anjel Lertxundi
-Ez dut ezer behar -esaten nion nik, **zaputz** eta zakar. Xabier Mendiguren Elizegi
-Txakur txikirik ere ez -Husainek, **zaputz**-. Patxi Zubizarreta

**5** (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa, elkarketan adizlagun balioa duela)

Gogo-**zaputz** joan ez zaitezen. Iñigo Aranbarri

**6** ***zaputz egin*** muzin egin.

Begitan hartuak zituen bai talde hura eta bai mundu osoa, zeren eta txoratuta zeukan mutilak ere **zaputz egin** baitzion. Jon Muñoz
Eskuetan froga garrantzitsu bat nuela pentsatuz iritsi nintzen komisariara baina komisarioak **zaputz egin** zion ipuin-bildumari edo, gutxienez, ez zion garrantzirik eman. Joxean Agirre
Böhl de Faber-en ahaleginei gizarte espainolak **zaputz egin** die, eta Bartzelonako Europeo aldizkariak ere arrakastarik ez du izan. Joxe Azurmendi
Alemaniak berak, intelektualismoaren aginte-makila bere eskuetan izan badu ere, orain badirudi **zaputz egiten** diola. Josu Zabaleta

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
> **zaputz egin** (4)

---

# zaputzaldi *(orobat **zapuztaldi** g.er.)* *iz* norbait zapuztua dagoen aldia.

Ai, Beñat, nire bilobaordeko maitagarria, pairatu beharko dituk hik ere **zaputzaldiak** eta gogoerreak. Koldo Izagirre
Hasieran ez zuen nahi, aurreko bisitaldiko nire **zaputzaldia** gogoan. Anjel Lertxundi
**Zaputzaldi** betean egiten zituen lanok eta gehiago. Kontua da hilabeteak irauten zuten **zaputzaldiak** harrapatzen nituela. Anjel Lertxundi
Orduan, hitz eta pitz, elkarren **zaputzaldia** arintzen saiatu ziren. Patxi Zubizarreta
Lehen soinu handia bazen txikia gutxiestea lortu zuena, Trinidadeko saio haien ondoren handiari zegokion **zaputzaldia**. Iñigo Aranbarri

---

# zaputzarazi, zaputzaraz, zaputzarazten *(orobat **zapuztarazi**)* du *ad* zapuztera behartu.

Azkenean Natalia gehiago ezin zuela zegoen eta usoei beren arrautzak eskuartean ibili eta **zaputzarazi** zizkien. Pablo Sastre
Horrelako mihiek **zapuztarazi** dituzte emazte jatorrak, beren nekeen emaitzarik gabe utziz. Elizen arteko biblia
Urte osoan debekatua dute xori honi kalterik egitea, eta isunduta haren habiak **zapuztaraztea** edo habiatik arrautzarik harrapatzea. Pello Zabala

---

# zaputzarte *iz* zaputzaldia.

Gu ere geure barrengo oinaze eta **zaputzarteek** bizi gaituzte, baina horiek oro estilo paregabez eramaten ikasiak gaude Iñaki Segurola

---

# zapuzgarri 1 *izond* zapuzten duena. ik **arbuiagarri**.

Ia ez zuten berbarik egin arratsalde hartan, azken asteetan bizipoza eman zien esperientziaren amaiera **zapuzgarriak** edozertarako gogoa kendu baitzien. Jon Arretxe
Berak ez zidan konfiantza-biderik ematen, eta niri **zapuzgarri** eta erronka zitzaidan hori. Juan Garzia
Itxarobide: [...] proiektua, normalean **zapuzgarria**. Xabier Olarra

**2** (-en atzizkiaren eskuinean izen gisa)

Saioa G. hamaika urteko beratarrak ematen du zinezko eta arrazoizko erantzun bakarra, guraso eta andereño guztien **zapuzgarria**, eta honela dio: [...]. Iñaki Segurola

---

# zapuzka *iz* zaputz eginez.

**Zapuzka** erantzun nion, epelkeriaz lepo eginda: [...]. Joxerra Garzia

---

# zapuzkeria *iz* zaputzari dagokio egintza; aurpegi txarra.

Kontsumismoaren aurka hitz egitea gerra galdutzat dauka gaur askok, antigoalkeriatzat edo buru-argien **zapuzkeriatzat**. Pako Aristi
Berak aurreko sendagilearen **zapuzkeria** guztiak sufritu behar izan zituenez, gauza logikoa iruditu zitzaion hurrengo zetorrenak ere bereak sufritu beharra. Josu Zabaleta
Agureari begirakune betizua josi zion eta, lehengo **zapuzkeria** antzeratuz, esan zion: [...]. Patxi Zubizarreta
Aiurri berezia, **zapuzkeria**, agian haurtzaro hitsa izan zuen. Gotzon Garate
Hortaz, haren **zapuzkeriari** jaramonik egin gabe erantzun nion, xalo: [...]. Xabier Mendiguren Elizegi
Utziko al diok behingoz ni salbatu nahiari?, horixe esaten ziet, eta orduan bakarrik uzten naitek bakean!", ulertu dut esan nahi zidala, muturra bildu baitu **zapuzkeriaz**. Anjel Lertxundi

---

# zapuzketa *iz* zapuztea.

Sekulako dezepzioa sentitu nuen, ikaragarrizko **zapuzketa**: hasi baino ez eta gelditu egin behar? Migel Angel Mintegi

Euskal gizartea ez dagoela prest «halako eskubide sozial, zibil eta politikoen **zapuzketarik** onartzeko, kasu honetan eta beste edozein kasutan». Berria - Harian

Eskubideen **zapuzketarik** ez. Berria - Harian

---

**zapuztaile** 1 *izond* zapuzten duena.

Kausa, etiologia [...] beti edo gehienean da kausa eragozlea, **zapuztailea**, galarazlea eta ixilarazlea, hitzaren eta arrazoiketa garbiaren etsaia. Iñaki Segurola

Esan nezake nahi eta ezinak ematen dizun sentipen **zapuztailea** izan genuela hurrengo egunean, hirugarren moduluan kide bat hil zela jakin genuenean. Jokin Urain

**2** (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa elkarketak izenondo balioa duela)

Esan behar zaio, adibidez, ez erabiltzeko adizki hori egoera intimoetan, intimitate-**zapuztailea** da eta. Joxerra Garzia

---

zapuztaldi ik **zaputzaldi**.

---

zapuztarazi ik **zaputzarazi**.

---

**zapuzte** *iz*

Herritarren nahikundearen **zapuzte** bat gertatu den herrialde guztietan eta herritar horiek kalera jaitsi diren aldi oro, nazioarteko komunitateak sustatu egin ditu oldar egiteak. Berria - Mundua

Berotze hutsal bat, hilabete batzuetan, ez, aste batzuetan iraun zuen beroaldia, eta gero ezereza, asperra, dezepzioa... **zapuzte** hori bereganatu ezina apika, bere horretan onartu ezina. Iñaki Iñurrieta

Galera, **zapuzte** eta etsi-behar baten umeak gara. Iñaki Segurola

---

**zapuzteke** *adlag* zapuztu gabe.

Nola lortu testuarekiko zintzotasun literala, iradokizun sare hori **zapuzteke**? Juan Garzia

---

**zapuzti** *izond/iz* zapuzteko joera duena.

-Martxoan haize ta apirilean busti, urtea ez da izanen neholaz **zapuzti**. Pello Zabala

Nola jardun **zapuzti** harekin? Migel Angel Mintegi

---

**zapuztu**, zaputz/zapuztu, zapuzten **1** da/du *ad* zaputza hartu, muzindu. ik **muturtu**.

"Kaka zaharra, orduan!", **zapuztu** zen Pantxo tximeleta airera botaz. Bernardo Atxaga

Donatien bere faboreak beste emakume batzuei eskaintzen hasi zenean, guztiz jeloskortu eta **zapuztu** zen madame de Montreuil. Juan Martin Elexpuru / Bego Montorio

**Zapuzten** hasia, alde egitekotan nengoen, umiliagarria iruditzen baitzitzaidan hura guztia. Anjel Lertxundi

Egunero ekintza on bat egiten saiatzen zen, bestela etxera kopetilun eta bere buruarekin **zapuztua** itzultzen baitzen. Patxi Zubizarreta

**Zapuzturik**, Del Vallek amaitutzat eman zuen miaketa. Alberto Ladron Arana

**Zapuzturik**, eskegi egin nuen. Edorta Jimenez

"Nork jo behar du orduan elizako harmonioa?" "Eta niri zer esaten didazu!", **zapuztu** nintzen. Bernardo Atxaga

Beti jendea **zapuzten**. Antton Olano

Garbi ikusten zuen, solasak zeraman bidetik, noiznahi **zaputz** zezakeela Sararen ama, egia esatekotan. Joan Mari Irigoien

Ontziburuaren portaerak **zapuzturik** utzi ninduen. Edorta Jimenez

**Zapuztua** nengoen ardoarengatik (besterik merezi zuen nire 50. urtemugak, nik hala uste behintzat, egia esan!), baina, gainerakoan, oso pozik. Joxe Austin Arrieta

• **2** *du ad* arbuiatu.

Senarrak ez dezala **zapuztu** emaztea. Elizen arteko biblia

Aldi batez mundura neskatxak bakarrik ekartzen zituen etxekoandrea gaizki hartua, **zapuztua** edo hila izaten zen. Gotzon Garate

Egiptotik atera nituenetik **zapuztu** egin naute, jainko arrotzak gurtzeko. Elizen arteko biblia

Bere adiskide guztiek **zapuztu** egin dute eta etsai bihurtu zaizkio. Askoren artean

Alferrik apaintzen zara, maitaleek **zapuztu** egin zaituzte. Elizen arteko biblia

Erabakitako garaia heldu zenean, bere barne-bultzada santuari jarraitu zion, eta horren eraginez, mundu honetako gauzak **zapuztuz**, ondasun onenetara bideratu zen. Askoren artean

**3** (animaliez mintzatuz)

Gaitzeste hori, beraz, hitz hutsez edo performatiboki gaitzestea da, eta ez -euskarazko gaitzetsiren hotsak berekin garamatzalarik- ardiak bere umeak edo txoriak habia gaitzesten, arbuiatzen, uzten eta **zapuzten** dituztenean egiten dutena. Iñaki Segurola

Katuak umeak egin eta hazten direnean **zapuztu** egingo ditu. Gotzon Garate

Lau urte lehenago Jojo **zapuztua** izan zen North Shorean, gauerditan, etxe baten atarian. Gotzon Garate

Guntur-en **zapuztutako** zakur jaio berri bati haurrak harrika ari zitzaizkion. Gotzon Garate

Kukuak hantxe paratuko dizu bere arrautza, batzuetan bertakoak **zapuztu** gabe, baina maizenean arrautzak jan, habia **zapuztu**, bere arraultza ipini eta ospa! Patziku Perurena

**4** du *ad* alferrik galdu, hondatu.

Bagenekien zer kontatu nahi zigun -bere zahartzaroko istorio faboritoa zen, eta hamaika aldiz entzuna geneukan- baina ez genion kontaera **zapuztu** nahi. Bernardo Atxaga

Izan lanorduetan izan arima pausatzen zitzaion atsedenaldietan, tematu egiten zen ingurukoekiko harremanak **zapuzten**. Patxi Zubizarreta

Telebistaren pantailak isuritako argia eta erradiazioak melatonina hormona sortzeko prozesua **zapuzten** du. Berria - Gaiak

Gertaera dramatiko horiek ez zituzten uste onak **zapuzten**: gure mundua ederra zen; gure bizimodua normala. Bernardo Atxaga

Askatasuna **zapuzteko**, nolanahi ere, ez da tiranoaren beharrik. Markos Zapiain

Eskerrak pagoen hostoen itzalek ilargiaren argitasuna **zapuzten** zuten. Bernardo Atxaga

Zeruan lainoak zeuden, zuritasun erabat garbikoak eta oso trinkoak, eguzkia **zapuzteko** gauza zirenak. Bernardo Atxaga

Neurea bakarrik den sentipenak itsutzen nau eta hegaztiek beren habiak bezala zaindu ohi dut inork **zaputz** ez diezadan. Joxean Agirre

Ez nuen gero zinera joateko aukera **zapuztu** nahi. Anjel Lertxundi

Espaziontziak areago egin zuen beheraka, baina oraingoan erorketa librean, bere pilotuaren heriotzak hegan jarraitzeko gogoa **zapuztu** izan balio bezala. Bernardo Atxaga

Poz laster **zapuztua**, ostera. Edorta Jimenez

Oion aldean, atzo euriak mahats-bilketa **zapuztu** zuela. Pello Zabala

**5** (da aditz gisa)

**Zapuztu** zen giroa: umore onak betirako alde egina zirudien. -Ba al dakin mojak zaplaztekoa eman zidanean **zapuztu** zitzaidala moja izateko gogoa [...]? Harkaitz Cano

Kikarako kafeari begira gelditu zen, edateko gogoa **zapuztu** egin izan balitzaio bezala. Bernardo Atxaga

Begiak ilundu zitzaizkion; amets eder bat **zapuztu** zitzaiola ematen zuen. Anjel Lertxundi

**6** (era burutua izenondo gisa)

Deabruzko gaua igaro zuen eta, biharamunean, aldarte **zapuztuarekin** jaiki zen. Patxi Zubizarreta

Instituzio horretan zoritxarrak jotako jende gazte asko sartzen zen: haur **zapuztuak**, elbarrituak, buruz beteak ez diren pertsonak... Gotzon Garate

Nora ez ote garamatza desira **zapuztu** batek? Jon Muñoz

Ez dizute deituko gehiago "Hiri **zapuztu"**, ez eta zure lurraldeari ere "Lur hondatu". Elizen arteko biblia

Mendekua hartzen duen maitemindu **zapuztuarena**. Jose Antonio Mujika

Gaizki erabilitako zakurrek edo zakur **zapuztuek** betiko izango dituzte ondorio latzak. Gotzon Garate

Zakur **zapuztua** zakur basa bihurtu. Gotzon Garate

Txitatxoa jaiotzear denean, hildako arrautza **zapuztuak** maiz ikusi ditugu txorien habietan. Pello Zabala

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
>
> **asmoak zapuztea** (4); **zapuztea egotzi** (3); **zapuztea lortu** (4)
>
> **prozesua zapuzteko** (4); **zapuzteko asmoa** (7); **zapuzteko asmoz** (3); **zapuzteko gauza** (3)
>
> **aukera guztiak zapuzten** (3); **irrika zapuzten** (3); **itxaropenak zapuzten** (5); **nahia zapuzten** (5); **zapuzten saiatu** (5)
>
> **ametsa zapuztu** (3); **asmoa zapuztu** (3); **asmoak zapuztu** (4); **aukera zapuztu** (6); **aukera zapuztu nahi** (3); **berehala zapuztu** (6); **berehala zapuztu zuten** (3); **betiko zapuztu** (4)
>
> **erabat zapuztu** (5); **ez dezala zapuztu** (3); **ez zapuztu** (5); **ezin da zapuztu** (3); **giroa zapuztu** (4); **gogoa zapuztu** (3); **guztia zapuztu** (3); **guztiak zapuztu** (8)
>
> **ilusioa zapuztu** (6); **itxaropena zapuztu** (8); **itxaropenak zapuztu** (8); **itxaropenak zapuztu zituen** (4); **mobilizazioak zapuztu** (4); **nahia zapuztu** (3); **oro zapuztu** (4)
>
> **zapuztu barik** (3); **zapuztu bat** (4); **zapuztu dira** (3); **zapuztu ditu** (11); **zapuztu ez dadin** (5); **zapuztu gabe** (3); **zapuztu izana** (7); **zapuztu nahi** (22); **zapuztu nahi izan** (6); **zapuztu zen** (14); **zapuztu zitzaion** (3); **zapuztu zuen** (34); **zapuztu zuten** (14

---

## zapuztuxe *izond* zapuztu samarra.

Halaber ohartarazi digu, inoiz gertatu ez zen Erdi Aro mitiko hark honako borda **zapuztuxean**, festakizun apalen batean edota mando baten arrantzan bizirik iraun duela oraindaino. Patziku Perurena

---

## zar-zar 1 etengabe ari den zerbaiten onomatopeia.

Gezurra zirudien kanpoko isiltasunak, bi egunez jarraian euria **zar-zar** etengabe entzun ondoren. Aitor Arana

**Zar-zar**, pausoa lar luzatu gabe, bideko hautsa batzen doa taldea. Iñigo Aranbarri

**2** ***zar-zar-zar***

Propio bila joanda sekula aurkituko ez lituzkeen batek, xixa pare bat aurkitu du, **zar-zar-zar** ari zela. Berria - Kirola

Baina sua **zarr-zarr-zarr** lanean ari zuan, eta etxea behera zetorrela oihuak entzunik salto egin huen, eta belauna zisko egin. Pako Aristi

---

## zarabanda *(orobat **sarabanda** g.er.)* 1 *iz* iskanbila, nahasmena.

Azken gauetan, ametsek bere **zarabanda** egin didate. Piarres Aintziart

Egunaz hasia nuen barne elkarrizketa segitu nuen gauaz eta lo tzar baten ametsek ideia eta itxuren **zarabanda** luzatu zuketen. Piarres Aintziart

**2** XVII eta XVIII mendeetako dantza, hiru aldiko konpasekoa eta erritmo geldikoa, suite klasikoaren osagai bihurtu zena.

Biolina eskuetan hartu eta jotzen hasten zen itsua, dantzarako piezak gehienetan, alemana ez bazen **zarabanda**, saltarelloa ez bazen gailarda edo-eta, etsi-etsian pabana bat, eta jendea inguratzen hasten zitzaion, ondoan zeuden biolin jotzaileak isilaraziz. Felipe Juaristi

---

## zaragi ik **zahagi**.

---

## zaragozar *izlag/iz* Zaragozakoa, Zaragozari dagokiona; Zaragozako biztanlea.

2001eko azaroaren 12an hil zuten Jose Luis Madurga **zaragozarra**. Berria - Euskal Herria

Ez zuten ondo jaso **zaragozarrek** gol hau. Berria - Kirola

Ricardo Vicente musikari eta idazle **zaragozarrak** jatorrizko ideiarekin bat egiten duen testu bat idatzi zuen. Berria - Kultura

---

## zaraitzuar *izlag/iz* Zaraitzukoa, Zaraitzuri dagokiona; Zaraitzuko biztanlea.

**Zaraitzuarrek** «Pirinio euskaldunak eta bizirik» eskatu dituzte karrikan. Berria - Euskal Herria

---

## zarakar 1 *iz* larruazaleko gainalde gogortua. ik **zakar**[1].

Urratuta zeuzkan, odoletan, **zarakarrekin**. Bernardo Atxaga

Halakoxe **zarakar** bat da hazka eginda ere zaldarretik odolari ateratzen uzten ez diona. Jon Muñoz

Zikinkeriak, izerditan trinkotua, **zarakar** beltz bat sortua zion. Patxi Zubizarreta

Batetik zauriek: hor daude, ezin uka, inguruak oraindik handituta eta haragi bizitan, baina kanpoan mintz fina osatu da, han-hemenka **zarakar** marroixka. Urtzi Urrutikoetxea

Odol lehortuzko **zarakar** txiki haiek. Harkaitz Cano

Ezker belaunean **zarakar** txiki ia guztiz lehortu bat zeukan, baina horrez gain ez zeukan urratu bat ere gorputz osoan. Oskar Arana

Kaparen azpitik esku grisaxka bat ageri zen, distiratsu, likatsu eta **zarakarrez** betea, zerbait hila eta uretan usteldua balitz bezala... Iñaki Mendiguren

**2** irud/hed

1821eko Mexikar Iraultzaren ondoren 1910eko Iraultza etorri zen, eta honetan, hobiratua baina hibernatzen ari zen bertako gizartea bat-batean esnatu zen, burua altxatu eta gaztelaniar eskuek hilobian utzitako kulturaren **zarakarra** apurtu zuen. Iñaki Mendiguren

**3** (hitz elkartuetan)

Behin koipe-**zarakar** zail hori kendurik, azazkalak ez zitzaizkian gehiago apurtzen; luzeak eta arrosak hituen, funtzionarioenak bezalaxe. Eskarne Mujika

---

**zarakartsu** *izond* zarakarrez betea.

Dementor bat sortu zen kaxatik astiro; bere txanopeko aurpegia Harryrengana jiratu zuen, esku distiratsu eta **zarakartsu** batez bere kapari helduta. Iñaki Mendiguren

Noiz edo behin zurrunga-hots zurrunbilotsuak ateratzen zitzaizkion eta lerde-arrasto **zarakartsu** bat zerion. Mirentxu Larrañaga

---

**zarakartu** *izond* zarakar bihurtua. • *irud/hed*

Lorratz **zarakartuak** ziren, nahiko luberatuak, gurdi batenak ere izan zitezkeenak; baina beste toki batzuetan, zoru tinkoagoan, garbi zegoen haiek, dudarik gabe, pneumatiko-arrastoak zirela. Joxe Austin Arrieta

---

**zarama** **1** *iz* zakarrak, zaborra. ik **zakar**[1] **2**.

Orain ez urte asko koipea zen ur hauetan ikusten zen gauza bakarra... eta **zarama**, hara eta hona **zarama**, mareak ekarri eta eramandakoa. Paddy Rekalde

**Zarama** nonahi ageri zen, mordoka. Agustin Otsoa

Erratza gelaren erdian egoten zen egun osoa, **zaramarekin** batera. Jose Morales

Etxesail zatar haien ostean lantegiak azaldu zitzaizkigun begietara, eta **zaramaz** beteriko hainbat eremu geroago. Xabier Montoia

**Zaramak** isuritako gasaren bitartez, elektrizitatea lortzen dute Arabako Gardelegiko plantan. Berria - Euskal Herria

Hartara, txakur hilak zaborretan utzi beharko lirateke asteburuetako gainerako **zaramarekin** batera. Oskar Arana

Medellingo **zarama** artean lorerik ere erne daiteke. Berria - Kultura

**Zaramara** botatako apunte batzuk, goizeko ordu txikiak arte piztutako irratia, eta negozio kontu lohitsuren bat aipatu zizkion. Iban Zaldua

**2** (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

**Zarama** biltzaileak beren kamioiekin, langileak lanerantz, mozkorrak etxera bidean. Joseba Sarrionandia

Jende gehienaren memoria **zarama** pilo bat besterik ez da. Joseba Sarrionandia

Yushio Travoltak **zarama** poltsen artean aurkituriko pertxa zilarreztatu batekin hamabi kanpaikada kosmiko imajinarioak markatzen ditu Williamsburg zubipean dagoen zabor-poltsaz osaturiko meta batera igota. Harkaitz Cano

Hartzak ere menditik behera egin du, Renoko auzategi batean **zarama**-ontziak arakatzeko. Javi Cillero

Afrikatik heldu berria behar zuen haize erreak arrain ustel eta **zarama** hatsa zekarkigun. Xabier Montoia

**3** (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa)

Antzeko irtenbidea darabilte gogoan jakintsuek gaur egun hiri-**zaramentzat**, haietatik estu-estu eginiko bloketxoak egitea, alegia. Juan Garzia

**4** ***euri zarama*** zirimiria, lanbroa.

Euri-**zarama**, gero eta lodiagoa, sare mardul-mardula. Anjel Lertxundi

Kondenatu zituztenetik [...] aita-alabek era guztietako eguraldietara ohitzeko egokiera izan bazuten ere, kalesako ibiltariak gogaitzen hasita zeuden etenik gabeko euri-**zaramaz**. Anjel Lertxundi

---

zaramiola ik **zahamiola**.

---

**zaran-belar** *iz* belar landare ginbailduna, lore txikiak dituena eta sendagintzan erabiltzen den zuku erregarria daukana. *(Chelidonium majus)*.

Bi hilabeteren buruan, banituen eginak berrogeiren bat analisi: fosforo-eduki handieneko landareak salbia, **zaran-belarra** eta perrexila ziren. Juan Garzia

Untxietako batek baino ez zuen izan gluzemia-jaitsierarik **zaran-belar** erauzkinezko tratamenduarekin, baina handik aste gutxira tumor kozkor bat nabarmendu zitzaion lepoan. Juan Garzia

---

**zarata** **1** *iz* hots ez-harmonikoa. ik **harrabots**; **burrunba**.

Kanpoan, gero eta ozenagoa da **zarata**; gero eta hurbilagoa. Jon Muñoz

Aretoko **zarata** gero eta biziagoa, urduriagoa eta zoliagoa zelako. Jose Morales

Itzartu nintzenean ez zen **zaratarik** aditzen, ez eta hotsik ñimiñoena ere. Edorta Jimenez

Azal gogorreko koadernoko paperean kristalezko lumak egiten zuen **zarata** entzuten. Jon Muñoz

Autoaren **zarata** entzun zen patioan, gero gutxitu eta azkenean desagertu zen hotsa. Koro Navarro

Suma ditzake zamaketarien marruak eta polea herdoilduen **zarata**. Harkaitz Cano

Kristal hautsien **zaratak** esnatu zuen Gabin. Iñaki Iñurrieta

-**Zarata** egiten baduzu, jo egingo zaitut. Juan Kruz Igerabide

Ez zen ausartu mugitzen, **zarata** egiteko beldurrez. Joseba Sarrionandia

Pasabidean, **zarata** areagotu egiten da eta ezagutu dut: gizakiek eginiko **zarata** da. Monika Etxebarria

Bilbo: **zarata** %4,7 gutxitu zen eta goizean goiz ohi baino %2,53 auto gutxiago sartu zen hirira. Berria - Euskal Herria

Txanoko kaskabiloek **zarata** ateratzen zuten mugitzen zenean. Koro Navarro

**Zarata** eta algara hiriko plaza eta kaleetan luzaroan zabaldu zen eta isekatzaileen oihuak han eta hemen entzun ziren. Askoren artean

Kanpotik zetorkidan **zarata** identifikatzea izan nuen lehendabiziko lana. Ramon Saizarbitoria

Batera eta bestera ibiltzen zen ziegan barrena, **zaratarik** atera gabe. Jose Morales

Orain hemen nintzen, **zaratarik** gabeko herri honetan. Juan Garzia

Zaldien **zarata** entzutean, leihotik begiratu eta ahaideak ikusi zituen. Askoren artean

Tranbia baten **zarata** gailendu zitzaion euriarenari. Anjel Lertxundi

Orduantxe gogoratu zen Ruche jauna **zarata** ez zetorrela lantegietatik, etxebizitzatik baizik. Jon Muñoz

Hegal-hotsa gudura zalapartaka doazen zalgurdi askoren **zarata** bezalakoa zen. Elizen arteko biblia

Euriak **zaratak** moteltzen ditu. Juan Garzia

Kaioen **zaratak** burua altxarazi zion. Ramon Saizarbitoria

Trumoi sakon eta luzearen moduko **zarata**. Agustin Otsoa

Bizikletaren gurpilak bezala, jiratu egiten ziren trenaren gurpilak ere, baina **zarata** batean. Bernardo Atxaga

-Zer da **zarata** hori? Juan Garzia

**Zarata** eta zaborra, irtenbide zaileko erronkak. Berria - Euskal Herria

## 2 (izenondo eta izenlagunekin)

Arin eta **zarata** handirik egin gabe. Agustin Otsoa

**Zarata** txiki batzuk entzun zituen komunean. Unai Elorriaga

Harri lodi-lodi bat harresien gainetik igaro zen, **zarata** ikaragarria eginez. Jon Muñoz

Bere buruaren gainean, merkatu nagusiaren **zarata** isila hedatzen zen. Karlos Zabala

Hantxe geratu ginen, arkuko espazio biribil haizetsuan, hiriko **zarata** motelduak entzuten. Koro Navarro

Korridoretik, oinen **zarata** astuna belarriratu zitzaigun. Alberto Ladron Arana

Inguru hartan kirrinkak eta klaskak eta **zarata** iheskorrak ugari ziren, baina ez zen ahotsik edo urrats-hotsik entzuten. Agustin Otsoa

Han geratzen zen ikusten nola urak, lasterka bizian eta **zarata** sorgarria ateraz, errotarriei eragiten zien. Jose Morales

Florentek merkatu nagusitik ateratzen zen **zarata** etengabea entzuten zuen orain. Karlos Zabala

**Zarata** ikaragarriz, branka altxatu zitzaion zamaontziari. Jon Muñoz

Trenaren **zarata** monotonoak urrundu, bakartu egiten zituen bidaiariak. Iñaki Zabaleta

Txalupa batzuetan arrantzaleenak ez ziren agindu bozak entzun zituen eta **zarata** metalikoak. Joseba Sarrionandia

**Zarata** desatsegina izan daiteke, baina, jarraitua ez bada, ez du eragingo inolako galera edo kalterik. Irene Aldasoro

Goizero, **zarata** arraro batek iratzartzen ninduen, erdi industria erdi musikazko **zarata** batek. Joxe Austin Arrieta

Sekulako jendetza, sekulako **zarata**, sekulako kea! Jon Muñoz

Ur azpiko **zaratak** baleei kalte egiten diela frogatu dute. Berria - Gaiak

Mendi gainetatik zetorren **zarata** burrunbatsu ozenari, elizako kanpandorretikakoa erantsi zaio. Txillardegi

**Zarata** arraroki temati eta gogaikarria zen, halako soinu-laguntza gaizto bat bestela ere xelebrea eta agian inoiz gertatu gabea zen egoera zail baterako. Oskar Arana

## 3 (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

Erdiko belarriko bi muskulu txikiek, 80 dB-tik 85 dB-ra bitarteko **zarata** mailarekin aktibatzen direlarik, tinpanoa tenkatzen dute. Irene Aldasoro

Isilik ibili behar dute, **zarata** asotsik egin gabe eta **zarata** atera gabe. Pello Salaburu

Plataforman pilatu ginen, kobratzaileak **zarata**-turuta bati tiratu zion kartsuki. Xabier Olarra

Kanpai-hotsak eta portuko sirenen eta oihuen **zarata**-ore trinkoa. Anjel Lertxundi

Beharbada, kaletarra izanik, harrituta dagoelako, hainbesterainoko **zarata** ezak urduri jartzen duelako. Bernardo Atxaga

## 4 (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa)

Urgulldikako kolpe-**zaratak** eta oihu urrunak ahuldu egin bide ziren, moteldu, eta pixkanaka iraungi. Txillardegi

Estore hautsi baten dardara **zarata**. Harkaitz Cano

Bat-batean, azantz-**zarata** handi eta arraro bat entzuen nian. Daniel Landart

Iluntasunetik beste zaldi batzuen irrintziek erantzun zioten, eta apatx-**zarata** gorrak ondoren. Agustin Otsoa

Bat-batean bizikletaren txapa-**zarata** entzun genuen, lurrean arrastaka. Juan Kruz Igerabide

Feltro-**zarata** handi bat eginez lurra jo oihalak. Jon Muñoz

Zooan bezalakoxea zen burrunba-**zarata** hura. Joxe Austin Arrieta

Organoak elkarrengandik nahiko hurbil daudelarik, tartetik igarotzen den aireak igurtzi **zarata** atera dezan. Lourdes Oñederra

Herrien nahia ukatzeko «ezpata **zarata**» ez egiteko eskatu du Jaurlaritzak. Berria - Euskal Herria

## 5 irud/hed

Indarkeria politikoak sortzen duen **zaratak** beste injustizia asko estaltzen dituelako. Herria

Horrek "ikusmen-**zarata"** sortzen du. Irene Aldasoro

## 6 (fonetikan eta fonologian)

Teknikoki, hizketako hotsen artean bokalak eta kontsonante ozenak dira hots diren bakarrak, gainerakoak, kontsonante trabariak **zarata** dira. Lourdes Oñederra

Bokalak hots dira eta kontsonanteak **zarata**. Lourdes Oñederra

Hots bat edo **zarata** soila den erabakitzea fisikagileei uzten diegu. Isabel Arrigain

Esan genezake igurzkariak, organo artikulatzaileen artean airea estuegi pasaraztean sortzen den zurrunbiloari dagokion **zarata** direla. Lourdes Oñederra

Laringe hotsaren tinbrea bere osotasunean agertzen da, eta desagertzen da aho **zarata**. Isabel Arrigain

## 7 *zaratapean*

Zigarroa ahoan ebala, zaratatxo mehe bat egiten eban, nrrr-nrrr-nrrr, soinuaren **zaratapean**, hur-hurretik bakarrik eta doidoi entzuten zana, ezagutzen ez ebanak ondoan animaliatxoren bat egoala pentsateko modukoa. Xabier Amuriza

Trenaren **zaratapean** Stanley etxean sartu da. Xabier Paya

## 8 *zarata hots* ik **zaratots.**

### hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

**ahotsen zarata** (3); **ateratzen zuen zarata** (3); **ateratzen zuten zarata** (3); **autoen zarata** (7); **basoko zarata** (6); **basoko zarata mutuak** (4); **bere zarata** (5); **bezalako zarata** (4)

**edozein zarata** (4); **egindako zarata** (3); **egiten duen zarata** (4); **egiten zuen zarata** (4); **egiten zuten zarata** (6); **egundoko zarata** (6); **gurpilen zarata** (3); **hainbeste zarata** (4); **hango zarata** (3)

**inguruko zarata** (4); **izugarrizko zarata** (5); **jendearen zarata** (6); **jendearen zarata hotsa** (4); **kaleko zarata** (4); **kanpoko zarata** (3); **moduko zarata** (6); **motorraren zarata** (4); **motorren zarata** (3)

**olatuen zarata** (3); **sekulako zarata** (6); **soinu eta zarata** (3); **sortutako zarata** (3); **trenaren zarata** (3)

**zarata aditu** (5); **zarata aditzen** (3); **zarata arraro** (4); **zarata artean** (5); **zarata atera** (8); **zarata ateratzea** (5); **zarata ateratzeko** (3); **zarata ateratzen** (14); **zarata ateratzen zuten** (3); **zarata ateraz** (3); **zarata atereaz** (4); **zarata bakarra** (3); **zarata barruan** (3); **zarata bat** (13); **zarata bat entzun** (5); **zarata batean** (8); **zarata batek** (10); **zarata batzuk** (3); **zarata bera** (3); **zarata burrunbatsuak** (3)

**zarata egin** (9); **zarata eginez** (9); **zarata egiten** (19); **zarata egiten dute** (4); **zarata entzun** (33); **zarata entzun zen** (10); **zarata entzunda** (3); **zarata entzutean** (5); **zarata entzuten** (18); **zarata entzuten du** (4); **zarata entzuten zen** (4); **zarata eta algara** (3); **zarata eta iskanbila** (3); **zarata eta zalaparta** (6); **zarata gehiago** (5); **zarata gehiegi** (9); **zarata gehiegi ateratzen** (3); **zarata gutxiago** (6); **zarata guztiak** (5); **zarata handi** (14); **zarata handi bat** (5); **zarata handi batek** (3); **zarata handia** (44); **zarata handia ateratzen** (4); **zarata handia ateraz** (6); **zarata handia atereaz** (3); **zarata handia dago** (5); **zarata handia egin** (4); **zarata handia eginez** (3); **zarata handia zegoen** (5); **zarata handiagoa** (5); **zarata handiegia** (3); **zarata handirik** (12); **zarata handirik egin** (3); **zarata handirik gabe** (3); **zarata handiz** (18); **zarata hots** (3); **zarata hotsa** (16)

**zarata ikaragarria** (5); **zarata izugarria** (5); **zarata jasanezina** (3); **zarata lasaigarria** (3); **zarata metalikoa** (3); **zarata mutuak** (4)

**zarata pixka bat** (4); **zarata txiki** (6)

**zarata zela eta** (3); **zarata zen** (4); **zer da zarata** (5); **zer zarata** (3)

**zaratak entzun** (5); **zaratak esnatu** (5); **zaratak esnatu zuen** (3); **zaratak iratzarri** (3)

**zarataren bat** (6); **zarataren erdian** (5); **zarataren gainetik** (3)

**batere zaratarik egin** (3); **ez zaratarik** (3); **ez zen zaratarik** (5); **ez zuten zaratarik** (4); **zaratarik atera gabe** (11); **zaratarik ateratzen** (4); **zaratarik batere egin** (3); **zaratarik egin gabe** (27); **zaratarik egiten** (4); **zaratarik entzuten** (4); **zaratarik ez** (21); **zaratarik ez ateratzeko** (4); **zaratarik ez egiteko** (4); **zaratarik gabe** (20); **zaratarik gabeko** (3); **zaratarik txikiena** (7); **zaratarik txikiena ere** (3); **zen zaratarik entzuten** (3)

**jendez eta zarataz** (3); **zarataz bete** (3)

**zaraten artean** (3)

---

## **zarataka** *adlag* zarata eginez.

Emakumea **zarataka**, oihuka, arrantzaka hasi da bere ondoan makurturik. Sonia Gonzalez

Builaka eta **zarataka** ari ziren denak, ardoak gorturik. Josu Zabaleta

Trena **zarataka** mendi-ibarretan barna igarotzen den bitartean, harmonium ttiki baten doinuak eta hiru haurren kantu minberak entzuten dira bagoi bete-betean. Gotzon Garate

Patioan jende ugari ikusten zen, denak alde batetik bestera **zarataka**. Joseba Sarrionandia

Ganberaburuaren besaulkia **zarataka** mugitu zen atzerantz. Jose Morales

-Kaixo, Txilintxo! -esan zuten ume harrituek, **zarataka**. Julen Gabiria

**hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**

**esan zuen zarataka** (3); **zarataka ari** (6); **zarataka ari zen** (3); **zarataka hasi** (4)

---

## zaratapean ik **zarata 7**.

---

## **zaratatsu** 1 *izond*

Kantxaren mailan, berotasun hezean, jende xumeak eta **zaratatsuak**. Ramuntxo Etxeberri

Andere Zorakeria **zaratatsua** da, tentela eta ezer ulertzen ez duena. Elizen arteko biblia

Maradona, azkenean, 1994ko Munduko Kopatik bota zutenean, futbol zelaiek erreboltari **zaratatsuena** galdu zuten. Berria - Kirola

Lehen koilarakada ahoan eman aitzin, mahaikide **zaratatsuetarik** bat zutitu zen, oihu sustatzaileen eta txaloen erdian. Elena Touyarou

Baziren kolore guztietako katuak, kaiola bat bele **zaratatsuekin**, [...]. Iñaki Mendiguren

DC-10 **zaratatsu** batek eten zion solasa, eta leihotik kanpora begiratu zuen bere hitzari eusteko prest. Javi Cillero

Lagun koadrila **zaratatsua**. Harkaitz Cano

Denbora luzean ibili ginen harrizko murru garaien arteko kale **zaratatsuetan**. Irene Aldasoro

Toki jendetsu eta **zaratatsua** zen, epela eta kez betea. Iñaki Mendiguren

Ingurune **zaratatsuetan**, gai da belarria, arreta bilduz, soinu batzuk hautatzeko eta gainerakoak ez entzuteko. Irene Aldasoro

New Yorkekoa, metro zikin, zaharkitu eta **zaratatsua** da. Harkaitz Cano

Wilmarth andereñoa gelara sartzearekin bat amaitu zen iskanbila **zaratatsu** hura. Mirentxu Larrañaga

Gauean, lehen orduan, beste manifestazio **zaratatsu** bat antolatu zuten 500 ikasle inguruk. Berria - Ekonomia

Gaur, protesta **zaratatsua** udaletxeko atarian. Berria - Euskal Herria

Martxoan mandragora batzuek festa ozen eta **zaratatsua** antolatu zuten hirugarren berotegian. Iñaki Mendiguren

Ekitaldi jendetsua eta **zaratatsua** izan zen. Berria - Euskal Herria

Igor Gonzalez de Galdeanok jaso zituzten txalo zaparrada **zaratatsuenak**. Berria - Kirola

Barre ozen eta **zaratatsua**, egun bat lehenago sukalde horretan berean entzun nion gisakoa? Aingeru Epaltza

Gizonak hasperen **zaratatsua** egin zuen. Patxi Zubizarreta

Patioan bere txorrotxio **zaratatsuak** kantatzen jarraitzen zuen kanarioak. Josu Zabaleta

Hauxe bai derrepenteko zaparrada **zaratatsu** eta haizetsua. Joxe Austin Arrieta

Halako batean helizeen jirabira **zaratatsua** entzunen da. Joseba Sarrionandia

Jendea hagitz minbera baita aktualitate **zaratatsuenaren** mamuekin. Iñaki Segurola

**2** (adlag)

Handik gutxira, zaldun mozkote bat **zaratatsu** sartu zen margolanera, armadura eta guzti, bere ponyaren atzetik. Iñaki Mendiguren

Ez oso urrutira, flamenko saldo bat pausatu zen **zaratatsu** aintzirako ur ilunetan. Josetxo Azkona

Landroverrean sartu eta ziztuka hasi ginen, atzamarrak ahoan, ahal bezain **zaratatsu**. Joxe Austin Arrieta

Bidelapurrak **zaratatsu** iritsi ziren Ekialdeko Bidea zanpatuz eta, gelditu gabe, Uraldeko Bidea hartu zuten. Agustin Otsoa

Weasley andrea **zaratatsu** zebilen, gosaria arreta handiegirik gabe prestatzen. Iñaki Mendiguren

Bihotza jauzika hasten zait metronomoa baino azkarrago eta **zaratatsuago**; ez dut besterik entzuten: iritsi da nire nekeen momentua. Anjel Lertxundi

**hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**

**protesta zaratatsua** (3); **zaratatsua izan** (6); **zaratatsua izan zen** (4)

---

## **zaratatsuki** *iz* zarataz.

Zaindariek takoiak **zaratatsuki** elkartuz agurtu zuten. Alberto Ladron Arana

---

## **zaratatxo** *iz* zarata txikia.

Bat-batean zirrara bat sartu zitzaigun hezurretaraino: hots bat, **zaratatxo** bat, iritsi zen hildakoaren gelatik. Josu Zabaleta

Sortu den baretasunean ispilu zatiek ateratzen dituzten **zaratatxoak** entzuten ditugu, gardentasun handiz. Berria - Kultura

**Zaratatxo** susmagarri batzuk baizik ez dira entzuten bainugelan. Josu Zabaleta

Mutil gazteak eztarria urratu zuen, beharrik gabe edo emaitzarik gabe, eta **zaratatxo** labur bat atera zitzaion. Mirentxu Larrañaga

---

## **zaratazale** *izond* zarataren zalea dena.

Iritzi publikoaren miresle, trumoitsu, moldakaitz **zaratazale**, afektatu, itsusi, susmo-putzu, gezurti, errespetatua halere. Xabier Olarra

---

## zaratots *(17 agerraldi, 14 liburu eta artikulu 1ean; orobat* ***zarata hots*** *23 agerraldi, 5 liburutan) iz* zarataren hotsa, hots zaratatsua.

Horretan, zaldi-hotsa, soldaduen zalaparta eta segizio ugariaren **zaratotsa** entzun zen atean. Askoren artean

Motorraren **zaratotsa** garbiki heltzen zitzaion. Iñaki Zabaleta

Begiak erdi hertsirik, edozein **zaratots** edo marruma entzun bezain pronto itzarririk, erne, ohoinak zitezkeelakoan gaueko mamuen zelatan. Xabier Mendiguren Elizegi

Musika notak bainoago, itotakoen arimen negar eta samin-loreak ziruditen haien **zaratotsek**. Pako Aristi

Kanpai danbadek **zaratots** ibilkari gero eta handiago hura eteten zuten urruneko pabiloi batetik. Karlos Zabala

Azantz-**zaratots** bat entzun nuen. Daniel Landart

Atabalen **zaratots** nahasia. Joanes Urkixo

---

## zarauztar *izlag/iz* Zarauzkoa, Zarautzi dagokiona; Zarauzko biztanlea.

Iruretagoiena **zarauztar** zinegotzia ere Iruretagoyena moduan eman zen. Iñigo Aranbarri

Lau urte eta hamar hilabeteko espetxe zigorra betetzen ari da solidario **zarauztarra**. Berria - Euskal Herria

Haren ordez mutil **zarauztar** hippy bat azaldu zitzaigun. 1951n, martxotik aurrera, Basilika berriaren lanak abiatu direnean, Tomas Larrañaga **zarauztarraren** izena eta firma ageri dira. Xabier Mendiguren Elizegi

Aita arraunean aritzen zen **zarauztarren** traineruan, "Golondrina" izeneko hartan. Xabier Etxabe

**Zarauztarrek** ez zuten naufragoaren hizkuntza ulertzen, eta biraogile deabrutu baten istorioa asmatu zuten. Martin Anso

---

## zarba 1 *iz* abar hostodunez egingiko sorta.

Baratze-lanetan balioko dizuten **zarbak**, makila luxeak, hagatsu, baba eta leka txut eusteko gauza izango diren **zarbak**. Pello Zabala

Sorginkeria guztien aurkako erremediotzat zeukaten zuhaitz dotore hau, eta bere abar eta **zarbak** estima bereziz zaintzen eta gordetzen zituzten. Pello Zabala

Emankorra izan da gainera beti lizarra: **zarba** ugaria, azkarra eta baliosoa hazten du urte pare batean. Pello Zabala

Egurrezko uztai-koroa batzuk prestatzen zituzten, haiei su eman, eta, **zarbazko** katapulta indartsuak medio, botatzen zituzten maldan behera. Pello Zabala

Primerako itxiturak egin ohi ziren gure baserrietan hurritzaren **zarba** tamaina ezberdinetakoekin. Pello Zabala

**2** (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

Lizarrari bere beteenean **zarba**-barda eta adar-makilak moztu eta zer edo zertxo bat lehortu orduko, ale!, hartu, eta kobara jaso. Pello Zabala

**3** (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa)

Txinan bertan, sendikoren bat hildakoan, ehortzi ostean, etxe inguruan sahats **zarba** bat landatzen zuten bere horretan. Pello Zabala

Euskaldunok hemen etxeari teilatua ematean, erramu-**zarbaz** gaina koroatzen diogun bezala, [...]. Pello Zabala

Hurritz-**zarbaz** landutako hesia egiteko. Pello Zabala

Udaberriari agurra emateko lizar-**zarbak** ernaltzen eta berdexkatzen badira aurrena, urte eguzkitsu, epel eta lehorra omen dator. Pello Zabala

Ekaitzetan tximistetatik babesteko, basa-lizar **zarbak** eransten zituzten txabolen lau aldamenetan. Pello Zabala

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
> **lizar zarbak** (4)

---

## zarbatsu *izond* zarbaz betea.

Muino **zarbatsu** haiek ehizaz gainezka egongo ziren, eta hango bazter eta abaroetan barrena egun osoan gelditu barik ibili ahal izango zen. Joanes Urkixo

---

## zarbatto *iz* zarbatxo.

Beste herrialde batzuetan, emakume antzu edo haurdun gelditzen ez zena hurritz-**zarbattoekin** jotzen zuten, emankor egin zedin. Pello Zabala

---

## zarbatxo *iz* zarba txikia.

Eskandinavian ereiaroa seinalatzen zien urkiak: bere **zarbatxoak** lurrean tente iltzatuz seinalatzen baitzuten noraino zuten egina erein-lana. Pello Zabala

Mihura-**zarbatxoren** bat oparitzen badizute, hartu. Pello Zabala

---

zarbel ik **zerbel**.

---

## zarbo 1 *iz* ibai arraina, bizkarraldea berdexka, sabelaldea zilarkara, goiko ezpainaren ertzean lau bizar dituena, jateko ona *(Gobio gobio)*.

Ibaian arrain ugari egoten da: **zarboak**, tenkak, lutxo jatunak, karpa zilarkarak, perka hegalgorriak, aingira irristakorrak eta, batzuetan, lanparda txikiek zirikatuta, gaizkata sendoak ere igotzen dira ibaian gora, batzuk ehun eta berrogeita hamar kilokoak eta gehiagokoak ere. Koldo Biguri

Lutxo handi batzuk erakutsi zizkion, neurrien arabera paratuak; taula ezin garbiago batzuen gainean zeuden, tenka beltzaranen eta **zarbo** pila txikien ondoan. Karlos Zabala

Baditu **zarboak**, lamotak eta baita perkak ere. Itziar Otegi

Urre kolore zorrotz horien erdian, **zarboen** eta perken otarreek, amuarrain sortek, xipa pilek, esparbelez harrapaturiko arrain zapalen multzoek zuritasun bizia hartzen zuten. Karlos Zabala

Bi karramarro eta **zarbo** distiratsu bat ikusten ziren sarean katramilaturik. Jose Morales

**Zarbo** handienak bizi ziren ur sakonetan igerian ibili eta gero, orain belarraren gainean atseden hartzen ari ginen. Fernando Rey

**Zarbo** biribila, esaterako, Kaspiar Itsasoan eta Itsaso Beltzean hazten da, baina azken urteetan AEB Ameriketako Estatu Batuetan ere ugaldu da. Berria - Gaiak

**2** (hitz elkartuetan)

Axenariok nahiago du **zarbo**-arrantza. Itziar Otegi

**zardai** 1 *iz* haga, makila luzea.

Gure probintzia maitagarrian ohitura den bezala, **zardai** bati lotu eta atzitze-sari eskean ibili nintzen Laurkin eta Arruti bailaratan, etxez etxe eta atariz atari. Anjel Lertxundi

**2** *izond ipar* liraina.

Bilo zione zurpaileko gizon bat, izugarri luzea, mimena bezain **zardaia** eta mehea. Itxaro Borda

Jadanik jasangaitz bilakatzen ari zitzaizkidan gau hautsi eta melenga hauetarik ahalik urrutien eroan nintzan otoizten nuen gizon **zardaiaren** so kuraios, fermu eta umila. Itxaro Borda

Mutikoak bazekien ekiak, ilunpeak, uhar bortitzek eta haizeak joaz beltzatu aurpegiarekiko gizon **zardaia** zare txirikordatzen hasiko zela. Itxaro Borda

Noizko duk zintzur bustitzea? -galdegin zion bizkarrez konkor bezain **zardai** zenak, zigarroa ezpainetan dilindan. Itxaro Borda

---

**zare** (*orobat* ***xare***$^{3}$) **1** *iz* otarrea.

Emazte bat, beltzez bezti, **zare** bat besagainetik dilindan. Piarres Aintziart

Emaztea **zare** bat besapean atera zen herritik eta Zuhalmendi auzotegirantz abiatu zen, itzuli baten egitera, astia hartuz, baratuz, fruitu pikorrak bildu eta **zarean** emanez. Elena Touyarou

**Zarea** betexea genuen, ene lagunarekin jin berriengana abiatu ginelarik. Marzel Etxehandi

Zamariaren **zareak** mukuru beteta daude, eta **zareen** gaineko beste hainbesteko fardelak kulunka eginarazten diote. Pello Lizarralde

Ausartu izan balira, hartu otarreak eta **zare** handiak, eta hantxe abiatuko ziren bi agure haiekin ustekabeko egun-pasan. Jon Muñoz

Hangar irekiaren maldan kabitzen ziren gainerakoak, mihimenezko **zareak** biltzeko prest. Itxaro Borda

Azkenik Martizek **zarearen** giderra landu zuen: hamar bat mihimen mehe plegatu zituen eta trebeki bihurdikatu. Itxaro Borda

Bi emazteek erakutsi dauzkigute nola baliatzen ahal zen zumea: apaintzeko, **zareen** edo xapelen egiteko, ogiarentzat... Herria

**2** (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

Martizek lurrean kukubilkaturik, mihimen gotorrenak gurutzean jarri zituen, **zare** zolaren oinarria osatzeko. Itxaro Borda

**3** (hitz elkartuetan lehen osagai gisa, bigarrena aditzaren era ez-burutua dela)

-Pierrak **zare** -biltzen ikasi nahi baldin badu, aski du gureganatzea! Itxaro Borda

Martiz **zare** plegatzen ari zen, Nako mihimen punta erretzen. Itxaro Borda

Uhar bortitzek eta haizeak joaz beltzatu aurpegiarekiko gizon zardaia **zare** txirikordatzen hasiko zela. Itxaro Borda

---

**zaregintza** *iz* otarregintza.

Gaurkoan, Pierra **zaregintzaren** ikastera abiatu zen lasterka, hangarraren maldara. Itxaro Borda

Martiz lanean azaltzen zen, **zaregintzan** bistan dena. Itxaro Borda

Etxetik hangarraren maldara joan zen Graxi ere, Pierra **zaregintzan** nola ari zen kukuxkatzeko. Itxaro Borda

---

**zarerara** *iz* zare betearen edukia.

Negarra begian, emazteak haurra ezarri zion besoetan eta Gartziari eman zion **zaretara** bat barazki, odolki zenbait eta gazitegiko zerriki puska bat. Elena Touyarou

---

**zaretxo** *iz* otarretxoa.

Gaixo emazteak eskua zuen luzatzen, ihizko **zaretxo** bat eskainiz, agian norbaitek hogoi soseko bat emanen ziola. Janbattitt Dirassar

---

**zarezain** *iz*

Ihauterian egiten dira "maskak" izeneko etxe kurrida batzuk gazteekin eta haien artean badira biga, bata emaztea, **zarezaina**, eta bestea, azeria. Angel Aintziburu / Jean Baptiste Etxarren

---

**zargaldu,** zargal(du), zargaltzen **1** da/du *ad* urteen ondorioz hondatu.

Zeharo **zargalduta** zegoen; zurbil-zurbil. Fernando Morillo

Sukarrak eta itxaropen suminek **zargaldurik** zegoen. Juan Garzia

**2** (era burutua izenondo gisa)

Ispiluaren argi zuri gordinpean zimeldua ageri zitzaidan aurpegia, **zargaldua**. Ramon Saizarbitoria

Gas-lanparen argi zakarraren azpiko ohe-ilarak, izarak behin eta berriro astintzearen ondorioz sortutako usain okaztagarriak, aurpegi lodiak, **zargalduak**, horiak, zuriak. Siriusen aurpegi **zargalduan** lehenengo aldiz ikusi zuen Harryk benetako irribarrea. Lopez de Arana

Gizon **zargaldu**, gosetu bat zegoen, kamaina batean eserita, bertsoak kantatzen eta errezitatzen. Josu Zabaleta

Zakur **zargalduak**... Joxe Austin Arrieta

---

**zarigueia** *iz* martsupialen motako ugaztuna, Amerikan bizi dena, igokari ona dena eta esku oratzaileak dituena.

**Zarigueia** (*Monodelphis domestica*) Hego Amerikako ugaztuna da. Berria - Gaiak

Marsupial baten kode genetikoa argitu dute lehen aldiz, **zarigueiarena**. Berria - Gaiak

---

zarkeri ik **tzarkeria**.

---

**zaroar** *izlag/iz* Nafarroa Behereko Zarokoa, Zarori dagokiona; Zaroko biztanlea.

Bixtan dena etxean, bestek bezala, bainan gero landu zuen eta Garaziko euskararen arrasto guti ikusten dugu **Zaroar** idazlearen liburuetan. Xipri Arbelbide

Agorrilaren 16an ezkontzako sakramendua errezebitu dute Arnegiko elizan Argitxu Camino Arnegitarrak eta Extebe Ouret **Zaroarrak**. Herria

Ospe handiko hirugarren **zaroarra** Janpierra Arbelbide kalonjea dugu. Herria

**zarpa**[1] **1** *iz* piltzarra, pilda.

Oinetako zahar eta birjosiak jantzi zituzten oinetan eta **zarpa** zaharrak soinean. Elizen arteko biblia

-Zergatik duzu itxura deslaitu hori eta zer dira soinean dituzun **zarpa** horiek? Matías Mujika

Longaineko botoiak lotu, galtzetako hautsa astindu, eta pixka bat apaintzen saiatu zen, **zarpa** beltz haiek nondik zetorren lau haizetara aldarrikatzen zutelakoan. Karlos Zabala

Han eta hemen jaten zuen, **zarpa** zaharrez janzten zen, eta, hala ere, sos batzuk izaten zituen sakela zulatuetan sartuak. Karlos Zabala

**Zarpaz** jantzirik eta alderrai ibiltzera ohitzea lortu du! Jose Morales

**Zarpaz** jantzia etorri izan balitz, ahituta, etsita, ez zidan hain erraz hartuko gupidak. Ander Irizar

Biltegietan gordetzen zuen hori guztia, eta han lizun eta **zarpa** bihurtzen zen dena. Jose Morales

Gorpu batzuk izoztuak egoten ziren, **zarpatik** helduta itsatsita bezala gelditzen zitzaizkigun. Koldo Izagirre

**2** (hitz elkartuetan)

Goiargiak joa sentitu zen Misiako errege Telefo hantxe agertu zenean, eskale-**zarpaz** jantzirik eta saski bat eskuan. Juan Garzia

Zutik zegoen gizon bat ikusi zuten, ilea bizkarrean behera zuela, bizarra paparrean behera, begiak distiraz, eta zapi **zarpak** soinean. Josu Zabaleta

**3** ***zarpa-jario*** *(orobat* ***zarpajario****)* *izond adkor* zarpatsua.

**Zarpa-jario** eta sos bat nondik atera ez zekiela zebilenean ere burua gora mantentzen zuen hark. Irene Aldasoro

Hego haizeari ere pertsonaia bihurri, deabru, amorragarri **zarpajario** eta bazter nahasle baten irudia emanez bezela edo. Patziku Perurena

---

**zarpa**[2] *iz* atzaparra.

Tutuak jo du, eta harroputzari **zarpatik** helduta astindu eder bat eman gabe abiatu behar izan dute preso gogor hauek jangelara. Koldo Izagirre

---

**zarpabizar** *iz*

Ikara beratz batek hartzen gintuen "Oteiza" entzunik, erakarri egiten zuen deabru munizipala zen, ume gelditurikо **zarpabizarra**. Koldo Izagirre

---

**zarpail** *(orobat* ***tzarpail*** *g.er. eta* ***zarpil*** *g.er.)* **1** *izond* gai edo molde arruntez egina, landu ez dena, leuntasunik edo inongo dotoretasunik ageri ez duena. (pertsonak)

Mitxelenaren antzeko ekintza-gizon zaildu bat espero nuen, ez atso **zarpail** hura. Alberto Ladron Arana

Gizon **zarpail** bat eskean zebilen, alferrik, bere kapelarekin. Koro Navarro

Herren **zarpail** bat erabili du jarraian maletadun gizonak, plazako arkupeetan barrena. Koldo Izagirre

Maddi, orduan, umezurtz sentitu zen eta sehi **zarpail** baten maneran manatzen eta erabiltzen zuten, partikulazki Agustinek. Itxaro Borda

-Jauna? -fraide **zarpail** batek burua makurtuz itaundu zion. Edorta Jimenez

Kontuak hola, sumatzen da, jendaje utzi alfer **zarpail** nabarrari zor zaiola Portolo deitura. Patziku Perurena

Ez zirela, alegia, jendaje nabar **zarpailarentzat** eginak. Patziku Perurena

**2** (gauzak)

Aurpegi zimela uzkurtu egin zen, eta burezur izugarriaren gaineko larru **zarpaila** besterik ez zen gelditu. Agustin Otsoa

Eskale zahar bat sartu zen beroki arre **zarpail** batean bildua. Koro Navarro

Mantu koskor, pobre eta **zarpail** bat aurkeztu zioten, gotzainaren zerbitzuan zegoen nekazari batena. Askoren artean

Tunika **zarpail** eta latz batekin. Askoren artean

Foligno hirira iritsi zenean, zeraman zaldia eta Pugliara joateko atondu zuen jantzi dotorea saldu zituen, eta arropa **zarpailagoz** jantzi zen. Askoren artean

Gaztaina-koloreko zapatila **zarpailak**. Anjel Lertxundi

Oherik ez zegoen, sofa **zarpail** bat besterik ez. Koro Navarro

Jesartzeko zenbait banku eta mahai luze eta **zarpail** batekin. Urtzi Urrutikoetxea

Lukainka-azalak txakurrarentzat eta aldizkari **zarpail** batzuk andregaiarentzat. Anton Garikano

Ofizialentzat balio zuen gela **zarpail** batera eraman zituen. Koro Navarro

Leiho altu batetik eguzki-izpi bat sartzen zela ikusi zuen, ganbara **zarpaila** argitzen zuena. Koro Navarro

Horrelakoxea zen Sobakevitxen aurpegia ere, mardula, **zarpaila**, landu gabea. Jose Morales

Itxura **zarpail** samarra zuen neskak, beroki latz eta han-hemenka litsez betetako hartan bilduta. Mirentxu Larrañaga

Nire letra **zarpaila** konprenitzeko ahaleginean. Jesus Mari Mendizabal

Barre **zarpaila** eginez. Anjel Lertxundi

Garai hartantsu hasi ginen ordu arte erabiltzen zen "desarrollatu" **zarpailaren** ordez "garatu" erabiltzen. Joxerra Garzia

**3** (hitz elkartuetan lehen osagai gisa, izenaren izenondo dela)

Gerrako preso **zarpail** aldra bat, zuhaitz baten azpian euritik babestu nahian. Mirentxu Larrañaga

**4** (adizlagun gisa)

Oraingoan gorbata gabe zegoen, baina ez haatik **zarpail**. Juan Luis Zabala

Batzuetan zahar eta **zarpail** sentiarazten ninduen. Joxean Agirre

Argalak izan ostean, ongi elikatuen itxura hartu, eta mardul bilakatu ziren; **zarpail** ibili ostean, dotoretu egin ziren. Patxi Zubizarreta

Orain, **zarpail** eta uzkur heldu ziren, gupidagarri. Aingeru Epaltza

Bata aberatsa, urrezko eraztunez eta dotore jantzia, eta bestea pobrea, **zarpail** jantzia. Elizen arteko biblia

**Zarpail** jantzita eta oinutsik. Askoren artean

Hanka hutsik zebiltzan eta, eskaleen gisara, **zarpail** jantzirik. Patxi Zubizarreta

Nora gabe ibiltzen zen Alchonon hirian barrena, luze, argal, **zarpail**, bizar gorria nahasirik, alkandora zimurtu batez jantzia, zintzur korapiloa gora eta behera saltoka. Koro Navarro

Jantziak **zarpail**, bizkarra makur, lumarik ez haren kapelu hega-zabal ilupatuan. Aingeru Epaltza

Irudia oinarri zuri baten gainean zetzan eta [...] nire ustez **zarpail** burututako lana zen, hala-moduzkoa. Urtzi Urrutikoetxea

**Zarpail** samar jantzitako emakume lodikote bat inguratu zaigu bere hogeita bost bat urteko seme atzeratua eskutik dakarrela. Harkaitz Cano

**5** (izen gisa)

**Zarpail** hark eroria zeukan eskuineko betazala, ezin zuen begia zabaldu. Koldo Izagirre

Lehen eskarlatazko jantziak erabiltzen zituena **zarpailez** jantzita zebilen orain. Askoren artean

Karrikan barna sigi-sagaka ibiltzen zen **zarpail** triste hartaz trufatzen edo irainka hasten zen edonorekin. Elena Touyarou

Akamarreko **zarpail** tropa horren nahasketaz. Aingeru Epaltza

**6** (hitz elkartuetan )

Egun batzuen buruan, **zarpail** aire bat balin baginuen ere, elgarren errespetu haundiaz naiz orroit, bai-eta ere kaperan ginituen otoitzaldietaz. Herria

· **7** *iz* zarpa, pilda.

Berriro ere zelaira atera zirenean, konkortuta, makila bati helduta eta **zarpail** gris edo zuri izandakoekin jantzita zebilen agure bat aurreratu zuten. Agustin Otsoa

Haietan behartsuenari bere jantziak luzatu zizkion eta, haren **zarpailak** soinean, egun osoa pobre haien artean eman zuen berebiziko barne-pozez beterik. Askoren artean

**8** irud/hed

Ekialdetik jotzen zuen haize leunak hodei zurien azken **zarpailak** bultzatzen zituen. Agustin Otsoa

**9** (hitz elkartuetan lehen osagai gisa, lehen osagai hori izenondoduna dela)

Biluzik zetzan, **zarpail** ugerdo pilo baten gainean. Agustin Otsoa

**10** ***zarpail-zarpail*** *adlag*

Aurreneko egunetan ile-motots batekin agertu zuan, **zarpail-zarpail**, patinetea esku batean eta karpeta argazkiz estali bat bestean. Jokin Muñoz

"**Zarpail-zarpail** aterako ditu kalera", esaten zion Mirandari. Fernando Rey

-Igeltsua bezain zuria zaude, **zarpail-zarpaila**. Koro Navarro

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
> **gizon zarpail** (7); **zarpail bat** (11); **zarpail baten** (4); **zarpail batzuk** (5); **zarpail hark** (4); **zarpail hura** (4); **zarpail jantzia** (3)
> **jantzi zarpailak** (4)

---

**zarpaildu**, zarpail(du), zarpailtzen *(orobat* ***zarpildu*** *g.er.)* **1** da/du *ad* zarpail bihurtu.

Bizi beharrak hainbeste **zarpailtzen** gaitu denok ere... baina era berean indartu ere egiten gaitu, [...]. Pako Aristi

Gure jantzi eta oinetakoak ere **zarpaildu** egin zaizkigu hain bide luzean. Elizen arteko biblia

Eroaren gisan sartu zen Henne errabinoaren langelan, arropa **zarpailduta**, txorimalo biziduna. Koro Navarro

Traje bakarra zegoela egiaztatu ahal izan zen, eta hura, gainera, oso **zarpaildua**. Bego Montorio

Orduko zaharkituak zituzten lo-zakuak eta larruzko jantziak **zarpailduak**. J.M. Olaizola "Txiliku"

Zer esanik ez, kapak urratuta eta **zarpailduta** atera ziren handik. Agustin Otsoa

Halako itxura fantasmagorikoa zeukan etxe osoak: hormak **zarpailduta**, igeltso puska eroriak, trasteak bazterretan pilatuta... Xabier Mendiguren Elizegi

Geltokia bera, hiri hain *mignon* honetan, erabat **zarpaildua** eta hondatua. Bernardo Atxaga

Hodei zikinak lasterka zihoazen, teilatuen arrasean kasik, **zarpailduak**, tximistorratzen puntetan katigatu eta urratu izan balira bezala. Karlos Zabala

Gure jantzi eta oinetakoak ere **zarpaildu** egin zaizkigu hain bide luzean. Elizen arteko biblia

Denbora asko neraman orri-pasa, eta liburua **zarpailduko** niola pentsatzen ari zen, antza, gizona. Anjel Lertxundi

**2** (era burutua izenondo gisa)

Katua lo alfonbra **zarpailduaren** gainean. Koro Navarro

Arropa zahar **zarpailduak**, bizkarra euritik babesteko zaku zahar ireki bat burutik behera botea. Juan Luis Zabala

Dagoen lekutik ikusten du Balentin, agure etxegabea, poltsa **zarpailduez** inguratua. Paddy Rekalde

Bananondoak makurturik daude: enborrak oblikuoak eta hosto luzeak lehortzera eskegitako galtza **zarpailduen** moduan. Joseba Sarrionandia

Leihotik begiratu, eta neure Putzu kale **zarpailduari** (**"zarpaildua"** baino okerrago, ederturik agertu arren; gihargabetuta baitago zalantzarik gabe) agur esan diot isilean. Txillardegi

Kotxea lando **zarpaildu** zahar bat zen. Koro Navarro

---

**zarpailkeria** *iz* zarpailaren denaren nolakotasuna, gaitzesgarritzat markatua.

Itxurarekiko balizko kezka hura ez zetorren bere artilezko jertse zirtzilduarekin, bere utzikeriarekin, bere **zarpailkeria** orobatekoarekin bat. Harkaitz Cano

Azkenaldian gaitzak jota egon den kapitainak bere lekua hartu, eta burukada batekin bukatu ditu itxura txarrak eta **zarpailkeriak**. Berria - Kirola

---

**zarpailki** *adlag* zarpailkeriaz.

Argazkian asko erreparatuta bakarrik ikus zitezkeen erretratua atera baino lehen gaumahaitxotik **zarpailki** apartatuak izan ziren pastilla antidepresiboen dozenaka kartoizko kaxa eta plastikozko ontzi. Harkaitz Cano

**Zarpailki** eta aho betean tentatua bada, hala nola, Jainko gure Jaunaren zerbitzuan aurrera joateko oztopoak ipiniz, adibidez nekeak, lotsaizuna eta munduko ohoreagatik beldurra, etab. Patxi Altuna

---

**zarpailtsu** **1** *izond/iz* zarpatsua.

Gizon **zarpailtsu** bat igandeko egunkari bateko fotograbatuei begira zegoen; haren aurpegia lehenago nonbait ikusia zuen. Lopez de Arana

Ehun urteko atso **zarpailtsu** batek, hiru uraza ziztrin babesten zituen zeta arrosazko itzalkin hautsi negargarri baten azpian. Karlos Zabala

Lanetik etxera zihoazen neska-mutil gaztez beterik zeuden Westmoreland Streeteko espaloiak, eta umegorri **zarpailtsu** batzuk zebiltzan, hara eta hona lasterka, arratseko argitalpenen izenak oihukatzen. Irene Aldasoro

**Zarpailtsu** mordo bat agertu zen eta atzetik jarraitu ziguten Attarinen zokoraino. Monika Etxebarria

**2** (adizlagun gisa)

Biluzik, zikin, **zarpailtsu** agertuko naiz; dena eman ondoren itxura beldurgarria izango dut, betiko justiziaren heraldo mehatxugarria izango naiz. Jose Morales

Gorputza ez duzu horrela zaintzen, ihar-ihar eginik eta **zarpailtsu** jantzirik, gainerakoan errege bat dirudizun arren. Juan Kruz Igerabide

---

**zarpailtxo** *izond adkor* zarpaila.

Bonino gizontxo potolo, **zarpailtxo**, lausoki txakurkara bat zen; bizarra gaizki moztua zuen eta irribarrea horzgabetua. Juan Garzia

---

**zarpailtze** *iz* zarpail bihurtzea.

Bizipen-ahalmena hainbat gehiago galtzen ari ziren, zenbat eta haiek gero eta gehiago pasatu, Eskolastika berantiarreko Filosofian eta Teologian, determinatze eta

**zarpailtze** kontzeptual eta gnoseologikoaren [...] objektu izatera. Joan Mari Lekuona

---

**zarpailxko** *izond adkor* zarpaila. ik **zarpailtxo**.

Agudo jo zuen garbitzearen aldera: baina oraingoan lainateria txuri **zarpailxkoa** hortxe gelditu zen, hurrengoen zain edo... Pello Zabala

---

zarpajario ik **zarpa**[1].

---

**zarpatsu** *(orobat **zarpazu** g.er.)* **1** *izond* zarpaz betea.

Ez zen aise esatekoa zer garaiera zuen edo nolako gorpuzkera, janzkera **zarpatsu** haren azpian. Karlos Zabala

Zela zapata-zola zahar bat, zela emakume-soineko **zarpatsu** bat. Jose Morales

**2** irud/hed

Nekez aurkituko baituzu landare **zarpazu**, xalo eta ernagarriagorik. Patziku Perurena

• **3** *izond/iz* zarpaz jantzia, arlotea. ik **zirtzil**.

Hura ez zen jadanik Becheveko miraria, langile **zarpatsu** bat zen. Koro Navarro

Ez nuen begitarte gazterik ikusten, ume **zarpatsu** batzuk izan ezik. Koldo Izagirre

Jende ihar **zarpatsuz** osatutako multzo bat bazen ere, ahots zoragarriak zituzten. Xabier Olarra

**Zarpatsu** batzuk zeuden gorpuaren inguruan, haien artean txima-luze bat. Josu Zabaleta

**Zarpatsuetako** batek -lepoko postizo nahiko zikina zuena, jakatik kanpora irtenda, eta betaurrekoak-, Hurtadorengana ondoratuz, fazakeria barregarri batez esan zion: [...]. Josu Zabaleta

**Zarpatsu** jendaila hura guztia teilapean utzirik, etxetik kanpora atera zen. Josu Zabaleta

**4** (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

Mutiko txikiegiak zirela esan eta kontra egin nion, eta, hala, aurrera jarraitu genuen, **zarpatsu**-tropelak atzetik Troxa zaleak! Irene Aldasoro

**5** (hitz elkartuetan lehen osagai gisa, izenaren izenondo gisa)

Neska **zarpatsu** talde baten atzetik oldartu zen, bere harri-jaurtigailua, kargatu gabe, keinatzen ziela. Irene Aldasoro

---

**zarpazahar** *(orobat **zarpazar** g.er.)* **1** *izond* zarpa zaharrak daramatzana.

Liberalek hain zuzen "erregeneratu" beharreko jende baldar, elizaren eta tradizioen jopu, ezjakin, trauskil, apatikoa kausitzen dute herria: ezin da herri **zarpazahar** horren izpiritua izan, aldarrikatzen duten *Volksgeist* espainol dirdaitsua. Joxe Azurmendi

Kentzak Laxaro **zarpazar** hori. Pablo Sastre

**2** (adizlagun gisa)

Ez ilerik ebaki, ez azazkalik, ez soinekorik aldatu, **zarpazahar** ibili. Pello Zabala

---

zarpazar ik **zarpazahar**.

---

**zarpazikin** *izond* zarpa zikinak daramatzana.

Orain gorriak eta beltzak ikusiko dituzue, bai zuk bai zure osaba **zarpazikin** horrek. Patxi Zubizarreta

Haiekiko harremana gurasoekin bizi izandako garaikoa zen, haiek ere **zarpazikinak** izan. Patxi Zubizarreta

---

zarpazu ik **zarpatsu**.

---

zarpeadura ik **zarpiadura**.

---

zarpeatu ik **zarpiatu**.

---

zarpeatzaile ik **zarpiatzaile**.

---

zarpeo ik **zarpio**.

---

**zarpiadura** *(orobat **zarpiadura** g.er.)* *iz* zarpiatzea.

On Camillok umetxo bat harrapatu zuen apaizetxeko **zarpiadura** zuria ikatzaz zirrimarratzen. Koldo Biguri

Makila bat hartu eta lurrean sartu zuen, hormari pega-pega eginda, **zarpiaduran** egindako zuloetako baten aurrean. Koldo Biguri

Berriro hantxe azaltzen zaizu hurrengo harkaitz-labarrari itsatsia, hasieran mortairu-paleta batez hara jaurtikia dirudiela, baina ez da bertan gelditzen **zarpeadura** baten gisa, baizik eta lerratu eta berriro amiltzen da hutsunera, gailurraren bestaldera. Joxe Austin Arrieta

---

**zarpiatu**, zarpia, zarpiatzen *(orobat **zarpeatu**)* **1** du *ad* hormaz eta kidekoez mintzatuz, kareorez estali eta berdindu.

Elurra bezain kare zuriz **zarpiaturiko** eliza berri baten gainean altxatua. Jose Morales

Aurrena elkarrekin nahastutako kare eta adreilu birrinduz **zarpeatuko** da. Santiago Iruretagoiena

Ipini zutik, tartea harez eta karez bete, eta kanpotik **zarpeatu** eta igeltsuz leunduz gero, ez zen adreilu beharrik. Pello Zabala

Prezioa adostu eta apaizetxeko aurrealdeari **zarpiatu** berria eman ahal izan zion. Koldo Biguri

Oroitzapenotan murgilduta, puta bat irten zen horma **zarpiatutako** ezkaratza ilun batetik. Anjel Lertxundi

Ondoren pareta **zarpeatuko** balu bezala hautseztatu zion bizkarra. Matías Múgica

**2** (era burutua izen gisa) ik **zarpio**.

**Zarpeatua** zabaldu denean, berdindu bedi harearen ordez adreilu-hautsezko morteroarekin. Santiago Iruretagoiena

**Zarpeatua** ematen zaienean, hezetasuna hartzen dute eta puztu egiten dira. Santiago Iruretagoiena

Harrobiko harea, berriz, azkarrago lehortzen da eraikuntzetan, eta **zarpeatuak** iraun egiten du. Beltz hori ez da batere txarra izango **zarpeatuetan** erabiltzeko. Santiago Iruretagoiena

Zinabrioa, **zarpeatu**-lanetan hainbeste erabiltzen dena, honela prestatzen da. Santiago Iruretagoiena

---

zarpil ik **zarpail**.

---

zarpildu ik **zarpaildu**.

---

# zarpio *(corpusean* ***zarpeo*** *soilik)* **1** *iz* zarpiatzea.

**Zarpeoa** pixka bat lehortu denean, kareorearen lerrokadurak markatuko dira, luzetarakoak erregela eta kordelarekin, altuerak berunarekin, eta angeluak eskuairarekin ondo markatuz. Santiago Iruretagoiena

Horregatik, bakarren batzuek, pareta zaharretatik **zarpeo**-puskak hartuz, marrazteko harlosa bezala ere erabiltzen dituzte Santiago Iruretagoiena

**2** *irud/irud*

Haizeak ere, iparra nola dabilen, ez du bere **zarpeo**-lana iparraldean egiten gehien. Pello Zabala

---

zarr-zarr-zarr ik **zar-zar 2**.

---

# zarrabete *(orobat* ***zerrebete*** *g. er.)* *iz* zanfona.

Bainan nork ezagutzen du **zarrabetea**, lekuka *zerrebete* deitu ere dena? 17-garren mendean alta arrakasta handixkoa ba omen zuen, bereziki Nafarroan. Herria

Gaskonia eta Euskal Herriaren arteko herrialde xarneguen musika berraurkitzen dute bertan, tresna ugari erabiliz: **zarrabetea**, xirulak, ttun-ttunak, biolina, alboka, [...]. Berria - Kultura

Musikalki ustekabe interesgarriak ekarri dizkigu Koteronek: celloaren, **zarrabetearen** eta albokaren elkarketa naturala, alde batetik; bestaldetik, perkusioen pisu nabarmena. Berria - Kultura

Aspalditik ezagutzen dugu elkar, Ganbararen disko batean Joanek bere **zarrabetea** jo baitzuen. Berria - Kultura

Caroline Phillips-ek **zarrabetearen** doinua entzunarazten dauku. Herria

---

# zarrada *iz* zirrara.

Durundi hots lodi bat jo zuen bere belarrietan, eta izuzko **zarrada** batekin begirarazi zion goraldera. Anton Garikano

Honek **zarrada** berezi bat sentitu eta bazirudien urduritasun gogor batek larritzen ziola barrena. Anton Garikano

Jarraian, zubiko baranda ukitu arte inguratu da, eskuak bermatu eta imintzio labur eta nekatu bat egin du, bultzada etsitua edo **zarrada** litezkeenak. Pello Lizarralde

---

# zarradako *iz* zarrada, zirrara.

O, a zer **zarradakoa**, beharbada Grassi hila da! Fernando Rey

---

# zarrako *iz* zarrada, zirrara.

Sekulako **zarrakoa** hartu du. Xabier Olarra

Sabelean **zarrakoa** sentitu nuen eta aztoramena bat-batean joan egin zitzaidan. Fernando Rey

Eta aldiro shock moduko bat hartuko zuen, eta sekulako **zarrakoa** sentiaraziko zion. Xabier Olarra

---

# zarramarra **1** *iz* nahas-mahasa.

Akaso adoreberrituko zen ikusirik, kaleetako **zarramarra** zaporegabean, gertatutakoak ez zituela gauzak kutsatu. Juan Garzia

• **2** *adlag*

Zain geratu naiz, kirio guztiak airean eta, **zarramarra**, haizeak adarretan eragindakoa izatea desiratuz. Patxi Zubizarreta

---

# zarrantzatu, zarrantza(tu), zarrantzatzen **1** du *ad* txarrantxatu.

Gero garbitzaileei eskatu diet zerbitzua eta gizontzar batek goitik behera **zarrantzatu** nau espartzu moduko batez. Jon Arretxe

**2** irud/hed

Mutil bat **zarrantzatzea** munduko gauzarik errazena da, txakurtxo, baina larrutan ondo egiten duen gizon bat aurkitzea ia miraria da. Jon Arretxe

-Nik mutil asko **zarrantzatu** ditut, txakurtxo, asko eta asko, eta oso gutxi izan dira benetako plazerra sentiarazteko gai. Jon Arretxe

---

# zarraparra *iz* nahas-masa.

Joanesek bazekien, basoa herrira bihurtzeko desioz erregearen lege-gizonekin sinatu zen hitzarmenaz geroztik, istilua eta **zarraparra** besterik ez zela herrian, nekazarien eta karrikakoen artean, bekaizkeria eta ezinikusi galanta baitzebilen bazterretan. Felipe Juaristi

Hiriko **zarraparraz** eta dena behetik gora irauli nahiaz gogaiturik, [...]. Felipe Juaristi

---

## **zarraparrero** *izond* bazter-nahaslea.

"Bibotehaundi hori!", **"zarraparrero** hori!" eta halakoak esaten ebazan. Xabier Amuriza

---

## **zarrapastaka** *adlag* alferrik ahalegintzen.

Beltzez jantzi haiek, era berean, beren gonatzar eta sotanetan trabatuak **zarrapastaka** ezin mugitu ziren. Patxi Ezkiaga

---

## **zarrapata** *iz*

Buru-buztan handirik gabeko jardun hari esker jakin nuen ikazkinak eragina zela barre-algara haien guztien **zarrapata** . Anjel Lertxundi

---

## **zarrapatu**, zarrapa(tu), zarrapatzen

Lepoak iganik, aihenezko zubien bidez errekak zeharkaturik, hartz baten ganik lasterka ihesi eskapaturik, arrantzek **zarrapatua** , eskuak odoletan harpe batera heldu zen. Herria

---

## **zarrapo**[1] *iz* atzamarkada.

Marinelik zailduenari ere egiten dio halako **zarrapo** bat urdaileko zuloan lehorra ur jotzen ikusteak. Koldo Izagirre

---

zarrapo[2] ik **zerrapo**.

---

## **zarrapoka** *adlag* arrapaladan, itsumustuan.

**Zarrapoka** egiten da lan erredakzioetan. Iñigo Aranbarri

---

## **zarrast** *(orobat* ***zarrazt****)* **1** *adlag* urratzearen onomatopeia.

Mespretxuzko oihu ttiki bat egin eta... **zarrast** ! goitik behera urratu zuen gutuna. Joxan Elosegi

**Zarrast** ! zainetik moztu, eta beste organoetatik bereiz, estainuzko pitxerran sartu du esku beteko bihotza. Patziku Perurena

Marren lau aldeak inguratu zituen gero, **zarrazt** , **zarrazt** , **zarrazt** eta **zarrazt** , lauki bat osatuz. Anjel Lertxundi

**2** (izen gisa)

Ezaguna zitzaidan azienda hil berria zatikatzean aizkorak haragian ateratzen duen **zarrast** hotsa. Aingeru Epaltza

---

## **zarrasta** *(orobat* ***zarrazt****)* **1** *iz* zirrara, zarrada.

Kartelek sorraraz dezaketen lehen eragina, lehen **zarrasta** jaso behar dugu. Iñaki Zabaleta

Bere baitan **zarrasta** bitxi bat sendi zuen. Elena Touyarou

Zinez, bihotzean **zarrasta** samina izan nuen ankerkeria hori irakurrita. Gotzon Garate

Aspaldian gogoan geneukan Gernika bisitatzea, erran arrazoinengatik, eta bereziki euskaldun guzieri bihotzean **zarrasta** haundi bat egin baitzigun delako bonbardaketa horrek. Angel Aintziburu / Jean Baptiste Etxarren

Bere adinekoak ikustean haunditzen, ezkontzen, buraso bilakatzen, aita-ama horieri beti **zarrazta** bat eginen zaiote. Herria

-Arratsalde on -agurtu zituen, sortu zuen **zarrastaz** ohartuz. Elena Touyarou

**2** urratu hotsa.

Dursleytarren batek komunera bidean haren lumaren **zarrasta** entzuten bazuen, [...]. Iñaki Mendiguren

**3** irud/hed

Baxera lerrokatzen ari nintzelarik, mitralleta **zarrasta** bat entzun nuen hor berean... Marzel Etxehandi

Sukaldeko leihotik behera puxika lasaitzen harrapatu zuten goizaldeko hirurak aldera; ikaragarrizko **zarrasta** hotsa ateratzen ei zuten lurrera iristea lortzen zuten tantek, gainerakoek beheko pisuan eskegitako arropetan hartzen baitzuten atseden. Unai Iturriaga

**4** gitarraz edo kideko musika tresnaz mintzatuz, zenbait hari batera igurztea hatzen puntekin.

Gitarristen abilezia eta sendotasuna **zarrastetan** , arpegio, punteo eta pikadoetan. Berria - Kultura

Badakit belarrietara iristen zaizkidan gitarra- **zarrasta** jostari hauek ez direla guretik ateratzen. Patxi Iturritegi

---

## **zarrastada** *(orobat* ***zarraztada****)* **1** *iz* urratua, eskuarki handia. ik **zarratada**.

Oihal baliotsu horiek eskuz garbitzeko, prentsan lisatzeko, almidoiztatzeko, urratuak puntukatzeko, **zarrastadak** pasaratzeko. Joxan Elosegi

**2** turrusta.

Athletiken futbol-elastiko berriko Ketchup **zarrastada** dirudien horretaz aritzeko. Andoni Egaña

Masturbatzen ari zaion gizona zutitu, mahaitxora zuzendu eta tubo bat atera du; sakatu eta **zarraztada** eder bat bota du lagunaren eskubarruan. Juan Martin Elexpuru

**3** zirrara, zarrada.

**Zarrastada** bortitz batek goitik behera inarrosi ninduen. Alberto Ladron Arana

---

## **zarrastadaka** *adlag* turrustaka.

Ontziak garbitzeko ura handik gertu isurtzen da, harraska-zulotik, tarteka **zarrastadaka** , tarteka tantoka, eta haize bolada freskoak bidaltzen dizkio. Itziar Otegi

**zarrastatu**, zarrasta(tu), zarrastatzen *(17 agerraldi, 11 liburutan)* **1** da/du *ad* zarrastada egin, urratu. ik **zarratatu**.

Hain bortizki jiratu zen besaulkian, ezen **zarrastatu** egin baitzen bigungarria biltzen zuen ehun artilezkoa. Jose Morales

Izu-laborriak jota itxaroten du, beraz, animaliak bizkar gainera jauzi egin diezaion, sorbaldetatik hasi eta ipurmasailetaraino urra dezan, burua **zarrasta** diezaion. Eskarne Mujika

Zauriturik egonez gero, bere soinekoa **zarrastatuko** zukeen lotailuak egiteko! Jose Morales

Masta luzeak apurtuak, oihalak **zarrastatuak**. Felipe Juaristi

Fulgor Sedano, lurraren usaina aditu, eta euriak ildoak nola **zarrastatzen** zituen ikustera irten zen. Juan Garzia

Bidea gero ta zabalagoa da orain; sobera naski, oihan ederra **zarrastatzen** duelakotz. Piarres Aintziart

Istorio zaharrek onaren eta txarraren artean **zarrastatzen** duten bereizketa gardenaren beharrak. Pako Aristi

**2** (era burutua izenondo gisa)

Dilindan zeukan frak-barren **zarrastatu** bat bereizi eta urrun jaurti zuen. Jose Morales

Deskargatokiaren malda-bizkar gris **zarrastatuan** barrena. Juan Garzia

---

**zarrastel** **1** *izond* dirua zentzu eta beharrik gabe xahutzen duena.

**Zarrastel** haiek, Albert Matsonen emazteak zioena hitzez hitz aipatuz, den-dena xahutu zezaketen aitaren batean. Mirentxu Larrañaga

**2**

Hotzaren eta beldurraren eraginez dardarka zarenean, oihu egin behar duzu, sastakaiaz leihora aterarazi zugan bizi den jainko **zarrastel** barru-nagi bezain barre-eragile hori. Harkaitz Cano

---

**zarrastelkeria** *iz* dirua edo ondasunak zentzu eta beharrik gabe xahutzea.

Energia gehiago, kontsumo handiagoa, **zarrastelkeria** handiagoa, eta segi horrelaxe bazterra jo arte... Juan Luis Zabala

Irtenbideak aurkitzeko eskaria nolakoa den ikusten dugu: kontsumo gutxiago, kutsadura gutxiago eta **zarrastelkeria** gutxiago. Berria - Euskal Herria

Ingurumenari «kontsumoaren eta **zarrastelkeriaren** mesedetan» egin zaiolako kalte. Berria - Euskal Herria

Ugaritasunaren adarra, **zarrastelkeria**, ustelkeria, zer ez. Iñaki Iñurrieta

---

**zarrastrajo** *izond/iz* zarpatsua, alproja.

Hamabi kosako baino gehiago beharko dituk printzesa hirekin eraman nahi baduk, **zarrastrajoa** halakoa Felipe Juaristi

---

**zarrata** *iz* urradura, urratua.

Kateekin, kolorea galduriko arropekin eta zulo eta **zarratarekin** punkaren irudia sortzen lagundu zuen artistak. Berria - Kultura

---

**zarratada** **1** *iz* urradura, urratua. ik **zarrastada**.

Inork ez dio jantzi zaharrari oihal gordinezko adabakirik josten, adabakiak jantzia behartu eta **zarratada** handiagoa egingo bailuke. Elizen arteko biblia

Hobeki egin nahi hartan, labankadatxo baten ondorioz, **zarratada** pare bat egin nuen masailan; eta odolez gorritu zuen horrek nire aurpegiko xaboin-apar zuria. Txillardegi

**2** turrusta.

-Nahi duzue beste kalimotxo **zarratada** bat? Itxaro Borda

**3** zirrara, zarrada

Une batez, **zarratada** sentitu zuen arima urratzen. Fernando Morillo

---

**zarrataka** *adlag* urratuak eginez.

Gizonetako batek tiraka erantzi zuen atorra, **zarrataka**. Fernando Rey

---

**zarratatsu** *izond*

Langileak, erdi biluzirik, kanpoko berotasun ikaragarrian eta trafikoaren kutsadura **zarratatsuan** ari ziren lanean. Ramuntxo Etxeberri

---

**zarratatu**, zarrata(tu), zarratatzen *(7 agerraldi, 4 liburutan)* da/du *ad* zarrastatu.

Blusapean gordea zeukan zahagia behetik goraino **zarratatu**, eta ardo guzia hustu omen zuen. Patziku Perurena

Hemen, juxtu hemen, hemen **zarratatu** zen luzetara ezkooihala. Fernando Rey

Sofa **zarratatu** ziotean geltokiko buruari. Fernando Rey

Gero arropa erabat **zarratatua** zuten pertsona batzuk ailegatu ziren. Fernando Rey

---

**zarratatze** *iz* zarrastatzea; gitarraz edo kideko musika tresnaz mintzatuz, zenbait hari batera igurztea hatzen puntekin. ik **zarrasta 4**.

Ni Borges izango naiz hondarrean, eta ez neu (inor ere baldin banaiz), baina nekezago aurkitzen dut neuretik haren liburuetan, beste askotan baino, edo gitarra baten hari-**zarratatze** neketsuan baino. Juan Garzia

---

**zarratruk** *adlag*

Klasiko hura apalategian geratu zen **zarratruk**, beste asko bezala, denbora luze batez. Berria - Harian

---

**zarratu**, zarra, zarratzen **1** du *ad* itxi. ik **zerratu**[1].

Atea **zarratu** zuteneko, zutitu egin nintzen nardagarri hura hurbil zekidan baino lehen. Koldo Izagirre

Burdinazko atea kanka **zarratu** zen ostera porfirozko pasabidean. Juan Garzia

Atea **zarratuta**, kateatuta dugu. Javi Cillero

Hormigoiz **zarratutako** ateak eta leihoak. Sonia Gonzalez

Elizaren ondoko dorretxea ere leihoak **zarraturik** azaldu ei zen. Koldo Izagirre

Bizkaiko Foru Aldundiak duela aste bi Megaparkeko sarrerak **zarratzeko** mehatxua egin zuen. Berria - Euskal Herria

Liburua **zarratu** du tanpez. Koldo Izagirre

Gutxi barru, begiak **zarratzen** ez baditut ez zaitut ikusiko, belarriak tapatu ezik ez dizut entzungo. Joseba Sarrionandia

Duela 6 urte Gaztetxearekin hasi zirenetik, gazteek hamaikatxo ekitaldi antolatu dituzte, «beste inon egiterik izango ez zituztenak, 15 urtez **zarratuta** egon zen eraikina okupatu, eta euren ahaleginaz egokitu izan ez balute», azpimarratu zuen Perezek. Berria - Euskal Herria

Zipaioen bi furgona daude jadanik **zarratuta** dagoen eskolaren parean. Sonia Gonzalez

Enpresa **zarratu** dezatela eskatzeaz gainera, haren ondasunak bahitzea nahi dute, balizko kalte-ordainak asetzeko. Berria - Euskal Herria

**2** irud/hed

Kontinentera pasoa **zarratzeko** zaintzaile erraldoien guardia edo hamasei hamazazpi bagoi zuriko trena ematen duela. Joseba Sarrionandia

Ni neu nintzen **zarratu** berri duten egunkariko kritikaria. Berria - Kultura

Olagarrotan, eskafandraz, oxigenorik gabe, Purrustarri ingurura joana zen kalma zuria baliatuz itsasoan zabal lema estiborrera **zarratuta**. Koldo Izagirre

•**3** da/du *ad* itxian sartu.

Nabarrenkoxen **zarraturik** ginen nafartar eta zuberotar guztiak igo ginen biharamunean harresietara, gizon, haur eta emazte. Aingeru Epaltza

Aurrerantzean, agintarien jarduera nagusia ez da izango jendaila leku batean **zarratzea** eta arimetan diziplina ezartzea. Markos Zapiain

Autoan **zarratua**, zigarroak zigarroei iraun nuen, ataritik begirik galdu gabe. Aingeru Epaltza

Ezkertiarrek udaletxean **zarraturik** eta hantxe inguraturik dituzte eskuindarrak, eta akabatu egin gura dituzte. Edorta Jimenez

Bere mamuekin hantxe **zarraturik** geratzeari. Juan Garzia

Harrezkero hemen **zarraturik** nago gautegun, beldur bainaiz ikus nazaten. Juan Garzia

-Balitekek hemen horma artean **zarratuta** dagoen oihartzunen bat izatea. Juan Garzia

Niri, berriz, gogoak kanpora egiten zidan ihes, ministroarekin **zarraturik** egiten genuen denboran. Aingeru Epaltza

Zera ematen dik, pareten hutsarteetan edo harri azpietan **zarraturik** ote dauden. Juan Garzia

Bitarte handirik gabe, ezin dute libreki jauzi egin eta, horrela **zarraturik**, sentipenaren mugidak eragiten dituzte, gorputzetik kanpora eragiteko gauza ez direnak. Xabier Amuriza

Zipaioen bi furgona daude jadanik **zarratuta** dagoen eskolaren parean. Sonia Gonzalez

**4** (era burutua izenondo gisa)

Jaiki eta ohartu naiz ispiluek ere sala **zarratuotako** zuritasuna islatzen dutela. Joseba Sarrionandia

Pisuko auzokoen egurrezko leiho berde **zarratuaren** parean gelditu zen. Joseba Sarrionandia

Ikastetxean interno geundenok mundu oso **zarratuan** bizi ginen. Joseba Sarrionandia

Ferra ia **zarratuaren** tankerako badia batera sartuko zarete. Joseba Sarrionandia

Gau **zarratuan** irtena zenean bezala piztua. Koldo Izagirre

Kolomarteen itxitasunaren eta estutasunaren eraginez, oso itxura **zarratua** eta desatsegina hartuko luke tenpluak. Santiago Iruretagoiena

• **5** *izond* trinkoa edo sarria dena. ik **itxi**[2] **4**.

Ekaitz **zarratua**, oinaztuz eta haizetez ernaldua. Xabier Amuriza

Ingurunean oihan **zarratua** besterik ez. Joxe Austin Arrieta

Basoarte amaigabea, **zarratua**, tarteka indiar txabola multzo bat edo beste, erro agerizko zuhaitzen pean ostendurik. Joxe Austin Arrieta

Badira urteak Franco hil zela, ordea, eta euskarak [...] sasi arte **zarratu**, itsu, zeharkaezin izaten segitzen du. Iñigo Aranbarri

Astebeteko bizar **zarratukoa**. Pablo Sastre

Patatak partitzen ari zen kamioi batetik gizon bizar-**zarratu** bat. Pablo Sastre

Euri zirina Chiapasen bezain **zarratu** datorkigularik. Iñigo Aranbarri

Inguruko etxetxoetako argi apal eta dardaratiak besterik ez ilunpe **zarratuan**. Paddy Rekalde

Sua urrun botatzen du eta hautsa lekutara zabaltzen eta belztasun **zarratuko** kea iraulkatzen du. Xabier Amuriza

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
> atea zarratu (8)

---

**zarrazoi** *(orobat* ***zerrazoi****)* *iz* eguraldi oso lainotsua.

Eguraldia ez da erosoa izango, iparsortaldeko haizeak uluka joko du boladatan, eta **zarrazoia** egingo du, eta elurra jasa bizi bizian. Joseba Sarrionandia

Segundo bat lehenago ikusten zituzten zuhaitzak urtuak ziren, portuko bokalea ixten zuen **zerrazoiaren** antzeko esnetasunean. Koldo Izagirre

---

zarrazt ik **zarrast**.

---

zarrazta ik **zarrasta**.

---

zarraztada ik **zarrastada**.

---

**zart** **1** *adlag* bat-batekoaren, tupustekoaren onomatopeia. ik **zirt**.

Arratsaldeaz geroztik, buruan nerabilen zalantza **zart** bota nion aurpegira: [...]. Inazio Mujika Iraola

-Maisua dela-eta -**zart** bota nion. Edorta Jimenez

Erran beharrak eta besteak ere **zart** erraiten zituen bekoz beko. Angel Aintziburu / Jean Baptiste Etxarren

Orain arte inor ohartu ez ote den, **zart** erranen dut: Josuk eta biok ez dugu sekula elkar ongi hartu. Aingeru Epaltza

**Zart** moztu dituzte helizeek hamaika txoriñoren buruak une batean. Xabier Montoia

Gailurra jota ere, bekaitzak, oinaztuak bezala, **zart** eraisten eta Tartaro beldurgarrira lotsagarriro jaurtitzen zituen. Xabier Amuriza

Bertzea berehala... **zart** ! Ramuntxo Etxeberri

## 2 *zart egin* zartatu.

Falujan, berriz, lau polizia irakiar hil ziren eta beste bat zauritu, bide bazterrean ipinitako bonba batek **zart egitean** . **Zart egindako** lehergaia ez zen dinamita. Berria - Mundua

Bagdad hiriburuan, hamaika bonba-autok **zart egin** zuten. Berria - Harian

Orduan bai gorritu nintzela, bihotzeko dinbi-danba hark **zart egingo** zidala ematen zinan. Xabier Mendiguren Elizegi

**Zart egin** dit barneak. Txillardegi

Bestela bihotzak **zart egiten** zuen. Marzel Etxehandi

## 3 *zart egite* (*orobat* ***zartegite***) zartatzea.

Hildako eta zaurituri ere eragin ez zuen lehen **zart egite** honen ostetik, lekuan bilduta zegoen jendeen artean eztanda egin zuen bigarren bonbak. Berria - Mundua

AEBetako Armadak ziurtatu zuen, aldiz, sei lagun hil zirela **zartegite** honetan eta Rob Bell sarjentuak zehaztu zuen lehergailuak eztanda egin zuela ibilgailuaren barnean. Berria - Mundua

## 4 *zart eragin* zirrara eragin.

Zortzi orri luze zen gutuna, eta **zart eragin** zidan argazki bat zekarren. Juan Garzia

Metalezko ate-eskutoki eta leiho-hegiak opako eta lakar bilakatzen ziren, eta aldian behin takateko goibel batek **zart eragiten** zigun geunden tokian. Juan Garzia

---

# zarta 1 *iz* kolpea, eskuarki arina eta eskuaz egiten dena. ik **zartada**.

Monduteguyk belarri batetik besterainoko irri zabala egin zion, bizkarra **zarta** batez joz. Elena Touyarou

-Txit! - **zarta** eman zidan-. Juan Kruz Igerabide

-Guk behar dugun gizona zara! -oihukatu zuen, sorbaldan **zarta** bat emanez-. Elena Touyarou

Pepponek bere kapela eskuetan bihurritu eta **zarta** jo zuen bere izterretan. Koldo Biguri

Sukaldariaren ukabil astunaren **zarta** ozenarekin batera, medikuaren hortzen karraska-hots izugarria aditu ahal izan nuen. Alberto Ladron Arana

Hankekin **zarta** hotsa eginez joan zen atzeraino, elurrezko tontor bat zeukan pilaraino. Anton Garikano

Haren botek **zarta** -hotsa egin zitean zorua jotzean, eta berriro ere erne jarri zuan, desfile batean balego bezain zut. Xabier Olarra

Are belarrondoko edo gerriko **zarta** gehiago jotzen zizkidan. Pello Lizarralde

· Zartailu beldurgarri bat inarrosten zuen besotxo hartan, eta **zarta** bakoitzeko tiroari punpa eragin eta ilunpean amiltzen zuen. Koldo Izagirre

## 2 (onomatopeia gisa)

Gero, bere poltsa bazter batean utzi eta, gaineko arropa zokora **zarta** ! jaurtirik, oherat erakarri ninduen. Aingeru Epaltza

## 3 *zarta egin* zartatu. ik **zart 2**.

Itzalita zegoela zirudien egurrak, bat-batean **zarta** egin eta txinparta mordo bat botatzen duen bezala. Josu Zabaleta

Esaldia bukatu aurretik, lehen belarrondokoak **zarta** egin zuen Azpetixeren masailean. Bernardo Atxaga

## 4 *txalo zarta* esku zarta.

Adagioa indarrez amaitutakoan **txalo-zarta** batek, luze iraun zuen esku-jotze batek, geldiarazi baitzieten. Felipe Juaristi

Eta entzuleria osoa batera zutiturik, **txalo zarta** bukaezina eskaini dio. Txillardegi

Miguel Sanz Nafarroako lehendakariak eragin zituen **txalo zarta** gehienak, entzuleek Espainiako, PPko eta UPNko banderak aireratzen zituzten bitartean. Berria - Euskal Herria

Ikusleak, txunditurik, txaloka hasi ziren, **txalo-zartaz** eskuak puskatuz ia. Felipe Juaristi

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
> txalo zarta (5)

---

# zarta-zarta *adlag* ekin eta ekin.

Hasieran, zeharka erortzen zen, kibitkaren estalkia aurrena alde batetik eta hurrena bestetik joz; gero, eraso-modua aldaturik eta goitik behera zuzen-zuzen jausiz, **zarta-zarta** hasi zen estalkiaren gainaldean; azkenik, euri-tantak Txitxikoven aurpegia bustitzen hasi ziren. Jose Morales

---

# zartabera *izond* erraz zartatzen dena.

**Globo** zimur eta oskol zartabera. Xabier Olarra

---

# zartada (*157 agerraldi, 67 liburu eta 21 artikulutan*) 1 *iz* ukaldia. ik **zartako; zarta**.

**Zartada** gutxiko borroka izan zen estreinakoa. Josu Landa

Egundoko kulatazo bi eman zizkidan txakur batek sorbaldan, eta bi **zartada** haietatik ezker aldean eman zidana izugarria! Jokin Urain

Agiraka bat eraginkorrago burutsuarentzat ehun **zartada** burugabearentzat baino. Elizen arteko biblia

Atergabeko **zartadak** buruan eta hanketan, urdailean eta bizkarrean, esku irekiarekin edo ukabilarekin. Jokin Urain

"Harrigarria!", esaten zuen, eskuekin **zartadak** emanez belaunetan. Fernando Rey

Atzera jaso ezpata eta behin betiko **zartada** ematera zihoala, [...]. Joanes Urkixo

Zigorraren **zartadak** odolbatua uzten du, mihiaren zaztadak hezurrak hausten. Elizen arteko biblia

Bere indar guztiaz Holofernesi lepoan bi **zartada** eman eta burua moztu zion. Elizen arteko biblia

Lehen nagiak ateratzearekin batera, isla txuri bat iritsi zen haren begietara, eta orduantxe halako **zartada** bortitz batek korritu zion bizkarrezurra, goitik behera aurrena, eta behetik gora gero. Karlos Linazasoro

Gerlari handikotea nekez moldatu zen ezkutuarekin Fionnen **zartadak** gelditzeko. Joanes Urkixo

**Zartadaren** arrasto moreak saihetsak markatzen zizkion. Agustin Otsoa

Amorru bizian, santuari heldu eta handitxoak esan dizkio, eman dizkio **zartada** ederrak altzari eta hormen aurka. Pako Aristi

Oinaztuaren **zartada** ikaragarriak lur kiskalia dardaratzen duenean. Xabier Amuriza

**Zartada** latzak bizkarrean. Joxean Sagaztizabal

Pilotari ematen zizkion **zartada** ikusgarriekin. Juan Luis Zabala

Lurra jotzean, kolpea hanketan gora igo zitzaidan eta berebiziko **zartada** sentitu nuen barrabiletan. Juan Kruz Igerabide

Senti ditzaket irteera guztiak ixten zizkioten esku haien aurka emandako kolpeen **zartadak** , **zartada** alferrak. Pako Aristi

**2** irud/hed

Biktima da, noski, zorigaitzaren **zartadek** eraisten dutenean; baina kriminala sekula ere ez. Juan Martin Elexpuru / Bego Montorio

Beste esperimentu batzuetan, **zartada** elektriko txikiak erabiltzen zituzten arinki anestesiaturiko txakurren garunak [...] estimulatzeko. Irene Aldasoro

Dagokien muskuluei **zartada** elektriko txiki batzuk ematen zaizkie, hogei bat aldiz segundoko. Irene Aldasoro

Bigarren zurrutadarekin, **zartada** bat eman dio vodkak urdailean, espero bezala. Iban Zaldua

Sekulako **zartada** eman ziguten albiste zoragarri haiek Zugarramurdiko mugan zain geundenoi. Txillardegi

Amadeus (-%5,36) bidaien alorreko konpainiak **zartada** hartu zuen atzo merkatuan. Berria - Ekonomia

**Zartada** handia izan zen haientzat semearen atxiloketa. Jokin Urain

Denbora infinitutik hona adinaren **zartada** guztiei haustura gabe eutsi izan baliete. Xabier Amuriza

Begietan argitasuna eta **zartada** nabari zaizkio. Gotzon Garate

**3** (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

Bertzea, ezkutu ezdeus, aurpegitik sabelaldera joan zen eta buelta, nire gorputza **zartada**-erauntsitik gerizatu nahirik. Aingeru Epaltza

Zer pentsatzen ote du emakume horrek -egiten nuen nik neure artean- **zartada**-keinu eta astindu konbultsibo horietaz? Xabier Olarra

**4** (hitz elkartuetan lehen osagai gisa, lehen osagai hori izenondoduna dela)

Izterrean **zartada** goxo pare bat eman zizkion gidariari, eta errepideko marrei begira jarraitu. Unai Iturriaga

**5** (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa)

Horra hor zigor-**zartadak**, gurpilen zarata-hotsa, zaldien zalaparta, gudu-gurdien trinki-tranka! Elizen arteko biblia

Tiro **zartadaren** ondoko isiltasunak ahotsa ere ukatu izan balio bezala. Joxean Agirre

Horrelako beste hiruzpalau itsas **zartada**, eta askatu egingo dira sokak! Jon Muñoz

Hartan geundela, trumoi-**zartada** baten eztanda. Anjel Lertxundi

Del Vallek Heydrichi bostekoa eman zion, elektrizitate **zartada** bat espero duenaren kemenaz. Alberto Ladron Arana

Oinaze-**zartadaren** ondoko taupada gozoaren zain jarri zen. Anton Garikano

Maitale bat berriro topatzen denean bezalako bihotz-**zartada** bat sentitu nuen hura ikustean. Josu Zabaleta

Gogoratzen al duzu John Belushi zenak nolako fede **zartada** sentitu zuen *Blues Brothers* filmean James Brown apaizak meza ematen zuelarik? Berria - Kultura

Ez zenuke enkargua bete nahi, behin enkargua beteta, jarraipenak ematen dizun adrenalina **zartada** eta beste baten bizitzaren jagolea izatearen nagusikeria amaitu egingo liratekeelako. Sonia Gonzalez

Kanpo-**zartada** horien aurkako defentsa moduan itxi egiten ditu ateak, murrailak jasotzen ditu barruan daukana birrindu ez dakion. Pako Aristi

**6** zartatzea; zartatzearen zarata bat-batekoa. ik **zarta 2.**

Bonba-auto baten **zartadak** 11 lagun zauritu ditu, Karachin. Berria - Mundua

Bat-batean, tiro hotsa bezalako **zartada** ozen batek, tupustean erretako sufrearen mihi urdinen antzeko argi baten eztandak lagundurik, hamar buelta emanarazi dizkio bihotzari Asierren paparrean. Pako Aristi

***7 esku zartada***

Esku **zartadak** eman zituen Andreasen hitzak txalotzeko. Anjel Lertxundi

· Ama ikusten dut gelan sartzen, aitaren esku-**zartadatxoak** hartarako seinalea izan balira bezala. Anjel Lertxundi

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
> **bi zartada** (3); **esku zartada** (6); **zartada bat** (6); **zartada elektriko** (4); **zartada eman** (4)
> **esku zartadak** (3); **zartadak ematea** (3)

---

# zartadaka *adlag* zartadak emanez.

Halako batean, atea libratu eta ke poteak jaurtikiz, porrekin **zartadaka** sartu ziren. Jokin Urain

Odola buruan **zartadaka** hasi zitzaidan. Xabier Olarra

Nazkatuta nagok mozkorti madarikatu horiekin gauero **zartadaka** ibili behar izateaz. Lopez de Arana

Patxadarik, iraupen barik, **zartadaka**. Joxe Azurmendi

---

# zartadako 1 *iz* zartada.

Kleopatra horrelako sudurraren jabe izan balitz, nolako **zartadakoa** ez zuen hartuko planetako geografiak. Joxan Elosegi

• **2** *izond* azkarra.

Polizia lagun hori indartsua eta **zartadakoa** omen zen. **Zartadakoa** da, hiztun bikaina, jakin minez akuilatua. Gotzon Garate

Louise, berriz, buruargitsu eta **zartadakoa** zetorren. Gotzon Garate

---

# zartadatxo *iz* kolpetxoa.

Peskus bat eman diot buruan: **zartadatxo** bat. Pako Aristi

Zilarrezko kopatxoan zutitutako arrautza egosiari zilarrezko **zartadatxoak** eman zizkion koilaratxo batez. Joxemari Urteaga

**Zartadatxo** siku batez lehertzen zen burbuila, eta zatiak lurrean barrena barreiatzen ziren, arrautza-oskolen gisako zurrumurru motelez. Juan Garzia

---

# zartadun *iz* lehergailua.

Lehenik bonba bezalako **zartadun** haundi batekin hasia zen hori bainan ezin erran bonba zela. Herria

---

# zartadura 1 *iz* arraildura, pitzadura.

Hormei bazirudinan murmurrak zerizkiela tantaka, artesi eta **zartaduren** artetik iraziko balitzaizkie bezala. Juan Garzia

Urratuak zituen, harramazkak, **zartadurak**, kolore askotako mantxak, eta baita labanaz egina zirudien ebaki bat ere, orbain itxurakoa. Bernardo Atxaga

Ikusiko du azala puzten, pixka bat zartatzen, irekitzen eta, **zartaduraren** sakonetik hirugarren begi bat, irriz dagoen begi bat agertuko da. Monika Etxebarria

**2** irud/hed

Ferminek edalontzia hustu zuen eta alkoholak bihotzeko **zartadura** itxiko zion itxaropenean birikak estutu zituen, airerik gabe geratzen zela igarri arte. Jasone Osoro

---

**zartagailu** 1 *iz* lehergailua.

ETA-koek indar handiko **zartagailuak**, auto batean ezarriak, jauz-arazi dituzte auzitegiaren aintzinean. Herria

**Zartagailu** batzuk ezarri zizkioten eta egileak joan ziren Ondarrolara buruz, handik zartarazteko elektrikaz. Angel Aintziburu / Jean Baptiste Etxarren

Mozkuko metroan bere burua **zartagailuz** jauzarazi duen batek 59 hil egin ditu goizeko zortziak eta erditan jendea trumilka lanerat doan tenorean. Herria

Bakuba inguruan, berriz, 4 zibilek bizia galdu zuten eta beste 14 zauritu ziren, AEBetako Armadako konboiak igarotzean lehertarazteko xedez bide bazterrean jarritako **zartagailuek** orduz kanpo eztanda egin ondoren. Berria - Mundua

**Zartagailuak** nun ziren eta noiz lehertzeko ezarriak. Herria

Eskuetan lehertuko zitzaien **zartagailua** izango zela. Berria - Euskal Herria

Orotarat 1200 kilo **zartagailu** eta arma parrasta bat sesituak izan dira. Herria

**2** (hitz elkartuetan)

Hiru gara haundi jo dituzte kasik oro batean 10 bonba **zartagailu** indartsuk eta beste hiru zartatu ez direnek. Herria

Filipinetan oraino, bonba-**zartagailu** bat bota du norbaitek Terexarentzat bildua zen jende-ostearen erdirat, eta ez da lehertu. Herria

---

**zartagarri** *iz* zartagailua.

Ofizialki Pornicen atentatu bat izan zela maiatzaren 2an errana izan zen, ARBk aldarrikatu eta inkesta egin eta **zartagarri** aztarnak atzeman zituztelarik. Berria - Mundua

---

zartagi ik **zartagin**.

---

**zartagin** *(orobat **zartagi** g.er. eta **zartain** g.er.)* **1** *iz* sukaldeko ontzia, biribila, zapala eta kirten luze batez ornitua, frijitzeko eta erabiltzen dena. ik **padera**.

Tximinian eskegitako **zartagina** beste sukalde tresnarik ez zegoen bordan. Koldo Izagirre

Ama sukaldean aurkitu dut, arraina **zartaginean** jartzen. Lander Garro

Xerrak atzera **zartaginean** ipini, eta, azkenik, perrexila eta tomate puskak gehitu zizkion. Jon Muñoz

**Zartaginean** oilasko paparrak eguzki-lore oliotan erretzen. Unai Iturriaga

Irinetan igurtzi eta **zartaginera** bota ditu. Pako Aristi

Platera tortillaren azpitik pasatu, eta **zartaginera** itzuli zuen. Fernando Morillo

**Zartagineko** olioaren borborrak isilunea eten zuen. Josu Landa

**Zartagineko** koipe kirrinkarira arrautzak botatzen ari zen bitartean. Lopez de Arana

Azkenik, **zartaginetako** frijikiek, baldin eta **zartagin**-izenik merezi bazuten halako pazi tripaundiek. Patxi Ezkiaga

Neskak urdaia **zartaginetik** atera eta opila egin zuen. Koro Navarro

Zutik eta azkar afaldu dute, platerik zikindu gabe, **zartaginetik** bertatik. Harkaitz Cano

Buru gainean **zartaginarekin** eman baliote bezala sentitu baitzuen. Iñaki Mendiguren

Amerikar erako sukaldean, kobrezko **zartagina**. Jon Muñoz

Aldamenekoa agertu zitzaion Raymondi eguerdiko otorduarekin, **zartagin** bete txerriki hotz eta arto-ogia. Mirentxu Larrañaga

**2** irud/hed

**Zartagina** giderretik eusteko aukera iritsi zitzaidala iritzi nion. Jon Alonso

Legegileak **zartagina** kirtenetik eusten du, eta ezin die kontratuen %8 soilik mugagabeak izatearen ardura enpresaburuei egotzi. Berria - Harian

Mundua den **zartaginaren** kirtena bera dago jokoan. Fernando Morillo

Troia aurreko grekoak hainbeste hertsatu zituen Apolok, non Krisesen hiraren **zartaginetik** Akilesen hiraren sura jauzi egin baitzuten. Xabier Olarra

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
> **zartaginean bezala** (3)

---

**zartaginkada** *iz* zartagin baten edukia.

-Primeran -esan du-, **zartaginkada** ederra arrantzatu diguzu gaur. Itziar Otegi

---

**zartailu** 1 *iz* zigortzeko tresna.

Zalditeriako sable bat zeraman gerrian zintzilik, eta gider laburreko **zartailu** bat eskuan. Karlos Zabala

Idiaren zainez egindako **zartailuz** zigorkatu zituen erregeak. Elizen arteko biblia

**Zartailua** eskuetan, aldatu egiten da mundu ikuskera, zinbulukatu egiten dira helduleku ustez finko eta mugiezinenak. Karlos Linazasoro

Oraingoan garrasi egin zuen Joxe Marik, ustekabean **zartailu** batekin jo izan balute bezala. Juan Kruz Igerabide

Erredura antzeko bat sentitzen zuen bidazti basatiaren **zartailuak** jo zuen lekuan. Karlos Zabala

Piztien garrasi latzek durundi egiten zuten kaioletan, zaindarien **zartailu** gogorrez edo ziri goriez xaxaturik. Karlos Zabala

Poliziek eta soldaduek, **zartailua** edo makila eskuan, atzean gelditzen zirenak mugiarazten zituzten. Karlos Zabala

**Zartailuaren** hotsa entzun zen. Agustin Otsoa

-Segi aurrera, usapal maiteak! -garrasi egin zien iemstxikak, **zartailuaren** zirtakoak trumoiaren dunbotsekin nahasten zirela. Karlos Zabala

Amore eman nahi izan ez nuenez, **zartailu** ukaldika hasi zitzaidan. Joxan Elosegi

Hartu, bada, **zartailua**, eta lau kolpetan lau zati egin nion aurpegia polizia itsu putasemeari. Karlos Linazasoro

Estepan barrena zihoazen, soldaduen **zartailuen** pean, bide zikin batean aurrera. Karlos Zabala

**Zartailua** dagoenean, borondatea dago, ene nagi maiteak! Agustin Otsoa

Zaplazteko bat ematea gaizki ikusia zegoen, baina **zartailu** batez ipurdia astintzea zigor noblea zen. Juan Martin Elexpuru / Bego Montorio

**2** (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

Gurdiak iristen ziren etengabe, gurdizainen oihuak eta **zartailu** kolpeak ugaltzen ziren. Karlos Zabala

Mikel Strogoffek zaldiak aurrerago joan daitezen ahalegindu da **zartailu** ukaldi indartsu bat joaz. Karlos Zabala

Dohakabe haiek, **zartailu** kolpez akuilaturik edo lantzen makilaz bultzaturik, arin bai arin altxatu eta kanpamentuko bueltan paratu ziren. Karlos Zabala

Ez ditugu horregatik larru beltzezko jantziz eta **zartailu**-astinduz atseginaren bila dabiltzan xomorrotxo txiki doilortzat zertan hartu. J.M. Olaizola "Txiliku"

Amore eman nahi izan ez nuenez, **zartailu** ukaldika hasi zitzaidan. Joxan Elosegi

**3** *zartailupean*

Hori dela-eta, gatibu ehunka batzuk eraman zituzten soldaduek **zartailupean**. Karlos Zabala

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
> **aitak larruzko zartailuz** (4); **larruzko zartailuz zigorkatzen** (4); **zartailuz zigorkatzen zintuztela** (4)

---

**zartailudun** *izond* zartailua duena.

Orduan esan nien bi zakur **zartailudunei** gure laguna ez zela Onuzki. Karlos Linazasoro

---

**zartailukada** *iz* zartailuaz jotako ukaldia.

Kolpeak oihuak galderak **zartailukadak** entzun behar izango nituen. Koldo Izagirre

Ur-**zartailukadaren** azpian garrasi bat egiten zuen beti, orro luze moduko zerbait. Fernando Rey

---

zartailupean ik **zartailu 3**.

---

zartain ik **zartagin**.

---

**zartaka** **1** *adlag* ukaldika.

Kontu pixka bat gehiago komeni zitzaion izatea makila eskuetan hartu eta **zartaka** hasi aurretik. Pello Salaburu

Euria leihoetan **zartaka**. Anton Garikano

Azken udako hosto zimeldu eta zimurtuak esekirik zeuden, aire tristean kirrinka eta **zartaka**. Agustin Otsoa

Arreka eta **zartaka** eragin zion bere astoari. Patxi Ezkiaga

Unama guztietan haizea ziztuka eta **zartaka** dabilela. Joxe Austin Arrieta

Txalupa olatuek **zartaka** zerabilten. Patxi Altuna

Bada halako plazer misteriotsu bat suntsipenean; sugarrek **zartaka** ekin zioten distiratsu, eta gizonok hormen kontra edo geletara jo genuen trumilka. Juan Garzia

Zuloari emon nizkion begiak luzaz, arratoi handiak urten behar zuen handik eta **zartaka** hasiko zitzaidan. Koldo Izagirre

Noiz hizketan noiz barreka ari ziren, euren belaun lodiak **zartaka** joz. Lopez de Arana

**Zartaka** ekiten zion ibilgailuko saihets metalikoari, eskua leihatilatik at inarrosiz. Aingeru Epaltza

Segur naiz egunero errepikatzen ziotela, **zartaka** emoten zioten artean, bere andreak adarrak jartzen zizkiola anarkista batekin. Koldo Izagirre

**2** (hitz elkartuetan)

Puskatzerainoko txalo-**zartaka** hasi ziren gizon-emakumeak. Felipe Juaristi

---

**zartakari** *izond* zarta jotzen duena.

Itsasoa, xafla izurtu **zartakaria**; eta xafla izurtu **zartakari** horrexen arrabotsa, eta nire haur-poza hori guztiagatik, nire erabateko atsegina: kantari hasten naiz. Joxe Austin Arrieta

---

**zartaketa** *iz* zartatzea, leherketa.

Komando kideak komisariaren gain aldeko patarrean zeuden, **zartaketaren** atzera kontuak egiten. Itxaro Borda

Niniaren lehen hatsaldiak lurra irentsi eta inarrosiko zuela zirudien: negarrez hasi zen, **zartaketa** kosmiko. Itxaro Borda

---

**zartako** *(190 agerraldi, 73 liburu eta 38 artikulutan)* **1** *iz* ukaldia. ik **zartako; zarta**.

Gaztea eskumenera eduki izan balu, **zartako** edo ostikoren bat emango zion. Patxi Zubizarreta

"Egon hadi isilik, Sebastian, ezer ez dakik eta", hartu zion kargu Ubanbek buruan **zartako** bat emanez. Bernardo Atxaga

Oroit zirea zure aita edo amak **zartako** bat emanik edo bortizki kexaturik? Pello Salaburu

Selifanek, zuzperturik, **zartako** batzuk eman zizkion bizkarrean zaldi izpildunari. Jose Morales

-Zaude isilik eta atera kanpora, **zartako** bat ematea nahi ez baduzu. Xabier Mendiguren Elizegi

Orduan bere kemen guziarekin azken **zartako** bat emaiten dio sorbaldaren gainean, gaitza. Michel Oronoz

Eskuak lehertu arte pilotari **zartakoak** emateko. Iñigo Aranbarri

Gabilondoren pase on bat baliatu, baloiari **zartakoa** eman eta 1-0ekoa lortu zuen. Berria - Kirola

Albeldak **zartako** dotorea eman baloiari bi minutu geroago eta Regueirok beste aukera on bat eduki zuen. Berria - Kirola

Sartzearekin eta batere galdetu gabe di-da, di-da, goian eta behean **zartako** ederrak eman zizkidatek. Pablo Sastre

Ederra **zartakoa** Ruche jaunak bikiei emandakoa. Jon Muñoz

Orduan, tximistaren pare, **zartako** ikaragarri bat eman dio neskari eskuin masailean. Patxi Zubizarreta

Sei **zartako** eman zizkidan erregelarekin [...] erregelaren alderik zorrotzena beherantz jarri eta nire hatz-koskorren kontra kolpatuz. Mirentxu Larrañaga

Husainek, lurrari **zartako** bat eman, eta arranguraturik hots egin zuen. Patxi Zubizarreta

**Zartako** bat eman nion urari. Bernardo Atxaga

Istantean, arnasarik hartu ezinik utzi ninduen **zartako** bat hartu nuen urdailean. Alberto Ladron Arana

Apaizaren ondoko izandakoa, isildu egin zen, eta estoizismo gaizto batez hasi zen **zartakoak** hartzen. Koro Navarro

Zegoen egoeran egonda ere, jasotako **zartakoa** jasota ere, saltzaile aditu eta amultsuaren moduek gidatzen zuten bere jokabidea. Jon Alonso

Badakit zerbait larria gertatuko dela -esan zien tabernariak bezeroei, atearen **zartakoa** entzun eta gero-. Anjel Lertxundi

Batbatean olatu handi batek zipriztinduko zaitu eta **zartakoa** sentituko duzu aurpegian. Joseba Sarrionandia

**Zartako** on bat merezi duzu, urdanga zikina! Jose Morales

**2** irud/hed

Asmoa bete eta itzuli zenean, **zartako** bat hartu zuen: han ez zegoen etxerik, edo hobeto esanda, erdizka bakarrik zegoen. Bernardo Atxaga

Sekulako barne **zartakoa** egin dit osaba Praixkuren heriotzaren berriak. Txillardegi

Adinaren **zartako** bortitzek gorputza zigortu eta lohadarrak indar-kamuts jausitakoan, [...]. Xabier Amuriza

Izan ere, egokitzearen kontua -eta are berak ezagutzen zuen bizitzarena- patuaren **zartako** arrazoigabe batek eten zuen; gaixotasun batek, alegia. Xabier Olarra

"Zinez opari itsusia zela [Inkisizioa] Espainiarentzat" eta "sekulako **zartakoa** ". Piarres Xarriton

-Espero ez duzun **zartakoa** da traizioa. Xabier Aranburu

**3** (hitz elkartuetan)

Ate **zartakoak** ; adeitasunez egindako eskariei isekaz eta mikaztasunez emandako erantzunak. Oskar Arana

Uretako sugeak izutzeko hemen erabiltzen ditugun suziri puska horietako batek trumoi-**zartako** bat egin zioan buru ondo-ondoan. Juan Garzia

**4** zartatzea.

Soto aldetik, berriz, erretzen hasitako egurren **zartakoak** entzuten ziren, gero eta oldartsuago. Anjel Lertxundi

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
>
> **zartako bat eman** (11); **zartako bat emanez** (3); **zartako bat emanik** (4); **zartako batez** (5); **zartako ederrak** (3)
>
> **sekulako zartakoa** (4); **zartakoa eman** (6)
>
> **zartakoren bat** (3)

---

## zartakoka **1** *adlag* zartakoak emanez.

Hortzak estutzen zituen, gorbata indarrez tenkatu, eta zorua **zartakoka** zerabilen zurezko sandaliekin. Patxi Zubizarreta

Prostitutez jantzitako gazte batzuk elkarri **zartakoka** ari dira poltsekin, takoi luzeko zapaten gainean balantzaka. Jokin Muñoz

Gainerako mutilek, eserita, haren konpasa markatzen zuten, oinez eta bastoiez **zartakoka** . Josu Zabaleta

**2** (hitz elkartuetan)

Ez batak ez besteak ez zeramaten armarik, baina makila-**zartakoka** animalia amorratu haietako hiru garbitu zituzten. Koro Navarro

---

## zartaldi *iz* zartakoa.

-Ada, ez dun hori, sinets iezadan! -une hartan burura etorritako tximist-**zartaldi** baten moduko ideia bat adierazi nion segidan-. Anjel Lertxundi

Errege-erreginen ohorezko esku-**zartaldia** ez bide zen amaitzen, eta malkoak ageri ziren askoren masailetan. Txillardegi

---

## zartan *izond*

Richard Ford ingelesak [...] Donostian Urumeako batelerak ikusi eta ez ditu Manierrek Irungoak eta Hugok Pasaiakoak bezain txairoak aurkitu, maskulino eta **zartanak** baizik. Koldo Izagirre

---

### zartaño *iz* zartatxoa.

Eta bere esku latzaz zaldiaren bizkarrari bizpahiruetan **zartaño** bat eman zuen. Michel Oronoz

---

## zartarazi, zartaraz, zartarazten **1** du *ad* zartatzera behartu, leherrarazi. (bonbak eta kidekoak)

Ekintzaile suizida batek bonba-auto bat **zartarazi** zuen une horretan jendetzaren aurrean. Berria - Mundua

Lurrean nentzala inguruan **zartarazi** zuten mortero baten metrailak bete-betean harrapatu zidan, ordea, eskuin eskua. Harkaitz Cano

Bastiako altzari denda batean hainbat lehergailu **zartarazi** zituzten, kalte material handiak eraginda. Berria - Mundua

Palestinar batek soinean zeraman lehergailua **zartarazi** zuen eta, bere buruarekin batera, israeldar soldadu batzuk hil. Eneko Bidegain

Artisau bonbak **zartarazteko** detonagailuak, premiazko hari, bisa eta alanbre puskak oro. Itxaro Borda

**2** (zerbait lehergailuen bidez)

Telleria madarikatuaren monumentua **zartarazteko** materialaren bila. Xabier Mendiguren Elizegi

Lehergailuak airetik **zartarazitako** eraikuntza. Jon Alonso

Nazio Batuen Erakundeko langileak bezero dituen taberna bat **zartarazi** zuen talde armatu batek. Berria - Mundua

Aurreneko autoa goizean **zartarazi** zuten polizi etxe baten aurrean. Berria - Mundua

Lehergaiak ezkutatuta zeramatzan ekintzaile suizida batek bere burua **zartarazi** zuen Irakeko Poliziaren erreklutatze bulego baten sarreran. Berria - Mundua

Jostagarri baita kanoigilea bere bonbak **zartarazia** gertatzea. Juan Garzia

Bost laguneko komando batek lehergailuz **zartarazi** zuelarik AEBetako kontsuletxearen ate nagusia. Berria - Mundua

· Pikatxoi kolpe batez estalkia **zartarazi** , eta hezurdura gehiegizko luze bat ikusi genuen, ahoz gora etzana. Josu Zabaleta

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
>
> **auto bat zartarazi** (19); **bere burua zartarazi** (5); **bi bonba zartarazi** (3); **bi lehergailu zartarazi** (9); **bonba bat zartarazi** (7); **bonba zartarazi** (8); **hamar lehergailu zartarazi** (3); **kontrolpean zartarazi** (3); **lehergaiak zartarazi zituen** (3); **lehergailu bat zartarazi** (18); **lehergailu zartarazi** (16); **lehergailu zartarazi zituzten** (6); **lehergailua zartarazi** (11); **lehergailua zartarazi zuen** (7); **lehergailuak zartarazi** (7)
>
> **zartarazi zuen bonba** (3); **zeraman lehergailua zartarazi** (4)
>
> **lehergailu bat zartarazita** (4)
>
> **zartarazitako bonba** (7); **zartarazitako bonba auto** (3)

---

## zartateko **1** *iz* zartakoa.

Gorputz puska lurrera amildu zen, **zartatekoek** eta keak hautsi balute bezala. Juan Garzia

Estropezu egin eta berna-hezurrean **zartateko** ederra hartzeko moduko kartela. Berria - Harian

-Begira, Claire, nola egiten den -esan zuen Etelka Springerrek, eta **zartateko** azkar batez kendu zion buru gainetik kapela. Anton Garikano

**2** irud/hed

Badira ikusi eta batera **zartatekoa** ematen dizuten tituluak, zergatik ohartzeak arnasaldi luzea eskatzen badu ere. Iñigo Aranbarri

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**

**zartatsu** *izond* zartaz betea. • *irud/hed*

Eskala bizkor eta arpegio koloretsuen tirania kontrastetsuak, indarkeria **zartatsu** batetik lirismo guztiz barne-bildu batera naturaltasun osoz jauzika. Anjel Lertxundi

**zartatu**, zarta(tu), zartatzen **1** da/du *ad* lehertu. (bonbak eta kidekoak)

Lehergailua esku artean **zartatu** zitzaioan, eta akabo! Paddy Rekalde

**Zartatu** zen bonba bainan ez zuen hil diktadorea. Herria

Kunarren bi bonba **zartarazi** eta sei soldadu hil dituzte talibanek. Berria - Mundua

Galarretako zerga etxea mila pusketa erraustu zuen bonba bat **zartatu** zen prentsaurrekoaren gau hartan. Itxaro Borda

Bagdaden zazpi pertsona hil dira, ekintzaile suizida batek bonba-auto bat **zartarazi** ondoren. Berria - Mundua

Borrokatu egingo nintzen sutan zeuden mendi-mazeletan behera bidea irekitzeko, igeri egingo nuen leherkariak **zartatzen** ari ziren aintziretan. Oskar Arana

**2** (zerbait lehergailuen bidez)

Zeuzkan hirurak errekisatu genizkion, Bilbon ibiliko ziren oraindik bonbaren batek **zartatu** ez baldin bazituen, baina lorategiko sarreran zeuden haietarik bat baino gehiago bereak ziren segur, Frantziatik ekarriko zituzten, Chevrolet berri hura. Koldo Izagirre

Lehergailuz egindako atentatu batek Richard agentzia inmobiliarioa **zartatu** du Kanbon. Iñigo Aranbarri

Katalinaren etxea txiki-txiki egina zegoen; teilatua granadek **zartatua**, ateak eta leihoak ondo-ondo itxiak. Koro Navarro

Dinamita ebasteaz eta arma indartsuen erakusteko balio izan zuen prentsaurrekoaz geroztik, **zartatu** ziren posta bulegoak, lantegi multinazionalen atarriak, etxe-saltzapen agentziak, zergategiak eta jendarmeriak. Itxaro Borda

Lau haizeetara **zarta** zitekeen sumendi birtuala bainintzan. Itxaro Borda

Santakrutzen gerrillarien bila abiatu dituk **zartatutako** zubiaren hondakinen inguruko mazeletan gora. Txillardegi

Eraso egileek agenteak hil egin zituzten eta egoitza **zartarazi** zuten. Berria - Mundua

· Kutxak **zartatu**, eta florin berriz beteriko poltsetan murgildu zituen eskuak. Juan Garzia

Adreiluak eztanda egin zuen kristalaren kontra, eta mila zatitan **zartatu** zen leihoa. Iban Zaldua

**3** irud/hed

1986ko otsailean, Marcosen kontrako Edsa iraultza **zartatu** zelarik, Dongek itxaropenez beteko manifestaldietan parte hartu zuen. Ramuntxo Etxeberri

Orduan ere dutxapean **zartatu** zen, hazia urarekin nahasten zitzaiola. Itxaro Borda

Irriz **zartatu** zen androidea. Itxaro Borda

Gizenak, izugarriak, larrua **zartatzeko** zorian, gaueko tripakada prestatzen ari dira. Karlos Zabala

**4** (era burutua izenondo gisa)

Suaren, gauaren eta dinamita **zartatuaren** usaina maite zuen. Itxaro Borda

Hiru miliziano auto **zartatu** bateko gurpilak konpondu nahian. Edorta Jimenez

**5** arrakalatu, pitzatu.

Une hartantxe, lurra dardaran eta **zartatzen** hasi zen. Patxi Zubizarreta

Lurrikara izan zen eta harkaitzak **zartatu** egin ziren. Elizen arteko biblia

Eguzkia ilundu egin zen, harriak **zartatu**, hilobiak ireki. Patxi Altuna

Branka hondarretan sartua gelditu zen, mugiezinik; txopa, berriz, **zartatuz** zihoan olatuen kolpez. Elizen arteko biblia

Aldarea **zartatu** egin zen eta errautsa aldaretik behera isuri. Elizen arteko biblia

Igeltsuz egindako zarpeatuak **zartatu** egiten dira horma horietan. Santiago Iruretagoiena

Zeren eta berez zuku handikoa den karea lastoarekin nahasten denean, hain indar handia hartzen baitu, non ezin izaten duen **zartatu** gabe lehortu. Santiago Iruretagoiena

Eguzkiak sikaturiko eta ur faltak **zartaturiko** lur haietan. Anjel Lertxundi

Eguzkiak egosten dituen, izotzak **zartatzen** dituen harri horien artean bueltaka ibiltzen dira. Monika Etxebarria

1642an, Montgateko elizako dorrea **zartatu** zuen goitik behera ekaitzak. Pello Zabala

Goxotasun eta ahalkearen berniza **zartatzen** hasia da; ez dut jada ezagutzen. Monika Etxebarria

**6** irud/hed

Hirurogeita hamarreko urteetan, ordea, pitzatzen eta **zartatzen** hasi zen jarraitutasun eta linealtasun hori. Juan Garzia

Aulki gurpildunaren karrankak isiltasuna **zartatu** zuen. Jon Muñoz

Haurtzaroko denboraren izkina herdoilduen erdian, isiltasuna **zartatzen**, beldurra pitzatzen, bizitza makal hura suntsitzen. Pako Aristi

7 (era burutua izenondo gisa)

Harkaitz **zartatu** eta gogorrak ageri ziren han eta hemen. Askoren artean

Baserri zahar baten teilatu **zartatua** ageri zen ezpondaren goialdean. Atzean gelditu dira muinoak, argi leunpean, beren baratze-mailekin, beren olibondo **zartatu** eta mahatsondoekin. Koldo Izagirre

Hatz-mami **zartatuetan** igar zitekeen urte askotako klarionaren arrastoa. Xabier Mendiguren Elizegi

Azken bi galdera hauek irribarrea ekarri zuten ene ezpain **zartatuetara**. Karlos Linazasoro

Ispilu handi, pitzatu eta zikin baten azpian harrizko konketa **zartatuen** ilara bat zegoen. Iñaki Mendiguren

Haien azpian paretetako zuri **zartatua** baizik ez nuen ikusterik izan. Jon Muñoz

Ahots **zartatu** hori primeran egokitzen dela akustikoekin. Berria - Kultura

Dendaren inguruko berri eta nobedade guztiek estali egin baitzituzten Sergio eta Sararen arteko harreman **zartatuen** arraildurak. Joan Mari Irigoien

**8** (izen gisa) pitzadura.

Beti zegoen etxe zahar hartan zer konpondu, zer zaindu, beti zirrikituren bat, **zartaturen** bat. Joxemari Urteaga

Ohol beltzez eginiko eskailera topatzen duzu, baldarki moztua, eskoadran ozta paratua, mailek **zartatu** zabalak erakusten dituztela. Koldo Izagirre

Hiru kareorezko geruza eta beste marmolezko beste hiru geruzarekin lana ondo sendotuta dagoenean, ez da ez **zartaturik** eta ez bestelako akatsik sortuko. Santiago Iruretagoiena

Zarpeatuak egurrezko trenkaden gainean egin behar direnean, ezinbestez gertatuko da zeharkako eta luzetarako piezetan **zartatuak** ateratzea. Santiago Iruretagoiena

• **9** du *ad* jo, kolpekatu.

Begiak sutan, gaitziduraz eta bere buruaren aurkako gorrotoz; ezker eskua eskuin eskuarekin **zartatzen** hasi zen, esku hari errieta ematen ari balitzaio bezala hatz bakar hura altxatzeko ausardia eduki izanagatik. Oskar Arana

Buru-tente doa, gorantz begira, Munnings jaunaren atzetik egin zuen bezalatsu, zigor-makilaz **zartatu** zuen eskola-egun hartan. Mirentxu Larrañaga

Garrasi egin, eskuez izterrak **zartatu**, eta lantuka hasi zen: [...]. Juan Kruz Igerabide

**hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**

**auto bat zartatu** (4); **bi lehergailu zartatu** (4); **bonba bat zartatu** (3); **bonba zartatu** (3); **harkaitzak zartatu** (3); **lehergailu bat zartatu** (8); **lehergailu zartatu** (5)
; **zartatu da** (8); **zartatu dira** (3); **zartatu gabe** (3); **zartatu zen** (17)

**lehergailu bat zartaturik** (3)

**zartatzeko moduko** (3)

**bonbak zartatzen** (3); **zartatzen dira** (5); **zartatzen hasi zen** (3)

---

**zartatxo** *iz* zarta txikia.

Weldon andreak azken **zartatxoa** eman zien lilipa-lore zimelduenei, eta beste behin ikuskatu zuen gela. Mirentxu Larrañaga

---

**zartatze** **1** *iz* lehertzea; pitzatzea.

**Zartatze** bat Urruñan. Herria

**Zartatze** gaitza asurantza kutxan Baionan. Herria

Goiz hartan komisaria zegoen tokiak irudi zuen **zartatze** nuklearra jasan zuela, dena ke eta erre urrin. Itxaro Borda

Bost lagun kolpatuak izan dira auto batean ondo hartarik iragaiten zirenak **zartatzea** gertatu delarik. Herria

**Zartatzearen** ondorioz, untziak bazuen gaitzeko arraildura. Herria

Komisariaren lau izkinatan dinamita paketeak plazatu zituzten, **zartatzearen** ondorioak ahalik handienak suertatzeko gisan. Itxaro Borda

Baina **zartatze** haren inguruan Fanok kontatzeko zerbait daukala ere ondo daki. Paddy Rekalde

Halako **zartatze** bat bezala entzun da, barneko zola dena kolpez harrotu da eta lauza peza batzu arraildu dira. Herria

**2** (hitz elkartuetan)

Afghanistanen bonba **zartatze** bat izan da eskola koraniko batean. Herria

Bonba **zartatze** odoltsuak egin dituzte tokikoek Koweitean. Herria

---

**zartatzear** *adlag* zartatzeko zorian.

Pilota sabel hiroduna **zartatzear** bailitzan. Itxaro Borda

Bilkura ostean zainak mehar eta **zartatzear** nabaritzen nituen. Itxaro Borda

Monica ohaide gosetiaren azpi muturra zaintsuki eta desiraz **zartatzear** tinkatu zuela. Itxaro Borda

---

zartegite ik **zart 3**.

---

**zartzaila** *izond ipar* kokina, frikuna.

Nihauren baitan egin nuen neska **zartzaila** bat baizik ez zela, baina haren ahizpa Kattinak ez zuela orobat jite bera eta nik hura nuela geroxago segituko, Mattinek aipatu bezala. Janbattitt Dirassar

---

zartzuela ik **zarzuela**.

---

zartzuelagile ik **zarzuelagile**.

---

**zarzuela** *(orobat **zartzuela**)* **1** *iz* Espainiako opereta mota; lan horiek osatzen duten generoa.

Sarriegik *Pasayan* **zartzuela** estreinatzen du, Bitoriano Iraolaren libretoarekin. Askoren artean

"Los indianos" **zartzuelaren** libretoaren egilea; **zartzuela** hura Luxuk -Noberto Luzuriaga, Donostiako Orfeoiaren lehen zuzendariak- musikatu zuen. Askoren artean

Bi aste barru Guridiren *Baserria* **zarzuela** egingo dut Arriagan. Berria - Kultura

Antzerkiaz gain, dantza eta **zartzuela** dira egitarauko osagaiak. Berria - Kultura

**Zarzuela** barrokoak ez du zerikusirik gaur egun ezagutzen dugun **zarzuelarekin**, opera italiarraren eragina oso nabarmena delako. Berria - Kultura

Ezagun du lirikan (operan eta **zarzuelan**) aritzen dela. Berria - Kultura

**2** (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

Maria Bayo sopranoak **zarzuela** kontzertua emango du hilaren 24an Iruñeko Baluarten. Berria - Kultura

Pucciniren, Verdiren eta Rosinniren operetakoak eta Sorozabalen eta Bretonen **zarzuela** pasarteak eskainiko dituzte. Berria - Kultura

Osoko profesionala da eta berdin abestuko dizu opera [...] edo **zarzuela** pieza bat. Harkaitz Cano

Onartu beharra dago egokia izan dela itsasoarekin zer ikusia zuten **zartzuela** zatien aukeraketa eta bere ordena. Berria - Kultura

---

**zarzuelagile** *(corpusean **zarzuelagile** soilik)* *iz* zarzuelak ontzen dituen musikagilea.

Sorozabal donostiarra, Alemanian ikasten jardun eta gero, **zartzuelagile** bezala nabarmendu zen urte horietan Madrilen. Xabier Mendiguren Elizegi

---

**zas** *adlag* bat-batean gertatzen den zerbaiten onomatopeia.

**Zas** !, entzuten da hatzean emandako kolpea. Anjel Lertxundi

Bat-batean, tekla bat sakatu eta **zas** !, mutila agertzen da pantailaren erdian. Antton Olano

Koldo Mitxelenari zor zaion gogoeta bat irakurtzerakoan egiten du, hain zuzen ere, **zas** !, eta hortxe dago zuloa: *mudo* jartzen duen lekuan, berak *mulo* ikusi du. Bernardo Atxaga

Galdera da, ordea, zergatik zegoen XV., XVI. eta XVII. mendeko ideia hori Gipuzkoako egunkarian **zas** !, edo plast!, edo plost! egin zuen kazetariaren buruan. Bernardo Atxaga

Nik tekla bat sakatu berriro eta..., **zas** ! Antton Olano

---

zast ik **sast**.

---

zasta ik **sast**.

---

zastada ik **sastada**.

---

zastatu ik **sastatu**.

---

zastiatu ik **sastatu**.

---

**zatar**[1] **1** *iz* ehun zati zahar eta urratua. ik **trapu**.

Esku batean **zatarra** eta baso tanta-jario bat bestean, egonean jarraitu zuen tabernariak. Koro Navarro

Dauzkadan bi tapakiekin estali ginen biok, eta ez nintzen nekatu **zatarrak** pilatuz ohiko estalkia osatzen. Koro Navarro

**Zatarrak** eta bestelako oihalak urratu, bigungarriak bildu eta habiara eramaten ditu. Gotzon Garate

Atzean zintzilik zeuden **zatar** batzuk, lehortzen jarrita. Anton Garikano

Makurtu, jiratu, hemengo **zatarra** hartu, hango tuboa estutu, baina hura momentu batez uxatzea besterik ez zuen erdiesten. Anton Garikano

Bev Shaw-k **zatar** xukagarri batekin ukitzen du eskrotoa. Oskar Arana

**2** (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

Han-hemen aukeratutako hiruzpalau liburu hartu eta **zatar** -paper maiztu batean bildu zituen. Anjel Lertxundi

Josemari eta biok, menbrillo bana jaten gindoazen, ogirik gabe, menbrilloa **zatarpaperean** harturik, ogirik ez zegoelako arratsalde hartan gure etxean. Joseba Sarrionandia

Osagaiak bereizi, garbitu, olioztatu eta, **zatar** muturra harturik, dirdaitsu uzten zuen atal bakoitza. Xabier Montoia

Gero makurtu eta jaso egin zuen Setheren arropa izan zen **zatar** pila. Anton Garikano

**3** (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa)

Alabaina, jendarteko esku- **zatar** ez du izan nahi andereño honek. Patxi Ezkiaga

Bular eta bizkar gainekoa erantzi zioten bai, baina inolaz ezin kendu izan zioten zelata- **zatar** hura. Patxi Ezkiaga

---

**zatar**[2] **1** *izond* itsusia, itxura txarrekoa. (pertsonak)

Argi eta garbi erakusten zuten nolakoak diren gizonezkoak: baldarrak, landu gabeak, **zatarrak** , etxea gobernatzeko ezgaiak, bihotzaren esanei gorrak, [...]. Jose Morales

Emakume xehe, txikitxo eta **zatarra** . Jose Morales

Ez zen tipo goapoa, izatekotan ere **zatar** samarra zen. Unai Iturriaga

-Orduan ere, umeak ginenean, **zatarra** eta gaiztoa hintzen. Eskarne Mujika

Alderantziz, andreak beti zaharrak eta **zatarrak** dira denak. Koldo Izagirre

Ez zinen haserretu nirekin, ezpada zeure buruarekin: zakarra, zabarra, **zatarra** deitzen zenion, neure harriduraren aurrean. Xabier Mendiguren Elizegi

Sexualitateak, zentzuak eta beheko ahalmen guztiek hesitzen dute eta behartzen gizakia, kale bazterretako jende **zatarrekin** hartu-emanak izatera. Joan Mari Lekuona

**Zatarrenarekin** dantzan. Berria - Kirola

**2** (gauzak)

Eliza hau **zatarra** da; Pasaia Zaharra tristea da. Koldo Izagirre

Erromesene inguruetako lurretan goratu zituzten Azpilgo lehen etxe **zatar** itsusiak. Joan Mari Irigoien

Horrela, orobat, Fez edo Marrakex bezalako hiriak, non etxerik **zatarrenak** ere sekreturik miresgarriena gorde dezakeen. Bernardo Atxaga

Antigua alderago, errepide zaharraren aldapan gorakoan, "La Fe" kare-fabrikatzar **zatarra** ere aurrean izan uste nuen. Txillardegi

Negoziante zuri, gaizkile makur eta abenturazale lapurrez mukurutu eta kutsatutako hiri **zatar** beldurgarri haiek. Xabier Mendiguren Elizegi

Hiri industrial **zatar** hartako kanposantuan. Eskarne Mujika

Eder eta sendo iruditutako mundua **zatar** eta kaskar omen. Bernardo Atxaga

Abar batzuk, ia erdi erretako pala **zatar** bi, ta labe-ohea garbitzeko ipizkia. Felipe Juaristi

Atera itzan kopak, eta gorde baso **zatar** horiek! Joan Mari Irigoien

Lurrean, alfonbra **zatar** eta latz haren gainean lo jarraitu zuen. Jasone Osoro

Panpinak eurak ere **zatarrak** dira. Berria - Kultura

Athleticen elastikoa ezberdina da, polita edo **zatarra** . Berria - Ekonomia

Oinutsik ibiltzen zen, abitu zarpailez jantzita eta gerriko **zatarrez** lotuta. Askoren artean

Piltzar **zatar** eta zikinez jantzirik. Jose Morales

Ez da keinu **zatarra** ? Javi Cillero

Gauza **zatarrak** esateko zaletasuna zuen, eta tranposoa zen jokoan. Xabier Olarra

Bilboko Lore Jokoetan Unamuno-k 1901eko abuztuko 26 gauean harrotu zituen hautsak, bere jokabide **zatarragatik** ere bai. Joxe Azurmendi

Rafael Ibarguen alkatearen jarrera **«zatarra»** kritikatu dute garbitzaileek. Berria - Ekonomia

Zentzugabekeriak esaten zituzten, txikikeriez harrotzen ziren, irribarre **zatarrak** egiten zituzten, eskaleek bezala jokatzen zuten. Koro Navarro

Hitz **zatar** eta berba lizun artean. Juan Garzia

Ez zion sekula inori hitz iraingarri edo **zatarrik** zuzendu. Askoren artean

Errazagoa delako hitz **zatarrak** esatea idaztea baino. Karlos Zabala

Ezin zion segitu hizkera akademiko **zatar** haren jario motelari. Anton Garikano

Sozialdemokraziarena ez zela hain ideia **zatarra** , ez geniola hitzari beldurrik izan behar. Iban Zaldua

Kolpe **zatarra** buruan hartu, eta hil egin da. Txillardegi

Absenta higuingarriak eta belarmin gaiztoak, ostera, ahoa okertzen dute zapore **zatarrez**. Xabier Amuriza

**3** (adizlagun gisa)

**Zatar** nenbilen, tontolapiko bihurtzen ari nintzen. Jesus Mari Mendizabal

Zartailuari eragin eta **zatar** esan zien: [...]. Agustin Otsoa

**4** ***zatar-zatar*** *izond* oso zatarra.

Eta Carlos, Felipe edo Duncan erregearen iloba **zatar-zatarra** zen; edo zatarra ez, demagun ez zela fotogenikoa. Unai Elorriaga

Haren emazteak fisika irakasten zuen beste fakultate batean eta **zatar-zatarra** zen, kokotsik gabeko emakume horietakoa. Karlos Zabala

· Karpeta urdina besopean zeraman, **zatar-zatar** eginda. Harkaitz Cano

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
> **etxe zatar** (3); **hitz zatar** (4); **zatar samarra** (3)
> **modu zatarra** (3); **zatarra da** (3); **zatarra izan** (3); **zatarra zen** (6)
> **hitz zatarrak** (9); **zatarrak dira** (3)
> **hitz zatarrik** (4)

---

## zatarkeria 1 *iz* egintza edo gauza itsusia. ik **itsuskeria**.

Ez duzu esan ez didatela **zatarkeriarik** egingo? Koldo Izagirre

Gogaikarri zitzaizkion edonolako **zatarkeriak** eta moduzkotasunaren kontrako esapideak oro. Jose Morales

Hitz egin berarekin gauza guztiez, **zatarkeriarik** esan gabe. Aitor Arana

Gogaikarri zitzaizkion edonolako **zatarkeriak** eta moduzkotasunaren kontrako esapideak oro. Jose Morales

Akademiak, halako **zatarkeriak** baztertzeko gomendioa ematea haien esku egonik ere, ez ziren animatu. Juan Garzia

Haren bila joan zen berriro lagunarteko otorduetara gonbidatzeko; eta hauetan lagun izaten dira beti lizunkeria eta **zatarkeria**. Askoren artean

**2** zatartasun gaitzesgarria.

Hortaz, ez da zilegi unibertsoko sorkariak inongo **zatarkeriaz** kutsatzea. Imanol Unzurrunzaga

**Zatarkeria** handiena naizelako naiz ikusgarri. Koldo Izagirre

Ttipiaren tristura da **zatarkeria**. Koldo Izagirre

---

## 1 zatarki *adlag* era zatarrean.

Idatziriko Jainkoaren hitzak nonbait aurkitzen badituzte, ahal duten gehiena benera ditzaten eta, ongi jarri gabe nahiz nonbait **zatarki** lurrean zabalduta baleude, [...] bildu eta berriro bere lekuan ezar ditzaten, hitz horietan ohoratuz esan zituen Jauna. Askoren artean

**2** ***zatarki paper*** *iz* zatar papera.

**Zatarki-papera** kendurik, zahato ondo bete bat atera du paketetik. Anjel Lertxundi

**Zatarki-papera** koipeztatu batez bilduriko pakete bat darama besapean, eta altxorrik preziatuena balitz baino areagoko babesa ematen dio. Anjel Lertxundi

---

## zatarpaper ik **zatar**[1] **2**.

---

## zatartasun *iz* zatarra denaren nolakotasuna. ik **itsustasun**.

Neskatoaren araztasunari agureen **zatartasuna** zegokion nolabait. Ibon Uribarri

Ez zuen itxurazko edertasun edo **zatartasunarekin** zerikusirik. Iñigo Aranbarri

Oroitzapen atseginak ez zuen zerikusirik harremanaren luze-laburrarekin, aurpegiaren edertasun edo **zatartasunarekin**, buru-bizkortasun edo lelotasunarekin, dotorezia edo arrunkeriarekin. Ibon Uribarri

Agure haiek zahartzaroaren errukarritasunari, **zatartasunari**, dohakabetasunari ihes egin eta gaztetasunaren dohainez gainezka izango balira bezala. Ibon Uribarri

---

## zatartu, zatar(tu), zatartzen da/du *ad* zatar bihurtu. ik **itsustu**.

Hamazazpi urtez Inperioan barrena ostatuz ostatu zahartu eta **zatartu** ondoren. Txillardegi

Samina itsusia delako, bizitza **zatartzen** duen egoera bat. Pako Aristi

Samina itsusia delako, bizitza **zatartzen** duen egoera bat. Pako Aristi

---

## zatarxe *izond* zatar samarra.

Pazientzia handiagoz jokatu edo neska **zatarxeagoak** aukeratuz gero, agian ez zuten hain sarritan pikutara bidaliko. Jon Arretxe

---

## zatelite ik **satelite**.

---

## zati 1 *iz* zerbait haustean, ebakitzean edo banatzean gertatzen diren gauzetako bakoitza; gauza batez mintzatuz, gauza horretatik bereiz daitekeen edo berezitzat har daitekeen osagarria. ik **parte**.

Euskal Y-aren egitasmoan 28 **zati** bereizi dira. Berria - Harian

Ez nuen eskua soilik galdu: besoaren **zati** handi bat ere bai. Harkaitz Cano

Garuneko bi **zatiri** egiten die kalte bizkarrezurreko min kronikoak: talamoari eta kortex prefrontal dortsolateralari. Berria - Gaiak

Horra nola zen gertatu Frantzia bi **zatitan** ezarri zuen haustura. Piarres Xarriton

Hiru **zati** dauzka: glandea, edo mokoa; zurtoina, eta zuztarrak. Luis Elberdin

Labana hartu eta librako ogitik hiru **zati** ebaki zituen. Joseba Sarrionandia

Gero, aitak bere ogia sei **zati** egin zuen. Juan Kruz Igerabide

Hango ogia jatean, **zati** bat bereizi eta Jaunari eskainiko diozue. Elizen arteko biblia

Mandarina zuritu eta **zati** bitan banatu zuen; atal batzuk alde batera, besteak bestera. Unai Elorriaga

Elkartasun-oparia Jaunari eskaintzean, eskaintzaileak Jaunari dagokion **zatia** aurkeztuko du. Elizen arteko biblia

Soilik greziar zipretarren **zatiko** biztanleek izango dute bozkatzeko aukera. Berria - Mundua

Munduko **zati** berean bi mila urte geroago. Iñaki Mendiguren

Mendixkaren **zati** horretatik ehun bat oineko jauzia zegoen Tom ibairaino. Karlos Zabala

Kostaren **zati** horretan ez dago farorik, ez porturik. Joxean Agirre

Ez, **zati** bat bakarrik, ez Euskal Herri osoa. Pello Salaburu

Oregondik Los Angelesera eta Ozeano Baretik Nevadako erdiraino, 400.000 km2tik gorako **zati** handi batean nabaritu zen lurrikararen ondorioa. Pello Salaburu

Zuzenak zirkulua bi **zati** berdinetan zati dezan, zentrotik pasatu behar du nahitaez. Jon Muñoz

Koadroaren **zati** bat ikusteko moduan zegoela. Unai Elorriaga

Feudoak bizi artekoak zirenean, ez zegoen feudoaren **zati** bat ematerik, azpifeudo gisa betiko edukitzeko. Iñaki Iñurrieta

Nork bere feudoari **zatia** kentzea. Iñaki Iñurrieta

Angelu bat bi **zati** berdinetan erdibitzeak erdikariak eraikitzea dakar. Jon Muñoz

Diruaren **zati** bat familiaren zorrak ordaintzen joaten zitzaion. Jon Muñoz

Telebista edo irratietan emititutako irudi edo soinu **zatiek**, ezingo dute 45 segundo baino luzeagokoak izan. Berria - Harian

Lizuna duen **zatia** ebakiko dio jantzi, larru nahiz ehunari. Elizen arteko biblia

Eremu horretatik, **zati** bat, karratua -berrehun eta berrogeita hamar metrokoa luze-zabalean-, tenpluarentzat izango da. Elizen arteko biblia

Goiko esferak egiten duen eguneko mugimenduaren bitartez gainerako esfera guztiak mugitzen direlako, **zatia** guztiarekin mugitzen den bezala. Xabier Kintana

Bev errepresio-aparatuaren **zati** dela uste duzu? Oskar Arana

Nire **zati** batek hegan egin nahi zuen eta Taniaren ondora itzuli. Jon Muñoz

Estrabonek aipatzen duen Polibioren **zati** batean ikusten denez, [...]. Iñaki Iñurrieta

Piknostiloak altueraren zortzi **zatiko** diametroa izango balu, kolomarteen itxitasunaren eta estutasunaren eraginez, oso itxura zarratua eta desatsegina hartuko luke tenpluak. Santiago Iruretagoiena

Bi minutuan osatzen zituen bostehun **zatiko** puzzleak umetan. Xabier Olarra

**2** (gauza abstraktuena)

Zerbait beste zerbaiten **zati** izateko, osoa den hori behar da eta, ba al dute hori gizonek? Lourdes Oñederra

Gazteriaren **zati** handi baten gainbeheraren erantzule egin zituzten drogak. Juan Kruz Igerabide

Nolatan ez da hartzen linguistikaren zientzia, psikologiaren **zati** gisa? Isabel Arrigain

Sindromea nortasunaren **zati** bihurtu zaiola ere sentitzen du. Xabier Olarra

Honela eliza bat zibilizazioen ugaltze-sistemaren **zati** litzateke. Iñaki Mendiguren

Administrazioaren **zati** handi bat presoen eskuetan uzten zuten. Urtzi Urrutikoetxea

Burtsan ez dago garbi osotasuna eta **zatien** batura gauza bera diren. Berria - Ekonomia

Hark mundura dakarren dohainaren **zatia** delako. Oskar Arana

Erakunde terrorista bateko **zati** direlakoan. Eneko Bidegain

Osotasun baten **zati** gisa, hots, begiespenen lotura sintetikoa den esperientziaren **zati** gisa. Ibon Uribarri

Estetikan gertatzen den eraldaketa hori, halere, mugimendu filosofiko handiago baten **zati** bat da. Askoren artean

Gure garaiotako masen kulturan kulturaren **zati** handi bat bakarka eta pribatuan kontsumitzen da. J. Garzia / A. Egaña / J. Sarasua

Printzipio hauek izan duten famaren **zati** bat gestaltisten lege-hotseko hizkuntzari zor zaio. Josu Zabaleta

Ez omen da sekula etxetik osorik alde egiten, oroitzapen eta sentimenduen **zati** inportante bat etxean gelditzen omen da. Anjel Lertxundi

Hala ere, zerua beti da oraina; lurra, aldiz, iraganaren **zati** bat besterik ez, mendeek, gurinezko azala bailuen, izur-ireki dutena. Pako Aristi

**3** (izenondo eta izenlagunekin)

Kausalitatea da, ondoren, Fisikaren bigarren liburuko **zati** handiena hartzen duen gaia. Askoren artean

Urtearen **zati** handiena itsas zabalean iragaiten zuen arrantzale batekin ezkondua zen. Elena Touyarou

Kalteturiko **zati** txikiak, bada, berehalaxe konpontzen dira. Irene Aldasoro

Estrukturalismoaz esaten dena esan daitekeenaren **zati** txiki-txiki bat besterik ez da. Lourdes Oñederra

Lisa, zutik, odolki **zati** bero-bero bat jaten ari zen. Karlos Zabala

**Zati** berdinetan banatuko duzue lurraldea. Elizen arteko biblia

Konturatuko zara ez dituzula paperak hartu, pasaportea itsasoaren **zati** izoztu horretan galdu duzula. Joseba Sarrionandia

Mutikoa zuhaitzaren **zati** elurtu baten gainean jarri zen. Julen Gabiria

Bi **zati** orokorretan banatzen da sarrera hau. Horiek izan ezik, **zati** narratibo guztiak bildu ditugu hemen. Askoren artean

Kritikaren **zati** analitikoan frogatzen da espazioa eta denbora sentsuzko begiespenaren formak baino ez direla. Ibon Uribarri

Ez nuen aurreikusten nikelaren bereizgarritasun magnetikoari buruzko nire teoriak **zati** funtsezko batean erraturik zegoela. Juan Garzia

Azkeneko **zati** garden horrek, korneak, eragiten du argi-izpien konbergentziaren parte gehiena. Josu Zabaleta

Ez dugu ahaztu behar autoek gero eta **zati** elektroniko gehiago dituztela. Berria - Gaiak

Lehen **zatian**, Platonez ari da, haren bizitzaz, haren lehenengo elkarrizketez eta teoria politikoaz eta elkarrizketa metafisikoez. Askoren artean

1224ko irailaren bigarren **zatian** edo urriaren lehen egunetan. Askoren artean

Lehen **zatiko** azken minutuetan Baionak berriz ezarri zuen Paris zailtasunean. Berria - Kirola

Gertakaria 1225. urteko bigarren **zatikoa** da. Askoren artean

**4** (hitz elkartuetan lehen osagai gisa) ik **partzial.**

Morganek agerian jarri zuen kromosoma homologoen arteko **zati**-trukeen bidez birkonbinatzen direla geneak. Juan Garzia

Tw formaldatzeak [...] *what will he eat* "zer jango du" edo *what has he been eating* "zer jaten egon da" gisako **zati**-galderak ere azal ditzake. Itziar Laka

Koadroa **zati** bakoitzak bere espaziozko logika -eta askotan bere denborazko logika berezia ere bai- duen **zati**-collage bat bezala antolatzea. Josu Zabaleta

**5** (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa)

Opil bana, haragi-**zati** bana eta mahaspasa-opil bana eman zizkien. Elizen arteko biblia

Hil aurretik anaiei azaldu zien maitasuna, bakoitzari, Kristok bezala, ogi **zati** bana emanez. Askoren artean

Sakelak pastel-**zatiz** beteak zituzten. Iñaki Mendiguren

Mikroorganismoak aurkitu dituzte 115 milioi urteko anbar **zati** batean. Berria - Gaiak

Asiatik eramandako banbu **zatietan**. Berria - Gaiak

Han topatu genuen kandela **zati** bat piztu eta lauron erdian jarri genuen. Joseba Sarrionandia

Izara **zati** bat gerrian lotu eta Bilboraino joan zen oinez. Joseba Sarrionandia

Metraila-**zati** batzuk zituelako belaunean sartuta. Unai Elorriaga

Pergamino-**zati** handi bat zen, karratua eta oso higatua. Iñaki Mendiguren

Larru-**zati** haiek oin karratu batekoak ziren, orladunak eta diseinuz apainduak. Iñaki Mendiguren

Haurra, gorputz-**zati** guztiak beren kokapen normalera itzulita, sendaturik gertatu zen. Askoren artean

Eskoriatzako Udalak Arlaban-Eskoriatza autobide **zatiko** azterketa eskatu du. Berria - Euskal Herria

Etxebizitza eman zion Hadadi, bai eta janaria eta lur-**zati** bat ere. Elizen arteko biblia

Goi-ordoki mortuaren erdia zeharkatzen zuten horma **zati** hondatuak. Jon Muñoz

Doinu eta kanta-**zatiak** igarotzen zaizkio lasterka buruan. Oskar Arana

ADN **zati** horietariko bakoitzak kate polipeptidiko bat ekoizten du, eremu bati dagokiona: proteina-eredu bat, alegia. Juan Garzia

Zuei dizuet emango Kanaan lurraldea hauxe da zuen ondare-**zatia**. Elizen arteko biblia

Irudikapen-lana, hain zuzen, diegesi bat, edo diegesi **zati** bat irudi bihurtzean datza. Josu Zabaleta

## 6 (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa, lehena izenondoduna dela)

Esate baterako txokolate beltz **zati** bat eskaintzen zidanean, oroitzapen samurrak ekartzen baitzizkidan gogora. Juan Kruz Igerabide

Gibelean, hamabi oin karratuko baratze landu bat, zur erre **zatiz** betea. Koldo Izagirre

## 7 (hiru osagaiko hitz elkartuetan)

Neskak orduan aloe egur **zati** bat atera zuen, eta ezpal bat kendurik, sutara bota zuen. Patxi Zubizarreta

Terrazan eseri nintzen sagar-tarta **zati** bat jatera. Ramon Saizarbitoria

· Bizidunak, elkarren irudikoak ginen, handikoiak eta burlariak halaber, ADN firindila bikoitz **zatiz** moldatuak. Itxaro Borda

## 8 (bat, bateko, baterako... formen ezkerran) denbora-bitartea.

Urte haren **zati** bateko kontsulen izenen arabera. Iñaki Iñurrieta

Baina Jaungoikoaren eraginez **zati** baten ez dira hondatzen eta **zati** baten osasuna berreskuratzen dute hondatutakoek. Imanol Unzurrunzaga

Esan eitekean Rufino **zati** baterako kontsolauta gelditudo zala. Xabier Amuriza

## 9 aritmetikan, zatiketaren ikurraren (: edo /) izena.

256 **zati** 365 egin dut; 0,701369 ematen du horrek. Jon Muñoz

2 **zati** 3 **zati** 5, zenbat da? Jon Muñoz

Zenbakiak faktore lehenetan deskonposatzen eta **zati** 2, **zati** 3, etab. egiteko irizpideak ikasi. Jon Muñoz

AB barra **zati** AC barra berdin A prima B prima barra **zati** A prima C prima barra. Jon Muñoz

Bat gehi bat **zati** bi gehi hiru ber bi **zati** bi gehi bost ber bi **zati** bi gehi zazpi ber bi **zati** bi gehi bederatzi ber bi... Jon Muñoz

## 10 *zatiz adlag* partez.

Hizkuntzari dagokionez, joera bi nabari dira: osoz edo **zatiz** euskalkian oinarritu zena da bata, eta Leizarragaren bidea, bestea. Koldo Zuazo

Klaustroko bazter batean, ojiba luzexka batzuk, tapiatuak **zatiz**, gela misterios antzeko baten inguruan hedatzen dira. Koldo Izagirre

Liburu horiek izkiriatzen hasi eta jada **zatiz** bederen osaturik neuzkanean. Xabier Kintana

## 11 *bi zati/zati bi egin* ik **zatibitu.**

Ekaitzak **bi zati egin** zuen masta, lemazaina buruan jo, eta buruko hezur guztiak kraskatu zizkion. Juan Kruz Igerabide

-Bestela, **bi zati egingo** dut kandela, eta bat hemen utziko dizut, poxpoloekin. Xabier Mendiguren Elizegi

Bularra **zati bi egingo** diat, hik aitari gurutzea nola jarri hion, halaxe. Edorta Jimenez

Egun haren garrantzia argi azaldu zitzaidaan; nire bizitza **bi zati egin** zidaan, lurrikara batek erdibitutako lurralde baten antzera. Xabier Olarra

Irribarrea **bi zati egin** eta bat-batean hasperen bihurtu zen, baina ez zuen dardararik egin edo begirik itxi. Anton Garikano

«Gerrak erdibitutako gizona» izan zen Artetxe, eta barrua **bi zati egina** izate horrexek eraman zuen «bakezko zubigintza eta bitartekotza paregabea eta emankorra» egitera. Berria - Kultura

## 12 *zati-zati egin* txiki-txiki egin.

Beti aurrera egiten duen bizitzaren oldarrak **zati-zati eginda** utziko du eraikin hauskorra. Iñaki Mendiguren

Belak **zati-zati egin** ziren eta, itsasontziak, gobernatu ezinik, hondoa jo zuen. Patxi Zubizarreta

Lau zigor-mota bidaliko dizkiet: gerra, hiltzeko; txakurrak, **zati-zati egiteko**; hegazti harrapariak eta basapiztiak, irentsi eta haiekikoa egiteko. Elizen arteko biblia

Piztiaren batek **zati-zati egin** duela uste dut. Jose Antonio Mujika

Piztiaren batek **zati-zati egin** duela uste dut. Jose Antonio Mujika

Parisen, hiri katolikoa inon katolikorik bada, duela bortz egun, miliziakoek **zati-zati eginen** zuten, beren alabardekin, Kalbinoren alaba blasfemaria. Aingeru Epaltza

Barrutik **zati-zati eginda** eta pipiak janda sentituko edo balitz bezala. Juan Garzia

Pentsatzen dut ez didazula esango zergatik bidali nahi ninduzun etxera **zati-zati eginda**, ezta? Iñaki Mendiguren

### hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

**arazoaren zati** (8); **argazki zati** (8); **arimaren zati** (7); **aurrekontuaren zati** (9); **azal zati** (7); **azken zati** (7); **bere zati** (31); **beste zati** (51); **beste zati bat** (24); **bi zati** (112); **bi zati berdinetan** (9); **bi zati ditu** (13); **bide zati** (9); **bidearen zati** (24); **bidearen zati bat** (9); **bigarren zati** (64); **bigarren zati osoa** (9); **bihotzaren zati** (8); **bizitzaren zati** (15); **bizitzaren zati bat** (9); **denboraren zati** (9); **diruaren zati** (14); **diruaren zati bat** (9)

**egiaren zati** (10); **egunaren zati** (7); **egunkari zati** (12); **ekoizpenaren zati bat** (9); **errealitatearen zati** (11); **errepide zati** (9); **euskal gizartearen zati** (19); **euskal herriaren zati** (12); **gizartearen zati** (62); **gizartearen zati bat** (14); **gizartearen zati baten** (8); **gizartearen zati garrantzitsu** (7); **gizartearen zati handi** (12); **gorputz zati** (13); **gorputzaren zati** (7); **gorputzeko zati** (8); **hainbat zati** (11); **haragi zati** (12); **herriaren zati** (18); **herritarren zati** (14); **herritarren zati handi** (8); **hesiaren zati** (10); **hiru zati berdinetan** (7); **hirugarren zati** (8); **historiaren zati** (19); **historiaren zati bat** (9); **honen zati bat** (8); **horren zati bat** (29)

**ikus zati honetako** (7); **izotz zati** (8); **lanaren zati** (15); **lanaren zati bat** (9); **lehen zati** (65); **lehen zati horretan** (7); **lehen zati osoan** (10); **lehenagoko zati** (11); **lehenagoko zati batean** (11); **lur zati** (39); **lur zati bat** (12); **lurralde zati** (9); **lurraldearen zati** (8); **mila zati** (10); **munduaren zati** (12); **musika zati** (14); **nortasunaren zati** (7)

**ogi zati** (23); **ogi zati bat** (13); **oihal zati** (13); **ondarearen zati** (7); **paper zati** (31); **paper zati bat** (15); **pastel zati** (9); **pergamino zati** (10); **produkzioaren zati** (12); **produkzioaren zati bat** (7); **prozesuaren zati** (8); **publikoaren zati** (7); **soldataren zati** (10); **soldataren zati bat** (7)

**zati bakarra** (8); **zati bakoitza** (20); **zati bakoitzak** (18); **zati bakoitzaren** (11); **zati bakoitzean** (27); **zati bana** (13); **zati bat baino** (19); **zati bat baizik** (15); **zati bat bakarrik** (7); **zati bat berreskuratu** (7); **zati bat da** (38); **zati bat eman** (12); **zati bat galdu** (7); **zati bat hartu** (11); **zati bat zen** (11); **zati berdinetan** (24); **zati bi** (22); **zati bitan** (13)

**zati egin** (27); **zati eginda** (11); **zati egingo** (9); **zati egiteko** (7); **zati egiten** (9); **zati garrantzitsu** (27); **zati garrantzitsu bat** (18); **zati garrantzitsua** (10); **zati gisa** (16); **zati guztiak** (35); **zati guztien** (7); **zati handi** (274); **zati handi bat** (189); **zati handi batean** (20); **zati handi batek** (32); **zati handi baten** (13); **zati handia** (21); **zati handiak** (7); **zati handiena** (42)

**zati izan** (18); **zati izango** (10); **zati jakin** (7); **zati nagusi** (9); **zati nagusia** (14)

**zati on** (14); **zati on bat** (8); **zati oso** (22); **zati osoa** (16); **zati osoan** (17); **zati txiki** (64); **zati txiki bat** (36); **zati txikia** (11); **zati txikiak** (11)

**zati zati** (35); **zati zati egin** (10); **zati zati eginda** (8)

**zenbait zati** (7); **zeru zati** (8); **zisjordaniako zati** (10); **zorraren zati** (7)

**arteko zatia** (11); **aurreneko zatia** (9); **azken zatia** (28); **bakoitzak bere zatia** (7); **bere zatia** (22); **beste zatia** (12); **bigarren zatia** (193); **bigarren zatia hasi** (39); **dagokion zatia** (11); **egunkari zatia** (8); **errepide zatia** (9); **hirugarren zatia** (26); **lehen zatia** (198); **lehen zatia amaitu** (7); **lehen zatia bukatu** (7); **lehenengo zatia** (24); **lur zatia** (7); **ondare zatia** (13); **paper zatia** (11)

**zatia amaitu** (10); **zatia amaitzear** (7); **zatia amaitzeko** (12); **zatia bukatu** (8); **zatia egiteko** (7); **zatia hasi** (43); **zatia izan** (11)

**bere zatiak** (13); **bi zatiak** (22); **bigarren zatiak** (17); **egunkari zatiak** (7); **gorpu zatiak** (7); **gorputz zatiak** (8); **izotz zatiak** (7); **lehen zatiak** (13); **ulpianoren zatiak** (18)

**aurreneko zatian** (11); **azken zatian** (26); **bigarren zatian** (511); **bigarren zatian ere** (13); **bigarren zatian zelairatu** (7); **gipuzkoako zatian** (13); **hirugarren zatian** (21); **lehen zatian** (379); **lehen zatian eginiko** (7); **lehenengo zatian** (44); **partidako bigarren zatian** (7); **partidaren bigarren zatian** (11)

**bigarren zatiaren** (61); **bigarren zatiaren hasieran** (25); **bigarren zatiaren hastapenean** (8); **lehen zatiaren** (42); **lehen zatiaren amaieran** (12); **zatiaren amaieran** (16); **zatiaren hasieran** (29); **zatiaren hastapenean** (8)

**bigarren zatiari** (21); **lehen zatiari** (8)

**bi zatien** (10); **zatien artean** (9)

**zatietako emaitzak** (23)

**bi zatietan** (7)

**bigarren zatiko** (67); **hirugarren zatiko** (35); **hirugarren zatiko obren** (10); **lehen zatiko** (81); **lehen zatiko azken** (12); **ubidearen hirugarren zatiko** (18); **zatiko obren** (10)

**bigarren zatira** (9); **bigarren zatira arte** (7)

**zatiren bat** (37)

**zatirik handiena** (79); **zatirik handienean** (11)

**bi zatitan** (81); **bi zatitan banatu** (12); **bi zatitan banatzen** (9); **hainbat zatitan** (7); **hiru zatitan** (52); **hiru zatitan banatu** (11); **lau zatitan** (25); **mila zatitan** (27); **zatitan banatu** (34); **zatitan banatu du** (7); **zatitan banatua** (11); **zatitan banatuko** (9); **zatitan banatuta** (8); **zatitan banatutako** (7); **zatitan banatzen** (21); **zatitan banatzen da** (7); **zatitan emana** (8); **zatitan hautsi** (7)

---

# zatibanaketa *(orobat **zati banaketa**)* *iz* banaketa.

Nondik hasi **zatibanaketa**? Joxan Elosegi

Lurraldea banatu zien israeldarrei, prestaturiko **zati**-banaketaren arabera. Elizen arteko biblia

---

# zatibanatu, zatibana(tu), zatibanatzen du *ad* banatu.

Baina denak era eta aldi berean gozagarri badira, ez al da egia nahi izate desberdin hauek gizakiaren bihotza **zatibanatzen** dutela, lehenik zein hautatu deliberatzen ari den bitartean? Imanol Unzurrunzaga

---

# zatibitu *izond* bi zati egina.

Berriro eraso zion, eta sugearen mihi **zatibituak** Harry alde batean jo zuen. Iñaki Mendiguren

---

# zatidura 1 *iz* aritmetikan, zatiketaren emaitza.

Bitarte hartan proposatu ziren formulek hainbat baliabide erabili zituzten: adierazpen infinituak, batuketak, biderkadurak, **zatidurak**; baina erradikalik ez izatearen abantaila zuten denek. Jon Muñoz

IG/BPG **zatidurak** ematen digu IGn egiten den ahaleginaren neurri egokia. Juan Ignacio Pérez / Pello Salaburu

Bi kopuru horien arteko **zatidura**. Juan Ignacio Pérez / Pello Salaburu

1981/82 ikasturtean 32.423 ikasle eta 1.741 irakasle zeuden (irakasleko 18'6 ikasle) eta joan den hamarkadaren azken urtetara arte, balio horren inguruan mantendu da **zatidura** hori. Juan Ignacio Pérez / Pello Salaburu

Beren elkartrukerako erlazio errealak (hau da, esportazioen prezioen eta inportazioen prezioen arteko **zatidurak**) [...]. Iñaki Heras

**2** kazetaritzan, testu nagusiaren osagarri den idatzi laburra.

Hiriko sekta eta talde deabruzaleez 9.547 karaktereko atal nagusia eta 3.521eko **zatidura**, eta autobideko lapurketez, berriz, 6.401. Aingeru Epaltza

Deigarriena, ezker orrialdeko azpiko **zatidura**: "Praktika satanikoak gure hirian?". Aingeru Epaltza

Bolalumak orrialdeko zoko-zokoa markatu zuen; **zatidura** labur bat, informazio nagusia irakurtzeko premiaren premiaz ikusia ez nuena. Aingeru Epaltza

---

# zatiezin *izond* ezin zatituzkoa.

Nahiago zuen esperientziaren jarraitutasuna baieztatu nortasun **zatiezinean**. Joseba Zulaika

Egia **zatiezinak** behartu nau gizon handi honen lorratz argitsuei jarraitzera. Juan Martin Elexpuru

Erromako elizak bidali zigun apezpikuak garbiketa etnikoa egin zuen jarraian Baionako seminarioan, Frantziako IV. edo V. Errepublika Bakar eta **Zatiezinaren** onetan eta, menturaz, zenbait euskaldun fededun xumeren kaltetan. Piarres Xarriton

Lehen Jainkoaren gainean esaten zirenak esaten dira orain Espainiari buruz: transzendenteak, **zatiezinak**, ubikuoak ei dira bi-biak. Markos Zapiain

Eta agian neure Norbera pentsatzailean, batasun **zatiezin** eta deuseztaezinik dagoen. Ibon Uribarri

Arima arrazoiduna alabaina gauza gorpuzgabea eta **zatiezina** da. Piarres Xarriton

Giza eskubideak unibertsalak eta **zatiezinak** direla gogorarazi du Aik. Berria - Gaiak

Molekula [...]: materiaren partikularik txikiena, **zatiezina**. Xabier Olarra

Ez zekien zergatik zuten infinituki txiki horiek, **zatiezin** horiek, ukitzaile horiek, halako ondorio suspergarria berarengan. Jon Muñoz

Demokritok eta jarraitzaile izan zuen Epikurok, atomoak zirela zioten, gure autoreek gorputz ebakiezinak deitu zituztenak, eta beste batzuk **zatiezinak** deitzen dituztenak. Santiago Iruretagoiena

Baldin denbora etengabea eta infinituraino zatigarria balitz, ondorioz berek **zatiezintzat** jotzen zuten ataltxo hori ere nahitaez zatigarria litzatekeela, eta, bide beretik, hedadura etengabea dela onartuz gero, beharrezkoa zela **zatiezintzat** edukiriko denbora-istant horren zatigarritasuna ere onestea. Xabier Kintana

Substantzia absolutuki mugagabea, **zatiezina** da. Piarres Xarriton

**Zatiezinen** geometriaren egia argi eta garbi ikusiko dutenek halaber dute miretsi ahal izango izadiaren handitasuna eta ahalmena. Jon Muñoz

---

# zatiezintasun *iz* zatiezina denaren nolakotasuna.

Munduaren mugatasuna edo mugagabetasuna, materiaren zatigarritasuna edo **zatiezintasuna**, eta munduko kausalitate osoa edo munduaren lehen sortzaile bat frogatzeko saialdiek arrazoimen hutsa antinomia batean nahasten dute munduaren kontzeptuari dagokionez. Ibon Uribarri

Giza eskubide guztien unibertsaltasun, **zatiezintasun** eta elkarmenpekotasuna berresten dugula. Itziar Eizagirre / Amaia Lizarralde

Espainiako subironatasun bakarraren eta nazio espainiarraren **zatiezintasunaren** irizpideak eztabaidaezinak zirela, ukiezinak. Berria - Euskal Herria

Kezka bakarra Frantziaren **zatiezintasuna** ez hunkitzea da. Berria - Harian

Munduaren mugatasuna edo mugagabetasuna, materiaren zatigarritasuna edo **zatiezintasuna**. Ibon Uribarri

---

# zatigabe *izond* zatirik ez duena.

Gure sentimenek ikusi ezineko gorputz bakoitzak azken mutur bat daukanez gero, argi dago hau **zatigabea** eta izaera minimoduna dela. Xabier Amuriza

---

# zatigaitz *izond* ia zatiezina.

Deskonposaketaren itzulera honetan inoiz baldintzen ilararen baldintzatugabeko osakiderik (**zatigaitzik**) aurkituko ez denez gero, [...]. Ibon Uribarri

---

**zatigarri** 1 *izond* zati daitekeena.

Gorputz guztiak **zatigarriak** dira. Ibon Uribarri

**Zatigarria** den zerbait gorputz bat da. Ibon Uribarri

Jadanik frogatua da mugitzen den guztia, zalantzarik gabe, neurriduna eta **zatigarria** dela. Xabier Kintana

Ea nonbait, eta agian neure Norbera pentsatzailean, batasun zatiezin eta deuseztaezinik dagoen, edo **zatigarria** eta iragankorra soilik dena besterik ez dagoen. Ibon Uribarri

Munduaren egoera baten gainetik zaharragoa den beste bat dago, zati bakoitzean beti **zatigarria** dena. Ibon Uribarri

Baldin denbora etengabea eta infinituraino **zatigarria** balitz, ondorioz berek zatiezintzat jotzen zuten ataltxo hori ere nahitaez **zatigarria** litzatekeela. Xabier Kintana

2 aritmetikan, zatidura aplika dakiokeena.

Aritmetikan, zenbaki osoen forma aztertzen da: haien propietateak, ea bakoitiak ala bikoitiak diren, **zatigarriak** diren ala ez. Jon Muñoz

Bikoitiak bi zati berdinetan **zatigarriak** dira; bakoitiak, berriz, ez. Jon Muñoz

Badira ez biz, ez hiruz, ez ezein zenbakiz **zatigarriak** ez direnak: zenbaki lehenak dira horiek. Jon Muñoz

Baldin eta *a* *p*-rekiko **zatigarri** ez bada, eta baldin eta *p* zenbaki lehena bada, orduan (ap-1 - 1) *p*-rekiko **zatigarri** da. Jon Muñoz

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
> **amaigaberaino zatigarria** (3)

---

**zatigarritasun** *iz* zatigarria denaren nolakotasuna.

Hedadura etengabea dela onartuz gero, beharrezkoa zela zatiezintzat edukiriko denbora-istant horren **zatigarritasuna** ere onestea. Xabier Kintana

Munduaren mugatasuna edo mugagabetasuna, materiaren **zatigarritasuna** edo zatiezintasuna, eta munduko kausalitate osoa edo munduaren lehen sortzaile bat frogatzeko saialdiek arrazoimen hutsa antinomia batean nahasten dute munduaren kontzeptuari dagokionez. Ibon Uribarri

Objektu hauek zeharbidez errepresentatzen dira **zatigarritasunaren** adigaiaren bitartez. Ibon Uribarri

Lerro edo angeluen **zatigarritasun** amaigabea. Ibon Uribarri

Badirudi, gorputz bat substantzia gisa espazioan errepresentatua izan behar denez, bera espaziotik ezberdinduko dela espazioaren **zatigarritasunaren** legeari dagokionez. Ibon Uribarri

---

**zatika** 1 *adlag* zatitan, ez osorik; ez dena batera. ik **puskaka**.

Balantza negatiboa dutenek **zatika** ordainduko dute aldea (erdia uztailaren 3an eta beste erdia azaroaren 30ean). Berria - Ekonomia

Han Jainkoa bere betean eman ohi da, ez **zatika**. Joan Mari Lekuona

Beraz, kausa hau, osoki edo **zatika** kentzen bada, Petriren aldeko afektua ere tipituko da, osoki edo **zatika**. Piarres Xarriton

**Zatika** bezala osotasunean, *Playa de las Américas*ek poz gutxi ematen zuen. Bernardo Atxaga

Hitzak osorik edo **zatika** ager daitezke, bata bestearen atzetik edo erdian sartuta. Iñaki Arranz

Aldizkariek utzitako zirriztuetatik ikus zezakeen kale-kantoia, oso-osorik ez ordea, **zatika** baizik, ispilu urratu batean bezala. Migel Angel Mintegi

Debekatuta dago liburu hau osorik edo **zatika** kopiatzea. Koro Navarro

Axola gutxi du jakitea nor izan ote zen, osotara edo **zatika**, eleberriko Lulu hori. Josu Zabaleta

Done Jakue Bidea **zatika** egitea da asmoa. Berria - Harian

Baina noan **zatika**. Joan Mari Irigoien

Bere lan asko bezala, aldizkarietan **zatika** agertu zen bi urte horietan. Ibon Uribarri

Loa **zatika** egiteko kontu hori jasangaitza egiten zaiela. Arantxa Iturbe

Ezingo du espazio guztia une bakarrean bete; zeren leku hura **zatika** hartuz joan beharko baitu, gero dena betetzeko. Xabier Amuriza

**Zatika** eroriak ziren pareta haien erditik iragan zen. Elena Touyarou

Hire gorputz-atalak **zatika** emango zizkiek zakurrei. Juan Kruz Igerabide

Txakurra -Bixkor- ahul, azala **zatika** erortzen zaiola, lo dago ponparen ondoan. Anton Garikano

Ez nuela artean haren liburu famatua **zatika** baizen irakurri. Joan Mari Irigoien

Hortik dator gutarik bakoitzak baduela bere buruaren eta bere afektuen, absolutuki ez bada ere **zatika** bederen, modu argi eta egokian ezagutzeko ahalmena. Piarres Xarriton

Egia esan, **zatika** irakurrita, ez dago gaizki. Iñigo Aranbarri

Maite dut denboraren joana haustea, garaiak nahastea, istorioak apurtzea, **zatika** idaztea. Ana Urkiza

Ez dut ezagutzen **zatika** bada ere semantikako irizpideak erabiliaz gramatika-egituraren teoria bat garatzeko ahalegin xeherik. Itziar Laka

Gorputzez eta arimaz, kristau piztueran bezala, baina hemen eta orain, Lur honetan, denbora honetan, gorputz honetan, arima honetan, hil gaberik, berpiztu gaberik, **zatika** soilik hilez eta etengabe berpiztuz, gorputz eta arima, gorputz eta buru. Juan Kruz Igerabide

2 *zatikako* ik **zatikako**.

3 ***zati-zatika*** *adlag*

Iskanbilak ugariak ziren: adibidez, Amikuzeko oihan komunala **zati-zatika** saltzen zuten Donapaleuko notableek, beren hiriaren ureztatzeko. Itxaro Borda

Bereiz dezagun, **zati-zatika**, guri interesatzen zaiguna: 1) [...]. Joxe Azurmendi

4 ***zatika-zatika*** *adlag*

Ama batek bere haurrei dena kontatzen ez badie, haurrak **zatika-zatika** jakiten dituzte gauzak, eta hori ez dago ongi. Josu Zabaleta

Horrela zahartzen gaituk, **zatika-zatika**. Xabier Olarra

Bere izaerak ez zion uzten margolana **zatika-zatika** osatzen, ñabardura guztiak zainduz, eta kolore aldaketa guztiak zehaztuz. Juan Kruz Igerabide

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
> **osorik edo zatika** (4); **zatika bada ere** (4); **zatika bederen** (3); **zatika bozkatuko** (3); **zatika erortzen** (3); **zatika zatika** (5)

---

**zatikagai** *izond* zatika daitekeena. ik **zatikagarri**.

Txinatar hizkuntzaz, hitz gehienak zatikagaitzak dira; aitzitik, hizkuntza artifizial batean, ia hitz gehienak **zatikagaiak** dira, eta analiza daitezke bere zatiak. Isabel Arrigain

---

**zatikagaitasun** *iz* zatikagaia denaren nolakotasuna.

Hitzen sailkapena, haiek duten beste hitz batzuk sortzeko ahalmenaren arabera egin liteke; ahalmen hori, aldi berean, hitzen **zatikagaitasunaren** araberakoa da. Isabel Arrigain

**zatikagaitz** *izond* ia zatiezina.

Analogiari esker, aglutinazioak mota sintaktikoak sortzen ditu, eta horrenbestez, gramatikaren mesedetan dihardu; oztopoak jartzen ez bazaizkio, erabateko banakoraino eramaten du haren elementuen sintesia, eta hitz **zatikagaitzak** eta ez-emankorrak soilik sortzen ditu. Isabel Arrigain

Txinatar hizkuntzaz, hitz gehienak **zatikagaitzak** dira; aitzitik, hizkuntza artifizial batean, ia hitz gehienak zatikagaiak dira, eta analiza daitezke bere zatiak. Isabel Arrigain

Lehendabiziko aldiz, abstrakziotik atera gara; lehendabiziko aldiz, elementu konkretuak **zatikagaitzak** agertzen dira, leku bat betetzen eta ahozko katean denbora bat adierazten. Isabel Arrigain

---

**zatikagarri** *izond* zatika daitekeena. ik **zatikagai**.

Ez dago ezberdintasunik tamaina infinitu bat badela esatearen, edo gorputza eta denbora infinituraino **zatikagarriak** direla esatearen artean. Xabier Kintana

Ahozko katearen atal gisa, ezin da inondik ere *p*< izan, baina *p*> ere ez, eta askoz gutxiago oraindik *p*> *p*< multzo **zatikagarria**. Isabel Arrigain

---

**zatikako** **1** *izlag* zatiz osaturikoa; partziala. ik **zatizko**.

Hogei bat lagunen artean, **zatikako** anfiteatro moduko bat eraikia zuten. Juan Garzia

Egia da, baina **zatikako** egia. Berria - Harian

Horregatik, ni osatzen ari naizen **zatikako** erretratu hau ez da inoiz osatuko. Pako Aristi

Gure arteko **zatikako** bilkuretan maiz euskara zen erabiltzen zen hizkuntza bakarra. Pello Salaburu

Euler-en aldaketa, **zatikako** deribatuei dagokiena eta segidei dagokiena. Jon Muñoz

Taldeek osoko bilkurarako gordetako osoko zuzenketak zein **zatikako** zuzenketa guztiak atzera bota zituzten atzoko bozketan. Berria - Harian

Testu horrek **zatikako** zuzenketen eztabaida amaitzen denerako prest egon behar du. Berria - Euskal Herria

EAJk, berriz, hamazazpi **zatikako** zuzenketa erregistratu ditu aste honetan. Berria - Euskal Herria

**Zatikako** planek, ordea, azpiegiturak garatzeko aukera ematen dute lurra kontuan hartu gabe. Berria - Ekonomia

Horiek dira Urola Kostako **Zatikako** Lurralde Planaren berrikuntza nagusiak. Berria - Euskal Herria

Lurraldearen **Zatikako** Planaren arabera, «oinarrizkoa da herri horien identitatea eta jarduera sendotzea». Berria - Euskal Herria

**2** (izenondo gisa)

Gizakiak lurreko historian izandako parte-hartze **zatikako** eta iragankorra. Iñaki Mendiguren

Aldizkakotasunak dakarren egitura labur eta **zatikakoa**. Berria - Kultura

Menard-en Kixote **zatikakoa** Cervantes-ena baino sutilagoa da. Juan Garzia

Ederki saltzen ziren hiztegiak, gramatika osoak edo **zatikakoak**, eta aditzen koloretako paradigmak. Pello Salaburu

Galarazita dago liburu honen kopia egitea, osoa nahiz **zatikakoa**, edozein modutara delarik ere, edizio honen Copyright jabeen baimenik gabe. Askoren artean

Ez dakigu irakasle horien ardura nolakoa den, osokoa edo **zatikakoa**. Juan Ignacio Pérez / Pello Salaburu

Izan dira lehenago ere Asisko Frantzisko gure herriari euskaraz ezagutarazteko saioak, **zatikakoak** izan badira ere. Askoren artean

Templek sakon aztertu ditu autismoaren kimikari eta fisiologiari buruzko ikerketak eta garun-irudiztapeneko teknikak, eta oraindik iruditzen zaio **zatikakoak** eta ondorio garbirik gabeak direla. Xabier Olarra

**3** (izen gisa)

Horiek bozkatu ostean, **zatikakoak** eztabaidatuko dituzte, hots, EAk eta EB-Berdeek aurkezturikoak. Berria - Euskal Herria

**Zatikakoetan** ez dago arazorik, kapitulu bat luzatu edo laburtzearen inguruan ados jartzea ez da zaila. Berria - Kultura

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
>
> **arabako zatikako lurralde** (3); **artikuluei aurkeztutako zatikako** (4); **aurkeztutako zatikako zuzenketak** (7); **aurkeztutako zatikako zuzenketen** (5); **zatikako lurralde plana** (6); **zatikako lurralde planak** (12); **zatikako lurralde planaren** (5); **zatikako planek** (3); **zatikako zuzenketa** (5); **zatikako zuzenketak** (15); **zatikako zuzenketak eztabaidatuko** (3)
>
> **osoa nahiz zatikakoa** (3)

---

**zatikapen** *iz* zatikatzea.

Itzulera dinamikoak, ordea, gauza berezi hau du bere baitan, itzulera matematikotik bereizten duen gauza: azken honen autugaia benetan, edo gauzen elkarketa denez osoki bat osatzeko, edo osoki baten **zatikapena** denez bere zatietan, orduan ilara honen baldintzak beti bere zati gisa hartu behar direla. Ibon Uribarri

**Zatikapen** [...]: bereizketa, adibidez lurra banatzerakoan egiten dena; alegia, bakoitzak banaka lurra edukitzea, ez partzuergoan. Xabier Olarra

---

**zatikarazi**, zatikaraz, zatikarazten du *ad* zatikatzera behartu.

Zer pentsatu behar dute gizonek ikusten dutelarik magistratu jakintsuek eta apaiz serioek lasaitasun axolagabez eta tresneria geldoz **zatikarazten** dutela presoa, eta dohakabe hau azken arnasan, behin betiko golpearen zain dardaraka dagoen bitartean, epailea badoala pauso geldian, hoztasun bihozgabez [...] bizitzako erosotasun eta atseginez gozatzera? Juan Martin Elexpuru

---

**zatikatu**, zatika(tu), zatikatzen **1** du *ad* zatitu, eskuarki zati txikietan.

Harri Aroan, ebaki eta **zatikatzeko** tresnak lantzea izanik helburua, askotariko forma eta kostuko aizkora harrizkoak ekoitziko ziren. Juan Garzia

Hildakoa **zatikatu** eta East Riverrera bere gorputza botatzea izan zen otu zitzaion lehen gauza. Harkaitz Cano

Ezaguna zitzaidan azienda hil berria **zatikatzean** aizkorak haragian ateratzen duen zarrast hotsa. Aingeru Epaltza

Aditua zen okela **zatikatzen**. Irene Aldasoro

Andres Hurtadok ez zuen besteek baino sentiberatasun gehiago ageri; gorpuak zabaltzen, ebakitzen eta **zatikatzen** ikusteak ere ez zuen batere hunkitzen. Josu Zabaleta

Amen altzoan mozten zieten haurrei lepoa, eta ume asko **zatikatu** zituzten, arrainak balira bezalaxe. Koro Navarro

Zahar okituari, Medeak aholkatuta, nerabezaroa itzuli nahi ziotenez, zati txikitan **zatikatu** ondoren, suaren gainean jarri zuten gaixoa. Esteban Antxustegi

Labana hartu eta hamabi puskatan **zatikatu** zuen emakumearen gorpua. Elizen arteko biblia

Ez du bete Jaunaren agindua, eta Jaunak lehoiaren atzaparretara eman du; lehoiak **zatikatu** eta hil egin du. Elizen arteko biblia

Antolatu zuen egurra, **zatikatu** zuen zekorra eta gainean ezarri. Elizen arteko biblia

Sansomek, eskuetan deus ere ez zuen arren, **zatikatu** egin zuen lehoia, antxumea **zatikatu** ohi den bezala. Elizen arteko biblia

Ez eman txakurrei gauza sakratuak, zeuen kontra itzuli eta **zatika** ez zaitzateten. Elizen arteko biblia

Babiloniarrek **zatikatu** egin zituzten Jaunaren etxean zeuden brontzezko zutabeak, orgak eta uraska handia, eta Babiloniara eraman zuten brontzea. Elizen arteko biblia

Bidea **zatikatuz** joanen naiz ene helburuaren bila. Piarres Aintziart

Politikak han eskatzen du enperadoreak emandako ondasunak ez direla gehiegi **zatikatu** behar, zerbitzupean daudelako. Iñaki Iñurrieta

Europako mundu-ekonomia, estatu bakoitzaren baitan itxia, **zatikatua** zegoen, baina, aldi berean, XVI. mendeaz geroztik, mundu osora zabaldu zituen adarrak. Koro Navarro

Badabil oraindik, denbora emeki-emeki **zatikatzen** du, segundoka aurrena, minutuka hurrengo, eta orduka gero. Mirentxu Larrañaga

Pentsamendua apurtu eta **zatikatzen** zuten hitz laburrek ez zuten deus esaten. Anton Garikano

Ekintza modu horiek osagaietan **zatikatu** eta osagai bakoitzaren balizko jarduera aztertu dute gehienetan. Josu Zabaleta

Errealitateari buruzko gure pertzepzioa gero eta **zatikatuagoa** da. Iban Zaldua

Ikerketak, jakina denez, ikergaia gero eta gehiago **zatikatuz**, ataldUz, egiten du aurrera. J. Garzia / A. Egaña / J. Sarasua

Massachusettseko Brandeis Unibertsitateko historia juduan irakasle Jonathan Sarnaren ustez, berriz, **zatikatuta** dago juduen boto asmoa. Berria - Mundua

**2** aritmetikan, zatitu.

Merkatariek badakite, batere durduzatu gabe, bigarrena hirugarrenaz biderkatzen eta biderkadura lehenaz **zatikatzen**. Piarres Xarriton

**3** (era burutua izenondo gisa)

Abere **zatikatu** eta haragi hiletara joan ohi diren euli haragijale horiek. Josu Zabaleta

Auto abarrikatu baten pusken artetik agertzen diren soin-adar **zatikatuak**, bide bazterretako erretenean. Aingeru Epaltza

Herri **zatikatu** bat hartu eta monarkia bateratua eratu zuen, behar ziren erakundeak sortuz. Jose Antonio Mujika

Batasun politikoa burutu gabea zuen Alemania **zatikatuan** izan zuen erantzunik indartsuena gogoetabide liberalak. Koro Navarro

Gremioek [...] ezin zituzten beren abantailak gorde, ekoizpen-egitura guztiz **zatikatu** baten baitan ez bazen. Jakin al daiteke zer sistema ez-deduktiboren arabera ipini ahal izan diren objektuok bata bestearen ondoan eta jarraian psikopatologiaren esparru **zatikatu** hori eratzeko [...]? Koro Navarro

Departamenduak izanik ere Errepublikaren zimendu, horrek ez du erran nahi alabainan ez ditakeela **zatikatze** eta mugatze berririk izan. Herria

Eleberri **zatikatuaren** forma aukeratuz, zergaitik ez zure ipuina pixkanaka idatzi... puzzle batean balitz bezala, gure... barkatu! Ramuntxo Etxeberri

---

## zatikatzaile **1** *izond* zatikatzen duena.

Deiadar **zatikatzailerik** aireratu gabe, ez baita inor mintzerik komeni Habanako Unibertsitateko honetan. Edorta Jimenez

Asmo eta borondaterik onenarekin, zalantzarik gabe, euskararen batasunari eraso eta indar **zatikatzaileei** ireki zien atea. Koldo Zuazo

«Nazioaren kontrako prozesu **zatikatzaileen** » ondorioak. Berria - Kultura

Gero politika **zatikatzaile** gogor horri, dialektoen arteko aldeak nabarmentzeko joera gehitu diote. Berria - Mundua

Elkartasunaren balioa lehenetsi nahi badu, indibidualismo **zatikatzaileetarik** urrun. Filipe Bidart

**2** *iz* zatikatzen duen gailua.

Defragmentadore edo **zatikatzailea** aktibatu zuen berehala. Fernando Morillo

---

## zatikatze *iz* zatitzea, eskuarki zati txikietan.

Hasia zen, mantso-mantso, txinatar subiranotasunaren **zatikatzea**, administratiboa aurrena eta geografikoa gero. Pertzepzio-arloaren **zatikatze** bera, gertaera patologikoaren azterketa bera. Koro Navarro

Departamenduak izanik ere Errepublikaren zimendu, horrek ez du erran nahi alabainan ez ditakeela **zatikatze** eta mugatze berririk izan. Herria

Hark bi eratara jokatu ohi du: negatiboki, aurrea hartzen baitio **zatikatze** dialektalari, berrikuntzak itoaz sortzen diren unean bertan. Isabel Arrigain

---

## zatiketa **1** *iz* zatitzea.

Bat etor zaitezte guztiok eta ez bedi izan **zatiketarik** zuen artean. Elizen arteko biblia

Porrotak **zatiketa** eragiten du. Josu Zabaleta

Izan ere, indarkeriak **zatiketa** ugari eragiten du. Herria

**Zatiketak** ahuleria dakar. Gotzon Garate

Eta horrekin batera, panfletoak, teoriak, barne-eztabaidak, **zatiketak**, grebak, manifestazioak. Bernardo Atxaga

Kasurik ez egiteko, arren eta arren, karlisten **zatiketa** bultzatzen zuen inortxori. Txillardegi

**Zatiketa** era askotara gaindi liteke, eta elkarren arteko harremanek hurbildu egingo gaituzte. Bernardo Atxaga

Arlo horretan ere **zatiketa** agertu zen beren artean, eta horrela sekta bakoitzak bere iritziaren alde egiteko balio zioten hipotesiak baietsi zituen. Xabier Kintana

Jaurlaritzak uste du Sanzen erabakiak **«zatiketa** » dakarrela. Berria - Euskal Herria

Norberaren lana saltzearen edo debalde banatzearen artean dagoen aldeak **zatiketa** sortzen duelako asmatzaile eta ikertzaileen artean. Berria - Kultura

Akademia berriaren **zatiketa** doktrina zaharraren kontra baino gehiago estoikoen kontra izan zen. Imanol Unzurrunzaga

Itunak Sinn Feinen eta IRAren **zatiketa** eragin zuen. Berria - Harian

Kromosomen osagai nagusia da ADNa: zelulen **zatiketan**, osagai hau biderkatu egiten da, eta zatiki berdin-berdinak sortzen dira. Pello Salaburu

Normalean, bi gene-kopiek (Ink4/ARF gene supresoreak) kontrolatzen dute zelulen **zatiketa**. Berria - Gaiak

Ahozko katearen **zatiketa** silabatan. Isabel Arrigain

Harresi barruko espazioen **zatiketak** egin behar dira, kaleak eta kalexkak banatuz zerualdearen arabera. Santiago Iruretagoiena

Arkitekturaren **zatiketa** bat egin nuen eta zati bakoitza bere definizioen arabera mugatu nuen. Santiago Iruretagoiena

Bera baita Hirutasun betikoa, egiazkoa eta maitatua, nahasterik eta **zatiketarik** gabea. Imanol Unzurrunzaga

Postulatu hauetaz eztabaidatzen du historia berriak auzitan jartzen dituenean sailak, **zatiketak**, mugak, mailen arteko ezberdintasunak, desorekak, berezitasun kronologikoak, irauteko modu bereziak, harremanen ahalezko motak. Xabier Arregi

**2** (izenondo eta izenlagunekin)

**Zatiketa** kultural hori gainditu behar dugu. Berria - Ekonomia

Erlijio kristauak, orain dela bi mende katoliko eta protestantetan banatu zuen **zatiketa** zoritxarreko hura nozitu zuenean, [...]. Iñaki Iñurrieta

Integristen **zatiketa** kaltegarria ezezereztaturik, [...]. Txillardegi

Dialektoak, hizkuntzaren eremuaren **zatiketa** arbitrarioak baizik ez dira. Isabel Arrigain

**Zatiketa** administratiboa aipatu zuen oztopoen iturri. Koldo Zuazo

Nazioarteko ekonomia- espazioaren **zatiketa** hirukoitzak [...] guztiz egokia izaten jarraitzen du inbertsioetan eta ekoizpen-sareetan. Koro Navarro

Sistema kapitalistak [...] lanaren nazioarteko **zatiketa** sortzen du. Iñaki Heras

Lehen hurbilketa batean onartu beharko da behin-behineko **zatiketa** bat, hasierako eskualde bat, azterketak desegin eta berrantolatuko duena. Xabier Arregi

Bitariko **zatiketa** honek, ordea, ez du ukitzen liburuaren mamia. Ibon Uribarri

Gogoratuko dugu, "Zisma Gizarte Gorputzean" ataleko azterketan, hiruko **zatiketa** bereizgarriaren agerpenaren arrasto ukaezinak aurkitu genituela. Iñaki Mendiguren

**3** (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

Baldin eta beldur bada ezkontza batek bere independentzia galaraziko dioten ondorio txarrak izango ote dituen, edota **zatiketa**-arriskuan jarriko ote duen, [...]. Iñaki Iñurrieta

Mutikoa bi nasen arteko **zatiketa**-gunera iritsi zenean, turista-multzo handi bat saldoan igaro zitzaion aurretik, eta azken motxila paretik kentzerako, mutikoa desagertua zen. Iñaki Mendiguren

Euren positibotasunak definitzen duen eraketa diskurtsiboen arteko **zatiketa**-puntua. Xabier Arregi

**Zatiketa** lerro berezien arabera. Xabier Arregi

**4** (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa)

Abeletxeak, arrantxoak, eskortak eta haragi-**zatiketako** lantegiak. Lan **zatiketa** klasikoaren berrikusketan oinarritzen da globalizazioaren diskurtso "ortodoxoarekin" kritikoak direnen ideia hori. Xabier Olarra

Administrazio **zatiketa**, euskaldunen arteko harremanik eza, eta hizkuntza desberdin biren menpe izatea jo zituen gaitzaren sortzaile. Koldo Zuazo

Era berean da globalizazioa gai, denborarekin, gaur egun indarrean den munduko hirutariko ekonomia **zatiketa** gainditzeko. Koro Navarro

Ikuspegi integratzaile horiek ihes egiten dute [...] gizarte **zatiketa** eta tribalismoa sustatzen dituen ikuspegi murriztaile orotatik. Itziar Eizagirre / Amaia Lizarralde

Klase-gatazkaren arazoaren errusiar planteamendua [...] klase-**zatiketa** ezabatuz klase-gatazkatik libratzeko politikan gorpuztu zen. Iñaki Mendiguren

Kudeaketan eta lurralde **zatiketan** oinarritutako proposamenaren alde ez du egingo. Berria - Euskal Herria

Zuk ez duzu hau nozitzen, estuasun eta sentimendu **zatiketa** hau, izugarrizko tentaldi hau. Anton Garikano

Ohartzen ginen arrakasta horrek kostu psikologikoa izan zuela; ahaleginaren eta barne-**zatiketaren** kostua, alegia. Xabier Olarra

Helenismoaren zabalkundearen Alexandro-osteko historian ez dago pareko atal-**zatiketarik**. Iñaki Mendiguren

**5** (hiru osagaiko hitz elkartuetan)

Tokiko ekoizpenak, koperatibak, diru maileguak (mikro-kreditu), laborari lur **zatiketak** sustatuz, aldaketa iraunkorra eraikitzen da. Herria

**6** aritmetikan, oinarrizko eragiketako bat, bi zenbakiren biderkadura eta bi biderkagaiotako bat jakinik, beste biderkagaia aurkitzea helburutzat duena.

Lehenik eta behin, batuketa, kenketa, biderketa eta **zatiketa** baino askoz ere funtzio matematiko gehiago dago. Josu Zabaleta

Batuketa, kenketa, biderketa, baina, batez ere, **zatiketa** (zenbakien **zatiketa** euklidearraren prozedura polinomioen **zatiketari** aplikatu zion) eta, baita ere, polinomio baten erro karratua. Jon Muñoz

Bi **zatiketa** jarraiturekin saiatu zen Ruche jauna: 2 zati 3 zati 5, zenbat da? Jon Muñoz

*a* eta *c* zenbaki biren batez besteko geometrikoa biderketaz eta **zatiketaz** baliatzen da. Jon Muñoz

Badakit biderketa taulak eta **zatiketak** enekin batean ikasi xinituela, lehen mailan nintzelarik oraino. Itxaro Borda

**hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**

**abertzaleen arteko zatiketa** (4); **administrazio zatiketa** (3); **arteko zatiketa** (32); **barruko zatiketa** (3); **beste zatiketa bat** (3); **bi zatiketa** (3); **dagoen zatiketa** (3); **eskuinaren zatiketa** (3); **euskal gizartearen zatiketa** (4); **euskal herriaren zatiketa** (9); **gizartearen zatiketa** (5); **halako zatiketa** (3); **herrialdearen zatiketa** (3); **herriaren zatiketa** (9)

**zatiketa administratiboa** (4); **zatiketa eragin** (12); **zatiketa eragin zuen** (7); **zatiketa eragiteko** (3); **zatiketa gainditu** (4); **zatiketa gainditzeko** (4); **zatiketa gertatu** (5); **zatiketa gertatu zen** (3); **zatiketa handia** (3); **zatiketa izan** (5); **zatiketa politiko** (3); **zatiketa sortzen** (3)

**arteko zatiketak** (5); **barruko zatiketak** (3); **lurralde zatiketak** (3); **zatiketak eragin** (3); **zatiketak sortzen** (4)

**zatiketan oinarritutako** (4)

**gure herriaren zatiketaren** (3); **herriaren zatiketaren** (4); **zatiketaren ondoren** (4); **zatiketaren ondorioz** (6); **zatiketaren ondotik** (3)

---

# zatiki

**1** *iz* zerbaiten zatia, eskuarki txikia.

Hezetasuna nabaria zen giroan, senti zitezkeen **zatiki** hezeak airean esekiak, larruari eta janzkiei itsasten. Migel Angel Mintegi

Posible zela organismo baten ADN **zatikiak** moztu eta zati horiek beste **zatiki** batzuekin batzeko. Pello Salaburu

Gene bakoitza ADNaren **zatiki** txiki bat da eta zelularen funtzio berezi bat kontrolatzen du. Pello Salaburu

Hitzez erdizka adierazitako pentsamendu guztiena, bakarrik **zatiki** batzuk azaleratzen dituen bakarrizketa amaigabearena. Xabier Arregi

Mosaikoaren **zatikien** eraketan ordenarik ez dagoela. Imanol Unzurrunzaga

Diskurtsoaren **zatiki** honek -hitza edo idazketa, ez du axolarik- euren bizitza urrunago eta luzaroago eraman behar duena bere existentzia hauskor eta ez ziurrean. Xabier Arregi

Haren estalki materiala soilik har dezakegu kontuan, eta **zatiki** fonikoak ebaki, **zatiki** horiek esanahia duten galdetu gabe. Isabel Arrigain

**Zatiki** hauek, kolapsoaren ondoren zibilizazioen desintegrazioak sortuek, askatasuna lortzen dute, beste zibilizazio garaikide batzuetatiko osagai atzerritarrekin gizarte eta kultur konbinazioak osatzeko. Iñaki Mendiguren

**2** (hitz elkartuetan, bigarren osagai gisa)

Enpresak isurtzen zituen kea, hatsa eta errauts **zatikiak** zirela eta, inguruko bizilagunek Udalera jo zuten lehenengo protesta egitera. Berria - Euskal Herria

Oihal **zatiki** bi elkarri josiz. Edorta Jimenez

Lo galdu urduriaren arrastorik gabe, lo eskasak azkenik ekarri zituen ametsen arrastorik gabeago, amets-**zatikiak** baino ez. Jon Alonso

Segundo **zatiki** baten buruan erregistratzen du garunak berotasuna. Irene Aldasoro

Konputagailu moderno batzuetan, mikrosegundo **zatiki** batean atera daitezke memoriako datuak. Irene Aldasoro

**3** artimetikan, bi zenbaki osoren arteko zatiduraren sinboloa.

**Zatikien** biderketak kalkulatzen. Josetxo Azkona

Demagun badela **zatiki** bat, a/b, karratua berdin 2 duena. Jon Muñoz

Matematikariek [...] esan zuten zenbaki perfektua seia zela, zenbaki honek badituelako **zatiki** batzuk beren artean batuz sei ematen dutenak, honela: seiaren seirena, bat da; herena, bi da; [...]. Santiago Iruretagoiena

**Zatikiak** batu, izendatzaile berera eraman, sinplifikatu. Jon Muñoz

Ruche jaunak berekiko pentsatu zuen **zatiki** bitxia eratzen zuela berak: zenbatzaile bat eta izendatzailerik ez! Jon Muñoz

Egipton, adibidez, erdiak eta beste **zatiki** berezi batzuk besterik ez zeuden. Jon Muñoz

**Zatikiak** ere bai, zenbaki osoen erlazioak baino ez dira eta. Jon Muñoz

Erabili ohi ditugunen oso bestelako **zatiki** bat eratu zuen Brouncker-ek: **zatiki** jarraitu bat. Jon Muñoz

Lehenengo kronometristek laster aurkitu zuten ziklo horien arteko ratioak ez direla **zatiki** hutsak, irrazionalak baizik. Iñaki Mendiguren

Matematika heltzen zen eta **zatikien** batuketa ikasten genuen, kebradoak. Joseba Sarrionandia

**4** materiaren zati osagarria; fisikan, atomoaren eta kidekoen osagaia.

Materia, substantzia den aldetik, zatikorra eta **zatikiz** osatua delako baieztapenean. Piarres Xarriton

Baldin gogoan hartzen badute orotan bera dela materia eta ez dela hartan bereizten **zatikirik**, non ez den pentsatzen asko gisetara egokitua dela; baina orduan, haren **zatikien** ezberdintasuna ez da izatezkoa, moduzkoa baizik. Piarres Xarriton

Substantzia gorpuztuna gorpuzkiek edo **zatikiek** osatzen dutela sinestea. Piarres Xarriton

**Zatiki** elementalek parte hartzen duten gertaerak alde batera utzita (gertaera horiei dagokienez gauza jakina baita, Heisenberg-en ziurgabetasun-erlazioez geroztik, behatzaileak bertan egonez besterik gabe aldatzen dituela), munduaren tasun fisikoak ez daude guk egiten diogun begiradaren mende. Josu Zabaleta

**5**

Eta **zatiki**-barra giltzurrunen azpi-azpitik igarotzen zitzaion. Jon Muñoz

**hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
**segundo zatiki** (5)

---

# **zatikor** *izond* zati daitekeena; zatikatzeko joera duena.

Ez da, beraz, nehondik ere erraten ahal Jainkoak pairatzen duela beste zerbaitengatik, ez eta ere substantzia hedatua ez dagokiola Jainkozko izaerari, **zatikorra** asma baledi ere, mugagabea eta betierekoa dela onartzen den ber. Piarres Xarriton

Zeren eta substantzia gorpuztuna [...] zatiezin, bakar eta mugagabea baizik ulertzen ahal ez dena, haiek anizkoitz eta **zatikorra** bezala pentsatzen baitute hortik gero ateratzeko mugatua ere dela. Piarres Xarriton

Materia, substantzia den aldetik, **zatikorra** eta zatikiz osatua delako baieztapenean. Piarres Xarriton

---

# **zatikorki** *adlag* era zatikorrean.

Esan beharrik ez daukat, Nietzschek "mis hipótesis acerca del origen de la moral" horiek, bere izkribuetako hainbat tokitan azaldu dituela **zatikorki** eta in *La genealogía de la moral* sistematikoena. Joxe Azurmendi

---

# **zatikuntza** *iz* zatiketa.

Hutsuneari, ostera, ez dio gauzetan inolako tokirik ematen ez gorputzen **zatikuntzari** mugarik. Xabier Amuriza

---

## **zatiño** *iz adkor* zatitxoa.

Italiaren **zatiño** batean alemana baita herri-mintzaira. Herria

-Gaur goizean irakurri dut egunkarian Itsaso Barean aurkitu dutela dinosauruak akabatu zituen asteroidearen **zatiño** bat. Javi Cillero

Berori nirekin guztiz bat baletor ere, ezingo genuke, gehienez ere, bidearen **zatiño** bat besterik elkarrekin egin. Anjel Lertxundi

Harri hortan idatzia baita «Oi Kanta berri» kantuaren **zatiño** bat. Herria

Ordu **zatiño** bateko negarra. Imanol Unzurrunzaga

---

# **zatitto** *iz adkor* zatitxoa.

Kultura, ez da tresna erabilgarria baizik, bizitzaren osotasuna bereganatu nahi lukeen **zatitto** liluratua baizik ez. Patziku Perurena

---

# **zatitu**, zati(tu), zatitzen **1** du *ad* zatietan bereizi. (gauza fisikoak)

Ogiak **zatitu** eta ikasleei eman zizkien, jendeari eskaintzeko. Elizen arteko biblia

Patatak zuritu eta **zatitu**, tipularekin frijitu, arrautzak irabiatu, dena nahastu, tortilla egin... Sonia Gonzalez

Gabriel, izeba Katek jakin nahi du ea **zatituko** duzun antzara, beti bezala. Irene Aldasoro

Agurearen ondoan eseri zen, tortilla puska txiki-txikietan **zatitu** eta eraman infinituz puskak ahoratu zizkion. Jon Alonso

Daly andereñoak **zatituko** du urdaiazpikoa. Irene Aldasoro

"Idatzi hemen", esan zidan Mary Annek, jatetxearen propagandako postal bat erditik **zatituz**. Bernardo Atxaga

Saltsa eragin zenuena Polloeko gorputegian **zatituta** erakutsi zizuten emakumearen gorpua zela eta. Hasier Etxeberria

Balea osoak ere bai, ontzien aldamenean, **zatituak** izateko zain. Joseba Sarrionandia

Kuzkurtu eta tximiniako tiroa astintzen, edo sutarako txotxak **zatitzen** ari zen. Anton Garikano

Sethe izotz puska bat **zatitzen** ari zen. Anton Garikano

Telebistari begira, konpasaren punta borragoma batean iltzaturik biraka ibiltzen du bere ardatzaren gainean, borragoma bitan **zatitu** arte. Eider Rodriguez

Emateko eskura ezer ez zuenez, artaziak ezkutuan hartu eta bere abitu kaskarra **zatitzera** zihoan. Askoren artean

Beste batzuetan **zatitu** egiten zuen tunika, zati bat eman eta bestea beretzat gordez. Askoren artean

Eraikina bitan **zatitzen** zuen arrakalaren gainean ezarritako zubitxoa zeharkatu ondoren, terraza handi jenderik gabera heldu zen. Jon Muñoz

Itun Berriaren ale bat iritsi zitzaiola eskuetara eta, asko izanik ezin baitzuten anaiek osorik eduki, orrialdeka **zatitu** eta banatzen omen zien denek ikas zezaten, batak besteari trabarik egin gabe. Askoren artean

23 kromosoma pareak **zatitu** ondoren, banan bana aztertzen dira. Pello Salaburu

Horra nola pentsatzen dugun ura, ura den aldetik, **zatitzen** dela eta haren zatikiak elkarretarik bereizten direla, baina ez substantzia gorpuzkina den aldetik, ezen, orduan, ez baita ez bereizten ez **zatitzen**. Piarres Xarriton

Kontrako aldera begira neukan orpoa, eta bernak angelu bat egiten zuen, erditik **zatituta**, adar bat kraskaturik dagoenean bezalaxe. Juan Kruz Igerabide

## **2** (bestelakoak)

Arbitrarioki **zatitzen** dugu denbora, horrela hitz egin badaiteke segurik. Pello Salaburu

«Lanaren zama **zatitzea** erabaki dugu», esan zuen kantzilerrak. Berria - Mundua

Herriak eta familiak banatu eta **zatitu** diren bezala. Edurne Elizondo

Bitan **zatitutako** gizartea da, eta zaila da egoera hori desblokeatzen. Edurne Elizondo

Sei bikoteak bi multzotan **zatituko** dira. Berria - Kirola

Erakundea **zatituta** atera zen VI. Biltzarretik, eta eten egin ziren, ondorioz, harreman pertsonal asko. Rafa Egiguren

Lagunak nituelako, kinta eta sesta **zatitu** aurretikoak. Juan Kruz Igerabide

Ea mundu honetan zerbait bakuna baden edo dena amaigabeki **zatitu** behar den. Ibon Uribarri

Kapitelaren altuera bederatzi parte eta erditan **zatitu** behar da eta lerro batzuk egin behar dira abakotik behera. Santiago Iruretagoiena

Monasterio bakoitza ia departamentu banatuetan **zatituta** geratu zen, bakoitza bere diru-sarrerekin eta erantzukizun bereziekin. Iñaki Mendiguren

Botere gorena **zatitu** daitekeela iritzi sediziozkoa da. Esteban Antxustegi

Zoritxarrez mugimendu nazionalistak nagusitu ziren eta inperioa parroki estatutan **zatitu** zen. Iñaki Mendiguren

Txekoslovakia **zatitzea** egokia izan zen, bi nazionalitate baitzeuden. Berria - Mundua

Politikoki bitan **zatituta** dago Kaxmir: Indiaren esku daude Jammu eta Kaxmir estatuak; Pakistanen, berriz, Azzad Kaxmir, Gilgit eta Baltistan daude. Berria - Mundua

Errepublika handiegi bat ezin da despotismotik libratu, errepublika federal txikietan **zatitzen** eta elkartzen ez bada. Juan Martin Elexpuru

Ez zen bakarrik Galia Comata **zatitu** zen hiru probintzietako baten administrazio-gunea; "Hiru Galietako Kontseiluaren" topaleku ofiziala ere bazen. Iñaki Mendiguren

Berlin bitan **zatitzen** zuen harresia erori zenean. Berria - Kultura

Bere baitan **zatiturik** dagoen erreinuak ezin du iraun. Elizen arteko biblia

Zergatik **zatitu** ditugu bizizientziak (astronomia, geologia, kimika, fisika, biologia, ekologia) eta nola elkar ditzakegu Lurraren zientzia berrietan? Askoren artean

Bi atal nagusietan **zatituko** dugu Dialektika. Ibon Uribarri

Sesioa sortu zen fariseuen eta saduzearren artean, eta biltzarra bitan **zatitu** zen. Elizen arteko biblia

Greziarren artean ere jarrerak **zatituta** daude. Berria - Mundua

**3** irud/hed

Bizkarra **zatitu** zidatenean, hozka egin eta mingain-puska bat moztu ninan. Anton Garikano

Beti zagok bihotz **zatitu** bat erdiz trenean doana eta erdiz estazioan geratzen dena, baina, trena infernurantz zoak beti. Patziku Perurena

Zu ezagutzea ziztada itzela izan da, kamarada; bihotza **zatitu** didazu. Edorta Jimenez

Milioika orratz iltzatu zitzaizkidan zangoetan, bihotza mila geografiatan **zatitu** zitzaidan biriken artean. Lander Garro

**4** aritmetikan, zatiketa egin.

Biz **zatitu** daitezkeenak eta ezin **zatitu** daitezkeenak. Jon Muñoz

Baldin eta zenbaki lehen batek *ab* biderkadura **zatitzen** badu, *a* edo *b* **zatitzen** du. Jon Muñoz

**Zatitzen** duzu log 1789 zati 17z. Jon Muñoz

Bruselan erosi nuen aldizkarian datorren buruketa egin dut: GMI=p/a2, hau da, Gorputz Masaren Indizea, pisua altueraren karratuarekin **zatituz** lortzen da: 49/2'37=17'3. Patxi Zubizarreta

**5** (era burutua izenondo gisa)

Jaione Urdanpilleta, gerora puta eta geroagora gorpu **zatitu** bihurturik, Polloeko hozkailu batean dagoena, oraindik ere. Hasier Etxeberria

Amets egin zuen zaku bat ekarri ziotela, giza edo abere gorputz **zatitu** bat, eta berak ez zekiela zer egin. Joseba Sarrionandia

Azkazal **zatitu** batez hazka egiten dio adatsari. Jon Alonso

Munduko hiri **zatitu** bakarra. Berria - Mundua

Herri **zatituaren** oihartzuna, sakabanatuta bizi diren hiztunen lekukotasuna, hizkuntza gaitzetsiaren eta baztertuaren halabeharra. Koldo Zuazo

Sailkaketa orok, ordea, adigai **zatitua** aurresuposatzen duenez gero, orduan garaiagoa den adigai bat onartu behar da. Ibon Uribarri

**6** ***ezin zatiztuzko*** *izlag* ik **zatiezin.**

Jainkoa **ezin zatituzko** batasuna da. Joan Mari Lekuona

Uste dute unibertso osoa, hau da, bere baitan dauzkan gorputz guztiak, ataltxo txiki-txikiez osaturik dagoela, beren mehetasunagatik gehiago **ezin zatituzkoez**. Xabier Kintana

**hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**

**bitan zatitu** (23); **bitan zatitu zen** (6); **erditik zatitu** (4); **espainia zatitu** (3); **ezin dira zatitu** (3); **gizartea zatitu** (5); **ogia zatitu** (3); **ogiak zatitu** (3); **txekoslovakia zatitu** (3)

**zatitu du** (3); **zatitu gabe** (4); **zatitu izana** (3); **zatitu nahi** (7); **zatitu ondoren** (6); **zatitu zen** (15); **zatitu zuen** (8)

**zatitua dago** (5); **zatitua dagoen** (6); **zatitua izan** (3)

**baino zatituago** (3)

**bitan zatituko** (4); **zatituko da** (4); **zatituko du** (3)

**bere baitan zatiturik** (7); **zatiturik dago** (4); **zatiturik dagoen** (5)

**administrazioz zatituta** (4); **bitan zatituta** (15); **bitan zatituta dago** (5); **zatituta dago** (16); **zatituta daude** (6); **zatituta egon** (3); **zatituta egotea** (4); **zatituta geratu** (3); **zatituta zegoen** (4)

**bitan zatitutako** (3)

**bitan zatitzea** (7); **zatitzea erabaki** (3)

**bitan zatitzearen** (5); **zatitzearen alde** (4)

**bitan zatitzeko** (3); **euskal herria zatitzeko** (4); **gizartea zatitzeko** (3); **herria zatitzeko** (4); **izar taldea zatitzeko** (6); **izar zatitzeko** (3); **zatitzeko arriskua** (3)

**bitan zatitzen** (17); **bitan zatitzen du** (3); **bitan zatitzen duen** (3); **bitan zatitzen zuen** (4); **gizartea zatitzen** (3); **zatitzen ari zen** (4); **zatitzen da** (13); **zatitzen du** (7)

---

# zatitxo **1** *iz* zati txikia.

**Zatitxo** bat moztu nion. Julen Gabiria

Limoi pusketa hartu eta aizto txiki batez bi **zatitxo** egin zituen, segidan bakoitza kikara barruan sartzeko. Joxemari Iturralde

Begira, aintziraren **zatitxo** bat ikusten da leihotik. Iñaki Mendiguren

Guri buruz gauza asko kontatzen badizut ere, gure bizitzen **zatitxo** bat baizik ez duzu ezagutzen. Josu Zabaleta

Beila eternitatearen **zatitxo** bat da, espazioan landatua, esne-laino bat, eremuen lazturen gainean bela bat bezala etzana. Piarres Aintziart

Zuri kontatu nahi dizut esperientzia hau, edo esperientzia honen **zatitxo** bat behinik behin. Pello Salaburu

Zortziak agertu dituzte bat bestearen ondotik antzerki gisako **zatitxo** batzu elgarri josiz ezin pollikiago. Herria

Guztiok jarri behar dugu puzzleko **zatitxo** bat. Berria - Euskal Herria

Hona hemen Parisko Prostituten Kolektiboak berari bidalitako gutun bateko **zatitxo** bat: [...]. Berria - Kultura

Uretan ibili zen hara-hona, txapela mila **zatitxo** egin zen arte. Julen Gabiria

Malfoyk pozik ikusiko zintuzke zu ere milaka **zatitxo** eginda, Pettigrew bezalaxe! Iñaki Mendiguren

**2** (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa)

Ogi **zatitxo** bat lurrera erortzen zenean, jaso egiten nuen, errespetuz, besarkatu eta bekokira eramaten nuen jan aurretik. Juan Kruz Igerabide

Paper-**zatitxo** batetik irakurri dizkit! Iñaki Mendiguren

Urre-**zatitxo** guztiak erakarriko ditu beregana eta guztiak bilduko ditu batera. Santiago Iruretagoiena

Haren azazkal **zatitxo** bat besterik ez bada ere. Askoren artean

Emakumeari obulutegiko ehun **zatitxo** bat erauzi diote lehendabizi. Berria - Gaiak

Ez hasi haiekin borrokan, ez baitizuet haien lurralde-**zatitxo** bat ere emango. Elizen arteko biblia

Paradisu **zatitxo** bat dena. Koldo Izagirre

**hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**

**ogi zatitxo** (3); **paper zatitxo** (3); **zatitxo bat** (52); **zatitxo bat baino** (3); **zatitxo bat besterik** (3); **zatitxo egin** (4); **zatitxo egin zen** (3)

---

# zatitzaile **1** *izond* zatitzen duena.

Erabaki horren atzean Anjeles Iztueta Jaurlaritzako Hezkuntza sailburuaren «politika **zatitzailea**» dagoela azaldu zuten CCOOk eta UGTk. Berria - Euskal Herria

Halako prozesu «independentistek eta **zatitzaileek** Europan tokirik ez» dutela gaineratu zuen. Berria - Euskal Herria

Gatazka sumindua da, bereziki bi esparru instituzional **zatitzaile** eta zapaltzaile, 1979ko Autonomia Estatutua eta Nafarroako Foru Erkidegoa, inposatzearen ondorioz. Berria - Euskal Herria

Ez dela garai egokia hauteskunde kanpaina **zatitzaile** bat egiteko. Berria - Mundua

Hiru inperio **zatitzaile** horiek K.o. 1918an izandako kolapsoaren ondoren, [...]. Iñaki Mendiguren

Prezio hori ordainduta ere, gutxiengo handiak utzi ziren lerro **zatitzaileen** alde okerretan. Iñaki Mendiguren

Erokeria **zatitzaile** orokorrean, alabaina, bada izaki bat ororen gailen: euskal gizona, "homo demens", arkeriak jotako mozkor proselitista. Markos Zapiain

**2** aritmetikan, zatikizuna zatitzen duen zenbakia.

284ren **zatitzaileak** : 1, 2, 4, 71, 142. Jon Muñoz

**Zatitzaile** horien artean handiena aurkitu, ZKH ospetsua, **Zatitzaile** Komun Handiena, zeina baita a eta b zehatz zatitzen dituen zenbaki osorik handiena. Jon Muñoz

Zenbaki bat lehena da baldin eta ez badu onartzen 1 edo zenbakia bera ez den **zatitzailerik** . Jon Muñoz

Matematikoki, beraz, presente dauden maiztasun guztien **zatitzaile** komunetako handiena ateratzeak emango digu oinarrizko maiztasunaren zenbatekoa. Lourdes Oñederra

Kasu honetan, **zatitzaileak** 1 eta 2 dira eta batura, 1 2=3. J.M. Olaizola "Txiliku"

---

**zatitze** *iz* zatietan bereiztea.

Elkarte-bizitzari emanak bizi ziren, ogi-**zatitzea** eta otoitza elkarrekin egiten zituztelarik. Elizen arteko biblia

Garagardo beltzari trago luze bat eginez amore eman zuen, antzara **zatitze** -lanak egarritu egin zuela konturatu baitzen. Irene Aldasoro

---

**zatitzeke** *adlag* zatitu gabe.

Bazkide batek, adibidez, sozietate baten mozkinak banatu nahi ditu, arriskuak **zatitzeke** ; gogoa eskandalugarria da, eta ez da halako itun batetik kanpo bilatu behar zuzengabekeria, itun horretan bertan gauzatzen baita hori. Andres Urrutia

---

zatiz ik **zati 10**.

---

**zatizko** *izlag* partziala. ik **zatikako**.

Osoko hizkuntza formek agertzen duten ziurtasun maila, **zatizko** berreraiketek -sintesian parte hartuko dutenek- eskeintzen ahal duten ziurtasun mailaren araberakoa izango da. Isabel Arrigain

Schleicher izan zen **zatizko** ikerketen emaitzak kodifikatzen ahalegindu zen lehena. Isabel Arrigain

Hitzaren zatiei buruzko baieztapen abstrakto eta **zatizkoetan** gelditzea. Isabel Arrigain

---

**zatuka** *iz* sorta, azaoa.

Aitak lizar gaineko adaskak moztu eta behera bota ahalean nik **zatukatan** bildu. Patziku Perurena

Sei zortzi **zatuka** egitean, aitak lotu, astoa kargatu, sokak lizar karrote batekin ongi estutu, eta arre! ni astazain. Patziku Perurena

Alka belarrik luzenskoenak bildu apropos, eta haiekin lizar **zatukak** lotzen ere ikusia nago jendea auzoan. Patziku Perurena

---

zauli ik **zoli**.

---

zaulitasun ik **zolitasun**.

---

zaulitu ik **zolitu**.

---

**zaunka** **1** *iz* txakurraren eta kideko animalien oihua. ik **ihausi**.

Txakurraren **zaunkek** guarda-etxea bertan zuela erakutsi zioten. Joxemari Urteaga

Urrutira, kalean behera, zakur baten **zaunkak** entzun zituen. Jon Maia

Dorretxetik ez oso urrun, or baten **zaunkak** aditu nituen. Joan Mari Irigoien

Gainera, grabatu egin genuen kontzertua, eta bertan **zaunka** batzuk entzuten ziren. Berria - Kultura

Eguzkia mendien atzetik joana zen Arinen **zaunkek** iratzarri gintuztenean. Aitor Arana

Une batez, geratu egingo dira **zaunkak** . Oskar Arana

Fürst zakurraz ere badago zer kontatua, lorategian **zaunka** batean hasten zen nik hanka bat soropilean jarri orduko. Fernando Rey

Beste [zakur] baten **zaunkak** , berriz, etenak eta laburrak ziren, elizako sakristauaren kantuaren antzekoak. Jose Morales

Altzolako zakurrek usaina hartu diote, eta zaunka hasi dira; **zaunkari zaunka** jarraitu zaio. Itziar Otegi

**2** (izenondo eta izenlagunekin)

Zakur handiak, **zaunka** handia. Gotzon Garate

Muturra zabaldu gabe **zaunka** txiki batzuk egin zituen, bentrilokuo baten gisako **zaunkak** . **Zaunka** lehor bat entzun zen barnealdean. Josu Zabaleta

Etsaiari **zaunka** mehatxagarriak. Gotzon Garate

Zakur baten **zaunka** amorratua, haren segidan. Anjel Lertxundi

Etxetik urruti zeudela zakur ttipiaren **zaunka** alaitsuak entzun zituzten. Gotzon Garate

Maite dutenari **zaunka** laburrak, intziritsuak. Gotzon Garate

Kaiaren aldetik igarotzean, **zaunka** ezaguna entzun zuen. Joanes Urkixo

Hiru zakurtzar hurreratu zitzaizkion **zaunka** bizian. Joxemari Urteaga

Bera konturatu, eta **zaunka** gaiztoan hasi zait. Txillardegi

Guardiak ikusi bezain fite **zaunka** itsuan hasi zen katez loturik zegoen txakurra. Joan Mari Irigoien

**3** (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

Ondoren txakur baten **zaunka** hotsa entzun zuen. Joanes Urkixo

Meza aurrera zihoan heinean **zaunka** hotsa larriagoa eta ozenagoa egin zen garaian. Pako Aristi

Gauaren erdian zakurren **zaunka**-olde batek iratzartzen du. Oskar Arana

Urduri jartzen delako-edo, sekulako **zaunka**-saio zalapartatsuak antolatzen ditu. Txillardegi

Zakurraren **zaunka**-intziriak, herioari. Itxaro Borda

**4** (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa)

Belarrira egindako txakur **zaunka** baten moduan. Bernardo Atxaga

Zakur-**zaunkak** entzun ziren urrun. Jose Morales

Lutherori sua piztu eta oraren nigar-**zaunka** beldurgarri haiek aditzen genituela, jendartetik ateratzen ikusi nuen. Joan Mari Irigoien

• **5** *adlag* zaunka egiten.

Zakur bat, ordea, hurbildu eta **zaunka** hasi zitzaion leopardoari. Gotzon Garate

Txakur pare bat atera eta Brani **zaunka** hasi zitzaizkion. Joanes Urkixo

Leonardo Bertagnollik kilometro batera jo zuen kolpea eta atzetik **zaunka** zetozen txakur denak isildu zituen. Berria - Kirola

Txakurrek jende arrotza izutzea **zaunka** lortzen ez dutenean, orduan uluka hasten dira. Joseba Sarrionandia

Zakur bat **zaunka** ari zen, oso urruti. Josu Zabaleta

Bi txakurrek bat-batean piztu duten zalapartaren erdian, elkarri **zaunka** eta mehatxuka ari baitira, jabeek sokatik lotuta. Oskar Arana

Kate-zakur hauts kolore gisako bat, alegia, bakardadearen gau minari **zaunka**. Patziku Perurena

Elurretan **zaunka** ari den otsoaren antz guztiarekin. Anton Garikano

**6** irud/hed

Herritar batzuek Luthero **zaunka** eta **zaunka** ikusi zutela, otso bat zirudiela. Joan Mari Irigoien

Tardienta aldean metrailadore batek **zaunka** segitzen zuen. Edorta Jimenez

Utz iezaiok **zaunka** egiteari eta hoa ohera! Xabier Paya

Esportatzaileak, **zaunka**. Berria - Ekonomia

Utz iezaiok **zaunka** egiterari eta hoa ohera! Xabier Paya

**7** ***zaunkaz*** *adlag*

Txakurrak **zaunkaz** aditzean, Benetten semeak irten ziren: bi gaztetxo, bi mutil polit. Xabier Olarra

Goiz hartan seiak inguruan jaiki nintzen, lanera joateko... zakurra sumatu nuen **zaunkaz**, eta linternak ikusi nituen etxe inguruan. Jokin Urain

Artzain xakur gotor bat **zaunkaz** etorri zitzaion, mehatxuka, baina bera geldi-geldirik egon zen. Elena Touyarou

Zakur bakoitzak bere hiztegia sortu dik, eta hori entzuten dakien jabeak jakingo dik, gauaz **zaunkaz** hasi den zakurrak zer esan nahi dion, baserri ingurura norbait datorrela, agian. Pako Aristi

· Logre ez zen lasaitzen [...] masailezurra aurrera, hitzak eskuekin hara eta hona botaka, giharrak uzkurturik **zaunkaz**. Karlos Zabala

**8** ***zaunka egin***

Etxera eraman eta urtebetean **zaunka egin** gabe egon zen. Gotzon Garate

Txakur batek **zaunka egin** zuen, eta gazteak bailara osoa arakatu zuen begiekin. Bernardo Atxaga

-**Zaunka egiteko** modu hori ez da triste dagoenean egiten duena. Julen Gabiria

Goiko munara iritsi orduko, auzokoen *collie*a atera zaio bidera jauzi eta **zaunka eginez**. Patxi Iturritegi

**Zaunka egiten** zioten, letaginak erakutsiz. Igo horra eta **egiozu zaunka** piztia horri, zulotik irtenarazi arte. Josetxo Azkona

Zakurrak, berriz, **zaunka egin** zuen, gertakizunen antolaketa logikoa eten izanak gogaitu egin izan balu bezala. Anjel Lertxundi

-Gizonaren bozak **zaunka egiten** zuen, zakur batenak bezala.· Branek bi **zaunka egin** eta ibiltzen hasi zen. Koro Navarro

**Zaunka** indartsu **egiten** duen txakurra ere aurkitu du. Berria - Kirola

Nagusiaren edo ezagunen kotxea datorrenean, adibidez, ez dute **zaunkarik egingo**. Gotzon Garate

Ez zebilen autorik errepidean; txakurrek ez zuten **zaunkarik** egiten; zerrategiko makinak itzalita zeuden. Bernardo Atxaga

Zakur faltsua da apaizarena; ez du **zaunkarik egiten**, baina herriko jendeak eskarmentu ederra du harekin. Anjel Lertxundi

**9** ***zaunka eta zaunka*** *adlag*

Txakur bat **zaunka eta zaunka** ari da, mekanikoki, etengabe. Oskar Arana

Metro batera geratu ziren, **zaunka eta zaunka**. Joxean Sagaztizabal

Bitartean, **zaunka eta zaunka** hasi ziren zakurrak, mota guztietako hotsak ateraz. Jose Morales

**10** ***zaunk-zaunka*** *adlag* zaunka eta zaunka.

Bake-bakean inguruetan zegoen ardi-zakur bat, gazteok usaindu bezain laster, **zaunka eta zaunka** hurbildu. Gotzon Garate

**hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**

**bezala zaunka** (5); **branek zaunka egin** (4); **txakurrak zaunka** (4); **txakurraren zaunka** (4); **zakur batek zaunka** (6); **zakur baten zaunka** (5); **zakurra zaunka** (3); **zakurrak zaunka** (8); **zakurren zaunka** (7)

**zaunka ari** (9); **zaunka ari dira** (3); **zaunka bat** (4); **zaunka batean** (3); **zaunka bizian** (8); **zaunka bizian hasi** (4); **zaunka egin** (41); **zaunka egin du** (4); **zaunka egin zien** (3); **zaunka egin zion** (3); **zaunka egin zuen** (16); **zaunka eginez** (3); **zaunka egingo** (5); **zaunka egiteari** (4); **zaunka egiten** (24); **zaunka entzun** (6); **zaunka eta zaunka** (6); **zaunka hasi** (14); **zaunka hasi zen** (5); **zaunka hasi zitzaion** (3); **zaunka hasteko** (3); **zaunka hasten** (3); **zaunka hots** (4); **zaunka segitzen** (3)

**zakur zaunkak** (4); **zakurraren zaunkak** (4); **zakurren zaunkak** (4)

**zaunkarik egin** (7); **zaunkarik egiten** (5)

**zaunkaz hasi** (3)

---

# zaunkaka

**1** *adlag* zaunka eta zaunka, zaunka egiten. ik **zaunka 5**.

Ustekabean, arratoi txakur bat azaldu zen bidezidor hartatik zalapartan eta guri **zaunkaka**. Bernardo Atxaga

Hartan genbiltzala, Arin **zaunkaka** hasi eta txabolatik korrika etorri zen guregana errekaraino. Aitor Arana

**Zaunkaka** ari ziren zakurrak. Koro Navarro

-Deabrua halakoa! -esaten zuen Darling jaunak, eta Nanak **zaunkaka** erantzuten zion. Julen Gabiria

Jantziak usnatu zizkion, haren oinetan itzul-inguruka zebilela, beti **zaunkaka**. Elena Touyarou

Hezleak zigorrari eragin zion, eta zakur guztiak amorru bizian hasi ziren **zaunkaka** eta uluka. Koro Navarro

**2** irud/hed

Txakur edo katuarena egiteko eskatzen zioten gehienbat eta hor jarduten zuen marruka, **zaunkaka**, uluka edo behar zen erara jo eta ke, bezero apetatsuak harrigarriro kitzikatuz. Jon Arretxe

Ni ere hasi nintzen hari **zaunkaka**, isilik egoten ez bazen hilko nuela esateko. Fernando Rey

**hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**

**zakurra zaunkaka** (3); **zaunkaka ari** (4); **zaunkaka eta** (7); **zaunkaka hasi** (6); **zaunkaka hasten** (5)

## **zaunkalari** *izond/iz* zaunka egiten duena. ik **zaunkari**.

Badute txakur **zaunkalari** bat, egiten dituen zaunkaldiengatik eta isats jasoarengatik baizik ezagutzen ez duguna, horixe besterik ez baitzaio ikusten ontzian dabilenean. Josu Zabaleta

Alderantziz, **zaunkalariei** pozoia erantsiz, trufa trufaren gainera aurtiki zuen, herraren sua atitxatuz. Itxaro Borda

Zakur gosea, **zaunkalari**. Gotzon Garate

## **zaunkaldi** 1 *iz* zaunka egiten den aldia.

Badute txakur zaunkalari bat, egiten dituen **zaunkaldiengatik** eta isats jasoarengatik baizik ezagutzen ez duguna, horixe besterik ez baitzaio ikusten ontzian dabilenean. Josu Zabaleta

Kanpai-hotsak entzun zitezkeen tarteka; eta emakume kezkatuen dei asaldatuak, eta zakur **zaunkaldiak**. Txillardegi

Isiltzeko agindu diet goxoki, baina **zaunkaldiari** eutsi diote amorruz. Txillardegi

**2** irud/hed

Nik, ordea, lasai egin nuen txiza, lasaiago egin nuen kaka eta, Santi **zaunkaldi** pare batez pikutara bidali ondoren, bizkarra eman eta korrika hasi nintzen, korrika, korrika... itzulerarik gabeko bidean. Jon Arretxe

## **zaunkari** 1 *izond* zaunka egiten duena. ik **zaunkalari**.

Bidean aurrera, hainbat baserri utzi genituen ezker-eskuin, zakur **zaunkariak**, baratzeak eta soroak. Jon Maia

Mugi zedin eskatzen ari zitzaizkion gurasoen atzetik, zumardira bidean, etxeko zakur **zaunkaria** lagun. Ramon Saizarbitoria

Bi arratoi-zakur **zaunkarik** jasotzen dituzte hegan. Hasier Etxeberria

Atzera egin du, zurbil, agurea begi bistatik galdu gabe, makilaren beldur den zakur **zaunkariaren** eran. Koldo Izagirre

**2** irud/hed

Hitzik gabeko piztien heineko desjende **zaunkaria**. Iñaki Segurola

Etsaia txakur **zaunkari** beldurgarria zen garaian, ETA bazen zerbait. Joseba Zulaika

**3** (adizlagun gisa)

Maddi eta Bittor sotoan giltzatu zituzten, atean zakur erraldoia **zaunkari**. Itxaro Borda

## **zaunkatu**, zaunka(tu), zaunkatzen du *ad* zaunka esan.

Orain heresiarkek fedearen nahasmenerako **zaunkatzen** dutena, mende honetako gizaseme txit jakintsu batek esan zuen aspaldi, erru baino arintasun handiagoz. Juan Garzia

## **zaurbera** *izond* zaurkorra.

Big Joe **zaurbera** zen, izatez, baina inoiz ez zen haserretzen; eta, ezbairik gabe, sekula ez zen oldartzen. Mirentxu Larrañaga

## **zaurgarri** 1 *izond* fisikoki edo moralki zaurtua edo hondatua izan daitekeena.

Ez barruan dagoenaren belarria gogaitzeko bezain sendo, baina ezta deitzen duenaren atzean funtsik gabeko izaera lotsati eta **zaurgarria** dagoela aditzera emateko bezain leun ere. Harkaitz Cano

Arreta berezia eskainiko zaie pertsona eta talde **zaurgarriei**. Itziar Eizagirre / Amaia Lizarralde

Gero eta nabarmenagoa da jende askoren ziurgabetasuna, batez ere egoera **zaurgarrian** dagoenarena, bere etorkizunari zein bere seme-alaben etorkizunari buruz. Hain naiz **zaurgarria**! Nire ahultasuna bera engainu bihurtzen zaie. Itziar Eizagirre / Amaia Lizarralde

Egindako urratsa ez dago gorpuztuta, **zaurgarria** da, ondoko egunetako interferentziek sortu dituzten duda-mudak lekuko. Berria - Euskal Herria

Horrek ahulagoak eta **zaurgarriagoak** egiten ditu, balizko ehiztarien aurrean. Joan Mari Irigoien

Erretzeak emakumeei kalte askoz handiagoa egiteak zerikusia izan dezake emakumezkoek kearen kalteen aurrean **zaurgarriagoak** izatearekin. Berria - Gaiak

Txangurroa, esate baterako, oso **zaurgarri** geratzen da oskol zaharra galdu eta beste bat handiagoa sortu bitartean. Irene Aldasoro

Gu, lasai eta seguru izan ordez, **zaurgarri** sentiaraziz. Itziar Eizagirre / Amaia Lizarralde

Orain neure burua aurkitzen dut erkin, **zaurgarri**, hauskor. Txillardegi

**Zaurgarri** eta zaurtezin ageri zen aldi berean. Iñaki Iñurrieta

**2** zaurtzen duena.

Lasatu eta tinko jarritako kordelen zarata **zaurgarria** baino ez zen entzuten: oihal urratua eta soka, lasatu eta estutzen, petateak bildu eta handik alde egitera joango bagina bezala. Harkaitz Cano

## **zaurgarritasun** *iz* zaurgarria denaren nolakotasuna.

Gizarte **zaurgarritasuna** eta degradazioa, munduko politikan zuzentasunarekiko erakutsi arduragabekeria sistematikoaren ondorioz, kezka handiena eragiten duten faktoreetako bat da gaur egun, baliabideen erabilera desorekatuarekin eta ingurumenaren degradazioarekin batera. Itziar Eizagirre / Amaia Lizarralde

## **zauri** 1 *iz* larruazaleko ehunen irekitze edo hondatzea, tresna zorrotz batek edo gaitz batek eragina. ik**saki**.

Taxi batek jo zuen, eta, erortzean, buruan **zauri** bat egin zuen. Juan Kruz Igerabide

Sorbalda zeharkatu zidan balak egindako **zauria** garbia izan zen. Harkaitz Cano

Ezkerreko izterrean egin nuen **zauri** ikusgarria ez zen orban iraunkor bilakatu. Iban Zaldua

Emakumeak **zauri** ugari zituen aurpegian. Berria - Euskal Herria

Norbaiti legenarena bezalako **zauria** sortzen bazaio, apaizarengana eramango dute. Elizen arteko biblia

**Zauririk** ez zeukanez, oinez itzuli zen etxera. Juan Kruz Igerabide

Eraman zuen eskua **zauriaren** lekura eta gauza epel bat nabaritu zuen. Koro Navarro

Saihets aldera etzanik, **zauria** ireki egin zitzaion, eta odoletan hasi. Juan Kruz Igerabide

Gau osoan [...] jardun zuten medikuek odola garbitzen eta **zauriak** itxi nahian. Askoren artean

Oso belar egokia **zauriak** orbantzeko eta hantura jaisteko. Joanes Urkixo

**Zaurietatik** odola dario. Askoren artean

Lancelotek odol asko galdua zuen **zauritik**, eta ahuldade pixka bat sentitzen zuen. Juan Kruz Igerabide

Aski odol isuri nuen **zauritik**. Gotzon Garate

Bizi zela, **zauriak** odol santua isurtzen zuen sarri. Askoren artean

Xurgatu egin nion **zauria** berehala, aginduta dagoen bezala. Joxe Austin Arrieta

**Zauria** garbitu eta sendatu egin zion ermitauak. Juan Kruz Igerabide

**Zauriak** miazkatzen dituen txakurraren adurra bezala. Paddy Rekalde

Ez dago ura bezalakorik **zauriak** gozatzeko, sendabide eraginkorrena da. Karlos Zabala

Egindako **zauriak** ez zornatzeko ukendua. J.M. Olaizola "Txiliku"

Anbulantziako medikuak etxean bertan hasi ziren **zauriak** artatzen, ospitalera eraman baino lehen. Berria - Euskal Herria

Hurbildu eta **zauriak** lotu zizkion, olioz eta ardoz igurtzi ondoren. Elizen arteko biblia

Atorrari zati bat kendu, **zauriak** ahalik ondoen lotu, zaldi gainera igo, eta baselizara abiatu zen. Juan Kruz Igerabide

Oinak garbitzen zizkien, **zauriak** lotzen, **zaurietako** zornea ateratzen eta haragi ustela garbitzen. Askoren artean

Edurne Pasabanen **zauriak** onera egin dute nabarmen. Berria - Kirola

Gaixoa **zauriak** gaiztotuta hil zen. J.M. Olaizola "Txiliku"

Laguntzailea ere **zauriak** zornatuta hil zen. J.M. Olaizola "Txiliku"

Berehala orbaindu zen **zauria**. Jon Muñoz

Haren **zauri** dagoeneko orbainduaren inguruan. Jon Muñoz

Joanesek bizi guzian atxiki zuen **zauri** haren marka. Eneko Bidegain

Gaztelura sartu eta armak erantzi zituenean, **zauriz** josirik zeukan gorputza. Juan Kruz Igerabide

Haren beso **zauri** eta ubelunez josiak. Joan Mari Irigoien

Hiru gurdi azaldu ziren errepidean, zaldi argal, **zauri** eta gogorrunez beteek tiratuak. Koro Navarro

Zaurituaren **zauria zauri** zaio. Joxerra Garzia

## 2 (izenondo eta izenlagunekin)

**Zauri** larri bat zeukan, eta beste zaldun batekin zihoan, hura ere arma gorriekin. Juan Kruz Igerabide

**Zauri** larriekin atera zituzten bai gidaria bai bidaiaria. Oskar Arana

Börsek saihetsean **zauri** handi bat egin ziolako. Juan Kruz Igerabide

**Zauri** txiki bat, herriko mediku Erramun Ibargoienek hiru punturekin itxi behar izan ziona. Joan Mari Irigoien

Gizonak **zauri** arinak izan zituen, eta Basurtuko erietxera eraman zuten. Berria - Euskal Herria

Psikikoki hondoa jota zeuden guztiak eta **zauri** fisiko larriak zituzten haietako askok. Berria - Gaiak

34 urteko gizonak ez zuen **zauri** fisikorik izan, baina ospitalera eraman behar izan zuten shock handia zuelako. Berria - Euskal Herria

**Zauri** ireki baten ertzak balira bezala. Ramon Saizarbitoria

Gider laburreko aizkora txikia, **zauri** hilgarriak baino egiten ez dituena. Karlos Zabala

Eskua **zauri** zaharrera eraman eta likido itsaskor batez blaituta atera nuen. Alberto Ladron Arana

Mordret ere hil egin zen, **zauri** ikaragarriak baitzituen. Juan Kruz Igerabide

Haragi ustelak garbitzen zizkien eta **zauri** zornetsuak sendatzen. Askoren artean

Bularra alderik alde zeharkatzen dion **zauri** belztua erakusten die turistei. Iban Zaldua

Ez zen **zauri** ederra - **zauri** ederrik badea- baina larritasunik gabea zirudien. Eneko Bidegain

Bere **zauri** txit sakratuak nire ebaki bakoitzaren gainean jarri ditu. Askoren artean

**Zauri** sakratuen mirari-ahalmena. Askoren artean

**Zauri** izugarriz, **zauri** latz eta iraunkorrez, gaixotasun gaizto eta sendaezinez. Elizen arteko biblia

Saihetseko **zauria** taupaka nuen eta zailtasunez hartzen nuen arnasa. Alberto Ladron Arana

Berebiziko **zauria** egin nion saihetsean. Juan Kruz Igerabide

## 3 (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

Zeure gorputzean daramatzazun Jesus Jaunaren **zauri**-markengatik. Askoren artean

Zauri zaharra sendatua dago baina, batzuetan, **zauri** arrastoak min zaztadak eragiten ditu. Ramon Etxezarreta

Berehala bota nuen zakarrontzira erabat belzturiko **zauri**-estalkia. Juan Kruz Igerabide

Ilea zorriz eta **zauri**-zakarrez josita. Patxi Zubizarreta

**Zauri**-zokoan zirika. Aingeru Epaltza

Jainko Gorenaren gorespenak La Verna mendian gertaturiko **zauri**-ezartzearen ondoren esan eta idatzi zituen Frantziskok. Askoren artean

Gaixotasun eta **zauri**-mota oro ere bidaliko dizue Jaunak, suntsitu arte. Elizen arteko biblia

· Bat-batean, **zauri**-saki sekulakoa ikusi diot besaburuan. Anjel Lertxundi

## 4 (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa)

Lau gorpuek guztira 113 bala eta posta **zauri** zituzten, autopsien arabera. Berria - Harian

Besoa luzatu eta bala-**zauria** duen mutila seinalatzen du. Urtzi Urrutikoetxea

Berrehunetik gora metraila **zauri** ei zituen, eta azken olioak ekarri zizkioten, hantxe hilko zelakoan. Edorta Jimenez

Halaber eskuineko saihetsean lantza-**zauri** bat agertu zitzaion, orbaindu gabea, gorria eta odoldua. Askoren artean

Lurrean etzanda, atleta hondar gainean bezala biluzik, ezkerreko eskuaz eskuineko saihets-**zauria** estali zuen. Askoren artean

Gerra-**zaurien** eraginez hil da Frantzian. Mirentxu Larrañaga

Baina heriotza-**zauri** hura sendatu egin zitzaion. Elizen arteko biblia

## 5 irud/hed

Trabeska gelditu zen Volvoaren aurrean, kolpeleungailutik metro erdia baino gutiagora, zoruak **zauri** gurpiletako kautxoari. Aingeru Epaltza

Ur-jauzi ikusgarriak, mendi-**zauri** sakonetako baso trinkoak edo haran basati emankorrak. Anjel Lertxundi

Ezpata ikusezin batek ebakia sakontzen du poliki Igeldo eta Santa Klararen artean, eta **zauriaren** arrosa argia gorriminduz, odolduz doa. Iñaki Iñurrieta

Badakit, ondo jakin ere, urteek **zauri** guztiak sendatzen dituztela. Alberto Barandiaren

Galdera horrek, zakurrari lepoko kateak bezala, egunero-egunero bihotzean daukadan **zauria** berritu egiten dit. Gotzon Garate

1936ko gerrak eragindako **zauriak** oraindik ez dira itxi. Berria - Harian

Frantziak [...] Prusia gaiztoa gaztigatu ahal izan zuen eta hark egin aspaldiko **zauri** samina sendatu. Piarres Xarriton

Nire herriaren **zauria** azaletik sendatu nahi dute.

Gertakari hits haien **zauriak** sendatu nahi bailiran. Txillardegi

Egiaren ukenduz eztitzen nuen Zuk zenekien **zauri** hura. Imanol Unzurrunzaga

Deportazioak utzi **zauriak**, batzuentzat zein barna, oi zein barna gelditu ziren. Eneko Bidegain

Arimaren **zauriak** sendatu behar ditut lehenik. Bere bihotzeko **zauria** gozatu eta sendatu arte. Joan Mari Irigoien

-A, askori min ematen dion **zaurian** sartu duzu hatza! -esan zuen Beregondek-. Agustin Otsoa

**Zauri** bizia ematen zuen nire arimak. Josu Zabaleta

Emaztea urrundu zaio, haurra ere, hori baita bihotzean daukan **zauria**. Herria

Ezin sendatuzko **zauria** izan zen nik harendako senditu nuen maitasuna. Aurelia Arkotxa

Maitasun **zauriak**, ikusezinak izateagatik, zailak baitira sendatzen. Felipe Juaristi

Birjintasun luzatuaren **zauri**-markak ageri zituen nabarmen. Juan Garzia

### 6 *zauri gainean piko*

-Izkribu eta liburuen artean, noski -nik, **zauri gainean piko**. Aingeru Epaltza

Hain eskura izan eta, zintzoegi jokatzea zen **zauri gainean piko** egiteko paradaz ez baliatzea. Aingeru Epaltza

### 7 *zauriaren gainean pikoa*

Bizitze dorpea ez aski izanez, horra aitzina **zauriaren gainean pikoa**, 1898ko buruilan Garralda erre baitzen. Angel Aintziburu / Jean Baptiste Etxarren

**Zauriaren gainean pikoa**, jada 1800 dolar emanak ziozkan koiote bati, mugan igan-arazle baliatzale bati. Herria

-Eta Franco hil ondoren? -**zauriaren gainean pikoa** eginik-. Jon Muñoz

· **Zauriaren gaineko pikoa**, St Louis Baionako kolejioan sua izan zen eta axurantzek ez zituzten hurbiltzekorik ere makurrak oraintzen. Xipri Arbelbide

**Zauriaren gainean** aitzina **pikoa**. Janbattitt Dirassar

**hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**

**aintzazko zauri** (5); **bala zauri** (3); **bezalako zauri** (3); **bi lagunek zauri** (3); **dena zauri** (3); **eragindako zauri** (4); **gidariak zauri arinak** (5); **jasandako zauri** (4); **lagunek zauri arinak** (3); **posta zauri** (5); **san frantziskoren zauri** (7)

**zauri arina** (3); **zauri arinak** (45); **zauri arinak dituzte** (3); **zauri arinak egin** (4); **zauri arinak eragin** (3); **zauri arinak izan** (22); **zauri arinekin** (3); **zauri asko** (3); **zauri bakarra** (4); **zauri bat bezala** (3); **zauri bat egin** (6); **zauri bat zuela** (3)

**zauri fisiko** (3); **zauri gainean piko** (3); **zauri guziak** (4); **zauri guztiak** (7); **zauri guztietatik** (3); **zauri handi** (6); **zauri handi bat** (3); **zauri handia** (5); **zauri handiak** (6)

**zauri ireki** (5); **zauri itsusi** (4); **zauri izugarriz** (3); **zauri larri** (3); **zauri larriak** (51); **zauri larriak egin** (3); **zauri larriak eragin** (8); **zauri larriak izan** (11); **zauri larriak jasan** (5); **zauri larriak zituen** (6); **zauri larriekin** (7); **zauri larrien** (6); **zauri larrien ondorioz** (6); **zauri larririk** (21); **zauri larririk izan** (3); **zauri markak** (3); **zauri mota** (3)

**zauri sakon** (5); **zauri sakona** (4); **zauri sakonak** (4); **zauri sakratu** (22); **zauri sakratu santuak** (8); **zauri sakratu santuen** (5); **zauri sakratuak** (15); **zauri sakratuak hartu** (3); **zauri sakratuen** (8); **zauri sakratuen bidez** (3); **zauri sakratuengatik** (3); **zauri sakratuez** (5); **zauri sendaezina** (4); **zauri txiki** (10); **zauri txiki bat** (6)

**zauri ugari** (3); **zauri zaharra** (6); **zauri zornatsuz** (5)

**bala zauria** (3); **bezalako zauria** (4); **bihotzeko zauria** (3); **egindako zauria** (3); **saihetseko zauria** (21)

**zauria egin** (11); **zauria egingo** (3); **zauria estali** (4); **zauria estali zuen** (3); **zauria ikusi** (6); **zauria ikusi zuen** (4); **zauria itxi** (5); **zauria ixteko** (4); **zauria ixten** (3); **zauria izan** (3); **zauria lotu** (3); **zauria sendatu** (10); **zauria sendatzeko** (4); **zauria sendatzen** (4); **zauria zeukan** (3); **zauria zuela** (3); **zauria zuen** (3)

**amodioaren zauriak** (3); **aurpegian zauriak** (3); **azaleko zauriak** (4); **bala zauriak** (3); **bere zauriak** (5); **bost zauriak** (3); **buruko zauriak** (4)

**egin zauriak** (3); **egin zizkioten zauriak** (3); **egindako zauriak** (5); **eragindako zauriak** (11); **esku oinetako zauriak** (3); **gerrako zauriak** (6)

**iraganeko zauriak** (5); **jaunaren zauriak** (5); **kalteak eta zauriak** (3); **kolpeak eta zauriak** (4); **kristoren zauriak** (4)

**oinetako zauriak** (7); **ondoko zauriak** (3); **sortutako zauriak** (3)

**zauriak bere gorputzean** (3); **zauriak ditu** (6)

**zauriak egin** (5); **zauriak egiten** (3); **zauriak eragin** (11); **zauriak eragin zizkion** (3); **zauriak eragitea** (4); **zauriak eragitea leporatzen** (4); **zauriak ezarri** (4); **zauriak hartu** (3)

**zauriak ikusi** (6); **zauriak irekita** (3); **zauriak ixteko** (3); **zauriak izan** (7); **zauriak izan zituzten** (5); **zauriak jasan** (14); **zauriak jasan zituzten** (9); **zauriak larriegiak** (3); **zauriak lotu** (4); **zauriak miazkatzen** (4); **zauriak min** (4)

**zauriak osatuta** (4); **zauriak osatzen** (4); **zauriak osatzera** (5); **zauriak oso larriak** (3); **zauriak sendatu** (6); **zauriak sendatuko** (3); **zauriak sendatzeko** (7); **zauriak sendatzen** (12); **zauriak sendatzera** (11); **zauriak zituela** (3); **zauriak zituen** (6); **zauriak zituzten** (3)

**zure zauriak** (3)

**saihetseko zauriaren** (3); **zauriaren arrastorik** (4); **zauriaren arrastorik ere** (3); **zauriaren gainean** (9); **zauriaren gainean pikoa** (3)

**zauriei buruzko gogoetak** (3)

**bere zaurien** (4); **eragindako zaurien** (8); **eragindako zaurien ondorioz** (5); **frantzisko dohatsuaren zaurien** (3); **izandako zaurien** (3); **jasandako zaurien** (5); **jasandako zaurien ondorioz** (3)

**zaurien ahalmena** (3); **zaurien berri** (3); **zaurien eraginez** (4); **zaurien ezartzea** (3); **zaurien indarrez** (3); **zaurien larritasuna** (3); **zaurien ondorioz** (18); **zaurien ondorioz hil** (4)

**kristoren zauriez** (5)

**ez zuen zauririk** (8); **inolako zauririk** (6); **irudia zauririk gabe** (4); **zauririk ez** (9); **zauririk gabe** (19)

**gorputza zauriz** (3); **zauriz betea** (4); **zauriz beteta** (3); **zauriz josi** (3); **zauriz josia** (9); **zauriz josia zegoen** (3); **zauriz josirik** (4)

---

## zauriezin *(orobat **zauri ezina**)* *izond* ezin zaurituzkoa.

Zaldi hegodun edo adimendunak, gizon ikustezin edo **zauriezinak**, pertsonaia handien jaiotzaz edo hezkuntzaz arduratzen ziren sorgin eta aztiak. Iñaki Iñurrieta

Baldur **zauriezina** zen, eta hari kalte egitea ezinezkoa. J.M. Olaizola "Txiliku"

Horrela, izaki haien guztien hitzarekin, **zauriezina** zen Baldur. J.M. Olaizola "Txiliku"

---

## zaurigabe *(orobat **zauri gabe**)* *izond* zauririk ez duena.

Arinegi uste izan zuten Ekialdeko Irango menditar **zaurigabeak** azpikontinenteko jende jipoitua bezain otzan makurtuko zitzaizkiela. Iñaki Mendiguren

Loro alditxartu bat zeukan pausaturik esku **zauri** gabean. Jon Muñoz

Aire **zaurigabea** jo. Juan Garzia

---

## zaurigaitz *iz* ia zauriezina.

Poliki, erdeinuz, **zaurigaitz** eta hilezkor filisteo txiki, zaurigarri eta hilkorraren aurrean, esan zuen "Beraz, zuk uste duzu hil egingo nautela". Jon Alonso

---

## zaurigarri 1 *izond* zauritzen duena.

Elurra eta hotza, etsaien sable okerra baino **zaurigarriagoa** zen haizea eta hotza [...] soin atalak oro, automaten gisa erabiltzera behartzen zituen nekea eta hotza. Felipe Juaristi

Oihu urragarriak, oihu **zaurigarriak**, oihu lehergarriak, entzun ziren alemanen alde horretatik zetozenak. Felipe Juaristi

Isilunea egin zen, isilune mingotsa, isilune deserosoa, isilune **zaurigarria**. Felipe Juaristi

Haren zuritasuna **zaurigarri** zen gelako argitasun handian. Felipe Juaristi

Da Ruak bazekien kanpoko atea irekitzen digun mina garela, giltza gori eta **zaurigarria** balitz bezala. Felipe Juaristi

Londreseko erbeste gazi-gozoan, erbeste hezko hotzean, erbeste **zaurigarrian**. Felipe Juaristi

**2** zaurgarria.

bere egiazko motibazioak eta bere egiazko ideologia ageriegi nabarmenduz, alde **zaurigarria** erakutsiz. Jon Alonso
Oskolik gabeko barraskilo baten antzerako zerbait baizik ez naiz, pentsatzen zuen, lika, beratz, hauskor, **zaurigarri**. Jon Alonso
Gizon bat besterik ez; hauskorra eta **zaurigarria** hortaz, oso jakintsua izanagatik. Jon Alonso

---

**zauriño** *iz adkor* zauritxoa.
Zartagailua zapartatu zela, haatik Hitleri **zauriño** bat baizik ez ziola egin. Herria

---

## zauritegi *iz* zaurituak artatzeko tokia.
Beste batzuei ere egin zizkieten erasanak kasernetako **zauritegietan**. Jokin Urain

---

## zauritsu *izond* zauriz betea.
Horrek ez duke gune **zauritsua** azaletik estaliko baino, ustelkeria gaitzak duelarik, barneraino zulatuz, ezkutuan zauria gaizkoatzen. Juan Garzia

---

## zaurittu *izond adkor* zauritua.
-Etzekiagu deus berririk **zaurittuez**. Txillardegi

---

## zauritu, zauri(tu), zauritzen 1 du *ad* larruazaleko ehunen irekitze edo hondatzea dakarren kolpe bat eman; zauria sortu.
-Börs: hik **zauritu** al ninduan? -galdetu zion Lancelotek, begiak zabalik. Juan Kruz Igerabide
Ez dugu, beraz, non jo, non **zauritu**, nondik odoleztatu eta nondik nora erori lurrean etzanik. Felipe Juaristi
Metrailadore baten tiro zaparradak bertan hiltzen du, eta auto gidaria **zauritzen**. Josu Zabaleta
Ez du **zauritu** nahi, xixtatu bakarrik. Herria
Apaiz bat atrakatu eta **zauritu** zutenean titularra hau izan zen: [...]. Pako Aristi
Auto batek txirrindulari bat **zauritu** du Errioxako Itzulian. Berria - Kirola
-Garaitsu hartan **zauritu** ninditean oinean. Mirentxu Larrañaga
Lagun hurkoak lapurtu, jo eta **zauritu** ez ezik, hil ere egiten baitizkiagu. Askoren artean
Arakatze-lanetan ari zela **zauritu** dute. Koro Navarro
Maiatzak 15: Gorka Landaburu kazetaria **zauritu** zuen ETAk. Berria - Harian
Fusil bala batek **zauritu** zuelako herrenka egiten duena ezkerretik. Felipe Juaristi
Indiako finantza hiriburuan bi bonba-autok 52 pertsona hil eta 150 bat **zauritu** zituzten. Berria - Mundua
Tatariarrek haren gabarrari eraso egin eta lantza kolpe batez **zauritu** zuten. Karlos Zabala
Beisboleko bateekin eta labanekin joan eta Hagako bi zale **zauritu** zituzten. Berria - Kirola
Hainbertzerako grina genuen gure lanean, elkar ere **zauritu** baikenuen, Orthezeko konkistatzaileek bezala. Aingeru Epaltza
Mairuek zaldun kristau garrantzitsu bat borrokan **zauritu** eta Tudejenera preso eraman zuten. Martin Anso
**Zauritu** zaituen ezpatak sendatuko zaitu. Joseba Zulaika
Ez zuen ageri **zauritua** zenik. Daniel Landart
Damurik Delanoe jaunarentzat ganibet ukaldi batez **zauritua** izan baitzen. Herria
Gauean jakin genuen hildakoa Manu zela eta **zauritua** Fermin. Xabier Mendiguren Elizegi
Bere burua **zaurituko** zuela esan eta labana jarri zuen lepoan. Berria - Euskal Herria
*ik beherago* 6. Askoren artean
**2** (aditz forma ez-jokatuetan)
Belarritako bat ezker belarrian eta bihotz geziz **zauritua** tatuatua eskuin besoan. Aingeru Epaltza
Heriotzaraino **zaurituei** bizia eta osasun betea ematen zieten. Askoren artean
Zeren bizitzak **zaurituak**, beren buruan konfiantza galduta, ez baitute askotan gehiago nehorrekin harremanik, soleimendurik. Herria
Bideko ixtripuetan **zaurituen** laguntzerat deituak izan dira. Herria
Hurbildu eta soldadu aleman bat ikusi zuen, oso larri **zauriturik**. Anjel Lertxundi
Harry Blount, sorbaldan **zauriturik**, lurrera erori da. Karlos Zabala
Borroka batean **zauriturik**, aspaldiko Isoldari deitzeko eskatu zion emazteari, senda zezan. Juan Kruz Igerabide
Habanara besoetako bat **zauriturik** zuelarik sartu zuan. Edorta Jimenez
Ondorioz polizia bat hilik suertatu zen eta biga **zauriturik**. Itxaro Borda
**Zauriturik** dago, agian hilzorian, baina bizirik dagoela uste dut. Agustin Otsoa
Barre egiteari utzi zioten, herrian zabaldu zenean Pizzi **zaurituta** zegoela. Koldo Biguri
Hainbat aldiz tiro egin zioten **zaurituta** erori zen arte. Koro Navarro
**Zaurituta** egon zitekeela bururatu zitzaidan. Inazio Mujika Iraola
Balaz **zaurituta**ko 27 lagun artatu zituzten. Berria - Harian
98 gurdi igaro ziren handik **zaurituta**ko soldaduz beterik. Txillardegi
Aztore batek **zaurituta**ko antzara baten hiru odol tanta daude elur gainean. Juan Kruz Igerabide
86 hildako, haur bat desagerturik, 200 **zaurituta**ko, 750 milioitako kalte materialak. Pello Zabala
Orangeko Gillermo printzea (1533-1584) hil nahi izan zuen, baina **zauritzea** lortu zuen bakarrik. Juan Martin Elexpuru
Gizonezko bat atxilotu dute Bilbon, beste bat tiroz **zauritzeagatik**. Berria - Euskal Herria
**3** (adizlagun baten eskuinean)
Kutz doktorea, aldiz, arinki **zauritua** suertatu zen. Joxemari Iturralde
Larri **zaurituta**ko bat Cepranon. Askoren artean
Han-hemenka oinazetan garrasika, bestalde, hiruzpalau dozena giri entzun zitezkeen, larriki **zauriturik**, eta aieneka ari. Txillardegi
Parabisua ifernu bilakatu da: 190 hil, 300 bat kolpatu, haien artean ehun bat gogorki **zaurituak**, batzu hil-zorian. Herria
Bilau batek noble bat hil edo apez bat gaiztoki **zauritzean** etortzen zen maizenik halako zigorra. Aingeru Epaltza
Aitak eta beste anaiak kolpeka **zauritu** ondoan, ospitalerat ereman dute eta hor berriz beste anaiak joka hil du. Herria
**4** (era burutua izenondo gisa)

Gizon **zaurituez** eta hilez josia zegoen mendi gaineko zabaldi handia. Koro Navarro
Ni ere soldadu **zauritua** nintzen, eta bertzelako zainketak behar nituen, pomadaz gain. Aingeru Epaltza
Hori goizez gertatu zen: gazte **zauritua** gau hartantxe hil zen. Koldo Biguri
-Ez zitean hil! -erantzun zion mujikak, gazte **zaurituaren** begietako larritasunari aurre harturik-. Karlos Zabala
Isiltasunak hantxe segitu zuen, abere **zaurituak** bezala kiribildua. Felipe Juaristi
Konturatu nintzen, senak esanda, bizi izan ginen auzora ari nintzela itzultzen, txakur **zauritua** etxera arrastaka bezala, sorlekura. Oskar Arana
Kanaberadi erdira iristean, zakur beltz **zauritu** bat aurkitu zuten. Koldo Biguri
Makurtuta jarraitzen zuen, zaldiaren hanka **zaurituan** infekzioaren aurkako ukendu bat jartzen. Bernardo Atxaga
Hartu zuen jaten ari zen ogi puska, egin zuen haren gain gurutze santuaren seinalea bere esku santu **zaurituekin**. Askoren artean

**5** (era burutua izen gisa)

Hildako bat eta 10 **zauritu** larri. Pello Zabala
Hiru **zauritu** Bizkaian izandako lan istripuetan. Berria - Ekonomia
Leherketek ez dute **zauriturik** eragin, baina bai kalte materialak. Berria - Euskal Herria
Hamazazpi **zauritu** larrik A/Rh odola behar dute orain bertan. Koldo Izagirre
Beste bost gizonek **zauritua** jaso eta leku aldapatsu batera erretiratu zuten. Koro Navarro
Lehenengo ilaran **zaurituek** lurraren kontra jotzen zuten euren makuluez. Lopez de Arana
Eriak eta **zaurituak** heriotzaren atzaparretatik salbatu guran. Edorta Jimenez
Santanderren ez zegoen aski garraio 6.000 **zauritu** eramateko. Jokin Urain
Gero, **zauritua** bizkarrean hartu eta, Mauserra makulu, ibiltzen hasi zen. Anjel Lertxundi
**Zaurituak** basoa eskuan hartu zuen, eta, tentexeago jarriz eta Martini begira garrasika hasi zen. Koro Navarro
**Zaurituari** odolik ateratzen ez zaionean, izan liteke dagoeneko hilda dagoelako. Juan Kruz Igerabide
Ni ez ninduan erasora joaten, jakina, baina bai **zaurituak** jasotzera. Koldo Biguri
Hilak eta **zaurituak**, Jurramendiko mazeletan gelditu ziren, beleen eta putreen bazka. Txillardegi
Era guztietako **zaurituak** zeuden sala handi hartan. Inazio Mujika Iraola
Bi taldeetan hildako eta **zauritu** asko gertatu ziren. Juan Kruz Igerabide
Poliki ibili ziren, **zaurituari** ahalik eta traba txikiena egitearren. Agustin Otsoa
**Zaurituaren** zauria zauri zaio. Joxerra Garzia
'Marine'-ek berriz egin diete tiro **zaurituei**. Berria - Mundua
-Istripu bat izan da hirian, tren istripu bat, zazpi hildako egon dira eta **zauritu** mordo bat! Koldo Izagirre
Zazpi hil eta **zauritu** andanak izan dira. Herria
**Zaurituz** inguraturik geunden, eta sendagairik gabe zaindu behar genituen. Juan Kruz Igerabide

**6** (da aditz gisa)

Langile bat **zauritu** da Berrizen, 'fenwick'-ak zanpatuta. Inork ez du gogoko joatea, jakina, baina orain arte ez da inor **zauritu**, eta ron-errazio bikoitza eskaintzen dute irten aurretik. Berria - Ekonomia
Atzo bertan, Viva Rio gobernuz kanpoko erakundeko bi kide **zauritu** ziren, tiroketetan. Hiru pertsona **zauritu** ziren atzo Bizkaian lan istripuz. Berria - Gaiak
Erasoan beste 63 pertsona **zauritu** ziren. Berria - Ekonomia
Hiru lagun **zauritu** ziren atzo 08:45ean A-8 autobidean gertatutako istripu batean. Berria - Euskal Herria
Lagunak ez ziren larri **zauritu**, baina autoa erabat txikituta geratu zen. Jokin Urain
Zaldun ezezaguna, zubian **zauritu** baitzen, ahul dago. Juan Kruz Igerabide
Lehen errainuen hatz-muturrak piramideen erpinetan **zauritzen** dira, eta argizko odola ertzetan behera dator. Juan Kruz Igerabide
Urtean 26.000 lagunetik gora hil edo **zauritzen** dira lehertu bako mina bat zapalduta. Berria - Gaiak
Ez zen inor **zauritu**. Berria - Euskal Herria

**7** irud/hed

Tximistak **zauritutako** haritz zahar baten gainean zuen habia harrapariak. J.M. Olaizola "Txiliku"
Nire zati bat, argiz **zauritua**, pozez garbitua, nekearen ordainaz libre, Circe eta Virgiliarekin joan zen. Felipe Juaristi
14-18 arteko gerlak, **zauritu**, funditu, ezeztatu zuen berriz Europa. Michel Oronoz
Begien bistakoa zela bihotza **zauriturik** zeukala, eta bazekiela nork jaurti zion amodioaren azkon zorrotza. Jose Morales
Zer da zure gogoa **zauritzen**, zirraratzen eta askotariko gogoetak azalarazten dizkiona, sentiezgarritik sentigarria sortzen dela ez sinesteko? Xabier Amuriza
Korrupzioak **zauritzen** duena suntsituta geratzen da. Imanol Unzurrunzaga
Ikusi gabeko itsasoaren minak bortizki **zauritzen** zuenean biolina hartu eta joka hasten zen. Felipe Juaristi
Horregatik erantzun zuen, lehor, Monica den pertsona delikatua bidegabeki **zaurituz**. Jon Alonso
Lurralde zati bat galdu duen nazionalismo **zauritu** batek erabiltzen duen argumentu erretorikoa da, azken batean, Renanek planteatzen duena. Berria - Kultura
Greziera, zurezko txirula, airea bera apenas **zauritzen** duena. Felipe Juaristi
Maitasunak **zauritu** duen edonork bezala, Frantziskok ez du atsedenik hari begira eta hura goratzen eta eskertzen baizik. Askoren artean
Eguzkia zaldi bat zen arrats-min **zaurituan**. Karlos Linazasoro
Mendi **zaurituaren** barrunbetatik. Berria - Kultura
Gure geografia **zauritua**. Iñigo Aranbarri

**8** ***ezin zaurituzko*** ik **zauriezin.**

Bizirik geratzen zen azkenekoa jainkoek babestutzat agertzen zen horrela, **ezin zaurituzkoa**! Josu Zabaleta
Eta orain badugu halako geruza bat... **ezin zaurituzko**-edo egiten gaituena? Jon Muñoz

**hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**

**arin zauritu** (50); **arin zauritu ziren** (20)

**bederatzi pertsona zauritu** (5); **bederatzi zauritu** (11); **bere burua zauritu** (8); **beste bat zauritu** (47); **beste bederatzi zauritu** (5); **beste bi zauritu** (37); **beste bost zauritu** (13); **beste hainbat zauritu** (9); **beste hamar zauritu** (6); **beste hiru zauritu** (29); **beste hogei zauritu** (5); **beste lau zauritu** (23); **beste sei zauritu** (14); **beste zazpi zauritu** (16); **beste zortzi zauritu** (6); **bi ertzain zauritu** (7); **bi lagun zauritu** (18); **bi langile zauritu** (6); **bi larri zauritu** (7); **bi pertsona zauritu** (11); **bi polizia zauritu** (6); **bi soldadu zauritu** (8); **bi zauritu** (65); **bi zauritu ziren** (17); **bi zauritu zituen** (8); **bi zauritu zituzten** (11); **bidaiari zauritu** (5); **bost lagun zauritu** (12); **bost pertsona zauritu** (7); **bost zauritu** (25); **bost zauritu ziren** (13)

**dozena bat zauritu** (6); **dozenaka zauritu** (22); **dozenaka zauritu ziren** (7)

**ehunka zauritu** (16); **ehunka zauritu eragin** (5); **emakume bat zauritu** (12); **ertzain zauritu** (7); **ez zen zauritu** (14); **ez ziren zauritu** (5); **ez zuen zauritu** (5)

**gehiago zauritu** (13); **gehiago zauritu ziren** (6); **gidaria larri zauritu** (6); **gidaria zauritu** (7); **gizon bat zauritu** (5); **gizon zauritu** (5); **gizonezko bat zauritu** (6); **hainbat lagun zauritu** (9); **hainbat zauritu** (29); **hainbat zauritu izan** (5); **hamabi zauritu** (8); **hamabi zauritu ziren** (5); **hamar bat zauritu** (5); **hamar zauritu** (13); **hamar zauritu ziren** (8); **hil edo zauritu** (10); **hil eta zauritu** (11); **hildako eta zauritu** (13); **hiru lagun zauritu** (21); **hiru palestinar zauritu** (5); **hiru pertsona zauritu** (11); **hiru soldadu zauritu** (8); **hiru zauritu** (57); **hiru zauritu ziren** (15); **hiru zauritu zituen** (5); **hiru zauritu zituzten** (11); **hogei zauritu** (6)

**inor zauritu** (60)

**jo eta zauritu** (6)

**kide zauritu** (6)

**lagun arin zauritu** (12); **lagun bat zauritu** (5); **lagun ere zauritu** (7); **lagun larri zauritu** (15); **lagun zauritu** (139); **lagun zauritu dira** (21); **lagun zauritu zirela** (5); **lagun zauritu ziren** (73); **lagun zauritu zituen** (8); **lagun zauritu zituzten** (13); **langile bat zauritu** (13); **langile zauritu** (11); **langile zauritu ziren** (5); **larri zauritu** (227); **larri zauritu da** (21); **larri zauritu dira** (14); **larri zauritu zen** (84); **larri zauritu ziren** (37); **larri zauritu zuen** (17); **larri zauritu zuten** (21); **larriki zauritu** (17); **lau lagun zauritu** (14); **lau pertsona zauritu** (11); **lau zauritu** (33); **lau zauritu ziren** (11); **lau zauritu zituen** (5); **lau zauritu zituzten** (6); **milaka zauritu** (7)

**oso larri zauritu** (7)

**pertsona bat zauritu** (12); **pertsona larri zauritu** (5); **pertsona zauritu** (134); **pertsona zauritu dira** (17); **pertsona zauritu ziren** (82); **pertsona zauritu zituen** (18); **pertsona zauritu zituzten** (7); **polizia bat zauritu** (5); **polizia zauritu** (18); **polizia zauritu ziren** (9)

**sei lagun zauritu** (5); **sei pertsona zauritu** (7); **sei zauritu** (25); **sei zauritu ziren** (9); **soldadu bat zauritu** (9); **soldadu estatubatuar zauritu** (9); **soldadu zauritu** (33); **soldadu zauritu ziren** (16); **soldadu zauritu zituzten** (8)

**tiroz zauritu** (10); **tiroz zauritu zuten** (5)

**zauritu artatu** (5); **zauritu asko** (13); **zauritu atzo** (10); **zauritu baino** (5); **zauritu bat** (18); **zauritu batek** (6); **zauritu baten** (6); **zauritu da** (45); **zauritu dira** (120); **zauritu ditu** (24); **zauritu dituzte** (26); **zauritu du** (13); **zauritu dute** (7)

**zauritu eragin** (53); **zauritu eragin ditu** (7); **zauritu eragin zituen** (12); **zauritu eragin zituzten** (17); **zauritu eraginda** (5); **zauritu gabe** (6); **zauritu gehiago** (7)

**zauritu izan** (37); **zauritu izan dira** (8); **zauritu izan ziren** (22); **zauritu larri** (11); **zauritu larririk** (6)

**zauritu ondoren** (6)

**zauritu ugari** (10); **zauritu utzi** (7)

**zauritu zen** (181); **zauritu zen atzo** (30); **zauritu zen eta** (16); **zauritu zen herenegun** (5); **zauritu zenbatu** (5); **zauritu zirela** (21); **zauritu ziren** (597); **zauritu ziren atzo** (114); **zauritu ziren erasoan** (9); **zauritu ziren herenegun** (14); **zauritu zituen** (154); **zauritu zituen atzo** (25); **zauritu zituen poliziak** (5); **zauritu zituzten** (202); **zauritu zituzten atzo** (19); **zauritu zuela** (5); **zauritu zuen** (74); **zauritu zuten** (102); **zazpi lagun zauritu** (6); **zazpi pertsona zauritu** (6); **zazpi zauritu** (25); **zazpi zauritu ziren** (10); **zen inor zauritu** (34); **zen zauritu** (15); **zenbat zauritu** (6); **zibil irakiar zauritu** (5); **zibil zauritu** (13); **ziren zauritu** (5); **zortzi lagun zauritu** (6); **zortzi zauritu** (14)

**bat zauritua** (6); **larri zauritua** (9); **larriki zauritua** (9); **zauritua da** (5); **zauritua izan** (21); **zauritua izan zen** (9)

**hiru zaurituak** (5); **zaurituak izan** (20); **zaurituak izan ziren** (15)

**zaurituen artean** (19)

**zaurituetako bat** (8)

**bat zauriturik** (5); **larri zauriturik** (12); **larriki zauriturik** (8)

**arin zaurituta** (6); **bat zaurituta** (13); **larri zaurituta** (46); **larri zaurituta eraman** (14); **zaurituta dago** (10); **zaurituta daude** (7); **zaurituta eraman** (28); **zaurituta eraman zituzten** (8); **zaurituta eraman zuten** (14); **zaurituta geratu** (5); **zaurituta zegoela** (5); **zaurituta zegoen** (5)

**istripuan zauritutako** (6); **larri zauritutako** (13); **zauritutako bat** (5); **zauritutako bi** (6); **zauritutako gizona** (5)

**zauritzea eragin** (6); **zauritzea eragin zuen** (5); **zauritzea eraginda** (5)

**labanarekin zauritzeagatik** (5); **labanaz zauritzeagatik** (5)

**zauritzen dira** (5); **zauritzen duen** (6)

---

# zauritxo *iz* zauri txikia.

Belaunean **zauritxoa**, ez du besterik. Edorta Jimenez

Ni merkrominarekin, baso baten ertz hautsiarekin egindako **zauritxo** bat sendatzen. Joan Mari Irigoien

Bekainean duen **zauritxo** baten arrastoa. Berria - Kirola

Frisiarren legeak sos erdia besterik ez dio ematen kalte-ordainetan makilakadak jaso dituenari; edozein **zauritxorengatik** ematen zen gehiago, denik eta txikiena izanik ere. Iñaki Iñurrieta

---

# zauritzaile *izond* zauritzen duena.

Bolanteari indar gehiegirekin oratzen ari natzaio, paisaia berde hau, hain paisaia berdea, edertasun **zauritzailea**. Mikel Hernandez Abaitua

---

# zauritze *iz* larruazaleko ehunen irekitze edo hondatzea dakarren kolpe bat ematea; zauria sortzea.

Ezcurra lehenak du **zauritze** bat izan belaunean eta, futxo, gehiago ezin segi. Herria

Badela oraino zernahi jende, bere indarren eta ausartziaren erakusteko, ikusgarri publikoetan eta pribatuetan zezenekin eta beste abere basekin jostatzen denik, horrela gertatzen baita maiz giza heriotza, **zauritze** eta ere arimako kalte. Piarres Xarriton

Horrela gertatzen baita maiz giza heriotza, **zauritze** eta ere arimako kalte. Piarres Xarriton

Bakea eta askatasuna, hori da hanbat eta hanbat manifestaldik beren plankarta, oihukatze eta bihotzeko dei saminez dioten oihu bakarra, hainbeste hilketa eta **zauritze** basaren ondotik. Herria

Hots, lehen ere bazituzten bestek orotarik, jokariak, **zauritzeak** eta gehiagorik oraino. Herria

Ingurumenaren aldeko elkarteentzat, mendi **zauritze** [Iparlako bide berria]. Herria

---

# zauriztatu, zaurizta(tu), zuriztatzen du *ad* zauriz bete.

Hirugarrena da geure haragia zigortzea; hau da, sentitzen den oinazea ematea, eta hori haragi gainean zurdatzak, sokak edo burdinezko barrak erabilirik egiten da, gorputza zigortuz edo zartatuz edo **zauriztatuz**, eta beste tresna lazgarriz. Patxi Altuna

---

# zaurkor *izond* fisikoki edo moralki zaurtua edo hondatua gertatzeko joera duena.

Mozteko, inausteko edo lotzeko markurtzen delarik, haren belaunen atzealdeko azal zuri zain urdinekikoa eta tendoi **zaurkor** zabalak ikus ditzake. Oskar Arana

---

# zaurt

## 1 *zaurt eragin*

Ikuskari guztiz zatar batek **zaurt** eragin zion. Josu Zabaleta

---

# zaurtezin *izond* fisikoki edo moralki zaurtua edo hondatua ezin izan daitekeena.

Zaurgarri eta **zaurtezin** ageri zen aldi berean. Iñaki Iñurrieta

Estigia aintzirako urek Akilesen gorputzean eragin zutena eragiten du pentsamentuan: **zaurtezina** eta suntsiezina bilakatzen du. Juan Garzia

Makur ari gaituk, hain maiestatetsua izaki halako bortxa ageria erakutsiz, zeren **zaurtezina** baita bera airearen pare, eta gure ukaldi alferrok irribide gaizto. Juan Garzia

---

# zaurtu, zaurt, zaurtzen 1 du *ad* zauritu.

Bisaia itsusitua zuen, larrutua, **zaurtua** eta lohitua. Joan Mari Irigoien

Kretar gezi batek **zaurtu** ninduen. Juan Garzia

**2** fisikoki edo moralki zauritu edo hondatu.

Hizkuntza hunkitzen eta jotzen duen edozein erasok, hunkitzen eta **zaurtzen** ere du Gizakia bera. Piarres Xarriton

Hainbat barrenago **zaurtzen** naute ordea salaketa horiek eta horien berme darabiltzaten argudioek, non ez baitezaket horiei deus ihardets. Piarres Xarriton

Kopetilun, zeharo jota, Goia aldera abiatu gara hirurok; nik anartean inoiz dastatua ez nuen oinaze lazgarri batek **zaurturik**. Txillardegi

Dolu horrek, biziki barna **zaurtu** omen zuen Piarres Ibarrart, eta denbora batez ez zuen kasik nehori elerik egiten. Patziku Perurena

Semea galdurik, bihotza **zaurtua** izanki-eta, gainerat ez daki norat joan semeari bi loreen ezartzeko. Herria

Arkuak fletxa bat zuela, zeina baitzen erranak adierazten zuen pentsua, ideia, edo sentimendua, adimenduan edo bihotzaren erdian **zaurt** gaitzakeena, arkutik atera orduko. Joan Mari Irigoien

---

# zausk

**1** ***zausk egin*** zirrara egin.

**Zausk egin** dit barrenak: oraintxe bertan joan behar, hortaz? Txillardegi

Barrenak **zausk egin** dit, eta bihotz taupadak azkartu. Txillardegi

Bat-batean, **zausk egin** dit barrenak: [...]. Txillardegi

· **Zausk** bihotzak: [...]. Txillardegi

---

# zauskada *iz* zirrara.

**Zauskada** ahal bezala disimulatuz, zerbait erantsi dut: [...]. Txillardegi

Handik berehala iritsi nuen gailurra; eta bertan barne **zauskada** azkar batek astinduta, Puiko Basilika ospetsura joan nintzen, bihotza nabarmenki estututa. Txillardegi

**Zauskada** latza eman dit orduan barrenak. Txillardegi

Barneak **zauskada** eman dit: [...]. Txillardegi

**Zauskada** galanta eman zidan honek lehenengo egunean. Txillardegi

---

# zauskatu, zauska(tu), zauskatzen du *ad* zirrara eragin.

Eta bertako kalearte mehar isilek harrigarriro **zauskatu**. Txillardegi

---

# zaust *(orobat **zausta**)* *adlag* bat-bateko ekintzaren onomatopeia.

Gauaz mamuen antzeko tren astunak baino ez dira ibiltzen, tren isilak, arrastaka-hotsik gabe gure ezinegonari **zaust** heltzen diotenak. Pako Aristi

Guk aldegin orduko, denak behera, xalto-xalto, ale bila, **zausta**! moko eta lepo kolpe ttiki batekin irensteko! Pello Zabala

---

# zazeatu, zazea(tu), zazeatzen du *ad* hitz egitean *z* hotsa *s* hotsaren ordez erabili.

Hango alabek, hemeretzigarren mendean Inglaterrako saloietan sakabanatuak, zoragarri **zazeatu** eta zalaparta gartsuak harrotu zituzten. Anton Garikano

---

# zazpi **1** *zenbtz* sei eta bat, 7. (dagokion izenaren ezkerrean)

-Astra bat. 7,62 mm. **Zazpi** tiro. Koldo Izagirre

Harekin batera **zazpi** kargadore erosi nituen. Iban Zaldua

**Zazpi** euskal herrietan barna. Piarres Aintziart

Hurrengo sei hilabeteetan, Dryer-ek beste hogeita **zazpi** margolan egin zituen. Oskar Arana

Harenga bat eman zuen udaletxeko arkupean herriko **zazpi** gizon fusilatu eta gero. Bernardo Atxaga

Herriko **zazpi** gizonek isuritako odola zapaltzea: bataiatzeko modu hori nahi zuen soldadu berrientzat. **Zazpi** seme-alaba eman zizkion Andreak. Bernardo Atxaga

Bihotzean hondoratutako **zazpi** ezpataren mina sentitu zuen. J.M. Olaizola "Txiliku"

Nork jakituriaren **zazpi** ardatzak ikasten ditik, nork edertasunaren **zazpi** graziak jasotzen, nork urrearen **zazpi** distirak bereganatzen. Anjel Lertxundi

Hartz Nagusiko **zazpi** izarrak ikusi ditut, ñirñirkari. Txillardegi

Han ere **zazpi** aldare eraiki zituen eta bakoitzean zekor eta ahari bana eskaini. Jose Antonio Mujika

**Zazpi** apaiz joango dira kutxaren aurrean, **zazpi** tronpeta eramanaz. Jose Antonio Mujika

Neurri beretsuko **zazpi** zati dauzka liburuak. Piarres Aintziart

**Zazpi** hitz baino ez zituen esaten, guztiak ere azentu onartezinez. Unai Elorriaga

Eta joan eta beste **zazpi** espiritu hartzen ditu, bera baino gaiztoagoak. Askoren artean

**Zazpi** ateen azpitik iragan behar zen. **Zazpi** haurreko gure familia hartan ezagutu ezberdintasunen gainetiko elkartasuna bilatzen dut denetan. Itxaro Borda

Bost dolarreko **zazpi** billete zeuzkak bola bat eginda poltsikoan. Xabier Paya

Beste **zazpi** behi irten ziren Nilotik. Elizen arteko biblia

Zoaz eta busti zaitez **zazpi** aldiz Jordan ibaian, gaitza sendatu eta garbi geldituko zara. Elizen arteko biblia

Agente batek sei edo **zazpi** apartamentu erakutsi zizkidan harri gorriztako etxeetan. Oskar Arana

*ik beherago* 14. Askoren artean

**Zazpi** edo zortzi atso itsusi zeuden kokoriko eta tarteka jarriak elizaren inguruan. Koldo Izagirre

*ik beherago* 19. Askoren artean

Greziako **Zazpi** Jakintsuetariko bat. Jon Muñoz

· **Zazpi** begiz zaintzen hasi ginen bi bide-ertzak. Inazio Mujika Iraola

**2** (dagokion izena ezabaturik)

-Zazpi karrera hasi nitian, eta **zazpiak** bat: ezer ez, alegia. Joan Mari Irigoien

Zortzi liburu, baina **zazpi** baizik ez dira aurkitu. Jon Muñoz

Iduseko anarkistak **zazpi** baziren, testua interpretatzeko bederatzi modu zeuden batzuetan eta hamabi beste batzuetan. Unai Elorriaga

**Zazpi** gehiago zakarzkiat. Aingeru Epaltza

Zirok bidalitakoetatik **zazpi** besterik ez zirela itzuli. Iñaki Iñurrieta

**Zazpiak** esperientziadunak dira: atezain bat, Christophe Bernet; defentsari bat, Nicolas Delmas; bi erdilari eta hiru aurrelari. Herria

**Zazpiek** beren erratzak atera zituzten. Iñaki Mendiguren
**Zazpitik** bat, ordea, beraientzat da. Gotzon Garate
Laurogeita **zazpian** berriro elkartu ginen eta Ameriketara elkarrekin etortzea erabaki genuen. Joseba Sarrionandia
Haien senideak senitartez senitarte, honako **zazpi** hauek izan ziren: [...]. Elizen arteko biblia
**Zazpi** zeuzkan gaiari buruzkoak erosi berriak. Karlos Linazasoro
Plaza Berriko **zazpian**, motel, Esnategi kaletik sartu, eta 1 arkupeko lehenengoa eskubi aldean. Txillardegi
Banatu zeure ondasunak **zazpiren**, bai eta zortziren, artean ere, ez baitakizu nolako ezbeharra etor daitekeen lurrera. Elizen arteko biblia
Ongi etorria ostera sail horretara, bosten kluba zena **zazpirena** bilakatu dena: Barriola, Eugi, Ruiz, Beloki, Olaizola II.a. eta Irujo eta Xala. Berria - Kirola
Hegoaldea aski epela da, tenperaturak zero azpiko seitik zero gaineko **zazpira** bitartean mugitzen baitira. Bernardo Atxaga
Indietako eta Itsaso Gorriko itsasontzi ihiz egin batek hogei egunetan egiten zuen bidea, itsasontzi greko edo erromatar batek **zazpitan** egiten zuen. ik *beherago* 13. Iñaki Iñurrieta

## **3** (futbol, pilota eta kideko kirolen emaitzetan)

**Zazpi** eta hiru, Gartzain irabazten. Patziku Perurena

## **4** (data adierazteko)

Behin -martxoaren **zazpia** zen-, oihal bat egiten bukatu eta nagusiei eraman zien. Jose Antonio Mujika
Irailaren **zazpian** heldu zen egun hori, abuztuaren hogeita zortzian hel zitekeen bezala. Unai Elorriaga

## **5** (ordua adierazteko)

**Zazpiak** puntuan, Lucy lotan zetzan gelara sartu eta harengana hurbildu nintzen edalontzi bat laranja-urekin. Oskar Arana
Arratsaldeko **zazpiak** aldera esaten genion elkarri agur. Bernardo Atxaga
Arratsaldeko **zazpiak** hurbil: "Eta gose haiz gaizoa!". Piarres Aintziart
Luzea egingo zait **zazpiak** arteko denbora. Iban Zaldua
**Zazpi** eta erdiak ziren. Bernardo Atxaga
Etorri bihar erietxera: **zazpi** eta erdietan bilera dugu. Xabier Olarra
**Zazpiak** eta erdietan guk ere atea itxita utzi genuen gure atzean. Josu Zabaleta
**Zazpiak** eta laurdenetan iritsi eta hogeitabost minutuz geratu ohi nintzen. Juan Garzia
**Zazpiak** eta laurden: ateak kirrinka berriro. Josu Zabaleta
Seietatik **zazpiak** eta laurdenetara bitartean. Josu Zabaleta
**Zazpiak** laurden gutxitan lantokira zetorkidan, hitz egin lehiaz hanpatua. Itxaro Borda
Seietan ez zidaten jaikitzen uzten oraindik, eta **zazpiak** laurden gutxiak arte gorde behar izan nuen nire jakin-mina. Josu Zabaleta
**Zazpiak** laurden gutxiago zirenez jaiki egin naiz. Iñaki Zabaleta
**Zazpiak** eta hogei ziren Patakik, jaiki, pastazko betaurrekoak soineratu, tokatara zuzendu eta kantu bat jarri zuenean. Harkaitz Cano
**Zazpiak** hogeita bost gutxiago. Iñaki Zabaleta
**Zazpietan** puntuan iritsi naiz bulegora. Xabier Etxabe
Goizeko **zazpietan** jo zuen ekaitz beldurgarri batek. Pello Zabala
Arratsaldeko **zazpiak** arte. Koldo Biguri
**Zazpietako** autobusa hartu behar zuen derrigorrez. Iñaki Zabaleta
**Zazpietako** txandan hasi omen duk lanean, eta gauekoa arratseko hamaikak arte ez omen duk itzuliko. Aingeru Epaltza
Irailaren 8an, asteazken arratsaldean **zazpietako** albisteak entzuten ari ginen irratian. Josu Zabaleta
Mundu guztiak ohean egon behar zuelako **zazpietarako**. Julen Gabiria

## **6** (denbora unitateekin)

Stanleyk hirurogeita **zazpi** urte ditu baina sasoiko dago duen adinerako. Oskar Arana
**Zazpi** egun egongo zara han. Askoren artean
Beste **zazpi** urte egin zituen Labanen zerbitzuan. Jose Antonio Mujika
Ia **zazpi** urte ziren ez nuela Tom ikusten. Oskar Arana
Nire **zazpi** urteak aspaldi joan ziren. Jon Muñoz
Kontzeptu hori, bolumenaren konstantziarena, **zazpi** urterekin harrapatzen dute ume gehienek. Xabier Olarra
**Zazpi** urteko neskato bati bezala eman nion agindua. Bernardo Atxaga
Ez zioten inori irakasten, "ikasle nabarmenari, **zazpi** urterik behin" izan ezik. Xabier Kintana
**Zazpi** Urteetako gerratean bezala, oraingoan ere Lizarrako gotorleku nagusi bihurturik. Txillardegi
Elkar bizitzako **zazpi** hilabeteren buruan abandonatu ninduen. Itxaro Borda
**Zazpi** egunez ibili ondoren, Galaadeko mendian harrapatu zuen. Jose Antonio Mujika
**Zazpi** egunen buruan euria bidaliko dut lurrera berrogei egun eta berrogei gauez. J.M. Olaizola "Txiliku"
Zaldi horiekin, **zazpi** edo zortzi ordutan jarriko ginateke Frantzian. Bernardo Atxaga
Italiako XX. mendeko ipuingintzari buruzko **zazpi** orduko ikastaldi bat emateko. Iban Zaldua
Meza hasteko **zazpi** minutu. Unai Elorriaga

## **7** (diru unitateekin)

Hilean laurehun eta hogeita **zazpi** dolar baitzen errenta. Oskar Arana
Guztira, **zazpi** dolar eta laurogeita lau zentabo, **Zazpi** ehun euro balio dituen larruzko paltoa erosi dut. Lopez de Arana
Zure hemezortzi txelin eta hiru pennyekin, izango ditugu hiru libera, bederatzi txelin eta **zazpi** penny. Julen Gabiria

## **8** (luzera neurriekin)

Luzeran, berriz, **zazpi** metro da heste meharra. Irene Aldasoro
Sarreraren hegal batek **zazpi** metro eta erdi oihal izango ditu, hiru zutabe eta hiru oinekin. Elizen arteko biblia
Melun hogeita **zazpi** kilometrora dagoela. Monika Etxebarria
**Zazpi** zentimetro zeuzkan paperaren alde batek eta **zazpi** beste batek. Unai Elorriaga
Beinat lurretik hogeita **zazpi** zentimetrotara altxatu zuen, kolpe motzaz erortzera utzi aitzin. Itxaro Borda
Bi librako harria jaurti behar duen baleztak, bere burukoan, bost hatzeko zuloa izan beharko du; [...] sei librakoa jaurtitzeko, **zazpi** hatzekoa. Santiago Iruretagoiena
**Zazpi** estadu zituen gorabillak, eta **zazpi** oin estaduak. Patziku Perurena
Tolosatik **zazpi** legoatan dagoen San Martin deitu auzora. Piarres Xarriton
Ia **zazpi** miliara zegoen herrixka bateko andre batek Frantzisko dohatsuari bidaltzen zion oparia zen. Josu Zabaleta

## **9** (bestelako neurri unitateekin)

Arazoa zen mukiak itxi egiten zizkiola birikak arnasa galarazteraino, eta bere gorputz txikiak, zazpi edo **zortzi** kilokoak, ez zeukala ahalmenik muki haiek mugitzeko. Bernardo Atxaga
Bere gorputz txikiak, **zazpi** edo zortzi kilokoak, ez zeukala ahalmenik muki haiek mugitzeko. Bernardo Atxaga

Ia **zazpi** tonelada ogi-irin garbi. Elizen arteko biblia

Beste **zazpi** litro esne berotu, ozpin neurria bota, eta bihar goizera arte uzteko eskatu diot. Jokin Urain

**Zazpi** gradu -adierazi zidan Pablok bere termometroari begirada bat eman eta gero-. Bernardo Atxaga

- **10** *iz* zenbaki naturalen sailean seiaren ondotik datorren zenbakia.

Zenbaki sinbolikoa **zazpia** duk! Xabier Etxabe

**Zazpi** gehi lau berdin hamabi. Lopez de Arana

Izendatzailean, bakoitiak bikoiztuak: hiru, bider hiru, bider bost bider bost, bider **zazpi** bider **zazpi**, bider eta abar. Jon Muñoz

Bi gehi **zazpi** ber bi zati bi gehi bederatzi ber bi. Jon Muñoz

Bai, hori da, bederatzi bederatzi **zazpi**. Julen Gabiria

Irakurri behar ziren garaiko prentsa erreakzionarioaren espantuak hemen bizi ginenon ehuneko **zazpi** ere ez omen zelako elizan azaltzen! Koldo Izagirre

Badakit bakan baizik ez dela **zazpiko** jokoan irabazten. Jon Muñoz

**11** (joku kartetan)

Karta-multzo batean **zazpiko** pika aukeratu. Jon Muñoz

Ezin pausatuago solastatu zitzaidan, mahukapean **zazpiko** urrea gorderik duen jokalariaren segurtasunaz. Joan Mari Irigoien

**12** ***zazpiko*** *iz* zazpi kideko taldea.

**Zazpiko** ona du, baina ordezkoek ez dute maila handia, Dobrkovic eta Nenadic dira salbuespen. Berria - Kirola

Joaneko partidako hasierako **zazpiko** bera atera zuen Francisco Javier Zupo Ekisoainek pistara. Berria - Kirola

**Zazpiko** horri afizionatuetan lekua egingo diela zin egin du Baquek. Berria - Kirola

· *Euskarian*sek antolaturiko gizonezkoen Euskal Herriko **Zazpiko** Torneoan Bizkaia nagusitu zen, Lapurdiri 22-19 irabazita. Berria - Kirola

**13** ***zazpitan*** *(orobat **zazpietan** g.er.)* zazpi aldiz.

Entzun izan dut **zazpitan** ezkondu zela eta zazpi senarrak ezkongelan hil zitzaizkiola. Elizen arteko biblia

Badakit, maisu, arantza horrek **zazpitan** zulatu zizula bihotza. Iñaki Segurola

Zilar garbia, **zazpitan** birfindua. Elizen arteko biblia

Gizaseme bikain honek, soka bat gerriko eta zirpil bat oinetako, pilda batzuk jantzi eta txapela buruko, **zazpitan** arriskatzen zuen bizia oreneko. Zakur handiak behin zaunka egiterako, txikiak **zazpitan**. Gotzon Garate

Sosa partekatzekoa zelarik, nagusiak berak banaketa obratzeko ordez, ez zena **zazpietan** hobe, bakearen izenean, mutilek erabaki zezaten zer nori joanen zitzaion. Itxaro Borda

**14** ***sei-zazpi***

Larrinagakoaz gain, beste **sei-zazpi** egoitza erabili zituzten presondegi moduan. Jokin Urain

Orain ere geure baratzetxoan egunero **sei-zazpi** katuri ematen diet jana. Gotzon Garate

- **Sei-zazpi** ordu bide dago -esan zien. Josu Zabaleta

**Sei-zazpi** urte pasatu dira eta ez dute ezer egin. Berria - Euskal Herria

Hiruki horren gailurra **sei-zazpi** metrotan dago. Filipe Bidart

Antzerkia prestatzen hara eta hona dabiltzan **sei-zazpi** gazteak *Dialog Theatre* taldekoak dira. Edorta Jimenez

Pianoaren aurrean ia egunero pasatzen ditudan **sei-zazpi** orduek markatu dute nire bizitza. Anjel Lertxundi

Horietarik **sei zazpik** euskara mintzatzen dugu ongi eta gure tartean beti euskaraz ari gara. Herria

Ibaia erabat libre utzirik, bazter bakoitzean hegi etenik gabe bat zuen eratua, **sei-zazpi** bat metro garai. Josu Zabaleta

Azkenik, **sei-zazpiren** bat kilometroren buruan, hara, ikaragarria, baso artean, belardia. Josu Zabaleta

**15** ***zazpi ahalak egin***

Piztiatxo hura **zazpi ahalak egiten** ari zen bazterrera iristeko. Josu Zabaleta

**Zazpi ahalak egin** zituen eulien antzera erasoka zebilzkion pentsamenduak baztertzen. Patxi Zubizarreta

Erran behar dut ere, ahal izan dutalarik ene **zazpi ahalak egin** ditudala Eskual-Herrirat jinak ziren Iraultzako komisarioen bortizkeri basaren eztitzeko. Michel Oronoz

**Zazpi ahalak egiten** zituen haien irri tolesgabe bera lortze aldera, baina bekaizkeriak hartua zegoen. Patxi Zubizarreta

**Zazpi ahalak egin** nituen haren "biltzeko" baina debaldetan izan zen. Daniel Landart

Aldakuntza gutti Zuraideko hautetsietan, herriaren dinamika antzina segituz **zazpi ahalak eginak** izanen baitira hitzeman bezala. Herria

**16** ***zazpi bat*** *(**39** agerraldi, **15** liburu eta **19** artikulutan; orobat **zazpiren bat** **20** agerraldi, **11** liburu eta **3** artikulutan)*

**Zazpi bat** metro zabal eta hamabost bat luze. Txillardegi

**Zazpi bat** urte izango nituen. Anjel Lertxundi

-Nik Alejandroren gutun bat jaso nian duela **zazpi bat** urte -esan zuen azkenean. Duela **zazpi bat** mende, Petrarca eta bere anaia Frantziako hegoaldean zeuden, Ventoux mendiaren inguruan. Jon Muñoz

**Zazpiren bat** ordu ibiltzen ginen egunero, bazkaldu arte lau eta ondorenean beste hiru. Bernardo Atxaga

**Zazpi mila** errial eman genizkion. Koldo Izagirre

Atleta batek **zazpi bat** litro oxigeno beharko lituzke 100 metroko esprintak eskatzen duen indarra egin ahal izateko. Irene Aldasoro

**Zazpi bat** mila gizon eraman ahal izango ditugu, oinezkoen eta zaldizkoen artean. **Zazpi** edo zortzi bat urte besterik ez nituen artean. Agustin Otsoa

**17** ***zazpi mila***

**Zazpi mila** lagun Baionako karriketan. Herria

Lur ikara horren karietara hiriaren hamarrena erori zen eta **zazpi mila** jende hil ziren. Itxaro Borda

Berrogei mila gudari oinezko eta **zazpi mila** zaldizkorekin. Elizen arteko biblia

Lokomotora labe batek su lamazko erauntsi bat jaurtitzen dizu sabelera, **zazpi mila** metro gora. Josu Zabaleta

**Zazpi** mila barril fuel eta suntsiezineko hiru mila bakteria mota desberdin atxikitzen zituzten harkaitzetan. Koldo Izagirre

Harresia hogeita **zazpi mila** gizon haien gainera erori zen. Elizen arteko biblia

**Zazpi mila** pertsona inguruk parte hartu zuen atzo Diada Nazionalaren baitan Onze de Setembre batzordeak deitutako manifestazio bateratuan. Berria - Mundua

Obi ibaira isurtzen du ura, **zazpi mila** versta inguru ibili eta gero. Karlos Zabala

Sei edo **zazpi mila** tona petrolaki badituzte bilduak. Herria

Kairane auzoan beste **zazpi mila** daude. Berria - Harian

**Zazpi milatik** gora izan ziren, azken ostiralerako egiten duen deialdiaren bat egin zuten herritarrak. Berria - Euskal Herria

Bata sei mila metrora, bestea **zazpi milara** eta bestea hamar milara. Josu Zabaleta

Oilo eta ahateen erdia inguru txertatu dituzte dagoeneko ( **zazpi mila** milioi abere). Berria - Gaiak

**18** ***zazpi milioi***

Venezuelan **zazpi milioi** haur pobrezian bizi da, lau milioik ez dute osasuna mantentzeko adina jaten. Pako Aristi

**Zazpi milioi** t'erdi pertsona bizi diren leku batean beti edukiko du norbaitek beste norbait garbitu, torturatu edo bortxatzeko gutizia. Harkaitz Cano

Kalte materialak **zazpi milioi** eurotik gorakoak izan ziren. Berria - Euskal Herria

Batzorde bilkuran **zazpi milioi** euroren destinoa finkatu du departamenduak. Herria

Gu laster **zazpi milioi** izango gara, etorkinei esker batez ere. Berria - Euskal Herria

Esklabotasuna debekatu zen arte, hamairu milioi esklabo eraman ziren Amerikara, horietatik **zazpi milioi** XVIII. mendean. Koro Navarro

### 19 *zazpi-zortzi*

Astiro-astiro **zazpi-zortzi** lagun bildu dira era horretan, denak gizonezkoak. Urtzi Urrutikoetxea

Hotzikarak nago, baina badakit, **zazpi-zortzi** ordu barru, hemen izango dugula berriro eguzkia. Joxe Austin Arrieta

**Zazpi-zortzi** hilabete iragan zirenean, ordea, bigarren partea ere kontatu behar ziola bururatu zitzaion Sarari. Joan Mari Irigoien

Handik **zazpi-zortzi** egunera, haur gaixoa, berriz gaixotua, ikustera itzuli zelarik, teilapeko gizona, Villasús, hil egin zela esan zioten. Josu Zabaleta

Koadro bat zegoen **zazpi-zortzi** metrora, beheko solairuan, atearen ondoan. Unai Elorriaga

**Zazpi-zortzi** ziren, adin guztietakoak. Aingeru Epaltza

Egutxik hirurogeita lau urte zituen orduan, eta emakumeak hogeita lau-bost edo hogeita **zazpi-zortzi** gehienez. Ibon Uribarri

Euskal Herri osoko **zazpi-zortzi** ehun mila euskaradunetarik, 70.000, hots, 10etarik bat bakarrik gara Iparraldeko. Piarres Xarriton

Grosetik ez oso urrun botatako bizikleta saltzailearentzat **zazpi zortziren** bat hitz. Bernardo Atxaga

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
>
> **amezketako zazpi iturri** (9); **azken zazpi urteetan** (9); **azken zazpi urteotan** (11); **berrogeita zazpi** (27); **beste zazpi zauritu** (16); **duela zazpi hilabete** (10); **duela zazpi urte** (48)
>
> **euskararen zazpi bekatu** (10); **guztira zazpi** (9); **hamarretik zazpi** (10); **hirurogeita zazpi** (23); **hirurogeita zazpi urte** (11); **hogeita zazpi** (80); **hogeita zazpi urte** (14)
>
> **ia zazpi** (22)
>
> **orotara zazpi** (10); **sei edo zazpi** (60); **sei eta zazpi** (11); **sei zazpi** (68)
>
> **urrezko zazpi** (8); **urtean zazpi** (12)
>
> **zazpi ahalak** (22); **zazpi ahaleginak** (9); **zazpi ahari** (9); **zazpi aldaketa** (8); **zazpi aldare** (8); **zazpi aldiz** (95); **zazpi arkume** (9); **zazpi aste** (10); **zazpi bat** (39); **zazpi bat urte** (13); **zazpi behi** (14); **zazpi bekatu** (22); **zazpi bekatu nagusiak** (19); **zazpi bider** (33); **zazpi dira** (24)
>
> **zazpi edo** (73); **zazpi edo zortzi** (60); **zazpi eginahalak** (9); **zazpi egun** (76); **zazpi egunean** (12); **zazpi eguneko** (19); **zazpi egunen** (15); **zazpi egunen buruan** (12); **zazpi egunetan** (18); **zazpi egunez** (89); **zazpi ehun** (37); **zazpi ehun bat** (8); **zazpi entsegu** (28); **zazpi eta erdiak** (16); **zazpi eta erdietan** (23); **zazpi eta zortzi** (9); **zazpi film** (10); **zazpi galburu** (18); **zazpi garaipen** (14); **zazpi gau** (9); **zazpi gazte** (18); **zazpi gizon** (20); **zazpi gol** (28); **zazpi gol sartu** (11); **zazpi goleko** (23); **zazpi goleko aldea** (11); **zazpi gure aita** (8); **zazpi guztira** (8); **zazpi haur** (16); **zazpi hautagai** (16); **zazpi herri** (10); **zazpi herrialde** (15); **zazpi herrialdeak** (11); **zazpi herrialdeen** (8); **zazpi herrialdeetako** (11); **zazpi herrialdeetan** (8); **zazpi herrialdetako** (8); **zazpi hilabete** (89); **zazpi hilabetean** (9); **zazpi hilabeteetan** (15); **zazpi hilabeteko** (12); **zazpi hilabetera** (8); **zazpi hilabeteren** (9); **zazpi hilabetez** (21)
>
> **zazpi irabazi** (12); **zazpi iturri** (27); **zazpi iturrik** (10); **zazpi izan** (12); **zazpi izango** (9); **zazpi jardunaldietan** (9); **zazpi jokalari** (22); **zazpi kide** (11); **zazpi kilo** (17); **zazpi kilometro** (16); **zazpi kilometroko** (14); **zazpi kilometrora** (10); **zazpi lagun** (66); **zazpi lagun hil** (20); **zazpi lagunek** (13); **zazpi lagunen** (9); **zazpi langile** (12); **zazpi lurraldeetako** (11); **zazpi lurraldeetan** (8); **zazpi mankomunitateek** (12); **zazpi metro** (15); **zazpi mila** (67); **zazpi milioi** (38); **zazpi miliun** (8); **zazpi minutu** (30); **zazpi minutuan** (8); **zazpi minutuko** (9)
>
> **zazpi ordu** (24); **zazpi oren** (14); **zazpi orenetan** (8); **zazpi palestinar** (13); **zazpi partida** (60); **zazpi partida jokatu** (24); **zazpi partidatan** (8); **zazpi partidetan** (8); **zazpi pertsona** (39); **zazpi pertsona hil** (21); **zazpi polizia** (11); **zazpi probintzietako** (14); **zazpi puntu** (39); **zazpi puntuko** (23); **zazpi puntuko aldea** (12); **zazpi puntura** (18)
>
> **zazpi segundo** (15); **zazpi seme** (30); **zazpi seme alaba** (12); **zazpi soldadu** (14); **zazpi talde** (28); **zazpi tanto** (17)
>
> **zazpi urte** (355); **zazpi urte bete** (8); **zazpi urte egin** (16); **zazpi urte eman** (9); **zazpi urte geroago** (12); **zazpi urte lehenago** (8); **zazpi urte zituela** (8); **zazpi urte zituen** (11); **zazpi urtean** (15); **zazpi urteetako** (21); **zazpi urteetako gerratean** (9); **zazpi urteetan** (22); **zazpi urteko** (114); **zazpi urteko kartzela** (12); **zazpi urteotan** (11); **zazpi urtera** (10); **zazpi urterekin** (20); **zazpi urteren** (16); **zazpi urteren buruan** (11); **zazpi urtetan** (14); **zazpi urtetik** (10); **zazpi urtez** (73); **zazpi zauritu** (25); **zazpi zauritu ziren** (10); **zazpi zortzi** (52)
>
> **arratsaldeko zazpiak** (32); **arratsaldeko zazpiak eta** (8); **beste zazpiak** (8); **goizeko zazpiak** (30); **goizeko zazpiak aldera** (9); **goizeko zazpiak eta** (8); **zazpiak aldera** (27); **zazpiak arte** (15); **zazpiak bat** (33); **zazpiak eta erdietan** (12); **zazpiak laurden** (10); **zazpiak ziren** (11)
>
> **arratsaldeko zazpietan** (22); **goizeko zazpietan** (39)
>
> **hasierako zazpikoa** (78)
>
> **zazpiren bat** (20)

---

## zazpiehun *(orobat **zazpi ehun** eta **zazpirehun** g.er.)* 1 *zenbtz* zazpi bider ehun, 700.

**Zazpiehun** hilotz geratu omen ziren lur gainean, nekazariek lurperatu behar izan zituztenak. Xabier Olarra

Salomon, hala ere, itsuki maitemindu zen haietaz: **zazpiehun** emazte izan zituen, eta hirurehun ohaide. Jose Antonio Mujika

Inpresio handia egin zidan fabrikatzar hark, ia **zazpiehun** langile ari baitziren lanean. Jon Maia

Gotorlekuan zeuden gizakiek, gailurretik **zazpiehun** oin beherago egon arren, atea zain zezaketen. Agustin Otsoa

Zortziehun gramo Idiazabal mila eta seiehunean, **zazpiehun** gramo Cabrales mila eta ehunean. Bernardo Atxaga

Urtean **zazpiehun** errublo irabazten dituen funtzionario batek ere ez luke hain gela xumea izango. Jose Morales

**Zazpiehun** urte dira Petrarca jaio zela. Anjel Lertxundi

Hodeiak **zazpiehun** metrora daude. Josu Zabaleta

Kasu horretan, **zazpiehun** mikrosegundokoa da, gutxi gorabehera, denbora-tartea. Irene Aldasoro

Sei metro gorako eta **zazpi ehun** kiloko pertsonaiak, brontzean dailatuak. Piarres Aintziart

Ikertzaileek lau mila **zazpiehun** eta laurogeita bi dokumentu katalogatu dituzte. Iban Zaldua

Hagridek **zazpiehun** eta hamahirugarren gela hustu zuen. Iñaki Mendiguren

Fatxada kresaltsu eta zikinduak, axuleiuen irudiak, honako honek mila **zazpiehun** eta hirurogeita lauko data du. Jon Alonso

Aginte postutik Aszensioko ermitara ez ziren **zazpiehun** bat metro baino gehiago izango, baina etsaien lerroak hartzen zuen bidea. Ramon Saizarbitoria

### 2 *zazpiehun mila*

Elosegik **zazpiehun** mila pezetako lau faktura bidaliko zituen, Poulenc-en izenean. Hasier Etxeberria

Berehala egin nituen kontuak, hamazapi kilo bider lau mila libera, hirurogeita zortzi mila libera edo gauza bertsua: milioi bat eta **zazpiehun mila** pezeta. Hasier Etxeberria

**Zazpiehun**-zortziehun mila bat. Aingeru Epaltza

---

## zazpigarren *(orobat **zazpigerren** g.er.)* 1 *ord* zerrenda batean aurretik sei dituena (*7.*).

**Zazpigarren** kapituluak, sarrarazten gaitu erdiz erdi [...] boterearen eta botere mota ezberdinen arteko liskarren muinean. Piarres Xarriton

**Zazpigarren** egunerako bururatua zuen Jainkoak bere lan guztia eta **zazpigarren** egunean lanetik gelditu zen. Jose Antonio Mujika

Kristau-aroko **zazpigarren** mendean. Josu Zabaleta

Ehun eta berrogeita hamar egunen buruan -hau da, **zazpigarren** hilaren hamazazpian. Jose Antonio Mujika

Ile ostera hazi berria mozten nuen **Zazpigarren** Etorbideko Park Slope bizartegian. Oskar Arana

Behera zebiltzan hitzek seigarren bat adierazten dute; eta goian Yhwh zegoen hitzek **zazpigarren** bat. Xabier Kintana

**Zazpigarrena** da Jainkoa eta haren sainduak eta haiekin bizi diren deabruak eta gaixo dohakabeak berak betiere laidoztatzen eta madarikatzen dituzten oihu, negar, orro, laido eta elegaiztoen nahasketa. Piarres Xarriton

Gau eta egun jo genuen aurrera, sei egunetan, eta **zazpigarrenean** Lamo hirixka maldatsura heldu ginen. Juan Kruz Igerabide

Lehen seiak beste hainbeste maila dira, **zazpigarren** honetara iristeko, non azkenik atseden hartuko baituzu. Askoren artean

**Zazpigarrenik**, erraten dut nahiz ez dirudien egun debekatuetan arroltzeak eta esnea hartzea eragozten duen artikulua badoala Trentoko Kontzilioak 25. Jardunaldian

Janarien atseginaz erranen aurka. Piarres Xarriton

**2** (adizlagun gisa)

**Zazpigarren** sailkatzea lortuko bagenu, berriz, ikaragarria litzateke. Berria - Kirola

Kontroletik kanpo heltzen zirenak, errepide ertzean txiza baino egiten ez zutenak, ehun eta hogeita bostetik hirurogeita **zazpigarren** iristen zirenak. Unai Elorriaga

1,93 metro saltatu zuen, seigarren eta **zazpigarren** sailkatuak bezala, baina iruindarrak jauzi gehiago behar izan zituen horra iristeko. Berria - Kirola

---

zazpigerren ik **zazpigarren**.

---

**zazpika** *adlag* zazpiko multzoetan.

Madrilen [...] ibili dira gazte horiek multxoka, sei edo **zazpika**, karriketan gaindi, jateko eta edateko bero eta goxokeriekin. Herria

---

**zazpiki** **1** *izond* haurrez mintzatuz, ama ernaldu eta zazpi hilabetera jaiotzen dena; estua, edozergatik urduri edo egon ezinik jartzen dena.

Don Anizetok **zazpikia** jaio zela esango zuen gero, eta Don Juan ahalguztiduna izan zen ezteietan aitabitxi, bere eginkizun guztiz garrantzitsuetatik propio etorrita. Xabier Mendiguren Elizegi

Agur, ba, ta presta azkar gure erasoa gazte **zazpikien** aurka. Koldo Zuazo

Zabalik aurkitu zuen aurreneko tabernan sartu zen lagun **zazpikia** lasaitzera. Migel Angel Mintegi

**2** irud/hed

Anaia nagusi Felixek bazka-besakadak erauzi ditu, burua estaltzeraino, eta mordoka irenstearen imintzioa egin du, oparo jaten ari den txahal **zazpikiaren** hotsak atera. Itziar Otegi

---

zazpiko ik **zazpi 12**.

---

**zazpikoitu**, zazpikoi(tu), zazpikoitzen du *ad* zazpi aldiz handiago bihurtu.

Brown jaunak laster batean eginiko kalkuluen arabera, **zazpikoitu** egin zitzaion ahalmen masturbatzailea, edo zortzikoitu, eta gauza da inolako erru-sentimendurik gabe jotzen zuela orain kanpaia, edonola eta edozein lekutan. Karlos Linazasoro

---

**zazpikoitz** *izond* zazpi osagai berdinez edo mota bereko zazpi gauzaz osatua.

Burton-ek eite bereko beste artifizio batzuk ere aipatzen ditu -Kai Josru-ren kopa **zazpikoitza**, Tarik Benzeyad-ek dorre batean aurkitu zuen ispilua. Juan Garzia

---

**zazpikote** **1** *iz* zazpi lagunez osaturiko taldea.

14 bertsolari ariko dira, bi **zazpikotetan** banaturik. Berria - Kultura

Beste pianista batek, McCoy Tynerrek, Impulse disketxearen garaiak ekarriko ditu gogora bere **zazpikotearekin**. Berria - Kultura

Harizko taldetik **zazpikote** bat behar zen. Berria - Kultura

Pierre Moleres jaun apezpikuak, bortz apezez inguraturik, zelebratu du meza bat guziz kartsua, bereziki Alexandre Aguerre-k gidatu duen **zazpikote** baten kantu ederrekin. Herria

Aurrean Totschnigek ziharduen lanean, eta Jaizkibelgo gainean 51 segundo ateratzen zion **zazpikoteak** tropelari. Berria - Kirola

**2** irud/hed

Altzairugilea ez zen Ibex-35en galerak izan zituzten **zazpikotean**. Berria - Ekonomia

---

**zazpina** **1** *banatz* bakoitzari zazpi, bakoitzak zazpi.

**Zazpina** jokalari izaten dira alde bakoitzean. Iñaki Mendiguren

Zeruko hegaztietatik ere **zazpina** bikote, ar-emeak, hauen arrazak munduan iraun dezan. Elizen arteko biblia

**Zazpina** gol sartu zituzten. Berria - Kirola

Bi solairutan **zazpina** leiho neoklasikoz osatua, belarrik gabeko hondar muinoan altxaturik, paraje idorretako lore bakarti agertzen zitzaigun. Txillardegi

Beste alde biek ere **zazpina** zentimetro zeuzkaten. Unai Elorriaga

**Zazpina** ipuineko liburu bana besapean zutela agertu ziren. Berria - Kultura

**Zazpina** mila euroko bina beka poesian, saiakeran eta haur eta gazte literaturan. Berria - Kultura

EAJ-EAk 18 ordezkari lortu zituzten, bederatzi Gipuzkoako Aurrerazaleek (PSE), **zazpina** CCOOk eta Banatuz-ek (LAB) eta bi ELAk. Berria - Ekonomia

Boteak **zazpina** eta oren bat eterdi ezbaian partida. Herria

**2** ***zazpinako*** *izlag* zazpik osaturiko.

Markagailuak **zazpinako** berdinketa erakusten zuen hamabosgarren minutuan, eta, tarte horretan, denboraldi honetan inork gutxik lortu duena lortu zuen Wislak gainera: Portlanden aurretik jartzea. Berria - Kirola

---

**zazpinaka** *adlag* zazpinako multzoetan.

Hara biltzen dira merkatariak, **zazpinaka** edo zortzinaka, ohiturari jarraiki bina katilu te edatera. Jose Morales

**Zazpinaka** josi ogi-buruak benedikatu zituen apezak. Berria - Kultura

Orain den-dena hirunaka edo bosnaka egin beharra daukat, baina, duela hilabete batzuk arte, launaka edo **zazpinaka** aritzen nintzen. Xabier Olarra

Aritmomania esaten zaion joera baitut: eginkizun desatseginen aurrean batez ere, binaka kontatzen hastekoa, edo **zazpinaka**, nahi adina luza dezakedan mugara iritsi arte. Ramon Saizarbitoria

---

zazpinako ik **zazpina 2**.

---

**zazpiren** *iz* zazpi zati berdinetan banatu den osotasun baten zati bakoitza.

1700. urtetik aurrera, Amerikak, Indiak eta Afrikak britainiar inportazioen herena eta esportazioen **zazpirena** hornitzen zituzten, eta ehuneko horiek areago handituko ziren XVIII. mendean. Koro Navarro

Arkitrabearen altuera modulu batekoa izango da, tenia eta gotak ere kontuan hartuta; teniak moduluaren **zazpiren** bat izango du. Santiago Iruretagoiena

Abakoaren zabalera kapitel-altueraren **zazpiren** bat izango da. Santiago Iruretagoiena

---

zazt ik **sast**.

---

zaztada ik **sastada**.

---

zaztaka ik **sastaka**.

---

zaztako ik **sastako**.

---

zaztar ik **sastar**.

---

zaztatu ik **sastatu**.

---

**zealdo** *iz* kulunka, balantza.

Mintzatu gabe ere, **zealdoak** salatzen zion mozkorra. Aingeru Epaltza

---

**zealdoka** *(orobat **zialdoka** g.er.)* *adlag* kulunkan, balantzaka.

**Zealdoka** hurbildu nintzen ohantzeraino. Aingeru Epaltza

Ni, ordea, nire buruan atziturik, eroturik, **zealdoka**, ez nuen ezer ulertzen. Matías Múgica

Mainguka ez ibiltzearren, arruntik oinustu eta **zealdoka** gurutzatu nuen ganbera, sarrerako ateraino. Aingeru Epaltza

Hauts harrotuan, gurdiak basaki **zealdoka**, aurigek ankerki zigorkatzen zituzten zaldi eroak. Mirentxu Larrañaga

---

**zealdokatu,** zealdoka(tu), zeladokatzen da *ad* kulunkatu.

Karpetaren gaineko hauts pixarra arriskutsuki **zealdokatu** zen. Aingeru Epaltza

---

**zeanuriztar** *izond/iz* Zeanurikoa, Zeanuriri dagokiona; Zeanuriko biztanlea.

Herenegundik falta zen 42 urteko **zeanuriztarra** eta atzo uretan aurkitu zuten gorpua. Berria - Euskal Herria

Argazkilari **zeanuriztarraren** 1.500 argazki dauzka gordeta Manterola sendiak. Berria - Kultura

**Zeanuriztarren** istorioak jasotzeko asmoz, herriko hainbat jenderekin hitz egin du Mendibilek. Berria - Kultura

---

zear ik **zehar**.

---

**zeberiotar** *izond/iz* Zeberiokoa, Zeberiori dagokiona; Zeberioko biztanlea.

Jose Ramon Alberdi apaiz **zeberiotar** jatorraren eskuzabaltasunari esker. Joxerra Garzia

Abenduan Josu Artetxe Aiesta **zeberiotarra** hil zuen Guardia Zibilak Altzako etxe batean. Jokin Urain

---

**zebra** **1** *iz* zaldiaren familiako ugaztuna, Afrikakoa, astoaren antzekoa, gorputzeko ile zuri-horia zeharkako zerrenda beltzaranez edo beltzez marratua duena *(Equus cebra)*.

Egun osoa ehizan eman ondoren **zebra** bat akabatu eta sorbaldan dakarren ehiztariaren eran. Harkaitz Cano

Narrasti beltzak, horiak, moreak, **zebra** edo tigrearen erara marratuak pilatzen ziren. Karlos Zabala

Animalia bat ezagutzekotan, mugimenduagatik edo ezaugarri bakar bategatik ezagutzen zuen Virgilek -kangurua jauziengatik, jirafa garaieragatik eta **zebra** marrengatik-, baina ezin zuen animaliaren inpresio orokorrik jaso. Xabier Olarra

**Zebra** ikaratuak korrika ibiltzen dira puska batean, eta gero gelditu eta belarra jaten hasten dira berriz ere. Koro Navarro

Lehoiari atzaparrak eta hortzak eman zizkion Berberak **zebraren** gorputza marraztu zuen. Bernardo Atxaga

**2** (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

Lehoi batek **zebra** talde bati erasotzen dio eta bat hiltzen du. Koro Navarro

**Zebra** taldea bat eginda badago, lehoiak begiratu eta ez du, nonbait, zebra bat, animalia jakin bat, ikusten, kolore eta marra hodei bat baizik. Bernardo Atxaga

Maillot gorri ikusgarria sotoan utzi zuten, eta **zebra** itxurako maillot zuri-beltz marradunarekin agertu. Berria - Kirola

Berdin hartzen zuten atseden parke baten sarreran edo **zebra** -pasabide mortuen erdian. Harkaitz Cano

Maianak soa apaldu zuen eta konturatu zen oinezkoen **zebra**-pasabidetik hamar bat zentimetrotan zegoela. Itxaro Borda

Dyna Panhard batean ibiltzen ginen: zapo mutur-biribil luze bat, hori kanario-kolorea, aulkiak eskai **zebra** imitaziozkoak eta lapiko zaharraren hotsa. Josu Zabaleta

**3** ***zebra-arrain*** karparen familiako arraina, gorputza marratua duena, akuarioetan ikus daitekeena*(Danio rerio)*.

**Zebra arraina** egun aski eredu erabilia da zientziaren alorreko ikerketa asko egiteko, batez ere genetikaren alorrean. Berria - Euskal Herria

**Zebra arrainen** ezaugarriak bereziak dira, eta askotan erabiltzen dituzte farmazioko ikerketetan. Berria - Euskal Herria

**Zebra arrainaren** enbrioia gardena da, eta ikerlariek arrainaren bihotza, hezurrak, neuronak... fluoreszente bilaka ditzakete tinten bitartez. **Zebra arrainak** ugaltzeko gaitasun handia dauka eta belaunaldi bereko arrain asko jaiotzen dira. Berria - Euskal Herria

**4** ***zebra bide*** *(10 agerraldi, liburu 1 eta 4 artikulutan; orobat* ***zebrabide*** *30 agerraldi, 10 liburu eta 7 artikulutan)* oinezkoentzako igarobidea, kale eta errepideetan zeharkako zerrenda zuri zabalez markatzen dena.

Kontua gelditu gabe jardutea zen, eta kalearen alde batetik bestera pasabide markatuetatik, **zebrabideetatik** pasatzea, semaforoak errespetatuz. Iñaki Iñurrieta

Simagoko **zebrabidea** gurutzatzean gizon bat geratu zitzaion alboan. Unai Iturriaga

Aita bat eta hiru seme-alabak zutikako seinalea duen **zebrabide** bat igarotzen ari zirela harrapatu zituen furgonetak. Berria - Euskal Herria

San Adriango autobus geltokiaren ondoko **zebrabidea** gurutzatzen ari zela. Pedro Alberdi

Bere aurretik, oso gertu, senar-emazte batzuk ari dira kalea zeharkatzen, **zebrabidetik**. Josetxo Azkona

Urtarrilaren 3an **zebrabidean** gelditu ez zen furgoneta batek ume bi harrapatu eta hil egin zituen Basurtun, hiriburuko sarbidean. Berria - Euskal Herria

Blok txiki bat poltsikoan duela ibiltzen omen da eta tarteka, inork gutxien espero duenean, kale bazter batean edo **zebrabidearen** erdian geratu eta hasten omen da idazten. Joxean Agirre

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
> **zebra arraina** (3); **zebra arrainak** (3); **zebra itxurako** (3)

---

zebrabide ik **zebra 4**.

---

## zebratu, zebra(tu), zebratzen da/du *ad* zebraren antzeko marrez hornitu.

Argiak eta itzalek **zebratua**, ohe horrek ezin du luzaro hutsik egon. Harkaitz Cano

Zinemako pantailan zelda huts bat ageri denean bezala, Gela **Zebratua** maiuskulaz, pertsonaia bat gehiago delako. Harkaitz Cano

Gela **Zebratuan** zaude, pantailako zeldan. Harkaitz Cano

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
> **gela zebratua** (4)

---

## zebu *iz* behiaren familiako ugaztuna, idiaren antzekoa, soinean gantzazko konkor bat edo bi dituena*(Bos indicus)*

Euliak, **zebuaren** kopetan zehar dabilela, uste osoa dauka berak baduela zerikusirik abere horrek egiten dituen burukadekin. Josetxo Azkona

-Ez dio axola ze'ak, **zebuak** badira? Juan Garzia

---

## zedarri *(orobat* ***xedarri*** *g.er.)* **1** *iz* mugarria.

Hamahiru urteen **zedarria** gibelera utzi arte ez dakit nola moldatzen nintzen. Aingeru Epaltza

Atapuercan sartu aitzin dagoen **zedarriari** ez naiz ohartu ere: "Erregearen bukaera" deitzen da harria. Piarres Aintziart

Hona beste **zedarri** bat, zenbat kilometro gelditzen diren Santiagora heltzeko erakusten diguna. Piarres Aintziart

**Zedarri** bati kontra jarririk, sagar bat janez. Piarres Aintziart

"A Santiago" hitzen azpian gezi horia, ondo ondoan **zedarri** moderno bat, axal urdin ttikian maskorra daukana. Piarres Aintziart

Erreinuen oinarriak, alorren **zedarriak**, eraikinen zimenduak. Piarres Xarriton

Herriek ere hunkitzen ahalko dute laguntza hori beren eremu komunen tratatzeko, dela bastizak, hesolak, **zedarriak** berritzeko, bortu gunetan etxolak edo etxauak eraikitzeko. Herria

Mendiei ezin zaie **zedarririk** ezarri! Elena Touyarou

**2** irud/hed

Lehian eta sokatiran hasi zaizkigu atzoko eta gaurko belaunaldiak, eskuineko eta ezkerreko alderdiak, bakoitzak ongi finkatuz bere **zedarriak** eta gogor eraikiz bere gotorleku propioak. Piarres Xarriton

Gure gaztaroko mundu mota, bere **zedarri** finkoekin, betikotz desagertua dela. Piarres Aintziart

Hamahiru urteen **zedarria** gibelera utzi arte ez dakit nola moldatzen nintzen. Aingeru Epaltza

Erdi Aroko kanonen **zedarriak** gainditu gabe, Liburu Sainduen eta Elizako Aiten iturrietara itzulia zen isil-isila. Piarres Xarriton

Badaki ermita hori aspaldi hasitako galera baten **zedarria** besterik ez dela, konponbide baten itxaropena irentsiz galera behin betikoa bilakatu duen abiapuntu errugabea. Pako Aristi

Agatarekiko eztabaiden ingurua egina bide zuen, neskaren jakitatearen **zedarrietara** heldua zen. Itxaro Borda

Komeni da hemen prozesu horren bi **zedarri** aipatu eta azpimarratzea. Santiago Iruretagoiena

Orobat izango ziren, zalantzarik gabe, **zedarri** funtsezkoak biologiaren eta medikuntzaren historian. Juan Garzia

Beti erreala den Geografiaren **zedarriak** ezagutzen ditut, baina ez lurraren deskripzio ahalgarri ororen mugak. Ibon Uribarri

Sentimenaren **zedarriak** inoiz ezin dituela gainditu, objektuak hauen barnean soilik eman ahal baitzaizkigu. Ibon Uribarri

Arrazoimenak bere baitan legegabea den askatasunari **zedarriak** ezartzeko erabiltzen duen printzipioari dagokionez [...]. Ibon Uribarri

**Zedarririk** gabeko orotasuna, ordea, batasun absolutua da. Ibon Uribarri

**3** (izenondoekin)

Haien odolari esker berreskuratu zituen beraz Frantziak, 1870ean aleman etsaiak ebatsi lurrak, eta Rhin ibaiaren ertzean finkatu zituen sekulakotz bere **zedarri** naturalak. Piarres Xarriton

Gure arrazoimenaren **zedarri** estuak salatuz. Ibon Uribarri

Edo gure arrazoimen hutsa konfiantzaz hedatu ahal izan behar da edo berari **zedarri** determinatu eta seguruak ezarri ahal izan behar zaizkio. Ibon Uribarri

Platonek sentsuen mundua utzi zuen, honek adimenari hain **zedarri** hertsiak ezartzen dizkiolako. Ibon Uribarri

**4** (hitz elkartuetan)

Bi manamendu baditiat bide-**zedarri**! Itxaro Borda

## zedarrigabe *izond* zedarririk gabea. ik **mugagabe**.

Edonork erraz onartuko du, beren buruei gustura higidura aske eta **zedarrigabea** baimentzen dioten tenperamentuak eta talentuek [...] zentzu batean diziplina behar dutela. Ibon Uribarri

"Arima ez da hilgarria" esakunearen bitartez benetan baieztatu egiten dut forma logikoaren arabera, arima zerizan ez-hilgarrien lurralde **zedarrigabean** ezartzen dudan heinean. Ibon Uribarri

Erabileran beren zedarritasun enpirikoa erakustea noizbehinka judizioen beharbadakotasuna erakustea baino errazagoa denez, edo batzuetan argigarriagoa denez judizio bati egozten diogun orokortasun **zedarrigabea** bere beharrezkotasun gisa erakustea, [...]. Ibon Uribarri

---

## zedarrigabetasun *iz* zedarrigabea denaren nolakotasuna.

Intrahistoriaren metafora ia denek egona, pasibitatea adierazten dute ("xxxx"), eta denboragabe eta **zedarrigabetasuna** ("xxxx"), h[au] d[a], izan bat, intuizioak bakarrik atzeman ahal izateko modukoa. Joxe Azurmendi

---

## zedarrigabetu *izond* zedarriak kendu zaizkiona.

Autore alemanetan ez dago "izpiritu" metafisiko aldez aurrekorik, edozertsutarako ahalmen **zedarrigabetu** gisa; dago izpiritu (kultura) manifestatu sozial historiko bat -herri bakoitzak berea-, izpiritu (nortasun) baten obra bezala interpretatzen dena. Joxe Azurmendi

---

## zedarritasun *iz* mugatasuna.

Erabileran beren **zedarritasun** enpirikoa erakustea noizbehinka judizioen beharbadakotasuna erakustea baino errazagoa denez, edo batzuetan argigarriagoa denez judizio bati egozten diogun orokortasun zedarrigabea bere beharrezkotasun gisa erakustea, [...]. Ibon Uribarri

---

## zedarritu, zedarri(tu), zedarritzen *(100 agerraldi, 33 liburu eta 21 artikulutan)* **1** du *ad* zedarrien bidez seinalatu edo mugatu. ik **mugarritu**.

Hurrengo minutuan, denak kanpoan zeudela, bi hilerrietako behin-behineko mugak **zedarritu** ziren. Jon Alonso

Lurrak ez **zedarritzeak**, gainera, kolonoen eta indigenen arteko gatazkak areagotuko dituela nabarmendu du Survivalek. Berria - Gaiak

**2** *hed/irud* ik **zedarriztatu**.

Ama bat negar batean ari da bere lurretako mugak **zedarritzen** dituen egurrezko hesiaren alboan. Harkaitz Cano

Eskuinetara, pasealeku estu bat **zedarritzen** zuten zuhaitzek. Aingeru Epaltza

Ziztuan nindoan burdinesiz **zedarritutako** karrika estuetan barna. Aingeru Epaltza

Eguzkiak argiztatutako eraikin batzuek parkea **zedarritzen** zuten hegoaldean eta ekialdean. Lopez de Arana

Ile gorrixkaren mataza izurtu batek kiribil lisoez **zedarritzen** zion kopeta luze eta estua. Lopez de Arana

Gizon argia zen, helburuak ondo zehazten eta helburuetara iristeko bideak zuzen **zedarritzen** zekiena. Koldo Zuazo

Geratu egin zen une batez, ateko markoak **zedarritzen** zuen koadroari begira. Harkaitz Cano

Kalea San Joanen hasten da, eta Kanpandorre kalean amaitzen; Parte Zaharra **zedarritzen** zuen. Askoren artean

Uhartea **zedarritzen** zuten lau argi iturrien labankadek ilunbeak ebakitzen zituztela, Creac'hen maldara heldu ginen. Itxaro Borda

Guztiz arbitrarioak diren mugak jartzen saiatzen baikara gure ingurua espazio-denboretan **zedarritzeko**. Pello Salaburu

Alderdiak zatikatu ziren, Hegoaldeko borroka sustatzen eta Iparraldekoa onesten zutenen arteko leizeak **zedarrituz**. Itxaro Borda

Bere ibilbide akademikoa behar bezala **zedarritzeko**. Juan Ignacio Pérez / Pello Salaburu

Subjektu begiralea da trazu berezien taula bati dagokionean, eta ohar-hartzailea tipo deskribatzaile bati dagokionean; hautemate urruntasun ezin hobe batean dago kokatuta, bere mugek informazio egokiaren aleak **zedarritzen** dituztelarik. Xabier Arregi

Erregistro hauetako bakoitzean zenbait objektu izendatu dira, **zedarritu**, aztertu, eta horren ondoren zuzendu, atzera definitu, ihardetsi eta ezabatu egin dira. Xabier Arregi

Irudien historia **zedarritu** duten berrikuntza teknologikoen artean bada bat askotan egiazko iraultzatzat hartu izan dena; argazkiaren asmakuntzarekin irudi "automatikoak" sortzeko aukera ekarri zuena, hain zuzen. Josu Zabaleta

Zigorgabetasunak **zedarritzen** duen sistema bihozgabea. Filipe Bidart

**3** (era burutua izenondo gisa)

Ikerkuntza egiteko erabiltzen diren baliabideak ere inguru zabalago batean aztertu behar dira, ez unibertsitateak jartzen dituen muga **zedarritu** horietan bakarrik. Juan Ignacio Pérez / Pello Salaburu

"Garapen" hitza, halaber, oso gauza **zedarritu** bat adieraztera mugatu da zenbaitetan. Itziar Eizagirre / Amaia Lizarralde

Holako ikastegietan ikasten zutenak pribilegiodunak zirela, goi mailako hezkuntza nahiko **zedarritua** eta mugatua baitzen. Juan Ignacio Pérez / Pello Salaburu

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
> lurrak zedarritzea (3)

---

## zedarritzaile *izond* zedarritzen duena. ik **zedarriztaile**.

Mintzaldi hipnotiko eta zurrunak luzatuz, politikariek zein kulturaren **zedarritzaileek** medailak, oroit taulak, kopak eta zinezko baliorik gabeko mila girgilak oparitzen zizkioten. Itxaro Borda

---

## zedarritzapen *iz* zedarritzea. ik **zedarriztapen**.

Ez nezakeen gehiago ametsaren eta egiaren arteko **zedarritzapena** hauteman! Daniel Landart

---

## zedarritze *iz* zedarrien bidez seinalatu edo mugatzea.

Espeziea ez da ulertu behar hemen klase baten **zedarritze** abstraktutzat, baizik eta beren esentziaren indarrez propietate komun batean partaide diren banakoen multzotzat. **Zedarritze** isil bat ezarri zaie aurreko azterketa guztiei, euren hastapena eman gabe, bere zirriborroa zehaztua izan gabe. Piarres Xarriton

**Zedarritze** instantziak deskribatu beharko lirateke: XIX. mendean medikuntza [...] gizarteko instantzia nagusiena bihurtu zen zoramena mugatzeko, bera izendatzeko eta objektu modura finkatzeko. Xabier Arregi

## **zedarritzearren** *adlag* zedarritzeko.

Alferrik ari nintzen gaztainondoak zenbatzen saiatzen, Vellédarekiko kokatzen, haien altuera platanondoen altuerarekin alderatzen: haietako bakoitza itzurtzen zitzaien haiek **zedarritzearren** bilatzen nituen loturei, bakartu egiten zen, gainez egiten. Monika Etxebarria

---

## **zedarriztaile** *izond* zedarritzen duena. ik **zedarriztatzaile**.

Zeren anizkuntasun indeterminatua ematen duten baldintza **zedarriztaile** guztiak alde batera uzten baitira. Ibon Uribarri

Bere lotura-ahalmenaz kontziente den inteligentzia gisa existitzen naiz, baina berak lotu behar duen anizkunkiari begira barneko sentsua deitzen zaion baldintza **zedarriztailearen** menpean existitzen naiz. Ibon Uribarri

Bere izaera enpirikoa izenda dezakegun adigaia, hau agerpen soiletatik abiatuta argitzen den heinean, eta iraunkorra dena, ondorioak, aldiz, tankera aldakorretan agertzen diren bitartean baldintza laguntzaileen eta (aldez) **zedarriztaileen** arabera. Ibon Uribarri

---

## **zedarriztapen** *iz* zedarriztatzea.

Puntuak eta aldiuneak mugak besterik ez dira, h[au] d[a], espazioaren eta denboraren **zedarriztapenaren** kokaguneak. Ibon Uribarri

Legeak hemen ere gure askatasunaren **zedarriztapen** soilak dira, hau bere buruarekin osoro adosteko baldintzetara **zedarriztapenak**. Ibon Uribarri

Hau badiot: "gauza guztiak kanpoko agerpen gisa bata bestearen ondoan daude espazioan", orduan erregela honek orokorki eta **zedarriztapenik** gabe balio du. Ibon Uribarri

Zientzia ezagutza-ekoizle gisa ezaugarritzen duen irudiak hortxe dirau, baita objektu-subjektu **zedarriztapen** klasikoak ere. Askoren artean

Zientzia-praktikaren arrabol honetan, subjektu-objektu (gizartea-izadia) **zedarriztapen** absolutua deuseztatu egiten da. Askoren artean

Ezeztapen guztiak [...] errealitate handiago baten eta, azkenik, errealitate gorenaren **zedarriztapen** soilak dira. Ibon Uribarri

Gure arrazoimenaren mugen determinazioa apriorizko oinarrien arabera baino ezin daiteke gertatu; bere **zedarriztapena**, berriz, [...] *a posteriori* ere ezagut daiteke jakintza orotan oraindik jakiteko geratzen zaigunaren bitartez. Ibon Uribarri

---

## **zedarriztatu**, zedarrizta(tu), zedarriztatzen *(78 agerraldi, 3 liburu eta artikulu 1ean)* **1** du *ad* zedarri ez-fisikoen bidez seinalatu edo mugatu. ik **zedarritu 2; mugarriztatu**.

Lehenik lanean hasten diren enbrioiaren geneen egingizuna modulu horien lurraldea **zedarriztatzea** da; hasieran, berdin-peto dira modulu guztiak ere, eredu baten kopiak. Juan Garzia

Muga horiek **zedarriztatzerakoan** sortzen dira nonahiko eta nolanahiko oztopoak. Andres Urrutia

Hau onartu nahi ez bada, orduan nire esakunea Matematika hutsera **zedarriztatzen** dut. Ibon Uribarri

Puntuak eta aldiuneak mugak besterik ez dira, h[au] d[a], espazioaren eta denboraren zedarriztapenaren kokaguneak; baina kokaguneek **zedarriztatu** edo determinatu behar diren begiespenak aurresuposatzen dituzte beti. Ibon Uribarri

Espazioa kanpoko begiespen ororen forma huts gisa kanpoko agerpenetara baino ez da **zedarriztatzen** apriorizko baldintza den aldetik. Ibon Uribarri

Metafisika **zedarriztatzen** duen kritika bat negatiboa da hainbestez, baina aipatutako erabilera **zedarriztatzeko** eta suntsitzeko mehatxua egiten duen oztopoa aldi berean deuseztatzen duenez gero [...]. Ibon Uribarri

**2** (era burutua izenondo gisa)

Legeen aplikazioan nabarmentzen den antinomia nomotetikaren etsamina-saialdi onena da gure jakituria **zedarriztatuan**. Ibon Uribarri

---

## **zedarriztatzaile** *izond* zedarriztatzen duena.ik **zedarriztaile**.

Hedapen logikoari begira amaigabeak diren judizio hauek, beraz, benetan **zedarriztatzaileak** dira oro harrezko ezagutzaren edukiari begira. Ibon Uribarri

---

## **zeden** *iz* pipia.

Gela ziztrin batean amaituko dut, aldizkari zaharrez eta TelePizzako kartoiez inguratuta, **zedenak** jotako besaulki batekin eta funtzionatzen ez duen telebistarekin. Iban Zaldua

---

## **zeditu**, zedi(tu), zeditzen **1** du *ad* amore eman.

Logikoena patronalak onartzea litzateke, guk **zeditzeko** borondatea izan dugulako. Berria - Ekonomia

**2** kirolariez mintzatuz, beste taldebati utzi.

Emilio Mina futbolista izango zen, baina Atletiarekin partidu batzuk jokatu ondoren, **zeditu** moduan bigarren eta hirugarren dibisioko ekipoetan jardun zuen noraezean, azkenik Osasunan jokatzeko. Joseba Sarrionandia

---

## **zedro** **1** *iz* izeiaren familiako zuhaitz handia, enborra zuzena eta adarrak zeharretara dituena(*Cedrus* sp.).

Libanoko **zedroa** bezala luzatu naiz. Elizen arteko biblia

Jainkoaren baratzeko **zedroak** bezala, bere merezimendu santuen gailurra zeruraino altxatzen zuen. Askoren artean

Aise mintza gaitezke mendeez, zeren **zedroa** zuhaitz biziluzea baita. Juan Garzia

Lorategi bat ikusi zuen amets artean, zuhaitz eta lorez betea, **zedroz** eta akaziaz, palmondoz eta erramuz, astigarrez eta olibondoz. Felipe Juaristi

Santutegiaren aurrez aurre zegoen aldarea, berriz, **zedroz** jantzi zuen. Elizen arteko biblia

**Zedrozko** kaxa ilun baten barruan. Aritz Gorrotxategi

Sabaia **zedrozko** habez eta oholez jantzi zuen. Elizen arteko biblia

Labana-arrastoz beteta zeuden Bennetten idazgelan **zedrozko** hormak. Xabier Olarra

Tenpluaren barneneko azken hamar metroak, berriz, **zedrozko** oholez estali zituen. Elizen arteko biblia

**Zedroaren** hazia **zedro** bihurtuko da, nahi ala nahi ez. Josu Zabaleta

**2** (izenondoekin)

**Zedro** garaiaren adaburutik hartuko dut neuk ere, kimu berri bat hartuko dut haren adar-puntatik. Elizen arteko biblia

Pinu eta **zedro** erraldoiek, multzo zoragarrietan baturik, berdetasun marko xarmantean biltzen zuten ikuskizun hura guztia. Karlos Zabala

Israelgo mendi garaian landatuko dut; adarrak luzatuko zaizkio eta fruitua emango, **zedro** bikain bihurtuko da. Elizen arteko biblia

**Zedro** beneragarri baten enborra da, azkenetako bat. Juan Garzia

Sugi: **Zedro** japoniarra (*Cryptomeria japonica*). Ibon Uribarri

**3** (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

Itzalgune zabalak eguzki galdatik babesteko, zenbaitetan pinu edo **zedro** oihan itzelak, ehun versta luze. Karlos Zabala

Agindu ezazu, beraz, ebaki dezatela niretzat Libanoko **zedro**-sail bat. Elizen arteko biblia

Libanoko **zedro**-kimuak edo palmondoak bezala. Elizen arteko biblia

Horrela, bada, nahi bezainbat **zedro** eta zipres-zur eman zion Hiramek Salomoni. Elizen arteko biblia

Atea balitz, **zedro**-oholez gogortuko genuke. Elizen arteko biblia

Logelan oraindik nabarmenak ziren Ellenen adats sarriaren **zedro**-usaina eta bere soinaren leuntasuna. Lopez de Arana

Supazterraren ondoko erratzari **zedro**-olioaren usaina zerion. Lopez de Arana

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
> **libanoko zedro** (6); **zedro eta zipres** (3); **zedro zura** (10)
> **zedroa bezala** (3)
> **libanoko zedroak** (4)

---

# zedula **1** *iz* paper orri edo txartel batean idatziriko dokumentua.

Hantxe zituen izkiriatzeko behar zirenak, paperak, lumak eta tintontziak, beste hainbat agiri, kontu, **zedula** eta halakorekin. Edorta Jimenez

Argi zegoen, bada, Dartaieten mezua: Oloroeko **zedulako** norbait ari zen, eroetxetik legoa batzuetara, nirekin harremanetan jarri nahirik. Anjel Lertxundi

**2** (hitz elkartuetan)

Bi alderdietako batek galtzen zuenean, ez zegoen bakerik egiterik kondearen oniritzirik gabe, eta horrek zerikusia zuen gure indultu-**zedulekin**. Iñaki Iñurrieta

**3** ***errege zedula*** erregeak izenpeturiko zedula.

Iraultzak bere bideari darraio, eta martxoaren 13an Batzar Eratzaileak errege-**zedulengatik** preso zeudenak askatzeko agindua ematen du. Juan Martin Elexpuru / Bego Montorio

Errege **Zedula** 1786an atera zen tabernetako karta jokoen abusoa salatuz, baina, 1794 arte ez zuten betearazi Leitzan: [...]. Patziku Perurena

---

# zeelandaberritar *(3 agerraldi 3 artikulutan)* *izlag/iz* Zeelanda Berrikoa, Zeelanda Berriari dagokiona; Zeelanda Berriko herritarra. ik **zeelandar**.

Amerikarrak, italiarrak eta **zeelandaberritarrak** aski zaila dute beren estazioak hornitzea. Berria - Gaiak

Egungo motokrosslari onenak ariko dira: Andy Jones estatubatuarra, Edgar Torronteras kataluniarra, Stefano Minguzzi italiarra eta Nick Franklin **zeelandaberritarra**, besteak beste. Berria - Kirola

Jonah Lomu **zeelandaberritarra** gero eta hobeto dago, eta litekeena datozen asteetan korrika hastea. Berria - Kirola

---

# zeelandar *(42 agerraldi 25 artikulutan)* *izlag/iz* Zeelanda Berrikoa, Zeelanda Berriari dagokiona; Zeelanda Berriko herritarra.

Filma bera baino areago, baina, zinemagile **zeelandarraren** trilogia aparta saritu nahi izan du Akademiak. Berria - Kultura

Hegoafrikak agindu zuen ia partida osoan Hiru Nazioetako bigarren jardunaldian, baina Doug Howlett hegal **zeelandarrak** partidako azken entsegua egin zuen 80. minutuan. Berria - Kirola

Mehrtens **zeelandarrak** hasieratik jokatuko du. Berria - Kirola

Wellingtonen jokatu zuten partida, eta **zeelandarrek** 16-7 irabazi zioten Australiari. Berria - Kirola

Camberrako ACTrentzat bosgarren finala izango da eta Christchurcheko **zeelandarrentzat** seigarrena. Berria - Kirola

Irak iparraldean, azkenik, berreraikuntza lanetan diharduen atzerriko enpresa batek kontratatutako **zeelandar** bat, hegoafrikar bat zein ere euren gidari irakiarra hil zituzten Kirkuk hiri kurduan. Berria - Mundua

---

# zefalea *iz* buruko mina, eskuarki handia.

Modu bateko edo besteko meningitis kasuetan, eta adinaren arabera zantzuak desberdinak badira ere, meningitis kasurik gehienetan **zefalea**, sukarra, goragalea eta lepoa mugitzeko zailtasunak izaten dira ohiko sintomak haur txikiek janariari uko egin eta negar egin ohi dute. Berria - Euskal Herria

Nekea. **Zefaleak**. Anjel Lertxundi

---

# zefalopodo *iz* itsas moluskoa, eskuarki maskorrik gabea, buru handia, begi nabarmenak eta burutik ateratzen diren garroak dituena.

Begi distiratsua borborrean eta aho hura, ezpain irekietatik so, **zefalopodoaren** mokoa zirudiena. Ramon Saizarbitoria

Arrantzaleari lehen haize-bolada bortitzak ekaitza bezala, gaixotasuna ekarri dio une batez gogora **zefalopodo** horrek, bere buruko beste olagarro hori. Imanol Zurutuza

---

# zegamar *izlag/iz* Zegamakoa, Zegamari dagokiona; Zegamako biztanlea.

Antonio "Bolas" **zegamar** surrealistak. Patziku Perurena

Iker Zubeldia 24 urteko **zegamarra**, Iñigo Izagirre 24 urteko itziarra. Herria

Aitor Perez Arrieta **zegamarra** izango da Baqueko taldeburua bihar. Berria - Kirola

Bat hil egin zen bi ordura: 35 urteko **zegamarra**. Berria - Euskal Herria

Berrogeita hamar urtetik beherako **zegamarrek** ezagutu ere ez naute egiten, eta ezagunekin ere nahiago topo ez egin. Xabier Mendiguren Elizegi

---

# zegoentxo *iz adkor*

Lehenbizi **zegoentxoa** borratu aurrena, eta ez zena azaldu eta indartu aurrerago! Film onentsuenak aurrena, arruntagoak hurrena, zegoen guztia azkena, eta **zegoentxo** horretan bideo pornoak ziren nagusi. Pello Zabala

---

zegunda ik **segundo**.

zegundu ik **segundo**.

---

zeha-zeha ik **zehatu 4**.

---

# zehaketa *iz* zehatzea.

-Kontraesan latzak daude Gojenolaren asmoan -ekiten dio **zehaketari**, hirukotik dardo bat eskuinean hartu eta apuntatzekoa egiten duela-. Iñaki Iñurrieta

---

# zehapen 1 *iz* zehatzea, zigortzea.

**Zehapena** bildu nuen egun hartan, nire lehenbiziko **zehapena**: hamar zigorrada bizkarrean, ikasle eta irakasle guztiak ikusle nituela. Aingeru Epaltza

Ustel horiendako zer **zehapen** edo zigor zuzenagorik ondasunez gabetzea eta horiek leialen eskuetan uztea baino? Aingeru Epaltza

Hoben guztien **zehapenak**, metaturik, berrehun azote baino gehiago egiten zian. Aingeru Epaltza

**2** (hitz elkartuetan)

Media Markt enpresa zigortzeko **zehapen** prozedura martxan jarri du Eusko Jaurlaritzak, Gipuzkoan eta Bizkaian egin zuen publizitate kanpaina bat «sexista» izan zelakoan. Berria - Euskal Herria

Horregatik hartu du Drogamenpekotasun Zuzendaritzak guztia argitzeko ardura, jakiteko legea betearaztea eta urraketak gertatuz gero, **zehapen** prozedurak irekitzea zein saili dagokion. Berria - Euskal Herria

Publizitate kanpaina horrek **«zehapen** espedientea hasteko adinako garrantzia» baduela iritzi dio Jaurlaritzak. Berria - Euskal Herria

---

# zehar (*orobat* ***zear*** *g.er. eta* ***ziar*** *g.er.*) 1 *adlag* elkartzeen lehen osagai gisa, zeharka dagoena, zeharkakoa dena, edo zuzena edo aurrez aurrekoa ez dena adieraziz. *(ikus beheko konbinatorian* zehar *izenondoaren agerraldi maizkoenak).*

**2** (hitz elkartuen lehen osagai gisa)

Hiru oinordeko-mota ezarri zituen, ondorengoak, aurrekoak eta **zehar**-ahaideak. Iñaki Iñurrieta

Kerosenozko argiontzia **zehar**-hagetako batetik esekirik zegoen. Juan Garzia

Urreztatu oholak eta **zehar**-egurrak, eta egin urrezko eraztunak, hauetatik **zehar**-egurrak pasarazteko. Elizen arteko biblia

Eta zeru zurixka hartan euriak **zehar**-arraia ilunak osatzen zituen. Bernardo Atxaga

Ponzo-ren ilusioan, adibidez, goiko marra "urrutiago" balego bezala ikusten da, **zehar**-marren konbergentziak eragiten duen perspektiba-efektuak eraginik. Josu Zabaleta

Une horretan ez zitzaizkidan interesatzen **zehar**-kontu horiek, eta jarraitzeko presatu nuen. Iban Zaldua

Larre-pentzeak **zehar**-argitan, sarale-metak eguzki-argitan gorri. Joxe Austin Arrieta

Zenbat imintzio eta **zehar**-ibilera, zenbat itzulika eta inguruka, esan beharreko hartarik ihesi beti, esan nahi eta esan ezinez. Iñaki Segurola

Haren **zehar**-mintzoa, oporrak behar-beharrezkoak omen nituelakoa, derrigorrez ironikoki ulertu behar nik. Joxe Austin Arrieta

**Zehar**-hitzez, **zehar**-keinuz, bertako trikimailurik oinarrizkoenak jakinez gero, jokoan hasiko litzatekeela jakinarazten zuen. Felipe Juaristi

Ez baitzituen harrapatzen **zehar**-hizkera, aurresuposizioak, ironia, metaforak, txantxak. Xabier Olarra

Halako itzulinguru eta **zehar**-galdez kausitzean ezagutzen dutela ene semea. Juan Garzia

Ondotik pasatzerakoan, **zehar**-so egin nion hegalak berriz ere irekitzen ote zitzaizkion janzkiari. Aingeru Epaltza

Beste **zehar**-esan hura, alegia berak jende gehiegi gonbidatzen zuela (egia zen), eta batzuri ostatua herrian bilatu behar izaten ziela. Anton Garikano

Promes bat betetzeari buruzko **zehar**-aipamen lauso eta misteriotsua. Jon Alonso

Belarrien **zehar**-aipua arbitrarioa da, eta keinua, berriz, jatorriz, sinagogan judu prestuek trukatzen zuten agurraren parodia sakrilegoa zen. Juan Garzia

Gogoko zuen, gainera, katolizismoari **zehar**-eztenkadak ematea. Irene Aldasoro

Huraxe zen bere **zehar**-oldartze, jukutria, azpijoko eta portaera lizun guztien zioa eta helburua. Berria - Kultura

Galdetu nuen bakoitzeko, **zehar**-eskapo beste erantzunik ez nuen jaso. Pello Zabala

Gorputzeko atal gehienetan, **zehar**-konexioak izaten dituzte tarteka auzo-arteriek. Irene Aldasoro

Badira beste **zehar**-lotura asko ere, zelula horiek sareetan biltzen dituztenak. Josu Zabaleta

Izterrezur edo femurraren buruaren **zehar**-ebakiduran ikusten diren trabekulen antolamendua. Irene Aldasoro

**Zehar**-ondorioak dira horiek. Berria - Kultura

Sei mila tona itsasoan hondoratu izana ongi zetorkiokeen bertako arrainei, agian, baina gizadiaren kaltetan doa, gizakiak gosez hiltzen segitzeko **zehar**-neurria baita. Edorta Agirre

Eremu propioaz gainera, gure jarduera osoa busti behar duen **zehar**-lerroa ere bada. Berria - Harian

Tipografoen abileziaz fio naiz, tipografoak, botikarien familia edipiko eta ospetsuaren **zehar**-tribu hori. Jon Alonso

Haren **zehar**-begiak hazka egin zidan. Aingeru Epaltza

**Zehar**-begiz, anaiaren esku bat ikusi nuen, narraska, neskak jantzirik zuen bere txabusinaren azpira. Aingeru Epaltza

Halako itzulinguru eta **zehar**-galdez kausitzean ezagutzen dutela ene semea. Juan Garzia

**3** (hitz elkartuen lehen osagai gisa, bigarren osagaia izena ez dela)

Jolas-gelako ateak kristal **zehar**-argitsuak ditu. Xabier Olarra

Honela esango zuen, izeba Kate eta izeba Julia **zehar**-aipatuz: [...]. Irene Aldasoro

Kristinari **zehar**-begira egiteko denbora kostatu zitzaion ohiko irribarre kokina agertzea. Aingeru Epaltza

Dena zen, hala esaterik badut, **zehar**-amestua.Euskaraz zergatik idazten dugun ari zaizkigu **zehar**-galdezka. Eduardo Matauko

• **4** *izond* okerra, zeharkakoa. ik **zeihar**.

Halako aukerak ez dirudi Jainkoaren deia denik, okerra eta zeharkakoa delarik; honetan asko okertzen dira, aukera **zeharra** eta txarra jainko-deitzat harturik. Patxi Altuna

Zuzen berarekiko zut den zuzen batek eta **zeharra** den zuzen batek nahitaez elkar ebaki behar dutela kontuan harturik frogatu nahi izan zuen Nasirek 5. postulatua. Jon Muñoz

Honek mutila begi **zeharrez** ikusi zuen, kikara bat te edaten ari zela. Patxi Zubizarreta

*ik beherago* 8. Askoren artean

Orain konprenitzen ditiat herritarren begirada **zeharrak** hitaz urguiluz ari nintzelarik. Itxaro Borda

Igandez herriko bidexka **zeharretan** lasterka nabil zakurra ondotik dudala. Itxaro Borda

Euri **zeharrak** kabinako bitrak kolpatzen dituela. Itxaro Borda

Beste inori entzuten ez zitzaizkion hitz miragarriak esaten zituen: gipura, izurdurak, Txinako krepa, larrugaina, ozkar puntua, izur **zeharra**, gona-taulak, bolantak... Joxan Elosegi

**5** ***zeharrean***

-Metrailatzailea! **Zeharrean** ari dira igarotzen. Josu Zabaleta

Areto guztia korritu behar izan nuen, luzeran, zabaleran nahiz **zeharrean**, barrez lehertzeko zorian zegoen neska gazte hura lepoan neramala. Joxan Elosegi

## 6 *zeharretara* *adlag* zeharka.

Batera, bestera, **zeharretara** eta trabeska. Berria - Kirola

-Hiru gora... **zeharretara** bi. Iñaki Mendiguren

Doña Rosak esaten zidanan nolako zuloak nahi zituen, handiak edo txikiak, goitik behera edo **zeharretara**, eta nik berehala egiten nitinan. Xabier Mendiguren Elizegi

Argi eta garbi ikusten baitugu pisuak, goitik amiltzean, ez daitezkeela, eurenez behintzat, **zeharretara** mugi. Xabier Amuriza

Korronteak **zeharretara** zeraman hara, eta minutu batzuen ostean lurmutur txiki bat erdietsi zuten. Joanes Urkixo

Eguzki lapranak hiribidea **zeharretara** hartu eta bi itzalak neurrigabe luzatzen zituen galtzadan zehar. Karlos Zabala

Ilunpe zarratuaren artetik, neska gaztea ikusi zuen **zeharretara**. Mirentxu Larrañaga

Sorbeltzak goi-goian zebiltzan, **zeharretara** bizi-bizi hegaka, eta gure inguruan txilioka. Mirentxu Larrañaga

Charliek **zeharretara** begiratu zion Mollyri. Mirentxu Larrañaga

Corleyk **zeharretara** begiratu zion lagunari, eta irribarre desatsegin bat agertu zitzaion aurpegian. Irene Aldasoro

**Zeharretara** so eginda, zetazko belo berdeak jantzirik dantzan ari zen emakume bat ikusi zuen Ellenek. Lopez de Arana

## 7 *zeharretik* *adlag*

Neure parean, taldekide bat **zeharretik** ikusi eta harixe pasatu nion baloia. Joan Mari Irigoien

Idazketa horren testigu naiz, **zeharretik** begiratuz. Edorta Jimenez

Lepoa luzatu zuen eta, horrela, emakumea jotzen ari zen bitartean, Emile **zeharretik** ikusi ahal izango zuen. Lopez de Arana

Ibiliz hizketan gindoazela, **zeharretik** nolabaiteko harriduraz ikusmiran ninduzula nabaritu nuen. Eduardo Matauko

## 8 *zeharrez* *adlag* zeharretara, zeharka.

Neskatxak **zeharrez** begiratu zion eta, ilea txirikordatu bitartean, erantzun: [...]. Besaulkian jarraitzen zuen, furfuriak hartua, baina leiho aldera jiratu zen, hari **zeharrez** begiratzeko. Patxi Zubizarreta

Neskak, **zeharrez**, gizonaren gorputz luze eta galantari erreparatu zion. Patxi Zubizarreta

-Zein ordu dela kalkulatzen duk? -galderaren hutsala nabarmentzeko hormako erlojuaren orratzak irakurri zituen **zeharrez**-. Josu Landa

Gazte biak paseoan hasi dira patioaren alderik alde, agurearen kromoa **zeharrez** barrandatzeko. Koldo Izagirre

Sekulako zintzarri eta kate azantzaz sei mandok tiratutako diligentziari behako ikaratu bat egiten ziola **zeharrez**. Koldo Izagirre

## 9 *zehar-begirada* (*orobat* ***zeharbegirada*** *g.er.*)

Ibiltzeari utzi gabe **zehar begiradak** egin dizkio urari. Pello Lizarralde

Farringtonen begi uher astunek **zehar-begirada** bat luzatu zioten lagun-taldeari, txantxetan ari zitzaizkiola ulertzen zuela erakutsi nahirik. Irene Aldasoro

Txamarrok **zehar begirada** bat bota dio Joxeri Abelekin jarraitu aitzin. Pello Lizarralde

**Zehar begiradek** argiro adierazten dute Abelek agurearen hurrengo mugimenduez jabetzeko eginahalak eginen dituela. Pello Lizarralde

Liluraturik utzi zuen haien **zehar-begiradaren** adierazpenak. Irene Aldasoro

**Zehar begiradaz** ohartu zen non zeukan Angiek eskua jarria eta berea eraman zuen hara. Iñaki Zabaleta

Zure aitaren **zehar-begiradak**, amaren hasperenak, ahizparen barre txikia... ez dago sekreturik niretzat. Arantxa Iturbe

## 10 *zehar begiratu* (*orobat* ***zeharbegiratu*** *g.er.*)

Anaiari **zehar-begiratua** egin, oporto-kopa gora altxatu, eta azken hitzak esan ditu tabernatik irten baino lehen. Xabier Etxabe

**Zehar-begiratua** oinetakoei eta galtzerdiei, bidean botata zeuzkanei. Anton Garikano

Kanpoan egon den bitartean bi gizonek, jateari utzi gabe, **zehar begiratuak** gurutzatu dituzte. Pello Lizarralde

**Zehar-begiratu** ilunekin eta amorraziozko marmarrekin, ikasleek liburuak zabaldu zituzten. Iñaki Mendiguren

-Hala eta guztiz be, penagarria da arraunean egin beharra -esan zion Hagridek, Harryri beste **zehar-begiratu** bat eginez. Iñaki Mendiguren

## 11 *zehar-estilo*

Hizketetan aberatsak, dena hizketen bidez adierazten dute, **zehar estiloa** baztertuz. **Zehar-estiloa** urrun eta ahula da; badakit nire kontaeraren eragingarritasuna sakrifikatzen ari naizela; imajina ditzatela nire irakurleek gau hartan hala larritu ninduten esaldi etenkatuak. Jose Antonio Mujika

**Zehar estiloz** kontatuta, haren jardunak baluke hari logikoa, eta horixe jasotzen saiatzen zen Gabin, lagunaren estropezuak eta tartekako esanezinak gora-behera. Iñaki Iñurrieta

## 12 *zehar-haga* (*orobat* ***zeharraga***)

Burdin sarea altua zen, txikia, hiru barrarekin eta **zeharragarik** gabe. Koro Navarro

Kerosenozko argiontzia **zehar-hagetako** batetik esekirik zegoen. Juan Garzia

Peter zutik zegoen, burua **zeharraga** baten kontra bermaturik, eta nik eserita jarraitzen nuen. Josu Zabaleta

Egur horren gainean, puntelen eta **zeharragen** tartean zeharka jarrita, egurrezko beste armazoi bat jartzen zen akerrekin eta besoekin gogor sendotuta. Santiago Iruretagoiena

## 13 *zehar haize* (*orobat* ***zeharhaize*** *g.er.*)

Hego emea deitzen zaion xumeari (emakume haizea ere bai, zenbait parajetan), hego arra edo haize zakar bortitza den horri, gaztel hegoa edo gaztel haizea deitzen diogun horri, edo hego andaluziar eta afrikanoari, edo (izen gehien dituen) hego mendebal, **zehar haize**, aldaize eta gorbeianoa deitzen diogun bihurriago horri. Pello Zabala

Korridorean **zehar haize** hotza zabaldu balitz bezala izan zen. Iñaki Mendiguren

Gauez zeruan **zehar haizeek** hodei banakak arrastatzen dituztenean, izar argitsuak eurongananantz lerratzen direla eta benetan doazen aldeaz oso besterantz doazela dirudi. · Ereinotz mendietan **zehar haize** zirimolek sakaturiko garra zabaltzen eta bere oldar handian dena irensten duenean bezala. Xabier Amuriza

## 14 *zehar-kalte* (*orobat* ***zeharkalte*** *g.er.*)

Gerra luzea bada eta **zehar-kalte** ugari badaude, denek esango dute oker izugarria izan dela. Berria - Euskal Herria

**Zehar kalteek**, ahal dela, Iraken izan behar dute. Berria - Mundua

Armada Gorria Berlinen sartu zenean, esaterako, soldadu sobietarrek milaka emakume bortxatu zituzten, baina **zehar-kalte** horiek tabua izan dira beti ezker ortodoxoarentzat. Berria - Harian

Okupazioaren **zehar kalteak**. Berria - Mundua

Wimbledongo garaipenaren **'zeharkalteak'**. Berria - Kirola

## 15 *zehar-lerro* (*orobat* ***zeharlerro*** *g.er.*)

Egoera aztertu, lehenengo eta behin, eta gogoeta horretatik atera daitezkeen **zehar-lerroak** etorkizunean ere elkarrekin garatu behar ditugula uste dugu. Berria - Euskal Herria

Honoko bost programa hauekin: kulturen arteko hezkuntza, herritar aktiboak sortzekoa (garai batean **zehar-lerrotzat** hartutakoak), bizikidetza nahiz bakearen aldeko hezkuntza, ingurune kaltetuetako zentroen sustapena eta ezinduentzako atentzioa. Berria - Euskal Herria

Esparru kritikoa hedatuta, beraz, *queer* kritikarako tresna da gaur egun, **zeharlerroa** bezala ari dena, kultura gaytik haratago joanda. Berria - Gaiak

**hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 7 aldiz agertzen direnak)**

**arratsaldean zehar** (12); **askotan zehar** (15); **aste guztian zehar** (8); **aste honetan zehar** (7); **aste osoan zehar** (9); **astean zehar** (125); **astean zehar egindako** (7); **atarian zehar** (9); **atlantikoan zehar** (7)

**basamortuan zehar** (17); **basoan zehar** (17); **bere bizitzan zehar** (13); **bidaian zehar** (23); **bidean zehar** (39); **bizian zehar** (11); **bizitza osoan zehar** (20); **bizitzan zehar** (78)

**denboraldi osoan zehar** (7); **denboraldian zehar** (23); **denboran zehar** (100); **denboran zehar gertatzen** (8)

**eboluzioan zehar** (19); **egun guztian zehar** (8); **egun osoan zehar** (40); **egunean zehar** (133); **egunetan zehar** (19); **emanaldian zehar** (14); **espainian zehar** (7); **espazioan zehar** (8); **etorbidean zehar** (8); **etxean zehar** (13); **europan zehar** (42); **euskal herrian zehar** (21)

**frantzian zehar** (9)

**gau osoan zehar** (14); **gauean zehar** (14); **gelan zehar** (32); **goizean zehar** (17); **gorputz osoan zehar** (10); **gorputzean zehar** (11)

**hamarkadetan zehar** (7); **haranean zehar** (7); **herrialdean zehar** (7); **herrian zehar** (40); **hiri osoan zehar** (8); **hirian zehar** (44); **historia osoan zehar** (7); **historian zehar** (230); **hor zehar** (40); **hortik zehar** (61); **hutsetan zehar** (7)

**ibaian zehar** (10); **ibilbide osoan zehar** (7); **ibilbidean zehar** (14); **ikasturtean zehar** (12); **itsasoan zehar** (9)

**kalean zehar** (50); **kaleetan zehar** (53); **kanpainan zehar** (17); **karriketan zehar** (11); **korridorean zehar** (14); **korridoreetan zehar** (7)

**landan zehar** (13); **landetan zehar** (10); **liburuan zehar** (27); **logelan zehar** (7); **lurraldean zehar** (10); **lurrean zehar** (12); **luzean zehar** (16); **luzeetan zehar** (9)

**mahaian zehar** (14); **mendean zehar** (34); **mendeetan zehar** (96); **mendetan zehar** (15); **mundu guztian zehar** (12); **mundu osoan zehar** (27); **munduan zehar** (207); **munduan zehar ibili** (7)

**nobelan zehar** (7)

**orrialdetan zehar** (7)

**partida osoan zehar** (11); **partidan zehar** (22); **patioan zehar** (7); **prozesuan zehar** (10)

**testuan zehar** (12)

**udan zehar** (11); **urte askotan zehar** (7); **urte osoan zehar** (14); **urtean zehar** (153); **urteetan zehar** (62); **urtetan zehar** (19)

**zehar aipamena** (8); **zehar egurrak** (9); **zehar lan** (7)

**zeruan zehar** (10)

---

## zeharbegirada ik **zehar 9**.

---

## zeharbegiratu ik **zehar 10**.

---

## **zeharbidari** *iz*

Bakartasuna beti bidaide izanik ere, ez da bakardadean sentitzen: **zeharbidarien** haurridegoa ez zaio laketleku txarra, ez horixe. Jose Angel Irigaray

---

## **zeharbide** *(orobat* ***zeiharbide****)* **1** *iz* zeharkako bidea; lasterbidea.

Lepoa egingo nuke bietarik inork, ez emazteak eta ez senarrak, ez zutela kale hura hilabete luzetan zeharkatuko, **zeharbide** luzeagoak hautatuko zituztela aurrerantzean haien eztei argazkiarekin tupust ez egitearren. Harkaitz Cano

Hauek dira bideak eta ez dago besterik, Jainkoagana zuzenean joateko, **zeharbiderik** gabe. Joan Mari Lekuona

Etxetik gertu, **zeharbide** batetik aurrea hartu zion Maizak. Migel Angel Mintegi

**Zeharbide** ilun batetik portu aurreko kale zabal eguzkitsura iritsi nintzen. Anjel Lertxundi

Honela, galarazi egin zion Edom herriak Israeli bere lurraldetik igarotzea, eta israeldarrak urrundu egin ziren, **zeharbidea** hartuz. Elizen arteko biblia

Bide okerra hartu dut ikusi nuelako bide zuzenetik ez nituela nire helburuak erdietsiko eta **zeharbidea** laburragoa zela. Jose Morales

**2** irud/hed

Tarteka nigatik galdetzen omen zien, maite diren pertsonei buruz galdetzean egin ohi diren **zeharbideak** erabiliz. Joxean Agirre

-Lehenagotik ere ezagutzen zenuen hiria -esan zuen Norak, galdera eta baieztapen, biak batera elkarturik, eta **zeharbidetik** bederen argi doia egiteko, Andreasek zazpi giltzez itxita baitzeukan bere iraganaldira zeraman atea. Anjel Lertxundi

Zuzen dihardu, **zeharbiderik** eta itzulingururik gabe, eta inolako apaindurarik gabe. Patxi Altuna

**Zeharbidea** hautatu nuen jakin beharrekoa jakiteko. Aingeru Epaltza

Horren eskutik etorri zen **zeharbidea**, **zeharbide** izanagatik ere guztiz garrantzitsu eta salagarri zena, dudarik gabe. Karlos Linazasoro

Sermonatzeko **zeharbide** bat. Joxe Azurmendi

Nahi nikek hik jakitea ez haudala inoiz ahaztu eta, **zeharbideak** erabiliz, beti arduratu naizela hitaz. Eskarne Mujika

Guztiz kriptiko eta deszifragaitza dugu, espero izatekoa zenez, "Odò" hitza, **zeharbide** horretaz baliatu beharra baitzegoen, noraezean eta besterik ezinean, Kristo zelarik aipagai. Juan Garzia

**3** ingurabidea.

Donapaleuko **zeharbide** berrian ezbeharra gertatu zen asteazken arratsaldeko 16:00etan, Behaskanen zehazki. Berria - Ekonomia

**4** ***zeharbidez*** *adlag* zuzenekoa ez den bidetik.

Jaelen egunetan, ezin zen bideetan ibili, bidaiariek **zeharbidez** ibili behar zuten. · **Zeharbidez** esana dugu, gainera, irudiari dagozkion balio hedonikoak aztertzen dituzten teoria estetikoek atseginaren iturburua pertzepzioan berean kokatzeko joera dutela. Elizen arteko biblia

Etxean ere asko abesten genuen, eta handik, **zeharbidez** bazen ere, poesia jasotzen nuen, horretaz kontziente izan gabe. Berria - Kultura

Inkontzientea ezin atxikizkoa baita zuzeneko ikerketarentzat, eta ezin ezagutu daiteke, **zeharbidez** ez bada, agerira ateratzen duten produkzio sintomatikoen bidez, alegia. Josu Zabaleta

Baldin zuzenean edo **zeharbidez** bagaituzte auzian nahasturik kausitzen, erresuma dizugu [...] kalte-ordaintzat zerorri emango. Juan Garzia

Ezein esperientzia ere ez da ahalgarria, zuzenki nahiz **zeharbidez** frogatzen duela ere (inferitzearen edozein bidezidorren bidez izanda ere). Ibon Uribarri

ETAren aurka bakarrik arrazoitu liteke argi eta garbi; ETAren alde gehienez ere disimuluz eta **zeharbidez**. Joxe Azurmendi

Irakurtzerakoan, benetan irakurtzea, eta ez **zeharbidez** ezagutzea. Berria - Harian

Objektu hauek **zeharbidez** errepresentatzen dira zatigarritasunaren adigaiaren bitartez. Ibon Uribarri

**5** ***zeharbidezko*** *izlag*

Jainkoaren presentziaren agertze zuzeneko edo **zeharbidezko** baten bidez. Josu Zabaleta

Judizioa, beraz, objektu baten **zeharbidezko** ezagutza da. Ibon Uribarri

Erromatar Inperioaren bizitzako bigarren mendearen azken zatian, San Ireneo Lyongoak **zeharbidezko** gorazarrea egiten zien Inperioko komunikabide errazei mundu helenikoan zehar Eliza Katolikoaren batasuna goresten zuenean. Iñaki Mendiguren

**hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**

**zeharbidez bada ere** (3); **zeharbidez baizik ez** (3)

---

## **zehargi** **1** *izond* argiak zeharkatzen duena. ik **zeharrargi**.

Gainetik teilatu **zehargi** edo transparentea ezarririk, argi naturala sar erazten diote erakustokiari erdi erditik. Herria

Ezker pareta berrantolatua izan da, pareta **zehargiak** ezarri dizkiote eskuin eta gibeleko partetan, pilota federakuntzak trinketentzat ezarri neurriak zorrozki errespetatuz. Herria

Errioxako ardo **zehargiz** arradaz bete godaleta. Itxaro Borda

Hedoi **zehargien** artetik antzinako jendakien siluetak jardunean itxuratzen zituen eta ukitua zen. Itxaro Borda

Arratoiekin eta kutxa **zehargietan** gatibatu suge zitaldun txistukariekin aurkitu nintzen ondikotz. Itxaro Borda

Bele saldoak, ogi-itsasoaren horiarekilako zeruaren urdin **zehargiaren** mugan beraien beltzasuna isurtzen zutela. Berria - Kultura

**2** irud/hed

Ahoa eta sudurra kartzelatzen zion tresna uhargiak hatsaren abiadura biderkatzen zuen, irudiz erritmoan ari zen monitorearen hots labur **zehargiarekin** jostari. Itxaro Borda

Barra-barra ari zinen, estrategia handik, estrategia hemendik, estrategia alde guztietarik, koilaren soinu **zehargiak** mugatzen zigun eremu hertsian. Itxaro Borda

---

zeharhaize ik **zehar 8**.

---

# zeharka *(orobat **zeiharka**)* **1** *adlag* aurrez aurrekoa ez den norabidean edo moduan. ik **trebes; saiheska.**

Eguzki-printzek **zeharka** argituriko hormak. Jose Morales

Apur bat **zeharka** zegoen bere eserlekuan. Bernardo Atxaga

Hagak baliatuz, ontzia **zeharka** jarri behar zuten eta uraren indarrari alboa erakutsi. Karlos Zabala

Itsasontziei **zeharka** bultzatzen zien haizeak, masta-oihalak eteteraino. Juan Kruz Igerabide

Auto bat arrunt **zeiharka** joan da, itxura guzien arabera beste auto batek galdu gasoilki zerbaiten gainean lerraturik. Herria

**Zeharka** eta saiheska egin dugu bidea, leihoko argiak ere itzala **zeharka** eta saihetsean utzen duen bezala. Pello Salaburu

Ikerkuntzak behar dituen diruen zamaren atal bat, ez txikia, dela unibertsitateetan, dela enpresetan beretan ere, zuzenean edo **zeharka** administrazioak segurtatzen du. Juan Ignacio Pérez / Pello Salaburu

Batzuetan zuzen-zuzen, beste batzuetan **zeharka**, bertsolariak, herri-poetak nahi duen guztia esaten du, edo aditzera ematen. J. Garzia / A. Egaña / J. Sarasua

**Zeharka** jaistea hautatu du Joxek hariztian barrena. Pello Lizarralde

Gauzak "azpikoz gora irauli" behar zirela esaten baitzuten, **zeharka** ibili gabe. Karlos Zabala

Lebigre jaunaren proposamenak **zeharka** aipatzen ziren esaldi horietan. Karlos Zabala

Zaldun ibiltari puska egin zinenez gero, oso **zeharka** mintzatzen zara; ez da ulertuko zaituenik. Patxi Ezkiaga

Ea baten bati azaldu zion, oharkabean edo **zeharka** bazen ere, nor zen eta zein ziren bere benetako asmoak. Jose Morales

Gobernadoreari **zeharka** jakinarazi zion prokuradoreak salaketa bat jarri zuela beraren kontra. Jose Morales

Garbi zegoen zein izan zitezkeen salatzaileak, xuxen ez bazen **zeharka**: ama eta aita Bartolome. Joan Mari Irigoien

Eliza bera erromatar herri-administrazioaren onuradun izan zen, eta, beraz, hemen ere, ondarea **zeharka** transmititu zen neurri batean. Iñaki Mendiguren

Buruan kasko eta guzti, eta 91ko fusila bizkarrean **zeharka**. Koldo Biguri

Suizidioa heriotza zigorra **zeharka** erabiltzea da. Berria - Euskal Herria

Zuzenean, antxoak 3.000 laguni beharra ematen diela jakinarazi zuen eta, **zeharka**, 9.000 direla azpimarratu zuen. Berria - Ekonomia

**2** norabide nagusiarrekin 90ºko angelua osatzen duela.

Erreten horretan tornu bat jartzen zen **zeharka**. Santiago Iruretagoiena

Lehenengo kanaberak **zeharka** jarri baldin badira, orain bigarrenak zutik josiko dira. Santiago Iruretagoiena

Egur horren gainean, puntelen eta zeharragen tartean **zeharka** jarrita, egurrezko beste armazoi bat jartzen zen akerrekin eta besoekin gogor sendotuta. Santiago Iruretagoiena

Danbor horren barruan zortzi ohol jarriko dira, **zeharka** eta ardatzetik danborraren kanpoko zirkunferentziaraino doazela. Santiago Iruretagoiena

Gogoan zeukan bazegoela zerbait **zeharka** eta goitik behera elkar mozten zuten lerro haien harremanean. Anton Garikano

Bazen gomazko zunda bat eta zurezko ardatz bat, **zeharka** zulo bat zuena. Juan Garzia

**3** aldamenka, alboka.

Betile grisen azpitik **zeharka** begira. Lopez de Arana

**Zeharka** begira (ez zion ezeri zuzenean begiratzen, baizik saihetsetik, munduaren mespretxua eta amorrua gaitzetsiz -bazekien tuntun samarra zela). Anton Garikano

**Zeharka** egiten diote so Gustave Impétrazen estatuari, neskatoenen moduko begirada ezkutu eta harroxkoekin. Monika Etxebarria

Elkarri **zeharka** begiratzen zioten hitzik egin gabe, animalia mesfidatien pare. Karlos Zabala

Ondoko eserlekuan dagoen gizonak harrituta begiratzen dio **zeharka**. Oskar Arana

Guztiek batez ere PPri eta PSOEri begira egin dute orain arte kanpaina, elkarri **zeharka** baino begiratu gabe. Berria - Euskal Herria

Begirada laburrak botatzen zizkidan **zeharka**, begi-ertzetik. Xabier Olarra

**4** ***begi-zeharka*** *adlag*

Egokierak bereizten ikasi behar duzu -eta markesa seinalatu zuen begi-**zeharka**. Anjel Lertxundi

Begi-**zeharka** begiratzen zuen Norak liburuaren azalean eta bizkarrean "Letra gorrimina, Nathaniel Hawthorne" irakurtzeko beldurrez. Anjel Lertxundi

Jendeak begi **zeharka** eta ezker-eskuin begiratzen zuen ezer esan aurretik. Anjel Lertxundi

TKTkoen baiezkoa jaso ostean, aitaren egin eta alde egin zuen, begi-**zeharka** argazkiei so eginez. Berria - Euskal Herria

Bere gorputzetik halako distantziatxo batera bizi zen Duffy jauna, bere ekintzei begi-**zeharka** eta zalantzakor begira. Irene Aldasoro

Ostolazak begi-**zeharka** begiratzen dio harri txikietako txapelketari (urriaren 23an), harri handietakoan ez bailuke arazorik izan behar hirugarren txapela janzteko. Berria - Kirola

**5** ***zeharkako*** ik **zeharkako.**

**6** ***zeharka-meharka*** *adkor* zeharka; sigi-saga.

Hogeita Hamargarren Errepidearen bila ari gara; errepide hori **zeharka-meharka** doa diagonalean ipar mendebalderantz. Oskar Arana

Charliek irribarre egin dit, **zeharka-meharka**, lerro biak bereizi ahala: Kakanarruak nire ikasgelara, Morroskoak harenera. Mirentxu Larrañaga

Eta orduan, tunela goraka hasi zen... geroxeago, **zeharka-meharka**... eta Crookshanks desagertu egin zen. Iñaki Mendiguren

Abiadurarik handienean **zeharka-meharka**, harat eta honat ibiltzen da, asaskatu arte. Gotzon Garate

**hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**

**begi zeharka** (10); **lauki luzeak zeharka** (3); **oso zeharka** (4); **ulisesek zeharka begiratu** (6)

**zeharka adierazten** (3); **zeharka aipatzen** (3); **zeharka bada ere** (28); **zeharka baino ez** (5); **zeharka baizik ez** (4); **zeharka begira** (17); **zeharka begiratu** (51); **zeharka begiratu zion** (19); **zeharka begiraturik** (3); **zeharka begiratuz** (10); **zeharka begiratzen** (32); **zeharka begiratzen dio** (5); **zeharka behatu** (4)

**zeharka edo zuzenean** (5); **zeharka egiten** (4); **zeharka esaten** (3)

**zeharka ibili** (10); **zeharka ibili gabe** (6); **zeharka jarri** (3); **zeharka jarriak** (3); **zeharka jarrita** (6); **zeharka jotzen** (3); **zeharka kalte** (3); **zeharka meharka** (6)

**zeharka parte** (4); **zeharka parte hartzea** (3); **zeharka so** (7); **zeharka so egiten** (4)
**zuzen edo zeharka** (4); **zuzen eta zeharka** (3); **zuzenean edo zeharka** (24); **zuzenean eta zeharka** (3)

---

# zeharkaezin *(orobat **zeharka ezin**)* *izond* ezin zeharkatuzkoa.

Atea zen gakoa, harresi **zeharkaezin** eta garai haren gune ahula. Agustin Otsoa

Amildegi **zeharkaezinaren** aurrean. Jon Alonso

Euskarak (euskal hitzak zuzen ebakitzea, besterik ez) sasi arte zarratu, itsu, **zeharkaezin** izaten segitzen du. Gure ipuinekin zer ikusirik ez zuen testu labur bat bidali zuen, eta liburuaren erdian txertatu zuten, gure bi ipuin-bildumen arteko ibai **zeharkaezin** legez. Iñigo Aranbarri

Alferrikoa da era honetako legeak jartzea, zeren eta oztopo gaindiezinek edo itsaso **zeharkaezinek** ez badute lortu lurralde bi elkarrengandik bereiztea. Juan Martin Elexpuru

Edozein makinak, zioen, limite **zeharkaezina** dauka. Fernando Morillo

---

# zeharkagarri *izond* zeharka daitekeena.

K.o. 1952. urterako Mendebaldeko gizakiaren ekimen eta trebetasunak lau mende eta erdi inguru zeramatzan planetaren gainazal bizigarri eta **zeharkagarri** osoa lotzen komunikabide-sistemaren bidez. Iñaki Mendiguren

Bidea marrazten zen beste aldean barrena, ispilua materia gogorra baino ur-jauzia balitz bezala, ukituz gero **zeharkagarria** balitz bezala. Sonia Gonzalez

---

# zeharkako 1 *iz* zeharka dagoena; zeharka egiten dena. (gauza fisikoak)

Zarpeatuak egurrezko trenkaden gainean egin behar direnean, ezinbestez gertatuko da **zeharkako** eta luzetarako piezetan zartatuak ateratzea. Santiago Iruretagoiena

Makina horiek kate bidez, eta **zeharkako** eta trabeskako loturaz eta bermatzeko puntelez eusten dira. Santiago Iruretagoiena

Gero, gainean puntelak eta **zeharkako** habeak erabiliz, armazoiak egin zituen. Santiago Iruretagoiena

Esku biekin box-ak bereizteko **zeharkako** hagari eutsi bainion. Urtzi Urrutikoetxea

Kutxa horien azpiko partea berdindu eta ondo garbituko da **zeharkako** egur batzuk jarriz. Santiago Iruretagoiena

Errregelaren azpian eta besotik besora **zeharkako** egurrak ziriekin mihiztatuta. Santiago Iruretagoiena

Bi hormen tartean **zeharkako** beste batzuk eraikiko dira. Santiago Iruretagoiena

Soka horiek, batetik bestera hamabost hazbeteko tartea utziz, **zeharkako** beste soka batzuekin zeuden elkarrekin lotuta. Santiago Iruretagoiena

Elizaren ataria mugatzen zuen **zeharkako** kaletik. Pedro Alberdi

Leihoak ematen didan **zeharkako** argiaz baliaturik. Pello Salaburu

Ea bidea ordokia den ala ibarretan eta aldapetan **zeharkakoa**. Patxi Altuna

· Izterrezur-buruaren **zeharkako** ebakidura. Irene Aldasoro

## 2 (bestelakoak)

Bi eratako zergak daudela esan daiteke: zuzenekoak, Ogasunari zuzenean ordaintzen zaizkionak, eta **zeharkakoak**, artekari baten bidez ordaintzen direnak. Iñaki Heras

**Zeharkako** zergen pisua %10 hazi da azkeneko hamarkadan. Berria - Ekonomia

Euskaltelek bortz urtez 500 lanpostu zuzen eta **zeharkako** bertze 5000 lanpostu sortu ditu. Herria

Gatazka horien artean nazio gatazka nabarmentzen da, belaunaldi arteko eta **zeharkako** gatazka baita. Berria - Euskal Herria

**Zeharkako** beste efektu bat, oso gutxitan aipatzen dena, da garapenbideko herrialdeek Mendebaldeko merkatuetan duten sarbide mugatua *ex post* emaitza dela. Koro Navarro

**Zeharkako** fiskalitaterik gabe ezin gara EBko merkatuan egon. Berria - Euskal Herria

Fregek **zeharkako** ezagutza onartuko du, perpausen zentzuaren ezagutzaren bidez lortzen dena. Askoren artean

Zuzen baino, **zeharkako** bidetik soilik irits daiteke gizakia bihotzaren muinak bizi duenera. Anjel Lertxundi

**Zeharkako** batasun politikoa, ordea, beti izan da, eta euskal probintziek zuten administrazio sistema bakar eta parekatu batean oinarritzen zen. Pello Salaburu

Zuzeneko aipamenak eta **zeharkako** erreferentziak. Askoren artean

**Zeharkako** begirada ezagunak ihesean doan irudia, azken unean, atzematen duen bezala. Jon Alonso

Ez dugula ezintasunengatik diskriminaziorik onartu behar, ez zuzenekorik, ez **zeharkakorik**. Berria - Euskal Herria

Juriskontsultu zaharrek beti esan izan zutela feudoen oinordekotza lerro **zeharkakoan** ez zela pasatzen odol-anaietatik aurrera. Iñaki Iñurrieta

Ez zaizkit nire bizitza pribatuari buruzko galdera zuzenak gustatzen, egiten badizkidazu erabat **zeharkakoa** den erantzun bat lortzeko aukera guztiak dauzkazu. Harkaitz Cano

"Beraz, familiarekin garai onak gogoratzera" eta antzeko galdera **zeharkakoak** gero eta sarriago tartekatzen baitzituen bere isiltasun tematian. Ramon Saizarbitoria

**Zeharkakoa** zuzen-zuzenean jaso dugu, eta Mikel Marquez y Lopez ez dira malekoira atera. Pako Aristi

**hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**

**zeharkako aipamen** (3); **zeharkako aipamena** (5); **zeharkako begirada** (5); **zeharkako begiratu** (3); **zeharkako bidez** (4); **zeharkako diskriminazioa** (3); **zeharkako integrazioa** (3); **zeharkako kalteak** (3); **zeharkako ondorioak** (3); **zeharkako ordenak** (3); **zeharkako pentsamendua** (3); **zeharkako zergak** (4); **zeharkako zergen** (6); **zuzeneko eta zeharkako** (9)
**zuzenak eta zeharkakoak** (3)

---

# zeharkakotasun *iz* zeharkakoa denaren nolakotasuna.

Funtzionamendu hori ez da oinarritzen unitate espezializatu asko eta asko segidan lotzean bakarrik, bestela baizik, nolabait esateko globalak diren eta paralelozko lotura edo **zeharkakotasuna** eskatzen duten zenbait prozesutan ere oinarritzen da. Josu Zabaleta

---

# zeharkaldi 1 *iz* zeharkatzea.

Bi **zeharkaldi** gogoratzen ditu bereziki: Neretva ibaiarena eta Ness aintzirarena. Berria - Kirola

Hantxe izanen du bere gorena, Caldes de Boíra jaitsi aitzin, Parke Nazionaleko **zeharkaldiak**. Aingeru Epaltza

Harry Blount beti bezalako ingeles hotza agertzen zen, Ural mendien **zeharkaldi** osoan hari apenas hitzik egin ez zion berbera. Karlos Zabala

Beinati Nemours izeneko itsasontzian egin zuen Mediterraneoaren **zeharkaldia**. Itxaro Borda

Mauritania eta Kanariar Uharteen artean mila kilometro inguru daude eta ontziek bost egun behar izaten dituzte **zeharkaldi** hori egiteko. Berria - Harian

Amaigabea izan da "ez-inoren lur"etiko **zeharkaldia**, eternitatea bezain betierekoa. Mirentxu Larrañaga

Desertuko **zeharkaldia**. Joan Mari Irigoien

Basurkok eta Treceñok 15-20 egunean egin nahi dute Bilbo-Bartzelona **zeharkaldia**. Berria - Kirola

Guyanako itsasbazterrak zetozkion gogora, **zeharkaldiko** eguraldi ona. Karlos Zabala
Bizitza arrakastaz jositako **zeharkaldia** baino ezin zitekeela izan, gailur batetik besterako bidaia. Joan Mari Irigoien
Pertsona-trafikanteek dirutza izugarriak exijitzen dizkiete eta batzuetan desagertu egiten dira **zeharkaldia** hasi aurretik. Joseba Urteaga
Benetako mistikoak ez zaizkigu itzultzen beren **zeharkaldia** kontatzera. Xabier Kintana
Greban dauden FCC enpresako garbitzaileek **zeharkaldia** egingo dute Basauriko Arizgoiti plazatik Gasteizko Ajuria Enea jauregiraino. Berria - Ekonomia
Oso **zeharkaldi** ederra, baina benetan gogorra. Berria - Harian

**2** (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa)

ESAITek mendi **zeharkaldia** antolatu du irailaren 11rako. Berria - Kirola
Getaria-Donostia itsas **zeharkaldia** aurkeztu dute. Berria - Kirola
Bidaiaren bigarren zatia eski **zeharkaldi** bat izango da Bide Erreala deituriko inguruetan. Berria - Kultura

---

## zeharkale *iz* zeharkako kalea.

"Hobe horrela" esan zion bere buruari, Errebaleko erdialdera, komisariako **zeharkaletik** jotzen zuela. Pedro Alberdi
Errepidea gurutzatzen ari zela Caparrosoko **zeharkalean** autoak harrapatu egin zuen. Berria - Euskal Herria
Agur egiten zigun lantegiak, **zeharkale** eta kale nagusien labirinto harekin, pauso baldarreko garabiekin. Urtzi Urrutikoetxea
Autoko atea zabaldu zioten, eta komisarioak autoa martxan jarri eta alde egin zuenean, beraiek **zeharkaleko** alde banatatik desagertu ziren. Pedro Alberdi

---

zeharkalte ik **zehar 14**.

---

## zeharkarazi, zeharkaraz(i), zeharkarazten *(orobat **zeharkazi** g.er.)* du *ad* zeharkatzera behartu.

1805ean, Arteen Pasabide eraiki berrian barrena, Sena **zeharkarazi** zion Napoleonek Institutuari, lehengo kokalekuaren aurrez aurre kokatzeko, Mazarin jauregi ohian. Jon Muñoz

---

## zeharkari

Hala erraten zion bederen, intentzio txarreko jende batzuek Maianari so- **zeharkariz** bere seme kuttunaren bizimoldea arras desberdina zela ulertarazten zioten arren. Itxaro Borda

---

## zeharkatu, zeharka(tu), zeharkatzen *(orobat **zeiharkatu**)* **1** du *ad* alderik alde igaro; zeharka igaro. (lurralde, itsaso eta kideko eremuak)

Joan eta **zeharkatu** lurbira osoa. Elizen arteko biblia
Zoaz, bada, orain, **zeharka** ezazu lurralde hau, luze eta zabal, zeuri emango baitizut. Jose Antonio Mujika
Ideia bat besterik ez zuen, handik joatea, itsasoa **zeharkatzea** itsasertzera iristeko. Karlos Zabala
Handik Indiako salerosgaiek Kaspio itsasoa **zeharka** zezaketela, eta Ziro ibaiaren bokalean sartu. Iñaki Iñurrieta
Lurra mokoka bahetzen duten oilagorrek eta pasaerako beste hegazti batzuek **zeharkatzen** dituzte aireak. Koldo Biguri
*Scaled Composites* enpresaren ontziak atmosfera **zeharkatuko** du, baina ez da urrunago joango. Berria - Gaiak
Egun baten ehiza-hegazkinak ikusi nituen zerua **zeharkatzen** tximistak bezala. Jon Arretxe
Ukraina **zeharkatzen** duen eta Errusiak gasa Europara eramateko erabiltzen duen gasbidearen prezioa igotzea ere hitzartu zuten atzo. Berria - Harian
Bakar-bakarrik ausartuko hintzen Siberiako estepak **zeharkatzen**! Karlos Zabala
Afrika globoz **zeharkatzeko**, hango haizeek nondik jotzen duten jakin behar. Karlos Zabala
Jordan ibaia igaro eta, Bitron osoa **zeharkaturik**, Mahanaimera heldu ziren. Elizen arteko biblia
Oihan nasaiak eta eremu desertuak **zeharkaturik**. Piarres Aintziart
Mendiak **zeharkatu**, eta Suitzatik igaro ziren, Tiroletik. Xabier Olarra
Pirinioak **zeharkatu** osteko egunetan. Edorta Jimenez
Basoa **zeharkatu**, eta, mugaren beste aldean, ez erabat baina galdu egin ginen berriro. Rafa Egiguren
Tximinoek jauzika, piztiek lauoinka **zeharkatzen** zuten sastraka. Karlos Zabala
Zelaia alderik alde **zeharkatu**, eta bidera irten zitzaizkiòn aurkari guztiak hankaz gora utzi ondoren. Joan Mari Irigoien
Badiaren beste aldetik gindoazen, parkea **zeharkatuz**, eta nire pentsamenduen mataza gero eta gehiago katramilatzen zen. Bernardo Atxaga
Bere gisa **zeharkatuak** zituen, bakar-bakarrik, basoetako ilunpe ikaragarriak. Juan Garzia
· 650 kilometro **zeharkatu**, eta kontinente osoa igaro beharko du Atlantikora heltzeko. Jon Muñoz

**2** (gorputzak edo gorputzaren zatiak)

-Gizon boteretsuena ere gezi bakar batek **zeharkaturik** hil daiteke. Agustin Otsoa
-Jeinua esnatzea nahi ez baduzue, **zeharka** nazazue zuen lantzez! Patxi Zubizarreta
Herri etsaiak irentsiko ditu, haien hezurrak puskatuko, gorputzak geziz **zeharkatuko**. Elizen arteko biblia
Hamar puntu sabela **zeharkatzen** badiozue! Iñaki Mendiguren
Kristoren eskua ikusten zuen, iltzeak **zeharkatua**. Koldo Biguri
Besoan tatuaje bat zeukan: bihotz bat, gezi batek **zeharkatua**. Juan Kruz Igerabide
Txakur bat bat-batean hiltzen da, bularra **zeharkatu** dion tiro batek jota. Oskar Arana
Les Txiki lurrean etzanda aurkitu dut, tiro batek burua alderik alde **zeharkatzen** diola, eta niri begira-begira. Mirentxu Larrañaga
Garezurra **zeharkatu** zidan krakateko hark. Juan Kruz Igerabide
Irratia piztu, dutxan sartu eta urari jarein nion nire bizkarra **zeharka** zezan. Juan Martin Elexpuru
-Martaren begirada zemaikorra zen, goitik behera **zeharkatu** zuen Pataki, parentesi artean giltzapetu balu bezala. Harkaitz Cano
Abelek gorputza **zeharkatzen** dioten bi korronte sumatzen ditu: hotza bata, beroa bestea, elkarren ondoan, baina nahasi gabe. Pello Lizarralde
Bularra alderik alde **zeharkatzen** dion zauri beltztua erakusten die turistei. Iban Zaldua
Ebakiondo beltzu batek ezker-eskuin **zeharkatzen** zion bekokia. Lutxo Egia
Argizaria bezain zuri, nire aurpegia, edo hobeto esanda, gris eta horiska, zain ubelez **zeharkatua**, gorpu batena bezain nardagarria. Joxe Austin Arrieta

**3** (bestelakoak)

Abiatuan abiatu, Burlata eta Uharte **zeharkatzen** ditut. Piarres Aintziart

Herri ttipiak husten ari dira, baina aldi berean errepide nagusiek **zeharkatzen** dituzten herriak jendez emendatzen dira. Herria
Astiro, Napoliko erdigunea atzean utzi eta hiriko bazter auzoak **zeharkatu** genituen. Xabier Montoia
Lutxana, Zorrotza, Olabeaga... **zeharkatu**, eta Bilbora ailegatu da trena. Rafa Egiguren
Tximinoek jauzika, piztiek lauoinka **zeharkatzen** zuten sastraka. Karlos Zabala
Plaza **zeharkatzeko**, arropa serioa jantzi zuen, zeta beltzezkoa goitik behera, xal handi batekin. Karlos Zabala
Gandalfek pauso arinez **zeharkatu** zuen zuriz zolaturiko patioa. Agustin Otsoa
Zirkuluak bere baitan hartzen duen zuzenkirik luzeena da diametroa, luzera osoan **zeharkatzen** baitu zirkulua. Jon Muñoz
-Gaur bertan **zeharkatu** dugu muga mendiz. Rafa Egiguren
Tren bat igaro zen **zeharkatu** berria genuen trenbidetik, leihoak argiztatuak. Juan Kruz Igerabide
Bizkaiko Zubiaren bide paraleloa egiten zuen motoran **zeharkatu** zuen Joseluk errioa. Josu Landa
Kanala **zeharkatzen** duten harrizko zubi urbanoak. Lourdes Oñederra
Berebiziko adorea eta adimena baliatu beharko zituen erreboltari eta inbaditzaileen lerroak **zeharkatzeko**. Karlos Zabala
Sigi-saga **zeharkatu** dugu arrakala bat. Mirentxu Larrañaga
Hesien gainetik jauzi egiten zuten, ibaiak **zeharkatzen**, oztopoak gainditzen. Karlos Zabala
Motozikleta bazter batean utzi, errepidea **zeharkatu**, eta barandatik beha gelditu zen. Migel Angel Mintegi
Bi emakumeak biratu eta galtzada **zeharkatzen** ari zen gizon bati begiratu zioten. Karlos Zabala
Bigarren patioan barrena abiatu zen, ezkerretara, gangaz estalitako pasabidea **zeharkatu** ondoren. Jon Muñoz
Gero, zubia **zeharkatu** zuen korrika txikian, bat-batean larrituta bezala. Bernardo Atxaga
Lady Godivak Coventryko kaleak zaldi gainean eta biluzik **zeharkatu** zituenean [...]. Anjel Lertxundi
Hobe hilerrien gainetik **zeharkatu** zubia, azpitik tunela baino. Jon Muñoz
Kontu handiz **zeharkatu** zuen atea. Migel Angel Mintegi
Etxe arrotz bateko atea **zeharkatu** nahi ez balu bezala. Patxi Zubizarreta
Grabitate-zentroa **zeharkatzen** duen marra bertikalak. Irene Aldasoro
Ispilua **zeharkatzen** dute, Aliziak bezala. Jon Muñoz

**4** irud/hed

Jakinduria mugimendu oro baino bizkorragoa da eta, hain garbia denez, dena **zeharkatzen** eta edonon barneratzen da. Elizen arteko biblia
Begirada horrek paretak ere **zeharkatzen** ditik. Koldo Biguri
Leihoko gortina **zeharkatzen** zuen argiak sabela eta izterrak nabarmendu zizkion. Bernardo Atxaga
Intziriek adreiluzko pareta meheak **zeharkatzen** zituzten. Elena Touyarou
Nire disko kuttunak ikusten nituen azken aldia izanen zelako pentsamenduak **zeharkatu** zidan gogoa. Alberto Ladron Arana
Neskek olgetari utzi eta solasaren eta txutxumutxuaren marra **zeharkatu** berri duten sasoian. Urtzi Urrutikoeetxea
Baina Zolaren giza indarra, prosa bizia eta masak eta espazioak deskribatzeko dohain berezia guregana iritsi dira, mende oso bat **zeharkaturik**. Karlos Zabala
Oro har, barrukotasunaren eta kanpokotasunaren kontrakotasunak esandako gauzen deskribapen historikoa **zeharkatzen** du oso-osorik. Xabier Arregi
Jakintza-alor hura **zeharkatu** zuten ideia-mugimendu handiez jabetzeko. Jon Muñoz

**hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**

**alderik alde zeharkatu** (14); **aldiz zeharkatu** (11); **aldiz zeharkatu zuen** (5); **arineketan zeharkatu** (5); **arrapaladan zeharkatu** (3); **ataria zeharkatu** (3); **ate bat zeharkatu** (4); **atea zeharkatu** (28); **atea zeharkatu aurretik** (3); **atea zeharkatu orduko** (3); **atea zeharkatu zuen** (3); **ateak zeharkatu** (3); **atlantikoa zeharkatu** (5); **atmosfera zeharkatu** (4); **atzazaletaraino zeharkatu nau** (3); **aurretik zeharkatu** (3)

**basamortua zeharkatu** (5); **basoa zeharkatu** (5); **behatz ttikiraino zeharkatu** (4); **behatzetako atzazaletaraino zeharkatu** (6); **behera zeharkatu** (7); **behera zeharkatu zuen** (4); **berriro zeharkatu** (6); **berriz zeharkatu** (4); **bidea zeharkatu** (5); **bizian zeharkatu** (4); **burua zeharkatu** (3)

**dena zeharkatu** (3)

**egongela zeharkatu** (5); **erbi batek zeharkatu** (3); **errepidea zeharkatu** (5); **errepideak zeharkatu** (3); **etorbidea zeharkatu** (4); **etxe osoa zeharkatu** (3)

**gela zeharkatu** (15); **gela zeharkatu zuen** (7); **goitik behera zeharkatu** (7); **guzia zeharkatu** (4); **guztia zeharkatu** (4)

**herri osoa zeharkatu** (4); **herria zeharkatu** (7); **herria zeharkatu zuten** (4); **hesia zeharkatu** (4); **hiri osoa zeharkatu** (4); **hiria zeharkatu** (6); **hormak zeharkatu** (5); **hotzikara batek zeharkatu** (9)

**ibaia zeharkatu** (10); **igerian zeharkatu** (4); **ikara batek zeharkatu** (3); **isilik zeharkatu** (3); **itsasartea zeharkatu** (3); **itsasoa zeharkatu** (14); **itsasoak zeharkatu** (3)

**kale nagusia zeharkatu** (3); **kale nagusiak zeharkatu** (7); **kalea zeharkatu** (15); **kalea zeharkatu zuten** (3); **kaleak zeharkatu** (16); **kaleak zeharkatu zituzten** (6); **karrika zeharkatu** (6); **karrikak zeharkatu** (4); **korridorea zeharkatu** (4)

**lasterka zeharkatu** (3); **lurraldea zeharkatu** (7)

**marra zeharkatu** (5); **mendiak zeharkatu** (5); **muga zeharkatu** (30); **muga zeharkatu zuen** (3); **nola zeharkatu** (5)

**osoa zeharkatu** (27); **osoa zeharkatu zuen** (7)

**pasabidea zeharkatu** (5); **patioa zeharkatu** (7); **pirinioak zeharkatu** (5); **plaza zeharkatu** (11)

**rambuteau kalea zeharkatu** (4)

**trenbidea zeharkatu** (5)

**ural mendiak zeharkatu** (3)

**zeharkatu ahal** (11); **zeharkatu ahal izan** (6); **zeharkatu ahal izango** (5); **zeharkatu ahala** (3); **zeharkatu arren** (5); **zeharkatu arte** (5); **zeharkatu aurretik** (7); **zeharkatu balu bezala** (4); **zeharkatu beharra** (5); **zeharkatu beharreko** (5); **zeharkatu berri** (7); **zeharkatu berri zuen** (3); **zeharkatu eta berehala** (3); **zeharkatu eta gero** (5); **zeharkatu eta kanpora** (3); **zeharkatu gabe** (5); **zeharkatu nauen hotzikara** (3); **zeharkatu nuen muga** (3); **zeharkatu ondoan** (5); **zeharkatu ondoren** (34); **zeharkatu orduko** (10); **zeharkatu ostean** (10); **zeharkatu zidan gogoa** (3); **zeharkatu zuen atzo** (3); **zeharkatu zuen gela** (4)

**ziztu bizian zeharkatu** (3); **ziztuan zeharkatu** (5); **ziztuan zeharkatu zuen** (3); **zubia zeharkatu** (22); **zubia zeharkatu zuten** (4)

---

## zeharkatzaile *izond* zeharkatzen duena.

Bada tartean bai adinari dagokionez eta bai gizarte mailari dagokionez ere esparru oso zabalak harrapatzen dituen adierazpen kultural **zeharkatzailerik**, zinema esaterako. J. Garzia / A. Egaña / J. Sarasua

---

## zeharkatze *iz* alderik alde igarotzea; zeharka igarotzea. ik **zeharkaldi**.

Zalantzarik ez zeukaten Irtish ibaiaren **zeharkatze** zail horretatik ongi aterako zirela. Karlos Zabala
Menturaz nire **zeharkatzearen** berri ukan dutelakotz. Jose Angel Irigaray
**Zeharkatzearen** plazera. Ana Urkiza
Indarrak ahituta, bihotza hozturik eta arima erkinduta amaitu zuten itsasertz batetik besterako **zeharkatze**-bidaia. J.M. Olaizola "Txiliku"

---

## zeharki *adlag* zeharka.

Kazetarien aurrean, Bujumbura hiriburuan egindako agerraldian Burundiko armadaburuak azaldu zuen herrialde auzoan indarrez sartzea justifikatuta litzatekeela, Kinshasako armadak **«zeharki** edo zuzenean zerikusia duelakotz» Gatumban gertatutako sarraskiarekin. Berria - Mundua

## **zeharko** *izond* zeharkakoa.

Erignac prefetaren hilketako auzibidearekin gertatu den bezala, DNATek dosier honekin zerikusi ez zuzen ez **zeharkoa** ez zeukaten ikerketa, miaketa eta itaunketa andana egin ditu. Berria - Mundua

## **zeharkoi** *izond* zeharka jotzeko joera duena.

Zirimola goriak hodei beltza zulatzen duenean, beraz, bat-batean halako suzko haziak bezala bortizki jaurtitzen ditu, oinaztuaren gar **zeharkoia** eginez; gero hotsa dator, belarriak beranduago jotzen dituena, irudiak gure begiak baino. Xabier Amuriza

## zeharlerro ik **zehar 15**.

## **zeharmakur** *izond*

Beatriz garaia zen, lerdena; hazpegi aratzak zituen eta hori-gorria adatsa, Twirl **zeharmakur** harena gogoraraz ziezadakeen eta sekula gogararazi ez zidan kolorekoa. Juan Garzia

## **zeharo** **1** *adlag* osoki, guztiz. ik **erabat; txit; arrunt**.

Honek guztiak **zeharo** gogaitzen nau eta, esan beharrik ez dago, atsekabe handia sortzen dit. Antton Olano

Kezka bat huraxe, neure onetik atera eta **zeharo** sumintzen ninduena. Joxe Austin Arrieta

Kamamila **zeharo** hoztu zaio kikaran Gabini. Iñaki Iñurrieta

Heriotza honek **zeharo** aztoratuko zuen. Jon Muñoz

Bekoki zabala, autopista bat bezalakoa, ilea kizkur, eta kobre-koloreko mataza batek **zeharo** inguratua. Jon Muñoz

Frantziskok, apaltasun santuaren eraginez bere burua **zeharo** Kristo bilakatua sentituz, apaltasun hau desiratzen zuen beste bertuteen gainetik bere anaientzat. Askoren artean

Begirada malenkoniatsu hark **zeharo** liluratu zuen Wotham. Martin Anso

Orain, tamalez, munstroak behin eta berriro itzuliko dira, Irlanda **zeharo** suntsitu arte. Joanes Urkixo

Egunsentiak gela **zeharo** argitu aurretik bukatzen nituen ariketak. Anjel Lertxundi

Lau urtean **zeharo** aldatu zitzaien bizitza izebei. Mikel Hernandez Abaitua

Oraindik ere ez dut **zeharo** ulertu. Juan Kruz Igerabide

Dudaren eraginez gure oroimena pixkanaka isilduz joango zen, handik lasterrera **zeharo** mututzeraino **Zeharo** galarazi zion loa. Pedro Alberdi

Apaldu **zeharo** zeure burua, sua eta harrak baitira fedegabearen zigorra. Elizen arteko biblia

**Zeharo** burutik eginda daude, denak gainera. Iñaki Mendiguren

Niri ere ez zait gaizki etorriko, neure onetik **zeharo** atera ez nadin. Migel Angel Mintegi

Munduko grina txarrei **zeharo** uko egiten ikasi dute. Askoren artean

**Zeharo** bat nator kritika horiekin. Koldo Zuazo

**2** (izenondo eta kidekoen ezkerrean)

Labur esanda, mutil hura trebea zen, **zeharo** baboa ematen bazuen ere. Karlos Zabala

**Zeharo** bitxia zen benetan eszena. Xabier Olarra

Gorputzez berdin-berdinak, izaeraz **zeharo** desberdinak. Jon Muñoz

Basatia, egoista, gizamunstroa, **zeharo** bihozgabea ei nintzen, esan zidanez. Joxe Austin Arrieta

**Zeharo** bidezkoa eta **zeharo** beharrezkoa begitantzen zait euskalkiak babestea eta baliatzea. Koldo Zuazo

Harrigarriak zaizkit **zeharo** artistaren berezko bideak. Hasier Etxeberria

Bateko eta besteko egitura eta garapen ekonomikoa **zeharo** bestelakoak direla. Koldo Zuazo

Materiala nanoeskalan dagoenean bere propietate fisiko eta kimikoak jatorrizko materialarekin konparatuz gero **zeharo** ezberdinak izan daitezkeela. Berria - Gaiak

**Zeharo** zentzugabeak diruditen deskribapenak eginez. Jose Morales

Azkenik, batzuen batzuk agertu ziren, ordu arte **zeharo** ezezagunak. Jon Muñoz

Koxkortu zenean, **zeharo** alderraia bilakatu zen Lefcadioren bizitza. J.M. Olaizola "Txiliku"

Gaien aurkibidea **zeharo** hermetikoa zitzaion. Jon Muñoz

**Zeharo** lagunarteko zituzten, hiri-bazterreko auto puskatuen biltegietan lardaskan dabiltzan ume bihurriek auto-txasisak bezala. Jon Muñoz

· *(eskuinean)*Egoera, ongi pentsatuta, irrigarria baita **zeharo**. Karlos Linazasoro

Gizon ("gizajoez" ari gara) tristea ez ezik, antojagarria eta motza **zeharo**. Iñaki Segurola

**3** (adizlagun eta kidekoekin)

**Zeharo** pentsakor utzi nau honek. Txillardegi

Baina ez nago idatzitakoarekin **zeharo** konforme. Xabier Etxabe

**Zeharo** oker ibili gara. Txillardegi

Okerrena dena, hizkuntzaren esparrutik **zeharo** kanpo kokatu zen eztabaida. Koldo Zuazo

Guk **zeharo** bestera egin beharko dugu, oker ulertuarena eta abar. Josu Landa

Ordu biak inguru baizik ez dira, baina zerua **zeharo** iluna dago. Monika Etxebarria

Hila egongo dela zorionez, **zeharo**, osotoro eta ezin sinetsizko moduan hila. Iñaki Segurola

Zu, benetan esaten dizut, gaur **zeharo** pitzatua zaude. Antton Olano

Intxaurraren itzalak lehengo itxura badu ere, **zeharo** aldatua dago inguru hura. Xabier Etxabe

-Hik zer esan dion, bada? -galdetu zuen atsoak, **zeharo** asaldatua. Karlos Zabala

Don Ottavio, bere makilan bermatua, haizearen mendean **zeharo** utziak ileak. Jon Muñoz

**Zeharo** jota dago burutik. Jon Muñoz

Nik ordurako zakila **zeharo** gogortuta neukan eta Satanek handik heldu zidan lehendabizikoz. Aitor Arana

Makalduta hago **zeharo**, ez haiz ezertarako gauza! Bernardo Atxaga

Esna bainengoen **zeharo**, eta aldamenekoa niri zelatan, jakina. Joxe Austin Arrieta

**Zeharo** abailduta ikusi nuen. Karlos Linazasoro

Sorgortuta nagok **zeharo**. Mirentxu Larrañaga

**Zeharo** izututa, Otiñanokoak berehala alde egin zuen. Martin Anso

Bertako egitura ekonomikoa **zeharo** hondatuta egotea izan zen han arrazoia. Koldo Zuazo
Belarriak gorturik gelditzen zitzaizkidan, eta eskuineko besaburua **zeharo** mindurik. Txillardegi
**Zeharo** nahasirik, burusien azpira isuri, kandelari putz egin, eta zintzo-zintzo gelditu zen. Karlos Zabala
Galduak, **zeharo**, idazlan haiek guztiak, [...]. Jon Muñoz
**Zeharo** eta erabat nago herri hizkerak, denak eta nonahikoak, babestearen eta indartzearen alde. Koldo Zuazo

**4** (izenaren eta dagokion izenondoaren artean)
Sentipen **zeharo** arrotza zitzaion matxinatzea. Jon Muñoz
Aurpegiera **zeharo** seriosarekin, mahaian zehar besoa luzatu eta kolpetxoak eman zizkidan eskuan. Oskar Arana
Egoera haiek tasun **zeharo** bakana eta baliotsua zuten, estiloa, nahi baduzu. Monika Etxebarria
Bi oinarri teoriko eta esplikatzaile **zeharo** diferentek. Iñaki Segurola
-Eskerrik asko -hasperen egin zuen modu **zeharo** geldo batez. Jon Muñoz
François Vièteк formula **zeharo** txundigarri bat eratu zuen. Jon Muñoz
Botila bakarra zegoen, Txipreko ardo **zeharo** garratz batez betea. Jose Morales
Baita haren gorputz-itxura **zeharo** aldatuaz ere. Oskar Arana
Ni neska **zeharo** galdua naiz. Jose Morales
Alde **zeharo** handia. Jenaro Garate

**5** ***zeharoko*** *izlag*
Gizarte ikaratuak ziurtasuna bilatzen du; gizarte zeharo ikaratuak, **zeharoko** ziurtasuna. Joxe Azurmendi
**Zeharoko** arrotza gertatzen zait batzuetan. Zeren **zeharoko** idiota baldin banaiz, injineru aeronautiko egingo bainaiz, eta bestela berriz, filosofo. Koro Navarro
**Zeharoko** eta osotarako jakite hartan, izan ere, ez dago bizirik. Iñaki Segurola
Merkatuen liberalizazio **zeharoko** edo globalak ikusi da ze miseria erein duen bazterretan. Iñaki Segurola
Herri espainol horren arima, ikusi dizu, kateatua dago, joputza moral eta izpiritual **zeharokoan**. Joxe Azurmendi

**hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 4 aldiz agertzen direnak)**
**gauzak zeharo aldatu** (6)
**zeharo ahaztuta** (4); **zeharo aldatu** (42); **zeharo aldatu da** (8); **zeharo aldatuko** (8); **zeharo aldatuta** (4); **zeharo aldatzen** (9); **zeharo asaldaturik** (5); **zeharo aztoratu** (5); **zeharo baldintzatu** (5); **zeharo baldintzatzen** (4); **zeharo bat nator** (5); **zeharo baztertu** (6); **zeharo bestelakoa** (7); **zeharo bestelakoak** (4)
**zeharo desagertu** (6); **zeharo desberdina** (8); **zeharo desberdinak** (10); **zeharo eta osotoro** (4); **zeharo etsita** (5); **zeharo ezberdina** (11); **zeharo ezberdina da** (8); **zeharo ezberdinak** (18); **zeharo ezberdinak dira** (4); **zeharo galdu** (10); **zeharo galdurik** (4); **zeharo galduta** (4); **zeharo harritu** (8); **zeharo harriturik** (12); **zeharo harrituta** (14); **zeharo harrituta geratu** (4); **zeharo haserretu** (7); **zeharo hunkitu** (4); **zeharo hunkituta** (7)
**zeharo ikaratuta** (6); **zeharo ilundu** (4); **zeharo itxita** (6); **zeharo izutu** (5); **zeharo izututa** (5); **zeharo jota** (7); **zeharo kezkatuta** (4); **zeharo lur jota** (4); **zeharo maiteminduta** (9); **zeharo murgilduta** (4); **zeharo nahastuta** (4); **zeharo nekatuta** (5)
**zeharo osatu** (4); **zeharo txundituririk** (10); **zeharo txunditurik gelditu** (4); **zeharo txundituta** (6)

---

## **zeharotu**, zeharoko(tu), zeharokotzen da/du *ad* zeharoko bihurtu.
Gizakiari bera zer den eta nola jokatu behar duen, erlijioak baino hobeto "irakatsi" behar ziotenek krisialdiko noraezean, balioen azkeneko suntsipena beraiek **zeharotuko** dute laster. Joxe Azurmendi

---

## zeharraga ik **zehar 12**.

---

## **zeharrargi** *izond* argiari igarotzen uzten diona, baina bere atzean dagoena ongi ikusten uzten ez duena. ik **zehargi**.
4.639 urteren aldea dago Keopsen piramide opakoaren eta Louvreko horko **zeharrargi** horren artean. Jon Muñoz
Irudimenezko etxe edo labirinto moduko bat paratu dute zenbait oihal **zeharrargi** erabiliz. Berria - Kultura
Mihuri horixkak ere halaxe dira garbi, ia **zeharrargi**. Pello Zabala
Arroza bota, eta olioarekin eta tipulatxekin nahasi zuen Ruche jaunak, harik eta arrozaleak **zeharrargi** gelditu ziren arte. Jon Muñoz
Argitasun zuri bizia sartzen da sabaileihoko kristal **zeharrargitik**, Gabini une batez min egiteraino. Iñaki Iñurrieta
Bost argi ontziko armiarma lanpara bat zegoen sabaitik zintzilik, globo **zeharrargiz** apaindua. Karlos Zabala
Eskaileretatik gora igo ondoren, beira **zeharrargizko** ate batera iristen da. Josu Zabaleta

---

## **zeharrargitsu** *izond* zeharrargia.
Gainontzeko langileak [...] kristal **zeharrargitsuz** osatutako horma batzuek babesten zituzten, bulego-hondoan, eta ez ziren beti egoten han, gainera. Iban Zaldua
Pintura binilikoz margotu ditu lau aurpegi, PET **zeharrargitsuan**. Berria - Kultura

---

## **zeharrarnastu**, zeharrarnas(tu), zeharrarnasten du *ad* arnastu.
Beste nekaldian, Mateorenean, musikak hitza gailentzen du, baina Bachenean hitz taupadak gorputzetik **zeharrarnasten** ziren. Berria - Kultura

---

## **zeharresan** *iz* hitz erdia.
Haren **zeharresanekin** aspertuta nago eta, baita ene txatxita deitzearekin ere! Patxi Zubizarreta
Uste duzu **zeharresan** gordinen bat bazela tartean? Juan Garzia
Sarri izaten ziren **zeharresaneko** ziriak, oharpen edo azalpen min zorrotzak, erabateko isilean jartzen gintuztenak. Jesus Mari Mendizabal

---

## zeharretara ik **zehar 6**.

---

## **zeharribili**, zeharribil, zeharribiltzen du *ad* ibili.
Irakurleak hura nirekin **zeharribiltzeko** adikortasuna eta egonarria izan badu, [...]. Ibon Uribarri

**zehartu**, zehar(tu), zahartzen **1** da/du *ad* aldaratu.

Nola burua **zehartzen** den eta behakoak apaltzen, hitzak aldiz, betiere motel erranak, bakanak eta etenak diren. Jon Muñoz

Dela maiteak hitz dudazkoren batzuk jaulki dituelako, irritsak, bihotzean josirik, sua bezala pizten dituenak, dela begiak gehiegi **zehartu** dituela eta beste bati begiratu diola uste duelako. Xabier Amuriza

Ez zaitu zeure plazerretarik **zehartuko**. Jon Muñoz

• **2** zeharkatu.

-Ez dut inor ezagutzen inguru hauetan Piramideak ezagutzearren soilik basamortua **zehartzeko** prest dagoenik. Xabier Aranburu

Axedreza hausten duen bakarra Manhattango irla alderik alde **zehartzen** duen Broadway diagonala da. Harkaitz Cano

---

**zeharzale** *izond*

Eta modu bihurri hori da Tsíui PÍn **zeharzaleak** bere nobela-ibai ahitezinaren bihurgune bakoitzean hautatu zuena. Juan Garzia

---

**zehatu**, zeha(tu), zehatzen **1** du *ad* xehatu, txikitu.

Usaina gauzen barrenetik sortzen eta irteten dela argi erakusten du ikusteak zernahi usaintsuago dela, hautsia, **zehatua** edo suak suntsitua denean. Xabier Amuriza

Sokil emankorrak goldatuz eta lur zorua **zehatuz**. Xabier Amuriza

Hagin artean **zehatua**. Xabier Amuriza

Berehala bi hosto hartu zituen, eskuen ahurrean jarri eta, arnasaz berotu ondoren, **zehatu** egin zituen. Agustin Otsoa

Zerbaitek airea astindu zuen, zerbait agor eta zorrotza jaitsi zen [...] hosto eta loreak **zehatuz** eta ihartu eta erorarazīz. Anton Garikano

Bizitzan agitu zaizkidan makur andana edateari zor dizkiot: honako auto hau **zehatu**, horrako neska hori uxatu, harako nagusi harekin etsaitu, [...]. Aingeru Epaltza

Zintzurretik zintzilikatuko dut, edo bestela zapaldu, edo zanpatu, zatitu, **zehatu**... nahi duzuena. Bernardo Atxaga

**2** zigorrez jo, zigortu.

Beltzentzako lau eskolari su eman eta erraustu; gizon helduak umeen antzera **zehatu**; umeak helduen antzera **zehatu**; emakume beltzak taldean bortxatu. Anton Garikano

Erresumako epaileek hiru herio zigor eman berri zuten, lehengo gazteluzain Migel Mailuren hilketa **zehatu** beharrez. Aingeru Epaltza

**3** (era burutua izenondo gisa)

Publizitateko lau modulo ziztrin kenduta, guztiz orrialde xuria, eta horretarako opari bakarra Togasek: auto **zehatu** baten argazkia. Zakur **zehatu** mixerable bat bezala jo-eta akabatzea. Aingeru Epaltza

**4** ***zeha-zeha*** *adlag* txiki-txiki.

Elkar jotzearen arrazoia bera ahaztu egiten nuen pixkanaka, eta halere ostikoz jotzen nion, eta burua paretaren kontra kolpatzen nion, eta **zeha-zeha** egiten nuen, harik eta aurpegia puzturik eta bizkarra izerdi patsetan geratzen nintzen arte. Juan Kruz Igerabide

---

**zehatz** **1** *izond* xehetasun guztiak dituena; gutxi gora beherakoa ez dena.

Web-gunearen (Web site) helbide **zehatza** eta informazioa lortu duzun eguneko data. Askoren artean

Jakina da, ia seguru, 1486 aldera (data **zehatza** eztabaidan dago oraindik ere) azaldu zela argitara. Santiago Iruretagoiena

Ibiltariak ere bota egin du txanpon bat ermitaren lurrera, baina ezer **zehatzik** eskatu gabe. Bernardo Atxaga

Mary Annek nik bidenabar aipatutako "gudari" hitzaren esanahi **zehatza** galdetu zidan. Bernardo Atxaga

Txarrena zen gaixotasunak ez zuela izen **zehatzik**. Herria

Hizkuntzalaritzan formulatze **zehatzak** bilatzea ez du bakarrik logikaren edertasunarekiko zaletasunak edo hizkuntz analisiko metodo ezagunak garbitzeko nahiak eragiten. Itziar Laka

Estiloa, **zehatza** bezain gardena. Anjel Lertxundi

Komikoak bezain negargarriak dira kaltearen eta ordainezko sufrimenduaren arautze **zehatzak** (hik niri behi bi ebatsi, nik hiri belarri bat ebaki...). Markos Zapiain

Esan beharreko hitzei bueltak eman eta gero, atzera egiten nuen, buruan nituen hitz **zehatzek** behin ahora iritsitakoan zehaztasuna galduko zuten beldurrez. Anjel Lertxundi

Beldurra ere ez da hitz **zehatza**, ez dut uste beldur nintzenik. Xabier Mendiguren Elizegi

Hitz **zehatza** ez zen "nazka", baizik eta "hozkia". Bernardo Atxaga

Argi zegoen hitzordu **zehatz** bat saihesteko ahalegina zela hura. Ramon Saizarbitoria

Aurpegiari beste zauririk eragin barik, labankada **zehatz** eta bakar batez. Edorta Jimenez

Galaxia kiribil baten inoizko irudirik **zehatzena** lortu dute. Berria - Gaiak

Kolore eta forma **zehatz** horiexekin. Xabier Olarra

Ikara ematen dizu polizia frantsesak, errefuxiatuen kontrol **zehatza** baitarama. Rafa Egiguren

Hogeita hamar urte inguru baino gehiago ez baita zati honen egituraz eta funtzionamenduaz ideia **zehatz** samarrak izaten hasi zirela. Josu Zabaleta

Agindu **zehatzak** eman zizkion bigarren lantegia antolatzeko. Jon Muñoz

Epistemologia kartesiarrari eman zaizkion erantzun **zehatz** batzuk hartuko dira kontuan. Askoren artean

Eliza buruzagien erabaki **zehatzen** beharra, euskararen onarpenaren, errespetuaren eta erabileraren alde. Herria

Jainkoaren izaera modu **zehatzean** adierazteko modua. Piarres Xarriton

Vitruvio [...] testuinguru literario-kultural jakin batean txertatzen da koherenteki, komunikazio-modu oso **zehatzak** erabiliz. Santiago Iruretagoiena

Ez da guztiz **zehatza** bihotza "mugitzen dela" esatea, ez baita lekuz aldatzeko mugimendurik egiten, taupadaka jardutekoa baizik. Xabier Kintana

Ez naiz guztiz **zehatza** izan: lehenago ere mozkortu nintzen noizbait [...] baina hori gehiago izan zen istripua, edo deskuidoa, neure erabakia baino. Xabier Mendiguren Elizegi

Karlista armadari buruzko gorabeherez, informazio on samarra izaten genuen, fidagarria eta **zehatza**, Gorteko keinu modua, koadroetan irudikaturik ageri diren keinu jakin batzuei zentzu **zehatz** eta kodetua ematen diena. Txillardegi

Arestiko mugimendu **zehatzak** gabe, baldarrago ematen zuen orain, zainak jota. Aingeru Epaltza

Testu milimetroraino **zehatz**-zuzenak, aldi berean, zeharkako iradokizunak eta mugarik gabeko ulerbideak ernaltzen ditu nonahi. Juan Garzia

Proba **zehatzagoak** eginda, hautematen zailagoak ziren aldaketak geratu ziren agerian. Irene Aldasoro

Txostenean ez dute zenbaki **zehatzik** eman. Berria - Gaiak

Ez zuten datu **zehatzik** eman, baina 30.000 eta 40.000 artean izango zirela esan zuten. Berria - Gaiak

Deskribapen **zehatzagoa** 1 Zel 112-113 zk.etan. Askoren artean

Zenbat eta **zehatzago**, definituago, esplikatuago eta arrazoituagoa nahi, orduan-eta handiago gezurra. Iñaki Segurola

Transkripzio laxoa eta transkripzio **zehatza** bereizten dira maiz eskuliburuetan. Lourdes Oñederra

· Gojenolaren hipotesia, zuzen ulertu badizut, litzateke hizkuntza erromanikoek ez dutela jasotzen bere oso· **zehatzean** euskal adigaia. Iñaki Iñurrieta

**2** ik **jakin**[2].

Ez daukat, nahitaez, kualitate horien zehaztasunak ezagutu beharrik kasu **zehatz** batean. Askoren artean

Egoera **zehatz** batzuetan. Xabier Arregi

Partikularren ezaugarria da aldi **zehatz** bakoitzean kokagune **zehatz** batean egotea. Askoren artean

Har dezagun egun **zehatz** bat. Askoren artean

**3** (adizlagun gisa) ik **zehazki**.

Ez zen erabat **zehatz** kopiatua, baina Matisseren kutsu nabarmena zuen. Xabier Olarra

Dei egin eta Mardokeogana igorri zuen, zer gertatzen zen **zehatz** jakitera. Elizen arteko biblia

Inoiz baino **zehatzago** ikusi nuen dena, haizeak atmosfera garbitu izan balu bezala. Bernardo Atxaga

Labur, **zehatz** eta argi erantzuten zuten, epaileei ez baina estatistika-egile batzuei erantzungo baliete bezala. Jose Morales

Orduan biltegiaz hasi dira berbetan: hemen dauden oholekin zer egin, **zehatz** esanda. Urtzi Urrutikoetxea

Beasaingo institutuan, berriz, oso bestelako panorama aurkitu nuen, alderantzizkoa **zehatzago** esanda. Xabier Mendiguren Elizegi

Irudia begiaren atzean **zehatz** ager dadin, zenbat eta argi-iturria hurbilago, orduan eta gehiago konbergituarazi behar dira argi-izpiak. Josu Zabaleta

Telemetroa behar bezala doiturik dagoenean, **zehatz** fokaturik geratzen baita objektiboa. Irene Aldasoro

Ez dut mirari hau **zehatz** kontatu, ez baititut xehetasunak ezagutzen. Askoren artean

Lebitarrek eta Judako guztiek **zehatz** bete zuten Joiada apaizak agindua. Elizen arteko biblia

Ametsetan, errealitatean bezain **zehatz**, gaueko eszena guztia ikusi nuen. Josu Zabaleta

Musika, arte konplexu eta misteriozko, aljebra bezain **zehatz** eta ametsa bezain lauso hori. Josu Zabaleta

Louvreko patio karratuko atea eta Institutuko kupula **zehatz** lerrokatuta zeuden pasabidearekin. Jon Muñoz

Gutxik bezain bizi eta **zehatz** gordetzen zituen oroimenean [...] erakusten zitzaizkion gauzen irudiak. Xabier Olarra

Lebitarrek **zehatz** eta garbi irakurtzen zuten Jainkoaren legea, esanahia azalduz, herriak ulertzeko eran. Elizen arteko biblia

Hain zorrotz eta **zehatz** egin zuen horren guztiaren galdea, ezen jakinmin hutsa baino zerbait gehiago erakusten baitzuen. Jose Morales

Ez da erraza **zehatz** adieraztea. Urtzi Urrutikoetxea

Ez dakigu **zehatz** zer zegoen Kreszentziok jasotako testu-multzoan. Askoren artean

Orduan ikusi genuen, bai jauna, ondo eta **zehatz** ikusi ere, batak ala besteak, gauza zuri bat ohe gainean herrestan, tapiz gainera erortzen, eta besaulki batean azpian ezkutatzen. Josu Zabaleta

Nahi adina **zehatz** jakin daiteke, beraz, zirkuluaren azalera. Jon Muñoz

**Zehatzago**, produktibitate handiko jardueretako irabazien parte bat soldata apaleko herrialdeen konkurrentzia pairatzen duten sektoreetako soldatadunetara desbideratzean datza irtenbide hau. Koro Navarro

**4** ***zehatz-zehatz*** *izond/adlag*

Sexu kontuetan ez zuen jokabide **zehatz-zehatzik**. Gotzon Garate

Identifikatzen ikasi dugun zelula multzo **zehatz-zehatzetan** adierazten dute beren burua halako geneek. Juan Garzia

**Zehatz-zehatza** izan beharra zegoen, ergelkeriarik idatzi nahi ez bazen. Jon Muñoz

Haren oharrak **zehatz-zehatzak** ziren. Karlos Zabala

Agintzen zioten guztia, **zehatz-zehatz** egingo zuela, hitz eman zien apaizak. Patxi Ezkiaga

Zeren, behin esan zidanaren arabera, konturatuta nago ez dakiela **zehatz-zehatz**. Josu Zabaleta

**5** ***zehatz-zehazki*** *adlag*

Logika orokorrean, beraz, arrazoimenaren irakaspena osatu behar duen zatia **zehatz-zehazki** bereizi behar da Logika aplikatua osatzen duen zatitik. Ibon Uribarri

**hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 4 aldiz agertzen direnak)**

**adibide zehatz** (6); **aldi zehatz** (4); **argi eta zehatz** (5); **auzi zehatz** (4); **berri zehatz** (5); **bezain zehatz** (16); **bi eskaera zehatz** (5); **datu zehatz** (5); **dena zehatz mehatz** (9)

**egitasmo zehatz** (4); **egoera zehatz** (10); **egun zehatz** (4); **ekintza zehatz** (7); **ekintza zehatz bat** (4); **elementu zehatz** (5); **era zehatz** (5); **erantzun zehatz** (7); **eredu zehatz** (4); **eremu zehatz** (7); **eremu zehatz batean** (4); **esanahi zehatz** (4); **eskaera zehatz** (10); **eskaera zehatz egin** (7); **ez daki zehatz** (6); **ez dakigu zehatz** (10); **ez dakit zehatz** (16); **ez zekien zehatz** (8); **forma zehatz** (4); **gai zehatz** (10); **galdera zehatz** (9); **gauza zehatz** (9); **guztia zehatz** (11); **guztia zehatz mehatz** (9); **guztiak zehatz** (11); **guztiak zehatz mehatz** (7); **guztiz zehatz** (4); **hain zehatz** (18); **helburu zehatz** (16); **historia zehatz** (4)

**ideia zehatz** (6); **informazio zehatz** (7); **jakin eta zehatz** (8); **jokalari zehatz** (4); **kasu zehatz** (13); **konpromiso zehatz** (7); **kopuru zehatz** (5); **labur eta zehatz** (7); **lan zehatz** (5); **leku zehatz** (15); **leku zehatz bat** (4); **leku zehatz batean** (8); **modu zehatz** (25); **modu zehatz batean** (11); **modu zehatz batez** (4); **mota zehatz** (6); **neurri zehatz** (23)

**oso zehatz** (13); **pertsona zehatz** (8); **politiko zehatz** (10); **proiektu zehatz** (4); **proposamen zehatz** (10); **proposamen zehatz bat** (5); **puntu zehatz** (4); **sektore zehatz** (5); **talde zehatz** (4); **testuinguru zehatz** (5); **testuinguru zehatz batean** (4)

**une zehatz** (19); **une zehatz batean** (8)

**zehatz azaldu** (5); **zehatz aztertu** (5); **zehatz egin** (11); **zehatz esan** (5); **zehatz esanda** (27); **zehatz esateko** (26); **zehatz esaten** (4); **zehatz eta determinatu** (4); **zehatz eta garbi** (4); **zehatz eta zuzenak** (4); **zehatz jakin** (18); **zehatz jakitea** (4); **zehatz jakiteko** (5)

**zehatz mehatz** (553); **zehatz mehatz adierazi** (4); **zehatz mehatz azaldu** (17); **zehatz mehatz azaltzeko** (5); **zehatz mehatz azaltzen** (6); **zehatz mehatz aztertu** (19); **zehatz mehatz aztertuko** (5); **zehatz mehatz aztertzen** (10); **zehatz mehatz bete** (10); **zehatz mehatz deskribatzen** (4); **zehatz mehatz egin** (5); **zehatz mehatz esan** (4); **zehatz mehatz ezagutzen** (7); **zehatz mehatz gogoratzen** (4); **zehatz mehatz jakin** (8); **zehatz mehatz jakiterik** (4); **zehatz mehatz kontatu** (23); **zehatz mehatz kontatzeko** (4); **zehatz mehatz oroitzen** (7)

**zehatz samarra** (4); **zehatz zehatz** (4); **zehatz zehatza** (7); **ziur eta zehatz** (4); **zorrotz eta zehatz** (4); **zuzen eta zehatz** (7)

**agindu zehatza** (4); **argazki zehatza** (4); **arrazoi zehatza** (7); **azterketa zehatza** (10); **behar bezain zehatza** (5); **berri zehatza** (45); **berri zehatza eman** (4); **berri zehatza emateko** (5); **berri zehatza ematen** (8); **bezain zehatza** (20); **data zehatza** (17); **definizio zehatza** (4); **deskribapen zehatza** (7); **deskripzio zehatza** (5)

**egoera zehatza** (6); **egoeraren berri zehatza** (4); **egun zehatza** (8); **erabat zehatza** (7); **erantzun zehatza** (11); **esanahi zehatza** (8); **eskaera zehatza** (25); **eskaera zehatza egin** (18); **eskaintza zehatza** (4); **eskari zehatza** (4); **galdera zehatza** (6); **guztiz zehatza** (4); **hain zehatza** (7); **helburu zehatza** (31); **helburu zehatza dute** (7); **helburu zehatza izango** (4); **hitz zehatza** (5); **horren berri zehatza** (5)

**ikerketa zehatza** (4); **informazio zehatza** (31); **informazio zehatza eman** (4); **inguruko informazio zehatza** (4); **irakurketa zehatza** (5); **jarraipen zehatza** (9); **joko zehatza** (5); **kokaleku zehatza** (5); **kokapen zehatza** (7); **kopia zehatza** (6); **kopuru zehatza** (22); **lan zehatza** (4); **leku zehatza** (7); **mezu zehatza** (8); **mezu zehatza bidali** (6); **neurri zehatza** (4)

**oso zehatza** (19); **plan zehatza** (6); **proposamen zehatza** (21); **proposamen zehatza egin** (7)

**xede zehatza** (4); **zabal eta zehatza** (5)

**zehatz zehatza** (7); **zehatza bezain** (4)

**zentzu zehatza** (4); **zerrenda zehatza** (6)

**are zehatzago** (5); **baino zehatzago** (9); **zehatzago azaldu** (4); **zehatzago aztertu** (4); **zehatzago esan** (4); **zehatzago esanda** (56); **zehatzago esanik** (5); **zehatzago esateko** (42); **zehatzago ikusiko** (4); **zehatzago izateko** (5)

**azterketa zehatzagoa** (4); **baino zehatzagoa** (8); **informazio zehatzagoa** (5); **zehatzagoa da** (10); **zehatzagoa egin** (10); **zehatzagoa izan** (6)

**askoz ere zehatzagoak** (4); **datu zehatzagoak** (4); **neurri zehatzagoak** (5); **zehatzagoak dira** (9); **zehatzagoak egin** (4); **zehatzagoak izan** (5)

**agindu zehatzak** (15); **agindu zehatzak eman** (7); **akusazio zehatzak** (5); **alternatiba zehatzak** (4); **arau zehatzak** (7); **argi eta zehatzak** (4); **argiak eta zehatzak** (4); **argibide zehatzak** (4); **arrazoi zehatzak** (6); **aski zehatzak** (4); **azalpen zehatzak** (5); **azterketa zehatzak** (6); **baldintza zehatzak** (5); **berri zehatzak** (5); **bezain zehatzak** (4); **data zehatzak** (5); **datu zehatzak** (34); **datu zehatzak eman** (5)

**eginkizun zehatzak** (4); **ekimen zehatzak** (8); **ekintza zehatzak** (8); **emaitza zehatzak** (4); **erantzun zehatzak** (5); **eskaera zehatzak** (13); **eskaera zehatzak egin** (5); **eskari zehatzak** (4); **gauza zehatzak** (5); **helburu zehatzak** (19); **helburu zehatzak izango** (5); **hitz zehatzak** (10)

**konpromiso zehatzak** (22); **konpromiso zehatzak hartzeko** (5); **lan zehatzak** (4); **muga zehatzak** (4); **neurri zehatzak** (68); **neurri zehatzak eskatu** (8); **neurri zehatzak har** (5); **neurri zehatzak hartu** (11); **neurri zehatzak hartzeko** (6); **neurri zehatzak proposatu** (5)

**oso zehatzak** (16); **oso zehatzak dira** (5); **pauso zehatzak** (4); **politiko zehatzak** (6); **proposamen zehatzak** (33); **proposamen zehatzak egin** (7)

**urrats zehatzak** (12)

**zehatzak dira** (16); **zehatzak izan** (15); **zehatzak izango** (11); **zehatzak izango dituen** (5); **zehatzak ziren** (7)

**zenbaki zehatzak** (4)
**modu zehatzean** (10); **une zehatzean** (4)
**ahalik eta zehatzen** (13); **ekintza zehatzen** (5); **gai zehatzen** (8); **gai zehatzen inguruko** (5); **neurri zehatzen** (6); **proposamen zehatzen** (4)
**ahalik eta zehatzena** (4)
**datu zehatzetan** (4); **neurri zehatzetan** (4); **une zehatzetan** (21)
**agindu zehatzik** (4); **arrazoi zehatzik** (7); **arrazoi zehatzik gabe** (4); **asmo zehatzik** (4); **berri zehatzik** (19); **berri zehatzik eman** (4); **berri zehatzik ez** (5); **data zehatzik** (12); **datu zehatzik** (40); **datu zehatzik ez** (14); **deus zehatzik** (4)
**egitasmo zehatzik** (9); **egun zehatzik** (7); **epe zehatzik** (6); **erabaki zehatzik** (6); **erabaki zehatzik hartu** (4); **erantzun zehatzik** (11); **erantzun zehatzik eman** (4); **esanahi zehatzik** (5); **eskaera zehatzik** (4); **eskaintza zehatzik** (5); **eskaintza zehatzik egin** (4); **ezer zehatzik** (24); **ezer zehatzik ez** (10); **froga zehatzik** (4); **helburu zehatzik** (16); **helburu zehatzik gabe** (5)
**ideia zehatzik** (4); **informazio zehatzik** (9); **irizpide zehatzik** (4); **kopuru zehatzik** (11); **muga zehatzik** (6); **neurri zehatzik** (6); **norabide zehatzik** (9); **norabide zehatzik gabe** (6)
**politika zehatzik** (4); **proiektu zehatzik** (7); **proposamen zehatzik** (8)
**zenbaki zehatzik** (5)

---

## zehatzaile[1] *izond* zehazten duena.

Beren auto ponposoak toki debekatuetan uztera tematzen dira, eta orduan abiarazten Udalak bere erraietan ezkutatzen duen makina **zehatzailea** . Aingeru Epaltza

Kontzientziaren baitan ostataturik nuen harra nahi nuen ostikatu eta handik igorri, zeren eta har penatzaile eta **zehatzaile** hark ez baitzuen enetzat, urte luzeetan, hitz gozorik izan, gaixto nintzenean gaixto nintzelako eta on nintzenean hobe ez nintzelako. Joan Mari Irigoien

---

## zehatzaile[2] *izond* zehazten duena.

Alemaniar izen bereziaren eta frantses **zehatzailearen** arteko loturak halako nahasmendu txundigarri eta arras atsegingarri bat eragingo zuen bere bezeroen gogoetan. Oskar Arana

---

## zehatzezin ik **zehaztezin**.

---

## zehazgabe ik **zehaztugabe**.

---

## zehazgabetasun ik **zehaztugabetasun**.

---

## zehazgaitz *izond* zaila zehazten, ia zehaztezina.

Hainbeste misterio eta alderdi **zehazgaitz** haztatu behar ziren, hain froga gutxi genuen hipotesi egiantzeko bat osatzeko. Oskar Arana

Espazioan galdutako puntu **zehazgaitz** batean. Xabier Mendiguren Elizegi

Inork ez baitaki, a priori, egiteko gauza den ala ez, gizakien kontroletik kanpoko kontu **zehazgaitzek** baldintzatzen baitute hori. Bego Montorio

---

## zehazgarri *izond* zehaztu daitekeena, zehazteko modukoa.

Gure pentsatzearen objektuen alorra ezin dugu gure sentimenaren baldintzez goiti positiboki hedatu eta [...] noumenoak onartu, haiek esanahi positibo **zehazgarririk** ez baitute. Ibon Uribarri

---

## zehazkabe ik **zehaztugabe**.

---

## zehazketa *iz* zehaztea.

Kontzeptu baten historia ez dela, guztiz, bere mailakako **zehazketarena** , etengabe hazten doan bere arrazoizkotasunarena, bere mailakako abstrakzioarena. Xabier Arregi

---

## zehazki *(1198 agerraldi, 168 liburu eta 556 artikulutan)* 1 *adlag* modu zehatzean. ik **zehatz 3; zehaztapen 6**.

Kierkegaardek **zehazki** formulatu zuen, bere Errepikapen saiakeran, nozio horren zentzua zein zen. Joseba Zulaika

**Zehazki** esateko, guk iraupen-irudi deitzen dugun hori [...] ez dagokio, berez, denborazko sintesiari. Josu Zabaleta

1854ko azaroaren 8an **zehazki** , gure amak 26 urte bete zituen egunean, hain zuzen. Txillardegi

Agustinek Testamentu Berria irakurri zuen, San Paulok Erromatarrei idatzitako epistolan 13,13 pasartea **zehazki** . Imanol Unzurrunzaga

Zer zen **zehazki** ? Jon Muñoz

Zer da, **zehazki** , maximo bat edo minimo bat? Jon Muñoz

Zer esan nahi duen **zehazki** "alta bada" horrek. Unai Iturriaga

Azal niezaiola gero **zehazki** zergatik gertatu zen ezbeharra. Juan Garzia

Txarteltxo bat eman zidan, makinaz **zehazki** idatzia. Juan Garzia

Logikaren muga, ordea, oso **zehazki** determinatzen da, pentsatze ororen erregela formalak xeheki aurkeztu eta hertsiki frogatu baino egiten ez duen zientzia baita. Ibon Uribarri

Eranskinei buruz, ea arduraz egiten ari den, guztien berri ere **zehazki** eskatuz. Patxi Altuna

Iduritu zitzaion hitz horiek ez zirela zinez lausenguzkoak, eta osaba **zehazki** begiztatu zuen. Elena Touyarou

-Zer gertatzen da **zehazki** ? Xabier Olarra

-Zer galdetu nahi didak **zehazki** : ea mutil batekin nagoen? Antton Olano

Zertan ari zarete **zehazki** orain? Berria - Gaiak

Baina zer zen **zehazki** galtzeko beldur zinena? Xabier Mendiguren Elizegi

Non demontre gordeak zituzten, haren gizonek etxe miaketak hain **zehazki** burutu zituztelarik? Elena Touyarou

Ezinezkoa zen **zehazki** jakitea abortua debekatuta zegoen gaizki zegoelako, edo gaizki zegoen debekatuta zegoelako. Joseba Urteaga

Soa lurrari iltzatua, edo, **zehazkiago** , hegazkineko zurubiari. Joxe Austin Arrieta

Era horretako azterketa batean bada denborazko jarraitasunen eskegitze bat ·**zehazkiago** esanda formulazioen egutegiaren eskegitzea-. Xabier Arregi

**2** (ezezko testuingurutan)

-Ez da **zehazki** nagikeria. Lopez de Arana

Hidroxiapatitoa da mineral hori: ez da, **zehazki** , konposatu kimiko bat. Irene Aldasoro

Ez da bortxaketa, ez **zehazki** , baina gogoz kontrakoa edozelan ere, barren-barreneraino gogoz kontrakoa. Oskar Arana

Ez zen **zehazki** kalte handiak izatea gogamenean, baizik eta ez ezagutzeraino aldatua izatea. Xabier Olarra

Ez daki **zehazki** nork esan dituen hitz horiek. Bernardo Atxaga

Inguruak, berriz, **zehazki** zergatik ez bazekien ere, Gernika ekartzen zion gogora. Juan Luis Zabala

Ez nekien **zehazki** zein zen gezurra, baina gezurretan ari zen. Ander Irizar

Oskarrek ez du **zehazki** gogoratzen zergatik hasi zen joaten. Iban Zaldua

Ez dut **zehazki** zenbat ginen gogoratzen. Xabier Mendiguren Elizegi

Ez zekien **zehazki** zertan zetzan gakoa. Josu Zabaleta

Ez du oroitzen **zehazki** noiz. Eider Rodriguez

Esan behar da, dena dela, t afrikatuaren ahoskunea ez dagoela **zehazki** ahosabaian, sabaiaren aurrealdea eta hortz hobien atzealdeko eremuan baizik. Lourdes Oñederra

Gaur egun ere, ezin da **zehazki** esan zergatik zigortzen den. Markos Zapiain

Oraindik ez da ezagutzen **zehazki** nola igarotzen den informazioa egoera kimikotik nerbio-egoerara. Josu Zabaleta

Bazekiat -nolatan ez diat bat jakingo?-, baina ez **zehazki** . Iñaki Segurola

**hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 4 aldiz agertzen direnak)**

**ez daki zehazki** (7); **ez dakigu zehazki** (13); **ez dakit zehazki** (14); **ez nekien zehazki** (6); **ez zehazki** (9); **ez zekien zehazki** (7); **hain zehazki** (7); **oso zehazki** (5)

**zehazki aipatu** (6); **zehazki esan** (4); **zehazki esateko** (9); **zehazki ez dakit** (4); **zehazki ezagutu** (4); **zehazki hitz eginez** (5); **zehazki ikusi** (4); **zehazki jakin** (9); **zehazki jakin gabe** (5); **zehazki non dagoen** (4); **zehazki zein** (26); **zehazki zenbat** (14); **zehazki zer** (51); **zehazki zer esan** (6); **zehazki zer zen** (5); **zehazki zergatik** (8); **zehazki zertan** (7); **zer da zehazki** (11); **zer den zehazki** (5)

**zehazkiago determinatu** (5); **zehazkiago esanda** (15); **zehazkiago esateko** (12)

---

# zehazkizun *iz* xehetasuna.

Busturiarrek harriturik entzuten zuten itzelezko istorioa, eta **zehazkizun** bakoitza gero eta zurrumurru ozenagoz hartzen zuten. Joanes Urkixo

Zeharo harrituta zeuden gazteak Fionnen ekintzagatik, eta Belaskori, suspertu zenean, **zehazkizun** guztiak azaldu zizkioten. Joanes Urkixo

---

# zehazpen *(2 agerraldi, 2 liburutan) iz* zehaztea, xehetasuna. ik **zehaztapen.**

Epaileen iritzira uzten zelako zigorren **zehazpena** . Juan Martin Elexpuru

Saihets dezagun horien kontrako **zehazpenik** , askatasun politikoarekin bateraezina izango bailitzateke halakoa. Andres Urrutia

---

# zehaztaile *izond* zehazten duena.

Askoz argiagoa da eskubideen indar **zehaztailea** gizabanakoen eremuan, kolektiboen eremuan baino. Berria - Euskal Herria

---

# zehaztapen *(106 agerraldi, 31 liburu eta 51 artikulutan)* **1** *iz* zehaztatzea, xehetasuna. ik **zehazpen.**

Baina, zer da p bat, beste inolako **zehaztapenik** gabe? Isabel Arrigain

Zuzenketa gehienek ez dute Jaurlaritzaren egitasmoaren edukian aldaketa nabarmenik eragiten, artikuluen **zehaztapen** , argipen edo azalpen hutsak direlako. Berria - Euskal Herria

Lexikoa, adierak, hizkuntza batetik besterako parekotasunak, aldeak, ñabardurak, **zehaztapenak** ... Berria - Kultura

Soinu txikiari buruz zenbait **zehaztapen** egitea egokia litzatekeela uste dut. Koldo Izagirre

Herrialdeari zigorrak jartzearen alde agertu zen baina **zehaztapen** bat egin zuen: «Inor ez da ari hitz egiten Iran okupatzeaz edo bere kontra ekintza militarrak abiatzeaz». Berria - Mundua

Zenbaki horiek agerian uzten duten egoera baikorra ukatu gabe, hainbat **zehaztapen** egin behar da hemen datu horiek era egokian balioztatzeko. Juan Ignacio Pérez / Pello Salaburu

**Zehaztapenak** egitera etortzen zitzaidan azaltzeko komunistak ez zirela bera bezain argiak. Pello Lizarralde

Neure buruari hitzeman nion Kattinari **zehaztapenak** gero emango nizkiola. Itxaro Borda

Gero hainbat argibide ematen hasi zitzaion emakumea, **zehaztapen** eta xehetasun ugariz jantzitako konta-modu urduri batez. Anjel Lertxundi

Gure bezeroak -esaterako torloju erosleak- kontratuaren baldintza-orrietan jarri dizkigun **zehaztapenak** betetzea. Iñaki Heras

Azterketa-metodo baten **zehaztapena** (datuen lanketa kuantitatiboa, zehaztu daitezkeen ezaugarri batzuen araberako deskonposaketa, ezaugarri horiei buruz ikertuko da euren arteko korrelazioa, dezifrapen interpretatiboa, maiztasunen eta banaketen azterketa). Xabier Arregi

**Zehaztapen** eta sailkapen horietatik ez litzateke ziurtasunez ezer aterako, hizkuntzari berez dagokion esparrutik at. Isabel Arrigain

Begi-bistakoa zen, bada, zerbait garrantzitsua adierazteko zerabilela kontakizun bitxi hura, hain **zehaztapenez** betea. Anjel Lertxundi

**2** (izenondoekin)

**Zehaztapen** ilun samar hau beharrezkoa da zientzia enpiriko batean. Itziar Laka

Orain, ordea, **zehaztapen** berri bat egin nahi nuke: ezintasuna hautsiz sor daitezkeen pertsonaia edota elementu narratiboak jakinak direla. Bernardo Atxaga

Hala, bada, eta orain arte esana gogoan, bizpahiru **zehaztapen** metodologiko egingo ditugu, bat-bateko bertsogintzaren azterketa doitzen lagunduko digutenak. J. Garzia / A. Egaña / J. Sarasua

Eztabaida honen nondik norako nagusiak deskribatu baino lehen, **zehaztapen** terminologiko batzuk egin beharra dago, nahitaez. Josu Zabaleta

Orokortze-eskemak edo **zehaztapen** progresiboen eskemak. Xabier Arregi

Ustekabean, ordea, gerrako istorio eder bat entzun nuen, nire bibliofiliak espero zituen **zehaztapen** tekniko eta lehorren ordez. Anjel Lertxundi

**3** (hitz elkartuetan)

Eraketa hau bermatzen da azaleratze, mugarritze eta **zehaztapen** instantzia batzuen arteko harreman-multzo baten bidez. Xabier Arregi

Bukatzeko aztertuko ditugu **zehaztapen** saretak. Xabier Arregi

**hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**

---

# **zehaztasun** 1 *iz* zehatza denaren nolakotasuna.

Lurraren ardatza finkoa ez dela asmatu zuen, bere taulen **zehaztasunari** esker! Jon Muñoz

Kalkulu astronomiko ororen doitasuna sinu-taularen **zehaztasunean** datza. Jon Muñoz

Delako ahoskera baten transkripzioa zenbaterainoko xehetasunez egiten den da kontua: laxotasuna eta **zehaztasuna**, betiere, erlatiboak dira. Lourdes Oñederra

Beste zientzia guztiek kopiatu nahi izan dute fisikaren metodoa eta **zehaztasuna**. Askoren artean

Nire argudioen helburua zen, aurrena, eta argudiatzeko moduaren xehetasunak eta **zehaztasuna** gorabehera, [...]. Koro Navarro

**Zehaztasunak** ikaragarriagoa bihurtzen du albistea. Iñigo Aranbarri

**Zehaztasunak** ematen dio dotorezia hori, labur eta biluz esan beharrak. Berria - Kultura

Txitxikovek gainbegiratu bat egin zion zerrendari, eta harriturik utzi zuten hango **zehaztasunak** eta txukuntasunak: nekazarien lanbidea, izen-deiturak, adina eta famili egoera zehatz-mehatz idazteaz gain, [...]. Jose Morales

Harreman honek ezaugarritzen du bikoizketa, bera kopia hutsa eta bakuna bada eta, baita enuntziatuaren **zehaztasuna** ere. Xabier Arregi

Kronometroaren **zehaztasunarekin**, hamabietan, hiruretan eta seietan esnatzen zen. Jose Morales

Hizkera funtsean generikoa, orokorra, **zehaztasunik** gabea, espazioan eta denboran errorik ez duena. J. Garzia / A. Egaña / J. Sarasua

**Zehaztasunik** gabeko frogak. Berria - Euskal Herria

Ez du sekula fedeak izanen jakintzaren **zehaztasunik** ez ziurtasunik. Piarres Xarriton

Erlatibitatearen Teoriaren **zehaztasuna** egiaztatzeko. Berria - Gaiak

Bi ideia hauek lotzen dituzten ezaugarri bakarrak **zehaztasunik** eza eta hizkuntz teoriarako desegokitasuna dira. Itziar Laka

Bere aurpegi puztuan, begiek **zehaztasunik** gabe begiratzen zuten. Bernardo Atxaga

Gainera, guztia zakiat, xehetasun guztiekin, poliziaren txosten baten **zehaztasunez**. Xabier Olarra

*ik beherago* 6. Askoren artean

## 2 (izenondo eta izenlagunekin)

Ederki zekien zeintzuk ziren gauza bakoitzaren koloreak, **zehaztasun** handiz jakin ere. Xabier Olarra

Hauekin batera desagertzen dira erlijio delitu guztiak, oso izen lauso eta **zehaztasun** gutxikoak denak: federik eza, sakrilegioa, biraoa, ateismoa, etab. Juan Martin Elexpuru / Bego Montorio

Orain arteko [...] neurketek baino 100 aldiz **zehaztasun** handiagoa izango dute gure neurketek.Gaixoak joka jarraitzen zuen, **zehaztasun** ikaragarriz, atsedenik hartu gabe. Berria - Gaiak

Bazegoen egitate hartan krudeltasun harro bat [...] zabarkeria anker bat, enerbatu egiten ninduen **zehaztasun** mingarri bat. Koldo Izagirre

**Zehaztasun** matematikoaren ordez probabilitate-kalkulua sartu behar da aritmetika politikoan. Ia **zehaztasun** fotografikoz eman zezakeen Pontitoko etxe, kale eta harri bakoitza. Juan Martin Elexpuru

**Zehaztasun** optiko-geometrikoa hurbilago al dago ideal horretatik efektu "atmosferiko" baten bilaketa baino? Josu Zabaleta

Errenterian gertatu zitzaizkionak kontatu zituen, emoziorik falta ez zuen **zehaztasun** milimetrikoz. Iban Zaldua

Garzon ez da nabarmendu **zehaztasun** judizialarengatik. Berria - Harian

Oso garrantzitsua da abertzaleontzat gezur horiei guztiei **zehaztasun** zientifiko handiz erantzutea. Berria - Euskal Herria

**Zehaztasun** zientifiko faltagatik. Berria - Euskal Herria

Hortaz, zientziatik at, **zehaztasun** fonologikoa ez da desiragarria. Isabel Arrigain

Ondorengo egunetan arreta eta **zehaztasun** erabatekoaz prestatu nuen Pariseko egonaldia. Ramon Saizarbitoria

Berak, berean zorrotz eta gogor, "suisar **zehaztasun"** delakotzat saldu nahi izan zizkidan. Juan Garzia

## 3 (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

Guztiz interesgarria izango litzatekeela azterketa hori gaurko egunean eragin horiek nolakoak diren ezagutzeko **zehaztasun**-maila bereko azterketak eginez osatzea. Josu Zabaleta

Hamabi Tauletako legeak **zehaztasun**-eredu dira: haurrek buruz ikasten zituzten. Iñaki Iñurrieta

Kazetaritza idatzia «zalutasun, bizitasun eta **zehaztasun** eskola» izan zen beti Carpentierrentzat. Berria - Kultura

Aurrelarien **zehaztasun** ezaren gainean sortu den eztabaidarekin ez dago batere ados Valverde entrenatzailea. Berria - Kirola

Alemanian ez da **zehaztasun**-espiritua hil oraindik. Ibon Uribarri

Legeen **zehaztasun**-falta eguraldiaren eraginez berez nagia den nazio baten gainera erortzen bada, **zehaztasun** falta honek iraunarazi eta handitu egingo ditu nagikeria eta inozokeria. Juan Martin Elexpuru

## 4 (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa)

Mastekatze-prozesu horren mende jartzeko joerak ez zituen bakarrik buru-argitasuna eta pentsamendu-**zehaztasuna** bultzatu. Iñaki Mendiguren

Foku-**zehaztasunik** ezaren beste kausa bat hau da: fokatzegaitasun desberdina duela objektiboak kolore bakoitzerako. Irene Aldasoro

## 5 xehetasuna.

Ez daukat, nahitaez, kualitate horien **zehaztasunak** ezagutu beharrik kasu zehatz batean. Askoren artean

**Zehaztasunak** ematen jarraitu zuen jainkosak: Nire aurka ezarri duten kexaren gainean **zehaztasunak** eman ahal dizkidazue. Juan Kruz Igerabide

Egia izateaz gain, iruditu zitzaidan **zehaztasun** hori garrantzitsua zela. Ramon Saizarbitoria

Arreta gutxi eskainiko diegu **zehaztasun** horiei, Eugeni, medikuntzaren alorrekoak baitira lizunkeriarenekoak bainoago. Juan Martin Elexpuru / Bego Montorio

Baina, **zehaztasun** horiek denak beren garaian egoki argituko ditugu. Pello Zabala

Zientzialari talde horretako buruak eman ditu aurkikuntzaren inguruko **zehaztasun** guztiak. Berria - Gaiak

Neskaren sarrerak galarazi zidan **zehaztasun** gehiago eskatzea. Aingeru Epaltza

Haren janzkeraren beste **zehaztasun** batzuez ez naiz orain gogoratzen. Oskar Arana

Ez zuen **zehaztasun** gehiago eman, ezta zenbat atxilotu egon ziren ere. Berria - Mundua

**Zehaztasun** gehiagorik ez dakigu. J.M. Olaizola "Txiliku"

Harik eta Hermann von Helmholtzek, ikusmenari buruzko ikerketan ziharduela, piztu eta **zehaztasun** berri bat eman zion arte. Xabier Olarra

Hori **zehaztasun** txiki bat da. Oskar Arana

San Frantziskoren idazkietan, bere-bereak dituen intuizio eta adierazpenen ondoan, ideia, esamolde eta **zehaztasun** praktiko asko daude, Bibliatik [...] eta bestelako iturrietatik datozenak. Askoren artean

**Zehaztasuna** galtzen ari ziren pixkana-pixkana muinoen, zuhaitzen eta belar-sailen islak. Anjel Lertxundi

38 euskal kanturen hitzak emanak dira, **zehaztasun** andana batekin bereziki euskara menperatzen ez dutenak gogoan. Herria

## 6 ***zehaztasunez*** *(185 agerraldi, 47 liburu eta 18 artikulutan) adlag* ik **zehazki**.

Hark neurtu zuen aurrenekoz **zehaztasunez** Lurra. Jon Muñoz

Hotsak **zehaztasunez** entzuten hasi nintzen. Bernardo Atxaga

Koloretako irudiak erakusten genizkionean halako arazoak gertatzen ziren arren, aise eta **zehaztasunez** deskribatu zituen. Xabier Olarra

**Zehaztasunez** gogoratzen ditu Elias anaia Ministro jeneral izan zeneko urteak ere.Beharrezkoa da definitzea **zehaztasunez** zertan dautzan aldaketa hauek. Askoren artean

Honen bidez, makinaren egoera **zehaztasunez** jakiteko aukera izango da, uneoro. Berria - Gaiak

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
>
> **edozein zehaztasun** (3); **inguruko zehaztasun** (5); **inguruko zehaztasun guztiak** (3)
>
> **zehaztasun askorik** (3); **zehaztasun bat** (3); **zehaztasun eske** (3); **zehaztasun eza** (7); **zehaztasun falta** (10); **zehaztasun gabe** (3); **zehaztasun gehiago** (19); **zehaztasun gehiago eman** (5); **zehaztasun gehiagorik** (8); **zehaztasun gehiagorik gabe** (4); **zehaztasun guztiak** (9); **zehaztasun handia** (3); **zehaztasun handiagoak** (3); **zehaztasun handiagoz** (10); **zehaztasun handirik** (10); **zehaztasun handirik eman** (6); **zehaztasun handiz** (24); **zehaztasun maila** (4); **zehaztasun osoz** (13); **zehaztasun zientifiko** (4)
>
> **teoriaren zehaztasuna** (3)
>
> **horien zehaztasunak** (3); **inguruko zehaztasunak** (6); **zehaztasunak eman** (3); **zehaztasunak emateko** (4); **zehaztasunak ematen** (5)
>
> **duen zehaztasunaz** (3)
>
> **zehaztasunez azaldu** (5); **zehaztasunez gogoratzen** (3)
>
> **zehaztasunik eman gabe** (6); **zehaztasunik ez** (8); **zehaztasunik eza** (4); **zehaztasunik gabe** (8); **zehaztasunik gabea** (4); **zehaztasunik gabeko** (10); **zehaztasunik gabekoa** (3); **zehaztasunik handienaz** (3)

---

## **zehaztatu**, zehazta, zehaztatzen du *ad* zehaztu.

Nork **zehaztatuko** dauzkigu gauza horiek dien bezala, eta ez erdi-hitzez "politikero" horiek bezala? Herria

Aparkalekuak **zehaztatuak**. Herria

---

## **zehazte** *iz* zehaztasunez mugatzea, zehatz gauzatzea.

Horrelaxe jarraituko du gainera harik eta kontserbatu nahi dena zehazten den arte; **zehazte** hori egungo sistemaren gizarte zein ekonomi mailako antolaketarentzako baldintzatzaile bat izango litzateke. Itziar Eizagirre / Amaia Lizarralde

Juriskontsultorik gehienek legeari buruz eman dituzten zehaztapenak begiz jotzean, berehalakoan ohartu dugu **zehazte** horien askieza. Andres Urrutia

Erromatarrek azkeneko tenplorik arranditsuena desegin zuten garaitsuan, indartu egin zen berriz gure Jainkoaganako propaganda sarerik zabalena, bidenabar bere nortasun eta bizileku finko bakar izanen zenaz **zehazte** harrigarrienak lau haizetara ufatuz. Patziku Perurena

Joan den aspaldian ahalegin handia egin da euskara batua osatze eta **zehazte** bidean. Koldo Zuazo

---

## **zehaztear** *izond* zehazteko zorian; zehazteko.

PSOEko bozeramaile Alfredo Perez Rubalcabak **«zehaztear** zeuden gaiak doitzeko» errepublikanoekin bilduko zirela iragarri zuen «behin betiko akordio batean» adosteko «gai ziren» ikusteko. Berria - Harian

Oraindik ere **zehaztear** dagoen George Bush presidentearen senideren batek zuzenduko du taldea. Berria - Mundua

Oraindik lanpostuen kopurua **zehaztear** dago. Berria - Euskal Herria

---

## **zehazteke** *adlag* zehaztu gabe.

Identitate hori **zehazteke** zegoen, Europako beste herri batzuetan ez bezala. Askoren artean

Terapia genetiko horrek izan ditzakeen ondorio txarrak **zehazteke** daudela gogorarazi dute zientzialari amerikarrek. Berria - Gaiak

**Zehazteke** dauden gaiak. Berria - Mundua

Prozesua **zehazteke** dagoen arren, gai honetan zientziak urrats handiak egin ditu urteetan zehar. Pello Salaburu

Aukerak dituzten ontzioletan kapital pribatua sartuko dute, baina eskaerarik ez duten ontziolekin zer gertatuko den **zehazteke** dago. Berria - Ekonomia

Legeak gauza asko utzi ditu **zehazteke**. Berria - Euskal Herria

Bikoteak, hala ere, **zehazteke** daude oraindik. Berria - Kirola

Bidaia gibelatu denez, egitura dagoen bezala eta erabat **zehazteke** aurkeztea deliberatu dute partaideek. Berria - Euskal Herria

Ordutik, bi alderdiek **zehazteke** daukate zer joko duten aurrerakoitzat etorkizunean. Berria - Mundua

Etxeko partidatan bilakaera bikaina izan duen arren, etxetik kanpo jokatzeko modua **zehazteke** du. Berria - Kirola

Tratu fiskala, **zehazteke**. Berria - Harian

Hauteskunde zerrendaren osaketa, **zehazteke** oraindik. Berria - Euskal Herria

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
>
> **eguna zehazteke** (3); **oraindik zehazteke** (7); **zehazteke dago** (17); **zehazteke dago oraindik** (7); **zehazteke dagoela** (3); **zehazteke dagoen** (3); **zehazteke daude** (9)

---

## **zehaztezin** *(13 agerraldi, 11 liburu; orobat* ***zehaztuezin*** *g.er. eta* ***zehatzezin*** *5 agerraldi, 5 liburutan) izond* ezin zehaztuzkoa.

Mundu honetaz landa bide zegoen sabaiko puntu **zehaztezin** batera begira egon zen, maskara bat jarrita bezala. Jon Alonso

Argi baten distira ikusi zuen irekitako ate batean, hurbiltzen ari zen orko baten irudi **zehaztezinarekin** batera. Agustin Otsoa

Batere estutu gabe jarraitu du Joxek, eta, Abelen ondora iritsita buruarekin agur egin eta doinu **zehaztezin** bat ziztukatzeari ekin dio. Pello Lizarralde

Mahomaren paradisuan sinestunen zain dauden huri ezin ederrago horietako baten lehen fereka **zehaztezina**. Jon Alonso

Halako batean, argi **zehaztezin** batek blaitu zuen autoa. Fernando Morillo

Hori guztia egia da antzekoak diren bikote kopuru **zehaztezin** bati dagokionez. Itziar Laka

Baina jakin ondo dakigu elkarren arteko mugak askotan zehaztugabeak -**zehatzezinak**, egiatan- direla. Iñaki Arranz

Ahots karrankari **zehatzezin** bat entzun da. Xabier Paya

Adin **zehaztezineko** gizon bat barruratu zen, ilehoria eta zikina. Fernando Morillo

---

## **zehaztu**, zehatz/zehaztu, zehazten **1** du *ad* zehaztasunez mugatu, zehatz gauzatu.

1944an, Pierre Lafittek **zehaztu** eta arautu egin zituen joera horiek bere gramatikan. Koldo Zuazo

Beste zenbait kidek buru-belarri jardun zutelako batasunaren alde: Euskara Batuaren norakoak eta nolakoak **zehaztu** zituen Koldo Mitxelenak, besteak beste. Koldo Zuazo

**Zehatz** dezagun eztabaida gaia: [...]. Xabier Arregi

**Zehaztu** dezagun kontu hau, ñabardura batzuk azpimarratuz. Pello Zabala

Datorren urteko 1 formula denboraldia ia **zehaztua** du FIAk. Berria - Kirola
Hiru osagai horietatik bat **zehaztu** gabe dagoenean, hotsaren identifikazioa osatu gabe dago. Isabel Arrigain
Berlinoz ari nauk - **zehaztu** zuen osabak-. Bernardo Atxaga
Ikus dezakezunez detektibe pribatua naiz, detektibe kolegiatua - **zehaztu** zuen, azkenari indarra emanez. Migel Angel Mintegi
-Etxekoak dituk fruituak - **zehaztu** zion don Ottaviok. Jon Muñoz
Hitz egingo duela, baina bere abokatuaren aurrean baino ez- **zehaztu** zion Ruche jaunak. Jon Muñoz
Hasteko, informatzaileak hola erran dit - **zehaztu** zuen Basilek-. Elena Touyarou
"Derrigorrez behar duzuna notario akta da" esan zion Udaletxeko neskak, eta **zehaztu** egin zuen gero: [...]. Ramon Saizarbitoria
Baina **zehaztu** du: egin dizkiguten galdera guztiak PSOEk egindako iragarpenaren ingurukoak izan dira. Berria - Euskal Herria
Varisco neska, **zehaztu** zidan, beraren eskukoa zen guztiz: izugarri maite zuen, eta berarengatik zernahi egiteko prest eta gogotsu zegoen. Juan Garzia
Euskaraz idazten nituela **zehaztu** nion. Ramon Saizarbitoria
Iztuetak **zehaztu** zuenez, Pisaren izaera ez curricularrak erraztu egiten du herrialdeen arteko konparazioa. Berria - Euskal Herria
Madrazok ez du **zehaztu** nahi izan prozesu horretan hirukoak amore zertan eman dezaken. Berria - Euskal Herria
Idatzi ahala **zehazten** dut, edo zait, beti ez baita idazten nahi dena eta nahi den eran. Ana Urkiza
Hemen, **zehaztu** behar da niretzat Po ibaia Piacenzan hasten dela. Koldo Biguri
Nora jo **zehaztu** beharra zeukan. Migel Angel Mintegi
Zera da aldea, egungo teknologiak 162 karaktereko muga **zehaztu** diola oraingoz zerbitzu honi. J. Garzia / A. Egaña / J. Sarasua
Aurreko orrialdeetan **zehaztu** ditugun tasun desiragarri horiek guztiak biltzen ditu hezur esaten diogun hondar eta kolazko nahasketa horrek. Irene Aldasoro
Nola **zehaztu** jarraitasun-eza pentsatzea zilegitzen duten kontzeptuak (atalasea, haustura, ebakidura, mutazioa, eraldaketa)? Xabier Arregi
Agirrek ez zuen **zehaztu** noizkoa zen galtzea, antzinakoa zela baizik ez. Koldo Zuazo
Proposamena noiz aurkeztuko duen, ordea, ez zuen **zehaztu**. Berria - Mundua
Ezin **zehaztu** daiteke zer eratan dagoen iruditeria hori inkontzientean, zeren, ia definizioz, inkontzientea ezin atxikizkoa baita zuzeneko ikerketarentzat. Josu Zabaleta
Hasiak gara joeron osagai genetikoak **zehazten**. Juan Garzia
Lehendabizi hizkuntza formala **zehaztu** behar dugu, eta hori egiteko lehenengo urratsa alfabetoa zein den esatea da. Askoren artean
Legeak **zehaztu** behar du, beraz, delituaren zein arrastok merezi duen ustezko erruduna atxilotzea. Juan Martin Elexpuru
Erabakia hartzeko urratsak ongi **zehazten** ditu. Berria - Gaiak
Zelanok ez du **zehazten** jaiotzako data. Askoren artean
Beraz, **zehatz** daiteke 1226ko irailaren azken egunetan edo urriaren lehen egunetan idatzarazi zuela. Askoren artean
Kontalariak krimena gertatu zen gelako paretaren kolorea **zehaztu** behar du. Koldo Izagirre
Plan estrategiko bat egiteko eta, behin betekizunak **zehaztu** ondoren, betekizun horiek nola eraman aurrera jakiteko. Pello Salaburu
Lan baldintzak **zehaztu** zizkidanean, txunditurik gelditu nintzen: Fernandoren zakurkerien ondotik, Rosaren eskuzabaltasuna zerutiarra zen. Bernardo Atxaga
Euskal kulturaren oinarrien nondik norakoa markatu, hizkuntza onaren iturriak seinalatu, euskal nortasunaren ezaugarriak **zehaztu**, gure paisaiaren argi-distirak nolakoak diren definitu, eta kristau fedearen onurak erakusten ditu panorama ezin ederrago horrek. Anjel Lertxundi
Gaztelera, Isaak Bitoriarentzat, bost hariko gitarra zen, artean bukatu gabea, artean soinu **zehaztu** eta finkatu gabea. ik zehaztugabe. Felipe Juaristi
Idazkariaren esku-hartzea zenbaterainokoa den ez da erraza **zehazten**. Askoren artean
Apuntatu -agintzen du Godotek, nori **zehaztu** gabe-. Iñaki Iñurrieta
Azkazalak ezin txukunago lakatuak eta bekainak lapitzez **zehaztuak**. Joxan Elosegi

## **2** (aditz forma ez-jokatuetan)

ADNaren sekuentziazioaren % 97 hurrenkeran **zehaztua** zegoen mendea bukatu orduko. Pello Salaburu
Azkazalak ezin txukunago lakatuak eta bekainak lapitzez **zehaztuak** edukitzen zituen. Joxan Elosegi
Gogoratu beharra dago fonema bat **zehaztua** gertatzen dela fonazio ekintza finkatu denean. Isabel Arrigain
Bakea eta normalizazio politikoa lortzeko oinarriak Estatutu Berrirako Proposamenean **zehazturik** daudela adierazi zuen Egibarrek. Berria - Harian
Okupazio indarrak Iraketik erretiratzeko data bat **zehazteari** uko egin zion. Berria - Harian
Bigarren eranskinean datoz, pertsonaz pertsona **zehaztuta**, kide bakoitzaren joan-etorriak. Arantxa Iturbe
Forma betierekoa eta aldaezina da hau eta beraren eraginez eratu daitezke gainontzeko guztiak, espazioan mugatuta edo **zehaztuta** egon gabe eta denboran zehar luzatu gabe eta denborarekin aldakuntzarik jasan gabe. Imanol Unzurrunzaga
Txanponaren alde bati eta besteari begira, bada zer ikasi eta zer **zehazturik**. Iñaki Heras
Irisak **zehazturiko** eremu maximoa eta minimoa 16:1 inguruko erlazioan daude. Irene Aldasoro
Aurrez **zehazturikoaren** kristalizazio bezala agertzen delako. Jon Alonso
Erabat onartu zituen Duhaldek abiatu eta Darrigolek **zehaztutako** aldakuntzak. Koldo Zuazo
Transformazio kopuru jakin batek **zehaztutako** jarraitasun-eza da, definituriko bi positibotasunen artean dagoena. Xabier Arregi
Ez dugu inolako zalantzarik lehentasunak **zehazteko** unean. Itziar Eizagirre / Amaia Lizarralde

## **3** (adizlagun baten eskuinean)

Aztekek eta maiek ere bazituzten beren egutegiak, oso ongi **zehaztuak**. Pello Salaburu
Azkuek ez zuen argiro **zehaztu** eta mugatu bere eredua. Koldo Zuazo
Ondo **zehaztuta** izaten dituela gero izango dituen edertasuna, erabilera eta egokimendua. Santiago Iruretagoiena
Nire egonaldiaren gorabeherak aldez aurretik ondo **zehaztu** eta adostuta. Xabier Montoia
Zertzelada gutxiz ondo **zehaztu** du liburu bat sortzen denetik arrakasta eduki arteko ibilbidea. Berria - Kultura
Pertsonaia oraindik ez zegoen guztiz **zehaztuta**. Julen Gabiria
Herria/hizkuntza/pentsamendua erlazioa razionalki **zehaztu**, ez da sekula egiten. Joxe Azurmendi
Gobernuak ETArekiko jarduera mugak argi **zehaztu** beharko dituela. Berria - Harian
Ingeniari batek, arazo baten aurrean gertatzen denean, nahiko argi **zehaztuak** izan ohi ditu arazoari irtenbidea emateko behar diren datuak. Irene Aldasoro
Une batez, isilik gelditu ziren, agureak hil ondorengo bere kontuak zein zorrotz **zehaztu** zituen buruan zerabilelarik Graçak: larunbatero 100$00 banatuko zaie nire ate joka datozen txiroei, 1$00 eta 2$50eko eskupekotan. Tratuaren beste puntuak ere laster **zehaztu** zituzten. Bego Montorio
Berehala **zehaztu** beharko da zer esan nahi duen "pornografia" hitzak, eta ez da batere lan erraza. Juan Martin Elexpuru / Bego Montorio
Pertsonaiak erabat **zehaztu** gabe moldatu zituen nortasunaren aldetik. Anton Garikano

## **3** (era burutua izenondo gisa)

Deskribapen **zehaztuak** "Frantziako erregea" edota "Gipuzkoako hiriburua" gisako izen sintagmak dira. Askoren artean
Neurri **zehaztuak** eta ezaugarri finkoak. Galeuscak, berriz, «oso proposamen **zehaztua**» helarazi zion Aralarri, programa nahiz hautagai zerrenda eta guzti. Xabier Kintana
Russellen arabera izen propio gramatikalak, izen propio arruntak, deskribapen **zehaztu** mozorrotuak dira. Askoren artean
Deskribapen **zehaztu** osagatubeak. Askoren artean
Identitate-perpausak informatibo bilakatzen zaizkigu, oinarrian bi deskribapen **zehaztu** desberdin asetzen dituen elementua existitzen dela esaten baitigute. Askoren artean

Halako beldur **zehaztu** ezineko bat eraginez. ik zehaztezin. Edorta Jimenez

**hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 4 aldiz agertzen direnak)**

**arauak zehaztu** (6); **asko zehaztu** (7); **atzo zehaztu** (23); **atzo zehaztu zuenez** (15); **aurretik zehaztu** (11); **behar dela zehaztu** (11); **behar direla zehaztu** (6); **data zehaztu** (7); **daudela zehaztu** (24); **daudela zehaztu zuen** (15)

**egingo dela zehaztu** (6); **egoera zehaztu** (7); **eguna zehaztu** (7); **egunik zehaztu** (7); **egutegia zehaztu** (9); **epea zehaztu** (10); **eperik zehaztu** (6); **erabat zehaztu** (11); **erabat zehaztu gabe** (7); **ezer zehaztu** (13); **ezin zehaztu** (7); **gehiago zehaztu** (16); **gobernuak zehaztu** (6); **hauxe zehaztu zuen** (7); **helburu zehaztu** (6); **helburuak zehaztu** (8)

**izan zirela zehaztu** (8); **izango dela zehaztu** (13); **jarrera zehaztu** (6); **kopurua zehaztu** (15); **mugak zehaztu** (8); **neurriak zehaztu** (6); **nola zehaztu** (11); **nondik norakoak zehaztu** (6)

**ondo zehaztu** (11); **oraindik zehaztu** (38); **oraindik zehaztu gabe** (20); **plana zehaztu** (6); **sailburuak zehaztu** (6); **sistema zehaztu** (6)

**zegoela zehaztu** (10); **zegoela zehaztu zuen** (8); **zehaztu ahal** (25); **zehaztu ahal izan** (6); **zehaztu ahal izango** (12); **zehaztu ahal izateko** (6); **zehaztu aurretik** (6); **zehaztu barik** (6); **zehaztu behar** (95); **zehaztu behar da** (22); **zehaztu behar dira** (10); **zehaztu behar du** (11); **zehaztu behar dute** (6); **zehaztu beharko** (54); **zehaztu beharko da** (7); **zehaztu beharko du** (7); **zehaztu beharra** (16); **zehaztu beharrean** (11); **zehaztu beharreko** (6); **zehaztu du** (331); **zehaztu duenez** (69); **zehaztu dute** (70); **zehaztu dutenez** (16)

**zehaztu ezean** (6); **zehaztu ezin** (12); **zehaztu gabe** (157); **zehaztu gabe dago** (28); **zehaztu gabe dagoen** (7); **zehaztu gabe daude** (9); **zehaztu gabeko** (36)

**zehaztu nahi** (68); **zehaztu nahi du** (8); **zehaztu nahi izan** (31); **zehaztu nahian** (9); **zehaztu noiz** (23); **zehaztu nola** (7)

**zehaztu ondoren** (11)

**zehaztu zein** (25); **zehaztu zen** (12); **zehaztu zenbat** (15); **zehaztu zuen** (1247); **zehaztu zuen atzo** (45); **zehaztu zuen ministroak** (6); **zehaztu zuenez** (195); **zehaztu zuten** (143); **zehaztu zuten agintariek** (6); **zehaztu zuten atzo** (7); **zehaztu zutenez** (15)

**zera zehaztu** (8); **zera zehaztu zuen** (7)

**zehaztuko da** (23); **zehaztuko dira** (16); **zehaztuko du** (35); **zehaztuko dute** (25)

**finalerdiak zehaztuta** (7); **ondo zehaztuta** (10); **zehaztuta dago** (16); **zehaztuta daude** (12); **zehaztuta egon** (8); **zehaztuta gelditu** (12); **zehaztuta gelditu da** (6)

**aurretik zehaztutako** (8); **legeak zehaztutako** (7)

**zehazte aldera** (8)

**mugak zehaztea** (13); **ondo zehaztea** (6); **zaila da zehaztea** (7); **zehaztea falta** (8); **zehaztea izan** (6); **zehaztea izango** (6); **zehaztea zaila** (7); **zehaztea zein** (6); **zer den zehaztea** (6)

**zehazteaz gain** (6)

**arrazoiak zehazteko** (7); **ildoak zehazteko** (9); **jarrera zehazteko** (6); **mugak zehazteko** (6); **norabidea zehazteko** (6); **uraren kalitatea zehazteko** (6)

**zehazteko asmoz** (6); **zehazteko aukera** (8); **zehazteko dago** (11); **zehazteko eskatu** (30); **zehazteko eskatu zion** (8); **zehazteko ikerketa** (8); **zehazteko orduan** (11); **zein den zehazteko** (6)

**araudiak zehazten** (6); **epea zehazten** (6); **ez da zehazten** (16); **ez du zehazten** (27); **legeak zehazten** (6); **neurriak zehazten** (6); **nola zehazten den** (7); **ondo zehazten** (6); **zehazten da** (40); **zehazten dira** (16); **zehazten du** (122); **zehazten duenez** (15); **zehazten dute** (17); **zehazten zen** (13); **zehazten ziren** (7); **zehazten zuen** (31); **zehazten zuten** (6)

**zehazterik ez** (12)

---

zehaztuezin ik **zehaztezin**.

---

**zehaztugabe** *(119 agerraldi, 48 liburu eta 17 artikulutan; orobat* ***zehazgabe*** *89 agerraldi, 37 liburu eta 15 artikulutan,* ***zehazkabe*** *12 agerraldi, 3 liburutan eta* ***zehaztu gabe****)* **1** *izond* zehazturik ez dagoena.

Igarle, azti, asmagin edo gauza ezkutuak asmatzeko gaitasuna omen duen jende horren joera baitzuen, adierazpen orokor, **zehaztugabe** eta lausoak egitekoa. Ramon Saizarbitoria

Buruko edo bihotzeko zoko ilunen batean bazuen halako itxaropen lauso eta **zehaztugabe** bat, gauzak aldatuko zirelakoa. Mirentxu Larrañaga

Denak bizi gara, onarturik, halako arrisku lauso, **zehaztugabe** eta lainotsuan. Pello Salaburu

Haien begiradan, berriz, harridura ez ezik, ezinegon **zehaztugabe** bat ere ageri zen. Karlos Zabala

Barrutik ikusita [leihoak] urduritasuna sortzen zuen, halako sentipen **zehaztugabe** eta narritagarri bat eragiten zuen. Jose Morales

Halako begirune bat nabaritzen zuen harengana, beldur **zehaztugabe** batez nahasirik. Karlos Zabala

Frantziako leku **zehaztugabe** batean. Berria - Kultura

Forma **zehaztugabe** eta atseginak marrazten dituzte. Lupinek irribarre **zehaztugabe** bat egin zuen. Monika Etxebarria

Etorri berriak keinu **zehaztugabe** bat egin du besoekin. Pello Lizarralde

Gero keinu **zehaztu gabe** bat egin zuen, lurrean zegoen hurrondo-makila bat seinalatuz. Jon Alonso

Deklinabidekera **zehaztugabearen** kasuak. Iñaki Arranz

Hitzek ez dutela zentzurik, edo zentzu **zehaztugabea** dutela, edo hainbat adieratan uler daitezkeela. Jon Alonso

Arian-arian gelditutako denbora **zehaztugabe** batean kokatzen zituen Kafkak bere ipuin laburrak. Anjel Lertxundi

Harreman-arlo **zehaztugabe** bat zeharkatzea. Xabier Arregi

Diskurtsoaren esparru **zehaztugabe**, monotono eta oparoa tradizionalki zatikatzen duten aurrezarritako batasunak. Xabier Arregi

Frankismoak oro har eragindako biktima kopuru **«zehaztugabearen»**, Errepublikaren kontrako gerraren eta zapalkuntza militarraren inguruko «egia historikoa» aldarrikatzeko ekimenak. Berria - Mundua

Natura handi **zehaztugabea** haien hirira lerratu da, sartu da nonahi, haien etxeetan, bulegoetan, haiengan. Monika Etxebarria

Adierazpenak «desegokiak eta **zehaztugabeak**» direla esan du. Berria - Euskal Herria

Jakin ondo dakigu elkarren arteko mugak askotan **zehaztugabeak** -zehatzezinak, egiatan- direla. Iñaki Arranz

Tresna baten papera joka dezala, artikulatuko duena iraganean baino modu **zehaztugabeagoan**, gizarte eraketen eta deskribapen epistemologikoen azterketa. Xabier Arregi

**2** ***zehaztugabeko*** *izlag*

Eredu abstraktu baten dedukzioa, aplika dakiokeena deskribapen enpirikoen **zehaztugabeko** kopuru bati. Xabier Arregi

Haren pertsonaiek ere, betikoak eta inoizkoak, ondo **zehaztugabeko** status sozial halako baten marka besterik ez dute: zalduna, errege, morroia, atezaina, gerlaria... Anjel Lertxundi

Ezaugarri **zehaztugabeko** gorputz batek argi mehearen bidea trabatu zuen, gelako ate erdi irekitik. Aingeru Epaltza

Nik izaera **zehaztugabeko** egitekoak argudiatu nituen gauzak berandutzeko. Aingeru Epaltza

Adin **zehaztugabeko** emakume txiki bat da aurtengo inspektorea. Joxerra Garzia

Emakume altu bat, hazpegi hezurtsukoa, adin **zehaztugabekoa**, ederra bere gisara. Iban Zaldua

«Atzerapenak, **zehaztugabekoak** eta zalantzazko gauza batzuk ere» aipatu ditu Otto Schily Barne ministroak. Berria - Mundua

**hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**

**hots zehaztugabe** (3); **keinu zehaztugabe bat** (4)

**lauso eta zehaztugabeak** (3)

---

**zehaztugabetasun** *(orobat **zehazgabetasun**)* *iz* zehaztugabea denaren nolakotasuna.

XX. mendeak muga berriak ipini zizkion formalizatzeko eta aurreikusteko gure gaitasunari: ezegonkortasuna, kaosa, erlatibitatea, quantak, ziurgabetasuna (behatzaileak behatzen duenarekin ezinbestean interferitzeak eragindako **zehaztugabetasuna**). Juan Garzia

Iturriek daukaten gauza txarra, asmoz egiatiak izanik ere, datuen **zehaztugabetasuna** da. Jon Alonso

**Zehazgabetasun** hori, ordea, fantasia guztietarako orerik egokiena da, irudimenaren legamiarekin harrotu eta gero. Xabier Mendiguren Elizegi

Nazioarteko politikan azken boladan nagusitu den **zehazgabetasun** juridikoak zer-nolako ondorioak ari da eragiten presoen alorrean? Berria - Mundua

---

**zehaztuxe** *izond*

Papertxo bat da, saskibaloiko euskarrian erdi ezkutatuta; zabaldu eta jarraibide **zehaztuxeagoak** irakurriko dituzte bertan: hara joan, bestea egin, eta arrasto berriaren bila abiatuko da talde osoa berehala. Xabier Mendiguren Elizegi

---

**zehe** **1** *iz* arra, zabalduriko eskuko hatz lodi eta txikienaren arteko bitartea.

Egokitu zitzaien tokitik **zehe** batez ere baztertu gabe. Elena Touyarou

**zehe** bat lodi zen haritzezko mahaian. Elena Touyarou

Teilatuak xut xutak dira, elurrak jautsarazteko, zeren eta hango elurteak noiz-nahi negu bortitzean zortzi **zehe** loditasunekoak egiten ditu. Angel Aintziburu / Jean Baptiste Etxarren

**2** ***zehe bat sudurrekin***

Segur zen bereaz, eta ni **zehe** bat sudurrekin. Marzel Etxehandi

**Zehe** bat sudurrekin behar izan du etxerat itzuli. Herria

· Zerbitzuburua bi **zehe** bete sudur gelditu zen, zer esan ez zekiela. Koldo Izagirre

---

**zehetasun** *iz* xehetasuna.

Nik Onintze, haren arreba, oso laguna dut eta orain emango ditudan **zehetasunak** berari zor dizkiot. Gotzon Garate

Ondoko asteotan aipatu hiru proposamenen inguruko **zehetasunak** plazaratuko dituela agindu zuen Batasunak. Berria - Euskal Herria

Ez du «nabarmen» hitzaren inguruko **zehetasunik** ematen. Berria - Euskal Herria

---

**zehetu**, zehe(tu), zehetzen du *ad* xehetu.

Zokor emankorrak goldez irauli eta, ernamuinak azaleratze-ko, lurzorua **zehetu** ezik, eurenez ezingo lukete aura garbietara irte. Xabier Amuriza

---

**zeho** *iz*

Gelaren izaria bi metro karratu, taula bat ohe gisa, mahain ttipi bat, zuban bat beharrentzat, usain tzar bat barreatzen duen **zeho** bat, horra mubleak. Michel Oronoz

---

**zeihar** **1** *izond* angelu ez-zuzena eratzen duena. ik **zehar**.

Bai angelu zuzenarentzat, bai angelu **zeiharrarentzat**. Ibon Uribarri

Eguzki izpi **zeihar** batek kaiola jo eta txonta kantuan hasi baitzen txio-txio zorrotzez. Karlos Zabala

Argiontziaren izpi **zeihar** batek begi ireki bat distirarazi zuen. Jose Morales

Argi **zeiharren** eta itzal mugikorren artetik, hautsez beteriko hostoen eta belar zapalduaren usaina zetorren. Lopez de Arana

Xirripa hau, zoruaren arradan hondoraturiko habe hustu batean laster egiten zuela plano **zeihar** eta gainbeheran, bordan zulatutako begi batetik zetorren. Koldo Izagirre

Gorputzek apur bat inklinatu egin behar dute; ahalik gutxien, noski, ez dadin pentsa errealitateak ezeztatuko lituzkeen mugimendu **zeiharrak** asmatzen ari garenik. Xabier Amuriza

Ataria, zuzena izan ordez, **zeiharra** zen. Jon Muñoz

Atzo arratsaldean, kanpalekura itzuli nintzelarik, errukia eta aurpegi ilunak aurkitzea espero nuen, eta **zeihar** begiratuak, bezperagoko egunetan halakorik sumarazi zidatenengan. Mirentxu Larrañaga

**2** (adizlagun gisa)

Eguzkia **zeihar** sartzen zen pabiloian, gaztei kirats sendoagoa zerien. Karlos Zabala

Abiadura azkartuz gero, berriz, lerroak gero eta **zeiharrago** egiten ziren. Lopez de Arana

---

zeiharbide ik **zeharbide**.

---

zeiharka ik **zeharka**.

---

zeiharkatu ik **zeharkatu**.

---

**zein** *(orobat **zoin** g.er., **zuin** g.er.eta **zuiñ** g.er.; ikus beheko konbinatorianzein-en agerraldi maizkoenak).* ik **zeintzuk**.

**1** (forma mugagabeetan, erlatibozko esaldi txertatuen buru gisa, aditz laguntzaileakbait- aurrizkia hartzen duela)

Hartara zer edo zer arindu zitzaion pisuz absentzia, **zein** definizioz **baita**, neurri batean edo bestean, eramangaitza, suhiak esango zukeen bezala. Imanol Zurutuza

Zeren lehendabizi ipini behar baitugu helburutzat Jainkoa zerbitzatu nahi izatea, **zein baita** helburua, eta bigarrenik ontarteak biltzea edo ezkontzea. Patxi Altuna

Gauzaren ingurua gauza bera dela, **zein baita** ezin litekeen gauza, baina nor denak halaxe izanarazten duena. Iñaki Segurola

Kanpandorre inguruan ibili ohi ziren belatzak, **zein** gai **baitira** lekutik mugitu gabe egoteko airean, eskegita bezala, hegoei biziro eraginez. Imanol Zurutuza

1944an, Henry George Martin kontulari ingelesak [...] **zeinek** dirutza **baitzuen** jarria Birótarren enpresan, Ingalaterrara eraman zituen Biró anaiek egindako bolalumak. J.M. Olaizola "Txiliku"

Lokamuts torturatzaileak, non behin eta berriz azaltzen baitzitzaizkion lapur multzoak eta ebasle andana, denak ere bere perla beltza ostu nahian, eta **zeinetan** [...] azken finean beti eramaten **baitzioten** perla gutiziatua begien aurretik. Xabier Mendiguren Elizegi

**2** (forma mugatuetan, erlatibozko esaldi txertatuen buru gisa, aditz laguntzaileakbait- aurrizkia hartzen duela)

Beraz, haren izaera soiletik dator haren existentzia ere, **zeina** ez **baita** haren esentzia besterik. Piarres Xarriton

Eta protogermanikozko *t*-a, -**zeina** gorde **baita** ingelesez-. Isabel Arrigain

Nazioarteko ekonomia-espazioaren zatiketa hirukoitzak, **zeina** aipatu **baita** jada merkataritza-trukeen fluxuari dagokionez, guztiz egokia izaten jarraitzen du inbertsioetan eta ekoizpen-sareetan. Koro Navarro

Nazioarteko ekonomia- espazioaren zatiketa hirukoitzak, **zeina** aipatu **baita** jada merkataritza-trukeen fluxuari dagokionez, guztiz egokia izaten jarraitzen du inbertsioetan eta ekoizpen-sareetan. Koro Navarro

Bart amarretan dontzella nintzan hitzekin hasten den kantua, **zeina baita** ezkon-eguneko alargunaren kantagai zabalduaren aldaera bat. Iñaki Segurola

Kieselgura infusorio-lur bat da, **zeina** erabiltzen **baita** dinamita egiteko. Karlos Linazasoro

Osaba Joanikotek, **zeina baita** etxeko zientzilaria, hori guztia afirma diezazueke. Joan Mari Irigoien

Hirugarren oroitzapena, irri batena da: ene anaiaren irri sardonikoarena, **zeina baita**, bertze hitz batzuetan, oinazearen irria. Joan Mari Irigoien

Soil-soilik une horrek sor lezake arimaren horditasuna, **zeina baita** usu aipatua baina bakan baizik ez sentitua. Jon Muñoz

Badut batez ere akats bat, **zeina baita** uste izatea ezen Danceny eskolume, melenga hori, nitaz baizik ez arduratua, [...]. Jon Muñoz

Bide behartu eta bihurri bat segitu behar du, **zeina** ez **baita** argitu (eta ez oraindik behin betiko) azken urteotara arte. Juan Garzia

Eta pathos hura ere bai, **zeina** azken bururaino sentitu nahi **baitzuen**, sufritzeraino. Ander Irizar

Badira gero prestutasun eskaseko hitz batzuk, sortatxo bat baino ez, **zeinak** ez **baitira** soilik haurren aurrean berezko zentzuan erabiltzekoak. Juan Garzia

Badira berunak eta sokak ere, beste eskuadretan legez, **zeinak baitira** Bizkaikoa edo Bigarrena, Martinez Errekaldeko Juanen agindupean, [...]. Edorta Jimenez

Gurean badira gizaki argiak, **zeinak** ez **baitira** berdin mintzatzen berrehun arima dituen lurjabearekin eta hirurehun dituenarekin. Jose Morales

Animaliek txintxo-txintxo obeditzen diote naturaren aginduari, **zeinak** irautea **baitu** helburu. Xabier Mendiguren Elizegi

Eta Senecaren esaera haren onurak ere balia ditzala, esaera mesfidatia, gaurko egunari egoki zaion moduan, **zeinak** esaten **baitu**, *Onerat discentem turba, non instruit.* *Jon Alonso*

Egiune arbitrarioa, **zeinak** ahalbidetzen **baitu** hautu librea, eta denbora, **zeinari** eskerrak hautua finkatua aurkitzen baita. Isabel Arrigain

Fisikari ekiteko modu patetiko eta inozoa guztiz, asmo laburrekoa, **zeinean** koreografiak munta handiagoa baitu kontzeptuak baino. Juan Garzia

Denok ditugu eginbehar biziak eta atxikimendu biziak, **zeinek** eskatzen **baitute**, eta arrazoiz eskatu ere, gure ahaleginik handiena. Irene Aldasoro

Euskaltzaleen Biltzarra elkarteak ohoratuko ditu Leralu eta Lichau andereak, Hezkunde Nazionaleko ikuskari ohiak, **zeinek baitzuten** euskara-frantses elebitasuna bultzatu nahi izan erakaskuntza publikoan. Herria

Igande goizetan Izkribu Saindua irakurtzen zien peoiei, **zeinek** ez **baitzuten** hitzik ere ulertzen. Juan Garzia

Oraindik gogoan dut duela urte batzuk UEUn Eñaut Etxamendik eskaini zigun hitzaldia, **zeinean** Frantziako zerbitzu sekretuaren abilezia historikoa deskribatu **baitzigun**. Iban Zaldua

Gudaldi baten irarlan luzea, horizkaturik eta kristalik gabe, **zeinean** ageri **baitziren** danbor ikaragarri handi batzuk, hiru adarreko kapeluz jantziriko soldaduak -garrasika- eta hainbat zaldi uretan hondoratzeko zorian. Jose Morales

**3** (forma mugatuetan, erlatibozko esaldi txertatuen buru gisa, aditz laguntzaileak–n atzizkia hartzen duela)

Baina honezkero beharrezkoa da erantzuna ematea galdera bati, **zeina** lehena **den** bere ondokoak diren azterketa horiekiko eta bukaerakoa bere aurrekoekiko. Xabier Arregi

Bere baldintza beti agerpenen ilaran soilik dago barnebildua, **zeina** beharrezkoa **den** bere ondorioarekin batera izadiaren legeen menpean. Ibon Uribarri

Pentsatzea pentsaketaren legeak eurak aurkitzea da, **zeina** ez **den** munduaren aspektuetako bat besterik, munduaren errepika bat. Xabier Amuriza

Polizia Saileko buruek, armatu gabeko gazte bat gerarazteko berrogeita bat tiro tiro gehiegi ez ote diren galdetu zaienean, zera erantzun dute: fenomeno honek baduela izen zientifiko bat, **zeina den** tirokatze kutsakorra. Harkaitz Cano

Txamarra luzea zuen jantzita, mahukarik gabea, eta kolore ilunekoa, lepoko xingola izan ezik, **zeina** urdina **zen** eta polito egokitzen zitzaion zintzurrean. Karlos Zabala

Idazketa mota bat, **zeinak** literaturarekin **duen** zerikusia ikuspegiak artearekin duenaren parekoa den. Xabier Olarra

Juez hotz eta objektibo bat bezala nintzen, **zeinak** aukera **duen** ikusteko kriminalak nola egiten ari diren berak geroago juzgatu beharko duen krimena. Matías Múgica

Determinazio orokorrak ere finkatu beharra dago, **zeinek** ematen **duten** banako bat eratzen deneko planoan sarraraztea. Piarres Xarriton

Gizakiak hurrengo bizitzako zorionera eraman gabe ere, **zeinek** laguntzen **duten** hemengo honetan ahalik eta zoriontsuen egiten. Iñaki Iñurrieta

Hoteleko gela batean gertatzen den eszena arrunta, **zeinean** bera zetazko izaretan **zegokeen** eta ni botila hotz bat xanpain eta sakeletan kristalezko kopa bi nituela azalduko **bainintzen**. Ramon Saizarbitoria

Honi silogismo aritmetikoa esaten zaio, **zeinean**, logika eta aritmetika konbinatuz, ziurtasun bikoitza lortzen dugun eta bi aldiz zoriontsu egiten **garen**. Xabier Olarra

## 4 *zein baino zein*

Amondarrek gaiztakeriarik asko egin dute, **zein baino zein** handiago. Elizen arteko biblia

**Zein baino zein** dotoreago zeuden jantzita. Migel Angel Mintegi

Nikolasha eta Aleksasha garaño kementsu banaren gainean igaro ziren itzuli berrien aldamenetik, **zein baino zein** bizkorrago. Jose Morales

Harro eta buruzut segitzen baitzuten biek, **zein baino zein** gehiago. Joan Mari Irigoien

Han hasi ziren denak, **zein baino zein** areago, mairu andere ederrari zerbitzatu nahian. Patxi Ezkiaga

Bi furgoi agertu ziren bertan, **zein baino zein** guardia zibilez beteago. Pedro Alberdi

Aukera-aukerakoak denak, **zein baino zein** hobea. Jose Morales

**Zein baino zein** nabarmenagoak ziren aitaren arreta bereganatzen zuten bideko lagun haiek. Anjel Lertxundi

Emanaldiko kanta guztiak **zein baino zein** ederragoak dira. Berria - Kultura

Uraitzeko jaunak bazituen hiru alaba gazte, **zein baino zein** ederragoak. Joan Mari Irigoien

Zain eta muturra zorrotz geratu ziren bera eta lagunak, **zein baino zein** itsusiagoak denak. Felipe Juaristi

Sindikatuen furgonetetako bozgorailu **zein baino zein** ozenagoetatik ateratzen den musika da gehien aditzen. Berria - Ekonomia

· Triesten ezagututako guztiak **zein baino zein** zeuden pitzatuta. Anjel Lertxundi

Biak ari ziren **zein baino zein**, bakoitzak bere trebezia erakutsi nahian. Felipe Juaristi

## 5 *zein bere*

Berdin bilatzen gaituzte gorrotoak eta maitasunak; **zein bere** moduan, biek gaituzte zapaltzen. Koldo Izagirre

Esfera hauen barruko argizagi oro esferarekin integraturik dago, **zein bere** tokian finkaturik, higidura berezirik gabe. Xabier Kintana

Nik ere banuela ondo gogoratzeko premia, behar nuela gida bat zirriborroetako hitzak **zein bere** lerro egokian jartzeko. Bernardo Atxaga

Leiho horretatik ikusten den oro hil egiten dun **zein bere** orduan, haritz sendoenak ere ihartu egiten ditun **zein bere** aldian. Anjel Lertxundi

Muskuluak dira horiek, **zein bere** eginkizunerako egokituak. Irene Aldasoro

Pieza dexente kokatu ditu dagoeneko **zein bere** lekuan. Imanol Zurutuza

Kosmologia berriarekin, unibertsoa, galaxiak, izarrak, elementuak, partikulak, **zein bere** historiaren jabe egin dira. Juan Garzia

Askotan elkartzen ginen biok ikastera, isilik, **zein bere** lanetan sarturik. Juan Kruz Igerabide

Obra bateko pertsonaiak, lekuak edo trama **zein bere** aldetik aipatzea, «hitz egiteko oso modu arina» izan ohi da. Berria - Harian

Bakoitza bere sabai-zuloaren azpian, **zein bere** ohean etzanda. Jon Muñoz

Desagertuak ziren adiskide guztiak, **zein bere** atseginaren bila. Koro Navarro

## 6 *zein eresup_1 (erlatibozko perpaus bat txertatzen)* nor ere.

Delacour andereñoa, **zein ere** pertsona sendokote jator bat baitzen, irribarre zabala egiten hasi zen. Irene Aldasoro

Ségouini ez zitzaion beharbada kopuru handia irudituko, baina Jimmyk - **zein ere**, behin edo behingo hutsegiteak gora-behera, barru-barruan sen sendoen oinordeko baitzen-, ondotxo zekien zenbat kostata bildua izan zen. Irene Aldasoro

## 7 *zein ere*[2] eta orobat.

Condoleezza Rice eta Donald Rumsfeldekin **zein ere** Irakeko xiiten erlijio agintari goren Ali Sistani aiatolarekin hitz egin ondoren. Berria - Harian

Kontu honetan **zein ere** besteetan aitzindaria izan zen Etxahun-Iruri. Berria - Kultura

Sirian **zein ere** mundu zabaleko beste hamahiru herrialdetan, dena den, segurtasun neurri zorrotzak indarrean jarri zituzten bozketa hauen karietara. Berria - Harian

Korsikan **zein ere** Frantzian (Marseillan eta Nizan) gertatu ziren 23 leherketaren erantzukizuna aldarrikatzean agertu zen lehen aldikotz FLNC sigla. Berria - Harian

## 8 *zein ere den*

Baina **zein ere den** egiazko istorioa, badago aski ziurgabetasun, negozio honetarako, eskuizkribua sekula ez zela galdu uste izateko. Oskar Arana

**Zein ere den** emakume horren nagusigoa, hitz ematen dizut ez naizela harez hainbertze arduratuko, non ez baitzaidan zugan asko pentsatzeko astirik gelditSuko. Jon Muñoz

**Zein ere den** txiki objektu bat, bada beti argi bat hura handiarazten duena. Jon Muñoz

Istorioen oinarria **zein ere den**, idazlearen sortze lana nabari da hauetan guztietan. Jose Antonio Mujika

· **Zein-ere** luzea **den** zure joaera eta egonaldia, lehentxeago edo geroxeago jakiteratuko zara urrutieneko hemen haietan ere 2 ardi eta 2 ahari 4 buru direla. Iñaki Segurola

**Zein ere ziren** bataren balioa eta bestearen kaskarkeria, inork ezin zuen beste inor esklabotzara menderatzeko asmorik izan. gaitz sekretu hura **zein ere zen**, ziurtzat jo nuen haren berri bazeukala eta arean sendabidea ere bazekiela. Josu Zabaleta

### hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 7 aldiz agertzen direnak)

**alde batean zein** (8); **alde bateko zein** (14); **alde batera zein** (12); **aldeko zein** (14); **argi du zein** (7); **argitu zein** (9); **arrazoia zein den** (10); **arrazoia zein zen** (7); **asmoak zein diren** (7); **aurkaria zein** (7); **aurrean zein** (18); **aurretik zein** (9); **auskalo zein** (46)

**badaki zein** (23); **badaki zein den** (10); **badakigu zein** (22); **badakik zein** (8); **badakit zein** (19); **badakit zein den** (7); **badakite zein** (15); **badakizu zein** (27); **badakizu zein den** (10); **badakizue zein** (10); **baina zein** (105); **baina zein da** (17); **bakoitza zein** (22); **bakoitzak zein** (9); **bakoitzari zein** (8); **bakoitzean zein** (8); **barne zein** (8); **barneko zein** (7); **barruan zein kanpoan** (10); **bat zein bestea** (7); **bata zein bestea** (74); **batak zein besteak** (60); **bataren zein bestearen** (22); **batari zein besteari** (7); **batean zein bestean** (83); **bateko zein besteko** (35); **batekoak zein** (7); **batzuek zein besteek** (9); **batzuk zein besteak** (11); **bazekien zein** (15); **begira zein** (37); **benetan zein** (8); **berdin dio zein** (8); **bertako zein** (7); **bertan zein** (8); **beste zein** (14); **bidea zein den** (15); **bietan zein** (7); **bietatik zein** (7)

**defentsan zein erasoan** (11)

**ea zein den** (11); **egia zein den** (8); **egoera zein den** (60); **egoera zein zen** (8); **egokiena zein den** (17); **emakume zein** (7); **erakusten du zein** (15); **erakusten dute zein** (7); **erasoan zein defentsan** (16); **esan zein** (19); **espainiako zein frantziako** (13); **etxean zein kanpoan** (10); **euskaraz zein gaztelaniaz** (11); **ez daki zein** (17); **ez dakigu zein** (31); **ez dakit zein** (124); **ez dakite zein** (9); **ez dakizu zein** (20); **ez dakizue zein** (7); **ez nekien zein** (14); **ez zein** (13); **ez zekien zein** (21); **ez zekiten zein** (7)

**fisiko zein** (8); **fisikoki zein** (7)

**gizon zein** (13)

**handi zein txiki** (25); **hego zein** (9); **helburua zein den** (19); **herriko zein** (18); **hori zein den** (10); **horiek zein** (25); **horiek zein diren** (7); **horra zein** (25); **horra zein diren** (13)

**ikus dezagun zein** (7); **ikusiko dugu zein** (10); **ikusiko duzu zein** (11); **ikusiz zein** (7); **ikustea zein** (10); **ikusteko zein** (12); **ikusten zein** (12); **ipar zein** (11); **izan zein ez** (14)

**jakitea zein** (12); **jakiteko zein** (10); **jarrera zein den** (28); **jatorria zein den** (10); **jokalari zein** (11)

**kasu batean zein** (15)

**lekua zein den** (7)

**maila zein den** (9)

**nahia zein den** (8); **nola eta zein** (11); **nork daki zein** (7)

**onena zein den** (11); **onerako zein txarrerako** (26)

**publiko zein** (17)

**talde zein** (8)

**zehatza zein den** (7); **zehazki zein** (26); **zehazten zein** (14); **zehaztu zein** (25)

**zein aginpidez jokatzen** (8); **zein aholku** (7); **zein aise** (8); **zein alde** (16); **zein alderdi** (22); **zein aldetan** (10); **zein aldetara** (18); **zein aldetatik** (17); **zein animalia** (7); **zein arazo** (9); **zein arrazoi** (18); **zein arrisku** (8); **zein asmo** (26); **zein asmorekin** (7); **zein atal** (7); **zein atsegina** (8); **zein atzean** (9); **zein aukera** (17); **zein aukeratuko** (9); **zein azkar** (17)

**zein baino zein** (123); **zein baita** (8); **zein baldintza** (7); **zein baldintzatan** (21); **zein balio** (8); **zein balorazio egiten** (11); **zein behar** (8); **zein bere aldetik** (19); **zein bere tokian** (7); **zein beste** (83); **zein bi** (7); **zein bide hartu** (9); **zein bide hartuko** (9); **zein bidetatik** (18); **zein bizkor** (12); **zein borondate** (7); **zein buru** (7)

**zein da** (870); **zein da arazoa** (8); **zein da egoera** (10); **zein da orduan** (7); **zein dagoen** (11); **zein datu** (9); **zein den argi** (20); **zein den azaldu** (9); **zein den egoera** (9); **zein den jakin** (22); **zein den jakitea** (12); **zein den jakiteko** (33); **zein desberdinak** (8); **zein dira** (174); **zein dira zure** (10); **zein diren** (344); **zein diren gure** (10); **zein diren jakin** (7); **zein diren jakiteko** (10); **zein diru** (9); **zein duk** (10)

**zein eder** (10); **zein ederki** (30); **zein ederra** (40); **zein ederra den** (15); **zein ederragoak** (10); **zein eginkizun** (11); **zein egoera** (17); **zein egoeratan** (77); **zein egoeratan dago** (10); **zein egun** (14); **zein egunetan** (42); **zein eguraldi** (9); **zein ekarpen** (17); **zein ekarpen egin** (10); **zein emakume** (16); **zein emazte** (7); **zein erabaki** (12); **zein eragin** (24); **zein eragin izan** (8); **zein eragin izango** (7); **zein erantzun** (8); **zein erasoan** (11); **zein eratako** (9); **zein ere** (99); **zein ere den** (9); **zein eremutan** (9); **zein erraz** (27); **zein erraza** (12); **zein erraza den** (8); **zein esanahi** (7); **zein eskubide** (19); **zein eskubidez** (8); **zein eskuineko** (7); **zein espainiako** (35); **zein espainian** (7); **zein eta** (28); **zein etorkizun** (7); **zein etxe** (7); **zein etxetan** (9); **zein europako** (18); **zein euskal** (37); **zein euskal herriko** (8); **zein euskara** (7); **zein ez** (105); **zein ezaugarri** (12); **zein ezker** (9)

**zein frantziako** (17)

**zein gai** (9); **zein gainerako** (9); **zein gaitz** (10); **zein gaizki** (19); **zein garrantzi** (15); **zein garrantzitsua** (25); **zein garrantzitsua den** (16); **zein gauza** (31); **zein gaztelaniaz** (12); **zein gehiago** (7); **zein gehiagoka** (12); **zein giza** (18); **zein gizarte** (17); **zein gizon** (18); **zein gogor** (8); **zein gogorra** (20); **zein gogorra den** (11); **zein gozoa** (8); **zein gutxi** (22)

**zein hamaikako zelairatuko** (11); **zein handia** (20); **zein handia den** (12); **zein handiago** (9); **zein harreman** (11); **zein harro** (8); **zein hautatu** (9); **zein hego** (7); **zein heinetaraino** (7); **zein helburu** (35); **zein helburu duzu** (10); **zein helbururekin** (23); **zein herri** (18); **zein herrialdetan** (7); **zein herritakoa** (10); **zein herritan** (13); **zein herritarren** (7); **zein hitz** (22); **zein hizkuntza** (17); **zein hizkuntzatan** (20)

**zein ideia** (8); **zein indar** (8); **zein irakeko** (7); **zein iritzi** (61); **zein iritzi duzu** (31); **zein irizpide** (13); **zein itxura** (7); **zein izan** (378); **zein izan behar** (22); **zein izan da** (52); **zein izan daiteke** (14); **zein izan daitekeen** (32); **zein izan daitezkeen** (16); **zein izan den** (43); **zein izan dira** (10); **zein izan diren** (15); **zein izan ote** (8); **zein izan zen** (88); **zein izan ziren** (16); **zein izan zitekeen** (24); **zein izanen** (55); **zein izanen da** (12); **zein izanen den** (21); **zein izanen diren** (12); **zein izango** (345); **zein izango da** (52); **zein izango den** (152); **zein izango dira** (12); **zein izango diren** (30); **zein izango litzateke** (12); **zein izango litzatekeen** (7); **zein izango ote** (9); **zein izango zen** (54); **zein izen** (27)

**zein jarrera** (39); **zein jarrera hartu** (8); **zein jarrera hartuko** (9); **zein jarrera izango** (7); **zein jende** (7); **zein jokalari** (14)

**zein kanpoko** (18); **zein kasutan** (21); **zein kontrako** (7); **zein kultura** (7)

**zein lan** (26); **zein laster** (8); **zein leku** (32); **zein lekutan** (32); **zein liburu** (12); **zein liburutan** (7); **zein litzateke** (10)

**zein maila** (17); **zein mailatan** (16); **zein maite** (10); **zein mezu** (11); **zein modutan** (11); **zein motatako** (22); **zein motatakoa** (7); **zein mundu** (11); **zein mundutan bizi** (7)

**zein nafarroako** (12); **zein nahi** (15); **zein nahiago** (7); **zein nazio** (9); **zein nazioarteko** (11); **zein neska** (12); **zein neurri** (21); **zein neurri hartu** (7); **zein neurritan** (54); **zein neurritaraino** (20); **zein norabide** (17); **zein norabide hartu** (9)

**zein oinarri** (10); **zein oker** (13); **zein ona** (11); **zein ondo** (36); **zein ondorio** (53); **zein ondorio atera** (7); **zein ondorio izan** (9); **zein ondorio izango** (8); **zein ongi** (40); **zein oposizioko** (8); **zein ordenatan** (14); **zein ordu** (9); **zein ordutan** (33); **zein ote** (98); **zein ote da** (18); **zein ote den** (12); **zein ote zen** (39)

**zein pauso** (7); **zein pertsona** (8); **zein polita** (8); **zein postutan** (10); **zein pozik** (12); **zein puntutaraino** (11)

**zein sari** (7)

**zein talde** (45); **zein taldek** (20); **zein talderekin** (8); **zein taldetan** (10); **zein testuingurutan** (11); **zein toki** (12); **zein tokitan** (16); **zein txarra** (10); **zein txarrak** (8); **zein txiki** (26)

**zein unetan** (18); **zein urrats** (11); **zein urrun** (39); **zein urruti** (11); **zein urtetan** (10)

**zein zaila** (44); **zein zaila den** (31); **zein zen** (374); **zein zen bere** (15); **zein zen gure** (9); **zein zen jakiteko** (9); **zein zen nire** (7); **zein zentzutan** (11); **zein zerbitzu** (8); **zein zigor** (8); **zein ziren** (82); **zein zoragarria** (8); **zein zuen** (12)

**zen zein zen** (7); **zeregina zein** (7)

**[3] zeina azken** (3); **zeina baita** (27); **zeina baitzegoen** (7); **zeina baitzen** (54); **zeina baitzuen** (3); **zeina bere** (11); **zeina bi** (3); **zeina den** (4); **zeina egun** (3); **zeina ez bainuen** (3); **zeina ez baita** (10); **zeina ez baitzen** (4); **zeina ez den** (4); **zeina ezin** (6); **zeina gabe** (5); **zeina gure** (7); **zeina hain** (4); **zeina izan** (8); **zeina izan baitzen** (3); **zeina izan daitekeen** (3); **zeina nik** (4); **zeina nire** (3); **zeina orain** (3); **zeina ozta** (3); **zeina ozta ozta** (3)

**zeinak aldi** (4); **zeinak aldi berean** (4); **zeinak aukera** (3); **zeinak baitio** (7); **zeinak baitira** (5); **zeinak baitzioen** (3); **zeinak baitziren** (8); **zeinak baitzirudien** (4); **zeinak baitzirudien ezen** (3); **zeinak baitzuen** (10); **zeinak bere** (17); **zeinak berehala** (3); **zeinak beste** (3); **zeinak beti** (5); **zeinak dioen** (3); **zeinak erakusten** (5); **zeinak erakusten baitzuen** (4); **zeinak erraiten** (3); **zeinak erran** (4); **zeinak erran baitzidan** (3); **zeinak esan** (7); **zeinak esan nahi** (4); **zeinak esaten** (6); **zeinak ez** (30); **zeinak ez baitira** (4); **zeinak ez baitzuen** (6); **zeinak ez duen** (7); **zeinak ezin** (6); **zeinak giza** (3); **zeinak gure** (8); **zeinak halaxe** (3); **zeinak izan** (3); **zeinak lehen** (3); **zeinak maite** (4); **zeinak maite zuen** (4); **zeinak oso** (3)

**zeinaren arabera** (38); **zeinaren baitan** (3); **zeinaren begiak** (3); **zeinaren bidez** (28); **zeinaren bitartez** (17); **zeinaren burua** (3); **zeinaren eraginez** (5); **zeinaren existentzia** (5); **zeinaren gainean** (13); **zeinaren indarrez** (5); **zeinaren inguruan** (5); **zeinaren izena** (4); **zeinaren kausa** (4); **zeinaren ondorio** (3); **zeinaren ondorioz** (4)

**zeinari buruz** (8); **zeinari erregela baten** (3); **zeinari esker** (11); **zeinari ez** (3); **zeinari jarraiki** (4); **zeinari jaun** (3)

**zeinean bere** (5); **zeinean gure** (3)

**zeinek ez baitzuten** (3)

**bat zeinetan** (3); **eta zeinetan** (4); **zeinetan bere** (5); **zeinetan ez** (7); **zeinetan oso** (4)

---

# zeinahi *(195 agerraldi, 46 liburu eta 54 artikulutan; orobat **zein-nahi** g.er.)* **1** *izlag* edozein.

Likudek uko egingo baitio palestinarrei **zeinahi** lur puska itzultzeari. Berria - Mundua

Nornahiri gertatzen zaio, **zeinahi** egoeratan. Bernardo Atxaga

**Zeinahi** huskeriarekin hasten ziren barrezka. Bernardo Atxaga

Hauxe da hain zuzen ere, hizkuntz egituraren **zeinahi** ikusmoldek (hau da, gramatiken formari buruzko **zeinahi** ereduk) bete behar duen oinarrizko baldintza. Itziar Laka

Gorrotagarriak zaizkio asots eta zalaparta haiek **zeinahi** presori. Xabier Montoia

Nik ez nion bere itxaropena zapuztu nahi, adibidez, Tivoli-k nik inoiz inon ikusitako **zeinahi** gauza gaindituko omen zuelakoa. Joxe Austin Arrieta

Arabiarrek adeitasun handiz tratatzen dute elkar **zeinahi** egoeratan. Bernardo Atxaga

Ikertzea besterik ez dago, noski, idazle erraldoien eta ia erraldoien zerrenda, eta **zeinahi** sexu-joeratakoak, **zeinahi** ildo politikotakoak, eta **zeinahi** giza izaeratakoak aurkituko dituzu. Oskar Arana

Zin egidazu, zaldun leiala zarenez gero, uko eginen diozula **zeinahi** abenturari honako hau fini dezazun arte. Jon Muñoz

Analisi genetikoa **zeinahi** organismotara heda daiteke, gizakia barne. Juan Garzia

Intronak eta inguruko ADN segmentuak **zeinahi** moldetakoak izan daitezke, kasuan kasu. Juan Garzia

Beste **zeinahi** ibilgailu baino bizkorrago zebilenez gero. Karlos Zabala

Nolanahi dela ere, irudimena da indar eragilea, elementu sortzailea, artean nahiz beste **zeinahi** jarduera intelektualetan bezala zientzian ere. Juan Garzia

Malura handia litzateke Gercourt hori, bertze **zeinahi** bezala, Paris guztiaren irrigarri egina ez gelditzea. Jon Muñoz

Mugitzen den **zeinahi**, hiru urteko umea bada ere, hil beharra dago. Berria - Mundua

Hauta itzazu **zeinahi**. Itziar Otegi

## **2** (esaldi konpletibo batean, eta *ere* partilularekin)

Egoerak barregura ematen zigun alde batera, baina, **zeinahi** zela ere fenomenoaren arrazoia, positiboa iruditzen zitzaigun. Bernardo Atxaga

Baina, **zeinahi** prozesuren bidez erabaki zelarik ere arazoa, egia da politika erradikala nagusitu zela. Iñaki Mendiguren

Piztuta egoten ziren lanparak, ordua eta argitasuna **zeinahi** zela ere. Jon Muñoz

Film batek kontatzen duen fikziozko historia **zeinahi** delarik ere, film horrek, filmatzerakoan erregistratu denaren zatiak elkarrekin kateatuz, filmaketa horren irudikapen bat, irudi bat ematen du. Josu Zabaleta

Hala, ontzi gutzi-guztiak jo zituen tresna haiek bota zuten jaurtigai-zaparradak, **zeinahi** distantziatara zeudela ere harresietatik. Jon Muñoz

· Erromatarrek, **zeinahi** jatorritakoak izanda ere, beren gain hartu zuten eginkizuna. Iñaki Mendiguren

Lur honen gainean bizi diren izakiak - **zeinahi** izanik ere haien ingurunea, tamaina, bizimodua; barea izan, zein otarraina, eulia edo jirafa- molekula ia berdin-petoz osatuak dira guztiak. Juan Garzia

Erantzunak **zeinahi** direla, kontua da erromantikoek irauli egin zutela, mila urte eta gero, Literaturaren Etxea. Bernardo Atxaga

Zenbakera erromatarreko "X"k "hamar" balio du, **zeinahi** dela haren kokalekua. Jon Muñoz

## **3** ***zeinahi ere***

Saguaren eta gizakiaren kasuan, azkenik, non bazen lehendik genetika-ezaguera handi samar bat pilatua, modua dago orain **zeinahi ere** gene bakartzeko. Juan Garzia

Nork ukatu haiei, ordea, koherentzia eta batasuna, a priori argudio bakar bera aski baitzaie **zeinahi ere** galderari erantzuteko eta **zeinahi ere** korapilo askatzeko? Juan Garzia

Kimikako ikasle orok, **zeinahi ere** tratatuen aurrean, jakinean egon behar luke ezen [...]. Juan Garzia

· Emakume horien ondoan, **zeinahi ere** dela edergarri jartzen diguten dohaina, ez gara mezulariak baizik izaten, mandatari soilak. Jon Muñoz

**Zeinahi ere** zirelarik haien funtzioak -nerbio, gihar, guruin zein beste-, zelula guztiak ziren antzeko osagaiz eginak: karbohidratoak, lipidoak, proteinak eta azido nukleikoak. Juan Garzia

**Zeinahi ere** den hemen egondakoa, joana da. Oskar Arana

Hartzen duzun xedea **zeinahi ere** den, izanagatik zuretzat kalte bertze norbaiti bozkarioa lekarkioke betiere. Jon Muñoz

**hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**

**beste zeinahi** (14); **zeinahi dela** (7); **zeinahi dela ere** (4); **zeinahi delarik** (4); **zeinahi delarik ere** (3); **zeinahi ere** (23); **zeinahi ere dela** (4); **zeinahi ere den** (7); **zeinahi izanik ere** (5); **zeinahi modutan** (3); **zeinahi zela ere** (3)

---

# zeinatu, zeina(tu), zeinatzen **1** da *ad* airaren egitea; eskuineko erpuruaz hiru gurutze egin, lehenengoa bekokian, bigarrena ahoan eta hirugarrena bularrean.

Hori ez zen egia inondik ere, gure amaren familiako inor ez zelako ez elizara joaten ez **zeinatzen**. Fernando Rey

Christophe, automatikoki **zeinatu** zen. Daniel Landart

Aita Saindua orduan **zeinatu** zen eta erran zidan: Ai ene Jauna! zer huts larria ez nuen eginen, ez baldin banintzaizu mintzatu! Piarres Xarriton

Jendeak sartzen ziren **zeinatuz**, bazterrak miretsi eta isilik jalgitzen. Itxaro Borda

Eta haietarik bat ere ikusi nuen eskua bekokirat zeramala, iduri zuelarik ezen **zeinatzerat** eta aitaren egiterat zihoala. Joan Mari Irigoien

## • **2** du *ad*

Othoi, Jaunak **zeinatzen** nau Jainkoak eta Ama Birjinak. Herria

Oi zu ene arima, Jainkoaren iduriak **zeinatua**. Piarres Xarriton

**hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**

**zeinatu zen** (8)

---

zeinbait ik **zenbait**.

---

zeinbat ik **zenbait**.

---

## zeingehiago *iz* zeingehiagoka.

Horrek erran nahi du Italiarrak ez direla aurten azkenak eta merezi dutela segitzea delako errugbi **zeingehiago** horretan. Herria

---

## zeingehiagoka *(orobat **zoingehiagoka** g.er.)* **1** *iz* norgehiagoka.

Bortizkeriaren neurria hartzen ere bazekien gure adiskideak: ez baita indarkeria ekintzaren mailan sartzen alabaina, baina bai -gure dema, desafio, apustu, erronka, **zeingehiagoka** guztiak iduri ikusgarriaren ordenan gelditzen. Piarres Xarriton

Iduritzen zait harri-jasotzaile **zeingehiagoka** batentzat ari naizela prestatzen! Ramuntxo Etxeberri

Hain justu, Florida berriz lehiaren erdi-erdian dago, errepublikanoen eta demokraten **zeingehiagokan**. Berria - Mundua

Bilgunearen berezitasuna izan daiteke, **zeingehiagokako** gogo hezigaitza. Herria

**2** (hitz elkartuetan)

Jakinik ere ederra dela Segolene Jack Lang-ek adierazi du hauteskundeak ez direla edertasun **zeingehiagoka** bat. Herria

Bertsu **zeingehiagokak** iragan ziren 1851tik 1897ra, hala nola Urruñan eta Saran. Herria

**3** (adizlagun gisa)

Testu hau aurrera doala, ideiak eta sentimentuak lasterka datozkit, bi korrikalarik ukondoak erabiliz bezala, **zeingehiagoka**. Piarres Aintziart

Orain adituek diote badirudiela bi taldeak **zeingehiagoka** dabiltzala ea nork ekintza armatu gehiago egin. Berria - Mundua

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
> zeingehiagoka bat (3)

---

## zeingehiagokatu, zeingehiagoka(tu), zeingehiagokatzen *(corpusean **zoingehiagokatu** soilik)* du *ad*

Larunbateko mus xapelgoan 72 biranazko talde ziren **zoingehiagokatu** direnak, taloak janez. Herria

10 talde **zoingehiagokatu** dira. Herria

Biak beharrezkoak badira ere, ez dira mail berean **zoingehiagokatzen**. Herria

Hautetsi batzuk ere parte hartzen dute erakusketa huntan, bainan hauek ez dira bertzekilan **zoingehiagokatuko**. Herria

---

## zeingehiagoketa *(orobat **zoingehiagoketa** g.er.)* *iz* zeingehiagoka.

**Zeingehiagoketara** nahiko jende biltzen da. Gotzon Garate

Iragan larunbatean birlarien **zoingehiagoketa** Donamartirin ginuen. Herria

Artzain xakur **zoingehiagoketa**. Herria

---

## zeingura *adlag* zehinahi.

Haren **zeingura** nobela hartu eta, ekintza non ere den -Euskal Herrian, Italian, Kuban, Espainian-, hor da erdi-erdian amerikarra. Edorta Jimenez

Lenin, Marx eta Stalin **zeingura** jarreratan eta nolanahiko neurritan ingurune mugatu batean. Edorta Jimenez

Gai ikusten zuen bere burua nahiz zela ohean edozein emazterekin jarduteko nahiz zela munduko **zeingura** koroari eusteko. Edorta Jimenez

---

## zeinlehenka *(corpusean **zoinlehenka** soilik)* *iz* norgehiagoka. ik **norlehenka**.

**Zoinlehenka**, aski bidexka txarretarik, lohipean berdin, bizikleta baten gainean edo lasterka bainan bizikleta bizkarrean! Herria

Zumaian iragan den "B" saileko proban lehen atera dira, zortzi lehiakarik osatzen zuten **zoinlehenkan**. Herria

---

zeintzu ik **zeintzuk**.

---

## zeintzuk *(orobat **zeintzu** g.er.)* *izond pl* zein. ik **nortzuk**.

Begira bestela, senideok, **zeintzuk** zareten Jainkoak deitu zaituztenok.

-**Zeintzuk** dira Manu eta Marta? Pako Aristi

Rousseauk garbi uzten du **zeintzuk** diren heziketa sexual burgesaren helburuak. Juan Martin Elexpuru / Bego Montorio

-Pentsa ezazu **zeintzuk** diren aukerak, Dunkel-Brightman jauna. Oskar Arana

Horretarako argi izan behar duzu **zeintzuk** diren zeure helburuak, zer bilatu nahi duzun. Askoren artean

Galderak **zeintzuk** izango diren gogoratzen du; astia badu oraindik gaiak errepasatzeko eta orduan izan ez zuen aprobatua eskuratzeko. Iban Zaldua

Lehenbizi, proba zenbaiten bidez, hobeto zehaztu beharra zegoen **zeintzuk** ziren hondatutako aldeak. Xabier Olarra

Ikusteko zegoen, baina, **zeintzuk** ziren bere asmoak, Guebokinder lotzeaz landa. Jon Alonso

Ezetz jakin argazkion artean **zeintzuk** diren Robertenak eta **zeintzuk** Gerdarenak? Edorta Jimenez

-Eta **zeintzuk** hituen berri onak? Harkaitz Cano

· Bai muinean zein perpaus talde dagoen asmatzeko, eta baita muinean ez daudenak azaltzeko **zeintzuk** formaldatze behar diren erabakitzeko ere. Itziar Laka

Horietariko batzuek, berenez, Fisika eta Metafisika liburuen **zeintzuk** lekutan frogatzen diren erakutsiko dizute. Xabier Kintana

**Zeintzuk** atetatik irten behar den bakoitzaren bila. Xabier Amuriza

Haien arteko **zeintzuek** jarraitzen duten bizirik, **zeintzuk** hiltzen diren, ez da, niri iritzirako, sufritzea merezi duen zerbait. Oskar Arana

· Hauetakoa delarik batik bat lehoien izakera biolentoa, **zeintzuek**, auhen egitean, bularrak orroeka askatzen dituzten, sumin uholari barruan eutsi ezinik. Xabier Amuriza

Honelakoxeak dira eguzkiaren argia eta beroa, lehenki txiki-txikiz eginak direlako, **zeintzuek**, tiriki-taukian bezala, aire artea zeharkatzeko nagirik ez duten, atzekoen talkek

eraginik. Xabier Amuriza

Ez zaitezte larritu zuen grinek edo interesek eragindako ustezko bidegabekeriak kaltegarriak gertatu badira zuentzat hutsaren hurrengo diren izaki horientzat, **zeintzuek** zuen hazi-tanta batzuei esker ezagutzen duten bizitza. Juan Martin Elexpuru / Bego Montorio

---

**zeinu**[1] **1** *iz ipar* ezkila, kanpaia.

Elizako **zeinuek** bi kolpe tinko jo zituzten. Itxaro Borda

Kurutze horrek dauka **zeinu** bat, lehen ermitau batek joiten zuena lanotzen zuenean, mendi patarreri beheiti heldu zen erromesa ez zedin gal edo erroitz batean eror. Angel Aintziburu / Jean Baptiste Etxarren

Lekukoek baietz, Irauzketa parropia bat zela, bere bataiarri, hilarri eta **zeinuekin**. Angel Aintziburu / Jean Baptiste Etxarren

**2** (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

Argi gehiago ere alde orotarat ezarria izanen direla elizan, **zeinu** dorrea berritua eta holako, hots ainitz lan. Herria

Ordu hetan familia horrek egiten zituen eliza artatze, **zeinu** joite, ilharri apaintze, zapataingoko ofizioa atxikiz. Herria

**3** (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa)

Elizako dorreak hil-**zeinuen** danbakoak oiharrarazi zituenean, zulogileak irudiz, errealitatera itzuli ziren. Itxaro Borda

Hil **zeinuak** heriotzaren seinale. Herria

Eguerdi **zeinutan**, ohi den bezala gelditu zen partida Anjelus otoitza erraiteko. Angel Aintziburu / Jean Baptiste Etxarren

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
> zeinuak jo (3)

---

**zeinu**[2] *(orobat* ***seinu*** *g.er.)* **1** *iz* ikurra, seinalea.

Gurutze runikoetan bi ikur etsaiak **zeinu** berean ezkondurik ageri dira. Juan Garzia

Haloa ilusio optiko hutsa da, aireko hezetasunak sortua, ortzadarraren antzera, baina aureola santutasun goitarrago baten **zeinutzat** hartzen da. Xabier Olarra

**Zeinu** eta sinboloekin hizkuntza propioa eraiki zuen, munduan gertatzen zena adierazteko. Berria - Kultura

Ez zen letra bat, **zeinu** bat baizik, latinezko jacere, "bota", aditzaren ordez jartzen zena. Xabier Olarra

Beraz, ados gaude honetan, alegia, hitzak **zeinu** direla. Imanol Unzurrunzaga

Askatu du beso bat harresitik eta hurreratzeko **zeinua** egin dio. Koldo Izagirre

Gora behatzeko **zeinua** egin nien. Koldo Izagirre

Garai haien **zeinuak**: itxaropen-oldar bat, dena egiteko zegoelako sentipena, dena asmatzeko. Iñaki Iñurrieta

Dirua salerosgaien balioen **zeinu** den bezala, papera diruaren balioaren **zeinu** da, Zeruko hamabi **zeinuen** kasuan egiten den bezala, astronomoek konstelazioen harmonia musikalen arabera kalkulatzen dituztenean. Iñaki Iñurrieta

Eguzkia Aries **zeinuan** sartzen denean eta **zeinu** horren zortziren bat zeharkatu duenean, udaberriko ekinokzioa markatzen du. Santiago Iruretagoiena

Zilarra, merkataritzarako **zeinu** gisa hain baliagarria den metal hori, munduko merkataritza handienaren oinarria ere izan zen merkantzia gisa. Iñaki Iñurrieta

**Zeinuak** behar al ditugu **zeinuak** ezagutzera emateko? Imanol Unzurrunzaga

Hogei lagunetik batek iradoki zuen galtzen bagenuen kinielan beste **zeinu** bat ziurra zela. Berria - Kirola

Oso espazio berezia da, **zeinuz** zamatutakoa. Berria - Kultura

Tau **zeinu** handi bat ikusi zuen bere begiz aita dohatsuaren bekokian. Askoren artean

Era berean, *x* eta *z* **zeinuak**, gainean puntua zutela proposatu zituen *tx* eta *tz* adierazteko. Koldo Zuazo

Txinan krisiaren **zeinua** adierazteko beste bi **zeinuren** batuketa erabiltzen omen dute: arriskuaren **zeinua** eta aukeraren **zeinua**. Harkaitz Cano

Idazkera txinarrean **zeinu** bera dela "krisia" eta "abagunea". Joxe Azurmendi

**Zeinuak** deskodetzeko ahalmena. Xabier Olarra

**2** (izenondoekin)

**Zeinu** berezi bat sortzea bururatu zitzaion, zutabe bat betegabe zegoela adierazteko: biribiltxo bat. Jon Muñoz

Hitz bakoitzak **zeinu** berezi bat zuen, ezaugarri moduko bat. Juan Garzia

Ezin hobeto zetorren erdaran ez ziren **zeinu** ortografikoak erabiltzea. Koldo Zuazo

Argazkian dagoen informazioa jartzen da jokoan, **zeinu** objektiboak, berariaz kodetutako eremu bat. Josu Zabaleta

Izena ezaugarri entzungarrien **zeinu** entzungarria da. Imanol Unzurrunzaga

Irudian **zeinu** ikonikoak eta **zeinu** plastikoak definitzeko proposatuz jarraitzen dute artikuluaren egileek. Josu Zabaleta

Zigilaketa, zentzu honetan, paper garrantzitsuetan hitz edo **zeinu** kabalistikoak idazteko antzinako ohituraren aztarna da. Xabier Olarra

Txinarekiko merkataritza harremanak **zeinu** negatiboa izan arren, Europako Batasunarekiko ondasunen merkataritza defizita %0,8 murriztu zen. Berria - Ekonomia

**Zeinu** distiratsu horiek unibertsoarekin eta gainerako konstelazioekin batera, lurraren eta itsasoaren inguruan ibiltzen dira biraka eta beren bidea egiten dute zeruaren forma biribilari jarraituz. Santiago Iruretagoiena

**3** (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

Hitzak zifratzeko **zeinu** sistema berriak asmatzen dira. Iñaki Arranz

Proportzioa behinola bezalakoa balitz, diruak hobeto beteko luke bere **zeinu**-funtzioa. Iñaki Iñurrieta

**Zeinu**-balioa: Arnheimen iritzian, dagokion edukiaren ezaugarriak ikusteko moduan islatzen ez dituenean balio du irudi batek ikur gisa. Josu Zabaleta

Argazkiak bere sorburu duen errealitatearekin **zeinu**-erlazioa ez baina zantzu-erlazioa duela gehiago. Josu Zabaleta

Bere hasieraren eta bukaeraren mugak adierazten ditu **zeinu** kopuru zehatz baten bidez. Xabier Arregi

Mexiko eta Peru konkistatu zituztenean, espainiarrek alde batera utzi zituzten aberastasun naturalak, eta **zeinu**-aberastasunak hartu zituzten, berez baliogabetzen zirenak. Iñaki Iñurrieta

**4** (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa)

Burmuinetan pizturiko alarma-**zeinu** urruna entzun eta ulertzeko. Anjel Lertxundi

Zuhaitz baten adarra kraskatu, haren hostoetako bat batasun **zeinu** eta intsignia gisa aldarrikatu eta deiadar egin zuen: [...]. Harkaitz Cano

Idazkera **zeinuak**, berriz, irakurlearentzat lagungarri edo ongi ulertzeko ezinbesteko direnean baizik ez dira baliatuko. Berria - Kultura

Hizkuntz **zeinuez** ari gara, hizkuntz **zeinuak** agerian uzteko baliabideez, hain zuzen ere. Iñaki Arranz

Ortografia **zeinuen** kopurua hogeita bostekoa da. Juan Garzia

Letrak eta tipografi **zeinuak**, silabak, hitzak, esaldiak, paragrafoak eta, azkenik, semantikari dagozkion konstrikzioak. Iñaki Arranz

Ekonomiazko merkataritzan ari diren estatuetan jarri diren bankuek, zorionez, balio-**zeinu** berriak eratu dituzte beren kredituaren bitartez. Iñaki Iñurrieta

Klubaren nortasun **zeinuei** eutsi bakarrik ez, jokalariek futbolaren bere ikuspegia erabat barneratzea ere lortu zuen. Berria - Kirola

Eskola publikoetan erlijio **zeinuak** erabiltzearen aurkako legea. Berria - Mundua

**5** keinua.

Italiako prentsak gobernuak **«zeinu»** bat bidali nahi izan duela nabarmendu zuten atzo. Berria - Mundua

Gaur egun euren hizkuntza, **zeinuen** hizkuntza, alegia, ez da ez ofiziala, ezta koofiziala ere. Berria - Euskal Herria

Espainierazko **zeinuen** hizkuntza eta **zeinuen** hizkuntza katalana izango dira ofizialak. Berria - Harian

Goi Mailako heziketa zikloetan ikasleek **zeinuen** hizkuntzako interpretariak dituzte. Berria - Euskal Herria

**6** marka, ezaugarria, zantzua.

Harridura **zeinua**. Iñigo Aranbarri

«Gure **zeinu** komertzialen lehikortasuna handitzeak eta kudeaketa hobeagoak ekarri dute lorpen hau», azaldu zuen atzo Constan Dacosta Eroski Taldeko presidenteak. Berria - Ekonomia

Handitasun bat beste baten bitartez zatitua izan behar denean, zatiketaren forma ezagugarriak biak beren **zeinuen** arabera biltzen ditu. Ibon Uribarri

Munduan edonon aurkitzen dira jakintza handiarekin eta asmo determinatuen arabera egindako ordenaketa baten **zeinu** nabarmenak. Ibon Uribarri

Ez zuen oinazeen erdian inolako tristura- **zeinurik** azaltzen. Askoren artean

**hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**

**nortasun zeinu** (4); **tau zeinu** (5); **zeinu berriak** (3); **zeinu gisa** (4); **zeinu multzo** (9); **zeinu sail** (5)

**tau zeinua** (8); **zeinua egin** (3)

**hil zeinuak** (5); **hizkuntz zeinuak** (4); **nortasun zeinuak** (5); **zeinuak jo** (3)

**nortasun zeinuei** (3)

**euskarazko zeinuen** (3); **hamabi zeinuen** (5); **zeinuen hizkuntza** (15); **zeinuen hizkuntzarik** (3)

**inolako zeinurik** (3); **zeinurik gabe** (8)

---

## zeinuka *adlag* zeinuak eginez.

Ikusten nautenek burla egiten didate, keinuka eta **zeinuka**. Elizen arteko biblia

Orduan, uharte galduenean legokeen naufragoaren antzera txanel batetik **zeinuka** ari zen urketariari kasu egin gabe edo ez ikusiarena eginda hartu zituen hamar edo hamabi gradu noroeste. Koldo Izagirre

---

## zeinukera *iz* zeinu mota.

Gormutuen **zeinukera** agertzen zait ametsetan ere, mezu ezkuturen bat deskodifikatu nahi balit bezala. Jokin Urain

Horrexegatik, euskal gizartearen sailkapen berritua ikusita, mututuontzat territorio libre berri bat osatzen hasi da Eusko Jaurlaritza hau, hauteskunde kanpainako mezuak gormututuon **zeinukeran** hedatuz. Jokin Urain

---

## zeinuketa *iz* zeinu mota.

Bi belaunaldi atzeragotik, italiar eseak eta italiarren **zeinuketa** naharoak bizirik diraute harengan. Juan Garzia

Alde egin zuten azkenean, gormutuen **zeinuketan** ari izan bagina bezala. Jokin Urain

---

## zeinutegi *iz ipar* ezkila-dorrea.

Murruak, erdi lurreratuak, teilatu zenbait eta elizaren **zeinutegia** bere bi ezkilekin. Piarres Aintziart

Miretsi baitut, bere **zeinutegi** finarekin, kapera luze bezain sinplea, gaitzeko platanondoen itzalean goxoki kokatua. Piarres Aintziart

---

## zeinutegitxo *iz ipar* zeinutegi txikia.

Hirugarrenak, besteek bezala, hiru **zeinutegitxo** bazituen, ezkila bakar batekin haatik eta arbelazko teilatu bat, fina. Piarres Aintziart

---

## zeinutxo *iz* ikurtxoa.

Zuk pilotatzen jarraitzen duzu, ametsetan, lurra zaintzen, eta ordurako kondenatu zaitu giza erretina batean eratu den **zeinutxo** beltz hark. Josu Zabaleta

---

## zeinuztatu, zeinuzta, zeinuztatzen du *ad* zeinuz bete.

Hark du une honetan [...] bai esaten nire eskua bide jakin batean mugi dadin paperaren gainean, zeinuzko kiribiloz **zeinuzta** dezan orria. Juan Garzia

---

## zekale *(orobat **sekale** g.er.)* **1** *iz* lastodunen familiako landarea, gariaren antzekoa, alea irina egiteko erabiltzen dena *(Secale cereale)*; landare horren alea. ik **zikirio**.

Mujiken alorretan aspaldi burutu zen **zekalea**, aletu oloa eta hazi artatxikia, eta beraren lurretan, aldiz, artoa garatzen hasi berria zen eta garia hozitu gabe zegoen oraindik. Jose Morales

**Zekaletan** txorimaloa bezain nabarmena. Anton Garikano

***Zekale** artean harrapaka* nobelan azaltzen diren ibilerak aztertu eta bere muinera iristea espero dut. Bernardo Atxaga

Hartu garia, garagarra, babak, dilistak, artatxikia eta **zekalea**; sartu dena ontzi batean eta egin ogia. Elizen arteko biblia

Neskatxak ukitu ere ez zituen egin, ez zuen jan kabiarrik, ez xerra mehetan ebakitako sardinzarrik, eta ez zuen edan **zekale** anisatuzko pattarrik. Karlos Zabala

Whiskya esaten dudanean, **zekalez** egindakoaz ari nauk eta ez laranja-uraz. Lopez de Arana

Etxeko bihitegia zen, gariz, oloz eta **zekalez** betetzen zena, baita artalez ere. Joan Mari Irigoien

Agintariek berehala ikusi zuten irakasle despistatu itxurako preso hark **zekalea** palaz pilatzen baino lan probetxuzkoagoa egin zezakeela bulegoetan. J.M. Olaizola "Txiliku"

**2** (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

Honatx Hasenmayer **zekale**-ogi bikaina, gurin daniar ederrez igurtzia. Anton Garikano

Mendi-bizkar lauetatik joan zen gero bidea, galsoro, garagardi eta **zekale**-alor igitatu gabeak alde batean, eta bestean, berriz, Tentetnikovek hainbestetan ibilitako lekuak. Jose Morales

**Zekale**-irina behar baduzu, edo gari-irina, edo alea, edo okela, ez ahaztu nitaz, mesedez. Jose Morales

**hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
**hasenmayer zekale ogi** (3); **zekale artean harrapaka** (12); **zekale ogi** (6)

---

# zeken *(164 agerraldi, 74 liburu eta 20 artikulutan)* **1** *izond* dituen ondasunak ez emateko edo ez gastatzeko gehiegizko joera agertzen duena. ik **zikoitz; diruzale; zuhur**.

Oso aberatsa zen, baina ez **zekena**, gastatzailea baizik. Askoren artean

Eskuzabala, eta **zekena**; lagunik onena, eta traidoreena. Berria - Kultura

Ez duk prokuradorea eta probintziako funtzionario esku-labur **zeken** horiek bezalakoa, haiek kopek bakoitza begiratzen ditek eta. Jose Morales

Ez duk ezagutzen Pliushkin, bere jendeari janari urria ematen dion gizon **zeken** hori? Jose Morales

Lance Armstrongek nagusi **zekena** izan behar du, garaipena lortzeko grinaren aitzakian taldekideak gogor, gupidarik gabe zigortzen dituena. Berria - Kirola

Jainkoak zirela pentsatu genuen eta opariz estali genituen; gerora jakingo genuen zerri gosetiak baino ez zirela, urrezale **zekenak** besterik ez. Pako Aristi

Gazte festazale txoriburua, lurjabe **zekena**, administratzaile alferra, funtzionario ustela. Jose Morales

Hamar urte dira jo eta ke ari naizela lausengatzen hemengo dirudun **zeken** zikin batzuk. Koldo Biguri

Non kabitzen da hain aita **zekena**, hain gupidagabea, hain zitala? Anjel Lertxundi

Ez da niri hamar mila ukatzeko bezain **zekena** izango? Patxi Zubizarreta

Ez izan eraman gutxikoa zeure otoitzean, ez eta **zekena** ere limosna ematean. Elizen arteko biblia

Maitasunak **zeken** bihurtu ninduen. Eider Rodriguez

Afifi anderea **zeken** samarra zen. Patxi Zubizarreta

Aarón Loewenthal, jende guztiarentzat, gizon serioa zen; beraren lagun min bakanentzat, **zeken** hutsa. Juan Garzia

**2** irud/hed

Ontzi hondoratuko marinela azken oholari nola, halaxe atxiki gintzaizkion eskaintza **zekenari**. Aingeru Epaltza

Bere bihotz lehor **zekenaren** baitatik sortua. Felipe Juaristi

Lur **zeken**, lur gogor, lur harrizu, lur astun, lur nekagarri, lur gorri, lur lehor, lur basitu, lur beltz, lur amorragarri, lur madarikatu eta dohakabe honen gainean zuhaitz adar bat ikusi zuenetik, urkabea prest zeukan gizonak. Patziku Perurena

Zeruek lehertuak zituzten beren sabelak eta isuriak haize **zekenenak**. Anjel Lertxundi

[Ardiaren] haragiak gustu eta urrin berezia du, bortitza, pentoka malkarretako belar **zekenarena**. Itxaro Borda

Margarekin izandako eztabaida, hitz egiteko erabili zuen modu **zekena**, aitzakia izan zen, onartu beharra dut. Ramon Saizarbitoria

**Zekena** da biktimak jatorriaren arabera diskriminatzea. Berria - Euskal Herria

Nolanahi ere, adierazteko erabili zuen modu hura **zekena**, zakarra eta gupidagabea iruditu zitzaidan. Ramon Saizarbitoria

Askotan ikusia zuen bere burua, ametsetan: errebolber irmoa harengana zuzendu, eta bihotz-zeken hura bere erru **zekena** aitortzera behartzen zuen. Juan Garzia

Ea zergatik egiten zuen negar galdetu nion berriz ere, nahiko nuena baino **zekenago**, antza. Ramon Saizarbitoria

Aihotz bat altxatu eta hiru kolpe **zeken** jo zituen bere beso sendo biluziarekin. Karlos Zabala

Olaizolak, sake **zekenak** lagun, emeki eta segurki gaina hartu du eta partida bururatu da 22/15. Herria

**3** (adizlagun gisa)

Arrantzan hasten badira ez zietek filiñoei baino are **zekenago** ordainduko? Koldo Izagirre

Berdin duela batzuetan **zeken** jokatzen badu, zekenkeria maitasunak eraginda bada. Eider Rodriguez

Indarrez astindu zituen bigarren solaskideak **zeken** eta hotz luzatu zizkion bi hatz soilak. Karlos Zabala

**Zeken** eta handiusteko segitzen zuen, zinez, Basurtokoen seme nagusi Joaniko nirekin adiskidetu berriak. Edorta Jimenez

Eleez **zeken** zebilela konturatzen zen Maiana. Itxaro Borda

Esan beharra zaukaat nire iritzian **zeken** samar jokatu duala, Fidel. Antton Olano

**4** (izen gisa) pertsona zekena.

**Zekenaren** gutizia ez da bere parteaz asetzen, zikoizkeriak arima lehortzen dio. Elizen arteko biblia

Esan beharra zaukaat nire iritzian **zeken** samar jokatu duala, Fidel. Antton Olano

Bi errublo eta erdi kendu dizkidak arima bakoitzeko, **zeken** ustel horrek! Jose Morales

**5** (-en atzizkiaren eskuinean izen gisa)

Gurasoei kontu eman gabe, goiz batean neskatxa hau, salto batean, pertsekuzioa zuzentzen zutenengana joan omen zen, haiei beren **zekena** aurpegira hitz goxoz egoztera. Pello Zabala

**6** (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

Herrian -ez bainaiz gehiago joaten, bertan galtzeko beldurrez- **zeken** fama dut. Juan Garzia

**7** (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa, elkarketak izenondo balioa duela)

Oso hitz-**zekena** zen bere egitandien berri emateko orduan. Juan Garzia

Askotan ikusia zuen bere burua, ametsetan: errebolber irmoa harengana zuzendu, eta bihotz-**zeken** hura bere erru zekena aitortzera behartzen zuen. Juan Garzia

---

# zekenkeria *(orobat **zekenkeri**)* **1** *iz* zekentasun gaitzesgarria; zekenaren egintza.

Sabelkeriaz, Hordikeriaz, Lizunkeriaz, **Zekenkeriaz** eta Handinahiaz hauxe baizik ez dugu adierazten, hots, jateko, edateko, kopulatzeko, aberasteko eta ospatua izateko Maitasun edota Desira neurrigabekoa. Piarres Xarriton

Ene ohizko **zekenkeria** zikoitz eta bekaitzaren mugak urtaraziz gasna zati gehiago moztu nuen. Itxaro Borda

Lasai asko bizi ginen, hainbestean gure **zekenkeria** burges txikian hondoratuta. Eduardo Matauko

Afifi anderea zeken samarra zen, baina **zekenkeriak** ez zion zoriontasuna eragozten. Patxi Zubizarreta

Jende larregi hiltzen ari da lurralde aberatsen zabarkeria eta **zekenkeriagatik**, eta ez dago aitzakiarik horrela segitzeko. Berria - Euskal Herria

Berdin duela batzuetan zeken jokatzen badu, **zekenkeria** maitasunak eraginda bada. Eider Rodriguez

Ez zuen eragozpenik jarri kristau mediku zahar bat [...] senartzat hartzeko, eta orduz geroztik **zekenkeriara** eta arrarotasunera makurtuz joan zen, hainbat nola gaztetan izan baitzen erregekiro eskuzabal. Juan Garzia

**2** (hitz elkartuetan)

Diru-tragoxka hark aitaren **zekenkeri** egarria baretu zuen. Askoren artean

---

# zekentasun *iz* zekena denaren nolakotasuna.

Bakartasunak bazka oparoa eman zion **zekentasunari**, eta, gauza jakina denez, **zekentasunaren** gosea zazpi egunekoa, eta zenbat eta gehiago jan, orduan eta aseezinagoa. Jose Morales

Erakusten zuen **zekentasunak** lagundu egin zidan nire asmoari sendo eusteko. Ramon Saizarbitoria

Pentsatzen du, halaber, exekutatu bakoitzarengatik hainbesteko bat kobratzeak **zekentasuna** bultzatzen duela. Karlos Linazasoro

---

# zekentxo *adlag adlag* zeken.

**Zekentxoago**, baina argi asko dio beste honek ere: Abendua gau huts, eta jai huts! Pello Zabala

---

# zekor 1 *iz* txahal arra, zezen gaztea. ik **txekor; idisko; ergi**.

Errepide azpiko tunelaren inguruan, azienda zegoen salgai: **zekorrak**, ardiak, ahariak, txahalak, antxumeak, zaldi pare bat, asto umil bat. Txillardegi

Biharamunean sakrifizioak eta erre-opariak eskaini zizkioten Jaunari: mila **zekor**, mila ahari, mila bildots, isur-opariekin batera. Elizen arteko biblia

Gazteak ziren, eta neska faltaz nazkatuta, **zekorrekin** aritzen ziren. Anton Garikano

"Hurrengo **zekorra** saltzen dugunean dirua bidaliko diogu Josebari" hitzekin bukatuko du aitak gosaria. Iñaki Zabaleta

Hiltegira daramaten **zekorrari** bezala, atean lotuta geratu zitzaizkion hankak errabinoari. Koro Navarro

Egistok prestatu zian nire heriotza, nire emazteak lagundurik; etxera gonbidatu, oturuntza eskaini, eta **zekor** bat bezala hil nindian, lagunekin batera. Juan Kruz Igerabide

**2** (izenondoekin)

Txakur zaindari horzgabeak; **zekor** adargabeak; lanerako zaldi zikiratuak. Anton Garikano

Deslai dabilen **zekor** betizu baten bila. Juan Garzia

Hartu **zekor** gizena, larrutu eta burduntzian jarri festa egiteko. Javi Cillero

Behinola, ardi, idi eta **zekor** gizenduak hil zituen Adoniasek opari bezala Zohelet haitzaren ondoan. Elizen arteko biblia

**Zekor** guri eta gizen bat aukeraturik, morroi bati eman zion berehala aton zezan. Jose Antonio Mujika

Horixe da egun merkatua: pentsamendu bakar hegemonikoak gurtzen duen **zekor** sakratua. Iñaki Heras

**3** (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

Bost xerra **zekor**-zangar jarri zituen mahai gainean Ruche jaunak, hezur eta guztikoak. Jon Muñoz

Berehala aditzen zuen **zekor**-larruaren usaina. Juan Garzia

Besteak beste, eskulangintza azoka, **zekor** erretzea eta dultzaineroak izango dira. Berria - Kultura

Jeroboam erregeak, aholku eskatu ondoren, bi **zekor**-irudi egin zituen eta esan zion jendeari: [...]. Elizen arteko biblia

Urrea zizelez landuz, **zekor**-irudia moldatu zuen. Jose Antonio Mujika

---

# zekorketa *iz* zekorrak jokatzen diren ikuskaria.

Irailaren 29an izan zen hori, **zekorketa** batean. Edorta Jimenez

---

# zekzio ik **sekzio**.

---

# zekzione ik **sekzio**.

---

# zela 1 *iz* zaldiei-eta, gainean esertzeko, ezartzen zaien tresna, eskuarki larruzkoa. ik **basta**[1].

Gau hartan zaldun guztiek ondo prestatu zituzten armak eta zaldien **zelak** eta uhalak. Juan Kruz Igerabide

Bawtryko gure gizona zelagilea zen [...] zaldientzako **zelak**, erromaleak, zintxak, bizkargainekoak, azpiko uhalak, kurrupekoak eta gainerako uhal eta larruzko trepetak egiten zituena. J.M. Olaizola "Txiliku"

Gizonak hedeak tinkatzen, **zelak** gainbegiratzen eta animaliak laztantzen ari ziren. Agustin Otsoa

**Zela** bat ekarriko dut pabiloitik. Bernardo Atxaga

Behorra atera zuen ukuilutik eta baso-guarden ezaugarri distiratsua zeukan **zela** bat ipini zion, beheko aldetik uhala pasa eta lotuz. Joxemari Urteaga

Mandorik ederrenari urrezko **zela** bat ezartzeko agindu zuen. Patxi Zubizarreta

Alde batera, harritu egiten nauzu, David -esan zidan haietako egun batean Lubisek, Iruainera itzuli eta zaldiei **zela** eranzten ari ginela-. Bernardo Atxaga

Zorro bana zeramaten **zelari** lotuak eta zorroetan gutun bana. Aingeru Epaltza

Aho-uhalak, urrezko hariz txirikordatuak, korapilatuak zeuden **zelaren** nakarrezko kokotsean. Fernando Rey

**Zelaren** azpian zorro bat urre ezarri zuen eta, amorrazio beltzak harturik, noraezean abiatu zen. Patxi Zubizarreta

Azpillagaren etxearen atean, pareta beltzetatik zintzilik, pilotan jokatzeko txisterak, txalmak, muturgainekoak, andaluziar estiloko **zelak** ikusten dira. Koro Navarro

Bigarrenean, ez zegoen zaldientzako tresneria besterik; zaldunen irudiak zeuden ate aurrean, beren **zelekin**. Juan Kruz Igerabide

**18** ***zaldi zela*** *(orobat* ***zaldizela*** *g.er.)*

Mikel Strogoff **zaldi zelan** eserita dago jadanik. Karlos Zabala

Turuta txiki batzuk zeramatzaten **zaldi zelaren** aurrealdeari loturik, haien graduaren ezaugarri. Karlos Zabala

Behin show porno batean ikusitako **zaldi-zela** bat marraztu ere egin nuen buruz. Karlos Zabala

Kondesaren **zaldizela** bihurtu nahi nikek, -eta zaldi beltza eta zela seinalatu zituen, [...]. Fernando Rey

Beyaren gizonek begirunez agurtu eta **zaldi-zelak** hartu zizkieten. Fernando Rey

**Zaldi-zela** bat erosten badut, ez ditek haragirik jaten hiru hilabetean. Xabier Olarra

---

# zelada ik **zelata**.

---

# zeladore *iz* zaintzailea, jagolea, eskuarki kartzela, ospitale eta kidekoetakoa.

Igogailutik atera bezain pronto, arima ziniko, maltzur, edo sinpleki inkontziente batek zabalik utzi duen ate baten zirrikitutik **zeladore** eta erizain talde bat bereizi du, pastatxoak jaten eta xereza edaten, algaraka. Harkaitz Cano

Egun osoa baraurik eman duzu, eta **zeladoreek** koltxoia, manta eta eskatu diezun bokadilloa ekarri dizute. Rafa Egiguren

Ez nintzen jada inorekin fidatzen eta, ospitalearen irteerara iritsi bezain laster, lepokotik heltzen zidan **zeladoreari** haginka egin eta ihesari eman nion. Jon Arretxe

**zelagile** *iz* zelak egiten dituen pertsona.

Bawtryko gure gizona **zelagilea** zen, edo nahi baduzue uhalgilea edo guarnizioneroa -hiru berba horiez ezaguna baita langintza hori-, zaldientzako zelak, erromaleak, zintxak, bizkargainekoak, azpiko uhalak, kurrupekoak eta gainerako uhal eta larruzko trepetak egiten zituena. J.M. Olaizola "Txiliku"

---

**zelai** *(orobat* ***xelai*** *g.er.)* **1** *iz* landa laua edo aski laua, eskuarki belarrez betea.

Lehena, jauregiari atxekirik zegoena eta bere zabalean berrogei bat urrats izanen zituena, **zelai** bat zen, belarra ebakia zuena eta han eta hemen soilune batzuk zituena. Joan Mari Irigoien

Bihur bitez **zelai** eta lautada paraje latz eta malkarrak.

Pasa zaitez txaretatik, **zelaietatik**, soroetatik, basoetatik, mendietatik, herrietatik. Juan Luis Zabala

Zortzi kilometroko hondartza zabalaren gainean zegoen **zelai** batean. Bidea **zelai** artean zihoan, ibai bihurgunetsu baten ertzetik, erroten aldamenetik. Koro Navarro

Mokorrez josiriko **zelai** batetik eraman zituen Nozdriovek. Jose Morales

Itzulingurua eginez **zelai** eta galsoroetan barrena. Jose Morales

Emeki emeki goiti doa bidea beste **zelai** baten kaskora helduko naiz. Piarres Aintziart

Kardantxilo talde bat gora eta behera ari zen, **zelaia** inguratuz, erreklamoa zegoen tokirantz. Jon Maia

**Zelai** ertzetik pasatzen den bide-bazterrean aparkatu genuen automobila. Joan Mari Irigoien

Erraustutako hirian, **zelaian** bezala bazkatuko dira ardiak, larratuko ahuntzak. Elizen arteko biblia

Gau izoztuan **zelaiko** soroek distira egiten zuten. Fernando Rey

**Zelaien** gainean bueltaka, ekaitz-gau bateko itzalen antzera, bost txori ikusi zituen hegan. Agustin Otsoa

Lan egiten dute palek ortuetan eta goldeek zein beleek **zelaietan**. Jose Morales

Dendaz betetako **zelai** batera eraman gintuzten; Nazio Batuen opari bat zen. Juan Kruz Igerabide

XI. mendean Nafarroako erregeak emeki kontrolatzen ditu Baigorri, Garazi, eta Ortzaizeko ibarrak, Amikuze eta Oztibarreko **zelaiak**. Michel Oronoz

Munich-eko hiri-bazterrak ezker utzi genituen, eta Goi-Bavariako **zelaietan** barna joan ginen, bide ttipietatik. Marzel Etxehandi

"Errege-Soro"ko **zelaian** atzerago, aspaldiko urte urrunetan ezagutu nuen San Martingo zezen-plaza agertzen zitzaidan. Txillardegi

Merlin aztiak aspaldi esana zuen **zelai** hartan borroka ikaragarri bat gertatuko zela. Juan Kruz Igerabide

Zenbat dira **zelaian** zerraldo gelditu direnak, betiko gelditu ere, ahuspez, zerura begira, postura fetalean? Karlos Linazasoro

Trosta luze-luzean zihoan beti, **zelaian** nahiz maldan. Karlos Zabala

Jaits bedi, euria bezala, nire irakaspena; isur bitez, ihintza bezala, nire esanak; euri-lanbroa belarretan bezala, langarra **zelaian** bezala. Jose Antonio Mujika

Han, soroez gain, hiriko kirolguneko **zelaia** ere jan dute intsektuek, hango agintariek jakinarazi dutenez. Berria - Gaiak

Nazio guztiak bilduko ditut eta Josafateko **zelaira** jaitsaraziko. Anjel Lertxundi

**2** (izenondo eta izenlagunekin)

Hasieran lautada zabalaz, **zelai** itzelaz ohartu nintzen. Urtzi Urrutikoetxea

Bero da, baina izerdi goxo honekin, zalu zalua nabil, **zelai** zabalean. Piarres Aintziart

**Zelai** zabalean barrena, belarrak eta loreak itsuka zapalduz. Agustin Otsoa

Hemendik bideak **zelai** zabaletan jarraitzen du, ezkerretara hangar itxurako etxola txikia dago eta eskumatara negutegiak han-hemenka. Urtzi Urrutikoetxea

Bat-batean buelta eman zuen, eta atzetik joan gintzaizkion **zelai** bigunean barrena. Koro Navarro

Mingarri zitzaidan gazte denboran bake-paraje izandako muino eta **zelai** leun haiek, orain balen ziztukada giro odoltsuan topatzea. Txillardegi

Gutxiena uste nuenean, **zelai** eder baten erdian esnatu nintzen. Patxi Ezkiaga

Lausoki eta alaitasunez ekartzen zituen gogora, ametsetan bezala, konkorrez jositako **zelai** elurtu goibelak. Jose Morales

[Udaberrian] **zelai** basatia zoragarri egon ohi zen, lorez josita. Iban Zaldua

Ural mendietatik haratagoko **zelai** zingiratsuetara. J.M. Olaizola "Txiliku"

**Zelai** harritsu eta biluzi batean nabil. Piarres Aintziart

Zaldi zuria **zelai** berdearen gainean. Agustin Otsoa

Euriaren eraginez kolore berde biziko **zelai** ernaberrituen erdian. Jose Morales

Aintziraren inguruan, goroldio koloreko **zelai** diamantezkoak. Anjel Lertxundi

**3** (hitz elkartuetan lehen osagai gisa, elkarketa kopulatiboetan)

Barne-muinak erretzen dituen mina garela, etsaiaren esku gupidagabeak gerra garaian **zelai**-landak, hiri-baserriak, uztak oro, erretzen dituen bezala, mina gerra baita. Felipe Juaristi

Azpilgo **zelai**-soroak, zuhaitzak bezalaxe, berdeak ziren. Joan Mari Irigoien

Aterpea hartu behar lukete, baina, ikusirik zeruan zabaldu berri den ortzadarrak **zelai**-larretan eragiten duen dirdira, ez dute oilategirako asmorik. Anjel Lertxundi

Eramanezina egiten zitzaidan-eta sorabiar haiek, alemanak izan arren, alemana ez zen hizkuntza batean aritzea han, gurean, alemanaren **zelai**-mendietan. Anjel Lertxundi

**4** (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa)

Appalache mendien ondoko tabako eta kotoi **zelaiak** ikusi ahal izan gabe. Iñaki Zabaleta

Alpapa **zelaiak** ageri ziren errepidearen bi aldeetan, eta artasoroak urrutiago. Koro Navarro

Erleak lanpetuta lore-**zelaian**. Oskar Arana

Ilunpetako buruzagiei dagokienez, borroka-**zelai** bezala erabiltzen zuen mundua. Askoren artean

Sinbolo ugari, kutun ugari daude barreiaturik narrazioan, gerra **zelaian** ereindako lehergailuen antzera. Berria - Harian

Horretarako baldintza bakarra Idazlearen beraren intelektoa, zeina argi-eroale, gudu-**zelai**, itsas-argi edo entzima-multzo baten antzera imajinatzen ahal baitzen. Jon Alonso

**5** (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa, elkarketa kopulatiboetan)

Laster, soro-**zelaiak** nagusitu ziren. Anjel Lertxundi

Justoetxeko baserri-**zelaiez** gain, Azpilgo beste hiru baserriren jabe baitira justoetxetarrak, baita Sanmark mendixkarena ere. Joan Mari Irigoien

Inguruko baso-**zelaietan** osteratxoa egin ondoren, Tekkalera itzuli naiz. Jon Arretxe

Gure ameztoiak, gaztaindegiak ala mahastiak, eta ibar-**zelaietan** hesten ziren ilagindegiak, oihalgindegiak eta larru-apaindegiak. Piarres Xarriton

**6** irud/hed

Mihiak mihi bila zabiltzala eta eskuak, muino, **zelai**, lautada, zernaitz eta oihan bilatzaile, potta zehatzago finkatu zen. Itxaro Borda

Itsasoaren **zelai** ilun bizia desagertu egingo da, begiak antzeman dezakeen espazio guztia zurituta. Joseba Sarrionandia

Haren gorputzetik harako izerdi gaziak hainbat indartsuago ugaltzen zituen itsas **zelai** flotakorrak. Xabier Amuriza

Zer gaitzesten die uhinei eta euron masa likidoari eta **zelai** igerilariei? Xabier Amuriza

Ezin daiteke esan greziarren **Zelai** Eliseoak -greziarrentzat, **Zelai** hauek heroien eta gizon bertutetsuentzako egoitzak ziren- Aaruko Soroetatik jaiotako mitoa direnik. J.M. Olaizola "Txiliku"

Norberaren bekatu eta hutsegiteak, oraingoz erabat deserrotu ezin direnak, etsi-etsian eraman behar dira Jainkoaren borondatearen **zelai** garbi-garbira. Joan Mari

Lekuona

Esploratzaileak behar ditugu hizkuntz **zelaian**, hitzen, esaldien, arauen... iturburuetara joan, haietan barneratu, aurkitutakoa apurtu, aztertu eta berregin, eta, azkenik, sortzeko kemena eta trebetasuna duten esploratzaileak. Iñaki Arranz

**7** erabilera jakin bat duen eremu mugatua.

Uste dut ezin izan zutela jasan quidditcheko **zelai** inguruan nolako jendetza bildu zen ikustea. Iñaki Mendiguren

Partidu ugari jokatzen ziren aldi berean, **zelai** erreglamentarioan bat, txikian beste bat. Joseba Sarrionandia

**Zelai** militar britainiarretan zerbitzatzen hasi zen eta, eguneko lehengo hiru piastren ordez. Patxi Zubizarreta

Autoak aparkatzeko hainbat **zelai** prestatu dituzte. Berria - Euskal Herria

Partida guzia euri pean eta **zelai** lohitsu batean iragan da nihork tantorik sartu gabe. Herria

**Zelaian**, kanpalekuaren hegoaldean SS-en entrenamendu leku bat bada. Marzel Etxehandi

**8** (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa)

Politikaren eremu honetan operazio-**zelai** gisa, Mendebalde modernoko parroki estatuen lehia eta gerrak aukeratuko ditugu. Iñaki Mendiguren

Hauek salatu zuten nolako giro deitoragarria zen Dachau-ko kontzentrazio **zelaian**. Michel Oronoz

Hitz lauso batzuk esan zituen urrutiko entrenamendu-**zelai** oso on bati buruz. Berria - Kultura

Herio **zelai** guzia alanbre xixtadunez inguratua zen. Eneko Bidegain

Jendetzak eta jendetzak Epai-**zelaian**, gainean baita Jaunaren eguna, Epai-**zelaian**. Elizen arteko biblia

Badu 2 urte lan **zelai** hortan ez dela gehiago tokirik beste lantegi baten kokatzeko. Herria

Gazteluaren inguruan badira SSen trebatze **zelai** batzuk, baita kontzentrazio esparru ttiki bat ere. Alberto Ladron Arana

Berrogeita hamar pertsona inguru, horien %90 atzerritarrak, trebatze **zelai** terrorista baten aurkako erasoan hil dira. Berria - Mundua

Bi aldeetan izaiak, 300 metra urrunago Hitler-ek eraiki gazte-**zelai** bat. Michel Oronoz

Geroago, Everson erreka gurutzatu eta picnic **zelaian** sartzen gara. Koro Navarro

Hilik gertatu zen, kontatu zidatenez, ezusteko istripu bitxi bat zela bitarteko; granada batek jo eta airean leherrarazi omen zuen tiro-**zelai** inguruan. Mirentxu Larrañaga

Gure etxearen aurrean kirol **zelai** bat eraikitzen ari zirelako. Lurrezko patioa futbol **zelai** txikia da, bi aldeetan porteriak sarerik gabe, eta erdi erdian Kolonbiako bandera dago masta gainean haizetara. Bernardo Atxaga

Asteburuko elurrak erabat esta-li zuen Osasunaren futbol **zelaia**. Berria - Kirola

20 futbol **zelaien** tamainako oihanak. Berria - Gaiak

Udalaren arau urbanistikoak aldatu zituen PPk, 18 zuloko golf **zelaia** eta 100 etxebizitzako urbanizazioa eraikitzeko. Berria - Euskal Herria

Tenis **zelaiaren** tamainako harkaitz batean. Anton Garikano

Koloniatik hurbil zegoen sailkapen **zelai** batera. Josu Zabaleta

Ordudanik, zortzi tumulu daude Tumulu-**Zelaiaren** mendebaldean. Agustin Otsoa

**9** irud/hed

Amerikaren eta Iranen arteko gatazkak Iraken aurkitu du borroka **zelai** politikoa. Berria - Mundua

Listoegia denak disimulatu egin beharko du, jokoa sinplismoaren eta ergelkeriaren joko-**zelai** lokaztuan jokatuko baita ia beti. Berria - Mundua

**10** futbol-zelaia.

Taldeak komeriak izaten ditu **zelai** gainean ez dagoenean, goleatzaile nagusia baita. Berria - Kirola

Argentinarra da, bekozko iluna du, eta **zelai** barruan serioa da. Berria - Kirola

Ez dirudi **zelai** aproposena denik etxetik kanpoko bolada txarrari amaiera emateko. Berria - Kirola

Riazor, **zelai** zaila. Berria - Kirola

Iragan sasoian Atletico Madrilen **zelaian** berpiztu baitzen Osasuna. Berria - Kirola

**Zelai** mitikoetan irabazi du azken urteotan: Old Trafforden, Highburyn, Munichen, Turinen, San Siron. Berria - Kirola

• **11** *izond* laua.

Penitentziaren eta Ebanjelioaren bide estutik, ondorengoek bide **zelai** eta ziurra izan zezaten. Askoren artean

Berdintsu baitzitzaion bide **zelaia** nahiz harritsua. Anjel Lertxundi

Leku **zelaietako** iturriak gaziagoak, astunagoak, epelagoak eta ez hain onak izaten dira. Santiago Iruretagoiena

Alfamako atea, toki **zelaian** dagoenez salbuespena dena, alde batera utzirik, gainerakoen sarrerak malkarrak dira. Jon Alonso

Baliteke bihurri samarra izatea nire arrazoibidea, baina zure bideak ere ez ziren **zelai** eta lau-lauak. Xabier Mendiguren Elizegi

**12** ***zelai erdi*** *(orobat* ***zelaierdi****)* *iz* futbol zelaiaren erdialdea; erdialde horretan jokatzen duten futbolarien multzoa.

**Zelai erdia** eurena izan zen, jokalarien arteko elkar-ulertzea ez dago hobetezerik. Berria - Kirola

Gravesenek zuen **zelai erdian** jokoa antolatzearen ardura, eta Evertongo erdilaria bikain aritu zen. Berria - Kirola

Realari **zelai erdia** eman zion sistema berriak, baina aldi berean hutsune bat utzi zion aurrean. Berria - Kirola

Danimarkari nahikoa zitzaion **zelai erdiko** marran presio pixka bat egin Suediaren erasoa gelditzeko. Berria - Kirola

Ingalaterrak **zelai erdiko** jokalari on asko ditu, ez da Beckam bakarrik. Berria - Kirola

**Zelai erdi** indartsua dute (Alkiza, Xabi Alonso, Aranburu...) eta aurrelari oso arriskutsuak. Berria - Kirola

Talde biek oreka bilatuko dute joko egituran, eta esanguratsua da Rijkaardek Motta eta Marquezekin edo Edmilsonekin Chelsearen **zelai erdi** gihartsua parekatu nahi izatea. Berria - Kirola

**Zelai erdia** noraezean aritu zen eta aurrelariak zuloak bilatu ezinik. Berria - Kirola

### hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 4 aldiz agertzen direnak)

**entrenamendu zelai** (4); **futbol zelai** (65); **futbol zelai batean** (7); **futbol zelai baten** (4); **futbol zelai berria** (7); **goi zelai** (4); **golf zelai** (8); **gudu zelai** (5); **herio zelai** (10); **kirol zelai** (18); **kontzentrazio zelai** (10); **lan zelai** (5); **ondoko zelai** (7); **trebatze zelai** (5); **zegoen zelai** (8)

**zelai aproposa** (8); **zelai barruan** (21); **zelai berde** (6); **zelai berdeak** (4); **zelai berean** (6); **zelai berri** (5); **zelai berria** (16); **zelai berriaren** (4)

**zelai eder** (6); **zelai erdi** (10); **zelai erdia** (37); **zelai erdiak** (6); **zelai erdian** (244); **zelai erdian aritu** (4); **zelai erdian baloia** (7); **zelai erdian eta** (6); **zelai erdian jokalari** (6); **zelai erdian jokatzen** (5); **zelai erdiaren** (6); **zelai erdiari** (8); **zelai erdiko** (82); **zelai erdiko jokalariek** (7); **zelai erdiko joko** (4); **zelai erdiko jokoa** (11); **zelai erdira** (12); **zelai erdiraino** (6); **zelai erdirako** (4); **zelai erdirik** (8); **zelai erditik** (39); **zelai erditik aurrera** (21); **zelai erditik gora** (4); **zelai gainean** (39); **zelai gaitza da** (5); **zelai guztia** (4); **zelai guztiak** (4); **zelai guztietan** (4); **zelai handi** (6); **zelai handi baten** (4)

**zelai inguruan** (7)

**zelai osoa** (5); **zelai osoan** (4)

**zelai zabal** (11); **zelai zabal bat** (4); **zelai zabalean** (6); **zelai zabaletan** (4); **zelai zaila** (9)

**anoetako zelaia** (5); **futbol zelaia** (53); **golf zelaia** (24); **gudu zelaia** (7); **herio zelaia** (4); **jean dauger zelaia** (10); **joko zelaia** (4); **kirol zelaia** (9); **kontzentrazio zelaia** (6); **miarritzeko aguilera zelaia** (8); **san mameseko zelaia** (4)

**zelaia bete** (6); **zelaia utzi** (18); **zelaia utzi behar** (7)

**futbol zelaiak** (14); **golf zelaiak** (18)

**aguilera zelaian** (7); **atletico madrilen zelaian** (11); **bere zelaian** (31); **beren zelaian** (14); **bernabeu futbol zelaian** (12); **bernabeu zelaian** (10); **betisen zelaian** (6); **borroka zelaian** (5); **calderon futbol zelaian** (6); **dauger kirol zelaian** (4); **deportivoren zelaian** (4); **donibaneko zelaian** (4)

**epai zelaian** (4); **ernest wallon zelaian** (4); **errugbi zelaian** (8); **euren zelaian** (4); **futbol zelaian** (133); **futbol zelaian jokatuko** (5); **golf zelaian** (8); **guda zelaian** (5); **gudu zelaian** (8); **gure zelaian** (4); **hameau zelaian** (5); **hazparne zelaian** (7)

**jean dauger zelaian** (21); **kirol zelaian** (44); **kokatu zen zelaian** (5); **kontzentrazio zelaian** (18); **lansdowne road zelaian** (5); **lopera zelaian** (4); **madrilen zelaian** (26); **meskiten zelaian** (5); **miarritzeko aguilera zelaian** (4)

**ondoko zelaian** (6); **quidditch zelaian** (4); **real madrilen zelaian** (15); **rosaleda futbol zelaian** (4); **sadar futbol zelaian** (4); **santiago bernabeu zelaian** (10); **taldearen zelaian** (5); **xapitaleko zelaian** (8)

**zelaian agertu** (5); **zelaian ari** (5); **zelaian ariko** (5); **zelaian barrena** (4); **zelaian bertan** (12); **zelaian bezala** (10); **zelaian bildu** (5)

**zelaian egon** (6); **zelaian erakutsi** (8); **zelaian erakutsi behar** (4); **zelaian etzanda** (4); **zelaian ezin** (5)

**zelaian ikusten** (7); **zelaian irabazi** (6); **zelaian izan** (12); **zelaian izango** (7); **zelaian izango da** (4); **zelaian jokatu** (13); **zelaian jokatuko** (24); **zelaian jokatuko du** (8); **zelaian jokatutako** (4); **zelaian jokatzea** (5); **zelaian jokatzeko** (4); **zelaian jokatzen** (7)

**zelaian ondo** (4); **zelaian ongi** (6); **zelaian sartu** (6); **zelaian sartzen** (4)

**zelaian zehar** (6)

**golf zelaiaren** (13); **kirol zelaiaren** (9); **zelaiaren egoera** (17); **zelaiaren egoerak** (5); **zelaiaren erdian** (7); **zelaiaren gainean** (5); **zelaiaren inguruan** (11); **zelaiaren ondoan** (4)

**futbol zelaiari** (6)

**futbol zelaiek** (4)

**zelaietatik at** (8); **zelaietatik kanpo** (16)

**futbol zelaiko** (13); **kirol zelaiko** (10); **zelaiko belarra** (5); **zelaiko harmailetan** (9)

**atera ziren zelaira** (4); **futbol zelaira** (20); **gudu zelaira** (4); **jean dauger zelaira** (5); **joko zelaira** (4); **txoritokietako zelaira** (4)

**zelaira atera** (8); **zelaira ateratzen** (4); **zelaira daiteke** (5); **zelaira dezake** (6); **zelaira eraman** (5); **zelaira irten** (15); **zelaira joan** (9)

**zelairik aproposena** (6)

**borroka zelaitik** (4); **futbol zelaitik** (7); **gudu zelaitik** (7); **zelaitik at** (11); **zelaitik kanpo** (19)

---

zelaierdi ik **zelai 12**.

---

# zelaigune *(orobat **zelai gune** eta **zelaiune**)* *iz* zelaia dagoen gunea; gune zelaia.

Lisieuxeko basilikako eskailerak eta aurreko **zelaigunea** errefuxiatuz beteta zeuden. Joseba Urteaga

Kontzentrazio zelaian hiru **zelaigune** badira eta horietan bizia arras desberdina da: diziplina gunea, huntan egun guziz, gau guziz, hotzak, goseak, akidurak, eritasunak, bortizkeriak beren berexketak egiten dituzte; enbaldituen gunea, huntan lau biltegi badira, horietan metatzen dira 61 urtez goiti direnak; **zelaigune** haundia, hor badira biltegi batzu doi bat apainduak eta lasaiak, horietan bizi dira fagoratuak direnak. Michel Oronoz

Postalaren alde batean argazki bat ageri zen, non bi mutiko, besopean kalashnikov bana zeramatenak, agertzen ziren oihaneko **zelaigune** batean. Josetxo Azkona

Aldapa bukatu zenean, bidetxoaren bi aldeetara **zelai gune** zabalak aurkitu zituzten. Jon Maia

Harkaitzaren **zelaigune** bihurgunetsuaren amaieran, antxeta saldo izugarriek oihu egiten zuten beren lagun hil berrien eta urteetako zirinaren gainean. Koro Navarro

Jesus, ikasleekin menditik jaitsi ondoren, **zelaigune** batean gelditu zen. Elizen arteko biblia

Hemen, ez da tolesdurarik **zelaiguneetan**, ordeka zabal luzeak baino ez. Mirentxu Larrañaga

Jerusalemgo Mezkiten **Zelaigunean** bildu ziren Hamasekoak. Berria - Mundua

---

# zelaigunetxo *(orobat **zelai gunetxo**)* *iz*

Bi neska haiek nola altxatu ziren bat-batean belar zapaldutik, eta beren txanoak belarrietaraino sartuta, eta kolorezko zintak airean hegaka zituztela nola joan ziren lasterka, **zelaigunetxoan** barrena, beren ahotsak ilaren hondoan galdu ziren arte oihuka. Josu Zabaleta

Geroxeago, eta kostata, gu gradurik gabekook ere, Basakaitz gaina geure ezkerretan utziz, goiko **zelai gunetxora** iritsi gara, Eskisaroi izeneko lepora. Txillardegi

Arbelezko teilatuaz estalia, elizaren ondo-ondoan dago, aurrealdean harri mokorrez gogortutako **zelai-gunetxo** baten atzean. Txillardegi

---

# zelairatu, zelaira(tu), zelairatzen **1** da *ad* futbolean-eta, zelaira joan, zelaira atera.

Azken bolada negargarria zuzendu asmoz **zelairatuko** da gaur Osasuna Sanchez Pizjuan futbol zelaira. Berria - Kirola

Nire zirrara, Errealeko jokalariak eta nire idoloak **zelairatu** zirenean! Joan Mari Irigoien

Halaxe geundela, bada, **zelairatzeko** zorian, gizon segail bat topatu genuen harmailetan eserita, gugandik berrogei bat metrora. Karlos Linazasoro

Montpellierren aurka **zelairatu** zen bigarren zatian. Berria - Kirola

Partida hasi baino askoz lehenago **zelairatzen** dira, eta beren tranpak eta beren begiradak jartzen dituzte zepoetan eta zelaiko putzuen hondoan. Harkaitz Cano

Bigarren zatian **zelairatu** zen. Berria - Kirola

Olympique indartsu **zelairatuko** da lehen 15 minutuetan, Anoetan lortu zuen errenta handitu eta partida erabakita uzten saiatzeko lehenbailehen. Berria - Kirola

**2** du *ad* zelaira eraman, zelaira aterarazi.

Ohiko jokalariak **zelairatuko** ditu gaur Aguirrek Sevillari aurre egiteko. Berria - Kirola

Ezin da ahaztu Amorrortuk **zelairatu** zuen atzelari lerroa Ligako gazteena dela. Berria - Kirola

Ordezkoen aulkian eserita eduki ondoren, ordu laurdentxoa baino falta ez zelarik **zelairatu** ninduen anai Jaxintok. Joan Mari Irigoien

Alaveseko teknikoak ezin izango du lesioengatik nahi duen hamaikakoa **zelairatu**. Berria - Kirola

Litekeena da Bakero bere ideiei leial izatea, eta Malagaren aurka jokatu zuen hamaikako bera **zelairatzea**. Berria - Kirola

Patrice Lagisquet mintzatu zen horretaz, atzo: «Bistan da nekatuta egongo direla, baina era berean, ez dute igandeko hamabosteko bera **zelairatuko**. Berria - Kirola

Entrenatzaileak ni ez **zelairatzea** erabaki zuen. Joan Mari Irigoien

Real Madrilek eta Bartzelonak, esaterako, hamaika danimarkar **zelairatzeko** aukera izango dute, nahi izanez gero. Berria - Harian

Clementek, Espainiako selekzioaren azkeneko partidetan ohi bezala, Holandaren kontrakoan ere deitu ninduen, baita **zelairatu** ere... Joan Mari Irigoien

**hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**

**bigarren zatian zelairatu** (7)

**ezingo du zelairatu** (3); **garaipenaren bila zelairatu** (3); **gogotsu zelairatu** (5); **hamabostekoa zelairatu** (3); **hamaikakoa zelairatu** (8); **hamaikakoa zelairatu zuen** (6); **hasierako hamaikakoan zelairatu** (8); **hasieratik zelairatu** (7)

**irabaztera zelairatu behar** (5); **jokalari guztiak zelairatu** (3); **jokalari zelairatu** (8); **jokalari zelairatu zituen** (4); **jokalariak zelairatu** (4); **lasai zelairatu** (3); **legez kanpo zelairatu** (3); **llorente zelairatu** (3); **lo zelairatu** (3); **murillo zelairatu** (3)

**ohiko hamabostekoa zelairatu** (3); **ordez zelairatu** (7); **ordez zelairatu zen** (3); **ronaldo zelairatu** (3); **soilik zelairatu** (4)

**zelairatu aurretik** (5); **zelairatu da** (4); **zelairatu du** (6); **zelairatu eta berehala** (4); **zelairatu ginen** (4); **zelairatu orduko** (3); **zelairatu zen** (46); **zelairatu zen osasuna** (3); **zelairatu ziren** (36); **zelairatu zituen** (24); **zelairatu zituzten** (3); **zelairatu zuelako** (3); **zelairatu zuen** (72); **zelairatu zuen hamaikako** (3)

**garaipenaren bila zelairatuko** (9); **gaur zelairatuko** (6); **hamabosteko bera zelairatuko** (5); **hamabostekoa zelairatuko** (3); **hamaikako bera zelairatuko** (7); **hamaikakoa zelairatuko du** (9); **hamaikakoan zelairatuko** (3); **hasieratik zelairatuko** (11); **hasieratik zelairatuko da** (3); **hasieratik zelairatuko du** (4); **hasieratik zelairatuko duen** (3); **helburuarekin zelairatuko da** (3)

**jokalari zelairatuko ditu** (4); **jokalariak zelairatuko ditu** (8); **motibatuta zelairatuko** (4)

**onena zelairatuko du** (3); **premiarekin zelairatuko dira** (3); **puntuen bila zelairatuko** (3); **talde bera zelairatuko** (3); **taldea zelairatuko** (6); **taldea zelairatuko du** (5)

**zein hamaikako zelairatuko** (11); **zelairatuko da gaur** (5); **zelairatuko dela** (7); **zelairatuko denik** (3); **zelairatuko dira** (27); **zelairatuko dira gaur** (7); **zelairatuko direla** (11); **zelairatuko ditu** (29); **zelairatuko ditu gaur** (5); **zelairatuko dituen** (3); **zelairatuko du** (71); **zelairatuko du aguirrek** (3); **zelairatuko du gaur** (5); **zelairatuko duen hamaikakoa** (10); **zelairatuko duen taldea** (5); **zortzi jokalari zelairatuko** (4)

**zelairatutako hamaikakoarekin alderatuz** (4)
**hamaikako desegokia zelairatzeagatik** (3)
**zelairatzeko aukera** (6); **zelairatzeko aukera izango** (3); **zelairatzeko moduan** (8); **zelairatzeko moduan izango** (3); **zelairatzeko prest** (3)

---

zelaiska ik **zelaixka**.

---

**zelaitu**, zelai(tu), zelaitzen **1** da/du *ad* zelai bihurtu. ik **lautu**.

Bidea **zelaitu** egiten den paraje batean, enborrak daude metatuta eta kamioien zain. Bernardo Atxaga

Badirudi etxe eta borda inguruetako larreak itxi, labakitu eta **zelaitu** zirenetik, murrizten joan zela ganadu bazkatako otea lantzeko usarioa. Patziku Perurena

**2** irud/hed

Ttipiren trebeziak **zelaitu** zizkigun elkarrenganako bideak. Aingeru Epaltza

Kontu hark har zezakeen bidea aurreikusita, joan aurretik malkarra **zelaitua** nahi zuen berak. Joxemari Urteaga

Paperak zituen, Joana erreginak sinatuak, eta horiek mendi guztiak **zelaitzen** zizkiguten, bidean aurkitzen genituen herrietan. Aingeru Epaltza

Nola beaumondar traidoreak, harekin etsaiturik, zabaldu eta **zelaitu** zion atzerritarrari konkista bidegabearen bidea. Aingeru Epaltza

Gizonari, ez zitzaion beste irtenbiderik, emakumeak maita zezan, haren zorionbidea **zelaitzea** eta leuntzea baino. Felipe Juaristi

Kirol arlotik begiratuta, erakargarriegia ez den talde batera joatekoa bazen ere, jaso behar zuen dirutzak malkar guztiak **zelaitzen** baitzituen. Berria - Kirola

---

**zelaitxo** **1** *iz* zelai txikia.

Han zegoen, etxe-atzeko **zelaitxoan**. Joxean Sagastizabal

Etxe bikiak, beren zinkezko teilatuko garajearekin, beren etxe atzeko zakur etxola eta **zelaitxo** belar-ebakiarekin. Koro Navarro

Itsas labarraren gaineko **zelaitxoan** . Txillardegi

Banekien nik, Tenek berak esana, goiko **zelaitxo** borobileko aulkietako batean eseri ohi zela. Txillardegi

Handik gertu, hondartza amaitu eta mendia hasten zen inguruan, **zelaitxo** batean zeukaten jarrita kanpin-denda. Joxemari Iturralde

**2** irud/hed

Enkajezko kulero zuri garden batzuk jantzi nituen, nire **zelaitxo** beltz eta kizkurra igartzen uzten dutenak. Juan Martin Elexpuru

**3** (hitz elkartuetan)

Central Park-etik pasatu nintzen bakoitzean, umeak ikusi nituen bertako izotz pista, zoo, zaldiko-maldiko, museo, beisbol **zelaitxo** eta gainerako gune guztietan. Bernardo Atxaga

---

zelaiune ik **zelaigune**.

---

**zelaixka** *(orobat **zelaiska**)* *iz* zelaitxoa.

Ez da faisairik Faisaien uhartean, **zelaixka** berde bat baino ez den horretan. Koldo Izagirre

Irurtzundik honuntzaxeago, bertan, harkaitz gaineko **zelaiska** batean zen "Castellum de Ayçita" aipatzen omen dute 1210eko dokumentu zaharrek. Patziku Perurena

---

**zelakanto** *iz Coelacanthiformes* ordenako arrainen izen arrunta.

Zainen muin-muinean sentitzen nuen dinosauruen nahigabea eta **zelakantoen** amorrua, eta aurrera egiteko indarra ematen zidan arrain handi horiek bizirik dirautela jakiteak. Joxan Elosegi

---

**zelako**[1] *izlag* nolako.

-Ai, Iñaki, **zelako** zakarrak zareten euskaldunak! Koldo Izagirre

Ez zekien nola hartuko zuen Mariak, **zelako** aurpegiz. Unai Elorriaga

**Zelako** subnormal aurpegia geratuko zitzaidan! Jon Arretxe

Ikusi behar zenuen, Antonia, **zelako** berbakera daukan Asenjo horrek. Josu Landa

Ene! **zelako** jainkosa-bularrak, **zelako** izter leun eta guriak. Juan Martin Elexpuru / Bego Montorio

Joder, **zelako** gozamena! Jon Arretxe

Carlosek irribarre egin zuen, **zelako** ideia, osaba, zurekin kezkaturik nengoen, besterik ez. Bego Montorio

Txomin Barullo tabernara, bale Kat, zehazki Karlos dagoen taberna, **zelako** punteria, neska. Sonia Gonzalez

Ikasketa-burua, **zelako** beldurra! Jon Arretxe

-Konturatzen al haiz, Jorgito?, **zelako** puntualitatea! Joxemari Iturralde

Fusilatzen nautenean eska ezazue ez egiteko tiro burura, nire zerebroa aztertu ahal izango duzue horrela, nire lobuloen konfigurazioa, **zelako** asasinoa naizen ikusteko. Koldo Izagirre

---

**zelako**[2] **1** *izlag* delako. ik **delako**.

Hotel Suisse-ren hallean (barka: ezkaratzean), belus, erditzal eta errezelazko oasi anakroniko hartan, zain neukan Martini doktore **zelakoa** . Juan Garzia

Aita gizajoari zoragarria iruditu zitzaion, agiri **zelako** hura pergaminozko paperean eta tinta txinatarraz dotore idatzita zegoelako. Ramon Saizarbitoria

**2** *(aipatzen den izen propio, erderatikako izen edo kidekoren baten eskuinean).*

"Zeruko jainko guzien haserrea lurrera hustu zenean, zimiztak jota arrailatutako arbol madarikatu batek iradoki zuen kontua, erromatarren *Arbor Infelix* **zelakoa** . Patziku Perurena

Bere lagun hura, Julio **zelako** hura, ia-ia arkitektoa zena, idazlea zela errepikatu zidan, idazle handia zela oso. Harkaitz Cano

Hitzaldiari sarrera moldatzen ari zitzaion Beltza **zelako** hura, Mikelek atetik hozkirria sentitu zuenean. Unai Iturriaga

**3** ***zena zelako***

Nolanahi ere, **zena zelako** kausagatik, su gartsuak bere zarata beldurgarrian oihanak sustraien hondoraino irensten zituenean [...]. Xabier Amuriza

Gazteen mintzaira edo **zena zelako** hura ulergaitza zelako bai guretzat bai bi tipo diplomatiko poliglota haientzat ere. Karlos Linazasoro

Han gelditukoziren adarrak sotoko pareta zuloren batean, bihar edo etzi sepapotoa edo zena **zelakoa** zintzilik patzeko. Patziku Perurena

Halaz guztiz, eta hutsak huts, seigarren sentimen edo zena **zelakoa** beti izan zuen kontuan. Migel Angel Mintegi

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
> zena zelakoa (7)

---

# zelakotasun *iz* nolakotasuna.

Uste dut hilketa hau autoritatearen aurkako atentatutzat hartu behar dela, eta hildakoaren **zelakotasunak** aski garden erakutsiko ez baligu ere, akusatuaren berbek adierazi digute bere eskua gidatzen zuen ideologia zertan oinarritzen den: autoritate ororen suntsipena. Koldo Izagirre

---

# zelan *adlag* nola. (ikus beheko konbinatorian zelan galdetzailearen agerraldi maizkoenak)

## 1 *zelan edo halan* nola edo hala.

Anaiek esan zuten egingo zutela bizimodua **zelan edo halan** eta etorriko zirela bihar-etzi. Unai Elorriaga

Ala azken urteetako bizimodu ezin hobeari **zelan edo halan** eusten saiatu, irudimena erabiliz? Jon Arretxe

Euren espeziean ez baina espezierik ezean, nolabait esateko, ezagunak ditugunak ezagunak zaizkigu, **zelan edo halan**, ezezagunak zaizkigularik. Imanol Unzurrunzaga

Ni handik gutxira atzetik joan natzaio, benetako detektibeak baino askoz artega eta traketsago, baina **zelan edo halan** jarraitu diot, eta denbora guztian bakarrik ibiltzen ikusi dut. Patxi Zubizarreta

**Zelan edo halan**, nonbaitetik ezagutzen nituela iruditzen zitzaidan. Urtzi Urrutikoetxea

Lortuko zutela, **zelan edo halan**, euren harremanari eustea. Xabier Montoia

Sinistuta geunden denborak osatuko zizkiola, **zelan edo halan**, zauri guztiak. Xabier Montoia

-Nik ezin neban etsi eta ume bat euki gura neban **zelan edo halan**. Gotzon Garate

## 2 *zelan ez* nola ez.

Berak ere bai, **zelan ez**, eta hasiera batean horrela jokatzeak nazka ematen zion arren, urteen poderioz gogortu egin du bihotza. Paddy Rekalde

Era berean, guztiz ikusgarria izan da zero grabitatea irudikatzen duen eszena, nahiz eta hemen ere, **zelan ez**, barrabiletatik heltzen dioten astronauta bati espazioan gal ez dadin. Berria - Kultura

Giza dorreekin egindako akrobaziak, haga malguen gaineko jauzi izugarriak eta, **zelan ez**, agur-ekitaldia, denek sokasaltoan burutzen dutena. Berria - Kultura

Apustuak bolo-bolo, **zelan ez**. Paddy Rekalde

-Musikea entzuten? -Bai. **Zelan ez**. Txillardegi

## 3 *zelan, halan*

Euliak zakur hilari **zelan**, halan bildu zitzaizkien, ohartu orduko, ingurura. Xabier Montoia

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 4 aldiz agertzen direnak)**
> ez dakit zelan (32); hala edo zelan (16); ikusi zuen zelan (7); noiz eta zelan (4); non eta zelan (8)
>
> zelan amaitu (4); zelan ari (4); zelan atera (4); zelan aurre egin (4); zelan azaldu (4); zelan begiratzen (9); zelan bizi (8); zelan bururatu (5); zelan da (7); zelan da posible (4); zelan dago (10); zelan dagoen (5); zelan dakizu (12); zelan dauden (4); zelan deitzen (4); zelan doa (4); zelan doan (5)
>
> zelan edo halan (26); zelan egin (30); zelan egin behar (4); zelan egingo (8); zelan egiten (23); zelan egiten zuen (4); zelan erabili (5); zelan eragin (5); zelan eragiten (7); zelan erantzun (4); zelan esan (21); zelan esango (4); zelan ezagutu (5); zelan gertatu (6); zelan hartu (7); zelan hasi (4); zelan heldu (5); zelan hil (4)
>
> zelan ibili (4); zelan ikusten (9); zelan ikusten duzu (4); zelan izan (10); zelan izango (4); zelan jakin (8); zelan joan (5); zelan jokatu (7); zelan lagundu (5); zelan lan egiten (5); zelan liteke (5); zelan lortu (9); zelan moldatuko (5); zelan moldatzen (8)
>
> zelan sortu (6); zelan sortzen (4)
>
> zelan zabaldu (5); zelan zagoz (5); zelan zaude (5); zelan zekien (4); zelan zen (4)

---

# zelanbait 1 *adlag* nolabait.

Baina, **zelanbait**, ez nengoen eroso. Urtzi Urrutikoetxea

Bere jakingura asegaitzak eraginikoa **zelanbait** konpontzeko asmoz, bazkaltzen gonbidatu zuen Estherrek. Xabier Montoia

Nik ere ulertu ditut hesiaz bestaldean ikusitako goi mailako batzuen aurpegietan ageri ziren irribarre **zelanbait** bihozberak, hamar edo hogei milako zenbakia baitzeramaten. Urtzi Urrutikoetxea

Gure herriko poliziaren segizio axolagabe eta **zelanbait** lotsagarria. Urtzi Urrutikoetxea

Ni trikitira hurreratu nintzanean, Gipuzkoakoa landuago, aurreratuago aurkitu neban, frantsestuago, **zelanbait** esateko. Xabier Amuriza

## 2 *zelanbaiteko* *izlag*

Amodio osteko poza sentitzen zuen, **zelanbaiteko** arintasun ezohikoa pausokeran. Josu Landa

Horrek **zelanbaiteko** isla du nire obran. Berria - Kultura

Tabakoaren kearekin batera hatsak kristalean sortutako lurrunak ur tanta ibiltarietan **zelanbaiteko** indar magnetikoa izan zezakeela imajinatu zuen. Josu Landa

Hemen ere **zelanbaiteko** biluztasunerako betikotu gura izan dute, antza, zure azken bizilekua. Koldo Izagirre

Ez zitzaien ezer axola lekuko moral baten jarduna, eta egia esan, nire moraltasuna **zelanbaitekoa** zitzaien. Koldo Izagirre

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
> zelanbait esateko (3)

---

# zelanbe *adlag* zelan bere.

Segundo gutxiren kontua, **zelanbe**. Josu Landa

---

# zelandiar *iz* Zelandiako hizkuntza.

Ezkia ikastolako ikasleak kemen haundiz agertu zauzkigu dela mexikar, txinatar edo indianoz, **zelandiarrez**, indioz, afrikarrez eta berdin errusiarrez, hauta ainitz bazen! Herria

---

# zelango *izlag* nolako.

Gero esaten eban: "Ha bere konturatu dok maldezinoak **zelango** indarra dekon". Xabier Amuriza

**Zelango** izena emongo? Txillardegi

Badakik ijito jende hori **zelangoa** den, beste familia batekin bizi zituan, dozenatik gora lagun etxe berean. Urtzi Urrutikoeetxea

**Zelango** handia ote den asmatzea da gakoa, poltsikoan darabiltzaten kreditu-txartelen arabera. Urtzi Urrutikoeetxea

---

**zelata** *(orobat* ***zelada*** *g.er.)* **1** *iz* eskutatzeko amarrua, ustekabean erasotzeko egiten dena; segada.

Paulo Jerusalemera ekar zezala, bidean **zelata** jartzea pentsatua baitzuten hura garbitzeko. Elizen arteko biblia

-Batistaren soldadu talde bati jarri genion **zelata** . Jon Muñoz

**Zelata** jarria zuten gizon bat hiltzeko, ez Joan, honek ez baitzeukan etsairik, beste bat baizik, beraren antzekoa eta une hartan haren taldean zihoana. Askoren artean

Berrogeitik gora gizonek **zelata** jarriko baitiote. Elizen arteko biblia

Beltxe Mikolaldekoak, Ohandoko Mosen San Pedroren ahaide eta adiskide zenak, hark prestatu zuen **zelata** eta armatu zuen balezta eta tiratu zuen. Koro Navarro

Honen kontra **zelata** bat prestatua dutela jakin dudanez, [...]. Elizen arteko biblia

Kontsulta egin zenion Jainkoari Davidi buruz, ea nire aurka jaiki eta **zelatak** ipiniko ote zizkidan. Elizen arteko biblia

Atentatua poliziaren **zelada** bat izan zen, zelanbait -amorru barik egin zenuen berba, ez zen amorruarena zure urduria. Koldo Izagirre

Hemezortzigarren mendeak jada ikusia zuen oihaneko indiarra europar mosketeaz baliatzen **zelata** eta enboskada-gerran. Iñaki Mendiguren

Gaiztoentzat tranpak daude gordeta lurrean, **zelatak** bideetan. Elizen arteko biblia

**2** zelatatzea.

Gaueroko kontua bihurtu zen bere etxe pareko bikotearen **zelata** . Harkaitz Cano

Berak ordura arte inola ere lotura hori egin ez zuen arren, neska haren **zelata** bere eguneroko bizitza aspergarriari aurre egiteko antidoto huts jo bazuen ere, orain ezin argi eta fokatuagoa zitzaion lotura. Harkaitz Cano

**Zelata** nekaezinen fruitu diren jakingarriak hobesten ditu berak, bertze guztien gainetik: nor norekin solas, nork norekin hamaiketakoa, nork nori irribarre eta nork nori mutur. Aingeru Epaltza

Autoak ziztu bizian alde egin zuen handik, semaforoa berde zegoela aprobetxatuz, nonbait barrukoak konturatu zirelako Rekexo jabetua zela **zelata** hartaz. Joxemari Iturralde

Largabistak hartu zituen bere betiko **zelatarekin** jarraitzeko, baina zelatatu ohi zuen gela hutsik zegoen. Harkaitz Cano

Entzuketa hauetan ziharduten batzuk ikusterat jin baitzaiztan eta **zelatapean** zeuden beste pertsona batzuen solasaldi grabaketak entzunarazi zizkidatelakotz, nire lanean laguntzeko argudiopean. Berria - Mundua

**3** (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

Astelehen batean, Nawperdan-eko **zelata** -lekua ipinia zegoen zubi txikian, tiroak entzun nituen, eta gizon bat erortzen ikusi nuen, balek jota. Juan Kruz Igerabide

Londresko gobernuaren menpeko lurretan bost **zelata** dorre eraisten hasi da Armada, South Armagh konderrian. Berria - Mundua

Neurologoaren bizitza ez da zientzialariarena bezain sistematikoa, baina ustekabeko egoera berriak ematen dizkio, naturaren izate korapilotsura irekitako leiho edo **zelata** -zulo bihur daitezkeenak. Xabier Olarra

**Zelata** -txanda bete beharrez, Pello inguruak miatzera abiatu zen bitartean, loak ez zituen hartu denak. Joxemari Urteaga

Gertakari hark aukera emanen zion euskaldunen egoitzaren inguruko **zelata** -lan aspergarritik libratzeko. Alberto Ladron Arana

Del Vallek nahi zuen bakarra **zelata** -ordu luzeetatik libratuko zuen aitzakia baitzen. Alberto Ladron Arana

Ikerketa honetarako jakingarri izango delakoan, eta, beharbada, ikerketa haria aldatzea komenigarria izan ote litekeen azter dezazuen erantsi dugu **zelata** -gaien txosten orokorrean. Arantxa Iturbe

**4** armaduraren zatia, burua osorik estaltzen duena.

**Zelata** erdiaren antzeko zerbait egin zuen kartoizkoa, morrioiarekin batera jarrita, **zelata** osoa zirudiena. Patxi Ezkiaga

Igo zen Rozinanteren gainera, doi-doian osaturiko **zelata** kaskoan, adarga besoan. Patxi Ezkiaga

Gau oso-osoa **zelata** jarria zuela igaro zuen. Patxi Ezkiaga

Hau guztia pazientzi osoan eramaten zuen, **zelata** -lokarriak ez hausteagatik. Patxi Ezkiaga

Neska gazteak soinetik armak eranzten ari zitzaizkion [...] eta, bular eta bizkar gainekoa erantzi zioten bai, baina inolaz ezin kendu izan zioten **zelata** -zatar hura. Patxi Ezkiaga

**5** ***zelatan*** *adlag* zelatatzen.

Gerraontzi ingelesek, kostatik gertuko uretan etengabe **zelatan** , portua blokeatuta zeukaten. Martin Anso

Itzaletako gizon bat ilunpean **zelatan** . Oskar Arana

Atalburutik pasatzean atezaina sumatu nuen bere garitako leihatilatik **zelatan** . Joxean Agirre

Pentsatzen hasi nintzen zer egiten nuen han, leihatilari erantsita, lapur bat bezala **zelatan** . Bernardo Atxaga

**Zelatan** bezala begiratzen zien eraikinei, berritasunak harriturik. Xabier Olarra

Lakioak eta segadak ipiniz, ehiza xeheari eskopetaz segika, ehiza larria noiz agertuko **zelatan** . Karlos Zabala

Norbait begira dago, **zelatan** . Berria - Kultura

Gero, Baianen leinukoek egiten zuten kalteaz ohartурik -israeldarren **zelatan** egoten baitziren bideetan, tranpak eta eragozpenak jarriz-. Elizen arteko biblia

Armiarmak eulien **zelatan** , txoriak armiarmak harrapatzen, katuak txoriak marraskatzen. Josu Zabaleta

Saguaren **zelatan** dagoen katuaren gisan. Josu Zabaleta

Erakusleihoak aztertzen aritzen zen Perrette, kideek zein liburu nabarmendu zituzten ikusteko, eta elkarrizketak entzuten, bezeroen erreakzioen **zelatan** . Jon Muñoz

Suaren **zelatan** geratu zen, errabinoaren sukaldean eserita. Koro Navarro

Zooetako abereak kaiolan bezala mugitzen ginen etxean, bakoitzak bere eremuak gordeaz, bakoitza bere bakardadearen **zelatan** , atezuan. Joxean Agirre

Elkarren **zelatan** egoten ziren biak ala biak. Karlos Zabala

**Zelatan** egongo gara, Gobernuak agindutakoa betetzen duen edo ez egiaztatzeko. Berria - Ekonomia

Zentzurik ez begiak itxita jarraitzeak, esna bainengoen zeharo, eta aldamenekoa niri **zelatan** , jakina. Joxe Austin Arrieta

**Zelatan** dagoen ehiztaria bezala. Josu Zabaleta

Ni begira nengokien **zelatan** bezala, haien begi, ezpain eta hanketan sumatzen nituen samurtasun eta bizitasunaz hunkiturik. Pedro Alberdi

Jagoba eta besteak **zelatan** gelditu dituk, ama noiz azalduko. Bernardo Atxaga

**Zelatan** gelditzeko puntu egokia iruditu zitzaion. Migel Angel Mintegi

Ez dituk **zelatan** geratu hor inguruan? Joseba Sarrionandia

Liburu-dendaren aurrean **zelatan** jarria, hantxe zeukaten zain Max. Jon Muñoz

Ezin du alde egin, norbaiten aginduz **zelatan** jarritako soldadu esanekoa balitz bezala. Jose Morales

Goiko kastako 200 bat lagun, pistolak eta rifleak hartu eta iluntzean **zelatan** jarri ziren, amorruak itota. Gotzon Garate

Emazteak berriz behatu zion gazteari eta, lepoa luzatuz segur izateko nehor ez zutela **zelatan** , keinu bat egin zien, barnera sar zitezen. Elena Touyarou

Leihoko errezel itxien artetik **zelatan** aritzen da, kanpoan pasatzen den jende bitxiari begira. Josu Zabaleta

Berriro zutitua zen, sasiartetik **zelatan** jarraitzeko. Joxe Austin Arrieta

**Zelatan** ibili zaizuela? Antton Olano

Isildu egin zen, barruan **zelatan** bezala zebilkion zalantza bat bururatu zitzaion eta. Iñaki Mendiguren

Askok eta askok Stephenen marrazkiei begiratzen zieten erdi **zelatan**. Xabier Olarra

### 6 *zelata egin*sup_1 zelatatu.

Batzuetan gustuko dut giltza-zulotik **zelata egitea**. Patxi Iturritegi

Begiratzen dute halaber, gezi-leihoetatik **zelata eginez**, ba ote datorren orgaren bat edo gurdiren bat herrira. Koro Navarro

Bagoi bat atzerago jarri zen eta geltoki bakoitzean ate ertzetik **egiten** zuen jaisten zirenen **zelata**. Iñaki Zabaleta

Ez duk gauza bera gauez amuarrainak harrapatzen ibiltzea eta andreei **zelata egitea**. Bernardo Atxaga

Segi egiten zigun, **zelata egiten** zigun, nirekin lagun minaren plantak egin eta gero. Fernando Rey

Ziklista misteriotsua ikusten ote nuen joaten nintzen hara **zelata egitera**, zalantza izpirik gabe mozkor bat izan behar zuelako. Fernando Rey

Ongi ikusi nuen orduan, gu ohar ez gintezen jendetzaren erdian sartuta **egiten** zigun **zelata**. Fernando Rey

Aurkitu zuenean lotsa eman zion aurreko atera joateak, eta **zelata egin** zuen leihotik. Anton Garikano

Susmoaren haritik, bere buruari **zelata egiten** hasi zen Hauster komuneko egonaldi luzeetan. Iñaki Iñurrieta

-Gauza bat interesgarri gerta dadin, aski da luzaroan hari so egotea -Gabinek, Enrikeren aipu frantsesa gogoan, Klararen erreakzioari **zelata eginez**. Iñaki Iñurrieta

### 7 *zelata egin*sup_2 zelata jarri.

Ilagin batek as laurden bat emana zion ordain-sari; **zelata egin** zion goiz nabarrean zumardian, atzera hura kentzeko, eta lepotik heldurik ito zuen Klodia. Juan Garzia

### 8 *zelatan egin* zelata egin, zelatatu.

Ez neukan asmorik berriro ere emakume hari **zelatan egitera** etortzeko (gauza batzuk, besterik gabe, ez dituzu egiten, eta kito). Oskar Arana

Ez neukan asmorik berriro ere emakume hari **zelatan egitera** etortzeko (gauza batzuk, besterik gabe, ez dituzu egiten, eta kito). Oskar Arana

Utz iezaiok, bada, niri burdinen artetik **zelatan egiteari** eta zabal ezak atea! -esan zuen Merryk. Agustin Otsoa

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
>
> **bere zelata** (5); **zelata egin** (5); **zelata egiten** (5); **zelata egitera** (3)
>
> **atzetik zelatan** (3); **beti zelatan** (5); **gizon batzuk zelatan** (4); **haren zelatan** (6); **inguruan zelatan** (4); **jarri ziren zelatan** (3); **nire zelatan** (8); **niri zelatan** (5); **norbait zelatan** (4); **ondoan zelatan** (4)
>
> **zelatan ari** (13); **zelatan aritzen** (3); **zelatan bezala** (5); **zelatan dago** (7); **zelatan dagoen** (5); **zelatan daude** (5); **zelatan egon** (17); **zelatan egongo** (8); **zelatan egotea** (4); **zelatan egoteko** (3); **zelatan egoten** (16); **zelatan egoten zen** (5); **zelatan geratu** (7); **zelatan geratu zen** (4); **zelatan ibili** (12); **zelatan ibiltzen** (3); **zelatan jarri** (15); **zelatan jartzen** (4); **zelatan zegoen** (11); **zelatan zegozkion** (3); **zelatan zeuden** (12); **zelatan zeudenek** (3); **zelatan zeukan** (3)

---

## zelataldi *(orobat* ***zelata aldi****)* *iz* zelata egiten den aldia.

Neure **zelataldiaren** berri emaiteko, kontuan izan beharko genuke oraintsu jakinarazi dizudan datua. Joan Mari Irigoien

Nire atzoko **zelataldiak** zer edo zertarako balio izan du: [...]. Patxi Zubizarreta

Hilabeteko **zelata aldian** sumatu dugun nabarmentzeko gauza bakarra, goiko solairuan bizi den adineko emakumearen portaera. Arantxa Iturbe

Hilabeteetako **zelataldiak**, hilabeteetako informazioa, hilabeteak atzetik, eta azkenean kale ertz bateko espaloian aurkitzeko. Joxemari Urteaga

Gaua ez duk erabat bukatu oraindik, basoan gauzak gertatzen dituk, basapiztien **zelata-aldia** bukatu gabea duk. Xabier Olarra

---

## zelatari 1 *iz* zelatatzen duen pertsona; zelata jartzen duen pertsona.

Egun latz eta hits heietan Frantziako muga mugazainez eta **zelatariez** edo barrandariez brokatua zen, begiak zorrotz eta beharriak erne, ez bakarrik harat zoatzineri paperrak ongi miatzeko, bainan zernahi solas salatzeko ere. Angel Aintziburu / Jean Baptiste Etxarren

Etorkinak, desertoreak eta **zelatariak** atxilotuko ditugu, epaitu ez ditzteino presondegiratuko, eta laguntzaileei gauza bera gertatuko zaie. Elena Touyarou

Iraultzaren etsai direnen kontra, **zelatari** eta mertzenarioen kontra, tiraniaren defendatzaileen kontra. Elena Touyarou

Ontziak ibaian ainguratu, han itxaroteko agindu, eta **zelatariak** bidali nitian, ingurua aztertzera. Juan Kruz Igerabide

Ordua iristen denean bi **zelatari** jarriko ditugu guardia egin dezaten, bata aurreko ganbaran eta bestea atzekoan. Josu Zabaleta

Inguruan **zelatariak** genituela ematen zuen. Joxean Agirre

Arraunak aurreraka astindu, eta, **zelatariaren** batela inguratu ahala, benetan hutsik zegoela egiaztatu zuen. Aritz Gorrotxategi

Benjamingo Gibean zeuden Saulen **zelatariak**, eta jendea harat-honat sakabanatzen ari zela ikusi zuten. Elizen arteko biblia

-Erraten dute muga inguruko jendeek espainolak laguntzen dituztela, etsaiaren **zelatariak** direla, eta iheslariak laguntzen dituztela. Elena Touyarou

Txakurrak! -oihukatu zuen **zelatarietako** batek. Juan Kruz Igerabide

### 2 (izenondoekin)

Sangarre eta haren neska buhameak hark ordaindutako **zelatari** apartak ziren. Karlos Zabala

Bere etxean dago alde guztietan, alde guztietan sar baitaiteke, hotsik egin gabe ibiltzen den piztia hori, **zelatari** isila, horma hutsetako gau ibiltaria. Josu Zabaleta

**Zelataririk** arriskutsuena oraindik aske dabilela, eta hik kasurik egin nahi ez. Agustin Otsoa

Bazter orotan ibiliko ziren **zelatari** tatariarrak Siberiako probintzietan, inurriak baino ugariago. Karlos Zabala

### 3 (hitz elkartuetan lehen osagi gisa)

Gazte zital eta maltzur haiek, zuzendariarentzat **zelatari** lana egin eta sakrifizio hartatik libre geratzen zirenak. Pello Lizarralde

Bere **zelatari**-abilezia osoa erabili du. Itziar Otegi

Goseak eta kontzientzia txarrak uxarazi zizkidaten **zelatari** asmoak. Aingeru Epaltza

### 4 (hitz elkartuetan bigarren osagi gisa)

Kultur **zelatarien** debekuak gainditzeko baliatu zuten mistizismoa eta abstrakzioa. Berria - Kultura

### 5 (izenondo gisa)

Hotza edo beldurra nituen lagun **zelatari**, edo biak batera, loa galarazteko. Hobbesentzat, Leviatan estatu boteretsu eta **zelataria** da. Mirentxu Larrañaga

Satelite bidezko telebista etxean ikusteko antena biribil merkeena erostea aski izan zitzaien taldeko ekintzaileei, Vienako *MuseumsQuartier* (Museoen Auzoa) kamera **zelatariak** zelatatzeko. Berria - Gaiak

Zure etxeko begi **zelatarietatik** urruti, gutuna zure eskutara iritsarazteko bidea. Arantxa Iturbe

Dagoeneko ez zidaten askorik axola auzokoen esamesa eta begirada **zelatariek**. Joxean Agirre

Ez dago itzal iheskor eta **zelataririk**. Joxean Agirre

Gero Federicoren lankideak zeuden, haiek ere morroiak, baina zikoitzak eta **zelatariak**. Pello Lizarralde

### 6 (adizlagun gisa)

**Zelatari** zegoen gudariak begiak jaso eta bere atzealdetik mendi-maldan behera jende asko lasterka zetorrela ikusi zuen. Elizen arteko biblia

Aroerko bizilagunok, jarri bidean **zelatari**, galdegin ihesi doazenei zer gertatu den. Elizen arteko biblia

Adurrak, edo menturak, edo zoriak, beste barik, nahi izan baitzuen hara iristekotan ginelarik ni neu joan nendin ontziko gabizain, alegia, masta nagusiko goian **zelatari**, gabia deritzon habia modukoan, begien menean zer agertu, harexen abisua emateko. Edorta Jimenez

### 7 irud/hed

Aitzgain toki jakin bat da, Oñatitik Arantzazura bidean, Araotz aldera eta Urkulu gainean **zelatari** dagoen Haitz gainekoa. Pello Zabala

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
> **zelatariak esan** (3); **zelatariak zarete zuek** (3)

---

## **zelataritza** *iz* zelatari jarduera.

Gero, Langaik dohainik eskaintzen zuen **zelataritza** eta kamuflaje ikastaro batean matrikulatu nintzen, berrogeita hamar ordukoa. Iban Zaldua

Arabako Probintzia Auzitegiak hiruna urteko espetxe zigorra ezarri zien CESIDeko bi zuzendariei iazko apirilean entzuteken berri izan, babestu eta **zelataritza** lanak burutzeko beharrezko bitartekoak ahalbidetzeagatik. Berria - Euskal Herria

---

## **zelatatu**, zelata(tu), zelatatzen **1** du *ad* norbaiti begira egon, egiten duenaz jabetzeko.(pertsonak)

Emakumeak kortejatu egin behar ziren eta ez komunetan **zelatatu**. Pello Lizarralde

Gauean ate guztien atzetik **zelatatzen** zuten. Jose Morales

Itxuraz, dena finitua zen, altzifreen artetik **zelatatu** bainuen ehortzelarien itzulera. Ezkutuan larrutan ari direnak **zelatatzen** omen ditu. Aingeru Epaltza

Ez dut uste batere gustatuko litzaiokeenik **zelatatu** duzula jakiteak. Migel Angel Mintegi

Egunean zehar **zelatatu** egin nauela, eta une egokiaren zain egon dela [...] ustekabean agertzeko. Patxi Zubizarreta

Onik ateratzeko, inork ikusi gabe **zelatatu** behar duzu. Pako Aristi

Beste bulego batera narama, berak zerbait egiten duen bitartean **zelatatua** eduki nazaten. Agurtzane Juanena

Bizilaguna **zelatatzeari** utzi zion. Jasone Osoro

Hamahiru urte baino ez nuen, eta artean ez nekien zu **zelatatu** eta ikuskatzeko nerabilen berebiziko jakin-mina maitasuna zela. Eduardo Matauko

Euskal Herriko parlamentariak **zelatatu** dituzten jakin nahi du EAk. Berria - Euskal Herria

Terrorista batzuk -probokatzaile batek jadanik salatuak eta isileko poliziek orduirako zorrotz **zelatatuak**- ate ondoan elkartuko ziren eguerdiko ordu batean, bonba eta errebolberrez armaturik, beraren zain. Jose Morales

Ilunabarrean, esaterako, zigarro bat piztu eta negar egin nahi lukeen norbait **zelatatzen** dut ene baitan. Pako Aristi

Begirada akitu batekin egin du topo, inoiz bizi-bizi **zelatatu** duten begi sarkorren distira itzaliarekin. Urtzi Urrutikoetxea

Internetez **zelatatzeko** kamerak! Antton Olano

Zelatariak, **zelatatuak**. Berria - Gaiak

**2** (bestelakoak)

Orduz orduko jarraipena egin ondoren, ez da mugimendu susmagarririk sumatu **zelatatu** dugun etxean. Arantxa Iturbe

Baionako Euskal Zerbitzuen egoitza **zelatatzeko** agindu zitzaion unetik, ohiko arduraz ekin zion lanari. Alberto Ladron Arana

Erresuma Batuko zerbitzu sekretuek [...] Kofi Annanen bulegoa ere **zelatatu** zutela baieztatu zuen atzo Clare Short Nazioarteko Garapen ministro ohiak. Berria - Mundua

Largabistak hartu zituen bere betiko zelatarekin jarraitzeko, baina **zelatatu** ohi zuen gela hutsik zegoen. Harkaitz Cano

Asmo maltzurrez etorri zaizu, zure joan-etorriak **zelatatzera**, zertan ari zaren jakitera. Elizen arteko biblia

Haurrek gure mugimenduak **zelatatu** eta horien berri ematen diete felagei. Xabier Montoia

Straussek FBI bere atzetik jarri zuen, gutunak irekitzen zizkioten, deiak **zelatatu**. Fernando Morillo

Defentsa prestatzeko jarduna **zelatatu** egiten diete abokatuei. Berria - Harian

CNIk Otegi eta Carod-Roviraren arteko elkarrizketa **zelatatu** zuen edo ez galdetu zion CIUko kideak. Berria - Euskal Herria

Bizkaiko Auzitegiak, gainera, arrazoi eman die **zelatatutako** gutun baten inguruan. Berria - Harian

Irekita zegoen, eta barnealdea **zelatatu** zuen begiradaz. Xabier Olarra

Zanga-zanga edaten zuen, eta dendaren sarrerara etortzen zen gaua **zelatatzeko**, egonarria galdurik astroak geldo-geldo higitzen zirelako. Jon Alonso

**3** begiratu, zaindu.

Katez lotuta edo guardiek **zelatatuta** joaten dira. Esteban Antxustegi

Straussek FBI bere atzetik jarri zuen, gutunak irekitzen zizkioten, deiak **zelatatu**. Fernando Morillo

Eta bere guardietako bat jarri zuen han, eskultura bera eta eskulturaren ingurua **zelata** zitzan, gau eta egun. Joan Mari Irigoien

**4** (era burutua izenondo edo izen gisa)

Nire **zelatatuek** hortxe atzemateko arriskuaz gain, urdaileko hersturak lekua kentzen zion goseari. Aingeru Epaltza

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
> **mugimenduak zelatatu** (3); **zelatatu behar** (3); **zelatatu zuen** (9)
> **etxea zelatatzen** (4); **zelatatzen nituen** (5); **zelatatzen nuen** (4); **zelatatzen zituzten** (3); **zelatatzen zuela** (3); **zelatatzen zuen** (10); **zelatatzen zuten** (3)

---

## **zelatatze** **1** *iz* norbaiti begira egotea, egiten duenaz jabetzeko.

Batzordearen gomendioen artean beste hauek agertzen dira: Mugagabeko atxiloketa baino, ageriko **zelatatze** sakona gehiago erabiltzea; [...]. Berria - Mundua

Londresen kaleko jantzitako poliziek orain arte baino **zelatatze** zorrotzagoa egingo dute tren eta metroan, Gobernuak jakinarazi zuenez. Berria - Mundua

Legebiltzarrari **zelatatze** politikoa salatzeko eskatu dio legebiltzar taldeak. Berria - Euskal Herria

**2** (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

Del Vallek gorroto zituen **zelatatze** lan luze eta, gehienetan, alferrikako haiek. *Phising*-a eta **zelatatze** programak deitutakoak dira, egun, datu pertsonalak osteko teknika erabilienak. Alberto Ladron Arana

Noiz edo noiz eskapadaren bat izan genuen Lambert zaharrarekin eta haren txakurrarekin, baina gure **zelatatze**-sistemak beti balio izan zigun. Mirentxu Larrañaga

Hizkuntza **zelatatze** kontuetan,ordea, munduko txapeldunen artekoak izan gaitezke seguru. Hasier Etxeberria

Erresuma Batuko **zelatatze** legeek interpretazio bikoitza ahalbidetzen dute. Berria - Mundua

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
> **zelatatze lanak** (3)

---

## **zelategi** *iz* zelen biltegia.

Sarrailak daude kutxa, eskorta, estalpe, oilotoki, **zelategi**, eta mandioko atean. Anton Garikano

---

**zelati** *izond*

Eskuan, kanoi bakarreko eskopetak bidean aurrera begiratzen zuen **zelati**. Joxemari Urteaga

---

**zelatu**[1], zela(tu), zelatzen **1** du *ad* zela jarri.

Gauari eutsi zion, eta Eosi ez zion bere urrezko tronuan agertzen utzi, ez eta argia dakarten zaldiak (Lanpo eta Faetonte) **zelatzen** ere. Juan Kruz Igerabide

Neu joan nintzen ukuilura, neuk **zelatu** nuen zaldia, eta haren gainera igo nintzen. Anjel Lertxundi

**Zelatu** zituzten abereak. Patxi Ezkiaga

Morroi bat, nahiz kalerako nahiz lur lanerako balio zuena, zalditzarra **zelatzeko** nahiz kima-guraizeak hartzeko prest zegoena. Patxi Ezkiaga

Oraindik ere gogoan dut, dagoeneko hilik egongo da baina, neuk **zelatu** ohi nuen beltxuri hura. Juan Garzia

-Behoka ere **zelatuko** dut. Aingeru Epaltza

**2** (era burutua izenondo gisa)

Aroztegiaren aurrean zaldi **zelatu** bat zegoen. Fernando Rey

---

**zelatu**[2], zela(tu), zelatzen du *ad* zaindu, begiratu.

Xanoa izatea zer den: diskurtso politikoan, titularretako adierazpenetan **zelatu** eta zaindu ohi dena, baleko eta onargarri da beste arlo batzuetan. Iñigo Aranbarri

---

zelauru ik **selauru**.

---

**zelda** **1** *iz* kartzelako gela.

1785ean, *Sodomako 120 egunak edo lizunkeriaren eskola*, bere obra ezaguna, idazten du Bastillako **zeldan**. Juan Martin Elexpuru / Bego Montorio

Hil aurretik, zer tortura saioa egin zioten adierazi zien Carabanchelgo **zeldako** hiru kideei. Bernardo Atxaga

Mahaiaren aitzinean, jarleku bitxi bat, betoinezkoa hori ere, zolari lotua; **zeldaren** beste hormari lotua ohea, arrunt apala, lurretik hamar zentimetroko goratasunean. Filipe Bidart

Han hiru **zelda** zituan, bi ttikiak, 3x2 metrokoak, eta hirugarrena bikoitza. Pako Aristi

**Zelda** hartako hotza hezurretaraino kiribiltzen zen. Harkaitz Cano

Gau batez, ni jarri naute bere **zeldan**, Kiev-eko kartzela batean. Matías Múgica

**Zeldan** sartu nintzenean, edo, hobeki esan, barrura zakarki bota nindutenean. Matías Múgica

Eskuz, idor idorra Graxi erakutsi zuten eta **zeldatik** ateratzeko keinua egin. Eneko Bidegain

"Entresakak", alegia, gauero **zeldetan** azaldu, eta norbait aukeratzea, hilerrira eraman eta harresiaren kontra fusilatzeko. Ramon Saizarbitoria

Ondoko egunetan ohartuko naiz egun argiz ere ez dela argi handirik sartzen **zeldan** leihatila horretarik. Filipe Bidart

Bakartasuneko **zelda** bat bezala da, baina aise zikinago. Filipe Bidart

**Zeldako** preso kide bat ikusten zuen salda haren klikatzen. Eneko Bidegain

· Eterrez usaindu ospitaleko **zeldaren** murritzean. Itxaro Borda

**2** (hitz elkartuetan)

Galerietako batean sartuko zarete, galeriak hiru estai izanen ditu, pisu bakoitzean **zelda** ilarak alde bietan. Joseba Sarrionandia

Biharamunean, **zelda** aldaketa. Filipe Bidart

· Putzuen Dorrearen hondoenean zeuden zigor **zeldek**, ahazturaren ziegek: hazurrobiek, nire hizkuntzan. Koldo Izagirre

Zuhaitz Errasti gipuzkoar preso politikoa gose greban da Nanteseko presondegian, agorrilaren 15az geroz, bakartasun **zeldan** atxikia delako. Herria

**3** komentuko gela.

Azken otoitza izeneko hamalauduna erdaraz idatzi zuen Lauaxetak, Gasteizko karmeldarren lekaidetxeko bere **zeldan**. Jokin Urain

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
>
> **beste zelda guziak** (3)
>
> **bere zeldako** (3); **ene zeldako** (3); **zeldako ate** (5); **zeldako atea** (4)
>
> **bere zeldan** (5)
>
> **zeldaren barnean** (4)

---

**zelebrantza** *iz* ospakizuna.

Lagun zaharren artean nagoela sentitzen dut oraintxe, une alkoholiko gisako baten **zelebrantzan** ari naizela; euforia suerte honek ez dit, ordea, zutik egotea galarazten, abantaila hori daukat. Harkaitz Cano

---

**zelebratu**, zelebra, zelebratzen **1** du *ad* ospatu.

Igandean Trufania eguna ohorezko eguna, aheztar batentzat, Carmen Urkia-k (Myriam serora, erlisionean), **zelebratu** ditu bere urrezko ezteiak, Notre Dame du Refuge Angelun, bertze 33 serorekin. Herria

John Lennon Beatles kantari talde fama haundiko kidearen hiltzeko 25. urteburua ospe ederrean **zelebratu** da. Herria

Villagrandeko dukearen eta haren segizioaren etortzearekin **zelebratu** genuen bertze festa handios hura. Joan Mari Irigoien

Besta hortan bilduak ziren Alemania naziaren kontra irabazi libertatearen **zelebratzeko**, Errusiako armaden burua eta beste kargudun haundi batzu ere han, noiz-eta jauneria horren guziaren buruzagi lerroa jauzarazi baitu aitzinetik prestatu bonba izigarri batek. Herria

**2** eman.

Ondotik, Pierre Moleres jaun apezpikuak, bortz apezez inguraturik, **zelebratu** du meza bat guziz kartsua. Herria

Fededun bat erdalduna zelako aitzakiaz, mezak eta predikuak frantses eder, leun eta txukun batean **zelebratzen** hasi zen. Itxaro Borda

Igandea arrakastatsuagoa izan da, Erramun Caracotche-k **zelebratu** duen mezatik haste -meza airosa, euskaraz eta okzitanoz. Herria

**3** egin.

Ezkontza hau **zelebratua** izanen da Mikel Epalza mariñelen omonierrak emanik Ahetzeko elizan. Herria

Zeremoniak ederrak **zelebratu** ditugu, jendea aurkitu da gauerdiko mezan, eliza mukurru betea zen. Herria

Bi egun horietako zeremoniak haur horien xedetarat **zelebratuak** izan dira. Herria

## zelebrazio *(orobat* ***zelebrazione****)* **1** *iz* zelebratzea.

Ortzirale sainduz, Pasionearen **zelebrazioa** aratseko 7ak eta erdietan. Herria

Konfirmazionearen **zelebrazionea** iragan da Kanboko elizan urriaren 19 an. Herria

**Zelebrazione** huntan ere, hemen ginen guziek otoitz egin dugu bildutasunekin. Herria

Joanden ebiakoitzean, maiatzaren 26 an, jende multxo pollit batek inguratzen zuela, **zelebrazione** hunkigarri batean, bataiatua izan da. Herria

**Zelebrazione** pollit eta hunkigarri batean Bidart jaun erretorak orroitarazi ditu sakramendu horrek zer eginbide eta engaiamendu ekartzen dituen aitameri eta ere aitatxi amatxieri. Herria

**2** (hitz elkartuetan)

Urte guziz, galde bera heldu zaiku gogorat: zertako errepikatu Bazko **zelebrazione** bera, igande batez, ez beti igande berean funtsean? Herria

---

zelebrazione ik **zelebrazio**.

---

## zelebre **1** *izond* bitxia, nabarmena. ik **xelebre**.

Hala esan zidan behin, Joxemiel Arregi, Lesakalorretako mutiltzar **zelebreak** Leitzan: [...]. Patziku Perurena

Gizaki izan beharrean, anfibio izan balitz, arrabioa izanen zela iduritzen baitzait greziar **zelebre** hura, bere ibilera baldar eta izakera aldagaitz geldoarekin. Patziku Perurena

Erregearen mozkorraldiak, printzearen txiste arrazistak, erreginaren ateraldi **zelebreak**. Iban Zaldua

Holako zenbat pasadizo **zelebre** ikusiak ote gara etxean! Patziku Perurena

**Zelebrea** da korreoz ia inoiz fundamentuzko ezer jaso ez eta hala ere beti gutunen peskizan egotea. Anton Garikano

Asensio ikaragarri **zelebrea** zen gaztelaniaz hizketan. Koro Navarro

**Zelebrea** duk jendea! Patziku Perurena

Rufinoren metodoa Imanolek ertzeraino eroango eban, oso era **zelebrean**. Xabier Amuriza

Honelakoak izaten dira ezjakintasun garaietan irauten duten gauza bakarrak, eta hauek bereganatzen ditu beti gizadi otzanak, eta modurik **zelebre** eta zentzugabeenetan erabiltzen. Juan Martin Elexpuru

Gizonaren gainditze-ahaleginak traketsak ziren, **zelebrezkoak**, amorragarri bezain tristeak, baina guztiarekin ere deduzkoak. Juan Garzia

Guri behin **zelebrea** gertatu zitzaiguan. Pablo Sastre

· On Kixote **zelebreak** ere, hala dio, bere guzizko Dulcinea maiteaz, [...]. Patziku Perurena

**2** (adizlagun gisa)

**Zelebre** hasi zen oso, lehen minutuan gola jasoz, baina azkenerako Realak bere bertuteak eta Celtak bere gabezia larriak erakutsi zituzten. Berria - Kirola

---

## zelebrekeria *iz* bitxikeria.

Eta hoskidetasunaren premiak sekulako izugarrikeriak eta **zelebrekeriak** esatera behartu zituen, han bildutakoak pozez zoratzen jarri zituztenak. Koro Navarro

Bestelakoan, betikoa: Pitermanen hausnaketak, **zelebrekeriak** eta gainontzeko akziodunen galderaren bat edo beste. Berria - Kirola

---

## zelebrin

Ni, **zelebrin-zelebrin**, zuhaitz enborraren kontra, entzule interesatua. Joxean Sagaztizabal

---

## zelemin *iz* lakaria.

Kultura bakoitzak munduaren neurkera zuen Frantziako Iraultza arte: arrobak eta kana erdiak, oinak eta **zeleminak**, pintak eta kuartiloak, librak eta ontzak, goldeak eta arrak... Anjel Lertxundi

---

## zelesta *iz* perkusio musika-tresna, harmoniumaren itxurakoa, non soinua teklek jotzen dituzten metalezko xafla batzuek egiten baitute.

**Zelesta**, perkusio eta harirako musika. Berria - Kultura

---

## zelestiar *izond* zerutiarra.

Etzidamuz ere, bakarrik egongo gara muga bako espazio **zelestiarren** musika motza eta hotza lagun. Itxaro Borda

Apezak, barre **zelestiar** lasaigarri batez ihardetsi zion. Elisa, aldiz, aspaldi joana zen antzara **zelestiarren** ferratzera. Itxaro Borda

---

## zeliakia *iz* glutena xurgatzean agertzen diren nahasmenduek ezaugarritzen duten eritasuna.

Glutenak kalte egiten dietenen gaitza da **zeliakia**. Berria - Gaiak

Zer tratamendu jarraitu behar dute **zeliakia** dutenek? Berria - Gaiak

Gero eta gehiago dira **zeliakiaren** sintomak dituzten pertsonak. Berria - Gaiak

Diabetesa duten gaixoen %5ek, esaterako, arazoak dituzte intsulinarekin eta, era berean, **zeliakia** garatzen dute. Berria - Harian

Larruazaleko **zeliakia**. Berria - Gaiak

---

## zeliako *iz* zeliakia duen pertsona.

Hogei lagunetik batek soilik daki **zeliakoa** dela. Berria - Gaiak

Hogei lagunetik batek soilik daki **zeliakoa** dela. Berria - Gaiak

Norbait **zeliakoa** den jakin ahal izateko antigorputzen testa eta tTGaren proba egiten da (Tissue trans-glutaminase). Berria - Gaiak

Glutenik gabeko dieta egitea da **zeliakoen** aukera bakarra. Berria - Euskal Herria

**Zeliakoek** ez dituzte diru laguntzak jasoko Araban, Gipuzkoan eta Bizkaian. Berria - Euskal Herria

**zelibato** *(21 agerraldi, 4 liburu eta artikulu 1ean; orobat* **zelibatu** *20 agerraldi, 2 liburu eta 3 artikulutan)* **1** *iz* ezkondu ez denaren egoera.

**Zelibatoa** kristautasunaren aholkua izan zen. Iñaki Iñurrieta

Alta Vatikanoko II-ko testu batean errepikatua da **zelibatuaren** legearen erlatibotasuna: **zelibatua** ez da apezgorako esentziala. Piarres Aintziart

Mundua arbuiatzera bultzatu zituen eta **zelibatoa** gordetzera suspertu. Askoren artean

**Zelibatoari** bide eman zion espiritualtasunaren arrazoi berberak ezarri zuen laster **zelibatoaren** beharra. Iñaki Iñurrieta

**Zelibatua** sexu gehiegikeriak «saihesteko era bat» da. Berria - Gaiak

Gaur egun ez dut **zelibatoa** jarraitzen; ez une oro behintzat. Berria - Kultura

Legeek **zelibato** monastikorik ezarri ez dutenez, alabek ez dute ezkontza beste egoerarik hartzeko, eta ez daukate hari ezetza ematerik. Iñaki Iñurrieta

Agirian Elizaren sexu doktrina ofizialaz (antisorgailuez, homosexualitateaz eta **zelibatuaz**) ari direla zehazten dute, «bai eta emakumeen egoeraz eta Elizaren demokratizazioaz ere». Berria - Euskal Herria

**Zelibatuan** biziko zen -hala erabaki zuen- eta zientzia bihurtuko zuen, oso osorik, bere bizitza. Xabier Olarra

Konpara itzazue adin eta edertasun beretsuko bi emakume, bata **zelibatoan** eta bestea libertinajean bizi dena: ikusiko duzue nola irabazten dion bigarrenak distira eta freskotasunean. Juan Martin Elexpuru / Bego Montorio

**2** (hitz elkartuetan)

Eta urte luzeetan **zelibato**-bizitza egin ondoren, egun berean zoriontsu igaro ziren Jaunagana. Askoren artean

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
> **zelibato bizitza egin** (3)

---

zelibatu ik **zelibato**.

---

**zelo**[1] **1** *iz* jeloskortasuna. ik **jelosia; maiterre.**

Jendeak sexua hainbeste kakarekin lotuko ez balu -zitalkeria, **zeloak**, hisiak, ziurtasun-eza, txutxu-mutxuak, errezeloak, "ego" harrotuak, kaka eta kaka gehiago-, lagunekin egiteak ez lioke inoiz kalterik ekarriko adiskidetasunari. Karlos Zabala

Norberaren **zeloak**, inbidiak eta interes pertsonalak komunitatearen gutxieneko beharren gainetik jartzen hasi zirenean. Joan Mari Irigoien

Peterrek bere konfiantza beregan jarri ordez niregan duelako **zeloak** ditu, minduta dago Dusseli egiten dizkion maite-jolasei hark behar adina jaramon egiten ez dielako. Josu Zabaleta

Amak debekatu egin dit gora joatea, Van Daan andreak **zeloak** dituelako, bere iritzian. Josu Zabaleta

Kontua da **zeloak** sentitzen hasi nintzela, **zelo** ikaragarriak, ez lotan eta ez jaten uzten nindutenak. Juan Martin Elexpuru

Nik ulertzen nuen, ordea, anaia gizagaixo hura, kortejatzaileak ikustean **zeloak** ernatu baitzitzaizkion. Pello Lizarralde

Hortik sortzen baitira guztiek guztien kontrako susmoak eta **zeloak** ere. Esteban Antxustegi

Etzazu pentsa nireak **zeloak** zirenik, inondik ere ez, behin ere ez zitzaidan burutik pasa Mirenek ni bezalako bat begiz jo zezakeenik, benetan; baina ezta Arrieta bezalako gonazale bat ere. Migel Angel Mintegi

Badakit aitak beti izan duela niretzat xarma ero bat, eta badakit **zeloak** izaten nituela harengana, eta amorruz betea egoten nintzela amarengana. Karlos Zabala

Arakne neskatoak ere Atenearen **zeloak** jasan behar izan zituen. J.M. Olaizola "Txiliku"

Anne, atzo zure **zelorik** ez nuela esan nizunean, egiaren erdia baizik ez nizun esan. Josu Zabaleta

Ezin duzu horrela jarraitu, zure **zelo** zoro horiek alde batera utzi gabe. Lopez de Arana

**2** (hitz elkartuetan)

Duinegia naiz **zelo** eszena bat egin eta Berta etxetik botatzeko. Eider Rodriguez

**3** karra.

Leude baten nagikeria edo utzikeriatik atera ezin zutena, apezpiku baten **zelotik** eta arreta ekiletik aterako zutela uste zuten. Iñaki Iñurrieta

Eta haren hira ez zen **zelo** onezkoa eta haren haserrea ez zen amoriozkoa eta onginahizkoa, baina guztiz bertzelakoa. Joan Mari Irigoien

Finkielkrauten kritikak eta **zeloa**, erlatibismoaren edo "indiferentzia" kulturalaren aurka ("un slogan publicitaire efficace vaut un poème d'Apollinaire"), etab., Espainian airatuta ikustea, nahikoa paradoxala bada oro har. Joxe Azurmendi

**4** araldia.

Argi-oilarrak pu-pu-put ("espan edo **zeloan** daudenean alkarri deitzeko"). Iñaki Segurola

---

**zelo**[2] **1** *iz* zinta itsaskorra.

Argazkia etorkin bulgariar baten gelaxkan dago, pareta batean **zeloz** itsatsia. Iban Zaldua

Etenda geratutako zintaren bi muturrak **zelorekin** itsatsi, eta aurrera *Con Edison: 40 dollars* hala jartzen zigun Rafak gure atean **zelo** batekin itsasita. Joxerra Garzia

Oharrari **zeloz** erantsita berrogeita hamar penikeko txanpon bat zegoen. Iñaki Mendiguren

**2** (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

Gero, aulki batean esertzeko agindu eta bertan lotu ninduten, hankak eta besoak **zelo** zinta zabal batez aulkiari itsatsiaz. Berria - Euskal Herria

Handik gutxira **zelo**-papera eskatu zidan, puska bakoitza bere lekuan itsasteko. Joan Mari Irigoien

Zutitzeko zorian nagoela, hara non **zelo**-paperez hormari itsatsia dagoen paper bat ikusten dudan ur-kontadorearen gainean. Josetxo Azkona

Pelikula kartazal barruan sartu eta **zelo** zati batez itxi zuen. Joxemari Urteaga

**Zelo** pusketa batez itsatsia. Harkaitz Cano

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
> **sorgin zeloz** (3)

---

**zelofan** **1** *iz* zelulosa hidratoz eginiko mintz gardena, gauzak biltzeko erabiltzen dena.

Mahaitxo gainetik larrosa-sorta hartu, eta **zelofana** kendu zien. Anjel Lertxundi

**Zelofanetan** bildutako tulipan sorta. Xabier Mendiguren Elizegi

**Zelofan** koloretsuz estalitako oinetakoak atera eta atera. Jasone Osoro

Kosto harria, tabako pakete baten **zelofanean**. Sonia Gonzalez

Porru bat lotzen hasi zen laguna, **zelofanezko** poltsa tiki batetik marihuana iharra aterata. Aingeru Epaltza

Karamelu arrosa batzuk, obalatuak, zuriz hautseztatuak, **zelofanezko** zorrotxoetan. Joseba Urteaga

Musika entzuten genuen, edo dantzatokia inprobisatzen genuen, **zelofan** gorriz bonbillak estaliz. Berria - Kultura

**2** irud/hed

Ez ditek gauza izugarririk irakurri nahi, **zelofanez** bildutako gezur polit horiek nahiago ditiztek. Bakardade iraunkorreko, **zelofanezko** inguru batean bildurik bizi izan zen beti, jende arrunta hilduratzen duen kezketatik aparte. Mikel Hernandez Abaitua

Mertxe historiako irakaslea zen, Espainiako gaur egungo historia irakasten ziguna, batez ere XIX. mendea, bere konstituzio-aldaketa etengabeekin, dena liberal txintxo eta kontserbadore-karlista gaiztoen ipuin ezagunaren **zelofanean** bilduta. Xabier Mendiguren Elizegi

Seguraski aberats familia guztien hasieran egon da antzeko harrapakeria, gero, belaunaldiak pasa ahala, dena **zelofan** fin batean bilduta geratzen den arren. Xabier Mendiguren Elizegi

---

# **zeloso** *izond* zeloz betea.

Prusiarrak nire lanarekin oso **zelosoa** naizela esango du, berak ez daukala ideiarik ere idazten ari naizena zer den, gela berean bizi arren ez diodala ezer irakurtzen uzten. Harkaitz Cano

-Roberto Etxebarriak eta biok txapelketara aurkeztea pentsau zenduenean, apur bat **zeloso** parau zalako entzutea jaukaat. Xabier Amuriza

Estatuaren eta boterearen hain etsai **zelosoak** dira, haren beste etsairik ez baitute aldean toleratzen istantean ausiki gabe. Joxe Azurmendi

Zure izena kantatu eta, denek txalo jotzen zuten, ia **zeloso** ipini naute, nola hain maite zaituzten! J. Garzia / A. Egaña / J. Sarasua

---

# **zelote** **1** *iz* Erromatarren aurkako judu talde integrista muturreko bateko kidea.

**Zelotea** atzerantz begiratzen duen gizakia zen; herodetarra, aurrerantz begiratzen zuela uste izan arren, benetan alboetara begiratzen eta auzokoei kopiatzen ahalegintzen zen. Iñaki Mendiguren

Israelen ondorengoek beren ondare espirituala fariseuen formalismo, saduzearren materialismo, herodetarren oportunismo eta **zeloteen** fanatismoarekin nahastua zutelarik. Iñaki Mendiguren

Hori **zeloteen** helburua herodetar bitartekoen bidez lortu nahi izatea zen. Iñaki Mendiguren

Jatorrizko **zeloteen** eta herodetarren autoporrota San Pauloren lorpenarekin konparatzen da. Iñaki Mendiguren

**2** (hitz elkartuetan)

Probokazio honek garaiko **zelote**-erreakzioa eragin zuen, Makabeoen bi liburuetan agertzen den bezala. Iñaki Mendiguren

Damaskoko bidean izandako ikuskariak hasierako **zelote**-bide maltzur hartatik kendu zuenean, ez zen herodetar bihurtu. Iñaki Mendiguren

**3** (izenondo gisa)

Errito-tradizioaren zale ziren puritano **zeloteen** gaitzespena bereganatu zuen, haien begietara sionistak fedegabeziaren errudun baitziren. Iñaki Mendiguren

Galbideraturiko hiru erlijio-mugimendu horietako hiru azkenekoek azkenean ordaindu egin zuten beren aberrazio **zelotea** herodetar ekintza baten bidez, beren liturgi hizkuntzetara filosofia eta jakintza helenikoaren lan klasikoak itzuliz. Iñaki Mendiguren

Siziliako siriar plantazioetako esklaboek K.a. bigarren mendean egindako matxinada **zeloteak** orekatu egin zituen Erroman [...] helenismora konbertituriko liberto siriakoen uholde herodetarrak. Iñaki Mendiguren

---

# **zelotismo** *iz* zeloteen doktrina eta praxis politikoa.

**Zelotismoa** eta herodianismoa. Iñaki Mendiguren

Haren [San Pauloren] aurrean zelotearen eta herodetarraren bidea zeuden zabalik, eta gazte izanik **zelotismoa** aukeratu zuen. Iñaki Mendiguren

Politika honi guk **zelotismoa** deitu diogu, izena "Lurralde Santutik" kultura helenikoa guztiz eta erabat errefusatu edo kanporatu nahi zuen judu-alderditik hartuta. Iñaki Mendiguren

**Zelotismo** hori, neurri batean, baita erlijio-mailan ere, gutizia sozial edo politikozko arrazoiengatik musulman bihurturiko gutxiengo batek orekatzen zuen. Iñaki Mendiguren

Judu-**zelotismoa** ez zuen desagertarazi erromatarrek K.o. 70ean Jerusalem arpilatzeko hondamendiak, ezta K.o. 135ean berriro eta behin betiko suntsitzeak ere. Iñaki Mendiguren

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
> **zelotismoa eta herodianismoa** (3)

---

# **zelta** *(orobat **kelta** g.er. eta **zelto** g.er.)* **1** *iz* antzina Europako mendebalde osoan kokaturik zegoen herri indoeuropar bateko kidea.

Eskozia eta Irlanda aldean, **zelten** egutegian ere, naturaren birpiztea ospatzen dute suaren festa eginez. Pello Zabala

Pentsa daiteke euskaldunek hiru eguneko zikloak bereizten zituztela beren egutegian, **zeltek** egiten zuten moduan "hiru" zenbakia magikoa izan delako historian zehar. Pello Salaburu

Antzinako **zelten** erlijioko apaiz eta artzainak. Xabier Olarra

Greziar italiotak oskoen eta etruskoak **zelten** kontraeraso barbaroaren mende erori ondoren, [...]. Iñaki Mendiguren

**Zeltek** kristautasuna moldeatu zuten beren gizarte-ondare barbarora egokitzeko; seigarren menderako Irlanda argi eta garbi kristautasunaren grabitate-zentroa zen Mendebaldean. Iñaki Mendiguren

• **2** *izond* herri horri dagokiona.

Bernard Moffatt Liga **Zeltako** ordezkariak Irlandako Gobernuari eta herrialde **zeltako** politikariei eskatu die Soleren alde egiteko, haren osasun egoera larria baita. Berria - Mundua

Oc eta oil hizkuntzen arteko desberdintasuna, Galiako bi zati horietan izandako bertako elementu **zeltaren** proportzio desberdinean datza. Isabel Arrigain

Arraza **zeltaren** garbitasuna, espiritua, jeinua, karakterea, etab., berba usuenak dira hor. Joxe Azurmendi

Mendebalde Urruneko kristau **zeltak** (Irlandan eta Ionan) eta eskandinaviar vikingoak. Iñaki Mendiguren

Caro Barojak "herri arimaren" arloan dioenez, Renan izan da "arima **zeltaren"** kantari entzutetsuenetako bat XIX. mendean. Joxe Azurmendi

· Irlandako monasterio zaharretan, eta orohar **zelta** kultura osoan, umeen aldeko jarrera zegoen. Pako Aristi

• **3** *iz* zelten hizkuntza.

Lehengo iberiar, **zelta** eta nik dakita zein mintzairetako hitzak aipatu gabe. Herria

**Zeltak** (bretoiera, irlandera, galesera, eskoziera). Herria

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
> **musika zelta** (3)
> **herrialde zelten** (3); **zelten artean** (5); **zelten arteko** (4); **zelten egutegi** (5); **zelten egutegiko** (3); **zelten lurralde** (3)

zeltar ik **zeltiar**.

---

**zeltiar** *(orobat **zeltar** eta **keltiar** g.er.)* **1** *izlag* herri zeltena.

Azalean lau beso biribilen **zeltiar** espirala zeukan grabatuta, bere klanaren sinboloa. Joanes Urkixo

*Menhir night* clubean, Maiek azaldu zidanez, jungle tekno musika zerabilaten platinetan, noizbehinka drum'n'bass taupadak **zeltiar** kutsuko kolpez aberasten zituztela. Itxaro Borda

**Zeltiar** jende natural eta sano haientzat. Pello Zabala

**Zeltiar** sineskeria baten arabera, haurtxo bat intsusaz egindako sehaskan ipiniko balitz, haren galera izango litzateke, ubelduraz eta atximurrez belztuta utziko lukete sorginek. Pello Zabala

Leinster eta Munster hirugarren eta laugarren dira **Zeltiar** Ligan. Berria - Kirola

Trufaz hertsatzen zitzaizkion itzain **zeltiarrei** erraten zien hordimenak gatibatu baino lehen: [...]. Itxaro Borda

Maialena, festa **zeltiarra**. Pello Zabala

Hala, doinu **zeltiarrez** lagundurik entzun daitezke Irigarairen azken poemak. Berria - Kultura

**2** (izen gisa)

Guk sanjoan gauez bezala, **zeltiarrek** apirilaren 30 gauean, egundoko sutzarrak pizten zituzten. Pello Zabala

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
> **zeltiar ligan** (5)
> **doinu zeltiarrak** (3)

---

**zeltiberiar** **1** *iz* iberiar penintsulako erdialdea bizi izan zen zeltiar herri bateko kidea.

Publio Eszipion Erromako jeneralak [...] hamabost hilabetez setiatu behar izan zuen **zeltiberiarren** hiri hori [Numantia] mendean hartzeko. Berria - Kirola

Hor baitituzte Pirinio mendietako gailurretan zeltiar baskondarrek eta **zeltiberiarrek** beren arteko mugak jartzen. Piarres Xarriton

Izatez **zeltiberiar** guztietarik indartsuenak dauden ibarraren zaintzailea. Piarres Xarriton

**2** (izenondo gisa)

Aztarnategi horretan berebiziko garrantzia du gudari **zeltiberiarren** nekropoliak. Berria - Kultura

---

**zeltiko** **1** *izond* zeltei dagokiena.

Herrialde germaniko eta **zeltikoetan** barrena gureganaino iritsiko zen gero koplari itsuaren mitoa. Patziku Perurena

Mendebalde Urruneko kristau zibilizazioa "Zerrenda **Zeltikoan"** sortu zen, Irlandan batez ere. Iñaki Mendiguren

Naonedeko bileran, Herrialde Katalanetako, Sardiniako, Kanariar Uharteetako, Flandes eta Liga **Zeltikoa** erakundeko ordezkariek hartu zuten parte, Euskal Herriko zein Bretainiakoekin batera. Berria - Mundua

Irlandako biztanle daniarrek eta mendebaldeko uharteetara joandako iparraldeko kolonoek lortu zuten Mendebalde Urruneko kultura kristau **zeltikoaren** tinduran. Iñaki Mendiguren

Ikaragarri gustatzen zait niri musika **zeltikoa**. Unai Elorriaga

20etan musikaldi **zeltikoa**, *Zelt 3* taldearekin. Herria

**2** *iz* zelten hizkuntza.

Indoeuropar hizkuntzatik sanskritoa, greziera, eslabiera, talde **zeltikoa** eta talde italikoa sortu zirela. Isabel Arrigain

Halaber, germanikoa, eslabieraren eta **zeltikoaren** artean dagoen eraztuntzat har dezakegu (**zeltikoak**, bestalde, oso lotura hertsiak ditu italikoarekin); italikoa, **zeltikoaren** eta grezieran artean dago kokatua. Isabel Arrigain

---

**zeltismo** *iz* zeltiar kultura.

Adolphe Pictet, **zeltismoaren** bultzatzaileetako bat. Isabel Arrigain

---

zelto ik **zelta**.

---

zelu ik **zeru**.

---

**zelula** **1** *iz* izaki bizidun ororen oinarrrizko unitatea, eskuarki nukleoaz, zitoplasmaz eta hau inguratzen duen mintzaz osatua.

Likido arrunt horrek autozerbitzua eskaintzen die gorputzeko **zelula** eta ehunei. Irene Aldasoro

Ehunezko partikula biribilkara bat da **zelularen** gorputza, garro edo dendrita asko dituena. Irene Aldasoro

**Zelulen** gunean daude kromosomak. Pello Salaburu

Nola gerta zitezkeen zelula batetik, arrautza ernaldutik, milaka **zelulak** eratzea eta desberdintzea; gene berak edukiagatik hain egitura desberdin bilakatzen baitira nola nerbio, hezur, gihar, heste eta abarren **zelulak**. Juan Garzia

Enbrioia eta **zelulak**. Juan Garzia

Laborategi batzuek [...] lortua zuten enbrioi-tankerako **zelula** horiek bakartzea eta saio-hodietan mantentzea. Juan Garzia

**Zelularen** erdibitzea gobernatzen duen gene multzoa bat bera da legamiaren eta gizakiaren kasuan. Juan Garzia

Sortzeko den organismoaren forma zirriborratu; jaioko diren **zelulei** zeini zer toki eta zer eginkizun egokituko zaion seinalatu. Juan Garzia

Zilbor-hesteko **zelulen** transplante autologorik ez da inoiz egin. Berria - Gaiak

Minbizia zela, **zelulen** garapen anarkikoak joa nintzela. Joxan Elosegi

Garatu ahala, kanporantz mugitzen dira epidermiseko **zelulak**, eta hil eta kanpoko geruza gogorra eratzen dute. Irene Aldasoro

Trilioika ditugun **zelula** guztiek badute, odoleko globulu gorriek izan ezik, gune bat, eta gune horretan bada gizaki genomaren kopia bat. Pello Salaburu

Globulu gorriak ez dira **zelulak**, hitzaren adiera arruntean, ez baitute nukleorik, ez material genetikorik. Irene Aldasoro
Ardi-arrautza gunegabetu batean ardi-errapeko **zelula** baten gunea txertatu, eta bildotsak sortu dira. Juan Garzia
Konpatibilitate handiko **zelulak** lortu behar izaten dira bizkarrezur muineko transplanteak egiteko. Berria - Gaiak
Kutsadurak **zelulak** aldatzen ditu eta hortik agertzen da gaitza. Berria - Euskal Herria

## 2 (izenondo eta izenlagunekin)

**Zelula** berriak gehitu ahala, hezur-makilan ekoitzitako hezur berriak hartzen du **zelula** zaharren lekua. Irene Aldasoro
Obozito baten gunearen lekuan, beste bat jartzen da, **zelula** desberdindu batetik hartua: heste, giltzurrun zein beste. Juan Garzia
**Zelula** mononuklearretik Nunavut herriko itsas aho hormatuetan bainatzen diren balea ikaragarrietara. Itxaro Borda
Fetuaren **zelula** bakan batzuk aski dira jaio aurretiko diagnostiko delakoa egin ahal izateko. Juan Garzia
Itxura batean trinkoa dirudien hezurrak ere badituela halako barrunbe batzuk **zelula** bizientzat. Irene Aldasoro
**Zelula** bizi bakunez eratutako geruza gutxi batzuk osatzen dute epidermisa. Irene Aldasoro
**Zelula** hil zapalduek ematen diote larruazalari bere gainalde larrukara. Irene Aldasoro
Seinale elektriko bat sortzen dute **zelula** kontrolatzaileek, hipofisira bidaltzen dena. Irene Aldasoro
Usaimen-mukosak 50 milioi **zelula** hartzaile inguru ditu. Irene Aldasoro
Globulu gorria, zehatz esateko, ez da, zentzu biologikoan, **zelula** osoa, ez baitu nukleorik. Irene Aldasoro
Aurreneko **zelula** duela ehunka milioi urte agertu zen, itsasertzeko lohian. Koro Navarro
Hildako **zelulak** eliminatzeko exfoliantea. Jasone Osoro
Koloreekiko itsutasun erabatekoa, izan ere, konoek (hau da, erretinako **zelula** kolore-sentiberek) duten akats baten ondorio izaten da. Xabier Olarra
Kolorea sortzeko, beharrezkoa zen V4ko **zelula** kolore-kodetzaileetan konparatu edo korrelazionatzea. Xabier Olarra
Oraindik asko falta da **zelula** amen funtzioak zein diren ikasi eta izan dezaketen erabilgarritasuna ezagutzeko. Berria - Gaiak
Odola era industrialean ekoizteko itxaropena, **zelula** amei esker. Berria - Gaiak

## 3 (hitz elkartutetan lehen osagai gisa) ik **zelular**.

Heldu baten **zelula**-guneak, beraz, ezgauza dira hartarako. Juan Garzia
Bi **zelula**-geruza besterik ez da funtsean izaki primitibo asko: barrualde bat eta kanpoalde bat. Irene Aldasoro
**Zelula**-mintzetatik igarotzeko moduko molekula bihurtu behar dira egituraren ordezko piezak edo energia garraiatzen duten substantziak. Irene Aldasoro
**Zelula** ehunek ez zuten kolorea galdua. Koro Navarro
Kasuen kopuru adierazgarri batean, pitzadurak **zelula**-barrunbeetan amaitzen zirela ikusi zen. Irene Aldasoro
Zer prozesuk arautzen dituzten **zelula**-hazkundea eta morfogenesia. Juan Garzia
Boris Ephrussi, Frantzian, eta Henri Harris, Ingalaterran, **zelula**-hazkuntzaren bidez ahalegintzen ziren **zelula**-desberdintzea ikertzen. Juan Garzia
Mutante horietariko bakoitzak bestelakoturik zeuzkan **zelula**-funtzioetariko batzuk. Juan Garzia
Badira zenbait molekula talde beren horretan dirautenak, beren kargu baitituzte estu loturiko molekulok funtzio orokor batzuk, hala nola **zelula**-erdibitzea edo mintzetik zelularen gunera seinaleak igortzea. Juan Garzia
Enbrioiaren garapenaren eta **zelula**-desberdintzearen oinarrian dauden fenomenoetan. Juan Garzia
Gai ziren askotariko **zelula** motak biltzen zituzten tumor haietarikoak eragiteko. Juan Garzia

## 4 (hitz elkartutetan bigarren osagai gisa)

Zilbor-hestea **ama-zelula** hematopoietikoen (odol-zelulen) sorburuetako bat da. Berria - Gaiak
Erretinaren ondoan dauden nerbio-**zelula**, odol-hodi eta beste egitura batzuen itzal iraunkorrak ez dira ikusten. Irene Aldasoro
3. irudian kortex-**zelulek** izan ditzaketen bestelako bi egitura ageri dira. Josu Zabaleta
Mintz basilarrak [...] zuntz kopuru handia du tente, eta zuntz horiek, ile-**zelula** direlakoak, kontaktuan daude entzumen-nerbioraino iristen diren nerbio-zuntzekin. Irene Aldasoro
Bakterio-**zelularen** eta haren zenbait funtzioren analisi genetikoari ekiteko. Juan Garzia
Gizakiok bost milioi usaimen **zelula** omen ditugu. Gotzon Garate
Larruazalaren oso barruan garatzen da dastamen-**zelula**, eta gero dastamen-papilan sartzen da. Irene Aldasoro
Ferra-karramarroaren ikusmen-**zelula** bakoitza bere nerbio-zuntzari konektaturik baitago beti. Irene Aldasoro
Bazen talde bat animalia-**zelulak** erabiltzen hasia zena poliomielitisaren birusa eta haren ugalketa aztertzeko. Juan Garzia

## 5 (hiru osagaiko hitz elkartuetan)

Luzaroan ebazteke egon da guneak eta zitoplasmak zer parte duten bakoitzak **zelula**-desberdintze fenomenoetan. Juan Garzia
Bihotz osasuntsu batean, berezko taupada-markagailua osatzen duten muskulu-**zelula** multzo txiki batetik hedatzen da uzkurtze-mugimenduaren uhina. Irene Aldasoro
Amerikar bat, David Schubert, bi urte sabatiko pasatzera etorri zen, eta berekin ekarri sagu-neuroblastoma **zelula** batzuk. Juan Garzia

## 6 irud/hed

Horietako batek erakutsi zidan, eta bere lezioa nire memoriako kristalezko **zelulan** geratu da ordutik, tximeleta, euskaraz, miserikoletea esaten dela, edo halako zerbait esaten zidala iruditu zitzaidan. Berria - Kultura

## 7 osotasun bat osatzen duten osagai minimoetako bakoitza.

Eliza gizarte-gorputz helenikoaren eta erromatar gorputz politikoaren **zelula** ziren hiri-estatuez baliatu zen. Iñaki Mendiguren
On Kixote eta Sancho Panza pertsonaia ezagunen arteko solasaldien ordez, **zelula** erritmikoak eta hainbat perkusio tresna ez oso arruntetatik irtendako soinuak entzuten dira emanaldian. Berria - Kultura
Fugato tankerako esaldi latz eta zail batetik aldakuntza paregabea sortzen da **zelula** txiki pila batak besteari, kasu honetan intentzio oso egokiz, pasatuz. Berria - Kultura

## 8 erakunde baten barruan eratzen den unitate minimoa, zenbait pertsona biltzen dituena.

70eko hamarkadaren erdian, BR zutabeetan (Turin, Milan, Genoa, Veneto, Erroma eta Napoli), brigadetan eta **zeluletan** egituratu zen, Estatuari bete-betean erasotzeko. Berria - Mundua
**Zelularen** azken batzarrean beren panfletoen zuzentasun gramatikalaz sekulako ika-mika piztu eta. Aingeru Epaltza
Bazegoen **zelula** hartan militante bat, kazetaria, Jaime Vargasen, Lucho Vargasen aitaren liburuak ezagutzen zituena. Jon Alonso
Bigarren metalurgia-tailerra zabaldu zutenekoak, sindikatuko lehenengo **zelula** antolatu zutenekoak. Iban Zaldua
Maizago eta bixiago har nezala parte alderdi komunistaren **zelula** edo atalen bileretan, orduan ni kide bainintzen. Fernando Rey
Al Kaeda erakundeko **zelula** bateko ustezko buru Imad Eddin Barakati leporatu zioten atzo iragan martxoaren 11n Madrilen izandako erasoen erantzule izatea. Berria - Mundua
SOR erreklasamendu **zelulak**. Itxaro Borda

## 9 (izenondo eta izenlagunekin)

**Zelula** komunista batean. Juan Kruz Igerabide
**Zelula** integristak Almeriako 'ijito' bati erosi behar zizkion lehergailuak. Iñigo Aranbarri
Poliziak bazekien **zelula** kriminal bat ari zela osatzen Molinaoko basatzan. Koldo Izagirre
Shin Bet Israelgo Barne Zerbitzu Sekretuek eta Armadak atzo ezagutarazi zuten iragan ekainean Hamasen ustezko **zelula** bat atxilotu zutela. Berria - Mundua
Parisko **zelula** gorriek fronte bakarra proposatzen zuten Estatu osoan Iraultza Sozialista bidean jartzeko. Rafa Egiguren

Oso atsegina zen, bertsolaria, eta **Zelula** Gorrietan hartu zuen parte. Rafa Egiguren

### 9 *zelula fotoelektriko*

Ikusmen-seinaleak bulkada elektriko bihurtzen dituen **zelula fotoelektriko** bat baino askoz gehiago da begia. Irene Aldasoro

Ordenagailu bati lotutako **zelula fotoelektriko** zentral batek neurtzen zuen zenbat argi sartzen zen aretoan Bisorearen barruan integraturiko bi **zelula fotoelektrikok** egiten dute argazkilariaren begira doan argiaren laginketa. Jon Muñoz

Neurgailu bati elkarturiko **zelula fotoelektriko** txiki bat da esposimetroa. Irene Aldasoro

· Lehenik, Sanyori **zelula** fotoboltaikoak egitea proposatu zitzaion. Berria - Ekonomia

**hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**

**ama zelula** (3); **azaleko zelula** (3); **beste zelula batzuk** (4); **dastamen zelula** (3)

**enbrioien zelula** (15); **enbrioien zelula amak** (5); **enbrioien zelula amekin** (4); **enbrioien zelula amen** (5); **enbrioietako zelula** (28); **enbrioietako zelula ama** (3); **enbrioietako zelula amak** (8); **enbrioietako zelula amek** (3); **enbrioietako zelula amekin** (7); **enbrioietako zelula amen** (4); **enbrioietako zelula ametatik** (3); **enbrioietatik lortutako zelula** (6); **erauzitako zelula** (3); **erretinako zelula** (3); **exfolina zelula** (3); **giza zelula** (8); **giza zelula amak** (3); **gobernuak zelula** (3); **gorputzeko zelula** (6); **helduen zelula** (4)

**klonatutako enbrioietako zelula** (3); **lehenbiziko zelula** (3); **lortutako zelula** (10); **lortutako zelula amak** (6); **nerbio zelula** (4)

**odoleko zelula** (5); **odoleko zelula amak** (4)

**zelula ama** (16); **zelula amak** (102); **zelula amak erabili** (5); **zelula amak erabiliz** (3); **zelula amak lortu** (5); **zelula amak lortzeko** (3); **zelula amak sortu** (3); **zelula amek** (8); **zelula amekin** (36); **zelula amekin egiten** (3); **zelula amekin ikerketak** (3); **zelula amekin ikertzea** (9); **zelula amekin ikertzearen** (5); **zelula amen** (36); **zelula amen bitartez** (3); **zelula ametan** (3); **zelula ametatik** (9); **zelula anitzeko** (3); **zelula berriak** (5); **zelula bizi** (5); **zelula biziak** (5); **zelula desberdindu** (3); **zelula desberdintzea** (4)

**zelula erdibitzea** (3); **zelula fotoelektriko** (3); **zelula geruza** (3); **zelula gorriek** (5); **zelula gorrien** (4); **zelula gorrietan** (4); **zelula hartzaile** (6); **zelula hematopoietikoen** (3); **zelula hil** (3); **zelula hilen** (3)

**zelula inguru** (3); **zelula mintzaren** (3); **zelula mintzaren irazkortasuna** (3); **zelula mota** (5); **zelula multzo** (6)

**zelula pankreatiko bihurtuko** (3)

**ama zelulak** (8); **eragiten duten zelulak** (9); **hesteko odoleko zelulak** (3); **hesteko zelulak** (4); **ile zelulak** (4); **nerbio zelulak** (4); **odoleko zelulak** (9)

**zelulak aurkitu** (3); **zelulak gordetzea** (4); **zelulak hartu** (3); **zelulak hil** (5); **zelulak suntsitzen** (3); **zelulak ugaltzea** (3); **zilbor hesteko zelulak** (4)

**bakterio zelularen** (3)

**ama zelulen** (4); **hesteko zelulen** (3)

**zelulen arteko** (5); **zelulen erdibitzea** (3); **zelulen heriotza** (3); **zelulen mekanismoa** (3); **zelulen ugalketa** (3); **zilbor hesteko zelulen** (3)

**giza zeluletan** (3)

---

## **zelulabakar** *izond* zelula bakar batek osatua.

Itsasoan bizi diren izaki **zelulabakarrak** dira animalia sinpleenak; itsasoak elikagai-erreserba amaigabeak ditu eta zaborra ere erraz eramaten du. Irene Aldasoro

---

## **zeluladun** *izlag* zelulak dituena.

Berehala ekin nion, ama hornitzaile erabiliz, ni zigotoa eraldatzeari eta nire gorputza eratzeari, segundo oro 300.000 zelula berri sorraraziz [...] beste osagai askorekin batera, 1014 **zeluladun** gizakia burutu arte. Jenaro Garate

---

## **zelulagune** *iz* zelulez osaturiko gunea.

1970ko hasieran, aurkikuntza erabakigarria egin zuen: **zelulagune** txiki bat mugatu zuen garunaren alde bakoitzean tximinoen kortex prestriatuan (V4 deritzen aldeetan), koloreari erantzuteko espezializatua ematen zuena. Xabier Olarra

---

## **zelulakide** *iz* zelula bereko pertsona.

Altzairutegia itxi ostean jaso zuen kalte-ordainarekin taberna erosi, eta izena aldatu zion: "El Partido" ipini zion, baina soilik bere **zelulakideek** ezagutzen dute izen horren esanahi ezkutua. Iban Zaldua

**Zelulakideen** idurikoz gu burgeskume alienatu batzuk izanik, eta haiek, berriz, ameslari irrigarri andana gure irizpidean, [...]. Aingeru Epaltza

Bada beste erantzun bat, argiagoa, Cavailles-ek baino, beraren **zelulakidea** izan zen Lucie Aubrac-ek emana. Berria - Kultura

---

## **zelular** 1 *izond* zelulari dagokiona. ik **zelula 3**.

Gure aitari "irakaslea" deitzen zioten, amak azaltzen zielako aita zientzialari bat zela, sekula politikan sartu ez eta ehun **zelularretan** baizik pentsatzen ez zuena. Fernando Rey

Zelulok hematie bihurtzeko gorputzak ematen duen giroa sortu dute laborategian, eta giro **zelular** zein molekular horretan murgildu dituzte zelulok. Berria - Gaiak

Garuna ongi duzu, eta estudio neurologiko guztietan ez da lesio **zelularrik** ez funtzionalik agertzen. Joan Mari Irigoien

Glaukoma duten animalia-ereduak sortzea, haietan gaixotasuna eragiten duten mekanismo **zelularrak** eta molekularrak ikertu ahal izateko. Berria - Gaiak

Zelula arrunt bat estresa eragiten duen egoera batean suertatzen denean, genoma **zelularraren** %10 martxan jartzen da, babesteko mekanismoak abian jarriaz. Berria - Gaiak

Ez dira, bada, gene eragileak soilik -hots, egituren eta kimika **zelularraren** materiala determinatzen duten geneak-. Juan Garzia

Estatu Batuak garatu gabeko nazioa da teknologia **zelular** digitalean. Pello Salaburu

Donostiako Poliklinikako Genetika **Zelularrerako** Unitateko kidea. Berria - Gaiak

Ikerketa EHUko Biologia **Zelular** eta Histiologia Sailean egin dute. Berria - Gaiak

### 2 automobilez mintzatuz, presoak presondegiz aldatzeko erabiltzen dena.

Automobil **zelularrean** sartu baino lehen, leiho txiki batzuk ikusi dituzu, hiruzpalau metroko tartea batetik bestera, lerroan jarrita lur arras. Rafa Egiguren

Baionara eraman gintuzten berehala, automobil **zelular** batean sartuta. Rafa Egiguren

Ttipiren agentziako karrikan, auto **zelular** bigarren lerroan aparkatuetako argiek ñir-ñir urdinkarez ñabartzen zuten arratsaren ilun ahula. Aingeru Epaltza

### 3 *telefono zelular*

Telebista, musika aparailua eta sakeleko telefonoa, Venezuelan telefono **zelularra** esaten dutena. Pako Aristi

---

## zeluliti ik **zelulitis**.

---

**zelulitiko** *izond* zelulitisak joa.

Maruk, ispiluak itzultzen zizkion kartutxerak, girringolak, sabeleko ildoak eta izter **zelulitikoak** ikusiz, erabaki garrantzizko bat hartu zuen: gimnasio batean emango zuen izena. Berria - Kultura

---

**zelulitis** *(orobat **zeluliti**)* *iz* larruazalaren azpiko ehunaren hantura, oinazerik eragiten ez duena.

Alde batera utzita noski gizentzeko ezkondu diren horiek, bizitza **zelulitisa** pilatzen ematen dutenak eta barizeen kontrako galtzerdiak jantzen. Karlos Zabala

Ilehoria zen, bular harroa eta aldaka zabalak zeuzkan: gerritik gorakoa silikonaz harrotua eta beherakoa, **zelulitisak**. Migel Angel Mintegi

**Zelulitisa** nuen halaber sabelean, baina **zelulitis** arraro bat, dilindan eta zurdatsua aldi berean. Joxan Elosegi

Ez zuen ia akatsik sumatu haren gorputzean, izterretan **zelulitisen** arrastoren bat soilik, kasik sumaezina. Migel Angel Mintegi

Borobilak, sendoak, erditze batengatik ere **zelulitis** izpirik gabeak. Aingeru Epaltza

---

**zeluloide** **1** *iz* gai malgua eta sukoia, eskuarki zinema pelikularen euskarri gisa erabiltzen dena.

**Zeluloidean** zuzenean margotutako lehen filma. Berria - Kultura

Ez da Francisco Franco gure herrian egon zeneko plano bakarra ere ikusten, eta apez zahar honen makurtasun antifrankista ezagututa, oso logikoa da [...] **zeluloide** metro erdia gastatu nahi ez izatea haren filmatzen. Koldo Izagirre

Film bakoitzaren alogerarekin bost kartel bidaltzen zituen banatzaileak, baina **zeluloidearen** kaxekin batera ostera itzuli beharrekoak. Josu Landa

Nonbait publikoari begira lan egiteko asmoa zuen, eta **zeluloidean** lehenago eta politikan geroago protagonista izan zen beti. Berria - Mundua

Aspaldi ikasi zuen ametsetako mutilik ez dagoela, filmetako maitasunak **zeluloidean** baino ez direla existitzen. Urtzi Urrutikoetxea

Ana Morena andrearen aurkezpen aski teatrala egin zuen berriro, **zeluloideko** izar handi bat aurkezten denean bezalaxe, eskuin besoa neurriz kanpo luzatuz. Karlos Linazasoro

Kopia bidez oso ezagunak zaizkigun obren originalek eragiten duten zera hori sentitu nuen, **zeluloidezko** pertsonaiak hezurmamiturik ikusteak eragiten duenaren parekoa. Ramon Saizarbitoria

Niri zinema gustatzen zait, esan nien, maite dut Greta Garbo, maite ditut **zeluloidezko** tigre Bengalakoak. Harkaitz Cano

Egungo **zeluloidezko** trajediak ditut gogoan txatalak begiratzean, hain zuzen ere, Trueba, Gayarre edo Gran Vían ikusten ditugunak. Javi Cillero

Hain bioleta usain fuertea zerion non iruditu zitzaidan **zeluloidezko** bioletak biziberritu zirela maiolikazko lorontzian. Matías Múgica

Eta gurutzatu ginen [...] **zeluloidezko** eguzki betaurrekoak zituzten neskekin. Koro Navarro

Gauean, nire idazluma agertu ez zenez, erre egin zela pentsatu genuen denok, **zeluloideak** erraz su hartzen duela jakinik batez ere. Josu Zabaleta

Desagertzear den **zeluloidearen** teknologiaren abantailetako bat zen hori. Berria - Kultura

**2** (hitz elkartuetan)

Bere gizonek ikusi zuten arren, ez zen inor bere aurrean **zeluloide** bobina hari buruzko ezer aipatzera ausartuko. Harkaitz Cano

Fritz Langen *Metropolis* filma ikusi zuenean, nazien propagandarako behin betiko filma egingo zuen gizona aurkitu uste izan zuen **zeluloide** puska haren atzean. Harkaitz Cano

**3** pelikula; zinema.

Baina dantza ez da ekoizpen honetako osagai bakarra, harekin batera Juan Mari Beltranen musika, Bitoriano Gandiagaren hitz poetikoak eta artxibo zaharretatik ateratako **zeluloide** esanguratsuak elkartzen baitira ikuskizun honen baitan. Berria - Kultura

Paperetik **zeluloiderako** jauzia egin du dagoeneko zuzendariak. Berria - Kultura

Zinemak sarritan jo du Anton Txekhoven obrara, eta askotan idazlearen eta **zeluloidearen** arteko uztarketak emaitza biribilak eman ditu. Berria - Kultura

---

**zelulosa** *iz* glukosaren polimeroa, gai gotorra eta zuria, uretan eta alkoholetan urtzen ez dena, landareen zelulen mintzaren osagai nagusia.

Landareak dira oinarrizko proteina-iturria, baina ezin gara landareetatik bizi, heste meharra ez baita gai hosto eta zurtoinen parte handi bat osatzen duen **zelulosa** digeritzeko. Irene Aldasoro

Ostera pasatu da dagoeneko deskribatu ditugun egoeretatik, eta bera parte deneko glukosa **zelulosa** katea luze bati dagokio, errosario bateko alea bezala. Juan Garzia

**Zelulosa** almidoi bihurtzeko gaitasuna duen bakterio-populazio bat. Irene Aldasoro

Landareak berak [...] **zelulosazko** babesa sortzen du arrautzaren inguruan. J.M. Olaizola "Txiliku"

VISCOFAN [...] **zelulosazko** bildukinen munduko fabrikatzaile nagusia da. Berria - Ekonomia

---

**zemai** **1** *iz* mehatxua.

Keinu soil hori nahikoa izan zen hitzetan zetzan **zemaia** hauts zedin. Jon Alonso

Argitaletxeko gizonezko buruzagiengandik iharduki bortitza pairatzen du, **zemaia** eta aitakeria urduria. Markos Zapiain

Presio eta **zemaiz**, intrigaz eta propaganda monastikoz, diplomaziaz nahiz bortxakeria gordinez, hedatuz joan den Botere armatua. Joxe Azurmendi

Kastiguak eta beste **zemaiak** ageri baitira tenporak huts egiten dituzten apaiz eta gotzainen aurrean. Pello Zabala

Teknikaren **zemaiei** poesiaz -adieraz dezala poetak santutasuna, munduaren ilunean-, heziera berriaz, jakinduriaz abegi egitea. Markos Zapiain

Bete ere **egiten** dituzte **zemaiak**. Jokin Urain

**2** (hitz elkartuetan)

Zabaltzak, almenak eta alkazarreko erronda-bideak, denak daude mairu ilun eta bizardunez beterik, **zemai** -keinuak egiten dituzte. Jon Alonso

· Euri **zemaia** atmosferan. Unai Iturriaga

**3** ***zemai egin*** mehatxu egin. ik **zemaitu**.

Hori frogatzearren-edo, **zemai egin** ere bai, buruz beherako orekan jarriko zela gure hamaseigarren solairuko balkoiko eskubandaren gainean, eta nik ozta-ozta eragotzi. Joxe Austin Arrieta

Ibili nahi ez zuen mandoari ukabilaz **zemai eginez**. Pablo Sastre

---

**zemaika** *adlag* mehatxuka.

Ez iraultzaileen agurraz, **zemaika** baizik, harri kozkor bana estutuko bagenu bezala erakutsi genien ukabila: argi ibili gure herrira lehorreratzen bazarete. Koldo Izagirre

Anek **zemaika** begiratu zion arte. Unai Iturriaga

---

**zemaikor** *izond* mehatxakorra, mehatxagarria.

Ezin sinestekoa da musu batek eduki dezakeen higikortasuna, krispazioak dira, soslaiak, distentsioak, karatula **zemaikorrak** dira, izaki androgino txiki eta obszeno bat, [...]. Jon Alonso

Metalezko zutabeetan zintzilikaturiko afixek -Jimmy Sánchez Kolirio eta Mohammed Etxebeste ageri ziren, jarrera **zemaikorretan** - [...]. Harkaitz Cano

---

**zemaitu**, zemai(tu), zemaitzen du *ad* zemai egin, mehatxatu.

*La leyenda de Jaun de Alzate* Euskal Herria itotzea **zemaitzen** duen modernitatearen parabola bat da. Joxe Azurmendi

Nazio beti "kanpoko" etsaiek **zemaitua**, beti defendatu eta salbatu beharreko angustian, inoiz ez da iritsiko erreformatu eta modernizatu beharreko nazio erreal bezala ikusia izatera, hots, nazio sozial eta politiko bat. Joxe Azurmendi

Min giro horretan, bere "betiko ordena" etsian **zemaitua** sentitzen den meneko "txintxoak", edo "betiko ordena" gotorraren abokatu arminduak. Joxe Azurmendi

---

zemeit ik **zenbait**.

---

**zemendi** *iz* azaroa.

-Azken-azkenean, eh! Zezeil batean hil zan eta aurreko **zemendian** gaixotu. Xabier Amuriza

Abendu luze samarra, beraz, azaro eta hazila, lohila eta **zemendi** sasoiak bezalaxe; beharko luzeak izan baserrian, eguraldiak gutxi laguntzen zuenean. Pello Zabala

---

**zementatu**, zementa(tu), zementatzen *(orobat **zimentatu** g.er.)* **1** du *ad* zementoz estali.

Jauregiaren aurreko zelaia, esate baterako, **zementatu** egin du. Berria - Euskal Herria

Dukearen legatuak oso garbi esaten du parkea ezin dela **zementatu**, izan ere, pasealeku modura baino ez erabiltzeko agindu zuen. Berria - Euskal Herria

**2** (era burutua izenondo gisa)

Haien ingurumenarekiko errespetu falta handia salatzen zuen goraki, aztal puntutxak zoladura **zementatuan** klaskaraziz. Itxaro Borda

Bide mota guzietarik aurkitzen da: gudronatua, legarrestatua, lauzatua, **zimentatua**, lur hutsa, estreka eta xendera. Herria

---

zemento ik **zementu**.

---

**zementu** *(orobat **zemento** g.er.)* **1** *iz* urarekin nahasirik ore biguna eratzen duen hauts tankerako gaia, airean edo uretan berez gogortzen dena.

**Zementu** egin berrian egiten diren markak eta aztarnak betiko gelditzen dira. Gotzon Garate

**Zementua** osatzen duten porlan eta hondar izpiak ematen dugu pertsonok diskoteka honen barruan. Pako Aristi

**Zementuak** lurra usteldu egin du. Juan Kruz Igerabide

**Zementuan** landatuak zeuden burdinazko uztaietara iritsi zen. Koldo Izagirre

Ibaiko urak harriz eta **zementuz** eginiko hesi hura jotzen zuen behin eta berriz. Juan Kruz Igerabide

**Zementuz** eraiki dituzten lau bloketzarra. Txillardegi

Paradisu bat zena **zementuz** ito baitzuten, mila etxe eta beste hainbat dorre egiten zituztela. Joan Mari Irigoien

Luze etzaten da **zementuzko** zoruaren gainean. Oskar Arana

Eten egin behar izan duzue bat-batean elkarrizketa, eta **zementuzko** aulki luzean etzan zara lehenbailehen. Rafa Egiguren

Etzaleku bat dauka bazterrean, **zementuzkoa**, eta leihoa goi-goian, kristalaren ordez sarea, burdinazko barrekin babestuta. Rafa Egiguren

**Zementuaren** kontsumoak behera egin du. Berria - Ekonomia

**2** (izenondoekin)

Ez genduan oherik, **zementu** gogorra eta hotza baino. Lutxo Egia

**Zementu** itsasgarriz eta oliozko pinturaz, aurki konpondu ahal izango da komuneko ontzia. Josu Zabaleta

**Zementu** lehorra kendu aurrena, eta gero igeltsero lanetan aritu behar izaten zuten. Jon Muñoz

Etzan eta ikusi dut hezetasunak sabaiko pintura azala soltatu duela, **zementu** zaharraren grisa agerian utziz. Joseba Sarrionandia

**3** (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

**Zementu**-lanak egiteko, aurrena harea bilatu behar da. Santiago Iruretagoiena

Poto hura **zementu** hautsez beteta zegoen, bi edo hiru kilo aise. Joan Mari Irigoien

**Zementu**-zakuen paper lodia. Urtzi Urrutikoetxea

Ez al du Altzak bere **zementu**-tasa, **zementu**-kupoa, edo dena delakoa, ongi eta sobera bete? Joan Mari Irigoien

**Zementu** tona gutxiago ekoitzi eta merkaturatu ahal izan ditu, Lemoako lantegia berritzeko bi hilabeteko lanak direla eta. Berria - Ekonomia

Babesaren **zementu** blokeak, eguzkia hartzeko. Josu Zabaleta

Asko eta asko baitziren auzoko bizilagunak **zementu** fabrikan lan egiten zutenak. Joan Mari Irigoien

Eskuinaldean zabortegi itzela eta ezkerraldean **zementu**-lantegi zikin eta kutsatzailea. Jon Arretxe

Lantokiak gaur egun altzairu urtua lantzen du eta autogintza, trengintza eta **zementu** sektoreak hornitzen ditu. Berria - Ekonomia

**4** (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa)

Beren erlijio-legearen lanketan gizarte-**zementu** berria aurkitu zuten. Iñaki Mendiguren

**5** (neurriekin)

Taldeak 1,1 milioi tona **zementu** saldu zituen iaz. Berria - Ekonomia

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
> **tona zementu saldu** (3); **zementu fabriketako** (3)
> **zementuzko kaiola** (3)

---

**zementuarte** *iz*

Celtas filtro gabeak erretzen ari ziren, eta keak epeltzen zuen giroa barruko **zementuarte** ilunean. Joseba Sarrionandia

---

**zementugintza** *iz* zementua egitea.

Donostiako Kursaalean Aste Berdea dela-eta antolatu ziren jardunaldietan esandakoaren arabera, 2006rako altzairugintzan, **zementugintzan** eta kimikagintzan ari diren enpresak neurri horiekin lanean hastea espero du. Berria - Euskal Herria

---

**zemouz** *(orobat **zemuz**)* *adlag adkor* zer moduz.

**-Zemouz**, Jexux! Xabier Etxabe

**Zemouz** zaude orain? Mirentxu Larrañaga

Egun on, jauna, **zemouz** gabiltza? Joseba Urteaga

---

zemuz ik **zemouz**.

---

**zen** *iz* filosofia-sistena budista, meditazioan eta ariketa fisiko gogorrean oinarritzen dena.

Anitz gauza balios ikertzen genituen hargatik: makrame ehuten, **Zen** egoten, G puntuaren lokalizatzen, tindatzen, tantrak pairatzen, estraterrestren keinu hiperbolikoen irakurtzen. Itxaro Borda

---

**zenakulo** *iz* ideia edo interes bertsuak dituzten artisten edo kidekoen multzo txiki baten bilera.

Batetik, osasun kontuagatik; **zenakulo** giroetan nik idazten ditudanak baino gauza gogorragoak entzun ditut, baina niri osasungarriagoa iruditzen zait gauzei buruz argi hitz egitea. Berria - Kultura

---

zenatore ik **senatari**.

---

zenatu ik **senatu**.

---

zenatur ik **senatari**.

---

zenaturburu ik **senatariburu**.

---

zenbaezin ik **zenbatezin**.

---

zenbagailu ik **zenbakailu**.

---

zenbagaitz ik **zenbakaitz**.

---

zenbagarren ik **zenbatgarren**.

---

zenbaiño ik **zenbaitño**.

---

**zenbait** *(orobat **zenbeit** g.er., **zeinbait** g.er., **zeinbat** g.er., **zoinbait** g.er., **zoinbat** g.er., **zoinbeit** g.er., **zoinbet** g.er., **zonbait** g.er., **zomait** g.er., **zonbeit** g.er. eta **zunbait** g.er.)* *zenbtz* **1** batzuk. (dagokion izenaren ezkerrean)

Ezin haiei oroitarazi **zenbait** urte lehenagoko hitza. Aingeru Epaltza

**Zenbait** astinduren ondotik mugitu ezinik gelditu da. Monika Etxebarria

**Zenbait** asteren buruko, 1940ko udaminean. Piarres Xarriton

**Zenbait** urrats egin ondoan, ezti-eztia mintzatu zitzaidan: [...]. Janbattitt Dirassar

Indiako **zenbait** estaturen independentzia grina. Gotzon Garate

Horretaz gainera, **zenbait** emozio-egoeraren arabera ere, berez aldatzen da begi-niniaren tamaina: beldurragatik, haserreagatik, psikotropikoek eragindako egoerengatik. Josu Zabaleta

Errutinazko bihurtu ziren 1990eko hasierako urteetan **zenbait** organo nagusiren transplanteak. Irene Aldasoro

Gorako karrika harritsuan, berriz, **zenbait** etxe eder. Txillardegi

Salto batez igo zen eta **zenbait** maleta ertzeraino eramateari ekin zion. Joxemari Iturralde

**Zenbait** urte geroago, bere sorlekua aipatzean hauxe erranen du: [...]. Piarres Xarriton

*Gemini V* misioan -zortzi eguneko espazioaldian- % 20 baino handiagoko galerak izan **ziren** zenbait hezurretan. Irene Aldasoro

Horma-erloju elektronikoa, bideoa, **zenbait** euro... Fernando Morillo

**2** (dagokion izenaren ezkerrean, aditzaren komunztadura pluralean) ik **hainbat**.

Handik gutxira, **zenbait** gizon agertu ziren. Koro Navarro

**Zenbait** esaldi, gogoeta bat baino gehiago, hitzez hitz kopiatu nituen. Bernardo Atxaga
Istorio horiek direla-eta, **zenbait** kritikarik - **zenbait** kritikari juduk- sentsualitatearen nabarmentzea aurpegiratu diote Singerri. Koro Navarro
Klarari, epe oso motzean, bere ahizpa Inesek eta etxeko beste **zenbait** emakumek jarraitu zioten. Askoren artean
Holandan, maiz, urrutitik ekarritako **zenbait** salerosgai ez direla erositako lekuetan baino garestiago saltzen. Iñaki Iñurrieta
Bide horrek, goiko partean, harrizko **zenbait** gurutze dauzka alde banatan. Koro Navarro
Zuei entzuten ari nintzela, **zenbait** gauza etorri zitzaizkidan gogora. Pello Salaburu
Horretarako, **zenbait** argudio proposatzen zituen. Xabier Kintana
Legamiatik hasi eta gizakiraino, badira **zenbait** molekula talde beren horretan dirautenak. Juan Garzia
Modan dauden **zenbait** ileapaintzailek. Bernardo Atxaga
Erromatar bakeak eskainitako aukera lehian zeuden **zenbait** erlijio proletariok hartu zuten. Iñaki Mendiguren
**Zenbait** partaidek bitartekari lanak egiten zituzten. Rafa Egiguren
Iratiko basotik igaro ziren biak, eta **zenbait** basurdek eraso egin zieten. Koro Navarro
Hala ere **zenbait** jendek eskuratu ahal ukan dute, zerbait arrazoinengatik. Angel Aintziburu / Jean Baptiste Etxarren
**Zenbait** artikulu eta liburu argitaratu ditu. Askoren artean
**Zenbait** hitz eta keinu goxo luzatu nizkion. Marzel Etxehandi
Bertan esaten denez, **zenbait** irakaslek erakusten dizkieten "irudizko ereduetatik" ihes egin nahi dute. Iñaki Heras
Awakeningseko nire **zenbait** gaixok bazituzten autismoaren **zenbait** ezaugarri. Xabier Olarra
Hemendik **zenbait** ohar eta ondorio atera daitezke. Xabier Arregi
Euskarak bere bide luzean aurkitu dituen **zenbait** oztopo aipatu dira sarrera honetan. Koldo Zuazo
Haur eta Gazte Literaturako **zenbait** obra, helduentzat idatziak izan diren arren, haurrek berenganatu dituztela. Ana Urkiza
**Zenbait** mujik mardulek haga handi bana zuten eskuetan. Karlos Zabala
Igandeko egunkariaren **zenbait** orri eroriak ziren mahaitik. Lopez de Arana
Badira **zenbait** etxe eta olen izenak, galdurik daudenak. Angel Aintziburu / Jean Baptiste Etxarren
Dinamika hori gero eta urrunago dago estatuen kontroletik, eta eraso egiten die estatuen subiranotasunaren funtsezko **zenbait** ezaugarriri. Koro Navarro
**Zenbait** material -harria, esate baterako- gogorrak dira konpresioari aurre egiteko. Irene Aldasoro

## **3** (dagokion izenaren ezkerrean, aditzaren komunztadura singularrean)

Eta batailoiaz beste muturretik, **zenbait** erdal hitz ere iristen zitzaidan. Txillardegi
**Zenbait** hitz trukatu genuen asteburuaz. Aingeru Epaltza
**Zenbait** gizon bildu zitzaion Tziklagen. Elizen arteko biblia
Baneraman **zenbait** aste lan hori egiten. Joxemari Iturralde
Roboamek, Jerusalemen kokatu zenean, Judako **zenbait** hiri gotortu egin zuen. Elizen arteko biblia
**Zenbait** goiargik Putzu-ren soiltasun formala mespretxuzko imintzio aristokratiko batez arbuiatzen du. Markos Zapiain
**Zenbait** doktorek dio, jarraituko duzue, jainkoaren ideia berezkoa dela, eta ideia hori amaren sabelean geundenetik dugula. Salbamen-historiako beste **zenbait** misteriok ere badu garrantzia. Juan Martin Elexpuru / Bego Montorio
Emaztegaiaren familian **zenbait** frankista bazen. Eneko Bidegain

## **4** (dagokion izenaren eskuinean)

Larreak 50 arkabuzari zekartzan berarekin Garazitik, baita peoi **zenbait** ere laguntzaile. Aingeru Epaltza
Jakitate porroska **zenbait** bildu. Michel Oronoz
Zerua oskarbi da, nahiz eta sartaldean **zenbait** laino urrun ageri. Xabier Montoia
Tarteka, oihu, juramentu eta garrasi **zenbait** botatuz...! Daniel Landart
Eskaparatean, Cheren biografia sendoa, euskerazko nobela batzuk, disko kañero **zenbait** eta kamisetak. Unai Iturriaga
Afrikako herrialde **zenbait**, oso gutxi. Koro Navarro
Euskal Herri barne horretako xoko pollit **zenbaitetan**. Janbattitt Dirassar
*ik beherago* 10. Askoren artean

## **5** (dagokion izenaren eskuinean, aditzaren komunztadura pluralean)

Hortik ere sortu ziren izarño **zenbait**, han hemenka. Michel Oronoz
Ukabilka **zenbait** ere eman zizkioten. Itxaro Borda
Ohe bazterrean jarririk, atzoko etapaz hitz labur eta perpaus motz **zenbait** botatzen dizkiot bideko kaierari. Piarres Aintziart
Iragarpen **zenbait** egin zituelako edo. J.M. Olaizola "Txiliku"
Zientziak bai, zientziak behar du joan aitzina, eta zientzia horrek aterabide **zenbait** aterako ditu, emanen ditu, eskainiko dizkio gaurko problema zenbaiti. Menane Oxandabaratz
Euskal Herrian euskaraz agertu diren obra **zenbait** ari ditut biltzen. Piarres Aintziart
Bere gizon **zenbait** igorri zituen inguruko herrietara galdezka. Elena Touyarou
Egia esan, egin dira, dagoeneko, gauzak konpontze eta zuzentze aldera urrats **zenbait**. Koldo Zuazo
Jendea zerbitzatzerakoan ipurdia eskuka ziezaioten aurpegi onez jasaten zuen neskari txantxa larri **zenbait** zuzenduz. Elena Touyarou
Kontu hauetaz kexu agertu izan dira idazle eta euskaltzale **zenbait**. Pello Salaburu
Departamendua eta beste promesa eder **zenbait** egin zizkigun lehenago François Mitterrand presidente-gai sozialista zenak. Piarres Xarriton
Larramendik, esate baterako, alderdi on **zenbait** ikusten zizkion arren, zakarra eta gogorra iruzten zion. Koldo Zuazo
Hor arteak bereganatu egiten ditu bai autismoaren alde sendoetako batzuk eta bai ahul **zenbait** ere. Xabier Olarra
Gizonaren zuhurtziak errazki asma dezake Frantziako luthertiar **zenbait** bakarrek behartu baldin badute Frantziako erregea guztiz indartsua, [...]. Piarres Xarriton
Abian ziren jada gerora nazioarteko harremanetan eragin sakona izango zuten desberdintasun **zenbait**. Koro Navarro
Herritar **zenbaitek** lan horiek beren gain hartu zituzten. Michel Oronoz
Enpedoklesen alboetan, esklabo **zenbaitek** zuzi handi batzuk zeuzkaten jasorik. Juan Garzia
Metrailadore **zenbaitek** larderia finkatzen dute. Marzel Etxehandi
Eskultore eta margolari **zenbaitek** *Gaur* taldea sortu zuten. Koldo Zuazo
Urakana oraindik aski indarrean dago Mendebaldeko Indietan, eta ontzi-kapitain zaharkitu **zenbaitek** hobesten dute. Xabier Olarra

## **6** (dagokion izenaren eskuinean, aditzaren komunztadura singularrean)

Doala hemen etsenplu edo adibide **zenbait**. Angel Aintziburu / Jean Baptiste Etxarren
Zentinelek ez gaituzte mintzatzera uzten, baina jateko eta botilla **zenbait** pasatzera uzten dute. Marzel Etxehandi
Politika gai **zenbait** ere hunkitu ahal izan nuela, aita Woronieckiren artikuluak irekia zidan alorrean. Piarres Xarriton
Kapitainak harki **zenbait** igorri du. Xabier Montoia
Etxe bakoitzaren aitzinean dantza **zenbait** eskaintzen dute. Angel Aintziburu / Jean Baptiste Etxarren
Beste bat salatua izan zen bere lagun **zenbaiten** kuraiatzen arizan zelakotz. Marzel Etxehandi

Lehenbizi, proba **zenbaiten** bidez, hobeto zehaztu beharra zegoen zeintzuk ziren hondatutako aldeak. Xabier Olarra

-Deus ez -erantzun zion Françoisek, hortz **zenbaiten** eskasa agertzen zuen irria eginez-. Elena Touyarou

## 7 (izenordain gisa)

Ehunka antzezleek lagun egin zioten protagonistari; **zenbaiten** papera konplexua izan zen. Juan Garzia

**Zenbaiten** arabera Aliatuak 100, 50, 30 kilometrotan dira. Michel Oronoz

**Zenbaiten** ustez Ongizate Estatua Sobiet Batasunaren ahalmena eta horri lotzen zitzaion mehatxu komunista hurbil sentitzen zirelako garatu zen horrenbeste. Iñaki Heras

Beste **zenbaiten** artean, berebiziko garrantzia hartu du azken urteotan ordenagailuen ahots ekoizpenaren eta, batik bat, oharmenaren iker-eremuak. Lourdes Oñederra

## 8 (izenordain gisa, aditzaren komunztadura pluralean)

Kantuz ari ziren **zenbait**, bertze batzu mar-mar-mar otoitzean, arrosorio bat eskuan. Michel Oronoz

Ile luzea uzten genuen guk, bizarra ere **zenbaitek**, eta gona laburrak neskek. Pello Salaburu

Abestietako **zenbait** sekula grabatu dituzun baikorren eta goxoenak dira. Harkaitz Cano

Paretetan iltze herdoildu batzuk josirik zeuden: alferrikakoak, antza, **zenbait**, eta beste **zenbait**, berriz, orri horixkatu batzuei eutsiz. Juan Garzia

Orain **zenbait** aurkituko dituala uste diat. Agustin Otsoa

Aipa ditzagun horietako **zenbait**. Jon Muñoz

Jarlekuak gainditurik beraz, eta **zenbait** etxerat joanik, damurik, gostu haundiz egon da jende hori guzia, azkenean halako gose zerbaitekin gelditu badira ere **zenbait**. Herria

**Zenbaitek**, Alexandrok Arabia konkistatu nahi zuelako aitzakiaz, esan dute inperio hura setiatzeko asmoa zuela. Iñaki Iñurrieta

**Zenbaitek** ekonomia arlo finantzarioarekin lotzen dute bereziki. Iñaki Heras

**Zenbaitek** paper mutur batzuk, bi hitzekin, uzten dituzte zuren artean. Marzel Etxehandi

Poeta-aurpegia jartzen ari da, **zenbaitek** musean poker aurpegia jartzen duen bezala. Joxerra Garzia

Euskalkiak "naturalak" direla diote **zenbaitek**. Koldo Zuazo

**Zenbaitek** diotenaz, etxe horretan egiten ziren pertolak. Angel Aintziburu / Jean Baptiste Etxarren

Duda ezagutu ote dute **zenbaitek**? Piarres Aintziart

## 9 (izenordain gisa, aditzaren komunztadura singularrean)

Baina, gaur egun, horretaraino iritsi da gure arteko **zenbait**; eskualde, eta are herri barruko harremanetan ere, Euskara Batua baliatzen dute gure arteko batzuek. Koldo Zuazo

"Dena zilegi dut", dio **zenbaitek**; baina ez da dena komenigarri. Elizen arteko biblia

Hala ere, **zenbaitek** ez zion Moisesi jaramonik egin eta hurrengo egunerako gorde zuen. Elizen arteko biblia

## 10 *zenbaitetan*

**Zenbaitetan** pentsatu izan dut aurrea hartu zigutela faxistek, gerran gertatu ohi dira halakoak. Koldo Izagirre

**Zenbaitetan** errainuak sumatzen ditut gortinen bestaldean; bestetan [...] hezur-haragizko jendea jartzen zait begien parean. Bernardo Atxaga

Oinez **zenbaitetan**, zaldiz gehienetan, ni aitatxiren bizkarrari itsatsirik. Aingeru Epaltza

Zabu eta astindu haiek iarda gutxi batzuk mugiarazten gintuzten **zenbaitetan**, eta besteetan berriz zurrunbiloaren jira osoa eginarazten ziguten ia-ia. Koro Navarro

Egia esatekotan, **zenbaitetan** ez nau harritzen halako joerak izatea. Pello Salaburu

Ogirik ere ez **zenbaitetan**, eta sekula ez atsedenik. Imanol Zurutuza

Sentitzen nuen mundu berriaren hotsa kanpoan, literalki gainera **zenbaitetan**, Villa Lecuona gure etxearen aurrean kirol zelai bat eraikitzen ari zirelako. Bernardo Atxaga

Aldaera horiek guztiek garrantzi handiko informazioa ematen dute sakontasunaz; **zenbaitetan** engainagarria, ordea. Josu Zabaleta

Ez beti, baina bai **zenbaitetan**. Andoni Egaña

Betiko ihesa pairatzekoa zutela pentsatzen zuten **zenbaitetan**. Itxaro Borda

Gidatu egin zuen, zuzendu, akuilatu, baita zentsuratu ere **zenbaitetan**. Karlos Zabala

## 11 *zenbait eta zenbait* *ipar* asko.

**Zenbait eta zenbait** gauzatan sartu duzu eskua eta zangoa ere. Berria - Kultura

**Zenbait eta zenbait** aldiz iganak jadanik, bai eta jaitsiak, eskaler xut eta hertsi haiek! Janbattitt Dirassar

Bazuen **zenbait eta zenbait** jende Espainiara iraganarazirik, judioak, komunista iheslariak, erresistenteak eta ingeles aireko gidatzaileak. Itxaro Borda

79 urtetan itzali da, **zenbait eta zenbait** zerbitzu eginik bere denboran batzu eta besteeri, jitez gisa hartakoa baitzen. Herria

Gizon horrek badu **zenbait eta zenbait** urbide edo kanale muntaturik mendi zoko horietan gaindi. Angel Aintziburu / Jean Baptiste Etxarren

Presoek ere badituztela gisa guziz beren eskubideak eta jende gisa behar direla ekarriak izan, jadanik ere **zenbait eta zenbait** aldarrikatu den bezala. Herria

### hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 8 aldiz agertzen direnak)

**berri zenbait** (19); **bertze zenbait** (42); **beste zenbait gai** (9); **beste zenbait gauza** (18); **beste zenbait herritan** (10); **beste zenbait lekutan** (15); **beste zenbait tokitan** (11); **duela zenbait aste** (29); **duela zenbait denbora** (12); **duela zenbait egun** (55); **duela zenbait hilabete** (39); **duela zenbait urte** (105)

**egun zenbait** (9); **kantu zenbait** (9); **urte zenbait** (10)

**zenbait abesti** (8); **zenbait adibide** (16); **zenbait adierazpen** (8); **zenbait aditu** (11); **zenbait adituk** (41); **zenbait adituren** (34); **zenbait adituren arabera** (15); **zenbait adituren ustez** (12); **zenbait agintari** (10); **zenbait aholku** (9); **zenbait aldaketa** (51); **zenbait aldaketa egin** (17); **zenbait alderdi** (44); **zenbait alderdik** (19); **zenbait aldetan** (8); **zenbait alditan** (16); **zenbait aldiz** (138); **zenbait ale** (12); **zenbait alorretan** (19); **zenbait anaia** (10); **zenbait arau** (8); **zenbait arazo** (39); **zenbait argazki** (9); **zenbait argibide** (9); **zenbait arlotan** (32); **zenbait arrazoi** (13); **zenbait artikulu** (8); **zenbait artistak** (10); **zenbait aste** (72); **zenbait asteren** (16); **zenbait asteren buruan** (12); **zenbait astez** (24); **zenbait atal** (17); **zenbait aukera** (11); **zenbait autorek** (13); **zenbait autoreren** (9); **zenbait auzotan** (10); **zenbait azpiegitura** (9)

**zenbait baldintza** (20); **zenbait berri** (9); **zenbait bide** (9); **zenbait bider** (8); **zenbait botika** (11); **zenbait buruzagi** (14); **zenbait buruzagik** (8)

**zenbait datu** (26); **zenbait denbora** (44); **zenbait denboraren** (9); **zenbait denboraz** (19)

**zenbait egun** (185); **zenbait egun barne** (9); **zenbait egun berantago** (9); **zenbait egun lehenago** (23); **zenbait egunen** (38); **zenbait egunen buruan** (34); **zenbait egunetan** (30); **zenbait egunez** (54); **zenbait egunkarik** (10); **zenbait ehun** (8); **zenbait ekimen** (17); **zenbait ekintza** (11); **zenbait ekitaldi** (11); **zenbait elementu** (18); **zenbait emakume** (9); **zenbait emakumek** (16); **zenbait enpresa** (11); **zenbait erabaki** (15); **zenbait erabakiren** (10); **zenbait eragile** (16); **zenbait eragilek** (15); **zenbait erakunde** (11); **zenbait erakundek** (12); **zenbait ere** (76); **zenbait esaldi** (12); **zenbait eskualdetan** (22); **zenbait eskubide** (11); **zenbait estatutan** (13); **zenbait eta zenbait** (10); **zenbait etxe** (13); **zenbait etxetan** (11); **zenbait euskal** (19); **zenbait ezaugarri** (33)

**zenbait fenomeno** (8)

**zenbait gai** (36); **zenbait gairen** (9); **zenbait gaitan** (12); **zenbait gaixotasun** (11); **zenbait galde** (9); **zenbait galdera** (19); **zenbait gauza** (161); **zenbait gauza ez** (8); **zenbait gauzatan** (18); **zenbait gazte** (11); **zenbait gaztek** (8); **zenbait gertaera** (10); **zenbait gizarte** (17); **zenbait gizon** (27); **zenbait gogoeta** (22)

**zenbait hedabidek** (18); **zenbait helburu** (10); **zenbait herri** (21); **zenbait herrialde** (26); **zenbait herrialdek** (27); **zenbait herrialdetako** (10); **zenbait herrialdetan** (55); **zenbait herritako** (9); **zenbait herritan** (70); **zenbait herritarrek** (15); **zenbait hilabete** (106); **zenbait hilabete lehenago** (8); **zenbait hilabeteren** (16); **zenbait hilabeteren buruan** (12); **zenbait hilabetez** (26); **zenbait hiri** (15); **zenbait hiritan** (13); **zenbait hitz** (31); **zenbait idazle** (10); **zenbait idazlek** (12); **zenbait ideia** (16); **zenbait ikasle** (8); **zenbait ikerketa** (12); **zenbait ilabete** (8); **zenbait informazio** (9); **zenbait irizpide** (12); **zenbait irudi** (11); **zenbait iturrik** (17); **zenbait iturriren** (59); **zenbait iturriren arabera** (58); **zenbait izen** (10)

**zenbait jarrera** (11); **zenbait jende** (25); **zenbait jendek** (13); **zenbait jokalari** (24); **zenbait jokalarik** (18); **zenbait jokalariri** (8)

**zenbait kale** (9); **zenbait kantu** (25); **zenbait kantutan** (13); **zenbait kasu** (13); **zenbait kasutan** (122); **zenbait kazetarik** (8); **zenbait kide** (16); **zenbait kidek** (39); **zenbait kideren** (11); **zenbait kokagune** (8); **zenbait komunikabidek** (22); **zenbait komunikabideren** (9); **zenbait kontu** (20); **zenbait kontzeptu** (14); **zenbait kritika** (9)

**zenbait lagun** (22); **zenbait lagunek** (17); **zenbait lagunen** (12); **zenbait lan** (36); **zenbait lege** (16); **zenbait leku** (11); **zenbait lekukok** (11); **zenbait lekutan** (82); **zenbait lerro** (8); **zenbait liburu** (19); **zenbait lurraldetan** (9)

**zenbait mende** (13); **zenbait metro** (8); **zenbait mila** (12); **zenbait minutu** (29); **zenbait minuturen** (9); **zenbait minuturen buruan** (8); **zenbait minututan** (9); **zenbait minutuz** (34); **zenbait mugimendu** (9)

**zenbait neurri** (35); **zenbait neurri hartu** (9)

**abardura** (8); zenbait ñ

**zenbait objektu** (10); **zenbait obra** (16); **zenbait ohar** (9); **zenbait ondorio** (21); **zenbait ordezkari** (15); **zenbait ordezkarik** (14); **zenbait ordu** (34); **zenbait ordu lehenago** (15); **zenbait orduz** (13); **zenbait oren** (21); **zenbait orenez** (9); **zenbait oroitzapen** (8)

**zenbait pasadizo** (9); **zenbait pasarte** (15); **zenbait pasartetan** (11); **zenbait pertsona** (24); **zenbait pertsonak** (9); **zenbait poema** (11); **zenbait politikarik** (8); **zenbait preso** (16); **zenbait proiektu** (13); **zenbait proposamen** (19); **zenbait puntu** (25); **zenbait puntutan** (10); **zenbait saio** (10); **zenbait segundotan** (8); **zenbait segundoz** (15); **zenbait sektorek** (14); **zenbait sektoretan** (10)

**zenbait talde** (20); **zenbait taldek** (26); **zenbait tokitan** (93)

**zenbait unetan** (52); **zenbait urrats** (34); **zenbait urrats egin** (11); **zenbait urratsetan** (8); **zenbait urte** (260); **zenbait urte geroago** (13); **zenbait urte hautan** (15); **zenbait urte huntan** (16); **zenbait urte lehenago** (20); **zenbait urteren** (20); **zenbait urteren buruan** (16); **zenbait urtetan** (10); **zenbait urtez** (58)

**zenbait xehetasun** (19)

**zenbait zerbitzu** (11); **zenbait zientzialarik** (8)

**beste zenbaitek** (55); **dio zenbaitek** (11); **diote zenbaitek** (16); **zenbaitek diote** (15); **zenbaitek uste** (13)

**beste zenbaitekin** (9)

**beste zenbaiten** (24); **zenbaiten arabera** (19); **zenbaiten artean** (14); **zenbaiten ustez** (29)

zenbaitno ik **zenbaitño**.

zenbaitno ik **zenbaitño**.

## zenbaitsu *zenbtz* zenbait.

Txukun samarra izaki, *Cine vasco* esan zitzaion hartako hainbat filmetan aritu zen, paper txikietan beti, eta ETBko saio **zenbaitsutan**. Xabier Montoia

Bada-eta halakorik, bere gisa barrez hasten denik, barre eragiteko **zenbaitsu** ikusle lelori noski, nahiz bitartean zerbait erabakigarria egon jokoan taula gainean. Juan Garzia

Amorrazioa ematen du **zenbaitsutan**, kanturako gorputz-aldarte ona eta burua argi eduki eta ordu eta erdian, hurrenez hurren, txakurra, aingerua, agure tangazalea eta Armstrong-en txirrindaren plater handia izan beharrak. Andoni Egaña

## zenbaitxo *zenbtz adkor* zenbait.

Aldian behin, nolanahi ere, **zenbaitxotan**, berragertzen zen haren lehengo destaina-aurpegia, haren lehengo pausaje arranditsu eta kulunkaria. Fernando Rey

## zenbaitzu *(orobat* ***zenbatzu*** *g.er.* ***zonbaitzu*** *g.er. eta* ***zonbeitzu*** *g.er.)* **1** *zenbtz* zenbait. (izenaren eskuinean)

Langile **zenbaitzu** lehenago arizanak dira Sony lantegian. Herria

Historikoki horkoak dira euskaldunak eta gaskoinak; geroztik judutarrak duela laspost mende etorriak dira horrat, gaur ere badira judutar **zenbaitzu** ZUP auzoan. Herria

Bizia halaber gal daiteke herriaren askatzeko, familia **zenbaitzuk** hargatik [...] galda lezake beren haurra zergatik sakrifikatua izan den. Itxaro Borda

Diru-laguntza **zenbaitzuri** esker: lehen lehenik Eusko Jaurlaritza eta Udalbiltza. Herria

Horrek ez du kentzen elikagai **zenbaitzuren** inguruan krisialdi zehatzak gertatzea. Berria - Euskal Herria

Aipatuz etxearen arkeolojia, guzia "diapo" **zenbaitzuekin** argitua. Herria

Ugarte **zenbaitzuen** oihan trinkoetan, aldiz, 'Hukbalahap' erresistentzia sasitar mugimendua izan zen ere. Ramuntxo Etxeberri

Kultura **zenbaitzuetan** arraultzea gizakiaren arimaren sinboloa da! Ramuntxo Etxeberri

Gobernu komunistak arindu egin zituen kontroletako batzuk: ez funtsezkoenak, noski, baina bai, adibidez, herrialdera dirua erakar zezaketen kontu **zenbaitzuetan**. Iban Zaldua

**2** (izenordain gisa, pertsonei buruz)

220 bat lasterkari, **zenbaitzu** urrundik jinak. Herria

Hala nola Garazi aldetik girixtino frango joaiten den Orriako beilara, **zenbaitzu** oinez, gau betean abiaturik Donibane Garazitik beretik. Gehienak euskara batuan dira idatziak, **zenbaitzu** haatik zubereraz. Herria

Laguntza aurkitu dugu kolegioko erakasleetan, eta hartzen ditugu kanpotik ere **zenbaitzu**, "intervenants extérieurs" deitzen direnak. Herria

Roberto Laiseka ere hor, eta Mikel Artetxe, eta bertze guziak, **zenbaitzu** mihia kanpoan. Herria

**Zenbaitzuk** zioten: [...]. Elizen arteko biblia

-Ez denak, **zenbaitzuk** baizik. Edorta Jimenez

**Zenbaitzuek** gure hizkuntza eta kultura terrorismoarekin elkartzeko darabilaten bidegabeko interesa. Herria

Adingabearen lege-egitasmoaren zirriborroek **zenbaitzuren** desadostasuna eragin zuten. Berria - Euskal Herria

Aljeriako gerlak gaur egun oraino arrastoak baditu han ibiliak direnen baitan: **zenbaitzuentzat** kasik gaueroko amets gaixtoak, hobendura sendimenduak... Herria

Politikazko eskuliburu klasikoetan gobernu ezberdin motak bereizten ziren, bakarraren, **zenbaitzuen** ala herriaren eskuetan boterea emaiten zen arabera, hots, monarkia, oligarkia, demokrazia bereiziz. Piarres Xarriton

Nik euskaraz egiten nuen, baina **zenbaitzuekin** gaztelaniaz aritzen nintzen. Ana Urkiza

**3** (izenordain gisa, bestelakoei buruz)

Zortzi edo bederatzi hilabetetan hiltzen dira [zerriak] Donibane Garaziko hiltegian, eta saltzen, **zenbaitzu** osorik, bertzeak puskaturik. Herria

Kantu gehienak bereak dira, **zenbaitzu** Philippe Albor-enak, eta ere Marcel Lécrivain, Marydo Pellarini eta Madou Sanogo Burkina Fasokoarenak. Herria

Diska airosa, kantu umoretsuekin eta ere **zenbaitzu** seriosagoak: 15 kantu orotara. Herria

Bitoriano Gandiaga eta Martin Ugalde-ren obra osoak plazaratuko dira, Gipuzkoako Foru Aldundiak diruz lagundurik, euskal idazle handi horien lanak eta ondarea, **zenbaitzu** sekula ez argitaratuak. Herria

Euskal musika taldek gero-eta neke handiagoak dauzkate, **zenbaitzuk** segurik, Espainian gaindi kontzertuak eskaintzeko. Herria

Beraz berdin izan daitekeela Jainko bat edota **zenbaitzuk** izatea. Xabier Kintana

Afrikako herrialdeen zorra barkatuko diela? Bai, **zenbaitzuri** bakarrik, bainan ez osoki. Herria

**4** ***zenbaitzutan***

Auzibideek aldiz, **zenbaitzutan** laguntzen badute ere arazo koropilatsu baten trenkatzen, gehienetan bazterrak arras minkor uzten dituzte luzarako. Herria

Haien esanetan, gaur arte atzeman diren ehun eguzki sistemetatik 50etan ura egon daiteke, eta **zenbaitzutan** baita bizia ere. Rockeroa **zenbaitzutan** (*Perfect*), hiper-lasaia besteetan (*Grave/Drive*) baina baita sonoritate berriekin esperimentatzera irekia ere (*Hush, Brotherman, Woman...*). Berria - Gaiak

Onena da, denetan profesionalena bera delako, baina **zenbaitzutan** gehiegizkoa da haren profesionaltasuna, hutsik gabeko planifikazioa, dena derrigor ondo egiteko beharra. Berria - Kirola

**5** ***zenbaitzuetan***

Matson-dar andreak hirurogeita hamar edo laurogei urteren inguruan zendu ohi ziren; **zenbaitzuetan** beranduago, sekula ez lehenago. Mirentxu Larrañaga

**Zenbaitzuetan** onuragarria ere izaten da, lasaigarri delako. Berria - Euskal Herria

Agudo **zenbaitzuetan**, hauskor beste batzuetan. Berria - Kultura

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
> **beste zenbaitzuek** (8); **diote zenbaitzuek** (3)
> **bertze zenbaitzuk** (3); **beste zenbaitzuk** (6); **diote zenbaitzuk** (3); **zenbaitzuk ere** (3)

---

## zenbakailu *(corpusean **zenbagailu** soilik)* *iz* zenbatzeko gailua.

Utzi hemen, metalezko gauzakiak daramatzazula, adibidez giltzariak, zigarro fardelak, **zenbagailuak** etabar. Iñaki Arranz

---

## zenbakaitz *(orobat **zenbagaitz** g.er.)* *izond* ia zenbatezina.

Ohera baino lehen gelditzen zitzaion arrats eta gau zatia gai horri buruzko bariazio **zenbakaitzak** garatzen pasatu zuen, xumetik nahasira joanik, orokorretik partikularrera. Jon Alonso

Kontzentrazio-esparru batean egin daitezkeen burutapen, asmakuntza, joko, txantxa eta funtsezko hausnarketa ugari eta **zenbakaitzak**. Urtzi Urrutikoetxea

Hori ere bada Istanbul, dena da Istanbul: meskita **zenbakaitzetako** bozgorailuetatik aditzen diren otoitzak nahiz pubetako musika. Jon Arretxe

Mila zenbakiak -euskaraz hamaikak bezala- arabieraz kopuru **zenbagaitza** eta mugagabea adierazten du. Patxi Zubizarreta

Gramatika ezin liteke morfemen (edo hitzen) hurrenkera guztien zerrenda izan, horiek amaigabeki **zenbakaitzak** baitira. Itziar Laka

---

## zenbakarri *izond* zenbatu daitekeena.

Emaitza **zenbakarriak** eta aurrerakuntza azkarrak nahi dituen gizarte honetan. Berria - Kultura

---

## zenbakarritasun *(corpusean **zenbatgarritasun** soilik)* *iz* zenbakarria denaren nolakotasuna.

Atomo horietako bakoitzak akzidenteak dauzka, ezin saihestekoak, esaterako, kolorea, usaina, mugimendua edo pausaldia, **zenbatgarritasuna** izan ezik, atomo bakoitzak, banan-banan harturik, ez baitauka **zenbatgarritasunik**, eta, hortaz, ez diote **zenbatgarritasunari** akzidente deitzen, eta ez dute bera akzidentetzat onartzen. Xabier Kintana

---

## zenbakera 1 *iz* zenbatzeko era, zenbaki guztiak idazteko era.

-la herri guztiek izan dute zeinek bere **zenbakera**; zenbakiak idazteko modu bat, alegia. Jon Muñoz

**2** (izenondo eta izenlagunekin)

Zenbakiak idazteko eta zenbakiekin kalkuluak egiteko balio zuen tresna orokor baten ataletariko bat ziren hamar zifra horiek: kokalekuaren araberako **zenbakera** hamartarra zeroarekin. Jon Muñoz

**Zenbakera** erromatarreko "X"k "hamar" balio du, zeinahi dela haren kokalekua. Jon Muñoz

Erromatar **zenbakera** idatziak ez zuen batere balio kalkulurako, eragiketarik soilena abakoaren laguntzaz egin behar baitzen. Jon Muñoz

Indiar **zenbakerak** sekulako balentria egin zuen, alfabetoarena baino are miragarriagoa. Jon Muñoz

Kokalekuzko **zenbakeran**, berriz, guztiz bestelakoak dira kontuak; zifra baten balioa zifra horrek zenbakia idazterakoan duen kokalekuaren araberakoa da. Jon Muñoz

---

## zenbaketa 1 *iz* zenbatzea.

Luzeegi joko luke horren kariaz bizi izan ditudan aldrebeskerien **zenbaketak**. Aingeru Epaltza

Di Fonzok bere hartan utzi zuen Van Ortroy-ren lehen argitalpen kritikoko **zenbaketa**. Askoren artean

Ezpainak isilean mugitzen hasi zen, **zenbaketan** ari balitz bezala. Xabier Olarra

H5N1 birusak hildakoen **zenbaketa** tentu handiz egiten du OME Osasunerako Mundu Erakundeak. Berria - Gaiak

Lockhart bat-batean isildu zen, berak eragotzitako hilketa-kopuruaren **zenbaketa** bertan behera utziz. Iñaki Mendiguren

Stock horiek ez direla oso ondo neurtzen ordainketa-balantzetan ageri diren nazioarteko zuzeneko inbertsioen fluxuen **zenbaketetan**. Koro Navarro

Ez zuen sekula saldu, ordea, eta bere heriotza [...] naturalaren ondoren egin zen ondasun-**zenbaketan** "desagertutzat" jotzen da. Iban Zaldua

**2** (izenondo eta izenlagunekin)

Geroxeago ohartu zenez, **zenbaketa** erraz bezain sinple baten kariaz, tren hark ganadua garraiatzeko hirurogei bagoi beltz [...] ekartzen zituen jendez beteta astelehenero, eta asteartero jendez beteta itzultzen ziren berriro ere hirurogeiak. Felipe Juaristi

**Zenbaketa** ofizialek, haatik, 900 hildakoren kopurua aipatzen zuten, baina zifra honek ez ditu kontutan hartzen desagertuak. Berria - Mundua

Nire **zenbaketa** pertsonalean ez dut jasotzen bilatu ez dudan hildakorik. Iban Zaldua

Eguneko lehen **zenbaketan**, liburuak txukuntzen, sagar bat jaten edo egunkari atzeratuak irakurtzen egoten nintzen. Lander Garro

Haien egunak, han, Pasaian, atzerakako **zenbaketa** bat ziren. Zu ez zeunden hemen goizeko **zenbaketan**! Harkaitz Cano

Gaueko **zenbaketan**, ordea, funtzionarioek hilik topatu zuten. Berria - Harian

Ezpainak ia higitzeke xuxurlatu du: "iluntzeko **zenbaketa"**, keinu txiki bat eginez. Urtzi Urrutikoetxea

Eta kapitulu bakoitza hainbat zatitan: zati hauek segidako **zenbaketa** dute, obra aipatzeko erabiltzen direnak. Askoren artean

**3** (hitz elkartuetan)

**Zenbaketa** teknikak ez dira heltzen oraindik nazioarteko estandarrera. Berria - Mundua

Eurostatek eman zituen datuak, eta INEMena ez den beste **zenbaketa** modu bat erabiltzen du. Berria - Ekonomia

· 1787ko bigarren argitaraldiaren orrialde-**zenbaketari** aurretik B hizkia erantsiz. Ibon Uribarri

Urte **zenbaketan** nahastu ote zen Txikia? Xabier Mendiguren Elizegi

**4** (hauteskundeetako botoena)

Hauteskundeak irregulartasunez beteta egon zirela salatzeko eta bozen **zenbaketa** berria eskatzeko. Berria - Mundua

Arroyo bozen irabazle, **zenbaketa** independente baten arabera. Berria - Mundua

Hauteskundeetako emaitzen **zenbaketa** eten du. Berria - Mundua

Mujik guztiak bildu behar zituen, abian jarri baino lehen **zenbaketa** orokorra egiteko. Auzitegi Gorenak George Bushi eman zion garaipena, Floridako botoen **zenbaketa** eztabaidatsua 36 egunez luzatu ondoren. Jose Morales

Botoen %48,46 ematen zion behin-behineko **zenbaketak**. Berria - Mundua

Afganistan mendebaldean, Irakeko mugatik gertu, bozen **zenbaketa**-gune bati bonbaz eraso zioten. Berria - Mundua

Boto **zenbaketak** aurrera egin ahala, baina, bi hautagaien arteko aldea murrizten joan zen. Berria - Mundua

Hauteskundeak ez dira soilik izen emate eta ondorengo boto **zenbaketa** operazioa. Berria - Mundua

## 5 (**egin** aditzarekin)

Herritarren **zenbaketa** egin.

Rosik egin du **zenbaketa** eta denak gaudela jakinarazi dio. Urtzi Urrutikoetxea

Hernani eta Donostia bitartean bidean barna ikusten nituen hondakinen **zenbaketa** egiteko asmoa hartua nintzen. Koldo Izagirre

**Zenbaketa** egin berria nuen hautsontzi beteko aleak banan-banan bereiziz. Aingeru Epaltza

Era honetako **zenbaketak** egiten direnean, irakasle laguntzaileak ez ohi dira kontuan hartzen, nahiz oso zeregin garrantzitsua betetzen duten. Juan Ignacio Pérez / Pello Salaburu

Giza eskubideen zainketarako hainbat erakundek egindako **zenbaketen** arabera, 30.000 lagun inguru hil zituzten diktaduren aginduetara zeuden sei herrialdetako polizia politiko eta zerbitzu sekretuek. Berria - Mundua

**Zenbaketan** egindako aldaketa honek gure bilduma hogeita hirura igoaraziko luke. Iñaki Mendiguren

**hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**

**behin betiko zenbaketa** (3); **boto zenbaketa** (3); **botoen zenbaketa** (12); **bozen zenbaketa** (9); **goizeko zenbaketa** (3)

**zenbaketa amaitu** (3); **zenbaketa berria** (3); **zenbaketa egin** (6); **zenbaketa egitean** (3); **zenbaketa egitera** (3); **zenbaketa osoa** (4)

**boto zenbaketan** (4); **botoen zenbaketan** (3)

**zenbaketaren arabera** (3)

**zenbaketen arabera** (6)

---

**zenbaki** *(orobat **zonbaki** g.er.)* **1** *iz* matematikan, kopuruaren eta unitatearen arteko erlazioaren adierazpena; adierazpen horri dagokion ikurra. ik **numero**.

Zenbat eta diseinu modernoagoa izan, orduan eta letra gutxiago eta **zenbaki** gehiago. Iñigo Aranbarri

Abelek matrikula irakurri du: BI hizkiak eta, jarraian, bost **zenbaki**. Pello Lizarralde

Hara non bi **zenbakiko** kopurura jautsi naizen, Moimentos herrian "99,8 km", dio Goikoetxeak. Piarres Aintziart

Aro digitalean, ordea, bi **zenbakirentzat** bakarrik dago tokia. Joxerra Garzia

**Zenbaki** guztiak ezagutzen ditugulako, zerotik infinituraino. Unai Elorriaga

**Zenbakien** zale gogaikarri mordoa dago bazterretan. Jon Muñoz

Hainbat **zenbaki** esan eta inork ez bazuen bingoa lortzen. Koro Navarro

Idatz ezak 38 **zenbakia** letretan. Rafa Egiguren

**Zenbaki** bat zeramaten arropetan josita (Auschwitzen tatuatu egin zieten), hiruki baten barruan. Urtzi Urrutikoetxea

Gehiegizkoa iruditu zitzaion Matiasi **zenbaki** bakar bat idazteko 49 zentimetro koadroko papera erabiltzea. Unai Elorriaga

Taximetroan saltoka ari ziren **zenbakietatik** begirik kendu ezinik zegoen. Lopez de Arana

Jorge Oteizak emaniko pieza horiek guztiak Fundazioaren inbentarioan daude, dagokien **zenbakiarekin**. Berria - Kultura

Cesarrek badaki kosta egingo zaiola berriro ere telefonoa hartu eta **zenbaki** hura markatzea. Harkaitz Cano

**Zenbaki** hura kutxazainetik dirua ateratzeko erabiltzen zuela esan zion behin. Antton Olano

Atera zaizuen emaitza **zenbaki** bikoa bada, esate baterako 33, [...]. Patxi Zubizarreta

Beste sari batzuei **zenbaki** hauek dagozkie: 1752, 26264, 666, 975, 18416, 22009, 17248, 1854, 13581 eta 14650. Berria - Euskal Herria

Sei **zenbakiko** telefono **zenbaki** bat markatu, eta zain gelditu zen. Jon Muñoz

Orain, denok zifra bakarreko **zenbaki** bat dugula, kendu diezaiogun 5. Patxi Zubizarreta

Hauta ezazu 1 eta 9 arteko **zenbaki** bat. Patxi Zubizarreta

Zein da *a* **zenbaki** baten erro karratua? Jon Muñoz

**Zenbakiak** faktore lehenetan deskonposatzen. Jon Muñoz

**Zenbaki** bat bilatu, bere erro kubikoari erantsirik 6 emango duena. Jon Muñoz

Geometriak irudiak aztertzen ditu; aritmetikak, **zenbakiak**; trigonometriak, angeluak. Jon Muñoz

Unibertsalak -propietateak, erlazioak, **zenbakiak**, etab.- errealitatearen parte dira, beren eitea fisikoa eta mentala ez bada ere. Askoren artean

**Zenbakien** teoria, geometria, metodo infinitesimalak. Jon Muñoz

**Zenbakia** 56.789 da eta zozketa eguna datorren ostirala. Patxi Iturritegi

Hobe litzatekeela, New Yorken egiten omen zuten bezala, kaleak **zenbaki** bidez izendatzea. Ramon Saizarbitoria

Abenidako 30 **zenbakiko** 15F apartamenduan. Edorta Jimenez

Laugarren **zenbakiko** sarbidera iristean. Iñaki Mendiguren

Ez zuen kalearen **zenbakia** jartzen, eta oso modu bitxian idatzita zegoen helbidea: "1001", "Mila eta bat" jarri ordez. Jon Muñoz

Karrika hartan bertan, lau **zenbaki** aurrerago, gelak alokatzen zituen etxe merke eta garbi bat ba omen zegoen. Alberto Ladron Arana

Kiskalita agertu zen guretik bi **zenbaki** haratago bizi den zinegotzi sozialistaren autoa. Aingeru Epaltza

San Tomas jakintsuak hori bera irakasten baitu 1. Partearen 8. galdeko 2. artikuluaren 3. **zenbakian**. Piarres Xarriton

Aipatzen ditut zenbatzeko **zenbakiak**, eta gogoan dauzkat, haien irudiak ez baina **zenbakiak** berak. Imanol Unzurrunzaga

## 2 (izenondo eta izenlagunekin)

Mendebaldeko mundu modernoan **zenbaki** arabikoek paperean esanahi berberak zituzten bezalaxe, zenbakiak *viva voce* izen desberdinez deitzen zituzten herrientzat. "(I.)", erran nahi baita, parentesiz giltzapeturiko *bat* **zenbaki** erromatarra, horra kontu guztia. Iñaki Mendiguren

-**Zenbaki** oso eta arrunten zientzia da aritmetika: 1, 2, 3... Aljebra, berriz, ekuazioen zientzia da. Jon Muñoz

Bi **zenbaki** oso bikoitien batura **zenbaki** oso bikoiti bat da. Jon Muñoz

**Zenbaki** naturalen propietateak ikertzeko erabili zuen teoria hori. Askoren artean

**Zenbaki** naturalen propietateak ikertzeko erabili zuen teoria hori. Askoren artean

**Zenbaki** positiboak baizik ez ditu onartzen Al Khuarizmik, osoak nahiz zatikiak. Jon Muñoz

Ordu arte erabilitako zenbakiei, berriz, -positiboei eta negatiboei, arrazionalei eta irrazionalei- **zenbaki** erreal deitu zitzaien. Jon Muñoz

Zein hartueman zehatz duen diametroak zirkuluarekin **zenbaki** arrazionaletan edo irrazionaletan. Ibon Uribarri

Antzinateko zibilizazioetan **zenbaki** negatiborik ez zen. Jon Muñoz

Hamabia da **zenbaki** oinarrizkoa, seia bi aldiz batuz ateratzen delako, eta grezieraz *diplasios* deitzen da. Santiago Iruretagoiena

Matematikariek [...] esan zuten **zenbaki** perfektua seia zela, **zenbaki** honek badituelako zatiki batzuk beren artean batuz sei ematen dutenak. Santiago Iruretagoiena

**Zenbaki** nulua asmatzea izan zen hori: indiarren asmakizun handia! Jon Muñoz

Frogatu zuten karratua 2 duen **zenbaki** arrazionalik ezin dela existitu. Jon Muñoz

**Zenbaki** konplexu bat egiteko, bi **zenbaki** erreal behar ziren. Jon Muñoz
Berrogeia **zenbaki** magikoa baita, are gehiago berrogei egun eta berrogei gaueko berrogei horri. J.M. Olaizola "Txiliku"
Joanes sei zifrako **zenbaki** xoil bat bihurtu zen. Eneko Bidegain
200 urteen muga medikuek adostutako muga arbitrarioa baino ez da (**zenbaki** borobila bai, baina arbitrarioa). Unai Elorriaga
**Zenbaki** absolutuei ezer kentzeke, ehunekoek sortzen dutena bai lilura. Iñigo Aranbarri
Uste nuen kritika gogorrak entzungo nituela **zenbaki** zifratua ahazteagatik. Jon Alonso
Hamazazpi, ez da **zenbaki** txarra, hamazazpi urterekin ezagutu nuen nik Santos. Josu Landa
Matematikan bada **zenbaki** arraro bat, -2 delakoa, hainbat eragiketa posible egiten dituena. Bernardo Atxaga
**Zenbaki** transfinituen sinboloa da, osotasuna beren zatiren bat baino handiagoa ez den zenbakiena, alegia. Juan Garzia
Genetikaren loteria eskuzabalegia izan zen berarekin, eta **zenbaki** irabazle guztiak egokitu zitzaizkion. Oskar Arana
Arrakastadunari merkatuko **zenbaki** sariduna egokitzea besterik ez zaio gertatu, egia, baina... "zerbait egingo zian, ezta?". Iñaki Segurola
Kermezako **zenbaki** irabazdunak: 14 - 159 – 167 – [...]. Herria
· Haren osagaiak, a eta b, **zenbaki** elkarrekiko lehenak dira; alegia, ezein zenbakik ezin ditu biak batera zatitu. Jon Muñoz

**3** (hitz elkartuetan lehen osagai gisa) ik **numeriko.**

Ezagutzen al duzue hiru horiek baino **zenbaki**-erlazio sinpleagorik? Jon Muñoz
**Zenbaki**-identitatea izanik errepresentatu behar dena ezin da identikoa balitz bezala pentsatu datu enpirikoen bitartez. Ibon Uribarri
Batzuetan estatistikoek darabiltzaten zenbakien taula aleatorioa **zenbaki**-sinboloen sail bat da. Xabier Arregi
Maletatxoa ezkutuan ireki **zenbaki**-konbinaketa jakin batez. Jon Arretxe
Halako esakuneak, beraz, ez dira axiomak (bada, hortaz, amaigabeak lirateke), baizik eta **zenbaki**-formulak deitu behar zaie. Ibon Uribarri
**Zenbaki** segida hauetan, *-ga* luzakinak egiten du zapo erdara. Iñaki Arranz
Begirada bat nahikoa zuen **zenbaki**-zerrenda luzeak gogoratzeko. Xabier Olarra
Gertutik begiratu zion etiketari, **zenbaki** lerro luze bat aztertzen ariko balitz bezala. Koro Navarro
Infernuan nengoen: adarka jasotzen nituen etengabe **zenbaki**-erauntsiak, beren koma eta hamarrenekin. Joxan Elosegi
**Zenbaki** dantza makabroa. Berria - Gaiak
Arabiarrak eskuzabalagoak ziren, eta **zenbaki**-pasaportea eman zieten irrazionalei. Jon Muñoz

**4** (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa)

Baina ez zirudien telefono-**zenbaki** bat markatzen ari zenik. Unai Elorriaga
Han zegoen Funeral Rites, identifikazio **zenbaki** batekin. Iñaki Zabaleta
Athleticeko bazkide-**zenbakia**. Jon Alonso
Euren autoen matrikula **zenbakia** hartzen ari direla jakinarazi zuen. Berria - Mundua
Ondoren hamar digituko **zenbaki** bat, 917 eskualde-**zenbakiarekin** hasten zena. Oskar Arana
Katalogo-**zenbakia** idatzi, eta liburuak eskatzeko fitxak bete zituen. Jon Muñoz
Txartelaren truke, plaka bat eman zioten, leku-**zenbaki** bat idatzita zeukana. Jon Muñoz
Egun horiek pasatuta deituidazu telefonoz Erzurumdik, eta nik erreferentzia-**zenbaki** bat emango dizut. Jon Arretxe
Marka, modeloa, serie **zenbakia**. Berria - Harian

**5** (pluralean, emaitzen adierazpen gisa)

Errealitatea **zenbakiak** dira, ez politika. Berria - Mundua
Guztien gainetik, emakumearen laneratzeari buruzko **zenbakiak** aipatu zituzten. Berria - Euskal Herria
Urteko **zenbakiak** aztertu ondoren, zenbait gogoeta egin ditu Behatokiak. Berria - Harian
Goiz da oraindik **zenbakiak** interpretatzeko, baina lehen ondorioa da hazkunderik nabarmenena «gune erdaldunenetan» izan dela. Berria - Euskal Herria
**Zenbakietara** joz gero, hainbatek baino gehiago idatzi eta saldu dut. Ana Urkiza
Hiru parte-hartze Munduko Txapelketetan eta bost Europako Txapelketetan dira Portugalen zenbakiak, **zenbaki** nahiko eskasak Europako beste herrialde askorekin alderatuz. Berria - Kirola
**Zenbaki** horiek ez dute gogobetetzen Aguirre, ordea, eta golegile peto baten bila ari dira jo eta ke idazkaritza teknikoko kideak. Berria - Kirola
Hau da, nahiz eta **zenbaki** ofizialek bestela adierazi, hemen etorkin gehiegi bizi direla. Berria - Euskal Herria
Japonian lau haize errota saltzeko kontratua lortu duen Gamesa (%0,06) eta Enagas (%0,41) soilik izan ziren **zenbaki** gorriei ihes egiteko gai. Berria - Ekonomia
Azkoyen (%1,25) enpresara, **zenbaki** beltzak itzuli dira, gorriak pasatu eta gero. Berria - Ekonomia

**6** aldizkarietan-eta, data jakin batean ateratzen diren kopien multzoa.

Eskuetan dut lehen **zenbakia**, 1944eko urriaren 19koa. Herria
Kalean da Ostiela! aldizkariaren 33. **zenbakia**. Berria - Kultura
Ale bakoitzetik egiten ziren kopiak zeharo mugatuak ziren, **zenbaki** batzuk ez ziren bost kopiatik pasa. Jokin Urain
Donostiako euskarazko egunkariaren 0 **zenbakiaren** 50.000 ale banatu dituzte San Sebastian egunaren bezperan. Berria - Harian
Hamaika **zenbaki** atera ziren 1937 eta 1941 bitartean Juan de Ajuriagerraren ardurapean, eta kolaboratzaile izan zituen Luki Artetxe, Ander Arzelus Luzear, Sorazu eta Lazkano, besteak beste. Jokin Urain
**Zenbaki** monografiko honetan hainbat egilek hausnartu zuten zer diren filosofoa eta intelektuala XXI. mendearen hasieran. Askoren artean
Hamabi artikulugilek hartu dute parte 'Jakin' aldizkariak urtero egiten duen **zenbaki** berezian. Berria - Kultura
Desastreari buletinaren **zenbaki** berria jasotzean hartu nion benetako neurria. Aingeru Epaltza
1959tik 1969ra bitartean, 28 **zenbaki** eman zituen euskara hutsezko agerkariak, harik eta 1970ean Espainiako Gobernuaren zentsurak argitalpena debekatu zuen arte. Berria - Kultura
Hamar urtez 40 **zenbaki** plazaratu ostean, *Ostiela!* aldizkaria gehiago ez plazaratzea erabaki du Paperzaleak elkarteak. Berria - Kultura
Guztira, 29 aldizkariren 451 **zenbaki** eskaintzen ditu webguneak, 10.967 artikulu, horietatik 7.949 digitalizatuta. Berria - Kultura
Lau urteren buruan, 23 aldizkari-**zenbaki** (1.200 orrialde), sei liburu eta bi CD kaleratu ostean, Putz aldizkariak gehiago ez dela kaleratuko iragarri du, bertan behera uzten duela bere jarduna. Berria - Kultura
**Zenbaki** berean, horra Philippe Fabas historialariak argitaratu lan bat biziki interesgarria. Herria
'LITERATUZTA', 7. **zenbakia**. Berria - Kultura
Harpidetza: 12 **zenbaki** 50. "Navarra, temas de cultura popular", 274. **zenbakia**. Martin Anso
Sei urte geroago, 92an kaleratu zen berriro, Susa narratiba bilduma berriko 7. **zenbakiaz**, Xabier Mendiguren Elizegi

**7** telefono zenbakia.

Haren **zenbakia** ere ez zakiat. Aingeru Epaltza
Neure burua irudikatu nuelarik telefonoa hartzen eta haren **zenbakia** markatzen. Oskar Arana
Sarean zabaldu den berriaren arabera, enpresa horrek telefono-informazioa emateko hainbat **zenbaki** baditu ere, kanpainak egiterakoan bakarra iragartzen du: garestiena den **zenbakiarena** hain justu. Berria - Euskal Herria
Telefonicaren kasuan, esaterako, 11888 **zenbakia** da behin eta berriz iragartzen dutena, eta ia ezer ez dute esaten 11818 **zenbakiaren** inguruan, nahiz eta azken horren kostua bestearen erdia izan eskatzen dena telefono zenbaki bakarra denean. Berria - Euskal Herria

Interneten arazoren bat izanez gero, bertze **zenbaki** batera deitu behar du bezeroak. Berria - Euskal Herria

Azkenean haren **zenbakira** deitzeko adorea bildu nuen. Oskar Arana

Saria, paketea edo dena delakoa jasotzeko 807 **zenbaki** batera deitu behar dutela esaten diete. Berria - Euskal Herria

Ondo dakit okerreko **zenbaki** batera deitu dudala, zu ez zarela Marcel. Eskarne Mujika

Laneko **zenbakia** da. Joxemari Iturralde

8 ***zenbaki lehen*** unitateak eta numero horrek berak soilik zatitzen duten zenbaki osoa.

Badira ez biz, ez hiruz, ez ezein zenbakiz zatigarriak ez direnak: **zenbaki lehenak** dira horiek. Jon Muñoz

13 **zenbaki lehena** da; 9, berriz, ez. Jon Muñoz

2 izan ezik, bakoiti dira **zenbaki lehen** guztiak: 3, 5, 7, 11 13, 17, 19, 23... Jon Muñoz

Bi **zenbaki lehen** bikiak dira, baldin eta elkarrengandik ezin gertuago badaude; alegia, haien arteko aldea bi baldin bada. Jon Muñoz

Garai batetik hona, **zenbaki lehenek** garrantzi txit handia dute kriptologian. Jon Muñoz

**hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**

aldizkariaren zenbaki (4); berdin zenbaki bat (5); beste telefono zenbaki (4); beste zenbaki (4); bi telefono zenbaki (4); deituz telefono zenbaki (4); deituz zenbaki huntarat (4); diru zenbaki (5)

edozein zenbaki (4); ezein zenbaki (3); fax zenbaki (3)

lehen zenbaki (7); lehenengo n zenbaki (3); letra eta zenbaki (3); n zenbaki osoen (3)

telefona zenbaki (8); telefona zenbaki huntarat (4); telefonako zenbaki (12); telefonako zenbaki hauetarat (5); telefono zenbaki (94); telefono zenbaki baten (15); telefono zenbaki batera (3); telefono zenbaki batzuk (3); telefono zenbaki hauetara (3); telefono zenbaki hauetarat (3); telefono zenbaki horretara (3); telefono zenbaki huntara (3); telefono zenbaki huntarat (4); telefono zenbaki hura (3)

zenbaki absolutuetan (3); zenbaki adiskide (3); zenbaki adiskideen (3); zenbaki arrunten (7); zenbaki arrunten multzoa (3); zenbaki bakar (3); zenbaki bakarra (7); zenbaki bakoitza (4); zenbaki bana (3); zenbaki bat eman (5); zenbaki bat markatu (9); zenbaki bat markatzen (4); zenbaki baten azaltzea (13); zenbaki batera deitu (5); zenbaki beltzak (7); zenbaki bera (6); zenbaki berean (4); zenbaki berezi (8); zenbaki berezi bat (5); zenbaki berezian (3); zenbaki berri (6); zenbaki berria (3); zenbaki bidez (5); zenbaki bikoitiak (3)

zenbaki ederra (4); zenbaki erreal (3); zenbaki errealen (7); zenbaki gorriak (13); zenbaki guziak (3); zenbaki guztiak (15); zenbaki handia (5); zenbaki hauetarat deituz (7); zenbaki horiek erakusten (3); zenbaki huntarat deituz (8); zenbaki hutsak (3)

zenbaki identitatea (5); zenbaki irabazdunak (7); zenbaki jakin (3); zenbaki konplexu (3); zenbaki konplexuak (3); zenbaki konplexuen (5); zenbaki lehen (6); zenbaki lehena (6); zenbaki lehenak (5); zenbaki lehenen (8); zenbaki lehenen batura (3); zenbaki negatibo (4); zenbaki negatibo baten (4); zenbaki negatiboak (5); zenbaki negatiborik (3)

zenbaki oso (21); zenbaki oso bat (3); zenbaki oso baten (3); zenbaki osoa (3); zenbaki osoak (8); zenbaki osoen (11); zenbaki osotan (6); zenbaki perfektu (7); zenbaki perfektua (3); zenbaki politak (4); zenbaki soil (3)

zenbaki urria (9); zenbaki urria da (6); zenbaki urria izango (3); zenbaki zehatza (3); zenbaki zehatzak (4); zenbaki zehatzik (5); zenbaki zerrenda (4); zenbaki zonbait (3); zer zenbaki (3); zifrako zenbaki (3)

azken zenbakia (3); bat zenbakia (6); bere telefono zenbakia (6); bere zenbakia (5); bi zenbakia (3); bigarren zenbakia (3); dagokion zenbakia (5)

erreferentzia zenbakia (3); etxeko zenbakia (4); gatibu zenbakia (3); gelako zenbakia (4); gelaren zenbakia (4); haren telefono zenbakia (3); haren zenbakia (6); hirugarren zenbakia (4)

identifikazio zenbakia (4); lehen zenbakia (25); lehenengo zenbakia (6); matrikula zenbakia (4); nire gelako zenbakia (3); nire telefono zenbakia (3); nire zenbakia (7)

okerreko zenbakia (3); telefono zenbakia (87); telefono zenbakia eman (11); telefono zenbakia markatu (4); telefono zenbakia utzi (4); txartelaren zenbakia (4)

urrezko zenbakia (3)

zenbakia ahaztu (3); zenbakia argitaratu (3); zenbakia baduzu (3); zenbakia bera (7); zenbakia da (14); zenbakia darama (4); zenbakia dela (4); zenbakia eman (17); zenbakia eman nion (3); zenbakia emango (3); zenbakia ematen (5); zenbakia erakutsi (3); zenbakia eskuratu (3); zenbakia hartu (4); zenbakia idatzi (8); zenbakia kaleratu (5); zenbakia markatu (27); zenbakia markatu eta (6); zenbakia markatu nuen (7); zenbakia markatzeko (3); zenbakia markatzen (4); zenbakia plazaratu (4); zenbakia plazaratua (3); zenbakia utzi (5); zenbakia utziz (3); zenbakia zen (7); zenbakia zeraman (5); zenbakia zeukan (4)

zure telefono zenbakia (4)

azken zenbakiak (3); bere zenbakiak (4); beren zenbakiak (3); bi zenbakiak (3); diru zenbakiak (7); irabazdunen zenbakiak (5); telefono zenbakiak (21); urteko zenbakiak (4)

zenbakiak agertu (3); zenbakiak eta kopuruak (3); zenbakiak gehitu (3); zenbakiak hartu (3)

aldizkariaren azken zenbakian (4); azken zenbakian (11); bigarren zenbakian (4); hirugarren zenbakian (3); hurrengo zenbakian (6); lehen zenbakian (9); telefono zenbakian (4); zenbakian bizi (3); zenbakian dago (3)

gelako zenbakiarekin (3); telefono zenbakiarekin (5); zenbakiarekin batera (3)

hamabi zenbakiaren (3); zenbakiaren inguruan (3)

zenbakiari dagokionez (4)

zenbakiei buruzko (3)

dagozkien zenbakien (3); irudizko zenbakien (3); telefono zenbakien (5); zenbakien arabera (8); zenbakien bidez (5); zenbakien teoria (8); zenbakien teorian (3)

hurrengo zenbakietan (3)

telefona zenbakietarat (7); telefona zenbakietarat deituz (5)

bi zenbakiko (3); bosgarren zenbakiko (4); hiru zenbakiko (4); kaleko bosgarren zenbakiko (3); sei zenbakiko (3); zenbakiko bigarren (3); zenbakiko instrukzio (6); zenbakiko instrukzio epaitegiak (3)

telefono zenbakira (17); telefono zenbakira deitu (3); zenbakira deitu (10); zenbakira deituta (3); zenbakira deituz (3); zenbakira deitzeko (4); zenbakira iritsi (3)

telefona zenbakirat (13); telefona zenbakirat deituz (7); zenbakirat deituz (8)

telefono zenbakirik (3); zenbakirik ez (10); zenbakirik gabe (4); zenbakirik gabeko (3)

---

**zenbakidun** *izond/izlag* zenbakia duena; aipatzen den zenbakia duena.

Disko **zenbakiduna** biraraz irik. Aingeru Epaltza

Mugarri **zenbakidunak** arin igarotzen dira zure begien aurretik. Jose Morales

Gorago, **zenbakidun** tiradera errenkada batean, ogi arraspatuak, fina eta larria. Karlos Zabala

Matrikula ezeztatzeko mezu ofizial bat aurkitzen du bere postakutxan: 7710101SAM **zenbakidun** Melanie Isaacs ikasleak ezeztatu egin du COM 312 ikasgaiaren matrikula. Oskar Arana

Arto transgenikoa badago, barra kodeaz gain **zenbakidun** kodea ere ageriko da. Berria - Euskal Herria

Oraingo honetan, ez nintzen 67 **zenbakidun** etxearen aitzinetik iragan. Alberto Ladron Arana

654 lagun inguru izango ziren 14116 **zenbakidun** trenean, bederatzi bagoi guztira. Joxan Elosegi

Jatorrizko lana, Oteizak igeltsuz egindako San Cristobal eskultura, Oteiza museoak du gordea, brontzezko bi kopiarekin batera: 9 eta 44 **zenbakidunak**. Berria - Kultura

Finala erreboteko zuloan erabakiko da, bi zifrako **zenbakidun** koadroetan. Berria - Kirola

Lehen eguneko egitbideak Irungo 1 **zenbakidun** Instrukzio Epaitegiak zabaldu zituen. Berria - Euskal Herria

Ben Guy, Exbourne-ko ostatariaren semea, soldadugai berrietakoa, lotan harrapatu zuten bere postuan, eta [...] Lehen **Zenbakidun** Gudu Zigorra ezarri zioten. Mirentxu Larrañaga

**hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**

zenbakidun gudu (3); zenbakidun instrukzio (3)

---

**zenbakigarri** *izond* zenbakitu daitekeena.

Aldagai indibidualen multzo infinitua izango da, infinitu **zenbakigarria** , hau da, zenbaki arrunt bezainbeste aldagai izango ditugu. Askoren artean

---

## zenbakigrama *iz* gurutzegrama zenbakiduna.

Euskaraz, 1897ko *Euskalzale* astekarian aurkitu ditugu lehen **zenbakigramak** , egile izenik gabe askotan (LODIA eta M.A. IÑARRA izen-goitizenak ere ematen dira). Iñaki Arranz

---

## zenbakika *adlag* zenbakien arabera.

Zenbakiok www.zientzia.net web gunean daude, besteak beste, eta **zenbakika** edo artikuluka ikusi, gorde eta inprima daitezke. Berria - Gaiak

**Zenbakika** gara zoriontsu, **zenbakika** kontatzen ditugu bizi izan ditugun egunak. Karlos Linazasoro

---

## zenbakikuntza *iz* numerazioa.

Salmoen aipamenetan, Vulgatako **zenbakikuntza** erabili da. Askoren artean

---

## zenbakitu, zenbaki(tu), zenbakitzen **1** du *ad* zenbakia ezarri. ik **numeratu**.

Sistema gogobetegarri bakarra urte partikular bat hasierako datatzat aukeratu eta ondorengo urteak **zenbakitzea** da. Iñaki Mendiguren

Egileak letik XIIIra **zenbakitu** zituen, osotasun bat eratzen zutela eta dena ordena jakin baten arabera antolatuta zegoela garbi adierazteko. Jon Muñoz

Hitz hori silabak bezainbat zatitan banatuta dago, zati horiek **zenbakituta** daude, eta igarkizunetarako parada ematen dute. Iñaki Arranz

**2** (era burutua izenondo gisa)

Aldi berean, sei hilabete **zenbakituen** lehenengoari, Quinctilis-i, enperadorearen izena eman zitzaion eta, ingelesez, *July* bihurtu da. Iñaki Mendiguren

**3** zenbatu.

Jaz baino erdia gutiago, erran nahi baita adibidez 1871 sartze zirelarik juanden urteko udan, aurtengoan 936 baizik ez direla **zenbakituak** izan. Herria

Hazparnen baditugu 50 elkartez goiti **zenbakituak** . Herria

---

## zenbakitxo *iz* tamaina txikiko zenbaki ikurra.

Deia **zenbakitxo** bat izaten da eta horren erreferentzia orrialdearen beheko aldean agertuko zaizu. Askoren artean

---

## zenbakitzaile *iz* zatiki batean goiko aldean kokatzen den zenbakia.

Zatiki bati erantsitako zenbaki oso batez eratuta dago haren **zenbakitzailea** ...eta zatiki horrek berak, berriz, aurrekoak bezala eratutako zenbaki oso bat eta zatiki bat du izendatzailetzat... eta hurrena ere halaxe. Jon Muñoz

Zenbakia izendatzailean zegoenean, berriz, **zenbakitzailera** igo zenbakia, eta "-" ipini berretzailearen aurrean. Jon Muñoz

**Zenbakitzailean** , zenbaki oso bikoiztuak: bi bider bi, bider lau bider lau, bider sei bider sei eta abar. Jon Muñoz

---

## zenbakitze *iz* zenbatzea.

Diru **zenbakitze** eta gorabeheren aipatzearekin bukatuko dute biltzarre hori. Herria

---

## zenbakizko *izlag* zenbaki bidezkoa. ik **numeriko**.

**Zenbakizko** kalkulua. Jon Muñoz

Magnitude geometrikoak (Cavalieriren ustea) ala **zenbakizko** magnitudeak (Fermaten iritzia)? Jon Muñoz

Izadia ezagutzeari **zenbakizko** oinarri bat ematea: horra pitagorikoen proiektua. Jon Muñoz

Informazio multzo handiak **zenbakizko** kodeetan adierazi, gorde eta transmitititzeko ahalmena. Juan Ignacio Pérez / Pello Salaburu

Hala, harmonia musikalak adierazteko gauza suertatu ziren **zenbakizko** erlazioak. Jon Muñoz

Vitruviok arkitektura **zenbakizko** arau eta erregela bidez transmititzeko zuen obsesio hori. Santiago Iruretagoiena

Erabat ukatu zuten aski dela intuizioa egia matematikoak egiaztatzeko, eta orobat ukatu zituzten **zenbakizko** frogak. Jon Muñoz

Hirugarrenen eta bosgarrenen ideia horrek -tarte musikalen zentzu pitagoriko, **zenbakizkoa** - oso berezkoa ematen zuen Stephenengan. Xabier Olarra

---

## zenbakor *izond* zenbagarria.

Adina pentsatzen zenuen zuk orduan ere, zeure hiztegitxoan urteak eta denbora itzultzen zen kontzeptu **zenbakorraz** . Lourdes Oñederra

---

## zenbana **1** *banatz (galdetzaile gisa)* zenbat bakoitzak?, zenbat bakoitzari?

**Zenbana** urte dituzte? Jose Morales

**Zenbana** arimaren jabe ziren eta haien lur-sailak nolako egoeran zeuden galdetu zuen aurrena. Jose Morales

Infernura inguruka doan eskaileran geratu gara ez dakigula / **zenbana** igon maldak. Jokin Urain

**2** *banatz* zenbatean.

Galdegin zion Laisi berari ea **zenbana** saltzen zuen fruitua, zer balio zuen merkatalgoak. Joan Mari Irigoien

---

## zenbanahi ik **zenbat-nahi**.

---

## zenbat *(orobat **zonbat** g.er. eta **zunbat** g.er.)* **1** *zenbtz (galdetzailea)* ze kopuru?

**Zenbat** ordu?" **Zenbat** egun geratzen zaizkik hiri? Jon Muñoz

- **Zenbat** urte? -galdetu zuen neskak. Mirentxu Larrañaga

**Zenbat** emakume izan dituzu? Jon Muñoz

**Zenbat** jende atxilotu dituzue? Elena Touyarou

Eskola honetan **zenbat** jende dago ba? Joseba Sarrionandia

**Zenbat** tximeleta geratzen zaizkizu oraindik niri bidaltzeko? Joxemari Iturralde

- **Zenbat** lanpara ditu? Unai Elorriaga

**Zenbat** hotel, **zenbat** ostatu bisitatu zituzten? Alberto Ladron Arana

- **Zenbat** orri ikusi dituzu, eskuizkribu horrenak? Oskar Arana

**Zenbat** plater behar dituzu, jakin baliteke? Irene Aldasoro

- **Zenbat** azpisailetan banatuta dago Le Mondeko kultura saila? Joxerra Garzia

**Zenbat** eratara uler daiteke albistea? Iñigo Aranbarri

**Zenbat** aldiz, Curtis? Mirentxu Larrañaga

**Zenbat** aldiz baztertu dira hainbat ideia zientifikoak ez zirelako? Berria - Gaiak

Eta **zenbat** denboran bizi daiteke gizona bakarrik? Koro Navarro

## **2** (zehar galderatan)

**Zenbat** denbora iraun zuen horrek, ez dakit batere, azkenerako lozorroan sartua bainintzen. Josu Zabaleta

Ikasgai berezi bat eman dezake ikasturte bakoitzeko, **zenbat** ikasle matrikulatu diren kontuan hartu gabe. Oskar Arana

Lotsatu egiten nau **zenbat** botika hartzen ditudan kontatzeak, **zenbat** pastilla irensten ditudan. Koro Navarro

Ez dakit **zenbat** ordutako loaldiak egingo nituen. Pako Aristi

Banituen ia hirurogei urte, eta ez nekien **zenbat** denbora geratzen zitzaidan. Oskar Arana

Sukaldeko ate ondoraino lagundu eta kanpoko lorategian **zenbat** tulipa ikusten zituen galdetzen zioten. Imanol Zurutuza

Ongi ikasia nintzen **zenbat** brazatan dabilen arrain mota bakoitza. Koldo Izagirre

Ikusgarria zen **zenbat** koadro saltzen zituen. Unai Elorriaga

Ea **zenbat** behi ote ziren, eta hamalau. Joxerra Garzia

Nire atzetik lau babalore zetozean, auto baten barruan, nor bere libretatxoarekin, pasatzen nintzen kale bakoitzeko leihoetara begira: **zenbat** argi piztu eta **zenbat** jende esnatzen nuen zenbatu behar zitean, pentsa! Harkaitz Cano

**Zenbat** gorrotatzen nauen ere esango zizun honezkero, ez? Xabier Paya

Bost axola hari **zenbat** bider ekiten zioten orroka sarjentuek eta kaporalek. Mirentxu Larrañaga

## **3** (izenik gabe)

**-Zenbat** eskatzen du? Anton Garikano

- **Zenbat** behar dik jaisten hasteko? Koldo Izagirre

**Zenbat** balio du teorema batek zure ustez, Ruche jauna? Jon Muñoz

Baliagarria zen jakitea urre kilo batek **zenbat** balio zuen garai hartan. J.M. Olaizola "Txiliku"

**Zenbat** animatzen diren ikusteko. Arantxa Iturbe

Gezurra dirudi gizon horrek **zenbat** dakien euliei buruz. Hasier Etxeberria

Badakit ez duela susmatzen **zenbat** eskertzen den musu txiki hori. Lander Garro

Ez dut Enrieta besarkatzen ahalko, eta ez diot erraten ahalko **zenbat** damutzen naizen. Elena Touyarou

- **Zenbat** zor diat? -galdetu zuen Hübelek, goibel. Anton Garikano

Formularekin, **zenbat** ateratzen zen? Jon Muñoz

Hik esan **zenbat**. Irene Aldasoro

Ea **zenbat** irauten duzun horrela. Gotzon Garate

Datuak elkarren segidan eman behar dira, garrantzitsuenetik xeheenera: zer eta non, zergatik eta nola, **zenbat** eta noiz. Iñigo Aranbarri

Besteak zer bilakatu ziren, **zenbat** ziren, bizi zirenentz galdetzea ere ez zitzaion burutik pasatu. Elena Touyarou

Harrigarria da [...] **zenbat** kostatzen zaigun inori, bizi dela, bere meritua aitortzen. Joxerra Garzia

Dena amaitu zenean, aitak ez zekien zer egin zuen, ez zuen gogoratzen **zenbat** ea zein aldetakoak hil zituen. Juan Kruz Igerabide

## **4** (izenik gabe, izan aditzarekin)

**'Zenbat** da?' esango duzu poltsikotik sos batzuk bilduta. Joseba Sarrionandia

- **Zenbat** da plater ilarra? -galdetu zuen Lenehanek. Irene Aldasoro

- **Zenbat** dira konpondu beharreko kontuak? Xabier Olarra

Nork esan dezake **zenbat** eta nolakoak diren, Jaunak Frantziskoren bidez alde guztietan egiten dituen mirariak? Askoren artean

Hik ba al dakik **zenbat** ziren errege magoak? Joan Mari Irigoien

Guk ez dakigu **zenbat** diren ortziko izarrak. Xabier Kintana

Bihotzekoak jota, edo errepidean, edo minbiziaz hiltzeko dauzkadan probabilitateak **zenbat** diren kontuan hartuta, [...]. Jon Alonso

**Zenbat** zarete? -Esterrek leher eginda zirudien. Pedro Alberdi

- **Zenbat** ditu hilak gaur? -galdetu zidan bat-batean. Alberto Ladron Arana

## **5** (harridura esaldietan, kopuruaren handia adierazteko)

**Zenbat** mehatxu jaso dugun! Pako Aristi

**Zenbat** agurmaria errezatu nizkion nik egun haietan etxean genuen Ama Birjinaren irudiari! Joan Mari Irigoien

**Zenbat** lan egiten genuen!"Lucy gaixoa", xuxurlatzen du: **"Zenbat** gauza jasan behar izan dituen!". Arantxa Iturbe

**Zenbat** aldiz, **zenbat** modutara, aditu ote dut "noskixeago ere" hori! Patziku Perurena

**Zenbat** sufritu ote zuen Sehrazadek gauez zer kontatuko egunez asmatu ezinik! J.M. Olaizola "Txiliku"

Grosrouvreri esker, abentura honetan sartuta nabilenez geroztik, **zenbat** gauza ikasi dudan! Jon Muñoz

Itsaso hartako **zenbat** ipuin abadeak kontatuak. Edorta Jimenez

**Zenbat** galdera, eta zein erantzun gutxi. Karlos Linazasoro

**Zenbat** txosten, **zenbat** bidaia. Edorta Jimenez

Jakingo balute kopulatzen dugun bakoitzeko **zenbat** denbora pasatzen dugun horretan pentsatzen! J.M. Olaizola "Txiliku"

Titanic aipatzen da, baina **zenbat** eta **zenbat** naufragio izengabe, hitzen icebergetan erpina baizik ez ikustearren. Joxerra Garzia

## **6** (harridura esaldietan, izenik gabe)

Maiteok, **zenbat** bildu zareten hona! Jose Morales

Ai, afektibitatea urritzen denean, **zenbat** kostatzen zaigun harremanen errealitate gordinari eustea! Anjel Lertxundi

Jakingo bagenu **zenbat** estimatzen duen erleak otalore hori gozoa! Pello Zabala

Euskal baserritarrak **zenbat** begiratu behar izan dion zeruari! Pello Zabala

**Zenbat** gehiago ez ote duzue balio zuek hegaztiek baino! Elizen arteko biblia

Hainbeste zabor eta zikin, erreketatik hasi eta ibaietatik segi, lurra eta itsasoa bera **zenbat** zikindu ditugun! Pello Zabala

**Zenbat**, mahasti honen fruitu berri garbiak lapurtu eta irensten saiatu zirenak! Askoren artean

## 7 (ez partikularen ezkerran)

**Zenbat** aldiz ez ote zizkion entzun amari hitz horiek beroriek umetan, berari esaten zizkiolarik? Oskar Arana

**Zenbat** aldiz ez ote zuen huts egin! Jon Muñoz

Izan ere, **zenbat** ezjakin ez ote zaizkigun presaka gezurtatzera etorriko horrekin edo antzeko adibideekin! Xabier Kintana

**Zenbat** urratze ez ote zuen egin! Koro Navarro

Liburu horretan **zenbat** malenkonia ez dagoen! Patxi Ezkiaga

Txantxarrak jotako haginak ordea, **zenbat** lan ez ote digun ematen atera nahi ez duenean! Harkaitz Cano

Izan ere, **zenbat** oinarri ez ote dira atera ahal zenbakien izaeratik eta gorputz geometrikoen propietateetatik. Xabier Kintana

Kontua galdua du dagoeneko **zenbat** bider ez ote duen egin oka sendagaiak direla eta. Imanol Zurutuza

## 8 (izen gisa)

Auskalo! Baina, ez dio **zenbataren** kopuruak batere inporta. Pello Zabala

Hiru minutu geroago kanpoan izanen nintzen eta haiek, berriz, agorrileko ortziral eguzkitsua deabruari oparitzen segituko zuten, auskalo **zenbatak** arte, zertan eta udan ohi diren albiste zirraragarrietan. Aingeru Epaltza

## 9 ***zenbatean****sup_1* zer preziotan.

Eta gurina, **zenbatean** dago gaur? Karlos Zabala

Kobrea, hi. **Zenbatean** dago orain? Pablo Sastre

**Zenbatean** salduko zenizkioke zure zakukiok Jaunari? Askoren artean

Tira, aitor ezazu, **zenbatean** saldu duzu eztia? Jose Morales

Gutxi gorabehera, besteei esateko, **zenbatean** aterako litzaiguke dena? Pablo Sastre

-**Zenbatean** eramango gaituzu Cojimar-era? -galdetu zuen. Jon Muñoz

Arima hilen prezioa **zenbatean** zegoen jakitera. Jose Morales

## 10 ***zenbatean****sup_2* zenbatetan.

Ikus dezagun batez besteko tenperatura **zenbatean** gelditu zaigun urriari dagokionean, gure lau hiriburuotan. Pello Zabala

Frantsesek hainbat bider egiten dutela, italiarrek beste hainbatetan, yankiek auskalo **zenbatean**, eta txinatarrek... Luis Elberdin

## 11 *zenbatean behin*

Zenbatero idazten zenuen begiratu, **zenbatean behin** jasotzen zenituen erreparatu, eta azkar aski konturatu nintzen, [...]. Xabier Mendiguren Elizegi

Zurrategira joan ninduan: jakin nahi nian noiz, non, **zenbatean behin**, zein egunetan husten zituzten tinak. Juan Garzia

Erabakitzeko eskubidea, zer-nolako harremanak nahi ditugun Nafarroa eta Ipar Euskal Herriarekin, erabakitzeko eskubidea nola gauzatu daitekeen, **zenbatean behin**, nola, Europarekiko harremanak... Berria - Euskal Herria

## 12 ***zenbateko*** *izlag* zer tamainako, zer kopuruko. ik**zenbateko**.

Nolako eta **zenbateko** zigorra zor zaion erru bakoitzari Jaungoikoaren epaia da, ez gizakiona. Imanol Unzurrunzaga

Bezero batek kanpoan erre nahi ez badu eta salatzen ez badugu, **zenbateko** isuna ordaindu beharko dugu? Berria - Gaiak

Aski zuen fardelen tamainari erreparatzea bakoitzaren barruan zeuden oihalek edo bestelako ehunek **zenbateko** pisua zuten jakiteko. Jose Morales

Kontsumo-Zuzendaritzak kontsumitzaileei gomendatu die **zenbateko** zorra egingo duten arretaz hartzeko. Berria - Ekonomia

Kontua da ez dakigula **zenbateko** komisioa kobratzen duen. Berria - Harian

Hala ere, ez zuen esan Euskal Y-ak **zenbateko** aurrekontua izango duen. Berria - Euskal Herria

**Zenbateko** errenta duzu? Antton Olano

**Zenbateko** bidea dugu? Iñigo Aranbarri

Badakigu, konturatzen gara, egungo gizarte-moduan funtzionaltasunak **zenbateko** zama duen komunikazio-arrakastan. Andoni Egaña

**Zenbateko** indarra behar den bala erraldoi barne-huts bat Lurraren grabitatetik ateratzeko. Karlos Zabala

Pentsa ezazu **zenbateko** dirutza xahutu izan duen aitak Mattengan, behin eta berriro; iruditzen zait nahikoa eta gehiegi egin zuela. Mirentxu Larrañaga

Badaki kalkulatzen lurrak **zenbateko** hezetasuna behar duen eta **zenbateko** tartea utzi behar den zuhaitz batetik bestera. Jose Morales

Bartolome Izetaren bozak halaxe ohartarazi zidan **zenbateko** isiltasuna genuen inguruan. Edorta Jimenez

Peter gaixoa, **zenbateko** maitasun beharra izan behar duen! Josu Zabaleta

Pentsa **zenbateko** aldea, uzta on eta osatu bat izan edo erabat eskasa eta galdua bildu. Pello Zabala

Horrek denak **zenbateko** eragina izan dezake gure gorputzean? Pello Zabala

Ikusi besterik ez dago **zenbateko** argitalpenak -milioika aletakoak- egin diren liburu honenak eta Saint-Exupéryren beste zenbaitenak. Josu Zabaleta

Xavier Gonzalez de Rivera epaileak atzo zehaztu zuen **zenbatekoa** den kalte-ordaina. Berria - Kirola

Zizeronek, hau jakinarazten digularik, ez digu esaten **zenbatekoa** zen kopuru hori, baina Dionek dio ehun mila sestertzio zirela. Iñaki Iñurrieta

Arau hauek argitaratuz gure zientziaren handitasuna **zenbatekoa** den azaltzen saiatuko naiz. Santiago Iruretagoiena

Argazki txukun bat egiteko, hainbesteko argi kantitate bat behar da, filmaren sentikortasuna (edo lastertasuna) **zenbatekoa** den. Irene Aldasoro

## 13 ***zenbatenaz*** (**hainbatenaz**-ekin batean)

**Zenbatenaz** gorputza gaiago den honelako edo halako objektuaren irudiak iratzartzeko, hainbatenaz ere gaiago da Izpiritua honelako edo halako objektuari ohartzeko. Piarres Xarriton

**Zenbatenaz** izan ziren zientziak maitatuak Grezian, hainbatenaz izan ziren baztertuak Erroman. Jon Muñoz

Aitortu behar badut ere **zenbatenaz** irakurriago hanbatenaz ederrago atzematen ditudala holako hitzak. Pello Salaburu

Eta **zenbatenaz** nire bihotzak partitzeari uko egiten dion, hanbatenaz frogatzen dit partitze horri men egiteko premia. Jon Muñoz

**Zenbatenaz** emakume horri so egon, hanbatenaz dut hura desiratzenago. Jon Muñoz

Gurpilari lotuak ginen: **zenbatenaz** eta gehiago idatzi hanbatenaz zitzaigun iduritzenago halabeharrez irakurri behar genituela dendetako apaletako liburuak oro. Pello Salaburu

**Zenbatenaz** ere gogopiztu ninduen haitzetako nikelaren analisiak, aurreko nire bizialdian, hainbatenaz ere makurrago abailarazten ninduen orain fosforoaren eguneroko neurketak. Juan Garzia

Ongi uler dezakezun bezala, **zenbatenaz** hark hitz gehiago egin, hainbatenaz gehiago zabaldu zitzaizkidan neuri begiak, ustekabeko batetik bertze ustekabeko baterat. Joan Mari Irigoien

## 14 (bestelakoetan) zenbatez.

Guztiok horrela mugituko bagina mundua **zenbatenaz** ederragoa izango litzatekeen pentsatzen ari nintzen, tximista batek argiturik bezala Sophieren hurrengo nobelaz gogoratu nintzenean. Joxean Agirre

## 15 ***zenbateraino*** *(301 agerraldi, 99 liburu eta 75 artikulutan)*

Ezin da sinistu **zenbateraino** aldatzen diguten aurreiritziek errealitateari buruzko ikuspegia. Bernardo Atxaga

Eginahalak egiten ari zen ez nendin konturatu **zenbateraino** zegoen kezkatuta. Anjel Lertxundi

Ixil-ixila gelditu nintzen, ahal guziak eginez ez erakusterat emateko **zenbateraino** hunkia nintekeen. Janbattitt Dirassar

Magikoa **zenbateraino** den, beste auzi bat da. Juan Garzia

Batzuetan zaila da jakiten **zenbateraino** edo noraino erreprimitu behar duen batek bere izaera zenbaiti atsegin gertatu ahal izateko. Ramon Saizarbitoria

Arkitektoak antzeman beharko dio zein neurritan komeni den proportzioari jarraitzea eta **zenbateraino** komeni den lekuaren izaerari edota obraren tamainari egokitzea. Santiago Iruretagoiena

**Zenbateraino** baliatu zara kazetaritzaz literatura egiteko? Ana Urkiza

**Zenbateraino** da genetikoa? **Zenbateraino** dute kanpo faktoreek eragina? Berria - Gaiak

Izan ere, demostrazio haiek, **zenbateraino** ziren luzeak? Jon Muñoz

**Zenbateraino** ahaltsua? Jon Muñoz

Horra, adiskideak, **zenbateraino** nintzen ergela eta harroa garai hartan. Matías Múgica

Ez dakit nik bere krisiaren eragileak **zenbateraino** izan ziren espiritual-intelektualak eta **zenbateraino** pertsonalak. Xabier Mendiguren Elizegi

Egiaz ez dakit **zenbateraino** maite nauen edota inoiz elkarri musu bat emateko gauza izango garen. Josu Zabaleta

Neure buruari galdetzen nion ea zertan ote zebilen orain Adela, ea **zenbateraino** sarturik ote zegoen droga kontuetan. Juan Kruz Igerabide

**Zenbateraino** gauden erne, **zenbateraino** hartzen ditugun kontuan gauzak aldatzen ari direla, horrek lagunduko digu behar den lehia jartzen merkatuan. Juan Ignacio Pérez / Pello Salaburu

Bertsolarien binakako lana **zenbateraino** den elkar-lan. J. Garzia / A. Egaña / J. Sarasua

Ea teknologiaren gaitasun potentzialak **zenbateraino** ase ote zitzakeen gizadiaren gero eta eskari handiagoak. Iñaki Mendiguren

Garbi zegoen Stephenek ikusmenezko analisi abstrakturako zuen ahalmena, baina **zenbateraino** axola zion "esanahi"ak? Xabier Olarra

Begira, Jauna, eta ikus **zenbateraino** nagoen mesprezatua! Elizen arteko biblia

## 16 *zenbatetansup_1* zenbat aldiz.

- **Zenbatetan** erran behar dizut, ni Louise naizela. Itxaro Borda

Ez da hemen erratekoa zenbat aitzin-gibel egin nituen eta **zenbatetan** desbideratu behar izan nuen, arriskutik urrundu beharrez. Aingeru Epaltza

**Zenbatetan** ez ote dut gogoratu zer eragin duen bizilekuak jendearen izaeran eta moldetasunean! **Zenbatetan** etorri izan zaidan, ordutik honat, iduri hura, jaun André, neure bizitzako gaurik gautsuenetan partikularzki...! Josu Zabaleta

**Zenbatetan** ez dugu, bada, uste ustelaren gainean jardun euskaldunok? Iñaki Arranz

Jakingo bazenu **zenbatetan** jardun naizen horretan! Karlos Zabala

· Saltzen dituzuen produktu guztietatik, **zenbatetan** azaltzen da etiketa euskaraz? Berria - Harian

## 17 *zenbatetansup_2* zenbatean, zer preziotan.

halaxe itaundu nion kaxa jokatu nahi zuenari, erdi keinuz eta erdi berbaz, hura **zenbatetan** emango zidan. Edorta Jimenez

## 18 *zenbatetaraino* *(17 agerraldi, 3 liburu eta 14 artikulutan)* zenbateraino.

Desberdintasun horiek **zenbatetaraino** behar diren kondutan hartu ala horien gainetik behar den segitu, holakorik ez balitz bezala, dena hortan ditake. Herria

Falta delarik, orduan ohartzen gara **zenbatetaraino** den funtsezkoa eta bertzeak zer heinetaraino diren bigarren mailakoak. Eneko Bidegain

Herriari atxikia baitzen, berak ez zekien oraino **zenbatetaraino**, misio hori onartu zuen. Michel Oronoz

Ikusi beharko da lege proposamen horri **zenbatetaraino** kasu eginen dio frantses gobernuak. Herria

Ikusiko gure iduripena **zenbatetaraino** kondutan hartua izanen den. Herria

Ez naiz neure burua psikoanalizatzen hasiko, baina badakigu pertsona bere bakarrean zeinen gauzaeza den, eta **zenbatetaraino** den gizabanakoa gizajobanako hutsa. Iñaki Segurola

## 19 *zenbatez* zenbateko aldearekin.

Ez dugu jakin ahal izan **zenbatez** bainan lehen horiek dira irabazi dutenak. Herria

Ez dugu xuxena jakin **zenbatez** irabazi duten xuberotar horiek *Baigorri Zaharrer-Segi*ko bikotearen kontra, baina irabazi gisa guziz. Herria

## 20 (ere partikularen ezkerrean)

Ikusten duzu, adiskide eder horrek, egiatik **zenbatez** ere nintzen hurbil. Jon Muñoz

Orain bederen nahitaez jakitun baitzaude, aise sumatuko duzu **zenbatez** ere zure proposamena irrigarria zaidan iruditu. Jon Muñoz

## 21 *zenbatez ...ago*

Baina omorez **zenbatez** aberatsago ziren! Angel Aintziburu / Jean Baptiste Etxarren

Orain ere **zenbatez** ez gintezke zuzenago, holako beldurño bat bihotzean atxikiz... Angel Aintziburu / Jean Baptiste Etxarren

**zenbatez** ez ote dira gu baino zoriontsuago itsasoan barrena mundu berri baten bila abiatzen diren kolonoak; aurrera jarraitu baizik ez dute. Josu Zabaleta

**Zenbatez** zigor handiagoa mereziko duela uste duzue Jainkoaren Semea hankapean erabili, sagaratu duen ituneko odola profanatu eta graziaren Espiritua iraintzen duenak? Askoren artean

**Zenbatez** zigor handiagoa ez ote du merezi izango Jainkoaren Semea hankapean erabili, sagaratu duen ituneko odola profanatu eta Jainkoak onginahiz eman dion Espiritua iraintzen duenak! Elizen arteko biblia

Eta **zenbatez** ez da gehiago gizakia ardia baino! Elizen arteko biblia

**Zenbatez** gaizkiago datorkio Kreatzaileari eta jainkozko zuzentasunari horrela prestaturiko arima bat bertan behera uztea! Joan Mari Lekuona

**Zenbatez** ederragoa [...] motor elektriko baten eginkizuna, ezen ez gihar-lan zakar, basati eta gaizki aprobetxatu hura! Josu Zabaleta

## 22 *zenbatean behin*

Zenbatero idazten zenuen begiratu, **zenbatean behin** jasotzen zenituen erreparatu, eta azkar aski konturatu nintzen, axola gutxiko beste hainbat eskutitzekin batera, hamabostean behin iristen zitzaizula gizonezko berak igorritako gutun bat. Xabier Mendiguren Elizegi

Zurrategira joan ninduan: jakin nahi nian noiz, non, **zenbatean behin**, zein egunetan husten zituzten tinak. Juan Garzia

Erabakitzeko eskubidea nola gauzatu daitekeen, **zenbatean behin**, nola. Berria - Euskal Herria

## 23 *zenbat ere*

**Zenbat ere** galdera egiten nizkion, **zenbat ere** aldiz saiatzen nintzen hura engainatzen informazio baliagarriren bat, apurren bat ez bazen ere, eman zezan, bat ere atarramenturik atera gabe jarraitzen nuen. Oskar Arana

**Zenbat ere** gauza zentzugabe eta sobrako egiten zituen, denak iruditzen zitzaizkidan niri natural askoak eta ezinbestekoak. Matías Múgica

Nik, **zenbat ere** urratua nintzen, une horretantxe biratu nuen burua, bi segundo, hiru gehienez ere. Aingeru Epaltza

## 24 *zenbat ere ...ago*

Ez dut uste nire erantzunak plazer handirik emanen dionik: aitor dezadan ordea ezen zorigaiztoko gertakari honetaz **zenbat ere** nagoen jakitunago, haren egilearen kontra are naizela sumintzenago. Jon Muñoz

Eta, ur hotzez busti ondoren **zenbat ere** sendoago eta freskoago sentitu, hainbat biziagoa eta jasanezinagoa bilakatzen zen une bateko beldurraren sentipena. Jose Morales

## 25 *zenbat eta ...ago ...*

**Zenbat-eta** gutxiago jakin, errazago hitz egiten da nonahiko errealitateaz, eta zernahiren errealitateaz, hala fisikan nola politikan eta bizitzan. Iñaki Segurola

**Zenbat eta** gehiago bereganatzen den, gehiago gaitzen da Jainko txit onagandik mesedeak eta dohainak hartzeko. Patxi Altuna

Jainko maneei opariak eskaintzen eta, **zenbat eta** okerrago aurkitu, gogotsuago jotzen dute erlijiora. Xabier Amuriza

Beste planetak ere, zeruaren ertzetik **zenbat eta** tarte handiagora dauden eta beren orbita lurretik **zenbat eta** hurbilago daukaten, azkarrago dabiltzala iruditzen zaigu.

Santiago Iruretagoiena

Garbi dago txanponaren erabilgarritasuna areagotu egiten dela **zenbat eta** eremu handiagoan izan erabilera legala. Iñaki Mendiguren

**Zenbat eta** kalifikazio hobea, lehentasuna ere handiagoa izango du aukeratutako ikasketetan matrikula egiteko. Juan Ignacio Pérez / Pello Salaburu

Beraz, gehiago irabaziko du trukean **zenbat eta** sendoagoa izan inportazio-eskariaren prezio-elastikotasuna, eta **zenbat eta** ahulagoa izan esportazio-eskaintzaren prezio-elastikotasuna. Koro Navarro

**Zenbat eta** eremu zabalagoan, eta **zenbat eta** euskaldun gehiagok erabiltzen dituzten ezaugarriak, egokiagoak dira eremu txikietan eta hiztun gutxiren jardunetan erabiltzen direnak baino. Koldo Zuazo

Berdin zaidala zein lineatan, **zenbat eta** azkarrago hobe. Joxe Austin Arrieta

## 26 (bigarren atalak are osagarria duela)

**Zenbat eta** iraultzaileagoa izan mezua bere muinean, are garrantzitsuagoa litzateke aurkezpen ezagun eta atseginez jantzita ematea. Iñaki Mendiguren

Mundu honetan **zenbat eta** jakintsuago eta boteretsuago izan ziren, are oinaze larriagoak jasango dituzte infernuan. Askoren artean

Horregatik ikaratzen nau haren presentziak; **zenbat eta** gehiago pentsatu, are gehiago beldurtzen nau. Elizen arteko biblia

**Zenbat eta** asmoa endoxalagoa izan, are eraginkorragoa da ilusioa. Josu Zabaleta

Baina, **zenbat eta** gehiago pentsatu hartan, are argiago ikusten dut Molly. Mirentxu Larrañaga

**Zenbat eta** hartaz pentsatuago, etorkizuna are beltzago ageri baitzitzaien alemanen aurka matxinatu ziren zamaketariei. Felipe Juaristi

Erosotasun hori bada tranpa ere, zeren eta **zenbat eta** ordu libre gehiago izan, are eta proiektu gehiagotan sartzen bainaiz. Ana Urkiza

Nire sorlekutik **zenbat eta** hurbilago, are kasu handiagoa nik. Aingeru Epaltza

## 27 (bigarren atalak orduan eta osagarria duela)

Hitzak **zenbat eta** goxoago, orduan eta eraginkorrago. Elizen arteko biblia

Hala kareorezko berdinketa-geruza **zenbat eta** gehiago finkatu, orduan eta luzaroago iraungo du zarpeatuak sendo. Santiago Iruretagoiena

Gizon suharra naiz, eta **zenbat eta** arriskutsuagoa bihurtzen zaidan bizitza, orduan eta zoriontsuagoa naiz. Oskar Arana

Garbi izan dezagun gure desiragaia **zenbat eta** gertuago izan, orduan eta liluragarriagoa izango dela hartaz gozatzea. Juan Martin Elexpuru / Bego Montorio

**Zenbat eta** hurbilago kolegiora itzultzeko eguna, orduan eta isiltasun handiagoa sentitzen nuen inguruan. Bernardo Atxaga

**Zenbat eta** euskaldunago, orduan eta bakarrago, eta arrotzago. Patziku Perurena

**Zenbat eta** ezberdinago izan kanpoko egitura, orduan eta argigarriago gertatzen zaigu Klararen testigantza oinarrizko frantziskotar identitatea ulertzeko eta hartaz jabetzeko. Askoren artean

**Zenbat eta** argi-iturria hurbilago, orduan eta gehiago konbergituarazi behar dira argi-izpiak. Josu Zabaleta

**Zenbat eta** finago moztu lerroak, orduan eta luzeagoa izango zen soka, eta orduan eta handiagoa sokak bere baitan hartuko zuen azalera. Jon Muñoz

**Zenbat eta** justuagoak izan legeak, zenbat sakratuagoa eta bortxaezinagoa segurtasuna, orduan eta handiagoa soberanoak bere menpekoei gordetzen dien askatasuna. Juan Martin Elexpuru

**Zenbat eta** gehiago ohitu Errusiarekin, mendebaldartzen ari ziren herri ez-errusiar haiek, orduan eta biziago ohartzen ziren petritar Errusiaren Mendebaldeko bernizaren axalkeriaz. Iñaki Mendiguren

Hizkera eredu batek [...] **zenbat eta** bizitasun handiagoa izan, hau da, **zenbat eta** hiztun gehiagok erabili, orduan eta hobe. Koldo Zuazo

Eta **zenbat eta** ikasle gehiago kanpora bota, orduan eta gusturago bera. Iñaki Mendiguren

## 28 (bigarren atalak hainbat eta osagarria duela)

Badirudi, hala ere, **zenbat eta** gehiago nik zuek maite izan, hainbat eta gutxiago maite nauzuela zuek ni. Elizen arteko biblia

**Zenbat eta** luzeago, hainbat eta biribilago. Iñaki Arranz

**Zenbat eta** Jainkoaren laguntza jarraikiago izan ariman, hainbat eta zoriontsuago izanen garela bakoitza gure bizian. Piarres Xarriton

**Zenbat eta** eurak handiago, hainbat eta jauskera handiago eta larriagoa izan zuten. Xabier Amuriza

**Zenbat eta** elkarren berdinagoak aurkituko, hainbat eta egiazkoagoa azalduko da ez direla ahalmen bat beraren azalpen desberdinak, euren oinarrizko ahalmen dei daitekeenarenak baino. Jenaro Garate

**Zenbat eta** ezagunagoa izan kirola bera, hainbat eta ulerterrazagoa izango dugu araudia. Patxi Altuna

**Zenbat eta** orbain gehiago, hainbat eta konprometituago, jatorrago, iraultzaileago. Aingeru Epaltza

· Bide batez hainbat sublimeago egiten du guda horrela daraman herriak, **zenbat eta** handiagoak izan diren jasan dituen arriskuak, kementsu jardunez. Jenaro Garate

## 29 *zenbat eta zenbat*

**Zenbat eta zenbat** miliun sartu dituzte beren moltsan ez dugu sekulan segurki jakinen. Herria

Egunero ikusten dugu telebixtetan **zenbat eta zenbat** Estatu Batuetako soldado bilduak diren Koweit deritzan estaduan, **zenbat eta zenbat** ontzi, hegaztin eta bertzek inguratzen duten Irakeko erresuma. Herria

Ez da harrigarri **zenbat eta zenbat** maite zuten katixima egile hori arnegitar eta Pekoetxetako luzaidar haurñoek. Angel Aintziburu / Jean Baptiste Etxarren

**Zenbat eta zenbat** eskorgatara ongarri eramanik baratzera! Piarres Aintziart

Paris, Vezelay, Le Puy eta Arles hirietara heldu aitzin, **zenbat eta zenbat** hiri eta herri ez dituzte zeharkatu orain, hemen, Camino bakar bat eginen duten mila bidek? Piarres Aintziart

**Zenbat eta zenbat** gertaera ez ote nion entzun bati zein besteri, **zenbat eta zenbat** zulo ote zeuden sasiak estalirik, tiroz hildako hainbaten hezurren hilobi? Begira **zenbat eta zenbat** fotokopia eginarazten didan alfer-alferrik, ni bere bulegotik ahalik eta urrunen edukitzeagatik. Juan Kruz Igerabide

## 30 *zenbat... hainbat*

Dakizun bezala, **zenbat** begi, **hainbat** ikuspegi. Joan Mari Irigoien

**Zenbat** musikari, **hainbat** ikuspegi. Berria - Kultura

Entzun dudanaren arabera, **zenbat** buru **hainbat** aburu zegoen. Urtzi Urrutikoetxea

**Zenbat** lokarri, **hainbat** askatu behar. Jenaro Garate

Ordainetan, merkatuak arrakasta eskaintzen dio kalitatearen galga bakartzat: **zenbat** saldu, **hainbat** balio. Anjel Lertxundi

Agindua betetzen ez zuen herriari, **zenbat** marinel falta, **hainbat** kortsu baimen kentzen zizkion, hainbat agiri eta errege mesede. Markos Zapiain

Gizartea **zenbat** ahulagoa **hainbat** zigortzaileagotzat zuela, gizabanakoa bezalaxe. Markos Zapiain

Hitzak **zenbat** letra dituen, **hainbat** maila izango ditu hitz-eskailerak. Iñaki Arranz

Lurrun-bainuen aretoak eta izerditzeko gelak bainu beroen ondoko gelan egon behar dute, eta **zenbat** duten zabaleran, **hainbat** izango dute altueran. Santiago Iruretagoiena

Zeinu bakoitzean, horri dagokion hilabeteak **zenbat** egun dituen, **hainbat** zulo egingo dira. Santiago Iruretagoiena

**Zenbat** herri, **hainbat** hilerri dira gurean, baina guztiak kristautasunak agintzen duen eran. Berria - Harian

- **Zenbat** txapel, **hainbat** txepel. Edorta Jimenez

Soinekoak **zenbat**, ohoreak **hainbat**. Fernando Rey

**hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 8 aldiz agertzen direnak)**

**auskalo zenbat** (65); **badakizu zenbat** (14); **bakoitzak zenbat** (10); **batek daki zenbat** (10); **begira zenbat** (14); **beste zenbat** (24); **ea zenbat** (23); **esan zenbat** (8); **ez daki zenbat** (19); **ez dakigu zenbat** (21); **ez dakit zenbat** (194); **ez dakizu zenbat** (11); **nik dakita zenbat** (9); **nork daki zenbat** (11); **pentsa zenbat** (24); **proposizioa zenbat eta** (10); **zehazki zenbat** (14); **zehaztu zenbat** (15)

**zenbat aldatu** (10); **zenbat aldiz** (284); **zenbat aldiz entzun** (14); **zenbat aldiz esan** (19); **zenbat aldiz ez** (62)

**zenbat balio** (60); **zenbat balio du** (15); **zenbat balio duen** (23); **zenbat behar** (25); **zenbat bide** (11); **zenbat bider** (39); **zenbat buru** (17)

**zenbat da** (22); **zenbat den** (11); **zenbat denbora** (272); **zenbat denbora behar** (27); **zenbat denbora beharko** (22); **zenbat denbora egin** (16); **zenbat denbora egingo** (12); **zenbat denbora eman** (17); **zenbat denboran** (16); **zenbat denboraz** (26); **zenbat dira** (24); **zenbat diren** (37); **zenbat diru** (97)

**zenbat egin** (9); **zenbat egun** (43); **zenbat egunez** (8); **zenbat emakume** (9); **zenbat ere** (9); **zenbat eta** (1161); **zenbat eta aurrerago** (11); **zenbat eta azkarrago** (9); **zenbat eta gehiago** (185); **zenbat eta gorago** (14); **zenbat eta gutxiago** (20); **zenbat eta handiago** (30); **zenbat eta handiagoa** (23); **zenbat eta handiagoak** (10); **zenbat eta hurbilago** (13); **zenbat eta lehenago** (27); **zenbat eta nola** (8); **zenbat eta txikiagoa** (8); **zenbat eta urrunago** (10); **zenbat eta zenbat** (56); **zenbat ez** (22)

**zenbat falta** (14); **zenbat gara** (9); **zenbat gauza** (62); **zenbat gehiago** (18); **zenbat gezur** (10); **zenbat gizon** (12); **zenbat gustatzen** (15)

**zenbat haur** (11); **zenbat hazi** (8); **zenbat hil** (21); **zenbat hitz** (12); **zenbat holako** (19)

**zenbat ikasle** (8); **zenbat indar** (8); **zenbat iraun** (21); **zenbat iraun zuen** (11); **zenbat iraungo** (24); **zenbat iraungo duen** (11); **zenbat irauten** (14); **zenbat izan** (22); **zenbat izango** (14)

**zenbat jende** (89); **zenbat jendek** (18)

**zenbat kilometro** (11); **zenbat kontu** (9); **zenbat kosta** (8); **zenbat kostatzen** (25); **zenbat kostatzen den** (12)

**zenbat lagun** (30); **zenbat lan** (31); **zenbat lan egin** (10); **zenbat langile** (21); **zenbat lanpostu** (8); **zenbat liburu** (10)

**zenbat maite** (48); **zenbat maite dudan** (8); **zenbat metro** (13)

**zenbat nahi** (14); **zenbat neke** (8)

**zenbat ordaindu** (21); **zenbat ordu** (27); **zenbat ote** (22); **zenbat ote dira** (8)

**zenbat pertsona** (14); **zenbat pisatzen** (13); **zenbat puntu** (8)

**zenbat seme** (12); **zenbat seme alaba** (9); **zenbat sufritu** (9)

**zenbat ur** (11); **zenbat urrats** (8); **zenbat urre** (8); **zenbat urte** (149); **zenbat urte dituen** (10); **zenbat urte dituzu** (20); **zenbat urte izango** (8); **zenbat urte zituen** (8)

**zenbat zarete** (9); **zenbat zen** (8); **zenbat ziren** (24); **zenbat zor** (31)

**pentsa zenbateko** (8); **zenbateko eragina** (11); **zenbateko garrantzia** (13)

**zenbatekoa da** (10); **zenbatekoa den** (42); **zenbatekoa izan** (8); **zenbatekoa izango** (11); **zenbatekoa izango den** (10); **zenbatekoa zen** (8)

**zenbatekoak diren** (9)

**zenbateraino da** (9); **zenbateraino den** (24); **zenbateraino diren** (8)

**zenbaterainoko garrantzia** (13)

**zenbaterainokoa den** (28); **zenbaterainokoa zen** (11)

**zenbaterainokoak ziren** (8)

**zenbatetan ez** (16); **zenbatetan ez ote** (13)

**zenbatez ere** (22); **zenbatez ez** (8)

**[3] zenbateko aldea** (7); **zenbateko aurrekontua** (4); **zenbateko diru laguntza** (3); **zenbateko dirutza** (4); **zenbateko eragina** (11); **zenbateko eragina duen** (3); **zenbateko eragina izan** (4); **zenbateko eragina izango** (3); **zenbateko estimazioa izan** (3); **zenbateko garrantzia** (13); **zenbateko garrantzia duen** (3); **zenbateko garrantzia ematen** (3); **zenbateko inbertsioa** (4); **zenbateko inbertsioa egin** (3); **zenbateko indarra** (4); **zenbateko kostua** (3); **zenbateko lana** (3); **zenbateko lanak** (3); **zenbateko tartea** (3); **zenbateko zigorra** (3)

**zenbatekoa den jakiteko** (3); **zenbatekoa den mailegua** (3)

**zenbatekoa izan** (8); **zenbatekoa izan den** (3); **zenbatekoa izanen** (6); **zenbatekoa izanen den** (3); **zenbatekoa izango** (11); **zenbatekoa izango den** (10)

---

## zenbat-nahi *(orobat **zonbat nahi** g.er., **zenbanahi** g.er. eta **zenbatnahi** g.er.) izlag/adlag* nahi adina.

Nitaz kezkatuta egongo balitz, telefonoz deituko lidake, edonon legokeelarik edota **zenbat-nahi** jende leukakeelarik ere inguruan. Mirentxu Larrañaga

Beste gizarte-klasea, noblezia guztiz guduzalea da, **zenbat-nahi** aberastasun izanik ere, fortuna egin beharra dagoela pentsatzen duena. Iñaki Iñurrieta

Gai ezpada, alferretan gizon bakar batzuen urratsak, **zonbat nahi** merezimendu duketen berek, **zenbat nahi** beren alde zuzentasuna. Piarres Xarriton

Eskatzen duzuna ordainduko dizut, **zenbat-nahi**. Oskar Arana

Askotan eskolan nintzelarikan, menturaz kasko gogorra bainukeen, erakasleak **zenbat nahi** onak izana gatik gauzak ez nituen beti konprenitzen. Herria

---

## zenbatasun *iz* kopurua.

[Jainkoak] ez baitauka **zenbatasunik** eta, hortaz, Berarengan ezin eduki dezake nolakotasun hori **zenbatasunak** bere baitan berez daukanaren neurrian. Xabier Kintana

Karnetaren ondotsuan gure **zenbatasuna** edo kreditua gordea duen txartela erabili ohi dugu, paretako dirua noiznahi ateratzeko aitzakian. Iñaki Segurola

Naturaren autosufizientzia hau infinitutasunaren kontzeptuz indartzen da: atomo **zenbatasunean** infinituz osaturik dago bera, infinituki handia da, bere materia kopuruz infinitua eta hutsunea ere infinitua da. Xabier Amuriza

---

## zenbateko 1 *iz* kopurua; tamaina. ik **zenbat 12**.

Denborak **zenbatekoarekin** eta jarraitasunarekin harremana dauka, eta zerbait aritmetikotzat jo genezake. Xabier Kintana

Laguntzaren **zenbatekoa**: [...] 291 euro urtean. Berria - Euskal Herria

Bai Estatu Batuetan, bai EBko herrialdeetan, industriaren **zenbatekoak** enplegu osoan duen ehunekoa 10 puntutan erori da 1970etik 1993ra. Koro Navarro

Oinarrizko atal berak dituzte konputagailu guztiek: [...] gordailu bat, memoria deitu ohi zaiona (kalkuluetarako behar diren edo kalkuluetatik sortzen diren **zenbatekoak** gordetzeko); eta irteerako gailu bat, kalkuluen emaitzak agertzen dituena. Irene Aldasoro

Produktuaren prezioak behera egiten badu [...] produktu horretatik erositako **zenbatekoak** gora egingo du. Iñaki Heras

Aurrezkia murrizten du, aurrezturiko **zenbatekoen** erosketa ahalmena txikiagotzen baitu. Iñaki Heras

Beste batzuek jaso beharreko laguntzaren **zenbatekoak** eta kopuruak eztabaidatzen zituzten. Urtzi Urrutikoetxea

Parlamentuko Mahaiak urtero diru kopuruaren **zenbatekoa** erabakitzen du. Berria - Harian

Arabako eta Nafarroako langabeen **zenbatekoak** gora egin du. Berria - Ekonomia

Finantza-ekarpenen **zenbatekoa**. Koro Navarro

Diru zaharren balioa, idatzita duten **zenbatekoa** zati mila da. Edorta Jimenez

**Zenbateko** hori pobreziaren datu ofizialen erdia ere ez da. Berria - Mundua

**Zenbateko** hori alde biko aurrerakinek (Estatu Batuek, Japoniak eta abarrek) eta Garapeneko Asiar Bankuak finantzatu zuten. Koro Navarro

Geroztik, ordea, ekonomia industrializatuen hazkundea ez da **zenbateko** horietara iritsi. Iñaki Heras

Hala da, munduko herrialde guztietan hartzen dute parte administrazioek ekonomian, hori bai, oso modu desberdinean, bai **zenbatekoari** eta baita **zenbateko** horren banaketari dagokionez. Iñaki Heras

Aurkezten zaion materia guztia, bere erakarmeneko xedepekoa izanez gero, biltzen du, materia hori **zenbatekoaren** eta nolakoaren aldetik neurri egokitik urruntzen bada ere. Xabier Kintana

Inoiz topo egindakoak ziren bizimodu aski heterogeneo eta heterodoxo baten kariaz, heterodoxiaren nolakoaz eta **zenbatekoaz** desberdintasunak zeuden arren. Jon Alonso

BPGa adierazle egokia al da gizarte baten garapenak edo ongizateak izan aurrerapenaren **zenbatekoa** neurtzeko? Itziar Eizagirre / Amaia Lizarralde

**2** (izenondo eta izenlagunekin)

Etekinen **zenbateko** zehatzik ez zuten eman nahi izan. Berria - Ekonomia

Nahiago luke **zenbateko** finkoa berak jaso, eta gero informatzaile bakoitzari diru egokia berak eman. Edorta Jimenez

**Zenbateko** polita kendu diote, 650 dolar, hotelean bertan, Madrilgo Alberto Porlan idazleari. Edorta Jimenez

**Zenbateko** ofizialik eman ez bada ere, ziurtzat jo daiteke Nocioniren irtete klausula milioi bat dolar baino handiagoa dela. Berria - Kirola

Zinez aldaketa ikusgarria, Estatu Batuetako balantza korrontearen defizitaren **zenbateko** larriak eta Europako eta Asiako inportazio merkeek estatubatuar industriaren sektore osoetan egiten zuten mehatxuak ekarria. Koro Navarro

Alabaina, luze gabe nekatu nintzen, eta halako **zenbateko** bat ordaintzeko proposamena egin nion, gela-sari. Aingeru Epaltza

Inoiz ekainean izandako **zenbatekorik** baxuena da. Berria - Ekonomia

**3** (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

MCCren industri arloak duen langile **zenbateko** osoaren laurdena inguru. Iñaki Heras

Zer egiten da beharrezkoa ez den langile **zenbateko** gero eta handiago horrekin? Iñaki Heras

Egiazko militanteen gainerako taldeek ez zioten aurrea hartzen ahal, urrutitik ere, ez atentatu-**zenbatekoan**, ez eraginkortasunean. Jon Alonso

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
>
> **zenbateko hori** (8)
>
> **diru laguntzen zenbatekoa** (7); **laguntzaren zenbatekoa** (3); **laguntzen zenbatekoa** (7); **langabeen zenbatekoa** (5)
>
> **zenbatekoa izan** (8); **zenbatekoa izan den** (3); **zenbatekoa izanen** (6); **zenbatekoa izanen den** (3); **zenbatekoa izango** (11); **zenbatekoa izango den** (10)
>
> **zenbatekoaren arabera** (4)

---

## zenbatekotasun *iz* zenbatekoaren neurria.

Gure boterea eta Harena ez direla ezberdintzen **zenbatekotasunean**, hots, bata handiagoa eta sendoagoa eta bestea txikiagoa eta ahulagoa izatean. Xabier Kintana

---

## zenbatero *adlag* zenbatean behin.

**Zenbatero** idazten zenuen begiratu, zenbatean behin jasotzen zenituen erreparatu. Xabier Mendiguren Elizegi

Hitz egin gabe genuen **zenbatero** aterako nintzen, baina konturatzerako, domekaro nintzen fokupean. Iñigo Aranbarri

Noiz eta **zenbatero** irteten den patruila berezia gure arte-lanak ezabatzera. Urtzi Urrutikoetxea

Jada inori ez zaio axola non afaldu nuen, non bizi izan nintzen edo noren bisita jaso nuen, edota **zenbatero** hartzen nituen bainuak Baden-Badenen. Pako Aristi

---

## zenbaterotsu *adlag* zenbatean behin gutxi gorabera.

**-Zenbaterotsu** ? Karlos Linazasoro

---

## zenbatespen *iz* zenbatestea.

Arkitektoak obra publiko bat egiteko enkargua hartzen duenean, gastuen **zenbatespena** egingo du obra zenbat kostatuko den esanez. Santiago Iruretagoiena

Obran ez baldin bada esandakoa baino laurden bat gehiago besterik gastatzen, hori **zenbatespenari** gehitzen zaio eta diru publikotik ordaintzen da. Santiago Iruretagoiena

Obran, ordea, **zenbatespenaren** gainetik laurden bat baino gehiago gastatzen denean, arkitektoari bukatu arteko dirua bere ondasunetatik jartzeko eskatzen zitzaion. Santiago Iruretagoiena

---

## zenbatetsi, zenbatets, zenbatesten du *ad* zenbatekoa kalkulatu.

Nik baino urtetsu pare bat gehiago **zenbatetsi** nizkion. Aingeru Epaltza

Haien adina **zenbatesten** nuen, batere eginkizun erraza ez, alafedea. Joxe Austin Arrieta

Mugasariak %50 murriztuz gero munduko merkataritzaren hazkuntza urtean 166.000 milioi eurokoa litzatekeela **zenbatetsi** dute analistek. Berria - Ekonomia

Eskualde horretan, 364 bat pertsona hil direla **zenbatesten** da. Berria - Mundua

Iazko galerak guk zifra batzuekin **zenbatetsi** genituen eta haiek beste batzuekin. Berria - Ekonomia

---

## zenbatezin *(orobat **zenbaezin**)* *izond* ezin zenbatuzkoa.

Giza historia oraindik bere haurtzaroan dagoela, eta balitekeela milaka urte **zenbatezinetan** horrela jarraitzea. Iñaki Mendiguren

Irkutsk biltegi handi bat da, non Txinaren, erdialdeko Asiaren eta Europaren artean trukatzen diren salgai **zenbatezinak** pilatzen diren. Karlos Zabala

Paretak estaltzen zituzten liburuen multzo **zenbatezina** begiradaz jo eta esanen zuen, [...]. Monika Etxebarria

**Zenbatezinak** dira haren gudarosteak, guztien gain altxatzen haren argia. Elizen arteko biblia

Banan-banan, ordea, hostopilaren zatiak, esperientziaz dakigu, izarren hautsa bezalakoak baitira, **zenbatezinak**, laino infinitu eta erabateko baten ttanttak. Jon Alonso

Askok dagoeneko 12.000 kilometro baino gehiago egin dituzte epaiketa horretara joateko eta geratzen zaizkienak **zenbaezinak** dira. Berria - Euskal Herria

Jende guztia doa haren atzetik segizioan, **zenbatezina** bildutakoen kopurua. Elizen arteko biblia

Egiptotik, mila eta berrehun gudu-gurdi, hirurogei mila zaldizko eta **zenbatezin** ahalako libiar, sukiar eta etiopiarrez osoturiko gudari-multzoarekin. Elizen arteko biblia

---

## zenbatgarren *(orobat **zenbagarren** eta **zonbatgarren** g.er. )* **1** *izlag*

Hasieran gaizki bizi nuen ez dakit **zenbatgarren** emaztekia izatea hemengo buelta egiten. Aingeru Epaltza

Gazte hauei, ordea, bost axola **zenbatgarren** mendean jaso zuten kanpandorrea. Xabier Mendiguren Elizegi

Dusselek hiltzeko arriskuan jarri gaitu berriro, ez dakit **zenbatgarren** aldiz. Josu Zabaleta

**Zenbatgarren** finala ote zuten beste bi lapurtar horiek beren bizarrarekin jokatzen eta irabazten zutena, aldi huntan bigarren mailean? Herria

Goiz baten, arkupeetan emandako ez-dakit-**zenbatgarren** gauaren ondoren, [...]. Jon Arretxe

Pinocheten aurkako auskalo **zenbatgarren** errekurtsoaren berri ematen ari zirela begiztatu nuen, Londresko Bow Street-eko epaitegi aurrean. Iban Zaldua

**Zenbatgarren** postua lortu duzu azken idazlanean? Itziar Otegi

-**Zenbagarrena** duzu? Itxaro Borda

Orrialdearen **zenbatgarrena** buruz jakingo balu moduan zabaldu zuen. Josu Landa

Ordu horretan Tomasekin nintzen oraino [...] kankarro bat ginebra -ez dakit **zenbatgarrena**- esku artean nuela. Aingeru Epaltza

Danteren infernuko zein zirkulutan eta **zenbatgarrenean** sartuko lituzkete gero ene errautsen errautsak? Joan Mari Irigoien

Ez dakit **zenbatgarrengoan** hasi ziren susmatzen. Fernando Morillo

Alfontso **zenbatgarrena** zen beste erregе hura? Joxemari Urteaga

**2** (adizlagun gisa)

**Zenbatgarren** jarriko genuke Obabako neska politenen zerrendan? Bernardo Atxaga

**Zenbatgarren** sailkatu naiz? Berria - Kirola

Normalean, zure kontutxoez mintzatzen zara: **zenbatgarren** geratu zaren, irakasle bakoitzari aurkitzen dizkiozun alde onak eta txarrak, [...]. Itziar Otegi

Horrek begi bistan lehorretik antzematen zaila dena argituko du: traineru bakoitza **zenbatgarren** doan. Berria - Kirola

---

zenbatgarritasun ik **zenbakarritasun**.

---

# zenbatgura *(orobat **zenbat gura**)* *izlag/adlag* zenbat-nahi.

Madrilen atondu ei zuen zaleen espioitza-sare hori alde batera utzirik, bere buruaz **zenbatgura** ipuin kontatzen dakien Ernestek Hemingwayk badaki Gustavo Duran denbora batez hango -Madrilgo- SIMeko burua izan zena. Edorta Jimenez

Zaharrak **zenbat gura** dabiltza, autobuskadetan, bisitan. Edorta Jimenez

-Berdin dio, ez dio ardura; kalean bihar honelakoak **zenbat gura** lortu ahalko duzu -diost-; egon, laster nator eta. Edorta Jimenez

---

# zenbatsu *zenbtz (galdetzailea)* zenbat gutxi gorabehera?

**Zenbatsu** urte ditu, zure ustez? Karlos Zabala

Obispoarengatik galdetu zigun, nolakoa ote zen, altua, baxua, potoloa, argala, **zenbatsu** urte. Inazio Mujika Iraola

Egun batean, 24 orduan, egun normal batean bai, lur azal eta itsas ordeka horietan, **zenbatsu** ekaitz sortzen direla iruditzen zaizue? Pello Zabala

Gertuago kokatuta, gehien inporta zaigunarekin arduratuta, Espainia aldean **zenbatsu** ohi diren. Pello Zabala

Zergatik ez ote duten konpontzen, edota bestela Hannaren gaur egungo adina **zenbatsukoa** ote den kalkulatzen, ea dagoeneko ilea urdindu ote zaion. Joxe Austin Arrieta

---

# zenbatu, zenbat(u), zenbatzen **1** du *ad* multzo bateko osagaien kopurua mugatu edo zehaztu, zenbaki arrunten segidaren arabera adieraziz joanez. ik **kontatu**.

Hatzak erabiliz **zenbatzen** ditut. Ibon Uribarri

Kopurua eta **zenbatzen** direnak gauza bera ez den bezala, era berean, batasuna bera ere ez da bat den gauza bera. Xabier Kintana

Hiru **zenbatzen** ditudanean, bota zuen sorginkeriak aurkaria desarmatzeko. Iñaki Mendiguren

**Zenbatu** zituen Akabek eskualdeburuen laguntzaile ziren gazte haiek: berrehun eta hogeita hamabi. Elizen arteko biblia

Berrogei **zenbatu** ditu guztira. Patxi Zubizarreta

Tortosan, 85 hildako **zenbatu** zituzten. Pello Zabala

39.723 langabe **zenbatu** dira uztailean, ekainean baino 225 gutxiago. Berria - Ekonomia

Botoen %99 **zenbaturik**, SDSk botoen %29,1 eskuratu ditu, LDSk berriz %22,8. Berria - Mundua

Hogei herri **zenbatu** ditut egungo etapan, Sarriarainoko bidean. Piarres Aintziart

303 segundoak **zenbatutakoan**, mahaitik altxa eta kafetegitik desagertu zen. Unai Iturriaga

Begira zerura eta **zenbatu** izarrak, ahal baduzu.

Eguneko irabaziak **zenbatu** aurretik. Eider Rodriguez

Erregearen idazkaria eta apaiz nagusia etorri ohi ziren Jaunaren etxean bilduriko dirua **zenbatzera**. Elizen arteko biblia

**Zenbatu** zazpi aste, garia ebakitzen hasten zareten egunetik. Elizen arteko biblia

-Hoa olagarroaren erroak **zenbatzera**! Koldo Izagirre

Hil eta gero ere, **zenbatu** ezin ahala mirakulu egin zituela. Jon Alonso

Israeldar batzar osoak ezin **zenbatu** ahalako ardi eta idi-multzo handia eskaini zuten opari. Elizen arteko biblia

Ezin **zenbatu** adina istripu ukan ditut. Koldo Izagirre

Ubarroiek **zenbatu** ezineko saldotan alde egingo dute airetik iparralderantz. Joseba Sarrionandia

Mikelek espaloiko harlauzak **zenbatzeari** ekin zion. Unai Iturriaga

Hamar arte **zenbatu** eta gainera datorren zama sentitzeko garaia da orain. Harkaitz Cano

**Zenbatzen** bazekien. Joseba Urteaga

Lanorduak ez ziren **zenbatzen**. Joseba Urteaga

Koordinadoraren ustetan, **zenbatzeko** tresnen softwarea manipulatua izan zen. Berria - Mundua

Nola **zenbatzen** da, zer zenbaki darama sorbaldan? Karlos Linazasoro

Hi, putakumea, **zenbatuak** dituk egunak. Koro Navarro

Bushen egunak **zenbatuak** daude eta aurki aldaketa egongo da gurean. Berria - Mundua

**2** (adizlagunekin)

Haurtxoek berek bazekitenean, ankertasunaz eta esperimentazioaz, euliak sei hanka dituela, Aristotelen garaietatik erauzi egiten zizkielako, boluptuosoki **zenbatzen** zituztela, bat, bi, hiru, lau, bost, sei. Jon Alonso

Egunak gaizki **zenbatu** ote dituzte? Harkaitz Cano

Jira erdia egin eta gorantz ekin dio, presarik gabe baina pauso seguruz, ozenki **zenbatzen** duela: [...]. Xabier Mendiguren Elizegi

Zehatz-mehatz **zenbatzen** zituen emakumeek eramaten zizkioten oilarrak, arrautzak, hariak eta ehunak. Jose Morales

Llansaritzat jasotako errubloak behin eta berriro **zenbatzen**. Jose Morales

**3** zenbakitu.

Orriak **zenbatzea** beti komeni da, bai aurkezteko eta bai lanketarako diren zirriborroetan. Askoren artean

Atal eta azpiatal bakoitza **zenbatu**. Askoren artean

**4** ***ezin zenbatuzko*** ik **zenbatezin**.

Iduritzen zait egun [...] mendeak saltatu ditudala eta **ezin zenbatuzko** jendetza batean murgildua naizela. Igarobidea eragozten baitiote haien distirari hemengo arku ilunek -bata bestearen gainean altxaturik, mahatsondo bihurriek, huntzak eta **ezin zenbatuzko** sasi-arrosek harturik-. Piarres Aintziart

Gizakiaren grinak **ezin zenbatuzkoak** dira -itsasoko hondar-aleak bezala-. Jose Morales

Musika matematika da, matematika alai jostalaria, matematika eroa, musika-noten arteko konbinaketa infinitua izan baitaiteke, **ezin zenbatuzkoa**. Felipe Juaristi

**hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**

**arte zenbatu** (3); **banan banan zenbatu** (3); **botoak zenbatu** (3); **ezin zenbatu** (6); **ezin zenbatu ahalako** (4); **gehiago zenbatu** (16); **gehiago zenbatu zituen** (7); **gutxiago zenbatu** (19); **gutxiago zenbatu dira** (3); **gutxiago zenbatu zituen** (6); **guztiak zenbatu** (6); **hildako zenbatu** (6); **inguru zenbatu** (6); **inguru zenbatu dituzte** (3); **kasu zenbatu** (4); **lagun zenbatu** (4); **langabe gehiago zenbatu** (10); **langabe gutxiago zenbatu** (17); **langabe zenbatu** (6); **langabe zenbatu ditu** (3); **nork zenbatu** (4); **orriak zenbatu** (3); **zauritu zenbatu** (5)

**zenbatu ahal** (8); **zenbatu ahal izan** (4); **zenbatu ahalako** (4); **zenbatu behar** (7); **zenbatu besterik ez** (3); **zenbatu ditu inemek** (4); **zenbatu ezineko** (3); **zenbatu gabe** (10); **zenbatu zituen inemek** (3)

**denak zenbatuak dauzka** (3); **zenbatuak dauzka jainkoak** (3)

**inguru zenbatuta** (3)

**berriz zenbatzeko** (3); **botoak zenbatzeko** (6); **botopaperak zenbatzeko konpromisoa** (3); **bozak zenbatzeko** (3); **hzren botopaperak zenbatzeko** (3); **zenbatzeko sistema** (3)

**egunak zenbatzen** (5); **orduak zenbatzen** (3); **zenbatzen dira** (6); **zenbatzen ditu** (4); **zenbatzen hasi** (12); **zenbatzen hasi zen** (8); **zenbatzen zituen** (12)

---

**zenbatzaile** **1** *izond/iz* zenbatzen duena.

Baliabide teknikoak erabiltzeko (sinonimoak, hitzen **zenbatzailea**, taulak, irudiak...). Askoren artean

Dozenaka mila manifestari ibili ziren atzo Carascasko kaleetan; **zenbatzaile** batzuek 200.000tik gora zeudela iritzi zioten. Berria - Mundua

**Zenbatzailea**: Eukeni Olabarria. Berria - Kirola

**2** gramatikan, zenbatekoak adierazteko erabiltzen dena.

*Bat* eta *batzuk* **zenbatzaileen** deklinabidea. Koldo Zuazo

"Gelako denek hizkuntza bi dakizkite gutxienez" bezalako perpaus **"zenbatzailea"** egia izan daiteke, nahiz eta dagokion pasiboa [...] faltsua izan. Itziar Laka

• **3** *iz* logika formalean, kuantifikatzailea.

**Zenbatzaile** existentziala, •, hemen sartzea ere posible litzateke, baina guk definizio baten bidez sartuko dugu hizkuntzan. Askoren artean

• A6=• **zenbatzaile** unibertsalaz osatutako multzoa da. Askoren artean

**4** aritmetikan, zenbakitzailea.

Barraren azpian, izendatzaileak izendatu egiten du; gainean, berriz, zenbatu egiten du **zenbatzaileak**. Jon Muñoz

---

**zenbatze** **1** *iz* multzo bateko osagaien kopurua mugatu edo zehaztea, zenbaki arrunten segidaren arabera adieraziz joanez.

Juliori egokitu zitzaion **zenbatzea**, eta besteok abiada bizian sakabanatu ginen oihan txikian barrena. Aritz Gorrotxategi

Egunero bezala, zazpietan egiten dute zaindariek **zenbatzea**. Xabier Montoia

**2** (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

Bazegoen eguneko une zehatz bat, lantegitik itzuli eta **zenbatze** deiaren artean, ordu berezi, bizi eta lasaigarria, gehien maite eta itxaroten nuena -horrez gain afalordua ere bazen. Urtzi Urrutikoetxea

Ni saiatu nintzen azaltzen loturarik gabeko berbazko rapsodia hura hain zuzen **zenbatze**-sistema baten kontrakoa zela. Juan Garzia

Dionisos aulkian jesarrita geratu zen, ukalondoak belaunetan jarrita eta eskuez buru pisuari eutsika, harlauzen **zenbatze** prozesua hastekotan. Unai Iturriaga

---

**zenbatzearren** *adlag* zenbatzeko.

Bere agendatxoa atera zuen, gelditzen zitzaizkion opor-egunak **zenbatzearren**. Joxe Austin Arrieta

---

**zenbatzeke** *adlag* zenbatu gabe.

Atzerriko bozak **zenbatzeke** zeudenean zentro-eskuineko koalizioa nagusitzen zen Senatuan. Berria - Harian

---

zenbatzu ik **zenbaitzu**.

---

zenbeit ik **zenbait**.

---

**zenda** *iz* iraniar hizkuntza bat.

**Zendari** eta paleoslaboari dagokienez, esaterako, ez dakigu zein herrik hitz egin zuen hizkuntza haietan. Isabel Arrigain

Oso antz-antzekoak izan daitezke, -**zenda** eta sanskritoarekin gertatzen den bezala-, edota erabat desberdinak, -sanskrito eta irlandera, adibidez-. Isabel Arrigain

---

**zendako** *(orobat **zerendako** g.er. eta **zentako** g.er.; Euskaltzaindiaren Hiztegian **zerendako** agertzen da)* **1** *adlag galdetz* zergatik.

**Zendako** ez dira agertu -galdetu zuen Joanesek lasaitasun osoz. Eneko Bidegain

**Zendako** horiek emaiten zautaten holako samindura, tristezia? Michel Oronoz

Saltegietan konparazione, **zendako** dira argibide guziak kasik denetan eta beti frantsesez eta bakarrik frantsesez? Herria

-Noiz hori eta **zendako**? Janbattitt Dirassar

Besta **zendako** eta norendako? Herria

Europa federal bat, **zendako** ez? Herria

**Zendako** ez zuen treina hartu erran bezala eta erran tenorean...! Janbattitt Dirassar

Badakit **zendako** ene aita umezurtz gelditu zen hamaika hilabetetan. Eneko Bidegain

Baina ez zuen zaldira igan nahi, banakien **zendako**, zikinduko zuela, segur niz hori zuela ez igaiteko. Michel Oronoz

-Bai, eta nihaurek ere ez dakit xuxen **zendako**. Janbattitt Dirassar

Bainan jakingarri litzateke, **zendako** beilari bakotxak, bere etxe xokoan dagoelarik, hartzen duen erabakia bide horri lotzeko. Herria

Gisa horretan eta hotzean begiratuz, erraxkiago uler daiteke **zendako** Frantziako Estatuak preso batzuk bakartasunean atxikitzen dituen. Filipe Bidart

**2** (perpaus txertatuetan) zeren

Eta ni lotsatua, **zendako** ez nuen gozatzen ahal mota bereko amodio zerbaitetarik ene partea. Janbattitt Dirassar

**hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**

**badakizu zendako** (3); **baina zendako** (5); **bainan zendako** (20); **eta zendako ez** (20); **horra zendako** (5); **zendako bada** (11); **zendako behar dugu** (3); **zendako diozu** (3); **zendako ez** (99); **zendako ez nuen** (3); **zendako ez zen** (3); **zendako holako presa** (3); **zendako ote** (6)

---

**zendea** *iz* Nafarroako administrazio banakoa, balle baten zatia dena eta hainbat udalerri biltzen dituena.

Arazuriko udalbatzak, Oltza **zendeako** Udalak eta Orkoiengo Udalak helegitea aurkeztu zuten proiektuaren aurka. Berria - Euskal Herria

Gendulain Zizurko **Zendearen** barnean dago, eta bertako alkateak dagoeneko iragarri du datozen hamar urterako proiektuak aurrera ateratzeko asmoa dutela 1.200 etxebizitza berri, eta Gendulaingoa horien atzetik etorriko litzatekeela. Berria - Harian

Berrioplano (1991, Antsoain **Zendeatik** apartatuta). Berria - Euskal Herria

---

**zendu** **1** da *ad* pertsonez mintzatuz, hil. (era burutuan)

Ddamattitt Diharce 74 urtetan **zendu** da. Herria

Alberto Ormaetxea Donostiako Errealaren trebatzaile ohia **zendu** da 66 urtetan. Herria

Lehena Roux jauna **zendu** da 69 urtetan. Herria

1951n berean **zendu** zela aita Hiazinto Woroniecki, poloniar printze eta domingotar jakintsua. Piarres Xarriton

Lizarrako bi emakume **zendu** dira pareta batek azpian hartuta. Berria - Euskal Herria

Egun horretan bertan **zendu** zen. Iban Zaldua

Humboldt **zendu** eta handik ehun urtera ere, [...]. Bernardo Atxaga

Azaroan Joxe Etxeberria Sagastume amezketarra eta Jose Luis Pagazaurtundua laudiotarra **zendu** ziren Areetan, autoan lehergailuak eztanda egitean. Jokin Urain

2003an hamabost lagun **zendu** ziren Hego Euskal Herrian beroaldiaren ondorioz. Berria - Harian

Jaio berritan hartu nuelarik neure besoetan etxe txit goren bateko berme eder hura, aldez aurretik ikus ahal nezakeen neure besoetan **zenduko** zela, eta haren heriotza beharko nuela deitoratu? Jon Muñoz

Etxebarneko Jakes **zendu** zelako berria zekarkion auzo bati. Itxaro Borda

Orain Moisés **zendua** da, baina emaztea eta seme alabak arduratzen dira etxe horretaz. Angel Aintziburu / Jean Baptiste Etxarren

Indonesian **zendu** den neskatoaren bi senide ere, esaterako, gaitzak jota daudela baieztatu dute agintariek. Berria - Gaiak

**Zenduak** dira, orobat, Hegel, Marx, Engels, Nietzsche eta Freud. Joxerra Garzia

Hamabi egun iraun zuen oraino **zendu** aitzin. Aurelia Arkotxa

Duela bi urte, aita **zenduta**, Zabalguneko gure betiko etxea saltzeko asmoa agertu zigun amak. Aingeru Epaltza

Muskildin sortua (1847), apez (1870), Donapaleuko kolejioan, bikario Irisarrin (1875), erretor Mitikilen (1876), Urdiñarben (1882), Hazparnen (1884), ohorezko kalonje (1906), etxen erretiratua (1912), 1917an **zendua**. Xipri Arbelbide

Emazteki bat, huts egite mediko baten erruz **zendua**, nonbait, forentseak ehiza-trofeo baten gisara erakusten ziona argazkilariari. Aingeru Epaltza

Bere seme **zendu** berriaz mintzatzeko "gorputza" bezalako hitz dorpea ama batek ez dezake sekula erabil. Daniel Landart

Buruan alderrai dabilzkidan haren jardun batzuen artean, **zendu** berriari ikasi nion kanta bat berritu nahi dut hemen: [...]. Anjel Lertxundi

Mikeli amatxi aspaldi **zenduaren** etxea oroitarazi dion mahai baten gibelean jarria dago. Aingeru Epaltza

**2** (era burutua izenondo gisa)

Adiskide **zenduaren** aita-amei. Aingeru Epaltza

Tom Manhattanen zen arratsalde horretan, Harryrekin, berriki hildako idazle baten alargunarekin negoziatzen haren senar **zenduaren** liburutegiko liburuen gainean. Oskar Arana

Nafarroara joateko baimena eman zidan bakarrik jakin zuelarik segurki hara behar nuela joan, ene anaia **zenduen** hiru alaben, hots ene iloben, lekutzera. Piarres Xarriton

Musuzapia dut gogoan, **zenduaren** izena idatzia daramana. Koro Navarro

Herritar **zenduen** ohorezko bi otoitzaldi. Itxaro Borda

**Zenduak** hilkutxan daude ongien, beila-lekuko asepsia distiratsuan. Karlos Linazasoro

**Zendua** lehenbailehen beztitzeko agindua eman zuen. Bego Montorio

Borreroari zenbait **zenduk** mihia ateratzen dio azken trufa makabro gisa. Karlos Linazasoro

Borreroak itsu-itsuan sinesten du metempsikosian, bere begiekin ikusi baititu **zendu** berrien arimak urretxindor urdin, arrain neoklasiko edo landare ibiltari bihurtzen. Karlos Linazasoro

Gure familiako **zendua** hamarrak eta laurdenetarik goiti ikusten ahalko genuela. Daniel Landart

**3** irud/hed

Zibilizazio baten desagertzea erregistratzen duen gertaera -bere aurreko kolapso eta desintegraziotik bereizia- gizarte **zenduaren** estatu unibertsalaren eremua okupatzea izaten da normalean. Iñaki Mendiguren

Sarkin barbaroak kasu batzuetan lotura izan ziren zibilizazio **zenduaren** eta ondorengo jaio berriaren artean- Inperio **zenduaren** eremu abandonatuan ondorengo jaio berriaren artean. Iñaki Mendiguren

Pairatzaile nagusiak ez baitira estatu unibertsal **zenduaren** mendeko izanak, garaile nabarmen diren barbaroak eurak baizik. Iñaki Mendiguren

Limosna eskatzen hasi ginen **zenduen** arimen alde. Pello Lizarralde

**4** (era ez burutuan)

Herriko edonor **zentzen** zenean, aberats ala pobre, haren merezimenduak jendaldearen aurrean laudatzeko zeregin berezia zuten alaina. Anitzetan aditua zuen, alabaina, norbait **zentzean** eta malkoak ekiditeko asmoz, etxeko azkazi zaharrek huxtukatzen zutela. Itxaro Borda

Bizitzan bezala, dudazko oreka batean gabiltza hatsa hartzen duguino, eta saihetseko kide osasuntsuena **zentzen** denean ohartzen gara luma bat zela, edo hosto bat, edo errauts pikor bat. Itxaro Borda

Amaren **zentzea** itxuratzean, gizonaren sabelpetik kolkoan gora ikara eta izerdi hormatua igotzen sentitzen zituen. Itxaro Borda

Eroso **zentzen** hasteko bidea izan liteke hori. Edorta Agirre

**hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**

**aita zendu** (4); **ama zendu** (9); **an zendu** (7); **an zendu da** (6); **anderea zendu** (4); **anderea zendu da** (4); **apeza zendu** (7); **apeza zendu da** (5); **atzo zendu** (6); **atzo zendu zen** (6); **berehala zendu** (11); **berehala zendu zen** (7); **berrikitan zendu** (6); **bertan zendu** (11); **bertan zendu zen** (6); **den astean zendu** (13)

**egun hauetan zendu** (7); **emakume bat zendu** (6); **etcheverry zendu** (4); **euskaltzain zendu** (4); **euskaltzaina zendu da** (4); **frantziarra zendu da** (4); **gazte bat zendu** (4); **gutxi zendu** (5); **han berean zendu** (6); **han zendu** (6)

**igandean zendu** (4); **iragan astean zendu** (50); **joanden astean zendu** (22); **lagun zendu** (23); **lagun zendu dira** (6); **lagun zendu ziren** (13); **langile bat zendu** (6); **larunbatean zendu da** (4)

**ondorioz zendu** (5); **ospitalean zendu** (5); **ospitalean zendu zen** (4); **pertsona zendu ziren** (11); **san franciscon zendu** (4); **serora zendu** (4); **supituki zendu** (6)

**urtean zendu** (6); **urterekin zendu zen** (6); **urtetan zendu** (61); **urtetan zendu da** (31); **urtetan zendu dena** (18); **xaharra zendu da** (5)

**zendu aitzin** (4); **zendu berri den** (6); **zendu berria** (14); **zendu berria den** (7); **zendu berriak** (9); **zendu berriaren** (10); **zendu berriari** (6); **zendu da** (404); **zendu da beskoitzen** (4); **zendu da joanden** (12); **zendu da supituki** (4); **zendu dira** (81); **zendu dira azken** (4); **zendu dira iragan** (16); **zendu zaigu** (4); **zendu zaiku** (10); **zendu zaizkigu** (4); **zendu zauku** (13); **zendu zen** (202); **zendu zen atzo** (19); **zendu zenean** (11); **zendu zenetik** (4); **zendu ziren** (59); **zendu ziren atzo** (4)

**an zendua** (4); **berrikitan zendua** (6); **urtetan zendua** (8); **zendua da** (7); **zendua den** (8); **zendua zen** (7)

**zenduak dira** (6
**urtetan zendurik** (5)

---

**zenestesiko** *izond* barne organoetatik jasotzen den gorputz egoera jeneralaren sentsatzioari dagokiona.

Francoren harriek tankera ukigarri eta **zenestesikoa** izaten zuten beti. Xabier Olarra

Ia banaezina da Francorentzat ikusmen, entzumen, ukimen nahiz usaimenaz bereganatutakoa, eta haurtzaro-haurtzaroko esperientzia konplexu eta **zenestesikoen** gisara etortzen zaizkio gogora, "egoera perfektuen istanteko lekukotasunak". Xabier Olarra

---

**zenit** **1** *iz* zeru esferako puntua, behatzailearen egongunetiko goranzko zutari dagokiona.

Hark aholku ematen zion, 15 hitzetan, 5 zentimetro mugitzeko **zeniterantz** 3 cm-ko diametroko botoi bat. Xabier Olarra

Urdin kolorea jabetu zen gelaz, llargia zen, bere **zenitaren** goialdean. Joxan Elosegi

**2** irud/hed puntu gorena.

Mahayaniar budismoa [...] interregno post-sinikoaren nadirrean iritsia zen bere **zenitera** Ekialde Urrunean, baina bizkor egin zuen behera gero. Iñaki Mendiguren

---

**zenital** *izond* zenitari dagokiona; argiaz mintzatuz, sabaitik sartzen dena.

Arratsa erortzen ari den arren, gelako argiluna ez litzateke hain trinkoa izango alpendearengatik ez balitz, alpendeak argi **zenitalari** bidea ixten dio, baita egun argietan ere, eta une honetan gela barruan gaua jaioarazten du. Jon Alonso

---

**zenizero** *iz* hautsontzia.

Bi **zenizero** metaliko zigarrokinez beteak. Harkaitz Cano

---

**zenobita** *iz*

**Zenobita** [...]: gaiztakeriaren bekatuaz gogoeta egiteko bere burua leku itxi batean sartzen duena; eta bere buruan hori ahaztu gabe edukitzeko jarraibide okerrak ematen dituen anaidi bateko kide egiten dena. Xabier Olarra

Sinagogazainak, fakirrak, elizainak, beneragarriak, errebibalistak, **zenobitak**, bizi arteko bikarioak, kaperauak, mudjoak, irakurleak, nobiziosak, bikarioak. Xabier Olarra

---

**zenotafio** *iz* hilobi monumentoa, barnean ez daukana dagokion pertsona.

Erantzun zioten Mazarinen **zenotafio** bat ipini zutela haren ordez. Jon Muñoz

---

zensore ik **zentsore**.

---

**zentabo** *iz* dolarraren, pesoaren eta beste zenbait amerikar diruen ehunena. ik**zentimo**.

-Buñueloak, bost **zentabo**. Lopez de Arana

Zazpi dolar eta berrogei **zentabo**. Iñaki Zabaleta

Hamar **zentabo** astean. Pablo Sastre

Dena bost eta hamar **zentabotan** saltzen duen denda batean. Lopez de Arana

Erromero sortatxo triste hau hamar **zentaboan**. Juan Garzia

Thatcherrek hamar **zentaboko** txanpon bat ipini zuen esku hezurtsu-zikin hartan. Lopez de Arana

Norbaitek 25 **zentaboko** txanpona bota zuen disko-jogailuan, 50eko hamarkadako *juke-box* hortera eta deigarrian. Iñaki Zabaleta

Hogei **zentabokoa** utzi, eta pesoari heldu zion. Juan Garzia

Lehenbiziko postuan gelditu, hamar **zentabo** erromero-hosto erosi, eta itzuli egin zen. Juan Garzia

Hipogrifoa, beraz, arrano-laurden bat besterik ez zen, bi dolar eta berrogeitamar **zentabo** urre. Xabier Olarra

**hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
**bost zentaboko txanpona** (6); **hogeita bost zentaboko** (5)

---

zentako ik **zendako**.

---

**zentasun** *iz* zen espiritua.

Bizkitartean biek, ondare bihiken antzera, xume eta purruskatsu, **zentasunaren** baheetarik isuriz soilik izaten ikasiko genukeen. Itxaro Borda

---

**zentauro** **1** *iz* mitologia grekoan, burua, besoak eta gorputz enborra gizonarenak, eta gorputza eta hankak zaldianerak dituen izakia.

Greziar mitologian **zentauroak** gizakiaren buru, beso eta enborra zituen, eta zaldiaren hankak. Xabier Olarra

Gizona **zentauro** baita, haragia eta adimena nahas-mahas, jainko-hatsa eta hautsa. Juan Garzia

Hortik jaio omen ziren **zentauroak**, jende borrokazale eta urduria, izaera erdi gizon erdi zaldizkoa dutena. Esteban Antxustegi

**Zentauro** bat zegoen bere aurrean, ez Ronan edo Bane; oraingoak gazteagoa ematen zuen; ile hori argia zeukan, gorputza nabarra, eta zurda eta isatsa zuriak. Iñaki Mendiguren

Botticelliren *Minerva eta* ***zentauroa***. Berria - Kultura

**2** *irud/ hed*

Eta, noski, errepideko **zentauroen** lehenengo plano haiekin berehala asaldatu zen oilategia. Patxi Iturritegi

---

**zentauromakia** *iz* gizakien eta zentauroen arteko borroka.

**Zentauromakia** askotan parte hartuta nago, dirudienez. Karlos Linazasoro

---

**zentella** *iz*

Han zihoan, **zentellak** hartuta, bere pelotoiagana Afonka. Pablo Sastre

---

**zenterna** *iz* amildegia.

Badirudi, jendetasunaren maila, nor den nor, nor den zer, zer den zer, oinarri-oinarrizko bereizketa horiek egiteko behar den jendetasun eta sen arrunta amildegian beheiti bota dugula, **zenternaren** zolaraino, han ito dadin ur uher gazien artean. Pello Salaburu

---

**zentesima** *iz* ehunena.

Deskuidatu eta, taka, bi **zentesimagatik** moztu ninan gaizki. Pablo Sastre

100 metrokoan, berriz, Greenek, **zentesima** bakarreko aldearekin, amore eman behar izan zuen Asafa Powelen aurrean (9.93). Berria - Kirola

---

zentigrado ik **zentigradu**.

---

**zentigradu** *(orobat **zentigrado**)* *iz* gradoaren ehunena.

Hiru kilometro inguruko ibilaldia izan zen, ia 40 gradu **zentigraduko** bero saparekin. Berria - Harian

Maiz jaisten baita termometroaren hodia merkurioaren izozte punturaino, eta eramateko moduko tenperaturatzat hartzen baitira zero azpitik hogei gradu **zentigraduko** batez bestekoak. Karlos Zabala

14 eta 16 gradu **zentigradu** bitartekoa izaten zen beti zizareen kopula eroa gertatzen zenean. Hasier Etxeberria

Azken egunotan kraterreko tenperaturak nabarmen egin du gora, 500 gradu **zentigradora** iristeraino. Berria - Gaiak

Gradu Kelvinetik gradu **zentigradotara** pasatzeko 273,16 kentzea besterik ez dago. Fernando Morillo

---

**zentilitro** *iz* litroaren ehunena.

Jada posible da manatzea, 24 eurotan ukan daitezke 33 **zentilitroko** 24 botoila. Herria

---

zentima ik **zentimo**.

---

zentimetra ik **zentimetro**.

---

**zentimetro** *(orobat **zentimetra** g.er.)* **1** *iz* metroaren ehunena.

Pieza guztiak beren lekuan zeuden jarrita eta, zirudienez, bakar bat ere ez zen **zentimetro** bat mugituko. Joxemari Iturralde

**Zentimetro** bateko ertza duen kubo batek, adibidez, 1 cm3-ko bolumena izango du eta 6 cm2-ko azalera. J.M. Olaizola "Txiliku"

Sarreratik 2-3 **zentimetrora** himenaren mintz porotsua dago. Luis Elberdin

**Zentimetro** gutxitara, eskukada jo zion bizkarrean. Josu Landa

Anorak urdinaren kremailera **zentimetro** batzuk jaitsi eta zain geratu da. Pello Lizarralde

Bigarren aldiz, zigarroa ahoratu gabe gelditu zitzaidan, nire hortzetatik **zentimetro** urri batzuetara. Aingeru Epaltza

Metro eta laurogeita bost **zentimetroko** gizona barrez lehertu zen hura gogoratzean. Berria - Kultura

Zurtoina, berriz, zazpi **zentimetroko** torloju baten bidez zegoen estalkiari itsatsita. Berria - Kultura

Aurreko hanketako atzaparrak hamabosten bat **zentimetrokoak** ziren, eta itxura beldurgarria zuten. Iñaki Mendiguren

1985an, abuztuaren 7an, elurra Candanchun: 20 **zentimetro** loditu zuen. Pello Zabala

Eguzkia 60 gradutara iritsi orduko, erradiazioaren indarra ia bete-betea da, eta **zentimetro** koadroko 1.4 kaloria emanen ditu. Pello Zabala

Minik ez zuten lagunek 559 **zentimetro** kubikoko garun edukiera zuten. Berria - Gaiak

900 **zentimetro** kubikoko trastetzar japoniarra. Aingeru Epaltza

**2** (dimentsioetan izan (da) *aditzarekin* luze, zabal *eta kidekoekin)*

*Gizakiaren bagina 8 **zentimetro** luze da aurreko paretan.* *Luis Elberdin*

*Otsoa 105-135 **zentimetro** luze izaten da.* *Gotzon Garate*

*Ohol bakoitza bost metro luze eta hirurogeita hamabost **zentimetro** zabal izango da.* *Elizen arteko biblia*

*Erre-oparitarako abereak hiltzeko lau mahaiak harlanduzkoak ziren: hirurogeita hamabost **zentimetro** ziren luze-zabal eta berrogeita hamar gora.* *Elizen arteko biblia*

*· Hogei **zentimetro** luzeko patatak, dasta melenga ustel antzekoa dutenak.* *Josu Zabaleta*

*Gehienak ni baino hamar-hamabortz **zentimetro** gehiago luze.* *Aingeru Epaltza*

*Lan berean egiteko askiko omen zen 50 **zentimetro** zabalago zilatzea eta lan berean egina izanen zen.* *Herria*

***hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)***

***bost zentimetro luze*** *(7);* ***hamabost zentimetro zabal*** *(6);* ***hamar bat zentimetro*** *(3);* ***hogei zentimetro gorago*** *(3)*

***zentimetro bakar bat*** *(9);* ***zentimetro bakoitza*** *(4);* ***zentimetro batean*** *(3);* ***zentimetro bateko*** *(5);* ***zentimetro baten*** *(5);* ***zentimetro elur*** *(3);* ***zentimetro erdi*** *(4);* ***zentimetro eskas*** *(3);* ***zentimetro gora*** *(7);* ***zentimetro gorago*** *(4);* ***zentimetro guti*** *(5);* ***zentimetro guti batzuk*** *(3);* ***zentimetro gutxira*** *(4);* ***zentimetro gutxitara*** *(3);* ***zentimetro inguru*** *(6);* ***zentimetro inguruko*** *(6);* ***zentimetro koadro*** *(6);* ***zentimetro koadroko*** *(5);* ***zentimetro kubiko*** *(4);* ***zentimetro kubikoko*** *(4);* ***zentimetro luze*** *(21);* ***zentimetro luzeko*** *(3);* ***zentimetro zabal*** *(7);* ***zentimetro zabaleko*** *(3);* ***zentimetroz zentimetro*** *(3)*

***zentimetroko altuera*** *(6);* ***zentimetroko diametroko*** *(5);* ***zentimetroko elur*** *(6);* ***zentimetroko elur geruza*** *(4);* ***zentimetroko luzera*** *(4)*

**hamar zentimetrora** (5); **hogei zentimetrora** (5)

---

**zentimo** (orobat **zentima** g.er.) **1** iz diru unitate baten ehunena.

*Ehun eta berrogeita hamazazpi dolar eskudirutan, hiru barra mastekatzeko goma, hogeita bost **zentimoko** lau txanpon, hamar **zentimoko** bi txanpon, **zentimoko** lau txanpon eta paper zati bat.* Oskar Arana

*Bost **zentimoko** txanpon baten bila hasi nintzen Friedeli deitzeko, baina berrogeita hamarreko pieza bat eta bi dolarreko txartela baino ez nituen aurkitu.* Koro Navarro

*Mahatsa, kiloa 5 florin, andere mahatsa, 70 **zentimo** kilo erdia.* Josu Zabaleta

*Bost lira, arranoaren ikurra zeramaten haietakoak, zilar nitratoa egiteko, eta hogei **zentimo**, berriz, hegan egiten zuen andre biluzia zeramaten haietakoak, nikel kloruroa egiteko.* Juan Garzia

*Ikusgarritik ez zuena, ordea, gogoangarritik berdintzen zuen Udalarekin zuen zorrak: 3.754 euro eta 26 **zentimo**, nire paperak egia bazioen.* Aingeru Epaltza

*Altxor Publikoarentzat ez da batere errentagarria **zentimo** bateko txanponak egitea.* Berria - Ekonomia

*Urtarrilean gasolio litroa 69 **zentimotan** zegoen, eta orain 80 **zentimotan** saltzen da.* Berria - Ekonomia

*Azal biguneko liburuak bost dolar eta hamar **zentimotan** saldu ziren.* Oskar Arana

*Hogeita hamar **zentimoko** gauza bat hogei **zentimotan** erosi zuela.* Josu Zabaleta

*Urtarrilean, berunik gabeko litroaren prezioa 0,800 **zentimokoa** zen.* Berria - Ekonomia

*Zure zoriontasuna 30 **zentimoren** truke!* Patxi Zubizarreta

*Bi **zentimoko** izozkiak ere erosi nituen, txokolatezko bana Josemari eta biontzat.* Joseba Sarrionandia

*Batez beste, 95 oktanokoak 92,6 **zentimo** balio zuen.* Berria - Ekonomia

*Lau **zentimo** garestitu zen urrian gasolioa, eta bi **zentimo** gasolina.* Berria - Ekonomia

*Katilu betearengatik 10 **zentimo** kentzen genien.* Juan Kruz Igerabide

*Bost **zentimo** ordaindu dizkiogu itsuari bertso-paperagatik.* Anjel Lertxundi

**2** (hitz elkartuetan)

*Datozen hiru urteotan esne litroaren salneurria 0,09 **euro zentimo** jaitsiko da.* Berria - Ekonomia

*Euroaren estakuruan, ainitzetan euro ehuneko edo **zentimoak** bazterrerat uzten direla, deus baliorik ez balute bezala.* Herria

*U Ribombuk ez du diru publiko **zentimo** bakar bat eskatu.* Berria - Mundua

*· Urria hasi zenetik Hego Euskal Herrian gasolio litroa 4 **zentimo euro** garestitu da.* Berria - Ekonomia

**hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**

**bost zentimo eman** (3); **euro zentimo** (4)

**zentimo bakar bat** (5); **zentimo balio** (5); **zentimo bateko** (14); **zentimo euro** (5); **zentimo euro garestitu** (3); **zentimo garestiago** (6); **zentimo garestitu** (11); **zentimo garestitu da** (5); **zentimo gehiago** (5); **zentimo inguru** (5); **zentimo kobratzen** (4); **zentimo merkatu** (3); **zentimo merkeago** (4); **zentimo ordaindu** (6)

**zentimorik ere** (4)

**zentimotan zegoen** (3)

---

**zentinela** (orobat **zentinel** g.er. eta **zantinel** g.er.) **1** iz toki bat zaintzen duen soldadu edo kidekoa. ik **begirale**.

*-Zein da hor? -oihu egin zuen **zentinelak**.* Koro Navarro

*Borta honen barnean, guardia-leku eta **zentinelaren** gainean, zur margotuko Kristo handi bat.* Koldo Izagirre

*Kanpoan, denak isil; noizean behin **zentinelaren** urratsak.* Marzel Etxehandi

*Kamainan etzanda, isiltasuna **zentinelen** oihuek bakarrik urratzen dutela, zutaz pentsatzen dut.* Koldo Izagirre

*Frantzisko Garzia jenerala [...] apaiz jantzirik saiatu zen Lizarratik ihes egiten; baina **zentinelak** konturatu, eta preso eraman zuten atzera Marotorengana.* Txillardegi

*Altzatetik Berara igaro eta atean **zentinela** bat zegoen etxe batean gelditu ziren.* Koro Navarro

***Zentinela** batek gelditzeko esan zien eta plazara itzuli ziren.* Koro Navarro

*Denak, **zentinelak** barne, lo zeuden, baina Salomon ez.* Julen Gabiria

*Baina gauez eta lehen lerroan, erbi batek izutuko zuen **zentinela** hura, ezagutzen genuen.* Koldo Izagirre

*Matxetea hegaluzearen paparrean bezala, halaxe sartu zen gure pala **zentinela** makur haren buruan!* Koldo Izagirre

**2** irud/hed (izenondo gisa)

*Taketak daudelako uretan sartuta, irlaren inguruan, eta horietako bakoitzean txori **zentinela** bat, egunez eta gauez zaindari.* Julen Gabiria

---

**zentral** **1** izond zentroari dagokiona, erdialdean dagoena.

*Oinarri itzelaren kontrahorma formagabe eta xahutuak lautadaren gainetik hiru bat mila oineraino goratzen ziren, eta haien gainean, erdian, kono **zentrala** altxatzen zen.* Agustin Otsoa

*Emakumez osatutako talde honek elizako nabe **zentrala** inguratu zuen.* Berria - Kultura

*Hortik zuzen jarraituz estazioko eraikin **zentralera** irten da.* Pello Lizarralde

*Gizarteak, bai nazio **zentraletakoak**, bai nazio periferikoetakoak, babesik gabe geratu ziren metaketaren dinamikak eragindako indar erraldoien kontra.* Koro Navarro

*Gizarteak, bai nazio **zentraletakoak**, bai nazio periferikoetakoak, babesik gabe geratu ziren metaketaren dinamikak eragindako indar erraldoien kontra.* Koro Navarro

*Puntu batetik plano batera egindako proiekzio bat balitz bezala deskriba daiteke geometrikoki aldakuntza hau: perspektiba **zentrala** edo perspektiba lineala deitu ohi dena bezala, alegia.* Josu Zabaleta

*Ia denek bereizten dituzte [...] arreta **zentrala** eta arreta periferikoa.* Josu Zabaleta

*Berriki egindako esperimentuek erakutsi dute besoko arteria erradialeko odola 21,5 ºC-ra jaitsi daitekeela eta, aldi berean, gorputzeko tenperatura **zentrala** bere 37 ºC-an mantendu.* Irene Aldasoro

*Hox direlako geneon arabera kokatzen dira ornoak, saihetsak, giharrak, nerbio-sistema **zentral** eta sinpatikoaren egiturak.* Juan Garzia

*Nire artikulua erreportaia **zentrala** izango zen.* Alberto Barandiaren

**2** barruti eta sistema osoan eskua duena.

*Toki-gobernuak zuzentzeko giza baliabideak pixkanaka agortu egin ziren, eta gobernu **zentrala**, tokian tokiko administrazio-talentuaren gero eta eskasia handiago horren aurrean, behartuta aurkitu zen [...] hiri-estatuen administrazioa "administratzaile" izendatuen eskuetan jartzera.* Iñaki Mendiguren

*Batzorde Federalak gaur aurkeztuko du gobernu **zentralaren** eta 'lander'-en arteko harremanak beste modu batean finkatzeko ondu duen proposamena.* Berria - Mundua

*Moncloakoa Gobernu **zentrala** bada, han dagoela erdia, begia, bihotza, eta gu, beraz, kanpoan, lekorean, periferian gaudela.* Iñigo Aranbarri

*Britainiar Indiako gobernu **zentralaren** egoitza Kalkutatik Delhira eramateko.* Iñaki Mendiguren

*Gobernuen raison d'être positiboa gizarte-eginkizun komunei gidaritza politiko **zentrala** ematea izaten da.* Iñaki Mendiguren

*Administrazio **zentralak** %50 pagatuko du eta beste horrenbeste erkidegoek.* Berria - Harian

*Nazio-hizkuntza eta erlijio bakarra indarrez ezartzea, biztanle-taldeak administrazio **zentral** indartsu zapaltzaile baten mende ordenatzea Aginte **zentral** ahuldu baten*

kontroletik kanpo. Koro Navarro

Espainiako botere **zentralak** erantzukizun handia du negoziazioetan. Berria - Harian

Agintari **zentralak** ez zeuden aldaketa hauek ezartzeko gogotsuago toki-agintariak pairatzeko baino. Iñaki Mendiguren

Eusko Jaurlaritzak Gipuzkoan eta Bizkaian dituen zerbitzu **zentraletako** garbitzaileen soldatak parekatu dituzte. Berria - Ekonomia

Madril aldera eraman ditu zerbitzu **zentralak**, eta hori gaitzetsi behar dugu nahitaez. Berria - Ekonomia

Arratseko zazpietan, Igeldoko meteorologia zerbitzutik Donostiako Telefonica zerbitzu **zentralera** bidaliko zen hurrengo egunean espero zen eguraldiaren berri. Pello Zabala

Kubako Alderdi Komunistaren Batzorde **Zentraleko** organo ofiziala. Txema Ramirez de la Piscina

Hauteskunde Batzorde **Zentralaren** erabakia. Berria - Euskal Herria

Enpresa multinazional zaharra, piramide moduan antolatua, eta New York, Tokio edo Londreseko egoitza **zentraletik** kontrolatua Galiziako A Coruña probintziako Arteixon egoitza **zentrala** duen Inditex S.A. enpresa. Koro Navarro

Mundu Bankuaren egoitza **zentralean** 2004an MCCren arlo industrialaren ekoizpenaren %16a atzerrian egingo dute 42 filialek, eta kooperatibek eta sail **zentralek** kontrolaturiko enpresa horietan 6.400 langile inguruk egingo dute lan. Iñaki Heras

Gure Zerbitzuek beti izan zuten emakumeak Errepublikaren Zerbitzu **Zentralarentzat** lan egiten ote zuen susmoa. Edorta Jimenez

Auzitegi Nazionaleko Zaintza Epaitegi **Zentrala**. Berria - Euskal Herria

**3** organo bakar batek kudeatzen duena.

Berokuntza **zentralerako** sistemek eta beste etxetresna askok duten termostatoaren printzipio bera baliatzen duen mekanismo bat. Irene Aldasoro

Ezta berogailu **zentralik** ere; gelak harrikatzaz eta egur-labeaz berotzen dira. Eskarne Mujika

Berogailu **zentrala** askoz nahiago dut nik, eta ez dut uste bakarra naizenik horretan. Josu Zabaleta

**4** bankuez mintzatuz, dirua jaulkitzen duena eta Gobernuaren politika monetarioa gauzatzen duena.

Luis XIV.aren Frantziak ez zuen ez jaulkipen-erakunderik, ez banku **zentralik**. Koro Navarro

Dolar-soberakinak ez zituzten munduko gainerako banku **zentralek** eskatzen urre bihurtzeko; truke-erreserba moduan gordetzen ziren eta Estatu Batuetan inbertitzen ziren. Koro Navarro

G5eko finantza-ministroek eta banku **zentraletako** gobernariek. Koro Navarro

**5** (izen gisa)

Kontatu nion haren lanak **zentralekoen** jakin-mina piztu zuela, eta hori gustatu zitzaiola zirudien. Xabier Olarra

Estatu unibertsal gehienetan, bitarteko horiek posta-zerbitzu inperialaren forma hartu izan dute eta "postariak" -izen ezagun hau zerbitzu honen, **zentralaren** eta tokian tokikoaren, funtzionarioei eman bageniezaieke- sarritan poliziak ere baziren. Iñaki Mendiguren

**Zentralean**, Los Angelesen, zuzendariorde naiz, baina bulego hartara ikerketa bat egitera bidali ninduten. Xabier Olarra

**6** nagusia, garrantzitsuena.

Geroztik, Bordelen, Pauen eta Montrealen ere luzaz bizi izan den arren, Aurelia Arkotxaren egonleku **zentrala** Hendaia da. Ana Urkiza

22 urteko neska zoragarri bat, Caracaseko Unibertsitate **Zentralean** karrera serio bat bukatzen ari dena. Pako Aristi

Hilak garraiatzen zituen lager ttipi batetik Kontzentrazionlager **zentralera**. Eneko Bidegain

Ordenagailuaren CPU-a, ordea -prozesatzeko unitate **zentrala**, ordenagailua bera, alegia-, ez zegoen. Fernando Morillo

Ni, gainera, Vasconiako bulego **zentraletan** lan eginda, ezin hasiko nintzen mutikokerietan. Xabier Mendiguren Elizegi

Hortaz, eskolak hartzen zuen gure bizitzako leku **zentrala**, maila guztietan. Xabier Mendiguren Elizegi

Lehenengoa, arreta **zentrala**, ikusmen-eremuko alderdirik garrantzizkoenetan fokatze gisako bat ulertu da. Josu Zabaleta

Ikusmenezko esperientzia guztietan bilbatzen zaigu kolorea, eta leku **zentrala** du gure oroimen eta irudimenean. Xabier Olarra

Planteamendu ideologiko horretan ere kontzeptu **zentrala**, irudi konkretu eta erreferentzia **zentrala**, Pasaia izango da, bere bizitetxearekin eta jendeekin. Koldo Izagirre

Hau da apika ikuspegi honen ideia **zentrala**, inbertsio pribatua ez bada gai atzeraldi ekonomikoari aurre egiteko. Iñaki Heras

[Automozioa] azpikontratazioa laguntza-lanekin hasi zen (garbiketak, mantenua, janaria, garrioa...), baina gaur egun oinarrizko ekoizpen prozesu **zentralaren** zenbait atal ere hartzen ditu. Iñaki Heras

Zirkulurik **zentralenean**, gunerik zaletuenean, badago aski masa kritiko bertsolaritzarako agenteen etorkizuneko harrobia ziurtatzeko. J. Garzia / A. Egaña / J. Sarasua

Handik zuzenean poliziaren komisario **zentralarengana** joan nintzen. Josu Zabaleta

**7** izond/iz futbolistez mintzatuz, eskuinaren eta ezkerraren artean jokatzen duena.

Eraso (atezaina), Flaño eta Herreros (atzelari **zentralak**), Sota eta Moreno (erdi-puntak). Berria - Kirola

Komeriak atzelari **zentralekin**. Berria - Kirola

Alaveseko prestatzaile fisiko berriak defentsa **zentral** bat eta ezker hegalerako jokalari bana behar dituela azaldu zuen atzo. Berria - Kirola

Ricardo atezaina, Cuellar erdiko **zentrala**, Raul Garcia euskarria eta Delporte erdilari erasokorra. Berria - Kirola

Athletic beste **zentral** bat fitxatu guran dabilela. Berria - Kirola

Realak baditu beste bi **zentral** ere, Gurrutxaga eta Labaka. Berria - Kirola

Oraindik Real Madrileko jokalaria zara, eta han ere **zentral** bat behar dutela diote. Berria - Kirola

Murillok eta Prietok, ohiko **zentralek**, ezin izango dute jokatu. Berria - Kirola

Iaz arazoak izan genituen **zentral** postuan. Berria - Kirola

Gainera, datorren igandeko Celtaren aurkako partidarako atzoko **zentral** bikotea ere galdu zuen. Berria - Kirola

• **8** iz argindarra sortzen duen fabrika. ik **indarretxe 5**.

**Zentrala** 800 megawattekoa izango da. Berria - Ekonomia

Gasez hornitzen diren **zentralek** 1.931 gigawatt produzitu dituzte orduko urtarrila eta martxoa bitartean. Berria - Ekonomia

Castellongo **zentralak** 1.075 milioi kilowatt ekoitzi ditu. Berria - Ekonomia

Garoñako Larrialdi Plana (PENBU) **zentralaren** gertuko herrietarako soilik eta «osatu gabea» dela kritikatu zuen. Berria - Euskal Herria

**Zentrala** egin arte ez dira geldituko. Berria - Euskal Herria

Ziklo konbinatuko **zentrala** eraikitzeko. Berria - Euskal Herria

Aurki hasiko du Nuclenorrek **zentrala** ustiatzen jarraitzeko beste luzapen bat lortzeko borroka. Berria - Euskal Herria

**Zentrala** abian jartzeak 400 milioi euroko inbertsioa ekarriko lukeela argitu zuen Marcos Antuñak. Berria - Harian

Energia ekoizteko bi ziklo uztartzen dituzte **zentral** horiek. Berria - Euskal Herria

Herritarrek **zentrala** hozteko erabiltzen zen ibaiko ura erabiltzen dute. Berria - Harian

Enpresek nahi duten bezala **zentral** horien gaitasuna bikoizten badute, kopuru horrek nabarmen gora eginen duela. Berria - Euskal Herria

Alderdi sozialistak **zentrala** ixteko konpromisoa hartu zuela. Berria - Euskal Herria

Bi **zentralen** ahalmena bikoizteko proiektua dago martxan. Berria - Harian

Garbitzat jo izan dira beste hainbat **zentralen** parean ia sufre dioxidorik isurtzen ez dutelako, eta karbono dioxido gutxiago isurtzen dutelako. Berria - Euskal Herria

Lau behargin hil dira Mihamako **zentraleko** lurrun ihesean. Berria - Gaiak

Ur kutsatuak ihes egin zuelako **zentraleko** ubide nagusitik, sisteman izan zen desoreka baten ondorioz. Berria - Euskal Herria

Energia Atomikorako Nazioarteko Agentziak 2003. urteko urrian zigilatu zituen **zentral** horretako zentrifugagailuak. Berria - Mundua

Garbitzat jo izan dira beste hainbat **zentralen** parean ia sufre dioxidorik isurtzen ez dutelako, eta karbono dioxido gutxiago isurtzen dutelako. Berria - Euskal Herria

**Zentralaren** upelak pitzadurak dituela ikusi zuten. Berria - Euskal Herria

**Zentralera** edukiontzi erradioaktiboak zeramatzan kamioi batek istripua izan zuen. Berria - Harian

**Zentrala** ixteko eraiki zuten sarkofagoa egoera kaskarrean dago, pitzadurak ditu. Berria - Harian

**9** *(izenondo eta izenlagunekin)*

*Argindar guztia* ***zentral*** *nuklear eta hidroelektrikoetatik dator. Frantziako argindar konpainiak lehen EPR erreaktorea Normandiako* ***zentral*** *atomiko batean eraikitzea erabaki du.* Berria - Harian

*Garoñako* ***zentral*** *nuklearrak 33 urte beteko ditu aurten.* Berria - Euskal Herria

*Arabako Foru Aldundia, Badaiako* ***zentral*** *eolikoaren aurka.* Berria - Euskal Herria

*Tximistak hiriko* ***zentral*** *elektrikoa jo du.* Xabier Olarra

***Zentral*** *elektrikoetan eta beste lantegi batzuetan hozteko nahiz prozesu kimikoetarako erabiltzen den ura.* Irene Aldasoro

*Ziztu bizian jaisten zen bostehun metro beheragoko* ***zentral*** *hidroelektriko baterantz.* Xabier Olarra

*Erreduktoreak egiten ditue, barkuetan, eolikoetan, zementu-, azukre-, paper-fabrika, laminazino,* ***zentral*** *hidrauliko eta holakoetan behar diranak.* Xabier Amuriza

***Zentral*** *termiko konbentzionaletako 1.130 megawatt ixtea sustatuko dugu.* Berria - Euskal Herria

*Castejongoak ziklo konbinatuko* ***zentral*** *termikoak dira.* Berria - Euskal Herria

*Iaz euri asko egin zuen, eta, horren ondorioz,* ***zentral*** *hidroelektrikoek lan gehiago egin ahal izan zuten, eta* ***zentral*** *termoelektrikoek ez zuten horrenbeste orduz lan egin.* Berria - Euskal Herria

*Badira teknologia garbiak ikatzezko* ***zentraletan*** *karbono dioxidorik ez isurtzeko, baina oso garestiak dira.* Berria - Gaiak

*ESB ziklo bateratuko* ***zentral*** *bat jartzeko leku bila dabil Gipuzkoan.* Berria - Euskal Herria

*Iberdrolak azaldu duenez, «egungo energia berriztagarrien ekoizpena bultzatzen du itunak», eta* ***«zentral*** *kutsakorrenak» deuseztatzeko balioko du.* Berria - Ekonomia

*Arazoa da Garoña Espainiako Estatuko* ***zentralik*** *errentagarriena dela gaur egun.* Berria - Euskal Herria

**10** *(hitz elkartuetan lehen osagai gisa)*

*Mugurdiondo bakarra ezagutzen zuten Orotzen, Papelerako argindar-****zentralaren*** *ondoan hazten zena. Orduan baten bat gogoratu da nola Iberdueroren argi-****zentral*** *bat leherrarazi zuten bere etxetik gertu eta nola gelditu ziren ia egun oso batean argindarrik gabe.* Iban Zaldua

*Eraikinak erori egingo dira, argindar* ***zentralek*** *energia sortzeari utziko diote.* Koro Navarro

*Telefonoaren ahoan esandako hitzen soinuak korronte elektriko bihurturik harietan zehar telefono-****zentralera*** *joaten diren bezala.* Irene Aldasoro

*Urrutizkin* ***zentraletik****, Gipuzkoan telefono zentralita zuten herri guztietara gaztigatuko zen Igeldoko zerbitzutik emandako abisu iragarpena.* Pello Zabala

**11** *barruti bateko telekomunikazio lineak biltzen diren bulegoa. ik****zentralita****.*

*Zenbakia markatu orduko konturatu zen* ***zentralean*** *hartuko ziotela telefonoa.* Unai Elorriaga

*Modelo zaharrekoa zen* ***zentralean*** *klabijak sartu eta atera ziharduen.* Jon Alonso

*Ea noiz kentzen didaten traste zahar hau eta noiz paratzen didaten* ***zentral*** *modernoa, botoiak dituen horietakoa, elektronikoa, deiak jasotzeko moduan ote dagoen, hori ez dakit.* Jon Alonso

***Zentralak*** *dei bat jaso delako seinalea egin zuen.* Jon Alonso

**12** *sindikato eta kidekoen erakunde zentrala.*

*Jaime Solares (Oruro, 1953) Boliviako Langileen* ***Zentraleko*** *(COB) buruzagia da.* Berria - Mundua

***hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)***

*aginte zentral (4); banku zentral (6); beste bi zentral (3); beste zentral bat (6); bi zentral nuklear (3); bi zentral termiko (3); boroako zentral (10); boroako zentral termikoaren (6); castejongo zentral (19); castejongo zentral termikoak (3); castejongo zentral termikoei (4); castejongo zentral termikoen (5); dute zentral bikotea (4)*

*ako zentral (40); ako zentral nuklearra (19); ako zentral nuklearrak (4); ako zentral nuklearraren (10); ako zentral nuklearrari (3); ako zentral nuklearrean (3); egungo zentral (3); garoñ garoñ garoñ garoñ garoñ garoñ gobernu zentral (7); gobernu zentral bat (4)*

*irango zentral (3); japoniako zentral (5); japoniako zentral nuklearretan (3); lehen belaunaldiko zentral (3); lemoizko zentral (8); lemoizko zentral nuklearra (5); mihamako zentral (7); mihamako zentral nuklearra (3)*

*santurtziko zentral (4); txernobilgo zentral (14); txernobilgo zentral nuklearraren (3); txernobilgo zentral nuklearreko (6)*

*ukrainako zentral (3)*

*zentral bakarra (3); zentral berria (5); zentral berriak (4); zentral bikote (4); zentral bikotea (14)*

*zentral elektriko (5); zentral elektrikoa (5); zentral elektrikoak (5); zentral hidroelektriko (8); zentral hidroelektrikoa (3); zentral hidroelektrikoak (3); zentral hidroelektrikoek (3)*

*zentral madrildarra (3); zentral nuklear (34); zentral nuklear bat (6); zentral nuklear gehiago (6); zentral nuklearra (48); zentral nuklearra itxi (4); zentral nuklearra ixteko (4); zentral nuklearrak (42); zentral nuklearrak ixteko (7); zentral nuklearraren (43); zentral nuklearraren aurkako (4); zentral nuklearraren hondamendiak (3); zentral nuklearraren inguruan (3); zentral nuklearraren kontra (3); zentral nuklearraren kontrako (7); zentral nuklearrari (4); zentral nuklearrean (15); zentral nuklearrek (7); zentral nuklearreko (13); zentral nuklearreko laugarren (3); zentral nuklearren (13); zentral nuklearretako (7); zentral nuklearretan (12); zentral nuklearretatik (3); zentral nuklearretik (4); zentral nuklearrik (3)*

*zentral postuan (11); zentral termiko (13); zentral termiko bat (3); zentral termikoa (16); zentral termikoak (27); zentral termikoaren (11); zentral termikoari (3); zentral termikoei (5); zentral termikoek (8); zentral termikoen (10)*

*ziklo bateratuko zentral (3); ziklo konbinatuko zentral (10)*

*ako zentrala (15); ako zentrala ixteko (5); atzelari zentrala (6); banku zentrala (25); boroako zentrala (4); epaitegi zentrala (10); epaitegi zentrala sortu (3); europako banku zentrala (12); garoñ garoñ gobernu zentrala (9); lemoizko zentrala (3); zaintza epaitegi zentrala (3); zaintzako epaitegi zentrala (5)*

*zentrala egin (4); zentrala egiteko (4); zentrala eraikitzeko (6); zentrala itxi (6); zentrala itxiko (4); zentrala ixtea (3); zentrala ixteko (15); zentrala izan (3); zentrala jartzeko (3); zentrala martxan (4); zentrala sortu (3); zentrala ustiatzen (3)*

*ziklo konbinatuko zentrala (12); zoritako zentrala (3)*

*administrazio zentralak (5); aebetako banku zentralak (3); banku zentralak (99); banku zentralak interes (9); batzorde zentralak (19); boliviako langileen zentralak (3); boroako zentralak (6); botere zentralak (7); castejongo zentralak (3); epaitegi zentralak (9); europako banku zentralak (61); gobernu zentralak (11); hauteskunde batzorde zentralak (14); langileen zentralak (3); zaintzako epaitegi zentralak (5)*

*zentralak egin (3); zentralak hamar urte (3); zentralak handitzeko (7); zentralak handitzeko proiektuaren (4); zentralak interes tasak (8); zentralak martxan (3)*

*ziklo bateratuko zentralak (3); ziklo konbinatuko zentralak (6)*

*gobernu zentralarekin (4)*

*agentzia zentralaren (3); ako zentralaren (8); ako zentralaren aurkako (3); banku zentralaren (24); batzorde zentralaren erabakia (4); boroako zentralaren (4); europako banku zentralaren (10); garoñ garoñ gobernu zentralaren (11); inteligentzia agentzia zentralaren (3); lemoizko zentralaren (3)*

*zentralaren aurka (7); zentralaren aurkako (8); zentralaren egoitza (3); zentralaren erabakia (4); zentralaren inguruan (5); zentralaren itxiera (3); zentralaren kontra (6); zentralaren obrak (3)*

*banku zentralari (15); batzorde zentralari dagokiola (3); europako banku zentralari (10); gobernu zentralari (3); hauteskunde batzorde zentralari (4); zentralari buruz (3)*

*administrazio zentralean (3); banku zentralean (3); batzorde zentralean (3); dimonako zentralean (3); epaitegi zentralean (3); nerbio sistema zentralean (3)*

*banku zentralek (12); zentralek nitrogeno oxidoak (3)*

*agentzia zentraleko zuzendari (3); banku zentraleko (39); banku zentraleko gobernu (4); banku zentraleko presidente (3); banku zentraleko presidenteak (13); boliviako langileen zentraleko (3); epaitegi zentraleko (9); epaitegi zentraleko epaileak (4); europako banku zentraleko (25); ihes puntu zentraleko (3); inteligentzia agentzia zentraleko (4); mihamako zentraleko (3); puntu zentraleko (3); zaintzako epaitegi zentraleko (7)*

*zentraleko buru (5); zentraleko epaileak (6); zentraleko gobernu kontseilua (4); zentraleko presidente (3); zentraleko presidenteak (13); zentraleko zuzendari (3)*

*banku zentralen (11); zentralen artean (3)*

*zentralera deituko (3)*

*banku zentraletako (9)*

**zentralismo** *iz zentralizatzeko joera; eskumenak aginte edo administrazio zentralean metatzearen aldekoa den sistema politikoa.*

*Funtsean, ez du horren beharrik lurraldetasunari uko egiteko,* ***zentralismoa*** *eta jakobinismoa oraino ere printzipio sakonak baitira Frantzian.* Berria - Euskal Herria

*Sare publikora pasatzeko alde zirenek "herri eskolak" zituzten gogoan, hemen, Frantzian edo Ameriketan aurki daitezkeenak, hemengo* ***zentralismoak*** *eredu hori modu batera bortxatu badu ere.* Pello Salaburu

*Gehiago du* ***zentralismotik*** *nazionalismotik baino.* Berria - Mundua

*Estatuaren* ***zentralismoa*** *eta zapalketa areagotu egin dira.* Berria - Euskal Herria

*Epaileak, «jakobinoen* ***zentralismoak*** *kutsatuta-edo», euskarari dion «mespretxua» agerian utzi duela dio EAk.* Berria - Euskal Herria

*Espainiako* ***zentralismoaren*** *defendatzaile sutsua.* Berria - Euskal Herria

*Hego Euskal Herriak, berriz, Espainiako* ***zentralismoaren*** *aurka egin ditu, hein baten, XIX eta XX. mendeetako gerrak, 1833-39ko eta 1872-76ko karlistak eta 1936-39ko zibila eta, zalantzarik gabe, nortasun berezia eman dio horrek.* Koldo Zuazo

*Asko dira* ***zentralismo*** *politikoaren "izpiritualizazio" modu hauek Gaztelako izpiritu gorago edo sintetiko "nazional" batean.* Joxe Azurmendi

*Tokian-tokikoaren errespetua edo subsidiaritate printzipioa: lurraldekako eta taldekako estilo eta erabakiak lehenetsiz* ***zentralismo*** *demokratikoaren aurretik.* J. Garzia / A. Egaña / J. Sarasua

> ***hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)***
> ***espainiako zentralismoaren*** *(3)*

---

**zentralista** **1** *izond zentralismoaren aldekoa.*

*Frantzia* ***zentralista*** *huntan bezala.* Herria

*Indarkeriaz ezarririko estatu* ***zentralista*** *batuari.* Markos Zapiain

*«Espainia eta Frantziako konstituzio* ***zentralistek*** *Euskal Herrian banaketa iraunarazten» dutela iritzi dio Batasunak, Langileen erakundeak harreman estuak behar zituen izan estatuko ezker iraultzailearekin, diktadura botatzeko, eta, batez ere, burgesia* ***zentralistari*** *aurre egiteko.* Berria - Ekonomia

*Metodoak [...] antzinako herrialde komunistetako planifikazio* ***zentralistetatik*** *hartuak izaten ziren.* Koro Navarro

*Administrazio* ***zentralistaren*** *ibilmolde pisua arinduz.* Herria

*Aginte-eredu* ***zentralista*** *gailendu zen eta Lapurdi, Nafarroa Beherea eta Zuberoa bi administrazio ezberdinetan banatu zituzten.* Askoren artean

*PPren eredu* ***zentralistaren*** *eta PSOEren neoautonomismoaren arteko hirugarren bidea egiteko.* Berria - Euskal Herria

*Tradizio frantses* ***zentralistaren*** *jarraitzaileek amestutakoa.* Bernardo Atxaga

*Komunistek beti ildo bera segitzen dute, borrokatzen gaituzte,* ***zentralistak*** *dira; ez dago ustekaberik.* Berria - Mundua

**2** *(izen gisa)*

*Nazionalistekin eta ez nazionalistekin, independentistekin, soberanistekin, autonomistekin eta* ***zentralistekin*** *.* Berria - Euskal Herria

*Espainiako* ***zentralistei*** *bereziki adieraziko diegu ezin dituztela egunkariak itxi eta kazetariak torturatu munduan hori zabaldu.* Berria - Euskal Herria

***Zentralistak*** *edozer emateko prest egongo litzateke abertzaleak gobernutik kendu eta abertzaletasuna ahultzeko eta lohitzeko.* Migel Angel Mintegi

*Gazteleraz egiten ez duen guztiak espainiar* ***zentralisten*** *hizkuntz eskubideak urratzen ditu.* Berria - Euskal Herria

> ***hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)***
> ***eredu zentralista*** *(3)*

---

**zentralistakeria** *iz*

***Zentralistakeriaren*** *aurka jokatuz.* Herria

---

**zentralita** **1** *iz eraikin edo enpresa bateko telefono lineak konektatzen dituen tresna.*

*Urrutizkin zentraletik, Gipuzkoan telefono* ***zentralita*** *zuten herri guztietara gaztigatuko zen Igeldoko zerbitzutik emandako abisu iragarpena.* Pello Zabala

**2** *irud/hed zentral txikia.*

*Zelan elkartu ginen jatorri oso desberdinetako lau pertsona bizileku eta* ***zentralita*** *gisa erabiliko genuen Segovia kaleko duplex baten, kobazuloa ematen zuen egitura negargarriko pisu zikin eta ilun baten.* Jon Arretxe

---

**zentralitate** *iz zentrala izateko nolakotasuna. ik* **zentraltasun**.

*Baionaren* ***«zentralitatea*** *» defendituko du berriz ere.* Berria - Euskal Herria

*Hizkuntzaren eta kulturaren euskal hausnarketaz Larramendik erabateko* ***zentralitatea*** *markatzen duen neurri berean, Agustin Xaho zuberotarra (1811-1858) da euskal politikagintza modernoa definitzeko ardatza.* Askoren artean

*PSOEren Antolakuntza idazkariaren hitzetan,* ***zentralitate*** *politikoa lortzeko egingo du bat PPrekin.* Berria - Euskal Herria

---

**zentralizatu**, *zentraliza(tu), zentralizatzen* **1** *du ad zentro komun batean edo zuzentaritza komun baten mendean bildu.*

*Informatika sistema batek lituen apustu guziak* ***zentralizatzen*** *eta tratatzen.* Ramuntxo Etxeberri

*Estatu Batuen kanpo-espioitza etxe bakar batean* ***zentralizatu*** *beharko dela.* Edorta Jimenez

*Artelekuren web orrian (www.arteleku.net)* ***zentralizatzen*** *eta zabaltzen dira Loiola auzoko zentroan egiten diren ekimen guztiak.* Berria - Kultura

*Elkarte zabal bat, merkatuko lapurreta guztiak* ***zentralizatzen*** *zituena.* Karlos Zabala

*Birbanaketa inperioen antolamendu ekonomikoaren funtsa da -Mesopotamian, Egipton, Txinan, Indian, Persian, Kolonen aurreko Amerikan.-, ekoizpena* ***zentralizatuz*** *eta biltegiratuz egiten da, eta gizarteko kideen artean banatzen da gero, inperio bakoitzaren irizpideen arabera.* Koro Navarro

*Bortxaz eta inposizioz, mugak Ebrotik Bidasoara ekarri ziren, euskal mutilak soldaduskara obligatu, zergak ezarri, eskola* ***zentralizatu*** *, lurralde osoan Espainia-Estatu politiko, administratibo, militarra inkatu.* Joxe Azurmendi

*Nazio-espazio bakoitzaren baitan botere politikoa* ***zentralizatu*** *izanaren ondorioz, metaketaren ardatzak hiri estatuetatik nazio-estatuetara aldatu zirelarik, areagotu egin zen konkurrentzia.* Koro Navarro

*Putini boterea* ***zentralizatzea*** *eta prentsa askatasuna murriztea leporatu zion.* Berria - Harian

*Zerbitzuak* ***zentralizatzeak*** *konplexutasuna eragin du, eta ez du emaitza onik eman.* Berria - Euskal Herria

*Eskaria* ***zentralizatua*** *dago, bezeroen arreta ez, ordea.* Berria - Euskal Herria

**2** *(era burutua izenondo gisa)*

Alarma horiek sistema **zentralizatu** batekin komunikatuta egoten dira. Berria - Harian

Erregadioan oinarrituriko ekonomia agropekuarioak, aginte **zentralizatuaren** menpeko lankidetza komunitarioaren koordinazioa eta sedentarizazioa ekarri baitzuen. Patziku Perurena

Beste muturrean, berriz, plangintzapeko ekonomia edo ekonomia **zentralizatua**. Iñaki Heras

Holakoa dugu Frantzia **zentralizatu** hau: orok Pariseratu behar. Herria

Gobernu **zentralizatu** batek ezin du jardun funtzionario profesionalik gabe, eta Liu Pangek sorturiko Han dinastiak arrakasta izan zuen funtzionariotza eraginkor eta onargarria eratzen. Iñaki Mendiguren

Frantzian eta Ingalaterran, Ehun Urteko gerrak eginkizun erabakigarria izan zuen monarkia **zentralizatuen** eta nazio-nortasunaren osaeran. Koro Navarro

Mendebaldeko Europako monarkia **zentralizatuek** [...] elkartu zituzten, XVII. mendetik aurrera, tokiko merkatuak -oso ugariak zirenak- eta kanpoko merkataritza, eta, hala, barne- merkatu bateratu, integratu eta lehiakor bat sortu zen pixkana-pixkana. Koro Navarro

---

## zentralizatzaile izond zentralizatzen duena.

XIX. mendean berezitasun horiek gordetzeko frantziar eta batik bat espainiar gobernuen ahalegin **zentralizatzaileei** aurre egin ondoren, [...]. Iban Zaldua

Orain arte, baina, Vatikanoa oso eurozentrista izan da, lar **zentralizatzailea**. Berria - Harian

Oso **zentralizatzailea** izan da, eta autoritarioa ere bai, hein batean. Berria - Harian

---

## zentralizazio 1 iz zentralizatzea.

Lortu nahi dutena **zentralizazioa** eta industrializazioa da, prozesu guztia kontrolatzen duen azpiegitura bakar bat uztea. Berria - Harian

Industria-iraultzak eragindako produktibitatearen hobetzeak ez zuen ekarri, aldi berean, diru-sarrera banatuen masa handitzea; aitzitik, mozkinen hazkundea eta kapitalaren **zentralizazioa** ekarri zituen. Koro Navarro

Egitasmoak kudeaketa integralaren aitzakiapean **zentralizazioaren** alde egiten du nabarmen. Berria - Euskal Herria

Handiak dira tradizioak Salomoni egotzi dizkion dohainak: gizon jakintsua da [...] eraginkorra ere bada bere lanetan, hala nola tenpluaren eraikuntzan eta kultuaren **zentralizazioan** -israeldarrak jainko arrotzen ondotik barreiatu ez daitezen-. Jose Antonio Mujika

XVII. mendean, gerra izan zen, berriz ere, **zentralizazio** politikoaren eragile nagusia. Koro Navarro

**Zentralizazio** jakobinoari uko egiten dioten alderdiak. Berria - Mundua

**2** (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

Harrezkeroztik, ezin itzulizkoa ematen zuen botere politikoaren, militarraren, fiskalaren eta monetarioaren **zentralizazio**-prozesuak. Koro Navarro

Japoniaren subiranotasunak pairatzen zuen mehatxua zela-eta, **zentralizazio**-politika abian jartzea eta nazio barneko ekonomia liberalizatzea izan zen japoniarren erreakzioa. Koro Navarro

Egia da une honetan estatuen Europa dela abian dagoena, eta guztiok dakigu estatuek nolako egitura, boterea eta **zentralizazio** gogoa duten. Berria - Euskal Herria

---

## zentralki adlag zentroan.

Merkatu erregulatuak betidanik izan dira eta izango dira; merkatu autoerregulatuak dira berrikuntza, hots,laissez-fairea **zentralki** planifikatu behar da. Iñaki Heras

---

## zentraltasun iz zentrala izateko nolakotasuna. ik **zentralitate**.

Teoria oralistaren ekarri baliotsuenetako bat da, zalantzarik gabe, performance kontzeptuari aitortzen dion **zentraltasuna**. J. Garzia / A. Egaña / J. Sarasua

PSE-EEk ordezkatzen duen **zentraltasuna** saritu dute. Berria - Harian

Guri ere, frantziarrei, badagokigu, Frantziako benetako independentzia lortzeko, bera baita bere **zentraltasunaren** lehen biktima. Berria - Harian

---

## zentratu, zentra(tu), zentratzen 1 du ad zentroan jarri, zentroari buruz antolatu.

-Zure fotokopiak ez daude behar bezala **zentratuta** -adierazi zidan, orri bat erakutsiz-. Joxan Elosegi

Ikusle "normala", bere begiradak egiten duen bezala, irudiak **zentratuta** ikustera ohituta dagoenez, deskoadratzea ezabatzea izaten da joera normala. Josu Zabaleta

Titularrak **zentraturik** zeuden. Aingeru Epaltza

**2** futbolean, balioa erdialdera bota.

Ilargia laino geldien artetik agertu zen borobil borobila, buruaz jotzeko modukoa, Emilio Minak **zentraturiko** baloia bezala. Joseba Sarrionandia

• **3** da/du adn adierazten den gauzan arreta nagusia jarri.

Bere interesa Espainian eta tradizio espainolean **zentratua** dago. Joxe Azurmendi

Montse ahaztu eta berriro **zentratu** behar nuen neure karrera profesionalean. Joan Mari Irigoien

Brokeback mountain gauza txikietan, egunerokoetan, **zentratzen** da, eta westernaren epika albo batera uzten du. Berria - Kultura

Gastu publikoaren bidezko esku-hartzean **zentratzen** ziren errezetak hartu zituzten soilik aintzat. Iñaki Heras

Inflazioaren kontrolean eta diru egonkortasunean **zentratzen** ziren neurri monetarista horiek interesgarriak izan ziren. Iñaki Heras

Irudikapenaren **zentratzea**. Josu Zabaleta

Azterketa soziologiko asko dago hebadibeek duten harrerari buruz [...] baina "edukiari" dagozkion gaietan **zentratuak** izan ohi dira gehienak. Josu Zabaleta

Subjektuarengan eta hitzean **zentratutako** artelanaren ikusmolde zaharkitu bat dela. Josu Zabaleta

Iruditzen zait lehengo jendea **zentratuagoa** zegoela..., bizitzan inplikatuagoa. Pako Aristi

Fredi, bertsoa goitik behera egiten inoiz baino **zentratuago** ikusi nuen. Berria - Kultura

**4** (era burutua izenongo gisa)

Kamera, ideologia burgesaren subjektu **zentratua** mugagabe errepikatzeko tresna bezala harturik. Josu Zabaleta

Estilo **zentratutzat** ezaugarritu nahi izan baita estilo klasikoa. Josu Zabaleta

---

## zentratze 1 iz zentroan jartzea, zentroari buruz antolatzea.

**Zentratze** hori, berez ere margolaritzaren herentziaren ikuspegi akademizatu batetik hartua, ez da unibertsala zinemagintzan, eta badira, hain zuzen, **zentratze** horren ukazioan oinarritzen diren estiloak. Josu Zabaleta

Esan liteke, ia-ia, horrelako irudiei dagokienez, **zentratzearen** teoria baino gehiago, etengabeko deszentratze baten estetika bat lantzen duela zinez. Josu Zabaleta

**2** (hitz elkartuetan)

Ikuslea ikusmenezko mundua oso-osorik bere buruarekin lotzen duen irudimenezko "zentro" bat bezala harturik, eta irudian ere, horrenbestez, **zentratze**-fenomfenoek oinarri-

oinarrizko eginkizuna dutelarik. Josu Zabaleta

Zinemak, zinema moten artean nagusi denak behintzat, jarraitasun eta **zentratze** -bilaketa bat du ezaugarri. Josu Zabaleta

---

**zentrifugagailu** iz zentrifugatzeko gailua. ik **zentrifugatzaile**.

Kimikariek laborategian erabiltzen dituzten ponpen edo **zentrifugagailuen** laguntza mekanikorik gabe. Irene Aldasoro

Iranek uranioa aberasteko baliatzen diren 3.000 **zentrifugagailuz** jabetzeko asmoa dauka hemendik 2007. urteko martxoa bitartean. Berria - Mundua

**Zentrifugagailuak** , abiadurari esker, gasaren bi elementuak banatzeko gai dira: U-235 eta U-238. Berria - Mundua

EB Europako Batasunak eta AEB Ameriketako Estatu Batuek **zentrifugagailu** horiek arma atomikoak egiteko baliatuko diren susmoa dute. Berria - Mundua

Eredu sofistikatu baten **zentrifugagailua** da aurkitu dutena; uranioa aberasteko gaitasuna duten 235 molekulak bakartzeko ahalmena duen **zentrifugagailua** , alegia Berria - Mundua

---

**zentrifugatu**, zentrifuga, zentrifugatzen du ad indar zentrifugoa erabili arropa lehortzeko edo nahaste baten osagaiak bereizteko.

Batzuetan bihotza taupada batean hasten zitzaidan -eta zait-, garbigailua **zentrifugatzen** hasten denean bezala. Ikuzmakinan **zentrifugatzen** ari den galtzerdi alargunaren antzera. Patxi Zubizarreta

Aise ziurtatu nintzen horretaz, [ezpainetakoa] bentzenotan disolbatu eta **zentrifugaturik** . Juan Garzia

---

**zentrifugatzaile** iz zentrifugagailua.

Europako Batasunak eta Iranek ez dute akordiorik lortu Teheranen ahalmen nuklearraz eta erabili nahi dituen 20 **zentrifugatzaileen** inguruan. Berria - Mundua

Gaurtik aurrera **zentrifugatzaile** atomikoak muntatzen hasiko dela adierazi zuen herenegun Irango Gobernuko Atzerri Ministerioaren bozeramaile Hamid Reza Asefik. Berria - Mundua

Teheranek ez dituela hainbat afera erabat argitu salatzen da, besteak beste, **zentrifugatzaileen** kokapena. Berria - Mundua

---

**zentrifugatze** iz indar zentrifugoa erabiltzea arropa lehortzeko edo nahaste baten osagaiak bereizteko.

Uranioa aberasteko erabiltzen dituen **zentrifugatze** programen inguruan. Berria - Mundua

---

**zentrifugo** **1** izond indarrez mintzatuz, zerbait biratzen ari den ardatzetik urruntzeko joera duena; indar hori baliatzen duen tresna.

Eskutoki beltza altxatu zuen, eta ponpa **zentrifugoaren** kirrinkots larri garratza erregailuaren trumoihots sakonari gainkatu zitzaion. Juan Garzia

Belodromoko indar **zentrifugoak** ez baitie bertsolariei bakarrik eragiten. Berria - Kultura

**2** irud/hed

Ikuspegi historikoak kosmos fisikoaren mugimendu **zentrifugoa** erakusten digu espazio-denboraren lau dimentsioko markoan. Iñaki Mendiguren

Logika **zentrifugoan** instalatuta, erdiguneari ekiteko oso garai ilunak bizi ditugu. Berria - Euskal Herria

Kapitalismoa nazioartera zabaltzea, historiaren ikuspegitik, abiaburua Europan duen hedapenezko ibilbide **zentrifugoa** bada ere [...]. Koro Navarro

Indar **zentrifugoak** , berriz, sakabanatu egin nahi dizkizu hitzok. Joxerra Garzia

Horixe da André Bazinek bere "Peinture et cinéma" (1950) artikuluan egiten duen oinarrizko oharpena, filma **"zentrifugotzat"** definitzen baitu. Josu Zabaleta

---

**zentriko** **1** izond zentroan dagoena.

Hiriko plazarik **zentriko** eta jatorrenetariko batean ginen. Aingeru Epaltza

Beste leku batera joan behar izan genuen bizitzera, eta gurasoek aurrekoa baino askoz **zentrikoagoa** zen bat aurkitu zuten. Mikel Hernandez Abaitua

**2** irud/hed

Are gehiago, definizio etiko- **zentriko** eta logozentriko horiek onartzen dituenak beste definizio batzuk uzten ditu bazterrean. Askoren artean

---

**zentrikotasun** iz zentrikoa denaren nolakotsauna.

Haren iritzian, **"zentrikotasunaren"** artea da espresionismoa (inpresionismoaren "azentrikotasunari" kontrajarririk), esentzialtasunaren, simetriaren, estatikotasunaren artea. Josu Zabaleta

---

**zentrismo** iz zentrorako, eskuarki zentro politikorako joera.

Geozentrismoa eta beste **zentrismoak** dira oraindik ere mendebaldeko pentsamenduaren oinarriak. Berria - Kultura

---

**zentrista** **1** izond zentrismoari dagokiona; zentrismoaren aldekoa.

François Bayrou UDF alderdi **zentristako** presidenteak nolabaiteko nabardura egin zuen: [...]. Berria - Mundua

Ihesean tirokatu eta zauritu egin zuten politikari **zentrista** . Berria - Euskal Herria

Enpresarioen kamarada deitzen zioten, bere politika **zentristengatik** . Berria - Harian

Zapaterok boto emaileen alde **zentristena** irabazi nahi izan du, soil-soilik boto gehienak lortuta gobernatuko duela esanez. Berria - Mundua

Shimon Peres sozialista batetik, eta Tommy Lapid Shinui justiziaren ministro ohi **zentrista** bestetik. Herria

Jean-Pierre MIRANDE, Garindaineko auzapeza [...] politikaz erdiko gizona, **zentrista** . Herria

• **2** iz zentrismoaren aldeko pertsona.

UMPko kontserbadoreak eta liberalak, UDFko **zentristak** , [...]. Berria - Harian

Eskuinaren eta **zentristen** indarra ikusirik, ezezko bozek %49,4 lortzea balentria handia da ezkerreko indarrentzat. Berria - Harian

Palestinar guztien presidentea izango da Abbas: eskuindarrena, ezkertiarrena, **zentristena** ... Berria - Harian

Jean-Pierre Goiti **zentrista** euskaltzalea. Berria - Euskal Herria

**zentro** (orobat **zentru** g.er.) iz **1** erdigunea, erdia. (geometrian eta ingurutoetan)

Lau puntu horietatik abiatuz eta zirkuluaren **zentrotik** pasatuz, lerroak botako ditugu zirkunferentziaren alde batetik besteraino. Santiago Iruretagoiena

Puntu orotatik zirkulu bat marraztu daiteke, zeinaren **zentroa** puntu hori baita, eta erradioa, berriz, edozein. Jon Muñoz

Teatroaren oinplanoa honela antolatu behar da: beheko partearen perimetroa izango denaren zabalera hartu eta, erdian **zentroa** jarriz, egin bedi zirkunferentzia bat inguru guztian. Santiago Iruretagoiena

Lerro guztiak zirkulu baten **zentroa** den puntu batera biltzen direla. Santiago Iruretagoiena

Zirkunferentzia osoaren hamaseiko parte bat hartuko dugu erradio bezala eta, **zentro** bezala erdiko lerroak zirkulua ukitzen ditueneko bi puntuak hartuz eta erradio hori erabiliz, bi puntu markatuko ditugu eskuinetik eta ezkerretik zirkulua ukitzen den lekuetan. Santiago Iruretagoiena

Horiek **zentro** bezala hartuz diametroaren muturretaraino zabalduko da konpasa eta bi zirkuluerdi egingo dira. Santiago Iruretagoiena

**Zentro** batekiko egiten dira mugimenduak, lerrozuzenak batzuk eta zirkularrak besteak. Santiago Iruretagoiena

Geldirik dagoen likido ororen gainazalak Lurraren **zentro** bera duen esfera baten forma izango du. Jon Muñoz

Izarraren **zentroa** kolapsatu ahala, kanpoaldeko geruzetako materia zati bat kanpo espaziora jaurtikia zen, gainerako guztia izarraren bihotzerantz erakarria zen bitartean. Harkaitz Cano

Axonometria **zentro** gabeko sistema bat da, zuzen paralelozkoa. Josu Zabaleta

Nola Eguzkia sistema planetario berriaren **zentroa** den, hala, adimenduaren bertze argi hori diagu -eta gizona bera, azken finean- mundu berriaren **zentro** eta erdigune. Joan Mari Irigoien

**2** irud/hed

Ipurdiz gora daude hiriaren **zentroko** hainbat kale nagusi ere. Anjel Lertxundi

Hitz joko bat dela pentsatuko duzue, baina, nire iritziz, nobelaren erdigunea, **zentroa**, Central Park da. Bernardo Atxaga

Periferia ez da ulertzen ez bazaio sistemaren **zentroari** kontrajartzen. Koro Navarro

Periferiak, **zentroko** esportazioentzat bazterreko merkatua izanik, zentroa lehengaiez hornitu baino ez du egiten. Koro Navarro

Batetik herrialde garatu edo industrializatuek osatzen duten **zentroa** edo erdigunea, eta bestetik gutxien aurreratutako herrialdeek osatzen duten periferia. Iñaki Heras

Zero graduko longitudea Greenwichen finkatzea eta Europa maparen **zentroan** jartzea. Joseba Sarrionandia

Mundu-ekonomia zirkulu zentrokideetan zegoen egituratua; **zentroarekiko** mendekotasuna hazi ahala, behera egiten zuen pisu ekonomikoak. Koro Navarro

Mundua etxalde bihurtu zaigula esan nahi dute hitz horiek: ez dagoela distantziarik, ez **zentro** ez bazterrik, are gutxiago ertzik. Joxerra Garzia

Perspektibak, espazioan **zentro** bat jartzera behartzen duelarik, mugak ezartzen dizkio orobat, begirada batek ikusten duen alor bat bezala antolatzen du. Josu Zabaleta

Arnheimen iritzian, izan ere, **zentro** asko daude irudian, era askotakoak [...] eta irudiak ikustea (irudi artistikoak, guri dagokigunez) **zentro** horiek guztiak ikuslea bera den **zentro** "absolutu" bati buruz duten loturaren arabera antolatzea da. Josu Zabaleta

Bere gelan baitu bere unibertsoa, eta **zentro** jakin bat du unibertso horrek: ordenagailua. Joxerra Garzia

Neoliberalismo gordinak, Sombart-ek zioen bezala, gizakia bizitzaren **zentro** izatetik aldendu zuen. Iñaki Heras

**Zentro** aldera doaz; handik, ziurrenera, hondartza aldera joko dute. Jokin Muñoz

**3** (izenondoekin)

**Zentro** ekinokzialetik eta erradio bezala udako zirkunferentzia hartuz, hilabeteen zirkulua egingo da, manaeus deitzen dena. Santiago Iruretagoiena

**Zentro** dentso horretara erakarritako materia guztia zulo beltz bihurtzen zen. Harkaitz Cano

**Zentro** industrializatua eta periferia azpigaratua aurrez aurre jartzen zituzten azterlanak guztiz baliogabetuak geratu ziren. Koro Navarro

Isats-pianoa gure gelako **zentro** neuralgiko garrantzitsuena da. Harkaitz Cano

**4** (hitz elkartuetan)

Iberiako penintsulan eta Europako **zentro** -mendebaldean ugaltzen da. · Film klasiko gehien-gehienetan ikuspen- **zentro** baten edo biren inguruan eraikitzen da irudia, pertsonaien inguruan maizenik. Berria - Gaiak

**5** mota jakin bateko jarduerak biltzen edo garatzen dituen gunea.

Aurreneko aldiz, mundu garatuko botere ekonomikoaren **zentro** handietatik kanpo harturiko erabakiek astindu zuten munduko ekonomia. Koro Navarro

Unibertsitateen **zentro** edo sailen arabera. Juan Ignacio Pérez / Pello Salaburu

86.000 ikaslek hasiko dute ikasturte berria Nafarroako 300 **zentroetan** . Berria - Euskal Herria

A ereduko **zentroek**, nahi izanez gero, ikasgai bat euskaraz emateko aukera izango dute. Berria - Euskal Herria

**Zentro** edo liburutegi bakoitzak bere dokumentu-bildumaren katalogoa eskaintzen du. Askoren artean

**Zentroek** helburu jakin batzuk ezartzen dituzte, eta horiek betetzeko ahalegina egiten dute. Berria - Euskal Herria

Parisko Pompidou **Zentroan** XX. mendeko artearen joera batzuei buruz egin den erakusketa batek. Josu Zabaleta

-Hori zure esku dago oraindik -esan zidan Aristegi doktoreak, nire osasunaz arduratzen hasi zen beste **zentro** hartako psikiatrak-. Joan Mari Irigoien

Adingabeen **zentroak** helduen espetxeak baino okerragoak dira. Berria - Harian

Lagun batekin nengoen errefuxiatuen **zentroan**, eta bat-batean tipo bat jaitsi zen eskaileran behera abiada bizian. Berria - Kultura

Pianoa leiho ondoan jarri dut eta operazioen **zentro** bilakatu da. Harkaitz Cano

Aita zenak toxikomanoak bergizarteratzeko **zentro** batean giltzapera ez nintzan. Aingeru Epaltza

Emigrazio juduaren **zentro** bihurturik, bi gerren artean, New York zen yiddish kulturaren munduko gune nagusietako bat, Varsovia eta Vilniusen maila berekoa. Koro Navarro

**Zentro** horretara mota guztietako jendea etortzen da. Gotzon Garate

Itsas hegiko baliabideen **zentroa** abiatu dute Iparraldean. Berria - Euskal Herria

Kearen opakutasuna eta toxikotasuna neurtu ahal izango dute Gaiker **zentroko** teknikariek. Berria - Gaiak

**6** (izenondo eta izenlagunekin)

Unibertsitateak sortu ziren, **zentro** berriak, ikasketak egiteko aukerak, etab. Juan Ignacio Pérez / Pello Salaburu

**Zentro** bereziak behar ditugu integrazioa bermatzeko. Berria - Harian

Borondegi, erabilera askotako **zentroa** . Berria - Euskal Herria

Ardo biltegi zaharra kulturari eta kirolari zuzenduriko **zentro** handi eta berritzaile bihurtuko zutela aurreratu zuten. Berria - Kultura

Loiselen lanen erakusketa ikusteko aukera izango da CNBDI Komikigintzaren eta Irudiaren **Zentro** Nazionalean. Berria - Kultura

Dagoena da **zentro** pribatu bat Ortuellan, Berriztu izenekoa, ez dena **zentro** itxia, mistoa baizik. Berria - Euskal Herria

Legutioko Kirol **Zentro** Teknikorako. Berria - Kultura

Orotara 400 **zentro** klandestino sortu zituzten. Berria - Mundua

Errekuperatzeko prozesuari ekin nion ostera, gogo handirik gabe baina, **zentro** espezializatu batean. Joan Mari Irigoien

Nafarroako Ospitalea da, egun, Nafarroako **zentro** onkologikoa. Berria - Euskal Herria

Espainiako **zentro** kulturalera ekarri gaituzte. Edorta Jimenez

Hondakin-sortzaile handienak direlako elikagaien industria (kontserberak, prekozinatuak), kateringa (enpresa eta antzeko kolektibitate handientzakoak) eta **zentro** banatzaileak, besteak beste. Edorta Agirre

**Zentro** nuklearrak ongien ikuskaturikoak izan ziren. Berria - Mundua

Bere arduretako bat Loiolako Herri Irratiak Itxumendin (731 metrotan) zeukan **zentro** emisorea zaintzea zen. Pello Zabala

*Alkateak Euskal Jai gaztetxearen tokian udal* ***zentro*** *hidrotermala eraiki nahi duela ezagutarazi zuen.* Berria - Euskal Herria

*Horrek parada eman dit* ***zentro*** *dramatiko nazional baten gorabeherak hurbiletik ezagutzeko.* Berria - Kultura

*Eguneko* ***zentro*** *egokiak, alegia, zaharrek dituzten beharrei egokituak.* Berria - Harian

*Herri txiki hauetan ezin dira, hirietan bezala, eguneko eta gaueko* ***zentroak*** *ireki.* Berria - Euskal Herria

*Egunazko* ***zentro*** *horietan nola daude eriak?* Herria

*Donostiako Tabako Fabrikako Kultura Garaikidearen nazioarteko* ***zentroa*** *.* Berria - Kultura

*Zinemagintzarako* ***Zentro*** *bat ere sortu nahi dute.* Berria - Harian

*Ikaskuntzarako eta ikerketarako* ***zentro*** *modernoa eratuko du Deustuko Unibertsitateak Moneok diseinaturiko eraikinean.* Berria - Kultura

## *7 (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)*

***Zentro*** *-museoa inauguratu eta gero sortutako artelanak.* Berria - Kultura

*Euskaldun izatea bera ere -ez diot nik- ez dago, nahita ere, edozein txoropitoren esku, ez behintzat nere moduko deszentratuen (* ***zentro*** *-kontrakoen) esku.* Iñaki Segurola

## *8 (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa)*

*Madrilen dago Europako kultur* ***zentro*** *islamiko handienetariko bat.* Berria - Harian

*1999ko otsailean espazioratu zuten Stardust zunda Kennedy espazio* ***zentrotik*** *.* Berria - Gaiak

*Irisarriko ondare* ***zentroan*** *.* Herria

*Nahikoa da edozein merkataritza* ***zentro*** *, hipermerkatu edo dendatara joatea [...] han saltzen diren produktuak nongoak diren ikusteko.* Iñaki Heras

*Herriko langileentzat zerbitzu* ***zentro*** *berri baten eraikitzea beti beharrezkoa da eta egin beharko egun batez.* Herria

*Osasun-* ***zentro*** *handietan.* Irene Aldasoro

*Valentziako ugalketa* ***zentro*** *batek aste honetan aditzera eman du zelula amak sortu dituela.* Berria - Gaiak

*Zergatik etorri zara ernalkuntza* ***zentro*** *honetara?* Xabier Mendiguren Elizegi

*Donostiako Nazioarteko Txertatze* ***Zentroko*** *arduraduna da Ana Vilasau medikua.* Berria - Harian

*Vienako diagnostiko-* ***zentro*** *baten postalaster batekin hasi zen.* Juan Garzia

*Xenpelar Dokumentazio* ***Zentroaren*** *egoitza nagusia.* Berria - Kultura

*Maltako atxilotze* ***zentro*** *batetik hirurogei bat etorkinek ihes egin zuten atzo.* Berria - Mundua

*Urte bakoitzean gai jakin bat seinalatzen dute, Meteorologia* ***Zentro*** *guztietan garatzeko.* Pello Zabala

*Baionako IUTaz gain, zenbait alorretan [...] aritzen diren 14 ikerketa* ***zentro*** *daude Iparraldean.* Juan Ignacio Pérez / Pello Salaburu

*Frailegai ttipi eta gazteentzat formakuntza* ***zentro*** *bat egiteko.* Xipri Arbelbide

*Frantzian aisialdi* ***zentro*** *laikoak biltzen dituen Franca izeneko elkarteko kideak dira.* Berria - Harian

*Ihes egizue atxiloketa* ***zentroetatik*** *.* Paddy Rekalde

*Tratua egin ondoan zion bikario nagusiari idatzi jakinarazteko fraile* ***zentro*** *berri bat bazela diosesan.* Xipri Arbelbide

## *9 futbolean-eta, zelaiaren albotik erdialdera egiten den jaurtitze luzea.*

*Eskuin hegaletik jasotako* ***zentro*** *bat izan zen, berak ezker boleaz errematatu zuena, baloia sareetara bidaliz.* Joan Mari Irigoien

*Pasea,* ***zentroa*** *, errematea... kornerra, penaltia, gola...* Joan Mari Irigoien

## *10 eskuinaren eta ezkerraren arteko ideologia duen alderdia.*

***Zentroko*** *eta eskuineko alderdietako buruzagi nagusien irudi karikatureskoak.* Koldo Biguri

*UMP (kontserbadoreak) eta UDF (* ***zentro*** *aldekoak) alderdietako parlamentarioek legebiltzarrean duten gehiengoa baliatu dute bikote homosexualen ezkontza galarazteko.* Berria - Harian

*Aste baten buruan, nonbait han, berriz heldu zait beste preso batekin, presentatzen didana Würzburg-eko* ***Zentro*** *katolikoko deputatua.* Marzel Etxehandi

*Legebiltzarrerako botoen %52,48 zenbatuta,* ***zentro*** *-ezkerrak %51,41 zuen eta* ***zentro*** *-eskuinak, berriz, %48.* ***Zentro*** *-ezkerraren eta* ***zentro*** *-eskuinaren artean 24.755 botoko aldea dago soilik.* Berria - Mundua

*Salòko errepublika faxistaren eta alemanen alde, partisano* ***zentro*** *-ezkertiarren alde ala erregearen alde.* Koldo Biguri

*Berlusconik* ***zentro*** *-eskuineko koalizioko buruzagi gisa jarraitzen du indartsu.* Berria - Mundua

*Argentinako* ***zentro*** *-ezkerreko Clarin egunkarian.* Berria - Mundua

*Espainiako ezkertiarrak eta EAJ eta CIU bezalako eskuin-* ***zentroko*** *alderdiek akordioa erdietsi behar dute hauteskundeen ostean Estatuan elkarrizketa berriz ezartzeko.* Berria - Euskal Herria

*Fox porrotaren maldan dago, ezker-* ***zentroko*** *gobernu batera doaz, PRI alderdiaren erroetara itzuliz.* Berria - Mundua

*Ezker-* ***zentroari*** *ere kritika zorrotzak egin izan dizkio.* Berria - Kultura

## ***11 grabitate zentro***

*Gorputzaren* ***grabitate zentroa*** *ezari-ezarian desplazatzen da higidura emearekin batera.* Iñaki Iñurrieta

*Zentro geometrikoa, ikusmenezko* ***"grabitate-zentroa*** *", konposizioaren bigarren mailako zentroak.* Josu Zabaleta

*Seigarren menderako Irlanda argi eta garbi kristautasunaren* ***grabitate-zentroa*** *zen Mendebaldean.* Iñaki Mendiguren

*Mundu-ekonomia kapitalistaren* ***grabitate-zentroa*** *lekuz aldatuz joan da.* Koro Navarro

*Europako* ***grabitate-zentroaren*** *lekualdatzea.* Koro Navarro

### ***hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)***

***adingabeen zentro*** *(3);* ***arte zentro*** *(4);* ***atxilotze zentro*** *(7);* ***dokumentazio zentro*** *(3);* ***ekoizpen zentro*** *(3);* ***erakusketa zentro*** *(3);* ***europako kultur zentro*** *(3);* ***euskal zentro*** *(11);* ***euskal zentro museoak*** *(7);* ***gaiker zentro teknologikoa*** *(3);* ***galdeketa zentro*** *(3);* ***gipuzkoako zentro*** *(5);* ***harrera zentro*** *(3);* ***hezkuntza zentro*** *(3);* ***hiru zentro txiki*** *(3);* ***ikerketa zentro*** *(16);* ***ikerketarako zentro*** *(4);* ***ikertzeko zentro bat*** *(3);* ***inteligentzia zentro*** *(3);* ***kultur zentro*** *(11);* ***kultur zentro islamiko*** *(3);* ***landa eremuko zentro*** *(5);* ***medikuntzaren zentro*** *(3);* ***merkataritza zentro*** *(9);* ***mugaz gaindiko zentro*** *(4);* ***nazioarteko zentro*** *(4);* ***osasun zentro*** *(14);* ***osasun zentro batean*** *(3)*

***zentro absolutu*** *(3);* ***zentro askotan*** *(5);* ***zentro bakoitzak*** *(6);* ***zentro bat izan*** *(3);* ***zentro bat jarriko*** *(4);* ***zentro batera eraman*** *(4);* ***zentro berezi*** *(9);* ***zentro berezia*** *(4);* ***zentro bereziak*** *(6);* ***zentro berezietan*** *(4);* ***zentro berezietara*** *(3);* ***zentro berezira*** *(3);* ***zentro berri*** *(3);* ***zentro berria*** *(13);* ***zentro berriak*** *(9);* ***zentro bezala hartuz*** *(3);* ***zentro bilakatu*** *(3);* ***zentro daude*** *(6);* ***zentro ditu*** *(4);* ***zentro dramatiko*** *(9);* ***zentro dramatiko nazional*** *(5)*

***zentro eskuina*** *(3);* ***zentro eskuinak*** *(10);* ***zentro eskuinaren*** *(6);* ***zentro eskuinean*** *(3);* ***zentro eskuineko*** *(32);* ***zentro eskuineko alderdi*** *(3);* ***zentro eskuineko alderdiak*** *(3);* ***zentro eskuineko koalizioko*** *(5);* ***zentro eskuinekoak*** *(3);* ***zentro ezkerra*** *(14);* ***zentro ezkerrak*** *(9);* ***zentro ezkerraren*** *(13);* ***zentro ezkerraren alde*** *(3);* ***zentro ezkerreko*** *(73);* ***zentro ezkerreko gobernuak*** *(3);* ***zentro ezkerreko hautagai*** *(3);* ***zentro ezkerreko koalizioak*** *(10);* ***zentro ezkerreko koalizioaren*** *(5);* ***zentro ezkerreko koalizioko*** *(4);* ***zentro ezkerrekoa*** *(3);* ***zentro gehiago*** *(3);* ***zentro guztietan*** *(10);* ***zentro handi*** *(4);* ***zentro handien*** *(3);* ***zentro hidrotermala*** *(11);* ***zentro hidrotermala egin*** *(3);* ***zentro hidrotermalaren*** *(4)*

***zentro islamiko*** *(3);* ***zentro itxi batean*** *(4);* ***zentro itxietan*** *(3);* ***zentro koreografiko bat*** *(3);* ***zentro museoak*** *(9);* ***zentro nagusiko*** *(3);* ***zentro nazionala*** *(3);* ***zentro nazionalak*** *(7);* ***zentro nazionalean*** *(3);* ***zentro nazionaleko*** *(6)*

***zentro onkologikoa*** *(9);* ***zentro onkologikoa egiteko*** *(5);* ***zentro pribatu*** *(5);* ***zentro pribatuetan*** *(3);* ***zentro publiko*** *(5);* ***zentro sekretuak*** *(3);* ***zentro teknologikoa*** *(5);* ***zentro teknologikoak*** *(9);* ***zentro teknologikoan*** *(3);* ***zentro teknologikoko*** *(3);* ***zentro txiki*** *(3)*

***atxikitze zentroa*** *(3);* ***aurkako zentroa*** *(3);* ***bakerako zentroa*** *(3);* ***dokumentazio zentroa*** *(6);* ***eguneko zentroa*** *(10);* ***egungo musiken zentroa*** *(3);* ***grabitate zentroa*** *(18);* ***harrera zentroa*** *(3);* ***hendaiako zentroa*** *(3);* ***ikas zentroa*** *(3);* ***ikerketa zentroa*** *(11);* ***ikerketa zentroa da*** *(3);* ***informazio zentroa*** *(4);* ***interpretazio zentroa*** *(3);* ***jorlis zentroa*** *(4);* ***kultur zentroa*** *(5);* ***lehen zentroa*** *(4);* ***musiken zentroa*** *(3);* ***nazioarteko zentroa*** *(7);* ***ondare zentroa*** *(4);* ***osasun zentroa*** *(3);* ***pompidou zentroa*** *(4);* ***samien informazio zentroa*** *(3)*

***zentroa bisitatu*** *(3);* ***zentroa egiteko*** *(6);* ***zentroa eraiki*** *(3);* ***zentroa eraikitzeko*** *(3);* ***zentroa izango*** *(9);* ***zentroa izango da*** *(5);* ***zentroa kudeatzen duen*** *(3);* ***zentroa martxan*** *(3)*

***adingabeen zentroak*** *(6);* ***andaluziako dantza zentroak*** *(3);* ***atxiloketa zentroak*** *(3);* ***carter zentroak*** *(13);* ***dantza zentroak*** *(3);* ***dokumentazio zentroak*** *(4);* ***eguneko zentroak*** *(13);* ***ekoizpen zentroak*** *(4);* ***erabilera askotako zentroak*** *(3);* ***euskal ikerketen zentroak*** *(4);* ***euskal zentroak*** *(3);* ***gaitzen kontrolerako zentroak*** *(4);* ***ikas zentroak*** *(3);* ***iker zentroak*** *(3);* ***ikerketa zentroak*** *(18);* ***ikerketa zentroak eta*** *(3);* ***ikerketen zentroak*** *(4);* ***kontrolerako zentroak*** *(8);* ***kultur zentroak*** *(6);* ***nazioarteko***

zentroak (6); osasun zentroak (7)

zentroak antolatutako (3); zentroak jakinarazi (3)

ako zentroan (3); amaia kultur zentroan (5); arteleku zentroan (3); atxikitze zentroan (6); dokumentazio zentroan (3); eguneko zentroan (4); erretentzio zentroan (5); hendaiako atxikitze zentroan (5); hendaiako erretentzio zentroan (3); ikerketa zentroan (3); interpretazio zentroan (3); kultur zentroan (8); osasun zentroan (5); parisko pompidou zentroan (3); pompidou zentroan (6); urduñ

zentroan ari (3); zentroan aurkeztu (3); zentroan dauden (5); zentroan egin (3); zentroan egiten (4); zentroan egon (4); zentroan izan (8); zentroan izan zen (4); zentroan lan egin (3); zentroan lan egiten (4)

zentroarekin elkarlanean (4)

arte garaikideko zentroaren (3); dokumentazio zentroaren (5); europako zentroaren (3); kultur zentroaren (3); nazioarteko zentroaren (7); xenpelar dokumentazio zentroaren (3); zentroaren arabera (10); zentroaren eta periferiaren (3); zentroaren inguruan (3)

larrialdi zentroekin (3); zentroekin automatikoki konektatuta (3)

dokumentazio zentroen (3); zentroen arteko (4); zentroen inguruan (3)

atxikitze zentroetan (3); atxilotze zentroetan (3); dituzten zentroetan (3); eguneko zentroetan (3); halako zentroetan (3); ikerketa zentroetan (4); osasun zentroetan (7); prestakuntza zentroetan (4); zentroetan ematen (3); zentroetan itxi (3)

biogune ikerketa zentroko (3); carter zentroko (3); dokumentazio zentroko (3); ernalkuntzarako zentroko (3); eskubideen zentroko (6); eskuin zentroko (3); euskal zentroko (3); giza eskubideen zentroko (5); ikasketen zentroko (3); ikerketa zentroko (21); ikerketa zentroko zuzendaria (5); ikerketarako zentroko (3); informazio zentroko (3); kontrolerako zentroko (3); kultura garaikideko zentroko (3); meteorologia zentroko (3); nazioarteko zentroko (4); ondare zentroko (3); osasun zentroko (4); tolosako zentroko (5)

zentroko adituak (4); zentroko alderdia (3); zentroko alderdiak (5); zentroko arduradun (3); zentroko arduraduna (6); zentroko arduraduna da (4); zentroko arduradunak (8); zentroko arduradunek (5); zentroko burua (6); zentroko gela (3); zentroko ginekologoak (3); zentroko kidea (8); zentroko kidea da (3); zentroko kideak (3); zentroko langileak (4); zentroko langileek (3); zentroko zortzi (3); zentroko zuzendari (15); zentroko zuzendaria (19); zentroko zuzendaria da (4); zentroko zuzendariak (5); zentroko zuzendariaren (4)

larrialdi zentrora (3); meteorologia zentrora (4); xenpelar dokumentazio zentrora (3)

zentrora eraman (9); zentrora joan (5); zentrora joaten (3)

eguneko zentrorik (3)

zentrotik hurbilago (3); zentrotik pasatuz (5); zirkuluaren zentrotik (3)

dokumentazio zentrua (3)

---

**zentrodun** *izlag zentroa duena.*

*Zentrodun perspektibak. Josu Zabaleta*

---

**zentrokide** *izond zentro berekoa.*

*Marmol beltzekoa zen eta hiru zirkulu zentrokidez osaturik zegoen. Alberto Ladron Arana*

*Mundu-ekonomia zirkulu zentrokideetan zegoen egituratua; zentroarekiko mendekotasuna hazi ahala, behera egiten zuen pisu ekonomikoak. Koro Navarro*

*Ez dut dedukzio linealaren bidez jokatzen, zirkulu zentrokideen bidez baino, eta orain kanpokoetarantz orain barrukoetarantz jotzen dut. Xabier Arregi*

*Obrak inguratzen dituzten zirkulu zentrokideen deskribapena. Xabier Arregi*

---

*zentru ik* **zentro***.*

---

**zentsatu***, zentsa, zentsatzen du ad erroldatu.*

*Zentsatua ez izateko, gela berralokatu batean bizi ote zen Maria Sanz, edo 1905ean Donostiara iritsi gabea ote zen oraindik? Koldo Izagirre*

*New York hiriaz ari gara: egunero hamahiru mila tona zabor erroldan zentsatutako hirurogeita hamar milioi arratoiren artean banatzen dituzten hiri bati buruz. Harkaitz Cano*

---

*zentsazio ik* **sentsazio***.*

---

*zentso ik* **zentsu**[1]*.*

---

**zentsore** **1** *iz argitalpen eta emankizunen zentsura egiten duen enplegatu publikoa.*

*Publikatu aurretik zentsoreak irakurri behar ditu artikuluak Birmanian. Berria - Gaiak*

*Miserias de la guerra lana 1951ko urtarrilekoa da, eta badirudi Biblioteca Nueva argitaletxeko arduradunek aurkeztu ziotela zentsoreari, urte berean. Berria - Kultura*

*Imamek meskitetan zer esango duten aurrez jakinarazi beharraren burutazioa oso urruti ere ez dago zentsore frankistek bertsolariren bati eskatu izan ziotenetik. Berria - Euskal Herria*

*Ezagutzen ditugun mila ogibideei beste bat eransten diegu: telebista platoetan pii-joystick-ari sakatzen dion zentsore gizarajoarena. Harkaitz Cano*

*Zentsore sibilinoen mende gaude oraindik. Harkaitz Cano*

*Sare elektronikoaren edukiak kontrolatuko dituen zentsore talde bat ezarri behar izatea ez da irtenbiderik egokiena. Berria - Gaiak*

**2** *irud/hed*

*Ezin naiz beldurti agertu Joyce, Lawrence, Henry Miller eta beste hainbaten zentsoreen aurrean. Karlos Zabala*

*Patetismoz eta abertzaletasunez beteriko predikua izan zen eta horregatik errespetatu zuen kanpandorreko zentsoreak. Koldo Biguri*

**3** *antzinako Erroman biztanleria-zentsuak egiteko eta moralitatea zaintzeko zeregina zuen magistratua.*

*Morroi hura zentsorea zela pentsatu nuen aurrena, baina gero berak esan zidan presondegietako funtzionaria zela. Koldo Izagirre*

*Zentsoreak eta magistratu arbitrarioak beharrezkoak badira gobernuren batean, hori haren konstituzioaren ahultasunagatik izango da, eta ez gobernu ondo antolatu baten izaeragatik. Juan Martin Elexpuru*

*Lehen bost klaseetan izena eman ez zutenak [...] ez zeuden erroldan Lege Vokoniarraren espirituaren arabera; sei klaseen artean izena eman ez zutenak, edo zentsoreek aerarii izenekoen artean jartzen ez zituztenak, ez zeuden erroldan Servio Tulioren insitituzioen arabera. Iñaki Iñurrieta*

*Legeez gainera, zentsoreek zaindu egiten zituzten ezkontzak, eta, errepublikaren premien arabera, hartara behartzen zuten lotsaren eta zigorren bidez. Iñaki Iñurrieta*

*Errepublikaren garaian ia ez ziren egin horrelako legeak, zentsoreek zuzentzen zituztelako alde horretatik sortzen ziren desordenak. Iñaki Iñurrieta*

*Marko Katon zentsoreak zioenez, Erromako herrian gauza jakina zen [...] errege guztiak basabere harrapakerien klasekoak zirela. Esteban Antxustegi*

**4** *(hitz elkartuetan)*

*Azken gaitz honi erremedioa jartzeko, Zesarrek eta Augustok berriro ezarri zuten zentsore kargua. Iñaki Iñurrieta*

*Horixe da Metelo Numidikok bere* ***zentsore****-aldian herriari egindako harengaren espiritua.* Iñaki Iñurrieta

---

# zentsoretza *iz zentsoreen erakundea.*

*Ohituren usteltzeak desegin egin zuen* ***zentsoretza****, hura ere ohituren usteltzearen kontra ezarria izan arren; baina usteltze hori orokor bihurtu zenean,* ***zentsoretzak*** *ez zuen indarrik izan* Iñaki Iñurrieta

---

# zentsu[1] (orobat **zentso** g.er.) **1** *iz errolda.*

*Biztanleria K.o. 1578ko* ***zentsuak*** *emandako 63.599.541eko kopurutik, K.o. 1661ean gutxi gorabehera 108.300.000 izatera igaro zen.* Iñaki Mendiguren

***Zentsoaren*** *arabera, hirurogeita hamar milioi sagu daude hirian.* Harkaitz Cano

**2** *(hitz elkartuetan)*

*Biztanleria* ***zentsua****, Biztanle errolda eta Biztanleria estatistika.* Juan Ignacio Pérez / Pello Salaburu

*Gainera, hauteskunde* ***zentsu*** *batean eman beharko dute izena aldez aurretik.* Berria - Mundua

---

# zentsu[2] **1** *iz higiezinen zerga.*

*Hortaz, erromatarren* ***zentsu*** *zaharraren antz handiena zuenari, census, tributum deitu zitzaion.* Iñaki Iñurrieta

*Monarkia frantsesean* ***zentsu*** *deitu zitzaiona, hitz hori oker erabili bada ere, nagusiek jopuengandik jasotzen zuten eskubide partikular bat zen.* Iñaki Iñurrieta

*Beste gizon libreak bezala, beren kondearekin joango ziren armadara [...]; bestalde, ez zeuden beste* ***zentsurik*** *ordaintzera behartuta, eta beste gizon libreak bezala tratatuak izango ziren.* Iñaki Iñurrieta

*Inork guk* ***zentsua*** *jaso ohi genuen lur zergapeko bat erosiz gero.* Iñaki Iñurrieta

*Gauza bera zen jopua izatea eta* ***zentsua*** *ordaintzea, libre izatea eta ez ordaintzea.* Iñaki Iñurrieta

*Gauza arrunta izan zen lur-jabeek lurrok elizei eman eta gero beraiek* ***zentsuz*** *hartzea, joputza horren bidez elizen santutasunean partaide zirelakoan.* Iñaki Iñurrieta

**2** *(hitz elkartuetan)*

*Errege-* ***zentsua*** *exiji dadin nahi dugu behinola legez exijitzen zen leku guztietan?* Iñaki Iñurrieta

> ***hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)***
> **erromatarren zentsua** *(3);* **zentsua ordaindu** *(3)*

---

*zentsu*[3] *ik* ***zentzu****.*

---

# zentsura **1** *iz argitalpen, emankizun eta kidekoen azterketa ofiziala, horietako testuetan agintarien politikara edo moralera egokitzen ez dena ezabatzen edo aldatzen duena; azterketa horretaz arduratzen den organismoa.*

*75 gobernu badira munduan oso gertutik kontrolatzen dituztenak ikus-entzunezko hedabideak, 45 hasi dira Interneten erabiltzea eragozten, 1999an 400 enpresak* ***zentsura*** *sufritu zuten hurbildik.* Pello Salaburu

***Zentsura*** *jasaten ari diren euskal artisten aldeko jarrera.* Berria - Kultura

*Nik Ingalaterrako erregea zerbitzatu dut liburuak (1974)* ***zentsura*** *gainditu zuen.* Fernando Rey

*Irlatik igortzen diren komunikazioen gaineko* ***zentsura*** *ezartzeko.* Edorta Jimenez

***Zentsurak*** *pasarte batzuk eta izenburua bera aldarazi zizkion.* Jose Morales

*Denbora gutxi neraman Triesten, baina nahikoa Mussoliniren erregimenak eragindako* ***zentsurak*** *eta hitz egiteko beldurrak estali ezin zuena ikusteko.* Anjel Lertxundi

*Liburua Reich-eko* ***zentsurak*** *baimendua zela.* Marzel Etxehandi

*Musika [...], berriak (* ***zentsurak*** *moztuak), eguraldiaren berri entzuten dut kafesne beroa hartzen dudan bitartean.* Iñaki Zabaleta

*Thatcher-en garaian legez ezarritako* ***zentsurak*** *utzitako ondorio antzuak.* Txema Ramirez de la Piscina

*Egunkari guztiak zeuden* ***zentsuraren*** *mendean.* Lutxo Egia

*Hain ezagunak ez diren taldeak ere hasi dira pairatzen* ***zentsuraren*** *erasoak.* Berria - Kultura

*Zuzeneko* ***zentsurak*** *eta* ***zentsura*** *haren osteko gorabehera hitsek lagundu zidaten telebista utzi eta unibertsitaterako urratsa egiten.* Joxerra Garzia

*Iparreko gerlari buruzko berriak berant iristen ziren eta* ***zentsuraren*** *bahetik iraganik.* Elena Touyarou

*Nagusiaren artikuluak makinaz kopiatzen ditu eta [...] askotan berak eroaten dizkio* ***Zentsurari*** *Buruzko Bulegora, Telefonicaren eraikinera.* Edorta Jimenez

***Zentsuraren*** *tinta ezabatzailearen azpian.* Edorta Jimenez

*Francoren garaiko* ***zentsuraren*** *arduradun, heriotza-zigorren sinatzaile, Gasteizko hilketen eragile harro...* Joxerra Garzia

*Orduantxe jakin ninan eskutitz anitz idatzi hizkidala espetxetik,* ***zentsurak*** *bahituak.* Javi Cillero

***Zentsura*** *horrek, pentsamendu libreko gizon guztien pertsekuzio horrek, liburutegien erreketak, unibertsitateen usteltzeak zure arbuioa eragingo zuketen, baita Alemanian nire arrazako inori hatzik gainean jarri ez baliote ere.* Ramon Etxezarreta

**2** *(elizarena)*

*Agintzen diegu beren hiri eta diozesietan direlarik gure mezu hauek aski argi argitara ditzaten eta gure erran hauek ere betearaz elizako gaztiguen eta* ***zentsuren*** *mehatxupean.* Piarres Xarriton

*Ez badira sartzen heretikoen aurka erabakiak diren* ***zentsuren*** *eta beste gaztiguen beste foru hartan, bekatore larritzat hartzen dira bizkitartean.* Piarres Xarriton

**3** *(izenondo eta izenlagunekin)*

***Zentsura*** *berria saihesteko, oso estua baita.* Ramon Etxezarreta

*Aukeran, nahiago dut* ***zentsura*** *ideologikoa, diruarena baino.* Berria - Kultura

*Aurrenekoan* ***zentsura*** *estuagoa zegonan.* Lutxo Egia

***Zentsura*** *soilak, beraz, ezin du inoiz giza arrazoimenaren eskubideei buruzko gatazka amaitu.* Ibon Uribarri

*Bere burua erabat egokia ikusten zuen eginkizun berri baterako:* ***zentsura*** *politikoa egiteko.* J.M. Olaizola "Txiliku"

***Zentsura*** *frankistak debekatua zuen liburu hori argitaratzea, eta Mexikon argitaratu beharko zuten.* Imanol Zurutuza

*Horma lodi haien barnera gauak ez zuen lortzen sartzerik;* ***zentsura*** *faxistak berak, errejimenaren maisulan, mundutik bereizirik gindukan, anestesiazko linbo zuri batean.* Juan Garzia

*Egun bizi dugun saturazio informatiboa da* ***zentsurarik*** *perfektuena askotan.* Txema Ramirez de la Piscina

*Egia esateko,* ***zentsura*** *ez da batere gogorra, eta ia dena uzten didate irakurtzen.* Josu Zabaleta

*Erakundeek artistak otzanarazi egiten dituzte, zeharkako* ***zentsura*** *zuria aplikatuz, edo zuzeneko laguntza kenduz.* Berria - Kultura

*Alderdi horretako diputatu Agustin Condek neurria ezartzea «aurretiko* ***zentsura*** *» ezartzea bezala litekeela iritzi zion.* *Berria - Mundua*

**4** *(hitz elkartuetan lehen osagai gisa)*

*Kandahar* filmaren egileak **zentsura** arduradun itsu baten istorioa kontatu nahi du film horretan. Berria - Kultura

1968ko martxoan, Donostiako **zentsura** delegatuak irizten dio «Errusia inguruko herrialdeen marxismo praktikoa edo sozialismoa» dela argitalpenaren ardatza, eta debekatu du. Berria - Harian

Ez nintzateke probintziako hiri bateko gertaera narratsak metatzen ibiliko **zentsura**-batzorderako. Javi Cillero

Ameriketako Estatu Batuak: **Zentsura** mekanismoak hedabideen egituretan daude txertatuta. Berria - Euskal Herria

**Zentsura** kasuak ugaritu egin dira irailaren 11z geroztik. Berria - Euskal Herria

Irak: **zentsura** lege zorrotza indarrean jarri du inbasioaren osteko Agintaritzak. Berria - Euskal Herria

Erakunde horren arabera, Txinak **zentsura** neurri zorrotzak ezarri ditu. Berria - Gaiak

Erraz asko aurkitu nuen **Zentsura** Zerbitzua, Jauregiaren ondo-ondoan baitzegoen hain zuzen ere. Joxan Elosegi

Izan ere, gauza interesgarri gutxi esan zitezkeen **zentsura**-erregimen haren baitan eta, edonola ere, Duvrescu ez zen bereziki iaioa kritika sotilaren edo ironiaren erabileran. Iban Zaldua

Zinemagileen Elkarteak Frantzian nagusitzen ari den **«zentsura** giroa» salatu du. Berria - Kultura

**Zentsura** kutsuarekin egingo da gaur Grammy sarien banaketa ekitaldia. Berria - Kultura

**5** (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa)

Elizaren teologia hain murgildua zegoen aristotelismoan, ezen Giordano Brunok bizia galdu eta Galileok eliz **zentsura** pairatu baitzuen, kristau-erlijioarekin, Itun Berrian agertzen den bezala, inolako loturarik ez zuten zientzi heresiengatik. Iñaki Mendiguren

**6** irud/hed gaitzespena.

Julio Uquijok 1934ean zentzugabetzat jo zuen **zentsura** hori. Patziku Perurena

Alta, lañoki idazteak ez dakartza hizkuntzaren **zentsura** edo pobrezia. Janbattitt Dirassar

**7** *auto-zentsura* ik **autozentsura**.

**8** ***zentsurapean*** *adlag*

Zorigaitzez, 40 urte **zentsurapean** bizi behar izan duen gizarte batek ez ditu askatasunaren arriskuak erraz hartzen. Piarres Xarriton

Bere ustez, «PPren pentsamendu bakarraren» aurkako den edozein adierazpen **zentsurapean** aurkitzen da. Berria - Euskal Herria

Gizarte-erabileren arlo honetan adimen arrazionalizatzailea aske mugitzen da, erlijiozko eskrupuluen **zentsurapean** egon gabe. Iñaki Mendiguren

**9** ***zentsura mozio***

Frantziako Gobernuaren jarrera gaitzetsi eta datorren astean **zentsura mozioa** aurkeztuko dute sozialistek . Berria - Ekonomia

Epelak entzun zituen, eta bi **zentsura mozio** ere gainditu behar izan zituen. Berria - Harian

Janukovitxen gobernuari aurkariek jarritako **zentsura mozioa** arbuiatu du Legebiltzarrak. Berria - Mundua

Parlamentuak baztertu egin ditu Sharonen aurkako **zentsura mozioak**. Berria - Mundua

Joan den ostiralean «itxiera eta pribatizazioaren aurkako» **zentsura mozio** bateratua onartu zuten. Berria - Ekonomia

Rabanerak dio PSE-EE **zentsura mozioa** mehatxu gisa erabiltzen ari dela. Berria - Euskal Herria

Txirotasuna geroz eta handiagoa denez, Israelgo Alderdi Laborista **zentsura mozioa** aztertzen ari da Legebiltzarrean aurkezteko. Berria - Mundua

**hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**

**arrazoimenaren zentsura** (3); **aurkako zentsura** (18); **aurkako zentsura mozioa** (12); **aurkeztutako zentsura** (3); **gobernuaren aurkako zentsura** (3); **hiru zentsura mozio** (3); **kontrako zentsura** (11); **kontrako zentsura mozio** (3); **kontrako zentsura mozioa** (4); **temaruren kontrako zentsura** (3)

**zentsura egiten** (3); **zentsura izan** (3); **zentsura kasuak** (3); **zentsura mozio** (21); **zentsura mozio bat** (4); **zentsura mozio batek** (3); **zentsura mozio baten** (3); **zentsura mozio bati** (3); **zentsura mozioa** (64); **zentsura mozioa aurkezteko** (6); **zentsura mozioa aurkeztu** (3); **zentsura mozioa aurkeztuko** (10); **zentsura mozioak** (5); **zentsura mozioaren** (8); **zentsura politikoa** (4); **zentsura salatu** (3)

**zentsuraren gainetik** (4)

---

**zentsuratu**, zentsura(tu), zentsuratzen *(orobat* ***zentzuratu*** *g.er.)* **1** du *ad* zentsura ezarri; zentsurak ezabatu edo aldatu.

FBIren txostenen artean diren 'Ernest Hemingway files' horiek 'Basque Intelligence Service files' dauden modu berean daude; **zentsuraturik**, izenetako gehienak ezabaturik, orrialde osoak tintaz ilundurik. Edorta Jimenez

Pragako Udaberriaren bukaera tristearen ondoren, Hrabalen eta beste askoren lanak **zentsuratuak** egon ziren eta 1975a arte modu klandestinoan ibili ziren eskuz esku. Fernando Rey

Azkenean, zentsura mota bat dela diot, eta irringarriena da telebixtak **zentsuratzen** duela telebixta. Herria

Gero konturatu nintzen nire gutunek hilabeteak beharko zituztela zure eskura ailegatu arte: espainierara itzuli beharko dituzte, gero **zentsuratu** egin beharko dituzte. Koldo Izagirre

Ez da harritzekoa hitzak **zentsuratu** izana, Azkue abadea zen eta. Koldo Izagirre

Frantxua Maitiak, bere mintzaldia bururatzean, aipatu du Egunkariaren hestea, erranez hogei bat aldiz bederen idatzi zuela kaseta horretan eta nehork ez duela **zentsuratu**, nahi zituenak idatzi dituela. Herria

Pasarte osoa **zentsuratuta** dago. Berria - Kultura

Downing Streetek ia sei hilabetez atzeratu du ondorioak publiko egitea eta gainera txosteneko 10 orrialde **zentsuratu** ditu. Berria - Mundua

'Cold Mountain' **zentsuratuta** emango dute Txinako aretoetan. Berria - Kultura

DVDetan filmen bertsio **zentsuratuak** banatu ahal izango dira AEBetan, zuzendariaren baimenik gabe. Berria - Kultura

Ez diat gorde buruan ( **zentsuratu** egingo nuen beharbada) gutun hura igorri zuen merkataritza-erakundearen sigla bihurria. Juan Garzia

Sakelako telefono bidezko mezuak **zentsuratzeko** neurriak hartu ditu Txinak. Berria - Gaiak

Ez ziren "familiakoei zor zaien errespetuagatik" **zentsuratuko** eta autozentsuratuko xehetasun guztiak? Iñigo Aranbarri

Normak normaltzat jotzea eta nork bere burua eta bere jokaerak **zentsuratzea** eta kontrolatzea. Luis Elberdin

Neure burua **zentsuratuz** bizi naiz, baina berdin jarraitzen dut. Ramon Etxezarreta

Zeren baitzuen jaun Marcelek, konparazione, bere liburuen artean, Huarte Garazikoaren *Examen de ingenios* liburu famatua ere, Anberesko edizino **zentsuratu** gabekoan. Joan Mari Irigoien

**2** gaitzetsi.

Munduan dagoen gaitzagatik ezin dugu Jaungoikoa **zentsuratu**, zati handi batean gaitza gure aukera okerraren, bekatuaren ondorio baita, azken finean. Imanol Unzurrunzaga

Sorkari hauez abusatuz egiaren pertzepziotik urruntzen direnak **zentsuratu** egin behar ditugu. Imanol Unzurrunzaga

Bere errurik gabe, oker interpretatua izan den idazlea ez da **zentsuratu** behar. Inork ere ez dezan ausarkiegi **zentsuratu** bere iritziarekin bat ez datorrena. Imanol Unzurrunzaga

**3** (era burutua izenondo gisa)

Gustavo Durani leporatzen zaizkion karguak idatzirik ditu FBIk Habanan 1943ko abuztuaren 13an sinatua den lau orrialdeko memorandum **zentsuratuan**. Edorta Jimenez

Caravaggioren margolan **zentsuratu** horri buruz ari dela, hala dio Gombrichek, [...]. Bernardo Atxaga

## zentsuratzaile *iz* zentsuratzen duen pertsona.

Argitaratzaileek dena aurkeztu behar dute ministerioan, **zentsuratzaileek** [...] txostena egin dezaten. Berria - Kultura

Pentsa, Francoren garaian aldizkari-**zentsuratzaile** izan zen, baina oso baldarra, apenas gustatzen baitzitzaion bere lanbidea. Joxerra Garzia

Nire lehiaketa maitea defendituko dut, lagunen kontra, **zentsuratzaileen** kontra. Xabier Mendiguren Elizegi

Zer esaten digute albisteok **zentsuratzaileei** buruz? Berria - Gaiak

## zentsuratzeke *adlag* zentsuratu gabe.

-Gaiei dagokienez (alde politiko eta satirikoak **zentsuratzeke**). J. Garzia / A. Egaña / J. Sarasua

## zenturia *iz* antzinako Erromako armadako konpainia, ehun soldaduk osatua; alderdi faxistetako talde paramilitarra.

Gero, ibarrera ihes egin, eta han agertu zen ostera, lur-orrazketarako izendaturiko **zenturia** faxisten buruan. Juan Garzia

"Ehun-beltz" edo **"Zenturia** Beltzak" ere deitzen ziren. Felipe Juaristi

## zenturiaburu *iz* zenturia baten buru den pertsona. ik **zenturioi**.

Haien **zenturiaburuak** Fossa zuen izena, eta arraro, absurdu eta goibelkiro irrieragingarri ere bada, orduko egoera kontuan harturik, hura hamarka urteak danik gerra-hilerri galdu batean ehortzirik egotea, eta ni, berriz, hementxe, bizirik eta hainbestean kalterik jasan gabe, historia hau idazten. Juan Garzia

## zenturioi 1 *iz* antzinako Erromako armadako ofiziala, zenturia baten buru zena. ik**zenturiaburu**.

Baina Jesusi ez zioten halakorik egin: Gaius Casius izeneko **zenturioi** batek saihetsa zulatu zion lantza batez. Alberto Ladron Arana

-Ezin nauk kapera ilun honetan betiko geratu -xuxurlatu nion Jesukristoren heriotza egiaztatzen zuen **zenturioiari**. Alberto Ladron Arana

Gizon fededuna zen **zenturioia**, eta, errabinoaren begien barrenera so eginda, Jaungoikoaren semearen aurrean zegoela ohartu zen. Xabier Aranburu

Eszipion Afrikarraren **zenturioietako** batekin egin behar al nuen topo? Bernardo Atxaga

**2** *(Erdi Aroan)*

Bikario zeritzen ofizial batzuk zituzten beren esanetara; eta gizon guztiak ehunekotan -burgo izenekoa eratzen- banatuta zeudenez, kondeek **zenturioi** izeneko ofizialak ere bazituzten beren aginduetara. Iñaki Iñurrieta

Baina nornahik zuelarik ere jurisdikzioa -erregeak, kondeak, grabioiak, **zenturioiak**, jaunek, elizgizonek-, inoiz ez zuten bakarrik epaitzen. Iñaki Iñurrieta

"**Zenturioi** batek", esaten da Txildebertoren dekretuan, "berea ez den ehuneko batean, edo gure leialen mugen barruan lapurra aurkitzen badu, eta ez badio jazartzen, lapurraren ordezko izango da, edota zinegite bidez garbituko du bere burua". Iñaki Iñurrieta

## zentzabide *iz* zentzatzeko bidea; norbaiti bere jokabidea hobetzeko jartzen zaion zigorra edo egiten zaion agiraka.

Zeure gaiztakeria izango duzu zigor, zeure desleialkeria **zentzabide**. Elizen arteko biblia

Ministroek zigorrak gogortzeko galdatzen zuten, denen etsenplu eta **zentzabide**. Aingeru Epaltza

Beharbada begiak atera beharko nizkiokek nire seme honi, eta azokaren erdian larrutu, mundu guztiarentzat **zentzabide** izan dadin. Fernando Rey

Beheragokoekin ere apal agertzen zen, prestago beti aholkua eta **zentzabidea** hartzeko emateko baino. Askoren artean

Beheragokoekin ere apal agertzen zen, prestago beti aholkua eta **zentzabidea** hartzeko emateko baino. Askoren artean

Senarrari **zentzabide** gogoangarri bat eman nahi zion, nahiz eta horretarako auzuneko esamesak sortzeko arriskua izan. Patxi Zubizarreta

Argi zegoen egun hartan galdua zuela hura **zentzabidean** jartzeko egokiera. Patxi Zubizarreta

Zorionekoa beti **zentzabidearen** zigorpean irauten duen zerbitzaria! Askoren artean

## zentzaezintasun *iz* ezin zentzatuzkoa denaren nolakotasuna.

Gregen **zentzaezintasunaren** ideia apurka-apurka sakonago sartu zitzaigun, eta horrekin batera gutxiago saiatzen hasi ginen, itxaropena galtzen. Xabier Olarra

## zentzagaitz ik **zentzakaitz**.

## zentzagarri 1 *izond* zentzarazten duena. ik **zentzatzaile**.

Udalak isun eder eta **zentzagarria** ezartzen die, hasieran, arau-hausleei. Aingeru Epaltza

Valvok sei kontakizun **zentzagarri** eta eztabaida sakon bat ematen dizkigu: [...]. Xabier Olarra

Gogo onez entzungo zuen erretolika **zentzagarri** haietakoren bat, zeren, halakoetan, kotxezain berritsuaren eskuek zabarki eusten zieten hedeei, eta zigorra itxurak gordetzeko soilik dantzatzen zen bizkar gainean. Jose Morales

Miserikordiako mojak arduratzen ziren emakume presoak zaintzeaz, miserikordia handirik gabe, egia esan, oso erraz ezartzen baitzituzten lazeria **zentzagarrizko** kastiguak, presoak zigor ziegetara bidaliz. Jokin Urain

Betidanik izan zait **zentzagarri** neure inguruko jendeak plazerra zertan bilatzen duen erreparatzea. Patziku Perurena

Ba ote da munduan deus **zentzagarriagorik**, deus poetikoagorik, gure begi edergoseok ustekabean oinetako zahar abandonatu batekin topo egiten dutenekoa baino? Patziku Perurena

**2** (adizlagun gisa)

Ihes egitea ez zuan posible, halakoetan zakurrak askatzen zititzean, eta gainera ihesgin bakoitzeko gutariko hamar fusilatzen zititzean denon aitzinean, **zentzagarri**. Koldo Izagirre

**3** (izen gisa)

Sistemak **zentzagarri** bat eman nahi zien agirretar guztiei Agirre'tar Nikolaren buruan, eta osorik, bizirik eta bertako behar ninduten Espainiako Entzutegi Nazionalean. Koldo Izagirre

Nostalgia horren **zentzagarri** krudel eta guzti. Juan Garzia

Bukatu ziren lehen asteetako ikuskizun makabro haiek guztiak, farola altuetan urkatu eta **zentzagarri** gisara bertan zintzilik uzten zituzten erresistentziako gizonen gorpuak. Harkaitz Cano

**4** (hitz elkartuetan)

Zutikako pertxeroa boterearen sinbolo zen, azkar eta tentuz lan egiteko oroi-**zentzagarri** bat. Harkaitz Cano

---

## zentzakaitz *(orobat **zentzagaitz**)* *izond* zentzatzen zail dena.

Eman dezagun guraso batzuek seme **zentzakaitza** eta bihurria dutela, aitamen esana egiten ez duena eta, zentzarazten saiatu arren, kasurik egiten ez diena. Elizen arteko biblia

Lainoak elkarren gainean pilatzen ziren, une batean, hurrengoan mila puska egiteko, haur bihurri eta **zentzakaitzak** balira bezala. Fernando Morillo

-Gazte gaizkile **zentzagaitzentzako** San Brutus segurtasun-zentroa! -oihu egin zion osaba Vernonek, eta Harry atseginez ohartu zen halako izuikara zegoela osaba Vernonen ahotsean. Iñaki Mendiguren

Onbera izan zen anaia zintzoekin, gogorra gaiztoekin eta zorrotza **zentzakaitzekin**. Askoren artean

**Zentzagaitza** da txoroa. Elizen arteko biblia

---

## zentzaketa *iz* zentzatzea.

Bekatu egin duten anaien **zentzaketa**. Askoren artean

Horregatik **zentzaketa** zakarrak baztertu egiten zituen, horretan arriskurik ikusten ez zuenean, zigorrari lekua kenduz arimei emateko. Askoren artean

Azken judizio egunean beronen kontu eman beharko dizute, baldin eta, beren arduragabekeriagatik edo etsenplu txarragatik edo **zentzaketa** zakarregiagatik, anaiaren bat galduko balitz". Askoren artean

---

## zentzaldi *iz* zentzatzea.

Ez du entzun Jaunaren ahotsa, ez du onartu haren **zentzaldia**, ez du harengan uste ona ipini, ez du bere Jainkoarengana jo. Elizen arteko biblia

Harrituta nengoen, horren **zentzaldi** arinaren aurrean. Joxan Elosegi

Nazio handiak jasan **zentzalditik** landa, ordea, ez zen Historiaren itzulia baratu, ez Europan, ez Ameriketan, ez beste nehon mundu zabalean. Piarres Xarriton

Higuinezko keinu eta hitzak jaulkitzen zitzaizkion Mathilderi, Willemen **zentzaldiekiko** sorgor. Anjel Lertxundi

---

## zentzapen *iz* zentzatzea.

Anai Eliasek ez zuela joan nahi erantzun zien, anai Frantziskoren **zentzapenaren** beldurrez. Berria - Euskal Herria

Esan dugun hau izan bedi **zentzapenerako**. Elizen arteko biblia

Heziketa maite duenak maite du jakinduria; **zentzapena** gorrotatzen duena, inozoa galanta! Elizen arteko biblia

Handik aurrera, epaileak, zigorraren bidez **zentzapena** eta debozioa aldi berean hartu zituelarik, mihi biraolaria Santuaren gorespenak kantatzen erabili zuen. Askoren artean

---

## zentzarazi, zentzaraz, zentzarazten **1** du *ad* zentzatzera bihurtu.

Zigor nazala Jainko zuzenak, **zentzarazi** Jainko onberak. Elizen arteko biblia

Jaunak, zigortzean, **zentzarazi** egiten gaitu, munduarekin batera gaitzetsiak gerta ez gaitezen. Elizen arteko biblia

Apaltasuna, izan ere, adin guztien apaingarri da, errugabetasunaren lekuko, gogo garbiaren seinale, **zentzarazteko** makila, kontzientziaren argi berezi, izen onaren zaintzaile eta zuzentasun ororen ikur. Askoren artean

Etorkizunean herriko jendeari ezkontza nahasiak egiteko burutaziorik etor ez zekion, mutilaren etxekoak ere **zentzarazi** egin behar zituztela. Gotzon Garate

Nola anai Konradok beste anaiei gaizpide ematen zien anaia gazte bat **zentzarazi** zuen eta nola jokaera aldarazi zion. Askoren artean

Maite ditudanei egiten diet agiraka nik eta horiek **zentzarazten** ditut; izan, beraz, sutsu eta aldatu jokabidez. Elizen arteko biblia

Hartan ezagutu nuen erruak zigortuz **zentzarazi** zenuela gizakia eta sitsak jantzia bezala hauts bihurtu nire arima. Imanol Unzurrunzaga

Nagusiak Janson jotzen zuen, zaldia jotzen zuelako, baina azkenean etsia hartu zuen, ezinezkoa baitzen hura **zentzaraztea**. Jose Morales

**2** (adizlagunekin)

Frantzisko dohatsuak kartsuki **zentzarazi** zituen, esanez: Zuek, anaia txikiok, ez duzue Jainkoaren nahia ezagutzen, eta ez didazue mundu osoa Jainkoak nahi bezala onbideratzen uzten. Elizen arteko biblia

Horregatik, gogor **zentzarazten** zituenean ere, onbidera erakarriak sentitzen ziren beti haren hitzez. Askoren artean

Bidetik okertzen dena gogor **zentzaraziko** dute. Elizen arteko biblia

Horregatik, pixkanaka-pixkanaka **zentzarazten** dituzu errudunak, zertan bekatu egiten duten gogoraraziz zuzentzen dituzu. Elizen arteko biblia

Ez, noski, etsaitzat hartu behar duzuelako, senide bezala **zentzarazi** behar duzuelako baizik. zuek, Espiritua duzuenok, saia zaitezte halakoa gozotasunez **zentzarazten**. Elizen arteko biblia

Azpikeriaz dabilenak atsekabea dakar, aurrez aurre **zentzarazten** duenak konponbidea. Elizen arteko biblia

---

## zentzarazle *iz* zentzarazten duena.

Harroputzak ez du maite bere **zentzarazlea**, ez eta zuhurrekin elkartzea ere. Elizen arteko biblia

**Zentzarazlea** estimatuagoa da azkenean zurikeriaz ari dena baino. Elizen arteko biblia

Zu izan zaitugu gidari eta artzain, maisu eta **zentzarazle**, hitzez baino gehiago etsenpluz irakasten eta zuzentzen gintuzuna. Askoren artean

Gaiztoa istilu bila beti; **zentzarazle** ankerra bidaliko diote kontra. Elizen arteko biblia

---

## zentzarazpen *iz* zentzaraztea.

Entzuzu aholkua eta onar ezazu **zentzarazpena**, azkenean zuhur izatera irits zaitezen. Xabier Kintana

Heziketa onartzen duena bizirako bidetik doa, **zentzarazpena** baztertzen duena okerbidetik. Elizen arteko biblia

Zigorra eta **zentzarazpena** dagozkio beti jakinduriari. Elizen arteko biblia

Frantzisko santuak, berriz, aholkuak, **zentzarazpenak** eta aginduak ematen zizkien anaiei, Jaunari aholku eskatu ondoren hobekien iruditzen zitzaion eran. Askoren artean

Zigorrak eta **zentzarazpenak** zuhur bihurtzen dute; bere kasa utzitako gazteak ama lotsarazten. Elizen arteko biblia

Berriro ongizateak irribarre egiten ziola eta, zeruko Aitaren **zentzarazpena** neurri batean ahaztuz, munduko gauzetan pentsatzen hasi zen. Askoren artean

**Zentzarazpen** osasungarria gogoan hartzen duenak jakintsuen artean izango du bere tokia. Elizen arteko biblia

## zentzategi *iz*

Madelonnettesko espetxean lehenengo; handik Carmesekora eramango dute, eta handik legenardun-etxe ohi batera, eta gero **zentzategi** batera, eta gero espetxe iraultzaile batera, eta 1794ko urtarrilean Saint-Lazarekora. Juan Martin Elexpuru / Bego Montorio

Dokumentuak faltsutu eta horiek erabiltzea leporatzen die Belgikako Fiskaltzak eta, hargatik, Monseko **Zentzategi** Auzitegian epaitzeko asmoa duela jakinarazi zuen. Berria - Euskal Herria

## zentzatu, zentza, zentzatzen *(orobat* ***zentzutu*** *g.er.)* **1** da *ad* zentzudun bihurtu; eskarmentua hartu.

Zoro zaudenean zentzuduntzat hartzen zaituzte; **zentzatuz** gero, berriz, zorotzat... Joan Mari Irigoien

Burugabea **zentzatuko** da. Xabier Kintana

Mehatxatu ere egin dut, baina ez da **zentzatu**. Patxi Zubizarreta

Hilero erregeren mandatari batek aztertzen ditu, baten bat **zentzatu** den ikusteko, eta zentzuan sartu dena libre uzten dute. Patziku Perurena

Haatik, **zentzatuko** zarelako esperantzan, zigor arin horri nahi natzaio atxiki. Jon Muñoz

-Urteen poderioz jendea **zentzatu** egiten da, zu ordea, zu ordea, zaharrago eta kaskarinago. Fernando Rey

Jo zenituen, baina ez zuten damurik izan; ia akabatu, baina ez ziren **zentzatu**. Elizen arteko biblia

Hola segituz, puttiko horiek eginen dute oraino bide! Nun ez diren **zentzatzen** hartu duten larderialdiaren ondotik... Herria

Aztertuko dut zergatik moldatu naizen gaizki, eta azterturik, damutuko naiz, gerora **zentzatzeko**. Patxi Altuna

Baina zigor harekin **zentzatu** ez zirenek Jainkoaren benetako zigorra jasan behar izan zuten. Elizen arteko biblia

Neure ibilbideen nahasbidea senti dezadan, gorrotaturik **zentzatu** eta zuzen nadin. Patxi Altuna

Mehatxatu ere egin dut, baina ez da **zentzatu**. Patxi Zubizarreta

Manu iaz ezkondu zenetik **zentzatuago** ikusten du, gaztetxotako politika kontuak utzita. Urtzi Urrutikoeetxea

**2** du *ad* zentzudun bihurtu; eskarmentua eman. ik **zentzarazi.**

Nolatan **zentzatu**, baina, erdi zoraturik dagoen haxix erretzaile bat? Patxi Zubizarreta

Mihia ahosabaiari erantsia utziko dizut eta mutu gelditukoa zara; ezin izango duzu berriz jende errebelde hori **zentzatu**. Elizen arteko biblia

Zoro zaudenean zentzuduntzat hartzen zaituzte; **zentzatuz** gero, berriz, zorotzat... Joan Mari Irigoien

Beldurrak omen du azkenean **zentzatzen** Gizakia. Piarres Xarriton

Jaunak berak dioen bezala: Maite ditudanak **zentzatzen** eta zigortzen ditut nik. Askoren artean

Gure aitak espero zuen zigor handi horrekin Alberto atsekabetu, damutu eta **zentzatzea**. Fernando Rey

Dena dela, badakit zigorrak ez dituela besteak **zentzatuko**, beste batzuek beteko dute kargutik egotzitakoen lekua. Jose Morales

Gaizkileak zigorraren bidez **zentzatuz**. Askoren artean

Deabru errebelatu horiek **zentzatzeko** eta Lüküze preso hartzeko. Aingeru Epaltza

Euskaldun fanatiko haiek **zentzatu** nahi zituelako. Koldo Izagirre

Gogor **zentzatu** zuen dirua eskuekin ukitu zuen anaia. Askoren artean

Hezigabeko zekorra bezala **zentzatu** nauzu, eta nik eskarmentua hartu. Elizen arteko biblia

Dena dela, badakit zigorrak ez dituela besteak **zentzatuko**, beste batzuek beteko dute kargutik egotzitakoen lekua. Jose Morales

-Mutila **zentzatzeko** hots egin dizut, ez ni iraintzeko. Patxi Zubizarreta

Adingabeak **zentzatzeko** sistema; **zentzatzeko** zentroetako erregimena; eta zigorren erregimena. Berria - Harian

**3** (gauzei buruz)

Aipatutako bigarren urratsa eszeptikoa da eta esperientziak **zentzatu** duen juzgamenaren zuhurtziak sortzen du. Ibon Uribarri

Seme-alabok, entzun nola **zentzatu** zeuen ahoa! Elizen arteko biblia

-Aizue -hasi zen Arantxa, egoera **zentzatu** nahian-. Fernando Morillo

Lardizabalek [...] zigorrak biguntzeko eta legeria **zentzatzeko** ideia bere egiten ditu liburu honetan. Juan Martin Elexpuru

**4** (era burutua izenondo gisa)

Beren gostuko mundu guziko herrialde **zentzatuenak** ziren batzu, dena espantu eta dena urgulu, hi bahiz eta ni ere banuk, etzirelakotz onez onean akomeatzen ahal izan! Herria

**5** ***ezin zentzatuzko***

Ez dakit; baina iruditzen zait horren emakume goresgarri batek horren atxikia duen adiskidantzarako nor den gizona, ez dela **ezin zentzatuzko** libertin bat. Jon Muñoz

Orain, erraidazu, adiskide agurgarria, Valmont jauna **ezin zentzatuzko** libertin bat ote da? Jon Muñoz

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
> **gogor zentzatu zuen** (4)

## zentzatzaile *iz* zentzatzen duen pertsona.

Zu zara gure Ordenaren aita, zaindaria eta **zentzatzailea**. Askoren artean

**Zentzatzaileak** ez badu errespeturik jartzen eta arrazoiaren lekuan bere kapritxoa erabiltzen badu, aski ote dira aginte-agiriak salbamenerako? Askoren artean

## zentzatze 1 *iz* zentzudun bihurtzea.

D'Addosiok auzitegietako paperetan ageri diren zerri, zezen, zaldi, oilar, zakur, aker etab.en auzi asko aipatzen ditu, haien **zentzatze** eta jokabide zuzenketarako izugarri mesedegarriak. Xabier Olarra

Ez zegoela ikasbide hoberik bizitzak berak eskaintzen ziguna baino eta ez zegoela **zentzatze** zentzuzkoagorik nork bere buruaren gainean egin zezakeena baino. Joan Mari Irigoien

**2** (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

Erre egiten zituzten; horixe zen orduko **zentzatze** neurria; zergatik ibili koplekin. Luis Elberdin

Bekatuan jarraitzearekin kontraesanik ez duen **zentzatze** maila batekin agertu ohi da maiz. Xabier Olarra

Hauxe zioen oharrak gainera: "Udaletxea; **zentzatze**-auzitegia". Eskarne Mujika

## zentze *iz* hiltzea.

Semeak baten **zentzearen** berri ematen ziolarik, soan su menperagaitzaren garra sumatzen zion. Itxaro Borda

Errege-**zentzea** ez da bakarraren heriotza, baizik zirimola batek bezala darama berekin inguruko guztia. Juan Garzia

Honek bigarren atala zekarren haritik lotuta: jubilazioa, anaia baten **zentzea** eta, beraz, enpresaren ixtea, hots, langabezia. Joxemari Iturralde

---

# **zentzear** *adlag* zentzeko zorian.

Mahaiaren azalera bozkarioz jautzi egin nuen, aspaldi **zentzear** zihoala, Tankotx mauletar komunista zaharrak oparitu eta borta gainean dilindan natxikan Leninen potreta inarrosi araziz. Itxaro Borda

---

# **zentzu** *(orobat* **zentsu** *g.er.)* **1** *iz* zuzen, zuhur edo egoki aritzen denaren, arinkeriarik gabe diharduenaren nolakotasuna; zerbait zuzen hautemateko ahalmena.

Izan ere, **zentzuak** eta ebidentziak erraiten didate ezen ez dagoela meza *itemisaest*-etik hasterik. Joan Mari Irigoien

Zentzuduna izan da beti bere adierazpenetan, eta **zentzuak** agintzen dion moduan mozten ditu kazetarien galderak. Berria - Kirola

Denek **zentzu** gehixago baginu, errekontruak, bereziki errekontru handiak, bakanduz joan behar litazke. Herria

Bere denboran, guziz gazte denboran, biziki **zentzu** gutiago zuelarik, [...]. Herria

Militarren arteko ika-mika kutsua hartzen joan zen eztabaida horretan norbaitek izan zuen **zentzu** apur bat eta lurralde haietako pertsonaia eredugarri bat hartu behar zela esan zuen. J.M. Olaizola "Txiliku"

Hain din bere gure adin honek arrastotik harago jotzea geure aburuetan, nola gauza arrunta baita gaztegoarengan aski **zentzu** ez izatea. Juan Garzia

Artetan, adinak moldatzen duen zuhurtziak **zentzu** pixka bat emaiten dit! Piarres Aintziart

Muturtuta egongo naun baten batek **zentzu** pixka bat erakutsi arte, edo behintzat kristau baten moduan jokatu arte. Anton Garikano

Eduki ezazu **zentzu** apur bat, Lucy. Oskar Arana

Sarari, aldiz, orduantxe gailendu zitzaizkion buruan **zentzua** eta sen ona, kontuak jada erremediorik ez zuenean. Joan Mari Irigoien

Dedalok ez duela inoiz **zentzua** galtzen, ez diola uzten bere buruari gehiegikeriara jotzen. Juan Garzia

Mutiko tzar horiek ez dute **zentzurik**. Daniel Landart

Halere, **zentzua** daukan gizon orok badaki ezinezkoa dela berrogeita bi letrarekin izen bakarra osatzea. Xabier Kintana

Gero, etxea utzi eta predikatzaile bilakatu zen, herriz herri eta etxez etxe eskean ibiltzen zena, **zentzua** betirako galdu zuen mamu zoro eta sukartsu baten antzera. J.M. Olaizola "Txiliku"

## **2** (izenondo eta izenlagunekin)

Batzuetan Maraud-en **zentzu** onak ikaraz betetzen nau. Jon Muñoz

Milio ez zegoen horren mozkorra, eta nahikoa **zentzu** onean ematen zituen oraindik arrazoiak. Josu Zabaleta

-Orduan, erregearen izenean, joan hadi jakintza apalagoko baina **zentzu** handiagoko agureren baten bila. Zentzu handiz bikain zerorrek diozunez. Agustin Otsoa

Kontsolatu nahian, ea apaiz kankailu hark erlijioaz eta politikaz jakitun izateaz gainera medikuntzan ere aditua zela uste al zuen galdetu nionean, **zentzu** handiz erantzun zidan. Ramon Saizarbitoria

Bai bekatu egiten dutela, non ez dituen beren **zentzu** eskasak edo ezjakintasun zuzenak zuritzen. Piarres Xarriton

**Zentzu** beteko ohar hauxe egin zuen Mitxelenak. Koldo Zuazo

Joka dezala bakoitzak **zentzu** santuz eta errespetuz bere emaztearekin. Elizen arteko biblia

**Zentzu** morala galdurik, lizunkeriara jo dute, aseezineko antsiaz era guztietako bizioetara emanak bizitzeko. Elizen arteko biblia

Etorkizuneko gizarte ekumenikoren bateko historialariek, iraganeko zibilizazio guztietan sustrai historikoekin, proportzioaren **zentzu** hobea erakutsiko dute ziur aski. Iñaki Mendiguren

Ez zuen, ez jolasaren ideiarik, ez arriskuaren **zentzu** normalik, eta motibazio eskasa ageri zuen ezeri ekiteko, zirrimarrei izan ezik. Xabier Olarra

*Ancien Régime*-ko taulen aniztasun nahasgarria kalkulu-sistema bakun batera murriztean, beren **zentzu** praktikoa erakutsi zuten. Iñaki Mendiguren

Kontzientzia hitza bietara hartu behar da hor: oharmena, batetik, eta **zentzu** morala, bestetik. Juan Garzia

Laburbilduz esan daiteke Arantzazuko esperientziaren ondoren eskulturan eta pinturan nagusitu zen euskal artea 60ko eta 70eko urte haietako gizartearen **zentzu** heroikoarekin ondo zetorrela. Joseba Zulaika

Nietzsche-ren kritikak ulertzeko moralari eta kristautasunari, haren bizitzaren kontzeptuari behar zaio jaramon egin aurretik; bizitzaren **zentzu** jentil, dionisiakoari alegia. Joxe Azurmendi

Gaur egungo **zentzu** modernoak, ordea, ez du sinesten patriarka aurpegiko Jainko horretan, zintzoen arimak oiloak txitoak bezala bere hegopean babesten. Josu Zabaleta

Betetasun halako bat geratzen zaizu, eta susmoa, hitzotan badela zerbait **zentzu** biribila duena, baina ezin duzu osorik atzeman. Iñaki Iñurrieta

Uste dut haien artean hori esan zuena **zentzu** oso zuzeneko gizona zela, Eta higuin zuela sofismak onartu beharra. Xabier Kintana

Ongi aski zegoen berori hemen goian Jainkoak emandako **zentzu** oso-osoko, eta ez orain, inori gogoratu litzaizkiokeen zorakeriarik handienak kontari. Patxi Ezkiaga

Baina ez zaio hala iduritu Aita Sainduari eta haren **zentzu** hain argituari makurtzen natzaio. Piarres Xarriton

Beste hainbatetan, ordea, terminoen berezko **zentzua** aldatu egiten da, mezuaren ulermena zailduz. Berria - Gaiak

## **3** (hitz elkartuetan)

Lagun on batekin bide bera egin eta borondate bereko ez izatea, gaiztakeria-seinale da eta **zentzu** faltaren adierazle garbia. Askoren artean

· Mundu bereizi bat da, bere kidetasun-**zentzu**, bere hizkuntza, kode, mito eta ohiturekin. Xabier Olarra

## **4** esanahia, adiera; ikuspuntua.

Izen orok **zentzu** bat eta erreferentzia bat izan ditzake. Askoren artean

Horrek jada garaiko filosofian problemak planteatzen zituen kontzeptuen **zentzu** eta baloreari buruz. Askoren artean

*Ikusle* deituko diogu nor horri, termino honi eman ohi zaion **zentzua** zertxobait zabalduz. Josu Zabaleta

Pasartea modu orokorrean ulertu behar bada, nik **zentzu** hau ematen diot: [...]. Askoren artean

Irakurleak jakin behar luke gonbidatu hitz horri zein **zentzu** eman. Karlos Linazasoro

Hasierako malgutasun-ideia hori galduz joan da, eta beste **zentzu** bat joan da hartuz hitz hori, erabilerak abstrazioaren ideiarekin nahasteko joera izan duena. Josu Zabaleta

Hots "herria" bi **zentzuetara**: batetik "lurra" betiko **zentzuan**, besteetik "populua", hegoaldeko batzuek herria hitzari eman dioten **zentzu** berri, diskutagarrian. Herria

Demokrazia (Rousseauren **zentzuan**) geurean behingoz abian jartzeak, araudi berri bat eskatzen du. Markos Zapiain

**Zentzurik** gabeko hitzak zirela. Ramon Saizarbitoria

*ik* zentzugabe.

Eremu hitza zinemagintzatik hartua da, **zentzu** honetan: filmeko irudi batean pertzibitzen den hiru dimentsioko irudimenezko espazioa nahi du esan. Josu Zabaleta

*ik beherago* 18. Askoren artean

**Zentzu** horretan ulertzen dut Graves-en esaldia. Ana Urkiza

*ik beherago* 17. Askoren artean

Markoa da, bada, bere bi **zentzuetan**, irudiari forma ematen diona. Josu Zabaleta

Ez du bilatuko, ezta ere, historia ezberdin hauen artean azpimarratzea datuen arteko kointzidentziak edo formen edo **zentzuen** analogiak. Xabier Arregi

Erabakigarria izan zen hiru **zentzuetan**, Hirutasun Santua bezala: gola sartzeko, Marseilla jokalari bat gutxiagorekin uzteko, eta Meriem zelaitik ateratzekok balio izan zuen.

Berria - Kirola

**5** (izenondo eta izenlagunekin)

Filma (hitzaren **zentzu** materialean: pelikula) bat-bateko argazki-bilduma bat da. Josu Zabaleta

*Arkhe* hitz grekoa bere **zentzu** betean ulertu behar dugu. Piarres Xarriton

Esanahi desberdina dute, **zentzu** desberdina dutelako. Askoren artean

*Eudaimonia*k zoriona adierazi nahi du, ez, ordea, plazeraren **zentzu** hutsalean. Askoren artean

Nik ere ez ditut gustuko **zentzu** gutxiesgarrian erabiltzen diren hitzak. Bernardo Atxaga

"Zaila baita **zentzu** bakarra, **zentzu** unibertsal eta behin betiko bat ematea hitz horiei. Josu Zabaleta

Ikusten da ez dudala hemen teoria bat garatzen, hitzaren **zentzu** estu eta gogorrean. Xabier Arregi

Hori bezalako esaldi baten **zentzu** bikoitza saihestu behar zuela uste izan zuen. Jon Alonso

Biblian **zentzu** zehatz eta garbia daukan metaforak (han heriotza materiala da bizitza dakarrena, eta bizitza izpirituala da heriotzak dakarrena), hemen **zentzurik** ez dauka batere. Joxe Azurmendi

Tradizio anglosaxoiko kapitalismoa **zentzu** hertsian ulertzen bada behintzat; alegia, merkatuak erabat gidatzen duen gizarte gisa. Iñaki Heras

Azken baldintza hori **zentzu** hertsian aplikatuko balitz [...]. Askoren artean

**Zentzu** zabalagoan oraindik (baina askoz ere **zentzu** lausoagoan, orobat), [...]. Josu Zabaleta

Heldutasun hitzaren **zentzurik** zabalenean. Bernardo Atxaga

Harrotasuna, **zentzurik** txarrenean. Edurne Elizondo

Progresoak jada garai honetan Unamuno-rentzat **zentzu** anbiguoa dizu, negatiboa ez denean. Joxe Azurmendi

Homofoniaren alorrean ere, **zentzu** biko hitzak eta esamoldeak aurki ditzakegu. Iñaki Arranz

Pasarte osoak **zentzu** figuratiboa du: Sendagilea Kristo da, [...]. Askoren artean

Mendebalde modernoko klase ertaina bertako elementua zen menderatzera iritsi zen gizartean; **zentzu** psikologikoan, "etxean" zegoen han. Iñaki Mendiguren

Benetan ez dira depresioak negozio-zikloen teoriaren **zentzu** teknikoan. Iñaki Mendiguren

Benetako "entziklopedia" (**zentzu** etimologikoan) osatzen dutela multzoan hartuta. Santiago Iruretagoiena

Sinestearen adierazpena halako kasuetan apaltasunarena da **zentzu** objektiboan, baina aldi berean konfiantzaren finkotasunarena da **zentzu** subjektiboan. Ibon Uribarri

Baina *corpus* hitzak maiz **zentzu** negatiboa du, ia haragi hitzarekin parekatzen delarik. Askoren artean

Berarentzat hitz haiek **zentzu** handia balute bezala. Ramon Saizarbitoria

Ikur-irudiak ozta-ozta dira irudiak, hitz horren **zentzu** arruntean. Josu Zabaleta

Hitzaren **zentzu** osoan eta **zentzu** guztietan, ikasten irakatsi didan Christian Metz-i eskaintzen diot liburu hau. Josu Zabaleta

Hitz horrek **zentzu** zehatzagoa hartu du Lacanen teorian. Josu Zabaleta

Berehalaxe, ordea, beste **zentzu** aski desberdina hartu zuen hitz horrek. Josu Zabaleta

Enpirikoki kanpokoak diren objektuak **zentzu** transzendentalean kanpokoak dei dakizkiekeenetatik bereizi nahi ditugu. Ibon Uribarri

Hitza gaur alegiazko **zentzuan** erabiltzen da, ahalmen poetikoa adierazteko. Xabier Olarra

**6** (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

Nahiko normala zen **zentzu**-aldaketa baten eraginez, "koadratze" hitzaren esanahia aldatu egin zen. Josu Zabaleta

Panofskyren ustez, gertaera sozial orok **zentzu** maila bat baino gehiago izaten du (eta maila bat baino gehiagotan irakurri behar da, horrenbestez). Josu Zabaleta

Sistema oinarri-esakunearekin batera hondoratzen da aldi berean, baita bertatik sortzen den adimenaren erabileraren **zentzu**-bikoiztasuna ere. Ibon Uribarri

Estereotipoak eragindako **zentzu**-galtzeaz gainera, beste tautologia oso borgiano bat gertatzen da. Juan Garzia

· Baldin eta orain transzendentzia ez bada instantzia **zentzu**-emailea, horrek jadanik nolabait emana egon beharko luke. Piarres Xarriton

Zabalegi gertatzen, nonbait, "Zabalaga" hori, gaurko belarri **zentzu**-goseari. Joxerra Garzia

**7** (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa)

Onespen-**zentzu** nabaria zuen epiteto bat gehitu behar izan zitzaion, ordea, horretarako. Josu Zabaleta

Baina orduan gaitzespen-**zentzu** guztizkoa eman nion orain samurtasunez nerabilen adjektiboari. Anjel Lertxundi

Promiskuitatearen zentzua eta batasunaren zentzua "estilo-**zentzuaaren**" ordezkoak dira, estilo-**zentzu** hau hazkundearekin batera zertzen den diferentziazio-prozesu objektiboaren kontrapartida subjektiboa delarik. Iñaki Mendiguren

Arozamenak ere badaki danborradak hasieratik izan zuen irri eta gudari **zentzua**. Askoren artean

**8** zerbaitek duen helburua, logika edo izateko arrazoia.

Agindu biblikoen **zentzua**. Xabier Kintana

Orain ulertzen dut apaltasunaren **zentzua**. Josu Zabaleta

Baina artean ez zen jabetzen negozio haren benetako **zentzuaz**. Jose Morales

Denboraren **zentzua** berehala galtzen dute atxilotuek. Berria - Harian

Norabidearen **zentzua** erabat galdua nuen ordurako, labirinto batean nengoela ulertu nuen. Jon Alonso

Bere existentzia zeharkatu eta berari **zentzu** ematen dion egitasmoa. Xabier Arregi

Orainari **zentzua** eta sakontasuna iraganak ematen diolarik [...]. Xabier Olarra

Biziari **zentzu** bat emaiten ziona. Piarres Aintziart

Gu dagoeneko definitzeko gai ez garen Kolektibitate bati **zentzua** ematen ahalegindu dira. Josu Zabaleta

Esan nahi baita beste **zentzu** bat hartu zutela idatzita neuzkan testuek, eta hobeto konprenitu nuela bai neure burua [...] eta bai neure ibilbide literarioa. Bernardo Atxaga

Ez omen du "ulertzen" musika; ez dio **"zentzurik** aurkitzen". Xabier Olarra

Ez diot **zentzurik** ikusten elkarrizketa luzatzeari. Oskar Arana

Militarrek ez eta, erlijioak biziari **zentzu** bat aurkitzen lagunduko ziolakoan, sekta batean sartu zen. Karlos Linazasoro

Saharan bizi nintzenean, arabiarrek, gauean gure suen inguruan azaldurik urrutiko mehatxuen berri ematen baziguten, basamortua bilbatu, eta **zentzu** bat hartzen zuen. Josu Zabaleta

Erronka, ordea, **zentzua** duen esaldia osatzea da, eta horretarako askoz letra gehiago behar ditugu. Iñaki Arranz

Nire gorrotoak bazuen **zentzua**; nano hari, ordea, ez gorrotoak ez justizi goseak ez zioten ematen indarra. Matías Múgica

Ez nuen ulertzen; Adela OICn ibiltzea espero nuen; **zentzu** gehiago zukeen horrek. Juan Kruz Igerabide

Dokumentu guztiz baliotsu bat ematen digu gaurko donostiarroi, Danborradaren **zentzua** behar bezala ulertzen lagunduko diguna. Askoren artean

Han mundua ez baitzen mundua eta gauzek ez baitzuten Bartzelonan zuten **zentzu** eta balio berbera. Jon Muñoz

Frantziskorentzat oinarrizko apaltze eta beheratze honek Jesusen biziera osoaren barne-**zentzua** biltzen du bere baitan. Askoren artean

Estatistika **zentzurik** gabeak erabiliz eta funtsik gabeko baieztapenak eginez. Josu Zabaleta

*ik* zentzugabe.

Aukera zezakeen edozein gizon, Andoniren alboan zegoena adibidez, eta hari eman **zentzurik** gabeko heriotza. Bernardo Atxaga

**Zentzurik** ez begiak itxita jarraitzeak, esna bainengoen zeharo. Joxe Austin Arrieta

Lan honetan erabili zituen bere ateraldi zorrotz eta paradoxa finenak, kontraesan eta **zentzuz** beteriko zentzugabekeria irrigarrienak. ik *beherago* 14. Antton Olano

Nabarmena da enuntziatuak ez direla existitzen hizkuntza existitzen den **zentzu** berean, eta hizkuntzarekin batera zeinu multzo bat existitzen den **zentzu** berean. ik *beherago* 15. Xabier Arregi

Zenbait egun lehenago hitzordu baterako deitu zuen bere kausaren alde egin zezan eta, eraginik izan zitzakeenengan, izan nagusi, izan enplegatu, **zentzu** berean joka zezan. Patxi Zubizarreta

Baina badirudi bi hitzak **zentzu** berean erabiltzen direla, bigarrena lehenengoaren indargarri delarik. Askoren artean

**9** (izenondo eta izenlagunekin)

Estatuaren parte-hartze horrek XVII. mendeko beheraldi ekonomikoan eta gerra-giroan hartzen du bere **zentzu** osoa. Koro Navarro

Hemendik hartzen dute **zentzu** osoa azken gomendiozko testuek: [...]. Askoren artean

Nahikundea, patua, bizitzari buruzko **zentzu** agonikoa. Askoren artean

Komandanteak ondo daki **zentzu** gabeko gauza dela horrelako proposamena. Josu Zabaleta

**Zentzu** biologikoan, baliteke gizakiak oso bereziak ez izatea. Irene Aldasoro

**Zentzu** iniziatikoa eta erlijiozkoa baitzuen pikoak, eta horregatik omen ziren eremitak piko zale. Patziku Perurena

Teoria marxisten **zentzu** erlijioso eta kristau sakon gordea. Koldo Biguri

Nire bizitzaren **zentzu** tragikoa hori zen: gazte zital baten biktima zorigabea izatea. Matías Múgica

Euskara batua eraikitzeko ahaleginean, asko zabaldu da nonahiko hitzak eta egiturak inolako **zentzu** eta orekarik gabe nahasteko ohitura. Koldo Zuazo

Besteekiko tratua higuin zitzaion edo higuingarri bihurtzen joan zitzaion, poliki-poliki, nolabaiteko ahalkeak eta aldi berean nolabaiteko **zentzu** profilaktikoak galaraziko baliote bezala. Jon Alonso

Denboraren demokratizazioa gertatu da, nola **zentzu** kualitatiboan (astialdia) hala **zentzu** kuantitatiboan (denbora librea). Berria - Gaiak

**10** zentzumena. ik **sentsu**.

Irudia kanpotik dator eta **zentzuen** bidez hasten du bere bidea. Joan Mari Lekuona

Gure sentimenduak errotik lotuak dira gure **zentzuen** gaitasunari. Patziku Perurena

Nire **zentzu** guztiez maite dut, begiez, haiek baitute ikusten, usaimenaz, hark usaintzen baitu, belarriez, haiek entzuten baitute haren isiltasuna, nire haragi guztiaz, ilunpeak laztantzen baititu. Josu Zabaleta

Edonola ere, **zentzu** biok -dastamenaz eta ukimenaz ari naiz- ezin dituzte beren objektu sentigarriak hauteman. Xabier Kintana

"Haren begiek badakusate", hor beti adierazten da adimenezko hautematea, eta ez **zentzuen** bidezkoa, sentsazio orok, dakizunez, aldean pasibotasuna baitakar. Xabier Kintana

Ez zen polita, mundu honetan polita esaten zaiona behintzat ez, **zentzuentzat** erakargarri denari deitzen baitzaio horrela. Matías Múgica

Bat-batean, hutsune handi baterat zabaldu zitzaizkidan bortz **zentzuen** leihoak, bortzak baterat, eta bihotzak ez ezik buruak ere ihes egin zidan hutsune hartarik, kordea galtzen nuela. Joan Mari Irigoien

**11** konortea.

Kolpea eman bezain pronto **zentzua** galdu zuen eta korderik gabe lurrera erori. J.M. Olaizola "Txiliku"

Kolpearen ondorez, tentua eta **zentzua** galdu eta hil hurran izan nintzela. uste izaiten dugu ezen ez garela berriro eroriko, zeren, **zentzua** berreskuraturik, ezinezkoa iduritzen zaigun. Joan Mari Irigoien

Zur-lur gelditu zen Don Kijote, **zentzu** gabe Santxo, harriturik lehengusua. Patxi Ezkiaga

**12** norabidea.

Itxurazko estutze edo zabaltze mugimendu bat sumatzen da, espiralaren **zentzuaren** arabera. Josu Zabaleta

Informazio aferentea, kontrako **zentzuan** (organoetatik garunera) doan informazioari. Josu Zabaleta

Jupiter mantsoago joaten da mailaka igotzen ortziaren kontrako biraketa-**zentzuan**. Santiago Iruretagoiena

Dena aldatzen da **zentzuz**. Josu Zabaleta

**13** ***zentzupean***

Freuden teoriaren arabera, hark genitalitatezko **zentzupean** jartzen duen antolamendu psikiko baten mende jartzen dira irrika partzial horiek, garapen psikikoan zehar. Josu Zabaleta

**14** ***zentzuz*** *adlag*

**Zentzuz** hitz egiten dutenek ere jakinduria agertzen dute, euria bezain ugari isurtzen esaera egokiak. Elizen arteko biblia

-Ez haiz **zentzuz** mintzatu. Juan Kruz Igerabide

Egin zen guztia ez zen zuzen eta **zentzuz** egin. Koldo Zuazo

Dena zabal, zintzo, **zentzuz** azaldu behar izan ziguten. Urtzi Urrutikoetxea

Erakuts dezagun **zentzuz** ari girela eta ere bihotzez. Herria

Ez girela aski **zentzuz** ari eta behar ginukeela beste biderik hartu, gure onetan eta gure ondokoen onetan! Herria

Senez eta **zentzuz** jokatu eta jolastu behar da ondasun eta baliabide horiekin, betiere hizkuntzaren egitura oreka egokian gordeaz. Koldo Zuazo

Ez jokatu ergel, **zentzuz** baizik. Elizen arteko biblia

Lasai-lasai jokatzen du, baloia **zentzuz** mugitzen, beteranoen moduan. Berria - Kirola

Noiz eta hitz eta behako haiek erabili izan baititut, tentuz eta **zentzuz** erabili baititut. Joan Mari Irigoien

Kontuz eta **zentzuz** aztertu zituen aurrean jarri zizkioten gorbatak. Anton Garikano

**14a** *zentzuzko* ik **zentzuzko**.

**15** ***zentzu berean*** (esaldiaren sarrera gisa eta aurreko esaldiarekiko lotura gisa)

**Zentzu berean**, gizakiaren izaera eta, bereziki, erlijioa izango dituen ardatz Schleiermacherrek. Askoren artean

Ekar daiteke gogora, **zentzu berean**, "Paluche"-ren, Jean-Pierre Beauviala-k asmatu zuen miniaturazko kameraren, definizioa: [...]. Josu Zabaleta

**Zentzu berean**, ezin zaie agiri judizialei, estrajudizialei edo administratiboei agiri ofizial baten itxura eman. Berria - Harian

**Zentzu berean**, azpimarratu zuen Patxi Lopez Nicolas Redondo Terrerosen esanetara egon zela eta, ondorioz, «hark Mayor Orejarekin egindako akordioaren sustatzaile» izan zela. Berria - Euskal Herria

Bestalde, **zentzu berean**, Lapurdi itsasaldeko autobus publikoetan argazki erakusketa ibiltaria jarriko dute aste osoan zehar. Berria - Kultura

Eta, **zentzu berean**, hura zen gizon batek andrea aintzat hartzen zuen lehen aldia. Bernardo Atxaga

**16** ***zentzua eduki*** (zerbaitek) ik beherago **19.**

Horregatik **dauka zentzua**, Juan Jose Ibarretxek egiten duen bezala, bakea atzeraezina egiteko akordio politikoak behar direla esateak. Berria - Euskal Herria

Talde armatuen erasoak antolaketa politikoaren ondotik etorri ziren eta **zentzua daukate** aldaketa politikoa helburu duten neurrian. Berria - Mundua

**Zentzua zeukan** gauza bakarra zen telefonoa lehenbailehen hartu eta biharamun goizean dendan inolako furgonetarik ez zela agertuko ziurtatzea. Oskar Arana

Baina norbaitek izan behar du egindakoaren ardura, denak gutxieneko **zentzua eduki** dezan. Xabier Montoia

Ez da logikoa, ez **dauka zentzurik**. Berria - Ekonomia

Hark guztiak ez **zeukan zentzurik**. Harkaitz Cano

Honek guztiak ez **dauka zentzu** handirik. Sonia Gonzalez

Gizaki izan nintzen aspaldi, denborak **zentzurik zeukan** garaian. Felipe Juaristi

Miaketak egiteak ez **dauka zentzurik**. Berria - Kirola

Gaitza ez da ikasten eta, beraz, gaizkia egiten norengandik ikasten dugun galdetzeak ez **dauka zentzurik**. Imanol Unzurrunzaga

Isiltzeak, hire kasuan, ez **zeukak zentzurik**. Rafa Egiguren

Zer **zentzu zeukan** autoz ia hirurehun milia egiteak bera hara eramatearren, gero emaitza bakarra atzera itzultzeko beste hirurehun milia egitea izango bazen. Oskar Arana

Horrek ez **dauka zentzu** gehiegirik. Fernando Morillo

Ez **dauka** batere **zentzurik** ideia politikoak gaitzestea, ezabatzea. Berria - Euskal Herria

Inoren kontraboterea litzatekeen Europa bat eraikitzeak ez **dauka** inongo **zentzurik**. Berria - Euskal Herria

Cecilia Boltonen bizitzak ez **zeukan zentzurik** euskal soinujolea hil zenez geroztik. Koldo Izagirre

Ikasgelako baldarrena nintzen, bertigoa nuen eta, gainera, ez nuen igotzeko inolako gogorik; ez **zeukan zentzurik**, baina hala ere igotzen hasi nintzen. Iban Zaldua

## 17 *zentzu honetan* (esaldiaren sarrera gisa eta aurreko esaldiarekiko lotura gisa)

**Zentzu honetan**, ezertxok ere ez dio eragotziko metafora landuak bezain sakonak erabiltzea. J. Garzia / A. Egaña / J. Sarasua

**Zentzu honetan**, *The end of laissez-faire* (1926) izeneko opuskulu bikainean, Keynesek dio ekonomilariak izan omen zirela "berekoikeriaren eta sozialismoaren arteko kontraesana ebazteko aitzakia zientifikoa eman zutenak". Iñaki Heras

**Zentzu honetan** bereziki eskertu nahi dugu irlandar mugimendu errepublikarrak eskainitako babes eta maitasun osoa. Berria - Harian

Zigilaketa, **zentzu honetan**, paper garrantzitsuetan hitz edo zeinu kabalistikoak idazteko antzinako ohituraren aztarna da. Xabier Olarra

Ezker Abertzaleak birritan aipatu du, **zentzu honetan**, Euskal Herria eskubide subjektu gisa onartzen duen proposamen ororekiko bere balorazio positiboa. Berria - Euskal Herria

Ez da deskriba daitekeen egitura bat, mugaezineko garapen bat baizik; **zentzu honetan**, inkontzientea ere bada. Joseba Zulaika

Garai klasikoan, egiturazko ezaugarrien araberako espezieen sailkapenak inplikatzen du izakien jarraitasunaren hastapena; eta **zentzu honetan** aldi berekoak dira biak. Xabier Arregi

## 18 *zentzu horretan* (esaldiaren sarrera gisa eta aurreko esaldiarekiko lotura gisa)

**Zentzu horretan**, modako gaitzak jendearen irrika gaizto horiek asetzeko ere balio izan du. Bernardo Atxaga

**Zentzu horretan**, arrunt salagarria da, herriko-etxeak xapelgoaren bezperan Ondarraitzeko zelai nagusia erabiltzea debekatu zuela, jakinik guztia prestatua zela horretarako.

**Zentzu horretan**, kanpoko ekonomiari dagokionez, Listen nazionalismo ekonomikoa defentsiboa da erasozkoa baino areago. Herria

**Zentzu horretan**, konkurrentziaren printzipioaren mundu osoko garaipenaren sinonimo da globalizazioa, antolamendu printzipioaren kaltetan. Koro Navarro

**Zentzu horretan**, bada, ez da ezin sinetsizkoa Gibsonek aipatzen dituen ikusmenaren "aldagai konplexuek" era honetako funtzionamenduren bat eskatzea. Josu Zabaleta

Eta **zentzu horretan** uste dut irabazi egingo dugula terrenoa. Berria - Harian

Gogoratu zuen ere Auzitegi Nagusia ez dela «berezko erakunde autonomoa», eta **zentzu horretan** «Espainiako Konstituzioaren aginteak zalantza barik Estatuaren araudien mesedetara makurtzen» direla esan zuen, «salbuespenik gabe». Berria - Euskal Herria

Oinetakoak egitea teknika bat da, **zentzu horretan**: oinetakogilearen teknika eta larrua baliabideak dira; helburua, aurretik diseinaturikoa, oinetakoak berak. Askoren artean

Azpimarragarria iruditzen zaigu, **zentzu horretan**, Sisifo izeneko draman, Kritiasek egiten duen lehen itunaren -lehen legearen- oinarri mitiko-teologikoaren salaketa: [...]. Askoren artean

Kitcherren liburuak **zentzu horretan** summa baten izaera du. Askoren artean

## 19 *zentzua izan* du *ad (zerbaitek)*

Iragankortasun atzeraezinezko horretan, bat-batean ari denaren amildegi txiki horretan **du zentzua** bertsoak. J. Garzia / A. Egaña / J. Sarasua

Animalien defendatzaileentzat, berriz, hiru aginduotako azkenak ordezkatzea soilik **du zentzua**. Berria - Gaiak

Besteen aurpegiek **badute zentzua**. Monika Etxebarria

Hainbeste eta hainbeste hizkuntza bada munduan eta denek **dute zentzua**. Elizen arteko biblia

Horregatik, horregatik guztiagatik nekien arnasik gabeko segundo horiek **bazutela zentzua**, Lorena, izateko arrazoia. Lander Garro

Ederki nekien nik Manya atzean egonda **zuela zentzua** beste emakumeekin nuen arrakastak, ez bestela. Koro Navarro

Esango didazu ze **zentzu duen** horrek. Antton Olano

Horrek ere ez **zuen zentzu** handirik. Jon Muñoz

Irakurleak ezin horrenbeste itxoin paragrafoak zer **zentzu duen** jakiteko. Bernardo Atxaga

Zer **zentzu** izan zezakeen hark? Harkaitz Cano

-Zer **zentzu du** gure biziak, John Smart? Karlos Linazasoro

Zer **zentzu luke** mundura etortzeak, eta joateak? Patziku Perurena

Ez **du zentzurik**, ez **du zentzurik** inondik ere. Josu Zabaleta

Ez nintzen beldur (zeren beldur!), baina bidaia hark ez **zuen zentzurik**. Joxe Austin Arrieta

Ez **dik zentzurik** arau zorrotz bat izatea irakurri beharko litzatekeenaz eta ez litzatekeenaz. Antton Olano

Izan ere, aldagai bat bakartzeak, aldagai konplexua izanda ere, ez **baitu** inolako **zentzurik**. Josu Zabaleta

Ez **zuen zentzurik**, edo **zentzu** gehiegi **zuen**. Jon Muñoz

Kausalitate-erlazio horiek **duten zentzua** aldaketari dagokio. Askoren artean

Letrak badu **zentzua** eta baita halako balio poetiko bat ere. Askoren artean

Nire jardun pobreak **badu zentzu** bat. Jon Alonso

## 20 *zentzu komun* ik sen[1] 8.

Hori da **zentzu komunak** esaten diguna: [...]. Xabier Olarra

Jakitea eta zientzia azkenetan daudenean, orduan eta ez lehenago, **zentzu komunera** jotzea, azken denbora hauetako asmakeria sotila besterik ez da. Patziku Perurena

Horrek esan nahi du batetik, **zentzu komunaren** aurka badoa ere, sexualitatea espero ez ditugun lekuetan ere azaltzen dela [...] eta, bestetik, ez dela espero diren lekuetan beti azaltzen. Berria - Harian

Ahalmen hori oso noblea da[...] eta aldi berean oso ezkutua da, eta **zentzu komunak** ez luke begiratu batean haren egiazko izaera ulertuko, gainerako ahalmen naturalak ulertzen diren bezala. Xabier Kintana

Hau dena oso logika sinplea besterik ez da eta **zentzu komun** oso apala. Joxe Azurmendi

**Zentzu komun** hau da gauzarik zailena, jakina, norberaren identitatea eta posizioak ez direla erabat finkoak eta behin betikoak onartzea eskatzen baitu, hau da, "konbertsio" moduko aldaketa bat. Joseba Zulaika

## 21 *zentzu on*

Ikasi non dagoen zuhurtasuna, non indarra eta **zentzu ona**, eta jakingo duzu non dauden bizitza luzea eta benetako bizia. Elizen arteko biblia

Nabaria zen, hala ere, ezinbesteko gauza bat falta zela funtzionarioen kontseilu hartan: herri xeheak **zentzu ona** deritzon hori hain zuzen ere. Jose Morales

Zuhurtziari kasu egin eta **zentzu onari** jaramon egiten badiozu, [...]. Elizen arteko biblia

Bere izen ona bihurtu egiozu nire aita zenari, eta **zentzu** oneko gizon zuhurtzat eduki ezazu. Patxi Ezkiaga

Eroren bat zela pentsatu zuen; baina gero ezetz ikusi zuen, **zentzu oneko** pertsona zela pianista. Josu Zabaleta

Ez da izan behar soziolinguistika gaietan ez aditua ez aritua **zentzu** onak agintzen duen bide hori aukeratzeko. Koldo Zuazo

Era berean dakit ezen, sarriagotan, mania nagusitu egiten zaiola **zentzu onari**, eta bost agindu zein debeku zentzuzkoren arrimuan hamar zentzugabe, alferrikakok egiten duela habia. Juan Garzia

Herri hizkerak irakaskuntzan aintzakotzat hartu beharraz mintzatu zen, ohikoa zuen argitasunez eta **zentzu onez**. Koldo Zuazo

Berebiziko **zentzu onez** jantzia, zuhurki hartzen zuen kontuan giza maila guztietako pertsonen duintasuna. Askoren artean

**hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**

**aski zentzu** (5); **beste zentzu bat** (12); **beste zentzu batean** (8); **bizitzaren zentzu** (8); **eta zentzu horretan** (27); **ez du zentzu** (19); **ez duela zentzu** (7); **ez luke zentzu** (6)

**zentzu apur bat** (8); **zentzu askotan** (14); **zentzu bat** (40); **zentzu batean** (43); **zentzu baten** (5); **zentzu bera** (6); **zentzu berean** (38); **zentzu beretik** (5); **zentzu berri** (9); **zentzu berri bat** (7); **zentzu berria** (6); **zentzu betea** (5); **zentzu biko** (8); **zentzu du** (11)

**zentzu estuan** (7); **zentzu gehiago** (8); **zentzu gehixago** (9); **zentzu guztia** (6); **zentzu guztiak** (12); **zentzu guztietan** (28); **zentzu handia** (5); **zentzu handiagoa** (6); **zentzu handirik** (42); **zentzu handiz** (11); **zentzu hertsian** (18); **zentzu honetan** (53); **zentzu hori** (17); **zentzu horretan** (324)

**zentzu komun** (5)

**zentzu on** (5); **zentzu ona** (22); **zentzu onak** (5); **zentzu onaren** (9); **zentzu onean** (10); **zentzu oneko** (12); **zentzu onez** (13); **zentzu orokorrean** (6); **zentzu orotan** (7); **zentzu osoa** (11); **zentzu osoan** (5); **zentzu pixka** (10); **zentzu pixka bat** (7); **zentzu positiboan** (5); **zentzu poxi bat** (8); **zentzu txarrean** (6)

**zentzu zabalagoan** (10); **zentzu zabalean** (33); **zentzu zabalenean** (5); **zer zentzu du** (10)

**bere zentzua** (19); **beren zentzua** (6); **bizitzaren zentzua** (20); **errealitatearen zentzua** (7); **haren zentzua** (7); **hitzen zentzua** (6)

**zentzua berreskuratu** (5); **zentzua eman** (10); **zentzua emateko** (6); **zentzua ematen** (17); **zentzua eta erreferentzia** (5); **zentzua galdu** (18); **zentzua galdu zuen** (5); **zentzua galtzen** (10); **zentzua hartzen** (5); **zentzua izan** (19)

**kontrako zentzuan** (12)

**bizitzaren zentzuaren** (5); **zentzuaren bila** (5)

**zentzuen bidez** (10)

**bi zentzuetan** (6)

**zentzuren bat** (6)

**badu zentzurik** (9); **batere zentzurik ez** (6); **bere zentzurik** (7)

**ez baitu zentzurik** (7); **ez dauka zentzurik** (37); **ez dik zentzurik** (11); **ez du zentzurik** (164); **ez duela zentzurik** (28); **ez duelako zentzurik** (5); **ez dute zentzurik** (17); **ez dutela zentzurik** (5); **ez luke zentzurik** (16); **ez zeukan zentzurik** (10); **ez zuela zentzurik** (9); **ez zuen zentzurik** (29); **ez zukeen zentzurik** (5); **hitzaren zentzurik** (16)

**inolako zentzurik** (62); **inolako zentzurik ez** (6); **inolako zentzurik gabe** (6); **inongo zentzurik** (8); **zentzurik batere** (5); **zentzurik estuenean** (5); **zentzurik ez daukala** (5); **zentzurik ez du** (15); **zentzurik ez duela** (12); **zentzurik ez duen** (11); **zentzurik ez duten** (11); **zentzurik gabe** (27); **zentzurik gabea** (14); **zentzurik gabeko** (46); **zentzurik gabekoa** (6); **zentzurik ikusten** (8); **zentzurik izan** (14); **zentzurik izan katedralaren** (5); **zentzurik izango** (26); **zentzurik onenean** (7); **zentzurik zabalenean** (15)

**bi zentzutan** (12); **zein zentzutan** (11); **zer zentzutan** (6)

**tentuz eta zentzuz** (5); **zentzuz ari** (6); **zentzuz egin** (5); **zentzuz jokatu** (12); **zentzuz jokatzea** (7); **zentzuz jokatzeko** (15); **zentzuz jokatzen** (5)

**tentuz eta zentzuz** (5); **zentzuz ari** (6); **zentzuz egin** (5); **zentzuz eta** (16); **zentzuz hitz** (5); **zentzuz jokatu** (12); **zentzuz jokatzea** (7); **zentzuz jokatzeko** (15); **zentzuz jokatzen** (5)

**zentzuzko eta arrazoizko** (6); **zentzuzko gauza** (5)

**eta zentzuzkoa da** (5); **ez da zentzuzkoa** (11); **oso zentzuzkoa** (8)

**zentzuzkoa da** (25); **zentzuzkoa dela** (8); **zentzuzkoa dirudi** (6); **zentzuzkoa iruditu** (5); **zentzuzkoa iruditzen** (9); **zentzuzkoa izan** (7); **zentzuzkoa zen** (12)

**zentzuzkoagoa da** (6)

---

# zentzubako *izlag/iz* zentzugabea.

Gauza bakoitzak bere erabil-arauak ditu berekin, eta esan daiteke ikonosfera halako batean bizi-edo garela, non **zentzubako** gauzei ere beren zentzua eransten zaien. Joxerra Garzia

Nor da nire egitasmoa ukatu nahian ari dena **zentzubako** hitzez? Elizen arteko biblia

Mentxu txukuntze zeregin **zentzubakoetan** hasi zen gelan bakarrik gelditu zirenean. Josu Landa

Tesiko zuraje teoriko-filosofiko guztiari, onberatasun pixka batekin, aprendiz inpresionatuaren zurriburri **zentzubakoa** iritzi dakioke: [...]. Joxe Azurmendi

**Zentzubako** batek ezagut al dezake, akaso, jakituria? Imanol Unzurrunzaga

Heldugabeko gazte batzuen artean **zentzubako** bat zegoela ohartu nintzen. Elizen arteko biblia

---

# zentzubide *iz*

Utz itzazu izpirituaren **zentzubideak** eta egintzak, gauza sentikor eta ulergarriak, direnak eta ez dena. Joan Mari Lekuona

Irudi oro ezabatzen da, **zentzubidezko** formak itzaltzen eta galtzen dira naturazko beste argien eraginez. Joan Mari Lekuona

---

# zentzudun 1 *izond* zentzua duena. (pertsonez)

Zerbitzari leial eta **zentzuduna** da. Askoren artean

Horra hor neskatxa **zentzudun** argia! Antton Olano

Pertsona **zentzudunei** bezala mintzo natzaizue; juzgatu zeuek diodana. Elizen arteko biblia

Ene iritziz eta gizaki **zentzudun** ororen aburuz, horrelako sineskerei hauxe esan dakieke: [...]. Xabier Kintana

Ergelen aurreiritziak mesprezatzen dituen gizon **zentzuduna** ergelen etsai bihurtzen da ezinbestez. Juan Martin Elexpuru / Bego Montorio

Afizio horrek baserritarren konformidade sakona ezagutzera ere eraman nau, laborari **zentzudunaren** filosofia estimatzera. Pello Zabala

Lurralde honetan entzun dudanez, ero **zentzudun** bat omen da Don Kijote nire nagusia. Patxi Ezkiaga

Hain agintari **zentzudunak** hautatzen zituzten gobernuek laudoriorik handienak merezi zituztela. Jose Morales

Gu zoroak omen gara Kristorengatik; zuek, berriz, kristau **zentzudunak**. Elizen arteko biblia

-Baina hi ez haiz **zentzuduna**; atzo ere ikusi hindudan merkatuko teilatuetan; eta hire lagun horiek barrabas hutsak dituk. Karlos Zabala

Argi geratu zen, ordea, nolakoa izaten den gizakia: neurritsua, **zentzuduna** eta azkarra besteri dagozkion arazo guztietan, baina ez norberari doazkionetan. Jose Morales

Neskatxetako bost zentzugabeak ziren eta bost **zentzudunak**...

**Zentzuduna** izan da beti bere adierazpenetan, eta zentzuak agintzen dion moduan mozten ditu kazetarien galderak. Berria - Kirola

Izan zaitezte **zentzudun** eta bizi neurritasunez otoitzari lotzeko. Joan Mari Lekuona

Zoro zaudenean **zentzuduntzat** hartzen zaituzte; zentzatuz gero, berriz, zorotzat... Joan Mari Irigoien

Ez dut sinesten gure artean **zentzudunik** badenik. Jose Morales

Izan gaitezen **zentzudunak**. Karlos Linazasoro

**Zentzudunak** menperatu egiten du haserrea, ohoregarri zaio iraina kontuan ez hartzea. Elizen arteko biblia

**Zentzudun** guztiei ez al zaie ageri edertasun hau? Imanol Unzurrunzaga

**2** (bestelakoez)

Herri zuhur eta **zentzudunari** bere agintariak aukeratzeko ahalbide ematea. Imanol Unzurrunzaga

Askozaz mingotsagoak direlako erle eroak erle **zentzudunak** baino, eta taktika txarra dela okilena. Unai Elorriaga

Herriko gizon apal horren pentsaera **zentzuduna** da, garbia. Patxi Ezkiaga

Hitz **zentzudun** haien ondorioz Markosen bihotza apur bat samurtu zen, antza. Jon Arretxe

Gogoeta **zentzudun** horiek gidatuko dute nire jokabidea. Jon Muñoz

Buruzagi jakintsu, egitasmo zuzen eta **zentzudunenen** asmatzaile. Berria - Kultura

Jokabide **zentzuduna** ei deritzo, antiekonomikoa izan arren. Joxe Austin Arrieta

Cesareo Cifuentesena ez da ergelkeria, baieztapen **zentzuduna** baizik. Josetxo Azkona

Aukera **zentzudun** bat garai hartako egoeraren aurrean. Oskar Arana

Koldo Izagirre batek askoz ere gusturago irakurriko lukeela aurkako kritika **zentzudun** bat, bere lana hobetzen lagun diezaiokeena, ohiko laudorioak baino bere prosaren ederraz. Markos Zapiain

Bakarrik nago ahots alai eta **zentzudun** hauen erdian. Monika Etxebarria

Ehun urte **zentzudun** eta bertutetsu behar dira honelako epai bat barkatzeko. Juan Martin Elexpuru

Nola, beraz, dibortziorako arrazoi **zentzuduna** izan? Andres Urrutia

Gure literatura harrigarri **zentzuduna** da. Koro Navarro

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
>
> **gizon zentzudun** (6); **hain zentzudun** (3); **pertsona zentzudun** (5); **zentzudun orok** (3)
>
> **gizon zentzuduna** (11); **gizon zentzuduna da** (3); **jende zentzuduna** (3); **leial eta zentzuduna** (3); **oso zentzuduna** (4); **zentzuduna da** (16); **zentzuduna izan** (6); **zentzuduna zen** (3)
>
> **gizon zentzudunak** (3); **izan gaitezen zentzudunak** (3)

---

# zentzudunki *adlag* zentzuz.

**Zentzudunki** burutu nahi zuen ekintza hura. Iñaki Zabaleta

---

# zentzuduntasun *iz* zentzuduna izateko nolakotsuna.

Jakin nahiko genuke trantze horretan euskarari eustea aginduko ote liekeen euren **zentzuduntasunak**, edo epailearen hizkuntzan ekingo ote lioketen defentsa zuhurragoaren izenean. Jokin Urain

---

# zentzuez *iz* zentzurik eza.

Erreferendum [...]: proposatutako legeria herri bozketaren mende jartzeko legea, iritzi publikoaren **zentzueza** agerian uzteko. Xabier Olarra

---

# zentzugabe 1 *iz* zentzurik ez duena, zentzurik gabe jokatzen duena. ik **zentzubako.** (pertsonak)

Gizon **zentzugabeengandik** sortua da, hain zuzen, hitz sagaratuak lotzen eta sermoietan erabiltzen ikasi baitute. Esteban Antxustegi

Printze **zentzugabeak** zapalkuntza areagotzen. Elizen arteko biblia

Galaziar **zentzugabeok**, nork liluratu zaituzte? Elizen arteko biblia

Beren goresleen ahotan jartzen zuten beren aintza guztia, birjina **zentzugabeak** olio-saltzaileengan eta morroi alferrak lurrean bezala. Askoren artean

Seme zuhurra aitaren pozbide, seme **zentzugabea** amaren atsekabe. Elizen arteko biblia

Zoritxarrekoak ikuskaririk izan gabe beren burutazioei jarraitzen dieten profeta **zentzugabe** horiek! Elizen arteko biblia

## 2 (bestelakoak)

Arrazoibide hutsaletan galdu dira eta beren adimen **zentzugabea** ilundu egin zaie. Elizen arteko biblia

Inork ez zuen ulertu hitzaldi **zentzugabe** hori, baina guztiei gustatu zitzaien. Jose Morales

Oharrean sinadura **zentzugabe** handi bat zirriborratu eta Hermioneri itzuli zion. Burutazio **zentzugabeetatik** sorturiko erabaki ahulek ezin tinko iraun edozein arriskuren aurrean. Iñaki Mendiguren

Hitzontzikeriarako joera, kalaka **zentzugabea** nahiz esaldi eginez betetako hizkera estereotipatua. Xabier Olarra

Egoera **zentzugabea** zen. Jose Morales

Bortizkeria ekintza **zentzugabea** da. Berria - Harian

Zaletasun **zentzugabe** hori gordean eduki zuen. Josu Zabaleta

Heriotzaren inguruan dirauten sineskeria eta ohitura **zentzugabeak**. Ramon Saizarbitoria

Lotsa **zentzugabeak** uxatzea. Koldo Zuazo

Lege anker, **zentzugabe**, bidegabeek milioika lagun erail dezakete mende bakar batean. Juan Martin Elexpuru / Bego Montorio

Sistema kapitalistaren antolamendu **zentzugabearen** ondorioa. Jose Morales

Giro itogarri eta **zentzugabe** hartan kristal bat zeharkatu nahi duen eulia bezain ezgai sentitzen zen. Aritz Gorrotxategi

Napoleonen armadaren atzera-aurrera **zentzugabe** eta espasmodiko huraxe. Juan Garzia

Mugarririk gabeko jario betiberdin eta betibera, geltokirik gabeko trenbide **zentzugabea**. Joxerra Garzia

Zurrumurrurik **zentzugabeenak** zabaldu dira... norbaitek esan du eskolatik bota egin zaituztetela auto hegalari batean istripua izateagatik. Iñaki Mendiguren

Pasa-hitz zail eta **zentzugabeak** asmatzen. Iñaki Mendiguren

Oinaze barbaroak, gogorkeria oparo bezain **zentzugabeak**, frogatu gabeko edo ustezko delituak direla bide. Juan Martin Elexpuru

Zapaterori «modu **zentzugabean**» agintzea leporatu zion Acebesek. Berria - Euskal Herria

Sukaldariek zergatik jokatzen zuten hain modu ergel eta **zentzugabean**. Jose Morales

## 3 (adizlagunekin)

Hurrengo paragrafoa, narrazioari hasiera eman beharko liokeena, zeharo **zentzugabea** baita, arraro eta absurdoa, prestakuntzarik gabeko irakurleari aurpegira jaurtitzeko. Berria - Kultura

Hurrengo paragrafoa, narrazioari hasiera eman beharko liokeena, zeharo **zentzugabea** baita, arraro eta absurdoa, prestakuntzarik gabeko irakurleari aurpegira jaurtitzeko». Berria - Kultura

Egungo biolentziari, esplikazio historikoak bilatzea ere historikoki **zentzugabea** eta politikoki arriskutsua bilakatuko da. Joxe Azurmendi

Gertakari itxuraz **zentzugabe** hark zeharo lur jota utzi zuen gure protagonista. Jose Morales

Galdeketa itxuraz **zentzugabe** horren bidez lortuko duen emaitza argigarria izango dela. Patxi Zubizarreta

**Zentzugabe** samarra ematen zuen etxeetako mahaiak erabiltzea. Iñaki Mendiguren

## 4 (predikatu gisa)

Nobela **zentzugabea** zen eta inork ez zuen labirintoa aurkitu. Juan Garzia

Kalkulagailuko teklak saka eta saka ari nintzen eta gero eta **zentzugabeagoak** ziren emaitzak. Joxan Elosegi

Ordena hori amaitzen bada, **zentzugabea** dela oinordekotza beste edozein herriren lege zibilari jarraituz erreklamatzea. Iñaki Iñurrieta

Ekitatearen kontra zihoazela, baina eskubideak zapaldu gabe; **zentzugabeak** izan zirela, tiranikoak baino gehiago. Iñaki Iñurrieta

Herrialde edo kausa baten alde hiltzea heroismo-ekintza alfer eta **zentzugabe** bihurtzen da ziur froga daitekeenean herrialde hori patriotarekin batera galduko dela. Iñaki Mendiguren

**Zentzugabea** dirudi, baina hau da mekanismo honen atzean dagoen logika: [...]. Berria - Harian

Esaldiak **zentzugabea** zirudien, baina oparo eta zoriontsu bizi izandako herrira itzultzeko nahia adierazten zuen. Bernardo Atxaga

**Zentzugabea** iruditzen zitzaion, guztiz nahasia, kaos txiki, eragabe eta lohi samar baten antzekoa. Jose Morales

Hau guztia oso **zentzugabea** zen. Iñaki Mendiguren

Ez al zen zientziaren ikuspegitik **zentzugabe** samarra herriaren bidegabekeriak ikusita sartzen zitzaion amorru hura? Josu Zabaleta

**5** (adizlagun gisa)

Izan ere, barrua samindu zioten, eta hark **zentzugabe** hitz egin.Telefonoa eseki eta bibotea laztandu zuen, gogoeta eginez... ez, **zentzugabe** ari zen jokatzen. Elizen arteko biblia

**6** (izen gisa)

Zigorrak **zentzugabea** salatzen du, eta harroari aitaren aginduei obeditzen irakasten dio. Askoren artean

Zertarako dirua **zentzugabearen** eskuan?

**Zentzugabeen** artean, ez galdu denborarik; egon luzaro, ordea, burutsuen artean. Elizen arteko biblia

Jainkoaren erregetza hots eginez eta gurasoak eta seme-alabak elkarrekin baketuz eta **zentzugabeak** zintzoen senera bihurtuz bizi izan zen. Askoren artean

Betetzen den nahia atsegingarri da, **zentzugabearentzat** higuingarri gaiztakeriatik alde egitea. Elizen arteko biblia

Baina zu ez zara jadanik haur hura, ez eta ni ere orduko **zentzugabe** hura. Juan Garzia

**7** *zentzugabeko* ik **zentzugabeko**.

**hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**

**gauza zentzugabe** (3); **zentzugabe bihurtzen** (5); **zentzugabe iritzi** (4); **zentzugabe samarra** (4)

**bezain zentzugabea** (9); **bidegabea eta zentzugabea** (3); **gauza zentzugabea** (4); **guztiz zentzugabea** (6); **hain da zentzugabea** (3); **hain zentzugabea** (9); **izatea zentzugabea** (3); **oso zentzugabea** (5); **seme zentzugabea** (3); **zentzugabea dela esan** (4); **zentzugabea dela salatu** (3); **zentzugabea dirudi** (3); **zentzugabea emango** (3); **zentzugabea ematen** (3); **zentzugabea eta eskasa** (3); **zentzugabea iruditu** (3); **zentzugabea iruditzen** (10); **zentzugabea iruditzen zitzaion** (3); **zentzugabea izan** (13); **zentzugabea izan zen** (4); **zentzugabea izango** (6); **zentzugabea litzateke** (7); **zentzugabea zela** (10); **zentzugabea zen** (19)

**hain zentzugabeak** (3); **zentzugabeak dira** (11); **zentzugabeak direla** (4); **zentzugabeak ziren** (4)

**zentzugabetzat jo** (12); **zentzugabetzat jo zuen** (5)

---

# zentzugabekeria *(orobat **zentzugabekeri** g.er.)* **1** *iz* zentzugabetasun gaitzesgarria; zentzugabeari dagokion egite gaitzesgarria. ik **burugabekeria; zorakeria; erokeria**.

-Hau **zentzugabekeria**! Josu Zabaleta

Hori **zentzugabekeria**! Koro Navarro

Zenbat **zentzugabekeria**! Bernardo Atxaga

**Zentzugabekeria** zen. Koro Navarro

Hori, ordea, (berez nabari den bezala) **zentzugabekeria** da. Piarres Xarriton

Alemaniara etortzea **zentzugabekeria** izan zen. Ramon Etxezarreta

Ikuspuntu juridikotik epaia bidegabekeria eta **zentzugabekeria** izan zela diote. Berria - Mundua

Baionan egotea ere, oro har, inor gurutzatu gabe, eta inorako eta ezertarako gogorik gabe, **zentzugabekeria** zitzaidan. Txillardegi

Hori argudiatzea ez ote da, galdetzen dizut nik, **zentzugabekeria**? Juan Martin Elexpuru / Bego Montorio

Zein errukarria gure garaiotako **zentzugabekeria**! Askoren artean

Zuek, zentzugabeok, noiz arte maiteko duzue **zentzugabekeria**? Elizen arteko biblia

**Zentzugabekeria** burugabearen poza, zentzuduna bide zuzenetik doa. Elizen arteko biblia

Ile urdin edo arrosako zaldia zeukala eta antzeko **zentzugabekeriak** esaten hasten zen bat-batean. Jose Morales

**Zentzugabekeriak** esaten zituzten, txikikeriez harrotzen ziren, irribarre zatarrak egiten zituzten, eskaleek bezala jokatzen zuten. Koro Navarro

**Zentzugabekeriak** besterik ez diozu. Ibon Uribarri

Ez ezazu egin inolako **zentzugabekeriarik**, entzun? Iñaki Mendiguren

Langileek salatu dute kaleratzearen **«zentzugabekeria**» erakusten duela enpresaren azken erabakiak. Berria - Ekonomia

Nola eror liteke zentzuneko gizona halako **zentzugabekeria** batean? Juan Martin Elexpuru / Bego Montorio

Ez dagoela **«zentzugabekeriarik** naturaltasun osoz bizi ezin daitekeenik». Berria - Kultura

Zeren **zentzugabekeriarik** gabe, ez baita amoltsutasunik. Jon Muñoz

**2** (izenondo eta izenlagunekin)

**Zentzugabekeria** handiagorik! Jose Morales

Gauza bitxiak ikusiko dituzu, **zentzugabekeria** handiak pentsatu eta esango. Elizen arteko biblia

Heziketa ezarengatik hilko da, bere **zentzugabekeria** handiarengatik galduko. Elizen arteko biblia

**Zentzugabekeria** hutsa da hori! Joxe Azurmendi

-Hau dena **zentzugabekeria** hutsa da, noski -esan zuen-. Iñaki Mendiguren

Bai, **zentzugabekeria** hutsa holako gerla, beste gerla guziak bezala funtsean. Herria

Gertaturikoa **zentzugabekeria** galanta da. Jose Morales

**Zentzugabekeria** nabarmena izango bailitzateke lege unibertsalak ezarri nahi izatea alor honetan. Juan Martin Elexpuru / Bego Montorio

**Zentzugabekeria** juridikoa da eta judizialki ez du inolako zentzurik. Berria - Euskal Herria

Dagoeneko gure uste okerrak lurruntzen ari dira, dagoeneko herriak muzin egiten die **zentzugabekeria** katolikoei. Juan Martin Elexpuru / Bego Montorio

Zein **zentzugabekeria** ergel eta basatiren izenean zigortuko duzue antzeko krimen batekin? Juan Martin Elexpuru / Bego Montorio

Labirinto kiribilatu hau **zentzugabekeria** sinestezinez betea aurkituko du [...] etorkizunean biziko den jende zoriontsuagoak! Juan Martin Elexpuru

Geroak erranen du holako **zentzugabekeriak** zerbait onik ekar dezakeen ala ez. Janbattitt Dirassar

Erabateko **zentzugabekeria** ematen zuen, baina oraingoan beste era batera hasi nintzen gauzak aztertzen. Koro Navarro

Porroterainoko **zentzugabekeria** litzateke perpaus-egitura fonema edo morfemen arabera soilik eratzea. Itziar Laka

**3** (hitz elkartuetan)

Arinkeria da emakumeei ahul fama egoztea [...] eta **zentzugabekeria** famarik gabeei fama txarra leporatzea, gezurra esateko inolako interesik ez dutenean. Juan Martin Elexpuru

**hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**

**zentzugabekeria bat** (3); **zentzugabekeria da** (15); **zentzugabekeria dela** (6); **zentzugabekeria galanta** (5); **zentzugabekeria handiagorik** (4); **zentzugabekeria hutsa** (14); **zentzugabekeria hutsa da** (6); **zentzugabekeria iruditzen** (3); **zentzugabekeria izan zen** (3); **zentzugabekeria izango** (3); **zentzugabekeria juridikoa** (7); **zentzugabekeria juridikoa da** (3); **zentzugabekeria litzateke** (6); **zentzugabekeria nabarmena** (3); **zentzugabekeria zen** (6); **zer zentzugabekeria** (5)

**zentzugabekeriak esaten** (8); **zentzugabekeriak esaten ari** (3)

**zentzugabekeriarik handienak** (3)

**zentzugabekeriatzat jo** (7); **zentzugabekeriatzat jo zuen** (5)

## zentzugabeki *adlag* zentzurik gabe.

**Zentzugabeki** "Utz ezazu bakean!" oihu egin ziola sugeari. Iñaki Mendiguren

Semeari gurutzearen seinalea egin eta musu labur bat eman ondoren, **zentzugabeki** hitz egiten hasi zen, buruari eraginez: [...]. Jose Morales

Are gehiago izutu zen pentsatu zuenean zein **zentzugabeki** hondatu zen dena, eta krimen ergel, anker eta premiagabe hori egiten bazuen ere, ziur aski, dena hondatuko zela. Jose Morales

Asmoz aldatu zuten **zentzugabeki**, eta irteteko erreguka bidali zituzten berberak iheslari bailiran pertsegitu zituzten. Elizen arteko biblia

Bev Shaw ez da albaitaria, apaiza da, *New Age*-aren lilurakeriez eta sineskeriez betea, Afrikako animalia oinazetuen sufrikario-zama arintzen saiatzen dena, **zentzugabeki**. Oskar Arana

---

## zentzugabeko *(orobat **zentzugabezko**)* **1** *izlag* zentzugabea.

**Zentzugabeko** gauza litzateke pinturaren, antzerkiaren eta zinemaren historiak elkarren gainka lotu eta berdintzea. Josu Zabaleta

Jobek hutsalkeriak botatzen ditu aho betean, **zentzugabeko** hitzak metatuz. Elizen arteko biblia

Asper-asper eginda zegoela hainbeste galdera egin eta, ordainetan, beste hainbeste **zentzugabeko** erantzun jasotzeaz. Josetxo Azkona

Infernua merezi duzu zure **zentzugabeko** harrokeriagatik. Askoren artean

**Zentzugabeko** korapilo horiek metahizkuntzak askatzen ditu. Iñaki Arranz

Homonimia (edo homofonia) azken harirano eramateak **zentzugabeko** ondorioak ekar ditzake. Iñaki Arranz

Espainia osoa, eta Madril batez ere, **zentzugabeko** optimismo-giro batek bizi zuen. Josu Zabaleta

Sari **zentzugabekoak** bakarrik! Herria

Inputatu guztiei delitu bera leporatu arren batzuk kalean eta besteak preso egotea **«zentzugabeko** desproportzioa» dela salatu zuen. Berria - Euskal Herria

Zalantzarik gabe, ondo egina da [...] oinordetza ordezpen **zentzugabeko** horien debekua. Andres Urrutia

Zergatik buda horiek, galdetuko dute irakurtzen dutenek, azalpenik **zentzugabekoenak** asmatuko dituzte. Karlos Zabala

Grebalarien iritziz, gerentea aski ezaguna da, haren adierazpenak eta ekimenak «zeharo bidegabezkoak eta **zentzugabezkoak** izaten baitira». Berria - Ekonomia

**2** (predikatu gisa)

Nire ustez, hau guztiz **zentzugabekoa** da. Elizen arteko biblia

Jabearen jokabidea **«zentzugabekoa**» dela deritzote, enpresa errentagarriak «hondoa jo bailezake». Berria - Ekonomia

Bere barruan apalki aitortu zuen oker egin zuela San Frantziskoren agindua **zentzugabekotzat** jotzean. Askoren artean

**3** (izen gisa)

**Zentzugabeko** horren esperantza alferrikakoa izan duk. Agustin Otsoa

---

## zentzugabetasun *iz* zentzurik eza. ik **zentzugabekeria**.

Autoreari egotziko diote **zentzugabetasun** horren errua. Jose Morales

Ibili nahi ez duen edo hondatzen den xehetasun arrunten baten kontra nekatzen dira gaur egun guzti-guztiak, matxuratuta dagoen kamioi baten kontra [...] misio baten **zentzugabetasunaren** kontra. Josu Zabaleta

Exekuzioa bera, bere ezohikotasun ikaragarriarekin, bere **zentzugabetasun** erogarriarekin, ezbehar arina iruditzen zitzaion, bisitaren unea baino eramangarriagoa. Jose Morales

---

## zentzugabetu, zentzugabe(tu), zentzugabetzen da/du *ad* zentzugabe bihurtu, zerbaiti zentzua kendu.

Batzuetan jendea **zentzugabetu** egiten da bere etxabereekaz -esan zuen Hagridek zuhurtasunez. Iñaki Mendiguren

Gozotasun hark erabat **zentzugabetua** utzi zuen. Askoren artean

Bizidunen azturak nahastu egingo lirateke [...] belatza airearen hatsetan dardaratu eta hanka egingo luke, usoa etortzean, gizakiak **zentzugabetu** eta piztiak zentzudun lirateke. Xabier Amuriza

Neure mintzoa dut azkenik ahalik eta gehiena **zentzugabetu**: zeren zentzugabekeriarik gabe, ez baita amoltsutasunik. Jon Muñoz

Mendebalde modernoko pintura-eskola batek [...] argitzalaz egindako inpresio bisualak adierazteko zenbait metodo asmatu zituen bata bestearen ondoren, harik eta teknika artistikoaren mirarien bidez argazkiaren efektuak sortzeko ahalegin luze hori argazkilaritzaren beraren asmakuntzak **zentzugabetu** zuen arte. Iñaki Mendiguren

Baina amodioak bizitzaren zentzua emana ziolarik, haren gabeziak **zentzugabetu** ez zuen, bada? Patxi Zubizarreta

Azkenaldi hartan Londresko eguneroko bizimodua **zentzugabetuz** joan zitzaion Lucyri, iruditzen baitzitzaion alferrik zegoela bertan, denbora galdu besterik ez zuela egiten. Joxemari Iturralde

---

zentzugabezko ik **zentzugabeko**.

---

## zentzukoi **1** *izond* sentsuala.

Uko egin beharra dago sorkarien inpresio **zentzukoiei** eta multiplizitate ohargaltzailetik bizitzeari. Familia, berriz, gurari **zentzukoi** eta irudimenezkoen antzirudi da, gurariok norberagandik kanpora eramaten dutela. Joan Mari Lekuona

Sartu nintzen; bainu barruan zegoen etzanda, ezpain-ertzetan irriñoa zuela begiratu zidan, eta ahots bare eta **zentzukoiz** esan: [...]. Juan Martin Elexpuru

**2** (adizlagun gisa)

Bat egiten zuten biek are atsegaleago, **zentzukoiago**, bortitzago, handiago, aurrean ikusten nuen haragizko bat-egite hura baino. Matías Múgica

---

## zentzukoitasun *iz* sentsualtasuna.

Zuhur-hitz hau arbuiatu egin ohi dute **zentzukoitasunarekin** eta norberaren izatearekin barkabera direnek. Joan Mari Lekuona

---

## zentzumen *(394 agerraldi, 90 liburu eta 20 artikulutan; orobat **sentzumen** g.er.)* *iz* sentipen mota jakin bat hartako den organo baten bidez hartzeko ahalmena. ik **sentsu**.

Elizaren aginduak, bost **zentzumenak** eta errukizko egintzak azalduz. Patxi Altuna

Adimena, nahimena eta oroimena eta nire **zentzumenak**, aldiz, nire potentziak direla. Jenaro Garate

**Zentzumenei** eragiten dieten gauzen berezko propietateak. Xabier Kintana

Bizitzaren eta heriotzaren artean girotutako ipuin honek bost **zentzumenak** adi izatea eskatzen dio ikusleari. Berria - Kultura

Antzinako **zentzumenetan**, usaimena izango zen ziur asko eboluzioaren eszenara agertzen lehena. Irene Aldasoro

Ikusmena espazioari dagokion **zentzumen** bat da, lehenik eta behin. Josu Zabaleta

Bazekien ukimenak ez zuela gezurrik esaten, gainerako **zentzumenek** uka zezaketena ere hark argitzen eta ateratzen zuela egiaren eguterara. Felipe Juaristi

Udazkenak hiru **zentzumen** ernarazten dituela: ikusmena, entzumena eta usaimena. Joseba Sarrionandia

Arimak gorputzaren **zentzumenen** bitartez antzematen ditu objektu materialen sentipenak; gorpuzgabeenak, ostera, berez antzematen ditu. Imanol Unzurrunzaga

Une batez bere **zentzumenek** bidaltzen zizkioten sentipen atseginez gozatu zen. Alberto Ladron Arana

Gure **zentzumenak** neurketa-tresna dira, eta sentsazioaren bidez jasotzen dute kanpoko mundua guretzat. Xabier Olarra

Gure **zentzumen** guztien artean ikusmena da adimenarekin lotuen dagoena. Josu Zabaleta

Horditurik ditut **zentzumen** guztiak! Juan Martin Elexpuru / Bego Montorio

Lasaikeriak **zentzumenak** lainotzen ditu. Antton Olano

Hain menperatuak zituzten **zentzumen** guztiak, ez baitzuten nahi izaten beren asmo santuari zegokiona baizik ikustea edo entzutea. Askoren artean

Adi-adi entzuten zuen, **zentzumen** guztiak erne musikarako. Xabier Olarra

**Zentzumenen** eta adimenaren bitarte hutsez. Jenaro Garate

Izatez zentzuduna zen eta **zentzumenen** gehiegikeriak hastio zituen. Patxi Zubizarreta

Gaixoei osasun sendoa itzultzen baitzitzaien, elbarrituen gorputz-atal ihartuei **zentzumena** eta bizitasuna. Askoren artean

**Zentzumenen** bidez sorturiko ideiak, horiek dira gu limurtzen eta liluratzen saiatzen diren irudiak. Imanol Unzurrunzaga

Jainkoarengana igotzea beraren aztarna den **zentzumenezko** munduaren bidez. Askoren artean

## 2 (izenondo eta izenlagunekin)

**Zentzumen** primitiboak ondo moldatu dira egoera berrira. Gizonak pentsatzen dakienetik, eta pentsatzen duena esaten eta idazten dakienetik, bere **zentzumen** oihes akastunentzat atxiki ezina den misterio batek ukiturik azaldu da beti. Irene Aldasoro

Hain zuzen ere, **zentzumen** gezurtia zein zen galdetzen hasi zen, ukimena ala ikusmena. Xabier Olarra

Kanpoko **zentzumenak** barnean bildu eta barruko bulkadak menpean hartuz, Jainkoari bakarrik emana bizi zen. Askoren artean

Hiru egunez era horretan iraun zuen estasian, gorputzeko **zentzumen** guztiak galduta. Askoren artean

Zuen seme-alaben **zentzumen** gazteak nekatzea baino lortzen ez duten ergelkeria jainkozaleen lekuan, txerta itzazue gizarte-irizpide eder batzuk. Juan Martin Elexpuru / Bego Montorio

Ezin duzu zundatu gure nolabaiteko **zentzumen** hauez, ez txikiegi dena ez handiegi dena, ez hurbilegi dagoena ez urrunegi dagoena. Josu Zabaleta

## 3 (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

Haren **zentzumen**-sistema, nahiz eta sentiberatasun gutxiegiko eta gehiegiko gorabehera bortitzak izan, egonkorxeago bihurtzen hasi zen. **Zentzumen**-organoek emandako datuak. Xabier Olarra

Erretinatik garuneko ikusmen-alde primariora igortzen ziren **"zentzumen**-datu" edo "inpresio"ekin parekatzen zen ikusmen-pertzepzioa. Xabier Olarra

Oso ongi gozatutako musika-tresna baten antzekoa zela, eta aski zirela **zentzumen**-estimulu zenbait berari oreka galarazteko. Xabier Olarra

Ohiturak horrelako **zentzumen**-galerak dakartza: askotan ikusten ditugun gauza eta pertsonen edertasuna apreziatzeko ahalmena murrizten du. Pako Aristi

Ager daitezke, oso nabarmen, **zentzumen**-erantzun anormalak (eta askotan "paradoxikoak"): sentsazio batzuk nabarmen eta are jasanezin zaizkie. Xabier Olarra

Ez zuen batere zailtasunik **zentzumen**-mugimenaren mailan. Xabier Olarra

## 4 (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa)

Giza **zentzumenen** gainetiko esperientziak izaten zituen, inori azaltzen ez zizkionak. Askoren artean

**hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**

**zentzumen bidezko** (3); **zentzumen guztiak erne** (3); **zentzumen guztiekin** (5)

**barrengo zentzumenak** (3); **berriztapenak eta zentzumenak** (4); **bost zentzumenak** (10); **gure zentzumenak** (4); **nire zentzumenak** (6)

**gure zentzumenei** (3)

**beste zentzumenek** (3); **zentzumenek ematen diguten** (3)

**nire zentzumenen** (4); **zentzumenen artean** (3); **zentzumenen bidez** (6); **zentzumenen bidez jasotzen** (3); **zentzumenen bitartez** (4); **zentzumenen eta adimenaren** (3); **zentzumenen hutsegite** (3)

---

# zentzun 1 *iz* zentzua.

Nahikoa da, lagunak, ez ditzagun burugabekeria hauek gehiago sinets: bere onetik ateratzen dute **zentzun** apur bat duen edonor. Juan Martin Elexpuru / Bego Montorio

**Zentzunak** erakusten du hau. Juan Martin Elexpuru

**Zentzunak** edonori diotso ordurik beroenetan etxean geratzeko eta arropa egokia eramateko. Berria - Euskal Herria

**Zentzuna** etorri zitzaiola ematen une batean. Juan Martin Elexpuru

**Zentzuna** galdu duen jendea da, ezer ulertzeko gauza ez dena. Elizen arteko biblia

Erlojua kendu didalako denboraren **zentzuna** galdua dudala uste duen gizajo berak. Koldo Izagirre

Mariano Raxoi presidenteak **zentzuna** eskatu dio Espainiako Gobernuko presidenteari. Berria - Harian

Jendeak badu **zentzunik**. Berria - Euskal Herria

Hamabosgarren tronkoan zihoala, Jaunarena lurrera erori zen **zentzunik** gabe. Pako Aristi

**Zentzunaren** adinera iristen denean, aitaren etxetik aldendu behar du neskak; heziketa publikoa jaso ondoren, hamabost urte betetakoan, nahi duena izateko aukera eman behar zaio. Juan Martin Elexpuru / Bego Montorio

Zenbaitetan aise gainditzen ditu **zentzunaren** mugak herri baten jokaerak. Markos Zapiain

Joan Paulo I.a hil zenean, Eliza **zentzunean** sartuko zuen norbait nahi zuten, eta kosta zitzaien, baina Joan Paulo II.a aukeratu zuten. Berria - Harian

**Zentzuneko** pertsona orok onartzen duelako jardun beharretik sortutako ohitura dela. Juan Martin Elexpuru

Nola eror liteke **zentzuneko** gizona halako zentzugabekeria batean? Juan Martin Elexpuru / Bego Montorio

**Zentzunez** pentsatzen duen inork pentsatu al du sekula horrelako gauzarik? Juan Martin Elexpuru / Bego Montorio

Gizakiak **zentzunez** jokatuko balu, [...]. Joan Mari Lekuona

Epaia emateko aski da **zentzun** arrunt eta xaloa, askoz ere fidagarriagoa izaten dena ohiko epaile errudun-bilatzailearen jakinduria baino. Juan Martin Elexpuru

Utziozu, beraz, berritasunak beldurturik, nire ikasbidea zure gogotik uxatzeari, aitzitik, ordea, azter ezazu **zentzun** zorrotzagoz eta, egiazko iruditzen bazaizu, atxiki zakizkio, eta gezurrezkoa bada, jantz armak aurka. Xabier Amuriza

## 2 (hitz elkartuetan)

**Zentzun**-adinera heldu nintzenetik nigan daude burutazio hauek, eta tiranoen despotismo nardagarriak mendeetan eta mendeetan hankapean erabili dituen berberak dira, bestalde. Juan Martin Elexpuru / Bego Montorio

## 3 zentzumena.

**Zentzun** guztien zoramenera, muxuz muxu, larruz-larru. Joxerra Garzia

Ez dakit zergatik, agian norberaren ondasunak ikutzen dituztenean denoi pizten zaigun seigarren **zentzunagatik**, kontua da zeloak sentitzen hasi nintzela. Juan Martin Elexpuru

**4** ***zentzun on*** zentzu ona.

Eztabaidan ari garenean, geure egiatxoa kosta ahala kosta gainerakoenen gainetik ipintzeko, logikari, **zentzun** onari eta gizalegeari egiten dizkiogun amarruen, martingalen, tranpen zerrendatxoa. Joxerra Garzia

---

# zentzunbako *iz* zentzugabea.

**Zentzunbakoa** izango litzatekek horretarako berpiztu izana. Juan Luis Zabala

---

# zentzundun *izond* zentzuduna.

Euren buruzagi Heraklito abiatu zen lehenen teman, hizkuntza iluna bide, burugabeen artean ospetsuago, egia bila diharduten greko **zentzundunen** artean baino. Xabier Amuriza

---

# zentzuntasun *iz* zentzua.

Tomás y Valiente-k dekalogo honetan laburbiltzen ditu Beccariak aldarrikatzen duen zuzenbide penalaren ezaugarriak: 1. **Zentzuntasuna** , 2. Zuzenbide penalaren legaltasuna, [...]. Juan Martin Elexpuru

---

zentzuratu ik **zentsuratu**.

---

# zentzutasun **1** *iz* zentzua.

Ene seme, gorde **zentzutasuna** eta oharmena, ez itzazu ken zeure aurretik. Elizen arteko biblia

Beti bezala **zentzutasuna** atera da garaile, kostata izan bada ere. Migel Angel Mintegi

Beldur naiz nire **zentzutasuna** , berez ere oso handia ez dena, bizkorregi ez ote zaidan agortzen ari. Josu Zabaleta

**Zentzutasunik** ez daukan proiektua egin nahi dutelako. Berria - Euskal Herria

Nazka-nazka eginda nagok **zentzutasunaz** . Antton Olano

Antzinatxo dago adinean sarturik, zorroztasunez hezi zuten barne-bizitzarako, eta bakartasunak ematen duen **zentzutasuna** du ezaugarri. Jose Morales

Aita santua aparteko **zentzutasunez** hornitua zegoen, eta ontzat eman zituen santuaren asmoak, behar den moduan. Askoren artean

Bertaratzen nintzenean **zentzutasunezko** geruza lodi bat zeharkatzen ari nintzela iruditzen zitzaidan. Monika Etxebarria

Nik estatubatuarren **zentzutasunean** sinesten dut. Berria - Mundua

**2** (izenlagunekin)

**Zentzutasun** nazionalaren alderdia da. Berria - Mundua

**Zentzutasun** osoz hitz egin zidan. Iñaki Mendiguren

Iritzi publikoak Kadimari egin dion ongietorri beroa [...] ez da Sharonen buruzagitza karismatikoan bakarrik oinarritzen; nagusiki, sortu duen **zentzutasun** politikoan oinarritzen da. Berria - Mundua

---

zentzutu ik **zentzatu**.

---

# zentzuzko **1** *izlag* zentzua duena, zentzuaren araberakoa.

Kontsulordea **zentzuzko** gizona zen, eta Bernabe eta Sauluri deitu zien, Jainkoaren mezua entzun nahirik. Elizen arteko biblia

**Zentzuzko** gizon serio batek ez ditu zilegi horrelako begitazio eroak! Josu Zabaleta

**Zentzuzko** pertsonak balira bezala hitz egiten die. Josu Zabaleta

Sedanoren jarduna askotan funtsik gabeko espekulazio hutsa iruditu arren [...] aitortu beharra dut **zentzuzko** gauzak esan ohi dituela batzuetan. Ramon Saizarbitoria

Orain adiskide gutxi zituzten eta **zentzuzko** orduetan elkartzen ziren. Fernando Rey

**Zentzuzko** kritikak ziren. Berria - Kirola

**Zentzuzko** jokabidetik okertzen denak hildakoen artean amaituko du. Elizen arteko biblia

**Zentzuzko** erabakia, bai horixe, gure semea gaizkile baten kargu uztea. Anjel Lertxundi

Mesprezatu egingo baititu zure **zentzuzko** arrazoiak. Elizen arteko biblia

Frantziar eraberritzaileen lanaren arrakasta haien **zentzuzko** neurritasunari zor izan zitzaiola. Iñaki Mendiguren

Uraren **zentzuzko** erabilera. Berria - Euskal Herria

**Zentzuzko** kontsumoa sustatzeko ekintza. Berria - Euskal Herria

**Zentzuzko** pozez beteriko txoko bat zen, aska eroso bat, non ama, aita eta alaba gizentzen baitziren lasaiki. Karlos Zabala

Beste espekulazio interesgarri bat ere egiten da, **zentzuzko** uste honetatik abiatuta: [...]. Irene Aldasoro

Ezin ote dugu, gu biok, honi buruz **zentzuzko** era batean hitz egin? Oskar Arana

Industria plana **«zentzuzko** epe batean» hitzartu nahi duela azaldu zuen. Berria - Ekonomia

Esperimentuek egiaztatu duten **zentzuzko** beste ideia bat: forma pertzibitzeko denbora behar da. Josu Zabaleta

**Zentzuzko** eta arrazoizko bideetatik Euskal Herriaren eta euskal herritarren eskubideetan oinarritutako bakea lortzea posible da. Berria - Harian

Udalak **«zentzuzko** » eta «inpaktu gutxiagoko» konponbide bat bilatu nahi izan dio Realaren eskaerari. Berria - Kirola

**2** (dagokion izenaren eskuinean)

Pertsona **zentzuzko** eta errukitsu balitz bezala. Askoren artean

Ezinezko bazaie, aitor biezazkiete beste apaiz **zentzuzko** eta katolikoei. Askoren artean

Apaiza gizon **zentzuzkoa** baitzen, eta zuhurra. Karlos Zabala

Oso gizon **zentzuzkoa** eta atsegina. Jose Morales

Horixe zen atera zitekeen ondorio **zentzuzko** bakarra. Oskar Arana

Auzi garrantzitsu bati heltzeko, hari ebazpen **zentzuzko** bat aurkitzeko aukera izateko, material egokia behar du eskura biologoak. Juan Garzia

Ekologistek nahiz nekazarien elkarteek alegazio **zentzuzko** eta mamitsu dezente egin dituzte. Berria - Euskal Herria

Ahoskera **zentzuzko** eta lasaian esan dio gizonak: [...]. Monika Etxebarria

Herritar eraikitzaile, konprometitu eta **zentzuzko** gisa, gaur egungo munduan matematikak duen funtzioa identifikatu eta ulertzeko. Berria - Harian

Zuhurtasunez jokatzea, eta zorpetze eta epe «**zentzuzkoak**» ezartzea. Berria - Ekonomia
Diruaren korritu **zentzuzkoak** enpresa jarduera guztiak bultzatzen ditu. Andres Urrutia
Oso xedapen **zentzuzkoa** asmatuko likek, hain **zentzuzkoa**, non makina bat lagunek gorriak ikusiko bailituzkete horren eraginez... Jose Morales
Bestela ez da posible irizpide **zentzuzkoei** heltzea. Edorta Agirre
Eguna bezain argia, guztiz harmonikoa, bakuntasunik **zentzuzkoenaz** jantzia. Jose Morales
Halako bihotz zirraratxo bat, guztiz arina, eta bat-batean, pentsamendu lotura **zentzuzkorik** batere gabe. Josu Zabaleta
Baina dena supituki gertatu da, eta ez zait ezer **zentzuzkorik** otu. Urtzi Urrutikoetxea

**3** (predikatu gisa)

Bidezkoa eta **zentzuzkoa** da nazio bateko hiztun guztiek entzun edo irakurri beharreko jardunetan eredu estandarra baliatzea. Koldo Zuazo
**Zentzuzkoa** omen da hala pentsatzea. Anjel Lertxundi
Ez zen **zentzuzkoa** umeari horrela lan eginaraztea, arratsean, haurrek lotan egon behar duten garaian. Karlos Zabala
Aholkua eskatuko balu, ordea, bidal bezate **zentzuzko** eta jainkozale diren norbaitzuengana. Askoren artean
Aski **zentzuzkoa** zen haren solasa eta hagitz atsegingarria harekiko tratua. Juan Garzia
Oso xedapen **zentzuzkoa** asmatuko likek, hain **zentzuzkoa**, non makina bat lagunek gorriak ikusiko bailituzkete horren eraginez. Jose Morales
Kopurua handia baina, **zentzuzkoa**? Berria - Harian
Zuzena eta **zentzuzkoa** iruditzen zait erabakia. Koldo Zuazo
-Egia esan, Roberto, ez diat inoiz halakorik pentsatu, baina **zentzuzkoa** ematen dik. Harkaitz Cano
Guk **zentzuzkoa** ikusten dugu udalek finantzaketa handiagoa nahi izatea. Berria - Euskal Herria
Eta, orain, gustura entzungo nuke nola moldatzen zareten ordu betean Kant **zentzuzko** egiten. Joxerra Garzia
-Severus, izan zaitez **zentzuzkoa**... Iñaki Mendiguren
**Zentzuzkoena** eskaileretatik beheiti zaluputik ateratzea zen. Aingeru Epaltza

**4** ***zentzuzkoxe***

**Zentzuzkoxeago** dirudite kontakizun mitikoek, biokimikari eta biologo molekularren solasek baino. Juan Garzia

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
>
> **zentzuzko erabakia** (3); **zentzuzko erabilera** (3); **zentzuzko erantzun bat** (3); **zentzuzko eta arrazoizko** (6); **zentzuzko gauza** (5); **zentzuzko kontsumoa** (3)
>
> **erabat zentzuzkoa** (3); **oso zentzuzkoa** (8); **zentzuzkoa da** (25); **zentzuzkoa dela** (8); **zentzuzkoa den** (3); **zentzuzkoa dirudi** (6); **zentzuzkoa iruditu** (5); **zentzuzkoa iruditzen** (9); **zentzuzkoa iruditzen zait** (4); **zentzuzkoa izan** (7); **zentzuzkoa izango** (4); **zentzuzkoa zela** (3); **zentzuzkoa zen** (12); **zuzena eta zentzuzkoa** (3)
>
> **zentzuzkoagoa da** (6)
>
> **zentzuzkoak ziren** (3)
>
> **ezer zentzuzkorik** (4)
>
> **zentzuzkotzat jo** (3)

---

## zeoze ik **zeozer**.

---

## **zeozelan** *adlag* nolabait.

Egoera tristea duk baina **zeozelan** onuragarria, gure berezko bakardade eta babes gabezia egiaztatzen duelako. Patziku Perurena

---

## **zeozer** *(orobat **zeoze** g.er. eta **zerozer** g.er.)* **1** *adlag* zer edo zer, zerbait.

**Zeozer** erabaki behar dut, baina zer? Jon Arretxe
-**Zeozer** egin beharko -erantzun dut, bigarren gelan sartzearekin batera. Xabier Mendiguren Elizegi
-**Zeozer** aditu dugu, bai. Bernardo Atxaga
**Zeozer** esango zizun honezkero. Joxemari Urteaga
**Zeozer** bazkaldu isilik eta siesta luzea egiten zuen ohean. Jon Arretxe
**Zeozer** bururatuko zaik aurrean duanean. Fernando Morillo
Bai... **zeozer** akordatzen nauk. Xabier Etxabe
-Jo tragotxo bat, jan **zeozer** -aholkatu nion. Edorta Jimenez
Bagenekien **zeozer** gertatuko zela eta urduri geunden. Joseba Sarrionandia
**Zeozer** behar baduzu ni bere alaba Arantxa naiz. Joseba Sarrionandia
Pentsatu al duzu **zeozer**? Xabier Mendiguren Elizegi
Lohadarrak lo bigunean eta gorputz astuna sentikortasun barik luze datzanean, badago **zeozer** guregan, denbora hartan hamaika eratara diharduena eta pozaren mugida guztiak eta bihotzaren ardura hutsalak beragan hartzen dituena. Xabier Amuriza
Kanpoan ibilten zanean, **zeozer** beti ekarten eban etxera. Xabier Amuriza
Egun 1.100.000 familitara heltzen da Zero Gosea laguntza: «Bada **zeozer**». Berria - Mundua
Idatzitako edozer, idatzi gabeko beste **zeozeren** zirriborroa besterik ez da. Patziku Perurena
Eskola-maleta hartu eta **zeozeren** bila hasi zen. Joxemari Urteaga

**2** (izenondo baten ezkerrean)

Baina bada **zeozer** irreala giroan. Joseba Sarrionandia
**Zeozer** garrantzitsua zan ahaztu dozun hori? Juan Luis Zabala
-Eta alde egitean, Camillo, ikusi al zenuen **zeozer** arraroa idatzita? Koldo Biguri
Gauerdi aurretik hasten bada, **zeozer** arraroa dabil inguruan, sorginak edo. Pello Zabala
Zeren eskuar daukaguna, aurretik **zeozer** eztiagorik ezagutu ez badugu, lehenengotan laket bai-tzaigu eta nagusitzen bide baita. Xabier Amuriza

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
>
> **antzeko zeozer** (6); **beste zeozer** (14); **horrelako zeozer** (3); **zeozer arraroa** (4); **zeozer atera** (3); **zeozer behar** (6); **zeozer egin** (12); **zeozer egin beharko** (4); **zeozer egiten** (3); **zeozer entzun** (3); **zeozer esan** (7); **zeozer esango** (3); **zeozer esateko** (6); **zeozer gehiago** (4); **zeozer gertatu** (6); **zeozer gertatzen** (5); **zeozer izango** (4); **zeozer jakingo** (3); **zeozer jan** (3); **zeozer nahi** (3); **zeozer zen** (3)
>
> **zeozeren bila** (4)

---

## **zeozertxo** *adlag adkor* zeozer.

Horixe egingo dok hik, **zeozertxo**!" **Zeozertxo** ekarri dut", dio, eta botila bat ardo ateratzen du. Unai Iturriaga

---

**zepa** **1** *iz* meen edo kidekoen erreketaren hondakin gotorra. ik **sarra**.

Zaborra erraustu eta gero geratzen den eskoria edo **zepa** eta errautsak zabortegi berezi batera eraman behar dira. Berria - Euskal Herria

Errauste planta batean sartzen diren 100 kilo hondakinetatik 25 kilo **zepa** eta 4 kilo errauts geratzen da. Berria - Euskal Herria

Kontuan hartzen badugu **zepa** aprobetxagarria dela, 100 metro kubikotik soilik zabortegira metro kubiko bat errauts eramango litzateke. Berria - Euskal Herria

Pitzadura horiek, esan zuen Sasik, lija latzarekin ondo-ondo arraspatu eta, **zepa** eta gatzarekin pasta bat eginda primeran tapatzen dituk. Pablo Sastre

Harri trinkoa, **zeparik** gabea, ehunka gizoni ehunka urtez lan emateko modukoa. Juan Garzia

**2** irud/hed

Hiriburukoa izatea aski ez zuela, gizen suminkor bat zen lehendakariordea, eta haserre koipetsuzko **zepez** trabatzen zitzaion ahotsa. Joxan Elosegi

**3** biologian, ezaugarri berak dituzten eta kolonia edo espezieko berekoak iren mikroorganismoaren multzoa.

Gaitzak jotako ahate bat aurkitu zuten astelehenean hango padura batzuetan, hilik, eta ikerketek argi laga zuten atzo hegazti gripea zuela, H5 **zepak** kutsatuta zegoen. Berria - Gaiak

---

**zepatu** *izond* gogortua.

Txima luzeak dituzte eta maiz sakastuak, laztuak, **zepatuak**, nahasiak. Gotzon Garate

---

**zepel** *izond* txepela.

Ireki behar dugun atea horrelakoa duk **zepela**, esaten zion Sergiok Abduli, honek bere begi zuri eta handiekin galdera egiten zionean. Harkaitz Cano

---

**zepelin** *(orobat **zeppelin**)* **1** *iz* aireontzi handia, luzarana eta zurruna, von Zeppelin alemaniar kondeak asmatua.

Hindenburg **zeppelinaren** irudi nahastezina ikusten zen egunkariaren azalean. Anjel Lertxundi

Frederichsaffen pasatzen dugu, famatua, **zeppelin**-ak hor baitzuen bere egongia. Marzel Etxehandi

Marrazkien arabera, **zepelin** baten antzeko ontzi helikoidala zen, aurrealdean begi itxurako zerbait erraldoia zuena. Josu Landa

«Tel Aviverako bidean!» zioen **zepelin** txiki batek hegan eman zuen partida osoan. Berria - Kirola

Bibote exkaxa zuen, hankak hezur eta azal, sabela **zepelin** bat baino handiagoa, albondiga bat ematen zuen bi txotxen gainean. Karlos Zabala

**2** *adkor* mozkorraldia.

Ostiral gaua larunbatean lanik egiten ez zutenen gaua zen, eta horregatik lehenago hasten ziren mozkorrak **zepelina** harrapatzen. Fernando Rey

Ahal zuen modurik onenean, garbi esan zidan, gure Gorkak Burgosen **zepelin** ederrak harrapatzen zituela. Gotzon Garate

Poloniarren etsai amorratuak ziren prusiarren artean bizitza salbu ikusi zuenean, Rufinek **zepelin** itzela harrapatu zuen, ihesa ospatzeko edo. J.M. Olaizola "Txiliku"

"Ondoezak! [...] **Zepelina** galanta!", pentsatu du auzoak, baina ez du ezer esan. Anjel Lertxundi

---

**zepillatu**, zepilla, zepillatzen du *ad* eskuilatu, eskuila pasa.

Alboan, Lubis zaldia **zepillatzen** ari zen. Bernardo Atxaga

Zertarako behar nuke nik? Zaldiak noiz gobernatu eta noiz **zepillatu** behar ditudan gogoratzeko? Bernardo Atxaga

---

zepillo ik **zepillu**.

---

**zepillu** *(orobat **zepillo**, **zepilo** eta **zipilu**)* *iz* eskuila.

Betuna eta **zepillua** erosi eta trenetan jendearen oinetakoak garbitzen hasi zen. Gotzon Garate

Ataritik [...] Juan ikusiko zuten inguruko belar sailean zaldi bati **zepillua** pasatzen. Bernardo Atxaga

Ziegan, edalontzia eta hortzak garbitzeko **zepilloa** hartu zituen. Jokin Urain

Hortzetako **zepiloa** eta bizarra kentzeko makina nezeserrean bildu. Mikel Hernandez Abaitua

Gizon garaia, mehea, **zepilluaren** moduko bibote sarri tente zuriduna, beti bizikletan joaten zena zira beltz bat eramanez zirimolaka. Fernando Rey

Ilerako **zepilloa** eta ile mataza biltzeko zinta elastiko gorri iluna. Paddy Rekalde

---

zepilo ik **zepillu**.

---

**zepo** **1** *iz* piztiak-eta harrapatzeko artea edo lakirioa, eskuarki burdinazkoa. ik **tranpa**.

Kartzelariak barrueneko gelan sartu zituen eta oinak **zepoan** lotu zizkien. Elizen arteko biblia

**Zepoan** harrapatu azeri kasko-gabea bailitzan. Itxaro Borda

Txoriak, esate baterako, **zepoan** hartzen nituen. Joan Mari Irigoien

Fructuoso otsoentzako edo basurdeentzako **zepo** batean eroria zen; hura zen urrutitik ikusten genuen burdinazko tramankulua. Inazio Mujika Iraola

Izuaren erasotik ihes egin dezana zuloan jausiko da; zulotik ihes egin dezana **zepoan** harrapatua gelditukо. Elizen arteko biblia

Gudari bat ari zitzaion orkatila **zepotik** libratu nahian. Inazio Mujika Iraola

Napoleon izigarriko jeneral jeinutsua zen leku zabaletan, zelaietan, etsaiaren garaitzeko [...] baina Espainian **zepo** batean bezala zangotik atzemana izan zen. Angel Aintziburu / Jean Baptiste Etxarren

Ez dago itsukeriarik eta harrokeriarik **zepo** eta kate artean, edo garrote azpian, edo uztarripean, edo burdinazko kaiola batean. Juan Martin Elexpuru

**2** irud/hed

Hark sartu zuen muturra beste batentzat prestatutako **zepoan**. Joxemari Urteaga

Horra non, 1811ko egun batez, Reille jeneral frantsesak eta Mendiry, frantses poliziaren buruzagiak, erabakitzen duten behar direla baliatu Aguirre, Pellou eta Iriso-z, bai eta [...] Navarro diputatuaz, Mina **zepo** batetara biltzeko Leoz herrian eta han preso altxatzeko. Angel Aintziburu / Jean Baptiste Etxarren

Lasaitzen zara, amore ematen duzu, **zepoa** klask, itxi egiten da, zu ohartu ere egin gabe, eta garaile ateratzen da sedukzioaren amarrua. Fernando Rey
66.000 milioi dolar eskaini zituen Comcastek, baina Mickey Mouse sagutxoa ikurtzat duen taldeak ez du **zepoaren** erdian zegoen gazta irentsi. Berria - Ekonomia
Beste guziek lezioa ontsaxko ikasi zuten, ez **zepo** berean erortzeko. Elena Touyarou
Autobidean gentozelarik ez digute deus erran, **zepoan** sartzera utzi gaituzte eta, behin hemen, ezin dugu ez aitzinera, ez gibelera egin. Berria - Euskal Herria
Haur soberakinetan semeak apez eta alabak serora sarraraziz jalgiko ziren **zepotik**. Itxaro Borda
Bakartasunaren **zepoan** ez itotzeko. Filipe Bidart
Ez diat berriz erori nahi amodioaren **zepoan**. Fernando Rey
Ez dugu probokazioaren **zepoan** erori behar. Berria - Mundua
Bainan ez ginuke mendekioaren **zepoan** sartu behar. Herria
Begira gaitzazue Euroaren **zepotik**. Herria
Amerikarrak Bataan-en garaituak, alemanak Crimean nagusi, eta, hitz batean, **zepoa** tenkatua, krausk egiteko prest-prest. Juan Garzia

**3** (hitz elkartuetan)
Biharamun goizean, Paxhurrek askatu egin zuen Jeremias egur-**zepotik**. Elizen arteko biblia

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
> **zepo batean** (7)
> **zepoan erori** (5); **zepoan harrapatua** (3); **zepoan sartu** (3)

---

**zepotxo** *iz* zepo txikia.
Lurmen gunean **zepotxoa** artalearekin ipintzen duen umearen moduan, Joxe Austinen erantzunaren zain geratu naiz. Jokin Urain

---

zeppelin ik **zepelin**.

---

**zer** **1** (ikus beheko konbinatorian zer determinatzaile galdetzailearen agerraldi maizkoenak)
**2** (harridura-markarekin, harridura edo miresmena adierazteko)
-**Zer** diozu! Jose Morales
Ai!, **zer** gaua!, **zer** gaua hura! Josu Zabaleta
Bai, **zer** pena enetzat! Janbattitt Dirassar
**Zer** erokeria! **Zer** zoragarria!, hots egin nuen. Bernardo Atxaga
**Zer** pena! Janbattitt Dirassar
**Zer** zen hura! Migel Angel Mintegi
**Zer** txotxola!, zeren horrek ez ninduen idazle bihurtu. Ana Urkiza
-Ene, **zer**-nolako biraoak botatzen dituzun! Jose Morales
**Zer** lotsa eta desohorea neure gaztaro gaitzesgarriagatik! Elizen arteko biblia
**Zer** leku polita den hau! Bernardo Atxaga
Ene, **zer** makina motela! Jon Muñoz
**Zer** ez dugu asmatzen gizonok, zuriezina zuritzeko eta gure kontzientziaren nolanahi garbitzeko...! Joan Mari Irigoien
Amodio bero batek **zer** ez du gainditzen! Janbattitt Dirassar
**Zer** ez lukete emango kazetariek edo beste alderdiek eskuratzeagatik! Migel Angel Mintegi
Harrotasuna, bihotzeko handitasuna... **zer** ez duen adierazten haren aurpegiak! Jose Morales
**Zer** ez dudan nik Gotaineko etxe hartan ikasi! Txillardegi
**Zer** ixtorioak lituzketen guri kondatzeko! Angel Aintziburu / Jean Baptiste Etxarren
Begira **zer** nolako antzara lerdena! Anjel Lertxundi
Zeru goien edertasuna, ortziaren gardentasuna eta zeru-sabaiaren itxura, **zer** ikuskizun distiratsua! Elizen arteko biblia
Baheki **zer** astokeriak erraiten dituzten! Janbattitt Dirassar
**Zer** urruti dagoen hango duna! Jon Muñoz
**Zer** garizuma luzea behar dudan jasan! Janbattitt Dirassar
Zuek ez dakizue **zer** zen hura! Iñigo Aranbarri

**3** *(harridura-markarekin, bestelakoak adierazteko; ik* **zeregin; zeresan; zerikusi**.
Eta gero **zer** eta bera kikildu! Antton Olano
Baina **zer** arraio, Mikel! Unai Iturriaga
Eta, **zer** arraio!, ongi zihoakigun. Juan Kruz Igerabide
Eta gainera, **zer** ostia! Pako Aristi
Baina **zer** gero! Pako Aristi
**Zer** egingo zaio ba! Andoni Egaña
**Zer** diozu, Um Hamida! Patxi Zubizarreta
**Zer** gertatzen da, ba, Juan! Bernardo Atxaga
**zer** egiten duzu zuk hemen! Koldo Izagirre
-Zuk **zer** dakizu! -esan zidan erdeinuzko keinu bat eginez. Jon Muñoz
-**Zer** kausa eta **zer** kausaondo...! Koldo Izagirre
Aspaldiko! **Zer** moduz zabiltza! Fernando Morillo
-Eta hik **zer** arraio dakik! Aingeru Epaltza
**Zer** dakita nik! Aingeru Epaltza
Baina nik dakita xuxen **zer** zenuen igurikatzen! Janbattitt Dirassar
**Zer** zabiltza zu baldar horiekin! Bernardo Atxaga
**-Zer** aideko eta **zer** aidekondo! txura badaukak, **zer** demontre! Edorta Jimenez
-**Zer** arraio nahi du nik egitea testu horrekin! Jon Muñoz
**Zer** izango da ba! Antton Olano
**Zer** alda dezake, ordea, neure ezin-susmatua, neure ezer-ezin-jakina frogatzeak! Joxe Austin Arrieta
-**Zer** egingo diogu, emakumea! Jose Morales

**-Zer** ezin duala! Hi ez haiz ergela eta biok zakiagu nola mugitzen den mundua. Fernando Morillo
**Zer** alda dezake horrek! Joxe Austin Arrieta
Ea, bada, **zer** moduzkoa atera zaidan! Anjel Lertxundi
Eta zeinek daki ahalmen gaiztoek **zer** egin dezaketen! Koro Navarro
Goslartarren etxean, izan ere, zuk esango didazu **zer** atarramentu duten! Josu Zabaleta

## **4** (aditzen era burutu artikuludunaren ezkerrean)

**Zer** jana izateak ez du esan nahi ondo elikatzen garenik Handik urte gutxira, garai batean Austriarren inperioko bazter guztietara heltzen zen **zer** jana eta **zer** edana gordetzeko eraikitako bihitegiok. belauniko jarri eta eskerrak emango lizkioke, gainera, Jainkoari, **zer saldua** izan duelako. Berria - Gaiak
-Nik badut **zer** kontatua horretaz. Koldo Izagirre
Zalantzarik gabe edukiko zuten haiek ere **zer** kontatua. Jon Alonso
Egia bada erran zaharra erran zuhurra delakoa, eman behar liguke horrek **zer** pentsatua. Joxerra Garzia
-Agenden desagerpenak **zer** pentsatua eman dik noski -nik. Aingeru Epaltza
Badugu **zer** pentsatua erregistroen gainean prentsa heldua nahi badugu. Iñigo Aranbarri
Bada, beraz, etorkizunari begira **zer** hausnartua eta zer aldatua. Koldo Zuazo
Dena dela, izan zen **zer gozatua** Etxarri Aranatzen. Berria - Euskal Herria
Bazuten **zer** ekarria: zerbait eurena, guztiz barrukoa. Ana Urkiza
Heldu den urtean ikusiko dugu kanpaina horrek **zer** emana izanen duen, eta horretan oinarrituz ikusiko dugu zein den Frantziaren erantzuna. Berria - Euskal Herria
Hik **zer** sartua daukak gure solasean! Koldo Izagirre
Badugu, beraz, **zer egina** eta zer hobetua. ik zeregin. Koldo Zuazo

## • **5** *iz* gauza, izakia.

Badira beste pertsona batzuk gauza horiek egiteko: animalien ongizaterako **zer** hori, gizarteratzeko **zer** hori, are Byronen **zer** hori egiteko ere. Oskar Arana
Konturatu zen lehen ez zela hain antiklerikala, errespetuzko **zer** bat gordetzen ziola elizari. Karlos Linazasoro
Nortasunik gabeko **zer** bat nintzen, ondo da, hainbat urtetan bere benetako gurasoen berririk izan ez zuen sustrairik gabeko landare bat. Anjel Lertxundi
-Ez, ez dut esango... derrigorrez zenik... baina bazuen **zer** bitxi bat... parte onekoa ez zen **zer** bat. Irene Aldasoro
Garondoan, **zer** baten ukitu hotzak geldiarazi ninduen. Aingeru Epaltza
Niri ez baina airean zegoen **zer** bati hitz egiten ziola ematen zuen, heriotzaren itzala sumatuz bezala. Xabier Mendiguren Elizegi
Honela, hutsetik ezer kreatzerik ez dagoela ikusitakoan, orduan bila gabiltzana zuzenago hautemango dugu, **zer** bakoitza zertatik kreatua izan daitekeen eta **zer** bakoitza nola gertatzen den jainkoen eraginik gabe. Xabier Amuriza
**Zer** bakoitza bere lekuan jartzeak, jartzen jakiteak, ematen duen segurantza. Iñaki Iñurrieta
Medikuarengana joango naiz, behingoz urdaileko **zer** hau begira diezadaten. Joxe Austin Arrieta
Fitxen **zer** honekin hasi nintzen arte. Iñaki Iñurrieta
Nik, benetako estreinaldiari begira zerbait hobetzekotan, **zer** hauek aldatuko nituzke: [...]. Berria - Kultura
Idiak, idi osoa izango bada, osatua behar du egon: **zer** hori baino gauza naturalagorik? Iñaki Segurola
Otzara handiak zeroatzaten haietako askok, eta jesarrita zeudenek behintzat lanak zituzten hain **zer** handiak jesarlekuen mugetara ekartzen. Josu Landa
Bere tokitik mugitu gabe **zer** beltz bat jaurti zidan, airez aire. Aingeru Epaltza
Era horretan ulertzen bada, Kreazioa ordenan eta edertasunean garatuko den **zer** biziduna da. Imanol Unzurrunzaga
Guk edaniko ardoaren ozpinduak **zer** berezi bat, hondar berezi bat utzi baitzuen gugan. Karlos Linazasoro
Miope guztiok diagu esperientzia hori: ispilu aurrean jarri eta betaurrekoak kentzearekin batera [...] bat-batean nabarmentzen zaizkigula ispiluaren kristalari itsatsitako **zer guztiak**: zetakak, pinportak, orinak... Iñaki Iñurrieta
Arnasarekin zer ikusia duten **zerak**. Iñaki Segurola
Ez dakidana, zera da: guk geure burua ukatzeko beste maite izan ditugun **zerok** ote diren geure seme-alabek nahi dutena. Joxerra Garzia
Ezagutza-eredu klasikoa ezbaian jarriz (3 atala) eta teknologiaren irudi tradizionalak hankaz gora ipiniz (4 atala), sozialki eraikiak diren **zerok** sozialki erregulatu (kontrolatu) behar direla argudiatuko dugu. Askoren artean
Han hankarteko **zerak** dantzatu behar dira, gernubideak eta unibertso ezkutuetako zulo beltzak. Iñaki Segurola
Komeni dena itzuli gabe utzi, artikuluaz gabetu eta horra euskarazko **zerak** norturik munduratu, erdara emagin dela. Iñaki Segurola
Zunda, suero eta halako **zerekin** nengoen. Jokin Urain
Ezin dut ulertu zer dela-eta izan dezakeen inork gogorik jesarri eta horrelako **zeren** gainean idazteko. Mirentxu Larrañaga
· Aldare honek, iluntasun honetan ikuskaturik, bazuen halako krudel eta izugarrizko ez dakit **zer** bat. Koldo Izagirre
Beste garai bateko auskalo **zer** bat zuten ibilbide luzeko trenek. Harkaitz Cano

## **6** ***zer edo zer*** *izord* zerbait.

**Zer edo zer** badabilkit barruan, azaltzen ez dakidan zerbait. Antton Olano
Beti jaten da **zer edo zer**, gutxi edo gehiago... Karlos Zabala
Baietz erantzun nion, **zer edo zer** hartzera joan gintezkeela ondoko tabernaren batera. Iban Zaldua
Horrek **zer edo zer** asmatuko dik. Pablo Sastre
Beste **zer edo zer** nahi genuen guk, beste **zer edo zer** espero, eta hori adierazi nahi zuten gure marruek. Xabier Mendiguren Elizegi
Une horretanxe, **zer edo zer** gertatu zen. Oskar Arana
Baliteke azkenean *Das Worte*rako **zer edo zer** idaztea. Koro Navarro
Egia esan, pentsatzen hasiz gero, halako **zer edo zer** espero izatekoa zen. Jon Alonso
-**Zer edo zer** entzunda nengoen -erantzun nion-. Ander Irizar
Sumatu zenuen **zer edo zer** ahomentatu zutela bien artean, eta azkenik alfereza aterantz etorri zen ostera. Koldo Izagirre
Bortxazko lan hark, batzuetan, **zer edo zer** irensteko ahala eskaintzen zion. Eneko Bidegain
**Zer edo zer** behar duzu? Koldo Izagirre
-Euren helburua edozein dela, **zer edo zer** egin beharra daukagula uste dut. Josu Landa
Larritasuna sortzen dio gaixoari tumorearen egoeraz **zer edo zer** gehiago ez jakiteak. Imanol Zurutuza
Badut **zer edo zer** esku artean. Oskar Arana
Badu **zer edo zer**, egia da, jarraitu du Gretak. Joseba Zulaika
-Bizitzan beti izango dugu **zer edo zer** faltan -gaineratu zuen. Migel Angel Mintegi
Begitarte orotan kausitu zuen **zer edo zer**, baina hain zen atzemangaitza, hain iheskorra, hain gordea eta xehea! Jose Morales
Gure gizartean **zer edo zer** oker doa. Edurne Elizondo
Besoak gurutzatuta dauzka, eta atzealderantz **zer edo zer** okertuta gorputza; bion buruak hurbil daude. Bernardo Atxaga
Guztiei antzematen omen zien joera txarren bat, edo bestela ezdeusak sumatzen omen zituen, **zer edo zeren** faltan baleude bezala. beti arineketan, zer den ondoegi ez dakizun **zer edo zeren** bila. Xabier Mendiguren Elizegi
Ezin zen igarri lasai zegoen ala izugarri urduri, **zer edo zertan** pentsatzen ari zen ala isileko poliziek epaileen aurrean ematen zituzten azalpenak entzuten. Jose Morales
Zalapartak entzuten dira tanpez, eroriko baldar eta urrunen antzekoak, **zer edo zerk** lur joko balu bezala. Koldo Izagirre

· [Txantxangorria] hasten da txioka, salto alde batera eta salto beste aldera, txioka eta txioka, makilatxo bat zirudien **zer edo zertxo** baten aldamenean... Pello Zabala

## 7 (izenondo mugagabearen ezkerrean)

Berezitasuna eskas sentitzen dutenek, gisa oroz, egun osoa karrikak beren esku dituzte **zer edo zer** usaiaz kanpokoren proposatzeko. Herria

## 8 (izenondo mugatuaren ezkerrean)

Ea **zer edo zer** bitxia sumatu zuen egun hartako bazkarian. Iban Zaldua

-**Zer edo zer** gogorragoa egin behar genikek. Koldo Izagirre

Eta **zer edo zer** barregarria esaten badute, entzuleak baino askoz ere barre handiagoak egiten dituzte eurek. ondorioz, badu **zer edo zer** autobiografikoa. Jose Morales

Besteak bezalakoa zen gutun hura, baina bazuen **zer edo zer** berria, edo, nola esango nuke, biziberritua. Xabier Mendiguren Elizegi

**Zer edo zer** interaktiboa izango da. Berria - Kultura

**Zer edo zer** inportantea esan behar zidan. Fernando Rey

Beti eraman behar dun **zer edo zer** zirraragarria trenean hagoen bitartean irakurtzeko. Antton Olano

## 9 *zer ere* (aditz laguntzailea bait- aurrizkiaz)

Gizonak **zer ere** ereiten baitu, hura biltzen ere du. Antton Olano

Eta, **zer ere** erraten baitzuen, **zer ere** egiten ere baitzuen niri kontrakoa frogatzeko, bereizteko premia handia zuen gogo gutxi bezainbat. Jon Muñoz

Behin eta berriro haren ondora itzultzen zara, gogoan erabiltzen duzu beti, nora ere joaten baitzara, **zer ere** egiten baituzu. Josu Zabaleta

Ixpixoen ondotik, bazen edari, askari edo bazkari, **zer ere** baitzuten jokaturik. Angel Aintziburu / Jean Baptiste Etxarren

Gutiesten zuen, ahula izan zelako, ez zelako borrokatu jokamolde ero hartara eraman zuen nahigabearen kontra - **zer ere** baitzen- eta duintasun guzia galdu zuelako. Elena Touyarou

· **Zer ere** iragartzen zuten medikuek nire egoeraz, baitezpadakoa zen ziurtzat ezer ez ematea. Oskar Arana

**Zer ere** ziren, batek alboan kaxa eder bat bazeukan, zur ederrean landua. Edorta Jimenez

## 10 *zer eta zer*

50 bat jende bildu da guziak interesatuak miseriaren soleitzeko **zer eta zer** egiten ahal den ideiaren bilatzeko. Herria

Ez naiz beraz Santa Maria de las Reglaz **zer eta zer** erran hasiko. Nik ez dut orain ikastolara joaten lanik izaten, baina neretzat eta nere gisakoentzat orain "ikastola" **zer eta zer** den erran behar banizu, ez litzaidake lanik akituko. Piarres Aintziart

## 11 *zer gerta ere* badaezpada ere.

Eta orduan gauza asko erakutsi behar zaizkio, **zer gerta ere;** gauzak nola diren eta zergatik. Iñaki Segurola

Atea zabaldu behar du, eta babesa dakar **zer gerta ere**. Koldo Izagirre

Betidanik, **zer gerta ere,** lau intxaur eskura nahiago, urrutiko hamalauak baino. Aingeru Epaltza

**Zer gerta ere** giltzatua beharko zukeen polizi pistola bat zeraman eskuetan. Itxaro Borda

Urratsak labur eta zuhur beraz, **zer gerta ere**. Piarres Aintziart

Aldiz, jakizu bigarren gutun hori atxikia dudala, **zer gerta ere,** nahiz Jakes aita delako aitormenik ez daukan lehen hark bezain garbi... Janbattitt Dirassar

Lehendakariaren bizkartzainak alde orotara barranda zeuden, eskua palto azpian zeramaten pistolen gainean, **zer gerta ere**! Itxaro Borda

## 11a *zer-nola* (galdera esaldietan) nola.

Aita isileko arrantzan edo ehizan aritutakoa zen inoiz, eta Charliek bazekien **zer-nola** moldatu. Mirentxu Larrañaga

Ikusi ahal izan nuen, bai, **zer-nola** aldatzen zioten aurpegia, bateko eta besteko emozioek. Mirentxu Larrañaga

Ez al dakizu **zer-nola** kontatu zenidan egundo ez zenidala erakutsi zure benetako izaera? Mirentxu Larrañaga

Aurrerantzean [...] hegatxabalei begiratzen diedan bakoitzean, aireplano hori horretan pentsatuko diat, eta gugan hirurongan, eta **zer-nola** gauden oraintxe bertan. Mirentxu Larrañaga

Hasitako gertakizuna **zer-nola** amaituko itxaron gabe, beren bideari jarraitu zioten. Patxi Ezkiaga

Hurrengo atalburuan ikus-irakurtzen duenak entzun-jakingo du **zer-nola** hasi zen hizketan adi-gidari gaztea. Patxi Ezkiaga

Zuk, apeza izanez, badakikezu **zer nola** egin egunero, fededun eta ere sinesgabeen erdian izanez eta ibiliz. Piarres Aintziart

Horregatik, gehiago itxaron ezinik, Timoteo bidali nizuen zuen sinesmena **zer-nola** zebilen jakiteko. Elizen arteko biblia

## 12 *zer-nolako* (*orobat* ***zernolako*** *g.er.*) *izlag* nolakoa.

O, Sokrates, **zer nolako** poeta zaren! Itxaro Borda

**Zer nolako** zintzotasuna! Jon Muñoz

**Zer nolako** lotsagabekeriak! Imanol Unzurrunzaga

Ez dakizu **zer-nolako** gozatuak ematen dizkiguzun! Xabier Olarra

A, eta bide batez [...] bazekinat, Danik esan didalako, **zer-nolako** putakeriak asmatzen ibiltzen zareten! Antton Olano

**Zer nolako** uste izugarria duzu bada nitaz! Jon Muñoz

**Zer-nolako** jendea da? Jose Morales

-Eta **zer-nolako** onura ekarriko liake hori jakiteak? Jose Morales

**Zer-nolako** laguntza bidal diezaiekegu, eta nola helduko da garaiz? Agustin Otsoa

**Zer nolako** debatea eta norekin nahi duzue piztu zuen proposamenarekin?" **Zer nolako** izugarrikeria egin ote du hemen atxilotua egoteko?", egin zuen bere baitan. Herria

Badakit **zer-nolako** iritzia duzun nire familiaz. Mirentxu Larrañaga

Ez dakit **zer nolako** aurpegia jarriko genion. Joxerra Garzia

Horrek **zer nolako** eragina izango duen ezin da esan. Berria - Gaiak

Pentsa **zer-nolako** ezustekoa hartuko nuen. Oskar Arana

Begira **zer-nolako** maitasuna izan digun Aitak, Jainkoaren seme-alaba izena eman baitigu, eta izan ere hala gara. Elizen arteko biblia

Ez zuten asmatu **zer nolako** gaitza zen, ez ziren, beraz, emakumea sendatzeko gauza izan. Felipe Juaristi

Esplikatu nion Ximuni **zer-nolako** momentu goxoak pasatzen genituen han, haurrak ginelarik. Daniel Landart

Pasarte horiek esanda dagoen bezala aurkitzen badira, ez dakit **zer nolako** asmoz egin zuen hori. Xabier Kintana

Egundaino ez dut jakin **zer nolako** ikaslea izan naizen. Piarres Aintziart

Orain ohartu behar dugu **zer nolako** diferentziak dauden garai haien eta gurearen artean. Jon Alonso

Ruche jaunak gogoan zuen **zer-nolako** obsesioa zuten zen baino handiagoa egiteko beren arteko aldea. Jon Muñoz

**Zer-nolako** zigorra jarriko ote zieten pentsatzen zuen Harryk. Iñaki Mendiguren

**Zer nolako** ezinegonak mugiarazten ote zuen Marro, galdetu izan diot beti neure buruari. Juan Kruz Igerabide

Hori guztia finantzatzeko **zer-nolako** bideak erabili behar diren. Juan Ignacio Pérez / Pello Salaburu

Erabat ahaztu zitzaidan **zer nolako** begi hitsez begiratu zidan nire azkeneko bisitan. Matías Múgica

Edozein umerentzat garrantzirik gabea den pasadizo hark ondo azaltzen du **zer nolako** ispilu deformatuen galerian kondenatuta bizi izan nintzen ni. Anjel Lertxundi

Zein diren handi bezain zikinak haren amarruak; **zer nolako** bihurgune gaiztoak bururatzen zaizkion haren bihotz galduari. Anjel Lertxundi

Haatik, orduko ikasia nuen gainbehera etortzen zela hurrena, eta **zer-nolako** abioan gainera, **zer-nolakoan**. Juan Kruz Igerabide

· A **zer-nolako** hipotesia, Virgilio: heriotza kendu. Juan Kruz Igerabide

A **zer nolako** ipurditxoa duen! Probokazio hutsa! Patxi Iturritegi

-A **zer-nolako** barrabasa! -esan zion behin alabari niri begiratu bitartean. Rafa Egiguren

## 13 (predikatu gisa)

**Zer nolakoa** izan da esperientzia? Ana Urkiza

**Zer-nolakoa** da kasu honetan aprioriko justifikazioa? Askoren artean

Hauxe baino ez diot, badakidala **zer-nolakoa** den gure Matt. Mirentxu Larrañaga

Apaizak erabakiko du ordaindu beharrekoa, aberea **zer-nolakoa** den kontuan harturik. Elizen arteko biblia

Hitzegin zuten gero Jacky Vicedos Oihantzainak eta Pierre Salaberry Oihantzainburuak azaltzeko **zer nolakoa** den xedea. Herria

Batere axola ez digun pertsona bat **zer-nolakoa** den adierazteko pare bat hitz aski eta gehiegi izan daitezke. Iñaki Segurola

## 14 (izen gisa)

Orain arte ez dut inoren eskubiderik ukitu, ezta inorengandik eskupekorik jaso ere, baina **zer-nolako** honi ez diot antzik ematen. Patxi Ezkiaga

"Arimaren **zer-nolakoari** dagokionez", dio Diversiones Sanctorum-en autore ospetsuak, "ez da eztabaida handirik izan, ez bada gorputzean hark duen lekuari buruzkoa. Xabier Olarra

Animaliaren **zer-nolakoak** berak, haren egiturak, haren fisiologiak, zenbait saio motatara mugatzen dituelako ikerketa-aukerak. Juan Garzia

Ondoretasunaren kimikaren **zer-nolakoa** zehaztea, zelularen funtzio oinarrizkoak aztertzea. Juan Garzia

Nahi gabeko oroimenak baizik ez dezake ekar oso-osorik, sakonaldeetatik berez jalgiz, inozentzian, harriduran eta izuan bildurik, haurtzaroko esperientziaren **zer-nolakoa** . Xabier Olarra

Adiskidearen heriotzaren **zer-nolakoei** buruzkoak batzuk; beste batzuk, berriz, gutunean aipatutako matematika-pasarteei zegozkien. Ez diat ezer jakin nahi zuen harremanaren **zer-nolakoaz** . Jon Muñoz

## 15 *ez da zeri* 'eskerrik asko'-ren erantzuna. ik **horregatik.**

- **Ez da zeri** -esan zuen mutil gazteak. Irene Aldasoro

- **Ez da zeri** , jauna. Juan Kruz Igerabide

### hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 10 aldiz agertzen direnak)

**a zer** (307); **a zer nolako** (45); **ai zer** (23); **aitak zer** (10); **al dakik zer** (41); **al dakit zer** (13); **al dakizu zer** (65); **al dakizue zer** (10); **ala zer** (46); **amak zer** (16); **arte zer** (11); **artean zer** (46); **atzean zer dagoen** (28); **aurrean zer** (33); **aurrera zer** (28); **aurrerantzean zer** (12); **aurretik zer** (14); **auskalo zer** (128); **azkenean zer** (20); **azpian zer** (11)

**badago zer** (24); **badaki zer** (86); **badaki zer den** (30); **badakigu zer** (71); **badakigu zer den** (10); **badakik zer** (57); **badakit zer** (114); **badakit zer den** (13); **badakit zer egin** (10); **badakite zer** (43); **badakite zer den** (19); **badakizu zer** (187); **badakizu zer den** (28); **badakizu zer egin** (22); **badakizu zer esan** (23); **badakizue zer** (49); **badu zer** (70); **badugu zer** (22); **badut zer** (13); **badute zer** (29); **badute zer egin** (10); **baina zer ari** (16); **baina zer arraio** (14); **baina zer axola** (17); **baina zer da** (47); **baina zer egin** (66); **baina zer egingo** (31); **baina zer esan** (26); **baina zer gertatu** (12); **baina zer gertatuko** (19); **baina zer gertatzen** (26); **baina zer nahi** (27); **baina zer uste** (13); **bainekien zer** (12); **bakoitzak zer** (34); **bakoitzean zer** (28); **banekien zer** (30); **barnean zer** (12); **barruan zer** (38); **batek daki zer** (24); **batek zer** (50); **bazakiat zer** (10); **bazekien zer** (53); **bazekiten zer** (11); **bazen zer** (14); **bazuen zer** (19); **begira zer** (100); **begira zer egin** (12); **benetan zer** (60); **benetan zer gertatu** (13); **bera zer den** (13); **beraz zer** (22); **bestela zer** (19); **besterik zer** (31); **bihar zer** (18); **bitartean zer** (10)

**deabruak daki zer** (11)

**ea zer** (401); **ea zer egin** (34); **ea zer egiten** (24); **ea zer gertatzen** (36); **ea zer iruditzen** (17); **ea zer moduz** (19); **ea zer nahi** (14); **ea zer nolako** (12); **edo auskalo zer** (15); **erabakiko du zer** (14); **erakusten du zer** (14); **erakutsi zer** (12); **erakutsiz zer** (10); **erran zer** (14); **esadazu zer** (20); **esan zer** (50); **esango dizut zer** (13); **eta a zer** (11); **eta auskalo zer** (17); **eta badakigu zer** (11); **eta badakizu zer** (16); **eta ea zer** (33); **eta gero zer** (27); **eta han zer** (10); **eta hara zer** (13); **eta hik zer** (14); **eta hiri zer** (10); **eta hona zer** (11); **eta horrek zer** (23); **eta nik zer** (15); **eta orain zer** (51); **eta zer ari** (14); **eta zer arraio** (11); **eta zer axola** (14); **eta zer ez** (140); **eta zer gehiago** (17); **eta zuk zer** (26); **etorkizunean zer** (28); **etxean zer** (17)

**ez bainekien zer** (10); **ez baitaki zer** (11); **ez baitakit zer** (12); **ez baitzekien zer** (12); **ez da zer** (14); **ez dago zer** (41); **ez daki zer** (124); **ez dakiela zer** (17); **ez dakigu zer** (89); **ez dakit zer** (706); **ez dakite zer** (44); **ez dakizu zer** (68); **ez dakizue zer** (21); **ez du zer** (34); **ez duela zer** (11); **ez dut zer** (11); **ez dute zer** (15); **ez genekien zer** (32); **ez jakin zer** (20); **ez nekien zer** (160); **ez zagok zer** (11); **ez zakiat zer** (26); **ez zegoen zer** (15); **ez zekiat zer** (28); **ez zekiela zer** (21); **ez zekien zer** (173); **ez zekinat zer** (11); **ez zekiten zer** (33); **ez zer** (46); **ez zer egin** (10)

**ezin jakin zer** (10); **ezta zer** (15)

**galdetu zer** (22); **galdetu zion zer** (14); **gaur zer** (30); **gero zer** (87); **gero zer egin** (10); **geroztik zer** (11); **gizakia zer** (19); **gobernuak zer** (15); **guk zer** (31); **guztiak zer** (18)

**haiek zer** (31); **halako zer** (14); **han zer** (45); **hara zer** (160); **hara zer dioen** (19); **hara zer esaten** (10); **harekin zer** (24); **harekin zer egin** (16); **hari zer** (15); **hark zer** (56); **hau zer** (23); **hauek zer** (17); **hemen zer** (60); **hemendik aurrera zer** (15); **herria zer** (10); **herriak zer** (15); **herrian zer** (11); **herritarrek zer** (10); **hi zer** (15); **hik zer** (77); **hik zer nahi** (10); **hik zer uste** (24); **hiri zer** (28); **hiri zer iruditzen** (14); **hitzak zer** (10); **hona hemen zer** (22); **hona zer** (144); **hona zer dioen** (38); **honek zer** (31); **honek zer esan** (12); **honekin zer** (11); **honetan zer** (24); **hor zer** (26); **hori zer** (92); **hori zer da** (20); **hori zer den** (32); **horiek zer** (59); **horiekin zer** (13); **horietan zer** (13); **horra zer** (165); **horra zer den** (17); **horra zer erran** (10); **horrek zer** (160); **horrek zer erran** (10); **horrek zer esan** (44); **horrek zer pentsatua** (11); **horrekin zer** (30); **horren atzean zer** (10); **horretan zer** (39); **hortan zer** (10); **huna zer** (53); **hura zer** (50); **hura zer ote** (10); **hura zer zen** (15)

**ikus dezagun zer** (19); **ikus zer** (10); **ikusi behar zer** (11); **ikusi zer** (35); **ikusiko da zer** (11); **ikusiko dugu zer** (45); **ikusiko dut zer** (13); **ikusiko duzu zer** (18); **ikusiko zer** (11); **ikusiz zer** (30); **ikustea zer** (18); **ikusteko zer** (30); **ikusten zer** (29); **inguruan zer** (37); **irabaztea zer** (25); **irabaztea zer den** (22); **izanak zer** (11); **izanen da zer** (20); **izatea zer** (32); **izatea zer den** (25); **izateak zer** (10)

**jainkoak daki zer** (19); **jainkoak zer** (16); **jakin gabe zer** (14); **jakingo du zer** (10); **jakingo zer** (33); **jakitea zer** (31); **jakiteko zer** (27); **jakiten zer** (22); **jakiterik zer** (12); **jaunak zer** (10); **jendeak zer** (39); **jendeari zer** (14); **jokatzea zer den** (10)

**kontu zer** (12); **kontuz zer** (11)

**lehenik zer** (13)

**ni zer** (23); **nik badakit zer** (15); **nik dakita zer** (41); **nik zer** (135); **nik zer dakit** (20); **nik zer egin** (11); **nirekin zer** (13); **niri zer** (33); **noiz eta zer** (10); **nola eta zer** (10); **nola zer** (12); **non zer** (25); **nor edo zer** (10); **nor zer** (15); **nork daki zer** (21); **nork zer** (39); **nun zer** (123); **nun zer egin** (42); **nun zer entzun** (10); **nun zer ikus** (24)

**ondoren zer** (33); **ondotik zer** (14); **orai zer** (15); **orain zer** (119); **oraindik zer** (30); **oraino zer** (28); **oraino zer egin** (10); **orduan zer** (86); **orduan zer egin** (14); **ostean zer** (11)

**pentsa zer** (32)

**zehatz mehatz zer** (11); **zehatz zer** (10); **zehazki zer** (51)

**zer abantaila** (11); **zer adierazi** (77); **zer adierazi nahi** (66); **zer adierazten** (41); **zer adin** (17); **zer afaldu** (10); **zer agindu** (20); **zer aldaketa** (18); **zer aldatu** (44); **zer aldatu da** (20); **zer aldatuko** (10); **zer alde** (19); **zer amets** (15); **zer arazo** (17); **zer ardura** (26); **zer ari da** (30); **zer ari den** (27); **zer ari diren** (10); **zer ari haiz** (60); **zer ari naiz** (19); **zer ari nintzen** (14); **zer ari ote** (23); **zer ari zara** (94); **zer ari zarete** (19); **zer ari zen** (43); **zer arraio** (210); **zer arraio ari** (14); **zer arraio egin** (10); **zer arraio egiten** (10); **zer arraio gertatzen** (15); **zer arraiotarako** (10); **zer arrakasta** (15); **zer arrazoi** (22); **zer arrisku** (18); **zer asmatu** (14); **zer asmo** (67); **zer asmo duzu** (13); **zer atera** (22); **zer aterako** (27); **zer aterako den** (10); **zer ateratzen** (21); **zer atsegina** (19); **zer aukera** (40); **zer aurkitu** (32); **zer aurkituko** (35); **zer aurkitzen** (14); **zer aurpegi** (27); **zer axola** (214); **zer axola dio** (54); **zer axola du** (17); **zer axola zaizu** (10); **zer azterketa** (10); **zer aztertu** (10)

**zer ba** (110); **zer bada** (21); **zer baldintzatan** (10); **zer balio** (83); **zer balio du** (22); **zer balio duen** (11); **zer balorazio** (18); **zer balorazio egiten** (14); **zer barkaturik** (12); **zer behar da** (18); **zer behar den** (17); **zer behar du** (14); **zer behar duen** (19); **zer behar duk** (15); **zer behar duzu** (23); **zer behar zuen** (11); **zer beldur** (13); **zer berri** (84); **zer bertze** (10); **zer beste** (39); **zer bestela** (13); **zer besterik** (57); **zer bide** (73); **zer bide egin** (14); **zer bide hartu** (10); **zer bide hartuko** (14); **zer bilakatu** (37); **zer bilakatuko** (37); **zer bilakatzen** (11); **zer bilatzen** (42); **zer bizi** (12)

**zer da** (1436); **zer da ba** (23); **zer da bada** (14); **zer da euskal** (19); **zer da gizakia** (15); **zer da hau** (102); **zer da hori** (97); **zer da zehazki** (11); **zer da zure** (12); **zer da zuretzat** (13); **zer dabil** (13); **zer dago** (77); **zer dagoen** (153); **zer dakarren** (21); **zer daki** (21); **zer dakigu** (16); **zer dakit** (46); **zer dakit nik** (20); **zer dakite** (15); **zer dakizu** (49); **zer dakizu zuk** (20); **zer datorren** (16); **zer dauka** (14); **zer daukadan** (10); **zer daukagun** (11); **zer daukak** (12); **zer daukan** (21); **zer daukazu** (35); **zer deabru** (20); **zer dela eta** (501); **zer demontre** (75); **zer demontre gertatzen** (10); **zer den** (1807); **zer den azaltzeko** (10); **zer den egia** (10); **zer den gure** (10); **zer den hau** (10); **zer den hori** (21); **zer den jakin** (31); **zer den jakiteko** (15); **zer den ona** (26); **zer derasazu** (11); **zer deritzok** (14); **zer deritzozu** (152); **zer deritzozue** (22); **zer diferentzia** (10); **zer dio** (84); **zer diodan** (14); **zer dioen** (141); **zer dioen jaunak** (13); **zer diogun** (12); **zer diok** (60); **zer dion** (51); **zer diot** (24); **zer diote** (38); **zer dioten** (56); **zer diozu** (241); **zer diozu horretaz** (11); **zer diozu zuk** (12); **zer diozue** (16); **zer diozun** (12); **zer dira** (135); **zer diren** (200); **zer du** (130); **zer du ba** (17); **zer dudan** (22); **zer duen** (71); **zer dugu** (78); **zer dugun** (18); **zer duk** (111); **zer duk karlosena** (15); **zer dun** (23); **zer dut** (10); **zer dute** (26); **zer duten** (24); **zer duzu** (229); **zer duzue** (16); **zer duzun** (20)

**zer edan** (16); **zer edo zer** (719); **zer edo zeren** (11); **zer edo zertan** (17)

**zer egin** (3368); **zer egin behar** (779); **zer egin beharko** (49); **zer egin daiteke** (41); **zer egin daitekeen** (30); **zer egin den** (13); **zer egin dezake** (33); **zer egin dezakedan** (11); **zer egin dezakeen** (25); **zer egin dezakegu** (19); **zer egin dezakegun** (16); **zer egin dezaket** (53); **zer egin du** (22); **zer egin dudan** (16); **zer egin duen** (39); **zer egin duk** (23); **zer egin dut** (29); **zer egin dute** (20); **zer egin duten** (22); **zer egin duzu** (48); **zer egin duzue** (13); **zer egin erabaki** (10); **zer egin erabakitzeko** (21); **zer egin genezakeen** (11); **zer egin jakin** (31); **zer egin nahi** (91); **zer egin nezakeen** (44); **zer egin nuen** (20); **zer egin orduan** (10); **zer egin pentsatzen** (10); **zer egin zenuen** (14); **zer egin zezakeen** (41); **zer egin zezaketen** (14); **zer egin zuen** (103); **zer egin zuten** (28); **zer eginen** (201); **zer eginen den** (11); **zer eginen duen** (24); **zer eginen dugu** (11); **zer eginen duten** (24); **zer eginen duzu** (11); **zer eginen zuen** (16); **zer eginen zuten** (11); **zer egingo** (745); **zer egingo diogu** (52); **zer egingo du** (28); **zer egingo dudan** (20); **zer egingo duen** (58); **zer egingo dugu** (86); **zer egingo dugun** (22); **zer egingo dut** (42); **zer egingo dute** (17); **zer egingo duten** (31); **zer egingo duzu** (37); **zer egingo duzue** (11); **zer egingo luke** (10); **zer egingo nuen** (12); **zer egingo zaio** (20); **zer egingo zenuke** (21); **zer egingo zuen** (28); **zer egingo zukeen** (11); **zer eginik ez** (35); **zer eginkizun** (13); **zer egitea** (21); **zer egitea nahi** (10); **zer egiteko** (87); **zer egiteko asmoa** (21); **zer egiten** (766); **zer egiten ahal** (20); **zer egiten ari** (47); **zer egiten den** (21); **zer egiten du** (53); **zer egiten dudan** (20); **zer egiten duen** (85); **zer egiten dugu** (24); **zer egiten dugun** (26); **zer egiten duk** (21); **zer egiten dute** (19); **zer egiten duten** (64); **zer egiten duzu** (65); **zer egiten duzue** (29); **zer egiten duzun** (13); **zer egiten nuen** (29); **zer egiten zenuen** (10); **zer egiten zuen** (65); **zer egiten zuten** (31)

zer egoera (11); zer egoeratan (22); zer egun (29); zer eguraldi (19); zer ekarpen (30); zer ekarpen egin (17); zer ekarri (36); zer ekarriko (63); zer ekarriko duen (18); zer ekartzen (23); zer emaitza (12); zer eman (94); zer emanen (16); zer emango (35); zer ematen (31); zer entzun (82); zer entzun nian (21); zer entzungo (10); zer entzuten (10); zer erabaki (56); zer erabakiko (21); zer eragin (87); zer eragin izan (24); zer eragin izango (10); zer erakusten (12); zer erakutsi (33); zer eraman (16); zer erantzun (191); zer erantzun behar (23); zer erantzungo (34); zer erantzuten (16); zer eratako (14); zer ere (28); zer erosi (17); zer erraiten (30); zer erran (375); zer erran behar (15)

zer erran nahi (88); zer erranen (53); zer erranik (31); zer erranik ez (13); zer erraten (21); zer erremedio (17); zer esan (1766); zer esan behar (106); zer esan didan (15); zer esan dik (10); zer esan dizu (20); zer esan du (22); zer esan duen (16); zer esan duk (12); zer esan duzu (25); zer esan eta (16); zer esan ez (61); zer esan gura (34); zer esan handia (11); zer esan jakin (15); zer esan nahi (813); zer esan zidan (17); zer esan zion (21); zer esan zizun (10); zer esan zuen (29); zer esana (60); zer esanahi (22); zer esanen (12); zer esango (324); zer esango dizut (20); zer esango duen (12); zer esango dugu (10); zer esango dute (12); zer esango luke (11); zer esango nion (12); zer esango zenieke (11); zer esango zenuke (11); zer esango zuen (11); zer esanik (391); zer esanik ere (10); zer esanik ez (304); zer esaten (334); zer esaten ari (60); zer esaten den (12); zer esaten duen (39); zer esaten duten (21); zer esaten zuen (30); zer esaten zuten (16)

zer eskain (11); zer eskaini (20); zer eskainiko (12); zer eskaintzen (30); zer eskatu (37); zer eskatuko (23); zer eskatzen (63); zer eskatzen diozu (10); zer eskubide (20); zer espero (123); zer espero daiteke (15); zer espero duzu (18); zer eta nola (49); zer etorkizun (10); zer etorriko (18); zer ez (379); zer ez da (23); zer ez den (30); zer ez ote (47); zer ezaugarri (15); zer ezkutatzen (31)

zer falta (33)

zer gai (16); zer gaizki (20); zer galdera (16); zer galdetu (28); zer galdetuko (15); zer galdetzen (13); zer galdu (30); zer galdurik (11); zer galtzen (10); zer gara (26); zer gara gu (12); zer garen (34); zer garrantzi (32); zer garrantzia (12); zer gatik (11); zer gauza (51); zer gehiago (193); zer gehiago behar (10); zer gehiago egin (14); zer gehiago esan (21); zer gehiago eska (10); zer gehiago nahi (19); zer gelditzen (23); zer geratzen (24); zer gerta (256); zer gerta daitekeen (33); zer gerta ere (147); zer gerta zitekeen (26); zer gertatu (1015); zer gertatu behar (18); zer gertatu da (160); zer gertatu den (138); zer gertatu ote (49); zer gertatu zaidan (12); zer gertatu zaio (22); zer gertatu zaion (26); zer gertatu zaizu (19); zer gertatu zen (378); zer gertatu zitzaidan (27); zer gertatu zitzaien (18); zer gertatu zitzaion (69); zer gertatuko (574); zer gertatuko da (120); zer gertatuko den (179); zer gertatuko litzateke (43); zer gertatuko litzatekeen (15); zer gertatuko zen (66); zer gertatzen (1132); zer gertatzen ari (140); zer gertatzen da (295); zer gertatzen den (235); zer gertatzen ote (25); zer gertatzen zaidan (15); zer gertatzen zaie (11); zer gertatzen zaik (21); zer gertatzen zaio (40); zer gertatzen zaion (31); zer gertatzen zaizu (61); zer gertatzen zaizue (10); zer gertatzen zaizun (13); zer gertatzen zen (118); zer gertatzen zitzaidan (16); zer gertatzen zitzaion (37); zer giro (15); zer gisaz (15); zer gizon (19); zer gogoeta (12); zer gordetzen (18); zer grazia (11); zer gura (20); zer gustatzen (33); zer gustatzen zaion (11); zer gutxiago (11); zer guztiak (18)

zer habil (16); zer harreman (41); zer harrera (15); zer harridura (10); zer hartu (45); zer hartu behar (16); zer hartu nahi (11); zer hartuko (25); zer hausnartu (10); zer helburu (20); zer hitz (28); zer hizkuntza (12); zer hobe (21); zer hoberik (17); zer hobetu (46); zer hobetua (14)

zer idatzi (62); zer idatzi zuen (20); zer idatziko (10); zer idazten (27); zer iduritzen (11); zer ikas (36); zer ikasi (74); zer ikasia (26); zer ikasten (11); zer ikus (74); zer ikusi (156); zer ikusi nuen (11); zer ikusia (33); zer ikusiko (38); zer ikusirik (149); zer ikusirik ez (34); zer ikusirik izan (10); zer ikusteko (22); zer ikustekorik (15); zer ikusten (94); zer ikusten duzu (24); zer ikustera (10); zer indar (21); zer inporta (52); zer inporta du (24); zer interes (22); zer irabazi (19); zer irabaziko (20); zer irabazten (18); zer irakasten (11); zer irakur (11); zer irakurketa (10); zer irakurri (19); zer irakurtzen (21); zer iritzi (143); zer iritzi diozu (12); zer iritzi duen (12); zer iritzi duzu (65); zer irizpide (15); zer irizten (28); zer irudi (10); zer iruditu (67); zer iruditu zaizu (25); zer irudituko (19); zer iruditzen (255); zer iruditzen zaik (31); zer iruditzen zaizu (124); zer iruditzen zaizue (18); zer iruditzen zitzaion (10); zer itxura (58

zer izan (358); zer izan behar (30); zer izan da (35); zer izan daiteke (11); zer izan daitekeen (18); zer izan den (45); zer izan diren (10); zer izan nahi (27); zer izan zen (58); zer izan ziren (10); zer izan zitekeen (29); zer izanen (78); zer izanen da (20); zer izanen den (29); zer izango (144); zer izango da (27); zer izango den (33); zer izango ote (16); zer izango zen (17); zer izaten (11)

zer izen (61); zer izen zuen (14); zer jakin (55); zer jakin nahi (16); zer jalgiko (13); zer jan (54); zer jana (20); zer jango (18); zer janik (21); zer jantzi (22); zer jarrera (54); zer jarrera hartu (13); zer jarrera hartuko (18); zer jarri (19); zer jartzen (20); zer jaso (13); zer jaten (24); zer jazo (27); zer jazotzen (11); zer jende (29); zer joko (21)

zer kalte (27); zer komeni (32); zer konda (14); zer kontatu (59); zer kontatua (21); zer kontatuko (15); zer kontaturik (14); zer kontatzen (19); zer kristo (12)

zer laguntza (13); zer lan (59); zer lan egin (11); zer lanbide (10); zer leku (32); zer leporatzen (15); zer liburu (13); zer litake (10); zer litzateke (13); zer lor (13); zer loria (22); zer lortu (52); zer lortu nahi (26); zer lortuko (15); zer lortzen (12); zer lotsa (13); zer lotura (33)

zer maila (13); zer mezu (14); zer mila (13); zer modu (13); zer moduz (896); zer moduz ari (10); zer moduz dago (63); zer moduz daude (11); zer moduz doa (13); zer moduz habil (23); zer moduz hago (16); zer moduz joan (19); zer moduz moldatzen (15); zer moduz nengoen (10); zer moduz zaude (93); zer moduz zaudete (13); zer moduz zegoen (20); zer moduzko (31); zer moduzkoa (16); zer motatako (26)

zer nabarmenduko (15); zer nabarmenduko zenuke (15); zer nahi (1031); zer nahi du (35); zer nahi dudan (37); zer nahi duen (85); zer nahi dugun (25); zer nahi duk (85); zer nahi dun (25); zer nahi dute (20); zer nahi duten (36); zer nahi duzu (287); zer nahi duzue (59); zer nahi duzun (21); zer nahi gisaz (26); zer nahi nuen (32); zer nahi zenuen (10); zer nahi zuen (62); zer nahi zuten (21); zer nahiago (23); zer naiz (27); zer naiz ni (11); zer naizen (23); zer nekien (17); zer nekien nik (11); zer neurri (35); zer neurritan (41); zer neurritaraino (14); zer nintzen (17); zer nola (117); zer nola egin (17); zer nolako (1003); zer nolako eragina (26); zer nolako garrantzia (16); zer nolako harremana (10); zer nolako harrera (11); zer nolako jarrera (10); zer nolako lana (11); zer nolako ondorioak (17); zer nolakoa (77); zer nolakoa den (13); zer nolakoa izan (16); zer nolakoa zen (13); zer nolakoak (29); zer norabide (10); zer nuen (13); zer oker (11)

zer ondo (12); zer ondorio (130); zer ondorio atera (21); zer ondorio izan (18); zer ondorio izango (12); zer onura (13); zer ordea (10); zer ordu (95); zer ordu da (41); zer ordu zen (23); zer ordutan (57); zer ostia (35); zer ote (322); zer ote da (58); zer ote den (35); zer ote zegoen (14); zer ote zen (78)

zer paper (12); zer pasa (19); zer pasatu (56); zer pasatu da (13); zer pasatu den (12); zer pasatuko (15); zer pasatzen (97); zer pasatzen da (32); zer pasatzen den (25); zer pauso (12); zer pena (34); zer pentsa (98); zer pentsatu (180); zer pentsatu behar (26); zer pentsatu ote (11); zer pentsatua (84); zer pentsatua eman (39); zer pentsatua ematen (21); zer pentsatuko (57); zer pentsatuko ote (13); zer pentsatzen (200); zer pentsatzen dudan (23); zer pentsatzen duen (43); zer pentsatzen dugun (10); zer pentsatzen duten (19); zer pentsatzen duzu (10); zer pentsatzen zuen (17); zer pisu (10); zer plazera (11); zer plazerra (32); zer polita (12); zer poza (21); zer prezio (10); zer proposatzen (20)

zer sentitu (39); zer sentituko (13); zer sentitzen (111); zer sentitzen da (10); zer sentitzen dudan (13); zer sentitzen duen (13); zer sentitzen duzu (17); zer sentitzen zuen (13); zer sinetsi (11); zer suma (10); zer suposatzen (11)

zer toki (20); zer topatuko (13); zer ulertu (19); zer ulertu behar (12); zer ulertzen (25); zer urrats (10); zer uste (408); zer uste du (14); zer uste duk (74); zer uste dun (11); zer uste dute (19); zer uste duzu (158); zer uste duzue (29); zer uste huen (11); zer uste zenuen (12); zer uste zuen (25); zer utzi (17)

zer zabiltza (16); zer zara (35); zer zaren (11); zer zarete (11); zer zebilen (15); zer zegoen (65); zer zekien (19); zer zela eta (57); zer zen (596); zer zen hori (16); zer zen hura (27); zer zen jakin (13); zer zentzu (26); zer zentzu du (10); zer zenuen (10); zer zerikusi (10); zer zetorren (10); zer zeukan (19); zer zioen (69); zer zion (24); zer zioten (28); zer ziren (86); zer zor (17); zer zuen (55); zer zuten (16)

zu zer (23); zuek zer (20); zuk badakizu zer (10); zuk zer (129); zuk zer diozu (10); zuri zer (35); zuri zer axola (12)

baina zerk (14); ez dakit zerk (31)

zerk bereizten (12); zerk bultzatu (46); zerk bultzatu zaitu (10); zerk bultzatu zuen (13); zerk bultzatuta (10); zerk bultzatzen (16); zerk egin (23); zerk egiten (31); zerk egiten du (15); zerk egiten duen (11); zerk ekarri (21); zerk eman (11); zerk ematen (26); zerk eragin (103); zerk eragin duen (21); zerk eragin zuen (46); zerk eragiten (44); zerk eragiten duen (15); zerk erakartzen (11); zerk eraman (16); zerk ez (11); zerk sortzen (11)

auskalo zeren (11); ez dakit zeren (24); zer edo zeren (11)

zeren alde (24); zeren arabera (15); zeren beldur (45); zeren beldur izan (11); zeren bila (71); zeren bila zabiltza (11); zeren edo (10); zeren gainean (18); zeren kariaz (11); zeren truke (17); zeren zain (60); zeren zain zaude (11)

zeri begira (19); zeri buruz (91); zeri buruz ari (14); zeri deitzen (22); zeri heldu (20)

horra zertako (30)

bazekien zertan (11); ea zertan (16); edo zertan (33); eta zertan ari (26); ez da zertan (21); ez dago zertan (52); ez dagoela zertan (12); ez dakit zertan (17); ez daukat zertan (12); ez daukazu zertan (14); ez du zertan (124); ez duela zertan (45); ez dugu zertan (31); ez dut zertan (20); ez dute zertan (52); ez dutela zertan (14); ez duzu zertan (55); ez zeukan zertan (12); ez zuela zertan (16); ez zuen zertan (27); ez zuten zertan (12); gauzak zertan (18); gauzak zertan diren (10); horra zertan (17); zer edo zertan (17)

zertan aldatu (26); zertan arduratu (13); zertan ari (425); zertan ari da (16); zertan ari den (41); zertan ari dira (12); zertan ari diren (24); zertan ari haiz (30); zertan ari naiz (13); zertan ari naizen (25); zertan ari nintzen (31); zertan ari zara (50); zertan ari zaren (12); zertan ari zarete (15); zertan ari zen (71); zertan ari ziren (16); zertan aritu (11); zertan aritzen (19); zertan bereizten (22); zertan da (58); zertan dabil (11); zertan dabilen (19); zertan dago (11); zertan dagoen (11); zertan datza (36); zertan datzan (64); zertan den (159); zertan dira (35); zertan diren (97)

zertan egin (18); zertan egiten (13); zertan eman (16); zertan erabili (15); zertan ez (23); zertan garen (11); zertan gelditu (10); zertan gira (18); zertan giren (21); zertan habil (21); zertan harritu (10); zertan hobetu (30); zertan hobetu behar (19); zertan horrela (11); zertan huts (15); zertan huts egin (12)

zertan ibili (26); zertan izan (44); zertan jakin (12); zertan kezkatu (39); zertan kezkaturik (15); zertan lan (11); zertan nintzen (10)

zertan oinarritu (10); zertan oinarritzen (47); zertan oinarritzen da (12)

zertan ote (35); zertan pentsatu (10); zertan pentsatzen (16)

zertan ukatu (12); zertan zabiltza (26); zertan zabiltza hemen (10); zertan zebilen (18); zertan zen (71); zertan zetzan (17); zertan ziren (36)

zertara dator (28); zertara datorren (14); zertara etorri (51); zertara etorri zara (10); zertara joan (24); zertara zetorren (17)

ea zertarako (16); ez dakit zertarako (15); orduan zertarako (10); zergatik eta zertarako (20)

zertarako baina (14); zertarako balio (123); zertarako balio du (34); zertarako balio duen (12); zertarako balio dute (11); zertarako balio zuen (10); zertarako balioko (15); zertarako behar (82); zertarako behar duzu (10); zertarako bizi (23); zertarako da (22); zertarako deitu (11); zertarako den (32); zertarako dira (12); zertarako diren (13); zertarako egin (25); zertarako ekarri (11); zertarako erabili (10); zertarako erabiliko (10); zertarako erabiltzen (18); zertarako gai (17); zertarako idatzi (10); zertarako izan (10); zertarako jakin (10); zertarako nahi (80); zertarako nahi duzu (16); zertarako sortu (10); zertarako zen (15)

badakit zertaz (10); baina zertaz (15); ez dakit zertaz (17); ez nekien zertaz (12)

zertaz ari (300); zertaz ari den (36); zertaz ari diren (14); zertaz ari gara (11); zertaz ari garen (22); zertaz ari naizen (50); zertaz ari zara (32); zertaz ari zaren (15); zertaz ari zen (41); zertaz ari ziren (16); zertaz ez (12); zertaz hitz egin (47); zertaz hitz egiten (24); zertaz mintzo (15)

**zera** **1** *iz* gogoratzen-edo ez den hitz baten ordez erabiltzen den hitza.

Batzuetan, nahi nikek, **zera**, nola esan, neure buruarengandik urrundu. Jon Muñoz

-Ez, ba, ni **zera**, managerra, horixe, Mikel Arreseren managerra naiz. Xabier Mendiguren Elizegi

Guztiok oroituko gara zure... **zera**... gauzak egiteko modu bereziaz. Iñaki Mendiguren

-**Zera**, ez dirudite oso... oso arriskutsuak, ezta? Iñaki Mendiguren

Jakingo duk, noski, Pitagorasek halako... **zera**, sekta bat sortu zuela; hori duk hitz zuzena. Jon Muñoz

Ez ordea halako tik edo **zera** horietakoren bat zuelako. Xabier Mendiguren Elizegi

-Aizu, **zera**... esango al didazu leku on bat lana aurkitzeko? Lopez de Arana

Arestian, **zera** -esan dezagun hitza-, atsedenaldia baino lehen, Tales konturatu da eguzkiak berdin tratatzen dituela munduko gauza guztiak. Jon Muñoz

-Ez dut esan nahi ez naizela pozten zu ezagutzeaz -erantsi zuen Harryk bizkor-; baina, **zera**, badago arrazoi berezirik zu hemen egoteko? Iñaki Mendiguren

Ba, **zera**... badakizue... laguntza apur bat baino ez. Iñaki Mendiguren

-Baina **zera**, ezkondu egin nahi dugu. Anton Garikano

-Barkatu, ama, baina guk **zera**... Iñaki Mendiguren

Handik egun batzuetara gertuko pertsonak esaten dit jaun mediku psikojakinak ze juzku egin duen, eta **zera**, "oso pertsona koherentea" omen naizela, edo ematen dudala, edo hala iruditu behintzat hari. Iñaki Segurola

Tira, **zera**, badakizu, latsari azal-ilun horietako bat izan dut garbitzaile urteetan, eta oso maitea dut. Mirentxu Larrañaga

**Zera** baino ez, honako hau ez dela zure gainerako kapelak bezalakoa. Mirentxu Larrañaga

-**Zera**, aita... Anjel Lertxundi

**2** zehaztu edo adierazi nahi ez den edo ezin den hitzaren ordezko hitza.

Identifikazio edo etiketa moduko **zera** bat da, nakarezkoa dirudiena. Pako Aristi

Bizia da **zera** bakarra zeinetan gauza eta gauzaren gogoa gauza bera diren. Iñaki Segurola

Nik baldin badiot -ez diodan bezala- honetan eta hartan sinesten dudala, oso ondo, oso jator eta oso **zera** bezala gelditzen naiz, baina [...]. Iñaki Segurola

Ba, hutsaren pareko **zera** batzuk: karbonoa, dirua, desnibela edo denbora bezalako abstrakzioak. Iñaki Segurola

Halako **zera** eman zidan, nik ere banekien ankerra izaten. Koldo Izagirre

-**Zera** hori zaukan, badakin. Koro Navarro

Baina ze **zera** klase? Iñaki Segurola

Eta sekula ez dut hileta-**zera** horretaz ezer entzun. Bego Montorio

-**Zera**... Diego... ez dakit. Jon Muñoz

Eta gainera beste **zera** itzel hori zegoen, jakina. Harkaitz Cano

Handik gutxira hasten zen egiazko saltsa, zereko **zera** zertzeko ordua, badakizue zertaz ari naizen. Xabier Mendiguren Elizegi

-**Zerako zera zerako zerarekin** zeratuta zeratu da. Iñaki Segurola

**Zerako zera** izendatzen zuen herkideari umilki ihardesten zion, presa zeukala gehituz. Itxaro Borda

Edurnezurik Pinotxo bere logelara eraman zuen, baina ustekabean Pinotxoren **zera** oso txikia zela topatu zuen. Joseba Sarrionandia

Nire **zera** ezkutalekutik atera nuenean jarri zuen poz aurpegiak nire autoestimu guztia itzuli zidan. Juan Martin Elexpuru

Ustezko maitasunaren, begirunearen edo **zerako zeraren** azpitik zer dabilen ez da beti (sekula?) jakiten. Iñaki Segurola

Oroit zaitez lurra Ama Lurra dela folkloristentzat eta ekologistentzat, beste izenez Natura deitzen duten **zerako zera** hori. Iñaki Segurola

**3** (erakusleekin)

Nondik norakoa edo noiztik honakoa da "jainko" izeneko **zera** hori? Iñaki Segurola

Ez zekinat, haien ospe, dotorezia edo **zera** horren pixka bat nirea balitz bezala. Xabier Mendiguren Elizegi

Harryk berriro begiratu zion **zera** hari, bihotza bizkor-bizkor taupaka zuela, min emateraino. Iñaki Mendiguren

**Zera** honek baino zapore hobea izatea espero dut... Iñaki Mendiguren

Zenbat-eta barrenago eduki batek legea, morala eta ordena on ofiziala, orduan-eta errazkiago ager litekeela morboaren **zera** hau. Iñaki Segurola

Inork ba al dakizue non bizi den **zera** hori? Anton Garikano

Askoz benazkoagoak eta bereagoak ditu emakume ustez objetuak, gizontxo ustez sujetuak bere balioa ematen edo gehitzen dioten **zera** horiek dituen baino, hots, letra eta numero hutsal horiek baino. Iñaki Segurola

Berak buruan daukan **zera** horri iritzia esatea baldin badago, noski. Anton Garikano

Baina zer den ez dakigun eta ezin harrapa genezakeen **zera** horretaz ari baldin bagara, [...]. Iñaki Segurola

**Zera** hark guztiak bat-bateko zartako gisako bat eman zidan aurpegian. Xabier Olarra

**4** esaldi bati sarrera emateko, aditzaren ezkerrean ezartzen den partikula. ik **hau 1**.

Egitate historikoa **zera** da, ordea:[...]. Iñaki Mendiguren

Bere arazoa **zera** da, ez dakiela nola bereizi liburuetan irakurritakoa eta bizitzaren errealitatea. Patxi Ezkiaga

Estreinatu berria den errepublika iraultzaileari eskatzen dion lehenengo gauza **zera** da: "Erlijio harremanekin guztiz eten ezazue". Juan Martin Elexpuru / Bego Montorio

Politika honen gakoa **zera** zen, berak konbertitu nahi zituen gizarte ez-kristauen bidetik behaztopa-harri bat kentzean, beste bat jartzen ari zela bere erlijiokideen aurrean. Iñaki Mendiguren

Gainerako guztia, **zera** dituk, hitzak, ideia engainagarriak. Xabier Olarra

**Zera** baitzuen oinarri antolamendu horrek, lan egiten duenaren zapalkuntza. Juan Garzia

Presoei buruz **zera** nahi nuke, koruak zer dioen jakin. Bernardo Atxaga

Hotz begiratu zidan eta **zera** esan: [...]. Juan Martin Elexpuru

Eskolan, **zera** esaten zigun matematikako irakasleak: "Eta, ondoren, aski da teorema aplikatzea, etab.", eta hantxe uzten zuen igeltsua. Jon Muñoz

Gainerakoei dagokienez, Jainkoa izenaz unibertsoa ulertzen bazuen, orduan **zera** esan behar zuen: hau ez dagoela bere lekuan iraunkorki present (geldi), ezta lekua aldatzen duenik ere (higitzen denik). Ibon Uribarri

Horrekin batera, Analitikaren irakaspenak **zera** dio: gure pentsatzearen eta begiestearen forma hauek ez direla esperientziaren baldintzak soilik. Idazle batzuk badira bai **zera** diotenak, Lapitze-Portukoa izan zela lehendabizi gertatu zitzaion arrisku jokoa. Ibon Uribarri

**Zera** agindu zuen, kapitaletik interesetan ordaindutakoa kenduko zela, eta beste guztia hiru ordainketa berdinetan kitatuko zela. Iñaki Iñurrieta

Eta **zera** gehitu zuen, isilxeago hitz eginez: [...]. Karlos Zabala

-Zer esan nahi izan digu zehazki amak **zera** bota digunean: "Handik bederatzi hilabetera...". Jon Muñoz

Baina **zera** gertatzen da: nik ez dudala onartu nahi hiri madarikatu honetako jendearengandik onartu behar den guztia. Lopez de Arana

Atzealdean **zera** irakur daiteke tinta urdinez: [...]. Harkaitz Cano

Erabat txundituta, Harryk luma berriro busti eta **zera** idatzi zuen: "Nire izena Harry Potter da". Iñaki Mendiguren

Hizkuntza guztietan hitz egiten zidan, azken buruan **zera** jakiteko: zer bilatzen ote nuen bere etxean, zergatik etorri nintzen etorri behar nuela abisatu gabe. Fernando Rey

Nik, euskal herritarra naizen honek **zera** aldarrikatzen dut: [...]. Herria

Argi zen **zera** nahi zutela jakin, ea zertarako balio zuen, zenbat kostatzen zen, nondik zetorren. Juan Garzia

1976. urtean, Hawkingek **zera** proposatu zuen: zulo beltzak sortzen direnean masa galtzen dutela poliki-poliki erradiazioa emititzuz. Berria - Gaiak

Ez dago Erromako historian oso aditua izan beharrik **zera** ikusteko, halako lege bat ezin zela dezenbiroek egina izan. Iñaki Iñurrieta

Hau halako moldez ematen die, non **zera** esan behar baita: orain arte hautemandakoaren arabera erregela honen edo haren salbuespenik ez dela aurkitu. Ibon Uribarri

· Esaten du, **zera**, ahal balu bere gerrian lotuko nindukeela koloretako hari batez. Juan Kruz Igerabide

Kontua duk, **zera**, autobus urbano bat hartu nuela lanera joateko, [...]. Mikel Hernandez Abaitua

Badakik, larrutan egin eta gero, neskatxak zer esango eta **zera**: [...]. Bernardo Atxaga

**5** esaldi bat bukatzeko partikula.

Ikusita nago ni portuan ale itzel askoak, kristoren zuhaitz puskak, **zera**. Jon Muñoz

Eta alferrik jarriko duzu aurpegi hori, **zera**. Anjel Lertxundi

Ontzi berean gaude orain eta, **zera**... Iñaki Mendiguren

Ahalik eta xerra mehenak, **zera**. Jon Muñoz

Harriabar galanta, **zera**! Jon Muñoz

Ikatz guri-guria zaukak horrek hanka artean, ikatz guri-guria, **zera**! Juan Kruz Igerabide

Pitzatzen hasia ote nintzen ere... hotsak entzuten nituela, **zera**! Jesus Mari Mendizabal

*ik beherago* 10. Askoren artean

**6** ***bai, zera*** erabat ukatzeko esapidea.

-Ez, **bai zera**. Josu Zabaleta

-Ez, ez, **bai zera**! -erantzun zion Hermionek, ilea begietatik kendu eta etsipenez bere eskolako poltsaren bila ingurura begira-. Iñaki Mendiguren

-**Bai zera**, ez, ez -esan nuen bizkarra jasoz eta berokia kenduz. Juan Martin Elexpuru

**Bai zera**, inola ere ez! Jose Antonio Mujika

-**Bai zera** txantxetan! Koldo Biguri

Bertan behera uztea? **Bai zera**! Arratsaldean desfilatzeko eskubidea lortu eta gero...! Berria - Harian

Besteak engainatuko ditun akaso, baina ni..., **bai zera**! Antton Olano

Ez zidan beldurrik eman, **bai zera**, ezta gutxiagorik ere. Josu Zabaleta

-**Bai zera**, Marta, kubo horrek ez zeukan barroterik. Harkaitz Cano

Ez dut sekula ahaztuko haren itxura, **bai zera**!, orain ordu bete egon balitz bezala daukat gogoan. Migel Angel Mintegi

**Bai zera**! Gizonak iruditzen zaizkizu, baina mendiaren itzalak dira. Elizen arteko biblia

Baina ez pentsa kaiolatik atera nindutenik, **bai zera**! Koldo Izagirre

Ezkondu, **bai zera**! Fernando Rey

Egunkaria trankil irakurriko nuelakoan, baina **bai zera**. Anton Garikano

**7** ***baita zera ere*** bai zera.

**Baita zera ere** -egin zion oihu Herak, sumindurik-, inondik ere ez. Juan Garzia

**Baita zera ere**, hil! Itxurak! itxurak! Ez ezazu sinistu!" **Baita zera ere**; zergatik ez bizitza guztia?", egin nuen neure artean; -Orgiak?... **Baita zera ere**!... Josu Zabaleta

-**Baita zera ere** ohera! -oihukatu zuen-. Koldo Biguri

**8** ***ez, zera*** ezezko esaldiei erantzuko esapidea, *bai noski!*-ren baliokidea.

-Bai zera! -**Ez zera**! Iñaki Segurola

-**Ez zera**! Eguerdiro bazkaltzen dut berarekin, ez ahaztu, zu bulegoan zauden bitartean. Patxi Iturritegi

-**Ez zera**! -egin zion oihu Lacik-. Ander Irizar

**9** ***zera!*** (gaitzeste adierarekin-edo)

**-Zera**! -esan zuen-. Karlos Zabala

Gauza ederra izango zen noski autoan iristea hara, baina **zera**!, autodun kimikari bat bazina [...] ez zinateke hor jardungo azido pirubikoa izerditzen eta ezpain-margo fabrikatzaile anbiguo halakoen atzetik lasterka egiten. Juan Garzia

"Hola egingo duzue zuek... **zera**!" esan zuen Yagok. Pablo Sastre

**10** (ukatze adierarekin-edo)

**Zera** egongo duk Donostian! Bernardo Atxaga

**Zera** egongo da hotza! Xabier Mendiguren Elizegi

-**Zera** jakin behar dute! Josu Zabaleta

**-Zera** egingo duzue zuek! Josu Zabaleta

**Zera**!: Kasilda. Segunen andrea. Pablo Sastre

-Bai, **zera** nahiko dik gurekin etorri, nondik sortu zaik. Koldo Izagirre

**hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 6 aldiz agertzen direnak)**

**arazoa zera da** (16); **arrazoia zera da** (11); **bai zera** (293); **baina bai zera** (18); **baina zera** (32); **baina zera esan** (7); **baita zera** (53); **baita zera ere** (52); **bakarra zera** (39); **bakarra zera da** (21); **bakarra zera izan** (6); **bakarra zera zen** (8); **bat zera** (35); **bat zera da** (18); **bat zera izan** (6); **bat zera zen** (6); **batek zera esan** (13); **bere zera** (7); **beste zera** (20); **beste zera bat** (6); **dagoena zera da** (8); **deitu eta zera** (6); **den zera** (12); **dena zera da** (14); **dudana zera da** (11); **duen zera** (8); **duena zera da** (14); **duguna zera da** (7)

**edo zera** (7); **egia zera da** (9); **erantzuna zera** (8); **ez zera** (13); **galdera zera** (6); **garrantzitsuena zera da** (10); **gauza bakarra zera** (9); **gauza zera da** (8); **gero zera** (7); **gertatzen dena zera** (6); **guk zera** (8); **guztia zera** (9); **halako zera** (16); **handiena zera** (6); **harrigarriena zera** (6); **hemen zera** (10); **hemendik zera** (6); **honek zera** (15); **hori zera** (6); **horrek zera** (20); **horrek zera esan** (7); **horren arrazoia zera** (6); **hortik zera** (8)

**kontua zera** (28); **kontua zera da** (21); **nagusia zera da** (13); **nik zera** (36); **nik zera nahi** (6); **ondorioa zera** (9); **ondorioa zera da** (6); **orain zera** (11); **orduan zera** (21); **presidenteak zera** (8)

**zera adierazi** (80); **zera adierazi du** (8); **zera adierazi zion** (7); **zera adierazi zuen** (50); **zera adierazten** (8); **zera agindu** (8); **zera agintzen** (9); **zera aitortu** (6); **zera alegia** (7); **zera ari** (9); **zera aurkitzen** (11); **zera aurkitzen dugu** (7); **zera azaldu** (16); **zera azaldu zuen** (11); **zera baino** (37); **zera baino ez** (20); **zera baita** (6); **zera bakarrik** (17); **zera bat** (28); **zera behar** (7); **zera besterik ez** (7); **zera bota** (10); **zera bururatu** (7); **zera da** (436); **zera dela** (7); **zera dio** (55); **zera dioenean** (6); **zera diot** (9); **zera diote** (14); **zera duk** (21)

**zera egin** (27); **zera egiten** (10); **zera ematen** (8); **zera erabaki** (6); **zera erakusten** (13); **zera erakutsi** (7); **zera erantsi** (14); **zera erantsi zuen** (9); **zera erantzun** (43); **zera erantzun du** (6); **zera erantzun zuen** (15); **zera erantzuten** (14); **zera ere** (73); **zera erran** (11); **zera esan** (506); **zera esan behar** (16); **zera esan dio** (9); **zera esan du** (12); **zera esan nahi** (105); **zera esan nion** (20); **zera esan ohi** (6); **zera esan zidan** (39); **zera esan zion** (34); **zera esan zuen** (142); **zera esanez** (16); **zera esango** (38); **zera esatea** (16); **zera esateko** (15); **zera esaten** (107); **zera esaten ari** (8); **zera esaten du** (8); **zera esaten entzun** (6); **zera esaten zion** (6); **zera esaten zuen** (15); **zera esatera** (9); **zera eskatzen** (12); **zera gaineratu** (35); **zera gaineratu zuen** (22); **zera galdetu** (48); **zera galdetu nion** (9); **zera galdetu zidan** (6); **zera galdetu zion** (11); **zera galdetzen** (21); **zera gehitu** (19); **zera gehitu zuen** (14); **zera gertatu** (18); **zera gertatu zen** (9); **zera gertatzen** (17); **zera gertatzen da** (7); **zera hark** (6); **zera hau** (12); **zera honetan** (7); **zera hori** (58); **zera horiek** (9); **zera horrek** (9); **zera horren** (9); **zera horretan** (7); **zera horri** (6); **zera hura** (19)

**zera idatzi** (12); **zera idatzi zuen** (7); **zera ikusten** (7); **zera iragarri** (15); **zera iragarri zuen** (11); **zera irakur** (9); **zera irakur zitekeen** (6); **zera irakurri** (8); **zera izan** (71); **zera izan da** (11); **zera izan zen** (46); **zera izango** (11); **zera izango da** (6); **zera izaten** (7); **zera jakin** (15); **zera lortu** (10); **zera lortu nahi** (6); **zera nabarmendu** (17); **zera nabarmendu zuen** (11); **zera nahi** (22); **zera nahi nuke** (7)

**zera ohartarazi** (12); **zera ondorioztatzen da** (10); **zera pentsatu** (33); **zera pentsatu dut** (8); **zera pentsatu nuen** (18); **zera pentsatzen** (9); **zera proposatu** (8); **zera proposatzen** (6)

**zera ulertu** (7); **zera ulertzen** (8); **zera uste** (9); **zera xuxurlatu** (7); **zera zehaztu** (8); **zera zehaztu zuen** (7); **zera zela** (6); **zera zen** (112); **zera zioen** (37); **zera zioten** (6)

**zerako zera** (16); **zereko zera** (7)

---

**zeramika** *(orobat* ***keramika*** *g.er.)* **1** *iz* buztinez edo portzelanaz ontziak eta bestelako gauzakiak egiteko jarduera. ik

**buztingintza.**

Komunitatea hogei bat lagunek osatu zuten hasiera batean, gehienak artisau-lanetara emanak: **zeramika**, oihalgintza, marrazkigintza, pintura. Joan Mari Irigoien

Euskal Herriko **zeramika** tradizionaleko objektuak daude bilduma horretan. Berria - Kultura

Metalgintzan, grafikagintzan eta **zeramikan** ere gatazka bidean dagoela uste du. Berria - Ekonomia

**2** zeramikan erabiltzen den gaia.

Baziren, halaber, bertako **zeramika** lantzen zuten buztinlariak. Joan Mari Irigoien

Lurreko **zeramika** hotzak areagotu baino ez zidan egin larritasuna oinetatik gora. Hasier Etxeberria

**Zeramikazko** errotulu batek Iturbideren "habiaren" aitzinean zegoela adierazi zion. Migel Angel Mintegi

**Zeramikazko** plater handi bat zen, buztinzale bizardun bati Santa Clarako paseoan erosi ziotena. Koro Navarro

Urez beteriko **zeramikazko** konketa batez. Anjel Lertxundi

**Zeramikazko** baldosa beiratuez. Lopez de Arana

Lauki hori eta arre handiz apaindutako **zeramikazko** zoladura jarri zuten geletako parketaren gainean. Joseba Urteaga

Hemen dago, sarreran ezkerretara, argia pizteko giltzatxoa, **zeramikazkoa**, txuria, borobila, gainean egurrezko ezpala duela. Pako Aristi

**3** zeramikazko gauzakia.

Terma erromatarrak, nekropolis islamiarrak, Erdi Aroko auzo baten aztarnak, harresi ikusgarri bat dorre eta guzti, **zeramikak**, medailak eta abar. Berria - Kultura

Esperientzia hurbilean oinarritutako buztinezko **zeramikak** dira nagusi, formatu handikoak eta txikikoak. Berria - Kultura

Lanen artean, margoak, tapizak, eskulturak eta **zeramikak** daude, eta 1965. urtetik 1983. urtera bitartean egin zituen Mirok. Berria - Kultura

**Zeramika** polikromatuak. Berria - Kultura

**4** (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

Hitzarmen horri esker 2.626 tona hondarkin arriskitsu gutiago ekoiztearen menturarekin, bereziki zimenta, kimika, altzairugintza, papera ala **zeramika** sektoreetan. Herria

Fernando Roig, **zeramika** alorreko enpresaburua. Berria - Kirola

Ziburuko **zeramika** eskolako obrak ere ikus daitezke Gasteizeko erakustoki hortan. Herria

40ko hamarkadan egindako **zeramika** lan. Berria - Kultura

Otsaila bitartean Iparraldean egon zinela zuritzeko datu faltsu bat eman zenion, **zeramika**-lantegian jardun zenuela ordura arte. Rafa Egiguren

Orgiko hariztira irteera, **zeramika** tailerra eta, iluntzean, musika. Berria - Euskal Herria

Gehienak, **zeramika** zatiak 275.000, baina baita mosaiko tesela solteak, txanponak, giza hezurrak eta objektu metalikoak ere. Berria - Harian

Inguruan baziren ere arrain eta abere ezurrak, bai-eta **zeramika** puskak eta harrizko tresna zenbait. Herria

Polimero poroso batek osatzen du konposatuaren egitura eta **zeramika** hauts finak ematen dio sendotasuna. Berria - Gaiak

Horrekin batera, marrazkiak eta eskultura eta **zeramika** sorta ikusgai izango da. Berria - Kultura

**5** (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa)

Bere arabera, esleipen plan horrek CO2 igorpenen %40 eragiten duten sektoreak bakarrik aintzat hartu ditu: burdingintza, papergintza, zementu ekoizpena, beira-**zeramika**, energia eta petrolio findegiak. Berria - Euskal Herria

---

**zeramikagintza** *iz* zeramikazko gauzakiak egitea; zeramikaren industria.

**Zeramikagintzan** egiten genuen lan. Isurtzeko eskubideen beharra hasiera batean zazpi sektoretan ezarriko dira: zementua, petrolio findegiak, siderurgia, beiragintza, **zeramikagintza**, papergintza eta energia. Rafa Egiguren

---

**zeramikazale** *izond* zeramikaren zalea dena.

Eta Sergio eta Matias hizketan hasi, eta horrela segitu zuten, biak **zeramikazale** porrokatuak zirenez gero. Joan Mari Irigoien

---

**zeramiko** *izond* zeramikazkoa. ik **zeramika 4.**

Mortero eta material **zeramikoz** egiten ziren erromatarren horma-egitura tipikoak. Santiago Iruretagoiena

---

**zeramista** *iz* zeramikazko gauzakiak egiten dituen pertsona.

Segidan, **zeramista** izatearen onuraz mintzatu zen. Joan Mari Irigoien

---

**zeratu**, zera(tu), zeratzen **1** da/du *ad* zera izan; zera egin. ik **zertu.**

Orain zure ama gajoa **zeratu**... desagertu denez, Emily eta biok zure legezko tutoreak gara eta Lily gajoaren testamentu-betearazleak. Lopez de Arana

Oroit zaitez lehen-lehenago hainbesteraino asaldatzen edo aztoratzen edo dena delako zera hartaraino **zeratzen** zintuen (eta zenuen) harako pertsonatxo hartaz. Iñaki Segurola

-Jaietarako jendea etortzea oso ongi ulertzen dut, baina etorri al da inor... **zeratzera**? Josu Zabaleta

-Zerako zera zerako zerarekin **zeratuta zeratu** da. Iñaki Segurola

**2** (era burutua izenondo gisa)

Hain baita zabala bizitza, hain baita altua, kasu, besarkada soil batek ezkuta ditzakeen zerako zeraren zera zeratzaileen zera **zeratuen** zenbakia... Iñaki Arranz

---

**zeratxo** *iz* zera txikia.

**Zeratxo** hau aitortu beharrean nagokizue: etxean altxortu ditudan liburutik onenak dira lehenengo bost-hamar orrialdeak irakurri ondoren apalategira zuzenean bidali ditudanak; hots, beste egun batean irakurtzeko utzitako liburuak. Berria - Kultura

---

**zeratzaile** *izond* zeratzen duena.

Hain baita zabala bizitza, hain baita altua, kasu, besarkada soil batek ezkuta ditzakeen zerako zeraren zera **zeratzaileen** zera zeratuen zenbakia... Iñaki Arranz

---

**zerazale** *izond* zeraren zalea dena.

Aber edo eusko edo **zerazalea** zen, nahiko da hori. Joxe Azurmendi

---

**zerba** **1** *iz* baratze landarea, erremolatxaren motakoa, erdiko zaina zabala duten hosto handiak eta jateko onak dituena *(Beta vulgaris vulgaris)*.

Hasieran, saiatu zen zertxobait baratzean, uraza, porru eta **zerba** batzuk jarririk, baina laster aspertu zen. Juan Kruz Igerabide

Bertan, lore-sailak eta neguko barazkiak -azaloreak, patatak, erremolatxak, **zerbak**, tipulak- ikus daitezke. **Zerba**, espinaka eta txikoriaren oihartzuna uzten dute ahosabaian. Oskar Arana

Etxera igo nintzenean, porruz eta **zerbaz** beteriko poltsa bat prestaturik zeukan amak, maistrari eraman niezaion, eskaintzen zidan laguntza nolabait eskertze aldera. Juan Kruz Igerabide

**2** (hitz elkartuetan)

Han, librako gurin ogien ondoan, **zerba** hostoen gainean, cantal gazta erraldoi bat zegoen, zabal-zabal etzanda. Karlos Zabala

Koñakaz bustitako esne beroa edo gau beranduan prestatzen zidan **zerba**-pure tristea izan ziren haren zainketa bakarrak. Anjel Lertxundi

---

zerbaiska ik **zerbaixka**.

---

**zerbait** *(orobat **zerbeit** g.er. eta **zerbatt** g.er.)* **1** *izord* gauzaren bat. (ikus beheko konbinatorian zerbait izenordearen agerraldi maizkoenak)

**2** (ezezko perpausetan) ik **ezer**.

Jazoeren ondorio-ilaran dena nolabait erregela honen menpean dagoela, alegia, ez dela inoiz **zerbait** gertatzen aldez aurretik beste zerbait ez badoa. Ibon Uribarri

Gizakiaz "bere bihotzean esan zuen" aipatzen denean, berak pentsatu baina inori esan ez zion **zerbait** adierazi nahi da. Xabier Kintana

Erakarri egiten ninduen aurpegiaren ikuskariak, ordu arte ikusi ez nuen **zerbait** nabaritu niolako. Ramon Saizarbitoria

Besteek uler **ez** zezaketen **zerbait** esaten zion musikak. Xabier Olarra

Etxeko atea ireki eta aireari usain egin orduko badaki **zerbait** ez dabilela ondo. Oskar Arana

**Zerbait** ez dabil, traban dago, kale egiten du, akatsen bat dago. Urtzi Urrutikoetxea

Aireak baino pisu handiagoa duen **zerbait** ez duzu inoiz ere hegaz egiten ikusiko. Pello Salaburu

Entzun zuten guztiek bazekiten **zerbait** ez zegoela ondo esaldi hartan. Arantxa Iturbe

Edateko **zerbait** ez badut, hementxe egingo du nireak. Askoren artean

Beraz, berenaz **zerbait** ez baldin bada ere induljentziaren arrazoi zuzen, fede eta karitate askirekin egina delarik, gertatzen ahal da haren arrazoi zuzena bilaka dadin. Piarres Xarriton

-Holako **zerbait** ez ote didazu jadanik ere errana? Janbattitt Dirassar

Eskolan, **zerbait** ulertzen ez genuenean, gerrako haurrak deitzen ziguten. Joseba Urteaga

Baina hiru egunetan **zerbait** aurkitzen ez baduzue, ni izango naiz lan berria aurkituko dizuena. Harkaitz Cano

**3** (izenondo baten ezkerrean, izenondoa mugagabean doala)

Zuhur nenbilen, **zerbait** berezi esan nahi zidala sumatzen nuen. Bernardo Atxaga

Baietz ba, gogotik egonen zela enekin **zerbait** goxo eta freskoren edateko denbora. Janbattitt Dirassar

**Zerbait** berri etorri zitzaion burura. Bernardo Atxaga

Beldur izan baikintezke, bitartean hori bera **zerbait** estrainio ez ote zaion geratzen ari irakurleria gazteenari. Joxe Azurmendi

Osaba-izebak jende on eta amultsuak ziren, baina haien eta bere artean **zerbait** bitxi bazen. Elena Touyarou

**Zerbait** harrigarri, markaz fuerako, gertatu behar duela uste dizu haurrak kontakizun bakoitzean. Patziku Perurena

Beraz, edo usteltzeak ez du kalterik, eta hau ezinezkoa da, edota usteltzen den orok **zerbait** on galtzen du, eta hau egia osoa da. Imanol Unzurrunzaga

**Zerbait** berok on egingo dizu... Itxaro Borda

**Zerbait** txar gertatu bide da. Eneko Bidegain

**4** (izenondo baten ezkerrean, izenondoa mugatuan doala)

Gizon edo emakume batek **zerbait** berezia sentitzen duenean, lehenengo aldiz sentitzen du, berria zaio, ezezaguna. Pako Aristi

Zain nengoen, edo esperantzan bederen, **zerbait** berezi hori noiz sentituko. Xabier Mendiguren Elizegi

Behatzen dizunetik bertatik, iduri du **zerbait** goxoa erraten dizula. Jon Muñoz

Hara, **zerbait** berria egitera noa: hasia da sortzen, ez al diozue antzematen? Elizen arteko biblia

Izena -izen zientifikoa- jarri behar zitzaien, eta zuhaitz erraldoi horiei izena jartzeko **zerbait** handiaren izena aukeratu behar zen. latinezko medikuntza-eskuliburu batzuen berri ematen zuten fitxen artean **zerbait** bitxia topatu nuela. J.M. Olaizola "Txiliku"

Aita Donostiak neskatxa anonimo bati jasotako kantuak bazuen **zerbait** bitxia. Anjel Lertxundi

Horregatik, ohiko espioi eleberri bat baino, **zerbait** ezberdina egin nahi izan zuela nabarmendu zuen Alberto Ladronek. Berria - Kultura

Sokasaltora jolasten ari diren neska-mutikoek **zerbait** harrigarria eta tristea ikusi eta soka biratzeari uzten diotenean bezain hilak zeuden telefonoaren soka zintzilikatu haiek, infinituraino biderkatuak. Harkaitz Cano

Atzoko izumenaren ondoren, **zerbait** ona, azkenik. Josu Zabaleta

Erreta zegoen; **zerbait** txarra gertatuko da, antza denez. Koldo Biguri

Gazteak **zerbait** txarra datorrela iragartzen duen burrunba horietako batek esnatu ditu. Pako Aristi

**5** apur bat.

**Zerbait** bizkortu nauk eta, banoak hemendik. Pablo Sastre

**Zerbait** lasaitu omen dira hark esan dienean hurrengo astean seguru aterako dutela dena, kazetaritza horrelakoa dela eta barkatzeko. Iñaki Iñurrieta

**6** (izen bati dagokiola, izenaren ezkerrean)

Bestetik, bidean **zerbait** erremedio ematen dizkio lagunak Tobiasi etxera itzulitakoan aitari ikusmena emango diotenak. Idatzizko kasetaritzak ere **zerbait** laguntza merexi duela gaurko egunean. Jose Antonio Mujika

Gauean ere **zerbait** lan ibili duk hik... Pablo Sastre

Denek parte hartu nahi dohakabe gaixoekin, **zerbait** diru, soineko, jateko edo ontasun mota edozoin igorriz. Herria

Espainiako hauteskunde batzorde nagusiak ontzat hartu du lixta, hautagai bat baztertuz haatik, harentzat **zerbait** paper eskas zela. Herria

Bainan nehor ez hilik ere, oro kutsutuak, orok **zerbait** min eta kalte. Xipri Arbelbide

**7** (izen bati dagokiola, izenaren eskuinean)

Gainerat, batzuk diote gaztetzeko erremedio **zerbait** ere asmatuko dela hain segur goitxago edo berantxago. Herria

-Laguntza **zerbait** nahi bazenu edo... Daniel Landart

Baditugu entzuleak eta baditake guk uste baino gehiago indar **zerbait**, edo laguntza zerbait ekartzen ahal duguna. Menane Oxandabaratz

Preso lagunek beti lan **zerbait** emaiten zioten, denbora pasa edo zerbitzu galdez. Eneko Bidegain

Diru **zerbait** gelditzen zitzaion eta, ostatu batean sartu zen, eta janariaren eskatzera ernatu zen. Elena Touyarou

Hastapenetik ulertua zuen **eritasun zerbait** bazuten presoak edo lanerako on ez zirenak ez zituztela atxikitzen. Eneko Bidegain

Gaur badakit beste arrazoirik bazegoela gogo horretan: nahi nuen beste **min zerbait** ahantzi. Piarres Aintziart

Mueble **zerbait** erosi behar zuen eta lehen saltegian ez du aurkitu. Daniel Landart

### hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 6 aldiz agertzen direnak)

**antzeko zerbait** (501); **antzeko zerbait da** (13); **antzeko zerbait egin** (20); **antzeko zerbait egiten** (15); **antzeko zerbait esan** (23); **antzeko zerbait gertatu** (49); **antzeko zerbait gertatzen** (54); **antzeko zerbait sentitu** (13); **arteko zerbait** (26)

**bada beste zerbait** (10); **bada zerbait** (139); **badago zerbait** (14); **badaki zerbait** (19); **badela zerbait** (9); **badu zerbait** (38); **badugu zerbait** (10); **badute zerbait** (9); **baina beste zerbait** (25); **baina zerbait** (129); **baina zerbait egin** (9); **bainan zerbait** (9); **baino zerbait** (194); **baino zerbait gehiago** (157); **baita zerbait** (9); **bakoitzak zerbait** (9); **bakoitzean zerbait** (10); **barruan zerbait** (9); **bat baino zerbait** (10); **bat batean zerbait** (13); **batek zerbait** (36); **bati zerbait** (10); **bazegoen zerbait** (11); **bazekien zerbait** (16); **bazen zerbait** (60); **bazirudien zerbait** (12); **bazuen zerbait** (28); **behar den zerbait** (9); **beharreko zerbait** (40); **behin zerbait** (9); **berak zerbait** (23); **berezi zerbait** (9); **berri zerbait** (9); **bertze zerbait** (41); **beste zerbait** (679); **beste zerbait behar** (10); **beste zerbait da** (30); **beste zerbait egin** (10); **beste zerbait ere** (84); **beste zerbait esan** (20); **beste zerbait gehiago** (10); **beste zerbait nahi** (16); **beste zerbait zen** (9); **bestelako zerbait** (15); **beti zerbait** (72); **bezalako zerbait** (61); **buruzko zerbait** (41)

**dagoen zerbait** (70); **dagoen zerbait da** (11); **dagokion zerbait** (14); **daitekeen zerbait** (41); **dela zerbait** (18); **den beste zerbait** (13); **den zerbait** (330); **den zerbait da** (36); **dezakeen zerbait** (18); **didan zerbait** (10); **dion zerbait** (16); **dira zerbait** (10); **diru zerbait** (9); **dituen zerbait** (12); **dudan zerbait** (26); **duen zerbait** (184); **duen zerbait da** (15); **dugun zerbait** (41); **duten zerbait** (35); **duzun zerbait** (10)

**ea zerbait** (43); **edateko zerbait** (26); **edo antzeko zerbait** (72); **edo beste zerbait** (32); **edo gisako zerbait** (11); **edo halako zerbait** (26); **edo holako zerbait** (56); **edo horrelako zerbait** (50); **edo zerbait** (102); **egin beharreko zerbait** (13); **egindako zerbait** (11); **esan zerbait** (9); **esandako zerbait** (10); **esateko zerbait** (9); **ez den zerbait** (43); **ez dudan zerbait** (12); **ez duen zerbait** (41); **ez dugun zerbait** (9); **ez duten zerbait** (17); **ez nuen zerbait** (21); **ez zen zerbait** (29); **ez zerbait** (14); **ez zuen zerbait** (30)

**gabeko zerbait** (27); **garrantzizko zerbait** (9); **genuen zerbait** (16); **gero zerbait** (13); **gertatzen den zerbait** (13); **gisako zerbait** (59)

**halako zerbait** (138); **halako zerbait esan** (9); **halako zerbait gertatu** (9); **halako zerbait gertatzen** (13); **han zerbait** (18); **handi zerbait** (10); **handiko zerbait** (14); **hark zerbait** (26); **hartan zerbait** (13); **hemen zerbait** (22); **holako zerbait** (162); **honek zerbait** (13); **honelako zerbait** (37); **honetan zerbait** (19); **hor zerbait** (16); **hori ere zerbait** (14); **hori zerbait** (13); **horrek ere zerbait** (20); **horrek zerbait** (30); **horrelako zerbait** (241); **horrelako zerbait esan** (11); **horrelako zerbait gertatu** (13); **horrelako zerbait gertatzen** (23)

**iduriko zerbait** (10); **inguruan zerbait** (14); **inguruko zerbait** (9); **itxurako zerbait** (12)

**jateko zerbait** (49)

**kanpoko zerbait** (23); **kontrako zerbait** (10)

**laguntza zerbait** (15); **litekeen zerbait** (11); **lotutako zerbait** (10)

**merezi duen zerbait** (13); **moduko zerbait** (82)

**nauen zerbait** (11); **nik zerbait** (25); **ninduen zerbait** (17); **nintzen zerbait** (9); **nion zerbait** (11); **niri zerbait** (12); **norbaitek zerbait** (26); **nuen zerbait** (61)

**orain zerbait** (16); **oraindik zerbait** (14); **orduan zerbait** (12)

**pareko zerbait** (11)

**uste dut zerbait** (12)

**zaigun zerbait** (12); **zaion zerbait** (15); **zegoen zerbait** (36); **zekien zerbait** (10); **zen zerbait** (132

**zerbait a priori** (9); **zerbait adierazi** (40); **zerbait adierazi nahi** (20); **zerbait adierazteko** (14); **zerbait adierazten** (18); **zerbait agertzen** (13); **zerbait ahaztu** (22); **zerbait aipatu** (15); **zerbait aitortu** (12); **zerbait aldatu** (38); **zerbait antzeman** (9); **zerbait argi** (11); **zerbait argitu** (11); **zerbait ari** (32); **zerbait ari da** (9); **zerbait arraro** (11); **zerbait arraroa** (41); **zerbait asmatu** (27); **zerbait atera** (32); **zerbait atera zuen** (10); **zerbait aurkitu** (35); **zerbait aurkituko** (10); **zerbait aurkitzen** (22)

**zerbait bada** (33); **zerbait badago** (9); **zerbait badela** (12); **zerbait bai** (13); **zerbait baino** (14); **zerbait baita** (10); **zerbait baizik** (35); **zerbait balio** (13); **zerbait balitz** (22); **zerbait balitz bezala** (17); **zerbait bazela** (9); **zerbait bazen** (12); **zerbait bederen** (9); **zerbait behar** (93); **zerbait beharko** (10); **zerbait berezi** (27); **zerbait berezia** (100); **zerbait berezia sentitzen** (9); **zerbait berri** (54); **zerbait berria** (69); **zerbait bezala** (33); **zerbait bihurtu** (9); **zerbait bilatu** (9); **zerbait bilatzen** (10); **zerbait bitxia** (15); **zerbait bururatu** (11)

**zerbait da** (214); **zerbait dago** (21); **zerbait dagoela** (10); **zerbait dela** (82); **zerbait delako** (15); **zerbait den** (10); **zerbait desberdina** (14); **zerbait dira** (10)

**zerbait edan** (16); **zerbait edatera** (10); **zerbait egin** (480); **zerbait egin behar** (110); **zerbait egin beharko** (32); **zerbait egin beharra** (43); **zerbait egin nahi** (48); **zerbait egin zuen** (15); **zerbait eginen** (12); **zerbait eginez** (15); **zerbait egingo** (42); **zerbait egingo zuen** (11); **zerbait eginik** (10); **zerbait egitea** (75); **zerbait egiteko** (153); **zerbait egiteko gogoa** (9); **zerbait egitekotan** (11); **zerbait egiten** (143); **zerbait egiten ahal** (11); **zerbait egiten ari** (19); **zerbait egitera** (28); **zerbait egon** (11); **zerbait ekarri** (15); **zerbait ekarriko** (11); **zerbait ekartzen** (11); **zerbait eman** (46); **zerbait emateko** (11); **zerbait ematen** (28); **zerbait entzun** (41); **zerbait entzuten** (12); **zerbait erabaki** (9); **zerbait erakusten** (18); **zerbait erakutsi** (32); **zerbait erantsi** (9); **zerbait erantzun** (17); **zerbait ere** (145); **zerbait ere bai** (10); **zerbait erosi** (13); **zerbait erraiteko** (10); **zerbait erran** (89); **zerbait erran behar** (13); **zerbait erran nahi** (43); **zerbait erraten** (11); **zerbait esan** (416); **zerbait esan behar** (47); **zerbait esan beharko** (14); **zerbait esan nahi** (99); **zerbait esan nahiko** (13); **zerbait esan zidan** (10); **zerbait esan zion** (27); **zerbait esan zuen** (38); **zerbait esango** (30); **zerbait esate** (12); **zerbait esate aldera** (12); **zerbait esatea** (35); **zerbait esateagatik** (15); **zerbait esatearren** (18); **zerbait esateko** (51); **zerbait esaten** (108); **zerbait esaten ari** (12); **zerbait esaten hasi** (12); **zerbait esatera** (21); **zerbait eskaini** (9); **zerbait eskatu** (16); **zerbait eskatzen** (13); **zerbait espero** (14); **zerbait etorri** (13); **zerbait ez** (65); **zerbait ezagutzen** (12); **zerbait ezberdina** (17); **zerbait ezkutatzen** (28)

**zerbait falta** (56); **zerbait falta da** (9)

**zerbait gaizki egin** (14); **zerbait galdetu** (25); **zerbait galdetzen** (12); **zerbait galdu** (12); **zerbait garrantzitsua** (19); **zerbait gehiago** (354); **zerbait gehiago behar** (19); **zerbait gehiago da** (14); **zerbait gehiago egin** (25); **zerbait gehiago ere** (26); **zerbait gehiago izan** (15); **zerbait gehixeago** (11); **zerbait gelditzen** (11); **zerbait gerta** (24); **zerbait gertatu** (217); **zerbait gertatu al** (10); **zerbait gertatu da** (19); **zerbait gertatu ote** (16); **zerbait gertatu zela** (9); **zerbait gertatu zen** (52); **zerbait gertatu zitzaidan** (10); **zerbait gertatu zitzaion** (17); **zerbait gertatuko** (63); **zerbait gertatuz** (18); **zerbait gertatuz gero** (18); **zerbait gertatzea** (17); **zerbait gertatzen** (225); **zerbait gertatzen ari** (26); **zerbait gertatzen bada** (10); **zerbait gertatzen da** (47); **zerbait gertatzen dela** (14); **zerbait gertatzen den** (11); **zerbait gertatzen denean** (9); **zerbait gertatzen zaio** (9); **zerbait gertatzen zait** (10); **zerbait gisa** (22); **zerbait gisaz** (102); **zerbait gogoratu** (10); **zerbait gordetzen** (11)

**zerbait handi** (17); **zerbait handia** (21); **zerbait harrigarria** (10); **zerbait hartu** (41); **zerbait hartu nahi** (14); **zerbait hartzeko** (16); **zerbait hartzen** (22); **zerbait hartzera** (21); **zerbait hautsi** (15); **zerbait hobea** (21); **zerbait holako** (10); **zerbait hori** (47); **zerbait horrek** (13); **zerbait horretaz** (13); **zerbait hura** (10)

**zerbait idatzi** (34); **zerbait idatzi zuen** (13); **zerbait idazteko** (10); **zerbait idazten** (11); **zerbait ikaragarria** (12); **zerbait ikasi** (33); **zerbait ikasiko** (14); **zerbait ikasten** (12); **zerbait ikusi** (67); **zerbait ikusi zuen** (13); **zerbait ikusteko** (13); **zerbait ikusten** (33); **zerbait interesgarria** (9); **zerbait irakurri** (10); **zerbait irakurtzen** (11); **zerbait izan** (127); **zerbait izan behar** (18); **zerbait izan da** (15); **zerbait izan zela** (9); **zerbait izan zen** (10); **zerbait izanen** (18); **zerbait izango** (49); **zerbait izango da** (11); **zerbait izatea** (17); **zerbait izatekotan** (15)

**zerbait jakin** (44); **zerbait jakin nahi** (12); **zerbait jan** (46); **zerbait jarri** (10); **zerbait jateko** (23); **zerbait jaten** (10); **zerbait jatera** (13); **zerbait jazo** (10); **zerbait jo** (13); **zerbait jokoan** (10

**zerbait kendu** (11); **zerbait kontatu** (23); **zerbait kontatzen** (11)

**zerbait larria** (22); **zerbait lor** (11); **zerbait lortu** (28); **zerbait lortzeko** (25)

**zerbait maite** (10); **zerbait makur** (10); **zerbait mugitu** (9); **zerbait mugitzen** (19); **zerbait murduskatu** (9); **zerbait murmurikatu** (12)

**zerbait nabaritu** (9); **zerbait nahi** (71)

**zerbait oker** (9); **zerbait on** (13); **zerbait ona** (21); **zerbait onik** (13); **zerbait oso** (32); **zerbait ote** (20)

**zerbait pentsatu** (24); **zerbait pentsatu beharko** (10); **zerbait pentsatzen** (15); **zerbait prestatzen** (9)

**zerbait sartzen** (11); **zerbait sentitu** (22); **zerbait sentitzen** (15); **zerbait sortu** (12); **zerbait sortzea** (10); **zerbait sortzen** (16); **zerbait sumatu** (11); **zerbait sumatzen** (9); **zerbait susmatzen** (10)

**zerbait topatu** (10); **zerbait txarra** (15)

**zerbait ulertu** (12); **zerbait ulertzen** (14); **zerbait utzi** (21)

**zerbait xuxurlatu** (14); **zerbait xuxurlatu zion** (9)

**zerbait zegoen** (21); **zerbait zela** (33); **zerbait zen** (74); **zerbait zeukan** (13); **zerbait zor** (10); **zerbait zuen** (14)

**zeukan zerbait** (10); **zezakeen zerbait** (12); **zidan zerbait** (25); **zion zerbait** (27); **ziren zerbait** (9); **zitekeen zerbait** (10); **zitzaidan zerbait** (11); **zitzaion zerbait** (17); **zuen zerbait** (157); **zuk zerbait** (13); **zuten zerbait** (32)

**zerbaitegatik izango da** (13)

**beste zerbaitek** (46); **zerbaitek esaten** (12)

**beste zerbaitekin** (14)

**antzeko zerbaiten** (11); **beste zerbaiten** (76); **beste zerbaiten bila** (12); **beti zerbaiten** (11); **den zerbaiten** (44); **duen zerbaiten** (12); **ez den zerbaiten** (9); **holako zerbaiten** (43); **horrelako zerbaiten** (13); **zen zerbaiten** (11)

**zerbaiten alde** (19); **zerbaiten atzetik** (9); **zerbaiten beharra** (22); **zerbaiten berri** (14); **zerbaiten bila** (141); **zerbaiten bila ari** (12); **zerbaiten edo** (9); **zerbaiten egiteko** (10); **zerbaiten egitera** (15); **zerbaiten esperoan** (9); **zerbaiten falta** (9); **zerbaiten kontra** (9); **zerbaiten mentura** (11); **zerbaiten menturan** (9); **zerbaiten premia** (9); **zerbaiten susmoa** (12); **zerbaiten zain** (29)

**beste zerbaitengatik** (15)

**zerbaiterako balio** (19)

**beste zerbaitetan** (49); **zerbaitetan pentsatzen** (9)
**beste zerbaitetarako** (10); **zerbaitetarako balio** (31); **zerbaitetarako balio izan** (9); **zerbaitetarako balioko** (10)
**beste zerbaitetaz** (11)
**beste zerbaitez** (18); **zerbaitez ari** (13)
**beste zerbaiti** (21); **holako zerbaiti** (10); **zerbaiti buruz** (30)

---

## **zerbaitxo** *(orobat* ***zerbaitxu*** *g. er.) izord adkor* zerbait.

Eta Katedralaz ere oroitzen naiz, **zerbaitxo** behintzat. Txillardegi

Eta hori, pestari buruz, badut **zerbaitxo** erraiteko, gero... Menane Oxandabaratz

-Nik dakidana -esan zuen Santxok- gizon-usain antzeko **zerbaitxo** nabaritu nuela. Patxi Ezkiaga

---

## zerbaitxu ik **zerbaitxo**.

---

## **zerbaixka** *(orobat* ***zerbeixka*** *g.er.) izord adkor* zerbait.

Besteak etzan ondoan, bakoitzak ekarri zuen **zerbaixka**, jateko. Marzel Etxehandi

Bankoan edozoin kondutan pausatu diruak **zerbaixka** ekartzen du eta Frantzian aldiz beti kurri den konduarentzat ez da sos baten intresik altxatzen ahal. Herria

- **Zerbaixka** jan-eta, joaten ahal gintezke zezen plazaren ikusterat. Janbattitt Dirassar

Han atzeman nuen Pierre-Philippe aprendiza, kutxu-kutxu **zerbaixka** ari zela. Daniel Landart

Jateko gauza **zerbaixka** erosteagatik, nahiz ez zuen gose mikorik. Janbattitt Dirassar

---

## **zerbanako** *iz* ik **norbanako**.

Ez zen bakarrik zakur sinbolo generikoak bere baitan hainbeste **zerbanako** hartzen zuelako ulertzea kosta izatea: gogaikarri zitzaion hirurak eta hamalauko zakurrak (profilez ikusia) eta hirurak eta laurdeneko zakurrak (aurrez ikusia) izen bera izatea. Juan Garzia

---

## **zerbatana** *iz* tutu estua, indarrez putz eginez beste muturretik dardoak edo kidekoa jaurtitzeko erabiltzen dena.

Beren **zerbatanekin**, umeek gezitxoak botatzen dizkiote. Bernardo Atxaga

**Zerbatanez** hornitutako mutilak zeuden predikariaren ondoan lasai-lasai eserita. Koro Navarro

Orain esatea badaukat: billeteak bildu-bildu egin, eta *Action Man* zaharraren **zerbatanaren** barruan gorde nituen! Jesus Mari Mendizabal

---

## zerbatt ik **zerbait**.

---

## zerbeit ik **zerbait**.

---

## zerbeixka ik **zerbaixka**.

---

## **zerbel** *(corpusean* ***zarbel*** *soilik)* **1** *adlag* moxkor.

–Agian behar bezala dator –esan zuen izeba Emilyk berehala. Apur bat **zarbel**, andrea. Lopez de Arana

**2** epela.

Zer dira ba zakil-baba **zarbelak**! Anjel Lertxundi

---

## **zerbeza** *(164 agerraldi, 35 liburu eta 4 artikulutan)* **1** *iz* garagardoa. ik **garagardo**.

Batzuetan kafesnea hartzen dute, **zerbezak** besteetan. Pako Aristi

Azkenerako edozein **zerbeza** edaten zuten, beti ere kontuan harturik ez zela beltza. Joxemari Iturralde

Hamar minutu egiten zituen geltokian, lokomotorak ura eta gidariak **zerbeza** hartzen zuten bitartean. Pako Aristi

**Zerbezari** tragoa jo diot. Xabier Mendiguren Elizegi

Azpeitiko kalean gora eta behera **zerbeza** batzuk jo ondoren, iluntzeko trenean itzuli ziren herrira. Pedro Alberdi

Toldopean, hiru gazte mahai baten bueltan, **zerbeza** txarrotik edalontzietara ateratzen. Iñigo Aranbarri

Aski pozik, halere, **zerbeza** hura benetan bikaina zelako: Yucateca, iparraldekoa baino hobea. Joxe Austin Arrieta

Kokakola ere droga da, eta **zerbeza**, eta telebista... Xabier Mendiguren Elizegi

**2** botila edo edontzi bat zerbeza.

Ongi sentitzen zela nire ondoan, eta bi **zerbezek** sentiberatasuna areagotu ziotela. Ramon Saizarbitoria

Geroztik **zerbeza** askotxo edan dut tabernan bakar samarrik, eta zigarro mordo bat erre. Iñaki Segurola

Anne **zerbeza** bat eskatu eta, itzulitakoan, Lucyren ondoan eseri zen. Joxemari Iturralde

Potzolok **zerbeza** eskatu zuen berriz. Aingeru Epaltza

-Beste **zerbeza** bat, politte? Pako Aristi

Bigarren **zerbeza** ere hustu dugu. Xabier Mendiguren Elizegi

Kafetegi bateko terraza batean eseri **zerbeza** bana hartzeko asmoz. Joxemari Iturralde

**Zerbezari** tragoa jo diot. Xabier Mendiguren Elizegi

**3** (izenondo eta izenlagunekin)

Nik behintzat gehiago gomendatzen dut liburua etxean irakurtzea, lasai-lasai, norberaren gustuko musikak inguratuta eta **zerbeza** on batzuen laguntzarekin. -**Zerbeza** berezi bat aterako diat, gaurkoak merezi dik. Berria - Kultura

Barrara jo nuen segidan, eta **zerbeza** hotz bat eskatu. Josetxo Azkona

**Zerbeza** handi bat eskatzen duzu eta hurbileneko mahaian dagoen emakume lodi arruntari begiratzen diozu. Lourdes Oñederra

Ni mini-sukaldean egon nintzen tarte luze batez, sojazko **zerbeza** bat ahogozatzen eta egunkari atzeratuak irakurtzen. Iban Zaldua

**4** (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

Zerbitzatzerakoan eroritako **zerbeza** tantanak. Pako Aristi

**Zerbeza** katxi bat lurrera doa. Pako Aristi

**Zerbeza** botila hustu, platera jaso eta barrura sartu da, sukaldera. Paddy Rekalde

Ohartu orduko, **zerbeza** lata bana genuen eskuetan. Aingeru Epaltza

**Zerbeza** pote batzuk geratzen ziren eta baita camembert gazta zati bat ere. Joxemari Iturralde

**Zerbeza** pare bat hartu eta kanpora irten ziren. Paddy Rekalde

**Zerbezari** trago luze bat eman dio Itsasok. Pako Aristi

**Zerbeza**-hondar hau hiltzen ari da edalontzi zilindrikoaren hondoan. Jon Alonso

**Zerbeza** iturritik katxiak ateratzen. Sonia Gonzalez

Edariak banatzen zituela eta **zerbeza** upelak begiratzera zihoala esaten zuen gizonak. Berria - Euskal Herria

**5** (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa)

Hara joaten direnean ekartzen dute, eta batzuetan aldizkariarekin ordaintzen dizkidate kafesne-**zerbezetan** egindako zorrak. Pako Aristi

**hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
**bi zerbeza** (3); **zerbeza bana** (5); **zerbeza bat** (22); **zerbeza batzuk** (5)
**zerbeza botila** (5); **zerbeza botilak** (4); **zerbeza edaten** (4); **zerbeza eskatu** (3); **zerbeza lata** (3); **zerbeza pare** (3)

---

**zerbezatxo** *iz adkor* botila edo edontzi bat zerbeza.

**Zerbezatxoren** bat hartzen dut ondorengo egunetan... beti alkoholarekin hasten naiz ni, beti izan da horrela, ondoren dator droga, baina alkohola izan da, hasieratik, sarrerako atea. Pako Aristi

---

**zerbezazale** *(corpusean **zerbeza zale** soilik)* *izond* zerbezaren zalea dena.

Zero grabitatean daude Strap Trip-eko lau protagonistak, hibernazioan, galtzontzilotan eta **zerbeza zale** amorratuen sabelaldiak lotsarik gabe erakusten. Berria - Kultura

---

**zerbido** *izond/iz* oreinaren familiakoa dena.

**Zerbidoen** familiako ugaztun artiodaktiloa da oreina. Berria - Gaiak

---

**zerbieta** *(orobat **zerbita**)* *iz* ezpainzapia, ahozapia. ik **serbilleta**.

Ezpainak garbitzen zituela egin zuen hitz, **zerbietaren** ostetik, esana ezkutatuz. Koldo Izagirre

Mahaien gainean, mahai-tresnak -platerak, **zerbietak**, koilarak, sarfurtxak, nabalak eta ganibetak- eta argi-mutil batzuk zeuden. Joan Mari Irigoien

Soberakin lituzkeen jantzi, mihise, mahai gaineko, **zerbita** eta erridauak biltzea. Herria

---

**zerbikal** *iz* garondo ornoa.

Nik neure ziegan egiten dut egunero **zerbikalen** eta lunbarren gimnasia. Koldo Izagirre

Mediku batek lepoan eginiko masaje oker baten ondorioz, **zerbikalak** nahiko minduta ditut. Berria - Kirola

Eta **zerbikalak** deslekuan. Koldo Izagirre

Zaurituak Basurtoko ospitalera eraman zituzten, **zerbikaletan** mina zutelako, baina ez dute zauri larririk. Berria - Euskal Herria

Ggaixotasun larriaklepoko edo **zerbikaletako** minbizia eta cistifibrosia kasu ere sor daitezke ubikitinaren zikloan izaten diren akatsengatik. Berria - Gaiak

Istripuaren ondorioz, Aiensaren arrebak **zerbikaletako** zaintiratua eta sorbaldako kontraktura izan ditu. Berria - Euskal Herria

---

zerbita ik **zerbieta.**

---

**zerbitu** *(55 agerraldi, 31 liburu eta 4 artikulutan; orobat **serbitu** g.er.)* , zerbi, zerbitzen **1** du *ad* zerbitzatu. ik **zerbitzatu.**

Hiltzaile fanatiko bat, bere printzea hilez Jainkoa **zerbitzen** duelakoan, [...]. Juan Martin Elexpuru

Erregeak galdegin zion: -Tziba al haiz? Hark erantzun: -Hala naiz, zu **zerbitzeko**. Elizen arteko biblia

Feudoak mugigarriak zirenean, haiek **zerbitzeko** moduan zeuden pertsonei ematen zitzaizkien, eta adin gutxikoak kanpo geratzen ziren. Iñaki Iñurrieta

Ez nork **zerbitu** behar nauen, baizik eta neuk nor **zerbitu** behar dudan, Hasan bera atera zitzaion **zerbitzera**. Berria - Kultura

Gure amandre Dominika zenak, Madrilen markesa baten etxean **zerbitzen** ari zela, tu-ka egin zien behin ate-joka etorritako handiki usteko batzuei. Joxerra Garzia

Ikastera, Israelgo Armadan **zerbitzera** edota bizitzen gelditzeko asmotan joaten dira. Berria - Mundua

**2** janariez eta edariez mintzatuz, mahaira ekarri. ik**zerbitzatu 2.**

Kamareroa **zerbitzen** hurbildutakoan, xanpaina eskatu zuen Luigik. Josu Landa

Harrera-tokira jaisten naiz ordaintzeko, atzo gauean afaria **zerbitu** zidan neska ilehori berbera dago. Mikel Hernandez Abaitua

Bikoteak jan-edanean jarraitu zuen, oraingoan mirabeak **zerbiturik**. Patxi Zubizarreta

Eltzeko, bezperako babarruna eta aza nahastuta atera zuen; guk geuk **zerbitzeko**. Inazio Mujika Iraola

Zergatik ez zatoz berriz geroxeago, bazkaritakoei **zerbitzen** amaitu ondoren edo? Txillardegi

Neuk **zerbituko** dut ardoa. Unai Iturriaga

Barran portugesa agertu zen eta hiru garagardoak **zerbitu** zizkigun. Joseba Sarrionandia

Postrea **zerbitu** zenean jende asko hasi zen esaten gustu txarra zeukala arrozesneak. Mikel Hernandez Abaitua

Ez, alkoholik ez da **zerbitzen** ordu honetan. Joseba Sarrionandia

Dionisos bere buruari txikito bat **zerbitzen** ari zen. Unai Iturriaga

Vicuña kaleko bodegoira joko zuen, kafea -edo kafearen halakotsua- **zerbitzen** zuen bodegoi bakarrera. Josu Landa

Tea **zerbitzeko** ontzia. Javi Cillero

Hemen behintzat ia denetik egitea tokatzen zait: mahaia jarri, jaso, otorduak **serbitu**, meriendak prestatu, batzuetan ontziak garbitzen edo lehortzen laguntzea ere bai, eta ume pila batentzat gainera! Xabier Mendiguren Elizegi

---

zerbitxatu ik **zerbitzatu**.

---

zerbitxu ik **zerbitzu**.

---

**zerbitzagarri** *izond* baliagarria.

Argumentu hauek azkenean bilatzen zena eskuratzen ez badute ere, dena dela, beti onuragarria eta gure judizioen zuzenketarako **zerbitzagarria** den zerbait eskuratzen dute. Ibon Uribarri

---

**zerbitzaile** *(corpusean **zerbitzale** soilik)* *iz* zerbitzaria.

Eta bakearen **zerbitzale** direla gehienak, gure inguruan. Herria

---

**zerbitzal** **1** *izond* laguntzeko prest dagoena.

Burua ez zaiok bihotzari kide hurbilago, ez eskua ere ahoari lagun **zerbitzalago**, nola baitzaio Danimarkako tronua hire aitari. Juan Garzia

Antzinako izkiriatzaile haien obran puntuazio guztia [...] idazlearen laguntzaile argi eta **zerbitzal** honek ezarria da, euli arruntak, *Musca maledicta*-k, alegia. Xabier Olarra

Emateko zeukan guztia emanda zegoen; oso **zerbitzala** izan zen beti, hala ere, bakoitzari bere zer dena. Juan Garzia

Matxista baitut nik andrea, eta **zerbitzala** oso. Patziku Perurena

Percy senarrari ere atsegina egiten zitzaion gazte hura, hain **zerbitzala** beti. J.M. Olaizola "Txiliku"

**2** (adizlagun gisa)

Neskame saldo batek inguratu nau, **zerbitzal**, adeitsu eta batzuk polit, ekipaia kentzeko. Koldo Izagirre

---

**zerbitzaldi** *iz* zerbitzen den aldia.

Israeldarrek **zerbitzaldia** egin ohi zuten erregearen gudarostean. Elizen arteko biblia

Gudari-talde bakoitza hogeita lau mila gizonekoa zen, eta urte osoan hilabete banako **zerbitzaldiak** egin ohi zituzten. Elizen arteko biblia

Lebitar batzuk izendatu zituen Davidek Jaunaren kutxa aurrean **zerbitzaldia** egin eta Jauna, Israelen Jainkoa, ohora, ospa eta gorets zezaten. Elizen arteko biblia

**Zerbitzaldia** larunbatez duzuen apaiz eta lebitarron taldekook, tenpluko sarrerak zainduko dituzue. Elizen arteko biblia

---

zerbitzale ik **zerbitzaile**.

---

**zerbitzarazi**, zerbitzaraz, zerbitzarazten du *ad* zerbitzatzera behartu.

Bere aurrean zituen janarietatik **zerbitzarazi** zien Josek. Elizen arteko biblia

Bi edariak paperezko basoetan atera zizkigutenez, nirea gibelat bidali eta berinezkoan **zerbitzarazi** nion kamareroari. Aingeru Epaltza

---

**zerbitzari** **1** *iz* norbaiten edo zerbaiten zerbitzuan dagoen pertsona. ik **mutil; mirabe; morroi; sehi**.

-Hila da Moises, nire **zerbitzaria**. Jose Antonio Mujika

Dukea eta bere **zerbitzariak** paretaz bestaldeko gelan zeuden aulki bigunetan eseririk. Felipe Juaristi

**Zerbitzariak** logelak prestatzera igo ziren. Felipe Juaristi

Klarak, Kristoren mirabe apal eta gauzaezak eta Andre pobreen **zerbitzariak**, Salbamenaren poza opa dio Salbatzaileagan, eta desira daitekeen on guztia. Askoren artean

Faraoiaren **zerbitzariek** ere ikusi zuten Sarai eta Faraoiaren aurrean arras famatu zuten. Jose Antonio Mujika

Bi **zerbitzari**, ederretan ederrak, zeuden ate itxiaren alde banatan. Juan Kruz Igerabide

Bidal itzak **zerbitzariak** nire etxera, Menelaoren opariak han dauzkak eta. Juan Kruz Igerabide

**Zerbitzariak** armairutik bi tomo lodiak ekarri, mahai gainean utzi, eta hurrengo eskariaren zain jarri zen. Anton Garikano

Grisez jantzitako **zerbitzari** batek eutsi zion guardasola, doluminak eman eta bizpahiru hitz elkarri esaten zizkioten bitartean. Joxemari Urteaga

Senarra eta bi **zerbitzariak**, sukaldaria eta neskamea. Joxemari Urteaga

Festen zelebratzeko, Urbiaingo herri kasik osoa izan genuela morroi edo neskame, **zerbitzari** edo mirabe. Joan Mari Irigoien

**2** (izenondo eta izenlagunekin)

Huraxe naiz, ene jauna, eta berorren **zerbitzari** xumea beti ere. Juan Garzia

Badiat **zerbitzari** zahar bat, Ulises hazi zuena hain zuzen. Juan Kruz Igerabide

"Profetaren **zerbitzari** handia," esan zion Txibuk Inperialeko Xeikak Armada Garaitezineko Mamuxari. Xabier Olarra

Bretainiako erlijiozaletasunari bere ohorea eta umildade osoa eskaintzen zizkion **zerbitzari** prestu eta leiala zen. Joana erreginaren **zerbitzari** leialak izan zirela. J.M. Olaizola "Txiliku"

Enperadoreak, ikusirik Alexis bere **zerbitzari** leial, bipil eta ausartaren etorkizuna beltza zela, [...]. Felipe Juaristi

Ez duzu **zerbitzari** umil honen zuriketarik behar zure izen ona gordetzeko. Anjel Lertxundi

Ate handi baten aurrean gelditu zen, nondik letoizko botoiekiko **zerbitzari** beltzak abiatzen baitziren haren bila. Lopez de Arana

Ez zuten hartu beren etxeetan, kanpoan zirela esan zioten **zerbitzari** ongi ikasiek. Felipe Juaristi

**Zerbitzari** andreek, gonei gora eta behera eraginez, dena eskobatzen dute. Julen Gabiria

**3** (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

Garbiturik, lurrin gozoz bustirik eta **zerbitzari**-jantzi dotorea soinean. Felipe Juaristi

Ze pinpirina, ze gaztea ematen zuen gona luzearekin eta **zerbitzari** -txanoarekin. Julen Gabiria

Hobe da **zerbitzari** lan egitea, eskupekoak ematen dituzte. Lopez de Arana

Txitxikovek, **zerbitzari** -jendea hain eszena itsusiaren lekuko izan ez zedin eta, aldi berean, Nozdriovi eusten saiatzea alferrikako lana zela sumaturik, besoak askatu zizkion. Jose Morales

Giza aberearen promozio-kondena hark, urbearen eta eskrituraren jabe eta **zerbitzari** bihurtze hark, alegia, ematen dio oraino bere jitea, eta ez du aldatzeko itxurarik. Patziku Perurena

**4** (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa)

Mahai- **zerbitzari** lirainen jantziak. Jose Antonio Mujika

Mandatariek nekazarien seme-gazteak eramaten zituzten gaztelura, gela-morroi, ezkutari, edari- **zerbitzari** ... lanbide onak eskaintzen zizkien gazte haiei, diru freskoa gurasoei. J.M. Olaizola "Txiliku"

Bere anaia guztiak -erregearen semeak- gonbidatu zituen, eta baita Judako errege- **zerbitzari** guztiak ere. Jose Antonio Mujika

**5** (izenondo gisa)

Presuna **zerbitzari** , bihotz handikoa, bizi gehiena beti lanean ereman du Kattina Dachaguer denek maite zuten emazteak, 81 urte. Herria

**6** (adizlagun gisa)

Orain, don Justinianoren morroia zen, eta harekin bizi zen, jopu eta **zerbitzari** , garai batean don Esteberekin bezala. Joan Mari Irigoien

**7** irud/hed

Eta hitzemanez beti segituko duela euskararen **zerbitzari** izaiten. Herria

«Askatasunaren eta demokraziaren **zerbitzariak** » izan direla gaineratu zuen. Berria - Euskal Herria

Bere gain hartu zuen erantzukizuna, eta nire **zerbitzari** sexuala bihurtu zen, nik hasieran susmatu ere egin ez nuen moduan. Karlos Zabala

**8** hotel, taberna edo jatetxe batean bezeroak zerbitzatzen dituen langilea. ik **mutil; neskato**.

Jatetxeetako **zerbitzariek** 6,80 dolar irabazten dituzte batez beste, eta supermerkatuko diruzainek 7,40. Berria - Mundua

Ghirardellin txokolatea hartzera geratu ginelarik, **zerbitzariak** senar-emaztetzat hartu gintuen. Bernardo Atxaga

Maiek, kontuarrean zutik, **zerbitzariari** bi whisky manatu zizkion. Itxaro Borda

**Zerbitzaria** etorri zen garagardoarekin. Migel Angel Mintegi

Bidean nindoala, garagardotegiko **zerbitzariak** papertxo batean idatzitako helbideari begi eman nion: Frau Streicher, Rossen Strasse 17, irakurri nuen. Alberto Ladron Arana

Jatetxe merkeetako **zerbitzariek** menua jakinarazteko ohi duten doinua zerabilen. Aingeru Epaltza

**Zerbitzariak** -beti bezala-, zilarrezko erretilu batean eraman zion ardoa Konraden gelara. Xabier Olarra

**Zerbitzariek** poliki-poliki hasi zuten zerbitzua, berandu zetozenei iristeko astia emateko, eta gero platerak berriro ekarri beharrik ez izateko. Josu Zabaleta

Agudo hurbildu zitzaizkigun hainbat **zerbitzari** jaka zuri eta praka beltzez jantzirik, eta menuak banatutakoan bertan geratu ziren, guk zer eskatuko zain. Xabier Montoia

**Zerbitzari** , beste botila bat mesedez. Joxemari Iturralde

**Zerbitzariek** lehendabizi zizki-mizkiak ekarri zituzten, hotzak. Felipe Juaristi

**Zerbitzariak** plantxan eginiko xerra handi bat eraman zuen, perretxikoz, azenario xehatuz, ilarrez eta patata-purez osatutako guarnizio batez hornitua. Lopez de Arana

-Artistak dira -esan zidan **zerbitzariak** kafea ekartzean-. Monika Etxebarria

Hurrengo ilunabarrean Nikolas Mickeviciusen jauregira joan zen afaltzera, eta **zerbitzariek** mahaia jaso zutenean lorategira atera ziren hitz egitera. Felipe Juaristi

**Zerbitzarien** joan etorriek aditzera eman zieten ixteko ordua zela. Migel Angel Mintegi

**Zerbitzariaren** laguntzaileak beste plater zikin pila bat ekarri zuen. Lopez de Arana

Ez naiz dendari, botikes, saltzaile, **zerbitzari** eta kasta bertsuko jendearekin kontu-kontari ibiltzen direnetarik. Aingeru Epaltza

**9** (izenondo eta izenlagunekin)

Kopak lurrinez estali ziren **zerbitzari** zaharrak ardoa kristal landuzko pitxer batetik zerbitzatzean. Lopez de Arana

**Zerbitzari** gazte bat inguratu zitzaigun oraingoan eta edalontziaren kristal pusketak hasi zen kontu handiz erretiratzen. Joxemari Iturralde

**Zerbitzari** ilehorixkak beste garagardo bat ipini du barra gainean. Sonia Gonzalez

Antoniok ere, hemengoa izanagatik, **zerbitzari** portugaldarren gisara jokatzen du barraren atzean: gorputza motel eta gogoa auzoan. Aingeru Epaltza

Gaxton bera Trocaderoko ostatu bateko **zerbitzari** trebea zen. Itxaro Borda

**Zerbitzari** abegi txarrekoari ezikusia eginez, niganaino egin zuen zuzen-zuzen. Aingeru Epaltza

Jangelaren ardura zeukan zuriz jantziriko **zerbitzari** beltza. Xabier Montoia

**Zerbitzari** automatikoak (produktuen kode-barra irakurri eta visa txartela egiaztatutakoan, irteteko langa irekiko dutenak, adibidez) biderkatuko dira jan-edariak kontsumitzen diren toki publikoetan. Edorta Agirre

Goizaldeko ordu bi eta erdiak jo gabe kanporatu ninduen, azken bezeroekin batean, **zerbitzari** begi-ilunak. Aingeru Epaltza

**10** (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

Neska **zerbitzari** -mahaira abiatu zen eta bidean, burua jiraturik, musu bat bota zion mutilari, airezkoa eta eskuz bidalia. Felipe Juaristi

Neskato txinatar irribarretsu bat ailegatu zitzaigun, **zerbitzari** lanetan, eta afaria aukeratu genuen. Joxemari Iturralde

**11** (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa)

-Nik behintzat -esan zuen Thomas jaunak-, oraindik ez dut erabaki zer hartu, taberna- **zerbitzari** bat ala emagaldu bat. Koro Navarro

Mahai **zerbitzarien** aginduak pilatu egiten ziren. Iñaki Zabaleta

Ardo- **zerbitzariak** egin dezala lehen eskaintza, eta, denok banan-banan gauza bera egiten dugunean, goazen etxera lotara. Juan Kruz Igerabide

Sukaldari- **zerbitzari** automatikoak. Edorta Agirre

**12** (izenondo gisa)

Neska **zerbitzariek** platerak, estalkiez gordeta, binaka aurkezten dituztela, eta eskuak estalki banatako heldulekuetan jarrita. Ramon Saizarbitoria

Ailegatu zen neskato **zerbitzaria** eta, edariarekin batera, platertxo batean diru-kontua ekarri zion. Joxemari Iturralde

**13** (adizlagun gisa)

Vinod gaztea hartu zuten **zerbitzari** , otorduak prestatzeko, bazterrak garbitzeko eta etxeko beste eginkizunak egiteko. Gotzon Garate

Egun batean, St. André plazako jatetxe batean, bertan **zerbitzari** zegoen Aiherrako neska bat ezagutu zuen. Pablo Sastre

Halako batean, Neuillyko palazioan abandonatu zuen Jeanne, Frantziako Asanblea Nazionalaren egoitzaren saihetseko karrikan zegoen Bar des Amis ostatuan **zerbitzari** jartzeko, Gaxtoni esker. Itxaro Borda

Bide bazterrean zegoen te-toki batean hasi zen **zerbitzari** . Gotzon Garate

Hainbat hilabeteren buruan, Ivanek ere lana aurkitu zuen, baina beste herri batean, **zerbitzari** jatetxe handi batean. Eskarne Mujika

**14** informatikan, sare baten ordenagailu nagusia.

Sare batean, sare gune den softwarea da **zerbitzaria** . Jukos enpresako eledun Alexandr Shadrinek adierazi zuen **zerbitzari** informatikoa eraman izana «enpresaren jarduerarentzako benetako mehatxua» dela, egoitza nagusia eta filialen arteko konexioa eragotzi eta petrolio ekoizpena eta garraioa eten ditzakeelako. Berria - Gaiak

Otsailaren 9an webgunearen **zerbitzariari** orrialdea bertan behera uzteko agindua eman zion Atzerri Ministerioak. Berria - Mundua

Internetez bidaltzen diren mezuen erdiak Virginiako **zerbitzarietatik** pasatzen dira egun. Berria - Gaiak

FBIk Indymedia Interneteko albiste gune independentearen **zerbitzari** batzuetako disko gogorrak eraman zituen ostegun goizean Rackspace enpresak AEBetan eta

Erresuma Batuan dituen bulegoetatik. Berria - Gaiak

Interneteko **zerbitzari** bat dauka enpresetarako. Antton Olano

Interneten dauden web **zerbitzariak** etengabe ugalduz doazela eta 2000. urtean, 2.000 milioi web orrialde baino gehiago daudela. Iñaki Heras

Blogen mekanika bestelakoa dela azaldu du Zabalak: «Orriak dinamikoak dira, programa **zerbitzarian** dagoelako eta erabiltzaileak egiten duen bakarra, atzeko ate batetik sartuz, eta hor dituen formularioak betetzea da, maketatzen burua hausten ibili gabe». Berria - Harian

**hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**

**aitaren zerbitzari** (4); **beraren zerbitzari** (8); **bere zerbitzari** (61); **bere zerbitzari leial** (4); **bere zerbitzari nauena** (4); **bere zerbitzari txiki** (5); **ene zerbitzari** (14); **ene zerbitzari davidi** (4); **erregearen zerbitzari** (5); **goi goikoaren zerbitzari** (4); **goikoaren zerbitzari** (4); **guzien zerbitzari** (4); **haren zerbitzari** (17); **herriaren zerbitzari** (7); **honen zerbitzari** (5); **jainkoaren zerbitzari** (40); **jauna bere zerbitzari** (4); **jaunak bere zerbitzari** (9); **jaunaren zerbitzari** (13); **jauregiko zerbitzari** (4); **jesu kristoren zerbitzari** (7); **kristoren zerbitzari** (16); **neska zerbitzari** (8); **neure zerbitzari** (17); **nire zerbitzari** (23); **ostatuko zerbitzari** (6)

**zerbitzari apal** (5); **zerbitzari apala** (4); **zerbitzari bezala** (6); **zerbitzari bihurtu** (4); **zerbitzari daviden** (4); **zerbitzari davidengatik** (4); **zerbitzari davidi** (14); **zerbitzari den gure** (4); **zerbitzari dira** (4); **zerbitzari egin** (8); **zerbitzari frantzisko** (10); **zerbitzari frantziskok** (5); **zerbitzari gazte** (7); **zerbitzari gisa** (7); **zerbitzari izan** (10); **zerbitzari izan nahi** (6); **zerbitzari izanen** (6); **zerbitzari izango** (7); **zerbitzari izateko** (9); **zerbitzari izatera** (6); **zerbitzari izatera baizik** (4); **zerbitzari lagun** (4); **zerbitzari lanetan** (5); **zerbitzari leial** (16); **zerbitzari leiala** (7); **zerbitzari leialak** (5); **zerbitzari moisesek** (5); **zerbitzari moisesen** (8); **zerbitzari moisesen bitartez** (4); **zerbitzari moisesi** (4); **zerbitzari nauena** (4); **zerbitzari nauzu** (5); **zerbitzari on** (4); **zerbitzari ona** (4); **zerbitzari profetei** (5); **zerbitzari profeten** (8); **zerbitzari profeten bidez** (4); **zerbitzari txiki** (5); **zerbitzari txit** (8); **zerbitzari umil** (5); **zerbitzari zaharrak** (8)

**zeure zerbitzari** (62); **zeure zerbitzari davidi** (8); **zeure zerbitzari hau** (6); **zeure zerbitzari honen** (6); **zeure zerbitzari honi** (13); **zion zerbitzari** (4); **zituen zerbitzari** (4); **zuen zerbitzari** (17); **zure zerbitzari** (69); **zure zerbitzari hau** (10); **zure zerbitzari honek** (9); **zure zerbitzari honi** (4); **zure zerbitzari txit** (4); **zuten zerbitzari** (5)

**bere zerbitzaria** (12); **jainkoaren zerbitzaria** (35); **jakob zure zerbitzaria** (4); **jaunaren zerbitzaria** (12); **kristoren zerbitzaria** (13); **neure zerbitzaria** (5); **nire zerbitzaria** (16)

**zerbitzaria bera** (4); **zerbitzaria etorri** (10); **zerbitzaria etorri zen** (5); **zerbitzaria hurbildu** (6); **zerbitzaria izango** (4); **zerbitzaria zen** (5); **zure zerbitzaria** (13)

**bere zerbitzariagan** (4)

**bere zerbitzariak** (14); **esan zuen zerbitzariak** (5); **haren zerbitzariak** (4); **jainkoaren zerbitzariak** (33); **jainkoaren zerbitzarien zerbitzariak** (4); **jaunaren zerbitzariak** (17); **kristoren zerbitzariak** (8); **nire zerbitzariak** (6)

**zerbitzariak alde egin** (4); **zerbitzariak bidali** (5); **zerbitzariak ekarri** (4); **zerbitzarien zerbitzariak** (4); **zure zerbitzariak** (7)

**jainkoaren zerbitzariarekin** (4)

**bere zerbitzariaren** (9); **jainkoaren zerbitzariaren** (13); **zerbitzariaren bidez** (5)

**bere zerbitzariei** (15); **esan zien zerbitzariei** (4); **nire zerbitzariei** (5)

**jainkoaren zerbitzariek** (6); **jaunaren zerbitzariek** (5); **zerbitzariek erantzun zioten** (6); **zerbitzariek esan** (6); **zerbitzariek esan zioten** (4)

**bere zerbitzariekin** (9); **zerbitzariekin batera** (4)

**bere zerbitzarien** (11); **jainkoaren zerbitzarien** (12); **salomonen zerbitzarien** (5); **zerbitzarien artean** (9); **zerbitzarien ondorengoak** (6)

**bere zerbitzarietako** (4); **zerbitzarietako bat** (5); **zerbitzarietako batek** (4)

**bere zerbitzariez** (4)

**zeure zerbitzarioi** (7)

**jaunaren zerbitzariok** (5); **zeure zerbitzariok** (5); **zure zerbitzariok** (14)

**zure zerbitzarion** (5)

**zerbitzaririk apalena** (7); **zure zerbitzaririk apalena** (4)

---

## zerbitzariburu *(corpusean **zerbitzari-buru** soilik) iz* zerbitzarien buru den pertsona.

**Zerbitzari**-burua bazkaltzen ari baitzen. Anton Garikano

---

## zerbitzatu, zerbitza, zerbitzatzen *(998 agerraldi, 161 liburu eta 129 artikulutan; orobat **zerbitxatu** g.er. eta **zerbutsatu** g.er.)*

**1** du *ad* norbaiten edo zerbaiten zerbitzuan egon, hari zerbitzu egin, haren esanak bete. ik **zerbitu**.

Bizi zaitezte Jaunari zeharo emanak eta ez **zerbitza** bera besterik. Elizen arteko biblia

Nork bere joera gaiztoei jarraituz, jainko arrotzak **zerbitzatu** ditugu. Elizen arteko biblia

Nagusi sinestedunak dituztenek ez ditzatela gutxiets, fedean senide dituztela eta; aitzitik, hobeki **zerbitza** ditzatela, zerbitzu hori hartzen dutenak ere sinestedunak eta Jainkoak maitatuak baitira. Elizen arteko biblia

Fededuna izan arren, deabrua ere **zerbitzatuko** zukeen kazetari lan on bat eskainiz gero. Unai Iturriaga

Gure Portugaleko Jaun Andere Errege Erreginak 16 bat urtez **zerbitzatu** ditut. Piarres Xarriton

Haren soroan lana egin ez dutenak, beste nagusi bat **zerbitzatzen** dutenak, alde batera utziko ditu. Joan Mari Lekuona

"Haren beso gotorrak erresuma **zerbitzatzen** eta etsai gogorrengandik begiratzen" segi zezan. Aingeru Epaltza

Teismoa, ostera, guk **zerbitzatzen** dugun askatasunaren etsairik hilgarriena da berez. Juan Martin Elexpuru / Bego Montorio

Amodioa eta mendekua dituzu **zerbitzatuko**. Jon Muñoz

Ohoratzen duzue **zerbitzatzen** (--?) duzuen kirola. Herria

**Zerbitzatzen** dugun kausa zuzena da, gizateria osoaren kausa baita. Berria - Mundua

Errealitatea **zerbitzatzen** duen fikzioa da. Berria - Kultura

Ez naiz etorri **zerbitzatua** izatera, zerbitzari izatera baizik. Askoren artean

Armadan **zerbitzatu** zuenean hartu zuen erretzeko ohitura. Jose Morales

Guardian **zerbitzatu** izan balu, Jainkoak daki noraino iritsiko zen. Jose Morales

Zerbaitetan **zerbitza** al zaitzaket? Askoren artean

Sinesten dugu zuek eta guk **zerbitzatzen** dugun Jainkoak ez gaituela zigortuko behinola eman zigun erlijio batengatik heriotza jasan dugulako. Iñaki Iñurrieta

Jaunaren aurrean egindako halako ekintza batean, ondorengotzarako xedapenak egin ziren, feudoa oinordekoek **zerbitzatua** izan zedin. Iñaki Iñurrieta

**2** (adizlagun eta kidekoekin)

Legendunen lagun eta adiskide egin zen eta [...] beraiekin bizi zen eta apalki **zerbitzatzen** zituen. Hura baitute gu bezalakoek behar bilatu Jainko hobeki **zerbitzatzeko**. Askoren artean

Eliza militantearen lerrotan hain bulartsu **zerbitzatu** zuenak Eliza garailean egin zuen sarrera. Askoren artean

Ni, izan ere, banoa Jaunagana, eta bihotzez **zerbitzatu** dudan Jainkoagana iritsiko naizen konfiantza dut. Askoren artean

Jatorriz noble eta bertutez nobleago zen andre batek debozio berezia zion Frantzisko santuari eta begirunez **zerbitzatzen** zuen. Askoren artean

Seme-alabak hezitzea dela, edo ostatu ematea, fededunak apaltasunez **zerbitzatzea** edo nahigabetuei laguntzea. Elizen arteko biblia

Jainkoa gau eta egun etengabe **zerbitzatuz**. Elizen arteko biblia

Zerupeko sorkari guztiek, bakoitzak bere erara, beren Egilea zuk baino hobeto **zerbitzatzen** dute, ezagutzen eta obeditzen. Askoren artean

Ordena honetako anaia txiki izatera iritsiko zara eta bihotz zabalez **zerbitzatuko** duzu Jesu Kristo. Askoren artean

Jainkoa maitatuz eta bihotz-bihotzez eta gogo osoz **zerbitzatuz**. Elizen arteko biblia

Bihotz-berriturik **zerbitzatu** zaitzuten guztiei. Askoren artean

**3** (dio aditz gisa)

Ororen gaindik aintzat hartu behar denez gero Jainko gure Jaunari maitasun hutsez biziro **zerbitzatzea**, Jainko handiaren beldurra ere asko goretsi behar dugu. Patxi Altuna

Argi erakusten digu adibide honek, morrontza mesede dela askorentzat eta Jaungoikoari **zerbitzatzea** denontzat dela onuragarri. Imanol Unzurrunzaga
Han hasi ziren denak, zein baino zein areago, mairu andere ederrari **zerbitzatu** nahian. Patxi Ezkiaga
Jaunari eta Hiriari leial **zerbitzatzea** zin egin berri duzula jakin dut. Agustin Otsoa
-Herri azpiratuen patua da, handiei **zerbitzatzea**. Alberto Ladron Arana

**4** janariez eta edariez mintzatuz, mahaira ekarri.

Marina neska ezin ederragoak indioilar haragizko sandwich bikoitzak eta kafe izoztuak **zerbitzatu** zizkigun. Oskar Arana
Josuk kafea **zerbitzatu** zion, baita tostada ongi zamatua eman ere eskutara. Aingeru Epaltza
Bostetako tea **zerbitzatu** zion Ruche jaunak bere buruari. Jon Muñoz
Xanpaina **zerbitzatzen** zen mahaian Sebas kausitu zuen. Itxaro Borda
Hiriko koktelik onenak **zerbitzatzen** dituzten pub-ean. Iban Zaldua
Neure Pernod-a **zerbitzatu** berria zidatelarik, horra non ikusten dudan motots kaxkagorridun neskatxa arrotza aldamenetik igarotzen. Joxe Austin Arrieta
Edith edariak **zerbitzatzen** ari zen. Oskar Arana
Taberna-mutiletako batek esan zuen berak ron bat **zerbitzatu** ziola jaun hari. Irene Aldasoro
Derradan ezen festa eguneko bazkari ezin joriagoan, oreinkia **zerbitzatu** zigutela. Joan Mari Irigoien
Ostatuetan **zerbitzatu** ohi dituzten jakiak ekartzen hasi ziren. Jose Morales
Neskameari afaria **zerbitzatzeko** esatera noa. Aitor Arana
Isilik **zerbitzatzen** nien afaria, isilik oheratzen nuen Lucy, isilik ematen nion gabon musua Davidi. Oskar Arana
Bazkaria trebetasun handiz **zerbitzatu** zuen. Javi Cillero
Begiradaz kudeatzen ditu galtza eta librea beltzez jantzirik mahaia **zerbitzatzen** ari diren mirabeak. Xabier Olarra
Hona kafea, kikaran **zerbitzatua** -esan dit kikara mahai gainean utziz. Javi Cillero
Edariari ere adi egon behar, pozoi makur **zerbitzatua** emanen ez badiate. Aingeru Epaltza
Orai arte uniformedunak ene ondotik ari zituan ni suntsitu nahiz, eta orai ene **zerbitzatzen** ari dituk jatera emanez... Filipe Bidart

**hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**

**ardoa zerbitzatu** (3); **armadan zerbitzatu** (4); **bat zerbitzatu** (17); **batean zerbitzatu** (3); **bigarren platera zerbitzatu** (3); **edaria zerbitzatu** (3); **erregea zerbitzatu** (3); **gurtu eta zerbitzatu** (3); **jainkoa zerbitzatu** (7); **jauna zerbitzatu** (9); **kafea zerbitzatu** (9); **nola zerbitzatu** (4); **platera zerbitzatu** (3); **tea zerbitzatu** (5); **ura zerbitzatu** (3)

**zerbitzatu nahi** (19); **zerbitzatu nahi du** (4); **zerbitzatu nahian** (3); **zerbitzatu ondoren** (5)

**afaria zerbitzatua** (3); **etorri zerbitzatua izatera** (4); **zerbitzatua izan** (8); **zerbitzatua izan da** (3); **zerbitzatua izanen da** (11); **zerbitzatua izatera** (4); **zerbitzatua zen** (5)

**zerbitzatuak izan** (3); **zerbitzatuak izan dira** (3); **zerbitzatuak izanen** (4)

**jauna zerbitzatuko dugu** (3)

**zerbitzatuz eta gurtuz** (3)

**jainkoa zerbitzatzea** (4); **jauna zerbitzatzea** (4); **zerbitzatzea da** (3); **zerbitzatzea nahi** (3)

**jainkoa zerbitzatzeko** (3); **tea zerbitzatzeko** (3); **zerbitzatzeko prest** (3)

**afaria zerbitzatzen** (3); **ardoa zerbitzatzen** (3); **edariak zerbitzatzen** (3); **gosaria zerbitzatzen** (4); **guk zerbitzatzen dugun** (4); **jainkoa zerbitzatzen** (6); **jauna zerbitzatzen** (5); **mahaia zerbitzatzen** (3); **mahaiak zerbitzatzen** (5); **monasteriotik kanpo zerbitzatzen** (3); **tea zerbitzatzen** (6); **zaintzen eta zerbitzatzen** (3)

**zerbitzatzen ari** (26); **zerbitzatzen ari zen** (7); **zerbitzatzen ari zitzaion** (3); **zerbitzatzen duzun jainkoak** (4); **zerbitzatzen hasi** (10); **zerbitzatzen hasi zen** (3); **zerbitzatzen hasiko** (4); **zerbitzatzen zen** (3); **zerbitzatzen zuen** (18); **zerbitzatzen zuen bitartean** (3)

**zerbitzatzera joan** (3)

---

## zerbitzatze *iz* norbaiten edo zerbaiten zerbitzuan egotea, hari zerbitzu egitea edo haren esanak betetzea.

Eskutitzean aipaturiko gerran **zerbitzatze** hori Karibe aldeko U-itsaspekoen ehizaldia da, ez besterik. Edorta Jimenez
Power jauna zutitu zen **zerbitzatze**-lanak egitera eta bere aulkia eskaini zion Kernan andreari. Irene Aldasoro
Otoi, balin baduzue zuen etxetan edo inguruan haur zaintze, arropa xuritze eta lisatze, jateko egite eta **zerbitzatze**, egin lezake omore onean. Herria

**hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**

**zerbitzatze lanak** (3)

---

## zerbitzu *(orobat **zerbitxu** g.er. eta **zerbizu** g.er.)* **1** *iz* gizartearen edo erakunde baten behar jakin batzuk betetzen dituen organizazio edo talde egituratua.

Euskal itzulpenaren antolakuntza eta kudeaketa: EHUko Euskara **Zerbitzua**. Koro Navarro
Gizartearen onerako **zerbitzua** izanik, izaera pribatu nahiz publikoa duten erakundeek osatzen dute sistema osoa. Juan Ignacio Pérez / Pello Salaburu
Estatu unibertsalak **zerbitzuak** emateko bitarteko bezala aurkitzen badu bere zentzua, nor dira onuradunak? Iñaki Mendiguren
Gure **Zerbitzuez** beti izan zuten emakumeak Errepublikaren **Zerbitzu** Zentralarentzat lan egiten ote zuen susmoa. Edorta Jimenez
BPGan diru truke lor daitezkeen ondasunak eta **zerbitzuak** kontabilizatzen dira, ez besterik. Itziar Eizagirre / Amaia Lizarralde
Osasunerako eskubidea prebentzioan oinarritu behar da eta ez gaixotu osteko **zerbitzuetan**. Berria - Gaiak
Eusko Jaurlaritzako Biktimen Arretarako **Zerbitzuan**. Agurtzane Juanena
Ez dut uste eragozpenik izango duzunik parkeetako **zerbitzuan** aritzeko. Javi Cillero
Medikuntza prebentiboko **zerbitzuko** harrera-bulegoan. Joseba Urteaga
Merkatal Ganbarako **zerbitzuetan** eska daiteke. Herria
Ordaindu beharreko **zerbitzuetan**, erabiltzailearen inplikazioa bilatuko dugu. Berria - Gaiak

**2** (izenondo eta izenlagunekin)

Erbesteko Euzko Jaurlaritzaren eta aliatuen **zerbitzu** sekretuen arteko harremanak. Alberto Ladron Arana
Orain, administrazio guztiak, polizia, **zerbitzu** sekretuak, denak ospakizunetan murgildurik zebiltzan. Juan Kruz Igerabide
Orain **zerbitzu** juridikoak Espainiako Poliziak eta Guardia Zibilak egindako txostenetako w-ak ikertzen ari bide dira. Iñigo Aranbarri
Unibertsitatea **zerbitzu** publiko bat da. Juan Ignacio Pérez / Pello Salaburu
Botere publikoa saiatu beharko da berdintze horretan, besteak beste, **zerbitzu** publiko egokiak eskainiz (hezkuntza, osasun sistema eta gizarte zerbitzuak). Iñaki Heras
Lege honetan zerbitzuak pribatuak dira hasieratik eta bertan **zerbitzu** pribatu kontzertatuek duten garrantzia ez dute ez osasun sisteman, ez hezkuntza sisteman. Berria - Euskal Herria
Pareko teknologia maila, produktibitate bera, produktu eta **zerbitzu** berberak ekoiztea. Iñaki Heras
Isilpeko **zerbitzu** baten egoitza izateko baino, familia burges bat bizitzeko egokiagoa. Alberto Ladron Arana

**3** (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

Lehenengo aldiz historian gaur egun bada dagoeneko zenbait ondasun eta **zerbitzu** merkatuetan mundu mailako ekoizpen sistema bat, alegia, ekoizpena oinarri transnazionalen gainean antolatzen hasi da. Iñaki Heras

**4** (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa)

**4** (hitz elkartutean bigarren osagai gisa)

Larrialdietako **zerbitzuan** sartu zirenean, artean bizirik zegoen Julio. Juan Kruz Igerabide

Estatuak, garai hartan, armategiak eta intendentzia-**zerbitzuak** ez ezik, falta zituen banku zentrala, altxortegi publikoa eta funtzionario gaituak ere. Koro Navarro

Estatu unibertsal gehienetan, bitarteko horiek posta-**zerbitzu** inperialaren forma hartu izan dute. Iñaki Mendiguren

Igeldoko meteorologia **zerbitzutik** Donostiako Telefonica **zerbitzu** zentralera bidaliko zen hurrengo egunean espero zen eguraldiaren berri. Pello Zabala

Neu nintzen ospitaleko ginekologia **zerbitzuko** eta, batez ere, laborategiko buru. Hasier Etxeberria

Francoren Informazio **Zerbitzu** Militarra. Alberto Ladron Arana

Aparkaleku horietatik autobus **zerbitzu** berezia antolatu da 09: 00etatik aurrera bai Oriora bai Zarautzera joateko. Berria - Euskal Herria

Iazko urte hasieran hasi ziren aldi bereko itzulpen **zerbitzua** prestatzen eta urrian jarri zuten martxan. Berria - Gaiak

Ordezko Gizarte **Zerbitzua** betetzen ari zen mutiko bat. Iban Zaldua

Harrera **zerbitzuak** sarreran. Herria

Mailegu-**zerbitzu** ona zuen, eta bibliotekariek, adeitsuak izateaz gain, ondo ezagutzen zuten euren lana. Iban Zaldua

Zerga-**zerbitzuek** ez dute aintzinetik jakiten ahal nork nun zer obra egin duen... Herria

**5** (hiru osagaiko hitz elkartuetan)

Hainbat herrialde aberatsetan ere jadanik egun ez dagoen gizarte-**zerbitzu** sare bat garatzea, lan-ordu asko eskatuko lukeena. Iñaki Heras

**6** norbaiten edo zerbaitentzat egiten den lana.

Argi zuen bere bidea ez zela inoren eta ezeren aurka aritzea, guztiei bere **zerbitzua** eskaintzea baizik. Askoren artean

Monje gazte batentzat **zerbitzua** otoitz eta elizkizun orduek ez ezik, bakardade, hausnarketa eta atseden uneek eta are amets orduek ere osatzen duten bezala. Xabier Olarra

Lebitarrak arduratuko dira elkarketa-etxolako **zerbitzuaz**, eta beren hutsegiteen erantzule izanen dira. Elizen arteko biblia

Justizia feudoaren parte ez bazen, zergatik ikusten da nonahi feudoaren **zerbitzua** erregea edo jauna zerbitzatzea zela, hala epaitegietan nola gerretan? Iñaki Iñurrieta

Ardura hadi nire **zerbitzuaz** ordu pare batez. Fernando Rey

Nagusi sinestedunak dituztenek ez ditzatela gutxiets, fedean senide dituztela eta; aitzitik, hobeki zerbitza ditzatela, **zerbitzu** hori hartzen dutenak ere sinestedunak eta Jainkoak maitatuak baitira. Elizen arteko biblia

Horiek tenpluko ateak zaintzeaz arduratuko dira, eta beste zenbait **zerbitzu** beteko. Elizen arteko biblia

Hemen dituzu Jainkoaren etxeko **zerbitzu** guztiak bete behar dituzten apaiz- eta lebitar-sailak. Elizen arteko biblia

Bihotz onekoa behar du bere adiskideari eta niri **zerbitzu** errendatzera berariaz hona jina izateko! Jon Muñoz

Ziur nauk, eta hala uste zian nire aitak ere, adiskidetasuna **zerbitzu** bat dela. Xabier Olarra

Jainko handiaren **zerbitzu** eta gorespenerako. Patxi Altuna

Nik beste **zerbitzu** hau bukatu arte itxaron behar nauzu. Koldo Biguri

, gazte-gazterik sartu zen Espainiako Erregearen **zerbitzura**, soldadu gisa. Felipe Juaristi

Gernikako karlista familia batek propio gure **zerbitzutan** eskainitako gelara joan nintzen. Txillardegi

-Ez, andrea, **zerbitzuan** ari garela ez dugu edaten. Jon Maia

Beste zazpi urte egin zituen Labanen **zerbitzuan**. Jose Antonio Mujika

Zuen **zerbitzuan** izango gaituzue gau eta egun. Rafa Egiguren

-Ni herriaren **zerbitzuan** nago! Koldo Biguri

Etxea eta azienda Nafarroaren **zerbitzuan** jarri genitian, eta heldu duk aldia, Nafarroa gure **zerbitzuan** jartzekoa. Joan Mari Irigoien

-Hona ene **zerbitzuko** nafarra. Aingeru Epaltza

Gero, bere **zerbitzuko** sendagileei aitaren gorpua baltsamatzeko agindu zien.

Beste funtsezko helburu bat da jakintza hori gizartearen **zerbitzuan** jartzea, giza taldearen **zerbitzuan** jartzea eta herritar bakoitzak hala sentitzea, unibertsitatea dela bere **zerbitzura** duen zerbait. Juan Ignacio Pérez / Pello Salaburu

Hiru lagun haiek erabaki zuten beren **zerbitzuak** eskainiko zizkiotela esperma-bankuari, emaile gisa. Oskar Arana

· **Zerbitzuko** eskailera erabiliko dugu! Alberto Ladron Arana

**7** (izenondo eta izenlagunekin)

**Zerbitzu** neketsu hori egiten segi zenezan eskatuko nizuke. Jon Muñoz

Arren, onar iezadazu nire **zerbitzu** umila. Xabier Olarra

Honezkero urte eta erdi egin dut **zerbitzu** zibilarekin lanean. Edorta Jimenez

Erromatar legionarioei, **zerbitzu** aktiboan zeudenean legez ezkontzea debekatuta izan arren, [...]. Iñaki Mendiguren

Tenientea, Turinen egiten ari baitzen **zerbitzu** militarra, astean egun batean baino ez zen igotzen Meatzeetara. Juan Garzia

**Zerbitzu** soziala egin duten neskek istorio asko kontatzen dituzte. Anjel Lertxundi

Osasun Sailak **zerbitzu** jakin batzuk eskaintzen ditu. Berria - Euskal Herria

Doktrina norberekoi eta ezmoral honen ezinbesteko ondorioa sineslea **zerbitzu** publikotik gero eta gehiago aldentzea izan zen, pentsamenduak bere emozio espiritualetan kontzentratzea. Iñaki Mendiguren

Guk, **zerbitzu** liturgikorako bereziki izendatuak garenok [...] ontzi liturgikoak eta Jaunaren hitz santuak dakartzaten liburu liturgikoak zaindu behar ditugu. Askoren artean

Kristau-soldaduaren **zerbitzu** leiala, armada uztean, "Jainkoaren eskupekoaz" saritzen da. Iñaki Mendiguren

Hainbat kasutan emakumeen **zerbitzu** onak hildakoen jantziez ordaintzen baitziren. Jon Alonso

Tolosako gerontologikoan **zerbitzu** osoa eta kalitatekoa eskaintzen dugu. Berria - Euskal Herria

Goraipamen bezala, egintza hauen berri errege-liburutegian idatzita gordetzeko agindu zuen erregeak, Mardokeoren **zerbitzu** onaren oroigarri. Elizen arteko biblia

Zuek beteko duzue santutegiko eta aldareko **zerbitzu** sakratua. Elizen arteko biblia

**8** (hitz elkartutean lehen osagai gisa)

Hau da Frantziskoren berezitasuna: izugarri azpimarratzen duela agintarien **zerbitzu**-eginkizuna eta "morroi" izaera. Askoren artean

Tenpluko bere **zerbitzu**-egunak amaitu zituenean, etxera itzuli zen. Elizen arteko biblia

Enperadorearen guardiakoak lortua baitzuen bere semeak eta Konradek lehenbiziko **zerbitzu** urteak gortetik hurbil eman zitzaten. Xabier Olarra

Hauei ere, berauen senide ziren Aaronen ondorengoei bezala, beren **zerbitzu**-txanda ezarri zieten. Elizen arteko biblia

Zerbitzari hark, irten orduko, diru pixka bat zor zion **zerbitzu**-lagun batekin egin zuen topo. Elizen arteko biblia

Iraupen mugatuko lan edo **zerbitzu** harremana dutenak. Juan Ignacio Pérez / Pello Salaburu

SS berrietan sartu ginen, erakunde horrek ederki islatzen baitzituen gure erreboluzioaren idealak: ordena, garbitasuna, **zerbitzu**-sena... Alberto Ladron Arana

Pozik zegoen Judako jende guztia, apaiz eta lebitarrak beren **zerbitzu**-lanetan ari zirelako. Elizen arteko biblia

Horrela, gai egiten ditu fededunak beren **zerbitzu**-lanerako eta Kristoren gorputza hazarazteko. Elizen arteko biblia

Bertako **zerbitzu**-postu eta denda gehienak itxita daude. Anjel Lertxundi

Aurkikuntza hau da hiritarrak **zerbitzu**-abere bihurtzen dituen sekretu magikoa, indartsuaren eskuan jarritako katea ezjakinak eta ahulak lotzeko. Juan Martin Elexpuru

Idazkariak [...] gauza bakarra lortu ahal izan zuen: Txitxikoven **zerbitzu**-orri zikina suntsitzea. Jose Morales

Berezkoa baitute benta-etxeek, horrelaxe, **zerbitzu**-aukerarik ez izatea. Patxi Ezkiaga

Errepide zaharra altsasuarrentzat **zerbitzu** bide moduan geratu da ia. Berria - Euskal Herria

Espetxera sartu bezain laster, Mallabiak **zerbitzu** arduradunari kontatu zion gertatutako guztia. Berria - Euskal Herria

Azken botila xanpainari **zerbitzu**-mahaiaren gainean zegoen nikelezko izotz-ontzi batean eragiten ari zitzaion. Lopez de Arana

Jaka eta kapela esekitokitik hartu eta **zerbitzu**-atetik alde egin zuen kalera, zabor-ontzi batzuk atzean utzita. Lopez de Arana

## 9 (hitz elkartutean bigarren osagai gisa)

Jesusek benetan kultu-**zerbitzu** askoz bikainagoa hartu du. Elizen arteko biblia

2000ko abuztuaren 11n, Harryren hileta-**zerbitzuan** lehenbiziko aldiz ikusi nuenetik bi hilabetera, maletak egin eta alde egin zuen. Oskar Arana

Apostolu-**zerbitzu** honetan Judasek utzi duen tokia betetzeko, zegokion tokira joan baita hura. Elizen arteko biblia

Ekialde Urruneko kasuan, funtzionario-**zerbitzu** filosofiko bat atzerriko erlijio baten espirituaren mende geratu zen. Iñaki Mendiguren

Nola ausartzen zara amesgaiztoa deitzen aleman gazte guztiok urte eta erdiz aberriari eskaini behar diogun lan-**zerbitzuari**! Anjel Lertxundi

Integraturik duen konponketa-**zerbitzuagatik** eta giltzaduretako lubrifikazio-sistema burutsuagatik. Irene Aldasoro

## 10 *zerbitzupean*

Politikak han eskatzen du enperadoreak emandako ondasunak ez direla gehiegi zatikatu behar, **zerbitzupean** daudelako, behinola gure feudoak zeuden bezala. Iñaki Iñurrieta

Bera **zerbitzupean** daukaten heroiak ez bezala -beren xedeak betetzeko zernahi bidegabekeria egiteko prest baitaude haiek-, Dedalo beti dago ordenaren eta legearen mugen barruan. Juan Garzia

Gizateriako gutxiengo baten **zerbitzupean** dauden munduko elite politiko eta ekonomikoek [...] garapenari begira dituzten ondorio kaltegarriak. Itziar Eizagirre / Amaia Lizarralde

Orain bere **zerbitzupean** leial aritzeko zina egin baituk. Agustin Otsoa

Bere Kapitaina izango zara, eta bakean eta ohorez Emyn Arnenen biziko zara hainbeste maite duzun haren **zerbitzupean**. Agustin Otsoa

## 11 *zerbitzupeko* izlag

Feudoez liburuetan esaten denez, Konrado enperadorea Erromara abiatu zenean, haren **zerbitzupeko** leialek lege bat egiteko eskatu omen zioten, semeengana pasatzen ziren feudoak bilobengana ere pasa zitezen. Iñaki Iñurrieta

Lau kortsario euskaldun, Donibanekoak laurak, Frantziako erregearen **zerbitzupeko** laurak. Felipe Juaristi

Oraingo alkateen **zerbitzupekook** okerrago. Patziku Perurena

## 12 *zerbitzu egin*

Iduriko zait [...] zinez **eginen** diodala neure alabari **zerbitzu**, liburu hau esposatuko den egunean emanik. Jon Muñoz

Jainkoak ere emango baitizu ordaina berari **zerbitzu egitean**. Elizen arteko biblia

NBEri mundu zabalean **zerbitzu egin** ondoren, Gustavo Duran Greziara bidali zuten. Edorta Jimenez

Lanean zekitenek beren eskuez egiten zuten lan, legendunen etxeetan edo beste leku egokietan, guztiei apalki eta begirunez **zerbitzu eginez**. Askoren artean

· Gercourti **zerbitzu** hori **egiteko** irrikan nago. Jon Muñoz

Mirabeek oro, kanpotar nahiz etxeko, berdin **dagite zerbitzu** hori. Jon Muñoz

Lis loreari **zerbitzu** handia **egindako** leinu baten ondokoa zelako. Aingeru Epaltza

### hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

**aebetako zerbitzu** (22); **aebetako zerbitzu sekretuek** (8); **aebetako zerbitzu sekretuen** (5); **ainitz zerbitzu** (9); **alemaniako zerbitzu** (5); **atzerriko zerbitzu** (7); **autobus zerbitzu** (11); **cia zerbitzu** (8); **cni zerbitzu** (6)

**eraikuntza eta zerbitzu** (5); **erresuma batuko zerbitzu** (16); **errusiako zerbitzu** (10); **errusiako zerbitzu sekretuek** (6); **espainiako zerbitzu** (23); **espainiako zerbitzu sekretuek** (14); **estatu batuetako zerbitzu** (10); **etxeko zerbitzu** (6); **euskara zerbitzu** (7); **frantziako zerbitzu** (8); **fsb zerbitzu** (6); **garraio zerbitzu** (7); **gizarte zerbitzu** (12); **gure zerbitzu** (5); **gutxieneko zerbitzu** (6); **hainbat zerbitzu** (14); **herriko zerbitzu** (5); **hezkuntza zerbitzu** (5)

**informazio zerbitzu** (11); **israelgo zerbitzu** (13); **legebiltzarreko zerbitzu** (9); **libiako zerbitzu** (5); **oinarrizko zerbitzu** (7); **ondasun eta zerbitzu** (12); **osasun zerbitzu** (70); **osasun zerbitzu publikoak** (9); **posta zerbitzu** (5); **segurtasun zerbitzu** (7); **tren zerbitzu** (6); **zein zerbitzu** (8); **zenbait zerbitzu** (11); **zer zerbitzu** (5)

**zerbitzu asko** (11); **zerbitzu askotan** (5); **zerbitzu bera** (8); **zerbitzu berezi** (7); **zerbitzu berezia** (7); **zerbitzu bereziak** (18); **zerbitzu berri** (7); **zerbitzu berria** (5); **zerbitzu berriak** (6)

**zerbitzu egilea** (10); **zerbitzu egin** (7); **zerbitzu egiteko** (6); **zerbitzu egiten** (14); **zerbitzu egiterat** (9); **zerbitzu egiterat ekarria** (7); **zerbitzu gehiago** (18); **zerbitzu gehienak** (6); **zerbitzu guztiak** (27); **zerbitzu hobea** (8)

**zerbitzu juridikoek** (15); **zerbitzu juridikoen** (12); **zerbitzu medikoek** (5); **zerbitzu medikuek** (8); **zerbitzu militarra** (7); **zerbitzu mota** (6)

**zerbitzu on** (5); **zerbitzu ona** (11); **zerbitzu onak** (5); **zerbitzu osoa** (10); **zerbitzu publiko** (46); **zerbitzu publiko bat** (6); **zerbitzu publikoa** (35); **zerbitzu publikoak** (85); **zerbitzu publikoaren** (20); **zerbitzu publikoei** (6); **zerbitzu publikoek** (9); **zerbitzu publikoen** (49); **zerbitzu publikoetako** (12); **zerbitzu publikoetan** (38); **zerbitzu publikoetan euskararen** (5); **zerbitzu publikoetara** (7); **zerbitzu publikoko** (6); **zerbitzu sekretu** (25); **zerbitzu sekretuak** (40); **zerbitzu sekretuei** (18); **zerbitzu sekretuek** (142); **zerbitzu sekretuen** (99); **zerbitzu sekretuentzat** (8); **zerbitzu sekretuetako** (91); **zerbitzu sekretuetako buru** (12); **zerbitzu sekretuetako buruak** (8); **zerbitzu sekretuetako kide** (6); **zerbitzu sekretuetan** (10); **zerbitzu sekretuetarako** (5); **zerbitzu sekretuetarako lan** (5); **zerbitzu sozialak** (7); **zerbitzu sozialen** (5); **zerbitzu teknikoek** (5)

**aholkularitza zerbitzua** (10); **apaiz zerbitzua** (7); **autobus zerbitzua** (11); **bere zerbitzua** (15); **beren zerbitzua** (9); **bizkartzainen zerbitzua** (6)

**elkarketa etxolako zerbitzua** (5); **eskaintzen duen zerbitzua** (5); **euskarazko zerbitzua** (9); **garbiketa zerbitzua** (14); **garraio zerbitzua** (6); **gizarte zerbitzua** (6); **gutxieneko zerbitzua** (5)

**itzulpen zerbitzua** (11); **kalitateko zerbitzua** (8); **kalitatezko zerbitzua** (9); **kultu zerbitzua** (6); **laborantza zerbitzua** (5); **laguntza zerbitzua** (7); **liturgi zerbitzua** (5); **nire zerbitzua** (5)

**osasun zerbitzua** (8); **pedagogia zerbitzua** (5); **posta zerbitzua** (8); **telealarma zerbitzua** (5); **tren zerbitzua** (9)

**zerbitzua bete** (10); **zerbitzua betetzeko** (5); **zerbitzua betetzen** (9)

**zerbitzua egin** (11); **zerbitzua egiten** (13); **zerbitzua eman** (7); **zerbitzua emango** (5); **zerbitzua emateko** (7); **zerbitzua ematen** (13); **zerbitzua eskaini** (11); **zerbitzua eskaintzeko** (6); **zerbitzua eskaintzen** (26); **zerbitzua eskaintzen duten** (5); **zerbitzua eten** (7); **zerbitzua euskaraz** (8); **zerbitzua hobetzeko** (10)

**zerbitzua jarri** (10); **zerbitzua martxan** (5)

**autobus zerbitzuak** (6); **beharreko zerbitzuak** (5); **bere zerbitzuak** (13); **bestelako zerbitzuak** (7)

**elako zerbitzuak** (5); **enplegu zerbitzuak** (5); **eskainitako zerbitzuak** (5); **eskaintzen dituzten zerbitzuak** (5); **euskara zerbitzuak** (5); **garraio zerbitzuak** (5); **gizarte zerbitzuak** (55); **goiena komunikazio zerbitzuak** (5); **gure zerbitzuak** (5); **gutxieneko zerbitzuak** (84); **gutxieneko zerbitzuak bete** (10); **gutxieneko zerbitzuak betetzen** (6); **gutxieneko zerbitzuak ezarri** (7)

**informazio zerbitzuak** (9); **inteligentzia zerbitzuak** (7); **komunikazio zerbitzuak** (6); **laguntza zerbitzuak** (5); **larrialdi zerbitzuak** (22); **nire zerbitzuak** (6)

**ohiko zerbitzuak** (5); **oinarrizko zerbitzuak** (12); **ondasun eta zerbitzuak** (7); **osasun zerbitzuak** (91); **osasun zerbitzuak euskaraz** (5); **posta zerbitzuak** (10); **produktu eta zerbitzuak** (5); **tren zerbitzuak** (6)

**zerbitzuak bete** (11); **zerbitzuak betetzen** (7); **zerbitzuak emateko** (6); **zerbitzuak ematen** (9); **zerbitzuak erabiltzeko** (6); **zerbitzuak eskaini** (13); **zerbitzuak eskainiko** (10); **zerbitzuak eskaintzeko** (11); **zerbitzuak eskaintzen** (19); **zerbitzuak eskaintzen dituzten** (7); **zerbitzuak euskaraz** (11); **zerbitzuak euskaraz jasotzeko** (5); **zerbitzuak ezarri** (9); **zerbitzuak federazioko** (7); **zerbitzuak izan** (9); **zerbitzuak ordaintzeko** (8)

**bere zerbitzuan** (9); **berrionaren zerbitzuan** (5); **jainkoaren zerbitzuan** (10); **jaunaren zerbitzuan** (16); **kristoren zerbitzuan** (11); **zerbitzuan ari** (8); **zerbitzuan bizi** (5); **zerbitzuan egin** (5); **zerbitzuan jarri** (12); **zerbitzuan jartzea** (5); **zerbitzuan jartzeko** (5); **zerbitzuan jartzen** (5)

**osasun zerbitzuaren** (5); **posta zerbitzuaren** (6); **zerbitzuaren arabera** (6); **zerbitzuaren bidez** (6); **zerbitzuaren gaineko** (5); **zerbitzuaren kalitatea** (6)

**zerbitzuaz arduratzen** (8)

**larrialdi zerbitzuei** (7); **zerbitzuei esker** (6)

**gizarte zerbitzuek** (15); **gobernuko zerbitzuek** (5); **informazio zerbitzuek** (12); **inteligentzia zerbitzuek** (15); **larrialdi zerbitzuek** (18); **osasun zerbitzuek** (44); **segurtasun zerbitzuek** (18)

**gizarte zerbitzuekin** (5)

**eskaintzen dituzten zerbitzuen** (5); **gizarte zerbitzuen** (22); **informazio zerbitzuen** (14); **inteligentzia zerbitzuen** (14); **ondasun eta zerbitzuen** (17); **ondasunen eta zerbitzuen** (11); **osasun zerbitzuen** (21); **produktu eta zerbitzuen** (8); **segurtasun zerbitzuen** (10)

**zerbitzuen alorrean** (5); **zerbitzuen arabera** (14); **zerbitzuen artean** (6); **zerbitzuen arteko** (5); **zerbitzuen egoitza** (6); **zerbitzuen liberalizazioa** (5); **zerbitzuen liberalizazioaren** (5); **zerbitzuen sektorea** (11); **zerbitzuen sektoreak** (6)

**bere zerbitzuengatik** (5)

administrazio eta zerbitzuetako (33); gizarte zerbitzuetako (14); inteligentzia zerbitzuetako (15); larrialdi zerbitzuetako (8); osasun zerbitzuetako (10); segurtasun zerbitzuetako (8)

zerbitzuetako arduradun (5); zerbitzuetako buru (5); zerbitzuetako kide (6); zerbitzuetako langile (6); zerbitzuetako langileak (15); zerbitzuetako langileek (8); zerbitzuetako langileen (9)

gizarte zerbitzuetan (14); larrialdi zerbitzuetan (5); osasun zerbitzuetan (10); zerbitzuetan egin (5)

larrialdi zerbitzuetara (13)

bere zerbitzuko (11); besteen zerbitzuko (5); denen zerbitzuko (11); erregearen zerbitzuko (5); euskara zerbitzuko (5); gure zerbitzuko (8); guzien zerbitzuko (11); habitat zerbitzuko (5); informazio zerbitzuko (5); itzulpen zerbitzuko (5); jendearen zerbitzuko (6); polizia zerbitzuko (6)

zerbitzuko arduradunak (7); zerbitzuko buru (16); zerbitzuko burua (11); zerbitzuko kide (5); zerbitzuko zuzendaria (5); zerbitzuko zuzendariak (5)

bere zerbitzura (16); bere zerbitzura zituen (7); erregearen zerbitzura (7); erregearen zerbitzura zeuden (5); herriaren zerbitzura (11); herritarren zerbitzura (16); jainkoaren zerbitzura (8); jaunaren zerbitzura (5); nire zerbitzura (6); patologia zerbitzura (6); patologia zerbitzura eraman (5)

zerbitzura dago (5); zerbitzura dagoela (6); zerbitzura dagoen (9); zerbitzura dauden (6); zerbitzura egon (15); zerbitzura egon behar (5); zerbitzura egongo (13); zerbitzura egotea (5); zerbitzura eraman (8); zerbitzura jarri (25); zerbitzura jartzea (8); zerbitzura jartzeko (8); zerbitzura jartzen (8); zerbitzura jokatu (5); zerbitzura zegoen (7); zerbitzura zeuden (10); zerbitzura zituen (7); zure zerbitzura (9)

apaiz zerbitzurako (9); bere zerbitzurako (5); herriaren zerbitzurako (5); liturgi zerbitzurako (8); nire apaiz zerbitzurako (5)

zerbitzurako behar (5); zerbitzurako jantziak (6)

zerbitzuren bat (6)

gutxieneko zerbitzurik (5); oinarrizko osasun zerbitzurik (6); osasun zerbitzurik (13); zerbitzurik ez (14); zerbitzurik gabe (12)

---

**zerbitzualdi** *iz* zerbitzu jakin bat egiten den aldia.

Elizak isilean onartu egiten zion zegokion **zerbitzualdia** bukatzea eta armadak eskatzen zizkion eginbehar guztiak betetzea. Iñaki Mendiguren

Ez zuen **zerbitzualdi** osoa konplitu. Aingeru Epaltza

---

**zerbitzuburu** **1** *iz* zerbitzu baten burua.

Egor Timofeievitx Pomerantsev, probintziako gobernu-bulegoko **zerbitzuburua**. Jose Morales

Jesus Algaba Gipuzkoako Poliklinikako Otorrinolaringologia Saileko **zerbitzuburua** da. Berria - Gaiak

Erabakia Pedro Pegenaute Hizkuntz Politikarako zuzendariak berak hartua da, eta Julen Calvo Programazio, Ikerketa eta Hizkuntza Garapenerako **zerbitzuburuak** sinatuta dago. Berria - Euskal Herria

Slu?sn´y **zerbitzuburuak** ez zion utzi, geltokiko buruak akta egin behar baitzuen. Fernando Rey

**Zerbitzuburua** gizon lasaia zen, bizitzea eta bizitzen uztea gustatzen zitzaion horietakoa, baina aginduak betearazten zekiena. Jon Alonso

Lantokiko mihi gaiztoak zuzen zeuden: **zerbitzuburua** ez zen testu juridiko-administratibo bat erotiko batetik bereizteko gauza. Aingeru Epaltza

Gose greba haren ondotik adiskide antzean tratatzen ninduen **zerbitzuburuak**. Koldo Izagirre

Hara iritsi garenean, kartzelero mordoa, **zerbitzuburua**... ezpainetatik odola borbor darion preso bat... Jokin Urain

Bere ugazabarekin heldu zen **zerbitzuburua**. Koldo Izagirre

Gipuzkoako Artxiboak bi helburu nagusi ditu, Gabriela Vives, Foru Aldundiko Ondare Historiko-Artistiko, Artxibo eta Museoetako **zerbitzuburuak** adierazi duenez: [...]. Berria - Kultura

**2** (hitz elkartuetan)

80 laborari bildu dira karia hortarat eta multxoño bat mintzatu da laborantza **zerbitzuburuekin**, bere arrangurak agertuz. Herria

Gizarteratze **zerbitzuburu** Maria Jose Lezertuak jakinarazi duenez, Gasteizko Udalak prest ditu Arabako Diputazioaren eta Gurutze Gorriaren aterpe batzuk, badaezpada ere, noizbait erabili beharko balira. Berria - Harian

---

**zerbitzugintza** *iz* zerbitzu egitea.

Ezagun-ezagunak ditut zure egintzak, zure maitasuna, fedea, **zerbitzugintza** eta eramanpena; zure azken egintzak lehenengoak baino ere bikainagoak dira. Elizen arteko biblia

**Zerbitzugintzan** erabilitako jantziak. Elizen arteko biblia

Ez dute artilezko jantzirik eramango **zerbitzugintzan** barneko atarian eta tenpluan ari direnean. Elizen arteko biblia

Santutegiko **zerbitzugintzarako** barneko atarira sartzean, bekatuen barkamenerako oparia eskainiko didate. Elizen arteko biblia

---

**zerbitzugune** *(108 agerraldi, 6 liburu eta 42 artikulutan; orobat **zerbitzu gune** 14 agerraldi, liburu 1 eta 8 artikulutan eta **zerbutxu gune** g.er.)* **1** zerbitzuak ematen diren gunea.

Maulen, larunbat huntan zortzi, abenduak 10, goizeko 10etan, herriko **zerbitzugune** egoitzan. Herria

«Egoeraren arabera» jokatu beharra aipatu du Hodei Ezeiza Donostiako gizarte **zerbitzuguneko** kale hezitzaileak. Berria - Euskal Herria

**2** errepide edo autobide baten inguruan dagoen eraikina, erregaia eta beste hainbat zerbitzu eskaintzen dituena. ik **gasolindegi**.

Uztaila eta abuztua oporretan pasatu ostean, bidaiariak etxerako bidean dira; errepideko **zerbitzuguneak** dira horren testigu. Berria - Harian

Beren zera gurearen ondoan aparkatua zitean autobideko **zerbitzugunean**. Aingeru Epaltza

Vidauban inguruan dagoen **zerbitzuguneko** hotelean gaua pasa, hurrengo egunean jaiki eta segitu. Mikel Hernandez Abaitua

Ez da normala Syd Barreten disko bat autopistako **zerbitzugune** batean aurkitzea. Mikel Hernandez Abaitua

Lau **zerbitzugune** Repsol katearenak dira; bostgarrena, Bp Shop-ena. Berria - Euskal Herria

Aritzetako **zerbitzugunean** 159 autorentzako lekua egongo da. Berria - Euskal Herria

**3** (izenondoekin)

Gustatu egiten zaizkit **zerbitzugune** frantses hauek, munduko hornituenak. Mikel Hernandez Abaitua

**4** (hitz elkartuetan)

Etxaldeak, gasolina **zerbitzugune** galdu bat. Iñigo Aranbarri

Poliziek gasolina **zerbitzuguneak** jendez hustu zituzten, eta leherketek ez zuten zauriturik eragin. Berria - Euskal Herria

**hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**

autobideko zerbitzugunean (3); bost gasolina zerbitzuguntetan (4); gasolina zerbitzugune (8); gasolina zerbitzuguneak (4); gasolina zerbitzugunean (4); gasolina zerbitzuguneetan (3); kontxa zerbitzugunean (3); zerbitzugunetik gertu (3)

---

**zerbitzukide** *iz* zerbitzu berean ari den pertsona.

Orduan, bakoitzari jantzi zuri bana eman eta oraino apur batez itxaroteko esan zien Jainkoak, harik eta beraiek bezala hilko zituzten **zerbitzukide** eta senideen kopurua osatu arte. Elizen arteko biblia

---

**zerbitzutegi** *iz* zerbitzugunea.

Herri horretan idekiko den **zerbitzutegiaren** barnean kokatuko dute posta gixete bat, astean hamabost bat orenez zabalik egonen dena, kontseiluak hautatu ordutegia betez. Herria

Hiru miliun jende Erromarat etorri, 7.000 autokar, mila su hiltzaile 21 artategi, 3.600 **zerbitzutegi**, hiru miliun boteila ur. Herria

---

zerbizu ik **zerbitzu**.

---

zerbutsatu ik **zerbitzatu**.

---

zerbutxu ik **zerbitzu**.

---

**zere** **1** *iz* iberia penintsulako itsasoetan ohikoa den balea-mota, bizkar hegala duena *(Balaenoptera sp.)*. ik **zeroi**.

NATOko ontziek eginiko maniobrek zetazeo espezie ugariri eragin diete: euskal balea, xibarta, **zere** arrunta, zere txikia, zeroi arrunta, zeroi pigmeoa, Atlantikoko izurde pikarta eta marzopari, besteak beste. Berria - Gaiak

**2** ***ipar zere*** *(Balaenoptera borealis)*.

Japoniak zere txikiak, **ipar zereak** eta kaxalote arruntak arrantzatzen ditu zientzia helburuekin. Berria - Gaiak

**3** ***zere txiki*** *(Balaenoptera acutorostrata)*.

Japoniarrek 440 **zere txiki** espezieko bale hiltzen dituzte urtero Hego Ozeanoan «arrantza zientifikorako» baimena erabilita. Berria - Mundua

Babes eskaeren artean daude marrazo zuria, Afrikako elefantea, Japoniak haragitako berriz arrantzatu nahi duen **zere txikia** balea (*Balaenoptera acutorostrata*) eta zura gogorreko ramin tropikoetako zuhaitza babestekoak. Berria - Gaiak

---

**zereal** **1** *iz* pertsonen edo abereen elikaduran erabiltzen den ale irintsuko landarea; landare horren alea. ik **labore**.

Sutauts zorro txiki bat erregalatu zion esanez *Flashaw flabbergastor*-en haziak zirela, balio komertzial handiko **zereal** patagonikoa, klima honetara ederki egokitua. Xabier Olarra

**Zerealak** mineral asko dituztela azpimarratu zuen: «Burdina, zink edo selenio asko dute, eta horiek oso aberasgarri dira guretzat». Berria - Gaiak

Askoren ustez, kristo aurreko 5500 urtean hasi ziren **zerealak** landatzen, gaur Irak deitzen dugun lekuan. Berria - Gaiak

Euskal Herriko Nekazarien Elkartearen (EHNE) aburuz, erregaiaren igoera baserritarrentzat galera handiak ari da sortzen, batez ere Araban eta Nafarroan, **zereala** lantzen duten eremuetan. Berria - Ekonomia

Ikatza, ibilgailuak, **zerealak**, ongarriak, eraikuntzako materiala eta egurra izan ziren beste sektore garrantzitsu batzuk. Berria - Ekonomia

**2** (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

Gorvachoven lehen asmo kinkenalean ipini zen abian: labore eta **zereal** uzta gehitu nahi ba, bestela amerikanoei erosi beharrean baitzeuden. Pello Zabala

Hilabete osoan **zereal** ahiari botatzeko azukrea gordetzen aritu naiz. Josu Zabaleta

**Zereal**-garauak galbahetik pasatzen jardun du. Jon Arretxe

Lanza-perfumea izeneko droga kloroformoz, **zereal**-alkoholez eta eterrez egiten da. Karlos Zabala

Arkeologoek ez dute **zereal** hondakinik aurkitu. Berria - Gaiak

**3** *pl* zereal aleekin egiten den janaria, eskuarki gosaltzen hartzen dena.

Badira nire taldean bi neskato, gosaltzerakoan beste guztiek jaten dutena jan beharrean gosaria etxetik ekarri dutenak: Amerikako pelikuletan ikusten diren **zereal** horietakoak, artoa edo ez dakit nik zer den, kaja handi batetik katilura bota eta esne pixka batekin nahastuta jaten dutena. Xabier Mendiguren Elizegi

Dudley txikia, kasketaldi betean, gosaritako **zerealak** paretetara botatzen ari baitzen. Iñaki Mendiguren

Beste zerbait gustura jango lukeela dio, baina yogurtak jaten ditu **zerealekin**. Berria - Kirola

-Asmoa ez da txarra -esan nion nik, errukiz, beste bi lagunek dastatzen ari ziren **zereal** katilukadetatik burua altxatzeko keinurik ere egiten ez zutela ikusirik-. Jon Arretxe

---

**zerealdun** *izlag* zereala edo zerealak dituena.

Goizeko 7:30ean gosaldu dut, **zerealdun** hiru jogurt eta kamamila bat; horrek ongi erantzun dit. Berria - Kirola

---

**zerebelo** *(orobat **zerebelu** g.er.)* **1** *iz* garunaren atzeko eta beheko zatia. ik **garuntxo**.

Geroago azterketa neurologiko labur bat egin nion, **zerebeloaren** funtzioari eta oreka-kontuei jarriz bereziki arreta. Xabier Olarra

Horregatik da hain tematia eta hain malgutasun eta moldakortasun eskasekoa; **zerebeloko** akats bati egozten dio hori. Xabier Olarra

Antza denez, ataxia deituriko gaitza dute kurduok, eta **zerebeloa** atrofiatuta dute. Berria - Gaiak

**2** (hitz elkartuetan)

Ulertzekoa da giza-**zerebeluak** ikusmena engainatzea. Josu Landa

---

zerebelu ik **zerebelo**.

Auzoko erietxeko larrialdi-gelan, kommozio **zerebrala** nuela esan zidaten. Xabier Olarra

---

**zerebral** *izond* burmuinari dagokiona. ik **garun 5**.

Huntington gaixotasuna kortex **zerebralaren** azpiko gaitza da, eta, alzheimerrak kortex **zerebralean** egiten ditu kalteak. Berria - Gaiak

Haren ondorioz goi mailako funtzio **zerebralean** noski gertatuko ziren aldaketez. Xabier Olarra

Alabaina, eraso **zerebrala** erasan zuen astelehenarekin eta ordutik hara bisitatu zutenek ere ez zuten harekin hitzik trukatu. Itxaro Borda

Gizaki bakoitzak bere baitan daramatza, era **zerebral**, mental, psikologiko, afektibo, intelektual eta subjektiboan oinarrian edo funtsean komunak diren ezaugarriak, eta, aldi berean, bere singulartasun **zerebral**, mental, psikologiko, afektibo, intelektual eta subjektiboa ere badarama. Askoren artean

Auzoko erietxeko larrialdi-gelan, kommozio **zerebrala** nuela esan zidaten. Xabier Olarra

Bestea, Judy, paralitiko **zerebrala**, ordutan eta ordutan egoten zen Gregekin eserita hura ere. Xabier Olarra

Elbarri **Zerebralen** Munduko Txapelketan urrezko lau medaila irabazi ditu. Herria

-Idazketa ekintza guztiz **zerebrala** da, hotza, mekanikoa. Karlos Linazasoro

---

## **zerebro** 1 *iz* burmuina. ik **garun**.

Baliteke umore txarra eragiten duten zelulak **zerebroaren** eskuinean egotea. Ramon Saizarbitoria

Badirudi **zerebroaren** alde bakoitzak kontrako alderdia gobernatzen duela, Natura halakoxe apetatsua baita. Ramon Saizarbitoria

Mesedez, fusilatzen nautenean eska ezazue ez egiteko tiro burura, nire **zerebroa** aztertu ahal izango duzue horrela, nire lobuloen konfigurazioa, zelako asasinoa naizen ikusteko. Koldo Izagirre

Nire **zerebroa** paralizaturik zegoen gertatutakoa onartu ezinik. Anjel Lertxundi

Adimenaren beharrik ez bada, gure **zerebroa** lokartzen da. Joxan Elosegi

-**Zerebro** nipondarrak baditu agian hizkuntza bat ahanzteko baliabideak. Joxan Elosegi

Ez zaizu iruditzen ezintasun hori zeure **zerebroaren** akats baten ondorioa dela batez ere? Joxan Elosegi

Nire muskuluek, eskuek, behatz puntek, ileak aurkitu zuten, antza, nire **zerebroak** debeku zuen memoria. Matías Múgica

**2** irud/hed

Ilaje hori batek estaltzen zion **zerebro** faltak utzitako zuloa. Unai Iturriaga

---

## **zerebroespinal** *izond* burmuinari eta bizkar muinari dagokiena.

Spitsbergenen balea baten burezurrean sartu zen gongoil **zerebroespinalak** bilatzeko, baina ez zuen lortu aurkitzea. Fernando Rey

Eta ez nituen aurkitu, gainera, gongoil **zerebroespinalak**. Fernando Rey

---

## **zeregin** 1 *iz* egitekoa, lana.

Bilduma hau iruditu ez balitzait irakurleei eskainia izateko duina, ez nuela **zeregin** hori neure gain hartuko. Jon Muñoz

Arimak Jainkoaren aurrera aurkezteko **zeregina** duen Mikel dohatsua. Askoren artean

Ez duzu **zereginik**, irteerarik, norabiderik. Lourdes Oñederra

-**Zereginak** ditut hemen. Iñaki Mendiguren

-**Zereginen** bat baduzu? Jon Muñoz

Han beti neukan **zeregina**: lagundu egiten nuen zaldi pabiloiaren mantentze-lanetan, basora joaten nintzen Lubisekin, edo errekan amuarrainak harrapatzera Pantxorekin, [...]. Bernardo Atxaga

Zinez ikusgarria, hiriaren zabala bere etxegorenekin eta karriketan, han beherean, zinaurriak iduri, jendea ibilki bere **zereginetan**. Herria

Kaleetan **zereginik** gabe ibiltzea gustatzen omen zitzaion. Ramon Saizarbitoria

Lehen **zeregina**: pertsiana guztiz altxatzea. Sonia Gonzalez

Itxarotea beste **zereginik** ez. Joxe Austin Arrieta

Bada, **zeregina** ontziburuak eman zion. Edorta Jimenez

Edozein **zeregini** ekiten zion berehala. Jose Morales

**Zeregin** hori ez dagokie terrorismoaren biktimei, eta agian ezta bestelako eragileei ere. Berria - Euskal Herria

Zure **zereginak** ongi betetzea espero dut, Baroi jauna. Iñaki Mendiguren

Makina bat buruhauste eman dizu **zeregin** horrek. Jose Morales

Denok bizi gara batetik bestera, trenetik, hegazkinetik edo kotxetik gure **zereginetara** eta gure **zereginetatik** trenera, hegazkinera edo kotxera. Bernardo Atxaga

CAFen **zeregina** trenak egitea izango da, eta Siemens eta Bombardierren ardurapean egongo dira trakzio sistemak. Berria - Ekonomia

Adimenaren **zeregina** zientzian ez da ideien ordena eternoa jainkoaren gogamenean islatzea, munduko gauzen artean kausazko ordena islatzea baizik. Askoren artean

Labana hartu eta ebaki ausart eta garbi bat egin zuen Bennettek [...] eta operazioko **zereginean** sartu zen berehala. Xabier Olarra

Ez dakizula ezer artearen **zeregin** eta betekizunez. Hasier Etxeberria

Linguistikaren **zeregina** hau izango da: [...]. Isabel Arrigain

Lanik edo **zereginik** gabeko denbora, atsedenezko, erosotasunezko egoera, bereziki lanetik kanpo gertatzen dena eta nahi den eran bete daitekeena. Berria - Gaiak

Arteak ederra agerraraztea baitu **zeregin**. Markos Zapiain

Aipaturiko zaldun honek, **zeregin** gabe egoten zenean, gehienbat urte guztian noski, halakoxe grinaz eta pozez ohi zen zalduneria liburuak irakurriz, ehizako ari beharra erabat alde batera utzi zuen eta era berean etxeko ondasun zaintza. Patxi Ezkiaga

Hiru **zeregin** gabeetako batek murmurioz esan zuen: [...]. Josu Zabaleta

**2** (izenondo eta izenlagunekin)

Oso ongi jabetzen naiz **zeregin** handia eta garrantzi handikoa dudala aurrez aurre. Antton Olano

**Zeregin** handiagoak dauzkagu deika. Jon Muñoz

Egia esan, hemen **zeregin** handirik ez dago. Hasier Etxeberria

**Zeregin** berezirik gabe zain eta euriari begira egoteak bazuen denbora mastekatzearen antza. Harkaitz Cano

Unibertsitateko **zeregin** nagusiez -irakaskuntza, ikerkuntza, eta jakintza gizarteratzeko bestelako bideak-, aritu gara. Juan Ignacio Pérez / Pello Salaburu

Zure ondora naiz joanen **zeregin** zail hori betetzera. Jon Muñoz

**Zeregin** gogorra, bai, eta mingarria ere zenbaitetan. Edorta Jimenez

Beste inoren esku utziko ez zuen **zeregin** delikatua. Iñaki Mendiguren

**Zeregin** itxuragabea, ilunetan eserita neska baten zelatan egotea. Oskar Arana

Laster ohitu zen zerbitzura, baina [...] ez zuen hartu bere **zeregin** eta helburu nagusitzat, bigarren mailako jardueratzat baizik. Jose Morales

**Zeregin** jakin batzuetarako da euskara batua eta beste batzuetarako herri hizkerak. Koldo Zuazo

**Zeregin** jasoetan erdarara jotzeko ohiturak sustrai sakonak ditu. Koldo Zuazo

Alderdi horrek bake prozesuan **«zeregin** funtsezkoa» duela uste du Zapaterok. Berria - Euskal Herria

Jendeak **zeregin** gogoko bati buru-belarri ekiten dionean. Jose Morales

Jende askoren eguneroko **zeregin** xeheetarako. Koldo Zuazo

Urteroko **zeregin** askotarikoei begiratu besterik ez dago horretaz jabetzeko. Jose Morales

Denek izan zituzten ipuin txatxu bat asmatzea baino **zeregin** premiazko eta probetxuzkoagoak. Xabier Mendiguren Elizegi
**Zeregin** publiko horretan jardun izanaren ondorioz, hain zuzen ere, jasaten dute oraingo eraso hau. Berria - Euskal Herria
Judaren traizioa nahitaezkoa zuen Kristok bere **zeregin** jainkotiarra bete zezan. Joseba Zulaika
Kopiatzaileen **zeregin** hutsalarekin alderaturik, goi-goikoa begitandu zitzaion irakasleen eginkizuna. Jose Morales
Hurrengo eguna **zeregin** praktikoetarako izan zen. Oskar Arana
Euskara modernizatu, **zeregin** teknikoetara egokitu eta inguruko hizkuntzekin homologatu. Koldo Zuazo
Bazekiat **zeregin** zientifikoetan aritzen haizela batzuetan, bazekiat gogoko duala irakurtzea. Jose Morales
Bere **zeregin** eztitik bertze **zeregin** are eztiago bati lotzeko, egin nion, gero, bere gutuna ikusteko galdea; eta nola hotza eta hertsatua. Jon Muñoz
Ate irekirik ez, jenderik ez inon, etxe batean ohikoak diren **zeregin** eta atzera-aurrera zalapartatsuen arrastorik ez. Jose Morales
Marta, berriz, lanpetua zebilen etxeko **zereginetan**. Xabier Aranburu
Horiek ez liratekeela prestatze-lanak, alferreko **zereginak** eta arinkeria hutsak baizik. Xabier Kintana
Karrika nagusian zehar zebiltzanak oro geldi-geldi geratu ziren, eguneroko **zereginak** eta lanak alde batera utziz. Felipe Juaristi
Zentsuraren helburua, berriz, ez da faxisten komunikazioak galaraztea, antzematea edota hondatzea, komunisten balizko **zeregina** oztopatzea baino. Edorta Jimenez
Sarritan joan behar izaten zuen hirira, soldadugaiak biltzera eta bestelako **zereginak** egitera. Jose Morales

**3** (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa)

Racheli entzunez gero, guraso-**zereginean** ere ez nintzen egundokoa izan. Oskar Arana
Horiek egitea kasik-kasik bere kapitain **zereginen** barruan dagoela esan liteke. Edorta Jimenez
Basurtokoak eskribau **zereginetan** izan ninduen denboran pergamu haiek ikusteko aukera eduki nuen. Edorta Jimenez
Alde joan zen, mastan gora, gabizain **zereginera**. Edorta Jimenez
Kuban ezagutzen dutenek gerratean metrailadoreetan tiro egina ote den ala kaperau-**zereginetara** mugatua den, zalantza dute. Edorta Jimenez
"Lehenbiziko betegintza" eratzen duten gorputz-**zereginek** eskatzen duten ardura da. Xabier Kintana
Seguritate **zeregin** horretan Estatu Batuek beren Navyren Misioa ezarriko dute Kuban. Edorta Jimenez
Euzkadi'ko Jaurlaritzak Ameriketan antolaturik duen informatzaile Sarea-ren barruan espioitza **zereginetan** dihardutenek. Edorta Jimenez

**hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 4 aldiz agertzen direnak)**

**beharreko zeregin** (4); **bere zeregin** (19); **bere zeregin nagusia** (3); **bertze zeregin** (5); **beste zeregin** (44); **beste zeregin bat** (3); **beste zeregin batzuetan** (6); **beste zeregin batzuk** (11); **beste zeregin hoberik** (4); **bestelako zeregin** (4); **bi zeregin** (3); **eguneroko zeregin** (4); **euren zeregin** (4); **gure zeregin** (6); **halako zeregin** (4); **idazlearen zeregin** (3); **idazlearen zeregin nagusia** (3); **izan zuen zeregin** (5); **izango du zeregin** (3); **laguntzeko zeregin** (4); **nahiko zeregin** (3); **nire zeregin** (6); **unibertsitatearen zeregin** (3); **zein zeregin** (4)

**zeregin asko** (8); **zeregin bakarra** (16); **zeregin baliagarriei** (3); **zeregin baliagarriei uko** (3); **zeregin bat** (16); **zeregin batean** (6); **zeregin baterako** (3); **zeregin batzuen** (3); **zeregin batzuen artean** (3); **zeregin batzuetan** (6); **zeregin batzuk** (14); **zeregin bera** (3); **zeregin berean** (3); **zeregin berezia** (4); **zeregin berrian** (4)

**zeregin funtsezkoa** (6); **zeregin garrantzitsua** (17); **zeregin garrantzitsua dutela** (3); **zeregin gutxi** (8); **zeregin guztiak** (9); **zeregin guztietan** (5); **zeregin handia** (19); **zeregin handia dute** (3); **zeregin handia izan** (6); **zeregin handirik** (14); **zeregin handirik ez** (3); **zeregin hartan** (6); **zeregin hoberik ez** (7); **zeregin honetan** (12); **zeregin hori** (36); **zeregin horiek** (4); **zeregin horietan** (10); **zeregin horietarako** (3); **zeregin horrek** (6); **zeregin horrekin** (3); **zeregin horren** (3); **zeregin horretan** (98); **zeregin horretarako** (17); **zeregin horri** (6); **zeregin hura** (6)

**zeregin iluna** (3); **zeregin izango** (4); **zeregin jakinik** (4); **zeregin jasoetan** (4); **zeregin nagusi** (5); **zeregin nagusia** (43); **zeregin nagusia idaztea** (3); **zeregin nagusiak** (6); **zeregin nagusietako** (3); **zeregin nagusietako bat** (3)

**zeregin politiko** (3)

**zeregin zail** (3); **zeregin zaila** (3)

**artearen zeregina** (3); **atxilotuen zeregina** (3); **aurreneko zeregina** (4); **babesteko zeregina** (4); **bakoitzak bere zeregina** (3); **batzordearen zeregina** (4); **benetako zeregina** (4); **bere zeregina** (62); **bere zeregina bete** (5); **beren zeregina** (12); **dagokion zeregina** (4)

**eajren zeregina** (3); **egiteko zeregina** (3); **epailearen zeregina** (3); **euren zeregina** (4); **funtsezko zeregina** (3); **gobernuaren zeregina** (3); **gure zeregina** (15); **guztien zeregina** (3); **guztion zeregina** (6); **guztion zeregina da** (3); **haien zeregina** (8); **horien zeregina** (3); **hurrengo zeregina** (6)

**kontseilu politikoaren zeregina** (3); **lehen zeregina** (4); **nire zeregina** (16)

**politikaren zeregina** (3); **politikoaren zeregina** (3); **taldearen zeregina** (4)

**unibertsitatearen zeregina** (3)

**zeregina amaitu** (4); **zeregina bere gain** (3); **zeregina bete** (9); **zeregina betetzea** (4); **zeregina betetzen** (8); **zeregina du** (4); **zeregina duen** (3); **zeregina hartu** (4); **zeregina izan** (3); **zeregina izanen** (3); **zeregina izango** (7); **zeregina izango da** (3); **zeregina zein** (7); **zeregina zein den** (4); **zeregina zuten** (6); **zuen bere zeregina** (4)

**bere zereginak** (6); **beren zereginak** (3); **bestelako zereginak** (4); **eguneroko zereginak** (3); **etxeko zereginak** (3); **nire zereginak** (3); **taldearen zereginak** (3)

**zereginak betetzeko** (3); **zereginak ditut** (3); **zereginak zituela** (3)

**bere zereginari** (3); **zereginari ekiteko** (4)

**bere zereginean** (7); **gure zereginean** (3); **neure zereginean** (3); **sortzeko zereginean** (4)

**zereginean laguntzeko** (3); **zereginean segitu** (3)

**bere zereginen artean** (3); **beste zereginen** (5); **zereginen artean** (9); **zereginen bat** (18); **zereginen batera** (3); **zereginen berri** (3)

**zereginetako bat** (10)

**antzeko zereginetan** (4); **bere zereginetan** (14); **eguneroko zereginetan** (5); **espioitza zereginetan** (4); **etxeko zereginetan** (4); **idatzizko zereginetan** (9); **zereginetan izan** (3); **zereginetan murgildurik** (3)

**bakoitza bere zereginetara** (3); **bere zereginetara** (14); **bere zereginetara itzuli** (4); **gure zereginetara** (3); **zereginetara itzuli** (9); **zereginetara itzuli zen** (3); **zereginetara itzultzen** (3)

**bertze zereginik** (5); **beste zereginik** (64); **beste zereginik ez** (30); **beste zereginik gabe** (14); **ez dago zereginik** (14); **ez duzu zereginik** (3); **ez zuen zereginik** (3); **inolako zereginik** (6)

**zereginik ez** (62); **zereginik ez baduzu** (3); **zereginik ez dagoela** (3); **zereginik ez du** (3); **zereginik ez duten** (3); **zereginik gabe** (31); **zereginik gabeko** (6)

---

## **zeregindun** *iz* zeregina duen pertsona.

Asteburuan **zeregindunekin** zeregingabe egon ondoren, astelehenetan **zeregindunak** bere zereginetara itzultzen dira, eta zereginik ez daukatenak bakarrik geratzen dira, bapo, ohearen epeletik **zeregindunen** munduak nola funtzionatzen duen imajinatzen. Unai Iturriaga

---

## zeregingabe ik **zeregindun**.

---

## **zeregintsu** **1** *izond* zereginez betea.

Hiztegiaren iluntasunak dira, pertzepzio kontuak, anekdotaren gorabeherak, jakin-min **zeregintsuegi** baten ondorioak. Anjel Lertxundi

**2** (adizlagun gisa)

Zeren jakin baitugu zuetako batzuk zabarkerian bizi direla, ezer ez egiten **zeregintsu**. Elizen arteko biblia
Zeren jakin baitugu zuetako batzuk zabarkerian bizi direla, ezer ez egiten **zeregintsu**. Elizen arteko biblia

---

## **zeregintxo** *iz* zeregin txikia.

Irudi zuen lehentxeago irtena zela -hogei urte lehenago!-, **zeregintxo** laburren baterako deitu zutelako, eta, orain, itzuli eta behin-behinekoz etenda gelditu zen elkarrizketa bati heldu ziola berriro, arreta handirik gabe ordea, gizalegeak hala agintzen zuelako baino ez. Ander Irizar

---

**zeremonia** *(orobat* ***zirimonia*** *g.er.)* **1** *iz* arauturiko erregela jakinei jarraituz egiten den ageriko ekitaldi edo ospakizuna.

Emaztegaiari beloa ipintzeko **zeremonia** etorri zen gero. Koro Navarro

Kanpoan geratu nintzen lur emateko **zeremonia** bukatu arte. Bernardo Atxaga

Zer ordutan ospatu nahi duzu **zeremonia**? Antton Olano

Ortzirale sainduz **zeremoniak** aratsaldeko 3 orenetan Itsasun eta aratseko 8 orenetan Luhuson. Herria

Lurperatzeko **zeremonia** ere berezia izaten da sinesmen budista dutenentzat. Berria - Harian

Oroimenaren Monumentuko kriptan dago gorderik liburu hori, urtero Shoah-ren biktima hilobigabeei **zeremonia** opatzen zaien lekuan hain zuzen ere. Joxan Elosegi

**Zeremoniek**, errituen errepikapen obsesio goxo batez beterikoek [...] aldareko urreek, arropen distirak, loreen perfumak, intsentsuak, kantuen xarmak zentzu guziak asebetetzen zizkidaten. Piarres Aintziart

Goardia aldaketaren **zeremoniaren** testigu naiz. Edorta Jimenez

Harrezkero ez dugu asmatu hildakoak ehorzteko **zeremonietan**. Hasier Etxeberria

Lihozko mantua zeraman Davidek soinean, kutxa zeramaten lebitarrek, kantariek eta **zeremoniaren** zuzendari zen Kenaniasek bezalaxe. Elizen arteko biblia

Ongi etorriari eder zaio adeitasuna eta **zeremonia**. Juan Garzia

**Zeremoniako** soinekoak jantziak zituen, arrano lumazko burukoa, karibu larruzko gaina eta galtzak. Aurelia Arkotxa

**2** (izenondo eta izenlagunekin)

**Zeremonia** apala eta beroa izan zen, protokolorik gabe mintzatu zitzaigun ingelesez. Edorta Jimenez

Domingo Garamendi deitzen ginuenak izan ditu meza eta **zeremonia** hunkigarriak. Herria

Errito sekretuak, **zeremonia** burugabeak eta jantzi bitxiak dituen ordena bat. Xabier Olarra

**Zeremonia** erlijioso edo magikoekin lotzen da praktika hori, eta naturaz gaindiko esplikazioa duela uste izaten da batzuetan. Irene Aldasoro

Gorputz zurrundu eta asaldatua lasaitu egiten zitzaion, **zeremonia** militarretan, soldadu taldeak ikuskapen luze bat jasan ondoren, atseden-agindua entzutean bezala. Xabier Olarra

Ez ikur, ez ezpata, ez armarririk hilobian, ez errito noblerik, ez **zeremonia** formalik. Juan Garzia

**Zeremonia** makabroa ikusi beharra tokatu zitzaion; 1998ko otsailaren 13an, goizeko zortzietan, oraindik ilun zegoela zabaldu baitzuten, "lapurrak bailiran", esan zuen, Marcel Martinen hilobia. Ramon Saizarbitoria

Aurrez aurre, Plazaz bestaldean, San Juanen eliza izanda, erlijiozko **zeremoniak** eta armada karlistaren paradak, etxetik beretik begiratzeko deliberoa hartua omen zuen Erregek. Txillardegi

Besteok egin, egin genuen espiritismo saioa, ilunpean, kandela argitan, sekulako **zeremonia** eta erritualen artean. Xabier Mendiguren Elizegi

-Jaun-andreok -esan zuen **zeremonia** handiz-: heldu da gure proiektuari aurrera ekiteko ordua! Joan Mari Irigoien

Eguberriak aipatzeko, **zeremoniak** ederrak zelebratu ditugu, jendea aurkitu da gauerdiko mezan, eliza mukurru betea zen: haurrekin egin da lehenik beila eta ondotik mezako **zeremonia**. Herria

**3** (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

Elegiazko hitzak, begitarte larriak, **zeremonia** arauek, ez dute lekurik Hilezkorren artean. Juan Garzia

**Zeremonia**-maisuen ondotik, herri xehea: Ximurraren ama, seme-alabak eta gainerako jendakiak, [...]. Aingeru Epaltza

Txapli **zeremonia**-maisu zebilen. Unai Iturriaga

Knot jaunak kilimusi egin zuen, **zeremonia**-imintzio isilez. Juan Garzia

Gaztetxo aberats handiki haren jiran berehala bildu ziren zuriak eta miazkatzaileak, bizkarroiak eta **zeremonia**-egileak, sakela-bilatzaile eta diru-xahutzaile prestuenak. J.M. Olaizola "Txiliku"

**4** (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa)

Eztei **zeremoniaren** ondoren, senar-emazteek baraua hautsi zuten, oilasko salda edanez. Koro Navarro

Yiddishez egin zuten hileta-**zeremonia** guztia, ez dut gogoan hitzik egin ote zuten alemanez. Anjel Lertxundi

Ospaketa **zeremonia**, hurrengo larunbaterako utzi zen, abuztuaren 2rako. Txillardegi

Augustok debekatu egin zien bi sexuetako gazteei ezein gau-**zeremoniatan** izatea. Iñaki Iñurrieta

Egunkaria irakurtzea eguneroko masa **zeremonia** da. Patziku Perurena

**5** irud/hed

Hesi bakoitzaren parean, **zeremonia** bera: gelditu, paperak erakutsi, galdera pare bati erantzun, eta aurrera. Inazio Mujika Iraola

**Zeremonia** bera da aldiro presondegi berri batean sartzean. Filipe Bidart

Arrunki jantzia ibili ohi zen, trajerik gabe, baina uniformaturik zihoala ematen omen zuen, halakoxea baitzen pausajean ere erakusten zuen **zeremonia**. Joxean Agirre

Berriro errepikatu zen eskuak musukatzeko **zeremonia**. Joxemari Iturralde

Oinazearen **zeremonia** publikoan urtu zen oinaze partikularra. Nik ez dut **zeremonietan** eta ergelkerietan ibili nahi, gainera. Patziku Perurena

Ez zitzaidan gustatu urteko Errioxa bat probatzera emateko egin zituen **zeremoniak**. Joxean Agirre

Soineko luzez jantzita nindoan irudipena izaten nuen haien ondoan, halakoxe **zeremoniak** egiten baitzituzten nirekin. Joxean Agirre

Etxekoandreak **zeremonia** handiz eta kalaka etengabez eraman ditu hiru gizonezkoak jantokiraino, pasillo ilun batean aurrera. Anjel Lertxundi

Ohiko ez den **zeremoniaz**, eskutitz hau eman zidan: [...]. Txillardegi

**hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**

**meza eta zeremonia** (5); **ondotik zeremonia** (4); **sailkatze zeremonia** (3); **usaiako zeremonia** (3)

**zeremonia biziki ederra** (3); **zeremonia bukatu** (4); **zeremonia eder** (17); **zeremonia eder baten** (3); **zeremonia ederra** (5); **zeremonia ederrak** (3); **zeremonia erlijioso** (4); **zeremonia gehiagorik gabe** (3); **zeremonia handiz** (10); **zeremonia hunkigarri** (5); **zeremonia hunkigarriak** (3); **zeremonia maisu** (4); **zeremonia orroit** (3); **zeremonia tristea** (3)

**egin zituen zeremoniak** (3)

**zeremoniarik gabe** (6)

**zeremonien tenoreak** (4)

---

**zeremonial** **1** *izond* zeremoniari dagokiona.

Hala ere, nigandik hur gizon lodikote batek -ile kirru eta beltza bular eta lepoan, nonbait utzi ziotena- luzaroan igurzten zuen bere burua, mugimendu serio eta ia **zeremonialez**. Urtzi Urrutikoetxea

Kristautzearekin ikusi zuen euskaldunak lehen aldiz idazpenaren ostentazio **zeremonial** izugarri eta iraunkorra. Patziku Perurena

**2** zerbait ospatzeko erregela eta formalitateen multzoa.

Txinan, txinatarrak **zeremonial** txinatarraren arabera daude gobernatuta, eta tartariarrak **zeremonial** tartariarraren arabera. Iñaki Iñurrieta

Kasu bietan ere dantza edo abialdi erritualizatu bat atzeman daiteke hasieran, zeinean erosleak ez baitu onartzen saltzailea hura **zeremonial** tradizionalari estu-estu lotzen

ez bazaio. Juan Garzia

---

## zeremoniatsu 1 *iz* zeremoniaz aritzen dena; zeremonia adierazten duena.

Hunterren ondoan eserita zegoen gizon altu **zeremoniatsu** batek. Lopez de Arana

Haren oroimen zehatza goraipatzearren zerbait errateko egokiera nuen, baina hark, begitarte **zeremoniatsua** berreskuratuz. Aingeru Epaltza

Baritono ahotseko gizonak, bere longainaren ertza jasorik, airean keinu **zeremoniatsua** egin zuen Mathilderi pasoa emanez. Anjel Lertxundi

Erretiratu zen agur **zeremoniatsu** bat eginez, eta txalo bero-bero bat egin zioten mutilek. Josu Zabaleta

Alkateak esku keinu **zeremoniatsu** eta koipetsuaz hasteko agintzen dio. Felipe Juaristi

Gutun apain-bihurri **zeremoniatsu** bat igorri zidan. Juan Garzia

Allikeneko erloju **zeremoniatsuaren** tak-tok geldoa entzun zen. Txillardegi

Argazki arranditsua zen, **zeremoniatsua** eta artifiziala. Ander Irizar

**2** (adizlagun gisa)

Mahai txiki bat seinalatzen digu **zeremoniatsu**. Anjel Lertxundi

Gizonak burua makurtu zuen pixka bat, **zeremoniatsu**, baina ez zuen hitzik esan. Anjel Lertxundi

Aldiro-aldiro liburu-saltzaileren bat agerturik, bere txosnako pertsiana alderik alde hartzen zuen burdin hagaren bi muturretako sarraila tzarrak askatzen zituen, erritual bateko gidaria balitz bezain **zeremoniatsu**. Anjel Lertxundi

---

## zeremoniatxo *iz* zeremonia txikia.

Bere eguneroko **zeremoniatxoa** zen, jarraitzeko indarra ematen ziona. Bernardo Atxaga

---

## zeremoniazale *(corpusean **zeremonia zale** soilik)* *izond* zeremoniaren zalea dena.

Ez direla alegia, batere **zeremonia zale**. Patziku Perurena

Honetan, bat behar eta, Leitza, hagitz herri **zeremonia zalea** duzu. Patziku Perurena

---

## zeremonioso *izond* zeremoniatsua.

Horregatik ari zaizu euskal **zeremoniosoa** beti sorgin eta inkisizio asmaketan. Patziku Perurena

---

## zeren 1 *junt* zergatikoa adierazten du eta mendeko perpausaren hasieran kokatzen da.(ikus beheko konbinatorian zeren izenordearen agerraldi maizkoenak)

**2** (aditz laguntzaile edo trinkoak bait- atzizkia duela)

**Zeren** zinitzpean egiten den eginkari onak zinitzik gabe egiten denak baino meritu handiagoa baitu. Patxi Altuna

**Zeren** haurgintzan ari diren emakumeekin egiten baituzu behaztopa gerrako topaketan. Josu Zabaleta

**Zeren** "lehortzen" ez den berniz bat tiro egiten ez duen fusil bat bezala baita. Juan Garzia

**Zeren** nitaz den bezanbatean, ez baitiot neure buruari amodio hitza erran izanaz zer liskarturik. Jon Muñoz

**Zeren** lurrean dagoen animalia mota baten deskripzio zientifikoa besterik ez baita. Pello Salaburu

Bestalde hori egia da iraganeko hobenentzat; baina ez etorkizunekoentzat **zeren**, eginkizun den gaizkia gauzatu gabe geldi baitaiteke. Piarres Xarriton

-Ordu txarrean ikusi zintudan, jauna, **zeren** ikusi orduko bainintzen zutaz maitemindu. Juan Kruz Igerabide

Baina ene arimak deus guti zekien orduan hartaz, **zeren** gazte bainintzen eta zeren gaztetasunaren indarra bainuen, hutsaren gainean jauzi egiteko. Joan Mari Irigoien

**Zeren** konturatzen bainintzen ez nuela gau hartan lo gehiagorik egingo. Koro Navarro

**Zeren** arrazoimentzat hartzen zen gure ezagumenaren iruzur hain orokorra aurkitu zuela uste baitzuen. Ibon Uribarri

Inflazioak, oro har, nahasmena sortzen du agente desberdinek gauzatzen duten jarduera ekonomikoan, **zeren** etorkizunean izango diren irabazi eta kostuen aurreikuspen kalkulua zailtzen baitu. Iñaki Heras

Jakina, baietz esan zion gure aitak, **zeren** gu bizi ginen leku hartan ez baitzen sekula ezer apartekorik gertatzen. Bernardo Atxaga

**3** (aditz laguntzaile edo trinkoak -(e)n atzizkia *duela)*

*Eta ez diat hori erraiten **zeren** protestant naizen eta zeren sainduak eta sainduen sinboloak sinesten ez ditudan, baina artearen ikusmoldetik. Joan Mari Irigoien*

***Zeren** hila zaren eta damnatua, Ifernuan on da zure izpiritua."Teologoen" ezaugarrietako bat, hain zuzen ere, filologiarako duten debekua eta ezintasuna da, **zeren** filologia den ongi irakurtzeko eta aditzeko artea. Xabier Olarra*

*Damutu zitzaion beste alkandorarik ez edukitzea, **zeren** eranztean konturatu zen alkandora izugarri zikina zeukala. Matías Mujika*

*Moralki esaten dut **zeren** damu-egarri nintzen oso eta iruditzen zitzaidan une hartako on-eginak, bakar batek, bizitza oso bateko txarkeriak zuritu zitzakeela. Matías Múgica*

***Zeren** ohartu ginen, bibliotekan begiratuz, frantses teologiako liburuak bazituztela. Menane Oxandabaratz*

***Zeren** Nafarroa tipi zen eta Gaztelak eta Espainiak handi egin zuten. Joan Mari Irigoien*

***4 zeren eta** (aditz laguntzaile edo trinkoak bait- atzizkia duela)*

*Gainerakoa gure bisitarako uzten dut, gutien ustean izanen da hau, **zeren eta** zure gutunetan erakusten didazun atxikimendu handiak behartzen bainau ni horretan zure sinestera. Piarres Xarriton*

*Goiz ezkontzeko aholkatzen zuten, **zeren eta** seme-alabak zubi bat bezalakoak izango baitziren judizioaren egunean, eta haurrik ez zutenek ezingo baitzuten pasatu. Iñaki Iñurrieta*

*Prestatu biderakoak, **zeren eta** hiru egunen buruan Jordan ibaia igaroko baituzue. Elizen arteko biblia*

*Gai hori sakon ikasi beharra dago, **zeren eta** gai natural asko ukitzen baititu. Santiago Iruretagoiena*

*Nire hurrengo maitasuna kondenaturik sortu zen, **zeren eta** Gertrudis galdu ondoren zineman babestu eta Troiako Helenaz maitemindu bainintzen. Bernardo Atxaga*

*Musugorri hari, ordea, seriotasun astuna zerion, jendeari harridura eta inoiz traba sortzen ziona, **zeren eta** bere egonezin axalekoetan errepararazten baitzion norberari. Jon Muñoz*

*Begitan hartuak zituen bai talde hura eta bai mundu osoa, **zeren eta** txoratuta zeukan mutilak ere zaputz egin baitzion, eta begikoago baitzuen Ceciliaren adiskiderik minena Cecilia bera baino. Jon Muñoz*

***Zeren eta** nafar etorkikoa izanez, Felipe Errege Jaunaren menpe bainaiz eta Portugaleko Erregeren meneko ere. Piarres Xarriton*

*-Ez dakit, Rosa, ez dakit... **zeren eta** gaitzagoa izan bailiteke bi berdinen arteko berdina hautatzea ezen ez mila berdinen arteko desberdina. Joan Mari Irigoien*

***Zeren eta** K.o. 1955ean Mendebaldeko gizakiak aurrean zituen arazo nagusiak erlijiozkoak baitziren guztiak. Iñaki Mendiguren*

*Oihu egiten zigula, protestanteak ginelakoan, **zeren eta** Mahonyk, zein ere azal beltzaranekoa baitzen, cricket klub bateko zilarrezko ikurra baitzuen biseran. Irene*

Aldasoro

**5** (aditz laguntzaile edo trinkoak atzizkirik ez duela)

**Zeren eta**, ez dezagun gure burua engainatu, pertsona normal batentzat ez dago gauza etsigarri eta ezerosoagorik homosexual edo yonki bat bizitzaz gozatzen eta zoriontsu ikustea baino. Bernardo Atxaga

Izan ere, biak torturatzen badituzte, lehenak aurkako aukera guztiak ditu, **zeren eta**, delitua aitortzen badu, kondenatu egingo dute; eta errugabe jotzen badute, jasoa du ez zegokion zigorra. Juan Martin Elexpuru

Hemen hegoaldean jende anitzekin espainolez behar dut egin, **zeren eta** euskaraz egiten dudanean zomorro arraro bati bezala so egiten didate, konprenituko ez balute bezala. Joseba Sarrionandia

Eskolan ezberdinak sentitzen ginen **zeren eta** ezberdinak ginen. Ana Urkiza

**Zeren-eta** biharamun hartan burutu behar nuen urratsa, ez bainuen ordura artean nehoiz eman, ezta antzekorik ezer ere. Txillardegi

**hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**

**zeren azken finean** (10); **zeren bada** (7); **zeren badakit** (3); **zeren badakizu** (4); **zeren badira** (8); **zeren badirudi** (4); **zeren bai** (14); **zeren bainekien** (11); **zeren bainekien ezen** (8); **zeren baitakit** (6); **zeren baitakit ezen** (3); **zeren baitakizu** (5); **zeren baitirudi** (6); **zeren baitirudi ezen** (3); **zeren baitzekien** (4); **zeren baitzekien ezen** (4); **zeren baitzirudien** (26); **zeren baitzirudien ezen** (23); **zeren baitzuen** (4); **zeren baliteke** (5)

**zeren eta** (1877); **zeren eta baitakizu** (3); **zeren ez** (185); **zeren ez bainaiz** (4); **zeren ez bainengoen** (3); **zeren ez bainuen** (9); **zeren ez baita** (23); **zeren ez baitago** (7); **zeren ez baitakit** (5); **zeren ez baitira** (5); **zeren ez baitu** (11); **zeren ez baitut** (10); **zeren ez baitute** (5); **zeren ez baitzegoen** (5); **zeren ez baitzen** (7); **zeren ez baitzuen** (7); **zeren ez da** (6); **zeren ezin** (23); **zeren ezin baita** (4); **zeren halakoa baitzen** (4)

**zeren iduritzen baitzitzaidan** (3); **zeren noiznahi den** (4)

**zeren oroitzen baitut** (4)

**zeren uste bainuen** (3); **zeren uste baitut** (9); **zeren zinez baitzen** (3)

---

## zerendako gald ipar zergatik?

Nire galdera hauxe duzie: **zerendako** ez dute gauze bera egiten bizkaitarrek bere euskalkiaz? Herria

Autobide bat gehiago **zerendako**? Herria

Ez baitute angles ainitzek iretsia **zerendako** zen Blair Irakiako saltsa hortan sartu Bushekin. Herria

Joanesek ez zuen endelegatzen **zerendako** egiten zioten hainbat ohore, ohoratzaileak ez zirelarik nornahi pentsa emazu! Itxaro Borda

---

## zeresan 1 iz esamesa; esatekoa.

Badakizu herri txikiak nolakoak diren, **zeresanik** sortzea ez da nire gustukoa. Joxemari Urteaga

Europako eraikinik onenak izango ziren eraikin guztiak, eta mugarriak arkitektura modernoan, eta **zeresana** emango zuten kale horretako eraikin guztiek. Unai Elorriaga

Askotan galdetu didazue nondik eta nola bildu dudan hainbeste **zeresan** eman eta emango duen olerki sorta hau. Javi Cillero

Ramírez kapitaina heroia izango zen, baina berak ere bazeukan **zeresana**. Fernando Morillo

Gainerako estatu eta gobernu europarrek ere badute **zeresana** eta zeregina, gatazkaren gainditze bidean. Berria - Euskal Herria

Galdeketak erakusten du %60k uste dutela Galesko Legebiltzarrak izan beharko lukeela **zeresan** eta eraginik handiena Galesen. Berria - Mundua

Epaiketan ere denek zeukaten nik egindakoari buruzko ustea eta **zeresana**. Hasier Etxeberria

**Zeresana** amaitu zitzaienean, zerbait esan beharko nuela-eta, halaxe galdetu nion gaixoari: [...]. Xabier Mendiguren Elizegi

**Zeresana** bukatu zaiela baina elkarren ondoan segitzen dutela, errutinazko mugimenduak errepikatuz, hitzen beharrik gabe. Xabier Mendiguren Elizegi

Jendearen **zeresanari** jaramonik egin gabe. Joxe Azurmendi

Inoren **zeresanak** ez dizu axolarik, ez baitiozu begiratzen gizakiaren itxurari. Elizen arteko biblia

Berak sendo iraunaraziko dizue azkeneraino, inork zuen aurka **zeresanik** izan ez dezan Jesu Kristo gure Jauna etorriko den egunean. Elizen arteko biblia

-Ez dut **zeresanik**. Koro Navarro

Gure artean ez dago zereginik, ez dugu **zeresanik**. Patxi Zubizarreta

Ordenako talde gidariak ere izan zuen **zeresanik** erabaki horretan. Askoren artean

Teknologiaren eraketa-prozesuan gizarteak ere **zeresanik** baduela adieraztea da gure asmoa atal honetan. Askoren artean

Herenegun IRAk hartutako erabakiak eman du **zeresanik** euskal alderdietako ordezkarien artean. Berria - Harian

Gorostiak gurean aipu berezia izan du, eta **zeresanik** ez gorosti-makila aipatzen badugu. Pello Zabala

**Zeresanik** ez, bi aste horiek motz geratu zitzaizkidan gure etxeak metatutako zikinkeria guztia ezabatzeko. Iban Zaldua

Baimena, onespena eta oniritzia alabak eman beharko zizkiola, berak ez baitzuen hor **zeresanik**, ez ezer esaterik. Xabier Mendiguren Elizegi

Psikologiak ere badu **zeresanik**. Markos Zapiain

**2** (izenondo eta kidekoekin)

-Nahi baduzu gera zaitezke, gure artekoan zuk ere **zeresan** handia duzu. Patxi Zubizarreta

Idazleak ez ezik, irakurleak ere **zeresan** handia dauka kontakizun laburretan. Javi Cillero

Biologian, historiak (eboluzioak) **zeresan** handia duelako (fisika klasikoan ez bezala). Askoren artean

Donostiako haurrei danborradan parte hartzearen harrotasun hori haur danborradetatik badatorkie, Euskal-Billera elkarteak **zeresan** berezia izan du horretan. Askoren artean

Gazteenaren familiak **zeresan** ugari eman zuen auzunean. Patxi Zubizarreta

Bistakoa da saioak, estatistikoki behintzat, ez zuela inongo pisurik; alabaina **zeresan** ugari sortu zuten, betiere aditu eta aztertzaileen izen onaren kalterako. Iñaki Heras

Bere bizitzaren azken urteetan ere **zeresan** eta polemika franko eragin zuten jarrerak izan zituen hainbat gai politikotan. Monika Etxebarria

Gure iloba horrek **zeresana** franko emango du. Koro Navarro

**hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**

**hainbeste zeresan** (5); **hainbeste zeresan eman** (3); **horretan zeresan handia** (3); **politikoek zeresan handia** (3)

**zeresan asko** (5); **zeresan asko eman** (3); **zeresan askorik** (3); **zeresan berezia** (3); **zeresan eman** (5); **zeresan handia** (112); **zeresan handia du** (13); **zeresan handia duela** (3); **zeresan handia dute** (7); **zeresan handia dutela** (6); **zeresan handia eman** (11); **zeresan handia emango** (7); **zeresan handia izan** (24); **zeresan handia izango** (23); **zeresan handia izaten** (3); **zeresan handia sortu** (3); **zeresan handiagoa** (8); **zeresan handiagoa izan** (3); **zeresan handiena** (4); **zeresan ugari** (16); **zeresan ugari eman** (9)

**badute zeresana** (4); **eman dute zeresana** (3); **zeresana dutela** (3); **zeresana duten** (3); **zeresana eman** (23); **zeresana eman dezakete** (3); **zeresana eman zuen** (5); **zeresana eman zuten** (3); **zeresana emango** (12); **zeresana emango du** (6); **zeresana ematen** (4); **zeresana izan** (12); **zeresana izan duten** (3); **zeresana izango** (4)

**inoren zeresanak** (3)

**badute zeresanik** (6); **eman du zeresanik** (5); **emango du zeresanik** (3); **eta zeresanik ez** (4); **zeresanik baduela** (4); **zeresanik badutela** (3); **zeresanik eman** (3); **zeresanik ez** (23); **zeresanik izan** (5); **zeresanik izango** (4)

---

## zeresateko iz zeresana.

Bakegintzaz **zeresatekorik** eta bakegintzan zereginik duten artistak bildu nahi izan dituzte, aurtengoan, Itsasura. Berria - Kultura

**zerga** *1 iz jaunak mendekoei ezartzen zien ordaintzekoa; gizabanakoei-eta beren ondasun edo mozkinetatik, Estatuak, xahutze publikoei aurre egiteko, hartzen dien zatia. ik* **petxa**.

*Eman bakoitzari zor diozuena:* ***zergak****, kontribuzioak, begirunea, ohorea, nori berea.* Elizen arteko biblia

*Erregaiaren prezioa* ***zergek*** *puzten dutela.* Berria - Ekonomia

***Zergen*** *eta prezioen arteko oreka.* Berria - Euskal Herria

*Erregeak erromatarrei zor zien* ***zerga*** *-berrogeita hamalau mila kilo zilarrekoa- [...].* Elizen arteko biblia

*Enpresen irabazien gaineko* ***zerga****, inbertsioa eta enplegu sorkuntza sustatzeko.* Iñaki Heras

*Hamarrenak,* ***zergak*** *eta gatzagei eta koroari dagozkienak.* Elizen arteko biblia

*[Faraoiak] eskatutako dirutza ordaindu ahal izateko,* ***zergak*** *ezarri zituen herrian.* Elizen arteko biblia

*XIV. mende hasieran, Lapurditik ateratako ardo eta sagardoen gaineko* ***zergak*** *kobratzen saiatu zen Baiona.* Martin Anso

*Meundarrok* ***zerga*** *ordaindu zioten Uziasi.* Elizen arteko biblia

*Ondare ugariegiaren* ***zerga*** *ordaintzen ari dira?* Anjel Lertxundi

***Zergak*** *ordaintzetik ere libratuko du halakoaren etxea Israelen.* Elizen arteko biblia

***Zergak****, ez al ditugu pagatzen?* Pablo Sastre

*Erregeari* ***zergak*** *zor dizkiolako.* Elizen arteko biblia

*Madrilek berriro* ***zergen*** *likidaziotik EAEri zegozkion 32 milioi euro atxiki ondoren.* Berria - Ekonomia

***Zergak*** *arindu zituen eskualdeetan, eta erregeari dagokion oparotasunez banatu zituen erregaliak.* Elizen arteko biblia

*Kapital-errenten gaineko* ***zergak*** *leundu.* Iñaki Heras

*Sozietateen* ***zerga*** *jaitsiko du Frantziako Gobernuak.* Berria - Ekonomia

***Zergak*** *beheratzeko joera, Estatu Batuetatik abiatuta, herrialde industrializatu guztietara zabaldu zen 1980ko hamarraldian.* Koro Navarro

*Desarautzea, pribatizazioa eta* ***zergak*** *murriztea izan ziren liberalismora bihurtutako politika ekonomikoen giltza-hitzak.* Koro Navarro

*Sozietateen gaineko* ***zerga*** *bateratzea proposatu du Bruselak.* Berria - Ekonomia

***Zerga*** *aurretiko irabaziak 14,3 milioi eurora heldu ziren iaz.* Berria - Ekonomia

*Labur, bi eratako* ***zergak*** *daudela esan daiteke: zuzenekoak, Ogasunari zuzenean ordaintzen zaizkionak, eta zeharkakoak, artekari baten bidez ordaintzen direnak.* Iñaki Heras

*Luxuari* ***zergen*** *zama kentzea.* Iñaki Iñurrieta

*Estatuak,* ***zergen*** *bidez, maileguen edo depreziazioaren bidez, finantza-baliabide handiak mobilizatu behar zituen.* Koro Navarro

***Zergen*** *aurreko emaitza %15,4 hazi zen eta 36,2 milioi euroraino iritsi.* Berria - Harian

***2*** *(izenondo eta izenlagunekin)*

*Klientelismo fiskal hutsa da, errentaren gaineko zergaren jaitsiera ezkutua* ***zerga*** *handiena ordaintzen dutenentzat.* Berria - Ekonomia

***Zerga*** *zuzenen artean, laneko errentek izan zuten presio fiskalik handiena iaz.* Berria - Ekonomia

*Herri elkargoen diru iturri nagusia* ***zerga*** *profesionala da.* Berria - Euskal Herria

*Eusko Jaurlaritzak ezarri nahi duen* ***«zerga*** *ekologikoa» alde batera utzi behar dela esan du EABk.* Berria - Euskal Herria

*Balio Erantsiaren gaineko* ***Zerga*** *(BEZ) murriztuaren eztabaidak hori agerian utzi du.* Berria - Harian

*Estatu-nazioak gero eta ahalmen gutxiago du diru-politika kontrolatzen, bere aurrekontuak erabakitzen, produkzioa eta merkataritza eratzen,* ***zerga*** *korporatiboak biltzen.* Joseba Zulaika

*Errentaren gaineko* ***zerga*** *progresiboaren alde.* Iñaki Heras

*Enpresariek beldur handiagoa ziotek jendilaje horri,* ***zerga*** *iraultzaileari baino.* Iban Zaldua

*Armadara joan beharrari eta Estatuaren* ***zerga*** *astunei ihes egitea ziren kanpora lanera joateko arrazoia.* Koldo Zuazo

*Zuzeneko* ***zergak****, sarreren gaineko* ***zergak*** *edota oinordetzen gaineko* ***zergak****, hauek izan daitezke, besteak beste, errenta eta aberastasunaren desberdintasunari aurre egiteko tresna aproposak.* Iñaki Heras

*Tatcher-en leloa unibertsala da: gehiegizko* ***zergek zergak*** *hiltzen dituzte.* Iñaki Heras

*Banatzaileei txikikazko salmentaren gaineko* ***zerga*** *kentzea eta %7ko BEZ* ***zerga*** *ezartzea gaur eguneko %16aren ordez.* Berria - Ekonomia

*Altadis tabakogileak kolpe latza jasan zuen atzo tabakoaren gaineko* ***zergek*** *gora egingo dutela jakinarazi zenean.* Berria - Ekonomia

*Zeharkako* ***zergak*** *gutxikorrak dira fiskalki, ez baitute aintzat hartzen zergapekoen ahalmen ekonomikoa.* Berria - Ekonomia

***3*** *(hitz elkartuetan lehen osagai gisa) ik* ***fiskal 2****.*

*Aberatsenen aldeko* ***zerga*** *neurriak hartuko ditu Frantziako Gobernuak.* Berria - Ekonomia

*Orain arte, 10.000 euro arteko gastuek %50eko* ***zerga*** *kenkariak izaten zituzten.* Berria - Ekonomia

*Antioko erregeak ofizial* ***zerga*** *-biltzaile bat bidali zuen Judeako hirietara.* Elizen arteko biblia

***Zerga*** *-bilketarako bulegoak.* Jose Morales

*Hego Euskal Herriko foru ogasunek 11.655 milioi euro bildu zituen iaz, eta zeharkako* ***zergen*** *pisuak gora egin zuen berriro.* Berria - Ekonomia

*2004rako aurreikusitako* ***zerga*** *sarreren %53 etorriko da zeharkakoetatik, %45,9 zuzenekoetatik eta %1,2 tasa eta bestelakoetatik.* Berria - Ekonomia

***Zerga*** *-sistemaren kudeaketaren ardura.* Koro Navarro

*Hego Euskal Herrian eztabaidaezina da* ***zerga*** *sistema atzerakoia dela.* Berria - Ekonomia

***Zerga*** *politika, diru politika, atzerri politika eta errenta politika.* Iñaki Heras

*Truke-tasa, interes-tasa eta atzerriko inbertsio zuzenen liberalizazioa;* ***zerga*** *diziplina.* Iñaki Heras

*Gastu publikoa finantzatzeko* ***zerga*** *-presioa areagotu zen.* Iñaki Heras

*Kalkulagailua esku batean, gora eta behera, kontuak egiten, eta* ***zerga*** *-legeak zein nire aurreko urteetako aitorpenak bestean, egokiena zena aukeratzeko.* Jon Alonso

***Zerga*** *delituak nabarmendu ditu, bestalde, fiskal nagusiak.* Berria - Euskal Herria

*Delitu larriak leporatzen zaizkio Pinocheti:* ***zerga*** *-iruzurra, fondo publikoak bidegabe erabiltzea, lapurreta, [...].* Berria - Mundua

*Bilera «ia klandestinoa» izan zuten joan den astean* ***zerga*** *pizgarriei buruz hitz egiteko.* Berria - Ekonomia

*Abeltzaintzako errenta deklaraziorako* ***zerga*** *-moduluak murriztea.* Berria - Ekonomia

*Katastroaren balioa eta tipo edo* ***zerga*** *koefizientea.* Berria - Euskal Herria

*Dirulaguntzen eta* ***«zerga*** *-pribilegioen» murrizketa.* Berria - Ekonomia

*2001ean, EAEn, ogasunek 119 milioi euro bildu zituzten egindako* ***zerga*** *ikuskapenen bidez.* Berria - Ekonomia

*Bere diru-ekonomia* ***zerga*** *-karga gero eta handiagoaren mende jartzen baitu.* Iñaki Mendiguren

*Berretsi egiten dizkizut nire aurreko erregeek egin zizkizuten* ***zerga*** *-kentze guztiak.* Elizen arteko biblia

***Zerga*** *-salbuespenak, aldi baterako fabrikazio-monopolioak, maileguak, estatuaren eskariak eta ohorezko abantailak.* Koro Navarro

***Zerga*** *erantzukizunik ote dagoen ikertuko du Foru Ogasunak.* Berria - Euskal Herria

*Enpresa aberatsari zinegotziak egiten dion* ***zerga*** *-barkamena; damutu ez den erregeari apaizak ematen dion absoluzioa.* Xabier Olarra

*Erromatarrei bakarrik zegokien* ***zerga*** *-handitze bat.* Iñaki Iñurrieta

*Litekeena da gaur egun gainontzeko gizarte aurreikuspen sistema pribatuekin egiten ari den legez, aseguru pribatuek desgrabatze fiskalak,* ***zerga*** *-arintzea ekartzea.* Berria - Harian

Errenta aitorpenean egiten zaizkien **zerga** arintze handiak direla eta. Berria - Harian

Errenta maila garaia dutenek **zerga** aholkularitza askoz hobea izateaz gain, **zerga** arautegi konplexuan jasotzen diren hainbat eta hainbat aldrebeskeria dela medio, finantza-ingeniaritza eragiketei onura handiagoa ateratzeko aukera hobea baitute. Iñaki Heras

Valentziako **Zerga** Zerbitzuak sortzea aurreikusten du hitzarmenak. Berria - Mundua

**Zerga** administrazioaren garapenarekin bat etorriko den araudi berria indarrean izango da datorren urteko uztailetik aurrera. Berria - Ekonomia

Espainiako bandera besteak baino gehiago bustitzen ari da **Zerga** Agentziaren eraikineko balkoi luzean. Urtzi Urrutikoetxea

Autonomi erkidegoek **zerga** -autonomia handiagoa izango zutela ere adierazi zuen. Berria - Mundua

## 4 (hitz elkartuetan lehen osagai gisa, fiskal-en kide ez denean)

Gero, **zerga** mota hori desagertu zen, gobernuaren manuz. Angel Aintziburu / Jean Baptiste Etxarren

Ea, erakutsi **zerga** -txanpona. Elizen arteko biblia

Errusiako **Zerga** Ministerioak. Berria - Mundua

Langabeen **zerga** txostenak ikuskatzeko ahalmena. Berria - Harian

Lan Ministerioak, «iruzur zantzuren bat» izanez gero, langabeen **zerga** aitorpenak ikuskatu ahal izanen ditu. Berria - Harian

## 5 (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa)

ETAren arabera zerrenda horretako enpresek ez dute iraultza **zerga** ordaindu nahi. Berria - Euskal Herria

Oinordetza **zerga** : Sarkozyk proposatuta, seme-alabei 100.000 euro arteko ondasunak oinordetzan uzteak ez du zergarik ordainduko. Berria - Ekonomia

Europako Batasuneko batez besteko sozietate **zerga** %31,4koa zen 15 kide zirenean. Berria - Ekonomia

Errenta **zergaren** merkatzea ere iragarri zuen Chiracek. Berria - Ekonomia

Funtsean, mozkin- **zerga** ja apaldua du % 5-ez. Herria

Lur- **zerga** pagatzen dute lur zerbaiten jabe diren guziek, lur hori izan lur hutsa edo etxe batekilakoa. Herria

Lur- **zerga** ala etxe- **zerga** , ardura herri- **zerga** deitzen ditugu. Herria

Hiri **zergak** % biez emendatzea erabaki du Kontseiluak. Herria

Udal **zergek** eta katastroaren berrikuspenek zenbait arazo sortu dituzte. Berria - Euskal Herria

Zonbat aldiz ez daukute errepikatu gobernu- **zergak** apalduz joanen zirela. Herria

Lanbide **zerga** , adibidez, zuzenean kobratzen du herri elkargoak. Berria - Harian

Telebista- **zerga** 116 eurokoa izango da urtean. Berria - Ekonomia

Jende xehea larrutzen duzue gari- **zerga** ordaintzera behartuz. Elizen arteko biblia

Ez al dezakezue ordaindu beharreko odol- **zerga** arindu. Jon Alonso

Oso ezaguna egin da James Tobin Ekonomiako Nobel sari zendu berriaren proposamena: Tobin **zerga** . ondorengotza zerga ezabatu du, **elkarte zerga** kendu, interes gatazka legea onartu. Iñaki Heras

Dantza- **zerga** ordaintzen ez duten tabernariei isuna ezartzen zaie poliziak norbait lokal horretan dantzan harrapatuz gero. Harkaitz Cano

## 6 irud/hed

Hiri handiek ordaindu beharreko **zerga** da metroetako distirarik eza. Hasier Etxeberria

## 7 muga-zerga

EBn finantzaketarako diru iturriak hiru dira: **muga-zergak** , BEZrekin jasotzen den portzentaia bat eta estatu bakoitzak jarri behar duen BPGren %1,27ª. Berria - Euskal Herria

Europak %19,4ko **muga zerga** jarri nahi die Txinatik datozen zapatei. Berria - Ekonomia

Bertan behera gelditu den kuota sistematik at daude poliester zuntzak eta, datozen bost urteotarako %49,7ko **muga zergak** ezartzea hobetsi du EBk. Berria - Harian

**Muga-zergak** ezabatu ditu Munduko Merkataritza Erakundeak, eta Norvegiatik, adibidez, ehunka kamioi datoz gurera legatzez beteta. Berria - Ekonomia

ASEANek itun bana izenpetu zuen Japoniarekin eta Hego Korearekin datorren hamarkadan **muga zerga** guztiak kentzeko. Berria - Ekonomia

Europako Batasunean, Kanada, AEB eta Japonian, esnea, haragia, txokolatea azukrearentzat **muga-zergak** %100 ingurukoak dira kasu askotan. Iñaki Heras

**Muga-zergak** jaitsi eta Asiako makinei atea zabaldu izanak min handia egin dio barne merkatuari. Berria - Ekonomia

## 8 zerga-bulego

Donazioak egin nahi dituztenek Herriko Etxean edo **zerga bulegoetan** eskatu beharko dute inprimakia. Berria - Ekonomia

Ondoren, **zerga bulegoan** jaso beharko da. Berria - Ekonomia

## 9 zerga-etxe (orobat **zergetxe** g.er.)

Baionako langileek merkataritza ganberako, **zerga-etxeko** , administrazio guneko eta hiri elkargoko argindarra moztu zuten. Berria - Ekonomia

Zerbitzu batzuk, besteak beste postak eta **zerga etxeak** , barnealdetik kentzeak jendeari bide handia eginaraztea eragiten diola salatu zuen Jean-Batpiste Etxeto CFDTko idazkari nagusiak. Berria - Ekonomia

Bankuak jautz, posta bulegoak zarta, **zerga etxea** pum, sosa har eta ospa. Itxaro Borda

Donostiako Ogasun edo **Zerga etxean** kalte handiak egin zituen aitzineko igandean sute batek. Herria

-Kalte material handiak badira eta **zerga-etxeko** zein postako langileek ez dute jasaten dugun zapalkuntza horretan errurik. Itxaro Borda

### hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

**balio erantsiaren zerga** (3); **bere zerga** (4); **beren zerga** (4); **bez eta zerga** (4); **bez zerga** (10); **bezaren eta zerga** (10); **bi zerga** (7)

**elkartasun zerga** (3); **errentaren gaineko zerga** (7); **estatuko zerga** (4); **etaren iraultza zerga** (5); **etari iraultza zerga** (19); **etxe zerga** (4); **etxebizitzen zerga** (4); **euroko zerga** (6); **ezarritako zerga** (3); **gasteizko etxebizitzen zerga** (3); **gure zerga** (4); **herritarrek zerga** (3)

**irabazien gaineko zerga** (5); **iraultza zerga** (60); **iraultza zerga delakoa** (10); **iraultza zerga eskatu** (5); **iraultza zerga ordaindu** (22); **kargu eta zerga** (8); **kataluniako zerga** (7); **kataluniako zerga agentzia** (3); **lanbide zerga** (5); **lur zerga** (3); **mozkin zerga** (18); **muga zerga** (4)

**ondarearen gaineko zerga** (3); **ordaindu beharreko zerga** (4); **sozietate zerga** (3); **sozietateen gaineko zerga** (6); **sozietateen zerga** (4); **sukaldariei iraultza zerga** (3); **tenplurako zerga** (3); **tobin zerga** (3); **urteko zerga** (6)

**zerga agentzia** (12); **zerga agentzia bakarra** (3); **zerga agentziak** (4); **zerga agentziaren** (4); **zerga aitortzerakoan** (3); **zerga apaldu** (3); **zerga arau** (4); **zerga arintze** (4); **zerga aurreko** (3); **zerga aurretik** (3)

**zerga bat** (12); **zerga batzu** (3); **zerga batzuk** (4); **zerga bera** (3); **zerga berezi** (8); **zerga berezi bat** (6); **zerga berezia** (7); **zerga bereziak** (8); **zerga berezien** (13); **zerga berezien likidaziotik** (6); **zerga berezietatik** (5); **zerga berri** (8); **zerga berri bat** (4); **zerga berria** (5); **zerga berriak** (3); **zerga bez** (4); **zerga bidez** (8); **zerga bilketa** (9); **zerga bilketarako** (3); **zerga biltzaile** (8); **zerga biltzailea** (8); **zerga biltzaileak** (5); **zerga biltzeko** (3); **zerga biltzen** (4)

**zerga ekologikoa** (7); **zerga eskatu** (5); **zerga eskatzeko** (3); **zerga eskatzen** (3); **zerga etxean** (3); **zerga ezarri** (4); **zerga ezartzea** (6)

**zerga gehiago** (12); **zerga gehiago ordaindu** (3); **zerga gisa** (3); **zerga gutiago** (3); **zerga gutxiago** (14); **zerga gutxiago ordaindu** (4); **zerga guziak** (3); **zerga guztiak** (9)

**zerga handiak** (6)

**zerga iraultzailea** (10); **zerga iruzurra** (8); **zerga izan** (3)

**zerga kenkariak** (7)

**zerga laguntzak** (3)

**zerga mota** (5); **zerga murrizketa** (3); **zerga murrizketak** (6); **zerga murrizteko** (3)

**zerga ondorengo** (7); **zerga ordaindu** (42); **zerga ordaindu behar** (9); **zerga ordaindu beharko** (3); **zerga ordaindu ziotela** (5); **zerga ordaintzea** (5); **zerga ordaintzeko** (7); **zerga ordaintzen** (8); **zerga ordaintzera** (3)

**zerga pagatu** (4); **zerga pagatzen** (3); **zerga pizgarriak** (6); **zerga politika** (12); **zerga politikak** (4); **zerga politikaren** (5); **zerga profesionala** (5)

**zerga sistema** (24); **zerga sistema propioa** (3); **zerga sisteman** (3); **zerga sistemaren** (4)

**zerga tasa** (6); **zerga ttipiak** (8); **zerga txikiagoa** (3)

*zerga zerbitzuek* (4); *zerga zuzenak* (6); *zerga zuzenen* (3); *zesarri zerga ordaintzea* (4)

*bere zergak* (8); *etxebizitzen zergak* (3); *herri zergak* (6); *herriko zergak* (4); *muga zergak* (12); *ordaindu beharreko zergak* (4); *zeharkako zergak* (4)

*zergak arindu* (5); *zergak arinduko* (4); *zergak barne* (4); *zergak biltzeko* (13)

*zergak emendatu* (3); *zergak emendatuko* (3); *zergak ez ordaintzea* (3); *zergak ezarri* (6); *zergak ezarriz* (3); *zergak ezartzeko* (3); *zergak goiti* (5)

*zergak igo* (4); *zergak igoko* (3); *zergak igotzea* (3); *zergak igotzearen* (3); *zergak jaisteko* (3); *zergak jaitsi* (4); *zergak jaitsiko* (3); *zergak jartzea* (3); *zergak murriztea* (4); *zergak murriztu* (3)

*zergak ordaindu* (37); *zergak ordaindu aurreko* (3); *zergak ordaindu behar* (9); *zergak ordaindu beharra* (3); *zergak ordaintzea* (6); *zergak ordaintzeari* (4); *zergak ordaintzeko* (9); *zergak ordaintzen* (26); *zergak ordaintzen dituztenen* (3); *zergak ordaintzetik* (4); *zergak pagatu* (3); *zergak pagatzen* (4)

*errentaren gaineko zergan* (4)

*menpeko eta zergapeko* (3); *zergapeko bat* (3); *zergapeko egin* (4); *zergapeko egin ziren* (3)

*errenta zergaren* (4); *errentaren gaineko zergaren* (10); *etxebizitzen zergaren* (3); *gasteizko etxebizitzen zergaren* (3); *iraultza zergaren* (5); *mozkin zergaren* (5); *sozietate zergaren* (8); *sozietateen gaineko zergaren* (3)

*zergaren altxatzeko* (4); *zergaren aurka* (3); *zergaren bitartez* (4); *zergaren oinarri* (3); *zergaren pfez* (3); *zergaren tasa* (3)

*ez da zergarik* (4); *ez du zergarik* (4); *ez dute zergarik* (4); *ez zuten zergarik* (3); *zergarik ez ordaintzea* (4); *zergarik gabe* (4); *zergarik ordaindu* (14); *zergarik ordaindu behar* (4); *zergarik ordaindu ez* (3); *zergarik ordainduko* (4); *zergarik ordaintzen* (8); *zergarik pagatzen* (5)

---

zergabiltzaile *ik* ***zerga 3***.

---

zergadiru *ik* ***zerga 3***.

---

## zergadun *iz zergak ordaintzea dagokion pertsona.*

*__Zergadunek__ 25 milioi aurreztu dituztela azaldu du Ogasun zuzendariak.* Berria - Ekonomia

*75.000 __zergadunek__ aurrelikidazioa egiteko proposamena jasoko dute gutun baten bidez.* Berria - Ekonomia

*Irailera bitartean, __zergadunen__ ondasunak ikertuko dituzte.* Berria - Ekonomia

*Misiolariak bizitza zibilaren eragozpenetatik libratu behar du bere burua, eta eskubide osoa du bere artaldeak manten dezan, soldaduak __zergadunak__ ordaindutakotik bere soldata hartzeko duen bezalaxe.* Iñaki Mendiguren

*Ez nuen botorik ematen, zerga batzuk ordaintzen nituen, besterik ez: ezin nintzen harrotu __zergadunaren__ eskubideen izenean, ez hauteslearenen izenean, ezta hogei urtetako esanekotasunak enplegatuari emaniko ohorerako eskubide apalaren izenean ere.* Monika Etxebarria

*Gero, __zergaduna__, amorraturik, __zergadunentzako__ leku batean esertzera joan zen, libre utzia baitzuen beste __zergadun__ batek.* Xabier Olarra

*Gutako bakoitzaren bidaia berrehun mila pezeta inguru kostatu omen zaio __zergadun__ espainolari.* Bernardo Atxaga

---

## zergagabetu, *zergagabe(tu), zergagabetzen du ad zerga kendu.*

*Enpresen inbertsioa __zergagabetuko__ da.* Berria - Ekonomia

*100.000 eurotik azpiko oinordekotzak __zergagabetzea__ erabaki aurretik, Sarkozyk proposatu zuen lehen etxebizitzen emateak soilik zergatik at uztea.* Berria - Ekonomia

---

zergaiti *ik* ***zergatik***.

---

*zergaitik* ***zergatik***.

---

## zergalari ***1*** *iz zerga-biltzailea.*

*Lebi izeneko __zergalari__ bat ikusi zuen, zerga biltzeko mahaian eseria.* Elizen arteko biblia

*__Zergalaria__ aldiz, bide txarreko horien artekoa zitakeen.* Herria

*Zure senide batek bekatu egiten badu eta abar, erraiozu elkarteari, eta elkarteari ere kasurik egin nahi ez badio, zuretzat izan bedi arrotz baten edo __zergalari__ baten pareko.* Piarres Xarriton

*-Nolatan jaten eta edaten duzue __zergalari__ eta bekatariekin?* Elizen arteko biblia

*__Zergalariak__ eta emagalduak zuek baino lehenago sartuko dira Jainkoaren erreinuan.* Elizen arteko biblia

***2*** *(hitz elkartuetan)*

*Bazen han Zakeo izeneko gizon bat, __zergalari__-burua, oso aberatsa.* Elizen arteko biblia

*Fama txarreko __zergalari__ mota bat, dena jukutria baitira horiek jendearen enganatzeko.* Herria

***3*** *(adizlagun gisa)*

*Ez baitut zu errenta-biltzaile edota __zergalari__ ikusi arte gelditzeko asmorik.* Patxi Ezkiaga

---

## zergalaritza *iz zergalariaren jarduera.*

*Ebanjelioan Levy __zergalaritzan__ ageri delakoz, aduanariek, muga-zergak eta arbitrioak kobratzen zituztenek aurrena, diru-trukatzaileek gero, eta kontulari eta kontableek hurrena, eta azkenik, bankariak bildu dira Mateoren itzal zabalera.* Pello Zabala

---

**zergaño** *iz adkor zerga txikia.*

*Horra nun azkarki aipu den __zergaño__ baten... emendatzea! Mintzo gira telebixtaren hartzeko pagatzen den zerga berezi hortaz.* Herria

*Hortik pasatzean, salgai edo garraiatzen ari zenak behar zuen __zergaño__ bat ordaindu, nahi ala ez.* Angel Aintziburu / Jean Baptiste Etxarren

*Beste __zergaño__ bat ere bazen, lur berriak egiten zirelarik herri batean.* Angel Aintziburu / Jean Baptiste Etxarren

---

## zergapeko ***1*** *iz zergak ordaintzen dituen pertsona.*

*__Zergapekoen__ laurdenak autolikidazioa hartu du etxean.* Berria - Ekonomia

*Ehundik gora __zergapekori__ onurazko tratua eman izana egozten dio Ibarrari.* Berria - Euskal Herria

*Adierazi zioten Judasi nolako gerrak eta egintza handiak zituzten galaziarren artean, nola menperatu zituzten eta* ***zergapeko*** *egin.* Elizen arteko biblia

*Arabako* ***zergapekoek*** *Estatukoen aldean onura gehiago dituztela esan du Angel Barrasak.* Berria - Ekonomia

*Zeharkako zergak gutxikorrak dira fiskalki, ez baitute aintzat hartzen* ***zergapekoen*** *ahalmen ekonomikoa.* Berria - Ekonomia

*Davidek gobernariak ezarri zizkien Damaskoko siriarrei, eta Daviden menpeko eta* ***zergapeko*** *egin ziren.* Elizen arteko biblia

*Erregek zorrotz egiten zioan arren Ingalaterrakoari, beraren* ***zergapeko*** *leiala izaki hura.* Juan Garzia

**2** (izenondo gisa)

*Ehun [sos] besterik ez zituen ordaintzen erromatar jabe bat hiltzen zuenak, eta berrogeita bost besterik ez, erromatar* ***zergapeko*** *bat hiltzen zuenak.* Iñaki Iñurrieta

*Inork guk zentsua jaso ohi genuen lur* ***zergapeko*** *bat erosiz gero.* Iñaki Iñurrieta

• **3** izlag zerga zor duena.

*Ez zekiten ezer ekialdera eta hegoaldera* ***zergapeko*** *herrietarantz zihoazen errepide handiei buruz ere.* Agustin Otsoa

---

## **zergapetu**, zergapetu, zergapetzen **1** du ad zerga ezarri.

*Ehun mila eurotik beherako herentziak ez dituzte* ***zergapetuko*** *.* Berria - Ekonomia

*Gobernuburuak ukatu egin du amnistia fiskala dela, Frantziaratuko den dirua* ***zergapetu*** *egingo dutelako, %15 eta %25 artean.* Berria - Ekonomia

*Gerrillariek droga hartzea debekaturik dute, baina kokainaren eta heroinaren ekoizpen, lanketa eta garraioa babestu eta* ***zergapetzen*** *dute.* Berria - Mundua

**2** (era burutua izen gisa) ik **zergadun**.

*Hala, gaur bertan hasiko dira dirua hartzea dagokien* ***zergapetuei*** *dirua itzultzen.* Berria - Ekonomia

*Bizkaiko* ***zergapetuen*** *%99k onartu dute Ogasunaren likidazioa.* Berria - Ekonomia

---

## **zergapetze** iz zerga ezartzea.

*Bide batez, aurrezki tresna ezberdinen* ***zergapetze*** *ezberdina zuzenduko du.* Berria - Ekonomia

*Fiskalitate arloan bi urratsetako aldaketa plan bat proposatzen dute kontserbadoreek, Persona Fisikoen Errenten Gaineko Zergaren mailaketa hirutara murrizteko, errenten %32ko gehiengo baten eta %12ko gutxiengo bateko* ***zergapetzeen*** *artean.* Berria - Mundua

*Abokatuen gastuak, tasa federalak eta* ***zergapetze*** *mailak kondutan hartuta, Lockerbieko atentatuko biktimen familia bakoitzak 1,5 eta 2 milioi dolar bitartean du kobratuko.* Berria - Mundua

---

## **zergategi** iz ipar zerga-bulegoa.

*Otsailean edo berantenaz martxoan, paper batzu bete behar dira eta gero* ***zergategirat*** *igorri, argitan ezarririk bakoitxak aintzineko urtean nundik zer mozkin ukana duen, mozkin-zerga araberan finkatua izaiteko.* Herria

*Dinamita ebasteaz eta arma indartsuen erakusteko balio izan zuen prentsaurrekoaz geroztik, zartatu ziren posta bulegoak, lantegi multinazionalen atarriak, etxe-saltzapen agentziak,* ***zergategiak*** *eta jendarmeriak.* Itxaro Borda

***Zergategietako*** *enplegatuek eginen dute lan hori guretzat.* Herria

---

## **zergati** (orobat **zergaiti** g.er.) **1** iz arrazoia, zioa. ik **zergatiko**.

*Giza bizitzaren* ***zergatia*** *eta zertarakoa aztertzera irauli zuen bere ahalmen osoa.* Imanol Unzurrunzaga

*Ez baita gauza frogatua gizarte guztietan eragin sinboliko guztien nondik norako eta* ***zergati*** *guztiak azaltzeko egokiak direnik.* Josu Zabaleta

*Ez nuke asmatuko ordea sentipen haien* ***zergatia*** *agertzen.* Koro Navarro

*Bazekien Lurrean eta Espazioan barreiaturik zeudela seinale haiek, ez zeukatela [...] inongo* ***zergati*** *edo esanahirik, eta ez haizeek ez eguzkiek, ezta gizakiek ere, ez zekitela zertarako eginak ziren.* Xabier Aranburu

*Frogarik ez izan arren, garbi zeukan* ***zergatia*** *.* Migel Angel Mintegi

*Hondoratzearen* ***zergatiei*** *dagokienez, berriz, ezbeharretik salbatu direnek azaldu dute sutea piztu zela ontzian.* Berria - Mundua

*Gizona eta emakumea ezberdin hezten direla dio Sire Diakitek, eta hori dela genero indarkeriaren* ***zergatietako*** *bat.* Berria - Gaiak

*Honen* ***zergatia*** *, ordea, honetan datza: [...].* Ibon Uribarri

*Horren* ***zergatia*** *, berriz, hau da: [...].* Ibon Uribarri

***Zergati*** *bat aurkitu nahian nabil eta ez dut aurkitzen.* Berria - Euskal Herria

*Hortxe zeukan, iraganetik jalgia, bere desohorearen* ***zergatia*** *.* Elena Touyarou

*Argitu beharko zion* ***zergatia*** *.* Migel Angel Mintegi

*Bisitariak ez zuen nire barrearen* ***zergatia*** *ulertu.* Edorta Jimenez

*Arratsaldeko hiru eta erdietan zortzi metrotik behera erori zen Zumarragako herritarra eta oraindik ere, ez da zehaztu ezbeharraren* ***zergaitia*** *.* Berria - Ekonomia

*Duela egun batzuk, ordea, Erresuma Batuko bi medikuk gaitzaren* ***zergatia*** *aurkitu zuten.* Berria - Gaiak

***Zergatia*** *jakitea ez zitzaion gaizki etorriko, pentsatu zuen Maizak.* Migel Angel Mintegi

*Txokok* ***zergatiaren*** *funtsa susmatzen zuen.* Itxaro Borda

***Zergatia*** *ez da txantxetakoa, hilketa bat leporatzen baitiote.* Migel Angel Mintegi

*Pobreziaren eta aberastasunaren* ***zergatiak*** *sakonagoak eta konplexuagoak dira.* Iñaki Heras

*Israel erreinuaren hodamendiaren* ***zergatiak*** *.* Elizen arteko biblia

**2** (izenondo eta izenlagunekin)

*Patolojia depresiboa suizidioaren* ***zergati*** *nagusia dela baitakigu, bai behintzat adinekoen artean.* Berria - Euskal Herria

*Gurean sortutako produktua dela, nahiz eta oraingoan euskarazko bertsiorik taularatuko ez duten,* ***zergati*** *argirik gabe, duela hamar urtekoak oso ondo funtzionatzen zuelako.* Berria - Kultura

*Haren birikak, hodei goibel itxi haiek, alegia,* ***zergati*** *ezkuturen batengatik ezertarako gauza ez zirela zirudien, ezin izango ziotela erasoari.* Karlos Zabala

*Oroit naiz garbiki, gaur, erabakiaren* ***zergati*** *erabakigarriaz: ez nuela mundu honi atxikia izan behar, bizia behar nuela eman.* Piarres Aintziart

*Ez zitzaion gizalegezkoa iruditzen bi anaien artean sartzea,* ***zergati*** *guztiz seriorik izan gabe.* Karlos Zabala

*Urrutiko* ***zergatiei*** *indarra ematea, hauen oroitzapena oso laburra eta ahula izaten dela jakinda.* Juan Martin Elexpuru

*Galderaren ezkutuko* ***zergatiaren*** *berririk ez zion osabari agertu nahi.* Joxemari Urteaga

*Argi eduki beti, Eñaut, zer zaren, zer zaren, zein izan zen partidari ekiteko estreinako* ***zergatia*** *.* Sonia Gonzalez

> ***hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)***
>
> ***bere bisitaren zergatia*** *(4);* ***bere zergatia*** *(6);* ***bisitaren zergatia*** *(7);* ***egoeraren zergatia*** *(3);* ***egotearen zergatia*** *(3);* ***erabakiaren zergatia*** *(5);* ***gauzen zergatia*** *(3);* ***heriotzaren zergatia*** *(7);* ***izanaren zergatia*** *(3)*
>
> ***zergatia argitu*** *(5);* ***zergatia argitzeko*** *(4);* ***zergatia azaldu*** *(21);* ***zergatia azaldu zuen*** *(4);* ***zergatia azaltzeko*** *(11);* ***zergatia azaltzen*** *(9);* ***zergatia ere azaldu*** *(4);* ***zergatia***

*galdetu* (4); *zergatia hau da* (3); *zergatia jakin* (7); *zergatia jakin nahi* (3); *zergatia jakiteko* (3); *zergatia ulertu* (6); *zergatia ulertzen* (4)

*heriotzaren zergatiak* (5); *istripuaren zergatiak* (5); *porrotaren zergatiak* (3); *zergatiak argitu* (5); *zergatiak argitzeko* (4); *zergatiak azaldu* (6); *zergatiak azaltzeko* (5); *zergatiak bilatzen* (3)

*zergatiari buruz* (3)

*zergatiaz galdetu* (4); *zergatiaz galdetzen* (3)

*zergatiei buruzko* (3)

*zergatietako bat* (3)

---

**zergatik** (orobat **zergaiti** g.er. eta **zergaitik** g.er.) **1** gald zein arrazoirengatik? (ikus beheko konbinatorian zergatik galdetzailearen agerraldi maizkoenak)

**2** (zehar galderetan)

Bai, bai, badakit **zergatik** egiten duzun hori. Ramon Etxezarreta

Jose Luis Beaumontek argi du proiektuak **zergatik** egin duen aurrera oztopo guztiak gaindituz. Edurne Elizondo

Argitu gabe geratzen da **zergatik** nahiago duen enpresa horrek inbertsio baten arriskua hartu [...] eta ez produktu berrian edo ekoizpen-prozedura berrian interesaturiko enpresekin lizentziak negoziatu. Koro Navarro

Kontatuko nizula **zergatik** banandu ginen zure aita eta biok, **zergatik**, urte luze hauetan, bizi izan naizen bakarrik. Felipe Juaristi

Badakizu **zergatik** deitzen dioten soto honi "Oihartzunen Gela"? Harkaitz Cano

Ezin duzu ulertu gertatzen zaizuna, **zergatik** zauden beti nekatua, **zergatik** zauden guztiaz nekatua. Lourdes Oñederra

Urrunago joan baino lehen jakin behar zenuke **zergatik** Iohan Apezari horrela deitzen zaion. Aurelia Arkotxa

Eta ez daki **zergatik** esan duen hori. Bernardo Atxaga

Azaldu iezadazu, ahal bada, **zergatik** eman dion Jaungoikoak gizakiari nahimenaren erabakimen librea. Imanol Unzurrunzaga

Esaidak **zergatik** egiten duan negar Troiako gertakizunen kantuak entzutean. Juan Kruz Igerabide

Ruche jaunak bere buruari galdetu zion ea **zergatik** ez zuen aipatu eklipsea. Jon Muñoz

Ez nuke jakingo **zergatik** azaltzen, baina irizpidez konfiantza osokoa zitzaidan. Txillardegi

Iturririk ez da aipatzen, zeinek esan duen zer, **zergatik** esan duen... Ana Urkiza

Gurasoek ez ziguten argazkirik ateratzen, eta nik neuk ere ez dut aparteko zaletasunik; ez dakit **zergatik** ote den: nagikeria izan liteke, besterik gabe. Xabier Mendiguren Elizegi

Ez nekien **zergatik** ezin nuen gainditu hura guztia, Laurarekin akordatu nintzen. Mikel Hernandez Abaitua

Pieza dexente kokatu ditu dagoeneko zein bere lekuan, baina, **zergatik** ez dakiela, erabat trabatuta geratu dela iruditzen zaio orain. Imanol Zurutuza

Etxeraino lagundu diot, auskalo **zergatik**. Iban Zaldua

Gaur, ez daki **zergatik**, hori etorri zaio gogora. Aingeru Epaltza

Horra, bada, **zergatik** hartzen dituen nahitaezean horrenbeste eremu unibertsitateak. Juan Ignacio Pérez / Pello Salaburu

Horra **zergatik** ministroak ez zuen nahi izan Martzellan kontsekratua izan zedin. Xipri Arbelbide

**Zergatik** egotzi zaizkion Jainkoari entzumena, ikusmena eta usaimena, eta ez dastamena eta ukimena. Xabier Kintana

Neu izan nintzen Les diaboliques ikusi behar genuela proposatu zuena ere, eta badakizu **zergatik**, ama? Anjel Lertxundi

Ilundurak hartzen gintuen gero eta sarriago **zergatik** jakin gabe. Koldo Izagirre

**Zergatik** ez dakit, garbi dakidana da orduan ez nintzela oraindik anarkista. Inazio Mujika Iraola

Eta erakutsi dio non (paparrean) eta **zergatik**. Berria - Kultura

***hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 8 aldiz agertzen direnak)***

*argitu zergatik* (11); *auskalo zergatik* (68); *azaldu zergatik* (12)

*badakik zergatik* (16); *badakit zergatik* (27); *badakizu zergatik* (35); *badakizue zergatik* (8); *baina zergatik* (167); *baina zergatik ez* (31); *batek daki zergatik* (22)

*ea zergatik* (146); *ea zergatik egiten* (8); *ea zergatik ez* (49); *edo auskalo zergatik* (9); *eta badakizu zergatik* (8); *eta zergatik egin* (12); *eta zergatik esan* (9); *eta zergatik ez* (167); *eta zergatik ote* (10); *ez dago zergatik* (8); *ez daki zergatik* (36); *ez dakigu zergatik* (34); *ez dakit zergatik* (390); *ez dakite zergatik* (16); *ez dakizu zergatik* (8); *ez du zergatik* (8); *ez jakin zergatik* (10); *ez nekien zergatik* (18); *ez zakiat zergatik* (9); *ez zekien zergatik* (31); *ez zergatik* (18)

*galdetu zergatik* (23)

*hara zergatik* (29); *hona zergatik* (10); *horra zergatik* (185); *horra zergatik ez* (13)

*nik zergatik* (10); *noiz eta zergatik* (10); *nola eta zergatik* (35); *nork eta zergatik* (8)

*orain badakit zergatik* (8); *orain zergatik* (10); *orduan zergatik* (31)

*ulertu nuen zergatik* (11); *ulertzea zergatik* (9); *ulertzen dut zergatik* (22)

*zehazki zergatik* (8)

*zergatik ageri* (8); *zergatik agertu* (10); *zergatik agertzen* (9); *zergatik agindu* (8); *zergatik aipatzen* (8); *zergatik aldatu* (21); *zergatik alde egin* (15); *zergatik amaitu* (8); *zergatik ari* (84); *zergatik ari zara* (18); *zergatik ari zen* (9); *zergatik atera* (20); *zergatik atxilotu* (15); *zergatik atzeratu* (10); *zergatik aukeratu* (41)

*zergatik ba* (14); *zergatik bada* (27); *zergatik baina* (16); *zergatik begiratzen* (18); *zergatik behar* (36); *zergatik behartu* (8); *zergatik bidali* (20); *zergatik bihurtu* (8); *zergatik bizi* (20); *zergatik bota* (22

*zergatik da* (72); *zergatik da hain* (14); *zergatik dago* (34); *zergatik dagoen* (24); *zergatik daude* (18); *zergatik dauden* (16); *zergatik deitu* (18); *zergatik deitzen* (48); *zergatik den* (76); *zergatik diok* (8); *zergatik diozu* (38); *zergatik diozu hori* (16); *zergatik dira* (19); *zergatik diren* (15); *zergatik du* (8); *zergatik duen* (10); *zergatik duzu* (8)

*zergatik edo* (8); *zergatik egin* (203); *zergatik egin behar* (21); *zergatik egin du* (10); *zergatik egin duzu* (20); *zergatik egin nuen* (14); *zergatik egin zuen* (28); *zergatik egingo* (10); *zergatik egiten* (141); *zergatik egiten didazu* (10); *zergatik egiten duen* (11); *zergatik egiten duzu* (16); *zergatik egiten zuen* (17); *zergatik egon* (29); *zergatik egon behar* (16); *zergatik ekarri* (16); *zergatik eman* (66); *zergatik eman behar* (10); *zergatik ematen* (20); *zergatik erabaki* (23); *zergatik erabiltzen* (13); *zergatik eraman* (11); *zergatik ere* (8); *zergatik erori* (12); *zergatik erori zen* (8); *zergatik esan* (95); *zergatik esan behar* (12); *zergatik esan nion* (8); *zergatik esaten* (68); *zergatik esaten duzu* (8); *zergatik eskatu* (14); *zergatik eskatzen* (13); *zergatik eta nola* (17); *zergatik eta zertarako* (20); *zergatik etorri* (39)

*zergatik ez* (2339); *zergatik ez ba* (8); *zergatik ez da* (91); *zergatik ez dago* (11); *zergatik ez den* (37); *zergatik ez didak* (14); *zergatik ez didazu* (48); *zergatik ez diogu* (10); *zergatik ez diok* (9); *zergatik ez diozu* (26); *zergatik ez dira* (25); *zergatik ez diren* (16); *zergatik ez ditugu* (8); *zergatik ez dituzte* (18); *zergatik ez dituzu* (9); *zergatik ez du* (58); *zergatik ez dudan* (11); *zergatik ez duen* (33); *zergatik ez dugu* (49); *zergatik ez duk* (20); *zergatik ez dun* (9); *zergatik ez dut* (16); *zergatik ez dute* (33); *zergatik ez duten* (17); *zergatik ez duzu* (114); *zergatik ez duzue* (31); *zergatik ez egin* (8); *zergatik ez esan* (19); *zergatik ez gara* (21); *zergatik ez goaz* (10); *zergatik ez haiz* (21); *zergatik ez naiz* (10); *zergatik ez nintzen* (16); *zergatik ez nion* (10); *zergatik ez nuen* (25); *zergatik ez ote* (61); *zergatik ez zara* (47); *zergatik ez zarete* (19); *zergatik ez zatoz* (15); *zergatik ez zegoen* (10); *zergatik ez zekiela* (9); *zergatik ez zen* (55); *zergatik ez zenidan* (18); *zergatik ez zenuen* (15); *zergatik ez zidan* (8); *zergatik ez zinen* (8); *zergatik ez zion* (23); *zergatik ez zituen* (12); *zergatik ez zoaz* (10); *zergatik ez zuen* (61); *zergatik ez zuten* (27)

*zergatik ezarri* (10); *zergatik ezin dugu* (8); *zergatik ezin izan* (9); *zergatik ezkondu* (9); *zergatik ezkutatu* (9); *zergatik ezkutatzen* (8)

*zergatik galdetu* (12); *zergatik galdetzen* (26); *zergatik galdetzen didazu* (11); *zergatik galdu* (15); *zergatik gaur* (8); *zergatik gelditu* (15); *zergatik geratu* (13); *zergatik gertatu* (49); *zergatik gertatu den* (12); *zergatik gertatu zen* (20); *zergatik gertatzen* (47); *zergatik gertatzen da* (11); *zergatik gertatzen den* (14); *zergatik gertatzen diren* (10); *zergatik gustatzen* (11)

*zergatik hain* (26); *zergatik hainbeste* (20); *zergatik hartu* (51); *zergatik hartu zuen* (8); *zergatik hartzen* (17); *zergatik hasi* (24); *zergatik hau* (11); *zergatik hautatu* (18); *zergatik hil* (45); *zergatik hiltzen* (12); *zergatik hitz* (26); *zergatik hitz egin* (9); *zergatik hitz egiten* (17); *zergatik hori* (34); *zergatik horrenbeste* (8)

*zergatik ibili* (17); *zergatik ibiltzen* (9); *zergatik idatzi* (16); *zergatik idazten* (20); *zergatik ihes egin* (8); *zergatik iruditzen* (14); *zergatik itzuli* (23); *zergatik izan* (78); *zergatik izan behar* (30); *zergatik izan den* (8); *zergatik izango* (16)

*zergatik jakin* (41); *zergatik jakin gabe* (27); *zergatik jarraitzen* (16); *zergatik jarri* (38); *zergatik jartzen* (13); *zergatik jo* (21); *zergatik joan* (59); *zergatik joan behar* (11); *zergatik joan zen* (14); *zergatik joan ziren* (8); *zergatik joaten* (10); *zergatik jokatu* (9); *zergatik jokatzen* (12); *zergatik jotzen* (11)

*zergatik kendu* (8); *zergatik kontatu* (12); *zergatik kontatzen* (9)

*zergatik maite* (8)

*zergatik nagoen* (13); *zergatik nahi duzu* (11); *zergatik nengoen* (10); *zergatik ni* (11); *zergatik niri* (10)

*zergatik onartu* (15); *zergatik onartzen* (11); *zergatik orain* (22); *zergatik orduan* (10); *zergatik ote* (111); *zergatik ote da* (10); *zergatik ote den* (9); *zergatik ote zen* (8)

*zergatik pentsatu* (9); *zergatik pentsatzen* (8)
*zergatik salatu* (8); *zergatik sartu* (31); *zergatik sentitzen* (10); *zergatik sortu* (18); *zergatik sortzen* (9)
*zergatik tematu* (8)
*zergatik ukatu* (17); *zergatik ukatzen* (9); *zergatik uste duzu* (39); *zergatik utzi* (68); *zergatik uzten* (15)
*zergatik zabiltza* (8); *zergatik zara* (10); *zergatik zaude* (32); *zergatik zaudete* (10); *zergatik zegoen* (38); *zergatik zen* (35); *zergatik zeuden* (12); *zergatik ziren* (14); *zergatik zuen* (12)
*zu zergatik* (9)

---

## zergatiko **1** *iz* arrazoia, zioa. *ik* **zergati**.

*Ez zaio hautaketa horri inongo* ***zergatikorik*** *ikusten.* Isabel Arrigain
***Zergatikoei*** *erantzuten ahal guztiz saiatzen den kimikari baten lana.* Juan Garzia
*Goiz izoztu hartan sekula baino kezkatuago sentitzen zen,* ***zergatikoa*** *zehaztu ezin bazuen ere.* Alberto Ladron Arana
*Erabat arbitrarioa dena -hau da,* ***zergatikorik*** *gabekoa- [...].* Isabel Arrigain
*Mugimenduen* ***zergatikoak*** *interesatzen zaizkio mekanikari.* Jon Muñoz
*Jarraitasunaren* ***zergatikoak*** *erraz atzeman daitezke a priori; denboran zehar izandako aldaketari dagokionez, ordea, ez da hala gertatzen.* Isabel Arrigain
*Ez zuen azalpen ideologiko handirik ematen zaletasun horren* ***zergatikoak*** *argitzeko.* Berria - Kultura
*Hizkuntzen fonologiak* ***zergatikoa*** *duela esaten denean, ez da esan nahi sistema osoak esplikazio bakarra duenik.* Lourdes Oñederra
*Nire tristurak harriturik zauzka haatik; haren* ***zergatikoaz*** *galdegiten didazu: batzuetan ere dolutzen zintuela ikusi uste izan dut.* Jon Muñoz

**2** (izenondo eta izenlagunekin)

*Esplikazioa,* ***zergatiko*** *fonetikoa (artikulaziozkoa edo oharmenari dagokiona) ahoskera-aldi bakoitzean analizatu behar da.* Lourdes Oñederra
*Ezinezkoa izango zen azaltzea zein ziren gure arteko ezinikusi haren* ***zergatiko*** *zehatzak.* Ander Irizar
*Ez da abertzaletasuna haien gaitzespenen* ***zergatikorik*** *behinena, beste zerbait ezkutatzen da horren azpian.* Jose Morales
*Askotariko* ***zergatikoak*** *izan ohi dira tartetik aurkera egiteko garaian.* Isabel Arrigain

**hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
*gertakizun horren zergatikoen* (3); *zergatikoen haria* (3)

---

## zergauza *iz adkor* gauza.

*Ezagutza "egiten" duena, edo ezagutzaren araua, hots, "egia" zer den oinarritzen duena, ezagutzailearen buruan edo subjektuaren baitan dagoela, zioen Kantek; ez (bere baitan inoiz atzeman ezin dugun)* ***zergauza*** *enpirikoan.* Joxe Azurmendi

---

## zergazain (corpusean **zerga-zain** soilik) *iz* zerga-biltzailea.

*Gaur goizean hasi da guztia, eta ilundu duenerako, andre Madalenen ahaide eta lagunen oin-arrastoak zeuden edekanaren, soldadu-buruaren,* ***zerga-zainaren*** *eta sindikoaren jauregietako atari elurtuetan.* Anjel Lertxundi

---

## zergertaereko *izlag* badaezpadakoa. *ik* **zer 11**.

***Zergertaereko*** *neurri soila omen, gure hegazkinak bi motorrekin ere hegan egin baitzezakeen: Mexiko-ko kostatik 8,5 miliatara gaude, Tampicorako bidean, pasaiari guztiei eskatzen zaie lasai egon eta, oraingoz, arren, ez erretzeko.* Joxe Austin Arrieta

---

zergetxe *ik* **zerga 8**.

---

## zergura *mugtz* zernahi.

*-Edozer, zernahi, eta* ***zergura*** *.* Javi Cillero
*Prest dagoenean, bidali kablegrama bat helbide honetara* ***zergura*** *txorakeria kontatzen, Santosen lantokia duk, eta haren izenean bidali mezua.* Josu Landa
*Ontzi hartan segitu ahal izateagatik* ***zergura*** *emango nukeela ohartu nintzen.* Edorta Jimenez

---

## zerika *gald* nolakoa?, zer eratakoa?

*Eta nondik? Nola? Zertaz,* ***zerika*** *?* Jose Angel Irigaray
*· Auzoak hor dabiltza orain so eta so,* ***zerika*** *diren xuxen gazte horiek, euskaldun ala arrotz ote, erakasle ala ofiziale... beren baitan eginez gabea dela beltza eta biziko dela bederen kartiera ondoko egunetan.* Herria

---

## zerikasi *iz* ikastekoa.

*Ahaleginik txikiena aski izan dut neureganatzeko eta* ***zerikasi*** *asko aurkitu izan dut neuretzat.* Elizen arteko biblia

---

## zerikusi (orobat **zer ikusi** g.er.) **1** *iz* lotura, erlazioa.

*Indibiduo-komunitate* ***zerikusia*** *batez ere, oposizio eta elkarren uko bezala hartzen da.* Joxe Azurmendi
*Hizkuntzaren batasuna egiteko orduan,* ***zerikusi*** *txikia izan ohi du dialektorik zaharrena, arauzkoena, garbiena eta aberatsena izateak.* Koldo Zuazo
*Ohar interesgarriak, zalantza barik, baina* ***zerikusi*** *gabekoak, are inkoherenteak.* Joxe Azurmendi
*Bestelako* ***zerikusi*** *politikoak oro alde batera utzi eta, herri gogoaren kontzeptua jokoan nola ageri den ikustera mugatuko gara gu hemen.* Joxe Azurmendi
*Zer* ***zerikusi*** *du Scabbersek honetan?* Iñaki Mendiguren
*Egia da ahizparen polioak ere* ***zerikusi*** *handia izan duela bere bizitzan.* Arantxa Iturbe
*Horrek ere badu* ***zerikusia*** *istorioan.* Koro Navarro
*Espainiara alde egiteko erabakian* ***zerikusia*** *izan zuen Boris Tijonoven heriotza ilun eta sekula argituko ez zenak.* Felipe Juaristi

1978 inguru hartako egoera politiko nahasiak ere izango zuen horretan **zerikusia** . Xabier Mendiguren Elizegi
Berehala konturatu nintzen haien ustekabe hartan bazuela gure janzkerak **zerikusia** . Inazio Mujika Iraola
Genetikak eskizofrenian duen **zerikusia** aztertu zuen sarituriko bigarren lanean. Berria - Gaiak
Zure lasaitasunerako esango dizut zuk ez duzula **zerikusirik** ikertzen ari naizen arazoan. Migel Angel Mintegi
Euskara eta euskal kultura zuzen erasotuak sentitzeak eta Egunkariaren proiektuaren berezitasunek **zerikusi** nagusia izan zuten erantzun horretan. Berria - Euskal Herria
Erresuma Batuko Medikuntza Batzorde Orokorra (GMC) zazpi mediku ikertzen ari da Harold Shipmanen Herio doktorea kasuan izan zuten **zerikusiagatik** . Berria - Gaiak

## 2 ( -ekin sintagma batekin)

Trillotik zenbat eta gertuago egon, orduan eta arrisku handiagoa minbiziarekin **zerikusi** duten arazoak pairatzeko. Berria - Euskal Herria
Behatokia «elkarlanean» ariko da garraio sistemekin **zerikusi** duten gainerako erakundeekin. Berria - Euskal Herria
Lurralde Antolamendu Batzordeak gaiarekin **zerikusi** duten erakunde guztiak biltzen ditu. Berria - Harian
Garunaren alderik konplexuenak dira lobulu frontalak; ez dute **zerikusirik** mugimenduarekin eta sentsazioarekin. Xabier Olarra
Denboraren akzidentearekin **zerikusirik** ez duen guztia, egiazki, ezin daiteke esan "betierekoa" edota "sortua" denik. Xabier Kintana
Alderdi kimikoak, muskuluak erabiltzen duen erregaiarekin du **zerikusia** . Irene Aldasoro
Bazegoen beste maila goragoko eta pertsonalago bat, eta kirurgialariaren nortasunarekin, rolarekin du horrek **zerikusia** . Xabier Olarra
Estiloaren kontzeptua ez da, bestalde, batere bakuna, elkarren erdi-kontrako diren bi errealitaterekin baitu **zerikusia** . Josu Zabaleta
Argazkiak fetixismoarekin **zerikusia** baduela frogatzeko. Josu Zabaleta
Iraupenaren modua, eguneroko bizitzan nagusi dena, eta objektiboa dena, gainera, mundu fisikoarekin **zerikusia** duelako. Josu Zabaleta
Badute besta hauek **zerikusi** zerbait gure herrietan ospatzen ziren [...] bizkar besta haiekin. Pello Salaburu
Printzipio zintzo horren atzean, estetikarekin **zerikusi** gutxi duen alde ezkutu bat omen zegoen. Anjel Lertxundi
Errealismoak errealitatearekin **zerikusi** gutxiago duela idealarekin, konbentzioarekin baino. Josu Zabaleta
Prezioak **zerikusi** gehiago du merkatuarekin ekoizpen moduarekin baino. Berria - Gaiak
Beharbada, **zerikusia** izan zezakeen lehenago Tomi ere aitorpena egin izanarekin, pentsatu nuen. Oskar Arana
· Eta baleek ze **zerikusi** dute andreen lakarekin eta zeruaren sabaiarekin? Joseba Sarrionandia
Baina zer **zerikusi** nuen nik itxaropenarekin? Koro Navarro
Baina horrek zein **zerikusi** du gure gaiarekin? Edorta Jimenez

## 3 (-ekin sintagma batekin, eta izenondoa duela)

Elkarrekin **zerikusi** zuzenik ez duen lurralde multzo hori da periferia. Iñigo Aranbarri
Greziar filosofiak kristautasun sortu berriaren inguruko gogoetarekin **zerikusi** handia izan zuen K. o. Kristoren ondoren bigarren mendeaz geroztik. Askoren artean
Hain zuzen ere, Cabo Quilates, Altuna-Mendi eta beste kartzela-ontzien kasuek Hitlerren hegazkinekin **zerikusi** zuzena izan zuten. Edorta Jimenez
Trafiko-mota horrek zenbaiten gobernu- erarekin du berezko **zerikusia** . Iñaki Iñurrieta
Honek [Lebel-ek] ez baitu onartzen zinemak, jarduera esanahitsu den aldetik, ideologiarekin zuzeneko **zerikusia** duenik. Josu Zabaleta
Gizakiaren zorionarekin eta horrek azken helburua lortzearekin **zerikusi** zuzenagoa du. Askoren artean
Lehendik ere pentsatzen nuen amaren sua eta kuleroak gordetzen dituen aitaren etxe horrek **zerikusi** motza zukeela biziarekin edo bizi-gauzekin. Iñaki Segurola
Gaiak txanponaren beste aldearekin, ideologiko edo politikoarekin **zerikusi** handiagoa duela. Iñaki Heras
Ene bizitzaren pasarte batzuk azalduko dizkizut, zurekin eta batik bat gu bion hartu-emanarekin **zerikusi** estu-estua dutenak. Xabier Mendiguren Elizegi
Konposizioak **zerikusi** estuagoa zuen koadroaren material plastikoarekin, edota haren material ikonikoarekin. Josu Zabaleta
Egia esan dantza haiek ez zuten musikarekin **zerikusi** handirik. Unai Iturriaga
Gustuko izateak plazerarekin du **zerikusi** handia, plazera irizpidetzat onartzen dugun heinean behintzat. Askoren artean
Lehendik ere pentsatzen nuen amaren sua eta kuleroak gordetzen dituen aitaren etxe horrek **zerikusi** motza zukeela biziarekin edo bizi-gauzekin. Iñaki Segurola
FLNCko zatiketek **zerikusi** nabarmena izan zuten bereiztutako talde batek Claude Erignac prefeta hiltzearekin. Berria - Harian
**Zerikusi** handirik ez duela egungo egoerak gure bi idazleek kritikatzen zuten harekin. Iñaki Heras
Ez da dudarik lehen aipatu den helburuen definiziorik ez egoteak **zerikusi** handia duela arazo horrekin. Juan Ignacio Pérez / Pello Salaburu

## 4 (**eduki** aditzarekin)

**-Zerikusi** handia **zaukak** , **zerikusi** handia! Koldo Izagirre
**Zerikusi** handia **dauka** , halaber, nolako jakera daroagun bizitzan. Xabier Amuriza
Obabako autoritate bezala, gainera, Angelek **zerikusi** handia **zeukan** herrian egiten ziren obra publiko guztiekin. Bernardo Atxaga
Oraingoak **zerikusi** gutxi **dauka** gure gurasoek ezagutu zuten mugimendu harekin. Berria - Euskal Herria
Baina ez **daukat zerikusi** askorik bigarren horiekin. Oskar Arana
Zer **zerikusi dauka** honekin guztiarekin munstro beltz eta iheskor horrek? Agustin Otsoa
-Zer **zerikusi daukat** nik anai Frantziskorekin? Askoren artean
Erignac prefetaren hilketako auzibidearekin gertatu den bezala, DNATek dosier honekin **zerikusi** ez zuzen ez zeharkoa ez **zeukaten** ikerketa, miaketa eta itaunketa andana egin ditu. Berria - Mundua
Jaime Vargasek **zerikusia eduki** zuen, aldez edo moldez, suntsiketa horretan. Jon Alonso

**hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 4 aldiz agertzen direnak)**

baino zerikusi handiagoa (5); bizitzarekin zerikusi (4); gatazkarekin zerikusi zuzena (5); zer zerikusi (10); zer zerikusi du (4)

zerikusi estua (9)

zerikusi gehiago (13); zerikusi gutxi (52); zerikusi gutxi dauka (4); zerikusi gutxi du (11); zerikusi gutxi duten (7); zerikusi gutxiago (9)

zerikusi handia (116); zerikusi handia dauka (4); zerikusi handia du (26); zerikusi handia duela (8); zerikusi handia izan (36); zerikusi handia izango (7); zerikusi handiagoa (26); zerikusi handiagoa du (9); zerikusi handirik (46); zerikusi handirik ez (18)

zerikusi txikia (6); zerikusi zuzena (54); zerikusi zuzena du (5); zerikusi zuzena duela (7); zerikusi zuzena duten (4); zerikusi zuzena izan (12); zerikusi zuzenik ez (9)

atentatuarekin zerikusia (4); atentatuekin zerikusia (11); auziarekin zerikusia (4); badu zerikusia (11); badute zerikusia (4); bahiketarekin zerikusia (5); droga trafikoarekin zerikusia (6); du zerikusia (64); duela zerikusia (6); duen zerikusia (5); dute zerikusia (21)

erasoarekin zerikusia (10); erasoarekin zerikusia dutelakoan (5); erasoekin zerikusia (10); erlijioarekin zerikusia (4); etarekin zerikusia (11); euskal herriarekin zerikusia (6); euskararekin zerikusia (5); gatazkarekin zerikusia (5); heriotzarekin zerikusia (5); herriarekin zerikusia (7); herriarekin zerikusia duen (4); hilketarekin zerikusia (12); hilketarekin zerikusia izatea (4); horrek zerikusia (11); horretan zerikusia (10); horretan zerikusia izan (4)

indarkeriarekin zerikusia (5); ingurumenarekin zerikusia (4); izan zuen zerikusia (4)

politikarekin zerikusia (7); politikarekin zerikusia duten (4); terrorismoarekin zerikusia (4); trafikoarekin zerikusia (8)

zerikusia daukan (5); zerikusia du (36); zerikusia duela (26); zerikusia duelakoan (9); zerikusia duen (66); zerikusia duen guztia (7); zerikusia duen oro (10); zerikusia duena (13); zerikusia dute (13); zerikusia dutela (5); zerikusia dutelakoan (15); zerikusia duten (171); zerikusia duten gaiak (5); zerikusia duten gaietan (8); zerikusia dutenak (18)

zerikusia izan (83); zerikusia izan du (7); zerikusia izan zuen (10); zerikusia izan zuten (10); zerikusia izana (7); zerikusia izango (20); zerikusia izango du (6); zerikusia izatea (45); zerikusia izatea leporatuta (6); zerikusia izatea ukatu (5); zerikusia izateagatik (11)

zerikusia zuela (7); zerikusia zuen (26); zerikusia zuen guztia (4); zerikusia zutela (6); zerikusia zutelakoan (10); zerikusia zuten (38); zerikusia zutenak (9)

zerikusiaren aldetik (10)

badu zerikusirik (37); baduela zerikusirik (6); badute zerikusirik (6); batak bestearekin zerikusirik (4); batere zerikusirik ez (7)

elkarrekin zerikusirik (8); elkarren artean zerikusirik (5); erasoekin zerikusirik (4); errealitatearekin zerikusirik (8); errealitatearekin zerikusirik ez (6); etarekin zerikusirik (8); etarekin zerikusirik ez (5)

**ez baitu zerikusirik** (9); **ez dauka zerikusirik** (34); **ez daukala zerikusirik** (7); **ez dik zerikusirik** (4); **ez du zerikusirik** (127); **ez duela zerikusirik** (48); **ez dugu zerikusirik** (4); **ez dut zerikusirik** (7); **ez dute zerikusirik** (46); **ez dutela zerikusirik** (13); **ez zeukan zerikusirik** (5); **ez zuela zerikusirik** (15); **ez zuen zerikusirik** (27); **ez zuten zerikusirik** (7)

**futbolarekin zerikusirik** (6); **gaiarekin zerikusirik** (4); **gurekin zerikusirik** (5); **haiekin zerikusirik** (4); **harekin zerikusirik** (14); **harekin zerikusirik ez** (4); **hilketarekin zerikusirik** (5); **hizkuntzarekin zerikusirik** (5); **honekin zerikusirik** (5); **horiekin zerikusirik** (5); **horrek zerikusirik** (4); **horrekin zerikusirik** (19); **horrekin zerikusirik ez** (5); **horretan zerikusirik** (12)

**inolako zerikusirik** (68); **inolako zerikusirik ez** (21); **inolako zerikusirik izan** (4); **inolako zerikusirik izango** (4); **inongo zerikusirik** (7); **inongo zerikusirik ez** (4); **izan du zerikusirik** (5); **izan zuen zerikusirik** (9); **izango du zerikusirik** (6); **izango zuen zerikusirik** (6); **literaturarekin zerikusirik** (4); **munduarekin zerikusirik** (4); **nirekin zerikusirik** (10)

**ote zuen zerikusirik** (4); **politikarekin zerikusirik** (8); **politikarekin zerikusirik ez** (4)

**zerikusirik batere** (10); **zerikusirik batere ez** (5); **zerikusirik duela** (5); **zerikusirik duen** (9); **zerikusirik duenik** (11); **zerikusirik duten** (9); **zerikusirik eduki** (5)

**zerikusirik ez balu** (9); **zerikusirik ez daukan** (5); **zerikusirik ez du** (5); **zerikusirik ez duela** (31); **zerikusirik ez duen** (30); **zerikusirik ez duena** (12); **zerikusirik ez dutela** (16); **zerikusirik ez duten** (42); **zerikusirik ez dutenak** (9); **zerikusirik ez zuela** (11); **zerikusirik ez zuena** (12); **zerikusirik ez zutela** (8); **zerikusirik ez zuten** (13)

**zerikusirik gabeko** (4); **zerikusirik izan ez** (6); **zerikusirik izan ote** (7); **zerikusirik izango** (22); **zerikusirik izatea** (11); **zerikusirik izaten** (5); **zerikusirik ote** (9)

---

## **zerikusigabetu**, zerikusigabe, zerikusigabetzen (corpusean **zerikusi gabetu** soilik) du ad zerikusia kendu.

*Izpiritua ez da biologiara jaitsi behar (materialismoa), ezta izpiritua biologiarekin* ***zerikusi*** *gabetu ere (mistizismoa),* Joxe Azurmendi

---

## **zerikusteko** *iz zerikusia.*

*Jainkozko gauzak begirunez erabili: ez izan haiekin* ***zerikustekorik*** *batere...* Xabier Olarra

*Berak ez du* ***zerikustekorik*** *Legarde eta besteekin.* Javi Cillero

---

## **zerio** *iz gai bakuna, metal gris distiratsua, 797 °C-tan urtzen dena(Ce; at. z. 58). ik* ***ferro-zerio****.*

*Segundo batzuen jiran, bakarrik kausitu nuen neure burua laboratorioan;* ***zerio*** *guztia poltsikoratu, eta eguratsera irten nintzen.* Juan Garzia

---

## **zerizan** *1 iz izatea, esentzia. ik* ***zertasun****.*

*Substantzien propietateen artean batzuek haien* ***zerizana*** *ematen digute, beste batzuek, ordea, haien nolakotasuna.* Askoren artean

*Zerkien* ***zerizana*** *bera ez datza haien berezko izaera akzidentez beteriko batean -arrosa bat ez da dagoeneko arrosa bat: horiek (kualitateak) baztertu egingo dira-, baizik eta razionalki behar izan batean.* Askoren artean

*Euskal esentzialismoa askoz lehenago zegoen larrutua, inoren eskandalurik gabe; Espainiaren* ***zerizana****, arima, karaktere betiraunkor batean etzanarazten zuen.* Joxe Azurmendi

*Amatasunaren* ***zerizana*** *obuluetan dago, ume izatekoaren informazio genetikoan, alegia.* Berria - Gaiak

*Silogismoaren* ***zerizana*** *printzipioetatik ondorioetarako erlazioan datza, premisetatik ondoriora heltzean.* Askoren artean

*Ibarretxek premiazkoa iritzi zion «euskal herritarren* ***zerizanarekin*** *lotuta dagoen sektore estrategikoa» salbatzeari.* Berria - Ekonomia

*Oraingoan hispanitatearen* ***zerizana*** *teorizatzen du: lurrak, latinarekin, hizkuntza eta arraza anaia bizkiak sortarazi ditu, katalanak, gaztelau eta galegoak, etab.* Joxe Azurmendi

*Atributua deitzen dut, substantziaren* ***zerizana*** *osatzen duena, adimenak hala hautematen duena.* Piarres Xarriton

*Ikuspegi aristotelikoa onartuz gero, Greta zakurra denez, hau da, zakurtasuna haren* ***zerizana*** *denez, Greta zakurra da ezinbestean.* Askoren artean

*Beren adigai transzendental soilaren arabera ezagutzen ez ditudan gauzetatik abiatuta* ***zerizan*** *ororen* ***zerizana*** *inferitzen dut.* Ibon Uribarri

***Zerizan*** *bakoitzean bere osagaiak (essentialia) materia dira.* Ibon Uribarri

**2** *(izenondo eta izenlagunekin)*

*Arrazoimenean soilik aurkitzen den idealaren objektuari jatorrizko* ***zerizana*** *deitzen zaio (ens originarium), bere gainean beste* ***zerizanik*** *ez dagoen heinean* ***zerizan*** *gorena (ens summum), eta guztia baldintzatutako zerbait gisa bere menpean dagoen heinean* ***zerizan*** *guztien* ***zerizana*** *(ens entium).* Ibon Uribarri

***Zerizan*** *ahalgarrien lurralde osoan hilgarriak zati bat barnebiltzen duenez gero, [...].* Ibon Uribarri

*Ahalguztiduntasuna ezin da ezeztatu jainkotasun bat, h[au] d[a],* ***zerizan*** *amaigabe bat ezartzen baduzue, hura honen adigaiarekin identikoa baita.* Ibon Uribarri

***Zerizan*** *pentsatzaile oro bere baitan substantzia bakuna dela.* Ibon Uribarri

*Mundu honetako* ***zerizan*** *bizidunen izaerarekin [...].* Ibon Uribarri

*Ez du onartzen, azkenik, orobat, zerbaiten kausa izaditik at bilatzea (jatorrizko* ***zerizana****), zeren izadia besterik ez baitugu ezagutzen.* Ibon Uribarri

*Jatorrizko* ***zerizana*** *eratorritako* ***zerizan*** *askoz osatzen dela esan ezin daitekeenez, [...].* Ibon Uribarri

*Horregatik gertatzen da jainkotiar* ***zerizan*** *bat onartzen dudanean ez dudala bere betegintzarre gorenaren barneko ahalgarritasunaren adigairik.* Ibon Uribarri

*Erraz ikusten da* ***zerizan*** *absolutuki beharrezkoaren adigaia arrazoimenaren adigai hutsa dela.* Ibon Uribarri

**3** *(hitz elkartuetan)*

*Adimenaren bitartez soilik pentsatutako objektutzat hartuta, eta hauei adimen-* ***zerizanak*** *(noumena) deitzen diegu.* Ibon Uribarri

*Kategorien erabilera ere inolaz ezin daiteke esperientziaren objektuen mugatik irten, eta sentsu-****zerizanei*** *noski adimen-****zerizanak*** *dagozkie.* Ibon Uribarri

---

## **zerkausi** *iz merkatua.*

*Sei pobre ere garbitu zituzten, kale gorrian lo egiten duten horietakoak, makilazoka: bi, zubi baten azpian; bat, eliz atarian; beste bi,* ***zerkausian****; azkena, frontoi baten estalpean.* Karlos Linazasoro

---

## **zerkeria** *iz*

*Ni nago alemanek beti obeditzen dutenez Francoren manuei eta ez dutenez beti bezala uzten* ***zerkeria*** *nagusi.* Jokin Urain

---

## **zerketa** *iz zertzea.*

*Erabakigarria herri gogoaren* ***zerketan*** *geografia izan bide da: batetik, honen gogorrak bertoko jatorrizko biztanleen izpirituak gogortu dituelako; bestetik, lekuaren bazterrekotasunak eta klimaren eta lurraren lakarrak bertara jende tipo bat erakarri duelako: menturazale, sakats, gerraria, natiboekin urtu dena.* Joxe Azurmendi

---

## **zerki** *iz gauza, elementua.*

*Orduko beribil eta orduko errepideetan barna, bideko ikusgarri guztiei beha eta adi, izadiko* ***zerkiei*** *bezala monumentu zibil eta erlijiosoei, Nafarroa Beherean gaindi Orreagatik iraganez Iruñera heltzeko eguerdi pasatxoan.* Berria - Kultura

***Zerkien*** *zerizana bera ez datza haien berezko izaera akzidentez beteriko batean -arrosa bat ez da dagoeneko arrosa bat: horiek (kualitateak) baztertu egingo dira-, baizik eta razionalki behar izan batean.* Askoren artean

---

**zerku** iz zirkulua.

*Gure kanpalekuaren hegoaldean 3 airekok kezko* ***zerku*** *handi bat egin zuten.* Marzel Etxehandi

---

**zernahi** (orobat **zernai** g,er.) **1** mugtz edozer; edozer gauza.

*-* ***Zernahi*** *, Harry, denetarik ikusi dut.* Oskar Arana

*Zuen hirietan auziren bat gertatzen bada -hilketa, liskarra, zauria edo beste* ***zernahi*** *-, [...].* Elizen arteko biblia

*Bizitzan zehar ikusitako arbolen memoria dugulako dakigu orain lehendabizikoz ikusitako hori arbola bat dela eta ez beste* ***zernahi*** *.* Anjel Lertxundi

*Sua jasan dezakeen* ***zernahi*** *, sutan ezarri eta garbikuntzarako uretan sartuz garbituko duzue.* Elizen arteko biblia

*Santiagora doala, bai, baina, lan bat atzemaiten badu,* ***zernahi*** *, non nahi, han berean berehala gelditubo dela.* Piarres Aintziart

*Egoera ikaragarri hau baino bertze* ***zernahi*** *hobe dela.* Michel Oronoz

*Esaten ahal zigun ez genekiela nabigatzen, putetan mozkortzen besterik ez genekiela,* ***zernahi*** *.* Koldo Izagirre

*Ezagun dugun* ***zernahi*** *hori, ikusgune baten arabera, beste puntu batzuekiko erreferentzi sisteman, geuk aurrezarriko interes (teoriko edo praktiko) batzuen markoan [...] ezagutzen dugula.* Joxe Azurmendi

*Bainan ez da halere dudarik, ohointza ala* ***zernahi*** *, gero eta lan tzar gehiago izaiten da!* Herria

**2** (izen baten ezkerrean)

*Inguruan bada* ***zernahi*** *harresi edo pareta zahar, lurrera eroriak orain.* Angel Aintziburu / Jean Baptiste Etxarren

*Opor sainduetan gaudelako, eta opor sainduetan, itxuraz,* ***zernahi*** *diru xahutzea libro delako.* Aingeru Epaltza

*Horren guztiaren gehigarri,* ***zernahi*** *laido, kolpe eta mehatxu.* Aingeru Epaltza

*Aita Sainduak erabaki zuen, alabaina, jasan behar zela edozein kristauren hiltzea edo hiltzaile batzuen eskuz hilaraztea eta beste horrelako* ***zernahi*** *izugarrikeria.* Piarres Xarriton

***Zernahi*** *hizkuntza, baliokidetasun horiez antolaturiko sistema bat da, osagai guztiak elkarren araberakoak edo mendekoak dituena.* Isabel Arrigain

*Bortxaz soldadu izendatuek* ***zernahi*** *estakuru asmatzen zuten deiari ez erantzuteko.* Elena Touyarou

*Laster behi edo zaldi aterpe zahar baten ondotik, xaradi bat,* ***zernahi*** *zuhaixka sistakor elkarri lotuak daudela.* Piarres Aintziart

*Zuzenki bat, denik eta handiena izanik ere, beste* ***zernahi*** *zuzenki baino txikiago bihur daiteke, denik eta txikiena izanik hura, baldin eta behin eta berriz erdibitzen bada.* Jon Muñoz

*Zigor nazala gogor Jaunak, eguzkia sartu baino lehen ogirik nahiz beste* ***zernahi*** *gauza jaten badut.* Elizen arteko biblia

*Zeren eta ene desohoreak, ni hain ezaguna naizen aldetik, eskandalua ekar liezaioke* ***zernahi*** *jenderi.* Piarres Xarriton

*Han nengoen,* ***zernahi*** *jenderen erdian eta halere bakar-bakarrik!* Janbattitt Dirassar

*Kotxetan, ardotan, jantzitan, gorputzetan, ohoretan, edo beste* ***zernahi*** *gauzatan bezala, jendeak kalitate onskoa bilatuko balu bere plazerretan.* Patziku Perurena

*Gu edozer gauza garela alegia, edozein garela [...] zerbait izan baino lehen,* ***zernahi*** *eratako -logo ohartuak bilakatu baino lehen.* Iñaki Segurola

**3** edozer gauza. (aditz baten ezkerrean)

*Nornahik* ***zernahi*** *obra zezakeen lurraldea.* Itxaro Borda

*Populu guztiak, edozein izanik ere haiek osatzen duten herritarren kopurua eta* ***zernahi*** *izanik ere haiek hartzen duten lur eremua, osoki beren buruen jabe direla.* ***Zernahi*** *ikasi dut: noiz, nola, norekin, non...* Piarres Xarriton

*Erotu ginen biak orduan, eta* ***zernahi*** *erran genion zaintzaleari, erasiaka eta oihuka.* Filipe Bidart

*Ene otoitzek zerbait erdiesten ahal badute zureganik eta, zure bihotz onari esker,* ***zernahi*** *egin dezaketelakotz.* Piarres Xarriton

*Ez dakit zenbat mega, giga eta istorio gehiagoko memoriadun, kafea zerbitzatzeko izan ezik* ***zernahi*** *egiteko gauza zirudien.* Aingeru Epaltza

*Burdinazko eskailera haiek jaitsi ahala,* ***zernahi*** *gerta zitekeela pentsatzen hasi nintzen.* Hasier Etxeberria

*Horrela* ***zernahi*** *zuri daiteke.* Anjel Lertxundi

*Anartean liberalak ari ziren nafar jendeeri* ***zernahi*** *ebatsiz, salbu Luzaiden, gune hau liberalen alde joan baitzen.* Angel Aintziburu / Jean Baptiste Etxarren

*Harriak eta* ***zernahi*** *botatzen hasi ginen.* Anjel Lertxundi

***Zernahi*** *pairatua genuen, gosea eta egarria, izua eta tristezia, sua eta burdina.* Aingeru Epaltza

*Hor* ***zernahi*** *jan behar eta nik denetarik jaten dut.* Menane Oxandabaratz

*-Ene anaiak ere goiz honetan,* ***zernahi*** *ukanen zuen egiteko... bizi izan balitz.* Daniel Landart

***Zernahi*** *badira hemen arruntak, xori-buruak, ergelak, espantu-untziak eta trufariak.* Janbattitt Dirassar

*Emetasunaren ideia bat, emakumetasun naturalaren erresuman existitzen zen* ***zernahi*** *gainditzen zuena.* Oskar Arana

*Denek zekiten han zegoela beti ni babesteko prest,* ***zernahi*** *gerta ere.* Mirentxu Larrañaga

*· Ez zen* ***zernahi*** *: 200 metro karratu, Zabalgunearen erdi-erdian.* Aingeru Epaltza

**4** asko, izugarri.

***Zernahi*** *sufrituz desmozkortzen ari nintzen bitartean, nola ez oroit ere Mathiasek bezperan erran zidanaz?* Daniel Landart

*Gerla denboran herio-kanpo izigarri heietarat eremanak izan ziren jende gaixoak, hainbeste hil baitziren han nunbait eta* ***zernahi*** *pairaturik!* Herria

*Hainbestenarekin, Madrilen, hilabete bat lehenago atentadu batean handizki kolpatua izana zen jeneral bat, Justo Oreja, 62 urte, hil da* ***zernahi*** *pairaturik.* Herria

*Dachau-ko kontzentrazio zelaian sartzen dira, Alemaniako bortitzenetarik bat, hor, ehun milaka deserrituk* ***zernahi*** *pairatu behar izan dute.* Michel Oronoz

*Palestinako jendeak* ***zernahi*** *jasaiten duela salatzea gatik, manifestaldi bat eginen da Baionan.* Herria

**5** (deklinabide atzizkiez)

*Zikin eta ondarkinen auzi hori ez dugu hola eta hola baztertzen ahal, gure mendean beste* ***zernahik*** *baino buru-hauste gehiago emaiten baitauka gutien ustean.* Herria

*Irailaren 11ren ondoren badirudi* ***zernahik*** *balio duela muturrekoengandik babesteko, artean dagoen jende guztia legearen indarrean hartzea ere.* Berria - Euskal Herria

*Irakia okupatua duten armada horiek ezin sinetsizko egitateak izan dituztela han, horra zer erakutsi duten kaseta, argazki eta videc* ***zernahik*** *.* Herria

*Gero, zigarro baten itxura izan zezakeen* ***zernahiren*** *bilaketa zoroari eman nion.* Aingeru Epaltza

*Zenbat-eta gutxiago jakin, errazago hitz egiten da nonahiko errealitateaz, eta* ***zernahiren*** *errealitateaz, hala fisikan nola politikan eta bizitzan.* Iñaki Segurola

*Umeak* ***zernahiren*** *kontsolamendu dira... umeak edukitzearena izan ezik.* Oskar Arana

*Filman arrunt burtxoratua zen gaztea* ***zernahiren*** *egiteko gai amaren hatzemaiteko.* Herria

*Adrianek barre egiten zuen* ***zernahirekin*** *, eta barrez berritu zion Martini gertatu zena.* Bernardo Atxaga

*-Ellie, nik ez dakit zergatik egiten zaidan hain zaila* ***zernahiri*** *buruz argi hitz egitea.* Lopez de Arana

*Bere izaeraren arabera jokatzen zuen,* ***zernahiri*** *oldartzen zitzaion, batere pentsatu gabe.* Patxi Zubizarreta

*Hau pilotari, pilotazale, etxekandere eta adiskide* ***zernahiri*** *nasai eta omore onez zerbitzatua, sekulan baino arrakastatsuagoa izan da.* Herria

Eta pausuko ez bada **zernahitan** akitzeko berdin, bainan bakoitxak berak aski gostukoa duen zerbaitetan. Herria

Bertute handiko gizona, bazuen **zernahitan** bide berri batzuen idekitzerat apailatzeko ausartzia. Herria

Lege hori aintzinamendu bat izan dela, jendeari hobeki bizitzeko moldea emaiten diona, denbora gehiago utziz pausatzeko ala **zernahitako** . Herria

**Zernahirako** gela libre izango duela. Patxi Zubizarreta

Baina, **zernahitarako** ere, denbora apur bat pasatzen utzi beharra konprenitu nuen. Txillardegi

Arrazoiz kargaturik, prest baikaude, Patri, **zernahitarako** . Hasier Etxeberria

Egia erran, biltzen den diru hori ez da **zernahitarako** : euskara laguntzeko da, bertzerik ez! Galtzen ari dugun euskara berpiztarazteko! Herria

Ez da kontu hutsala izartasun **zernahitakoaren** hau. Andoni Egaña

Solasean hartaz edo huntaz, **zernahitaz** denen buru. Herria

Zuek terroristatzat, kriminaltzat, **zernahitzat** jo nauzue. Berria - Mundua

· Legea beteko nuen **zernahi** eta nornahirena zelarik ere legea. Anjel Lertxundi

## 6 zernahi dela asko dela; dena dela.

Hiru aste Argentinan, iduri du **zernahi dela** , bainan denbora biziki laster pasatu da. Herria

**Zernahi dela** , gain haietan euskaldunak aipatzen gaituzten ber, oraino bizi garelako seinale da. Piarres Xarriton

**Zernahi dela** , Atano III.ak eta Arretxek egin dute, bai pilotari buruz, bai eta gure Euskal Herriari buruz, izaiten ahal den lanik ederrena. Angel Aintziburu / Jean Baptiste Etxarren

**Zernahi dela** , etxe hori, Santiagorako bidean izanez, ospitale gisa baliatua zen erromesentzat. Angel Aintziburu / Jean Baptiste Etxarren

Lehenago susmatzen baizik ez nuena, neure begietatik ikasi berria nuen: **zernahi dela** zure adina edo zure gradua, errazki makurtzen da inoren borondatea, esku artean arma bat duzunean. Aingeru Epaltza

**Zernahi dela** , Lopez Ortizek bezala erran dezakegu Azpilkuetaren "formazio humanista aski ona izan da dudarik gabe". Piarres Xarriton

· Eleketaldian jalgitako datuak - **zernahi zirela** - erregistraturik gelditzen ziren, gure lagunaren oroimen apartekoan. Aingeru Epaltza

## 7 zernahi dela ere dena dela.

Ez dakit laketu ahal ez zitzaion zerbait itzuri ote zitzaidan; **zernahi dela ere** , handik gutxira, nigandik aldaratzera behartzen zuen afera batez oroitze irudi bat egin zuen. Jon Muñoz

Gizatasun hori, **zernahi dela ere** , harrobietan bizi izan da, berrogeita hamar gradutik beheragoko hotzaldietan, taigako basoetan, urez betetako lubakietan, bai Przemyslen bai Verdunen ondoan. Felipe Juaristi

**Zernahi dela ere** , hamar sos utzi beharrak dituzu etengabe Espainian. Koldo Izagirre

Garbi ikusten da, bada, **zernahi dela** ere. Irene Aldasoro

Ez da batere harritzekoa, gainera; beti eta **zernahi dela ere** indarberritu izan bainau aitona Leonek-. Jesus Mari Mendizabal

· **Zernahi dela ere** hari gertatzen ari zaiona, harriaren gainean geldituko da idatzita. Oskar Arana

## 8 zernahi ere

**Zernahi ere** pentsatzen duela -pentsatzen badu-, hurkoa maitatu zein gorrotatu, egitasmorik irudikatu zein ez, alternatiba bakarraren mugan mugitzen da: kosk egin ala ez egin. Juan Garzia

Bizimodu hori baliagarri gertatu zitzaion, eta, gizon helduaren adinera iritsirik, gai zen **zernahi ere** pairatzeko. Karlos Zabala

Ingeniaritza genetikoak [...]aukera ematen zuen **zernahi ere** organismotatik gene bat bakartu eta beste batean txertatzeko. Juan Garzia

· **Zernahi ere** den, iruditu zait gutun hori ez zitzaiola nehori eman behar. Jon Muñoz

Eskaintzen dizut **zernahi ere** nire liburuek eduki dezaketen... Juan Garzia

## 9 zernahi gisaz dena dela.

**Zernahi gisaz** , inon izatekotan, goiko jangela tiki horietan izan behar zuten biltokia. Aingeru Epaltza

**Zernahi gisaz** bortxaz, militarrek boterea hartzen dutelarik beti bortxaz hartzen dute, kanporatuz bozkaz arribatua den jendea. Menane Oxandabaratz

**Zernahi gisaz** indar laneko komando batean aritzeko ez bainintzen on, egin ahalak behar nituen egin komando on baino hobe batean ofizialki izendatua izaiteko. Marzel Etxehandi

**Zernahi gisaz** , eleberriko pasiorik harrigarriena Goriotena da, bere alabenganakoa: "aitatasunaren Kristo" deritzo Balzacek. Markos Zapiain

Goxoa bezain samina baina **zernahi gisaz** ezin ahantzia. Janbattitt Dirassar

Baina ez dakigu batere hori hala den eta, **zernahi gisaz** , ez du ezer ere konpontzen, nahiz oso lasaigarria gerta daitekeen unibertsitateko irakasleentzat. Juan Ignacio Pérez / Pello Salaburu

Lehen kanpoa osoki emokatua eta zuritua zitekeen, **zernahi gisaz** nabari da eliza hau ez dela kolpe batez egina. Michel Oronoz

Aterpea apezetxea da, baina erretorea ez da hor eta **zernahi gisaz** , lekurik ez. Piarres Aintziart

Ez dira, **zernahi gisaz** , Sarasola eta Zuazo ahulezia honi buruz mintzatu izan diren idazle bakarrak. Pello Salaburu

**hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 4 aldiz agertzen direnak)**

**bainan zernahi gisaz** (4); **bertze zernahi** (13); **beste zernahi** (21); **beti zernahi** (4); **ez zen zernahi** (4)

**zernahi adixkide** (4); **zernahi aipaldi** (8); **zernahi animazio** (5); **zernahi animazione** (6); **zernahi apailu** (4); **zernahi argazki** (7); **zernahi argitasun** (8); **zernahi ausagailu** (12); **zernahi besta** (9); **zernahi bilkura** (5); **zernahi dela** (27); **zernahi dela ere** (17); **zernahi den** (6); **zernahi denbora** (9)

**zernahi egin** (9); **zernahi eginda** (8); **zernahi eginda ere** (7); **zernahi eginen** (4); **zernahi egiteko** (18); **zernahi egiteko gauza** (8); **zernahi egiteko prest** (5); **zernahi egiten** (12); **zernahi ere** (17); **zernahi ere den** (6); **zernahi erran** (7); **zernahi eta** (6); **zernahi etxe** (8); **zernahi eztabada** (6); **zernahi gai** (11); **zernahi gai mota** (5); **zernahi galde** (5); **zernahi gauza** (31); **zernahi gazte** (5); **zernahi gerta** (17); **zernahi gertatuta** (6); **zernahi gertatuta ere** (6); **zernahi gertatzen** (7); **zernahi gisara** (4); **zernahi gisaz** (155); **zernahi gisaz ere** (6)

**zernahi ikusi** (8); **zernahi ikusten** (6); **zernahi izanda** (4); **zernahi izanda ere** (4); **zernahi izanik** (8); **zernahi izanik ere** (6); **zernahi jende** (81); **zernahi jende bildu** (11); **zernahi jende bildurik** (11); **zernahi jende eta** (4); **zernahi joko** (10); **zernahi kanpotiar** (5); **zernahi lan** (16); **zernahi liburu** (5); **zernahi lore** (6); **zernahi makur** (5); **zernahi modutan** (4)

**zernahi obra** (5); **zernahi ohointza** (4); **zernahi paper** (4); **zernahi protesta** (4); **zernahi sorgin** (4); **zernahi sos** (4); **zernahi traba** (6); **zernahi xehetasun** (8); **zernahi zela ere** (9)

**beste zernahik** (7); **beste zernahik baino** (4)

**zernahiren gainetik** (4)

**zernahitarako prest** (4)

---

# zernahikeria *iz*

Zeren indarrak eta **zernahikeriak** bere sarepean harrapatzen baitu norbera ere, eta norengandik sortua den, huraxe jotzen du gehienean, eta bere egiteekin bakearen arau komunak bortxatzen dituenak ez dauka erraz bizitza gozoa eta lasaia eroaten. Xabier Amuriza

---

# zernahismo *iz adkor*

Errepara zaitezte egungo merkatu guzian: ekologismoa, denbora librismoa, feminismoa, larreturismoa, bordaberrismoa, alardismoa, lizarrismoa, nudismoa, intsumismoa, demokratismoa, euskalerrismoa, dalomismoa edo beste **zernahismo** , onbide osasungarriak omen ditugu denak. Patziku Perurena

---

**zernahiterapia** iz adkor

*Guai bat izan liteke lerdoa, txorixoa eta pailazo merkea; edo inuzentea, nazkagarria edo errea, militante bat bezain ernegante eta neurotikoa, guraso bat bezain xitala, tristea eta alua; eta izan daiteke astrologiak edo* ***zernahiterapia*** *batek kexelebretua.* Iñaki Segurola

---

**zernahitsu** mugtz

*Oporretan etorri nintzen belazera, kilkerretara, baina aitonak maiz esan zidan lurrari utzi egin behar zaiola bere kasa, eta opari guztien aurrean behar dugula izan apal eta esker oneko,* ***zernahitsu*** *munduratzen duela ere.* Karlos Linazasoro

*Materialisten materia, edo indar absolutu ezezagun eta ezagutezin bat eraginkorra, efektuen ugaltzeko legearen arabera historia agerikoan biderkatzen dena (Spencer), edo biologia psikologizatu bat, arraza (Ardigó, Taine), edo beste* ***zernahitsu*** *XIX. mendetarra.* Joxe Azurmendi

---

zernai ik **zernahi**.

---

**zerñobait** izord adkor zerbait.

*Sasi azpitik edo hodei gainetik dabilkizu beti, eta zeremonia guziak dizkizu sobran, eta* ***zerñobait*** *eskas beti: harri kixkil bat, expal ttar bat, bellar izpiño bat, lizta muttur bat...* Patziku Perurena

---

**zernola** (orobat **zer-nola**) iz nolakotasuna.

*Gerta litekeena da, ordea, hori ez planteamendu txarra bakarrik, baizik ez izatea planteamendurik batere, aldez aurretik alternatibaren maneran erabakita aurkezten duelako soluzioaren forma posible bakarra (bai/ez,* ***zernola*** *-ren kontsiderazio gabe ezertarako); h. d., historiako edo etikako arazoak derrigor metafisikako esferan eta maneran ebaztea eskatzen duelako.* Joxe Azurmendi

*Euskal poetika baten sustrai, eredu eta* ***zer-nola*** *argien falta, metrikari-eta dagozkien kontuetan.* Anjel Lertxundi

*Autonomismo ahoxuriaren* ***zer-nola*** *horiek, zehaztasunik gabeko definizioak, egitateak.* Iñigo Aranbarri

---

**zernolako** **1** izlag nolako.

***Zernolako*** *gizona zen, finean?* Karlos Linazasoro

*Gero eta gutxiago nekien, zinez,* ***zernolako*** *neska zen hura.* Joxe Austin Arrieta

*Barrez adierazi nion* ***zernolako*** *piura izaten duen alanbre batetik zintzilik dagoenak.* Joxe Austin Arrieta

*Ez nintzen ohartu inolaz ere,* ***zernolako*** *istilutan sartuko nintzen neure haurra hiltzerakoan.* Gotzon Garate

*Susmorik ez, noski, bere erantzunek* ***zernolako*** *garrantzia zuten.* Joxe Austin Arrieta

*Ez dakit* ***zernolako*** *guraria sartu zitzaion piztiak edukitzeko.* Javi Cillero

*Lagun baten sofrimenduak, nirekin partaide izanik, kontsolatzen badu,* ***zernolako*** *pozbidea ez du ekarriko Jainkoaren errukiak?* Joan Mari Lekuona

*Egiak* ***zernolako*** *zer izan behar duen, edozein obraren ongiak edo ederkiak zer izan behar duen, a priori daukagu.* Joxe Azurmendi

**2** (izen gisa) ik **zirkunstantzia**.

***Zernolakoak*** *ez nituen aldeko.* Jon Muñoz

*Menturaz ene ihesaren* ***zernolakoak*** *hain izan ziren atsekabeak, ezen, orobat ahantzia bide dudan egun batez, ahanztea zin egin dudan.* Juan Garzia

***Zernolako*** *hark neska haren gain ematen zidan nagusigoa gordetzeko premia nuen.* Jon Muñoz

*Kausitu zuen aldizka, eta* ***zernolakoen*** *arabera, hiru adiskideei begirunezko goresmen berbera eskaintzeko bidea.* Jon Muñoz

*Guk badugu naski zerikusirik, gutxi edo asko, gozatzen ari diren zorion gisako horretan; zorion hori ordea atxikiagoa zaio* ***zernolakoei*** *presunari baino.* Jon Muñoz

***Zernolako*** *ahaltsuek bararazten naute ordea, eta segur naiz zuhaurk ere ez dituzula gaitzetsiko.* Jon Muñoz

---

**zernolakotasun** iz nolakotasuna.

*Kontakizun honetan, intriga ez baitago itxuraldaketaren* ***zernolakotasunean*** *, beste zerbaitetan baizik-, ezpada kontaeraren arnasa bere gradazio egokian ematearren.* Karlos Linazasoro

*Ea, Armando maitea, aipatu duzun ukendu horren* ***zernolakotasuna*** *azaldu behar bazenigu, zein animalia aukeratuko zenuke?* Karlos Linazasoro

---

**zero** **1** iz elementurik gabeko multzoari dagokion, hutsaren adierazgarri den zenbakia; zenbaki positiboen eta negatiboen artean dagoen tarteko zenbakia. ik **huts**[1].

***Zero*** *ezer-ez den moduan, "ezer ez baino gutxiago" duk zenbaki negatiboa.* Jon Muñoz

*Arabiarrek asmatuak dira zifrak eta* ***zeroa*** *.* Jon Muñoz

*Duela gutti banatua izan zen* ***zero*** *zenbakia.* Herria

***Zero*** *babiloniarra izan zen Historiako lehen* ***zeroa*** *.* Jon Muñoz

*Geroago,* ***zero*** *zifra bat asmatu zuten astronomo maiek, barraskilo-maskorra irudikatzen zuen obalo horizontal batez irudikatua.* Jon Muñoz

*Mendebaldeko pentsalariek, hasieran, ez zuten* ***zero*** *kontzeptua ulertzen.* Berria - Gaiak

*Gure aroko VI. mendera arte, ordea, ez zuen gizakiak* ***zero*** *"osoa" asmatu, zifra huts izateaz gainera zenbakia ere bazena.* Jon Muñoz

*Biribiltxo batez irudikatzen da* ***zeroa*** *.* Jon Muñoz

*Bekain gainean,* ***zero*** *baten itxura zuen orin more bat marraztu zion.* Joxemari Urteaga

**2** (zenbaki gisa)

*Zenbaki guztiak ezagutzen ditugulako,* ***zerotik*** *infinituraino.* Unai Elorriaga

*Atzekoz aurrerako hurrenkeran datoz lau sailon zenbakiak: lau, hiru, bi, eta bat-* ***zero*** *.* Joxerra Garzia

*600 baino gehiago zaretela esaten da beti, eta* ***zero*** *horiek abstrazio itxura ematen dizuete.* Patziku Perurena

*Garbitasun maniatikook, zortzi* ***zeroko*** *purutasunok.* Juan Garzia

*Zortzi* ***zerorekiko*** *zenbakiz hornitu zerrendak.* Itxaro Borda

*Erabat positiboa den zerbait* ***zero*** *=0 bihurtzea.* Ibon Uribarri

*-Ez da erraza, horrenbeste* ***zero*** *elkarren segidan...* Joxan Elosegi

*Parentesi arteko elementuen artetik* ***zero*** *edo gehiago hauta ditzakegu.* Itziar Laka

**Zero** eta hiru urte bitarteko zikloan. Berria - Harian

Plan berriak egitekotan, **zero** izan behar da haien kostua. "Balea" eta "du" hitzek maiztasun bera izan lezakete (hots, **zero**) hiztun baten hizkuntz esperientzian. Juan Ignacio Pérez / Pello Salaburu

Urduri nago, ez dakit zergatik, **zerotik** hasi nahi dudalako beharbada. Mikel Hernandez Abaitua

Egia da errugbiak ez duela pilotak duen lotura euskararekin, beraz **zerotik** abiatu behar dugu. Herria

Ezinezkoa dun **zerotik** hastea. Harkaitz Cano

Ikerketa, **zero** pundutik har dezagun beraz. Ramuntxo Etxeberri

Izotz xehatua eta botila pare bat White Rock igo ditzatela lau **zero** lau gelara. Lopez de Arana

Bat gehi bat bi; bat gehi **zero** bat. Aritz Gorrotxategi

Masta gainean antena parabolikoa jirabiraka ari zen, Bisibilitatea **zero**. Joseba Sarrionandia

Kontuan hartu ez dugun beste aukera bat **zero** morfema ezabatzea litzateke. Itziar Laka

Hizkuntz eskakizuna "**zero**" profilera jaistea izan zen lehen neurria. Aingeru Epaltza

Telebista aldizkariaren **zero** zenbakia plazaratua izan da Durangoko ferian. Herria

**Zero** solairuan, erakusketa osagarria paratuko dute. Berria - Kultura

**Zero** Eremu hura ez zen New Yorkekoa, Gasteizko Mendizabalako lautadakoa baino. Berria - Kultura

Managuako alkate izan nahi du **'Zero** Komandanteak'. Berria - Mundua

Ekonomia **zero** puntuan dago, egoera katastrofikoa da. Berria - Mundua

Orobat daki matematika bitxia dela bi antonimo horiena, bai bailirudike **zero** eman beharko lukeela batuketak, hala nola hotza eta beroa batuz gero ematen duen epel edo **zero**. Imanol Zurutuza

**Zerorik** ez du sekula jartzen. Joxemari Urteaga

## **2** (zenbatzaile gisa)

**Zero** akats, etengabeko hobekuntza, erabateko kalitatea, bikaintasuna. Iñaki Heras

Betto **Zero** Gosea egitasmoaren koordinatzailea da. Berria - Mundua

Gizartearen partaidetza handiagoa behar da, **zero** tolerantziaren printzipiotik abiatuz. Berria - Euskal Herria

**Zero** defizita lortzeko gastu soziala murriztea gaitzetsi dute sindikatuek. Berria - Euskal Herria

**Zero** hondakinen filosofiarekin, ordea, dirua herrian gelditzen da. Berria - Euskal Herria

Urtarrilaren hogeiaren **zero** ordutan entzuten den musika da. Askoren artean

Donostiako Tabako Fabrika, **zero** orduan. Berria - Kultura

## **3** (tenperatura eta longitude-latitudeak neurtzen)

Tenperatura **zero** gradukoa, eguraldia hotza eta gardena. Joseba Sarrionandia

Airearen tenperatura bera ere **zero** gradutik behera jaitsi dela. Pello Zabala

Hegoaldea aski epela da, tenperaturak **zero** azpiko seitik **zero** gaineko zazpira bitartean mugitzen baitira. Bernardo Atxaga

Dozenerdi bat gradu **zero** gainetik udako beroenean, eta zeropetik hogei gradutik behera neguan. J.M. Olaizola "Txiliku"

Maiz ikusi dinat Siberiako estepetan tenperatura **zero** azpitik berrogei gradu erortzen! Karlos Zabala

ik beherago 5.

Zazpi gradu **zero** azpitik egunargiz. Jon Arretxe

Tenperatura **zero** azpira jaitsi zen gauean. Karlos Zabala

Gauez **zero** azpiko 17 gradura jaitsiko da tenperatura. Joseba Sarrionandia

-273,16 ºC-ko tenperaturak (**zero** Kelvinek) garrantzi handia dauka zientzian, lor daitekeen tenperaturarik txikiena baita. Fernando Morillo

**Zero** absolututik hurbileko tenperaturan funtzionatzen duten material supereroale berriak. Irene Aldasoro

Iparraldea goian egotea, hegoaldea behean, **zero** graduko longitudea Greenwichen finkatzea eta Europa maparen zentroan jartzea. Joseba Sarrionandia

## **4** (kirol emaitzetan)

Joan dira Lyon-era eta han hiru eta **zero** galdu. Herria

Hortik Auxerre hirira eta bost eta **zero** galdu. Herria

Argentinak bi - Australiak **zero**. Herria

## **5 zerope** (kasu atzizkiez, orobat **zero pe**) zero azpi.

Arrats hartan tenperatura **zeropera** lerratu zen. Itxaro Borda

Bilbon, ia gradu bat **zeropetik**, -0.8 zehazki. Pello Zabala

Izozte hotzenean, aldiz, -7.6 (**zeropetik**, alegia) jaitsi zitzaien Bilboko kaleetan, 1963ko ilbeltzaren 15ean. Pello Zabala

Dozenerdi bat gradu zero gainetik udako beroenean, eta **zeropetik** hogei gradutik behera neguan. J.M. Olaizola "Txiliku"

Itsasoko uraren tenperatura 2 gradukoa izanen da, **zeropetik**. Joseba Sarrionandia

Espedizio gogorra, **zero petik** 40°ko hotzarekin, alde bat eguzkiak jota. Herria

10.100 metrotan gaude eta tenperatura **zeropetik** 44 gradukoa da. Patxi Zubizarreta

**Zeropetik** hogeita zortzi graduko tenperaturara ateratzea pentsa zer zen. Eneko Bidegain

**Zeropetik** 6 eta 15 gradu arteko tenperaturak espero dituzte. Berria - Gaiak

Eta bi urte geroago, 1965ean, -20.8 gradu **zeropetikoak** Albaceten iritsi zituztenak. Pello Zabala

Gau osoan eduki gintuen kanpoan zutik, hogeiren bat gradu **zeropean**, hor nonbait, badakizu zer den hortzetako hotza? Koldo Izagirre

Ottawako funtzionarioak ez zituan oso zehatzak izan hemengo tenperatura beti **zeropean** gelditzen zela esan zigutenean. Bernardo Atxaga

Egundoko hotza egiten baitu; hamabi gradu **zeropean**. Edorta Jimenez

Egingo nuke **zeropean** ez bada, zerotik gertu gaudela. Pello Zabala

450en bat metrora arte, aire hotza izango da: izotzarekin batera, **zeropeko** graduak agertuko dira termometroetan. Pello Zabala

Eguneko hotzak **zeropekoak** badira eta gauekoak bost gradu **zeropekoak**, planaren bigarren heina sartzen da indarrean. Berria - Euskal Herria

Tenperatura bera, -20 edo -25 gradu **zeropekoetatik** apenas igotzen den, zerora ezin iritsirik. Pello Zabala

**hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**

**bi zero** (3); **gradu zero azpitik** (11); **tenperatura zero azpitik** (8); **zero azpiko** (14); **zero azpiko tenperatura** (4); **zero azpitik** (61)

**zero bat** (6); **zero defizita** (4); **zero eta hiru** (10); **zero gosea** (3); **zero graduko** (3); **zero gradutik** (4); **zero tolerantzia** (4); **zero tolerantzia izango** (3); **zeroa zero** (3)

**gradu bat zeropetik** (3); **gradu zeropetik** (5); **tenperatura zeropetik** (3)

**zerotik abiatu** (3); **zerotik hasi** (11); **zerotik hasi eta** (4); **zerotik hasiko** (3); **zerotik hastea** (3); **zerotik hasteko** (5)

---

# **zeroi** iz kaxalotea.

AEBetako, Erresuma Batuko eta, oro har, NATOko ontziek eginiko maniobrek zetazeo espezie ugariri eragin diete: euskal balea, xibarta, zere arrunta, zere txikia, **zeroi** arrunta, **zeroi** pigmeoa, Atlantikoko izurde pikarta eta marzopari, besteak beste. Berria - Gaiak

*Hiru traineruk harrapatu* ***zeroi*** *handia.* Koldo Izagirre

***Zeroiren*** *baten turrusta ikusten ote zuen ortzimugako haria eteten.* Koldo Izagirre

*Zientzialarien ustetan,* ***zeroiak*** *ziren txibia erraldoiak jaten zituzten bakarrak.* Berria - Gaiak

---

**zerok** *izord Zuek izenordainaren era indartua, batez ere galdegaiaren lekuan eta nolabaiteko kontrakotasuna adierazi nahi denean erabiltzen dena. Ik.* ***zeuek; zuhauek****.*

*Jainkoak aurpegi bat eman, eta beste bat apailatzen duzue* ***zerok****.* Juan Garzia

---

zeronek ik **zerori**.

---

zeroni ik **zerori**.

---

zerope ik **zero**.

---

**zerori** *izord zu izenordainaren era indartua, batez ere galdegaiaren lekuan eta nolabaiteko kontrakotasuna adierazi nahi denean erabiltzen dena. ik* ***zeu; zuhaur****.*

*Arretxe zara* ***zerori*** *ere? -Nork ziurtatuko digu satorra* ***zerori*** *ez zarenik?* Jon Arretxe

*Hortaz,* ***zerori*** *mutakallim-n-en esana askiesten dutenetakoa baldin bazara eta sinesten baduzu hor badela froga sendorik munduaren sorrerarako, ederki dago.* Xabier Kintana

*-Zoaz* ***zerori****, nahi baduzu -esan zion Gabrielek hotz.* Irene Aldasoro

*-Pentsa ezazu* ***zerori*** *joaten zarela ispilura eta zeure buruan ez dagoen kolore batekoa duzula aurpegia.* Hasier Etxeberria

*Lehengo taldeak ahulduko dituzu eta* ***zerori*** *ere bakar-bakarrik kausituko zara apenas ezagutzen duzun mundu batean.* Juan Garzia

*Jauna, nire Jainko eta nire poza:* ***zerori*** *ez zaren beste zerbait bidaliko bazenit, emaidazu beste Zu bat, ez baitut ezer nahi Zu baizik.* Joan Mari Lekuona

***Zerorrek*** *esan zenuen lehengo egunean.* Antton Olano

*Osasunak,* ***zerorrek*** *esan duzunez, ez nau balentria demasetara bultzatzen.* Txillardegi

*Ireki ezazu* ***zerorrek****.* Joxemari Urteaga

*Oi, Jauna,* ***Zerorren*** *Seme kutun bakarraren, eta Jesukristo gure Jainkoaren izenean, dei diezadala telefonoz orain.* Mirentxu Larrañaga

*Jainkoen jostailua zara, eta* ***zerorren*** *borondaterik ere ez duzu.* Oskar Arana

*Eramazu* ***zerorrekin*** *argizari dezente kandelatarako, baita intsentsua ere.* Askoren artean

*Baina Zeuk* ***zerorrentzat*** *nahi duzuna, neronek ere hori nahi dut niretzat.* Joan Mari Lekuona

***Zerorrena*** *sekula betiko, laztanen laztan hori, biziaren ahala berekin dueno.* Juan Garzia

*·* ***Zeronek*** *diozun eran, nehork ez ditu euskaraz mintzatzetik trabatzen, non ez den beren baitako ezjakintzak.* Itxaro Borda

*Begiratu zuk* ***zeronek*** *zure inguruan: zure ikaskideen euskara mota batekoa da eta denak toki berekoak dituzu?* Pello Salaburu

*Ezta noble izaitea, buraso nobletarik sorthu izaitea,* ***zeroni*** *egin zaitea noble... zeren gizonari egin dakioken laidorik handiena baita izpirituz eskas dela deitzea.* Patziku Perurena

***Zeronen*** *mamuen aztaparretarik.* Itxaro Borda

> ***hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)***
> ***dakizu zerorrek*** *(4);* ***duzu zerorrek*** *(4);* ***ezazu zerorrek*** *(4);* ***hori zerorrek*** *(3);* ***zerorrek egin*** *(3);* ***zerorrek esan*** *(10);* ***zerorrek esan duzu*** *(5);* ***zerorrek ikusi*** *(9);* ***zuk zerorrek*** *(6)*

---

zerorrek ik **zerori**.

---

**zerotxo** *iz adkor zeroa.*

*Uda partean, eskerrak ez duen* ***zerotxo*** *bat ere galtzen, hainbeste izanik ere.* Pello Zabala

---

zerozer ik **zeozer**.

---

**zerra** ***1*** *iz zura eta metalak ebakitzeko lanabesa edo tresna, funtsezko ataltzat altzairuzko xafla edo disko horztuna duena. ik* ***arpan****.*

*Pikotxa eta aizkora, edo* ***zerra*** *eta palanka.* Joseba Sarrionandia

*Egun batzuetan amona lanean sumatu zuten, mailu eta* ***zerra****, ohol eta iltze, etxeari beste zatiren bat erantsi nahian bezala.* Pako Aristi

*-Oraintxe esango zioat Morgani -arotzaren emazteak erantzun zuen aroztegiko mailu eta* ***zerren*** *ilunpe artetik.* Koro Navarro

*Aitak* ***zerra*** *deztera-harrian zorrozten zuen artean.* Koro Navarro

*Irakasle tontolegearen ahotsak zergatik egiten du gora eta behera,* ***zerra*** *baten hortzek bezala?* Anjel Lertxundi

*Varsovian xerretan mozten zuten gurina, puska handi batetik,* ***zerraz****.* Koro Navarro

*Hezur handi bat luzetara ebakitzen badugu* ***zerra*** *batekin, abaraska edo belaki baten moduko egitura ikusiko dugu.* Irene Aldasoro

*Harrikatu egin zituzten,* ***zerraz*** *ebaki, ezpataz hil.* Elizen arteko biblia

*Gero, hango jendea irtenarazi eta* ***zerraz****, burdinazko pikotxez eta aizkoraz lan egitera behartu zuen.* Elizen arteko biblia

*Arantzazun Araba aldetiko Elgea mendikatea daukagunez, Urkilla deritzaneko* ***zerra*** *moduko horrekin.* Pello Zabala

***2*** *(izenondo eta izenlagunekin)*

*Esan zion nola Peshe garbitu gabe oheratzen zen eta* ***zerra*** *biribil bat bezala aritzen zela zurrungaka.* Koro Navarro

*Aurpegia estalita zeramaten zortzi solidariok,* ***zerra*** *erradialez eta lan-jantziez hornituta [...] sei kable -800 metro luze eta 62,5 mm.* Txema Ramirez de la Piscina

*Brikolaje kaxatik* ***zerra*** *elektrikoa hartu eta lepoa moztu zien bi-biei.* Josetxo Azkona

*Artega hartuko duzu* ***zerra*** *zorrotza esku artean.* Joseba Sarrionandia

*Ez pentsa* ***zerra*** *kirrinkariaren irrintza latza elementu lisuz egina dagoenik.* Xabier Amuriza

*Ellenen ahotsa* ***zerra*** *txiki zorrotz malgu bat bailitzan barneratzen zitzaion haragian.* Lopez de Arana

*Ellen makina nahaspilatu bat zen haren besoen artean, argi zuria, urdina eta kobre-kolorekoa isurtzen zituen* ***zerra*** *dirdaitsuaren hortzak zituena.* Lopez de Arana

*Soinua 80 edo 90 dB-raino iristen bada -hormigoia hausteko makinak, katezko* ***zerra*** *batek edo motozikleta zaratatsu batek hamar metro ingurura duten maila-, [...].* Irene Aldasoro

**3** (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

*Michael ere altxatuta zegoen ordurako, sei* ***zerra*** *-hortzeko labana zorrotza bezain prest.* Julen Gabiria

*Kanpoko eta barruko zimenduak elkartuko dituzte eta orrazi moduan edota* ***zerra*** *-hortzen formarekin egindakoak.* Santiago Iruretagoiena

*Ontziolako* ***zerra*** *hotsa entzungo zuen, eta azkenekoz bezala begiratuko zuen portualdea.* Joseba Sarrionandia

*Zumezko bagoien gurpil txikien txilioa,* ***zerra*** *txistua zirudiena.* Karlos Zabala

**4** (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa)

*Ohi bezala entseguen artean aizkolariak ariko dira Hairako oihaneko pago trunkoen mozten aizkoraz eta esku* ***zerraz*** *.* Herria

*Daratulu bat, marketeria-* ***zerra*** *bat, zorrozkailu sail bat.* Joxan Elosegi

*Liston jaunak bi minutu eta erdian moztu zion hanka -izter paretik- zauri larriak zituen sujetu bati, zirujau* ***zerra*** *bat erabiliz.* J.M. Olaizola "Txiliku"

**5** (hitz elkartuetan lehen osagai gisa, lehen osagai hori izenondoduna dela)

*Garai batean nengoela sinetsiko nukeen, edo makina-erreminta hain sona handikoaren erakustaldi horietako batean, han ateratzen zen soldadura eta* ***zerra*** *metaliko hotsa, txinparta, su artifizial, eta sirena-soinuak entzun eta ikusirik.* Jon Alonso

**6** (musika-tresna gisa)

*Zebra diskoan agertzen diren musikariak Borja, Drake eta Mikel gehi Jomes teklatuetan, tronpetan, thereminean eta* ***zerra*** *melodikoan.* Berria - Kultura

*Beñardo Goietxe gitarran lagun duela eta Raul Garcia harmonika, harpa txikiarekin eta* ***zerra*** *musikalarekin.* Berria - Kultura

**7** bizkarrezurra.

*Gaztaina-koloreko adatsa zuen, gorabeherarik gabeko izur faltsuetan bildua, dilindan, zaldiaren* ***zerra*** *gainean eta urre-antzeko bordatuz egindako zaldi-estalkiaren gainean.* Juan Kruz Igerabide

*Izebak hautsa astintzekoa hartu eta* ***zerran*** *jotzen zuen osaba eta kare hauts pila bat harrotzen zuen jantzietatik.* Pello Lizarralde

**8** xerra, xerrada.

*-Nik* ***zerra*** *txiki bat jango dut tipularekin.* Lopez de Arana

*Karrikara begira jan zuten,* ***zerra*** *gogor bat patata frijitu koipetsuekin.* Felipe Juaristi

*Kanibet batekin pikatu du xorizo* ***zerra*** *ederra.* Piarres Aintziart

*Denen txorizo edo txokolatearen partez, amak goizean berean frijitutako hirugihar* ***zerra*** *lodia izaten zuen tartean.* Aingeru Epaltza

*Ogi-* ***zerra*** *xigortu bi gurinaz igurtzi ondoren, kafea atera zuen kikarara.* Joxemari Urteaga

*Bi saltxitxoi* ***zerra*** *gure afarirako.* Pello Lizarralde

*Bi gasna* ***zerra*** *eder jan genituen ixil-ixila.* Janbattitt Dirassar

*Izokinak eta orkatz solomo-* ***zerrak*** *beranduegi iritsi dira.* Eskarne Mujika

**9** ***trontza-zerra*** trontza.

*Europa zaharreko goldeen zain zauden alorrak, hango* ***trontza-zerren*** *zain haritz eta gaztainak, hango pikatxoien zain mendi-muinetako aberastasunak.* Anjel Lertxundi

**10** ***zerra-motor*** motozerra.

*Gero* ***zerra-motorra*** *sartzen zioten erdiz erdi, eta zirrikitu bat irekitzen zioten, arrakala bat egiten zioten etxeari.* Berria - Kultura

*Baina beti egongo da norbait* ***zerra-motorra*** *sartzeko gure pentsamendu zurrunari.* Berria - Kultura

> ***hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)***
> ***gasna zerra*** *(3);* ***ogi zerra*** *(9);* ***zerra batekin*** *(3);* ***zerra eder*** *(3);* ***zerra moduko*** *(3);* ***zerra motorra*** *(4)*

---

## **zerradura** iz itxitura.

*Patagonian ibiltzean bada zonbait pentsaketaren egitekoa, halako leku zabalak denak hutsak, ardiak* ***zerraduren*** *barnean dira,* ***zerradura*** *bakotxak badituelarik zonbait ehun hektara.* Herria

*Iduri zuten denak hitz beretan zaudela ondarrean jazarleen armen biltzeko eta bideetan larderiaz eginak dituzten* ***zerraduren*** *desegiteko.* Herria

*Etxolen berritzeko laguntzak, larreak hobetzeak, hesia eta* ***zerradura*** *batzu egitea leku txarretan behiendako, ura ere behar tokika, eta holako.* Herria

*Urte berean, Iraultza denboran beraz, kenarazi zituzten bizkondeen kaperan ziren noblezia markak, armarriak eta burdin* ***zerradurak*** *.* Michel Oronoz

---

## **zerragailu** iz itxigailua.

*20 urteko gazte batek moto baten gainean auto bat sahetsetik aintzindu nahiz hau hunki du eta* ***zerragailu*** *baten kontra joan da bortizki.* Herria

---

## **zerragia** iz itxitura.

*Ondoko* ***zerragian*** *, hurrengo abenduan galkatuko edo engisatuko ziren antzara kalapitatsuak.* Itxaro Borda

*Metroaren* ***zerragia*** *metalikoak klaskan herstear daudela, doi-doia salbaturik lurpetik atera lasterka eta hatsanka.* Itxaro Borda

---

## **zerragote** iz

*Eta etxeraino etorriz, Ezkioko itsuak* ***"zerragotea*** *esaten zitzaion eskusoiñua" jotzen omen zuen, Azkuek jasotako "zarrabete" delakoa, alegia.* Patziku Perurena

---

## zerraila ik **sarraila**.

---

## **zerrailu** **1** iz itxigailua.

*Atea zabaltzen dute, sekulako harrabotsekin, gaineko zerrapoa, peko zerrapoa eskuz, eta erdiko* ***zerrailua*** *giltzaz, bi itzuli emanez aski bortizki.* Filipe Bidart

*Ene atearen gaineko zerrapoa, klanka!, pekoa, klaska! klaska!, giltza* ***zerrailuan*** *eta zaintzale bat agertzen da atean.* Filipe Bidart

*Klaska!, zeldako ate* ***zerrailuan*** *giltza; klunka!, ibiltokira doan burdinazko atea.* Filipe Bidart

**2** *itxitura.*

*Horra nere gela, 6. zenbakia, atea pizua eta **zerrailua** azkarra.* Marzel Etxehandi

***Zerrailu** (hesi-mota, itxitura) onak hiru urte, txakur onak hiru **zerrailu**, zamari onak hiru txakur, gizon onak hiru zamari.* J.M. Olaizola "Txiliku"

*Esku bat sabel pean sakatu zion, bere galtzetako **zerrailua** apalduz jauki zitzaion zakila buru gorrixka beste eskuaz harrotzen zuela.* Itxaro Borda

---

# zerraki *iz itxigailua.*

*Gaitzeko kalapitak izan ziren ere Urtubi-tarren etxetiar batek **zerraki** zerbait ezarririk landa eta pentze batzuen hegiz-hegi, ziburutarrek gau batez barreatu zutena...!* Herria

---

# zerrakin *iz zerrautsa.*

*Hara hor kaoba enbor sendoak esperoan, zerraren alboan **zerrakina** pilatzen den artean, eta bestaldean kolore odoltsuko oholak zurezko dorreak eraikiz antolatuak.* Joseba Sarrionandia

*Ez zitzaion kostatu indarrez eta toki egokian jotzea, Peppone geldirik zegoelako han, erabat babesgabe, eta **zerrakin** -zaku bat jotzea bezala zen.* Koldo Biguri

*Nahikoa du jardutea, eskuak eskularru barrubigunduekin babestuta, nonbait eskegitako **zerrakin** -zaku batekin edo baloi batekin.* Koldo Biguri

---

# zerrakura *iz itxitura.*

*Kanpo aldetik hesirik edo **zerrakurarik** gabea, metalezko pertsiana handi bat zuen sarrera bakar.* Aingeru Epaltza

---

# zerraldi *iz itxialdia.*

*Penn Ar Ru Meurko animaleko suak hausten zuen, zuzen zen bezala, gizon adinduaren Bresteko gartzelako **zerraldia** .* Itxaro Borda

---

# zerraldo **1** *iz hilkutxa.*

*Laga itzazue hilak bakean eta itxi ezazue **zerraldo** hori, zulatuko duzu beste nonbait Pierre gaixo honentzako hobia.* Josu Zabaleta

*Ordurako **zerraldoa** hilerriko sarreran zegoen.* Berria - Euskal Herria

*Zenbat eta inmoralitate handiagoa, zenbat eta plazer gehiago, orduan eta sehaska gutxiago eta **zerraldo** gehiago!* Fernando Rey

*Anaiek gorputz santua **zerraldotik** atera eta denbora luzez besoetan eduki zuten leihatila aurrean.* Juan Garzia

*Serbiako banderarekin estali zuten **zerraldoa** .* Berria - Mundua

**2** *(izenondo eta izenlagunekin)*

*Florent arras goibel sentitzen zen oraindik, **zerraldo** estu hura lurrera nola jaitsi zen gogoan zuela.* Karlos Zabala

***Zerraldo** portatilak ziren zaku haiek. Ustekabean ozen eta hurbil, amaren negarra, **zerraldo** itxia behera zeramatenean bi edo hiru bider Eligiori bere izenez deika.* Harkaitz Cano

*Aldare aurrean, **zerraldo** irekia, beltza baino beltzagoa, lore-koroaz inguratuta.* Iban Zaldua

*Berunezko **zerraldo** batean sartu zuten gorputza.* Josu Zabaleta

*Batere beldurrik gabe, **zerraldo** erdi irekien artean, hildakoen gorpuen artean, hezur artean ibiliz, haren bila nindoan, berehalaxe aurkituko nuela ziur.* Josu Zabaleta

• **3** *adlag hilik bezala; luze-luze; hila.*

*Tximistak jota bezala eroriko zela **zerraldo** .* Josu Zabaleta

*Burtzikada haietarik batean, zezena **zerraldo** erori, eta halakoa izan zuen heriotza.* Joan Mari Irigoien

*Ezpatak lepo luzatua moztu zuenean, burua harri bat bezala erori zen, eta gorputz eskerga, hegoak zabalik, **zerraldo** jauzi zen.* Agustin Otsoa

***Zerraldo** zegoen lurrean, gora begira.* Iñaki Mendiguren

*Besteak kokotsean muturreko bat itzuli eta **zerraldo** bota du lurrera.* Koldo Biguri

*Sisera leher egina zegoen eta **zerraldo** lo gelditu zen.* Elizen arteko biblia

*Lurrean **zerraldo** etzaten zen, bere oihal nabarmenak zikinduz.* Anton Garikano

*Kamioi atzean **zerraldo** aurkitu zuten, hilik bezala, aurpegia odoletan zuela.* Koldo Biguri

*Buruan harturiko kolpearen ondorioz, bertan **zerraldo** gelditu zen.* Karlos Linazasoro

*Emakumea lurrean **zerraldo** zegoen, odoletan blai.* Anjel Lertxundi

*Han aurkitu zuten beren nagusia lurrean **zerraldo** , hila.* Elizen arteko biblia

*Handik hiru egunera **zerraldo** erori zen, hilik, bazkaltzen ari zela.* Juan Kruz Igerabide

*Hila ikusten baitzuen Velascoren alaba, zuriz jantzirik eta ohean **zerraldo** , bozkariozko irribarre xume bat ezpain-artean zuela.* Anjel Lertxundi

*Ohe baten ondoan **zerraldo** zetzan gorpuak beso bat luzatua zuen, ohepean eskua sartu nahi izan balu bezala.* Harkaitz Cano

*Gizona **zerraldo** erori zen, Dominiqueren ganibeta bizkarrean landaturik.* Elena Touyarou

*Taldearen burua ere **zerraldo** itzuli da kasernara, tiro bat bihotz ondoan harturik.* Xabier Montoia

*Ukuiluko behietako bat **zerraldo** ikusi zituenean, guztiz ikaratu zen.* Joan Mari Irigoien

*Seko lo zegoen, mutu eta **zerraldo** .* Mirentxu Larrañaga

*· Frodo burua belaunen artean sartuta eseri zen; beso **zerraldo** eroriek lurra ukitzen zioten, eta eskuak dardara arinean zituen.* Agustin Otsoa

**4** *irud/hed*

*Zenbat baso eta zuhaitz **zerraldo** bota ote ditugu horretara iristeko...?* Pello Zabala

**5 hordi zerraldo** *erabat hordi.*

*Horrekin batera antoisin handi bete pontxe atera zion ikasleari; hark zurrutada batez irentsi, eta **hordi zerraldo** erori zen mahaipean.* Josu Zabaleta

**6 lo zerraldo** *lo sakonean.*

*Gero, orbelezko ohatze batean etzan eta aurki zegoen **lo zerraldo** .* Karlos Zabala

*Karmen **lo zerraldo** neukan ondoan, eta nire sorbalda gainera erortzen zitzaion burua.* Inazio Mujika Iraola

*Atseginaren atseginez **lo zerraldo** geratu zen.* J.M. Olaizola "Txiliku"

*Behingoz **lo zerraldo** nengoen, zurrungaka beharbada, eta neure ametsean aldarriak entzuten nituen; gero haiek handitu eta, erdi esna, atean kax-kax ari ote ziren iruditu zitzaidan.* Xabier Mendiguren Elizegi

***hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)***

*bertan zerraldo (9); erori zen zerraldo (3); gainean zerraldo (3); lo zerraldo (10); lurrean zerraldo (22); lurrera zerraldo (7); lurrera zerraldo erori (3)*

*zerraldo bat (4); zerraldo botata (3); zerraldo erori (46); zerraldo erori da (5); zerraldo erori zen (24); zerraldo erortzen (15); zerraldo erortzen ziren (3); zerraldo gelditu*

> (4); **zerraldo geratu zen** (4); **zerraldo utzi** (5); **zerraldo zegoen** (5)
> **bere zerraldoan** (3)
> **zerraldoaren atzetik** (3); **zerraldoaren aurrean** (5)

---

## zerralerra *iz*

*Labanaren **zerralerra** zainarta hautematean, Maria iratzartu zen.* Itxaro Borda

---

## zerrama *1 iz txerrama.*

*Une horretan bertan, titiak lohian sartuta esnea ematen ari zen **zerrama** bati begira eta usainka geratu ziren.* Koro Navarro

***Zerrama** bat ere bazen han, bere zerrikumeekin.* Jose Morales

*Iratze meta bat bazuten muntatua eta urde ahardi edo **zerrama** eder bat ondo hartan zagon bere hamar umeekin.* Herria

*Zerritegi bakoitzean berrogeita hamar **zerrama** zeuzkan, denak ume eginda.* Juan Kruz Igerabide

*Hona zenbat zerri nahi lukeen hor sortu eta hazi: 155 **zerrama** ezarri nahi lituzke, urtean 3100 ume ukanen dituztenak.* Herria

**2** *(irain gisa)*

*Errezilgo elizako paretan honako idazki hauxe agertu zen: "Garbiñe puta **zerrama** ".* Iñaki Segurola

*Plazerraz jaten badun, **zerrama** bat haiz.* Joxan Elosegi

---

## zerrandegi *(corpusean **zerrandei** soilik) iz esparrua.*

*Beharrik hemen baino leku gehiago baitute bidea eta **zerrandeia** artean.* Herria

---

## zerrandei *ik **zerrandegi**.*

---

## zerrapo *(orobat **zarrapo** g.er.) iz sarraila.*

*Atea zabaltzen dute, sekulako harrabotsekin, gaineko **zerrapoa** , peko **zerrapoa** eskuz, eta erdiko zerrailua giltzaz, bi itzuli emanez aski bortizki.* Filipe Bidart

*Klanka!, zeldako ate gaineko eta behereko **zerrapoak** , zaintzaleek beti bortizki zerratzen edo idekitzen dituztenak.* Filipe Bidart

*Soinu apalak, urruneko murmurioak, hurbiltzen edo urruntzen diren zaintzaileen boz eta urratsak, sarrailak, **zerrapoak** , ateak, gakoak...* Filipe Bidart

***Zerrapoa** ere burdinez.* Eneko Bidegain

*Burdin eta **zerrapo** hotsa ondoan.* Xabier Montoia

---

## zerrarazi, *zerraraz, zerrarazten du ad itxiarazi.*

*Azken 13 urte horietan egünoroz agertzen zen Egunkaria kaseta züzengabe **zerrarazirik** izan ondoan, beste egünkari baten agerrarazteko xedea abian da.* Herria

---

## zerrari *iz zerraz, eskuarki zura, ebakitzen duen pertsona.*

*Duela hamabi urte haiek landatu zituen **zerraria** -bere lantokiari itxura jatorra emateko, zuhaitzak moztetik bizitzearen bekatua arintzeko- harrituta zegoen haien ugaritasunarekin.* Anton Garikano

---

## zerrategi[1] *(**89** agerraldi, **9** liburu eta **4** artikulutan) iz zura zerratzeko lantegia.*

*Ubanbe, Pantxo edo Opin bera aurkitzen genituen basoan, inguru hartan ari zirelako **zerrategirako** zuhaitzak botatzen.* Bernardo Atxaga

***Zerrategiak** bi sarrera zituen, Adrianen eta Josebaren etxeetara zihoana eta kamioiek egur garraioan erabiltzen zutena.* Bernardo Atxaga

*Oraindik ere lanean ari dira **zerrategian** , zerraren intziri borobil eta iraunkorra ozendu egiten da ibai bazterreko isiltasunean.* Joseba Sarrionandia

*Ez zebilen autorik errepidean; txakurrek ez zuten zaunkarik egiten; **zerrategiko** makinak itzalita zeuden.* Bernardo Atxaga

*" **Zerrategiko** oholen artean Far Westeko fuerte batean bezala" sentitzen zelako, etsaiengandik salbu.* Bernardo Atxaga

*1920az geroztik **zerrategiko** peoia izan zen Dummy, Washingtongo Yakimako Cascade zurgintza enpresan.* Koro Navarro

***Zerrategi** batean mekanikari zegoen gure amaren anaia bat.* Pello Lizarralde

*Pantxo, Maderas de Obaba **zerrategiko** langile xumea, basomutilei otorduetako janaria eramatea beste ardurarik ez zuena.* Bernardo Atxaga

*Bestela **zerrategian** eskatuko nuen lana, Pantxoren, Ubanberen eta basoan ibiltzen ziren gainerako mutilen ondoan jarraitzeko.* Bernardo Atxaga

***Zerrategiek** erosten omen dituzte mendi batzuk eta haientzako egiten omen dute lan.* Berria - Kirola

***Zerrategien** , birfindegien eta arrantzako sareen produktibitatea [...] murriztu egingo da basoen eta petrolio zein arrain-erreserben murriztea eragiten duten neurrian.* Itziar Eizagirre / Amaia Lizarralde

> ***hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)***
> **zerrategiko langile** (5)

---

## zerrategi[2] *iz ipar esparrua.*

*Etxe aldean zurezko **zerrategi** batzu: hemen bizpahiru urde, han bi behi, eta basakurtean zonbeit oilo.* Herria

*Otoitze horren ütürria, "Prière des enfants pour leurs papas prisonniers" delakoa da, "Aumônerie des Prisonniers de Guerre" erakunteak Parisen asmatürik, Kontzentrazione **zerrategien** 60. urtebürükari.* Herria

*"Camp de Gurs" delako jente **zerrategiaz** Mauleko libürütegi püblikoan, eüskaldun presoneren aipamenik agertüren ote da, ala beti bezala, "espainol erreplüblikatiarren" artean hurtürik gordeko dütüe, hala nola konzentrazione zelai horren sargiako panel handian?* Herria

---

## zerratoki *(**5** agerraldi, liburu **1** eta **2** artikulutan) iz zerrategia, zura zerratzeko lantegia.*

*Brasilgo Gobernuak indigenen lur eremua 1.060.400 hektareakoa zela zehaztu zuen egun berean,* ***zerratoki*** *handi bat eraiki zuten lur horietan, Bannach* ***zerratokia*** *hain zuzen ere.* Berria - Gaiak

*1986. urtean, Autobide Transamazonikoa eraikitzen ari zirela aprobetxatuz, Bannach Ltd. zur enpresak* ***zerratoki*** *handi bat ezarri zuen Cachoeira Seca eskualdean.* Berria - Gaiak

***Zerratokira*** *kamioiak iristeko, beste bide bat eraiki zuen gero enpresak.* Berria - Gaiak

---

## zerratu[1], zerra(tu), zerratzen du ad **1** itxi. ik **zarratu**.

*Gizonak hozkailuaren atea ireki eta* ***zerratu*** *zuen ostikada ahul batez.* Itxaro Borda

*Beren artean eskolatik landa gogoak elgar berotzen zituzten, Etxauzean sartu eta, bortak eta leihoak ongi* ***zerraturik*** *, bastiza zaharkituari bizi berri bat emaiten zuten.* Michel Oronoz

*Hilkutxa* ***zerratzeko*** *momentuan.* Daniel Landart

*Begiak* ***zerratu*** *zituen.* Itxaro Borda

*Denen buru, lekuka, bide* ***zerratzen*** *hasi dira.* Herria

*Klanka!, zeldako ate gaineko eta behereko zerrapoak, zaintzaleek beti bortizki* ***zerratzen*** *edo idekitzen dituztenak.* Filipe Bidart

*Azkenean, tratua bristi-brasta egin genuen, emazteak aspaldian pasatua zuelako dendaren* ***zerratzeko*** *ordua.* Itxaro Borda

*GEMA enpresak ateak* ***zerratu*** *ditu, 80 bat langile lan gabezian utziz.* Herria

*Fagor-ek* ***zerratzen*** *duela beraz Donibanen duen egoitza, muntadura horiek Pariseko ondoan ezartzeko.* Herria

*Baionako Louis de Foix eta Donibane Lohizuneko Ravel eta Ramiro Arrue lizeoko ikasleen gehiengoak ikastetxeak* ***zerraturik*** *atxikitzen segitzea bozkatu zuten atzo.* Berria - Ekonomia

*Etxegintza eta gaztetxeen* ***zerratzea*** *dute mintzagai.* Berria - Kultura

*Funtsean ongi martxan zen lantegi baten* ***zerratzeko*** *lehen ezpata kolpearen biktimak izan ziren.* Itxaro Borda

*Protesta gisa, untzi pelajikoek* ***zerratua*** *atxiki dute Baionako portua.* Herria

*Astelehen aratsaldean, Zokoako hondartza* ***zerratu*** *behar ukan dute kotsadura zerbait hedaturik errekontruz.* Herria

*Osasun eskumenen traspasoa* ***zerratu*** *gabe zegoenean.* Berria - Euskal Herria

*Ez nian, ordea, tratua* ***zerratzerik*** *izan, jabea ez zuan-eta bezperan jarritako orduan agertu.* Anjel Lertxundi

*Makur asko ez idurika, umitatea sartzen, ate batzu ezin* ***zerra*** *eta holako.* Herria

*Septentrio liburuarekin etapa bat* ***zerratu*** *nuen.* Ana Urkiza

### **2** irud/hed

*GEMA enpresak ateak* ***zerratu*** *ditu, 80 bat langile lan gabezian utziz.* Herria

*Otsabideko ateak* ***zerratu*** *zitzaizkion.* Itxaro Borda

*Ez dütüt leihoak* ***zerratzen*** *, borta bai* ***zerratzen*** *düt.* Menane Oxandabaratz

*Irabazten badugu, prefetak galduko du eta ondorioz,* ***zerratuak*** *diren ateak irekiko zaizkigu.* Berria - Harian

### **3** itxian sartu.

*Legeak zilegitzen du jendea eroetxean* ***zerratzea*** *auzo edo familiak galdeginez geroz.* Herria

*Bulego batean* ***zerratzen*** *nau.* Marzel Etxehandi

*Bazituen bi arreba serora komentu bortitz batean* ***zerratuak*** *.* Angel Aintziburu / Jean Baptiste Etxarren

### **4** (era burutua izenondo gisa)

*Lo-gela* ***zerratutik*** *eskapatzen zen, baratzeko pikuaren puntaren puntara hupatzeko.* Itxaro Borda

*Dantza eta kantu, artzain xakur lehiaketa, xardina jate, ahantzi gabe behi lasterrak, karriketan ala toki* ***zerratu*** *batean.* Herria

*Hemendik gutxira sortuko da iganderoko jendetza, denda* ***zerratuen*** *eta ate itxien artean.* Monika Etxebarria

*Bere frantses* ***zerratuarekin*** *eta soinean dauzkan arropa koloretsuekin irudi dik puta bat...* Itxaro Borda

*Une hartan laino* ***zerratu*** *bat zabaldu zen gudu-lautadan, eta laino hari esker iritsi omen ziren aita eta soldadua Orainvilleko posizioraino.* Anjel Lertxundi

*Isatsa otsoena baino trinkoagoa omen du, ile* ***zerratuagokoa*** *eta bizkar gainean burutik isatsera aldenik alde doakion marra beltza.* J.M. Olaizola "Txiliku"

*Lainoa hain* ***zerratua*** *izango zen, ezen tarantasak ezin izango zuen aurrera segi.* Karlos Zabala

> ***hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)***
>
> ***alde bat zerratu*** *(7);* ***arrunt zerratu*** *(3);* ***ateak zerratu*** *(5)*
>
> ***arrunt zerratua*** *(4);* ***urte huntan zerratua*** *(3);* ***zerratua atxiki*** *(8);* ***zerratua atxiki dute*** *(5);* ***zerratua da*** *(5);* ***zerratua egonen*** *(3);* ***zerratua egonik*** *(3);* ***zerratua izaiten*** *(3);* ***zerratua izan*** *(3)*
>
> ***bulegoak zerratuak*** *(3);* ***ondartzak zerratuak*** *(3);* ***zerratuak ziren*** *(3)*
>
> ***alde bat zerratuko*** *(5);* ***zerratuko da*** *(3);* ***zerratuko zela*** *(3)*
>
> ***alde bat zerratzen*** *(3);* ***zerratzen ari*** *(3);* ***zerratzen da*** *(3)*

---

## zerratu[2], zerra(tu), zerratzen (orobat **serratu** g.er.) **1** du ad zerraz ebaki.

*Zerratxoarekin metal-zatitxo bat ebaki nuen (zailtasunik gabe* ***zerratzen*** *zen) eta Bunsen erregailuaren garrera ezarri nuen.* Juan Garzia

*Has gaitezen haritzak* ***zerratzen*** *.* Anjel Lertxundi

*Gizonezkoek lanean erabiltzen zituzten kanta haietako bat dela; taldekoa alegia, meatzariek harria pikatzerakoan, edo basamutilek enbor bat* ***zerratzean*** *, edo marinelek aingura altxatzerakoan, oihu batean kantatzen zutena.* Bernardo Atxaga

*Beheragoko partea ere, moztu eta luzetara laurdenetan* ***zerratu*** *ondoren, [...].* Santiago Iruretagoiena

*Haizeak harrapatu baino lehen hedatu genituen bela guztiak; baina, aurreneko erasoaldian, han joan ziren* ***zerratu*** *balituzte bezala gure bi mastak itsasora.* Koro Navarro

*Eserlekuak* ***zerratu*** *, eta sutarako moduko puskak egin eta gero, bikarioari itzuli behar zioagu egurra.* Anjel Lertxundi

*Pazifikok ohol txiki bat zuen: eliza erdi-erori bateko aldare ondoan hazi zen intxaurrondoari* ***zerratutako*** *zatitxoa zen.* Askoren artean

*Goio ohol bat neurrian* ***zerratzen*** *ari zen tosta berria egiteko.* Joseba Sarrionandia

*Eraikuntza hauek guztiak, nola barnetik hala kanpotik, neurrira landu eta* ***zerraturiko*** *harri bikainez egin zituzten oinarrietatik habeetaraino.* Elizen arteko biblia

*Ogia* ***zerratu*** *du, xerra bana luzatuz.* Koldo Izagirre

*Kare-tontor handiek zein enbor* ***zerratu*** *gabeek eta ohol ondo pilatuek hiri-inguruko mehatze eta basoen aberastasunak iradokitzen zituzten.* Anjel Lertxundi

### **2** irud/hed

*Mundu honetako oinarriak* ***zerratzen*** *ari den zerra ikusezinaren kirrinka da.* Jon Alonso

---

## zerratura iz itxitura.

Barren-barrenean, Luziferren tokian, ate tolesgarrien tankerako **zerratura** gotor bat zegoen. Juan Garzia

Lokomotor txiki baina indartsu batek kokatzen zituen bagoiak banan-banan **zerraturaren** zuloaren azpian, kargatzeko, eta gero herrestan eramaten zituen ostera izarrak ikustera. Juan Garzia

---

**zerratxo** *iz zerra txikia.*

**Zerratxoarekin** metal-zatitxo bat ebaki nuen (zailtasunik gabe zerratzen zen) eta Bunsen erregailuaren garrera ezarri nuen. Juan Garzia

---

**zerratzaile** *izond zerraz ebakitzen duena.*

Segundo batean, ehunka maitagarri **zerratzaile** adarretatik sakabanatu ziren, arkitektoak Maimieren inguruan hasi ziren, neurriak hartzen. Julen Gabiria

---

**zerratze** *iz ixtea.*

**Zerratzeaz** mehatxatuak diren herrietako eskoletako arduradunek, estatuaren erabakiei kontra egiteko orduan, abertzaleen ekin moldeak baliatzen dituzte: okupazioak, manifestazioak, agiriak... Itxaro Borda

Batzuen gostuko haatik, holako **zerratzeak** sobera aise egiten, dira, irrisku handirik ez delarik ere batere. Herria

Zendako bulego **zerratze** horiek, ordenagailu eta beste muntadura asko sesiturik? Herria

Gobernuak ere erakutsi du bere larderia bide **zerratzerik** ez duela onartuko nun nahi eta nola nahika... Herria

---

**zerrauts** *iz zerratzean, zuretik ateratzen den hauts modukoa.*

Euria ari zuen egunetan lurra **zerrautsez** beteko zuen, bezeroek laban ez egiteko. Lander Garro

**Zerrautsaren** ordez ogirina bota lezakete hildako horrek utzi duen odol putzuan. Harkaitz Cano

Benito tabernariak bota ahala gorri bihurtzen zihoan **zerrautsa** zabaldu zuen palatxo baten laguntzaz. Joxemari Urteaga

Gizon apala zirudien eta eskuekin lan egiten zuen, **zerrautsa** ere bazuen bere oin-zolen pean itsatsita. Harkaitz Cano

Tabernan distira-emailearen eta **zerrauts** freskoaren usaina zegoen. Lopez de Arana

**Zerrauts** askatu berriaren usaina dago airean. Harkaitz Cano

Enbor txiki bat, argizari eta **zerrautsezkoa**, griselan erretzen ari zen. Koro Navarro

Harik eta gure artetik ahots ozen batek esan zion arte: -Buruan **zerrautsa** daukagulakoan, ala? Anjel Lertxundi

Teilatupeko zoruan zirrikitu bat estaltzen zuen **zerrauts** pilatxo bat aurkitu zuen. Josu Zabaleta

---

*zerrebete ik* ***zarrabete****.*

---

**zerrenda** **1** *iz zati luze eta meharra. ik* ***xerrenda; zirrinda****.*

Jantzi barrutik labana luze bat atera, **zerrenda** mehetan ebaki larrua, muturrez mutur lotu **zerrendak**, eta hesolaren oinari lotu zion egin berri zuen sokaren mutur bat. Jon Muñoz

**Zerrenda** hori zortzi hatz zabal zen, eta, hortaz, muselinazkoa izanik ere, tolestua edo luzetara bihurritua, banda sendo bat osatuko zuen. Koro Navarro

**2** *(izenondo eta izenlagunekin)*

Zementuaren pitzadurak **zerrenda** itsasgarri zabal eta sendo batez estali zituen. Juan Kruz Igerabide

**Zerrenda** bihurrikatu finetan barrena isuriz, zehatz idazteko behar zen likidoaz elikatzen zuen tintak lumaren muturra. Jon Muñoz

Urre koloreko **zerrenda** zurbil bat atzematen da ortzemuga hotz urdintzen hasian. Jose Morales

Handik ikusi zuen Ruche jaunak joniar itsasoaren **zerrenda** urdina. Jon Muñoz

Aurpegi gorria zuen, **zerrenda** arrosaz betea, haragi ustela bailitzan. Lopez de Arana

Gonaren **zerrenda** ilunek **zerrenda** argiak nabarmenduko zituzten. Irene Aldasoro

Aipatu hegazkinaren lurrun **zerrenda** luze hori. Pello Zabala

Bi **zerrenda** amaiezinetan banatua zirudien ibaiak, bata horia eta bestea marroia. Jon Muñoz

Oinak hutsik zituen, euskarri gisa larruzko hiru **zerrenda** txiki besterik ez zeuzkan sandaliak baitzituen jarriak. Jon Muñoz

Muselinazko **zerrenda** honen eta kordoiaren gainean, txano baten hariak zeuden erantsita. Koro Navarro

Goitik behera urre-harizko bi **zerrenda** zituen atorra veneziar batez zegoen estalia. Felipe Juaristi

Gangak adreiluzko **zerrenda** zuri eta gorriak zeuzkan. Karlos Zabala

Eutsi behar zion plastikozko **zerrenda** desitsatsirik, ihes egina zen liburutik fitxa. Jon Muñoz

Asfaltozko **zerrenda** bertan seko gelditzen da. Monika Etxebarria

**3** *(hitz elkartuetan bigarren osagai gisa)*

Bazkaldu bitartean, barre bihurriak eginez, komiki-**zerrenda** bat marraztu zuen. Xabier Olarra

Garraio-**zerrenda** batean kaxak josten ari litzatekeena bezala dihardu lanean azienda-hiltzen ari den pertsonak. Xabier Olarra

Kutxatik diapositiba-**zerrenda** bat atera eta leihoaren aurrean eduki zuen begiratu laster bat emateko. Oskar Arana

Jostun-**zerrenda** hartu, eta bezeroen sorbalden, mahuken, gerriaren luze-laburrak neurtzen zituen. Anjel Lertxundi

Paper **zerrendak** ziren, non, hizki lodiz eta ertainez, hitz luze-luzeak idazten baitzituen, lerro osoa betez. Karlos Zabala

Ohiko tekniken arazoak saihesteko, azal **zerrenda** lodi eta zabal bakarra erabili du Sakurai doktoreak. Berria - Gaiak

Trapu **zerrenda** luze bat uretan busti, eta hiru aldiz, harri baten gainean jo. Patziku Perurena

Barrura begiratzeko makurturik, oihal-**zerrendak** lurrean zeudela ikusi zuen, baina ez zen sartu. Elizen arteko biblia

Latorrizko txanpon **zerrenda** bat buruan diadema bezala jarrita zuen atso haietako baten aurrean. Harkaitz Cano

Solairua argizaria emanda zegoen, eta oihal **zerrenda** berdeak jarriak zituzten gainean, babesgarri. Karlos Zabala

Galtza bularrekodunak, lebita tabako-kolorea, Espainiako modura, farfaila **zerrenda** bat gorbata gisa. Josu Zabaleta

Beste aldean etxe soil batzuk ikus zitzaketen, eta harantzago ur-**zerrenda** bat, paumaren isatsaren antzean. Lopez de Arana

Baratzea lursail **zerrenda** luze bat zen, erdiko bide estuak bitan zatitzen zuena. Karlos Zabala

Gero, lur-**zerrenda** berde bat urrutitik begietsiz, kale-buru bat hartu eta parkera heldu zen. Lopez de Arana

Bi ur-eremuren artean estu-estu kokatuta dago hiria, itsasoaren eta Mariotis aintziraren artean, eta han hedatzen da, hondarra eta zingirak nahasian dauzkan lur **zerrenda** batean. Jon Muñoz

Faroaren argi **zerrenda** . Joseba Sarrionandia

Mangle **zerrenda** luzea dugula istriborreko bandan, eta itsaso zabala ikusten dela ababorretik. Joseba Sarrionandia

Laino **zerrenda** bat baizik ez zuan geratzen bere begien barren-barrenean. Josu Zabaleta

Siberiar tundraren hegoaldeko zerrendatik arabiar basamortu eta Birmaniako junglako ipar-**zerrendetaraino** . Iñaki Mendiguren

**4** bata bestearen ondoren kokaturiko gauzakiez, eskuarki bata bestearen azpian ezarririko izenez, osatutako multzoa.

Pariseko albaiteroen **zerrenda** zekarren kartel baten aurrean gelditu zen Max. Jon Muñoz

Hogei lagunek osatzen dute **zerrenda** . Berria - Euskal Herria

Pierre Fermaten ondoren, Euler zen Grosrouvreren **zerrendako** hurrengo izena. Jon Muñoz

**Zerrendako** bigarrena Josu Ortuondo izanen da, jadanik euro-deputatu den jeltzale ezagutua. Herria

François Bayrouren **zerrenda** (UDF) Xavier Darcosenari (UMP) nagusitzen bazaio, bien artean osatuko duten **zerrenda** Bayrouk zuzenduko du. Berria - Euskal Herria

Xiiten **zerrenda** beste taldeetako buruekin negoziatzen hasi da. Berria - Harian

Han ere muntatu da "Herritarren **Zerrenda"** , larunbat aratsaldean agertu dutena Donostian, Marije Fullaondo zerrendaburu. Herria

Bertze **zerrendetan** , bederatzik 10 boz baino gutiago eta hamabik boz bihirik ez. Herria

1936ko Obabako fusilatuen **zerrenda** . Iban Zaldua

Daviden laguntzaileen **zerrenda** .

**Zerrenda** horietan, orotara 6.400 hautagai inguru ageri dira. Berria - Mundua

Nazionalisten **zerrendan** aurkezten da. Irene Aldasoro

Herriko bozetan ezker pluraleko **zerrendan** parte hartzen dutenak. Herria

Susmagarrien **zerrendan** haren izena ikusi nuelarik barre algara bat egin nuen. Joxean Agirre

Huramek tenplurako eginiko lanen **zerrenda** . Elizen arteko biblia

Zientzia matematiko berri hori sortzen lagundu zutenen **zerrenda** XVII. mendeko matematikarien Who's who zen. Jon Muñoz

Landutako matematika-adar guztien **zerrenda** osatu gero: azpisailak, alegia. Jon Muñoz

Poltsikotik koadernotxoa ateraz, **zerrenda** osatzen hasi zen: matrikula, azukre-potoa, ehizarako jantziak, frantziar sukaldaritzari buruzko liburua. Joxemari Urteaga

**Zerrenda** egiten hasi naiz: pertsona esateko, kristau; baimena aipatzeko, bulda; entsalada maneatzeko, bedeinkatu; [.....]. Iñigo Aranbarri

Luzea zen neure gurarien **zerrenda** . Xabier Montoia

Buruan errepasatu nituen egun hartaraino iraun zuten hogeita bost edo hogeita hamar lankideen **zerrenda** . Juan Garzia

Zazpi libururen **zerrenda** bat dator bertan. Anjel Lertxundi

XVI eta XVII. mendeetako ikasgaien **zerrenda** ixteko, beste hauxe ere nahi nuke gogora ekarri. Koldo Zuazo

Alderdiek **zerrendak** mantentzen badituzte, lehenengo aldiz, emakume gehiago egongo dira Legebiltzarreko eserlekuetan, gizonak baino. Berria - Harian

Goiko **zerrendako** hitzek oso muga zehatza dute: [...]. Koldo Zuazo

**Zerrendako** unibertsitate gehienak pribatuak dira. Juan Ignacio Pérez / Pello Salaburu

Hurrenkera gramatikalak eta ez-gramatikalak aurkituko ditugu **zerrendan** tartekaturik. Itziar Laka

Liburu underground salduenen **zerrendan** . Iban Zaldua

**Zerrendetan** izen deigarri bat ageri da: Richard Wagner. Edorta Jimenez

**5** (izenondo eta izenlagunekin)

Melodyren **zerrenda** beltzean zegoen Ross. Koro Navarro

Espezieen galera azkartzen ari da, eta 16.000 daude **zerrenda** gorrian. Berria - Gaiak

Salduenen **zerrenda** ez-ofiziala. **Zerrenda** luzea egin genezake aldi berean euskal hitzak eta erdal hitzak direnekin. Berria - Kultura

**Zerrenda** luzea zuen eskura: Lüküzeko jauna, Mithiri-ekoa, Armendaritzekoa... Aingeru Epaltza

Ez dago hemen adibideen **zerrenda** luze bat egin beharrik. Iñaki Mendiguren

**Zerrenda** abertzale bat dagoenean, Frantziako Berdeekin aurkeztea ez ote da hautu zaila? Berria - Euskal Herria

Al Sistani aiatolaren **zerrenda** xiita nagusitu da bozetan. Berria - Harian

**Zerrenda** itxiak, mugatuak egingo ditugu. Edorta Agirre

Ezkerreko **zerrendak** bildurik bozen % 55 ezbaian, eskuinekoak % 33, eskuinburukoak % 12 ez arras. Herria

Azkeneko **zerrendak** alfabetikoki sailkatzen dira. Juan Ignacio Pérez / Pello Salaburu

Hurrengo **zerrenda** sentimentala osatu nuenean, 1964an, hamabost urterekin jada, aurreneko tokietan jarraitu zuten Lubisek, Pantxok eta Ubanbek. Bernardo Atxaga

Prebentzio legea hausteagatik zigortuak izan diren enpresen **zerrenda** publikoa osatzeko, eta enpresa horiei kontratu publikorik ez emateko. Berria - Ekonomia

**6** (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

Eta poltsikoan sartu dut Morse alfabetoaren **zerrenda** -kartoitxoa. Txillardegi

Cristina andreak kinkearen argia bizitu eta hamarren aurpegiak errepasatu zituen: hitzik gabeko **zerrenda** -irakurketa. Koldo Biguri

Ez zitzaidan askorik kostatu **Zerrenda** Bulegoa aurkitzea. Iban Zaldua

**7** (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa)

Begirada bat nahikoa zuen zenbaki-**zerrenda** luzeak gogoratzeko. Xabier Olarra

Max hitz-**zerrenda** bat irakurtzen hasi zen, Sirakusakoaren zertxobait desberdina. Jon Muñoz

Izen **zerrenda** bat zeukan orrialdea seinalatu zidan Teresak: "Begiratu hau ere". Bernardo Atxaga

Picassoren musa **zerrenda** etorri zitzaidan gogora. Joxean Agirre

Hurbildu eta postre-**zerrenda** irakurri die kamareroak. Joxerra Garzia

-Hautagai-**zerrenda** erreformistan aurkeztuko nauk. Lopez de Arana

Argitu ezin dudan gorabehera bat da zergatik ez dagoen nire arrastorik museoko bideo ezkutuetan edo hoteleko bezero-**zerrendan** . Anjel Lertxundi

Gai bati buruzko liburu **zerrenda** bat lortu nahi baduzu. Askoren artean

Haien ondoan, nire ustezko bezeroen helbide **zerrenda** bat, faktura eta agiri pilatxo bat eta denden eskakizunak idazteko kaiera batzuk. Alberto Ladron Arana

Beste jatorri-**zerrenda** bat. Elizen arteko biblia

Argiztatze-desberdintasunak: fenomeno-**zerrenda** luzea sartzen da atal honetan. Josu Zabaleta

Beste modu batean esanda, kasu **zerrenda** bat egingo dut. Bernardo Atxaga

Irratiz eman ez daitezkeen oin-**zerrenda** edo eskemak, irudika daitezke egunkari orrietan. Andoni Egaña

Ikaragarria zen Fermaten zenbakiei buruzko emaitza-**zerrenda** . Jon Muñoz

Kare hautsez osatutako errektangelu baten erdian, saihets-hezur **zerrenda** bat azaltzen zen. Bernardo Atxaga

Gogoan al dun Andromedatik irtendakoan egin genuen asmo-**zerrenda** ? Patxi Iturritegi

Antzeko baieztapen **zerrenda** luze baten ondoren, ea ba al nekien non zegoen galdetu zidan, eta nik, noski, ezetz. Ramon Saizarbitoria

Lotsagarria da, maitemintzen naizenean nire kasua top **zerrendetako** kanta guztietan azaltzen da. Bernardo Atxaga

**8 gai zerrenda**sup_1 (orobat **gaizerrenda** g.er.)

XX. mendeko Zientziaren Filosofiarako bigarren **gai** -zerrenda dei dezakeguna. Askoren artean

Basileari buruzko erreportajeen **gai-zerrenda** osoa Lur Entziklopediako Ay-Byron tomotik hartua zuela konturatu nintzen. Anjel Lertxundi

Gerta daiteke prezioen gorakada benetan handia izatea, edo, agintarien **gai-zerrendan** edo programan inflazioaren kontrako politikak lehentasuna izatea. Iñaki Heras

## 9 gai zerrendasup_2 (bileretan)

Erkidegoetako presidenteek atzo 11:00etarako konferentziako **gai zerrenda** ez zutela jaso. Berria - Euskal Herria

Mozioa batzarraren **gai zerrendan** zegoen arren, bozketa egin eta bertan behera geratu zen. Berria - Euskal Herria

Azkenean, bozketa eguneko **gai zerrendatik** kentzea erabaki zuen. Berria - Euskal Herria

Atzoko bilerak **gai zerrenda** zehaztu besterik ez zuela egin behar. Berria - Euskal Herria

**Gai zerrendako** puntuen inguruan izandako eztabaida. Berria - Euskal Herria

## 10 itxaron-zerrenda

Izan ere, **itxaron-zerrendetan** neur daiteke osasun sistema baten eraginkortasuna. Berria - Euskal Herria

Kirurgiako **itxaron-zerrendak**. Berria - Euskal Herria

Donostiako Ospitalean, adibidez, 58 pertsona daude **itxaron-zerrendan** gaur egun. Berria - Euskal Herria

Lagundutako ernalketarako teknikak soilik Barakaldoko (Bizkaia) Gurutzetako Ospitalean egin daitezke eta, gainera, **itxaron zerrenda** luzeak daude. Berria - Harian

Lau hilabeteko **itxaron zerrenda** dago hodietako kirurgiarako. Berria - Euskal Herria

**hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 5 aldiz agertzen direnak)**

**argi zerrenda** (9); **behin betiko zerrenda** (7); **berdeen zerrenda** (5); **bere garaipen zerrenda** (10); **bere zerrenda** (17); **beren zerrenda** (5); **beste zerrenda bat** (12); **betiko zerrenda** (8)

**enpresen zerrenda** (7); **ere zerrenda** (8); **eskubideen zerrenda** (5); **eta garaipen zerrenda** (6); **eta zerrenda** (48); **eta zerrenda bat** (5); **eta zerrenda luze** (5)

**faboritoen zerrenda** (7)

**gai zerrenda** (31); **gaien zerrenda** (9); **galdera zerrenda** (5); **garaipen zerrenda** (59); **garaipen zerrenda estreinatu** (5); **garaipen zerrenda ikusgarria** (6); **garaipenen zerrenda** (15); **gauzen zerrenda** (7); **gazako zerrenda** (6); **gazteen zerrenda** (6); **gure zerrenda** (6)

**hautagai zerrenda** (23); **hautagaien zerrenda** (20); **hauteskunde zerrenda** (8); **hauteskundeetako zerrenda** (5); **hauteskundeetarako zerrenda** (7); **herri zerrenda** (6); **herritarren zerrenda** (110); **herritarren zerrenda hautagaitza** (5); **herritarren zerrenda legez** (11); **herritarren zerrenda luzea** (5); **hilen zerrenda** (5); **hirugarren zerrenda** (5); **hitz zerrenda** (11); **hitzen zerrenda** (8); **honako zerrenda** (5); **hzren zerrenda** (11)

**ikasleen zerrenda** (5); **irabazdunen zerrenda** (6); **itxaron zerrenda** (12); **izen zerrenda** (17); **izeneko zerrenda** (10)

**jokalarien zerrenda** (13)

**kantuen zerrenda** (6)

**lanen zerrenda** (11); **lehen gai zerrenda** (5); **lehen zerrenda** (5); **liburu zerrenda** (5); **liburuen zerrenda** (11); **lorpen zerrenda** (10); **lur zerrenda** (14)

**onenen zerrenda** (6); **osatutako zerrenda** (7); **osatzen dute zerrenda** (5)

**pertsonen zerrenda** (8); **produktuen zerrenda** (5)

**taldeen zerrenda** (7); **terroristen zerrenda** (7); **txirrindularien zerrenda** (7)

**zerrenda abertzale** (7); **zerrenda agertzen** (5); **zerrenda amaigabea** (9); **zerrenda amaigabea da** (6); **zerrenda amaitu** (5); **zerrenda atera** (7); **zerrenda aurkeztu** (23); **zerrenda aurkeztu zuen** (5); **zerrenda aurkeztuko** (7)

**zerrenda bakar** (7); **zerrenda bakarra** (20); **zerrenda baliogabetu** (5); **zerrenda bat egin** (11); **zerrenda bat osatuz** (5); **zerrenda bat osatzen** (5); **zerrenda bateratua** (41); **zerrenda bateratua osatzeko** (8); **zerrenda bateratuak** (11); **zerrenda bateratuaren** (6); **zerrenda beltza** (13); **zerrenda beltzean** (13); **zerrenda bera** (5); **zerrenda berean** (9); **zerrenda berria** (6)

**zerrenda ederra** (8); **zerrenda egin** (26); **zerrenda egin du** (7); **zerrenda egitea** (8); **zerrenda egiteko** (5); **zerrenda egiten** (9); **zerrenda eman** (19); **zerrenda eskatu** (7); **zerrenda estreinatu** (5)

**zerrenda gehiago** (5); **zerrenda gorri** (5); **zerrenda gorria** (6); **zerrenda gorrian** (5); **zerrenda guztietan** (5)

**zerrenda handia** (5); **zerrenda hartan** (9)

**zerrenda ikusgarria** (8); **zerrenda ikusi** (5); **zerrenda irakurri** (5); **zerrenda irakurtzen** (9); **zerrenda izan** (6)

**zerrenda labur** (5); **zerrenda legez** (21); **zerrenda legez kanpo** (12); **zerrenda luzatzen ari** (5); **zerrenda luze** (45); **zerrenda luze bat** (15); **zerrenda luzea** (104); **zerrenda luzea da** (24); **zerrenda luzea egin** (9); **zerrenda luzeagoa** (7); **zerrenda luzeagoa da** (5); **zerrenda luzeak** (14); **zerrenda luzean** (6); **zerrenda luzearen** (6)

**zerrenda ona** (5); **zerrenda osatu** (29); **zerrenda osatu zuen** (5); **zerrenda osatzea** (9); **zerrenda osatzeko** (12); **zerrenda osatzen** (19); **zerrenda osatzen duten** (7); **zerrenda oso** (5); **zerrenda osoa** (35)

**zerrenda txiki** (5)

**zerrenda zehatza** (6); **zerrenda zuri** (5)

**aurkeztutako zerrendak** (5); **donostia herritarren zerrendak** (5); **hautagai zerrendak** (5); **hautagaien zerrendak** (6); **hauteskundeetarako zerrendak** (7); **herritarren zerrendak** (64); **hitz zerrendak** (6); **itxaron zerrendak** (11)

**zerrendak aurkezteko** (5); **zerrendak aurkeztu** (11); **zerrendak egiteko** (5); **zerrendak osatu** (6); **zerrendak osatzeko** (7)

**bere zerrendako** (6); **egibarren zerrendako** (7); **galdera zerrendako** (12); **galdera zerrendako azkenari** (8); **herritarren zerrendako** (12); **hiru galdera zerrendako** (12); **zerrendako azken** (8); **zerrendako azkenari** (8); **zerrendako bigarren** (9); **zerrendako bigarrena** (12); **zerrendako burua** (6); **zerrendako hirugarren** (6); **zerrendako kide** (8); **zerrendako kideak** (6); **zerrendako lehen** (16)

**berdeen zerrendan** (5); **bere zerrendan** (10); **bilatuenen zerrendan** (5); **borotraren zerrendan** (5); **erakunde terroristen zerrendan** (7); **faboritoen zerrendan** (7); **gai zerrendan** (16); **gazako zerrendan** (8); **hautagaien zerrendan** (7); **herrialdeen zerrendan** (5); **koalizioaren zerrendan** (6); **lur zerrendan** (5); **onenen zerrendan** (12); **talde terroristen zerrendan** (5); **terroristen zerrendan** (19); **terroristen zerrendan sartu** (6)

**zerrendan ageri** (11); **zerrendan agertu** (6); **zerrendan agertzen** (14); **zerrendan aurkeztu** (5); **zerrendan bigarren** (5); **zerrendan dago** (14); **zerrendan egongo** (5); **zerrendan hirugarren** (8); **zerrendan lehen** (5); **zerrendan lehena** (5); **zerrendan sartu** (49); **zerrendan sartu dute** (6); **zerrendan sartzeko** (18); **zerrendan sartzen** (6); **zerrendan zegoen** (8)

**gai zerrendaren** (9); **herritarren zerrendaren** (54); **herritarren zerrendaren alde** (5); **herritarren zerrendaren aldeko** (8); **zerrendaren alde** (12); **zerrendaren aldeko** (10); **zerrendaren arabera** (9); **zerrendaren buruan** (5); **zerrendaren lehen** (5)

**herritarren zerrendari** (23); **zerrendari begiratu** (6); **zerrendari buruz** (6)

**hautagai zerrendarik** (5)

**zerrendatik at** (9); **zerrendatik kanpo** (16); **zerrendatik kanpo geratu** (5)

**zerrenden artean** (11); **zerrenden bidez** (5)

**itxaron zerrendetan** (5); **zerrendetan ageri** (6)

---

# zerrendaburu (orobat **zerrenda buru** g.er.) 1 iz zerrenda batean lehen lerroan dagoena.

Fitxako **zerrendaburuan** dagoen Dicionário de narratologia hori eskatu zuen. Anjel Lertxundi

## 2 kirol lehiaketetako sailkapenetan, sail bateko burua.

Bi finalerdietan bi **zerrendaburuak** nagusi. Berria - Kirola

Retegitar gazteak **zerrendaburu** bezala ekin zion txapelketari, eta Andoni Eguskizari irabazi zion final-laurdenetan (22-8). Berria - Kirola

Martin Alustiza **zerrendaburuak** Karmelo Ariznabarretaren kontra jokatu beharko du Amarika utzi zuen kanpora azken horrek (22-17), Carlos Armendariz **zerrendaburua** Altunaren kontra ariko da Barberitoren kontra irabazi zuen azken horrek (15-22), Inaxio Errandonea beste **zerrendaburuak** Xabier Larraiari egin beharko dio aurre Elola hartu zuen horrek mendean (6-22), eta Fernando Arretxe azken **zerrendaburua** Andoni Badiolaren kontra ariko da Errandonea II.a utzi zuen horrek kanpora (22-5). Berria - Kirola

Safinek ezustekoa eman zuen eta Andy Roddick estatubatuarra kanporatu zuen, torneoko eta ATPko lehen **zerrendaburua**, oso lehia parekatuan. Berria - Kirola

Australiako Irekiko bi **zerrendaburu** lehiaketatik kanpora gelditu dira azken jardunaldian: Lleyton Hewitt da bat (hirugarren **zerrendaburua**) eta Mari Pierce da bestea (bosgarren **zerrendaburua**). Berria - Kirola

Atzo jokatu zuten beste **zerrendaburuak** laugarren kanporaketa jokatzeko sailkatu ziren, eta ez zuten izerdi gehiegi bota kontrarioak garaitzeko. Berria - Kirola

Gaur eguerdian egingo dute UEFAko zozketa, **zerrendaburuetan** Athletic dela. Berria - Kirola

Itzulerako partida San Mamesen jokatuko dute Athletic **zerrendaburua** zelako, eta horrek abantaila emango dio, nahiz eta ziurtasunik ematen ez duen. Berria - Kirola

## 3 hauteskunde zerrenda batean, lehen lerroan dagoena.

Bi lixtek **zerrendaburu** bera, Georges Labazee deputatu ohia. Herria

Araban Ramon Jauregi PSE-EEko **zerrendaburuak** soilik errepikatzen du Kongresurako lehen postuan. Berria - Euskal Herria

Pedro Mari Azpiazu aurkeztuko da haren ordez EAJtik Kongresurako **zerrendaburu**. Berria - Euskal Herria

Bertan izan zen Maria San Gil, EAEko PPko Gipuzkoako **zerrendaburua** eta lehendakarigaia. Berria - Harian

Berlusconi bere alderdiaren **zerrendaburua** da bozetan. Berria - Mundua

Javier Rojok eta Ramon Jauregik prentsaurrekoa eskaini zuten atzo komunikabideen aurrean, Espainiako Senaturako eta Kongresurako **zerrendaburu** gisa aurkeztu dituzten hautagaitzak ofizialki aurkezteko. Berria - Euskal Herria

**Zerrendaburua**, Marcel Mirande biarnesa, bigarren Jean-Pierre Goity, Izpurakoa. Herria

**Zerrendaburuak**: Albert Péryezkerraldean, Guy Poulou eskuinaldean, eta Ramuntxo Mintegui abertzaleentzat. Herria

Europako hauteskundeetarako Berdeen **zerrendaburu** zen Pinto garai hartan. Edurne Elizondo

NY estatuko senaturako **zerrendaburu** hautatu zuten errepublikarrek. Harkaitz Cano

Irtenbidea **zerrendaburu** independente bat jartzea da? Berria - Euskal Herria

**hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**

arabako ppko zerrendaburu (3); arabako zerrendaburu (4); aralarreko zerrendaburu (3); bizkaiko zerrendaburu (5); da zerrendaburu (5); dira zerrendaburu (3); du zerrendaburu (3)

espainiako kongresurako zerrendaburu (4); gipuzkoako zerrendaburu (9); hamaseko zerrendaburu (5); hauteskundeetarako zerrendaburu (3); hzko zerrendaburu (7)

koalizioko zerrendaburu (3); kongresurako gipuzkoako zerrendaburu (3); kongresurako zerrendaburu (16); kopan zerrendaburu (3)

ppko zerrendaburu (5); psnko zerrendaburu (4); senaturako zerrendaburu (5)

zerrendaburu bakarra (3); zerrendaburu bezala (3); zerrendaburu gisa (5); zerrendaburu ismail haniak (6); zerrendaburu izan (11); zerrendaburu izanen (7); zerrendaburu izanen da (3); zerrendaburu izango (11); zerrendaburu izango da (6); zerrendaburu izatea (7); zerrendaburu izateko (6); zerrendaburu jaime mayor (4); zerrendaburu marije fullaondok (6); zerrendaburu nagusiek (3); zerrendaburu patxi zabaletak (6); zerrendaburu uxue barkos (3); zuen zerrendaburu (3); zuten zerrendaburu (3)

arabako zerrendaburua (6); bigarren zerrendaburua (4); bizkaiko zerrendaburua (6); bosgarren zerrendaburua (4); da zerrendaburua (6); gipuzkoako zerrendaburua (8); izango da zerrendaburua (4); kongresurako zerrendaburua (18); laugarren zerrendaburua (4); lehen zerrendaburua (11); munduko lehen zerrendaburua (4)

zerrendaburua da (9); zerrendaburua izan (5); zerrendaburua izan zen (3); zerrendaburua izango (6); zerrendaburua izatea (3); zerrendaburua zen (4)

arabako zerrendaburuak (5); aralarreko zerrendaburuak (8); aurkezturiko zerrendaburuak (3); beste zerrendaburuak (6); bigarren zerrendaburuak (5); bizkaiko zerrendaburuak (9); borrell psoeko zerrendaburuak (3)

eako zerrendaburuak (3); europako hauteskundeetarako zerrendaburuak (3); euskal herriko zerrendaburuak (3); fullaondo hzko zerrendaburuak (5); gipuzkoako zerrendaburuak (16); hauteskundeetarako zerrendaburuak (3); herriko zerrendaburuak (3); hzko zerrendaburuak (10)

irekiko lehen zerrendaburuak (3); koalizioko zerrendaburuak (4); kongresurako gipuzkoako zerrendaburuak (5); kongresurako zerrendaburuak (14); legebiltzarrerako aralarreko zerrendaburuak (3); lehen zerrendaburuak (10)

ppko zerrendaburuak (9); ppren zerrendaburuak (3); psoeko zerrendaburuak (4); senaturako zerrendaburuak (8)

zerrendaburuak adierazi (3); zerrendaburuak esan (4)

ppko zerrendaburuaren (3); zerrendaburuaren esanetan (4); zerrendaburuaren hitzetan (3); zerrendaburuaren kontra (4)

zerrendaburuekin batera (3)

errendaburuen artean (8)

---

## **zerrendadun** izond zerrenda edo zerrendak dituena.

Gondoleroak hagitz hankabiko alaia zirudien; atorra **zerrendaduna** eta txano xingoladuna zeramatzan, eta belarri bat falta zuen. Jon Alonso

Pireoko kaian irudikatu zuen galtza zahar urdin batzuk eta kamiseta **zerrendaduna** jantzita arrain kaxak deskargatzen. Joxemari Iturralde

---

## **zerrendagai** izond zerrenda baterako gai dena.

Arestiko hitz guztiak dira **zerrendagai**: ikasi berri ditugun euskara batukoak, ahaztuxeak daudenak, euskalki desberdinetako hitzik ezagunenak, albo-erderatatik hartu eta geurekotu ditugunak... Andoni Egaña

Adierazpenok Gasteizen egin zituen PPko buruak, EAEko PPren Senaturako eta Kongresurako **zerrendagaien** aurkezpen ekitaldian. Berria - Euskal Herria

---

## **zerrendagile** iz zerrendak egiten dituena.

Gauzei berei buruz baino, **zerrendagileari** buruz argiago mintzo dira, ordea, gisa horretako zerrendak. Joxerra Garzia

Ideologia lehorrekoa adierazten du hor **zerrendagileak**, ondo lehorrekoa eta ondo lehorra. Joxerra Garzia

---

## **zerrendaka** adlag zerrendetan.

Begi bistakoa da Kontseilu Nagusirako hautagaiak, Eskualde Kontseilurako bezala, **zerrendaka** aurkezten balira eta aulkiak boz kopuruen arabera proportzionalki banatzen, eskuinaz aparteko bertze alderdiek ere ordezkaritza bat lortuko luketela. Berria - Euskal Herria

Hemendik goiti, alkiak partikatuko dira boz-arauka, hautagaiak **zerrendaka** agertuz, alki bezenbat hautagai zerrenda bakoitxean. Herria

Kontseilukoak **zerrendaka** behar balire kanbiatu eman dezagun, hiri eta hirixka batzuen pisua ez litakea aise joan azkarki emendatuz, baserriarena aldiz araberan ttipituz? Herria

---

## **zerrendakide** iz zerrenda bateko kidea.

Behin betiko datuak jakin ostean, alderdiko **zerrendakideak** agertokira igo ziren txalo artean, eta Nekane Erauskin legebiltzarkide berriak hitz egin zuen. Berria - Harian

Ali al Sistani buruzagi erlijiosoak sustatutako hauteskunde zerrendari «zerrenda irandar» deitu eta batez ere Hussein al Shahrastani **zerrendakidearentzat** hitz zorrotzak izan zituen. Berria - Mundua

Elorrioko PSE-EEko hirugarren **zerrendakideak**, Jagoba Alvarezek, hartutako bidea txalotu zuen Urkaregik. Berria - Euskal Herria

**Zerrendakide** berriak: Marrazo zuria eta Napoleon arraina CITESen babes zerrendan sartu dituzte. Berria - Gaiak

---

## **zerrendaratu**, zerrendara(tu), zerrendaratzen du ad zerrendan sartu.

Harrigarriena da **zerrendaratzen** dugun parte-hartzaile hauek guztiak lanean bakarka ari direla konturatzen garela. Berria - Kultura

---

## **zerrendategi** iz zerrenda.

Ar Coz familia han aterbetzen zen, zazpi semeetarik lauren izenak Eussako elizako Mort Pour La Patrie marmolezko **zerrendategi** hormatuan etzanak ziren nahas-mahas, bata Ameriketara joan zen, bestea Maiek huts uste zuen etxe ondoaren zaintzen egon. Itxaro Borda

## **zerrendatu**, *zerrenda(tu), zerrendatzen* **1** *du ad zerrenda batean ezarri edo sartu.*

*Agiri horretan Akordio Soziopolitikoan zehazten diren puntuak betetzeko egin behar diren urratsak* ***zerrendatu*** *dituzte, zehazki, 110 urrats.* Berria - Harian

*Horixe egin dute zientzialari askok luzaroan, eta irakaskuntzan oraindik ere gehiegi egiten da:* ***zerrendatu***, *sailkatu. Ezerez hitzaren sinonimoak* ***zerrendatu*** *ditu.* Lourdes Oñederra

*Jateko dituen guztiak* ***zerrendatzen*** *ditu (maite ditu zerrendak), badaezpada ere.* Berria - Kultura

*Kalteak* ***zerrendatu*** *eta beste hamabost egun baino lehen berriro hitz egingo du baserritarrarekin, «hartu beharreko neurriak hartzeko, bai kalte gehiago saihesteko, bai kalteen ondorioak zuzentzeko edo ordaintzeko».* Berria - Euskal Herria

*Abiatu aurretik sotoetan sartu zizkiguten gaiak* ***zerrendatu*** *behar zirela azaldu zidan.* Edorta Jimenez

*Akusatuak ihes egin duenean, haren ondasunak* ***zerrendatzen*** *eta eskuratzen hasten zarete.* Juan Martin Elexpuru

*Milaka liburu idatzi dira bere obra interpretatzeko, bere estiloa disekzionatzeko, bere ideologia aztertzeko, bere gaiak* ***zerrendatzeko***, *bere kezkak ikertzeko.* Jon Alonso

*Orain, gobernuarentzat ari omen zen lanean, bezero ohiei bahitu ontasunen* ***zerrendatzen*** *ari zen.* Elena Touyarou

*Hemen helburua ez da ahalik eta hitz gehien* ***zerrendatzea***, *urratsez urratseko progresio bat agerian uztea baizik.* Iñaki Arranz

*Bibliografian, euskal fonetika-fonologiei buruzko lehen ikastaroetan gutxieneko liratekeenak* ***zerrendatu*** *dira.* Lourdes Oñederra

*Edertasunaren kasuan, plazera sortzen duten objektuen kualitate batzuk* ***zerrendatzen*** *ditu Humek, guztira hogeiren bat.* Askoren artean

*Marilynen azken arrats apaleko gertakariak, kronologikoki eta mentalki* ***zerrendatzen*** *nituen.* Itxaro Borda

*Analista horrek maratz-maratz* ***zerrendatu*** *zituen emaitza hain nabarmenkiro susmagarri baina formalki aitzakiagabe haiek.* Juan Garzia

*Bertan zeuden 22 lanak* ***zerrendatuta***, *tituluaz eta argazki banaz lagunduta.* Javi Cillero

*Arrakastatsu eta ezagunenen aukera murritza hurrenkera kronologiko zabar xamarrean* ***zerrendatuta***, *honako hau litzateke: Fonologia Lexikoa, Autosegmentala, Government Phonology, Optimality Theory (OT).* Lourdes Oñederra

*Borroka mota horrek Euskal Herriari, eta batez ere Iparraldeari ekarriko lizkiokeen abantailak oro* ***zerrendatu*** *zizkidan behin: eztandaz inarrosi kontzientziaren iratzartzea, elkartasunaren kontzeptuaren bermatzea, politika mailako oharketa lasterra, ekintza eremuen finkatze praktikoa, [...].* Itxaro Borda

*Zerrendetako horiek denak bilatu, tentuz ukitu eta kausaren aldekoen artean nor* ***zerrendatu*** *eta nor ez* ***zerrendatu*** *erabaki ahal izateko.* Edorta Jimenez

*Xavier Peñalverrek 1982an egin zuen Euskal Herriko menhirren katalogoan,* ***zerrendatuta*** *dago.* Berria - Kultura

*Juanden aste undarrean ginuen auto lehiaketa. 60 bat beribil* ***zerrendatuak*** *ziren zoingehiagoka hortan parte hartzeko.* Herria

*Bi selekzioetako hutsak* ***zerrendatuz*** *gero, lerroak faltako genituzke.* Berria - Kirola

**2** *(era burutua izenondo edo izen gisa)*

*Adieraz dezadan bada, gehiegizko sinpletasunean erortzeko arriskuaren jakinaren gainean,* ***zerrendatuen*** *artean bat bereizi behar dela, KIPARSKY-ren Fonologia Lexikoa.* Lourdes Oñederra

> ***hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)***
> ***zerrendatzeko aukera*** *(5)*

---

## **zerrendatxo** **1** *iz zerrenda txikia.*

*Markoa kaobazkoa zen, brontzezko* ***zerrendatxo*** *meheak zituen apaingarri, eta biribilkitxoak kantoietan, haiek ere brontzezkoak.* Jose Morales

*Geure etxeetan egungo egunean botikontzi bat izaten da: alkohola, aspirinak, zauri-estaltzeko* ***zerrendatxoak***... *aurki zenitzake barruan.* Gotzon Garate

**2** *zerrenda laburra.*

*Logikari, zentzun onari eta gizalegeari egiten dizkiogun amarruen, martingalen, tranpen* ***zerrendatxoa***. Joxerra Garzia

*Garitako soldaduak nire izen-abizenak erkatu zituen, aldean zuen* ***zerrendatxoko*** *izenekin.* Anjel Lertxundi

---

## **zerrendatze** *iz zerrenda batean antolatzea; bata bestaren azpian ezartzea.*

*Zergatik* ***zerrendatze*** *hau eta ez beste bat?* Xabier Arregi

***Zerrendatze*** *horrek bere baitan bildu behar ditu, besteak beste: frankismo garaiko basakeria, euskararen debekua eta diskriminazioa orduan eta orain, eskubide zibil eta politikoen ilegalizazioa, [...].* Berria - Euskal Herria

*Gainera, goiko* ***zerrendatzea*** *ez da nahikoa bigarren arrazoi bategatik.* Xabier Arregi

*Gertakarien* ***zerrendatze*** *soila egitea.* Fernando Rey

*-Edo... Irene? -jarraitu zuen Alexek, bere* ***zerrendatze*** *partikularrean-.* Fernando Morillo

*Gerora jabetu nintzen, oso gerora,* ***zerrendatze***-*mota honen balio egiazkoaz.* Andoni Egaña

---

## **zerrendaxka** *iz zerrendatxoa.*

*Ez da posible denak biltzea, baina, torizu* ***zerrendaxka*** *hau: hasi elur-hautsetik, elurxe, elurxehe, elur pikor eta pikorta, eta segi, elurxintxar, elurgillo, elurpirrin, elurtxingo, elur-txipitx, [...].* Pello Zabala

---

## **zerrepel** *adlag epel. ik* ***zerbel***.

*A Graciosa goxotegia, zuzentzailea orain sartzen ari den tokia, ez zegoen hemen orain gauden mila ehun eta berrogeita zazpigarren urtean, hain zuzen, ekaineko zeruaren azpian, bikain eta* ***zerrepel***, *itsasoaren aldetik, barraren ahotik datorren haize leuna freskoa den arren.* Jon Alonso

---

## **zerrepeldu**, *zerrepel(du), zerrepeltzen da/du ad moxkortu, txolindu.*

*Eta, xanpainaz* ***zerrepeltzen*** *hasiak, nik uste, topa egin dugu, geure besoak harrigarriro kiribilduz.* Txillardegi

---

## **zerri**[1] **1** *iz txerria. ik* ***txerri; xerri***.

*Toledoko kale batean erregeordearen hankapean sartu eta hura aztoratu zuten* ***zerri*** *gaizto batzuk agindupean atxilotu, auzipetu eta zigortu egin zituzten.* Xabier Olarra

*Hamabi ardi, zortzi* ***zerri*** *eta bi idi hil zituen Altzinook haientzat.* Juan Kruz Igerabide

*Ez naiz oroitzen non, baina berak zehaztu ohi zuen lekuren batean,* ***zerri*** *bat lapurtu omen zuten gerran.* Ramon Saizarbitoria

*Etxean* ***zerria*** *hiltzen zuten.* Eneko Bidegain

*Gurina saldu nahi nuke,* ***zerriak*** *hazi, negurako egurra pilatu gure etxearen teilatupean...* Anjel Lertxundi

***Zerriak*** *zaintzeko lanbide malapartatuan ere aritu izan zen inoiz eta jornalari ere bai tarteka.* Jon Maia

*Soineko gorri eder batez jantzitako* ***zerri*** *bat ikusi uste izan nuen hasieran,* ***zerri*** *emea nolabait, ahardia nahiago baduzue.* Joxan Elosegi

***Zerri*** *aketzak kanpoan egoten ziren, eta askoz ere gutxiago ziren, ezkongaiek asko eraman baitzituzten beren oturuntzetarako.* Juan Kruz Igerabide

*Aro horixe baita udazkeneko ezkurretan gizendutako etxebereak,* ***zerriak*** *batik bat, etxeratu eta jakitako hiltzen eta atontzen direnekoa.* Patziku Perurena

***Zerri*** *haragi ketua, gure sabel hutsen gozagarri.* Aingeru Epaltza

*Lantegi hau* ***zerri*** *hazkuntzan eta zerrikiaren salmentan berezitua da.* Herria

## 2 *(izenondo gisa) zikina, lizuna.*

*"Metro* ***zerri*** *hau holaxe ezagutu dut azken hogeita hamar urte hauetan" madarikatu zuen Gregoryk.* Iñaki Zabaleta

*Luze gabe iraultza lehertuko zela, nagusi* ***zerri*** *guztiak hilko zituztela eta herria eta askatasuna nagusituko zirela.* Pello Lizarralde

*Buruan ukabilka eta bizkarrean aulki-joka ibili zaizkio, zelatari* ***zerri*** *batek kontatu dielako keinu egiten geniola elkarri.* Koldo Biguri

*Munduko lanik* ***zerrienetariko*** *bat duk, baina nire lana duk.* Aingeru Epaltza

*Eta apaizak gure bekatuez galdetzen zuenean, guk gure estilo gogokoenean egindako istorio bat sortzen genuen, alegia, estilo* ***zerrian*** *eta lizunean.* Pello Lizarralde

*-Ipuin* ***zerri*** *bat.* Xabier Mendiguren Elizegi

*-Aurreko faxista* ***zerri*** *horiek putasemeak izango dituk baina hi ere egoskorra haiz!* Jon Maia

*-Alu* ***zerria*** *! -oihukatzen nuen neure artean-.* Txillardegi

*-Espainolista* ***zerri*** *horiek!* Juan Kruz Igerabide

*-* ***Zerriak*** *, aleman hauek -egin nuen oihu.* Fernando Rey

## 3 *(irain hitz gisa) ik* ***txerri 5****.*

***-Zerria*** *! -esan zuen neskak.* Matías Múgica

*-Ez du ahalkerik,* ***zerri*** *horrek -kexu mintzatu zen Kattalin.* Eneko Bidegain

***Zerri*** *horri, ezta sosik ere!* Juan Kruz Igerabide

*Seguruenik* ***zerri*** *galanta dela morroia, eta ez duzu arrazoi faltarik.* Jon Arretxe

*-* ***Zerri*** *ederra, morroi hori.* Juan Kruz Igerabide

*Izan ere, morroia* ***zerri*** *samarra da, ezta?* Jon Arretxe

*Gure agintari guztiak* ***zerri*** *hutsak dira.* Pello Lizarralde

*Esan nahi ziguten* ***zerri*** *hutsak ginela gauza zikin horiek genituelako beti buruan.* Pello Lizarralde

*Holako* ***zerri*** *bat nolaz maitatu duen ezin ulertuz ari da.* Eneko Bidegain

***Zerri*** *zikina! -egin zion aurre amak, aterkia jasota.* Juan Kruz Igerabide

***Zerri*** *...,* ***zerri*** *zikin bat besterik ez zela, engainatu egin zuela, eta ez zuela merezi harengatik sufritzen ibiltzea.* Antton Olano

***Zerri*** *zikin halakoa!* Oskar Arana

*Haiendako alabaina* ***"zerri*** *higanotak" edo "deabru heretikoak" ginen gu.* Aingeru Epaltza

*Strogoffek, mugitu ezinik, aita iraintzen zuen: lehertuko ahal haiz,* ***zerri*** *halakoa.* Pello Lizarralde

*Separatista zikin* ***zerria*** *!* Rafa Egiguren

*Baina hura oldartu eta* ***zerri*** *alaena deitzen zidan.* Pello Lizarralde

## 4 urde zerri

*-Zerria,* ***urde zerria*** *! -Danik, biei begira, eskutik heltzen dio Joanari isilarazteko, baina Joana ez da isiltzen-.* Antton Olano

*'Kendu eskuok gainetik,* ***urde zerria*** *!* Juan Garzia

*Xingar kailu bat murtxatzen ari balitz bezala,* ***urde zerria*** *!* Piarres Aintziart

*-Herorrek esan duk, baina* ***urde zerri*** *horrentzat ez zegok gauza sakraturik! -oihukatu zuen.* Fernando Rey

*Ongi ohartu nintzen* ***urde zerri*** *hark baliatu egiten zituela zerbitzu haiek, eta min hartzen nuen elkarrekin igaro genuen aste bikaina gogora etortzen zitzaidanean.* Joxan Elosegi

## 5 zerri bazka (orobat **zerribazka** eta **zerripazka**)

*Halako batean Maryk alea eta* ***zerri bazka*** *saltzen zuen gizon bat ezagutu zuen eta, hisiz, harekin ezkondu zen.* Koro Navarro

***Zerribazka*** *egosia.* Patziku Perurena

*Hala balitz ere, ni baino dotoreago jantzitako filologoen esku uzten dut gaurko nere* ***zerripazka*** *.* Patziku Perurena

## 6 zerri eginda

***Zerri eginda*** *neukan autoak beste distira bat du orain.* Berria - Kirola

*Kantoietan garbiketa sakonagoa egin beharko lukete, batez ere asteburuetako parranden ostean,* ***zerri eginda*** *daudelako.* Berria - Euskal Herria

*Bizikleta hartu eta herrietan barrena ibiltzen zen eta bi edo hiru egun ematen zituen kanpoan, eta gero* ***zerri eginda*** *itzultzen zen eta zarpailduta eta kirastuta, eta inork ez zekien ez non ibili zen ez zer egin zuen.* Pello Lizarralde

*· Haurra* ***zerri egina*** *ibiltzea, zuri agertzeko gogoa piztu arte?* Aingeru Epaltza

## 7 zerri-zerri eginda

*Tira, kendu zapatak, ez dut moketa* ***zerri-zerri eginda*** *ikusi nahi.* Anjel Lertxundi

*Ene, bada!, lokatzez beterik dauzkazu bizkarra eta bi alboak, jauna;* ***zerri-zerri eginda*** *zaude.* Jose Morales

*Paulek oka egin, eta garajea* ***zerri-zerri eginda*** *utzi zuen.* Patxi Zubizarreta

> ***hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)***
>
> ***urde zerri*** *(3)*
>
> ***zerri alaena*** *(3);* ***zerri eginda*** *(6);* ***zerri galanta*** *(3);* ***zerri gantza*** *(3);* ***zerri gizenak*** *(4);* ***zerri halakoa*** *(3);* ***zerri halakoak*** *(3);* ***zerri hark*** *(4);* ***zerri hazkuntza*** *(4);* ***zerri hori*** *(8);* ***zerri horiek*** *(7);* ***zerri horien*** *(3);* ***zerri horrek*** *(6);* ***zerri horri*** *(4);* ***zerri hutsak*** *(5);* ***zerri hutsak dira*** *(3);* ***zerri zerri eginda*** *(3);* ***zerri zikin*** *(6);* ***zerri zikina*** *(5)*
>
> ***urde zerria*** *(3);* ***zerria halakoa*** *(3);* ***zerria hil*** *(5)*
>
> ***zerriak bezala*** *(4);* ***zerriak eta*** *(5);* ***zerriak ikustera*** *(3);* ***zerriak zaintzen*** *(3)*
>
> ***zerrien antzera*** *(4)*

---

# **zerri**[2] *iz ezpartzuzko oin tapiza.*

*Bere gelan* ***zerri*** *bat zabaltzen zuen lurrean, eta haren gainean etzaten zen, ilunpetan.* Josu Zabaleta

*Aulkiak urratuak zeuden eta zoruko* ***zerriaren*** *zuloetan hanka sartzen zen gainetik igarotzerakoan.* Josu Zabaleta

*Izeba ganbarara igotzen zen, eskuan kriseilu bat zuela, eta handik ateratzen zituen bionboa,* ***zerria*** *, eta halakoetan erabiltzen zen ontziteria.* Juan Kruz Igerabide

*Bainugelako* ***zerria*** *tolestu zuen eta buru azpian ipini zion.* Lopez de Arana

*Inondik ere abandonatuta zegoen inguruko etxe baten teilatu zapalean* ***zerri*** *-bilkariak, espartzuzko soka pilak, traste puskatuak ikusten ziren lurrean barreiatuta.* Josu Zabaleta

## [zerri[2]?]

*Kamainan aurkitu zuten, lasai* ***zerrian*** *zerraldo.* Koldo Izagirre

zerribazka ik **zerri[1] 5**.

---

**zerrikatu**, zerrika(tu), zerrikatzen **1** da/du ad adkor zikindu. ik **zerritu**.

Goiz hartan, gehienetan bezala, putzu eta lohiak baziren arroila hartan eta Joanes **zerrikatu** zen... pixka bat gehiago zikindu zen, hobeki erraiteko. Eneko Bidegain

**2** (era burutua izenondo gisa)

Jantzi urratuak, izerdituak, **zerrikatuak**, usainduak eta zorriz emokatuak behin betirako baztertu zituen eta, haiekin batean, sufrimenduaren sinbolo ziren jantziak. Eneko Bidegain

---

**zerrikeria** **1** iz pertsona zerriari dagokion egintza.

Apez, fraile, monje, erromes, eskale, bandolero eta beltzeria guzia, gogoak emanala **zerrikeria**, lapurreta, hilketa eta belzkeria egiten... Patziku Perurena

**Zerrikeria** galanta egin diotela, putakeria handia eta ongi antolatua, horixe besterik ez. Migel Angel Mintegi

Gainera, ez nion Kristinari **zerrikeriarik** egin nahi. Aingeru Epaltza

Koadro modernoak ere, gure aitarentzat, enaskeria eta **zerrikeria** ziren, ezin zituen jasan. Fernando Rey

Tongoa egiten zela, **zerrikeria** zela, batek bestea erosi egin zuela eta horrelakoak. Berria - Kirola

· Azken hamarkada honetan, frantses Estatu laikoa **zerrikerietan** ari izana zen, lege zenbaiten bidez nahiz eta Eliza ahuldu, bereziki haren ontasunak eskuratu, hark haur gazteen hezkuntzan zituen ahalak kendu. Michel Oronoz

**2** sexuarekin loturiko esate edo egitea.

Bere gorputza nirearekin igurtzen zuen, eta **zerrikeriak** esaten zizkidan. Berria - Euskal Herria

-Baina ez al dun entzun nolako **zerrikeriak** kantatzen dituen? Jon Maia

Egun batean aprendiz bat etorri zen dendara; ni baino handiagoa zen eta ordurako mutil gaztea, eta zekizkien **zerrikeria** guztiak erakutsi nahi zizkidan. Pello Lizarralde

Bakarrik nengoen etxean, eta **zerrikeriak** imajinatzeari ekin nion bero baino beroago. Karlos Zabala

Egitea dituzte beste motel horretan beren **zerrikeriak**. Koro Navarro

Bazen bat [...] sekulakoak esaten zituena taberna aurretik pasatzen ziren emakumeez, eta barrez lehertzen ginen haren **zerrikeriekin**. Pello Lizarralde

Ondoren zupaketak eta bariazio tipikoak, eta horiekin aspertutakoan hasten dira gauzak bihurritzen, animaliekin **zerrikeriak** egiten, edo snuff-movie zikin horietakoak egiten. Xabier Mendiguren Elizegi

Jainkoa aita ahalguztiduntzat dauka, eta Haren aginduz uko egin behar die lizunkeriazko **zerrikeriei**. Markos Zapiain

Maitasun-aitorpenik benazkoena **zerrikeria** higuingarriren baterako gonbita bihur dezake, esate baterako: [...]. Joxerra Garzia

Vogelek, heziketa sexualean aditua zen pedagogoak, sexuarekin zerikusia zuen guztia **"zerrikeria** nazkagarri" gisa aurkezten zuen. Juan Martin Elexpuru / Bego Montorio

**3** adkor txerrikeria; zikinkeria.

Indian zerriak kalean ere libre ibiltzen dira eta edozein **"zerrikeria"** jaten dute. Gotzon Garate

Ez dudala inongo asmorik **zerrikeriak** jaten hasteko. Jose Morales

Denetariko **zerrikeriak** botatzen zizkiok ardoari: sandaloa, artelazki errea. Jose Morales

-Niri ez zaidak gustatzen zauri mota hori -hartu du txanda Xauenek-, edozer **zerrikeria** sartzen ahal diate piluletan, ankaiak itsututa dauzkaanean. Koldo Izagirre

Klariona, igeltsua edo auskalo zer **zerrikeria** erantsi dioten. Aingeru Epaltza

Gorotz politiko bat, erresumaren **zerrikeria** guztien hondakin ustela. Karlos Zabala

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
> **hau zerrikeria** (4)

---

**zerriki** **1** iz txerrikia.

Esker gaiztokoa izan bada ere, menderen mendetako negute beltzetan, **zerrikiak** baino arima gehiago salbatu du azak gure herriskotan. Patziku Perurena

Kilo laurdena pasatxo zen, berrehun bat gramo txahalkia eta gainerakoa **zerrikia**. Jon Alonso

Bizitza osoan izan dudan beherakorik handiena Kalkutan izan nuen, **zerrikia** janda. Gotzon Garate

Ez dut inola ere **zerrikirik** jango. Xabier Olarra

Jakina da musulmanentzat **zerriki** guztiak arbuiagarri direla. Gotzon Garate

Hil-eta, **zerrikia** freskoan eta kontserbutan saltzen dute. Herria

Sei etxaldek euskal **zerrikia** ekoizten dute. Berria - Ekonomia

**2** (hitz elkartuetan)

John Camden Hotten argitaratzailea, txeke bat eman zidana, **zerriki**-pastela janda hil zen, ni dirurik gabe uzteagatik. Xabier Olarra

Chile soberaz maneiaturiko **zerriki** puska. Aingeru Epaltza

Zaretara bat barazki, odolki zenbait eta gazitegiko **zerriki** puska bat. Elena Touyarou

Sei etxaldek euskal **zerrikia** ekoizten dute. Berria - Ekonomia

---

**zerrikume** iz txerrikumea.

Zerritegira sartu zen zerrizaina, **zerrikumeak** zeuzkan lekura. Juan Kruz Igerabide

Zerrama, bestaldera jiratuz, makilari hurbildu zitzaion, eta titietatik zintzilik zeuzkan **zerrikumeak**, bat-bateko ilunpe hartan galduta eta kurrinkaz, borrokan hasi ziren amaren toles eta poltsen azpian. Koro Navarro

Sukaldea hornitzen ere ez zuen xuhur jokatu nahi izan; aratxeak, **zerrikumeak**, bildotsak, oilaskoak, izokinak, barazkiak, arnoa... denek zeharkatu zuten gazteluko atea, etortzekoen sabelak bete ahala bete beharrez. Aingeru Epaltza

**2** (irain hitza gisa)

Zerria galanta hi, **zerrikumea** galanta ez etortzeagatik! Jose Morales

**-Zerrikume** halakoa! -egin dizu orro inspektoreordeak. Rafa Egiguren

Falangista **zerrikume** haren eskutitzak zioena gogoratzen nengoelarik Portuan yatch dotore horietako bat ikusi nuen sartzen. Edorta Jimenez

Monokuloaz ibiltzen diren **zerrikumeak** izango dira, baina larrua arriskatu behar denean, arriskatzen dute. Koldo Biguri

---

zerripazka ik **zerri**[1] *5.*

---

**zerripotro** izond/iz (irain hitza)

*-Ama putaren semea! Zertan habil* ***zerripotro*** *hori?* Patxi Iturritegi

---

**zerritegi** (orobat **zerritei** g.er.) **1** iz txerritegia.

*Leku babesean, zerrizainak berak eraikia zuen korta; hamabi* ***zerritegi*** *zeuden barruan, zerramak edukitzeko;* ***zerritegi*** *bakoitzean berrogeita hamar zerrama zeuzkan, denak ume eginda.* Juan Kruz Igerabide

*Zerriek, adibidez, zerriak izango dira baina, gogoko dute* ***zerritegi*** *garbia.* Gotzon Garate

*Gau batean, azkenik, Arvilleko gazteluko* ***zerritegian*** *sartu zen, eta bi kumerik ederrenak jan.* Josu Zabaleta

*Norabide guztietan hasi ziren zerriak lasterka,* ***zerritegiko*** *lau hormen artean.* Joxan Elosegi

*Guarda nazionalak sekulan sartzera menturatzen ez ziren portu ondoko* ***zerritegi*** *ustel hura jende gomendagaitzen ohizko biltegia zen.* Elena Touyarou

*Komunak eta dutxak* ***zerritegi*** *bat ziruditela.* Jon Maia

***Zerritegi*** *batean ez zen hainbertze zikinkeria izanen!* Aingeru Epaltza

**2** (hitz elkartuetan)

*Felitx Etxebertz, Lekorneko ingurumeneko axuanta, gain gainetik* ***zerritegi*** *handitze horren kontra agertu da herriko kontseilu bilkuran.* Herria

---

zerritei ik **zerritegi**.

---

**zerritoki** iz txerritegia.

***Zerritokia*** *patioaren beste aldean zegoen.* Koro Navarro

*Goiko geletatik haietan lotan zeudenen arnasa entzuten zen, eta* ***zerritokitik*** *, aldian behin, ametsetan zegoen zerri taldearen zurrunga.* Josu Zabaleta

---

**zerritu,** zerri(tu), zerritzen **1** da/du ad adkor zikindu. ik **zerrikatu**.

*Albertok edo eguna futbol zelaietan ematen zuen eta handik* ***zerritua*** *itzultzen zen eta, batzuetan, belaunak edo burua odoletan edo bendaturik.* Fernando Rey

*Arratsean karez eta igeltsoz* ***zerrituta*** *itzultzen nintzen, pailazoarena egiten denean baino zuriago.* Fernando Rey

**2** (era burutua izenondo gisa)

*-Adiadi aztertu zuen geltokiko buruaren lanjantziaren jaka, usokakaz betea, botoi bakarrari begira gelditu zen atseginez bezala, geltokiko buruaren inguruan ibili zen bueltanbueltan galtza* ***zerrituei*** *so.* Fernando Rey

*Ez nintzen berehalakoan igo, alajaina!, ergel koadrilla bat elkar-gainka zebilen autobus* ***zerritu*** *batera.* Xabier Olarra

---

**zerritxo** iz txerritxoa.

*Nire* ***zerritxoa*** *, jan egin duzu, jan egin duzu, zuk egindakotik gainera, atzoko hartatik.* Itziar Otegi

---

**zerrizain** **1** iz txerrizaina.

*Leku babesean,* ***zerrizainak*** *berak eraikia zuen korta; hamabi zerritegi zeuden barruan, zerramak edukitzeko; zerritegi bakoitzean berrogeita hamar zerrama zeuzkan, denak ume eginda.* Juan Kruz Igerabide

*Ulises Itakara itzultzen da, eta bere lurretako* ***zerrizainarekin*** *bizitzen jartzen da, eskale itxuran.* Juan Kruz Igerabide

*Tunika gerrikoz estutu eta zerritegira sartu zen* ***zerrizaina*** *, zerrikumeak zeuzkan lekura.* Juan Kruz Igerabide

*Charly egunkari bat irakurtzen baino zailagoa zen poesia liburu bat* ***zerrizain*** *baten eskuetan imajinatzea.* Aingeru Epaltza

*Egiptoarren artean zazpi kasta daude: apaizak, gerrariak, itzainak,* ***zerrizainak*** *, merkatariak, interpretariak, eta lemazainak.* Patziku Perurena

**2** (adizlagun gisa)

*Segoviatik legoa eta erdira zegoen herrixka batean jaio, umetan* ***zerrizain*** *ibili, eta, makina bat bizi-minduraren ondoren, garaiko anatomistarik entzutetsuena izatera heldu omen zen Velasco sendagile hura.* Anjel Lertxundi

**3** (izenondo gisa)

*Mutil-* ***koskor*** *zerrizainak, berriz, oihuka zihoazen herrira itzulian, zerri garbitu berriak aurretik zituztela.* Anjel Lertxundi

---

**zerro** iz

***Zerroak*** *, pagoak edo lizarrak ez dute luzaro iraungo.* Santiago Iruretagoiena

*Gogoan zituen 1882ko apirilaren 30eko egunsentiko laino australen formak, eta oroimenean pareka zitzakeen behin bakarrik ikusia zuen liburu baten larruzko azaleko* ***zerroekin*** *eta El Quebracho-ko ekintzaren bezperan Río Negro ibaian arraun batek altxatu zuen aparraren lerroekin.* Juan Garzia

*Ikusi nuen mahats-mordorik, elurrik, tabakorik, metal-* ***zerrorik*** *, ur-lurrunik.* Juan Garzia

---

**zerrote** iz eskutoki bakarreko zerra xafla-zabala

*Lorenzok* ***zerrote*** *bat atera du.* Pablo Sastre

***Zerrote*** *zahar batek oholik zabalena ebakiko lukeen gisan.* Patziku Perurena

---

**zertamen** iz lehiaketa, sarriketa.

*Artzapezpikuak bere poesi* ***zertamen*** *haiek organizatu zituen denboran.* Joan Mari Irigoien

---

## **zertan** *iz lurraldea, lehorra.*

*Egia erran, Dorre bezalako pilotu eta kartografoendako* ***zertanaren*** *aldea zatekeen hau.* Aurelia Arkotxa

*Porturik gabeko* ***zertana****, ximiniarik gabeko etxea bezala dela.* Aurelia Arkotxa

*Eta beti jendeak eta lurraldeak eta uharteak atxeman litzakeela gure* ***zertanetan*** *bezala.* Aurelia Arkotxa

*Diotsut gizon hori erraturik ibili zela leihorrez eta itsasoz eta itzulika ibiliz, bere* ***zertanera*** *zela ohartu gabe bihurtu eta aitzinago joan izan balitz bere herrikoak, ezagun, lagun eta adiskideak zituela kausituko.* Aurelia Arkotxa

---

## **zertandun** *izond funtsa duena.*

*Jakite* ***zertandunean*** *sar daitezke pentsatzen, igerian, babak egosten edo pianoa jotzen jakitea bezalakoak, eta beste mordo bat, baina ez mordo azkengabe bat, eta hargatik ez dago hemen askotasunik eta jakintsutasunik.* Iñaki Segurola

---

## **zertangabe** *izond funtsik gabea.*

*Jakinduria sublime* ***zertangabe*** *batez igurtzia dago.* Iñaki Segurola

*Horiek denak zuztar bateko jakiteak dira, jakite huts* ***zertangabeak****.* Iñaki Segurola

*S@reak jakite huts* ***zertangabea*** *ikaragarri erraztu du eta azkartu; bestea, benetako jakitea, ezin harrapa dezake inongo sarek.* Iñaki Segurola

---

## **zertarako** *iz helburua.*

*Hirugarrenik,* ***zertarakoak*** *zuritzen duelako nolakoa, nik esaten dudan bezala [...] halatan diot boterera iristeko ez dagoela bide txarrik.* Koldo Biguri

*Giza bizitzaren zergatia eta* ***zertarakoa*** *aztertzera irauli zuen bere ahalmen osoa.* Imanol Unzurrunzaga

*Bazuen hartxo horrek tasun harrigarri bat: 982 zelulaz osatua zen, eta zehazki finkaturik zegoen haietariko bakoitzaren* ***zertarakoa****.* Juan Garzia

*Nahiz eta mailegatzen diren baliabideen* ***zertarakoa*** *aurrez finkatua ez egon beti, dibisak zor izateak bere ekoizpen-egitura munduko merkatuko premietara egokitzera behartzen du herrialde mailegu-hartzailea.* Koro Navarro

*Galdera, berriz, gure bizitzaren* ***zertarakoa****, esangura, zer den benetan axola duena.* Xabier Mendiguren Elizegi

*Lanaren* ***zertarakoa*** *argi eta garbi ikusten baduzu, nahi duzun beste material bil dezakezu.* Askoren artean

*Ekintzen* ***"zertarakoa"*** *ezin da jokabide edo egoera neuronaletara murriztu, ezta saguen jokabidea aztertu nahi denean ere.* Askoren artean

*Ez direla bereizi behar legeak eta beren* ***zertarakoa****.* Iñaki Iñurrieta

---

## **zertarakodun** *izond helburua duena.*

*Badirudi, beraz, hiltzeak, inork inor hiltzeak, baduela gizagauzatasun bat, arautua, jakina, arrazoitua edo* ***zertarakoduna****, akabatzeak ez duena.* Iñaki Segurola

*Hiltzea, inork hil gabe hiltzea, ikusi dugu gure gauza dela, gizakiena, baina ez ginateke ausartuko esatera, nik uste, arautua, jakina, arrazoitua edo* ***zertarakoduna*** *denik; ala bai?* Iñaki Segurola

*Animaliari bizia kendu beharra dagoenean, gizakiak akabatu egiten du animalia hura, ez hil: gizagauza arrazoitua eta nahi dena izango da, baina ez* ***zertarakoduna****, animalia hura ez baita ezertarako.* Iñaki Segurola

---

## **zertaratu,** *zertara(tu), zertaratzen* **1** *da ad zer bilakatu.*

*Zer bilakatzen da bezeroak inguratzeko grazia galdu duen puta?; zertara etortzen da edo* ***zertaratzen****, haragi bizigarri eta dirugarria izandako hura?* Iñaki Segurola

*Horra* ***zertaratuak*** *ginen Eskualdunak Baionako apezpiku sartu nintzalarik, 1599ko azaroaren 12an.* Michel Oronoz

*Horra* ***zertaratu*** *den nire gaztetako Potzolo: polizia puta bat, Tomas, poliziaburu puta bat.* Aingeru Epaltza

*Hara* ***zertaratuak*** *garen gaur egun Frantzian.* Berria - Harian

*Bai, zinez izigarri da* ***zertaratuak*** *giren Euskal-Herrian.* Herria

***Zertaratuak*** *garen gure Frantzia trixtean!* Herria

*Ez dut oraindik aipatuko* ***zertaratu*** *ziren liburuok; nik, bidenabar esanda, ez dut deitoratzen haien paraderoa.* Juan Garzia

*Halako aldaketak, Geschwindek azpimarratzen zuenez, ezin ziren hartu besterik gabe onuragarri edo kaltegarritzat; pertsona baten bizitzan* ***zertaratzen*** *ziren, horrek zuen garrantzia.* Xabier Olarra

***Zertaratzen*** *ahal den jendea, salbaikeria hutsez hola jokatzeko, nehori deus makurrik egina etzuten jende gaixo batzu gisa hortan hil-araziz!* Herria

*Gauak, berriz, ohantzean itzulika higatzen zituen, bere lotsagabekeria goratik madarikatzen, edo aiene isilean, ordu beltza etortzean* ***zertaratuko*** *ziren bera, bere alaba eta bere alabaren seme sortu berria.* Aingeru Epaltza

*Ikus, bada, otoi,* ***zertaratuak*** *diren!* Piarres Xarriton

*Ikusiko azkenean* ***zertaratuko*** *diren...* Herria

**2** *(du aditz gisa)*

*Zenbaki horiek erakusten dute* ***zertaratu*** *gaituen, azken bi mendeetan, Frantziako estatu-nazioak Iparraldeko euskal herritar prestuak.* Piarres Xarriton

*Hilabete osoa erabakitzeko bere bizia* ***zertaratuko*** *duen: lanean hasi, berriz ikasteari lotu edo auskalo zer.* Aingeru Epaltza

*Badakigu guhauk* ***zertaratu*** *gintuen gu, Europa berriki, konstituzio baten amentsak.* Herria

> ***hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)***
> ***zertaratuak diren*** *(3);* ***zertaratuak giren*** *(5)*

---

## **zertasun** *iz esentzia. ik* ***zerizan.***

*Honetara, beraz, frogaturik dago hiru atributu mota horiek -hots,* ***zertasuna*** *edo* ***zertasun*** *baten atal bat edo* ***zertasunean*** *aurkitzen den edozein nolakotasun adierazten dutenak- ezin onar daitezkeela Jainkoari dagokionez.* Xabier Kintana

*Lehen partean "zer da gizakia" tratatzen da; baina gizakia zer den, ez da esentzia bat, baizik haren* ***zertasunaren*** *agerpena jardunean.* Askoren artean

*Ezin onartuzkoa da Harengan baiezko atributurik egotea, bere* ***zertasunetik*** *landa izatasunik ez duelako.* Xabier Kintana

*[Ousia] sekula ez da beste zerbaiten predikatu; beste gauza guztiak dira haren atributu; (ii) ousia* ***zertasuna*** *da (quidditate): izaki bakoitzaren quidditatea da berez dena.* Askoren artean

*Estatuen izenek [...] ez dute, bistan denez, intensiorik, ez diote ezer eta ez dute beren baitan funtsik, izaterik edo* ***zertasunik****; estensio, eremu edo hedadura huts dira, ez dute nondik-norainokotasuna beste tasunik.* Iñaki Segurola

*Jakin behar da bi gauza espezie berekoak daudenean, haien* ***zertasuna*** *ere bat dela, eta ez direla ezberdintzen handitasun edo txikitasunean besterik.* Xabier Kintana

Hori begien bistakoa da eta beharrezkoa existitzeko kausaren bat daukan gauza orotan, horren existentzia beraren **zertasunari** erantsiriko zerbait delako. Xabier Kintana

Euskal herri intensional edo semantikoak, bere **zertasunarekin** batean, bere pluraltasuna ere galdu du (euskal herrietan, etc.), oso bat baitira **zertasuna** eta pluraltasuna edo pluralean esan ahal izatea. Iñaki Segurola

Paperezko eite material soila duen gauza bat da liburua, lorontzi baten edo gelako pertsianaren pareko **zertasuna** duena. Anjel Lertxundi

---

**zertaznahi** adlag edozer gauzaz.

Berriki leitu diot "Juventud, Egolatría" liburua, justu nere oraingo urteak zituela 1917an idatzia, eta barra-barra botatzen ditu bere juzkuak **zertaznahi**. Patziku Perurena

---

**zerteza** iz ziurtasuna, segurtamena.

Deserrotzea eta, gainera, abiapuntura bueltatu nahi izanez gero ere, nora bueltatzerik ez dagoelako **zerteza** krudela. Berria - Kultura

---

**zertifikapen** iz zertifikatua, sinestamendua.

Hiru **zertifikapen** edo ziurtagiri eskuratuak ditu ADA altzairutegiak azken hilabete hautan. Herria

---

zertifikata ik **zertifikatu**[1].

---

**zertifikatu**[1], zertifika, zertifikatzen **1** du ad egiaztatu.

Fonseca eta Lima jaunak lekuko zirela, notarioak **zertifikatu** zuen gutunazal hura hamar urte lehenago (1974ko azaroaren 30ean) Napumocenok utzi ziona bera zela. Pablo Sastre

**2** (era burutua izenondo gisa)

Manyari deitzen nion posta bulegotik, eta jasoak nituen telegramak eta gutun **zertifikatuak** herri ahaztu hartan. Koro Navarro

Atzo, ohar bat nuen postontzian: posta-bulegora joan behar nuen gutun **zertifikatu** baten bila. Eskarne Mujika

---

**zertifikatu**[2] (orobat **zertifikata**) **1** iz sinestamendua, ziurtagiria.

Elizaritx kapitainarengana joan, ezkondu egin behar zuela eta, bertan bere **zertifikatua** emateko eskatu zion. Pablo Sastre

Marketina ez al da ba izango, pertsuasioaren eta informazioaren distortsioaren bidez (labelak, **zertifikatuak**, cause marketing kanpainak, eta abarrek sorturikoak), kontsumitzaileari indarra kentzeko beste estrategia bat? Iñaki Heras

**Zertifikatu** bat dakart. Berria - Kultura

Preseski ni ere han nintuan holako eta holako urtean, eta han pasatu nian **Zertifikata**, hori baitzen jeneralean, orduan eskola uzten baitzen hamalau urtetan, ahal zuten guziek biltzen zuten diploma. Herria

**2** (hitz elkartuetan)

Itsasontzi horiek, Buenos Airesera Bilbon nahiz Bartzelonan abiatu aurretik amerikar kontsulatuari 'navicert' -nabigazio **zertifikatua** - delakoa eskatu behar diote, horretarako eskifaiaren errolda osoa aurkeztuz. Edorta Jimenez

---

**zertsalo** iz

Ganberaburua besaulki zabal batean eseririk zegoen idazmahaiaz bestaldean, bera bakarrik, eguzkia bailitzan, aurrean **zertsaloa** eta bi liburukote zeuzkala. Jose Morales

Sobakevitx haren aldamenean eseririk zegoen, **zertsaloaren** atzean zeharo ezkutaturik. Jose Morales

---

**zertsu** gald zer gutxi gorabehera?

Nork zekikeen guk baino hobeki, militarkeria arrotzen jopu bizi beharra **zertsu** den? Txillardegi

Igartzen diot, halare, J. M. Aranaldek **zertsu** esan nahi zuen. Patziku Perurena

Postura egingo nuke zakurrak **zertsu** ari nintzaion ulertu duela. Txillardegi

Huna **zertsu** dioten: [...]. Herria

---

**zertu**, zer(tu), zertzen **1** da/du ad mamitu, gauzatu.

Guretzat, ordea, garrantzi handikoa da Euskal Herrian **zertu** den pentsamendua liburuan azaltzea. Askoren artean

Ekonomi ezbehar horiek eragin etsigarria ari ziren **zertzen** klase ertainaren ethosean. Iñaki Mendiguren

Ez zuen halako konparaziorik inoiz **zertu**. Jon Muñoz

Ganivet-entzat arima espainola esentzialki **zertzen** duena da senekismoa [...] gehi kristautasunak izaera natural horri erantsi dion pietatea. Joxe Azurmendi

Ikasi egin behar dugu ahalmen horiek erabiltzen eta **zertzen**. Luis Elberdin

Beraz, perpausa unibertsala da; esaldiak, ordea, unibertsal hori **zertzen** duten banakoak edo aleak dira. Askoren artean

Gure desio sexuala benetan ezin dugulako **zertu**, dela adinagatik, dela lagun faltagatik. Luis Elberdin

Tratua **zertu** ondoren, Laukarizkoak erabakiaren berri eman dio Mariari. Martin Anso

Gutxieneko testuinguru komunik gabe ez litzateke komunikazioa **zertuko**. J. Garzia / A. Egaña / J. Sarasua

Errusiak huts egin zuen herri hauen gidaritza **zertzen** ildo panortodoxoan zein paneslaviarrean, nahiz eta orain errusiar erregimen pankomunista ezarri den horietako batzuen gainean. Iñaki Mendiguren

Egun hartan Erroman **zertutako** zeremoniak bazuen hala ere aurrekari bat Soissons-en K.o. 751n egindako zeremonia batean. Iñaki Mendiguren

Sorkuntza izenburuko eleberrian, Guztiahaldunak bere obra nola **zertu** zuen kontatzen du Dino Buzzatik. Juan Garzia

Ez diezaiegun lapurtu testuari eta irakurleari bien artean **zertzeko** dena. Juan Garzia

Irtenbideren baten bila saiatu zen, behin eta berriz, baina ez zen gauza izan hurrengo pausoa **zertzeko**. Migel Angel Mintegi

Ontziak egiten ikasi, dirubide apur bat **zertu**, eta Bostonera etorri zen. Juan Garzia

**2** zeratu.

*Zerako zera **zertzea** zenik ere bagenekiela jota -eta asko jotzea da hori-, gustura galdetuko genukeen zer ote zen hori, eta nola **zertzen** zen zerako zera.* Joxerra Garzia

*Handik gutxira hasten zen egiazko saltsa, zereko zera **zertzeko** ordua, badakizue zertaz ari naizen.* Xabier Mendiguren Elizegi

*Umea Maiatzaren Lehenean jaiotzea xede, zehatz-mehatz kalkulatu omen zuten noiz komeni zen zerako zera **zertzea**.* Joxerra Garzia

*Halako zera ezinzertua zen **zertzen** ninduena.* Patziku Perurena

*Haserre al zauzkat, Zu, zera **zertzeagatik**?* Mirentxu Larrañaga

*· Nik ez diat putetxe beharrik etxetik kanpo **zertzeko**.* Aingeru Epaltza

---

## **zertxo** *iz*

*Egiteetan (ur emanetan), egin beharretan geratzen dira askotan: agiriko giza ekintzetan, **zertxo** bat ahaztuz giza bihotz barruko ekintzak, maitagogoaren asmo hutsak, burutapenak.* Jenaro Garate

---

## **zertxobait** *(orobat **zertxubait** g.er.) izord adkor zerbait.*

*Ez, politikaz ere **zertxobait**, gauza handirik ez.* Lourdes Oñederra

***Zertxobait** txukundu eta jaitsi egin nintzen.* Josu Zabaleta

*Lasaitu genuen **zertxobait**.* Koldo Izagirre

***Zertxobait** esango dut eraikitzeko metodoei buruz.* Santiago Iruretagoiena

*Luisak, **zertxobait** sosegatu zenean, esan zidan aita Alzheimer gaixotasunak jota zegoela.* Josetxo Azkona

*Badut, ordea, **zertxobait** zure aurka: [...].* Elizen arteko biblia

*Habanako kaleetan nintzen oheratu aurretik **zertxobait** nekatzeko prest.* Jon Muñoz

*Anaia **zertxobait** asaldaturik gelditu zen baimena ukatu ziotelako.* Askoren artean

*Tartaglia **zertxobait** ulertzeko, atzera joan beharra zegoen.* Jon Muñoz

*Hasieran, saiatu zen **zertxobait** baratzean, uraza, porru eta zerba batzuk jarririk, baina laster aspertu zen.* Juan Kruz Igerabide

*Eguerdian, gela utzi baino **zertxobait** lehenago, Eugeniari deitu nion.* Ramon Saizarbitoria

*Idazleok ere, sintaxia eta hiztegia **zertxobait** menderatu orduko orriak eta orriak idazteari ekiten genion.* Pako Aristi

*Uriberen erasoaldiak gerrillarien eremua **zertxobait** murriztea lortu du azken urteotan.* Berria - Mundua

*Aita totelka hasi zen **zertxobait** protestatu nahiz.* Koldo Izagirre

*Haren edertasunak burua **zertxobait** nahasi zidan.* Jon Muñoz

*Eraikuntzako enpresaburuek, aldiz, konfiantza **zertxobait** handitu dela adierazi dute.* Berria - Ekonomia

*Gaixoalditik **zertxobait** susperturik, makila baten laguntzaz etxean batera eta bestera ibiltzen hasi zen.* Askoren artean

*Ez dit adiskidetzeko aukerarik eman, tamalez -esan zion ahapeka, **zertxobait** lasaiago-.* Migel Angel Mintegi

*Eszena beraren bi ikuspegi **zertxobait** aldenduak hartzen zituzten bi plaka atera zitezkeen.* Josu Zabaleta

*Hargin masoi batek egina zela irudia, arteaz **zertxobait** zekien batek -**zertxobait** esaterakoan zorrotz begiratu zion idazleari- aise antzematekoa zela kontua.* Anjel Lertxundi

*Haizeak **zertxobait** hotzera egin duela sentitzen dut.* Pako Aristi

***Zertxobait** berezia izan zen Nafarroa Behereko bilakaera.* Koldo Zuazo

*Hamarrak eta **zertxobait** zirela itzuli nintzen goiko apartamentura.* Oskar Arana

> ***hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)***
>
> ***aurretik zertxobait** (3); **baino zertxobait** (32); **baino zertxobait gehiago** (9); **baino zertxobait lehenago** (8); **batean zertxobait** (3); **burua zertxobait** (10); **emaitza zertxobait** (3); **gauzak zertxobait** (5); **oraindik zertxobait** (4)*
>
> ***zertxobait aldatu** (7); **zertxobait aldatzen** (3); **zertxobait aldendu** (4); **zertxobait aldendu zenean** (3); **zertxobait apaldu** (6); **zertxobait arindu** (5); **zertxobait aztoratuta** (3); **zertxobait baretu** (4); **zertxobait behera egin** (3); **zertxobait berotzen** (3); **zertxobait egin** (3); **zertxobait esateko** (3); **zertxobait gehiago** (34); **zertxobait gutxiago** (5); **zertxobait handiagoa** (4); **zertxobait hobeto** (3); **zertxobait jaitsi** (4); **zertxobait jan** (4); **zertxobait lasaiago** (4); **zertxobait lasaitu** (5); **zertxobait lasaitzen** (3); **zertxobait lehenago** (13); **zertxobait luzatu** (3); **zertxobait murriztu** (3); **zertxobait txukundu** (3); **zertxobait txukuntzen** (4)*

---

## zertxubait *ik* ***zertxobait**.*

---

## **zertzaile** *izond/iz zertzen duena.*

*Herri gogo edo izpirituaren **zertzaile** inportante bat arraza da.* Joxe Azurmendi

---

## **zertze** *iz mamitzea, gauzatzea.*

*Hala, errealistaren iritzian, adierazpen predikatibo horrek unibertsal bat adierazten du, hain zuzen ere, zakurtasuna **zertze** unibertsala.* Askoren artean

*Enuntziatua ezin da kontsideratu zenbait enuntziatu flotatzaileren metatze-emaitza edo **zertzea**.* Xabier Arregi

---

## **zertzelada** *(**172** agerraldi, **54** liburu eta **69** artikulutan) **1** iz egitate, gertaera edo egoera jakin batekin batera datorren gorabehera edo xehetasuna. ik **zirkunstantzia; nondik 18**.*

*Zenbait **zertzelada** haren alde gertatu ziren, baina zorte onezko izpi galdu horiek kontuan hartuta ere, haren sabotajearen ausardian eta eraginkortasunean bazen zerbait ia deabruzkoa.* Oskar Arana

*Juan Mateo Zabala, baina, ez zen "**zertzelada**" horietaz jabetu, eta hortik etorri ziren beraren aukera zentzugabeak.* Koldo Zuazo

*Santosek harrezkero krimenaren eguneko ibileren **zertzeladak** emanak zizkiela [...] eta datu haien benetakotasuna egiaztatzen ari zirela.* Josu Landa

*Bitarte horretan, aisialdiko erizainak gertatutakoaren **zertzeladak** eman dizkit ahopeka.* Anjel Lertxundi

*Planaren inguruko zenbait **zertzelada** igandean egin ziren publiko, Sunday's Washington Post argitalpenean.* Berria - Gaiak

*Nire herrian bizi izandako urteek eragin dioten egonezina esplikatu dit emakumeak bi **zertzeladetan**.* Anjel Lertxundi

*Bi **zertzeladak** eman zidaten korapiloaren askabide zuzena.* Juan Garzia

*Kontu honen **zertzeladak** jakiteko irrikaz jarri nauzue.* Migel Angel Mintegi

*Bi orrialdetan zehar emakumeek egun bizi duten errealitate «gordinaren» inguruko zenbait **zertzelada** bildu dituzte.* Berria - Euskal Herria

*Steer-en kronikak haurren, emakumeen eta zaharren ebakuazioez **zertzelada** ugari dakartza.* Jokin Urain

*Bukatu berri zenuten bilerako **zertzeladak** gogoan edo bidean hizpidea sortutako kontuak ahotan zenituztela.* Joxean Agirre

*Badakit dena ikusten dutela, hitz egiten ari dira eta aldi berean ez zaie inguruko* ***zertzeladarik*** *eskapatzen.* Mikel Hernandez Abaitua

*Hitz egokia aurkiturik, ez dio ezer gehiagorik erantsiko, ez du -esaterako- sudurrari edo ezpainei buruzko* ***zertzeladez*** *apainduko.* Jose Morales

*Nekiena ez nekizkien* ***zertzeladekin*** *apaindu, eta kontakizun sinesgarria osatu nuen.* Anjel Lertxundi

*Linternaren laguntzaz azaldu zizkion diafragmaren zabalerari eta esposizio denborari buruzko* ***zertzeladak*** *.* Josu Landa

*Bizitzako* ***zertzelada*** *batzuk eta utzitako obra apurraren erakusgarria.* Xabier Mendiguren Elizegi

*Ez omen zen izatez bere bizitzako* ***zertzeladak*** *kontatu zalea.* Joxean Agirre

*Jaurlaritzako eledunak lehendakariaren agerraldiaren* ***zertzelada*** *batzuk iragarri zituen atzo, gobernu bileraren osteko prentsaurrekoan.* Berria - Euskal Herria

*Ikusten zituen irudien* ***zertzeladak*** *jasotzen zituen, ondoren koadroak egiteko.* Berria - Kultura

**2** (izenondo eta izenlagunekin)

*Erabaki nagusi horiekin batera,* ***zertzelada*** *txiki ugari zegoen, eta horiek ere erabaki egin behar ziren.* Koldo Zuazo

***Zertzelada*** *txiki horiek gorabehera, ni zoriontsu izan nintzen berarekin bizi izan nituen hiru urte haietan.* Joxean Agirre

*Orain arte* ***zertzelada*** *handiak eman ditugu, baina hemendik aurrera* ***zertzelada*** *askoz ere zehatzagoak eman beharra daukagu arazoari ganorazko irtenbidea emango badiogu.* Berria - Euskal Herria

*Eman ditzagun* ***zertzelada*** *esanguratsu batzuk.* Askoren artean

*Garo-usaineko* ***zertzelada*** *bukolikoak nabarmentzen zitzaizkion aldian behin Euskal Herria ahotan hartzen zuenean.* Rafa Egiguren

*Antzinako frantziskotar iturriek egiazko bizi-printzak eskaintzen dizkigute, Frantziskoren giza nortasunaren* ***zertzelada*** *zehatzak.* Askoren artean

*Orri-sorta hura irakurririk, eta bertan ematen ziren xehetasunak,* ***zertzelada*** *itsusiak eta xehetasun hits batzuk ikastean, erraiek benetako mina ematen zidatela nabaritu nuen.* Txillardegi

*Oso* ***zertzelada*** *interesgarriak emanez.* Askoren artean

*Koadroek, batzuetan, zirriborroen antza dute, eta* ***zertzelada*** *azkarrekin margotu zituzten.* Berria - Kultura

**3** (hitz elkartuetan)

*Arkitekto ezagunen biografia* ***zertzelada*** *eta adierazpenen bidez, literaturaz duen ikuspegia azaldu zuen bere hitzaldian Unai Elorriagak.* Berria - Kultura

*Ziegen barneko harrabots itoek elkarren arteko lehia eta gatazka berezia sortzen zuten, eta hormen aurkako erasoetan biderkatzen ziren, isiltasun* ***zertzelada*** *guztiak zarataren marra lodietan ezkutatuz, bakardade zantzu guztiak deuseztatuz.* Lander Garro

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
> **inguruko zenbait zertzelada** (3); **zertzelada bat** (3); **zertzelada batzuk** (15); **zertzelada gutxi** (3); **zertzelada txiki** (3)
> **bizitzako zertzeladak** (4); **buruzko zertzeladak** (4); **lehen zertzeladak** (4); **zertzeladak eman** (4); **zertzeladak ematen** (3)

---

**zertzeladatu**, zertzelada(tu), zertzeladatzen du ad zertzeladak eman.

*Uste dut une eta gune egokia dela hauxe, 2006. urtean jasotako aipamen honek burutu duelako, hain justu ere, liburuki eta lantxo honek* ***zertzeladatu*** *nahi izan duen bidea.* Pello Zabala

---

**zertzelatu**, zertzela(tu), zertzelatzen du ad zertzeladak eman.

*Eskerrak galderak eta hitzak airean margotuta,* ***zertzelatuta*** *edo gorpuztuta ez diren gelditzen!* Pello Zabala

---

zertzu ik **zertzu**k.

---

**zertzuk** (orobat **zertzu** g. er.) izord pl zer. ik **nortzuk**.

*Jakin nahi al zenuke* ***zertzuk*** *diren zeruko esferak, zenbat eta nolakoak diren eta zer daukaten?* Xabier Kintana

*Eta* ***zertzuk*** *ziren, ene Jaungoiko, "hau eta hura" hitzek iradokitzen zizkidatenak!* Imanol Unzurrunzaga

*Errespetatu beharreko mugak zeintzuk eta* ***zertzuk*** *ziren?* Ana Urkiza

*Berdin zaio Ritari komunikabideetatik* ***zertzuk*** *kontatzen dizkioten.* Hasier Etxeberria

*Carlos Argentinok harritu itxurak egin zituen, argiaren antolaketaren ez dakit* ***zertzuk*** *bikaintasun zirela-eta.* Juan Garzia

*Entzun orain* ***zertzuek*** *mugitzen duten gogoa eta ikas hitz gutxitan gogora datorrena nondik heldu den.* Xabier Amuriza

---

**zeru** (orobat **zelu** g.er.) **1** iz geure buruen gainean ikusten dugun bitartea, ostertzak mugatzen duena, egunez urdin eta gauez beltz agertzen dena. ik **ortzi**.

***Zeru*** *, eguzki, ilargi eta izarrei galde eta: "Ez gara zu bila zabiltzan jainkoa!", erantzun zidaten.* Imanol Unzurrunzaga

*Mirets ezazu* ***zerua*** *, lurra eta itsasoa eta bertan dagoena.* Imanol Unzurrunzaga

*Itsats zakizkio halako Semearen Ama txit eztiari: izan ere,* ***zeru*** *eta ortziaren zabalak eduki ezin adinako Semea sortu baitzuen.* Askoren artean

*Jainkoak sabaiari* ***"zeru"*** *eman zion izen.* Elizen arteko biblia

*Bil bitez multzoan* ***zeru*** *azpiko urak eta ager bedi lehorra.* Elizen arteko biblia

***Zeru*** *eta ortziaren zabalak ezin zaitu eduki, eta nik eraiki dizudan tenplu honek eduki ote zaitzake, bada?* Elizen arteko biblia

*Maisuek diote* ***zeru*** *azpian sua dagoela, eta suak* ***zerua*** *bere zabalera osoan inguratzen duela, oso hurbiletik gainera.* Joan Mari Lekuona

*Ilargia ere ez dugu beti berdin ikusten* ***zeruan*** *.* Pello Salaburu

*Zirimiria ari zuen, gaua beltz zegoen, izar baten distira ere ez zen* ***zeruan*** *ageri.* Koro Navarro

*Txikitzen ikusi zuen itzala, eguzkia* ***zeruan*** *gora zihoan neurrian.* Jon Muñoz

***Zerua*** *aratz zegoen, urdin betean.* Patxi Zubizarreta

***Zerua*** *urdin zegoen, hodei bat bera ere gabe.* Josu Zabaleta

*Bezperan ez bezala,* ***zerua*** *oskarbi zegoen.* Juan Luis Zabala

***Zerua*** *itsas aldetik iluntzen hasia.* Janbattitt Dirassar

***Zeruan*** *lainoak zeuden, zuritasun erabat garbikoak eta oso trinkoak, eguzkia zapuzteko gauza zirenak.* Bernardo Atxaga

*Bazkalondoan* ***zerua*** *hodeitu egin zen.* Ander Irizar

***Zerua*** *estalia zegoen eta hotz egiten zuen.* Koro Navarro

***Zerua*** *trumoika ari da azkeneko hamar minutuetan, eta haizea gero eta bortitzagoa da.* Bernardo Atxaga

***Zeru*** *urdintzen hasiari argi urretsua zerion.* Anjel Lertxundi

*Sai batek* ***zerua*** *zeharkatzen zuen, geldo eta solemne.* Jon Alonso

Zozabarren saldoek plazako **zeru** hodeirik gabea edertzen dute beren akrobazia alaiekin, Messerschmitt hegazkinen gisara. Anjel Lertxundi
Bisutsa ari zuen; **zerua**, otso-ahoa balitz bezala, beltza eta itxia ageri zen. Felipe Juaristi
Ordurako **zerua** bonba-hegazkinen zurrumurru astunak harturik zegoen. Juan Garzia
Une horretantxe, su-ziri bat lehertu da **zeruan**. Anjel Lertxundi
Bisutsa ari zuen; **zerua**, otso-ahoa balitz bezala, beltza eta itxia ageri zen. Felipe Juaristi
Ikaratu zen lurra eta dardaratu, **zeruaren** oinarriak mugitu, Jainkoaren haserreak baitzituen astindu. Elizen arteko biblia
Eguzkizkoa, **zeruzkoa**, izotzezkoa eta suzkoa. Josu Zabaleta

## 2 (izenondo eta izenlagunekin)

Jainkoarenak dira **zeru** zabalak, lurra eta bertako guztia. Elizen arteko biblia
**Zeru** berria eta lur berria ikusi nituen, suntsituak baitziren lehenengo zerua eta lehenengo lurra, eta jadanik itsasorik ere ez zen. Elizen arteko biblia
Eguzkia **zeru** distiratsu, argi, garbi, orbangabean goratu zen. Fernando Rey
**Zeru** garbian elizen eta etxeen soslaiak marrazten ziren, Jenisei ibaitik gora altxatzen zen amildegiaren ertzean. Karlos Zabala
Txori batek **zeru** grisean marra bat egin zuen eta nik itsuki aireplano bat irudikatu nuen. Juan Garzia
Mitxoleta gorriak zelai berdean, eta **zerua** urdin, eta **zeru** urdinean hodei zuriak. Imanol Zurutuza
**Zeru** oskarbiaren urdina. Xabier Montoia
**Zeru** oskarbi eta urdina, presarik gabe aurrera egiten duten bi batel, margolaria dugu falta hemen naturaren kolore arin hauek erregistratzeko. Jon Alonso
Euriari eguzkia jarraitu zitzaion, eguzkiari **zeru** lainotsua, **zeru** lainotsuari berriro ere euria. Bernardo Atxaga
**Zeru** hodeitsua bere barrena husten hasi zen. Migel Angel Mintegi
Horrelako **zeru** ilunaren azpian, beharbada ez zen zuhurrena gau beltzean mendietan gora saiatzea. Karlos Zabala
Biek ere begiak zabal-zabalik zituzten, eta beraietan **zeru** izartsua islatzen zen. Iñaki Mendiguren
Kolpetik bezala, **zeru** izarratua utzi zuen, airea garden garbitu berritan. Pello Zabala
Ea ni laino artean edo ilunpean ote nagoen, **zeru** narea ikusteko aukerarik gabe, edota mendi gailurrean gertatzen den bezala, ortziaren eta behe lainoen artean zintzilik. Imanol Unzurrunzaga
Soilik **zeru** berunkara, grisa, artean eguzkiaren dirdaiak argitu gabea. Juan Garzia
**Zeru** berun-koloreak, kobrezko izpi batzuekin, mahasti hautsez estaliak argitzen zituen. Josu Zabaleta
Rambuteau kalearen amaieran, **zeru** esnetsua ubelez margotua ageri zen behealdean, eguzkiaren leinuru arrosen kariaz. Karlos Zabala
Kumulu batek elurrezko bere zuritasun sinesgaitza zabaldu zuen **zeru** arbeltsuan gaindi. Lopez de Arana
Bela zuriak **zeru** masusta-kolorearen kontra haizez puzturik. Anjel Lertxundi
Chatham Square-n, **zeru** more-gorri haren ñirñirra tren jasoaren bidearen burdinsaretik ageri zen. Lopez de Arana
Hona hemen, eguna, **zeru** gautarra urratzear. Mirentxu Larrañaga
Badia erraldoi horren erdian, urrezko **zeru** argitasunez betearen azpian, mendi ilun zorrotz bat zutik, hondar artean. Josu Zabaleta
Ordu arte **zeru** geldi-geldi bat bezain garbi zegoen ura, lausotu eta zikindu egin da brastakoan Arbelezko **zerua**, eraikin garaien artean itoa, berrogeita hamar zentaboko txanponak jaurtitzen ari zen espaloi gainera. Anjel Lertxundi
Zinkezko **zeruaren** argiak isla biziak erauzten zituen edontzitetatik, zilarrezko baxeratik, ostren maskorretatik eta begietatik. Lopez de Arana
Goian terraza dauka, izugarria: bizpahiru mahai otorduetarako, chinchorro ederra -hamaka-, bainera bat **zeru-librean**, komunak, parrilarentzat babesa... Pako Aristi

## 3 (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

Lurraren esferikotasuna eta **zeru**-esferaren mugimendu zirkularra. Xabier Kintana
Jantzi beltz luze bat soinean duela irudikatzen da, hamabi izarreko koroa loriatsu bat daramala buruan, oina **zeru**-bolaren gainean, mundu-bola jasoz eskuin eskuan. Juan Garzia
1930. urtean Pluton aurkitu zenez geroztik aurkitu den **zeru** gorputz handiena da. Berria - Gaiak
Itsas-lehorretan eta **zeru** gailurretan hamaika gauza dakusgu hamaika era eta norabidetan begi aurrean mugitzen. Xabier Amuriza
Beren berezko bizitegia mugagabeko **zeru**-barrutietan, itsas handietan edo baso zabal-ederretan izan arren. Gotzon Garate
Txakur beltz iletsu eta handi baten irudia, **zeru**-oihalean garbi nabarmentzen zena. Iñaki Mendiguren
Ilbeherako bakeak eta orekak **zeru** atariko sosegu bareenean mantsotzen, hustutzen eta flakiatzen nau. Pello Zabala
Haiekin itsas-lehorrak haz zitezen eta **zeru** eraikina zabal zedin eta sapai garaia lurretik urrun jaso eta airea altxa. Xabier Amuriza
Merkurio mezulariarenaren pareko jasa, **zeru**-hegiko mendi batean pausatua ageri. Juan Garzia
Gazte-gaztea zen, behin ere ikusi baino gazteagoa, haren ustez, eta goitik behera **zeru** koloreko janzkiak zituen soinean. Matías Mujika
ik beherago 24. Askoren artean

## 4 (hitz elkartuetan lehen osagai gisa, elkarketak izenondo balioa duela)

Etxe tarro beltzak, arbelez estaliak eta teilatu punttetan harri motz meheak xut xuta daudela, ezpata **zeru** zilatzaile batzuk bezala. Piarres Aintziart

## 5 (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa)

Ez jakin ordea, Jainkoaz ari ziren, edo jainko batez, edo zeruaz (ortziaz, ortzeaz), edo zeru-jainkoaz, edo jainko **zeruaz**. Iñaki Segurola

## 6 santuen, aingeruen eta Jainkoaren grazian hiltzen direnen egoitza. ik **paradisu**. ant **infernu**.

Tirandura arozko horrek herriaren geruza zabaletan larridura torturatzailea sortzen zuen azkenki (heriotza, judizioa, infernua, **zerua**) hurbilekoen zirrara mehatxuzkoaren azpian bizi izatean. Joan Mari Lekuona
"**Zeruan** dagoena", hau da, betikoa eta egonkorra, inolako aldaketa motarik ez duena, ez esentzia aldatzerik, ez eta bere esentziatik kanpoko egoerarekiko aldaketarik ere. Xabier Kintana
Haren aitak, **zeruan** bego, beti erraten zuen... Alberto Ladron Arana
Ez badugu uneoro egia esaten, **zeruan** ateak itxiko dizkiete gure arimei, eta infernuko sutara jaurtiko dituzte... Oskar Arana
Hila izango zen, **zeruan** egongo zen ordurako. Bernardo Atxaga
Egin bedi zure nahia, ez **zeruan** bakarrik... Anjel Lertxundi
Apez baten ama bat ez bada **zeruan** xuxen xuxena sartzen, nor sartuko da? Herria
Arima ez da ona, ez eta aingerua ere, ez eta **zerua** ere; Ongia da soilik ona. Imanol Unzurrunzaga
Jainko Ahaltsuak bedeinkatuko zaitu, **zeru** goreneko bedeinkapenez. Elizen arteko biblia
Ez zen inoiz paradisutik hurbilago egon rantxo honetan pasatako denboran baino, eta zenduari kosta egiten zitzaion **zeruan** hobeto egon zitekeenik pentsatzea. Berria - Kultura
Ez dakit sinestuna zaren, baina hala bazara, niri dagokit jakinaraztea [...] ez dagoela ez **zeru** eta ez infernurik, ez dela hemen bekatuekin zigorrik eta ongiarekin paradisurik trukatzen. Harkaitz Cano
Baina zer lortu dute euren fedearekin? **Zerua** irabaztea? Edo euren arimak araztea? Juan Garzia
Ze seme eskas da hori, **zerua** merezi ez eta infernua merezi duena. Harkaitz Cano
**Zerua** erruki dakiola! Xabier Olarra
Nire besoetan **zeruan** bezala egongo haiz, ikusiko duk. Migel Angel Mintegi

## 7 (izenondoekin)

Bidal ezazu zeure **zeru** santutik, igorri zeure tronu ospetsutik. Elizen arteko biblia

*Gora begiratu nuen [...] eta, buru-bihotzez ahalegindu nintzen sinesten Anna han goian zegoela, mugagabetasun luze-zabal hartan, non edo han, hantxe goian, igandeko erlijio-eskoletako **zeru** jainkotiar hartan, Big Joeren **zeru** zoriontsuan.* Mirentxu Larrañaga

**8** *(hitz elkartuetan)*

*__Zeru__ -lurrin halako bat zeriola egingo nuke.* Anjel Lertxundi

**9** *irud/hed*

*Peter **zeru** puska bat baita, izan ere.* Josu Zabaleta

*Eskerrak bai **zeruari** , egiten didan mesedeagatik.* Patxi Ezkiaga

*Baina **zeruak** , otoitzek eta Salamancako unibertsitateak ez diote, ordea, berak aurkitu nahi duen erantzunik ematen.* Anjel Lertxundi

*__Zeruari__ dei egiten nion Ixabel txikia erixko egon ez zedin edo harresiak zaintzera igor ez nintzaten.* Aingeru Epaltza

*-Ezin hilez bizitzera behartu gaitin **zeruak** !* Anjel Lertxundi

*Zeren batzuek infernua bizi behar izaiten baitute, bertzeek **zerua** goza dezaten.* Joan Mari Irigoien

*__Zeruan__ sentitu nintzen.* Aitor Arana

*__Zerua__ zabaldu zitzaidala uste izan nuen lehen unean.* Xabier Mendiguren Elizegi

*Lehengo **zerua** zulo, bide zabala amildegi.* Xabier Mendiguren Elizegi

*Bezperako infernuak, atzoko **zerua** ekarri zuen.* Berria - Ekonomia

*Nahiko **zeru** eta infernu dugu lurgain honetan...* Joseba Sarrionandia

*Armstrong garaitzeko aukera egia izan zitekeela sinetsi zuenean, **zerua** ukitzear zegoenean, agur!* Berria - Kirola

*- **Zerua** eskaintzen didazu, etxeko andere, eta eskertzen dizut, baina badakizu ezen, obligazinoak hertsatzen gaituenean, lurreko **zeru** guztiak bazterrerat utzi behar izaiten ditugula.* Joan Mari Irigoien

*Horixe esatera nindoakien, bi tirok **zerua** hustu zutenean.* Karlos Linazasoro

*__Zerua__ beti da oraina; lurra, aldiz, iraganaren zati bat besterik ez, mendeek, gurinezko azala bailuen, izur-ireki dutena.* Pako Aristi

*Malagarra da eta New Yorkera duela lau urte heldu zen, beste asko bezala lurra behean eta **zerua** goian.* Harkaitz Cano

*Goian **zerua** eta behean lurra.* Xabier Etxabe

*Orobat Migel, lurra eta **zerua** baizik ez zituela gelditu zen.* Aingeru Epaltza

*__Zeruak__ libra hazala zama horretatik!* Juan Garzia

**10** *pl*

*Kontu egin dezagun, bada, dena utzi dugunok, hain gauza gutxirengatik **zeruetako** erreinua gal ez dezagun.* Askoren artean

*Han goiko **zeruetan** libre eta betiko dagoen hiria (Gal. 4, 26) diot, guk amatzat duguna.* Imanol Unzurrunzaga

*Eztabaidaren oihartzunek ez zutela ibarren gainean durundatu, eta ez zutela mendirik mendi jauzi egin, eta **zeruak** ez zirela inarrosi.* Jon Alonso

*Ez duzu ikusten **zeruen** haserreak nire enkantamenduak baino ahalmen handiagoa duela?* Joanes Urkixo

*Elkarren bila, txori bihurtu ziren eta **zeruak** zeharkatu zituzten.* Juan Kruz Igerabide

*Misiolari bat bere sotana eta kapeluarekin, eskuak bilduta eta begiak **zeruetara** jasota zain, basatiak beren mordoiloan berriketan ari diren bitartean.* Oskar Arana

*Bi familietako zenduek izan dezatela **zeruetan** merexi duten saria.* Herria

*-Ene Jainko **zeruetakoa** ! -egin zuen oihu, eskuak espantuz elkarturik-.* Jose Morales

*Espainiako armadako Aguila patruilako zazpi hegazkinek erakustaldia egin zuten, atzo, Gasteizko **zeruetan** .* Berria - Euskal Herria

*Hegazkinez Ameriketako **zeruetan** barna, Agirreri martxokoa gogoratzen zaio.* Edorta Jimenez

*__Zeruetako__ izarreri so egiteko teleskopa batzuen bitartez.* Herria

*· Eta zazpi **zeruak** hutsik uzteko gauza izan banintzen ere, Infernua, ordea, ezin izan nuen bere beldurgarri guztiez xahutu.* Matías Múgica

*Elkarren bila, txori bihurtu ziren eta **zeruak** zeharkatu zituzten.* Juan Kruz Igerabide

**11** ***zerutiko*** *izlag*

*Gatazka unerik gogorrenean zegoelarik, **zerutiko** bost gizon bikain agertu zitzaizkien etsaiei, urrezko hedeak zituzten zaldien gainean jarrita.* Elizen arteko biblia

*Gu atzera-aurrera gabiltzan Lur hau, [...] **zerutiko** hautsak poliki-poliki pilatu eta elkarri atxikiz sortua.* Juan Garzia

*Damaskorantz zihoala, bertatik hurbil, bat-batean **zerutiko** argi batek distiraz inguratu zuen.* Elizen arteko biblia

*Zer oker egin ote diezagukeen **zerutiko** oinaztu-kolpeak.* Xabier Amuriza

*Judaismoaren alde ausarki borrokatu ziren gizon adoretsuen alde izandako **zerutiko** agerpenak.* Elizen arteko biblia

**12** ***zerutikako*** *izlag*

*Aldi berean aditzen zuten **Zerutikako** musika bat, Aingeruek kantatuz "Salve Regina" himno ezaguna.* Herria

*Hor dugu **Zerutikako** mezua: "Ez bazarete haur horiek iduri bilakatzen, ez duzue betiereko Bizian sartzerik ukanen".* Herria

*Bakoitzak [...] itxaroten duen horrena, zeinak bizitza aldarazten dizun mezu **zerutikakoa** baitakar, onerako zein txarrerako, ez jakin oraindik, hark ahoa ireki arte.* Juan Garzia

*Zu, ordea, emakumeen Erregina, ezkonsaririk ez duen bakarra zara, izan ere zure maitasuna espirituala eta **zerutikakoa** baita.* Patxi Zubizarreta

**13** ***ez zeru (eta) ez infernu*** *adlag*

*Ez **zeru** eta ez infernu, minaren sentipenak eta plazerarenak nahasten diren linbo badaezpadakoa begitandu izan zaio beti bizartegia.* Harkaitz Cano

*Baina, bitartean, Garibairen arima ez **zeru** ez infernu dabil jendearen ahotan, eta, laster, uste horri buruzko aldaera berriak zabaltzen dira.· Ondo zakiat zer nolako uzkitatik atereak diren faxisten legeak, baina hobe hori, ez **zeru** eta ez lur gelditzea baino, ezta?* Anjel Lertxundi

**14** *ohe zeru ik* ***ohezeru****.*

**15** ***zeru alde*** *adlag ipar zeru aldera. ik* ***zerualde****.*

*Hoien urrats eta kantu airosak hegaldatu dira **zeru alde** .* Herria

*Kasik sekula elizarat ez jiten-eta, hortxe zaudezte bi eskuak junt, begiak **zeru-alde** , alegia sinestez eta urrikiz gainditauk!* Herria

*Airatu zauku **zeru alde** , Gerezieta Zalbideko amatxi maitea.* Herria

*Airatu zauku **zeru alde** , Gerezieta Zalbideko amatxi maitea. Iduri sastakaiak **zeru alde** miran.* Herria

**16** *zeru ertz ik* ***zeruertz****.*

**17** ***zeru gain*** *(orobat* ***zerugain*** *g.er.)*

*Zu joaitean da Arbonako **zeru gain** hori ilundu.* Herria

*Dena dela, orai nausi direla Afganistaneko **zeru gain** hartan diote Amerikanoek, osoki suntsituak baitituzte, omen, airekoen kontrako tresnak.* Herria

*__Zeru gainetik__ berak orain zain gaitzala guziak eta zain dezala gaixo Maroka eta ere Euskal Herri maitea.* Herria

*Guziak **zeru gain** hartarik lagun gaitzala.* Herria

*__Zeru gainean__ izarrak beren urrezko klixketan beti ari.* Michel Oronoz

*Ainhoatik ikusi zituen ke-adarrak, Urdazubiko **zeru gainera** igotzen.* Aingeru Epaltza

*Lehenago bai, lehenago izana zen zerua eta **zeru gaina** elkarrekin ukitu genituen istanterik.* Aingeru Epaltza

**18** ***zeru ganga***

*Beude ozeanoa bere ekaitzekin, mendia bere glaziarrekin, **zeru-ganga** bere galaxiekin.* Juan Garzia

*Baldin eta* ***zeru-gangako*** *izar bakoitza haren bi koordenatuen bidez atzematen bada -haren garaiera eta haren deklinazioa, zenbaki osotan adierazia- [...].* Jon Muñoz

*Lurrun mataza eskergek* ***zeru ganga*** *behera zekartela irudi zuen.* Karlos Zabala

*Izarrik gabeko zerua, hodeietako* ***zeru-ganga*** *gorrixka, hiriko argiak islatzen.* Jon Muñoz

*Hubi?cka maniobraburua zeru urdinera beha zegoen eta orduan nik ere ikusi nuen nola etzaten zen luze* ***zeru gangan*** *gure telegrafista, Zdeni?ck.* Fernando Rey

## 19 zeru goi (orobat zerugoi g.er.)

*Behingoz utzi zezala* ***zeru goi*** *ixila.* Herria

*Adi* ***zeru goian*** *kurrilloen kurruxkari: goldea sartzeko garaia duzu, euria laster dator-eta. dorre zatar haien artean, dorre are luzeago bat eraikitzeari ekin baitzion,* ***zeru-goian*** *galtzen dena.* Pello Zabala

*Gero, beste aingeru bat ikusi nuen* ***zeru goian*** *hegan.* Elizen arteko biblia

*Izarrak* ***zeru goitik*** *amiltzen hasiko dira eta ortzia dardarka ariko.* Elizen arteko biblia

***Zeru goitik*** *uholdeak eraso, lurraren oinarriek dardara.* Elizen arteko biblia

*Entzun dut Big Joeri xuxurlaka, alegia aita jada ez dagoela benetan hilkutxa barruan, baizik eta* ***zeru-goian*** *-hatzaz gorantz egin eta zerua erakutsi dio, eliza-dorreaz haraindira-, eta, bai, pozak airean dagoela aita, txoriak bezain pozik.* Mirentxu Larrañaga

***Zeru-goiak*** *hala nahirik, maitasunak bere legepean lotuta ez banindu, [...].* Patxi Ezkiaga

***Zeru goitik*** *agertzen den goiz-argiak argitzen zion bihotza eta pizten borondatea bere maitasunaren sutan.* Askoren artean

***Zeru goi-goian*** *kurrilo saldo antolatuak pasatzen ari ziren.* Fernando Rey

## 19a pl

*Ai, begira:* ***zeru goiak*** *eta lurra dena gaixo lehen oinarritik.* Iñaki Mendiguren

*Gero, arrano bat ikusi nuen hegan* ***zeru goien*** *erdian, orroa handiz esaten: [...].* Elizen arteko biblia

***Zeru goien*** *edertasuna, ortziaren gardentasuna eta zeru-sabaiaren itxura, zer ikuskizun distiratsua!* Elizen arteko biblia

***Zeru goietan*** *nuen egoitza eta laino-adarraren gainean neure tronua.* Elizen arteko biblia

*Eskubide osoz sartua zen antzina-antzinatik suaren, martirioaren eta torturaren bidez* ***zeru-goietara*** *iristen ziren dontsuen artean.* Jose Morales

*Baina itsas orroa baino bizkorrago, itsas uhinak baino ahaltsuago, ahaltsu da Jauna* ***zeru goietan*** *.* Elizen arteko biblia

***Zeru goietakoak*** *munduan eragindako zorigaitzik handientzat zeukaten bikote hain bateratuak ondorengorik ez izatea.* Mirentxu Larrañaga

## 20 zeru goien

*Zer goitikatu zuen* ***zeru goienak*** *?* Karlos Linazasoro

*Hartan, Serafin bat ikusi zuen* ***zeru goienetik*** *jaisten, suzko sei hego distiratsu zituela.* Askoren artean

***Zeru goienetik*** *zetorren eguzkiaren argia eta lurpeko ilunbe hezetik zetorren izerdia.* Patziku Perurena

*Gorets dezatela zure izena* ***zeru goienetik*** *zure aingeru guztiek.* Imanol Unzurrunzaga

## 20a pl

*Liburu osoaren gainean itzal egiten du* ***zeru goienetan*** *ospaturiko Marcel Martin eta Victoriaren arteko ezkontzak.* Markos Zapiain

*Bekatuen garbikuntza egin ondoren, Jainko handiaren eskuinaldean eseri da* ***zeru goienetan*** *.* Elizen arteko biblia

***Zeru Goienetako*** *Arkitekto Nagusia, birrin eta deusezta, zabal eta heda ezazu kosmosean barna naizen izaki preteknologiko eta frakasatu honen hautsa!* Jon Alonso

## 21 zeru goren

*Jainko Ahaltsuak bedeinkatuko zaitu,* ***zeru goreneko*** *bedeinkapenez.* Elizen arteko biblia

*Betoz, bada,* ***zeru goreneko*** *bedeinkazioak, itsas sakon barreneko bedeinkazioak.* Jose Antonio Mujika

*Aintza* ***zeru gorenean*** *Jainkoari eta bakea lurrean berak hain maite dituen gizon-emakumeei!* Elizen arteko biblia

*Eskaiozu zeure Jainko Jaunari ezaugarri bat, nahiz lurraren barrenean nahiz* ***zeru gorenean*** *.* Elizen arteko biblia

*"Goian bego!", euskaldunek zenbait lekutan erraiten ohi dugun bezala, erran nahi baitu:* ***"Zeru gorenean*** *egon dadila!", bai, lur honetan egin duen ongiaren sari.* Angel Aintziburu / Jean Baptiste Etxarren

## 21a pl

*Jo soinua Jainkoari, /* ***zeru gorenetan*** *gora baitoa ekialdera.* Askoren artean

*-Hara, Seinan, habil hoa eta erradak sakrifikatua eta gure baratzeko pikotzearen maldan ehortzia izan zen Eugenia gurutzatzen dukanez* ***zeru goren*** *horietan?* Itxaro Borda

## 22 zeru-harraskari iz etxe-orratza.

*Lakua 7rako zinta garraiatzailea hartu, eta ordu erdi geroago EJren* ***zeru-harraskarira*** *iritsi nintzen. · izond Beiraz eta altzairuzko eraikin* ***zeru-harraskariak*** *, abiadura handiko trenak, errekuntzako motoredun ibilgailuak, ordenagailuak, fotokopiagailuak, mundu osoko komunikazio sarea.* Iban Zaldua

*Aurrez aurre ikusi nuen, era berean, Banco de Vizcayaren eraikin izugarria,* ***zeru harraskari*** *, kristal gorrixkak leihotzarretan, luxuzko distiraz harro eta dotore.* Rafa Egiguren

## 23 zeru-infernu

*Ederki ematen du, gero, nik, aita laztana hala hil diotenaren seme honek,* ***zeru-infernuek*** *bultzatua mendekuzko ordainera, puta baten modura hitzez lasaitu beharra barrena, madarikazioka, emazirin alproja baten modura!* Juan Garzia

*Urrunduz doaz hilak agian, dagokien* ***zeru-infernurantz*** *, baina kostata, bide luze bihurria baita.* Juan Garzia

*Barkatuko ahal dizkit Borgesek, bere* ***zeru-infernu*** *zirkularretik, nire oker infinituak; berak esana da itzulpen batzuk ez direla posible "literatura baten ondoren" baizik.* Juan Garzia

## 24 zeru-kolore izond zeruaren kolorekoa.

*Pastoraletan bertze kolore batzu agertzen dira: gorria beti bezala, su eta ifernu kolorea eta urdina,* ***zeru kolorea*** *.* Herria

*Jauregian paretak zeta frantses tindu finekoz estaliak zeuden:* ***zeru-koloreak*** *, berde argiak, arrosak, azpildura urrekaraz sendotuak, eta guztiak Pariseko ehundegietatik ekarriak.* Xabier Olarra

*Urdin* ***zeru-kolorea*** *zen.* Anjel Lertxundi

*Han eta hemen espero ez nituen tindu batzuk ere azalduz, sabia, bioleta-purpura edo* ***zeru-kolorea*** *.* Joxan Elosegi

*Halaxe izan nuen aingeru neritzon haren begietako* ***zeru-kolorea*** *gertutik ikusteko era.* Edorta Jimenez

## 25 zeru lerro ik zerulerro.

## 26 zeru-lur (orobat zerulur g.er.) pl

***Zeru-lurren*** *kreazioa.*

*Nik betetzen ditut* ***zeru-lurrak*** *.* Imanol Unzurrunzaga

*Urteak pasatu ditu* ***zeru-lurren*** *neurketetan Antoine d'Abbadie d'Arrast jakintsunak.* Michel Oronoz

*Orratz-punta bat* ***zeru-lurren*** *luze-zabalarekin konparatzen bada.* Joan Mari Lekuona

***Zeru-lurrak*** *harritzeko moduko erantzuna.* Iñaki Segurola

*Ordena edo logos bat bera da* ***zeru-lurretako*** *ordena, Inperiokoa eta norbere baitakoa.* Joxe Azurmendi

*Gorets bezate* ***zeru-lurrek*** *Jainko ospetsua.* Askoren artean

*Kristo agertu eta esan zien: "Ahalmen guztia eman zait* ***zeru-lurretan*** *.* Patxi Altuna

***Zeru-lurrak*** *batuko dituen gure dorre famatu horrek gero eta gorago eginen du.* Joan Mari Irigoien

Irisarri zaharrak ikusi zuenean semeak Baionako alde hartan ez zuela gehiago ikasiko, **zeru-lurrak** ibili zituen onartu zezaten Parisko Erret Musika Akademian. Felipe Juaristi

Zenbat ez ote ditu zoramenak hartu, zenbatek ez ote dute beren gorrotoaren kopa **zeru-lurren** kontra jaurti? Patxi Zubizarreta

Eman biezaiote gorespen, ospe, ohore eta bedeinkapena **zeru-lur**, itsaso eta lur azpiko sorkari guztiek. Askoren artean

Aitortzen zaitut, **zeru-lurren** Jauna, eta goresten zaitut oroit ez naizen nire sorreragatik eta haurtzaroagatik. Imanol Unzurrunzaga

Atarira orduko dauzka gure idazleak bere bihotzeko **zeru-lur** hondogabeak. Patziku Perurena

Kontakizun hura etsipenez beteriko salaketa zen, **zeru-lurretako** indar guztiei egindako dei bat. Ander Irizar

Han airea eta odola bera itxita daude, usoak eta mitxeletak berak itxita, euri-eguzkiak itxita, **zeru-lurrak** itxita eta infernua ateak zabalik. Felipe Juaristi

## 27 zeru-min ik **zerumin**.

## 28 zeru sabai (orobat **zerusabai** g.er. eta **zerusapai** g.er.) iz

**Zeru-sabaira** begiratzeko esan zenidan eta gau izartsuak babesten gintuela ikusi nuen. Xabier Mendiguren Elizegi

**Zeru sabai** ederra zeharkatzen duten hegazkinek ere, buztantxo xuri laburra eta meharra uzten dute. Pello Zabala

Patioko **zeru**-sabai koadratuan zebilen enara pila ezohikoari begiratuz. Jokin Urain

Bedeinkatua zu, **zeru-sabaian**, goretsia eta ospatua menderen mendetan! Elizen arteko biblia

**Zeru-sabaia** lurrean oinarritzen du, eta horren gainean eraikitzen bere jauregia; itsas urak bildu eta lur gainera isurtzen ditu. Elizen arteko biblia

## 29 zeru tresna (corpusean **zerutresna** soilik)

**Zerutresna** batzuen ondarkinak hor dira jadanik milaka Lurraren itzulian ibilki. Herria

## 30 zeru-urdin (orobat **zerurdin** g.er.) izond zeru urdinaren kolorekoa.

Gela **zeru-urdin** bat zen, urrinez gozatua, zoruan piztia larruak zabalduta zituena. Josu Zabaleta

Udazkenean lore **zerurdinak** botatzen dituzte, mamitsuak, jende zikinaren usainekoak. Juan Garzia

Kotoizko txabusina **zeru-urdin** bat jantzirik. Lopez de Arana

Errezel **zeru-urdinen** artetik argi izpiak iragazten dira. Xabier Paya

Barnealdea zeta **zeru-urdinez** forratua zuen kotxe baten atzealdean jarririk. Xabier Olarra

Batzuk, **zeru-urdinak**; beste batzuk, izokin-kolorekoak; eta beste batzuk, berriz, hori ilunak. Lopez de Arana

Kolore **zeru-urdina** edo sagar-berdea zituen gustuko. Karlos Zabala

## 31 zeru zola

Argi ttitta ttipi batzu **zeru zolan**, hain urrun. Michel Oronoz

**Zeru zola** hurbil du ezin joan gorago! Herria

Zaila zen asmatzea batzuetan **zeru zolan** zebiltzan hedoiek zer ekarriko zuten. Itxaro Borda

Zeruan hegaztin bat, han nonbait **zeru zolan**. Herria

**hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 4 aldiz agertzen direnak)**

*gaueko zeru (5)*

*zeru alde (12); zeru aldera (12); zeru argi (4); zeru azpian (8); zeru bat (9); zeru beltzaren (6); zeru beltzean (4)*

*zeru eder (7); zeru ederrean (5); zeru ertz (4); zeru ertza (4); zeru ertzean (7); zeru ertzetik (5); zeru eta ortziaren (4); zeru gain (6); zeru gainean (8); zeru gaineko (5); zeru gainetik (6); zeru ganga (4); zeru garbi (10); zeru goi (4); zeru goiak (6); zeru goian (9); zeru goibela (4); zeru goienetan (4); zeru goienetik (7); zeru goietan (7); zeru goitik (7); zeru gorenean (8); zeru gris (4); zeru grisaren (10); zeru guzia (5); zeru hori (4); zeru horiek (33); zeru hura (4)*

*zeru iluna (8); zeru izartsua (7); zeru izartsuaren (5); zeru kolorea (4); zeru lur (13); zeru lurrak (83); zeru lurrak egin (15); zeru lurrak eta (14); zeru lurrei (4); zeru lurrek (11); zeru lurren (55); zeru lurren egileak (4); zeru lurren jauna (7); zeru lurretako (4); zeru lurretan (16); zeru lurtarra (4); zeru muga (5)*

*zeru oskarbi (6); zeru oskarbia (4); zeru osoa (9); zeru puska (17); zeru puska bat (7); zeru sabai (7); zeru sabaia (9); zeru sabaian (11)*

*zeru urdin (40); zeru urdina (26); zeru urdinak (6); zeru urdinarekin (4); zeru urdinaren (12); zeru urdinari (8); zeru urdinean (18); zeru urdinen (4); zeru urdinera (5); zeru zabala (8); zeru zabalean (7); zeru zati (8); zeruz zeru (5); zituen zeru (6)*

*gaineko zerua (4); goian zerua (5); gure zerua (4); kanpoan zerua (4); lurra eta zerua (5); urratu zuen zerua (4)*

*zerua argi (5); zerua argitzen (6); zerua aztertu (4); zerua baino (13); zerua beltz (5); zerua beltzu (4); zerua bera (7); zerua beti (6); zerua bezain (12)*

*zerua estalita (4); zerua eta infernua (5); zerua eta itsasoa (6); zerua eta lurra (17); zerua garbi (12); zerua gero eta (6); zerua goian (4); zerua goibel (8); zerua hodeiz (4)*

*zerua ikusi (4); zerua ilun (11); zerua iluntzen (4); zerua izarrez (6); zerua lekuko (4); zerua lurraren (4)*

*zerua oskarbi (16); zerua oskarbi zegoen (4); zerua saritzat (4)*

*zerua ukitu (5); zerua ukitzen (10); zerua ukitzen zuen (6); zerua urdin (32); zerua urdin urdin (7); zerua urdin zegoen (5); zerua urdina (9); zerua urdina delako (7); zerua urratu (4); zerua urratzen (4); zerua zabaldu (5); zerua zeharkatzen (11)*

*zeruak baino (4); zeruak egin (4); zeruak eman (5); zeruak eta lurrak (11)*

*aberastasuna zeruan izan (8); begiak zeruan (4); eguzkia zeruan (8); eguzkia zeruan gora (5); goian zeruan (8); goiko zeruan (5); ikusten zeruan (5); italiako zeruan (4); izarrak zeruan (5); jainkoa zeruan (4)*

*zeruan aita (4); zeruan barrena (4); zeruan bezala (9); zeruan bizi (4); zeruan dago (8); zeruan dagoela (4); zeruan egon (5); zeruan egona (4); zeruan errege (7); zeruan eta lurrean (7); zeruan gerta dadila (4); zeruan gora (21); zeruan gora zihoan (4); zeruan hegan (5); zeruan hodeiak (4); zeruan ikusi (4); zeruan izan (12); zeruan izan dezazun (8); zeruan izarrak (4); zeruan sartu (4); zeruan zehar (10)*

*zeruaren aurka (5); zeruaren azpian (6); zeruaren bete (6); zeruaren erdian (4); zeruaren esku (4); zeruaren gainean (6); zeruaren gainean zamalkatzen (4); zeruaren ispilu (4); zeruaren kolorea (5); zeruaren kontra (11); zeruaren opari (7); zeruaren urdin (5); zeruaren urdina (13)*

*zeruari begira (35); zeruari begiratu (5); zeruari begiratzen (6); zeruari buruz (12); zeruari eskerrak (6); zeruari so (17); zeruari so egin (4)*

*zeruetako erreinua (16); zeruetako erreinuan (7); zeruetako erreinuaren (6); zeruetako erreinuaren oinordeko (4); zeruetako erresuma (10); zeruetako jainkoak (4); zeruetako jaun (4)*

*aita zeruetan zarena (7); zeruetan zarena (14); zeruetan zirena (4)*

*zeruko aingeru (6); zeruko aingeruak (5); zeruko aingeruek (4); zeruko aita (16); zeruko aitak (18); zeruko aitaren (18); zeruko aitari (7); zeruko alor (12); zeruko alor beroan (5); zeruko argia (24); zeruko argiaren (5); zeruko atea (10); zeruko atexkak (5); zeruko bere (5)*

*zeruko erregearen (4); zeruko erreginari (6); zeruko esfera (4); zeruko esferaren (8); zeruko eta lurreko (9); zeruko gauzak (5); zeruko gauzen (6); zeruko graziaren (4); zeruko hegazti (10); zeruko hegaztiak (10); zeruko hegaztiei (9); zeruko hegaztiek (6); zeruko hiriak (4); zeruko hodei (6)*

*zeruko izakiak (4); zeruko izar (10); zeruko izarrak (20); zeruko izarrak bezain (7); zeruko izarrek (4); zeruko jainko (5); zeruko jainkoa (13); zeruko jainkoak (11); zeruko jaunak (5); zeruko jaunari (4); zeruko nire aitak (5); zeruko nire aitaren (4)*

*zeruko ogia (4); zeruko puntu (4); zeruko sua (4); zeruko trumoiak (5); zeruko trumoiak aditzea (4); zeruko tximistak (8)*

*zeruko zuen aitak (6)*

*jaun zerukoa (13)*

*jaun zerukoak (21); jaun zerukoak eman (6)*

*eguzkia zerumugan (4)*

*arima zerura (4); begiak zerura (20); begiak zerura jasorik (5); besoak zerura (4); eskuak zerura (4); lurretik zerura (4); zen zerura (4)*

*zerura begira (52); zerura begira jarri (6); zerura begiratu (25); zerura begiratu zuen (8); zerura begiratzeko (6); zerura begiratzen (7); zerura begiratzen zuen (4); zerura bidali (5); zerura bidean (6)*

*zerura egin (6); zerura egin ditu (4); zerura eraman (9); zerura eramana (5); zerura eramaten (4)*

*zerura igo (20); zerura igotzen (13); zerura igotzen ikusi (8); zerura jaso (13); zerura jasoa (4); zerura jasoa izan (4); zerura jasorik (5); zerura joan (13); zerura joan zen (5); zerura joateko (5); zerura joaten (8)*

*zuzenean zerura (4)*

*hirugarren zeruraino (4); zeruraino igo (7); zeruraino igoko (4); zeruraino igotzen (7); zeruraino iristen (5); zeruraino zabaldu (4)*

*zerurako bide (4); zerurako bidean (4); zerurako ez lurrerako (24)*

*aurpegia zerurantz (8); begiak zerurantz (20); begiak zerurantz jaso (5); begiak zerurantz jasorik (4); besoak zerurantz (10); burua zerurantz (5); eskua zerurantz (12); eskuak zerurantz (22); eskuak zerurantz jasorik (4); eskuak zerurantz jasota (5)*

*zerurantz altxatu* (6); *zerurantz begiratu* (7); *zerurantz begiratu zuen* (4); *zerurantz igotzen* (6); *zerurantz itzuli* (5); *zerurantz jaso* (24); *zerurantz jaso zuen* (7); *zerurantz jasorik* (10); *zerurantz jasota* (11); *zerurantz jasotzen* (9)

*zerurat beha* (4)

*entzuiozu zerutik* (5); *entzun nuen zerutik* (5); *entzun zuk zerutik* (8); *etorri zen zerutik* (5); *ikusi nuen zerutik* (5); *jaitsi zen zerutik* (4); *jaunak zerutik* (5)

*zerutik erori* (6); *zerutik eroria* (4); *zerutik eroritako* (9); *zerutik erortzen* (7); *zerutik esaten* (4); *zerutik etorria* (6); *zerutik etorritako* (6); *zerutik heldu* (5); *zerutik infernura* (5); *zerutik jaisten* (11); *zerutik jaitsi* (12); *zerutik jaitsi eta* (5); *zerutik jaitsia* (5); *zerutik jaitsitako* (5); *zerutik lurrera* (13); *zerutik pasatzen* (4); *zerutik zetorren* (5)

---

## **zerualde** (orobat **zeru alde**) iz zeruko aldea.

*Tximistak une batean **zerualde** batetik besteraino distira egiten duen bezala.* Elizen arteko biblia

*Hodei handi galantak hartzen dute **zerualdea**, eta eguzki errearen orduak murriztu egiten dira.* Pello Zabala

*Orduan plastikozko baloi handi bat ailegatu zen gureganaino **zeru aldetik** parabola bat eginez.* Joxemari Iturralde

*Harresi barruko espazioen zatiketak egin behar dira, kaleak eta kalexkak banatuz **zerualdearen** arabera.* Santiago Iruretagoiena

*Handik pixka batera, ibaiaren hotsa besterik entzuten ez zenez, aita kanpora irten zen **zeru aldera** begiratzera, eta eguzkitan lehortzen jarri zen.* Juan Kruz Igerabide

*Bigarren tiroa **zeru aldera** irten zen, gudari batek bultza egin baitzion bizkor gora eskopetari.* Inazio Mujika Iraola

*Gero, eskua ongi luzatuta, berriz gora igo, ziztuan atera **zeru aldera**, hodeietara.* Fernando Rey

*Orduan plastikozko baloi handi bat ailegatu zen gureganaino **zeru aldetik** parabola bat eginez.* Joxemari Iturralde

---

## **zeruarren** interj zeruaren izenean.

***Zeruarren** agintzen diat, mintza hadi.* Juan Garzia

***Zeruarren**, uztak, uztak!* Juan Garzia

---

## **zerubide** iz zeruko bidea.

***Zerubidean** abiatzeko zinez hain presaturik ote dagoen eta neke hori pixka bat geroratzen ahal ez ote duen galdegin dio bere buruari.* Aingeru Epaltza

*Unibertsitatetik kanpora, **zerubidean** gibelatzea.* Aingeru Epaltza

*Frankok Bidea **zerubide** dute egiazki.* Aingeru Epaltza

---

## **zerudun** izond ohezerua duena.

*Oinazetan etzanez ohe-**zerudun** ohean, pentsatzen aritu zen Ruche jauna.* Jon Muñoz

*Erabat jantzita murgildu zen **zerudun** ohean.* Jon Muñoz

*-Nire **zerudun** ohean, ez naiz ezeren beldur.* Jon Muñoz

---

## **zeruertz** (orobat **zeru ertz**) **1** iz zerumuga, ostertza.

*Egunsentiko argi grixkaran ere basoarte itsua, eguzkiaren lehen printzak oihaneko **zeruertz** ordokiaren gainetik, eta lertxunak ugari, gure tren geldoa igaro ahala saldo zuritan hegaldatzen zirenak.* Joxe Austin Arrieta

*Gorriz tindatu zen **zeruertza**, eta eguzkia atera zen segidan.* Xabier Aranburu

*Landare hesiek beste lursailetatik bereizten zuten; elorri zurizko pareta haiek, txit garaiak, **zeruertza** mugatzen zuten oihal berde batez.* Karlos Zabala

*Itsaso zabalaren **zeruertzera** begira utzi nau Belarraren ahoa honek. **Zeruertzean** eguzkia ateratzen hasi zenean zabaldu zituen begiak mutilak.* Berria - Harian

*Trena Gaztelako ordokian zihoan, eta egunaren urratzea ageri zen **zeruertzean**.* Josu Zabaleta

*Mugagabetasun orlegi hartan **zeruertzeraino** luzatzen diren berdeguneen artean.* Karlos Zabala

*"**Zeruertzean** datilondoak agertzen hasten direnean egarriz hiltzea", horrela deitzen diogu horri basamortuko mintzairan.* Xabier Aranburu

*Iparraldeko Venezia deitzen diote, ez alferrik dena esan behar bada, eta ilunabar politak ditu, zeruminak denbora dezente irauten baitu **zeruertzean** galdu baino lehen.* Felipe Juaristi

*Hodeiertzean, **zeruertzean**, mugaertzean grisak eta metalak nahasten dira.* Sonia Gonzalez

***Zeru-ertz** batetik irten eta beste ertzeraino haren itzulbira.* Elizen arteko biblia

**2** (izenlagun eta izenondoekin)

*Ingurune jakin bat, **zeruertz** jakin bat ere aukeratu zuen.* Oskar Arana

*Egun hartan begi-bistan zegoen **zeruertz** urruna, hodei erraldoiek beltzerantz larri grisatuta.* Josu Landa

***Zeruertz** kedarreztatuaren kontra, gabarrak, baporeak, zentral elektrikoak, ontziraleku estaliak, zubiak.* Lopez de Arana

*Gauza da, behintzat, lagunek ere, erreflexuz-edo, oihu berbera jaulki zutela, izuz beterik eta begirada **zeruertz** infinituan galdurik.* Karlos Linazasoro

*Egunsentiko argi grixkaran ere basoarte itsua, eguzkiaren lehen printzak oihaneko **zeruertz** ordokiaren gainetik, eta lertxunak ugari, gure tren geldoa igaro ahala saldo zuritan hegaldatzen zirenak.* Joxe Austin Arrieta

**3** irud/hed

*Ohiko kamisetaren partez, blusa zuri baporetsua zekarren soinean; haren azpian, ikusi-makusika ari zitzaidan, orban likits, titi-zorro beltz baten **zeruertz** lainotua.* Aingeru Epaltza

***hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)***

*zeruertzari so* (3)

---

## zerugain ik **zeru 17**.

---

## **zerugaindiko** izlag zeruaren gainekoa dena.

*Herri espainolaren barne-esentzia eternal hori da denboragaindiko intrahistoria bezala metaforizatu duena Unamuno-k, egiaren toki eta osasunaren iturri **zerugaindiko**, Espainiaren gaurko gaixoarentzat erremedioa.* Joxe Azurmendi

---

## zerugoi ik **zeru 19**.

**zerugune** *iz zeruko gunea.*

*Orain konturatzen naiz zer-nolako irudi idealizatua osatu nuen nire barruan, baina infernu hartan* ***zerugunea*** *eskaini zidana ez nuen bada idealizatuko!* Juan Kruz Igerabide

---

**zerukide** *(corpusean* ***zeru-kide*** *soilik) iz zeruko kidea.*

*Pozez gainezka dago zeruko batzar osoa, egunero egingo baitu jai* ***zeru*** *-kide berriengatik* Askoren artean

---

**zerulerro** *(orobat* ***zeru lerro****) iz zerumugako lerroa.*

*Manhattango irlako* ***zerulerroa*** *osatzen duten etxeorratzak.* Harkaitz Cano

*Manhattango irlako* ***zerulerroa*** *osatzen duten etxeorratzak.* Harkaitz Cano

*Amsterdamen puska handi bat ikusi ahal izan dut, eta teilatuen gainetik zerumugaraino; hain kolore urdin argikoa zen, ordea, non ez baitzen* ***zeru lerroa*** *zehazki bereizten.* Josu Zabaleta

---

zerulur *ik* **zeru 24**.

---

**zerumin** *(orobat* ***zeru-min****) iz ilunabar-argia.*

*Iparraldeko Venezia deitzen diote, ez alferrik dena esan behar bada, eta ilunabar politak ditu,* ***zeruminak*** *denbora dezente irauten baitu zeruertzean galdu baino lehen.* Felipe Juaristi

*Leihora hurbildu eta* ***zeru-minari*** *so jarri ziren denboraldi batez.* Felipe Juaristi

---

**zerumuga** *(orobat* ***zeru-muga*** *g.er.)* ***1*** *iz puntu batetik ikus daitekeen lur azala mugatzen duen lerroa; lerro horretatik hurbil dauden lur azaleko eta zeruko zatiak. ik* ***ostertz****.*

***Zerumuga*** *argitsu zegoen artean ilunabarreko azken printzekin.* Karlos Zabala

*Behean Beyaziteko zelaia zabaltzen zen, eta* ***zerumugan*** *hiltzen zen bide luze batek gurutzatzen zuen alderik alde.* Fernando Rey

*Gariaren eremua, ogi landen erresuma begien aitzinean daukat,* ***zerumugan*** *Burgos hiriburua ja ageri zaidala.* Piarres Aintziart

*Mendi kopeta-ilunek ixten zuten* ***zerumuga****.* Koro Navarro

*Distira ahul gorrixka bat ikusten zen* ***zerumugan*** *ekialdera.* Iñaki Mendiguren

*Eguzkia arin zihoan* ***zerumugatik*** *gora, eta lehenbiziko izpiek berandu gabe uxatuko zituzten lurrunak.* Karlos Zabala

*Ekialdera begiratu, ukitutxo bat hegoaldera, eta 45 bat gradu* ***zerumugatik*** *gorantz, arratseko bederatzietatik hamarrak aldera arte, eta Saturno eta bere eraztun zoragarriak ikusiko dituzue.* Berria - Gaiak

*Urrunean* ***zerumuga*** *Caracas aberatseko etxe-orratz erraldoiek osatzen dute.* Pako Aristi

*Itzalak luzatzen ari ziren,* ***zerumugaren*** *bazterretik baletoz bezala.* Juan Kruz Igerabide

*Gizon txikiak* ***zerumugaren*** *amaieran begiztatu du Manhattan hegoaldeko etxe-orratzen luze mehar mailakatua, orrazi irregular baten segida hautsi hura.* Harkaitz Cano

**2** *(izenondo eta izenlagunekin)*

*Soro arteko bidezidorrean,* ***zerumuga*** *gorrituaren ondoan, bi zaldun ikusi ziren.* Fernando Rey

*Ezin leihoa ireki, ezin barandan ukondoak jarri, aurrean izan gabe,* ***zerumuga*** *osoa betez.* Karlos Zabala

*Ahazten hasten da eternitateko gauzak, hauek urratzen doazelarik gero eta txikiago eginik, urrutiko* ***zerumugetan****.* Joan Mari Lekuona

*Itzalak gero eta luzeagoak ageri ziren, eguzkia sartaldeko* ***zerumugara*** *hurbildu ahala.* Karlos Zabala

*Gabarrariek Mikel Strogoffi erakusten zizkioten ke mataza batzuek, gora zurrunbiloka hegoaldeko* ***zerumugan*** *, abangoardia tatariarra hurbil zegoela frogatzen zuten.* Karlos Zabala

**3** *irud/hed*

*Hilaren 17an espaziontzi bat bidaliko du NASAk Pluton eta Karonte aztertzera; bide luzea egin beharko du, 2015ean helduko da planeta urrunera,* ***zerumuga*** *berrien bila.* Berria - Gaiak

*Horrek Stepheni mundu zabalago baten zentzua eman zion nonbait, ordu arte bizitza hesitu zioten ikuspegi mugatuez haragoko* ***zerumuga*** *zabalagoen zentzua.* Xabier Olarra

*Halaxekoa bihurtzen baitzen, serio, azaldu beharreko proposamen bat zuen aldiro edo giza arazo berri bati begia ezarria ziola uste zuen guztietan: harri eta zur, bere* ***zerumugan*** *giza irudi berri bat marrazten zen bakoitzean harritzen zen bezala.* Fernando Rey

*Lor dezaketen kapitalarekin, Euskaltelek ez du baztertu* ***«zerumuga*** *berrietara» begiratzea.* Berria - Ekonomia

*Begiak itxita izatea geure buruaz haratago dagoena ez ikusteko, unibertso nazionalaz haratagoko* ***zerumuga*** *zabalak ez ikusteko.* Berria - Kultura

*Zientzialariak azaldu zuenez, zulo beltzetan ez da benetako «gertakizun* ***zerumuga*** *» sortzen, «ustezko* ***zerumuga*** *» baizik.* Berria - Gaiak

**4** *zeruaren muga.*

*Gure bizien* ***zerumuga*** *zinen.* Ramuntxo Etxeberri

*Nondik gatozen, zer garen, zer egiten dugun hemen goian* ***zerumugatik*** *zintzilik.* Karlos Linazasoro

*Txapliguak, txinpart eta garrez osatutako egiazko su artifizialak ezkerreko* ***zerumuga*** *osoan.* Urtzi Urrutikoetxea

*Zuhaitzak libre hazten ziren han, adaburuak* ***zerumugan*** *bat eginik, hodei berdeak bailiran, hosto dardarakorrekiko kupula itxuragabeak balira bezala.* Jose Morales

> ***hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)***
>
> ***eguzkia zerumugan*** *(4);* ***hodeiak zerumugan*** *(3);* ***hodeiak zerumugan gora*** *(3)*
>
> ***zerumugari begira*** *(3)*
>
> ***zerumugatik gora*** *(3)*

---

**zerupe** *iz zeru azpia.*

*Thlinkit deitu indiar basoko haiek, ekaitza lehertzen deneko, agudo ipintzen dira zein nexka gazte orraztu ote den bere etxetik kanpo,* ***zerupe*** *garbian, jakiteko peskizan.* Pello Zabala

*Isilik eta txukun zegoen kalea tinta-koloreko* ***zerupean****.* Iñaki Mendiguren

*Bi urte aurretik atera beharko dira harriak, eta ez neguan baizik eta udan, eta leku irekietan jarri behar dira,* ***zerupean*** *utziz.* Santiago Iruretagoiena

*Nik uholdea bidaliko dut mundura, **zerupeko** bizidun guztiak suntsi ditzan.* Jose Antonio Mujika

*Eta Jaunak ez zuen erabakia Israel **zerupetik** ezabatzea; horregatik salbatu zituen israeldarrak Joaxen seme Jeroboamen eskuz.* Elizen arteko biblia

***Zerupeko** sorkari guztiek, bakoitzak bere erara, beren Egilea zuk baino hobeto zerbitzatzen dute, ezagutzen eta obeditzen.* Askoren artean

*Mundu erreal bateko bi eskualde, alegia, zeruarena eta **zerupekoa**.* Askoren artean

---

**zeruratu**, zerura(tu), zeruratzen **1** da/du ad zerura joan; zerura eraman.

*Duda izan nuen Jaungoikoagatik esaten ote zuen, alegia, haren arima **zeruratu** zelako ala ustez Benitorenak ziren gorpuzkien ondoan lur ematen zitzaiolako.* Ramon Saizarbitoria

*Hango jarlekuetatik ikusi dugu, patxadaz, zelan gosaltzen zuten polizia irandarrek eguzkia **zeruratu** aurretik.* Jon Arretxe

*Itzulerarik gabeko suziri batean **zeruratu** beharko nuke agian...* Xabier Paya

*Pentsamendurik gabeko hitza alferrik da **zeruratzen**.* Juan Garzia

*Orai bere biziko lan eta neke guzien saria eman bide dio Jaungoikoak bera baino lehenago **zeruratuak** diren senarra eta seme zaharrenaren aldean.* Herria

*Zazpi haur jaio zitzaizkien Joxemari eta Pakitari: bi, jaioberritan hil zitzaizkienak; beste bat, haur txikia zela, 1925eko eguberri bezperan **zeruratua**, "Xabiertxoren eriotza" poema hunkigarrian kontatzen zaigun bezala.* Xabier Mendiguren Elizegi

*Farisauak aldiz, ez du aurkitu grazia, hunen otoitza ez da **zeruratu** bainan galdu bai urgulu zozo horren hedoietan.* Herria

**2** (era burutua izenondo gisa)

*Andra Mari **Zeruratuaren** parrokian, 20:00etan.* Berria - Kultura

*· Zeren aitaren begiek orain dohatsu **zeruratu**-berri batenak baitziruditen.* Joan Mari Irigoien

---

**zeruratze** iz zerura joate; zerura eramate.

*Belar handi haiek hura baino altuagoak ziren, eta ezin konta ahala ur hegaztien **zeruratzeak** baino ez zuen salatzen haren presentzia.* Karlos Zabala

*Ehortz mezan otoitz eta kantuen erdian segur gira **zeruratze** loriosa izana duela Eulalik, goza dezala bakezko pausua maite zituenen erdian.* Herria

*Berrogei egunez barau egiten zuen Birjina dohatsuaren **Zeruratze** egunetik hasita, etengabeko otoitzari emana bizi zela.* Askoren artean

*Haren ohoretan debozio handiz egiten zuen barau Pedro eta Paulo apostoluen jaitik Ama beraren **Zeruratze** jaira arte.* Askoren artean

*Han, nonbait, urrutiko bakardadean, gorputza menderatu lezakeela zigorrez eta martirioz, edozein jainkotze amesturen alde, lurra gaitzetsiz **zeruratze** bidean.* Patziku Perurena

*Itsas lamiek jolas-gogo latza zeukaten, eta aurrera eta atzera korrika gozatzeko aukera izan zuten, olatuek aparra **zeruratzeari** ekin ziotenean.* Fernando Morillo

---

zerurdin ik **zeru 27**.

---

**zerurratzaile** iz etxe-orratza. ik **zeru 22**.

*Fabrikekin eta **zerurratzaileekin** gauza bera gertatzen zaio Morrasi, hau da, behin eta berriz marraztu ditu era desberdinean.* Berria - Kultura

*Egia da errealitatean **zerurratzaileek** ez dutela derrigorrean horrelakoak izan behar, baina efektu hori erabiltzen dudan teknikaren ondorio da.* Berria - Kultura

***Zerurratzaileek** liluratzen naute.* Berria - Kultura

---

zerusabai ik **zeru 26**.

---

zerusapai ik **zeru 26**.

---

**zerutar** (**30** esaldi **8** liburutan; orobat **zerutiar** **35** esaldi **20** liburutan) izlag zerukoa, zeruari dagokiona.

*Sasimaisuok harroputz eta ausart dira: inolako beldurrik gabe, maldizioak botatzen dituzte **zerutar** izakien kontra.* Elizen arteko biblia

*Pentsa beza, Ilargiaren distira ez bada zoritxarra, Eguzkiaren argia ere ez dela zoriona; zeren gorputz **zerutiarrak** izaki, euren argiaz gure gorputzeko begiak ukitzen dituzten heinean gorputzak baitira.* Imanol Unzurrunzaga

*Maiestate **zerutar** horren desira distiratsu biziemaileak nazkagarriro oinperatuak izan dira.* Xabier Olarra

*Erroma lege bila joan zen Atenasera, eta handik ekarri zuen zaletasun **zerutar** hau.* Juan Martin Elexpuru / Bego Montorio

***Zerutar** hazitik honakoak gara, bada, guztiok; zerua da guztion aita eta ama lur elikatzailea.* Xabier Amuriza

*Gauzarik txikienaz estutzen eta atsekabetzen den gizakiak, nola iruzur dezake bere burua, uste izanez **zerutar** jatorrikoa dela eta bere bihotza zeruan bizi dela?* Joan Mari Lekuona

*Ireki zuten hilkutxa ere: barruan **zerutar** bertuteen altxorra gordetzen zen, eta gutxi batzuek, bizi zela bere gain asko eraman zituen hura zeramaten.* Askoren artean

*Kontenplazio gorenaren gozotasunaz ohi baino beteago eta **zerutar** gurarien sugarretan isiotuago, jainko-dohainen isuri oparoa sentitzen hasi zen.* Elizen arteko biblia

*Aita txit santuak beretzat eta beretarrentzat nahi izan duena [...] **zerutar** jakintzaren jarduera guztietan eta perfekzio gorenaren bilaketan.* Askoren artean

*Kontzeptu politikoak [...] arimaren -arima alde batetik esentzialki **zerutar**, bestetik orain gaixotuaren- kategorietan pentsatzen badira, [...].* Joxe Azurmendi

*Amaren begiratua baldin bada lurtarra, zeinek ukatu guri **zerutarra** dela lurra.* Berria - Kultura

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
> **gauza zerutarrak** (3); **zerutar izakien** (3); **zerutarra dela lurra** (4)
> **debot zerutiar** (3); **gorputz zerutiarrak** (3)

---

zerutiar ik **zerutiar**.

---

zerutikako ik **zeru 12**.

---

*zerutiko* ik **zeru 11**.

---

*zerutresna* ik **zeru 30**.

---

**zerutxo** *iz adkor zerua.*

*Nolanahi ere, [Peter]* ***zerutxo*** *bat da.* Josu Zabaleta

---

**zesar** *iz enperadorea.*

*Inperioaren bere berrantolaketan (292), bi* ***zesar*** *izendatu zituen, bi augustoei beren eginkizunetan laguntzeko: Galerio eta Konstantzio Kloro.* Juan Martin Elexpuru

*Hauxe bera gertatu zen Galerio* ***zesarrak*** *bultzatutako jazarpenaren ondoren, Dioklezianoren inperioaren azkenengo bi urteetan.* Juan Martin Elexpuru

*Soiltzea aurrerapena bada, asko aurreratu dugu horretan, gaur egungo* ***zesarrek*** *eta haien andreek arau bakarra baitute begiratzekoa: gizalegeko agertzearena, noski.* Joxerra Garzia

*Euskal-Herriko* ***Zesar*** *handia, aita-lehen eta guraso lehena, gure Albia zaharrean jaiotakoa.* Berria - Kultura

---

**zesarea** **1** *iz umekia umetokiaren horman ebaki bat eginez ateratzean datzan ebakuntza.*

*Haurra trabeska heldu zen eta,* ***zesarea*** *egin behar izan zioten.* Aingeru Epaltza

*Nire amak placenta praevia izan zuen -plazentaren askatze goiztiarra, alegia-, eta ni bide normaletik ateratzeko gauzak okertu zirenez,* ***zesarea*** *egin behar izan zioten. Txerriekin hasi omen ziren* ***zesareak*** *egiten, gero, dena ondo zihoala eta, emakumeekin probatu zuten.* Ramon Saizarbitoria

*Jakin dudanez, Zesar bera ere* ***zesarea*** *bidez jaio zen, eta horregatik esaten omen zaio operazio horri* ***zesarea****.* Ramon Saizarbitoria

**2** *(hitz elkartuetan)*

***Zesarea*** *ebakuntzak murrizteko, odoleko azido laktikoa neurtu eta hormonarik ez ematea aholkatu dute.* Berria - Gaiak

---

**zesargo** *iz enperadoregoa.*

*Federiko bera, munduko enperadorea, jaun handia eta tirano handia, Erromako diadema eraman zuten printzeetako azkena, bere* ***zesargoa*** *ez zegoelarik germaniar erregetzarekin bakarrik elkartua, Bizargorrirena bezala, baita Ekialdeko siziliar despotismoarekin ere.* Iñaki Mendiguren

---

**zesarismo** *iz pertsona batek botere osoa bereganatzen duen eta ondorengoa izendatzen duen sistema politikoa.*

*Gogoratu besterik ez dugu egin behar "erreserbako" barbaroek alboko zibilizazio baten erlijio nagusia hartzera jotzen dutela heresiaren forman [...] eta albo-estatu unibertsalaren* ***zesarismoa*** *erantzunbeharrik gabeko monarkiaren forman, ez tribu-legean baizik eta ospe militarrean oinarritua.* Iñaki Mendiguren

*Erroma, Aitasantutza eta Eliza erromatarraren* ***zesarismoa*** *egin dira Ebanjelioko izpiritua bihurritu eta mendebaldeko gizaerara egokitzearen kargu.* Patziku Perurena

*Beste garai bateko* ***zesarismoa*** *landu du.* Berria - Euskal Herria

---

**zesartar** *izlag Zesarrena, Zesarri dagokiona.*

*[Liu Pang-en] politika pixkanaka bere bidea egitea izan zen, bere aurrekoaren* ***zesartar*** *helmugarantz augustotar adostasun-itxuraren bidez iristeko.* Iñaki Mendiguren

---

**zesio**[1] *iz gai bakuna, sodioaren eta potasioaren taldekoa, zilarraren kolorekoa 28,6 °C-tan urtzen dena,(Cs; at. z. 55).*

***Zesio****-137 isotopo erradiaktiboak 45.260 kilometro koadro kutsatu zituen, Ukrainaz, Bielorrusiaz eta Errusiaz landa.* Berria - Gaiak

***Zesio*** *137 material erradioaktiboa atzeman zuten atzo Zumarragako Arcelor Alambron enpresara iritsitako altzairu hautsa zuen karga batean.* Berria - Euskal Herria

---

**zesio**[2] *iz uztea, lagapena.*

*Zer zentzu zuen atzerritik egindako* ***zesio*** *hark jadanik ezarritako zerbaitetan?* Iñaki Iñurrieta

---

**zesta** (orobat **zezta** g.er.) **1** *iz zesta-punta.*

*Hernandezek, aldiz, dena dauka* ***zestan*** *jokatzeko, primerako atzelaria da.* Berria - Kirola

*Iriondo-Rekalde palan eta Alberdi anaiak* ***zestan****, finalera.* Berria - Kirola

***Zestak*** *badu aurten bere txapelduna: [...].* Berria - Kirola

*Urrezko* ***Zestako*** *eta Urrezko Palako torneoek badute jabea: Goixerri-Lopezek irabazi dute* ***zestakoa*** *(30-25), eta Gaubeka-Garmak palakoa (45-39).* Berria - Kirola

*Mutrikuko udal pilotalekuak jaialdi mistoa izango du bihar arratsaldean (18:00), bertan* ***zestako*** *eta esku-huskako partidak jokatuko baitira.* Berria - Kirola

*Euskal Herriko Banakako Pala Txapelketa eta Binakako* ***Zestakoa*** *aurkeztu dituzte Deportivon.* Berria - Kirola

*Floridan,* ***zesta****, dirua baino ez da.* Berria - Kirola

*Baldako jaialdiak* ***zesta*** *hutsa baino gehiago dira, partida nagusiaz gain beste ekitaldi batzuk antolatzen dituztelako.* Berria - Kirola

**2** *(hitz elkartuetan)*

*Partidaren aurretik, antolatzaileek* ***zesta*** *eskolako gaztetxoekin amerikar erarako kiniela antolatu dute.* Berria - Kirola

***Zesta*** *munduko beste izen handi askok bezala, Jose Migel Arregik Atlantikoa zeharkatu zuen Floridako pilotalekuetan jokatzeko.* Berria - Kirola

*Paleta larruz, pala motza eta* ***zesta*** *modalitateetan, berriz, hasierako ligaxkak bukatu dira, eta final-laurdenak hasiko dira orain.* Berria - Kirola

*Durangoko San Faustoetako* ***Zesta*** *Torneoan.* Berria - Kirola

*Munduko* ***Zesta*** *Txapelketa.* Berria - Kirola

*Goikoetxea-Enbilek Baronio-Irastorzaren aurka jokatuko dute Munduko* ***Zesta*** *Txapelketako finala.* Berria - Kirola

*Bereikuak bereganatu du Euskadiko Banakako* ***Zesta*** *Txapelketa, iragarpen guztien kontra.* Berria - Kirola

**3** *zesta-puntan erabiltzen den xistera sakona.*

*Nik normalean hiru* ***zesta*** *erabiltzen ditut, baina bezperako finalerdian bi zahar erabili nituenez, finalerako beste berri bat nahi nuen.* Berria - Kirola

*Egigureni deitu nion, bera donostiarra da eta finalera joatekoa zenez badaezpada* ***zesta*** *bat eramateko esan nion.* Berria - Kirola

***Zesta*** *hautsi, eta Egigurenek utzi behar izan zizun, azaldu ezazu?* Berria - Kirola

*253 egun praka zuriak eta* ***zesta*** *jendaurrean jantzi gabe.* Berria - Kirola

**4 zesta-punta** (orobat **zestapunta** g.er. eta **zeztapunta** g.er.) plekako pilota jokoa, xistera sakonaz eta atxiki jokatzen dena.

*Enbilek begi onez ikusten ditu* ***zesta-punta*** *berpizteko egiten ari diren saioak.* Berria - Kirola

*12 1/4etan:* ***Zesta puntako*** *pilota partida.* Herria

*Bederatzi hilabete itxita pasatu ostean,* ***zesta-puntako*** *pilotaleku mitiko batek bere ateak irekiko ditu gaur.* Berria - Kirola

*Gizonak* ***zesta-puntan*** *jokatu, ikusi ditudan gehienak bezain ondo jokatu izan du.* Edorta Jimenez

*Kuban* ***zesta puntako*** *munduko kopa frantsesek irabazi, horra lehen berria.* Herria

***Zesta Puntako*** *Munduko kopa ere huna behingoan lehen sariarekin.* Herria

*Paueko pilotalekuak argi printza bat piztu du* ***zesta-punta*** *profesionalaren etorkizunean.* Berria - Kirola

**5** (hiru osagaiko hitz elkartuetan)

*Euskadiko* ***Zesta-punta*** *Txapelketaren finala gaur Gernikan: Lander-Enbil eta Bereikua-Iriondo.* Berria - Kirola

*Euskadiko Binakako* ***Zesta-punta*** *Txapelketako hiru partida jokatu ziren atzo Gernikan.* Berria - Kirola

*Mutrikuk aurtengo jaietarako antolaturiko* ***zesta-punta*** *torneoko lehen finalerdian.* Berria - Kirola

*Gotzon Enbilek, Zumaiako* ***zesta-punta*** *eskolako beste harribitxietako batek, inor gutxik erakuts dezakeen garaipen zerrenda lortu du azken urteotan.* Berria - Kirola

*Euskal Herriko* ***zesta-punta*** *denboraldiko azken txapelketa gaur arratsaldean jokatuko da Gernikan.* Berria - Kirola

**6 zesta-puntalari** (orobat **zestapuntalari**) zesta-puntan jokatzen duen pilotaria.

*Zestaoko Candido Ibar* ***zesta-puntalari*** *ohiaren semea da, eta Urtain boxeolari famatuaren iloba.* Herria

*Pablok ere pilotaren bidea hartua zuen, profesionaletan sartzekotan zagolarik* ***zesta-puntalari*** *gisa.* Herria

*Mizel THERET dantzaria, Xabier AMURIZA eta Xabier EUZKITZE bertsulariak, Mixel ITURRIA Xiberotar* ***zesta puntalaria***, *[...].* Herria

*Jai Alai hori pario leku da, euskal* ***zestapuntalariek*** *aratsetan jokatzen dituzten partidekin.* Herria

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
>
> **binakako zesta** (4); **euskadiko binakako zesta** (3); **euskadiko zesta** (8); **euskadiko zesta punta** (3); **euskadiko zesta txapelketako** (4); **euskal herriko zesta** (3); **munduko zesta punta** (3); **munduko zesta txapelketa** (5); **munduko zesta txapelketak** (3); **munduko zesta txapelketako** (6); **munduko zesta txapelketan** (3); **pala eta zesta** (4); **pala zesta** (3)
>
> **zesta punta** (46); **zesta punta txapelketa** (4); **zesta puntako** (7); **zesta puntan** (7); **zesta txapelketa** (8); **zesta txapelketak** (3); **zesta txapelketako** (12); **zesta txapelketan** (6)

---

## zestagile iz

*Hala, final egunerako hitzordua egin nuen* ***zestagilearekin*** *larunbat goizerako.* Berria - Kirola

---

## zestapunta ik **zesta 4**.

---

## zestapuntalari ik **zesta 6**.

---

## zestoar izlag/iz Zestoakoa, Zestoari dagokiona; Zestoako biztanlea.

*Zortzi lagunek osatzen dute Ttakunpa, eta gehienak zumaiarrak eta* ***zestoarrak*** *dira.* Berria - Kultura

*Berriako langile den Margari Eizagirre* ***zestoarra*** *ere, gaur pasatzekoa da epailearen aurretik.* Berria - Euskal Herria

***Zestoarrak*** *21 aldiz altxa zuen 125 kilokoa.* Berria - Kirola

*Kaputxinook, apaltasun-seinale gisa, norberaren herria izaten dugu deitura bakarra: lazkaotarrak Aita Lazkao eta* ***zestoarrak*** *Aita Zestoa.* Xabier Mendiguren Elizegi

***Zestoarrek*** *ezezkoa eman diote errausteari.* Berria - Euskal Herria

---

## zeta[1] (436 agerraldi, 122 liburu eta 28 artikulutan; orobat **seda** 77 agerraldi, 29 liburu eta 3 artikulutan) **1** iz zenbait intsekturen beldarrei darien gaia, zuntzak osaten dituena eta ehungintzan erabiltzen dena.

*Europa mendebaldeko jaun eta handikiek beren emazte zein amoranteentzat nahi zuten* ***zeta***, *pisurik ez duen oihala, emakumea jantzita ere biluzik bezala uzten duena.* Felipe Juaristi

*Suitzako erlojuak, Lyongo belusak eta* ***zetak***, *Ingalaterrako kotoiak, zalgurdi eta orga atalak, fruituak, lekaleak, [...].* Karlos Zabala

*Lehen motako trukeak mundu-sistema desberdinen artean gertatu ohi dira (adibidez,* ***zetaren*** *salerosketa Asiaren eta Europaren artean Erdi Aroan).* Koro Navarro

***Zetaz*** *eta satenez apainduta doa bere ezkontzara.* Lopez de Arana

*Bera ohean etzanda* ***zetazko*** *izara artean -oker ez banago-, ni botila bat xanpain eskuan gelan sartzen.* Ramon Saizarbitoria

*Haren* ***zetazko*** *jantzi arinaren pean sumatzen dira ere bi bular arin.* Aurelia Arkotxa

*Burdinazko eskua* ***zetazko*** *eskunarruaren barruan.* Edorta Jimenez

***Zetazko*** *banderatxoari luzaz begiratu ondoan.* Lopez de Arana

*Oihal handi fina izaten da,* ***zetazkoa*** *edo ehunezkoa, askotan kolore anitzekoa, gorputz guztia biltzen duena.* Gotzon Garate

*Eskuak leunak zeuzkan oso,* ***zeta*** *bezain finak, baina jela bezain hotzak.* Migel Angel Mintegi

*Materialari eskuetan jariatzen utzi zion,* ***zeta*** *baino suabeagoa, haizea bezain arina.* Iñaki Mendiguren

*Norbaitek* ***zeta*** *tarratatzen duenean bezala.* Joxe Austin Arrieta

*I. mendea: Asia erdialdea (egungo Uzbekistan barne),* ***Zetaren*** *Bide Handia deituaren zati garrantzitsua zen.* Berria - Harian

**2** (izenondoekin)

***Zeta*** *mehea zeharkaturik, eguzkiak kili-kiliak eragiten zizkion, bizkarra ferekatzen zion esku bat bailitzan.* Lopez de Arana

*XX. mendeko lehenengo DIUa Alemanian ezarri zioten emakume bati, 1909. urtean; uztai formakoa zen, eta* ***zeta*** *naturalarekin eta animali mintzarekin egina zegoen.* Luis Elberdin

*Urrin iraunkorra zen, larruazalari* ***zeta*** *finaren antzera itsasten zitzaiona.* Karlos Zabala

*Behin behean, eseri egin zen,* ***zeta*** *arrosa-kolorea orratzez eratxiki zuen belaun gainetan.* Mirentxu Larrañaga

*Inportazioko oso puru garestiak Tiborrentzat eta Endrerentzat, eta* ***zeta*** *lodizko xal more argi bat niretzat.* Ander Irizar

***Zeta*** *urdinezko gorbata bat zuan, amak txikitan egin zidana Lepo luzeko blusa* ***zeta*** *berdezko bat jantzita zeukan.* Lopez de Arana

*Ahotsak eskaileretan behera, gizon baten oinak botak jantzirik, neska baten oinak sandaliak jantzirik,* ***zeta*** *arrosazko hankak.* Lopez de Arana

**Zeta** arrezko kasaka polit higatu bat zeraman, forruzkoa zirudiena. Fernando Rey

Masustondozko gider luzeko mandolina, **zeta** bihurrituzko bi hari besterik ez duena eta tonu laurdenetan gozatua dagoena. Karlos Zabala

Barnealdea **zeta** zeru-urdinez forratua zuen kotxe baten atzealdean. Xabier Olarra

**Zeta** metalizatua estalki modura erabiltzen baitzen hegazkinetan. Berria - Euskal Herria

1931n asmatu zuten mikroskopio elektronikoa eta ondoko urtean, **zeta** artifiziala nola bideratu aztertzen ari zirela, Wallace Hume Carothers eta bere taldeak erraz hausten ez zen zuntz gogor bat aurkitu zuten, plastikoan oinarritua: nylona. Pello Salaburu

**3** (hitz elkartuetan)

Kondesak berak aukeratzen zituen, urtero-urtero, paretetarako **zeta**-oihalak. Xabier Olarra

Aire librean utzi diren **zeta** puskak bezala. Koldo Izagirre

Bertan naftalina- eta **zeta**-usaina nabarmena zen, aulki batean botatako arropari zeriona. Lopez de Arana

Gako batetik dilindan zegoen **zeta**-antzeko zerbaitek kilikak eragiten zizkion belarrietan. Lopez de Arana

Disimilazio molekularra; hartzidura; berezko delako sortzea; ardoari buruzko ikerketak; **zeta**-harraren eritasuna; garagardoari buruzko ikerketak. Juan Garzia

**Zeta**-tximeleta emeak oso urrutitik erakartzen ditu arrak. Irene Aldasoro

**hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**

**zeta arrosazko** (6); **zeta beltzezko** (4); **zeta bezain** (4); **zeta gorrizko** (4); **zeta puruzko** (3)

**zetazko alkandora** (4); **zetazko arropa** (3); **zetazko atorra** (4); **zetazko gorbata** (3); **zetazko hari** (3); **zetazko izara** (3); **zetazko izara artean** (3); **zetazko jantzi** (5); **zetazko oihal** (8); **zetazko oihalak** (4); **zetazko paper** (4); **zetazko paperean** (3); **zetazko pijama** (3); **zetazko soineko** (10); **zetazko zapi** (14); **zetazko zapi bat** (4)

---

## zeta[2] iz alfabetoko letra (z, Z).

Gizon hori apaizkume bat da eta... esan nahi dut, atzerakoi bat, bere arima bezain beltza, eta "esku" hitza **zeta** batez idatzi banu ere ez zukeen txintik aterako ni gaizki geratzen uztearren. Koldo Biguri

On Camilloren begietara jauzi egin zuen lehen gauza "demokratzia" bat izan zen, te eta **zeta** ondo nabarmenez idatzia. Koldo Biguri

Eta zio esaten zuen aldiro, ia modu komikoan markatzen zuen **zeta**. Anjel Lertxundi

Etxera bidean sute-eskailerek eman didate atentzioa: bata bestearen gainean jarritako **zeta** hizkiak dirudite hauek. Harkaitz Cano

---

## zetabe iz bahe mota.

Bahearen sarea larriagoa eta metalezkoa, **zetabearena** xeheagoa eta telazkoa... Herria

---

## zetaka iz itsatsirik geratzen den lohitasuna; orbana.

Azalean, argi eta garbi, **zetaka** horixka bat nabarmentzen zen. Alberto Ladron Arana

Horregatik lurra toki askotan **zetaka** gorriz ikusiko duzu, zangoz leherturiko zomorroak balira bezala. Gotzon Garate

Tabako-**zetaka** horixka ezabaezin bat gelditu zen. Alberto Ladron Arana

Odol **zetaka** ilun batek blaitzen zion atorra garestia, eta emeki-emeki hedatzen zen zoruko zurajean barrena. Alberto Ladron Arana

---

## zetar izond zeta zuntzarena, zetari dagokiona.

Beste adibide bat erabiliz erakargarritasunik eza erakusteko, joera baino, tximeleta **zetarrak** kapulua egiteko daukan sena aipa dezakegu. Jenaro Garate

---

## zetatsu (orobat **sedatsu**) izond ileaz mintzatuz, zetaren nolakotasuna duena.

Gaztaina koloreko ilea du, eskuekin oratzeko baino **zetatsuagoa**. Juan Martin Elexpuru / Bego Montorio

Une batetik bestera desagertuko zitzaidan beldurrez, ukitu nion, laztandu nion, ferekatu nion ile **zetatsua** Sarari. Patxi Zubizarreta

Arretarik handienaz zaintzen zituen bere ile hori **sedatsua** eta bibotea, eta perfumea erabiltzen zuen, diskretuki, eskuzapian. Irene Aldasoro

---

## zetazeo iz arrain itxurako ugaztuna, eskuarki handia eta itsasoan bizi dena.

**Zetazeoak** babesteko neurri zorrotzagoak hartzeko eskatu du WWFk. Militarrek erabilitako sonarrak dira **zetazeoen** hondartze eta hiltzearen arrazoi nagusia. Berria - Gaiak

NATOk onartu du 180 dezibeliotik gorako soinu intentsitateak kaltea eragiten diela **zetazeoei**. Berria - Gaiak

WWFren arabera, sei **zetazeo** espezie desagertzeko arriskuan daude. Berria - Gaiak

Asko dira, bestalde, nahi gabe arrantzatutako **zetazeoak** ere. Berria - Gaiak

---

## zeton izond

Baita Dunedain basatiak ere, Iparraldeko Mendikariak, Lebennin, Lamedon eta Hegoaldeko feudoetako gizonen armadaren buru **zetonak**. Agustin Otsoa

---

## zetro iz metal bikainezko makila bitxiduna, erregeek eta kidekoek aginpidearen ezaugarri erabiltzen dutena.

Ez da ona askoren buruzagitza; izan dadila bat eta bakarra buruzagi, bat eta bakarra errege, berari eskaini baitizkio Kronosen seme zuhurrak **zetroa** eta legeak, horien bidez Biltzarrean erabakiak har ditzan. Askoren artean

Buruan koroa; **zetroan** bitxiak. Anton Garikano

Ondoren Zisnea; honen eskuineko hegalak Cefeoren eskua eta **zetroa** ukitzen ditu, eta ezkerreko hegala Casiopearen gainean geratzen da. Santiago Iruretagoiena

Oraindik neure pertsona xixtrinaren gainean pausaturik zituen begiak, eskuan zeukan **zetroko** bola bezain borobilak. Matías Múgica

Honela, erregeak erahilik, tronuen lehen maiestatea eta **zetro** harroak lurjota zeutzan. Xabier Amuriza

Hantxe nintzen mugitu gabe, txiki eta penagarri, koloso horailaren eta haren **zetro** beldurgarriaren aurrean. Matías Múgica

---

## zeu 1 izord zu; zu-ren forma indartua. ik **zerori**.

**Zeu** maite zaitut, Patricia. Joseba Sarrionandia

**Zeu** zara zeure burua babestu behar duena. Sonia Gonzalez

**Zeu** izan zinen San Roke festetako numero nagusia, anarkista italiar bat urkamendian. Koldo Izagirre

**Zeu** izango zara, bada, nire jauregiko buru, eta zuk esana egingo du herri osoak.

Zeure presentzian, **zeu** aurrean zarela. Xabier Kintana

Azken batean **zeu** mareatuko zaituzte. Anjel Lertxundi

Zoaz **zeu** afalorduan eta entreteni ezazu gure "Zaldi-musu", txotxoloa. Mirentxu Larrañaga

Ez, ez, **zeu** zara gonbidatua. Joseba Sarrionandia

Eta **zeu** bakarrik heldu zara? Joseba Sarrionandia

Bai, zuk, ahulena **zeu** zara eta. Migel Angel Mintegi

Jar zaitez ba **zeu** sukaldari! Koldo Izagirre

Bedeinka zaitzatela Jaunak zerutik **zeu** eta zeure emaztea. Elizen arteko biblia

Oroit zaitez nola etorri zinen **zeu** hona. Hasier Etxeberria

Koitadua **zeu**, trapuan pupua baizik ez duen gaizo hori. Hasier Etxeberria

Puzzle horretako osagaia zinen **zeu** ere. Oskar Arana

Etxe honetan, izan ere, ez gaude seguru, ez ni eta ezta **zeu** ere. Migel Angel Mintegi

Aurrera zoaz etengabe, motorrak gau eta egun martxan baitabiltza, entzuten dituzu, sentitzen dituzu, eta **zeu** ere etengabe aurrera zoaz, baina, mugitu, eguzkia bakarrik mugitzen da, edo ilargia. Joxe Austin Arrieta

-**Zeu** ere ez zara hemengoa, ezta? -galdetu zion Malcok. Unai Elorriaga

-Zu **zeu** nahi zaitut, horra -gizonak, ausarkeria harrigarriz. Patxi Zubizarreta

Jakin bezate zure eskua dela, zu **zeu**, Jauna, nire alde ari dena. Elizen arteko biblia

Eromena, batzuetan, horixe besterik ez da, antza: zeure buruaren oharmena erauzten dizun zirimola bat; orduan, ez zara zu **zeu**, zirimola bera baizik. Juan Kruz Igerabide

Nik ez dakit besterik eskatzen zu **zeu** izan ezik, ez baitut irrikatzen beste ezer. Askoren artean

## *2* (nork kasuan)

Gauzen izaera **zeuk** gobernatzen baituzu, eta zu gabe ez baita ezer argitara irteten. Xabier Amuriza

**Zeuk** bota ninduzun eta! Josu Zabaleta

**Zeuk** eman zenion lantegiko nominak lapurtutakoan lortutako diruaren erdia. Rafa Egiguren

Pantxo zure anaia balitz, **zeuk** joan beharko zenuke basomutilei otordua eramatera, Adela. Bernardo Atxaga

Izan ere, **zeuk** bakarrik sosega ditzakezu hilkorrak bake lasaiz. Xabier Amuriza

-Atera **zeuk** likorea -esan zidan, kikara bat nire aurrean jarri eta gero-. Migel Angel Mintegi

Eta **zeuk** ikus, beraz, nola eta non elkartuko garen. Txillardegi

Ba **zeuk** joan beharko duzu zeure bila, eta **zeuk** aurkitu semaforoa pasatzeko arrazoia. Pako Aristi

-**Zeuk** esan zein egunetan, han izango naiz. Oskar Arana

**Zeuk** erantzun! Joseba Sarrionandia

-Ba, hain buruargia bazara, egizu **zeuk** -erantzun zion Ronek purrustaka. Iñaki Mendiguren

Azkenik, intsumiso euskaltzaleak, **zeuk** maitasunez tratatuak. Markos Zapiain

Prest nago guztiaren ordaina emateko, **zeuk** deritzozun eran. Askoren artean

**Zeuk** aireratutako kaka zaharrak. Hasier Etxeberria

Erostazu **zeuk**, nik ez dut erosi nahi. Elizen arteko biblia

**Zeuk** ere bai, Patri, **zeuk** ere bai. Hasier Etxeberria

-Tori, edazu **zeuk** ere; konpainiarik gabeko edana ez da batere ona. Anjel Lertxundi

Jo **zeuk** ere tragoxka bat. Mirentxu Larrañaga

-Zuk **zeuk** aipatu zenuen, ez nik. Oskar Arana

Baina, Jainkoarren, zuk **zeuk** denok hilobiratuko gaituzu eta. Patxi Zubizarreta

Ikusiko duzu zuk **zeuk** izan nahi duzula izakietan handienarengandik izatea hartu duzulako. Imanol Unzurrunzaga

Ez al zenidan zuk **zeuk** esaten Monalisarena nuela irribarrea? Xabier Mendiguren Elizegi

## *3* (nori kasuan)

Zer iruditzen zaizu **zeuri**, Patri? Hasier Etxeberria

Konta iezadazu zeozer **zeuri** buruz. Joseba Sarrionandia

Zoaz, bada, orain, zeharka ezazu lurralde hau, luze eta zabal, **zeuri** emango baitizut. Jose Antonio Mujika

**Zeuri** -eta geuri- dagokizunez, ez zinen nire lagun bakarra eta banituen adiskide minagoak. Xabier Mendiguren Elizegi

**Zeuri** eta zeure ondorengoei emango dizuet Abrahami eta Isaaki agindu diedan lurraldea. Elizen arteko biblia

Haren bular tinkoetan aurkitu zenuen **zeuri** ihes egina zitzaizun denbora gaztearen zantzua. Hasier Etxeberria

Guztiagatik eskerrak eman diezazkizula Espiritu Santu Laguntzailearekin batera, **zeuri** eta berari atsegin zaizuen bezala. Askoren artean

Mesede egingo dizu **zeuri** ere. Anjel Lertxundi

Baina ez nizuke holakorik gomendatuko **zeuri** ere on egingo ez balizu! Pako Aristi

## *4* (bestelakoak)

Hartara, ez izan atsegin **zeugan**, egin zintuen harengan baizik. Imanol Unzurrunzaga

Berri ezazu zeure bulkoa, sortu **zeugan** ekaitza, maita, desira, eska eta akuila maitasuna. Joan Mari Lekuona

## *5* (noren kasuan) ik **zeure**.

### hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

**orain zeu zara** (5); **zaitez zeu** (6); **zara zeu** (8); **zara zeu ere** (5)

**zeu al zara** (4); **zeu baino** (6); **zeu bakarrik** (6); **zeu be** (5); **zeu ere** (79); **zeu ere ez** (6); **zeu eta zeure** (5); **zeu eta zure** (3); **zeu etorri** (4); **zeu ez** (3); **zeu gurekin** (3); **zeu gurekin ez** (3); **zeu izan** (15); **zeu izan ezik** (3); **zeu izan zinen** (3); **zeu izanen** (4); **zeu izanen zara** (4); **zeu izango** (18); **zeu izango zara** (12); **zeu maite** (4); **zeu maite zaitut** (3); **zeu zaitut** (3); **zeu zara** (89); **zeu zara nire** (5); **zeu zara zure** (3); **zeu zarela** (17); **zeu zaren** (3); **zeu zarena** (4); **zeu zarena zarelako** (4)

**zinen zeu** (6); **zinen zeu ere** (4); **zoaz zeu** (6); **zu zeu** (115); **zu zeu ere** (5); **zu zeu eta** (7); **zu zeu izan** (3); **zu zeu zara** (8); **zu zeu zarela** (6)

**diozu zeuk** (3); **duzu zeuk** (13); **duzu zeuk ere** (3); **duzu zuk zeuk** (4); **egizu zeuk** (6); **erostazu zeuk** (3); **esaiozu zeuk** (3); **ez duzu zeuk** (3); **ezazu zeuk** (3)

**zeuk aipatu** (3); **zeuk aukeratu** (4); **zeuk bakarrik** (14); **zeuk bota** (3); **zeuk deitu** (4); **zeuk diozu** (4); **zeuk duzu** (5); **zeuk duzu giltza** (3)

**zeuk egin** (15); **zeuk egin zenuen** (3); **zeuk egina** (3); **zeuk egindako** (3); **zeuk eman** (10); **zeuk ematen** (3); **zeuk erabaki** (11); **zeuk eramango** (3); **zeuk ere** (79); **zeuk ere ez** (9); **zeuk esan** (37); **zeuk esan duzu** (10); **zeuk esan zenidan** (3); **zeuk esana** (5); **zeuk esana da** (4); **zeuk eta zure** (3); **zeuk ezagutu** (3); **zeuk hala** (3); **zeuk hartu** (3); **zeuk hitz** (6); **zeuk hitz eman** (4)

**zeuk ikus** (4); **zeuk ikusi** (15); **zeuk ikusi zenuen** (3); **zeuk ikusiko duzu** (9); **zeuk izan** (4); **zeuk jakingo** (8); **zeuk jakingo duzu** (7); **zeuk nahi** (26); **zeuk nahi duzuna** (8); **zeuk nahi izan** (3)

**zeuk onartu** (4); **zeuk onartu duzu** (3); **zeuk sartu** (3); **zeuk sortu** (3)

**zeuk utzi** (3); **zeuk zaindu** (4); **zeuk zeure** (5)

**zuk zeuk** (125); **zuk zeuk egin** (4); **zuk zeuk erabaki** (3); **zuk zeuk ere** (8); **zuk zeuk esan** (5); **zuk zeuk ez** (4); **zuk zeuk ikusi** (5); **zuk zeuk izan** (3); **zuk zeuk onartu** (3)

**zaizu zeuri** (3); **zeuri begira** (4); **zeuri buruz** (3); **zeuri dagokizu** (5); **zeuri ere** (9); **zeuri eta zure** (4)

---

**zeuek** izord **1** zuek izenordainaren era indartua.

*Apal zaitezte* ***zeuek*** *ere, berak goraltxa zaitzaten.* Askoren artean

*-Edo* ***zeuek*** *al zarete otsoak?* Koldo Izagirre

*Ut, ut,* ***zeuek*** *izango zineten lehendabizikoak ni gelatik ostikoka botatzen haren izena aipatze hutsagatik.* Anjel Lertxundi

***Zeuek*** *zaituztet lekuko: ba ote da ni beste jainkorik?* Elizen arteko biblia

**2** (nork kasuan)

*Frantsesak,* ***zeuek*** *eman behar dituzue lehenengo kolpeak.* Juan Martin Elexpuru / Bego Montorio

*Ni* ***zeuek*** *lotu beharko nauzue urkabean.* Koldo Izagirre

*-* ***Zeuek*** *esan eguna.* Jon Arretxe

*Neure burua eskaintzen dizuet, aholkua, laguntza eta babesa emateko,* ***zeuek*** *nahi duzuen erara.* Askoren artean

*Esan israeldarrei:* ***zeuek*** *ikusi duzue nola mintzatu natzaizuen zerutik.* Elizen arteko biblia

***Zeuek*** *hildako animalien larru eta hezurrak.* Joseba Sarrionandia

***Zeuek*** *zeuen federik ez dutenak tratatzen dituzuen bezala tratatzen zaituztegu guk bezala sinesten ez duzuenok.* Iñaki Iñurrieta

*· Orduan,* ***zeuok*** *ere zeuen gutuna uztea erabakiko duzue.* Joseba Sarrionandia

**3** (nori kasuan)

*Neuk emango dizuet jaten* ***zeuei*** *eta zuen seme-alabei.* Elizen arteko biblia

*Zuen gurasoei eta* ***zeuei*** *eman nizuen lurralde honi.* Elizen arteko biblia

*Besarkada bero bat* ***zeuei****, beti gogoan xeraz eta esker onik handienaz izaten den honek.* Edorta Jimenez

**4** (noren kasuan) ik **zeuen**.

**hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**

**eman zeuek jaten** (3); **izan gogoan zeuek** (4)

**zeuek atera** (3); **zeuek ere** (18); **zeuek ere esklabo** (4); **zeuek esan** (4); **zeuek eta zuen** (3); **zeuek ez** (3); **zeuek ikusi** (5); **zeuek nahi** (5); **zeuek nahi duzuen** (3); **zeuek zarete** (6)

**zeuei eta zuen** (3)

---

**zeuen** zeuek-ek -hots, zuek izenordainaren genitiboak-, perpauseko nor, nori edo nork osagaiari dagokionean har dezakeen era; zeure-ren indargarria. ik **zeuek**.

*Ai zuek,* ***zeuen*** *begitan jakintsu,* ***zeuen*** *ustetan zentzudun zaretenok!* Elizen arteko biblia

***Zeuen*** *zakil-muturra erdainduko duzue, nire eta zuen arteko itunaren seinale.* Jose Antonio Mujika

*Begira Abrahami,* ***zeuen*** *aitari.* Xabier Kintana

*Zergatik ez zaudete* ***zeuen*** *logelan?* Iñaki Mendiguren

*Orduan, zeuok ere* ***zeuen*** *gutuna uztea erabakiko duzue.* Joseba Sarrionandia

*Beraz, ez sartu muturrik horretan,* ***zeuen*** *onerako da-eta.* Iñaki Mendiguren

*-Zuei bost axola Gryffindor, zuei* ***zeuen*** *burua bakarrik axola zaizue.* Iñaki Mendiguren

---

**zeuenganatu,** zeuengana(tu), zeuenganatzen du ad zeuengana ekarri, zeuen bihurtu.

*Saia zaitezte Jesu Kristo gure Jaun eta Salbatzailea gero eta gehiago ezagutzen eta haren onginahia* ***zeuenganatzen****.* Elizen arteko biblia

*Nire herriko jendea* ***zeuenganatu*** *nahi duzue zeuen probetxurako.* Elizen arteko biblia

*Horrela, kristau ez direnen errespetua* ***zeuenganatuko*** *duzue, eta ez duzue inoren beharrik izango.* Elizen arteko biblia

*Ez erakarri heriotza zeuen bizitza okerbideratuz, ez* ***zeuenganatu*** *hondamendia zeuek egindakoaz.* Elizen arteko biblia

---

**zeuenkoi** izond pluraleko bigarren pertsonan aipatzen direnez mintzatuz, bere nahi edo interesari soilik begiraturik jokatzen duela adierazteko erabiltzen duen izenondoa.

*Emakumeak hain zarete* ***zeuenkoiak****!* Lopez de Arana

---

**zeure** zure-ek -hots, zu izenordainaren genitiboak-, perpauseko nor, nori edo nork osagaiari dagokionean har dezakeen era; zure-ren indargarria. ik **zeu**. (ikus beheko konbinatorian zeure adizlagunaren agerraldi maizkoenak)

**hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 6 aldiz agertzen direnak)**

**al duzu zeure** (14); **behar duzu zeure** (7); **da zeure** (14); **didazu zeure** (7); **diozu zeure** (45); **diozu zeure buruari** (24); **dituzu zeure** (32); **dizut zeure** (7); **dut zeure** (6); **duzu zeure** (199); **duzu zeure burua** (71); **duzula zeure** (8); **duzun zeure** (11)

**egin zeure** (6); **egiozu zeure** (10); **egiten duzu zeure** (6); **eman zeure** (9); **erakutsi zeure** (6); **esan duzu zeure** (6); **esan zeure** (6); **eutsi zeure** (8); **ez diozu zeure** (6); **ez duzu zeure** (30); **ez ezazu zeure** (6); **ez jarri zeure** (7); **ez utzi zeure** (8); **ezazu zeure** (52); **ezazu zeure burua** (9); **ezazu zeure zerbitzari** (6); **gorde zeure** (6); **harremanik izango zeure** (9); **hartu zeure** (10)

**iezaiozu zeure** (10); **ikusi duzu zeure** (8); **ikusten duzu zeure** (25); **itzazu zeure** (18); **itzul zaitez zeure** (15); **izan zeure** (7); **izango zeure** (13); **jarri zeure** (13); **jaunak zeure** (6); **lagun hurkoa zeure** (11); **nauzu zeure** (10); **nazazu zeure** (18); **niri zeure** (14); **niri zeure arauak** (6)

**orain zeure** (9); **saldu zeure** (10); **saldu zeure ondasunak** (8)

**utzi zeure** (15); **zaindu zeure** (9)

**zaitez zeure** (42); **zaitu zeure** (6); **zaitut zeure** (7); **zara zeure** (28); **zenion zeure buruari** (9); **zenuen zeure** (27); **zenuen zeure burua** (7); **zenuke zeure** (12)

**zeure aberastasuna zeruan** (8); **zeure ahalmen** (7); **zeure ahalmena** (6); **zeure ahalmenaz** (9); **zeure aita** (12); **zeure aitaren** (23); **zeure ama** (7); **zeure amak** (7); **zeure anaia** (18); **zeure arauak** (7); **zeure arima** (12); **zeure artean** (8); **zeure aurpegia** (12); **zeure aurrean** (15); **zeure aurretik** (8); **zeure baitan** (39); **zeure baitatik** (11); **zeure barnean** (7); **zeure barruan** (6); **zeure begiak** (11); **zeure begiz** (7); **zeure bekatuak** (6); **zeure bidea** (6); **zeure bidetik** (8); **zeure bihotz** (7); **zeure bihotza** (10); **zeure bihotzean** (9); **zeure bizia** (10); **zeure bizitza** (18); **zeure bizitza osoan** (6); **zeure bizitzaren** (6); **zeure borondatez** (7); **zeure buru** (7); **zeure burua** (344); **zeure burua bezala** (12); **zeure buruan** (11); **zeure buruarekin** (24); **zeure buruaren** (28); **zeure buruaren jabe** (7); **zeure buruari** (141); **zeure buruaz** (20)

**zeure egoitza** (8); **zeure emazte** (10); **zeure emaztea** (6); **zeure errua** (8); **zeure erruki** (8); **zeure esku** (36); **zeure eskuz** (11); **zeure etxean** (12); **zeure etxeko** (7); **zeure etxera** (9); **zeure gain** (13); **zeure gogara** (10); **zeure gorputza** (9); **zeure haserre** (9); **zeure herri** (24); **zeure herri israelen** (6); **zeure herria** (30); **zeure herriaren** (7); **zeure herriari** (11); **zeure herriko** (7)

**zeure indar** (9); **zeure indarra** (7); **zeure indarraz** (6); **zeure inguruan** (8); **zeure izen** (7); **zeure izena** (7); **zeure jainkoa** (29); **zeure jainkoak** (16); **zeure jainkoaren** (16);

**zeure jainkoari** (8); **zeure jaunaren** (7); **zeure kabuz** (19); **zeure kasa** (7); **zeure kontra** (6); **zeure lana** (6); **zeure lehen** (6); **zeure maitasun** (11); **zeure maitasuna** (6); **zeure mirabe** (10); **zeure morroi** (13); **zeure morroi honi** (7); **zeure nagusiari** (6)

**zeure ondasun** (7); **zeure ondasunak** (12); **zeure ondoan** (6); **zeure onera** (8); **zeure onerako** (8); **zeure promesaren** (6); **zeure seme** (47); **zeure seme alabak** (8); **zeure semea** (7); **zeure semearen** (6); **zeure sinesmenak** (7)

**zeure zerbitzari** (62); **zeure zerbitzari davidi** (8); **zeure zerbitzari hau** (6); **zeure zerbitzari honen** (6); **zeure zerbitzari honi** (13); **zeure zerbitzarioi** (7); **zeure zeurea** (6)

**zoaz zeure** (12); **zoaz zeure bidetik** (6); **zu eta zeure** (7); **zu zeure** (11); **zuk zeure** (49); **zuk zeure burua** (7)

**zeure zeurea** (6); **zeurea da** (9)

**zeurekin izango** (17); **zeurekin izango nauzu** (10)

---

## zeureganatu, *zeuregana(tu), zeureganatzen du ad zeuregana ekarri, zeure bihurtu.*

*Zertarako **zeureganatu** mundu osoa, baldin arima galtzen baduzu?* Joan Mari Irigoien

*Nola lortuko duzu Lupe **zeureganatzea**?* Hasier Etxeberria

*Zeure aholkuz nauzu gidatuko eta, azkenik, ospez **zeureganatuko**.* Elizen arteko biblia

*Hori lortuz gero, hortik aurrerakoa erraza zenuke: gauza onak **zeureganatu** eta txarrak baztertu.* Pako Aristi

*Ene seme, egidazu jaramon, **zeureganatu** gogo onez nire ikasbideak.* Elizen arteko biblia

*Emakume krudela, ba ote niretzat zuk **zeureganatu** ez duzun zorionik?* Jon Muñoz

*Adiskideen arreta **zeureganatzen** saiatu zara.* Rafa Egiguren

*Liburuetan aurkitzen dituzu, aipu horiek zure baitako hariak dardararazten dituzte, eta horregatik jasotzen dituzu, bat etortze horren funtsaz jabetu nahian; haietan datzan jakituria **zeureganatzeko**.* Iñaki Iñurrieta

---

## zeurekoi *izond singularreko bigarren pertsonan aipatzen direnez mintzatuz, bere nahi edo interesari soilik begiraturik jokatzen duela adierazteko erabiltzen duen izenondoa.*

*Nik garbi hitz egingo nioke zure lagun horri; esango nioke: Gizon **zeurekoia**, anker samarra, indartsua, osasuntsua, zeure oinazeak pairatzen dakizuna eta inoren sufrikarioetarako bihotz-itxia zara?* Josu Zabaleta

*-**Zeurekoia** zara, gero!* Sonia Gonzalez

*Hain **zeurekoia** ez bazina, ez zenuke hori ahaztuko.* Joanes Urkixo

*Oso **zeurekoiak** zarete benetan.* Iñaki Mendiguren

***Zeurekoi** hutsa zara.* Josu Zabaleta

---

## zeurekoikeria *iz zeurekoi-ri dagokion nolakotasuna.*

*Zugan ez balego bezala itxurak eginez, ez al zitzaizun gailendu, orduan ere, **zeurekoikeria**?* Hasier Etxeberria

*Pentsamenduak eten egin direla eta **zeurekoikeriak** bizi zaituela.* Hasier Etxeberria

*-Krudelkeria ez, hori **zeurekoikeria** galanta da!* Pako Aristi

---

## zeuretar *iz zeure familiakoa, artekoa, aldekoa, alderdikoa den pertsona.*

*Esadazu, bada, zergatik egin duzun ihes **zeuretarretik** eta guregana etorri.* Jose Antonio Mujika

*Bekatu eginda ere, zureak gara, zure agintea aitortzen baitugu; baina ez dugu bekatu egingo, bai baitakigu **zeuretartzat** gauzkazula.* Elizen arteko biblia

*Agiraka egiten duen aitak bezala probatu zenituen **zeuretarrak**, baina errege errukigabeak bezala aztertu eta kondenatu zenituen besteak.* Elizen arteko biblia

*-Ba al duzu beste **zeuretarrik** hemen?* Jose Antonio Mujika

---

## zeuretu, *zeure(tu), zuretzen du ad zeure bihurtu.*

*Kasurik gehienetan, lehen harremanean solaskidearena baino goragoko maila bat **zeuretzea** edo zeuretzat irabaztea komeni da: ezarian irabazi, hala ere, onez onean, hura uxatu edo eta nabarmenegi goitu gabe.* Juan Garzia

*Gizonaren indarra baino gehiagoko zorabioa sentitzen nuen haren ondoan, Atxikiezina, Ikusezina, Hila **zeuretzeak** ematen duen poz sakon, azaldu ezina.* Josu Zabaleta

---

## zeurok *izord zeuek.*

*-Zerbitzatu **zeurok**, jaunok.* Irene Aldasoro

*-**Zeurok** arduratuko zarete, orduan? -esan zuen aleman-jatorria adierazten zuen frantses behartu batez.* Anjel Lertxundi

*Nolanahi, lagunok, izar-lokei begira, ez jarri gero **zeurok** koloka, seko lokatuta.* Pello Zabala

*Santosek esan zidanagatik, **zeuroi** kontatutakoaren oso antzekoa azaldu zidan niri ere.* Josu Landa

*Nik esaten dizuet: maita itzazue **zeuron** etsaiak eta on egin ezaiezue gorroto zaituztenei.* Patxi Altuna

*Ni ez nintzen nahikoa heldua **zeuron** ahotik horrelakorik jakiteko.* Josu Landa

---

## zezeil *iz otsaila.*

*Kepa 1944ko **zezeilaren** 14an jaio zan, Plentziako Isuzkitza auzoko Sitse baserrian.* Xabier Amuriza

***Zezeil** batean hil zan eta aurreko zemendian gaixotu.* Xabier Amuriza

*Gerrea akabau aurretik, **zezeilaren** 27an ezagutu eben ingelesek Francoren gobernua.* Lutxo Egia

---

## zezel *1 izond hitzak ongi ebaki eta ahoskatu gabe mintzatzen dena.• hed*

*"Jeggtse edegg bat egin behagg dut", esaten zuen bere ahoskatze **zezelarekin**, erre-merreka.* Fernando Rey

**2** *(hitz elkartuetan bigarren osagai gisa, elkarketak izenondo balioa duela)*

*Hire aitatxori ikasitako errezetarekin, erantzun zion Marckek, artean oka eta hizketan orduantxe ikasi izan balu bezain ele **zezel**.* Anjel Lertxundi

**3** *(adizlagun gisa)*

***Zezel** eta zezelka, totelka ezinean dabilen negu udaberri girorako horretatik.* Pello Zabala

## **zezelarazi**, *zezelaraz, zezelarazten du ad zezeltzera behartu.*

*Gogo biziz ematen zien muin haur-gorputz atalen irudiei eta, bihotza urtzen zion Haurrarenganako gupidak hitz gozoak* ***zezelarazten*** *zizkion, haurren erara.* *Askoren artean*

---

## **zezeldu**, *zezel(du), zezeltzen* ***1*** *du ad zezelka esan.*

*"Ondo nago, aita",* ***zezeldu*** *zuen Adrianek.* *Bernardo Atxaga*

*-Lapur baten lana... -* ***zezeldu*** *nuen, entzuten ari nintzenak zozoloturik.* *Alberto Ladron Arana*

*-George, burutik zaude -* ***zezeldu*** *zuen eta bat-batean barreka hasi zen inozoki.* *Lopez de Arana*

*-Nire ustez -* ***zezeldu*** *zuen, eternitate baten buruan-, hobe genuke...* *Alberto Ladron Arana*

*-Eskerrik... eskerrik asko -* ***zezeldu*** *zuen Julenek, deseroso.* *Fernando Morillo*

*Sumintzen joan ahala hitzak ahoan pilatu zaizkio, eta, saio bat egin arren, hitz batzuk* ***zezeltzea*** *besterik ez du lortu: "... eskapo..." "...baino makurrago...".* *Pello Lizarralde*

*Nire eztarri lehorra erantzun ergelen bat* ***zezeltzeko*** *ahaleginetan ari zen bitartean, [...].* *Alberto Ladron Arana*

***2*** *irud/hed*

*Motoreak zerbait* ***zezeldu*** *zuen eta gero, marrumaka hasi zen.* *Lopez de Arana*

*Harenga horrek antz handiagoa daukalako fraideek handik sei edo zazpi mendetara botako dituzten prediku bihurriekin, orduan doi-doi* ***zezeltzen*** *hasten zen hizkuntza baten ahalmen laburrak eskain zezakeenarekin baino.* *Jon Alonso*

---

## **zezelka** *adlag hitzak ongi ebaki eta ahoskatu gabe. ik* ***zizaka****.*

*-U- U- Utismoa -esan zuen,* ***zezelka****.* *Xabier Olarra*

*-Ez, ez dakit -esan zuen* ***zezelka*** *-; hemen zen arestian, baina joan egin da berriz.* *Karlos Zabala*

*-Aski da, Jacques, aski da -esan nion* ***zezelka****.* *Josu Zabaleta*

*Hi haiz -esan zuen Quenuk* ***zezelka*** *-, itxaropenik ez nian kasik, alajainetan!* *Karlos Zabala*

*-Baina... adats hori bada, izan? -galdetu nion* ***zezelka****, harridurak, izumenak eta errukiak asaldaturik.* *Josu Zabaleta*

*Lisak ezetz esan zuen* ***zezelka****.* *Karlos Zabala*

*-Ikaragarri pozten naun -* ***zezelka*** *-.* *Aingeru Epaltza*

*Ahotsa doinuz aldatzen entzuten nion; negar egiten zuen,* ***zezelka****, hartu zuen agindu ezin eutsizkoak atsekabeturik, menderaturik.* *Josu Zabaleta*

*Lehenbiziko urte haietan baino askoz gehiago hitz egiten zuen, baina, Chrisek zioenez, ia* ***zezelka*** *hasten zen tarteka, aztoraturik.* *Xabier Olarra*

*Emakumeak erraz ito zezakeen: gizona* ***zezelka*** *ari da, hitz zentzugabeak esaka, begiak ixten ditu, negarrez hasten da, ezpainak kliskaka.* *Felipe Juaristi*

*-Nor zara zu, andrea? -galdetu zion Mikel Strogoffek hitzak* ***zezelka*** *esanez, ongi ahoskatu ezinik.* *Karlos Zabala*

*Hura ez zen hitz egitea,* ***zezelka*** *egitea zen.* *Koro Navarro*

***Zezelka*** *mintzatu zen segidan: [...].* *Patxi Zubizarreta*

*-Baina, egiatan... -egin zuen* ***zezelka****, eta ez zuen esaldia amaitu.* *Ibon Uribarri*

*Erdi* ***zezelka*** *esan zituen, bere lagunari begietara begiratu gabe-.* *Xabier Olarra*

---

## **zezelkatu**, *zezelka(tu), zezelkatzen du ad zezelka esan. ik* ***zezeldu; zizakatu****.*

*-Barka iezadazu, gehiegi ari naiz sufritzen -* ***zezelkatu*** *zidan.* *Josu Zabaleta*

*Atzera egin nuen, izumenak herbaldurik, ozta-ozta* ***zezelkatuz****: [...].* *Josu Zabaleta*

*-Ez, jauna... -* ***zezelkatu*** *zuen-, baina... bada... gela hori ez baita zabaldu... bada... hil zenetik.* *Josu Zabaleta*

---

## **zezelkatze** *iz zezelka esatea.*

*Jendearengan ikaragarria, barkaezina eta nazkagarria iruditzen zitzaion guztia maitagarri bilakatu zen bat-batean, hala nola diren haurtxoarengan maitagarriak helduen ibilera antzeratzeko ahalegin baldarrak, jenialtasun-txinpartek distirarazitako* ***zezelkatze*** *josigabea, oker eta hutsegite barregarriak eta kankateko mingarriak.* *Jose Morales*

---

## **zezen** ***1*** *iz behiaren arra. ik* ***xexen****.*

*-Denak behiak dira?* ***Zezenik*** *ez dago?* *Joxean Sagaztizabal*

*Haien* ***zezenak*** *huts egin gabe ernaltzen du, txahalik galdu gabe erditzen behia.* *Elizen arteko biblia*

*Arraza bereko behi eta* ***zezenetan****, batzu primatuak izan dira Akitaniatik kanpo direnak, Alpetan frango gora ere haziak berdin!* *Herria*

*Plaza* ***zezenak*** *jokatzeko erabiltzen zela ez zegoen dudarik, horixe adierazten zuten plazara begira zeuden balkoi guztien gaineko zenbakiek.* *Iñaki Iñurrieta*

*Hareatzan matadorea, honezkero zazpi banderilla iltzaturik dituen* ***zezenaren*** *bizkarrezurrean ezpata sartzen.* *Edorta Jimenez*

*Joxe Marik gelditu ninduen, zaldi baten trosta gelditzen duen* ***zezenak*** *bezala; biok lurrera erori ginen.* *Juan Kruz Igerabide*

*Leihoa itxi zuen* ***zezenen*** *marruma entzutean.* *Juan Garzia*

*Altzinoo eta uharteko feaziarrek hori ikusirik, Poseidonen ohorez hamabi* ***zezen*** *erre zituzten, uhartea mendi azpian ezkuta ez ziezaien.* *Juan Kruz Igerabide*

*Uste genuenean ezen* ***zezenak*** *betean eta ezinbertzean harrapatuko zuela, aitzitik, toreatzaileak* ***zezenari*** *burtzia sartu, eta zaldiak, bizpahiru jauzi bizkorretan,* ***zezena*** *saihesten zuen eta harenganik alde egiten eta urruntzen.* *Joan Mari Irigoien*

***Zezenei*** *banderilak sartzen dizkietenean bezala.* *Berria - Euskal Herria*

*Entzierroan korrika ari zela, adarra sartu zion* ***zezenak*** *ezkerreko ipurmasailean.* *Berria - Euskal Herria*

*Bere bigarren* ***zezenak*** *harrapatu egingo du Jose Amoros, gora altxatuko du, lepoan sartuko dio adarra eta, oso larri zauriturik, toreatzailea plazatik atera behar izango dute.* *Edorta Jimenez*

*Gizakia ez du jateak bakarrik mantentzen, eta hargatik du toreatzaile edo* ***zezen*** *-hiltzaileak* ***zezena*** *hiltzen, eta ez akabatzen.* *Iñaki Segurola*

*Txinan edo Irlandan ere* ***zezenak*** *jainkoen irudia hartu izan ohi du askotan: indarra, menderatzeko gogoa.* *Berria - Kultura*

*Urteetan aurrera joan arren,* ***zezena*** *dirudi.* *Berria - Kirola*

*· -Nork jarri kaskabiloa* ***zezenari****? -Luis Angelek.* *Iñaki Iñurrieta*

*Izan ere, idazle lotsati eta ausardia gutxiko garenok ere, zaila izan baitugu* ***zezenak*** *hesiaren bestaldetik lasai ikustea.* *Joseba Zulaika*

*Har dezagun* ***zezena*** *adarretatik.* *Xabier Olarra*

***Zezenari*** *adarretatik heltzeko unea zen.* *Migel Angel Mintegi*

***2*** *(izenondo edo izenlagunekin)*

*Harri beltz baten aurrean lepoa egin diet* ***zezen*** *sakratuei.* *Juan Garzia*

*Zezen* ederrak eta bikain haziak. Edorta Jimenez

*Zezen* handien eta publiko zorrotzaren feria da hemengoa. Edorta Jimenez

*Zezen* zangarra eta gartsua zen, gorria, gainerakoak bezala. *Zezen* gazteak, ahariak eta bildotsak. Joan Mari Irigoien

Ez harropuztu zeure burua handietsiz, zeure indarrak alferrik galduko zenituzke, *zezen* gazteak bezala. Elizen arteko biblia

Gerlari adoretsuen haragia jan eta munduko buruzagien odola edango dute, Baxango ahari, arkume, aker eta *zezen* gizenena balitz bezala. Elizen arteko biblia

Pospolo bat pizten zenean, haien buruek kulunka egiten zuten eta paretan zabaltzen ziren, eta txikiagotu eta handiagotu egiten ziren *zezen* hegodunen eta pertzen formak. Koro Navarro

Gizaki zezenburu bat ikusiko du, edo *zezen* erdigizaki bat. Iñaki Iñurrieta

Segi ezak Zurriolan behera, edo emaiok bazka suzko *zezenari* ! Joxerra Garzia

Behin garbikuntza-ohikunea amaituta, hartu akasgabeko *zezen* bat eta ahari bat. Elizen arteko biblia

Gero, barkamen-opariko *zezena* hartu eta erre egingo duzu horretarako ezarritako lekuan, santutegitik kanpo. Elizen arteko biblia

Minardi izena kendu eta Toro Rosso deitu zion Red Bull edo *zezen gorria* italieraz eta diru kopuru handia inbertitu. Berria - Kirola

## 3 (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

La Farge Estatu Batuetan country deitzen zaion musika egiten -sortzen eta abesten- duen kantari eta showman-a da: rodeo-etako zaldun, *zezen* -hezitzaile, bidaiari... J.M. Olaizola "Txiliku"

*Zezen* -hiltzea ere gauza arautu bat da, giza arrazoi bat duena, ez-si-eta-ez-no akabatze hutsa ez dena, nola bailitzateke zezenari buruan bi tiro eman eta bertan seko uztea. Iñaki Segurola

Plazatik kanpo bizi ziren donostiarrek eskubidea omen zuten *zezen* jokoa zenean hara joateko. Iñaki Iñurrieta

Hazparnek ez badu *zezen* jokoen ohidurarik, duela 250 urte hauetan behi lasterrak izaiten dira. Herria

*Zezen* korridak jende zibilizatu asko dibertitzen du oraindik. Joxe Azurmendi

Erran behar da bazela denendeko, kantu, antzerki, pilota, soinu, behi eta *zezen* harrapatze, zikiro... Herria

Gizon sendokotea zen hura eta *zezen* -lepoa zuen. Lopez de Arana

Uztailaren 18an faxistek odol-kolpea jo dute, eta kolpean amaitu dira uda hartako *zezen* -ametsak. Edorta Jimenez

Galizia kenduta, *zezen* narru osoa korrituta nago. Jokin Urain

Zurak *zezen* lekedarekin bakarrik bat egiten du eta oholen hariak maizago apurtuko dira, lekedaren itsaspena askatuko den baino. Xabier Amuriza

Etsaiek inguratzen naute, *zezen* -talde handia bailiran, basabere izugarriak bailiran. Elizen arteko biblia

Zeru zuriari orro eginik, *zezen* -saldotik urrun. Jon Alonso

Egiozu mehatxu Egiptori, kanaberadiko piztiari, haren *zezen* - eta zekor-tropelari. Elizen arteko biblia

Jauregitik *zezen* -plazarako desfilea are ikusgarriagoa izan zen. Joan Mari Irigoien

Aitak eta bertze handiki haiek organizatu zuten *zezen* -ikuskizunean. Joan Mari Irigoien

Haien aurpegiek giza aurpegiaren antza zuten aurretik; lehoi-aurpegiarena eskuinetik, *zezen* -aurpegiarena ezkerretik eta, azkenik, arrano-aurpegiarena. Elizen arteko biblia

Ertzaren azpialdean, inguru guztian, *zezen* -irudiak zituen. Elizen arteko biblia

Salomonek tenplurako eginak ziren bi zutabeen, hamabi *zezen* euskarri zituen uraxkaren eta orgen brontzeak. Elizen arteko biblia

Lehen izakia lehoi antzekoa zen; bigarrena *zezen* antzekoa. Elizen arteko biblia

## 4 irud/hed

Apustuak kontra atera dituk baina egundoko *zezena* duk Mohammed. Harkaitz Cano

## 5 pl zezenketa.

Gero, *zezenak* ikusten segituko dut, beste hiriburu batzuetan barrena. Edorta Jimenez

Parisko bere lagunak gonbidatu ditu aste osoa Nafarroan ematera, *zezenetan* eta jaietan. Berria - Kultura

- *Zezenetara* joan nahiko lukeela dioenak "zein da zure iritzia zezenketez? Edorta Jimenez

Hotelera, *zezenetara* joateko sarrera-txartelen bila baino ez zen joan. Edorta Jimenez

Aurreko egunetan berriz, Donostiako *zezenetan* , diktadorea, Franco bera zen plazako presidente egona. Edorta Jimenez

## 6 **suzko zezen** ik beherago **12.**

Ondotik dantzaldia eta gauerditan *suzko zezena* . Igandean eta astearte gauerditan *suzko zezena* . Herria

Margo horren gaia: *suzko zezen* bat jendeen artean ibilki besta egun batez. Herria

Aratseko 6-ak eta erdietan, *suzko zezena* , besten bururatzeko. Herria

Matxakito! Segi ezak Zurriolan behera, edo emaiok bazka *suzko zezenari* ! Joxerra Garzia

## 7 **zezen buru** (orobat **zezenburu** g.er.)

Nahi gabe ere sortzaileak bere marka uzten du: bati musker bat marraztu dio besoan; "nik ere nahi dut" hurrenak, eta *zezen-buru* bat, "Sitting Bull buruzagia bezala", esan dio. Xabier Mendiguren Elizegi

Euriekin batera, txita *zezen-buru* bilakatu zen; *zezen-burua* , behi astun bat; behia, berriz, ume egiteko zorian jarri zen, baina umea egin ordez, lau ertzak korapilaturik zituen maindire bihurtu zen, eta, maindirea, sagarrez bete... Akaso konturatu egingo zen *zezen buru* harekin bizikleta baten eserlekua eta heldulekua egin zitzakeela. Anjel Lertxundi

· (izenondo gisa) Dena emateko prest zegoen gazteari, dena kenduko diote: bere burua aurkituko du munstro, korrikaldian doala, azken behakoan apika, arkupeetako erakusleiho batean; gizaki *zezenburu* bat ikusiko du, edo zezen erdigizaki bat. Iñaki Iñurrieta

## 8 **zezen laster** (orobat **zezenlaster** g.er.) iz pl zezenketa.

Igandean, aratsaldeko 6etan, *zezen lasterrak* Baionan. Herria

Ortzirale aratsean, Baionan, *zezen-lasterrak* Portugaleko moldean. Herria

*Zezen lasterrak* , neurri onean eta behar den artarekin hartuz geroz, ez dira berenaz bekatu. Piarres Xarriton

Behi laster, *zezen laster* , pilota partida eta gaineratiko, bestalde ere izanen da haatik mugimendu Baionako bestetan. Herria

Aratsaldean *zezen-laster* lekuan, ainitz josteta, kantu eta ximinokeriek loriatu baitzituzten! Herria

Beraz, aipu da lehenik, Eskuliburuko dekalogoaren bosgarren manamenduko Ez duzu hilen! aginduaren ondotik sartzen den, *Zezen laster* antolatzaileen aurka, 1567an, PioV.ak zabaldu zuen eskumikoa. Piarres Xarriton

## 9 **zezen lasterka** iz pl zezen lasterrak.

*Zezen lasterkak* eta beste kondatu ondoan, batek erran omen zien etxekoeri: "Gauzak arras gaizki doaz Espainian. Angel Aintziburu / Jean Baptiste Etxarren

## 10 **zezen lasterketa** iz pl zezen lasterrak.

Erran ohi zuen Joanes honek *zezen lasterketako* josteta horietan, gehiago ikasten zela etsaiari ihes egiten, ezen ez etsaiari buru egiten. Piarres Xarriton

Erlisionez, maitasunez eta jakitatez argitzen zuten gizon anitzek eta, komunzki egiten den bezala, *zezen lasterketak* kondenatzen zituztenek, lasterketa horiek berak onartu zituzten. Piarres Xarriton

Ber denboran, musikariek *zezen lasterketetan* entzuten diren doinu horietako bat jokatuko zuten. Ramuntxo Etxeberri

## 11 **zezen-plaza** (orobat **zezenplaza** g.er.)

Hala bada, *Zezen-plazaren* ingurua kasik osorik egin eragitean bere burua publikoari erakusteko bidea eman zioten Ernest Hemingwayri. Edorta Jimenez

Gaur ez dabil inor *zezen-plazako* hareatzan. Jokin Muñoz

Begira, **zezen-plazako** 7. tendidoan, Bilboaldeko gaizkinik handienak biltzen dira... Josu Landa

Gabi jada **zezen-plazako** eskaileretan dago, eta behera eta behera doa estropezuka. Jokin Muñoz

**Zezen plazako** eremuaren birmoldaketa plana eta auditoriuma eraikitzeko proiektua. Berria - Euskal Herria

Aratsaldeko 5etarik goiti **Zezen plazan** "Capea" eta behi laster irringarriak. Herria

Aratseko 9etan, **zezen plazan**, kontzertu handia, Manu Chao eta Fermin Muguruzarekin. Herria

Uztailaren 21ean euskal indar jokoa **zezen plazan** 21etan Donostiako **zezen plaza** ere kontzentrazio eremu gisa erabiltzeko prestatu zuten gerra amaitzear zela. Herria

Mounaren erakustaldia Madrilgo Las Ventas **zezen-plazako** korridan. Joxerra Garzia

Hiriaren hazkundeari aurre egin nahian, etxebizitza gehiago non eraiki pentsatzen hasi zen udala, eta zer eta **zezen-plaza** zaharra begiz jo zuen. Jokin Muñoz

ACB Ligan ikusle kopuru handienaren marka Madrilgo **zezen plaza** egokituak du. Berria - Harian

Udalak festetarako ekartzen ohi zuen **zezen plaza** aldakorretik mekano ketu bat baino ez zen gelditu. Koldo Izagirre

**12 zezen suzko** suzko zezena.

Aratseko 10 orenetan **zezen suzkoa** erre dute, karrika guzitik kurri zabiltzala, hor ere jostatu dira, batez ere haurrak, Herria

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
>
> **azpeitiko zezen plazan** (9); **baionako zezen plazan** (7); **behi eta zezen** (5); **narruzko zezen** (4); **tolosako zezen plazan** (6)
>
> **zezen bat bezala** (3); **zezen baten antzera** (4); **zezen beltz** (3); **zezen buru** (4); **zezen gaztetan** (3); **zezen laster** (6); **zezen lasterrak** (23); **zezen lasterrak baionan** (7); **zezen plaza** (42); **zezen plazak** (6); **zezen plazako** (16); **zezen plazan** (89); **zezen plazara** (11); **zezen plazaren** (18); **zezen plazatik** (4); **zezen zuri** (7)
>
> **gauerditan suzko zezena** (9); **susko zezena** (3); **suzko zezena** (21); **zezena bezala** (3)
>
> **zezenak harrapatu** (3); **zezenak harrapatuko** (4)
>
> **zezenaren adarrak** (3)
>
> **toreatzaileak zezenari** (3); **zezenari adarretatik** (8)
>
> **zezenen gainean zegoen** (3)

---

zezenburu ik **zezen 7**.

---

# zezenkari iz zezenketaria.

**Zezenkariez** eta Julio Iglesiasi buruz jakin nahi dute. Edorta Jimenez

---

# zezenketa 1 iz zezenak jokatzen diren ikuskaria; zezenak jokatzeko antzea.

Diktadurarentzat **zezenketa** Espainia esentzialaren sinbolo esentzialetakoa zen. Edorta Jimenez

Behi laster, **zezenketa**, dantzaldi, kantu, soinu, dantza, pilota partida, karro apaindu eta beste, denetarik izaiten da! Herria

**Zezenketa** Arlesen. Joxe Austin Arrieta

Fusilatze horietara **zezenketara** joaten diren bezala joaten ziren. Berria - Harian

Bilboko 1933ko abuztuko **zezenketen** afixa ikusgarria izan zen. Edorta Jimenez

**Zezenketen** kartelak hormetan nonahi zituen jatetxe txiki batean sartu ginen. Joxean Agirre

Kansas kafetegira joan zitzaizkion bila, eta bidean, **zezenketa** bat iragartzen zuen kartel batekin egin zuten topo: Ignacio Lerchundi Lerchundi "El donostiarra". Rafa Egiguren

Danborradari buruz dio 1814an bertan, ingeles eta portuges gudarosteek hiria setiatu, harrapakatu, su eman eta erre ondoren, "berehalaxe kendu zirela hondakinak, **zezenketa** jokatzeko". Askoren artean

Oso anfiteatro ederra da, Arleskoaren antzekoa baina pixka bat txikiagoa, ez dago batere hondatua, Arleskoa Frantziako handiena da, batez ere **zezenketak** egiteko erabiltzen dira biak gaur egun. Mikel Hernandez Abaitua

Asteazken arratsaldean, horrez gain, eta festaburu, **zezenketa** bat antolatu zen San Juan plazan. Txillardegi

Probintzia osoan ospatzen ziren **zezenketa** garrantzizkoetatik bat ere ez zuen galtzen. Josu Zabaleta

**Zezenketa** batean bezala esesten dute, sartzen dizkiote suzko sastakai. Iñaki Iñurrieta

Badakit edertasun oso bat dagoela **zezenketei** itsatsita, kultura oso bat, mitologia oso bat, balore-multzo oso bat, ez naiz zezenzaleen etsai, baina ez zait **zezenketa** gustatzen. Karlos Zabala

**2** (hitz elkartuetan)

Ondo agerian azaldu zen haiengan **zezenketa** -ikuslearen morala; besteari, gudu-zelaian soldaduari, histrioiari, zirkuko tororeoari ausardia eskatzen zion koldarraren morala. Josu Zabaleta

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
>
> **zezenketen kontra** (3); **zezenketen kontrako** (4)

---

# zezenketari 1 iz

Egun bi geroago, hobetotxo ibili ei zen **zezenketaria**. Edorta Jimenez

Koldartzat du **zezenketari** hori Ernest Hemingwayk. Edorta Jimenez

**2** (adizlagun gisa)

Hori ere Espainian **zezenketari** ibilia zen eta, hara etortzeko konbentzitu du idazleak. Edorta Jimenez

Ez zeukan mahaizainik eta bera telebistako **zezenketari** jarri zen. Koldo Izagirre

---

# zezenko 1 iz idiskoa.

Laiaides, Aulisko apaiz bat, Agamenonen arimaren alde **zezenko** bat sakrifikatzen ari zela, gerlari ospetsuak agerraldi baten oparia egin zion. Xabier Olarra

Horren ordez hareatzara Jose Agüero **zezenko** -hiltzailea atera behar izan dute, zazpigarren zezenari heriotza eman diezaion. Edorta Jimenez

**2** irud/hed

Eta orain, Madrilera etortzen utzi behar al diogu hazitarako **zezenko** honi, gure lur sakratuaren bihotzera, beste ehun edo beste mila seme-alabatxo izan ditzan, nazionalismo baztertzailearen pozoia orotara zabaltzeko[...]? Joan Mari Irigoien

Izengoitia paratu zidan: "Nabarrenkoxeko **zezenkoa**". Aingeru Epaltza

---

zezenlaster ik **zezen 8**.

---

zezenplaza ik **zezen 11**.

---

## zezentxo *iz zezen gaztea, zezenkoa.*

*Jan eta asebete zen Jakob, gizendu egin zen nire **zezentxoa** eta ostikoka hasi.* Jose Antonio Mujika

*Alde egin baino lehenagoko Miarritzeko oroitzapenen artean, nire gustukoena ez da harri beltzeko **zezentxoa**, ez maskor berezi bat ere, orain sinbolikoa dirudien beste zerbait baizik: itsas-aparrezko luma-etxe bat, apaindura gisa kristalezko behatxulo bat zuena.* Berria - Kultura

*Egun guztian zehar ikastetxeetako karpak, Tonbola, Tabernak: [...] kilikiak, erraldoiak, **zezentxoak**, fanfarreak, joaldunak [...].* Berria - Harian

---

## zezenzale *izond zezenen zalea dena.*

*Ez naiz **zezenzaleen** etsai, baina ez zait zezenketa gustatzen.* Karlos Zabala

*Zezenei eta **zezenzaleei** langa atzetik begiratzea.* Xabier Mendiguren Elizegi

***Zezenzaleen** buletinetik erauzitako orria eman zion, zetorren udako ikuskizunen iragarpena egiten zuena.* Josu Landa

*Carlos Barrenak, **zezenzale** porrokatua itxuraz, tertzioz aldatzea erabaki zuen.* Edorta Jimenez

*Don Juan mantxatar apatiko, triste bat zen, oso serioa, oso neurritsua, oso **zezenzalea**.* Josu Zabaleta

---

## zezin *1 iz haragi gazi eta ihartua. ik**zezinki**.*

*Ahitzen ari zen sua bizitu eta gero, altzibartarrek dutenetik eman diote eskekoari: **zezina**, taloa, ardoa.* Anjel Lertxundi

***Zezina** edo urdaiazpikoa ere ekarriko ziola; ez urdaia, noski, urdai frijitua koipea dariola eta bero-bero jan behar zelako, baina bai bestelako hainbat txerriki.* Bernardo Atxaga

**2** *(hitz elkartuetan)*

*Arrats batean, **zezina**- eta aza-mokadu bat ahora eramatera zihoala, eskua gelditu zitzaion.* Irene Aldasoro

*Pastelak, arkumea, entsalada eder horiek, patata eta arraultza frijituak, babarrunak **zezina** zatiekin.* Jokin Urain

*Tristurak arintzen ditu -esan zuen Andreasek, **zezina** puska bat ahoan bueltaka zerabilela.* Anjel Lertxundi

***Zezin** pusketa bat aurkitu nuen eta txingarren gainean artopil batzuk.* Juan Garzia

*· Hartu zituzten Valparaisorako gutunak, behi-**zezina** eta artilea ugari, eta alde egin zuten haizea lagun eta antxetak jarraitzaile.* Felipe Juaristi

*Poloniatik zaldi-**zezina** eta chucruta; Norvegiatik izokina eta narbal itsas animaliaren adarra.* Felipe Juaristi

---

## zezinatu *izond zezin bihurtua.*

*-Ahaztu egiten zaio beti behiki **zezinatua** ez zaidala gustatzen.* Iñaki Mendiguren

---

## zezinki *iz haragi gazi eta ihartua. ik**zezin**.*

*Eguneroko eltzekoa, behikia oparoago aharikia baino, **zezinkia** ia gauero, zartagineko lodia larunbat oro, dilistak ostiraletan, eta usakumeren bat igandetako goxagarri.* Patxi Ezkiaga

---

zezta ik **zesta**.

---

zeztapunta ik **zesta 4**.

---

## ziaboga *1 iz ontzia biraraztzeko, alde bateko lagunek aurrerantz eta beste aldekoek atzerantz arraun egitea.*

***Ziabogan** istriborreko arraunlariek bogatu egiten dute, eta ababorreko lehen hirurek ziatu, euren gorputza toletetara gerturatu, traineruak buelta har ez dezan.* Berria - Kirola

*3.500 metroko ibilbidea osatu beharko dute ontziek, eta lau luze eta hiru **ziaboga** egin beharko dituzte.* Berria - Kirola

*Lehen **ziabogan** elkarren arteko tartea bi segundokoa baino ez zen, galiziarren alde.* Berria - Kirola

*Pedreñak estriborretik egin zuen bigarren **ziaboga**, eta segundo pila ederra galdu zuen.* Berria - Kirola

*Kristobalek hasia baitzuen San Salvador-era itzultzeko **ziaboga**.* Edorta Jimenez

*Hirugarren **ziabogan** Castrori segundo bat atera zion, baina azken txanpan kantabriarrek hortzak estutu eta Bou Bizkaiaren aurretik igaro zuten helmuga bakarra.* Berria - Kirola

*Ez zekien pala airoski higitzen, arraunketaren balleta hausten zuen beti, beti gibeleko erramua jotzeko irian, baina beti batera-ezin berdinean, berdin sobera luze hartuz txanpan eta **ziabogan**, burua lepoan gordea, mokor, makur, muker, orain bezala.* Koldo Izagirre

*Arrauna da, arrauna, **ziaboga**-laguna.* Joseba Urteaga

**2** *(izenondo eta izenlagunekin)*

*Bostehun bat metrora zegoela, **"ziaboga** harrigarria" egin zuen eta ziztu bizian desagertu.* Josu Landa

*Bou Bizkaiak segundo eskaseko abantaila zuen Ama Guadalupekoarekiko, baina oso **ziaboga** txarra egin zuten.* Berria - Kirola

*Zutik ageri zen oraino Zulaikak abante guztia sartuta **ziaboga** zakarra egin zuenean abaorrera, hurrengo baga handia txopadan hartzeko.* Koldo Izagirre

**3** *irud/hed*

*Euskaldunon autokontzeptuan, Manuel Garagorri Larramendi (1690-1766) dugu **ziaboga**.* Askoren artean

> ***hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)***
> ***bigarren ziaboga*** *(5)*
> ***azken ziabogan*** *(4);* ***bigarren ziabogan*** *(6);* ***lehen ziabogan*** *(10)*

**ziabogadun** *izond ziaboga duena.*

*Zer dira ilargiaren kale horiek? Herriko kaleen antzekoak, edo estropadetakoen kale* ***ziabogadun*** *horien parekoak...?* *Pello Zabala*

---

*zialdoka* *ik* ***zealdoka***.

---

**zianhidriko** *izond azidoez mintzatuz, almendretan aurkitzen dena, oso pozoitzua dena.*

*Hemen borreroak ez du azido* ***zianhidrikorik*** *erabiltzen ez dio laidozko pikotako lepokoari eragiten ez daki aizkoraz pikatzen ez du gillotina askatzen.* *Koldo Izagirre*

---

**ziano** *izond urdin iluna.*

*Uhin-luzerak kolorea definitzen du (urdina, gorria, laranja,* ***zianoa*** *, fuksia, horia...).* *Josu Zabaleta*

---

**zianosi** *iz larruazalaren urdintzea, odolaren oxigenazio urriak eragina.*

*Eta bazirudien harridura horren eraginez zabaltzen zuela ahoa, hatsanka,* ***zianosiak*** *urdinduriko ezpainak arrain baten modura biribilduta.* *Ramon Saizarbitoria*

---

**zianotipo** *iz argazkigintza zaharrean, kolore urdineko argazki kopia.*

*Begiaren* ***zianotipo*** *baten aurrean gertatuz gero, berehalaxe kexatuko litzateke kameraren zalea.* *Irene Aldasoro*

---

**zianuriko** *izond zianuroarena, zianuroari dagokiona.*

*Gehiago aztertu dut orduan, eta konposatu* ***zianuriko*** *baten aztarnak ere aurkitu dizkiot biriketan.* *Fernando Morillo*

*Horrela izan bazen, norbaitek konposatu* ***zianurikoarekin*** *zorabiatu zuen, bizirik zegoela erre zedin.* *Fernando Morillo*

---

**zianuro** **1** *iz azido zianhidrikoaren gatza.*

*Mineral preziatua ateratzeko erabiltzen duten* ***zianuroak*** *ibaietako ura eta lur azpiko akuiferoak kutsatu dituela salatu dute, esaterako, Huambocancha Baja herriko bizilagunek.* *Berria - Gaiak*

*Beste pozoi batzuek, hala nola* ***zianuroa*** *, artsenikoa eta eritasun infekziosoek sorturiko toxinak, modu konplikatuagoan funtzionatzen dute.* *Irene Aldasoro*

*Yusupovi kasu egiten badiogu, Rasputinek armadako soldadu talde bat etzateko adina* ***zianuro*** *hartu zuen Felixek eskainitako gozoki, pastel eta ardo gozotan.* *J.M. Olaizola "Txiliku"*

**2** *(hitz elkartuetan lehen osagai gisa)*

***Zianuro*** *-ihesak detektatzeko sistema bat ere badutela dio horren inguruan enpresak.* *Berria - Gaiak*

***Zianuro*** *maila, esaterako, baimendutakoa baino 40 aldiz handiagoa zela esan zuten.* *Berria - Gaiak*

***Zianuro*** *-isuriak izan direla ere salatu du erakunde horrek.* *Berria - Gaiak*

---

**ziape** **1** *iz azaren familiako belar landarea, janarien bizigarri gisa erabiltzen diren hazi txiki beltzak ematen dituena (Brassica nigra).*

*Zergatik ez diozu* ***ziape*** *pitin bat botatzen?* *Lopez de Arana*

*Hanburgerra* ***ziape*** *askorekin.* *Joxe Austin Arrieta*

***Ziapea*** *har zezakeen mahonesa zelakoan.* *Xabier Olarra*

*Kobre-esmaltezko antoisin bat* ***ziapearentzat*** *.* *Anton Garikano*

*Txaplatak egin prestatu zizkidan* ***ziapearekin*** *.* *Jon Muñoz*

*Benetan ote ziren saltxitxa haiek -ketchupez eta* ***ziapez*** *ongi igurtziak irensten zituzten haiek- txerri-saltxitxak?* *Karlos Linazasoro*

**2** *(hitz elkartuetan)*

*Beharrezko dira desadostasuna, desberdintasuna, gatz alea eta* ***ziape*** *garaua.* *Juan Garzia*

***Ziape*** *garauak eta izarren esferak, biek hiru dimentsio dituztelako, elkarren antza dute, azken hori izugarri handia eta bestea guztiz ttikia izan arren, dimentsioen existentziaren ideia berbera dutelako bietan.* *Xabier Kintana*

*Konposatu sintetiko min bat da fenilo* ***ziape*** *-olioa,* ***ziape*** *-hazietatik ateratzen den gai batekin kimikoki erlazionatua.* *Irene Aldasoro*

*Barruko gelan, zeramikazko ontziz beteriko apalak eta* ***ziape*** *-koloreko oihal batez estalitako mahai biribil bat zeuden.* *Lopez de Arana*

***Ziape*** *-gasak oraintsuago garatutako beste gai batzuek -sarinak, adibidez- larruazala igarotzen dute.* *Irene Aldasoro*

*Orotara 23 tona* ***ziape*** *-gas, arma kimikoak egiteko baliagarria den lantegi bat eta arma biltegi bi dituela aitortu zuen.* *Berria - Mundua*

---

*ziar* *ik* ***zehar***.

---

**ziatika** *iz min bizia, mehakan eta zangoan sentitzen dena.*

*Adrianok ez zien batere federik medikuei, eta* ***ziatika*** *izan zuen batean bulgariar batengana joan zen aire-masajeen bidez senda zezan.* *Fernando Rey*

*Vladimir Lujanek ere,* ***ziatikak*** *jota, azken partida jokatzeke utzi behar izan du.* *Berria - Kirola*

*Urtebete pasatxo ibili nintzen gerritik gaizki,* ***ziatikarekin*** *, eta ez nintzen osatzen.* *Berria - Kirola*

*Emazte hori aiaiaka etortzen zaigu lanera, bizkarretik minez, begitartea zimurdikatua eta soinean behera dena oinaze:* ***ziatika*** *garaiza, flebitisa beharbada, non ez den fibroma!* *Itxaro Borda*

---

**ziatiko** *izond nerbioez mintzatuz, mehakan hasi eta zangoan eta oinean adarkatzen dena.*

Martxoaren 3an ingresatu zuten azkenekoz, aldakan oinaze handia zuelako eta nerbio **ziatikoan** presioa eragiten zion konkorra irten zitzaiolako. Berria - Euskal Herria

---

**ziazerba** *iz belar landarea, hosto bigun berde-berdeak dituena, barazki gisa ereiten dena (Spinacia oleracea).*

*Belar egosiak saltzen zituen; [...] erakustokian,* ***ziazerba*** *eta txikori oreek, ontzietan jarririk, pila biribilak osatzen zituzten.* Karlos Zabala

***Ziazerba*** *oreak aztertzen zituen.* Karlos Zabala

***Ziazerba*** *eta mingarratz sortak, orburu mordoak, babarrun eta ilar pilak.* Karlos Zabala

***Ziazerba*** *azpilak eta mingarratz ontziak hozten ari ziren patio txiki baten atzealdean.* Karlos Zabala

***Ziazerba*** *eta mingarratz alorrek, errefau, arbi eta azenario zerrendek, patata eta aza landare handiek beren zamau erregularrak hedatzen zituzten.* Karlos Zabala

*Sacramentoko bailara eta ibaiondoa* ***ziazerba*** *-tarta handi bat bezala ageri ziren leihatilatik kanpo.* Javi Cillero

---

**ziba** *(orobat* ***xiba*** *g.er.) iz zurezko jostailua, udare baten itxura duena, inguruan biltzen zaion soka baten bidez lurrean biraratzen dena. ik* ***zibota****.*

*Iruditzen zaio soka busti bat lotu zaiola pixkanaka-pixkanaka gorputz-bueltan,* ***ziba*** *batean bezala.* Itziar Otegi

*Orpo baten gain biraka hasi naiz,* ***zibaren*** *gisa.* Josu Zabaleta

*Buruz behera balantza egiten nuenean, lurraren mugimendua sentitzen nuen, ardatza pittin bat okertuta,* ***ziba*** *handi-handi baten antzera poliki jiratuz.* Juan Kruz Igerabide

***Zibaren*** *gisa bizpahiru itzuli eman eta gero.* Anjel Lertxundi

*Beste bat han zebilen gorputza biraraztén bere lekutik mugitu gabe,* ***zibaren*** *antzera etengabeko jirabiran.* Xabier Olarra

*Poliki-poliki, gorputz bakar hura lo bezala gelditzen zen, nola gelditzen diren* ***zibak*** *lo bere mugimenduaren onenera iristen direnean.* Bernardo Atxaga

*Koloretako* ***ziba*** *baten asmakizunaz finkatu zituen oinarrizko koloreen eta kolore-nahasketaren nozioak (* ***ziba*** *dantzatzean, haren koloreak batu egiten ziren, eta grisaren sentsazioa ematen zuten).* Xabier Olarra

*Kontakizun bakoitzean badago beti, hori hala da, benetako erreferentziaren bat, errealitatearekin lotzen duen soka bat: itsasontziak lotzeko sokatzarra bezalaxe* ***ziba*** *dantzarazteko listari mehea.* J.M. Olaizola "Txiliku"

*Beherakoan, nik ez dakit zer gertatu zitzaigun, automobilak* ***zibarena*** *egin zuen, bidegainean koipe-aztarnaren bat zegoelako, baharbada.* Joan Mari Irigoien

*Tarte horretan nire buruak* ***ziba*** *batek baino jirabuelta gehiago eman zituen sotoko ganberan gertatzen ariko zenaz.* Xabier Olarra

---

**zibaka** *adlag ziba bezala biraka.*

*Arratsean, lokaztua eta burumakur etxeratzen zen, ikasleen gorrotoa ahaztu ezinik; eta gelako zoruan* ***zibaka*** *aurkitzen zuen mutil lodi handikote haren besarkada bihotzaren erdi-erdiraino iristen zitzaion.* Karlos Zabala

---

**zibel** *iz hodei mota.*

*Tarteka, baita, txuri finez janzten, letxada zarpeo batzuk ei datoz nabarmentzen goialde horietan, batzuetan* ***zibelak*** *deitu mintz xuri fin baten antzera, edo pilatuxeago, tripaki-lainoen islan beste batzutan.* Pello Zabala

*Zirru laino meharrak izan ohi dira koroa sortzen dutenak: 10-12 kilometro gora joan daitezke, izotz ale ttikiak direlarik han goian,* ***zibelaren*** *telatxo luze zabala bailiran.* Pello Zabala

*Bezperatik txori eta hegazti, laino eta* ***zibel*** *meharrena, aire eta haize xuxmur, hostajearen postura... dena erreparatuko zuen baserritarrak hurrengo egunak zekarkeen eguraldia asmatu beharraren behar nekez.* Pello Zabala

---

**zibelina** **1** *iz marta-mota, ilea marta arruntak baino luzegoa eta leunagoa duena.*

*Orduan ehiztariak ibiltzen dira sarri eskualde oparo horretan zehar, lepahori,* ***zibelina*** *eta batez ere azerien atzetik, haien larruen truke ordain ederra jasotzen baitute.* Karlos Zabala

**2** *zibelanaren larrua.*

*Bihar Zandandango errege krudelak brokardoz, damaz figuratuz, urrezko oihalez eta* ***zibelinaz*** *apaindua duen bere ganbaran bainau bortxatuko.* Aurelia Arkotxa

---

**ziberaldiberekotasun** *iz aldiberekotasun zibernetikoa.*

*Eta antzeko gauza gertatzen da denborarekin: denbora kasik* ***ziberaldiberekotasuna*** *da ziberespazioan.* Askoren artean

---

**ziberdenbora** *iz denbora zibernetikoa.*

*Ziberespazioan eta* ***ziberdenboran*** *ontologia desberdina dugu, ez da mundu fisikoarena.* Askoren artean

---

**ziberdisidente** *iz disidente zibernetikoa.*

*73* ***ziberdisidente*** *Internet erabiliaz agintarien aurkako kritikak zabaltzen dituztenak kartzelan daude.* Berria - Gaiak

*Punta-puntako teknologia erabiltzen dute bertako internautak kontrolatu, gustuko ez dituzten web orriak zentsuratu eta* ***ziberdisidenteei*** *eraso egiteko.* Berria - Gaiak

*Txinan 62* ***«ziberdisidente*** *» daude espetxean; Vietnamen eta Sirian, bana.* Berria - Gaiak

---

**ziberekintzaile** *iz ekintzaile zibernetikoa.*

*«1984 liburutik gertuegi gaude», dio Christian Moch* ***ziberekintzaileak****.* Berria - Gaiak

---

**zibereraso** *iz eraso zibernetikoa.*

*2004a,* ***zibereraso*** *mota guztien loraldiaren urtea.* Berria - Gaiak

---

**ziberespazio** *iz espazio zibernetikoa.*

*__Ziberespazioaren__ espazioa ez da munduko espazioa: chat batean, kasu, Argentinako hiritar batekin, Australiako beste hiritar batekin eta Alemaniako beste batekin solasean gabiltza, baina elkarrekin komunikatzeko darabilgun espazioa ez da ez Argentina, ez Australia, ez Alemania.* Askoren artean

*__Ziberespazioan__ eta ziberdenboran ontologia desberdina dugu, ez da mundu fisikoarena.* Askoren artean

*Espazio-denbora-osotasun bat sortzea ( __ziberespazioa__/ zibernonahikotasuna).* Askoren artean

*__Ziberespazioa__ , iraultza digitala, interaktibitatea... hitzetik hortzera dabilkigun hitz-jario berriaren erakusle dira.* Txema Ramirez de la Piscina

*Internet eta __ziberespazio__ garai global honetan munduko biztanleriaren %65 inguruk ez du inoiz telefonoz dei bat egin, eta %40ak ez du argindarrik.* Iñaki Heras

---

**ziberfeminismo** *iz feminismo zibernetikoa.*

*Lehena __ziberfeminismoari__ buruzkoa da.* Berria - Euskal Herria

*__Ziberfeminismoa__ izango du hizpide eta arte bisualen munduko bideo bat ere aurkeztuko du.* Berria - Kultura

---

**zibergela** *iz gela zibernetikoa, internet zerbitzua duen gela.*

*F. gizona atxilotu zuten herenegun Donostiako __zibergela__ batean, ustez adingabeen aurrean masturbatzeagatik.* Berria - Euskal Herria

*Ertzaintzak azaldutakoaren arabera, 17: 30 aldera lekuko baten deia jaso eta bertaratu zirenean, Donostiako __zibergela__ batetik presaka alde egin nahian harrapatu zuten atxilotua.* Berria - Euskal Herria

*Atzo bertan __Zibergela__ bat inauguratu zuten kutxako buruek Basurtuko Ospitalean.* Berria - Ekonomia

---

**zibergerrilla** *iz*

*EZLN izan zen lehen __zibergerrilla__ .* Txema Ramirez de la Piscina

*EZLN sozialismo errealaren osteko lehen gerrilla modernoa izan da, baita lehen __zibergerrilla__ ere.* Txema Ramirez de la Piscina

---

**zibergune** *iz gune zibernetikoa, internet zerbitzua duen gunea.*

*Trebatzen segitu nahi dutenek jakin dezate Arrosako __zibergunera__ joan ditaizkeela (badira ere __ziberguneak__ Alduden, Baigorrin, Donibane Garazin...).* Herria

*Laborariek beren PAC-eko deklarazionearen zuzenketa interneten bidez egiteko gisan, __ziberguneak__ idekiak dituzte Izturitzen larunbat arratsaldetan 2etarik 6ak 1/2ak arte, eta Hazparnen Elgar zentroan astezken arratsaldetan, 2etarik 8ak arte, eta ostegun goizetan 9ak 1/2tik 12t'erdiak arte.* Herria

---

**ziberguru** *iz guru zibernetetikoa.*

*Esther Dyson __ziberguruak__ dioen moduan, holako sarean lasai ibiltzeko gai ez dena eta horretarako prestatzen ez dena, luzera begira bere buruarentzat arazo bat izango da, eta besteentzat ere, ez dezagun ahantz.* Pello Salaburu

---

**ziberkafe** *iz kafetegi zibernetikoa, internet zerbitzua duen kafetegia.*

*Ibai hegira bidean, __ziberkafe__ batean sartu-irtena, postontziari begiratua emateko.* Iñigo Aranbarri

*Bleeker kaleko 277.eko hauxe da topatu dudan __ziberkaferik__ merkeena.* Harkaitz Cano

*Zerrendan agertu nahi duten elkarte, __ziberkafe__ eta internet sare guzien kontaktoan sartzeko prest da ANTIC elkartea.* Herria

*Txinako Gobernuak 16.000 __ziberkafe__ itxi ditu azken hiru hilabeteetan.* Berria - Gaiak

*Internet herriko plazan jarri etxe bakoitzean jarri beharrean, edo __ziberkafe__ batean, adibidez.* Berria - Gaiak

---

**ziberkilometro** *iz kilometro zibernetikoa.*

*Beren ordenagailua web cam tresnaz dohatua dutenek mundu guzitik segitu ahal izan dute Korrika zuzenean, funtsean __ziberkilometroak__ erosiak izan dira Hego Afrikan, Australian, Kanadan, Argentinan, Iowan eta Israelen ere* Herria

---

**ziberkomunikazio** *iz komunikazio zibernetikoa.*

*-Mike izendatzen da, Tulsan sortua, indio-breiztar xarnegua, eta __ziberkomunikazio__ gau baten buruan interes gune asko parekoak genituen, sexuaz aparte bistan dena.* Itxaro Borda

---

**ziberkorrika** *iz korrika zibernetikoa.*

*Big Beñat eta __ziberkorrika__ .* Herria

*Hogoigarren mendeko azken urteek eta hirugarren milurte berriak emaiten diote euskarari Internet sarean sartzeko parada: horren lekuko zuzena izan dugu aurten lehenbiziko " __ziberkorrika__ ".* Herria

---

**ziberlokal** *iz lokal zibernetikoa, internet zerbitzua duen lokala.*

*Ertzaintzaren arabera, 24 urteko gazte bat __ziberlokal__ batean sartu eta bertako jabea eta bezeroak mehatxatu zituen labana batekin.* Berria - Euskal Herria

---

**zibermenpeko** *iz menpeko zibernetikoa.*

*Sindrome berria topatu zuela zioen: Internetekiko menpekotasuna! __Zibermenpeko__ anonimoen taldea sortzeko proposatu zuen.* Berria - Harian

---

**zibernetika** *iz izaki bizi eta makinen kontrolari eta komunikazioari buruzko teoriek osatzen duten jakintza; informatika bidezko komunikazioa.*

*Sabethek ez zekien ezer* ***zibernetikaz*** *eta [...] ihardetsi behar izan nion robotari buruzko hainbat ume-irudikeriari, baita hainbeste haserrearazten nauen makinaren aurkako giza aiherkunde hain kamuts horri ere, zeinaren betiko argumentazio maiztuak behin eta berriro baitio gizakia ez dela makina bat.* Joxe Austin Arrieta

*Hala ere esperantza zegoen, automatizazioa eta* ***zibernetika*** *aurreratzen ari ziren, laster makinek eginen zuten dena.* Joseba Sarrionandia

*Zehazkiago esateko, 1960 ondoko urteetan,* ***zibernetika*** *boladan zegoen urteetan, bestelako eredu batzuk proposatu ziren ikusmenezko munduaren egonkortasuna azaltzeko.* Josu Zabaleta

*Nik argi adierazi nion gaur egungo* ***zibernetikak*** *zer ulertzen duen informaziotzat: gure ekintzak informazio ohi deritzen bulkada edo kinadekiko erantzunak izaten direla, hots, erantzun automatikoak, gehientsuenak gure nahimenari itzurtzen zaizkionak, erreflexuak, alegia, eta halakoak gizakiak bezain ongi gauza ditzakeela makina batek, edo hobeki agian.* Joxe Austin Arrieta

*1944an familiak guztia galdu zuenean, Krakoviara joan zen, Psikologia ikasi zuen eta* ***zibernetikara*** *, matematikara eta filosofiara gerturatu zen.* Berria - Kultura

---

**zibernetiko** izond zibernetikarena, zibernetikari dagokiona.

*Gero gertatzen da ikusmenezko pertzepzioaren parte nagusia, garuneko prozesu guztiak bezala eredu mekaniko edo optikoetatik baino eredu informatiko edo* ***zibernetikoetatik*** *hurbilago dagoen informazioaren tratamendu baten bitartez.* Josu Zabaleta

*Hauek jartzen dituzte oinarri teknikoak, gero eraikitzen den etxe* ***zibernetiko*** *horretan milioika lagun sartu ahal izan dadin.* Pello Salaburu

*Pragmatismoaren liburutegi* ***zibernetikoa*** *.* Askoren artean

*Funtzio* ***zibernetikoa*** *: definizio honek sistemari edo organismoaren portaerari behatzen dio.* Askoren artean

*Samingarria izaten da elurra ikusita harroskotzen ez den haur* ***zibernetikoaren*** *axolagabezia...* Patziku Perurena

---

**zibernonahikotasun** iz nonahikotasun zibernetikoa.

*Horren esanahia azken boladan honako hau izan da: espazio-denbora-osotasun bat sortzea (ziberespazioa/* ***zibernonahikotasuna*** *).* Askoren artean

---

ziberotar ik **zuberotar**.

---

**ziberpolizia** iz internet bidezko polizia.

*Txinak* ***'Ziberpolizia'*** *orrialdea jarri du abian, sareko orri pornografikoak aurkitzeko.* Berria - Gaiak

*Txinako Gizarte Segurtasunerako Ministerioak atzo jarri zuen abian* ***Ziberpolizia*** *izeneko web orria.* Berria - Gaiak

---

zibersexo ik **zibersexu**.

---

**zibersexu** (orobat **zibersexo**) iz internet bidezko sexua.

*Interneten menpekotasuna duten guztien erdiek baino gehiagok* ***zibersexuaren*** *menpekotasuna daukate benetan.* Berria - Harian

*Sarearen menpekoak edo* ***zibersexuarenak*** *?* Berria - Harian

*Guztiak Joanari konparatzen nituela alabaina, ordenadorean pasatzen zirenetarik bihi batek ez ninduen planeta mailako* ***zibersexoaren*** *alorrean erakartzen.* Itxaro Borda

---

**zibersuizidio** iz internet bidezko suizidioa. ik **ziberzidio**.

***'Zibersuizidio*** *izurriteaz' mintzatzen hasiak dira Japoniako eta munduko komunikabideak.* Iñigo Aranbarri

*Kazetariak Japoniako kasua nabarmendu nahi du:* ***"'Zibersuizidioari'*** *buruzko eztabaida piztu da, Japonian kasuak asko ugaritu baitira".* Iñigo Aranbarri

---

**zibertegi** iz zibergunea.

*Publiko zabalari idekiak diren gelak deitzen dira* ***Zibertegiak*** *.* Herria

*Departamenduak 80 000 euro berexiak ditu* ***zibertegi*** *horien idekitzen laguntzeko hemen gaindi.* Herria

---

**zibertoki** iz zibergunea.

*Ur-pipatik erretzeko te-etxe tradizionalak nahiz internetetik nabigatzeko* ***zibertokiak*** *.* Jon Arretxe

*Espaloi zabaletan, kebab tradizionala eskaintzen duten jatetxeen parean, gozotegi dotoreak daude, gazte jende mordoa biltzen dutenak arratsalde partean, baita disko-denda, liburu-denda, arropa-denda eta* ***zibertokiak*** *ere.* Jon Arretxe

*Gaztetxo play-stationzale hiperaktiboz beteriko* ***zibertokia*** *, globalizazio geldiezinaren ikurretako bat.* Jon Arretxe

---

**ziberzidio** iz zibersuizidioa.

*Poliziak* ***«ziberzidio*** *» edo Interneten hitzarturiko suizidio deiturikoak hirukoiztu egin dira Japonian 2003. urtetik.* Berria - Gaiak

---

**zibeta** **1** iz ugaztun haragijalea, martaren antzekoa, ile gris zerrenda belzduna eta isats luzea dituena.

***Zibeta*** *oso jaki preziatua da Txina hegoaldeko Kanton probintzian eta ohikoa da merkatuetan horietako animaliak topatzea.* Berria - Gaiak

***Zibetak*** *gutiziatzat dituzte Txinako gastronomian, baina galdekaturiko 24.000 pertsonetatik %70ek esan dute azken urtean* ***zibetarik*** *eta basa animaliarik ez dutelajan.* Berria - Gaiak

*OMEk* ***zibetetan*** *aurkitu du SARSa eragiten duen birusa.* Berria - Gaiak

*Vietnam, Laos eta Txinako hegoaldeko basoetan bizi diren* ***zibetak*** *aztertu dituzte ikertzaileek eta, esan dutenez, arriskuan dauden animaliok galzorian jar ditzake gaitzak.* Berria - Gaiak

**2** zibetak uzki aldean duen guruin batek jariatzen duen gaia.

*Musketa (animalia baten jariakina),* ***zibeta*** *(era bereko substantzia) edo anbar arrea (balearen hesteetako hondakin digeritu gabeak) oso maiz erabiltzen dira, kantitate txikitan, lurringintzako nahasketetan.* Irene Aldasoro

Baltsamoa eta musketa nahasten ditut, anbar zuria eta **zibeta**, airea kirasten denean. Joan Mari Irigoien

---

## **zibiko** 1 *izond herritarrena edo herritarrei dagokiena; zibismoari dagokiona.*

*Etika* ***zibiko*** *berri bat lantzea, "gizateria osoak onar litzakeen balore nagusi batzuk izanik euskarri: biziarekiko errespetua, askatasuna, justizia eta zuzentasuna, elkarrekiko errespetua, elkartasuna eta integritatea".* Itziar Eizagirre / Amaia Lizarralde

*PSE-EE prest dago plataforma* ***zibiko*** *batekin koalizioa egiteko.* Berria - Euskal Herria

*Euskalgintza* ***zibiko*** *bat behar dugu.* Ana Urkiza

*Zentro* ***zibikoko*** *zinemara eraman gintuen.* Harkaitz Cano

*Eraikuntzak, bere aldetik bi parte ditu: batak barru harresituak eta obra* ***zibikoak*** *leku publikoetan jartzea hartzen du, besteak eraikin pribatuen arloa hartzen du.* Santiago Iruretagoiena

*Berriro esaten du norberaren ezagutzak ondorengoei uztea, funtzio* ***zibikoa*** *dela.* Santiago Iruretagoiena

*Patuak nahi izan zuen Porta de Ferron Mogueime horietako bat izatea, zeren Ouroanarekiko maiteminak ez baitzuen bere ardura* ***zibikoetatik*** *eta taldeko interesak zein interes pertsonal justuen alde ateratzetik apartatzen.* Jon Alonso

*Esan beharra dago Raimundo Sarriegi dela danborradaren arima, sentimendu* ***zibikoei*** *arima eman zien gizona.* Askoren artean

*Zein herrialdetako edo zein nazio* ***zibikoko*** *herritar diren kontuan hartu gabe.* Berria - Harian

*Estatua dagoenean, nazionalismoa* ***zibikoa*** *da, eta ez dagoenean, etnikoa.* Berria - Euskal Herria

*Profesoreak eztabaida espreski politikoa nahi baldin badu, onestasun intelektualak zein* ***zibikoak****, bera ere eztabaida hori egiteko dauden toki publikoetara joan dadila, agintzen du, beste edozein hiritar bezalaxe.* Joxe Azurmendi

**2** *(hitz elkartuetan)*

*Ez zen kolpe* ***zibiko****-militarra izan, orain agertu nahi duten bezala, ez zioten inori abisatu, ez zen politikoki antolatutako laguntza zibilik egon.* Pako Aristi

*Santuaren erlikia buruan joango zen prozesio* ***zibiko****-erlijioso bat egiteko erabakia ere hartu zuten.* Askoren artean

> ***hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)***
> ***prozesio zibiko*** *(4);* ***zibiko erlijiosoa*** *(3)*

---

## **zibikoki** *adlag era zibikoan.*

*Nazionalismo guztiek [...] hizkuntza politizatzen dute, etnikoki hau da, hitz egiten ez dutenak diskriminatuz, edo* ***zibikoki*** *hau da, biztanle guztiak hizkuntza ezagutzera behartzen.* Berria - Euskal Herria

---

## **zibil** 1 *izond herritarren multzoari edo haien arteko harremanei dagokiona.*

*Elkarte horiek Estatuaren menpean dauden pertsona* ***zibilak*** *baitira.* Esteban Antxustegi

*Hildako* ***zibilen*** *kopurua zehazteko «ikerketa independentea» berehala abiatzea.* Berria - Mundua

*Aita Saindua ez da mundu osoaren jabe* ***zibila*** *ez tenporala.* Piarres Xarriton

*Garaipena da Errusiako gizarte* ***zibil*** *osoarentzat, ez soilik mugimendu ekologistarentzat.* Berria - Gaiak

*Gizarte* ***zibil*** *globalaren aroan Kant urrundu zaigu.* Berria - Kultura

*Bada, heriotza* ***zibila*** *duzu, bost-hamar urterako.* Markos Zapiain

*Kode orokorra da, eta arazo* ***zibil*** *guztiak, testamendu bidezko edo bizien arteko ondasunen xedapenak, doteak eta emakumeen abantailak, feudoen etekinak eta pribilegioak, gobernu-arazoak eta abar arautzen ditu.* Iñaki Iñurrieta

*Printze hark beren lehen askatasun* ***zibila*** *itzuli zien, eta zentsua ordaindu beharra kendu.* Iñaki Iñurrieta

*Hori bai lege* ***zibil*** *miresgarria, ohiturak erlijioaren kontra gordetzen dituena!* Iñaki Iñurrieta

*Giza lege oro* ***zibila*** *da.* Esteban Antxustegi

*Kode* ***Zibila****, Zigor Kodea, Merkataritzako Kodea eta Prozedura* ***zibil*** *zein kriminaleko kodeak Napoleon Bonaparteren armadak hedatu zituen Europan zehar.* Andres Urrutia

*Erregistro* ***zibil*** *moduko bat osatzen dute hartara oroigarri horiek, familiako bizikizunen errolda antzekoa.* Xabier Mendiguren Elizegi

*Garai bateko hizkuntza politiko bat ikasi genuen bezala hizkuntza* ***zibil*** *bat dugula egiteko ohartu gara.* Iñigo Aranbarri

*Giza eskubide* ***zibil*** *eta politikoen Hitzarmena.* Piarres Xarriton

*Legeak bi hiritar gisa hartzen zituen aita eta semea, arauak ikuspegi politiko eta* ***zibil*** *hutsez emanez.* Iñaki Iñurrieta

**2** *(militarra edo erlijiozkoa denari kontrajarria)*

*Bulego batera eraman gintuen; han gizon* ***zibil*** *bat geneukan zain, pistola mahai gainean zuela.* Juan Kruz Igerabide

*Goi funtzionario* ***zibil*** *eta militarren emazteei.* Karlos Zabala

*Alemaniar eta italiar aholkulariak, militarrak nahiz* ***zibilak****, denean dira.* Edorta Jimenez

*Sobera jende* ***zibil*** *hiltzen baitituzte palestindarren artean judu soldadoek.* Herria

*Chavezek ez du jende* ***zibil*** *asko ezagutzen.* Pako Aristi

*Aralarrek, Ezenarroren esanetan, «ezker abertzale* ***zibil****, zabal eta berritzailearen erreferentzia» izan nahi du.* Berria - Harian

*Errege Katolikoek sorturiko milizia* ***zibila*** *(1476), hirietatik kanpo egiten ziren okerrak zigortzeko asmoz.* Patxi Ezkiaga

*Homosexualek bikote* ***zibilak*** *osatzeko eskubidea zutela.* Berria - Gaiak

*Emakume Kristauen Elkarte* ***zibileko*** *eleduna.* Berria - Harian

*Lege erlijiosoak goitarragoak dira; lege* ***zibilak****, zabalagoak.* Iñaki Iñurrieta

*Zuzenbide kanonikoak lekuari erreparatzen dio; zuzenbide* ***zibilak****, berriz, gauzari.* Iñaki Iñurrieta

*Kondeak horregatik ez zituen eramaten gerrara apezpiku edo abadeen basailuak, ez zeudelako bere jurisdikzio* ***zibilaren*** *mende.* Iñaki Iñurrieta

*Alferrik saiatu ziren kanonen itzalaren bidez beren legeei itzal ematen; alferrik batu zituzten eliz zigorrak eta zigor* ***zibilak****.* Iñaki Iñurrieta

*Ala deretxo* ***zibil*** *eta Elizako deretxoan.* Xipri Arbelbide

*Indigena zapatisten ia hamabi urteko borroka* ***zibila*** *eta baketsua zintzo eta jator babestu dutenei.* Berria - Harian

*Aberri Eguna, borroka* ***zibilaren*** *eguna!* Herria

*Indiak helburu* ***zibilak*** *eta militarrak dituzten programa nuklearrak ditu.* Berria - Harian

*Juan Antonio Heredia Babes* ***Zibilerako*** *zinegotziak.* Berria - Gaiak

*Frogatua dut espetxe militarrak ez direla* ***zibilak*** *bezain ospe txar emale, jendearen ustez.* Juan Martin Elexpuru

*Ontziola* ***zibil*** *eta militarrak holding batean bildu nahi ditu SEPIk.* Berria - Ekonomia

*Zergatik Andaluziako ontziola* ***zibil*** *handiak publikoak izan daitezke eta Naval ez?* Berria - Harian

*1900ean, bigarren irakaskuntzako 59 Institutu* ***zibil*** *bakarrik zegoen Estatu espainol guztian versus 504 Elizarenak.* Joxe Azurmendi

*Orain ugari dira Gobernuz Kanpoko Erakunde* ***zibilak****, hirugarren mundu deritzan horretan laguntzen dabiltzanak.* Xabier Mendiguren Elizegi

Badugu masa literatura bat, kalitatezko hizkuntza erregistroan mundu **zibil** eta moderno bat islatzen duena. Iñigo Aranbarri

Orbaitz, adibidez, arkitektura **zibil** gotikoaren adibide nabarmena zen. Edurne Elizondo

Hori baino beherago, marmorean landuriko halako plataforma, taula edo aldare **zibil** baten antzekoa dago, luzea, gorrixka, dirdiratsua. Edorta Jimenez

Dagoeneko elizak ezabatu dira, idoloak eraitsi, ezkontza ekintza **zibil** hutsa dela onartzen da, hautsitako aitorlekuak kalean su egiteko erabiltzen dira. Juan Martin Elexpuru / Bego Montorio

Txip antzeko bat txertatuko digute guri ere; bertan azalduko dira gure akats demokratikoak (isunak, desobedientzia **zibil**, erlijioso eta militarrak, honelako demokraziaren kontra eginiko irainak, kazetan idatzitako artikulu arriskutsuak, etab.), Edorta Agirre

### **3** (izen gisa)

**Zibilen** kontrako aire bonbardaketak egin zituzten Gernikan, Bartzelonan eta Granollersen. Berria - Harian

Afganistango herri bati eraso, eta 16 **zibil** eta 80 taliban hil dituzte. Berria - Mundua

Ehunka **zibil** bahitu dituzte bai gerrillariek, eta baita soldaduek ere. Berria - Gaiak

Okupazio indarrek gerrillariek baino %60 **zibil** gehiago hil dituzte. Berria - Harian

Pinochetek boterea utzi zuenetik militarren eta **zibilen** arteko harremanak hobetzen egin duen lana nabarmendu dute adituek. Berria - Harian

Zenbait **zibil** eta zenbait soldadu, hantxe bilduta, berriketan ari ziren. Koro Navarro

**Zibil** gisa zerbitzatu zuelako itxurak egin arren, armadan zerbitzatu zuela. Jose Morales

Gauza, aliatuen soldadutxoak ez zauritzea dun, bakea jarri behar duten herrialdeko ehunka **zibil** hilik suertatu arren. Harkaitz Cano

"Militar hauei", pentsatu zuen bere artean Martinek, "ez zaiek gustatzen **zibil** batek beraiek baino gauza zailagoak egitea". Koro Navarro

**Zibil** armatuek hasi zutela tiroketa. Berria - Mundua

**Zibil** errugabeak hiltzen dituzte maiz, Bagdaden jartzen dituzten bonba-auto horiekin. Berria - Harian

Han militar, polizia zein **zibil** aldrak ageri ziren tente, ezin dotoreago jantzirik, Akademian, nolabait esateko, arropategian utzi beharra zeukaten beren identitatea, Vienan edo Londresen jositako **zibil** -jantziekin batera, Holandan egindako barne-janzkiekin batera. Jon Arretxe

### **4 gerla zibil**

Hemen berean, hostope honen barnean, 36-ko **gerla zibilean**, kukulauka hilgarri batean, gizonek gizonak tirokatu zituztela. Piarres Aintziart

Gisa berean, Santamariaren solasek irakusten dute Euskal Herriak jasan berri zuen **gerla zibilaren** irakaspenak atera zituela pentsalari donostiarrak. Piarres Xarriton

Espainiako **Gerla Zibila** bukatu zen hegoaldeko euskaldunen ametsak odolean eta errepresioan ezabatuz. Itxaro Borda

**Gerla zibila** beitzen ordüan Agaramontesen eta Beaumontesen artean. Herria

Duela sei urte **gerla zibila** zen Gipuzkoan eta Nafarroan. Koldo Izagirre

Memento zailak ziren, **gerla zibila** bururatu berria baitzen. Eneko Bidegain

Espainiako **gerla zibila** hasi zenean nik artean ez nituen bi urte. Gotzon Garate

Semea aitaren ordez, zer gertatu da Congo-ko errepublika berrian? Nork hil du? Zergatik? Dirudianez ez da gerlarik sortu, nahiz badakiten han zer diren **gerla zibilak**. Herria

### **5 gerra zibil**

**Gerra zibilek** hiritar ugariri ekarri zieten heriotza. Eta denen artean zikinena **gerra zibila** da. Iñaki Iñurrieta

Kartagoren eta Korintoren gainbeherak areagotu egin zuen Marseillaren ospea; eta, **gerra zibilak** etorri izan ez balira, [...] zoriontsu izango zatekeen erromatarren mendean, hauek ez baitziren batere jeloskor haien merkataritzagatik. Iñaki Iñurrieta

**Gerra zibil** helenikoa kartagoar eta akemenestarrentzat tentazio saihestezina zen. Iñaki Mendiguren

Perugiako **gerra zibilak** piztualdi ezberdinak izan zituen: 1214an, 1217an, 1223an eta 1225ean. Askoren artean

Sarriegiren heriotzak, hala, Donostiaren bizitzaren ziklo baten amaiera moduko sinbolo bat dirudi, **gerra zibilek** ezaugarritu zuten XIX. mende haren amaieraren sinbolo bat. Askoren artean

Boltxebikeak Errusian, faxistak Italian, **gerra zibila** Irlandan. Pello Salaburu

Elena Andreievna ederra, Serebriakoven emaztea, gosez eta hotzez hil zen 1918-1921 arteko **gerra zibilean**, eta urte horietako batean fusilatu zuten Vania, errekisarako garia ezkutatzeagatik. Iban Zaldua

Espainiako **Gerra Zibilean** borrokatu ziren Garibaldi Brigadetako komandante ospetsuenetakoa izan zen. Fernando Rey

1936-39ko **gerra zibilaren** inguruan izpiritu edo arima espainola erruz aipatu da literatura falangista nahiz tradizionalistan. Joxe Azurmendi

Zaldibian, **Gerra Zibilean** fusilatutako bi gazteren hezurrak agertu dituk. Xabier Etxabe

**Gerra Zibilean** Bilbotik itsasontzian ihes eginiko "gerrako haurren" irudiak. Joseba Zulaika

Militarra, **gerra zibileko** heroia. Jon Muñoz

Haurrak dira, halaber, Kolonbiako **gerra zibileko** biktima nagusiak. Berria - Gaiak

Afrikako herrialde gehienetan, berriz, adierazpen askatasunaren aurkako erasoak **gerra zibilarekin** eta diktadurarekin daude loturik. Berria - Gaiak

### **6 guardia zibil** (orobat **guardiazibil** g.er.) Guardia Zibileko kidea.

**Guardia zibilen** jeep berdeak hasi ziren herrian gora eta behera patruilan. Joseba Sarrionandia

**Guardiazibiletako** lotinant bat hurbildu zitzaidan pasaportea itzultzeko. Koldo Izagirre

Trafikoko **guardia zibil** bat hil zutela hantxe ondoan, Billabonan. Bernardo Atxaga

Bera parean **Guardia Zibilak** jarrita zeukan errepide kontrola ikusi zuenean. Harkaitz Cano

### **7 Guardia Zibil**

Itoitzen eta inguruan **Guardia Zibilaren** zaintzapean bizi izan dira herritarrak urteetan. Edurne Elizondo

Foruzaingoak **Guardia Zibila** izan zuen lagun, eta kazetariei ez zieten utzi herrira hurbiltzen. Edurne Elizondo

Trafikoko **Guardia Zibilak** jakinarazi duenez. Berria - Euskal Herria

**Guardia zibilaren** Trafiko Sailak. Berria - Euskal Herria

Espainiako **Guardia Zibilaren** mendiko erreskate taldeak. Berria - Euskal Herria

Agoizko **Guardia Zibilaren** kuartelera eraman zituzten solidarioak. Edurne Elizondo

**Guardia Zibilaren** komandantzia. Unai Iturriaga

**Guardia zibil** konpainia oso bat. Joseba Sarrionandia

Diligentziak geldialdia zeukan bihurgunearen ondoan **Guardia Zibil** talde batekin hitz egiten ari zen. Jon Maia

### **8 ez-zibil**

Galderak, erantzun errazik gabeko torontilean nahasten gaitu: talibanak, ez-**zibil** gisa hartu behar genituzke? Iñigo Aranbarri

Talibanen artean, denak dira "ez-**zibilak"** ? Iñigo Aranbarri

**hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 4 aldiz agertzen direnak)**

*arazo zibil* (4); *bi guardia zibil* (15); *bi zibil* (31); *bi zibil hil* (9); *bi zibil irakiar* (8); *bide zibil* (5); *bost guardia zibil* (6); *bost zibil* (6); *dozenaka zibil* (4)

*egoera zibil* (4); *ehunka zibil* (8); *erakunde zibil* (4); *erantzule zibil* (4); *eskubide zibil* (201); *gerla zibil* (7); *gerra zibil* (31); *gerra zibil bat* (9); *gipuzkoako gobernadore zibil* (5); *gizarte zibil* (9); *gobernadore zibil* (9); *gobernadore zibil ohia* (5); *guardia zibil* (172); *guardia zibil bat* (30); *guardia zibil batek* (13); *guardia zibil baten* (9); *guardia zibil hil* (11); *guztien eskubide zibil* (4); *hainbat guardia zibil* (4); *hainbat zibil* (6); *hegazkin zibil* (4); *herritarren eskubide zibil* (12); *hildako zibil* (6); *hiru guardia zibil* (4); *hiru zibil* (23); *hiru zibil hil* (10); *hiru zibil irakiar* (4)

*kode zibil* (19); *kode zibil baten* (5); *lau guardia zibil* (7); *lau zibil* (15); *lau zibil hil* (8); *lege zibil* (24); *milaka zibil* (4)

*ontziola zibil* (16); *ontziola zibil eta* (11); *pertsona zibil* (8); *polizia eta zibil* (5); *sei zibil* (6); *soldadu eta zibil* (5)

zazpi zibil (5)

zibil estatubatuar (5); zibil eta militarrak (8); zibil eta militarren (4); zibil eta politiko (11); zibil eta politikoak (68); zibil eta politikoei (5); zibil eta politikoen (107); zibil eta politikorik (4); zibil eta polizia (4); zibil gehiago (5); zibil gisa (10); zibil hil (95); zibil hil dira (11); zibil hil ditu (5); zibil hil dituzte (8); zibil hil ziren (29); zibil hil zituen (10); zibil hil zituzten (8); zibil irakiar (38); zibil irakiar bat (7); zibil irakiar hil (20); zibil irakiar zauritu (5); zibil irakiarrak (6); zibil ohia (9); zibil palestinarrak (5); zibil talde (4); zibil ugari (8); zibil zauritu (13); zibil zauritu ziren (4); zibil zauritu zituzten (4)

zortzi zibil (6); zortzi zibil hil (4)

adar zibila (4); botere zibila (4); desobedientzia zibila (59)

egoera zibila (13); erantzukizun zibila (4); espainiako gerra zibila (11); espainiako guardia zibila (4); ezker subiranista zibila (6); gerla zibila (31); gerra zibila (160); gerra zibila hasi (7); gerra zibila izan (4); gerra zibila piztea (6); gerra zibila pizteko (17); gerra zibila piztu (7); gerra zibila saihesteko (4); gizarte zibila (24); gobernadore zibila (4); guardia zibila (132); guardia zibila hil (4); guardia zibila izan (4); heriotza zibila (6)

jende zibila (4); kode zibila (22); kode zibila aldatzeko (4); lege zibila (17); militarra eta zibila (5); nuklear zibila (6)

ontzigintza zibila (4); populazio zibila (5)

zibila eta militarra (4); zuzenbide zibila (10)

askatasun zibilak (12); babes zibilak (5); bikote zibilak (6); bikote zibilak osatzeko (4); biktima zibilak (5); desobedientzia zibilak (5)

eskubide zibilak (31); espainiako gerra zibilak (4); espainiako guardia zibilak (29); gehienak zibilak (10); gerla zibilak (5); gerra zibilak (23); gizarte zibilak (17); gobernadore zibilak (7); guardi zibilak (4); guardia zibilak (771); guardia zibilak atxilotu (16); guardia zibilak atxilotutako (12); guardia zibilak egin (5); guardia zibilak egindako (12); guardia zibilak hartu (4); guardia zibilak hil (8); guardia zibilak izan (5); guardia zibilak jakinarazi (5); guztiak zibilak (5)

kode zibilak (9); lantegi zibilak (4); lege zibilak (43)

ontziola zibilak (23)

zibilak eta militarrak (4)

gerra zibilarekin (5); guardia zibilarekin (17)

desobedientzia zibilaren (28)

egoera zibilaren (5); espainiako gerra zibilaren (13); espainiako guardia zibilaren (5); espainiako kode zibilaren (7); frantziako kode zibilaren (6); gerla zibilaren (6); gerra zibilaren (47); gerra zibilaren ondoren (8); gizarte zibilaren (33); gobernu zibilaren (4); guardia zibilaren (362); guardia zibilaren arabera (10); guardia zibilaren aurrean (11); guardia zibilaren begiradapean (4); guardia zibilaren egoitzan (13); guardia zibilaren eguna (6); guardia zibilaren elkarte (4); guardia zibilaren esku (33); guardia zibilaren eskuetan (9); guardia zibilaren informazio (10); guardia zibilaren kontrol (5); guardia zibilaren kuartel (8); guardia zibilaren kuartela (5); guardia zibilaren kuartelari (4); guardia zibilaren kuartelean (9); guardia zibilaren kuartelera (5); guardia zibilaren txostenak (6); guardia zibilaren zain (4); guardia zibilaren zaintzapean (6)

kode zibilaren (44); kode zibilaren aldaketa (4); lege zibilaren (15); lege zibilaren arabera (5); madrilgo guardia zibilaren (4)

populazio zibilaren (5)

zuzenbide zibilaren (15); zuzenbide zibilaren printzipioen (4)

desobedientzia zibilari (9); gerra zibilari (12); guardia zibilari (58); guardia zibilari eman (4); zuzenbide zibilari (4)

desobedientzia zibilaz (4); gerra zibilaz (8)

arlo zibilean (4); bizitza zibilean (5); egoera zibilean (7); espainiako gerra zibilean (8); gerra zibilean (77); gizarte zibilean (5); gobernu zibilean (8); guda zibilean (8); kode zibilean (7)

eskubide zibilei (4); guardia zibilei (29); lege zibilei (7); ontziola zibilei (4)

gerra zibilek (4); guardia zibilek (219); guardia zibilek atxilotu (4); guardia zibilek torturatu (10); lau guardia zibilek (5); lege zibilek (31); ontziola zibilek (12)

guardia zibilekin (7)

arlo zibileko (4); babes zibileko (16); babes zibileko plana (4); defentsa zibileko (6); desobedientzia zibileko (4); erregistro zibileko (7); galindo guardia zibileko (11); gerra zibileko (19); gizarte zibileko (12); gobernu zibileko (10); guardia zibileko (55); guardia zibileko jeneral (17); guardia zibileko kapitain (4); guardia zibileko teniente (4); hegazkintza zibileko (6); irakeko defentsa zibileko (4)

zuzenbide zibileko (15); zuzenbide zibileko irakasle (4); zuzenbide zibileko irakaslea (5)

agintari zibilen (4); askatasun zibilen (12); bi guardia zibilen (11); biktima zibilen (4); eskubide zibilen (34); eskubide zibilen alde (4); eskubide zibilen aldeko (13); ezkontza zibilen (5); ezkontza zibilen erregistroan (4); gerra zibilen (4); guardia zibilen (116); guardia zibilen aurrean (5); guardia zibilen esku (8); guardia zibilen sarjentua (4); hildako zibilen (4); lege zibilen (33); lege zibilen mende (5); ontziola zibilen (16); politiko eta zibilen (10)

zibilen eta politikoen (7); zibilen heriotza (6); zibilen hilketak (4); zibilen kontra (7); zibilen kontrako (15)

gerra zibilera (5); gobernu zibilera (4)

babes zibilerako (10); erabilera zibilerako (4); espainiako babes zibilerako (4)

guardia zibiletako (4)

gai zibiletan (8); lege zibiletan (4); ontziola zibiletan (4)

helburu zibiletarako (6)

gerra zibiletik (6)

guardia zibilez (6); zibilez jantzitako (5)

gerra zibilik (4); guardia zibilik (8)

---

**zibilberritu** izond zibil bihurtu berria.

Espero bezalatsu, erudizio eta arrazoi ikaragarriz sena eta bihotza galduxeak harrapatu ditut gure erjilioso zahar **zibilberritu** ustekook. Patziku Perurena

---

**zibildu**, zibil(du), zibiltzen **1** da/du ad zibil bihurtu.

**Zibildu** behar dugu erabilera. Iñigo Aranbarri

Batzuek "Espainiako Gerra Zibila" deitu gogo duten horren hautsak arropa gainetik ezin astindu ditugunean oraindik (hildako zibil asko, baina armada bat beste baten kontra), ez dugu azkenaldian Estepan Urkiaga komandantea guztion artean **zibildu**? Iñigo Aranbarri

**2** (era burutua izenondo eta izen gisa)

Nork bere uste osoko zuen hari, balio erlatiboa gaineratu izanak, bereizten du jende **zibildua** larrekoagandik. Patziku Perurena

Ni bitartekoa naiz, eta **zibilduak** nolanahi mozorrotzen duelarik ere "oro erlatibo dela gaineratu behar hori", alferrikako petatxu huts izanen du beti; izan ere, larrekoak, petatxu alfer hori gabe egiten baitu **zibilduak** egiten duen gauza berbera. Patziku Perurena

---

**zibilizatu**, zibiliza, zibilizatzen **1** du ad giza taldeez mintzatuz, basatitzat hartzen den egoeratik garatutzat hartzen den egoerara eraman.

Inperioa desegin zenean, aita santuaren ondoan aurkitu zuen babes; arteari jarraitu zion Italian zehar, eta **zibilizatu** ginenean heldu zen gugana. Juan Martin Elexpuru / Bego Montorio

Ikusten duzu **zibilizatzen** ari naizela. Koldo Izagirre

Gexanek soldadu klaseak egin zituen Baionako kasernan eta armadako kargudun ausartek Baiona Txikiko putetxeetara eroaten zituzten, kanpainetarik jazartzen ziren mutil lohitsuak doi bat **zibilizatzeko**. Itxaro Borda

Gizarte primitibo edo **"zibilizatu"** gabeko gizarteak. Iñaki Mendiguren

Hori da gizadiaren gizatiartzeko, **"zibilizatzeko"**, bidea. Joxe Azurmendi

**2** (era burutua izenondo gisa)

Jaxarte ibaia ere, behinola nazio **zibilizatuen** eta nazio barbaroen artean hesia zena, desbideratu egin dute tartariarrek. Iñaki Iñurrieta

Ia herri **zibilizatu** guztiak bizi dira etxeetan. Iñaki Iñurrieta

Justizia, gizon **zibilizatuaren** mendekua da, eta mendekua aldiz, gizon basatiaren justizia. Patziku Perurena

Eta gu, oroz gain, jende **zibilizatuak** gara. Aingeru Epaltza

Mendebaleko balio horiek nagusitu behar dute gizarte **zibilizatu**, demokratiko eta moderno guztietan. Berria - Euskal Herria

Leku **zibilizatuetan** bakarrik edan behar da, taxiak eskura egoten direlako. Bernardo Atxaga

Inperioko armada -bere soldatatik eta ez harrapakinetatik bizi zena, eta mundu helenikoaren barrualde **zibilizatua** usteldu eta suntsitu ordez, barbaroen aurka zibilizazioa babesteko mugetan kantonatua zegoena- [...]. Iñaki Mendiguren

Maitagarriek liskartxoak izaten dituzte txoriekin, baina normalean erantzun **zibilizatuak** ematen dizkiete galdera **zibilizatuei**. Julen Gabiria

Horretan gaude XXI. mende **zibilizatu** honetan. Herria

**Zibilizatua** naiz, baina ez nuen irriño gaiztoa kukutu ahal izan. Aingeru Epaltza

Zuek bezalakoak gara, katolikoak, **zibilizatuak**, ordenaren maitaleak, europarrak... Alberto Ladron Arana

Donostia hiritartua -liberala- ez da **zibilizatua**, baizik desnaturaldua soil-soil. Koldo Izagirre

Ttipi finagoa zen, **zibilizatuagoa**, zabor-solasaren etsai. Aingeru Epaltza

**Zibilizatuena** zezena iruditu zait. Bernardo Atxaga

Ttipi finagoa zen, **zibilizatuagoa**, zabor-solasaren etsai. Aingeru Epaltza

**Zibilizatuagoa** uste hindudan. Aingeru Epaltza

Turistek atzerri ustez **zibilizatuan** aurkitzen dituzten arrisku ustekabekoez. Aingeru Epaltza

EAEn gehiengoak egoera aldatu nahi duela erakusten duten zantzuak badaude, eta horri modu **zibilizatuan** eman behar zaio bidea. Berria - Euskal Herria

Bertzenaz, modu **zibilizatuagoan**, egokieraz onez onean profita, filosofatzeko: zikinkeria noraino den onargarria, zergatik egun bakar batean bai eta bitan ez. Aingeru Epaltza

**3** (era burutua izenlagun gisa)

Noizean behin -**zibilizatu** agertu behar- zehar-begirada, onespen eske. Aingeru Epaltza

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
> **gizarte zibilizatu** (3); **herri zibilizatu** (10); **herri zibilizatu guztietan** (4); **nazio zibilizatu** (3)
> **jende zibilizatua** (4); **zibilizatua da** (3); **zibilizatua naiz** (7)
> **jende zibilizatuak** (8); **jende zibilizatuak gara** (5); **nazio zibilizatuak** (3)
> **herri zibilizatuek** (3)
> **herri zibilizatuen** (3); **jende zibilizatuen** (4); **nazio zibilizatuen** (3)

---

## zibilizatuki adlag era zibilizatuan.

Hemen orain adoleszente mugimendu bat antolatu duzue kaleak txikitzeko, Katalunian **zibilizatuki** bizi diren bitartean. Mikel Hernandez Abaitua

Oheratzera nindoan, bai, baina, **zibilizatuki** egin beharrean, piztiaren modura egin nuen jauzi.. Joan Mari Irigoien

---

## zibilizatzaile izond zibilizatzen duena.

Dena ez du polita izan unibertsaltasunak, ideia orokor horrekin justifikatu izan baitira inperioak eta gurutzadak; misio **zibilizatzailearen** izenaren pean beste interesak inposatu dira historian zehar. Joseba Zulaika

Tribalismoa, zokokeria morala, komunitarismo etnikoa eta, noski, nazionalismoa [...] harriak dira, ahalegin **zibilizatzaile** unibertsala oztopatzen dutenak. Esteban Antxustegi

Espainiar Monarkiaren egiteko kolonizatzaile eta **zibilizatzailean** buru-belarri murgiltzera. Iban Zaldua

Arrazoimenaren eta borondate **zibilizatzailearen** abentura luze horretan, Thomas Hobbesen Herritarra liburuak [...] toki garrantzitsua betetzen du. Esteban Antxustegi

Alta, eskuperatze tekniko-**zibilizatzaile** baten mendean, kulturen desegite suntsitzaileak gizateria osorako galera dakar, gizateriak kultur aniztasunean baitu altxor baliotsuena. Askoren artean

Duela mende batzuk baino gehiago eta bizkorrago hiltzen dute gaur eguneko armada **zibilizatzaileek**. Jokin Urain

---

## zibilizatze iz basatitzat hartzen den egoeratik garatutzat hartzen den egoerara eramatea.

Egitate basati honek mendetako **zibilizatzea** ezabatzen du, ankerkeriaren garai ilunetara garamatza. Berria - Mundua

---

## zibilizazino ik **zibilizazio**.

---

## zibilizazio (orobat **zibilizazino** g.er.) **1** iz garatutzat hartzen diren gizarteen ezaugarri komunen multzoa; gizadiaren lortze eta aurrerapenen multzoa.

Denboraren hasieran, herriak, leinuak eta **zibilizazioak** sortu baino lehen. Xabier Olarra

Hogeita bat **zibilizazioen** sorrera, hazkunde, kolapso eta desintegrazioen azterketa konparatiboak. Iñaki Mendiguren

Cultus ere kultura, **zibilizazioa**, bizimodua da. Askoren artean

Hiriak, aberastasuna, **zibilizazioa**, gurikeria; basamortuak gosea, lehia, bizi-borroka. Joxe Azurmendi

Zatiki hauek, kolapsoaren ondoren **zibilizazioen** desintegrazioak sortuek, askatasuna lortzen dute, beste **zibilizazio** garaikide batzuetatiko osagai atzerritarrekin gizarte eta kultur konbinazioak osatzeko. Iñaki Mendiguren

Hindu **Zibilizazioaren** estatu unibertsal mogolak ezaugarri berberak ageri ditu. Iñaki Mendiguren

Caralgo **zibilizazioa** (Peru) uste zena baino zaharragoa dela esan zuen atzo Ruth Shady Solis arkeologoak. Berria - Gaiak

Kontsumo alienatu eta konpultsiboa eritasun baten sintoma da, **zibilizazio** baten eritasunaren sintoma. Iñaki Heras

"Mendebalde modernoko" **zibilizazioa** "klase ertainaren" **zibilizazioa** da. Iñaki Mendiguren

Gauza hutsala dirudi gure hau "irudiaren **zibilizazioa"** dela esatea. Josu Zabaleta

Mila urteko **zibilizazioa** dut bizkarrean horretan laguntzeko. Josu Zabaleta

**Zibilizazio** batek, erlijio batek bezala, bere burua salatzen du bere jarraitzaileen epelkeriagatik kexu bada. Josu Zabaleta

Ez dezagun ahantz Grezia izan dela gure **zibilizazioaren** ama. Herria

Kulturaren homogeneotasunaren eta botere politikoaren sakabanatze izugarriaren arteko kontrastea da [...] Mendebaldeko Erromatar Inperioaren hondakinetatik sortu zen **zibilizazioaren** lehen ezaugarria. Koro Navarro

Bi **zibilizazioon** arteko bizikidetzari kalte egiten dioten pertzepzio okerrak desagertzea. Berria - Mundua

**Zibilizazioen** Aliantza eta horrelako ekimenak ez dira inoiz eraginkorrak izango. Berria - Mundua

Hiriko ardaila eta hotsa, usu, **Zibilizazioaren** -letra larriz- sinonimotzat jotzen baitira. Edorta Jimenez

Prometeok **zibilizazioa** ekarri zuen. Fernando Morillo

**«Zibilizazioen** bizikidetza» eta «talka» hizpide. Berria - Mundua

Nire **zibilizazioak** printze beraren Enbaxadore egin nahi izan du gizon oro. Josu Zabaleta

Nire **zibilizazioak** balio kristauen herentzia hartu du. Josu Zabaleta

Zinemagintza **«zibilizazio** baten ilunabarra» delakoan dago Erize. Berria - Kultura

**2** (izenondo eta izenlagunekin)

Antzinatean lege nagusia zuan, eta hartan zian oinarri **zibilizazio** handien lege-sistemak. Xabier Olarra

Jauregiak, mezkitak, harresiak erdi aroan eta geroxago eraikiak, **zibilizazio** eder baten lekuko. "Interregnoa" bukatu egiten da, eta **zibilizazio** berri bat hasten da. Herria

Gurea baino **zibilizazio** garatuago batek planeta urrun batetik igorririko espaziontzi batean. Juan Garzia

Fase honetan **Zibilizazio** Helenikoak Mundu Zaharrean **zibilizazio** garaikide guztiekin izan zituen harremanak. Iñaki Mendiguren

Azterketaren mailak biderkatu egin dira, mugikortasun politikotik hasi eta **"zibilizazio** materialaren" geldotasuneraino. Xabier Arregi

Mundu islamikoak Mundu Zaharreko lau **zibilizazio** primarioetako hiruren sorterriak hartzen ditu. Iñaki Mendiguren

**Zibilizazio** prekapitalista gehienetan, Smithek dioenaren kontra, gizabanakoa ez da trukearen zale izaten. Iñaki Heras

**Zibilizazio** moderno guztiaren nondik norakoa funtsen-funtsenean zertan datzan argitzeko. Joxe Azurmendi

XX. mendeko **zibilizazio** teknologikoan gurekiko eta gure ingurunearekiko etika berria bilatzen zuen Hans Jonasek liburu honetan. Askoren artean

Hemezortzigarren mendeko eraikin apal ederrak, europar **zibilizazio** kosmopolitaren distiraz iparraldeko gau zurian. Xabier Olarra

**Zibilizazioak** androzentrikoak izan dira, patriarkalak. Berria - Gaiak

Antzinako grekoak, **zibilizazio** europarraren asmatzaileak, jatorri ariarreko dolikozefaloak eta ile-horailak zirela, iparraldetik Heladera migratuak. Joxe Azurmendi

Berpizkundearen aurreko hamabost mendeetan, txinatar **zibilizazioa**, teknikoki, Europakoa baino aurreratuagoa izan zela. Koro Navarro

Latinak iraun zuenez Erromatar **zibilizazioaren** kolapsoaren gainetik, [...]. Askoren artean

Itxura guztien arabera (nahiz eta hauek engainagarriak izan daitezkeen), amerikar **zibilizazioak** erabat suntsituta zeuden. Iñaki Mendiguren

Mendebaldeko **zibilizazioa**. Josu Zabaleta

**3** (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

Munduan zen **zibilizazio** eredu hoberena zela iruditzen zitzaion. Fernando Rey

Batzuetan, **zibilizazio** maila aurreratuena duen lurraldeko dialektoari eman ohi zaio lehentasuna. Isabel Arrigain

Zeren eta gure egungo **zibilizazio**-eginkizuna igo ezinezko aldapa igotzeko ahalegin burutu ezina dela ondorioztatu beharko baikenuke. Iñaki Mendiguren

Has gaitezen suposatuz eztabaidagai dela ea "naturaren legeek" inolako zereginik duten **zibilizazio**-prozesuan dagoen gizakiaren historian. Iñaki Mendiguren

Telefono mugikorraren erabiltzeak edo ibai bazterrean lasterka ibiltzeak, **zibilizazio** geruza bat eskain ziezadakeen. Itxaro Borda

Sen hau primitiboa da, eta oraindik hor datza gainazaleko **zibilizazio**-estalkiaren azpian. Iñaki Mendiguren

Kritika soziala, politika, harreman arriskutsuak, borroka armatua, independentzia, **zibilizazio** talka, akzio poliziakoa eta enparauak nahasian bildu izanak askoren miresmena piztu du. Berria - Kultura

Hiru **zibilizazio**-belaunaldi ditugu. Iñaki Mendiguren

**"Zibilizazio**-batasunaren" ideia okerra. Iñaki Mendiguren

Gizarte bateko ezberdintasun guztiak forma bakar batera murriztu ahal izango lirateke, mundu ikuskera baten antolakuntzara, balio-sistema bat ezartzera, **zibilizazio**-mota koherente batera. Xabier Arregi

Bigarren belaunaldiko bi **zibilizazio**-talde ditugu, beraz: [...]. Iñaki Mendiguren

Ez baita falta **zibilizazio**-kontuan Mahomaren jarraitzaileak nagusi zirela uste duenik. Jon Alonso

**4** (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa)

Enbrioi-**zibilizazio** hau Erdialdeko Asiako historiaren bederatzi mendeko emaitza zen. Iñaki Mendiguren

Kontuan harturik kultura-aniztasuna [...] arrisku larrian dagoela gaur egun, industria-**zibilizazioak** ezarritako ereduaren mehatxupean. Juan Garzia

**5** irud/hed

Nola bereiziko nituzkeen haren hiru probintziak, haren hiru **zibilizazioak**, loarena, suarena, basamortuarena? Josu Zabaleta

**hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**

**alexandro osteko zibilizazio** (4); **amerikako zibilizazio** (4); **antzinako zibilizazio** (3); **aurreko zibilizazio** (6); **belaunaldiko zibilizazio** (4); **beste zibilizazio batzuen** (4); **beste zibilizazio guztiak** (3); **bi zibilizazio** (3); **hildako zibilizazio** (6); **hildako zibilizazio baten** (4); **mendebaldeko zibilizazio** (9); **mendebaldeko zibilizazio moderno** (4); **osteko zibilizazio** (4)

**zibilizazio bakarra** (3); **zibilizazio batek kolapsoa** (3); **zibilizazio bateko** (4); **zibilizazio baten** (42); **zibilizazio berri** (7); **zibilizazio berri bat** (4); **zibilizazio berri baten** (3)

**zibilizazio egipziakoa** (5); **zibilizazio garaikide** (4); **zibilizazio garaikideen** (7); **zibilizazio garaikideen arteko** (7); **zibilizazio guztiak** (7); **zibilizazio guztietan** (4); **zibilizazio heleniko** (6); **zibilizazio helenikoak** (11); **zibilizazio helenikoarekiko** (4); **zibilizazio helenikoarekiko topaketak** (4); **zibilizazio helenikoaren** (14)

**zibilizazio maila** (4); **zibilizazio moderno** (7); **zibilizazio musulman** (4)

**zibilizazio orok** (3); **zibilizazio prozesuan** (6); **zibilizazio sekular** (3); **zibilizazio siriako** (6); **zibilizazio sumeriko** (3)

**gure zibilizazioa** (7); **mendebaldeko zibilizazioa** (11); **zibilizazioa bera** (3)

**bertako zibilizazioak** (3); **bigarren belaunaldiko zibilizazioak** (6); **gure zibilizazioak** (4); **kristau zibilizazioak** (3); **mendebaldeko zibilizazioak** (8); **nire zibilizazioak** (14); **zibilizazioak izan** (3); **zibilizazioak sortu** (4)

**gure zibilizazioan** (6)

**ekialde urruneko zibilizazioaren** (3); **europako zibilizazioaren** (3); **gure zibilizazioaren** (4); **hindu zibilizazioaren** (3); **mendebaldeko zibilizazioaren** (20); **mendebaldeko zibilizazioaren etorkizuna** (5)

**zibilizazioaren azken** (3); **zibilizazioaren etorkizuna** (5); **zibilizazioaren lehen** (3)

**mendebaldeko zibilizazioari** (3)

**beste zibilizazioen** (3); **bigarren belaunaldiko zibilizazioen** (3)

**zibilizazioen artean** (6); **zibilizazioen arteko** (19); **zibilizazioen arteko harremanak** (5); **zibilizazioen arteko topaketen** (3); **zibilizazioen desintegrazioak** (3); **zibilizazioen hazkundeak** (3); **zibilizazioen historien** (5); **zibilizazioen historietan** (6); **zibilizazioen papera** (3); **zibilizazioen sorrera** (3); **zibilizazioen talka** (5)

**holako zibilizaziorik** (3)

---

## **zibilki** iz ikuspuntu zibiletik.

Laborantza ganberaren eraikitzea desobeditzea izanen da politikoki eta **zibilki**. Berria - Euskal Herria

Halako **zibilki** hilda dago, esaten dute serioski legegizon peripatetikoek, eta hildako bat ez da ezer egiteko gauza. Juan Martin Elexpuru

---

## **zibiltasun** iz zibila denaren nolakotasuna.

Dotorea eta eleganta zen, **zibiltasunaren** arauak ezagutzen zituena. Joan Mari Irigoien

Gurasoen aitzinean, konparazione, **zibiltasun** arauak guztiz zaindurik, noiznahi-den egiten zuen iduri ezen nahi zuena baino gutiago nahi zuela. Joan Mari Irigoien

Osabak amaren aitzinean **zibiltasun** arauak -horrela traduzitu beharko ote genuke frantsesen civilité delakoa, jaun André? Joan Mari Irigoien

---

**zibismo** *1 iz herritar sena; gizalegea.*

*«Herritarren **zibismoari** dei egiten diogu», gehitu dute.* Berria - Euskal Herria

*Herri horretako jendetzaren **zibismo** ezak hartze duela patriota guzien etsaigoa eta errepublikaren mendekua.* Elena Touyarou

***2** (hitz elkartuetan)*

*Eskolak eskatuz gero, gurasoek **«zibismo** ikastaldiak» egin beharko dituzte haurrak eskolan jarrera aldatzen ez badu.* Berria - Harian

***Zibismo** ageriak, etorkinak ez zirelako frogak, Jacques Laborde eta Denis Vincent herritarren izenean ziren susmagarritasun eza agertzen zuten paperak.* Elena Touyarou

*Alferrik zen **zibismo** agerien ukaitea, frantziar gudarostean ahaideen ukaitea, edota Errepublikari atxikimendua deklaratu izana.* Elena Touyarou

---

**zibistika** *iz*

*Alde batzuetatik, jostaketa hark antzinakoen **zibistika** zekarren gogora, dantza militar moduko bat, ezpata eta labanen punten artean egiten dena.* Karlos Zabala

***Zibistika** tatariarra apartagoa zen, kolorezko suak dantzarien gainean kurubilka, eta soinekoen xafla txikiek milaka gar ñimiñoetan islatuz.* Karlos Zabala

---

**zibita** *iz makila.*

*Zigorrak! Zigorrak!... Agustin, joan azkar lorategira elorri-**zibita** batzuk ekartzera.* Juan Martin Elexpuru / Bego Montorio

*Lorategitik itzuli den Agustinen eskutik elorri-**zibitak** hartuz.* Juan Martin Elexpuru / Bego Montorio

---

**zibizkatu**, *zibizka, zibizkatzen du ad jatean, azken apurrak bildu.*

*A zer txorakeriak ari diren esaten, pentsatu zuen Charles Tansleyk, koilara plateraren erdi-erdian utziz, hango hondarrak **zibizkatu** ondoren, otordua segurtatzeko asmoz bezala.* Anton Garikano

---

**zibiztar**

*Artetik kondatuz Goyheneche **zibiztar** apez famatuaren eragina.* Herria

---

**zibla** *iz*

*Aljeria hegoaldean ibilia zenak ez zuen gauza handirik kontatzeko, salbu **ziblaz** tronpaturik, adiskidez osatu frantses arma-saldoak bizkarrean mitrailatu zuela eta geroztik aulki ibiltarian mugitzen zela.* Itxaro Borda

---

**ziborio** *iz metalezko kopa apaindua.*

*Agertuak izan dire aldareko **ziborio** eta gauza ederrak.* Herria

*Hariztoi Ziburuko erretorak eginarazia zien aldarea eta kalitza eta **ziborioak** bere elizan hautatzea eskainia; Arbelbidek berak pagatu zien iguzki saindu berria.* Xipri Arbelbide

---

**zibot** *iz kuskuila.*

*Afrika aldean ere, **zibotetik** ateratzen den mariposak, bere gorputzetik askatzen den arima adierazten du.* Patziku Perurena

---

**zibota** *iz ziba.*

*Hori bai, **zibota** bakoitza bere musikaren arabera dantzan: Santiagon Juan Pardoren himno Popularra entzungai seguru, gaiteiro eta guzti.* Berria - Euskal Herria

---

*zibu-zabuka ik* ***zabuka 5**.*

---

*ziburrun ik* ***zinburrun**.*

---

*ziburuar ik* ***ziburutar**.*

---

**ziburutar** *(orobat **ziburuar**) izlag/iz Ziburukoa, Zibururi dagokiona: Ziburuko biztanlea.*

*Bilkura berean, saristatu dituzte jaz zerbait balentria aipagarri egin duten **ziburutar** kirolariak.* Herria

*Beste sail batek ere zonbait mendez segidan munta handia ukan du **ziburutar** arrantzaleentzat, bakalauarenak.* Herria

***Ziburutar** etxeko jaunak Urruñakoak bezen on zirela beren afera guziez arduratzeko.* Herria

*Bigarren, Nicole Burguete donibandarra eta Paulette Sarret **ziburutarra**.* Herria

*Liburu berri bat plazaratuko du ekain ondarrean "Hats Berri" argitaletxeak: "Elizak"liburu ederra, Robert Thurin **ziburutarraren** 74 argazkirekin.* Herria

*"Demo" gazte bat, Domeka Zubeldia **ziburutarra**, arrastatua izan da.* Herria

*23 urte ditu, **ziburutarra** da eta Ziburun bizi da.* Berria - Euskal Herria

*Iragan mendeko musikagile edo konpositore handienetarik izana da Maurice Ravel, sortzez **ziburutarra**.* Herria

*Ravel-ek ama zuen **ziburutarra**.* Herria

*Hegoaldeko jokabideak sortzen zion harridura erakutsi zuen Joanes Etxeberri poeta **ziburutarrak**.* Koldo Zuazo

***Ziburutarrek** laster jakin-arazi zuten nahiago zutela hein bat beren gain jarri, arrunt Urruñari josiak segitzeko partez.* Herria

*Egia erran, **ziburutarren** arrazoin batzu etziren naski batere txarrak.* Herria

*Robespierrek inposatu zuen "Etre suprême"edo Izaki Goienaren besta ospatu zuten **ziburutarrak** arras guti izan ziren.* Elena Touyarou

**zidor** 1 iz bidezidorra.

Etxearen ingurumaritik urrunduz joango dira taldeak, inguruko kamino, xendra, **zidor** eta estratetan barrena. Xabier Mendiguren Elizegi

Mendira jo genuen errepidearen bazterrera ematen zuen **zidor** batetik gora. Rafa Egiguren

Ostatutik bertatik usotako sareetara zihoan **zidorrari** begira. Rafa Egiguren

Eguzkiaren norabidean gindoazen, sigi-sagaka noski, **zidor** bat non ageri, handik, oihan trinkoan barrena. Joxe Austin Arrieta

Malkarra baitzen **zidorra**. Imanol Zurutuza

Legarrezko **zidorretik** errepiderantz jaisten ari zela, beso bat haren beso bati lotu zitzaion. Lopez de Arana

Orbel ugari zegoen pilatuta belartzetan eta **zidorretan**. Anjel Lertxundi

Herriraino ahalik eta isilen joateko errepidea albo batera utzirik **zidorrez zidor** ekin nion. Edorta Jimenez

**2** irud/hed

Burutazioak zein **zidor** bihurritan barrena agerostenka zebilkidan azaldu diodanean [...]. Jokin Urain

Lege feudalen ikerketan labirintu ilun, **zidorrez** eta itzulinguruz bete batean banago ere, uste dut eusten diodala hari-muturrari, eta badaukadala aurrera egitea. Iñaki Iñurrieta

Jainkoaren hitza lanpara bat zela zure oinetan eta argi bat zure **zidorretan**. Juan Garzia

Erlijio-doktrinaren alorretik noraezean zabiltzaten guztiok, zatozte eta jarraiki **zidorrari**. Xabier Kintana

Bitartean berak, libertino putz axolagabe antzo, atseginaren **zidor** pinpirintsua ibiltzen duela, jaramonik egiteke bere aholkuari. Juan Garzia

---

**ziega** 1 iz espetxe gela; lurpeko espetxe edo gela.

Kartzela hartako **ziega** batean eman baitzituen hark azken egunak. Juan Luis Zabala

O.T 33 urteko preso bilbotarra hilda aurkitu zuten atzo bere **ziegan**, Arabako Langraizko espetxean. Berria - Euskal Herria

Aurrena Ordiziako udaletxeko **ziegetan** eduki zuten preso, eta gero handik Beasainera eraman zuten. Jokin Urain

Gela, **ziega** edo dena delako hartan beste bi preso zeuden nirekin. Jokin Urain

**Ziega** oso txikia zen, eta bertan ohea, eta harraska txiki bat besterik ez. Jokin Urain

Herrerako isolamendu moduluko **ziega** batean. Jokin Urain

Huelvan preso dagoen Lurdes Txurruka bakar-bakarrik dago modulu osoan; izan ere, bertan beste 80 **ziega** dauden arren, guztiak hutsik daude. Berria - Euskal Herria

Ezker-eskuin, **ziega** bakoitzak bere zenbakia dauka. Rafa Egiguren

Argi zehaztu gabe geratu zen gehienez 500 presorentzako lekua egongo den ala 500 **ziega** izango diren bertan. Berria - Euskal Herria

Galeria batetik bestera aldatzeaz gain, galeria bereko **ziega** batetik bestera ere aldatzen zituzten. Jokin Urain

Gure galeriaren parean zegoen emakumeen patioa, alde bertara begira zeuden **ziega** guztiek burdinazko pertsiana moduko batekin itxita zeuzkaten leihoak. Jokin Urain

**Ziegako** leihotik eguzkia ikusten dut gainbeheran. Jokin Urain

Funtzionarioak **ziegako** atearen leihatila ireki eta begi hilak gure mihise eta burusien tolesduretan paratzen zituen. Lander Garro

Gerrikotik **ziegako** giltza atera eta Gülbaharri eman ondoren, handik urrundu zen. Fernando Rey

-Sar ezazue hau ere **ziegan** -agindu zuen oihuka, eta beyek obeditu egin zioten-. Fernando Rey

Haren esanetan, urtero, milaka prostituta hiltzen dira **ziegetan**, «poliziak torturatu egiten baititu, bezeroei buruzko informazioa lortzeko». Berria - Gaiak

Presoa **ziega** batean bakartuta egonda ere, kolektibo bateko kide moduan funtzionatzen du. Berria - Euskal Herria

Lapurretaz akusatu eta **ziega** banatan sartu gintuzten. Fernando Rey

Bertsio ofizialaren arabera, **ziegan** zegoela bere burua urkatu zuen. Berria - Mundua

Astiroago joanez, Manuel ikusi zuen barruko begiekin, kuarteleko **ziegan**, buruz behera oinetatik zintzilik. Pedro Alberdi

**Ziega** pare batean banatuta -bakoitzean 30 edo 40 lagun- elkarrizketa betean jarduten genuen estu-estu eginda. Rafa Egiguren

Zenbait espetxetan preso islamisten **ziegak** miatu dituzte. Berria - Euskal Herria

Epailea **ziega** haiek ikustera joatea lortu ei zuten, eta bere aginduz handik atera eta modulura eraman zituzten. Jokin Urain

Han Words from a Cell (Hitzak **Ziega** Batetik) olerki bilduma idatzi zuen. Berria - Mundua

Gazteluko dorre zahar eta korrokoildu baten gorenean giltzapetzeko agindu zuen, **ziega** kirastu batean. Patxi Zubizarreta

Ezkutuko lege horien biktimak izan diren heterodoxo ospetsuz beteta daude iragan mendeko **ziegak**. Anjel Lertxundi

**Ziega** hotz eta heze bat zen, leihorik gabea, jauregiaren azpian zegoena eta jauregi edo gaztelu zaharra eraiki zuten sasoinekoa. Joan Mari Irigoien

Eta armategia eta aurkari arriskutsuentzako **ziega** sotoan ipini dituzue? Koldo Biguri

Halaxe jakin zuela **ziega** kalea baino beherago zela, eta halaxe etorri zitzaiola gogora Jonasen irudia balearen sabelean. Edorta Jimenez

Nola edo hala, **ziega** honetan argizulo bat irekiko diat. Fernando Rey

Argi-zorrotadak sartuko dituk neronek eraikitako **ziega** honetako ilunpera. Fernando Rey

Ilunpetan dago **ziega**, eta hiriaren lehenengo hots urrunak heldu zaizkizu kanpotik. Rafa Egiguren

Edo hiltzen dugu gordeka, edo **ziega** batean sartzen dugu, Ali Bey giltzapetu genuen putzu berean. Fernando Rey

**Ziega** zegoen dorrea juxtu amildegi baten ondoan goratzen zen. Fernando Rey

Ez dago txarto, **ziega**, funtsean, komun bat baino ez da, lohizulo nagusiaren itxaron gela. Koldo Izagirre

**Ziegako** uniformeak ez du patrikarik. Harkaitz Cano

**Ziegako** bakardadean hila. Berria - Euskal Herria

**2** (izenondo eta izenlagunekin)

Presondegiko **ziega** heze eta ilunetan. Juan Martin Elexpuru / Bego Montorio

Onik ateratzeko esperantzari bide estua uzten zion komisaldegiko **ziega** zikin eta heze batean bururatu nuen bidaiak. Aingeru Epaltza

Dorreko **ziega** hezeenean sartuta nago. Juan Martin Elexpuru / Bego Montorio

Jainkoei eta titanei merezi zuten zigorra emateko infernu berezia, bertan zeudenak maiz zigortzen eta torturatzen zituzten **ziega** ilun eta beldurgarria. J.M. Olaizola "Txiliku"

Kartzeletako bakartze modulu eta **ziega** bereizietan zer gertatzen den ez du inork ikusten, bertatik igarotzen den presoak izan ezik. Jokin Urain

Denbora eduki dut, astia franko **ziega** bakarti honetan, erabaki hura ganoraz eta patxadaz aztertu ahal izateko. Hasier Etxeberria

Gau eta egun **ziega** estu batean giltzapean egotea, piztia kaiolan bezala... ez da hori tortura? Anton Garikano

Noiz ikusi dun hik kartzelako **ziega** ilun batean bakartuta dagoen preso egurtuarekin albistegia ireki dutenik? Harkaitz Cano

Ni kontseiluaren aurrean barregarri geratu naiz eta semea **ziega** ziztrin batean atxilotua daukat. Patxi Zubizarreta

Baldin egun batean harat itzultzen banintzen, eta baldin **ziega** krudel haietarik iragana nintzela bazekiten. Joan Mari Irigoien

Zigor latz samarra sartu zidaten behin, lurpeko **ziegan**. Jokin Urain

Gero bakarkako **ziegetara** doala ikusi dute. Koldo Izagirre

**3** (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

Beheko galeria hartan ez dago berogailurik, eta **ziega**-zulo haiei hoztasun eta tristura are handiagoa ematen die bertako argi eskasak. Jokin Urain

**Ziega** ateko begitik hartutako irudiak eman zizkiguten. Iñigo Aranbarri

Ez dakit zenbat denbora egin nuen **ziega** txokoan eserita, uzkurtuta. Jon Maia

Slytheringoak, artean Hagridi buruz marmarka, beren **ziega**-egongelara abiatu ziren. Iñaki Mendiguren

Joan den astean 30 eguneko zigor ziegara kondenatu zuten, **ziega** aldaketa ez onartzea leporatuz. Berria - Euskal Herria

Lautadaren erdian, bere **ziega**-dendan bakarrik dago euskal-kiowa presoa, eta badaki bakarrik dagoela, eta **ziega**-dendaren kanpoaldean sumatzen dituen oinotsak, ateko idi-begitik so dauzkan begiak bere tribu-kidearenak ez direla. Jokin Urain

## 4 (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa)

Gizona urkaturik, sokatik zintzilik, kartzelako isolamendu **ziega** batean. Hasier Etxeberria

Hantxe zeuden, sotanoan, erreka horren paretik behera, bakartze **ziegak**, eta erraz betetzen ziren urez. Jokin Urain

Gaur egun, badago presorik bakartze **ziega** edo presondegietan? Berria - Mundua

## 5 irud/hed

Unibertso osoa da **ziega** bat, eta preso egoteak ez du zer ikusirik ziegaren tamainaz. Koldo Izagirre

Indarrak deusezetik atereaz, neronek atxiki nizkion eskumuturrak, neronek gibelat egin, neronek neure sexua bere **ziega** tristera itzularazi. Aingeru Epaltza

Zomorro itsuak gutaz bazkatzen dira gorrotoaren **ziega** laiotzetan. Joxerra Garzia

Bizia kalean baitzegoen lehen, eta orain berriz, etxezuloko **ziega** pantalladunetan. Iñaki Segurola

Nolaz esan dezaket liburu batean ixteak, letrazko **ziegan** isolatzeak, ez dakarrela onurarik? Koldo Izagirre

## 6 zigor ziega

Preso anitzek diziplina moduloa edo **zigor ziega** ezagutu dute. Berria - Euskal Herria

Urpeko sotoetan zeuden **zigor ziegetan** sartu zituzten harrapatu zituztenak, argirik, mantarik, oherik eta tabakorik gabe, eta eguneroko jipoiekin. Jokin Urain

Hogeita hamar egunez **zigor ziegan** eduki dute Zuhaitz Errasti presoa Poitiersko espetxean. Berria - Euskal Herria

Frantziako espetxeetan hogei preso **zigor ziegetan** daude. Berria - Euskal Herria

Noizbait behar eta, **zigor ziegara** heldu naiz, isolamenduko moduloa zer den jakinen dut, psikopaten galerian biziko naiz, hamargarren artikulu ospetsua ezarrita daudenen gogortegian. Koldo Izagirre

Ahanztura, bakardadea, **zigor ziegak** edo tortura, mundu guztiak salatzen ditugun errealitateak dira. Berria - Kultura

Garrasi larriak sumatzen ditiat **zigor ziegetarik**, tuberkulosoa torturapean. Koldo Izagirre

Joan den astean 30 eguneko **zigor ziegara** kondenatu zuten, ziega aldaketa ez onartzea leporatuz. Berria - Euskal Herria

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
>
> **espetxeko ziega** (3)
>
> **ziega aldera** (4); **ziega bakoitzean** (4); **ziega barruan** (5); **ziega batean sartu** (3); **ziega batetik bestera** (3); **ziega berean** (7); **ziega ilun** (6); **ziega osoa** (5); **ziegaz ziega** (6)
>
> **euskal presoen ziegak** (3); **presoen ziegak** (4); **ziegak miatu** (3); **zigor ziegak** (3)
>
> **bere ziegako atea** (4); **ziegako ate** (4); **ziegako atea** (11); **ziegako atearen** (3); **ziegako leihotik** (7)
>
> **aurkitu dute ziegan** (3); **espetxeko ziegan** (5); **presoak ziegan** (3)
>
> **ziegan bakarrik** (4); **ziegan barrena** (5); **ziegan hilik** (3); **ziegan itxita** (3); **ziegan sartu** (17); **ziegan sartu ninduten** (3); **ziegan sartzen** (3); **ziegan zegoen** (3); **zigor ziegan** (14); **zigor ziegan dago** (4); **zigor ziegan sartu** (3)
>
> **ziegara eraman** (13); **ziegara eraman ninduten** (3); **ziegara eraman zaituzte** (3); **ziegara iritsi** (3); **ziegara itzuli** (4); **ziegara joan** (3); **ziegara sartu** (4); **zigor ziegara** (7); **zigor ziegara eraman** (3)
>
> **ziegatik atera** (11); **ziegatik atera gabe** (3); **ziegatik ateratzen** (3); **ziegatik irten** (3); **zigor ziegatik** (5)
>
> **ziegaz aldatu** (4)

---

# ziegakide (orobat **ziega kide** g.er.) iz ziega berean dagoen pertsona.

Ahotik behera eroriko nintzela egin zidan iragarpen edo mehatxu, ez nago oso segur, **ziegakide** batek behin. Koldo Izagirre

**Ziegakideak** aurkitu zuen, bere burua izara batekin urkatuta, komunean. Berria - Euskal Herria

Bere egoera nabarmen gaiztotu zen Ahmed Batebi **ziegakidearekin** batera Gobernuaren aurkako gutuna argitaratu zuenean. Berria - Kultura

Mezetara jaisten dira igandeetan nire **ziegakide** izanak. Koldo Izagirre

**Ziegakide** izan nuen hogei urtez gizon hura, zure aita joan zenean. Javi Cillero

---

# zienpies iz egurra garraiatzen duen kamioa.

**Zienpiesak** egur garraioan ibiltzen ziren mendi-kamioiei deitzen zitzaien. Bernardo Atxaga

Zergatik ez zarete **zienpiesak** ibiltzen diren pistatik etorri? Bernardo Atxaga

---

# zientifiko 1 izond zientziari edo zientziei dagokiena; zientzia-metodoaren araberakoa. ik **zientzia 3**.

Teoria **zientifikoen** eragingarritasuna errealitatea azaltzerakoan. Askoren artean

Iraultza **zientifikoen** egitura. Patxi Altuna

Arrazoiaren exijentzia berriak bete nahi zituen teologia **zientifiko** bat lantzeko. Askoren artean

Beti saiatu zen, gainera, astrologia zientziarekin ezkontzen, astrologiarentzat esplikazio **zientifikoak** aurkitzen. J.M. Olaizola "Txiliku"

Badakigu, ongi jakin gainera, zer-nolako eztabaidak dauden metodo **zientifikoaz**. Berria - Harian

Haiek jainko-atributuen azterketa zorrotz eta **zientifikoa** nahi zuten, teologia bat. Iñaki Mendiguren

Berpizkunde garaian sortzen hasi zen pentsamendu **zientifikoa**. Pello Salaburu

Platonen pentsamendu morala, politikoa eta **zientifikoa**. Askoren artean

Biei otu zitzaien eratorketa enpirikoa ezin da bateratu, ordea, guk dauzkagun apriorizko ezagutza **zientifikoen** errealitatearekin, hots, Matematika hutsarekin eta Natur Zientzia orokorrarekin. Ibon Uribarri

Horrek eragin zuzen-zuzena du EHUren produkzio **zientifikoan**. Berria - Harian

Objektibotasun **zientifikoaren** postulatua. Jenaro Garate

Harro-harro kontatzen zuen hori izebak Errekarteko sukaldean, euskaldun arrazaren nagusitasunaren froga **zientifikoa** balitz bezala. Xabier Mendiguren Elizegi

Anjaren "sexu **zientifikoa"** ekarri zidan, nolabait, gogora. Hasier Etxeberria

Mitologia horren mesederako hainbat eta hainbat dira malgutasunaren eragin positiboa azpimarratzen duten ikerketa eta txosten **zientifiko** eta teknikoak. Iñaki Heras

Antzinateko testu filosofiko eta **zientifikoen** altxor oparo baino oparoagoa. Askoren artean

Sail **zientifikoan** egin den lanarekin ere ez nago gustura Liongo polizia **zientifikoko** eta Terrorismoaren kontrako Dibisioko kideak eta artezilariak aritu ziren etxea arakatzen eta hainbat kaxa atera zituzten bertatik. Berria - Harian

Brigada **zientifikoko** Lupe Latasa ertzaina. Hasier Etxeberria

Erakunde **zientifiko** amerikano batek erizain titulatu bat behar du bidaia batean parte hartzeko. Joseba Sarrionandia

*Intuizio* ***zientifikoak*** *huts egiten ez bazion, huraxe zen La Jollako neskarik motxin-beroena.* *Patxi Iturritegi*

*Iritzi hori ez zuela zera* ***zientifiko*** *batean oinarritzen.* *Ramon Saizarbitoria*

*Teoria honek ez duela inolako oinarri* ***zientifikorik***. *Josu Zabaleta*

*Bilkura* ***zientifiko*** *batean ezagutu nuen Carl Bennett.* *Xabier Olarra*

*Egiazaletasuna obligazio etikoa (deontologia) eta komunitate* ***zientifikoaren*** *harremanetako zutabe bihurtzen da.* *Joxe Azurmendi*

*Ez zegoen arrazoi* ***zientifikorik*** *aukera hori baztertzeko.* *Berria - Gaiak*

*Ebidentzia* ***zientifikorik*** *ez dago egun norberaren zilbor-hesteko zelulak gordetzea baliagarria dela esateko.* *Berria - Gaiak*

*Gaia filosofikoagoa da* ***zientifikoa*** *baino, gertuago dago kosmologiatik biologiatik baino.* *Xabier Arregi*

*Datuak* ***zientifikoak*** *dira, baina hauen gainean jasotako teoriak metazientifikoak dira.* *Jenaro Garate*

*XX. mendearen hasieran, kontrazepzio enpiriko hori* ***zientifiko*** *bihurtzen saiatu ziren zenbait mediku.* *Luis Elberdin*

*Ez zait oso* ***zientifikoa*** *iruditzen; gehiago da balorazio subjektiboen gainean egindako metodologia.* *Berria - Kultura*

*Evgenia Stepanova Erradiazio Medikuntzaren Zentro* ***Zientifikoko*** *kideak.* *Berria - Gaiak*

## **2** *(hitz elkartuetan lehen osagai gisa )*

*Zuk jasotako aldizkari* ***zientifiko*** *-filosofiko ugarietako batean ager zitekeen.* *Xabier Montoia*

*Arrisku* ***zientifiko*** *-teknologikoaren fenomenoari eta, modu orokorragoan, zientzia-teknologia-gizartea-izadia harremanei buruzko zenbait lanen egilea da.* *Askoren artean*

*Egungo politika* ***zientifiko*** *-teknologikoen inguruan pil-pilean dagoen eztabaidak zientziaz eta teknologiaz itun sozial berri bat beharrezkoa dela adierazten du.* *Askoren artean*

*Garapen* ***zientifiko*** *-teknikoaren eta garapen sozialaren arteko erlazioa.* *Askoren artean*

## **3** *(hitz elkartuetan bigarren osagai gisa)*

*Römische Geshichte* obraren egilea, hiru liburukitan Erromaren historia ematen duena; metodo historiko **zientifiko** modernoaren aitzindaritzat hartu ohi da. Xabier Olarra

## • **4** *iz* zientzia-gizona.

**Zientifikoarentzat** hori da objekziorik larriena: "nazioa" ez da ikerketa psiko edo etnologikoaren objektu bat. Joxe Azurmendi

Kubatar hau, Sergio izenez, Siberian duten **zientifikoen** hirira etorri zen ikastera, han maitemindu zen eta Errusian gelditu. Edorta Jimenez

Garai guztietako **zientifikoak** artegatu dituen galdera. Iñaki Segurola

## 5 ***ez-zientifiko*** *izond*

Zer irizpideren arabera baztertzen diren zenbait enuntziatu, diskurtsoarentzat ez egokitzat hartuta edo ez-esentzialtzat eta marjinaltzat edo **ez zientifikotzat** hartuta. Xabier Arregi

Geratzen fenomeno **ez zientifikoak** Terminologia ideologiko **ez-zientifikoa** Valentzian ez ezik, beste zenbait herrialdetan ere erabiltzen hasi dira. Berria - Mundua

Biologia eta fisikaren arteko harremanak ez dira batere errazak izan, biologiaren behar metodologikoak edo azalpenezkoak askotan **ez zientifikoak** bailiran ikusi baitira. Askoren artean

Valentziera independentea eta erabat bestelako ortografiarekin proposatzen dute, betiere interpretazio alderdikoi, **ez-zientifiko** eta kontraesankor batetik. Berria - Mundua

**hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**

**aldizkari zientifiko** (4); **azterketa zientifiko** (6); **datu zientifiko** (3); **diskurtso zientifiko** (4); **egia zientifiko** (3); **ezagutza zientifiko** (3); **garapen zientifiko** (3); **hipotesi zientifiko** (4); **ikerketa zientifiko** (11); **ikuspuntu zientifiko** (3); **interes zientifiko** (3); **izen zientifiko** (3); **lan zientifiko** (7); **praktika zientifiko** (3); **teoria zientifiko** (8); **zehaztasun zientifiko** (4)

**zientifiko gisa** (3); **zientifiko guztiak** (3); **zientifiko teknologikoaren** (4)

**aurrerapen zientifikoa** (3); **azalpen zientifikoa** (7); **balio zientifikoa** (4); **egia zientifikoa** (5); **euskal komunitate zientifikoa** (3); **ezagutza zientifikoa** (11); **hautu zientifikoa** (3); **ia zientifikoa** (5); **informazio zientifikoa** (4); **izen zientifikoa** (9); **komunitate zientifikoa** (6); **lege zientifikoa** (3); **oinarri zientifikoa** (5); **oso zientifikoa** (6); **teoria zientifikoa** (11)

**zientifikoa izan** (8); **zientifikoa izango** (3)

**zorroztasun zientifikoa** (4)

**azterketa zientifikoak** (3); **datu zientifikoak** (3); **ikerketa zientifikoak** (6); **polizia zientifikoak** (4); **teoria zientifikoak** (7)

**era zientifikoan** (3); **ezagutza zientifikoan** (3); **literatura zientifikoan** (3)

**azalpen zientifikoaren** (4); **azterketa zientifikoaren** (4); **diskurtso zientifikoaren** (3); **euskal komunitate zientifikoaren** (3); **ezagutza zientifikoaren** (10); **ikerketa zientifikoaren** (6); **komunitate zientifikoaren** (5); **teoria zientifikoaren** (4)

**zientifikoaren arabera** (3); **zientifikoaren azterketa** (5); **zientifikoaren produkzioa** (3)

**ikerketa zientifikoek** (3)

**helburu zientifikoekin** (4)

**diskurtso zientifikoen** (4); **ezagutza zientifikoen** (3); **ikerketa zientifikoen** (4); **iraultza zientifikoen egitura** (4); **teoria zientifikoen** (7)

**zientifikoen arteko** (3); **zientifikoen egitura** (5)

**batzorde zientifikoko** (4); **ezagutza zientifikoko** (3); **politika zientifikoko** (3)

**brigada zientifikokoak** (3)

**oinarri zientifikorik** (11); **zientifikorik gabe** (4)

---

# **zientifikoki** 1 *iz* era zientifikoan.

**Zientifikoki** ezagutzen ez diren gauza guztietarako, agnostizismo horrek zentzurik ez du, antibiologikoa baita. Josu Zabaleta

Materiaren azterketatik abiatzen da, **zientifikoki** jarduteko plantak eginez, izpiritura iristeko. Joxe Azurmendi

Zientziaren babesa bilatzen da zernahi frogatzeko: halako jogurtak janez gaztetu egingo zara: **zientifikoki** frogatua dago hori. Joxerra Garzia

Bai lekuan lekuko ministroaren erabakiak, bai teledendetan ateratzen diren tramankulurik xelebreenak ere, guztiek nahi dute beretzat onespen preziatua: **"zientifikoki** egiaztatuta". Iñaki Heras

Badago zerbait (sentsazioak, hautemateak, bizipenak...), mundua objektiboki edo **zientifikoki** deskribatzeko erabiltzen ditugun hitzekin azaldu ezin dena. Askoren artean

Pertsonaiaren istorio berezia inguruaren indar ezkutuen artean itota gelditzea ekarri zuen gizartearen bilakaera **zientifikoki** azaldu beharrak. Juan Garzia

Fenomeno mistikoa beti egon da presente kristau-tradizioan [...] eta kristau-fedearen hasieratik bere adierazpen egokien eta **zientifikoki** araztuena Teologia negatibo deituan izan du. Joan Mari Lekuona

Proiektua arduragabea, etikaren aurkakoa eta **zientifikoki** ahula da. Berria - Harian

## **2** (izen baten eta izenondo baten artean)

Alderantziz, jarrera akademiko tradizionalak, perspektiba **zientifikoki** zilegizkoa zen sistema bakartzat zeukanak, aldezle berriak aurkitu ditu orain. Josu Zabaleta

Astronautek ez zuten ardura handirik hartu hegaldiaren plangintzan agintzen zitzaien jaki **zientifikoki** prestatu baina ez oso gustagarriak jaten. Irene Aldasoro

**hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**

**zientifikoki frogatua** (4)

---

# **zientifikotasun** 1 *iz* zientifikoa denaren nolakotasuna.

Gure multzoak bateragarriak izaten dira sarritan, eta bereizketak **zientifikotasunari** baino, azalpenaren didaktismoari zor dio. Iñaki Arranz

Ideologia ez dagokio **zientifikotasunari** bakarrik. Xabier Arregi

Egungo gizartean ezagutza, teknika edo produktu askok eta askok ez dute nahi luketen **zientifikotasunaren** etiketa urrutitik ere betetzen. Iñaki Heras

Maila honetan **zientifikotasunak** ez du balio arau modura. Xabier Arregi

Anatomia patologikoak ez du murriztu eta **zientifikotasunaren** arauetara itzularazi medikuntza klinikoaren positibotasuna. Xabier Arregi

Zenbait positibotasunek formalizazioaren atalasea iragan duten garaian, beste zenbait ez dira heldu oraindik **zientifikotasunarenera** edo ezta epistemologizazioarenera ere. Xabier Arregi

Berpizkundean asmatu zen sistemak **zientifikotasun** bat baduela eta, horrenbestez, denboraz kanpo balio absolutu bat baduela. Josu Zabaleta

**2** (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

Nola eskuratu ahal izan dituen **zientifikotasun**-arauak, eta, agian, nola heldu ahal izan den formalizatze-atalaseraino. Xabier Arregi

Gutxi axola oraingoz zer ezberdintasun dagoen **zientifikotasun** estatusa edo horren ustea duten diskurtsoen eta benetako irizpide formala erakusten duten diskurtsoen artean. Xabier Arregi

Berak diskurtso bat eduki ahal dezan, behar izanez gero, **zientifikotasun**-irizpide formal eta esperimentalei erantzungo diena. Xabier Arregi

**Zientifikotasun**-eremu batean sartzen dira bakarrik eraiketa-arau jakin batzuk betetzen dituzten proposizioak. Xabier Arregi

Batzuetan **zientifikotasun** atalaseak positibotasun batetik beste baterako iragaiteari lotuta daude. Xabier Arregi

**3** ***ez-zientifikotasun***

Bere formarik orokorrenean esan daiteke ideien historiak etengabe [...] deskribatzen duela ez-filosofiatik filosofiarako iragaitea, **ez-zientifikotasunetik** zientziara, ez-literaturatik obrara. Xabier Arregi

Ez dit ezerk frogatzen era horretako deskribapen batek argitasunik eman ahal izango duenik multzo horien zientifikotasunaz (edo **ez-zientifikotasunaz**). Xabier Arregi

Une jakin batean izan direna [...] ez da sekula jaurtitzen ez-**zientifikotasunaren** kanpoko arlora. Xabier Arregi

---

## zientifismo *iz* jarduera intelektualean zientzia gailenarazteko joera.

Urkatze-lanak **zientifismo** bide horretatik abiatu zirenetik, hainbat negozio-gizon saiatu ziren langintza horretatik lanbide egiten. J.M. Olaizola "Txiliku"

**Zientifismo** sinplifikatzailea ez dator erlijioaren aurka, eta ez dakarkio inolako mehatxurik teologiari. Patziku Perurena

---

## zientismo *iz* zeintifismoa.

1897 *Paz en la guerra* nobelaren argitalpen urtea da [...] eta aldi berean krisi erlijioso pertsonalarena, handik harako guztizko zaputzarekin positibismoari eta "fede itsurako" konbertsioarekin razionalismo eta **zientismo** ororekin apurtuz. Joxe Azurmendi

Ortega-k arbuiatzen duen beste positibismo bat **zientismo** soilarena da: antropologo "zientifiko soil" batzuek, antropologia eta historia ez dituzte ezertarako nahastu nahi. Joxe Azurmendi

---

## ziento *iz* ehunekoa.

Hegaldi arrunt bat, aurretik egindako **zientoa** bezalakoxea. Joxe Austin Arrieta

Hark mila hosto klase, mila xomorro eta akaberarik gabeko beste **ziento** bat gauza ikusten dituen tokian, xiudadekoak Natura hutsa besterik ez duela ikusten. Iñaki Segurola

**Ziento** bat baldintza bete behar izaten dute parte-hartzaileek (autoak, bidoiak, Tourraren babesleak eraman), eta onurak antolatzaileek irensten dituzte soilik. Berria - Kirola

Azkena adituta koa delako ateratzen dut hemen, **ziento** bat aurki baitaitezke holako kontuak nonahi eta bazter guztietan. Iñaki Segurola

Adibideak, bada **ziento** bat, politika deitzen dugun arlo horretatik ateratzeke. Iñigo Aranbarri

16 txalupa hondoratu omen zituen galerna zorigaiztoko hark eta **ziento** bat inguru pertsona galdu. Pello Zabala

Gero diru pixka bat ailegatzen zitzaidan, gaur eguneko euroetan **ziento** bakar batzuk izanen zirenak. Fernando Rey

Ikusiko duzu Artikutza aldean, **ziento** dezenteko aldea kentzen diegula. Pello Zabala

Laurogei biografia labur egin ordez hogeita bost -**ziento** laurdena. J.M. Olaizola "Txiliku"

SESBeko pare bat **ziento** gizonez eta hango eta hemengo milizianoz osatutako Batailoi Internazionalistak izan ziren herria lehenengo defendatu zutenak. Jon Maia

Errenta merkeko pare bat **ziento** etxe. Koldo Izagirre

---

## zientoka 1 *adlag* ehunka.

XIII. mende hartan gatibuak **zientoka** eta milaka zuedenez, Espainiatiko eta Maroko aldetiko gatibuak libratzeko sortu zuen Mertzedarioen Ordena. Pello Zabala

Esan nahi dut bidaiak **zientoka** egin dituela, debalde, erretiroa hartu zuenetik. Berria - Kultura

Etxean ikusia naiz ama abarketa eginean, **zientoka**. Patziku Perurena

Etxean **zientoka** ditugu. Xabier Etxabe

Albistegietako iragarpen laburrak **zientoka** utzi nituen han, beti grabatuta, ahalik eta laburren. Pello Zabala

Erretratuak egin zituen tranbia barruan, **zientoka**. Unai Elorriaga

**2** (izen mugagabe baten ezkerrean)

-Lagunen bat bisitatzera etorriko zen, **zientoka** kilometro egin ondoren. Koldo Izagirre

Atzerago **zientoka** lamia zetozen, eta beste hainbeste, parez pare, ibaiaren beste aldetik. Pako Aristi

**Zientoka** koilare. Harkaitz Cano

Ahuleziak jota, ezin igeri egin eta, ito egiten ziren; **zientoka** lagun zeramatzan ibaiak. Pablo Sastre

Ospitaleak gainezka egon ziren, **zientoka** jende bertan, beroak penatuta itolarriz. Pello Zabala

Siberia aldean, **zientoka** urtetan usteldu gabe iraundako urki-azal puskak topatu izan dira, lurpean eta elurpean iraun dutenak. Pello Zabala

**Zientoka**, milaka bider. Agurtzane Juanena

**3** (izen gisa)

Hor ere ba omen zen ordea borondate oneko medikurik: txaketari buelta eman eta *x* ezkutatuta Ellis Islandeko muga zeharkatu bide zuen **zientoka** batek. Harkaitz Cano

---

## zientotres *iz* *Ciento tres* markako koinaka.

-Atera ezan **zientotres**. Alberto Barandiaren

---

**zientzia** *(orobat **zientzia** g.er.)* **1** *iz* helburu eta metodo jakin baten arabera gauzatzen diren sailen multzoa; horrelako ezaguera-sail bakoitza. ik **jakintza**.

Bilkari etiketadunak kutxatilategitan sailkatuta zeuden, horma-armairuen barruan, jakintza-adarka sailkatuta: literatura, filosofia, **zientzia** eta teknika. Jon Muñoz

Harentzat, aljebra ez zen **zientzia**, metodoa baizik: metodo unibertsala. Jon Muñoz

Segur aski ere, **zientzia** da gizartearen historiako kultura eraikin politena, ederrena, baliosena. Pello Salaburu

**Zientzia** da xakea, baina baita poesia ere, eta hiria, eta labirintoa. Markos Zapiain

-Zenbaki oso eta arrunten **zientzia** da aritmetika: 1, 2, 3... Aljebra, berriz, ekuazioen **zientzia** da. Jon Muñoz

Trigonometria itzalen **zientzia** dela esaten da batzuetan. Jon Muñoz

Bi polo ditu **zientziak** bere bidearen mugarri: desiragarri dena eta posible dena. Juan Garzia

Izan ere, **zientzia** gogoeta etikoaren aurretik ibili da beti. Berria - Gaiak

Kontzientziarik gabeko **zientzia**. Juan Garzia

Galileo **zientziaren** alde hil zitekean, baina **zientziaren** alde bizitzea erabaki zian, eta, hargatik, **zientzia** irabazten atera zuan. Joan Mari Irigoien

**Zientzia** egitea ez da merkea. Pello Salaburu

Azken batean, zelan operatzen du **zientzian** indukzio hedatzaileak? Askoren artean

Mende hau izan da, XVI.a Berpizkundearena izan zen gisa, **zientzia** eta teknologiaren mendea. Pello Salaburu

Duda-mudan jartzen dira **zientziaren** eta teknikaren abantailak, ekologia goraipatzen da, kapitalismoa maiseatzen. Karlos Zabala

Ez al zen **zientziaren** ikuspegitik zentzugabe samarra herriaren bidegabekeriak ikusita sartzen zitzaion amorru hura? Josu Zabaleta

**Zientziaren** Filosofia estandarraren orientabideak zientziagintzaren berariazko emaitzari begiratzen dio, hots, teoria zientifikoei. Askoren artean

Nola, halere, jokatzen ziren esperantzaz beterik geroari buruz, ikusiz zer urrats haundiak egin zituen **zientziak** XX. mendean. Herria

Modua errazteagatik edukia sinpletzeak ez luke barkamenik izan behar **zientziaren** munduan, iruzur egitea bailitzateke. Lourdes Oñederra

Hark ezarri ditu sendo bere lekuan betiko Egia eternoa eta azkeneko Ongia, mendebaleko kultura eta **zientziako** razionalitatearen harroin metafisikoak. Joxe Azurmendi

*ik beherago* 9. Askoren artean

Eta **zientziako** artikulu guztiak ere euskaraz? Pello Salaburu

Aita kuxkuxean ibiltzen zen nire liburuetan, historia, geografia eta **zientziakoetan** batez ere. Joseba Urteaga

**Zientziak** huts egiten zionean, emakume intuizioaz baliatzen zen Marga nire inteligentzia maskulinoak eragotzia zuen lekuraino iristeko. Ramon Saizarbitoria

Logika eta **Zientziaren** Filosofiako katedraduna da. Berria - Harian

**Zientziaren** eta humanitateen artean zubia eraiki behar zela. Berria - Gaiak

**Zientziak** eta letrek elkarrizketari ekin diogu, beharturik bada ere eta elkarrenganako mesfidantza gora-behera. Berria - Gaiak

Nobeletan aurkitu dut **zientziaren** poesia. Berria - Kultura

**2** (izenondo eta izenlagunekin)

**Zientzia** modernoaren benetako hastapena, hain zuzen, galdera mota bat egitetik -nondik dator unibertsoa?, zerez egina da materia?, zer da bizitza?- beste honelakoak egitera pasatu izanak markatzen du: nola gertatzen da harri bat erortzea? Juan Garzia

Sobietar genetistekin eztabaidan ari zela, ez zituen sekula kontuan hartzen **zientzia** esperimentalaren datuak. Juan Garzia

**Zientzia** matematiko berri hori sortzen lagundu zutenen zerrenda. Jon Muñoz

Mendebaldeko **zientzia** ekonomikoaren gurasoak. Iñaki Mendiguren

Ez da ikusten **zientzia** semiologiko baten beharra edo baliagarritasuna. Isabel Arrigain

**Zientzia** kognitiboaren baliabideen laguntzaz. Askoren artean

Arrazoimenaren **zientzia** teoretiko orotan apriorizko judizio sintetikoak barnebiltzen dira printzipio gisa. Ibon Uribarri

Hurrengo mendeko Mistika handiaren iragarlea zen agerpen goiztiar horri **zientzia** eskolastikoaren gogoeta eta espekulazioa gehitu behar zitzaizkion. Joan Mari Lekuona

Arrazoimen hutsak eskura ematen du arimaren irakaspen transzendentalerako ideia (*psychologia rationalis*), munduaren **zientzia** transzendentalerako ideia (*cosmologia rationalis*) eta, azkenik, baita Jainkoaren ezagutza transzendentalerako ideia ere (*theologia transscendentalis*). Ibon Uribarri

**Zientzia** sakratua mespretxatzen edo gutxiesten zuelako. Askoren artean

Kantek bere garaiko **zientzia** fisiko-matematikoaren -batik bat, newtondarraren- sistemarekin erkatu gura zuen filosofia. Askoren artean

Horregatik, oinarrizko **zientzia** denez, osotasun hau bilatzera behartua dago. Ibon Uribarri

**3** (hitz elkartuetan lehen osagai gisa) ik **zientifiko**.

**Zientzia**-irakasle batek aintzat hartu zuen fixazio hori. Xabier Olarra

Ezagutzen dut -eten zion **Zientzia**-kontseilariak, sabel handia igurtziz. Fernando Morillo

2003ko azarotik 2004ko apirilera 1.252 **zientzia** albiste argitaratu ziren Euskal Herriko bost egunkaritan: Gara, Berria, Diario Vasco, Deia eta El Correo. Berria - Gaiak

**Zientzia** aldizkarietan ezin da onartu ikerketa faltsu edo iruzurrik. Berria - Gaiak

**Zientzia**-ezagutzaren eta garapen teknologikoaren eredu klasikoen irakurketa kritikoa. Askoren artean

Bada herritar sail bat oso gogoko ez duena **zientzia**-ikerkuntzak berezko duen aurreikusezintasun hori. Juan Garzia

Beti garatzen ari den mundu baten umea da gizakia, hau da, **zientzia**-aurkikuntzek frogatu dutenez, gizakiaren aurrekoa da mundua. Askoren artean

**Zientzia**-lan batek eragiten duen harridura har liteke, ia, haren garrantziaren neurritzat. Juan Garzia

**Zientzia**-teoria horren arabera psikologia zertzeko egokienak iruditzen zaizkion muga metodologikoak ezartzen saiatzen da. Askoren artean

**Zientzi** ikuspegi modernoa sortu ez balitz ere. Iñaki Mendiguren

Horrekin batera, inoiz baino indartsuago ageri zaigun **zientzia** mailan ere, zientziaren kontrako mugimendu akademikoak sortu dira. Pello Salaburu

Izadia ala gizartea, zein nagusitzen da **zientzia**-gertakariaren eraketan? Askoren artean

Igarrezintasun hori, hain zuzen, **zientzia**-ekinbidearen izateari berari dagokio. Juan Garzia

**Zientzia**-produkzioaren izaera komunitarioa azaldu nahi izan zuen Kuhnek, bereziki **zientzia**-garapenaren dinamikaren berri eman ahal izateko. Askoren artean

Arreta gutxi jarri zion ezagutza eta **zientzia**-jarduera gauzatzen den testuinguru sozialari. Askoren artean

Ikertzaile horiek hainbat **zientzia**-esparrutatik zetozen: biologia, fisika, medikuntza, mikrobiologia, kimika, kristalografia, eta abar. Juan Garzia

Hartan, Georges Pompidou buru zuen gobernuaren **zientzia**-politika kritikatzen zen. Juan Garzia

Zunda automatikoa? **Zientzia** misio tripulatua? Patxi Iturritegi

**Zientzia**-teknologiaren erregulazioaren (kontrol publikoaren) arazoari helduko diogu. Askoren artean

**Zientzia** itxurako berriketa nahasgarriarekin liburu bat saldu zion Rudolf II.ari. J.M. Olaizola "Txiliku"

Umore onean egin zuten atzo CAF-Elhuyar **zientzia** dibulgazioko XII. sarien banaketa. Berria - Gaiak

Indiako **Zientzia** Institutuko ingeniari talde batek. Berria - Gaiak

**Zientzia** eta Teknologia Fakultatea. Berria - Euskal Herria

Ameriketako Estatu Batuetako **Zientzia** Akademia Nazionaleko eta Amerikako **Zientzia** eta Artearen Akademiako kide da. Berria - Gaiak

**4** (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa)

Newtondar Natur **Zientzia**. Joxe Azurmendi

**5** (hiru osagaiko hitz elkartuetan)

**Zientzia** ezagutza-ekoizle gisa ezaugarritzen duen irudiak hortxe dirau. Askoren artean

**6** (pluralean)

Prentsa guztian, bizitzaren **zientzietan** aurrekaririk ez zuen lorpentzat jo zen berria. Juan Garzia

Aldi berean **zientzien** arteko elkar lankidetza gero eta beharrezkoago da. Pello Salaburu

Bat letretakoa eta bestea **zientzietakoa**. Bernardo Atxaga

Txekoslovakiako Errepublika Demokratikoko **Zientzien** Akademiak antolatua da zeremonia. Juan Garzia

Parisko **Zientzien** Errege Akademia. Jon Muñoz

Bilbon **Zientzietako** Eskolan egindako ikasketak. Rafa Egiguren

**Zientzia** enpirikoentzat funtsezkoa zen kausa-efektu erlazioaren oinarria ez dela razionala. Askoren artean

Algebra eta fisika bezalako **zientzia** zehatzak eta naturalak baino "informalagoa" edo "bigunagoa". Iñaki Heras

Arrazoimenaren **zientzia** teoretiko orotan apriorizko judizio sintetikoak barnebiltzen dira printzipio gisa. Ibon Uribarri

**Zientzia** berezietan, biologian esaterako. Askoren artean

**Zientzia** errealak era axiomatikoan garatu nahi izateak ez dauka oinarririk. Askoren artean

**7** (pluralean hitz elkartuen lehen osagai gisa)

Espainiako **zientzi** ikerketen kontseilu nagusiko ikerlaria. Berria - Euskal Herria

**8** (pluralean hitz elkartuen bigarren osagai gisa)

Enpresa-**zientzietako** eskolan da irakasle. Oskar Arana

Humanitate eta hezkuntza **zientzietan** eta enpresa **zientzietan** euskarazko lerroak baino ez ditugu. Berria - Euskal Herria

Teoria zientifikoak aipatzen dituzte, teoria hauek nolakoak eta zein diren ezertarako jakin gabe; gizarte **zientzietara** ekartzen dituzte, inolako arrazoirik gabe, zientzia naturaletan erabiltzen diren kontzeptuak. Pello Salaburu

Oraindik baditu komunikazio-**zientzietako** eraikineko giltzak. Giza **zientziak** termino fisikoetan deskribatzen ziren. Oskar Arana

Espekulazio-**zientzietan** aditua. Xabier Kintana

Psikologiaren, neurofisiologiaren zein beste natur **zientzien** metodoak eta emaitzak erabiliz. Askoren artean

Adi ezazu, honetaz, matematika-**zientziek** zenbat irakasten diguten, eta eskaintzen dizkiguten baiespenak ere zein garrantzizkoak diren. Xabier Kintana

Ekonomia **zientzietan**, alabaina, ezinbestekoa da aipatu dugun dualtasun hori. Isabel Arrigain

Bere erlijioan eta ohituretan beteginik agertzen dena, filosofi **zientziak** ikasi eta haien sekretuak dakizkiena. Xabier Kintana

Gizarte **Zientzien** Euskadi Ikerkuntza Saria. Berria - Euskal Herria

**9** ***zientziazko*** *adlag* zientifikoa.

Ongi finkatutako eta denek onartzen duten **zientziazko** kontzeptu bat. Josu Zabaleta

"Nire zoriona, berriz, Jainkoaren ondoan egotea da", hauetan guztiotan jakintzaren bidezko hurbiltzea da, hots, **zientziazko** oharpena, eta ez lekuzko hurreratzea. Xabier Kintana

Osabak fede izugarria zion zientziari, halako moldez, non liburu bat ere skribatzen ari baitzen, frantsesez, **zientziazko** hainbat gairi buruz: matematika, astronomia... Joan Mari Irigoien

Ez da alemanerazko liburu rik irakurri behar, **zientziazkoak** eta idazle klasikoenak ez badira-. Josu Zabaleta

Behin, **zientziazko** karreraren bat egiten ari ziren bi ikasle fortunatu zitzaizkidan gertuan. Joxerra Garzia

**10** ***natur zientzia***

Hemen, **Natur Zientzia** printzipio enpirikoetan oinarritzen den heinean besterik ez dut hartu nahi aintzat. Ibon Uribarri

**Natur Zientziak** (*Physica*) apriorizko judizio sintetikoak barnebiltzen ditu bere baitan printzipio gisa. Ibon Uribarri

Programa horren arabera epistemologiak **natur zientziaren** ezagutzaren baieztapena juzgatu nahi du apodiktikoki. Askoren artean

Handik hara, **Natur zientzia** modernoen garapenak darrai, alde batetik, eta Zuzenbide naturalaren, moral naturalaren, erlijio naturalaren garapen teorikoak, bestetik. Joxe Azurmendi

· *pl* Leesek **natur zientzien** arloan kokatu zuen hizkuntzaren ikerkuntza. Itziar Laka

Psikologiaren, neurofisiologiaren zein beste **natur zientzien** metodoak eta emaitzak erabiliz. Askoren artean

Beraz, giza perfekziora heldu nahi duenak, beharrezkoa du, ororen aitzinetik, Logikan ikasten saiatzea, geroago, mailaka, Matematikan, bai halaber **natur zientzietan** eta, azkenean, Metafisikan. Xabier Kintana

**Natur zientzietan**, zientzialariak laborategietan behaketa kontrolatuak egin ditzake eta bere hipotesiak egiaztatu: gizarte-zientzietan, ordea, nekez. Iñaki Heras

Claude Dendaletxe mendizale, geologoa eta **natura zientzietan** aditua denak, besteak beste, 25 bat liburu idatziak ditu orain arte. Berria - Kultura

Lehen orduan korear hizkuntza eman dugu, bigarrenean **natur zientziak**, eta hirugarrenean aritmetikako kontrola izan dugu. Juan Kruz Igerabide

**11** ***zientzia-fikzio***

Eleberriak, saiakerak, polizi-eleberriak, **zientzia-fikzioa,** bidaiak, eskulanak, etab. COUn nengoela, **zientzia fikziozko** ipuin batzuk egin nituen. Jon Muñoz

**Zientzia fikziozko** eta fantasiazko bildumak. Iban Zaldua

Sobrinok estrategia aldatu bide zuen hurrengo urteko *Larrosa minerala* **zientzia fikzio** itxurako eleberri laburrarekin. Iban Zaldua

**Zientzia fikziozko** pelikuletan loaldi infinituak egiten dituzten astronauta horien moduan. Joseba Sarrionandia

Duela 20 urteko **zientzia fikziozko** filmetan. Iñaki Heras

-Zuk, maitea, **zientzia-fikzio** sobera irakurtzen duzu. Itxaro Borda

**12** ***zientzia-gizon*** (*14 agerraldi, 9 liburu eta artikulu 1ean; orobat **zientzi gizon** g.er. eta **zientziagizon** g.er.*) ik **zientzialari.**

Ez zegoen galarazirik bera zein zen irakastea eta ez zitzaion ezein **zientzia-gizoni** ezkutatzen. Xabier Kintana

**Zientzia-gizonek** gauza nabarmen horien existentzia trinkoki ezarri eta uste hutsezko gauzan existentziarik eza erakutsi behar izan zuten. Xabier Kintana

**Zientzia-gizonak** inolako aurreiritzirik gabe jarri behar du frogen aitzinean. Alberto Ladron Arana

Jakin beharko huke ezen, **zientzi gizona** naizen neurrian, parabolaren sekeretu guztien berri dakidala eta, ondorez, kanoi-tiroarena. Joan Mari Irigoien

Marokoko aissaua bat, jainkoaren ohoretan bere burua aizkora batez hausten edo kristalak irensten ari dela, edo mandinga gaixo bat bere gerripekoarekin, izaki fin eta ikasiak dira; izadia aztertzen duen **zientzia-gizona**, aldiz, izaki arrunt eta gisagabe bat da. Josu Zabaleta

Azterketa kausal batean, berriz, bilatuko litzateke zer neurritan mugatu ahal izan duten **zientzia-gizon**-emakumeen kontzientzia aldaketa politikoek, edo prozesu ekonomikoek. Xabier Arregi

**13** ***zientzia-jarduera*** (*orobat **zientziajarduera** g.er.*)

Jarduera horren ibilbide normalaren desbideraketak (erabilera desegoki, edota maltzurrari dagozkienak) salatzera mugatuko litzatekeen diskurtsotik harago, **zientzia jarduera** normalari (hau da, onartutakoari) berezkoa izango litzaizkiokeen ezaugarriei heltzen die. Berria - Gaiak

Ordura arte zientzia ulertzeko modua tradizio enpirista positibistaren barruan kokatua zegoen, **zientzia jarduera** neutral bat bezala ikusten zen, mugarik gabeko baikortasun baten inguruan. Berria - Kultura

Kuhnek **zientzia-jardueraren** azterketarako marko berri bat ezarri zuen. Askoren artean

Arreta gutxi jarri zion ezagutza eta **zientzia-jarduera** gauzatzen den testuinguru sozialari. Askoren artean

**Zientzia-jardueran** zehar zientzialariarengan jarrera aktiboa eta pasiboa bereizten ditugu. Askoren artean

**14** ***zientzia-praktika*** (*orobat **zientziapraktika***)

Datu eta eraikin teorikoen arteko joan-etorri horrek **zientzia-praktikaren** arrabola (*the mangle of practice*) osatzen du: bai agentzia materiala (izadia, objektua) bai giza

agentzia (gizartea, subjektua) elkarrekin lotzen dira ezinbestez **zientzia-praktikan**. Askoren artean

Azken buruan, planteaturiko arazoek ikerketaren jomuga zientzia-ezagutzaren argipenera baino gehiago **zientzia-praktika** errealaren azterketara bideratzen dute. Askoren artean

**Zientzia-praktika** aztertzen duten ikuspegiek gizartea zientzia-emaitzaren lortze-prozesuan bertan txertatzen duten moduan [...] teknologiaren eraketa-prozesuan gizarteak ere zeresanik baduela adieraztea da gure asmoa atal honetan. Askoren artean

**hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 4 aldiz agertzen direnak)**

**aranzadi zientzia elkarteak** (19); **aranzadi zientzia elkartearen** (4); **aranzadi zientzia elkarteko** (13); **arte eta zientzia** (4); **benetako zientzia** (5); **bere zientzia** (5); **gauezko zientzia** (4); **giza zientzia** (6); **gizarte zientzia** (5); **gure zientzia** (6); **mendebaldeko zientzia** (7); **natur zientzia** (13); **nature zientzia aldizkarian** (4); **nature zientzia aldizkariaren** (5); **sasi zientzia** (4); **science zientzia aldizkarian** (4); **unibertsitateko zientzia** (13); **unibertsitateko zientzia politikoetako** (5)

**zientzia akademia** (5); **zientzia akademiak** (4); **zientzia akademiako** (4); **zientzia albiste** (4); **zientzia aldizkari** (8); **zientzia aldizkariak** (8); **zientzia aldizkarian** (23); **zientzia aldizkarian eman** (16); **zientzia aldizkariaren** (13); **zientzia aldizkariaren arabera** (4); **zientzia aldizkariaren azken** (7); **zientzia aldizkarietan** (4); **zientzia alorreko** (5); **zientzia arloko** (4); **zientzia bakarra** (4); **zientzia bat** (30); **zientzia batek** (7); **zientzia baten** (26); **zientzia bera** (7); **zientzia berezi** (4); **zientzia berri** (5); **zientzia dibulgazioa** (4)

**zientzia egiten** (4); **zientzia ekonomikoak** (4); **zientzia elkartea** (4); **zientzia elkarteak** (22); **zientzia elkartearen** (5); **zientzia elkarteko** (16); **zientzia espainolaren** (6); **zientzia eta filosofia** (5); **zientzia eta kulturarako** (25); **zientzia eta teknika** (6); **zientzia eta teknologia** (50); **zientzia eta teknologiaren** (21); **zientzia ezagutza** (9); **zientzia ezagutzaren** (7); **zientzia fakultatea** (4); **zientzia fakultateko** (9); **zientzia fikzio** (9); **zientzia fikzioa** (19); **zientzia fikzioaren** (7); **zientzia fikzioko** (8); **zientzia fikziozko** (22); **zientzia fisiko** (5); **zientzia gai** (4); **zientzia gisa** (15); **zientzia gizona** (5); **zientzia guztiak** (5); **zientzia guztien** (11); **zientzia guztien artean** (4); **zientzia guztietan** (4)

**zientzia ikasketak** (4); **zientzia ikerketa** (5); **zientzia ikerketarako** (6); **zientzia jarduera** (5); **zientzia lan** (4); **zientzia liburuak** (5); **zientzia mailan** (4); **zientzia modernoa** (5); **zientzia modernoak** (8); **zientzia modernoaren** (5); **zientzia modura** (4); **zientzia naturalak** (6)

**zientzia ororen** (5); **zientzia politikoak** (12); **zientzia politikoaren** (4); **zientzia politikoen** (5); **zientzia politikoetako** (13); **zientzia politikoetan** (9); **zientzia praktika** (6)

**zientzia zer den** (6)

**arteak eta zientziak** (4); **giza zientziak** (8); **gizarte zientziak** (4); **natur zientziak** (25); **zientziak berak** (4); **zientziak bere** (9); **zientziak eta teknologiak** (12)

**dogmak zientzian** (5); **ekonomia zientzian** (4); **natur zientzian** (4)

**filosofiaren eta zientziaren** (4); **gure zientziaren** (4); **logika eta zientziaren** (4); **natur zientziaren** (8); **zientziaren alde** (9); **zientziaren alorrean** (5); **zientziaren azken** (4); **zientziaren azterketa** (12); **zientziaren barruan** (4); **zientziaren eliza** (4); **zientziaren emaitzak** (4); **zientziaren eta teknologiaren** (33); **zientziaren filosofia** (30); **zientziaren filosofiak** (8); **zientziaren filosofiako** (4); **zientziaren filosofian** (8); **zientziaren filosofiaren** (19); **zientziaren filosofiari** (6); **zientziaren garapena** (5); **zientziaren historia** (4); **zientziaren historian** (6); **zientziaren ibilera** (7); **zientziaren inguruko** (6); **zientziaren irudi** (5); **zientziaren izenean** (9); **zientziaren kutxagunean** (7)

**zientziari buruzko** (13); **zientziari eta teknologiari** (5)

---

## **zientziadun** *izlag* zientzia duena.

Zientzia dela eta, ezbaian ari dira ea **zientziadun** multzo osoaren bana-banako atomo guztietan akzidente moduan ote den, ala atomo bakarrean ote datzan; baina iritzi bietatik ondorio absurdoak ateratzen dira. Xabier Kintana

---

## **zientziagai** *(orobat **zientzia gai**)* *iz* zientziaren gaia.

Zientziatik begiratuz, **zientziagaien** ate osteetan, zirrikituetan, ez daude adigai zientifikoak besterik. Jenaro Garate

Bere burua ere ezagutzen duela eta ezagutza hauek guztiak **zientziagai** bihurtzen direla. Frantseseko klaseak hartzen genituen gela berean irakasten nizkion **zientzia gaia**. Imanol Unzurrunzaga

---

## **zientziagintza** *iz* zientzia-jarduera, zientzia egitea.

"Etxeko zoro" delakoa jare ibil ez dadin bere gisa, **zientziagintzan** dabiltzanen eginkizuna da atsedenik gabe jartzea aurrez aurre izan litekeena eta dena. Juan Garzia

**Zientziagintza** jardun morala da, on, eder eta egiazkoa. Jenaro Garate

Aurreikusezin izatea **zientziagintzaren** mami-mamian dago. Juan Garzia

**Zientziagintzaren** lehenbiziko pausoan bertan, datuak jasotzean, adimenezko fedea da objektibotasun enpirikoaren babeslea. Jenaro Garate

Zientziaren Filosofia estandarraren orientabideak **zientziagintzaren** berariazko emaitzari begiratzen dio, hots, teoria zientifikoei. Askoren artean

---

## zientziagizon ik **zientzia 12**.

---

## zientziajarduera ik **zientzia 13**.

---

## **zientziakeria** *iz* zientzia, gaitzesgarritzat hartua.

Igotzen dena lehenago edo geroago jaisten dela esatea, ordea, ez dirudi oso serioa denik, ezagutza arlo guztiak, bitxienak ere, teknikaz eta **zientziakeriaz** edertu nahi diren egun hauetan. Iñaki Heras

---

## **zientzialari** *(900 agerraldi, 131 liburu eta 203 artikulutan; orobat **zientzilari** g.er.)* **1** *iz* zientziagintzan aritzen den pertsona, zientzia ikerlaria. ik **zientzia 12**.

Jakintsu gehienak -eta **zientzialari** izateko ospea dutenez ari naiz- gaitz horrek jota daude: zientziaren azken xedeen bila ari dira eta haiez mintzo, hasierako presta-ikasketez arduratu gabe. Xabier Kintana

**Zientzialari** eta humanisten elkarrenganako abegi txar hau ez da, noski, oraingoa. Berria - Gaiak

Gure bizitza ezingo litzateke ulertu zientzia eta metodo zientifikorik gabe, ezingo litzateke ulertu joan den mendean **zientzialariek** gure esku jarri dituzten aurkikuntza eta asmakizun harrigarri horiek gabe. Pello Salaburu

**Zientzialarien** beren arabera, adigai- eta esperimentu-kate ongi antolatua da beren jarduera, non ordena xuxen-xuxen logiko batean kateatzen baitira urrats guztiak. Juan Garzia

**Zientzialariaren** eragilea egiaren maitasuna da, besterik gabe. Jenaro Garate

Zientziaren jardunbidearen irudimen fasean funtzionatzen du **zientzialariak** artistak bezala; hipotesiak eratzeko orduan, alegia. Juan Garzia

**Zientzialariek** beren espekulazio eta teoriak egiaztatzeko behar dituzten tresna eta materialak eskaintzen ditu teknologiak. Irene Aldasoro

Errealitatetik hautematen duena deskonposatu eta gero bestela berrosatu: hara nola eraikitzen duen margolariak, poetak zein **zientzialariak** bere unibertso-ikuspegia. Juan Garzia

Zientziak itsu-mutsuka aurreratzen du askotan [...] eta **zientzialariak** ikerketa batekin gora eta behera ari direla, uste gabean pentsatzen ez dutena aurkitzen dute zenbaitetan. Pello Salaburu

Hainbat **zientzialarik** kontatu izan du nola aurkitu duen tupustean, gutxien ustean, aspalditik bilatzen zuen ebazpen bat: ohean, erdi lotan; autobus batean; su baten gar-

dantzari begira; haur batekin jolasean. Juan Garzia

Natur zientzietan, **zientzialariak** laborategietan behaketa kontrolatuak egin ditzake eta bere hipotesiak egiaztatu: gizarte-zientzietan, ordea, nekez. Iñaki Heras

Urrats bakoitzean, **zientzialaria** beharturik dago kritikaren eta esperientziaren irizpena jasotzera, eraikitzen ari den mundu-irudikapen horretan ezinbestean dagoen amets parte hori estu lotzeko. Juan Garzia

Atomoaren egituraz oinarrizko ikerkuntza egiten duten **zientzialariek** erakutsi digutenak izan dezake inolako aplikaziorik konputagailuak egiteko? Pello Salaburu

**Zientzialariak** duen arriskua zera da: ez neurtzea bere zientziaren mugak, eta, beraz, bere ezaguerarenak. Juan Garzia

Zerk bultzatzen du **zientzialarien** elkartea teoria bat baztertzera eta beste teoria baten bidez ordeztera? Askoren artean

Fusioa kontrolatzea da **zientzialarien** itxaropen handienetako bat. Fernando Morillo

GKE batzuk oso teknifikatuak daude, Oxfam bezalako bat arma kimikoetan esaterako, eta teknifikazio hori ezinezkoa litzateke **zientzialari** eta teknikarien laguntzarik gabe. Pello Salaburu

Eric Wolff Erresuma Batuko **zientzialariak**. Berria - Gaiak

Zenbat ur aurkitu duten, hala ere, ez dute zehaztu ESAko **zientzialariek**. Berria - Gaiak

**Zientzialariek** ematen dioten latinezko izena *Adiantum capellis-veneri* da, hau da, *Venusen ileak*. J.M. Olaizola "Txiliku"

Grossman idazle eta **zientzialaria** zen. Felipe Juaristi

## **2** (izenondo eta izenlagunekin)

Neurona motorretako gaixotasun bat ikertu nahi zuela esan zuen orduan **zientzialari** eskoziarrak. Mahaian burezur ugari ilaran; burezurren ondoan, **zientzialari** edadetuago bat. Berria - Gaiak

Gerora jakin zenez, **zientzialari** ezezaguna Ahmed Chalabi zen, Pentagonoko buruzagien kuttunetako bat. Txema Ramirez de la Piscina

Princeton: mundu osoko **zientzialari** ospetsuenetakoen ikerlekua. Fernando Morillo

Hau ez dute aipatzen **zientzialari** fundamentalistek, gizakiaren jakintzaren objektibotasunean fededun direlako. Jenaro Garate

Australiako **zientzialari** batek atzo zabaldu zuenez, lehen aldiz marsupial baten genoma deskodetu dute. Berria - Gaiak

Munduko **zientzialari** eta pentsalari behinenetakoak. Fernando Morillo

Kolorea ez da huskeria; aitzitik, jakin-min eta grina handia sortu izan du iragan mendeetan artista, filosofo eta naturaren **zientzialaririk** handienen artean. Xabier Olarra

**Zientzialari** Atomikoen Larrialdi Batzordea. Fernando Morillo

## **3** (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

740.000 urtean izan diren klima aldaketak aztertu ditu **zientzialari** talde batek Antartidan. Berria - Gaiak

Barry Richmond **zientzialari** taldeko zuzendariak esan duenez, normalean tximinoek eta pertsonek lana atzeratzera jotzen dute. Berria - Gaiak

Telebistan **zientzialari** aldra agertu zen (zientzialariak aldratan neurtuko balira bezala). Unai Elorriaga

Era berean, **zientzialari** kopurua bikoizteko eta azpiegiturak hobetzeko ere eskatu zieten ikertzaileek agintariei. Berria - Gaiak

## **4** (hitz elkartuetan lehen osagai gisa, lehen osagai hori izenondoduna dela)

Txosten alternatiboak aurkeztu zituzten Greenpeacek eta **zientzialari** independente talde batek IAEAren kalkuluak gaitzetsi zituen bi txostenetan. Berria - Harian

## **5** (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa)

Hala diote harro ekonomilariek, gainerako gizarte **zientzialariei** goitik behera begiratuz. Iñaki Heras

## **6** (hiru osagaiko hitz elkartuetan)

Erich Frommek, bere psikologo-**zientzialari** ikusmiratik, argi bereizten ditu kontzientzia eta adimena. Jenaro Garate

## **7** ***natur zientzialari***

Galileok berak aukeratutako pisua zuten bolak plano inklinatutik eraitsi zituenean, argi bat piztu zitzaien **natur zientzialari** guztiei. Ia **natur zientzialari** denek bolumen berean hainbat eratako materiaren kantitatearen bereizketa handiak hautematen dituztenez gero [...]. Askoren artean

### hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

aebetako zientzialari (6); aebetako zientzialari talde (3); australiako zientzialari (3); baina zientzialari (3); erresuma batuko zientzialari (15); estatu batuetako zientzialari (16); institutuko zientzialari talde (3); mordechai vanunu zientzialari (5); mundu osoko zientzialari (4); munduko zientzialari (3); natur zientzialari (3); nazioarteko zientzialari (8); nazioarteko zientzialari talde (7); newcastleko unibertsitateko zientzialari (3); osoko zientzialari (4); unibertsitateko zientzialari (15); unibertsitateko zientzialari talde (13)

zientzialari britainiarrak (4); zientzialari estatubatuarrek (3); zientzialari gehienen arabera (4); zientzialari izan (3); zientzialari ospetsuak (3); zientzialari talde (116); zientzialari talde bat (8); zientzialari talde batek (87); zientzialari talde baten (9); zientzialari talde bati (3); zientzialari taldeak (6); zientzialari taldeko (13); zientzialari taldeko arduradunak (3); zientzialari taldeko buruak (3); zientzialari taldeko buruaren (4)

mordechai vanunu zientzialaria (3); zientzialaria da (7)

aebetako zientzialariak (3); beldur dira zientzialariak (3); erresuma batuko zientzialariak (8); esan zuen zientzialariak (4); estatu batuetako zientzialariak (4); herbehereetako zientzialariak (4); institutuko zientzialariak (4); kezkatuta daude zientzialariak (4); mordechai vanunu zientzialariak (3); mundu osoko zientzialariak (3); nabarmendu zuen zientzialariak (3); nasako zientzialariak (3); unibertsitateko zientzialariak (5)

zientzialariak azaldu zuenez (3)

zientzialariaren esanetan (7)

aebetako zientzialariek (6); agentziako zientzialariek (6); ari diren zientzialariek (3); atzeman dituzte zientzialariek (3); aztertu dituzte zientzialariek (6)

erresuma batuko zientzialariek (9); esako zientzialariek (9); esan dute zientzialariek (7); espazio agentziako zientzialariek (6); estatu batuetako zientzialariek (17); hego koreako zientzialariek (3)

ikusi zuten zientzialariek (3); institutuko zientzialariek (6); izan dute zientzialariek (5); izan zuten zientzialariek (3); nahi dute zientzialariek (3); nasako zientzialariek (8)

ohartarazi dute zientzialariek (7); ondorioztatu dute zientzialariek (3)

unibertsitateko zientzialariek (14); uste dute zientzialariek (16); uste zuten zientzialariek (6)

zientzialariek aditzera eman (3); zientzialariek aurkitu (3); zientzialariek azaldu (8); zientzialariek azaldu dutenez (4); zientzialariek azaldu zutenez (4); zientzialariek esan (4); zientzialariek ez dakite (4); zientzialariek ez dute (5); zientzialariek iradoki dutenez (3); zientzialariek uste (17); zientzialariek uste dute (15)

erresuma batuko zientzialarien (5); estatu batuetako zientzialarien (3); institutuko zientzialarien (3); nasako zientzialarien (5); nasako zientzialarien arabera (3); nazioarteko zientzialarien (5); unibertsitateko zientzialarien (8); unibertsitateko zientzialarien arabera (4); unibertsitateko zientzialarien esanetan (3); zientzialarien arabera (42); zientzialarien artean (10); zientzialarien asmoa (4); zientzialarien elkartea (3); zientzialarien esanetan (32); zientzialarien esku (3); zientzialarien lanak (3); zientzialarien ustez (14)

zientzialarietako baten esanetan (3)

hainbat zientzialarik (14); zenbait zientzialarik (8)

zientzialarion arabera (4)

hainbat zientzialariren (3)

---

# **zientzialariburu** *(corpusean **zientzialari buru** soilik) iz* zientzialari talde baten buru den pertsona.

Batzorde Aholkulariak Golkoko Gerrako beteranoei buruz egin duen txosten horretan, Beatrice Golombe **zientzialari buruak** dio gerran erabilitako zenbait gai kimikok aldaketak eragin zitzaketela soldaduen gorputzean. Berria - Mundua

---

# zientziapraktika ik **zientzia 14.**

---

## **zientziaurreko** *izlag* zientziaren aurrekoa.

Jakitea, modu orokorragoan, nola zientzia bat ezarria izan den **zientziaurreko** maila baten gainetik eta aurka, **zientziaurreko** maila honek aldi berean hura prestatuko zuelarik eta aurka egingo ziolarik, nola iragan ahal izan dituen berari kontrajartzen zitzaizkion trabak eta mugapenak. Xabier Arregi

---

## **zientziazale** *(orobat* ***zientzizale*** *g.er.) izond/iz* zientziaren zalea dena.

Ez ote ziren grekoak optimista eta axaleko bilakatu, eta mundua arrazoiz eta logikaz menderatu zale, aldi berean alaiago eta **zientziazaleago**, ahultzen, eskasten eta zahartzen hasi zirenean? Iñaki Segurola

Nahiko **zientziazalea** naiz, dibulgazio mailan bada ere. Fernando Morillo

Gure Mendizabal getariar **zientziazale** eta natur gizonak, bazuen aurrez ere mikrofono aurrean ordurik franko patxada soseguzkoaz egindakorik. Pello Zabala

**Zientziazale** amorratuak dira gehienak, eta horrelakoei beti izan zaie errazago ordu estrak egitea. Fernando Morillo

---

## **zientziazki** *adlag* zientziaren ikuspegitik.

Zer esan, honi buruz? ezepziotxo batzuz aparte, ez dira **zientziazki** egiztaturiko konstatazioak, huts gabeki atereak. Iñaki Heras

---

## zientziazko ik **zientzia 9**.

---

## zientzilari ik **zientzialari**.

---

## zientzizale ik **zientziazale**.

---

## zienzia ik **zientzia**.

---

## **zierto** *izond* ziurra, dudagabea.

Egia **zierto** garbia. Iñaki Segurola

Emakumeen sen **zierto** horrekin, istanteko igartzen baitiote beren enamoratuen beldur eta ahuleziari, konturatu zen, antza, Tsarren inperioko txakur salatari guztien artean gizarajoena nintzela. Matías Múgica

Har ezazu gauza **ziertotzat** preso guztiek ahotsa gizentzen dutela eta ozentzen pasarte horretara iritsitakoan. Anjel Lertxundi

---

## **ziertzo** *iz* ipar haizea, eskuarki Ebro aldekoa.

Eguraldi sanoa: egunez beroa eta gauez 10 edo 12 gradu freskoago, eta iparreko haizea, **ziertzo** delakoa. Berria - Ekonomia

Ekaitza, hegoa, **ziertzoa**, enbata, soperna jeneralaren hatsa eta mortu erreak. Itxaro Borda

Haize-babesek Gaztelan dute sona, baina Euskal Herrian, ipar-gorriak, **ziertzoak** agintzen duen eremuetan ere sortzen direla bagenekien gaur baino lehen ere. Berria - Kirola

Nafarroa Garaiko erdialdean eta hegoaldean **ziertzo** zakarra ere ibili zen atzo. Berria - Harian

---

## **zifra** *(orobat* ***xifra*** *g.er.,* ***xifre*** *eta* ***zifre*** *g.er.)* **1** *iz* zenbakiak idazteko erabiltzen diren ikurretako bakoitza.

Hirurogeita lau **zifrako** zenbaki luze bat! Jon Muñoz

Atera zaizun emaitza **zifra** bakar batekoa baldin bada, gogoan hartu besterik ez duzu. Patxi Zubizarreta

Finala erreboteko zuloan erabakiko da, bi **zifrako** zenbakidun koadroetan. Berria - Kirola

Umea nintzenean, **zifren** batura 3z zatigarria bazen, zenbakia ere 3z zatigarria zela erakutsi zidaten. Jon Muñoz

Hamar **zifra** dira, eta kalkuluak egiten ditugu haiekin. Jon Muñoz

Kokalekuzko zenbakeran, berriz, guztiz bestelakoak dira kontuak; **zifra** baten balioa **zifra** horrek zenbakia idazterakoan duen kokalekuaren araberakoa da. Jon Muñoz

Haren bitartez ezagutu zituzten arabiarrek indiar **zifrak**. Jon Muñoz

Geroago, zero **zifra** bat asmatu zuten astronomo maiek, barraskilo-maskorra irudikatzen zuen obalo horizontal batez irudikatua. Jon Muñoz

Edozein zenbakiren logaritmoa eman zezakeen Bidderrek zazpigarren edo zortzigarren **zifraraino**. Xabier Olarra

Hurrengo orduotan, **zifretan** eta eragiketa matematikoetan murgildu zen. Aritz Gorrotxategi

Haanover Ruec enpresako eledunak galerak milioi eurotan bi **zifrakoak** izango direla zehaztu zuen. Berria - Ekonomia

Sei **zifrako** diru saria jasoko duela adierazi dute. Berria - Ekonomia

Garai hartan, eta geroztik ere luzaro, kode horiek sekretuak ziren, **zifra** matematikoen eta beste arte batzuen pean adierazten zirelarik. Berria - Kultura

**2** zenbakia, kopurua.

Nola zortezko jokoetan **zifra** bikoitiak eta **zifra** bakoitiak azkenean batez-besteko orekara etortzen baitira, [...]. Juan Garzia

**Zifra** horiek epe luzeko deritzaten fluxu garbiei dagozkie. Koro Navarro

Industrializaturiko herrialde guztien BPG osoa baino handiagoa da 21 bilioi dolarreko **zifra** hori. Iñaki Heras

Langabeziari buruzko **zifren** artean 60.000 langabetu inguruko aldea dago, bakoitzak bere modura definitzen baitu langabetu izatea zer den. Iñaki Heras

Airbusek aurreikusten zuen 300 hegazkin amaitzea, baina **zifra** hori gainditu du 2003. urtean, eta 305 hegazkin eman ditu. Berria - Ekonomia

Biek erabiltzen dituzte **zifrak**, datu eta estatistika objektiboak. Iñaki Heras

-**Zifra** zehatzak behar ditut, neurriak. Eskarne Mujika

Dotzenako bat gora behera, iazko **zifra** bera da. Herria

**Zifra** hori bikoiztu egingo da 2005ean, ekonomiak «bide onetik» jarraituz gero. Berria - Ekonomia

Langabeziaren **zifren** dantza. Berria - Harian

Egunean egunekoa eginez heltzen baita behar den tokira, ez naute **xifre** horiek sobera izitzen. Piarres Aintziart

**3** (hitz elkartuetan)

Urteko agiantzen karietara, Miarritzeko kargudun batek ezagutzera eman ditu **zifra** andana bat. Herria

· Epe horretan, 250,79 milioi euroko negozio **zifra** lortu zuen CAFek. Berria - Ekonomia

Urte bakoitz afera **zifra** doblatu du, Baltimoreko enpresa amerikar batekin lotu ondoan. Herria

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
> **afera zifra** (3); **arabiar zifrak** (4); **lau zifrako** (3); **negozio zifra** (13); **negozio zifraren** (3); **sei zifrako** (3); **zifrako zenbaki** (3); **zifren dantza** (3)

---

**zifratu**, zifra(tu), zifratzen **1** du *ad* mezu bat zifra eta ikurren bidez idatzi.

Gerra garaian, espioitza kontuetan, maiteminduen arteko isilpeko amodioetan... ohikoa da nola edo hala mezuak **zifratzea**, besteek ez ezagutzeko zer esaten dugun. Iñaki Arranz

Hitzak **zifratzeko** zeinu sistema berriak asmatzen dira. Iñaki Arranz

Logika baten arabera eraiki ahal dira hitzak **zifratzeko** kodeak. Iñaki Arranz

Dena galdu zen, tamalez, bazen-eta han mutur batetik bestera **zifratutako** txostenez sei liburuki in-folio betetzeko lain. Jon Muñoz

**2** (era burutua izenondo edo izen gisa)

Jada ez didate ematen mezu **zifraturik** zuretzat. Londresko Secret Intelligence Service delakoak Espainiako Enbaxadaren kode **zifratuak** eskatu zizkion Asensiori, premia larriz gainera. Hasier Etxeberria

Bagenekien bere listuaren ADNko nukleotidoen sekuentzia **zifratua**. Jon Alonso

Uste nuen kritika gogorrak entzungo nituela zenbaki **zifratua** ahazteagatik. Jon Alonso

Hala ere, eta adierazgarria da oso, testuaren bukaeran agertu eta hemen aipatu ditugun emakume izen **zifratuak** editorearen oin-ohar batean baino ez dira aipatzen. Iñaki Arranz

Seguritate-kutxara joan, ateko sarraila **zifratuan** zenbakiak sartu, hura zabaldu, Londresek behar zituen **zifratuen** kaxatxoa handik atera eta alboko hoteleko washroom-era eroan. Edorta Jimenez

Testu bibliko eta talmudikoen zentzua modu **zifratuan** dezifratzeko egin nahi izan zuen tratua da. Xabier Kintana

---

zifre ik **zifra**.

---

**zigala** *iz* otarrainaren antzeko itsas oskolduna, jateko ona, hogei bat zentimetro luze dena eta lehen hanka parea pintza moduko hagin sendoz osatua duena *(Nephrops novegicus)*.

**Zigalari** dagokionez, babes gune zabalak markatu ditu EBk Iberiako Penintsularen inguruan. Berria - Ekonomia

---

**zigante** **1** *izond/iz ipar* erraldoia. ik **digante**.

Kapera haundi hortan ehortzia da Santxo, hobiaren luzetasunaren arabera alimaleko gizona zitaiken, **zigante** bat! Michel Oronoz

Barda irakurtua nuen, zeharka, Errolan eta Ferragut **zigante** musulmanaren arteko gatazkaren historia. Piarres Aintziart

Uharte batean **zigante** begibakar beldurgarriak dira; ondoko bateko jendeak burugabeak dira, begiak soinburuetan dituzte eta zaldien ferraren formako aho itsusi bat badute bularretan. Aurelia Arkotxa

**2** (festetakoak)

Joaldunak eta **ziganteak** karriketan. Herria

Ortziralean, goizeko 11etan, *Orai Bat*-eko **ziganteen** kabalkada eta *Leinua Ttiki*-ren euskal dantzak. Herria

Eguerdian bertsolariak, Arrolako dantzariak, Altsasuko ihauteriak, **ziganteak**, jauziak eta larrain dantza izanen dira. Berria - Euskal Herria

Larunbata, **Ziganteen** eguna bilakatu da joanden urtean eta bi **zigante** ibilaldi izanen dira egun horretan. Herria

Larunbatean, 11etarik landa, Erraldoien eguna, Emaitza eta Sukila elkarteek antolaturik, 11etan eta 16etan, **Ziganteen** ibilaldia karriketan. Herria

**3** oso tamaina handikoa.

200 hektareko industria gune **zigante** baten eraikitzeko proiektua bada Oiartzungo eskualde hortan, haran guzia suntsi lezakeena. Herria

Gasteizko Aratz lantegia bere aldetik burdin ekoizten ari da Txinako "Trois Gorges" eskualdean eraikitzen ari duten barradera **zigantearako**. Herria

Arratsean denentzat "Paella **Zigante"** janaldia. Herria

Ezpeletakoek aldiz "transgenikoari ez" dute goraki oihukatu, biper **zigante** baten ondoan. Herria

---

zigareta ik **zigarreta**.

---

**zigarreta** *(344 agerraldi, 42 liburu eta 28 artikulutan; ETCn 1818 –horietako 1487 literaturan-; orobat* ***zigareta*** *g.er.)* **1** *iz* paper mehe baten biltzen den tabakoz eginiko zilindro modukoa. ik **zigarro**.

**Zigarretak** eskaini zizkidan, aldamenekoak, baina nik neureetatik hartu, erretzeko gogorik ez neukan arren. Joxe Austin Arrieta

**Zigarreta** eskaini dit, konplizitate keinu baten bidez barraz bestaldeko emakumea seinalatuz. Edorta Jimenez

Biltzeko tabakoarekin egindako **zigarreta** piztu eta aurrean duen kafe hutsa dastatu ondoren hasi da hizketan. Berria - Kultura

Guztiek amultsuki begiratu zuten nola Jansonen hatzek **zigarreta** hartzen zuten, nola pospoloa pizten zen eta Jansonen ahotik ke urdina ateratzen zen. Jose Morales

**Zigarreta** bat neukan ahoan, piztu gabe. Joxe Austin Arrieta

**Zigarreta** bat piztu zuen, ingurura begiratu zuen, belarretara bota zuen pospoloa. Koro Navarro

**Zigarreta** bat sutu zuen kalean. Unai Iturriaga

**Zigarreta** erre, kafea edan, eta telebista itzali zuen. Koro Navarro

**Zigarreta** erretzeko etena. Oskar Arana

Batzuetan Avigdorrek **zigarreta** bat erretzen zuen, eta Anshelek **zigarreta** ezpainetatik kentzen zion arnasaldi bat. Koro Navarro

Nina, lehengusu batek ebatsitako **zigarreta** bat pipatzera saiatzen da. Ramuntxo Etxeberri

Leku haren aurrealdeko erdia auzoko ostatu bat zen, non sustatu egiten baitzen **zigarretak** eta zigarroak erretzea. Oskar Arana

Noranahi begiratzen zenuela ere, inauteri nahasi hura, faroltxo haiek, **zigarreten** eta zigarroen lurrinetan gandutuak, eguzkia Guatemalan bezala. Joxe Austin Arrieta

Willy Eisenerrek bere **zigarretari** atxiki bat eman eta kea baztertu zuen aurretik. Anton Garikano

Egongelan sartzean baina, hantxe ikusten du neska-laguna, urduri, **zigarretari** azken atxikiak ematen. Antton Olano

Tomek gogoetatsu zirudien, Camel Filter **zigarretari** hurrupa egiten ziolarik. Oskar Arana

**Zigarretaren** puntako hautsa lurrera erori arte. Ramuntxo Etxeberri

**Zigarreta** amatatu zuen hautsontzian, eta zurrut egin zuen ardotik. Unai Iturriaga

**Zigarreta** hautsontzian utzi, eta, oina seinalatuz, behatzak mugitu zituen, agur moduan. Koro Navarro

Sabeth kiosko batera doa, **zigarreta** bila. Joxe Austin Arrieta

**Zigarretaren** kondar horixka leihotik bota eta beste bat biribiltzeari ekin zion. Alberto Ladron Arana

Usadiozko *post coitum* **zigarreta** erretzen ari zenean. Karlos Zabala

Jostagailuen artean, sei tona **zigarreta** , kontrabandan eremaki inglesentzat! Herria

**Zigarretarekin** larrua erretzen zieten. Eneko Bidegain

**2** (izenondo eta izenlagunekin)

Han den aulkian jarri da, 'Gauloise' **zigarreta** azkar bat emeki erretzeko. Ramuntxo Etxeberri

Gosaldu ondoko **zigarreta** gozo eta berantetsia. Xabier Montoia

Cliffen irazki gabeko **zigarretetako** bat erre nuen. Koro Navarro

**3** (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

Nire **zigarreta** -kaxaren gainean. Joxe Austin Arrieta

Zur finezko **zigarreta** -kutxatilak, Parisko geltoki erosoen ikuspegiak tartekatuta ageri zituztenak. Mirentxu Larrañaga

Mitxelenak **zigarreta** pakete zimurtu bat hartu zuen idazmahai gainetik. Alberto Ladron Arana

Vitamina pastillek ez zuten arrakasta handirik, baina **zigarreta** paketak estimu gorenean ziren. Marzel Etxehandi

Etxeratu eta tresnatxo guztiak prestatu nituen: koilaratxoa, gomatxoa, kandelatxoa, **zigarreta** -ahokoa... Sonia Gonzalez

Gau-klubetako argi koloretsuak aukeratu zituen Ruthek, eta haietan ibili ohi zen gona estu, **zigarreta** -bokila luze eta baso sakonak zituela lagun. J.M. Olaizola "Txiliku"

Bere aitzinean zuen mahaiaren gainean pausaturik, Mikelen itzulpena, hautsontzia **zigarreta** ondarrez beterik, 'San Miguel' eta 'Blue Ice' filipindar garagardo botila hutsak. Ramuntxo Etxeberri

Botila ardoaren ondoan hautsontzia, **zigarreta** mutxikinez gainezka, eta Ducados pakete hasi berria. Unai Iturriaga

Hautsontzi batean pausatu zuen begirada, **zigarreta** -mutur ziztrin bati adi-adi. Mirentxu Larrañaga

Tabakoeta **zigarreta** saltzaleak bulta huntan arrangura dira, aise gutiago saltzen dutela. Herria

**hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**

**azken zigarreta** (3); **bat zigarreta** (3); **beste zigarreta bat** (5); **egindako zigarreta** (3)

**zigarreta ahoan** (3); **zigarreta bat erre** (5); **zigarreta bat erretzen** (11); **zigarreta bat eskatu** (3); **zigarreta bat iziotu** (3); **zigarreta bat piztu** (20); **zigarreta erre** (4); **zigarreta erreaz** (3); **zigarreta erretzen** (7); **zigarreta erretzen ari** (3); **zigarreta iziotu** (3); **zigarreta paketa** (6); **zigarreta paketa bat** (4); **zigarreta piztu** (10); **zigarreta piztu zuen** (5)

**zigarretak erosi** (3); **zigarretak erre** (3); **zigarretak erretzen** (10)

**eman zion zigarretari** (3)

**zigarreten keak** (3)

---

## zigarrilo *iz* zigarreta.

Ahogozoa egiten zitzaigun Miepek zer jan zuten kontatzen zigun bitartean: juliana zopa haragi albondigatxoekin, gazta, haragi xehatuzko kanapeak, bizkotxo bustiak, ardoa eta **zigarriloak** , nahi adina. Josu Zabaleta

Miepek hamar ginebra kopa edan omen zituen eta hiru **zigarrilo** erre. Josu Zabaleta

---

## zigarro *(1463 agerraldi, 164 liburu eta 54 artikulutan; ETCn 4506 –horietako 3131 literaturan-)* **1** *iz* paper mehe baten biltzen den tabakoz eginiko zilindro modukoa. ik **zigarreta**.

Hainbat probintziatako gizonak bagoitik bagoirako tarteetan elkartzen ziren, **purua** edo zigarroa erretzera, kontu kontari. Jon Maia

Hamahiru **zigarro** falta ziren Camel paketean. Unai Iturriaga

**Zigarro** bat atera zuen, eta bana eskaini zigun Karmeni eta niri. Inazio Mujika Iraola

**Zigarro** bat falta nuen, baina salan utzia nuen toxa. Inazio Mujika Iraola

**Zigarro** bat bildu, eta erretzen hasi zen. Juan Kruz Igerabide

Bertan gizaseme ile beltzaran bat ageri da, bi hatzekin **zigarroa** piztu eta bi hatzekin **zigarroa** erretzen duena. Harkaitz Cano

**Zigarro** baten muturrarekin hurrengoa piztuz. **Zigarro** bat piztu nuen eta tabakoa mahai gainean utzi. Inazio Mujika Iraola

Eñautek **zigarro** bat isiotu eta kubatatik trago luzea edan du. Sonia Gonzalez

Ni Amanciorekin eta neskekin **zigarroa** erretzen geratu nintzen lasai-lasai. Inazio Mujika Iraola

Kanpoan geratu nintzen lur emateko zeremonia bukatu arte, sarrera inguruan **zigarro** erretzen zeuden gizon batzuen babesean. Bernardo Atxaga

Gau arropa dirdiratsuekin jantzirik egoten omen ziren, eskote zabalekin [...] usain arraroko **zigarroak** erretzen, opioa igual. Joseba Sarrionandia

Tartean hamabi **zigarro** pipatuak nituen -zenbaketa egin berria nuen hautsontzi beteko aleak banan-banan bereiziz-. Aingeru Epaltza

Ezpain ertzean **zigarro** bat zeukan piztuta. Inazio Mujika Iraola

Olatz dagoeneko **zigarro** bati azken sakatuak ematen ari zen. Harkaitz Cano

Tira, has gaitezen taxuz pentsatzen, esan nion neure burari **zigarroari** ahokada sakona egin ondoren. Joxemari Iturralde

Um Hamidak, **zigarroari** atxiki luze bat emanik, buruari baretasunez eta irmotasunez eragin, eta esan zuen: [...]. Patxi Zubizarreta

**Zigarroari** azken hurrupa eman, eta motxikina bota nuen uretara. Anjel Lertxundi

Aitorrek beste pipada bat jo dio **zigarroari** . Jokin Muñoz

**Zigarroari** kalada pare bat hartu eta ezpainetara bueltatu zion. Paddy Rekalde

Beste zupada bat eman dio **zigarroari** . Alberto Barandiaren

Sakik **zigarroari** zupako bat eman, jaiki zen emeki; Tapax korreak tinkatzen hasi zen. Pablo Sastre

Txano biseraduna zeharka eta **zigarroa** ezpainetan itsatsia oraindik. Jon Muñoz

Bi urte zeramatzan gaixo ohetik altxatu gabe, oxigeno botila bati lotuta, sendagilearen esanetan, bizitza guztian **zigarroa** ezpainetatik kendu ez zuelako. Ramon Saizarbitoria

**Zigarroen** kea, zirimolaka, billar-mahaiaren gaineko argiaren inguruan. Anjel Lertxundi

"Mito" markako **zigarroen** ke sakon itsaskorra. Aritz Gorrotxategi

Beheko ezpaina erre zion **zigarroaren** puntak. Koro Navarro

Mary Annek **zigarroa** itzali zuen lurrean utzita zeukan hautsontzian. Bernardo Atxaga

Osorik erre gabe zegoen **zigarroa** hautsontzian itzali ondoren, beste bat egiteko denbora hartu zuen. Ramon Saizarbitoria

Hautsontzian dozena bat inguru **zigarroren** hondarrak zeuden. Josu Landa

**Zigarroa** amorruz amatatu duzu, betiko legez, ohitura hori daukazu, eta hautsontzia zigarrokin txikitu eta zapalez beterik eduki arte ez duzu husten. Sonia Gonzalez

Nik urrezko ahokoa duten **zigarro** horiek erreko nitizkek. Koro Navarro

**Zigarroa**, errimel orbantxoak bokillan, dantzan dabil Asunen atzamar artean. Paddy Rekalde

Paketeko azken **zigarroa** da. Sonia Gonzalez

Nork ez du umetan **zigarro** piztu bat sartu saguzar baten ahoan? Anjel Lertxundi

Betaurreko lodiak, lupak bezalakoak; **zigarro** itzalia ahoan. Jon Muñoz

Alkateak **zigarro** bildu berria ahoratzen zuela ohartu zen. Felipe Juaristi

Saguzarrari kontrabandozko **zigarroa** errearazten genion. Joseba Sarrionandia

Hoteleko kafe-tokian zegoelarik, **zigarro** turkiar bat erretzen [...] gizon itsu bat hurbildu eta kopletan hasi zitzaion kantari. Felipe Juaristi

## 2 (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

Azken bolada honetan mikrofonoak **zigarro** filtroetan jartzen dituztela entzun dut. Harkaitz Cano

Mingain puntaz busti zituen **zigarro**-paperaren ertzak. Josu Landa

Denbora luzez egon zen gelan jarrita, Kako-okerren **zigarro**-ahokoa hortzen artean eta esku bat itxita. Julen Gabiria

Altadis tabako konpainiak gaurtik aurrera **zigarro** marka gehienen prezioa 15 zentimo garestituko duela jakinarazi du. Berria - Ekonomia

Martinek hautsontzi bat ekarri zuen terrazako mahai batetik, eta Signora Soniari eskaini zion **zigarro** muturra utz zezan. Bernardo Atxaga

**Zigarro**-mutur bat du ezpain artean hartuta. Anjel Lertxundi

**Zigarro**-muturra irensteko zorian egon zen Albert. Jon Muñoz

Aski zela **zigarro**-mutur gaizki itzali bat hango belarrak eta lastoak eta etxeak denak su hartzeko. Inazio Mujika Iraola

Lurrera makurtu eta bertan aurkitzen dituen harri koskor eta gainerako gauzaxkak aztertu, zaldizain mexikarren **zigarro** hondakinak barne. Bernardo Atxaga

Pospolo bat piztu nuen, ikus zezaten nire aurpegia itzal dramatiko batean [...] eta berekiko galde zezaten nor ote nintzen ni, azken **zigarro** punta erretzen eta neure baitan nor ote ziren haiek egiten nuen artean. Koro Navarro

Ez zitzaion **zigarro** zuztarrak lurrean zanpatzea gustatzen. Harkaitz Cano

Azkenean, **zigarro**-mutxikinak biltzea zuen ogibide. Pello Lizarralde

**Zigarro** ontzi zilar-kolore bat hartu zuen. Koro Navarro

Pauso hots batzuk gero, enegana hurbiltzen, eta boz bat, hortzik gabea eta kraskatua lau **zigarro** paketeren erretzailearena bezain. Aingeru Epaltza

Nik **zigarro**-toxa eskaini nion, baina hark muzin egin zion, bihotzari kontu egin behar ziola Josafat arte. Inazio Mujika Iraola

**Zzigarro**-keak hestegorria berotzen zion bitartean, diru-kutxako giltza atera zuen azukre-poto azpitik. Joxemari Urteaga

Jenderik ez bazegoen ere jende asko egona izango zen, **zigarro**-kez beteta baitzegoen. Anjel Lertxundi

**Zigarro**-gustua nuen ahoan. Anjel Lertxundi

## 3 (hitz elkartuetan lehen osagai gisa, elkarketak izenondo balioa duela)

Estatua **zigarro**-erretzaileak ziren bi gizonak, begirale eta lekuko buru-estaliak. Koro Navarro

## 4 (hiru osagaiko hitz elkartuetan)

**Zigarro**-paper orri bat zen, eta hau idatzia zuen Léak han: [.....]. Jon Muñoz

## 5 purua. ik **puru**[2].

Mozkote tripaundi bat, lerdez betetako **zigarro** hozkatu bat erretzen ari zena. Karlos Zabala

Noranahi begiratzen zenuela ere, inauteri nahasi hura, faroltxo haiek, zigarreten eta **zigarroen** lurrinetan gandutuak, eguzkia Guatemalan bezala. Joxe Austin Arrieta

Leku haren aurrealdeko erdia auzoko ostatu bat zen, non sustatu egiten baitzen zigarretak eta **zigarroak** erretzea. Oskar Arana

Orri bat eskatu, urrezko bolaluma bat atera, habanar **zigarro** bat bezain lodia, eta hau idatzi zuen: [...]. Jon Muñoz

## 6 *zigarro puru*

**Zigarro puru** onaren oinarrizko baldintza -hala zioen berak- tabako ona baita. Joxe Austin Arrieta

Zerbitzariak mahai txiki bat hurbiltzen die, eta bi kikarakada kafe, **zigarro puruak** eta uxuala jartzen ditu. Xabier Olarra

Dotore jantzita, traje tostatu eta panama sonbreilu txuri batekin, don Silverio **zigarro puru** bat erretzen ari zen zabal-zabal barre eginez. Bernardo Atxaga

Bizkarrez etzanda dihardut **zigarro purua** erretzen. Joxe Austin Arrieta

**Zigarro purua** konketaren kanilan itzali eta bere gelako ohe gainean etzan zen. Bernardo Atxaga

**Zigarro puru** itzali bat zuen eskuan eta puruaren ke-usaina nabaritzen zen inguruan. Irene Aldasoro

Espainiako Gobernuak produktua iragartzea debekatu egingo du eta zigarro eta **zigarro puruen** salmenta eta banaketa arautu egingo ditu. Berria - Harian

### hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

**bertze zigarro bat** (7); **beste zigarro bat** (30); **gaizki itzalitako zigarro** (3); **malboro zigarro** (3)

**zigarro bana** (11); **zigarro bat atera** (20); **zigarro bat bildu** (4); **zigarro bat biltzen** (3); **zigarro bat egiten** (3); **zigarro bat erre** (8); **zigarro bat erreko** (4); **zigarro bat erretzeko** (4); **zigarro bat erretzen** (28); **zigarro bat erretzera** (10); **zigarro bat errez** (3); **zigarro bat eskaini** (12); **zigarro bat eskatu** (8); **zigarro bat gutxiago** (3); **zigarro bat hartu** (9); **zigarro bat isiotu** (17); **zigarro bat pizteko** (3); **zigarro bat pizten** (9); **zigarro bat piztu** (98); **zigarro berri bat** (3); **zigarro bildu** (3); **zigarro bildu berria** (3)

**zigarro erretzen** (14)

**zigarro itzalia** (3); **zigarro kearen** (3); **zigarro kutxa** (6); **zigarro mutur** (11); **zigarro mutur bat** (3); **zigarro muturra** (15); **zigarro mutxikina** (3); **zigarro mutxikinen** (4)

**zigarro ontzi** (3); **zigarro ontzia** (11); **zigarro osoa** (3); **zigarro pakete** (17); **zigarro pakete bat** (7); **zigarro pakete baten** (3); **zigarro paketea** (12); **zigarro paketea atera** (6); **zigarro paketeak** (3); **zigarro pare** (3); **zigarro pare bat** (3); **zigarro piztu** (6); **zigarro piztua** (3); **zigarro punta** (3); **zigarro puru** (17); **zigarro puru alemanaren** (4); **zigarro puru bat** (5); **zigarro purua** (9); **zigarro puruak** (6); **zigarro pururik** (3)

**zigarro usaina** (3)

**azken zigarroa** (13); **bi hatzekin zigarroa** (5); **bi hatzez zigarroa** (3); **eguneko lehen zigarroa** (4); **esku batean zigarroa** (3); **hamaikagarren zigarroa** (3); **hatzekin zigarroa piztu** (3); **hatzez zigarroa** (3); **laugarren zigarroa** (3); **lehen zigarroa** (5)

**zigarroa ahoan** (7); **zigarroa amaitu** (4); **zigarroa amatatu** (3); **zigarroa amatatu zuen** (3); **zigarroa atera** (6); **zigarroa atera du** (3)

**zigarroa erre** (12); **zigarroa erretzeko** (3); **zigarroa erretzen** (26); **zigarroa erretzen ari** (9); **zigarroa erretzen zuen** (3); **zigarroa erretzera** (5); **zigarroa errez** (6); **zigarroa eskaini** (4); **zigarroa eskatu** (3); **zigarroa eskuan** (5); **zigarroa ezpainetan** (15); **zigarroa ezpainetara** (3); **zigarroa ezpainetatik** (4); **zigarroa hautsontzian** (8); **zigarroa hautsontzian itzali** (3); **zigarroa hautsontzian utzi** (3)

**zigarroa isiotu** (3); **zigarroa itzali** (13); **zigarroa itzali zuen** (6); **zigarroa jaurti** (3)

**zigarroa pizteko** (6); **zigarroa pizten** (7); **zigarroa piztera** (3); **zigarroa piztu** (41); **zigarroa piztu du** (3); **zigarroa piztu nuen** (4); **zigarroa piztu zuen** (13); **zigarroa piztuko** (3); **zigarroa piztuta** (3)

**zigarroak erre** (4); **zigarroak erretzen** (22); **zigarroak erretzen ari** (3); **zigarroak eskaintzen** (4)

**zigarroaren kea** (12); **zigarroaren keak** (4); **zigarroaren keari begira** (3)

**eman zion zigarroari** (4); **jo dio zigarroari** (3); **zigarroari atxiki** (3); **zigarroari kalada** (4); **zigarroari zupada** (4)

**zigarroen kea** (9)

**zigarrorik erre** (4); **zigarrorik ez** (4); **zigarrorik gabe** (3)

---

# zigarrokin *iz* zigarro muturra, zigarro hondakina.

Mahai zikin baten azpian egokitu da, **zigarrokin** mordo baten gainean. Jokin Muñoz

Cesar Telleriak azken sakatua eman zion bi hatzekin sustengatzen zuen **zigarrokinari**. Harkaitz Cano

Gorkak porroaren **zigarrokina** harri baten azpian altxatu du. Aingeru Epaltza

Agure kalpartsua burugabekeriak esaten ari zen oraindik, hileta-orgako morroia azaldu zenean, kapela luzea alde batera zuela, zigorra eskuinean eta **zigarrokina**

ezpainetan. Josu Zabaleta
Hizketan ari zela, itzalitako **zigarrokin** bat erori zitzaion ezpainetatik. Lopez de Arana
Axolagabekeriaz zigarroari azken atxikia eman, eta **zigarrokina** jaurti zuen. Patxi Zubizarreta
-Bereziortua jaunarekin hitz egin dut -berriro ekin zion Moralesek bere esanbeharrekoari **zigarrokina** hautsontzian amatatuz-. Joxemari Iturralde
Hautsontziko **zigarrokinei** eta kafe katilu hustuei erreparatuz gero denbora puska bat eman dutela jakin liteke. Xabier Mendiguren Elizegi
Oinetakoaren puntarekin zapaltzen hasi da **zigarrokina**, keinu kalkulatu batez. Iban Zaldua
Bi zenizero metaliko **zigarrokinez** beteak. Harkaitz Cano
Xake pieza hautsiez eta hautsontzi **zigarrokinez** beteez estalitako mahaiei. Koro Navarro
Araztegian denetarik aurkitzen dugu: **zigarrokinak**, kondoiak, konpresak, plastikoak... Berria - Euskal Herria

---

**zigarrotxo** *(29 agerraldi, 14 liburutan) iz* zigarreta.
Ezpainekin papera busti eta **zigarrotxoa** osatu zuen. Bernardo Atxaga
Tabako-belarrezko **zigarrotxo** bat biltzen ari da. Koldo Biguri
Kafe eta kruasan bana hartu, **zigarrotxoren** bat erre, eta Sena ondoko liburu zaharren txosnetara joaten ginen. Anjel Lertxundi
Bitarte horretan **zigarrotxo** bat patxadaz erretzeko adina denbora baitzegoen. Jose Morales
Arropa zarpailekin janzten zen, eta usain belarrez egindako **zigarrotxoak** erretzen zituen bata bestearen atzetik. Bernardo Atxaga
Joseba autoraino joan zen **zigarrotxoaren** mutturra hautsontzian itzaltzera. Bernardo Atxaga
**Zigarrotxoaren** kearekin hidra baten irudia egin nuen airean, nahikoa txukuna. Karlos Linazasoro
-Kostatu egiten da, ezta? -esan nion, **zigarrotxo** bat isiotzen zuen artean. Edorta Jimenez
Izan ere, hilabete gutxi batzuk baizik ez ziren pasatu zigarrotxotik **purura** igarotzeko hautua egin zuenetik. Jon Alonso

---

**zige** *iz* zikuta.
Sokratesek **zigea** edan zuen eta pixa-kaka urrintzen zuen Sirakusa auzoko harrobi baten zokoan burua ebaki ziguten Demostena eta bioi. Itxaro Borda
**Zigea** edan behar nuen bezpera-gauean izan zen. Itxaro Borda
**Zigearen** hurrupatzera kondenatua. Itxaro Borda

---

**zigilaketa** *iz* zigilatzea.
**Zigilaketa**, zentzu honetan, paper garrantzitsuetan hitz edo zeinu kabalistikoak idazteko antzinako ohituraren aztarna da, paper haiek adierazten zuten autoritatearekin zerikusirik ez zuen indar magikoa emateko erabilia. Xabier Olarra

---

**zigilarazi**, zigilaraz, zigilarazten du *ad* zigilatzera behartu.
Koadrilakoek nire erromes-karta **zigilarazten** jarraitu zuten: Bideko bulegoetakoek galdetzen zietenean non zegoen soberako erromes-kartaren jabea, kanpoan gelditua nintzela bizikletak zaintzen erantzuten zuten. Iban Zaldua
Bihar, hilotza eraman ondoren, oro **zigilaraziko** dut; ardura guztiak nire gain uzten ahal dituzu. Jon Muñoz

---

**zigilatu**, zigila, zigilatzen **1** du *ad* zigiluz markatu, zigilua ezarri, egiaztatzeko nahiz ixteko.
Otoi arren, irakur, **zigila**, eta postara igorraraz ezazu. Jon Muñoz
Jakinik Txitxikoven etxean bi milioi errublo zegoela billete faltsuetan, etxea **zigilatu** eta zaintzaileak jarri zituzten. Jose Morales
Hilobia segurtatu zuten, harria **zigilatuz** eta guarda ipiniz. Elizen arteko biblia
Idazkari judizialarekin batera joan eta atea **zigilatu** zuten. Berria - Euskal Herria
Gero, ateak itxi eta **zigilatu** errege-zigiluz. Elizen arteko biblia
Leiho guztiak, berriz, **zigilatuta** zeuden, barruko aldetik. Berria - Gaiak
Dena batera lotu, bilgoa ezkoz **zigilatu**, eta soldaduari berari agindu zion behingoan eramateko Txitxikovi. Jose Morales
Arma inperialez **zigilaturiko** gutuna aurkitu zuten Mikel Strogoffen bularraldean, suntsitzeko betarik ez baitzuen izan. Karlos Zabala
Asuero erregearen izenean zeuden idatziak eta erregearen eraztunaz **zigilatuak**. Elizen arteko biblia
Tinta-zanpagailuarekin nire txostena **zigilatu** eta kanpora egotzi ninduen konturatu orduko. Harkaitz Cano
Haren Ameriketako gutunak -Sabethenak, esan nahi dut- mahai gainean zeuden, pila handi bat, Yale-n **zigilatuak**. Joxe Austin Arrieta
Gure buruzagiek, lebitarrek eta apaizek sinatu zuten **zigilaturiko** agiria. Elizen arteko biblia
Gaizki **zigilatutako** zementuaren sentipena, halako anklaje falta bat zutikakoaren bertikaltasunean. Harkaitz Cano

**2** irud/hed
Orgatilaren beheko apaletik ontzi bete porlana eta paleta aterata, sarrera **zigilatzeari** ekin zioten. Aingeru Epaltza
IAEA Energia Atomikorako Nazioarteko Agentziak 2003. urteko urrian **zigilatu** zituen zentral horretako zentrifugagailuak. Berria - Mundua
Zirkulazio-sistemak berak ixten ditu bere ihesbideak, eta badu bere burua **zigilatzeko** mekanismo konplikatu baina eraginkor bat, odol-galtzea eragiten duten istripu larrienei ez beste guztiei aurre egiteko. Irene Aldasoro
Antartikaren lurrazalaren gainean izotza pilatzen hasi zenean, lakua **zigilaturik** gelditu zen duela 35 milioi urte. Berria - Gaiak
Batzuetan, bi pertsonaren arteko bat-bateko erakarpena -izan liteke samurra eta lasaia, edo grinatsua eta burrunbatsua- sexuaren bidez **zigilatzen** da. Luis Elberdin
Gero, danbateko bat emanez **zigilatu** dut nire agurra. Harkaitz Cano
Bisita hark bizitza osorako ukitu baininduen, markatu ninduen eta **zigilatu** ninduen. Joan Mari Irigoien
Alemanen patua behin betiko **zigilatu** baitu. Urtzi Urrutikoetxea
Bizitza "une-bilduma"tzat zeukan, eta une horien oroitzapenek "ez dute geroztik gertatutako guztiaren berri" eta "hermetikoki **zigilaturik"** irauten dute gogamenaren hornitegian, kontserba-ontziak balira bezala-. Xabier Olarra

**3** (era burutua izenondo gisa)
Hartu bi agiriok, **zigilatua** eta irekia, eta sartu buztinezko pitxer batean, luzaro iraun dezaten. Elizen arteko biblia
Ilegalizazioa salatzeko gaur elkarretaratzea deitu du Batasunak, Bilboko egoitza **zigilatuaren** aurrean. Berria - Euskal Herria
Minutu batzuk geroago itzuli da, pasaporte **zigilatuak** banatu ditu, eta euron jabeok beste areto batera pasarazi gaitu, alde irandarrean. Jon Arretxe
Eta paper **zigilatua** izango diagu. Lopez de Arana
Zaldun-legeei xuxen zatxekon itun **zigilatu** batez, biziarekin batera, bere eskupeko lur guztiak eman baitzizkion garaileari. Juan Garzia
Pribilegio berezia eman zien anaiei bulda **zigilatu** baten bidez. Askoren artean

Harro-harro gorde nuen nire erromes-karta **zigilatua**. Berria - Kultura

**hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
zigilatu aurretik (3)
zigilaturiko agiria (3)

---

# zigilatzaile *iz* zigilatzen duena.

**Zigilatzaile** [...]: Eliza Erromatar Katolikoko goi mailako funtzionarioa, eginkizun inportanteenetako bat honako hau duena: Aita Santuaren zezenak *Datum Romae* hitzez markatzea. Xabier Olarra

---

# zigilatze *iz* zigiluz markatzea, zigilua ezartzea, egiaztatzeko nahiz ixteko.

Larrialdi batean lehenbailehen egin beharrekoa bada ere **zigilatze**-lan hori, odol-zirkulazioan odolbildu bat eratzeak oker handia eragin dezake. Irene Aldasoro

---

zigilo ik **zigilu**.

---

# zigilu *(orobat **zigilo** g.er. eta **sigilu** g.er.)* **1** *iz* errege, estatu, hiri, erakunde edo kideko baten ezaugarria irarririk duen plaka, agiriak-eta egiaztatzeko edo ixteko erabiltzen dena; plaka horrek argizari, berun edo kidekoetan uzten duen hatza; hatz hori daraman argizari edo berun puska.

Baimena idatzita egon arren, paper hutsa zen, ordea, **zigilurik** gabe. Inazio Mujika Iraola

Bilbotik Donostiarako errepidea igarotzeko baimena, **zigilu** guztiekin. Inazio Mujika Iraola

Eskuetan zeraman paper hura **zigiluz** jotzeko esan zion Amanciori. Inazio Mujika Iraola

Polizia turko jator batek **zigilua** ipini dit berehala pasaportean. Jon Arretxe

Udal liburutegian ostu zuen eta, hain zuzen, 76635-Q polizia ohartu berri da horretaz, 111. orrialde azpiko eskuineko ertzean liburutegiaren **zigilua** ikusi duenean. Iban Zaldua

Etapaz-etapa, nire erromes-karta **zigiluz** betetzen joan zen, amaieraraino, Konpostelako Santiagoraino. Berria - Kultura

Zazpi **zigiluz** jotako liburua. Elizen arteko biblia

Nor da gauza liburua irekitzeko eta beraren **zigiluak** askatzeko? Elizen arteko biblia

Gero, Bildotsak seigarren **zigilua** ireki zuenean, lurrikara izugarria gertatzen zela ikusi nuen. Elizen arteko biblia

**Zigiluz** markatuak zenbat ziren entzun nuen: ehun eta berrogeita lau mila, israeldar leinu guztietarik hartuak. Elizen arteko biblia

Beste erregela bat idatzarazi zion Frantziskori, eta Aita santuak berrestea eta bere aginpidez eta **zigiluz** finkatzea lortu zuen. Askoren artean

Eskutitza gutunazal batean sartu eta armarri inperialen **zigiluaz** lakratu zuten. Karlos Zabala

Orduan, erregeak bere eraztuna kendu eta Hamani eman zion, juduen kontrako gutunei **zigilua** ezartzeko. Elizen arteko biblia

Hoztu baino lehen, ezker eskutik ateratako eraztun lodiaren **zigilua** jarri zion gainean, laster lehortu eta gogortuko zen gorritasun hark sekretuak sekretu manten zitzan. Joxemari Urteaga

**Zigiluekin** gertatzen den bezala: gaia suaz urtu egiten baita aurrena, gero **zigilua** grabatzeko. Askoren artean

Whiskiaren **zigilua** hautsi zuen. Koro Navarro

**2** (tanpoi batekin-edo inprimatzen dena)

Ireki dezagun gaur hartu duzun gutun txiki hori -eskuan hartu eta Justori erakutsi zion, **zigilurik** gabeko seilua eriaz seinalatuz-. Joxemari Urteaga

Eskutitza Pariseko nire lehengo helbidera joan da nire bila, otsailaren 1eko **zigilua** dauka paraturik. Monika Etxebarria

**Zigilua** Bartzelonakoa zuen, eta Adelak idatzia zirudien, erremitearen arabera. Joan Mari Irigoien

Nire bigarren gutuna, errietazkoa baino, adore ematekoa zen, baina gutunazala ireki gabe itzuli didate, hau besterik ez dion **zigilu** batekin: "Ezezaguna helbide honetan". Ramon Etxezarreta

Munduko posta-zerbitzu guztietako seiluak lortzea eta **zigilu**-markak itxuratzea jostagarria ez ezik neure lanbideko batentzat erronka modukoa baitzen. Xabier Mendiguren Elizegi

**3** irud/hed

Ea bada, andrea, erruki zakizkigu, eta marka gaitzazu zeure graziaren **zigiluaz**. Askoren artean

Nork ezarriko du jagolea nire ahoan eta zuhurtasunezko **zigilua** ezpainetan, ez nazaten neure hitzek erorarazi eta mihiak galbidean jar? Elizen arteko biblia

Schopenhauerrek bere erdeinuaren eta bere desliluraren **zigiluaz** markaturik utzi du betirako gizadia. Josu Zabaleta

Neurekin hartuko zaitut, Xealtielen seme Zorobabel ene zerbitzari hori, eta neure **zigilu** egingo zaitut, neuk aukeratu baitzaitut. Elizen arteko biblia

Hilzorian zen Panderojolea, **heriotzaren** zigilua zeukan grabaturik aurpegi txaldanean. Xabier Olarra

Hitz hori laido eta alfer-**zigilu** zitzaien garaian. Itxaro Borda

**4** (izenondo eta izenlagunekin)

Gutun horren **zigilu** lakratua hautsi berria zuen Ivan Ogareffek. Karlos Zabala

**Zigilu** gorria, burdinezko kurutzea erakusten duena, eta kurutzearen gainean, beste bat, hau grekoaren formakoa eta hitz hauek "Non nobis". Piarres Aintziart

Aterpe xume bat, ospitalero gaztea, **zigilu** sinplea: Santiago kurutzea soilik. Piarres Aintziart

Inolako problemarik gabe ipini dit **zigilu** berria ahoskera leuneko polizia batek. Jon Arretxe

Nire lekualdatze hori sekretuzko **zigilu** bikoitz baten pean antolatu beharra zegoen. Juan Garzia

Gutun-azalari buelta ematean, eskua dar-dar, lakrezko **zigilu** gorri-morexka bat ikusi zuen, eta han armarri bat. Iñaki Mendiguren

**5** (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

Erregeak **zigilu**-eraztuna hatzetik atera eta Amani, juduen etsaiari, eman zion, esanaz. Jose Antonio Mujika

Nola ez handietsi Zorobabel, Jainkoaren eskuan **zigilu**-eraztun bezala izan zena! Elizen arteko biblia

**6** (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa)

Bere kabuz ziurtatu zuen aipatu gutun-azalak ez zuela inolako kalteren aztarnarik eta han jarritako lakre **zigiluak** ezin hobeto zeudela. Bego Montorio

Errege **zigiluaren** eramaileak, khodjak, eta kontseiluko beste goi funtzionarioek beren lekuak hartuak zituzten dendaren barruan. Karlos Zabala

Gero, irten, atea itxi eta, errege **zigiluz** zigilaturik, joan egin ziren. Elizen arteko biblia

Plazan, kontzeju aurrean, ateetan udal **zigilua**-otso bat sagarrondo batetik ale eder bat hartu nahian- zeraman zalgurdia zegoen, lau zaldi beltzi loturik. Felipe Juaristi

Kalitate **zigilua** lortzeko lanean dira arrantzaleak. Berria - Ekonomia

Eusko Label **zigilua** duten oilaskoak aire librean hazten dira, eta elikadura oso zaindua izaten dute. Berria - Gaiak

**7** gutunetan, Posta zerbitzuak estalkian ezartzen zuen zigilu hatza; gutun-bidaltzaileak itsasten duen paper zatitxoa, hatz

haren baliokidea dena eta Posta zerbitzuak saltzen duena.

Fetxa jarri, lehenbailehen postalean helbidea idatzi, **zigilua** erantsi eta kafetegia utzi ondoren, buzoi batean bota zuen. Harkaitz Cano

Gutunazalean bi zentaboko **zigilu** asko itsatsi zituen. Fernando Rey

Brasilgo postako **zigilu** bat! Jon Muñoz

Zu al zara Beñat, gutunazalean gure erregearen **zigilua** buruz behera paratzen duena? Koldo Izagirre

Duela gutxi, EEBBko posta zerbitzuak **zigilu** bat atera zuen Jackson Pollocken irudiarekin. Harkaitz Cano

-Iritsi zaizun gutunak **zigilua** buruz behera zeukan. Koldo Izagirre

**"Zigiluak**, idazteko papera, tabakoa?" aipatu zizkion, aldamenean gelditurik. Anton Garikano

Emakume zahar hitzontzi bat zen, mailegu-emaile baten alarguna, karitatezko ekintzaren baterako **zigilu** erabiliak biltzen zituena. Irene Aldasoro

Beste bat loritegiko aulki batean patxadan zegoen, gizakiren batek botatako posta-**zigilu** bat irakurtzen. Julen Gabiria

Rutherford-ek biologia-zientziari [...] erakutsitako mespretxua, **zigilu**-bilduma egitearen pareko iritzirik, txantxetan egindako arbuioa zatekeen. Irene Aldasoro

**8** irud/hed

Arrats honetan, **zigilu**-kartila batean **zigiluak** itsasten ari da, mekanikoki. Pablo Sastre

**9** merkataritza marka edo firma.

*Kontrakalea* **zigilua** zabaldu eta *Afrika*, *Rude* eta *Bad Sound System*en lanak kaleratu ditu Metak-ek. Berria - Kultura

Musika eragileek beren lana erakusteko plaza izaten dute Viceko azoka, eta aurten ere horretarako baliatuko dute merkatua *Brixton, Gaztelupeko Hotsak, Gor, Musika Autonoma* eta *Noizpop* **zigiluek**. Berria - Kultura

Azken pelikula, *Cars,* Disneyren **zigiluarekin** proiektatuko da aurten munduan. Berria - Ekonomia

Hilabeteko epean, Euskal Herriko disketxeen elkarte berria osatua eta legeztatua izan nahiko lukete egitasmoa bultzatu duten **zigiluek**. Berria - Kultura

Itxura batean, ez dirudi **zigilu** handi batera jauzi egin izanak gehiegi baldintzatu duenik Josh Ritterren musika. Berria - Kultura

Eusko Jaurlaritzarekin, EITBrekin, SGAErekin edota Europako **zigilu** independenteak biltzen dituen Impala elkartearekin. Berria - Kultura

**Zigilu** talde batek hartu du proiektua aurrera eramateko ardura, baina Midem-era joan den euskal ordezkaritzak erakusten digu merkatua askotarikoa dela, eta elkartearentzat onuragarria izango da ahalik eta gehien biltzea. Berria - Kultura

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
>
> **neure zigilu** (4); **zigilu batean bezala** (4); **zigilu bezala** (3); **zigilu bila** (3); **zigilu bilduma** (3); **zigilu eleaniztunak** (3); **zigilu eraztun** (4)
>
> **erregearen zigilua** (3); **jainko biziaren zigilua** (5); **udal zigilua** (3)
>
> **zigilua buruz** (3); **zigilua ezarri** (3); **zigilua ireki zuenean** (6); **zigilua jarri** (7); **zigilua jarri zion** (3); **zigilua kentzeko baimena** (3)
>
> **jarritako zigiluak kendu** (3); **zigiluak kendu** (7); **zigiluak kendu zituen** (4)
>
> **errege zigiluaren** (3); **zigiluaren bidez** (3)
>
> **zigiluaz markatzen** (3)
>
> **zigilurik gabe** (4); **zigilurik gabeko** (3)
>
> **errege zigiluz** (3)

---

## zigiludun *izond/izlag* zigilua duena.

Faraoiak bere hatzetik eraztun **zigiluduna** atera eta Joseri ipini zion. Jose Antonio Mujika

Hara, zenbat paper **zigiludun** daukazun! -jarraitu zuen, kutxari begiratu bat emanik. Jose Morales

Paperezko agiri bat eman zion, ofiziala eta **zigiluduna**. Felipe Juaristi

Garrek gora eta gora egiten dute, lakre **zigiluduna** ia urtu da, belus horiak ke garratz bat ateratzen du. Xabier Olarra

Bake garaiaren hasieran, **zigiludunak** gutxi ziren, erdi aldera gutxiago, eta azken aldera oso gutxi. Askoren artean

Batetik bestera eraman behar gaituztenean, buldaran epaitegiaren **zigiludun** prezintoa itsastea, bidean merkantzia manipulatua izan ez dadin, eta behar bezalako egoeran heltzeko gure hartzaileagana. Koldo Izagirre

---

## zigilutzar *iz adkor* zigilu handia.

Salomon erregearen esku zintzilikarian, **zigilutzarra** distiratzen ikusi zuen Sufrah-ek. Juan Garzia

---

## zigiluzain *iz* zigiliua zaintzen duen pertsona.

Ahikar hura Asiriako errege Senakeriben garaian ere edarizain nagusia izana zen, bai eta **zigiluzaina** eta administrazio eta finantzen arduradun nagusia ere. Elizen arteko biblia

---

## zigizaga *iz* alde batera eta besterako higidura.

**Zigizaga** eta heiagora mediatiko batzuk gorabehera, sindikatuak noren alde ari diren galda liteke. Berria - Kultura

Krisketatik zetorren giltzaren **zigizaga** hotsak ikaraz jarri ninduen. Itxaro Borda

---

## zigizagatsu *izond* zigizagaz betea.

Infinitutasun hori bat dator, guztiz modu harrigarrian etorri ere, Halabeharraren zenbaki **zigizagatsuekin** eta platonikoek gurtzen duten Loteriaren Arketipo Zerutiar delakoarekin... Juan Garzia

Bidexka ezkoa nire haurtzarokoak bezalako **zigizagatsua** zen. Juan Garzia

---

## zigoitiar *izlag/iz* Zigoitiakoa, Zigoitiari dagokiona; Zigoitiako biztanlea.

Zigoitian ez zen ezer "gorde", sortu egin zituzten **zigoitiarrek** eurek horrelako adizkiak. Koldo Zuazo

**Zigoitiarrek** azaldu zutenez, obrak egiteko «aurrekontu handia» aurreikusi du Udalak, 900.000 eta 1.800.000 euro bitartekoa. Berria - Euskal Herria

---

## zigor **1** *iz* huts edo hobenen bat egin duenari ezarririko kaltea, nekagarria edo zentzagarria. ik **gaztigu**[2].

Hirugarrenean, Jainkoa lagun, konta ezin ahala irain, kate, **zigor** eta neke sufritu ondoren, Babiloniako Sultanarengana eraman zuten. Askoren artean

Baina sariak bezala, baziren **zigorrak** ere. Iñaki Iñurrieta

Erruaren eta **zigorraren** arteko neurririk eza. Anton Garikano

Delituen eta **zigorren** eskala unibertsal bat balego, tirania-eta askatasun-mailak neurtzeko modu frogagarri eta komun bat izango genuke. Juan Martin Elexpuru

Dostoievskiren *Hobena eta **zigorra*** eta *Karamazov anaiak*. Berria - Kultura

**Zigor** batek, zuzena izateko, gizakia delitutik atzeratzeko adinako gogortasuna izan behar du, ez gehiago. Juan Martin Elexpuru

Behar-beharrezkoa ez den **zigorra**, dio Montesquieu handiak, tiranikoa da. Juan Martin Elexpuru

Hau dio Jaunak: hiru **zigor** ipintzen dizkizut aukeran; hautatu horietarik bat eta huraxe ezarriko dizut. Elizen arteko biblia

Ez zuen bere bekatuengatik inolako **zigor** beharrik. Askoren artean

-Astunegia dut neure **zigor** hau, eraman ahal izateko. Jose Antonio Mujika

Maiz, kultura modernoa **zigor** gisa ikusten da eta "primitibo prestu"aren irudia asmatzen da, batez ere Mendebaldeko zibilizazioaren ustelkeria salatzearren. Askoren artean

Apirilaren 15ean ezagutu zen sententzia: lau urte eta hamar hilabeteko **zigorra** solidario bakoitzarentzat, bahiketagatik. Edurne Elizondo

Bagenekien ez zela erabat libre aterako, baina gure ustetan epaileak gehienez laurogeita hamar eguneko **zigorra** jarriko zion. Fernando Rey

Bilboko Udalaren lana ez da **zigorrak** jartzea, ordea, **zigorrak** bideratzea baizik. Berria - Harian

**Zigorrek** zigortzen dituztela **zigorrok** sortu dituzten delituak. Juan Martin Elexpuru

Ehun euroko **zigorra**. Gotzon Garate

Urteko 150 milioi dolarreko **zigorrak** jaso ditzakete AEBek. Berria - Ekonomia

2002ko martxoan bi partidako **zigorra** ezarri zioten. Berria - Kirola

Ehun eta hogei kolpeko **zigorrak** heriotza omen dakar. Karlos Zabala

Kondenak zituzten preso batzuk ere baziren, baina hauek **zigorraren** bi herenak beteak zituzten jadanik. Iñigo Aranbarri

Era guztietako gaiztakeriak egin zituzten **zigorra** etorri zitzaien arte. Elizen arteko biblia

Kanpoko emakume askorekin nahastu zen, eta horrek, esan bezala, **zigorra** ekarri zion: erreinuaren banaketa. Jose Antonio Mujika

Ez dakite miresten **zigorra** hartzeko gauza denaren ausardia askatzailea, ezin dute psikopata konprenitu. Koldo Izagirre

-**Zigor** bat irabazi duzu. Juan Kruz Igerabide

-Zu bezalako gizonek **zigorra** besterik ez duzue merezi! Patxi Zubizarreta

-**Zigorra** arindu dizute -ihardetsi zion-. Fernando Rey

**Zigorra** erdira murriztu zieten amnistia bati eskerrak. Fernando Rey

"Jainkoaren madarikazioaren" **zigorra** ezartzeko mehatxupean. Xabier Olarra

Beharrezkoa du, beraz, **zigorra** jasatea. Askoren artean

Jainkoaren **zigorra** eroriko da landako abereen gainera -zaldi, asto, gamelu, behi eta ardien gainera- eta izurri larria izango da. Jose Antonio Mujika

Neu ere, esan nion begietara begira, hiltzeko **zigorra** hartua naiz. Koldo Izagirre

Aitasantuak hiltzeko **zigorra** kentzeko eskatuko ziok Jeneralari. Koldo Izagirre

Leone Ginzburg Turinera itzuli zen Civitavecchiako presondegitik, **zigorra** bete zuen tokitik alegia. Fernando Rey

Haietako inork ez zuen **zigorra** bete behar izan, Azken Puntua izeneko legea dela eta. Berria - Kultura

Emakumearentzat Jainko Jaunaren **zigorra** betiko menpekotasuna izan ohi da. J.M. Olaizola "Txiliku"

Jauna, haserregaitza eta onginahiz betea, gaiztakeria eta errebeldia barkatzen dituena; ez, ordea, erruduna **zigor gabe** uzten. Elizen arteko biblia

*ik* zigorgabe.

Egiatzat hartzen duzu herrien gobernua xede duen giza legeak zilegi egiten dituela, eta **zigor gabe** uzten, jainkozko Probidentziak zigortzen dituen hainbat egintza. Imanol Unzurrunzaga

**2** (izenondo eta izenlagunekin)

**Zigor** kapitala edo Heriotza-zigorra, justiziarekin zerikusia duen zigor bat da. Xabier Olarra

Ondasunak galtzea erbesteratzea baino **zigor** handiagoa da. Juan Martin Elexpuru

Printzearen bihozberatasun handiagatik ez balitz, ez nintzen libratuko **zigor** larriago batetik. Matías Múgica

Oso **zigor** justua da jenero debekatua eta gainontzekoak galtzea, baina zerga txikiagoa balitz eraginkorragoa izango litzateke. Juan Martin Elexpuru

Espeziearen ugalketa ekarriko lukeen halako asmo orokor bat sustatzeko, sari orokorrak edo **zigor** orokorrak ezarri beharra zegoen. Iñaki Iñurrieta

**Zigor** ederrarekin bukatzen da nire bidaia. Gotzon Garate

Eroskeria delituaren **zigor** nagusia espetxea eta inhabilitazioa dira. Berria - Euskal Herria

Hausturarik gabe gordeko du guregan karitatearen eta bakearen lokarria, disidenteei **zigor** gogorra ezarriz. Askoren artean

**Zigor** latz samarra sartu zidaten behin, lurpeko ziegan. Jokin Urain

Kontuan hartu behar dira delitugileen adina, delituaren izaera, gaiztakeria maila [...] eta baita jendeak **zigor** beldurgarri baten beharrik baduen ala ez. Juan Martin Elexpuru

Jaunak **zigor** ikaragarria bidaliko die, bai zure herriari, bai zure seme-alaba, emazte eta ondasun guztiei. Elizen arteko biblia

Besteen erraiak **zigor** ugari eta ankerrez oinaztatu baitzituen berak. Elizen arteko biblia

Sodomak **zigor** bigunagoa izango du, herri hark baino. Elizen arteko biblia

Erraz konturatu baitzen mihi leun eta zuriko andere anker hark **zigor** bikoitza ezarri ziola. J.M. Olaizola "Txiliku"

Lapurretari indarkeria nahastu zaionean, zigorrak ere **zigor** fisikoa eta zerbitzuzkoa nahastu behar ditu. Juan Martin Elexpuru

Bushek hari **zigor** ekonomikoak ezartzeko legea sinatu zuen herenegun. Berria - Mundua

Jokaera hauek palestinarren aurkako **zigor** kolektiboak dira. Berria - Mundua

Musika-jaiste ilegalaren aurka **zigor** mailakatua hautatu dute Frantzian. Berria - Kultura

Epaiketan bere buruarentzat gorengo **zigorra** eskatu zuen Rolando Cubelak. Edorta Jimenez

Geroko **zigorraren** beldur barik tiro egin zezakeen, legearen babesa zuen. Edorta Jimenez

GATTek ezin izan baitzuen saihestu [...] muga-sari ez diren trukeen eragozpenak eta merkataritza-gatazken alde biko **zigorrak** ugaltzerik. Koro Navarro

**3** (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

**Zigor** kartzela zen Fresnes. Jokin Urain

Eloïse Rome poliziak hitzemaiten dio egitea ahal duena ukanen duen **zigor**-denboraren ttipitzeko. Herria

**Zigor**-espedizio baten xedea zigortzea da. Iñaki Mendiguren

Babiloniara eramango dut eta han **zigor**-epaia emango nire aurka egindako desleialkeriagatik. Elizen arteko biblia

**Zigor**-isunek Munduko Merkataritza Erakundearen baimena dute. Berria - Ekonomia

Kontzentrazio esparruak eta isolamenduzko **zigor** gelak. Josu Zabaleta

Hantxe elkarrekin errazago itxarongo zutela Santos **zigor**-lanetako batailoietatik noiz libratuko. Josu Landa

Tabako kontrabandora dedikatzen ei zen **zigor**-batailoietatik libratu eta gutxira, beste baten agindupean barkuko patroi. Josu Landa

Alemanak sartu ziren herrian, **zigor**-talde batekoak. Felipe Juaristi

Edan baituzu Jaunak emaniko **zigor**-edari samina, hondoraino edan duzu zorabiozko kopa. Elizen arteko biblia

Hau dio Ezekiasek: Larritasun-, **zigor**- eta lotsa-eguna dugu gaurkoa.

Inkestek adierazten zutenez, estatu askotan agintean dagoen gobernuaren aurkako **zigor** botoa emango dute hautesleek. Berria - Mundua

**4** (hitz elkartuetan lehen osagai gisa, zuzenbideko hizkeran)

Gero, nago **zigor**-legeak ezarri zituztela gizonek, zuzenbidea izan zedin guztientzat subirano orekatu. Askoren artean

«Kriminalizazioa eta **zigor** politika» salatzea dute helburu biharko manifestazioan. Berria - Euskal Herria

Kataluniako eta Espainiako alderdi batzuek ere **zigor** neurriak nahi dituzte. Berria - Mundua

Bi aste egin nituen **zigor**-espedientearen jakinarazpenaren esperoan. Aingeru Epaltza

Gehiegizko defizitagatik Hungariaren aurkako **zigor** prozedura irekitzeko proposatu zuen atzo Europako Batzordeak. Berria - Ekonomia

Espainiako Konstituzioa urratzen duen edo ez argitzeko eskatu dio Bilboko **Zigor** Auzitegiko Lehen Aretoko epaile taldeak Espainiako Auzitegi Konstituzionalari. Berria - Euskal Herria

Irakeko **Zigor** Auzitegi Gorenak batzorde legegile independente gisa lanean jarraituko du. Berria - Harian

Nazioarteko **Zigor** Auzitegiak gaitzespen iritzi bat ematen badu ere banaketa hesiari buruz, jarrera honek ez du ezertara behartuko Nazio Batuen Erakundea. Berria - Mundua

Urte eta erdiko **zigor** eskaera Mikel Martin jipoitu zuten bi militarrei. Berria - Euskal Herria

Sumarioa bera eta ondorioz **zigor** eskaera horiek «zuzenbidearen aurkakoak» direla azpimarratu zuen. Berria - Euskal Herria

**Zigor** Zuzenbidean pertsonen aurka egin behar da. Berria - Euskal Herria

Auzitegi Nazionaleko **Zigor** Salak du orain epaiketa egiteko ardura. Berria - Euskal Herria

Hala ebatzi zuen Auzitegiko Lehen **Zigor** Salak atzo. Berria - Euskal Herria

Hala erabaki zuten atzo Goreneko **Zigor** Aretoko 15 magistratuetako 12k, Juan Saavedra presidenteak barne. Berria - Euskal Herria

Auzitegi Nazionaleko **Zigor** Aretoko Lehen Sekzioaren ebazpena. Berria - Euskal Herria

Ahozko epaiketarako hasiera data jarri du **Zigor Arloko** 3. aretoko epaimahaiak: azaroaren 21a. Berria - Harian

EAEko Auzitegi Nagusiko **Zigor** eta Zibil arloko Salak aste honetan erabaki beharko du auzia artxibatzen duen edo ez. Berria - Euskal Herria

Alderdien Legearen araberako prozesua **zigor** auzibideari ez dagokio eta, beraz, prozesu zigortzailea ez denez, [...]. Berria - Euskal Herria

Boliviarrei **zigor**-aurrekarien agiria lortzea oso zaila zaie, sorterriko «burokrazia korapilatsuegia» delako. Berria - Harian

Reimseko Epaitegiko **Zigor** Aplikazioko Eskualde Batzordeak eskaera ukatu zion. Berria - Euskal Herria

**5** (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa)

Burgundiarren legeek, eta batez ere bisigodoenek, onartu egiten zituzten gorputz-**zigorrak**. Iñaki Iñurrieta

Jon Ander Couceiro presoa aske geratu da, espetxe **zigor** osoa beteta. Berria - Euskal Herria

Kartzela-**zigor** xume baten ordainarekin nire obsesioa arinduko zuen espraia baliatu beharrean, eskuak neskaren lepora eraman, eta estutzen hasi nintzen. Anjel Lertxundi

Urka-**zigorra** ezartzen baitzitzaion, besteak beste, estalpe barruan pospolo bat pizten zuen orori. Juan Garzia

Borreroak, noizbait, azote-**zigorra** konplitu baitzuen haren bizkarrean. Aingeru Epaltza

Japoniak bi herrialdeen arteko akordioak urratu zituela-eta, Estatu Batuek merkataritza-**zigorrak** eta yenaren balioa igotzeko presioak aldizkatu zituzten. Koro Navarro

Jaun frantziarrek beste ezein dinastiatako inor ez hautatzeko hitza eman zuten, galarazpen- eta eskomikatze-**zigorraren** mendean. Iñaki Iñurrieta

Alferrik batu zituzten eliz **zigorrak** eta zigor zibilak; alferrik eman zioten apezpiku bakoitzari probintzietako beren ordezkari gradua, kondearen aginteari kontra egiteko. Iñaki Iñurrieta

Ikerketa baten arabera, % 60 hil-**zigorraren** alde ziren, hil-**zigorra** beti berme izaiteak baduela halako larderia berezi bat. Herria

Urte askotan tematu dira esaten aita santuaren mendeku-**zigorra** jaso eta gaizkile bat bezala hildako neskatxak errukia eta miresmena besterik ez zuela merezi. J.M. Olaizola "Txiliku"

Ez bahator gurekin guztiokin, abiatzen garenean, ez haizela geratuko berriro gudu-**zigor** hutsarekin. Mirentxu Larrañaga

Greziarren eta erromatarren artean, lapurrari diru-**zigorra** ezartzen ziotenez, zigor berbera ezarri beharra zegoen estaltzaileari. Iñaki Iñurrieta

**6** (hiru osagaiko hitz elkartuetan)

15 urteko espetxe **zigor** eskaerari egin behar dio aurre. Berria - Euskal Herria

31na urteko espetxe **zigor** eskaera aurrean dutela epaituko dituzte zazpi gazte bizkaitar. Berria - Euskal Herria

**7** zigortzeko erabiltzen den makila edo kidekoa.

Eskuan **zigorra** dauka, beltza kolorez, lodia berez, mingarria ustez. Felipe Juaristi

**Zigorra** zekarren eskuan. Felipe Juaristi

Zaldia, isiltasunak gogaiturik, urduri jarri eta jolaserako gogoa erakusten hasten zenean, **zigorraren** eskulekuaz jotzen zuen, isilik. Jose Morales

-Eman biezat berorrek **zigor** edo adaska egoki samar bat, haretxez eman eta hartuko ditut-eta, min gehiegirik ematen ez badit behintzat. Patxi Ezkiaga

Altxatu zuen **zigorra**... ebaki zuen **zigorrak** airea behin, bi aldiz, hiru aldiz. Joan Mari Irigoien

Behin baino gehiagotan, **zigor** bat hartu, eta eromena zirudien batez amorru bizian jo omen zuen. Josu Zabaleta

Jo ezak **zigorraz** beste hori ere, arre-argia, koramora-ren antzera tematzen duk eta! Jose Morales

**Zigorraz** jo zintuztela eta ihes egin zenuela, haurdun. Anton Garikano

Ivan eta kosakoak arrapaladan atera ziren, zaldiak **zigorrez** astinduz. Felipe Juaristi

Nausikaak **zigorra** astindu, eta mandoak abian jarri zituen. Juan Kruz Igerabide

Eta **zigorra** dantzatu zuen hiru zaldien bizkar gainean, pozik zegoela adierazi nahirik eta zigortzeko asmorik gabe. Jose Morales

Haietarik batek Gorukiri "arratoi satsu" deitu baitzion, eta neuri "bilau nardagarri", biek ere **zigorra** airean zerabilten bitartean. Joan Mari Irigoien

Hori esandakoan, **zigorra** airean dantzatu, eta kanta-moduko bati ekin zion. Jose Morales

**Zigorrak** jotako nota altuak haragiaren ateak ireki dizkio da Rua eroari. Felipe Juaristi

**Zigor**-makila luze bat idazmahai gaineko hormatik zintzilik. Mirentxu Larrañaga

**8** ***zigorpean*** zigorraren azpian.

Ongi ikusia dut zure herriaren atsekabea Egipton eta entzuna haien oihua zapaltzaileen **zigorpean**. Elizen arteko biblia

Orduan, gaitzak joa, bere handiustea galtzen hasi zen eta, etengabeko minaren minez, Jainkoaren **zigorpean** nolako egoeratan zegoen jabetzen. Elizen arteko biblia

Zorionekoa beti zentzabidearen **zigorpean** irauten duen zerbitzaria! Askoren artean

Ospea beltzeko **zigorpean**; beste batek, **kartzela** zigorpean. Iñaki Iñurrieta

Gertaera honetaz zekiena egiazki azaltzeko obedientziaren mandatuz eta eskomiku-**zigorpean** agindu zion. Askoren artean

Agintzen da, **heriotza-zigorpean**, inork ez dezala harresietatik salto egin. Juan Martin Elexpuru

Burdinaren garraioa **heriotza-zigorpean** debekatu zuten. Iñaki Iñurrieta

**9** ***heriotza-zigor***

**Heriotza-zigorra** injustua da, eta ez da ez beharrezkoa eta ez eraginkorra. Juan Martin Elexpuru

Gaur egun 78 herritan dago indarrean **heriotza zigorra**. Berria - Gaiak

Europako Batzordearen arabera, bestalde, Ameriketako Estatu Batuek eta Japoniak **heriotza zigorra** indargabetu behar dute nazioarteko behatzaile lanetan jarraitu nahi badute. Berria - Gaiak

Libiak **heriotza zigorra** ezarri die sei medikuri. Berria - Gaiak

Konspirazio baten berri jakin eta salatzen ez duenak **heriotza-zigorra** du. Juan Martin Elexpuru

Moisesen legea hausten duenari, **heriotza-zigorra** ematen diote gupidarik gabe. Askoren artean

Francok, urte horren amaieran, bederatzi **heriotza zigor** ezarri zituen ETAko sei kideren kontra. Pello Salaburu

Kerry ez dela **heriotza zigorraren** aldekoa. Berria - Mundua

Senarra **heriotza zigorrera** kondenatu eta gero. Felipe Juaristi

Senarra **heriotza-zigorrez** noiz hilko zuten zain. Juan Kruz Igerabide

Agintzen da, **heriotza-zigorpean**, inork ez dezala harresietatik salto egin. Juan Martin Elexpuru

Burdinaren garraioa **heriotza-zigorpean** debekatu zuten. Iñaki Iñurrieta

## 10 *zigor gela* (*orobat* ***zigorgela*** *g.er.*) ik beherago **13.**

Oso tratu «berezia» jasotzen dute: senideei galarazi egiten diete presoak bisitatzea, **zigor gelatik** ezin dira irten eta inkomunikatuta egoten dira. Berria - Mundua

Igaro ziren nonbait udazkena eta negua gu **zigor-geletan** geundelarik. Jokin Urain

Beste bostak **zigor gela** ilunetan, burua estalita zutela. Berria - Mundua

Mundu guztiak daki zer esan nahi duen horrek; ikusten ari nintzen dagoeneko kontzentrazio esparruak eta isolamenduzko **zigor gelak**. Josu Zabaleta

Bidean topatutako tipo bati tiro egin ondoren bere **zigor gelan** dagoen pertsonaiaren gogoeta, eguzkiari begira. Berria - Kultura

## 11 *zigor kode*

Hartara, Kode Zibila, **Zigor Kodea**, Merkataritzako Kodea eta Prozedura zibil zein kriminaleko kodeak Napoleon Bonaparteren armadak hedatu zituen Europan zehar. Andres Urrutia

Drogarekin trafikatzearen ondorioz norbaiten heriotza eragitea delitua da Italiako **Zigor Kodean**. Berria - Kirola

Zigor arloan erabiltzeko mekanismo interesgarriak daude **zigor kodearen** barruan. Berria - Ekonomia

**Zigor Kodeak** delitutzat jasotzen ez dituen egintzak zigortzen dira, erakunde armatuko kide edo laguntzaile izatearen delituen interpretazio zeharo malgua eginez. Berria - Harian

**Zigor Kodeko** 578. artikuluan azaltzen diren delituak leporatzen dizkigute. Berria - Kultura

Dibortzioaren prozesua azkartzeko **Zigor Kodearen** erreforma ahalbidetzen duen lege proiektua ere onartu zuen. Berria - Harian

## 12 *zigor kolpe* errugbian, gaztigu ostikoa.

Griffithsek **zigor kolpe** jaurtiketa gauzatu zuen. Berria - Kirola

Bi **zigor kolpe** zelai erditik gauzatu zituen. Berria - Kirola

Entsegu bat, transformaketa bat eta bost **zigor kolpe**. Berria - Kirola

Hamar aitzin pase eta hamalau zigor **kolpe egin** ditugu, eta hori gehiegi da. Berria - Kirola

## 13 *zigor ziega* ik gorago **10.**

Preso anitzek diziplina moduloa edo **zigor ziega** ezagutu dute. Berria - Euskal Herria

Urpeko sotoetan zeuden **zigor ziegetan** sartu zituzten harrapatu zituztenak, argirik, mantarik, oherik eta tabakorik gabe, eta eguneroko jipoiekin. Jokin Urain

Hogeita hamar egunez **zigor ziegan** eduki dute Zuhaitz Errasti presoa Poitiersko espetxean. Berria - Euskal Herria

Frantziako espetxeetan hogei preso **zigor ziegetan** daude. Berria - Euskal Herria

Noizbait behar eta, **zigor ziegara** heldu naiz, isolamenduko moduloa zer den jakinen dut, psikopaten galerian biziko naiz, hamargarren artikulu ospetsua ezarrita daudenen gogortegian. Koldo Izagirre

Ahanztura, bakardadea, **zigor ziegak** edo tortura, mundu guztiak salatzen ditugun errealitateak dira. Berria - Kultura

Garrasi larriak sumatzen ditiat **zigor ziegetarik**, tuberkulosoa torturapean. Koldo Izagirre

Joan den astean 30 eguneko **zigor ziegara** kondenatu zuten, ziega aldaketa ez onartzea leporatuz. Berria - Euskal Herria

### hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 7 aldiz agertzen direnak)

**aurkako zigor** (20); **beste zigor bat** (7); **bi heriotza zigor** (8); **bi zigor kolpe** (36); **bost kartzela zigor** (9); **bost zigor kolpe** (7)

**espainiako zigor kodearen** (7); **espetxe zigor** (46); **espetxe zigor eskaera** (8); **ezarritako zigor** (11); **heriotza zigor** (17); **hilabeteko espetxe zigor** (7); **hiru zigor kolpe** (30)

**kartzela zigor** (29); **kontrako zigor** (15); **lau zigor kolpe** (21); **nazioarteko zigor auzitegiak** (24); **nazioarteko zigor auzitegian** (9); **nazioarteko zigor auzitegiaren** (12); **nazionaleko zigor** (30)

**urteko espetxe zigor** (11); **urteko zigor** (20); **urteko zigor eskaera** (11); **zigor aretoak** (12); **zigor aretoko** (9); **zigor arloko** (38); **zigor auzitegia** (7); **zigor auzitegiak** (31); **zigor auzitegian** (12); **zigor auzitegiaren** (15); **zigor auzitegiko** (8); **zigor bakoitzari** (8); **zigor bera** (10); **zigor berbera** (8); **zigor bikoitza** (9)

**zigor ekonomikoak** (9); **zigor entsegua** (8); **zigor epaia** (17); **zigor epaitegiak** (13); **zigor eskaera** (49); **zigor eskaerak** (21); **zigor eskasa** (14); **zigor eskasa irabazi** (9); **zigor espedientea** (14); **zigor espedienteak** (10); **zigor ezarri** (17); **zigor gisa** (19); **zigor gogorra** (9); **zigor gogorrak** (17); **zigor handia** (8); **zigor handiagoa** (8); **zigor handiena** (8)

**zigor kode** (18); **zigor kode berria** (11); **zigor kodea** (38); **zigor kodeak** (19); **zigor kodean** (20); **zigor kodearen** (42); **zigor kodearen aldaketa** (7); **zigor kodearen arabera** (9); **zigor kodearen erreforma** (7); **zigor kodeko** (13); **zigor kolpe** (305); **zigor kolpe bat** (40); **zigor kolpe jaurtiketa** (164); **zigor kolpea** (51); **zigor kolpeak** (9); **zigor mota** (8); **zigor neurriak** (19)

**zigor osoa** (29); **zigor osoa bete** (11); **zigor prozedura** (10); **zigor salak** (27); **zigor salako** (19); **zigor salako presidente** (7); **zigor salari** (9)

**zigor ziegan** (14); **zigor ziegara** (7); **zigor ziegetan** (11)

**aurkako zigorra** (17); **bateko zigorra bete** (77); **bateko zigorra jarri** (10); **bere zigorra** (8); **bi partidako zigorra** (18); **bi urteko zigorra** (57); **bitarteko kartzela zigorra** (13); **biziarteko kartzela zigorra** (8)

**eguneko zigorra** (11); **erdiko kartzela zigorra** (15); **erdiko zigorra** (8); **espetxe zigorra** (415); **espetxe zigorra bete** (12); **espetxe zigorra betetzen** (10); **espetxe zigorra eskatu** (71); **espetxe zigorra eskatzen** (19); **espetxe zigorra ezarri** (99); **espetxe zigorra jarri** (19); **espetxe zigorra jaso** (9); **espetxe zigorra osorik** (9); **euroko zigorra** (18); **ezarri zioten zigorra** (7); **ezarritako espetxe zigorra** (9); **ezarritako zigorra** (31); **guztirako zigorra** (8); **heriotz zigorra** (16); **heriotza zigorra** (304); **heriotza zigorra ezarri** (43); **heriotza zigorra ezartzen** (11); **heriotza zigorra izango** (23); **heriotza zigorra merezi** (9); **hilabeteko espetxe zigorra** (61); **hilabeteko kartzela zigorra** (56); **hilabeteko zigorra** (48); **hilabeteko zigorra ezarri** (15); **hileko espetxe zigorra** (7); **hiltzeko zigorra** (11); **hiru urteko zigorra** (9)

**jainkoaren zigorra** (17); **jarritako zigorra** (16); **kartzela zigorra** (558); **kartzela zigorra bete** (20); **kartzela zigorra betetzen** (8); **kartzela zigorra eskatu** (74); **kartzela zigorra eskatzen** (11); **kartzela zigorra ezarri** (210); **kartzela zigorra ezartzea** (7); **kartzela zigorra ezartzen** (11); **kartzela zigorra jarri** (13); **kartzela zigorra jaso** (19); **kartzela zigorra jasoko** (7); **lau urteko zigorra** (11); **merezi duen zigorra** (7); **merezitako zigorra** (14); **nolako zigorra** (8)

**osorako espetxe zigorra** (7); **osorako kartzela zigorra** (45); **partida bateko zigorra** (108); **partidako zigorra** (35); **partidako zigorra jarri** (11); **presondegi zigorra** (18); **sei hilabeteko zigorra** (12)

**urtebeteko espetxe zigorra** (14); **urtebeteko kartzela zigorra** (15); **urtebeteko zigorra** (10); **urteko espetxe zigorra** (201); **urteko kartzela zigorra** (284); **urteko presondegi zigorra** (8); **urteko zigorra** (192); **urteko zigorra berretsi** (8); **urteko zigorra bete** (7); **urteko zigorra eskatu** (31); **urteko zigorra ezarri** (42); **urteko zigorra jarri** (20); **urteko zigorra jaso** (8)

**zigorra airean** (7); **zigorra berretsi** (32); **zigorra berretsi du** (8); **zigorra berretsi zuen** (11); **zigorra bertan behera** (18); **zigorra bete** (181); **zigorra bete behar** (24); **zigorra bete beharko** (68); **zigorra bete ondoren** (13); **zigorra bete ostean** (29); **zigorra bete zuen** (7); **zigorra beteta** (19); **zigorra betetzeko** (16); **zigorra betetzen** (48); **zigorra betetzen ari** (29); **zigorra betetzera** (16)

**zigorra eman** (20); **zigorra emango** (8); **zigorra emateko** (19); **zigorra ematen** (9); **zigorra eskatu** (201); **zigorra eskatu du** (107); **zigorra eskatu dute** (28); **zigorra eskatu zuen** (48); **zigorra eskatua** (8); **zigorra eskatua zuen** (7); **zigorra eskatzen** (39); **zigorra eskatzen du** (13); **zigorra eskatzen zuen** (7); **zigorra etxean** (8); **zigorra ezar** (14); **zigorra ezarri** (480); **zigorra ezarri diote** (72); **zigorra ezarri zioten** (122); **zigorra ezarriko** (24); **zigorra ezartzea** (23); **zigorra ezartzeko** (18); **zigorra ezartzen** (41); **zigorra ezartzen ahal** (7); **zigorra hartu** (8)

**zigorra izan** (19); **zigorra izango** (46); **zigorra izango du** (22); **zigorra jarri** (107); **zigorra jarri dio** (30); **zigorra jarriko** (14); **zigorra jartzeko** (9); **zigorra jasan** (9); **zigorra jaso** (73); **zigorra jaso dezakete** (9); **zigorra jasoko** (16); **zigorra jasotzen** (12); **zigorra kendu** (15); **zigorra kentzeko** (9); **zigorra merezi** (35); **zigorra merezi du** (7)

**zigorra osorik** (34); **zigorra osorik bete** (19); **zigorra osorik beteta** (7)

**zortzi urteko zigorra** (9)

**aurkako zigorrak** (11); **espetxe zigorrak** (35); **ezarritako zigorrak** (10); **heriotza zigorrak** (19); **kartzela zigorrak** (35); **kartzela zigorrak ezarri** (10); **kontrako zigorrak** (10); **urteko kartzela zigorrak** (8); **urteko zigorrak** (13)

**zigorrak eskatu** (14); **zigorrak eskatu ditu** (11); **zigorrak ezarri** (29); **zigorrak ezarri zizkieten** (7); **zigorrak ezarriko** (9); **zigorrak ezartzea** (17); **zigorrak ezartzearen** (9); **zigorrak ezartzeko** (25); **zigorrak ezartzen** (9); **zigorrak gogortu** (7); **zigorrak gogortzea** (9); **zigorrak gogortzeko** (7); **zigorrak jarri** (13); **zigorrak jartzea** (8); **zigorrak jartzeko** (11); **zigorrak jaso** (7); **zigorrak osorik** (10)

**kartzela zigorrarekin** (7)

**espetxe zigorraren** (12); **heriotza zigorraren** (51); **zigorraren aurka** (9); **zigorraren aurkako** (9); **zigorraren erdia** (11); **zigorraren hiru laurdenak** (21)

zigorrari ihes (11)
zigorraz gain (8)
espetxe zigorrera (13); espetxe zigorrera kondenatu (10); heriotza zigorrera (28); heriotza zigorrera kondenatu (10); zigorrera kondenatzen (7)
delituez eta zigorrez (10)
heriotza zigorrik (9); inolako zigorrik (17); zigorrik ez (33); zigorrik ezarri (13); zigorrik gabe (97); zigorrik gabe gelditu (7); zigorrik gabe utzi (18); zigorrik gogorrena (10); zigorrik handiena (17); zigorrik jaso (12)

---

**zigorbide** *iz* zigorra hartzeko bidea.

Sufriarazten zieten animaliengatik zeuden amorraturik, jainkotzat zeuzkaten animalia berberak baitzituzten **zigorbide** . Elizen arteko biblia

---

**zigordun** *izond* zigorra duena.

Baina aizkorak uste ote du aizkolaria baino handiago denik? Trontzeak uste ote du trontzalaria baino gehiago denik? Ez du zigorrak erabiltzen **zigorduna** ! Elizen arteko biblia

Orsayko geltokiko erlojuak bostak jotzean, "Doktore **zigorduna"** izeneko lan bateko irudiak ari nintzen begiratzen. Monika Etxebarria

---

**zigorgabe** *izond* zigorra jasotzen ez duena.

Txetxeniako herritarrak errepresio ekintza **zigorgabeen** beldur dira, legez kanpoko atxiloketen beldur, desagerketen beldur...Inork ezin badu bere indarra haren aurka erabili, argi eta garbi gelditzen da egiten duen guztiak behar duela izan **zigorgabea** . Berria - Mundua

---

**zigorgabetasun** **1** *iz* gaizkileak edo errudunak zigorrik jaso gabe gertatzea. ik **inpunitate**.

Lasaikeriaren jatorria zein den aztertzen badugu, delituen **zigorgabetasuna** dela ikusiko dugu, eta ez zigorren biguntasuna. Juan Martin Elexpuru

Espainian orain arte isiltasuna eta **zigorgabetasuna** izan dira indarrean, eta ez da zorra kitatu. Berria - Harian

Zenbait faktorek **zigorgabetasun** hori ahalbidetzen dutela azaldu zuen atzo AIk, eta, besteak beste, torturak galarazteko dagoen «borondate politiko eskasa» nabarmendu zuen. Berria - Euskal Herria

Gobernuaren Giza Eskubideen egitasmoa negoziatzen ari da eskuina, haren bidez giza eskubideen urraketak egin zituzten militarren **zigorgabetasuna** lortzeko, eta ahalko balu amnistia orokorra. Berria - Mundua

**Zigorgabetasunak** zedarritzen duen sistema bihozgabea. Filipe Bidart

Torturatzaileek duten **zigorgabetasuna** kritikatu zuen Mirenek. Berria - Euskal Herria

Estatu militar eta ez demokratikoa da Turkia; **zigorgabetasuna** dago. Berria - Mundua

Legez kanpoko praktikak ezkutatzeko hil zituzten kazetariok, eta **zigorgabetasuna** da nagusi. Berria - Gaiak

Egindako kalte bat, dagoeneko erremediorik ez duena, ezin du gizarte politikoak zigortu baldin eta, **zigorgabetasunak** hauspotuta, beste berri batzuei bidea egiten ez badie. Juan Martin Elexpuru

Charles Taylorren atxilotzeak eta epaitzeak mezu irmo bat aditzerat emango du, hau da, **zigorgabetasunik** ez dela onartuko. Berria - Mundua

Inongo herrialdek ez du jarraitu erabateko ahanzturaren eta erabateko **zigorgabetasunaren** eredu hau. Berria - Harian

Lepo zuriko gaizkileak **zigorgabetasunean** uztea da, finean, neurri horren asmoa. Berria - Harian

Euskal Herriko administrazioek «**zigorgabetasun** osoz» urratzen dituzte hizkuntz eskubideak. Berria - Harian

Giza duintasuna mespretxatzen dute, **zigorgabetasun** osoz. Berria - Gaiak

**2** (hitz elkartuetan)

PPko buruaren irudiko, PPk «segurtasun juridikoa» bermatzen zuten guneak sortu zituen tokietan, PSOEk «**zigorgabetasun** espazioak» sortu egin ditu. Berria - Euskal Herria

Lehen ministroari leporaturiko ustelkeriaren auziari ekingo diote berriro, Konstituzio Auzitegiak hark bere burua babesteko jarritako araua kenduta; ekainean gelditu zen epaiketa, **Zigorgabetasun** Legea onartzean. Berria - Mundua

**hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
isiltasuna eta zigorgabetasuna (3); zigorgabetasun osoz (8)

---

**zigorgabetu,** zogorgabe(tu), zigorgabetzen du *ad* zigor gabe utzi, zigorra kendu.

Oier Imaz **zigorgabetu** du Auzitegi Nazionalak. Berria - Euskal Herria

Rafael Vera eta Espainiako Poliziako zuzendari nagusi ohi Jose Maria Rodriguez Colorado **zigorgabetzeko** eskaera jaso zuen Espainiako Gobernuak atzo. Berria - Mundua

Horrek erakusten du zer eragin duen terrorismoa onartzeak eta ekintzaileak **zigorgabetzeak** AEBen eta Karibeko beren bizilagunaren arteko harremanean. Berria - Mundua

Poloniako Legebiltzarrak **zigorgabetu** egin zuen Jaruzelski gerra legea ezartzeagatik. Berria - Mundua

Droga arriskutsuak **zigorgabetzen** dituzten legeak ez dira lagungarriak. Berria - Gaiak

Zigor aretoak **zigorgabetzea** erabaki du, fiskalaren eskaeraren aurka. Berria - Euskal Herria

Haatik, ez du onartzen eutanasia **zigorgabetzea** . Berria - Euskal Herria

Drogak izatea eta erabiltzea **zigorgabetzeak** ez du narkotrafikoa azkartuko. Berria - Gaiak

Ildo berean, erreferenduma **zigorgabetzea** «akatsa» dela iritzi zion atzo Miguel Sanz lehendakariak, eta EAJren «presioen» eraginez egiten den aldaketa dela nabarmendu zuen. Berria - Euskal Herria

Testuinguru horren barruan sartzen da enpresen irabazien faltsutzea **zigorgabetu** izana. Berria - Mundua

---

**zigorgabetze** *iz* zigor gabe uztea, zigorra kentzea.

Haren ustez, lege proiektu hori «eutanasiaren **zigorgabetzea** bezala da», horrelako izenik izan ez arren. Berria - Euskal Herria

---

**zigorgai** *izond* zigorra hartzeko gai dena.

Gizon bat erdi-errugabe, edo erdi-errudun izan ahalgo balitz bezala, edo erdi-**zigorgai** edo erdi-barkagai Juan Martin Elexpuru

**zigorgailu** *iz* zigortzeko tresna.

Aita jaikitzerakoan konturatzen da gertatuaz, **zigorgailuak** prestatzen ditu eta gogor zigortzen, edarian hartutako gehiegizko plazerra neurri batean tristurak galgatu arte. Joan Mari Lekuona

---

**zigorgarri** *izond* zigor daitekeena, zigortzeko modukoa.

Txileko Armadak erabaki zuen instituzio gisa dagozkion iraganeko gertakari **zigorgarri** eta onartezinen erantzukizuna bere gain hartzea. Berria - Mundua

Julen Arzuagak esan zuen ETAren indarkeriaren aurrean jendeak hartzen duen jarrera kritikagarria izan daitekeela, baina ez **zigorgarria**. Berria - Euskal Herria

Tratu zintzoa gizarte-ardura dela onartzen den unean eta edozein gobernuk [...] gezurrezko pisu eta neurria ematea delitu **zigorgarri** bihurtzen duenean, oso hurbil dago diruaren asmakuntza. Iñaki Mendiguren

Ez hintzelako gauza izan egintza oso erraz bat, lege aldetik **zigorgarria**, biok, nire emazteak eta nire lagunik onenak elkarrekin planeatua burutzeko. Xabier Olarra

Esan biezat zergatik ez zituen berorrek auzibideratu gaizkintzok, hain izanik krimentsu eta heriotzaz **zigorgarri**. Juan Garzia

---

zigorgela ik **zigor 10**.

---

**zigorgintza** *iz* zigortzea.

**Zigorgintza** antzinakoagotzat du bere zentzua baino, helburuak gerora asmatu zaizkio. Markos Zapiain

Horixe izan da nagusi joan den mendeko **zigorgintzan**. Markos Zapiain

---

**zigorka** *adlag* zigorrez jotzen.

Erantzutekotan egon nintzaion, haserre, gu ez ginela Eskola Nazionaleko mutilak, berak esaten zuen bezala, **zigorka**, erabiltzeko; baina isilik geratu nintzen. Irene Aldasoro

Loturak nasaitzeko eskatu nien, eta orduan **zigorka** emon zidaten. Koldo Izagirre

-Zaldun jauna, **zigorka** ari natzaion mutil hau nire morroia da. Patxi Ezkiaga

---

**zigorkada** **1** *iz* zigorraz jotako kolpea. ik **zigorrada**.

Sekula ez da berrogei **zigorkada** baino gehiago emango, zigorraldia gogorregia gerta eta herritarra denen aurrean laidotua geldi ez dadin. Elizen arteko biblia

Sei hilabete kartzelan igarotzera eta 300 **zigorkada** jasotzera zigortu dute Rania al-Baz Saudi Arabiako telebista aurkezlearen senarra. Berria - Gaiak

Juduen eskuetatik bost aldiz hogeita hemeretzi **zigorkada** hartua naiz. Elizen arteko biblia

**Zigorkada** bat jo zuen astoen kontra, alferrik, astoak gu baino askoz aurrerago baitzihoazen, maldan behera lasterka abiaraziak. Juan Garzia

Pepponek motore gainean makurturik jarraitu zuen, eta On Camillok hamar **zigorkada** jo zizkion bizkar azpian. Koldo Biguri

Semearen gogoa bere nahira makurtuko zuela pentsatuz, lehenengo hitzez eta gero **zigorkadez** eta katez saiatu zen. Askoren artean

Sultanaren aurrera iritsi baino lehen, haren soldaduek atxilotu egin zuten, irainez bete, **zigorkadaz** josi. Askoren artean

Joera handia dago Saderen liburuak ipurdiak jipoitzen ari diren **zigorkada** irudiz ilustratzeko. Juan Martin Elexpuru / Bego Montorio

**2** irud/hed

Nolako **zigorkada** zorrotza solas horrek ene kontzientziari! Juan Garzia

Lehenik gerlaren zama, gero zorraren **zigorkada**... Bazena madarikazio handiagorik? Angel Aintziburu / Jean Baptiste Etxarren

---

**zigorkarazi**, zigorkaraz, zigorkarazten du *ad* zigorrak emanarazi.

Orduan, Pilatok, jendeari poz emateagatik, Barrabas askatu zien eta Jesus, **zigorkarazi** ondoren, haien eskuetara eman zuen, gurutziltza zezaten. Elizen arteko biblia

Erroman, adin gutxiko bat lapurretan harrapatzen zutenean, pretoreak nahi adina **zigorkarazten** zuen, Lazedemonian bezala. Iñaki Iñurrieta

---

**zigorkari** *izond* zigorkatzen duena.

Mahuka haren besarkada samurrak gogorarazi zizkion Denverri bere jaiotzaren xehetasunak... eta baita elurte mehe **zigorkaria** ere, soroko loreen fruituaren antzekoa. Anton Garikano

Elur mehe **zigorkari** bat, amak margotzen zuen irudiaren antzekoa. Anton Garikano

---

**zigorkatu**, zigorka(tu), zigorkatzen du *ad* zigorraz jo. ik **azotatu**.

Bizkarra eskaini nien **zigorkatzen** nindutenei, eta masailak, bizarretik tiraka ari zitzaizkidanei. Elizen arteko biblia

Alde banatan jarririk, **zigorkatu** egin zuten etengabe, astin-astin egina utzi arte. Elizen arteko biblia

Gure aitak larruzko zartailuz **zigorkatzen** zintuztela? Burdin muturdunez **zigorkatuko** zaituztet nik! Elizen arteko biblia

Mila bider izan ziren irainduak, lotsatan jarriak, biluziak, **zigorkatuak**, katez lotuak, espetxeratuak. Askoren artean

Gero jakin zen, neskameen lotsa-eza **zigorkatuko** zuela dukeak baldin eta bera ere Don Kijote bezala garbitu ez bazuten. Patxi Ezkiaga

Jantzia erantzi eta soka batez gogor **zigorkatu** zuen gorputza. Askoren artean

Hauts harrotuan, gurdiak basaki zealdoka, aurigek ankerki **zigorkatzen** zituzten zaldi eroak, bihotzak lehertzear zituzten unean harrapatu izan balitu bezala artistak, euren arrastoan lur jota erori aurretik. Mirentxu Larrañaga

Ameriketara joaten naizen hurrengoan, **zigorkatzeko** makina bat ekarriko dut handik. Josu Zabaleta

**hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**

**burdinazko muturdunez zigorkatuko** (3); **zigorkatuko zaituztet nik** (4)

**zigorkatzeko agindu zuen** (3)

**larruzko zartailuz zigorkatzen** (4); **zartailuz zigorkatzen zintuztela** (4)

---

## zigorkatze *iz* zigorraz jotzea.

Presondegi hartako Guardias de Asalto deitu zaintzaileek, **zigorkatze** (ukalditze) aberetiarrez kastigatzen zuten Galicia-tar burutik egiten zuen gaixo bat. Jokin Urain

Horretaz gain, **zigorkatzeek** eragiten dituzten zaurien argazkiak ere erakutsi zizkieten ikasleei. Berria - Gaiak

**Zigorkatze** erakustaldiak egiten dituzte Malaysiako eskoletan. Berria - Gaiak

---

## zigorketa *iz* zigortzea.

Geroagokoak dira komisaldegi eta epaitegietako galdeketak, ikerketak eta **zigorketak**. Hasier Etxeberria

Historiak emakumearen krudeltasunaren mila adibide ematen digu, eta haien berezko joera zein den ikusita, pentsatzen dut **zigorketa** aktiboa erabiltzen ohitu beharko luketela. Juan Martin Elexpuru / Bego Montorio

Ez zen behin bakarrik ere kexatu, ez zuen txintik ere esan, eta asper-asper eginda utzi nion **zigorketari**, itsuak astinduarekin gozatu zuen edo ez guztiz argitu gabe, baina. Karlos Linazasoro

---

## zigorpe 1 *iz* zigorra.

Gero zigorkatu behar duanari ez gaizki esaka jardun; gaizki-esanen gehigarririk gabe ere aski dik-eta dohakabeak **zigorpea**. Patxi Ezkiaga

**2** *zigorpean* ik **zigor 8**.

---

## zigorrada *iz* zigorkada.

Bernardinok **zigorrada** batez abian jarri zituen zaldiak, trostan baino dantza geldian gehiago. Felipe Juaristi

Santxok mila eta hirurehun **zigorrada** eman beharko dizkio bere buruari. Patxi Ezkiaga

Hurrengo atalburuetan Altisidora agertzen da berriro, eta Santxori emandako **zigorradak** etorriko dira. Patxi Ezkiaga

Zehapena bildu nuen egun hartan, nire lehenbiziko zehapena: hamar **zigorrada** bizkarrean, ikasle eta irakasle guztiak ikusle nituela. Aingeru Epaltza

Bigarren **zigorrada** ere sentitu du Gabrielek, nota altua da lehengoa bezalaxe, eta Damián itsua etorri zaio burura. Felipe Juaristi

Eskuan zaplateko bat edo belarrondoko bat emateak ez zuela balio: **zigorradaz** ondo berotu behar zela. Irene Aldasoro

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
> zigorrada eman (3); zigorrada emango (3)

---

## zigorradaka *adlag* zigorradak emanez.

**Zigorradaka** larrutzen omen zioten bizkarrezurra, eta behin leher eginda lurrera erortzen zelarik, ostikoka kolpatzen burua. Mirentxu Larrañaga

Besotik helduta arte-arbolan lotu zuen berriro, eta hiltzat uzteraino jo eta jo hebaindu zuen **zigorradaka**. Patxi Ezkiaga

---

## zigorraldi 1 *iz* zigor joaldia.

**Zigorraldi** bat eman eta askatu egingo dut. Xabier Olarra

Sekula ez da berrogei zigorkada baino gehiago emango, **zigorraldia** gogorregia gerta eta herritarra denen aurrean laidotua geldi ez dadin. Elizen arteko biblia

Erori egingo dira, besteak bezalaxe, lur joko dute nire **zigorraldian**. Berria - Euskal Herria

**Zigorraldi** ederra eman beharko genioke herritar guztien aurrean! Jose Morales

**2** norbait zigorturik egoten den aldia.

**Zigorraldia** amaitzeko 17 urte, 5 hilabete eta 7 egun falta zituen preso bat, esaterako. Unai Elorriaga

**Zigorraldia** betetzeko hiru urte falta dituela prisión atenuadan -presoaldi arinduan- jarriko zuten, Mundakan. Edorta Jimenez

**Zigorraldi** horren ostean, baina, Belgikako Gobernuak zigorra beste hamar urtez luzatzea erabaki dezake, baldin eta Dutroux gizarteratzeko aukerarik ez dagoela uste badu Jarritako **zigorraldia** bete. Berria - Gaiak

Frantziarrak lehendik arautzen baitzuen bizi arteko **zigorraldia**. Berria - Euskal Herria

---

## zigorrezko

**1** ***zigorrezko boto*** zigor botoa.

Izan ere, Jean-Pierre Raffarinen gobernuaren aurka **zigorrezko** boto egite bat nabarmen izan bada ere bozketa hauen lehen itzulian, Sarkozyk ospe ona gordetzen du frantses herritar gehienen iritzian. Berria - Mundua

---

## zigortegi *iz* presondegia.

Batzuetan ez naiz oroitzen, eta egia esan orain esanen banu ez naizela inoiz egon Duesoko **zigortegian**, ba...ez dakit, ez dakit. Koldo Izagirre

---

## zigortu, zigor(tu), zigortzen 1 du *ad* zigorra ezarri. ik **zigorkatu**. (norbait)

Garbi izan behar da egokiagoa eta zuzenagoa dela prebenitzea **zigortzea** baino. Juan Martin Elexpuru

Maite ditudanak zentzatzen eta **zigortzen** ditut nik. Askoren artean

Zigorraren helburua, gaizkilea **zigortzea** baino gehiago, etorkizunean gerta daitezkeen balizko delituak eragoztea da. Juan Martin Elexpuru

Filipe **zigortuz**, Euskal presoak **zigortuz**, ni, zuek, gu Euskaldunak gaituzte **zigortzen**. Herria

**Zigortzekoak** ote dira odol transfusio bat ez baimentzeagatik haurra hiltzen utzi duten gurasoak? Joxe Azurmendi

Agentziak, kolpearen neurriaren arabera, seguruak ordaintzen ez duen konponketaren zatia ordainaraztera eta garajean dauden furgonetak garbitzera **zigortzen** ditu gidariak. Patxi Zubizarreta

Hiltzera **zigortu** behar duzue, zuen bihotzak beratu gabe. Juan Kruz Igerabide

Espainiak 1740an ingelesekin izan zuen gerran, lege bat egin zuen, zeinen arabera heriotzara **zigortzen** baitzituen Espainiako estatuetan Ingalaterrako salerosgaiak sartzen zituztenak. Iñaki Iñurrieta

Bizitza osoa espetxean igarotzera **zigortu** dute. Gotzon Garate

Eta Malikek, infernuaren zaindariak, bertan atxiki bitza betiko, eta **zigor**. Jon Alonso

Erregeak heriotzaz **zigortu** nahi zuen zalduna. Pako Aristi

Zuzentasunaren makilaz **zigortu** zuenak graziaren gozotasunaz bisita egin zion gau-ikuskariaz. Askoren artean

Bazen lapurra **zigortu** beharrean lapurtua **zigortzen** zuen herri bat, horrela bere jabegoa hobeto zaintzen ikas zezan. Juan Martin Elexpuru / Bego Montorio

**Zigortzeko** mehatxua egin zion, eta Ulises hilik zegoela esan zuen. Juan Kruz Igerabide

Hori egin ezean, izurriz edo ezpataz **zigortuko** gaitu. Jose Antonio Mujika

Postrerik gabe **zigortutako** haur batek bezala. Ramon Saizarbitoria

Ez zaitugu **zigortuko** horrelako huskeriagatik! Iñaki Mendiguren

Prometeo oroitarazten digu, jainkoena zen sua lapurtzeagatik **zigortua**. Juan Garzia

Zeruak ez ahal nau **zigortuko** eta infernuak ez ahal du nire kontrako mendekurik hartuko orain kontatzera noanarekin paper zuria belzteagatik. Anjel Lertxundi

Lekuko gisa hasi, **zigortuta** bukatu. Berria - Harian

Gaizkilea maiz ez da **zigortua**. Gotzon Garate

Ez ditzagun geure buruak **zigortu**. Koro Navarro

Zerbitzari leial eta zentzuduna da, huts egiten duen bakoitzean, bere burua luzaro gabe **zigortzen** duena. Askoren artean

Nehor ez zen **zigortua** izan. Ramuntxo Etxeberri

## **2** (zerbait)

Bautistak gogor **zigortu** zituen zaldiak, eta kotxea abailetan abiatu zen. Koro Navarro

Batera edo bestera enpresa **zigortu** beharraz mintzatu ziren ahots asko. Berria - Ekonomia

Gurasoen gaiztakeria semeengan **zigortzen** duena. Xabier Kintana

Haien harrotasuna **zigortzeko** asmoarekin. Santiago Iruretagoiena

Bozemaileek eskuinaren azken urteetako politika **zigortu** zuten. Berria - Ekonomia

Garai hartan uzki-koitoa krimenik txarrenaren pare **zigortzen** zen. Garai batean borreroek, tiranoek, jeloskorrek, **zigortzen** zuten adulterioa. Juan Martin Elexpuru / Bego Montorio

Europan oinarrizko legea da kolonia arrotz batekiko merkataritza herrialdeko legeez **zigor** daitekeen monopoliotzat hartu behar dela. Iñaki Iñurrieta

Munduko gauzarik irrigarriena da pertsonen zaletasunen gainean demandan ibiltzea, edo zaletasun horiek eragoztea, gaitzestea edo **zigortzea**, norberaren herrialdeko legeekin edo gizarte usadioekin bat ez datozelako. Juan Martin Elexpuru / Bego Montorio

Ezetz aurkitu justizia arrastorik kalumnia **zigortzen** duen legeari. Juan Martin Elexpuru / Bego Montorio

Zigorrek **zigortzen** dituztela zigorrok sortu dituzten delituak. Juan Martin Elexpuru

Horra defentsa naturala **zigortzen** duen lege zibil bat. Iñaki Iñurrieta

Jokatzen diot ezetz aurkitu justizia arrastorik kalumnia **zigortzen** duen legeari. Juan Martin Elexpuru / Bego Montorio

Gauaz, jateko ebaste anitz bada, nahiz-eta ohointza garrazki **zigortua** den. Marzel Etxehandi

## **3** (adizlagunen eskuinean)

Zuzen den bezala ongi **zigortuak** izanen dira. Herria

Aurtengo Zan Pantzarren ikusteko eta untsa **zigortzeko**. Herria

Bigarren denbora aldiko erreusipen eskasek eta garrazki **zigortu** hutsek erakarri dute Angoulême-tarren irabazia. Herria

Egun askotako gabeziaz gogor **zigortzen** zuten beren burua. Askoren artean

Taldeak oso gogor **zigortzen** ditu disidenteak: taldetik egozten ditu. Luis Elberdin

Iruzurra gogorrago **zigortuko** du Gipuzkoako zerga arau berriak. Berria - Ekonomia

Sarkozy lege batek gogorki **zigortzen** du holako egitatea. Herria

Ingalateran lapurrak oso nekez **zigortzen** dira heriotzarekin. Juan Martin Elexpuru

Ikurriñak agertuko dituzten Herriko-Etxetako auzapezak zuzenki ditu **zigortuko** nafar gobernuak. Herria

Harrika hiltzera **zigortu** dute nigeriar bat, ezkontzaz kanpo haurra izateagatik. Berria - Gaiak

Errieta egiten didatenean edo makilaz **zigortzen** nautenean, begien parean dudan hartan biltzen dut begirada, alderik alde zulatu nahi banu bezala. Juan Kruz Igerabide

Rivas-Vaciamadrid herriko Udala diruz **zigortuko** dute, Muguruzaren kontzertuagatik. Berria - Kultura

## **4** zigorraz jo.

Zigorra dantzatu zuen hiru zaldien bizkar gainean, pozik zegoela adierazi nahirik eta **zigortzeko** asmorik gabe. Jose Morales

Emakumea indarka hasi da, askatu nahi du, baina beltzarana uhela hartu eta ipurdia **zigortzen** hasi da, zehatz, marra gorri batzuk agertzen hasi dira bere larru beltzaranean. Juan Martin Elexpuru

Zatoz hona, neskato, **zigortu** egin behar zaitut eta. Juan Martin Elexpuru / Bego Montorio

Horrela bi ipurdi izango ditut eskura eta aldi berean **zigortuko** ditut. Juan Martin Elexpuru / Bego Montorio

## **5** (era burutua izenondo gisa)

Itsasoa berun **zigortuaren** kolorekoa da. Edorta Jimenez

Azterketaren batean estanko oso-osoa aurkitu zuten piano **zigortuaren** tripetan. Askoren artean

Problema soin-enbor **zigortua** jasoz konpon nezakeen. Aingeru Epaltza

Eraikin berriak, hodeiak urratzeko moduko etxeorratzak, fantasma erraldoi **zigortuen** gelditasunarekin. Joseba Sarrionandia

Hoztu ahala gelditu egiten ziren, lur **zigortuak** oka egindako herensugeen irudi bihurriak osatuz. Agustin Otsoa

Bere bihotz **zigortuak** jauzi egiten zuen zoriontasunezko berrogeita zazpi uztai zeharkatuz. Oskar Arana

Hegoafrika da herri **zigortuenetako** bat: Telebista ikusi gabeko batzuk ere bai baitziren **zigortuen** artean, eta azaldu egin nahi baitzieten hainbat xehetasun. Pello Salaburu

Gure herri **zigortu** honetan. Pello Salaburu

### hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

**asko zigortu** (3); **bere burua zigortu** (3); **betetzera zigortu zuten** (3); **bezala zigortu** (5); **bi urterako zigortu** (10); **burua zigortu** (8)

**egiteagatik zigortu** (6); **egotera zigortu** (3); **egotzita zigortu** (3); **enpresa zigortu** (6); **epaitu eta zigortu** (11); **erbesteratzearekin zigortu zuten** (4); **errudunak zigortu** (6); **errudunak zigortu behar** (3); **espainia zigortu** (3); **espainiako estatua zigortu** (3); **espetxera zigortu** (3); **estatua zigortu** (3); **euro ordaintzera zigortu** (6); **ezin badu zigortu** (3); **gehiago zigortu** (4); **gero zigortu** (3); **gogor zigortu** (16); **gogor zigortu du** (3); **gogorrago zigortu** (3); **gorputza zigortu** (3); **harrika hiltzera zigortu** (4); **heriotzara zigortu** (8); **heriotzara zigortu zuten** (4); **heriotzaz zigortu** (3); **herria zigortu** (3); **hilabeterako zigortu** (3); **hiltzera zigortu** (15); **hiltzera zigortu zuten** (8)

**inor zigortu** (8); **israeldarrak zigortu** (3); **izateagatik zigortu** (7); **izateagatik zigortu dute** (3); **jainkoak zigortu** (8); **jaunak zigortu** (6); **neure burua zigortu** (3); **ni zigortu** (3); **nola zigortu** (6)

**ohi zigortu** (3); **ordaintzera zigortu** (16); **ordaintzera zigortu du** (4); **ordaintzera zigortu zuten** (3); **pertsona zigortu** (3); **senideak zigortu** (4); **urterako zigortu** (10); **urterako zigortu du** (6); **zergatik zigortu** (4)

**zigortu ahal** (8); **zigortu ahal izateko** (6); **zigortu arren** (3); **zigortu behar** (41); **zigortu behar dira** (6); **zigortu beharko** (7); **zigortu beharra** (10); **zigortu beharrean** (3); **zigortu beharreko** (4); **zigortu ere egin** (5); **zigortu gabe** (13); **zigortu gabe utzi** (3); **zigortu zituen atzo** (3); **zigortu zituzten** (25); **zigortu zuen atzo** (6); **zigortu zuten hura** (3)

**txartelen ondorioz zigortua** (5)

**zigortua da** (3); **zigortua dago** (5); **zigortua izan** (24); **zigortua izan den** (3); **zigortua izan zela** (3); **zigortua izan zen** (4); **zigortua izango** (10); **zigortua izango da** (4); **zigortua izatea** (6); **zigortua izateko** (5)

**zigortuak izan** (21); **zigortuak izan daitezkeela** (3); **zigortuak izango** (8); **zigortuak izango dira** (4)

**ahal nau zigortuko** (9); **gogor zigortuko** (10); **gogorrago zigortuko** (7); **guztiak zigortuko** (3); **oro zigortuko** (3)

flañ garcia zigortuta (3); lesionatuta edo zigortuta (3); o zigortuta (5); pablo garcia zigortuta (3)

zigortuta baitago (9); zigortuta baitaude (8); zigortuta dago (28); zigortuta dagoelako (5); zigortuta dagoen (4); zigortuta dagoenez (3); zigortuta daude (9); zigortuta daudelako (4); zigortuta dauden (4); zigortuta egon (6); zigortuta zegoelako (3)

zigortutako beste (3); zigortutako hiru (3); zigortutako jokalariek (3); zigortutako lau (3); zigortutako pertsonak (3)

ez zigortzea erabaki (3); hura zigortzea (3); jazarri eta zigortzea (3); langileak zigortzea (3); zigortzea baino (5); zigortzea da (5); zigortzea dela (5); zigortzea erabaki (13); zigortzea erabaki zuen (5); zigortzea proposatzen (3)

zigortzearen aldekoak (3)

aebak zigortzeko (3); arduradunak zigortzeko (3); burua zigortzeko (3); delituak zigortzeko (3); erantzuleak zigortzeko (9); etsaiak zigortzeko (3); ez zigortzeko (8); ez zigortzeko eskatu (3); familia zigortzeko (3); gaizkileak zigortzeko (5); gehiago zigortzeko (3); gogor zigortzeko (5); gu zigortzeko (3); guztiak zigortzeko (3); herriak zigortzeko (3); herrialdeak zigortzeko (4); herrialdeak zigortzeko eskatu (3); herritarrak zigortzeko (3); kartzelarekin zigortzeko (3); ni zigortzeko (3)

zigortzeko ahalmena (5); zigortzeko asmoarekin (3); zigortzeko aukera (5); zigortzeko beste (3); zigortzeko ekintzatzat jo (3); zigortzeko erabakia (4); zigortzeko erabiltzen (4); zigortzeko eskatu (24); zigortzeko eskatu dio (6); zigortzeko eskatzen (3); zigortzeko eskubidea (7); zigortzeko neurriak (4)

bere burua zigortzen (4); bezala zigortzen (4); bizi osorako zigortzen (3)

gaiztakeria ondorengoengan zigortzen (4); gaiztoak zigortzen (3); gogor zigortzen (19); gogor zigortzen zituzten (3); heriotzara zigortzen (3); heriotzarekin zigortzen (5); heriotzarekin zigortzen da (3); heriotzaz zigortzen (3); hiltzera zigortzen (3)

inoiz zigortzen (3); neure burua zigortzen (3); neurriz kanpo zigortzen (4)

ondorengoengan zigortzen dut (4); oso gogor zigortzen (3); semeengan zigortzen duena (4)

zigortzen ahalko (3); zigortzen dira (7); zigortzen ditu (16)

---

## **zigortxo** *iz* zigor txikia.

Peterrek **zigortxo** bat ukan zuen, baina nahiago izan zuen Los Angelesen bizitzen jarraitu, New Yorkera itzultzea baino. Gotzon Garate

---

## **zigortzaile** 1 *izond/iz* zigortzen duena. (pertsonak)

Alferrikakoak ziren keinu haiek guztiak, bai, Floren gogor eta **zigortzailearen** aurrean. Jon Arretxe

Hurbildu hiriaren **zigortzaileok**, bakoitza bere arma suntsitzailearekin! Elizen arteko biblia

Jakoben ondorengoetan onik aterako direnek ez dute gehiago beren **zigortzailea** hartuko euskarritzat. Elizen arteko biblia

Huraxe izan genuen, hurrengo asteetan, **zigortzaile** eta torturatzaile nagusi; eginahalak eta bi egin zituen gure bizitzak zorigaiztoko bilaka zitezen. Mirentxu Larrañaga

**2** (bestelakoak)

Eusko Jaurlaritzako Uren Zuzendaritzak bi espediente **zigortzaile** ezarri dizkio Muskizko Petronor enpresari. Berria - Euskal Herria

Zentzugabekeria iruditzen zait borondate publikoaren adierazpide diren legeak, erailketaren errefusatzaile eta **zigortzaile** direnak, eurak berberak izatea haren egile. Juan Martin Elexpuru

Ameriketako Estatu Batuen politika **zigortzaile** eta debekatzailearen menpe daude drogomenpekotasun politikak. Berria - Euskal Herria

Bekatuaren itzal **zigortzailearenak**? Anjel Lertxundi

Neurketa amaitzear zela, ordea, txartel hori **zigortzailea** ikusi eta agur esan zion finalari. Berria - Kirola

**hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**

espediente zigortzaile (4); zigortzaile bat (3)

---

## **zigortze** 1 *iz* zigorra ezartzea.

Zergatik zeure buruaren kontrako **zigortze** hori? Xabier Mendiguren Elizegi

Berrikitan, ez dakit non, irakurria dut artikulu bat **zigortze** horietaz. Piarres Aintziart

Saindu penitentzigile zenbaiten azotezko **zigortzeek** zer zorion dauka? Piarres Aintziart

Egunez egun, eter zirimolek eta eguzki izpiek, muturreko ertzen gaineko **zigortze** etengabez, lurra alde guztietatik erdian kondentsatzera eta bere masa estutzera zenbatago behartzen zuten. Xabier Amuriza

Israelgo Gobernuak «ideologia arrazista baten ildotik, **zigortze** kolektiboak, gerra krimenak eta genozidio bat» daramala. Berria - Mundua

**2** (hitz elkartuetan)

Perpinyako presondegian **«zigortze** isolamenduan ezarri dute, gezurretan oinarrituta», salatu du Askatasunak. Berria - Euskal Herria

---

## **zigoto** *iz* gameto ar eta emea batzetik gertatzen den zelula ernaldua.

**Zigotoa** izanik lehenbiziko zelula, **zigotoko** nonbaiten (kromosometan adibidez) egon beharko duela zerbait kodez idatzia esango dute zientzialari batzuek. Jenaro Garate

Lehenbizi zelula bakar bat izan nintzen, **zigotoa**. Jenaro Garate

**Zigotoa** amaren sabelean hautespen natural hutsez burutzen dela gizaki. Jenaro Garate

---

## **zigurat** *iz* erlijiozko eraikina, dorre mailadun baten itxura duena.

Mesopotamiako **ziguratak**, Egiptoko piramideak, maien tenpluak. Koro Navarro

---

## **zihatu**, ziha(tu), zihatzen da/du *ad* koipeaz eta kidekoez mintzatuz solidifikatu.

Bestela ez haiz isilduko eta zopa **zihatuta** jan beharko diat. Bernardo Atxaga

---

## zihaur ik **zuhaur**.

---

## **zihigar** *izlag/iz* Zihigakoa, Zihigari dagokiona; Zihigako biztanlea.

Haatik aho-mihiz Ligueix-ekin lehian ezagütü düenen arabera, zalheago, azkarrago, zorrotzago zen larraintar-**zihigarra**. Herria

Adibidez bortüa kudeatzen düan Xiberoko Zindikatean, bilkürak eüskaraz egiten ziren, bereziki Anixet Iribarne gamere-**zihigarra** zindik zelarik. Herria

---

zihikatu ik **zirikatu**.

---

## **zihiteko** *iz*

Kaxoi baten ireki-itxiak egin zuen **zihitekoa** zela-eta, gordelekuaren sabaiko tapakia altzari harexen azpian zegoela konturatu zen. Bernardo Atxaga

---

## **zihizka** *adlag* txistukatzen.

Lajosek kutxa batetik dortoka bat atera zuen eta animaliak musikarekin atsegin hartzen zuela erakusten aritu zen: txistu egiten zitzaionean, lepo nardagarria luzatu eta **zihizka** hasten zen erantzun gisa. Ander Irizar

---

zihur ik **ziur**.

---

zihurtatu ik **ziurtatu**.

---

## **zikanatu,** zikana, zikanatzen du *ad* engainatu. ik **xikanatu**.

Bat, lehen minixtroa, bigarren itzulian irabazi duena bainan **zikanatuz**. Herria

---

## **zikanatzaile** *(corpusean **zikanatzale** soilik)* *izond* engainatzailea.

Gizonaren izpiritua ere agertzen duk bere aberastasunean: gogoa argi, zehatz, kementsu, jasankor, sekulan etsitu gabe, aski abila jokoaren aitzinetik asmatzeko, kontrakoaren ahalak eta hutsak berehala neurtzeko; zuzena, ez bihurria, ez **zikanatzale**, ez gezurti. Michel Oronoz

---

## **zikatriz** *iz* ebakiondoa, orbaina.

Afari denboran jakinen dut zergatik besoa altxarazten duten, zerbitzariak argituko nau: Alemanak lagundu dituzten miliziano frantsesek beso azpian orbain edo **zikatriza** bat badute engaiatu direlarik egina. Marzel Etxehandi

---

## **zikilizoro** *izond* losintxaria, balakaria.

-Willem, ez zaitez **zikilizoroa** izan! -esan zuen Mathildek, irribarretsu. Anjel Lertxundi

---

## **zikin** *(orobat **zikiñ** g.er.)* **1** *izond* orbanak, hautsa edo kidekoak dituena; itxura itsusten duen zerbait duena. ik**lohi**; ant **garbi**.

Galtzerdiak, alkandorak, barruko arropak -garbiak zein **zikinak** -, zapata-orkoiak. Jose Morales

Zementuzko ohearen gaineko koltxoi gogorrean etzanda zaude manta **zikin** baten azpian. Rafa Egiguren

Mokanes **zikin** bat zuen atxikitzen bere ahoaren aitzinean, bere burua trafiko animalearen kutsaduratik babesteko. Ramuntxo Etxeberri

Koipez beteriko elastiko **zikin** bat janzten du eta praka motz higatuak. Gotzon Garate

Puntuzko lepoko gorri **zikina** zeraman. Jose Morales

Sotana beltz beti **zikin** batekin, arima galdua zirudiela. Hasier Etxeberria

Han utzi zuten, atea zabalik, ohe estu **zikin** baten gainean lo eta amets larrika. Felipe Juaristi

Oso taberna **zikina** zen, oiloak bertan ibiltzen ziren bueltaka, eta tejabana baten azpian jotzen nuen. Pako Aristi

Fabrika aterpe-zulo **zikin** eta desordenatu bat zen, haize-lasterrez betea. Juan Garzia

Ospitale hura, dagoeneko eraitsia dagoena zorionez, eraikin **zikin**, nazkagarri, kiratsez bete bat zen. Josu Zabaleta

Armadoreek berek merke jaso eta garesti saldutako etxe estu, **zikin** eta umeletan bizi ziren. Koldo Izagirre

-Tampico -esan nion-, munduko hiririk **zikinena** duzu. Joxe Austin Arrieta

Errekatxo **zikin** baten ondoan txabola mailara iristen ez diren oihalezko bizitegi urratuak ikusiko dituzu, jendez beterik. Gotzon Garate

Onik ateratzeko esperantzari bide estua uzten zion komisaldegiko ziega **zikin** eta heze batean bururatu nuen bidaiak. Aingeru Epaltza

Ispilu handi, pitzatu eta **zikin** baten azpian harrizko konketa zartatuen ilara bat zegoen. Iñaki Mendiguren

Ile luzea zeraman, **zikina** eta koipetsua. Felipe Juaristi

Ile luze **zikin** eta nahasia ukondoetaraino iristen zitzaion. Iñaki Mendiguren

Ellenek globoen hariak ipini zituen txapel gorriko hiru neskato tximino-aurpegidunen esku **zikin**-itsaskorretan. Lopez de Arana

Hain luze egon ginen geldirik, non antxeta **zikin**-grisak lasaitu, eta batzuk gure aldamenean jarri ere egin baitziren. Koro Navarro

Whisky botilak hustu behar ziren eta Pasaiako badiako **ur** zikinarekin bete. Harkaitz Cano

Ibaiak azalean ur garbi aratzak eta barnean arre **zikinak** daramatzan bezala. Felipe Juaristi

*ik beherago* 14. Askoren artean

Odol **zikina** jaurtitzen zuen ahotik, eta hesteak ere bota behar zituela zirudien. Askoren artean

Pentsatze hutsa ere: zakila uzki **zikin** batetik sartu, kaka artean... Jon Arretxe

Janaritegia zergatik zegoen beti erdi hutsik, giltzain andrea zergatik aritzen zen lapurretan, zerbitzariak zergatik ziren hain **zikinak** eta mozkortiak. Jose Morales

**2** irud/hed

Laino guztien azpiko ezereztegietan, hauts **zikin** bat zainetan eta huts garbi bat bihotzean, jonkia dabil espediziotik espediziora. Iñaki Segurola

Bakailaoa, abadira, platuxa, oilarra, arrain arruntak horiek guztiak, gris **zikin** kolorekoak, orban zurixkez apainduak. Karlos Zabala

Zakur zuri-**zikin** bat zebilen mimoaren inguruan usnaka. Anjel Lertxundi

Nork egingo lituzke orduan inork egin nahi ez dituen sukalde eta estolderietako lan **zikin** guztiak? Harkaitz Cano

Ezaugarri horiek guztiek ekarri dute "errealismo **zikin"** esapidea. Koro Navarro

Rock **zikin** eta zatarra. Berria - Kultura

-Familia guztiek izaten ditiztek beren sekretuak, nork bere etxean besterik garbitzen ez dituen arropa **zikinak**, Jon Muñoz

**3** (mespretxua adierazteko)

**3** (mespretxua adierazteko)

Itzain **zikin** bat baizik ez ninduan. Itxaro Borda

Zenbateraino zinen zu ere umemoko **zikin** bat orain dela bi urte. Xabier Mendiguren Elizegi

Hamar urte dira jo eta ke ari naizela lausengatzen hemengo dirudun zeken **zikin** batzuk, nahiz eta gogoz emango nizkiekeen muturreko on batzuk topatzen ditudan bakoitzean. Koldo Biguri

Inork halakorik kontatuko balit, gezurti **zikin** bat dela esango nioke! Koro Navarro

Atsoek ahots apalez iraindu zuten Prothero andrea, gezurti, ezkontza nahasle, sasikumeen ama, lapur **zikina**. Koro Navarro

-Lapur **zikin** bat besterik ez da. Juan Kruz Igerabide

-Mikel al du izena hiltzaile **zikin** horrek? Aitor Arana

-Eta horri judu **zikin** horien eta irlandar zorritsu horien ezjakintasuna gehitu behar zaio. Lopez de Arana

Urde **zikinak**! Ez dut zerri **zikin** horrekin berriro bizi nahi. Lopez de Arana

-Alu **zikin** barren-galduak dira denak -esan zuen Monak-. Fernando Rey

Galdu al da herri **zikin** honetan gizon prestuak bakean uzteko usadioa? Koldo Biguri

Mekatxis, laino **zikin** hauek! Pello Zabala

Nork jarri du bandera **zikin** hau hemen? Joan Mari Irigoien

-Ezer ez; eman didaten lanbide **zikin** honek nahastu egiten nau. Josu Zabaleta

-Laster bukatuko ahal duk gerra **zikin** hau! Imanol Zurutuza

-Hau da zorte txarra! Zorte **zikin** penagarria! Anton Garikano

Ba nik ez diat begirik itxi erreuma **zikin** honekin. Berria - Kultura

Barne-barnetik zetorkidan lastima **zikina**. Eider Rodriguez

Poema **zikin** batzuk berreskuratzeko gorpu bat lurpetik atera! Ramon Saizarbitoria

Zertarako nahi dituk zigarro **zikin** batzuk, putakume horrek etxean gordetzen duen dirutza eskura baldin baduk? Alberto Ladron Arana

Amak aqua-park **zikin** batera joateko hitza eman dielako, niri deus galdegin gabe. Aingeru Epaltza

Bizimodu **zikin** honetaz nazka-nazka eginda nagok. Lopez de Arana

-Hau zorri-zulo **zikin** nazkagarri bat besterik ez duk -tonu berean jarraitu zuen ahotsak-. Lopez de Arana

**4** (adizlagun gisa)

Itsasoa **zikin** dago eta uhain beltzak jotzen du leihorra. Herria

Galtzei tabako usaina zerien, nire eskuei bezala, eta horrek **zikin** sentiarazi ninduen, **zikin**, kopetatik zango puntaraino bilduta ninduen izerdiak baino are gehiago. Aingeru Epaltza

Ura zein **zikin** dagoen hartu nahi dut argazkietan. Edorta Jimenez

Neskatoen bizilekua txukundu gabe, **zikin** eta erabat utzita zegoela erabili zuten alaben tutoretza kentzeko. Berria - Euskal Herria

Garbi bezain **zikin** hitz eginda, Espainiak porkulo eman izan dit beti, zentzu guztietan. Iñaki Segurola

Izan ere, gaiztakeria egiten duzue eta eskuak odolez **zikin** dauzkazue. Elizen arteko biblia

Argal, **zikin**, harro azaldu ziren Huck eta Tom. Koldo Izagirre

**Zikin** samarra daukat etxea, pixka bat utzita. Eskarne Mujika

Gitarra jotze keinuak egiten sartu zen, begiak gorriturik, aurpegia zurbil, alkandora galtzen gainetik eta prakabarrenak **zikin**. Unai Iturriaga

**5** (izen gisa) ik beherago **11.**

Bataioak ez gaitu gorputzeko **zikina** garbituz salbatzen, Jainkoaren aurrean kontzientzia garbi gordetzeko konpromezua ezarriz baizik. Elizen arteko biblia

Oso gogor hartzen ditu hitzak, barruko **zikin** eta zorne guztia ateratzerainokoan. Iñaki Segurola

Ene maiteok, honelako agintzariak ditugunez gero, garbi gaitezen gorputzeko eta espirituko **zikin** guztietatik. Elizen arteko biblia

Ez da nire begi aurretik aldentzen zure bekatuaren **zikina**. Elizen arteko biblia

Limosnak garbitu egiten baititu arimak bekatuen **zikinetatik**. Askoren artean

Bev-ek **zikina** kendu ahala, zauria har zuri batzuek hartua dutela ikus dezake. Oskar Arana

Hemen dugun mina eta **zikina** eman digu Otamendik, hitz lau doi, dotore eta ederraz. Markos Zapiain

Deklaratzeak eta aitortzeak ere diru beltz izenekoa zuritu egiten dute, diruari bere **zikin**, gaitz edo bekatu fundazionala ritual edo izapide merke batekin barka dakiokeela erakutsi nahiz bezala. Iñaki Segurola

Sabelera eraman daitezkeen zabor eta **zikin** guztiak irensten dituzte. Gotzon Garate

Usaingarri baliotsuen ordez, erraustez eta **zikinez** estali zuen bere burua. Elizen arteko biblia

Egunkariko nagusiek ezin eraman, ordea, hutsune horrek nire zerbitzu-orrira ekar zezakeen **zikin** deitoragarria. Aingeru Epaltza

Euskara menditik hirira eraman genuen [...] **zikin** mantxarik gabeko arto landetatik unibertsitateko arlo landuetara. Pello Salaburu

**6** (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

Jakina da behar bezalako emakume gaixoa garbimin eta **zikin**-beldur paranoiko batek harrapatua bizi dela. Iñaki Segurola

Dela **zikin**-aitzakian edo dela gizasemeen ustezko tentetasun harroa eraman ezinez. Iñaki Segurola

Berez instintu hutsa dena jantzi ederragoz apaintzera jotzen dugu, eta hala asmatu genuen delako maitasuna, **zikin** usteko jardun hori itxura garbi batekin mozorrotzeko. Xabier Mendiguren Elizegi

"Inbertsioa", "hazkundea" eta horiek diru zikina edertzen dute, sexologiak larrutako gauza **zikin**-aurkiak zuritzen dituen gisan. Iñaki Segurola

Biztanle kopuru handiak pilatu diren eremu **zikin**-sortzaileotan. Pello Zabala

**7** (hitz elkartuetan lehen osagai gisa, elkarketak izenondo balioa duela)

Biztanle kopuru handiak pilatu diren eremu **zikin**-sortzaileotan. Pello Zabala

**8** (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa, elkarketak izenondo balioa duela)

Neska txiki gaiztoena, zitalena, eta aho-**zikinena** izango naiz. Oskar Arana

Han zebilen jakadun mutur-**zikin** batek ezetz egin zidan atzamarrarekin. Koldo Izagirre

-Ipurtandi mutur-**zikina**! Juan Kruz Igerabide

Esadak esku-**zikin** alferrontzi horrek, [...]. Patxi Ezkiaga

Lepoan zaku bat zeraman gizon bizar-**zikin** batek esan zion: [...]. Koro Navarro

Elurrezko bola elurrezko gizon txiki bat zen orain, buru-okerra eta buru-**zikina**. Koro Navarro

-Etxerik gabeko zalduna haiz, ordea, eta horrek buhame edo agot odol-**zikin** baten pare ezartzen hau. Aingeru Epaltza

-Aho-**zikin** hori! -esan zuen Normandiar ederrak-. Karlos Zabala

**9** (hitz elkartuetan lehen osagai gisa, izenaren izenondo gisa)

Zerbitzariaren laguntzaileak beste plater **zikin** pila bat ekarri zuen. Lopez de Arana

Haur **zikin** aldra bat zebilen kalean. Irene Aldasoro

**10** etikaren edo moralaren araberakoa ez dena.

Gu gorotza baino ez gara haientzat, baina lan **zikina** egin behar denean ezinbestekoak. Sonia Gonzalez

CCOOk eta UGTk lan **zikina** egingo diote PSOEri. Berria - Ekonomia

Alliot-Mariek ere «kanpaina **zikin** baten jomuga» dela salatu du. Berria - Mundua

Borreroa kexu da guduek lehia **zikina** egiten diotela-eta. Karlos Linazasoro

Azken aste hauetan gertatu diren filtrazio eta gerra **zikin** informatiboan badago erantzukizunik, eta agian Perez Rubalcaba hortik oso urrun ez da egongo. Berria - Euskal Herria

Susmoa duzu gerla **zikin** hau bururatutakoan ere ezinen duzula ahantzi Villan aditurikoak. Xabier Montoia

Gerla guziak **zikinak** dira, bakea ere bai askotan. Herria

Herrizaingo Sailak dio Herrerako atentatua «tranpa **zikina**» izan zela. Berria - Euskal Herria

Inoiz baino genozidio handiagoak egin dira, inoiz baino sarraski **zikinagoak**. Pello Salaburu

Fidelek diktadura **zikin** eta usteldu bat erorarazi zuen. Jon Muñoz

Diakonoak ere agurgarri eta hitzeko gizon izan daitezela, ez ardozale, ez eta irabazi **zikinei** emanak ere. Elizen arteko biblia

Uste duelako diruz eskura dezakeela Jaungoikoaren babesa bere diru-negozio **zikinetarako**. Koldo Biguri

Eskupeko diru **zikinak** onartzen zituztenak eta errefusatzen zituztenak. Jose Morales

Zenbaiten arabera bandil batzuek garbitu zuten, politika, droga, diru-**zikin**, prostituzio afera baten gatik. Michel Oronoz

Hor, ororen buru, ekonomia, eta eskolako tontoak, mordoa behintzat, exekutibo eta kudeatzaile egin dira, eta enpresa, aseguru, banku, poltsa, higiezin, aholkularitza eta abar **zikin** horietan erori dira. Iñaki Segurola

-Hitz **zikin** bat esan duzu. Oskar Arana

Lagunen begietan distira lizuna umotu zen, hitz eta birao lohi **zikinak** esaten hasi ziren. Anjel Lertxundi

Horiekin aspertutakoan hasten dira gauzak bihurritzen, animaliekin zerrikeriak egiten, edo snuff-movie **zikin** horietakoak egiten. Xabier Mendiguren Elizegi

-Baina, baina... korritzen ari duk **zikin** hau! Juan Martin Elexpuru

Masturbatzea gauza **zikina** dela pentsarazi digute, eta pertsona heldu eta beren gorputza kontrolatzen dutenek egitea ez dela batere egokia. Luis Elberdin

Haragizko grina **zikinen** atzetik dabiltzanak. Elizen arteko biblia

-Nola gozatzen duzun ikustea gustatzen zait, **zikin** hori; seguru senarrak ez dizula horrelakorik egiten, urdanga hori! Juan Martin Elexpuru

-Orain artean, aho-**zikin** horiek difamatu zaituzte zu, ez zuk haiek! -moztu nion. Joan Mari Irigoien

Sanz **zikin** jokatzen ari dela salatu zuen. Berria - Euskal Herria

Lehen aldiz, **zikin** jokatu nuela sentitu nuen. Juan Kruz Igerabide

**Zikinak** dira jendea garbitzeko manera guziak. Berria - Kirola

Eskuan urrezko edalontzi bat zuen bere prostituzio **zikinaren** fruitu higuingarriz betea. Elizen arteko biblia

• **11** *iz* zaborra. ik gorago **5.**

**Zikina** maiz ez da biltzen; kaleetan gelditzen da. Gotzon Garate

Hainbeste zabor eta **zikin**, erreketatik hasi eta ibaietatik segi, lurra eta itsasoa bera zenbat zikindu ditugun! Pello Zabala

Egia da nun nahi ere gero eta gehiago aipu direla **zikin** eta ondarkinak. Herria

Usaiako untzietan ezartzen ahal ez diren **zikinak** norat botatu behar dira? Herria

**Zikin** larrien bilketa bat antolatua da helduden ekainaren 16 an larunbatarekin 8 etarik eguerdi arte trinket aintzinean. Herria

Bi tonako bat **zikin** bildu dute, eta oraino gelditzen omen da behargabekeria frango erreka zola horietan. Herria

Tokia ere hautatu beharko, dela **zikinen** ehortzeko, dela heien errausteko labearentzat. Herria

**Zikin**-pilotik pixka bat aparte. Felipe Juaristi

Jaun Auzapezak jakinarazten du, agorrilaren 15 ean, **zikin** biltzaleak izanen direla plazako karriketan. Herria

Donibane-Ziburuko "Crésus" arrantza untziak alimaleko **zikin** meta, plastikaki eta beste, bildu du Landesetako itsasalde hortan. Herria

Bezperan karrikan eskuratu papera purtzilikatu zuen Agatak **zikin**-ontzira botatzeko. Itxaro Borda

Orai aldiz, **zikin** untzirat botatzen da dena. Herria

Geroxago haatik, Hendaia partzuer behar litake Gipuzkoan egitekoa den **zikin**-erretegian. Herria

Bertze berri bat ere jakinarazi dute, nola **zikin** biltzearen zergak doblatuko dituzten. Herria

## 12 *zikinpean*

Hala da-eta gure axaleko solas alferrek enganaturik, heien hutsaz estaltzen ditugula gure hoberen batzu askotan, **zikinpean** bezala. Herria

## 13 *begiko zikina* gauza gogaikarria.

Biziki estimatzen dute jendeek Tanaka minixtroa, gobernuko enpleatuek aldiz ez dezakete **begiko zikina** baino gehiago sofri. Herria

Xipriar ugartea dute turkoek beren **begiko zikina** Europan. Herria

Manifestari horietarik zenbaitek Bush amerikarra erakusten zuten beren **begiko zikina** bezala, herri horren urgulua baino hobea bailaukate besteek horren parte hartzea pobreenen alde. Herria

Beste **begiko zikin** bat ere badute irakiar kargudun berriek: Al-Jazirak beretua duen telebixt kadena bat, hau ahoa beteka ari baita jazarleen alde eta Bagdadeko buruzagiek hetsiko dutela eta debekatuko errana baitute. Herria

Lodikotea, moldegabea, inoxoa eta aurpegi pikorrez emokatua, taldeko gainerako lagunek [...] ez zuten **begiko zikina** baino gehiago nahi beren inguruan. Aingeru Epaltza

## 14 *ur zikin* *pl*

**Ur zikin** eta garbieri buruz, obra eta artatze zenbait. Herria

Handitua eta azkartua izan da eta orain gai da herriko **ur zikin** guzien tratatzeko behar den bezala. Berria - Ekonomia

Okasione berean ur, **ur zikin** eta euri-uren sareak arraberrituko dituzte. Herria

Deliberatu dute ere **ur zikin** publikoen muntaduraren ikertzea badirelakotz kotsadura problemak errekarat ateratzen diren ur horietan. Herria

Urpekariekin joan ziren **ur zikinen** putzuan armak bilatzeko. Berria - Euskal Herria

Zarauzko hondartzan bainua debekatu zuten joan den igandean, bertako **ur zikinen** araztegian izandako sute baten ondorioz. Berria - Euskal Herria

1989an **Ur Zikinak** Arazteko Plana martxan jarri zenetik orain bitarte, 172 milioi euro inbertitu dira Nafarroan. Berria - Euskal Herria

## 15 *zikin-estali* *izond* ehunez eta koloreez mintzatuz, zikina igartzen ez zaiona.

Hasieran ez nuen ezagutu, arropa-gaineko mantal gris **zikin-estali** horietako bat baitzeraman soinean eta bisera moduko kapela zapal bat buruan. Anjel Lertxundi

Koloretan **zikin-estaliena**, zeinahi estaturi zaio baitezpadako. Xabier Montoia

## 16 irud/hed

Dirua, bada, ideia edo sineste puru-purua da, dagoen idealik garbiena edo, hobeki esan, **zikin-estaliena**. Iñaki Segurola

Esaldi **zikin-estalia**, odol-estalia, gaitz-estalia: esaldi estalia, bere garbitasun aseptiko bihozgabean okaztagarri. Iñaki Segurola

Zenbait urte lehenago, txandrioa -"akats tipografikoa", lanbideko mintzaje beti **zikin-estalian** - tailerretako muntatzaile lardaskatzaileei egotziko niekeen. Aingeru Epaltza

## 17 *zikin-zikin* *izond*

Makinaren ordez berogailu erraldoiak irudikatzen zituen, berogailuak eta laurdenkatzaile baten upel **zikin-zikinak**. Karlos Zabala

Ur askaren alboan erdibituta zegoen eta ardilarrua lokatzean, **zikin zikina**. Joseba Sarrionandia

Motorra, **zikin-zikina**, baina ondo; probatu nuen, eta gasolina ere bazeukan. Joxe Austin Arrieta

**Zikin-zikina** mahaia, paper azal mehez, goma-aparrez, kafe koilarez eta gatz eta piperbeltzezko zorroez betea. Koro Navarro

2003ko martxoan USAko lehendakariak [...] mehatxu garbia egin zion Mesopotamia zaharrari eta, ultimatum **zikin-zikina** emanez, [...]. Iñaki Segurola

**18** (adizlagun gisa)

Hozkailua eta lehorgailua hondatu zaizkigu, autoa **zikin-zikin** dago, eta beheko ateek ez dute ixten. Berria - Euskal Herria

**Zikin-zikina** zegoen bideko hautsa etxeetatik kalera botatako zaborren kausaz. Anjel Lertxundi

**Zikin-zikin** eta blai eginda, Gryffindor taldeko besteak iritsi ziren Harry ikustera. Iñaki Mendiguren

Blai-blai, **zikin-zikin**, jota. Jon Muñoz

Eguzki panelak **zikin-zikin** eginda izan dituzte behin baino gehiagotan hauts ekaitz bortitzen ondorioz Berria - Gaiak

**hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 4 aldiz agertzen direnak)**

**aho zikin** (4); **arropa zikin** (5); **beti zikin** (4); **bizar zikin** (4); **esku zikin** (8); **gela zikin** (7); **gero eta zikin** (4); **gerra zikin** (6); **gris zikin** (4); **herri zikin** (5); **hiri zikin** (5); **kale zikin** (4); **lan zikin** (10); **manta zikin** (5); **mundu zikin** (4); **paper zikin** (4); **plater zikin** (4); **trapu zikin** (5); **txiki zikin** (4); **ur zikin** (21); **urde zikin** (5); **ustel zikin** (4); **zerri zikin** (6)

**zikin eta ondarkin** (5); **zikin eta ondarkinen** (9); **zikin gehiago** (7); **zikin jokatu** (4); **zikin ontzi** (4); **zikin ontzira** (4); **zikin samar** (6); **zikin samarra** (6); **zikin sentitzen** (5); **zikin untzi** (6); **zikin zikin** (8); **zikin zikina** (7); **zikin zikinak** (3)

**zulo zikin** (7)

**alu zikina** (6); **arropa zikina** (7); **begiko zikina** (7); **begiko zikina baino** (4); **bezain zikina** (5); **diru zikina** (5); **dozena zikina** (4); **enbata zikina** (3); **gerra zikina** (17); **joko zikina** (6); **kanpaina zikina** (4); **lan zikina** (36); **lan zikina egin** (7); **lan zikina egiten** (7); **oso zikina** (4); **sagu zikina** (4); **ur zikina** (15); **urdanga zikina** (8); **urde zikina** (12)

**zerri zikina** (5); **zikin zikina** (7); **zikina baino gehiago** (5); **zikina da** (11); **zikina dago** (5); **zikina frango** (4); **zikina izan** (8); **zikina zegoen** (6); **zikina zen** (4)

**arropa zikinak** (4); **diru zikinak** (4); **esku zikinak** (5); **trapu zikinak** (9); **ur zikinak** (26)

**zikinak bil** (8); **zikinak dira** (8)

**arropa zikinarekin** (7); **gerra zikinarekin** (6); **nire arropa zikinarekin** (4)

**gerra zikinaren** (11)

**gerra zikinean** (5)

**ur zikinen** (34); **zikinen artean** (6)

---

# zikin *(orobat **zikiñ** g.er.)* **1** *izond* orbanak, hautsa edo kidekoak dituena; itxura itsusten duen zerbait duena. ik**lohi**; ant **garbi**.

Galtzerdiak, alkandorak, barruko arropak -garbiak zein **zikinak** -, zapata-orkoiak. Jose Morales

Zementuzko ohearen gaineko koltxoi gogorrean etzanda zaude manta **zikin** baten azpian. Rafa Egiguren

Mokanes **zikin** bat zuen atxikitzen bere ahoaren aitzinean, bere burua trafiko animalearen kutsaduratik babesteko. Ramuntxo Etxeberri

Koipez beteriko elastiko **zikin** bat janzten du eta praka motz higatuak. Gotzon Garate

Puntuzko lepoko gorri **zikina** zeraman. Jose Morales

Sotana beltz beti **zikin** batekin, arima galdua zirudiela. Hasier Etxeberria

Han utzi zuten, atea zabalik, ohe estu **zikin** baten gainean lo eta amets larrika. Felipe Juaristi

Oso taberna **zikina** zen, oiloak bertan ibiltzen ziren bueltaka, eta tejabana baten azpian jotzen nuen. Pako Aristi

Fabrika aterpe-zulo **zikin** eta desordenatu bat zen, haize-lasterrez betea. Juan Garzia

Ospitale hura, dagoeneko eraitsia dagoena zorionez, eraikin **zikin**, nazkagarri, kiratsez bete bat zen. Josu Zabaleta

Armadoreek berek merke jaso eta garesti saldutako etxe estu, **zikin** eta umeletan bizi ziren. Koldo Izagirre

-Tampico -esan nion-, munduko hiririk **zikinena** duzu. Joxe Austin Arrieta

Errekatxo **zikin** baten ondoan txabola mailara iristen ez diren oihalezko bizitegi urratuak ikusiko dituzu, jendez beterik. Gotzon Garate

Onik ateratzeko esperantzari bide estua uzten zion komisaldegiko ziega **zikin** eta heze batean bururatu nuen bidaiak. Aingeru Epaltza

Ispilu handi, pitzatu eta **zikin** baten azpian harrizko konketa zartatuen ilara bat zegoen. Iñaki Mendiguren

Ile luzea zeraman, **zikina** eta koipetsua. Felipe Juaristi

Ile luze **zikin** eta nahasia ukondoetaraino iristen zitzaion. Iñaki Mendiguren

Ellenek globoen hariak ipini zituen txapel gorriko hiru neskato tximino-aurpegidunen esku **zikin**-itsaskorretan. Lopez de Arana

Hain luze egon ginen geldirik, non antxeta **zikin**-grisak lasaitu, eta batzuk gure aldamenean jarri ere egin baitziren. Koro Navarro

Whisky botilak hustu behar ziren eta Pasaiako badiako **ur** zikinarekin bete. Harkaitz Cano

Ibaiak azalean ur garbi aratzak eta barnean arre **zikinak** daramatzan bezala. Felipe Juaristi

*ik beherago* 14. Askoren artean

Odol **zikina** jaurtitzen zuen ahotik, eta hesteak ere bota behar zituela zirudien. Askoren artean

Pentsatze hutsa ere: zakila uzki **zikin** batetik sartu, kaka artean... Jon Arretxe

Janaritegia zergatik zegoen beti erdi hutsik, giltzain andrea zergatik aritzen zen lapurretan, zerbitzariak zergatik ziren hain **zikinak** eta mozkortiak. Jose Morales

**2** irud/hed

Laino guztien azpiko ezereztegietan, hauts **zikin** bat zainetan eta huts garbi bat bihotzean, jonkia dabil espediziotik espediziora. Iñaki Segurola

Bakailaoa, abadira, platuxa, oilarra, arrain arruntak horiek guztiak, gris **zikin** kolorekoak, orban zurixkez apainduak. Karlos Zabala

Zakur zuri-**zikin** bat zebilen mimoaren inguruan usnaka. Anjel Lertxundi

Nork egingo lituzke orduan inork egin nahi ez dituen sukalde eta estolderietako lan **zikin** guztiak? Harkaitz Cano

Ezaugarri horiek guztiek ekarri dute "errealismo **zikin"** esapidea. Koro Navarro

Rock **zikin** eta zatarra. Berria - Kultura

-Familia guztiek izaten ditiztek beren sekretuak, nork bere etxean besterik garbitzen ez dituen arropa **zikinak**, Jon Muñoz

**3** (mespretxua adierazteko)

Itzain **zikin** bat baizik ez ninduan. Itxaro Borda

Zenbateraino zinen zu ere umemoko **zikin** bat orain dela bi urte. Xabier Mendiguren Elizegi

Hamar urte dira jo eta ke ari naizela lausengatzen hemengo dirudun zeken **zikin** batzuk, nahiz eta gogoz emango nizkiekeen muturreko on batzuk topatzen ditudan bakoitzean. Koldo Biguri

Inork halakorik kontatuko balit, gezurti **zikin** bat dela esango nioke! Koro Navarro

Atsoek ahots apalez iraindu zuten Prothero andrea, gezurti, ezkontza nahasle, sasikumeen ama, lapur **zikina**. Koro Navarro

-Lapur **zikin** bat besterik ez da. Juan Kruz Igerabide

-Mikel al du izena hiltzaile **zikin** horrek? Aitor Arana

-Eta horri judu **zikin** horien eta irlandar zorritsu horien ezjakintasuna gehitu behar zaio. Lopez de Arana

Urde **zikinak**! Ez dut zerri **zikin** horrekin berriro bizi nahi. Lopez de Arana

-Alu **zikin** barren-galduak dira denak -esan zuen Monak-. Fernando Rey

Galdu al da herri **zikin** honetan gizon prestuak bakean uzteko usadioa? Koldo Biguri

Mekatxis, laino **zikin** hauek! Pello Zabala

Nork jarri du bandera **zikin** hau hemen? Joan Mari Irigoien
-Ezer ez; eman didaten lanbide **zikin** honek nahastu egiten nau. Josu Zabaleta
-Laster bukatuko ahal duk gerra **zikin** hau! Imanol Zurutuza
-Hau da zorte txarra! Zorte **zikin** penagarria! Anton Garikano
Ba nik ez diat begirik itxi erreuma **zikin** honekin. Berria - Kultura
Barne-barnetik zetorkidan lastima **zikina**. Eider Rodriguez
Poema **zikin** batzuk berreskuratzeko gorpu bat lurpetik atera! Ramon Saizarbitoria
Zertarako nahi dituk zigarro **zikin** batzuk, putakume horrek etxean gordetzen duen dirutza eskura baldin baduk? Alberto Ladron Arana
Amak aqua-park **zikin** batera joateko hitza eman dielako, niri deus galdegin gabe. Aingeru Epaltza
Bizimodu **zikin** honetaz nazka-nazka eginda nagok. Lopez de Arana
-Hau zorri-zulo **zikin** nazkagarri bat besterik ez duk -tonu berean jarraitu zuen ahotsak-. Lopez de Arana

## **4** (adizlagun gisa)

Itsasoa **zikin** dago eta uhain beltzak jotzen du leihorra. Herria
Galtzei tabako usaina zerien, nire eskuei bezala, eta horrek **zikin** sentiarazi ninduen, **zikin**, kopetatik zango puntaraino bilduta ninduen izerdiak baino are gehiago. Aingeru Epaltza
Ura zein **zikin** dagoen hartu nahi dut argazkietan. Edorta Jimenez
Neskatoen bizilekua txukundu gabe, **zikin** eta erabat utzita zegoela erabili zuten alaben tutoretza kentzeko. Berria - Euskal Herria
Garbi bezain **zikin** hitz eginda, Espainiak porkulo eman izan dit beti, zentzu guztietan. Iñaki Segurola
Izan ere, gaiztakeria egiten duzue eta eskuak odolez **zikin** dauzkazue. Elizen arteko biblia
Argal, **zikin**, harro azaldu ziren Huck eta Tom. Koldo Izagirre
**Zikin** samarra daukat etxea, pixka bat utzita. Eskarne Mujika
Gitarra jotze keinuak egiten sartu zen, begiak gorriturik, aurpegia zurbil, alkandora galtzen gainetik eta prakabarrenak **zikin**. Unai Iturriaga

## **5** (izen gisa) ik beherago **11.**

Bataioak ez gaitu gorputzeko **zikina** garbituz salbatzen, Jainkoaren aurrean kontzientzia garbi gordetzeko konpromezua ezarriz baizik. Elizen arteko biblia
Oso gogor hartzen ditu hitzak, barruko **zikin** eta zorne guztia ateratzerainokoan. Iñaki Segurola
Ene maiteok, honelako agintzariak ditugunez gero, garbi gaitezen gorputzeko eta espirituko **zikin** guztietatik. Elizen arteko biblia
Ez da nire begi aurretik aldentzen zure bekatuaren **zikina**. Elizen arteko biblia
Limosnak garbitu egiten baititu arimak bekatuen **zikinetatik**. Askoren artean
Bev-ek **zikina** kendu ahala, zauria har zuri batzuek hartua dutela ikus dezake. Oskar Arana
Hemen dugun mina eta **zikina** eman digu Otamendik, hitz lau doi, dotore eta ederraz. Markos Zapiain
Deklaratzeak eta aitortzeak ere diru beltz izenekoa zuritu egiten dute, diruari bere **zikin**, gaitz edo bekatu fundazionala ritual edo izapide merke batekin barka dakiokeela erakutsi nahiz bezala. Iñaki Segurola
Sabelera eraman daitezkeen zabor eta **zikin** guztiak irensten dituzte. Gotzon Garate
Usaingarri baliotsuen ordez, errautsez eta **zikinez** estali zuen bere burua. Elizen arteko biblia
Egunkariko nagusiek ezin eraman, ordea, hutsune horrek nire zerbitzu-orrira ekar zezakeen **zikin** deitoragarria. Aingeru Epaltza
Euskara menditik hirira eraman genuen [...] **zikin** mantxarik gabeko arto landetatik unibertsitateko arlo landuetara. Pello Salaburu

## **6** (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

Jakina da behar bezalako emakume gaixoa garbimin eta **zikin**-beldur paranoiko batek harrapatua bizi dela. Iñaki Segurola
Dela **zikin**-aitzakian edo dela gizasemeen ustezko tentetasun harroa eraman ezinez. Iñaki Segurola
Berez instintu hutsa dena jantzi ederragoz apaintzera jotzen dugu, eta hala asmatu genuen delako maitasuna, **zikin** usteko jardun hori itxura garbi batekin mozorrotzeko. Xabier Mendiguren Elizegi
"Inbertsioa", "hazkundea" eta horiek diru zikina edertzen dute, sexologiak larrutako gauza **zikin**-aurkiak zuritzen dituen gisan. Iñaki Segurola
Biztanle kopuru handiak pilatu diren eremu **zikin**-sortzaileotan. Pello Zabala

## **7** (hitz elkartuetan lehen osagai gisa, elkarketak izenondo balioa duela)

Biztanle kopuru handiak pilatu diren eremu **zikin**-sortzaileotan. Pello Zabala

## **8** (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa, elkarketak izenondo balioa duela)

Neska txiki gaiztoena, zitalena, eta aho-**zikinena** izango naiz. Oskar Arana
Han zebilen jakadun mutur-**zikin** batek ezetz egin zidan atzamarrarekin. Koldo Izagirre
-Ipurtandi mutur-**zikina**! Juan Kruz Igerabide
Esadak esku-**zikin** alferrontzi horrek, [...]. Patxi Ezkiaga
Lepoan zaku bat zeraman gizon bizar-**zikin** batek esan zion: [...]. Koro Navarro
Elurrezko bola elurrezko gizon txiki bat zen orain, buru-okerra eta buru-**zikina**. Koro Navarro
-Etxerik gabeko zalduna haiz, ordea, eta horrek buhame edo agot odol-**zikin** baten pare ezartzen hau. Aingeru Epaltza
-Aho-**zikin** hori! -esan zuen Normandiar ederrak-. Karlos Zabala

## **9** (hitz elkartuetan lehen osagai gisa, izenaren izenondo gisa)

Zerbitzariaren laguntzaileak beste plater **zikin** pila bat ekarri zuen. Lopez de Arana
Haur **zikin** aldra bat zebilen kalean. Irene Aldasoro

## **10** etikaren edo moralaren araberakoa ez dena.

Gu gorotza baino ez gara haientzat, baina lan **zikina** egin behar denean ezinbestekoak. Sonia Gonzalez
CCOOk eta UGTk lan **zikina** egingo diote PSOEri. Berria - Ekonomia
Alliot-Mariek ere «kanpaina **zikin** baten jomuga» dela salatu du. Berria - Mundua
Borreroa kexu da guduek lehia **zikina** egiten diotela-eta. Karlos Linazasoro
Azken aste hauetan gertatu diren filtrazio eta gerra **zikin** informatiboan badago erantzukizunik, eta agian Perez Rubalcaba hortik oso urrun ez da egongo. Berria - Euskal Herria
Susmoa duzu gerla **zikin** hau bururatutakoan ere ezinen duzula ahantzi Villan aditurikoak. Xabier Montoia
Gerla guziak **zikinak** dira, bakea ere bai askotan. Herria
Herrizaingo Sailak dio Herrerako atentatua «tranpa **zikina**» izan zela. Berria - Euskal Herria
Inoiz baino genozidio handiagoak egin dira, inoiz baino sarraski **zikinagoak**. Pello Salaburu
Fidelek diktadura **zikin** eta usteldu bat erorarazi zuen. Jon Muñoz
Diakonoak ere agurgarri eta hitzeko gizon izan daitezela, ez ardozale, ez eta irabazi **zikinei** emanak ere. Elizen arteko biblia
Uste duelako diruz eskura dezakeela Jaungoikoaren babesa bere diru-negozio **zikinetarako**. Koldo Biguri
Eskupeko diru **zikinak** onartzen zituztenak eta errefusatzen zituztenak. Jose Morales
Zenbaiten arabera bandil batzuek garbitu zuten, politika, droga, diru-**zikin**, prostituzio afera baten gatik. Michel Oronoz

Hor, ororen buru, ekonomia, eta eskolako tontoak, mordoa behintzat, exekutibo eta kudeatzaile egin dira, eta enpresa, aseguru, banku, poltsa, higiezin, aholkularitza eta abar **zikin** horietan erori dira. Iñaki Segurola

-Hitz **zikin** bat esan duzu. Oskar Arana

Lagunen begietan distira lizuna umotu zen, hitz eta birao lohi **zikinak** esaten hasi ziren. Anjel Lertxundi

Horiekin aspertutakoan hasten dira gauzak bihurritzen, animaliekin zerrikeriak egiten, edo snuff-movie **zikin** horietakoak egiten. Xabier Mendiguren Elizegi

-Baina, baina... korritzen ari duk **zikin** hau! Juan Martin Elexpuru

Masturbatzea gauza **zikina** dela pentsarazi digute, eta pertsona heldu eta beren gorputza kontrolatzen dutenek egitea ez dela batere egokia. Luis Elberdin

Haragizko grina **zikinen** atzetik dabiltzanak. Elizen arteko biblia

-Nola gozatzen duzun ikustea gustatzen zait, **zikin** hori; seguru senarrak ez dizula horrelakorik egiten, urdanga hori! Juan Martin Elexpuru

-Orain artean, aho-**zikin** horiek difamatu zaituzte zu, ez zuk haiek! -moztu nion. Joan Mari Irigoien

Sanz **zikin** jokatzen ari dela salatu zuen. Berria - Euskal Herria

Lehen aldiz, **zikin** jokatu nuela sentitu nuen. Juan Kruz Igerabide

**Zikinak** dira jendea garbitzeko manera guziak. Berria - Kirola

Eskuan urrezko edalontzi bat zuen bere prostituzio **zikinaren** fruitu higuingarriz betea. Elizen arteko biblia

• **11** *iz* zaborra. ik gorago **5.**

**Zikina** maiz ez da biltzen; kaleetan gelditzen da. Gotzon Garate

Hainbeste zabor eta **zikin**, erreketatik hasi eta ibaietatik segi, lurra eta itsasoa bera zenbat zikindu ditugun! Pello Zabala

Egia da nun nahi ere gero eta gehiago aipu direla **zikin** eta ondarkinak. Herria

Usaiako untzietan ezartzen ahal ez diren **zikinak** norat botatu behar dira? Herria

**Zikin** larrien bilketa bat antolatua da helduden ekainaren 16 an larunbatarekin 8 etarik eguerdi arte trinket aintzinean. Herria

Bi tonako bat **zikin** bildu dute, eta oraino gelditzen omen da behargabekeria frango erreka zola horietan. Herria

Tokia ere hautatu beharko, dela **zikinen** ehorzteko, dela heien errausteko labearentzat. Herria

**Zikin**-pilotik pixka bat aparte. Felipe Juaristi

Jaun Auzapezak jakinarazten du, agorrilaren 15 ean, **zikin** biltzaleak izanen direla plazako karriketan. Herria

Donibane-Ziburuko "Crésus" arrantza untziak alimaleko **zikin** meta, plastikaki eta beste, bildu du Landesetako itsasalde hortan. Herria

Bezperan karrikan eskuratu papera purtzilikatu zuen Agatak **zikin**-ontzira botatzeko. Itxaro Borda

Orai aldiz, **zikin** untzirat botatzen da dena. Herria

Geroxago haatik, Hendaia partzuer behar litake Gipuzkoan egitekoa den **zikin**-erretegian. Herria

Bertze berri bat ere jakinarazi dute, nola **zikin** biltzearen zergak doblatuko dituzten. Herria

## 12 ***zikinpean***

Hala da-eta gure axaleko solas alferrek enganaturik, heien hutsaz estaltzen ditugula gure hoberen batzu askotan, **zikinpean** bezala. Herria

## 13 ***begiko zikina*** gauza gogaikarria.

Biziki estimatzen dute jendeek Tanaka minixtroa, gobernuko enpleatuek aldiz ez dezakete **begiko zikina** baino gehiago sofri. Herria

Xipriar ugartea dute turkoek beren **begiko zikina** Europan. Herria

Manifestari horietarik zenbaitek Bush amerikarra erakusten zuten beren **begiko zikina** bezala, herri horren urgulua baino hobea bailaukate besteek horren parte hartzea pobreenen alde. Herria

Beste **begiko zikin** bat ere badute irakiar kargudun berriek: Al-Jazirak beretua duen telebixt kadena bat, hau ahoa beteka ari baita jazarleen alde eta Bagdadeko buruzagiek hetsiko dutela eta debekatuko errana baitute. Herria

Lodikotea, moldegabea, inoxoa eta aurpegi pikorrez emokatua, taldeko gainerako lagunek [...] ez zuten **begiko zikina** baino gehiago nahi beren inguruan. Aingeru Epaltza

## 14 ***ur zikin*** *pl*

**Ur zikin** eta garbieri buruz, obra eta artatze zenbait. Herria

Handitua eta azkartua izan da eta orain gai da herriko **ur zikin** guzien tratatzeko behar den bezala. Berria - Ekonomia

Okasione berean ur, **ur zikin** eta euri-uren sareak arraberrituko dituzte. Herria

Deliberatu dute ere **ur zikin** publikoen muntaduraren ikertzea badirelakotz kotsadura problemak errekarat ateratzen diren ur horietan. Herria

Urpekariekin joan ziren **ur zikinen** putzuan armak bilatzeko. Berria - Euskal Herria

Zarauzko hondartzan bainua debekatu zuten joan den igandean, bertako **ur zikinen** araztegian izandako sute baten ondorioz. Berria - Euskal Herria

1989an **Ur Zikinak** Arazteko Plana martxan jarri zenetik orain bitarte, 172 milioi euro inbertitu dira Nafarroan. Berria - Euskal Herria

## 15 ***zikin-estali*** *izond* ehunez eta koloreez mintzatuz, zikina igartzen ez zaiona.

Hasieran ez nuen ezagutu, arropa-gaineko mantal gris **zikin-estali** horietako bat baitzeraman soinean eta bisera moduko kapela zapal bat buruan. Anjel Lertxundi

Koloretan **zikin-estaliena**, zeinahi estaturi zaio baitezpadako. Xabier Montoia

## 16 irud/hed

Dirua, bada, ideia edo sineste puru-purua da, dagoen idealik garbiena edo, hobeki esan, **zikin-estaliena**. Iñaki Segurola

Esaldi **zikin-estalia**, odol-estalia, gaitz-estalia: esaldi estalia, bere garbitasun aseptiko bihozgabean okaztagarri. Iñaki Segurola

Zenbait urte lehenago, txandrioa -"akats tipografikoa", lanbideko mintzaje beti **zikin-estalian** - tailerretako muntatzaile lardaskatzaileei egotziko niekeen. Aingeru Epaltza

## 17 ***zikin-zikin*** *izond*

Makinaren ordez berogailu erraldoiak irudikatzen zituen, berogailuak eta laurdenkatzaile baten upel **zikin-zikinak**. Karlos Zabala

Ur askaren alboan erdibituta zegoen eta ardilarrua lokatzean, **zikin zikina**. Joseba Sarrionandia

Motorra, **zikin-zikina**, baina ondo; probatu nuen, eta gasolina ere bazeukan. Joxe Austin Arrieta

**Zikin-zikina** mahaia, paper azal mehez, goma-aparrez, kafe koilarez eta gatz eta piperbeltzezko zorroez betea. Koro Navarro

2003ko martxoan USAko lehendakariak [...] mehatxu garbia egin zion Mesopotamia zaharrari eta, ultimatum **zikin-zikina** emanez, [...]. Iñaki Segurola

## 18 (adizlagun gisa)

Hozkailua eta lehorgailua hondatu zaizkigu, autoa **zikin-zikin** dago, eta beheko ateek ez dute ixten. Berria - Euskal Herria

**Zikin-zikina** zegoen bideko hautsa etxeetatik kalera botatako zaborren kausaz. Anjel Lertxundi

**Zikin-zikin** eta blai eginda, Gryffindor taldeko besteak iritsi ziren Harry ikustera. Iñaki Mendiguren

Blai-blai, **zikin-zikin**, jota. Jon Muñoz

Eguzki panelak **zikin-zikin** eginda izan dituzte behin baino gehiagotan hauts ekaitz bortitzen ondorioz Berria - Gaiak

### hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 4 aldiz agertzen direnak)

**aho zikin** (4); **arropa zikin** (5); **beti zikin** (4); **bizar zikin** (4); **esku zikin** (8); **gela zikin** (7); **gero eta zikin** (4); **gerra zikin** (6); **gris zikin** (4); **herri zikin** (5); **hiri zikin** (5); **kale zikin** (4); **lan zikin** (10); **manta zikin** (5); **mundu zikin** (4); **paper zikin** (4); **plater zikin** (4); **trapu zikin** (5); **txiki zikin** (4); **ur zikin** (21); **urde zikin** (5); **ustel zikin** (4); **zerri zikin** (6)

**zikin eta ondarkin** (5); **zikin eta ondarkinen** (9); **zikin gehiago** (7); **zikin jokatu** (4); **zikin ontzi** (4); **zikin ontzira** (4); **zikin samar** (6); **zikin samarra** (6); **zikin sentitzen** (5); **zikin untzi** (6); **zikin zikin** (8); **zikin zikina** (7); **zikin zikinak** (3)

**zulo zikin** (7)

**alu zikina** (6); **arropa zikina** (7); **begiko zikina** (7); **begiko zikina baino** (4); **bezain zikina** (5); **diru zikina** (5); **dozena zikina** (4); **enbata zikina** (3); **gerra zikina** (17); **joko zikina** (6); **kanpaina zikina** (4); **lan zikina** (36); **lan zikina egin** (7); **lan zikina egiten** (7); **oso zikina** (4); **sagu zikina** (4); **ur zikina** (15); **urdanga zikina** (8); **urde zikina** (12)

**zerri zikina** (5); **zikin zikina** (7); **zikina baino gehiago** (5); **zikina da** (11); **zikina dago** (5); **zikina frango** (4); **zikina izan** (8); **zikina zegoen** (6); **zikina zen** (4)

**arropa zikinak** (4); **diru zikinak** (4); **esku zikinak** (5); **trapu zikinak** (9); **ur zikinak** (26)

**zikinak bil** (8); **zikinak dira** (8)

**arropa zikinarekin** (7); **gerra zikinarekin** (6); **nire arropa zikinarekin** (4)

**gerra zikinaren** (11)

**gerra zikinean** (5)

**ur zikinen** (34); **zikinen artean** (6)

---

# zikinbildu *izond*

Apalak eta zorua mila pitxi, txitxi eta potez beterik zeuden Joe's Grocery **zikinbildu** hartan. Iñaki Zabaleta

---

# zikindade *iz adkor* zikintasuna.

Beste edozein tokitan hautsa **zikindadea** da. Koldo Izagirre

---

# zikindegi ik **zikintegi**.

---

# zikindu, zikin(du), zikintzen **1** da/du *ad* garbitasuna galdu edo galarazi; zikintasuna itsatsi.

-Belarriak berotuko dizkizut **zikintzen** bazara. Itziar Otegi

-**Zikintzen** ari naiz berriz ere. Koro Navarro

Auzo osoa, etxeak, dendak, kaleak, lurrari zeriola zirudien odolaz **zikindu** ziren. Fernando Rey

Nola iturrian garbi eta garden den ura lohitzen eta **zikintzen** den hainbat lur iraganez gero [...]. Joan Mari Irigoien

-Aurpegia **zikindu** duzu, akabatuko zaitut -esan zion Patriciak oharkabean ia. Koro Navarro

Oi Susan, egin zuen oihu, txaleko berria **zikindu** duzu. Bernardo Atxaga

Nik hurbiletik begiratu nion ezpainetan zeraman pintura gorri dirdiratsura, eta galdetzen nion nire buruari: **zikintzen** ote du pintura horrek? Pello Lizarralde

Gero luma tintontzian busti eta, sarritan, papera **zikintzen** genuen. Joseba Sarrionandia

250.000 euro itsasoa **zikintzeagatik**. Berria - Euskal Herria

«Gure probaren izen ona **zikin** dezake», aitortu du Percy Hirch Bilerako zuzendariak. Berria - Kirola

Arrain kiratsa zerion, eta otarreen zipriztinek **zikintzen** zuten dena. Karlos Zabala

-Arropa garbitzea gero eta zailagoa da, eta zuek errauts gainean zuen buruak **zikintzen** -esaten zigun izebak. Juan Kruz Igerabide

Darling jaun-andreek kontu handiz egin behar izan zuten bidea, zapatak ez **zikintzeko**. Julen Gabiria

Zer, gabardina **zikintzeko** beldurrez, ala? Anjel Lertxundi

Larrua jotzea beste pentsamendurik gabe, hormak *fuck* hitzaz **zikintzen** zituzten praka-jario guztiek. Bernardo Atxaga

Ezpain ingurua koipez **zikindua** zuen. Harkaitz Cano

"Prestige" untziaren ixtorio hits horrekin, ondartzak **zikinduak** zirela eta gaitzeko kotsadura bazela itsas-hegian. Herria

Latorrizko laukiak, igeltsuzko eta letoizko santuak eta estanpa zaharrak, euliek **zikinduak**. Koro Navarro

Bi idazluma, tintaz **zikinduak**, zimel-zimel, tisiak jotako gaixoaren antzera. Jose Morales

Txoriak ez du bere kabia **zikintzen**. Berria - Gaiak

Eper baten buruaren gainetik, edo basahate zurrun baten bularralde gorriunez **zikinduaren** ondotik. Koro Navarro

Utzi zituen lagunak mahai ardoz **zikinduaren** inguruan, eta salmahaira hurbildu zen. Josu Zabaleta

Gozokiz betetako kristalezko txokolate ontzi hautsez **zikinduaren** eta latoizko balantza pisuaren atzean. Josu Zabaleta

Zoru osoa karez **zikindurik** zegoen. Jose Morales

Aurpegia lurrez **zikinduta**, tximak nahasita, begiak odolez josita. Ramon Saizarbitoria

Beren etxeetan giltzapeturik baitaude galtzak beldurrez **zikinduta**. Aingeru Epaltza

Gasolinaz **zikinduriko** ur belztuei beha. Aritz Gorrotxategi

## **2** irud/hed

Nahiago nukeen zure belarri garbiak lohikeria hauekin **zikindu** beharrik izan ez banu. Patxi Zubizarreta

Ez zegoela etxegoiendarren ohorea horrela lohitzerik ez **zikintzerik**, Mattinek lohitu eta **zikindu** zuen bezala. Orain, esaidazu zein diren nire ohorea **zikintzen** duten emakumeak. Joan Mari Irigoien

Berori ere hasi behar al zaigu ezkerreko partiduen izen ona **zikintzen**? Koldo Biguri

Espainiako komunikabide nagusi batzuek lagundu zutela kooperatiben lana eta izena **zikintzen**. Berria - Euskal Herria

Gehiegizko grinarik agertu gabe baina taldearen irudia **zikindu** gabe. Berria - Kultura

Ez nuen ene anaiaren memoria **zikindu** eta saldu nahi! Daniel Landart

Valverdek aitortu zuen «pena» ematen diola markagailu horrek taldeak orain arte eginiko «ibilbide bikaina **zikintzea**». Berria - Kirola

Panorama politikoa **zikintzeko** asmoz, euskal kutsua duen ororekin egindako erabilpen bat gehiago da hau. Berria - Euskal Herria

Irudipena izan nuen nire presentzia hutsarekin zerbait **zikindu** nuela. Ramon Saizarbitoria

Gaizki-esaleak bere burua **zikintzen** du, eta higuindua izaten bere inguruan. Elizen arteko biblia

Pixkanaka suntsitu eta guztiz **zikindurik** laga gaitu ezerezean munstro horrek. Aritz Gorrotxategi

Kaliforniako bekatariek, ordea -jokalari izatearen ospea estatu hartan ez zegoenez legearen orbanez **zikinduta**-, ez zioten bizigarririk eta interesik aurkitzen mahai batean eseri eta diruak han galtzeari. J.M. Olaizola "Txiliku"

Ezkontza tamalgarri baten ondorioz bazela Lazarragatarren artean leinuadar bat juduekin batua edo **zikindua**. Berria - Kultura

Egiten duana egiten duala hori lortzeko, ez **zikindu** pentsamendua, eta ez xedatu arima heure amaren aurka batere. Juan Garzia

Ez dute sortzen gure duintasuna lardaskatuko luketen eragozpenik eta haiekin ez dugu harrotasun pertsonala **zikinduta** ikusteko arriskurik. Bego Montorio

Kontua da ekintza hauek guztiek **zikindu** egiten dutela bidezko eskaera demokratikoa dena: autodeterminazioa. Hasier Etxeberria

## **3** (era burutua izenondo gisa)

Aspaldian margotu gabeko horma gris **zikinduak**.Lanetik etorri berriak dira, mahoizko praka **zikinduak** eta kamiseta izerdituak. Baziren han dendari txukun-txukunak, ortuzain brusadunak, zamaketari **zikinduak**, zamarra koipez lohi zutenak. Joxean Agirre

Fatxada kresaltsu eta **zikinduak**. Jon Alonso

**4** (era burutua izen gisa)

Pareta garbiak, pertsona garbiak bezalaxe, **zikindu** eder baten eske daude beti. Iñaki Segurola

**5** ***sudurra zikindu*** *adkor* kokaina edo kidekoak sudurretik hartu.

Norbaitek hautsa zeukala esan zuen; koadrilakoak harritu egin ziren agerian utzi nuenean nik ere **sudurra zikindu** nahi nuela, tabernazulo hartako komunean. Iban Zaldua

Aneren bueltan pilatu ziren mutilak, eta bateria-jolea inoizko gusturen ari zen bere kosmobisioa azaltzen, berez ere hiztuna izaki, **sudurra zikintzen** zuenean sekulako jarioa izaten baitzuen. Unai Iturriaga

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
>
> **erabat zikindu** (3); **eskurik zikindu** (3); **irudia zikindu** (5); **izen ona zikindu** (6); **izena zikindu** (4); **lokatzez zikindu** (3); **lurrean zikindu** (3); **odolez zikindu** (7); **ohorea zikindu** (6)
>
> **odolez zikindua** (8); **zikindua izaiten** (3); **zikindua izan** (3); **zikindua zuen** (3)
>
> **berriz zikinduak** (3); **eskuak odolez zikinduak** (3); **odolez zikinduak** (5)
>
> **odolez zikinduko** (3)
>
> **lokatzez zikindurik** (3); **odolez zikindurik** (5); **zikindurik eta** (5); **zikindurik zegoen** (3)
>
> **odolez zikinduriko** (4)
>
> **gorriz zikinduta** (3); **odolez zikinduta** (10); **tintaz zikinduta** (3); **zikinduta dauzkazu** (3); **zikinduta zegoen** (4)
>
> **odolez zikindutako** (3)
>
> **zikintzeko beldurrez** (5); **zikintzeko beldurrik gabe** (3)
>
> **irudia zikintzen** (6); **izen ona zikintzen** (7); **izena zikintzen** (5); **lohitzen eta zikintzen** (3); **ohorea zikintzen** (4); **zikintzen saiatu** (5)

---

# zikindura *iz* zikintasuna, zikinkeria.

Gero, zenbateko kutsadura eta **zikindura** dagoen ere kontuan hartu behar da: adibidez, keak dituen motatxo ttiki horien tupustean desbideratzen dira asko.. Pello Zabala

---

# zikinduxe *adlag* zikindu samar.

Zuk tatxa arinok egoztean ene semeari, alegia gauza bat arian aritzez **zikinduxe**, begira ea zure solaskideak. Juan Garzia

---

# zikingune *(orobat* ***zikinune*** *g.er.)* *iz* gune zikina.

Hitz krudelak esaten zituen bere mingain gaizki heziarekin, haren jantzietako **zikinguneak** eta azpiko arropetako zuloak zirela eta. Karlos Zabala

Hatza bustitzen zuen pixar xehatuegiak ateratzeko; horrek, ordea, gozokiak urtzen zituen, eta bi **zikingune** arre agertzen ziren jada mantaleko bi sakeletan. Karlos Zabala

Igande goizean Ertzaintzaren txalupa batek uretan fuel orbanak atzeman bazituen ere, horiek «oso ondorio txikiko» **zikinguneak** izan zirela eta atzo orbanen arrastorik ez zegoela azpimarratu zuten Itsas Salbamenduko arduradunek. Berria - Euskal Herria

**Zikingune** bat bezalakoa zen bere bizitzan. Karlos Zabala

---

# zikinkeria *(orobat* ***zikinkeri*** *g.er.)* **1** *iz* gauza zikina edo zikintzen duen gauza; gauza horien multzoa.

Zorri bat edo **zikinkeria** bat atxemaiten bazien larruan, berehala dutxatzera igortzen zituen, gauaren erdian bazen ere. Eneko Bidegain

Ni naiz zinkari erreakzionarazten dion **zikinkeria**, ni naiz gatz ale eta ziape garaua. Juan Garzia

**Zikinkeriaren** azken arrastoak. Joxan Elosegi

**Zikinkeria** hau garbitzeko, nahikoa da sudurzapi arrunta. Koldo Biguri

Garrasi egin nuen: "Hau **zikinkeria**, hau **zikinkeria**!". Monika Etxebarria

Ezin duzue imajinatu zenbat **zikinkeria** zegoen Indian! Fernando Rey

Berotu brontzea goritu arte, ea **zikinkeria** urtu eta herdoila joaten zaion. Elizen arteko biblia

Baina **zikinkeriak**, izerditan trinkotua, zarakar beltz bat sortua zion. Patxi Zubizarreta

Komuneko konketaren **zikinkeriak** harritzen nau; zergatik ez du inork garbitzen. Lander Garro

Abeltegitik atera eta oinak garbitu zituen, soinekoa apur bat goratuz **zikinkeriatik** babesteko. Karlos Zabala

Italiako zerbitzuguneetan lurra paperez eta **zikinkeriaz** beteta egoten da beti. Mikel Hernandez Abaitua

Ez dut haurdunaldiz, haurrez eta **zikinkeriaz** betetako bizitza zorigaiztoko bat nahi. Patxi Zubizarreta

Tabernara espiatzera joaten zen "sorgin zahar hura" koadrila bonapartistak nahi ez zituen **zikinkeriez** elikatzen zela. Karlos Zabala

Amona batek eskutik helduta ekarriko dizu zurea lurretik hartutako edozein **zikinkeria** jaten aurkitu duelako. Arantxa Iturbe

Ainitz **zikinkeri** bildu dituzte, denetarik: zigarreta, plaztika, zapetak, xatarrak... Herria

Enpresa eta etxebizitza asko dago ibai inguruan, eta **zikinkeri** ugari joaiten da ibaira. Herria

Entzunda daukazu aspaldian jendeak leihoetatik botatzen zituela **zikinkeria** guztiak, txiza eta abarrak, kaleko ubidetxotik joan zitezen **Zikinkeriak** pilatu eta su ematen zietenean, hodei beltz trinko baten azpian desagertzen zen Azpil. Sonia Gonzalez

Narraskeria eta **zikinkeria** edonon! Iñaki Mendiguren

Hautsa eta **zikinkeria** pilatzen ari da ikastetxeetan. Berria - Euskal Herria

**Zikinkeria** dela eta, osasun arazo bereziak dituzten 50 haurren gaixotasunak areagotu egin dira. Berria - Euskal Herria

Umeak etxeetako ate ondoan, **zikinkeria** artean, eguzki errearen azpian eserita ikusi nituen, begiak erdi itxita eta betazalak gorrituta eta handituta zeuzkatela; euliak begietan jartzen zitzaizkien, eta umeak geldirik geratzen ziren, eskuz uxatu ere egin gabe. Patxi Zubizarreta

**Zikinkeria** eta desordena nagusitu ziren etxean. Jose Morales

**2** (izenondo eta izenlagunekin)

Zizarez betetako arroza eta usain txarreko okela **zikinkeria** sinesgaitzak begitantzen zitzaizkion. Karlos Zabala

Hamar hilabetez zer nahi sofritzen dut, bizi giren **zikinkeria** okaztagarriaren gatik, gure lagunetarik anitzen morala desegitearen gatik. Michel Oronoz

**3** (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

Oihal batek estaltzen zuen, **zikinkeria** geruzaren azpian kolorea ezabatua zuelarik. Elena Touyarou

Gogora ekartzen dizkidalako txikitako garaiak, amak aurpegiko edo gorputzeko beste edozein ataletako **zikinkeria**-orbanak mingainarekin bustiriko zapi-mutur batez garbitzen zizkigunean. Iban Zaldua

Beheko solairuetakoek etengabe jaso behar izaten duten **zikinkeria** pilaren ordainak eman nahian goiko bizilagunei. Xabier Mendiguren Elizegi

**4** irud/hed

Orkestra batek Mozarten musika jotzen baitzuen, edozein antzoki eta entzutegi baino garbiago jo ere, gatzezko paretek doinuaren **zikinkeria** guztiak garbitu eta doinua bera

araztu egiten baitzuten, soinu huts bihurturik. Felipe Juaristi

Bitartean Marxek, Nietzschek, Freudek, aski erakutsi dute holako doktrina garbiek zer **zikinkeria** ezkuta lezakaten. Joxe Azurmendi

Ezezagun batek tiro egin du bart gauean erretorearen kontra, eta erreakzioa horretaz aprobetxatu da burua ateratzeko eta alderdiaren gainera **zikinkeria** botatzeko. Koldo Biguri

Dagoeneko **zikinkeria** frankori usaina hartu... ba hartu diot, baina oraindik garbigailutik pasa gabe daukat, nolabait esateko. Migel Angel Mintegi

Suaren ondoren, ura zuen bereziki maite, honen bidez irudikatzen baita arimako **zikinkeriak** garbitzen dituen penitentzia santua eta atsekabea. Askoren artean

Bi urte eman ditut gisa horretako hamaika **zikinkeria** hartzen. Berria - Kirola

**5** lohikeria, lizunkeria.

**Zikinkeria** horiek egiten badituzu, ez zaitut gehiago maitatuko. Luis Elberdin

Neskek "horrelako **zikinkeriarik"** ez dutela egiten aldarrikatzen du gure kultura honek. Luis Elberdin

Koitoa ez gainontzeko guztia -zirriak egitea, masturbatzea, miazkatzea... -gogor gaitzetsi eta **zikinkeriatzat** jo izan dute. Luis Elberdin

Giza grinetatik sortzen diren egintzak ezagunak dira: lizunkeria, **zikinkeria**, jokaera biziotsua. Elizen arteko biblia

Jainkoak beren grina txarren menpe utzi ditu eta **zikinkerietan** erori dira, beren buruak desohoratzeraino. Elizen arteko biblia

Kutsaturik zaude zeure likiskeriaz; garbitu nahi izan zaitut, baina ez didazu **zikinkeria** garbitzen utzi. Elizen arteko biblia

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
> **hau zikinkeria** (3); **zikinkeria artean** (3); **zikinkeria bat** (3); **zikinkeria guztia** (4); **zikinkeria guztiak** (6)
> **zikinkeriaz betetako** (3)

---

## zikinontzi *(orobat **zikin ontzi** eta **zikinuntzi** g.er.) iz* zaborrontzia.

Aita anarkista eta **zikinontzi** garbitzaile zuen, eta Bigarren Mundu Gerran harrapatua, torturatua eta deportatua izan zen Gatti. Berria - Kultura

Bere burua salbatu nahi zuenak azken xantza bat zeukan: aski zuen bere droga **zikinontzian** uztea! Ramuntxo Etxeberri

Plastikozko **zikinontzi** baten ondoan, afitxa batek abisu ofizial baten berri ematen zuen. Ramuntxo Etxeberri

**Zikin-ontzien** miran aritzen zen, zakur herratuen gisa. Eneko Bidegain

Hotelaren azpian bizi da **zikin-ontzi** eta ondarkinen artean uda guzian. Herria

Bezperan karrikan eskuratu papera purtzilikatu zuen Agatak **zikin-ontzira** botatzeko. Itxaro Borda

---

## zikinpean ik **zikin 12**.

---

## zikintasun *iz* zikina denaren nolakotasuna. ik **zikinkeria**.

Hilekoa etortzen zaidan bakoitzeko [...] oinazea, ondoeza eta **zikintasuna** gorabehera, halako sekretu gozo bat dudala iruditzen zait. Josu Zabaleta

Harentzat, berriz, sufrikarioa, pena, **zikintasuna** gauza erakargarriak ziren, nonbait. Josu Zabaleta

Behin baino gehiagotan azaldu du eskola publikoetako **zikintasuna** «larregizkoa» zela. Berria - Ekonomia

Saiatu behar dutela beren aurretiko jakitea hobetzen eta beren ulermena bere **zikintasunetik**, hots, okerretatik, garbitzera lagunduko dieten hasierako hastapenak lortzen. Xabier Kintana

Arana Goiri-k (bere rolean) espainolen aurka baiespen agresiboa duen "arraza **zikintasun"** hori, Ortega espainolak berak kolko barneko beldur min gaindiezina izan dizu. Joxe Azurmendi

---

## zikintegi *(orobat **zikindegi** g.er.) iz* zikinen biltegia.

Alde batetik gero eta zikin gehiago bada denetan eta bestetik jadanik muntatu **zikintegiak** betexeak dira. Herria

Hendaiako ondarkinak ez dituzte gehiago onartu nahi Urruñako **zikintegian**, tokirik ez dela denentzat. Herria

Iholdi Loiolako **zikindegia** hetsia da alderat, Heletan egin beharra dena, ez da idekia. Herria

Irisarriko **zikintegiaren** garbitzeko ikerketa batzu abiatzekotan dira. Herria

Asteartean, Ekipamenduko langileek kendu dituzte bildu guziak **zikintegietarat** eremaiteko; orotarat bi kamiun. Herria

Joan den maiatzean herriko etxeak jakin du, DDASS erakundearen ganik, herriko **zikintegia** hetsi behar zuela. Herria

Oraino zerbait egiten ahal dela eta egin behar ere itsasoa ez dadin **zikintegi** bat izan. Herria

Herriko etxearen manuz badabila zaldiz oihanetan, zuhaitz batzuk erori diren, **zikintegi** basak badiren edo jendeak zerbait behar gabeko egiten duen ikusten. Herria

Uhaitz errekan eta Ahizemendi aldean ikusi basa **zikintegi** batzu garbituak izanen dira. Herria

---

## zikintsu *iz adkor* zikina.

Europak hamabi **"zikintsuen"** kontrako guduka sinatu du, **zikintsu** horiek direlarik industrian edo laborantzan ere erabiltzen diren pozoinki zernahi, ingurumenaren eta osasunaren kaltekor haundiak denak ere, jada Stokolmeko akordioan joanden maiatzean kondenatu zirenak Herria

---

## zikintxo *izond adkor* zikina.

"Eta ur amniotikoak?", galdetu nion nik lagunari, ironia **zikintxo** batez. Karlos Linazasoro

---

## zikintzaile *izond/iz* zikintzen duena.

Armadaren izen onaren **zikintzailea**, milizianoa, salataria, medikua frontean, propaganda zabaltzaile zorrotza eta zinikoa. Edorta Jimenez

Erraiten da **"zikintzaileak** pagatzaile", bainan hobe ez zikintzea, eta hola, gure mozkin guziak onak izanen dira, eta geroa esku onetan egonen da, guzien onetan. Herria

Gaztigu larriagoak itsas **zikintzaileentzat**. Herria

---

## zikintze **1** *iz* garbitasuna galtzea edo galaraztzea.

Pirinioetan, euskal zale batzuren jokabidea ez omen da garbiegia izan: bazterren **zikintze**, gauzen xehatze, mehatxu... Herria

Zorigaitzez ez da toki bakarra holako **zikintze** eta desmasiak jasaiten duena. Herria

Zernahi **zikintze** eta akusazioren jomuga naizen une hauetan Finantza Ministerioko arduradun izaten jarraitzeak zure gobernuaren jarduera ona eragotz dezakeela [...] ohartuta nago. Berria - Mundua

Ez da hola ta hola onartua ez sinetsia gizon haundi batzuen **zikintze** hori eta ez du iduri hortan gelditzekoa dela afera. Herria

**2** (hitz elkartuetan)

Mundu huntan egiten duguna ez baita iraganean edo geroan deliberatua bainan egunean eguneko izerdi eta esku **zikintzeetan** gauzatzen dena. Herria

George Galloway diputatu eskoziarrak [...] *The Daily Telegraph* egunkari britainiarrari jarritako auzia irabazi zuen atzo, eta horrek 150.000 libra inguru (225.000 euro inguru) pagatu beharko dio, ospe **zikintze** baten ordain. Berria - Mundua

Albistegiek, errepikapenaren fabrika ilun horiek, lana beltz egiten dute ele **zikintze** honetan. Iñigo Aranbarri

---

# zikintzearren *adlag* zikintzeko.

Hiltzaileak, mahaiaren gaineko eskuizkribuak ez **zikintzearren** edo, arretaz garbitu du aizkoraren ahoa. Iban Zaldua

Esan gabe doa nazka ematen ziola ni sardina lata irekitzen ikuste hutsak ere, eta zer esanik ez, platerik ez **zikintzearren**, latan bertan sardea sakatuz ogitan bustitzeko orea [...] egiteak. Ramon Saizarbitoria

Zailtasun handiz mugitzen nintzen, putzuak saihestu nahiz, nire soineko gaizoa ez gehiago **zikintzearren**. Joxan Elosegi

Suposatzen dut sotana kakoan utzita kaleratuko zela orduan ere, mahonezko jantzian eta zapeladun, uda eta negu erabiltzen zituen Bamba plaierak fuelean zikintzeko beldurrik gabe, edo, menturaz, hartan **zikintzearren**. Koldo Izagirre

---

# zikintzulo *iz* zikinen zuloa.

Histrioi askok azetismoa aukeratu zuen; zenbaitek bere gorputz atalen bat moztu zuen, Origenes-ek bezala; beste batzuk lurpean bizi izan ziren, **zikintzuloetan**. Juan Garzia

---

# zikinune ik **zikingune**.

---

# zikinuntzi ik **zikinontzi**.

---

# zikinzale *iz* gauza zikinen zalea dena.

Paristarrek, **zikinzaleak** itxuraz, gogor egin zioten aurka, agindu haiek gizabanakoaren askatasunaren aurkakoak zirela iritzita. J.M. Olaizola "Txiliku"

---

# zikiratu, zikira(tu), zikiratzen *(orobat **txikiratu** g.er., **zikitatu** g.er., **xikitatu** g.er.)* **1** du *ad* animalia edo pertsona bati ernaltze organoak erauzi.

Eta, gogorra badirudi ere, etxean dituzun zakurrak **zikiratu**. Gotzon Garate

Eta nork **zikiratzen** ditu animaliak? Oskar Arana

Gizon bat aulkian eserita, artaziekin bere burua **zikiratzen**; ikuskizun itsusia, baina gizon hori berori emakume baten gorputzaren gainean ekinean baino itsusiagoa ez, nondik begiratzen zaion. Oskar Arana

Bere emazteari kalte egitearren **zikiratu** zen gizona, bere adar eta guzti ehortzi zuten. J.M. Olaizola "Txiliku"

Ez du uzten bere zaldiak erbestera ateratzen, **zikiratuta** ez badaude. Iñaki Iñurrieta

**2** irud/hed

Sinetsarazi egin digute maitasuna badena, eta horren bitartez mugatu, murriztu, ia-ia **zikiratu** ere egin gaituzte, gorputzaren adierazpen natural horretarako. Xabier Mendiguren Elizegi

-Zuek baliatu egin nahi zenuten, erabili, nolabait **txikiratu**, eta talentua basatia da, ez du morrontzarik nahi izaten, ez du aterperik onartzen. Joxean Agirre

Negozioak zertzen, koiuntura eztabaidatzen, posta bideratzen eta tarteka egunkariak aztertzen, gainbegiratzen edo kotizazioen buletina **zikiratzen**. Anton Garikano

Zigarroa hautsontzian **zikiratu** eta zurtz geldituriko txingar tikiari so gelditu zen Kristina. Aingeru Epaltza

Alde ederra gaur egungo sektekin, ederki **zikiratzen** baitiote horiek sakela jendeari. Jon Muñoz

Adimen **zikiratua** daukatenak badaudela dio, ezer ulertzeko gai ez direnak. Askoren artean

Bat-batean akitua nengoen, berrogeita hamar kilometroko lasterkaldia korritzen ari eta, erdira ere gabe, zangoek aitzinera egiteko kemenaz **zikiratu** balizkidate bezala. Aingeru Epaltza

ETA izan da, beste ezer baino gehiago, euskal politika baldintzatu eta **zikiratu** duen kasta ukiezin hori. Joseba Zulaika

Zorri **zikiratzen** aments? -erasiatu zuen, zakarki, bilkuratik ateratzean. Elena Touyarou

Bestela debeiatzea da, eta ondorioz testüaren motxorratzea, berritzapenen bilatzea, hots azkenean pastoralaren **zikitatzea**. Herria

**3** (era burutua izenondo gisa)

Emakume hauek ez daukate ar **zikiratuen** sindromepean bizi beharrik. Joseba Zulaika

Txakur zaindari horzgabeak; zekor adargabeak; lanerako zaldi **zikiratuak**. Anton Garikano

Putakumea, oraindik gorotz usaina joan ez zaian idi **zikiratu** bat besterik ez haiz. Fernando Rey

**4** (era burutua izenondo gisa, irud/hed)

Gizarte **zikiratu** baten ondorioak. Unai Iturriaga

Azken batean zientzietako gehienak izpiritu kamuts eta **zikiratuak** ziren gure ustetan. Xabier Mendiguren Elizegi

Mendebal usteleko kultura kristau **zikiratu**, belaskatu, faunduaren aurka dago. Joxe Azurmendi

Ez da inoiz zinezko irakaslea izan; irakaskuntza-erakunde eraldatu eta, bere irudiko, **zikiratu** honetan inoiz baino lekuz kanpoago dago. ETAren ideologiarekin bat egin, harekin identifikatu, baina ETAn sartzeko behar zirenak ez genituenok, ba horixe, **zikiratuak** ginen. Oskar Arana

ETAk horrelaxe bihurtu zuen nire belaunaldia belaunaldi **zikiratu** bat. Joseba Zulaika

**5** (era burutua izen gisa)

**Zikiratu** batek bakarrik egin dezake horrelakorik, bere ama maitatzeko ere kapaz ez den bilauak. Bernardo Atxaga

Sartu eta usnatu egin ninduten zerri batzuek, **zikiratu** gizen batzuk ziren, atsegin xamarrak. Joxan Elosegi

**Zikiratuaren** drama ez da hizkuntzaren baitan sartzen; gauza batek bakarrik balio dio: eduki behar direnak badituela. Joseba Zulaika

---

**zikiratzaile** *izond/iz* zikiratzen duena.

Gizarteko sailean zetorren berria, eta Kiroletan ere bazegoen aipamen labur bat; horrezaz gainera, Iritzian, aurreko puntako feminista zirikatzaile baten artikulu **zikiratzaile** bat ere bazekarren, non ustezko bortxatzaileentzako zigorrik bidezko eta eredugarrienaz zuhurki bezain sakonki gogoetatzen baitzen. Iñaki Segurola

-Haurkeria zurea, bizia ments daukazun psikoanalistail hori, bizitzaren **zikiratzailea**! Jose Angel Irigaray

Honetan ari zirela, hor dator zerri-**zikiratzaile** bat bentara. Patxi Ezkiaga

---

**zikiratze** *iz* animalia edo pertsona bati ernaltze organoak erauztea.

*Digesto*-n Adrianorenk lege bat dago, zeinetan heriotzera zigortzen ditu barrabilak erauziz edo hautsiz **zikiratzeak** egiten dituzten medikuak. Juan Martin Elexpuru

Nazio zibilizatuetan **zikiratzea** gauza normala da, jaiotzen diren zakur guztientzat ez baita bizitegi aski. Gotzon Garate

**Zikiratze** sinbolikoa honetan datza: inoiz izan ez duzun zerbait galdu egiten duzula. Joseba Zulaika

Galdu du noizbait ere [estatuak] orain urte gutxi arte **zikiratze** sinbolikorako erabiltzen zuen tresna izugarri hura: soldadutza. Joseba Zulaika

ETAren balentriek eta tragediek **zikiratze** sinbolikora behartzen gintuzten. Joseba Zulaika

**Zikiratzearen** paradoxak honela funtzionatzen du: gauza lehenik galdua izan behar du gero desiraren bidez berreskuratzeko. Joseba Zulaika

---

zikirio ik **zikiro**.

---

**zikiro** *(orobat **zikirio** g.er.)* **1** *iz* ahari edo aker zikiratua, jateko prestatua.

Elizako kartierean haurren ikusgarria, **zikirioa** eta dantzaldia. Herria

Janaldiek arrakasta ukan dute: 89 herritarren bazkarian, 26 atsalaskarian eta 510 **zikiroan**. Herria

Ez ahantz eguerditan komit direla nahi duten ikusle guziak abisatzekotan, Jai Alaian urririk eskainia izanen den **zikirorat**. Herria

Aratsaldeko 6etan, zuhaitzen azpian, denentzat, haur, gazte eta heldu, **zikiroa** Oreka taldeko lagunekin. Herria

**Zikiro** bat bazen heientzat prestatua, ahotik ezin utzia! Herria

22.00 **zikiroa** ogitartean Baillea ostatuan, Mizpira taldeak alaiturik. Herria

Ondotik, aperitifa eta **zikiroa** ogitartekoetan. Herria

Anartean, mutiko erne batzu 500 jenderentzat apairu prestatzen: **zikiroa** ilarrekin. Herria

**Zikiroa** aitzin Ezpeletako haxoa eta ondotik ardi gasna eta bixkotxa. Herria

Eguerdiko oren batetik goiti bazkaria: xauxix piperada, **zikiroa**, entsalada, gasna, bixkotx kafe eta ondoko. Herria

Urtero bezala AHAIDEAK elkarteak bere **zikiroa** antolatzen du. Herria

**2** (izenondoekin)

Bainua prest duzu, ezkaratzean; zure itzultzea ospatuko dugu **zikiro** on batekin. Itxaro Borda

**Zikiro** handi bat muntatuko dugu beraz, irailaren 26an, igandearekin, ATHARRI-n, eta nombre handian etortzea gomitatzen zaituztegu denak. Herria

Berri on hau ere: astelehen 29 an komit direla nahi duten guziak, abisatzekotan, eta urririk, Goizeko Izarrak eskainiko duen **zikiro** erre haren jaterat. Herria

Adin orotakoak satisfatuz partikulazki ondar gauean **zikiro** arrado eta alaitsua janez. Herria

**3** (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

**Zikiro**-jana egin zuten: gauza jakina da irendutako haragiak aparteko zaporea izaten duela. Xabier Etxabe

Larunbat aratsean, Lekornen, **zikiro** jatea. Herria

Iragan larunbatean **zikiro** jate bat antolatu dute xaharretxean. Herria

Sorterriko bestetan nik eman nuen meza eta astelehen hartako **zikiro** afarian berotu nintzen. Piarres Aintziart

**Zikiro** arratsa ederki iragan dela, eta 700 afari banatuak izan direla. Herria

Salbu **zikiro** saltsa "keztatuak" kozinatzeko, ardiak premiazko baino, hornigailu bilakatuak ziren. Itxaro Borda

Aiherrako **zikiro** besta batean, arrailduraren arrailduraz, oharkabean lau kostalet errerik irentsi nituen arte. Itxaro Borda

Kanboko besta komiteak antolatu **zikiro** besta hor iraganen baita. Herria

**Zikiro** erretzaile berria zen aurten: Pinaki tokiko erretzaileak erretreta hartu ondoan, Benat Aizpuru, beste Kanboar batek segida hartu du eta beti kalitate bera segurtatuz. Herria

Bazterreko sorroan, su eder baten inguruan, **zikiro** azpi andana gaitza erretzen zuten. Herria

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
>
> **aratsean zikiro jatea** (4); **tokiko zikiro** (3); **zikiro besta** (39); **zikiro besta bat** (3); **zikiro bestan** (3); **zikiro jate** (22); **zikiro jate bat** (5); **zikiro jatea** (79); **zikiro jateak** (6); **zikiro jatearekin** (4); **zikiro on baten** (3)
>
> **aratsean zikiroa** (4); **axoa eta zikiroa** (4); **zikiroa ogitartean** (3); **zikiroa plazan** (3)

---

**zikiroki** *iz* zikiroaren haragia.

**Zikirokia** izanen da jateko, ondotik ardi-gasna eta euskal pastiza. Herria

---

zikitatu ik **zikiratu**.

---

**ziklamen** *iz* apaingarri gisa erabiltzen den belar landarea, lore more ikusgarriak dituena.*(Cyclamen* sp.).

Haren atzean ikusten ziren loreen kontrasteak -leiho-balkoietan arratsaldeari kolorea emanez, bioletak, **ziklamenak**, azaleak... - zurbiltasuna areagotzen zioten. Anjel Lertxundi

Haizea, **ziklamenak** eta bioletak sentitu zituen, bizitzan lehen aldiz emakume eder baten ondoan zihoalako. Anton Garikano

Begietan izarrak eta ilean belo haiek, **ziklamenak** eta basa bioletak- zer pentsatzeko modu txoroa zen hura gero? Anton Garikano

---

**zikliko** *izond* zikloetan gertatzen dena.

Astronomo hasiberriak kontuan hartzen hasi ziren ez eguzkia eta ilargiaren mugimendu **ziklikoak** bakarrik, baita planeta eta izar "finkoenak" ere. Iñaki Mendiguren

Ugaztun gehienek sexualitate **ziklikoa** daukate, eta ara dauden sasoian baino ez dute jarduten. Luis Elberdin

Kulturaren egutegia **ziklikoa** da, jazzaldien eta Zinemaldiaren ondoren etortzen da Durangoko azoka, urtero, udazkena bezala. Berria - Kultura

Gizakiaren ekonomia-historia aldaketa **zikliko** eta gorabeheraz josita dagoen arren, kapitalismoaren historian bi ekonomia krisialdi nagusi nabarmentzen dira. Iñaki Heras

Zibilizazioen goraldi eta erorikoen mugimendu **zikliko** eta errepikatua. Iñaki Mendiguren

Herrialde industrializatuetako jardueraren mugimenduarekin lotuta dauden inflexio **ziklikoak** gorabehera, nazioartekoturiko ekoizpenak munduko BPGean duen pisua (%9 1998an, eta %5 1985ean) handituz joango da. Koro Navarro

Kultur eraso anti-heleniko hori hainbat mendetan agertu zen dagoeneko ezaguna zaigun eredu **ziklikoan**. Iñaki Mendiguren

Ziurtatu dugu, erorialdi eta susperraldien erritmo **ziklikoak** -non desintegraziorantzako joera nagusia gudu luzean borrokatu baita erresistentzi mugimenduaren aurka- hiru pultsazio eta erdi izan ohi zituela. Iñaki Mendiguren

Ororen buru, hango bizia arras **ziklikoa** bihurtua zen, makinak bezala zebiltzan. Eneko Bidegain

Nik sorkuntza modu **zikliko** edo biribilean ulertzen dut, inolako muga edo amaierarik gabe. Berria - Kultura

Krisialdi **ziklikoak**. Berria - Ekonomia

---

**ziklikoki** *adlag* era ziklikoan.

Horiek ere, gehienak behintzat, **ziklikoki** errepikatzen ziren, eskema berberei jarraiki ia beti, eta aspergarriak izaten ziren azkenean. Juan Luis Zabala

Nola babestu behar da, esaterako, dantza tradizionaleko emanaldiak, tokian-tokiko jai eta ospakizunetan **ziklikoki** egiten direnak? Berria - Kultura

Hazkundeak, desintegrazioak bezala, **ziklikoki** erritmikoa den mugimendu bat erakusten duela. Iñaki Mendiguren

---

**ziklismo** **1** *iz* txirrindularitza.

Oscarren bidez **ziklismoaren** epika erakusten digu, baina plano berean Lukak paisaiak ikusten ditu. Berria - Kultura

Ezin dugu esan **ziklismoa** egitea 200 profesionalik onenen kontua denik, edozein zikloturistak egin dezake Tourreko etaparik gogorrena. Berria - Kirola

1990az geroztik euskal **ziklismoak** izan dituen daturik txarrenak dira, eta, beste marka txar asko hautsi dira aurten. Berria - Kirola

**Ziklismoan** ez dago futbolean bezalako fanatismorik. Berria - Kirola

Gainera, ez dira ahantzi behar egun osoa aldamio gainean **ziklismoaz** eztabaidan ematen zuten Orso Neroren langileak. Pello Lizarralde

**2** (izenondo eta izenlagunekin)

Egungo **ziklismo** perfekzio zale eta neurtuan, bere itxura aloxagabea deigarria egiten zait. Berria - Kirola

Egia da, egungo **ziklismoak** espezialistak saritzen ditu batez ere. Berria - Kirola

Espainiako txirrindularitzaren historian ONCEk marka handia utzi du, eta nazioarteko **ziklismoan** ere eredu izan gara gauza batzuetan. Berria - Kirola

Erreferentziatzat mailarik goreneko **ziklismoa** hartzen badugu, [...]. Berria - Kirola

---

**ziklista** **1** *iz* txirrindularia.

Amelio Mendijur **ziklistaren** poster handi bat zutela markoztatua. Jon Maia

Egon zaitez ikusleen artean, **ziklistak** noiz pasatuko zain. Berria - Kultura

Jende andana espaloietan, eta berehala, autoa egurrean, **ziklisten** bila. Iñaki Mendiguren

Iazko garailea da, etxekoa, eta maila handiko **ziklista**. Berria - Kirola

**Ziklistentzako** edo mendizaleentzako sariak. Matías Múgica

Bosgarren pedal-kolpean beste **ziklista** baten gurpilean jarri zela, eta «allez, allez» entzuten zuela jendearen artetik. Berria - Kultura

Itzuliaren historiako urterik onenak izan dira euskal **ziklistentzat**. Berria - Kirola

Arratiako **Ziklista** Elkarte antolatzaileak jakinarazitakoaren arabera, berrikuntza dezente ditu biharko hitzorduak. Berria - Kirola

**2** (izenondo eta izenlagunekin)

**Ziklista** osoa, baina erlojupekoan ez da beste esparruetan bezain indartsua. Berria - Kirola

Izan ere, **ziklista** profesionalak pasatuko ziren handik bertatik. Unai Elorriaga

Lehen, esan daiteke oso talde ona genuela, oso **ziklista** onak, baina garaile bat falta zitzaigun. Berria - Kirola

Ez du potentziarik, **ziklista** txiki arina delako, gihar gutxikoa, eta, ez du aerodinamikarik, txikia izateko oso tente ibiltzen delako. Berria - Kirola

Ez baita gauza bera iheskideak etapa ehiztari dohatsuak edo **ziklista** apalak izan. Berria - Kirola

Tropeleko **ziklistarik** arrakastatsuenetakoa da eta, horrenbestez, errentagarrienetakoa, talde guztien begiko. Berria - Kirola

Euskal Herriko Itzulian morrontza lanera ohitu ziren etxeko **ziklistak**. Berria - Kirola

• **3** *izond* txirrindularitzari dagokiona.

Lasterketa **ziklisten** zale amorratuak zirenez, oihu handiak egiten zituzten garai hartako txapeldunez eztabaidatzean. Pello Lizarralde

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
> **txano koadroduneko ziklista** (3); **ziklista misteriotsua** (6)

---

**ziklo** **1** *iz* hurrenkera jakin batez etengabe errepikatzen diren gertakarien saila; horrelako sail batek hartzen duen denbora bitartea.

Egutegi hori lehenik ilargiaren **zikloan** oinarritzen zen. Pello Salaburu

Hemen urteko **zikloaren** sasoiak neurtzea izaten da lehenengo premia. Iñaki Mendiguren

**Ziklo** bat presio igotze eta presio-jaiste oso bat da: uhin sinusoidalaren gorako eta beherako olatua edo zirkulu oso baten ibilbidea. Lourdes Oñederra

Ekonomian beti izan dira **zikloak** eta krisiak. Iñaki Heras

Gertaera batzuek **zikloaren** goraldiarekin zerikusia dutela. Iñaki Heras

Edozein arlotan bezala, 1 Formulan ere **zikloak** hasi eta amaitzen dira. Berria - Kirola

**Ziklo** baten itxiera da. Joxe Azurmendi

**Ziklo** baten amaieraz hitz egiten da Italian. Berria - Kirola

**Ziklo** baten amaieran dago Fermin Muguruza, eta hori dela eta, bost urteko bidaia islatu nahi izan du DVDan. Berria - Kultura

Teorian, obulazioa **zikloaren** erdialdera gertatzen da. Luis Elberdin

**Zikloko** 28 egunetako batean ere ez dago haurdun geratzeko arriskurik, hau da, ez dago arriskurik pilula hartzen duzun 21 egunetan. Luis Elberdin

**Zikloaren** azkenean, berriz ere beharrezkoak diren hormona mekanismoak martxan jartzen dira **ziklo** berri bat hasteko. Luis Elberdin

Energia ekoizteko bi **ziklo** uztartzen dituzte zentral horiek. Berria - Euskal Herria

**2** (izenondo eta izenlagunekin)

Egunkarietako berriek **ziklo** jakinak izan ohi dituzte. Imanol Zurutuza
Urtaroen **ziklo** eternala, poz xumeak eta soroetako isiltasuna. Joseba Urteaga
«Autodeterminazioan oinarritutako **ziklo** berri baten aurrean» gaudela uste du. Berria - Euskal Herria
Emakume batek ere **ziklo** aldakorrak izan ditzake. Luis Elberdin
Beste **ziklo** astronomiko bat [...] urtaroen zikloa izan zen. Iñaki Mendiguren
**Ziklo** historiko edo kultura bakoitza "bizi estilo" bat da, eta bizi estiloen aldaeren ikerketa morfologikoa da historia. Joxe Azurmendi
Eguzkiaren eta "izar finkoetako" bakar baten itxurazko mugimenduen arteko kointzidentzia errepikatuen neurri komun txikienak 1.460 urteko **"ziklo** sotiko" egipziakoa sortu zuen, eta eguzkiaren, ilargiaren eta bost planeten **ziklo** komun errepikatuak 432.000 urteko *Magnus Annus* babilonikoa; maien 374.440 urteko **Ziklo** Handi miragarrian, berriz, gutxienez hamar **ziklo** osagarri zeuden bat-eginda. Horrek urtearen, hilabetearen eta egunaren berezko hiru **ziklo** desberdinen harmonizazioa eskatzen du. Iñaki Mendiguren
Zuhaitz horrek ur asko xurgatzen duela jakinarazi dute, eta horrek **ziklo** hidrologikoak alda ditzakeela. Berria - Gaiak
Mikroorganismoari eskura jarritako elikagaiak **ziklo** metabolikoaren ondorioz polimeroen aurrendari izango diren substantzia bihurtzen dira. Berria - Gaiak
Horrenbestez, urte guztian eta emearen **ziklo** obariko guztian jarduera sexual egonkorra izaten dugu. Luis Elberdin
**Ziklo** politiko berri baten atarian gaudela uste du Aralarrek. Berria - Euskal Herria
Enpresaren erronkak **ziklo** teknologikoen ikuspegitik. Berria - Ekonomia
Hainbat izan dira **ziklo** ekonomikoei buruz ekonomia-zientziaren arloan garatu izan diren teoriak. Iñaki Heras
Eraikuntzaren goranzko **zikloa** 2006an amaituko da Europan. Berria - Ekonomia
Hegemoniazko **ziklo** horien interpretazioak, oro har, sistemaren barneko hiru kontraesan azaleratzen ditu. Koro Navarro

## **3** (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

Joera ahulenak porrotean etsitzeari uko egin eta jarrera horretan irauteak esplikatzen ditu topaketaren errepikapenak **ziklo**-serie batean. Iñaki Mendiguren

## **4** (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa)

Gobernuak, astronomoak bezala, urtekako neurketaz arduratzen dira, baita errepikatzen den urte-**zikloaren** artikulazioaz ere. Iñaki Mendiguren
Seiehun urteko denboraldia zuen eguraldi-**ziklo** baten zeharkako frogak aurkitu genituen. Iñaki Mendiguren
Alexandro-osteko historia helenikoan eta Konfuzio-osteko historia sinikoan gerra- eta bake**zikloak** aztertuz gero [...] Mendebalde modernoaren historian begiztatu ditugunen antzekoak diren "eredu" historikoak agertzen dira. Iñaki Mendiguren
Esan izan da bazegoela korrespondentziarik eguraldi eta uzta **ziklo** hauen eta zenbait ekonomialarik marrazturiko industri **ziklo** ekonomikoen artean. Iñaki Mendiguren
Nekazaritzak ekonomian pisu handia zuenean, klimak markatzen baitzuen, hein handi batean, ekonomia **zikloaren** bilakaera. Iñaki Heras
F.C. Mills-ek, merkataritza-**ziklo** "labur" baten batez besteko uhin-luzera industrializazioaren lehenengo etapetan 5,86 urtekoa zela kalkulatu zuen. Iñaki Mendiguren
Ez dira depresioak negozio-**zikloen** teoriaren zentzu teknikoan. Iñaki Mendiguren
Etxe Zuriak Sharonen deskonexio planari argi berdea ematen baldin badio, indarkeria **ziklo** berri bat abiatuko du. Berria - Mundua
Zelula-**zikloaren** erregularizazioa ikertzen jardun ostean, minbiziarekin lotutako proteina bi aurkitu zituen Andrew Koff biokimikariak. Berria - Gaiak
Iraultza guztiek bizi **ziklo** jakin bat dute. Berria - Mundua
Erabilitako materialen eta eraikuntzen bizitza-**zikloa**. Berria - Gaiak
Ipar-Hego zorpetze **ziklo** berria jarri da abian, XX. mendean 1970eko, 1950eko eta 1920ko hamarraldiak markatu zituztenen ondoren. Koro Navarro
Birsortze **ziklo** naturalei eusteko. Itziar Eizagirre / Amaia Lizarralde
Ezker abertzaleak hauteskunde **ziklo** berezi bati aurre egin dio eta emaitza positiboak lortu ditu, erakunde armatuaren arabera. Berria - Euskal Herria
Azkenaldian, ezinezko ari zitzaion gertatzen gaixoari kimioterapia **ziklo** bat bera ere bukatzea. Imanol Zurutuza
"Janari **ziklo** bat" egunero plater bera edo barazki bera jaten dugun aldi bat da. Josu Zabaleta

## **5** denbora jakin batean eta gai jakin baten inguruan antolatzen diren arte edo kultura egitateen multzoa.

**Zikloez** gain, ohiko sailak izango ditu Zinemaldiak. Berria - Kultura
Zinemaldiko sail eta **ziklo** guztien gaineko azalpen labur bat eskainiko da lehenengo. Berria - Kultura
Marilyn Monroeri buruzko **ziklo** berezi bat ematen ari dira: *Marilyn and friends* (Marilyn eta lagunak). Anjel Lertxundi
Gazteentzako **ziklo** bat abiatuko du Gasteizko Udalak Principal antzokian. Berria - Kultura
Jazz Klub **ziklo** berriaren barruan bost kontrabaxu jotzaile ariko dira Kursaalean. Berria - Kultura
**Ziklo** hartako lehendabiziko kontzertuan biolin-jole frantses bat zetorren, Régis Pasquier, Txaikovskiren biolin-kontzertu zoragarria jotzera gainera. Xabier Mendiguren Elizegi
Musika Hambostaldiko **Ziklo** Garaikideko egitaraua. Berria - Kultura
50. urteurrena **ziklo** kultural batez ari da ospatzen elkartea. Berria - Kultura
Aurten **ziklo** berri baten proposamena egin du Hamabostaldiak: *Astearteak Txillida Lekun*. Berria - Kultura
*Euskal Herrian Euskaraz*ek mahai-inguru **ziklo** bat abiatuko du Euskal Herriko hiriburuetan. Berria - Euskal Herria
Euskal musikari eta kantarien saioarekin bukatuko da Organo Kontzertuen **Zikloa**. Berria - Kultura
Beste zinema **ziklo** bat AEBetako Sundance hiriko Zinema Jaialdiari begira jarriko da. Berria - Kultura
Marc Rechari buruzko zinema **zikloa** antolatu du Donostiako Nosferatuk. Berria - Kultura
Kutxan zine **ziklo** bat botatzen ari dituk, pelikulak komentatuz eta abar... Pako Aristi
Nahiz eta harritzekoa izan, umeak biltzen dituen antzerki **ziklo** horrek obra bakarra eskainiko du euskaraz. Berria - Kultura
Kondaira historiko batez edo eleberri **ziklo** bateko pasarte batez ari garenean. Xabier Arregi
Antzinako Musika **Ziklorako** sarrerak ez dira berehala amaitzen diren horietakoak baina, urtetik urtera, jarraitzaile gehiago ditu **ziklo** honek. Berria - Kultura
Organo Musika **Zikloa** antolatu du Bizkaiko Busturialdeko sei herritan. Berria - Kultura

## **6** ikasketa-plan bat zatitzen den saila, kurtsoek eta irakasgaiek osatzen dutena.

Irakaskuntzako lehen **zikloetan**, irakasleek garrantzi handiagoa ematen diote ikasleen arteko harremanei. Berria - Euskal Herria
Hezkuntza: **Ziklo** guztietako curriculumetan agertuko da aukera berdintasunari nahiz gatazken soluziobide baketsuei buruzko heziketaren sustapena. Berria - Euskal Herria
DBHko lehen **zikloa** errepikatuko duk, eta gero DBHko hirugarrena..., eta suerte pixka batekin, batxilerra lortuko duk... hogeita hamar urte betetzean! Jesus Mari Mendizabal
Hirugarren urtean, bigarren **zikloan** jarri ninduten. Joxerra Garzia
**Ziklo** hezitzaileak dituzten 158 zentroetako hiru besterik ez zen inkestatik kanpo geratu. Berria - Euskal Herria
EAEko Lanbide Heziketan hiru **ziklo** berri jarri dituzte abian. Berria - Euskal Herria
Lanbide Heziketan dauden 21 lanbide multzoetan **ziklo** asko eta asko daude. Berria - Euskal Herria
Datorren urtean, adibidez, Fraisoron Goi Mailako **Zikloko** modulu batzuk euskaraz izango dira. Berria - Harian
**Ziklo** bakoitzaren bururatzean (CM2, 3garrena, Terminala) ikaslea bere ikasketak euskaraz zein frantsesez jarraitzeko gai izan dadin helburua duenarendako, Parekotasunezko sistema ez da balezkoa. Herria
105 ikaslek abiatu dute hiru urteko **zikloa** aurten, iaz 56 ziren eta duela bi urte 40. Herria
Udalek 0-3 **zikloa** bere gain hartzeko eskatu diote Nafarroako Gobernuari. Berria - Euskal Herria
Bi urteko **ziklo** hortarik lekora, lehen mailan departamenduan, edo bigarrenean Akitaniako departamendu batean izendatuak izanen dira erakasle. Herria

Baina unibertsitateko eta beste hezkuntza **zikloetako** irakasleen artean badago alde bat: osagarri gehigarriak. Berria - Euskal Herria

Badira bigarren **zikloko** titulazioak, lehen ziklo baten ondoren edo lehen **zikloko** ikasketa batzuen ondoren egin daitezkeenak. Juan Ignacio Pérez / Pello Salaburu

**7** gai jakin baten inguruan ontzen diren literatura-lanen multzoa.

Humboldtek dioenez, eta 1800 inguruko kontuak dira, baziren Euskal herrian ezin konta ahala ipuin, **zikloetan** bereziak eta partituak. Anjel Lertxundi

**Ziklo** arturikoari loturiko ipuinak idatzi zituen *Percival e outras historias*-en. Berria - Kultura

Arturo Erregearen eta **ziklo** bretoiaren gaia zentzuz beteriko espazio oniriko gisa. Berria - Kultura

Esperientzia luze aspergarri horretan ikasitakoak sarritan agertuko dira Maupassanten obretan, Parisko ipuin **zikloan** batez ere. Josu Zabaleta

Gutun bat, *J'accuse* famatua, eta Rougon-Macquart familiaren **zikloko** hogei eleberriak, zeinen arteko hirugarrena *Parisen sabela* baita. Karlos Zabala

**8** bibrazio unitatea.

Maiztasun-unitatea hertza da (Hz), **ziklo** bat segundoko. Irene Aldasoro

Hertz (Hz) neurriak horixe adierazten du, zenbat **ziklo** segundoko dituen hots batek. Lourdes Oñederra

Korrontea segundoko ehunka edo milaka **zikloko** maiztasunean txandakatzen da, soinuaren maiztasun aldakorrera egokitzeko. Irene Aldasoro

**9** *ipar* bizikleta edo kidekoa.

**Ziklo** edo txirrindula. *Itsasuarrak* elkarteko bateria, fanfara, pilota, dantza, gim eta **ziklokoek** antolatzen dute zoingehiagoka bat pilota palantxaz. Herria

Josteta aritzen zarelarik zure eskuak baliatuz, pilota edo bola batzuekin, horiek konbinatzen ahal dituzu ere arroda bakarreko **zikloaren** gainean ibiliz. Herria

**10** ***ziklo bateratu***

Aurten inauguratu du Boroa auzoan Bizkaia Energia enpresak **ziklo bateratuko** zentral termikoa. Berria - Harian

Irlandako Electricity Supply Board (ESB) enpresa **ziklo bateratuko** beste zentral bat ipintzeko leku bila dabil Gipuzkoan. Berria - Euskal Herria

Zabalgarbik eta horrekin batera hainbat lekutan egiten dabiltzan **ziklo bateratuko** zentralek orain martxan dauden ikatzezkoek baino gutxiago kutsatzen dutela nabarmendu zuen Intxaurragak eta, hortaz, ozono geruzari mesede egingo diotela uste du. Berria - Euskal Herria

Azken bost urteetan inbertitutako 12.400 milioietatik, gehienak **ziklo bateratuko** zentraletan eta energia berriztagarrietan gastatu ditu. Berria - Ekonomia

Euskal Herrian **ziklo bateratuko** zentralak berritasuna badira ere, Europako gainerako herrialdeetan aspaldi hasi ziren halakoak ipintzen. Berria - Euskal Herria

Urtarriletik irailera, %82 energia gehiago ekoitzi du Iberdrolak **ziklo bateratuetan**. Berria - Ekonomia

**11** ***ziklo konbinatu*** zentral termikoez mintzatuz, gas turbinaren zikloa eta lurrun turbinaren zikloa konbinatzen dituena.

Gas Natural enpresak Araban kokatu nahi duen **ziklo konbinatuko** zentrala. Berria - Euskal Herria

**Ziklo konbinatuko** zentral termikoak dituzten herrien elkarteko kide da Castejon. Berria - Harian

Zentral termiko konbentzionaletako 1.130 megawatt ixtea sustatuko dugu, eta, horien ordez, 2.800 megawatt ezarriko ditugu, **ziklo konbinatuko** gasezko instalazio lehiakorrago eta ez hain kutsagarrietan. Berria - Euskal Herria

Boroako **ziklo konbinatuko** plantaren aurka egin diren manifestazioetan herritar asko batu zirela gogoratu du. Berria - Euskal Herria

2.000 milioi euro inbertituko ditu **ziklo konbinatuko** proiektuetan. Berria - Euskal Herria

Kyotoko Ituna betetzeko asmoz, gas naturaleko eta **ziklo konbinatuko** azpiegiturak eraikitzeko 2.595 milioi euroren inbertsioak egingo dituzte. Berria - Ekonomia

Iberdrolak **ziklo konbinatuko** ekoizpena hirukoiztu du. Berria - Ekonomia

2008. urtean 4.800 megawatteko potentzia lortu nahi baitu Gas Naturalek **ziklo konbinatuan**. Berria - Euskal Herria

Bakioko gertaerek, inoiz baino ageriago utzi digute, **ziklo konbinatu** garbiko energia garaiotan, Manilako zabortegia, Limakoa, Sao Paulokoa hemen ditugula, foruen arbolapean ongarri. Iñigo Aranbarri

**12** ***ziklo-kros*** txirrindularitza-mota, bide malkartsuetan zehar jokatzen dena.

**Ziklo-kros** proba jokatuko da igandean. Berria - Kirola

Errepideko lasterketak eta **ziklo-kros** lasterketak korritu zituen. Berria - Kirola

Asteasuko Nazioarteko **Ziklo-krossa** irabazteko faborito nagusia. Berria - Kirola

Azaroaren 7an hasiko da Euskal Herriko **ziklo-kros** denboraldia, eta 19 proba jokatuko dituzte. Berria - Kirola

Espainiako **ziklo-kros** selekzioko Francisco Pla hautatzaileak David Seco eta Eder Barrenetxea deitu ditu Munduko **Ziklo-kros** txapelketa korritzeko. Berria - Kirola

Hegoaldean, gaitzeko lehiaketak muntatzen dira **ziklo-kros** kirol berezian. Herria

**13** ***ziklo-kroslari*** (**ziklokroslari**) ziklo-kroseko txirrindularia.

Joserramon Izagirre **ziklo-kroslari** ohiaren seme zaharrena da. Berria - Kirola

Hogeita zazpi euskal **ziklo-kroslari** ariko dira gaur eta bihar Espainiako Txapelketan. Berria - Kirola

Azken bost urteetan Flandesko **ziklokroslariek** bakarrik lortu dituztelako jokoan zeuden hiru dominak. Berria - Kirola

**hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**

**bigarren ziklo** (3); **bizi ziklo** (3); **boroako ziklo konbinatuko** (4); **espainiako ziklo kros** (5); **herriko ziklo kros** (6); **hitzaldi ziklo** (4); **munduko ziklo kros** (7); **urteko ziklo** (4)

**ziklo aldaketa** (3); **ziklo bakar** (4); **ziklo bakar bat** (4); **ziklo bakoitzean** (4); **ziklo bat abiatuko** (4); **ziklo bat bera** (3); **ziklo bat dago** (5); **ziklo bat itxi** (4); **ziklo baten amaiera** (4); **ziklo bateratuko zentral** (3); **ziklo bateratuko zentralak** (3); **ziklo berezi** (3); **ziklo berri** (16); **ziklo berri bat** (6); **ziklo berri baten** (5); **ziklo berria** (7); **ziklo berriaren** (3)

**ziklo guztiak** (3); **ziklo guztietan** (5)

**ziklo konbinatuko** (64); **ziklo konbinatuko planta** (8); **ziklo konbinatuko zentral** (10); **ziklo konbinatuko zentrala** (12); **ziklo konbinatuko zentralak** (6); **ziklo kros** (23); **ziklo kros txapelketa** (4); **ziklo kros txapelketan** (3); **ziklo krosa** (31); **ziklo krosak** (3); **ziklo krosaren** (5); **ziklo krosean** (5); **ziklo kroseko** (7); **ziklo kroslari** (4); **ziklo kroslaria** (3); **ziklo kroslariak** (3)

**ziklo osoa** (4); **ziklo politiko** (24); **ziklo politiko berri** (6); **ziklo politiko berria** (3); **ziklo politiko bikoitzerako** (3); **ziklo politikoa** (6)

**antzerki zikloa** (5); **atzera begirako zikloa** (4); **azken zikloa** (3); **bizitzaren zikloa** (3); **eskainitako zikloa** (6); **euskal zikloa** (4); **hasitako zikloa** (3); **hirugarren zikloa** (3); **hitzaldi zikloa** (9); **hitzaldi zikloa antolatu** (3); **organo zikloa** (3); **urte bitarteko zikloa** (3)

**zikloa antolatu** (12); **zikloa antolatu du** (10); **zikloa bete** (3); **zikloa bukatu** (6); **zikloa egingo** (7); **zikloa egingo dute** (3); **zikloa emango dute** (3); **zikloa eskainiko** (7); **zikloa eskainiko du** (4); **zikloa hartuko** (5); **zikloa hartuko dute** (3); **zikloa hasi** (3); **zikloa hasiko da** (6); **zikloa hilaren** (3); **zikloa itxi** (5); **zikloa izan zen** (3)

**zinema zikloa** (9); **zinemari buruzko zikloa** (6)

**musika zikloak** (5); **urte bitarteko zikloak** (4); **zinema zikloak** (6)

**bigarren zikloan** (4); **hitzaldi zikloan** (3)

**zikloarekin batera** (3

**antzinako musika zikloaren** (3); **izeneko zikloaren barruan** (5); **kontzertu zikloaren** (3); **musika zikloaren** (6); **musika zikloaren barruan** (3); **organo erromantikoko zikloaren** (3); **urte bitarteko zikloaren** (4); **urteko zikloaren** (3)

**zikloaren amaiera** (4); **zikloaren ardura** (5); **zikloaren barruan** (44); **zikloaren bigarren** (3)

**merkataritza zikloen** (3); **negozio zikloen** (4); **zikloen arabera** (3)

**bigarren zikloko** (6); **hirugarren zikloko** (10); **lehen zikloko** (8); **zikloko azken** (3); **zikloko ikasketak** (6); **zikloko ikasleek** (3)

**euskarazko ziklorik** (4)

**hainbat ziklotan** (3)

---

ziklo-kros ik **ziklo 12**.

---

**ziklograma** *iz* letra multzo berarekin hasten eta bukatzen den hitza.

Berdin hasi eta bukatzen den hitzari **ziklograma** deritzo. Iñaki Arranz

Errepikatzen diren letrak zenbat eta gehiago izan, orduan eta beteago **ziklograma**: ARabiAR, ARImARI, MARImarMARI. Iñaki Arranz

Letra batzuk gaineratuta sortzen diren horrelako totelgramak **ziklogramak** ere badira, hiru bider errepikatzen dira silabak edo letra multzoak: kakarazaka, kokoriko, kukurruku, pipirripi, tutulikatu, txitxibiritxi... Iñaki Arranz

---

**zikloi** *(orobat* **ziklon** *g.er.)* **1** *iz* urakana. ik **tifoi**.

Katrina urakanak eragindako sarraskia ikusita, aldaketa klimatikoaren eta honek **zikloi** eta urakanetan duen eraginaren inguruko eztabaida berriro ere puri-purian jarri da nazioartean. Berria - Harian

Giza jardueren ondorioz Louisianako kostaldean gertatutako higadurak eta paduren murrizteak **zikloi**, tifoi eta urakanen kontrako babes natural garrantzitsua desagertzea eragin dute. Berria - Harian

Kerry Emmanuel klima gaietan adituak adierazi du 1970. urteaz geroztik %50 indartsuagoak direla Atlantiar Ozeanoan eta Ozeano Pazifikoan sortzen diren **zikloiak**. Berria - Harian

Telma **zikloiak** eragindako uholdeek eta luiziek gutxienez 6.000 pertsonaren heriotza eragin zuten Leyte uhartean (Filipinak). Berria - Mundua

Agintariek atzo jakinarazi zutenez, dagoeneko 36 pertsona hil eta beste 42 desagerrarazi ditu martxoaren 7tik Madagaskarko iparraldea inarrosi duen **zikloiak**. Berria - Mundua

Zerutik erortzen zen ur guztiak Raimundo Silvaren aurpegiaren kontra jo zuen, haizea **zikloia** zen, maelström, hurakana, segundo gutxiko kontua izan zen. Jon Alonso

Haizetea izan zen, **zikloia**. Juan Martin Elexpuru / Bego Montorio

Urtero 15 tifoi inguruk eta sei **zikloik** jo dituzte Filipinetako uharteak. Berria - Mundua

Australiako ipar-ekialdeko kostak eta barnealdea gogor astindu zituen atzo Larry **zikloi** tropikalak. Berria - Mundua

**2** meteorologian, presio apalen gunea. ik **depresio 7**.

1841a etorriko zen, Espy zientzilariak abisatuko zuenerako, presio baxuen ardatzaren inguruan, haize beroak, **zikloi** eremu batean, espiral baten gisara ezkerreko alderuntz goraka aldegiten zuela. Pello Zabala

---

**zikloide** **1** *iz* lerro zuzen baten gainean itzulikatzen den zirkunferentziako puntu batek sortzen duen lerroa.

[Antzara edo faisai lumaren muturrak] sortzen du zirkunferentzia, baldin puntu finko baten inguruan biraka ipintzen badugu; eta sor dezake parabola, hiperbola... edo esfera eta oboidea eta **zikloidea**... forma geometriko erregular eta irregular guztiak sor ditzake. Joan Mari Irigoien

Arkimedesen espirala, parabolak, hiperbolak, **zikloidea**... Bide luzea egina zuen kontu hark Hipokrates Kiosekoak lunulak koadratu zituenetik. Jon Muñoz

**2** (izenondo gisa)

Hasierako kaosetik koherentziazko izpi batzuk heldu zitzaizkionean, plantilla hartu eta kurba **zikloide** bat marraztu zuen planoaren gainean. Patxi Iturritegi

---

**zikloka** *adlag* zikloen arabera.

**Zikloka** gertatzen da dena. Berria - Kirola

---

ziklokroslari ik **ziklo 13**.

---

**ziklomotor** *iz* motozikleta pedalduna.

**Ziklomotoreak** gidatzeko, berriz, gutxieneko adina 16 urtekoa izango da. Berria - Euskal Herria

12 urtetik beherakoak bidaiari bezala eramatea motozikletetan edo **ziklomotoreetan**. Berria - Euskal Herria

Goizeko bederatziak aldera Arrietako Olatxua auzorako bidean zihoan **ziklomotor** bat bidetik irten zen. Berria - Euskal Herria

Etxe horren aintzinetik **ziklomotor** batekin pasatu den norbaitek lehergailu bat bota du polizaren autoaren gainerat. Herria

---

ziklon ik **zikloi**.

---

**zikloniko** *izond* zikloiarena, zikloiari dagokiona.

Dezagun harpa eoliko bihurtu direla, haizeak, **ziklonikoa** den arren, bibrarazten duen harpa eolikoa. Jon Alonso

Igerileku girotua, hidromasaje eta aquaerobic igerilekuak, saunak, Vichy dutxak, dutxa **ziklonikoak**, izotz iturria, yoga aretoa, gimnasioa, aldagelak eta kafetegia. Berria - Euskal Herria

---

**ziklope** **1** *iz* mitologiako gizaki erraldoia, kopetaren erdian begi bakarra duena.

Feaziarrak, lehen, Hiperean bizi ziren, **ziklopeengandik** hurbil. Juan Kruz Igerabide

**Ziklopeen** uhartea basoz beterik dago, ahuntz asko ageri da bazter guztietan, eta inork ez ditu ehizatzen. Juan Kruz Igerabide

Itakako jaunak bere abentura batean **ziklopeari** begi bakarra itsutu baitzion. Juan Kruz Igerabide

Itzuliko naiz zuregana, ozeanoak zeharkatuz, **ziklopeak** menderatuz, eta pretendiente likits horiek banan-banan estrangulatuko ditut. Joxean Sagaztizabal

Gizakia ez da ez inurri desinteresatua, ez **ziklope** tratagaitza, "animalia soziala" baizik. Iñaki Mendiguren

Basajauna unibertsala dela dio; Olentzero, gure Santa Claus; gure **ziklopea** Tartalo, eta Eusko Gudariak sehaskako kantua dela Austrian. Berria - Kultura

Ez da **ziklopeen** mailua sekula Marteren armadura beti irauteko forjatuaren gainera gupida gutxiagoz jausi, nola baita Pirroren ezpata odoltsua orain Priamoren gainera jausten. Juan Garzia

**2** irud/hed

Ezin zitzaion itzuri harri eta argizko **ziklope** hari. Alberto Ladron Arana

**3** (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

Esan gabe doa **ziklope**-lan haren azken jomuga haitzak bere baitan erantsirik zeukan ehuneko 2 amianto huskeria hura erauztea zela. Juan Garzia

Eta kandela-makila handia bere **ziklope**-eskuaz altxaturik, mendi bat bezain gora, Sanson bera zirudien. Koldo Biguri

Hortik dator **ziklope**-begiaren ideia, bi begien halako baterakuntza ideal bat-edo izango litzatekeena. Josu Zabaleta

**ziklopekara** *izond* erraldoia.

Buna-Monowitz-eko fabrika osoa, zortzi kilometro koadro lantoki **ziklopekara**. Juan Garzia

Muino txapal eta elkor batean, dena haitzalde eta sasi ihar, amildegi koniko **ziklopekara** bat erroizten zen hondorantz, krater artifizial bat, laurehun metro zabal. Juan Garzia

---

**ziklosporina** *iz* immunosupresore mota, transplateetan arbuioa saihesteko erabiltzen dena.

60ko hamarkadan sortu zituzten botika immunosupresoreak azatriopina eta **ziklosporina** kasu. Berria - Gaiak

---

**ziklostilatu**, ziklostila, ziklostilatzen **1** du *ad* ziklostil izeneko multikopistaz multikopiatu.

Orriak **ziklostilatu** eta zabaldu ez ezik, norberak idatzi behar izaten zituenekoa. Jon Alonso

**2** (era burutua izenondo gisa)

Postaz banatzen den *Conspiracy Digest* hilabetekari **ziklostilatuaren** arabera, artikulu honen egilea kriogenizaturik dago Rushmore mendiaren barruan kokaturiko base ultrasekretu batean. Iban Zaldua

Zirkular **ziklostilatu** bat, normalean, irakurri gabe paperontzira botatzen da. Juan Garzia

---

**ziklotimia** *iz* psikosi maniako-depresiboa.

Baina, ikus dezagun: **ziklotimiarik**? Karlos Linazasoro

---

**ziklotimiko** *izond* ziklotomiarena, ziklotomiari dagokiona.

-Hasieran ez, normala zirudien, baina nortasun **ziklotimiko** paranoiko hipotentso samarrekoa suertatu zen azkenean, suminkortasun hipergastrikoak joa gainera une hartan. Xabier Olarra

---

**ziklotroi** *iz* partikulen, eskuarki protoien, azeleragailu zirkularra.

1957: CERNeko lehen azeleragailua eraiki zuten, 600 MeV SC **ziklotroia**. Berria - Gaiak

---

**zikloturismo** *iz* turismo mota, bizikleta erabiliz egiten dena.

**Zikloturismo** Martxa hilaren 27an jokatuko da. Berria - Kirola

---

**zikloturista** **1** *iz* zikloturismoa egiten duen pertsona.

**Zikloturista** bat hilda aurkitu dute Ean. Berria - Euskal Herria

Quebrantahuesos Espainian, Marmotte eta Bordele-Paris Frantzian, horiek dira euskal **zikloturistak** korritzen dituzten proba ezagunenak. Berria - Kirola

Alor bakoitzean lehen postua lortzen duen **zikloturistari** bidaia, izen-emate gastuak, lotarakoak eta otorduak ordainduko dizkiote. Berria - Kirola

Javier Otxoa txirrindulariak Ricardo anaiaren oroimenezko **zikloturisten** proban hartuko du parte gaur Malagan. Berria - Kirola

Banoa Baranda izeneko herriskatik Renedo aldera, eta kamio bazterrean **zikloturisten** errosarioa, peste egunak penitentzia eginez santifikatzen. Patziku Perurena

ESAITek aurten lehenengo aldiz antolatu du **Zikloturisten** Saria, eta emakumezkoetan eta gizonezkoetan lehen bi sailkatuak Italiara, Dolomitetako Girora joatekoak ziren. Berria - Kirola

· Antolatzaileek urteak daramatzate Quebrantahuesos **zikloturista** probako ibilbide bera duen etapa prestatu nahian. Berria - Kirola

• **2** *izond* zikloturismoarena, zikloturismoari dagokiona.

ESAITek Euskal Jaia antolatu du gaurko La Mongieko helmuga azpiko zelaian (18: 00), eta bihar Tourmaleteko igoera **zikloturista**. Berria - Kirola

Euskal selekzioen aldeko taldeak hainbat lasterketa **zikloturistetan** garatu den Esait saria antolatu zuen, eta partaideek la Mongieko igoeran izango dute puntuak pilatzeko azken aukera. Berria - Kirola

---

**zikoina** *(106 agerraldi, 18 liburu eta 7 artikulutan; cf **amiamoko** 8 agerraldi, 3 liburu eta 3 artikulutan)* **1** *iz* amiamokoa *(Ciconia sp.)*. ik **amiamoko.**

Zelaiak berdetzen ari ziren; **zikoinek**, herrialde beroetatik bueltan, arku handiak egiten zituzten zeruan. Koro Navarro

**Zikoinak** ere antzematen dio zeruari, lekuz noiz aldatu jakiteko; usapalak, enarak eta kurriloak badakite noiz itzuli. Elizen arteko biblia

**Zikoinak** airean hegaka hasi ziren, multzoka, lurralde berri baten bila. Felipe Juaristi

Nik ere begirada altxatu eta, gurutzean zein pinakuluetan pausaturik [...] hamar bat **zikoina** bistatu nituen. Patxi Zubizarreta

Gure gainean hegaldatzen ziren **zikoinek** bazekiten han atzean, han behean, hiriaren Medina zegoela, Fez Zaharra; baina guk hotelaren eraikina bakarrik ikusten genuen. Bernardo Atxaga

Bat-batean **zikoina** bat zutitu zen hondakinen erpinean, habia han zeukalako edo, eta pausotxoak ematen hasi zen. Bernardo Atxaga

**Zikoinek** Castejongo zentral termikoen inguruan egin dituzte euren habiak, Nafarroan. Berria - Euskal Herria

1995. urtean hasitako egitasmoaren barruan, **zikoinen** habia bat kendu zuten ekologistek astelehenean Zarrakaztelun; 528 bikote daude Nafarroan. Berria - Euskal Herria

Danimarka eta Afrika arteko hegaldi luze horretan aurrera, **zikoinak** dagoeneko bistatu ditu Baionako katedraleko dorreak. Patxi Zubizarreta

Hegoak **zikoinaren** gisakoak zituzten. Elizen arteko biblia

**2** (izenondoekin)

Lehen ospitale bat zegoen hemen **zikoina** gaixotuentzat edo zaurituentzat. Bernardo Atxaga

**Zikoina** gutxi batzuek ere urtero-urtero egiten dute Danimarka eta Afrika lotzen dituen bidaia nekagarri hori. Patxi Zubizarreta

**3** (hitz elkartuetan)

San Pedro elizari berehala ohartu natzaio: aterpearen ondoan dago, **zikoina** bikote batek bere kafirarekin ezkiladorrea koroatzen duela. Piarres Aintziart

Urtero hainbat **zikoina** habia kentzen edo tokiz aldatzen dituzte Gurelurrekoek, eraikinetan kalteak egiten dituztelako. Berria - Euskal Herria

Estalaktitek, goitik behera beharrean, aldamenera zeuzkaten puntak, **zikoina**-moko antzera. Juan Garzia

**4** ***zikoina zuri*** amiamoko mota *(Ciconia ciconia)*

Amiamoko edo **zikoina zuriek** egindako habia bat kendu zuten joan den astelehenean Zarrakazteluko udaletxeko teilatutik, herriko etxeko agintariek eskatuta. Berria - Euskal Herria

Hegazti fidelak dira **zikoina zuriak**; bizitza osorako aukeratzen dute bikotea. Berria - Euskal Herria

Azken urteotan gora egin du Nafarroan **zikoina zurien** kopuruak, eta, ondorioz, gora egin dute hegaztiok eragindako arazoek. Berria - Euskal Herria

**5** ***zikoina beltz*** amiamoko mota *(Ciconia nigra).*

**Zikoina beltza**, berriz, migrazioaren garaian besterik ez dugu ikusten gure artean. Berria - Euskal Herria

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
> **zikoinak ikusi** (4)

---

# zikoitz *(87 agerraldi, 51 liburu eta 6 artikulutan)* **1** *izond* dituen ondasunak ez emateko edo ez gastatzeko gehiegizko joera agertzen duena. ik **zeken; diruzale; xuhur.**

Apaiz **zikoitz** batek galdetu zigun ea norentzat ari ginen biltzen limosna. *Made in Venezuela* telesaioetan, euskal abizenak dituzte aberats **zikoitzek**, andra-gizonik okaztagarrienek. Pello Lizarralde

Florentek [...] sufritu egiten zuen, Gradelle **zikoitzak** haren longain mehea aztertu eta kezkati eta fidagaitz begiratzen zionean, jatekorik edo ehun soseko txanponik eskatu nahi ziotela usaindu izan balu bezala. Karlos Zabala

Ez dakite zein zaila den bat-batean halako dirutza ateratzea jende **zikoitzari**. Esteban Antxustegi

Ohoratu Jauna eskuzabal, ez izan **zikoitz** zeure uztaren lehen fruituak ematen. Elizen arteko biblia

Aberatsa baitzen Irisarri, **zikoitza** bezain. Felipe Juaristi

Ez, bera ez zen **zikoitza**, diruak ez zuen hartara bultzatu. Karlos Zabala

Harroa zen oso Hinault, eta **zikoitza** ere bai, taldekidea, laguna zena kaltetzeko beldurrik ez zuena, hori egitea berarentzat onuragarria baldin bazen. Berria - Kirola

Gozamenerako ere **zikoitza** izanen da. Monika Etxebarria

Begira [...] zer egiten duen **zikoitz** horrek; bera asebete ondoren ere, ezin du eraman bere anaia gosetuek jatea. Askoren artean

Harrera ona egiteko ohitura hain dago sakon erroturik gure herrialdean, ezen **zikoitzetan zikoitzena** ere ez baita ausartzen bizilege hori urratzen. Jose Morales

Zerbitzu mota horrek ez gintuzke zintzoagoak egingo, onurazaleagoak eta **zikoitzagoak** baizik. Imanol Unzurrunzaga

**2** irud/hed

Zoriaren patrika **zikoitzak** ez zuen niretzat bigarren txanponik gordetzen. Harkaitz Cano

Botere publikoek hizkuntza ahulduei **laguntza** zikoitz eta beldurtia eskaintzen zieten, bake sozialaren mantentzeko doia. Itxaro Borda

Berak analizatzen zituen pertsonalki erraustsak, pazientzia **zikoitzez**, elementu preziatuak (eta apika are ez hain preziatuak) oro ateratzeko. Juan Garzia

Bere gelan biltzen zituen papertxo eta luma-muturretara zuzentzen zuen bere begirada **zikoitza**. Jose Morales

Harengan beroa eta ulermena aurkitzen baititugu, harekin geurekoikeria **zikoitza** pentsaezina baita. Ramon Etxezarreta

Ene amets txiki eta **zikoitza**. Itxaro Borda

Muturreko egoeratan norbere alderik **zikoitzena** azaleratzen da. Harkaitz Cano

Plazer istant **zikoitz** eta minimo hori edozein alutxotan abstraitu ahal izaterainoko hipokrita zela sinetsarazi ote zion bere buruari, kariñoa ukazioaren eta miseriaren babeslekuari ematen zaion beste izena zela sinesten ote zuen? Harkaitz Cano

Espainiako agintariek modu **zikoitzean** jakinarazitako datuen arabera eta nazioarteko hedabidetara iritsitako aldarrikapenen arabera, islamiar jatorriko talde baten ardura litzatekeela Madrilen egindako eraso hori. Berria - Euskal Herria

Izan ere, lurra **zikoitza** da lurra zaila da lurra faltsua da lurra zakarra da. Koldo Izagirre

**3** (adizlagun gisa)

Mendekuan ez gehiegi berotu, ez eta barkatzerakoan **zikoitz** portatu. Imanol Unzurrunzaga

Norberaren sineste propioek, aburuak edozein izanik, ezagutzen ez genituenenganako apalesle, **zikoitz** eta itsu moldatzen gintuzten. Itxaro Borda

**4** (hitz elkartuetan)

Hemendik aurrera **zikoitz**-antza joka heure dontzeila-presentziaz; jarri elkarretaratzeoi prezio garestiagoa mintzaldirako agindu soila baino. Juan Garzia

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
> **oso zikoitza** (3); **zikoitza izan** (3)

---

# zikoizkeria *iz* zikoitzaren bizioa; zikoitzari dagokion egintza. ik**zekenkeria.**

**Zikoizkeria** bizio bat dela, lukurreria delitu bat dela eta diruarekiko gogo bizia gorrotagarria dela. Iñaki Heras

Zekenaren gutizia ez da bere parteaz asetzen, **zikoizkeriak** arima lehortzen dio. Elizen arteko biblia

**Zikoizkeria**, lukurreria eta xuhurkeria bezala, indibidualkeria edo berekoikeria ere nagusi dira egungo gizartean. Iñaki Heras

Baina berez ez zen diruzalea, ez zuen dirua bera maite, ez zegoen **zikoizkeriaren** mende. Jose Morales

«Lantegietako segurtasun neurrien falta, patronalaren **zikoizkeria** eta administrazioen pasibotasuna» gaitzetsi zituzten. Berria - Ekonomia

Haren **zikoizkeria** txerazko hitzak nahiz ferekak eskaintzeko. Ramon Saizarbitoria

Victoriak ezin zuen hori ulertu: sortzaileen **zikoizkeria** hori, beren obra goresteko joera; "katedral gotiko bat suntsitzea nahiago luketenak beren obraren lerro bat ezabatzea baino", gogoratzen dut esan zuela. Ramon Saizarbitoria

Norainoko hutsalkerian, **zikoizkerian**, doilorkerian eror daitekeen gizakia! Jose Morales

Gizatalde guztiek **zikoizkeriarako** edo eskuzabaltasunerako berezko joera dute. Iñaki Heras

---

# zikoizki *adlag* zikoiztasunez.

Gaztetan ez duzu edozein burutazio, asmazio edo imintzio altxor bat bailitzan **zikoizki** zeuretzat gordetzen ibili beharrik. Ramon Saizarbitoria

Bururik ez buztanik ez zuten solasak zerabiltzan denboran, nik, **zikoizki**, ene egoerari pentsatzen nuen. Daniel Landart

---

# zikoiztu, zikoitz/zikoiztu, zikoizten da/du *ad* zikoitz bihurtu.

Florent zuzenbidea amaitua eta hirian ondo kokatua besterik ez zuen ikusi nahi, eta asmo itsu horrek gogortu eta **zikoiztu** egin zuen azkenerako, errukigabe bihurtu zen bere buruarentzat zein besteentzat. Karlos Zabala

Gero eta nabarmenagoa zen etxeko jaunaren zekentasuna; adats latzean distiratsu agertzen hasi zitzaizkion ile urdinak, zeinek, zekentasunaren lagun leialak izaki, **zikoizteari** laguntzen baitzioten. Jose Morales

Hartz jaio hintzen ala bazter-herri honetako bizimoduak, galsoroek eta nekazariekiko harremanek bihurtu haute hartz?, horren guztiaren eraginez **zikoiztu** haiz? Jose Morales

---

zikomotrizitate ik **psikomotrizitate**.

---

# zikoroxta *iz*

Hirulau (edo bosei) hilabete aurretik begia emana eduki du artzainak artaldean, akatsen bategatik haragitako bereiztua; nere ume denboran artantzu aharikoa, **zikoroxta**, alondoa eta holakoak izaten ziren endemas arakaitako. Patziku Perurena

---

# zikuta *iz Cicuta* generoko landareetaik ateratzen den pozoia.

Balio dakiguke Sokratesengatik kontatzen duten erantzun goratsuago batek ere: **zikuta** eman ziotenean, txirula ikasten hasi omen zen. Anjel Lertxundi

Sokrates maitea, ez al duk **zikuta** apur bat niretzat sobratua. Joxerra Garzia

Sokratesek bezain aise esan zezakeen Tales-ek ere; baina ez zuen modu berean igurtziko zangoa presondegian, **zikuta** edan aurretik. Juan Garzia

Laudanoz, **zikutaz** eta azido askorbikoz osatutako nahasketa bitxi bat. Iban Zaldua

---

# zikutarazi, zikutaraz, zikutarazten du *ad* zikuta edanarazi.

Gogoratu beharra dago Sokrates bat **zikutarazi** egin zutela jainko onetsiez bestelako jainkoak sartzeagatik Atenasen. Iñaki Segurola

---

# zila *iz* zilbor hestea.

Horrela, gaitz genetiko sendaezin batekiko immunea den enbrioiak odol bereko gaixo bati laguntzerik izango luke enbrioi immunearen **ziletik** ateratako odol zelulak gaixoari txertatuta. Berria - Euskal Herria

Haren aurpegia nire sabelera heldu zen, **zila** laztandu eta milikatu zidan. Juan Martin Elexpuru

Nire gizonaren hankek gerria inguratu zidaten bi sugek bezala, haren zakilak **zila** mailukatzen zidan, gogorra eta beroa zegoen. Juan Martin Elexpuru

Orgasmoa olatu bero eta zukutsuetan ari zitzaidan etortzen, **zilean** hasten zitzaidan eta nire burmuinetako zokorik ezkutueneraino hedatzen. Juan Martin Elexpuru

Atsegin ziztada bat sentitu nuen **zilean**, guztiz ezustekoa. Juan Martin Elexpuru

Gure **zilari** begira bizi gara oraindik. Berria - Kultura

---

# zilar 1 *iz* gai bakuna, metal zuri distiratsua, malgua eta hedakorra, diruak eta bitxiak egiteko oso erabilia *(Ag;* at. z. 47).

Tartesosera iritsi ziren feniziarrek hainbeste **zilar** aurkitu zuten han. Iñaki Iñurrieta

Jaunaren etxera eraman zituen bere aitak eta berak eginiko eskaintzak: **zilarra**, urrea eta ontziak. Elizen arteko biblia

Gatzari ez zaiok harrik egiten, **zilarra** ere ez duk galtzen, ez al dakik hainbeste? Anjel Lertxundi

**Zilarrak**, metal gisa, balio bat du beste merkantzia guztiek bezala; eta balio bat du, halaber, beste merkantzien zeinu izan daitekeen aldetik. Iñaki Iñurrieta

Urregileak **zilar** gainera urrea isurtzen duenean bezala. Juan Kruz Igerabide

Hirurehun bat kilo **zilar** utzi nituen, zaku batzuetan gordeta, bahi gisa. Jose Antonio Mujika

Nik ehundaka tona **zilar** emango diet ogasuneko zerbitzariei, errege-gordailura eraman dezaten. Jose Antonio Mujika

Ez daukat ez **zilarrik**, ez urrerik. Askoren artean

Oso **zilar** gutxi daukate txanpon horiek. Anjel Lertxundi

**Zilarrak**, diru gisa, printzeak batzuetan finka dezakeen baina beste batzuetan finkatu ezin duen balio bat du. Iñaki Iñurrieta

Lehen gerra punikoa baino lehen, **zilarrak** kobreak baino 960 bider gehiago balio zuen. Iñaki Iñurrieta

Laster, pertsona gutxiagok izan zuten **zilarraren** beharra; gauza guztien prezioak gora egin zuen, eta **zilarrarenak** behera. Iñaki Iñurrieta

Meategiak zeuden mendiei **zilarrezko** mendiak esaten zieten. Iñaki Iñurrieta

Idi basati baten adarra, **zilarrarekin** apaindua. Agustin Otsoa

Anduingo urak **zilarraren** distira hartu zuen. Agustin Otsoa

**Zilarra** bezain zurbil zeuzkan masailak. Anjel Lertxundi

Frantziskok urrea baino hobea den jakinduria lortu nahi zuen, **zilarra** baino baliotsuagoa den zuhurtzia. Askoren artean

**Zilarra** bezain garbia, eta palmondo gazte baten enborra bezain sendo eta lerdena. Patxi Zubizarreta

Orain sakeletan urre eta **zilarrezko** txanponen hotsa zeukanez, prest zegoen ahal zituen txokolate-barratxo guztiak erosteko. Iñaki Mendiguren

Hamaiketakoa biltzeko **zilarrezko** paperarekin inprobisaturiko pilota. Harkaitz Cano

**Zilarrezko** ixtekoa zuen diru-zorroa atera eta *Belfasteko oparia* hitzak irakurri zituen berriz ere. Irene Aldasoro

Hilkutxa distiratsua zuen, **zilarrezko** giderrekikoa, eta lorez lepo zegoen apainduta. Mirentxu Larrañaga

**Zilarrezko** hamaika sickle eta brontzezko zazpi knut ordaindu zizkion emakumeari. Iñaki Mendiguren

Pesquerak **zilarrezko** domina lortu zuen bikotekako boccian, Jose Manuel Rodriguez espainiarrarekin batera. Berria - Kirola

*ik beherago* 7. Askoren artean

Zergatik ostu diozue nire nagusiari kopa **zilarrezkoa**, edateko eta etorkizuna iragartzeko erabiltzen duena? Jose Antonio Mujika

Argi-mutil batzuk zeuden, **zilarrezkoak**, argiaren eraginaz dir-dir egiten zutenak. Joan Mari Irigoien

Enrike III.ak hamalau mila marko **zilarrezko** atera zizkion Aaron-i, York-eko judu bati. Iñaki Iñurrieta

**2** (izenondo eta izenlagunekin)

**Zilar** zuriaren antzeko zerbait, egundokoa, atera zen makila magikoaren muturretik. Iñaki Mendiguren

**Zilar** trinkozko mahai-tresnaren bat, haren inizialez zigilatua. Juan Garzia

Izokina, **zilar** landua iduri, ezkatak metal leunduan gubilez joka eginda dauzkana. Karlos Zabala

Nakarezko ahokoa eta **zilar** landuz apaindutako bi pipa eder. Agustin Otsoa

Behin ere baino xaloago, zigarro bat eskaini zidan, **zilar** nikelatuzko tabakontzi trinko batetik. Matías Múgica

**3** (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

**Zilar** nitratozko soluzio baten tantatxo batekin ukitu nuen jalkina. Juan Garzia

**Zilar** bromurozko emultsioa. Juan Garzia

Betis ibaiaren iturburuan zeuden **zilar**-meategietan berrogei mila gizonek egiten zuten lan. Iñaki Iñurrieta

**Zilar** tanta baten antzekoa zen. Anton Garikano

Azkenik berarengana ekarri zuen veneziarra, urre eta **zilar** piezak erakutsiz, planoekin batera. Felipe Juaristi

**Zilar** lingote bat zen, aise 300 libera balio zuena. Juan Garzia

Munduan den urre- eta **zilar**-masa bertan diren salerosgaiekin konparatzen badugu, [...]. Iñaki Iñurrieta

Urre-masa batek pisu bereko **zilar**-masa batekin bolumenean duen diferentzia. Santiago Iruretagoiena

Hortik atera zuen ezen kopuru jakin bateko **zilar**-pisuari ur-neurri jakin bat zegokiola. Santiago Iruretagoiena

Sinetsita nago haien artean txanponen balioa handitu izanaren arrazoi bat, hots, kobrezko txanpona ateratzearena, **zilar**-eskasia izan zela. Iñaki Iñurrieta

Boggarta **zilar**-tankerako esfera bihurtuta zegoen berriro. Iñaki Mendiguren

**Zilar**-itxurako eskailera bat jaitsi zen Harryren oinetaraino. Iñaki Mendiguren

Poltsatik diru-zorro bat atera zuen, **zilar** monedaz betea. Matías Mujika

Perlaz aberastutako **zilar**-soka distiratsuak buelta osoan. Felipe Juaristi

Sofik bizia emanen luke zure **zilar**-harien pareko ileengatik. Fernando Rey

**Zilar**-kizkur mehe bat atera zitzaion makila magikotik eta lainoa bezala goratu zen bere aurrean. Iñaki Mendiguren

Beiraren baten ñirñir iheskorrak olatu baten **zilar** distira argitzen zuen. Karlos Zabala

Beste ertzean, **zilar**-distira txiki batzuk ikusten zituen. Iñaki Mendiguren

Ñirñirdunak, **zilar**-oihalezkoak eta urre-oihalezkoak. Juan Garzia

**Zilar**-paperean bildu ditut eta kanpotik berdin-berdinak ematen dute, baina barrukoa diferentea dute hirurek. Xabier Mendiguren Elizegi

**4** (elkarketa kopulatiboetan)

Kartagotarrek, urre-**zilarren** merkataritzan nagusi, berunaren eta eztainuaren merkataritzan ere nagusi izan nahi zuten. Iñaki Iñurrieta

Arabiarrek aberastasun handiak zituzten [...] eta, gutxi erosten eta asko saltzen zutenez, auzokoen urre-**zilarrez** jabetzen ziren. Iñaki Iñurrieta

Lehenengotan lan hauetarako, brontze indartsua eta gogorra bezala, urre-**zilarrekin** ere saiatu ziren, baina alferrik. Xabier Amuriza

Loraldi handia izan zuen orduan Varanasik eta urre-**zilarrak** uholdeka etorri zitzaizkion. Gotzon Garate

**5** irud/hed

Enekoten **zilarraren** usainera, medikuak agertu ziren berriz ere. Aingeru Epaltza

Ilargiaren dirdirak aspaldi galdua baitzuen bere **zilarra**, hodei sabel-astun baten atzean ezkutatu zenetik. Anjel Lertxundi

Septima bizi zeneko itsas etxean, Mediterraneoaren zerrenda **zilarrezkoa** hiltzen entzuten zen. Juan Garzia

Hitza **zilarrezkoa** bada, isiltasuna urrezkoa da. Patxi Zubizarreta

Urrezkoa, **zilarrezkoa** duzu bihotza! Jose Morales

Sartu orduko **zilarrezko** begiak zituen beltzaranari keinu egin nion gertura zedin. Jasone Osoro

Ilea **zilarrezko** azazkalekin harrotzen zuen. Jasone Osoro

· Aspaldiko partez, **zilarrezko** mailako derbi bat jokatuko da gaur, Mendizorrotzan. Berria - Kirola

**6** (izenondo gisa)

Loraategi erdian iturri bat zegoen, ur gardena, ur **zilarra**, ur argia zeriona. Felipe Juaristi

Elbiraren begietako ur uherrak berriro egin ziren ur **zilar**, ur garden. Joan Mari Irigoien

Amesgaizto hark berehala uhertuko zituen ene sinestearen ur **zilarrak**. Joan Mari Irigoien

Errapeak goseti murtxatzen zizkieten suge **zilar** sotilak tegietan sartzean ardi gaixoak. Itxaro Borda

Ezpata **zilarraren** pare. Itxaro Borda

Nork zekien goizetan, begiak **zilar** eta idor ohetik ateratzean, egunak zer ekarriko zion? Itxaro Borda

Atorra bila aritu zen pixka batez, eta azkenik, txanpon **zilar** batzuekin batera, ohepean aurkitu. Felipe Juaristi

Orain **zilar** eta hits zuen ilea. Matías Múgica

Zerrautsaren hori marroixka, belazearen berdea, zuhaitzetako osto horikailduak, erreka **zilarra**... Pablo Sastre

**7** olinpiar joko edo kidekoetako zilarreko domina.

11 domina lortu dituzte guztira (bost urre, bost **zilar** eta brontze bat), orain lau urte Sydneyn lortutakoak baino bat gutxiago. Berria - Kirola

Sidneyn pisu jaurtiketan **zilarra** lortu zuen, eta diskoarekin laugarren sailkatu zen. Berria - Kirola

Azken unean, ordea, onenak helmugaratu ziren, eta onenek eskuratu zituzten lehen hiru postuak: Vinokourovek brontzea, Richek **zilarra** eta Rogersek urrea. Berria - Kirola

Eneko Llanos gasteiztarrak **zilarra** irabazi du Europako Txapelketan. Berria - Kirola

Arantxa Ramosek bigarren urrea irabazi du, eta Ivan Agirrek **zilarra** eskuratu du. Berria - Kirola

Igerilari donostiarrak **zilarra** jantzi zuen S4 mailako 200 metrokoan. Berria - Kirola

Hospentzat izan zen **zilarra**, eta Marlies Schild haren herrikidearentzat brontzea. Berria - Kirola

Mendiak ezin izan zuen Ruth Beitia aurkari eta laguna gainditu eta **zilarrarekin** konformatu behar izan zuen. Berria - Kirola

**8** ***ontza zilar*** metal preziatuen pisu banakoa 13,103 gramo zilarren baliokidea.

Hala, 1980tik lortutako mailarik handiena iritsi zuen, 618,90 dolar; eta **ontza zilarrak**, 1983az geroztik lortutakorik handiena, 13,70 dolar, alegia. Berria - Harian

**9** ***ontzako zilar*** diru zaharra, zilarrezkoa.

Txanpon bakar bat ematen didanari, ehun **ontzako zilar** emango dizkiot. Askoren artean

**10** ***zilar kolore*** *iz* zilarraren kolorea.

Une berean, zintzilikario berdeak gorrimin bihurtu ziren eta **zilar-kolorea** urre-kolore; Senar-emazte adindu batzuk ikusi nituen **zilar kolorez** jantzitako neskato elbarri bati beso banatatik heltzen ziotela. Iñaki Mendiguren

Orduan, **zilar-kolore** argiko esfera bat ikusi zuten airean zintzilika. Iñaki Mendiguren

Beste ertzean zuhaitzen artetik hauteman daitekeen **zilar kolore** arineko aldatsari erreparatu dio. Pello Lizarralde

Lore sortek itzal egiten zieten batzuek besteei, odol zetaken pare, eta eztiro zurbiltzen ziren, **zilar kolore** gris leun-leunez margoturik. Karlos Zabala

· Bosgarren diskoak (Oihuka) gris-**zilar kolorea** hartu du, beste izenburu baten beharrik gabe. Berria - Kultura

**10a** ***zilar koloreko*** *(orobat* ***zilarkoloreko*** *g.er.) izlag*

Bere ahots keak urratuarekin eta ñirñirka ari zitzaion **zilar koloreko** soinekoarekin. Oskar Arana

Iraila urre koloreko egunekin eta **zilar koloreko** gauekin iritsi zen. Agustin Otsoa

Gorriak, berdeak, beltzak, zuriak; eta pare bat, takoidunak, **zilar kolorekoak**. Juan Kruz Igerabide

Txirla-katilu **zilar-kolorekotik** irteten zen lurrina lanpararen pantailaren erlantz arrosaren inguruan kiribiltzen zen. Lopez de Arana

· Pianoa zegoen gelako alfonbra lodia eta biguna zen; **zilar** distiratsu **koloreko** arrosez apaindurik. Lopez de Arana

**11** ***zilar-kolore*** *izond*

Urki **zilar kolore** bat hor, azalean eguzkiaren argia islatuz. Oskar Arana

Haratxeago aldendu nintzen lau hankan, eta berriz zapatatxo **zilar-kolorea** topatu nuen. Fernando Rey

Zatapatxo **zilar-koloreari** esker orientatzen nintzen, faro bat zen nire gaztetako nahasmenduan. Fernando Rey

Ortzadar amuarraina zegoen gehienbat, amuarrain arruntak eta Dolly Varden motako batzuk mendi handietako erreka batzuetan, eta **zilar-koloreak** Blue Lake eta Rimrock Lake aintziretan. Koro Navarro

Ilargiaren argitan **zilar-kolorea** zuen ilea. Koro Navarro

**12** ***zilar paper*** *(orobat* ***zilarpaper*** *g.er.)* aluminiozko xafla mehe-mehea.

**Zilar-paperean** bildu ditut eta kanpotik berdin-berdinak ematen dute. Xabier Mendiguren Elizegi

Gu hobeak ginen gure **zilarpaperean** . Harkaitz Cano

Pospolo kaxa batean sartu dut, **zilar paperez** estali, eta, akaberan, uretan pausatu dut, nire ontziaren uharan. Patxi Zubizarreta

Bekokian, ile artean kartoizko izar handi bana jarri zuten, txokolatearen **zilar paperez** egonarri handiz bilduak. Josu Zabaleta

Koloretako bonbillatxoak, goroldioa, ibaia zahor edo elgorriaga txokolateko **zilar paperezkoa** , igeltsuzko etxetxoak, artzainena ardiekin, sehaskan Jesus, eta Maria eta Jose, eta idia, eta astoa. Joseba Sarrionandia

**13** ***zilarrezko eztei*** *pl* ezkontza egunetik hogeita bost urte betetzen diren eguna.

Bakardadean bigarren haurdunaldi bat ospatu, **zilarrezko ezteiak** ospatzen dituenak bezala. Harkaitz Cano

Ez zen denbora luzea **zilarrezko ezteiak** ospatu zituela eta senarrarekiko intimitatea berritu zuela. Irene Aldasoro

Javier Cameno batez ere Koru Astearekin dago arduratuta, bi urte barru **zilarrezko ezteiak** bete behar zituelako. Berria - Kultura

**Zilarrezko ezteiak** behar bezala ospatzeko, talde txuri-urdinak omenaldia egingo die gaur lehen Liga hori irabazi zutenei. Berria - Kirola

Geure eguneroko bizitzako gertakari kimikoak elkarri kontatuz ospatuko ditugu Kimikarekiko geure **zilarrezko ezteiak** . Juan Garzia

**Zilarrezko ezteien** ordez, dibortzioa. Berria - Euskal Herria

**hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**

**berrogei tonelada zilar** (3); **duro zilar** (3); **hamar kilo zilar** (4); **kilo zilar** (24); **kilo zilar utzi** (3); **mila kilo zilar** (9); **tonelada zilar** (8); **urre eta zilar** (25); **zapatatxo zilar** (4); **zazpiehun kilo zilar** (3); **zenbat zilar** (5)

**zilar asko** (3); **zilar bat** (11); **zilar distira** (4); **zilar edo urrerik** (3); **zilar eman** (5); **zilar emango** (6); **zilar eta brontze** (6); **zilar eta urre** (12); **zilar eta urreak** (4); **zilar eta urrezko** (5); **zilar gehiago** (3); **zilar guztia** (4); **zilar itxurako** (10); **zilar kantitate** (3); **zilar kolore** (6); **zilar kolorea** (4); **zilar koloreko** (49); **zilar koloreko ilea** (4); **zilar kolorekoa** (5); **zilar kolorez** (4); **zilar masa** (3); **zilar paperez** (4)

**zilarrezkoek zenbat zilar** (3)

**lurralde zilarra** (5); **salomon erregeak zilarra** (3); **urre eta zilarra** (3); **urrea eta zilarra** (34)

**zilarra baino** (5); **zilarra bezain** (7); **zilarra bezala** (3); **zilarra edo brontzea** (3); **zilarra ekartzen** (3); **zilarra eta brontzea** (5); **zilarra eta urrea** (13); **zilarra irabazi** (7); **zilarra irabazi zuen** (4); **zilarra lortu** (4)

**urre zilarrak** (9); **urreak eta zilarrak** (4)

**zilarrarekin konformatu behar** (6)

**urrearen eta zilarraren** (4); **zilarraren erdia** (3)

**urrez eta zilarrez** (13); **zilarrez estaliriko** (5); **zilarrez estaliriko zurezko** (3)

**urre eta zilarrezko** (13); **urrezko eta zilarrezko** (26)

**zilarrezko adarra** (4); **zilarrezko azpil** (3); **zilarrezko bat** (6); **zilarrezko baxera** (4); **zilarrezko berrogei** (5); **zilarrezko berrogei oin** (4); **zilarrezko berrogeita hamar** (4); **zilarrezko bi** (14); **zilarrezko bost** (5); **zilarrezko domina** (30); **zilarrezko domina irabazi** (6); **zilarrezko domina lortu** (6)

**zilarrezko eraztun** (9); **zilarrezko eraztun bat** (3); **zilarrezko erretilu** (8); **zilarrezko erretilu batean** (3); **zilarrezko eta brontzezko** (12); **zilarrezko eta urrezko** (7); **zilarrezko euskadi saria** (4); **zilarrezko ezpata** (4); **zilarrezko ezteiak** (7); **zilarrezko fipa** (3); **zilarrezko gehitu saria** (3); **zilarrezko gurutze** (5); **zilarrezko hamar txanpon** (3); **zilarrezko hartza** (4); **zilarrezko hirurehun txanpon** (3); **zilarrezko hogeita hamar** (5)

**zilarrezko izarra** (3); **zilarrezko koilara** (3); **zilarrezko kopa** (4); **zilarrezko kutxa** (3); **zilarrezko laurehun txanpon** (3); **zilarrezko mahai** (4); **zilarrezko mailako** (3); **zilarrezko mailan** (8); **zilarrezko medaila** (4); **zilarrezko melies** (4); **zilarrezko mila txanpon** (4)

**zilarrezko ontzi** (7); **zilarrezko ontziak** (8); **zilarrezko paper** (4); **zilarrezko paperean** (4); **zilarrezko plaka** (3); **zilarrezko q** (4); **zilarrezko saria** (7); **zilarrezko tutua** (4); **zilarrezko txanpon** (18); **zilarrezko txanpon bana** (3); **zilarrezko txanpon bat** (3); **zilarrezko txanpona** (5); **zilarrezko txanponak** (4)

**hitza zilarrezkoa bada** (3)

**eta ziriak zilarrezkoak** (4); **zilarrezkoak bailiran** (3); **zilarrezkoak ziren** (6); **zilarrezkoak ziruditen** (3)

**urre eta zilarrezkoek** (3); **zilarrezkoek zenbat zilar** (3)

---

# zilarbizi

**1** *iz* gai bakuna, metal zilarkara, ohiko tenperaturan isurkari dena *(Hg;* at. z. 80). ik **merkurio**.

Izan ere, Rudolf II.a berunetik, **zilarbizitik** edo burdinatik urrea egitearekin obsesionaturik zegoen. J.M. Olaizola "Txiliku"

**Zilarbizia** tantatxotan sublimatzea. Juan Garzia

Minioak, **zilarbizia** kendu zaiolako, bere propietate naturalak galdu dituenean, [...]. Santiago Iruretagoiena

**Zilarbizia** balitz bezala, eskuetatik ihesi joaten da, arin eta samur. Felipe Juaristi

**Zilarbizirik** gabeko beira batek bidea itxiko balit, buruz buru joko nuke, gelan sartu eta burua beira kontra hausten duen txoriak bezala. Josu Zabaleta

Hogei kanoi, **zilarbizia** baino distiratsuagoak hogeiak, heriotza-emaile gotorrak. Felipe Juaristi

Kateatxo bat kendu du lepotik, brontzezko gurutze bat zeukana, [...] Hendrikek istileko **zilarbizitara** bota du gurutzea, eta azalean igeri geratu da. Juan Garzia

Argi trebes eta mugikor bat zuen begietan, **zilarbiziarena** berarena bezalakoa. Juan Garzia

Eduardo Gerra burusoila, **Zilarbizi** ezizenez ezagunagoa, ilargi zuritan haren buruak **zilarbiziak** bezala egiten baitzuen distira. Felipe Juaristi

**2** (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

Ez zuen aurkitu, egun Fort Providence eraikirik dagoeneko dunetan, hondarretan barrena isurtzen ziren **zilarbizi** -tanta barreiatu batzuk besterik. Lurretik ateratzen denean, burdinezko erreminten kolpez **zilarbizi** -malko ugariak ateratzen zaizkio. Juan Garzia

Asentamendua antzinako **zilarbizi** meategi baten gainean zegoen. Berria - Gaiak

---

# zilargin

**1** *iz* zilarra lantzen duen pertsona.

Zurezko idoloa metalez jantzia egin zuen **zilarginak** , eta Mikaren etxean ezarri zuten. Elizen arteko biblia

Kendu zilarrari hondakinak eta ontzia egingo du **zilarginak** . Elizen arteko biblia

Zizelkatu bi harrietan Israelgo leinuen izenak, **zilarginak** zigiluak zizelkatzen dituen eran. Elizen arteko biblia

"Idoloak artisauek eta **zilarginek** landuak dira. Elizen arteko biblia

Entzun ezazu gai honen azalpena: *Ma-kiyyôt* zizelaturiko saretxo batzuk dira, zilotxo mehez beteak, **zilarginen** lanen irudikoak. Xabier Kintana

Eta ez al zetorkigun bizitza, egina eta erabakia bezala [...] halako moldez, non zurginaren semea zurgin izanen baitzen ezinbertzean, **zilarginarena zilargin** , eta zapataginarena zapatagin? Joan Mari Irigoien

**2** (hitz elkartuetan)

Mende bat zeraman ia Amsterdamen, Portugaleko Aveirotik etorria, sorterrian Matias de Castro izenaz gainera, **zilargin** lantegi txiki bat utzi ondoren. Felipe Juaristi

Harribitxiak zituen zigiluen erara zizelkatuak, urrezko begietan sartuak, -benetako **zilargin** -lana -. Elizen arteko biblia

---

# zilargintza

*iz* zilarra lantzeko antzea eta lanbidea.

Urre eta **zilargintzatik** egin dut ene bizia. Herria

## **zilarkara** 1 *izond* zilarraren itxura duena.

Kate **zilarkara** batek uztaitzen zion eskuineko txorkatila. Aingeru Epaltza

Bizkor igarotzen ziren bidaiarien albotik aihenak, urki meheak eta makal **zilarkarak**. Jose Morales

Ibaian arrain ugari egoten da: zarboak, tenkak, lutxo jatunak, karpa **zilarkarak**, perka hegalgorriak. Koldo Biguri

Atera zen eguzkia, ireki ziren hodei **zilarkarak** eta lanbro distiratsua pausatu zen elurraren gainean. Fernando Rey

Milaka kiloka botatzen den harritza alferrari atxikiriko metal **zilarkara** noblezko bi kiloen xarma. Juan Garzia

Astra bat, 7,62 mm, zazpi tiro, ipurdi **zilarkara**. Aingeru Epaltza

Mahai gainetik bere poltsa hartu [...] zabaldu eta txanpon **zilarkara** bat atera zuen hatz luzeen artean. Alberto Ladron Arana

Urdin **zilarkara** zen Yvan, ahoa luzea eta aldi berean azkarra eta fina zuen, eta muturra tinkoa, sendoa eta dotorea. Joxan Elosegi

Azala zuri **zilarkara** zen. Juan Garzia

Jaka gurutzatu gris **zilarkara** bat. Jon Muñoz

Berdea zen itsasoa ordurako, nahiz eta eguzkiak **zilarkara** bihurtu zeruarekin topo egiten zuen aldean. Xabier Montoia

**2** (hitz elkartuetan)

Hurbileko adar batean, Mamaguênaren aurrez aurre, ara urdin txiki buru-**zilarkara** bikain batek goxo-goxo begiratzen zion Mamaguênari. Jon Muñoz

---

## **zilarkaradun** *izond* zilarkarakoa.

Nire lagunak hiru ordu lehenago niri erakutsitako pistola ipurdi **zilarkaradunak** ikusmiran zuen morroi zurbildua. Aingeru Epaltza

Hortxe geratzen zen hura niri udaberri-loreak erostera, udaberri-loretxo horiak, sorta batean pila-pila eginda eta hosto-azpi **zilarkaradunez** inguratuta, txukun-txukun, berri eta samur. Mirentxu Larrañaga

---

## zilarkoloreko ik **zilar 10a**.

---

## zilarpaper ik **zilar 12**.

---

## **zilarreria** *iz* zilarrezko gauzakien multzoa, eskuarki zilarrezko baxera.

Nire **zilarreria** ipini nuen mantel batean. Jokin Urain

Goizeko seiak aldean, zerbait ezaguturik, egin diote etxe-miatzea, eta bigarren bisita batean ere kokaina, **zilarreria**, paper faltsu eta holakoak haxeman dizkiote. Herria

Mahaia prestatzen ari zen afarirako eta gurasoen arreoko **zilarreriaren** piezei banan-banan distira ateratzen. Anjel Lertxundi

Orain badut nire zamau zuria, eta kristaleria, eta **zilarreria**, baina izokinak eta orkatz solomo-zerrak beranduegi iritsi dira. Eskarne Mujika

Mahaiaren gainean ontzi bat iratze landare batekin, **zilarreria** bere kaxan sartuta eta disko-jogailu bat. Koro Navarro

**Zilarreriaren** tiradera zabaldu eta barruko gauzak miatu zituen. Koro Navarro

Iluntzero, Cruger jauna Wilmarth andereñoa baino lehenago iristen zen jangelara eta ezkor samar begiratzen zien **zilarreriari** eta kandelen sugarrari, harik eta andereñoa agertzen zen arte. Mirentxu Larrañaga

---

## **zilarreztatu**, zilarrezta, zilarreztatzen **1** du *ad* zilarrezko geruza batez estali.

Mara-mara ari zen argia itsasgaina **zilarreztatuz**. Anjel Lertxundi

Hudson ibaia ikusten zen, arrastiriak **zilarreztaturik**, bai eta Manhattango etxeek eratzen zuten itsas-labar zuria ere. Lopez de Arana

Kasete aparatuaren ondoan Arantzazuko Ama Birjinaren irudia, **zilarreztaturiko** domina biribil bat. Joxemari Iturralde

Maiatzak esmalteztatu, urreztatu eta **zilarreztatutako** kaleetan zehar. Lopez de Arana

**2** irud/hed

Bizkarra **zilarreztatzen** hasitako gorila erraldoi batek burua jaso du. Pako Aristi

Egunaren argia moteltzen joan ahala distira gehixeagoz **zilarreztatu** zituen olatu zakarrak. Anton Garikano

**3** (era burutua izenondo gisa)

Soingaineko urdin bat zeraman, botoi **zilarreztatuak** zituena. Ilea apur bat lehortu zuenean, errebolber **zilarreztatua** trapu batekin igurtzitzen hasi zen. Fernando Rey

Ertz **zilarreztatuak** zituen maleta beltz gainindartua. Harkaitz Cano

Bere zorro **zilarreztatutik** agenda bat atera zuen, gainetik irakurri eta oharrak hartu zituen arkatz **zilarreztatu** batez. Lopez de Arana

Kamara frigorifiko **zilarreztatu** eta aseptikoak han eta hemen, haragi fresko eta hilberria ezkutatuz. Harkaitz Cano

**Urre** zilarreztatua balitz bezala. Piarres Xarriton

Txanpona ahulagotuz joan zen, eta Galianoren garaian kobre **zilarreztatua** besterik ez zen ikusten. Iñaki Iñurrieta

Koilara txiki **zilarreztatuak**, beluseko kutxatilatik oraino atera gabeak. Joxan Elosegi

Burdinbidearen makal **zilarreztatuetako** txantxangorrien auhenak. Lopez de Arana

Zeru **zilarreztatu** ilunaren azpian ibairantz zihoazen, kale arrean harrotua zen haize hareatsuari aurre eginez. Lopez de Arana

**4** (hitz elkarttuetan bigarren osagai gisa, elkarketak izenondo balioa duela)

Dragoi bat ikusi zuen, ezkatez estalia eta guztiz harrigarria, agerian suzko mingaina, urrezko jauregi lur-**zilarreztatu** baten aurrean zaindari. Koro Navarro

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
> ertz zilarreztatuak zituen (3)

---

## **zilarreztatudun** *izlag* zilarreztaturiko.

Aiztoek eta sardexkek pantaila gorri eta **zilarreztatudun** sei kandelaren argitan apalik dir-dir egiten zuten. Lopez de Arana

---

## **zilartsu** *izond* zilarraren distira duena.

Argi **zilartsu** bat sartzen zen hondoko leiho txikitik, itsasoko gau-ardora **zilartsuaren** distiraz baitzeuden bertako kristalak. Anjel Lertxundi

Orain erreka **zilartsu** bat dago Mari Mistela galdu zen lekuan. Anjel Lertxundi

Zaparrada urdin **zilartsu** baten azpian. Anton Garikano

Ilargiaren errainu **zilartsuak** ardora zirudien itsasgainean. Anjel Lertxundi

Ikusmirari bizkarra eman eta lantza itxurako landare berde **zilartsuen** bidean gora abiatu ziren, besotik helduta. Anton Garikano

Alkohol gehiegiak eragindako dirdai **zilartsua** dute haren begi estrabikoek. Anjel Lertxundi

Neskaren azaleko zurbiltasun **zilartsua** ez zen arroz-hautsez estaliriko masailetako muxika-biloxkarena. Anjel Lertxundi

Terraza batean gaude, itsasoa etxe artean ikusten dugula, **zilartsu** ilargipean. Anjel Lertxundi

---

**zilartu**, zilar(tu), zilartzen da/du *ad* zilarraren distira hartu edo eman.

Egunsentiko argi berriak guztiz **zilartuta** zeukan itsasgaina eta haize batere zakarkeriarik gabeak etengabeko distira jolasti baten irriñoa eragiten zion urari. Anjel Lertxundi

Biek maite zuten Iraila erleen koroa duelako, zeruaren urdina **zilartu** egiten delako eta, nahiz Ortezen nahiz Outeiro de Reien, Irailean, gureizak mahastietan entzuten direlako. Berria - Kultura

Izerdiak **zilartuak** zituen mazelak eta kopeta. Aingeru Epaltza

Izerdiaren distiraz **zilarturik** zeukan bular aldea. Anjel Lertxundi

---

**zilarzuri** *iz adkor* zilarra. ik **urregorri**.

Ezin sinetsi zuen munduan bazenik hiririk urregorrizko kupuladun elizak eta **zilarzurizko** teilatudun jauregiak zituenik. Eta ez edozein hiri, zegoen tokitik nabariak baitziren elizetako kupula urregorrizkoak, jauregietako teilatu **zilarzurizkoak**. Felipe Juaristi

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
> zilarzurizko teilatudun jauregiak (3)

---

zilatu ik **zulatu**.

---

zilatzaile ik **zulatzaile**.

---

**zilbiar** *izond* Efeseko Zilbiakoa, Zilbiari dagokiona.

Esaten da efesotarren lur **zilbiarretan** aurkitu zela lehenengo. Santiago Iruretagoiena

---

**zilbor** *iz* **1** ugaztunen sabelaren erdialdeko orbain biribila, zulo edo irtengune txiki bat eratzen duena, jaio arte amari lotzen dion hestea ebakitzean sortua. ik **zila**.

Ellak oihal zerrenda batez bildu zuen estu-estu haurraren **zilborra**. Anton Garikano

Errebolberra esku artean zeukan eta jostari erabiltzen zuen, kargatu eta Patakiren kokotsetik **zilborreraino** eramanez. Harkaitz Cano

Zure **zilborrak** kikara biribil bat dirudi, sekula edari beharrik ez baitu; zure sabelak gari-multzo bat dirudi, liliz inguratua. Lopez de Arana

**Zilborrean** egiten zion muin irekitako lore bat ematen zuela esanez. Bego Montorio

Jauzikaldi existentzialista haiek, nor bere **zilborrarentzat** dantzaka, nor bere imintzioak eraginka, nor bere hankak bihurrika. Joxe Austin Arrieta

Ahoa jaitsi zuen titietatik **zilborrera** eta **zilborretik** hor behera azkenerako, eta orduan galdu nuen kontrola eta burua estutu nion nire izterren artean. Karlos Zabala

Ohartu orduko Idoiak odoletan dauka **zilborra**, eta azkazala odol lehorrez zikindurik. Eider Rodriguez

Maite zuen kontatuko zion musuen bitartez eta astiro-astiro laztanduko zuen, **zilborrean** putz eginez. Jasone Osoro

Izara **zilborreraino** jaitsi zion eta Mentxuren bular artean pausatu zuen burua Fonsecak. Josu Landa

Gordeta duen labana atera eta **zilborretik** sartu dio Ferraguti. Martin Anso

Minutu bat eman du horrela, **zilborrari** begira, norabide hartan putz egiten; *ik beherago* 4. Eider Rodriguez

**Zilborra** da gorputzaren erdigune naturala. Santiago Iruretagoiena

Gizakia jarriz gero ahoz gora, besoak eta hankak ondo luzatuta, eta konpasaren erdia **zilborraren** gainean jarriz zirkunferentzia egingo bagenu, lerro horrek eskuetako eta oinetako hatzak ukituko lituzke. Santiago Iruretagoiena

Jauzikaldi existentzialista haiek, nor bere **zilborrarentzat** dantzaka, nor bere imintzioak eraginka, nor bere hankak bihurrika. Joxe Austin Arrieta

Gizakiok dena gure **zilborraren** biran dabilela uste dugunez, maitasunez hiltzen direla sinetsi nahi dugu. J.M. Olaizola "Txiliku"

**Zilbor** inguruko ileak ardiaren sabelekoak baino leunagoak ziren. Karlos Zabala

Gizakia jarriz gero ahoz gora, besoak eta hankak ondo luzatuta, eta konpasaren erdia **zilborraren** gainean jarriz zirkunferentzia egingo bagenu, lerro horrek eskuetako eta oinetako hatzak ukituko lituzke. Santiago Iruretagoiena

**2** irud/hed

Jaun-andreok, nire hitzen zintzotasuna da, elkar ezagutzen dugunetik, zuekin izan dudan **zilbor**-lotura bakarra. Anjel Lertxundi

**3** *adkor* erdigunea.

Toki konkretu bezala, Afrika («ama kontinentea, munduaren **zilborra**», Zumetak dioen bezala). Berria - Kultura

Askotan, gainera, pentsatzen genuen munduaren **zilborra** ginela. Pako Aristi

Munduaren **zilborrean** dagoela munduaren ardatza ere, hor Konstiko plazan, hori ziok testuak. Iñaki Iñurrieta

Munduaren **zilbortzat** zuten gehienek nork bere burua, eta gizadiaren historiako monumentu garrantzitsu eta funtsezkotzat nork bere lana. Juan Luis Zabala

Donostiaren indargune sekretuan; azar objektiboaren erdigune geometrikoan; onfalosean, Lurraren **zilborrean**. Iñaki Iñurrieta

Egia da familia babesleku bat zela enetzat baina ez bakardade leku bat edo **zilborrean** mugitzeko espazio bat. Ana Urkiza

**Zilbor** politikoa, non? Berria - Euskal Herria

**4** ***zilbor heste*** (*orobat* ***zilborreste***) karena eta umekia lotzen dituen heste modukoa, jaiotzean ebakitzen dena.

Umeak umetokian ezin du **zilbor-hesterik** gabe bizi eta jaiotakoan, berriz, **zilbor-hestea** eten behar zaio itoko ez bada. Anjel Lertxundi

Jaio zinen egunean, ez zizuten **zilborrestea** ebaki, ez zintuzten uretan garbitu. Elizen arteko biblia

Esnatu zenean, bakarrik bere ziegan, **zilbor-hestetik** tira eginda, bere *wawa* (haurra) bereganatu zuen. Pablo Sastre

Erditu berria zen ama kartzelan, eta borreroak **zilbor-hestea** aprobetxatu zuen. Karlos Linazasoro

Hari bidez datorkio bizia, haur jaio berriari **zilbor-hestetik** nola. Joxerra Garzia

**Zilbor-hestea** bezain beharrezkoa den kautxuzko hodi batek lotzen nau hegazkinera. Josu Zabaleta

Gauza jakina da **zilbor-hesteko** odolean zelula amak daudela. Berria - Gaiak

**Zilbor-hestea** ama-zelula hematopoietikoen (odol-zelulen) sorburuetako bat da. Berria - Gaiak

Umea jaiotzen denean haren **zilbor-hesteko** odoletik zelulak hartu, izoztu eta gorde. Berria - Gaiak

**Zilbor-hesteko** odoleko zelulak ere bizkarrezur muineko transplanteetarako egokiak zirela ikusi zenean, **zilbor hesteetatik** erauzitako zelulak ere erregistro horretan sartzea erabaki zen. Berria - Gaiak

150.000-200.000 **zilbor-heste** egongo dira gaur egun, premian aurkitzen direnen pertsonentzako prest. Berria - Gaiak

Herrialde guztietan daude egun **zilbor-hesteko** zelulak gordetzen dituzten bankuak. Berria - Gaiak

**5** irud/hed

Gure arteko **zilbor hestea** haginkada batez utzi zuten odol husten. Sonia Gonzalez

Fabrika zaharra, Torinoren **zilbor-heste**. Anjel Lertxundi

Azoka-leku erraldoia fabrika zaharra izango da beti torinotarrentzat, hiriaren eta Agnellitarren arteko **zilbor-heste** eten ezina. Anjel Lertxundi

Senideek «preso politikoen eta euskal gizartearen arteko **zilbor-hestea** izaten» jarraituko dutela adierazi zuten. Berria - Euskal Herria

[Irudimenaren] altzoan soilik existitzen den denboran eta espazioan du arnasa hartzen literatur ospakizunak, etenik gabeko **zilborreste** batez korapilaturik. Anjel Lertxundi

Ordenagailu honek edukiko du loturik, gau eta egun, **zilbor hesteak** bezala, datu-banku zentralarekin. Jon Alonso

Hori izan zen, etengabeko gutun gurutzatzea, Bilborekin lotuta eduki zion **zilbor hestea**. Joxemari Iturralde

**Zilbor heste** minimo eta lauso bat mantentzeko era da. Harkaitz Cano

**Zilbor-heste** hari gabeak lotuta bizi gara gaur, Patri. Hasier Etxeberria

**6** ***zilbor zulo*** *(orobat* ***zilborzulo****)*

Idoiak sabela laztandu du, **zilbor** zuloa urduritasunez arakatuz, telebistako irudiei begira. Eider Rodriguez

**7** ***zilborrari begira***

Monopolioan ohituta, aldaketen premiarik nozitu gabe, eroso **zilborrari** begira. Geure **zilborrari** begira («munduaren zentroa bagina») bizi garen euskaldunoi geronen buruaz barre eginaraztea izan da Gallegoren xedea. Berria - Kirola

· Telebista gero eta «itxiagoa da, bere **zilborrari so**, filma ez bada ingelesa edo estatubatuarra, ez du nehork nahi. Berria - Kultura

**8** *nork bere* ***zinborrari begiratu*** bere bururari begiratu.

Nork bere **zilborrari** begiratu ordez Belgikako eskualdeek indarrak batu beharko lituzkete. Berria - Mundua

Nork egingo du Europa osoari begirako kanpaina, bere **zilborretik** begiratu gabe? Berria - Mundua

· Bakoitzak bere **zilborra begiratzen** duenez, inork ez du erdian kokatu gura. Berria - Euskal Herria

Guk geure **zilborra** besterik ez omen dugu **begiratzen**. Txillardegi

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
>
> **zilbor heste** (9); **zilbor hestea** (15); **zilbor hesteak** (4); **zilbor hesteetatik** (3); **zilbor hesteko** (22); **zilbor hesteko odoleko** (3); **zilbor hesteko zelulak** (4); **zilbor hesteko zelulen** (3); **zilbor hestetik** (5)
>
> **munduaren zilborra** (3)
>
> **zilborrari begira** (3)
>
> **pirtzina zilborrean** (3)

---

## **zilborkeria** *iz* zilborrari begiratzea.

Bera, humanista, gogoa desberdintasunei zabalik zeukan gizona, horra bete-betean harrapatua etnozentrismozko, mendebalde-**zilborkeriazko**... eta auskalo zer besteko delituan. Jon Muñoz

---

## zilborreste ik **zilbor 4**.

---

## **zilborrondo** *iz* zilborraren ingurua.

Lagunik potoloena jarriko zen bizkar emanda arbolaren kontra, bi eskutxokoak lotu **zilborrondoan**, hatzak elkarri sardean gurutzatuz, eta lagunetan arinenak edo trebeenak han ipiniko zion aurrenako hanka, astogainera igotzeko bezala, eta beste hanka bizkar gainean paratuz, han dabil katazka behetineko adaburuan. Patziku Perurena

---

## zilborzulo ik **zilbor 6**.

---

## **zilbot** *(orobat* ***zilbote****)* *iz* tripa, sabela.

Pisurako bidean, autoan, arnasketa bakoitzaz gerriko gainetik **zilboteko** gantz guztiek dar-dar egiten zioten bitartean, hotzikara bortitz batek astindu zidan gorputz osoa esku izerditsu bat berna gainean ipini zidanean. Sonia Gonzalez

Gurdizaina ahoz gora lo egoten da zama gainean, **zilbotea** agerian duela. Koldo Biguri

---

## **zilegi** **1** *izond* legeak, arrazoiak edo moralak eragozten edo galarazten ez duena; legearen araberakoa, bidezkoa dena. ik **zilegizko**.

Berak aitortua zuen ez zituela beti bide **zilegiak** erabili. Jon Muñoz

Eskritura Santuen Bertsio **Zilegian**. Xabier Olarra

Gobernu **zilegi** bat sortuko zen. Berria - Harian

Etorkizun politikoari, instituzioei eragiten dieten gaiez herritarren ordezkari **zilegiek** erabaki dezakete soilik. Berria - Euskal Herria

ETA «lehen aldiz mintzaide **zilegi**» gisa hartu zuen Espainiako Gobernuak. Berria - Euskal Herria

Horra talaia **zilegi** bat literatura aztertzeko. Anjel Lertxundi

Aukera hori «bide **zilegi**» bakarra dela eman zuten aditzera. Berria - Mundua

Gure erregearen alaba, Blanca, esposatu zian Juan Aragoikoarekin 1420an eta haien semea, Karlos, 1421ean sortua, ondoko **zilegia** zian. Michel Oronoz

Guk altxamendu **zilegia** egin genuen, beharrezkoa, erabat justiziazkoa. Pako Aristi

SEPI edo bestelako erakunde publikoen bidez konpainiak jarduera zibilak berriz bildu behar baditu, Estatuko laguntzak egongo ote diren arriskuari buruz susmo **zilegiak** ditugu. Berria - Ekonomia

Helburu **zilegiak** zalantzan jartzeko muturreraino eramaten dituela abertzale zintzo asko eta asko. Hasier Etxeberria

Baliabide biziak eta itsas bizia kaltetzen, laketerako aukerak murrizten edo itsasoaren beste erabilera **zilegi** batzuk oztopatzen dituzten substantziez. Itziar Eizagirre / Amaia Lizarralde

Estrategia politiko **zilegia**, ezta? Berria - Euskal Herria

Lurraldetasun printzipioa, indarraren monopolioaren kontrola eta ordezkaritzan oinarritutako botere politiko **zilegia** ziren estatu-nazio modernoa itxuratzen zutenak. Itziar Eizagirre / Amaia Lizarralde

Elkarrizketaren bukaerak modu **zilegian** adierazten du nire ustez garai hartako aldaketarik handienetakoa, hots, poetak, iraultza hari esker, harrotu, jainkotu egin zirela, behin ere ez bezalako garrantzia hartu zutela gizarteko botere-sarean. Bernardo Atxaga

Haatik soil-soilik men egin nion [...] ahaide agurgarri bati neure begikotasuna agertzeko plazer arras natural eta arras **zilegiari**. Jon Muñoz

## 2 (predikatu gisa)

Ezin liteke herri bat hiriburua balitz bezala ibili: herri bat populazioa galtzen ari bada, **zilegi** dauka adinaz-eta irizpide bereziak erabiltzea. Berria - Euskal Herria

Horretara gonbidatzen duen idazle eta testu baten kasuan **zilegi** iruditu zaidana. Xabier Olarra

Gramatika batek osagai-egitura berreraikitzea **zilegi** egiten duten erregelen hurrenkera bat dauka. Itziar Laka

Zin faltsua egitera behartu duzue, berarentzat hain zentzugabea den itun horrekin, eta **zilegi bihurtzen** dituzue zina hautsiz egin ditzakeen krimen guztiak. Juan Martin Elexpuru / Bego Montorio

## 3 (adizlagun gisa)

Ildo horretatik joanda, arrazoiarekin ados eta, horren ondorioz, **zilegi** ikusten zuen herria tiranoari jazartzea ere. Askoren artean

Rachel O'Connell Lancashire Erdiko Unibertsitateko Ziberespazioko Ikerketa Zentroko zuzendariak, bestalde, **«zilegi**» ikusten du sarea zaintzapean edukitzea. Berria - Gaiak

Nella Marchesinik pintura ikasten zuen Casoratirekin, eta gure aitak **zilegi** jotzen zuen hura estudio hartan egotea. Fernando Rey

## 4 ***zilegia izan*** da *ad*

Gerra garaian **zilegia** da inoren askatasunak mugatzea. Berria - Harian

Posibletasun hori baliatu du biografoak: kontatu berri duen pasadizoa sinesgarri eta **zilegia** da, ez soilik bidaiaren kontakizunari kolorea emateko, ez soilik egia delako Garibaik ezagutzen zuela Calvinoren doktrina. Anjel Lertxundi

Gauza hauek hala direla pentsatzea **zilegia** da. Santiago Iruretagoiena

Agian gure borroka ez dun **zilegia**, baina bizi dugun egoera ere **zilegia** ez denez beste erremediorik ez dagoela esango niken. Harkaitz Cano

Erabakitako boto kopuruak betetzea beharrezkoa da prozesua **zilegia** izan dadin. Berria - Mundua

Ezin da presidentetzarako bozak egin direnik esan, **zilegiak** izateko bertan behera utzi eta emaitzak baliogabetu egin beharko lirateke. Berria - Mundua

Hortik aurrera, guk ulertzen dugu guk lortutako zinegotziak **zilegiak** direla, botoen bidez lortutakoak direla. Berria - Euskal Herria

Edozein greba da **zilegi** eta demokratikoa; zilegi ez dena bonbak jartzea, mehatxuak egitea edo indarkeria baliatzea da. Berria - Harian

Zubiagak dio desobedientzia zibila **zilegia** eta «ezinbestekoa» dela. Berria - Euskal Herria

Irakurketa guztiak dira **zilegiak**. Patxi Altuna

Noiz arte segituko du Euskal Herria ukatzen?, **zilegiak** diren eskubideak erasotzen? Berria - Euskal Herria

Irudimenaren arkitektura ikus daiteke erakusketan, espazio errealean **zilegia** ez den arkitektura. Berria - Kultura

Atzo, «gurtzaren kontra ez, baizik eta **zilegia** den gurtzaz **zilegia** ez dena egiteko baliatzen direnen kontra» dagoela zehaztu zuen. Berria - Mundua

· **Zilegiak** iruditzen zaizkigu mobilizazio horiek, baina guri ezer galdetu gabe sartu dute kontzertua beren ekitaldien artean. Berria - Kultura

## 5 ***zilegi izan*** da *ad*

Ikusiz geroz gaia **zilegi** dela eta zuzen, iragaiten gara hirugarren punturaino jakiteko betegarri eta onuragarri den ala ez. Piarres Xarriton

Ez da **zilegi** gauza bat eta haren kontrakoa baieztatzea. Jon Muñoz

Legeen aurkakoa ez dena **zilegi** da. Andres Urrutia

Esziten legeen arabera, **zilegi** zen hori. Iñaki Iñurrieta

Logikoa, baina ez **zilegi**. Berria - Harian

Teknikoki **zilegi** den guztia ez da etikoa. Berria - Gaiak

Erabat **zilegi** diren defentsa estrategiak. Berria - Harian

Egiten dutena ez dela **zilegi**; ez dela etikoa. Berria - Gaiak

Ez da **zilegi** lurrak behin betiko saltzea, neurea baita lurraldea, eta zuek ez zarete bertan etorkin besterik, nirean ostatuz bizi zaretenak. Elizen arteko biblia

Ihes betea **zilegi** balitz. Harkaitz Cano

**Zilegi** baldin balitz ere, legeak espreski ez esan arren, kasuren batean heriotza-zigorra ematea, beste mila kasutan gizadiak, legea baino induartsuagoa denak, bizitza salbatu beharko die legeak heriotzara kondenatutakoei. Juan Martin Elexpuru

Eta zin egiten dutena lege naturalaren kontra badoa, ez daude zin horri lotuta, inor ez baitago **zilegi** ez dena egitera derrigortuta. Esteban Antxustegi

Moralki berantetsirik, hala esatea **zilegi** bada. Matías Múgica

Mitxelena zenaren eta Sarasuaren hitzak gogoratu nahi ditugu, poesiari eta bertsoei buruz esaten dutena hizkuntzaren beste eremu askotara zabaltzea **zilegi** delakoan. Iñaki Arranz

Jende horrentzat, baliabide guztiak dira, nonbait, **zilegi**. Jon Muñoz

Soziabletzat, mailegua **zilegi** bada. Aingeru Epaltza

Jarri duen aurpegiagatik, **zilegi** da pentsatzea nekazariaren jarreran badagoela harridurazko zerbait. Anjel Lertxundi

Ideia guztiak **zilegi** ez direla nabarmendu zuen: «faxismoak ez du lekurik erakunde biltzarretan». Berria - Euskal Herria

Ez, ezin da **zilegi** izan oinazetan biziko diren izakiak sortzea. Josu Zabaleta

Eraso prebentiboak egitea **«zilegi** eta posible» dela berretsi zuen. Berria - Mundua

Proiektu guztiak **«zilegi** eta gauzagarri» izatea beharrezkotzat jo zuen. Berria - Harian

## 6 zaio *ad*

Emakumeei ez zaie **zilegi** batzarrean hitzegitea; beude isilik, beraz, eta ager bitez menpeko. Elizen arteko biblia

Egoeraren haria, ordea, testuarena bezain **zilegi** zaio, gure ustez, bertsolariari, bat-bateko bertsoa, behin eta berriz esan dugunez, testu hutsa baino askoz areago baita. J. Garzia / A. Egaña / J. Sarasua

Agian **zilegi** zaigu hipotesi honi [...] egin diogun hasierako erasoari jarraipena ematea adibide batzuk aipatuz. Iñaki Mendiguren

Ez zitzaidan **zilegi** iruditzen sistema hura, zinez uste baitut hiztunak eskubide gehiago dituela ezein hizkuntzak baino. Joxerra Garzia

**Zilegi** zaizkio, beraz, horrelakoak nobela historikoari. Berria - Kultura

Ez zekien zer zitzaion **zilegi** eta zer ez. Itxaro Borda

Maiz egokitzen zen tristezia ezkutatu beharrean: ez zitzaion **zilegi** ingurukoei enbarazu egitea. Imanol Zurutuza

Horra adiskidantzaren nahia; **zilegi** izan bekit amodioak nahi horiek beteko dituela igurikatzea. Jon Muñoz

**Zilegi** bekigu egin dugun hori azaltzea. Herria

**Zilegi** bekie beren ofizioak eskatzen dituen lanabes eta tresnak edukitzea. Askoren artean

Bikainei **zilegiago** zaie sorkariaz zin egitea erkinei baino. Patxi Altuna

## 7 du *ad*

Juduak Dabiden izarra erabiltzera beharturik daude; beren bizikletak agintarien esku utzi behar dituzte; ez dute **zilegi** tranbian ibiltzea. Josu Zabaleta

Galderatxo bat egin nahi nioke nire tutoreari, **zilegi** badut. Antton Olano

Literaturgileak **zilegi** ez ezik berezkoa du era horretako metonimiak egitea. Berria - Kultura

Estatuaren legeak debekatu arren, eskubide jainkotiarrak **zilegi** duena egiten jarraitzen dutenek nahasi egiten dituzte legea eta eskubidea. "Dena **zilegi** dut", dio zenbaitek; baina ez da dena komenigarri. Esteban Antxustegi

Hori dela eta, inoiz ezingo dugu jakin zein neurritaraino duen **zilegi** komunitate erlijioso batek ondasunak bereganatzea. Iñaki Iñurrieta

**Zilegi** ote dugu (arrazoiketa) sentimendu batean oinarritu nahi izatea? Joxe Azurmendi

Nagikeria [...]: behe mailako pertsonak **zilegi** ez duen atseden jarrera. Xabier Olarra

Indarkeriari aurre egiteko baldin bada, gezurra asmatzea eta erabiltzea **zilegi** duela gaurko kazetariak. Hasier Etxeberria

Gero eta gehiago, garapen-bideko herrialdeek uko egiten diote, eta **zilegi** dute hori, abantaila konparatiboen ikusmolde estatiko baten gidaritzapean aritzeari. Koro Navarro

Eta bizirik balego ere, **zilegi** zenuke nirekin etzatea, Shulchan Arucheko legeak guri ez dagozkigu-eta. Koro Navarro

Muskuluek **zilegi** dute birikek eta odol-zirkulazioak banatu dezaketen baino bizkorrago xahutzea oxigenoa. Irene Aldasoro

### 8 ***ez-zilegi*** izond

Legearen hitzarekin bat egin duen nia eta Lege horren aurka borrokatzen den desira **ez-zilegia**. Joseba Zulaika

Najaf hirian banatu zen oharrean, gobernua « **ez zilegia** eta legez kanpokoa» dela argudiatu eta «hauteskunde askeak» eskatu zituen buruzagiak. Berria - Mundua

Geroztik bere baliabide guztiak, zilegiak eta **ez zilegiak**, martxan jarri zituen Kremlinek Alkhanov presidentetzarako bozetan garaile ateratzeko. Berria - Mundua

Norbanakoen artean sorturiko legeak, alderdikeriaren susmagarri izateaz kanpo, beti atzera-eragingarriak eta **ez-zilegiak** izango lirateke batzuentzat, baldin eta horien arteko gatazkak lege horien parte-hartzearen aurrekoak badira. Andres Urrutia

Hortik aurrera, berehalakoa da galdera, kezka: non dago gerra zilegi eta **ez-zilegien** arteko muga? Berria - Kultura

Narratzaile hori kezkatuago egon ohi dela bere kontakizunaren interes objektiboak irizten dien horiekin, honako edo bestelako bigarren mailako pertsonaiaren esperantza **ez zilegirekin** baino, Jon Alonso

**hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**

**adieraztea zilegi** (3); **bezain zilegi** (5); **deitzea zilegi** (3); **dena zilegi da** (4)

**egitea zilegi** (15); **egitea zilegi dela** (4); **ematea zilegi** (4); **erabat zilegi** (4); **erabiltzea zilegi** (10); **erabiltzea zilegi bada** (3); **erratea zilegi** (4); **erratea zilegi izan** (3); **esatea zilegi** (10); **esatea zilegi bada** (4); **esatea zilegi badut** (3); **eskatzea zilegi** (4); **eutanasia egitea zilegi** (3); **ez baita zilegi** (4); **ez bekio zilegi** (3); **ez da zilegi** (65); **ez dela zilegi** (26); **ez direla zilegi** (4); **ez du zilegi** (3); **ez litzateke zilegi** (7); **ez zaie zilegi** (6); **ez zaigu zilegi** (5); **ez zaio zilegi** (9); **ez zaiola zilegi** (3); **ez zait zilegi** (4); **ez zen zilegi** (4); **guztiak dira zilegi** (4); **guztiak zilegi** (6); **guztiz zilegi** (7); **hartzea zilegi** (4); **hiltzea zilegi** (6); **hiltzea zilegi egiten** (4)

**ihes betea zilegi** (3)

**onartzea zilegi** (3); **ote da zilegi** (3); **pentsatzea zilegi** (3)

**zilegi al da** (17); **zilegi al zaigu** (3); **zilegi bada** (19); **zilegi badut** (7); **zilegi balitz** (6); **zilegi bazaigu** (3); **zilegi bazait** (17); **zilegi bedi** (3); **zilegi bekie** (8); **zilegi bekie jartzen** (3); **zilegi bekigu** (4); **zilegi bekio** (3); **zilegi bekit** (30); **zilegi bekit esatea** (5); **zilegi bihurtzen** (3); **zilegi da** (85); **zilegi da hori** (3); **zilegi dela** (39); **zilegi dela esan** (7); **zilegi den** (18); **zilegi dena** (4); **zilegi dira** (7); **zilegi direla** (6); **zilegi diren** (8); **zilegi du** (6); **zilegi dut** (3); **zilegi dute** (7)

**zilegi egin** (4); **zilegi egiteko** (3); **zilegi egiten** (10); **zilegi ez den** (8); **zilegi ez dena** (7); **zilegi ez diren** (5); **zilegi ez ezik** (4); **zilegi ez izatea** (3)

**zilegi ikusten** (6); **zilegi ikusten du** (4); **zilegi iruditzen** (6); **zilegi izan** (42); **zilegi izan bekit** (22); **zilegi izanen** (4); **zilegi izango** (16); **zilegi litzateke** (11); **zilegi litzatekeela** (3); **zilegi nuela** (3)

**zilegi ote** (15); **zilegi ote den** (6)

**zilegi zaidala** (3); **zilegi zaie** (3); **zilegi zaigu** (6); **zilegi zaio** (4); **zilegi zaiola** (3); **zilegi zaion** (4); **zilegi zait** (3); **zilegi zela** (7); **zilegi zen** (12); **zilegi zitzaidan** (3); **zilegi zitzaion** (3); **zilegi zuen** (3)

**erabat zilegia** (4); **ez da zilegia** (3); **zilegia da** (22); **zilegia dela** (11); **zilegia den** (4); **zilegia izan** (7)

**ez zilegiak** (3); **zilegiak direla** (5); **zilegiak diren** (5); **zilegiak eta legezkoak** (3); **zilegiak izan** (4); **zilegiak izango** (3)

**zilegitzat jo** (8); **zilegitzat jo du** (3); **zilegitzat jotzen** (5)

**ez da zilegizkoa** (3); **zilegizkoa zen** (3)

---

## **zilegitasun** 1 *iz* zilegi denaren nolakotasuna.

Bortizkeriarik ez erabiltzea; **zilegitasunaren** arabera jardutea eta ez legearen arabera. Txema Ramirez de la Piscina

**Zilegitasun** edo zuzentasuna eztabaidatzea beti dagoela ukatu gabe: esplikatzen ari gara, ez legitimatzen. Joxe Azurmendi

Legezkotasun eta **zilegitasun** horiek direla eta, eztabaida guztiz demokratiko da Erraztirentzat. Berria - Mundua

Sistema politikoaren **zilegitasuna** beste oinarri batzuetan finkatu behar omen da. Askoren artean

Subiranotasun modernoaren adierazpen nagusia indarkeria erabiltzeko **zilegitasuna** izanik, ETAk garbi zuen indarkeria erabiltzeko eskubidea zuela. Joseba Zulaika

Esku-hartze publikoen **zilegitasuna** sendotuz. Itziar Eizagirre / Amaia Lizarralde

Euskadi askatzearen aldeko mugimenduak bi arazo nagusi konpondu nahi zituela zioen komunikatuetan, alde batetik nazionala eta bestetik soziala, eta Leninen hainbat idazki aipatzen zituen helburu bikoitzaren **zilegitasuna** indartzeko. Bernardo Atxaga

Gure etxetik botatzen gaituen gobernuaren jarrerari **zilegitasuna** ematen diote. Edurne Elizondo

Ezin zaio **zilegitasunik** eman *de facto*ko zernahi egoerari. Bernardo Atxaga

Inposizioak **zilegitasuna** kentzen du. Berria - Euskal Herria

Batasuna legez kanporatu izanak zein neurritan kentzen dio **zilegitasuna** sistema politikoari? Berria - Euskal Herria

Ez dugu egitasmoen **zilegitasuna** auzitan jarri. Berria - Euskal Herria

Ikerketak bozen **zilegitasuna** egiaztatzen badu emaitzak onartuko dituztela esan dute salaketa aurkeztu zuten hainbat hautagaik. Berria - Mundua

Eusko Legebiltzarrak onartutako proposamenaren **zilegitasuna** azpimarratu du sindikatuak agirian. Berria - Harian

Mende bat baino gehiagoan behin ere ez da zalantzan jarri argazki-irudiak dokumentu gisa duen **zilegitasuna**. Josu Zabaleta

Urtegiko hormaren ondoan bizitzeak ematen dien **zilegitasunarekin** mintzatzen dira, ordea, agoiztarrak. Edurne Elizondo

Filosofia Politikoaren ikuspuntutik, funtsezko galderak boterearen **zilegitasunarekin** du zerikusia, botere politikoaren sustraien bilaketarekin, hain zuzen ere. Askoren artean

Ez zion aipatu zer pentsatzen zuen egiten ari ziren grabazioaren **zilegitasunari** buruz. Iban Zaldua

Rio'92k ez du **zilegitasunik** batere galdu, diskurtsoaren ondoren behar ziren ekintzak iritsi ez baziren ere. Itziar Eizagirre / Amaia Lizarralde

Botere judizialaren **zilegitasunik** eza nabarmentzea. Edurne Elizondo

### **2** (izenondo eta izenlagunekin)

Euskal Herriak bere burua eraikitzeko **zilegitasun** osoa du. Berria - Euskal Herria

**Zilegitasun** politikoaren ikuspegitik. Berria - Euskal Herria

AuBk 64.000 gipuzkoarrek emandako **zilegitasun** demokratikoa duela. Berria - Euskal Herria

Eusko Jaurlaritzaren **zilegitasun** historikoari eusteko helburuarekin. Berria - Euskal Herria

[Argazki-irudien] **zilegitasun** artistikoak, berriz, denbora luzea behar izan zuen aitortua izateko. Josu Zabaleta

Kontseilu nazionalaren eraketak ez du inolako **zilegitasunik** izango. Berria - Mundua

Nahi al duzu Montenegro estatu independente bat izatea nazioarteko eta lege aldetiko **zilegitasun** guztiarekin? Berria - Mundua

### **3** (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

**Zilegitasun** arazo larriarekin abiatu da Europako itun konstituzionala. Berria - Harian

Segurtasunaren inguruko zalantza sozial horrek, gizarte horietako produkzio eta kontrol sistemak **zilegitasun** krisi batean murgildu ditu. Berria - Gaiak

Nola kontrajarri ahal izango lirateke **zilegitasun** zantzuren batekin "bilakaera" eta "sistema", mugimendua eta erregulazio zirkularrak, edo arinkeriaz eta burua nekatu gabe esaten den moduan "historia" eta "egitura"? Xabier Arregi

Xiitak eta kurduak **zilegitasun** zigilua eman nahi diote hala Legebiltzarrari nola Gobernuari. Berria - Harian

Aristokraten arteko botere-borroka eta **zilegitasun**-jolasa. Askoren artean

«Krisi hirukoitza» dagoela adierazi zuen: **«Zilegitasun** krisia, politikoa eta heterogeneotasun alorrekoa». Berria - Mundua

**Zilegitasun** eta demokrazia eza salatzeko asmoz erreformistek abstenitzeko deia egin diete herritarrei. Berria - Mundua

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
>
> **egiteko zilegitasun osoa** (3); **zer zilegitasun** (4)
>
> **zilegitasun demokratiko** (3); **zilegitasun demokratikoa** (7); **zilegitasun demokratikorik** (4); **zilegitasun eza** (5); **zilegitasun handia** (3); **zilegitasun handiagoa** (4); **zilegitasun osoa** (19); **zilegitasun osoa du** (5); **zilegitasun osoa dutela** (3); **zilegitasun osoz** (8)
>
> **bozen zilegitasuna** (12); **bozen zilegitasuna zalantzan** (3); **duen zilegitasuna** (9); **duten zilegitasuna** (3); **egitasmoen zilegitasuna** (4); **egiteko zilegitasuna** (6); **eraikuntzaren zilegitasuna** (5); **eskaeraren zilegitasuna** (3); **gobernuaren zilegitasuna** (3); **hauteskundeen zilegitasuna** (4); **izateko zilegitasuna** (4); **proposamenaren zilegitasuna** (3)
>
> **zilegitasuna aitortu dio** (3); **zilegitasuna aldarrikatu** (6); **zilegitasuna aldarrikatu zuen** (3); **zilegitasuna auzitan** (5); **zilegitasuna auzitan jarri** (3); **zilegitasuna bermatzeko** (5); **zilegitasuna duela** (3); **zilegitasuna eman** (9); **zilegitasuna ematea** (3); **zilegitasuna emateko** (5); **zilegitasuna ematen** (12); **zilegitasuna galdu** (5); **zilegitasuna kendu** (4); **zilegitasuna kentzea** (4); **zilegitasuna kentzen** (5); **zilegitasuna onartzeko** (3); **zilegitasuna onartzen** (3); **zilegitasuna ukatu** (3); **zilegitasuna zalantzan jarri** (9)
>
> **zilegitasunaren inguruko** (3)
>
> **ez du zilegitasunik** (7); **ez duela zilegitasunik** (5); **hitz egiteko zilegitasunik** (3)
>
> **zilegitasunik ez** (15); **zilegitasunik ez duela** (3); **zilegitasunik ez duelako** (3); **zilegitasunik ez dutela** (3); **zilegitasunik gabe** (5); **zilegitasunik gabeko** (4)

---

## **zilegitu**, zilegi(tu), zilegitzen du *ad* zilegi egin, zilegitasuna eman.

Legeak ezin du pribilegio berbera bereganatu, legeak hotza izan behar baitu berez, ezin da gizonen grinen esku laga, eta ezin du **zilegitu** erailtzearen ekintza ankerra. Juan Martin Elexpuru / Bego Montorio

Legeak **zilegitzen** du jendea eroetxean zerratzea auzo edo familiak galdeginez geroz. Herria

Neure buruari marmariorik **zilegitu** gabe obeditu dizut. Jon Muñoz

Laneko eskubideak **zilegituriko** pausara zihoanean, baten batek buruaz gizonaren joatea Jacquesi seinalatzen zion. Itxaro Borda

Igerialdi labur eta kontrolatu haiek ziren bere buruari **zilegitzen** zizkion atseden une ia bakarrak. Xabier Mendiguren Elizegi

Kapitainaren gustuko gizonei libertate pixka bat **zilegitzea** komeni zen agian. Itxaro Borda

Nola zehaztu jarraitasun-eza pentsatzea **zilegitzen** duten kontzeptuak (atalasea, haustura, ebakidura, mutazioa, eraldaketa)? Xabier Arregi

Arimaren zoramena dei dakiokeen amodioak ere ez ditu titulu hobeak bere jarraipena **zilegitzeko**. Juan Martin Elexpuru / Bego Montorio

Haientzat, erregea zergen pagatzea **zilegitzen** zuen urruneko figura bat zen, gehiagokorik gabe. Elena Touyarou

Herriei emandako legeak gaitz handiagoak ekiditeko txikiagoak **zilegitzen** baditu, ez dut uste salakuntza horren pean egongo denik. Imanol Unzurrunzaga

---

## **zilegitzaile** *izond* zilegitzen duena.

Horrelako azalpen instituzional-ofizialek funtzio **zilegitzailea** eta lasaigarria jokatzen dute, ez baitute onartzen arriskuak eta istripuak gure gizarte teknifikatuei berezkoak, normalak alegia, zaizkiela. Berria - Gaiak

---

## **zilegitze** *iz* zilegi bihurtzea, zilegitasuna ematea.

«Instituzio horren zehazte, ezagutarazte eta **zilegitze** lana datozen hiru urteetan» burutu nahi lukete. Berria - Euskal Herria

---

## **zilegizko** *izlag* zilegia, zilegitasuna duena.

Ezin dugu **zilegizko** erreferenduma aintzat hartuko ez duen plan bat sostengatu. Berria - Mundua

Zuk, apaiza izanda, konponketa hori eskaintzean, **zilegizko** konponketa zela iruditu zaio, eta orduan, **zilegizko** bi konponketaren artean, gehien emango ziona aukeratu du. Koldo Biguri

Orain neu naiz errege **zilegizko** bakarra! Joanes Urkixo

Beharrezko zen hesi iraganezina hezkuntza eman behar zutenen eta hartu behar zutenen artean, bai eta edozein eratako galbidea saihestea ere, are **zilegizko** arrazoirik bazenean ere. Iñaki Iñurrieta

Hauteskunde **zilegizko** eta demokratiko batzuen ondorioz sortutako gobernu batek egindakoa. Berria - Euskal Herria

Arrazoibide ilun horren pean dirdirkatzen, zalantza gabe badago egia bat **zilegizkoa**, arraza usu aipatze hutsak ez duela inor arrazista bihurtzen. Joxe Azurmendi

**Zilegizkoa** da denbora-blokeak sekuentziatze hau izaera dokumentaleko produkzio original bat bezala ikustea. Josu Zabaleta

Maldan behera jarri zitzaion partida Alavesi, eta errazagoa izan zezakeen handik bi minutura epaileak Ruben Navarrori **zilegizkoa** zen gol bat balio gabe utzi izan ez balio. Berria - Kirola

**Zilegizkoa** ez den erabilerari abusua deitu behar zaio edo gehiegikeria. Imanol Unzurrunzaga

Existentziaren izaera arrunta "helburu" nozioaz, "batasun" nozioaz edo "egia" nozioaz interpretatzea ez zela **zilegizkoa**, ulertu zenean, balio ororen hutsunearen sentimendua jo zen. Joxe Azurmendi

Leku mortu eta bakartiek mamuak sortzen dituztelako hipotesi horrek **zilegizkoa** dirudi. Bernardo Atxaga

Desitxuraketaren kontzeptua bera aski susmagarria da, jakina, ezin baitaiteke esan zentzu absolutu batean desitxuraketarik gertatzen denik, **zilegizkotzat** ematen den forma batekin alderatuz baizik. Josu Zabaleta

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
>
> **ez da zilegizkoa** (3); **zilegizkoa zen** (3)

---

## **zilegizkotasun** *iz* zilegizkoa denaren nolakotasuna.

Batzorde berriaren **zilegizkotasuna** kideen sinesgarritasunean oinarrituko da. Berria - Mundua

Giza auzietan, soilik indarrez berdinak direnen artean erabiltzen dira zuzenbide-arrazoiak; aitzitik, hala ez denean, indartsuenak jartzen du **zilegizkotasunaren** muga, eta ahulak onartu behar. Askoren artean

Argazkiaren ikuspenaren **zilegizkotasun** horrixe eraso zion, ordea, hirurogei eta hirurogeita hamarreko hamarraldietako joera teoriko eta kritiko garrantzi handiko batek. Josu Zabaleta

Estatuaren zenbait partehartzeren **zilegizkotasuna** eta eraginkortasuna. Koro Navarro

Bortxaren **zilegizkotasuna** (morala), printzipioetatik definitiboki ebatzi ezina ikusi dugunez, [...]. Joxe Azurmendi

---

**zilegiztatu,** zilegizta(tu), zilegiztatzen du *ad* zilegitu.

Zenbait gauza zikintzat edo bidegabetzat jo, eta hala ere beharrezkoak zirenez geroztik, erlijiora jo behar izan da, kasu batean haiek **zilegiztatzeko**, eta besteetan gaitzesteko. Iñaki Iñurrieta

Helburu nagusia koloniak mantentzea da eta hori koloniak **zilegiztatzea** edo legeztatzea da. Berria - Mundua

Herri baten gobernu zuzenerako ezarritako legeak egintza hauek **zilegiztatzen** dituela iruditzen zait, jainkozko Probidentziak zigortzen baditu ere. Imanol Unzurrunzaga

Marokok dio autonomia plan bat duela, baina hau sahararren autodeterminazio eskubidea ezabatzera eta ukatzera bideratuta dago, baita lurralde okupatuen anexioa **zilegiztatzera** ere. Berria - Harian

Hau dugu bakartasuna, hau presondegia, hau sistema guziz ohoratua eta berniz demokratiko batek **zilegiztatua**. Filipe Bidart

Diakroniak, haien artean lotura historikoren bat duten banakako formen arteko erlazioa **zilegiztatzen** du, eta horregatik, hizkuntza desberdinez balia daiteke. Isabel Arrigain

Esan daiteke zinematografia- (bideografia-)-apailua dela irudi mugikor bat pertzibitzea **zilegiztatzen** duena. Josu Zabaleta

Funtzio horiek **zilegiztatuak** daude morfologian, baldin eta haietako bakoitzari ikur foniko jakin bakar bat badagokio. Isabel Arrigain

---

**ziliar** *izond* betilearena, betileari dagokiona.

Eraztun-formako muskulu baten -muskulu **ziliar** izenekoaren- barruan kokaturik dago begiaren kristalinoa. Irene Aldasoro

Muskulu **ziliarra** erlaxatzen denean, tentsio handiagoa transmititzen dute kristalinoari eusten dioten zuntzek, eta kristalinoak, horren ondorioz, forma lauagoa hartzen du, eta foku-luzera luzeagokoa. Irene Aldasoro

Muskulu **ziliarra** uzkurtzen bada, zuntzen tentsioa gutxitu egiten da. Irene Aldasoro

---

zilibitu ik **txilibitu**.

---

**ziligardatzaile**

Zapata- **ziligardatzaile** ez bertzea! Aingeru Epaltza

---

zilikonatu ik **silikonatu**.

---

**zilin** *izond* herrestaria.

Biharamunean, astelehenean beraz, ene burua sendi nuen halako sukar **zilin** batek hartua... Janbattitt Dirassar

---

**zilindrada** *iz* eztanda-motor baten zilindroen edukiera.

**Zilindrada** handiko motozikleta batean. Josu Landa

**Zilindrada** handiko bospasei moto. Anjel Lertxundi

**Zilindrada** gutxitzea proposatu du, zortzi zilindroko motorrean 3 litrotik 2,4ra pasatuz. Berria - Kirola

---

**zilindriko** **1** *izond* zilindro formakoa.

Amak eskuak gurutzaturik zituen, magalean zuèn larruzko objektu **zilindriko** baten gainean. Joan Mari Irigoien

Gozotegietako arrabola gogoratzen zuen tresna **zilindriko** eta irrigarri samarra. Urtzi Urrutikoetxea

Hala eginarazi genion auzoko errementariari latorri beltzezko erreaktor **zilindriko** halamoduzko bat, eskuzko irabiagailu eta guzti. Juan Garzia

Isats luze, biluzi eta **zilindrikoa**. Berria - Euskal Herria

Enborra du perrexilaren antzekoa, **zilindrikoa**, eta sustraiak, ostera, urpeko harriei helduta eusteko modukoak. Hasier Etxeberria

Pakete karratuak, **zilindrikoak**, punta-zorrotzak. Jon Muñoz

Behean, dorre karratu bat, hirurogeita hamar metro garai, bloke itzelez egina; haren gainean, bigarren dorrea, oktogonala [...] eta haren gainean, berriz, hirugarrena, askoz ere finagoa, **zilindrikoa**. Jon Muñoz

**2** *iz* harri zilindrikoa.

Leitzako harri-jasotzaileak erraz altxatu zuen esku bakarrarekin 225 kiloko **zilindrikoa**, atzo Leioan. Berria - Kirola

**Zilindrikoari** helduko dio, astunena izan arren beti erosoago eraman duelako bizkarrera. Pako Aristi

---

**zilindro** *(orobat **txilindro**)* **1** *iz* zuzenki batek lerro makotu baten (eskuarki zirkunferentzia baten) barrena eta bere buruari paralelo higituz eratzen duen irudi geometrikoa; irudi horren forma duen gauza.

Espazioko izaki matematikoak identifikatuko ditu Euklidesek: solidoak: piramidea, prisma, konoa, **zilindroa**, eta esfera, jakina; eta horiez gainera, poliedro erregularrak ere bai. Jon Muñoz

Konoa **zilindroaren** erdia dela edo eguzkia disko bat dela pentsatzen duenaren uste okerra. Xabier Kintana

Zoruan, arrasto haiek irudikatutakoa marraztu zian irakasleak: **zilindro** batean sartutako esfera. Jon Muñoz

Armak erosi ditu, pistola handi bat, biratzen duen **zilindro** horietakoa duena, badakizue. Karlos Zabala

Neurri bereko bi masaren artean, bat zilindrikoa bazen, eta bestea beste edozein formatakoa, motelago hondoratzen zen **zilindroa**. Koro Navarro

Moldiztegi modernoa, ertaina, **zilindroez**, Kelley-ez, Miller elikagailuez, prentsa txikiez, linotipo-makinez eta koadernatze-tailer oso batez hornitua. Lopez de Arana

Zenbait txinatar eta beltz kanabera sortak hartu eta haiek xehetzeko **zilindro** handi batzuk zituen makina batera eramaten ari ziren. Josu Zabaleta

Hidrogeno gasa 350 bar-eko presiopean gordetzen da autobusaren gainean doazen 205 litroko 9 **zilindrotan**. Berria - Gaiak

**2** (izenondo eta izenlagunekin)

Berriro konpresorra konektatu, eta **zilindro** nagusia betearazi zuen. Xabier Olarra

Ikastolan, arbeleko klarionak hazi egin dira, borobildu, hautsa gainetik kendu dute eta **zilindro** perfektu eta dirdaitsu bilakatu dira. Eider Rodriguez

**Zilindro** bitxi haietako batean, ondotik pasatzean, "Chapeaux Saint-Maur-Paris" hitzak irakurri nituen disimuluaz. Txillardegi

Laster heldu ginen dorre nagusiaren **zilindro** erraldoiaren parera. Alberto Ladron Arana

**Zilindro** zulodun bat osatu arte. Joan Mari Irigoien

**Zilindro** txapal eta arrosen kopuru gaitzak (kartoizkoak edo?) harritu ninduen. Txillardegi

Urkilak, kuleroak, ilerako **zilindroak**. Josu Zabaleta

Laminaziorako **zilindroak** bakarrik egiten zituzten Manuel sartu zenean. Urtzi Urrutikoetxea

Hildako anaiaren ahotsa jasoa zuten argizarizko **zilindro** haietako bat. Iñigo Aranbarri

Zilarrezko **zilindro** bat zen: azalera osoan euli baten neurriko lauburu txikiz zegoen landuta. Ramon Saizarbitoria

Errepidetik dorre nagusia besterik ez genuen ikusten: harri zurizko **zilindro** handi bat, leiho karratuz zulatua. Alberto Ladron Arana

SDko agenteak mihi haragitsua atera eta **zilindro** ez oso erregularra miazkatu zuen. Alberto Ladron Arana

**3** (hitz elkartuetan)

**Zilindro** itxurako lau edontzi berdin-berdin zeuden mahai apal baten gainean. Jon Muñoz

Hiru kilometro luzeko eta hamar zentimetro zabaleko **zilindro** formako izotz bloke bat da hori. · Gure basearen eta jeneralaren arteko bide erdian, tenientearen autoak topatzen du errepide **zilindro** bat, atzean bi auto blindatu babesturik zekartzana. Berria - Gaiak

Orrazi edo eta zanpa-**zilindro** moduko bat. Juan Garzia

**4** (izenondo gisa)

Gutxi batzuek baino ez zuten jarraitzen "ez dira pasatuko" aldarriarekin tematurik, zapalgailu **zilindroa** gainetik pasatua zitzaiela jabetu ere gabe. Juan Kruz Igerabide

**5** makina baten pistoia mugitzen den hodia.

Lehenengo garaietako lurrun-makina, pistoia **zilindro** baten barruan mugitzen zena, atzera-aurrerako motor xume eraginkor bat zen. Irene Aldasoro

Lehen, karburadorean nahasten ziren erregaia eta airea, **zilindroetara** pasa aurretik. Berria - Gaiak

Lau denborako motorrekin **zilindroen** edukiera 990 cc-ra pasatu zen, baina antolatzaileak eta moto etxeek orain indarra murriztea erabaki dute. Berria - Kirola

**Zilindro** askoko baina erregai-erregulagailu gabeko automobil-motor baten antzekoa da muskulua. Irene Aldasoro

Automobilaren motorrari errendimendua atera nahi zaionean, konpresore bat ezartzen zaio; konpresoreak **zilindroetara** bideratzen du aire soberakina, eta lasterrago erretzen da hala erregaia. Irene Aldasoro

**6** harri-jasotzaileen harri zilindroa.

Nemesiorentzat inor baino gehiago diren hiru harri han daude: berrehuneko **zilindroa**, ehun eta laurogeiko kubikoa, eta errekarri trinko-zaztar bat, batez beste hamabi arroa inguru dituena. Pako Aristi

100eko **zilindroarekin** gutxitan aritzen gara denboraldian, pare bat txapelketetan. Berria - Kirola

Apustua zinez berezia izango da 100 kiloko **zilindro** zaharrarekin ez dutelako aspaldi demarik jokatu eta harri hori ez delako txapelketetan ia erabiltzen. Berria - Kirola

**7** ***harri zilindro*** zilindro formako harria.

Petrolio-kriseilua hartu, eta lurrezko teilatura igo zen, zuloak estaltzeko erabiltzen zen **harri zilindroarekin** lurra zanpatzera. Juan Kruz Igerabide

Leitzarrak 2002ko abenduaren 22an jaso zuen 205 kiloko **harri zilindroa** esku bakarrez, Arrasaten, eta, urte eta bost hilabete igaro ondoren berriro plazaratuko da esku bakarreko ahalegina egiteko. Berria - Kirola

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
> **kiloko zilindro** (10); **kiloko zilindro kopa** (4); **kiloko zilindro zaharra** (3); **zilindro koparekin** (4); **zilindro zaharra** (5)
> **kiloko zilindroa** (11)
> **kiloko zilindroarekin** (3)
> **zilindroen edukiera** (3)

---

## zilindrodun *izlag* zilindroko.

Hiru litroko V10 motorrei bi zilindro kenduz gero, zortzi **zilindrodun** eta 2,4 litroko edukia duten motorrak lortzen dira. Berria - Kirola

---

## zilindrotxo 1 *iz* zilindro txikia.

Ur-txorrotean hozten zituen molde-ontziak, eta bakoitzetik ezpain-margozko hogei **zilindrotxo** gorribizi ateratzen zituen. Juan Garzia

Hogei bat **zilindrotxo** gris zeuzkan barruan, gogor, koloregabe, zaporegabeak, eta ez zuen etiketarik. Juan Garzia

Arauzko kalibre doi hartara errenditu behar genituen **zilindroak**. Juan Garzia

Tarteka, **zilindrotxoa** eredu-zulotik pasatzen ote zen egiaztatzen genuen. Juan Garzia

**2** (hitz elkartuetan)

Lurrean, bere zigarroa ikusi zuen, erraust **zilindrotxo** luze bat baino ez ordurako. Juan Garzia

---

## zilinki *adlag*

Bildotsen jabeak, **zilinki** beren kamioien atzera gonbidatzen zituzten, eta han bukatzen zen, kasik goiz guztia iraun zuen erosiko dut/ez dut erosiko izeneko antzerkia. Itxaro Borda

---

## zilintzan *adlag* zintzilik.

Hozkailu horren eskutokitik **zilintzan** letra gotikoz idatzitako kartel bat zegoen, honela zioena: kontuz, obrak. Fernando Rey

---

## zilintzilika *adlag* zintzilik.

Hantxe egon ohi ziren askotan, ke-zulo azpian, lurruntsu, laratzetik behera **zilintzilika**, zezinaren itxuran, baserri hartakoen "azkiñiko" busti ta basaz lohituak. Xabier Mendiguren Elizegi

---

## zilio *iz* filamentu labur higikorra, hainbat mikroorganismok inguru likidoetan mugitzeko dutena.

Zelula hartzaile bakoitzaren muturrean, ile finezko motots bat dago: **zilio** deitzen diete anatomistek ileoi, eta beren kasa mugitzeko ahalmena dute **ziliook**. Irene Aldasoro

---

zilipirta ik **ziliporta**.

---

## ziliporta *(orobat **zilipirta** g.er.)* **1** *iz* zipriztina.

Hire hodeiak hain ditun amorruz beteak non guztiz onartzen baitut haserrea arintzen duten mendian galdutako izaki bakarra izatea, begitarte betean jasoko ditinat haien **zilipirta** izoztuak. Joxan Elosegi

Granada bat bezala irten zen, ateraino iritsi zen ur- **ziliporta** batekin batera. Joseba Urteaga

**2** irud/hed

Krisia hori ixil ixila hantu bada orain arte, azkenean egun argira jalgi da eta hola segituz nork daki nolako **ziliportak** izanen dituen ondotik. Herria

Azen ontzeko, zer **ziliportak** ez ditu izan azkenik Cannesko zinema festibalean eman den sariztatzeak! Herria

Agian ez nuen begirune izpirik ere merezi eta karrikaren erdian, buruon eta hertze **ziliporta** artean, balaz zitzikaturik, hedailo erortzea nire destinoa zatekeen. Itxaro Borda

---

## ziliportaka *adlag* zipriztinduz.

Euri zaparrada hotsa zen hura, zurrusta tenteen jarioa, hoska eta **ziliportaka**. Karlos Zabala

Galtzen janzteko astirik ere gabe, lasterka atera zen etxolatik eta barnean zituen guziak purrustan eta **ziliportaka** kanporatu zituen, aho zilotik eta sudur ziloetatik. Eneko Bidegain

Karkara doiak buru-zokoa bete zion, zarta eta bazterrak ezpalez **ziliportaka**. Itxaro Borda

---

## ziliportatu, ziliporta(tu), ziliportatzen du *ad* zipriztindu.

Irri sarkastiko batez askatu nintzen, bi urtzain oparoz izparringiaren orrialdea mikrobio ttanttaz **ziliportatuz**: atxix! Itxaro Borda

Hurbiltzen da, ezker eskutik hartzen du ene adixkidea eta kaskoan bala batez aurtikitzen, odolez **ziliportatua** nagola. Michel Oronoz

Urin borobila pluf idor batean urera trankala erori zen, pizuarekin, bazterretik zebiltzen jendeak ausarki **ziliportatuz**. Itxaro Borda

Izerdi tantaz **ziliportaturik** du kopeta andetan daramazuen felaga kolpatuak. Xabier Montoia

Oro har, jendartearen baitako aitzinamenduak zineman **ziliportatzen** dira. Berria - Kultura

---

## zilipurdi **1** *iz* itzulipurdia.

Umea ninduan, noiz eta Urbiaindik titiritero batzuk iragan baitziren, ximino tipi bat ere lagun zutela, sokatik dilindan mila **zilipurdi** egiten zituena. Joan Mari Irigoien

Talde handietan-eta egin beharreko **zilipurdi** eta itzul-amilkak bezala, gorputz guztia minberatzen zait oroitze hutsarekin. Karlos Zabala

Haiei atsegina ematearren, bigarren **zilipurdian** nolabait ere moldatu nintzen beste oinetakoa sabairaino bidaltzeko. Jesus Mari Mendizabal

Gain zabal eta beratz horretan, nire andrearen eta Ximurraren arteko **zilipurdiak** imajinatu nituen. Aingeru Epaltza

Ezin zen bizi bere ariketetarako, bere pauso eta **zilipurdietarako** nahiko leku ematen zion ganbara hartaz kanpo. Xabier Olarra

Umeek **zilipurdi**, gainka, oinez, balantza, oihu eta jolas egiten dute espaloi guztietan. Koldo Izagirre

**2** irud/hed

Ameriketarako edo Afrikarako joan-etorriak, harako itsas bideak eta **zilipurdiak** ezagunak zituen. Felipe Juaristi

Bizimodua ateratzeko horrelako **zilipurdiak** egin behar izaten dira askotan, itsasora eta lehorrera ere, han eta hemen. Migel Angel Mintegi

**3 *zilipurdi egin***

Toki lasai baten bila, behin hara iritsitakoan, inor begira ez badago, **zilipurdi egitera** ausartzeko. Bernardo Atxaga

Umea ninduan, noiz eta Urbiaindik titiritero batzuk iragan baitziren, ximino tipi bat ere lagun zutela, sokatik dilindan mila **zilipurdi egiten** zituena. Joan Mari Irigoien

---

## zilipurdika *(orobat **ziripurdika** g.er.)* **1** *adlag* zilipurdi eginez. ik **itzulipurdika**.

Eskaileretatik erori zen **zilipurdika**, garrasi batean. Jokin Muñoz

**Zilipurdika**, haitz puntetan eta harkaitzetan joaz, azkenean amildegiaren sakoneneraino erori zen. Askoren artean

Indioiloa uhurika, **zilipurdika** joan zen teilatu-isurkian beheiti, hegatzean ezin gelditu eta erori egin zen goitik behera lurreraino. Gotzon Garate

Behera jaisten ari dira, oinak arrastaka, normalean **zilipurdika** jaisten diren hondar muino beretik. Jokin Muñoz

Peter lurrean **zilipurdika** ari zen Muxi katuarekin, eta ama, Margot eta ni patatak zuritzen. Josu Zabaleta

Bob Marley-ren elastiko handi hura txandaka jantzi zuten, eta txirristetan **zilipurdika** ibili ziren, pilak agortu ziren arte. Jokin Muñoz

Aztalka eta **zilipurdika** ihes egin nahi izan nuen. Aingeru Epaltza

Txakurkumea terrazan **zilipurdika**. Anton Garikano

Soinu uhintsu bat, Setheren semeek egiten dutena bezalakoa dabiltzanean belarretan **zilipurdika** edo euritan zipriztintzen. Anton Garikano

Haurtzaroko misterioak gogoan **ziripurdika** ditudala, egon natzaio begira. Patziku Perurena

**2** irud/hed

Etorri zen jendea laguntzera, baina sugarrak dantzan eta **zilipurdika** zebiltzan. Koro Navarro

Zer, hegazkina zurrunbiloan ibilarazi nahi badu, edo, jauzi eta saltoka, **zilipurdika**, kiribilketan hasten bada? Xabier Olarra

Topo egin nuen, baina, egongelako mahaitxo batekin eta telefonoa atera zen **zilipurdika** lurreraino. Hasier Etxeberria

**3 *zilipurdika egin***

Korrika hasi naiz berriro, aldapan behera nire karga guztiaren laguntzarekin oso azkar noa, batzuetan erori eta **zilipurdika egiten** dut, eta hola ordubete edo gehiago, lehertuta nago, ezin dut jarraitu, eta erreka txiki baten ertzeko sastraketan gorde naiz. Bernardo Atxaga

Horrelako egunetan harea trinko-trinko egoten da, eta arropetan itsatsi egiten da **zilipurdika eginez** gero. Jokin Muñoz

Bai, **egin zilipurdika** zekorrak zelaian bezala, egin irrintzi zaldiak bezala. Elizen arteko biblia

---

## zilipurdikatu, zilipurdika(tu), zilipurdikatzen *(orobat **txilipurdikatu** g.er.)* **1** da *ad* zilipurdi egin. ik **itzulipurdikatu**.

Uretatik gertu daude orain moila bakartian: bata bestearen gainean **zilipurdikatzen** dira, itsaso koipera erortzeko zorian. Harkaitz Cano

Bestalde, bera ere gimnasio batean izena emanda zegoen, non bera bezalako tripandi heldu batzuk lurretik zehar **zilipurdikatzen** baitziren haurtzaindegiko umetxoen antzera. Berria - Kultura

**Zilipurdikatu** dira berriz, giltza hartu du bietako batek eta begitik sartu dio besteari giltzaren metal hotza, eta begia sarraila baten eran zabaldu dio. Harkaitz Cano

Argiro adi zitekeen uraren zaplada eta tanta erorien zalaparta eta olatuen zurrumurru eta txistuots antzeko bat, piririka, hankazgora eta harkaitzei zapla joka, izaki basati erabat libreak bailiran, beti honelaxe astintzen eta **zilipurdikatzen** eta jolasten. Anton Garikano

**2** irud/hed

Antzina maite nuen horrelako egunen malenkonian **zilipurdikatzea** , bizitzaren alde ilunari gortea egin eta mundu hobe baten nostalgiak indarberriturik aurrera jarraitzea. Eider Rodriguez

---

**zilipurditxo** *iz* zilipurdi txikia.

Itsasotik noizbehinka zetorrèn haizea Luziferren tropetako deabru ikustezin bat izan zitekeen, emazteki haien lepainguruetarat noiznahi-den amoltsuki biribilka zitekeena, edo **zilipurditxoren** bat ere egin zezakeena. Joan Mari Irigoien

---

**ziliziar** *izond/iz* Asia Txikiko Ziliziakoa, Ziliziari dagokiona; Ziliziako herritarra.

Hartan, zirenear eta alexandriarrez osatua zegoen eta "Askatuena" zeritzan sinagogakoak, **ziliziar** eta asiar batzuekin batera, Estebanekin eztabaidan hasi ziren. Elizen arteko biblia

---

**zilizio** **1** *iz* penitentzia egiteko erabiltzen zen zurdazko soinekoa; gorputza hilduratzeko gerrikoa, zurdaz edo burdinazko katetxo puntadunez egina. ik **zurdatz**.

Apez izaiteko, gozorik ez duen ate estua iragan behar zela eta nork bere buruari uko egin behar ziola, baita lizifrinaz eta **zilizioez** baliaturik ere, hala behar izanez gero. Joan Mari Irigoien

Uste duzu otoitzak edo herriaren maitez lotu duzun **zilizioak** aldatuko duela mundua, besterik gabe. Koldo Izagirre

Beste batzuek burdinazko tresnaz edo zurezko **zilizioz** inguratzen zuten gorputza. Askoren artean

Laster lur eta errauts bihurtu behar zuenez, gerrian **zilizioa** jartzeko eta gainean errautsa botatzeko agindu zien. Askoren artean

Soinean zeramatzaten **zilizio** eta burdin uztaien eta gaubeila ugari eta etengabeko barauen zigorrez lur jota geldituko ziren sarritan. Askoren artean

**2** (izenondo eta izenlagunekin)

Oso umea zela hasi zen **zilizio** latza eta haragiari itsatsitako burdina-uztaia eramaten eta barau-bijilia gogorrak egiten. Askoren artean

Jantziaren azpitik haragian, burdinazko uztai, koraza eta **ziliziorik** gogorrenak zeramatzaten. Askoren artean

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
> zilizioa zeramala (3)

---

zilko ik **xilko**.

---

zilkoi ik **xilko**.

---

zilkoikeria ik **xilkokeria**.

---

zilkokeria ik **xilkokeria**.

---

zilo ik **zulo**.

---

zilodun ik **zulodun**.

---

ziloka ik **zuloka**.

---

zilotxo ik **zulotxo**.

---

**ziltze** *iz* tipulaz eta kidekoez mintzatuz, ernamuina ateratzea.

Letxugarekin edo tipularekin gogoratzea aski, jabetzeko garatzea (bestelako hitzez: **ziltzea** , makila egitea, zakartzea, zakiltzea (sic)...) alferrik galtzea dela, gehiago jateko modukoa ez izatea. Iñaki Segurola

---

zilueta ik **silueta**.

---

**zima**[1] *iz* aiurria.

**Zima** gaiztoko gizona dun. Anton Garikano

---

zima[2] ik **txima**.

---

zimaildu ik **zimeldu**.

---

zimaje ik **tximaje**.

---

zimaluze ik **txima 11**.

---

**zimardika** *iz* iruzur egikeko-edo erabiltzen den hitz iluna edo bikoitza.

Ni jende bezala ari naizela hemen zurekin hizketan, batere tranparik gabe, logoen **zimardika** eta hitzerdika engainagarrietan alferrik galdu gabe. Iñaki Segurola

---

**zimardikatu**, zimardika(tu), zimardikatzen du *ad*

Ezkaratzeko leihoko berina puskatu zuen eta gorputza **zimardikatuz**, handik karrikara herrestatu zen. Itxaro Borda

---

**zimarditsu** *iz* zimardikaz betea.

Txitxikov ohartu zen dama askok irrikaitz maltzurrez begiratu ziotela elkarri eta halako espresio **zimarditsu** bat agertu zela aurpegi batzuetan, eta horrek barneko nahasmendua. Jose Morales

Lasaiago ibiliko zarete zu eta Willem ni gabe -eta, irribarre-tsu, betazalak jaso eta keinu **zimarditsu** bat egin zion Norak. Anjel Lertxundi

---

**zimarku** *iz* engainua, iruzurra.

Azpikeria eta **zimarku** guztien aurrean irmo geratuko gara; Jainkoaren aurrean baino ez gara makurtuko. Berria - Mundua

Plural guztiak nola-halako interes eta **zimarkuen** "eraikuntzak" dira. Joxe Azurmendi

---

**zimarkun** *izond* maltzurra, engainatzailea.

Lehenagoko jabeak jendaurrean egin zion salaketa Napumoceno jaunari S. Nicolautik etorritako **zimarkun** txiki bat zela, jende zintzoari iruzur egitera etorritakoa. Bego Montorio

Hondoa jotako aitoren seme, **zimarkun** eta urre-bilatzailezko jende olde bat lehorreratu zen Potomak-eko urertzean, eta oholezko txabolak eraiki zituzten. Juan Garzia

---

**zimarroi** **1** *iz* hegalaburra, atungorria.

**Zimarroi** mota baten ingelesezko izena. Iñaki Arranz

**2** Antilletako esklabo beltza.

Nire uste partikularrean, **zimarroiak** guajiroak (nekazariak) baino hobeto bizi ginen. Pablo Sastre

---

**zimatiko** *izond*

Hormona horiek 100 sistema **zimatikotik** gora erregulatzen dituzte. Berria - Gaiak

---

zimatsu ik **tximatsu**.

---

zimaur ik **simaur**.

---

zimaurtegi ik **simaurtegi**.

---

**zimazio** **1** *iz* zutabe baten kapitela bururatzen duen pieza, abakoa oso garatua duena.

*Cella*-ren inguruan, hiru alde hartuz, plataforma bat egin behar baldin bada, kontuan hartu plintoak, basak, dadoak, erlaitzak eta **zimazioak** kolomen oinarriaren azpian egongo den estilobatoarekin egokituz egin behar direla. Santiago Iruretagoiena

Arkitrabearen **zimazioak** bere altueraren zazpiren bat izango du. Santiago Iruretagoiena

**Zimazioaren** proiekzioa, abakotik kanpora ateratzen dena, begiaren tamainakoa izango da. Santiago Iruretagoiena

Erlaitza bere **zimazioarekin**, sima aparte utzita, arkitrabearen erdiko faxaren neurri berekoa izango da. Santiago Iruretagoiena

Olivier Blévigneren erretraturantz nindoalarik, zerbaitek geldiarazi ninduen: **zimaziotik** Pacôme merkatariak begirada argia zuzentzen zuen nigana. Monika Etxebarria

**2** (hitz elkartuetan)

Erlaitzaren irtengunea, dentikuluarekin batera hartuta, frisotik erlaitz-**zimazioaren** goiko alderaino dagoen altueraren neurri berekoa izango da. Santiago Iruretagoiena

---

zimbabwear ik **zimbabwetar**.

---

**zimbabwetar** *(orobat **zimbawear** eta **zinbawetar**)* *izlag/iz* Zimbabwekoa, Zimbabweri dagokona; Zimbabweko herritarra.

Hiru maratoilari afrikar izan dira azkenak izena ematen: Fred Chumba eta Festus Kiono kenyarrak eta Abel Chimukoko **zimbawetarra**. Berria - Kirola

Damiani Chopa tanzaniarra eta Cuthbert Nyasango **zimbawearra** prest ditu ezustekoa emateko. Berria - Kirola

Abel Chimukoko **zinbawetarra** eta Fred Chumba kenyarra dira bihar Gasteizko kaleetan zehar jokatuko den Martin Fiz Nazioarteko Bigarren Maratoia irabazteko faboritoak. Berria - Kirola

---

**zimel** *(orobat **zumail** g.er.)* **1** *izond* landare, lore eta kidekoez mintzatuz, mardultasuna eta freskotasuna galdu duena.

Bazter batean, lore **zimelak** oinarriaren gainean txukun ipinita. Felipe Juaristi

Egon Schiele pintore espresionistaren Ekilore **zimelak** margolana enkantean jarriko dute Londreseko Christie's enkante etxean, ekainaren 20an. Berria - Kultura

Lehen lerroko emazte panpox batek, urre eta zilarrezko bere girgileria ozenki inarrosiz, arrosa **zimel** bat aurtiki zion aurpegira. Itxaro Borda

Mahaitxo gainetik arrosa gorri erdi **zimelak** harturik, zakarrontzira bota zituen. Anjel Lertxundi

Arku elektrikoek mahats **zimelak** ziruditen, haizearen altzoan kulunkari. Lopez de Arana

Ondoren, beste zazpi galburu sortu ziren, **zimelak**, meharrak eta haizerreak ihartuak. Jose Antonio Mujika

**2** (adizlagun gisa)

Iharturik dago mahastia, **zimel** pikuondoa. Elizen arteko biblia

Dolutan, akiturik dago lurraldea, lotsaz eta **zimel** Libanoko basoa. Elizen arteko biblia

Lirio bat bezain **zimel** gelditu nintzen. Fernando Rey

Urkiletatik askaturik, ile-adats bakan batzuk nora gabe eta **zimel** zebilzkion lepoaldean. Mirentxu Larrañaga

**3** (izen gisa)

Egungo **zimelak** biharko lorea. Herria

Egungo loreak biharko **zimela**. Herria

**4** irud/hed

Gimnasioan lan saio amaigabeak egin ditu, goizez eta arratsaldez, gihar **zimelak** indartu nahian. Berria - Kirola

Apain-mahai gaineko arrosa hori sorta batek isuritako freskura **zimela** sumatzen zen, gelako giro itogarrian. Lopez de Arana

Hartara gurea ez da inoiz endekatutako maitasun **zimela** izango. Harkaitz Cano

Sebastiao lehen egunean bezala ageri zen, begia ekialdera buruz beti, atzean utzitakoaren oroitzapen **zimela** bainoago geroan aurki zitekeenaren esperantza lorea gogoan zuela. Felipe Juaristi

Gertaerak geldo, nagi, **zimel**, egokitu egiten dira eman gogo diedan ordena zorrotzera. Monika Etxebarria

Lurrean **zimel** eta tente bezain zurrun eta elbarri sentitzen zen itsasoko urek bustitako oholak zapaldu orduko. J.M. Olaizola "Txiliku"

Begiak **zimel** zituen, gorputza ihar, arropak pilda txar eginik. Aingeru Epaltza

**5** *(orobat **zumel** g.er.)* mami gutxikoa, giharra; zaila.

Ez zuen dudarik patroi ona izanen zela, halako gorpuzkera zeukan gainera, zalua, **zimela**, zaintsua. Koldo Izagirre

Apenas erreparatu omen zion gizonaren gorpuzkera **zimel** eta segailari. Joxean Agirre

Waltari kubanoa, 25 urte, mutiko **zimela** eta axola gabea, bere gisako apuña batean pilota azotatuz ari, laster eta jauzi ezin sinetsizkoen punpekari bat ginuen itsaso hainditik etorria. Herria

Bi emakume, txiki zaharra bata eta handi **zimela** bestea. Karlos Zabala

Haren aurpegia zeharo arrunta zen, agure **zimel** askorenaren antz-antzekoa. Jose Morales

Emakume hark aurpegi **zimel** eta zurbila zeukan, eta ezpain bilduak. Lopez de Arana

Jakaren mahuka listuetatik irteten ziren eskumutur **zimelei** erreparatu zien emakumeak. Lopez de Arana

Igandero mezondoan zapatak kenduta hankutsik hamaiketakoak jokatzen zituzten mutil baserritar **zimel** haiek. Patziku Perurena

**6** irud/hed

Matson andrea espaloi-ertzera alboratu zen bat-batean, erdeinuzko begirada **zimel** bat botatzen ziolarik. Mirentxu Larrañaga

Piamonteko dialekto lakar, **zimel**, lakonikoa, zeina ez baita egundo idatzi, apustu baten kariaz ez bada. Juan Garzia

**7** (hitz elkartuetan)

Aldamenean, agure argal, burusoil eta zurbil bat zuen, masail-**zimela**. Koro Navarro

Gizon garai aurpegi-**zimel** bibote latz grisaxka eta azal beltzaraneko bat irten zen bere bikotekidearekin. Irene Aldasoro

**8** (adizlagun gisa)

Greziar indartsu haien artean [...] Bagration ageri zen, **zimel**, ihar, marko estu-estu batean sarturik, azpian bandera eta kanoi txiki batzuk zeuzkala. Jose Morales

Sakabi ikusten dute, makal zuhaitzaren irudira zuzen, gorosti hezearen antzera **zimel**, begi irten ederrekin dantzariei begira. Iñigo Aranbarri

**9** ***zimel-zimel***

**Zimel-zimela** zegoen, sabela zimur, azala hezurrei josia. Karlos Zabala

Bi idazluma, tintaz zikinduak, **zimel-zimel**, tisiak jotako gaixoaren antzera. Jose Morales

Eragin eta eragin, pentsamenduaren organoa (--?) **zimel-zimel** egina utzi arte. Iñaki Segurola

Mimosen ohorez, ordurako galdua izan behar baitzuten usaina, hantxe liburu-dendako diru-kutxaren gainean **zimel-zimel** eginda, hegoaldetik hastea erabaki zuen Ruche jaunak. Jon Muñoz

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
> **bezain zimel** (3); **zahar zimel** (3); **zimel gelditu** (3); **zimel zimel** (3)

---

**zimelarazi**, zimelaraz, zimelarazten du *ad* zimeltzera behartu.

Nostalgia boluptatetsu apur batez, berpizten sumatu nituen neure baitan analistaren erreflexuak, inertzia luze batek **zimelaraziak**. Juan Garzia

---

**zimeldu**, zimel(du), zimeltzen *(orobat **tximeldu** g.er. eta **zimildu** g.er.)* **1** da/du *ad* mardultasuna edo freskotasuna galdu.

Haziak harri gainean bezala **zimeldu** ziren. Fernando Morillo

Ukitzen ditudan loreak **zimeldu** egiten dira. Joan Mari Irigoien

Krabelinak **zimeltzen** utzi zituzten. Berria - Mundua

Egun loretan dena bihar **zimelduko**. Herria

Gal bitez ur isuria bezala, **zimel** bitez belar zapaldua bezala. Elizen arteko biblia

Ingura ditzagun buruak arrosa-koroaz, **zimel** daitezen baino lehen. Elizen arteko biblia

Emaztearekiko harremanek ez zuten asebetetzen, eta egunetik egunera **zimelduago** ikusten zuen haren gaztetasunaren lilia. Patxi Zubizarreta

Ispiluaren argi zuri gordinpean **zimeldua** ageri zitzaidan aurpegia, zargaldua. Ramon Saizarbitoria

**Zimeldurik** zeuzkan eskuak; **zimeldurik** eta zimurrez josirik. Juan Garzia

**Zimeltzen** ari den haragi helduaren higalana begiratzeko. Josu Zabaleta

Baina haziak harri gainean bezala **zimeldu** ziren. Fernando Morillo

Garaia zen, bibotetxo ilegorria zuen, eta aurpegi iharra -edo **zimeldua**, hainbatek hala esaten diote eta. Jose Morales

**2** irud/hed

Kanpora goaz, Amandaren loreak eta diskurtsoak **zimeltzen** hasiak baitira. Liburuak-eta **zimeldurik** zeuden. Edorta Jimenez

Hamaika esperantza **zimelduko** duk udaberri honetan. Agustin Otsoa

Adorea errautsetan **zimelduz**. Agustin Otsoa

**3** (era burutua izenondo gisa)

Lore **zimeldu** haiek, nire ustez, hitz egin egiten zuten: burua goratzen zuten eta gaztaroko maitasun zirraragarrien historiez mintzatzen ziren. Fernando Rey

Harriak, gurutzeak, burdinazko kateak, beirazko koroak, lore **zimelduzko** koroak ukitzen nituen! Josu Zabaleta

Azken udako hosto **zimeldu** eta zimurtuak. Agustin Otsoa

Weldon andreak azken zartatxoa eman zien lilipa-lore **zimelduenei**, eta beste behin ikuskatu zuen gela. Mirentxu Larrañaga

Haren aurpegia, ahizparena baino osasuntsuagoa, dena zen izur eta toles, sagar gorri **zimeldu** baten antzera, Neskameak hotz eta zorrotz begiratu zion ohean zegoen emakume eder **zimelduari**. Irene Aldasoro

Kolore-bizitasunik gabeko aho **zimelduan**. Anjel Lertxundi

Hanna ez da inola ere emakume zaharra, baina nik, noski, haren larmintz **zimeldua** nekusan, haren betazpi puztuak ere bai, eta haren baldoki zimurtuak. Joxe Austin Arrieta

Bere begitartea, lehenago betea eta horikara, **zimeldua** ageri zen. Patxi Zubizarreta

Ezkongai-etxe bateko sekretu ustelekin, adulterio baten xehetasun **zimelduekin**. Xabier Olarra

**4** (hitz elkartuetan lehen osagaiaren izenondo gisa)

Etxe aitzinean zegoen Abel, lurrean etzanik, begitartea ahozpez eta odoletan, besoak zabalik, eskuineko eskuan lore **zimeldu** sorta bat zeukala. Daniel Landart

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
> lore zimeldu (3)
> zimeltzen hasita (3)

---

## zimeldura *iz* zimeltzea.

Zer zen, benetan, Princeton: adimenaren pizgailu... edo hil aurreko **zimeldura** madarikatua? Fernando Morillo

---

## zimelduxe *adlag* zimeldu samar.

Nolanahi ere, agindu, Loredana zelakoak agintzen zuen (eta patioko leihotik seinalatu zidan: garai, beltzaran, galant, nabarmen samar, **zimelduxea**), beraren idazkari eta amoranteak. Juan Garzia

---

## zimeltasun *iz* zimela denaren nolakotasuna.

Ederra da gizon honen **zimeltasuna**, larru-erre, lepo-ahul, izarretik izarrera egindako nekazaria. Koldo Izagirre

Hain zuzen ere, P. jaunarena berarena baino are zorrotz-**zimeltasun** tematiagoz eta berrikuntzen arbuio grinatsuagoz kudeatzen zuen Ikastegia. Juan Garzia

---

## zimeltze *iz* mardultasuna edo freskotasuna galtzea.

Banekien nik berarengan ikusten nuena ikusten zuela berak niregan ere: haragiaren **zimeltze** motela-. Koro Navarro

---

## zimeltzeke *adlag* zimeldu gabe.

Ertiaren bitartez, antza, arrosak betiereko iraun dezake **zimeltzeke**. Berria - Kultura

---

## zimelxeago *izond* apur bat zimelagoa.

Han ez zuen zer eginik; Dalia orojakileak ur gardenaz freskatu bide zituen, inausi zizkien zurtoinak, bai eta haien ahizpa passées edo **zimelxeagoak** erauzi ere. Mirentxu Larrañaga

---

## zimendatu, zimenda(tu), zimendatzen du *ad* oinarritu, finkatu. ik **zimentatu**.

Ohitura edo arau haietan **zimendaturik**, berak bere jokoa jokatzen zuen, eta entseiatzen zen, halatan, bere lekuan egoiterat. Joan Mari Irigoien

Zure hitzaldiko arrazoinak, zure aipu haietan **zimendatuak**, banaka harturik, ur-xortak bezalakoak ziren, bakoitza bere aldetik joan zitekeena. Joan Mari Irigoien

Amesten bainuen ezen, jauregiaren itzalaz baliaturik, justizian eta karitatean **zimendatu** lurralde zerutiar bat eraiki ahal izanen genuela noizbait Urbiainen, non guztiok anai-arrebak eta Jainkoaren seme-alabak senti baikintezkeen. Joan Mari Irigoien

---

## zimendatze *iz* oinarritzea, finkatzea.

Gorpuzkinak altxatzeko erabakia hartu zuen Vianako Printzea Erakundeak, «Kondestablearen etxearen beraren **zimendatze** arazoak direla eta ezin direlako bertan kontserbatu». Berria - Harian

---

## zimendu *(orobat **ximendu** g.er., **zimentu** g.er.)* **1** *iz* eraikinez mintzatuz, lur azpiko zatia, gainekoari eusten diona.

Naturazko lege hartatik datozela gerlak, populuen bereizketak, erreinuen oinarriak, alorren zedarriak, eraikinen **zimenduak**. Piarres Xarriton

Egitasmo originaletik, soilik oinplanoa errespetatu zuten, hots, **zimenduak**. Berria - Kultura

Hasi ziren etxolen ordez benetako etxeak eraikitzen, **zimenduz** osatuak eta pezozko edo harrizko paretekin altxatuak. Santiago Iruretagoiena

Dorreen eta harresien **zimenduak** egin beharko dira era honetan: [...]. Santiago Iruretagoiena

Juduen etxeak suntsitu egingo dituzte eta **zimenduak** eraikin berriak egiteko baliatuko dituzte. Berria - Mundua

Gortor-lekuaren **zimenduak** atera zituzten 1627-an. Herria

Uribitarte kaiko zutabeek 100 urtetik gora dituzte eta azpialdea eta **zimenduak** egurrezkoak dira. Berria - Euskal Herria

Zeren Burgosko katedralak, zerurat beha paratu aitzin, lur sendo eta egonkor bat baitzuen funts eta azpi, non errotzen baitzituen bere oinak eta **zimenduak**. Joan Mari Irigoien

Lurpeko espazioak eta gela gangatuak egiten badira, orduan, gero gaineko eraikinetan egingo diren egiturak baino lodiagoak egin behar dira **zimenduak**. Santiago Iruretagoiena

Era honetako obren **zimenduak** leku sendo batean egin behar dira. Santiago Iruretagoiena

Langileek harri puskatu idatziz estali bat ekarri zidaten, **zimenduetarako** zangak zulatzen ari zirela aurkituta. Josu Zabaleta

Azken lubakiaren barru-barruan, zubi altxagarriaren **zimenduei** erreparatu zien Ruche jaunak. Jon Muñoz

**Zimenduetatik** hasi ordez, antza, teilatutik, edota, hobe esanda, tximiniaren ketik hasi ziren Eurolandia deritzan etxea eraikitzen. Iñaki Heras

**2** (izenondo eta izenlagunekin)

Hori, **zimendu** sendoko hiria, arkitekto eta egile Jainkoa bera duen hiria, itxaron zuelako. Elizen arteko biblia

Etxe bat eraikitzekotan, **zimendu** azkarrak behar zaizkiok eman lehenbailehen. Janbattitt Dirassar

Bi hormen tartean zeharkako beste batzuk eraikiko dira: kanpoko eta barruko **zimenduak** elkartuko dituzte. Santiago Iruretagoiena

Jaspezko oinarri gainean eraikiko zaitut, zafirozko **zimendu** gainean ezarriko. Elizen arteko biblia

**3** irud/hed ik **oinarri**.

**Zimendu** horren gainean benediktarren ordenak Mendebaldeko ekonomi bizitzaren nekazaritza-oinarria jarri zuen. Iñaki Mendiguren

Zeren, hori bera entzuna bainuen Alcalako Unibertsitate ospetsuaren **zimenduak** finkatu zituzten ene paristar irakasleenganik. Piarres Xarriton

Klaseen helburua ikasleei euskararen **zimenduak** emaitea da. Herria

Hala iritsi nintzen ni, ohikoak genituenez gain -euskara, gaztelania eta frantsesa-, latina ere ikasterat, jakintasunaren **zimendu** eta oinarri zelako. Joan Mari Irigoien

Aldi berean, gogorra eta hertsia zen, noiz eta erlijioneaz mintzatzen baitzen edo noiz eta bere sinestearen eta berak ikasi teologiaren**zimenduak** jokoan ikusten baitzituen. Joan Mari Irigoien

Europa batuari eman nahiz lege-nagusi bat, denen arteko partzuergoaren **zimendu** nolazpait. Herria

Serie batzuk egiten aritu zen osaba Joanikot, baita iduri geometriko batzuk ere, serie haiek **zimendu** harturik. Joan Mari Irigoien

**4** (irud/hed, izenondo eta izenlagunekin)

Etorri, gure sinesteari **zimendu** sendoak ezartzera etorri zen. Aingeru Epaltza

Zeren ni ere halaxe bainabilkizu neure esplikazioneekin harat eta honat, mundua ulertu nahi eta ezinean, **zimendu** sendo baten bila. Joan Mari Irigoien

Ortodoxiak **zimendu** ezin sendoagoak aurkitu ditu beraren lan nekagaitzean. Anjel Lertxundi

Zeren hura arrazoin eta argudio ezin eskasagoa baitzen, alde batetik, eta zeren, bertzetik, hain **zimendu** kaskarren gainean nekez eraiki bainezakeen deus iraunkorrik. Joan Mari Irigoien

**5** (hitz elkartuetan)

Nobleak dira batzuk, espainiarrak Hegoaldera bidali zituzten Orangearrak; merkatariak dira besteak: biek ala biek jarri dituzte hiriaren **zimendu** harriak. Felipe Juaristi

**6** *(orobat **zimenta**)* *ipar* zementua.

**Zimenduzko** teilatu grisean arra, papoa hanpatuz, emearen inguruan urrumaka badabila. Aurelia Arkotxa

Lehen egunetan **zimendu** zakuak alde batetik bertzera eramaiten zituen, bizkar gainean. Eneko Bidegain

Lehen gauetan **zimenta** gainean lo egiten bazuten ere, guttienez barnean ziren eta elkarren kontra tinkaturik -zaindariek manaturik, beti bezala- gaua berokian iragaiten zuten. Eneko Bidegain

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
> errepublikaren zimendu (3); gure ondarearen zimendu (3); ondarearen zimendu gaixo (3)
> zimendutik eta erroetarik (3)

---

## zimenta ik **zimendu 5**.

---

## zimentarri 1 *iz* zimendua.

Etxegileek Jaunaren tenpluko **zimentarriak** jarri zituztenean, han aurkeztu ziren apaizak bere jantzi eta turutekin, eta Asafen ondorengo lebitarrak txilinekin, Jauna gorestera. Elizen arteko biblia

Mesopotamiatik Jerusalemera etorritako juduak hiri menperagaitz eta gaizto hau berriro eraikitzen ari direla; **zimentarriak** konpondu dituzte, harresiak jasotzeko asmoz. Elizen arteko biblia

Hala bada, bezperan ezertxo ere ez zegoen orubean, ez eraikin materialik, ez **zimentarririk**, orain hain jauregi handiosa agerturik, albistea bolo-bolo zabaldu zen bai hirian bai jauregian. Patxi Zubizarreta

Ibaiko urak, argiontzi batzuen ñirñir urduriaz pikardaturik, terrazen beheko **zimentarriak** bustitzeraino iristen ziren. Karlos Zabala

*Reichtag*-en antza zuela politikak, oso ederra kanpotik baina **zimentarriak** lokatzetan zituena, hori eta antzekoak esaten hasi zitzaidan ama. Anjel Lertxundi

**2** oinarria.

Pobretasuna bere Ordenaren **zimentarri** zela zioen, bere Elkartearen egitura osoari eusten zion oinarri nagusia.Taxuzko erabaki bat hartzeko eta zure geroko karreraren **zimentarriak** finkatzeko garaia iritsi zaizu... Askoren artean

-Jainkoarengan dugu **zimentarria**. Patxi Zubizarreta

Ohiturazko zuzenbidearen aurrean, lege arrazoidun horrek idatzian du euskarria, idatzia baita ororen **zimentarri** eta egontokia. Andres Urrutia

Nire kolera -bestondoa, beroa eta orduak iragan arauz emendatzen zihoakidan samina **zimentarri** zituena- kanporatu behar zakarra. Aingeru Epaltza

---

## zimentatu, zimenta(tu), zimentatzen 1 du *ad* zimentarria jarri.

**Zimentatu** gabeko harriek irtenbidea ematen diote harribilen artean ihes egiten duen urari. Koldo Izagirre

Nire burua harri seguruan **zimentatua** nekusan bertatik. Pello Zabala

**2** zimendatu, oinarritu.

Berri On horrek ditu gure Elizak **zimentatzen**. Herria

**3** ik **zementatu**.

---

## zimentazio *iz* zimentarria jartzea.

Eraikuntzako materialak, **zimentazioak**, hormen eraikuntzak, aparailuak, gainestaldurak, etab. denak dira azalpen desberdin baina askotan oso xehekatuen gai testuan

zehar. Santiago Iruretagoiena

---

zimentu ik **zimendu**.

---

# zimeriar 1 *izlag/iz* Azerbaijan edo Kaukaso inguruan bizi zen antzinako herri bateko kidea.

Orduan, gure itsasontzia ozeanoaren mugetaraino iritsi zen, **Zimeriarren** hiriraino; leku hura beti ilunpean eta lainopean dago; Heliosek ez dio inoiz jotzen. Juan Kruz Igerabide

Jarraian **zimeriarrak**, eskitiarrak, sarmatiarrak eta godoak, besteak beste, iritsi ziren, K. a. lehen milurtean. Berria - Mundua

Itsaso Beltza aintzira heleniko bilakatu zen; eta estepako barealdian, **zimeriar** eta eszitiar nomadak sartu ondoren, Itsaso Beltzeko nagusi helenikoak eta eurasiar estepako mendebaldeko badia handiko eszitiar nagusiak probetxuzko merkataritza-elkartzeari ekin zioten. Iñaki Mendiguren

**2** (izenondo gisa)

Hala sartu zen Cyril Tourner gau **zimeriarraren** ahurtasun zabalean. Juan Garzia

---

# zimikatu, zimika, zimikatzen 1 du *ad* zimiko egin, atximurkatu.

-Ipurdiak **zimikatzeko** aukera ederra. Xabier Olarra

Beso ondoa **zimikatu** nuen, Fatboy Slimen zinta geldiarazi eta ikusgarriari so geratu nintzaion, ahoa bete hortz. Itxaro Borda

Erpuruaz eta hatz erakusleaz masailean leunkiro **zimikatu** eta, amak semeari errieta txikia egiten dionean bezala, esan zidan: [...]. Joan Mari Irigoien

Beltzaranaren titiak kilikatzen zituen, kukurusta gorria **zimikatzen** zion eta belarria ausikitzen. Itxaro Borda

**2** irud/hed

Horretaz ohartzearekin batean, Urtxipiatarren hilobiaren aitzineko gizonaren bisaia bihozminduak **zimikatu** ninduen. Aingeru Epaltza

---

# zimiko 1 *iz* atximurra, imurtxia.

Nire besoek franko dakite haien **zimikoez**, eta nire aztalek haien ostikoez. Aingeru Epaltza

Bihurdikatu nintzen, berriz ere sakaka hasteko prest, baina Kristinaren **zimiko** batek eragotzi zidan. Aingeru Epaltza

Titimutur kimu tontor askeak, **zimikoen** eraginpean erne. Eider Rodriguez

Orduantxe **zimiko** bat sentitu du hatz batean. Eider Rodriguez

**2** irud/hed

Zirrara baten **zimikoa**. Harkaitz Cano

Janari-eskasia handia zegoen, eta gosearen **zimikoa** bi ogi-mokadu eta zazpi arbiz eta egarria bihotzeko pozez baretu zuten. Traizioaren **zimikoa** sentitu nuen sabelaldean. Askoren artean

Zalantzaren **zimikoa** sentitzen hasi zen. Askoren artean

Horrek arindua ematen zion, barrenean **zimiko** bat bazuen ere. Karlos Zabala

Zigarro-mutur bat du ezpain artean hartuta. "Atzoko argazkilaria!", sentitzen dut **zimikoa** bihotzean. Anjel Lertxundi

Betiko mutur-beltzez landa, bertze zerbait aurkitzeak eragiten didan **zimikoa**. Aingeru Epaltza

Jaungoikoa hantxe geratzen duk, eta heure barneko **zimikoaren** ahotsaz hitz egingo dik bizi guztian. Koldo Biguri

Horiek guziek hau dute beren **zimikoa**: laborantza elikadura edo janarien aztapar haundidunek beren peko ezartzen dutela lurlanaren gorabehera guzia. Herria

Irisarrik mutilen azkentzea ikusi zuen bere ziegako leiho txikiaren atzetik, ikara handirik gabe, dardararik gabe, **zimikorik** gabe, ez baitzuten hiltzeko batere beldurrik. Felipe Juaristi

**3** (izenondo eta izenlagunekin)

Orduan **zimiko** latzak bihotza irauli zidan. Itxaro Borda

Ikustearekin batera **zimiko** urduria igarri du bularraldean. Paddy Rekalde

Usain honekin, Martini **zimiko** ezaguna pizten zaio tripatik behera. Alberto Barandiaren

Halako **zimiko** bat senditu nuen ene bihotzean. Janbattitt Dirassar

Larunbat goiz hartan baneukan halako *maitia non zira*, halako gabetasun bular zolan, halako **zimiko** tripa sabaian... Patziku Perurena

**4** (hitz elkartuetan)

Halako erruki-**zimiko** bat sentitzen dut Pamelaren aldera. Oskar Arana

Erakarmen **zimiko** bat sentitzen du haren aldera. Oskar Arana

Ezin izan nuen baztertu aldi berean beste idunekoan pentsatzea, zeinek damu-**zimikoak** eragiten baitzizkidan Marina Gonzalezi eragin nion hondamendia biziberritzen nuelarik. Oskar Arana

**5** ***bihotz zimiko***

Inoiz batak besteari min egin ziezaiokeen hitzen bat esaten bazion, bihotz-**zimikoak** ez zion bakean uzten. Askoren artean

Azken hitz horiek egin zidaten bihotz-**zimikoa**! Daniel Landart

Alargunak esan ezin ahalako bihotz **zimikoa** hartu zuen Adjib ezagutu zuenean. Patxi Zubizarreta

Dudarik gabe bazuen hark bihotz **zimikorik** eman zituen manuengatik. Jon Muñoz

Nork desira dezake arrazoiaren ordainetan erositako zorionik, eta iraupen gutxiko plazerren ondoren gutienean damurik dakarrenik, non ez duen bihotz **zimikorik** ekartzen? Jon Muñoz

Begi arranpaloekin bere harribitxiari antzeman ziolarik, bihotz **zimiko** ikaragarria sentitu zuen. Patxi Zubizarreta

Bihotz-**zimikoz**, estu eta larri, intzirika esango diote elkarri: [...]. Elizen arteko biblia

**6** ***zimiko egin***

Bero itzela izanda ere, hotzikarak **zimiko egin** zidan larru-azalean. Izaki zainil eta meharra, aurpegi zurbilduna, alferrik **egingo** dio **zimiko**, mina eragiteraino. Aingeru Epaltza

Eta testuaren xamurrak bihotzean **zimiko egingo** dio irakurleari. · Justu gibelean zeukan emazte klasiko eta ponpox beztitua zen Frantxuak bizkar gainean **zimikoa** egin zion: [...]. Berria - Kultura

Benetakoa zirudien aitaren alabarekiko atsekabeak, eta halako **zimiko** bat **egin** zion Norari bihotzak. Anjel Lertxundi

Nik hozka egiten nion garondoan, **zimiko** txikiak **egiten** nizkion bularretan, zakila estutzen nion. Karlos Zabala

Lepoan lotzen zen soinekoa zeraman Monikek, eta Karlek atzetik **zimiko** bigunak **egin** zizkion titiburuetan. Eider Rodriguez

Tarteka, urteak igaro ahala, erruduntasunak **zimiko** txikiak **egiten** zizkidan. Oskar Arana

Irakurlearen subjektibitateari ez kilima, ez **zimiko**, ez zirrara **egiten** ez dioten berri horiek guztiak. Iñigo Aranbarri

**7** ***zimiko eragin***

Errate hutsak **zimiko eragin** dio bihotzean. Aingeru Epaltza

Berriak **zimiko eragin** zidan. Aingeru Epaltza

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
> **bihotz zimiko** (4); **bihotzean zimiko** (4); **halako zimiko** (3); **zimiko bat sentitzen** (3); **zimiko egin** (9); **zimiko egin zidan** (5); **zimiko egiten** (5)
> **bihotz zimikoa** (4)
> **bihotz zimikoak** (5)
> **bihotz zimikorik gabe** (5)

---

## zimikoka *adlag* zimiko eginez.

Luzaroan eta krudelki jardun zitzaion, **zimikoka** eta atximurka, belaun atzeetan. Mirentxu Larrañaga

Aspaldiko Txile kale hura, gizon haiek saltegietako ateetan, zuriz jantziak eta barrabilak igurtzika edo **zimikoka**, batzuen batzuk eskua gora eta behera etengabe, modaren bat zen nik uste. Karlos Zabala

---

## zimildu ik **zimeldu**.

---

## zimino *(100 agerraldi, 19 liburu eta 11 artikulutan)* 1 *iz* tximinoa. ik **tximino**.

Tigreak, elefanteak, krokodiloak, kobrak eta **ziminoak** gizakiekin adiskidetasunean bizi diren lurraldea. Gotzon Garate

Gizona **zimino** batetik dator; eta nondik zetorren **ziminoa**? Koro Navarro

Badira ere eskuen eta zangoen gainean dabiltzanak eta **ziminoak** bezain aise arboletara igaten direnak. Aurelia Arkotxa

**Ziminoak** bezatzen ditut. Harkaitz Cano

**Ziminoa** ekarri zutenean, alaitasun handiz jauzi egin eta besarkatu zuen bere bezatzailea. Harkaitz Cano

Kale ondoko arboletan **ziminoak** jauzika. Gotzon Garate

Oroitu nintzen etiopeen artean erraten dela **ziminoak** berariaz ez direla mintzatzen, gizonek trabailaraz ez diezaieten. Juan Garzia

Denetan ageri da Bruno, "Makinaz idazten duen munduko **zimino** bakarra"! Harkaitz Cano

Motor batek hil egin zuen **zimino** emea. Gotzon Garate

Kontuz, ordea, **ziminoek** umeak badituzte. Gotzon Garate

**Ziminoa** beti **zimino**. Herria

**Ziminoa** gorago, uzkia ageriago. Patziku Perurena

Nork daki denen artean zein zen **ziminoena**. Eneko Bidegain

**2** (izenondoekin)

Sinets iezadazu: Bruno **zimino** zaharra da, errukiagatik jarraitzen du gurekin, ez dugu harrizko bihotzik, nola esan... Harkaitz Cano

Kontzientzia txarra funtsezko grinen aurkako borrokak eragin du, norbere baitako **zimino** beltzaren aurkako krudelkeriak. Markos Zapiain

Beharrik zentzu gehiagorekin jokatzen dira Frantzia, **"zimino** gasna-jale horien herri zaharra", Alemania, Errusia [...] eta beste batzu. Herria

Hirira etorri ziren zirkuek ez zuten geroztik sekula **zimino** labana-jaurtitzailerik ekarri. Harkaitz Cano

**3** (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

Igande gau horietan zinez, gorputz eta arima -giza gorputzarekin, **zimino** arimarekin- gorrotatzen du komisarioak bere ogibidea. Harkaitz Cano

Oraindik ere badira Indian **zimino** okela jaten dutenak. Gotzon Garate

Gutxi uste zuen komisarioak, zirku jabeak **zimino**-hiltzailearen hipotesia hain era naturalean hartuko zuenik. Harkaitz Cano

Hanumanek, **zimino** talde handi bat lagun harturik, garaitu egin zituen Ravana eta beraren gudarostea. Gotzon Garate

Bere aurpegi erori **zimino** moduko hark, *Garagardoa* hitza kopetan, burlazko keinu bat itzuli zion. Koro Navarro

**4** (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa)

Lurrean itzulipurdika ari ziren jende-**ziminoei**. Eneko Bidegain

---

## ziminokeria *iz* tximinokeria.

Bazuen halako ukitu irrigarria nire borreroa edertasuna eta itzala murrizten zizkioten **ziminokeria** haietan ikusteak. Joxan Elosegi

Zer gertatzen ari zauku ximinoa eta ziminoaren artean? Ximinoak ximiko, ziminoak zirikada eta hori egunero, betiko **ziminokerietan**. Herria

Politikari frango dena **ziminokeria** eta ETA-k bere aldetik ez su-etenik aipu ere. Herria

Une batetik bestera anaia igoko da nik eusten diodan ohol horretara, eta bere **ziminokeriak** egiten hasiko da. Harkaitz Cano

Leihatilako sarean egin **ziminokeriek** ene gorputza iratzarri dute eta, joan-jinka aritzeaz enoatzen hasten bainaiz, beste soinketa batzuk asmatzen ditut. Filipe Bidart

Zer loria De Funes aktore ospetsuaren **ziminokeriak** txineraz entzutea! Ramuntxo Etxeberri

Agian **ziminokeria** berriren bat asmatu behar genuke, bada adibidez sua jaten duenik ondoko kalean, guk baino diru gehiago irabazten dute horrela. Harkaitz Cano

---

## ziminotu, zimino(tu), ziminontzen da/du *ad* zimino bihurtu.

Redio, Eduardo, berriz ere **ziminotua**! Aingeru Epaltza

Handik kanporatu gintuztelarik, mozkorrarena baino areago, **ziminotuaren** edo arrailduaren planta zekarren bulegariak. Aingeru Epaltza

---

## zimio *iz*

-Ez dik kimio eta **zimio** beharrik gaizoak! Itxaro Borda

---

## zimitarra *iz* sable motza, aho bakarreko xafla kurbatua duena.

Jadanik sartu dituzte ontzi berezi horretan **zimitar**-adardun orixa, Partula barraskiloa eta itsas zaldi horiaren ehun zatiak. Berria - Gaiak

---

**zimiterio** *(orobat* ***zimitirio****)* *iz* eliza-ataria.

Eliza-atari edo **zimiterioetako** granito gogorrezko aulki horiek hainbat zulotxo omen dituzte, eta aulkiek bezala elizaurreetako edo bidegurutzeetako gurutzeek ere bai. J.M. Olaizola "Txiliku"

Gero eta hosto gehiago zegoen **zimiterioko** lurrean, gero eta lore gehiago; ereinotzaren usain mela zabaldu zen airean. Bernardo Atxaga

Lehen hilak eliz inguran lurperatzen ziren, eta batez ere, eliz aurrean, horregatik deitzen zaio toki askotan oraindik eliz atariari **"zimitirioa"** euskaraz. Patziku Perurena

---

zimitirio ik **zimiterio**.

---

**zimitz** *(orobat* ***ximitx*** *g.er.,* ***tximitx*** *eta* ***tximutx*** *g.er.)* **1** *iz* intsektu txiki gorputz-zapala, gorri iluna, gizakiaren odola xurgatzen duena, *(Cimex lectularius)*; zimitzaren ordenako zernahi intsektu.

Ez duzu arkakusorik ez **zimitzik** aurkituko gure oheetan. Anjel Lertxundi

**Tximitx**, zorri, arkakuso eta eulien hiriburua da hura, lastaira eta ohe estalkien zikinkeria, berriz, itzela. Jokin Urain

Ez du bainurik hartzen, jaka jantzirik lo egiten du, eta jakaren azpian **zimitzak** hazten zaizkio, eta arkakusoak, eta deabruak daki zer gehiago. Jose Morales

Gau ta egun **zimitzak** ezin larrutik kenduz ari ziren, beti handik xixta, hemendik xixta, ez zitzaketen gehiago jasan. Eneko Bidegain

Argi zegoen han ostatu hartuek kandela batez edo lanpara batez errez hiltzen zituztela **zimitzak**, eta arrasto lasaigarri haiek uzten zituztela. Koro Navarro

Lastairako **zimitz** ugarien konpainian hartu ninduen loak. Anjel Lertxundi

Ohea **zimitzez** betea zegoelako. Anjel Lertxundi

**Tximutxaz** jositako etzaleku koipetsurik. Juan Garzia

**Zimitzek** hartutako manta zahar latz batean. Anjel Lertxundi

Gavardek arriskuan ipintzen zuen bere gantza, **zimitza** bezain zapal bukatuko zuen azkenerako. Karlos Zabala

Puerton egondako presoak hango eltxo izurritea eta **tximitxen** festa aipatu izan dute. Jokin Urain

-**Tximitxak** bezala zapaldu ditiagu! -entzuten nuen-. Txillardegi

**2** txintxeta.

Koadro batzuetan, oraindik ere, izkinetan ageri dira egileak oihala oholean finkatzeko erabiltzen zituen **zimitz** zuloen arrastoak. Berria - Kultura

---

zimiztatu ik **tximistatu**.

---

**zimur** *(orobat* ***tximur*** *g.er.)* **1** *iz* larruazalean, paper batean edo ehun batean gertatzen den tolesa. ik**zimurdura**.

Emile jatetxeko atean gelditu zen bost dolarreko bilete bati **zimurrak** kentzen. Lopez de Arana

Sarritan sudur gaineko begi-ordeak kentzen zituen begiak xukatzeko, musuzapi **zimur**, gris eta mela-mela egindakoaz xukatu ere. Mirentxu Larrañaga

Bere musuzapi **zimurrarekin** garbitu nahi izan zuen. Koldo Izagirre

Begien eta ahoaren inguruan egiten ari zitzaizkion **zimurrak** ikusi lituenean, konturatu nintzen hasieran uste nuena baino zaharxeagoa zela. Oskar Arana

Joe Costellok, bere esku **zimur** eta orban marroiez jositakoetan, Margarenak, zuriak eta leunak, hartu zituen. Ramon Saizarbitoria

Begi zolien inguruko **zimurrak**. Sonia Gonzalez

Nire aurpegiko **zimurrek** halako nahigabe etsi bat marraztu zuten. Aingeru Epaltza

Aurpegiko **zimurrak** kentzeko kremak. Berria - Gaiak

Aurpegia ferekatu nion berriro; **zimurren** ildo sakonak, goizeko bizarraren ile urdin tenteak, azal marguldua... Xabier Mendiguren Elizegi

Tanta horiek beiraduran marrazten zituzten arrastoetan iragarpen ezkutua aurkitzen saiatu zen Mentxu, esku ahurreko **zimurretan** eta kafe hondakinetan egin ohi den bezala. Josu Landa

Gehiegizko luxu eta plazerak gazterik zahartu dituen gizonen ezaugarria zirudien **zimur** eta izurrez betetako aurpegia. Urtzi Urrutikoetxea

Nire kopeta **zimurrez** bete zen. Aingeru Epaltza

**Zimurrez** beteriko aurpegi gorria. Lopez de Arana

"Bilst di arbeiten?" ihardetsi dit, begirada huts eta **zimurrez** inguratutako begi-zulo haiek nireetan iltzatuz. Urtzi Urrutikoetxea

Andereñoaren bisaian hiru **zimur** leundu dira eta masailak beratu zaizkio. Eider Rodriguez

Haren kopeta lasai eta **zimurrik** gabeari begira egon nintzen. Monika Etxebarria

Robotek ez baitute **zimurrik**. Berria - Kultura

Kortesiaz eskaintzen zien bisitariei bere aurpegiaren araztasun **zimurrik** gabea. Monika Etxebarria

**Zimurrek** beren ubideak eginak zituzten eskuotan, urte iraganek aise ibiltzeko moduan. Felipe Juaristi

Bere etorkizun ez hain urruna susmatzen zuen gorputz erkinduan, hezur haietatik eskegiriko azal milaka **zimurretan** urratuan. Xabier Montoia

Masailak eroriak; tente kokotsa; sudurra zuzen; azala, berriz, ia leun, **zimurrik** gabe. Jon Muñoz

**Zimurren** kontrako suero berria. Jasone Osoro

· Haren ezpainen **zimurra** ikusten zuen, haren aurpegi ederraren gaitzespen mutua. Karlos Zabala

**2** (izenondo eta izenlagunekin)

Urdindua zeukan ilea, eta **zimur** finek gurutzatzen zioten aurpegia. Ilea urdinduta zuen eta **zimur** sakonak ageri zituen masailetan. Eider Rodriguez

Raimundo Silvak zeta honi buruzko guztia ezagutzen du, distira, ehunaren higitze goxoa, **zimur** aldakorrak. Jon Alonso

Lan egitea ez da dena, lehenengo **zimur** txikiak sortzen dira. Lopez de Arana

**Zimurrik** tikiena baldin badu, ez dizu onartuko. Aingeru Epaltza

Emakume argala zen, **zimur** mingotsak, esku nekatuak, begi marroi eder izandakoen arrastoak, eta sudur harroa zituena. Koro Navarro

Urratua dut aurpegia, **zimur** idorrez betea, arraildua azala. Berria - Kultura

Fina eta gogorra zuen agureak aurpegia, **zimur** hautemangaitzek bilbe baten antzera nabarmendua. Jon Muñoz

Etsipenezko **zimurrek** aurpegia pitzatzen ziotela. Karlos Zabala

**Zimur** eder horiek; denetarik du: kopetako zeharkako arrastoak, betertzetakoak, ahoaren bi aldeetako tolesdura garratzak, kokotsetik dilindan dauden soka horiak alde batera utzirik. Monika Etxebarria

**3** (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

**Zimur**-izpiz gainezka zegoen haren aurpegia. Bere aurpegi puztuan, begiek zehaztasunik gabe begiratzen zuten; ezpain txokoetatik **zimur** sortak ernatzen zitzaizkion. Juan Garzia

Bere begi grisek mezu konpreniezin bat bidaltzen zidaten **zimur**-zurrunbilo izugarri batean zehar. Alberto Ladron Arana

*Rouge*a lerratu egiten da, emakume gazteek ere ezpainen inguruan dituzten **zimur**-ildotxoetan barrena sartzen da pixkanaka. Juan Garzia

Aho-ertzeko **zimur** -imintzioa ez baitzitzaion sekula artezten. Mirentxu Larrañaga

**4** (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa)

Irakur genezake Napoliko pobreziaz txosten luze bat [...] eta guztiarekin, ez genuke idazlanak agerian utzi duen errealitate- **zimur** horren berririk izango. Bernardo Atxaga

Orduantxe azaldutako zimur ederrak dauzkat begi-ondoan eta kopetan; kontzentrazio- **zimurrak** , hain zuzen ere. Joxean Sagaztizabal

Kopetan noizbehinka agertzen zitzaizkion bekozko- **zimurrek** bakarrik salatzen zuten neskatoaren barreneko egoskorkeria eta kasketarako joera. J.M. Olaizola "Txiliku"

**5** irud/hed

Higuina ez zion pixa usainak eragiten [...] izter zimurtsu bien arteko beste **zimur** hark baino. Xabier Montoia

Eguzkiak areagotu egiten ditu dorre zaharreko **zimurrak** . Koldo Izagirre

Horrela prestatu zuen beretzat Eliza distiratsua, zikinik eta **zimurrik** edo antzeko deusik gabea, Eliza santu eta kutsagabea. Elizen arteko biblia

Liburuek beste lan garrantzitsu bat ere egiten dutela, errealitatearen **zimurretan** ezkutatzen den egia azaltzea. Bernardo Atxaga

Greko-paleografia lanetan, latinezko testuetan eta Erdi Aroko historiaren **zimurretan** zaildutako eruditoa. Juan Garzia

Hedabideen lana ez baita itxuraz gertatzen dena kontatzea, benetan gertatzen dena baizik, bere plegu, **zimur** eta atzealde guztiekin. Iñigo Aranbarri

Adjektiboak estiloaren **zimurrak** dira. Iñigo Aranbarri

**6** *izond* zimurtua, zimurrak dituena.

Haren begitarte txiki **zimurra** , garbi-garbia, baztangak pikatua, maltzurkeria berezia ageri zuena. Askoren artean

Negar egin zuen logelan etzanda, ez oroiminagatik ezpada txakur jipoituaren begiekin so egiten zion aurpegi **zimur** hartan bildutako sufrimenduagatiko pena eta damuagatik. Bego Montorio

Azal **zimurreko** gaztainondo zaharra. Aitor Arana

Bere poltsa beltz **zimurra** magalean estutuz. Joxean Agirre

Paperen saskia orri **zimurrez** , jarraitasunik gabeko saiakerez, alde guztietatik emendatutako zirriborroez beterik gelditu zen. Jon Alonso

Gaurko bazkaria patata eta kontserbako aza **zimurrez** egindako eltze bat izango da. Josu Zabaleta

Natura biribila den bezala, **zimurra** baita bizitza, ez baitu zuzentasuna maite, erabat okerra baita irudi eta ekintzetan. Felipe Juaristi

Aitortzen dut Zearrak finalaren ostean zuen aldarte abaildu eta **zimurrari** argi apur bat ematen ez nuela asmatu. Berria - Kirola

**7** (adizlagun gisa)

Beste batzuk diote lanerat joanen direla, ezinbestean nolazpait, bainan kopeta **zimur** eta laneko gogo handirik gabe. Herria

Bi pauso aitzina egin, eta gero berriz ere biratu zen niri buruz, ezpainak **zimur** . Aingeru Epaltza

Bekainak **zimur** , sudur hegalak zabal, matelezurra nabarmen. Koldo Izagirre

Sudurra **zimur** , begiak handi eta bekainak gora, sorbaldak altxatuko nituzke. Iñigo Aranbarri

Zimel-zimela zegoen, sabela **zimur** , azala hezurrei josia. Karlos Zabala

**8** zekena, zikoitza.

Zapata-garbitzaile **zimur** demonioa! Irene Aldasoro

Katalan guztiak ez dira xuhurrak ez poltsa- **zimurrak** , ezta gutxiago ere. Joan Mari Irigoien

**9** ***zimur-zimur***

Lakshmik aurpegiko azala tira-tiran du, begi-niniak zabal-zabalik, lepoa **zimur-zimurra** . Gotzon Garate

Bihotza desegina eta gogoa **zimur-zimurra** . Janbattitt Dirassar

Amak ahots goraz irakurri zigun denoi gutuna; eta gero, kriski-kraska, **zimur-zimur** biribildu eta surtara bota zuen -dagokion tokira, esan zuen. Mirentxu Larrañaga

Frau Gerdak niri begira segitzen baitzuen, kopeta **zimur-zimur** , nire deiturak zerbait oroitaraziko balio bezala. Anjel Lertxundi

Aurrera jarraitzen zuen, karranpek eta oinazeek jota, hesteak **zimur-zimur** , begiak lauso, urrundik, urrun-urrundik Parisko irudiak oinetatik tira egingo balio bezala oharkabez. Karlos Zabala

San Cristobal de las Casasera iritsi zenean, **zimur-zimur** eginda zegoen orri zatitxo hark Sebas eta Nerearen etxeraino eraman zuen. Eider Rodriguez

Umea lo zegoen, gomazko bere aurpegi txikia **zimur-zimur** eginda eta bere ukabiltxo arrosak izara-ertzaren kontra estututa. Lopez de Arana

Eskaileretan behera joan zen, hirunaka-hirunaka, eta behean **zimur-zimur** eginda geratu zen. Iñaki Mendiguren

**hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**

**aurpegiko zimur** (4); **kopeta zimur** (6); **paper zimur** (3)

**zimur gehiago** (3); **zimur guztiak** (6); **zimur sakon** (5); **zimur zimur** (11); **zimur zimur eginda** (6)

**aurpegi zimurra** (5)

**aurpegiko zimurrak** (3); **inguruko zimurrak** (4); **zimurrak kentzeko** (3); **zimurrak kentzen** (3)

**bere poltsa zimurrean** (3); **poltsa zimurrean** (5); **poltsa zimurrean pistola** (3)

**aurpegia zimurrez** (3); **zimurrez bete** (3); **zimurrez beterik** (3); **zimurrez josia** (3)

**zimurrik gabe** (4)

---

## zimurdikatu, zimurdika, zimurdikatzen **1** du *ad* zimurtu.

Aldizkariaren azken hostora heltzean, halatan ezpainak poz minberaz **zimurdikatu** nituen, ez jakin jadanik zein esku trebe aukera, Tatiana (110 p, uzkitxo, 24 ordu, Hotel, etxe, Visa) ala Jessicaren (berria, benetako sua, beltxinga, 95 p, gosetia, 24 ordu, hotel, etxe, Visa) [...]. Itxaro Borda

Mary Balesterek paperak eskatu zizkidan eta Euskal Herrian bizi nintzela oharturik, ene paranoia naturala inarrostea lortuz, ezpainak apaleste gisa **zimurdikatuz** ondorioztatu zuen: [...]. Itxaro Borda

**2** (era burutua izenondo gisa)

Aiaiaka etortzen zaigu lanera, bizkarretik minez, begitartea **zimurdikatua** eta soinean behera dena oinaze: ziatika garaiza, flebitisa beharbada, non ez den fibroma! Itxaro Borda

---

## zimurdura **1** *iz* zimurra.

Egun bakar bat zuten aste osoko lanak eragiten dituen **zimurdurak** , betertzetako zimurrak, tolesdura garratzak ezabatzeko. Monika Etxebarria

Mutilaren kopeta **zimurduraz** bete zen, oroitu nahi bortitzean iduri. Aingeru Epaltza

Sabri Graieben aurpegiaren **zimurdurek** argi uzten dute, 64 urteko palestinar honek une latzei aurre egin behar izan diela bizitzan. Berria - Mundua

Santosek ardurabako **zimurduraz** okertu zuen bekokia. Josu Landa

Baina harrigarriena hauxe: haren bekozkoaren **zimurdura** txiki eta labur hura, bi bekainen artean, nik esandako txantxaren bati, nahiz eta barre egitera beharturik sentitu, ergel irizten zionean. Joxe Austin Arrieta

Ohean eseri denean bere zapatei begira gelditu da, betun beltzak estali ezin dituen **zimurdurei** , hain zuzen ere. Pello Lizarralde

Oharra mahai gainean jarri zuen eta esku ahurraz zapaldu zuen pare bat aldiz, **zimurduraren** bat leundu nahi balu bezala. Joseba Sarrionandia

Berriz ere ganberan, artoski hautatu nituen jantzi beharreko arropak, **zimurdura** gutien agertzen zutenen artean. Aingeru Epaltza

**2** irud/hed

Halako batean heldu nien tenpora-kontu haiei eta atera nahi izan nien beren **zimurduretan** gorderik izan zezaketen zuku gordea... Pello Zabala

**3** (hitz elkartuetan)

Mutiko bat izanagatik ere pertsona heldu baten gisa tratatuko ninduela adierazten zuen begirunezko ezpain-**zimurdura** bat egin, eta hizketan hasi zen: [...]. Anjel Lertxundi

-A!, zerbait hartu nahi dudan bakoitzean eskuak egiten didan gihar **zimurdura** hori esan nahi duzu zuk? Josu Zabaleta

---

**zimurgabe** *izond* zimurrik ez duena.

Modako aldizkarietatik ateratako emakume perfekto ezin ukituzkoengatik, beren arropa **zimurgabe** distiratsuetan, altzairu eta kristal eta belusean zehar, bi metro garai, mantso-mantso labaintzen ziren haiengatik. Koro Navarro

---

**zimurgabetu**, zimurgabe(tu), zimurgabetzen du zimurrik gabe utzi.

Lehen zimurrak agertzen diren unetik gerla bat hasten dela bi denbora ezberdinen artean, egunekoaren eta gauekoaren artean, batek **zimurgabetu** eta lisotu duen azalean irekitzen baitu besteak ildoa bere txanda iritsitakoan. Pako Aristi

---

**zimurgune** *iz* zimurra edo zimurrak dauden gunea.

Barabarkotik Balerdiraino nibirri-nabar mailloa; **zimurgunetan** elurra bada, ez bela alde egitekoa. Patziku Perurena

---

**zimurka** *adlag (hitz elkartuen bigarren osagai gisa)*

-Ezpain **zimurka** segitu zuen gero, Willemen hizketa-modua imitaturik eta erdi trufaz-: [...]. Anjel Lertxundi

---

**zimurkatu**, zimurka(tu), zimurkatzen **1** du *ad* zimurtu.

Neskatila txikia duda-mudan egon da une batez, gona urdinaren tolesak esku urduriekin **zimurkatzen** dituela. Patxi Iturritegi

**2** (era burutua izenondo gisa)

Irribarrez ematen zuen, hain baitzuen bisaia **zimurkatua**. Aingeru Epaltza

---

**zimurkera** *(corpusean **tximurkera** soilik) iz* zimurra.

Rufinoren aurpegikeran mailua eta zintzela bistan baegozan, ez dot uste adinaren **tximurkereagaitik** bakarrik zanik. Xabier Amuriza

---

**zimurkeria** *iz* zekenkeria.

Eskuzabaltasunaren adierazgarri izango da, eta ez **zimurkeriaz** egindako emaitza. Elizen arteko biblia

---

**zimurrarazi**, zimarraraz, zimurrarazten du *ad* zimurtzera behartu.

"Tiranokeriaz", "askatasun hiltzailea", "konstituzio aurkakoa", "iraultzailea" eta anzeko hitzek bekainak **zimurrarazten** zizkioten. Karlos Zabala

Bertze burutakizun batek bekokia **zimurrarazten** ziola, erran zuen-: [...]. Joan Mari Irigoien

---

**zimurtasun** *iz* zimurdura.

Arietearen babestoki horrek oholez egindako kutxa trinko eta ondo finkatutakoa zeukan, soka lodiz egindako sarea zuena; sare horren **zimurtasunetatik** hankak labaindu gabe igoz, errazago iristen ziren harresira. Santiago Iruretagoiena

---

**zimurtsu** *izond* zimur asko duena.

Egunkari zaharren moduko aurpegi **zimurtsuak**, burukorik ezean beso gainean ezarriak. Lopez de Arana

Begi beltz kartsuak, bekain ile-sarriak, bekoki **zimurtsua**. Jose Morales

Hendrik zaharragoa zen; argala zen, eta ileak grisak zituen eta bekokia **zimurtsua**. Juan Garzia

Hagriden begi-ertz **zimurtsuetatik** malkoak irten ziren. Iñaki Mendiguren

Higuina ez zion pixa usainak eragiten [...] izter **zimurtsu** bien arteko beste zimur hark baino. Xabier Montoia

Amona Malià apain-apain eginiko emakumeño guztiz xarmagarri baten irudiz dirau 1870 inguruan ateratako estudio-argazkiren batean, eta atsotxo **zimurtsu**, haserreti, zarpail eta harria lakoxe gor gisa haurtzaroko nire oroitzapenik urrunenetan. Juan Garzia

Gorri-gorri jarri zen, xaloki, berrogeita hamarka urteko pertsona **zimurtsuak** soilik gorritzen diren bezala, eta lasterka irten zen gelatik. Jose Morales

Emaitza azaldu nionean, irribarre **zimurtsu** konplikatu batez argitu zitzaion aurpegia, eta esan zidan. Juan Garzia

Izara **zimurtsuen** artean aztoraturik mugitzen zen, ezeroso. Lopez de Arana

---

**zimurtu**, zimur(tu), zimurtzen *(orobat **tximurtu**)* **1** da/du *ad* zimurrak atera edo sortu, zimurrez bete.

Bekokia **zimurtu** du, harrituta. Harkaitz Cano

Nork nori? **zimurtu** zitzaidan bekokia. Xabier Montoia

Bekokia **zimurtuta**, arreta handiz irakurri zuen... "Hauxe duk lanik gabeko abokatu baten bazkaria". Lopez de Arana

Kopeta **zimurtu** zuen, enegana zuen tinkatu behakoa. Koldo Izagirre

Kopeta **zimurtu** edo nekez ezkutatu daitekeen irri maltzur batez begira egon. Berria - Kirola

Irakurtzen ari denean bekozkoa **zimurtuta** edukitzen du, keinu serioz. Josu Zabaleta

Eta ea zergatik ez dudan polizia deitzen -bisaia destainaz **zimurtu** zitzaion-. Aingeru Epaltza

**Zimurtua** zeukan aurpegia, beste egun hartan baino askozaz ere zaharragoa ematen zuen. Bernardo Atxaga

Ezpainak **zimurtu** zituen, Josebaren asmoa neurtuz bezala. Fernando Morillo

Bakean utziko dugu -esan zuen emakumeak sudurra **zimurtuz**. Lopez de Arana

Tipoari tiro egin ondoren bota zion farolari, gero, ordurako saihetsak **zimurturik** lurrean zegoena errematatzeko asmoz. Joxemari Urteaga

Gutuna **zimurtu** eta patrikan gorde zuen. Xabier Olarra

Boligrafoa potoan utzi eta eskuan zuen orria **zimurtu** egin zuen. Joxemari Urteaga

Errabiak harturik, orrialdea idoki zuen eta esku artean **zimurtu**. Elena Touyarou

Ukabil barruan **zimurtuta** paper-zati bat zeukala ikusi zuen. Iñaki Mendiguren

Uraren azal jabala, ondorioz, borobil meharrez **zimurtzen** zen. Itxaro Borda

Bere aldakak, eta bere izter gazteak galtza beltz estu belaun aldera **zimurtuetan**. Joxe Austin Arrieta

**2** (adizlagunen eskuinean)

Ohi baino bizkorrago mugitu zituen hatzak eta, zerbaitek alaiturik, xaloki **zimurtu** zuen bekokia. Jose Morales

Aspaldian itzalitako beste puru-muturraren alboan utzi zuen, ondo **zimurtu** ondoren. Joxemari Urteaga

Irakurtzen jarraitu zuen, betartea arin **zimurtuz**. Iñaki Mendiguren

Gona gerrian inguruka erabiltzen nuen eta elastikoak zabarkiro **zimurtzen**. Joxan Elosegi

Bat-batean, errukarri **zimurtu** zuen aurpegia, ume baten antzera. Jose Morales

Bulego huts horrek, non bizitza bakarra, arrosarena, emeki-emeki **zimurtzen** baitzen, heriotzarantz eraldatuz zelulen margultze luzearen bidez, [...]. Jon Alonso

Zalapartan sartu zen umeen gelan, gorbata malapartatu hura eskuan, guztiz **zimurtuta**. Julen Gabiria

**3** (era burutua izenondo gisa)

Hil bedi haurra bere amaren besoetan, eta egunez zamaturiko zaharra, eta dontzeila gaztea, eta atso **zimurtua**. Jon Alonso

Amak bere aurpegi **zimurtua** mutila zegoen aldera zuzenduta zeukan. Lopez de Arana

«Zahartzen» ari den agureak «gorputz triste eta **zimurtu** eta dorpe batean» dagoen agureak, bere buruaz egiten duen deskribapen garratza. Berria - Kultura

Kamaina bateko izara **zimurtuen** gainean. Lopez de Arana

Dotoreziarik gabeko korbata eta traje **zimurtua**. Aingeru Epaltza

Telebista itzali, elastiko **zimurtua** lisatu eta leihotik begiratu zuen. Fernando Morillo

Lehengo eguneko libreta **zimurtu** bera atera zuen, betiko jaka **zimurtutik**. Aingeru Epaltza

Mitxelenak luzatzen zidan gutunazal **zimurtua** hartu nuen. Alberto Ladron Arana

Gizona billete **zimurtu** bat astintzen ari zen airean, salto txikiak eginez dantza-imintzio baldarrean. Anjel Lertxundi

Sarritan, hogei dolarreko billete batekin etxeratzen zen edota esku bete dolar **zimurturekin**. Mirentxu Larrañaga

Orri sorta **zimurtu** bat erori zen handik. Fernando Morillo

**4** irud/hed

Bihotza zertxobait **zimurtu** zitzaion Ruche jaunari, erantzun zuen hori entzun zuen azken aldiaz gogoratzean. Jon Muñoz

Egunsentia **zimurtzen** joan da, eta Homer Simpsonen beso beilegiek goizeko zortziak, zazpiak, seiak, bostak, laurak markatu dituzte iratzargailuan. Eider Rodriguez

**hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**

**aurpegia zimurtu** (8); **aurpegia zimurtu zuen** (3); **begitartea zimurtu** (3); **bekainak zimurtu** (3); **bekokia zimurtu** (21); **bekokia zimurtu zuen** (11); **bekozkoa zimurtu** (4); **egunkari zimurtu bat** (3); **esku zimurtu** (3); **ezpainak zimurtu** (12); **ezpainak zimurtu zituen** (9); **kopeta zimurtu** (34); **kopeta zimurtu zuen** (16); **paper zimurtu** (5); **sudurra zimurtu** (11); **sudurra zimurtu zuen** (4)

**zimurtu du** (8); **zimurtu egin zuen** (5); **zimurtu zen** (5); **zimurtu zituen** (12); **zimurtu zuen** (48)

**bekokia zimurturik** (3); **kopeta zimurturik** (7)

**bekokia zimurtuta** (6); **bekozkoa zimurtuta** (6); **kopeta zimurtuta** (3)

**bekokia zimurtuz** (7); **bekozkoa zimurtuz** (3); **ezpainak zimurtuz** (5); **kopeta zimurtuz** (4); **sudurra zimurtuz** (5)

**bekainak zimurtzen** (3); **bekokia zimurtzen** (5)

---

## zin 1 *iz* Jainkoaren, norbere ohorearen edo kidekoen izenean egiten den hitz ematea.

**Zin** batek ondorio berberak ekarri behar dizkie hitza eman duten norbanako guztiei. Juan Martin Elexpuru / Bego Montorio

Asaldura baten mende daudelakoa egiten dute, edo sumindura baten mende, isilarazi beharrekoa erregu kartsuen bidez, gezur, **zin** eta promesen bidez. Eduardo Mataukо

Ez nire promesak ez nire **zinak** sinesten dituzu: hots bada! Jon Muñoz

Hau da **zinaren** eragina: naturaz emandako hitza haustera jarrita dauden gizonek izan dezatela beldurtzeko motibo handiago bat. Esteban Antxustegi

Zuk jokatu duzun bezalaxe jokatuko dut nik ere zurekin, **zina** mesprezatu eta ituna hautsi baituzu. Elizen arteko biblia

Zartailuz trataturiko gizateria, oinpean erabilitako justizia egunen batean mendekatzeko egin zituen **zinak** berpizten zitzaizkion. Karlos Zabala

**Zin** hari zor niolako, halatan, leialtasuna... zeren **zin** hura behin hautsi izanak ez baitzemaidan berriro hausteko eskubidea. Joan Mari Irigoien

Boz hark erran zidan ezen ene ohorea [...] jokoan zegoela eta **zina** hausteko eta hausteko, zeren eta ez bainengoen **zinaren** betetzerat behartua, zinezko ohorea ohorezko zinaren gainetik zegoenean. Joan Mari Irigoien

Leial eta fidel, **zin** guztiak beteko ditu. Agustin Otsoa

Hara, gaur beteko dut **zin** hura! Elizen arteko biblia

Ez duzue atsedenik izango harik eta **zina** bete arte. Agustin Otsoa

Guk eutsiko diogu **eginarazi** diguzun **zinari**, zuk honako baldintza hauek betetzen badituzu: [...]. Elizen arteko biblia

Salatzailearen esku zegoen salatuaren **zina** onartzea, kaltea edo iraina barkatzea haren esku zegoen bezala. Iñaki Iñurrieta

Jesusen Bihotzaren irudiari begira **zina** errepikatzeko eskatu zion emakume zaharrak. Xabier Aranburu

Kandela piztuak eskuan ditugula zutitu eta bataioko **zinak** berritu. Irene Aldasoro

Ez dut neure **zinaz** eta zurekiko zerbitzuaz libratu nahi, zuk bizirik irauten duzun artean. Agustin Otsoa

Diputatu karguaren **zina** bukatzean kartzelara eraman zuen esaldia bota zuen: [...]. Berria - Mundua

Har ezazu orobat neure ezein egintza ezkutatuko ez dizudalako **zina**. Jon Muñoz

Noiz eta gure sekeretuaren **zina** odolez sinatu baikenuen. Joan Mari Irigoien

Hitzaren bidez makurtarazi zuen zigortzailea, gure arbasoekin egindako **zin** eta itunak gogoraraziz. Elizen arteko biblia

**Zin** horrek ez zuen zerikusirik gerora ezarri ziren omenaldiekin. Iñaki Iñurrieta

Ez daude **zin** horri lotuta, inor ez baitago zilegi ez dena egitera derrigortuta. Esteban Antxustegi

Uko egiten diot **zin** horri, eldarnioan egina baita. Jon Muñoz

**Zin** horretan fidaturik, atera ziren gotorlekutik. Zein interes izan dezake pertsona honek zure **zin** horretan? Elizen arteko biblia

**Zin** hark behartzen eta obligatzen ninduen osabari eman hitza ahalik eta hobekien betetzerat eta osabarekin leial izaiterat. Joan Mari Irigoien

Euskaldunaren beste seinale bat da zintzotasuna, egiaren errespetua, hitzaren balioa eta zin eginaren giltza, hots, **zinaren** beharrik eza ere, oro har. Herria

**2** (izenondo edo izenlagunekin)

Banekien, bai, ene gaixo batekin era hartan jolastu nahi izatea **zin** hipokratikoaren kontrakoa izan zitekeela. Joan Mari Irigoien
Nork esan lezake nola erreakzionatuko duen batek, emandako **zin** intimoa profanatzearen ikusle gertatuta? Koldo Izagirre
Promes horren gaineko **zin** solemne batek ez ziola beroni buruzko azalpen gehiago ematen uzten. Jon Alonso
Zuen **zin** desorekatuak sekula baino eskubide gehiago ematen dio horretarako. Juan Martin Elexpuru / Bego Montorio
Zeren eta osabarekin sekeretu batek lotzen baininduen, eta odolezko **zin** batek. Joan Mari Irigoien
Nik ezin dut hautsi halako **zina**. Elizen arteko biblia

**3** (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

Horregatik, toki hari *Beer-Xeba* deritzo -hau da, **"Zin**-Putzu"-, bertan biek zin egin zutelako. Elizen arteko biblia
Hots, Ofelia, ez sinetsi haren **zin**-agintzak. Juan Garzia
Ez, esku hau **zin**-lekuko. Juan Garzia
Are kontu handiagoz epaitu dituzu zeure seme-alabak, berauen gurasoei, **zin** eta itun bidez, promes ederrak egin zenizkielarik. Elizen arteko biblia

**4** (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa)

Zigortu egingo dudala nirekiko leialtasun-**zina** mesprezatu eta ituna hautsi duelako. Elizen arteko biblia
Etengabe berritzen zenidan aspaldi emandako maitasun-**zina**, eta nik hona etortzerik ez banuen zu niregana joango zinela ziurtatzen zenidan. Xabier Mendiguren Elizegi
Hipokrita agerrarazten bertutea [...] ezkon-**zinak** bilakarazten dadolarien juramentuak bezain faltsu. Juan Garzia
Zubietako berreraikuntza **zinaren** 150. urteurrena ospatzeko. Askoren artean
Moab eta Madiango herri-arduradunak, madarikazio-**zina** ordaintzeko dirua harturik, Balaamengana joan ziren eta Balaken mezua adierazi zioten. Elizen arteko biblia
Aitor-**zin** hartaz konturatu ziren epailariak eta honela zioten: [...]. Patxi Ezkiaga

• **5** *izond* zinezkoa.

Hartzen dut xede **zin** bat zu gehiago ez ofentsatzeko eta zure borondateari amore emateko. Itxaro Borda

**6** ***zinetan*** *(**41** agerraldi, **10** liburu eta artikulu **1**ean)* *adlag* benetan, zinez.

**Zinetan** hartzen zuten poeta izatearena. Berria - Harian
Bere jatorrizko aberria aitortzen zuen garbi, eta, honen abizena eramanez, **zinetan** goraipatzen zuen. Patxi Ezkiaga
Harrigarria da **zinetan**, esnearen eta hortzaren artean, gizonak miloika urtetan ikertu duen lotura miragarria. Patziku Perurena
Bai, **zinetan**, oro diot irakatsi, baita atsegintasunak ere! Jon Muñoz
Gure aitak ez zuen inoiz ulertzen zein ziren **zinetan** iraultzaileak. Fernando Rey
Ez dago aspalditxotik **zinetan** euskal herri dei daitekeen zerbaiten antzik duen gauzarik. Iñaki Segurola
Irrigarria **zinetan**. Patziku Perurena
Esaldi **zinetan** ergelak, amets ergelenean ere amesten ez dituzunak. Fernando Rey
Susmoa hartzen zuen informatzaile ospetsu hura, **zinetan**, ez ote zen izanen esku-irakurle bat. Fernando Rey

**7** ***zinez*** *(**2673** agerraldi, **194** liburu eta **1016** artikulutan)* benetan.

**Zinez**, ez dugu zorte onik Euskaldunek Frantziako buruzagiekin. Piarres Xarriton
**Zinez**, jauna, ez duzu ikusi? Koldo Izagirre
**Zinez** egoera arraroa baitzen. Daniel Landart
Bai, egun **zinez** ederra izan da aurtengo Herri Urrats. Herria
Baina, **zinez**, ez zuen haietan arreta handirik jarri. Bernardo Atxaga
Mutil gazte **zinez** eder galantak eseki egin zuen entzungailua. Mirentxu Larrañaga
**Zinez** berezia eta **zinez** hunkigarria. Herria
Doktor Nafarrari ezarri zioten gaztigua **zinez** garratza izan zen. Piarres Xarriton
Nazio horiek **zinez** izpiritu diferenteak badituzte ere, [...]. Joxe Azurmendi
Jendea **zinez** artega eta bere onetik aterea ikusi dut, opor hasiera honetan oraindik ere urtean zeharreko egonezina kendu ezinik balute bezala. Patxi Zubizarreta
-Gauza **zinez** larriak gertatzen ari dira gure erresuman -abisatu zuen-. Elena Touyarou
Porrot **zinez** erabatekoa da. Jon Muñoz
Zirrararen zirraraz, **zinez** maitemindua sentitu zen. Patxi Zubizarreta
**-Zinez** oporretan joan den seinale. Aingeru Epaltza
**Zinez** izatea daukan izakia; bere baitan era aldaezinean dirauen substantzia signifikatzen baitu. Imanol Unzurrunzaga
**Zinez**, jauna, mila esker. Txillardegi
"Udaberria Parisen!", dio berak irriz, eta **zinez** ulertezina da zergatik ari den beti barrez. Joxe Austin Arrieta
Arnheimen tesia interesgarria da **zinez**, hark atxikitzen dion orokortasunagatik. Josu Zabaleta
**Zinez** da loarazlea zori oneko belar-edabea, logura ezti bat baitakar gorputzeko ataletara. Edorta Jimenez
**Zinez** geneuzkan harrapaturik barruko soldadu errepublikarrak, beren gotorleku monastikotik inora ezinik. Txillardegi
Gudukatzea beharrezkoa zen beraz, ikusteko nor zen **zinez** hoberena. Michel Oronoz
Damu dut, **zinez**, zu mindua. Javi Cillero
Bai, **zinez** uste dut balio duela istorio horiek idatziz kondatzea. Eneko Bidegain
Bainan **zinez** pentsatzen dut badirela jendeak dohain bereziak dituztenak. Menane Oxandabaratz
Gizalegekoa da ostatu eskaintzea; ez zait batere gogaikarri, **zinez** esaten dizuet. Anjel Lertxundi
Hola ez dago, **zinez**, azterketa patxadaz gainditzeko modurik. Pello Salaburu
Inork ez dizula **zinez** laguntzen, inor ezin duzula hartu zinezko laguntzat. Patziku Perurena
Egiaztatzeko ea **zinez** sekretuki bidalia zion bere txostena Erregeri, ala Erromako edo Trentoko bideetan ateraia zen. Piarres Xarriton
Merkatu giroa **zinez**. Ramuntxo Etxeberri
Xoragarria **zinez**! Janbattitt Dirassar
Amaren harrotasuna biderkatzen zuen nekatto polita ematen zuen, **zinez**. Itxaro Borda
Pozak airean nengoen, **zinez**: bai karta hura jaso nuelako, eta bai Zesareori egindako opariagatik ere. Joan Mari Irigoien

**8** *zinezko* ik **zinezko**.

**9** ***zinpean*** *adlag* zinaren azpian.

Torturapean egindako aitorpenak ez du balio, baldin eta hura amaituta gero erruztatuak ez badu berriz **zinpean** baieztatzen. Juan Martin Elexpuru
Emazteak laineza eta harrokeria horregatik errieta egin zionean, adierazpen horiek **zinpean** egin zituela gogorarazi zion Wrightek, egia esan beste erremediorik ez zuela izan. Berria - Kultura
Norbaitek, ikusiz nahiz entzutez lekuko izan eta, **zinpean** aitormen egitera deitua izan delarik, dakiena aitortzen ez badu, bekatu egiten du eta errudun bihurtzen. Elizen arteko biblia
Besteren lekukotasuna onartezina da, hitzen aipamena egiten zaion lekuko hori ez baitzen **zinpean** mintzo eta ez baitago epailearen aurrean galdeketa egin diezaioten. Xabier Olarra

**10** *zinpeko* ik **zinpeko**.

**11** *zin hausle* ik **zinausle**.

**12** *zin egin* ik **zin egin**.

**13** *zin eginarazi* ik **zin eginarazi**.

**14** *zin eragin* ik **zin eragin**.

**15** ***zin eta zin***

Eta, sinisten ez badu, zin egingo diot nik; eta bera ere **zin eta zin** hasiko balitz, berriz eta berriz egingo diot nik. Patxi Ezkiaga

· Beharbada, eta **zin eta zin** hau dela bide, berriz ni mandatari bidaltzeko gogoak kenduko dizkiot erabat Patxi Ezkiaga

**16** *zin hauste* ik **zinauste**.

**17** ***zin-hitz*** *(orobat **zinitz** g.er.)*

Jabeak haren **zin-hitza** onartuko du, eta hark ez du ordaindu beharrik izango. Abrahamekin eginiko ituna, Isaaki emaniko **zin-hitza**. Elizen arteko biblia

Ez dezala aurretik egin agintzaririk ez **zinitzik**, ongi pentsatu gabe eta itsumustuka. Patxi Altuna

Saminaren zein bozkarioaren, bi-bien indar-olde bortitzak sentimenduokin batera ditu suntsitzen bihotzeko **zin-hitzak**. Juan Garzia

Saulek honelako **zin-hitzez** mehatxatu baitzuen jendea: "Madarikatua ilunabarra baino lehen, neure etsaiez mendeka nadin arte, zerbait jan dezana!". Elizen arteko biblia

Nire ahaideengana joan eta ez badizute emaztea eman nahi, **zin-hitzetik** aske geratuko zara. Jose Antonio Mujika

Frantziskok eta beronen lagunek **zin-hitz** nagusiz berresten dute betiko adiskidetasun eta leialtasun ituna dama Pobretasunarekin. Askoren artean

Erlijio-**zinitzak** -mendetasuna, pobrezia eta garbitasuna- goratu eta aginduez gaindiko beste perfekzio-botoak ere bai. Patxi Altuna

**18** ***zin-zinetan*** zin-zinez.

Antje ttikia hartu eta airean jaso nuen, **zin-zinetan** bahitu nuen nire besoen artean, eta lasterka hasi nintzen. Fernando Rey

Hara Santxo Panza, zaldun ibiltariaren hitza **zin-zinetan** damaizut, bi egun pasa baino lehenago [...] eskuratu behar dut, edo nire eskuek ez dute onik izango. Patxi Ezkiaga

Hartu nuen zure karta, nire bihotzeko Santxo, eta, kristau katoliko naizenez, **zin-zinetan** esaten dizut, oso gutxiren beharra nuen pozak zoratzeko. Patxi Ezkiaga

**19** ***zin-zinez*** *adlag*

Eta **zin-zinez** beldur naiz ez ote duen osasuna galduko. Jon Muñoz

- **Zin-zinez**, jaialdi koskor hau xarmangarria da! -esan zuen Alcide Jolivetek atsegin antzean. Karlos Zabala

Handik beha paratzen nintzen anitzetan, ameslari, iduriturik ezen itsasoa **zin-zinez** zela libertatearen lurraldea. Joan Mari Irigoien

Hassanek ez zuela esandakoa benetan sinisten, baizik eta sinistu egin nahi zuela, **zin-zinez** saiatzen zela horretan. Bernardo Atxaga

Espainia ez da egundo sinesgarri izan guretzat (sekula izan ote da, **zin-zinez**, inorentzat?). Iñaki Segurola

Zeren ene gihar-hezurrek ez baitzuten orduan, **zin-zinez**, ardit bat ere balio. Joan Mari Irigoien

Baina horra non jaun bizkondea **zin-zinez** handi agertu den. Jon Muñoz

**20** ***zin-zinezko*** *izlag*

Funtsean Euskal Herriko Erdi Aro anakronismoz jositako batean kokaturiko **zin-zinezko** euskaltasunaren krisia. Joxe Azurmendi

Harik eta sugeak borrokan hasi eta Aaronenak egiptoarrenak irentsi zituen arte, frogatzen zelarik, gisa hartan, ezen israeldarren Jainkoa zela egiazko eta **zin-zinezko**, eta ez egiptoarrena. Joan Mari Irigoien

**21** ***zinak eta minak*** estuasunak, arazoak.

**Zinak eta minak** ikusi zituen Idisoro zaharrak Napumoceno jauna konbentzitzeko ez zela bere asmoa inor iraintzea. Haren **zinak eta minak**! Bego Montorio

Zazpi orenen buruan oraino trantze berean zegoen, **zinak eta minak** ikusiz. Eneko Bidegain

Eta orduan izan zen triskantza, eta orduan izan ziren **zinak eta minak** eta oihu erdiragarriak!"Argitu" zerbitzua, hain zuzen erakustokia hetsi baino urte pare bat lehenago sortua da, ezagutu ditu beraz museoa hetsirik zen 12 urte beltzak eta hala ere garatu da **zinez eta minez**. Joan Mari Irigoien

Bera hilda, ordea, nork maite hau hi **zinez eta minez**? Txillardegi

Nola sentitu nuen nik mementu hartan osaba Joanikot, neure **zinezko eta minezko** aita balitz bezala, ene aita eta ene laguna. Joan Mari Irigoien

Hain baitira haren hitzak **zinezkoak eta minezkoak**. Joan Mari Irigoien

**hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**

**zin bat** (4); **zin batek** (4); **zin baten** (3); **zin faltsua** (3); **zin hau** (10); **zin hau egin** (5); **zin hitz** (5); **zin hitz hau** (4); **zin hitza** (17); **zin hitzak** (5); **zin hitzetik** (5); **zin hitzetik aske** (4); **zin hitzez** (5); **zin hori** (8); **zin horretan** (3); **zin hura** (3)

**zin zinetan** (5); **zin zinez** (23); **zin zinezkoa** (3)

**bere zina** (4); **egindako zina** (4); **gezurrezko zina** (3); **karguaren zina** (24); **karguaren zina egin** (12); **karguaren zina egingo** (3); **karguen zina** (3); **konstituzioaren zina** (4); **leialtasun zina** (10); **leialtasun zina egin** (3); **madarikazio zina** (3); **nire zina** (4); **presidente karguaren zina** (7); **zina bete** (5); **zina hautsi** (5); **zina mesprezatu** (4)

**egindako zinak** (4); **zinak egin** (3); **zinak eta minak** (7)

**zinaren bidez** (3)

**zinetan esaten** (3)

**aberatsa zinez** (4); **argia zinez** (3); **bai zinez** (31); **berezia zinez** (3); **ederra zen zinez** (3); **ederra zinez** (9); **egiaz eta zinez** (3); **gaitza zinez** (5); **gazte zinez eder** (3); **goxoa zen zinez** (3); **hain zinez** (6); **handia zinez** (3); **harrigarria da zinez** (3); **harrigarria zinez** (3); **hau zinez** (7); **herriak zinez** (3); **hori zinez** (21); **horiek zinez** (5); **horrek zinez** (4); **hots zinez** (4); **hots zinez ikusgarri** (3); **hunkigarria zinez** (5); **ikusgarria zinez** (3); **partida zinez ederra** (3); **zeren zinez baitzen** (3)

**zinez aberatsa** (9); **zinez aberatsak** (3); **zinez agertu** (3); **zinez ari** (9); **zinez arraroa** (8); **zinez arraroak** (4); **zinez arratsalde** (3); **zinez arratsalde goxo** (3); **zinez artixta** (3); **zinez atsegin** (6); **zinez atxikia** (4); **zinez bainan** (4); **zinez bainengoen** (3); **zinez baitzegoen** (3); **zinez baitzen** (4); **zinez baitziren** (4); **zinez balio** (10); **zinez balio du** (3); **zinez balios** (4); **zinez balios bat** (3); **zinez baliosa** (3); **zinez behar** (12); **zinez behar du** (3); **zinez beharrezkoa** (4); **zinez bere** (5); **zinez berezia** (7); **zinez berri** (3); **zinez besta** (9); **zinez bi** (3); **zinez bitxia** (7); **zinez bitxia da** (3); **zinez bizi** (8); **zinez biziki** (4); **zinez da** (14); **zinez diot** (11); **zinez diotsuet** (12); **zinez diotsut** (19)

**zinez eder** (12); **zinez eder bat** (3); **zinez ederki** (5); **zinez ederki iragan** (3); **zinez ederra** (37); **zinez ederra da** (3); **zinez ederra izan** (5); **zinez ederra zen** (3); **zinez ederrak** (8); **zinez egia** (3); **zinez egiten** (3); **zinez egun** (6); **zinez erakargarria** (3); **zinez ere** (5); **zinez esan** (18); **zinez esan daiteke** (5); **zinez esan dezaket** (7); **zinez esaten** (6); **zinez esaten dizut** (3); **zinez eskertuko** (3); **zinez eskertzen** (3); **zinez espero** (4); **zinez estimatzen** (4); **zinez eta** (56); **zinez eta benetan** (6); **zinez eta egiaz** (8); **zinez eta minez** (9); **zinez euskal** (6); **zinez ez** (12); **zinez ezin** (5); **zinez ezin onetsia** (3); **zinez gaitza** (3); **zinez gaizki** (3); **zinez gau** (4); **zinez gauza** (3); **zinez giro** (3); **zinez gizon** (5); **zinez gogorra** (3); **zinez gogotik** (3); **zinez gogotik ari** (3); **zinez goxo** (4); **zinez goxoa** (7); **zinez goxoak** (3); **zinez gure** (5); **zinez gustatu** (5); **zinez gustatzen** (3); **zinez hain** (3); **zinez hala** (4); **zinez halako** (3); **zinez handia** (5); **zinez haren** (3); **zinez harrigarri** (4); **zinez harrigarria** (14); **zinez harritzekoa** (4); **zinez harritzen** (3); **zinez hartu** (4); **zinez hartu behar** (3); **zinez hauta** (3); **zinez herrikoia** (3); **zinez holako** (3); **zinez hor** (4); **zinez hori** (4); **zinez hunkigarria** (7)

**zinez ikusgarri** (4); **zinez ikusgarri koloretsu** (3); **zinez ikusgarria** (5); **zinez ikusgarriak** (3); **zinez ikusi** (3); **zinez ikustekoa** (4); **zinez interesgarria** (5); **zinez izan** (15); **zinez izan baitzitekeen** (3); **zinez izan behar** (3); **zinez izigarria** (6); **zinez izugarria** (4); **zinez jende** (6); **zinez joko** (4); **zinez konturatu** (3); **zinez lan** (5); **zinez langile** (3); **zinez langilea** (4); **zinez larria** (4); **zinez latza** (3); **zinez maitatua** (3); **zinez maite** (23); **zinez merezi** (8); **zinez meza** (3); **zinez mingarria** (3); **zinez miresgarri** (3); **zinez miresgarria** (6); **zinez nahi** (12); **zinez neure** (3); **zinez ni** (3)

**zinez ohargarria** (3); **zinez ona** (7); **zinez onak** (4); **zinez ongi** (7); **zinez ontsa** (4); **zinez ote** (5); **zinez paregabea** (4); **zinez partida** (11); **zinez penaturik** (3); **zinez pentsatzen** (5); **zinez plazer** (3); **zinez pollita** (9); **zinez s** (3); **zinez saiatu** (3); **zinez sentitzen** (5); **zinez sinesten** (5); **zinez sinetsi** (3); **zinez tristea** (3)

**zinez ulertezina** (3); **zinez uste** (25); **zinez uste du** (4); **zinez uste dut** (5); **zinez uste nuen** (3); **zinez xoragarria** (4); **zinez zegoen** (3); **zinez zela** (3); **zinez zer** (9); **zinez zer den** (3); **zinez zerbait** (4); **zinez zinez** (3); **zinez zoriontsu** (5)

**zinezko eta minezko** (3)

---

# zin egin

**1** *ad* Jainkoaren, norbere ohorearen edo kidekoen izenean hitz eman.

**Egin** dezagun **zin**. Julen Gabiria

**Zin egiten** dizut. Felipe Juaristi

Behin Liburu santua ukituz **zin egin** genuena, etengabe dugu aldarrikatzen. Askoren artean

- **Zin degizuet** -erantzun du azkenik Axenariok, begiak pixontzian tinko-, ez dakit zer esan. Itziar Otegi
Ana, **zin egidazu** gauza bat, esan dio Tupuk. Pablo Sastre
Emazteari hori **zin egin** ziola azaldu zuen. Berria - Kirola
Ezin du ezer **zin egin**. Sonia Gonzalez
-Betiereko maitasuna **zin egin** baitio Orianeri! Aingeru Epaltza
Adiskidantza osoa **zin egin** zioten elkarri. Jon Muñoz
**Zin egin** dutena lege naturalen batek aginduta badago, ez zina baizik legea bera da behartzen dituena. Esteban Antxustegi
Eta horrelaxe egitea **zin egin** behar izan dugu. Txillardegi
Herrialde diru emailek **zin egin** dutena ematea nahi dugu. Berria - Harian
- **Zin egiten** diat, bihotzean tiro egin nioan. Koro Navarro
**Zin egiten** dizut: nahiago dut nire zintzilikarioa moztu, horrekin zu laztantzea baino. Patxi Zubizarreta
Haitiko lehen ministro Gerard Latortue gobernu berria osatzeko lanean ari da, herenegun karguari **zin egin** ondoren. Berria - Mundua
Nire izenean **egiten** baduzu **zin** egiaz, justiziaz eta zuzenbidez, bedeinkatuko ditut beste herriak ere, eta nitaz harro agertuko dira. Elizen arteko biblia
Nire ohoreagatik **zin egiten** dizut... Lopez de Arana
Euskaldunaren beste seinale bat da zintzotasuna, egiaren errespetua, hitzaren balioa eta **zin eginaren** giltza, hots, zinaren beharrik eza ere, oro har. Herria

## 2 (**zin egin** esaldi konpletiboekin)

Eman dute horren testigantza eta, eskuak Liburu santuen gainean ezarriz, **egin** dute **zin** eta aitortu, horrela gertatu zela eta berek ikusi zutela. Askoren artean
Ez nintzela horretaz ahaztuko **egin** nion **zin**. **Zin egiten** dugu, herritarren eta elizaren aurrean, gu ez garela segadaren erantzule. Felipe Juaristi
Aitortu zuen eta **zin egin** egiaz sinesten zuela San Frantziskok zauri sakratuak izan zituela. Joan Mari Lekuona
Nire baitan **zin egin** dut ez dudala ezer ere onartuko Inperiotik. Karlos Zabala
Neure buruari **zin egin** nion ez nuela berriro erreko. Joxe Austin Arrieta
Harryk **zin egin** omen zuen hil egingo zuela Dombrowski espetxetik ateratzen zen egunean, hala esan zenuen. Oskar Arana
**Zin egidazu** Jaunagatik, zeruaren eta lurraren Jainkoagatik, ez duzula nire semearentzat emazte kanaandarrik aukeratuko. Jose Antonio Mujika
Denek **zin egin** baitzuten Alexisen aurrean, bizia emango zutela haren alde. Felipe Juaristi
Emaginak **zin egin** zuen bere ahaide zenduen gainean, hark agindua bete zuela, errana izan zitzaion bezalaxe. Elena Touyarou
Hark, ordea, ez zela egia **zin egin** zuen. Karlos Zabala
Kontzientzia publikoa legearen alde jarri zen batzuetan, eta hari men egingo zitzaiola **zin egitea** lortu zen. **Zin degizut** ezen nekez jaso nezakeela hori baino berri arraiagorik eta alegeragorik. Iñaki Iñurrieta
Aukera izan bezain laster elkartuko ginela **zin egin** genion elkarri. Juan Martin Elexpuru / Bego Montorio
Alta, alta **zin egina** nuen rugby mundukoekin loturak behin betikoz moztuko nituela. Daniel Landart

## 3 (**zin** mugatuarekin)

Alberto Fujimorik presidente karguaren **zina egingo** du. Joseba Sarrionandia
Karguaren **zina** euskaraz **egin** nuen. Berria - Euskal Herria
Lehen ministro karguaren **zina egin** eta hurrengo egunean Bagdaden eginiko aurreneko agerraldian, agintari ohiak «epaiketa zuzena» izango duela gaineratu zuen Alauik. Berria - Mundua
Karguaren **zina egin** eta «zintzotasunez» aginduko duela esan du Zelayak. Berria - Mundua
Don Carlosi Foruen **Zina egiteko** mementoa etorria zitzaiola zabaldu zen. Txillardegi
Odolezko **zina egin** behar diagu. Joseba Sarrionandia
1813an hiri osoa oraindik sutan zela, Zubieta hiria berriro eraikitzeko **zina egiteko** adorea izan zuten herritarrak. Askoren artean
Orain bere zerbitzupean leial aritzeko **zina egin** baituk. Agustin Otsoa
Israeldarrek ez zituzten hil, elkarte-arduradunek Jaunaren [...] izenean, bizia errespetatzeko **zina egina** baitzieten. Elizen arteko biblia
Zer nolako plazerraz **eginen** nukeen zuretzat baizik ez bizitzeko **zina**. Jon Muñoz
Haien ahoari faltsukeria dario, haien eskuinak gezurrezko **zina dagi**. Elizen arteko biblia
Entzun duzu nolako **zina egin** duen Raguelek, eta nik ezin dut hautsi halako zina. Elizen arteko biblia
Jaun ahalguztidunari leialtasun-**zina egingo** diote. Elizen arteko biblia
Hitz eta berba, gezur-**zinak** egin, itunak izenpetu... Elizen arteko biblia
Agustinek, indioek pelikuletan bezalako odol **zina egitea** proposatu zuen. Joseba Sarrionandia

## 4 (**zin** erakusleekin edo kidekoekin)

Ez da nahasi behar Hipokrates hori medikuntzaren aitarekin, harako **zin** hura **egin** zuenarekin. Jon Muñoz
Gogora itzazu Abraham, Isaak eta Jakob zeure zerbitzariak, **zin** hau **egin** baitzenien: "Zuen ondorengoak izarrak bezain ugari egingo ditut; eta agindutako lurralde hau guztia haiei emango diet, betiko ondaretzat izan dezaten". Jose Antonio Mujika
**Zin** asko egiten duena maltzurkeriaz beteko da: zigorra ez da haren etxetik aldenduko. Elizen arteko biblia
Eta **zin** bat **egingo** diat gainera: hire anaia Gariete ez nian jakinaren gainean hil, eta biziki nozitu nian heriotza hura. Juan Kruz Igerabide
Zein da nazioko pertsona guztiek **egindako zin** baten espiritua? Juan Martin Elexpuru / Bego Montorio
Davidek **zin** ere **egin** zuen, esanez: [...]. Elizen arteko biblia

## 5 (**zin** izenlagunekin)

Izan ere, **zin** handia **egina** zuten, hil egingo zutela Mitzpara. Elizen arteko biblia
**Zin** faltsua **egitera** behartu duzue, berarentzat hain zentzugabea den itun horrekin. Juan Martin Elexpuru / Bego Montorio
Pattonen taldeko ofizial bik **zin** ustela **egiteko** eskatu zioten. Edorta Jimenez
Ardoz betetako adarra husten zuen bitartean **zin** ausarta **egin** zian Baldorrek. Agustin Otsoa
Erromatar armadan soldadutza egiteari dagokionez, behaztopa-harri izan zen kristauentzat [...] heriotza-zigorrak onartu eta betetzea baitzekarren, baita enperadoreari baldintzarik gabeko leialtasunaren **zin** militarra **egitea**, enperadorearen jeinua gurtu eta hari sakrifizioak eskaintzea. Iñaki Mendiguren
Zin egin zuen, **zin** larria. Fernando Rey

## 6 ***zin egite*** (orobat ***zinegite***)

**Zin egite** edo biraotzat hartzen diren hitzak, norberak nahi duen moduan ulertzen diren hitz ilunak dira. Juan Martin Elexpuru
Edozein pertsonak, unibertsitatek, edo ikastetxek makur uste baldin badu beren botu, **zin egite** edo agintza guztiak horrelako zezen lasterketekin sainduen ohoretan edo nahi den eliza jaietan edo bestetan egiten ahal direla, ez dituzte behar josteta horiekin ez ospatu ez ohoratu. Piarres Xarriton
**Zin-egiteak**, erreguak, kontratuak, frogapenak, gehienetan zenbait formula ezberdin edo esaldi banandu eskatzen dute. Xabier Arregi
Eusko Legebiltzarrak osoko bilkura berezia egingo du, lehendakariaren **zin egitea** dela eta, Gernikan. Berria - Harian
Gaizkileen hutsegiteak zigortuko dituena ez da izango **zin-egiteetan** lekukotzat hartutako idoloen ahalmena, baizik eta bekatarien aurkako justizia. Elizen arteko biblia
**Zin-egite** hutsak iraun ohi duena baino gehiago luzatu zen harrabotsa, Zeruaren babes eske otoika ere ari baitzen jendea. Xabier Aranburu
Interpreterik trebeenak pentsatzen dute lege honek **zin egite** faltsua debekatzen duela, eta arrazoi dute. Juan Martin Elexpuru
-Nehork ez du zuzenik nire obligatzeko **zin egite** faltsu baten izenpetzera. Elena Touyarou

Bataioaren sarbide-errito kristaua erromatar armadan sartzerakoan erreklutari eskatzen zitzaion **zin-egite** militarrarekin (*sacramentum*) parekatzen du San Ziprianok. Iñaki Mendiguren

Datorren ekainaren 30ean, benetako botererik izango ez duen Gobernu baten **zin egite** ospakizun bat egongo da Bagdaden; ez da funtsez ezer aldatuko. Berria - Mundua

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
>
> **aitak zin egin** (3); **arbasoei zin egin** (4); **arbasoei zin eginez** (17); **aurrean zin eginda** (3); **denek zin egin** (6)
>
> **egidazu zin** (4); **egin dut zin** (3); **egin nion zin** (3); **egin zuen zin** (9); **egin zuten zin** (10); **egindako zin** (4); **egiten du zin** (3); **egiten dute zin** (3); **gainean zin eginez** (3); **gurasoei zin eginez** (3); **guztiek zin egin** (4)
>
> **izenean zin egin** (5); **izenean zin egingo** (4); **izenean zin egiten** (5); **jakobi zin eginez** (10); **karguari zin egin** (8)
>
> **zin dagi** (3); **zin dagit** (61); **zin dagizuet** (9); **zin dagizut** (25); **zin degiat** (5); **zin degiat ezen** (3); **zin degizuet** (6); **zin degizut** (41); **zin degizut ezen** (5); **zin egidazu** (15); **zin egidazue** (4)
>
> **zin egin** (429); **zin egin ahal** (4); **zin egin behar** (19); **zin egin beharko** (3); **zin egin bezala** (5); **zin egin dezaket** (4); **zin egin dio** (4); **zin egin du** (13); **zin egin dugu** (3); **zin egin dut** (3); **zin egin dute** (3)
>
> **zin egin genuen** (4)
>
> **zin egin nahi** (3); **zin egin nion** (23); **zin egin nuen** (21)
>
> **zin egin omen** (3); **zin egin ondoren** (4)
>
> **zin egin zenidan** (3); **zin egin zezala** (3); **zin egin zidan** (3); **zin egin zien** (6); **zin egin ziola** (3); **zin egin zion** (43); **zin egin zioten** (7); **zin egin zuela** (5); **zin egin zuen** (80); **zin egin zuten** (26)
>
> **zin egina** (17); **zin egina nuen** (3); **zin egina zuen** (4)
>
> **zin eginda** (9); **zin egindako** (7)
>
> **zin eginen** (4); **zin eginez** (92); **zin eginez agindu** (17); **zin eginez agindutako** (11); **zin eginez hitz** (12)
>
> **zin egingo** (35); **zin egingo lukete** (3); **zin egingo nuke** (3); **zin egingo zuen** (3); **zin egingo zukeen** (3)
>
> **zin eginik** (4)
>
> **zin egite** (10); **zin egitea** (20); **zin egiteak** (5); **zin egitean** (7); **zin egiteko** (16); **zin egiteko eskatu** (3); **zin egiteko prest** (3)
>
> **zin egiten** (145); **zin egiten diat** (14); **zin egiten dizuet** (4); **zin egiten dizut** (26); **zin egiten du** (4); **zin egiten duenak** (4); **zin egiten dugu** (4); **zin egiten dut** (20); **zin egiten dute** (4); **zin egiten ez** (4); **zin egiten zuen** (10)
>
> **zin egitera** (9)
>
> **leialtasun zina egin** (3); **zina egin** (32); **zina egin zuen** (11); **zina egin zuten** (3); **zina egingo** (6); **zina egitean** (3); **zina egiteko** (4)
>
> **ez egin zinik** (4)

---

## zin eginarazi *(24 agerraldi, 17 liburutan)* **1** zin egitera behartu. ik **zin eragin**.

Biblia Santuaren gainean **zin eginarazi** zidan ez niola inori ezer kontatuko, ezta amari ere. Mirentxu Larrañaga

Ez al nizun Jaunarengatik **zin eginarazi** eta ez al nizun zorrotz esan norabait ateratzen bazinen, ziur hilko zinela? Elizen arteko biblia

Augustinek **zin eginarazi** zion horrelako arduragabekeriarik ez zuela berriz egingo. Karlos Zabala

Eta hura hilda bazegoen, sinatua zuten lekukoei **zin eginaraziko** zitzaiela. Iñaki Iñurrieta

Ez al nizun Jaunarengatik **zin eginarazi** eta ez al nizun zorrotz esan norabait ateratzen bazinen, ziur hilko zinela? Elizen arteko biblia

**2** (osagarriekin)

Nagusiak **zin** hau **eginarazi** zidan: "Ez duzu nire semearentzat bizi naizen lurralde honetako emazte kanaandarrik aukeratuko". Jose Antonio Mujika

Apaizak une honetan madarikazio-**zina eginarazten** dio emakumeari. Elizen arteko biblia

Batzuetan leialtasun **zina eginarazten** zieten sujet guztiei. Iñaki Iñurrieta

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
>
> **zin eginarazi** (17); **zin eginarazi zidan** (3); **zin eginarazi zion** (7)

---

## zin eragin *(14 agerraldi, 6 liburutan)* **1** du *ad* zin eginarazi.

Orduan, **zin eragin** zioten bere gizonek Davidi: -Ez zara aurrerantzean gudura aterako gurekin, Israelen zuzia itzal ez dadin. Elizen arteko biblia

Aitak **zin eragin** zidan: 'ni hiltzean, Kanaanen egina dudan hilobian ehortziko nauzu'. Jose Antonio Mujika

Aitak **zin eragin** dit, bera hiltzean, Kanaan lurraldean duen hilobian ehortziko dudala. Elizen arteko biblia

Gero, herri haietako jendearekin ez zirela ezkonduko **zin eragin** nien Jainkoaren izenean. Elizen arteko biblia

Haiekin hitzarmena burutu eta **zin eragin** zien Jaunaren etxean. Elizen arteko biblia

**2** (osagarriekin)

Ongi zakinat, odola irazekia egonik, zeinen naro dizkion arimak **zin** gartsuak **eragiten** mihiari. Juan Garzia

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 0 aldiz agertzen direnak)**
>
> **zin eragin** (9)

---

## zinabrio *iz* merkurio sulfuro naturala, kolore gorriko mea, zilarbizia ateratzeko ustiatzen dena.

Haitzulora ere joaten ziren, eta Hendrikek **"zinabrio"** deitzen zien harri gorri batzuekin itzultzen ziren. Juan Garzia

Baldin eta **zinabrioa** batzuetan gorria eta besteetan beltza, batzuetan arina eta besteetan pisua balitz [...] orduan nire irudimen enpirikoak inoiz ez luke **zinabrio** pisua pentsatzeko aukerarik izango. Ibon Uribarri

**Zinabrioa**, zarpeatu-lanetan hainbeste erabiltzen dena, honela prestatzen da. Santiago Iruretagoiena

Marmol nabarraren itxura iluna hartzen duena, brontze florentziarren marrez ebakitako **zinabrio** xaflak txertatu izan balizkiote bezala Karlos Zabala

---

zinagoga ik **sinagoga**.

---

zinaurri ik **xinaurri**.

---

## zinausle *(orobat **zin hausle**) iz* gezurrez zin egiten duen edo zina hausten duen pertsona.

Beste epaiketarik gabe, zinegilea jarauntsiaren jabe bihurtzen zen; hartara, **zinausleak** seguru zeuden ondasunak bereganatuko zituztela. Iñaki Iñurrieta

Esklabo-salerosle, gezurti eta **zinausleentzat**, eta irakaspen osasungarriaren kontra jartzen den edonorentzat. Elizen arteko biblia

Garai batean oparo eta distiratsua zen, baina orain goseak joa, **zin-hausle**, gezurti, iruzurti, lapur, gutiziatsu, miserable eta ezjakin zen hiria. Iñaki Mendiguren

---

**zinauste** *(orobat **zin hauste**)* *iz* egin den zina haustea.

Erabateko nahaspila da dena: odol-isurketa eta hilketa, lapurreta eta iruzurra, ustelkeria, desleialkeria, gizarte-gatazkak, **zinausteak**. Elizen arteko biblia

Jainkoari egiten zaion dei solemnea, kontzientzia behartzen duena egia esatera, **zinauste** zigorpean. Xabier Olarra

Zeren eta printze horrek izpirituko krimen asko onartu baitzituen, hala nola, Napoliko apezak mindu zituzten haren **zin hausteak**, sakrilegioak eta heresiak. Piarres Xarriton

Halako maitasuna bainuke nik **zin-hauste** eta saldukeria. Juan Garzia

---

**zinbal** *(orobat **zinbalo**)* *iz* perkusioko musika-tresna osatzen duten kobrezko edo brontzezko bi diskoz osatua; disko horietako bakoitza.

Harrigarrizko urrats hotsa entzuten nuen orain nire eskailerako mailetan, zoruan, tapizetan, ez ordea oinetako hotsa, gizonaren oskiena, makuluena baizik, zurezko eta burdinazko makuluena, **zinbalak** balira bezala jotzen ari. Josu Zabaleta

Beren burua berotu egiten zuten eskuetako **zinbalekin** kriskitinak joz eta pandero moduko batzuk, *daire* izenekoak, hatz puntaz astinduz. Karlos Zabala

Urre zaparrada bat erori zen emirraren eta haren aliatuen eskuetatik, armadako ofizial maila guztietakoen poltsetatik, eta txanponek dantzarien **zinbalak** jotzean sortzen zuten soinuarekin nahasten ziren oraindik ere dutara eta panderoen azken marmarrak. Karlos Zabala

Brontzezko izurde batzuk jarriko dira, **zinbaloak** dituztela ahotik zintzilik eta kateekin lotuta. Santiago Iruretagoiena

Lakoniatik etorritako sandalia burdinorizkoek dilin hotsa zegiten haren oinetan, eta haren aitzinean bazen **zinbalo**-soinurik. Juan Garzia

---

zinbalo ik **zinbal**.

---

zinbawuera ik **zimbabwera**.

---

zinbawuetar ik **zimbawetar**.

---

**zinbel**1 *iz adkor* zakila.

Txupadak **zinbel** punta, mamanton horrek! Patxi Iturritegi

---

**zinbel**2 *iz* ehiztarien txoria, beste txoriak erakartzeko erabiltzen dena.• *irud/hed*

Apollinaireren ama meretriz ezaguna da, azken urteak **zinbelarena** egiten eman baditu ere putetxe atarietan. Iñigo Aranbarri

---

**zinbel**3 *izond* kulunkaria.

Ibilera **zinbelez** gurutzatu zuen kafetegia, zerbitzariei zenbait agindu eman zien, eta sukalderatu egin zen. Iñaki Zabaleta

Ibiltari bakartia agertu eta hura han galduta ez dabilela antzeman orduko, hor hasiko da prostituta bat goxotasunak esaten, hurrengoa gordinkerietan, horrela bost gorputz **zinbel** atseden promesak astintzen, eta hanka finak badituzte, aztal estuak, are eta deigarriago... Pako Aristi

---

**zinbeldu**, zinbel(tu), zinbeltzen du *ad* kulunkatu.

Takoidun zapaten gainean **zinbeldu** egiten zuen soina. Iñaki Zabaleta

---

**zinbilin-zanbulun** *adlag* zinbulu-zanbulu, kulunkatzen.

Ongi gogoratzen zuen, bai, nola ibiltzen ziren noiznahi [...] aurrera eta atzera, **zinbilin-zanbulun**, batzuetan amona Doloresek bultzatuta, besteetan aitak, lanetik itzultzean. Joan Mari Irigoien

Eta erreakzio-hegazkinek uzten zituzten kezko lerro ezin zuzenagoetan, nola irudikatzen nituen aingeruak jostetan, **zinbilin-zanbulun**! Joan Mari Irigoien

---

**zinbirri-zanbarra** *adlag*

**Zinbirri-zanbarra** astindu behar izan ninduen. Jesus Mari Mendizabal

---

**zinborio** *iz* dorre itxurako eraikina, eskuarki eliza baten gurutzaduraren gainean goratzen dena.

Zona honetan, arkeologoen esanetan, Erdi Aroko elizaren jatorrizko benetako morfologia ageri zaigu, baina gainerako elementu gehienak bezalaxe egindako eraberritze lanek bobeda, **zinborioa** eta zenbait leihatila ezkutuan utzi zituzten. Berria - Kultura

Leku honetan bobedaren eta **zinborioren** aztarna argiak ikusteko aukera izango dugu, egungo teilatuaren azpian. Berria - Kultura

---

zinbrin ik **zinburrun**.

---

**zinbulu-zanbulu** *adlag* kulunkatzen.

Stan urrats luzeak eginez urruntzen ari zen, **zinbulu-zanbulu** urrundu ere. Lopez de Arana

· Horrek balio du, **zinbulu-zanbuluan** zabiltza, zoriontsu dirudizu, irri egiten diozu kamerari. Berria - Kultura

---

**zinbulu-zanbuluka** *adlag* kulunkatzen. ik **zanbuluka**.

Charlie artean kanpai joka eta iufika aditu nezakeen behean, danga eta danga artean, eta aise irudika nezakeen kanpai-sokatik zintzilikaturik, airean **zinbulu-zanbuluka**. Mirentxu Larrañaga

---

**zinbuluka** *adlag* kulunkatzen. ik **zanbuluka**.

Ava lasaiena bezala, Zizpa urduriena zen, noiznahi **zinbuluka** hasten zena. Bernardo Atxaga

Bata bestearen bizkarrera igotzen, **zinbuluka** eta zanbuluka nahiz ilunpetan nahiz egunargitan. Anton Garikano

---

**zinbulukatu**, zinbuluka(tu), zinbulukatzen da *ad* kulunkatu.

Zartailua eskuetan, aldatu egiten da mundu ikuskera, **zinbulukatu** egiten dira helduleku ustez finko eta mugiezinenak: zer da hobe, torturatzea ala torturatua izatea? Karlos Linazasoro

---

zinburrin ik **zinburrun**.

---

zinburrinete ik **zinburrun**.

---

**zinburrun** *(orobat **zinbrin, ziburrun, zinburrinete** eta **zinburrin**)* *iz* lasto batekin egiten den txilibitua.

Sorrera berdintsua izan lezakeen beste musika tresna, euskaraz ziburrun, **zinburrun**, zinburrin, zinbrin, zinburrinete eta antzera deitu izan dena litzateke nere uste agian erdiustelean. Patziku Perurena

---

zinc ik **zink**.

---

zindik ik **sindiko**.

---

zindikagoa ik **sindikatu[1]**.

---

zindikat ik **sindikatu[1]**.

---

zindikatu ik **sindikatu[1]**.

---

**zindo** **1** *izond* sendoa, irmoa.

Zuzen atera dezakegu, beraz, gizakiak eta laboreak eta zuhaitz **zindoak** genero ezberdinez eginak direla. Xabier Amuriza

Ez dadila sar Neron haren arima bular **zindo** honen barnean. Juan Garzia

Hori dela-eta, Goia baserrira bihurtzeko asmoa (asmo **zindoa**, ez pentsa), dexente atzeratu zitzaidan. Txillardegi

Baietz dioenak, bere golkorako ziurtasun **zindoa** izan arren, nola demostratu eta kontua garbi azaldu? Pello Zabala

Sinesten dut zintzo diostazula orain esaten ari zarena; baina sarri askotan dugu hausten geure delibero **zindo** zena. Juan Garzia

Sendo, **zindo**, menderakaitz itxuraz. Txillardegi

Jean-Paulek askoz ere beranduago deitoratu zuen protagonistarekin, heroiaren gaitzarekin nahikoa bat egin ez izana, behar bezain **zindoa** ez agertua. Berria - Kultura

**2** (adizlagun gisa)

Beti ahalegindu izan dela horri esanahi linguistiko huts-hutsa ematen [...] eta arrazismoaren aurka (alemana, edo Arrazaren Eguna eta) **zindo** paratu dela. Joxe Azurmendi

Zahar ez, baina bai sendo, **zindo**, haren ahotsa aretoko lau haizeetara zen zabaltzen. Iñigo Aranbarri

Saguntoko kolpetik ozta-ozta hilabetea igarota, "Norteko" probintzietan ezarri nahi omen zuen, sendo eta **zindo**, jeneralek emandako aginpide berria. Txillardegi

Haritzondo urtetsua, Allikenekoaren adinkidea gutxienez, beti **zindo**, inoiz baino ederrago iruditu zait. Txillardegi

---

**zindotasun** *izond* zindoa denaren nolakotasuna.

Erretorika nazistaren domeinu osoarekin, bere bokazio intelektuala, patu edo destino patriotiko kasik heroiko bezala aurkezten dio irakurle alemanari, are kontzientziako **zindotasun** hori Alemaniari zor balio bezala: [...]. Joxe Azurmendi

---

**zine** *(472 agerraldi, 35 liburu eta 68 artikulutan)* **1** *iz* zinema. ik **zinema**.

**Zinea** asmakizun melankolikoa iruditzen zait. Pako Aristi

Amerikarrak bezalakorik ez dago **zinea** egiten. Arantxa Iturbe

Hollywoodetik etorri berri, ohituta zegoen **zinea** egiteko modu sofistikatuekin. Anjel Lertxundi

Apustu eginen nuke urtebete baino lehenago arrakasta lortuko duzula **zinean**. Fernando Rey

**Zinean** aritzen zinen? Fernando Rey
Zuk ez zenuen behin ere lapurtuko **zinean** lanik aurkitu bazenu. Fernando Rey
Literaturan eta **zinean** hain fruitu ederrak eman zituen Neorrealismo italiarraren gai eta ezaugarri guzti-guztiak ditu filmak. Anjel Lertxundi
Whiskyz beteriko kopak lurrera jausi ziren, motel, **zinean** kamerak astiro grabatzen duenean legez. Sonia Gonzalez
Urtero **zinea** eta telefilmak ekoiztu euskara hutsean; **zine** zein telebistarako bikoizketa areagotu. Berria - Kultura
Igande eguerdirako Ikastetxera itzultzen nintzen, bazkalondoan **zinea** genuelako, arratsaldeko hiruretan. Joseba Sarrionandia
1910-1930 urteetako zine mutuaren urrezko garaiak eta mintzo den **zinearen** hastapenak. Ana Urkiza
Irudiaren garrantzia eta **zinearen** gaitasun subliminala ezagutzen duen gizon baten hautua. Berria - Kultura
- **Zinera** gonbidatu nahi zintudan. Iñaki Zabaleta
Zori etsaia madarikatu nuen une hartan **zinerako** dirua lapurtu izan balidate baino zakarrago. Anjel Lertxundi

**2** (izenondo eta izenlagunekin)

Oraindik ere **zine** mutuaren garaian bagina, izar bihurtuko zintuzket astebete baino lehenago. Fernando Rey
**Zine** mutuko eszena barregarri bat iruditu zitzaidan. Anjel Lertxundi
**Zine** muturik ez, soto ilunean. Harkaitz Cano
Orain ezinezkoa da **zine** soinudunarekin. Fernando Rey
**Zine** amerikarra da niri gustatzen zaidana. Arantxa Iturbe
Indioen izaera, izan ere, **zine** eslaboaren modukoa da, euren isiltasuna euren hitzak baino adierazgarriagoa da. Joseba Sarrionandia
Arriskutsua da **zine** soziala egitea. Berria - Kultura
Eulia, **zine** fantastikoan usu ageri den kreatura enigmatukoa da. Patziku Perurena
Sexu-marketing hutsa! **Zine** pornoan ikasitako planta ustelak gehienez ere! Patxi Iturritegi
'Alien vs predator' filmarekin bukatuko da beldurrezko **zine** astea Donostian . Berria - Kultura
Fantasiazko **zinean** lau film agin ditu jada, eta hau du azkena. Berria - Kultura
**Zine** Dokumentalaren I. jaialdi honetan. Berria - Kultura

**3** (hitz elkartuetan lehen osagai gisa) ik **zinematografiko**.

Woody Allen bera **zine** genero bat dela. Berria - Kultura
*Riso* hitzaren bi adierak -alaitasuna eta arroza- baliatu zituen Giuseppe de Santis **zine**-zuzendariak ere bere film ezagunenari *Riso amaro* izena eman zionean. Anjel Lertxundi
Ralph Carston, Arthur Wharton, munduko **zine**-zuzendari hoberena. Fernando Rey
Ezin naiz itzuli **zine**-aktore guztietan ospetsuena izaten naizen arte. Fernando Rey
Mireille Darc **zine** jokolariak hautatu ditu zenbait emazte presondegitik berrikitan jalgiak direnak. Herria
**Zine**-aktoresa, 1914an jaioa Bolonian. Fernando Rey
Nire buruari galdetzen nion egia ote zen ni Beverly Hillseko igerileku batean bainatzen ari nintzela, **zine**-izarrez beteriko etxe batean. Fernando Rey
**Zine**-kritikoa, kazetaria eta nobelagilea, ume biren aita, katolikoa tradizioz. Edorta Jimenez
Woody sortzaile intelektuala eta Woody **zine**-langilea. Berria - Kultura
Planeta honetako lau izkinetatik etorritako **zine** ikasleen bilkura. Berria - Kultura
Postalak **zine** irudia zuen, Charles Chaplin eta ume pobre bat harresi izkinan zeuden larritasunez begira. Joseba Sarrionandia
Bere emazteari eramango ziola etxeko **zine**-kamerarekin filmatzeko. Hasiak ziren udako oporrak eta ordurako Dudleyk apurtuta zuen **zine**-kamera berria. Xabier Olarra
Dolby **zine** sistema digital bat. Berria - Euskal Herria
1931n Kaliforniara aldatu zuen bizilekua, **zine**-lanetan aritzeko asmoz. Xabier Olarra
Nik filmak egin nahi nituen, baina banekien ez neukala batere aukerarik **zine**-institutuan sartzeko. Juan Kruz Igerabide
Erabakia nuen denbora-tarte batean nire **zine**-karrera geroratzen ahal nuela. Fernando Rey
Euskarazko **zine**-emanaldiak egiten dituzten aretoetan. Berria - Kultura
Telebista eta **zine** ekoiztetxea. Berria - Kirola
Kolpe gogorra jaso du AEBetako musika eta **zine** industriak. Berria - Gaiak
Orduan baziren ikasleek egindako aldizkariak, erakusketak, **zine**-forumak, kontzertuak, jaialdiak. Anjel Lertxundi
Kutxan **zine** ziklo bat botatzen ari dituk. Pako Aristi
Dantzari talde bat osatu zen, berebat koru txiki bat, **zine**-forum bat helduentzat eta haurrentzako zinea. Juan Kruz Igerabide
Gogoan nituen **zine**-aldizkari guztietako azal guztietako argazkiak. Fernando Rey
**Zine**-albistegi bat aurkitu nuen ospitale ondo-ondoan. Xabier Olarra
Hollingworth andereñoa zen, **zine**-astekariko kazetaria. Fernando Rey
Badakit, badakit, **zine** aipu gehiegi gau bakar baterako. Berria - Kultura
Egunkari atzerakoi handi honen **zine**-zutabearen puska bat. Fernando Rey
**Zine** munduko fetitxistentzat paradisua da hiri hau. Harkaitz Cano
Kursaal jauregiaren aurreko **zine** kartel handietako batek Eusko Jaurlaritzaren zigilua du. Berria - Kultura
Gaur hasiko da Lekeitioko Euskal **Zine** eta Bideo Bilera. Berria - Kultura

**4** (hitz elkartu kopulatiboetan)

Han sortu ziren euskal aktoreen lehen promozioak modu arautuan, gazte saldo ederrak bohemiaren eta etorkizun ziren euskal **zine**-antzerki-telebisten promesak liluratuta. Iñaki Iñurrieta

**5** (hiru osagaiko hitz elkartuetan)

Departamenduko **zine** ekipamendu batzordeak. Herria

**6** filmak proiektatzen diren eraikina.

Bi **zine** zeuden herrian. Arantxa Iturbe
Erabaki zuen arratsaldea **zine** batean pasatuko zuela. Matías Mujika
Ipi-apa guztiekin planeatu nuen zer esango nion eta zer egingo genuen **zinean** eta **zinetik** irten ondoren. Anjel Lertxundi
Azaldu zion gizonak ez zela Museoko langilea, **zine**-areto batean egiten zuela lan. Unai Elorriaga
**Zine** irteeran presaka alde egin zuen, Itxaso zur eta lur utzirik. Pako Aristi
Gurasoak ere igandero joaten ziren **zinera**. Arantxa Iturbe
Beheko auzoko **zinera** jaisten nintzen, eskolako bi lagunekin. Juan Kruz Igerabide
Kabalok adierazten dutenaren antzeko malenkonia batez egin nuen **zinerainoko** bidea. Anjel Lertxundi

**7** ***zine areto*** zinema aretoa.

**Zine-aretoa** ia hutsik zegoen. Joseba Urteaga
Geratzen zen **zine-areto** bakarra masaje etxe bilakatuko dute laster. Patxi Iturritegi
Kafetegi edo **zine areto** batera sartzeko ideia hutsak gaixotu egiten ninduen. Alberto Ladron Arana

**Zine-aretoan** elkartzen ginen. Anjel Lertxundi

Gero esan zigun **zine areto** bat zegoela hirian, eta hara joatea erabaki genuen. Juan Kruz Igerabide

Alemaniako Historiaren Museoko **Zine aretoan** . Berria - Kultura

Hiru seikotetan banatuak izanik hauetarik lehenak jokatu du beraz igandean Leitza-ko **zine aretoan** finalerdia. Herria

**8** ***zine festibal*** *(orobat* ***zinefestibal****)* zinema jaialdia.

Aurten, Cannes hirian, **zine festibalak** ospatu du Amerikar baten filma: " Fahrenheit 9/11". Herria

Hiru langilerekin, Magys-ek bideo geriza sistemak pikoan emaiten ditu, Marsellako portua edo Cannes-eko **zine festibala** enpresa horrek asmatu moldean gerizatuak dira elektronikoki. Herria

*La pelota vasca:* nahiz ez den telebixtakoa, berrikitan ikusi dut Julio Medem zinegilearen filma, Donostiako **zinefestibalean** aurkeztua 2003-an. Herria

**9** *zine gela* ik **zinegela**.

**10** *zine klub* ik **zineklub**.

**hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**

**euskal zine** (5); **zine aktore** (3); **zine aldizkari** (5); **zine areto** (5); **zine aretoan** (3); **zine emanaldiak** (4); **zine eta bideo** (3); **zine gelan** (3); **zine gelaren** (3); **zine kamera** (3); **zine klubak** (3); **zine klubean** (3); **zine soziala** (3); **zine zuzendari** (13); **zine zuzendariak** (3)

**zinea egiteko** (3)

**zinean ikusten** (3); **zinean lan egin** (6)

**zinera joan** (20); **zinera joan nintzen** (3); **zinera joatea** (3); **zinera joateko** (8); **zinera joaten** (8)

---

zinefestibal ik **zine 8**.

---

# zinegela

*(137 agerraldi, liburu 1 eta 114 artikulutan; orobat* ***zine gela*** *10 agerraldi, liburu 1 eta 9 artikulutan) iz ipar* zinema aretoa.

Magic lehengo **zinegela** xaharraren tokian berriz ere **zinegela** batzu idekiko dira, hiru sala oraiko ustez. Herria

Egia erran haatik ez dut egun **zinegela** baterat joateko gogo handirik. Janbattitt Dirassar

Azaroaren 19an, ortzirale aratseko 8.30etan, Baionako Atalante **zinegelan**, "Mondo Vino" filma eta elgarrizketa, Europak bipiltzen ari duen Afrikaz. Herria

Aratsaldeko 4-etan, Itsas-Mendi **zinegelan**, bertsu-saioa. Herria

Bi ekitaldi: Korrika moda desfilea Hazparne Xuriatean; *Pomada* taldea bertsulariekin Urruñako **zinegelan** . Herria

San Andres auzoan [...] bastiza bat eraikiko zela arte entseguko hiru **zinegela** aterbetuko zituena. Herria

Miarritzeko Royal hiru **zinegelen** kudeantza eskatzen duten 8 erakundeen artean aurkitzen da Jean Pierre Lemoine, jadanik Angelun eta guziz Baionan megarama proiektuak pausatuak dituena. Herria

**hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**

**atalante zinegelan** (5); **garaziko vauban zinegelan** (13); **haritz barne zinegelan** (4); **itsas mendi zinegelan** (10); **koliseo zinegelan** (8); **maule baitha zinegelan** (7); **rex zinegelan** (7); **vauban zinegelan** (42); **zinegelan izanen** (3)

---

# zinegetiko

*izond* ehizari dagokiona.

Kume arra edo emea izan, oreinek esne gehiago edo gutxiago ekoizten dutela ikusi dute Albaceteko (Espainia) Baliabide **Zinegetikoen** Ikerketarako Institutuko ikertzaileek. Berria - Gaiak

---

# zinegile[1]

*iz* zinemagilea. ik **zinelari**.

**Zinegilea** dela diost, eta hemen zinea egiteko aukera ederra eskaini diotela. Edorta Jimenez

Bere kreatibitatea oroimenarekin osatu eta aberasten duen edozein artista motaren aurrean, dela **zinegilea**, dela idazlea, dela margolaria, niri zalantza bat eta beti berdina sortzen zait. Pako Aristi

Filisteo eredugarria betiere, poeten, **zinegileen**, artisten, humanisten eta kulturaren aldeko familia sonatu bateko senide izan ohi da. Patziku Perurena

Neorrealistak, idazleak zein **zinegileak**, kultura elitista baten guztizko etsaiak dira. Anjel Lertxundi

Palermo hirira joan gara ikusiz han diren palazio edo jauregi ederrak, hain zuzen Gangi deitzen dena, hango saloi handian Visconti Italiar **zinegileak** itzulia zuela "Le Guépard" filma. Herria

Gianni Agnelli hil berritan, Fiateko industria-gizon ahaltsuari buruz galdetu zioten Nanni Moretti **zinegile**, aktore eta gidoilari ezkertiarrari. Anjel Lertxundi

Inork esan dezake **zinegile** neorrealistek hala filmatzen bazuten, amerikarrek zeuzkaten medioak falta zitzaizkielako zela. Anjel Lertxundi

*Dolly-back* esaten diote **zinegileek** pertsonaia galtzeraino kamerak atzera egin eta irudia zabaltzeari. Lourdes Oñederra

Estreinakoz bildu ziren milurteko honetako **zinegile** hasiberriak. Berria - Kultura

Donibane Lohizunek eskaintzen dauku bere urriko zinemaldia, **zinegile** gazteen arteko lehiaketarekin, hamabi filma berri berexiak izanak sail hortan agertzeko. Herria

---

# zinegile[2]

*(orobat* ***zin-egile****)* **1** *iz* zin egiten duen pertsona.

Beste epaiketarik gabe, **zinegilea** jarauntsiaren jabe bihurtzen zen; hartara, zinausleak seguru zeuden ondasunak bereganatuko zituztela. Iñaki Iñurrieta

Zorrotz salatuko ditut sorginkeriazale, adulteriogile eta gezurrezko **zin-egileak** . Elizen arteko biblia

Liburuaren alde batean "Lapur guztiak garbituko dituzte" zegoen idatzia, eta bestean "Gezur- **zinegile** guztiak garbituko dituzte". Elizen arteko biblia

**2** apaiz zinegilea.

Eliza bi parte egiten da, **zinegileak** eta besteak. Xipri Arbelbide

**3** ***apez zinegile*** frantziar iraultzaren ondoren errepublikaren alde zin egin zuen apaiza.

Handik eta laster parrokia utzi behar izan zuen Iturbideko apezak beste apez lagunekin, Salvat Dibasson, apez **zinegileak** hartzen zuela segida. Xipri Arbelbide

Herri ttipietako jendeek ez zituzten onartzen beren apezak ordezkatzen zituzten apez **zinegileak** ; beraz, ez ziren elizkizunetara agertzen. Elena Touyarou

---

# zinegintza

*iz* zinemagintza.

Becketten laguna ere izan zen eta Resnais eta konpainiarekin ibili zen **zinegintzan** . Hasier Etxeberria

zinegite ik **zin 6**.

zinegotxi ik **zinegotzi**.

**zinegotzi** *(orobat **zinegotxi** g.er.)* **1** *iz* alkatearekin batera udalbatza osatzen duten kideetako bakoitza.

Urte honetan mega-hauteskundeak antolatu ditu, kargu guzti-guztiak berritu edo berlejitimatzeko: presidentea, diputatuak, gobernadoreak, alkateak eta **zinegotziak** . Pako Aristi

Atharratzen kontseilari orokor izanik ere, Baionako **zinegotzi** zen, baita heben Guardia Nazionaleko aitzindaria. Herria

Ramon Etxezarreta PSE-EEko Donostiako **zinegotzia** eta Antton Karrera EB-IUko legebiltzarkidea ere izan ziren ekitaldian. Berria - Kultura

Rose-Marie Prosperi *Corsica Nazione* taldeko **zinegotzia** da Bastian. Berria - Mundua

Belfasteko udaletxean Sinn Feinek duen **zinegotzietako** bat da Eoin O'Broin. Berria - Mundua

Herriko kontseiluan kontseilari edo **zinegotzi** egona zen ere hamabi urtez. Herria

Zazpi lürralde historikoetako **zinegotzien** biltzarra dügü Udalbiltza. Herria

**Zinegotzitarako** aurkeztu zuen bere burua Madrilen, Erdialdeko barrutiko ordezkari. Josu Zabaleta

Ana **zinegotzi** zen, auzoan adosturiko zerrenda batean hautatua. Juan Kruz Igerabide

1931ko udal hauteskundeetan **zinegotzi** hautatu zuten Donemiliagako udalerrian. Berria - Kultura

Lau zaldi zurik tiratutako zalgurdi batean udaletxera doa, alkateak **zinegotzi** izendatuko baitu. Lopez de Arana

Irujo bera, alderdiko bizpahiru buru, herriko **zinegotzi** bat, eta beste hamar bat lagun ziren gure zain. Inazio Mujika Iraola

Barrutiko **zinegotzi** hautatu berrietako baten ondoan. Irene Aldasoro

Herri askotan arazoak sortu dira PNVko **zinegotziekin** . Xabier Mendiguren Elizegi

*Herria Aurrera* Bilboko herri plataformak Sanchez **zinegotziaren** dimisioa eskatu du. Berria - Euskal Herria

Arte eta kulturako **zinegotzia** izan zen, Amienseko udalean. Karlos Zabala

Juan Antonio Heredia Babes Zibilerako **zinegotziak** jakinarazi duenez. Berria - Gaiak

Kanposantuaz arduratzen zen **zinegotziaren** idazkaria besterik ez zen oraindik. Ramon Saizarbitoria

Enpresa aberatsari **zinegotziak** egiten dion zerga-barkamena; damutu ez den erregeari apaizak ematen dion absoluzioa, etab. Xabier Olarra

**2** (izenondoekin)

Aitona Juanito izan zen gure herriko lehenengo **zinegotzi** abertzalea. Xabier Mendiguren Elizegi

Vale Tena **zinegotzi** jeltzaleak. Berria - Kultura

Kiskalita agertu zen guretik bi zenbaki haratago bizi den **zinegotzi** sozialistaren autoa. Aingeru Epaltza

La Oliva inguruko beste herriko **zinegotzi** independente batek, bestalde, proiektuaren inguruan dagoen «iluntasuna» kritikatu du. Berria - Kultura

Nonbait, **zinegotzi** ohi baten zain zeuden, hiltzeko. Pello Salaburu

Napumoceno pobreziaz zuen esperientzia eta ezagutzagatik gomendioak ematen zituen **zinegotzi** hutsa baino ez zen. Bego Montorio

**3** (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

Zertarako dago **zinegotzi** kargu hori alferrik? Berria - Euskal Herria

Lizartzakoak dira, hautagaiak izan daitezke eta ez daukate arazorik **zinegotzi** agiria jasotzeko. Berria - Euskal Herria

Osteguneko bozetan Ingalaterrak dituen 388 udaletatik 176tan egin zuten bozketa, eta 22.000 **zinegotzi** postuetatik 4.360 hautatu. Berria - Mundua

Geure **zinegotzi** dietetatik Berria ordaintzeko dirua jartzeko prest agertu ginen. Berria - Euskal Herria

BNP Alderdi Nazional Britainiarra eskuin muturreko taldeak gorakada nabarmena izan du, lehen zuen **zinegotzi** kopurua bikoiztuta eta Barking hirian laboristei 11 kenduta. Berria - Mundua

**4** *hitz elkartuetan bigarren osagai gisa)*

Herriko udal **zinegotziaren** eta Jose Mari Iriondo lagun eta adiskidearen eskuetatik jaso zituen opariak. Berria - Kultura

Batzordeko burua Hirigintza **zinegotzi** Jorge Ibarrondo zen. Berria - Kultura

Ernesto Gasco Donostiako Udaleko Gizarte Segurantzako **zinegotzia** , Denis Itxaso turismo **zinegotzia** , Joxe Joan Gonzalez Txabarri Gipuzkoako Ahaldun Nagusia. Berria - Harian

Gasteizko Udalaren izenean, Encina Serranok Kultura **zinegotziak** aurtengo jaialdiaren ezaugarri nagusiak nabarmendu zituen. Berria - Kultura

Politika linguistikako arduradun, euskara teknikari, kultur **zinegotzi** eta gisako teknokrata ipurtxuri franko. Patziku Perurena

**hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**

**barakaldoko zinegotzi** (3); **batasuneko zinegotzi** (3); **bilboko zinegotzi** (8); **donostiako zinegotzi** (8); **eajko zinegotzi** (12); **eako zinegotzi** (12); **eeko zinegotzi** (10); **eko zinegotzi** (13); **eko zinegotzi ohia** (3); **hazparneko zinegotzi** (3); **hbko zinegotzi** (4); **herriko zinegotzi** (4); **hirugarren zinegotzi kargua** (5); **ingurumen zinegotzi** (3); **iruñ iruñ irungo zinegotzi** (3); **kultura zinegotzi** (8); **lizartzako zinegotzi** (3); **ppko zinegotzi** (23); **pse eeko zinegotzi** (10); **udal hauteskundeetan zinegotzi** (4); **udalean zinegotzi** (3); **udaleko kultura zinegotzi** (3); **udaleko zinegotzi** (12); **upnko zinegotzi** (7)

**zinegotzi antonio basagoitik** (4); **zinegotzi bakarra** (3); **zinegotzi bakarrak** (4); **zinegotzi bati uko** (3); **zinegotzi hautatu zuten** (6); **zinegotzi izan** (5); **zinegotzi izana** (5); **zinegotzi izandakoak** (3); **zinegotzi izaten** (3); **zinegotzi izaten jarraituko** (3); **zinegotzi jeltzaleak** (8); **zinegotzi kargua** (9); **zinegotzi kargua hartzea** (3); **zinegotzi kargurako** (3); **zinegotzi ohi** (8); **zinegotzi ohia** (13); **zinegotzi ohiak** (13); **zinegotzi ohiaren** (3); **zinegotzi ohiek** (4); **zinegotzi sozialista** (4); **zinegotzi sozialistak** (7); **zinegotzi sozialistaren** (3)

**baionako zinegotzia da** (3); **bilboko zinegotzia** (6); **eajko zinegotzia** (5); **eeko zinegotzia** (10); **hezkuntza zinegotzia** (3); **kultura zinegotzia** (5); **miarritzeko zinegotzia da** (3); **orioko zinegotzia** (3); **ppko zinegotzia** (15); **pse eeko zinegotzia** (10); **santurtziko zinegotzia** (3); **zarauzko zinegotzia** (3)

**zinegotzia da** (17); **zinegotzia hil** (10); **zinegotzia hil zuen** (6); **zinegotzia izan** (14); **zinegotzia izan da** (3); **zinegotzia izan zen** (7); **zinegotzia izango** (4); **zinegotzia zen** (3)

**alkate eta zinegotziak** (4); **alkatea eta zinegotziak** (4); **bilboko kultura zinegotziak** (4); **donostiako zinegotziak** (4); **eajko zinegotziak** (4); **eako zinegotziak** (9); **ebko zinegotziak** (3); **eeko zinegotziak** (8); **hirigintza zinegotziak** (6); **ingurumen zinegotziak** (6); **kirol zinegotziak** (4); **kultur zinegotziak** (4); **kultura zinegotziak** (35); **madrazo hirigintza zinegotziak** (3); **ppko zinegotziak** (16); **pse eeko zinegotziak** (8); **saileko zinegotziak** (6); **sanchez kultura zinegotziak** (4); **udaleko kultura zinegotziak** (7); **udaleko zinegotziak** (3); **upnko zinegotziak** (4)

**zinegotziak adierazi** (3); **zinegotziak atzo** (10); **zinegotziak atzo adierazi** (3); **zinegotziak azaldu** (7); **zinegotziak azaldu zuenez** (4); **zinegotziak eman** (3); **zinegotziak esan** (4)

**eajko zinegotziaren** (3); **eeko zinegotziaren** (5); **kultur zinegotziaren** (4); **kultura zinegotziaren** (4); **leitzako upnko zinegotziaren** (5); **ppko zinegotziaren** (3); **pse eeko zinegotziaren** (5); **upnko zinegotziaren** (8); **upnko zinegotziaren hilketa** (3)

**zinegotziaren aurka** (4); **zinegotziaren aurkako** (3); **zinegotziaren dimisioa** (3); **zinegotziaren esanetan** (5); **zinegotziaren hilketa** (4); **zinegotziaren kontrako** (4); **zinegotziaren ustez** (4)

**eako zinegotziari** (3); **kultura zinegotziari** (4)

**alkate eta zinegotziei** (3)

**eajko zinegotziek** (6); **eako zinegotziek** (3); **eeko zinegotziek** (3); **ppko zinegotziek** (6); **pse eeko zinegotziek** (3); **upnko zinegotziek** (3)

**alkateen eta zinegotzien** (3); **zinegotzien jarrerak** (3)

**zinegotzietako bat** (3); **zinegotzietako batek** (3)

**bi zinegotzik dimisioa** (3); **eajko bi zinegotzik** (3); **hainbat zinegotzik** (4); **zinegotzik dimisioa eman** (3)

## zinegotzigo *iz* zinegotzi izatea.

**Zinegotzigoa** zela medio eta kalean gelditutakoen etxeak berreraikitzeko Udalak fondo berezia lortu zuenez Gobernutik, Napumoceno jaunak ez zuen aurrerantzean arazo horretaz zehazki arduratzeko beharra sentitu. Bego Montorio

Horregatik utzi zion **zinegotzigoari**, alkate postua bete ahal izateko baliabide teorikoz janzteko asmoz. Bego Montorio

**Zinegotzigorako** hauteskunde kanpainan. Bego Montorio

---

## zinegune *iz* zinea edo zineak dauden gunea.

Iragan otziralean, aurkeztua izan zaiku, Baionako Atalante **zinegunean**, liburu berri bat, guziz aberatsa: *Euskal rock n'roll,* Atlantica argitaletxeak argitaratua, Euskal Kultur Erakundearen partaidetzarekin. Herria

---

## zineklub *(14 agerraldi, liburu 1 eta 8 artikulutan –ETCn 369 agerraldi- ; orobat* ***zine klub*** *9 agerraldi, 4 liburu eta 3 artikulutan –ETCn 286 agerraldi-) iz*

A Space Odyssey, Bilbon unibertsitateko **zineklubean** ikusi zenuen zientzia fikziozko pelikula hura. Joseba Sarrionandia

Azpeitiko **Zine Klubak** halako gidoientzako lehiaketa bat antolatzen zuen garai hartan. Xabier Mendiguren Elizegi

Guggenheim Bilbao museoak eta FAS **zineklubak** eratutako zinema mutuko zikloa astelehenean hasi zen. Berria - Kultura

Hamarkada bat geroago, **zinekluben** bultzatzaile sutsua izan zen. Berria - Kultura

Euskal Herriko **zineklubik** zaharrena da Fas. Berria - Kultura

---

## zinelari *iz* zinemagilea. ik **zinegile**[1].

Des racines et des ailes: 2002-ko irailaren 11-an, France 3 gateak zabaldu du Gédéon eta Jules Naudet, frantses **zinelari** gazteek New-York-eko gertakariez egin duten emankizuna. Herria

Hartara jakin-minez jiten ziren amerikar kazetariak, hedabideetako jendeak, eta bereziki **zinelariak**. Marzel Etxehandi

---

## zinema *(100 agerraldi, 19 liburu eta 11 artikulutan)* **1** *iz* zinematografiaren antzea eta teknika; antze horri dagokion industria. ik **zine**.

Zazpigarren artea dela **zinema**. Josu Zabaleta

Literatura eta **zinema** oso arte diziplina ezberdinak direla eta bakoitzak bere kontatzeko modua duela uste du Armendarizek. Berria - Harian

Liburuan bazegoen lotura narratibo hori, baina **zinemak** bestelako hari bat jarraitzen du, irudiei lotutako koherentzia narratiboa behar du. Berria - Harian

**Zinemak** bai ukitu duela gai hori baina ez literaturak. Ana Urkiza

Pintura, marrazkia, diseinua, eskultura, **zinema** edo arkitektura landu izan, Basterretxeak «beti» izan du errealitateari begiratzeko freskotasuna. Berria - Euskal Herria

**Zinemak** ikusezina den arkitektura du bere barruan. Berria - Kultura

Hainbat motatako lanak onartu dituzte Nontzeflash sariketako arduradunek: *motion graphics* argazkia, **zinema**, animazioa eta diseinu grafikoa uztartzen dituzten ikus-entzunezko lanak, marrazki bizidunak, musikalak eta kontzeptualak. Berria - Kultura

Bada **zineman** ilusio soil bat, itxurazko mugimenduarena, **zinemako** irudiaren pertzepzio osoari dagokionez izan daitezkeen ezaugarrietako bat baizik ez dena. Josu Zabaleta

Neska ederra dena dela, **zinemako** aktore bat zirudien. Fernando Rey

Hemezortzi bat urte zituen alabak, eta oso neska polita zen, ez **zinemako** izar bat, jakina. Koro Navarro

India hegoaldeko **zinemako** galaietako bat zen. Berria - Kultura

Euskal Herrian **zinemako** profesional dezente dago, baina Espainian aritzen gara gehienok. Berria - Kultura

**Zinemako** distantzia da inoiz irudiak sorrarazi dituen distantziarik laburrenetakoa. Josu Zabaleta

**Zinemako** errealitate-inpresioa deitu ohi dena. Josu Zabaleta

Guri ukabilkadak jotzen zituzten **zinemako** pertsonaiak gustatzen zitzaizkigun. Pello Lizarralde

Errealitatea eta fikzioa, historia eta **zinema** uztartu zuen zinemagilea. Berria - Kultura

**Zinema** egitea gustatu izan zait, eta horretarako izan ditudan aukera guztiak baliatu ditut. Berria - Kultura

Ipar Amerikako **zinema** izan da **zinema** ezagutu eta maitarazi diguna. Berria - Kultura

**Zinema** ezinbestekoa da, egungo gizartean, oroimen kolektiboa osatzerakoan. Berria - Kultura

**Zinema** oso nabarmen ari da ideologia nagusia zabaltzen, hau da, klase nagusiaren ideologia. Luis Elberdin

**Zinemak** nagusi den eredua errepikatu eta zabaldu besterik ez du egiten. Luis Elberdin

Gaurko arte garaikidea kalean dago, kultura bisuala pintura da, baina baita ordenagailua, **zinema**, komikia eta publizitatea ere. Berria - Harian

**Zinema** sozialki, politikoki eta kulturalki beharrezkoa dela ulertu behar da. Berria - Harian

Orain arte ez dela lortu gure **zinema** euskal kultur sistemaren funtsezko osagai gisa eratzea, hau da, kulturalki instituzionalizatzea. Berria - Kultura

**Zinema** araurik gabeko arte mota da, eta ondorioz, dena posible da. Berria - Kultura

**Zinema** forma bat da, zure barrutik gauzak kanpora ateratzeko forma. Berria - Kultura

**Zinema** telebistan ikusten da gaur egun. Josu Zabaleta

DVDn **zinema** asko ikusten dut. Berria - Kultura

**Zinema** arte plastiko bat bihurtzeko izan diren ahalegin bakanetako bat. Josu Zabaleta

Boxeo munduan girotutako **zinema**. Berria - Harian

Handik gutxira, **zinema** uztea erabaki zuen Kieslowskik. Berria - Kultura

'Bawke'-k irabazi du Donostiako **Zinema** eta Giza Eskubideak jaialdiko gazteen saria. Berria - Kultura

**2** (izenondo eta izenlagunekin)

**Zinema** mintzatua iritsi zenean, kezka horiek guztiak alde batera bazterturik geratu ziren berehala. **Zinema** ahostunaren agerkundea. Josu Zabaleta

Orduantxe egin ziren lehenbiziko urratsak soinudun **zinema** sortzeko. Pello Salaburu

Antigoaleko **zinema mutuari** buruzko zikloa antolatu du Bilboko Fas zineklubak, Guggenheim museoarekin elkarlanean. Berria - Kultura

Hitzik gabeko **zinemak**, gainera, luxuzko bidelaguna edukiko du Fasek prestatutako zikloaren abenturan: musika. Berria - Kultura

**Zinema** musikatua, kontzertua, talasoterapia... denak izan dira arrakastatsuak. Berria - Euskal Herria

Emmerichek AEBetan egin ditu bere azkeneko filmak, guztiak ere **zinema** komertzialaren esparruan. Berria - Kultura

Wisek genero guztiak jorratu zituen: **zinema** beltza (*The captive city, Odds against tomorrow*), westerna [...]. Berria - Harian

**Zinema** beltzaren usaina duen filma da, Abel Ferrarak egin duen klasikoena. Berria - Harian

**Zinema** independenteari ateak bultzatzeko engaiamendua hartu du Bertze Zinemako taldeak. Berria - Kultura

**Zinema** klasikoaren muntaketa "gardenaren" garapena. Josu Zabaleta
1960 inguruan hasi zen mamitzen eta indartzen "alemaniar **zinema** espresionistaren" mitoa. Josu Zabaleta
**Zinema** "esperimentala" eta bideo "esperimentala" desberdinagoak dira, zalantzarik gabe, fikziozko **zinema** eta fikziozko bideoa baino. Josu Zabaleta
**Zinema** dokumentalaren oinarriak hartu, eta fikzioaren narratiba eman zion filmari. Berria - Kultura
Nafarroako **Zinema** Dokumentalaren Nazioarteko I. jaialdia. Berria - Kultura

**3** (hitz elkartuetan lehen osagai gisa) ik **zinematografiko**.

Kordoi bati tiratu zion eta, bat-batean, **zinema**-oihal bat agertu zen sabaitik nire pareko liburu-apalategian behera. Anjel Lertxundi
Egunean zehar hemen bertan eta beste hainbat tokitan gertatutakoen berri ematen ditu albistegi horrek, **zinema** pantaila batean. Berria - Euskal Herria
Badira gutako bakoitzarentzat **zinema** euskarrian egindako zenbait altxor berezi, maitasunez gorde eta gozatzen ditugunak. Berria - Kultura
"Oscar Cine" holdineko buruzagiek erran dute mila jarlekuko **zinema** proiektuarekin segituko dutela Angelun. Herria
Baionako Atalante **zinema** gela. Berria - Euskal Herria
Kanboko Herriko Etxeak gomita berezia egin du haur guzier, "Nemo" filma ikusi dute **zinema** gelan. Herria
Sobiet Batasuneko **zinema**-estudioetan egin omen zuen lana, dekoratuak pintatzen-eta. Xabier Mendiguren Elizegi
Iazko abenduan, antzerki, **zinema** nahiz telebista arloko profesionalen eta zaleen omenaldia jaso zuen. Berria - Harian
Belardi taldeak eskainiko du kantaldi bat helduden igandean otsailaren lehenean, aratsaldeko 4 etarik goiti Haritz-Barne **zinema** salan. Herria
Sortu dira **zinema** esparruak Bilbo Handian, baina ez, ordea, hirigunean. Berria - Ekonomia
Frantses **zinema** zuzendaria eta antzezlea. Bernardo Atxaga
Marcel Jullian editore eta **zinema** gidoilari frantziarra hil da. Berria - Kultura
Manhattango **zinema** artista. Gotzon Garate
**Zinema**-antzezle baten gisa, adats gorri aizuna ezker-eskuin kulunkatzen zitzaion. Aingeru Epaltza
Kazetaria eta **zinema**-kritikaria. Fernando Rey
**Zinema** izarrek, abeslari ezagunek eta bozetan murgilduta dauden hainbat taldek dirua, talentua eta denbora eman dituzte jendea bozkatzera deitzeko. Berria - Mundua
Ostiralean bertan, lehendabiziko **zinema** albistegia eskaini zuten Komunikazio gunean. Berria - Euskal Herria
**Zinema** aldizkarietako aipamenak eta film banatzaileek prestatutako laburpenak bere horretan kopiatzen direla. Iñigo Aranbarri
Sobiet Batasuneko **zinema** eskolako filmak. Berria - Kirola
Frantses **zinema**-eskolak, eskola "inpresionista" deituak, oparo erabili zituen efektu horiek. Josu Zabaleta
Sari horiek ez ditu Hollywoodeko **Zinema** Akademiak emango. Berria - Kirola
Inork gutxik zekien [...] nor zen German Fonseca eta, are gutxiago, zenbaterainokoa zen haren ekarpena **zinema**-industriaren alorrean. Josetxo Azkona
Euskal Herrian **zinema** ekoizpena fruitu ugari ematen ari da. Berria - Kultura
Bollywood-ek, Bombay hirian sustraituta dagoen industria erraldoiak, munduko **zinema** ekoizle handiena bilakatu du India. Berria - Kultura
Telebista kateak, egunkari eta aldizkariak, **zinema** produktorak, musika ekoiztetxeak, publizitate agentziak. Bulgariarra da Nikhola eta **zinema** munduan lan egin nahi luke etorkizunean. Berria - Harian
Irudi espezifikoak (**zinema**-irudia, argazki-irudia, eta abar). Josu Zabaleta
Antzerki zein **zinema** emanaldiak. Juan Luis Zabala
Katalanezko **zinema** emanaldiek 1.073.898 ikusle izan zituzten 2003an. Berria - Kultura
Julio César antzezlana iaz ere ekarri nahi izan genuen, baina, aktore nagusiek **zinema filmazioak** zituztenez, bertan behera utzi behar izan genuen. Berria - Kultura
**Zinema** saio batekin amaitu zen eguna. Berria - Euskal Herria
Deskantsatu egiten da **zinema** forum batean parte hartzen, kirola egiten. Berria - Euskal Herria
Donibane Lohizunek ere badu bere gisako **zinema** festibala, filma egile gazteen arteko lehiaketa berezi batekin. Herria
*ik beherago* 7. Askoren artean
Jaialdia hiru sailetan banaturik dago: **zinema**-fikzioa, bideo-fikzioa eta bideo-sormena. Berria - Kultura
Donostiako Antzoki Zaharra da Beldurrezko **Zinema** Astearen bihotza. Martin Anso

**4** (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa)

Ez dugu egile **zinema** egingo. Berria - Harian

**5** filmak proiektatzen diren aretoa.

**Zinematik** atera ginenean musu bat eskatu nion, eta ilehoriak eman egin zidan. Pello Lizarralde
Marx anaien film bat ematen zuten latindar auzoko **zinema** batean, zaldi karrerei buruzko bat. Harkaitz Cano
Plazan bertan zegoen **zinema**, izkina batean baina. Pedro Alberdi
Broadway kale famatua, bere **zinema** eta antzokiekin. Gotzon Garate
Bartzelonako **zinema** batean ikusi nuen Viscontiren *Morte a Venezia*. Joan Mari Irigoien
Manifestariek jatetxeak, **zinemak** eta autoak erre zituzten. Berria - Mundua
**Zinemako** argiak amatatu egin ziren. Pedro Alberdi
20 zauritu **zinema** batean granada batek eztanda eginda. Berria - Mundua
Tren eta autobus geltokietan, **zinema** inguruetan, denda handien ondoan. Gotzon Garate
Orain **zinema** berritu nahi dugu, herritarrek erabil dezaten. Berria - Harian

**6** ***zinema areto***

**Zinema aretoa**, jaietan dantzarako erabiltzen zena, herri sarreran zegoen. Josu Zabaleta
Kalearen bueltan, **zinema aretoaren** ate pipiak janaren aurrean. Josu Zabaleta
Gobernadoreak debekatu zion aldizkari bat abiatu zuen, abesbatza zuzendu zuen, **zinema aretoa** zabaldu zuen. Koldo Izagirre
Principe **zinema aretoetara** sartzeko eta sarrera erosteko ilara luzeak daude. Berria - Harian
Gazte baten gelako hormatik zintzilik jarrita dagoen "posterrak", **zinema-aretoan** proiektatzen den irudiak, edota telebistako irudiak berak ere, denek dute zeinek bere marko-objektua. Josu Zabaleta
Egun, film arrakastatsuen katalanerazko 12 eta 14 kopia inguru erakusten dira Herrialde Katalanetako **zinema aretoetan**. Berria - Mundua
Debekatua dute antzokietan, **zinema aretoetan**, eta beste aisia leku publikoetan sartzea. Josu Zabaleta
**Zinema aretotik** atera eta ikusi duguna imitatzen saiatzen gara. Luis Elberdin
Zigoitiako Gorbeia merkataritza guneko **zinema** eta joko **aretoak** itxiarazi zituen Eusko Jaurlaritzako Herrizaingo Sailak. Berria - Euskal Herria

**7** ***zinema jaialdi***

**Zinema jaialdia** otsailaren 9tik aurrera egingo da eta 19 film lehiatuko dira sail ofizialean.Becketti buruzko antzerki, literatura eta **zinema jaialdia** antolatu dute. Berria - Kultura
Urpeko **Zinema jaialdia** gaur Aquariumen. Berria - Kultura
Roland Emmerich zuzendari alemaniarra izango da Berlingo **zinema jaialdiko** epaimahaiburua. Berria - Kultura
Nafarroako Gobernuak sustatutako **zinema jaialdiaren** bigarren edizioak Makoto Sat zinemagilea ekarriko du Iruñera. Berria - Kultura
Fantasiazko **Zinema Jaialdien** Federazioak ematen duen garaikur nagusia. Berria - Kultura

Gainera, gizonezko aktore onenaren saria eskuratu zuen Cartagena del Marko Itsasoko **Zinema Jaialdian** . Berria - Harian

**hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 4 aldiz agertzen direnak)**

**aebetako zinema** (12); **animaziozko zinema** (5); **antzerkia eta zinema** (4); **atalante zinema** (4); **beldurrezko zinema** (5); **bere zinema** (8); **berlingo zinema jaialdiko** (4); **bilboko zinema** (7); **donostiako zinema** (4); **ebko zinema** (4); **egindako zinema** (5); **eginiko zinema** (4); **espainiako zinema** (9); **espainiako zinema akademiak** (6); **europako zinema** (8); **euskal herriko zinema** (8); **euskal zinema** (23); **fantasiazko zinema** (5); **frantziako zinema** (6); **golem zinema** (4); **hollywoodeko zinema** (10); **ideales zinema** (5); **itsaspeko zinema** (4); **literatura eta zinema** (6); **nazioarteko zinema** (11); **nazioarteko zinema jaialdia** (4); **royal zinema** (5)

**zinema akademiak** (13); **zinema areto** (25); **zinema areto bat** (4); **zinema areto batean** (4); **zinema aretoa** (11); **zinema aretoak** (8); **zinema aretoan** (18); **zinema aretoen** (7); **zinema aretoetako** (5); **zinema aretoetan** (38); **zinema aretoetara** (11); **zinema aretoetatik** (6); **zinema aretoko** (6); **zinema aretotik** (6); **zinema asmatu** (5); **zinema baino** (5); **zinema beltzaren** (4); **zinema dokumental** (6); **zinema dokumentalaren** (7)

**zinema egin** (5); **zinema egitea** (8); **zinema egiteko** (10); **zinema egiten** (5); **zinema ekoizle** (6); **zinema emanaldiak** (6); **zinema eraikitzen** (13); **zinema eskola** (5); **zinema eta antzerki** (7); **zinema eta bideo** (11); **zinema eta musika** (4); **zinema euskaraz** (4); **zinema fantastikoaren** (6); **zinema fantastikoko** (4); **zinema festibala** (5); **zinema gela** (4); **zinema gelan** (12); **zinema geletan** (4); **zinema gustatzen** (4)

**zinema independentearen** (10); **zinema izar** (4); **zinema jaialdi** (9); **zinema jaialdia** (18); **zinema jaialdiak** (7); **zinema jaialdian** (24); **zinema jaialdiaren** (8); **zinema jaialdiko** (10); **zinema komertziala** (4); **zinema kritikarien** (4); **zinema lan** (8); **zinema lana** (4); **zinema mota** (4); **zinema munduan** (9); **zinema mutuaren** (9); **zinema mutuko** (4)

**zinema sustatzeko** (5)

**zinema ulertzeko** (4); **zinema zikloa** (9); **zinema zikloak** (6); **zinema zuzendari** (30); **zinema zuzendaria** (15); **zinema zuzendariak** (19); **zinema zuzendariaren** (7)

**euskal zinemak** (11); **zinemak baino** (5)

**zinemako aktore** (6); **zinemako esaldi bat** (5)

**doneztebeko zineman** (4); **zineman izan** (4)

**zinemara eraman** (13); **zinemara eraman zuen** (7); **zinemara eramango** (7); **zinemara eramatea** (4); **zinemara joan** (19); **zinemara joan ginen** (4); **zinemara joanen** (4); **zinemara joango** (4); **zinemara joatea** (12); **zinemara joateko** (9); **zinemara joaten** (15)

**zinemarako musika** (12)

**zinemarekin lotutako** (8)

**animazio zinemaren** (9); **beldurrezko zinemaren** (12); **europako zinemaren** (5); **euskal zinemaren** (56); **euskal zinemaren eguna** (7); **euskal zinemaren egunean** (9)

**zinemaren astea** (5); **zinemaren bidez** (8); **zinemaren eguna** (7); **zinemaren egunean** (9); **zinemaren etorkizuna** (6); **zinemaren helburu nagusia** (6); **zinemaren historia** (10); **zinemaren historiako** (11); **zinemaren historian** (9); **zinemaren industriak** (5); **zinemaren munduan** (6)

**euskal zinemari** (6); **zinemari buruz** (12); **zinemari buruzko** (24); **zinemari buruzko zikloa** (6); **zinemari dagokionez** (6)

---

## zinemagela ik **zinema 3**.

---

## **zinemagile** *iz* filmak egiten dituen pertsona.

Gaurko hainbat artistak -berdin dio pintore, idazle edo **zinemagile** - ez dute Stendhalen pazientzia bera gordetzen. Anjel Lertxundi

Rob Marshall **zinemagileak** zuzenduko du *Memoirs of a Geisha* filma. Berria - Kultura

Michael Moore **zinemagilearen** *Bowling for Columbine* filma. Berria - Gaiak

Aspaldi aztertuak dituzte, beraz, operatzaileek eta **zinemagileek** egin daitezkeen kamera-mugimendu guztiak. Josu Zabaleta

**Zinemagile** asko izan dira lehen planoa arrakasta handiz erabili dutenak. Josu Zabaleta

Miresmena zioat, bai, Eisensteini, bere kezka estetikoei buruz idazten duen **zinemagile** bakarrenetakoa baita. Anjel Lertxundi

**Zinemagile** amateurrentzako pantaila batzuetan, pantailaren ingurua beltzez margotua izaten da. Josu Zabaleta

15/15 jaialdiak [...] **zinemagile** berrien eta ekoizleen arteko harremana sustatzea du helburu. Berria - Kultura

Zinema mutuaren garaiko **zinemagile** handiek ederki jakin zuten handitze horren berezitasuna ikusten eta erabiltzen, telefono bat monumentu bihurtuz (Epstein) edota labezomorro bat elefantea baino handiago eginez (Eisenstein). Josu Zabaleta

*King of New York*-ek eta, batik bat, *Bad lieutenant*-ek kultuzko **zinemagile** bihurtu zuten. Berria - Harian

Horretaz oharturik hasi zen Dziga Vertov errusiar **zinemagilea** filmeko bi irudiren arteko bereizkuntza edo distantzia adierazteko, metafora bidez, *bitarte* terminoa erabiltzen. Josu Zabaleta

Rotterdamgo jaialdian egon berri da **zinemagile** japoniarra. Berria - Kultura

**Zinemagile** independenteen askatasuna. Berria - Kultura

Ni neu fikziozko **zinemagile** gisa hasi nintzen, baina ibilbideak zinemagintza dokumentalera eraman nau. Berria - Kultura

Benetako **zinemagile** batek, apeza izanagatik, gorpua berriro estalarazi eta deus ez ukitzeko aginduko zukeen, kameraren bila alde eginda. Koldo Izagirre

**hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**

**moore zinemagilearen** (3); **van gogh zinemagilea** (4); **zinemagile alemaniarra** (3); **zinemagile argentinarraren** (3); **zinemagile estatubatuarrak** (7); **zinemagile estatubatuarraren** (5); **zinemagile eta idazle** (3); **zinemagile gisa** (6); **zinemagileak dioenez** (3); **zinemagilearen film** (3); **zinemagileen lanak** (3)

---

## **zinemagintza** **1** *iz* filmak egitea; jarduera horri dagokion industria.

Funtsean ez zen bakarrik zizelkaria; poesia, arkitektura eta **zinemagintza** ere jorratu zituen. Herria

Zentratze hori, berez ere margolaritzaren herentziaren ikuspegi akademizatu batetik hartua, ez da unibertsala **zinemagintzan** . Josu Zabaleta

Jende guztiak orain **zinemagintzan** , diskogintzan... negozio eraldaketaz hitz egiten dute,eta guretzat ere probokazio bat da kultur sistema berritzea. Berria - Harian

XX. mendeko **zinemagintzako** film ezagunenetako batzuk Goldsmitehk sortutako musika dute. Berria - Kultura

**Zinemagintzako** produktuen, DVD eta bideo jokoen eskaintza bermatzea eta horien banaketa ziurtatzea da helburua, egitasmoan azaldu dutenaren arabera. Berria - Mundua

Bi gizaldiko zinegilerik bikainenekin urte askoan lan egin arren, inork gutxik zekien - **zinemagintzako** profesional gehienak barne- nor zen German Fonseca. Josetxo Azkona

**Zinemagintzarako** Zentro bat ere sortu nahi dute. Berria - Harian

### **2** (izenondo eta izenlagunekin)

Fikziozko **zinemagintza** eta **zinemagintza** dokumentala bereizi beharrean, bi «estrategia» horiek batzearen aldekoa da Victor Erize zinemagilea. Berria - Kultura

Dreyerren *La passion de Jeanne d'Arc* **zinemagintza** sinbolikoaren ordezkari argia da. Berria - Kultura

Ruus Meyer zuzendaria hil da, **zinemagintza** erotikoaren aitzindaria. Berria - Kultura

### **3** (hitz elkartuetan)

Gabeziak baino gehiago, nik esango nuke ez dagoela **zinemagintza** industriarik, eta horren aurrean ezin dut ezer egin. Berria - Kultura

**hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**

**europako zinemagintzako** (3); **euskal herriko zinemagintzari** (3); **euskal zinemagintza** (4); **euskal zinemagintzan** (3); **euskal zinemagintzaren** (7); **zinemagintzaren historian** (5); **zinemagintzari buruzko** (3)

---

**zinemalari** *iz* zinemagilea.

1967an sartu zen Kaliforniako gobernadore **zinemalari** aktore famatu hori zazpi urtez kargu hortan eta bi urteren buruko presentatu presidengora baina ez pasatu, Gerald Ford baitzen pasatu. Herria

---

**zinemaldi** *iz* zinema jaialdia.

Mikel Olaziregi Donostiako Nazioarteko **Zinemaldiko** zuzendariak. Berria - Kultura

**Zinemaldia** zinemaren industriaren erakustokia da, eta, gero eta inbertsio eta film gutxiago egonda, industria hori krisian dagoenez, erakustokiak ere ezin du ohiko distira izan. Berria - Kultura

Ez dira hain zuzen horrexegatik txalotzen eta saritzen **zinemaldietan** *In this world* bezalako filmak? Iñigo Aranbarri

Donostiako Euskaltzaleen Elkarteak, Bagerak, Musika Hamabostaldiko eta **Zinemaldiko** euskararen erabilera neurtu ditu. Berria - Euskal Herria

2003ko **Zinemaldiak** atzera begirakoa eskaini zion zinemagile horri. Berria - Harian

Aste huntan guzian, Donibane Lohizunek eskaintzen dauku bere urriko **zinemaldia**, zinegile gazteen arteko lehiaketarekin. Herria

Arrakasta edo sona behintzat izan du Venezuelan; gu han ginelarik Cartagena de Indiaseko (Kolonbia) **zinemaldian** aurkeztu zuten. Pako Aristi

Donibane Lohizuneko **zinemaldiak** arrakasta pollita ukan du. Herria

Cannesko **zinemaldian** Epaimahaiaren saria irabazi zuen. Berria - Harian

Aste huntan Hendaiak badauka bere **zinemaldi** berezia, filma laburren festibalño bat. Herria

*Galindez* eta *Terminal* filmak izan dira New Yorkeko LaCinemaFe **zinemaldi** latindarreko garaileak. Berria - Kultura

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
>
> **aurtengo zinemaldia** (4); **cannesko zinemaldia** (6); **donibane lohizuneko zinemaldia** (3); **donostiako zinemaldia** (7); **lohizuneko zinemaldia** (3); **nazioarteko zinemaldia** (9)
>
> **donibane lohizuneko zinemaldiak** (3); **donostiako zinemaldiak** (8); **nazioarteko zinemaldiak** (4)
>
> **berlingo zinemaldian** (5); **cannesko zinemaldian** (19); **cannesko zinemaldian aurkeztu** (5); **donostiako zinemaldian** (23); **film bat zinemaldian** (7); **nazioarteko zinemaldian** (5); **zinemaldian aurkeztu** (8); **zinemaldian aurkeztu zuten** (4); **zinemaldian ikusi** (3); **zinemaldian izango da** (3)
>
> **donostiako zinemaldiaren** (10); **nazioarteko zinemaldiaren** (7); **nazioarteko zinemaldiaren barruan** (3); **veneziako nazioarteko zinemaldiaren** (3); **zinemaldiaren aurtengo** (3); **zinemaldiaren barruan** (7); **zinemaldiaren inaugurazio** (4)
>
> **nazioarteko zinemaldiari** (3)
>
> **zinemaldien gailurra** (5)
>
> **berlinale zinemaldiko** (3); **berlingo zinemaldiko** (3); **cannesko zinemaldiko** (10); **cannesko zinemaldiko sail** (3); **donostiako zinemaldiko** (13); **donostiako zinemaldiko sail** (3); **donostiako zinemaldiko zabaltegi** (4); **nazioarteko zinemaldiko** (6)
>
> **zinemaldiko sail** (13); **zinemaldiko sail ofizialean** (7); **zinemaldiko sail ofizialeko** (5); **zinemaldiko sari** (5); **zinemaldiko urrezko palmorria** (3); **zinemaldiko zuzendariak** (4); **zinemaldiko zuzendariaren** (3)
>
> **nazioarteko zinemaldirako** (3)

---

**zinemaratu**, zinemara(tu), zinemaratzen du *ad* zinemaren bidez eman.

Singerren 'Szosza' eleberria **zinemaratu** nahi du Paul Mazurskik. Berria - Kultura

Bernardo Atxagaren 'Obabakoak' **zinemaratzeko** lanak hasi ditu Montxo Armendarizek. Berria - Kultura

Inork ez zion itzalik egin New York hiria gehienetan **zinemaratu** duen zuzendariari. Berria - Kultura

Zinemara eramango ziren nobelak hautatzean, «nobelarik salduenak» hautatu zituzten, «harrera ona izandakoak», arazo edo zailtasun berezirik gabe **zinemaratzeko** aukera eskaini behar zutela ahaztu gabe, jakina. Berria - Harian

---

**zinemaratze** *iz* zinemaren bidez ematea.

Atxaga, Montxo Armendariz eta Puy Oria 'Obabakoak' obraren **zinemaratzeaz** mintzatu dira. Berria - Harian

---

**zinemaskope** *iz* pantaila zabalean proiektatzeko zinema sistema.

Hirurogeiko hamarraldian Japonian **zinemaskopen** filmatutako film askotan (Shohei Imamurarenetan batez ere) mugimendu autonomoa izaten du markoak. Josu Zabaleta

---

**zinemategi** *iz* zinema aretoa.

Abentuaren 14 ean, *Maule Baitha* **zinemategian**, aratseko 9-etan, kantaldi eder bat izanen da ikastolaren eta eüskararen alde. Jendea parra-parra doa **zinemategietara**. Herria

---

**zinemateka** *iz* filmak sailkatzen eta gordetzen diren lekua.

Michael Hanekeren filmografia osoa emango du Arte Eder museoko **zinematekak** gaurtik aurrera. Berria - Kultura

*Dekoratutik zinemara* goiburuarekin, zinemaren kontzeptu teorikoen inguruko zinema zikloa antolatu du Bilboko Arte Eder museoko **zinematekak**. Berria - Kultura

Frantziako **Zinematekako** zuzendari Henri Langloisek behin galdetu zidan nola egin nuen *Ere Erera belaibu Icik Subua Aruaren* filma eta nik erantzun nion: 'Pintatzen'. Berria - Kultura

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
>
> **museoko zinematekak** (3)
>
> **museoko zinematekak** (3)

---

**zinematika** *iz* mekanikaren adarra, higidura aztertzen duena indar eragileak kontuan hartu gabe.

Aurreratze maniobraren ***zinematika*** ez da ingeniarion lehen lana: 2004an astronomiaren inguruko lan bat plazaratu zuten. Berria - Gaiak

---

**zinematografia** **1** *iz* higitzen diren irudiak hartzeko eta proiektazeko teknika; zinemaren artea eta industria.

Eremuaren definizio hau, **zinematografiak** eta **zinematografiarako** sortutako kontzeptu hori irudi figuratiboen historia osorako zabaltzen duena, [.....]. Josu Zabaleta

Denboraren irudikapen oso eta bete horrek oso gutxitan ase du, ordea, **zinematografiako** artea (eta gutxiago oraindik bideo artea). Josu Zabaleta

Geroztik **zinematografiako** industriak tresna asko asmatu ditu mugikortasun hori errazteko eta hobeto kalkulatu ahal izateko. Josu Zabaleta

**Zinematografiako** estiloetan gizartearen eskaerak duela eragina. Josu Zabaleta

Konbentzio horiek **zinematografiako** tresneria eta gailuaren ezagutzan oinarritzen dira. Josu Zabaleta

**Zinematografiazko** erreprodukzioaren bidez balio gehiago irabazten ez duen alderdi oro ez da fotogenikoa, ez da **zinematografiako** artearen osagarri. Josu Zabaleta

Zinema eta antzerkia ongi bereizi nahia ez zen galdu, ordea, eta zinez interesgarria da ikustea nola antzerkiko kontzeptuetan bertan bilatu zen, berrogeita hamar ondoko urteetan batez ere, **zinematografiaren** espezifikotasunaren definizioa. Josu Zabaleta

**2** (hitz elkartuetan) ik **zinema 3; zine 3**.

Javier Agirresarobek Zinemaldian jasoko du irabazi duen Espainiako **Zinematografia** Saria. Berria - Kultura

Inbidia handiz ikusiko dute Donostiako ekitaldia AEBetako **Zinematografia** Akademiako arduradunek, kontu jakina baita Oscar sarien banaketa ekitaldiek ez dutela inoiz lortu Donostiako Zinemaldiak gaur lortuko duena: Woody Allenen presentzia. Berria - Kultura

**hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
**zinematografiazko erreprodukzioaren bidez** (3)

---

# zinematografiko 1 *iz* zinematografiarena, zinematografiari dagokiona. ik **zinema 3; zine 3**.

Adio Gary Cooper aktore **zinematografikoari** ere. Fernando Rey

*Citizen Kane*-k narratiba **zinematografikoa** irauli zuen. Berria - Harian

Gizon Zuriaren Fikzio **Zinematografikoa** WMMF ingelesezko siglekin izeneko kategoriaren barruan kokatzen dira aipatutako filmak. Berria - Kultura

AEBetako presidentearen nahiz industria **zinematografikoaren** kontra jardun zuen atzo Woody Allenek. Berria - Kultura

Euskal Herriko ekoizpen **zinematografikoaren** lehen harria Nestor Basterretxeak eta Fernando Larrukertek jarri zuten, *Ama Lur* (1968) filmarekin. Berria - Kultura

Kamera zinemaren metonimia bezala: aparatu **zinematografiko** guztietan kamera da ikus daitekeenarekin lotura estuena duena. Josu Zabaleta

Espazio **zinematografikoaren** izaera bitariko hori aspaldi sumatu izan da. Josu Zabaleta

Erreprodukzio **zinematografikoaren** bitartez balio morala handitzen zaion alderdi oro da fotogeniko. Josu Zabaleta

Emaitzen interpretazioa egiterakoan navahoek beren filmetan erabili zuten hizkuntza **zinematografikoari** begiratu zitzaion batez ere. Josu Zabaleta

Elipsi **zinematografikoaren** aferak. Aingeru Epaltza

Argazki-irudiaren (eta irudi **zinematografikoaren**) eta Quattrocenton definitutako pinturazko irudiaren arteko erlazioaren gaia. Josu Zabaleta

Irudi **zinematografikoak** gai oparoa eskaintzen dio iruditeriari, eta horrexegatik eman zaio, besteren artean, lehentasuna teoria horri. Josu Zabaleta

Irudi **zinematografikoa** ordu artekoen guztiz irudi desberdin bezala azaldu zen hasieratik. Josu Zabaleta

New Yorkeko zubirik **zinematografikoena** izateaz gain, ederrena ere bada Brooklyngoa. Harkaitz Cano

Ikaragarri bezain **zinematografikoa** da Trujillo diktadore dominikarraren aginduz 1956an New Yorken bahitu, torturatu eta betiko desagerrarazi zuten Jesus Galindezen bizitza. Martin Anso

Horrek guztiak bluesaren historia modu **zinematografikoan** lantzeko bidea erakutsi zigun. Berria - Kultura

Hiner Saleemen 'Nire aitaren fusila'-k kurduen azken 40 urteetako historia kontatzen du, oso modu **zinematografikoan**. Berria - Kultura

Ustezko suizidioaren deskripzio ia **zinematografikoa** bideratu du bertsolariak, arreta xehetasunetara eramanez. J. Garzia / A. Egaña / J. Sarasua

Kontzientea da eszenatokian duen jarreraz, hobeki esan, bere jarrera **zinematografikoaz**. Jon Alonso

Arte eta Zientzia **Zinematografikoen** Espainiako Akademiaren eskutik. Berria - Kultura

**2** (izenondo elkartuetan)

Frustrazio hori zuen zinemagileak, harik eta liburuaren beste irakurketa batek narrazioen arteko lotura narratibo-**zinematografikoa** azaleratu zion arte. Maria Malibranen heriotza saio **zinematografiko** filosofikoa egin genuen elkarrekin, kantuaren eta heriotzaren inguruan. Berria - Harian

**hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
**irudi zinematografikoa** (5); **modu zinematografikoan** (3)

---

# zinematografikoki *iz* era zinematografikoan; alderdi zinematografikotik.

Herri bat **zinematografikoki** mintzatzea oso-oso garrantzitsua da. Nolabait, Irlandako gatazkari **zinematografikoki** begiratzeko molde berri baten seme-alaba da Omagh. Berria - Harian

**Zinematografikoki** Clint Eastwoodek istorioak nola kontatzen dituen gustatzen zaigu, eta baita zinema argentinarra ere. Berria - Harian

Spielbergen ausardia ez da soilik alderdi ideologikora mugatu, **zinematografikoki** ere egundoko apustua egin du orain arte familia osoaren kutuna zen zuzendariak. Berria - Kultura

---

# zinematografo *iz* higitzen diren irudiak hartzeko eta proiektazeko teknika eta tresna. ik**zinematografo**; **zinema**.

Lumiere anaiek 1895ean **zinematografoa** sortu eta Parisko milaka pasadizo filmatu zituzten. Berria - Kultura

Hala gertatzen da irudi zinematografikoan, adibidez, itxurazko mugimenduak eratzen duen ilusio bete-bete horretatik ateratzen baitu irudi mota horrek dokumentua balitz bezala sinesgarri izateko gaitasuna; **zinematografoa** asmatu zen garaiko ikusleek filmeko irudiaren naturalismoaren berme gisa hartu zuten, beste ezeren gainetik, ilusio hori. Josu Zabaleta

**Zinematografoen** garaian, irudien garaian, orain, beste modu batez idatzi behar da. Berria - Kultura

**Zinematografoari** soinua gehitzeko aukera ematen asmatu zen. Berria - Kultura

Gero jakingo zuen herrian Berlino deitzen ziotela, hiri hartara joatekotan ibili zelako "**zinematografoan**" Alemaniako Alderdi Nazionalistari buruzko erreportaje bat ikusi ondoren. Bernardo Atxaga

**Zinematografoaren** bitartez berregiterik izango bagenu hots kate bat sortarazten duten ahoaren eta laringearen mugimendu guztiak, ezinezkoa litzateke mugimendu artikulatorio sail honetan zatiak igartzea, ez baita jakiten non hasten den hots bat eta bestea non bukatzen. Isabel Arrigain

---

# zinematoki *iz* zinema aretoa.

Ez da bakarrik **zinematoki** bat gure herriko Vauban sala ederra. Herria

Beste hiru kartelak **zinematokian** bertan ipintzen ziren, bi salmenta-leihatilaren alboetara eta hirugarrena hallean -Luigik "anbigu" hitza erabiltzen zuen beti aretoaurre moduko espazio hura aipatzean, eta saski erraldoi batean gaseosak eta litxarkeriak saltzen zituen andre bat izaten zen bertan. Josu Landa

Saio hauek ez dute denek formaltasun maila bera: hirietako **zinematoki** edo antzokietatik hasi eta herriko jaietako plazako saioetaraino doaz, pilotalekuetako saioetatik eta bertso-afarietatik pasata. J. Garzia / A. Egaña / J. Sarasua

Manifestazioa Golem **zinematokietatik** abiatu zen, 17: 30ean, eta polizia ugari zela. Berria - Euskal Herria

Vilniusen, 600.000 biztanle dituen gure hiriburuan, bi **zinematoki** besterik ez dago. Berria - Kultura

**hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
golem zinematokien ondotik (3)

---

# zinematxo *iz* zinema areto txikia.

Zerbitzuguneetan museo bitxiak topa daitezke [...] Nîmes inguruan arkeologiari buruzko bat dago, dendak, umeentzako jolastokiak, pic-nic egiteko zonak, **zinematxoren** bat ere bai. Mikel Hernandez Abaitua

Lekua ederra da benetan, eraikin orijinala, katalan batek egina, lorategi atsegina du eta bertan dauden eskulturak miragarriak dira, Gabo, Arp, Giacometti, Miróren labirintoa, **zinematxo** bat ere badu. Mikel Hernandez Abaitua

---

# zinemazale 1 *iz* zinemaren zalea dena.

Inguruko herrietako **zinemazale**, politikari, ikus-entzunezko teknikari eta herritarren artean antolatu dute, aldiz, ekitaldi hau. Berria - Kultura

Japoniako zinemaz antolatu duten atzera begirakoa da **zinemazaleentzako** sailik erakargarriena. Berria - Kultura

**Zinemazale** baten deskripzioa egiten zait [...] ez dut uste ezein filmetan ikusia dudanik, bere talentu plastikoari ematen diot, berak filmatu nahi izanen zukeen planoa dela hartzen diot tankera. Koldo Izagirre

**Zinemazaleen** oroimenean betiko geratuko dira Pina-Ana Magnani Erromako kaleetan korrika ( *Roma, citta aperta*). Berria - Kultura

Biek ala biek lortu zuten Berlinaleko **zinemazaleen** oniritzia. Berria - Kultura

**Zinemazale** porrokatua izan nintzen noizbait, oso aspaldi. Xabier Montoia

**2** (izenondo gisa)

Azterketa sakonetatik urrun, zera izango da onena: burmuin **zinemazalean** itsatsita geratu zaizkidan zenbait argazki deskribatzea. Berria - Kultura

**3** (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

Euskadiko Filmategia 1978an sortu zen, Peio Aldazabalek gidatutako **zinemazale** talde baten ekimenez. Berria - Kultura

Gaur egungo **zinemazale** belaunaldi gazteentzat ezezaguna da oraindik. Berria - Kultura

Ferrarak 90eko hamarkadaren hasieran lortu zuen underground zirkuitua gainditu eta bere lana **zinemazale** kopuru handiago bati helaraztea. Berria - Harian

---

# zinemimo *iz*

Zinema arte plastiko bat bihurtzeko izan diren ahalegin bakanetako bat, Elie Faure-k egin zuena (1922), kontrakotasun batean oinarritzen da: alde batetik, zinema izatez dena, **zinemimo** -a -zinema dramatizatua, narraziozkotasunari mendekotua baina bere emaitzarik onenak guztiz interesagarriak dituena (Faurek Chaplin aipatzen du eredutzat), baina bere izaeraz mugatua dena-, eta, bestetik, zinema izan daitekeena (izan beharko lukeena?), zineplastika, ustez beren izatez Artetik hurbilago-[...]. Josu Zabaleta

---

# zineplastika *iz*

Zinema arte plastiko bat bihurtzeko izan diren ahalegin bakanetako bat, Elie Faure-k egin zuena (1922), kontrakotasun batean oinarritzen da: alde batetik, zinema izatez dena, zinemimo-a -zinema dramatizatua, narraziozkotasunari mendekotua baina bere emaitzarik onenak guztiz interesagarriak dituena (Faurek Chaplin aipatzen du eredutzat), baina bere izaeraz mugatua dena-, eta, bestetik, zinema izan daitekeena (izan beharko lukeena?), **zineplastika**, ustez beren izatez Artetik hurbilago-[...]. Josu Zabaleta

---

# zinerama *iz* zinema proiekzio sistema, hiru kamera eta pantaila kurbatua erabiltzen dituena erliebe sentsazioa eragiteko.

Errespetu haundiz **zineraman** Euskararen Trofeotto hori. Herria

---

# zinetegi *iz* zinemategia.

Nahiz Baionako hiriak 1,2 milioi euro emanak dizkion Vauban **zinetegiaren** husteko, CGR-ek hotz dirudi Glain zelaian mila lekuko **zinetegi** berri baten eraikitzea trenkatzeko momentuan."La pompe" diskoteka, Glain auzoko CGR **zinetegi** berriaren ondora joaiteko arras interesatua da. Herria

Filme batzuk nazio arteko lehiaketetan laudorio eta sariak ukan dituztenak baina **zinetegietan** gutiegi kurritzen direnak. Herria

Kasik sei [milioi euro] "tour de Sault" pean eraikiko den parkalekuarentzat; beste hainbeste Glain auzoan eraikiko den "elkarteen etxea"rentzat eta honetatik hurbil, **zinetegi** pribatura heltzeko sargiarentzat. Herria

**hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
cgr zinetegi (3)

---

# zinetika *iz*

Bestela esanda, sistema honek edozein musika estilo onar dezake, musika bera eraldatu baino gehiago modu berezian entzuteko aukera eskaintzen baitu.«Kintools **zinetika** da, mugimendua». Berria - Kultura

Ziur nago **zinetikak** etorkizuneko musikan zeregin garrantzitsua beteko duela, bai entzuleari dagokionez, bai konposizio aldetik. Berria - Kultura

---

# zinetiko *izond* higidurari dagokiona; higidura duena.

Ereduak asmatu eta proban jartzeko, ordea, oinarri gisa, ezinbestekoak ziren, lehenengo eta behin, entzima horiek katalizaturiko erreakzio kimikoen azterketa **zinetiko** xeheak. Juan Garzia

Adierazle hauek geometrikoak eta **zinetikoak** dira aldi berean: informazio hauek ez dira tratatzen, beraz, erretinan, kortexean baizik. Josu Zabaleta

Baita eskultura guztiak ere: figuratiboak, abstraktuak, **zinetikoak**, egurrezkoak, altzairuzkoak, bustoak, harlanduzkoak, artista ezagun nahiz ezezagunenak, denak erauzi zituen garabi erraldoi batek. Karlos Linazasoro

Antzera gertatzen da parkinsondunen mugimendu konbultsibo eta hautsien kasuan (batzuek toteltasun **zinetikoa** deitzen diote). Xabier Olarra

Beroa energia **zinetikoarekin** identifikatzen den moduan, gogoa garunaren egoera fisiko-kimikoekin identifikatu behar da. Askoren artean

---

# zinetoki *iz* zinema aretoa.

Kaleak ilun, **zinetoki** bat obratan, abenida bat argiekin baina jenderik gabe, tabernak itxita egongo dira. Joseba Sarrionandia

## **zinezale** *iz* zinemazalea.

Iganderoko **zinezaleak** ez baitziren sekula beheko 21garren ilarako butaketan esertzen. Joseba Sarrionandia

Praktikan CGR-aren interesen aldera doa jokabide hori: Eguberri hauetan ideki balitz Angeluko zinema, Oscar cine enpresak pentsatu bezala, **zinezaleek** Angelura joateko usaiak hartuko zituzten. Herria

**Zinezale** itsua baitzen gure gizona. Joan Mari Irigoien

---

## **zinezko** *izlag* benetakoa.

Etxea **zinezko** ospitala bilakatu zen. Patxi Zubizarreta

Haien **zinezko** izenak ez zituen nehoiz jakin. Eneko Bidegain

Borgesen **zinezko** iraultza eta haren meriturik handiena hizkuntzan datza. Juan Garzia

Batzuetan **zinezko** datuak eskuratzea zaila edo ia ezinezkoa delako, batez ere datu bilketa egiteko moduak sinesgarritasun gutxi erakusten baldin badu. Pello Salaburu

Esaten zuen emakume guztiak bezalakoa zela: makurra, faltsua, **zinezko** maitasunerako ezgauza. Jose Morales

Haien **zinezko** buruhauste bakarrak ziren uzta txarrak eta bihiaren prezioaren emendatzea. Elena Touyarou

**Zinezko** mugimendu sozial bat sortu da proiektuaren inguruan. Berria - Ekonomia

Han, **zinezko** baino bihotzekoago den herri hartan, eman baigenion tankera gure guztizko lur arimadunari. Patziku Perurena

Piamontea gure aberri **zinezkoa** zen, geure burua ezagutzen genuenekoa. Juan Garzia

Zinez **zinezko** da zinea. Joxerra Garzia

Hau dena **zinezkoa** zait, erreala, argia, ukigarria. Koldo Izagirre

Hitz-jasa batek harrapatu ninduen, istorio, izkirimiri eta gai zentzuzko nahiz zentzugabeen gaineko hitz-uholde **zinezko** batek. Oskar Arana

Batek uste izango zukeen ezen hain damu erabateko eta **zinezko** baten aurrean egokitzen zena errukitu egingo zela erromes haren oinazeaz. Oskar Arana

Descartesekin eta bere eszeptizismo metodikoarekin hasitako eredu razionalista Humeren eszeptizismo **zinezkoan** amaitzen da. Askoren artean

Banaka harturik, batere uste ez genuela, gustagarriak gerta litezke, eta izan litezke pertsona zoragarriak, Joxeguai edo Maritotal bat baino askozaz **zinezkoagoak** beharbada. Iñaki Segurola

Harritzekoa da batzuetan, leiendak **zinezkoari** ematen dion indarra. Patziku Perurena

Mr Worthing, nire doluminik **zinezkoenak**. Antton Olano

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
> **zin zinezkoa** (3); **zinezko alternatiba** (4); **zinezko arrakasta** (3); **zinezko eztabaida** (3); **zinezko eztabaida bat** (3); **zinezko hizkuntza** (3); **zinezko jaun** (3); **zinezko poza** (3); **zinezkoa eta** (4); **zinezkoa zen** (3)

---

## **zinezkotasun** 1 *iz* zinezkoa denaren nolakotasuna. ik **benetakotasun**.

Zure **zinezkotasun** horrek sinesgarritasun handia ematen dizu, Fidel. Antton Olano

Itxura eta **zinezkotasuna**. Berria - Mundua

Hil ala biziko kontuetan estiloa izaten dun, eta ez **zinezkotasuna**, funtsezkoa. Antton Olano

**Zinezkotasuna** idazlearentzat ez dela gehigarri moral bat, bere lanaren funtsezko oinarri eta baldintza baizik. Xabier Mendiguren Elizegi

Ezingo nuke zin egin esamesa horien **zinezkotasunaren** gainean. Juan Garzia

Errusiak, Frantziak eta Txinak iritzi diote atal batzuetan zehaztasun handiagoak lortu behar direla, hala nola datorren ekainaren 30etik harat Irakek berreskuratuko duen burujabetzaren **zinezkotasunaz**.[Erregistroak] kontratuen eta norbanakoen arteko egintzen **zinezkotasunari** buruzko fede ematen du. Berria - Mundua

Öchlerrek eztarria garbitu zuen eta ustekabeko argibide asko eman zidan **zinezkotasun** handiko tonuan. Anjel Lertxundi

Kuraiaz eta **zinezkotasunez**, hizketa molde serioaz esan zion: [...]. Patxi Zubizarreta

Badakit **zinezkotasun** osoarekin erantzungo didazula. Ramon Etxezarreta

-Munduko gizonik onena zen -baieztatu zuen Egor Timofeievitxek, **zinezkotasun** osoz-. Jose Morales

Beti izan zaitut adiskide maite eta errespetatutzat, baina, **zinezkotasun** osoz ari natzaizula ulertuko duzu, esaten baldin badizut ez zaitudala zure arrazagatik maite izan, zure arrazaren kontra baizik. Ramon Etxezarreta

Elkarrekin gaiztoegiak ez izateko isileko hitzarmen bat bagenu bezala, nire sentimenduak **zinezkotasunik** gabe adierazten zituzten hitzak idatzi nituen:[...]. Ramon Saizarbitoria

**2** (hitz elkartuetan)

Egia gordina, subjektiboa baina toles eta estalki gabea -**zinezkotasun** botoa egin izan balu bezala- islatzen da orrialde guztietan. Josu Zabaleta

Ebazpen proiektu hori hobetu beharra bada, batez ere subiranotasuna eskualdatzeko prozesuaren zintzotasun, **zinezkotasun** eta sinesgarritasun kontuetan. Berria - Mundua

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
> **zinezkotasun osoz** (3)

---

## zinfonia ik **sinfonia**.

---

## zinfoniko ik **sinfoniko**.

---

## zinga ik **zink**.

---

## **zingales** *iz* Sri Lanakakoa.

Mendebaldeko komunitateak lortua zuen indonesiarrekin ondo moldatzea, hauek japoniarrengandik askatzea lortu ondoren, eta bere borondatez utzi zuen filipinarren, **zingales**, birmaniar, indiar eta pakistandarren gain zuen agintea. Iñaki Mendiguren

---

## zingar ik **xingar**.

## **zingaro** *izond/iz* ijitoen etniakoa dena, eskuarki Europa erdialdean bizi dena; etnia horri dagokiona.

Gazte itxurako estetika hippy batez janzten jarraitzen zuen: soineko **zingaroak**, fantasiazko bisuteria, espartinak. Anjel Lertxundi

Otordu horren usaiera datorrena behar du izan, inondik inola, alderrai jende horrek guziak: alemanak, hungaroak, **zingaroak**, ijitoak, agotak, ikazkileak, kaskarotak edo dena delako eskazaleak, alegia. Patziku Perurena

---

## **zingil** 1 *izond* mami gutxikoa.

Buruz-burukari da Waltari mutil **zingila** eta azkarra, apuñotik botea, eta besteak doi bat nolanahika baina beti indarrean, horrek zituen bentzutu Oçafrain, Etcheto eta besteak. Herria

**2** irud/hed

Neuk ere, neure buru **zingilari** animuzko hitzak jaulki dizkiot gau eta egun, ozenki, esaldi guztiak flakiak jota ahuldu diren arte. Baina haren zintzotasuna esnatu zen, egur zurizko mahai **zingil** hartan hain gaizki gordetako sekretu haren aurrean. Karlos Linazasoro

**3** (hitz elkartuetan lehen osagai gisa, elkarketak izenondo balioa duela)

Hantxetan dudan mutiko zango **zingil** hori harrapatzen ari nauk. Piarres Aintziart

---

## **zingila** *iz* zela edo basta irmoago lotzeko, zamarien sabela inguratzen duen hedea.

Txemiñe kristoka hasi zen eta astoa oraindik ere gehiago ikaratu eta bera ere jauzika hasi zen eta hiru lagunen artean inguratu eta berriz ere Erdoik potx, potx eginez lortu zuen hurbiltzea eta tripapean **zingila** pixka bat laxatu eta pixka bat baretu zuen, gero heldu zien uhalei eta leihoaren herskailuan estekatu zuen. Pablo Sastre

Mikel Strogoffek zaldiari aho-burdina jarri, zelako **zingila** tenkatu, estribuen uhalak aztertu, eta emeki-emeki hasi zitzaion tiraka bridatik. Karlos Zabala

---

## **zingilipurka** *adlag* zerraldo.

Gibela, azkenik, irlandarren tankerakoa dute azpeitiarrek antza, horregatik edan dezakete are poloniarra edo errusiarra **zingilipurka** utziko lituzkeen eran. Markos Zapiain

---

## **zingira** 1 *iz* ur hedadura, eskuarki hondo lohitsua eta landare ugari dituena. ik**istinga**.

Hartan barneratzen da, ostera, Irkutskeko bidea, hango istil, urmael, aintzira eta **zingiren** erditik igarotzen da. Karlos Zabala

Kostaldea ere han behean ageri zen, lanbro artean, gero aintzira moduko bat, eta harantzaxeago **zingira** batzuk. Joxe Austin Arrieta

Beste batzuk Nilo ibarreko **zingira** eta jungletan sartu ziren eta [...] hura drenatzeari ekin zioten, eta Zibilizazio Egipziakoa garatu zuten. Iñaki Mendiguren

Judu gazte batzuek lurra lantzen eta ereiten zuten, **zingirak** lehortzen zituzten, eukalipto zuhaitzak landatzen. Koro Navarro

Aurrean eta atzean etsaia dugu, saihets batean Jordango urak eta bestean **zingirak** eta sastrakak. Elizen arteko biblia

Dei egin diete bainulariei **zingira** sakona ez den lekuan ibiltzeko. Berria - Euskal Herria

Har ezazu makila, eta luza eskua Egiptoko ur guztietara -ibai, ubide, urtegi eta **zingira** guztietara- eta ura odol bihurtuko da. Jose Antonio Mujika

Urak geratuta dituzten **zingirak**, ordea, eta ibai edo zanga bidezko ur-irteerarik ez dutenak [...] egonaren egonez usteldu egiten dira, eta leku hauetan kirats eta lurrun kaltegarriak sortzen dira. Santiago Iruretagoiena

Barneko aldean bizi gintuan, **zingiretan**, junglaren erdian. Xabier Olarra

Maiz eta ugari hazten da papiroa Deltako **zingiretan**, Alexandriatik gertu-gertuan. Jon Muñoz

Alferrik egoten dituk Europako aldizkarietara harpidetuak eta irakurtzen ditiztek liburu europarrak **zingira** haien erdian. Xabier Olarra

**Zingirako**, ibai ertzeko eta padurako gaitzak suntsitzeko ekintza magikoa da San Joan sua. Berria - Kultura

Bakarren batzuek **zingiretako** ihiekin egiten dituzte etxola sabaidunak. Santiago Iruretagoiena

Usain lodia, **zingirako** igebelar eta ihien artetik sortutakoa. Karlos Zabala

**Zingiretako** lezkaz egindako saskiak. Santiago Iruretagoiena

Honen adibide bat Galiako **zingiretan** aurki daiteke, Altinum, Ravenna, Akileia eta, horiek bezala, **zingiretatik** hurbil geratzen diren beste herri batzuetan. Santiago Iruretagoiena

Soropilak **zingirako** landareei utzi zien lekua, eta neurri erraldoiak hartu zituzten hango hezetasuna eta udako beroa zirela bide. Karlos Zabala

Zuzen zihoan **zingirako** landareez beteriko baso trinkoan. Karlos Zabala

**2** irud/hed

Hik ere ondotxo dakik zein **zingiratan** ari garen mugitzen. Denboraren **zingiran** sakon luzatzen dira kontu hauek. Harkaitz Cano

Gizakien artean sortu eta garatzen ikusi izan ditudan sinpatiazko harremanak, azkenean beti ito egin izan dituk egolatriaren eta ponpoxokeriaren **zingiretan**. Xabier Olarra

Zapatak **zingira** eginda, galtzerdiak lokaztuta iritsi nintzen mugara. Harkaitz Cano

Metroko bagoia lepo joanagatik inork ez du inor ukitzen, geldirik eta zurrun mantentzen da jendea, norbere zapaten **zingiran** lurperatua. Harkaitz Cano

**3** (izenondo eta izenlagunekin)

Hor noa Elsbethekin **zingira** txiki batean bainatzera. Anjel Lertxundi

Soiluneak baziren, ugari, baita artaldeak ere han-hemenka, artzainik gabe; eta, zorionez, **zingira** handirik ez. Joxe Austin Arrieta

Jekaterinburg eta Irkutsk zuzenean batzen dituen bidetik kanpo, estepak, **zingira** huts leku askotan, ez dira ibiltzeko modukoak. Karlos Zabala

Barabako **zingira** zabal horiek iparretik hegora hedatzen dira hirurogeigarren paralelotik berrogeita hamabiraino. Karlos Zabala

**Zingira** beltzeko euliak dira. Pello Lizarralde

Zure bila etorri baitzen lurraren sakonetara, **zingira** lohitsuan, ilunpean eta herio-itzalean etzanik zeunden horren bila. Askoren artean

Ibai hura kanalizatuz saneatu dituzte bazterrak, **zingira** kiratsuak larre naro bilakaturik. Karlos Zabala

**4** (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

Leku sendorik aurkitzen ez bada, baizik eta betelanez pilatutako lurra aurkitzen bada oso sakoneraino, edo **zingira**-lurra baldin bada, orduan dena hondeatu eta garbitu egingo da. Leku hori, hain zuzen, izango da leku garaia eta hodei asko gabekoa [...] inguruan **zingira**-lekurik ez duena. Santiago Iruretagoiena

Egipton, **zingira**-urak aurkitzen dira, hain gaziak non gainean gatza izaten baitute kristalizatua. Santiago Iruretagoiena

Itsasoa, **zingira**-usaina, burdinazko bapore baten argiak portua atzean utziz. Lopez de Arana

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
> **barabako zingira** (3)

---

## **zingiradi** *iz* zingira.

Gau eta egun ziharduten suei egurra bota eta bota, eta haien ke lainoa sakabanatu egiten zen astiro **zingiradi** itzelaren gainetik. Karlos Zabala

---

# **zingiratsu** 1 *izond* zingira asko dagoena.

Hiru egun igaro zitzaizkigun aurreraka eta atzeraka, lur **zingiratsua** baitzen, eta lainotsua oso. Landare horiek lur **zingiratsuetan** ere jaiotzen dira. Felipe Juaristi

Tsarraren mandataria aurrera oldartu zen berriro ere eskualde **zingiratsu** hartan. Karlos Zabala

Jonatan eta Simon Jordango bazter **zingiratsuetara** joan ziren. Elizen arteko biblia

Florida hegoaldeko irla **zingiratsuetatik** Tampako Badiaraino alarma egoera ezarri dute autoritateek. Berria - Mundua

Uztailaren 30ean, goizeko bederatzietan, Mikel Strogoff Turumoffeko geldilekura heldu eta Barabako bazter **zingiratsuetan** oldartu zen. Karlos Zabala

Teatroa mendi baten maldan baldin badago, zimenduak egitea errazagoa izango da; baina halabeharrez leku ordekan edo **zingiratsuan** eraiki beharra gertatzen bada, asentuak eta lurpeko egiturak sendo egin beharko dira. Santiago Iruretagoiena

Ahal den agudoen joanik ere, zaldiak eta zaldizkoak ezin ihes egin eskualde **zingiratsu** horren bazter guztiak betetzen dituzten intsektu dipteroen ziztadei. Karlos Zabala

**2** irud/hed

1983an taldea sortu zutenetik, Bourbonaren basapiztiek rock-blues **zingiratsu**, sexy eta basatiaren ordezkari nagusiak izan dira. Berria - Kultura

Hala, hipotesien eremu **zingiratsuan** ibiltzea baino askoz hobe da isilik egotea. Berria - Kirola

Iragarpenen eta magiaren lurralde **zingiratsuetara** arrastan joateko joera. J.M. Olaizola "Txiliku"

Laugarren asterako, oinetakoak lurreko gresean itsasten ziren, bainugelara sartzeko abentura oraindik **zingiratsuagoa** bilakatuz. Iban Zaldua

---

# **zingo** *iz* sakonera.

'Zeu beteko **zingoa** baino ez dago hor!' esan zidan irribarrez. 'Ez zinateke hor itoko!'. Joseba Sarrionandia

---

# **zingor** *iz*

Estatuaren atzaparrek **zingorrak** segitzen dute zetazko ganteen azpian. Joxe Azurmendi

---

# **ziniko** 1 *izond/iz* gezurrak ausarkeriaz esaten dituena, edo ohiko moralaren aurka lotsagabeki aritzen dena.

Halakoak ziren beti Oesteko heroiak, ausartak baina krudelak, seguruak baina trikimailuzaleak, arduratuak baina isilak, hausnarrean beti baina laburrak, **zinikoak** esango nuke orain. Joseba Sarrionandia

Bera baikorra zen, ni **zinikoa**. Oskar Arana

Amerikar politikari jentil **zinikoen** kalkuluak ez ziren, behatzaile halaber **zinikoek** sinesten omen zuten bezala, Estatu Batuetako gobernuak Bigarren Mundu Gerra bukatu ondorengo urte larrietan Israeli eman zion laguntza handiaren esplikazio osoa. Iñaki Mendiguren

Faxismoaren etsai aldarrikatzen genuen geure burua, baina egiaz faxismoak bere lana egina zuen gugan, ia italiar guztiengan bezala, nortasuna bahitu eta azaleko, pasibo eta **ziniko** bihurturik guztiok. Juan Garzia

Ez dakit broman ala benetan ari den baina, gezurretan zein egiatan, **ziniko** hutsa iruditu zait. Joseba Sarrionandia

**Ziniko** ergel bat besterik ez haiz hi, horra, esana diat mila aldiz! Josu Zabaleta

Tellagorri gizon jakintsua zen [...] inork ez zituen Ibaia errekaren geografia, errekaren ertzetako eta uretako animaliak eta landareak **ziniko** zahar hark bezain ondo ezagutzen. Koro Navarro

Sabethi **zinikoa** iruditu nintzaion. Joxe Austin Arrieta

-Horrela izango da! -bota zuen On Camillok, noizean behin **zinikoarena** egitea atsegin baitzuen. Koldo Biguri

Gosea bukatzeko erabilgarri izan zitezkeen arrainak baleek jaten dituztela esatea **zinikoa** eta axolagabea izatea da. Berria - Gaiak

Orduan Don Enrique Herrerak, beti bezain **ziniko**, estanpa bat eskaini zidan, Ama Birjina Doloretakoarena... Koldo Izagirre

Etzak lanik hartu **zinikoa** izaten. Antton Olano

Izan ere, Londres nahiko hiri **zinikoa** da. Harkaitz Cano

Gorroto hartu zien gurasoen eta auzoen bizimodu konbentzionalari eta AEBetako gobernu **ziniko** eta gerrazaleari. Xabier Olarra

**2** pertsona zinikoari dagokiona.

Barre **ziniko** bat egin du zerbitzuburuak, honek ez du sinesten. Koldo Izagirre

Nire hitzak irriño **ziniko** batez entzuten egon ondoren, labana bat atera zuen gerritik zintzilik zeraman larruzko poltsatxo batetik. Anjel Lertxundi

Auzitegian bilduta zeuden ikusleetako askok, purrustadak eta algara **zinikoak** bota zituzten eta ordura arte erabateko seriotasunean eramandako epaiketa oilategi harro bihurtu zuten. Hasier Etxeberria

Jarrera **ziniko** samar honek badu, gainera, bere sorrera-une ezaguna. Josu Zabaleta

Esaldi **ziniko** bat zen, baina baita gure arteko txantxa ohikoa ere. Xabier Mendiguren Elizegi

Hizketa-doinu **zinikoz** jardun zuen, lagunkiro oso, eta onartezina iruditu zitzaidan hura. Ander Irizar

Batzuetan bai, bestetan ez zaizkit gustatzen bere ironiak, bere hitz joko **zinikoak**. Joseba Sarrionandia

Iruditzen zitzaidan, modu benetan **zinikoan** esanda oraingoan, prezio txikia ordaindu genuela. Bernardo Atxaga

**3** (adizlagun gisa)

Bai, ezinago **ziniko** jokatzera. Iñigo Aranbarri

**4** *iz/izond* Antistene-k antzinako Grezian sorturiko filosofia eskolako kidea.

Azken pentsalari greko eta latindarren mundu ustelduan eta gainbeherakoan zabaldu zen, eta bere une gorena **ziniko** eta estoikoen filosofietan topatzen dugu (Herodoto, Eskilo, Aristofanes, Estrabon, Zizeron, Seneka, Horazio, Virgilio eta Plutarkoren lanetan primitibismoaren aztarnak aurkitzen dira). Askoren artean

Diogenes Zakurra -filosofo **zinikoa**, alegia- preso harrapatu zuten behin piratek, Eskarpelo buru zutela. Joxerra Garzia

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
> **ziniko hutsa** (3)

---

# **zinikokeria** *iz* zinikoari dagokion egitea.

Hurtadori ez zitzaizkion gustatzen **zinikokeria** horiek. Josu Zabaleta

---

# **zinikoki** *adlag* era zinikoan.

Ekialdeko kristau ortodoxoen ikuspegitik frankoak *parvenus* ziren, zoriaren kapritxo batek emandako indar zakarra **zinikoki** ustiatzen ari zirenak. Iñaki Mendiguren

Beste bat egiten da, esaten zuen **zinikoki**. Josu Zabaleta

Batzuek, **zinikoki**, direnak eta ez direnak esan dituzte nazionalisten kontra, eta orain eurak dira defendatzaile sutsuenak, PPtik hasi eta IUra bitartean, nire alderdikide Patxi Lopez barne. Berria - Euskal Herria

Hori, LABekoen ustez, **«zinikoki** jokatzea» da, eta berba gozoekin aitortzea «euskal herritarren hizkuntz eskubideak urratzen jarraituko duela» Jaurlaritzak. Berria - Euskal Herria

---

# zinikotasun *iz* zinikoa denaren nolakotasuna.

Agian bazen beste zerbait, beren burua iraultzaile jotzen zuten guztiei historialariek konplazentzia eta **zinikotasun** hantustez leporatzen zieten injenuidade haren haraindira zihoan zerbait. Harkaitz Cano

---

# zinismo 1 *iz* jarrera zinikoa. ik **zinikokeria; zinikotasun.**

**Zinismoa** baita guk geure buruari eskatzeko prest ez gaudena besteri eskatzea. Iñaki Heras

Ironia bihurtu da giza balio nagusi, eta **zinismoa** intelijentziaren ezinbesteko jantzi. Berria - Kultura

Ironiak duen arriskua **zinismora** lerratzea da. Berria - Kultura

Estatuek indarkeria, **zinismoa** eta hedabideen erabilera sentimentala dute beren politika uniformatzailearen oinarri. Markos Zapiain

Inongo **zinismorik** gabe esan dezaket estiloa dutela homeless batzuek. Harkaitz Cano

Mertxe Gomezek Calderaren **«zinismoa**» salatu du: «Ez da zilegi erru guztia PPri botatzea, iazko legea biek hitzartu baitzuten». Berria - Euskal Herria

Batzuen ustez, globalizazioaren atzean **zinismoa** besterik ez dago: oso ona izan da Estatu Batuentzat, nahiko ona Europarentzat, baina izugarria Hirugarren Munduarentzat. Pello Salaburu

Non geratu ziren, bada, neure harrokeria, neure **zinismoa** eta neure autosufizientzia, gai hari zegokionez, Sara ezagutu nuèn egun hartan, ordu hartan... Joan Mari Irigoien

Sokratesek (Platonek) **zinismoa** ikusten du jarrera horietan, legeak ahulentzat eta gehiengoarentzat eginak baitira; ahulek asmatu dute legea, zanpatuak ez izateko. Askoren artean

Bere aparteko tolesgabetasun hartan, **zinismoz** hitz egiten zuen. Josu Zabaleta

Umorea **zinismoaren** mugaraino eramanda. Iñigo Aranbarri

**2** (izenondo eta izenlagunekin)

Desengainu handia izan zuen Jonek fedearekin eta eskolapioekin; geroztik halako **zinismo** mikatz bat geratu zitzaion gaiari zegokion guztian. Xabier Mendiguren Elizegi

Hitz horien **zinismo** ikaragarriak egoera deserosoa sortu zuen. Julen Gabiria

Zure **zinismo** pozoitsu horrek gaixotu egiten nau. Herri xehearentzat, Vargasena **zinismo** hutsa zen, **zinismo** eskandalagarria. Patxi Iturritegi

*Gasteiz Izan*-ek gogor salatu zuen Udalaren jarrera, eta sozialistei egotzi zien **«zinismo** politikoz» aritzea. Berria - Euskal Herria

Bere ohiko **zinismoaz** hasten zen hizketan, ama eta ahizpa eskandalizatuz. Josu Zabaleta

**3** (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

Andresek muzinez biratzen zuen burua, aitaren **zinismo**-erakuskeria haiek barregarriak eta lekuz kanpokoak iruditzen zitzaizkiola aditzera emanez. Josu Zabaleta

Eztabaida semantikoekin geratzea **zinismo** ariketa bat iruditzen zait. Berria - Harian

Gauzarik gordinenetara iristen zenean, **zinismo**-espresio bat agertzen zitzaion dizdizka begietan. Josu Zabaleta

Ederrak ziren zure gutunak, erromantizismoaren gozoa **zinismo**-tantaren batekin ozpintzen zutenak, jatetxe txinatarretako txerrikiaren antzera. Xabier Mendiguren Elizegi

Nekez aurki daiteke ohar horrek adierazten duena baina **zinismo** maila handiagoko dokumenturik: atxiloketek ez dute ezer ere konpontzen, baina jendea hiltzeak bai ordea? Pello Salaburu

**Zinismo** krisi hauek kontrolatu beharra dago. Patxi Iturritegi

---

# zinitz ik **zin 17.**

---

# zink *(orobat **zinga** g.er.)* **1** *iz* gai bakuna, metal zuri urdinkara, gogorra ohiko tenperaturetan baina hauskorra tenperatura apal eta goretan, naturan blenda eta beste zenbait mea osatzen aurkitzen dena *(Zn;* at. z. 30).

Burdina eta Bessemer altzairua Bilboko Labe Garaietatik, salako brontzeak Zaragozatik, **zinka** Asturiasetik, beste marmol batzuk Italiatik. Hasier Etxeberria

Beruna, **zinka** eta aluminioa erabili ditu Navarrok lan hau osatzeko. Berria - Kultura

Gizon aberats batek, Reb Falik-ek, eman zuen teilaturako **zinka**. Koro Navarro

Kobrearen eta **zinkaren** prezioek marka guztiak hautsi dituzte Londresko merkatuan. Berria - Harian

Azkenik, hala disolbaturiko azidoan **zinka** sartzen da. Juan Garzia

**Zinkez** estalitako kaxa zurezkoen artean. Karlos Zabala

**Zinkezko** xafla zabalez egindako teilatuen maldetan zehar. Karlos Zabala

Ikusi nuen nekazari etxe batean norbaitek jakinminez sabaileihoa ireki zuela eta **zinkezko** teilatura atera eta gero besoak goratzen zituela errenditu balitz bezala. Fernando Rey

Atelier mekanikokoei **zinkezko** pegar berezia, marmita mokodun antzekoa eginarazi zien. Koldo Izagirre

Parisko bistrot tristeak, beren **zinkezko** mostradoreekin. Berria - Kultura

**2** zinkezko estalkia.

Salmahaiaren **zinkak** distira egiten zuen, eta likore flaskoek su biziagoak pizten zituzten ispiluan. Karlos Zabala

Euriak hots sor bat egiten du begiratokiko sabaiaren **zinkaren** aurka joaz. Jon Alonso

Kupula erregular bat, biribila, goitik beheraino **zinkezko** xaflaz estalia. Jose Morales

Elkarri joka ari dituk hor barruan -esaten zuen brusadunak, basoa **zinkaren** gainean jarri eta ahoa esku gainaz garbituta. Karlos Zabala

**3** (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

**Zink** xaflek barra hura inguratzen zuten metal geruza distiratsu batez, eta ertz kakotu altu bat ezartzen zuten marmolezko oinarri zuri-gorriaren gainean. Karlos Zabala

Lehen egunean, **zink** sulfatoa prestatzea egokitu zitzaidan halabeharrez. Juan Garzia

Gatz gema, burdin minerala, kok ikatza, **zink** pirita eta halakoak eskatzen zizkigun. Koldo Izagirre

**Zink** oxidozko nanopartikulak erabiltzen dira erradiazio ultramorea xurgatzeko. Berria - Gaiak

**4** zinkaren kolorea.

**Zinkezko** zeruaren argiak isla biziak erauzten zituen edontzitetatik. Lopez de Arana

**Zinkezko** uraren beste aldean, horma garaiek eta hiriaren erdialdeko eraikinek indarge dir-dir egiten zuten arrosa koloreko goiz hartan eta txokolatezko ganduan zehar bozina-hotsak entzuten ziren. Lopez de Arana

**hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
zinkezko xafla (3)

---

# zinka *iz*

Gaztelaitik jelki da **zinka** bat ozenik. Herria

Sailkapenean hamaikagarren tokian da Denek Bat, **zinka** bat egin beharko lehen hamarren artera igaiteko. Herria

Mendian **zinka** berriz kantatüz. Herria

---

# zinki *(orobat **zintki** g.er.) adlag* zinez, benetan; irmoki.

Ali Sistanik jakinarazi zuen Al Malikiri **zinki** galdegin diola ahalegin guztiak egin ditzan Irakek pairatzen duen indarkeria egoera geldiarazteko. Berria - Harian

Okupazio indarrei **zinki** eskatzen diegu euren erasoak gelditzeko, sartuta dauden hirialdeetatik alde egiteko eta atxilotuta dauzkaten irakiarrek askatzeko. Berria - Mundua

Iad Alaui Irakeko lehen ministroak Kairoko Gobernuari **zinki** eskatu zion atzo «terroristen exijentziei amore ez emateko». Berria - Mundua

Munstroa, **zinki**. Berria - Kultura

Nork estima zezakeen hori guztia **zinkiago** preso bizi ginen donostiarrok baino? Txillardegi

**hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
zinki eskatu (9); zinki eskatu zien (4)

---

# zinkulin-minkulin *adlag* kexaka, intzirika.

Kalean sehi atso bat ikusi duzulako, soil-soilik, ezin zaitez negar-zotinka hasi haren kariaz, **zinkulin-minkulin**. Mirentxu Larrañaga

---

zinkurika ik **zinkurinka**.

---

# zinkurin *(orobat **zinkurina**)* **1** *iz* intziria.

Korsikan, bide bera hartu dute bainan dena erasia eta **zinkurina**. Herria

Arestian oihu alaiak zirenak intziri eta **zinkurin** bihurtu ziren, bat-batean. Joan Mari Irigoien

Minbiziak zurgatu senarra eta erokeriak desorekatu semea biak artatzen zituen, olde bakarraz, sekula auhen edo **zinkurinik** entzunarazi gabe. Itxaro Borda

Eskolak: Berriz hasi dira irailaren lehenean eta, jadanik, entzuten dira **zinkurinak**. Herria

Ni kanpoan zutik eta haren **zinkurinak** aditzen, besterik ez; alferrik erregutu nion behin eta berriro, arren, atondora irten eta esan ziezadala zer gertatzen zitzaion; negar-zotinak erantzun bakar, noiz leunago, noiz atzera berriz ozenago, atertu gabe. Joxe Austin Arrieta

Biak berdin hobendun sentitzen ziren, **zinkurinik** batere gabe onesten zutelako menpekotasun osoan irautea. Elena Touyarou

Ez dago ekintzarik, ez garapenik, kantu durduzari luze bat baizik ez, Teresak hutsari jaulkia, aldika oihalen atzealdetik Byronen **zinkurin** eta hasperenek etena. Oskar Arana

**2** (izenondoekin)

Amorrua, axolagabea, emozio eza, haur txikien moduko **zinkurin** mutuak, samindura. Joxan Elosegi

Gero, **zinkurin** sakon bat itoarazi ondoan, argia itzali eta ohean sartu zen. Lopez de Arana

-Justu kontrakoa esaten ari nintzen ni -egin zuen protesta Arruek, doi kontrolaturiko **zinkurin** erretxindu batez. Anjel Lertxundi

Zer tarteka-marteka iristen zitzaizkigun **zinkurin** herdoildu haiek? Karlos Linazasoro

**3** (hitz elkartuetan)

Bainan zer dute bada hoinbertze jendek mendiaren tirria hori ukaiteko, jakinez askori mendi ibilaldia **zinkurin** ibilaldi zaiela bilakatzen? Herria

Eta hots bat atera zen haren ahotik, hots zehazgabe bat, **zinkurin** murmur bat. Josu Zabaleta

· Patioan bildutako jendeari hitz egin zionean une hartan han berarekin egotea eskertzeko, bidea irekiz bere ahotsari emakumeen lantu-**zinkurinen** artean, ez zituen ez arnasa eta ez bere hitzak eten. Juan Garzia

Obusen txistu-hotsa eta aiene-**zinkurina**. Mirentxu Larrañaga

**4** (adizlagun gisa)

Lanera buhaka jiten eta egunean zehar dena arraileria eta **zinkurina** ari zen. Itxaro Borda

**5** ***zinkurin egin***

**Zinkurin egin** zuen Willemek, gustuko gaia eten izanaren arranguraz. Anjel Lertxundi

Ahidurak laxatzen ninduen, baina gora ekin nion, noizik behin baizik gelditzeke, zorionaren zorionez baldarki **zinkurin egiteko**. Juan Garzia

"Inoiz ahantziko ahal da nitaz!", eta **zinkurin eginez** indartu zuen etsipena. Anjel Lertxundi

**Zinkurin egitera** etorri al haiz, arrebaren hilobira jauzi eginez niri erronka jotzera? Juan Garzia

**6** (osagaikein)

Angeloren ondotik pasatzerakoan, **zinkurinen** bat **egin** zuela iruditu zitzaidan, baina ez nion begiratu ere egin. Anjel Lertxundi

Etsipenezko **zinkurin** bat **egin** zuen. Anjel Lertxundi

Isil-gordean negar egin dut nire begi bilduen atzealdetik, **zinkurin** ozenik ez **egiten** ahaleginduz. Mirentxu Larrañaga

Geratzen diren hiru txakurrak [...] kaiolaren atzeko aldera baztertzen dira, eta han itzulika hasten, **zinkurin** txikiak **eginez**. Oskar Arana

---

# zinkurin-minkurin *(corpusean **zinkulin-minkulin** soilik) adlag* kexaka, zikurinka.

Kalean sehi atso bat ikusi duzulako, soil-soilik, ezin zaitez negar-zotinka hasi haren kariaz, **zinkulin-minkulin**. Mirentxu Larrañaga

---

zinkurinaka ik **zinkurinka**.

---

**zinkurinati** *izond* zinkurinez betea, arranguratsua.

-Elaine, etorri egin behar duzu -zioen ahots **zinkurinatiz**-. Lopez de Arana

---

**zinkurinatu**, zinkurina(tu), zinkurinatzen da *ad* zinkurin egin.

-Buñueloak, bost zentabo -**zinkurinatzen** hasi zen Harlandi zeharka begira. Lopez de Arana

Emakume zaharra **zinkurinatzen** ari zen begiak malkotan: "Dove andiamo, Madonna mia, Madonna mia!". Lopez de Arana

---

**zinkurinka** *(orobat* ***zinkurika*** *g.er. eta* ***zinkurinaka****)* **1** *adlag* intzirika.

Zergatik ni?, **zinkurinka** Sebastianek. Anjel Lertxundi

Molly **zinkurinka** ari zen ahopetik noizik eta behin, baina gutariko inork ez zuen hitzik egin. Mirentxu Larrañaga

**Zinkurinka** hasi zitzaidan. Aingeru Epaltza

Big Joe **zinkurinka** hasi zen eta amari eskutik eutsi zion. Mirentxu Larrañaga

Neskak zentzuz jokatu eta lan-ordua amaitu arte itxaron zuen, miragarriro, baina edonor sartu izan balitz **zinkurinka** ikusi ahal izango zukeen hantxe. Mirentxu Larrañaga

Eskaileretan behera noala, ama sentitzen dut etxeko atean **zinkurinka**. Anjel Lertxundi

Arratsalde osoan, minbera eta **zinkurinka** ibilia nintzen, lagun apurrak eta lankideak aspertzen. Itxaro Borda

Big Lanniek, etxeratu zenean, lurrean etzanda aurkitu zuen Raymond, gelako izkina batean zokoratuta, auhenka eta **zinkurinka**. Mirentxu Larrañaga

Luze eta zabal eseririk zegoen besaulki batean, **zinkurinka** hain bazkari oparoaren ostean, ahotik hots ulergaitzak jaulkitzen zitzaizkiola, aitarenka, eta txitean-pitean eskuaz ahoa estaltzen. Jose Morales

Aita beti gaixorik, astrakan-larruzko jaka luzea soinean eta puntuzko txapinak oin biluzietan, hara-hona gelan barrena, denbora guztian **zinkurinka** eta bazter batean zegoen listuontzi batera tuka. Jose Morales

Txakur ziztrin batzuk, leher egiteko zorian diren bi esparrutan gainez egiteraino pilatuak, zaunka, uluka, **zinkurinka**, aztoramenduz jauzika. Oskar Arana

**2** ***negar zinkurinka***

Oldarkorra da, baina orobat delikatua, zenbait kirol-aurkari desatseginen modura, galtzen dutenean **negar-zinkurinka** hasten baitira. Juan Garzia

**Negar zinkurinka** ari zen eta koherentziarik gabeko hitz batzuk ere esan zizkidan. Joxan Elosegi

**3** ***zinkurinka egin***

Kafetegiko espezialista haiek, aulki batean makilatxo batekin eseri eta **zinkurinka** egiten edo aurpegia triste-triste jartzen hasten ziren gizon lodikote haiek, nazkagarriak iruditzen zitzaizkion. Josu Zabaleta

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
> **zinkurinka ari zen** (3)

---

zinoda ik **sinodo**.

---

zinodo ik **sinodo**.

---

**zinominoka** *iz*

Pierraren **zinominokak** begimentzean, haurrak oro ezkaratzeko bortara hurbildu ziren pika beleak bailiran, guztiek Pierraren galdea biderkatzen zutela. Itxaro Borda

---

**zinominokatu**, zinominoka(tu), zinominokatzen du *ad*

Halaber, Sebasen besoen keinuak **zinominokatuz**, besteak animatu ziren eta zehatzezinezko jaurtigailu anitzen helburu bilakatzen zela konturatzearekin sindikatu hartako ordezkariak ihes egin zuen. Itxaro Borda

Thierry irriz ari zen jendea **zinominokatzen** zuela. Itxaro Borda

Zintzur karranka ematen zuen musika aditzen zen, mutiko isiotuak higiarazten zuen panderetaren xirri-xarrak suge-ozenaren ezpalen karkara **zinominokatzen** zuela. Itxaro Borda

Gaiaren haria berriz biribilkatuz, poetak **zinominokatuz** erran didazu, Sokrates, bake arrazoi nagusia harrapatuko nuela neure barne-tragedia etorkizun kanta iziotuz apainduko zaidanean. Itxaro Borda

---

**zinozefalo** *iz*

Beste kronikari batek dio Tamesi ibaiko lainoa [...] gorriminez izpi-marraztu zela, eta hots egiteko ezkilaren aho-muturretik **zinozefaloen** ahotsa itzuri zela. Juan Garzia

---

**zinpean** *adlag* zinaren azpian.

---

**zinpeko** **1** *iz* bere lan eta egitekoan aritzeko zin egin duen pertsona.

Solidarioek **zinpekoa** "bortizki jo" zutela zabaldu zuen. Edurne Elizondo

**Zinpekoen** arduradun zen Protecsa enpresaren aurkako salaketa jartzea erabaki zuten. Edurne Elizondo

EHUn dagoen giroa horren tenkatua ez egotea lortu beharko luke, hainbeste **zinpeko** eta polizia gabe. Berria - Euskal Herria

Guardia Zibilak, Foruzaingoak eta **zinpekoek** zaindu dute ingurua eraikitzen hasi zirenetik, inor ez hurbiltzeko. Berria - Euskal Herria

**2** (izenlagun gisa)

-Kontularia naiz, eta **zinpeko** kontularia izatea espero dut. Lopez de Arana

«Susmoak baino gehiago» dira, hala ere, **zinpeko** guardien azalpen idatzietan oinarritzen baita txostena. Berria - Kirola

Obrak zaintzen zegoen **zinpeko** guarda lotu zutelako. Berria - Euskal Herria

**Zinpeko** guardiak gogor ari ziren bezeroetako baten kontra, eta, une batean, auto batek bezero hori jo zuen, eta bertan hil zen. Iñigo Aranbarri

**Zinpeko** zaintzaileen ahalegin kalapitatsuak alferrikakoak izan ziren. Karlos Linazasoro

Arineketan hastekotan zen **zinpeko** zaindari horietako bat baino ez zela ohartu zenean. Unai Iturriaga

**Zinpeko** zaindaririk ez harmailetan, beharrik ere ez. Berria - Kirola

**Zinpeko** adierazpen bat bidaliko ziola eskaini zion. Preso egondakoaren beraren edo presoaldi kiden **zinpeko** testigantza frogatzat hartua izatea. Koro Navarro

Ez al da zure erantzukizun gorena, zure ardura nagusia, zure **zinpeko** eginkizuna, horien bizia errespetatzea ez ezik, euren bizia salbatzen saiatzea indar, kalipu, kemen eta adimen guztiarekin? Jon Alonso

**3** (epaiketetan)

Uste dut pentsaera horretatik sortu dela oraindik ere egun Ingalaterran duten usadioa, alegia **zinpeko** guztiek iritzi berekoak izan behar dutela heriotza-zigorra emateko. Iñaki Iñurrieta

Indarkeria eta armen erabilera larrigarri gisa hartu dituzte **zinpekoek**. Berria - Euskal Herria

Beste inoiz ere eten behar izan zuten auzi-saioa, **zinpekoetako** batek komunera joateko baimena eskatu zuenean, esate baterako. Berria - Harian

Joan zen astean, Marc Dutroux pederastia sareko buru izan zela ebatzi zuen **zinpekoen** epaimahaiak. Berria - Gaiak

Atxilotu, auzipetu, eta hortik aurrerakoa beraiek eman nahi dioten egurraren arabera etorriko da, eta hori epaile-**zinpekoen** baitan egongo da. Xabier Olarra

Hiru akusatuen defentsak abizen euskaldunekorik ez zuen nahi **zinpeko** epaimahaikideen artean, eta halaxe eskatu zion auzitegiari. Berria - Harian

**4** ***zinpeko epaimahai*** zinpekoek osaturiko epaimahaia.

Akusatuen deklarazioak entzun eta gero, Armadaren kuartel batera eraman zituzten **zinpeko** epaimahaia osatzen duten hamabi lagunak. Berria - Gaiak

Zigor Auzitegiak ez zuen ebazpenik plazaratu nahi izan 2001eko ekainaren 29an, lege-haustea izatekotan izaera politikoa zuela argudiatuta, eta horiek soilik **zinpeko** epaimahai batek juzka zitzakeela. Berria - Mundua

**Zinpeko** epaimahai batek errugabe jo zituen Diallo tirokatu zuten lau polizia zuriak. Harkaitz Cano

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
>
> **zinpeko epaimahai** (5); **zinpeko epaimahai batek** (3); **zinpeko epaimahaia** (9); **zinpeko epaimahaia eratzeko** (4); **zinpeko epaimahaiak** (4); **zinpeko epaimahaiarekin** (3); **zinpeko epaimahaiaren** (4); **zinpeko guardia** (6); **zinpeko zaintzaile** (5)
>
> **zinpekoen epaimahaiak** (7)

---

# zinpetu, zinpe(tu), zinpetzen du *ad* zinpean esan.

Hori baino absurduagoa da guztia: zeremonian parte hartuko duzula eta «zure burua jarrera egokian» erakusten duen foto bat bidaliko diezula **zinpetu** behar duzu. Berria - Kultura

---

# zinpi-zanpa *adlag* urrats irmoak eginez.

Charlie eta biok, eta besteak ere, **zinpi-zanpa** ibili ohi ginen pailazoen antzera. Haurrak soldaduen alboan zihoazen, **zinpi-zanpa**; batzuek paperezko kapela eta guzti, besteak zurezko makilak sorbaldetan. Mirentxu Larrañaga

Lokatzetan **zinpi-zanpa** urrutiratu da, zuhaitz artean galdu den arte. Alberto Barandiaren

Berriro ere etxekoak gogora ekarririk, goizeroko osteratxoa datorkit burura: Charlierekin eskolara bidean, udazkeneko orbel-pilatan kriski-kraska, eta istil-putzuetako izotzetan **zinpi-zanpa**. Mirentxu Larrañaga

---

# zinpi-zanpaka *adlag* ukabilka.

**Zinpi-zanpaka** hasi dira gero, ordea, eta oihuka, eta lurrera erortzen, eta orduantxe hasi naiz sinesten izaki hilkorrak direla. Mirentxu Larrañaga

---

# zinpurtu, zinpur(tu), zinpurtzen **1** da *ad* aritu.

Frantxua deika **zinpurtu** eta azkenean Maiana trinkili-trankalaka egon-gelaratu zen, biloak barreiatuak, begiak blai eta jantzi urdinak purtzilikatuak. Mila eskerka **zinpurtzen** nintzaion. Itxaro Borda

Hutxek, Loliren bidez, Bozekiko kontaktua lortu zuenean, honengana hurbiltzeko zereginetan **zinpurtu** ziren biak. Itxaro Borda

Janina garbiketan **zinpurtzen** zen. Itxaro Borda

Elisabeta zaharkituak uda honetan ere beharko zuela Marcel iloba gaztearekin, Bonneval edo Courville alderako bidaietan **zinpurtu**. Berria - Kultura

*Bar des Amis*ko lana abandonatu zuen eta, euskaldunen elkartasun sareari esker, herriko gizon politiko baten bizkartzain zereginetan **zinpurtu** zen. Itxaro Borda

Bi kusiak banba eta binbika **zinpurtzen** ziren, hegietan metatuek puntuak zenbatzen zituztela. Itxaro Borda

Badakizu gure etsai bikoitzaren otso gosetia barranda dabilela ez dira ardiak elkarren artean xoxokeria batengatik alfer-alferrik **zinpurtzeko** jaio. Berria - Kultura

**2** (era burutua izenondo gisa)

Bakea etorri zenean, mihise **zinpurtuen** eremuan izpiritua huts eta amodioa hazkurri nihaur uzten ninduela, Mai ohetik altxatu zen. Itxaro Borda

---

# zinta **1** *iz* oihal, plastiko, paper edo kideko gai batez eginiko zerrenda luze eta mehea. ik **xingola**.

Berehala konturatu zen zuhaitzetako adasketatik zintzilik zeuden **zinta** haietaz. Joxemari Urteaga

Ama indarrez besarkatu zuen, kortsearen **zintei** bere besoen kontra antzemanez. Lopez de Arana

Bularretakoaren **zinta** moreak agerian utziz. Urtzi Urrutikoeetxea

Koroa honek **zinta** bat zaukak, eta **zintak** berba batzuk zauzkak. Koldo Izagirre

1919ko Marcos gaztea ikusi dut nire aurrean, hegaldun kapeluaren **zintan** dolar batzuek ezkutatu eta sonbrailuaren hegala okertu ondoren desagertzen. Harkaitz Cano

Idazmakinaren **zinta** bukatzear zegoela eta gris ahul zeuden hizkiak tinta beltzez gainetik pasatzen. Harkaitz Cano

Hasieran euri pixka bat egin bazuen ere, **zinta** moztu, atertu, eta 120.000 lagun bildu ziren herenegun Lizarran antolatzaileen esanetan. Berria - Euskal Herria

**2** (izenondoekin)

Mukizapia atera eta, tarrataran, **zinta** meheak egin zituen, gorpua zetzan inguruko adasketan lotu eta tokia seinalatzeko. Joxemari Urteaga

Autoen arteko tartea handitu egin zen, **zinta** luze batean isuri ziren zementuzko bide misteriotsuan zehar, leiho beltzekiko hormigoi-lantegien artetik. Lopez de Arana

Ile mataza biltzeko **zinta** elastiko gorri iluna. Paddy Rekalde

Telegrafoaren **zinta** zurian mezua bukatzen denean, maniobraria esnatu egiten da. Fernando Rey

Bulegoetan **zinta** marroi bat ipini zidaten begietan, eta betaurrekoak, eta liburu batekin buruan kolpeka hasi zitzaizkidan. Jokin Urain

**Zinta** beltza kokatu zuen buruan, ilea begi aurrera ez erortzeko, eta irakurtzen hasi zen. Bernardo Atxaga

Gauza bitxi asko dago bertan: errazionamendu-kartilak, Errepublika garaiko diruak [...] eta baita sepia koloreko hainbat argazki ere, **zinta** beltz batez lotuak. Iban Zaldua

Bere **zinta** gorria lepotik zintzilik zeukan mutil bat hurbildu zitzaigun. Bernardo Atxaga

**Zinta** urdin argiz apaindutako lastozko sonbreirua. Bernardo Atxaga

Larruazaletik **zinta** itsaskor bat kentzerakoan kanpoko zelula horiek erauzten badira. Irene Aldasoro

DIN-A3 tamainako fotokopia ez bereziki txukunak, erakusleihoan **zinta** isolatzailez itsatsita, eta pintada pare bat ondoko paretan, gauza gutxi. Iban Zaldua

Maleterora eskuak sartu eta aurreko nahiz atzeko hankak **zinta** aislantez loturik zituzten bi zakur atera zituzten bertatik. Harkaitz Cano

Lucyk bere trasteak hartu zituen **zinta** garraiatzailetik eta goardia zibilaren kontrol leihatilatik pasatu zen. Joxemari Iturralde

Lakua 7rako **zinta** garraiatzailea hartu, eta ordu erdi geroago EJren zeru-harraskarira iritsi nintzen. Iban Zaldua

**3** (izenlagunekin)

Koloretako **zintaz** apaindutako mutil batzuk azaldu ziren gure aurrean, mendian behera. Bernardo Atxaga

Biloak pixka bat nahas zeuzkan eta gerriko **zinta** laxo. Itxaro Borda

Elkarri laguntzen hasi ziren, barrez, soineko luze haiek [...] garbituak, izurtuak, eta sedazko gerriko **zintaz** apainduak, janzten. Josu Zabaleta

Mirarik ileko **zinta** kendu zuen. Fernando Morillo

Zilarrezko markak zituen neurketarako **zinta** luze bat atera zuen sakelatik. Iñaki Mendiguren

Teknikariak paper bat atera zuen besapean zeraman karpetatik, **zinta** metriko bat soineko poltsikotik, eta argazki kamera digital txiki bat. Jon Alonso

Filakteriak larruzko bi kutxatila dira, larruzko **zintak** atxikiak dituztenak. Koro Navarro

Plastikozko **zinta** horiaren atzean, ehunka kazetari eta ikusle, asaldaturik denak, marmarrean. Aritz Gorrotxategi

Leihoetako zirrikituak plastikozko **zinta** itsaskorrarekin itxi zituzten. Berria - Gaiak

Burua, ostera, agerian zeraman, zilarrezko **zinta** finaz loturik bekokian zeraman izarra kenduta. Agustin Otsoa

Mendiko ostatu xaxtar eta narratsa oroitzen nuen nik: eulientzako **zintak** sabaian, mahai zaharren hankak kolokan, mostradore altua. Xabier Mendiguren Elizegi

Ez litzateke bat ere harrigarri izango, adibidez, taberna edo self moduko jantokietan, gelditzen ez den "amaiera bako" **zinta** horietako batek jangaiak sukaldetik atera, barra osoan barrena garraiatu eta erakutsi, eta ostera ere sukaldean sartzea. Edorta Agirre

Baina erritmoa eramateaz gainera sorbaldak Moebiusen **zintaren** eran mugitzen baditugu? Harkaitz Cano

**4** (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

Zuntzak **zinta**-formakoak direnean, azkenik, itxura kizkurra du adatsak. Irene Aldasoro

**5** (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa)

Hamaika koloreko ile-**zintari** ukitu batzuk eman zizkion. Fernando Morillo

-Non da Hermione? -galdetu zion Harryk, neurketa-**zinta** hartu eta bere idazlana zabalduz. Iñaki Mendiguren

Hego aldrebesa, zeharkako haize aldaize deitua, laino-**zinta** luxe-luxe batzuk antxintxika garraiatuz. Pello Zabala

Gero, eseri zen, gizonek paperak, bular **zinta** gorriak, besokoak eta estandarteak jasotzen zituzten bitartean. Karlos Zabala

**6** (hiru osagaiko hitz elkarkuetan)

Han ziren milioi batzuk metrailadore kartutxo **zintetan**, hantxe 500 hegazkin bonba, 20tik 300 kilorakoak. Edorta Jimenez

**7** gai berezi batez eginiko zerrenda, eskuarki audio eta bideo tresnetan erabiltzen dena.

Gero CDak, **zintak** eta diskoak. Oskar Arana

Biniloak, **zintak**, magnetofoiak, idazmakinak... den-denak eraman ditu denboraren haizeak. Joxerra Garzia

Walkmanak klak egin zuen **zinta** amaierara heltzean. Iban Zaldua

Grabagailutik **zinta** atera eta poltsikoan gorde zuen. Joxemari Urteaga

**Zintak** jiraka jarraitzen zuen aparatuan. Bernardo Atxaga

Biak erori zitzaizkidan lurrera, Pantxoren elkarrizketa zegoen **zinta** eta bestea, erabili gabea. Jasone Osoro

Aparatuan jarrita neukan **zinta** hoteleko aparkalekuan ordu batzuk lehenago aukeratutakoa zen, Ben Websterren grabazio zahar bat. Bernardo Atxaga

Egilearen nahiari jarraitu diogu, era berean, **zinten** transkripzioa egiterakoan, eta ahozko izaerari atxikitzen saiatu gara. Karlos Zabala

Elizetan organista bat zegoen, eta orain **zinta** bat jartzen dute organo musikarekin, megafoniatik. Pako Aristi

**8** (izenondo eta izenlagunekin)

Biraka zebilen grabagailuko **zinta** magnetikoa. Joxemari Urteaga

Konputagailu baten memoria edo informazio-gordailua **zinta** magnetiko batean sar daiteke. Irene Aldasoro

Lehengo **zinta** xaharretan grabatutako andana bat gaitza kausitzen da Baionako Euskal erakustokian ere. Herria

Grabazioa gordeta daukat, oraindik ere, Sony **zinta** gorri-beltz zahar horietako batean. Iban Zaldua

**9** (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

Yves-en opus 80 musika airosa jartzen zuen **zinta**-irakurgailuan. Itxaro Borda

**10** (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa)

Musika **zinta** halatan, biribilka ari zen, emaztearen gogoan aztarnarik utzi gabe. Itxaro Borda

Kasu honetan kasete **zinta** batean zeuden bi bonbak. Berria - Mundua

Al Jazeera telebistak zabaldutako audio **zinta** batean. Berria - Mundua

Bideo **zintan** estatubatuarrak ikusten dira beren pasaportea ematen. Berria - Mundua

Mikrofilmak, mikrofitxak, audio- edo bideo-**zintak**, euskarri magnetikoak eta, jakina, telematika. Askoren artean

Egongelako DVD eta bideo-**zinten** apala. Iban Zaldua

**11** proba plazetako zortzi zatietako bakoitzaren luzera.

Herenegun amaitu ziren Debako Urteberriko probak, eta Iñaki Lopategi Billelako probalariaren uztarri batek irabazi ditu, 50 untze 3 **zinta** eta 5,96 metro eginda. Berria - Kirola

Uzkudunen uztarri bat ariko da lanean, eta bere idiek eginiko 52 untze 6 **zinta** eta 1,93 metroko marka ondu beharko dute. Berria - Kirola

**12** ***zinta-karrera***

Gutunean jasotako uztaitxoa listari batekin zintzilikatu nuen etxeko garajean eta, ziri bezala iltze bat erabiliz -entenga esaten zitzaien Obaban-, **zinta-karrerarako** entrenatzen hasi nintzen. Bernardo Atxaga

Kolore bizikoak, zein bere brodatu eta marrazkiekin, **zinta-karrera** esaten zitzaion jokoa zela bitarte banatzen ziren herriko mutilen artean. Bernardo Atxaga

Mutiletako batzuk zoroak bezala zebiltzan jantokian, **zinta-karrerak** egiten mahai artean, batak bestea bizkarrean hartuta. Bernardo Atxaga

Kirol dendako Martina eta beste bi emakume **zinta-karreraren** esparrua klarionarekin markatzen ari ziren. Bernardo Atxaga

**13** ***zinta enpalme*** lotzeko zinta.

Prusiarraren gelan dagoen metalezko pertxero suerte bat **zinta enpalmez** dago lotua. Harkaitz Cano

**hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**

**audio zinta** (6); **audio zinta batean** (3); **bertsoak zituen zinta** (3); **bideo zinta** (25); **bideo zinta bat** (10); **eskumuturreko zinta** (3); **grabatutako zinta** (4); **ileko zinta** (5); **ileko zinta beltza** (3)

**zinta aislantez** (3); **zinta bat jaso** (3); **zinta bat zabaldu** (3); **zinta beltz** (7); **zinta beltz bat** (3); **zinta beltza** (6); **zinta gorri** (4); **zinta hartu** (3); **zinta karreraren** (3); **zinta moztu** (4)

**bideo zintak** (5)

## **zintada** *iz* eztenkada.

Eta geroago, inork ez badio bere jardunari ezer erantsi edo kontraesanik aurkitu, ezkerreko belaun-katilua igurtziko du, eta jaiki egingo da, ondoez antzinako baten min-helduaren **zintadak** aurpegian oihu mutu baten arrastoak margotzen dizkiolarik. Pako Aristi

Eta geroago, inork ez badio bere jardunari ezer erantsi edo kontraesanik aurkitu, ezkerreko belaun-katilua igurtziko du, eta jaiki egingo da, ondoez antzinako baten min-helduaren **zintadak** aurpegian oihu mutu baten arrastoak margotzen dizkiolarik. Pako Aristi

---

## **zintadun** *izlag* zinta edo zintak ditutena.

Abarketa zuriak jantzita, erromeriakoak dirudien **zintadun** horietakoak. Ramon Saizarbitoria

---

## **zintarri** *iz* harri landuzko ertza.

Aldare inguruan erretena zegoen, sakon eta zabal metro erdi zena; ertzeko **zintarria** metro laurden zen gora, eta ertzaren eta aldarearen artean metro erdiko tartea zegoen. Elizen arteko biblia

Plataforma ere karratua zen, zazpi metrokoa alde bakoitzetik; kanpoaldetik metro laurdeneko **zintarria** zuen eta inguru guztian metro erdiko zanga. Elizen arteko biblia

---

## **zintasun** *iz* zinezkotasuna.

Haren foralismoaren **zintasunaz** fido ez direnei. Joxe Azurmendi

Adio, adiskide xarmanta; ez egin sekula dudarik nire sentimenduen **zintasunaz**. Jon Muñoz

Txantxetan esaten zuen, bai, baina halako **zintasun** behartu samar batez, begiratuaren hondoan amorrua zuela. Josu Zabaleta

---

## zintki ik **zinki**.

---

## **zintura** *iz* gerrikoa.

Zurgin atorra karratua zerratzen zion turkes harrizko lepokoa zeraman eta gerrian behi-larruan ebaki **zintura** gotorra, aitzinean zeukan zilarrezko juntagailu distiratsuarekin. Itxaro Borda

**-Zintura** beltza. Itxaro Borda

---

## **zinturoi** 1 *iz* gerrikoa.

Alde guztietatik indar eginez, **zinturoia** kendu gabe galtza laburrak erantzi zizkidaten tiraka, galtzontziloak ere bai, eta pitilina atera zidaten. Joseba Sarrionandia

**Zinturoia** askatu eta eskua sartu nion bizkarraldetik, bere ipurdiaren bila nebilen, bere ipurdi gogor, borobil eta leuna. Juan Martin Elexpuru

**2** (auto eta kidekoetan)

Kopilotuaren tokian **zinturoia** jarrita eta burua ilobaren sorbaldara erortzen zitzaiola egin zuen bidaia Juanitok. Xabier Etxabe

Mutiko bat, auto atzean eta noski atea ondo itxi gabe eta **zinturoia** jarri gabe omen zihoaan eta, bere amak bolantea jiratzean jo-ta autotik erori omen zuan. Pablo Sastre

---

## **zintxa** *iz* zingila.

Bawtryko gure gizona zelagilea zen, edo nahi baduzue uhalgilea edo guarnizioneroa [...] zaldientzako zelak, erromaleak, **zintxak**, bizkargainekoak, azpiko uhalak, kurrupekoak eta gainerako uhal eta larruzko trepetak egiten zituena. J.M. Olaizola "Txiliku"

---

## **zintz**

**1** ***zintz egin*** mukiak kentzeko, arnasa sudurretik indarrez egotzi. ik **zintzatu**.

Gure ama painelua hartuta zegoen, eta ematen zuen **zintz egiten** zuela denbora guztian, baina ez zuen behin ere **zintz egin**. Pello Lizarralde

Gaixoak eztula egiten duenean, hitz egiten duenean edo **zintz egiten** duenean, baziloak airean zabaltzen dira. Berria - Gaiak

Tarteka, painelua hartu eta **zintz egiten** du, eta berriro jasotzen du berehala. Joxe Austin Arrieta

Malkoak xukaturik, **zintz egin**, eta komunera jo zuen. Patxi Zubizarreta

Lurrean botatako kolaz beteriko zapi zahar batean **zintz egin** nuen. Jesus Mari Mendizabal

**Zintz egiten** ari ziren bost sudurren hotsa entzun zen. Iñaki Mendiguren

**Zintz egin** zuenean, txistu soinua atera zen haren belarritik. Koro Navarro

-Ni ere porru eginda nago - **zintz egin** zuen-. Aingeru Epaltza

Joxek burua apur bat makurtu, sudurzulo bat itxi eta bestetik **zintz egin** du. Pello Lizarralde

Horrenbeste aldiz **zintz egin** beharrak bere onetik ateratzen duelako. Josu Zabaleta

Aurpegia indarrez lehortu, ozen **zintz egin**, zapia beraren belaunetara bota, eta aterantz joan zen. Jose Morales

Jaun hura zorrotza zen bere maneretan, eta izugarri ozenki **zintz egiten** zuen. Jose Morales

Agindua betez Jijiji Rik sudurrari behatzez heldu, eta elefanteenaren zalaparta ateraz **egin** zuen **zintz**. Xabier Olarra

- **Egin zintz** -esaten dio Lepic andreak uneoro. Itziar Otegi

Muki urak **zintz egiteko** eskuoihal baten tamainako zapia eraman zuen. Iñaki Zabaleta

Erpuruaz eta hatz erakusleaz **zintz egiten** zuela, batean sudurzulo bat estalirik, eta bertzean bertzea, Xalbadorri jaurtiki zion aitak zintzaldiaren fruitu lingirdatsua. Joan Mari Irigoien

· Giulia handik hilabete gutxira ezkondu zen; partitzeko tenorean, malkoei **zintz eginez** esan zidan agur. Juan Garzia

**2** (**egin** ezabaturik)

Berriz ere **zintz**, berriz ere baietz. Aingeru Epaltza

Leiho-sareak beheraturik egongo ziren eta izeba Kate izango zuen ondoan eserita, negar eta **zintz**, Julia nola hil zen kontatzen. Irene Aldasoro

**3** ***zintz egite***

Inguruan bozkariozko hotsak, plisti-plasta, **zintz** egite eta dominstikuak. Urtzi Urrutikoetxea

---

## zintzar

**1** ***euri zintzar*** euri xehea.

Karrikak, jakina, itxura berezia du orain, elizako ezkilak gauerdia jo arestian hasi duen euri **zintzarrak** sugearen ezkatak bailiran izarniarazten ditu zoruko lauzak, eta beldurra ematen du, sugeak ausiki gaiztoa dauka. Koldo Izagirre

---

## zintzarri

**1** *iz* abereak lepoan daraman kanpai modukoa. ik **joare; arran**.

Goizean goiz **zintzarri** bat aditu dut, hurbildu naiz eta gizon bat ikusi dut, artzaina izango da, ardi eta behi batzuk daramatza. Bernardo Atxaga

Malkarrean alatzen diren ahuntzen **zintzarriak** iristen dira enegana. Koldo Izagirre

Nekazari taldeak belardietara iristen hasi zirenean, behiak zeramatzaten, eta hain ohikoa den **zintzarria** eramaten zuten lepotik zintzilik pentze ikusgarri haietan jatera joaten zirenean. Pako Aristi

Sentipen bitxia eragin zidan hasieran horrelako ingurunean minarete luzeko meskitak ikusteak, are bitxiagoa muezin-en otoitzaldiak aditzeak haien bozgorailuetatik, abereen **zintzarrien** hotsarekin nahastuta. Jon Arretxe

**Zintzarri** baten ozendura du etxe bakoitzak. Koldo Izagirre

Gurdiaren txilinek eta **zintzarriek** ere ezin zaldiak alaitu, eta belaunak makurtu zitzaizkien zenbait aldiz. Karlos Zabala

Andre Venanciaren alaba **zintzarririk** gabeko behi bat zen, nagia, mozkorra, bizitza guztia inguruko atsoekin mokoka ematen zuena. Josu Zabaleta

**2** irud/hed

Edozein soinu bereizten genuen: fusilak kargatzen zirenekoa, granaden txistuak parabolaren goiengo puntuan zeudeneko une mutua, eta batez ere, bazkaria prest zegoela adierazten zuen **zintzarri** hura. Harkaitz Cano

Surdo-ak, brasildar danbor txikiak, metalezko bidoia, **zintzarriak** eta beste perkusio txikiak. Berria - Kultura

Itzulerako egunean [...] diligentziaren **zintzarria** entzun orduko, Lepic andreak seme-alabak inguratu eta besarkada bakar batean bildu ditu. Itziar Otegi

**3** (hitz elkartuetan)

Sartu orduko salmoak oihukatzeko gogoa nigan zanpatu nuen, mendi eta haran berde argazkiz edertua zen gunean hedatzen zen ardi **zintzarri** ozenetan bermatuz. Itxaro Borda

Ate-**zintzarriaren** txilin-hotsarekin batera. Harkaitz Cano

**4** ***zintzarri hots***

**Zintzarri hots** batek eman zuen igogailuaren etorreraren abisua eta denak isilik sartu ziren, era ordenatuan, elkarrekin egindako barne metodo bat errespetatuko balute bezala. Iñaki Zabaleta

Baina **zintzarri hotsa** berria zen bufaloentzat, eta sosegurik eza sortzen zien. Pako Aristi

Txapak txaparen kontra jotzean ateratzen zuen metal xaxtar baten **zintzarri hots** lehor hura. Harkaitz Cano

Ohartu nintzen kanpai ez zen kanpai haren **zintzarri hots** xaxtar hark bazuela zerbait berezia. Harkaitz Cano

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
> zintzarri hots (3)

---

## zintzarritxo

*iz* zintzarri txikia.

Errebolbertxoa, ganibetatxoa, hortz eskuila eta **zintzarritxo** maitagarri txiki-txikia, dena urre puru-puruzkoa. Matías Múgica

---

## zintzatu, zintza(tu), zintzatzen

**1** da *ad* zintz egin.

**Zintzatzen** da emeki eta bere sakelean altxatzen paperezko mokanesa. Ramuntxo Etxeberri

"Kooperante" gazte bat atera zen: mokanes zuri handi batean **zintzatzen** ari zen. Ramuntxo Etxeberri

• **2** du *ad*

Ohe-estalki eta mantetan bilduta sutondo aurrean, edan, sudurra **zintzatu**, eta berriro edan zuten. Anton Garikano

Mukiak ozen **zintzatu** zituen Antoniak eskuturretik ateratako zapiaz. Josu Landa

---

## zintzel

*iz* zizela.

Rufinoren aurpegikeran mailua eta **zintzela** bistan baegozan, ez dot uste adinaren tximurkereagaitik bakarrik zanik. Xabier Amuriza

Idazteko epea eta astia bere arotzerian hartzen ei zituen; santugintzako **zintzela** eta mailuaren ordez, papera eta luma harturik, bere lantokia poesia-tailer bihurtzen zuela. Berria - Kultura

Nemesio Arozena lehorreratu zen Taboadaren atzetik, eta ehorzketa-etxekoei egin zien aurre matxetea ez baina mailu-**zintzelak** eskuetan. Koldo Izagirre

Errenazimenduko **zintzel** zalu eta espiritualak landu du zuraje guztia. Koldo Izagirre

---

## zintzil

*adlag* zirtzila.

-Ea, erakustak oraintxe antxoa **zintzil** hori! Koldo Izagirre

---

zintzilakatu ik **zintzilikatu**.

---

## zintzilaldi

*iz*

Begiak zerurantz, orduak pasatzen zituen hodeiak aztertzen: goizaldera ortzian **zintzilaldi** graziosean dilindan agertu zirru-kumulu multzoak mirets zitzakeen, eguerdi aldera masa borobilago batean biltzen eta arratsaldean itsasotik altxatzen zen haizeari esker berriz barreiatzen, etzirako eguraldi onaren iragarle xume. Itxaro Borda

---

## zintzilik

*(orobat **txintxilik** g.er. eta **xintxili** g.er.)* **1** *adlag* goiko aldetik loturik edo eutsirik, beheko aldetik inon oin hartzen ez duelarik eta higi edo kulunka daitekeelarik. ik **dilinda 3**.

Gelaren erdian, mikro bat **zintzilik**. Jon Muñoz

Txtapela zuri zabala, eta urrezko borla bat **zintzilik**. Txillardegi

Eskua arabeskoak eginez zerutik jaisten ikusi nuen, tiroak jotako hegaztia bezala, espiralean, eta non pausatu ez zekiela geratu zitzaion, **zintzilik**, hilik eta zurbil. Joxean Agirre
Mendeko Ama Birjinaren harrizko itxura bat aurkitzen du elorri xuri batean eta **zintzilik** txilintxa bat. Herria
-Saguzar bat bezala zaude **zintzilik**. Juan Kruz Igerabide
Sarreran, bi xingola luze daude **zintzilik** ia lurreraino. Anjel Lertxundi
Katea, etena, **zintzilik** zegoen. Josu Zabaleta
Gorputzak, **zintzilik** egonik ere, behera, lurrera, jotzeko jarrera izaten baitu. Felipe Juaristi
Tximiniaren kanpai zabalaren inguruan oihal zuri lisatu bat zegoen **zintzilik**, iltzeekin eutsita. Koro Navarro
Batzuetan, **zintzilik** agertzen zitzaidan begien aurrean laguna, bat-batean, lur eman ez bagenio bezala. Joxe Austin Arrieta
Muin emango dio **zintzilik** daraman gurutzetxoari. Berria - Kultura
Haizea altxatu zuen eta lehortzen **zintzilik** jarritako arropa puztuek bereganatu zuten nire arreta. Harkaitz Cano
Zutikako pertxero bat ikusi nuen gabardina bat eta kapelu bat **zintzilik** zituena. Harkaitz Cano
Kontu zaharra da eskubidea zientziaren atzetik mihia **zintzilik** duela hura harrapatu ezinean dabilela. Ramon Saizarbitoria
Esku bat **zintzilik** uztean, ukitu epel bat sumatu eta oihu txiki bat bota zuen. Karlos Zabala
Hormako paper puska libratu batekin jolasten, jakin nahian askoz gehiago iraungo ote zuen **zintzilik**, noiz eroriko zen. Anton Garikano
Neguan, ehizaren erakusleihoek lilluraturik uzten zuten: orkatzak buruz behera **zintzilik**, aurreko hankak hautsita eta lepoaren gainetik lotuta. Karlos Zabala
Arnasestuka itzuli zen Mirande, tiranteak gerritik behera **zintzilik** eta zapatak bidean galduak. Harkaitz Cano
Funtzionario itxurako apeza, hatsangaka, kasulla lepotik behera **zintzilik** eta isipua eta otoitz-liburua altzoan estutzen zituela. Aingeru Epaltza
Inor ez zen mugitu, denok nor bere gerrikotik muturrez aurrera **zintzilik**. Joxe Austin Arrieta
Zeruminak denbora dezente irauten baitu zeruertzean galdu baino lehen, zeru sabaitik soka mehe batez **zintzilik** bezala, lurretik ez urruti, ordea, eskura ia. Felipe Juaristi
Besoak **zintzilik** indargabe, ziazerba oreak aztertzen zituen. Karlos Zabala
Aurpegia ubela zeukan, begiak iraulita, ahoa zabal-zabalik eta mihia **zintzilik** alde batera okertuta. Migel Angel Mintegi
Han zetozen etorbidetik nire lagunak [...] batzuk eskuak poltsikoan, besteak eskuak **zintzilik**. Joseba Sarrionandia
Hantxe egoten ziren kalean, eguzkitan eserita, besoak eta hankak adar ihartuen antzera **zintzilik**. Juan Kruz Igerabide

## **2** (-tik atzizkiaren eskuinean)

Laratzetik **zintzilik**, pertz bat. Anjel Lertxundi
Gizona urkaturik, sokatik **zintzilik**, kartzelako isolamendu ziega batean. Hasier Etxeberria
Zure koadroa jaso nuen azkenerako; iltze batetik **zintzilik** ipini nuen, nire logelan. Karlos Zabala
Bizkarretik **zintzilik** zeraman txaketa estutu zuen Sophiek bularren kontra. Joxean Agirre
Hari bekoz beko, guardia zibil bat, metraileta bizkarretik **zintzilik**. Anjel Lertxundi
Jakanarrua eskutik **zintzilik**. Aingeru Epaltza
Zu nire besotik **zintzilik** zindoazela gogoratzen dut kolpea eman zidatenean. Joxean Agirre
Mutikoaren besotik **zintzilik** zebilen neskatxa ederrak kurukurukaz zerraikan. Itxaro Borda
Jesus hau egur batetik **zintzilik** hil zuten. Elizen arteko biblia
Izara batetik **zintzilik** aurkitu zuten hilda, ziegan. Berria - Euskal Herria
Merkantzi igorleen agenteak, larruzko zorroa lepotik **zintzilik**, dirua noiz jasoko zain zeuden. Karlos Zabala
Berdabioko jauna urkamenditik **zintzilik** dagoen urka-bilurraren parera iritsi da. Anjel Lertxundi
Leihoa itxi zuen eta beti gerritik **zintzilik** zeraman zapia pasatu zuen kristaletan. Anjel Lertxundi
Hari batetik **zintzilik** zegoen gau hartan neskaren etorkizuna. Koro Navarro
Lepoaren bueltan, sokatxo beltz bat, eta, handik **zintzilik**, zilarrezko lauburu bat. Anjel Lertxundi
Gangaren erdian argia sartzeko irekidura bat utzi behar da; bertatik **zintzilik** brontzezko ezkutu bat jarriko da kateekin lotuta, gora eta behera ibiliz lurrun-bainuen gelako tenperatura doitzeko balioko duena. Santiago Iruretagoiena
Zakurrak han jarraitzen zuen, nire ondoan, mihia ahotik **zintzilik** eta begiradan distira. Harkaitz Cano
Zer gertatzen da, hodei batetik **zintzilik** bizi haiz, ala? Jon Muñoz

## **3** (-n atzizkiaren eskuinean)

Hildako emakumea goian **zintzilik** eta bera azpian harriturik. Felipe Juaristi
Frantzisko Josek gerra galdu duen arren, Joseph Trotta pozarren dago, dominak paparrean **zintzilik** dituelarik. Anjel Lertxundi
Tapiz ilunak zeuden hormetan **zintzilik**. Koro Navarro
Arrastoen bila ari bagina bezala, paretan **zintzilik** zeuden arropak miatzen hasi ginen. Juan Kruz Igerabide
Hozkailuan **zintzilik**, Seaskaren egutegia. Eider Rodriguez
Zalditeriako sable bat zeraman gerrian **zintzilik**. Karlos Zabala
Erlojua airean **zintzilik** dagoela iruditu zait. Joseba Sarrionandia
Bertan jesarri naiz; zangoak hutsean **zintzilik**. Koldo Izagirre
Udako soineko zuri tanta horidun bat iltze batean zegoen **zintzilik**. Karlos Zabala
Jose Arimateakoak gorde zuen ontzia, eta bertan bildu zituen Jesus gurutzean **zintzilik** zegoela bihotzetik eroritako odol tantak. Juan Kruz Igerabide
Jainkoaren Seme bakarra haien alde gurutzean **zintzilik** hil zela. Juan Kruz Igerabide
Kako batean **zintzilik** zegoen sardea hartu nuen. Bernardo Atxaga
Hotzak dar-dar nengoen, alkandorarik ez-eta, baina haren bata janzterik pentsatu ere ez, hantxe nekusan arren, ate atzean **zintzilik**. Joxe Austin Arrieta
Txikia titian **zintzilik**, eta zaharrena ezkontzekotan. Arantxa Iturbe
Zigarroa ezpainetan **zintzilik** eskatzen zuten anisa. Alberto Barandiaren
Lurra ezerezean **zintzilik** dago, hastapeneko uretan bezala espazioaren hustasunean. Karlos Linazasoro
Une batez gorputza airean geratzen zitzaidala ere iruditu zitzaidan, arintasun ilun batean **zintzilik**, erortzearen itsumenak eragin ohi duen histasun horretan bilduta. Juan Kruz Igerabide

## **4** *irud /hed*

Esperimentu horiek, hasieran, **zintzilik** gelditu ziren, anomaliatzat harturik, eusteko kontzepturik gabe, airean. Xabier Olarra
Ohitura zuen esaldi bati garrantzia eman nahi zionean [...] azken hitzari **zintzilik** bezala iraunaraztekoa. Ramon Saizarbitoria
Izu berria begietan **zintzilik** zeukan zazpi urteko txokolate ontzaileen alabak. Itxaro Borda
Dena den, hainbat galdera **zintzilik** daude. Berria - Harian
Azkenaldian Landabengo fabrikaren gain **zintzilik** dagoen Damoclesen ezpata zorrozten ari direla iradokitzen dute. Berria - Ekonomia
Halaxe gelditzen zaizkigu begira gainera, gogorik gabeko barre ergel bat ezpainetatik **zintzilik** dutela. Iñaki Segurola
Esnatu zenean, egindako ametsaren hondakinak zituen Matiasek oraindik garunetik **zintzilik**. Unai Elorriaga
Azken urteetan, Iranen eta erakundearen arteko arazo nagusiak konpondu dira, eta erantzuteko prest gauden galdera batzuk bakarrik geratu dira **zintzilik**. Berria - Mundua
Tristura eta pozaren artean **zintzilik**, musu ematen zieten zaurien harribitxi eder eta distiratsuz apainduriko esku zoragarri haiei. Askoren artean

Gaztetan, ikasle garai haietan, aspaldi hartan, zerbait **zintzilik** geratu balitzaizue bezala. Lourdes Oñederra

Esaldia airean **zintzilik** geratu zen. Pedro Alberdi

Martxa orangistek eta Omagheko atentatuak, baina, hari batetik **zintzilik** utzi zuten hitzarmena. Berria - Harian

Aurreko urtetik **zintzilik** du GPAk lan itunaren negoziazioa. Berria - Ekonomia

Irribarre ergel bat aurpegian **zintzilik**. Jon Muñoz

Handik aurrera, telefonotik **zintzilik** egon zen Sara, Sergiok noiz deituko. Joan Mari Irigoien

-Noiz arte eduki nahi ninduan aparatutik **zintzilik**? ez diat goiz osoa hirekin galtzeko. Aingeru Epaltza

**hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 4 aldiz agertzen direnak)**

**adar batetik zintzilik** (5); **adarretatik zintzilik** (4); **adarretik zintzilik** (5); **ahotik zintzilik** (9); **airean zintzilik** (20); **artean zintzilik** (8); **atzean zintzilik** (4); **balkoitik zintzilik** (4); **besoak zintzilik** (8); **besotik zintzilik** (11); **bizkarrean zintzilik** (8); **bizkarretik zintzilik** (9); **buruz behera zintzilik** (4); **dago zintzilik** (7); **daude zintzilik** (9)

**erdi zintzilik** (7); **erdian zintzilik** (5); **eskuan zintzilik** (6); **eskutik zintzilik** (5); **gainean zintzilik** (16); **gainean zintzilik zegoen** (4); **gerrian zintzilik** (5); **gerrikotik zintzilik** (9); **gerritik zintzilik** (8); **gerritik zintzilik zeraman** (4); **gurutzean zintzilik** (5); **han zintzilik** (4); **hankak zintzilik** (4); **hari batetik zintzilik** (13); **haritik zintzilik** (4); **horman zintzilik** (13); **hormatik zintzilik** (9); **hormetan zintzilik** (6)

**ia zintzilik** (4); **iltze batetik zintzilik** (6); **kate batetik zintzilik** (4); **laratzetik zintzilik** (4); **leihoetatik zintzilik** (4); **lepoan zintzilik** (4); **lepotik zintzilik** (36); **lepotik zintzilik zeraman** (5)

**paparretik zintzilik** (4); **paretan zintzilik** (13); **paretetan zintzilik** (4); **sabaitik zintzilik** (29); **sabaitik zintzilik zegoen** (8); **soka batetik zintzilik** (6); **sokatik zintzilik** (6); **soketatik zintzilik** (5); **sorbaldatik zintzilik** (12); **sukaldean zintzilik** (4)

**zegoen zintzilik** (14); **zen zintzilik** (4); **zeuden zintzilik** (5); **zeukan zintzilik** (6)

**zintzilik aurkitu** (4); **zintzilik bezala** (11); **zintzilik dago** (4); **zintzilik dagoen** (22); **zintzilik daraman** (4); **zintzilik daude** (7); **zintzilik dauden** (10); **zintzilik daukan** (4); **zintzilik duela** (5)

**zintzilik eduki** (4); **zintzilik egon** (11); **zintzilik egon zen** (5); **zintzilik eraman** (4); **zintzilik gelditu** (8); **zintzilik gelditzen** (4); **zintzilik geratu** (20); **zintzilik geratu zen** (4); **zintzilik geratzen** (14); **zintzilik geratzen ziren** (4); **zintzilik hil** (4)

**zintzilik ikusi** (6); **zintzilik ikusten** (5); **zintzilik jarri** (16); **zintzilik jarrita** (6); **zintzilik jarritako** (6); **zintzilik jartzen** (10)

**zintzilik utzi** (18); **zintzilik utzi zuen** (8); **zintzilik uzten** (6); **zintzilik zegoela** (5); **zintzilik zegoen** (60); **zintzilik zegoen bonbilla** (4); **zintzilik zeraman** (24); **zintzilik zeramatzan** (4); **zintzilik zeuden** (22); **zintzilik zeukan** (10); **zintzilik zituela** (5); **zintzilik zuela** (12); **zintzilik zuen** (5); **ziren zintzilik** (5); **zuen zintzilik** (5)

---

# zintzilika *(orobat **txintxilika** g.er.)* **1** *adlag* zintzilik.

Besoa **zintzilika** zuen era arraro batean. Iñaki Mendiguren

Txistua entzun eta **zintzilika** zeuden odolki batzuk gora eta behera hasi omen ziren jauzika eta dardarka. Gotzon Garate

Ikusiak izango dituzue saguzarrak haitzuloan elkarren eta haitzen kontra estu-estu **zintzilika**. Iñaki Mendiguren

Une batez, Harry **zintzilika** egon zen airean, urduri Malfoyrengana abiatzera ausartu gabe, Behelaino mehe bat zegoen arrosa eta urre-koloreko zeruan **zintzilika**. Iñaki Mendiguren

Beraien lepoan maiz ikusiko duzu **zintzilika** bihi beltzaranak dituen shiva-errosarioa. Gotzon Garate

**2** (-tik atzizkiaren eskuinean)

Kemenez eta amorruz hasten nintzen pisuak jasotzen, flexioak egiten, ukabilkadak ematen sabaitik **zintzilika** jarri nuen hareaz betetako zakuari. Anjel Lertxundi

Sabaitik **zintzilika** urdaiazpikoak eta faisaiak zeuden. Iñaki Mendiguren

Mauserrak sorbaldatik **zintzilika** zeramatzaten, arduragabeki. Alberto Ladron Arana

Hildako sagutxo bat mokotik **zintzilika** zuela. Iñaki Mendiguren

Burezurrak hantxe zeuden, txukun-txukun, denak hormatik **zintzilika**. Gotzon Garate

Irrigarri zegoen, nire billete biribilkatua sudur zulotik **zintzilika**. Aingeru Epaltza

Ordurako arrantzale dezente zegoen espaloi eta arroketan sakabanaturik, askok ezpainetatik zigarroa **zintzilika**, denak itsasoan galduriko hariari so. Migel Angel Mintegi

Ahotik odola zeriola, espaloira eraman zuten gizona, laukiekiko txalekotik burua **zintzilika**. Lopez de Arana

Azala **zintzilika** zeukan masaila bigunetatik. Lopez de Arana

**3** *irud /hed*

Nire mendeku tikia eskutik **zintzilika** nekarren. Aingeru Epaltza

Galdera-ikur bat uzten dutela **zintzilika**. Iñaki Mendiguren

**4** *zintzilikako* ik **zintzilikako**.

**hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**

**airean zintzilika** (7); **lepotik zintzilika** (6); **sabaitik zintzilika** (6)

**zegoen zintzilika** (3); **zintzilika jarri** (3); **zintzilika zegoen** (5); **zintzilika zeuden** (3); **zintzilika zeukan** (3); **zintzilika zuela** (6); **zintzilika zuen** (3)

---

# zintzilikadura *iz* zintzilik dagoen gauza. ik **zintzilikario**.

Areto luze eta arranditsu hartan ez zen tapiz edo **zintzilikadura** zaharkiturik ikusten, ez eta ehun edo zurezko gauza bakar bat ere. Agustin Otsoa

---

# zintzilikailu *iz* zintzilik dagoen gauza. ik **zintzilikario**.

Kolore beltzeko oihal-**zintzilikailu** astun bat jaitsi zen beiratearen aurrean, eta, hark gela ilunpetan murgiltzen zuelarik, oihal zuri bat jaitsi zen atzeko horman. Jon Muñoz

---

# zintzilikako *izlag* zintzilik dagoena.

Bidegurutzetik hurbil, beste aldapa gogorra igo ostean, bidea **zintzilikako** harrizko zubi batean luzatzen zen, leizea zeharkatuz, azkenik Morgaiko aldapa deseginetan eta haranetan sartzeko. Agustin Otsoa

---

# zintzilikarazi, zitzilikaraz, zintzilikarazten du *ad* urkarazi.

Gero armeniarrak **zintzilikarazi** zituen. Juan Garzia

Berehala, bergatik **zintzilikarazi** zuen. Juan Garzia

Vijaalakshmik bere burua [...] gela gainean zegoen haizemailetik **zintzilikarazi** zuela esaten zuten senarraren etxekoek. Gotzon Garate

---

# zintzilikari[1] *izond* zintzilik dagoena.

Lau zutabeko ohe dotore batean, oihal **zintzilikari** hautseztatuekin, Crookshanks zetzan. Iñaki Mendiguren

Joachimek ezin erantzun, panpina **zintzilikari** eta kiratsa zerion bat besterik ez baitzen hura han, dagoeneko birritan esan bezala, haize epeletan kulunkari. Joxe Austin Arrieta

Farr jaunaren modu berean erre nuen zigarroa, ohitura gaiztoen agergarri **zintzilikari** hura. Koro Navarro

---

**zintzilikari**[2] ik **zintzilikario**.

---

**zintzilikario** *(orobat* ***zintzilikari*** *g.er. eta* ***txintxilikario*** *g.er.)* **1** *iz* zintzilika dagoen gauza.

Horrez landa, bere ohiko bitxiak - **zintzilikario** bat lepoan beheiti, eskumuturreko pultserak, erietako eraztun ugariak- eta zapata takoidunak zituen janzki bakar. Aingeru Epaltza

Emakumeak lepoko bat atera zuen orduan, bostehun eta hirurogeita hamar eraztunez osatua, eta anaien eraztunak ere **zintzilikario** hartan erantsi zituen. Patxi Zubizarreta

Almendra-begiak zituen, ile-kiribil beltz eta leunak, gizenkorra zen eta **zintzilikarioak** eta belarritakoak eraman zalea oso. Fernando Rey

Dyane 6 zahartu eta herdoildu bat, bultzaka erabili beharrekoa dirudien karraka zaharra, bazter guztietan eranskailu, **zintzilikario** eta antzeko hornizioz apaindua. Xabier Mendiguren Elizegi

**2** (izenondo eta izenlagunekin)

**Zintzilikario** xelebre bat paparretik dilindan. Patxi Iturritegi

Jakaren papar-hegalak lisatu zituen, ahoa neurritasunez apailatu zuen, bi dolar ordaindu zituen eta **zintzilikario** gorri, zuri eta urdinez hornitutako gela handi zaratatsu batean sartu zen. Lopez de Arana

Ikaragarri nabarmentzen zen urrezko erloju kate txerlotu bat, erdian katenbegi handiak zituena, eta anitz **zintzilikario** pinpirinez hornitua: errebolbertxoa, ganibetatxoa, hortz eskuila eta zintzarritxo maitagarri txiki-txikia, dena urre puru-puruzkoa. Matías Múgica

Kolorezko txalekoak erabiltzen zituen, eta zilarrezko **zintzilikarioak** erlojuaren katean. Koro Navarro

**3** (hitz elkartuetan)

Izotz **zintzilikarioak** moldatuko dira lehen itoginak zeuden lekuetan Joseba Sarrionandia

**4** *adkor* zakila; *pl* barrabilak.

Gauza da izutu egiten gaituela emakumeak gure beharrik ez izateak, gure diruaren, gure estatusaren, gure **zintzilikarioaren** beharrik ez izateak... Luis Elberdin

Gure **zintzilikarioa** lo dagoenean, odol hari fin bat baino ez da ibiltzen haren ehunetan zehar. Luis Elberdin

Edo koskoilak; edo koskabiloak; edo panpalinak; edo barrabilak; edo **zintzilikarioak** ... herri idurimenak delako zorro pilotadun ale-bikoa izendatzeko asmatu dituen molde ugariak agortzeari emanez gero. Aingeru Epaltza

Haren eskuak **zintzilikarioak** igurtzika dabiltza, jakinduria handiz oretzen ditu. Juan Martin Elexpuru

Anestesiaren eraginetik kanpora gelditu zelarik, umearen **zintzilikario** nabarmenak ere arazo izan genituen, ekografia bat bakarra egin gaberik alaba heldu zela segurtatu baitzioten "Zentroko" espezialistek. Aingeru Epaltza

**5** esekitokia.

Orotan aurki baitzitezkeen burdinazko zutabe bertsuak, eta gapirio eta **zintzilikario** metaliko molde berak. Txillardegi

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
> **bere zintzilikarioaren** (3); **nire zintzilikarioa** (3)

---

**zintzilikatu**, zintzilika(tu), zintzilikatzen *(orobat* ***zintzilakatu*** *g.er. eta* ***txintxilikatu*** *g.er.)* **1** du *ad* zintzilik jarri.

Pauso txikitan doa berokien esekitokiraino, bere feltrozko kapela luzea kakoan **zintzilikatzera**. Monika Etxebarria

Pistola poltsikoan gorde, eskopeta bizkarrean **zintzilikatu**, eta ganbaratxora igo nintzen. Juan Kruz Igerabide

Lukainkak, gordetzekoak baitziren, ongi lehortu behar dira, eta horretarako sabaitik bi sokatatik zintzilika jarri dugun haga batetik **zintzilikatu** ditugu lehendabizi. Josu Zabaleta

Teilatutik **zintzilikaturiko** kaiolan, hegoak tolesturik, isil-isilik egoten zen. Juan Kruz Igerabide

Baionako Herriko Etxean sartu eta hango balkoitik pankarta handiak **zintzilikatu** zituzten. Berria - Ekonomia

Kakotik buruz behera **zintzilikatu** eta larrua erraz erantzi zioten goitik behera gorputz gorrizuriari. Joseba Sarrionandia

Beren babeskiak zure harresietan **zintzilikatzen** zituzten, inguru guztian, zure edertasuna bikainduz. Elizen arteko biblia

Kapera sekretuan **zintzilikatutako** margolan lapurtuen kontua. Jon Muñoz

Fusil baten punttan, maindire zuri bat **zintzilikatu** ditek kasernako leiho batetik, beren burua ematen zutela adierazteko. Txillardegi

Bere bila arituko gara gau eta egun, bera harrapatu eta zutoin batean **zintzilikatu** arte. Berria - Mundua

Eskerrak lepokoan **zintzilikatu** zuen, gero horrek bizia salbatu baitzion. Julen Gabiria

Buruz behera **zintzilikatu**, eta lepoa mozten diete. Xabier Olarra

Arkupearen sabaian **zintzilikaturiko** kriseiluei erreparatu zien. Pedro Alberdi

Leiho hark Louvren **zintzilikatutako** Mona Lisak baino arreta gehiago jasotzen zuen. Harkaitz Cano

Egiten al da beraren zuraz gakorik ezer **zintzilikatzeko**? Elizen arteko biblia

Nola jokatu asmatu ezinda geratu nintzen emakume eder hura lepotik **zintzilikatu** zitzaidanean. Hasier Etxeberria

Ulertu izan balu bere "mendeko borroka" nahi izan genuela trabatu... koskoiletatik **zintzilikatuko** gintuen! Ramuntxo Etxeberri

**2** (urkabean)

Erregea, berriz, zuhaitz batetik **zintzilikatu** zuen arratsera arte; eguzkia sartzean, gorpua zuhaitzetik eraisteko agindu zuen Josuek. Elizen arteko biblia

**Zintzilika** ditzatela urkabean Hamanen hamar semeen gorpuak. Elizen arteko biblia

Amak berak egin zizkion lastoz beteriko panpinak, mutikoak urka-bilurretik **zintzilika** zitzan. Anjel Lertxundi

Urkabetik **zintzilikatuari** lur ematea. Elizen arteko biblia

**3** (da aditz gisa)

'Solidarioak' Arluzean **zintzilikatu** dira, Itoitz betetzeko lanen aurka. Berria - Euskal Herria

Zuhaitz batetik **zintzilikatu** direnean, Nafarroako Jauregira igo direnean, kontseilari baten bulegoan kateatu direnean, urtegiaren errealitatea lehen lerrora ekarri dute solidarioek. Edurne Elizondo

Lepoko juntaren gunean **zintzilikatzen** zitzaion haragi usteldua ikus zezakeen. Itxaro Borda

Begiak argi, bizkor eta gazte itxurako zituen, haien azpian hutsik **zintzilikatzen** ziren larru-poltsa handi finak gora-behera. Juan Garzia

Nire bular argal-argalaren alde bietan, bi beso ergel-ergel ziren **zintzilikatzen**. Jesus Mari Mendizabal

**4** irud/hed

Gainera, idazlan horiek blog-ean **zintzilikatzen** dituzue, eta denek irakur ditzakete. Berria - Euskal Herria

Huek, bere eguneroko bizimoduaren bideo bat **zintzilikatzea** erabaki du. Berria - Kultura

Azkenean beti iristen da une zail hori, botak **zintzilikatu** beharrekoa. Berria - Kirola

**5** (era burutua izenondo gisa)

Lorategi **zintzilikatu** bat zen; haran bat zen, txori eta lore eta antilopez betea. Anton Garikano

Sarrerako koloreetako soka **zintzilikatuak** esku batez bildu eta Pedrok burua sartu zuen tabernan. Jon Maia

Itzulbidean, geldialdia egin nuen esekitokiaren parean, nire jaka **zintzilikatuan** arakatu beharrez. Aingeru Epaltza

Botilek eta likore ontziek faroltxo veneziarren ilara **zintzilikatuak** ematen baitzuten. Karlos Zabala

Sokasaltora jolasten ari diren neska-mutikoek zerbait harrigarria eta tristea ikusi eta soka biratzeari uzten diotenean bezain hilak zeuden telefonoaren soka **zintzilikatu** haiek, infinituraino biderkatuak. *Medium class* inexistentearen habeari fermuki eutsi nahi zioten guraso **zintzilikatu** batzuen seme-alabak izanen ziren, ziur aski. Harkaitz Cano

**hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**

**batean zintzilikatu** (4); **batetik zintzilikatu** (9); **bizkarrean zintzilikatu** (3); **buruz behera zintzilikatu** (4); **lepotik zintzilikatu** (3); **pankarta zintzilikatu** (3); **urkabean zintzilikatu zuten** (3); **zintzilikatu ditu** (5); **zintzilikatu nuen** (4); **zintzilikatu zen** (3); **zintzilikatu ziren** (6); **zintzilikatu zituen** (3); **zintzilikatu zituzten** (17); **zintzilikatu zuen** (20); **zintzilikatu zuten** (9); **zubi batetik zintzilikatu** (4)

**horman zintzilikaturiko** (3); **zintzilikaturik zegoen** (3)

**batetik zintzilikatutako** (3); **sabaitik zintzilikatutako** (3); **zintzilikatutako bandera** (3)

**arropa zintzilikatzeko** (3)

**batetik zintzilikatzen** (3); **zintzilikatzen zen** (3); **zintzilikatzen ziren** (4); **zintzilikatzen zituzten** (3); **zintzilikatzen zuen** (4)

---

## zintzirrin *iz* izotzaz mintzatuz, burruntzia, ziztorra.

Ondoren, beste amets bat izan nuen, tsarren gortean bizi nintzen: jauregi hotz zaharretan, hain hotzak ezen izotz-**zintzirrinak** sortzen baitziren neguan ateen gainean. Monika Etxebarria

---

## zintzo 1 *izond* bertute moralen arabera jokatzen duena; egiaren araberakoa, leiala. ik **zuzen 4**. ant **gaizto**. (pertsonez)

-Prostitutak dira pertsona **zintzo** bakarrak. Lopez de Arana

Ez baitut inolako zalantzarik gizaki **zintzoak**, hitza dela medio, beren sentipenak azaltzen biziki saiatuko direla. Imanol Unzurrunzaga

Bere etxearen karguaz eta bere senarraren egoeraz arduratzen den emazte **zintzoa**. Xabier Kintana

Gizon **zintzoa** dirudi Andradek, borondate handikoa. Pako Aristi

Gizon **zintzoa** zarenez, uste osoa dute zugan. Jose Morales

Gizon **zintzo** eta laborari xumeak hartze du pausu zoriontsu bat zeruko alor beroan. Herria

Bi gizon leial eta **zintzo**, lehenago beren biziak emango luketenak, huts egin baino. Felipe Juaristi

Hain nintzen gizon txiki **zintzo** eta zuzena orduan. Oskar Arana

Aita Aldrovinus **zintzoak** Rouengo Katedralean jendaurrean otoitz egin zuen. Xabier Olarra

Federicok seme **zintzo** bat nahiko zuen, lizeora joan eta suspenditzen ez zuena. Pello Lizarralde

Mutil **zintzoa**, heziera onekoa, aldarte onekoa. Koldo Biguri

"Adiskide **zintzoa**, anitz esker", erran zidan. Jon Muñoz

Gogoan izan, Domancé, beti izango naizela zure ikasle **zintzo**. Juan Martin Elexpuru / Bego Montorio

Aitortu behar dut ikasle **zintzo** eta atseginen itxura hartu dizuedala. Bernardo Atxaga

San Antonio, anai Agustin eta Asisko anai Jakobo, bizi zirenean jarraitzaile **zintzo izan** zituenak. Askoren artean

Polizia **zintzoa**, salgai ez dena, egiten du bere inkesta zintzoki, beldurrik gabe eta ohartzen da bere ingurumeneko ustelduraz. Herria

*Unità*-n alderdikide **zintzoak** zaudek, baina literaturazaleak dituk denak. Koldo Biguri

Errege **zintzo** honen denboretan, bada, sortua izan zen "Mahai Biribileko zaldunen" Zalduneria Ordena ospetsua. Patxi Ezkiaga

Hasiera batean, puritano **zintzo** bezala, politika egin ordez erlijio kutsuko hitzaldiak eman zituen Cromwelek. J.M. Olaizola "Txiliku"

Menpeko **zintzo** eta onak agintedunaren nahia ezagutzen eta gordetzen duenean, ardura txikia behar du nagusiak hartaz. Askoren artean

Homosexualen aurkako legezko ehizak ehiztari **zintzo** bihurtua ninduen: harrapakinaren deskuidu baten zain-zain egoten nintzen. Anjel Lertxundi

Ez zen, ordea, pitagoriko **zintzo** gisa jokatzeko gauza izan, pitagoriko zintzoa inoiz ez baita altxatzen bezperako gertaera guztiak oroimenera ekarri arte. Jon Muñoz

-Zirika eta zirika, kristau **zintzo** bat mahometano bihurrarazten duen apaiz horietako bat da berori! Koldo Biguri

Jende **zintzoa** bazarete, hara, gera bedi zuetariko bat preso kartzela honetan. Jose Antonio Mujika

Ea gisa den eta zuzena den eta jende on eta **zintzoei** ez ote zaien gaizki iduri. Piarres Xarriton

Gezurrak egiaren tokia hartzen duenean, gezurtienek ematen dute **zintzoenak**. Anjel Lertxundi

**2** (bestelakoez)

Txinatar batek zakur **zintzo** bat zeukan. Gotzon Garate

Ehiza txakur bizkor eta **zintzoa** ematen du. Urtzi Urrutikoetxea

Nire Rozinante **zintzoa**, nire bide eta lasterketan beti-betiko laguna. Patxi Ezkiaga

Zakurra gizonaren lagun **zintzoa** da. Gotzon Garate

Familia **zintzo** eta oneko neska batekin ateratzen hasi zen. Pello Lizarralde

Ireki ateak, eta sar bedi herri **zintzoa**, leialtasuna gordetzen duena. Xabier Kintana

Gipuzkoa **zintzo** honetan, prostibulo bat zen Trintxerpe. Koldo Izagirre

Liburu bat, liburu **zintzo** bat, gauza bitxia, eta polita gainera. Josu Zabaleta

«Gerra **zintzoaren**» mitoa. Berria - Euskal Herria

Nire esker onik **zintzoenak**. Mirentxu Larrañaga

Kritika **zintzoa** iruditzen al zaizu hori? Xabier Olarra

Zapateroren gobernuari elkarrizketa **«zintzoa»** eskaini zion. Berria - Euskal Herria

Ebaluazio **zintzo** eta bidezkoa zirudien, eta ni guztiz ezjakina nintzenez auto kontuez, ez nekien besterik zer egin nezakeen lan hura berari agintzeaz gainera. Oskar Arana

Hipotesi **zintzoak** dira eta gertaeren berri ematen dute. Monika Etxebarria

Iritzi **zintzoak**, ordea, ohitura txarra zuzentzen du, eta iritzi faltsuak sentipen onak gaiztotzen ditu. Imanol Unzurrunzaga

Gehiegizko mesfidantzaz, muzin egin nien niretzat baliagarri izateko asmo **zintzoa** zuten askori. Jose Morales

Horren ondorioz, mailegutan emateko eta hartzeko bide **zintzo** guztiak desagertu egin ziren Erroman, eta lukurreria beldurgarria ezarri zen. Iñaki Iñurrieta

Arrazoi **zintzoak** sumatzen nituela euskaraz idazteko erabakian. Bernardo Atxaga

Lasaialdia sumatu dut neure burua itxura **zintzoko** jendeaz inguraturik ikusita. Jon Arretxe

Bazen biziera **zintzo** eta santuko anaia bat, gau eta egun otoitzari emana. Askoren artean

Neure ikasle bizimodu **zintzoan** segitzen bainuen. Xabier Mendiguren Elizegi
Atsegin **zintzo** harengatik. Karlos Zabala
Hegaztiaren pentsaera eta sentimenduen transkripzio **zintzo** eta zehatza. Xabier Olarra
Zergatik ez didazu erdizka baizik obeditu nahi, eta nahi duzu nolabait jokabide **zintzo** batekin tratuan ibili? Jon Muñoz
Aiurri **zintzoko** jendeek dohain miresgarria dute; zintzotasuna jartzen dute ukitzen dituzten gauza guztietan. Karlos Zabala
Borondate **zintzoa** agertzen dute, baina ez dakit gero sortzen diren kontraesanez jabetzen diren. Berria - Euskal Herria
Elkarrekikotasun **zintzoan**, mutilari gustatuko zitzaiola edo haren hezkuntzarako baliagarria izango zela iruditzen zitzaion guztia egiten zuen. Koro Navarro
Prozesu demokratikoa gauzatu zuelako, modu garden eta **zintzo** batean. Berria - Mundua
Ez, ez dut inon ikusten edertasun **zintzo** eta noble horri gain hartzen dion eskultura modernorik. Patziku Perurena
Edozein lurralde **zintzo** katolikotan. Mirentxu Larrañaga

**3** (predikatu gisa)

Katolikoa, **zintzoa** eta etxekoen zalea da. Edorta Jimenez
**Zintzoa** zen Christophe. Daniel Landart
Hor, idazleak **zintzoa** izan behar du, eta momentu hori bizi ez badu, ezetz esaten edo isilik gelditzen jakin behar du.-Ni, lau urte bete arte **zintzoa** izan nintzen. Ana Urkiza
Zure poza **zintzoa** da beti, **zintzoa** den bezala orain kanpaia edukitzeagatik duzun poza. Koldo Biguri
Mesedez, izan zaitez **zintzoa**. Mirentxu Larrañaga
Ez da aski norbera **zintzo** eta zuzena izatea. Xabier Olarra
Beste koldarkeria akaso larriago batek narama **zintzo** izatera. Juan Garzia
Jaunak lur osoa arakatzen du bere begiz, **zintzo** direnak adoretzeko. Elizen arteko biblia
Azkar bukatu nahi zuen bere ustez batere **zintzoa** ez zen borroka hura. Pello Lizarralde
Zin egidazu **zintzoa** eta leiala izango zarela nirekin. Jose Antonio Mujika
Haiek indartsuak, kementsuak eta **zintzoak** zirela. Fernando Rey
Manera oneko eta **zintzoa** zirudien, santujale bat, baina... Migel Angel Mintegi
Nolabait ere **zintzoa** ematen zuen, hitz erdikakoa eta alaia. Koro Navarro
Beti esaten nion **zintzoegiak** begitantzen zitzaizkidala bere artelanak. Hasier Etxeberria
Ama berriz, isila, bakeosoa eta **zintzoa**. Arantxa Iturbe

**4** (adizlagun gisa) ik **zintzoki.**

Horrela gertatzen da **zintzo** bizitzeko gizakiari eman zaion justiziarekin. Imanol Unzurrunzaga
Zaindu, eta **zintzo** ibili. Arantxa Iturbe
**Zintzo** portatzen bahaiz, jendeak ondo tratatuko hau. Jose Morales
Ordu arte adeitsu, zuzen eta **zintzo** portatu zen jende hura bultzaka hasi zen, lehendabiziko lerroan, ahalik eta gertuen, kokatzeko. Ramon Saizarbitoria
Garbi eta txukun ibiliko nintzela, **zintzo** jokatuko nuela, etxera idatziko nuela, eta aurki itzuliko nintzela. Mirentxu Larrañaga
Ea, bada, **zintzo** jokatu enekin. Juan Garzia
Adarra jo nahi didate, baina zintzo jokatu dute, **zintzoegi**, egia esatera, gizajo hauek. Koldo Izagirre
**Zintzo** jardun eta ez zara damutuko -zutitu egin zen-. Migel Angel Mintegi
**Zintzo** aritzen ziren egunero otoitzean eta eskulanean, arimaren etsai den alferkeria erabat uxatzeko. Askoren artean
Nik **zintzo** ematen nizkioan eskupekoak nire etxera bideratzen zuen bidazti bakoitzeko. Juan Garzia
Halakoetan Antjek **zintzo** egoteko eskatzen zidan. Fernando Rey
Obra bat **zintzo** idazten baduzu, betirako da baliagarria. Ana Urkiza
Datuak **zintzo** jasotzeko. Pello Zabala
Ez baitu **zintzo** bete emandako hitza. Patxi Ezkiaga
**Zintzo** mintzatu zitzaidan. Koro Navarro
Saltzaileek tindu horren sekretua **zintzo** gorde uste dute. Karlos Zabala
Ez huen haren nahia errespetatu; ez huen Grosrouvre **zintzo** maitatu. Jon Muñoz
-Salba zaitzala horren leial eta **zintzo** zerbitzatzen duzun Jainkoak! Jose Antonio Mujika
Freddyk halaxe egin zuen, **zintzo** eta esaneko, lau egun pasatu baino lehen. J.M. Olaizola "Txiliku"
Maglia arrosa ez zen larritu, eta **zintzo** eta sendo, Milango podiumeko eskailera maila garaienera igoko da gaur. Berria - Kirola
Tiborrek lasai erantzuten zuen, **zintzo** eta zehatz, norbaitek trenen ordutegiari buruz galdetu izan balio bezala. Ander Irizar
-Ez, ba -erantzun zion Harryk **zintzo**-. Oskar Arana
Aita egiaz eta **zintzo** ari zitzaidan, hain **zintzo** non beldur harrigarri bat sentitu bainuen, susmo txundigarri batek bultzatuta. Jon Muñoz
Zure etxe kutunean, zure haur bedeinkatuekin, eta gauero-gauero **zintzo** erretiratzen zaizun senar atseginarekin. Mirentxu Larrañaga

**5** (adizlagunekin)

Emazte txit **zintzo**, maitale txit samur hori. Askoren artean
Badira, ordea, pertsona isilak biziki **zintzo** eta leialak. Gotzon Garate
Oso gizon **zintzo** eta jakintsua da. Bernardo Atxaga
Doktorea, ez baitzuen ahaztua bezperako bainua, oso lasai eta oso **zintzo** portatu zen. Josu Zabaleta
Ezagutu zituen jendeak biziki **zintzoak** ziren. Ramuntxo Etxeberri
Zinez **zintzoa** baitzen bai irakasleei eta bai klarionari nien maitasuna. Eskarne Mujika
Pauline tente-tente zegoen dendaren aurrean, guztiz **zintzo**. Karlos Zabala
Inork ez zuen txintik esan eta **zintzo** asko kopiatu genuen irakasleak adierazitakoa. Xabier Mendiguren Elizegi
· Ikasleek **zintzo** demonio bete zuten agindutakoa. Josetxo Azkona

**6** (izen gisa)

Su eta sufrezko euria, **zintzo** eta gaiztoen gainean berdin erortzen dena. Xabier Olarra
**Zintzoengan** baititu Jaunak begiak, haien deiak entzuteko adi belarriak. Elizen arteko biblia
**Zintzoak** bere egun guztiak zientziari ematen dizkio, ezer gorde gabe. Xabier Kintana
Babestu egiten zuten botere hori, ez argudiatuz baizik gaizkileei zigorra ezarriz eta **zintzoak** babestuz. Esteban Antxustegi
**Zintzoari** ez zaio kalterik suertatuko, gaiztoari zoritxarra bete-betean.
Obran ez daude **zintzoak** eta gaiztoak: pertsonaiak eta zirkunstantziak daude. Berria - Kultura
Aintza guztia penitentzi bizitza daramatenentzat eta **zintzo** guztientzat. Askoren artean
**Zintzoaren** etxean ugaritasuna, gaiztoaren irabazia kezka-sortzaile. Elizen arteko biblia
Alprojek **zintzoak** behar baitituzte bizitzeko. Berria - Kultura
Honela dago jasoa gertakari hau '**Zintzoaren** Liburuan': [...]. Jose Antonio Mujika

Horregatik dio Kolonbiak «**zintzo**» gutxiago behar dituela: «Alprojek zintzoak behar baitituzte bizitzeko. Berria - Kultura

Hire burua bekatari arrotzat ez baina **zintzo** umiltzat ederretsi. Patxi Ezkiaga

**7** (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

Dena dela, zu bezalakoek ez duzue **zintzo** fama handirik, jendea atzetik bakarrik hartzeko duzuen ohituragatik. **Zintzo**-itxurak egiteko eta edozein egoeratara moldatzeko trebetasunaz baliaturik. Juan Martin Elexpuru / Bego Montorio

Itxurazale malapartatua, **zintzo** aire horrekin! Karlos Zabala

Samurturik nauka Danceny izateak abentura honetako heroia, badu **zintzo** kutsu bat eragozgarri dukeguna. Jon Muñoz

**8** (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa)

"Gerratarren Jauregia" deitzen zioten herriko mihi-gaiztoek eta mihi-**zintzoek** ere bai, leinuaren sortzaileak gerra garaian egin baitzuen dirua. Felipe Juaristi

· Bazen elementu erraz-**zintzorik**, ezkutatzeko gauza ez zenik, hala nola burdina eta kobrea. Juan Garzia

**9** ***zintzo-zintzo*** *izond*

Fossa legezulo **zintzo-zintzoa** zen, gogotik ahalegindu zen araudiekin egokituriko kartzela-errejimen bat antolatzeko berehala gure fabore. Juan Garzia

Herritarren artean gehienak, hamarretik bederatzi, **zintzo-zintzoak** dira eta euren jokaera arrazoizkoa da. Berria - Euskal Herria

Azkenean, duda-muda eta atzera-aurrera askoren buruan, hasierako logika sinplea nagusitu da: ordenamendu **zintzo-zintzo** kronologikoa, alegia. Juan Garzia

**10** (adizlagun gisa)

Egunero sos bana ematen zien **zintzo-zintzo**, agindu bezala. Karlos Zabala

**Zintzo-zintzo** itzuli etxera, eta txostena berriz idatzi. Jon Muñoz

Iluntzero etxean, **zintzo-zintzo**, arratseko seiak eta erdietarako, eta hain da konpainia ona, hain alaia eta argia, alajaina. Mirentxu Larrañaga

Jakina, ez gara kamainan gelditzen [...] jaiki egiten gara, **zintzo-zintzo**, behar den legez. Istant batean agertuko nauk eskolako hesi aurrera, **zintzo-zintzo**. Urtzi Urrutikoetxea

Eskolan bezala eduki gaituzte lau orduz: aulkietan **zintzo-zintzo** jarrita eta filminei begira. Berria - Ekonomia

· Biba zuek gazteak eta segi **zintzo zintzoa**. Herria

**hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 4 aldiz agertzen direnak)**

**alde zintzo** (4); **argi eta zintzo** (4); **bezain zintzo** (7); **burua zintzo** (5); **emakume zintzo** (9); **euskaldun zintzo** (9); **familia zintzo** (5); **gizon zintzo** (59); **gizon zintzo bat** (7); **gizon zintzo batek** (6); **guztiz zintzo** (4); **herritar zintzo** (5); **jarraitzaile zintzo** (4); **jende zintzo** (8); **kristau zintzo** (6); **lagun zintzo** (5); **langile zintzo** (7); **leial eta zintzo** (8); **modu zintzo** (5); **neska zintzo** (5); **oso zintzo** (5); **pertsona zintzo** (7)

**zintzo ari** (7); **zintzo asko** (11); **zintzo askoa** (6); **zintzo bete** (13); **zintzo bete zuen** (4); **zintzo betetzen** (12); **zintzo betez** (5); **zintzo bezain** (4); **zintzo bizi** (7); **zintzo demonio** (5)

**zintzo egin** (4); **zintzo eta esaneko** (4); **zintzo eta leial** (7); **zintzo eta zuzena** (6); **zintzo eusten** (5); **zintzo eutsi** (4)

**zintzo itxurak** (4); **zintzo izan** (11); **zintzo izatea** (4); **zintzo izateko** (4); **zintzo jarraitu** (5); **zintzo jokatu** (43); **zintzo jokatu zuen** (5); **zintzo jokatuko** (6); **zintzo jokatzea** (5); **zintzo jokatzeko** (4); **zintzo jokatzen** (18); **zintzo mintzatu** (5); **zintzo mintzo** (4)

**zintzo portatu** (5); **zintzo portatzen** (7)

**zintzo zintzo** (58)

**zuzen eta zintzo** (4)

**abertzale zintzoa** (5); **adiskide zintzoa** (6); **beti zintzoa** (4); **bezain zintzoa** (7); **borondate zintzoa** (6); **elkarrizketa zintzoa** (9); **emakume zintzoa** (10); **gizon zintzoa** (38); **guztiz zintzoa** (4); **hain zintzoa** (4); **jende zintzoa** (22); **kristau zintzoa** (7); **lagun zintzoa** (7); **lan zintzoa** (6); **mutiko zintzoa** (5); **mutil zintzoa** (11); **neska zintzoa** (7); **oso zintzoa** (5); **pertsona zintzoa** (9); **polizia zintzoa** (4)

**zintzoa baita** (4); **zintzoa da** (48); **zintzoa dela** (13); **zintzoa dirudi** (4); **zintzoa eta zuzena** (5); **zintzoa fedeari esker** (4); **zintzoa izan** (41); **zintzoa izan behar** (5); **zintzoa izan zen** (6); **zintzoa izango** (5); **zintzoa izanik** (4); **zintzoa izatea** (5); **zintzoa izateko** (8); **zintzoa izaten** (4); **zintzoa naiz** (6); **zintzoa zara** (9); **zintzoa zela** (8); **zintzoa zen** (33)

**baino zintzoago** (5)

**euskaldun zintzoak** (6); **gizon zintzoak** (11); **jende zintzoak** (7); **lagun zintzoak** (4); **pertsona zintzoak** (6)

**zintzoak dira** (11); **zintzoak direla** (5); **zintzoak eta gaiztoak** (7); **zintzoak izan** (7); **zintzoak ziren** (7)

**zintzoek bezala** (4)

**asmo zintzoz** (4); **bihotz zintzoz** (10)

---

# zintzoaldi *iz* zintzotasunezko aldia.

Gizakia, harroaldi, itsualdi, pozaldi, eroaldi, urrialdi, itxuraldi, **zintzoaldi**... eta beste hutsaldi ugariz betetako zorro sintetikoa baita. Patziku Perurena

**Zintzoaldiak** jo nau alderik alde, eta behin behar eta, politikaz jardun nahi dut gaur, baina zintzoki, gixonki: politikoek, gurasoek eta intelektualek jardun ohi duten eran. Iñaki Segurola

---

# zintzokeria *iz* zintzotasun gaitzesgarria.

Inork baino mingoskiago ditu pairatu eta ditu salatu euskaldunon estukeria eta abertzaleen **zintzokeria**, esaterako. Joxe Azurmendi

Nik bezala dakizu zintzotasuna eta **zintzokeriaren** arteko aldea ez dela huskeria. Hasier Etxeberria

---

# zintzoki *adlag* zintzotasunez. ik **zintzo 4**.

**Zintzoki** kontatu nahi nituzke egun hartan gertatutakoak. Ander Irizar

**Zintzoki** bete zuen hitza beti. Karlos Zabala

**Zintzoki** jokatzen ari gara eta konbentzituak gaude benetakoa dela. Berria - Euskal Herria

Ez da **zintzoki** mintzo Nafarroako proiektua eta gurea eredu desberdinekoak direla diona. Berria - Harian

Polizia zintzoa, salgai ez dena, egiten du bere inkesta **zintzoki**, beldurrik gabe eta ohartzen da bere ingurumeneko ustelduraz. Herria

-Jakina, nik ere zartako ederrak hartu ditut -aitortzen zion, **zintzoki**, Shevirev doktoreari-. Jose Morales

Debozioz eta **zintzoki** zerbitzatu zituen anaiak, eta santutasun eta apaltasun handiz bizi izan zen. Askoren artean

Zintzoaldiak jo nau alderik alde, eta behin behar eta, politikaz jardun nahi dut gaur, baina **zintzoki**, gixonki: politikoek, gurasoek eta intelektualek jardun ohi duten eran. Iñaki Segurola

Zinez **zintzoki** ariko natzaizu. Xabier Olarra

David, bere aldian Jainkoak emandako egitekoa **zintzoki** bete ondoren, hil egin zen eta bere arbasoekin bildu. Elizen arteko biblia

-Ez nuen uste etxean izango zinenik -aitortu zion **zintzoki**-. Imanol Zurutuza

Zuk esana baita, labur bezain **zintzoki**, jainkozko inspirazioak soilik erakuts diezaiokeela gizakiari egia zer den. Imanol Unzurrunzaga

Armadako aintzindariak ere ez dira arras **zintzoki** gobernatu. Herria

Baliteke zuri gauza horren handia ez iruditzea, baina lan zintzoa da, eta bizimodua **zintzoki** ateratzen dut. Oskar Arana

**Zintzoki** eta gardenki erakutsi dute aurkikuntza albistegi ospetsuenetan. Hasier Etxeberria

Lagun hurkoaren gain har dezakegun onuran datza norberak bere buruaren segurtasunerako eta biziraupenerako duen itxaropena, **zintzoki** nahiz gezurretan lortua izan.

Esteban Antxustegi

**hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
**zintzoki bete** (3); **zintzoki kontatu** (3)

---

## zintzokote *izond adkor* zintzoa.

Eibar errepublika independente moduko bat izan zen urte luzetan Bizkaia eta Gipuzkoa nazionalista eta **zintzokoteen** erdian, abadeen diktaduratik libre samar, mundu ikuskera zabal eta aurrerazalean, ohituren askatasun sano batekin. Koldo Izagirre

---

## zintzoro *adlag* zintzoki.

Komunen bordan sartu orduko zigarroa piztu zuen hortzak **zintzoro** garbitzen zituzten umeen aurrean. Koldo Izagirre

---

## zintzotasun 1 *iz* zintzoa denaren nolakotasuna.

Atsegin ditu Jaunak **zintzotasuna** eta otzantasuna. Elizen arteko biblia

-Eskertzen dizut **zintzotasuna**. Migel Angel Mintegi

Errespetu bera lortu zuela, komunismoaz leporaino eginda, liberalismoaren alde suhartasun eta **zintzotasun** berarekin jarri zenean ere. Ramon Saizarbitoria

Aiurri zintzoko jendeek dohain miresgarria dute; **zintzotasuna** jartzen dute ukitzen dituzten gauza guztietan. Karlos Zabala

**Zintzotasunaren** ezaugarri bada arrotzei ere on egitea, arrotzen mendeku hartzea ez da izango justiziaren seinale. Imanol Unzurrunzaga

VI. ataleko 9. artikuluan erakutsi dugu ongiaren eta gaitzaren, bidezkoaren eta bidegabearen, **zintzotasunaren** eta maltzurkeriaren arauak lege zibilak zirela. Esteban Antxustegi

**Zintzotasunak** alde batera lagata, egiazkotasunaz atzendurik, gatozen egiantzekotasuna deritzan tranpa mortalera. Iñaki Segurola

Inuzentzia edo tolesgabetasun moduko hori ez zen **zintzotasunetik** sortua, baizik eta itxurak eta tolesak [...] ulertzeko ezgaitasunetik. Xabier Olarra

Lisaren **zintzotasuna** fedezko egia zen auzo hartan. Karlos Zabala

Dolmancék ez du inoiz guk geure buruaren gainean ematen dizkiogun eskubideez abusatuko; nire ustez, libertinoen **zintzotasuna** du. Juan Martin Elexpuru / Bego Montorio

Haren bizitzaren bikaintasuna eta jardueraren **zintzotasuna** erakusteko. Askoren artean

Kudeaketan «zorroztasuna, gardentasuna eta **zintzotasuna**» agindu du. Berria - Euskal Herria

Gizon zintzoari bere **zintzotasunaren** ordaina emango zaio, gaiztoari bere gaiztakeriarena. Elizen arteko biblia

**Zintzotasunak** eta leialtasunak zaintzen dute erregea, **zintzotasunean** dago sendo errege-aulkia. Elizen arteko biblia

Lotu gerrikotzat egia, jantzi bularrekotzat **zintzotasuna**. Elizen arteko biblia

Salerosketan **zintzotasuna**. Elizen arteko biblia

Ez dugu, bistan da, postetako langileen **zintzotasunaz** dudatzen, bainan bai arduradun nagusi horiek hartzen dituzten neurri hertxiegiak deitoratzen. Herria

**Zintzotasunezko** eroaldi batean, Mertxerena ere kontatu nion ordu laurden lehenago. Aingeru Epaltza

### 2 (izenondo eta izenlagunekin)

**Zintzotasun** handiz onartu zuen oso txarra zela hizkuntzak ikasteko. **Zintzotasun** moralaren ideal berri batek. Josu Zabaleta

Mendeku-saio hura egin eta gero, barruan gatazka ibili nuen: alde batetik, piztia haren kontra zerbait egin beharra zegoen; bestetik, **zintzotasun** budistari eutsi behar nion. Juan Kruz Igerabide

Bazirudien munduko deabru guztiak bertan elkartu zirela, barrearen bidez **zintzotasun** txiki eta xalo hura hilobira eramateko; eta **zintzotasun** hil berriak berak ere barre egiten zuen. Jose Morales

Aparteko argitasuna eta **zintzotasuna** behar baitu gaur pertsonak deklaratzeko mundu guztiak jakin behar lukeena eta ez dakiena: hots, ur handi edo sakonetan ez dagoela argirik eta ez dela deus ikusten. Iñaki Segurola

Nola lortu testuarekiko **zintzotasun** literala, iradokizun sare hori zapuzteke? Juan Garzia

Tolesgabetasuna nian, jendea armarik gabe uzten zuen berezko **zintzotasuna**. Xabier Olarra

Sinets iezadazu ez dudala egin zu mintzearren, ezpada nire barrena hustearren, erabateko **zintzotasunak** krudelkeria puntu bat izan dezakeen arren. Xabier Mendiguren Elizegi

Nork daki ordea ageriko **zintzotasun** hori ez dion bere fortunaren eskasari zor? Jon Muñoz

Bazuen **zintzotasun** bitxi halako bat, jende oso herabearen ezaugarri izan ohi dena. Mirentxu Larrañaga

### 3 (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

Haritz argizko altzarien eta paper pintatuaren kolore hori leunak **zintzotasun** sentimendu batez inguratu eta ongi-izatezko giro batean murgiltzen zuten, gezurraz eta egiaz zeuzkan ideiak nahasteraino. Karlos Zabala

Tramoia ezkutu hori argira ekartzea posible da noski [...] baina ni ez nau gehiegi betetzen: **zintzotasun**-itxura bat egiten zaio ikusleari, baina hori ere faltsua da azken batean. Xabier Mendiguren Elizegi

**Zintzotasun**-gabezia hori akats bat zen komunismoaren armadura moralean. Iñaki Mendiguren

Hirekin ez zegok lagun minekin bezala hitz egiterik... **zintzotasun**-izpirik ere ez duk! Jose Morales

### 4 (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa)

Bertzalde, giza **zintzotasunak** ez dezakeena, zeruko graziak nahi duenean obratzen du. Jon Muñoz

Zeren sineste osoa baitut gizakiaren barne **zintzotasunean**. Josu Zabaleta

Bere xal ederra sorbalda zabaletan paratu zuelarik, goi **zintzotasunezko** ekintza egiten ari zela sentitu zuen. Karlos Zabala

### 5 *zintzotasunez adlag* ik **zintzoki**.

Niri dagokidanez, bide osoa egin dut, **zintzotasunez** saiatu naiz baliatzen bidean agertutako aukera oro. Aitak, hala bere atsekabeari kontsolamendua emanez, **zintzotasunez** iritsi zuen bizitzaren amaiera. Urtzi Urrutikoetxea

Kontzientziak esaten dit Jainkoak emandako xalotasun eta **zintzotasunez** jokatu dudala edonon, eta gehiago zuen artean. Elizen arteko biblia

Jarrita geratu dira eta Lehiarako Komisarioaren agindu guztiak **zintzotasunez** betetzeko prest daude. Berria - Ekonomia

Elkarrekin mintzatuz gero, **zintzotasunez** elkar kritikatuz gero, aitzina eginen dugu euskaldunok. Markos Zapiain

**Zintzotasunez** mintzo gara, Jainkoaren izenean, beronen aurrean eta Kristok eraginda ari garela jakinik. Elizen arteko biblia

Goxoak egin izan zaizkit beti "subiranotasuna", "autodeterminazioa", "independentzia" eta horrelako hitzak, baina, **zintzotasunez** aitortuta, beldur pittin bat ematen dit Ibarretxe planak. Bernardo Atxaga

Beren aukera garapen ideologiko baten ondorioz **zintzotasunez** eginikoak ditut gogoan, ez oportunismo politiko hutsaren arabera aldatu direnak. Joseba Zulaika

Aurki dadila bai gizon bat ararteko bezala, oro bilduko dituena, pilotaren erakunde zuzenean, denenak entzunez, behar diren hautsi-mautsietaratzeko elgarrekin, legez, zuzenez eta **zintzotasunez**. Herria

**hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**

**zintzotasun osoz** (5)

**bere zintzotasuna** (8); **berezko zintzotasuna** (3); **haren zintzotasuna** (6); **nire zintzotasuna** (3); **zintzotasuna erakutsi** (3); **zintzotasuna eskatu** (3)

**bere zintzotasunaren** (3)

**zintzotasunez jokatu** (6)

---

# zintzotu, zintzo(tu), zintzotzen du *ad* zintzo bihurtu.

Indarra erakutsiezu, ikusiko duzu nola **zintzotzen** diren guztiak. Karlos Zabala

Venezuelara sartu ginen lehen egunetik legea hausten ari naiz, eta azken egunean ezin **zintzotuko** gara! Pako Aristi

Behartu itzazue gizonak lanera eta **zintzotu** egingo dituzue. Juan Martin Elexpuru

Gizakia gezurti eta gaizto antzean sortu bada, jendarteak **zintzotu** al lezake? Berria - Kultura

Bai, minak **zintzotu** egiten ditu pertsonak. Xabier Paya

Mariri Andre Mari gailentzen zaiolarik da emakumea **zintzotzen** eta sugearekin etsaitzen. Iñaki Segurola

Mary aitarekin bizitzera itzuli zen eta aita berehala **zintzotu** zen. Koro Navarro

Sistema oso bat egotea ona iruditzen zait, beharrezkoa, baina, **zintzotzen** eta zentzutzen bagara, ikusi beharko dugu ez garela hainbesterakoak. Berria - Kultura

Ontzen, **zintzotzen**, duintzen, koherentetzen eta gajo-gizajotzen. Iñaki Segurola

---

# zintzur 1 *iz* eztarria.

Kolpetik arnasa loditzen hasten zitzaion, norbaitek **zintzurra** estutuko balio bezala. Joxean Agirre

**Zintzurra** lehor lehorra, mintzatzeko ere ezindua zen. Eneko Bidegain

Zerbait bero **zintzurretik** behera jautsarazteak on egiten zion. Eneko Bidegain

**Zintzurra** urratu beharrean hasi zen: [...]. Matías Múgica

Ondotik **zintzurra** busti eta mutxikoak dantza "Les Dauphins" eta Izartxo" elkarteekin. Herria

*ik beherago* 7. Askoren artean

Horixe zen **zintzurrean** neukan korapiloa. Fernando Rey

Bihotza **zintzurrean** sentitzen zuen taupaka. Iñaki Mendiguren

Errabiak gaina hartzen ziola hauteman zuen, **zintzurrean** listua irensteko trabatzen zuen korapilo bat egiteraino. Elena Touyarou

Hamar segundoan oso bestelako aldartea jarri zitzaidan, **zintzurreko** korapilotik pozezko zoraldira pasatu nintzen. Fernando Rey

Hatsa **zintzurrean** trabatzeko moduko neska panpoxak. Aingeru Epaltza

Poza **zintzurrean** trabatu zitzaien. Fernando Rey

Batez ere amodiozko desengainuak nituen **zintzurrean** trabatuta. Fernando Rey

Joxek **zintzurraren** mugimendutik antzeman dio ttua irentsi duela. Pello Lizarralde

Leher egina, sukarrarekin eta **zintzurreko** minarekin. Fernando Rey

**Zintzurretik** heldu eta ito. Fernando Rey

Soa teinkatu egiten zen, gaizkileari **zintzurra** estutuz arnasa eragozten zion arte. J.M. Olaizola "Txiliku"

Bi silaba haiek apal apala eta **zintzurra** korapilaturik atera zituen, Joanes indar guziekin besarkatu aitzin. Eneko Bidegain

Listua **zintzurrean** korapilatua nuen nik. Josu Zabaleta

-Nik? -galdetu nuen ahotsik gabe ia, harri eta zur, nahasmendua **zintzurrean** korapilatuta. Ander Irizar

Goialdetik, gurpilen kalapita isilaraziz, **zintzurra** estutzen zion auhen lazgarri bat zetorren. Lopez de Arana

Laguntza deia **zintzurrean** emokatu zitzaion. Itxaro Borda

Poliki-poliki edan zuen, garagardoaren mikatza **zintzurretik** behera lerratu bitartean su eta gar emana gogoetei. Migel Angel Mintegi

Hator, **zintzurra** bustiko diagu elkarrekin! Anjel Lertxundi

Whiskyak **zintzurra** erre zion. Lopez de Arana

**Zintzurra** karrakatuz ari zen. Itxaro Borda

Neronen damuak baztertu nituen, lurpean berrogeita zortzi orduz sutan egosi zikiro saltsaren gustu bereziak **zintzurra** laztantzen zidalako. Itxaro Borda

Ez ditut 99 urte kartzelan pasa nahi nire senar onari **zintzurra** ebaki niolako; otoi, bidal nazazu aulki elektrikora, epaile jauna. Harkaitz Cano

Ziztuan igo baitzen alminarrera eta kolpe batez **zintzurra** moztu baitzion agureari. Jon Alonso

Gustura bihurrituko zion **zintzurra**. Koldo Biguri

Zunda **zintzurrean** ondo sartu, milikeriarik gabe, urdailaren hondoa ukitzen duela sentitzeraino bultzatuz. Juan Garzia

Kapelarik gabe, adatsa modan orraztua, korapilo apaingarri bat **zintzurrean**. Karlos Zabala

## 2 (izenondo eta izenlagunekin)

Charly ere ametsen mundutik itzulia zen, bere **zintzur** erlastua gehitzera kantaren leloari. Aingeru Epaltza

Ahoa oker, ilea haizeari emana, bere **zintzur** idorretik txistu ulertezin bat baizik ateratzen ez zela. Karlos Zabala

Mamorrozoen **zintzur** likatsuetan letxuga-zatitxoak bultzaka sartuz. Iñaki Mendiguren

Lepo mehe eta **zintzur** iharra. Xabier Olarra

## 3 (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

Tarte luzez, uxualaren **zintzur**-tutuan beherako jarioa izan zen hots bakarra. Harkaitz Cano

Alkandora zimurtu batez jantzia, **zintzur** korapiloa gora eta behera saltoka. Koro Navarro

Sudurraren zabalak areagotutako **zintzur**-hotsaren zakartasunak traizionatzen zuen, zaunkaka hitz egiten zuela irudi baitzuen. Anjel Lertxundi

Ardien marraka eztia eta astoaren **zintzur**-karraka elkorra aditu nizkian. Itxaro Borda

Eztul, **zintzur** karrakatze zenbait, berantetsiak bezala, entzun ziren. Michel Oronoz

Amaren urratsen zirrizarra etsitua eta aitaren **zintzur** korrokak ez zitzakeen gehiago jasan. Itxaro Borda

Zeren, herensuge **zintzur**-luzeen idurirat, olak ere ez baitu bere gosea nehoiz asetzen. Joan Mari Irigoien

## 4 (elkarketa kopulatiboetan)

Azken xortak edaten ditu, aho-**zintzurrak** loriatuak. Michel Oronoz

## 5 irud/hed

Ekain, Altxerri et Otsozelai harpeen **zintzurrean**. Berria - Kultura

Besoak karranpa eginda dauzkazularik ipurdiko **zintzurra** estutu eta jadanik zazpi arroa pisatzen duen adarra behar adina sakonduz estroboari intziri sanoa eragiteko gauza izatea. Koldo Izagirre

Ipur-**zintzurretik** harrapaturik nengoen eta nire barruan hazten ari zena porrot soziala zen nolabait. Joseba Urteaga

Aurrera, bada, zaldun!, baina kontuz ibili; begira zein estua den zeharkatu behar duzun bide-**zintzurra**: ba ote dago proportziorik kirtenaren eta ontziaren artean? Juan

Martin Elexpuru / Bego Montorio

**6** mendien arteko igarobide sakon eta estua.

Ibar sakon bat da, **zintzur** estu bat bi malda harkaiztsu, basoz bete, handiren artean. Josu Zabaleta

Zeina Jonio itsasoak, bihurkera handietan igeri, uhin berdeen garraztasunez bustitzen duen eta non itsas uhin azkarrek, **zintzur** estuan barrura, Eoliako lur bazterrak irlaren mugetatik bereizten dituen. Xabier Amuriza

Auverniako bainu herritxo batean zen hori guztia, Châtel-Guyon-en; **zintzur** batean dago, mendi garaien oinean, antzinako sumendien su sakonetatik borborka ateratzen den ur irakina azaleratzen den mendiaren oinean. Josu Zabaleta

Txinako Hiru **Zintzurren** urtegian, adibidez, badira Frantziako enpresak lanean. Berria - Euskal Herria

Segada batean atzeman dituzte, mendi **zintzur** batean. Xabier Montoia

Andiako erreka **zintzur** batean jarri omen hituan, traidore muturbeltza noiz azalduko. Patziku Perurena

**7** ***zintzur-bustitze*** *(orobat **zintzurbustitze** g.er.)*

11.00: Meza Zuraideko Elizan, ondotik **zintzur bustitzea**. 11etan **zintzur bustitzea** SORHUET-ETCHEVERRY kantariekin. Herria

Eguerditan **zintzur bustitze** baten inguruan Jorajuria gure taldearen aintzindariak eman ditu urteko konduak. Herria

Segidan **zintzur bustitzea** eta bazkaria oren batean. Herria

Ondotik omore gaitzean **zintzur bustitze** eta afaria. Herria

**Zintzur bustitze** denboran helduek dute ideki bertsu saioa, han kausitzen ziren jendeak agurtuz. ortzirale aratsean, 8-ak eta erdietan, Azkainen, Biltoki gelan, Korrika desfilea eta ondotik **zintzur bustitzea** taloekin. Herria

-Noizko duk **zintzur bustitzea**? -galdegin zion bizkarrez konkor bezain zardai zenak, zigarroa ezpainetan dilindan. Itxaro Borda

Haurrak kantu eta antzerkian aritu eta **zintzur bustitze** batekin ospatu zuten ehun bat guraso jinak zirela. Berria - Euskal Herria

Denak goxoki egon dira eskainia zen **zintzur bustitzean** eta ere talo ta xingar gogotik gozatu dute. Herria

Besta horiek ortzirale huntan hasiko dira, aratseko 8-etan, Emak-Hor taldeak airostuko duen **zintzur bustitzearekin**. Herria

**8** *zintzur egin* ik **beherago 11.**

**9** ***zintzur heste*** *(orobat **zintzurreste**)* trakea.

Arnasa hartzen dugunean, trakeatik (**zintzur-hestetik**) biriketara igarotzen da airea. Irene Aldasoro

Gogorrago, gogorrago, hatzak astiro mugitu ziren Setheren **zintzur-heste** aldera, bidean zirkulu txikiak eginez. Anton Garikano

Abotsak sarritan eztarria mintzen eta, oihuak kanporatzean, **zintzurrestea** garrazten du. Xabier Amuriza

**10** ***zintzur sagar***

Kopeta zabala zuen, begi urdinak, sudur estua, lepo luzea, **zintzur-sagar** irtena. Koro Navarro

**Zintzur-sagar** nabarmeneko gizon musugorri batek. Lopez de Arana

Irudi zuen Luxiaren aurpegia saiheska ikusten zela beti, eta zorrotz-zorrotza zuen **zintzur-sagarra**. Koro Navarro

Begira segitu zuen, **zintzur-sagarra** gora eta behera, mastekatu gabeko kuskusa irentsi izan balu bezala. Bego Montorio

Kokotsa dardara batean dauka, hizketan hasi behar duela dirudienean **zintzur sagarra** baino ez zaio mugitu. Koldo Izagirre

**11** ***zintzurra egin*** *(orobat **zintzur egin**)* zintzurra ebaki.

Inori **zintzurra egin** behar izan gabetanik jabetu ginen ontziaz, oinutsik, labana eskuan. Koldo Izagirre

Frantzia gure auzoan, urteak zituzten Erreformaren aldekoak erretzen eta itotzen, urkatzen eta **zintzur egiten**. Aingeru Epaltza

Noizbait felagak agertu, zuen ondasunak ebatsi, zuen emazteak bortxatu eta **zintzurra eginen** dizuete. Xabier Montoia

Baina ezin bere baitan anabasan zeuden sentimenduak argitu: alde batera, erakarri egiten zuen, eta, bestera, **zintzurra egingo** ziokeen. Patxi Zubizarreta

Warwick-eko kondeak esku hartu ez balu, **zintzur egingo** zioten bertan. Juan Garzia

Niri jadanik ez zidaten penarik ematen, **zintzurra egindako** axuri bat eta zoritxarren bat zuen edonor ikuste hutsarekin negarrez hasten nintzen honi. Fernando Rey

· Ontziburu berriari paparretik oratu eta **zintzurra** ere **egingo** bainiokeen haren berri esan ezean, ala deabrua! Edorta Jimenez

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
>
> **eguerditan zintzur bustitze** (3); **eguerditan zintzur bustitzea** (9); **errebotean zintzur bustitzea** (4); **eskaini zintzur bustitze** (4); **eskaini zintzur bustitzea** (9); **gero zintzur bustitze** (4); **gero zintzur bustitzea** (4); **mendi zintzur batean** (3); **ondotik zintzur bustitze** (15); **ondotik zintzur bustitzea** (30)
>
> **zintzur bustitze** (106); **zintzur bustitze bat** (32); **zintzur bustitze batekin** (6); **zintzur bustitze baten** (6); **zintzur bustitze denboran** (3); **zintzur bustitzea** (164); **zintzur bustitzea kazernan** (3); **zintzur bustitzean** (5); **zintzur bustitzearekin** (4); **zintzur bustitzearen** (6); **zintzur bustitzearen ondotik** (3); **zintzur bustitzerat** (5); **zintzur egiten** (3); **zintzur karraka** (3); **zintzur sagarra** (5)
>
> **zintzurra busti** (4); **zintzurra ebaki** (4); **zintzurra ebakitzeko** (3); **zintzurra egingo** (5); **zintzurra estutzen** (4); **zintzurra lehor** (4); **zintzurra moztuko** (3); **zintzurra tinkatu** (3); **zintzurra urratu** (3)
>
> **zintzurraren inguruan** (3)
>
> **zintzurrari heldu zion** (3)
>
> **zintzurrean behera** (7); **zintzurrean gora** (3)
>
> **zintzurretik behera** (5); **zintzurretik heldu** (4)

---

## zintzurbustitze ik **zintzur 7**.

---

# **zintzurreratu**, zintzurrera(tu), zintzurreratzen da/du *ad* zintzurrera joan; zintzurrera eraman.

*Cutty Shark* botila bat hartu eta tragoxka bat **zintzurreratu** zuen. Harkaitz Cano

Ginebrarik ez balute ondoan nahi adina **zintzurreratzeko**, hanka eginen liketek, istant bat ere gabe, ingeles soldadutxoek. Aingeru Epaltza

Noizbehinka, temesta pastilla bat **zintzurreratzen** dut oraino zainen lasaitzeko, senargaiaren aiduru nagoela adibidez. Itxaro Borda

Uso eta txolarreei erreparatzen nien, elkarren arteko lehian, ogi apurren bat nork lehenago **zintzurreratuko**. Hasier Etxeberria

Kosk egin eta sudurretik **zintzurreratu** zen trufaren lurrina: Lurraren puska bat jan izan banu bezala. Joxan Elosegi

Aurrera erauzkinekin, nahiz hala-hola eginak izan, ur beroz eta prentsagailuz, eta gero huspean kontzentratuak: untxiei hestegorriraino **zintzurreratu**, eta haien gluzemia neurtu. Juan Garzia

---

## zintzurreste ik **zintzur 9**.

---

# **zintzurrondo**

**1** ***zintzurrondoan*** zintzurraren ondoan.

Inoiz ez zuen igogailurik hartzen, badaezpada ere, toki itxia oso egokia izaten baitzen labana **zintzurrondoan** sentituz sosik gabe gelditzeko. Iñaki Zabaleta

## **zintzurtu**, zintzur(tu), zintzurtzen du *ad* zintzurra egin.

-Ni ez nauk ezertaz oroitzen, baina egia izan behar dik, ezpainetan nekarren odola aztertu zidaten atxilotu ninduten gauean, eta auzoan hila azaldu zen bikote gazte **zintzurtu** batena zen. Koldo Izagirre

---

## **zinu** *iz*

Hirugarrenak **zinua** esan nahi du, hirugarren egunak urratzen duela bidea, alegia. Pello Zabala

---

## **zio** 1 *iz* zergatikoa, arrazoia.

Zeren, onartzea kosta egiten bazaigu ere, arrazoia, kausa, jatorria, **zioa**, zergatia, denak bilatu behar dira, eta beharbada aurkitu ere bai, erregearen diskurtsoan. Jon Alonso

Ondorio bat baino ez duk, eta egunen batean norbaitek epailearena egin nahi badu, ez dik aski poliziaren txostena, eta zuzenbideko doktoreek **"zioa"** esaten dioten hori ezagutu behar dik. Xabier Olarra

Argitu egiten zitzaidan bat-batean Virginia beti bakarrik edo beste neskekin, eta sekula ez mutilekin, ibiltzearen **zioa**: marinelek bolada luzeak egiten zituzten itsasoan. Bernardo Atxaga

Maddi izan zen, handik aurrera, Antonioren bizitzaren erdigunea eta **zioa**. Iban Zaldua

Indiako musulmanek behin eta berriro Pakistanen sorrera eskatzeko **zioa** ahuldadearen kontzientziatik sorturiko beldurra zen. Iñaki Mendiguren

Esperantzarari eusteko **zioa** ez da su-eten iraunkorra eman dutela, baizik eta hori hildakorik gabeko hiru urteren ostean gertatu dela. Berria - Harian

Horrelakorik egiteko **zioak** zeintzuk izan diren jakiterik izan ez dugula. Jon Alonso

Ezin jakin daitekeena da zer **zio** emango duten halako erabaki larriaren aitzakia gisa. Jon Alonso

Ezin halakorik, oraino neure ondare baititut, hilketa egiteko **zio** eta jomuga nituenak: koroa, neure handinahia eta erregina. Juan Garzia

Bazirudien pertsonaiekiko enpatiarik ezak sortzen ziola arazoa, eta **zio** eta asmoen joko katramilatua ez ulertzeak. Xabier Olarra

Beste **zioa**, berriz -zergatik ezin dudan jo, alegia, auzibide publikora-, jende arruntak printzeari dion bihotzaldia duzu. Juan Garzia

Izan ere, adierazlea **"ziorik** gabekoa da, hots, arbitrarioa, adieraziari buruz, honekin ez baitu errealitatean inongo uztardura berezkorik". Isabel Arrigain

**2** (izenondo eta izenlagunekin)

Nazio batek ez baditu bere egoeran ikusten **zio** handiak arrazoi politikoari jarraitzeko, zuhurtasun handiz jokatuko du, arrazoi zibila gidaritzat hartzen badu. Andres Urrutia

Auzi arau-emailea, jite tradizionalekoa, gure usteentzako **zio** onik ba ote dugun jakin nahi duena, auzi enpiriko batekin ordezkatu beharko litzateke. Askoren artean

«Ideologikoa da» kontra egin dutenen **zio** nagusia. Berria - Euskal Herria

Kantari gentozen, zaldiz, eta ez zen hori zoriontsu sentitzeko nuen **zio** bakarra. Juan Garzia

Haiek nik baino **zio** gehiago dituzte borrokatzeko. Berria - Kirola

Lege grekoek eta erromatarrek **zio** berbera izan gabe zigortu dutela suizidioa. Iñaki Iñurrieta

Confebask ere bai, baina **zio** ezberdinengatik. Berria - Ekonomia

Bide bat ala besteren artean, arrazoiak haztatu eta -azkenean **zio** absoluturik ez baita egongo-, arriskatu eta hautatu egin beharko dugu. Joxe Azurmendi

Irabazi nagusia mozkinaren **zio** egoista herri-zerbitzuaren **zio** altruistaren mende jartzea izan zen. Iñaki Mendiguren

Nork berma dezake, dibortziorako arrazoirik azaldu ez delarik, horretarako **zio** nahikorik badagoela? Andres Urrutia

Arrazoi onaren nozioa ez da psikologia enpirikoaren kontzeptua, ez da nozio zientifikoa, asko jota **zio** filosofiko baten "tresna" da bakarrik. Askoren artean

Herskari sabaikari > afrikatu ordezkatze horren **zio** fonetikoa erraz ikusten da, gauzak ebakeraren aldetik aztertuta. Lourdes Oñederra

Ez zen aski, "jada ez zaitut maite" hura ez zen inondik inora zentzuzko **zioa**. Aritz Gorrotxategi

Frantzian onartu egiten dira erromatarrek ordezkapenez egin ia lege guztiak, baina ordezkapenek erromatarren artean zutenaren guztiz bestelako **zioa** dute. Iñaki Iñurrieta

Zenbaitek denetan ikusten du isekarako **zioa**. Jon Alonso

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
> **horren zioa** (4); **zio fonetikoa** (4); **zio nagusietakoa** (3); **zioa izan** (3)

---

## **zione** *iz ipar* pila.

Deklamatu bitartean eskua irudiz kukusoz hanpatu ile **zione** harroan pasatzen zuen: [...]. Itxaro Borda

Bilo **zione** zurpaileko gizon bat, izugarri luzea, mimena bezain zardaia eta mehea. Itxaro Borda

Arren bertsetekin beno denbora haboro galtzen da sar-jelkietan eta harat-honaratetan, süstut aktür **zione** handi batekin. Herria

Hortako jente **zionea** mügatü behar da heren mündüan ere: azken püntü hortaz, orano lauso dabila Eliza Katolikoaren bürüzagitza (hau ene oharra da). Herria

Nik lanaren izerdiaz gaitzeko sos **zionea** metatu diat eta Wattsen bizi nuk, ederki. Itxaro Borda

Etxeratzean jaten nuen gasna **zioneak** ez zidan amodio eta intimitate premia ordezkatzen, biak debekatuak bailitzaizkidan. Itxaro Borda

Trabuko ttattit geratzen zen bere gantza **zioneak** aldiz borondatez kanpoko ikarak zeuzkala. Itxaro Borda

---

## **zip**

**1** ***zip egin*** blai egin.

Eta ondoren bordatik etxera bidean, kazkabar euritan **zip** egina, motiko ttiki hark ekartzen zuen poza? ekaizte ikaragarri hartatik salbo, abereak aterbe beroan lizarrosto jaten utzi zituelako palentia burutik ezin kenduz? Patziku Perurena

---

## **zipa**[1] *iz* txanpona.

Arrainen eta **zipen** harrapatzeko ahuspez luze etzanda egoten nintzen zubi hura. Ana Urkiza

---

## **zipa**[2]

**1** ***zipa-zipa egin***

honekin esan nahi dena da Raimundo Silva ibilbidea oinez egin izan balu ez zatekeela dagoena baino gehiago bustiko, **zipa-zipa** eginik dago. Jon Alonso

**zipaio** **1** *iz* Indiako soldadoa, Britaniar Inperioaren armada kolonialeko kide zena; *adkor* Ertzaintzako kidea.

Txakurrak espainiar poliziari, oiloak frantsesei, **zipaioak** ertzainei... eta uniforme artean asko bereizi gabe xukela, alegia, txakurra erromintxelaz ijitoek. Iñigo Aranbarri

Txakurrak, oiloak, **zipaioak**... ez dago jokabide bakarra noiz den definizioa eta noiz den iraina neurtzeko orduan. Iñigo Aranbarri

Kausaren zoritxarrerako eta nire zorionerako, **zipaioek** ez zidaten jipoirik ez tratu txarrik eman. Xabier Mendiguren Elizegi

Zelako diferentzia, antzinako gris ipurdi-handi motel haien eta **zipaio** kankarro hauen artean! Iban Zaldua

**Zipaioa** zela eta kontuz ibiltzeko aurrerantzean. Hasier Etxeberria

Nik ez ditinat **zipaioak** maite, ezta banketxeak ere. Juan Luis Zabala

Hamaika bala sartu dizkiote Inaxi Zeberiori, enboskada bat izan da eta hiltzera joan dira, garbi-garbi, hogei **zipaio** armaturik, txaleko antibalekin, lotan zegoen borrokalari baten aurka... gutxi iruditzen al zaizkik **zipaioek** orain arte hil, saldu, atxilotu, torturatu dituzten borrokalari guztiak? Pako Aristi

**Zipaioa** zela eta kontuz ibiltzeko aurrerantzean. Hasier Etxeberria

**2** (izenondoekin)

Orain, autonomiaren izenean hain zuzen, **zipaio** armatuak erabiltzen dituzte gupida gabe Igor eta Robertoren heriotzengatik dolua erakusten duten herritarren kontra. Berria - Euskal Herria

Laster beteko dun ingurua **zipaio** nazkagarriz. Patxi Iturritegi

'Polizia hiltzaile' eta **'zipaioak** hiltzaileak' oihu ozenenak. Berria - Euskal Herria

**3** (hitz elkartuetan)

**Zipaio** jarrera horri eusten dioten bitartean, zipaioak bezala tratatuko ditugu. Berria - Euskal Herria

Batzuetan **zipaio** furgona bat atzeraxeago gelditzen duk, eta horrekin ibili beharra zagok kontuz -Karlos beti buruzagi-. Urtzi Urrutikoetxea

---

**zipaiokeria** *iz* zipaioari dagokion ekintza gaitzesgarria.

Preso eta iheslarien alde, epaiketei erantzunez, torturaren aurka edo **zipaiokeria** politikoari hortzak erakutsiz, milaka eta milaka gizon eta emakumek hartzen dituzte astero Euskal Herriko kaleak eta plazak. Berria - Euskal Herria

---

**zipatu** *(24 agerraldi, 10 liburu eta 2 artikulutan; orobat* ***txipatu*** *5 agerraldi, 3 liburutan eta* ***xipatu*** *6 agerraldi, 4 liburutan)*, zipa(tu), zipatzen da/du *ad* blai egin.

Zer trenpaldia, buru kaskotik zango puntetaraino **zipaturik** ginaudelarik, aterbean ez ginenak bederen! Herria

Ama ez zen ohartzen ere bustitzen, **zipatzen** ari zela. Daniel Landart

Bi neska pollit pasatu ziren nire ondotik eta irri egin zidaten zorrottorik gabe euritan **txipatzen** ari nintzela ikusita. Fernando Rey

Euriak ez zuen barkatu, azken finean, berdin **zipatua** gelditzen da bat itsasoan erori edo norberaren herrixkako errekan erori. Jon Alonso

Hezurretaraino **zipatua** zen, eta hotzez dardaran zegoen. Elena Touyarou

Malko isilek **zipatua** ageri zitzaion bisaia. Aingeru Epaltza

Hezurretaraino **zipatua** zen, eta hotzez dardaran zegoen. Elena Touyarou

Ahmet biharamun goizean ailegatu zen bere zaldian, hagitz tente, izerditan **zipatua**. Fernando Rey

**2** irud/hed

Goizegi zen arratsaldea kankarroz **zipatzeko**, baina jadanik banekien kafea ez zela izanen zapart egin gabe egoteko lagungarririk hoberena. Aingeru Epaltza

Odolez eta izerdiz ez ezik, arnoz ere **zipaturik** bururatu nuen eguna. Aingeru Epaltza

Soingainekoa erabat urratu zen eta ni buruz beheiti erori nintzen legarrezko zola beltz olioz eta lurrunez **txipatura**. Fernando Rey

---

**zipertu**, ziper(tu), zipertzen du *ad* animaliez mintzatuz, akabatu.

Etxekoak ez diren piztiekin, akabatu erabili ohi da, edo kalitu, edo garbitu, edo **zipertu**... Iñigo Aranbarri

---

**zipil** *izond*

Etxetartetik tabernara aldika arrain saldoen bizkar-distirak gogoraraziz eguzki **zipilak** urazalari ateratzen dizkion printzak heltzen direla, badirudi udaberriak etorkizun emankorrago baten promesak dakartzala guztientzat. Pako Aristi

---

**zipildu**, zipil(du), zipiltzen **1** du *ad* erre, kiskali.

Bere artilezko jaka kedar-kolorea erabiltzen zuen, sakelen aldean saretua eta **zipildua**, sugarra haizetik babesteko. Fernando Rey

Eguzkiak **zipildu** bisaia horiek bata bertzearen ondotik datozkizularik, bitxi zaizu egoera. Xabier Montoia

**2** (era burutua izenondo gisa)

Gainontzekoa [...] identifikagarria zen, edo ia, gorputz ikaztuak, **zipilduak** eta ondo gardostuak gorabehera. Fernando Morillo

---

zipilu ik **zepillu**.

---

zipit ik **zipitz**.

---

**zipitodun** *izond*

Jantzia jaso diogu eta Maurice Barrès garrasika hasi da: "Kontuz, galtza **zipitodunak** ditut", baina odoletan hasteraino jo dugu ipurdian, eta bioleta petaloekin Déroulèderen burua marraztu dugu bertan. Monika Etxebarria

---

**zipitz** *(orobat* ***zipit*** *g.er.)* **1** *iz* (-ik atzizkiaz ezezko esaldietan) ezertxo ere ez.

Ez zen **zipitzik** ikusten. Xabier Mendiguren Elizegi

-**Zipitzik** ez zitzaion gustatu. Aingeru Epaltza

Giulio hura inozo samarra zela, ez zuela **zipitzik** ere entenditzen erdaraz. Xabier Mendiguren Elizegi

**Zipitzik** ere ez gehiago, jauna. Juan Garzia

Baina ez zioat asmo honetaz inori **zipitzik** ere esango. Txillardegi

Ez omen zaio **zipitzik** ere inporta. Pello Zabala

**Zipitzik** ere interesatzen ez berari dena lehendik ere gertatu izana. Joxe Austin Arrieta

Aldaize zeharkako horiei ez diet beldurrik, ezta **zipitzik** ere. Pello Zabala

Ez dut **zipitzik** balio benetan, baina hark are gutxiago. Karlos Zabala

Giza itxuratik **zipitzik** ez duten zomorro batzuek ageri dira, saskibaloian jokatzen. Pako Aristi

Bien bitartean, liburu honen kontua **zipitzik** inporta ez zaien bitartekariek: argitaleetxeek, hedatzaileek, liburudendek, eta antzekoek, ale bakoitzeko beren diru puska aterako dizute. Patziku Perurena

Horrek ez du **zipitzik** axola. Anjel Lertxundi

**2** (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa)

Ideiarik ez, ideia **zipitzik** ere ez. Joxemari Iturralde

Ez dugu ideia **zipitzik**. Berria - Harian

Duda **zipitzik** ez. Patziku Perurena

Zalantza **zipitzik** gabe, urteko 12 hilabeteotatik, martxo zorioneko hauxe da esaera zahar eta atsotitz gehien bildu dituena. Pello Zabala

Ateraldiak ez dit grazia **zipitzik** egin, eta hala adierazten diot. Anjel Lertxundi

Ulertzen nuen, baina ez zidan grazia **zipitzik** ere egiten. Harkaitz Cano

Baina neskak ez dio kasu **zipitzik** ere egin. Patxi Iturritegi

Japoniarren buila eta algarei kasu **zipitzik** egin gabe. Joxemari Iturralde

Kultuzkoa baduk behintzat, inork ez ziok eta kasu **zipitzik** egiten. Harkaitz Cano

Nik ez nuen gogo **zipitzik**, baina Hermanni halako moduz eman zion kasketak frau Gerda ezagutu behar nuela, ezen besotik heldu baitzidan eta ezkaratzeraino eraman. Anjel Lertxundi

Bisustuko egunari ez baitiote jaramon **zipitzik** egiten: ez balitz bezala. Pello Zabala

Ahalke **zipitzik** gabe gizon batekin etzan zen, eta are laidogarriago, sotanadun batekin. Elena Touyarou

Jende ezberdina bada, hobe, atxikimendu **zipitzik** ere sentitu behar ez zenukeen bi ezezagunen istorioekin liluratu zaren unetik. Zintzoak izanen dira itzulpen horiek agian, baina, euskal ñabardura **zipittik** ere gabe, zozoro eginak. Pako Aristi

**3** (izenondo gisa)

Garizumak errespetu berezia zizula, horretan ez da kabitzen zalantza **zipitzenik** ere. Pello Zabala

---

# ziplatu, zipla(tu), ziplatzen du *ad*

Gogoan dut nola [...] *Revista Mexicana de Literatura*ren lehen zenbakia prestatzen ari ginela eta erabaki behar genuelarik zertaz idatziko genuen bakoitzak zenbaki horretarako, *Lautada sutan* eta *Pedro Páramo* irakurri berri eta horrek **ziplaturik** nengoenez, ausartu nintzela esatera artikulu bat idatziko nuela Rulfori buruz. Juan Garzia

Kalkulatu zuen Juanek profeta baten tonu larriz **ziplatuko** zituela anulareak; harekin bat ez egitearren, laidoa hautatu zuen. Juan Garzia

---

# ziplo 1 *adlag* bat-batean.

**Ziplo**, kolpe baten indarraz, esan berri zuena ulertu zuen. Agustin Otsoa

**Ziplo** hilko zuen albiste horrek. Jon Muñoz

Handik segundo batzuetara, **ziplo** akabatzen dute animalia aire-pistolaz garunean sartzen zaion iltze batez. Xabier Olarra

Hamazazpi urteko bizitza **ziplo** kontatua, minutu gutxi batzuetan. Jon Muñoz

Untxia hemendik untxia handik, halako batean Giulia etorri, eta **ziplo** bota zidan nire premia zuela. Juan Garzia

Gogoangarria izan zen gelara etorri eta infernurik ez zela **ziplo** bota zigun eguna. Joxerra Garzia

Bat-batean beste burutapen bat etorri eta **ziplo** eten zion aurreko gogoeta. Karlos Zabala

Bat-batean, solasaldia eten eta **ziplo** mututu ziren. Agustin Otsoa

Urtemuga ospatu eta hurrengo egunean **ziplo** jabetu nintzen nire egoera berriaz. Iban Zaldua

Egun hartan bertan bueltatu behar zenuela Eskoziara bota zenidan **ziplo**. Xabier Mendiguren Elizegi

Ivyk orduantxe agindu ere bai niri, **ziplo**, zentzudun jokatuko zuela aurrerantzean. Joxe Austin Arrieta

Atarira sartu bezain laster, **ziplo** erori zen Kontxi. Berria - Euskal Herria

Haize tipo hauxe da iragarpen guztiak **ziplo** botatzen dituena. Pello Zabala

Mikel **ziplo** geratu zen bere begien aurrera agertutako Soundcraft harekin. Unai Iturriaga

Ustekabeko ideia batek edo beste zerbaitek ziztaturik, **ziplo** galdetu zuen: [...]. Jose Morales

Isilune bat egin zuen eta, gero, bat-batean oroitu izan balitzaio bezala, **ziplo** esan zion-: [...]. Patxi Zubizarreta

Eta nik **ziplo** galdetu: [...]. Txillardegi

Charronek, **ziplo**: [...]. Matías Múgica

**2** irud/hed

"Zu ez arduratu", esan dit lo **ziplo** geratu aurretxoan. Patxi Zubizarreta

Eguerdiko 12:00ak zirela (hiru ordu gutxiago gurea) iritsi ziren hiru mendizaleak Gasherbrum mendien magalera, «nekatuta baino gehiago, **ziplo**». Berria - Kirola

Emakumea **ziplo** dago lurrean. Berria - Kultura

Hartzeko zegoen prest haurraren biberoia, eta **ziplo** hustu nuen segundo pare batean. Joxan Elosegi

Oihu lazgarri bat egin, eta **ziplo** jausi da lurrera. Patxi Zubizarreta

K.L.-ren bisitak, nola esan, **ziplo** utzi gintuen. Karlos Linazasoro

Haginkada pare bat eta **ziplo**!, beste bat behar nuen. Joxan Elosegi

Bihotzekoak jo eta **ziplo** gelditzeko bertan. Pablo Sastre

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
> **lurrera ziplo** (4); **ziplo bota** (8); **ziplo bota zidan** (3); **ziplo erori** (13); **ziplo erori zen** (10); **ziplo eroriko** (5); **ziplo galdetu** (3); **ziplo gelditu** (3); **ziplo lurrera** (4)

---

zipo ik **zipu**.

---

**zipoka** *adlag* probokatzen.

Bazkalorduan dukea zirika eta **zipoka** aritu zitzaion eta erran zion ezen, zezena lantzaz hartzen bazuen eta suerte hartan akabatzen, urrezko hamar dukat emanen zizkiola. Joan Mari Irigoien

---

**zipote** *iz*

Gure **zipotea** bost umeetan altuena da eta, besoa altxatu eta eskua bere buru gainean astindu duenean irribarrez, koko mamia diruditen haginak erakutsiz, bere anaiarrebek berdin egin dute. Joseba Sarrionandia

Bluefieldsgo **zipotearen** lur koloreko aurpegia. Joseba Sarrionandia

Sukalde ilunetik **zipote** bat agertu da ezari ezarian, beltzarana, oinutsik. Joseba Sarrionandia

Lurraren koloreko **zipotea** indioen eran dago zoruan eserita, izter belaunen gainean aldizkari bat irekita. Joseba Sarrionandia

Palma hosto luzeari buru gainean bi eskuez eutsirik, **zipotea** arineketan doa euripean. Joseba Sarrionandia

'Gorriak, euriari begira eman du hilabete guztia,' dio **zipoteak** ingeles axolagabez. Joseba Sarrionandia

---

**zipotero** *iz* inauterietako pretsonaia.

Horri lotua, ihautetako Ziripot ezaguna genuke, ageri denez, **Zipotero**, Zipotegato eta gisakoen guraso izana. Patziku Perurena

Otsailaren 4ean hasiko dira Tuterakoak (hiru egunez) beren **zipotero** bereziekin eta Bilbokoak (lau egunez). Herria

---

**zipotz** **1** *iz* upelaren edo kidekoen zuloa ixteko ziria.

Komunean abortatu nuen momentuaz pentsatzen dudan bakoitzean, konparazio berak etortzen zaizkit gogora, obus edo granada baten jaurtiketa, upela batetik askatzen den **zipotza**. Joseba Urteaga

Hagitz gustukoa izan dugu, **zipotzak** irekirik iraun duen bitartean. Berria - Kultura

Botila hartzera egin du baina neska aurreratu zaio, **zipotza** kendu eta godaleta bete. Koldo Izagirre

**2** *izond* buruhandia, burugogorra, aiurri txarrekoa.

Robert Liston, bestalde, gizon **zipotz** eta harroputza zen, ingurukoekin batere ondo konpontzen ez zen pertsona. J.M. Olaizola "Txiliku"

Bien arteko harremanak betidanik tirabiratsuak izan ziren, hala nola gertatzen den izaera antzekoegiekin: biak ala biak ere zakarrak ziren, **zipotzak**, suminkorrak. Patxi Zubizarreta

Laster geratu zen argi berak ere, su artifizialezko lau memelokeria alde batera utzita, ez zekiela ezer, eta gainera, nahikoa **zipotza** zenez, niri mehatxua eginda bukatu zuen azalpen-saioa. Jon Alonso

Beti izaten dira mihigaiztoak bizitza eredugarriak dituztenen inguruan, eta are gehiago pertsona harroputz eta **zipotzak** badira. J.M. Olaizola "Txiliku"

Musugorria, begi bizi saltariak, **zipotz** samarra eta zitalegia, lapurrak eta bide txarreko jendeak lagun zituena. Patxi Ezkiaga

**3** (adizlagun gisa)

Lupin maisuaren izena aipatze hutsarekin begiek dir-dir egiten zioten mehatxuz, eta sekula baino **zipotzago** jokatzen zuen Nevilleren aurka. Iñaki Mendiguren

Bertakoekin horren haserre eta **zipotz** portatzen den papogorria da, kanpotik etorritako kuku gaizkile harro alferrari ostatu ematen dion hegazti bakarretakoa. Patziku Perurena

---

**zipozkeria** *iz* zipotzari dagokion egintza gitzesgarria.

Nere **zipozkeria**... Patziku Perurena

---

**zipoztaile** *izond*

Arteritis **zipoztailea**: ur karbogaseosoak. Berria - Euskal Herria

---

**zipoztu** *iz* zipozkeria.

Azken **zipoztuan**, jakina [...] edozertako gai den batek popatik hartzera bidaltzen ninduela adierazi zidan telefonoz Axier Azpilikueta gazteak. Patziku Perurena

---

ziprear ik **zipretar**.

---

**zipres** *(24 agerraldi, 2 liburu eta artikulu 1ean)* **1** *iz* pinuaren ordenako zuhaitza, enbor-zuta, hosto berde ilunak, adaburu luzea, eta zur gorrixka eta usainduna dituena *(Cupresus sempervivens)*. ik **nekosta**.

Laharren ordez **zipresak** haziko dira, asunen ordez mirtoak. Elizen arteko biblia

**Zipresaren** antzeko naiz ni, beti berde: niregandik datorkizu fruitua. Elizen arteko biblia

Zelatatzeko gordeta zegoen **zipresaren** atzera bultzatuko du berriro. Josu Zabaleta

Agertoki gainetik bi **zipres** txiki erortzen ikusiko dira. Josu Zabaleta

Hango zedrorik tantaienak eta **zipresik** bikainenak bota ditut.

Senir-eko **zipresez** egin zizuten zurajea, Libanoko zedroz goi-masta. Elizen arteko biblia

Baxango haritzez arraunak, boliz tartekaturiko Zipreko **zipresez** zubia. Elizen arteko biblia

**2** (hitz elkartuetan)

Tiroko errege Hiramek eskuratu zion Salomoni nahi bezainbat zedro eta **zipres**-zur eta urre. Elizen arteko biblia

Ate-orriak **zipres**-zurezkoak ziren eta bina ate jiragarri zituzten. Elizen arteko biblia

**hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
zedro eta zipres (3); zipres zur (3)

---

**zipretar** *(orobat **ziprear** g.er. eta **txipretar** g.er.)* **1** *izlag/iz* Ziprekoa, Zipreri dagokiona; Zipreko herritarra.

Menelaok bere anaia Lisimako utzi zuen bere ordezko apaiz nagusi, eta Sostratesek **zipretar** gudarien buruzagi zen Krates. Elizen arteko biblia

Zipre maiatzaren 1ean da sartzekoa Europako Batasunean, baina ordurako uharteko bi aldeen arteko akordiorik ez bada lortzen, **zipretar** greziarren aldea soilik sartuko da. Berria - Mundua

Sener Levent Zipreko kazetariaren aldeko sinadurak bildu ditu hemengo idazle batek, Nashe Yashin idazleak hain zuzen, bera ere **zipretarra**. Edorta Jimenez

Zipre maiatzaren 1ean da sartzekoa Europako Batasunean, baina ordurako uharteko bi aldeen arteko akordiorik ez bada lortzen, **zipretar** greziarren aldea soilik sartuko da. Berria - Mundua

Zesareako ikasle batzuk ere etorri ziren gurekin eta lehen garaietako ikaslea zen Nason **zipretarraren** etxera lagundu ziguten. Elizen arteko biblia

Lau gol bakarrik Feroe ugartearen kontra eta **Zipretarren** kontra eta ezer ez Israeldaren eta Irlandarren kontra. Herria

Azalduko duzu greziar **zipretarren**, turkiar **zipretarren** eta NBEren arteko elkarrizketen testuingurua? Berria - Mundua

Turko-**zipretarren** %60 bategitearen alde daude, inkestei jarraiki, baina badirudi greko-**zipretarrek** ezetza emango diotela. Berria - Mundua

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
> **turkiar zipretar** (3); **zipretar greziarrek** (3); **zipretar greziarren** (4); **zipretar turkiarren** (4)
> **greko zipretarrak** (3); **turkiar zipretarrak** (7); **turkiar zipretarrei** (3)
> **greko zipretarren** (8); **greziar zipretarren** (13); **turkiar zipretarren** (10); **turko zipretarren** (7); **zipretarren buru rauf** (3)

---

zipristindu ik **zipriztindu**.

---

**zipriztin** *(orobat **zipristin** g.er.)* **1** *iz pl* isurkari batetik, bertara zerbait botatzen denean edo zerbaiten gainean erortzen denean, ateratzen diren tantak. ik **ziliporta**.

Txorrota bat irekitzen zuen isil-ostuka, eta poz-pozik jartzen zuten zurrustaren **zipriztinek**. Karlos Zabala

**Zipriztinek**, linternatik zetorren argiaren eraginez, distira egin zuten, kristalezkoak bailiran. Elur eztandak sortutako **zipriztinak** gureganaino iritsi ziren. Bernardo Atxaga

**Zipriztinak** kea zeriela erori zitzaizkidan oinetakoetara. Joseba Sarrionandia

Ontziaren lorratzak **zipriztinez** betetzen zituen Volgaren ibai bazterrak. Karlos Zabala

Untxien pixak beheko taulak erretzen zituen; hegaztien zirinak xaflak **zipriztin** zurixkez zikintzen. Karlos Zabala

Belaunak **zipriztinez** bustiak, koipea besoetan gora, ukondoak sorgorturik. Lopez de Arana

Azidoaren **zipriztinez** erreta zeuzkan atzamarrak. Rafa Egiguren

**Zipriztinek** blaituta amaitu zuten. Fernando Morillo

Ezkerreko eskua luzatu eta horrela babesteko koipe irakinaren **zipriztinetatik**. Anton Garikano

Ikuspegitik at dagoen itsasoak ere **zipriztinak** jaurtitzen harresietara. Joxe Austin Arrieta

Ziztu bizian desagertu da palmondoen artetik, ur putzuetan **zipriztinak** eginez. Joseba Sarrionandia

Euria ari zuen, itsasotik etorririko euri itxia, lurrean **zipriztinik** egin gabe barru-barruraino sartzen den horietakoa. Migel Angel Mintegi

Urez egiten da, bi modutara: inmertsioz edo murgiltzez, eta aspertsioz edo **zipriztinez**. Xabier Olarra

**2** (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

Bat-bateko jolasgura kutsatu zaie beste guztiei **zipriztin**-tantek bustitzearekin batera, txoro moduan hasi baitira oihuka eta arropak botaka. Xabier Mendiguren Elizegi

Ez zegoen aurreko gurpilaren **zipriztin** iturritik libratzerik. Unai Iturriaga

Tarteka, halere, gurean halako kuttun den mundu magikoaren **zipriztin** perla itxurazkoak eskaintzen ditu. Berria - Kultura

Kondea gertakaria aztertzen ondoan zebilela, amona zimurtuak esne-zorrotada isuri zion, halako **zipriztin**-aldiaz ihes eraginez. Askoren artean

**3** (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa)

Berandu konturatuko zara, ur **zipriztinak** sentitzean, balearen bizkarrean zaudela. Joseba Sarrionandia

Mahai-oihalera ardo-**zipriztinak** eta espagetien tomate-izpiak isuriak ziren. Lopez de Arana

Aurpegian zeuzkan odol **zipriztinak** etsaiarenak balitu moduan. Koldo Izagirre

Hitz egiterakoan listu-**zipriztinak** irteten zaizkio. Anjel Lertxundi

Euri **zipriztinetatik** gora jaso du begirada. Urtzi Urrutikoeetxea

Orduko lokaztua zegoen estrata, baina korrika eta lokatz **zipriztinei** buruzko batere kezkarik gabe egin zuen itzulerako bide osoa. Anjel Lertxundi

Ababorrera egin genuen eta Harriandi paretik joan ginen, uhin **zipriztinek** masaila bustitzen zigutela. Joseba Sarrionandia

Nahiko lan izaten zuen hitz egiteko, eta, berez notarioak ez ikusiarena egin zuen arren, txistu **zipriztinen** bat edo beste joan zitzaion haren mahuka gainera. Ramon Saizarbitoria

Zangoz gora hasi ziren barreka lehertu beharrean eta beren aurpegietara ere eroritako adur **zipriztinak** garbitzen. Joseba Sarrionandia

Heste zikinak mila puskatan birrindu zaizkio eta kaka **zipriztinak** tabernaren dekorazio atal bihurtu. Patxi Iturritegi

Kanoiak orro egingo zuen, hesiak suntsituko zituzten; odola izango zen eskaileretan, garun **zipriztinak** zutabeen artean. Karlos Zabala

**4** (hiru osagaiko hitz elkartuetan)

Paulo harakinak, mantala txahal odol **zipriztinekin** karrikara atera zenak. Felipe Juaristi

**5** irud/hed

"Kameraren begia" izeneko prozeduraren bidez gertakarien beste neurri bat eskainiko zaigu, ikuspuntu hurbila, poetikoa eta egilearen bizitzaren **zipriztinez** hornitua. Lopez de Arana

Eguneko argia leihoetatik sartzen zen, adreiluzko etxe zaharrak inarrosiz, konfetizko **zipriztin** distiratsuak tren jasoaren egituraren zutabeetan zehar zabalduz. Lopez de Arana

Hizkuntza nagusia ingelesa izan arren, kolore guztietako **zipriztinak** zeuden nonahi: gaztelania, alemaniera, frantsesa, errusiera... Fernando Morillo

**6** (irud/hed hitz elkartuetan bigarren osagai gisa)

Arku elektrikoek isuritako argi-**zipriztinen** arteko bidexka ilunpean galtzen zen. Lopez de Arana

Bere esaldietan gatz eta azukre **zipriztinak** zeuden beti. Jasone Osoro

Izan zituen haren jardunak ironia fin eta umore **zipriztinak** ere. Berria - Kirola

Tristura-**zipriztinak** bere aurpegi maitagarrian. Joxean Sagaztizabal

Han zegoen herri-kaskoa, alde egin nuenean bezalaxe, metrailak hormetan egindako baztanga **zipriztinen** aldea baino ez. Harkaitz Cano

**7** (singularrean)

Atzean ur-irinezko **zipriztin** bat zegoen. Anton Garikano

Belartxo beltzezko **zipriztina** ikusten utzi zidan beso altxatuak. Koldo Izagirre

Ardo horrek halako zera berezi bat lagatzen jok tragoaren azkenean, halako pikardia **zipriztin** bat. Unai Iturriaga

Koilarakada bakoitzak halako poz **zipriztina** ematen zidan. Bernardo Atxaga

**hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
odol zipriztinak (7); ur zipriztinak (5); zipriztinak izan (3)

---

## zipriztindu, zipriztin(du), zipriztintzen *(orobat **zipristindu** g.er. eta **txipristindu** g.er.)* **1** du *ad* zipriztinez bete. ik **zirtatu**.

Neskato biluzi bat, itsasotik atera berria, lasterka pasatu zen marrazkiaren gainetik, urez **zipriztindu** zuen, eta bi begi zabal eta busti erantsi zizkion irudiari. Koro Navarro

Izerdi tantek **zipriztindu** zioten bekokia. Jon Muñoz

Orduan Badr-ek aurpegia urez **zipriztindu** zion, eta esan: [...]. Patxi Zubizarreta

Eztul-erauntsiak mahaiaren gaina eta inguruak **zipriztindu** zituen. Josu Landa

Lau zaldi beltzek gidaturiko zalgurdi bat bazterrak **zipriztinduz** sartu zela jauregiko lurretan. Felipe Juaristi

Ur garbiz **zipriztinduko** zaituztet eta garbi geldituko zarete. Elizen arteko biblia

Euriak betaurrekoak **zipriztintzen** zizkion. Iñaki Mendiguren

-Eta zer esan dizut nik -haserre bizian osabak, txistuaz mahaia **zipriztinduz**-. Iñaki Mendiguren

Santuaren esku-oinak garbitzeko erabilitako ura lagunengandik lorturik, **zipriztindu** zitzala abere gaixoak; horrela, izurrite hura guztia desagertu egingo zela. Askoren artean

Emakume bat espaloiko zoruan etzanik [...] gonak odolez **zipriztinduak**, hankak zabalduxeak belaunburuen aldean, polizia aleman bat, SSetako bat, espaloi erdian barrez, eskuak aldakan. Felipe Juaristi

Inor garbitzen arduratu ez zen orban ilunez **zipriztinduta** dago oihala. Iban Zaldua

Baita igerileku puzgarri bat ere, beti erdi hutsik eta txori-kakaz **zipriztinduta** zeukatena. Berria - Kultura

**2** irud/hed

Etxe Zuriak lortu du eskandaluak Bush ez **zipriztintzea**. Berria - Ekonomia

Barrualdera ematen duen etxea da, ia altzaririk gabekoa, paretak errekortez **zipriztinduak**. Eider Rodriguez

Haxixez **zipriztindutako** jogurt krema goxoa. Jon Arretxe

Idazlanaren laburpen bat zen, Grosrouvreren iruzkinez **zipriztindua**. Jon Muñoz

Behereneko leihoetatik txinpartez **zipriztindutako** ke iluna atera zen bortitz. Lopez de Arana

Erdian, belargune eder handi bat, kolore bizietako hainbat loregunez **zipriztindua** eta erreka-harriez eginiko bidezidorrek zeharkatua. Anjel Lertxundi

Berehala, zorionez, harea berriro, agabez **zipriztinduriko** harea-bazterra. Joxe Austin Arrieta

Hizketan, berriz, euskara batu antxa egiten zuen, bizkaierazko berbatxu batzuekin **zipriztinduta**. Xabier Mendiguren Elizegi

Bandera gorriz **zipriztinduta**, Bosgarren Etorbidea odoletan blai dago, distiratsu, bertan musika-bandak jotzen ari baitira. Lopez de Arana

Arteak pertsonaien bizitza eta errealitatea itxuraldatu, koloreztatu, baikortasunez **zipriztintzen** du. Berria - Kultura

Dopinaren orban beltzak Neguko Olinpiar Jokoak **zipriztindu** ditu berriz ere. Berria - Kirola

Tourrak talde guztiei jakinarazi zien dopinarekin **zipriztindutako** inork ezingo zuela Tourrean parte hartu. Berria - Kirola

Osagai dramatikoz **zipriztindutako** komedia da nire filma. Berria - Kultura

Orduan jabetu zen politikak zenbateraino **zipriztintzen** zituen bazterrak. Arantxa Iturbe

Stalinismoz **zipriztindutako** marxismo-leninismotik trotskismora eta (berehala) maoismora. Iban Zaldua

**3** zipriztinak bota.

Lohi-zurrustak **zipriztintzen** genituen alde banatara, putzuetan barrena igarotzerakoan. Joxe Austin Arrieta

Atzera itzuli ziren berriro, zinema aretoko ate aldera, bizikletek lokatza alai **zipriztintzen** zutela. Josu Zabaleta

**4** (da aditz gisa)

Errekan plisti-plistaka **zipriztindu** ginen, eta lasterka bizian zeharkatu genuen ibaialdea. Mirentxu Larrañaga

Airean **zipriztindu** zen pizza. Joxan Elosegi

**hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
aldarea zipriztindu zuen (3); urez zipriztindu (6)
aldarea zipriztinduko (7); aldarea zipriztinduko dute (5); odolaz aldarea zipriztinduko (5); zazpi bider zipriztinduko (5)
odolez zipriztinduta (3); zipriztinduta zegoen (3)

---

## zipriztinka *adlag* zipriztinduz.

Begoñak, behin berriz, bere kamera aterea zuen motxilatik, taldekideak, mundura etorri bezala, ur hotzean **zipriztinka** zebiltzan bitartean. Aingeru Epaltza

Denek igeri lasai egiteko adina toki ez bada nola-hala moldatu behar, bata bestearen ondoan edo gainean, bultzaka eta **zipriztinka**, baloi batekin jolasean edo urpeko bilaketa misteriotsuetan. Xabier Mendiguren Elizegi

Nola laurak ere ez baikinen geldi egoiteko mutilak, hala hasten ginen elkarri kilika, zirika eta **zipriztinka**... baita borrokan ere handik gutirat. Joan Mari Irigoien

Isurtzeko zegoen unean bertan, ahotik atera nuen erreminta eta eskuarekin amaitu nuen lana, ziurtatuz haren salda baliotsu hura nire blusan isurtzen zela **zipriztinka**. Oskar Arana

---

## zipriztintsu *iz* zipriztinez betea.

Dianne mutu gelditu zen, pare bat olaturen leherketa **zipriztintsua** entzuten zen bitartean. Fernando Morillo

Alemaniako uholde **zipriztintsu** hura Pariseraino iristear zegoela, etsipenak bultzatuta-edo, hainbat denboran karteran eramandako aurkezpen-txartel hura etorri zitzaion burura Lázló-ri. J.M. Olaizola "Txiliku"

---

## zipriztintxo *iz* zipriztin txikia.

Erdi-erdira apuntatuta ere txorroak beti ateratzen zituela **zipriztintxoak**, eta barkatzeko errealismo eskatologikoa. Iñaki Iñurrieta

Eszeptiko samar hartu zuten proposamen hura, seguruenik konfiantza handirik ere ez zutelako nork bere **zipriztintxoak** bakarrik garbitu beharko zituela. Iñaki Iñurrieta

---

## zipriztintzaile **1** *iz* zipriztintzen duena.

Barre *Convulsio spargens* latinezko esapideak "astindu **zipriztintzailea**" esan nahi du. Xabier Olarra

**2** irud/hed

Eskuin eta ezkerraldera, arku elektriko bakan batzuen argizko kono gris-moreak, ilunpearen **zipriztintzaile**. Lopez de Arana

**zipriztu**, zipriz(tu), zipriztén du *ad* zipriztindu.

Perfekzioaren eredu greziarrak **zipriztén** zuen dena. Berria - Kirola

---

**zipu** *(orobat **zipo** g.er.)* **1** *iz* putzua.

Ur garbiari doatzin ekintza batzu, **zipu** berrien elgarri lotzea eta bertze. Herria

Horrela egin **zipuetatik** ateratakoa sobera guti da, denen egarriaren asetzeko. Xabier Montoia

Hortan gelditu da eztabada, harria **zipu** zolan bezala bi ziliporta egin ondoan. Herria

**2** (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa)

Ez da ofizio erraza, erantzun zion ene fantasmari Maiek, ur **zipo** galantetan txifli-txafla lerratzen ginela. Yves odol **zipo** karroinduan igeri zegoen, gogortzen. Itxaro Borda

Sutara hurbiltzen ziren, gauean koteratu gazura **zipoetan** plisti-plasta jauzika. Itxaro Borda

Gaur diru **zipu** bat dela agertzen da eta dudak badira holako obra baten beharrorduaz, guziz Isturitzeko harpetarik hain urrun. Herria

---

**zipugintza** *iz* zipuak egitea.

Kexu dira **zipugintzan** ari direnak. Xabier Montoia

---

zir-zart ik **zirt 2**.

---

**zira** *(orobat **sira** eta **xira**)* **1** *iz* arropen gainean jazten den euritako irazgaitza.

Lallyk **zira** jazten lagundu zion; ez batak ez besteak ez zidaten hitzik esan, ezta begiratu ere. Fernando Rey

Gerritik gorakoak **zirak** babestu zizkion ahal izan zuen artean; Galdakaora heltzerako ostera, denak blai eginda zeramatzan. Unai Iturriaga

Txirrindularien aurpegia ere eguraldiaren antzekoa zen: muturra oker-oker eginda, **zira** ondo lotuta eta zerura etengabe begiratuz hor nonbait gordea zegoen eguzkiaren bila. Berria - Kirola

Star zahar bat zeraman **zirako** poltsiko batean. Unai Iturriaga

Odolak Dionisosen **ziraren** eskumuturrak zikindu zituen. Unai Iturriaga

**2** (izenondo eta izenlagunekin)

**Zira** hori, urdin edo berdeak, plastikozko botak eta hondakinak batzeko poltsak eskuan, aintziraren itzuli osoan barreiatu ziren boluntarioak lanari ekiteko. Berria - Euskal Herria

Euri langarra ari zuen San Frantziskon, eta [...] andre gazte bat kale kantoi batean zegoen **zira** transparente batekin eta argazki makina bat eskuetan zuela. Bernardo Atxaga

Antjek txano zuriko **zira** zuri bat zeraman. Fernando Rey

Euri azpira atera ginen, biok babesa hartuz bere **zira** zuriaren pean. Fernando Rey

Gizon garaia, mehea, zepilluaren moduko bibote sarri tente zuriduna, beti bizikletan joaten zena **zira** beltz bat eramanez zirimolaka. Fernando Rey

Han zegoen lorategi lanetarako jantzi ohi zuen **sira** gris zaharra. Anton Garikano

**Zira** zabal txanoduna. Aitor Arana

Irrigarria zen ikustea **zira** jori malguzko itsasoaren erdian plastikozko bi begi bakartu igerika! Itxaro Borda

Biltegira joan nintzen, plastikozko **zira** bat hartuta. Javi Cillero

Gure sotoko bazter batean gorde nituen leherkariak: T8a armairu zahar baten barnean, arrantzurako **xira** eta anorak zaharren azpian. Hasier Etxeberria

Arrantzaleentzako sare, eskalapoi, **xira** eta abarren salmentan saiatzen duk sozio batekin. Txillardegi

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
> **sira grisa** (3); **zira jantzi** (3)

---

**ziradun** *izond* zira jantzi duena.

Geroago bizpahiru gizon **ziradun** etorri ziren. Fernando Rey

Kanpoan, leihoaz bestalde, gizon **ziradunak** bien elkarrizketa aditzen jarraitzen zuen. Aitor Arana

Paolak esaten zuen gure ataria "zelatatua" zegoela, bertan beti morroi **ziradun** bat egoten zela. Fernando Rey

---

**ziraia** *iz* betuna.

Bota beltz lokarridunek ere antigoaleko **ziraiaren** distira ageri zuten. Ramon Saizarbitoria

---

**ziraida** *iz* eztainua.

Labeak lehenik behar du berotu 600 oxketaraino; gero ideki eta barnerat emaiten dituzte %78 kobre eta %22 **ziraida** (estainu) eta 1200 oxketaino berotzen da urtzeko. Herria

---

**zirats** *izond* aurpegiera ederrekoa.

Behin ikusia dut nik; errege **ziratsa** zen. Juan Garzia

---

**ziratu**, zira(tu), ziratzen **1** du *ad* argizaritu.

Bere bulegoan sartu zituen; idazmahai handi bat zegoen, **ziratua** eta kontu handiz lustratua. Josu Zabaleta

**2** oinetakoez mintzatuz, ziraia eman.

Elkarren betekoak ziren haren zapatak eta poltsa, ongi **ziratuak** beti. Joxan Elosegi

**3** (era burutua izenondo gisa) ik **ziraztatu**.

Mahaian jarrita daukagun oihal **ziratua**. Josu Zabaleta

Zakua On Camillok jaso zuen, eta oihal **ziratuko** zaku militar handi bat zen, urek burdina bezain gogor jarria. Koldo Biguri

Lerra-lerra joaten nintzen zoru **ziratu** lohitsu hartan barrena, egundainoko blaustadak eginez eta titiak zanpatuz; irri egiten zuen jendeak baina ez nintzen ordurako festako gune nagusia, garbi zegoen aspertzen hasiak zirela nirekin. Joxan Elosegi

---

# ziratudun *izlag* ziratuko.

Van Daandarren oihal **ziratudun** mahaiaren ondoan nago eserita. Josu Zabaleta

---

# ziratzaile

## 1 *oski-ziratzaile iz* ogibidez oinetakoak ziratzen dituen pertsona.

Esadazu, ene kapitaina, zer egin behar du **oski-ziratzaile** batek, zapata jaun guztiak preso hartuta espartinak jabe dauden karrika batean? Koldo Izagirre

Itxuratu nuen halako **oski-ziratzaile** bat, tu egiten nuen botetara. Koldo Izagirre

Eguneko partean ez zitzaigun aipatu zentinelaren balentria, eta kapitainak lotinantari eman zion gure **oski-ziratzailea** fusilatzearen lan zikina. Koldo Izagirre

---

# ziraun 1 *iz* muskerraren azpiordenako animalia, burua sugandilak bezalakoa duena baina hankarik ez duenez sugeen itxurakoa dena *(Anguis fragilis)*; sugegorria.

Sugandilak harrapatzen genituen, eta musker hori-berde batzuk (gutxitan, zoritxarrez), are **ziraun** luzeren bat ere (metro batekoa behin!). Txillardegi

Larre-saguak korrika bizian nire ondotxotik, **ziraunak**, armiarma erraldoiak, zizareak, satorrak, bareak, matxinsaltoak, erletzarrak, ezparak, euli-mandoak, ehunzangoak, kakalardoak, barraskiloak, mantalgorriak, kilkerrak, txirritak. Joxean Sagaztizabal

**Ziraunak**, ikarak zurrun jarririk, puskatu egiten ziren gure esku "bekatarietan". Txillardegi

**Ziraun** bat zeukan han, kiribilduta. Mirentxu Larrañaga

Harrika bota zizkion **zirauna**, musker biak, eta trikua. Mirentxu Larrañaga

Bat-batean, **ziraun** bat ikustea lipar batez, belarretan sigi-saga bidea irekitzen. Oskar Arana

## 2 (elkarketa kopulatiboetan)

Baserri batzuetan, bertako nagusi ugazabak etxeari hiru itzuli-jira ematen zizkion inguruko pizti eta suge-**ziraunak** uxatzeko. Pello Zabala

## 3 irud/hed

Andereak bazuen loro bat ahotik sugeak eta **ziraunak** botatzen zituena, hau da, Kowalski jaunak baino esaera nazkagarriagoak esaten zituen... Xabier Paya

Harrituta geratu zen berriro Damian, sendagilearen eskuek sudurretik plastikozko **ziraun** luze eta beltz hura sartu ziotenean eztarrian behera. Hasier Etxeberria

Beti letra etzan luze-mehe berak, **ziraun** zuri zaurituak aspaldi argitzen ez duen neonezko errotuluan mugigaiztuak. Aingeru Epaltza

-Ez duzu zuk halakorik eskatzeko eskubiderik, mezulariaren seme, hitzen artean **ziraunak** dakartzazun mutil horrek. Felipe Juaristi

## 4 (irain gisa)

Armada liberatzaileak hirian aurkitu zuen laguntzaile abantzu bakarra erregeren armagizonen ihesean zebilen, espainol edo beaumondar **ziraun** baten gisan. Aingeru Epaltza

**Ziraun** hori OVRAkoa duk. Anjel Lertxundi

---

# ziraztatu *(orobat **zireztatu**) izond* ziratua.

Beti daramate lore sortaren bat kapelu **ziraztatuan**. Koldo Izagirre

Kapelu biribil **ziraztatua**, gure puntuko kotxeroek bezala, idazki honekin: *Cazadores de Guipuzcoa*. *Koldo Izagirre*

Arrosa handi batek apaintzen zuen oihal **zireztaturiko** txanoarekin. Koldo Izagirre

---

# zirenetar *(orobat **zirenear**) izlag/iz* Zirenekoa, Zireneri dagokiona; Zireneko biztanlea.

Simeon -izengoitiz Beltza-, Luzio **Zirenearra**, Manaen [...] eta Saulo. Elizen arteko biblia

Hartan, **zirenear** eta alexandriarrez osatua zegoen eta "Askatuena" zeritzan sinagogakoak, ziliziar eta asiar batzuekin batera, Estebanekin eztabaidan hasi ziren. Elizen arteko biblia

Agian epikureoek eta **zirenetarrek** beste hainbat arrazoi emango lituzkete sentimenen alde, akademikoek oraindik, nik dakidala, gezurtatu ez dituzten arrazoiak. Imanol Unzurrunzaga

---

# zireztatu ik **ziraztatu**.

---

# zirga *(orobat **sirga** g.er.)* 1 *iz* ibaietan eta, lehorretik ontzi bati tiratzeko erabiltzen den soka lodia; soka lodia.

Halako batean, portuko langile bat inguratu zen herrenka nasara, eta txistu jo zion Andreasi **zirga** bat bota ziezaion. Anjel Lertxundi

Haize-hauspotzarren batek belak lehertzeko zoriraino puzten zituenean, lemaren ondoko **zirga** lodi bati eragiten zion. Anjel Lertxundi

Arpoia **zirga** gogor honi loturik doa. Joseba Sarrionandia

Goio sarritan sartua zen kamaroteetara eta makinetara, lema bolantea eskuetan hartua zuen eta animalia zahar haren gorputz astuna ababorrera istriborrera mugiarazi ere bai, nasari lotutako **sirgak** eteteko beldurrik gabe. Joseba Sarrionandia

## 2 (hitz elkartuetan)

Haren ondoan zegoen espartzuzko bela-**zirga** bildua seinalatu zion-: Eser zaitez, hemen ez dabil haizerik. Anjel Lertxundi

---

# zirgai ik **zirgari**.

---

# zirgari *(orobat **zirgai**) iz* ontzi bat zirgan eramaten duen pertsona. ik **zirgatzaile**.

**Zirgariak**, sokatik tiraka, belaontzia inguratu zuen moilaraino. Anjel Lertxundi

**Zirgari** eta marinel batzuk biltzen hasita zeuden emakume bat paraje haietan ikustearen ezohikotasunak erakarrita. Anjel Lertxundi

Eta nola kontatuko zenieke jendarmeei [...] **zirgarietako** batek kontatu didan nederlandar herratuarena? Anjel Lertxundi

Erotzeko zorian, atrakatze-lanetan laguntzen aritutako **zirgari** herrena ezagutu zuen. Repinen Volgako **zirgariak** koadroa «narratiboa da», Hillingsen hitzetan, « **zirgari** nagusia etsita dago; gaztea, aldiz, prest dago lotuta duen korda hausteko». Anjel Lertxundi

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
> **erantzun zion zirgariak** (3); **zirgariaren hitzak** (4)

---

**zirgatu,** zirga(tu), zirgatzen du *ad* ontziez mintzatuz, zirgan eraman, lehorretik sokaz tiratu.

Itsasontzi bat **zirgatuko** dute. Berria - Kultura

---

**zirgatzaile** *iz* ontzi bat zirgan eramaten duen pertsona. ik **zirgari**.

Lehertu arte lan egin beharko duzue orain, **zirgatzaileok**!, lanari ekin beharko diozue denok batera [...] eta izerdia isuri sokatik tiraka, Rus bera bezain amaigabeko kanta baten erritmoan. Jose Morales

Volgaraino iritsi eta bertan jarri haiz bizitzen, **zirgatzaile**, askatasuneko bizitzari atxikirik? Jose Morales

Txanoak lorez eta xingolaz apaindurik, jai-giroan zoak batera eta bestera **zirgatzaile**-taldea, idunekoz eta xingolaz ederturiko maitale eta emazte lerdenei agurka. Jose Morales

---

**zirgilo** *(orobat* **zirgilu** *g.er.)* **1** *iz* metalezko eraztun aski handia.

Urrezko lepokoa zuen eta, Ararateko emakumeen modura, orkatiletan urrezko **zirgiloak**, perlak eta esmeraldak jartzen zituen. Fernando Rey

Bere lepo luzexkan beirazko kate eta iduneko ugari zeuzkan zintzilik, eta **zirgilo** eta eraztun asko besoetan eta eskuetan. Iñaki Mendiguren

Elefante bat lakioan edukitzeko adinako **zirgilo** batez loturik zeukan eskua hormara. Josu Zabaleta

San Frantziskok, aita txit zuhurra zenez, obedientzia santuaren indarrez agindu zuen, zurdatzak eta burdinazko **zirgiloak** zituzten denek ekar zitzatela eta beraren aurrean utzi. Askoren artean

Bi giltza beltz handi eman zizkion Aragorni, altzairuzko **zirgiloan** loturik. Agustin Otsoa

Zurmioetan koral gorriko **zirgiloak** zeneramatzan. Fernando Rey

Makurtu eta tranpolaren **zirgiloari** tira egin zion, eta tranpola altxatu eta zabaldu egin zen. Iñaki Mendiguren

**2** (hitz elkartuetan)

Bostehun burdinazko zurdatz zenbatu zituzten, eta askoz gehiago oraindik beso-, gerri- eta berna-**zirgiloak**. Askoren artean

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
> **burdinazko zirgiloak** (3)

---

zirgilu ik **zirgilo**.

---

**ziri** **1** *iz* zurezko edo metalezko atala, puntako ertza aski zorrotza duena. ik **kabila; larako**.

Zaltegiko burdinazko tresnak ikusi nituen mahai baten gainean, jauregiko arotzak bertan utziak: mailu, iltze eta **ziri**. Joan Mari Irigoien

Gurpilak, ardatzak, **ziriak**, gurtetxea, endaitzak, den-denak inguruetako zuhaitzekin eginak dira. Karlos Zabala

- **Ziria** ere mutur estuenetik hasten da sartzen. Irene Aldasoro

Barrikote bati **ziria** kendu, eta Martintxok nahi beste sagardo edan ahal izan zuen. Martin Anso

Ardatzak **ziriez** baizik ez zeuden itsatsirik gurtetxean. Karlos Zabala

Kutxatxo sabelduna, kalabaza luze baten erdia bezala, pertika edo ezpata labur eta mehea, eta zurezko bost **ziri** sokak tenkatzeko. J.M. Olaizola "Txiliku"

Burua dendaren atzealdeko **ziri** batetik zintzilikaturiko paper hori-zurizko orri handien kontra jarri zuen. Karlos Zabala

Oihal-etxolari eusteko **ziri** bat eta mailua eskuan hartu, Siserarengana isilean hurbildu eta buruan sartu zion alderik alde, lurrari josiz. Elizen arteko biblia

Zutabeen gakoak eta **ziriak** zilarrezkoak izango dira. Elizen arteko biblia

Masta eraitsi beharko litzateke **ziria** haren azpitik kendu ahal izateko. Edorta Jimenez

Trokola makinaren goiko buruan kable batekin lotzen da eta handik txikota pasatzen da **ziri** bateraino, eta **ziri** horretan dagoen trokolan lotzen da. Santiago Iruretagoiena

Zuloak **ziriekin** ixten dira, sokek ez dezaten atzera egin. Santiago Iruretagoiena

Tornu horren **ziriak** zentro bezala jarriz akerretan, palankak tornuaren zuloetan sartzen dira. Santiago Iruretagoiena

Hala nola gertatzen den su artifizialetako **ziriekin**, zenbait mahainguru piztu egiten dira erabat itzaliak ematen dutenean. Bernardo Atxaga

Piparatutako tabako harroa sakatu eta beheko sutik hartutako **ziriarekin** piztu zuen. Joxemari Urteaga

Tridente antzeko zerbait, baina **ziriak** barrualdera guztiz makurtuta. Joxean Sagaztizabal

Sardearen **ziriak** sator lurretan ondo sakon. Joxean Sagaztizabal

Gutxien uste denean atzetik **ziria**. Gotzon Garate

**2** (izenondo eta izenlagunekin)

Ezkontza eraztunak **ziri** meheetan sartuak zeuden. Karlos Zabala

**Ziri** luzexka batek eta mutur zorrotz batek osatzen dute, berez, gezia. Joxerra Garzia

**Ziri** luze batez zeharkaturik, jira eta bira darabiltzazue. Xabier Montoia

Ez zuen inorenak egin, ostera, baina burdinazko **ziri** zorrotz haien zaparradak txiripaz ez gintuen nasakook azpian harrapatu. Edorta Jimenez

Tenaza gorituak, **ziri** zorrotzak, aizkora edo garrotea ateratzen ziren orduan argitara. Aingeru Epaltza

Bazegon intxaur-zurezko armairu bat, agian barroko goiztiarra, **ziri** ilun zoragarriz txertatua. Anton Garikano

Intzentsua jartzeko gakoan, kriskitin pare bat zeukan zintzilik **ziri** lurrintsuaren ordez. Harkaitz Cano

Piztien garrasi latzek durundi egiten zuten kaioletan, zaindarien zartailu gogorrez edo **ziri** goriez xaxaturik. Karlos Zabala

Kartoizko edalontzi erraldoietan ateratzen dute eta jendeak paseatzera ateratzen du, plastikozko **ziri** batekin edanez. Harkaitz Cano

Medikuak tutu bat sartu zion eztarritik behera, eta plastikozko **ziri** bat ipurtzulotik. Javi Cillero

Egurrezko **ziriak** edo chevilleak tartekatuta dauzka oihalaren azpildurari bastidorean eusteko, lau txokoetan, eta horrek esan nahi du gutxienez XVIII. mendekoa dela. Javi Cillero

Igande aratsean, Miarritzen, suzko **ziriak** zeruaren bete! Herria

**3** (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

**Ziri**-jokoen koadrilateroan, puntuetara bazen ere, azkenean Manuel garaitu zuen, nahiz eta tabernariak pentsakor utzi. Esfera erdiaren formako sakonune bat kanfor-usainari lotzen zaio, eta **ziri** formako sargune bat, berriz, menda-usainari. Unai Iturriaga

**4** (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa)

Txabola batzuk eraikitzen dira egur-**ziriez**, adarrezko estalkiekin, oherako nahikoa da besokada bat lasto, edo belar ziztrin batzuk. Jon Alonso

Jakobek, zumitz-, urritz- eta platano-**ziri** heze batzuk harturik, zuritu egin zituen. Elizen arteko biblia

"Begira hemen zenbat dauden", esan zuen, eta marrubiak sartzeko belar **ziri** bat atera zuen errotik. Bernardo Atxaga

-Eguberriz ulitxak, Pazkoz horma **ziriak**. Pello Zabala

Alboan, gero mediku agertu zen pertsonaia bat jarri zitzaion zutik eta hexur-**ziri** bat eskuan zuela. Patxi Ezkiaga

Poliziaren kamionetei egindako erasoak, lurrean iltzeak eta burdin-**ziriak** paratzea kamionetak hegan aterarazteko. Fernando Rey

37 urteko aita familiakoa, egur egiten ari zelarik, burdin **ziri** bati joka mazo batekin, burdin **ziriaren** ezpal bat edo burdin puska bat jauzi ondoan, delako **ziri** hortarik, hain justuki, zain haundian sartu zako eta ixtante odol hustu da. Herria

Burdin **ziriak** dauzkan ate bat iragan, eta pasilloan barrena egin duzue aurrera. Rafa Egiguren

Pintzelak, ikatz-**ziriak**, ganibeta, eta bertzelako tresnak. Joan Mari Irigoien

Beste hainbat dozena tintazko marrazki eta ikatz-**zirizko** zirriborro. Oskar Arana

Intsentsu-**ziriak** [...]: Txinatarrek beren txorakeria paganoetan gure erlijio santua imitatzeko erretzen dituzten makilatxoak. Xabier Olarra

Iragandako ospearen oroitzapen horiek -andre Leonardak haizemaile itxia batuta-**ziriaren** moduan mugituz gogoratzen zituenak-, begiak zuritu eta tristuraz hasperen eragiten zioten. Josu Zabaleta

Ibaiko urak eurak ere istant batez behintzat bertan geratuak ziren, munduaren ardatzari galga-**ziria** sartu izan baliote moduan. Edorta Jimenez

Habe horiek hipotrakelioak kolomaren goiko aldean duen lodiera berdina izango dute zabalean, eta mihiztadura-**ziri** eta miru-buztan bitartez geratuko dira lotuta. Santiago Iruretagoiena

Masta-**ziriak** sartzea ez zen lan gaitza. Edorta Jimenez

Harremanetan jarri ahal izan ginen Eustakio eta biok barrukoekin, komunetako leiho-**zirietan** jarritako zapi batzuk erabilita. Rafa Egiguren

Lagungarri izango zatekeen buxadurak kentzeko iturgin-**ziri** bat. Oskar Arana

Hainbeste argi-**ziri** ziren han ze, benetako ortzia baino beheratxoago, uraren azal ilunean islaturik, beste ortzi bat zegoela ematen baitzuen. Edorta Jimenez

**5** irud/hed

Orain **ziri** zorrotzek zulatzen zioten egunerokotasuna. Iñaki Zabaleta

Nire uzkiak ongi etorria eman zion **ziri** bero hari, atseginez egokitu baitzitzaion batere minik hartu gabe. Aitor Arana

**6** (esaeretan)

-Beste bati **ziri** hori -erantzun zidan-. Hasier Etxeberria

Pizkor Komandoaren kontua **ziri** hutsa zela, alegia. Hasier Etxeberria

**7** esaldi mingarria edo zorrotza.

Irriak, irainak, **ziriak**, barre-zantzoak, gordinkeriak. Anjel Lertxundi

Hara nortzuk nituen arerio, hara zergatik ziren **ziriok** eta eztenok. Edorta Jimenez

Ezin ditu burutik uxatu haien **ziriak**, haien burla on-usteko nahiz txantxa gaiztoak. Xabier Mendiguren Elizegi

Jeronimok irri xalo batez erantzuten zien lankide, ezagun eta kaletarren **ziriei**. Anjel Lertxundi

Ikasketak burutu ere gabe egunkarian hasi nintzenetik, hamaika **ziri** jasana nintzen lagunengandik, lan aferak medio. Aingeru Epaltza

Ba hori baino askoz ederragoak zaudek Lisboan -**ziri** legez jaurti zidan, hirian egon izanak nire gainetik jartzen zuela erakutsi nahirik. Edorta Jimenez

Andretan ibiliak ziren, lehenengoetan irri eta zirri, gero zirri eta **ziri**, eta azkenean eder-eder joka. Edorta Jimenez

Ez zion **ziriari** jaramonik egin. Edorta Jimenez

Haren begitarte ilunak adierazi zidan, ordea, **ziritzat** hartua zuela nire errana. Aingeru Epaltza

Berehala bota zidan **ziria**, berak ohi zuen manera berezi hartan, lotsagabe eta samur, samur eta lotsagabe. Joan Mari Irigoien

**Ziria** irentsi ezinik, hitzik gabe geratu zen kartzeleroa. Jokin Urain

Irri burlati eta **ziri** mingarri dezente sorrarazi zuen aukeraketa koldarra. Alberto Ladron Arana

**8** (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

Kontua da labaindar guztien ahotan zebilela auskalo nork asmatutako **ziri** bertsoa: [...]. Anjel Lertxundi

Alexandro berarengana etorri zenean, ez zion **ziri**-elerik batere zuzendu, baizik eta beste ikusleen artekotzat jo zuen. Juan Garzia

Noraren hitzek **ziri**-tonua zuten, desenkusarena baino gehiago. Anjel Lertxundi

Eta alde egiten dugu ttaka, amonaren **ziri**-purrustaden pean. Jesus Mari Mendizabal

**8a** (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa)

Ez nien deitu, lo-kuluxkaren ordu nagi haietan hotelean zer egiten ote nuen trufa-**ziritan** hasteko aukerarik izan ez zezaten. Anjel Lertxundi

**9** (danborrak eta kidekoak jotzeko)

Bateria-jole batek **ziriei** bezala eragin zion Eskalatzaileak bere bolalumari. Aingeru Epaltza

**10** (izenondo gisa)

Eta halaxe ura baino maiteagoa zuen emakumearen begiek euri **ziria** ikusi zuten etxeko leiho handiaren atzetik. Felipe Juaristi

**11** ***ziria sakatu*** ziria sartu.

Ez pentsa **ziria sakatuko** didazunik. Jon Alonso

Eraikuntzaren bi txapuzero, ez zoriz elkarren sozio bilakatutakoak, eta, noski, elkarri **ziria sakatzen** lehiatzen zirenak. Jon Alonso

Berriro **sakatu** diote **ziria**, eta nola sakatu gainera. Patxi Iturritegi

**Ziria** sakonago **sakatzekotan** izan nintzen, inor salatzeko lehorrera egitea ezinbesteko ere ez zela erantzunez. Edorta Jimenez

**12** ***ziria sartu*** iruzur egin, engainatu.

Saldu egingo zaitu, **ziria sartuko** dizu, eta, gainera, zurekin bazkalduko du gero! Jose Morales

Ezinezkoa dela jende honek hamar minututan lau mila dolar poltsikoratzea harritxoak huskeria batean erosiz Colombiatik edo Brasildik edo ez dakit nondik etorritako compadre bati, compadrito horri **ziria sartuz** prezioen ideiarik ez duelako eta ingelesez ere tutik ez dakielako. Bernardo Atxaga

Zure bizitzako hiru urterik onenak eman dizkiozu, eta aldi horretan guztian bera **ziria sartzen** aritu zaizu beste emakume batekin. Mirentxu Larrañaga

AEB Ameriketako Estatu Batuetan, 30 milioi pertsonari saiatu dira **ziria sartzen** iruzurgileak *phising*-arekin. Berria - Gaiak

Nire bihotza barreka ari zen, guztiei **ziria sartu** nielako. Juan Kruz Igerabide

**Ziria sartu** ziok atezainari. Aingeru Epaltza

-Kontuz txilibitua lar erakutsi gabe! -**ziria sartu** nion-. Tarteka, berriz, neuri **sartzen** zidaten **ziria**, ez ote nuen euren alboan ipuinak aditzen egotea baino zeregin hoberik. Edorta Jimenez

Bi aldiz **sartu** zioten **ziria**-ondorioztatu zuen Léak, pozarren. Jon Muñoz

Bere garaian Esparterok **ziria sartu** zigun, eta orain ere **ziria sartu** digute Espainiako agintariek. Berria - Euskal Herria

Nahierara **sartzen** dizute **ziria**. Karlos Zabala

Niri ez didazu **ziri** hori **sartuko**. Juan Kruz Igerabide

Elgeako **ziri-sartzea**. Pello Zabala

-**Ziria** jentil inozo horiei bezain erraz **sartuko** zenidala uste zenuen, ezta? Martin Anso

-Ni lagun jinen natzaizue zuen... "itzuliñoan" eta ez gehiago niri **ziria sar**. Elena Touyarou

Orain pentsatzen dut zenbat bider begiratu dudan bizitzaren prismatiko hautsietatik, denborari eta patu itsuari so, neure buruari **ziria sartuz**, kaleidoskopio batean bezala zati koloredunak ikusten nituelako. Juan Kruz Igerabide

**13** (osagaiekin)

**Ziri** ederra **sartu** zidak Sobakevitxek, doilor ziztrin horrek! Jose Morales

**Ziria** polliki **sartu** ziguten ere, izenpetze kanpaina bat dela medio, publikoaren baimenarekin burutu baitzuten zerratze bidegabeetarik bat. Herria

Horregatik esaten dut ez dela bideragarria, **ziri** hori ezin duzulako gaur egun **sartu**. Berria - Euskal Herria

**13** *zu-ziri* ik **suziri**.

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
>
> **belar ziri** (4); **burdin ziri** (4); **suzko ziri** (3)
>
> **ziri batekin** (3); **ziri batzuk** (3); **ziri ederra** (13); **ziri ederra sartu** (8); **ziri luze** (4); **ziri sartzen** (3)
>
> **inori ziria sartu** (3); **ziria hortzen artean** (4)
>
> **ziria sar** (3); **ziria sartu** (79); **ziria sartu dizu** (3); **ziria sartu zieten** (3); **ziria sartu zigun** (3); **ziria sartuko** (9); **ziria sartuz** (7); **ziria sartzea** (8); **ziria sartzeko** (10); **ziria sartzen** (31)
>
> **burdin ziriak** (5); **eta ziriak zilarrezkoak** (4); **gakoak eta ziriak** (4); **su ziriak** (4); **suzko ziriak** (4); **ziriak sartu** (3); **ziriak zeruaren bete** (5)
>
> **burdin zirien** (6); **zirien aurrean** (4)

---

# ziri-zara **1** *adlag* poliki.

Honela, emakumea **ziri-zara** doa ibai aldera arrasto ikusezinen xerka. Javi Cillero

Auto bat etorri da **ziri-zara** kai aldetik eta soldaduak jaitsi dira. Javi Cillero

Paris-Hendaia espresa **ziri-zara** abiatu zen burdinbidean barrena, Donibaneko tren geltokia isiltasunean abandonaturik. Javi Cillero

**2**

Uhinak bakarrik lerratzen dira han behean **ziri-zara**, ez dakit zenbat korapiloko abiaduran, seguru asko nahiko arin. Joxe Austin Arrieta

• **3** *iz*

Egongelako atearen kanpotik itxaron zuen Gabrielek balsa amai zedin, gonen arrastada eta oinen **ziri-zara** entzuten. Irene Aldasoro

Gizonezkoen takoien takateko eta zapata-zoruen **ziri-zara** traketsak gogorarazi zion ezen haien kultura-maila eta berarena ez zirela berdinak. Irene Aldasoro

---

# ziri-ziri **1** *adlag* leun eta eten gabe.

**Ziri-ziri** jotzen zuen euriak leihoko kristaletan eta ia erabatekoa zen gelako ilunpea. Anjel Lertxundi

Euria ari zuen **ziri-ziri**. Anjel Lertxundi

Ibaialde batera begira dago, non errekasto bat baitoa maldan behera, **ziri-ziri**, zuhaizpean. Mirentxu Larrañaga

Gau grisa zen, elur-ur xehea ari zuen, **ziri-ziri**, eta kaleak distiratsu ageri ziren izotz beltzetan. Mirentxu Larrañaga

Eskema nagusia Habanan kontrainteligentzia erakundea atontzea zen, horren bidez Kuban **ziri-ziri** sartzen ziharduten naziak eta bosgarren kolumnistak ehizatzeko. Edorta Jimenez

**2** (izenondo gisa)

Hezetasun lurrun bat altxatzen zen, euri **ziri-ziri** bat, eta Florenten aurpegiraino bafada hozkirri bat ekarri eta itsas haizearen zapore gazi mingots ezaguna utzi zion ahoan Karlos Zabala

---

# ziribasa *iz*

Nik ez nituen Danelen garaipena eta xarma txalotuko, baina ez nintzen haien **ziribasan** ere ariko. Anjel Lertxundi

---

# ziribuelta *iz adkor* buelta.

Bihotzak **ziribuelta** egin zuen Joanesen barruan, trapezista baten modura, berehala etorri baitzitzaion akordura bere gelan lo zegoen printzesaren begitartea. Felipe Juaristi

---

# ziribueltaka *adlag adkor* bueltaka.

Begira geratu zitzaizkion lapur biak une batez armadurari, baina, susmo txarra harturik, kanpora joan ziren abian, izua airean **ziribueltaka** zeramatela. Felipe Juaristi

---

# ziridun *iz* ziria duen pertsona.

Kokospean behera zapia, ertz apaineko zapia, ipini zion zerbitzari batek; beste batek, mahai zaintzen ziharduenak, fruta-plater bat jarri zion aurrean, baina, mokadu bat egin zueneko, **ziridunak** ziriaz ukituta, berehalako batean kendu zioten aurretik. Patxi Ezkiaga

Bazihoan Santxo txastatzera, baina, horretara baino lehen, bere ukitua egina zion **ziridunak**; eta, frutarena bezalaxe, azkar-azkar jaso zuen zerbitzariak. Patxi Ezkiaga

---

# zirigai *izond* ziria sartuko diotena.

Izatekotan ere, Danel Ada baliatzen ari zen, eta, hartara, biok ginen Danelen **zirigai**. Anjel Lertxundi

---

# zirigarri

"Bingoa kirolago da, telebista kultura baino!" esaldia iltzaturik genuen erredakzioko kortxozko ohar-taulan, kameren-eta **zirigarri**. Anjel Lertxundi

---

## zirika 1 *adlag* zirikatuz.

Jesusek, haien azpikeriaz oharturik, esan zien: -Zergatik zatozkidate **zirika**?

ORT-ko burua eta OIC-ko idiskoa eztabaidan ari ziren, elkarri **zirika** eta zirtoka. Juan Kruz Igerabide

Bazkalorduan dukea **zirika** eta zipoka aritu zitzaion eta erran zion ezen, zezena lantzaz hartzen bazuen eta suerte hartan akabatzen, urrezko hamar dukat emanen zizkiola. Joan Mari Irigoien

**Zirika** hasten zitzaizkion haserrearazteko. Fernando Rey

Nola laurak ere ez baikinen geldi egoiteko mutilak, hala hasten ginen elkarri kilika, **zirika** eta zipriztinka... baita borrokan ere handik gutirat. Joan Mari Irigoien

Haren jarrera ikustean, mutiko gehienak beren liburuetara bihurtu ziren, lanean ari zirelako itxura nabarmenak eginez, baina banaka batzuek elkarri **zirika** jarraitu genuen. Pedro Alberdi

Doña Rosaren etxean sartzea egin eta han hasi zitzaizkidanan lagunak **zirika**: "Margarita, zer moduz atzo?" eta "goxo-goxo helduta ikusi zintuztedan" eta [...]. Xabier Mendiguren Elizegi

Errietari lotzeko ahalik eta aukera gutien eman nahirik -laugarrena izanen zen, eta aski nuen emakume-errietaz-, haren aurpegi ustekabetuari **zirika** aitzindu nintzaion. Aingeru Epaltza

Etsaia, deabrua, **zirika** ari da maltzurkeria abilekin. Joan Mari Lekuona

**2** irud/hed

Gero, 2001eko udan, urte batzuk lehenagotik **zirika** neukan nobelatxo bat idazten aritu nintzen. Xabier Mendiguren Elizegi

Egun hartan, ordea, alabak **zirika** hasi zitzaizkion aitari, "Nola zen ba gabonetan kantatzen zenuen hura?". Xabier Mendiguren Elizegi

**3** (izen gisa) ik **zirikada**.

Eguneroko zereginari lotzea hartuko du orain helburutzat, zaintzaleen **zirika** eta espantukeriei kasurik egin gabe. Filipe Bidart

Norma Lúciak, ikuskizun horri begira, ezin zion **zirikari** eutsi, irakiten jartzen zen, eta orduak eta orduak ematen zituen masturbatzen. Karlos Zabala

**4** zauriak-eta behin eta berriro ukitzen.

Aurrez aurre daukazu mahaiaren atzean, eta eskuburdinek egin dizkizuten marketan ari zara **zirika**. Rafa Egiguren

Zauri-zokoan **zirika**. Aingeru Epaltza

Ni, ordea, **zirika** ibili naiz haren sexuan, arreta handirik jarri gabe, manten azpian; besoa baldartu egin zait gero. Monika Etxebarria

**5** ***zirikan*** *adlag* zirika.

-Nolakoa zen ohean? -barrezka **zirikan** Josebak. Iñaki Zabaleta

Iduritzen zitzaidan ama alde bat ene **zirikan** ari zela, alegia eta deusez Mattin aipatuz, ene berri zerbait jakin beharrez. Janbattitt Dirassar

Asteburuetan, amarenganat itzuli bat egiten nuelarik, ahal bezain itzuli laburra egia erran, ama artetan hasten zitzaidan **zirikan**: [...]. Janbattitt Dirassar

**6** ***zirika egin*** zirikatu.

Norbaitek **zirika egiten** badit, ukabila dantzan jarriko dut. Koldo Biguri

**Zirika egiteko** gogoa ere izan zuen, baina apaltasunez hitz egitea aukeratu zuen. Pedro Alberdi

Finca Vigían 1942ko urriaren 7an sinatua den eskutitzean semeari Juan Duñabeitia aipatzen dio, eta 1943ko urriaren 30eko beste batean semeari **zirika egiten** dio, Sinbad aipatuz. Edorta Jimenez

25 000 euro pagatzera kondenatua izan da Donibane Lohitzuneko liburu denda bat, Baionako lan auzitegian, han langile zen emazte bati **zirika egitea** gatik. Herria

**7** ***zirika-mirika*** *adkor* zirika.

Bere aurretik egin zuen gizon txikiak etxera: txistuka, **zirika-mirika**, ezaxolaz bezala zebilen. Pablo Sastre

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
> **elkarri zirika** (4); **zergatik zatozkidate zirika** (3)

---

## zirikada *iz* zirikatzea.

Kontua da gure kirio-multzoa ahalik eta **zirikada** bortitzenaren bidez astintzea. Juan Martin Elexpuru / Bego Montorio

Poesia ditiranbiko batzuk, Homero eta Virgilioren aurkako **zirikadekin**. Juan Martin Elexpuru

Orain ere, homosexual deklaratu haizen neurrian, ez zaik faltako **zirikada** bat baino gehiago, eta entzun nahi ez dituanak entzun beharko dituk. Joan Mari Irigoien

-Hona hemen behar diren lau gizonok - **zirikadei** eutsiz, Lauaxetak. Edorta Jimenez

Lanaren inguruko broma, keinu eta **zirikadak** baizik ez. Aingeru Epaltza

Agit/prop saila sortu nuen gero, Iñigo Aranbarriren **zirikadak** entzunda. Berria - Harian

Orduan ikasi zuen Tomek Angieren topaketaz eta **zirikada** batzuk bota zizkion, azkenean barrez, kafe bat hartzen bukatu bazuten ere. Iñaki Zabaleta

Gero, ziria jaurti zaionari **zirikadak** minik edo lotsarik edo halako besterik eragin diola antzemanez gero, horra jaurtitzailearen arrakasta eta bozkarioa, eta horra ezizena, goitizena edo dena delakoa betiko finkaturik. Edorta Jimenez

Segur bazen ordu haietan ere **zirikada** frango jendeen artean, eta herrien artean! Angel Aintziburu / Jean Baptiste Etxarren

---

## zirikagarri *izond* zirikatzen duena.

Bihotz handiko gizona zen, baina atsegin zitzaizkion hitz **zirikagarriak**. Jose Morales

Pasarte **zirikagarriak** gorabehera, doinu serioa zuen gutunak. Jon Muñoz

-Ez al zaik **zirikagarria** iruditzen heure aitonaren arrastoan ibiltzea? Jon Muñoz

Hain tentagarria egiten zitzaidan, hain **zirikagarria**, hain desiragarria, non irribarrea atera zitzaidan antza -"zeri egiten diozu barre?" galdetu zidan-, eldarnio moduko hartan. Ramon Saizarbitoria

---

## zirikagura

Ibaiertzetako jendeak bazuen, une hartan, jentila **zirikagura**. Pako Aristi

---

## zirikalari *(orobat **zirikari**)* 1 *izond/iz* zirika ibiltzen dena.

"Beharbada, elkar bakan ikusten dutelako", esan zidan behin lagun **zirikalari** batek. Gotzon Garate

**Zirikalari** sinpatikoak dira, berarentzat. Txema Ramirez de la Piscina

**2** zirikatzen duena.

Berdin hitz egin liteke komunikazio disonanteaz edota **zirikalariaz** ere. Txema Ramirez de la Piscina

---

**zirikaldi** 1 *iz* zirikatzen den aldia.

Zeren eta batak besteari ematen ziozkaten **zirikaldi** izigarriak, batek serioski eta bertzeak irriz. Menane Oxandabaratz

Nolakoak garen jakinda, azoka bezalako **zirikaldien** beharra dugu. Berria - Kultura

Hauxe da New Yorken bizi diren latino askoren **zirikaldia** . Gotzon Garate

**2** tentaldia.

Izango ditu, bai, atsekabeak, **zirikaldiak** eta nahigabeak, baina denetan garaile aterako da. Askoren artean

Eragabea kentzeko on da, [...] erabakitzea hurrengo bazkari edo afarirako, eta hala egunero berdin, zenbat komeni zaion jatea egun bakoitzean; eta neurri honetatik ez aurrera ateratzea ezein jateko gogo edo **zirikaldigatik** . Patxi Altuna

Gupidaz bete zen eta, **zirikaldi** gaiztoz oinazetua zebilela igarriz, esan zion: "Jainkoaren indarrez agintzen dizuet zuei, deabruoi, ez diezaiozuela gehiago eraso nire anaia honi, orain arte egiten ausartu zareten bezala". Askoren artean

Aurrekoan tranpa ezkutatzeko gauza ez zela izan ikusiz, beste bat prestatu zion, haragizko **zirikaldia** , alegia. Askoren artean

---

**zirikale** *izond* zirikatzailea.

Inoiz, santuen zaindaritza zenbait aipatzen ari nintzela, azaldu zen betiko lagun toreatzailea, **zirikale** : "Hi, Pello! Eguraldi-gizonok ez al daukazue zaindariren bat, gehixeago asmatzen lagunduko dizuenen bat?". Pello Zabala

---

zirikan ik **zirika 5**.

---

**zirikapen** *iz* zirikatzea.

Nerbio-stressa, bihotz-**zirikapena** , kontrakzio-fisikoa eta prozesu horretan zorteak parterik ez hartzea argudio ukaezinak dira xakea kirola dela argudiatzeko». Berria - Kirola

---

zirikari ik **zirikalari**.

---

**zirikatu** *(orobat **zihikatu** g.er.)* **1** norbait bere onetik-edo ateratzen saiatu.

**Zirikatzen** aritu zitzaizkidaan, pozik, ni sufritzen ikusten nindutelako. Agustin Otsoa

Orain, denboran atzera egin eta gogoetan ari naizela, ziur-ziur nago Hanleyk propio egin zuela hura, Charlie **zirikatzeko** . Mirentxu Larrañaga

Badakite jateko ordutegia eta, inoiz goseak **zirikatzen** baditu, kexu dira eguzkiak lo hartu duelako. Askoren artean

Baina sinetsi ez zuten juduek jentilak **zirikatu** zituzten eta senideen aurka gogo-gaiztotu. Elizen arteko biblia

Bestea **zirikatzeko** eta gehiago amorrarazteko, ziplo gaineratu zuen: "orixe haizela!". Jose Morales

Eta tentaldiok egunero **zirikatzen** baitzuten, lotsa ematen zion hainbestetan aitortzeak. Imanol Unzurrunzaga

-Egin ezak proba! - **zirikatu** nuen-. Juan Kruz Igerabide

-Zu ez zara artista? - **zirikatu** du Prusiarrak Alex. Harkaitz Cano

"Esan ezak egia, David, nahi gabe asmatu duk!", **zirikatu** ninduen Martinek. Bernardo Atxaga

-Ez zakiat zer den okerrago, norbera alkoholiko izatea, edo semea traidore... - **zirikatu** zuen berriro Praixkuk. Joan Mari Irigoien

Jamnia hirira heldurik, juduak **zirikatzen** hasi zen Kendebeo, Judean barrena erasoaldiak eginez, presoak harrapatuz eta jendea hilez. Elizen arteko biblia

Noranahi abiatu, zekenkeria jazartzen zaio gizaki honi, lizunkeriak suntsitzen du, handikeriak txunditzen du, [...] utzikeriak lozorrotzen du, egoskorkeriak **zirikatzen** du. Imanol Unzurrunzaga

Txapelketan Schumacher **zirika** dezakeen gidari bakarra bilakatu da Button. Berria - Kirola

Van Daan andrea hainbesteraino **zirikatzen** dute non gorri-gorri jartzen baita eta ez da bere burua defenditzeko gauza. Josu Zabaleta

Egunero **zirikatzen** gaituzte tentaldi hauek, Jauna, atsedenik gabe. Imanol Unzurrunzaga

· Zezena, halarik ere, kementsu zegoen artean eta, aitak zaldi gainetik **zirikatu** zuenean, indartsu abiatu zen hura. Joan Mari Irigoien

Liztorrak, erleak bezalatsu, **zirikatu** edo amorratuz gero, eraso lezake ganadua. Patziku Perurena

**2** bultzatu, akuilatu; tentatu.

Pozik zen gizona eta, jakin-minak **zirikatuta** , gustura joaten zen Frantziskorekin deitzen zion bakoitzean. Askoren artean

Bazenekiten beraiek izan zirela, Balaamek **zirikaturik** , israeldarrak Jaunaren aurka altxarazi zituztenak. Elizen arteko biblia

Jainkoaren borroketan ongi trebaturiko soldadu bezala, borroka berrietara **zirikatzen** zuen etsaia. Askoren artean

Orrondok ez zuen inork **zirikatzerik** behar izan, hitz egiten hasteko. Pedro Alberdi

Beldur baitzen inoiz, lanaren nekeak **zirikaturik** , ez ote zuten esango: "Ez gara gauza ez otoitz egiteko, ez hainbeste lan eramateko". Askoren artean

Anaiaren batek, deabruak **zirikaturik** , sexu-harremanik izan baleza, ken bekio abitua, bere bekatu dorpeaz galdua baitu hura janzteko eskubidea. Askoren artean

Ahizparen batek, etsaiak **zirikaturik** , profesatutako bizimoldearen kontra bekatu larria egin baleza. Askoren artean

Maelek zirkin bat egin zuen eta, bere zaldia **zirikatuz** , aurrera egin zuen. Joanes Urkixo

Belar luze bat artu eta, zuloan sartuz, kirkilla **zirikatu** , kanpora irten zedin. Xabier Mendiguren Elizegi

Gobernua aski kexu da ikusiz ainitz herritarrrek Amerikanoen kontra duten herra, telebixta, irrati eta kasetek ez dutena funtsean guti **zihikatzen** . Herria

**3** zauriak-eta behin eta berriro ukitu.

Judu arraza, babes ematen dion edozein naziorentzat, zauria **zirikatzen** duen behatz muturra da. Ramon Etxezarreta

Hatzarekin ahoa **zirikatzen** jarraitu zuen Maiteak. Anton Garikano

Azterketa luze baten ondoren [...] karie bat **zirikatzen** hasi zaio Dussel. Josu Zabaleta

Esku hutsaz alua **zirikatu** zion, zulokari. Itxaro Borda

Egunkaria irakurtzerakoan, hatzarekin kopeta **zirikatzen** zenuen. Lander Garro

Bat-batean norbaitek **zirikatu** ninduen gerrialdean. Mirentxu Larrañaga

---

**zirikatzaile** 1 *izond* zirikatzen duena.

Horrezaz gainera, Iritzian, aurreko puntako feminista **zirikatzaile** baten artikulu zikiratzaile bat ere bazekarren. Iñaki Segurola

Gizonekin hitz egiteko era suelto samarra zuen, gogotik barre egiten zuen esaldi **zirikatzaile** bat edo hitz gordinen bat entzutean. Pello Lizarralde

Nahi gabean atera zitzaion irribarrea [...] eta ahots **zirikatzailez** galdegin zion: [...]. Patxi Zubizarreta

Bertso saio **zirikatzailea**, horixe zuten armarik eraginkorrena. Txema Ramirez de la Piscina

Batzuetan sarkasmo gordinenerantz lerratu du kontalariaren jarrera, [...] besteetan ironia **zirikatzaileak** ernarazi du irakurlea, besteetan ironia leunak bildu du istorioa. Berria - Kultura

Auzi konpontzaile ez izateaz gainera, auziak konponbidean sartzeko **zirikatzaile**, bultzatzaile, bideratzaile eta antolatzaile izateko erantzukizuna ere ez zuen bere ardurapean hartu. Koldo Zuazo

Lotsagabe eta **zirikatzaile** izatea zen gure asmoa, eta badirudi lortu genuela, erreakzioei kasu eginez gero. Xabier Mendiguren Elizegi

Egia da, izan, berak gutxi idatzi zuela euskaraz; **zirikatzaile** eta bultzatzaile izan zen, erabiltzaile baino gehiago. Koldo Zuazo

Txorien txio-txioa bezain alaia, hartza bezain zabala, arkakusoa bezain **zirikatzailea**, mandeulia bezain nazkagarria. Jon Alonso

Ez zion batere onirizten Diogenesen alderdi **zirikatzaileari**, nola egun batean hark "Gizonak, hurbildu!" oihu egin eta gero bere makilaz jo baizituen hara bilduak eta esan: "Gizonei egin diet dei, ez gorotzei". Juan Garzia

**2** (adizlagun gisa)

-Zure autoan ala nirean? -galdetu dit **zirikatzaile**. Patxi Iturritegi

-Kar, kar! -dio **zirikatzaile**, baina begirunez. Monika Etxebarria

-Niri esker dago kalean -jakinarazi zion, argitzaile eta **zirikatzaile**-. Migel Angel Mintegi

**3** (izen gisa)

Hitzik esan gabe pairatu behar izan ditut **zirikatzaileak**, zerekin isilarazi eta izuan murgilarazi edukirik ere nire esku. Monika Etxebarria

Potolo sumindua, eskuak ukabil eta begiak gorri, gainera oldartu zaio **zirikatzaileari**. Xabier Mendiguren Elizegi

**Zirikatzaile** batzuk bidali zizkioten [Jesusi], zintzoarena eginez, hura hitzen batean harrapatzeko eta, hala, gobernariaren esku eta mende jartzeko asmoz. Elizen arteko biblia

Izateko eran serioa da astegun buruzurian, baina **zirikatzaile** petoa asteburuetan. Xabier Etxabe

Erran dezagun aratsalde hori arras airosa izan dela kantu, bertsu eta musika, gure denen **zirikatzaile** ginuelarik Cachenaut. Herria

**4** (hitz elkartuetan)

Jendea lasterka joan zen ikuskizunaz gozatzera eta bi zakurrak emakume-**zirikatzailetzat** hartu zituzten, nahiz eta ongi ezagutzen zituzten. Pello Lizarralde

**hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**

**gehiago zirikatu** (4); **zirikatu egin nuen** (3); **zirikatu nahi izan** (4); **zirikatu ninduen** (3); **zirikatu nuen** (6); **zirikatu zuen** (17); **zirikatu zuten** (3)

**etsaiak zirikaturik** (3)

**ni zirikatzeko** (3)

**egunero zirikatzen** (3); **zirikatzen ari** (5); **zirikatzen aritu** (3); **zirikatzen du** (4); **zirikatzen duten** (3); **zirikatzen hasi** (6); **zirikatzen zuen** (9)

---

## zirikatze *iz* norbait bere onetik-edo ateratzen saiatu.

Talde gisa onartuz gero, badakigu poliziaz inguratuta etorriko direla, eta, hala, liskarrak eragozten dira, nahiz eta irainak eta **zirikatzeak** beti izango diren. Berria - Kirola

---

## zirikatzearren *adlag* zirikatzeko.

Oroitzen hasi eta aurreko urteetan idazten nizkizun eskutitzak datozkit gogora, nola esaten nizun beti, **zirikatzearren**, neska guztiak leloak eta gajoak zirela. Xabier Mendiguren Elizegi

---

## zirikeria *iz* zentzugabekeria, aldrebeskeria.

Erranen bakarrik urte bat iragan nuela **zirikerian**, kasik alfer, baina han egon behar. Janbattitt Dirassar

Soldadogoak etzuela deus onik, hoinbeste denbora **zirikerian** egon behar, gazteak andeatzen baizik etzirela! Herria

Gainerat, presondegi gehienak zahartuak dira eta ainitz tokitan preso direnak **zirikeria** hutsean daude, alde bat alfer, untsalaz behar luketelarik lan zerbaitetan artzeko moldea Herria

---

## ziriketa *iz* zirikatzea.

Gure etsaiaren kezkakeriak eta **ziriketak** sentitzeko eta ulertzeko. Patxi Altuna

---

## ziriku *iz* zeta.

Arreba Ernestinak anaia nagusia janzten amaitu du, pinpirindu, eta **zirikuzko** eskularruak jarri dizkio. Itziar Otegi

---

## ziriliko 1 *izond* alfabetoez mintzatuz, errusieran eta inguruko beste hizkuntza batzuetan erabiltzen dena.

Egun aste urte luzez irritsean eduki gaituen zubiko karaktere **zirilikoez** mezu giltzatua luzatzen digun bost adarreko izarra. Koldo Izagirre

Letra **zirilikoen** ondoren arabiar zenbakiak, eta marratxo bat bakarrik bi zenbakien arteko bizitza osoa laburbiltzeko. Joseba Sarrionandia

Dendetako seinaleak ere gogoan hartu zituen, nahiz eta berarentzat letra **ziriliko** ulertezinak izan. Xabier Olarra

Belgikako hiriburuan, Bruselan hain zuzen, kaleko hainbat iragarkitan ez latinoa ez **zirilikoa** den beste alfabeto bat ageri da. Edorta Jimenez

• **2** *iz* alfabeto zirilikoa.

Martin Iliev Gatxevskik dioenez, zailena idazten ikastea egin zaio, sorterrian **zirilikoa** erabiltzen dutelako. Berria - Harian

Bisita-txartela eman zidan, bai letra latinoz eta bai **zirilikoz** idatzia. Matías Múgica

Zurezko oinarri bati itsatsita dago; oinarriak urre koloreko plaka bat du, **zirilikoz** idatzitako hitz batzuekin. Iban Zaldua

---

## zirimiri *(orobat **sirimiri** g.er., **xirimiri** g.er. eta **xirrimiri** g.er.)* 1 *iz* tanta xehe-xehetan erortzen den euria. ik **lanbro 7**.

**Zirimiria** ari zuen. Jon Muñoz

**Zirimiria** ari zuen, gaua beltz zegoen, izar baten distira ere ez zen zeruan ageri. Koro Navarro

**Zirimiriaren** azpian azaltzen hasi dira lehen boluntarioak. Berria - Kultura

**Xirimiria** edo langarra noizbehinka, ateri tarteka, hasi-ez-hasi marteka. Pello Zabala

Garai hartan beti egiten zuen **zirimiria** Bilbo aldean, laztana. Javi Cillero

**Zirimiriaren** azpiko hiri sakabanatua. Koro Navarro

**Zirimiri** xehe bat ari zen, kasik ikusezina. Elena Touyarou

Cumhail, Fionn eta Mael zaldien urratsean zihoazen, kapusaiak buru gainean jarrita **zirimiri** atergabetik babesteko. Joanes Urkixo

Ez nuen ez hotzik ez minik sentitzen, eta aurpegia bustitzen zidan **zirimiri** sarkorra, elur eta euri artekoa, ulermenaren bidez hautematen nuen, ez azalaren bidez. Urtzi Urrutikoetxea

Emakumeak behin esan zion Jusuf Khani, zoriontsu izateko, sorterriko **zirimiria** behar zuela ikusi etxeko leiho handiaren atzetik. Felipe Juaristi

**Xirimiria** edo langarra noizbehinka, ateri tarteka, hasi-ez-hasi marteka. Pello Zabala

Arantzazun, Gasteizen eta Iruñean frexko baino eguzkia daukate, eta besteotan lainoa eta **xirimiria**. Pello Zabala

Kostaldean, batik bat, udazkeneko garaitsu honetan, erauntsi bakoitzaren ostean, normalean, atertzera jotzen du: segidoko **xirimiri** xirri-xirri hori toki gehienetan ez baitu maiz egiten. Pello Zabala

Goizetik hastapen baikorra, ibilaldi-Mezanausiekin, oro eder eta ospetsu, salbu aroa haatik orduan antzer eta **xirimiri**, Euskal Herriko bi buruetan erraiten den bezala. Herria

**2** (hitz elkartuetan)

Zabor izoztua eta zarama **zirimiri**-saltsatan, nork bere gustuan. Urtzi Urrutikoeetxea

**3** *irud*

Garbi esan behar dizut, zazpi ahalak egiten ditudala lanetan laguntzeko, eta besteekin atsegina eta ona izateko, era horretara errieta zaparradak **xirimiri** bihur daitezen. Josu Zabaleta

Hitzari eustea baita, zure kasuan, borondatea sendotzeko modurik onena, **zirimiria** izan, eurijasa izan edo kazkabarra izan...! Joan Mari Irigoien

Angelok, ordea, hizketan eta hizketan, atertu gabeko jario ulergaitz baten **zirimirian**. Anjel Lertxundi

Tabako-hauts **zirimiri** etengabe haiek ziratekeen haren apaiz-jantzi zaharrei itxura urdin histu hura ematen zietenak. Irene Aldasoro

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
> **zirimiria ari zuen** (3)

---

## zirimol ik **zirimola**.

---

## **zirimola** *(orobat **zirimol** g.er. eta **zirrimola** g.er.)* **1** *iz* zurrunbiloa, eskuarki haizezkoa edo urezkoa. ik **zurrunbilo**.

Masta arrakalatu egin zen eta erori, eta estutu egin ziren bai Patrizio bai Gustavo ere, haize hark **zirimola** baitzekarren. Felipe Juaristi

Halleyk haize lasterrak aztertu zituen, haize beroak nolako **zirimolak** egiten dituen goruntz doanean. Pello Zabala

Putzura botatako katutxoen irudia etorri zitzaidan burura, **zirimolak** irenstear. Juan Kruz Igerabide

Hala amildu zen Cyril Tourner jainko ezezagun batenganantz zeruaren **zirimola** isil-itunean. Juan Garzia

Beti itzultzen zen Hansengana apurtu ezinezko kate hartan betiko harrapatuta balego bezala, errekako **zirimolan** hostoa bezala. Hasier Etxeberria

*ik beherago* 5. Askoren artean

Indiako Bihar herrialdean, 800 hildakotik gora, **zirimola** batek tren bat ibai batera botata. Berria - Mundua

Haizeak bolada bortitzez astintzen du, zuzentzailearen ilea **zirimola** bat eginda inarrosten da. Jon Alonso

**2** (izenondo eta izenlagunekin)

Honelaxe jokatu behar du haizearen putzak ere, zeinak [...] **zirimol** bihurrian dena erauzten eta azkarki eramaten baitu uhol birakarian. Xabier Amuriza

Itsas uretan bat egiteko **zirimola** goxoetan. Herria

Haizeak **zirimola** zoroan barreiatu eta eraman zuen. Anjel Lertxundi

Elkarren kontrako milaka kanaletan irekitzen eta bideratzen zen uren barren zabala, eta bat-batean lehertzen zen, inarrosaldi eroetan, gora eta behera, irakinean, txistuka, **zirimola** erraldoi eta kontatu ezinezkoetan biraka. Koro Navarro

Sarritan, **zirimola** indartsuak arrastaturik, ezerk ez baitu salbatzen heriotzaren haitzak jotzetik. Xabier Amuriza

[Haizeak] **zirimol** oldartsuan korrituz, tantai handiak zelaietan eraisten ditu. Xabier Amuriza

**Zirimola** espiralkoia jaisten eta hodeiaren gorputz malgua berarekin arrastatzen baitu. Xabier Amuriza

Atoiontzi batetik kezko **zirimola** izugarriak altxatzen ziren, beltz eta gorrimin, untzitik gora kiribilka igoz. Lopez de Arana

Orain Etna mendiaren ahotik batzuetan suzko **zirimolak** zergatik hasgoratzen diren azalduko dut. Xabier Amuriza

Suzko zerutar **zirimolak**. Xabier Amuriza

Trenmakinak elurrezko **zirimola** sortzen zuen eta berarekin batera arrastaka eramaten. Fernando Rey

**3** irud/hed

Erortze lasterraren **zirimolak** inguraturik, hegan ote nindoan lilura sentitu nuen une batez. Juan Kruz Igerabide

Eromena, batzuetan, horixe besterik ez da, antza: zeure buruaren oharmena erauzten dizun **zirimola** bat; orduan, ez zara zu zeu, **zirimola** bera baizik; ez dago **zirimola** besterik. Juan Kruz Igerabide

Aitorpenak **zirimola** eragin zuen Eduardoren buruan. Berria - Euskal Herria

Taxi bat hartu eta Marine Drive-ko trafikoaren **zirimolak** irentsi zuen berehala. Xabier Montoia

Jimmy gau eta egun biraka zebiltzan ateen **zirimolan** sartu zen, saltxitxen haragia bailitzan bizitza xehatuko zioten ate birakarien **zirimolan**. Lopez de Arana

Printzesa aipatze hutsak, jeloskortasunaren **zirimola** sortzen zuen eta bihotz-muinetan zuena kanporatzen zion eraldaturik, berez gozoa zena ozpin bihurturik. Felipe Juaristi

Ruso hegazkin zonbaitek beren mitralleten **zirimoletan** kausitzen gituzte eta lagun zonbait hiltzen dituzte. Michel Oronoz

Itoizko urtegiaren aurkako borrokaren **zirimolan** eman dituen urteotan Dani Untzitik ikasi du zaila dela boterearen estrategiari ihes egitea. Edurne Elizondo

Gauza larriak gertatzen ari dira, eta biok gaude **zirimolan** sartuta: ni, nire lana hori delako; eta, zu, zure inguruan gertatu delako. Migel Angel Mintegi

Teoria oso arina da errealitatearen **zirimolan**. Berria - Euskal Herria

**4** (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

Ereinotz mendietan zehar haize **zirimolek** sakaturiko garra zabaltzen eta bere oldar handian dena irensten duenean bezala. Xabier Amuriza

Hire oihua haize-**zirimola** bezala sartu zaidak gorputzean barrena. Joan Mari Irigoien

Zaldien trostak harroturiko hauts-**zirimolen** magalean. Anjel Lertxundi

Kalea absentak lausotutako elur-**zirimola** zen. Miltch deitu ekaitz-**zirimola** ikaragarria. Lopez de Arana

Elur-erauntsia islagailuen argitan, elur-hautsa eta bisuts-**zirimola** pistaren gainean. Joxe Austin Arrieta

Ibaiaren beste ertzean, kebide garaiek ke-**zirimolak** jailkitzen dituzte airera. Jon Alonso

Egunez egun, eter **zirimolek** eta eguzki izpiek. Xabier Amuriza

Zurrunbilo edo ur-**zirimola** bat da horren guztiaren emaitza. Koro Navarro

Hantxe, dozenaka irudiren artean, irudi eta kolore **zirimola** hartan, itsas lamia beltzaran bat ageri zen irla txiki baten ondoan. Paddy Rekalde

Feria esan ohi zaion oihu, irri, irain eta kantu **zirimola** hau guztia biziagoa eta alegeragoa da Espainian. Koldo Izagirre

**5** ***zirimolan*** *adlag* ik **zirimolaka.**

Haizeak harea **zirimolan** altxatzen zuen, plastikozko poltsekin eta paper zatiekin batera. Juan Kruz Igerabide

Aterpean ere ekaitza sartzen baitzen **zirimolan**. Filipe Bidart

Bazirudien euria ez zela inoiz lurrera iristen, haizeak zeramala airez aire **zirimolan**. Koldo Izagirre

Udazkeneko haize epelak **zirimolatan** erraztatzen duen presondegiko patioan. Koldo Izagirre

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
> **haize zirimola** (14); **haize zirimola batek** (4); **ke zirimola** (4); **zirimola bat** (7); **zirimola batek** (9); **zirimola baten** (3)
> **haize zirimolak** (3); **hauts zirimolak** (3)

---

# zirimolaka *(orobat* ***txirimolaka*** *g.er.)* **1** *adlag* zirimolan.

Kolpera baturiko haize bortitzak hodeia zulatzen duenean eta, beronen barruan sarturik, **zirimolaka** biratzen eta hodeiaren erdigunea hutsarazten eta ingurua are eta areago trinkoarazten duenean. Xabier Amuriza

Ur jauzi haundi bat erortzen da delako putzu horretara eta **zirimolaka** aritzen azkarki, dena inguru eta inguru. Angel Aintziburu / Jean Baptiste Etxarren

Zigarroen kea, **zirimolaka**, billar-mahaiaren gaineko argiaren inguruan. Anjel Lertxundi

**2** irud/hed

Trantzean jartzen zuan, **zirimolaka** mugitzen zitian begiak, hoska eta madarikazioka; aurrean zeukana listuz blai eginik, ijitoek egiten dutenez. Juan Garzia

Denborak, **zirimolaka**, tristeziaren orbela berekin eraman ondoren ere zorion hondar bat geratzen dela pentsatzen du alargunak. Imanol Zurutuza

Ostatu-zuloetako zuzi ketsuak imajinatu zituen, eta gau-borroka irrigarririk, zurezko argimutilik ezpata-**zirimolaka**, justizia-esklaboek aizkorakadaz bortxaturiko sarrailarik [...] errezel urratuz eta zapi zikinez jantziriko txiro-samalden erdian. Juan Garzia

---

# zirimolatsu **1** *izond* zirimolez betea.

1915an, haize **zirimolatsu** ikaragarria Castevellen, zuhaitzak orpotik bihurritu, atera eta puskatu zituena. Pello Zabala

Aire berodun haize-begi **zirimolatsuak** aise osatzen baitira. Pello Zabala

Ekaitz aurreko sorgin-haize **zirimolatsua**, berriz, bere sudurretako haize-bafada beldurgarria. Pello Zabala

Ibai **zirimolatsuaren** inguruko lautada itzel haietan. Agustin Otsoa

Keak atzera-aurrera **zirimolatsuak** egiten zituen Adaren bular inguruetan. Anjel Lertxundi

**2** irud/hed

Mollyren txirikordak haren buruan jirabira **zirimolatsuan** zebiltzala. Mirentxu Larrañaga

Nire bizitzan lehendabiziko aldiz, zeharo mozkortuta nago, eta neure buruaz harro-harro sentiarazi nau; harik eta, behin etzanda, burua zurrunbilo **zirimolatsuan** hasi zaidan arte. Mirentxu Larrañaga

Euren tuniken beheko parte **zirimolatsuek**, hegalariek, ozta-ozta estaltzen zituzten tuniken azpian sumatzen ziren terlenkazko praka grisak. Jon Alonso

Idoia **zirimolatsu** samarra zen, eta alde asko zituen; pinturaz gain, gogor ikasten zuen hark ere, eta maite zuen erizain lanbidea, biziki maite ere. Juan Kruz Igerabide

**3** (adizlagun gisa)

Eguraldi berdotza, itsasoa harro sumatzen du, **zirimolatsu**, berde bere beltzean. Iñaki Iñurrieta

---

# zirimolatu, zirimola(tu), zirimolatzen du *ad* biraka erabili.

Atzamar pareaz heldutako zigarroa **zirimolatu** zuen airean, orkestra sinfoniko bateko zuzendari baten moduan. Josu Landa

Haize bolada batek **zirimolatu** zizkion alargun gazte eta ederrari udare xanpuarekin garbitutako adats belakitsuak. Aritz Gorrotxategi

---

zirimonia ik **zeremonia.**

---

# zirin **1** *iz* hegaztien gorotza.

Txori baten **zirina** erori zen hesi batera. Koro Navarro

Hegaztien **zirinak** xaflak zipriztin zurixkez zikintzen. Karlos Zabala

Antxeta saldo izugarriek oihu egiten zuten beren lagun hil berrien eta urteetako **zirinaren** gainean. Gorozki edo **zirin** batetik kosmetiko bat -*aurum de stercore*- ateratzeko ideiak bihotza berotzen zidan, horrenbestez jatorrietara, alkimistek fosforoa gernutik ateratzen zuten garai haietara itzuliko banintz bezala. Koro Navarro

**Zirinen** zakartasun alkalinoa zen nagusi. Karlos Zabala

Kutsatu gabe dauden hegaztien aho eta **zirinetan** bizirik atzeman dute birusa hamar egunez. Berria - Gaiak

**2** (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

Gero eta hurbilago sentitzen du hiru txita eta ama oiloaren **zirin**-usaina, eztitan ditu belarriak hegaztien txio alaiekin. Anjel Lertxundi

Adar ihar eta **zirin**-orezko su bat piztua zuten lehortzeko. Juan Garzia

Oilo-simaur edo **zirin**-satsa [...] ez da hutsean ematen; aitzitik, saldu egiten da, eta garesti. Juan Garzia

Frieli eginiko keinua baino askoz gehiago zen Urmenetaren **zirin**-ziria. Iñigo Aranbarri

**3** (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa)

Lurrera erori ginen, antxeta-**zirinez** betetako belar irristakorraren gainean. Koro Navarro

Osteratxo bat egingo nuela hiri inguruko baserrietan barrena (artean bazen halakorik) oilo-**zirin** bila. Juan Garzia

Etorbide jenderik gabeak: txori-**zirinez** eta lore zuriz irristakor... Joxe Austin Arrieta

Astaburu bakar batek zilarrezko laurogei txanpon balio zuen, eta kilo erdi uso-**zirinek** zilarrezko bost txanpon. Elizen arteko biblia

Kaleko lorontzi harrizko bat, kaio-**zirinez** zuritua. Anjel Lertxundi

• **4** *izond* xehea; ahula.

Kea geratu zen gela handian, ke gordin eta **zirina**, ke erremina. Felipe Juaristi

Leihoa ireki zuen Katiak, eta karrikako argi **zirina** sartu zen barrura. Felipe Juaristi

**5** urduria.

Izorramendu aluko suak hartzen nau berorren nagusi zikin, ama **zirinaren** seme horrekin, hara. Juan Garzia

Mundutik zetorren hark bazekien, ondo baino hobeto, herriko mutil **zirinek** tabakoa erretzen zutena. Edorta Jimenez

Duela 50 urteko eliz ezkontza ximple eta eskeptiko batean baino mila bider apainkeria, sineskeria eta jatorkeria **zirinagoa** nabaritu dut halakoen familietan. Patziku Perurena

Mutil ona da Darby, alajainkoa!, **zirin** hutsa kontrakoa liokeena, eta gu jende gisatsuak gara, demonio! Juan Garzia

Gero, behar bezalako estimua eta omen **zirinezkoa** obratu du, zuri-zuri, idazle handiaren buru lehendik ere zurian. Anjel Lertxundi

-Ez dun hori, ez hadi hain **zirina** izan. Unai Iturriaga

**6** ***euri zirin*** euri lanbroa.

Haize mina dabil, dotorea aroa etxean utzitako **euri zirin**, narras, lorrinaren aldean. Iñigo Aranbarri

**Euri zirina** Chiapasen bezain zarratu datorkigularik, bidean elkarren ondoan datozen bi irudi eurizko dira. Iñigo Aranbarri

Hauts lainoak bustirik ez dela, **euri zirina** hasiz gero lokatza franko bada kaleetan. Pablo Sastre

Arrantzaleek bokarta adurra deitzen zuten **euri zirinarekin**. Joseba Sarrionandia

Londres **euri-zirina** da. Lutxo Egia

**7**

Anek beste behingoz Jonekin hartu zituen bere **zirinen** bueltak. Unai Iturriaga

**8** ***zirin belar*** *(corpusean* ***zirin bedar*** *soilik)*

Begira auzoan nabarmen den oilanda nabar horri, oilarra etxean izanik ere, nola doan auzora, legez kanpoko amodio grinak sutua, senarra **"zirin bedarrak** ekarten" Londresen duen bitartean. Patziku Perurena

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
> euri zirina (4); oilo zirin (3)

---

## **zirindu**, zirin(du), zirintzen **1** da/du *ad* beherakoa izan.

Hor diren hiru herenak **zirinduak** dira, ez dira mugitzen ahal eta beren beharrak hor berean egiten dituzte. Michel Oronoz

**2** (era burutua izen gisa)

**Zirinduek** beren beharrak lekuan berean egiten dituzte, laster itotzekoa eta burzoratzekoa baita barne hortako usaina. Michel Oronoz

**2** zikindu.

Ez dugu argitalpen prozesua **zirinduta** ikusi nahi politikakeriak direla medio. Berria - Euskal Herria

---

## **ziringa** *izond*

Oihuka hasteko zorian nengoen; Juliorekin zer ostia zebilen hartu nahi nion kargu, puta **ziringa** batek bezala jokatzen zuela aurpegiratu. Juan Kruz Igerabide

---

## **zirinoso** *izond* zirinez betea.

Behera begira baldin bazoaz, larri ibili ez ote dizun hiriko usoren batek bere grazia **zirinosoa** kokotetik behera isuriko. Joxerra Garzia

---

## ziripurdika ik **zilipurdika**.

---

## **ziririku** *iz* suziria.

Asko falta da hurrengo urte zaharrerako eta aspaldi du despeditu genuela azkena, entzuten diren tiro hots horiek ez dituzu **ziririkuak**, Nemesio Arozenaren ilobaren atelierretik datoz, pistola neumatikoz josten dituzte orain arrain kaxak, eskatu handiren bat edukiko dute biharko. Koldo Izagirre

---

## **ziristilo** *iz*

Traje urdina, gorbata berdea, oinetako beltzak, bi **ziristilo** handirekin. Gotzon Garate

---

## **ziritsu** *izond* ziri asko duena.

Bestaldeko angeluan, hirugarren konpartimenduan, nola-halako piramide bat metatzen zen zutikako enborrez eta azao **ziritsuz**, negurako egurketa. Koldo Izagirre

---

## **ziritu**, ziri(tu), ziritzen da *ad* ziri itxura hartu.

Eta hankartera luzatuko zigun eskua Antxonek, **ziritu** ote zitzaigun. Koldo Izagirre

---

## **ziritxo** **1** *iz* ziri txikia.

**Ziritxo** bat sartu nuen zuloan. Karlos Linazasoro

Ez al dituk ikusten gandor aldean dituzten **ziritxo** horiek? Iñaki Iñurrieta

**Ziritxoen** antzeko marratxoak ziren, hirunaka, gezi baten punta eratuko balute bezala. Iñaki Iñurrieta

Gasen **ziritxoak** ere izoztuta daude... Josu Zabaleta

**2** ik **ziri 12**.

**Ziritxo** bat sartu nuen zuloan. Karlos Linazasoro

---

## **zirizelkatu**, zirizelka(tu), zirizelkatzen du *ad*

Bi arte horien lotura, gaur egun, hau besterik ez da: gaurko pintoreak bere babesleak **zirizelkatzen** dituela. Xabier Olarra

---

zirka ik **zirku**.

---

**zirkadiano** *izond* denbora bitartez mintzatuz, hogeita lau bat ordu irauten duena.

Ikuslearen denbora: badira animalia guztiengan, eta baita gizakiarengan ere, erritmo natural nagusiak, erritmo **zirkadianoa** (*circa diem* latinezko esapidetik: 'egun batean') arautzen dituzten "erloju biologikoak". Josu Zabaleta

---

**zirkalari** *iz*

Beren bixitaz eta ixtorioaz hitz egin ondoan, gure **zirkalariak** dio "ez da haurride hurbila, bainan aditu izan dut noizbait ixtorio hori, eta berriz familia guzia elgarretaratuko girelarik aipatuko dut kusier". Herria

---

**zirkasiar** *izond* Ipar Kaukasoko Zirkasiakoa, Zirkasiari dagokiona.

Harremanak izan zituen Marie d'Agoult kondesarekin, Carolina Sayn Wittgenstein-ekin, Lola Montes dantzariarekin, Agnes Kingworth eta Sophie Menter pianistekin, Olga Janina printzesa **zirkasiarrarekin**. Josu Zabaleta

Oro duintasun igotzen zen hara, mustatx **zirkasiarrak** dilindan, eta bere gorputz mardularekin betetzen zuen eserlekua. Patxi Zubizarreta

Orduráko, morroiek eskuetatik kendua zioten babesgarritzat hartu zuen aulkia, eta bera, begiak itxirik, ez hilik ez bizirik, gertu zegoen etxeko jaunaren pipa **zirkasiarra** bere hezurretan probatzeko. Jose Morales

---

**zirkilu** *iz* zokoa, bazterra.

Ondo begiratu nituen etxeko gainerako gela, **zirkilu** eta bazterrak. Anjel Lertxundi

Jarraitu nion isiltxorik eta hantxe basoko **zirkilu** batean ikusi nuen etzaleku apropos bat eginda zuela, eta hantxe hezur pila galanta. Anjel Lertxundi

---

**zirkin** 1 *iz* mugimendu txikia, eskuarki pertsona batek egina. ik **imintzio**.

Ezin nion aurpegia ikusi, haren motots kaxkagorria bakarrik, buruaren **zirkin** bakoitzean zabuka zebilkiona. Joxe Austin Arrieta

Sukaldeko lanak bukatu beharra adierazi zidan **zirkin** batez. Anjel Lertxundi

Txunditurik zegoen, **zirkinik** gabe, isilik. Josu Zabaleta

Hitzik ez, irririk ez, **zirkinik** ez ezpainetan. Koldo Izagirre

Azken tantoa bukatu, Roland Garroseko finala irabazi, eta **zirkinik** ez emakumeak. Berria - Kirola

Hortaz, txintik ere ez nik, **zirkinik** ere ez. Eskarne Mujika

Ingurune hark, girorik morbosoena izanagatik, ez zion **zirkinik** eragiten Bain andrearen ahizparen patxada aristokratikoari. Mirentxu Larrañaga

Norak ezin izan zuen eragotzi lurrera begiratzeko **zirkina**. Anjel Lertxundi

Jagiteko **zirkina** egin nuen. Edorta Jimenez

Itzuli zen, itxaroteko **zirkina** egin zidan. Anjel Lertxundi

Ez baitzuen adorerik ezta **zirkin** bat egiteko ere, sugea ikusi orduko. Karlos Zabala

Zain eta zain, baina lau helize-gurutze haiek **zirkinik** ez. Joxe Austin Arrieta

**2** (izenondo eta izenlagunekin)

Nire begi-ezpainen **zirkin** nahigabetua ikusi dut ispiluan. Anjel Lertxundi

Irribarre sotila saiatu zuen, baina ez zitzaion **zirkin** neketsu bat besterik atera. Anjel Lertxundi

Adaren ezpain-txokoek irribarre bat saiatu zuten, baina ez zitzaien **zirkin** triste bat besterik atera. Anjel Lertxundi

Emakume pinpirinak **zirkin** herabe batez erreberentziatxoa egin duenean. Anjel Lertxundi

Norak egindako **zirkin** oinazetua ikusirik, kantatzeari utzi zion Andreasek. Anjel Lertxundi

Adak **zirkin** definigaitz bat egin zuen sorbaldak jasorik. Anjel Lertxundi

**Zirkin** baldar batez berehala atzera egin, eta zubi erdian jarri zen Joanes arropa atontzen. Felipe Juaristi

Jeronimok ez zuen hitzik atera, ez zuen **zirkin** desatseginik egin. Anjel Lertxundi

Etsipenezko **zirkin** labur bat ikusi nion aitaren aurpegiari. Anjel Lertxundi

Gora begira, geldi-geldi, **zirkinik** txikiena egiten ausartuko ez balitz bezala. Iñaki Iñurrieta

Lepic jaunak, oharkabeko **zirkin** batez, burua jaso du, ihes egingo balio bezala. Itziar Otegi

Apal imintziozko **zirkin** bat egin zuen gero. Anjel Lertxundi

Ageriko **zirkinik** ez zuen sentimendu samur huts bat. Anjel Lertxundi

Irribarretxo bat, sentimendu handiko bi hitz, esker oneko **zirkinen** bat. Anjel Lertxundi

Mahaietakoek disgustuzko **zirkinen** bat edo beste egin zuten. Anjel Lertxundi

**3** (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa)

Izen berezia, zinez -esan zuen ezpain-**zirkin** ia ikusezin batez. Anjel Lertxundi

Ez zuen begi-**zirkinik** egin, ezta ni ateraino joan eta haren begiradaren eta atearen tartean jarri nintzaionean ere. Anjel Lertxundi

Komisarioa lehengo eran ikusi zuen eseririk, betaurreko beltzen azpitik begira, aurpegi-**zirkinik** gabe, beti bat eta beti erne. Felipe Juaristi

Badakite, jakina, nire bila igotzen hasiz gero, harri galantak jaurtiko nizkiekeela inongo esku-**zirkinik** gabe. Karlos Linazasoro

Buru-**zirkin** bat egin, hitzen bat edo beste Angelori esan, eta alde egin zuen. Anjel Lertxundi

Buruari eragin zion, eta gaitzespen **zirkin** bat egin zidan, esan nahiko balit bezala: Ez bazaude pozik hemen, zoaz. Anjel Lertxundi

Mathilderi oharkabean pasatu ez zitzaion harridura-**zirkin** bat egin zuen Norak. Anjel Lertxundi

Higuin-**zirkin** bat egin, eta burua erretiratu zuen Norak. Anjel Lertxundi

Hortik Hermannen gogor planta, arretan arrena zela frogatu beharra, maritxu-**zirkin** bakar bat ere ez barkatzea bere buruari. Anjel Lertxundi

**4** ***zirkin egin****sup_1* mugitu, higitu. ik **zirkindu**.

Listua irentsi eta **zirkin egin** du. Harkaitz Cano

Lisak **zirkin egin** eta atso zaharrak beste etenaldi bat egin zuen. Karlos Zabala

Soldadu zaurituetako batek **zirkin egin** zuen, bere arma hartu zuen eta gutako bati bizkarrez tiro egin zion. Jon Muñoz

Lehenbailehen asmatu behar zuen aitzakia sinesgarri bat, **zirkin egin** gabe erantzun egokia eman. Migel Angel Mintegi

Noizbait, amak hizketan hasi behar zuela ematen zuelarik, aitak **zirkin egin** zion adieraziz uzteko berari. · Printzesak, ohean etzanda lo zegoen printzesa zuriak, begi-**zirkin egin** zuela iruditu zitzaion Joanesi. Anjel Lertxundi

Aurkariei **zirkin** ere **egiten** utzi gabe nagusitu zen Alessandro Petacchi Valentzian. Berria - Kirola

Neskak ez du **zirkinik egin**. Koldo Izagirre

**Zirkinik** ez **egiten** saiatu naiz. Txillardegi

Ezin du gehiago jasan, baina ez du **zirkinik egiten**, ez du txintik ere esaten. Javi Cillero

**Zirkinik** ere ez zuen **egin** ganbararena aipatu zionean. Joxemari Urteaga

Gorputz-atal guztien erabilera galduta, ezin zen inola ere jaiki, ezta **zirkinik egin** ere. Askoren artean

Arreta hartua zion espaloian **zirkinik egin** gabe zegoen ezezagun hark. Karlos Zabala

Sabethek bat-batean: "Geldi hor!" Hantxe ni, beraz, **zirkinik egitera** ausartu gabe. Joxe Austin Arrieta

Aitaren aurpegiak ez zuen **zirkinik egiten**. Anjel Lertxundi

Lekutik mugitzeko **zirkinik** ere ez zuten **egin**. Edorta Jimenez

**5** ***zirkin egin****sup_2* izkin egin.

Bigarren aldiz egiten dio **zirkin** heriotzari. Zigorraren ankerkeriak berak bultzatzen du, hau zenbat eta handiagoa izan, orduan eta asmazio handiagoak egitera zigorrari **zirkin egiteko**. Juan Martin Elexpuru / Bego Montorio

Gizakiak ezin diolako horrela **zirkin egin** gizarteari zor dion etsenplu beharrari. Juan Martin Elexpuru

**hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**

**buru zirkin** (3); **zirkin bat egin** (10); **zirkin batez** (5); **zirkin egin** (15); **zirkin egin zuen** (9)

**zirkina egin** (10); **zirkina egin zuen** (7)

**zirkinen bat** (7)

**bestelako zirkinik** (3); **zirkinik egin** (95); **zirkinik egin barik** (3); **zirkinik egin gabe** (46); **zirkinik egiten** (17); **zirkinik eragin** (5); **zirkinik ere egin** (48); **zirkinik ere egiten** (15); **zirkinik ere ez** (20); **zirkinik ez** (18); **zirkinik gabe** (13); **zirkinik txikiena** (4)

---

# zirkin-zarkun *iz adkor* zirkina.

-Zuk ez zenuen nire emaztea ezagutu -bota diot inolako **zirkin-zarkunik** gabe. Anjel Lertxundi

---

# zirkinbako *izond* zirkinik gabekoa.

Afrikako bi bizimodu aldiberekoen teinkaren arrazoitik, Afrikako jende modu betiberdin **zirkinbakoaren** arrazoira pasatzen da Ortega, ondorioarekin, Afrikak ez duela egiten historiarik, Afrikan historia agitu bakarrik egiten dela -oholtza bat baino ez da-, ez afrikarrek egina, atzerritarrek baizik. Joxe Azurmendi

---

# zirkindu, zirkin(du), zirkintzen da/du *ad* zirkin egin, mugitu, higitu.

Ezpainak **zirkindu**-edo zituen, baina ez zen irribarre xume bat ere osatzera iritsi. Anjel Lertxundi

Toilette hitza aipatu zuen Mathildek, eta irriño batek **zirkindu** zituen Noraren ezpainak. Anjel Lertxundi

---

# zirkinka *iz* mugitzen, higitzen.

Garabi handien besoak ontzi merkanteen gainean makurturik **zirkinka** ari dira, zamak deskargatzen edo kargatzen. Joseba Sarrionandia

---

# zirko ik **zirku**.

---

# zirkolari ik **zirkulari**.

---

# zirku *(282 agerraldi, 58 liburu eta 72 artikulutan; orobat* ***zirko*** *102 agerraldi, 31 liburu eta 39 artikulutan eta* ***zirka*** *24 agerraldi, liburu 1 eta 15 artikulutan)* **1** *iz* pailazo, piztia-hezle, akrobata eta kideoen ikuskizunek osatzen duten espektakulua.

**Zirkua** etorri zait hainbat aldiz gogora, ez gaur bere ezinean endekaturik sumatzen dugun etxola triste hori, ezpada garai batean aho-zabalik edukitzen gintuen ikuskizun oso eta noble hura. Andoni Egaña

Nork daki nondik, baina **zirku** bat iritsi zen, jauzi-soka eta aulki hegalariz. Juan Garzia

Han egiten zuten gizon etxegabeek lo, ibiltzen ziren lasterka umeak eta, urtean behin, jartzen zituen dendak **zirkuko** jendeak. Anton Garikano

Heziko ninduela **zirkuko** domatzaileak bezala. Pello Lizarralde

Zein da zure lana **zirkuan**, zehazki? Harkaitz Cano

Pailazoek **zirkuan** egin duten errepertorio klasikoa. Berria - Kultura

Etorkizuna iragar zezakeela, hirian izandako **zirku** batean lan egiten zuen buhame batek azaldu ziola sekretu handi hura. Iban Zaldua

Herriz-herri doan **zirkuko** ikuskizun banintz bezala begiratzen zidaten. Pello Lizarralde

Txikia zelarik uda guztietan bere herrira iristen zen **zirkuko** kanguro boxeolaria. Harkaitz Cano

Ibiltokirako pasabide hertsi eta hetsi hori lehen egunetik **zirkuetako** lehoien pasabideari parekatu dut. Filipe Bidart

Arratsean **zirkua** amaitu zenean, eta zortea izan zutenak norbaitek etxera zeramatzala -edo bestela oinez zihoazela-, emakumeak berriro hartu zuen lo. Anton Garikano

Pirpo eta Txanberlainen **zirkua** oso ikusia zegoen, emanaldi gehiegi zeramatzan, eta itxura batera ez zeukan harrera onik beste nazioetan. Bernardo Atxaga

Ixabelek **zirkuan** baino hobeto pasatu zuen. Joxean Sagaztizabal

**Zirkua** ere gizakiaren behar eta joera da, eta edozein egoeratan agertzen da; frontoiko batzar horiek badute **zirkutik**, eskolak ere badu **zirkutik**, eta elizak nahiz estatuak ere badute **zirkutik**; ikusiko duzu, bestalde, zer-nolako **zirkua** izango den erregimena erortzen denean, ez zaio-eta askorik falta; orduan jakingo duzu zer den politikaren **zirkua**. Juan Kruz Igerabide

**2** (izenondo eta izenlagunekin)

Hipnotizatzailea zen eta **zirku** txikietan lan egiten zuen. Fernando Rey

Urte askoan **zirku** ibiltari batean lan egina, haur denboratik sarritan egona zen eskale jendearekin. Patxi Zubizarreta

Horrelaxe jakin genuen Elena bera **Zirku** Amateurrean ibilia zela, Sinbad bezala. Edorta Jimenez

Udaberriko egun zoragarri batez **zirku** fantastikoa herrira iritsi zen. Alberto Barandiaren

Ez da ez lehoi, ez dirdiraz beteriko zakur orrazturik atzemanen Miarritzeko **zirku** garaikidearen jaialdiaren laugarren urte honetan. Berria - Kultura

**3** (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

Bidean pailazoren bat aurkitzen zutenean **zirku**-talde polita osatzen zuten hirurek. Bernardo Atxaga

Taldeko bi neskek Châlonseko **zirku** eskolan segitu dituzte ikasketak. Berria - Kultura

Horrelako arratsaldeetan autobusak lerroka kokatzen ziren **zirku**-desfile bateko elefanteak bezala. Lopez de Arana

14:00: **Zirku** emanaldia. Berria - Euskal Herria

**Zirku** enpresari hark benetako filosofotzat zeukan bere burua. Harkaitz Cano

Gutxi uste zuen komisarioak, **zirku** jabeak zimino-hiltzailearen hipotesia hain era naturalean hartuko zuenik. Harkaitz Cano

**Zirku** langileak beren gain hartu eta estatuaren soldatapean jartzeko asmoa zuten agintariek. Harkaitz Cano

**Zirku** ikuskizuna dela behin eta berriro defendatzen dute. Berria - Euskal Herria

Gezurra badirudi ere, **zirku** emanaldiak askoz berotsuagoak dira karpa batean antzoki batean baino. Berria - Kultura

**4** irud/hed

Ez dugu nahi batzorde hau ez **zirku** eta ez auzitegi salatzaile bilakatzerik. Berria - Ekonomia

Begiak atzera irekitzean hasi zen **zirku** guztia... Adrianok gonapetik gora eta eskotetik behera sartu zion eskua emazte hartu berriari, eta Milagrosek ipurdia senarraren hanka tartearen kontra igurtzi ez ezik eskuekin zirkuluak marrazten hasi zen titietan, [...]. Aritz Gorrotxategi

Bi hilabete hauetan argi geratu da epaiketa-fartsa batean, **zirku** batean murgildu gaituztela. Berria - Harian

Frantziako Itzulia **zirku** bat bilakatua dela baginakien aspaldixkoan. Herria

**Zirkua** Parlamentuan bertan bilera bat egitea izan zen. Berria - Euskal Herria

**Zirkua** duk XX. mende bukaeran nagusitzen ari dena, **zirkua**. Mikel Hernandez Abaitua

Estortsioaren inguruko eztabaida ireki nahi bada, ez dira ustezko biktimak **zirku** mediatikoaren erdian kokatu behar. Berria - Euskal Herria

· Ene gibelean itsasoa, ene aitzinean mendi **zirku** bat. Koldo Izagirre

**5** zirku espektakulua ematen den eraikin zirkularra, finkoa edo ibiltaria.

1920. urtean, Ivan Revinsky zirku enpresariak bi erabaki garrantzitsu hartu zituen: lehena, **zirkua** karpa erraldoi batekin estaltzea. Harkaitz Cano

Krone **zirkua** erraldoia zen, garai hartarako oso ikusgarria. Paddy Rekalde

Piztiak zeuden kaiolekiko bi gurdiak, tarte bat utziz ipini zituzten, **zirkuaren** ate moduan balio zezaten. Koro Navarro

Jarraitu behar zuen hezleak, baina ikusiz lortua zuela ikusleen jakin-minaren efektua, eta jendetza hark lehenbailehen nahi zuela **zirku** barrura pasatu, oihu egin zuen: [...]. Koro Navarro

**Zirkuaren** sarreraren atzealdera joan zen, olana bati tira egin, tartetxo bat zabaldu eta esan zion Martini: [...]. Koro Navarro

**6** erromatarrek herri jokoak egiten zituzten esparrua, eskuarki mailadiz inguratua.

Ez, ez nituzke lerro hauek baliatu nahi gure korrida hura erromatarren **zirku** haiekin konparatzeko. Joan Mari Irigoien

Merkuriori, ordea, foroan egingo zaio, edota Isis eta Serapisenak bezala, merkatuan; Apolorena eta Bako aitarena, teatroaren inguruan; Herkulesena, gimnasiorik edo anfiteatrorik ez daukaten hirietan, **zirkuan** egingo da. Santiago Iruretagoiena

Flaminio **zirkuko** Kastorren tenpluaren estiloko lehenengo tenpluak Palas Minerbarenak izan ziren. Santiago Iruretagoiena

Ni han erromatar **zirku** baten erdian banengo bezala sentitu nintzen. Berria - Euskal Herria

**Zirku** bat bazen eta kristauak piztietara botatzen zituzten, hau da, lehoietara. Jon Alonso

Izutua egongo nintzen noski kristauak **zirkuan** hilduratzen zituzten erromatarren film horietakoren batekin. Agurtzane Juanena

Erromatar **zirkuko** borroka baten amaiera ematen zuen hark, garaileak garaituak arrastaka eramanez. Josu Zabaleta

Hainbat egunetan jarraian **zirku** jokoak arretaz ikusten ari zirenek, [...]. Xabier Amuriza

Siro izeneko esklabo batek, borroka-**zirkuan** jarduna bera, ezagun ez zitzaizkion gauzak erakutsi zizkion. Juan Garzia

---

**zirkugintza** *iz* zirkua.

Moralles familia, aldiz, aspalditik dabil **zirkugintzan**, belaunaldiz belaunaldi. Berria - Kultura

---

zirkuito ik **zirkuitu**.

---

**zirkuitu** *(orobat **zirkuito** g.er.)* **1** *iz* ibilbide itxia, abiapuntura itzultzen dena.

Bi **zirkuitu** desberdinetatik bideratzen du bihotzak odola. Irene Aldasoro

Jarioa duen **zirkuitu** bati aurre egin beharrean gertatzen den ingeniaria zuloak tapatzen saiatuko da lehenik eta behin. Irene Aldasoro

Bien bitartean, bizkar-muinera iristen diren seinaleen kontrola egiten ari dira garunera konektaturiko **zirkuitu** batzuk. Irene Aldasoro

Planetek ere unibertsoaren ibiliaren kontrako zentzuan mugituz bakoitzak bere bidea egiten dute, baina zeruaren biraketarengatik atzeraka eramanak izaten dira denboraren eguneroko **zirkuitua** eginez. Santiago Iruretagoiena

Hormonak aske dabiltza, neuronen **zirkuituak** hiperaktibatuta daude eta burumineko plazeraren guneek [...] plazera eta atsegina ematen diguten deskarga elektrikoak jasotzen dituzte. Luis Elberdin

Orio eta Zarauzko hiru ikastetxe dira antolatzaileak eta 14 kilometroko **zirkuitua** antolatu dute bi herrien artean. Berria - Euskal Herria

6,5 kilometroko **zirkuitua** da Gabiriakoa. Berria - Kirola

**2** (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

Obsesionatu egin nintzen nire bularraren azpian gurutzatzen ziren zain- eta arteria-**zirkuituak**, lirdinga eta odolezko barne-sare trinkoa irudikatzen saiatuz. Oskar Arana

Neurona **zirkuitu** kaltetuak osatzeko bide berriak emango ditu aurkikuntzak. Berria - Gaiak

Lan neketsua da hiru geruza hauek elkarren gainka jantzi beharra, piltzarketariak bagina bezala erabiltzen dugun osagai karga honetaz apaintzea, oxigeno **zirkuitua**, berogailu **zirkuitua**, hegazkineko gizonen arteko komunikaziorako telefono **zirkuitua** antolatzea. Josu Zabaleta

Petrolioaren iturriak eta hornidura-**zirkuituak**. Koro Navarro

**3** irud/hed

Konektatu gabe daude emozioaren **zirkuituak**: hori da okerra. Xabier Olarra

Ekintza honek gutxienez bi gizabanako eskatzen ditu, hori baita, hain zuzen, gutxienez behar dena **zirkuitua** osoa izan dadin. Isabel Arrigain

Aski da arte merkatuaren **zirkuituko** edozeinek, artista, kritikari, galerista, museo edo erosle batek objektu bat artelana dela esatea, arte izan dadin. Hasier Etxeberria

Zentro guztietan **zirkuitu** elebidunak jartzea, gaixoak berak nahi duen hizkuntzan artatua izateko aukera edukitzeko. Berria - Euskal Herria

Gizartearen eta literatur sistemaren **zirkuitu** osoa betetzen du: obraz gain, hitzaldiak eta iritziak ematen. Ana Urkiza

Kartzelen **zirkuituak** osatzen duen labirinto honetan gabiltza, irteera asmatu ezinik. Jokin Urain

**Zirkuiturik** ezean zaila da jazza bultzatzea, eta Euskal Herrian ez dago **zirkuiturik**. Berria - Kultura

**4** (irud/hed hitz elkartuetan)

Finantza-**zirkuituen** globalizazioak guztiz areagotu duen nazioarteko konkurrentzia baten mende daude gaur bankuak. Koro Navarro

Pasaia oraindik propaganda eta fama **zirkuituetatik** kanpora dago, natura huts deskubritu gabea da, eta zoragarria da. Koldo Izagirre

Komunikazio **zirkuitu** alternatibo gisako bat da bertsolaritza. J. Garzia / A. Egaña / J. Sarasua

Ale bakarreko argitaraldia (edo oso ale gutxikoa) ari da nagusitzen, artistak sinatua [...] galeria **zirkuitu** batean saldua. Josu Zabaleta

Agirreren esku luzea ibili zuan baita ere hi boxeo **zirkuituetatik** botatzeko, ez duk? Paddy Rekalde

Pilota **Zirkuitu** Profesionala (PZL) sortu dute Frontis enpresak eta pilota federazioek. Berria - Kirola

Gaur hasita, Jazz-Blues **zirkuituak** hilero emanaldi bana eskainiko du Basauri, Leioa eta Zornotzan. Berria - Kultura

**5** kirol instalazioa ibilgailuen lasterketak egiteko prestatua.

Lehenengo postutik irtengo da gaur Italiako Sari Nagusian, Monzako **zirkuitu** azkarrean. Berria - Kirola

Aurreraketak ere errazagoak dira Monzan beste **zirkuituetan** baino. Berria - Kirola

Bahraingo Sari Nagusia jokatuko da bihar, Munduko Txapelketako hirugarren proba; **zirkuitua** berria da, eta basamortuan dago; hondar ekaitzen beldur dira gehienak, lasterketa geldiarazi baitezakete. Berria - Kirola

Munduko Serietako hurrengo bi lasterketak korrituko dira bihar Zolderreko **zirkuituan**, Belgikan. Berria - Kirola

Ez dakit badakizun, baina autopista ez da Indianapolisko **zirkuitua**. Joan Mari Irigoien

Bilbo autoentzako **zirkuitu** bilakatuko dute asteburu batez, eta horrek polemika piztu du herritarren artean. Berria - Harian

**Zirkuituko** errekorra Juan Pablo Montoya (BMW-Williams) 1 Formulako gidariak du, 1:11,985. Berria - Kirola

Motorren hotsa gaur azken aldiz entzungo da denboraldi honetan Valentziako Ricardo Tormo **zirkuituan**. Berria - Kirola

**6** korronte elektrikoa ibiltzen den eroaleen multzoa.

**Zirkuitu** elektrikoak eta instalazioak oso gaizki zeuden. Berria - Harian

**Zirkuitu** itxiko telebista-sistema baten antzekoa da ikusmena. Irene Aldasoro

Gaur egungo sistemekin badirudi hamar urte baino lehenago iritsiko dugula gainditu ezinezko muga: **zirkuitu** elektronikoen osagaiak ezingo dira txikiago egin. Pello Salaburu

Kuartzo eta silizioaren osagaiek, **zirkuitu** bateratuekin batera, ireki zioten bidea hirugarren belaunaldiari. Pello Salaburu

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
>
> **pilota zirkuitu profesionala** (3); **zirkuitu elebidunak** (6); **zirkuitu osoa** (3); **zirkuitu profesionala** (5); **zirkuitu profesionalean** (3)
>
> **dantza zirkuitua** (3); **hiri zirkuitua** (3); **la sartheko zirkuitua** (7); **munduko zirkuitua** (3)
>
> **kataluniako zirkuituan** (3); **la sartheko zirkuituan** (5); **metroko zirkuituan** (3); **montmeloko zirkuituan** (6); **olaberriako zirkuituan** (3); **phakisa freeway zirkuituan** (3); **sepangeko zirkuituan** (3); **zirkuituan egin** (3); **zirkuituan jokatuko** (3); **zolderreko zirkuituan** (3)
>
> **zirkuituaren barruan** (3); **zirkuituaren ezaugarriek** (3)
>
> **zirkuituetatik kanpo** (3)
>
> **herri lasterketen zirkuituko** (3); **la sartheko zirkuituko** (7); **pza zirkuituko** (6); **wta zirkuituko** (4); **zirkuituko bigarren proba** (3); **zirkuituko errekorra** (5)
>
> **xare zirkuitoa** (3)

---

## **zirkuitueten** *iz* zirkuitulaburra.

Lekukoen arabera, motore bat lehertu eta gero **zirkuitueten** bat izan zen. Berria - Mundua

---

## **zirkuitulabur** *(orobat **zirkuitu labur**)* **1** *iz* zirkuito elektriko batean tentsio desberdineko bi eroale konektatzean gertatzen den intentsitatearen handitze bat-batekoa.

Sorburu beretik abiatutako bi hari horiek biltegi hartan bat egiteak **zirkuitu laburra** eragin zuen. Jon Muñoz

Antza denez, **zirkuitulabur** batek eragin zuen sua. Berria - Mundua

Bart arratsean **zirkuitulabur** bat izan genuen. Josu Zabaleta

Aitaren lanparak jaia eten zigun une batez, **zirkuitulabur** bat egin eta argirik gabe utzi gintuelako. Josu Zabaleta

**2** irud/hed

Jauzi izugarria egin zidan bihotzak, adrenalinak aortaren eta arteria koronarioen artean **zirkuitu-labur** bat eragin izan balit bezala, halakorik esan badaiteke behintzat. Joan Mari Irigoien

Ez, ez nengoen mozkor, mozkorraren aurreko euforian baizik, burmuinetako neurona-harien artean **zirkuitulabur** bat sortu zitzaidanean. Joan Mari Irigoien

Gogoeta modu horiek bazuten, itxuraz, gauza bat guztiek berdina: beren osagaien artean halako **"zirkuitulabur"** gisako batzuk ezartzen dituzte, ideien lotura gutxi-asko librean oinarritzen dira. Josu Zabaleta

Primerako aktorea zen eta inspiratuta zegoenean lana barik poesia egiten zuela esan zitekeen, baina noizean behin haren burmuinean **zirkuitulaburra** sortzen zen ezkutuko arrazoiren bategatik eta bezeroak pikutara bidaltzen zituen, egun hartan bezalaxe. Jon Arretxe

---

## **zirkuitulaburtu** *izond* zirkuitulaburra gertatu dena.

Nola pentsatuko zuen, bada, haren gogoa zauri ireki bat bazen, masa zornatu bat, burmuineko materiaren, neurona lehertuen eta jaugin elektriko **zirkuitulaburtuen** nahasturaz egina? Oskar Arana

---

## **zirkular** **1** *izond* zirkulu forma duena.

Alexandria hiri angeluzuzena izanik, **zirkularra** zen, berriz, Bagdad. Jon Muñoz

Iduri zuen ezkerreko oinarekin marrazki ezin ikusizko, borobil, **zirkularrak** marrazten zituela lurrean. Matías Múgica

Ezkutu hori biribila egitea komeni da, hain zuzen ere, suaren eta beroaren indarra berdin-berdin zabal dadin zentrotik gela **zirkular** guztira. Santiago Iruretagoiena

Egiten dira tenplu **zirkularrak** ere. Santiago Iruretagoiena

Agure batek soka bat eusten du, uretan uhin **zirkularren** erdian galtzen dena. Joseba Sarrionandia

Erlojuek forma **zirkularra** hartu zutela jende artean zabaldu zirenean. Bernardo Atxaga

Esparru **zirkular** hark erabateko forma geometrikoa zuen, konpasaz egina baitzirudien. Jon Muñoz

Zulo horrek, hutsune **zirkular** horrek sekulako indarra ematen dio eskulturari. Patxi Zubizarreta

Barkatuko ahal dizkit Borgesek, bere zeru-infernu **zirkularretik**, nire oker infinituak. Juan Garzia

Planeten orbitak eliptikoak zirela eta ez **zirkularrak**. Joan Mari Irigoien

Benetan, ordea, mugimendu **zirkularrik** gabe ez da mugimendu zuzenik izaten, eta mugimendu **zirkularrek** ere, lerro zuzeneko mugimendurik gabe, ezin izaten dute pisurik jaso. Santiago Iruretagoiena

Aristolelesen aburuz higidura **zirkularra** ez zen sortzen ez eta iraungitzen ere. Xabier Kintana

Burua tenteturik, begirada **zirkular** bat bota zuen Ruche jaunak, hain eremu neurrigabeari neurria hartzeko edo. Jon Muñoz

Miru majestuos bat ikusten ahal genuen, hegaldi **zirkularretan** dantza eta dantza. Joan Mari Irigoien

Thompson metraileta bat zen, kargadore **zirkularrekoa**. Alberto Ladron Arana

**2** irud/hed

Gero gogoeta egin zuen **denbora zirkular** baten tesia sobera ezberdina zela, sobera harrigarria, arriskua larria izan zedin. Juan Garzia

Unibertsoa errepikakorra, **zirkularra**, aldaezina bada, [...]. Jon Alonso

Zer harreman-mota finka daiteke elkarren artean (hierarkia, nagusitasuna, mailakaketa, determinazio unibokoa, kausaltasun **zirkularra**)? Xabier Arregi

Lanpara hark iduri zuen gela hartako gau-ilunpe **zirkularraren** bihotz berdea zela. Matías Múgica

Gutun **zirkularrak** dira, motibazio eta helburu bera dutenak. Askoren artean

Gatazken eta eskubideen arteko harremana **zirkularra** dela diozu. Berria - Euskal Herria

• **3** *iz* pertsona batzuei, zerbaiten berri emateko, bidalten zaien idazkia; agintari baten mendekoei bidaltzen dien agindua.

Mahaiaren atzealdean kortxo bat, sindikatuen azken **zirkularrekin** eta argazkiekin betea. Harkaitz Cano

Hegazti gripetik babesteko Europako Batasunak herenegun gauean zabaldutako **zirkularra** feria, azoka eta antzekoetan hegaztiak erakustea debekatzen du betearazten hasi dira Euskal Herrian. Berria - Harian

Bat gatoz Hezkuntza Sailaren **zirkularraren** edukiarekin. Berria - Euskal Herria

**Zirkular** ziklostilatu bat, normalean, irakurri gabe paperontzira botatzen da. Juan Garzia

Lehengo astean heldu zitzaizuen **zirkularrari** erantzun behar diozu? Koldo Izagirre

Ministroak erran du lehen bai lehen publikatuko dituela hiru **zirkular** edo araudi, hemengo kasuan euskarazko erakaspena hedatuko dutenak erakaskuntza publikoan. Herria

Jack Lang-ek proposatu **zirkularretan** "D" modeloko gelak onartuak dira. Herria

---

## zirkularazi, zirkularaz, zirkularazen du *ad* zirkulatzera behartu.

Hidraulikako adituak badaki balioesten gorputzak fluidoak **zirkularazteko** eta kontserbatzeko dituen sistema burutsuak. Irene Aldasoro

Huts hori ezin da konpondu odola lasterrago **zirkularaziz**. Irene Aldasoro

---

## zirkulari *(corpusean **zirkolari** soilik)* *iz* zirkuan aritzen den pertsona.

Aratsaldean, 3etarik 5ak arte, oihanetan ibilaldia, haur eta helduentzat (musikari, kondalari, **zirkolari**...). Herria

---

## zirkularitate *iz* zirkularra denaren nolakotasuna. ik **zirkulartasun**.

Elkartzen ari direla sukaldeko irabiagailu batean jarritako bakterioen coitus interruptusa; bakterioen kromosomaren **zirkularitatea**. Juan Garzia

Denak denboraz, **zirkularitateaz**, eternitateaz eta betiereko itzultzeaz mintzatu ziren, luze bai luze. Jon Alonso

Denboraren **zirkularitatearen** kontzeptuan sakontzeko edo hirian bizi dugun denborarekin alderatuta herri horietako denbora zein ezberdina den erakusteko muntaia egin du Sharon Lockhartek Rekalde aretoan. Berria - Kultura

---

## zirkulartasun *iz* zirkularra denaren nolakotasuna. ik **zirkularitate**.

Gauzak hola, hainbeste atal errepikaturik daudenez, denborak galdu egiten du bere laukitasuna; irabazi egiten du, aldiz, **zirkulartasunean**. Bernardo Atxaga

Zirkulu baten denotaziozko adierazi plastikoa **zirkulartasuna** dela esatea egia esatea da (tautologia hutsa den arren). Josu Zabaleta

---

## zirkulatu, zirkula(tu), zirkulatzen **1** du *ad* zirkuitu batean zehar ibili.

Odola kanpoko airearekin kontaktuan jartzen denean sortzen da fibrina, odolean eragozpenik gabe **zirkulatzen** duen fibronogeno izeneko beste proteina batetik. Irene Aldasoro

Linfozitoek linfan **zirkulatzen** dute, eta azkenean odolera iristen dira. Irene Aldasoro

Linfozitoek linfan **zirkulatzen** dute, eta azkenean odolera iristen dira. Irene Aldasoro

*Let it bleed* hori da, hain zuzen ere, utzi odolusten, utzi jarioan, utzi **zirkulatzen**, utzi nahasten... Berria - Kultura

**2** (diruaren zirkuituan)

Estatuek, batak bestearen ondoren, munduko merkatuetan **zirkulatzen** zuten kapital espekulatiboen masa izugarriaren kontra ezin zutelarik borrokarik egin, amore eman eta errealitate berri horretara egokitu behar izan dute. Koro Navarro

Nazioarteko espezializazioak aldatzea eta manufakturen munduko merkatuan sartzea lortu dutenak, aldiz, oso erakargarriak gertatzen zaizkie gaur egun mundu osoan zehar askatasunez **zirkulatzen** duten kapitalei. Koro Navarro

**3** (bestelakoetan)

Azken egunotan Europako Batzordean **zirkulatzen** ari den testuak dagoeneko gehiago nabarmentzen zuen garraioaren arazoa. Berria - Mundua

Naturaren desagerpenaren adibiderik nabarmenena da berau komunikazio sozialaren sarean etengabe **zirkulatzen** duen topiko bilakatu izana. Berria - Gaiak

Horrela enuntziatuak **zirkulatzen** du, balio du, saihesten du, gurari bat gauzatzea baimentzen edo eragozten du. Xabier Arregi

**4** errepide edo kidekoetatik ibili.

Horrela **zirkulatu** dut nik gaur gauean, autoz, zelaian. Josu Zabaleta

Ondo ikusten ez den lekuetan argirik gabe **zirkulatzea**. Berria - Euskal Herria

Segururik gabe **zirkulatzea** administrazioko arau-hauste bihurtu da, eta 600 eta 3.000 euroren arteko isuna jarri zaio. Berria - Euskal Herria

Kamioiek debekatuta dute jaiegun bezperako 22:00etatik hurrengo eguneko 22:00ak arte **zirkulatzea**. Berria - Euskal Herria

Aurki Espainiako trenbide konpainiako lineatan **zirkulatzen** hasiko den S/598 diesel-trenari azken probak egiten ari zaizkio. Berria - Ekonomia

---

## zirkulatzaile *izond* zirkulatzen duena.

Nik uste dut bi gauza nahastu direla: batetik, dirua ordezkatzen duen paper **zirkulatzaile** bat, edo konpainia batek atera duen edo aterako duen etekinaren zeinua den paper **zirkulatzailea**, eta bestetik zorra ordezkatzen duen paper bat. Iñaki Iñurrieta

---

## zirkulazio *(orobat **zirkulazione** g.er.)* **1** *iz* zirkuitu batean zehar ibiltzea; zirkulatzea.

**Zirkulazioko** odola, lehenago esan dugunez, likido gazi bat da, bizitzaren sorburu izan zen itsaso hartako uraren oso antzekoa. Irene Aldasoro

Gaixotasun batek, odolaren **zirkulazioko** arazoren batek, nerbio zain bat gaitzitu izanak, odol kolpe batek. Josu Zabaleta

Odolaren **zirkulaziorako** erabat onuragarria den jarreran. Ramon Saizarbitoria

Estatu baten barruko diruaren **zirkulazioaren** deskribapena. Xabier Arregi

**2** (diruaren eta kidekoen zirkuituan)

Nekazaritza ekoizpenean oinarritutako aberastasunen **zirkulazioari** buruz. Xabier Arregi

Pentsatu dute hartara ugaritu egiten zirela aberastasunak, **zirkulazioa** handituta. Iñaki Iñurrieta

Gremioen monopolioak hautsi behar ziren oraindik, eta salgaien **zirkulazioa** galarazten zuten azken eragozpenak ezabatu. Koro Navarro

1950eko hamarraldia arte, osagarritasunean oinarritzen zen ondasunen eta kapitalen **zirkulazioa**. Koro Navarro

Joan den azaroaren 8az geroztik Ameriketako Estatu Batuetako dolarra **zirkulaziotik** kanpo geratu da Karibeko uhartean. Berria - Mundua

Mugimendu horizontalaren adibidea sendabelarren **zirkulazioa** da Erromatar Inperioan. Iñaki Mendiguren

**3** (bestelakoetan)

Euskal prentsak duen garrantzia, egunero-egunero kalean **zirkulazioan** jartzen duen hitz eta esamoldeen kopuruagatik bada ere, hagitzez handiagoa da literaturak izan dezakeena baino. Iñigo Aranbarri

Herodotoren mitoa interesgarria eta garrantzitsua da "Europa" eta "Asiaren" kontzeptuak **zirkulazioan** jarri zituelako erakunde lehiakide eta aurkari gisa. Iñaki Mendiguren

Harreman hauek markatuz muga daitezke eremu batetik besterako **zirkulazioa** aseguratzen duten bideak, eta baita aseguratzen dutenak ere lekualdatzea, kontzeptuen aldaketak, euren formaren edo aldaketaren erabilpen-arloa. Xabier Arregi

**4** (izenondo eta izenlagunekin)

Gutxien usteko litzatekeen tokian dago gorputzaren diseinu txarraren adibide barkaezin bakanetariko bat: bihotza bera hornitzen duen **zirkulazio** koronarioan. Irene Aldasoro

Bihotzetik irten eta gero, **zirkulazio** sistemikoko arterietara banatzen da lehenik odola. Irene Aldasoro

Urre-patroiak bermatu egiten zituen, teorian, herrialdeen arteko urrearen **zirkulazio** askea eta [...] truke-tasen egonkortasuna eta pagamendu balantzen oreka automatikoa. Iñaki Heras

Interneti esker, lan intelektualen **zirkulazio** librea geldiezina dela nabarmendu du. Berria - Gaiak

Zientziaren eta dibulgazioaren arteko zubian gero eta **zirkulazio** biziagoa dagoela. Berria - Gaiak

Gorputzeko atal gehienetan, zehar-konexioak izaten dituzte tarteka auzo-arteriek, erreserbako **zirkulazio** bat beti prest izateko larrialdietarako. Irene Aldasoro

**5** (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

Zelula berriak erraz banatzen dira **zirkulazio**-sisteman. Irene Aldasoro

Zorionez, **zirkulazio**-sistemak berak ixten ditu bere ihesbideak. Irene Aldasoro

Oso ondo dago gure digestio edo **zirkulazio** aparatua nolakoa den jakitea. Luis Elberdin

**Zirkulazio** arazoak izan zituen aipatu atzamarretan. Berria - Kirola

Ohartarazi dugu gizakiaren aurrerabide espiritualean hurrenez hurren izandako mugarriak [...] zibilizazio sekularraren ibilbidearen behatzaileak bidezulo eta **zirkulazio**-etenak ikusiko lituzkeen puntuetan daudela guztiak. Iñaki Mendiguren

**6** (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa)

Odol-**zirkulazioa** da gorputzaren hozte-sistema. Irene Aldasoro

Sistema funtzioaniztun baten adibide da odol-**zirkulazioa**, gorputzean diren beste asko bezala. Irene Aldasoro

Tratamendu berria ezarri zion odol **zirkulazioaren** jarioa handitu eta hatz zuriaren gaitzari aurre egiteko. Berria - Kirola

Birikak hornitzen dituen birika-**zirkulazioak** nahiko presio apala izaten du. Irene Aldasoro

Gaixoa bizirik ateratzen bada, handik bizpahiru egunera jartzen da abian albo-**zirkulazioa**. Irene Aldasoro

Hain eraginkorra bihurtu zen bihotzak kontrolaturiko barne-**zirkulazioa**, ezen hau besterik ez baita itsasoarekiko substantzia-trukaketa. Irene Aldasoro

Diru-**zirkulazioari** maila altuan eusteko bidea ere bazen, eta orobat zen prezioak beheratzea eta interes-tasak goratzea eragozteko bidea. Koro Navarro

**7** (hiru osagaiko elkarketetan)

Euskadiko Autonomia Erkidegoan, bost urtetan bakarrik, odol **zirkulazio** arazoengatik hiltzen direnak pasatu dira 48tik 31ra. Pello Salaburu

**8** errepide edo kidekoetatik ibiltzea.

Auto andana espero delako, Udaltzaingoak **zirkulazioa** zuzentzeko neurri batzuk hartuko ditu. Berria - Harian

05:00etan **zirkulazioa** bere onera itzuli zen. Berria - Euskal Herria

Semaforoak beti gorri harrapatzen zituen, **zirkulazioa** etengabe abaila bizian, eta hori gutxi balitz, espaloi estuetan jende-multzoak berriketan. Iñaki Iñurrieta

Errepidea gurutzatzen nuenean, **zirkulazioak** izutzen ninduen, norbaitek lagun eginagatik ere. Xabier Olarra

Egiaz, Botanikoa oasi sinesgaitza da, Pradoko **zirkulazioaren** burrunba ikaragarria urruntzen duena. Ramon Saizarbitoria

Ez da parte onekoa errepidean geldi-geldi egotea, **zirkulazioaren** erdian. Mirentxu Larrañaga

Garraio sareetako **zirkulazioak** eragindako zarataren mapa. Berria - Euskal Herria

Operatik abiaturik, Bulebar Handietan gora jo zuten, automobilen **zirkulazioaren** alderantzizko noranzkoan, Saint-Martin ateraino. Jon Muñoz

Kamioien **zirkulazioak** egunotan eragin dituen zailtasunak. Berria - Euskal Herria

Erraz lor genezakek grebari garrantzi nazionala ematea, burdinbideko berrogeita hamar metro kenduz eta trenen **zirkulazioa** ere moztuz. Koldo Biguri

Satelite berri bat du Japoniak, eguraldia eta hegazkinen **zirkulazioa** kontrolatzeko. Berria - Gaiak

**9** (izenondo eta izenlagunekin)

**Zirkulazio** nahasiaren artean arreta osoa jarriz gidatzen zuen. Ramon Saizarbitoria

Irunen, **zirkulazio** handia zebilela baliatuta, oinez pasatu genuen muga. Rafa Egiguren

**Zirkulazio** handiko zubi bat gurutzatu eta negozioen auzora sartu ginen. Fernando Rey

Arazoak izan nituen taxi bat lortzeko, baina, zorionez, **zirkulazioa** arina zen Castellanan behera. Ramon Saizarbitoria

Orain arte oso **zirkulazio** gutxi zuten bideetan sekulako **zirkulazioa** dago. Berria - Euskal Herria

**10** (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

Txabi Etxebarrietak hil zuen **zirkulazio**-guardia. Rafa Egiguren

Berehala ohartu zen **zirkulazio**-isun bat zela barrukoa. Josetxo Azkona

Iaz Araban, Bizkaian eta Gipuzkoan **zirkulazio** istripuetan hildakoen %15 baino gehiago ibilgailu batek harrapatuta hil ziren. Berria - Euskal Herria

**Zirkulazio** operazio bereziak hasiko dituzte gaur Hegoaldean. Berria - Euskal Herria

Baten bat kexatuko zen seguruenik, **zirkulazio** mozketak egon baitira. Berria - Kultura

Ez zituzten **zirkulazio** arazo guztiak konpondu, ordea. Berria - Euskal Herria

Errepidera atera aurretik **zirkulazio** informazioko telefonoetara deitzea. Berria - Euskal Herria

Bi egunen buruan, emaztea bera joan zen **Zirkulazio** Ordezkaritzara eta bertan ordaindu zuen 150 euroko isuna. Josetxo Azkona

**Zirkulazio** eta Garraio zinegotziarekin bilera egiten zuen bitartean. Berria - Harian

**11** (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa)

Automobil-**zirkulaziorako** esleituriko enparantza hartan. Xabier Olarra

**hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**

**kapitalen zirkulazio** (4); **odol zirkulazio** (3); **zirkulazio arazo** (7); **zirkulazio arazoak** (20); **zirkulazio arazoak izan** (4); **zirkulazio askea** (5); **zirkulazio handia** (3); **zirkulazio librea** (7); **zirkulazio sistema** (3); **zirkulazio sistemako** (5)

**odol zirkulazioa** (10); **trenen zirkulazioa** (3); **zirkulazioa bere onera** (3); **zirkulazioa moztu** (3)

**odol zirkulazioak** (4)

**odol zirkulazioan** (5)

**odol zirkulazioaren** (3); **odolaren zirkulazioaren** (3)

**zirkulaziotik kanpo** (6)

---

**zirkulaziogune** *(orobat **zirkulazio gune**)* *iz* zirkulatzeko gunea.

Era horretan osatu ziren merkatuak, hau da, soberakinen **zirkulazioguneak**, eta haietan, berehala, dirua agertu zen; horrek truke soilaren lekua hartu eta trukeen aukerak ugaldu zituen. Koro Navarro

Begi-bistan zen onak bilakatuak zirela, zaharrei laguntzen zieten **zirkulazio gune** zailetan. Fernando Rey

---

zirkulazione ik **zirkulazio**.

---

zirkulo ik **zirkulu**.

---

**zirkulu** *(orobat **zirkulo** g.er.)* **1** *iz* zirkunferentzia batek barnean hartzen duen plano zatia; zirkunferentzia.

**Zirkulua**, adibidez, munduko gauza bat da, ala abstrakzio matematikoa da? Josu Zabaleta

Figura handi sinpleak -laukia, triangelua, **zirkulua**, laukizuzena- identifikatu eta bakoitza dagokion zuloan sartzeko jostailua. Xabier Olarra

Zein hartueman zehatz duen diametroak **zirkuluarekin** zenbaki arrazionaletan edo irrazionaletan. Ibon Uribarri

Biribila osatuz jarri zituzten animaliak bidaiariek, eta **zirkulu** haren erdian egiten zuten lo denek. Xabier Aranburu

Konpasarekin **zirkulu** bat egingo da, zentroa gnomoa dagoen lekuan jarriz. Santiago Iruretagoiena

**Zirkulu** bat marraztu, eta hitz batzuk ahoskatu zituen. Juan Garzia

Zuzenak **zirkulua** bi zati berdinetan zati dezan, zentrotik pasatu behar du nahitaez. Jon Muñoz

Epizentrotik mila metroko diametroko **zirkulu** batean ez zen inor bizirik atera. Pablo Sastre

Nahi adina zehatz jakin daiteke, beraz, **zirkuluaren** azalera... Ezin da, ordea, erabateko zehaztasunez jakin. Jon Muñoz

Talesek erakutsi zuen triangelu bakoitzari **zirkulu** bat egokiaraz dakiokeela; haren hiru erpinetatik pasatzen den huraxe, hain zuzen. Jon Muñoz

- **Zirkuluaren** koadratura! Jon Muñoz

Meridianoak, lurraren poloetatik igarotzen diren **zirkuluak** dira. Joseba Sarrionandia

Era berean, giza gorputzarekin **zirkulua** ateratzen den bezalaxe, karratua ere berdin-berdin aterako litzateke. Santiago Iruretagoiena

**Zirkulu** horren erdigunea gaztelua izanen da. Alberto Ladron Arana

Behiek **zirkulu** bat egiten zuten, erdian txahalak utzita, eta adarrak erakusten zituzten kanpora. Pablo Sastre

Lantza eta ezpaten **zirkuluak** bi muino hauek defendatzen zituen. Agustin Otsoa

Baltse zoroak dantzatu zituzten maitagarrien **zirkuluaren** inguruan. Julen Gabiria

Kanpin-gasezko argi bat paratu dute **zirkuluaren** erdian. Xabier Mendiguren Elizegi

Kaleargi bakarraren argi ahulak **zirkulu** herdoilduaren erdian jotzen zuen. Koro Navarro

Zure laguna infernuko laugarren **zirkuluan** dago. Joseba Sarrionandia

Patioan, **zirkuluan** egin behar duzue paseoa. Koldo Izagirre

Nik lapitzaz hormako egutegian **zirkulu** batekin inguratzen nuen aita itsasora joaten zen eguna. Joseba Sarrionandia

**2** (izenondo eta izenlagunekin)

**Zirkulu** zirkunskribatua poligonoaren kanpoaldean dago eta haren erpin guztietatik pasatzen da; **zirkulu** inskribatua poligonoaren barrualdean dago, eta haren alde guztiak ukitzen ditu. Jon Muñoz

Emakumea, besoak buru gainetik jasota, **zirkulu** txiki batean mugitzen hasi zen tabernaren erdian. Koro Navarro

Zuloak, alde batetik begiraturik, **zirkulu** perfektua osatzen zuen. Patxi Zubizarreta

Konpasaren laguntzaz, **zirkulu** perfektuak egiteko aukera. Eskarne Mujika

Eremu artikoetan hasi eta **zirkulu** polar antartikoraino. Bernardo Atxaga

Ez du **zirkulu** osorik osatu, ordea, neskek uko egin baitiote eskaintza. Xabier Mendiguren Elizegi

Betaurreko borobilak ez baitziren bi **zirkulu** distiratsu baizik. Alberto Ladron Arana

**Zirkulu** hazkor baten erdian egotea bezala zen, hura azkenik gabe handituz, urrunduz doala ikusten. Juan Garzia

Zazpi bizitzako gizona zirudien, suzko **zirkulu** hartan mantentzen baitzituen denak. Julen Gabiria

Marmol beltzekoa zen eta hiru **zirkulu** zentrokidez osaturik zegoen. Alberto Ladron Arana

-Diapositiban ageri den zubiak bi begi ditu, berdinak ikusi batean, **zirkulu** osoak osatzen dituzte uretan islatzean. Joxemari Urteaga

**3** (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa)

Gure hildakoak lurperatu izan ditugu antzinatik (harri-**zirkuluetan** bezala, errito gisa antzinako harrespiletan agertzen zirenak bezalakoak). Askoren artean

Badakizu kolpe bakoitzarekin uhin **zirkuluak** sortzen direla uretan. Joseba Sarrionandia

Bat-batean, argi-**zirkulu** bat agertu zen horma gainean. Jon Muñoz

Sei eguzki, sei harea **zirkulu**. Joseba Sarrionandia

Muino-**zirkulu** baten gainean araokatu zituen ekaitzak. Juan Garzia

**4** irud/hed

Mundu-ekonomia **zirkulu** zentrokideetan zegoen egituratua. Lehen **zirkulua** Europako hegemonia eskuratu nahi zutenek osatzen zuten (Ingalaterra, Frantzia)."Ziklo ekonomikoaren desagertzea", hots, etenik gabeko hazkundea, beste urrezko aro edo **zirkulu** birtuoso batean sorkuntza. Koro Navarro

Ez dakit nola, elkartu eta bakarrik geratu ginen, tabernaz tabernako **zirkulu** amaiezinean. Iban Zaldua

Latino Amerika izan zen, Europaz kanpo, europar mundu-ekonomiaren **zirkuluan** "integratu" zen aurreneko eskualdea. Koro Navarro

Historia **zirkulu** bat dela eta deus ez dela lehenago izan ez denik eta geroago izango ez denik. Juan Garzia

Irakurlea jarrera hori hartzera eta ezer ez zaiola jakintzat emango onartzera beharturik aurkitu denean, irakurlearen eta poetaren arteko **zirkulu** intelektuala itxi egiten du. Xabier Amuriza

Kazetarien galderak ere igandez igande errepikatzen dira, eta nola jokalariak eroso sentitzen baitira arauzko **zirkuluaren** mugen barruan, behin eta berriro errepikatzen dituzte erantzunak. Joan Mari Irigoien

Zerizan pentsatzaile oro pentsatzailea den heinean substantzia da" esakunearekin erlazioaren kategoriatik atzerantz egiten badugu kategorien ilaran, harik eta **zirkulua** itxi arte, bada, orduan, azkenik, zerizan pentsatzaileen existentzia aurkitzen dugu. Ibon Uribarri

Barbeitok **zirkuluak** egin zituen besoekin ikasle guztiak animatuz. Koldo Izagirre

**5** (irud/hed, hitz elkartuetan)

Pierre Chaunuren komunikazio-**zirkuluen** teoria gogoan hartzen badugu, Erdi Aroko nekazari batek, bera bizi zen lekuko bost kilometroko ingurune batean eskuratzen zuen kontsumitzen zituen ondasunen %90. Koro Navarro

Bailarak osatzen zuen bigarren truke-**zirkulua**. Koro Navarro

Zoriontasun **zirkulu** handi baten barruan zirela sentitu zuen... Pablo Sastre

**6** harreman ohikoa duten pertsona multzoa, eskuarki elkarrekiko jarduera batek lotzen dituena; norbaiten inguruko pertsona multzoa; gizarte taldea.

Enpresa-gizon horietako batzuek erakunde mistiko bat eta guzti sortu zuten, Freundeskreis des RFSS izenekoa, Himmlerren adiskideen **zirkulua**, alegia. Alberto Ladron Arana

Orduko famatua zen Thomas literatura **zirkuluetan**. Koro Navarro

Ni idazle haien **zirkuluan** sartzeko lotsaz. Edorta Jimenez

Vienako **Zirkuluak** (Rudolf Carnap, Otto Neurath, Hans Hahn, Moritz Schlick, Kurt Gödel, besteak beste) horrela aurreikusi zuen. Askoren artean

Vienako **Zirkuluaren** ontologia, salbuespenak salbuespen, fisikalismoa zen. Askoren artean

Berlingo **Zirkuluan** Reichenbach dugu. Askoren artean

Pragako **Zirkulukoentzat**, beste fonema batekiko aurkakotasun egitekoak edo funtzioak definitzen zuen fonema. Lourdes Oñederra

Garai hartan nobleziaren eta nire **zirkuluaren** antisemitismo bera modan jarri zen burgesen, atezainen, tximinia-garbitzaileen eta tapizatzaileen artean. Anjel Lertxundi

Hango gizon gaztearen itxura ikusita, ez zirudien Skuludis jaunaren **zirkulukoa**, ezta hurbilekoa ere. Anton Garikano

«Euskadiko ekonomia» zuten hizpide atzo Bilboko Guggenheim museoan, *The Wall Street Journal Europe* eta Euskal Enpresaburuen **Zirkuluak** antolatutako jardunaldian. Berria - Ekonomia

Aurreko 1954 eta 1955 urteetan Iberoamerikako Idazle eta Poeten **Zirkuluaren** presidentea izana zen. Edorta Jimenez

Badakigu Madrilgo **zirkulu** batzuetan nolako beldurrak dituzten. Berria - Harian

Espiritu liberaleko klase ertaineko **zirkuluetan**. Iñaki Mendiguren

Lagun **zirkulua** ia gainean genuen deiadarka. Joseba Sarrionandia

**7** (izenondo eta izenlagunekin)

Orduko bere burua ezagutzera emana zuen Joycek Dublingo **zirkulu** literarioan. Irene Aldasoro

Ondo hartu zuen liburua garai hartan Hobbesen inguruan zebilen **zirkulu** intelektualak. Esteban Antxustegi

60ko hamarkadan zenbait **zirkulu** nazionalistak, *Partito Sardo d'Azione*ren ildo autonomistarekin ados ez izaki, oraindik independentziazaleak ez ziren zenbait mugimendu abertzale osatu zituzten. Ez zuen jendetzarik mugituko, baina erakar zezakeen gogaide-**zirkulu** txiki bat. Berria - Mundua

**8** *zirkulu erdi* ik **zirkuluerdi**.

**hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**

**emandako zirkulu baten** (3); **hiru zirkulu** (3); **zirkulu barruan** (3); **zirkulu bat egin** (4); **zirkulu bat egingo** (4); **zirkulu bat marraztu** (8); **zirkulu baten erdian** (3); **zirkulu birtuoso** (5); **zirkulu erdi** (9); **zirkulu erdi bat** (4); **zirkulu erdia** (3); **zirkulu txiki** (5); **zirkulu txikiak** (3); **zirkulu zirkunskribatua** (3)

**vienako zirkulua** (4); **zirkulua itxi** (7); **zirkulua ixten** (3); **zirkulua ukitzen** (3); **zuzenak zirkulua** (3)

**enpresaburuen zirkuluak** (5); **uhin zirkuluak** (4); **zirkuluak marrazten** (3)

**vienako zirkuluaren** (3); **zirkuluaren azalera** (4); **zirkuluaren barruan** (3); **zirkuluaren erdian** (8); **zirkuluaren erdira** (3); **zirkuluaren koadratura** (12); **zirkuluaren koadraturaren** (3); **zirkuluaren zentrotik** (3)

**enpresaburuen zirkuluko** (3)

---

## zirkuluerdi

*(17 agerraldi, 7 liburutan; ETCn 116; orobat* ***zirkulu erdi*** *14 agerraldi, 11 liburu eta 2 artikulutan; ETCn 127)* **1** *iz* zirkulu baten erdiak osatzen duen figura geometrikoa.

Aurreko tenplu horretan dagoen tribunak **zirkuluerdi** baten segmentu-forma dauka. Santiago Iruretagoiena

Urak **zirkulu erdi** itxurako barruti batean ixten zuen oihan txikia. Karlos Zabala

Hiriak seiehun metroko erradioko **zirkulu erdi** baten itxura izanen du. Alberto Ladron Arana

Ottaviok Ruche jaunari azaldu zion nola Dionisiok eraikitako esparruak **zirkulu erdi** luze bat eratzen zuen, bi aldeetatik itsasoraino zihoana, eta goi-ordokia oso-osorik barruan hartzen zuena. Jon Muñoz

**2** zirkunferentzia baten erdia.

Tribuetako buruak karparen barrenaldean zeuden eserita, **zirkuluerdia** osatuz. Xabier Aranburu

Handik metro batzuetara, haren aurrean, eskola-mahai sorta bat, **zirkuluerdi** bat eratuz ipiniak. Jon Muñoz

Alfredeko gatibuak **zirkuluerdian** eseri ziren, kanpamenduaren ondoan. Anton Garikano

Ate batzuetan, jatorrizko arku zorrotzaren azpian, zertarako ez dakigula, **zirkulu erdiko** arku bat egin zen gero. Koro Navarro

**Zirkuluerdi** formako kanalez gainera, beste bi hodi txiki ere baditu oreka-sistemak: sakulua eta utrikulua. Irene Aldasoro

**hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**

**zirkuluerdi formako** (5)

---

## zirkuluka

*adlag* zirkuluak osatuz.

Bat-batean behera egin zuten, harresian zeuden arkularien geziek harrapatzeko bezainbeste hurbilduz ia, baina gero urrundu egin ziren, **zirkuluka** hegan. Agustin Otsoa

---

## zirkulukide

*iz* zirkulu berekoak.

**Zirkulukideak** ziren, besteak beste, Otto Neurath, Rudolf Carnap, Hans Hahn, etab. Askoren artean

Berehala izan zuen arrakasta liburu honek [...] eta hala zegoen Mach-en, Einstein-en eta Vienako **Zirkulukideen** estimatueneratikoen artean, gerora "ahaztua" izan bada ere oraintsu arte. Askoren artean

---

## zirkulutasun

zirkulua izateko zertzelada. *iz*

Munduko zirkulu guztiak interesatzen zaizkiolako, eta ez bakarrik haietariko bakan batzuk; zirkulu horien beren **zirkulutasunari** dagozkion egiak mamitu nahi dituelako; horregatik guztiengatik eman dakioke "historiako lehenengo matematikaria" titulua. Jon Muñoz

Ordua orratz biribilkariek markatzen zuten garaian aiseago sinets zitekeen denboraren **zirkulutasuna**. Joxerra Garzia

## **zirkulutxo** *iz* zirkulu txikia.

Azaltzen zion zer egitea komeni den metalezko, hezurrezko, zurezko, eta abarrezko borobiltxoekin, alegia, oihalez estaliak nahiz estali gabeak izan, jantziak lotzeko balio duten **zirkulutxo** horiekin. Xabier Olarra

TAU itxurako ikur handia ikusi zuen Frantzisko dohatsuaren bekokian, inguruan zituen kolore ugariko **zirkulutxoekin**, paumaren lumajearen edertasuna zuena. Askoren artean

Munduko bazterren batean ezkutatuta, ez al da egongo **zirkulutxoren** bat, itzalgaizka matxinatu, eta zure teoremari ihes egina? Jon Muñoz

## **zirkun**

**1** ***zirkun-belar*** *iz*

Batzuetan, hitzen erabilera maltzurrarekin nahasi izan gaituztenez, Londreseraino joaten gara Perurekin harako **zirkun**-belar alegiazko haien bila. Anjel Lertxundi

· Txiripa hutsez topatu nuen, Gantzagako basoetan gora, Anbototik hurbil, ahanzturaren kontrako **zirkun**-sendabelarren bila nenbilela nire txakurrarekin. Anjel Lertxundi

## **zirkun-zarkun** *iz* hemendik hara.

-Tristurak bakarrik ez, Andreas, ezti-bits honek ez ditu tristurak bakarrik arintzen -erantzun zion aitak, eta bizpahiru dantza-pauso eman zituen, batera eta bestera, **zirkun**-zarkun eginez. Anjel Lertxundi

## **zirkunatlantiko** *izond* Atlantikoaren ingurukoa.

Alde batetik, Errusia eta Mendebaldeko mundu **zirkunatlantikoaren**, eta bestetik India, Hego-ekialdeko Asia, Txina eta Japoniaren arteko biderik laburrenek, guztiek mundu islamikoa zeharkatzen zuten lehorrez, urez edo airez. Iñaki Mendiguren

## **zirkunboluzio** *iz* garuneko azalaren tolesa.

Lesioa garunaren ezkerreko aldean du; bekokiko hirugarren **zirkunboluzioa**, hizkuntzaren gune bat dela uste dena, kolpatuta egongo da, seguru asko. Josu Zabaleta

Broca-k aurkitu duenez hitz egiteko ahalmena kopetako ezkerreko hirugarren **zirkunboluzioan** dago kokaturik. Isabel Arrigain

## **zirkunferentzia** **1** *iz* lerro kurbatu itxia, barneko puntu batetik distantzia berera dauden puntuek osatua. ik**zirkulo**.

Arbel batean marrazturiko **zirkunferentzia** bat, triangelu bat, erronbo bat, osoki hauteman ditzakegun formak dira. Juan Garzia

Esku gogorki hertsatuan pergamino puska bat zeukan, zentrotik **zirkunferentziara** zihoazen eta ostera **zirkunferentziatik** zentrora itzultzen ziren lerro elkargurutzatuz estalia. Juan Garzia

Zentro horretatik **zirkunferentzia** bat egin behar da, doi-doi zortzi parte horietako bat hartuz diametro bezala. Santiago Iruretagoiena

Ehun kilometroko erradioa duen **zirkunferentzia** imajinario baten barruan. Jon Alonso

Bi zutabeak berdinak ziren: bederatzina metro zuten gora eta seina metro **zirkunferentzia**. Elizen arteko biblia

Karratuaren erdian jarri konpasaren zentroa eta zirkulu bat egin karratuaren angeluak ukituko dituena; doi-doi **zirkunferentziaren** eta karratuaren aldearen tartean geratzen den arkuaren tamainako ildaxka zizelkatuko da. Santiago Iruretagoiena

Horrek **zirkunferentzia** mozten duen puntuetan, ezkerrean eta eskuinean, zentroak markatuko dira zirkuluerdiaren bi muturretan. Santiago Iruretagoiena

Hark irakatsi zidan nola egiten zen **zirkunferentzia** soka batekin, baita elipse bat ere soka bat eta bi iltzerekin. Joan Mari Irigoien

**Zirkunferentziaz** izugarri handia eta sakonean harrigarria zen inbutu baten barruko azalean. Koro Navarro

**Zirkunferentzia** osoa itxita 18.000 ikusle inguru sar daitezke, segurtasun neurriek egingo luketen murriztea kontuan hartu gabe. Berria - Harian

**2** (hitz elkartuetan)

**Zirkunferentzia** arku perfektua marrazten dute bolantea alde batera eta bestera jira egitean, ardatz baten inguruan bueltaka ari baitira. Berria - Kirola

·Kanpo-**zirkunferentzia** bereko egitura trinko bat baino % 25 arinagoa da hezurra, baina sendotasun mekaniko bertsukoa. Irene Aldasoro

**3** irud/hed

Gizakiaren bizitza existentziaren **zirkunferentziaren** ukitze-gunean ihesbide bat sortzeko ahalegina da. Juan Kruz Igerabide

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
> **zirkunferentziatik kanpora** (3)

## **zirkunflexu** *izond* azentuez mintzatuz, *v* gainazpikatu baten itxura duena.

Azentu **zirkunflexua** bezalako zubi bat ikusten nuen. Fernando Rey

Joxemigel Barandiaranek, esaterako, Ataunen entzundako ipuinak transkribatzean, azentu **zirkunflexua** jartzen zion gainean: mendîk, artôk, semêk, aingerûk Xabier Mendiguren Elizegi

## **zirkunskribatu**, zirkunskriba(tu), zirkunskribatzen **1** du *ad* figura geometriko baten barruan beste bat trazatu, halako eran non beren aldeak tangenteak baitira.

Euler-en erlazioa, triangelu batean **zirkunskribatutako** zirkuluari dagokiona. Jon Muñoz

**2** (era burutua izenondo gisa)

Talesek erakutsi zuen triangelu bakoitzari zirkulu bat egokiaraz dakiokeela; haren hiru erpinetatik pasatzen den huraxe, hain zuzen; eta proposatu zuen nola eratu behar den beti zirkulu **zirkunskribatu** hori. Jon Muñoz

Zirkulu **zirkunskribatua** poligonoaren kanpoaldean dago eta haren erpin guztietatik pasatzen da; zirkulu inskribatua poligonoaren barrualdean dago, eta haren alde guztiak ukitzen ditu. Jon Muñoz

**3** inguratu.

Su bat **zirkunskribatzea** gertu-gertutik inguratzea da, kanpora zabal ez dadin. Jon Muñoz

## **zirkunstantzia** *(134 agerraldi, 39 liburu eta 19 artikulutan; orobat **zirkustantzia** g. er.)* **1** *iz* zertzelada.

Izaerak, historia pertsonalak, ohiturak, **zirkunstantziek** gidatzen gaituzte errealitatearen alde baterantz edo besterantz. Bernardo Atxaga

Gizonek eta **zirkunstantziek** aldatzen dute gehienetan gertaeren ibilbide ideal hori. Koro Navarro

**Zirkunstantziak** kontuan hartuta -gure adina, egoera politikoa 60ko hamarkadan, gure Antzinako Bihotzean hain tinko ezarritako inpronta hura-, ezinezkoa zen bestela gertatzea. Bernardo Atxaga

Esan genezake: izan, balioak ez dira inoiz absolutuak, baina ( **zirkunstantzia** batzuetan) baliagarritasun absolutua dute. Joxe Azurmendi

**Zirkunstantziak** aldatuz, agian balioko dute gero ere, tradizioaren indarrez. Joxe Azurmendi

Ipuina gaurkotu egin behar dela aldiro, **zirkunstantzien** eta premien arabera. Bernardo Atxaga

Krimenaren **zirkunstantziak**. Xabier Arregi

**Zirkunstantzien** arabera, begiramen handiago edo txikiagoz men egiten diete zenbait lege jakini. Juan Garzia

Gizakia edozein **zirkunstantziari** egokitzen zaio; horretan datza bere handitasuna eta, bide batez, bere miseria ere bai. Ramon Saizarbitoria

**Zirkunstantzia** askok eragin zuten palestinarrek Oslo onartzea. Berria - Mundua

Garaiak eta **zirkunstantziek** hala eskatuta. Joxe Azurmendi

Baldin **zirkunstantziek** hartarat bulkatzen bagintuzten. Joan Mari Irigoien

Euskalduna agrafotzat salatzen duenak "izaera" kontuetara lerratzen du auzia, hots, berezkotasunera edo giza naturara; ez **zirkunstantzietara**, hots, historiara. Bernardo Atxaga

**2** (izenondo eta izenlagunekin)

**Zirkunstantzia** astungarri bat, hamaikagarren mendean, bi kristau-gizarteen indar eta perspektiba erlatiboen bat-bateko, ustekabeko eta egundoko alderantzikatzea izan zen. Iñaki Mendiguren

Justizia penala (bere definizioekin: aitzakiarena, arduragabetasunarena, **zirkunstantzia** aringarriena, eta zenbait adigai erabiliz, hala nola, pasio-hilketa, herentzia, arrisku soziala). Xabier Arregi

Horrek **«zirkunstantzia** leungarri garrantzitsuak» ikusi eta 27.000 eta 14.400 euroko isunak galdegin zituen. Berria - Mundua

**Zirkunstantzia** ekonomikoak, sozialak eta politikoak aintzat hartu gabe, izaera edota "burmuinaren egitura berezi bat" daukate gogoan. Bernardo Atxaga

Marka horren benetako indarra aldatu egiten dela hartzailearen **zirkunstantzia** historikoen arabera. Iñaki Mendiguren

Garrantzi hori, halaz ere, garai bakoitzeko bertsolaritzak bizi dituen **zirkunstantzia** erretorikoen baitan dago. J. Garzia / A. Egaña / J. Sarasua

Hortxe dago gaur egun isiltzen den egietako bat: zigortzeko orduan, berdin dela zaku bat edo zaku t´erdi; **zirkunstantzia** jakin eta arruntetan, zigor gehienak heriotza-zigor direla. Bernardo Atxaga

Bere **zirkunstantzia** lagungarriekin. Xabier Arregi

Hargatik, eta **zirkunstantzia** larri haietan kapaz izan nintzen tonurik adeitsuena saiaturik, eskerrak eman nizkion aitari gonbitagatik, baina ezetz, nahiago nuela etxean. Anjel Lertxundi

Egia duk ezen Joanikot eta Maddalenen amoriozko historia ezin ederragoa izan dela, baina halakoak bakanetan gertatzen dituk eta oso **zirkunstantzia** berezietan. Joan Mari Irigoien

Aro heroikoaren **zirkunstantzia** berezietara aplika daitezkeen jokabide berezien sorreran beste ahalegin bat ikus dezakegu. Iñaki Mendiguren

Fikzioa asmatzen duen edozein idazleren joera naturala izaten da pertsonaia nagusia edo narratzailea asmatzerakoan bere antzeko **zirkunstantziak** dituen norbait asmatzea. Berria - Kultura

**3** (hitz elkartuetan)

Dupinen ezaugarri horiek deskribatzea zen nire asmoa; eta asmo hori osorik bete zen Dupinen nolakotasuna agerian jarri zuten **zirkunstantzia** sail lazgarri hartan. Koro Navarro

· Gizarte- **zirkunstantzia** horiek argitzea da gure zeregina. Iñaki Mendiguren

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
> **zirkunstantzia batzuetan** (3); **zirkunstantzia berezietan** (3); **zirkunstantzia historikoak** (3); **zirkunstantzia jakin batzuetan** (3)
> **zirkunstantzien arabera** (3)

---

# zirkunstantzial 1 *izond* zirkunstantzien mende dagoena, noiz-nolakoa.

Hainbat froga **zirkunstantzialetatik** -ate, eskailera edo leihoen tamaina, kolpeen angeluak eta abar- inferitzen den ondorio bakarra da Pioletadun Hiltzailea, segurutik, berrogei bat urteko gizon indartsua dela. Jon Alonso

Zalantzarik gabe, adierazpen honetan ez da ateraldi **zirkunstantzial** bat baino gehiago ikusi behar. Joxe Azurmendi

Horretarako soneto **zirkunstantzial** batzuen hutsa gora-behera. Juan Garzia

Pernando Barrenak Berrueta polizia batek hil izana **«zirkunstantziala**» dela esan zuen eta «benetako hiltzailea Jose Maria Aznar» dela erantsi zuen. Berria - Euskal Herria

Idaztea ekintza **zirkunstantziala** da? Idazleak utz diezaioke idazteari? Berria - Kultura

**2** (gramatikan)

Ez zinetela ez elkarren sujetu eta ez objetu, baizik-eta, gehienez ere, osagarri **zirkunstantzialak**. Iñaki Segurola

---

# zirkuntsonante *izond*

Leku **zirkuntsonanteetan** gertatzen da ezen ahotsa alde guztietara zabaldu ondoren, gero zentrora bilduz desegin egiten dela. Santiago Iruretagoiena

Izaten baitira leku batzuk ahotsari berez bidea mozten diotenak: adibidez leku disonanteak, grekoek *catechountes* deitzen dituztenak; 2 **zirkuntsonanteak**, haiek *periechountes* deitzen dituztenak; baita erresonanteak ere, haiek *antechountes* deitzen dituztenak; eta kontsonanteak, haiek *synechountes* deitutakoak. Santiago Iruretagoiena

---

zirkuntzidatu ik **zirkunzidatu**.

---

zirkuntzisio ik **zirkunzisio**.

---

# zirkunzidatu *(orobat **zirkuntzidatu**)* zirkunzida(tu), zirkunzidatzen *izond* erdaindu.

Judutarrek ez zuten **zirkunzidatu**, epaileeki auzitan sartzeko beldurrez; baina horregatik ez zen judu txikiagoa bere baitan. Juan Martin Elexpuru

Mufty-rekin batera konspiratu duela Estatu Kontseilu osoa **zirkunzidatzeko**. Juan Martin Elexpuru

Anshelek jaiotzetiko marka ezin ikusizkoren bat behar zuela izan esaten zen, edo herniaren bat, edo bazitekeela behar bezala **zirkuntzidatua** ez egotea. Koro Navarro

---

**zirkunzisio** *(orobat* ***zirkuntzisio****)* *iz* erdaintzea.

Erdainkuntza edo **zirkuntzisioa**, itunaren ezaugarri. Elizen arteko biblia

Medikuek **zirkuntzisioa** egitea aholkatu zieten gurasoei, haurrek txiza egiteko arazoak zituztelako. Berria - Gaiak

Lehengo natura legeaz eta **zirkuntzisioaren** eta horrentzat jarri beste sakrifizio eta eskaintzen bitartez erdiesten baitzen zuzentasun hura. Piarres Xarriton

**Zirkunzisioa** edo erdainkuntza: klitoriaren prepuzioa kendu egiten da. Berria - Gaiak

Bere jaioterrian, han New Jerseyn, hamaika juduk zutela horrelako txilibitu okertxo alaia mohel haren **zirkuntzisio** lan eskasa zela-eta. Karlos Zabala

---

zirkustantzia ik **zirkunstantzia**.

---

**zirlinga** *iz* antxeta, kaioa.

Itsas-hegazti edo xori izenak dira antxeta eta **zirlinga**. Herria

---

**zirol** *iz* zapataria.

Ez nintzen **zirola**, gurean zapata konpontzaileari irizten zaion moduan esanda. Edorta Jimenez

Bela handietako olanak josteko usadio hartzen, **zirol** edo zapatarien pare. Edorta Jimenez

---

**ziropa** *(2 agerraldi; ETCn 63 agerraldi; orobat* ***sirope*** *4 agerraldi; ETCn 23 agerraldi eta* ***siropa*** *g.er.)* **1** *iz* edari lodi gozoa, ur, azukre eta fruitu edo sendabelarrez egina. ik **jarabe**.

Mutilak gurina zabaldu zuen opilean eta **siropa** bota zuen gainean. Koro Navarro

-Kafesnea eta tortita amerikar batzuk, esnegainarekin eta karameluzko **siroparekin**. Iban Zaldua

Halaxe ihes egiten du **siropak** botila azpikoz gora itzultzen denean. Josu Zabaleta

**Siropa** moreko tartarekin hortzak pintatuta. Anton Garikano

Mostradore gainetik hartuko duen botilaz egiten du gogoeta, letra gorridun etiketa zuriaz, isuri behar duen **sirope** beltz lodiaz. Monika Etxebarria

Nire gorputz honek gogoan ditu izandako erorikoak, burezurrean izandako hausturak, koma aldi **siropa** bezain likatsuak, ospitalean emandako gauak. Josu Zabaleta

Sethek lapiko bat esne berotu eta kanaberazko **siropa** eta banilla nahastu zizkion. Anton Garikano

Astigarraren **siroparen** kutsuan maneaturiko pastelak. Joxan Elosegi

Sagasti zaindu gabe bat, erlauntza multzo bat bertan behera utzia, etxola bat basoan astigar **ziropa** distilatzeko. Oskar Arana

Egizu **siropearen** dieta hori, barrutik garbitzen zaituela diote. Berria - Kultura

**2** (hitz elkartuetan)

Bi ogi-xerra txigortu zituen, eta hark astigar-**ziropatan** busti-busti egin eta minutu eta erdian irentsi zituen. Oskar Arana

---

**zirpil** **1** *iz* oihal baten ertzeko hari puska; oihal zirpildua. ik **lits**.

Gizaseme bikain honek, soka bat gerriko eta **zirpil** bat oinetako, pilda batzuk jantzi eta txapela buruko, zazpitan arriskatzen zuen bizia oreneko. Pello Zabala

**2** (izenondo gisa)

Emaztea, ileak derrepente elektrizatuta, buruz behera joan zitzaion haragi **zirpilari**, garrasika. Xabier Mendiguren Elizegi

---

**zirpildu**, zirpil(du), zirpiltzen **1** du *ad* listu, zirpiletan desegin.

Itxura tamalgarrian zegoen: guztiz **zirpildurik** zeuzkan galtza eta longain beltzak, eta, haien azpian, hezurra eta azala besterik ez zen ageri. Karlos Zabala

Baso-guardak besoarekin jo zuen behetik gora eta haritzaren adarra **zirpildu** zuen superpuestatik irtendako berun-eltxotegiak. Joxemari Urteaga

**2** (era burutua izenondo gisa)

Argia zabaltzen ari zen, modu nabarian orain; eta Florentek bere longain eta galtza **zirpilduei** so egin zien. Karlos Zabala

Muki zapiak hogei aldiz pasaratuak, eskuoihalak **zirpilduak**, maindireak trapuak egiteko egokiak, alkandorak erabiliak. Arropa beltz **zirpildu** penagarri haien azpian "jaun" bat zegoela sentitzen zuen. Karlos Zabala

---

**zirpiltsu** *izond* zirpilez betea. • *irud/hed*

Ke **zirpiltsuak** atoiontzien eta baporeen atzealdeari itsatsita egiten zuen hegaz, oso behean, ur opako eta berdekaran zehar arrastaka. Lopez de Arana

---

zirrada ik **zirrara**.

---

zirragarri ik **zirraragarri**.

---

**zirrara** *(orobat* ***zirrada*** *g.er.)* **1** *iz* barne asaldua, sentimen, oroitzapen, grina edo kideko batek eragina, zurbiltze edo gorritzea, bihotz taupaden lastertzea, ikara edo bestelako ondorio nabariren bat dakarrena.

-Zer? -berri hark **zirrara** egin zion. Jon Muñoz

Gatwickeko aireportuan hegaldirako zain geundela, **zirrara** egin zidan mutilaren kontzentrazio sakonak. Xabier Olarra

Gizon argal haren interesik ezak **zirrara** egin zion; halako begirune bat nabaritzen zuen harengana, beldur zehaztugabe batez nahasirik. Karlos Zabala

**Zirrara** eragin zidan irudi hark: horma erorien artean, gabardinak ukigabe zirauen, estazioburua iristear balego bezala. Harkaitz Cano

**Zirrara** eta aztoramena eragiteko indarrez beterik etortzen zaizkio ikuspenak, etortzen zaizkionean. Xabier Olarra

Gauak **zirrara** zekarren. Fernando Morillo

**Zirrara** batek zeharkatu zituen artzainen bihotzak. Pello Salaburu

Victor Hartmann margolariaren erakusketa bat ikustean sentitu zuen **zirrara** azaldu nahi izan zuen. Berria - Kultura

**Zirrara** batek astintzen nau ahotik oinetaraino, lehendabiziko aldia baita aitak musu ematen didala ezpainetan. Anjel Lertxundi

Ahots hari jarraitzea [...] hegada bizkor ziur baten **zirrara** sentitzea eta partekatzea zen. Irene Aldasoro

**Zirrarak** mutu utzi ninduen. Bernardo Atxaga

Ez du **zirrara** sorraraztea bilatzen; emozioaren klimaxa saiatzeak, harrigarria badirudi ere, indarra galaraziko lioke. Irene Aldasoro

Han etorri da Maggie, lasterraldiak eta **zirrarak** arnaslarriturik. Juan Garzia

Izuak eta **zirrarak** hartu zuten nahasian sabai ilunerantz begira zegoen bitartean. Iñaki Mendiguren

**Zirrara** batek erdibitu nau. Harkaitz Cano

**Zirrarazko** orro irazekiez dardaraka. Oskar Arana

Izaki sentikortzat zeuzkan berak; eta harreman fisikoak zituen haiekin: **zirrara**, emozio, atxikimenduzko harremanak; eta higuinezkoak, batzuetan. Jon Muñoz

Maitasuna da **zirraren** artean bidegabeena. Jon Muñoz

Denak geratuko dira **zirraren** mende. Anton Garikano

Sentitzen nuen emozioaren **zirrara** luzatzeko. Ramon Saizarbitoria

Barrena astindu zion **zirrara** ezkutatu ezinik. Jose Morales

Zaurituaren gelan sartzen zirenak **zirraraz** alditxartu ez zitezen. Josu Zabaleta

**2** (izenondoekin)

**Zirrara** handia egin zidan. Jon Muñoz

**Zirrara** (emozione) handia piztü deit hain hürrün, eüskara builta hontan galdürik düan eremüan [...] gure hizkuntzaren entzüteak. Herria

**Zirrara** handi batek harturik ari zen Ruche jauna gertaera haiek guztiak bizitzen. Jon Muñoz

Ustekabeko eta konpromisozko ukitu hark gerora jasoko nituen laztan sukartsu guztiak baino **zirrara** handiagoa eragin zidan. Ramon Saizarbitoria

Dardara egin zioten hankek, **zirrara** hotz batek inarrosi zion gorputz osoa. Unai Iturriaga

**Zirrara** berezi batek hartua ninduen, ustekabeko emozio indar handiko batek, eromena izateko askorik behar ez zuen pentsamenduaren bizkorraldi batek hartua. Josu Zabaleta

Uretatik atera berria bazen ere, eskuak beroak zeuzkan eta horrek **zirrara** atsegina sortu zidan hankartean. Aitor Arana

Ez jadanik beldurrez, amodioaren **zirrara** eztiaz baizik. Eta ahoko dasta hura, amodioaren dasta, **zirrara** erotikoaren dasta. Jon Muñoz

**Zirrara** ikaragarriak hartu zuen Isaak, eta esan zuen [...]. Elizen arteko biblia

Aitortu beharra baitago bazela zerbait erakargarria gizon haren aurpegian, nahiz eta horren efektua ezkutuan geratu haren itxura orokorrak zertzen zuen **zirrara** beldurgarriagatik. Iñaki Mendiguren

**Zirrara** moral handietako dardara urduria sentitu zuen kolpetik doktoreak, eta emozioz ikara batean hartara hurbildu zen. Josu Zabaleta

**3** (izenlagunekin)

Oraingoan ezin izan zion eutsi, ez zituen bere benetako **zirrarak** menderatu. Jon Muñoz

Bat-bateko **zirrara** deskonzertante bat da, belarrizulo edo begizuloetatik sartzen dena. Harkaitz Cano

Horrelako idazleak ez du txalorik bilduko, ez esker oneko malkorik ikusiko, ez du inolako **zirrararik** eragingo eta, beraz, ez du arima hunkituen beroa sentituko. Jose Morales

Ezin zituela "Jainkoaren maitasuna" hitzak entzun, barru-barrurainoko **zirrara** sentitu gabe. Askoren artean

Hasieran ez nuen ezer ulertzen; gero, halako **zirrara** bortitza izan nuen bat-batean, non eseri beharra izan bainuen. Josu Zabaleta

Ezin izan dut bazkaldu, halakoxe **zirrara** eragin dit izan ere esperientzia horrek. Josu Zabaleta

**4** (hitz elkartuetan lehen osagai gisa )

Axenario ere gelditu egin da, eta lehen **zirrara**-kolpeak ito du ia. Itziar Otegi

Eskua nire kamiseta azpira irristatu duenean bertigoa da sentitu dudan **zirrara** mota. Ez zaio **zirrara** fitsik sumatzen. Patxi Iturritegi

Eta **zirrara** giro hartan, are traketsago eta zozoago azaltzeko ikarak hartu nau. Txillardegi

**5** (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa )

Zerk du aparraren antza handiago, kimu izateari utzi gabe [...] adartxo izateko irrika erotikoa bizi duen larru-**zirrarak** baino? Anjel Lertxundi

Den-denak beldur **zirrarak** hartuta zeuden. Joanes Urkixo

Muinetarainoko larritasun-**zirrara** batek jorik sentitzen ginen. Juan Garzia

Bihotz-**zirraragatik** lehenago baino aztoratuago, braust eseri nintzen ohean negarraldi eder bat egiteko asmoarekin. Fernando Rey

Barne-**zirrara** hobeto ezkutatzeko. Irene Aldasoro

**hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**

**barne zirrara** (3); **berebiziko zirrara** (5); **berebiziko zirrara eragin** (3); **bihotzean zirrara** (4); **bihotzeko zirrara** (4); **eragin zidan zirrara** (8); **eragin zion zirrara** (4); **eragindako zirrara** (5); **halako zirrara** (27); **halako zirrara bat** (6); **halako zirrara berezi** (3); **izandako zirrara** (3); **izugarrizko zirrara** (6); **nolako zirrara** (11); **sekulako zirrara** (6); **sentitu dudan zirrara** (3); **zer nolako zirrara** (6); **zer zirrara** (3)

**zirrara bat izan** (3); **zirrara bat nabaritu** (3); **zirrara bat sentitu** (5); **zirrara bera** (4); **zirrara berezi** (9); **zirrara berezi bat** (4); **zirrara berezia** (21); **zirrara berezia egin** (4); **zirrara berezia eragiten** (3); **zirrara berezia sentitzen** (3); **zirrara berezirik** (5); **zirrara bitxi** (8); **zirrara bitxi batek** (4); **zirrara bizia** (6); **zirrara bortitza** (4)

**zirrara egin** (15); **zirrara egin zion** (7); **zirrara egiten** (7); **zirrara eragin** (34); **zirrara eragin dit** (3); **zirrara eragin zidan** (11); **zirrara eragin zion** (6); **zirrara eragingo** (4); **zirrara eragiteko** (5); **zirrara eragiten** (26); **zirrara eragiten zidan** (5); **zirrara gozo** (3); **zirrara handi** (4); **zirrara handia** (28); **zirrara handia egin** (8); **zirrara handia eragin** (12); **zirrara handiagoa** (6); **zirrara handirik** (4); **zirrara handirik eragin** (3)

**zirrara izugarria** (3); **zirrara moduko bat** (4); **zirrara seguru** (3); **zirrara sentitu** (13); **zirrara sentitu zuen** (9); **zirrara sentituko** (3); **zirrara sorrarazi** (5); **zirrara sortu** (5); **zirrara sortu zion** (3); **zirrara sortzen** (8); **zirrara sortzen du** (4); **zuen zirrara** (11)

**zirrarak hartu** (3); **zirrarak jota** (6)

**zirrararen zirraraz** (6)

**halako zirrararik** (3); **inolako zirrararik** (6); **zirrararik eragiten** (6); **zirrararik handiena** (4); **zirrararik sortzen** (3)

**zirraraz betea** (3)

---

# zirraragarri

*(orobat* ***zirragarri*** *g.er.)* **1** *izond* zirrara eragiten duena.

Nire bizitzan irakurri dudan libururik **zirraragarriena**. Juan Kruz Igerabide

Askoz ere partida **zirraragarriagoa** ari zen jokatzen egun hartan Maximilian plazan. Alberto Ladron Arana

"Errusia santua" gerra-oihu **zirraragarriagoa** zen "Amerika zoriontsua" baino. Iñaki Mendiguren

Borreroak dioenez, ez dago ezer **zirraragarriagorik** izuaren usaina baino. Karlos Linazasoro

Maiteminik **zirraragarrienak** jotako bihotzak bizitzako amodio bakar eta galduaz hitz egiterakoan erabiliko lukeen samurtasun berak apaindutako hitz hauen aurrean. Pako Aristi

Argi sentitzen nuen nola barneratzen zitzaidan, mailaka-mailaka, motel baino ziur, Usherren sineskeria zoro baina **zirraragarrien** eragin gaiztoa. Koro Navarro

Kotoi-uztaren sasoiko kanta ezin **zirraragarriagoa** abestu zuten *a capela*. Josetxo Azkona

35-31 irabazi zuen Rekaldek, partida estu eta **zirraragarrian**. Berria - Kirola

**2** (predikatu edo adizlagun gisa)

Hura neronek aurkitu nuen: egundokoa zen, sekulakoa, **zirraragarria**, izugarria, sakonki hunkigarria, benetan. Joxe Austin Arrieta

Talmuda oihan bat da, ederra, **zirraragarria**, miresgarria, baina oihana. Xabier Kintana

Partida ona eta **zirraragarria** gertatu zen. Berria - Kirola

Rembrandten margolanetako ilunetan argi-zuloak ikuspegi dramatiko batetik **zirraragarriak** diren bezala, Constableren paisaia hodeitsuak giroari dagokionez dira **zirraragarriak**. Josu Zabaleta

Konkista **zirraragarria** dela eta kolonizatu nahiak galtzen gaituela beti. Harkaitz Cano

**Zirraragarria** gertatzen zitzaidan hura; bazirudien jende hark erabakitzen zuela gizadi osoaren etorkizuna. Juan Kruz Igerabide

Horrek guztiak garai hartako gizartearen bihotzean kokatzen gaitu, mezua **zirraragarriago**, sinesgarriago eta zuzenago eginez. Lopez de Arana

**Zirraragarria** baino gehiago lazgarria, protagonisten larruan sartuz gero oilo-ipurdia jartzeko modukoa. Xabier Mendiguren Elizegi

Xume eta irreala, harritzeko moduan zen garden eta **zirraragarri**. Anton Garikano

Zirrara eta aztoramena eragiteko indarrez beterik etortzen zaizkio ikuspenak, etortzen zaizkionean: duela hogeita bost urte lehenbizikoz gogora etorri zitzaizkionean bezain **zirraragarri** eta aztoragarri. Xabier Olarra

Aukera izanez gero, aipatuko zenioke sir Patricki aipatzeko zein beldurgarri eta **zirraragarri** aurkitzen nauzun? Iñaki Mendiguren

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
> **zirraragarria iruditu** (3); **zirraragarria izan** (13); **zirraragarria izan zen** (6); **zirraragarria zen** (8)
> **zirraragarriak ziren** (3)
> **zirraragarrienetako bat** (3); **zirraragarrienetako batean** (3)

---

## zirraragarriro *adlag* era zirraragarrian.

Kontakizunak bat-batean eta **zirraragarriro** egiten du jauzi pertsonaia batetik bestera eta leku batetik bestera, gidoi zinematografiko bat bailitzan. Lopez de Arana

Aire freskoak bisaia inarrosten zion, **zirraragarriro**. Lopez de Arana

---

## zirraragarritasun *iz* zirraragarria denaren nolakotsuna.

Beste kausa bat erakundearen beraren **zirraragarritasuna** da, bere agintaririk handienek erakusten duten jeinuaz aparte. Iñaki Mendiguren

---

## zirrarako *iz* zirrara.

Nolako gorputzaldi txarra jarri zitzaidan, zer **zirrarakoak**! Fernando Rey

Goizean eguna argiturik, eguraldi ona, gauza bakarra tripako **zirrarako** batzuk trabeska Antjerengatik. Fernando Rey

Nola sentiarazi zer-nolako **zirrarakoa** egiten duen ikusteak liskar bat, norbaiten oinak zapaltzeaz bidegabeki salaturiko bidaiari patxadatsu baten eta beste baten artean, baldin eta norbait negargarri hori kasu honetan goian deskribatutako pertsonaia bada? Xabier Olarra

---

## zirraraldi *(orobat **zirrara aldi**)* *iz* zirrarazko aldia.

Atsedenik gabe, itxaropenetik porrotera pasatzen da, **zirraralditik** malenkoniara. Juan Garzia

Belar hezearen gainean zebilen, azken ordu hura, **zirraraldi** lauso zoriontsu hura, gogoratuz. Iñaki Mendiguren

Janzten ari nintzeneko **zirraraldiak** guztiz urrunekoak iruditzen zaizkit, iraganean galduak. Josu Zabaleta

---

### zirraraño *iz* zirrara txikia.

Lehen aldian solas batzuen atxemaitea ez da baitezpada errex, bereziki Koxeparentzat, itsasuar horrek hastapenetik **zirraraño** bat eragiten baitzion. Eneko Bidegain

---

## zirrararazi, zirrararaz, zirrararazten du *ad* zirraratzera behartu.

Nire argazkia itsatsita zeraman paper plastifikatu puskak ez zuen gihar-zaku hori batere **zirrararazi**. Aingeru Epaltza

---

## zirraratsu *izond*

Irribarre **zirraratsua** egin nuen Fubuki gogoan: "Zeinen jatorra den! Beharrik hemen dagoen!". Joxan Elosegi

---

## zirraratu, zirrara(tu), zirraratzen da/du *ad* zirrara eragin.

Berriak muinetaraino **zirraratu** ninduen. Juan Garzia

Biluzik ikusi banu baino askoz gehiago **zirraratu** ninduen hiru kolore haien elkarketa ia infernukoak. Matías Múgica

Giza hautamena ez du **zirraratzen** duenak soilik determinatzen, h[au] d[a], sentsuak zuzenki afektatzen dituenak. Ibon Uribarri

Beti sor daitekeela ikuslea harritu, hunkitu eta **zirraratuko** duen artelana. Hasier Etxeberria

Hauek honela, zer da zure gogoa zauritzen, **zirraratzen** eta askotariko gogoetak azalarazten dizkiona, sentiezgarritik sentigarria sortzen dela ez sinesteko? Xabier Amuriza

Ez al dira herriak eta jendea dardaratzen, errege gailenei ez al zaie gorputza jainkoen beldurrez **zirraratzen**, pentsatzean ez ote den euren egintza zantarrak eta berba harroak kitatzeko ordu larria iritsi? Xabier Amuriza

**Zirraraturik** geratu zen neskato hark zeukan bere buruaren jabetasunarekin. Joxemari Iturralde

---

## zirraratxo *iz* zirrara txikia.

Tinko begiratu zion Maizak ukipenak eragindako **zirraratxoa** gainditu eta gero. Migel Angel Mintegi

Hots arin bat gogoan zehar, halako bihotz **zirraratxo** bat, guztiz arina. Josu Zabaleta

Eta segidan, isil-isilik, barne-**zirraratxo** batez, "Vishenta" nola eman begiratu dut. Txillardegi

---

## zirri 1 *iz* norbait ukitzea atsegin hartzeko edo emateko.

Laztanak, musuak, miazkatzeak eta **zirriak** alde sentsuala eta sexuala dira. Luis Elberdin

Laztantzen, hazka egiten, masajeak ematen, musukatzen, miazkatzen, **zirriak** egiten... Luis Elberdin

Atari zabal honek ez dauka itxura txarrik eta hor barruko txoko ilun batean **zirri** batzuk egin genitzake. Jon Arretxe

Orduan, gainera, beti zituzten musuak, eta gainerako **zirriak**, bestelako buruhausteez arduratzen ibili beharrik gabe. Mirentxu Larrañaga

Hor dabiltza gero, estu eta larri, irriak, **zirriak** eta musuak baino ez dituztelarik bidelagun. Mirentxu Larrañaga

Berotuta geratu nintzen haren **zirriekin**, eta nahiago izan nuen gustora masturbatu, Luisa eta Antoniorekin telebista ikusi baino. Juan Martin Elexpuru

Ikutuidazu potxotxa, ikusiko duzu nola poztuko den zure **zirriekin**. Juan Martin Elexpuru

Aspaldiko egunik ederrenak pasa ditu, lasai eta gustura sumatzen baitzuen andrea, ezkongaietan edo ezkonberritan bezala, txantxarako beti gertu, edozein erokeriatarako prest, baita igurtzi eta **zirri** kontuetarako ere. Xabier Mendiguren Elizegi

-Ba horixe, **zirri** batzuk, sexu apur bat... txortan edo. Jon Arretxe

Komeni da elkarri ipurmamietatik heltzea eta batak besteari ipurtzuloan **zirriak** eta kili-kiliak egitea, lizunkeriaren osagarri beharrezkoak baitira. Juan Martin Elexpuru / Bego Montorio

Bahiako gizon batek blusaren azpitik **zirri** egin, eta biharamunean mundu guztiak baitzekien. Karlos Zabala

Aukera nuen guztian **zirri** egiten nion Marki eta, igogailuan biak bakarrik igotzen ginenean, musu bat ematen nion bizkor mingaina eztarriraino sartuta. Karlos Zabala

Baina emakume zuriek ez diete beltzei **zirri** egiten uzten, emakume dezenteek behinik behin. Fernando Rey

Bai, niri ukituka eta **zirri** eginez barre-algara batean hasten zen. Fernando Rey

Larru jotze garbiraino ez beste zera guziak jo litezke **zirritzat**, baina, ez da hori kuixidadea, errealitate zakarra baizik. Patziku Perurena

**2** (izenondoekin)

Franko berotzen zen **zirri** trakets haiekin, aldiro nolako psikologia nuen jakiteko helburua zuten ukitu haiekin. Fernando Rey

Postura honetan esku-eskura ditut zuen ipurdi biak, Eugenirenari **zirri** xamurrak egingo dizkiot, haren lagun ederrarena miazkatzen dudan bitartean. Juan Martin Elexpuru / Bego Montorio

Kontatu zidan bada berak birjintasunari eusten ziola, baina, gainerakoan, gauza pila egiten zutela, **zirri** xinple pila besterik ez, egia esateko. Karlos Zabala

**Zirri** batzuk egiteko, **zirri** galantak, baina **zirriak** besterik ez. Karlos Zabala

Sentitzen nuen hatz punttetan ziriaren dardara urdina, **zirri** lizuna. Karlos Linazasoro

**3** (adizlagun gisa)

Andretan ibiliak ziren, lehenengoetan irri eta **zirri**, gero **zirri** eta ziri, eta azkenean eder-eder joka. Edorta Jimenez

**4** ***zirri-barra***

Mozartekin hasi ziren, Milan Laukoteari ekinez, eta berehala, portuko zarata eta **zirri**-barrara ohituriko jendea, Felipe Juaristi

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
> **bati zirri egin** (3); **zirri batzuk** (7); **zirri egin** (10); **zirri egin ziolakoan** (3); **zirri egiten** (4); **zirriak egitea** (3); **zirriak egiteko** (3); **zirriak egiten** (4)

---

**zirriborratu**, zirriborra(tu), zirriborratzen *(orobat* ***zirriborrotu*** *g.er.)* **1** du *ad* zirriborroa egin. ik **zirrimarratu**.

Eta **"zirriborratu** ziola" esan dudanean, adierazi nahi dut ikuspen hori **zirriborraturik** dagoela eta erdietsezina dela bere izaeragatik beragatik. Xabier Kintana

Paperean hasi nintzen bospasei ideia **zirriborratzen**. Xabier Mendiguren Elizegi

Emakumeak poltsatik bolaluma eta libreta ñimiño bat atera eta zerbait **zirriborratu** zuen gainean. Aingeru Epaltza

Ohar batzuk **zirriborratu** ditiat... Iñaki Iñurrieta

Kapa jantzi ondoren, Harryk ohar bat **zirriborratu** zuen Ronentzat, nora joan zen esanez. Iñaki Mendiguren

Hego haizeak gure literaturan duen presentziaz lantxo bat **zirriborratzen** hasia nengoen. Joxean Agirre

-Lan bikaina egin duzu -esan zion, helbidea esku dardaratiz **zirriborratu** ostean-, eskerrik beroenak eman behar dizkizut. Migel Angel Mintegi

Arroz ura edan behar duzu batez ere -beste paper bat **zirriborratu** zion Mentxuk-. Josu Landa

"Zer esan nahi duzu?", **zirriborratu** zuen Harryk, zirraran zirraraz orrialdea orbanduz. Iñaki Mendiguren

Zoruan hormarako paper zaharrak zabaltzen zituen, buelta emanda, eta paperaren gainean muinoak eta ibaiak **zirriborratzen** zituen. Iban Zaldua

Han daude bolaluma beltzez **zirriborratutako** marrazkiak. Iban Zaldua

Berehala **zirriborrotzen** du egintzaren plangintza eta erakuntza, gero bakoitzak bete beharko duena. Joan Mari Lekuona

Ikusiko da ondoan **zirriborratuko** dudan teoriak harreman bikoitza duela orain arte egin diren ikerketekin. Xabier Arregi

Maila enuntziatiboa bere gertutasunean bertan **zirriborratzen** da. Xabier Arregi

Hipotesi orokor bat **zirriborratzen** saiatzen da. Iban Zaldua

Puntu honetantxe hasten da **zirriborratzen** gero zinemari buruz berehalaxe zabalduko den kritika-gai bat. Josu Zabaleta

Saltzaile ibiltariarentzako beste gutun bat **zirriborratzen** hasi zen buruan, gutun gogorra, iraingarria. Bego Montorio

Ikuskizun genuela etortzekoak ziren urrats berriak; hauteman zitekeela garai berrien nondik norakoa, baina bidea **zirriborratu** gabe zegoela artean. Berria - Euskal Herria

Zortzi ataletan banatua; atal horien sarrerak idatzita, osorik batzuetan, **zirriborratuta** besteetan; eta ia dena makinaz idatzita. Berria - Kultura

**2** irud/hed

Aski patetikoa zeritzon aurpegian **zirriborratutako** segurtasun keinuari. Josu Landa

Beraren aurpegi fin, ttikian irri liluragarria **zirriborratu** da. Gotzon Garate

Disimuluan huts egindako gaitz-ulertuaren imintzioa **zirriborratu** zitzaion Joseluri opariaren zertzeladak ikusi zituenean. Josu Landa

Bainugelako ispiluak bere gorputza **zirriborratuta** erakutsi zion Danielari. Jasone Osoro

Argi gorri indarge batek erditzalez **zirriborratzen** zuen begietara hedatu zitzaion esparru ezezaguna, eta instintiboki makurtu zuen linternaren norabidea lurrera. Josu Landa

Nire pentsamenduaren nahasmendu izugarriari diot beldur, batez ere, nire arrazoiari, ihes egiten baitit, estura larri misteriozko, ikusezin batek **zirriborraturik**, barreiaturik. Josu Zabaleta

Orain egiazko balioaren irizpiderik ez dugu, denak berdin balio du, erlatibismo zirriborrotsuenean **zirriborratuak** gabiltza. Joxe Azurmendi

**3** (era burutua izenondo gisa)

Bederatzi-hamar lerro **zirriborratuk** bete nahi zuten orria. Juan Garzia

Orri **zirriborratuak** bota; te-kikara sakelan sartu patioko kanilan garbitzeko. Jon Muñoz

Etxeko jantzia janzteko jaka eranzterakoan, sakelak miatu, ohi zuen bezala, eta hara paper **zirriborratua** aurkitu. Jon Muñoz

**4** tintaz borratu.

Pixka batera, idatzi zuena **zirriborratu** eta begiak jaso zituen, leihotik kanpora aurrera zihoan udaberrian erreparatu gabe, pentsakor. Joxemari Urteaga

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
> **ohar bat zirriborratu** (3); **orri zirriborratu** (3); **zerbait zirriborratu** (3)

---

**zirriborratze** *iz* zirriborroa egitea.

Oraindik ez baitakit zer izango den esku artean dudan hau, paperak **zirriborratze** hutsa ala zerbait gehiago. Xabier Mendiguren Elizegi

---

**zirriborro** **1** *iz* gaizki taxuturiko marrazki edo letra multzoa; izkribu baten lehen idaztaldi edo saioa, zuzendu ondoren kopiatzen dena. ik **zirrimarra**.

Olatuetako bat [...] ez da gelditu, harik eta harean zeuden ume-letraz idatzitako hainbat **zirriborro** eta marrazki ezabatu dituen arte. Anjel Lertxundi

Dartaiet **zirriborroak** egiten ari zen euriak kristaletan sorturiko ganduan. Anjel Lertxundi

**Zirriborro** batzuek adierazten zuten nola zakila ematutuan barrena sartzen zen, eta nola espermatozoideak pozez saltoka ateratzen ziren, barrualde haietan obulu bakartiaren bila. Xabier Mendiguren Elizegi

Idazketa: informazioaren berrikustea, lehenengo **zirriborroa**, **zirriborroaren** berraztertzea, behin betiko idazketa, oharren prestakuntza, azken bibliografia, eranskinak. Askoren artean

Osalanek jakinarazi du txostena lehen **zirriborro** bat besterik ez dela. Berria - Ekonomia

**Zirriborro** bat du esku artean dagoeneko, eta irailerako gizarte eragileei proposamena aurkeztu nahi die Mujika sailburuordeak. Berria - Ekonomia

Agendan agertzen diren **zirriborroak** beste medikuek eta botikariek bakarrik uler litzakete. Gotzon Garate

Koldo Zuazok maparen lehen **zirriborroa** 1998. urterako egin zuen, eta orduz geroztik hobekuntzak egiten dihardu. Berria - Euskal Herria

Txostenaren **zirriborroan** hainbat aterabide proposatu zituzten egungo krisiari aurre egiteko. Berria - Mundua

Merkataritza ordutegien dekretuaren **zirriborroaren** arabera. Berria - Ekonomia

**Zirriborroari** zuzenketak aurkezteko epea etzi bukatzen da. Berria - Euskal Herria

**Zirriborroak**, urradurez beltztuak; ipurdi horituko te-kikara bat; aurreko urteko egunkariak. Jon Muñoz

Lehen testua trama gisa idatzia zegoen eta nobela luzeago baten **zirriborroa** zirudien. Joxean Agirre

Bost kapituluren hainbat aldaera edo **zirriborro** bakarrik geratu ziren. Jose Morales

**Zirriborroetan** -irudipen hori nuen-, bere begiei eta bere ezpainei deitzeko modua bakarrik salbatzen zen: *North Cape eyes, Thule lips*. Bernardo Atxaga

Baina kasik bi urtez, **zirriborroak** hasi eta berriz hasi ibili zen, ukitu egokia aurkitu ezinik. Karlos Zabala

Emakumeak une batzuk lehenago eman zizkidan **zirriborroak** izenik gabeko idazle horrenak izan zitezkeela pentsatze hutsak aztoratu egin ninduen eta bulegoan batetik bestera nenbilen. Joxean Agirre

Begiratu bat bota beharko lioke **zirriborroari** Barchinik agiria inprimatu aurretik. Koldo Biguri

Stephenek ez zuen inolako **zirriborro** edo bozetorik egin, paperaren ertz batetik ekin zion marrazteari. Xabier Olarra

Horma-garbitzaileek urte asko daramatzate gazteek auzo hartako zokoetan egiten dituzten **zirriborroak** ezabatzen. Harkaitz Cano

Berak ezagutu zuen Santiago kalea, bere familia, zehatz-mehatz agertzen dira **zirriborroan**. Joxerra Garzia

Papera eta lapitza bilatu, eta, erabat liluraturik, luzaz aritzen zen **zirriborroak** egiten". Xabier Olarra

Claude ukuiluaren **zirriborro** bat egiten ari zen, eta François andrea bazkaria prestatzen. Karlos Zabala

Egitasmo bat aurkeztea da ezinbestekoa, eta horren **zirriborroa** taxutzea izan dut bigarren helburua. Koldo Zuazo

**Zirriborroen** tankerako margolanak soilik egiten zituen, arrasto gutxi eta azkarrekin, eta ez zituen askorik margotzen. Juan Kruz Igerabide

**Zirriborro** bat amorruz suntsitu ondoren, orduak eta orduak ematen zituen kaiku harekin, hitzik egin gabe, haren barre errugabeaz jabetu nahian. Karlos Zabala

**2** (izenondo eta izenlagunekin)

XIX. mendeko europar pintura zale batentzat, Polinesiako etxoletako pintura bat **zirriborro** primitibo bat baizik ez zen izango, balio artistikorik batere ez zuena. Josu Zabaleta

2001. urteko otsailean, **zirriborro** berritua aurkeztu zuen Giza Genomaren Partzuergo Publikoak. Berria - Gaiak

**Zirriborro** zehazgabe horien guztien artean, zehatz eta garden datorkit gogora irakasle baten oroitzapena: Periko Lopez Etxezarreta zuen izena. Xabier Mendiguren Elizegi

Horietako orrialde batzuek bi lerro baino ez dituzte, **zirriborro** hutsak dira. Iban Zaldua

Perpausen sorketaren **zirriborro** landugabe hau orokorrago egin behar da. Itziar Laka

Badira, noski, bere ideia hustasuna eta bere moztasun poetikoa **zirriborro** ulertezin batekin disimulatzen ahalegintzen direnak. Bernardo Atxaga

Sailen iritziak jasoko dituen behin-betiko **zirriborroa** urtea amaitu aurretik prest izatea espero dut. Berria - Euskal Herria

Eskua mugitu behar bazuen, **zirriborro** azkar bat marrazten zuen airean. Lander Garro

Dryer-ek beste hogeita zazpi margolan egin zituen, bai eta beste hainbat dozena tintazko marrazki eta ikatz-zirizko **zirriborro** ere. Oskar Arana

Ondorengo **zirriborroetan** izango duzu testua biribildu eta mamian sakontzeko astia. Askoren artean

Han zegoen Big Joeren hatz-marka ere, tintaz zikinduriko **zirriborroan**, orriaren oinaldean, beti ohi bezala; eta alboan, haren izena, amaraun-eiteko letra larriz. Mirentxu Larrañaga

**3** (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

Ezin jakin, artean ere, ea hipotesi berria, hasierako **zirriborro**-itxura baldar hori gainditurik, behar bezala findu eta onduko den. Juan Garzia

**4** (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa)

Albora utzi nuen, jada alferrikakoa baitzen noski, gutun-**zirriborroa**. Juan Garzia

Txosten **zirriborroa** Patxi Zabaletak berak, Iñaki Aldekoak, Joseba Azkarragak eta Jon Andoni del Amok idatzi dute. Berria - Euskal Herria

Konoaren eta planoaren elkartzeen gorabeheren irispiderako proiektu-**zirriborroa**, Desargues, 3. saila. Jon Muñoz

Konstituzio **zirriborroak** autonomia ematen die kurduei. Berria - Mundua

Izan ere, euren ustez, dekretu **zirriborroak** ez du euskararen «lehentasuna» bermatzen. Berria - Harian

Washingtonek eta Londresek orain dela gutxi aurkeztutako ebazpen **zirriborroari** kritikak egin zizkion al Jauarrek. Berria - Mundua

Espainiako Gobernuaren lege **zirriborroaren** harira jarri dute abian *Jaietan denok jai* kanpaina. Berria - Ekonomia

Normandiako gurinek, oihalez bildurik, sabel **zirriborroak** ziruditen, eskultore batek egin eta zapi bustiak gainera botata estali izan balitu bezala. Karlos Zabala

Godotek erantzuna eman zion Gabinen manifestu **zirriborroari**. Iñaki Iñurrieta

Ezin izan zuen pentsatzen jarraitu edo, beste era batera esanda, pentsamendu-**zirriborroa** baino ezin izan zuen egin. Unai Elorriaga

Zer trikimailu erabil nezake giza **zirriborro** hau etxera nire neskame Honorineren ezkutuan sartu ahal izateko? Josu Zabaleta

**hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**

**ebazpen zirriborro bat** (3); **lehen zirriborro** (4); **zirriborro bat egiten** (4); **zirriborro bat prestatu** (3); **zirriborro egin** (4); **zirriborro guztiak** (3); **zirriborro modura** (3)

**akordioaren zirriborroa** (3); **azken zirriborroa** (5); **dekretu zirriborroa** (7); **gehigarrien dekretu zirriborroa** (3); **konstituzio zirriborroa** (4); **lege proiektuaren zirriborroa** (3); **legearen zirriborroa** (5); **lehen zirriborroa** (19); **lehen zirriborroa prest** (3); **lehenengo zirriborroa** (10); **planaren zirriborroa** (5); **planaren zirriborroa aurkeztu** (3); **proiektuaren zirriborroa** (5)

**zirriborroa aurkeztu** (4); **zirriborroa egin** (3); **zirriborroa egiteko** (4); **zirriborroa egiteko ardura** (3); **zirriborroa egiten** (4)

**aurreko zirriborroak** (5); **dekretu zirriborroak** (5); **konstituzio zirriborroak** (4); **konstituzioaren zirriborroak** (3); **lehen zirriborroak** (3)

**zirriborroak dio** (3); **zirriborroak egiten** (14)

**planaren zirriborroan** (3)

**konstituzio zirriborroaren** (6); **konstituzioaren zirriborroaren** (3); **lege zirriborroaren** (4); **zirriborroaren arabera** (3); **zirriborroaren aurka** (6); **zirriborroaren aurka agertu** (3); **zirriborroaren inguruan** (3)

ebazpen zirriborroari (3); erreformarako egindako zirriborroari (4); zirriborroari aurkeztutako zuzenketak (3)

---

**zirriborrotsu** **1** *izond* lausoa, gandutsua.

Alertze multzo baten atzean ipini orduko, argi **zirriborrotsu** bat agertu zen. Karlos Zabala

Hegoaldera igota, lanbro eta ke artean, eguzkia mehatxari zegoen, sutan, gorri ia ubelezko disko **zirriborrotsua**. Agustin Otsoa

Irudi handi eta **zirriborrotsuak** ari ziren mugitzen inguruan. Iñaki Mendiguren

Aitzineko ispilu arrailduko nire bizki **zirriborrotsuari** ihes egin nion, mamu bati bezala. Aingeru Epaltza

Sindikatuon ustez, Hogeita hamarretako bizialdiaren erdia betea zuelarik, sekuentzia **zirriborrotsu** eta distiratsu gisa ikusten zuen iragana. Mirentxu Larrañaga

Hezkuntza Sailak bere asmoak «mugatuko ez dituen marko zabalago eta **zirriborrotsuagoa**» lortu nahi du. Berria - Euskal Herria

Orain egiazko balioaren irizpiderik ez dugu, denak berdin balio du, erlatibismo **zirriborrotsuenean** zirriborratuak gabiltza. Joxe Azurmendi

**2** (adizlagun gisa)

Buruko min jasangaitza zuen, dena **zirriborrotsu** ikusten zuen eta ez zen gertatzen ari zena ulertzeko gauza. Joanes Urkixo

Harago, **zirriborrotsu**, lur gaineko postuetan, pilaketa lauso batzuk kiribiltzen ziren. Karlos Zabala

**Zirriborrotsu** samar zegoen dena. Iñaki Mendiguren

---

zirriborrotu ik **zirriborratu**.

---

**zirrika**[1] **1** *adlag* zirri eginez.

Arenalean geroz eta bikote gutxiago ikusten dira gauez bankuetan **zirrika**. Unai Iturriaga

Konturatu egin zen anderea, nire eskua kendu eta berea hondoratu zuen nirean; **zirrika**, atximurka, igurtzika... Juan Martin Elexpuru

Eseri zen eta **zirrika** eta esku-sartzen hasi zitzaidan, eta ni, edoskialdiko berotasunak eraginda, neure onetik at nengoen, eta esku bat eraman nuen alura, eta motel-motel ferekatzen hasi nintzen, bera ez konturatzeko moduan. Juan Martin Elexpuru

Emakumeak kexuka, "ai, zapaldu egin nauzue", "jauna, mesedez, ez nazazu besarkatu", "nor ari zait **zirrika**?". Pako Aristi

Gazte, heldu eta zahar, elkar desiratuz, elkar maitatuz, elkar musukatuz, elkarri **zirrika**, elkar miazkatuz, elkar masturbatuz. Luis Elberdin

**2** ***zirrika-mirrika*** *adkor* zirrika.

Norbaitek liburu hau hegazkinean irakurriko balu eta honegatik ondoko bidaiariarekin **zirrika-mirrika** hasiko balitz, *accomplishment* izango litzateke, pozez gainezka jarriko litzaidake bihotza. Karlos Zabala

---

zirrika[2] ik **txirrika**.

---

**zirriki-zarraka** *adlag* ahal den moduan.

Euskaldunen umeak euskaraz, eta erdaldunenak ere, **zirriki-zarraka** bakarrik baldin bada ere. Pello Salaburu

**Zirriki-zarraka** ari gara prestatzen gure ikasleak, maizegi hain beharrezkoa den material egokiaren ordez gure borondate ona besterik jartzen ez dugula. Pello Salaburu

Bistan da hiritarrek ere euskararen aldeko apustua egin dutela, hori dela euskal gizarteak, neurri handi batean EAEn, beste neurri batean Nafarroan, eta **zirriki-zarraka** Iparraldean, hori dela, diot, gizarte honek egin duen aukera. Juan Ignacio Pérez / Pello Salaburu

---

zirrikito ik **zirrikitu**[1].

---

**zirrikitu**[1] (*543 agerraldi, 145 liburu eta 150 artikulutan; orobat* ***zirrikito*** *g.er.*) **1** *iz* guztiz hurbil dauden bi gauzaren edo gauza baten bi zatiren artean gertatzen den irekidura luze eta mehea. ik **zirritu**[1].

Tarteka, atera zigarroa leihoaren **zirrikitutik** eta hautsa kanpora botatzen zuen. Bernardo Atxaga

Atearen **zirrikitutik** ikusi dut dena. Josu Zabaleta

Ateko **zirrikitutik** kirika, alfonbra, idazmahaia eta telefonoa ikus nitzakeen. Urtzi Urrutikoetxea

Zurajearen **zirrikituetatik** argitasun distiratsu bat sartzen zen, urrezko xafla bat bailitzan. Josu Zabaleta

Igande arratsalde hartako eguzki-izpiak leihoko farfailezko gortina astunen **zirrikituetatik** sartu eta alfonbrako arrosa gorrien gainean iraulkatzen ziren. Lopez de Arana

Galtzontziloen **zirrikituan** labaindu zuen eskua, eta zakila igurtzi zidan behatzekin. Aritz Gorrotxategi

Bere atzamarrek Stellaren blusaren **zirrikitua** bilatu dute. Xabier Paya

Kea lurraren mailan arrastaka zebilen, eta lurraren **zirrikituei** ere lurruna zerien. Agustin Otsoa

Marea gora ustezko dike seguruaren **zirrikituetatik** agertzen den bezala. Agustin Otsoa

Euria **zirrikitu**, pitzadura eta loturen artetik sartuko zitzaien. Jon Alonso

**Zirrikitutik** begira egon da. Pello Lizarralde

Beheak ondo txukundu ondoren, oholen arteko **zirrikituak** iztupaz bete, eta, behin horiek ondo itxita, bikez estali beharko zituzten beheok. Edorta Jimenez

Atean **zirrikitu** txiki bat ireki zen eta Lockharten begi bat handik so egiten ikusi zuten. Iñaki Mendiguren

Tranpola apur bat zabaldu eta **zirrikitutik** kanpora begiratu zuen. Iñaki Mendiguren

Haitzuloetan zuen bere habia, labarreko **zirrikituetan** bizilekua. Askoren artean

Aurpegi zabala zuen, orekarik gabea: begiak ttikiegiak zituen, bi **zirrikitu**; ahoa eta matrailezurra, handiegiak. Bernardo Atxaga

**2** (izenondoekin)

Begiak berehala ohitu zitzaizkidan oholezko hormaren **zirrikitu** meharretatik sartzen zen argi urrira. Anjel Lertxundi

Begitxo gaiztoek **zirrikitu** mehe batzuk ziruditela aurpegi gorrixka handian. Iñaki Mendiguren

Gorputz guztia igurtzi nuen, xaboia **zirrikitu** txikienetan ere emanez, neure gainetik erauzi nahi nuen hura guztia. Joxan Elosegi

Sustraien artean zegoen **zirrikitu** handi baten barrura. Iñaki Mendiguren

**3** (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

Bainura abiatu nintzen pasillotik, baina Toshiroren gela aurretik pasatzean ate **zirrikitutik** ikusi nuenak geldiarazi egin ninduen. Bernardo Atxaga

Ate **zirrikitua** ireki zen, eta beste aldean pentsa ezinezko gauzak ikusi ahal izan ziren. Pello Salaburu

Iritsi da, azkenik, leiho **zirrikituaren** ondoan lasai-lasai eseri eta dena, den-dena, kontatzeko garaia. Josu Zabaleta

Portua ikusten joan, biriki-**zirrikituak** hango usainaz betetzera. Edorta Jimenez

Argi-**zirrikitu** bat baino uzten ez zuten bi eraikinen hormek. Joseba Urteaga

**4** irud/hed

Soinu txikia tresna mugatua izanik, Elgetak ongi ezagutzen zituen haren **zirrikitu** eta sekretu gehienak. Koldo Izagirre

Zirujauaren hitz lasaigarriek itxaropenari **zirrikitu** bat uzten ziotela iruditzen zitzaion orain. Imanol Zurutuza

Torturari **zirrikituren** bat uzten zaion lekuan ez dago duintasunez bizitzerik. Joxerra Garzia

Hegoaldekoen lerroen artean sartu ziren **zirrikitu** zabalak urratuz. Agustin Otsoa

Konturatuko zara legean badela **zirrikitu** bat... Iñaki Mendiguren

Bere memoriaren **zirrikiturik** urrunenak. Iban Zaldua

Ametsetako **zirrikituetan** barrena zirristatuz, halako hots mehe eta aldi berean etengabe bat barru-barruraino, arimako zokondoetaraino, astiro sartua zitzaidala ohartu nintzen. Edorta Jimenez

Defentsan **zirrikiturik** utzi gabe, ondo presionatzen. Berria - Kirola

M'Coy jaunak, edozein **zirrikitutatik** elkarrizketan sartu nahirik, esan zuen istorio hori ez zuela inoiz entzun. Irene Aldasoro

Egun batez, berak tratabiderako uzten zidan **zirrikitua** handitu egin zela sentitu nuen, eta "zer moduz, Virginia?", esan nion, bere izena ebakiz. Bernardo Atxaga

Itsas azaleko **zirrikituetan** eguzki printzei begira. Lander Garro

Zalantzari **zirrikiturik** ez uzteko. Edorta Jimenez

Miarritzek badu **zirrikitu** txiki bat sailkatzeko, igandean Tolosan galdu arren. Berria - Kirola

Nire **zirrikituak** aztertzen zituen, nire klitorisa ikutzen. Juan Martin Elexpuru

Marlon Brandon dela uste du, eta andereño guztiei jo die larrua, brankako **zirrikitutik** eta atzeko latinetik. Jon Alonso

**5** (txanpon makinetan eta kidekoetan)

Arropa eta garbikaria makinan sartu, hogeita bost zentaboko txanpona **zirrikitura** bota eta botoia sakatu zuen. **Zirrikitutik** sartutako nickel batez txiklea erosten da. Iñaki Zabaleta

Presaka *token* bat **zirrikituan** sartu zuen eta atakako beso mekanikoak jiratuz lasterka jarraitu zuen. Iñaki Zabaleta

*Token*-a atakako **zirrikituan** sartu eta eskailera ilunetatik andenera jaitsi zen. Iñaki Zabaleta

Arrebak txanponak sartu zituen, banan-banan eta bozkario tuntun batez, Santa Anak oinetan zeukan itsulapikoaren **zirrikitutik**. Anjel Lertxundi

Esku bakar batekin irekitzen dut diskoaren plastikozko kaxa eta aparatuaren **zirrikitutik** sartzen dut konpaktua. Mikel Hernandez Abaitua

**hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**

**arteko zirrikitu** (6); **begiak zirrikitu** (5); **zirrikitu bat uzten** (3); **zirrikitu batetik** (21); **zirrikitu guztiak** (11); **zirrikitu guztietan** (6); **zirrikitu guztietatik** (6); **zirrikitu txiki bat** (8)

**zirrikituak oro** (3)

**atakako zirrikituan sartu** (3); **zirrikituan sartu** (6)

**arteko zirrikituetatik** (4); **atearen zirrikituetatik** (3); **pertsianaren zirrikituetatik** (4); **zirrikituetatik sartu** (4); **zirrikituetatik sartzen** (8)

**zirrikituren batetik** (4)

**ezustekorako zirrikiturik** (6); **ezustekorako zirrikiturik utzi** (3); **zalantzarako zirrikiturik** (9); **zalantzarako zirrikiturik uzten** (6); **zalantzari zirrikiturik** (4); **zirrikiturik aurkitu** (3); **zirrikiturik ez uzteko** (3); **zirrikiturik gabea** (3); **zirrikiturik txikiena** (4); **zirrikiturik utzi** (19); **zirrikiturik utzi gabe** (6); **zirrikiturik utziko** (3); **zirrikiturik uzten** (18); **zirrikiturik uzten ez** (3)

**edozein zirrikitutatik** (3)

**arteko zirrikitutik** (7); **ate zirrikitutik** (5); **atearen zirrikitutik** (7); **ateko zirrikitutik** (6); **azpiko zirrikitutik** (4); **baten zirrikitutik** (4); **leihoaren zirrikitutik** (4); **zirrikitutik begira** (3); **zirrikitutik begiratu** (7); **zirrikitutik begiratu zuen** (3); **zirrikitutik ikusi** (3); **zirrikitutik sartzen** (4)

---

# zirrikitu[2], zirriki(tu), zirrikitzen du *ad* zirrikitu bat utziz itxi.

Begiak **zirrikitu** eta zutitu egin zen bere oin berri bigunen gainean, eta gorputzari nekez eutsiz eraman zuten astiro egongelara. Anton Garikano

Begiak **zirrikitu** zituen eta, hunkiturik edo, zintzurra gora eta behera mugitu zitzaion. Bernardo Atxaga

Begiak **zirrikitu** zituen zer ote zen jakiteko. Anton Garikano

Denverrek besoak astindu eta begiak **zirrikitzen** ditu, hartara patata-zakuen itzalak, gantzaren poto bat eta txerri ketuaren saihets bat ez nahasteko pertsona batena izan litekeen. Anton Garikano

Bere eskuinean, egongelako atea **zirrikituta** dagoen lekuan, kanta baten marmarra entzun du. Anton Garikano

Bere katu-begi horiak **zirrikituta**. Anton Garikano

---

# zirrikitudun *izond* zirrikitua duena.

Autoan aire-freskagarriak jartzen hasi zen, mota guztietakoak: pinu formakoak, limoi itxurakoak, itsasten diren kutxa beltz **zirrikitudun** horietakoak... merkatuan aurki daitezkeen guztiak probatu zituen taxistak, arrakastarik gabe. Iban Zaldua

---

# zirriku *iz* zirrikitua.

Hala sartzen zen itsas haizea ontziko **zirrikuetatik**, ontziko mastartetik, doinu handiko musika eginez. Felipe Juaristi

Hotel hartako paretetako loreak eta kortina haren loditasuna, **zirrikuetatik** argia sartu nahian. Lourdes Oñederra

Esperantzaren ateak beti du, nola ahanzturak zorion apurra, **zirrikurik**, bere txikian hain ezdeusa bada ere. Karlos Linazasoro

---

# zirrimargotu, zirrimargo(tu), zirrimargotzen da/du *ad*

Nik haiez nuen irudi grafiko gaingirozkoaren arabera **zirrimargotutako** prostituta batekin topo egitean senti zezaketen izuikara bertutetsu bera sentitzen nuen. Josu Zabaleta

---

# zirrimarra 1 *iz* gaizki taxuturiko marrazki edo letra multzo ulertezina. ik **zirriborro**.

Begirada maltzur, garratz, plazent edo trufariak adierazten ditu, **zirrimarra** batez, denetaz irri egiteko filosofia gauzatuz. Herria

Autoenak izaten ziren gehienbat Stephenen **zirrimarrak**, eta tarteka animalienak nahiz pertsonenak. Xabier Olarra

Lapitzaren puntak dardar egiten zion eta paperean kardiograma baten antzeko **zirrimarrak** egiten zituen. Fernando Rey

**Zirrimarrak** egiten aritu zen Léa, bere bi neben begirada ernearen pean. Jon Muñoz

Bere **zirrimarretatik** ateratzen zuen bizimodua. Juan Garzia

Ume normalek garapen-sekuentzia bat pasatu behar izaten dute urratsez urrats, hasi **zirrimarrak** egitetik eta irudi eskematiko eta geometrikoekin jarraituz. Xabier Olarra

Lehenengo ikerketen arabera, esku bakarrak sortutako zirriborro bat da, zenbait orrialdetan, gainera, **zirrimarrak** ikus daitezke. Berria - Kultura

Halako ebokaziorik gabe goibelegi gertatuko litzateke **zirrimarraren** tintak, eta irakurleak liburua itxi beste erremediorik ez luke, sendaezineko malenkonia beltzez zauritua barren-barrenetik arima. Juan Garzia

Takigrafia **zirrimarra** huts bihurtzen da, beti ere markatutakoa gero ulertuko duzulako ustean. Iñaki Iñurrieta

**2** (hitz elkartuetan)

Haiek, ordea, **zirrimarra** multzoa baino ez dute ikusiko ustez emakume baten irudia jaso behar zuen mihisearen tokian. Berria - Kultura

Bereziki garbia zen hori Nadiaren kasuan, itxura zenez ez baitzituen pasatu **zirrimarra**, eskematizazio eta zapaburu faseak, eta edozein ume normalek ez bezala marrazten baitzuen marrazten zuenean. Xabier Olarra

**3** ziriborroa.

Iraultza nagusienek sortu dituzten ideien ezberdintasuna aurkeztu nahi dut azaleko **zirrimarra** batean. Ibon Uribarri

---

**zirrimarraka** *adlag* zirrimarrak egiten.

Zubian pasatzean ikusi ditut, eskuin, erreka txar batzuk **zirrimarraka** ari lur mokor goroldioz estalien artean; eta ere, han hemenka, harrixabal xuriak, ardi ttittak iduri dutela pentze lohitsu batean landatuak. Piarres Aintziart

---

**zirrimarratu**, zirrimarra(tu), zirrimarratzen *(orobat **zirrimarraztu**)* **1** du *ad* ezin irakurrizko eran idatzi, taxurik gabe marraztu.

Hantxe ageri zen, ongi zegoela jakinarazteko, lapitzez **zirrimarraturiko** hitz batzuk ageri zituen paper zatia, hurbilekoen helbide batera zuzendua. Joxan Elosegi

On Camillok umetxo bat harrapatu zuen apaizetxeko zarpiadura zuria ikatzaz **zirrimarratzen**, eta zezen baten antzera oldartu zen. Koldo Biguri

Hori da hori liburuak **zirrimarratu** beharra! Jon Muñoz

Gosaria bertan behera utzi eta ohar bat **zirrimarratzeari** ekin zion paparreko poltsikoan eraman ohi zuen koaderno txiki batean, mukizapiaren atzean. Lopez de Arana

Frontoia ikatzez erabat **zirrimarraturik** zeukan ateak. Juan Garzia

Zifraz eta letraz **zirrimarratutako** orri baten gainean makurtuta. Jon Muñoz

Nahiago izan zuen orain izkribu sakratuetan bildurik dagoen argumentu labur bat **zirrimarratzea** kareta fabrika bateko hondakinen artean. Juan Garzia

**2** (era burutua izenondo gisa)

Alde banatan hiru kartel **zirrimarratu** ipini zituzten saltinbankiek. Koro Navarro

"Credencial del Pelegrino" fidagarrian egona naiz, so eta so, Europako bideen mapa **zirrimarratuari** Piarres Aintziart

**3** zirriborratu.

Ber-bertan **zirrimarratu** zuen soneto bat beren gurasoak irain litzatenen aurkako gurutzada bat eskatzeko Aitasantuari. Juan Garzia

---

zirrimarraztu ik **zirrimarratu**.

---

zirrimola ik **zirimola**.

---

**zirrin-zarran** *adlag* kirrinkaren edo errestan eramaten denaren zarata atereaz.

**Zirrin-zarran** zerratuz sartu behar delako zurezko buru gogorretan. Xabier Olarra

Gau batez, pare bat aldiz irten zen, etxeko ate ostean zerbait **zirrin-zarran** antzeman ondoren, eta itzal bat erdikusi zuen. Koldo Biguri

Ramsay andrearen irudipen hura, Carmichael jauna **zirrin-zarran** igarotzean, galderari baiezkoa soilik eginez, liburu batekin galtzarbean, txapinak soinean, alegia bere susmoa zeukala. Anton Garikano

---

**zirrinda** **1** *iz* zerrenda, zati luze eta meharra.

Orduan ilargiaren aurpegi distiratsuaren kanpoko ertza lurrera argia bidaltzen hasten da **zirrinda** mehe baten moduan. Santiago Iruretagoiena

Barano horren barru aldeko ertzean, fijo erreparatuz gero, **zirrinda** gorrixka motel bat aurkitu ohi da; kanpo aldetik, berriz, beste **zirrinda** morexka bat. Pello Zabala

**2** (hitz elkartuetan)

Kapitel joniarraren balteo edo **zirrinda**-moldurek honela izan behar dute proiekzioa: [...]. Santiago Iruretagoiena

· Adaren azkeneko esaldi bat geratu zen zintzilik leihoaren eta nire arteko argi-**zirrindaren** hauts artean. Anjel Lertxundi

---

**zirrindola** *iz* uztaia, eraztuna.

Su-zuloko **zirrindola** txikiena zabaldu zuen sutarako kakoaz. Anjel Lertxundi

Koloretako painelua buruan eta **zirrindola** doratuak belarrietatik dilindan. Joseba Sarrionandia

---

**zirrinka** *iz* kirrinka.

Giltza harrabotsak, burdinazko ate baten **zirrinka**. Filipe Bidart

Leihatilaren kanpoko aldetik beste giltza harrabots batzuk, boz batzuk, urrats batzuk, atearen beste aldetik orai urratsak zeldako ate bat hesten, beste bat zabaltzen, urrats batzuk leihatila aldetik segitzen, giltza harrabotsak, burdinazko atearen **zirrinka**, urrats batzuk, isiltasuna... Filipe Bidart

---

**zirrinta** *(orobat **txirrinta**)* **1** *iz* argiaz eta kidekoez mintzatuz, izpia, distira.

Argiaren lehen **zirrinta** ez zen urrun, itzuli behar zuten bertze egoitzarat. Michel Oronoz

Lo kuluxka bat egin eta gogoa nuen argiaren lehen **zirrintan** berriz abiatzeko. Michel Oronoz

Lur honek gero eta gehiago heren munduaren antza zeukala iritzi nuen, urrutizkin mugikorren **zirrinta** zizkolatsuek isiltasun artifiziala urratu arren. Itxaro Borda

**2** (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa)

Argi **zirrinta** bat sartzen da atepetik. Koldo Izagirre

*ik beherago* 4. Askoren artean

Leihoko pertsianetako zirrituetatik sartzen ziren argi-**zirrinten** laguntzaz, gorputz bakarra begiztatu nuen barnean. Aingeru Epaltza

Begiak ezin gehiago sarturik, oraino leher eginik, lehen argi **zirrintak** agertzekoak zirela. Eneko Bidegain

Ontzia ingelesa bazen, hobe gaua lehenbailehen baletor; gutarikoa bazen, berriz, hobe argitasun **zirrinta** bat izatea, ikus gintzan, edo bestela kanoiak su egin ahal izan zezan. Edorta Jimenez

Eguzki **zirrintek** begi-begietan kausitu ninduten, pertsiana erdi ustelduetako arteka ugarietatik. Aingeru Epaltza

Argi **zirrinta** minimo bat egin zitzaion bere buruan zuen leize ilunean. Harkaitz Cano

**3** irud/hed

Bata bestearen atzetik, atzean uzten joan nintzen etxe multzo garaiak, euri **zirrintaren** pean. Alberto Ladron Arana

Basamortuan eroritako euri-**zirrinta** batek baino gehiago ez. Anjel Lertxundi

Inguruetarik jinak ziren Ameriketara mende-**zirrintan**, eta ez zuten sekula aski diru sakeleratu etxera harro itzultzeko. Itxaro Borda

-Gaitz izango da uretara jaurti genituenak berriz lehorrera ekartzea, itsasoak berak gorpuak oka egin ezean behintzat -irria eragin guran esan nion, baina izu **zirrinta** batez. Edorta Jimenez

**4** ***argi zirrinta*** *ipar* egunsentia.

**Argi-zirrinta** urratzen zenean, bizirik irauteaz oraino harrituak, ostatuetara bideratzen ziren. Itxaro Borda

**Argi-zirrintan** sartu dun, erdi-edana. Itxaro Borda

Sarekada bat izanen da, laster, astearteko **argi zirrintan**! Itxaro Borda

Biharamunean, **argi zirrintan**, agertu zen Istilarteko eiheran Joanes Ithurbiderekin hitz egiteko asmoz. Elena Touyarou

**Argi-zirrintako** heltzen ginen gain haietara. Daniel Landart

---

# zirrintatu

**1** ***argi-zirrintatu***

Gauak **argi zirrintatzen** ziren aharrausika. Itxaro Borda

---

# zirripaka *adlag* borborka. ik **zirripan**.

Su inguruan eserita geundean hilketa-mugimendu hari begira, labanaren distirari, hil zorian zen bildotsaren gorputzari, **zirripaka** isurtzen zen odolari, eta denok distira berdina genian begietan. Xabier Olarra

---

# zirripan *adlag* borborka. ik **zirripaka**.

Morroia -uniforme beltza ia lehertzen zuen lodikote bat- hots ito bat eginez lurreratu zen, odola **zirripan** zeriola sudurretik. Alberto Ladron Arana

---

# zirriparra **1** *iz* iskanbila, zalaparta.

Lasaigarria izan zen astelehenean ikastetxeko zalaparta eta **zirriparrara** itzultzea. Iñaki Mendiguren

Unean-unean **zirriparra** gizentzen ari da, eta, klaseko lagun batzuk ni nagoen aldera datozela ikusirik, burua makurtzen dut. Anjel Lertxundi

Azkenean, trena Hogsmeadeko geltokian gelditu zen, eta **zirriparra** handia sortu zen irteteko. Iñaki Mendiguren

Bero-bero hitz egin zion Klausi, kontuak eskatuz eta **zirriparra** zakarrean. Anjel Lertxundi

Haiek ohartu gabe zeuden zer-nolako iskanbila egin zuten, baina, noski, norbaitek behean entzun egingo zituen haien **zirriparra** eta gnomoaren orroak. Iñaki Mendiguren

Dena egun bakar batez **zirriparran** gainbegiratu nahi izaten duten turista-talde horietakoak gidatzen omen ditu gehienbat, mediterranear bidai agentzien esanetara. Joxe Austin Arrieta

**2** (hitz elkartuetan)

Gorrotoz eta mozkor-**zirriparraz** jardun zuen: nirekin ezin zela elkarrizketa normal bat eraman. Anjel Lertxundi

---

# zirrist

**1** ***zirrist egin*** irrist egin.

Zorte txarra eduki genuen, edo Txerrenak hala oztopatu nahi izan zuen gure lana, zeren zurubiak **zirrist egin** baitzuen, hots handia atereaz, eta eltzegile baten teilatu gainean erori zen. Jon Alonso

---

# zirristaka[1] *adlag* turrustan, burrustan.

Nolanahi mugituta, teilatutik **zirristaka** etortzen ura gainera. Aingeru Epaltza

Ez nezakeen inola ere pitilia kontrolatu... eta hazia erein nuen, **zirristaka**, alde orotara. Daniel Landart

---

# zirristaka[2] *adlag* irrist eginez.

Ahate beltz papo argiak **zirristaka** ur gainetik Eta bere gorputza lerratu zen, lerratu, **zirristaka-zirristaka**, hamar metro beherago. Aurelia Arkotxa

---

# zirristan *adlag* turrustan, burrustan.

Ardietarik bat galtzen duenean, gainerako laurogeita hemeretziak baino garrantzitsuagoa zaionez, haren bila abiatzen da tiroa bezala, errabiaz, ezpain izkinetarik tua **zirristan** dariola, naba eta holtzetan behera, bere biziaren perilik handienean. Itxaro Borda

---

# zirristatsu *izond*

Zirudienez, euskaraduntasuna ukatzen zitzaigun garaiotan, merkatuaren sigi-saga **zirristatsuen** artetik gasnak zekarren gure izatearen hondar zigilu zilegia. Itxaro Borda

---

**zirristatu**, zirrista(tu), ziristatzen da *ad* irristatu.

Ametsetako zirrikituetan barrena **zirristatuz**, halako hots mehe eta aldi berean etengabe bat barru-barruraino, arimako zokondoetaraino, astiro sartua zitzaidala ohartu nintzen. Edorta Jimenez

---

**zirritu**[1] *(112 agerraldi, 40 liburu eta artikulu 1ean)* **1** *iz* zirrikitua. ik **zirrikitu**[1].

Basamortuko hautsa **zirritu** guztietatik sartzen da. Javi Cillero

Atearen ondoan etzan zara lurrean, eta belarria **zirritutik** gertuena jarrita, adi-adi itxaron duzu. Rafa Egiguren

Paratu nuen belarria ateak eta zolak uzten zuten **zirritu** edo irekidura hartan doi, eta entzuten hasi nintzen. Joan Mari Irigoien

Galdera horiek **zirritu** bat zabaldu zuten N. jaun artistaren baitan. Berria - Kultura

Gero, atea pitin bat zabaldu eta **zirritutik** burua bakarrik agertuz, esaten zuen: [...]. Anjel Lertxundi

Haginen arteko **zirrituetan** pausaturiko urdaiazpiko hondarren baten aurka. Aingeru Epaltza

Atzera begira, berriz, pertsianaren **zirrituetatik** barrena saiatu zara arretaz. Rafa Egiguren

Emakume baten aurpegia azaldu zen atearen **zirrituan**, baina berehala desagertu zen. Jose Morales

Zakurrok ardi-hondakin horiei eta hormetako **zirrituetatik** sartzen zen urari esker atera ziren bizirik. Gotzon Garate

Ate azpiko **zirritua**. Rafa Egiguren

Galtzaren **zirritua** ireki zion eta zakilak salto egin zuen kanpora. Karlos Zabala

**2** (izenondo eta izenlagunekin)

**Zirritu** estuetatik ihes egiten eta sartzen denez gero, [...]. Xabier Amuriza

Kaputxaren bi zulo biribiletan begi argiak nabari ziren, bizi-bizi kamerari begira; ahoarentzat zen **zirriturik** zabalena. Iñaki Iñurrieta

**3** (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

Kanpoan ekaitz amorratuak jotzen zuen etxetxoa, eta beiratxo batetik, ate ondoan zegoen **zirritu**-zulo moduko batetik. Josu Zabaleta

Gero buru bat azaldu zen bat-batean **zirritu**- zuloko beiraren kontra, buru zuri bat, piztiek ohi dituzten bezalako begiekin. Josu Zabaleta

**4** (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa)

Haizea sartu zen leiho **zirritu** batetik, eta, aldi batez, aldatu egin zuen kandelaren argiak egiten zuen itzala, intxixu bat osatuz paretan. Javi Cillero

Semeak berehalaxe jauzi eginik, ate **zirritua** itxi zuten, mahai handia zutitu eta arasarekin tinkatuz. Josu Zabaleta

Txoriek ere lasai egiten diztute beren habiak elizako horma-**zirrituetan** eta ahots betean kantatzen dute meza denboran. Gotzon Garate

Pneumatikoen ildo-**zirrituetan** zegoen itsatsita zer nazkagarri hura. Joxe Austin Arrieta

Sabel-hesteak irteten zaizkio alkandora **zirritutik**, nabarmen, gorri-berdeztak, barrenak lehertuta dauzkala seguru. Karlos Linazasoro

**5** irud/hed

Azkenean, pistola biak agertu dira **zirritu** ezkutu batean. Rafa Egiguren

Gero esprimitu duguna aho-sabaiko **zirrituetan** eta mihi apatzeko poro bihurretan zehar hedatzen da. Xabier Amuriza

Buru-**zirrituren** batetik Pitagorasen teorema edo Arkimedesen printzipioa sartzen bazitzaion. Joan Mari Irigoien

Gainetik zituen agintariak, ordea, halako etsai-bateria bat ziren berarentzat, kosta ahala kosta urratu beharrekoa, ahulgune, **zirritu** eta zabarkeria guztiez baliatuz... Jose Morales

Spinozarentzat enigma, ikergai interesgarria, gorputza da: bere **zirritu** ugariekin, unadura eta pozaldi arraroekin, atal misteriotsuekin, esperimentatu beharko genuke, muturretik muturrera eroan, ikasi. Markos Zapiain

**6** (txanpon makinetan eta kidekoetan)

Banatzaile automatikoarena egiten hasten dira: ezkerreko **zirrituan** bi txanpon, eta horra, zilarrezko paperean bildutako anekdotak; bi txanpon eskuineko **zirrituan** eta aholku preziatuak jasotzen dira, hortzetara itsasten direnak goxoki bigunen antzera. Monika Etxebarria

**7** (armen mirakoa)

Tiro egin zuen azkenik, begia fusil miradunaren **zirritutik** kendu gabe. Josetxo Azkona

Oraindik espaloi gainetik ozta-ozta arrastaka segitzen zuen andrea **zirritu** biribilaren barruan azaldu zitzaion arte. Alija **zirrituaren** erdi-erdian eduki zuenean, orduantxe sakatu zuen gatua Ratcok. Josetxo Azkona

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
> **ate azpiko zirritutik** (4); **azpiko zirritutik** (6); **gorputzaren zirritu** (3); **irritua ireki** (4); **zirritu guztietatik** (4); **zirrituetatik sartzen** (3)

---

**zirritu**[2], zirri(tu), zirritzen du *ad* zirritu bat utziz itxi. ik **zirrikitu**[2].

Begiak **zirritu** ditu irakurtzerakoan. Koldo Izagirre

-Flandrian baduzue arrakastarik, euskaldunok! -**zirritu** egin dit, maltzur, eskumako begia. Koldo Izagirre

---

**zirritutxo** *iz* zirritu txikia.

Zalantzati baina dagoeneko sendo, udako argia orriotako **zirritutxoetan** barrena iragazten zen eta harekin batera Paris esnatzearen hots guztiak eta batez ere txorien harrabotsa ere bai. Matías Múgica

---

**zirrizarra** *(orobat **zirri-zarra**)* **1** *adlag* herrestan.

Gero palarekin ikatza botatzen hasi zen, lehenbizi atzera botatzen zuen, parrillara, gero erdira **zirrizarra**, eta azken palakadarekin ikatza parrillaren ertzeraino ailegatu zen. Fernando Rey

Ez zen gizagaixo haren itxura miserablea ikaratzen gintuena, ezta lepoan zuen tumorea ere, jantziaren lepoko ertza **zirri-zarra** ukitzen zuena. Monika Etxebarria

· Euria ari zuen: gau osoan jardun zuen **zirri-zarra**, eta gu hantxe, faroak piztuta. Joxe Austin Arrieta

**2** (izen gisa)

Amaren urratsen **zirrizarra** etsitua eta aitaren zintzur korrokak ez zitzakeen gehiago jasan. Itxaro Borda

Herbail-aulki baten erroten **zirri-zarra** isila hauteman zuen Agatak. Itxaro Borda

Langileak herrokan ari ziren a-ha handik, a-ha hemendik, dailuen **zirrizarra** zilarrak, ekiak erretzen zuen lautada oihartzen zuela. Berria - Kultura

· Atetik zehar euriaren **zirri-zarra** etengabeak baso lehendik ere guztiz hezea nola mela-mela eginda uzten zuen begira. Juan Luis Zabala

---

**zirrizku** *iz* zirrikitua.

Esperantza **zirrizkurik** ere ez zidaten utzi. Berria - Kirola

---

**zirrizta** 1 *iz* zerrenda, zirrinda.

Gazako lur **zirrizta** hartan sartuak eta aitzinatuak baitziren hanbat juduak palestinarren lurretan. Herria

Nunbait han kilometra bat luzeko **zirrizta**, bospasei metra zabal... Herria

**2** zurruzta.

Nik eginen nuke ginebra **zirrizta** bat botatzen ziola. Koldo Izagirre

---

**zirriztada** 1 *iz* irristada.

Taxiak ere **zirriztada** egin zuen aurrekoa saihestearren eta taxistaren bolante kolpea zela medio zeharka jarri zen errepidean. Joxemari Iturralde

**2** zurrusta.

Argi zurizko **zirriztada** itsugarri bat sortu zen harriaren muturretik eta zerurantz altxatu, hodeien aurka jo eta kapusai zurixka baten antzera zabaldu zen, lautada alderik alde argiztatuz. Joanes Urkixo

---

**zirriztaka** *adlag* zurrustan.

Goizaldera atertu zuen, bat-batean, dutxa ixten duzunean bezala; baina uraren jarioa bukatu ez, landareei **zirriztaka** baitzerien etengabe, eta uraren gur-gur hotsa ere ez, beraz. Joxe Austin Arrieta

---

**zirriztako** *iz* zurrusta.

Nik paretari ez dakit, baina, paperari behintzat erantsi diot, **zirriztako** dezentea, eta hustuxea dizut gaurkoz maskuria. Patziku Perurena

---

**zirriztarazi**, zirriztaraz, zirriztarazten du *ad* irristarazi.

Orduan etsaiak, ezin badu **zirriztarazi** bekatua dirudien ezertan, bekatu-kezka jartzen dio bekatua ez den tokian; esate baterako, hitz edo pentsamendurik txikienean. Patxi Altuna

---

**zirrizti-zarrazta** *iz*

Beste batek ileetarik tinkatzen, beste bi kuxkurturik lurrean, kotxua ardien zangopean pausaturik, ari zirela **zirrizti**-zarrazta melodikoan deizten. Itxaro Borda

---

**zirriztu** 1 *iz* zirrikitua, zirritua.

Bi begi eder azaldu ziren **zirriztuan**. Migel Angel Mintegi

Ate aurrean, giltza ateratzeko hasi zenean, bat-batean argia sumatu zuen atearen **zirriztutik**. Joxemari Urteaga

Gortinaren **zirriztuetatik** Monikaren zango zutun eta beso luzeei begira, nire buruari galdetu nion zer indarrek eramaten gaituen pertsona bat gurtzeraino maitatzera. Joxean Agirre

Irakurgelako argia piztuta zegoen, atepeko **zirriztutik** ageri zen argitasun horiak erakusten zuen bezala. Aitor Arana

On Camillo ondo pasatzen hasi zen, pertsianako **zirriztuen** artetik kirik eginez. Koldo Biguri

Atea jo eta **zirriztua** egin zuen Justok. Joxemari Urteaga

**2** (hitz elkartuetan)

Monikak ez ninduen hain erraz ezagutuko, begi zelatari bat baizik ez zuen ikusiko ate **zirriztutik**. Joxean Agirre

Bezperan arrapaladan armairuetan gorde zituen bere laneko jantzien aztarnak, gabardina distiratsu eta body estu edo barruko arropa koloretsuen dirdaiak, ate **zirriztuetatik** suma zitezkeen oraindik. Joxean Agirre

**3** irud/hed

Maitasunezko azken agur guztietan uzten baitiogu itzulerari **zirrizturen** bat zabalik. Joxean Agirre

-Begi-bistan dago ez diozula **zirriztu** bat ere uzten zalantzari, ezta? Migel Angel Mintegi

Etsipen-sentimendua antzematen zitzaien beraiek garbia, itxia eta **zirrizturik** gabea izatea nahiko luketen testu horri ikusten zizkioten akatsengatik. Santiago Iruretagoiena

**4** bazterra.

Olio berotan biguntzen ari zen tipularen usaina zabaldua zen **zirriztu** guztietara. Joxemari Urteaga

Goiz partean ahaztuxea eduki bazuen ere, triangeluari **zirrizturen** bat bilatu nahi izan zion arratsalde hartan. Joxemari Urteaga

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
> ate zirriztutik (5)

---

**zirrokumulu** *(orobat **zirru-kumulu**)* *iz* hodei altua, maluta edo mataza zuri baten itxura duena.

**Zirrokumulu** edo altokumuluak, ilaratan antolaturiko hodei-mataza txiki eta biribilduz osatuak. Pello Zabala

Goizaldera ortzian zintzilaldi graziosean dilindan agertu **zirru-kumulu** multzoak mirets zitzakeen. Itxaro Borda

---

**zirrosi** *iz* gibelaren hantura jarraituen ondoriozko eritasuna, sarritan alkoholismoak eragina.

**Zirrosiak** eragin zuen agintariaren heriotza alkoholarekin zerikusia ez duen **zirrosia**, hain zuzen. Berria - Mundua

Gerta daiteke esteatohepatitisa duen pertsona batek **zirrosirik** ez garatzea. Berria - Gaiak

Denborarekin baina, kronikoa bihurtzen da, eta 10 edo 15 urtean **zirrosi** bihurtzeraino hel daiteke. Berria - Euskal Herria

Txostenaren arabera, giltzurrunetatik eta gibeletik gora hedaturik zegoela zeharo **zirrosia**, gizona itota hil zenean. Hasier Etxeberria

Alkoholezko **zirrosira** eta jeneral izatera iristea duk nire ideala. Josu Zabaleta

---

**zirru** 1 *iz* hodei altua eta bakartua, itsura izpitsukoa.

**Zirru** laino meharrak izan ohi dira koroa sortzen dutenak: 10-12 kilometro gora joan daitezke, izotz ale ttikiak direlarik han goian, zibelaren telatxo luze zabala bailiran. Pello Zabala

Ninbo, kumulu eta **zirruak** ikusi zituen, harietan desegiten zirenak irudi apetatsuak osatu eta gero. Jon Alonso

Izotz orratzezko **zirru** bat hedatzen dugu gure atzean. Josu Zabaleta

2 *zirru-kumulu* ik **zirrokumulu**.

---

**zirt** 1 *iz* ukaldia.

Kaleak edo baleak, **zirtak** edo zartak gustatu ez, eta haren korrikak eta presak, imintzioak eta zalapartak ulergaitzak egin izan zaizkit askotan. Berria - Kirola

Une bat geroxeago, berlina posta etxea azkar uzten ari zela adierazi zuten argiro gurpilen kirrinkak eta zartailuaren **zirtek** . Karlos Zabala

Gurin errearen usainaz aserik zegoen, arrautzen **zirtez** nazkaturik eta hirugihar xerrak plastikozkoak balira bezala bihurritzen ziren txapa gainean. Iñaki Zabaleta

2 ***zirt-zart*** *adlag* bat-batean; erabakitasunez.

Zaldien irrintzi izutua entzun zen tupustean, eta, **zirt-zart** , sekulako astinaldi batek geldi-geldi utzi zuen kalesa. Anjel Lertxundi

"Hasi orduko ez diat etsiko", esan nion neure buruari, eta **zirt-zart** , etxea utzi eta tabernan bizitzea erabaki nuen, hartara alokairu bakarra ordaintzeko sikiera. Xabier Mendiguren Elizegi

Hortaz, sozialdemokrazia ahaztu eta leninismoa mirestera pasa nintzen, **zirt-zart** , txepelek, koldarrek eta tratulariek tokirik ez duten tokia. Xabier Mendiguren Elizegi

Aldaketa horiek lortzeko moduari buruz itaundurik, %69ak biolentziarik gabe egin behar direla esan du, %29a aldaketak **zirt-zart** , modu gogorragoan egitearen alde agertu delarik. Pako Aristi

Ortega-k **zirt-zart** tradizio bedeinkatu hori guztia ezespainola deklaratzen du. Joxe Azurmendi

-Hortaz, abokatu batena da -erabaki zuen, **zirt-zart** , Léak. Jon Muñoz

"Ez da gurea telebista," **zirt-zart** Mikaelak. Pablo Sastre

Hasi zen eta pasabide bat aurkitu ondoan, goroldioz eta huntz-ostoz estali eraikuntzaren aitzinean hain zuzen, **zirt-zart** uretan sartu zen, zapatak soinean. Elena Touyarou

Bi hitzetan **zirt-zart** kontatu beharrean, ene bizitzaren pasarte batzuk azalduko dizkizut. Xabier Mendiguren Elizegi

Jexux Mari betirako maiteminduta utziko du, gona altxatu **zirt-zart** eta akabo. Berria - Kultura

**Zirt-zart** egitearen kalteaz jabetu zen Andreas. Anjel Lertxundi

Nire zapatak distirarazten bere zapiarekin, **zirt-zart** .· Egongo da agian horrelaxe kinkaren batzuetan, beti ez dago historia **zirt-zart** unean, holako planteamenduak noiznahi justifikatzeko. Joxe Austin Arrieta

3 ***zirt-zarteko*** *izlag*

Ez zen erabaki traumatikoa izan, baina bai **zirt-zartekoa** , eta lehengo ikasketa-asmoak alde batera utzita euskal filologian eman nuen izena. Xabier Mendiguren Elizegi

Ez hilarrietako esaldiak, baten batek hitzez hitz interpretatu zuen bezala, esaldi biribilak baizik, **zirt-zartekoak** . Xabier Mendiguren Elizegi

4 ***zirt edo zart*** *adlag* erabakitasunez.

Bazekien erabakiak **zirt edo zart** hartzen; ez zuen azazkalik jaten zalantzan, ez zuen belarri atzean hatz egiten ezbaian, eta ez zen inoiz trabatzen duda-mudan. Karlos Zabala

**Zirt edo zart** aritzen da jende hori. Jon Muñoz

Zuzendu, neronek zuzentzen dut, baina zailtasunik handienak **zirt edo zart** kitatzen ditut, hitz bat beste baten gainean idatziz eta horrela. Jon Alonso

Azkenean zerbait egiten duenean ere, pasiboa da jokabidea: patuak berarengan obratzea onartzen du, berak deliberatuki **zirt edo zart** ekitea baino. Juan Garzia

**Zirt edo zart** urrundu zuen xiriaren zeremonia bitxia, inork kontrolatu ezingo zuen leku bateraino. Anton Garikano

Honako hau bota zigun, **zirt edo zart** , amak: ez zenukete nahi anaia txiki bat? Xabier Montoia

Joan omen duk hango zaharren etxera mediku gazte bat, **zirt edo zart** , meriendatzeko baso ardoa kendu, txokolatea eta kafesnea, jarri dik. Pablo Sastre

**Zirt edo zart** , zerbait egin behar zen, eta, beste aukerarik ezean, nafarrek su eman zioten basoari. Martin Anso

Nire izaerarekin hobeto egokitzen da, **zirt edo zart** , erdipurdikorik ez. Karlos Zabala

Ni pozik, atarramentua nahi nuela, **zirt edo zart** . Inazio Mujika Iraola

· Beraz, **zirt edo zart** , zerbait erabaki behar diagu. Juan Kruz Igerabide

Ez dut esan nahi, hautsi eta **zirt edo zart** erabaki beharra daukagula. Joxe Azurmendi

Zer egingo dugu, **zirt edo zart** ? Hasier Etxeberria

5 ***zirt edo zart egin*** erabaki.

Une erabakigarria zen hura: orduantxe **egin** behar **zirt edo zart** . Jon Muñoz

Hauxe izan daitekek **zirt edo zart egiteko** mementua. Joan Mari Irigoien

Oso mingarria izaten dela **zirt edo zart egin** behar hori. Anjel Lertxundi

Harritua zirudien, baina **zirt edo zart egiteko** gertu. Patxi Zubizarreta

**Zirt edo zart egiteko** unea iritsi zait. Berria - Kirola

**Zirt edo zart egiteko** nengoela, zulo ekonomikotik aterako ninduena ezagutu nuen kafean. Anjel Lertxundi

**Zirt edo zart egin** beharra neukan, eta atzera eraikuntzan sartzeko aukera aztertzen saiatu nintzen. Rafa Egiguren

**Zirt edo zart egin** beharko dudala egoera guztiz zornatu dadin baino lehen. Karlos Linazasoro

**Zirt edo zart egin** behar eta, gorputzaz baino areago gogoaz jabetu zitzaidan bizitasuna alferrik ez galtzera deliberatu nintzen, zetorrena zetorrela. Aingeru Epaltza

Duela urtebete erabakita egon behar zuen aferak, baina bazkideak ez dira gauza izan **zirt edo zart egiteko** . Berria - Gaiak

Lehentxeago edo geroxeago alde batera edo bestera egitera behartuta zegoen, **zirt edo zart egitera** , ez zuen ihesbiderik. Migel Angel Mintegi

· Aitzitik, **zirt edo zart eginaraztera** bultzatzen dutenak, nor bere eginkizuna behar bezala betetzen arituko ez balitz bezala. Mirentxu Larrañaga

· Zer egingo dugu, **zirt edo zart** ? Hasier Etxeberria

6 ***zirt edo zarteko*** *izlag*

**Zirt edo zarteko** gizon bipila zen Nozdriov, duda-mudaka ibiltzen ez diren horietakoa. Jose Morales

Negozio ziurra hi eta ni bezalako **zirt edo zarteko** gizonentzat". Iban Zaldua

**Zirt edo zarteko** une hartan Fionni aita etorri zitzaion gogora: "adimenak etsaia baino indartsuago bihurtuko zaitu". Joanes Urkixo

Bata alferra zen eta ohean etzanik egoten zen noiznahi, eta bestea kementsua eta **zirt edo zartekoa** . Fernando Rey

7 (bestelakoak)

Hotelerako bidean badakit berau dena **zirt** ala **zart** egiteko unea. Edorta Jimenez

Ez **zirt** ez **zart** . Edorta Jimenez

Izutu egiten zituen **zirt** ala **zart** egiteak. Xabier Montoia

Zartailuak airean emandako **zirt** alaia izan zen erantzuna. Karlos Zabala

**Zirt** eta **zart**, lasterka abiatu zen etxerantz. Elena Touyarou

Entzule falta sentitu zuen Jimmyk ilunki: umore-txinpartak **zirt** eta **zart** ari ziren. Irene Aldasoro

**Zirt** begiratu zion Mihurubikoari, eta **zart** niri gero. Edorta Jimenez

Energia-maila biren arteko jauzte bikoitz bat-bateko batek du, **zirt** gora eta **zart** behera. Juan Garzia

**Zirt**, Turman; langileok, **zart**!! Berria - Kultura

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
> **zirt edo zart** (123); **zirt edo zarteko** (11); **zirt edo zartekoa** (7); **zirt eta zart** (3); **zirt zart** (18)

---

# zirta *iz* suziria.

Alde batetik bi urpeko untzi amerikarrak ez ziren hain urrun eta batek igorri dituela bi **zirta** Koursk delakoaren kontra sinesgarri da. Herria

· Bere arrano-begiek **zirtak** ziruditen. Fernando Rey

---

# zirtada *iz* txinparta.

Hain emaro hasi zen hurbiltzen, non ez baitzen ezer entzuten, suaren **zirtadak** eta penduluaren tik-tak hotsa baino. Josu Zabaleta

Francoren margolanetariko asko [...] berak oroimeneko **zirtada** modukotzat deskribatzen duen zer batekin hasten dira, eszena bat baitatorkio ziplo burura halakoetan. Xabier Olarra

---

# zirtaka *adlag* txinpartaka.

Sua bizi-bizi zegoen, **zirtaka**, argitsu; garrak jauzika. Fernando Rey

Sua arrunt bizitu zen berriz, **zirtaka**. Fernando Rey

Oihartzun eta indar handiko irudiak bat-batean **zirtaka** agertzen hasi zitzaizkion gogameneko irudien artean, eta atsegin edo oinaze bizia eragiten zioten. Xabier Olarra

Katuarraina paderako koipetan **zirtaka**. Anton Garikano

Luccan hasi zen, bere bizitzan lehenbizikoz etxetik urrun zela-eta herriminak larriki jota, beste oroimen bat sentitzen: oihartzun eta indar handiko irudiak bat-batean **zirtaka** agertzen hasi zitzaizkion gogameneko irudien artean, eta atsegin edo oinaze bizia eragiten zioten. Xabier Olarra

---

# zirtako 1 *iz* azote ukaldia; ukaldi horren hotsa.

Hodei zurixka hartatik, eztanda sorta bat bezala, zartailuen **zirtakoen** hotsa irteten zen, oihu zuzpergarriekin eta amorruzko garrasiekin nahasirik. Karlos Zabala

-Segi aurrera, usapal maiteak! -garrasi egin zien iemstxikak, zartailuaren **zirtakoak** trumoiaren dunbotsekin nahasten zirela. Karlos Zabala

## 2 txinparta.

Suaren **zirtakoa** sasiak erretzean ezagutu duzu zuen gibelean. Xabier Montoia

---

# zirtateko *iz* xinpartaren hotsa.

Eta suak hartzean oteak ateratzen dituen **zirtatekoak** nork ez dauzka belarrian? Patziku Perurena

---

# zirtatu, zirta, zirtatzen 1 du *ad* zipriztindu, eskuarki isipuaz.

Isipua keinu leunez jaso, eta goitik behera **zirtatu** zuen ur bedeinkatua, murmur bat jaulkitzen zelarik beraren ahotik, otoitzena apika. Juan Garzia

Baserri batzuetan ur bedeinkatuz **zirtatzen** zituzten arrautzak habian ipinitakoan. Pello Zabala

Bildu odola ontzi batean eta, ixipu-sorta bertan bustirik, **zirtatu** zeuen etxeko ategainak eta alboak. Elizen arteko biblia

Aldare handiaren gaina **zirtatuko** duzu erre-oparietako eta sakrifizioetako odol guztiaz. Elizen arteko biblia

Pazko-bildotsak hil ondoren, apaizek, lebitarren eskuetatik hartutako odola **zirtatu** egiten zuten. Elizen arteko biblia

Moisesek odola hartu eta herriaren gainera **zirtatu** zuen, esanaz:[...]. Jose Antonio Mujika

Gero zortez eta seguru ereingo baziren, ur bedeinkatuak aurrez **zirta** zitzan beti zegokion ondo. Pello Zabala

## • 2 ad *ad*

Baina ikustearekin sakeak **zirtatzen** zirela aintzineko murru izertuan, amor eman behar ukan dute pilotariek, sartze sariak ordainduz nahi zuteneri. Herria

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
> **zazpi bider zirtatuko** (4)

---

# zirti-zarta 1 *adlag* ukaldika.

Gehienetan pentsatzen dut **zirti-zarta** menderatuko ditudala denak, ezin dudala aukera hau alferrik galtzen utzi, gorputzaren sasoia inportantea da, baina buruaren indarra ere bai, eta hori primeran daukat. Josu Landa

Larru onduak jotzen eta kolpatzen zituzten, **zirti-zarta**, uda eta negu. Aingeru Epaltza

Hitz zatar eta berba lizun artean, buruz gain labana luze bat jaurti zuen airean; begiekin jarraitu eta eskuan **zirti-zarta** erabili zuen. Juan Garzia

Gero, hulezko mantela harturik, **zirti-zarta**, airean eragiten dio kementsu. Anjel Lertxundi

## 2 zirt-zart.

Naturak berehalako batean itxuratu ditu [...], kolpe gogor batzuk emanez taxutu ditu, **zirti-zarta**: aizkorakada bat eman, eta sudurra egin du; beste aizkorakada bat, eta horra ezpainak; daratulu handi batez egin ditu begiak. Jose Morales

Mota guztietako esperientzia sexualak kontatzen zituen, egundoko gauzak, eta **zirti-zarta** esaten zituen, mozorrorik gabe. Karlos Zabala

## • 3 *iz* zartakoa.

Berehala, askotariko jakiak agertu ziren erretiluaren eta botilen inguruan [...] sukaldetik plater estalietan ekarri berriak, estalkitik zehar olio beroaren **zirti-zarta** entzuten zirela. Jose Morales

Aldameneko suan **zirti-zarta** isilean ari dira sasiak eta abarrak. Xabier Mendiguren Elizegi

Gau batean, **zirti-zarta** batek esnatuko ditu donostiarrak, eta zeru ordura arte beltza tximista-kolorez agertuko zaie. Iñaki Iñurrieta

Ezpalek noizean behin ateratzen zituzten **zirti-zartek** areagotu egiten zuten, estali bainoago, gurasoek bezperan jaiotza-agiriko J hartaz esan zizkidaten hitzen oihartzuna. Anjel Lertxundi

Gau batean, elizako kanpaia entzun zuen alboko herrixkan, ahul eta ezinean joka, txilina balitz bezala, eta sugarren **zirti-zarta** ere aditu zuen. Jose Morales

**4** irud/hed

Udako **zirti-zartaren** aldean, iraileko argiak gauzak gogoangarriago egiten dituela iruditzen zait, hitzei, begiradei beste sakontasun bat emango balie bezala. Pako Aristi

**5** ***zirti-zartaka*** *adlag*

Meza entzuten ari diren eliztarren jarrera errespeturik gabekoa iruditzen bazaio, atera gordelekutik eta **zirti-zartaka** hasten da. Bernardo Atxaga

Batzuetan haizearen alde, ia-ia airean eramana, eta besteetan haizearen kontra, kostata noski, burua makurtu eta gogor ekin behar bainion aurrerantz, galtzak **zirti-zartaka** zebilzkidala. Joxe Austin Arrieta

**6** ***zirti-zartako*** *iz*

Une honetara iritsi aurretik, **zirti-zartakoak** eta jazarketak egon ohi dira, txingarketak eta borrokak suaren eta egurraren artean. Joan Mari Lekuona

---

# zirto **1** *iz ipar* erantzun zorrotza, eskuarki errimaduna. ik **ditxo.**

**Zirtoa** da, bat-batean, belarri hutsez eta inolako estrategiarik gabe osatzen den hizkuntza harremana. Andoni Egaña

Kontua da, **zirtoa** eta bertsoa, itxuraz bata bestearen miniatura izanarren, ez direla jenero bera. Andoni Egaña

Eta zer erran zortziko ttipiko **zirtoez**? Herria

Garai batean asko lantzen zen jolas modua da **zirtoarena**. Andoni Egaña

Fernandok zorabiatu egiten ditu bere hitz jolas eta **zirtoekin** oloa errekan bezala harropuzten diren handi-mandiak. Markos Zapiain

Egunero-egunero agurtu, **zirto** bat edo beste zirikatu nahian bota, eta konfiantza apur bat hartu nuen neure esnezalearekin. Txillardegi

**Zirtoarekin** gaitziturik, Hamidak sumindurazko arrapostua eman zion: [...]. Patxi Zubizarreta

Ahal izan nuen lasterren alde egin nuen handik, neskaren madarikazioak eta gainerako puten **zirtoak** belarrietan nituela. Anjel Lertxundi

Ideien etorriak beroturik dirudi Xankapok, lagunaren **zirtoa** usaindu gabe. Iñaki Iñurrieta

Bizia bai eta arraia, dena **zirto** eta omore ginuen bestalde gure gizona. Herria

Ezker ama, eskuin aita, ama isilik bezain elasturian sartua, dena **zirto**. Piarres Aintziart

Azkenean Pantzo Irigaray-en irriegingarrikeriek denentzat piko eta **zirto** izan dute, sekulan larrikerietara erori gabe. Herria

**2** (izenondo eta izenlagunekin)

Haranzko bidean doaz oihuak, makilak, danborrak, irri arraiak eta **zirto** lizunak, etxafuego-hotsak, karraka zahar baten zalaparta eta kantuak. Anjel Lertxundi

Laket zituzten ere igortzen zituen **zirto** pollitak, predikuetan larderiatsu eta ortzantz aire izanagatik. Angel Aintziburu / Jean Baptiste Etxarren

**3** (hitz elkartuetan)

**Zirto** iturri bilakatzen zen edozein solasaldi. Itxaro Borda

---

# zirtodun *izond* zirtoa edo zirtoak dituena.

Echeberryk aldiz, egun gisa bat eta bihar beste moldez idatzia gatik hitz bera, zer iturri oneko turrusta **zirtoduna** bere euskara aberatsean. Herria

---

# zirtogile *izond* zirtoak botatzen dituena. ik **zirtolari.**

Ikazkinak ez zien kontra egin nire alde irtendako gizonari eta emakume **zirtogileei**. Anjel Lertxundi

---

# zirtoka *adlag* zirtoak boteaz.

Haiekin zirika eta **zirtoka** aritzen zen. Xabier Olarra

ORT ko burua eta OIC ko idiskoa eztabaidan ari ziren, elkarri zirika eta **zirtoka**. Juan Kruz Igerabide

Festa eta umoreari eman nahi diote lehentasuna, irriz eta elkarri **zirtoka** ariko direla pentsatu nahi dute, zenbait orduz, bizitzak eman dizkien kolpeak ahantziko dituztela. Berria - Kultura

Ez du egokierarik galtzen gerentearekin edo erizainekin sartzeko, zuzenean ez bada, **zirtoka**; gibel-asmoz, ironia baliatuz. Anjel Lertxundi

-Aizak, Edu, ez hadila hainbertze mintza -Ttipik, **zirtoka**-. Aingeru Epaltza

---

# zirtolari **1** *izond/iz* zirtoak botatzen dituena. ik **zirtogile.**

-Jainkoak egunon! -agur zeremoniotsu **zirtolaria**, berea, eta hura ere harrigarri. Aingeru Epaltza

Aita **zirtolari** bat zen, horra. Josu Zabaleta

Xantrea ohartu zen eta **zirtolaria** baitzen, bizi bizia egiten dio: "Igorrazu harri bat gain beiti edo petik goiti, eta erradazu zer den errexena!" Besteak sudurra beheiti. Michel Oronoz

Emazte ernea, arraillanta, omore onekoa, ez daukate ezagutu duten guziek ahanztekoa hain zen bere adinean oraino airosa eta **zirtolaria**. Herria

Han zen postaburua ere, zeharo arrunta bera, baina **zirtolaria** eta filosofoa. Jose Morales

Ditxolari edo **zirtolarien** usadioak bizi-bizirik dirau sustraiak baserrian dituztenentzat. Andoni Egaña

Alferrik izan zitzaizkion txirularien doinu sarkorrak, alferrik atabalarien dei alaiak, alferrik **zirtolarien** joko eta txantxak, alferrik maitaleen igurtzi eta ferekak. Felipe Juaristi

**2** zirtoa edo zirtoak dauzkana.

Pertsona bizia, elkarrizketa **zirtolarikoa** eta barre lasai eta zabalekoa zela jabetu ahal izan nintzen. Xabier Mendiguren Elizegi

Inoiz edo behin koktelen bat edaten bazuen, iruzkin **zirtolariei** bide ematen zien hogei minutu inguruan-edo. Mirentxu Larrañaga

Ororen gainetik, bere umore **zirtolaria**, bizitza ikusteko prisma ironikoa eta pertsonaia bera gailentzen dira. Berria - Kultura

**3** (adizlagun gisa)

Bere hortz horien gainean, ezpain gogorrak **zirtolari** higitzen zituen. Lopez de Arana

Nabarmena zen elkarren arteko gangar usaina eta katxondeo airea nirekin ari zirenean, Txominek eta Prostatasek zirikadez zipriztintzen zituztenean bestearen hitzak, **zirtolari**. Jon Alonso

---

# zirtots *iz* txinpartaren edo kidekoen hotsa.

Denda inprobisatu haren pean zilindroak karrakatzen genituen, itsuka eta haztamuka; kolpe bakoitzean **zirtots** motel bat entzuten zen, eta izartxo hori xorta bat ernatzen ikusten zen. Juan Garzia

Karrakatzen saiatu zen: **zirtots** txiki bat entzun zen, eta txinpart hori xorta bat jaulki zen bertatik. Sukaldetik logeletara joatean ere, egurren batek **zirtotsa** puntu jakin batean nolatsu ateratzen zuen bazekien ongi: zenbat eta lehorrago egurra, **zirtots** jakin bat zuen. Juan Garzia

---

**zirtzika** *adlag* hortzikatzen.

Etxera iritsitakoan, ordea, akotazioak eta azpimarrak irakurtzen hastekotan nintzela, halako har bat hasi zitzaidan barrenean **zirtzika**. Anjel Lertxundi

---

**zirtzikatu,** zirtzika(tu), zirkikatzen *(5 agerraldi, 3 liburutan)* **1** du *ad* birrindu, desegin. ik **zirtzilatu; zirtzikatu.**

Kontatu egin nion, braustadan, neure lagunarena, nola ezin izan zuen gehiago eutsi eta nola aurkitu genuen: ate hertsien atzean, beharrik, zeren bestela zopiloteek asto hila bezalaxe **zirtzikatuko** baitzuketen. Joxe Austin Arrieta

Une bakar batez ere tutik sinetsi ez arren, bera kontsolatu egin behar, dagoeneko amildua, **zirtzikatua** eta Ezezaguneraino ikaztua sentitu izan banintz bezala. Joxe Austin Arrieta

Txakurrek alde egindakoan, ate gabeko etxe bat izanen dute, beren jantziak, liburuak eta gauzak oro lurrean nahas-mahasean **zirtzikatuak**, eta abokatu batengana joanen dira lasterka. Xabier Montoia

**2** (era burutua izenondo gisa)

Kiratsa darie, besterik ere ezin espero sai sarraskijale batzuengandik, itsusiak ere badira, eta beti saldoka topatzen dituzu, uxatzen ere nahiko lan lanean ari baldin badira, alferrik dituzu orduan zure bozina-jotzeak oro: gehienez ere hegoak astindu eta sarraski **zirtzikatuaren** inguruan hasiko zaizkizu jauzika. Joxe Austin Arrieta

---

**zirtzil** **1** *izond/iz* mespretxagarria; balio hutsalekoa. ik **ziztrin.** (pertsonak)

Antxetak jira eta bira zebiltzan jendetza ilun, zikin eta **zirtzilaren** gainetik. Lopez de Arana

Iruinsemeak ipotx **zirtzil** baten gisara ikusi zuen bere burua, armada gaitz horren erdian. Aingeru Epaltza

Soldadu axolagabe **zirtzil** bilakatu omen ginen, eta berak jarraraziko omen gintuen sasoi betean. Mirentxu Larrañaga

Zertan ari da jende **zirtzil** hori? Elizen arteko biblia

Eta nor naiz ni, har guztiz **zirtzila** eta zure morroi ezereza? Joxe Azurmendi

Beren maitasun, nahikunde eta desira guztiak sorkari **zirtziletan** jarriz. Joan Mari Lekuona

Koinatua diat suge **zirtzil** hori, baina ez nikek haren askatasunaren ordainean sos bat ere pagatuko. Aingeru Epaltza

Halakoa, ezer onik egin ez eta besteen egite onak lardaskatuz, guztientzat pertsona **zirtzil** eta mespretxagarri bihurtzen baita. Askoren artean

CFDTk «nagusi **zirtzilen** egitate larriak, errespetu falta eta bortizkeria soziala» gaitzetsi zituen. Berria - Ekonomia

Ala Jainkoa, **zirtzil** horrek ere bazian ehiza bukaerako turutari itxarotea. Josu Zabaleta

**Zirtzil** edo alfer talde bat bagina bezala tratatzen gaituzte. Lopez de Arana

**2** (gauzak)

Bat-batean eta ustekabean zalu igarotzen baita lekutako herrixka **zirtzil** baten aldamenetik bere urrezko tresneriarekin, zaldi ezinago ederrekin eta kristal dirdaitsuekin. Jose Morales

Opel Corsa **zirtzil** bat zen, zuria, modelo zaharrenekoa. Aingeru Epaltza

Altzari artistiko finenak eta trepeta **zirtzilenak** nahas-mahas. Anton Garikano

Bi dama zituen poema **zirtzil** horrek protagonista. Aingeru Epaltza

Aski azalpen **zirtzila** eta funtsik gabea zen. Aingeru Epaltza

Enplegu **zirtzil** bat eman zioten, urtean hogeita hamar edo berrogei errublo lansari. Jose Morales

Kiroletan belaxka, ausarkerietarako ustelegia eta solasean mihi-motx, ariketa **zirtzil** horretan aurkitu nuen nabarmentzeko bidea. Aingeru Epaltza

Ez duk asmatzen ahal zer prezio darabilten alokairu **zirtzil** batengatik. Aingeru Epaltza

Makur konprenitu ez banion, magia istorio **zirtzilen** bat. Aingeru Epaltza

Egunaz edo berdin gauaz, aro ederrez edo euri **zirtzil** baten pean. Herria

**3** zarpatsua, jantzi zahar eta urratuak erabiltzen dituena.

Oinutsik dabiltza, jantzi **zirtzilez** janzten dira eta hutsa da jaten dutena. Askoren artean

Aita, berriz, hiritik urrun bizi dut, txiro, lurrean lo eginez eta arropa **zirtzilak** jantziz. Juan Kruz Igerabide

Beretzat tunika **zirtzil** eta latz bat atondu zuen, eta uhala kendu eta soka bat hartu zuen gerrikotzat. Askoren artean

Blusa **zirtzil** batez jantzia, sukaldeko morroi bezala. Askoren artean

**4** *iz* jantzi zahar eta urratua.

Oraindik hotz egiten baitu **zirtzil** hauek jantzirik abiatzeko. Juan Kruz Igerabide

Neska ohean etzan, eta soinean zeuzkan **zirtzilak** erantzi zizkion segidan. Anjel Lertxundi

Bai zentzugabea nik negu osoa halako **zirtzilak** jantzita eman izana! Lopez de Arana

Itasoan, ontzikoek arropa guztiak kendu eta **zirtzilez** jantzi ninditean, oraintxe ikusten nauan gisan, esklabutzat erabiltzeko asmoz. Juan Kruz Igerabide

**Zirtzil** zikinez jantzi zuen; orein baten larru zaharkitu bat ipini zion gainean. Juan Kruz Igerabide

· Aurkitu du hainbat urtetan amesten zuen harri filosofikoa, edozein **zirtzil** urre bihurtzeko formula. Anjel Lertxundi

Euriteetan, serio-serio paseatzen ziren, **zirtzila** zerion guardasol ikaragarri handi baten azpian. Karlos Zabala

**5** irud/hed

Gertakizun haren ondoren hasi ziren indioei ikasitako teknikaz arto-hostozko **zirtzil** haiek egiten, eta **zirtzilen** trukean erosten zituzten aldian aldiko kapritxoak. Anjel Lertxundi

**6** (hitz elkartuetan)

**Zirtzil**-saltzaile hura bilatuko bagenu... Anjel Lertxundi

· Soldaduburuak, apal gaineko arto-**zirtziletan** erreparaturik, haien prezioaz galdetu zuen. Anjel Lertxundi

Indioenak bezalako arto-**zirtzilak**! Anjel Lertxundi

**7** inauteriako pertsonaia.

Ihauterietako pertsonaiak, Hartza, **Zirtzilak** eta Antzerkilariak. Herria

**Zirtzilak** aldiz Zanpantzarren adixkideak dira, neguaren mezulariak, nola nahika doatzi eskuin ezker, lizunkeria eta gaixtakeriaren sustatzaileak dira, gorriz eta beltzez jauntziak, arrabots ainitzekin. Herria

Berez, **zirtzila** herritar zikin bat da, basa eta gaizki ikasia. Berria - Kultura

Uztaritzeko 12 bat gaitero eta 30 bat danbor jotzailek lagundurik, 80 bat **zirtzilek** karriketan dantzatuko dute. Berria - Kultura

Aurtengo ihauterien gaia izanen da **"Zirtzilak** Zintzoen kontra". Herria

**8** ***mari-zirtzil*** *izond adkor* emakumeez mintzatuz, zirtzila.

**Mari-zirtzil** alaena! -oihu egin zuen ahots batek leihotik. Lopez de Arana

-Etorri hona, **mari-zirtzil** alaena... Lopez de Arana

-Hara, laztana, neuk esango diat, baina uste diat **mari-zirtzil** banda osoa bat datorrela: bihotz-bihotzez eskertuko diagu beti... beti-beti. Urtzi Urrutikoeetxea

Mari-agintzaile bat haiz eta **mari-zirtzil** bat. Joan Mari Irigoien

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
> arropa zirtzilez (3); mari zirtzil (4)

---

**zirtzilatu**, zirtzika(tu), zirkikatzen *(13 agerraldi, 9 liburu eta artikulu 1ean)* **1** du *ad* birrindu, desegin. ik **zirtzikatu; zirtzildu.**

Hirurok, talde iraultzaile bateko burkideek, poliziak asmatutako gezur eta esamesetan asfixiatuta bukatu genuen; ez bonba batek **zirtzilatuta** edo tiro batek lurrera botata. Bernardo Atxaga

Txikituta eta **zirtzilatuta** nagon ospitaleren bateko ohean. Anton Garikano

Borrokan egin dinagu, bi aulki erori eta kristalezko atea **zirtzilatu** egin dun. Anton Garikano

Balak kristala **zirtzilatu** eta bihotzari erdian jo zion. Koldo Biguri

Heriotzaren haranean ibilia zen zaldiz, **zirtzilaturik** eta dardarka. Anton Garikano

Haginka **zirtzilatu** nahi banindu bezala. Anton Garikano

Saio guztiak, esperantza guztiak, ispilukeria guztiak, behin eta berriz apurtzen eta **zirtzilatzen** dira kalexka hauen egunerokotasunaren, ezdeusaren, epika faltaren kontra. Iñaki Iñurrieta

**2** (era burutua izenondo gisa)

-Lehorrean eta siku -izan zen jasotako erantzuna, Santosena ematen zuen ahots **zirtzilatu** batez-, ondo-ondoan aditzen ditut haren marrantatxo alaiak. Josu Landa

---

**zirtzilatzaile** *izond* zirtzilatzen duena.

-Ni Z **zirtzilatzailea** naiz -esan zuen orduan itxura zatarreko letra batek-. Bernardo Atxaga

-Ipuin **zirtzilatzailea**, benetan -erabaki zuen Z-k. Bernardo Atxaga

---

**zirtzildu**, zirtzil(du), zirtziltzen *(30 agerraldi, 14 liburu eta artikulu 1ean)* **1** da/du *ad* birrindu, desegin. ik **zirtzikatu; zirtzilatu.**

Susmoa baitut, mendetako susmoa, ongia eta gaizkia norberaren baitako mugarriak direla, eta gaizkiak, gehienetan, neurri guztiak hautsiz eta gaindituz, ongia menderatu, azpiratu eta **zirtzildu** egiten duela. Felipe Juaristi

Fama da deabru zaharrak metodo berriak darabiltzala Salamancako unibertsitateak sinbolizatzen duen sistema katolikoaren ortodoxia **zirtziltzeko**. Anjel Lertxundi

Esan ziona laburtu zuen oraingoan, etsaien adorea apaltzeko, haien morala beheratzeko, haien espiritua **zirtziltzeko**. Felipe Juaristi

Erraiak kiskaltzen ari zitzaidan zalantza **zirtzildu** nahi izan nuen. Anjel Lertxundi

Edozein modutan, kontua da orduko guztiz **zirtzildua** zegoela denda: ez zen gelditzen oinetako bakar bat osorik, betunik gabeko paretarik, erreminta bat bere kirtenarekin, ezer bere tokian. Anjel Lertxundi

Ez zutela etsi Angelok zeukan irrati klandestinoa aurkitu eta **zirtzildu** zuten arte. Maitasunaren txalupa eguneroko bizitzaren aurka **zirtzildu** zen. Anjel Lertxundi

Eta lepoa **zirtzilduko** diat... Anjel Lertxundi

Ulisesek ziklopeari begi bakarra **zirtzildu** zionean. Anjel Lertxundi

Konpontzeko zeuden oinetakoak eta konponduta zeudenak, denak **zirtzildu** genituen. Anjel Lertxundi

Lurrean estalkiak **zirtzilduak**, intsektuz beteak, zikinak. Gotzon Garate

**2** (arropez edo mintzatuz)

Ahuspez gelditu zen Museoko zuzendaria, trajea orduko **zirtzildu** eta zikindua. Felipe Juaristi

Arropa guztia **zirtzilduta** zegoen. Anjel Lertxundi

**3** (era burutua izenondo gisa)

Itxurarekiko balizko kezka hura ez zetorren bere artilezko jertse **zirtzilduarekin**, bere utzikeriarekin, bere zarpailkeria orobatekoarekin bat. Harkaitz Cano

Iduri zuen bere aurpegiari halako distira bat zeriola, zeinak jantzien urradurei inportantzia kentzen zien eta bai alkandorako petxera nabarmen higatuari eta marra zuri eta gorriekiko korbatari, iduneko **zirtzilduaren** inguruan. Matías Mujika

Garagardo botila eta sardina-pote **zirtzilduak** pilatzen diren lekua. Xabier Olarra

Beren itxura **zirtzilduengatik** ez balitz, inork ez luke esango bisitari haiek turistak ez direnik. Anjel Lertxundi

---

**zirtzileria** *(10 agerraldi, 9 liburutan; orobat* ***txirtxileria*** *g.er.)* *iz* gauza hutsala. ik **zirtzilkeria.**

**Zirtzileria** batzuk hautatu nituen aurreneko, nerabezarotik nireak baziren ere neure etxera eraman nahi izan ez nituen liburu batzuk. Joxan Elosegi

Gustatu egin zitzaion denda, hango **zirtzilerien** eta zaharkien nahaspilagatik. Oskar Arana

Gerrikoan eskegita daraman urre-koloreko **zirtzileriak** ondo ematen die belarritakoetako urre-koloreko pinportei. Oskar Arana

Nor bere ezdeuskeria, **zirtzileria** eta purtzilkeriari lotzen da biziro, eta garrantzirik ez dute aldi berean besteren gauzek. Joxan Elosegi

Alabaina udan izaki, eta udan, edozein gauza, baita **zirtzileriarik** agerikoena ere, bilaka daiteke lau zutabeko albiste. Aingeru Epaltza

Beste batek kristalezko **zirtzileria** jartzen zuen lepoan. Anjel Lertxundi

Telefonoa ohe-mahaian dago, purtzil eta **txirtxileria** baso baten erdian. Koldo Izagirre

---

**zirtzilkeria** *(8 agerraldi, 4 liburu eta artikulu 1ean)* *iz* gauza hutsala. ik **zirtzileria.**

Auzoan lapurtutako **zirtzilkeriaren** baten puska. Patziku Perurena

Honela esaten nion beti: ‘Jorge, ez etorri niregana zure **zirtzilkeriekin**, metafisika deitzen dituzun kutxa horiekin’. Berria - Kultura

Arrazionalismo lojikoak, munduaren sorrera bakar eta ximplearen dogma ontzat emanez, Big Bang delako asmazio merkea sortu du, denboraren hasierari buruzko kirtenkeria edo hutsetiko sorreraren **zirtzilkeria**. Patziku Perurena

Ribaforadan ez duk mundua bukatuko beren **zirtzilkeria** egun bat geroago argitaratzen bada. Aingeru Epaltza

---

**zirtziltasun** *iz* zirtzila denaren nolakosuna.

Beste kontenplazio-argi batean, nire **zirtziltasunaren** eta miseriaren hondo negargarria ikusten nuen. Askoren artean

zirugia ik **kirurgia**.

---

**zirujau** *(138 agerraldi, 25 liburu eta 29 artikulutan)* **1** *iz* ebakuntzak egiten dituen medikua. ik **kirurgialari**.

Medikuak behar ditugu, lehenbailehen, batez ere **zirujauak**, arlo baskular, kardiobaskular eta kirurgia orokorrekoak. Berria - Mundua

Tratamendu bakarra kirurgikoa zela azaldu zien, berak hitz egingo zuela **zirujauarekin**. Imanol Zurutuza

Begietatik gaixo zegoen garaian, sendaketa onartzera behartu zuten eta **zirujauari** deitu zioten. Askoren artean

**Zirujauarengana** ere eraman dute eta operatu egin behar dela esan du. Berria - Harian

Ebakuntza-gela nikeleztatu bat eta gomazko eskularruak zituen **zirujau** bat nituela zain. Joseba Urteaga

**Zirujauak** xafla zorrotz batekin klitoria, gorputz atal deseroso hori, mozten dion bitartean. Luis Elberdin

Frantziako **zirujau** batek klitoria berregiten die ablazioaren biktimei. Berria - Gaiak

**Zirujauek** aurpegiko arteriak konektatu eta azala bere lekuan jarri zioten. Berria - Gaiak

**Zirujauek** zazpi zentimetroko titaniozko egitura bat jarri zioten falta zuen barailaren lekuan. Berria - Gaiak

Esana zien **zirujauak** ezinezko izan zitzaiela tumorea erabat erauztea, burmuinean kalte handiagorik ez egitearren. Imanol Zurutuza

Hanturarena azaldu zioten gero, eta **zirujauari** ere deitu ziotela badaezpada, berriro ebakuntza egin beharra bazegoen ere. Imanol Zurutuza

Haren behatz meheek ere **zirujau** batek luzatuak eta itxuratuak iduri zuten. Matías Múgica

Gogoratzen zuen alargunak **zirujauak** biopsiaren emaitzen berri eman zion egun hartan esandakoa. Imanol Zurutuza

Nigan bigarrenez zabaldu zuen, **zirujaua** eta marinela ez ezik, besterik ere bazelako susmoa. Edorta Jimenez

**2** (izenondo eta izenlagunekin)

Halpin doktoreak, Dublin Hiriko Ospitaleko **zirujau** laguntzaileak, adierazi zuen ezen hildakoak bi beheko saihets hautsirik zeuzkala, eta kolpe larriak eskuineko sorbaldan. Irene Aldasoro

Erregeren "txermoni" partitzaileak, zaldia barne, 154 florin, **zirujau** odolzaleak hiru halako, eta eskribauak berak, auskalo zenbat gehiago. Patziku Perurena

Ez dakit beste belarria moztu ala, aitzitik, **zirujaurik** garestiena erosi eta kirurgia hoberenaz josiko ote zukeen silikona koloreztatuzko bat, edo urrezko bat. Hasier Etxeberria

Gaur egun **zirujau** trebea da gibelaren edo bihotzaren transplantea egiteko gai dena. J.M. Olaizola "Txiliku"

Gero garondoa ere zuritu zidan, larruazalean doi ukituz, **zirujaurik** trebeenak gaixoari odola ateratzeko zainak ebakitzen dizkionean baino tentu handiagoz. Edorta Jimenez

Matteuzzi hori gizon zarpaila zen eta nahiko ezaguna hirian garai batean **zirujau** ospetsua izan zelako. Pello Lizarralde

Barruko urduritasunak ofiziozko **zirujauaren** planta emanen dizu. Joseba Sarrionandia

Dohain handiko **zirujaua** izanik, hiritarrek agur afari bat antolatu zioten. J.M. Olaizola "Txiliku"

**Zirujau** bikaina izango haiz hi noizbait. Patxi Zubizarreta

**3** (adizlagun gisa)

Karrakan **zirujau** eta marinel zetorren Martin lagunari belagile esanez zuzentzeko makurra izan nuen. Edorta Jimenez

Ontzian marinel eta **zirujau** ekarri dugun baten gauzak hartzera eta eurekin eramatera etorri dira. Edorta Jimenez

Gazte Sozialistetako kide izana, **zirujaua**, pediatra eta epidemiologo aritu da. Berria - Harian

**4** (hitz elkartuetan)

Urrezko aukera 1970. urtean ailegatu zitzaion, Fox ekoiztetxeak AEBetako Armadako **zirujau** talde baten inguruko liburu baten egokitzapena egitea proposatu zionean. Berria - Kultura

· Badakit Frantziako gortean ezagutu ditudanen gisako mediku-**zirujau** batek aterabidea ematen ahalko ziola berun puska horri. Aingeru Epaltza

Hogeita hamar urtetik gora ziren Don Juan Sanchez Alcoleara iritsi zenetik, barberu- **zirujau** gisa; gero, azterketa batzuk eginez, lizentzia lortu zuen. Josu Zabaleta

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
> **marinel eta zirujau** (7); **zirujau trebea** (3)
> **gure zirujaua** (3)

---

**zirujautza** *(6 agerraldi, liburu 1ean)* *iz* kirurgia. ik **kirurgia**.

Edinburgon ari zela idatzi zuen **zirujautzako** oinarriak agertzen zituen liburu bat: *The Elements of Surgery* (1832), eta Londresera joan ondoren **zirujautza** praktikoa erakusteko beste liburu bat: *Practical Surgery* (1837). J.M. Olaizola "Txiliku"

XIX. mendearen hasierako **zirujautza**. J.M. Olaizola "Txiliku"

---

zirujia ik **kirurgia**.

---

**zirukatu**

Gure epeltarzüna **zirukatzen** dü müsülmanen sineste zorrotzak, haien etsenplü gartsüak. Herria

---

**zirurika** **1** *adlag ipar* biraka.

Baina, hiltzearen mahuma zeruan **zirurika** ibiltzen zela zirudien, saia hegalari: bizi-alegrantzia muskilen itotzaile. Itxaro Borda

• **2** *iz* bira.

Zakur labrita ondoan punpaka, zeruan hegalak zabalik **zirurika** urrian zebiltzan ilhainen kidegoan. Itxaro Borda

**3** ***zirurikan*** *adlag* biraka.

Miru hegal gorriak gure gainean **zirurikan** zabiltzala. Itxaro Borda

Ushuaiako lautada hotzetan ibil nintzatekeen, Lukatxukaiko zeruan **zirurikan** zebilen arranoa begiz jaten. Itxaro Borda

Ene bihotz beratasun berriaren aterpea eraikiz, haize firfira arinek bulkaturiko laino uhargiak **zirurikan** bazebiltzan. Itxaro Borda

**4** laster.

Ikusiz urak **zirurikan** ari zirela goititzen, joan zen gaineko estaiara. Angel Aintziburu / Jean Baptiste Etxarren

Ez dut aterpera itzuli nahi, Orreagatik eta Jakatik datozen errepideen bidekurutzean, duela hogoi urte, bizikletaz **zirurikan**, Puerto del Perdón-en patarra bururatzen ari ginelarik, ikusi genuen Jakoberen burdinezko itxura miretsi gabe. Piarres Aintziart

Errotekilako kaderetan **zirurikan** zihoazen politikoak (begi kliska Karruseri). Herria

zirurikan ik **zirurika 3**.

## zirurikatu, zirurika(tu), zirurikatzen du *ad* biraka ibili.

Baigorriarrak, beren aldeko gazte ta zahar mundu batek akulaturik, manamenduan jarri dira pilota indar gaitzean **zirurikatuz** Kurutcharryk, taulaz ala indarrean, gainez edo eskuin apal Etcheverryk: 7-2, 14-8, 18-13 eta 28-22. Herria

## zisko

### 1 *zisko egin* birrindu, txiki-txiki egin.

Nire zapatek astindualdi ederra hartu dute honez gero eta zolua erabat higatuta edukitzeaz gain, lokarriak ere **zisko** eginak dituzte. Harkaitz Cano

Gutxi batzuk **zisko** eginda, noski, ez baita ideia ona mendian ibiltzeko Kontxan paseatzeko erabiltzen diren zapatatxoak erabiltzea. Berria - Kultura

Sua zarr-zarr-zarr lanean ari zuan, eta etxea behera zetorrela oihuak entzunik salto egin huen, eta belauna **zisko** egin. Pako Aristi

**Zisko** eginda zeukaat behatz potoloa. Iñaki Iñurrieta

Bizkarra **zisko** eginda dauka, ez dakit zenbat hernia. Iñaki Iñurrieta

### 2 irud/hed

Indizeak jota, **zisko** eginda gelditu ziren. Berria - Ekonomia

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
> zisko eginda (4)

## zisku 1 *iz* poltsa, eskuarki dirua eramatekoa.

"Txanponez txanpon betetzen da **ziskua"** izan ohi zen bere ohiko leloa. Patxi Iturritegi

Nire ile nahasia atzera txukundu behar izan nuen, eta ispiluaren aurrean nintzen bitartean ikusi zintudan ispiluan barrena -eta lotsak eta laborriz jota hilko nintzela uste izan nuen-, ikusi zintudan diru-paper handi batzuk diskrezioz sartzen nire **ziskuan**. Eduardo Matauko

### 2 aureola.

Ez zen kriseilu baten errainuen **ziskua** baino harago ikusten. Edorta Jimenez

Erdian ilargia bere argi-**ziskuarekin**, eta hodei arin batzuk, hautsa bezala. Josu Zabaleta

Orduan, Kristok Apokalipsian bezala, gorputzaren inguruan urregorrizko argi-**ziskua** zuela begitandu zitzaidan. Edorta Jimenez

Halako batean, ordea, atea ireki eta Txutxoren soslaia agertuko zen ate-**ziskuan**, pijamaz jantzita eta linterna batekin gure aurpegi harrituak argitzen. Xabier Mendiguren Elizegi

## zisma 1 *iz* Eliza bateko kideen arteko banakuntza, buru baten azpian sinismen eta lege bat zutenak elkarrengadik banatzea.

Talde horren eta Vatikanoaren arteko harremanak 1988an eten ziren, **zisma** baten bidez. Berria - Gaiak

K.o. 1054ko **zisma** eragin zuen gatazka aldi berean lehia politikoa izan zen aitasantutzaren eliz mendekoen leialtasuna lortzeko Hego Italian. Iñaki Mendiguren

Bilkura horrek, izan ere, azkenean Aitasantutzaren **Zisma** egoera samingarriari bukaera ematen zion bitartean, [...]. Santiago Iruretagoiena

Ez da eliza katolikoaren **zisma**, bereizketa, baina bai txirrindularitza bere osotasunean hartzen duen haustura. Berria - Kirola

### 2 irud/hed

Desintegraziorako irizpideetako bat gizarte-gorputzaren **zisma** dela: gutxiengo bat, sortzaile izan ordez menderatzaile soilik bilakatu dena, eta proletalgo bat, bere gidari izandakoengandik moralki alienatua, orain "ugazaba" soilik bilakatu zaizkiolarik. Iñaki Mendiguren

**Zisma** hura kristau-aroko hirugarren mendean bukatu zen, Senadore Ordena administrazio-ardurako postu guztietatik kendu zenean. Iñaki Mendiguren

Baliteke gizarte-**zisma** hau jadanik gauzatua izatea gizarte baten gorputzean, beronen kultur irradiazioa auzokoetako baten gizarte-gorputzean arrakastaz sartzen ari denean. Iñaki Mendiguren

## zismatiko 1 *izond/iz* pertsonez mintzatuz, zisma bat eragiten edo onartzen duena.

Prusiako protestante maltzurrak, Errusiako ortodoxo **zismatikoak**, eta esker txarreko austriar katoliko zitalak. J.M. Olaizola "Txiliku"

**Zismatikoa** haizen arren eta ni katolikoa, biok ere giristinoak gaituk. Joan Mari Irigoien

Nahiz eta badakidan ezen nekez ediren zitezkeela Mignonenak eta aita saindu **zismatikoenak** baino kezka eta ardura diferentagoak eta desberdinagoak. Joan Mari Irigoien

Pisako II. kontzilioko **zismatikoekin** bat egiten nuela, bide batez, eta Paulo II.aren aitasaindutza gaitzesten. Joan Mari Irigoien

Herexe eta **zismatikoak** "elizaren arrastoan sartzeko. Xabier Olarra

Ispilua eta oboloa **zismatiko** berrien ikurrak ziren. Juan Garzia

Ingelesak, Magdalene Maudlin eta Bethlehem Bedlam bihurtu baitituzte, harro egon daitezke **zismatikorik** handienak izateaz. Xabier Olarra

## zisne 1 *iz* beltxarga.

Hontza, ibisa, **zisnea**. Elizen arteko biblia

Han, ihitzen artean **zisne** asko zegoen. Agustin Otsoa

Antzara eta **zisneetara** ohituago dauden hiritarrek abegi ezin hobea egin zieten;. Patxi Zubizarreta

Nenbok bere kantua erredoblatu zuen, nola **zisneak** hiltzerakoan. Joan Mari Irigoien

Zeren enara nola lehia daiteke **zisneekin**, edo antxumearen hanka dardaratiek nola berdin lezakete lasterka zaldiaren indar bortitza? Xabier Amuriza

Ostegunean H5N1 birusak kutsatutako **zisneak** agertu ziren Salonikan eta Pieiran. Berria - Gaiak

**Zisne** baten gainean, Lohengrin: heroia Brabante salbatzera joan zenekoa irudikatzen zuen koadroak. Anjel Lertxundi

Abangoardian Dol Amrotheko **zisnearen** zaldunak baitzihoazen, Imrahil Printzea eta bandera urdina buru. Agustin Otsoa

Urrezko zutoihalaz eta Ontziaren eta Zilarrezko **Zisnearen** ezaugarriaz. Agustin Otsoa

Konpainia berak **Zisneen** Aintzira-ren bertsio birmoldatu bat ere ematekoa du larunbatean Caneta portuan. Berria - Kultura

### 2 (izenondo eto izenlagunekin)

Haren lepo luzeari so egin nion, eta **zisne** beltz bat iduritu zitzaidan, airos baino airosago. Joan Mari Irigoien

**Zisne** kutsatu bat agertu zenean izan zuten atzo birusaren berri Bulgariako osasun agintariek. Berria - Gaiak

**3** (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

**Zisne** -lepo luzea zuen, begiak urdin-urdinak eta betileak oso kizkur eta usuak. Fernando Rey

**Zisne** lepoko txorrota kobrezko batzuek ur xirripa meheak botatzen dituzte. Karlos Zabala

Ezkerrekoaren gainean zutoihal bat zegoen, eta bertan zilarrezko ontzia, brankan **zisne** -irudia zuena, itsaso urdina zeharkatzen. Agustin Otsoa

· Jertse beltz bat zeraman (oso ongi gogoratzen naiz), **zisne** -lepoduna, existentzialista-edo. Joxe Austin Arrieta

---

**zisoide** *iz* bi kurba jakinen posizio bektoreen batuketak, batuketa erdiak edo kenketak sortutiko kurba.

Handik hiru mendera, haren ereduari jarraiki, **zisoidea** asmatu zuen Dioklesek, eta haren bitartez angeluaren trisekzioa ebatzi. Jon Muñoz

---

zist-zast ik **zizt-zazt**.

---

zistada ik **ziztada**.

---

**zisterna** *(orobat **ziterna** g.er.)* **1** *iz* ur ontzi edo depositua.

Ingeniaritzari dagokionez, bere kabuz husten den **zisterna** bat da maskuria. Irene Aldasoro

Komuneko **zisternaren** antzera hasi zen nire oroimena jarduten. Joxan Elosegi

Gutariko zenbait burugabek ilargiari aurpegia emanez lo egin zuen; sukarrak irazeki zituen; **zisternetako** ur gaizkoatuan bertze batzuek eromena eta heriotza edan zuten. Juan Garzia

Kamioiaren traktorearen jabeek ez zutela **zisterna** erabiltzeko baimenik ere adierazi du enpresak. Berria - Euskal Herria

Eskola etxe haundiaren eskuinean baginuen **ziterna** urez betetzen zena denbora euritsua zelarik. Herria

**2** zisternaren edukia.

Bukatzeko, ukuiluko putzu beltzetik ateratako hamar **zisterna** zera garraiatu behar izan ziren, eta uretara bota gero. Koldo Biguri

**3** komuneko zisterna.

Komunean, espero bezala, kanilak eta **zisternak** partsimoniaz bideratzen zuten ura. Bernardo Atxaga

Irten aurretik komunetik pasatu ginenean, ura presio handiz atera zen kanilatik, eta **zisternak** ere berriketarik gabe bete zuen bere lana. Bernardo Atxaga

**4** (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

Errusiako Armadako iturrien arabera, **zisterna** kamioi bati gelditzeko agindua eman zioten kontrolgune batean. Berria - Mundua

Behin azidoa disolbatutakoan, biltegiko zuloa itxi eta bertan zegoen azidoa **zisterna** kamioi batera pasatu zuten enpresako langileek 06:30ak inguruan, eta amaitutzat eman zuten gertakaria. Berria - Euskal Herria

**5** (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa)

Argitasun izugarriaren eta iluntasun miresgarriaren, kabinen eta mugagabearen, higienearen eta araztu ezinaren, ur **zisternaren** eta zeruaren arteko muga eratzen zuen leihoak. Joxan Elosegi

Jekea ehizara joaten delarik bera da ur- **zisternako** txoferra. Pablo Sastre

Hamasei bagoi kontatu nituen eta zazpi gasolina- **zisterna** . Berria - Kultura

Kaboa kamioi- **zisternaren** bolante atzean jarri zen, eta C-5 aldera gidatu zuen. Jon Alonso

2000ko abuztuaren 20a: Kenyako hego-ekialdean 25 pertsona hil ziren tren- **zisterna** batek eztanda eginda. Berria - Mundua

---

**zistertar** *(orobat **ziztertar** g.er.)* *izlag/iz* Citeauxko abadian sorturiko erlijioso ordenari dagokiona; ordena horretako kidea.

Gaetatik hurbil, Erromatik hegoaldera; gotzaina Roberto zen, **zistertar** monjea (1210-1217). Askoren artean

Oinarri horrek eman zion **zistertar** ordenari industri gainegiturarako oinarria. Iñaki Mendiguren

Jenioen bakarleku, monasterio **zistertarren** baretasunean. Fernando Morillo

François Ravaillac (1587 j.) **zistertarren** konbentu batean sartu zen, baina laster bota zuten. Juan Martin Elexpuru

Viterboko Raniero Capocci, **zistertarra** , 1216an kardinal egina eta Ordena berriaren lagun handia. Askoren artean

Ravaillac-en itaunketan ageri denez, dohakabe honek **zistertarretatik** irten eta jesuiten konbentuan sartu nahi izan zuenean, d'Aubigny jesuitarengana jo zuen. Juan Martin Elexpuru

---

**zita** **1** *iz* hitzordua.

Zerk pentsarazten dizu **zita** bat dudala? Fernando Rey

Anak eta biok gaueko hamarrak eta laurdenetan genuen **zita** Zabalguneko ostatu batean. Aingeru Epaltza

Otsailaren 10erako zuen **zita** ebakuntza egiteko, baina aurreratu egin diote. Berria - Euskal Herria

Sallyrekiko **zita** alu hura neukan, ordea. Bernardo Atxaga

Lehengo hilean eman zion **zita** . Pablo Sastre

Arratsalde batez Goiorekin Zubieta aldean **zita** jarrita joan nintzen Kalaportura. Joseba Sarrionandia

Dick zen, nire lurrera-behar arrakastatsua zorionduz, eta berarekin hitzartu nuen **zita** . Joxe Austin Arrieta

Literatur talde bat antolatzen ari zirela esan zidan, aldizkari bat argitaratzeko asmoz, **zita** bat lortu zidan, garaje batean zen bilera. Mikel Hernandez Abaitua

Aski izaten zen begirada bat, egunez, gauean mutil batekin **zita** egiteko. Pablo Sastre

Duela hilabete batzuk aspaldiko partez ikusten ez nuen lagun batek **zita** egin zidan Bilboko Guggenheim Museoan. Iban Zaldua

Yassini erantzutekotan ere egon nintzen; berarekin **zita** bat adosteko edo. Iban Zaldua

Edna alboan izan dut beti, nirekin etorri da medikuekiko **zita** guztietara. Joseba Sarrionandia

Egun makurrari Anarekiko **zitak** ekarri zion zuzenbidea. Aingeru Epaltza

**Zita** bat, katedralaren ondoan, adibidez. Lourdes Oñederra

Txillida Leku museoa zabaldu zutenetik urtero izan du **zita** bertan Musika Hamabostaldiak. Berria - Kultura

Errege eguneko **zita** Ulia Gimnastikarekin. Berria - Kirola

**2** hitzordua duen pertsona.

Kafetegi handiaren txoko hartan jesarrita **zita** baten zain zeuden, inolako harremanik eman gabe. Jon Arretxe

**3** (izenondo eta izenlagunekin)

Ordenagailu bitartez egindako **zita** itsu baten zain. Jon Arretxe

San Mameseko zaleriak **zita** berezietan egin ohi duen presioa lagun, lehenbailehen gola egin eta lasaitasuna irabazi nahi izan zuten etxekoek. Berria - Kirola

Logroñoko Adarragan ere **zita** garrantzitsua izango da, bertan jokatuko baitute txapelketako bi errioxarrek. Berria - Kirola

Gaurko **zita** frustratua eta datorren asteko hitzordu faltsua. Agurtzane Juanena

Bai, **zita** pertsonalak, ez dago beste modurik, bihar eguerdian, ongi iruditzen bazaizu, konforme, bihar arte. Jon Alonso

Orduan ere bai baitago askatasun eremu txiki bat: gezurrezko **zita** esan ala egiazko **zita** esan, burkide bat galduz. Agurtzane Juanena

Xake-partida baterako **zita**. Joxe Austin Arrieta

Alderdi biak daude konforme, eta biharko egin dute hurrengo **zita**. Koldo Zuazo

**4** (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

**Zita**-ordua baino askoz lehenago azaldu ziren kafetegira Eneko eta Zigor, eta pixka bat beranduago Ritxi. Jon Arretxe

Berehala **zita** eske hasten direnak, edota presarik gabe elkarrizketa luzatzen dutenak zitarekiko interesik agertu gabe. Pako Aristi

**5** (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

Zergatik diozu maitasun **zita** bat duen gaztea seigarren enborrean dagoen aizkolaria dela? Pako Aristi

**6** aipua.

Pelegrinoak oso inpresionatua baitirudi, bukatu egingo dugu **zita**: "pentsa ahal litekeen baino aurpegi ederragoak, atsegin betezko leku batean bazeunde bezala". Koldo Izagirre

Rabindranath Tagore eta Victor Hugoren bi **zita** baitaude edertasunaz. Berria - Kultura

**7** ***zita-etxe*** prostituzio etxea.

Andre bat, itxuraz prestua, **zita**-etxe batera joaten zela; horrek guztiak txoratu egiten zuen. Josu Zabaleta

Estazioak, aireportuak, labanderiak, hotelak, hipodromoak, kasinoak eta **zita**-etxeak ziren bere ehizarako lekurik aproposen eta ohikoenak. Horrela deitu dudan hori Rue Montmartreko eraikin pobre askoa zen, ia **zita**-etxe baten itxurakoa. Harkaitz Cano

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
> **zita egin** (4); **zita garrantzitsua** (3)

---

## **zitadela** *(35 agerraldi, 3 liburu eta 23 artikulutan; orobat* ***ziudadela*** *39 agerraldi, 2 liburu eta artikulu 1ean, eta* ***ziutatela*** *g.er.)* *iz* gotorlekua.

Ekitaldi hau Donibane Garaziko **zitadelan** bururatuko da, bideo, kontzertu eta su artifizialekin. Herria

San German atetik sartu ginen Nabarrenkoxeko **ziudadelan**. Aingeru Epaltza

Suntsitua ere Bam hartako **zitadela** jauregi zaharra, duela bi mila urtekoa, eta Irango toki bisitatuena zena. Herria

Urte bat xuxen Donibane Garaziko **zitadelaren** karrikan behera lehen urratsak egin nituela. Piarres Aintziart

**Zitadela** hegiz hegi pasatu dut eta hona Pio XII.-ren etorbidea. Piarres Aintziart

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
> **donibane garaziko zitadelako** (3); **donibane garaziko zitadelan** (4); **zitadelako karrikan** (3)
> **eko ziudadelan** (3); **iruñ nabarrenkoxeko ziudadela** (3); **ziudadelako armen** (3)

---

## **zital** *izond/iz* **1** inolako prestutasunik agertzen ez duena. ik **doilor**.

Batzuk hondamenditik ihesi etorritako zorigaitzekoak ziren, baina gehienak gizon gaiztoak, lapurrak eta **zitalak**. Agustin Otsoa

Iritsi da azkenean gizon **zitalen** txanda. Jose Morales

Hango biztanleak gizaki **zitalak** ziren. Karlos Zabala

-Ondo morroi **zitalak**, gero!, morroi horiek. Jon Muñoz

Behin eta berriz egin zidaten iruzur, nitaz gozatu eta hurrengora arte, eta ez modaren munduan dabiltzan tipo **zitalek** bakarrik, baita itxuraz prestuak ziruditenek ere. Migel Angel Mintegi

Gercourt jaun **zital** hori behar zen tarteko gertatu! Jon Muñoz

Zein atso **zital** uste duzu izan litekeela gisa horretako belzkeria bat asmatzeko bezain gaiztoa? Jon Muñoz

Jende **zitalak** profanatua zuen tenpluaz erruki zedila. Elizen arteko biblia

Jende **zital**-gaiztoa eta lege-hauslea ezarri zuten han. Elizen arteko biblia

Izaki txiki **zital** horrek. Julen Gabiria

Espiritu **zital** eta gezurtien eraginpean. Imanol Unzurrunzaga

Legerik eta federik gabeko etsai **zitalen** esku utzi gaituzu. Gau guztian esna egon behar nagusi **zital** haien bulegoa zaintzen, lapurrik sar ez zedin. Elizen arteko biblia

Ez izan traidore **zital** horien gupidarik. Elizen arteko biblia

Lehoikume xalo bat bi hiena **zitalengandik** eskapo. Aingeru Epaltza

Kriminal hutsa naiz, zapoa, piztia **zitala**, eta erdeinu guztiak merezi ditut. Patxi Zubizarreta

Mundu **zitalekoak** erakunde horren menpe zeuden. Pello Lizarralde

Hiltzaileak halakoak, gobernu **zitalari** salduak. Pello Lizarralde

-Doilor **zitala**! -esan zion Ronek. Iñaki Mendiguren

Simon **zital** hark gezurretan esan zuena. Elizen arteko biblia

Birritan ttu egin nuen **zital** hari erakusteko gezurra zela. Pello Lizarralde

Aurpegia estalia zuen, baina bi **zital** haiek estalkia ken ziezaiotela agindu zuten. Elizen arteko biblia

Bekaiztiek eta **zitalek**, Mozarten melodiak edo Wagnerren harmoniak entzuten dituztenean, atsegin handiz hartzen dute atsedena beren sentipen gaiztoek sorrarazten dieten barne-garraztasunetik. Josu Zabaleta

**Zitalentzako** sari izango zen hori. Jon Muñoz

**2** (gauzak)

Atzo ere esku ezezagun **zital** batek irain latza idatzi zuen gure orma-egunkarian. Koldo Biguri

Izan ere, ondo izaera **zitala** du Sirius Black horrek. Iñaki Mendiguren

Aska nazazu ezpata **zitaletik**, libratu atzerritarren eskutik! Beste emakume batek fede handiz bere haurra eraman zion, zauri **zital** batekin gaixo, eta debozioz erregutu zion gurutzearen seinalea egin ziezaiola bere eskuekin. Elizen arteko biblia

Jaitsiera, bihurgune **zitalak** eta igoera handia. Berria - Kirola

Lege **zitala** zen; izan ere, ohiturak gordetzeko, natura hankazgoratzen zuen, ohituren jatorria naturan dagoelarik. Iñaki Iñurrieta

Abbasek erasoa «krimen **zital** eta barkaezina» izan zela salatu zuen. Berria - Mundua

Haren bilaukeria **zitalak** ezagutzeko. Patxi Altuna

Eramazue zuen gerra **zital** hori ere infernuko zokondoraino, han gogoko izango ditek-eta. Mirentxu Larrañaga

Aire **zitala** sartzen da sarean barrena. Rafa Egiguren

Dohakabeek, aterperik gabe, aire zabalean nozitu behar ekaitz **zitala**. Karlos Zabala

Ez dakizuela, gero, etor gogora pentsamendu **zital** hau: [...]. Elizen arteko biblia

Malenkoniazko lanbro horren eraginpean bururatu zitzaidan, lehenengoz, ideia **zital** hura, belar txarraren antzera gogotik erauzten saiatu arren gero eta barnago sartu zitzaidana. Xabier Mendiguren Elizegi

Elizak ikaragarrizko boterea du, dena menperatzen du ematen dituen arau eta egiten dituen sermoi **zitalekin**. Berria - Kultura

Ez ditugu gogo onez entzungo hitz **zital** eta zantarrak, zilegi ez dena ez dugu egingo gustuko izan arren. Imanol Unzurrunzaga

Bizpahiru aldiz mehatxatu zuen senarrak, oso modu **zitalean**, gainera. Pako Aristi

Zer besterik da harrokeria goranahi **zitalaren** irrika baino? Imanol Unzurrunzaga

Zuzendariak, maisu urduriak ez bezala, bere lasaitasun zuri eta **zitalarekin** nahasi nahi ninduen. Pello Lizarralde

Orain, zeure jokabide **zital** eta higuingarriaren ondorenak jasan behar dituzu. Elizen arteko biblia

Agurearen galdera **zitalek** behin eta berriz zirikaturik, berari begira eta adi zuen Gandalfen presentziaz jakitun. Agustin Otsoa

Pertsona horrek, agian interes **zitalek** bultzatuta, ekimenari muzin egiteko gomendatu zion. Bego Montorio

Kolera handi batek hartu ninduen, denbora berean desesperamenduaren indar **zitalek** bortizki kolpatzen nindutela. Daniel Landart

Ez dut horretan inbidia **zitalez** jokatuko. Elizen arteko biblia

Munduko txantajerik **zitalena** izango zela. Koldo Biguri

Gezurrik lotsagarri, **zital**, narrasenak. Matías Múgica

Haien asmoak suge-arrautzak bezain **zital**: arrautzok jaten dituena hil egiten da, kraskatzen dituenari sugegorria ateratzen. Elizen arteko biblia

Abrikotek sorgin kolore hori **zitala** zuten, gorpuena bezalakoa. Karlos Zabala

**3** (predikatu gisa)

Bere ustez gizon guztiak azpisugeak eta **zitalak** zirela. Pello Lizarralde

Eta eskribauak soilik dira **zitalak**. Jose Morales

Leibniz bera, bestalde, **zital** samarra bide zen, poliziaren eta ordenaren aldeko sutsu. Markos Zapiain

Beste batzuk, ordea, askoz **zitalagoak** dira, auzitegiez baliatzen dira Estatuari dirutza handiak lapurtzeko. Jose Morales

Zuk **zital** deritzezun horiek guztiak gizakiak dira. Jose Morales

Haragikeriako grinak **zital** bihurtzen baikaitu. Migel Angel Mintegi

Baina arauak ankerrak dira, **zitalak**, krudelak. Maitasuna ez da zuzena, **zitala** da, lapurra eta hiltzailea. Luis Elberdin

Baina, hain da **zitala** halakorik esatea. Mirentxu Larrañaga

Orain neurri hori hartzea **zitala** da. Berria - Ekonomia

**4** (izenondo eta izenlagunekin)

**Zital** bihozkabea! Patxi Zubizarreta

Apaiz nagusi ez, baizik eta **zital** handia zen Jason higuingarri haren eraginez. Elizen arteko biblia

**Zital** hutsak zirela eta betiko kartzelaldia ez ezik istripu bat gertatzea merezi zutela. Pello Lizarralde

**Zital** gogaikarriak bezala irainez eta masailekoka botatzen gaituenean. Askoren artean

Zergatik egiten duzu horren sutsuki denetariko **zitalen** alde? Jose Morales

**Zitalak** halakoak! -esan zuen printzeak, haserre-. Jose Morales

**5** (-en atzizkiaren eskuinean izen gisa)

Izenda liteke giza patuaren **zitala**, izenda liteke apalkiago tentelkeria. Markos Zapiain

**6** (adizlagun gisa) ik **zitalki.**

Su-etenarekin pozik ez daudenak eta **zital** jokatzen ari direnak indarkeriarekin abantaila politikoa ateratzen saiatu direnak dira. Berria - Euskal Herria

Mendebaldeko kulturak horregatik jokatu du horren krudel eta **zital** jokabide horiekin. Luis Elberdin

Trabukoren itzal gurintsua gainean neukan, **zital**. Itxaro Borda

Belarri hau gero eta **zitalago** mintzen ari zaidak. Patxi Ezkiaga

**7** (hitz elkartuetan)

-Sekula ez dut Snape hain **zital**-itxura handiarekin ikusi -esan zion Hermioneri-. Iñaki Mendiguren

Susmatzen dut Buruzagiak **zital** koadrilaren bat izango duela inguruan. Agustin Otsoa

**8** ***zital-zital*** *adlag*

Morroiak zioena entzun zuenean, **zital-zital** berotua, honela mintzatu zen: [...]. Patxi Ezkiaga

**hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**

**bezain zital** (4); **bi zital** (3); **emakume zital** (4); **eztul zital** (3); **frantzisko zital hori** (3); **gazte zital** (3); **gizon zital** (9); **izaki zital** (3); **kontraeraso zital** (3); **nagusi zital** (3); **zital hutsa** (5); **zital hutsa da** (3); **zital hutsak** (3); **zital jokatzen** (4); **zital samarra** (3)

**bezain zitala** (7); **eraso zitala** (3); **erritmo zitala** (3); **gizon zitala** (4); **kanpoko lerro zitala** (3); **zitala da** (11); **zitala du** (3); **zitala halakoa** (6); **zitala zen** (10)

**are zitalago** (3)

**jende zitalak** (3)

**modu zitalean** (4)

**nagusi zitalen** (3)

---

# **zitaldu**, zital(du), zitaltzen **1** da/du *ad* zital bihurtu.

-Ez nauk **zitaldu**; nekatuta nagok. Eskarne Mujika

Armadan sartu balitz, beharbada, gizon prestua izatera iritsiko zatekeen, baina horrelakorik gertatu ez zenez, gaiztatu eta **zitaldu** egin zen. Jose Morales

Don Kijotek, entzun zueneko, Santxorengana bihurtuta, honela hitz egin zuen, nabarmen-nabarmen **zitaldua**: [...]. Patxi Ezkiaga

Aspaldian lez, ospitalean **zitaldurik** ibilia nintzen denbora guztian, ipurdia inon pausatu ezinda. Hasier Etxeberria

Ingalaterrara itzuli zen 1589. urtean, pobre, etsita eta **zitalduta**. J.M. Olaizola "Txiliku"

**2** (gauzei buruz)

Errekara bidean, hazi eginen dira amildegi arteko harkaitzak, **zitaldu** horma garai arteko ataka sakonak. Joseba Sarrionandia

Zeru beltzaren zamapean **zitalduta** ageri zen itsaso gris, zuriz pitzatuari begira. Ramon Saizarbitoria

Andresi, alkandora lisatua jantzi beharrak, besterik gabe, erabat **zitaldu** zion umorea. Josu Zabaleta

Eutsi, kontrarioari egiten utzi (itxuraz), eta pilota egokienaren zain egon, lehen kolpean tantoa **zitaldu** eta bigarrenean bukatzeko. Berria - Kirola

**3** (era burutua izenondo gisa)

Hara nondik ageri den, zeinen xehatzaileak diren menditar **zitalduen** eskutan jarritako makilak. Patxi Ezkiaga

Eta ni ez nauzu apaizak baino apaizago diren apaiz klasikoen kontrario **zitaldu** horietakoa. Patziku Perurena

---

## **zitaldun** *izond* zitala.

Arratoiekin eta kutxa zehargietan gatibatu suge **zitaldun** txistukariekin aurkitu nintzen ondikotz. Itxaro Borda

Globalizazioaren 'business'-aren usain **zitalduna** sendi zuen Mikelek. Ramuntxo Etxeberri

---

## **zitaleku** *iz* hitzordu lekua.

**Zitalekua** aldatzeko. Xabier Mendiguren Elizegi

Beste tabernetako ibilia egin eta gero edo horretan hasi aurretik, Hankapalorenean biltzen hasi ginen, eta hura bihurtu zen, horrenbestez, gure koadrilaren **zitaleku** ohikoa eta baita mobida gehienetako bulego estraofiziala ere. Xabier Mendiguren Elizegi

---

## **zitalkeria** 1 *iz* zitalari dagokion egite edo jokaera gaitzesgarria; zitaltasun gaitzesgarria.

Hori uler dezaket... **Zitalkeria** da, baina badu giza jokabidetik zerbait. Ander Irizar

Barbaroek bizitzeko zertzen dituzten borroka beldurgarrietan karta irabazleak ez direla indar hutsa, baizik eta iraunkortasuna, mendekua, gupidarik eza, azerikeria eta **zitalkeria**. Iñaki Mendiguren

Merezitako zigorra ezartzean ez dago Harengan injustiziarik edo **zitalkeriarik**. Imanol Unzurrunzaga

Jendeak sexua hainbeste kakarekin lotuko ez balu - **zitalkeria**, zeloak, hisiak, ziurtasun-eza, txutxu-mutxuak, errezeloak, "ego" harrotuak, kaka eta kaka gehiago-, lagunekin egiteak ez lioke inoiz kalterik ekarriko adiskidetasunari. Karlos Zabala

Ankerkeria erakusten zuen koldartasuna ezkutatzeko, zakarkeria tolesgabetasun-itxurak egiteko eta **zitalkeria** trebetasuna bailitzan adierazteko. Koro Navarro

Neuk eman diot ostatu; ez egin halako **zitalkeriarik**. Elizen arteko biblia

Venezuelarrokin, mutiko, **zitalkeriaren** bat egiten duenak bere ordaina jasotzen du. Pako Aristi

Mutilak **zitalkeriaren** bat aditu du, aho azpiz. Aingeru Epaltza

Zoriak ekar lezakeen ongia baino gaitz ugariago ekartzen baitu nahimenaren **zitalkeriak**. Imanol Unzurrunzaga

Konparazioak munduko **zitalkeriarik** handiena dira, arazo guztiak adibide praktiko batera murrizten dutelako, eta bizitzan, ordea, teoria da balio duena. Koldo Biguri

Bide horietatik dabiltzanen **zitalkerian** eror ez gaitezen. Imanol Unzurrunzaga

**2** (izenondoekin eta izenlagunekin)

Guri gezurretan aritu garela leporatzea **zitalkeria** handiz jokatzea da. Berria - Euskal Herria

Proposatzen didazuna **zitalkeria** hutsa da. Elena Touyarou

Gipuzkoako bigarren etapa ere **zitalkeria** galanta da. Berria - Kirola

Beldurra botoen truke aldatzea **zitalkeria** hutsa da. Berria - Ekonomia

Drobiajkin bera zen erruduna, **zitalkeria** bidegabeak egin zizkielako Vshivaia Speseko eta Zadirailoveko nekazariei. Jose Morales

Keinu, eztul, irrifar, edo adio ttar bat aski izaten baitu iraultzailepeko senik burgesena azaleratzeko, edota noblezia gaindiko **zitalkeriarik** mehena ere gordetzen saiatzeko. Patziku Perurena

ETAko ustezko kide baten atxiloketa justiziazko ekintza da, eta burdindegi batean bonba bat jartzea, legez kanpoko **zitalkeria** besterik ez. Berria - Euskal Herria

Barregarria izan zen haren begitxoen nahi eta ezineko **zitalkeria**. Anton Garikano

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
> zitalkeria hutsa da (3)

---

## **zitalki** *adlag* era zitalean. ik **zital 6**.

Hodei artetik agertu zen, papar gainean gitarra jotzeko mugimendu hari **zitalki** berrekiten ziola. Ramon Saizarbitoria

1982a zen: Garaikoetxea zegoen Ajuria Enean lehendakari -"el renegado" deitzen zion Zaratiegik, **zitalki**-, [...]. Xabier Mendiguren Elizegi

Gure agenteek, produkzio-kateetan **zitalki** maskaraturik, txip, txip berezi bat, sartuko zuten mermelada poto bakoitzean. Jon Alonso

-Utzi hurrengoan ere sua itzaltzen! -esan zion gizonak, makilarekin **zitalki** jotzen zuela-. Irene Aldasoro

Andoaingo Udalak aitortu egiten du, orduko gizakiak **zitalki** hilak izan zirela, epaiketarik gabe, eta inolako justifikaziorik gabe. Berria - Euskal Herria

Hain ahul eta ilun bihurtzen da, bera gainditzen duten errealitateetara jaistean **zitalki** nahasten dela gainditu ezin dituen amodioetan eta irtenbiderik gabeko errakuntzetan. Imanol Unzurrunzaga

Ez da lurbira guztian giza naturaren etsaiaren pareko basapiztirik bere intentzio galgarriari hain **zitalki** jarraituko dionik. Patxi Altuna

---

## **zitalkume** *iz adkor* putakumea.

-Ez: hementxe, elizan, noizean behin ikusten dituzun betiko **zitalkumeak** dira. Koldo Biguri

Lehendabizi, ikusi behar dugu zer nolako **zitalkumea** dugun hau. Koldo Biguri

---

## **zitara** 1 *iz* musika tresna, ontzi moduko batez eta gainean tinkaturik dituen zenbait hariz osatua. ik**lira**[1].

**Zitara** eta harpa, danbolin eta txistu-soinua eta ardoa ugari zuen janaldietan. Elizen arteko biblia

Aingeru batek jotako **zitararen** soinua entzun zuen. Askoren artean

**Zitara** joz goretsiko zaitut, Jainko, ene Jainko. Elizen arteko biblia

Kantatzen hasten zen, **zitara** lagun, ibairik gardenena baino ahots gardenagoaz. Felipe Juaristi

Mezulariak poeta itsu bat ekarri zuen, ahots gozoz kanta zezan, **zitaraz** lagundurik. Juan Kruz Igerabide

**Zitararen** kantu gardena. Xabier Amuriza

Ezin izan nuen gizonen **zitararik** entzun, baina **zitara** gozoagoa entzun dut. Askoren artean

**2** (hitz elkartuetan)

Ez da sekula entzungo **zitara**-soinu edo kanturik, ez txirula edo turutarik zure baitan. Elizen arteko biblia

· Nire juglare-**zitara** daramat, baina baita nire ezpata ere. Fernando Rey

**3** ***zitara-jole*** *(4 agerraldi 3 liburutan)*

Ez zen inor ikusten, baina **zitara-jolearen** joan-etorriak batetik bestera argi sumatzen zituen doinuaren gorabeherengatik. Jon Muñoz

Profeta-trantzean aztoraturik etorriko dira, psalteri- eta danbolin-joleak, txirula- eta **zitara-joleak** aurretik dituztela. Elizen arteko biblia

Klodio, arrebak mozorrotu ohi zuen gisara, emakume **zitara-jole** jantzi, eta Ponpeiarenera sartu zen. Juan Garzia

**4** ***zitara-jotzaile*** *(5 agerraldi, liburu 1ean)*

**Zitara-jotzailea**, joan-etorrian zebilen, doinua ia galtzen zen arte urrutiratuz eta gero berriro itzuliz, jotzeari une batez ere utzi gabe. Askoren artean

Herri honetako jendeak badaki ni **zitara-jotzaile** nintzela munduan, eta beldur naiz ez ote duen susmatuko, berriz ere hura jotzeko tentazioari men egin diodala. Askoren artean

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
> **zitara jotzen** (4); **zitara joz** (4); **zitarak jotzen** (3)

---

## zitaralari *iz* zitara-jotzailea.

Zerutik zetorren hotsa entzun nuen, ur handien edo trumoi handi baten burrunba bezalakoa, beren zitarak jotzen ari diren **zitaralarien** hotsa bezalakoa. Elizen arteko biblia

---

## zitaristika *iz* zitara jotzeko antzea.

Epopeia eta poesia tragikoa eta, gainera, komedia eta poesia ditiranbikoa, eta auletika eta **zitaristika** gehiena, denak dira imitazioak ikuspuntu orokorretik. Askoren artean

---

## zitatu, zita(tu), zitatzen **1** du *ad* aipua egin, aipatu.

Izarrek erakusten dute zenbat aldiz **zitatua** den liburua. Xipri Arbelbide

Interneten aurkitutako materiala **zitatzea** askotan ez da erraza izaten. Askoren artean

Irristaka jaisten ziren bitartean gida-liburua **zitatzen** jarraitu zuen, hala nola "irla honen egitazko ospea parke antzeko ikusmirak eta itsas berezitasunen ugaritasun eta aukeragatik". Anton Garikano

**2** hitzordua eman.

Artikutzako bidean **zitatu** ninduen, mendian gora abiatuta hamalaugarren kilometroan! Koldo Izagirre

Letra fakultateko jangelan **zitatu** ninduen, unibertsitario eternoa zen zinez Jean Claude hura. Koldo Izagirre

---

## zitazio **1** *iz* aipua.

1951n Estatu Frantsesak Aita Hondet eta Joannatéguy-ren merezimenduak saristatu zituen **zitazio** honen bidez: "L'abbaye bénédictine Notre-Dame de Belloc fut sous l'occupation l'un des foyers les plus ardents de la résistance basque". Marzel Etxehandi

**2** epaileak hitzordua jartzea.

Aurkitzeko moduan egon dela argi dago, Ertzaintzak abenduan **zitazio** bat helarazi baitzion etxera, eta epaiketa batean izan baita. Berria - Euskal Herria

Zubimendik, baina, ez zuen **zitaziorik** jaso eta, beraz, ez zen epaiketara joan. Berria - Euskal Herria

Epaiketara agertu ez diren auzipetuetako biren **zitazioak** behar bezala ez zirela egin. Berria - Harian

Epaiketa atzeratu egin dute, **«zitazioan** forma akatsak» daudela argudiatuta. Berria - Euskal Herria

Ahalorde orokor bat utzi zion [...] **zitazio** nahiz beharrezko bestelako jakinarazpenak jaso eta [...] herentzia eta dohaintza garbi eta kargurik gabekoak jasotzeko. Bego Montorio

Zergatik **zitazio** hori ote, ari nintzen ene baitan. Piarres Aintziart

Baionako Fifita ez dute **zitaziora** deituko. Berria - Kirola

Arthur Sulzberger egunkariaren argitaratzaileak, baina, **zitazioa** ezeztatzen ahaleginduko direla esan zuen atzo. Berria - Gaiak

**3** (hitz elkartuetan)

Epaitegitik **zitazio** zedula gaztelania hutsean igorri zitzaielako jarri zuten kexa. Berria - Harian

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
> **zitazioa jaso** (3)

---

## ziterna ik **zisterna**.

---

## zitiar *izlag/iz* Zipreko Zitiakoa, Zitiari dagokiona; Zitiako biztanlea.

Hona non Kolopeus **Zitiarrekin** izan gerlan hila izan zen bere osteko zaldun guziak bezala. Aurelia Arkotxa

---

## zito *iz*

Harbeltzak ditu udaberri-**zitoak** alferrik galtzen, haien altsumak lora-zabaldu baino lehen sarritan, eta gaztaroko goiz-ihintz freskotan ohi dira helde kutsakorrak errazen gertatzen. Juan Garzia

---

## zitoeskeleto *iz* zelulen barne euskarria osatzen duen proteinazko egitura.

Proteinen polimerizazioa, hainbat egitura osatuz, hala nola giharraren proteinak, **zitoeskeletoa**, erribosomak, birusen kapsideak. Juan Garzia

---

## zitogenetiko *izon* kromosomen azterketari dagokiona.

Likido amniotikoaren eta bertan esekirik dauden zelula fetalen azterketa fisiko, kimiko, entzimatiko, zitologiako eta **zitogenetikoa** egiten da, umekiak arazoren bat duen ikusteko. Berria - Gaiak

**zitokromo** *iz* zeluletan energia kimikoa garraitzeko betekizuna duen proteina.

Muskuluko oxigenoaren kopuru txiki bat baino ez da konbinatzen hemoglobinarekin, [...] mioglobinarekin eta **zitokromoarekin** konbinatzen da gehiena. Irene Aldasoro

---

**zitola** *iz* erdi aroko musika-trena, greziar zitara antzekoa.

Instrumentuak hauexek dira: arpa, psalterio, laut etzanikoa, laut zutikakoa, **zitola** , fidula edo biola obala, zanfona, gaita, organeto eta aulos bikoitza. Berria - Kultura

---

**zitologia** 1 *iz* biologiaren adarra, zelularen egitura eta fisiologia aztertzen dituena; zitologia erabiltzen den azterketa.

Adituen arabera, teknika horrekin egindako probak **zitologiarekin** egindakoak baino «zehatzagoak» dira. Berria - Gaiak

Likido amniotikoaren eta bertan esekirik dauden zelula fetalen azterketa fisiko, kimiko, entzimatiko, **zitologiako** eta zitogenetikoa egiten da, umekiak arazoren bat duen ikusteko. Berria - Gaiak

**2** bagina eta kideko organoetatik harturiko zelulen azterketa.

Antonio Gelabert Bartzelonako Mar erietxeko urologoaren esanetan, bestalde, teknika berri horren bidez egindako probak **zitologiaren** bidez egindakoak baino «zehatzagoak» dira. Berria - Gaiak

Azterketa ginekologikoa eta **zitologia** egingo dizu, eta odol analisia egiteko aginduko dizu, berariaz pilula hartzeko egiten dena. Luis Elberdin

**Zitologia** neurri prebentiboa da, batez ere infekzioak eta uteroko lepoko minbizia prebenitzeko. Luis Elberdin

Osakidetzak eskaintzen duen ginekologia zerbitzua murritza dela gaitzetsi du: «Bi urtean behin **zitologia** bakar bat egiteko aukera besterik ez dago». Berria - Harian

---

**zitoplasma** *iz* zelularen zatia, gunea inguratzen duena eta kanpoko mintzak mugatzen duena.

**Zitoplasmaren** (nukleoa inguratzen duen gelatinaren) parte batek norabide bat hartzen duenean, hari jarraitzen dio zelula osoak. Irene Aldasoro

Zeluletan, **zitoplasmak** ematen dizkio bere tasunak guneari. Juan Garzia

Espermatozoide bat arrautza baten **zitoplasman** injektatzea. Ramon Saizarbitoria

Alzheimer doktoreak haren burmuinean ohi baino neurona gutxiago aurkitu zituen, eta proteinaz osatutako multzotxo batzuk neuronen **zitoplasmetan** . Berria - Harian

Organismo konplexuei [...] dagokienez, luzaroan ebazteke egon da guneak eta **zitoplasmak** zer parte duten bakoitzak zelula-desberdintze fenomenoetan. Juan Garzia

Enbrioitik ateratako zelulari nukleoaren inguruan duen **zitoplasma** kentzen diote. Berria - Gaiak

**Zitoplasmako** antenak luzatuta, organismo sarkina inguratu, irentsi eta desegin egiten dute. Irene Aldasoro

---

**zitori** 1 *iz Liliaceae* familiako landare zurtoin-luzea, lore zuri handi usaintsuak ematen dituena*(Lilium candidum);* landare horren lorea.

Euskaraz lili esaten dugunean ia lore esango bagenu bezala da, lili hitza erabiltzen baita hainbat lore izendatzeko: **zitoria** , lila, azuzena, itsas lilipa... eta batez ere lirioa edo ostargia. J.M. Olaizola "Txiliku"

Gurutzeak arrosez eta **zitoriz** apaintzen zituzten. Koro Navarro

Estakuru-antzeko musutxoak ematen zizkion, arin-arin, hatzetan gora eta behera, eta gardenia, **zitori** eta ostargi-belarren izenak xuxurlatzen zizkion, harik eta lore zuriei buruz zuen ezaupidea erabat agortu arte. Mirentxu Larrañaga

Loreak bezala janzten dira, berdin-berdin, eta urtaroekin batera aldatzen dira: zuriz, **zitoriak** zuri daudenean, eta urdin ezkilaloreen sasoian, eta horrela. Julen Gabiria

**2** (izenondo eta izenlagunekin)

Hilerrian, elizaren inguruan, harrizko gurutzeen artean, hainbat koloretako arrosa-landareek, gorriak, horiak, eta itxura tristeko **zitori** zuriek distiratzen dute udaberrian. Koro Navarro

Ur ertzean lehendabiziko **zitori** zuri seikunak loretan. Txillardegi

Eskuei harat-honat eraginez, haize leun ilaunak dilindan zerabiltzan **zitori** astunak balira bezala. Mirentxu Larrañaga

**3** (hitz elkartuetan)

Bioleta horiak eta **zitori** -mota arraroak. Mirentxu Larrañaga

---

**zitosina** *iz* azido nukleikoen osagaien oinarria.

ADNaren osagai nagusiak lau dira: adenina, guanina, **zitosina** eta timina. Berria - Gaiak

Gugan gertatzen diren erreakzio kimiko etengabeek zerbait miragarriren jabe garela pentsatzera bultzatzen gaituzte, baina adinina, guanina, timina eta **zitosina** izeneko koktelekin harrapatutako katua baino ez da. Berria - Kultura

---

**zitrato** *iz* azido zitrikoaren gatza.

**Zitrato** edo oxalato ioiek berehalaxe desagerrarazten dituzte kaltzio ioiak (IV. gatzatze-faktorea), eta desaktibaturik geratzen da gatzatzemekanismoa. Irene Aldasoro

Hori baino metodo sinpleagoa da, berriz, odola hartzerakoan **zitrato** - edo oxalato-soluzio pixka bat jartzea botilaren barruan. Irene Aldasoro

---

**zitriko** 1 *izond/iz* fruituez mintzatuz, dasta garratzekoa.

Bruselak arreta handiz aukeratu zituen zigortu beharreko produktuak, **zitrikoak** esaterako. Berria - Ekonomia

2002ko sagardoak **zitrikoen** (arabi sagarraren eta limoiaren) aroma izan zuen nabarmen. Berria - Euskal Herria

Oraingoak baino askoz birringailu zorrotzagoak baliatuko dira [...] gazta, intxaur muskatu, **zitrikoen** azal... eta era guztietako elikagai izoztuak xehatzeko. Edorta Agirre

Europako **zitriko** salmenta dezentekoa, Galizia aldetik bideratzen zen. Pello Zabala

**2** azidoez mintzatuz, limoi urerik ateratzen dena.

Azido **zitrikoa** bilatu beharko duzu. Joseba Sarrionandia

---

**zitroin** 1 *iz* limoia.

**Zitroin** berdea bezain garratza. Joan Mari Irigoien

Lehenik, mandarina eta **zitroina** reko gustua zeukan 'kalamantzi' jusa horia edan zuten. Ramuntxo Etxeberri

Eskaini izan zitzaien **zitroin** dutea urrupatuz. Ramuntxo Etxeberri

**2** (hitz elkartuetan)

Bretania eta Euskal Herriko errezetak, batzu ezagutuak [...] bertze batzu bereziagoak (*effeuillé de chocolat*, *glace au mamia* edo xapata gereziak **zitroin** izozkiarekin). Herria

Goitik behera apainduta, **zitroin**-lorez beztitutako emaztegai garbi eta aratza dirudi. Itziar Otegi

---

**zitu** *iz* fruitua, uzta.

Liburuki hauek ez dira larruz azaleztatuak, ez dute urrezko letrarik bizkarrean ez koloretako santurik barruan: baina haietan ematen den testua urte askotako eta, batzuetan, langile askoren lan nekezaren **zitu** ondradua da. Berria - Kultura

Nik errealitate-latente den lurralde horretako **zituak** maite ditut -artea, kultura...-. Jose Angel Irigaray

---

**zitzi** **1** *iz* pertsonez mintzatuz, soberan-edo dituen haragiak. ik **txitxi**.

Ispiluaren aurrean jarri eta egiazko tolesak ageri zitzaizkidan gerrian, **zitzi** mardul xamarrak. Joxan Elosegi

**2** txitxia.

Orain arte axurikia hara saltzen genuen trumilka, kamioiak beteka, baina mutur zuritu dira irudiz eta berek hazi bildotsen **zitzi** arinagoa nahiago dute. Itxaro Borda

---

**zitzialde** *iz* pertsonez mintzatuz, haragiak dauden aldea.

Ez bat ez bi, beltzarana leiho saihetsera bulkatu zuen eta gona laburrak baztertuz **zitzialde** gurintsua agerrarazi zion. Itxaro Borda

---

**zitzifrikatu**, zitzifrika, zitzifrikatzen du *ad* desegin, birrindu. ik **zitzikatu**.

Manezen moldean Periku selauruko sunpurretan zintzilikatu zen, Augustek ihiziko fusilarekin kokotxa **zitzifrikatu** zuen, eta Maijanek hirurogeita zazpi bedatsetan satorkako pozoia irentsi zuen. Itxaro Borda

Baina **zitzifrikatuko** gaituzte! Itxaro Borda

Nehoiz eta nehori ez zion adiskidantzak **zitzifrikatzen** zituen gerla hau aipatuko, batez ere ez noizbait edukiko zituen haurrei. Itxaro Borda

---

**zitzigabetu**, zitzigabe(tu), zitzigabetzen du *ad* haragirik gabe utzi.

Lur basati honetan, nonahi ikusiko zen gizonaren oin parea, moldegaiztoko arbol bakartu eta adarrokerren batetik zintzilik, lurrean harat honat alfer ibilian nekatu eta erretiro hartu ondoren, jubileoan bezala haize boladen ariora dilindan, begi eta min gabe, bele eta belenabar karrankariek urratu eta **zitzigabetua**, hezur eta azal, eguzkiak beltzez disekatu eta inoizka euritan dutxatua. Patziku Perurena

---

**zitzikatu**, zitzika(tu), zitzikatzen **1** du *ad* desegin, birrindu.

Haurra base-ball makila ukaldika **zitzikatuko** zuten segur aski. Itxaro Borda

Agian ez nuen begirune izpirik ere merezi eta karrikaren erdian, buruon eta hertze ziliporta artean, balaz **zitzikaturik**, hedailo erortzea nire destinoa zatekeen. Itxaro Borda

Nora jo ez zekiela, sugar baten pare bizia ez aurrera ez gibelera maneia ez zezakeela usteak burumuina **zitzikatu** zion. Itxaro Borda

Ez dutela politika gogoetarik? Eta gure mundu politikoa hausten, errausten, banatzen, zehazten, **zitzikatzen** duen borroka armatuaren gaia? Berria - Kultura

**2** (era burutua izenondo gisa)

Jeanne-ri pentsatu zuen, Gaxton eta Elli Otsabideko adiskideei, agudo aberasteko bere ilusioari, Manexunen behor **zitzikatuari**. Itxaro Borda

Odolez eta umeki **zitzikatuz** hanpatu pertza ondoan antzematen zuen, begiak bihurdikatzen zituen aldi oroz. Itxaro Borda

---

ziudade ik **ziutate**.

---

ziudadela ik **zitadela**.

---

**ziunta** **1** *iz ipar* presa, lehia.

Ospitalepe altean, beste beribil bat sartü zaio bürüz, erdiz-erdi, üdüriala **ziunta** handian: Tolosako merkatari bidajant batena gisala. Herria

Waltari famatuaren **ziunta** ere eskolatu baitute, bereziki Teillery bere jo finarekin, esku-huska bixtan dena. Herria

**2 _o_ziuntan** *adlag ipar* presaka, ziztu bizian.

Gasteizi agur labur bat, errepidea **ziuntan** eginik, eta hona Miranda de Ebro. Piarres Aintziart

Polizia armatu kontrolak harrapatzen nituen eta **ziuntan** urruntzen nintzen. Itxaro Borda

Ene gogoa hegaldatu zen **ziuntan** hilabete pare bat lehenago Frantzia behere horretan zehar egin nuen bidaiaren aztarna mentalera. Itxaro Borda

**3** ***ziuntaz*** *adlag ipar* presaka, ziztu bizian.

Begiak hersten nituen eta **ziuntaz** ur handiaren ezpondetara itzultzen nintzen mentalki. Itxaro Borda

---

**ziur** *(**4818** agerraldi, **255** liburu eta **1556** artikulutan; orobat **zihur** g.er.)* **1** *adlag* zalantzarik gabe. ik **segur; seguru 2**. (ikus beheko konbinatorian ziur adizlagunaren agerraldi maizkoenak)

• **2** *izond* zalantzarik gabekoa. ik **segur 2; seguru 4**.

Txakurrak sarritan, behin lorratz **ziurra** hartutakoan, piztia menditar baten atsedenlekua, hostotzan ezkutatua, usnaz aurkitzen duen bezala, [...]. Xabier Amuriza

Fede zuzena, itxaropen **ziurra** eta maitasun betea. Juan Kruz Igerabide

Negozio **ziurra** hi eta ni bezalako zirt edo zarteko gizonentzat. Iban Zaldua

Forua zitzaidan askatasun horien berme eta baradera **ziurra**; eta Don Carlos, hain zuzen [...] Foruaren defendatzaile bakarra. Txillardegi

Inertzian eroriko da, eta bere hondamena izango du ondorio **ziurra**. Juan Martin Elexpuru / Bego Montorio

Gauza **ziurra** da, guztiarekin ere, Sufrah mogrebia [...] lo geratu zela soilik narkotikoaren ahalguztitasunaz, eta areto nagusiko hogeita lau leihoetariko batetik ihes egin zuela. Juan Garzia

Egia ezagutzen duenak badaki gauza **ziurra** diodala. Joan Mari Lekuona

Historia arretaz entzun eta gero, oftalmologoak esan zien ez zela gauza **ziurra** Virgilek benetan gaitz hori izatea. Xabier Olarra

EIEk liburuaren euskarazko bertsioa argitaratzeko ahalegina egingo du, baina ez da kontu **ziurra** hori lortzea. Berria - Kultura

Seinale **ziurra** da, maitasuna eta kontsolamendua kanpoan bilatzen edo ipintzen direnean, gizaki baten bihotzean ez dagoela Jainkoa. Joan Mari Lekuona

Bizitzari norabidea emango zioten egia **ziur** eta koherentez osatutako sistema. Imanol Unzurrunzaga

Ba al dago gauza bati buruzko ezagutza **ziur** eta zuzenezinik, norberaren gogo-egoerak esaterako? Askoren artean

Enplegu egonkorra eta **ziurra** aldarrikatuko ditugu Maiatzaren Lehenean. Berria - Ekonomia

Formula **ziur** eta erabatekoaren beharra. Ramon Saizarbitoria

Ondorengoek bide zelai eta **ziurra** izan zezaten. Askoren artean

Hizkuntzaren aldi zahar eta lehena, datu **ziur** eta zehatzik ez daukaguna. Xabier Mendiguren Elizegi

Beharrezkotasun honek baldintzatugabeki a priori **ziurra** izan behar duenez, [...]. Ibon Uribarri

Entseiatu nintzen gazte horren amodioa esperantza **ziurrago** batez elikatzera. Jon Muñoz

Luzera begira, merkataritza da oparotasunerako biderik **ziurrena**. Berria - Mundua

## 3 (predikatu gisa)

Ezer ez da **ziurra**, ezer ez betiko, eta zalantzan bizi gara, gure bizimodua bihar hobetuko dugulakoan. Berria - Gaiak

Ortega-rentzat **ziurra** da, historia arrazek egiten dutela. Joxe Azurmendi

Bozkaria zaitezte etengabe, zeren eta honako hau **ziurra** baita, egia baita, ezbairik gabea baita: hamar pertsona bizi dira, lehen bizi ez zirenak. Gauza bat **ziurra** zen, matematikan zehar egindako bidaldi hark hiztegia aberastu zion Ruche jaunari. Oskar Arana

Gure egunotan ez da, ez, batere **ziurra** hizkuntza txikien etorkizuna. Koldo Zuazo

Emandako pausoak **ziurrak** izan daitezen eta atzera bueltarik izan ez dezaten, ez da presaka ibili behar. Berria - Harian

Zer nahi ere den, ondorengo gertakariak **ziurragoak** dira. Jon Muñoz

Euskal Herritik Espainiako Gorteetara joango diren ordezkariak zein izango diren oraindik ez dakigularik ere, dagoeneko **ziurra** baino **ziurragoa** da gizonezkoek gehiengo osoa osatuko dutela. Berria - Euskal Herria

Hain da **ziurra** egiazko errealitateak uste faltsuari aurre egiten, irtenbide oro ixten eta aho biko errefutazioz okerra aitorrarazten diola. Xabier Amuriza

Amaiera **ziurra** dugula. Xabier Mendiguren Elizegi

Urtarrilean %2,833raino iritsi zen hilabeteko batez bestekoa; %2,914raino otsailean; eta martxoan **ziurra dirudi** %3ren gainetik izango dela. Berria - Ekonomia

## 4 *ziurrenera* (*56 agerraldi, 10 liburu eta 14 artikulutan*) *adlag* ziur asko. ik **seguru 9a.**

**Ziurrenera**, bada hor benetan, fisikoki, *k* herskariaren eta *r* dardarkariaren artean bokaltasun gutxieneko hori. Lourdes Oñederra

**Ziurrenera** hotza egingo du eta berdintsu izango zaio, gainetik alkandora lauki gorriduna jantzi beharko du-eta. Pako Aristi

**Ziurrenera** bai. Oskar Arana

Zentro aldera doaz; handik, **ziurrenera**, hondartza aldera joko dute. Jokin Muñoz

Edonola ere, zalantzarik gabe existitzen den eta frogatutzat eman den aginte katearen ikerketa eta zigorra ez da, **ziurrenera**, etorriko. Berria - Mundua

Gertakari horiek guztiok eragin zuten, **ziurrenera**, Mogelek euskara giputza aukeratzea. Koldo Zuazo

Euskaraz nork dakien eta nork ez erabakitzeko erabili ohi den azterketa egitura ere aldatu egin beharko da, **ziurrenera**. Koldo Zuazo

Arra zen, **ziurrenera**. Berria - Gaiak

## 5 *ziurrenik* (*833 agerraldi, 66 liburu eta 524 artikulutan*) *adlag* ziur asko. ik **seguru 10.**

**Ziurrenik** bai. Iban Zaldua

Ez, **ziurrenik** ez. Lourdes Oñederra

**Ziurrenik** ez: seguru. Fernando Morillo

Izendatze hau **ziurrenik** 1220. urteko bigarren zatian gertatu zen. Askoren artean

Gauza bera gertatuko zitzaien **ziurrenik** guraso guztiei. Ibon Uribarri

Hori baita **ziurrenik** idazki honen sorrerako testuingurua. Askoren artean

Honen gogaikarri jokatu ostean, kontsulak **ziurrenik** ez dit inola ere ipiniko beharrezko zigilua pasaportean. Jon Arretxe

Usain estrainio eta definigaitza darie erietxeei, lurrin mota askoren emaitza, **ziurrenik**; ozonoa, alkohola, kloroformoa, betadinea eta formola bereizi ditut inoiz, baina ziur nago ezagutzen ez ditudan askok ihes egiten didatela. Iban Zaldua

Istripuren bat, **ziurrenik**. Fernando Morillo

· Arrotza egiten zitzaion gure aldartea, Adrianen hitz egiteko modua: bera baso barrenean ibiltzetik zetorren, eta **ziurrenik** ere hitzak isil mugituko ziren bere gogoan, zalapartarik gabe. Bernardo Atxaga

Lotsatu egin zelako, **ziurrenik** ere. Bernardo Atxaga

## 6 *ez-ziur* *izond*

Diskurtsoaren zatiki honek [...] euren bizitza urrunago eta luzaroago eraman behar duena bere existentzia hauskor eta **ez ziurrean**. Xabier Arregi

Atzerapenak direla eta, behartuta gaude ia urte amaierara arte aurreikuspen **ez ziurrekin** jokatzera. Berria - Harian

Hor airean uzten duzu bera, deskribapenaren estatus **ez ziurrarekin**.Ohituren printzipio orokorretan ezerk ezin du **ez-ziurra** izan, zeren, edo esakuneak osoki hutsalak eta zentzurik gabekoak dira, edo gure arrazoimen-adigaietatik soilik isuri behar dira. Xabier Arregi

Gune honek tankera hartzen du astiro-astiro nik oraindik hain prekarioa eta **ez ziurra** deritzodan diskurtso batean. Xabier Arregi

## 7 *ziur aski* (*362 agerraldi, 45 liburu eta 101 artikulutan*) *adlag* ziur asko. ik **seguru 14.**

**Ziur aski**, urtetakoa izango zen Virgilen gaixotze-prozesua; 1985etik aurrera, etengabe gizendua zen. Xabier Olarra

**Ziur aski** ez zen harrituko, bere medikuak jakinaren gainean jarriko baitzuen neurri batean, honelako zerbait esanez: [...]. Xabier Olarra

**Ziur aski** ez, zeren bere materialtasun hutsaren bidez [...] ez baitu ezer adierazten jokalariarentzat. Isabel Arrigain

Beno, **ziur aski** ametsa izango zen dena. Julen Gabiria

-Eta nola urkatzen duzue hemen? **Ziur aski**, isil-gordeka! Jose Morales

Azala hezurrei itsatsita hilko nauk **ziur aski**, hain ihar, ezen liburu bateko bi orriren artean sartzea izango baitute, lur emateko. Karlos Zabala

Hasierako momentuak igaro ondoren, hizkuntza, **ziur aski**, bere bizitza semiologikoan sartuko da. Isabel Arrigain

Gaur egun, **ziur aski**, ez dira zati horiek eta beren konbinazioak hain garbi atzemango. Isabel Arrigain

Bere gelara igoko zen **ziur aski**. Karlos Zabala

Aulki elektrikoaren inspirazio iturri nagusia inkisizio garaiko galdeketa aulkian dago **ziur aski**. Harkaitz Cano

Irizpide nagusia administrazio-komenentzia bada, komunikabide onak dituen erdiko tokiren bat aukeratuko da **ziur aski**. Iñaki Mendiguren

Hobe bai inoiz itzuliko ez banintz, ez dut itzuli nahi, baina ez, ez da egia, badakit ez dela egia, **ziur aski** urtebete barru bueltatuko naiz, urtean behin-edo, Gabonetan **ziur aski**. Mikel Hernandez Abaitua

## 8 *ziur asko* (*283 agerraldi, 42 liburu eta 38 artikulutan*) *adlag* aukera gehienen arabera. ik **seguru 15.**

**Ziur asko** sekulan egin dudan jokaldirik bizkorrena izango da. Oskar Arana

**Ziur asko** deialdia otsailean egingo dute. Berria - Kultura
**Ziur asko** halakoxea naiz orain ere. Jon Muñoz
Bai, **ziur asko** bai, maite nuen. Oskar Arana
- **Ziur asko**, Juanin, **ziur asko**; ilunenak, izan ere, ohartu ere egiten ez garen horiek dira. Juan Kruz Igerabide
Baina **ziur asko** ez zen ausartu hartara. Juan Garzia
Beno, **ziur asko** nekatuta, erreta nengoen uneren batean esango nuen hori. Berria - Kirola
Pentsatzen jarrita, **ziur asko** ez zen oso ohikoa izango Magiako ministroa bera adin txikikoen magia-kontuetan sartzea ere. Iñaki Mendiguren
Hiltzailea, Alejandro Claret Martorell, kazetaritza ikasle bat da, **ziur asko** ideia erradikalak dituena, hogeita hamar bat urtekoa. Jon Muñoz
Gaztelaniaz esan zuen, **ziur asko** zaila egiten zitzaiolako ideia euskaraz adieraztea. Ramon Saizarbitoria
Antzinako zentzumenetan, usaimena izango zen **ziur asko** eboluzioaren eszenara agertzen lehena. Irene Aldasoro
Hain okertuta zegoen, esan baitzitekeen magiaz bakarrik zegoela zutik (eta, **ziur asko**, hala egongo zela pentsatu zuen Harryk). Iñaki Mendiguren
Gauzak zeuden bezala, **ziur asko** gosez hilko zen han bertan. Iñaki Mendiguren
Nik hamazazpi urte izaterako, gerra amaitua izango zen nolanahi ere, **ziur asko**. Mirentxu Larrañaga
Begirada bat bota zioten elkarri: Ruche jaunak aintzat hartuko zuen, **ziur asko**! Jon Muñoz

## 9 *ziur egon* (*1034 agerraldi, 149 liburu eta 248 artikulutan)*

**Ziur nago** ez zuela deus ulertu ez orduan, ezta gero ere. Karlos Zabala
**Ziur dago** agureak ez zuela ikusi. Iban Zaldua
**Ziur nago** baduela hark indarrik nire esku utzi duen fede-gordailua azken egunera arte zaintzeko. Elizen arteko biblia
**Ziur nago** oso lagun onak izango garela. Antton Olano
**Ziur nengoen** hezurrak hamar urtez gordetzen zituztela, edo hori esan zidatela behintzat. Ramon Saizarbitoria
Izan ere, **ziur nengoen** Marro gauza zela norbait aienarazteko, gehiago ez agertzeko moduan. Juan Kruz Igerabide
- **Ziur zaude** ez zuela zurekin gelditu nahi, hobeto sentitzen den honetan? Xabier Olarra
-Oh!, **ziur egon** ez dudala ahaztuko! -erantzun zuen Manilovek-. Jose Morales
Autorea **ziur dago** ezen irakurle batzuk -hain baitira jakingurak- irrikaz daudela jakiteko kutxa nolakoa zen barrutik eta nola zegoen antolaturik. Jose Morales
Atea giltzaz itxi nuen, gelan inor ezin sartuko zela **ziur egoteko**. Josu Zabaleta
Langileen batzordea ESK eta UGTko launa ordezkarik eta CCko batek osatzen dute eta lantegia martxoaren 31n itxiko dutela **ziur daude**. Berria - Ekonomia
**Zaude ziur** jaurtiko dituen sugeak niri botatzen dizkidatenen inbidiarik gabeak izango direla. Juan Martin Elexpuru / Bego Montorio
Berorri **egon** bedi **ziur** ordea ez dudala morroi beztidurarik jantziko. Jon Muñoz
**Ziur nago** epaituak garaile irtengo direna. Berria - Harian
Emakumeei probak egiten hasi aurretik, oso **ziur egon** behar dugu haren funtzionamenduaz. Berria - Gaiak
**Ziur nago** horretaz. Iñaki Mendiguren
Eta bukatzeko, honetaz bai **ziur nagok**: [...]. Txillardegi
Inor ez zen egundo **ziur egongo** Harryren jatorriaz. Oskar Arana
Mundu osoa **ziur egon** zedin gizon guztiz santu honen zeruko aintzaz. Askoren artean
Hain **dago ziur** nitaz, hain ziur ere. Mirentxu Larrañaga
Horri buruz **ziur egoterik** ba al dago? Jon Muñoz
Ez, jakina, **ziur nago** ezetz. Antton Olano
Larunbata zen, ia **ziur nago**, Marisa eta biok *Biolin-jolea teilatuan* filma ikustera joan baikinen beheko auzora. Juan Kruz Igerabide
Gizakiaz gehiago ikasiko duk, **ziur egon**, taxian lan eginez: hori duk hire lekua. Iban Zaldua
**Ziur zaude** zein den zein, ezta? Iñaki Mendiguren
Ez **baitzeuden** erabat **ziur** kanpora irten zitezkeen ala ez. Iñaki Mendiguren
Oi, lagunok, **zaudete ziur**, herri kurdua bizirik dago. Andoni Egaña
Ez **nengoen ziur**. Oskar Arana
-Hil egingo diat -barru-barrutik irten zitzaidan, **ziur bainengoen** noren eskua ibilia zen lan hartan. Juan Kruz Igerabide
Inoiz ez, inoiz ez -zioen Estatuaren fabriken zuzendariak-, hori ez da inoiz gertatuko, **ziur nago**. Jose Morales
Titularraren asmoa, **ziur nago**, gure herriko zinemagintzaren egoera salatzea zen. Berria - Kultura
Zer dela-eta **zaude** hain **ziur**?
**Ziur egon** behar dut. Ramon Etxezarreta
Neskak bazuen susmoa, esan zuen, egun batzuetatik, baina ez zion enbarazurik sortu nahi izan, harik eta erabat **ziur egon** arte-. Mirentxu Larrañaga

## 10 *ziur izan*

**Ziur naiz** obsesio hitza erabili zuela. Ramon Saizarbitoria
**Ziur naiz** liskarrak ez direla amaituko. Berria - Gaiak
- **Ziur naiz** hala behar lukeela izan -esan zuen neskak-. Mirentxu Larrañaga
**Ziur ginen** hilko gintuztela. Berria - Harian
**Ziur izan** ez dudala ezer bazter utziko hura galbidera eramateko. Juan Martin Elexpuru / Bego Montorio
**Ziur nintzen**, beraz, horretarako eta gehiagorako gauza zela. Jon Muñoz
Amets batean bezala ezagutu zuen Ruche jaunak eliza, nahiz **ziur zen** bera ez zela sekula han izan. Jon Muñoz
Espainiaren eta Euskal Herriaren arteko harremanetan eredu berria eraikiko dela **ziur da** Egibar. Berria - Harian
**Ziur naiz** ezen baldin hura abandonatzeko burutazio ona baneuka, etsia hartuko lukeela. Jon Muñoz
**Ziur nintzen**, ostera, batzuek ni Hernandotzat hartzen segituko zutena. Edorta Jimenez
Hala ere, gauza honetaz behintzat **ziur naiz**. Txillardegi
Aitzitik, **ziur da** bere buruaz. Oskar Arana
Ez zen mendekua, **ziur zen** horretaz da Rua, munduaren jirabira baizik. Felipe Juaristi
Hire liburu-denda primeran joango duk, **ziur nauk** horretaz. Jon Muñoz
**Ziur naiz** baietz. Juan Garzia
-Jean gaixo horrek hura itotzen ikusi ahal izan banindu behintzat, pozik hilko zen, **ziur naiz**! Josu Zabaleta

## 11 *ziur-ziur*

Nik **ziur-ziur** uste dudan bezala, oker egin badu, berriz, apoa pozoituta hilko da seguru asko. Iñaki Mendiguren
Nik **ziur-ziur** dakit, ordea, karramarroak ez zirela izan Senperen gorpuari aurpegian kosk egin ziotenak. Hasier Etxeberria
Eta gauden **ziur-ziur** guztiok, ezin dela inor salbatu [...] Jesu Kristo gure Jaunaren hitzen eta odolaren bidez baizik. Askoren artean
Berak barre, **ziur-ziur** zegoelako, eta nik orduan susmatu berak aspalditik behar zuela jakin, ordura arte ezer esan ez bazidan ere. Joxe Austin Arrieta
Zerbait gertatu zen, **ziur-ziur**. Mirentxu Larrañaga
Baina ez nengoen **ziur-ziur**. Josu Zabaleta

**hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 5 aldiz agertzen direnak)**

**bai ziur** (7); **baina ni ziur** (5); **baina ziur** (101); **baina ziur asko** (8); **baina ziur gaude** (5); **baina ziur nago** (17); **baina ziur naiz** (8); **baina ziur nengoen** (6); **baina ziur zegoen** (8); **batere ziur** (11); **bera ziur** (9); **bere buruaz ziur** (5); **bezain ziur** (9)

**duela ziur da** (5); **duela ziur dago** (5); **dutela ziur** (12); **dutela ziur da** (7)

**egon ziur** (19); **erabat ziur** (55); **erabat ziur egon** (5); **erabat ziur nago** (5)

**ez da ziur** (7); **ez dago ziur** (13); **ez daki ziur** (9); **ez dakigu ziur** (7); **ez dakit ziur** (26); **ez dakite ziur** (5); **ez nago ziur** (21); **ez nekien ziur** (8); **ez nengoen ziur** (9); **ez nintzen ziur** (5); **ez zegoen ziur** (10); **ez zekien ziur** (7); **ez ziur** (5)

**guztiz ziur** (22)

**hago ziur** (10); **hain ziur** (38); **harry ziur zegoen** (14); **hori ziur** (28); **horren ziur** (8); **horretaz ziur** (13); **horretaz ziur nago** (6)

**ia ziur** (36); **ia ziur nago** (5); **izanen dela ziur** (5); **izango dela ziur** (7)

**ni ziur** (17); **ni ziur naiz** (7)

**orain ziur** (9); **orain ziur nago** (5); **orduan ziur** (5); **oso ziur** (27)

**zaude ziur** (44); **zaudete ziur** (7)

**ziur agertu** (23); **ziur agertu zen** (20); **ziur al hago** (6); **ziur al zaude** (30); **ziur aski** (327); **ziur aski ez** (15); **ziur asko** (284); **ziur asko ez** (15); **ziur askorik** (5)

**ziur bainago** (15); **ziur bainengoen** (5); **ziur baino** (9); **ziur baino ziurrago** (8); **ziur baitzegoen** (14); **ziur baitzeuden** (5); **ziur da** (59); **ziur dago** (70); **ziur dagoela** (8); **ziur daki** (5); **ziur dakigu** (11); **ziur dakit** (14); **ziur daude** (20); **ziur dira** (6); **ziur egon** (120); **ziur egon arte** (8); **ziur egon behar** (5); **ziur egon ez** (5); **ziur egon nahi** (12); **ziur egon zaitezke** (9); **ziur egongo** (10); **ziur egoteko** (15); **ziur esan** (11); **ziur esaten** (8); **ziur gaude** (79); **ziur gaude euskal** (5); **ziur geunden** (7); **ziur hago** (6)

**ziur ikusten** (5); **ziur izan** (21); **ziur jakin** (45); **ziur jakin gabe** (8); **ziur jakingo** (9); **ziur jakiteko** (6); **ziur jakiterik** (5); **ziur nago** (334); **ziur nagok** (24); **ziur naiz** (157); **ziur nauk** (6); **ziur nekien** (5); **ziur nengoelako** (5); **ziur nengoen** (66); **ziur nintzen** (12)

**ziur uste** (6); **ziur zaude** (46); **ziur zaude ez** (9); **ziur zegoela** (8); **ziur zegoen** (93); **ziur zen** (14); **ziur zeuden** (12); **ziur ziur** (28)

**[3] gauza ziur bakarra** (4)

**a priori ziurra** (3); **apodiktikoki ziurra** (3); **bezain ziurra** (5); **bezain ziurra da** (3); **da guztiz ziurra** (3); **da ziurra** (30); **dela ziurra da** (3); **direla ziurra da** (3); **erabat ziurra** (5); **ez da ziurra** (26); **ez ziurra** (4); **gauza bat ziurra** (4); **gauza ziurra** (15); **gauza ziurra da** (9); **guztiz ziurra** (6); **hain ziurra** (4); **ia ziurra** (10); **ia ziurra da** (6); **kontu ziurra** (4); **leku ziurra** (4); **postu ziurra** (7); **postua ziurra** (3); **zerbait ziurra** (3)

**ziurra al da** (3); **ziurra baita** (3); **ziurra da** (78); **ziurra dela** (6); **ziurra den** (5); **ziurra dena** (3); **ziurra du** (6); **ziurra izan** (12); **ziurra izan behar** (3); **ziurra izango** (3); **ziurra zen** (11)

**baino ziurrago** (16); **gero eta ziurrago** (5); **ziur baino ziurrago** (8); **ziurrago nago** (3)

**ziurragoa da** (6)

**ziurrak izan** (3); **zuzenki ziurrak** (4)

**biderik ziurrena** (4)

**ziurrenera ez** (3)

**ariko da ziurrenik** (4); **baina ziurrenik** (20); **baina ziurrenik ez** (3); **da ziurrenik** (51); **dio ziurrenik** (4); **dira ziurrenik** (8); **ditu ziurrenik** (3); **dituzte ziurrenik** (3); **du ziurrenik** (32); **dute ziurrenik** (9); **egingo du ziurrenik** (3); **ere ziurrenik** (4); **eta ziurrenik** (57); **eta ziurrenik ez** (6); **geldituko da ziurrenik** (3); **hartuko du ziurrenik** (3); **itzuliko da ziurrenik** (3); **izango da ziurrenik** (17); **izango du ziurrenik** (9); **izango ziurrenik** (3); **jokatuko du ziurrenik** (4); **jokatuko ziurrenik** (3); **zen ziurrenik** (8); **zion ziurrenik** (5); **ziurrenik bai** (5); **ziurrenik bere** (5); **ziurrenik beste** (5); **ziurrenik bi** (3); **ziurrenik datorren** (5); **ziurrenik datorren denboraldian** (3); **ziurrenik ekainean** (3); **ziurrenik ere** (12); **ziurrenik eta** (3); **ziurrenik ez** (37); **ziurrenik ez da** (9); **zuen ziurrenik** (6); **zuten ziurrenik** (4)

**deus ziurrik** (3); **ezer ziurrik** (3); **gauza ziurrik** (6); **gauza ziurrik ez** (3)

---

ziuraski ik **ziur 7**.

---

# ziurdanik *adlag*

Baina, **ziurdanik**, leku huts bat hautemanik, hara lerratu zuen bere burua. Xabier Olarra

---

# ziurgabe *izond* ziurtasunik gabea.

Errusiar eleberrigile handi hori bezalakorik ez da izan gauza ezezagun estalien zirrara hori ariman sartzeko, eta ipuin harrigarri batean erdi-ilunetan gauza kezkagarri, **ziurgabe**, mehatxagarrizko mundu bat erdi-ikusten uzteko. Josu Zabaleta

Itsaso misteriotsu eta itsasbazter **ziurgabeekin**. prezioen igoera da bizkaitarrentzat arazo ekonomiko larriena (%32,2), langabezia dator ondoren (%27,7), eta lanpostu **ziurgabea** atzetik (7,8). Iñaki Mendiguren

Ahoa sarri irribarre **ziurgabe** geldo batean irekia. Josu Zabaleta

Gogotsu utzirik hilkor eta **ziurgabe** dena halabehar, heriotza eta arrisku ororen esku, arrautza-oskol batengatik. Juan Garzia

Han, dena arbitrarioa denez, dena baita **ziurgabea**. Iñaki Iñurrieta

Gure izateak berezko badu ere etengabe etorkizunera begiratzea, halako eran antolaturik dago sistema, non gure igarpenak **ziurgabeak** baitira ezinbestean. Juan Garzia

---

# ziurgabetasun 1 *iz* ziurgabea denaren nolakotsuna, ziurtasunik eza.

Probabilismoak, indeterminazio edo **ziurgabetasunak**, noiznolakotasunak, irrazionaltasunak edo kausagabeziak ez dirudite, begiratu batera, ortodoxiaren aldarean etzateko moduko zerak. Iñaki Segurola

Ezegonkortasuna, kaosa, erlatibitatea, quantak, **ziurgabetasuna** (behatzaileak behatzen duenarekin ezinbestean interferitzeak eragindako zehaztugabetasuna). Juan Garzia

Lanaren gogortasuna bera baino okerragoa da **ziurgabetasuna**. Berria - Harian

"Noski" esan diot, irribarre eginez nire barruko **ziurgabetasuna** estaltzeko. Jon Arretxe

Bizitzaren **ziurgabetasunak** ez zion erasaten beraren mailako jendeari. Mirentxu Larrañaga

**Ziurgabetasunaren** amildegia eta etsipenarena elkartzen diren lur zerrenda estuan. Imanol Zurutuza

Etorkizunari buruz zalantza da nagusi: ekonomilarien hitzak erabiliz, **ziurgabetasuna**. Iñaki Heras

**Ziurgabetasuna** da nagusi eta arraunlarioi informazioa falta zaigu. Berria - Kirola

**Ziurgabetasuna** sortzen dute halako neurriek, besterik ez. Berria - Ekonomia

Egitasmo horiekin **ziurgabetasuna** areagotzea baino ez da lortzen. Berria - Mundua

Ekonomia kapitalistek, oro har, hobeto funtzionatzen dute truke-tasa finkoekin, zeren diruen trukeari buruzko **ziurgabetasuna** ezeztatzen baita, eta **ziurgabetasun** hori oso kaltegarria da inbertsioak egiteko orduan. Iñaki Heras

**2** (izenondo eta izenlagunekin)

Euskara kontuetan ere **ziurgabetasun** handia sentitzen du, batzuetan doi-doi gainditu baitu unibertsitatean sartzeko eskatzen zaion euskara azterketa. Pello Salaburu

Stephenek benetan pentsatzen eta sentitzen duenari buruzko **ziurgabetasun** sakon horrekin, behin eta berriz egiten du topo hura ezagutzen duen edonork. Xabier Olarra

Sistemaren ageriko aurrealdearen ostean, desordenaren **ziurgabetasun** aberatsa suposatzen da. Xabier Arregi

**Ziurgabetasun** politikoak baino areago [...] finantzen eta politikaren alorren arteko lotura estuak, eta horren ondoriozko finantza-jardueren opakotasunak, gobernatzeko modu baten krisia bihurtu dute krisi hau. Koro Navarro

Bere esanetan, **«ziurgabetasun** instituzionalak» inbertsioak atzera egitea eragin du. Berria - Euskal Herria

Kanpoko ordainketen oreka segurtatzen uzten zaio truke-tasari, trukeen prezioen gaineko **ziurgabetasun** gero eta handiago baten ordainetan. Koro Navarro

Ez zegok inolako **ziurgabetasunik** !, zoria hire alde ateratzen bada, irabazi ikaragarriak hiretzat. Jose Morales

**3** (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

25 urteko autonomiaren ondoren, **ziurgabetasun** epe bat ireki da. Berria - Euskal Herria

**Ziurgabetasun** -aire ia errukarriaz, tximinia-erlaitzerantz hurbildu zen, loreontzi japoniar bat altxatu zuen eta huraxe eskuetan zuela egon zen zutik, gelaren ingurumariari urrikalgarri so egiten ziolarik. Mirentxu Larrañaga

Ez da bidezkoa pertsona bat bospasei urtez **ziurgabetasun** egoeran edukitzea. Berria - Mundua

Werner Eisenberg fisikariak **«ziurgabetasun** printzipioa» plazaratu zuen. Berria - Harian

Gertaera horiei dagokienez gauza jakina baita, Heisenberg-en **ziurgabetasun** -erlazioez geroztik, behatzaileak bertan egonez besterik gabe aldatzen dituela. Josu Zabaleta

Jarduera ekonomikoa **ziurgabetasun** eta arrisku esparru batean garatzen dela. Itziar Eizagirre / Amaia Lizarralde

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
> **ziurgabetasun egoera** (6); **ziurgabetasun egoerak** (3); **ziurgabetasun handia** (6); **ziurgabetasun handia sortzen** (3); **ziurgabetasun handiko** (3)

---

# **ziurge** *adlag* ziurtasunik gabe.

Ilargi gaztea, artean lausorik, han alderrai ibiltzera dator, **ziurge** . Juan Garzia

---

# **ziurki** *adlag* ziur.

Arestian galdetu dizudana **ziurki** eta ongi jakintzat daukazularik [...] esadazu arren eta labur-labur ea orain esatea komeni ote den Jaungoikoak emana aitortzen duguna ez zigula eman behar. Imanol Unzurrunzaga

Aurretik badakit, erabat **ziurki** , dioen hori ez duela inolaz ere lortu. Ibon Uribarri

Ezin traketsago, **ziurki** . Joan Mari Irigoien

Etorkizun ezezagun baina gertu eta **ziurki** trajiko baterako prestatzea. Juan Garzia

Ezinezkoa da **ziurki** baiestea Enpedoklesek maite zuela, baina gupida izan zuen behintzat Panteaz. Juan Garzia

---

# ziurraski ik **ziur 7**.

---

# **ziurretsi**, ziurtets, ziurresten du *ad* ziurtzat jo.

**Ziurretsirik** dago errendituta daukala dantzaria, jauregira eramango duela ikuskizuna amaitu bezain aise, lihozko maindireen artean elkar maitatzen erreko dutela gaua... Anjel Lertxundi

Dolcinok ez zuen ezarri ez arau ez ordenarik, **ziurretsirik** baitzegoen halaxe zela apostoluen dotrina, eta gauza guztiek karitatez behar dutela. Juan Garzia

Orduko jendea **ziurretsita** zegoen erantzun egokia emango ziela zientziak, lehentxeago edo geroxeago, gizakia arduraturik daukaten auzi guztiei. Juan Garzia

---

# **ziurtagabe** *izond* ziurtatu ez dena.

Ahoz aho dabilen albiste edo berri **ziurtagabea** . Bernardo Atxaga

---

# **ziurtagiri** **1** *iz* adierazten duena egia dela ziurtatzen duen agiria. ik **sinestamendu**.

Ordezkariaren izena, George McAlpin, paper eta **ziurtagiri** guztietan ageri zen. Iban Zaldua

Hiru zertifikapen edo **ziurtagiri** eskuratuak ditu ADA altzairutegiak azken hilabete hautan. Herria

**Ziurtagiri** bat eman diezaiola eskatu eta Hilversum-eko udaletxera eraman **ziurtagiri** hori. Josu Zabaleta

Izena idatzi eta **ziurtagiria** eman zion eskura. Joxemari Urteaga

Faboretxoa zor dit iaz moldatu nizkion **ziurtagiri** batzuen kontura. Josu Landa

**Ziurtagiria** hartu al duzu? -galdetu zion bezeroari, mostradore gaineko txartela seinalatuz. Joxemari Urteaga

Kugler jauna sendagilearen **ziurtagiriari** esker lan behartuetatik libre geratu da. Josu Zabaleta

Lehenengo eta bigarren mailako azterketa gainditzen dutenek Kultura Sailaren **ziurtagiria** jasoko dute. Berria - Euskal Herria

**Ziurtagiria** hautsi nuen. Joseba Urteaga

Lortutako emaitza onengatik urrezko Q **ziurtagiria** eta Euskalit Fundazioaren bigarren saria jaso dituzte. Berria - Euskal Herria

ISO **ziurtagiria** jaso dute Bizkaiko bost hondartzak. Berria - Euskal Herria

Dagoeneko baditugu gurean ISO 9000 **ziurtagiria** duten gozo-denda edo komentuak. Iñaki Heras

EMAS **ziurtagiriak** MCCko Fagor, Maier eta Danobatentzat. Berria - Ekonomia

Ontziak babesteko Nazioarteko **Ziurtagiria** lortzeko ere zerga pagatu beharko dute ontzijabeek. Berria - Ekonomia

Urte bat eterdiren lanaren ondotik, 2003ko ekainaren 6an lehen aldikotz herri mailan 27 gizarte eragilek Bai Euskarari **Ziurtagiria** eskuratu dute. Herria

**Ziurtagiriok** baliokidetu ahal izateko Administrazioan, Ertzaintzan, Osakidetzan eta irakaskuntzan. Berria - Euskal Herria

2007an eskuratuko lukete azken sei herrialdeek gaitza desagertu delako **ziurtagiria** . Berria - Gaiak

**2** (izenondo eta izenlagunekin)

**Ziurtagiri** faltsuarekin, jakina. Joan Mari Irigoien

Atxilotuei 1.200.000 euroko iruzurra leporatu diete, Microsoft enpresaren Windows XP Professional produktuaren **ziurtagiri** faltsifikatuak emateagatik. Berria - Euskal Herria

Tratu txarren ondorioz hildakoak heriotza naturalez hil zirela zioten **ziurtagiri** gezurrezkoak egin zituzten. Berria - Mundua

Gauza jakina da ez dagoela **ziurtagiririk** arruntena [...] lortzerik zenbaiten borondatea aurretiaz irabazi ezean. Jose Morales

Kalitate **ziurtagiri** propioa. Berria - Euskal Herria

**3** (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa)

Eusko Jaurlaritzak Gipuzkoan egin behar dituen lanei dagokien kostua aurreratuko badu ere, gero Espainiako Administrazioari eman beharreko Kupotik kenduko du, «betiere kasu bakoitzeko obra **ziurtagiriak** aurkeztu eta gero». Berria - Harian

Gaixoak erraustu ostean, normalean, beste mediku batek sinatu behar du heriotza **ziurtagiria** , prozesua legezkoa izan dadin. Berria - Gaiak

Ingelesaren gainean zeukaten ezagutza maila ontzeko eta, honi lotuta, baita ere, irakasle- **ziurtagiria** eskuratzearren. Josetxo Azkona

Ikusi nuen Abdul Raman nire irakaslea zetorrela, eskuan paper-bilkari bat zekarrela: nire eskola-**ziurtagiria** zen. Juan Kruz Igerabide

Bilera hartara lagun espezialista batek sinatutako osasun-**ziurtagiriarekin** joan nintzen. Joan Mari Irigoien

Orain artean Gipuzkoan ia zortzi hilabete itxaron behar izaten zuten eskatzaileek egokitasun **ziurtagiria** jasotzeko. Berria - Harian

N. sendagileari deitu nion telefonoz eta egiaztatu zidan haurdun nengoela eta haurduntasun-**ziurtagiria** bidaliko zidala esan zidan. Joseba Urteaga

Behartsu **ziurtagiria** ekarri behar dute, gainera, beren auzoko polizia komisarioak emana. Josu Zabaleta

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
>
> **kalitate ziurtagiri** (4)
>
> **bai euskarari ziurtagiria** (33); **egokitasun ziurtagiria** (7); **ziurtagiria eman** (4); **ziurtagiria eskuratu** (3); **ziurtagiria lortu** (9); **ziurtagiria lortu duten** (3); **ziurtagiria lortuta** (3); **ziurtagiria lortzeko** (10)
>
> **bai euskarari ziurtagiriak** (7); **kalitate ziurtagiriak** (3); **ziurtagiriak lortzeko** (3)
>
> **bai euskarari ziurtagiriaren** (8)

---

## ziurtagiridun *izond* ziurtagiria duena.

Sara izan ginuen Iparraldeko lehen herria Bai Euskarari **ziurtagiriduna**. Herria

---

## ziurtamen *iz* ziurtatzea; zerbait ziurtatzen duen agiria.

Eta bilduma preziatu hura nire sakelatik atereaz: "Hona", erran nion, "zure adiskidantzaren **ziurtamenen** gordailu engainagarria". Jon Muñoz

**Ziurtamen** hori ukanik ere ez dute onartu Bidart baldintzapean aske uztea. Berria - Euskal Herria

---

## ziurtapen *iz* ziurtatzea. ik **ziurtamen**.

Ordutik ezkero hainbatetan bezalaxe, munduan krudelkeria nagusi zelako **ziurtapena** areagotu, indartu eta zabaldu egin zitzaion barnean. Felipe Juaristi

Nola San Frantziskori jaiera handia zion zaldun noble batek San Frantziskoren heriotzaren eta zaurien **ziurtapena** lortu zuen. Askoren artean

Emaile horiez gain erresuma osoko hainbat handiki ageri da bertan, bere lekukotasunaren **ziurtapena** eskainiz. Xabier Mendiguren Elizegi

-Agian hondatu egingo zen dinamoa, besterik gabe -Agustinak orduan, besteei begira haien aurpegietan bere hitzen **ziurtapena** aurkitu nahian. Aitor Arana

Irabazi-kostu kalkulua eginik "etika errentagarria" delako ezartzen dituzte etikarekin eta erantzukizun sozialarekin zerikusia duten ekimenak (aurrerago ere aztertuko ditugun barne jokabide kodeak, **ziurtapen** prozesuak, inbertsio funts etikoak, etiketa sozialak, eta abar). Iñaki Heras

---

## ziurtasun 1 *iz* ziurra denaren nolakotasuna, duda edo zalantzarik eza. ik **segurtasun 8**.

Zalantzaren eta **ziurtasunaren** artean ez zegoen erdibiderik. Rafa Egiguren

Uste hau **ziurtasun** bihurtzea nahi nuke. Karlos Linazasoro

Bertze bat -Ximurra- **ziurtasun** eta susmo gaiztoenek pipiatua. Aingeru Epaltza

Munduaren eta egia matematikoen **ziurtasuna**. Imanol Unzurrunzaga

Ez du sekula fedeak izanen jakintzaren zehaztasunik ez **ziurtasunik**. Piarres Xarriton

Betiko bizitza zoriontsuaren **ziurtasuna** izango dutela. Askoren artean

Onargarritasun subjektiboak uste osoa izena du (niretzat), objektiboak **ziurtasuna** (edonorentzat). Ibon Uribarri

Gizarte ikaratuak **ziurtasuna** bilatzen du; gizarte zeharo ikaratuak, zeharoko **ziurtasuna**. Joxe Azurmendi

Ezagutza egiazkoaren (**ziurtasunaren**) bermea arrazoimen hutsean dago. Askoren artean

Horixe bera zen ni aztoratzen, artegatzen ninduena, eta nire **ziurtasuna** nolabait ahultzen zuena. Urtzi Urrutikoetxea

Nik oso argi ikusten dut zientzia guztien egiaren **ziurtasuna** Jainkoaren egiaren ezagupenean datzala. Askoren artean

Frogak ezagutzen direnean eta delituaren **ziurtasuna** dagoenean. Juan Martin Elexpuru

Zuei dagokizuenez, guk agindutako guztia egiten duzuen **ziurtasuna** ematen digu Jaunak. Elizen arteko biblia

Baita berak erakusten zuen **ziurtasuna** ere: agurtzerakoan emandako musua, besotik heldu izana. Bernardo Atxaga

Norbere buruarekiko **ziurtasuna** eta sortzeko gaitasuna dira, azken baten, hizkuntza jakitearen ezaugarria. Koldo Zuazo

Lajos asaldatu egin zen hitz haiekin, **ziurtasuna** galdu zuen. Ander Irizar

Zalantzatik **ziurtasunera**: Jenio Maltzurraz harantzago. Askoren artean

-Hori dela eta, etxebizitza bat alokatu zuen Oviedon -jarraitu zuen O-k istorioaren bukaera ondo dakienaren **ziurtasunaz**-. Bernardo Atxaga

Orain hemen judizioen **ziurtasunaz** ari baikara objektuei dagokienez, eta ez gure adigai beren jatorriaz. Ibon Uribarri

Genoako Kapituluak erabaki zuen "anaiek idatziz bidal ziezaiotela Ministro jeneralari San Frantziskoren bizitzaz eta mirariez **ziurtasunez** zekiten guztia". Askoren artean

Adigai hauen anfibologiaren kausa iruzurtiaren argiketak onura handia du adimenaren mugak **ziurtasunez** determinatzearren eta segurtatzearren. Ibon Uribarri

-Itsasoa -bilobak, **ziurtasunez**, erantzun. Patxi Zubizarreta

Ez zen jakin-mina, **ziurtasunezko** itxarote moduko zerbait baizik. Monika Etxebarria

Ebidentziarainoko **ziurtasunarekin**. Joxe Azurmendi

**Ziurtasunik** eza ez zagon gauzetan, gure buruan baizik: **ziurtasunik** eza ezjakintasuna dun. Jon Muñoz

Gogoko ninduelako **ziurtasuna** izan nuen, ongi sentitzen zela nire ondoan, eta bi zerbezek sentiberatasuna areagotu ziotela. Ramon Saizarbitoria

Udaberriak hotza uxatzean, problema ebaztea lortuko zuelako **ziurtasuna** izan zuen bat-batean Abelek. Jon Muñoz

**Ziurtasunik** gabe begiratzen zien Stephenek arrautza egosiei. Xabier Olarra

Pronostikoak **ziurtasunik** gabea izan behar zuen. Xabier Olarra

Galduko ez den oroitzapena da, itzala bezalakoa, lausoa, aldakorra, zehazgabea, **ziurtasunik** gabea, eta itzala bezalakoa, orobat, itzalaz bezala hartaz ere ez bainaiz libratuko nire arrazoiaren argitasunak dirauen artean. Koro Navarro

Gizaki huts garenon gogoetak kaxkarrak dira, gure ideiak **ziurtasun** gabeak. Elizen arteko biblia

Urri bezain **ziurtasun** gabeak dira gure organoek ematen dizkiguten berriak. Josu Zabaleta

Enpresaburuen munduak **ziurtasunak** nahi ditu; hots, ongizate eta enplegua sortzen jarrai dezagun egoera egonkorra behar dugu. Berria - Ekonomia

**Ziurtasun** guztiak zalantzan jartzen ditu. Josu Zabaleta

**2** (izenondo eta izenlagunekin)

Uste osoa ez da **ziurtasun** logikoa, morala baizik. Ibon Uribarri

Honi silogismo aritmetikoa esaten zaio, zeinean, logika eta aritmetika konbinatuz, **ziurtasun** bikoitza lortzen dugun eta bi aldiz zoriontsu egiten garen. Xabier Olarra

Tarte luze baten ondoren itzuli zen handik, arestian baino **ziurtasun** handiagoz. Jon Muñoz

Gero, **ziurtasun** handirik gabe bezala-: Triangelu bat da, triangelu isoszeles bat... Xabier Olarra

Etorkizunari **ziurtasun** minimo batez begiratzeko aukera. Berria - Kultura

Elizaren artzain honek fede eta **ziurtasun** osoz ezagutzen zuen Frantziskoren santutasun miragarria. Askoren artean

Guztiak osotara **ziurtasun** osoaren gai badira ere, lehenengoek **ziurtasun** intuitiboa duten heinean, bigarrenek, berriz, diskurtsiboa besterik ez duten bitartean. Ibon Uribarri

**Ziurtasun** apodiktiko (filosofiko) ororen izari-araua. Ibon Uribarri

**Ziurtasun** morala, estu hartuta, probabilitate bat besterik ez dela pentsatzen duenari, desegin egingo zaio paradoxa. Juan Martin Elexpuru

**Ziurtasun** galdua azkar berreskuratzeko. Joxe Azurmendi

Dudarik gabe barkatuko diozu ama bati ondo gostarik baizik ez men egitea **ziurtasun** izugarri horri. Jon Muñoz

Edozein kasutan, aipaturiko **ziurtasun** horrek ondorio garbiak ditu. Iban Zaldua

Ni **ziurtasun** oinarrizkoaren edo naturalaren aldeko naiz, zalantzarik gabe. Jenaro Garate

Hori ez dago sekula **ziurtasun** erabatekoz jakiterik. Karlos Linazasoro

Zeruko gorputzen higiduren lege nagusiek erabateko **ziurtasuna** eman zioten Kopernikok hasieran hipotesitzat soilik hartu zuenari. Ibon Uribarri

Gutxieneko **ziurtasun** juridikoa. Berria - Ekonomia

-Nolabaiteko **ziurtasun**... fisikoa daukat. Monika Etxebarria

Ordu arte imajinatu, hamaika aldiz imajinatu nuen, baina inolako **ziurtasunik** gabe, noski. Iban Zaldua

Halako **ziurtasuna** erakusten zuen, non aztoraturik uzten baitzituen ingurukoak. Jon Muñoz

Gure lanak ehuneko 99,99ko **ziurtasuna** eskatzen du. Ramon Saizarbitoria

%99ko **ziurtasunarekin** esan daiteke erasoaren egilea edo egileak ETAko kideak zirela. Berria - Euskal Herria

## 3 (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

**Ziurtasun** espresioa eta erakarpen ero hura. Aritz Gorrotxategi

Biblia, Croce, geometria, fisika, **ziurtasun**-iturri begitantzen zitzaizkigun. Juan Garzia

Ardi eta txahal inozo galantak, horretan bilatzen dutenak **ziurtasun**-bermea. Juan Garzia

Orain arte Metafisikak **ziurtasun**-ezaren eta kontraesanaren hain zalantzazko egoeran iraun izana. Ibon Uribarri

Aski da pazientziaz eta ulergarritasunaz **ziurtasun**-ez hartatik askatzea. Karlos Zabala

Ezin onartu zuen Agustinek segurtasun gabezia hori, **ziurtasun** falta hori. Imanol Unzurrunzaga

Iraultzan bereganatu zuen **ziurtasun**-irudia. Askoren artean

Ezagutzaren jatorriari edota objektuen ezberdintasunaren araberako zenbait **ziurtasun**-motari buruzko atal metafisikoak. Ibon Uribarri

**Ziurtasun** maila hizkuntza berreraiketetan. Isabel Arrigain

## 4 (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa)

Bere giza **ziurtasun** naturalaz behin-behineko abstrakzioa egin eta arrazoimenaren ezagutza ahalmenei buruzko azterketari ekitea. Jenaro Garate

**hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**

**ez dago ziurtasun** (4); **ziurtasun apodiktikoa** (6); **ziurtasun apodiktikoaren** (3); **ziurtasun eza** (10); **ziurtasun eza da** (3); **ziurtasun ezaren** (5); **ziurtasun falta** (4); **ziurtasun gabeak** (3); **ziurtasun handia** (7); **ziurtasun handiagoa** (3); **ziurtasun handiagoz** (4); **ziurtasun handirik** (3); **ziurtasun handirik gabe** (3); **ziurtasun handiz** (4); **ziurtasun maila** (3); **ziurtasun natural** (3); **ziurtasun naturalaz** (3); **ziurtasun osoa** (17); **ziurtasun osoz** (52); **ziurtasun osoz eroriko** (3); **ziurtasun osoz esan** (3); **ziurtasun osoz esaten** (3); **ziurtasun politikoa** (3)

**buruarekiko ziurtasuna** (4); **erabateko ziurtasuna** (6); **konfiantza eta ziurtasuna** (11); **zelako ziurtasuna** (3); **ziurtasuna eman** (8); **ziurtasuna ematen** (10); **ziurtasuna ematen digu** (4); **ziurtasuna izan** (9); **ziurtasuna izango** (5); **ziurtasuna izango du** (3)

**erabateko ziurtasunez** (5); **ziurtasunez esan** (5)

**erabateko ziurtasunik** (3); **ez dago ziurtasunik** (3); **inolako ziurtasunik** (4); **ziurtasunik eza** (13); **ziurtasunik ezaren** (3); **ziurtasunik gabe** (10); **ziurtasunik gabea** (3); **ziurtasunik gabeko** (5)

---

# ziurtatu *(2690 agerraldi, 169 liburu eta 1634 artikulutan; orobat* ***zihurtatu*** *g.er.)* , ziurta, ziurtatzen **1** du *ad* ziurtasunez edo zalantzarik gabe (zerbait) esan; ziurtasunez ikusi edo egiaztatu. ik **egiaztatu; segurtatu**.

Bai -**ziurtatu** zion emazteak-. Mirentxu Larrañaga

-Hemen da -**ziurtatu** zuen Taniak. Jon Muñoz

-Euria egingo du, On Camillo -**ziurtatu** zion Kristok-. Koldo Biguri

-Kabituko gara, jauna -**ziurtatu** zioten. Julen Gabiria

Jarraian afaria aipatu nien, eta **ziurtatu** zidaten beharrezko neurri guztiak hartuko zituztela, laster egiaztatu nuen moduan. Urtzi Urrutikoetxea

Alemania Federaleko ikertzaileek **ziurtatu** dute gizonengan esterilizazioa eragiteko modua aurkitu dutela, haien osasunean edo libidoan kalterik sortu gabe. Luis Elberdin

Bisirra ere kexuka joan zitzaion erregeari, eta printzea zinez eroturik zegoela **ziurtatu** zion. Patxi Zubizarreta

Bi lekukoen aurrean **ziurtatu** zuen notarioak hamar urte lehenago [...] berak lakratutako gutun-azal bera zela, de cujusen aginduz haren etxera testamentua hartzera joan zen egunean lakratutakoa. Bego Montorio

Kontsolamendua aurki izango zuela **ziurtatu** zion. Askoren artean

Kaukaso ontzia esandako orduan aterako zela **ziurtatu** zioten. Karlos Zabala

Gure fedeak ez digu **ziurtatzen** gaurtik 25 urtera Kristau-komunitatea garbiagoa izango denik. Herria

-Nork **ziurtatuko** digu satorra zerori ez zarenik? Harkaitz Cano

Lehen ministroak **ziurtatu** dit ez duela hitz erdirik esango Blacken benetako nortasunaz. Iñaki Mendiguren

-Salerosiak oso gaizki zoazak -**ziurtatu** zuen Gavardek. Karlos Zabala

Ez uste gertakari horrek kezkatzen nauenik; lehenik arrazoi dut, neure abokatu guztiek hori **ziurtatzen** didate. Jon Muñoz

Nik, Jainkoaren partetik, **ziurtatzen** dizut, zure Ordenak azken judizioko eguna arte iraungo duela. Askoren artean

Ukituz **ziurtatzen** hasten zen erdi ikusten zuena. Xabier Olarra

Inor begira ez zuela **ziurtatu** ondoren, iturrira zuzendu zituen pauso baldar mantsoak. Aritz Gorrotxategi

Hartara, **ziurtatu** egin zuen perla zulatu gabea zela, behor estali gabea. Patxi Zubizarreta

Kontu handiz **ziurtatu** behar da zundak ez duela Lurra kutsatuko espazioko gaiekin. Berria - Gaiak

Hasan lo trinko zegoela **ziurtatu** zuelarik, gamelu gainera igo, eta iloba kutxan eraman zuen. Patxi Zubizarreta

Zerk **ziurtatuko** dit, orduan, esaten ari naizena egia dela? Jon Muñoz

Bihozberatasun eta leuntasun horiek zuzen zegoela **ziurtatzen** zioten. Karlos Zabala

Haxixik ezean zigarroak eta edaria behintzat **ziurtatu** beharrekoak dira. Xabier Mendiguren Elizegi

Gorpuan aurkituriko haziak erabat **ziurta** bailezake Ostolazaren kontakizun harrigarria. Migel Angel Mintegi

Begiek engainatu ez nindutela **ziurtatzeko**. Koro Navarro

## 2 (da aditz gisa)

Beste ezpainetakoak, berriz, pigmentu gorri bat eduki behar zuen, ongi barreiatua baina disolbaezina, eta, beraz, lekutzen ez zena: aise **ziurtatu** nintzen horretaz, bentzenotan disolbatu eta zentrifugaturik. Juan Garzia

Arretaz begiratu, eta **ziurtatu** zen gizonak ez zuela labanarik, ez eskuan eta ez inguruan: ezkutaturik eduki zezakeen, hala ere. Juan Garzia

Zer-eta Lehendakaria, Jose Antonio Agirre, Kubara datorrela **ziurtatu** da. Edorta Jimenez

**3** zerbait gertatu delako edo gertatuko delako ziurtasuna eman.

Handik aurrera **ziurtatua** zegoen txanpon landuaren etorkizuna. Iñaki Mendiguren

Hasiera batetik ESAk ez zion Beagle 2 misioari dirua **ziurtatu** . Berria - Gaiak

Hainbat mende edo milurtekotako denboraldia igaro daitekeela emaitza **ziurtatu** arte. Iñaki Mendiguren

Ikerlariak bidali zituen, Saulen etorrera **ziurtatzera** . Elizen arteko biblia

Arrakasta **ziurtatua** zegoen. Berria - Kultura

Sinesten dutela benetan giza erakunde horien hilezkortasuna **ziurtatua** dagoela. Iñaki Mendiguren

Herrialde indigenen geroa **ziurtatzeko** haurren eskubideak bermatu behar direla dio. Berria - Gaiak

Bertsolaritzaren transmisioa **ziurtatu** nahiak hauspotzen zuen ekimen berritzailea. Andoni Egaña

Hagridek atzera begiratu zuen bakarrik zeudela **ziurtatzeko** . Iñaki Mendiguren

Inork ere jo edo bortxatu ez zuela **ziurtatzearren** , hain zuzen. Oskar Arana

Dena grabatuta zegoela **ziurtatu** ondoren, sateliteko telefonoa hartu zuen, Pentagonoarekin linea zuzena lortzeko. Fernando Morillo

Bai Alemaniak, bai Estatu Batuek, batasun politikoa egina edo **ziurtatua** zutenean, 1870eko hamarraldian, protekzionismo zorrotz baten gainean egin zuten beren industrializazio-ahalegina. Koro Navarro

Metal bitxien metaketa, aurrenik, estatuaren kreditua **ziurtatzeko** eta gerra finantzatzeko bidea zen. Koro Navarro

Jana **ziurtatua** zeukaten, behintzat, hainbat egunetarako. Karlos Zabala

Jakin dut harekin komunikatzeko bideak **ziurtatzen** . Jon Muñoz

Jaunak bere Erreinua **ziurtatu** nahi izan dit niri, bere zerbitzari ezdeus naizen honi. Askoren artean

**Ziurtatua** dut bederen ezen, jauregitik partitu zenez geroztik, ezein gutunik ez dela heldu Volanges andrearentzat. Jon Muñoz

Aiete aldera edo, joan omen ziren; baina ezin du **ziurtatu** . Migel Angel Mintegi

Baina, armarik aski ez zegoenez, borrokalarien hornidura **ziurtatzeko** aukeratu ninduten. Juan Kruz Igerabide

Jainkoa unipertsonala dela, salbazioa **ziurtatua** dela giza arraza osoarentzat, eta arrazoia eta kontzientzia direla sinesterako eta praktikarako irizpidea. Xabier Olarra

Oraingo hauteskundeetan John Kerryk beltzen botoa **ziurtatua** duela dirudien arren, demokratak kezkatzen hasi dira. Berria - Mundua

**4** (era burutua izenondo gisa)

Gutun **ziurtaturen** bat denean bakarrik jotzen du atea, gainontzekoan bera moldatzen da. Joxemari Urteaga

Han, eskolan, jarri behar dira dotrina zibil egiazko eta **ziurtatuaren** oinarriak, nerabeek gero herriari erakutsi ahal diezaioten, publikoki zein modu pribatuan, han ikasitakoa. Esteban Antxustegi

Funtsean, Euskal Herriko Laborantza Ganbera izena duen elkarteak ez diio herriaren interes **ziurtatuari** erantzuten. Berria - Harian

**5** zerbait edo norbait arriskuetatik libre uztea lortu. ik **segurtatu 2**.

Hiru mastako itsasontzi handietan baitute **ziurtatua** beren altxorra. Felipe Juaristi

**hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 4 aldiz agertzen direnak)**

**aebetako armadak ziurtatu** (5); **agintariek ziurtatu** (6); **arduradunak ziurtatu** (6); **arduradunak ziurtatu zuen** (4); **ari direla ziurtatu** (4); **armadak ziurtatu zuen** (4); **atzo ziurtatu zuen** (8); **burua ziurtatu** (4)

**egingo duela ziurtatu** (8); **egingo dutela ziurtatu** (5); **egongo dela ziurtatu** (5); **erreinua ziurtatu** (4); **etorkizuna ziurtatu** (10); **ez dela ziurtatu** (7); **ez zegoela ziurtatu** (5); **ez zuela ziurtatu** (6); **ezin da ziurtatu** (6); **ezin dut ziurtatu** (4); **ezin ziurtatu** (4); **finalerdietarako txartela ziurtatu** (5); **garaipena ziurtatu zuen** (4)

**izan dela ziurtatu** (5); **izan direla ziurtatu** (5); **izan zela ziurtatu** (7); **izango dela ziurtatu** (15); **izango direla ziurtatu** (5); **jarraituko duela ziurtatu** (8); **jarraituko dutela ziurtatu** (5); **jeneralak ziurtatu** (5); **lehen postua ziurtatu** (4); **lehenbailehen ziurtatu** (4); **ministroak ziurtatu** (4)

**postua ziurtatu** (12); **postua ziurtatu du** (4); **presidenteak ziurtatu** (4); **sailkapena ziurtatu** (5); **salbazioa ziurtatu** (10); **txartela ziurtatu** (13); **txartela ziurtatu zuen** (6)

**ziurtatu ahal izan** (7); **ziurtatu ahal izateko** (8); **ziurtatu arte** (13); **ziurtatu behar** (47); **ziurtatu behar du** (7); **ziurtatu behar dugu** (10); **ziurtatu beharko** (13); **ziurtatu digu** (4); **ziurtatu dio** (8); **ziurtatu dit** (5); **ziurtatu du** (196); **ziurtatu duenez** (7); **ziurtatu dute** (75); **ziurtatu dutenez** (5); **ziurtatu eta gero** (8); **ziurtatu ezean** (5); **ziurtatu gabe** (7); **ziurtatu nahirik** (5); **ziurtatu nion** (6); **ziurtatu nuen** (4); **ziurtatu ondoren** (20); **ziurtatu ostean** (4); **ziurtatu zidan** (7); **ziurtatu zien** (12); **ziurtatu zion** (25); **ziurtatu zioten** (4); **ziurtatu zuen atzo** (43); **ziurtatu zuenez** (15); **ziurtatu zuten atzo** (4)

**ia ziurtatua** (4); **lehen postua ziurtatua** (5); **tokia ziurtatua** (4); **ziurtatua dago** (4); **ziurtatua du** (17); **ziurtatua duela** (4); **ziurtatua dute** (11); **ziurtatua izango** (7); **ziurtatua zuen** (4)

**salbazioa ziurtatuko** (5); **txartela ziurtatuko** (5); **ziurtatuko litzateke** (4); **ziurtatuko luke** (7); **ziurtatuko zuen** (4)

**ia ziurtatuta** (9); **salbazioa ziurtatuta** (7); **ziurtatuta dago** (7); **ziurtatuta dagoela** (5); **ziurtatuta izango** (5)

**ziurtatuz gero** (6)

**etorkizuna ziurtatzea** (7); **garapena ziurtatzea** (4); **presentzia ziurtatzea** (4); **salbazioa ziurtatzea** (4); **ziurtatzea da** (14); **ziurtatzea izan** (4); **ziurtatzea izango da** (4)

**betetzen direla ziurtatzeko** (4); **biziraupena ziurtatzeko** (5); **dela ziurtatzeko** (19); **etorkizuna ziurtatzeko** (12); **ez dela ziurtatzeko** (4); **ez zegoela ziurtatzeko** (4); **ez ziurtatzeko** (4); **geroa ziurtatzeko** (10); **hirugarren postua ziurtatzeko** (4); **hornidura ziurtatzeko** (4); **iraupena ziurtatzeko** (9); **lantegiaren etorkizuna ziurtatzeko** (4); **postua ziurtatzeko** (10); **sailkapena ziurtatzeko** (5); **salbazioa ziurtatzeko** (4); **segurtasuna ziurtatzeko** (8)

**ziurtatzeko aukera** (12); **ziurtatzeko behar** (6); **ziurtatzeko eskatu** (5); **ziurtatzeko neurriak** (4)

**arrakasta ziurtatzen** (5); **egonkortasuna ziurtatzen** (4); **ez du ziurtatzen** (7); **garaipena ziurtatzen** (5); **nork ziurtatzen** (7); **txartela ziurtatzen** (5); **ziurtatzen da** (4); **ziurtatzen die** (5); **ziurtatzen dizut** (6); **ziurtatzen du** (35); **ziurtatzen duen** (10); **ziurtatzen dut** (6); **ziurtatzen dute** (12); **ziurtatzen duten** (9); **ziurtatzen zion** (4); **ziurtatzen zuen** (8); **ziurtatzen zuten** (7)

---

## ziurtatzaile *izond* ziurtatzen duena.

Gizarteak izan behar du, eta ez bakoitzaren aldarteak, horniduren banaketan berdintasunaren **ziurtatzaile** . Josu Zabaleta

---

## ziurtatzearren *adlag* ziurtatzeko.

Naturak halaxe jokatzen du beti nonahi: gain-ekoizpena, espeziearen biziraupena **ziurtatzearren** . Joxe Austin Arrieta

---

## ziurtatzeke *adlag* ziurtatu gabe.

**Ziurtatzeke** dago zenbat ziren ekintzaileak. Berria - Mundua

Dena den, datu hau **ziurtatzeke** dago eta ez da baztertzen hondakinen artean gorpu gehiago egotea. Berria - Mundua

---

## ziurtu, ziur(tu), ziurtzen du *ad* ziurtatu.

Egia da hauteskunde hauetan jokoan dagoena ez dela aurrekoetan bezain garrantzitsua eta EAJk **ziurtuta** duela aulkia Europako Parlamentuan. Berria - Euskal Herria

Tira, beste bat sartzen badu ia **ziurtuta** izango du sailkapena. Berria - Kirola

---

**ziurxeago** *izond* apur bat ziurragoa.

Egin dezagun esperientzia bat, hobexeagoa edo **txarxeagoa**, baina gure esparruan, modu errealistan, bere ametsa eta bere koherentzia propioa izango duena. Iñaki Heras

---

ziutadela ik **zitadela**.

---

**ziutate** *(orobat **ziudade** g.er.) iz* hiria.

Luzeegi litzateke gero handik Perzepolizera arribatzeko trebesatu behar diren **ziutate** eta hiri guzien izendatzea eta deskribatzea. Aurelia Arkotxa

Periferia hiria biltzen duen inguru habitatua da, nolabait esateko, **ziutatearen** alderdi amaitugabea. Iñigo Aranbarri

Geth da **ziutate** bat miresgarria, Persiako erregek baditu han baratze ezin sinetsizkoak, mila iturriz urtatuak, zuhaitz ederrek beren itzalekin gerizatzen dituztenak. Aurelia Arkotxa

Herriaren arazoak edo, grekoek zioten bezala, arazo "politikoak" argitzen baldin baditugu gure **Ziutatean**, ikasiko dugula, bide batez, Munduaren edo "Kosmopolis"aren arazoei buru egiten? Piarres Xarriton

---

**ziza** **1** *iz* perretxikoa; eskuarki *Tricholoma, Lyophyllum* eta *Rhodapaxillus* generoetakoa.

Begira, etxekoandre, gaur berean hartuak dira, zuk badakizu zer lanak ematen dituzten **zizek**... Pello Lizarralde

Bibotedunak fardeltxoaren korapiloa laxatu du eta **zizen** lurrina istantean hedatu da. Pello Lizarralde

Joxe Abeli batere jaramonik egin gabe hasi da **zizak** jaten, hozkada ttikitan, ahogozatuz. Pello Lizarralde

Galdu... **zizatara** joaten diren aitonak galtzen dituk. Pablo Sastre

Udaberriko lehen **zizak** garbantzuak balira bezala bil daitezke, baina lur zati horrek bizpahiru urtetan emankortasuna galtzen du. Berria - Euskal Herria

Sastrakaz sastraka egin zuten bidezidorretan gora, alde batera zein bestera noiznahi zabalduz **zizak** bilatzen ari bailiran. Bernardo Atxaga

Adiskide hura txerpolari iruzurti bat zen, paraje haietan **zizak** bezala ugaldutako italiar jende klasea. Fernando Rey

Sabino Aranak 1897an *Deun-ixendegi euskotarra* sortzean, erdarazko *Pastor* izenaren ordezko hartu zuen *Unai,* eta geroztik udaberriko **zizak** bezala ugaldu da gure izendegian. Patziku Perurena

**2** (hitz elkartuetan)

Epel dago gaua, eta autoaren leihotik **ziza** usaina heldu da, eta belarrarena. Alberto Barandiaren

Gero eta **ziza** biltzaile gehiago dago, baina zizen kopurua eta zizen barietatea beheraka doaz etenik gabe. Berria - Kultura

· Apiril honek badizu beste ezaugarri fin askoa ere: sasoi honetan plazara ohi dena eta garesti ordaintzen dena, udaberri-**ziza** edo xuxa leun gozo finen lurrin eta bixtaren zoria. Pello Zabala

Helbidea, azken hamarkadan larrazken-**zizak** bezala hiriaren inguruan loratu diren auzo berrietariko batean. Aingeru Epaltza

**3** ***ziza hori*** *(corpusean **zizori** soilik)*

Eta handik berehala apaizak eta fraideak **zizoriak** bezala sortu ziren (eta haiekin misterio, himnoak, eztabaida latzak eta amairik gabekoak). Xabier Olarra

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
> **zizak bezala** (3)

---

**zizai** *iz*

Harritzeko da goizetik arratserat zenbat har, **zizai** eta ulitxa kalitzen eta garbitzen duen! Patziku Perurena

---

zizailu ik **zizeilu**.

---

**zizaka** *adlag* zezelka.

**Zizaka** eta zezelka hitz egin zion biharamunean kalean zehar egingo zuen osteratxoaz. Mirentxu Larrañaga

Agian **zizaka** eta ezinean hasiko zela espero nuelako. Anjel Lertxundi

"A zera, jaun hori, etxean bizi dena", arretarik gabe **zizaka** ni. Eduardo Matauko

-Nik, zera... nik... -Lockhartek **zizaka**. Iñaki Mendiguren

-Ene, mozkor-mozkor eginda nago! -esan zuen **zizaka** Ruthek-. Lopez de Arana

-Zuk baino hamaika aldiz gehiago balio dut, Malfoy -erantzun zion **zizaka**. Iñaki Mendiguren

-Egia... egia da? -galdetu zuen McGonagall andereñoak **zizaka**-. Iñaki Mendiguren

Argia piztu eta, bi maitale harrituen aurrean, bien izenak ahoskatu zituen Ayalak **zizaka**: Miriam!, Rosa!! Aritz Gorrotxategi

Baina orduan **zizaka** hasi zen zalantzaz. Iñaki Mendiguren

Tupustean, min edo gorrotozko hasperena atera zitzaion hortzen artetik **zizaka**. Agustin Otsoa

Totelka eta **zizaka** azalpenak eman nahi izan zizkion Harryri jaramonik egin gabe. Iñaki Mendiguren

---

**zizakari** *adlag* zizaka hitz egiten.

Jimmy lotsagorritu eta berriro eseri zen **zizakari**. Lopez de Arana

---

**zizakatu**, zizaka(tu), zizakatzen du *ad* zezelkatu.

Eta **zizakatzen** ikusi zituen, hotsik irteten utzi gabe baina. Juan Garzia

-Ez egin negarrik, jauna - **zizakatu** zuen-. Agustin Otsoa

---

**zizare** *(orobat **txitxare** g.er. eta **zizari** g.er.) iz* **1** eraztun modukoez osaturiko gorputza duen animalia txikia, berez lurpean bizi dena; eskuarki *Lumbricus terrestris* motakoa.

Bertagotik aztertzen hasi eta atzamar artean desegin zitzaidanean, izaki biziduna zela ohartu nintzen, **zizarea** zela, edo harra, edo horrelako zerbait. Bernardo Atxaga

**Zizare** batek adina gene ei dauzkagu, baina haren aldean organismo konplexua da gurea. Berria - Gaiak

**Zizare** batek badu borondatea eta adimena, bizitzeko gogoa, gizonak adina; ahal duen adina egiten dio aurre heriotzari. Josu Zabaleta

Hosto lehor batean ageri den **zizare** baten arrasto ia ikusezina. Juan Kruz Igerabide

Edozein arrantzalek daki ekainaren lehenengo egunetan ez dela amuan jartzeko **zizare** nahikorik egoten inon. Hasier Etxeberria

Materia organikoa eta **zizareak** ontzira botatzen dira, **zizareek** materia jaten dute eta humusa sortzen. Berria - Euskal Herria

*Caenor habditis elegans* deritzon **zizarea** oso garrantzitsua izan da. Berria - Gaiak

Birigarroren bat, goroldiotan edo lur umeletan, **zizareari** mokoz tiraka sumatzen bazuen, [...]. Pello Zabala

Apirila zen, eta udaberrian **zizareak** lur azalera irteten ziren. Juan Kruz Igerabide

Lurretik irteten ziren **zizareei** gatza botatzen zitzaienean, haiek bihurrikatu egiten ziren, gelditu gabe, narrasti-dantza batez. Juan Kruz Igerabide

Bakardadearen mamu galanta zegoen kizkurturik eta irentsi egin ninduen, zurp, urreburuak **zizarea** bezala. Hasier Etxeberria

Errota zaharraren ondokoan, oiloak zebiltzan atarian batera eta bestera, **zizare** bila bezala. Bernardo Atxaga

Nahi baduzu, **zizare** bila joan gaitezke. Itziar Otegi

Izan ere, **zizarea** axaletik gertu, uraren eta bustiaren pregoitzat hartzen zen beti. Pello Zabala

**Zizareak** ihesi doazela pentsatzen du arrainak, harrapatu eta konfiantza osoz irensten ditu. Itziar Otegi

Zure senarra izurrite batean hil zen, eta honezkero jan diote sudurra **zizareek**. Koro Navarro

Mendi soilduak ikusten nituen, ibaiak **zizarez** beterik eta zerua napalm bonbaz estalia. Juan Kruz Igerabide

-**Zizarez** betetako arroza ematen zieten, eta usain txarreko okela. Karlos Zabala

**2** (izenondo eta izenlagunekin)

Soinean aurkitu zizkioten zomorroen zerrenda ez zen oso luzea: bi *Musca argentea*, lau izain, bi **zizare** arrunt txiki eta *Fibula rododendris izeneko* har bat. Hasier Etxeberria

**Zizare** arra **zizare** emea bizi den zulorantz abiatzen da, geratzen zaizkion indar apurrek bultzatuta. Hasier Etxeberria

Uda baino lehen, **zizare** arrak neurri gabe gizentzen hasten dira. Hasier Etxeberria

Larre-pentzeak zehar-argitan, sarale-metak eguzki-argitan gorri, eta artalde bat oihan-ertzeko sakonune harri-kozkortsu batean: **zizare** zuriak iduri! Joxe Austin Arrieta

**Zizare** gotorra zapatetan bihurdikatzen zitzaion, laster beste bizpahiruk segitzen ziotela. Itxaro Borda

**Zizare** osoak, biziak eta ur-hondoan uzkurtu eta luzatu ibiltzen diren horiek erabilita ez bada, ez da arrain ederrik harrapatzen. Itziar Otegi

**Zizare** hautsiak ez du ezertarako balio. Itziar Otegi

Padre aitzur txikiarekin lurra iraultzen ari zen erreka inguruetan, arrantzarako **zizareen** bila. Jon Maia

Merkantzia-tren bat ikusi zuen Kingsbridge geltokitik sigi-saga irteten, **zizare** buru-gartsu bat bezala, temati eta ekinez, ilunpetan sigi--saga. Irene Aldasoro

**3** (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

Txerrian beste espezie bat, hots, **zizare** gene bat sartu dute eta honek omega 3 motako gantza sortzea ahalbidetzen dio txerriaren metabolismoari. Berria - Gaiak

Izenik aipatzeke, Simon Azkue egiazko jainko txiki bat dela adierazi nion, bere **zizare** erreinuaren gainetik. Hasier Etxeberria

-Infernuko **zizare**-bazka! Aingeru Epaltza

Jaioberria kotoien artean emeki-emeki iraulkatu zen, **zizare**-pilo baten gisan. Lopez de Arana

Arrantzarako **zizare**-hornidura gordetzen du bertan. Itziar Otegi

Begiratu eta **zizare** moduko batzuk ikusi nituen, lur pusketa batean bihurrituta. Koro Navarro

**4** (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa)

Ondoezik zegoen egun batean ospitalera joan eta, analisi batzuen ostean, heste-**zizareen** inbasioa zeukala diagnostikatu zioten medikuek. Iban Zaldua

Badirudi absentak Aljeriako gerran (1830-1843) hartu zuela lehenengo aldiz geroztik galdu ez duen ospea eta sona, armada frantseseko soldaduek heste-**zizareak** hiltzeko botika bezala erabili zutenetik. J.M. Olaizola "Txiliku"

**5** irud/hed

Emakume batzuk bihozberak dira eta kontutxoak eginez ukituko dute zure hankartean burumakur eta hilik dagoen **zizarea**. Joxean Agirre

Hemen gelditukо nintzela tripetako **zizareak** jaten, lagunak nire amari koipea ematen dion bitartean?, esan zidan zakar. Anjel Lertxundi

Aitatxok esaten du gezurtiak direla unibertsoko **zizarerik** likitsenak. Sei ginebrakada edan eta hamalau bat zigarro erre ondotik, gauaren gailurra jotzen ari nintzen, hots, **zizare** ustel bat denetan porrot egina nintzela ondorioztatzeko une hunkigarria. Oskar Arana

Potzolo **zizare** ustela, telefonotik erran-merranetan, atso iharrak bezala goizeko hamaika eta erdietan. Aingeru Epaltza

Schenker doktorea tipo higuingarria zen, inolako duintasunik, inolako eskrupulurik gabeko **zizarea**. Alberto Ladron Arana

Garrasi egin zuen minbiziaren **zizarea** bularrean zeramala jakin zuenean. Jasone Osoro

**6** (irain hitz gisa)

**Zizarea**! -oihukatu zuen Sarumanek. Agustin Otsoa

-Nire zelatan ibili zara, **zizare** hori! Aingeru Epaltza

-Berriz ere ahoa zabaltzen baduk, **zizare** horrek, patatekin gosalduko diat hire mihi nazkagarri hori. Alberto Ladron Arana

Bere burua Ospitaleko Ama Etxeko aparkalekuan ikusi zuelarik lotu zitzaidan: "alua!, **zizarea**!, putakumea!". Aingeru Epaltza

Madarikatu hori, Snaga, **zizare** nazkagarria! Agustin Otsoa

**Zizare** irendua! -egin zidan oihu. Aingeru Epaltza

Sartu lokatzetan hondo-hondoraino, Peaceful, horkoxea haiz-eta, **zizare** ziztrin nazkagarria! Mirentxu Larrañaga

-Eta hik ohore hori amestu ere ezin, **zizare** alaena! Patxi Zubizarreta

**7** ***zizare belar*** konposatuen familiako belar landarea, zurtoin bigunak eta usain leuneko loreak dituena, heste zizareen aurkako egoskinak egiteko erabiltzen dena *(Artemisia abrotanum).*

Berbena-belarrez eta **zizare**-belarrez egindako koroatxoak janzten omen dituzte buruan. Pello Zabala

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
>
> **zizare belarrez** (3); **zizare bila** (3); **zizare ziztrin** (3)
>
> **zizarez betetako** (3)

---

zizari ik **zizare**.

---

**zizeilu** *(orobat **zizailu** g.er., **zizelu** g.er. eta **zuzulu** g.er.)* **1** *iz* zurezko eserleku luzea eta bizkarduna, eskuarki bizkarraren erdiko zatia mugikorra eta mahai gisa erabil daitekeena duena.

Jauntxoa **zizeiluan** jarririk egon zen, begiak supazter itzalian landaturik. Elena Touyarou

-Jar zaitez -gonbidatu zuen osabak, **zizeiluan** libro zen lekua seinalatuz. Emaztea **zizeluan** jarri zen, senarraren aldamenean, eta eskua luzatu zuen. Elena Touyarou

Alde batean taberna zegoen, pinuzko **zizeilu** luzeekin, eta barrualdean sukaldea. Koro Navarro

Publikorako ekarri dituzten elizako **zizeiluak** ere militarrez beteak dauzkate. Koldo Izagirre

**Zizeiluaren** zokotik katu argal bat atera zen tiro bat bezala. Koro Navarro

Hor Aita Saindua jarri zen bere aulkian eta Kardinaleak beren **zizeiluetan**, gibeletik zeuzkatela zutik kongregazioneko prelatuak. Piarres Xarriton

**2** *hed*

Parlamentu osoa bahiturik, parlamentariak **zizeiluen** atzean gorderik... Txillardegi

---

**zizel** **1** *iz* harria eta antzeko gaiak lantzeko esku lanabesa, altzairuzko ahoa ahoa bi aldeetatik zeharka ebaki duena eta mailuaz joz erabiltzen dena.

Hain emaitza bikaina lortzeko, nahitaezkoa da biak elkarlanean aritzea, ezinbestekoa da naturak azken ukitua ematea -bere **zizel** zorrotzarekin- gizakiaren lan astun eta sarritan alferrikakoari. Jose Morales

Behin habiaraino helduta, harginak diamantezko punta zuen **zizel** bat hartu eta, tentu handiz, arrautzaren oskola pitzatzeari ekiten zion, kumea irteten zen arte. Martin Anso

**2** (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

Mailu-kolpetxoz aurreratzen den **zizel**-punta horretatik isurtzen dira latorri merkean zehar arrastoa utziz. Iñaki Iñurrieta

Une hori harrapatzea da kontua: nola bere **zizel**-kolpetxoez diharduen, inguratzen duen jendeaz ohartu gabe. Iñaki Iñurrieta

Ingurua mailu eta **zizel** eta tornu-jiren zaratez bete zen. Julen Gabiria

**Zizel**-barraz eta mailuz urratu zizkieten tripak; eta zuloetatik urre eta zilar lingoterik itzuri zen, eta zortziko piezarik. Juan Garzia

**3** irud/hed

Horrelako idazleak [...] azalera ekartzen du mundu honetako gure izanaldi hainbatetan mingots eta gogaikarrian nonahi aurkitzen diren izaera hotz, arrunt eta xehen hondoa; **zizel** gupidagabea bere indar guztiarekin erabiliz, batere estalgarri edo leungarririk gabe erakusten ditu mundu guztiaren begien aurrean. Jose Morales

Hain emaitza bikaina lortzeko, nahitaezkoa da biak elkarlanean aritzea, ezinbestekoa da naturak azken ukitua ematea -bere **zizel** zorrotzarekin- gizakiaren lan astun eta sarritan alferrikakoari. Jose Morales

**4** ***zizel lan*** (orobat ***zizelan***) zizelez eginiko lana; zizelez landuriko gauzakia.

Bertan bizi izanaz gain, hezur eta harrietako **zizel lanak**, artean *Homo sapiens*en garaiko txirula bat. Berria - Kultura

Begiak, nolanahi ere, alferrik saiatzen ziren gelako urrutieneko bazterretara edota sabaiko ganga eta **zizel lanetara** iristen. Koro Navarro

Gazterik hasi zen **zizel lanetan**. Herria

Erakusketa asko eskuin eta ezker, margo, **zizel-lan** eta argazki. Herria

Inguruan nituen objektuak, sabaietako **zizel lanak**, hormetako tapiz ilunak, [...]. Koro Navarro

Josette Dacostaren erakusketa gunean, Zitadelako karrikan, ikusgai izanen dira Marie Helene eta Jesus Echevarriaren **zizelan** eta margolanak, apirilaren 6etik 27raino. Herria

**Zizelan** Erakusketa. Herria

**5** ***zizel obra*** zizel lana.

Jose Ramon Anda, Koldobika Jauregui eta Paco San Miguel-en **zizel-obrak**, bai-eta Luis Candaudap, Juan Luis Goenaga, Gonzalo Jauregui eta Jose Luis Zumeta-ren margolanak. Herria

Salbaikeria hasten da xehatzen dituztelarik eremaiten ahal ez dituzten gauzak, **zizel-obrak**, harri-lanak, pisuegiak direlakotz. Herria

Bruno Aizpitartek lekura eta asmatu dituen **zizel obrak**, eta Christiane Giraud artistaren zizel taldeak gauzatu asmaketak lehen aldikotz agerian emanak izanen dira. Herria

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
> zizel lan (8); zizel lanetan (4); zizel obrak (4)

---

zizeladura ik **zizelkadura**.

---

zizelan ik **zizel 4**.

---

zizelatu ik **zizelkatu**.

---

**zizelburu** *iz* zizelaren burua.

Zizela esku osoaz helduta zeukan, eta eskumuturraren higitze doi neurtuz gidatzen zuen, mailuaz **zizelburuari** kolpetxo bizkorrak etengabe ematearekin batera. Iñaki Iñurrieta

---

**zizeldu**, zizel(du), zizeltzen du *ad* zizelkatu.

Denak menhir batean **zizelduak**. Berria - Kultura

Lehen bietan, zapelatzak ziren **zizelduak**, hirugarrenean lehoi bat. Aurelia Arkotxa

Ez pentsa eklipseari kontu hartzen ari naizenik, Arantzazuko 14 apostolu Oteizarenak konpontzen dabiltzan udazken honetan... tiriki-trauki, aspaldi batean landu eta formaz **zizeldutako** harritzarrak, bai, aizu, gaitzak jota...! Pello Zabala

---

**zizelgintza** *iz* zizelez eginiko irudigintza.

Bertze bi asteetan, ikastaldiak ditu eskainiko Christiane Giraud lapurtarrak, zurezko **zizelgintzan** trebatu nahi dutener. Herria

---

**zizelkada** *iz* zizel kolpea.

Jainkoaren eskuak bakarrik munduaren mirespenerako eginiko **zizelkadak** kontenplatzen ditu, eta bat-batean, ezohiko pozez beterik, biziberriturik sentitzen da bere adiskide hila ikusiz. Askoren artean

**zizelkadura** *(orobat* **zizeladura** *g.er.) iz* zizel lana.

Margolanak, grafiak, **zizelkadurak**, mosaikuak, tapizeriak eta bertze... Herria

Gidari gazte batek esplikatzen dizkigu elizaren arkitektura eta **zizelkadurak**. Piarres Aintziart

Santiagorako bide honetan, artearen eta bereziki **zizelkaduraren** edertasunari egunetik egunera idekitzen ari natzaio. Piarres Aintziart

Oihanerako bidean, aise ezagutuko duzue balea hezurrezko **zizelkaduraz** apaindua den haren etxea. Aurelia Arkotxa

Santiagoren itxura, burdinezko **zizelkadura** moderno bat, Garesekoa gogorarazten didana. Piarres Aintziart

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
> balea hezurrezko zizelkadurak (3)

---

**zizelkalan** *iz* zizel lana.

Haren obra ederrenetarik andana bat gaitza, 170 orotarat, **zizelkalan** eta marrazki, ikusten ahal dira Miarritzen, Bellevueerakustegian, uda huntan guzian, urriaren 3-a arte. Herria

---

**zizelkarazi**, zizelkaraz, zizelkarazten du *ad* zizelkatzera behartu.

Zutabeetan arma-sortak **zizelkarazi** zituen, betiereko oroigarri, eta haien ondoan itsasontziak, itsasoz zihoazenek ikus ahal izan zitzaten. Elizen arteko biblia

Lastargiez argiztaturiko itsasontzi batean uraren gainean abandonatzen dituzte, bikoteak zoriaren arabera elkartzen dira, ama eta semea, aita eta alaba, beren burua mutilatzen, zigortzen dute, ezpainak diskoekin zabaltzen dituzte, giltzurrunen gainean animalia lazgarriak **zizelkarazten** dituzte. Monika Etxebarria

---

**zizelkari** **1** *iz* zizel lanak egiten dituen artista. ik **eskultore**.

**Zizelkaria** da, eta bere obrek, burdin eta zurezkoek, arrakasta haundia dute. Herria

Hiru **zizelkari** dira eta lau margolari. Herria

Bardozeko Salha jauregian, Jacques Lasserre **zizelkaria** eta Jean Luc Labat margolariaren obrak ikusgai izanen dira ekainaren 25etik uztailaren 10eraino. Herria

Hor dira xarmanki ezarriak Txillida **zizelkari** ospetsuaren obra asko eta asko. Herria

Funtsean ez zen bakarrik **zizelkaria**; poesia, arkitektura eta zinemagintza ere jorratu zituen. Herria

**Zizelkaria** Italian ibili zen erretaula egiten hasi baino lehen, eta hango Pizkundearen ezaugarriak Erdi Aroko tradizioarekin uztartzen jakin izan zuen. Berria - Kultura

Diren gauzen kausak lau direla: kausa materiala (kobrea), formala (**zizelkariaren** espirituan den irudia), efizientea (**zizelkaria** bera) eta finala (zertarako den egin tailua). Askoren artean

Hala obratzen da, **zizelkariak** harrian nola, milioika lagunen pentsaera. Iñigo Aranbarri

**2** (izenondo eta izenlagunekin)

Iragan mendeko **zizelkari** handienetarik izana da Pablo GargalloKataluña. Herria

Pablo Gargallo (1881-1934) ez da **zizelkari** ezaguna. Berria - Kultura

Beobide **zizelkari** famatuaren semea. Herria

Harri pikatzaile eta **zizelkari** trebea. Herria

Azaroaren 26an, Zigor Kepa Akixo **zizelkari** olerkariak Senpere Oxtikenean biziaraziko du berari doakion momento poetiko berezi bat. Herria

Xantxotea erakustokiko Erdi Hetsi elkarteak ditu antolatzen egun horiek, Jose Ulibarrena nafartar **zizelkari** etnografoa omenduz aldi berean. Herria

Olerkiak idazten ditudanean, benetako **zizelkari** sentitzen naiz. Ana Urkiza

**3** (hitz elkartuetan)

Ikastaldi berezi batzu muntatuak dira legarra bilduz, gisa hartarat metatuz eta gero pollikiño lantuz, **zizelkari** obra eder batzuen egiteko. · Oraidanik harri-**zizelkari** asko juntatuak izan dira sorkuntza baten asmatzeko. Herria

Erakusketa gunean, makil **zizelkaria** bere lanetan. Herria

· Guanes Etchegaray tindatzaile-**zizelkari** artistak bere obrak erakutsiko ditu, maiatzaren 2tik 21era, Baiona-Arenetako Artein Donsacq galerian. Herria

**4** (hitz elkartuetan, irud/hed)

Zenbat gogoeta eta idazlan ez du argitaratu han eta hemen Etienne Salaberry-k [...] aste guziz bi artikulu mamitsu eskainiz, bata euskaraz bestea frantsesez, batean nola bestean zinezko hizkuntza **zizelkari** jeinutsua! Herria

Echevarria, argi **zizelkaria**. Herria

**5** (izenondo gisa)

-Oraintxe, oraintxe saldua dut... -ihardetsi zion artista **zizelkariak**. Daniel Landart

Bera musikari izanez, gure adixkide **zizelkariak** badauka musika-tresna "sakratu" horrentzat atxikimendu bat ezinago tinkoa. Herria

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
> harri zizelkari (3); jorge oteiza zizelkari (4); oteiza zizelkari (5); zizelkari artista (3); zizelkari eta (6); zizelkari famatuaren (3)
> zizelkariaren obrak (6); zizelkariaren obrak dira (3)
> margolari eta zizelkarien (3)

---

**zizelkaritza** *iz* eskultura.

Vincent Barre artista eta Parisko Arte eskolako **zizelkaritza** irakasle denaren lanek osatzen dute erakusketa, oihartzun garaikide bat emanez erakusketari. Berria - Kultura

---

**zizelkatu**, zizelka(tu), zizelkatzen **1** du *ad* zizelaz landu.

Harrietan lege honen xedapen guztiak idatziko dituzue, argi eta garbi **zizelkatuz**. Elizen arteko biblia

Harlauza **zizelkatzen** ari zen gizona epitafioa idatzitako paper orria eskuan zuela hurbildu zitzaigun. Bernardo Atxaga

Harlosak alde bietatik idatziak zeuden, aurretik eta atzetik: Jainkoak berak eginak ziren harlosak eta haietako idatzia ere Jainkoak **zizelkaturiko** idatzia zen. Jose Antonio Mujika

Hartu gero bi onize harri eta **zizelkatu** haietan Israelen hamabi semeen izenak. Elizen arteko biblia

Ziriak hitzak **zizelkatu** nahi izango dituenean, ezko izoztua mila zatitan hautsiko da. Anjel Lertxundi

Gizon bat epitafioa **zizelkatzen** ari zen hiru hizkuntzatan, ingelesez, gaztelaniaz eta euskaraz. Bernardo Atxaga

Atalondoak kanpoko atarirantz jotzen zuen; hormek palmondoak zituzten alde banatan **zizelkatuta**.

Bigarren solairuko balkoiak lehenengo solairuko balkoia estaltzen du eta leundu eta **zizelkaturiko** habetxo zoragarriek alegeratzen duten teilatuaren hegal zabalak babestua dago. Koldo Izagirre

Ikusten da estatua handiak dauzkatela harrigarriro landuta, eta beste irudi txiki asko eta loreak eta akanto-hostoak, dotore asko **zizelkatuta** . Santiago Iruretagoiena

Judaren bekatua burdinazko eztenaz idatzia dago, diamantezko puntaz **zizelkatua** . Elizen arteko biblia

Orgaren zabalunetan, euskarrietan eta paneletan hegadun izaki, lehoi eta palmondoak **zizelkatu** zituen Hiramek. Elizen arteko biblia

Data hau harrian **zizelkaturik** : 1776. Txillardegi

Hala zioten harrian **zizelkaturiko** hitzek: [...]. Xabier Mendiguren Elizegi

Beheko solairuan taberna bat zegoen, aurrealdean beltxarga txuri baten irudia zuena, zurean **zizelkatua** , labankada batez edo alderik alde zarrastatua baina. Felipe Juaristi

Santiagoren itxura harrigarria, brontzean **zizelkatua** . Piarres Aintziart

Gogotik so egin dio hurrengo argazkiari, San Jeronimoren irudia, Burgosko katedraleko aulkiteria batean **zizelkatua** . Monika Etxebarria

Betarte izerditsuan eskultore izengabe batek oinazearen iduria **zizelkatu** balio bezala. Joan Mari Irigoien

Marmolean **zizelkatu** jainko greziar bat bezain eder eta liraina zela. Itxaro Borda

Zurezko obra handi bat **zizelkatuko** du, 2.20 metra goratasunekoa. Herria

Eskultura, batez ere, **zizelkatzea** da, arbastatzea, kentzea. Berria - Kultura

**2** irud/hed

Nere eskuekin **zizelkatu** ditut zure bisaiaren larrua eta ezpainak, amodioak asmatzen zituen ferekek hitzei haragi emanez. Piarres Aintziart

Adelaren gizatasunak, hain zuzen, barru-barruan **zizelkaturik** utzi zidan arrastoa, nire izen ezkutuan. Juan Kruz Igerabide

Nire lehendabiziko maite-harreman hura, hain inozoa, oroimenean **zizelkatua** geratu zitzaidan, harri gogorrean bezain. Juan Kruz Igerabide

Gizonak, mirailaren aitzinean, zakilaren nabardura eri puntaz **zizelkatzen** eta ferekatzen zuela, Rachel eta Jacoben kasuari zegokionez argiki ihardetsi zion. Itxaro Borda

Haren irudia hain neukan barruan **zizelkaturik** , non aski baitzitzaidan zati bat ikustea, hartan bera osorik ikusteko. Juan Kruz Igerabide

*Ehiza eta nekea*-n, berriz, Estankonak «ongi **zizelkatutako** poemak» bildu dituela esan zuen Patri Urkizu epaimahaiaren bozeramaileak. Berria - Kultura

Gogoan zeukan aitarekin eroan zuen hondar solasaren eduki pobrea, behin betirako gogoan **zizelkatutakoa** . Itxaro Borda

Emazteak arratsaldea bere historiaren kontatzen pasatu zuen, hitzak hautatuz, sailkatuz, erran beharrekoa **zizelkatuz** , ene jende ohorearen ez kolpatzeko. Itxaro Borda

**3** (era burutua izenondo gisa)

Etxe izenak, atari ahantzi **zizelkatuak** . Itxaro Borda

Paper solte bat, egunkari-zati bat, grabaketa bat ahal balitz, edo hilarri **zizelkatu** bat, egiazko diskurtsoa duena, jatorrizkoa, nolabait esateko. Jon Alonso

Etxaintzinetako edo berdin etxe-barnetako lan **zizelkatuak** . Herria

Parropiako erretoreak esplikatzen dizkit [...] ontzi sakratu borobil horren marrazki **zizelkatuak** , batez ere kurutze mota guzien formen adierazpenak. Piarres Aintziart

Harri horizko etxe ederrak ageri ziren kalearen alde banatan, armarriez eta irudi **zizelkatuez** hornituak. Koro Navarro

Erdiko mahaiaren euskarri, etengabe gorantz tenkaturiko sei beso, balizko hiru emakume-irudi **zizelkatuetatik** . Ezpain haietan ere baziren irudi **zizelkatuak** , panel koadratuetan, ez biribiletan. Mirentxu Larrañaga

So egon naiz ere Santutegiaren aitzinaldeko hamahiru pertsona **zizelkatuei** Birjina eta apostoluak sei metro gorako eta zazpi ehun kiloko pertsonaiak, brontzean dailatuak. Piarres Aintziart

Renaudasek maitasunez margotu zuen, ez zuen ukitu samurregirik egin belarri txiki gizen eta **zizelkatuetan** eta, batik bat, eskuetan ere ez. Monika Etxebarria

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
> **alde banatan zizelkatuta** (3); **batean zizelkatua** (4); **harrian zizelatua** (3); **zizelkatu bat** (3)

---

# **zizelkatze** *iz* zizelaz lantzea.

Amen artean galduta aurkitzen ditu, trakets, hanka zurrunen gainean zanbuluka: **zizelkatze** trauskileko lau egur-makila. Itziar Otegi

Erakusketari datxikola, mintzaldi, metalezko **zizelkatze** ikastaldi, bideo, bisita gidatua. Herria

Lan handia da hitzen **zizelkatzearen** bidez agertzea barnean duzuna. Ana Urkiza

---

# **zizelketa** *iz* zizel lana.

30 urtez leku batetik bestera ibili den artista horrek museoetan eta arte guneetan ikusi dituen arkitektura eta **zizelketak** marraztu ditu. Berria - Kultura

Duela 56 urte sortu zen, eta geroztik bere **zizelketak** non-nahi uztartzen asmatu du. Berria - Kultura

Oxandabaratz ez da oraino margolanetan edo **zizelketa** lanetan hasia, baina «garrantzi handia» eman dio artisten eskaintzari. Berria - Euskal Herria

---

# **zizelki** *iz* zizel lana.

Denetarik, margo, **zizelki** , zetazko eta larruzko gauza, joaieria, apaindura eta beste. Herria

Behereko plazako artista hauen **zizelki** eta margoak ikusten ahal dira hor, apirilaren 6etik 27ra. Herria

Martxoaren 25-a arte, **zizelki** erakusketa berezi bat eskainia da Bellevue egoitza ederrean. Herria

---

# zizelu ik **zizeilu**.

---

# **zizerondar** *izond* M. T. Ciceroni dagokiona.

Liburua bere zioz eta izenburuz kontsolamenduzko liburuen tradizio luzean sartzen da [...] baina aldi berean Marko Tuliok bere alaba bakarraren heriotzaz eta Erromako errepublika zaharra hondoratzeaz bere burua kontsolatzeko idatzi zuen izenburu bereko obra **zizerondarra** jarraituz. Joan Mari Lekuona

---

# zizerone ik **cicerone**.

---

# **zizika** *iz* txistu hotsa.

Gauaren argia baino ez zen geratzen, euriaren **zizika** kilker-zurrumurru baten gisa... Juan Garzia

---

**zizikatu** zizika(tu), zizikatzen du *ad* zezelkatu.

Zolagune honen eta Jainkoaren artean dagoen hurbiltasuna eta ahaidetasuna hain da miragarri ezin esanezkoa, non ez baitago definitzerik eta nekez egongo da **zizikatzera** ausartuko denik. Joan Mari Lekuona

---

**zizikoar** *izond* Turkiako Zizikokoa, Zizikoari dagokiona.

Etxe horiek sarrera-gela zoragarriak izaten dituzte [...] eta iparraldera begira dauden portikoetan triklinio **zizikoarrak** eta pinakotekak. Santiago Iruretagoiena

---

zizipasaka ik **sisibasaka**.

---

zizipaza ik **sisibasa**.

---

zizipazadun ik **sisibasadun**.

---

**zizka-mizka** **1** *iz pl* jatorduen hasieran zerbitzatzen diren jaki zati txikiak eta eskuarki hotzak; ospakizunen ondoan gonbidatuen artean banatzen diren jateko arinak.

**Zizka-mizken** ondotik bazkaria atera zuten. Jose Morales

Menua bakarrik: **zizka-mizkak** , entsalada, arrain-zopa eta bisigua edo azpizuna. Urtzi Urrutikoetxea

Lehenbizi, eta beste janarietatik bereiz, **zizka-mizkak** zerbitzatu zituzten jangura bizkortzeko, iparraldeko herrialdeetako usadioari jarraituz. Karlos Zabala

Isil-isilik ari zen afariaren hasierako **zizka-mizkak** zerbitzatzen: kroketak, otarraintxoak, urdaiazpikoa, zainzuriak eta foie-grasa. Aitor Arana

Vesubioren tamainako steak tartarea jan nuen, alboko **zizka-mizka** ugariz: kaparrak, tipulak, belarrak, piperrak... Jesus Mari Mendizabal

Vodka sarrerarako, **zizka-mizkak** gero, haragia betetzeko, eta laranja zuritua postrerako. Berria - Kirola

Azkenik, hiriko alkateak mezaren ostean eman zituen **zizka-mizketara** joan zen, eta **zizka-mizkak** ere bazkari baten heinekoa gertatu ziren. Jose Morales

**2** irud/hed

Ikasleak, ordea, filosofiatik **zizka-mizka** xixtrin batzuk janda iristen ziren UBIra, ez Homero, ez Hesiodo, ez euskal mitologia ezagutzen zutela. Joxerra Garzia

Ekitaldien barruan poesiaren eta pintxoen arteko lotura egin nahi duen **Zizka-mizka** poetikoak: Nerudarekin jaten ospakizuna nabarmentzen da. Berria - Kultura

Egia erran **zizka mizketan** baizik ez ginen oraino: ondotik etorri dira eguneko gai nagusiari. Herria

**3** (adizlagun gisa)

Kontua izango da, mahaira eseri ordez, egunean hamaika aldiz jan-edatea, **zizka-mizka** , oiloak bezala. Edorta Agirre

**4** ***zizka-mizkan*** *adlag*

Jaki onen aukera zabaltzea garestia izango ez denez, kontsumitzaile askok gusturago erosiko du **zizka-mizkan** aritzeko moduko janaria, pintxoz osatua. Edorta Agirre

---

**zizki-mizki** *iz pl* zizka-mizkak.

Zerbitzariek lehendabizi **zizki-mizkiak** ekarri zituzten, hotzak. Felipe Juaristi

---

**zizkolatsu** *izond* karrankaria, zaratatsua, nabarmena.

Ana Morenak ez zuen garrasi **zizkolatsu** bat isiltzerik izan; ez zuen, hala ere, arbel elektronikoa eskuetatik askatu. Karlos Linazasoro

Hilotz ibiltariak ginen egia erran eta zenbaitetan usteltzearen urrin **zizkolatsuak** azalean zintzilik genbiltzan. Itxaro Borda

Beldurra isurtzen zitzaidan zainetan, zelda hertsian, dantza bihurrietan ene gainetik arratoi **zizkolatsuak** pasatzen zirela. Itxaro Borda

---

zizori ik **ziza 3**.

---

**zizorka** *iz* txingorra.

Negu belaxkak, han pizten ditu beldurrak, eguraldiak bai baitaki, neguan ekarri ez duena Erramu inguruan eta Pazkotan kazkabar edo **zizorka** eta elurretan ere bidaltzen. Pello Zabala

---

**zizpa** *(orobat **txispa** g.er.)* **1** *iz* antzinako fusil mota; su arma.

Azkenera, **zizpa** bat zutenek, bizkarrean suaren itzulian ibili ondoan, bizpahirulau tiro botatzen zituzten airera. Herria

Haren **zizpak** lurra du destatzen. Aingeru Epaltza

Etxeko nagusiak **zizpa** armatua atera zuen kasakapetik. J.M. Olaizola "Txiliku"

Igo nintzen goiko gelara eta armadako arauzko **zizpa** eskatu nion Dimitriri. J.M. Olaizola "Txiliku"

Ermandadeko gizon biak, lehen esan denez, alde banatan, beren **zizpa** eta guzti. Patxi Ezkiaga

Zoritxarrez, ordea, txaroldunen **zizpen** su biziak bete-betean jo eta zerraldo erori zen Miel. Joxemari Urteaga

**2** (hitz elkartuetan)

Ezin ozenago entzun zituen pum pum pum, eta su **zizpak** ikusi zituen tiro zaratekin batera, pum pum. Joseba Sarrionandia

Orain gaztetxo bat jarri zaigu auzoan, auskalo nondik etorria: garaia, ederra eta handinahia dariona; niretik **txispa** -tiro batera jarri denda, eta makinaz bete du. Juan Garzia

Bide galduan, gudari bulartsuak jo eta ke bero-bero ari diren lekura (eta behar bada, izututa hankak arin joana izaki bota zuena, makinaren **zizpa** -sua ikusita) eta hor utziko du une labur batean. Patxi Ezkiaga

**3** ***zizpako fusil***

Beste zerbitzariak, zaldiak gobernatu dituen berak [...] **zizpako fusila** eta pistola ekarri ditu. Felipe Juaristi

**4** ***zizpa-luze***

Bere ganibetak eta bere **zizpa-luzeak** enbarazu handia egiten ziotela. Juan Garzia

---

# **zizpadun** *izond* zizpa duena.

Menturaz lehenagoko otso zakurrek ibiltzen zituzten lepoko garranga **zizpadunak** izan baluzte lepoan menturatuko ziren oldartzea otso. Herria

Han eta hemen zelatariak ipini, gau-txandakoenak entzun, soka-suzko arkabuzei, gutxik bazekarten ere, gehienak **zizpadunak** zituzten eta, haize eman, eta horrela beti eginahal guztian. Patxi Ezkiaga

---

# **zizpakada** *iz* zaparrada.

Txalo-**zizpakada** desberdin batek eskoltatu zuen orduan izeba Julia pianoraino. Irene Aldasoro

---

# zizpatu ik **txispatu**.

---

# **zizpir** *iz* printza.

Taulen perekatzea ere ez funtsean, hain ziren latzak non **zizpirrak** haragian sar baitzitezkeen. Eneko Bidegain

---

# **zizpolet** *iz* pistola.

**Zizpoleta** neraman. Txillardegi

Antzezpen kutsuko keinu dramatikoarekin, **zizpoleta** bateko bala bakar bat eman zion Felixi, inguruan begirale zuen jendearen aurrean, eta "Errusiari egin diezaiokezun mesederik handiena da" esan zion. J.M. Olaizola "Txiliku"

Hortik pentsa nolakoa izan zitekeen Dimitrik Rasputini zion gorrotoa, eta zein ederki marrazten zuen **zizpoletako** bala hark Felixek Errusiari -eta Dimitriri- egin ziezaiokeen mesedea. J.M. Olaizola "Txiliku"

---

# **zizpuratu**, zizpura(tu), zizpuratzen du *ad* hasperen egin.

Frodok, ordea, atsekabetuta **zizpuratu** zuen. Agustin Otsoa

"Baina urteak eta urteak iragan dituk ordudanik", **zizpuratu** zuen, "eta hemendik hain urrun. Agustin Otsoa

---

# **zizpuru** **1** *iz* hasperena.

**Zizpuru** eta hasperenen artean erran zidan: [...]. Joan Mari Irigoien

Gauez, negar egiten huen isilean, zotinik gabe, **zizpururik** gabe. Eskarne Mujika

**Zizpuru** baten antzeko hotsa goratu zen inguruko zelaietatik, eta bihotzak berehala hasi ziren berriz ere taupaka. Agustin Otsoa

Eta bertze hilabete bat egin zuen horrela, apurka itotzen, **zizpuruz zizpuru** eta hasperenez hasperen. Joan Mari Irigoien

Gozo-gozo musukatzen jarraitzen dit, **zizpuruen** antzeko musuak dira. Juan Martin Elexpuru

Bai, **zizpuru** batean nik, federik gabe. Harkaitz Cano

**2** (izenondo eta izenlagunekin)

**Zizpuru** luzea libratu zuen estreinako dangadaren ostean. Josu Landa

Jane Birkinen **zizpuru** faltsuek. Xabier Mendiguren Elizegi

Baiezkoa adierazten zuen **zizpuru** etsitu baten ondoren lotu zitzaion, ostera ere, mintzoari. Harkaitz Cano

Martak **zizpuru** sakon bat egin zuen. Harkaitz Cano

Merryk ere alaitasunezko **zizpurua** egin zuen. Agustin Otsoa

Hiru ikusleen esku askeek kanpaiari tiraka ziharduten, euren ahoetatik gozamenezko **zizpuruak** ateratzen ziren bitartean. Jon Arretxe

**3** irud/hed

Orain bat-batean eguzki berritan haize leun baten **zizpuruarekin** irekitzen den lorea bihurtu zitzaidan musika, sentimenduen ukituetara zabaltzeko prest. Pako Aristi

**4** ***zizpuru egin***

Neuk ere **zizpuru egin** -etsitzen hasita nengoen berandutu egingo zitzaidala zinera joateko- eta zerura begiratu nuen. Anjel Lertxundi

Toalla sorbalda gainetik biribilkatu zionean **zizpuru** egin zuen Joseluk, egun hartakoak burura egin zuelako seinale ezaguna eskertuz. Josu Landa

Une batez isilik begiratu eta gero, zutitu eta **zizpuru egin** zuen: [...]. Agustin Otsoa

Gorri-gorri eginak ditu begiak bisitariari atea zabaldu dion neskak, eta **zizpuru eginez** jaso ditu haren doluminak. · Roberto Goaza komisarioak etsipen **zizpurua egin** zuen. Anjel Lertxundi

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
> **zizpuru egin** (9); **zizpuru egin zuen** (7)

---

# **zizpuruka** *adlag* hasperenka.

Gurrezko kabina batean belaunikatzen dira, ilunpetan betiere, eta badirudi **zizpuruka** ari direla, marmarka eta auheneka. Javi Cillero

Jakina da ingeles hiztun zenbaitek **zizpuruka** esan dezaketela baietz. Lourdes Oñederra

**Zizpuruka** eseri zen, bere kristala nirearekin jo zuen eta, begietara begiratuz, xuxurlatu zidan: "Gure osasunera". Juan Martin Elexpuru

-Amarekin joan duk -ihardetsi zidan arrebak, izebari aurrea hartuz, **zizpuruka**. Joan Mari Irigoien

Premia tristea da -**zizpuruka**-. Agustin Otsoa

---

# **zizt** *adlag* **1** ziztaren edo higitze lasterraren onomatopeia.

Begietara **zizt** etorri zitzaion argitasun bat, pozarena zena, txinpartetan. Edorta Jimenez

Aulki batean erdi kolokan nengoen, bakarrik edateaz etsita, eta orduan, **zizt**, atximur egin zidaten besoan. Javi Cillero

**Zizt** eta **zizt** arituko zen, harik eta bere gogoko irudia bizkarrean, besoan nahiz bularraldean osatzen zuen arte. Javi Cillero

Datu bakoitza bere bihotzean arantza bat, **zizt**, eta gero beste bat, **zizt**, eta beste bat, **zizt** eta **zizt** bihotzean sartzen balihoazkio bezain minbera esan zuen. Edorta Jimenez

## 2 *zizt egin*

Larruko poroetan leku egitean **zizt egiten** dizuten horietakoak. Edorta Jimenez

Zarata ez zen ozena, baina dardara modukoa sortzen zuen, lurrikara nanoak eragiten zituen Danielaren bularrean, eta **zizt egiten** zuen bakoitzean tatuajearen indarrak zulo txikiak estaltzen zituen neska zatituaren bihotzean. Jasone Osoro

Naratik hara kilkerren hotsak belarrietan **zizt egin** zidan. Edorta Jimenez

Marfilezko makilatxoak erabiltzen zituen Hori Chuik **zizt egiteko**, denak irudi biziez josiak eta arkatz baten neurrikoak. Javi Cillero

## 3 *zizt-zazt* adlag

Ile pikatzeko elektrikoa hartu eta **zist-zast** mozten zituen. Eneko Bidegain

Jostorratzenak bezalako ziztada zorrotzak sentitzen hasita nengoen lokietan, **zizt-zast**, **zizt-zast**, **zizt-zast**, ziztada ari zitzaizkidan bihurtzen munduarekin nituen eusgarri fisiko bakarrak. Anjel Lertxundi

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
> **zizt zazt** (3)

---

# zizt-zazt ik **zizt 3**.

---

# **ziztа** *(84 agerraldi, 42 liburu eta 4 artikulutan; orobat **sista** g.er.)* *iz* **1** ziztatzea, ziztakoa. ik **xixta.**

Orain gutxiagotan sentitzen dut jostorratz horren **zizta**. Xabier Mendiguren Elizegi

Ahotsean erotasunaren **zizta** nabaritzen zitzaion. Itxaro Borda

## 2 (adizlagun gisa)

Hegoaldean hil gudarien argazkiak zekarkien liburuxka neska lagunekin gordean hostokatzen, bere abertzaletasun gordinaren eztenaz herrestari melenga antzera, zirika eta zirika, **zizta** eta **zizta**. Itxaro Borda

Ezko-izkribua erlauntza da; nagusia, zentzutasuna; erleak, hitzak; eztena, izkribatzailea, beti **zizta** eta zuum! Anjel Lertxundi

Seinale bat iduri, bertzeei itsatsi gintzaizkien, hemen **zizta** eta han sasta. Aingeru Epaltza

## 3 (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

Lurraren kontra eta **zizta** euri horren pean lurraren larrua biltzen da, zimeltzen, berriz luzatzen, leuntzen, berriz zimurtzen, plegatzen, nola uhainak ur gainean. Michel Oronoz

## 4 (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa)

Bizitza debalde baten bildumaren egiteko ordua hor neukan, cobra**zizta** batez hiltzea seguru nuelako. Itxaro Borda

Egoera honek luze iraungo balu eta askoz ere mota eskasagoko ikuskari guztiak itzali, eta so gagozkion hura argi-**zizta** honetaz atzi barneko pozez... guk hasperenka nahi dugun betiko bizia ez al da argiune honen antzeko? Imanol Unzurrunzaga

Hala aitortzen zuen behintzat, urguilu **zizta** batez. Itxaro Borda

Jeloskeria **ziztek** izpiritua urratzen ziotela. Itxaro Borda

## 5 *zizta egin* (sugeek)

Egin ihes bekatuari sugeari bezala, hurbiltzen bazatzaizkio **zizta egingo** dizu eta. Elizen arteko biblia

Garaiz xorarazi baino lehen sugeak **zizta egiten** badu, ez du irabazirik suge-xorarazleak. Elizen arteko biblia

Ez dezagun tenta Jauna, haietako batzuek egin zuten bezala, eta sugeek **zizta eginda** hil ziren. Elizen arteko biblia

Azkenean, ordea, sugeak bezala **egiten** du kosk, sugegorriak bezala **zizta**. Elizen arteko biblia

## 6 (bestelakoek)

Gauza gozo gehiegi jaten zituenean, gaixotu egiten zen, eta ospitalera eraman beharra zegoen, **zizta egitera**. Juan Kruz Igerabide

Leku minberaren batean **zizta egin** banio bezala bihurtu zitzaidan, ordea. Aingeru Epaltza

Ama eta biok ere beste lera batean jarri ginen, eta bidean bisuts zuriak ehun mila kristal orratz zoragarri aurpegira bidalita **zizta egiten** zidan. Eskua luzatu gabe ere, halako deskarga elektriko batek **zizta egin** zidan beheko soin-adarretan. Matías Múgica

Barne kontzientziaren jostorratz moduko bat dela esango nuke, aldian behin **zizta eginda** gauzen hutsaltasunaz ohartarazten nauena. Xabier Mendiguren Elizegi

Ruche jaunari **zizta egin** zion mutikoak esandakoak. Jon Muñoz

## 7 *zizta-zizta egin*

Abuztuko ortziral horretan, nire aierurik beltzenak egiaztatzen ari zirelakoan trabeskatu nuen etxeko korridorea, kezkak**zizta-zizta egiten** zidala. Aingeru Epaltza

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
> **sugeak zizta** (4); **zizta egin** (3); **zizta egingo** (3); **zizta egiten** (5)

---

# **ziztada** *(185 agerraldi, 83 liburu eta 23 artikulutan; orobat **zistada** g.er. eta **sastada** g.er.)* **1** *iz* ziztatzea, zizta.

Intsektuen **ziztadak** galarazteko, farmazietan hainbat produktu saltzen dituzte. Berria - Harian

Zaldiak eta zaldizkoak ezin ihes egin eskualde zingiratsu horren bazter guztiak betetzen dituzten intsektu dipteroen **ziztadei**. Liztor baten **ziztada** batek bezala suspertu ninduen aitormenak. Karlos Zabala

Marmoken **ziztada** saihesteko krema bat sortu dute Israelen. Berria - Gaiak

Indizioaren **ziztadak** min pixka bat eman zion. Gotzon Garate

Min sakon bat jarri zaizu hankaren beheko aldean, eta, aldi berean, **ziztadak** sentitzen dituzu giltzurrunaren parean. Rafa Egiguren

Masailean milaka orratz ikusezinen **ziztadak** sentitzen nituen. Oskar Arana

Eskuineko hankan milioika **ziztada** sentitzen nituen, oinazearen oinazez, armada oso bat zaldiz nire gainetik igarotzen ari balitz bezala. Juan Kruz Igerabide

**Ziztada** bat lokietan, dardara bat hanketan. Xabier Mendiguren Elizegi

**Ziztada** hori minzorro bat da, organoen gauean modu bitxian esnatzen den halako toki jakin bateko kontzientzia gisako bat. Josu Zabaleta

Hartu nuen sustoak **ziztaden** mina areagotu zidan. Anjel Lertxundi

Bere zaina ziztatu eta lauzpabost ordura gertatu zen, **ziztadaren** eragina jada iragana zenean. Joan Mari Irigoien

**Ziztaden** tamaina ikusita, arantza hauek oin beteko luzera izan behar dute. Agustin Otsoa

Pentsatzekoa da zer izango ote ziren Faulkner, Hemingway, Scott Fitzgerald, Lowry, Hammett, Chandler, J. Thompson, Capote... alkoholaren **ziztadarik** gabe. Matías Mujika

Orduko ahotsa tristea iruditu zitzaion da Ruari, damuaren **ziztadaz** jota bezalakoa. Felipe Juaristi

Kontzientziaren **ziztadak** ez datoz espiritutik; bihotzaren fruituak dira. Juan Martin Elexpuru / Bego Montorio

Gorrotoaren **ziztadak** min itzela eragin zidan arren, isilik segitu nuen. Edorta Jimenez

Pentsatzen hasteko **ziztada** bat behar izaten da, horretara bultzatuko zaituen zerbait. Berria - Kultura

Hitz haren **ziztadaz** anaia zertxobait minduta gelditu zela konturatzean [...]. Askoren artean

Ez zeukaten mailaturik, ez eta ubeldurik, hozkarik edo **ziztadarik** ere. Bernardo Atxaga

Andresek gaixoa zertxobait animatu zuen, **ziztada** egiteko lekua xaboiz garbitu eta igurtzi zuen, eta trokarra neskaren sabel handituan sartu zuen. Josu Zabaleta

**2** (izenondo eta izenlagunekin)

Brastako mugimenduak **ziztada** mingarri bat eragin zidan saihetseko zaurian. Alberto Ladron Arana

Orduan erruaren **ziztada** mingarria nabaritu zuen bularrean josita. Joanes Urkixo

Halako batean, bihotzean sentitzen den **ziztada** hotz baten moduan, Frodo eta Sam etorri zitzaizkion gogora. Agustin Otsoa

Haren usainak maisuaren akordua bizitzenago eginik, saminak **ziztada** itzelak jo zizkidan. Edorta Jimenez

**Ziztada** zorrotza nabaritu dut ezkerreko izterrean. Txillardegi

Iraganaren **ziztada** nabaria zuten aurpegiko azalean. Felipe Juaristi

**Ziztada** mingarria izan zen arren, handik apur batera barrua lasaitu egin zitzaidan; lekutan zeuden lehorrekoak. Edorta Jimenez

Jostorratzenak bezalako **ziztada** zorrotzak sentitzen hasita nengoen lokietan, zizt-zazt, zizt-zazt, zizt-zazt. Anjel Lertxundi

Etxera itzultzeko gogoak **ziztada** jasanezina egin zidan. Edorta Jimenez

Larru-mintza dardaratu zitzaion Norari, eta sekulako **ziztada** sentitu zuen bihotzaren erdian. Anjel Lertxundi

Askotan sentitzen dut -bolada batzuetan, ia egunero- buru-arintasun halako bat noizean behingo **ziztada** ez oso zorrotzekin. Anjel Lertxundi

Ezinezkoa zitzaidan lokietako mina ez zen beste ezertan kontzentratzea, denbora asko egin nuen buruko **ziztaden** mende. Anjel Lertxundi

Bat-bateko **ziztada** batek joa, arma eroria hartzera egin du. Aingeru Epaltza

Danbateko sor bat sentitu nuen arroparen azpian, eta, aldi berean, sekulako **ziztada** izterraren goiko aldean. Rafa Egiguren

Hauxe bai **ziztadarik** onena, indartsuena, zoragarriena; azkar gorputzetik gora eta behera, buelta eta errebueltaka. Sonia Gonzalez

Egeak **ziztada** moduko bat sentitu zuen bere barnean, bero eta gozoa, alai eta umoa. Felipe Juaristi

Lizarriturri baretu da Eladioren **ziztada** zaputzetik. Pako Aristi

**3** (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

Behin ikusi nuen nola jarri zioten apomorfina-**ziztada** bat ezagutzen dudan parkinsondun bati, zurruntasuna eta "izoztea" arintzeko. Xabier Olarra

Sei metro koadroko kaiola batean giltzapetuta dago, ez du egunik ez gaurik nabaritzen, ordu erdi oro esnarazten dute, argindar **ziztadak** ematen dizkion uhal bat ezarri diote gerrian. Berria - Harian

Kopetara eraman zuen eskua, orratz-**ziztada** baten moduko oinazea arintzeko. Anjel Lertxundi

**Lantza** ziztada xamurra harturik jauzi egin dut. Xabier Olarra

Nik neuk ere antzeko min **ziztada** bat sentitu nuen, udan hari uko egin eta beren esku utzi behar izan nuenean. Oskar Arana

Hala eta guztiz ere, inoiz ere ez malur handiagorik, maitasun **ziztadak** jaso nituenean baino. Javi Cillero

Atsegin **ziztada** bat sentitu nuen zilean, guztiz ezustekoa. Juan Martin Elexpuru

Argazkiaren oin-oharra irakurri nuenean ez nintzen larritu; atsekabe-**ziztada** bat sentitu nuen nire baitan, asko jota. Iban Zaldua

Ezin zituen ekidin -zein tuntuna, ene, zein tuntuna!- bihozmin **ziztada** haiek. Fernando Morillo

Oinaze **ziztada** urratzaile bat ere bai, puntu berean. Txillardegi

Izu **ziztada** izoztu bat sentitu nuen garondoan. Alberto Ladron Arana

Bat-bateko beldur **ziztada** batek zeharkatu zidan bihotza, Patuaren aitzinean sentitzen den izu-ikara. Alberto Ladron Arana

Erru-**ziztada** batez, zera pentsatu nuen, dagoeneko ahanzten hasia nintzela aitaren aurpegiaz. Alberto Ladron Arana

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
> **ziztada bat sentitu** (8); **ziztada batek** (5); **ziztada mingarria** (4); **ziztada nabaritu** (4); **ziztada zorrotzak** (3)
> **intsektuen ziztadak** (4); **ziztadak sentitzen** (4)

---

# ziztadatsu *izond* ziztadez betea.

Satira politiko guztiek badute alegoria bihurtzeko joera, eta bide honetan jarri da Cano, bere estilo gozo eta **ziztadatsuarekin** lanean. Berria - Harian

---

# ziztadatxo *iz* ziztada txikia.

Geroxeago erreparatu nion bular gaineko ausikiari: txikia zen, hiru **ziztadatxo** elkarren ondo-ondoan, eta tupustean ulertu nuen gertaturikoa. Joxe Austin Arrieta

---

# ziztadun 1 *izond ipar* ziztatzen duena. ik **ziztakari.**

Lore ederra usain onarekin baina bere arantza **ziztadunekin** ere! Horrengatik block-a alanbre **ziztadunez** inguratzen digute. Daniel Landart

Gureaganik berexia zen bi alanbre lerro **ziztadunez**. Marzel Etxehandi

Hervék ez zuen hitzik ere askatu: sagarroia bezain trinko eta **ziztadun** zegoela argi zen, lanjerra berriz nondik jaukiko zitzaion goaitan. Itxaro Borda

**2** irud/hed

Unanue eta Olaizola bi aitzinekoek joko **ziztaduna** erakutsi dute, baina gaztek maila goragoa emanez eraman dute partida. Herria

---

# ziztadura *iz* ziztada.

Gardelen **ziztaduraren** ordua da. Koldo Izagirre

---

# ziztagailu *iz* ziztatzen duen gailua.

**Ziztagailu** batek dir-dir egiten du; eztarritik izterrondoraino irekitzen dute bere gorputza; dena ikus dezake, baina ez du minik sentitzen. Oskar Arana

---

# ziztagarri *izond* ziztatzen duena.

Elkarrekiko desleialtasun baten xarma are **ziztagarriagoa** izanen da. Jon Muñoz

Bi metrotatik goitikoa izanen da eta ezker-eskuin hedatzen ditu bere beso-adar **ziztagarriak**. Xabier Montoia

Bigarrenarekin ere ez nintzen luzatu, arnasbideen **ziztagarri**. Aingeru Epaltza

---

**ziztaka** 1 *adlag* zizta eginez.

-Plazara igan ninduten, eta eguna zenez, euliak hasi zitzaizkidan **ziztaka** eskuetako eta besoetako zaurietan. Koldo Izagirre

Berriz ezkon dadin errezatzen ez dudanean, erle saldo puta batek **ziztaka** hil dezan errezatzen dut. Koro Navarro

Milaka orratz ixil **ziztaka** gogoan, denbora josten bihotza, irudimeneko zapi zurian. Patziku Perurena

Bat-batean gogoratu dut, bai, zauritu egin nautela -oraindik **ziztaka** dut burua-. Mirentxu Larrañaga

Burmuinean metatuta daukazu lo-galea, eta minaren erasoa sentitzen duzu, **ziztaka**, pum, pum, pum, leherketa txikitan bezala. Rafa Egiguren

Giltzurrunetan ez ezik, gorputz osoan ere mina sentitzen duzu **ziztaka**. Izarraren izpiek beti **ziztaka**, gero eta hurbilagoak, zeru guzia argitzen dute nola eguzkiarenak egun betean. Rafa Egiguren

Baldin eta buruko mina bazuen, edota oinetako arkuak **ziztaka** bazituen, kexuka aritzen zen, urrikalgarri, nini bat antzo. Mirentxu Larrañaga

Bihotzean mina **ziztaka** senti zezakeen. Itxaro Borda

Bat-batean, kaosa egin da Joseren buruan, erle-saldo amorratu bat dabilkio buru-muinetan **ziztaka**, zuhurrena ere erotzerainoko oinaze zakar batek hartu dizkio zainak. Anjel Lertxundi

Oinak oinategi, soilik loeria astunaren orratzak kaskoan **ziztaka** nabaritzen zituela. Errespetuz entzuten diote, hitz bakoitza idatziz jasoaz, bolaluma urduri, koadernoaren orrialdeetan **ziztaka**. Itxaro Borda

-Patxi, agudo -nik, **ziztaka** -. Aingeru Epaltza

**2 *zizta-ziztaka***

Banan-banan ezarri zizkidatek, **zizta-ziztaka**. Aingeru Epaltza

---

**ziztakari** 1 *izond* ziztatzen duena. ik **ziztakor**.

Beste aldean, berriz, alanbre **ziztakariz** inguraturiko kandela txiki bat, sugarra eta guzti, ageri zen goiko aldean. Josetxo Azkona

Haren irispidean jartzen nintzen trintxeretan, aurrepostuetan, hari **ziztakarien** erdian, erasoetan, metrailaren azpian, gas itogarrien erdian. Matías Múgica

Gero hari **ziztakariarekin** metro baten garaierako hesiak eraikiz, aski zabalak aise ez pasatzeko gainetik, kalez kale, etxez etxe, bidez bide. Pello Salaburu

2 irud/hed

Hatz ikasiez zarata oro urratu zuen, pianissimo batekin hasiz, nota luze, **ziztakariekin**, apurka in crescendo-ra egiteko. Fernando Morillo

---

**ziztako** *(8 agerraldi, 5 liburu eta 2 artikulutan; orobat **sistako** g.er.)* **1** *iz* ziztada. ik **zizta**.

Bere pausoa sugegorriaren **ziztakotik** saihestu diola uste dizu Pellok; horregatik zaio maitagarri. Patziku Perurena

Honezkero ez da birigarro hila, mandeulien **ziztakoak** ikaran tinkarazitako behorraren gihar luzea da, bere haragiaren sendotasuna Bittorren eskugainaren kontra frogatu behar lukeen ametsa. Koldo Izagirre

Erritoak, ospakizunak, jaiak... eta **ziztako** ez guti. Jose Angel Irigaray

**Ziztako** funtsatua zen Edurnerena. Aingeru Epaltza

2 irud/hed

Berriz aitzinean 32-26 Herveren **ziztakoekin** eta Kurutcharryren lasterrak gainera. Herria

**3 *ziztakoan* *adlag*** berehala.

---

**ziztakor** *izond* ziztatzen duena. ik **ziztakari**.

Arantzari berari, **ziztakor** eta dainu gaiztatu nekosoen sorle denez, elorria deitu izan zaio. Pello Zabala

Murtutseneko inguruetan gaitzeko urrin tzarra zegoen eta pietunak sudurra tapatu zuen mokanesarekin, hilotzaren ondoraino heltzeko, kanpoko freskotasunagatik ulu beltz **ziztakorrak** haizatzen zituela. Itxaro Borda

Eskolaumearena izango litzake arinena, benetan halaxe ote denaren zizta gero eta sarkorrago eta **ziztakorragoxe** hor ez balego. Pello Zabala

---

**ziztalari** *iz* ziztakaria.

Baserriko eskarmentutik dator hau, bai lanarekiko argi moztualdia, eta baita ukuilutik gora igotako **ziztalari** ttiki horien akordua ere, latoso eta pelma jartzen baitira zenbait egunetan. Pello Zabala

---

**ziztarazi**, ziztaraz, ziztarazten du *ad* ziztatzera behartu.

Batzuetan sarkasmo gordinenerantz lerratu du kontalariaren jarrera, besteetan kontalari probokatzaileak irakurlea **ziztarazi** du, besteetan ironia zirikatzaileak ernarazi du irakurlea, besteetan ironia leunak bildu du istorioa. Berria - Kultura

---

**ziztari** *izond* ziztakaria.

Zer kezka **ziztariek** eta nolako beldurrek ez ote dute urratzen irritsaren mende dagoen gizakumea! Xabier Amuriza

---

**ziztatu**, zizta(tu), ziztatzen *(orobat **sistatu** g.er.)* **1** du *ad* gauza puntadun batez zulatu.

Erleek ez zuten sekula Damian Arruti **ziztatzen**. Hasier Etxeberria

Laburtze aldera, beraz: ibil gaitezen tximeleta bezala; **zizta** dezagun liztorrak bezala. Josetxo Azkona

Sakan honetan, eltxoek **ziztatu** egingo zaituzte. Koldo Biguri

Nire bistatik itsas putzuan barrena galdu arren, han ere itsas sugeak **zizta** ditzan egingo dut. Elizen arteko biblia

Zaldia **ziztatu** zuen, bada, eta otsoari oldartu zitzaion. Josu Zabaleta

Nor ez du **ziztatu** ote muturren batek, zakarrak hartuxetako bide zaharren batetik igarotzekoan? Patziku Perurena

-Abisatu zintudan ez zenidala ziria sartu behar, ez? -erran zion, ganibetaz tripontzia **ziztatuz**. Elena Touyarou

Orratz batez **ziztatu** banu bezala, hitz eta pitz hasi zitzaidan, gelditu gabe. Juan Kruz Igerabide

Orratzen bidez akupuntura puntuak **ziztatzea** da terapia horren muina. Berria - Euskal Herria

Behatz punta **ziztatu** zion orratzak. Itxaro Borda

Zain horietatik, orratz batez **ziztaturik** odol tanta bat hartu. Juan Garzia

Ez **zizta** gehiago zeure zain horiek, Emmanuel, arren eta arren... Joan Mari Irigoien

Pianotik **ziztatuta** bezala jaiki, eta bainugelara noa. Anjel Lertxundi

**Ziztatzen** gaituztenean bakarrik erreakzionatzen dugu. Berria - Kultura

Orratzen bidez akupuntura puntuak **ziztatzea** da terapia horren muina. Berria - Euskal Herria

**2** irud/hed

Oroitzen zara nola egiten zenidan barre, nire telefonoa baten batek **ziztatuta** zeukala esan nizunean? Hasier Etxeberria

Bat-batean hotzak **ziztatu** nau eta bakardadeak uzkurtu, konkortu bezala. Piarres Aintziart

Hala eta ere, azkenekoz ikusteko begiratu nionean, haren patuak bihotza **ziztatu** zidan. Edorta Jimenez

Gandorra janzteko tentazioak **ziztatu** ninduen. Aingeru Epaltza

Amari deika ari zitzaion neskatoaren ahotsari zerion tristurak Egutxiren bularra **ziztatu** zuen. Ibon Uribarri

**3** xiringaren bidez gorputzean barneratu.

Besoan anestesia pixka bat **ziztatu**, eta lanean hasi zen Hori Wu. Javi Cillero

**4** iltzatu.

Haga bat kendu, luzea eta koskagabea, zutik finkatu hagatxoa, eta gauez haren puntan **ziztatzen** nuen ogia. Juan Garzia

Mahukak goratuak, eta labanekin haragipuskak **ziztatu** eta jan egiten zituzten. Fernando Rey

Bizkarreko min zorrotza datorrenean, Nabokoven tximeleta sentitzen naiz, entomologo batek orratzez alderik alde **ziztatua**. Iñaki Iñurrieta

-Egun ederraren argi ederrak bere baitara gaitzan bil! -deklamatu zuen, gar xelebre batek **ziztatua**. Aingeru Epaltza

Itsas aingirak, xerrak markatzeko balio duen orratz beltzarekin **ziztatuak**. Karlos Zabala

**5** akuilatu.

Erreboltaren hotsak gazte andana ateraraziak zituen beren etxeetatik, gorrotoak eta loria-nahiak **ziztaturik**. Aingeru Epaltza

Alegera kantatzen zuten, esperantzaren suak **ziztatuak**. Aingeru Epaltza

Baina gure Kopeikin, goseak **ziztaturik**, honela mintzatu zitzaion: [...]. Jose Morales

-Egun ederraren argi ederrak bere baitara gaitzan bil! -deklamatu zuen, gar xelebre batek **ziztatua**. Aingeru Epaltza

**6** (era burutua izenondo gisa)

Hasi kaligrafiarik dotoreenaz kopiatzen, eta gogoa dantzan berehala, eta papera beltzearekin batera, tximeleta **ziztatuaren** irudia. Iñaki Iñurrieta

---

## ziztatzaile *izond* ziztatzen duena. ik **ziztakari**.

Maiseatzaileei arkakuso **ziztatzaileei** bezala egiten zien ihes. Askoren artean

Haietako bat bere semea bide zen eta haren apa jaso zuen matrail bixarraz **ziztatzailean**. Josu Landa

Baina ezin izan zuen, eta arnasa sakon samar hartzen zuen bakoitzean, oinaze **ziztatzaile** batek geldiarazten zuen. Patxi Zubizarreta

Eta loezinarekin batera pentsamendu zorrotzak, **ziztatzaileak**, eta haiekin batera bizia galtzeko beldurra. Jose Morales

Europako ingurune intelektualean entzun daitezkeen ahots **ziztatzaileen** eta inkonformistenetako bat. Berria - Kultura

Aipatutako liburuak aintzat hartzen hasi ziren kritikak, ez ziren itzulinguru amaigabeetan galtzen eta, zehatzagoak izateaz gain, zorrotzak eta are **ziztatzaileak** bilakatu ziren. Iban Zaldua

Maimonek ez du tesi hori onartzen, baina beraren kritika, funtsean, **ziztatzaileagoa** da. Xabier Kintana

---

## zizter *iz* zatita, puska.

Ardoak, urak eta eztiak edari bat osatzen duten modura, eta hauetariko bakoitza edari guztira hedatzen da, eta, halere, hiru dira (eta ez dago edar **zizterrik** hirurak ez dauzkanik, eta ez olioa eta ura bezala bata bestearen gainean, nahasian baizik, hirurak substantzia izan arren; eta edari hura substantzia bat baino ez da hiruz osatua). Imanol Unzurrunzaga

---

ziztertar ik **zistertar**.

---

## ziztor[1] **1** *iz* arrastoa.

Argazki-oineko letrek **ziztor** amorratuak ematen dute, egundoko abiadan mugitzen dira, ezin ditut elkarrekin lotu. Anjel Lertxundi

**2** ***elur ziztor*** elur arrastoa.

Mendate zabal bat gainditu dut halako batean uda minean, eguzkia eguerditan ia neure buru gain-gainean zuzen, eta hala ere bazen artean elur **ziztorrik** larreetan. Juan Garzia

**3** ***erreka ziztor*** errekatxoa.

**Erreka-ziztor** bat igarotzen da erdi-erditik. Anjel Lertxundi

Saratik abiatu eta sakonune batean zihoan **erreka ziztor** baten ertzetik ibili ziren Lizuniagaraino, eta handik Illekueta auzora. Koro Navarro

Berehala, gaztainadi bat zeharkatzean, baserriak ikusten ziren lerroan, **erreka ziztor** baten erara kokatuak. Bernardo Atxaga

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
> erreka ziztor (3)

---

ziztor[2] ik **txistor**.

---

## ziztorka *adlag*

Zerbitzuburua barre-eztulka hasi zen, zer egin ez zekiela, bere zuzendari jaunaren aurrean **ziztorka** eman ziezagutela agintzeko uzkur. Koldo Izagirre

---

## ziztrin **1** *izond* balio edo itxura gutxikoa. ik **zirtzil; purtzil.** (pertsonak)

Nondik datorkik harrokeria hori, sorkari **ziztrin** bat besterik ez haizen horri? ile kizkurreko gizon **ziztrin** bat. Askoren artean
Begi txit santu haiek ez dute bekatarien artean inor ikusi ni baino **ziztrin**, kaxkar eta bekatariagorik. Askoren artean
Ni haur elbarri bat baizik ez nintzen, arraioa, inori axola ez zitzaion peoi **ziztrin** bat. Alberto Ladron Arana
Bulegoetan paperak kopiatzeko erabiltzen diren funtzionario **ziztrin** horietakoa bailitzan tratatzen zuela. Jose Morales
Ezin du ulertu zein printze ahaltsuk erabaki duen lurjabe **ziztrin** eta eskolagabe haien artean bizitzen jartzea. Jose Morales
-Menditar **ziztrin** batek, lau sos balio ez duen bidelapur batek, oraindik bibotea atera ez zaion mukizu batek zaldia lapurtu dit, irain egin dit. Fernando Rey
Lapur arrunt **ziztrinak** baino ez. Mirentxu Larrañaga
Rohango Zaldizkoek ia mukizu **ziztrinak** dirudite haien aldean. Agustin Otsoa
Ziri ederra sartu zidak Sobakevitxek, doilor **ziztrin** horrek! Jose Morales
Zu horren polita eta ni berriz honen **ziztrina**. Xabier Mendiguren Elizegi

**2** (bestelakoez)

Oilo **ziztrin** bat ere ez daukat etxean, horraino iritsi naiz. Jose Morales
Zizare **ziztrin** nazkagarria! Mirentxu Larrañaga
Zergatik besteek gora egiten dute eta nik arrastaka ibili behar dut har **ziztrin** baten antzera? Jose Morales
Hortxe bizi da, etxe **ziztrin** horretan. Juan Kruz Igerabide
Gela **ziztrin** horretan, hiru hankako ohe estu bat hormara hurbildu, eta lastaira-antzeko bigungarri txiki bat ipini zuen gainean. Jose Morales
Sagar **ziztrin** pare bat ere ez diezu emango? Joanes Urkixo
Hiri **ziztrina**, denda **ziztrinez** eta jende **ziztrinez** betea, nik utzi nuen hiria bezalakoa. Fernando Rey
Ibiltaria ardiei begira gelditzen da -zein erraz aurkitzen duten belarrik **ziztrinena**!-, eta ondorenean goraka egiten du arin. Bernardo Atxaga
Labana **ziztrin** bat bera ere ez neukan eskura, sarrailarako. Joxe Austin Arrieta
Dotorezia kontuetan hain zen kaskarina, ezen inoiz oihalik garestienak **ziztrinenekin** batera adabarazten baitzituen jantzi berean. Askoren artean
Pinu gazte txikiz osaturiko sastraka **ziztrinak**, suak kiskalitako pinu-enbor zaharrak, basatxilarrak eta horrelako huskeriak. Jose Morales
Gaur ikusi dut iragarkia, ordu txikietan, tokiko telebista **ziztrin** horietako batean: [...]. Iban Zaldua
Gainerako guztiak beharrezko ez diren errepikapenak, alferreko azalpenak, ezeztapen eta erantzun **ziztrin** eta hutsalak maiz, erretorika eta poetika jokoak baino ez dira. Xabier Kintana
Hara ailegatzeko bide **ziztrin** bat besterik ez dago. Berria - Harian
Aski arraroa zen ingelesek trebatu gabeko gizonak aukeratzea... baldin eta lan **ziztrin** baterako ez bazen, jakina. Alberto Ladron Arana
Ezkondu eta gero, baserriko irabazi **ziztrina** osatzeko-edo, fabrikan hasi zen. Xabier Mendiguren Elizegi
Lanpostuak, neurri batean behintzat, txarrak eta **ziztrinak** ziren. Jose Morales
Gaztaroko episodio **ziztrin** horrek ez duela zerikusirik nire bizitza zitalaren gorabeherekin. Iban Zaldua
Tirada urriko eta banaketa eskaseko edizio **ziztrin** batean. Berria - Kultura
Motorraren edozein matxura **ziztrin** aski da. Joxe Austin Arrieta
Hogeita sei urte **ziztrin** eta hemen hago Donostiara doan autobus patetiko batean sartuta. Unai Iturriaga
Zilegi zirudien pentsatzea gau batez bederen, gau **ziztrin** batez bederen, afaria iragarri aurretik joan zitekeela senarra bere burua txukuntzera. Mirentxu Larrañaga
Bere kirol ibilbideko garaipen onenak egin zion ihes, segundo **ziztrin** bategatik. Berria - Kirola
Plazer istant **ziztrin**, minimo eta soilik a posteriori idealizatu hori. Harkaitz Cano
Deusetarako balio ez duen justizia **ziztrin** hori. Harkaitz Cano
Beren bizitza **ziztrinen** helburu bakarra gure zibilizazioa hondatzea duk. Alberto Ladron Arana
Zergatik kondenatu heure burua hil artean giro **ziztrin** horretan bizitzera? Jose Morales
Lotsagarria izan da limosna **ziztrin** batekin hain arazo larria estali nahi izatea. Berria - Euskal Herria
Jokalariak hilabete mordoa daramate euro **ziztrin** bat jaso gabe. Berria - Kirola
Halako zera **ziztrin** bat ikusten zien etxerako epeka erosi zituen altzari politei. Irene Aldasoro

**3** (adizlagun gisa)

Arratsean, **ziztrin** jokatuko nuen baldin eta lanerako hautatzeko agerian utzi behar izan nituen gaitasunek ezertarako ez zidatela balio izan pentsatu izango banu. Joxan Elosegi

**4** (-en atzizkiaren eskuinean izen gisa)

Izatez, asmo onekoa da, bere **ziztrinean**. Irene Aldasoro

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
> **emakume ziztrin** (3); **etxe ziztrin** (5); **gela ziztrin** (4); **gelaxka ziztrin** (3); **gol ziztrin** (3); **lan ziztrin** (3); **peoi ziztrin bat** (3); **puntu ziztrin** (4); **segundo ziztrin** (3); **taberna ziztrin batean** (3); **urte ziztrin** (3); **zizare ziztrin** (3)

---

# **ziztrindu**, ziztrin(du), ziztrintzen da/du *ad* ziztrin bihurtu.

Leihoetako barroteak argaldurik eta **ziztrindurik** egonen dira herdoilaren herdoilez. Joseba Sarrionandia

---

# **ziztrinkeria** *iz* gauza ziztrina; ziztrina denaren nolakotasun gaitzesgarria.

-**Ziztrinkeria** hori eramango dugu? Jon Arretxe
Zer zen **ziztrinkeria** hura? Alberto Ladron Arana
-**Ziztrinkeria** ez, Zigor, kalitatea. Jon Arretxe
Gure **ziztrinkerietatik** at eta gorago kokatutako aitonseme bikain, bekaizkeria ezkutu baina biziaz. Txillardegi
Erabilera zabalago eta onartuagoa du ospearen eraikineko harriak itsasteko mortero gisa, eta ondoren materialaren **ziztrinkeria** estaltzeko kare gisa. Xabier Olarra
Buruzagien artean antzematen nuen hanka-traben eta azpikerien **ziztrinkeriak** azkartu egiten zuen ene mesfidantza hazkorra. Txillardegi

---

# **ziztu**[1] **1** *iz* txistua, ezpainetan irekidura mehar bat eratuz eta bertatik airea jaurtikiaz ateratzen den soinu zolia. ik **txistu**.

**Ziztu** bat entzun zuten. Koldo Izagirre
**Ziztua** entzun zuten ostera, hurbilago, eta Dopazok oihu egin zuen bere ahots garratzean. Koldo Izagirre
Pittin bat irekiak ditu ezpainak, estutuak hortzak, eta hauen artetik doinua izatera iristen ez den **ziztuaren** antzeko zerbait ateratzen zaio. Pello Lizarralde
Sugegorriak belarretan ateratzen duen **ziztua** sortzen zuten hitz haiek Xegamaren hortzetan. Koldo Izagirre
Garrasi eta **ziztu** horiek ilunabarrean bidaiatzen duten hegazti migratzaileek eginak ziren inondik ere. Josu Zabaleta
Galerna batetik arribadan ekarriko balitu moduan sartu behar izan zuten haren ondotik denden zirkulu barruan, **ziztua** jotzen zuela umeak biltzeko. Koldo Izagirre

-Nik **ziztu** jotakoan, denok mastaraino! Koldo Izagirre

Haizeak, bafadaka jotzen zuen behe haize batek, **ziztu** eragiten zien inguruko oteei. Josu Zabaleta

Oihu bakar baterat bildu zitzaizkidan haizearen **ziztu** guztiak. Joan Mari Irigoien

Burrunba ozena, ondotik **ziztua** eta alimaleko karraska. Eneko Bidegain

Hasieran, baloia hartzen nuen bakoitzean, ikusleek **ziztuak** eta aurkako oihuak jaurtitzen zizkidaten, geziak balira bezala: gezi-euri etengabea. Joan Mari Irigoien

Isiltasuna ez du ezerk urratzen eta **ziztu** bihurtzen da. Berria - Kultura

Larritzeko eta beldurtzeko inolako motiborik gabe ere, piztien hanka-hotsek eta sugeen **ziztuek** asaldaturik. Elizen arteko biblia

Obus baten **ziztua** entzun zen. Jon Maia

Sartzen ari ziren lokomotoren **ziztua** zetorren tokirantz. Matías Múgica

Liluramendu hartatik soil-soilik kafeteraren **ziztuak** itzarri ninduen. Patxi Zubizarreta

Gailurretatik, haizearen **ziztuarekin** batera, joare urrun eta ilun batzuen hotsa datorkie. Pello Lizarralde

Airean itzulinguruka dabiltzan usoei bezala gertatzen zitzaion: azkenean, nagusiaren **ziztuari** esaneko, usategira itzultzen zen. Patxi Zubizarreta

**Ziztua** baino bizkorrago zuzendu zituen zaldiaren oin eta hankak hirira. Xabier Mendiguren Elizegi

**2** (izenondo eta izenlagunekin)

Haizearen **ziztu** emea. Bidean bost minutu zeramatzala, ikusi zuen mutiko batek **ziztu** luze bat egin zuen; hari beste **ziztu** berdin batek erantzun zion ondoko kale batetik. Josu Zabaleta

Gerrako ontzietan gaztiguak emateko guardiako marinelek erabiltzen zuten metalezko **ziztu** luzexka berdina. Koldo Izagirre

Jaten jarraitu genuen, giro alaian hizketan; horretan **ziztu** sarkor bat entzun zen. Josu Zabaleta

Arnasa sakon hartu duzu, segundo pare batez sabelean eutsi, ederki, eta emeki **ziztu** mutu batean kanporatu, beste behin, ederki. Eider Rodriguez

Tarteka tiro hotsak entzuten ziren, **ziztu** zorrotz bat, paretaz pareta bala biktimaren bila balihoa bezala. Jon Maia

Gauez ahotsak, **ziztu** ozenak, iragaitzazko garrasiak entzuten zirela esaten zen. Josu Zabaleta

Irri inozoak egin genituen, **ziztu** mingarria Antxonek. Koldo Izagirre

**Ziztu** bakarti batek hautsi du altzairuzko isiltasuna. Patxi Zubizarreta

Bi bidazti etxe batetik atera eta ur izkinara jo zuten **ziztu** biziz. Karlos Zabala

**Ziztu** biziko ur ilun eta pozoitsuak bere bizitzaren ur-bazter biluzietan. Fernando Rey

Gero aspertzen hasi zen, bat-batekotasun **ziztu** bizikoan. Mirentxu Larrañaga

Bolumena jaitsi zuen irratian, aurrealdeko saretxo biribilean hedatzen ziren **ziztu** eta burrunba etenak apur bat motelagotzearren. Josu Landa

Bertsolaritza **ziztu** handian ibiltzeko gai ez izan arren, zentzurik ba ote duen galdetzen du bertsolaritzaren mugimenduak, edo edukirik transmititzen ote duen. J. Garzia / A. Egaña / J. Sarasua

**3** (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

Inoiz baino sargoriago, likits eta ustelago zegoen giroa, isats urdineko hainbat txoriren **ziztu**-burrunba bazterretan. Joxe Austin Arrieta

Nere ofiziorik publikoenak (**ziztu** jotze lanak, alegia) hortzak hondatu izana, edonoren zentzagarri izan beharko luke. Patziku Perurena

**4** (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa)

Ea beldurrik ez ote zuen, hango bala-**ziztua** entzunda. Inazio Mujika Iraola

Tiro eta bonba **ziztuen** artean egin zuen korri. Jon Maia

Arnasestua, sudur **ziztua** eta ostikoen hotsa besterik ez zen entzuten, bortitz, gupidagabe, menderakaitz. Jose Morales

Txori **ziztu** burrunbari haiek... Joxe Austin Arrieta

Itsas hondoa agertu zen, lurraren oinarriak agerian jarri Jaunaren orroaz, haren haserre-**ziztuaz**.

**5** ***ziztu egin***

Zaintzaileek **ziztu egiten** ziguten txilibituarekin. Pello Lizarralde

Ene ezpatak **ziztu egin** zuen airean. Aingeru Epaltza

Bizikletan ibili, dantza egin, **ziztu egin**, munduari begiratu, gazte sentitu, gazte naizela jakin. Josu Zabaleta

Balek gertu **egiten** dutelako **ziztu**. Lander Garro

Gure armairu atea jo zuten, Miepek **ziztu egin** zuen. Josu Zabaleta

Burges baten moduan **egiten** duzu **ziztu**, handikiro, eta eztul txikia egiten duzu zeure mukizapian, atsegina hartuz. Monika Etxebarria

**Ziztu egiten** zuen txori batek bezala, erakustearren ez zuela nekatzeko batere gogorik eta harro sentitzen zela nobelagile izan nahi zuelako. Pello Lizarralde

Edalontziek **ziztu egin** eta bitsa atera zuten. Iñaki Mendiguren

Hitzek **ziztu egiten** zuten, eta zirrikituen aurka talka. Lander Garro

**6** ***ziztu hots***

Haizearen **ziztu-hotsak**, txorien kantu eztiak adar hostotsuetan. Elizen arteko biblia

Hots zoliek, haizearen **ziztu-hotsak** edo bat-bateko zarata handiak. Xabier Olarra

Haizeak **ziztu-hotsa** ateratzen zuen zurezko paretetako zirrikituetan. Iñaki Mendiguren

Irten eta atea itxi zuenean, Ronek **ziztu-hots** luze eta isila egin zuen. Iñaki Mendiguren

Fritzek eta guk noizbehinka amorrarazten genuen elkar, misil-eztanden **ziztu-hotsak** eta gau-patruilak bitarteko zirela. Mirentxu Larrañaga

Bludgerraren **ziztu-hotsa** entzuten zuen atzean jarraika. Iñaki Mendiguren

Mazoa lasto iruditzen zaio, gezien **ziztu-hotsari** barre egiten dio. Elizen arteko biblia

Edabeak **ziztu-hots** handia atera zuen, presio-eltzeak bezala. Iñaki Mendiguren

Berehala entzun zuen bludgerraren **ziztu-hots** adierazgarria bere atzean. Iñaki Mendiguren

Puntu hartatik pasatu eta puska batera **ziztu hots** zorrotza aditu nuen. Matías Múgica

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
> **haizearen ziztu** (5); **ziztu egin** (7); **ziztu egin zuen** (3); **ziztu egiten** (3); **ziztu hots** (7); **ziztu hotsa** (5); **ziztu hotsak** (6); **ziztua entzun** (7)

---

# ziztu[2] 1 *iz adkor* abiadura.

Charlyk, gainera, **ziztua** amiñi bat ere eztitu gabe iragan zuen bidea emateko seinalea. Aingeru Epaltza

Hontza oso txikia zen, eta airean itzulipurdika zebilen, trenaren **ziztuak** hara eta hona astintzen baitzuen. Iñaki Mendiguren

Bi lagun barruan zeuzkan auto bat **ziztu** handian hurbildu zen polizia etxera. Berria - Mundua

Hor ere autoak **ziztu** pollitean badoaz, bide xuxenak ez baitu parerik. Angel Aintziburu / Jean Baptiste Etxarren

**Ziztu** gogorrean erabilki pilota Irujok baina badu gai Bengoetxeak ere. Herria

Sekulako **ziztua** etapa hasi eta bukatu arte. Berria - Kirola

Joxe Marik negar egiteari utzi zion; potroak eztarrian zeuzkala uste dut, neraman **ziztuarekin**. Juan Kruz Igerabide

A ze **ziztua** daramagun! Patxi Iturritegi

Ez genuen ikusten ez hesola, ez arbola ezta etxerik ere, hura zen **ziztua**! Pako Aristi

## 2 *ziztuan* (*217 agerraldi, 62 liburu eta 14 artikulutan*) *adlag* ziztu bizian.

**Ziztuan** zabilan pilota, eta ez bakarrik bidarritarrarena. Herria

**Ziztuan** iragan zen Joanes kontzejuko atarian zaindari zeuden bi soldadu garai, prestu eta bibote-luzeren aurretik. Felipe Juaristi

Harrapakina begiztatutakoan, **ziztuan** jaisten dira, ia harri bat bezalaxe, zuzen-zuzen. Anjel Lertxundi

1936ko abuztuaren 9an, kamioi handi bat eta auto txiki batzuk **ziztuan** iritsi ziren Galarretara. Berria - Kultura

Bere bulegotik **ziztuan** irten, saltoka eskailerak jaitsi eta Maiden Lane-ra atera zen. Lopez de Arana

Hurbil behar zuen, **ziztuan** ailegatu baitzen. Aingeru Epaltza

Ilun eta **ziztuan** mintzo ziren eta nik ez nuen tutik ere ulertzen. Fernando Rey

Tira, sar hadi **ziztuan**, damutu baino lehen. Aingeru Epaltza

Aiena hadi **ziztuan** hemendik! Aingeru Epaltza

Hontz handi bat sartu zen **ziztuan** jangelako leihotik. Iñaki Mendiguren

Deabruak Llum eta inspektorea dauden aldera mugitzen dira **ziztuan**, inspektorea eskuinera baztertzen da deabruei pasatzen uzteko, eta une batez Llum bistatik galtzen du. Antton Olano

Bederatzigarren Etorbidean tren bat goialdetik igaro zen, **ziztuan**, erdialderantz, tren-makina txiki berde bat aurrean zeukala. Lopez de Arana

Oroitzapenen bat bere gogotik igaro eta **ziztuan** ezabatu balitzaio bezala. Joanes Urkixo

Denbora **ziztuan** zihoan, egia. Edorta Jimenez

-Antonio, zakilpotro halakoa, **ziztuan** ohera! Aingeru Epaltza

Mendikleta hartu nuen eta deabruen **ziztuan** Lampauletik atera nintzen. Itxaro Borda

## 3 (izenlagunekin)

Zer eskubide dute kotxe madarikatu horiek halako **ziztuan** ibiltzeko, emakumeak eta haurrak harrapatzen? Lopez de Arana

Bakan ikusten da pilota holako **ziztuan** jotzen. Herria

Orain lasterrari ematen nion sekulako **ziztuan**, eta hanka-hotsek burrunba egiten zuten kaleetan. Fernando Rey

Gauero, gauerdira arte, oihuka eta aieneka egoten da lanean, izugarrizko **ziztuan**. Monika Etxebarria

Begiak ikaragarrizko **ziztuan** zebilzkion jiraka. Fernando Rey

Oren bat pasa iraun du eta 230 pilota jo dituzte harritzeko **ziztuan**. Herria

Halako abailan alde egin zuen handik, non bidean ikusi zutenei iruditu baitzitzaien sinetsi ezineko **ziztuan** zazpi herri zeharkatu zituen tximista luze ilun bat. Xabier Olarra

## 4 *ziztu batean* (*27 agerraldi, 17 liburu eta artikulu 1ean*) *adlag* ziztu bizian.

**Ziztu batean** erretiratu zituen eskuak artzainak. Xabier Aranburu

Horrela, **ziztu batean**, txori batek hegoak astintzeko behar duen baino denbora gutxiagoan, hondartza ikuslez bete zen. Felipe Juaristi

Produktuaren diseinuan egin beharreko aldaketak **ziztu batean** egiten dira. Iñaki Heras

Beste krisialdi baten erdi-erdian zegoen Flora, hirugarrenez erietxera eramango zuen maniarantz **ziztu batean** abiatzen. Oskar Arana

Agertu bezala desagertu zen hedabideen erakusleihotik: **ziztu batean**. Berria - Harian

## 5 *ziztu bizian* (*486 agerraldi, 114 liburu eta 95 artikulutan*) *adlag* abiadura bizian.

**Ziztu bizian** egin nuen korrika, txinatar hiltzaileek jarraitzen zidaten gauetan bezain azkar. **Ziztu bizian** irten ginen handik. Jon Arretxe

**Ziztu bizian** zutitu eta, beste guztiei aurrea harturik, belarri-babesgarriekiko txanoa ematen zion irakasleari. Jose Morales

**Ziztu bizian** alde egiten zuten hura urrunetik ikusi bezain laster. Jose Morales

**Ziztu bizian** ari da hazten ekonomia eta lehengai behar handia du. Berria - Ekonomia

Txapeldunak **ziztu bizian** lortu zituen lehen hiru tantoak. Berria - Kirola

Beti **ziztu bizian** pasatzen zen. Pello Lizarralde

Pepponek martxa sartu eta **ziztu bizian** abiatu ziren. Koldo Biguri

Animaliak **ziztu bizian** egin zuen hanka. Edorta Jimenez

Hitzok amaitu bezain laster, **ziztu bizian** atera zen deabrua amorruz eta zalapartaka. Askoren artean

Hala ere, tarantasa **ziztu bizian** zihoan, bideari hamabi-hamalau versta orduko janez. Karlos Zabala

Bihotza asaldatuta zeukan eskaileretan behera Iturbideren bulegorantz abiatu zenean, odola **ziztu bizian**, gorputza adrenalinaz gainezka. Migel Angel Mintegi

Bihotza **ziztu bizian** ari zitzaion. Fernando Morillo

Gozamenaren gozamenaz hazia **ziztu bizian** kanporatu zitzaidan eta ohekideari erraietaraino barneratu. Aitor Arana

Nire lagun "Ximurrak" **ziztu bizian** ninderaman hiri lokartuan barna. Aingeru Epaltza

-Hoa **ziztu bizian** arotzaren bila. Jose Morales

Beti ere begi bat erdi irekita egiten nuen lo, dena den, handik **ziztu bizian** altxatzeko prest. Jon Arretxe

Zuzen-zuzenean abiatu zen, **ziztu bizian**, inprimatuen gelara. Jon Muñoz

Ordaina, itzuli bat, **ziztu bizian**, Charlyren motor herdoiltsuaren gibelaldean, hiri inguruko ingurabideetan barna. Aingeru Epaltza

Ikaragarrizko argitasuna zabaldu zen hegaztiaren gorputz osoan zehar, eta berehala, **ziztu bizian**, han joan ziren hodian gora hegan. Iñaki Mendiguren

Bat-batean, argi bat ikusi nuen niganatzen, **ziztu bizian**; jo ez nintzan, bidetik irten nintzen. Juan Kruz Igerabide

Barrara hurbildu, billete bat utzi, eta bueltak jaso gabe, **ziztu bizian** irten zen tabernatik. Migel Angel Mintegi

Zakur guztiak, buztanari eraginez, **ziztu bizian** hurbildu ziren bisitariengana, agurtzeko asmoz. Jose Morales

Ekintzaile suizida batek gidatutako auto bat hurbildu zen **ziztu bizian** eta al Sheikliren bizkartzainek tiro egin zioten geldiarazteko. Berria - Mundua

Estutasun horretan, beharrak eraginda, **ziztu bizian** dabilkizu burua. Rafa Egiguren

Iñakik, berriz, hura ikusi orduko zuhaitzetik jauzi, eta **ziztu bizian** egin zuen ihes. Joan Mari Irigoien

Han makurtuta, bi auto sumatu genituen igarotzen, **ziztu bizian**. Juan Kruz Igerabide

Lasterka hasi eta, errepidea zeharkatuta, bestaldeko basoan sartu nintzen **ziztu bizian**. Juan Luis Zabala

Ravignan kalean behera abiatu zen, **ziztu bizian**. Jon Muñoz

· Gizona **ziztu biziagoan** ispiluen dendan da sartu, haien artean ezkutatuz. Jose Angel Irigaray

### hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

**behera ziztu bizian** (4); **dena ziztu bizian** (3); **gero ziztu bizian** (3); **harry ziztu bizian** (5); **ondotik ziztu bizian** (4)

**ziztu batean** (27)

**ziztu bizian** (478); **ziztu bizian abiatu** (22); **ziztu bizian abiatzen** (3); **ziztu bizian ari** (3); **ziztu bizian atera** (11); **ziztu bizian ateratzen** (3); **ziztu bizian doa** (5); **ziztu bizian doan** (3); **ziztu bizian egin** (18); **ziztu bizian egiten** (4); **ziztu bizian etorri** (3); **ziztu bizian hurbildu** (3); **ziztu bizian igaro** (6); **ziztu bizian igarotzen** (8); **ziztu bizian igo** (4); **ziztu bizian ihes** (4); **ziztu bizian irten** (12); **ziztu bizian jaisten** (3); **ziztu bizian jaitsi** (4); **ziztu bizian jo** (5); **ziztu bizian joan** (11); **ziztu bizian sartu** (6); **ziztu bizian zeharkatu** (3); **ziztu bizian zihoan** (5); **ziztu bizian zihoazen** (5)

**sekulako ziztuan** (4)

**ziztuan abiatu zen** (5); **ziztuan alde egin** (3); **ziztuan atera** (7); **ziztuan etorri** (4); **ziztuan igaro** (4); **ziztuan irten** (4); **ziztuan itzuli** (3); **ziztuan joan** (6); **ziztuan lekutu** (3); **ziztuan sartu zen** (6); **ziztuan zeharkatu** (5); **ziztuan zeharkatu zuen** (3)

**ziztugile** *izond* ziztu egiten duena.

Haize hiltzaile, **ziztugile**, intziri egile, orro egile hori, ikusi al duzu, ikusi ahal dezakezu? Koldo Izagirre

---

**ziztuka** *(orobat* **sistuka** *g.er.)* **1** *adlag* txistuka.

Jendea **ziztuka** eta oihuka: betiko tranpa hasi dutela aranaztarrek! Patziku Perurena

Jendetza gaitz baten erdian pasatzen gira, kexu eta dena mehatxu, haurrak guri **ziztuka** eta harrika. Michel Oronoz

Lehen taldearen emanaldia bururatua delako seinale, zenbait **ziztuka** hasten dira, bertze bat jo dezaten galdeginez. Eneko Bidegain

Landroverrean sartu eta **ziztuka** hasi ginen, atzamarrak ahoan, ahal bezain zaratatsu. Joxe Austin Arrieta

Suziria **ziztuka** eta txinpartak botatzen hasi zen. Iñaki Mendiguren

Beharbada tren bat ziztu bizian eta **ziztuka** igaro delako. Patxi Zubizarreta

Gezi bat nire belarri inguruan **ziztuka** pasatzen zen aldiro, Gilenez oroitzen nintzen. Aingeru Epaltza

Ezin izan zuen jarraitu, zeren une horretan tomate batek **ziztuka** iritsi eta aurpegian jo baitzuen. Koldo Biguri

Askatu zituzten beren habailak eta han hasi zitzaizkion belarri ondoan **ziztuka** ukabila adinako harri kozkorrak. Patxi Ezkiaga

Haizea **ziztuka** ari beti, beti ageri zen ilargi-mamu bat, zeruko gune berean hantxe beti. Juan Garzia

Gauean **ziztuka** ari den haizeak lotan dagoen ororen ametsak sakabanatzen ditu. Juan Kruz Igerabide

Kea eta tabakoa, tabakoa eta kea zituen lagun, harik eta egun batean airea eta kea biriketan **ziztuka** hasi zitzaizkion arte. Joan Mari Irigoien

Sugeak bezala **sistuka** aritzen dira eta horrela dute elkar entenditzen. Aurelia Arkotxa

Nahiz jendetasunak menturaz hala aginduko lukeen, ez nuen inolako azalpenik eskuratu gero, gauzarik arruntena izango balitz bezala euskaltzain eta errektore den bati **ziztuka** egitea euskal besta batean. Pello Salaburu

**2** *(hitz elkartuetan).*

Barre purrustadatxoak irteten zitzaizkion bat bestearen atzetik arnas-**ziztuka** gorputz dardarikatutik. Irene Aldasoro

---

**ziztukada** *iz adkor* txistukada.

Mingarri zitzaidan gazte denboran bake-paraje izandako muino eta zelai leun haiek, orain balen **ziztukada** giro odoltsuan topatzea. Txillardegi

Hogeita bost zentaboko txanpona sartu, palankari eragin, karrakaren bira itsuki jarrai eta, gelditzen zenean, zenbait txanponen erorketaren zarata entzun, ala deus irabazi ez zelako **ziztukada** elektronikoa, "biiipp". Iñaki Zabaleta

---

**ziztukari** **1** *izond* ziztu egiten duena.

Haize **ziztukaria** tximinian gora. Joxe Austin Arrieta

Sugea bere ondotik ziztu bizian igaro zenean, Harryk zin egingo zuen ahots apal **ziztukariz** zera esan ziola: [...]. Iñaki Mendiguren

Ni kulunka eta kantari, besterik gabe, nire aldameneko eserleku hutsak ere kulunkari, burdinurtu **ziztukaria**, loreen zirimola. Joxe Austin Arrieta

**2** (fonetikan eta fonologian; ik **txistukari**.)

Xehetasun teknikoak adierazteko, baliagarri gerta lekiguke euskaraz txistukariak eta **ziztukariak** bereiztea. Lourdes Oñederra

Horrela, behar izanez gero, bereizi genitzake *s, ts, z, tz* **ziztukari** hobikariak eta *x, tx* txistukari sabaiaurrekoak edo txetxekariak. Lourdes Oñederra

---

**ziztukatu**, ziztuka(tu), ziztukaten du *ad* txistukatu.

Abesti zahar bat hasi zen **ziztukatzen**, pentsamenduak bezperako topaketara ihes egiten zion bitartean. Iñaki Zabaleta

Abelen ondora iritsita buruarekin agur egin eta doinu zehaztezin bat **ziztukatzeari** ekin dio. Pello Lizarralde

Atera hurbildu eta ahaire arrado eta zoragarri baten lehen ahapaldia **ziztukatu** zuen. Koldo Izagirre

Hirugarrenez hasi zen Eskumuturra, are emekiago, ahapetik **ziztukatzen** zuela, nolabait esatearren. Koldo Izagirre

---

**ziztukatze** *iz* txistukatzea.

Izan da denetarik: besta koloretsu, gazte ta zaharrak berdin omorean, goizetako zezen lasterrak karriketako entzierroarekin, aratsaldetako zezenplazakoak, pilota partida zoragarriak, musika, kantu eta alaitasunak, biharamun hitsak eta mozkor ondo eta buruzagien **ziztukatze** ohore ttipikoak. Herria

---

**ziztuketa** *iz* ziztu egitea.

Honetaz ere zer esanik ba al duzu? -**ziztuketa** isilduz, Joseba itzuli egin zen Catherineganantz. Iñaki Zabaleta

---

**ziztulari** **1** *izond* ziztu egiten duena.

Anitzetan hala zioen Mike lankideari behintzat, koioteak eta suge **ziztulariak** ez ziren areriorik gaiztoenak. Itxaro Borda

**2** ik **txistulari**.

---

**ziztutxo** *iz adkor* ziztua.

Ekaitzaren erauntsia ondoan oldartzen zaizunean, deskarga bakoitzeko eskumuturreko ileak tentetzen ikusten dituzunean, "zzzzz" bokalik batere gabeko **ziztutxo** bat ondotik pasatzen zaizula sentitzean... Pello Zabala

---

**zizurkildar** *izlag/iz* Zizurkilgoa, Zizurkili dagokiona, Zizurkilgo biztanlea.

Egun horiexetan atxilotu zituzten Madrilen ETA militarreko bi lagun, Ixidro Etxabe zumaiarra eta Joxe Arregi **zizurkildarra**. Xabier Mendiguren Elizegi

Txe **zizurkildarrak**, idatziz behintzat bertsolaria denak, Aierberi jarritako bertso sorta kantatu du ahots dotorearekin. Pako Aristi

Donostian bizi zen 42 urteko **zizurkildarra**. Berria - Harian

Galdutako **zizurkildarra** Oria ibaian bilatzen ari dira. Berria - Euskal Herria

Astelehenean betetzen dira 25 urte **zizurkildarra** hil zela, 9 eguneko inkomunikazioaren ostean. Berria - Euskal Herria

Polizia etxean jasandako torturen ondorioz hil zen **zizurkildarra**. Berria - Euskal Herria

---

# zloti *iz* Poloniako diru unitatea.

Utziko al didazu **zloti** bat? Koro Navarro

Sartzen ikusten nuen unean bertan, eskua sakelan sartu eta pronto jartzen nuen hutsik egin gabe eskatuko zidan **zlotia**. Koro Navarro

Niretzat, Mendebaldeko Europarekin harremanetan jartzea zen Jacques Kohni **zloti** bat "maileguz" uztea. Koro Navarro

---

zoda ik **soda**.

---

# zodiakal *izond* zodiakoarena, zodiakoari dagokiona.

Aditzez ezagutzen ditugunak hartuz gero, hogei, berrogei edo gehiago izan litezke nolabaiteko kidetasun **zodiakala** dutenak. Xabier Mendiguren Elizegi

---

# zodiako *(orobat **Zodiako**)* *iz* zeru esferako zerrenda, ekliptikaren alde banatara 8° 30'eko zabalera hartzen duena, hamabi zati berdinetan banatzen dena.

Akiloitik austrorako bide erdian, zeruak distantzia berdinera mantentzen baititu tropikoak, **zodiako** osoaren posturagatik, zeina kurritzen eguzkiak urtebete egiten duen, zerulurrak argi zeiharrez garbitzen dituela, zeruko toki guztiak, bakoitza bere ikurrez ordenan jarririk. Xabier Amuriza

Haga horien atzean danborra joango da, zeinetan ortzia egongo baita irudikatuta eta pintatuta eta baita **zodiakoaren** zirkulua ere, zeruko hamabi zeinuen irudiekin osatuta. Santiago Iruretagoiena

**Zodiakoaren** inklinazioaren eta eguzkiaren ibilbidearen araberakoa. Santiago Iruretagoiena

Baietz orain **zodiakoaren** zeinua galdetu! Patxi Iturritegi

Gauez, berriz, arratsaldean errana berretsi nahiko balit bezala, hala mintzatu zitzaidan, **Zodiakoko** konstelazioei so, begiak ameslari. Joan Mari Irigoien

Inoiz ez dut sinetsi **zodiakoan** ez lotura astraletan, beraz txiripa hutsa besterik ez da ia-ia egun berean jaiotzea gu biok, ehun urteko aldearekin. Xabier Mendiguren Elizegi

---

# zogi **1** *izond* zuhurra, zentzuduna.

Nadar bezalako erretratugile **zogi** bat izanda ere, ez du inoiz ahazten bere modeloa jarrera adierazgarri batean jartzea, dekoraturen batean kokatzea, hala behar izanez gero. Josu Zabaleta

**2** (adizlagun gisa)

Muturra estutzen du, banitate festa bukatu da sikiera minutu batez, eta ahalegintzen da eskaintzarekin, **zogi**. Berria - Kultura

---

# zohar *izond* garbia.

Biek ere badute zerbait **zohar** eta nobleko. Koldo Izagirre

---

# zohardi *adlag* **1** oskarbi.

San Giovannitik berrogeita hamarren bat kilometrora zeru ertzean, aldare errenkada bat bailitzan, gris-zuri marrazten ziren mendien gainean, zerua **zohardi** zegoen. Josu Zabaleta

**2** (izenondo gisa) oskarbia; garbia.

Hiriaren gainean, zeru **zohardiari** esker, eguzkiak dir-dir egiten zuen. Jon Alonso

Gogoan dut zirrara hura lilura kilikagarri-asebetea bilakatu zela gau **zohardi** batean liburuko marrazki haiek zeruko konstelazioan identifikatu nituen gauean. Pako Aristi

Gau lasai eta **zohardiaren** ondoren, egun argitzearekin mendi gailurrak lainoz inguraturik ikusi ondoren, hego haize hozkirri batek joko du Uda-gau **zohardi** batez. Joseba Sarrionandia

Hotza izaten zen goizetan, oso; baina **zohardia**. Txillardegi

Barda arratsean, **zohardi** zela, herrialde mutuan barna ibiltzean, ez nuen beste pentsurik: [...]. Itxaro Borda

Aldizka kumulu-ninboak zein estratu-kumuluak zitzaizkion argitzen, euriaren bidez batasunera edo zeru **zohardia** lardaskatzen zuten kurloen gidaritzapean bidaia dei. Itxaro Borda

Leiho gisa zegoen zulotik zeru izartsua mirets zezaketen, baina ez zuten gauaren edertasun **zohardiaren** ikusteko astirik. Elena Touyarou

Argi zirrintako suzko pindarrak iragartzen zituen ilunpe **zohardian**. Itxaro Borda

Hire begiek ninditean lehenik tiratu, **zohardiak** baitziren, nabarrak, itsasoa bezala. Aurelia Arkotxa

**Zohardia** zen eta izarrek, zeruan ez ezik, urezko suge erraldoiaren azal beltzaren gainean egiten zuten distira. Aingeru Epaltza

**3** (izen gisa)

**Zohardi** ederra Donostiaren gainean. Txillardegi

---

# zohardura *iz* distira.

Ilargitzarra zeruan, eta arroken **zohardura** -zilarrezkoak bailiran-, besterik ez zen antzematen. Xabier Aranburu

Urrunean goizaldearen **zohardura**, Hegoaldeko zeruan handituz zihoan argia. Agustin Otsoa

Zamarien arrio eta hanka-estalkietan ez zen apaingarririk, ez urre edo harribitxien **zohardurarik**. Agustin Otsoa

Elfoen herrialde beldurgarrietako izar krudelen **zohardurak** bezala. Agustin Otsoa

Urre koloreko **zohardura** zurbila ikusi zuen egunsentian. Agustin Otsoa

**Zohardurak** argitu zizkion begiak. Agustin Otsoa

Urrun, haien aurrean eta ia lerro zuzenean, **zohardura** gorria ikus zitekeen. Agustin Otsoa

---

# zohargi **1** *izond* distiratsua, eskuarki zeruaz eta kidekoez mintzatuz.

**Zohargia** eta izarrez josia [gaua]. Josetxo Azkona

Hargatik, zenbaitetan, ilargia zeru **zohargian** beteegia agertzen denean edo haize hego epelegiengatik, ezin erran, Lili Marlenen bulardi erronden oroitzak opari sentimental zaizkit. Itxaro Borda

Espaloi leun **zohargian** ene urratsen oihartzuna bakarrik. Aurelia Arkotxa

**2** (adizlagun gisa)

Zeru kantoian, ni bezala gauaren aztaparretarik salbatua, ilargia zegoen **zohargi**, marrazki dudakor, hodei hariekin jostari, mutu. Itxaro Borda

Maiatz hondarretan, astoaren kalixtroak mukuru beterik, bortura abiatzen zen, ardiak aitzinean, zintzarriak **zohargi** airean, hiriak eta herriak zeharkatuz. Itxaro Borda

Pirinioetako goiztiriko argi zirrintak urdin-**zohargi**, ardiak lerro-lerro bortu marretan gora. Itxaro Borda

**3** distira.

Eskailera ilunpetan zegoen baina teilatuan mendiaren **zohargia** ikus zitekeen oraindik, gorri ahulekoa. Agustin Otsoa

Harriek **zohargi** hilaren distira zuten orain. Agustin Otsoa

Frodoren begietan **zohargi** ankerra agertu zen. Agustin Otsoa

Laster arroka bat gainditu eta haren atzean leizeko hormak ikusi ahal izan zituen, amildegitik sortzen zen **zohargiak** argituta. Joanes Urkixo

**Zohargiak** inguratu zuen, eta ileek distira egin zuten eguzki gaztearen argitan. Agustin Otsoa

---

**zohartu**, zohar(tu), zohartzen du *ad* distiratsu bihurtu.

Itzalak bat-batean hupatzen ziren muino kaskoetara eta **zohartu** bezain laster urtzen, mehatxua areagotuz. Itxaro Borda

---

**zohi**[1] **1** *iz* laiaz edo goldeaz ateratzen den lur zatia. ik **zotal**.

**Zohi** harrez josiak mastekatzen ditut eta zintzurrean korapilatzen zaizkit harrak eta ahosabaia karraskatzen. Juan Garzia

Bidearen ezkerrera, harresia baino lehen, baserri zahar bat zegoen aspaldi, erdi eroria, **zohizko** teilatua harritzarrez betea eta paretetako harearria hezetasunak eta haizeak higatua zituena. Koro Navarro

Orduan denentzako galeriatik kendu eta Itsaso Bare handitik ekarritako **zohi** baten kontra ur hari bat murmurka doan beirazko gelatxo batean sartzen dut. Josu Zabaleta

Erreportajeetan, udan zein neguan, **zohizko** zein izotzezko, oihan zein metropoli, mundu guztiko bazterrak ekarri izan zaizkigu. Iñigo Aranbarri

Eguberri, eruek igerri, **zohiek** ere larri! Pello Zabala

---

zohi[2] ik **zori**.

---

**zohikatz** *iz* ikatz mota harroa eta arina, zingira lekuetako belardietan eratzen dena. ik **zotal 4**.

Zohikaztegi helduak ditu bizileku, eta eginkizun garrantzitsua du **zohikatza** sortzen. Berria - Gaiak

"Izugarrizko haizea ibili da gaur gauean", eta bere besaulkian eseri zen, beheko suaren ondoan, surtarako **zohikatza** prestatzera. Koro Navarro

**Zohikatza** etxeko katuen eginkari ontzietan jartzeko erabiltzen zen. Josu Zabaleta

-Gizon on asko izan dira, **zohikatz**-puska galtzarbean zutela, astean penikeko eskolara joandakoak. Irene Aldasoro

**Zohikatzaren** garaietatik sobratutako bat, ergel bat! Josu Zabaleta

---

**zohikaztegi** *iz* zohitz hobia.

Galtzear dago, gizakiaren jarduerarekin **zohikaztegiak** lehortzen ari direlako. Berria - Gaiak

Ipar-mendebaldeko Amerikaren antza du floran: makal basoak, izei ilunak, urki asko eta **zohikaztegi** zoragarriak, loreak eta tximeleta artikoak. Berria - Kultura

**Zohikaztegi** helduak ditu bizileku, eta eginkizun garrantzitsua du zohikatza sortzen. Berria - Gaiak

---

**zohiti** *iz* zohia duena.

Ibai inguruko mazeletatik lohi **zohiti** handiak puskaka, azukre marroia ur bizietan desegina. Alberto Barandiaren

---

zohitu ik **zoritu**.

---

zoin ik **zein**.

---

zoinbait ik **zenbait**.

---

zoinbat ik **zenbait**.

---

zoinbeit ik **zenbait**.

---

zoinbet ik **zenbait**.

---

zoingehiagoka ik **zeingehiagoka**.

---

zoingehiagokatu ik **zeingehiagokatu**.

zoingeihagoketa ik **zeingehiagoketa**.

zoinlehenka ik **zeinlehenka**.

**zoinu** **1** *iz ipar* arreta, ardura.

Zer **zoinu** eta laguntzak ez ditu merezi bere biziko mailik zailenak iragaiten ari dituen gazte hutsaren izpirituak eta bihotzak! Herria

Osasunaren dohakoten **zoinuak**, alzheimeretaraino, araberako mintzaldi eta ikastaldiekin. Herria

Hogoi egun pasatzen zinituen, zure osagarriak galdetzen zituen **zoinu** hartzeko. Herria

"Tentazioak": hori zuten gaia, gaurkoa, ernea, idazkeraz, soinuz, **zoinuz** eta bizitasunez alaiki emana, orohar errextasun ala trebetasunez erakusten zuena nola dakiten gure gazteek euskara trebe batean jokatzen, menturaz, karrikan ikusten direlarik, beti erakusten ez duten bezala. Herria

**2** (hitz elkartuetan)

Hortaz abisatu ere dituzte tokiko buruzagiak, bide hoberik har dezaten beren **zoinu**-moldeetan, beren eta besteren gatik. Herria

Afrikarrek sobera haur eta sobera hiltze **zoinu** eskasez, hots, ainitz gai gogoetagarri, xehekiago agertu direnak. Herria

Line Pierne anderearen lan maitatu bat, xaharren eta erretiratuen aldekoa izan dela jakin da Bidarten mintzaldian, xaharretxe eta **zoinu** etxetan bereziki. Herria

**zokalo** *iz* horma bati behealdean, babesteko edo apaintzeko, ezartzen zaion frisoa.

Metalezko ziri bat dauka horma eta **zokaloetako** tarteetatik sartzen duena. Harkaitz Cano

Den-dena miatu nuen -hormak, **zokaloak**, zoruko oholak-; begiratu nuen horma batean esekita zegoen *Il Carso* mendi harritsuen argazki tzarraren atzean ere. Anjel Lertxundi

Begirada adi, bizi, aztia, begirada txamana; umearen begiradan **zokaloaren** altuera kontuan hartzen duenarena. Berria - Kultura

Gela hauetan **zokaloaren** gainean pintura beltzarekin moldatu eta bukatu behar dira panelak. Santiago Iruretagoiena

zokil ik **sokil**.

**zoko** *(1108 agerraldi, 185 liburu eta 161 artikulutan)* **1** *iz* bazter ezkutua-edo. ik **zoko**; **xoko**. (etxe, gela eta kidekoetan)

Ni etxeko **zoko** batetik bestera bultzaka narabilte. Josu Zabaleta

Arnoz gainezka, bidaiariak zerbitzaria besarkatu du ostatuko **zoko** batean. Aingeru Epaltza

Gazteluko **zoko** guztiak mozkor zurrungen sorburu ziren. Aingeru Epaltza

Komentutzarreko **zokoetan** galdurik. Txillardegi

Zenbaitek, pixalarriak jota, geltokiko **zoko** ilunetan eta eskaileretan egiten zuen, ez baitzen komunik zabalik egoten. Iñaki Zabaleta

Bigarren eskuko salgaien denda bat zen hura, **zoko** guztietan barreiatuta eta sabaitik zintzilik zeuden traste zaharrez betea. Josu Zabaleta

Congok tabernaren **zokoan** zegoen listuontzira ttu egin eta, kopetilun, barruko gelara itzuli zen berriro. Lopez de Arana

Aterpearen **zokoenean** eguneko egunkarien paketea zegoen utzia. Koldo Izagirre

Agure bat gelditzen zen **zokoan**, erdi lo. Koldo Izagirre

Itzalak **zokoetatik** atera ziren, euren hegalak batu eta azkar alde egin zuten. Lopez de Arana

Ama ere negarrez hasi zen, bere **zokoan**. Jose Morales

Te-areto ilunaren beste **zoko** batzuetatik solasaldi-zatiak iristen zitzaizkien. Gaurtik aitzina, kaperako **zoko** batean lo eginen diat. Lopez de Arana

Bere aulkian uzten zuten, sukaldeko **zokoan**, ikusten ez zuen beheko suari begira, arrosarioa aletuz. Ramon Saizarbitoria

Mahai gainean egotea merezi ez zuen guztia gelako **zoko** batean zegoen, lurrean metaturik. Jose Morales

Logelako **zokoetan** ezkutaturiko ikaskideen barreak. Jose Morales

Estu eta eroso kuzkurturik gaude zalgurdiko **zoko** batean! Jose Morales

Marihuanaren urrin nahastezina auto barneko **zoko** guztietara hedatzen ari zen. Aingeru Epaltza

Ez neukan zertan itxaron kutxako **zoko** ezkutuan begiratu ahal izan arte. Edorta Jimenez

Aulkiak zeuden mahaiaren inguruan eta **zoko** guztietan, aulki tenteak, kurbatuak, zikinak, bigungarridunak, denak atzealdetik farfailez apainduak. Koro Navarro

Malda hauetan zakurrak zaunka ari dira, kalapitak izuturik, **zokoak** bilatu eta bertan hasten dira hezurrak lurperatzen. Jon Alonso

Zerbitzaria, mindurik eta amorratuta, **zoko** batera baztertu zen, ezpain-zapia besoan. Fernando Rey

Afari-merienda oparo baten hondarrak **zoko** batean pilaturik zeudela. Aingeru Epaltza

Asegarceko aurrelariak gustuko pilota ateraz bat, Labriteko **zoko** guztiei hautsa kentzeari ekin zion. Berria - Kirola

**2** (bestelakoetan)

Europa eta Asiako **zoko** guztietatik etorritako gizon-emakumeak. Karlos III.a despota ilustratua, Inperioko **zoko** guztietan hizkuntza bakarra inposatzen inoiz egon den tematuena. Karlos Zabala

Euskal Herriko **zoko** guztietara hedatuko da kanpaina: ikastetxeetara, lantegietara edo euskaltegietara. Berria - Euskal Herria

-Ez zintudan mundutik guztiz bazter dagoen **zoko** honetara ekarri behar. Anjel Lertxundi

Hiriko **zoko** tristeenak bilatzen nituen gure bileretarako: lorategi publiko goibelenak, esne-denda ilunenak, zinema zoldazuenak, kafetegi biluzien eta hutsenak. Fernando Rey

Azken bi urteetan hainbeste pintada eta ekintza txiki egin ondoren, herriko **zoko** guztiak ezagutzen genituen. Cervantes kaleko nik ezagutzen dudan **zoko** batera joaten gaituk; gomendatuko diat behar duanean. Rafa Egiguren

Araitz aldeko edozein **zoko** malkor harrizutan. Goizeko zortzi eta erdiak ez dira, Europako **zoko** honetan bederen, inoren etxea telefono kolpeka asaldatzeko tenorea. Patziku Perurena

Handik kamioia **zoko** batera eramanarazi zioten. Eneko Bidegain

Oso garrantzitsua da **zoko** horrek ematen duen babesa, hauskorrak baitira belarriaren mekanismoak, eta ez baileudeke seguru agerian, kanpoko ingurunearen arriskuen mende. Irene Aldasoro

Lloretegiko **zokoko** zurezko etxola batean. Fernando Rey

Bihotz-barreneko **zoko** ezkutuenetan ere sentitzen zuen pozkirri handi haren neurria eta burubidea erabakitzeko. Anjel Lertxundi

Beren gorputza, beren desioaren bideak, beren plazeraren **zoko** guztiak ondo ezagutu nahi dituzte. Luis Elberdin

Lekuz aldatu arren, leku berean egin ditudala habiak, inorantziaren eta ezjakintasunaren **zoko** berean. Joan Mari Irigoien

Munduaren ardatza zarela sentitzea munduaren **zoko** baztertu honetan. Berria - Kultura

Bizitzaren **zoko** baztertuetako paisaia ilunetara. Xabier Olarra

Mikel Strogoffek tarantas bat aurkitu zuen, baina zokorik **zoko** galdezka ibili ondoren. Karlos Zabala

Ikasle horiei zinemako irudiaz dakiten guztia gogoeta zabalago batean, horren berezitua, horren **zokokoa** ez den gogoeta batean, kokatzeko aukera eman. Josu Zabaleta

Ikasle horiei zinemako irudiaz dakiten guztia gogoeta zabalago batean, horren berezitua, horren **zokokoa** ez den gogoeta batean, kokatzeko aukera eman. Josu Zabaleta

Fermiñeneko iturrian, Otsondoko buruan, Artantxuko **zokoan** ... Patziku Perurena

Konponbidea ez da, noski, adjektiboak **zokoan** uztea. Iñigo Aranbarri

Amodioaren zoroak arimaren bestelako **zokoei** tokia egin balie bezala. Xabier Mendiguren Elizegi

## 3 (izenondo eta izenlagunekin)

Margot **zoko** lasai baten bila ari da bere bulegoko lanak egiteko. Josu Zabaleta

Bazirudien eguzki-izpi bat sartu zela gelan berarekin batera, sabaia, erlaitzak eta **zoko** ilun guztiak bat-batean argituz. Jose Morales

Azkenean, begi bat erdi ireki zuen, **zoko** huts argitsu bat ikusi zuen, edo bota bat ziega hutsaren erdian, eta garrasika hasi zen berriro. Jose Morales

Herf eta Ruth Prynne elkarren ondoan eserita zeuden [...] jatetxe zaratatsu eta sabai baxuko baten **zoko** ezkutu batean. Lopez de Arana

Han eta hemen behatu nuen, barnean eta kanpoan, harik eta lorategiko **zoko** gorde batean hasperen nahasi batzuk aditu nituen arte. Joan Mari Irigoien

Gizon hura Amazoniako **zoko** galdu batean nola hil zen jakitea. Jon Muñoz

Norak abisu baten modukoa entzuten zuen, ordea, bere burmuinetako **zoko** urrun, oso urrun batetik deiadarka. Anjel Lertxundi

Hirugarrena, **zoko** ekologikoen teoria. Berria - Gaiak

Berari ere esaldi bat iratzarri zitzaion bat-batean, fresko-fresko, hiru mende laurden bere oroimeneko **zoko** baztertu batean lo egon ondoren: "Bigarren mailako ekuazioa". Jon Muñoz

Ezker jaio nintzena, amak eginahalean eskuindu ninduelako edo, auskalo zein armiarma-sare gorde zitzaidan azpikontzientziaren **zoko** itxuren batean, baina titulazio eta onespenen kontrario topatu dut beti nire burua. Pello Zabala

**Zoko** ziztrin batera baztertuko dute gizajendea iraindu duten idazleen multzoan. Jose Morales

Dena zen iluna argizko **zoko** bat izan ezik non Thatcher idazmahai baten aurrean eserita baitzegoen. Lopez de Arana

Ellesmoreko mendiak, etengabe elurtuak, etengabe izoztutako **zoko** eta haranekin, ez ziren Pirinioetakoak. Bernardo Atxaga

Harrizko irudi bat ikusi zuen, hautsak hartuta, koru azpiko **zoko** hondakinez bete batean. Anjel Lertxundi

## 4 (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

Urtean aldi bat, Elkartasuna elkarteari esker, zaharki-feria edo **zoko** -huste bat egiten da Urruñan, eta aurtengoak, joanden igandean, ukan du arrakasta ederra. Herria

Ez da hitzontzi koadrila bat etxalde galdu bateko **zoko** -gela batean nor txundituko. Juan Garzia

Gelako bazter batean, **zoko** -altzari bat, oinetakoz beteta zegoena. Jon Muñoz

Maletatik ateratako jantziak jarri zituzten **zoko** -mahai horren gainean. Jose Morales

Pairagaitzak izan zaizkit beti beren haurtzaro edo nerabezaro ustez bozkariotsua landa eremua jendeztatzen duten **zoko** -herrietarikoren bati lotzen diotenak. Aingeru Epaltza

**Zoko** -usain handia zegoen galerian, baina ez zen jakiek eragina. Anjel Lertxundi

**Zoko** -usaineko traste-gela heze bat. Jose Morales

Errutinak batetik, aurreiritziek bestetik, erlijioak, familiaren **zoko** -usainak, eta baita higiene-espazio faltak berak ere. Josu Zabaleta

-Eta **zoko** -lainoa poltsikoan sartu duzu -txantxa jarraituz-. Iñaki Zabaleta

· Gela **zoko** -usaindun txikiren batean eserita egoteko. Anton Garikano

Fusilak eskuan, batera eta bestera **zoko** -miaka oteak kanoiekin baztertuz. Koldo Izagirre

## 5 (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa)

Bilkura hasi aitzin, ostatu **zoko** hartara gonbidatu ninduzun kafe baten edatera. Itxaro Borda

Karkara gurintsuak gatibatzen zuen Le Routier taberna **zokoan** bildu saldoa. Itxaro Borda

Orain kartzela **zoko** honetan maiz damutzen naiz harekin behar beste ez profitatu izanaz. Hasier Etxeberria

Azken batean, zer zekiten Irungo, Madrilgo edo Berlingo bulego- **zoko** haiek benetako ekintzari buruz? Alberto Ladron Arana

Soto nahiz ganbara- **zoko** batean. Juan Garzia

Upel ttipi baten ondoan desagertzen zen, biltegi **zokoan** . Elena Touyarou

Inoiz izuz dardarka hasten zen Nora bere burua bihurgune korapilatsu edo horma- **zoko** zail batean zintzilik ikusita. Anjel Lertxundi

Erreka- **zokoetako** behelainoaren antzera. Xabier Mendiguren Elizegi

Zein ote zen andere eder hura, eta zeren bila ote zebilen mendi- **zoko** haietan barrena. Patxi Ezkiaga

Bergarako mendi **zoko** honetan, munduaren uzkian. Koldo Izagirre

Oasi xume batean bizi da gizateria osoa, ibar- **zoko** berde batean. Joxe Austin Arrieta

Lizunak hartua zuen komunarena egiten zuen zulo **zokoa** . Koldo Izagirre

Zauri- **zokoan** zirika. Aingeru Epaltza

Bakoitzak ordulari partikularraren gurutze astunaren intziriak zeramatzala buru **zokoan** . Itxaro Borda

Zalantza astun hura zeukan kasko- **zokoan** danbaka jagoitik. Itxaro Borda

Konturatuko zen, bai, Jainkoa, bihotz- **zoko** ezkutuenak ere ezagutzen dituena. Elizen arteko biblia

Tikia da bazter- **zoko** hau. Aingeru Epaltza

## 6 irud/hed

Mesedez, Mitxel: goazak, bilatuko diagu **zoko** egokiren bat afaltzeko. Anjel Lertxundi

Juan Perez Lazarraga-ren eskuizkribu zaharra, 16. mendekoa, Madrilgo **zoko** batean lo zagona. Herria

Ana bere **zokoan** izan balitz, harengana joko nukeen, gauerako gure hitzorduaren azken xehetasunak lotu beharrez. Aingeru Epaltza

Garai batean kasino izana zen orain orotarikoen salerosketa merkatu bihurtutako **zoko** ospel hura. Harkaitz Cano

Ken gauza horiek hemendik eta ez bihur ene etxea diru- **zoko** . Patxi Altuna

Behiala bizileku kuttun zituzten beldur- **zoko** beldurgarrien beldur bizi dira orain uneoro. Joxerra Garzia

## 7 *zoko-bazter*

Horrelako ostatuetan, eguneko bi errublo ordaindurik, gela erosoa ematen diote bidaiariari; hori bai, aranpasa adinako labezomorroak azaltzen dira **zoko-bazter** guztietan. Jose Morales

Berari entzunda, bazirudien Herensugearen arnasa kosmikoa etxeko **zoko-bazter** guztietan barreiatuta zebilela. Patxi Iturritegi

Luzaz ibiltzen zen bere lorategiko **zoko-bazter** ilunetan barrena. Jose Morales

Egunero ibiltzen zen bere herrixkako kaleetan barrena, **zoko-bazter** guztiak miatzen eta lekurik ezkutuenak ere arakatzen. Jose Morales

Buruko **zoko-bazter** guztietan atergabe sortzen baitzitzaizkion pentsamendu-antzeko puska itxuragabe batzuk. Jose Morales

**Zoko bazter** guztietako argia bilatzeko saioa. Berria - Kultura

**8** ***zoko-moko*** *(orobat* ***zoko-miko*** *g.er. eta* ***zokomoko*** *g.er.) iz adkor* zokoa.

Hiriak dituen **zoko-mokoak** ezagutu eta parke bakarti batean gure grinak lardaskatu, gaztetako ohiturak berrituz-edo. Joxean Agirre

Etxez etxe ibili zen, **zoko-moko** guziak miatuz. Elena Touyarou

Gisa guziz, **zoko-moko** gehienak keinka huntan beteak dira kanpotiarrez. Herria

Etxeko **zoko-mokoak** miatuak zituztela. Daniel Landart

Ate baten danbadak ibili zituen labirintoko **zoko-moko** hautseztatu guztiak. Alberto Ladron Arana

Egunaren bero sapa ez zen **zoko-moko** laiotz haietaraino iristen. Patxi Zubizarreta

Albiste baten **zoko-moko** guztiak neketan ekartzen ahal baitira lau hitzetara. Aingeru Epaltza

Beroaldia oldarrean zabaldu zitzaion gorputzeko **zoko-moko** guztietara, eta sentsazio berri hark ahantzarazi egin zion arestiko higuina. Patxi Zubizarreta

Biluztu egiten ditu aztergai dituen nobelak, argitu egiten ditu bakoitzaren **zoko-moko** eta bideak, haien muinera heltzeko ahaleginean. Berria - Kultura

Badira bizitzaren **zoko-moko** intimo eta ilunenak lotsa handirik gabe publikoari aitortzen dizkioten autobiografiak. Janbattitt Dirassar

Hegazti handi bat zen, zerua bezain zabala eta zerua bezain urdina, denboraren **zoko-moko** guztietan itzal egiten zuena. Joan Mari Irigoien

Jator jokatu zuten nirekin, eskolako trikimailu, **zoko-moko** eta ñiki-ñaka guztiak irakatsi baitzizkidaten. Jesus Mari Mendizabal

Hark animatuta abiatua zen Faustino gaztea Elgetarengana, soinu txikiaren **zoko-moko** eta zapalkera guztiak zekizkien aztiarengana. Koldo Izagirre

**9** ***zoko-mokoka*** *(corpusean* ***zokomokoka*** *soilik)*

-Zer ari zarete **zokomokoka**? Itxaro Borda

**10** ***zoko-zoko*** (toki atzizkiekin)

Mahai bakarra gelditzen zen, **zoko-zokoan**; hura geuretu genuen, kafe bana eskuan genuela. Aingeru Epaltza

Aita luze-luze eseria zen, barraren **zoko-zokoan**, txartelak puskatzen dituen neska, zinema emanaldia hasi orduko, zigarro bat erretzera esertzen den lekuan. Harrigarria horiek elizako **zoko-zokoan** egotea, eta ez lehen lerroetan, hildakoaren ahaiderik hurbilenei gisako elizkizunetan dagokien bezala. Josu Zabaleta

Max Brisson **zoko-zokoko** aulkitik altxatu da hizkuntzaren gaia aipatzeko. Berria - Euskal Herria

**11** ***zokorik zoko*** zokoz zoko.

Esan bezala, Mikel Strogoffek tarantas bat aurkitu zuen, baina **zokorik zoko** galdezka ibili ondoren. Karlos Zabala

Nire batera eta besterako jirei erne, noiz altxako nintzen beldurrak, aulkia hartu eta neure burua txikitzeko prest edo oihuka hasteko puntuan edo manta burutik behera jaurti eta **zokorik zoko** ihesari ematea hobe ote zuen zalantzan. Koldo Izagirre

**12** (bigarren osagaia izenondo gisa superlatiboetan)

Itsasontziaren ezkutalekuetan, fibra bereziz egindako maletetan, kotxe zirrikituetan, etxeko **zokorik zokoenetan**. Ez huen ezagutzen grina bitxi hori, gizasemeak duen grinarik ezkutuena, gizon bakoitzaren nerbioetan, **zokorik zokoenean**, su eternoa lurraren sakonaldeetan ezkutatzen den bezala, rolez, mozorroez eta ikasitakoez harantzago ezkutatzen dena. **Zokorik zokoeneko** azken epela bilatzen duen or zigortuaren eredurat, [...]. Gotzon Garate

Zure baitako **zokorik zokoeneraino** heltzen den poz batek bizkortzen zaitu. Xabier Montoia

Hain zen sarkorra, bertzalde, non burmuinetako **zokorik zokoenetaraino** barneratzen baitzen, zentzuaren eta adimenduaren kasik zorabiatzeraino. Joan Mari Irigoien

**13** ***zokoz zoko***

**Zokoz zoko** bakarrik nabilela, zenbat aldiz azienda hilen baten hezurdura zuriari begira! Patziku Perurena

Zenbait astez ikusiko ditugu, ibilki **zokoz zoko**, gune ederrenak hautatzen, argazkiz. Herria

Geroztik garratoi bat bezala bizi izan da **zokoz-zoko**, lurpez-lurpe, azkenik saretan sartu arte. Herria

Beti dabiltza elkarrekin **zokoz zoko**. Karlos Zabala

Portuko zamaketariek, komunisten agindupean, greba egitea erabaki zuten, Amsterdam mendean zuten alemanak karrikaz karrika eta **zokoz zoko** juduen bila hasi eta mordoxka bat atxilotu eta erbestera bidali zituztenean. Felipe Juaristi

**hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**

**bihotz zoko** (3); **etxeko zoko** (11); **gelako zoko** (17); **gelako zoko batean** (8); **gelako zoko guztiak** (3); **gelaren zoko** (3); **gogoaren zoko** (3); **gorputzaren zoko** (3); **gorputzeko zoko** (3); **hango zoko** (3); **herriko zoko** (3); **mendi zoko** (10); **mendi zoko batean** (3); **munduko zoko** (5)

**zoko bakoitza** (3); **zoko bakoitzean** (3); **zoko batean** (108); **zoko batean zegoen** (3); **zoko batera** (18); **zoko batera bota** (3); **zoko batera eraman** (5); **zoko batetik** (9); **zoko bazter** (7); **zoko bazter guztietan** (3); **zoko berean** (3)

**zoko ezkutu** (3); **zoko ezkutuenean** (4); **zoko ezkutuenean gordetzen** (3); **zoko guziak** (3); **zoko guztiak** (19); **zoko guztietan** (16); **zoko guztietara** (8); **zoko guztietatik** (3); **zoko huste** (3)

**zoko ilun** (18); **zoko ilun batean** (8); **zoko ilunen** (5); **zoko ilunen batean** (3); **zoko ilunetan** (5); **zoko moko** (38); **zoko moko guziak** (4); **zoko moko guztiak** (7); **zoko moko guztietan** (6); **zoko mokoak** (9); **zoko mokoetan** (4)

**zoko urrun** (4); **zoko usaina** (13); **zoko zokoan** (8); **zokoz zoko** (8)

**aho zokoan** (4); **bere zokoan** (11); **buru zokoan** (6); **eiherateko zokoan** (3); **etxe zokoan** (3); **kasko zokoan** (10); **zoko zokoan** (8); **zokoan bada** (3); **zokoan zegoen** (3)

**zokorik zokoenean** (3)

**zokoko bestak** (6); **zokoko gotor** (6); **zokoko itsas** (4)

**zokoren bat** (8); **zokoren batean** (30); **zokoren baten bila** (3)

**zokorik ezkutueneraino** (3); **zokorik ilunenean** (4); **zokorik zokoenean** (3)

**edozein zokotan** (5); **zenbait zokotan** (3)

**bere zokotik** (4)

---

zokoatar ik **zokotar**.

---

# zokobetailu *iz*

Valentzia aldeko zelaiak, ez dakit nik zergatik, baina beti iruditu zaizkit **zokobetailuz** beteriko ganbara bat bezalakoak, salbu eta laranjondoak loretan zeudenean. Jon Alonso

Soto batean ahazturik egon ondoren berriz aurkitu den sitsak jandako peluka bat dakar gogora, ezinbestez, irudi zahar, altzari, apaingarri, **zokobetailu** eta beste garai bateko mozorroekin nahasirik egon den peluka bat. Jon Alonso

Oroigarriak, **zokobetailuak**; hiriburuko esku gurien apaingarriak, euren kontzientzia txarra isilarazteko segundo bateko argudioak baizik ez, mundutik kanpo, bizitzatik kanpo: beste jostailu bat patroiaren seme-alaben gelan. Jon Alonso

---

# zokogune *(orobat* ***zoko une*** *g.er.) iz* zokoa.

Kontuan hartu behar da, herri eta auzo bakoitza, batzuk eguteran besteak ospelagoan, batzuk kaskoetan, besteak **zokoguneetan**, bakoitza paraje eta gune ezberdin eta oso diferenteetan kokaturik dagoela. Pello Zabala

Mendiaren **zokogune** batean eta, beraz, bidearen bihurgune batean, errekasto bat zegoen. Aitor Arana

Errekasto honek, mendietako **zokoguneetan** behera doazen guztien moduan, ez zeraman ur askorik. Aitor Arana

Aurpegiko hezurrek lau **zokogune** pare dituzte (sinuak), barrutik mukosaz estaliak. Irene Aldasoro

Biok ondo ezagutzen genuen arbola baten enborreko **zokogune** batean gorde nuen paper-muturra. Anjel Lertxundi

Berriro gaude, beraz, bazter leku batean, berriro heldu gara **zokogune** galdu batera! Jose Morales

Gutxik egin zuen lubetan behera erori eta **zokogune** batean amildu ez zenean. Karlos Zabala

Zaldia, gidaririk gabe, **zokogunean** behera erori zen bere zaldizkoarekin. Karlos Zabala

Poesiaren **zokogune** alferretan galdu gabeko gutun hura erantzunik gabe utzi zenuen. Eider Rodriguez

---

## zokokan *adlag*

Mündü zabalaz kürios beitzen, atzerrian ganti **zokokan** ibiltzen zen ahalaz, eta Xinan üngürü bat egin züan bereziki. Herria

---

## zokokari *adlag*

Semea behean geratuko da, **zokokari**. Josu Zabaleta

---

## zokokeria *iz* txokokeria.

Karitate hori egitea ez zen, baina, inola ere kaskartasunaren, **zokokeriaren** eta ezjakintasunaren gorazarre. Josu Zabaleta

Tribalismoa, **zokokeria** morala, komunitarismo etnikoa eta, noski, nazionalismoa -bai zapaltzailea eta bai baztertu zalea- harriak dira, ahalegin zibilizatzaile unibertsala oztopatzen dutenak. Esteban Antxustegi

---

## zokomiatu ik **zokomiratu**.

---

## zokomira

**1** ***zokomiran*** *adlag* bazterrak miratzen.

Noiz ibili naiz ni neu baino jende indartsuago eta ahaltsuagoen inguruan **zokomiran**? Iñaki Mendiguren

Bazkalondoan, umeei Simpsondarrak jarri, eta **zokomiran** hasi nintzen etxeko bazterretan. Patxi Iturritegi

Gauean **zokomiran** zebiltzan guztiak desagertu egin ziren, eta inguruak desertua zirudien. Agustin Otsoa

Bazen zertan pentsatu, baziren funts handiagoko gaiak **zokomiran**. Bernardo Atxaga

Begiak ditu, ezer izatekotan, beldurgarriak, eta badakit nire bila dabiltzala **zokomiran**. Mirentxu Larrañaga

**2** ***zokomiraz*** *adlag* zokomiran.

Donatienen atsegin eta fantasia nagusiak miazketa, uzki-koitoa, alu-koitoa eta masturbazioa dira, hau guztia taldean, eta exhibizionismoz eta **zokomiraz** ongi apailatuta. Juan Martin Elexpuru / Bego Montorio

---

## zokomiratu, zokomira(tu), zokomiratzen *(orobat **zokomiatu**)* du *ad* zokomiran ibili.

Nikolasek eta neskatxak, nork bere aldetik, alferrik **zokomiratu** zituzten txabola guztiak, eta bilaketa bertan behera uztekotan zeudela, Mikel Strogoff haiei deika zegoela aditu zuten. Karlos Zabala

---

## zokomoko ik **zoko 8**.

---

## zokomokoka ik **zoko 9**.

---

## zokondo 1 *iz* zokoa.

Ekialdeko eta iparraldeko hormek osatzen duten **zokondoan**, hantxe dira aspaldiko monumentuko hiru harlauza zatiak eta burdinazko gurutzea. Edorta Jimenez

Afarien ostean talde polita bildu ginen Hannoverreko **zokondo** batean, eliza eder bateko ataurreko tabernan. Edorta Jimenez

Lehen ere ez zen ardura kaleratzen, eta horregatik kosta egingo litzaioke maite dituen **zokondoak** berreskuratzea. Javi Cillero

Trago bat zuela keinu egin zuen, eta besotik oratu ninduen, **zokondo** batera joan gintezen. Edorta Jimenez

Ganbarako **zokondoan** zeukan arasara joanik, handik beste kutxa bat atera zuen. Edorta Jimenez

Nik esan nion hobe zuela gorbata bizkar-zorroaren **zokondorik** ezkutuenean gordeta uztea, barregarri agertuko zela bestela. Juan Luis Zabala

-Hobira nazazu -egiten dit erregu txoriak eta, haren hegal hautsien **zokondoetan**, harren antzera higitzen dira gaitzespen-kexuak. Eskarne Mujika

Etxeak lau bizitza ditu, eta laugarreneraino igo gara, non usoek habia egiten baitute teilatu gorrixka baten **zokondoetan**. Javi Cillero

Hala da ze, ibaiko **zokondo** batean maniobra txarra egin eta non iraultzen den bateltxoa. Edorta Jimenez

Espainiako gerra matxinatuen alde lerraturik zen arren, berak bazuen itxaropen izpi bat bihotzeko **zokondoetan**. Edorta Jimenez

Ez da gorputzeko zokorik ez arimako **zokondorik** lobelarraren bakea iristen ez zaionik. Edorta Jimenez

Erlojuak ikertu dituzte ipurtzuloak jo dituzte leihoetako burdinak argitu dituzte **zokondoak** askatu dituzte alozak zatikatu dituzte. Koldo Izagirre

**2** (izenondo eta izenlagunekin)

Iluntasun bilaturik ezin bazen, **zokondo** isiletara joz behintzat. Edorta Jimenez

Kutxako **zokondo** ezkutuan gorderik nuen liburuak burua hartua zidan. Edorta Jimenez

Hura beheko zulora joango duk, **zokondo** hartakoa baita, eta hantxe erreko ahal duk. Mirentxu Larrañaga

Gilaren gaineko **zokondorik** ezkutatuenean. Edorta Jimenez

Giza kontzientziaren **zokondorik** gordeenetaraino jaisteko beldurra galtzeak irakurle askoren iritziz lizunak eta sakrilegoak ziren pasarteak idaztera eraman zuen Joyce. Berria - Kultura

Haurtzaroaren eta memoriaren **zokondorik** ezkutuenak erakusten dituzte argazkiek. Berria - Kultura

Nire ondasunak eta maisuarenak eskailerapeko **zokondorik** gordeenean utzi nituen. Edorta Jimenez

Hotsa eta ardaila besterik eskaintzen ez duten egunotan, zail samarra da isiltasunezko **zokondo** bat aurkitzea. Javi Cillero

Zatiotako bat kutxan agerian uzteko eta bestea ezkutuko **zokondoan** gordetzeko. Edorta Jimenez

## 3 (hitz elkartuetan)

Besotik oratu zion, eta sotora egin zuten biek, Mateoren arotz-**zokondora**, edo, beharbada, sagardo upeletara. Edorta Jimenez

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
> **nire zokondora** (3); **zokondo batean** (7); **zokondo batera** (3); **zokondora iritsi** (3)

---

# **zokondoratu**, zokondora(tu), zokondoratzen du *ad* zokoratu.

Ona ere **zokondoratu** behar da onena zalantzan izanez gero; abusua zuzentzerakoan, zuzenketaren beraren arriskuak ikusi behar dira. Andres Urrutia

---

## **zokoño** *iz* zoko txikia.

Hik ez dakik, hik dena kontrolatu nahi duk baina nik badaukat **zokoño** bat inork inoiz jakinen ez duena, han ez dik inork zangoa sartzen, nire gotorlekua duk, nire dorretxea, hiru mila zaldik zaindu eta 380 voltiok hesitutako barrendegia. Koldo Izagirre

Zeruko **zokoño** bat du ziurtaturik, usu madarikatzen dituen mendi hauen ifernuaren ondotik. Xabier Montoia

---

# **zokor** *(orobat **sokor** g.er.)* **1** *iz* mokorra, zotala.

Urrea ere urre hautsez osatzen dela uste du eta lurra **zokor** txikietatik handitzen dela, sua sutik, ura uretik, eta gainerako guztia era berean uste du. Xabier Amuriza

Ildoak ureztatu, **zokorrak** berdindu, euri-zaparradaz harrotu, ernamuinak bedeinkatu. Elizen arteko biblia

Zenbat aldiz, ilargialdi txar batek harrapatu, eta, euriaren euriz, lurra zopa-zopa eginda, ezin laiatu, ezin aretu, ezin **zokorrak** xehetu. Pello Zabala

Bi **zokor** bota dizkio bizkar iletsura. Patxi Iturritegi

Taldeka dabiltza, lur urpetuan nabigatzen, euripean, euren palekin apurtzen **zokor** bigunak, euren eskuez berrantolatzen milpa, hura babesteko ahaleginean, lanik gabe haz dadin. Juan Garzia

**Zokor** emankorrak goldez irauli eta, ernamuinak azaleratze-ko, lurzorua zehetu ezik, eurenez ezingo lukete aura garbietara irten. Xabier Amuriza

Idorturik dago hazia **zokorpean**, hondaturik ziloak, eroriak ganbarak; galdua baita laborea. Elizen arteko biblia

## 2 (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

Hilkutxa baten gainera jaurtikitako **zokor**-pusken hotsa atera zuten haien atzaparrek soroko tresnak gordetzeko erabili ohi nuen txabolako teilatu-hegalean pausatzerakoan. Anjel Lertxundi

Huraxe bai neska-mutikoen dibertsio, **zokor** gainak xehetzeko orduan. Pello Zabala

Nagusia han ari zen barre eta algaraz, **zokor** kolpeen gisako irri-karkail hotsaz. Xabier Olarra

**Zokor** moduko batzuk ere bazeuden errektangeluaren inguruan barreiatuta, belar bustiaren gainean. Bernardo Atxaga

## 3 (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa)

Beste batzuk zanpatutako lur-**zokorrak** lehorraraziz altxatzen zituzten paretak, zeharragekin trabatuz. Santiago Iruretagoiena

Bizitzarik gabeko lur **zokorren** antzekoak. Anton Garikano

Haien bihotzak eguzki hark berak lakartu eta gogortutako buztin-**zokorren** antzekoak izan behar zutela otu zitzaion Norari. Anjel Lertxundi

## 4 ***zokor-mazo*** *(orobat **sokor-mazo** g.er. eta **zokormazo** g.er.)* zokorrak birrintzeko mazoa; adimen laburreko pertsona.

Ulertu ez dakit zenbat ulertuko nuen nik orduan obra hartatik, baina gogoan dut **zokor-mazo** batez buruan jo izan banindute bezala geratu nintzela: txundituta, erabat liluratuta. **Zokor-mazo** bat baino gor eta gogorragoa da entzun eta jaso nahi ez dituenak aintzat hartzeko. Joxerra Garzia

Izu klase horren eraginez erori ziren aita eta bere lagunak **zokor-mazo** haien amarruan. Anjel Lertxundi

Kleo Kleenetoko hau, haatik, Tuzididesek beti **sokor-mazo** zakarroa bezala erabiltzen baitu, kirten baten antzera, haren kontrairudia bere arrazoiketan ikustea, Diodoto Eukratekoa, gizon burutsu zuhurra, interesgarria gertatzen da guretzat. Joxe Azurmendi

**Zokor-mazoren** bat izanen zen noski hori! Fernando Rey

· *(izenondo gisa)* Walserri entzuna nion sentiberatasun **zokormazoa** erakusten dugula hitz goratsu bat erabiltzen dugun orotan. Anjel Lertxundi

---

# **zokoraketa** *iz* zokoratzea.

Korsikaz zabaltzen den irudi okerrak eta plazaratzen diren gertaeren gehiegitzeak **zokoraketa** eta ulertezin sentipen bat eragiten du korsikarren artean, eta hori ez da batere lagungarria gogo irekitasuna laguntzeko. Berria - Mundua

Batasun horren oinarria izango litzateke arau-joko bat, zeinak ahalezkoa egingo duen objektuak denbora tarte jakin batean agertzea: **zokoraketa** eta errepresio neurrien bidez ebakitzen diren objektuak, eguneroko jardunean bereizten diren objektuak [...] medikatzeko, tratamenduetarako, zainketarako kode edo errezetek zedarritzen duten objektuak. Xabier Arregi

---

# **zokoratu**, zokora(tu), zokoratzen **1** du *ad* baztertu. (pertsonak eta kidekoak)

Big Lanniek, etxeratu zenean, lurrean etzanda aurkitu zuen Raymond, gelako izkina batean **zokoratuta**, auhenka eta zinkurinka. Mirentxu Larrañaga

Alderdien Legeak ezker abertzalea osatzen duten «milaka lagun **zokoratzea**» ez duela lortu azpimarratu zuen Erauskinek. Maitale sutsuaren garraz esaldi bakar batez Bergson, Husserl eta Heidegger **zokoratu** egiten ditu, soilik denboraz Kantek ez bezala dihardutelako, espazioarekin uztartu gabe. Berria - Euskal Herria

Ezagutzen dut halako izpiritu nobledun franko, bidean **zokoraturik** eta hebaindurik gelditu dena. Patziku Perurena

Haustura horrek gizarteko eta hiri handietako periferiako bazterretara **zokoratzen** ditu tokiko kapitalismoak ezin xurgatu dituen giza masak. Koro Navarro

Auzo berezietan (hala deitzen dira mintzo delarik goxoki) senditu dute gazteek baztertuak zirela **zokoratuak**, umezurtz gisa ahantziak. Herria

Txertatze modu horiek ekar dezakete, bai integrazioa, bai, alderantziz, baztertzea: [...] baztertzea, **zokoratuak** geratzen direnean trukeen, inbertsioen eta finantzen munduko fluxuetan. Koro Navarro

Batzuetan jainkoak **zokoraturik** gelditzen dira, besteetan gizakiak oinperaturik. Askoren artean

## 2 (bestelakoak)

Kumeak bihurritu eta iraulkatu egiten ziren, atzera eta aurrera ipurdiaren eta sabelaren gainean biraka, batak bestea **zokoratuz**, elkarri atximurka, amaren inguruan elkarri bultzaka. Koro Navarro

Zientzia-iraultzetan, teoria bat beti da **zokoratua** ala biek aurrera egin dezakete? Askoren artean

Pertsonaren duintasunak gorputz-zigorrak **zokoratzea** ekarri zuen lehendabizi, heriotza-zigorra gero. Juan Martin Elexpuru

Gure helburua, dibortzioari buruzko arauetan, abusua baztertu eta ezkontza babestea izan da, ohituren askakeria **zokoratuz**. Elizen arteko biblia

Neskak orduantxe jakin zuen ezen, gizonaren ustetan, izena [.....] ahazmenaren hilobietan **zokoratu** beharreko zerbait zela. Patxi Zubizarreta

Zergatik geratu diren bi eskualde hauek nazioarteko merkataritza- eta finantza-fluxuetatik **zokoraturik**. Koro Navarro

Gartziaren bozak oroimenaren azken zolan **zokoratu** gogo zuen pentsamendua ahantzarazi zion. Elena Touyarou

Lehen plamako albiste zena, albiste bitxien txoko-txokoan **zokoratua** dute orain komunikabideek. Joxerra Garzia

Bazegok aldea **zokoratzetik** txokoratzera. Iñaki Arranz

**3** (adizlagunekin)

Ternezia apur batez hurbildu nintzen teknikaren aitzinamenduak hain bidegabeki **zokoratutako** tramankulura. Aingeru Epaltza

Era berean, zeharo **zokoratzen** dute atzerritarra lan-merkatuan, gizarte zerbitzuetan eta abarretan espazioa lortzeko borrokan etsaia delako ideia. Itziar Eizagirre / Amaia Lizarralde

Egia da mundu mailan merkatu-ekonomiak eta globalizazioak, irabaziak gidaturiko sistemaren bidez, alde batera **zokoratzen** dituela lehiakorrak ez direnak. Iñaki Heras

Lasai **zokoratzen** duzue Jainkoaren agindua zeuen usadioak ezartzeko! Elizen arteko biblia

**4** (era burutua izenondo gisa)

Maisu zahar **zokoratu** gisan edo hartzen nonbait hezurra! Patziku Perurena

Pettigrewen eta muggle guzti haien hilketa gizon **zokoratu** eta etsi baten ekintza izan zen. Iñaki Mendiguren

Herri **zokoratu** eta kolonizatu baten itxura baldin bagenuen, Humboldten arabera, XIX. mende hastean, ez daiteke hainbat ontu gure zortea Frantziaren edozein inperio, erregego ala errepublika irudiko Estatu-Nazio subiranoaren menpean. Piarres Xarriton

Monoteismoak Baal eta Astarteren gurtza eraitsi zuen, Jahve jeloskor baten lehiakide **zokoratuak** isilka-misilka judu-ortodoxiaren altzora itzultzen ikusteko. Iñaki Mendiguren

Herritxo **zokoratu** hartan hazi ginen apur bat edo asko, derrepentean edo oso astiro, oker edo artez, eta etorkizuna geure iragana lakoa izango zela uste genuen batzuetan, denborarekin orain garen bezain urrunak eta desordukoak izango ginenik egundo susmatu gabe. Joseba Sarrionandia

Las Vegasko karrika ilun eta etxe **zokoratuetan**. Itxaro Borda

Alta, ez erretzaileei utzi tokia txikiagoa da, **zokoratuagoa**. Berria - Harian

Vautrin gaizkile, jeinu, azti, eta, gainera, **zokoratuen** buruzagi gogoangarriaz. Markos Zapiain

Industriaren bultzatzeko dirua, baztertuen eta **zokoratuen** laguntzea, ikerketen alderako beharra eta... eta... eta, denbora berean zergen beheititzea. Herria

**5** da/du *ad* zokora joan edo eraman.

Bizpahiru tipori lepoa mozteko astia izan zuen Yvanek, bazter batera herrestan **zokoratu** eta hil aurretik. Joxan Elosegi

Eguzkia **zokoratzen** hasia zegoen, laster ilunduko zuen. Pedro Alberdi

Pilota behetik eta **zokoratua** jaurtikitzen jartzen zuen Katxok bere urduritasunaren parte bat, bere amorrua, bere gogorkeria. Koro Navarro

Ireki ere ez zuen egingo agian, eta armairuaren hondoan **zokoratuko** zuen, ukitu ere ez egiteko. Joxan Elosegi

---

## zokoratze *iz* baztertzea.

1970eko hamarraldian antzematen zen **zokoratzea**, beraz, eten egin dela dirudi. Koro Navarro

Aralar beste alderdiekin lerrokatzen ari da ezker abertzalearen aurkako bazterketa eta **zokoratzea** bultzatzeko. Berria - Euskal Herria

---

zokormazo ik **zokor 4**.

---

## zokotar *(orobat **sokotar** eta **zokoatar** g.er.) izlag/iz* Zokoakoa, Zokoari dagokiona; Zokoako biztanlea.

Mayi Ortiz **zokotar** serora. Herria

Heiekin luzaz eta luzaz egona delakotz euskaldun serora bat, duela hiru urte zendua, Mayi Ortiz, sortzez **Zokotarra**. Herria

Dena mamia delakotz gisa hortan bururatu lana, joanden egunean Zokoan berean aurkeztua izan dena, segur gira **Zokotar** guziek nahiko dutela eskuratu. Herria

Mikel Epalza apezak goretsi du **Zokotarren** arteko elkartasuna, besta horien karietarat biziki sanoki agertu dena. Herria

Omenalditxo labur bainan hunkigarri bat eskaini zaiote berrikitan zendu Gerard Bidegainberry "Xubero" eta Tony Zorzabalbere **sokotarrari**. Herria

---

## zokotto *iz* zoko txikia.

Gerla guztien aurka zaude baina ez al duzu zure bihotzaren barneko **zokotto** batean gerla berezi bat, bereziki hain zuzen, sustatzen duzuna? Itxaro Borda

---

## zokozorri *iz*

Hor irabiatzen dira absurdoan, beren hodeiaren azpian, **zokozorriak** beren harripean bezala. Josu Zabaleta

---

## zola 1 *iz* hondoa, sakontasuna duen zerbaiten behealdea edo atzealdea. (behealdean)

Gorpuak kutxaren **zola** jo zuenean, izugarriko azantza hauteman zen bildutasunak katezttatzen zuen gelan. Itxaro Borda

Otarrearen **zolatik** ez da, ordea, kobrarik altxatzen. Gotzon Garate

Bere pala hartu eta urmael **zolatik** lokatz eta belar puska tzarrak kentzeari ekiten dio. Oskar Arana

Bota itsasoaren **zolarat**. Menane Oxandabaratz

Han lepoa, han oihana, han bide xendera bat, han ur xirripa bat errekaren **zolan**. Michel Oronoz

*ik beherago* 6. Askoren artean

Sekretua hobiaren **zolaren zolara** eramanen nuen. Itxaro Borda

Hustua nintzela senditzen nuen, indarrik batere ez, ziloaren **zolan** nintzen. Marzel Etxehandi

Horra non, ohartu gabean, aitaren zigarro bat harturik, ari nintzela tira eta tira, kea biriken **zolaraino** igorriz! Daniel Landart

Dakidana da bihotzaren **zolatik** atera zela. Janbattitt Dirassar

So egin zautan eta haren behakoa ene bihotzaren **zolaraino** sartu zen. Michel Oronoz

Gisa berean, irrits-gurariak eta haserrekorrak goi-fakultateetan eta arimaren **zolan** dute beren sustraia. Joan Mari Lekuona

Auhena eztarri **zolan** ito nuen, ozendu baino lipar bat lehenago. Aingeru Epaltza

Zintzur **zolatik** arkuma mehatx eta ahul bat ateratzen zaio. Michel Oronoz

Bere sakela **zola** bezain ongi ezagutzen zituen gudaroste espainiarren nahiz frantsesen ibilbideak. Elena Touyarou

Martizek lurrean kukubilkaturik, mihimen gotorrenak gurutzean jarri zituen, zare **zolaren** oinarria osatzeko. Itxaro Borda

Azkaine eta Senperearte hortan, bada urtegi bat aspaldixkoan muntatua, Helbarruneko **zola** hortan hain xuxen. Herria

Ibai-**zolan** ari zirenek orduantxe asmatu zuten beheko mukulua kablearen muturrari lotzera. Aingeru Epaltza

Ibar edo haran **zola** zabala delarik, "naba" deitzen dügü zübereraz. Herria

Zuk ere nik bezala, poza eta nahigabea sumatuko duzu zeure bihotz **zolan** hemengo istorioak irakurrita. Gotzon Garate

Mendiko burdin meatze bezala da hauen arima- **zola**: argi-errainu bat ere ez zaio iristen. Joan Mari Lekuona

Hau da arima- **zola**, non ezkutuan bizi baita Hirutasun-irudia. Joan Mari Lekuona

**2** (atzealdean)

Bere biboteko brillantinak zabaltzen zuen mugeta-urrina aditzen nion eta, garbi asko, distira gorrixka ikusten begi argitsuen **zolan**. Matías Múgica

Burutan erabili nuen harpe **zolatik** so zegokidan troglodita gizabasa hori ene zain egona zela. Juan Garzia

Botigaren **zolan**, dilindan, kolore gabeko erridau bat. Michel Oronoz

Ranchiko katedralean ere, elizako **zolan** esertzen dira. Gotzon Garate

Janinaren aluaren **zolan** zakila esku-bristaz landatzen ziola. Itxaro Borda

Aldare bat egiten zen eliza **zolan**, dena xirio eta lore, xirioen usaina elizaren bete, gauaz, berantean, jendea hor egoiten zen adorazionezko otoitzetan, beilan. Michel Oronoz

Argi ttitta ttipi batzu zeru **zolan**, hain urrun. Michel Oronoz

Begiak zorroztuak lagunaren begietan finkatuak, begi **zolan** den segeretua bortxatu nahiz. Michel Oronoz

Zeru- **zola** urdin bizi-bizia zegoela. Oskar Arana

Era berean Semea jaiotzen ari da arima zintzoaren izate- **zolan**, Jainkoarekin bat eginiko arimarenean. Joan Mari Lekuona

Itxarongo du Jainkoa jaio dadin apaltasun- **zola** honetan. Joan Mari Lekuona

**3** behealdea.

Eliza **zola** hura mukurru betea, lehen galeria ere berdin. Herria

Pantaila- **zolako** tresna-barratik, leihoxka batek ohartarazi ninduen horraino idatzitako karaktere kopuruaz: 2734. Aingeru Epaltza

Belokeko mendixkaren **zolan**, Paris jauna ikusten dugu, harritua. Marzel Etxehandi

Ordu erdi baten buruko, hiri erdira banoa, patar luze baten **zolan** dago Sahagun zaharra. Piarres Aintziart

Baionatik Kanbo alderat doan errepidean, patar baten **zolako** bihurgune batean, auto bat zerbait gisaz joan da arrunt zeiharka eta arroilarat uzkaili. Janbattitt Dirassar

Noizbait joan ziren etorritako bidetik, gorpuz eta gorputzez emokaturik utzita murru **zola**. Aingeru Epaltza

Somoza hitzaren etimologia ez zait arrotza "sub montia", mendi **zolan**. Piarres Aintziart

**4** oinez eta kidekoez mintzatuz, azpialdea. ik **zoru 6**.

Kilimak egiten zizkidan alfonbra lodiak oin- **zoletan**. Koldo Izagirre

Oin- **zolak** zoruaren kontra tinko zapaltzea beste biderik ez dut; hotza dago. Monika Etxebarria

Ezkonduta dago, eta katolikoa da burutik oin- **zolaraino**. Oskar Arana

-Hanka **zolak** epelduko ditiat pixka batean, aditu duk? Karlos Zabala

Uste dugu haren zango **zolako** larrua ez zela nolanahikoa eta ez zuela kezka handirik itze txarrak lurrean kausiturik. Angel Aintziburu / Jean Baptiste Etxarren

Zango **zoletako** pintz lehertuak perekatu zituen, mina doi bat goxatu beharrez. Eneko Bidegain

Mina nuen hanka- **zolan** hainbeste ibiltzearen poderioz. Fernando Rey

Nire zango- **zola** azeleragailuan landatu zen. Aingeru Epaltza

Ongi jakin gabe oin- **zolak** ere lurrean ote nituen edo airean. Joan Mari Irigoien

**5** oinetakoez eta kidekoez mintzatuz, zorua.

Nire zapaten gomazko **zolek** zarata gehiegi egin dute ibilbide amaiezinean zehar. Iban Zaldua

Gorbata eta zapata lustratuak, kartoi puskak barruan, **zolak** zulatuta zeudelako. Josu Zabaleta

Ibiltzeko arazoa dauka eta horregatik zapata baten **zola** bestearena baino lodiagoa du. Urtzi Urrutikoetxea

Oinetako beixetako baten **zola** fin eta labainkorraren arkuan, papertxo zuri luzanga bat zuen itsatsita. Mirentxu Larrañaga

Oinetakoen **zolak** salduko lituzke lengoradu pare bat balira bezala. Karlos Zabala

Oinetan espartin tzar batzuk, **zola** jana zutenak. Janbattitt Dirassar

Neguan kloskak bagenituen oinetan, oraingo gorako zapetak bezalakoak, baina **zola** zurezkoa. Angel Aintziburu / Jean Baptiste Etxarren

Larru landuzko bota baxuak zeramatzan oin txikietan, **zola** lodi samarrekoak. Karlos Zabala

Harriek mina ematen zioten oinetan, zapaten **zola** higatuetan iltzatzen baitzitzaizkion. Lopez de Arana

Luzatzeko, zabaltzeko, josteko, **zolak** emateko. Juan Garzia

Egurrik gabeko estufaz, **zolarik** gabeko oinetakoez, hornidurarik gabeko saltokiez. Juan Garzia

Apain eta dotore jantzi gintuan, gorbata eta zapata lustratuak, kartoi puskak barruan, **zolak** zulatuta zeudelako. Josu Zabaleta

**6** (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa)

Zapata- **zolak** nahi baino gehiago higatzea egokitzen zait halakoetan. Aingeru Epaltza

Gerruntze gorri batek eusten zien haren bularrei, eta urrineztaturik zeuden haren sandalia- **zolak**. Juan Garzia

Ene zango hauntuen gatik doi-doia espartin **zolak** uhalekin lotuak ibiltzen ahal ditut. Michel Oronoz

Iratzarritakoan, aita ikusi dut berehala, haren bota- **zolak** ikusi ditut, beren iltze higatu eta guzti. Mirentxu Larrañaga

**7** zorua; lurra. ik **zoru 1**.

Gela hura handia zen, harrizko paretak eta **zola** Persiako tapizeria miresgarrienez estaliak ziren. Aurelia Arkotxa

Solairuetako **zoletan**, berriz, oso kontuan hartu behar da azpian ez dadila egon zoladuratik gora aterako den paretarik. Santiago Iruretagoiena

Harathonat hasi zen sukaldean **zola** ostikoz jotzen guk behean jakin genezan zenbat sufritzen ari zen gure kulpagatik. Fernando Rey

Mahaiaren aitzinean, jarleku bitxi bat, betoinezkoa hori ere, **zolari** lotua. Filipe Bidart

**Zolan** kristal hautsiak, orraziak, botoiak. Fernando Rey

Baldosa zuri-beltz handiek estaltzen zuten **zola**. Karlos Zabala

Tenpluaren altuera hartu **zolatik** sabaiko kasetoietaraino, eta bana bedi hiru eta erdi partetan. Santiago Iruretagoiena

Amorruz jotzen zuen euritakoarekin **zola** harriztatuan. Fernando Rey

Ondo ezagutzen zuten galtzadako eta espaloietako **zola**. Karlos Zabala

Kale garbitzaileek, bi ordutik behin, **zola** garbitzen zuten ur ugariz, eskuila latzak pasatzen zituzten orban gorriak kentzeko. Karlos Zabala

Lurrean borobilean jarriek burdin-makilez **zola** kolpekatu zuten, erritmoan. Itxaro Borda

Saran, herritar guziak eliza barnean ehorzten ohi zituzten, eta **zola** osoki hilen harlauzez estalia zen. Elena Touyarou

Etxe horrek, lehenago, ba omen zituen hiru estai, **zola** baino beherago. Angel Aintziburu / Jean Baptiste Etxarren

Su-pizteko untziak -hortarako antolaturik-, bi **zoletako** zigareta untziak, paztilla boatak, nik dakita zer oraino. Marzel Etxehandi

**8** (izenondo eta izenlagunekin)

Aztalaz lehertu zion sudurra eta odola barreiatu zen sukaldearen **zola** garbian. Itxaro Borda

Zaldiak lehia bizian jardun zuen, zangoak **zola** irristakorrean tinkatzeko ahaleginean. Mirentxu Larrañaga

Gela ertain bat zen, dotorea, **zola** argizariztatu eta dirdaitsuarekikoa. Patxi Zubizarreta

Harrizko **zolaren** gainean Minimax markako suitzalgailu bat zegoen. Fernando Rey

Linterna bat lurrera erori zen eta argi ematen segitzen zuen legarrezko **zolan**. Fernando Rey

Industria gehiegia, kutsadura, berotegi-efektua, itsas **zolaren** zulaketaz baliaturiko petrolio-indusketa. Juan Garzia

**9** (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa)

Inprentako lur **zolan** bata bestearen gainean anabasa ederrean pilatzen ziren, paper zaharrarekin batera. Felipe Juaristi

Euriak karrika **zolak** distirarazten zituen eta hiriko argiek ilunpean gidatzen ohitutako Agata beraztu zuten. Itxaro Borda

Karrika **zola** inoiz baino emokatuago ageri da zaldi gorotzez. Aingeru Epaltza

Zanga ondoak-eta gustatzen zaizkio, bertako hezedura xurrupatu eta zorua lasaitu egin ohi du, zopa-zopa dagoen buztin-**zola** arindu eta aretu. Pello Zabala

**10** ***erreka-zola***

Bizikleta, baina, **erreka zolan** zegoen, metro eta erdiko zuloan. Gotzon Garate

Bi tonako bat zikin bildu dute, eta oraino gelditzen omen da behargabekeria frango **erreka zola** horietan. Herria

Urepeletik beheiti heldu da, mendi mazeletako basuretatik, **erreka zoletan** sortzen diren iturrietatik, Bankako, Izpegiko, Lixketako, Urdozeko erreketatik. Michel Oronoz

**Erreka zolaraino** eraman zuen bere laguna, errestan, itzulipurdika. Michel Oronoz

**Erreka zolaraino** eraman zuen bere laguna, errestan, itzulipurdika. Michel Oronoz

**11** ***zola-zola*** (toki atzizkiekin)

Han, **zola zolan**, mendiaren oinetan, mendiek inguratzen duten eremuak, alimaleko osin ilun bat iduri zuen. Michel Oronoz

Nafarroako **zola zolan**, Tuteran, kulturaren bizitzeko manera aztertua izan da. Herria

Nafarroaren hegoalde **zola-zolako** nafar batzuk behintzat mendialdeko nafarren aurkakoak, euskararen eta euskaltasunaren kontrakoak bezala agertzen dira. Berria - Kultura

Eza nagusituz, Europaren karroa itzulipurdika joanen dela erreka ilun baten **zola-zolarat** eta handik ateratzeko gero ederrak ikusiko direla! Herria

Oroitzapen hunkigarri bat izanez arte hortan joanak diren bederatzi lagunez, meza bat zinez ederra eman dugu denek katedralean jende alde ederra ere juntaturik bere apezeri Eliza-Nagusiaren **zola zolaraino** beterik diosesaren otoiz-etxea. Herria

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
>
> **arima zola** (14); **eliza zola** (5); **erreka zola** (4); **lur zola** (3); **oin zola** (3); **plaza zola** (3); **zango zola** (3); **zapata zola** (7); **zapaten zola** (3); **zeru zola** (3); **zola bezain** (3); **zola dena** (3); **zola gainean** (5); **zola sobera** (3); **zola zolan** (6)
>
> **oin zolak** (4); **zapata zolak** (5)
>
> **espainia zolako** (3)
>
> **arima zolan** (16); **arimaren zolan** (6); **arrosako zolan** (4); **bihotz zolan** (3); **bihotzaren zolan** (5); **eliza zolan** (3); **erreka zolan** (4); **gogoaren zolan** (3); **ibai zolan** (3); **itsas zolan** (3); **itsasoaren zolan** (11); **lur zolan** (3); **mendi zolan** (3); **mendiaren zolan** (3); **patarraren zolan** (4); **zeru zolan** (3)
>
> **arima zolara** (3); **arima zolaraino** (4); **bihotzaren zolaraino** (3); **itsasoaren zolarat** (3)
>
> **bihotzaren zolatik** (17)

---

## zolaberritu, zolaberri, zolaberritzen du *ad* oinetakoei zola berriak ezarri.

Kartoiz **zolaberritzen** dudala. Juan Garzia

---

## zoladun *izlag* zolako.

Nik amerikar armadako panazko praka berdeak neramatzan, eta iraunkorrak ziruditen gomazko **zoladun** zapata lokarridunak Urtzi Urrutikoetxea

---

## zoladura 1 *iz* zola, lurra; eskuarki zolaren estalgarria.

Lurrean, **zoladura** gisa, baldosa zuriak eta arrosak jarriak zeuden txandan-txandan, greka gorri ilun bat inguruan zutela. Karlos Zabala

Gaur harrobiko lanetan, bihar kaleetako **zoladura** ipintzen, etzi edozer saltzen. Berria - Kultura

Lauki hori eta arre handiz apaindutako zeramikazko **zoladura** jarri zuten geletako parketaren gainean. Joseba Urteaga

Habeak, koloma, pilastra eta anten gainean jartzen dira; **zoladuretan** laxkak eta taulak jartzen dira. Santiago Iruretagoiena

Teilatupeko bi gelatxo koxkor, murru-paretak dena hozka eta arraildura, **zoladurako** taulak harrotuak, zurak higikor eta irintzen hasiak iduri. Janbattitt Dirassar

Dutxa labur baten ondotik botatzen gituzte, metatzen, biluzirik, sala batean, **zoladuraren** gainean etzanik, 200 preso baginen. Michel Oronoz

Balkoiek berdez margoturiko adreiluzkoak dituzte **zoladurak**. Koldo Izagirre

Eguzkia sartua bazen ere, artean **zoladurak** eta etxeen hormek beroa jariatzen zuten. Lopez de Arana

Plazaren **zoladura** gurutzatu ordez, saihetsera alderatu zen, arkupeetan barrena. Pedro Alberdi

Artilearekin nahastutako buztinez egingo dira, eta gainean bi oineko baldosak jarriko dira **zoladurari** eusteko. Santiago Iruretagoiena

Biltegiaren **zoladurako** arteketarik pasatzen zen kea jasanez. Elena Touyarou

Solairuetako zoletan, berriz, oso kontuan hartu behar da azpian ez dadila egon **zoladuratik** gora aterako den paretarik. Santiago Iruretagoiena

Plaza arkupetuak, uharrizko mosaikoz eginiko **zoladurak**, balkoi gerizpetuak, girgileriaz margoturiko etxeak ikusten ditut. Koldo Izagirre

**2** (izenondo eta izenlagunekin)

Patioa zeharkatu zuen, **zoladura** gorabeheratsuaren gainean zabuka. Jon Muñoz

Bertako kaleak Indonesiako beste asko bezalakoak dira: **zoladura** irregularrak, azoka zalapartatsuak, denda erakargarriak eta egurrezko milaka etxe. Berria - Mundua

Gangadun kaleak eta zumardi eta **zoladura** ederrak zeharkatuz, beheko zirkulura iritsi zen azkenean. Agustin Otsoa

**Zoladura** bustiak isuritako usaina autoen ke-adarrarekin nahasten zen. Lopez de Arana

Jimmyk bere oin-hotsak entzuten zituen **zoladura** higatuan zehar. Lopez de Arana

Oinatzak gero eta ilunagoak ziren **zoladura** izoztuan zehar. Lopez de Arana

Haien ingurumenarekiko errespetu falta handia salatzen zuen goraki, aztal puntutxak **zoladura** zementatuan klaskaraziz. Itxaro Borda

Mira eginda zegoen Abel burdina ageriko armazoiari, burdina galdatuzko arkuei eta burdinazko **zoladurari**. Zalgurdiko zaldia hortxe, karrikaren harrizko **zoladura** hutsean bakarrik. Jon Muñoz

Lurra zanpatu ondoren hartxintxar edo adreilu birrinduzko **zoladura** zabaltzen da. Santiago Iruretagoiena

**3** (hitz elkartuetan)

Galtzadaren zatirik interesgarriena, zeinaren harri-**zoladura** gehientsuenak gaur egun ere osorik baitirau, Aqua Marcia-ren uztai-erreskada berebizikoaren ezkerretara hasten da. Joxe Austin Arrieta

Kaleak, etxeak, ateak, hormak, harri-**zoladura**, min samin hura, gauaren erdian izerdi-patsetan esnatzea, [...]. Eskarne Mujika

**4** irud/hed

Aldi berean, kantitatea segurtatzen zuten herrialde zenbaitek, merkatu **zoladura**-prezioa baino are apalago saltzen zuten axurikia. Itxaro Borda

---

**zolagune** 1 *iz* sakongunea.

**Zolagunea** deitzen zaio, eta inoiz esan ohi dute gailurra dela. Joan Mari Lekuona

Sorkari denek ere ez lukete sekula beteko **zolagune** hau, ez eta zundatu ere. Joan Mari Lekuona

Jadanik leizezuloaren **zolagunean** egonik, eta maitasuna jadanik atxilotua, zeure buruan besteren esku jarri behar duzu eta gora egin zeure borondaterik gabe. Joan Mari Lekuona

Kanpoko gizakia garaitu baduzu, itzuli zaitez barrura, sar zeure baitan eta bila **zolagunea**. Joan Mari Lekuona

Gizakia bere **zolagunean** sartzen da, bere buruaren sakonenean, eta Jauna bilatzen du esan zitzaigun eran, hitz hauekin esan ere: "Jainkoaren erregetza zuen barruan baitago". Joan Mari Lekuona

Barruko **zolagune** hori bilatzen zuten bi mila eremutar bere zuzendaritzapean jarri ziren. Joan Mari Lekuona

Barne-kontenplazioa hartzera, arimaren **zolaguneko** gozotasuna dastatzera. Joan Mari Lekuona

Arimako **zolagune** honetan gizakiak bere lagunen alde erregutzen du, hauek biziak izan edo hilak. Joan Mari Lekuona

Arimako **zolagunean**, egia sortu behar duen hartan, ez dute maitasunik; hutsik eta agor sentitzen dira. Joan Mari Lekuona

**Zolaguneari** buruz Ebanjelioak esaten digu: "Dakiguna esaten dugu guk, eta ikusi duguna aitortzen; baina zuek ez duzue gure testigantza onartzen". Joan Mari Lekuona

**2** (izenondo eta izenlagunekin)

Hau karitatearen **zolagune** apaletik sortzen da. Joan Mari Lekuona

Lagunok, honaino iritsi izana da, egiaz ukitzea benetako beheratze baten **zolagunerik** sakonenak. Joan Mari Lekuona

Bere esentzia eta natura, aurkitzen den hartan bilatu behar du, hau da, **zolagunerik** barnenean, erdigune sakonean. Joan Mari Lekuona

Naturazko argiak **zolagune** huts, biluzi eta irudi gabeko honetara ateratzen dira. Joan Mari Lekuona

**3** irud/hed

Ondoan **zolagunea**, hots eguzkiaren sinboloa; baita sigi-saga batzuk ere, eta beste markak. Berria - Kultura

Aizkora bat; armez inguratutako pertsonaia antropomorfikoa; eguzkiaren irudia izan daitekeen **zolagunea**; arropak edota sugeen errepresentazioak. Berria - Kultura

Aizkora neolotikoa izan daitekeenaren irudia antzeman dute, hain zuzen ere, adituek, eta eguzkiaren irudia dirudien **zolagunea**, eta arropak eta sugeen errepresentazioak ere. Berria - Kultura

---

**zolalde** *iz* zolaren aldea.

"Denen etxean" erakusgai dira euskal lurralde guzietako jantziak, Herriko Etxeko **zolaldean**, Iñaki Olazabal Gipuzkoarraren zizel obrak. Herria

**Zolaldetan** artegintza eta zahargai komertsak ideki beharrak dituzte, horrela katedralaren bisitatzera datozenek (40 000 urtean) tirria zerbait izan dezaten hortik iragaitean. Herria

---

**zolape** *iz* zolaren azpialdea.

Afaldu, ontziak garbitu eta ohe gainean luze luzea etzaten da, **zolapera** begira. Eneko Bidegain

Labearen gainekaldetik tximinia bat ateratzen zen, **zolaperaino**. Eneko Bidegain

Eta noren argazkiak ote dira **zolapetik** dilindan ezarri dituztenak. Eneko Bidegain

Sukalde **zolapean** dilingotu soka eratxikorrean harrapatu ulu tristearen azken burrunbaz oroitzen gara bereziki. Itxaro Borda

---

**zolaratu**, zolara(tu), zolaratzen.

Hots, gogobihotzak galtzerdi-**zolaratuak**! Herria

---

**zolatu**, zola(tu), zolatzen **1** du *ad* bideez, zoruez eta kidekoez mintzatuz, zoladura ezarri.

Ubidez zeharkatua; harribilez **zolatua**; eta laukitan banatua hain kale zabalez, non lau gurdik batera egin dezaketen aurrera. Jon Muñoz

Lisboatik zuzenean ekarritako galtzada-harriz **zolatutako** kaleak. Jon Muñoz

Ireki beharreko bideak, **zolatu** beharreko kale eta errepideak, hiriko garbiketa orokorra, arloteen polizia-zaintza. Bego Montorio

Baldosaturik ageri dira egun asfalto soilez **zolatutako** espaloiak. Iban Zaldua

Galtzada-harri arrosaz **zolaturiko** plaza da. Monika Etxebarria

Mithrilezko eta altzairuzko ateak jarri ziren, eta kaleak marmol zuriarekin **zolatu**. Agustin Otsoa

Bidezidorrera iritsi zirenean jakin zuten zabala zela eta harri koskorrez eta errauts zapalduez **zolatua** zegoela. Agustin Otsoa

Bide zabala eta ongi **zolatua** zen, ekialdeko ertzean zehar pista berde zabala zuena, eta harresia haren ondoan. Agustin Otsoa

Ongi **zolaturiko** galtzada da bekatariaren bidea, baina azkenean Herio Leizera darama. Elizen arteko biblia

Lurraren gainean **zolatu** behar bada, lurra denean sendo al dagoen begiratuko da, eta ondoren, dena berdinduko da eta zabalduko da azpiko hartxintxar-geruza. Santiago Iruretagoiena

Gandalfek pauso arinez zeharkatu zuen zuriz **zolaturiko** patioa. Agustin Otsoa

**2** irud/hed

Tapiz lodi batez **zolaturiko** korridorearen alde bietara zabaltzen ziren gelak. Alberto Ladron Arana

Aldarea koroatuz, arrain ontzi karratu bat ageri zen, harri koskorrez **zolatua**, non bi arrain gorri igerian baitzebiltzan etengabe. Karlos Zabala

**3** (era burutua izenondo gisa)

Zabalgune **zolatu** handia. Agustin Otsoa

---

**zolaztatu**, zolazta, zolaztatzen du *ad* zolatu.

Atarietatik bebarrua ikusten zen, oin-zerrenda urdin batez, eta zorua harritxoz **zolaztatuta**, marrazkiak eratuz. Josu Zabaleta

Gelak azulejo distiratsu, labainez **zolaztatuta** zeuden, eta eskailerak zituzten maila batetik bestera igo edo jaisteko. Josu Zabaleta

---

**zolda** 1 *iz* gauzei atxikitzen zaien zikintasuna. ik **kraka; tortika; uger**[1].

Mahukek eta papar-hegalek botak egiteko erabiltzen den larrua gogorarazten zuten, hain zeuden **zoldak** janik eta igurtzien eraginez distiratsu. Jose Morales

**Zoldak** dena estaltzen zuen, belus urdina, belarritakoak, gurutzetxoa. Karlos Zabala

Oso gogokoa nuen denda hura, itxura ziniko eta tematia zuen, lotsagabekeriaz gogorarazten zituen zikinkeriaren eta **zoldaren** eskubideak. Monika Etxebarria

**2** (izenondo eta izenlagunekin)

**Zolda** likits bat ezpain ertzean. Unai Iturriaga

Zutik ageri da Martin, lehen lerroan tente, bi eskuak galtzetan jarrita zintzo demonio, **zolda** beltza ezkutatu nahian. Alberto Barandiaren

Orduan, barrez lehertuko naiz, nire gorputza **zolda** zikin nazkagarriaz estalia egon arren. Monika Etxebarria

Ataurreko harrizko **zoldak** hankekin joz astindu zituen oinetako lokatzak. Anjel Lertxundi

**3** (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa)

Urteen marka nonahi, koskak kixuan eta hezetasun **zoldak**, eguzkiaren patina ere bai. Alberto Barandiaren

Emakume haren gorputz lurrez egina, lur **zoldaz** bildua, lokatz putzu batean urtzen ari balitz bezala parrastatzen zen. Juan Garzia

Bideko hauts-**zoldak** osoro estaltzen zuen zalgurdiaren kolore beltza. Anjel Lertxundi

Gorputz **zoldarik** gabekoen garbitasuna eta horrelako gauzak aipatzen zituen, eta gu denok, noski, ahoa bete hortz uzten gintuen. Alberto Barandiaren

Amorru eta suak txigorturik, odol-**zolda** gatzatuz gainestali eta hanturik. Juan Garzia

**4** irud/hed

Euskal inkultura letratuaren komentuko **zoldan** bakteria bat bezala birsortua. Patziku Perurena

**5** ***zolda-belar*** borrajaren familiako belar iletsua, lore arrosa edo zuriak mordo zintzilikarietan dituena, zoko hezeak arras maite dituena eta sendagintzan erabiltzen dena *(Symphytum officinalis)*.

Belar batzuk ere bildu nahi nituzke gero, **zolda-belar** batzuk, enplasturen bat egiteko. Joan Mari Irigoien

**Zolda-belarra**, agian. Anton Garikano

---

# zoldatsu *(orobat* ***zoldazu****)* *izond* zoldaz betea.

Emakume haserre batek, zaku-oihal **zoldatsu** batez jantzirik, sekulako jipoia eman zion neskato errukarri bati, eta agiraka ari zen eztarria urratu beharrean, deabru guztiak aipatuz. Jose Morales

Astobus **zoldazu** horietako batean gertatu da hori guztia. Xabier Olarra

Ohe **zoldatsu** baten ustel-izerdi kiratsean. Juan Garzia

Nik aldi baterako lan bat neukan jatetxe **zoldatsu** batean zerbitzari. Oskar Arana

Gu izerdiz eta euriz eta olioz blai, jaioberriak bezain **zoldatsu**. Joxe Austin Arrieta

---

zoldazu ik **zoldatsu**.

---

# zoldu, zoldu, zoltzen da/du *ad* zornatu.

Zauria, elikaturik, bizitu eta **zoldu** egiten baita, eta berotasuna egunez egun gehitzen eta nahigabea handitzen. Xabier Amuriza

Urdailean **zoldu** zait burbuila mingots bat, eztarrian kutsu metaliko bat utzi didana. Javi Cillero

**Zoldutako** zainetako ultzera bat, esaterako, ezin da laserrarekin konpondu. Berria - Gaiak

---

# zoli *(orobat* ***zauli*** *g.er.)* **1** *izond* zentzumenez eta kidekoez mintzatuz, zorrotza, ahalmen handikoa.

Piztiak, berriz, ikusten, entzuten eta objektu gorpuzdunen presentzia usaimenez, dastamenez, ukimenez sumatzen; eta hala ikusten dugulako aitortu beharrean gaude guk baino sentimen askoz ere azkarrago eta **zoliagoak** dituztela. Imanol Unzurrunzaga

Eñauten begi **zoliek** Katen aurpegia arakatzen dute goizetan. Sonia Gonzalez

**Zoliak** ditu begiak, zer ikusiko, zerekin harrituko. Anjel Lertxundi

Seguruenik une hartan pauso luzeka jaitsiko zen Gurijarantz, begi erne **zoliekin** bila. Patxi Zubizarreta

Entzumen **zolia** izatea ez da jada hil edo bizikoa gizakientzat. Irene Aldasoro

Belarri **zoliak** al dituzue zain guztietan? Jose Morales

Erran dizut ezen begi eta belarri **zoliko** mutila nintzela. Joan Mari Irigoien

Harro ere bazegoen, bakoitzaren gaitasunei atzemateko hain oharmen **zolia** erakutsi zuelako. Jose Morales

Ezertxo ere ez zitzaion ezkutatzen nire oharmen **zoli** artean sorgortu gabeari. Jose Morales

**2** (adizlagun gisa)

Halako merkatari batek egun osoan egon beharra dauka **zoli** begia. Patxi Zubizarreta

Motorraren hotsari belarria **zoli** jarriz gero, ez genioke deus arrarorik erreparatuko. Josetxo Azkona

Espetxean bizitza ohi bezala doa, gor eta adi, itsu eta **zoli**, beti erne. Jose Morales

Erraldoiak itsu-itsuan eraso zion, baina Fionn **zoli** zegoen eta, burua albo batera botatzearekin batera, hankak luzatu zituen traba egiteko. Joanes Urkixo

Mahaiko teknikariarekin eztabaidan, gitarraren hotsa **zoliegi** edo apalegi entzuten ote den. Xabier Mendiguren Elizegi

**3** hotsez eta kidekoez mintzatuz, ozena, eskuarki hotsen eskalan goian dagoena.

Altzairu-itxurako atzaparren bristada bat izan zen, eta Malfoyk garrasi **zolia** egin zuen. Iñaki Mendiguren

Txorien eztarriak ere ezin jaulki lezakeen nota **zoli** horretara iristen denean. Jose Morales

Nota **zoli**-zorrotz bat airean geldia. Anjel Lertxundi

Emakume oihu **zoli** batzuek erantzun ziguten. Josu Zabaleta

Emakumezkoek beren nota **zoliak**, eta haurren ahots meheek xirula mehearen hotsak ematen zuten. Josu Zabaleta

Ahots ozen eta **zoliarekin** esan zuen-: [...]. Iñaki Mendiguren

Ahots ozen eta **zolikoa**, oihuka mintzo zen. Patxi Zubizarreta

Tranbia baten karranka hotsak, bozina soinu **zoliak**. Patxi Zubizarreta

Txistu-hots txiki eta **zoli** batek bete zuen gela. Iñaki Mendiguren

Harryren gelatik irtendako ulu-hots **zoliak** esnatu zuen goizaldeko ordu txikietan. Iñaki Mendiguren

Irri **zoliko** sei alaba jostalari. Jose Morales

Riddlek barre **zoli** eta hotza egin zuen, berari ez zegokiona. Iñaki Mendiguren

Ahotsik gabe gelditu zen eta xuxurla erlats baina **zoli** batez hitz egiten zuen. Jose Morales

Harryren esaldiaren gainerakoa ezin izan zuen inork entzun, haren orkatila ingurutik etorri zen miau **zoli** eta zorrotz batek ito baitzuen. Iñaki Mendiguren

Soinu bitxi bat sortu zen, hain sarkor eta **zolia**, non gerlari askok belarriak estali zituzten minak eraginda. Joanes Urkixo

Gudu-irrintzi **zolia** eginez, etsaiei bulartsu aurre emanez. Elizen arteko biblia

Aretoko zarata gero eta biziagoa, urduriagoa eta **zoliagoa** zelako. Jose Morales

Marmar **zolia** eta ulertezina. Monika Etxebarria

Handik une batera, kanpai **zoli** bat hasi zen jotzen. Josu Zabaleta

Beraren aitzinean tronpeta **zoliak** jotzen dituzte. Xabier Kintana

**4** (adizlagun gisa)

Bizkarraren gainean etzanda zegoen, ahoa zabalik, eta ozen eta **zoli** egiten zuen zurrunga. Jose Morales

-Horixe! -esan zuen Pettigrewek **zoli**, bere esku moztuaz Hermione seinalatuz-. Iñaki Mendiguren

-Ahalmen ilunak ditu horrek, beste guztiok amestu baino ezin ditugunak! -oihu egin zuen **zoli** Pettigrewek-. Iñaki Mendiguren

Danbor hots ongi bereiziak, batzuetan **zoliago**, bestetan apalago, aldika geldituz. Josu Zabaleta

Gero eta gorago eta **zoliago** kantatzen segituko dute bi kontrarioek. Patziku Perurena

**5** (minaz eta kidekoez mintzatuz) ik **akutu**.

Min **zoli** batek sorbalda eta besoa hartu zizkion eta burura hedatu zitzaion, zorabiatu arte. Joanes Urkixo

Oisinek eskuak belarrietara eraman zituen, baina min **zoliaren** eraginez belauniko erori eta begiak zorabiatu egin zitzaizkion. Joanes Urkixo

**6** bizkorra, zalua.

Egoera berriak ez zuen eztitu, aitzitik baizik, galtzontziloen gaineko zalantza, baina nire erizaina atal horretako larruazalaren gainean haztaka hasi zenean, hatz **zoli** eta beratz horien ibileretan, ez bertze deusetan, kontzentratzera deliberatu nintzen. Aingeru Epaltza

Gure ama-amonek esku bizi **zoliak** zituzten, jostun eta sukaldari trebe ziren eskuok. Juan Garzia

Zein gailur dago gure oin **zolien** zain? Juan Luis Zabala

Soinu ikaragarri horiekin mosketeen tiro **zoliak** nahasi ziren. Karlos Zabala

Berehala iritsi zen zurea, besteetan baino **zoliago**. Xabier Mendiguren Elizegi

Adimen **zoliz** aztertu beharra daukagu zerez osatua den arimaren eta gogoaren izaera. Xabier Amuriza

Ulermen **zoliari** hitz gutxi. Lopez de Arana

Bistan da batzuk hain direla kolorgak, nola beste batzuk usain eta soinu gabeak, eta hala ere, gogo **zoliak** hauek ezagutzen ditu. Xabier Amuriza

Belarri fina eta arreta **zolia**. Xabier Amuriza

Maitasuna **zoliagoa** baita epelkeria edo gorrotoa baino. Markos Zapiain

Ez litzateke komenigarri izango ere, neure burua nabarmendu nahian, argudio **zoliak** are **zoliago** den jendeari azaltzen ibiltzea. Askoren artean

Animaliak nahiko ernea dirudi, **zolia**, mutiria. Oskar Arana

Alargun **zolia** berehala ohartu zen zer zen egiaz margolan hura. Oskar Arana

Musika eta balleta, arteak oro maite zituen neska **zolia**. Xabier Montoia

Frantziar aristokrata **zoliaren** *jeu d'esprit* politikoa arrazazko mito bihurtzen dutela germaniar neobarbarismo demoniakoaren igarleek. Iñaki Mendiguren

Irakurle **zoliak** ikusi beharko du, eta interpretatu. Iñaki Arranz

Badira ukipen errezeptore batzuk ukipen **zolien** estimuluak, hau da, laztan eztienak hartzen, bihurtzen eta bidaltzen espezializatuak. Luis Elberdin

**7** (adizlagun gisa)

Abasek, bizar labana harturik, **zoli** bezain arretatsu ekin zion adiskidearen garondo-lokiak konpontzeari. Patxi Zubizarreta

Aiko-maiko eta arrangurak **zoli** eta grinatsu harrotzen. Anjel Lertxundi

Barkatzeko bizkor, haserretzeko nagi, buruz zorrotz, oroimenez azkar, arrazoitzen **zoli**, aukera egiten zentzudun eta gauza guztietan tolesgabe. Askoren artean

Argitaletxe txiki bat zuen, Urdaibai inguruko gaiena, eta egunkaria **zoli** ibili zen. Iñigo Aranbarri

**8** ***begi-zoli*** *izond* begi zolia duena.

Zuhurra, ernea eta **begi-zolia**. Joan Mari Irigoien

Buru-argia eta **begi-zolia** zen, eta nik ezagutu ditudan pertsona adimendutsuetarik eta bereizienetarik zen. Joan Mari Irigoien

Urbiainerat heldu zen jigant hura, falkoina baino **begi-zoliagoa** zena eta. Joan Mari Irigoien

Politikari **begi-zoli** horietako bik edo hiruk, fisionomista onak izaki, larritasun zantzuren bat ikusi uste zuten beren gonbidatzailearen aurpegieran. Karlos Zabala

Gizonezkoak, emakumezkoak bezain **begi-zoli** ez izan arren, erraz konturatu ziren Khabul Khan Samarcandako printzea, eskuin hanka herrenka, hurbildu zitzaiola Brigida emakume pertxentari. Felipe Juaristi

**9** ***zoli-zoli*** *izond*

-Bai, noski -erantzun zion Hermionek, ahots **zoli-zoliaz**, burua altxatu ere egin gabe-. Iñaki Mendiguren

Etxandereak kontua erakutsi eutsanean [...] katanarrutik amaseiko gorri ederra aterata, mai gainean ots **zoli-zolia** eraginez: [...]. Anjel Lertxundi

Mutiko ahots bat bazuen, **zoli-zolia**, bere senarrarekin demandan ari zenean bi kilometrora ere entzun zitekeena. Josu Zabaleta

**Zoli-zolia** zen Nathanielen begirada, eta beste inork ikusi ezin duen harrigarrikeriaren baten lekukoa zela ematen zuen. Anjel Lertxundi

**10** (adizlagun gisa)

Andreas Pilniakek **zoli-zoli** begiratu zion Norari. Anjel Lertxundi

Denak ibili gara **zoli-zoli**, hainbestean bederen, inguru-mingurukoak diot, ekografoa izan ezik. Karlos Linazasoro

**hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**

**ahots zoli** (7); **begi zoli** (4); **begiak zoli** (5); **nota zoli** (5); **oihu zoli** (4); **zoli zoli** (3); **zoli zolia** (3)

**ahots zoliak** (3); **ahots zoliaz** (5); **ahots zoliz** (9); **baino zoliago** (3); **begi zolia** (9); **begi zoliak** (5); **begi zoliek** (3); **begi zolien** (3); **zoli zolia** (3); **zoliaz esan** (3)

---

# zolitasun *(orobat* ***zaulitasun*** *g.er.)* **1** *iz* zolia denaren nolakotasuna.

Galduak zituen begietako distira eta eskuen leuntasuna, galduak zituen begien **zolitasuna** eta eskuen biguntasuna. Felipe Juaristi

Aski ikusi duen baten begiak zituen, dirdira egiten zutenak adinak eta ikusitakoak ilundu gabeko **zolitasun** batez. Anjel Lertxundi

Haren hazpegi finek **zolitasuna**, osasuna, kemena erakusten zuten. Patxi Zubizarreta

Ziotenez, biolinaren arima zurezkoa izateagatik, omen zuen tresna txikiak halako **zolitasuna**, halako trinkotasuna, halako handitasuna. Felipe Juaristi

Hegelek arrazoimena "ontologizatu" egiten du: [...] adimena -gizabere kreatuaren **zolitasun** hori- errotik subjektibatu eta mugakortu egiten du. Askoren artean

Bere intuizioaren **zolitasuna**. Iñaki Mendiguren

Hauek, lehenik, gorputza eta gorputzaren ondasunak deritzegunak dira, hala nola, sasoi betea, zentzuen **zolitasuna**, indarrak, edertasuna eta beste zenbait gaitasun. Imanol Unzurrunzaga

Erritmoa markatzen dute hots errepikapen hauek, halako pisu berezia emanez hitz jarioaren **zolitasunari**. Iñaki Arranz

Hala, gora begira, ozenago entzun ahal izan zituen -itsu denari legokiokeen **zolitasunez**, alegia- behetik ailegatzen zitzaizkion hots metalezkoak. Pedro Alberdi

Pedro Handiak, jeinuaren **zolitasunaz**, mendebaldartze-politikak "dena ala ezer ez" izan behar zuela igarri zuen. Iñaki Mendiguren

Baina gizon oso jakintsuak direlarik, zorrozki eta **zolitasunez** bereizten dituzte arrazionala eta arrazoigarria. Imanol Unzurrunzaga

Mahomatarrek eta juduek [...] begirunea diote zerriari, ez baitzaie oharkabean pasatzen zerriaren ohituren fintasuna, lumajearen edertasuna eta ahotsaren **zolitasuna**. Xabier Olarra

**2** (izenondoekin)

Zentzumenen **zolitasun** gaizto bat pairatzen omen zuen; janari motelena besterik ezin zuen onez eraman; testura jakineko arropak baino ezin jantzi zitzakeen; lore guztien

usainak gertatzen zitzaizkion itogarri; argirik ahulenak ere eragozten zizkion begiak; [...]. Koro Navarro

Frantsesaren ikusmen aparatuak **zolitasun** aparta lortua zuen erabileraren poderioz. Karlos Zabala

Ezkerreko begiko begi-lausoa kendu zioten Virgili, eta eskuinaldekoaren antzeko erretina gelditu zen agerian, **zolitasun** ahulekoa. Xabier Olarra

Lau *u* nahikoa eta aski dira hitzari **zolitasun** berezia emateko: *burrunbunbun, drungun-drungun,* [...]. Iñaki Arranz

**Zolitasun** handiz lotzen zen bere lanera, bazekien-eta non zegoen aleman on batek pasatu behar ez zuen marra. Anjel Lertxundi

Asmoa entretenitzea bada ere, **zolitasun** psikologikoaren bidez eta inteligentziaz entretenitu behar du. Ana Urkiza

Eta animalien gizatasuna: zakur, otso, arratoi, tximinoak inteligentzia eta **zolitasun** handikoak dira. Berria - Kultura

**3** (hitz elkartuetan)

Iradokizunez beteriko **zolitasun** ariketa eder batean. Iñaki Arranz

Hau da Stanleyk logelen itxurari egindako ekarpen bakarra; eta ekarpen horrek aldatzen du guztia, eta ematen die inguru hitsei **zolitasun** eta arintasun ukitua. Oskar Arana

· Gizakian, ikusmen- **zolitasunaren** behe-muga 200 bat mikroitakoa da gutxi gorabehera. Berria - Gaiak

Garai honetan izan dute ingeniariek, lehen aldiz, gizakien eredu zehatz bat ontzeko adimen-**zolitasuna** eta dohain intelektuala. Irene Aldasoro

---

## **zolitu**, zoli(tu), zolitzen *(orobat **zaulitu** g.er.)* da/du *ad* zoli bihurtu.

Jimmyk entzumena **zolitu** zuen esaten ari zirena aditzeko. Lopez de Arana

Ni, berriz, bigarrena nintzen, eta, nola bigarren dena ez baita ikusia izaiteko baina ikusle izaiteko, hala egokitu zitzaidan hari beha eta mundu guztiari beha bizitzea, eta hala **zolitu** zitzaizkidan neurrigabeki begiak eta behakoa, baita belarriak eta entzutea ere. Joan Mari Irigoien

Taberna ilun zegoen, eta begiak **zolitu** behar izan zituen mezulari gazteak, bazter bateko mahai batean Tomeo Xaharra [...] ikusteko. Felipe Juaristi

Zaratarik atera gabe joan nintzen egongelaraino, belarria **zolitu** eta arnasestu ezagun batzuk aditu nituen. Juan Martin Elexpuru

Halletik zetozen oin-hots batzuek belarriak **zolitu** zizkioten; sarraila baten klika. Lopez de Arana

Neskak bidean aurrera jarraitu zuen, zentzuak erne, kirioak airean, urrats bakoitzean zerbait berri antzeman nahian, aurreratzen zutenei begirik kendu gabe eta belarriak atzealdeko zaratei **zolituz**. Patxi Zubizarreta

Azken hitzak ahotsa **zolituz** esan zituen, eta aurpegierara zabaldu zuen bere garraztasuna. Patxi Zubizarreta

-Esaiozu amari ondo nagoela, lau zartako eman dizkidatela aurpegian eta **zolitu** nautela, lasai egoteko. Jon Maia

---

## zolu ik **zoru**.

---

## zomait ik **zenbait**.

---

## **zomorro** 1 *iz* hainbat intsektu eta animalia txikiri ematzen zaien izena. ik**koko**[2].

Izan duen amesgaiztoan **zomorroz** josita ikusi du lorategia: larbak, beldarrak, kotxorroak, ehunzangoak, ipurtsardeak, armiarmak, kilkerrak, tximitxak, katu-bizarrak... Patxi Iturritegi

Lurreko estalki plastikoa altxatuz gero, era guztietako **zomorroak** mugitzen ziren azpian: inurriak, kukurutxak, ehunzangoak... Juan Kruz Igerabide

Aitor diat erlauntza narratsean laster nagusitzen direla harrak eta **zomorroak**. Anjel Lertxundi

Horren adibide garbia *Diabrotica virgifera virgifera* izeneko **zomorroa** litzateke. Berria - Gaiak

Lepoan zebilkion **zomorro** bat harrapatu, argiontzira hurbildu, eta azazkalen artean lehertu zuen. Jose Morales

Mandioa zuen alea gordetzeko, baina urtero gurgurioz, aleari erasotzen dion **zomorroz**, betetzen zitzaion, bere kaltetan. Askoren artean

Hosto zabalak **zomorroz** belzturik zeuden. Monika Etxebarria

Gorpuaren barruan zein eltxo, zein euli edo **zomorro** bizi den begiratzen du lehenbizi Damian Arrutik, eta horren arabera ateratzen ditu gero kontuak. Hasier Etxeberria

Bere musuzapian **zomorroak** biltzen zituen eta goroldio puska batean paratzen zituen leiho-erlaizaren gainean. Fernando Rey

Hirietan beti eskura daukagu intsektizida bat, eta mezu bakarra hau da: **zomorro** bat agertzen denean, akabatu. Pako Aristi

Gizakiak **zomorroak** akabatu egiten ditu; arkakusoak ere hala egiten ditugu guk [...]; eta zorriak, salbuespenik gabe, hil egiten ditugu edo genituen, orrazi estua pasata. Iñaki Segurola

Laboreak lurreko **zomorroetatik** babesteko erabiltzen den pestizida. Berria - Gaiak

Gero **zomorroentzako** pozoia jan eta bera ere hil egin zen. Gotzon Garate

**2** (izenondo eta izenlagunekin)

**Zomorro** txiki honek babarrunaren lekan -oraindik berdea eta txikia denean- jartzen ditu bere arrautzak. J.M. Olaizola "Txiliku"

**Zomorro** heldua jaiotzen denetik, ordu batzuetako bizitza besterik ez du izaten. J.M. Olaizola "Txiliku"

[Alzifreak eta pinuak] luze iraun dezakete hondatu gabe, zeren eta beren barruan daukaten ur hori zaporez mikatza izaten denez, bere mikaztasun horrekin ez baitu pipirik sartzen uzten eta ezta bestelako **zomorro** kaltegarririk ere. Santiago Iruretagoiena

- **Zomorro** likatsu nazkagarriak [bareak] -esan zuen. Koro Navarro

Oin azpian zapaltzeko adorerik gabe **zomorro** nazkagarri bat dakusanak sentitzen duen higuin-sentipen ezin azalduzko horrekin. Jose Morales

**Zomorro** madarikatu horiek berriro aurkitu diote azukre-ontzirako bidea. Patxi Iturritegi

**Zomorro** zapatariek soilik ximurtzen eta biziberritzen dute uraren azala, etengabeko dantzan. Hasier Etxeberria

Beste edozein orientaziok gurgurioa eta bestelako **zomorroak** sortzen ditu, alea hondatzen dutenak. Santiago Iruretagoiena

**3** (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

Villasilosen **zomorro** -izurrite batek mahastiak hondatu zituen. Askoren artean

Dutxatzera zoazenean, atzamarraren luzerako **zomorro** -samalda jaisten zaizu kortina lizunetik behera. Joxe Austin Arrieta

**Zomorro** olde baten antzera zeharkatu dute ibaia. Ez du inola ere zingiretako **zomorro** -genero horiek jaiotzen utziko. Agustin Otsoa

**4** (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa)

Nork esan behar zuen hainbeste denboran gutaz trufaka ibilitako "patata-**zomorro"** horrek gure eskuetan horrela erori behar zuenik? Joxemari Urteaga

Baina ziria dantzan hasi orduko, ugaltzen dituk hitz-**zomorroak**, eta gaiztotzen ditek lan egiten zuen guztia, eta perlesiak jota bezala gaixotzen dituk. Anjel Lertxundi

Ikusten dut zu ere liburu-**zomorroa** zarela, ni bezala. Irene Aldasoro

· Arto mota hori taladro **zomorroaren** aurkakoa da. Berria - Euskal Herria

**5** (izenondo gisa)

Modu nabarmenean batzuek, hala nola Nafarroako hainbat agintarik; modu **zomorroagoan** beste batzuek, zazpi probintzien euskaltasuna aintzat hartzen duen zernahi dokumentu manipulatuz. Bernardo Atxaga

Langintza **zomorro** horren adibide bat jartzearren -langintza nabarmenek ez dute azalpenik behar-, Pío Barojak Euskal Herriaz idatzitakoarekin gertatu dena ikusi besterik ez

dago. Bernardo Atxaga

Jadanik ohartuko zineten bezala, oso haur **zomorroa** nintzen ni. Alberto Ladron Arana

**6** (adizlagun gisa)

Astebete da senarra ez dela etxean agertu: hozkailu-kamioia kontu ilunetarako erabiltzen ari dela susmatzen du, ezkutuka eta **zomorro** dabilkio aspaldi, iheskor. Harkaitz Cano

**7** irud/hed

Ez alferrik ukan zenuela **zomorro** hura lapa baten antzera josirik zeure ahots-kordetako batean. Hasier Etxeberria

Giza itxuratik zipitzik ez duten **zomorro** batzuek ageri dira, saskibaloian jokatzen. Pako Aristi

Denbora librea hutsartea da, arte edo bitarte hutsa eta, beraz, hutsean aspertzen den hankabiko **zomorroarentzat**, baitezpada bete beharrekoa. Iñaki Segurola

Baina ez naiz ba ibiliko neu ere oharkabean, giza **zomorro** guztiak bezalaxe, etsigarri baten bila? Iñaki Segurola

Badaki, era berean, ametsa minaren **zomorro** itxurazkoa dela, min zaharraren **zomorroa**, denborak ukitu ezin eta heriotzara doana, panpina bat zaborrontzira bezala. Felipe Juaristi

Gizonek, normalean, ageriko tiraniaren aurka hormarik sendoenak jartzen dituzte, baina ez dute ikusten **zomorro** nimiñoa, poliki-poliki horma janez, ibai itotzaileari bide isila bezain segurua zabaltzen diona. Juan Martin Elexpuru

Higatu, gastatu, agortu egin zaizkit, askori bezala, ETAren ekintzak diseinatzen dituzten **zomorro** mozorrotuekiko epitetoak. Joxerra Garzia

Gero ni omen naiz **zomorroa**, dena barruan eta beretzat gordetzen duena. Xabier Mendiguren Elizegi

Ez nuen inoiz jakiten gehiegi ala gutxiegi hitz egiten nuen, batean pelma huts bestean **zomorro** uzkur suertatzeko beldurrez. Xabier Mendiguren Elizegi

Ni, nire **zomorro** famari jarraiki, bertan geratu nintzen. Xabier Mendiguren Elizegi

---

# zomorrohi *iz adkor* zomorroia.

Nik badaukat zer kontatua horretaz, izan ere, ni, hainbat kartzelaldi ezagutu dituen milizianoa, **zomorrohia** bainaiz, jaulier izandakoa. Koldo Izagirre

---

# zomorroi *iz adkor* poliziakidea.

Badatoz erizaina eta bi **zomorroi**. Koldo Izagirre

Pedro-surplus **zomorroia**, Trouscaillon trafiko-guardia, Bertin Poirée inspektorea eta Aroun Arachide infernuko printzea. Markos Zapiain

Herritarrak oihuka, **zomorroiak** zer egin ez zekitela, fiskala moztuta, eta epailea mailuka, ordena eta isiltasuna eskatuz... anabasa zoragarria sortu zen. Koldo Izagirre

Hemen nauk, bolantearen aitzinean, bertze ordu erdiz gidatzeko prest, **zomorroiek** geldiarazi eta alkoholimetroa ahoan sartuko didaten beldurrik gabe. Aingeru Epaltza

Zer egiten dudan hemen galdetuko lidake pozik **zomorroiak**, baina ezin du bere nagusiaren larderia mindu. Koldo Izagirre

Jende prestua bai, parkezainak, baina **zomorroi** horiekin ezin gune babestu honetan bainatzeko debekua hautsi. Aingeru Epaltza

Ibilgailuaren ate ondoko **zomorroi** metrailetadunak agur martziala egin zion, barnera sartzean. Aingeru Epaltza

Harekin, bertze gizaseme bat, uniformerik ez eraman arren, **zomorroi** kirats are nahastezinagoaz kutsatua. Aingeru Epaltza

---

# zomorroide *adkor* zomorroia.

Etzekiapá, etzekiapá, errepikatzen zuen, agian **zomorroide** horrek arazoak sor ditzake. Jon Alonso

Apo nazkagarri honek, zuen zapaten zola garbitzeko ere duin ez den **zomorroide**, perguta, afrusa, hankabiko arrunt honek erabaki du, orain arte esandakoaren kalterik gabe, Euskalgintza Orokorraren Batzar Nagusiak (EOBN) era orokorrez, eta Arantzazuko fraideek partikularzki emandako agindua betetzea. Jon Alonso

**Zomorroide** hura marikoia zela pentsatzera iritsi nintzen. Jon Alonso

---

# zomorrotegi *iz* zomorroak dauden tokia.

Honi txiri eta hari txiri, abilki pasatu zen **zomorrotegi** baten gisako mundu ñimiño haren artetik, Dublingo noblezia zaharra iji eta aja ibili zen jauretxe soil espektralen itzalean. Irene Aldasoro

---

# zomorrotxo **1** *iz* zomorro txikia.

Arkakusoren bat edo **zomorrotxoren** bat ikusi ahala, atzaparrekin atzeman eta ahora. Gotzon Garate

Entzun dudanez, orain ere Euskal Herriko zenbait ikastetxetan noizbehinka agertzen omen dira **zomorrotxo** baldartxo horiek. Gotzon Garate

**2** irud/hed

Dagoeneko umea deitzen ari zaio, oraindik alabaren umetokian dagoen **zomorrotxo** bat baino ez delarik. Oskar Arana

---

# zomorrozale *izond* zomorroen zalea dena.

Eta, nola bera umetan **zomorrozale** itsua izan baitzen, tximeleta, kilker eta intsektu guztien atzetik ibiltzen zena han sorterrian, Lleidako herrixka batean, bilduma hari ekin zion. Joan Mari Irigoien

---

# zomorroztua

Pozik dagoela iruditu zait, erizaina izanen zen gaztetan, edo izugile bat da, **zomorroztua**. Koldo Izagirre

---

# zona[1] **1** *iz* aldea, gunea, eremua. ik **zonalde**.

Bisitariek bigarren gunetik jaitsi beharko dute eta beheko solairuan inork orain arte ikusi ez duen **zona** dago. Berria - Kultura

Francoren armadan zegoen lagun batek esan zion nahi bazuen pasa zezakeela fronteaz bestaldera, okupatu gabe zegoen **zonara**. Nîmes inguruan arkeologiari buruzko [museo] bat dago, dendak, umeentzako jolastokiak, pic-nic egiteko **zonak**, zinematxoren bat ere bai, inortxok ere ezagutzen ez zaituen lekuak. Ondo gogoan du Juanek zergatik ez duen aspaldidik bisitatu **zona** hori; zergatik baztertu zuen, hasiera-hasieratik, bere ibilbideetatik: herri horretan etxe bat zuen Isabelen familiak. Mikel Hernandez Abaitua

-Behingoagatik -proposatu dizue Txok- **Zonako** Batzordeak erabiltzen duen pisuan bil gaitezkek. Rafa Egiguren

**Zonako** arduradunak ez du zugan erreparatu behar; ikusezina izan behar duzu harentzat, gainontzeko bezero guztiak bezala, hain juxtu. Iban Zaldua

Alderdi politikoei eskaera egingo diete, Osakidetzari **zonako** ikerlan epidemiologikoa egin dezala eskatzeko. Berria - Euskal Herria

Jurisdikzio horretatik kanpo kokatutako **zonetan**. Itziar Eizagirre / Amaia Lizarralde

Autoaren zama arindu egin dute zentrotik urrunen dauden **zonetan**. Berria - Kirola

Ziur dago aspaldidanik jorratzen duen **zonatik** urrutiratuko balitz ere, jende bertsua aurkituko lukeela. Iban Zaldua

Kanpoko lerrotik saskipera eta **zonaren** bi aldeetara eraman zuten baloia, aukera onenaren bila. Berria - Kirola

Daviden, Scolaren eta Spliterren arteko bi biren aurkako erasoak eta **zona** barneko pase jokoak arazorik gabe zulatu baitzuten bilbotarren buruz buruko defentsa. Berria - Kirola

**2** (izenondo eta izenlagunekin)

35 metro koadroko pisu txiki batean bizi da, Country Club **zona** aberatsaren atzean. Pako Aristi

**Zona** urbanizatuetan ere txakurrak sudurra erabiltzen du bide beretik beraren zein kide igaro den jakiteko. Irene Aldasoro

Aukera eman beharko litzateke **zona** ez euskalduneko ikastetxe publikoetan euskaraz ikasteko, **zona** mistoan eta **zona** euskaldunean egiten den bezala. Berria - Euskal Herria

Gainazalaren erdigunean ere beste zati bat, txikiagoa, halaxe arraiatuta ageri zen, eta ezker-eskuin marra horizontal banak alboetako **zona** marratuekin lotzen zuten. Iñaki Iñurrieta

**Zona** neutraltzat hartu ohi dira entrenamendu-eremuak. Iban Zaldua

**Zona** fotopikoa. Josu Zabaleta

Bien erdian zeharka eta hegoaldera inklinatuta **zona** zirkular bat zabaltzen da hamabi zeinuekin irudikatuta. Santiago Iruretagoiena

Oso kontuz ibili behar dela eguraldiaren **zonarik** egokienak aukeratzerakoan. Santiago Iruretagoiena

Erdiko **zona** horretatik hegoaldera eginez gero, herriak ahots-tonu zorrotzagoarekin azalduko zaizkigu. Santiago Iruretagoiena

Gure ustez, auzo honek babes bereziko **zona** izan beharko luke. Berria - Euskal Herria

Humboldt Unibertsitate historikoa **zona** sobietarrean zegoen. Joxe Azurmendi

**Zona** Nazionalera ihes egin nahi zutenen hori dena berak idatzi zian. Edorta Jimenez

**3** (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

Euskara Kultur Elkargoko kideek ere garrantzi berezia eman zioten Pegenauterekin izan zen hizkuntza politika aldaketari, eta Nafarroako **zona** banaketa nabarmendu zuten. Berria - Euskal Herria

**4** (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa)

Eraikinaren hegoaldean kokatuta dago indusketa **zona**. Berria - Kultura

Hitachi teknologia handiko produktuak ekoizten dituen etxeak 91 kilo erregai nuklear ditu gordeta Kawasakiko bizitoki **zona** batean (Tokio hegoaldea, Japonia), enpresak berak onartu duenez. Berria - Gaiak

Ustekabeko ostikada batek korridoreko eragin-**zonetan** arratoiek zuten kokagunea erraz alda baitzezakeen. Iban Zaldua

Dokumentuak dio eskualdean bi azpi-**zona** daudela: kostaldea (Zarautz, Zumaia eta Orio) eta barrualdea (Azpeitia, Azkoitia eta abar). Berria - Harian

---

## **zona**[2] *iz* zoster herpesa.

Bata bestearen ondotik, anthrax bat ukan nuen, eta gero **zona** bat, berriz ere ospitalera eraman baininduten. Marzel Etxehandi

**Zona** batentzat ospitalean onartu ninduten, sukar handiarekin. Marzel Etxehandi

---

## **zonaka** *adlag* zonen arabera.

**Zonaka** jokatuta. Berria - Harian

Azken egunetako operazioari erreparatuta, banda hauek **zonaka** aritzen direla ondoriozta daitekeela uste du.Azken egunetako operazioari erreparatuta, banda hauek **zonaka** aritzen direla ondoriozta daitekeela uste du Berria - Harian

---

## **zonalde** 1 *iz* zona.

Al Anbar eskualde sunitako hainbat **zonaldetan**. Berria - Harian

Baliabideak lortu ditugu eta Zaramagako **zonalde** hori itxuraldatu dugu. Berria - Ekonomia

Santurtziko superportua edo Arabako zenbait **zonalde**. Berria - Ekonomia

Nafarroako Gobernuak ere begi onez ikusi du Larrako eski estazioaren proiektua, bere iritziz, **zonalde** hori suspertuko lukeelako. Berria - Euskal Herria

Globalizazioak sortu ditu iritsi den lekuetan bai pobrezia eta bai desberdintasuna; eta gaitz berberak sortzen ditu iristen ez den lekuetan eta marginalizatuta uzten dituen **zonaldeetan**. Iñaki Heras

Hamar minututan gaude *Village*-ean, *Talking Heads,* Bruce Springsteen, Woody Allen eta beste askok beren lehen boloak egin zituzten taberna eta musika aretoen **zonaldean**. Harkaitz Cano

Ameriketako Estatu Batuek ere **zonaldean** zituzten bi ontzi bidali zituzten kostaldera. Berria - Mundua

**Zonaldearen** hondo-miatze sakon zehatza egin ostean, sorospen zerbitzukoek txostena idatzi zuten, inor bizirik ez zela atera zioena. Aritz Gorrotxategi

Hortaz, ikerketa zuhurra egin zuen Mendi aldean eta **zonalde** hartako hainbat etxe bisitatu zituen. Bego Montorio

91.8, 95.5, 106.6, 90.5 eta 105.7 frekuentzietan, **zonaldeen** arabera. Berria - Kirola

Salbamendu lanetan laguntzeko 120 zibil bidaliko ditu **zonaldera**. Berria - Harian

Belaunean, izotzarekin, hotza aplikatu eta belauneko bat jarriko diote, beti ere, apurtu duen **zonalde** hori erabat geldi izan dezan. Berria - Kirola

**2** (izenondo eta izenlagunekin)

Alde Zaharra **zonalde** historikoa da. Berria - Harian

**Zonalde** ez euskaldunean **zonalde** mistoko eredua aplikatzea, betei ere, eskaera dagoen tokietan. Berria - Euskal Herria

Herriak ez du **zonalde** industrialik. Berria - Euskal Herria

Iberiako Penintsulako **zonalde** lehorretan. Berria - Gaiak

**Zonalde** handi batean errusieraz hitz egiten da eta lotura handia dago betidanik bi herrialdeen artean. Berria - Mundua

**Zonalde** kaltetuenak ikusi nahi zituen. Berria - Harian

Tennessee-ko mendebaldean dagoen **zonalde** apartatu batean. Berria - Kultura

Munduko **zonalde** turistikoena zen Phuket, iaz hamar milioi pertsonek bisitatu zuten herrialdea. Berria - Harian

Hiriko **zonalderik** garestienean (Kontxan). Berria - Euskal Herria

Antzinako herri hura Arkizeko muino harritsuaren **zonalde** estrategikora mugatu zela uste zuten ikertzaileek. Berria - Harian

Etxeak baloratu egin behar dira, eta, era horretara, Gasteizko iparraldea pribilegiozko **zonalde** bihurtuko da. Berria - Euskal Herria

Ezkerraldea «urtetan zigortutako **zonaldea** izanik», gizartearen babesa aldarrikatu zuen. Berria - Ekonomia

Lehen ministroa kaltetutako **zonaldeetan** izan zen igandean eta lehentasuna heriotzak saihestea dela adierazi zuen. Berria - Mundua

**3** •

Landa **zonaldeetan** lau kontsultategi eraikitzeko asmoa du Osasun Sailak. Berria - Euskal Herria

Merkataritza ganberak industri **zonalde** batzuk sortu nahi ditu Itsasu eta Hazparne inguruetan, kostaldearen eta barnealdearen artean bide erditan. Berria - Ekonomia

Georgia eta Hego Osetiako agintariek gatazka **zonaldea** desmilitartzea adostu zuten atzo. Berria - Mundua

Leihoak hautsita daude, gerra **zonaldea** dela dio. Berria - Harian

**4** irud/hed

Busoni italiarraren pianorako kontzertuak ezaugarri finko batzuk ditu, bere egilearen hezurdura agerian utziz: harmonia betea, batez ere **zonalde** grabeetan, eta indar handiko akorde garatuak. Berria - Kultura

---

**zonaldeka** *adlag* zonaka.

Hemendik aitzina laguntzak ez dira **zonaldeka** banatuko, baizik eta proiektuka. Berria - Euskal Herria

---

zonbait ik **zenbait**.

---

zonbaitzu ik **zenbaitzu**.

---

zonbaki ik **zenbaki**.

---

zonbat ik **zenbat**.

---

zonbatgarren ik **zenbatgarren**.

---

zonbeit ik **zenbait**.

---

zonbeitzu ik **zenbaitzu**.

---

**zonbi** *(orobat* ***zoombie*** *g.er.)* **1** *iz* erritu magiko baten bidez biziarazi den gorpua, berezko borondaterik ez duena.

Hildakoak ateratzen dira etengabe paseatzera, **zonbien** film horietako batean bageunde bezala. Xabier Mendiguren Elizegi

Inguru ezin bukolikoago batean **zonbi** berde bat sortzen da belarretatik, eta infernuko gaitz guztiak dakarzkio Euskal Aberriari. Joxean Sagaztizabal

Haientzat **zonbi** bat izan naiteke. Piarres Aintziart

Bi **zonbien** eran goaz fabrikarantz Prusiarra eta biok. Harkaitz Cano

**Zonbi** batek bezala hitz egiten du. Oskar Arana

**Zonbi** baten ibilerarekin konparatu ditut lehenxeago Itsasondon egiten nituen joan-etorriak. Xabier Mendiguren Elizegi

**Zonbi** bat ere ohartuko zen neska anorexiko bat bi kilo mehatuta baino pozago zebilela Eskalatzailearen zuloan nagusi. Aingeru Epaltza

**2** (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

Alaznek **zonbi** begirada bat zuzendu zion. Fernando Morillo

Bat-batean, **zonbi** aldra batek inguraturik ikusi zuen bere burua. Xabier Montoia

Zertarako eta **«zonbi**-artea» erreibindikatzeko, gerra guztietan hildakoen gainean pentsatzeko, bakearen eta justiziaren alde hildakoen gerra oihu egiteko. Berria - Kultura

**3** (adizlagun gisa)

Pixka bat **zonbi**, desoroimenean bezainbat errepikapenean galduxe. Jose Angel Irigaray

**4** irud/hed

Ni haien artean ibili ohi zen izaki arrotz bat, inorekin hitz egiten ez nuenez ikusezina-edo sentitzen nintzena, **zonbi** ikusezin eta lotsati bat. Xabier Mendiguren Elizegi

Orduan beteko da **zonbi** zaharrez, banpiro putazalez eta gainontzeko hiri-hondakin ustelez, galegoen klanak firri-farra darabilen mandangaren usainera denak, eulia goxora bezala. Patxi Iturritegi

---

**zonifikazio** *iz* zonetan banatzea.

Euskararen Legeak ezartzen duen **zonifikazioari** buruzko txostena da Behatokiak Estrasburgora bidalitakoa, **«zonifikazioa** delako hizkuntza eskubideen urraketaren iturri nagusietako bat». Berria - Euskal Herria

Behatokiak, hain zuzen ere, **zonifikazioa** ezabatzeko eskatu du bere txostenean. Berria - Euskal Herria

---

**zono** *iz ipar*

Hauek ere ez dira kantari txarrak nahiz **zonoak** ez dituen lagundu... Herria

**Zonoa** Ernest Hirigoyenen esku utzi dugu eta argiak Roger Hirigoyenen ardurapean. Herria

---

**zoo**[1] **1** *iz* parke zoologikoa.

Central Park-etik pasatu nintzen bakoitzean, umeak ikusi nituen bertako izotz pista, **zoo**, zaldiko-maldiko, museo, beisbol zelaitxo eta gainerako gune guztietan. Bernardo Atxaga

**Zoo** batean ikusgai zegoela amets egin zuen, bere kaiolari atxikia "Adin txikiko aztia" esaten zuen kartel batekin. Iñaki Mendiguren

**Zoo** ikaragarria da, ehunka animali motaz betea. Xabier Montoia

Larunbat eguzkitsua zen eta **zooa** familiez beteta zegoen. Iñaki Mendiguren

**Zoora** joan beharko genuke, gorilak ikusteko gogoa daukat. Lourdes Oñederra

**Zooetako** abereak kaiolan bezala mugitzen ginen etxean, bakoitzak bere eremuak gordeaz, bakoitza bere bakardadearen zelatan, atezuan. Joxean Agirre

Baita ardien ile-moztaileek eta basabereen parke eta **zooetako** arduradunek ere. Xabier Olarra

Bronxeko **zooko** tigre batek ihes egin zuela. Patxi Zubizarreta

**Zooko** zuzendariak berak egin zion te sendo eta gozoa izeba Petuniari. Iñaki Mendiguren

**Zooko** jatetxean bazkaldu zuten. Iñaki Mendiguren

Washington D. C.-ko **Zoo** Nazionala. Fernando Morillo

**2** (hitz elkartuetan)

Barodako **zoo**-zaintzaile batek oharkabe tigreen eta lehoien arteko atea zabalik utzi zuen. Gotzon Garate

· Beste batzuek, dodoa baino zorion gehiago edo gutxiagokoek, batere nabarmendu gabeko bizitza eraman zuten, antropologoen interesgai bihurtuta, giza **"zoo"** edo erreserbetan. Iñaki Mendiguren

Iruditzen zitzaidan haurtzaindegi-**zoo** moduko batera joaten nintzela, non bi mila neska-mutil nerabe giltzaperatzen diren goizetik arratsaldera. Jesus Mari Mendizabal

**3** irud/hed

-Taberna **zoo** txiki bat da, eta begiraleku aparta, gizakiaren jokabideak aztertzeko -esan zidan behin batean-. Joan Mari Irigoien

---

## zoo[2] *izond* zoofiloa.

Homo, hetero, sado, maso, **zoo**... Jon Arretxe

---

## zooantropismo *iz*

**Zooantropismoa**, hau da, gizakiok baldintza berezietan animalien itxura -eta izaera- har dezakegun ustea, unibertsala da. Martin Anso

Likantropia **zooantropismo** mota bat da. Martin Anso

---

## zoofilia *iz* abereekin sexu harremanak dituen pertsonaren jokabidea.

Gero, ordu txikietako sukarrean, Dodoven eldarnio esanezinak, **zoofilia** eta guzti, eta gure kanpaiak desorduzko errepikan, gozo eta zut, urrikalgarri. Karlos Linazasoro

Gogora ekarri Genna kantariaren atxiloketa **zoofilia** eta kanibalismo akusaziopean, eta Glen bateria-jolearen heriotza misteriotsu eta sekula ez aski argitua sexu orgia baten hondarrean. Patxi Iturritegi

---

## zoofilo *iz* zoofilia praktikatzen duen pertsona.

Txakurrak, ordea, **zoofiloen** artean arruntena izanda ere, ez nau inoiz erakarri. Karlos Zabala

Modu bitxian eutsi zion egoerari, **«zoofiloak** baldin badaude zuhaitzfiloak ere bai» esanez bukatu zuen saioa. Berria - Kultura

---

## zoofito *iz* landare itxura zuen animalia.

**Zoofitoak** eta moluskuak igerian eta ur-azalean daude, uhinen gardenean garden. Koldo Izagirre

---

## zoologia 1 *iz* natur zientzien adarra, helburutzat animalien azterketa duena.

*Cocuyo* da, **zoologian**, *Pyrophorus* generoko koleoptero elateridoen hainbat espezieri ematen zaien izena. Jon Alonso

**Zoologian** arrak eta emeak daude, baina ez dago espeziearen tipo idealik. Isabel Arrigain

Gehiago dakizu botanikaz **zoologiaz** baino. Berria - Kultura

**Zoologia** ikastean ustekabe franko hartzen dira. Xabier Olarra

Gobineau edo Chamberlain arrazista biologikoak direna, ez da dudatzen; baina arraza ariarra goratzeko haien arrazoi guztiak moralak eta kulturalak dira: izan ere, "historia" egiten dute, ez **zoologia**. Joxe Azurmendi

Autista den arren, **zoologiako** lizentziadun da, Colorado Estatuko Unibertsitateko irakasle eta bere negozioaren jabe. Xabier Olarra

**2** (hitz elkartuetan)

Peter Holland Oxfordgo Unibertsitateko **Zoologia** Departamenduko zuzendariordea da. Berria - Gaiak

Cambridgeko Unibertsitateko **Zoologia** Saileko aditu Derek Smithek. Berria - Gaiak

Elena Urdaneta Nafarroako Unibertsitate Publikoko **Zoologia** irakaslea da. Berria - Gaiak

David Gubbek (Londres, 1952) Erresuma Batuan burutu zituen **Zoologia** ikasketak, Oxford eta Bristolgo unibertsitateetan. Berria - Gaiak

**Zoologia**-irakasleak, hala ere, ea mintegi bat emango nukeen ikasleentzat. Juan Garzia

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
> zoologia irakaslea (4)

---

## zoologiazale *izond* zoologiaren zalea dena.

Medikuntzako estudiante **zoologiazale** tzar batzuen jokutria. Aurelia Arkotxa

---

## zoologiko 1 *izond* zoologiarena, zoologiari dagokiona.

Harrixka pila bat eta espezie **zoologiko** ugari bilduko dira. Joseba Sarrionandia

Erretzaileok gero eta piztia bakartiagoak bilakatzen ari gara azken bolada honetan, galtzeko zorian dagoen espeziea, bitxikeria **zoologikoa**. Patxi Iturritegi

-Siberiako hartza -erantsi zuen mister Brownek, irudi **zoologikoekin** segitzen baitzuen, orduantxe besteak zertaz ari ziren hizketan jakin gabe. Anton Garikano

**2** *iz* parke zoologikoa. ik **zoo[1]**.

Aurki, Buenos Aires-ko **Zoologikoan** edo Natura Historiaren Museoan ikusi ahal izango dugu soilik *tigrillo*-a. Iban Zaldua

**Zoologikoan** tximinoak kaioletan bizi direla, taldeka banatuak, eta gizakion oso antzekoak direla, bai itxura bai usadio txarretan. Patxi Zubizarreta

**Zoologiko** batera joaten garenean, beti ikusiko dugu jende andana primateen lekuan, haiei begira. Luis Elberdin

Jan eguerdian etorriko da, babesgabeoi ordu erdiko bisita bat egitera, **zoologikoko** zaintzailearen eginkizuna egitera. Josu Zabaleta

Badaki gorilek hunkitu egiten zaituztela eta **zoologikoetakoek** tristetu egiten zaituztela. Lourdes Oñederra

Nire lehenengo afaria Lisboan taberna ziztrin batean da, **Zoologikotik** hur. Edorta Jimenez

**Zoologikoaren** sarrera kale nagusira jarri zuten, hormak berrituz eta farolekin argituz. Pako Aristi

**Zoologiko** honetan hasi zen lanean Istillaga. Pako Aristi

**3** (hitz elkartuetan)

Inongo aukerarik gabe oihan libretik **zoologiko** zoko batera igorri nahi izan zuen Asegarcek nafarra. Berria - Kirola

**4** ***parke zoologiko*** animalia exotikoak gordetzen eta erakusten diren lekua.

Frantziako haurrek tximinoak **parke zoologikoan** ikusteko. Berria - Harian

Adituek ohartarazi dute espezieen geroa zaintzea ez dagoela **parke zoologikoen** eta bioteknologiaren esku soilik. Berria - Harian

Nahiago luke **parke zoologikoko** zaindaria balitz. Lopez de Arana

Egungo autopista-gune garrantzitsu baten inguruan geratu delarik, **parke zoologikoak** berak iragan denboretako animalia espezie desagertu bateko alea dirudi. Edorta Jimenez

---

## zoologo *iz* zoologian aditua den pertsona.

Zeren animalia basatiek, nire txikitako bizipenengatik-edo, inpresio handia egin izan baitidate; hainbestekoa non nire buruak izaki mitiko gisa ikusten dituen, **zoologo** batek ez bezala. Bernardo Atxaga

**Zoologoentzat** *Carcharodon carcharias* izeneko espezieak duela 20 milioi urte geratu zuen bere eboluzioa. Berria - Kultura

«Inoiz ikusi dudan arrainik bitxienetarikoa da», eman du aditzera Ralf Britz **zoologoak** aurkikuntza berriaren aurrean. Berria - Gaiak

Ortega bezala, Baroja ere ez da biologo edo **zoologo** bat. Joxe Azurmendi

Zenbait gizonezko **zoologo** eta anatomista saiatu dira emakumearen sexualitatea ukatzen eta klitoria zakil barregarritzat jotzen. Luis Elberdin

Antzinako **zoologo** askok lehenagoko bakartasun egoeran bereganatutako otzantasun hondarren batzuk aitortzen dizkiote. Xabier Olarra

---

## zoom **1** *iz* foko distantzia aldakorra duen objektiboa.

Filmatzeko **zoom** -a (fokala aldatuz joan daitekeen objektiboa) azaldu zenean, esate baterako, travellingaren ordez **zoom** hori erabiltzea oso teknika zabaldua izan zen (horregatik deitu izan da askotan **zoom** -a "travelling optiko"). Josu Zabaleta

Bigarren argazkia egiteko, hurbildu egin du irudia **zoomarekin** . Imanol Zurutuza

**2** (hitz elkartuetan)

Efektu berri bat lortzeko ere erabili zen, **"zoom** kolpea" egiteko; efektu horrek ez zuen beste ezeren lekurik betetzen, ordea; forma filmiko berria zen guztiz. Josu Zabaleta

Eusteko pasabidean, hainbat ikuspegi eta distantziatatik bisualizatzen dut animalia, **zoom** bidez hurbildu edo aldentzen dut. Xabier Olarra

---

## zoombie ik **zonbi**.

---

## zoomorfo *izond* animalia forma duena.

irudi antropomorfoak zein **zoomorfoak** . Berria - Harian

Gehienek irudi **zoomorfoa** zuten ezaugarri, eta honek totemismo afrikarraren kutsu zaharra gorde lezake. Patziku Perurena

---

## zooplankton *iz* animalia-organismoz soilik osaturiko planktona.

Inguru horretako fitoplanktona eta **zooplanktona** landare eta animalia ñimiñoak desagertzen ari da. Berria - Gaiak

Ur lasterrekin mugitzen den **zooplanktonarekin** batera, mikrobioak dira erronka nagusia. Berria - Gaiak

---

## zootropo *iz* irudiz hornituriko zilindro batek osaturiko tresna, biratzean irudiok mugitzen direlako ilusio optikoa sortzen duena.

Bostonen modan zeuden **zootropo** haien aurrean biltzen zen jendea gogorarazi zion Noraren jarrerak Andreasi. Anjel Lertxundi

Nathanielek bazuen **zootropoen** entzutea, eta, buruko nahasmena uxatze aldera, bost zentabo ordaindurik, zigarro-keaz beteriko lokal txiki-txiki batera sartu zen. Anjel Lertxundi

-Ikustak, ikustak ostera **zootropoa** . sosak behar ditiat nire **zootropoa** hobetzeko. Anjel Lertxundi

---

## zopa *(orobat **sopa** g.er.)* **1** *iz* ogi puskak edo jaki zatiak egosi diren salda.

Afaltzeko **zopa** izaten da, aparte, bera bakarrik. Gotzon Garate

Berak banatu digu **zopa** , kirten luzeko eta onil itxurako burruntzali xelebre batekin. Urtzi Urrutikoetxea

Amak sutatik baztertu zuen **zoparen** ontzia. Berria - Kultura

**Zopa** egiteko hezurrak ere bai, oihal heze batekin estalitako pertz batean. Oskar Arana

**Zopa** bazka-erremolatxa eta arbi-azaz egina zen egun hartan. Urtzi Urrutikoetxea

**Zopari** eragin, haragiari begiratu. Josu Zabaleta

Esnegain garratzezko **zopa** bat prestarazi zion Freideli. Koro Navarro

**Zopa** geldiro egosten ari zen eltzean jarri zuten arrautza. Josu Zabaleta

Sartu-irten bat eginez noizean behin oilategian, **zopari** botako zion oiloa hautatzeko. Jose Morales

Berogailuan, antoxin urdinean, **zopa** berotzen jarri nuen. Fernando Rey

- **Zopa** hozten ari zaizu. Koro Navarro

**Zopa** hartzen ikusten zuen bitartean. Anton Garikano

-Jan ezazu **zopa** . Koro Navarro

-Zu neska ona zara -esan zuen **zopa** bukatzean-. Lopez de Arana

Baina zergatik ez zuen Augustus zaharrak beste platerkada **zopa** eskatu behar? Anton Garikano

Gerra -eransten zuen Asensiok, **koilara** zopetan sartuz-, ez da batere gauza ona. Koro Navarro

**Zopa** eta saldak, haragi beratuak, saltsak, arrain xerratu. Edorta Agirre
**Zopa** eta bi patata zen bazkari guztia. Josu Zabaleta
**Zopa** beroa egongo da laster! Urtzi Urrutikoetxea

**2** (izenondo eta izenlagunekin)

Ogi puska bat gehiago edo **zopa** urtsuaren errazio bikoitza lortzeko. Koro Navarro
Hiru litro odol-plasmatan disolbaturiko kilo bat proteinak **zopa** lodi baten sendotasuna emango lioke odolari. Irene Aldasoro
Natalinak azkenean **zopa** mehe bat prestatzen zidan. Fernando Rey
Ez dago tomate-**zopa** beroa bezalakorik gau hotzetarako. Mirentxu Larrañaga
Entsalada xume bat, **zopa** hotza eta purez lagunduriko txerriki xerratxo bat izan da agintariek eskaini diguten oturuntza. Edorta Jimenez
Bazkaritako **zopa** trinkoan okela izpi gorriak topa daitezke. Urtzi Urrutikoetxea
Antxoa gustuko olibak, oilasko zaporedun **zopa** begetariano hutsak. Edorta Agirre
Antoniorekin **zopa** ederra afaldu nuen iluntzeko lanak bukatu ostean. Aitor Arana
Juliana **zopa** egiteko barazki freskoak ere bazituen prestaturik. Karlos Zabala

**3** (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

Etxekoandrea bere **zopa**-katiluaren aurrean eseri zen. Jose Morales
Isil-isilik, bere ezpain-zapia zabaldu zuen, tolesturarik gabe uzteraino, eta **zopa**-koilarari oratu zion. Mirentxu Larrañaga
Geraldek **zopa**-plateraren hondoari begiratu zion. Mirentxu Larrañaga
Pertzen txilin-hotsa eta **zopa**-ekarleen oihu arruntak. Urtzi Urrutikoetxea
**Zopa** banaketan ere, aurrean baino, hobe dela atzean kokatzea. Urtzi Urrutikoetxea
Biak, zurezko aulkitxoetan eseririk, **zopa**-salda beratzen hasi ziren. Josu Zabaleta
Eta gogoan izan, Honorina, beti izango duzula **zopa**-kondarren bat etxe honetan. Itziar Otegi

**4** (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa)

Fideo-**zopa** bat, xerra bat, fruta bat. Rafa Egiguren
Batean baratzuri-**zopa** prestatuko diagu ordu txikietan, bestean txokolate-jana. Xabier Mendiguren Elizegi
Arroz-**zopa** bat hartu genuen, eta erosketak egin genituen. Juan Kruz Igerabide
Buchenwalden gerta daiteke gosaltzeko ogi-**zopa** beroa edukitzea ezustean. Urtzi Urrutikoetxea
*ik beherago* 8. Askoren artean
Kandelaria egunez ilar **zopa**, zerriaren saihetsezur ketan belztuz gozatuta jaten zuten. Pello Zabala
Eguna amaitzeko, txahalki-puska hotz bat eta litro erdi aza-**zopa** mikatz zerbitzatu zizkioten. Jose Morales
Usain garratz hari urrundik igarri nion, zalantza barik, arbi-**zopa** zela. Urtzi Urrutikoetxea
Handik aurrera gure jateko bakarra babarrun **zopa** zen. Pello Lizarralde
Aratseko 9etan hasiko da afaria: arrain **zopa**, legatza saltsa, txuleta, deserta, kafea, kopa eta... purua. Herria
Eskatu kuia **zopa** -esan zigun Tomasek-. Bernardo Atxaga
-Semola **zopa** nahi al du? -galdetu zuen amak jaten hasi ginenean. Matías Múgica
Babarrun pinto edo zurizko **zopa**, patata **zopa**, juliana **zopa** sobretan, oilasko **zopa** sobretan, edo babarrun pintozko **zopa** sobretan. Josu Zabaleta

**5** (neurriekin)

Bi koilarakada **zopa**, eta okela puska gogor beltz bana. Josu Zabaleta
Izeba Petuniaren eskua agertu zen, katilukada bat **zopa** (potekoa) gelara sartzen. Iñaki Mendiguren
Gero, ohiko plater **zoparekin** ondu zuen eskastasun hau. Jon Alonso
Nor bere plater-**zopan** murgildu zen. Mirentxu Larrañaga
Nik aski dut platerkada bat **zopa** eta tabakoa. Fernando Rey
Platerkada **zopa**, laranja eta baso bat ardo, kafea bukatzeko. Jon Alonso
Sutan jartzen du eltzekada **zopa** handi bat, beti berdina. Jon Alonso
Afaritan, burua astindu zuen Sun-hartzak, ikusirik mahai gainean hiru platerkada pasta-**zopa**, zorrotxokoa. Juan Kruz Igerabide

**6** irud/hed

Ezagunenak letra **zopak** eta hitz gurutzatuak dira, baina aukera askoz zabalagoa da: hitz gezidunak, pasarte kodetuak, silaba **zopak**... Iñaki Arranz
«Letra **zopa**» izendatu zuen Galeusca koalizioa. Berria - Euskal Herria

**7** salda edo kidekora botatzen den ogi puska.*pl*

Ogi zatiak ere bazeudela, **zopak** egiteko. Unai Elorriaga
-Ez da **zopak** egiten hasteko ordua! Unai Iturriaga
Lehen lau egunetan **zopak** baino ez zizkion urdailak onartzen. Harkaitz Cano
Gaixoak, berriz, oso pozik dagoela esan du, bederatzi urte **zopak** jaten egon ostean, gustuko dituen gauza asko jatea izango duelako aurrerantzean. Berria - Gaiak
Batak **zopak** jaten agertarazten dit aitona Joxemari, bere hortz bakar harekin **zopak** poliki eta astiro mamurtzen, hausnartzen. Xabier Mendiguren Elizegi

**8** (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa)

Ogi-**zopak** esne beroarekin jateko. Elena Touyarou
Esne berotan ogi-**zopak** egindakoan, konturatu zen bizitza guztian ez zuela halako goserik izan. Anton Garikano
Esne-**zopak**, edo galletak, edo morokila edukita, zertarako nahi duzu korfleis edo dena delako asmakizun hori? Xabier Mendiguren Elizegi
Bi gizonak txintik atera gabe kafesne **zopak** jaten hasiak direla ikusirik, Ines sukaldetik irten da. Pello Lizarralde
Bazkaltzera gonbidatu genuen patioaren txoko batean, eta artsenikoa eman genion kafe-**zopatan**. Javi Cillero

**9** (adizlagun gisa) blai.

Eguneko 100 kilometro eginez igarotzen omen dira, dena **zopa** utziz, batzuetan orduko 100 litrotik gora isurita. Pello Zabala
Ourensen, 40 eguneko euriteen ondoren, uzta granorik batere gabe dena **zopa eginda** galdu zen. Pello Zabala
-Eta aldatu arropa horiek -Maria zen, berriro-, **zopa eginda** zaude-eta. Joxemari Urteaga
Bustita, **zopa eginda** zegoen, nekearen nekez ezin zion eutsi bere buruari. Joanes Urkixo

**10** ***koilara zopatan*** *adlag adkor* in fraganti.

Berak erabiltzen zuen maneran esateko, **koilara zopatan** harrapatu nuen. Koldo Izagirre
Kazetari martin-saltsero bat, **koilara zopatan** harrapatua. Aingeru Epaltza

**11** ***zopa-ontzi*** *(orobat **zopaontzi**)*

Olo-ahia **zopa-ontzietan**, sardinzar keztatua azpiletan, ogi txigortu ugari, eta arrautzak eta hirugiharra plateretan. Iñaki Mendiguren
McGonagall andereñoak burduntzalia sartu zuen hurbileneko **zopa-ontzian**. Iñaki Mendiguren
Gero, **zopa-ontzi** bero bat mahai erdian ipini zuen. Lopez de Arana
Nire begiak jakiz beteriko mahai eta **zopa-ontzi** lodi ketsuentzat baizik ez zeuden. Joxan Elosegi

Zerbitzariak estalkia kendu zion **zopa-ontziari** ; afaltiar guztiek mahaira hurbildu zituzten aulkiak, eta zopari ekin zioten. Jose Morales

Mezzoradoa sukaldean izaten zen, **zopa-ontzi** baten barrenean, plater batez estalita eta denbora batean gure amarena izan zen xal izokin-kolore batez bilduta. Fernando Rey

**12** ***zopa-zopa*** *adlag* blai-blai.

Zanga ondoak-eta gustatzen zaizkio, bertako hezedura xurrupatu eta zorua lasaitu egin ohi du, **zopa-zopa** dagoen buztin-zola arindu eta aretu. Pello Zabala

Lur naturala, belardi edo lur arre landua, euriak **zopa-zopa** uzten du. Pello Zabala

1970an, uholde ikaragarriak hainbat tokitan: Duero, Tajo, Guadiana eta Ebro ibaiek eragindako kalteak medio, **zopa-zopa** eginda gelditu ziren bazterrak. Pello Zabala

**hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**

**arrain zopa** (11); **aza zopa** (15); **baratxuri zopa** (6); **beste platerkada zopa** (3); **fideo zopa** (3); **ilar zopa** (3); **juliana zopa** (3); **kuia zopa** (3); **platerkada zopa** (6); **tomate zopa** (5)

**zopa bat** (9); **zopa beroa** (6); **zopa egin** (3); **zopa eginda** (8); **zopa hartu** (3); **zopa hartzen** (4); **zopa hotza** (3); **zopa hozten ari** (3); **zopa jan** (3); **zopa jaten** (6); **zopa jaten ari** (3); **zopa ontzi** (4); **zopa pixka bat** (3); **zopa sobretan** (3); **zopa zopa** (7)

**esne zopak** (3); **ogi zopak** (4); **zopak egin** (3); **zopak jaten** (6)

**koilara zopatan** (3)

---

zopaontzi ik **zopa 10**.

---

## zopatu, zopa(tu), zopatzen **1** da/du *ad* erabat busti, zopa egin.

Ereiteko, aldiz, lurra euriz xaretu eta gozatua hobe aukeran, gehiegi hoztu eta **zopatu** gabea, bere tamainan... Pello Zabala

Harentzat, elurra beti zegoen edo **zopatuegia** edo gogorregia. Fernando Rey

Ezin eraman ekarritako guztia, busti den biziduntxoak ere zupatu baitu apurtxo bat bere barru-mami eta azalean, batzuetan **zopatu** arte. Pello Zabala

**2** irud/hed

Konta niezazukeen, konparazione, arnoan **zopatzen** zen hordiaren kasua, arnoz bete tina batean ito zenarena. Joan Mari Irigoien

Deus galdetzeko gogoa egin baino lehen erantzun mordo bat emanez eta atergabeko informazio jasa hazkorrez lortzen da muinak asetzea, **zopatzea** eta ezertarako gauza ez direla uztea. Iñaki Segurola

**3** (era burutua izenondo gisa)

Edan ordez jan egin behar den ardo **zopatu** lodi bat izan zen lehendabiziko urratsa. Anjel Lertxundi

**4** mozkortu.

Uste baino **zopatuago** nengoen. Aingeru Epaltza

Ez nuen gezurra esango Deanen eskutik ikusi nuela esango banizu, auskalo, beharbada **zopatuta** nengoen eta ez nuen argi ikusten. Javi Cillero

---

## zopatxo *iz adkor* zopa.

Inoiz ez zuen esaten "zopa", **"zopatxoa"** baizik. Bernardo Atxaga

---

## zopazale *(corpusean **zopa-zale** soilik)* *izond* zoparen zalea dena.

**Zopa-zaleak** bulegotik zopa-plater bat jatera igotzen direnak dira. Josu Zabaleta

Eskerrak **"zopa-zaleek"** aldian behin egoera leher dadin eragozten duten. Josu Zabaleta

· Tomate- **zopa zale** amorratua nauzu. Mirentxu Larrañaga

---

## zoperna *iz* uholdea.

Hemen luzatzen baldin badu denbora iluna eta zerua goibel, kasu nonbait ekaitz edo **zoperna** beldurgarri bat gertatuko da. Herria

Baal oso ezaguna zen feniziarren artean, izen honexekin; Belus edo Bel izenaren pean ohoratzen zuen Berosus apaizak, **Zoperna** Jeneralaren kontakizun ospetsua idatzi zuen hark. Xabier Olarra

---

## zopilote *iz* amerikar hegazti harraparia saiaren antzekoa eta oiloaren tamainakoa, lumaje beltzekoa.

Goi urdinean **zopiloteak** errondan. Joseba Sarrionandia

**Zopilote** bakarti bat zebilean zeruan kulunka. Juan Garzia

Hango burdin hari guztien gainean **zopiloteak** ikusten zenituen pausaturik, lerroz lerro, zelatan, zakurren bat goseak noiz hilko, astoren bat noiz lehertuko edo zaldiren bat noiz akabatuko zain, orduantxe goitik behera gorpuarengana hegaldatzeko. Joxe Austin Arrieta

Astoa han zetzan leher egina eta **zopiloteek** , asebetearen ostean inguruko zuhaitzetan kokaturik, disekatuak ziruditen. Joxe Austin Arrieta

Smoking-dun jaun haiek, **zopiloteak** bezain beltzak, haien lumajeak ere distira bera egiten baitu. Joxe Austin Arrieta

---

## zopizatze *iz* zotalen belarra kentzea.

Soroko lanetan edo **zopizatze** hutsean, aitzurra sartu orduko zizare ugariz topo eginez gero, kontu jakina zen: [...]. Pello Zabala

**Zopizatze** lanetan eta jorra lanetan ere, zizarerik gainera zetorren edo ez, usu zebiltzan edo oso azpiruntz... horrek denak ematen zion seinale eta abisu. Pello Zabala

---

## zor **1** *iz* norbaiti ordaindu edo itzuli behar zaion gauza, eskuarki dirua.

Bertan, besteak beste, akzioak, enpresen partaidetzak, edota enpresen **zorrak** (obligazioak, bonoak edo letrak) negoziatzen dira. Iñaki Heras

Paperak ateratzen hasi zen artean **zorra** zenbatekoa zen jakinarazteko. Juan Garzia

Albert Péry auzapez zagon denboran, **zorra** azkarki goratua zen bainan ondarrerat polliki ttipitua ere. Herria

Ni joango naiz zure **zorra** eskatzera, ea zer gertatzen den. Karlos Zabala

Frantzia **zorrez** itoa dela eta ez dela hola segitzen ahalko… Pobre bizi izan da, baina **zorrik** gabe. Herria

Kudeatzaile txarren eta **zorren** menpe gaude. Berria - Ekonomia

**Zorren** kobratzailetzat ikusten dute euren burua, zerga-biltzailetzat. Oskar Arana

Garaiko gerrak sorturiko **zorra** finantzatu ahal izateko. Iñaki Heras
-Orain, mesedez, **zorraren** parte bat aurreratu behar didazu, berme gisa! -esan zuen Sobakevitxek. Jose Morales
Esango zizun **zorrak** kitatu genituela, ezta? Migel Angel Mintegi
Zor duen estatu batek ez du kitatzen bere **zorra** kanbioaren bidez, partikular batek ere ez baitu bere **zorra** kitatzen dirua trukatuz. Iñaki Iñurrieta
**Zorra** kitatzeko luzamendua eskatzea. Anjel Lertxundi
Osasunak **zorra** bi epetan kitatzeko hitza eman eta Athleticek erretiratu egin du salaketa. Berria - Kirola
Herrialde zordunek bazuten beren **zorren** baliogabetzea eskatzea. Koro Navarro
**Zorrak** ezabatzeaz gain, haatik, herrialde aberatsenek Afrikaren garapena zinez lagundu behar dutela adierazi zuen. Berria - Harian
Munduko herrialde pobrenei kanpo **zorra** barkatzeko Gordon Brown Erresuma Batuko Ekonomia ministroak egindako saioak ez du arrakasta handirik izan. Berria - Ekonomia
Estatuek **zorra** jaulkitzen dute, sarritan oso epe luzera, gainera (20 edo 30 urtera), eta urtero dirutza jakin bat erabiltzen da interesak eta **zorra** kitatzeko. Iñaki Heras
Dirua **zorretan** lortzeko ahalmena erabiliz. Iñaki Heras
**Zorretan** erosi zituelako gainera, On Camillo pobre hutsa baitzen. Koldo Biguri
Gobernu alemanak herrialdearen berreraikitzeari ekiteko eta aliatuei ordaindu beharreko **zorrari** aurre egiteko dirua barra-barra inprimatzeari ekin zion. Iñaki Heras
Udalbatzak, osoko bilkuran bilduta, haren **zorra** barkatzeko erabakia hartu du boz batez. Aingeru Epaltza
**Zor** bat kitatzen ari denaren zeremoniaz... Pako Aristi
Enpresariek **zor** guztiak ordaindu beharko dituzte. Berria - Euskal Herria
Zesarren garaian, lur-zatiak izan ziren **zor** guztiak ordaintzeko dirua. Iñaki Iñurrieta
Zazpi urtez behin, **zor** guztiak barkatuko dituzue. Elizen arteko biblia
Sektore publikoak metatutako **zorraren** maila ez izatea Barne Produktu Gordinaren ehuneko 60a baino handiagoa. Iñaki Heras
Nazioarteko Diru Funtsaren ordezkariek eta **zorraren** hartzekodunen batzarrak ezin zuten onartu, egoera hartan, erresumaren jarduera ekonomikoaren inolako etendurarik. Iban Zaldua
Oiartzunen fusilatu zuten, **zor** batek galdu zuen eta mezatara ez joatea izan zen aitzakia. Koldo Izagirre
Oso goiz, era berean, ikusi zen diruaren manipulazioa oso bide praktikoa zela **zorrak** murrizteko eta ordainketa-bitartekoen urritasuna arintzeko. Koro Navarro
1980ko hamarraldian, **zorraren** krisiak nazioarteko finantza-merkatuetatik baztertuta utzi zituen garapen-bideko herrialdeak. Koro Navarro
35.000 milioi dolarretan jaitsi zen herrialde hauen **zorraren** balio nominala. Koro Navarro
Ekonomia indartzen hasien egoera ere arindu zuen, haien **zorrak** dolarretan baitzeuden izendatuak. Koro Navarro
Gure aurretik loftean bizi zenak nonbait, zortziehun dolarreko **zorra** utzi zuen. Harkaitz Cano
Oraintxe baduzu, bi banku horiekin... hiru mila eta berrehun euroko **zorra**. Pablo Sastre
Aintzineko urtetan egin ziloa ez dute beraz tapatu, zilo hori ez da emendatu baizik, badute orai 75.000 euroren **zorra**. Herria
Tratua egina, aitaren crosse-ko zapatillak hartu nituen, **zorretan**. Fernando Rey
Hainbat **zor** kitatu ezinak bultzatuta, konde jaunak bere burua bota zuen Veneziako zubi dotore haietako batetik. J.M. Olaizola "Txiliku"

## **2** (izenondo eta izenlagunekin)

Zerga haiei *census* zeritzen; eskubide ekonomikoak ziren, ez fiskalak; **zor** pribatuak, ez karga publikoak. Iñaki Iñurrieta
Merkatu irekiko eragiketak eginez (open-market eragiketak, alegia, **zor** publikoa erosiz edo salduz). Iñaki Heras
Solonek agindu zuen Atenasen inor ez zela atxitua izango **zor** zibilengatik. Iñaki Iñurrieta
**Zor** ekonomiko izugarriak zituen, zaila baitzen mantentzea ordura arteko bizimodua. Berria - Kultura
**Zor** fiskala 6.700 milioi dolarrekoa dela dio Ogasunak. Berria - Ekonomia
60 milioiko kapitala eta 90 milioiko **zor** garbia duen honetan, 62 milioiko **zor** bihurgarria jaulkiko omen du aurten. Berria - Ekonomia
Atzo izendatu du gobernuak komisio bat **zor** laborala zenbatekoa den zehazteko. Pako Aristi
**Zor** metatuek, azkenean, NDFren eta Munduko Bankuaren esku-hartzea ekarri zuten. Koro Navarro
Saudi Arabiaren estrategiaren arrakasta garesti ordaindu zuten oso **zor** handiak eta biztanle asko zituzten herrialde petrolio-ekoizleek. Koro Navarro
Roberts jauna bera mutilzahar etxerik gabea zen, iragan ilun samarrekoa, **zor** handiak zituena. Koro Navarro
Gauza guztien prezioak gora egin zuen, eta zilarrarenak behera; proportzioa, beraz, hautsi egin zen, eta **zor** zahar guztiak kitatu egin ziren. Iñaki Iñurrieta
Grekoek eta erromatarrek jainko txiki bana zuten gauza guztietarako, atzeratzen ziren hilekoetarako, arrakastarik gabeko artistentzako, tratu ezinezkoetarako, **zor** hipotekarioetarako. Karlos Zabala
Ez da **zor** larririk egingo, ahizpa guztien oniritzirik gabe eta ageriko beharrik ez bada. Askoren artean
Partzuergoko langile batzordearen ustez, «Nafarroako Gobernuak **zor** historikoa» du beraiekin, «beste funtzioarioekin lortu dituzten akordioetatik kanpo» utzi dituztelako.Haren **zor** ezin ulertuzkoak hizpide ziren beraren lagunartean. Berria - Ekonomia

## **3** (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

1930eko hamarraldiko Latino Amerikako **zor**-tituluen baliogabetze masiboaren ondoren [...] finantzaketa modu berri bat etorri zen 1970eko hamarraldian. Koro Navarro
Hango enpresetan inbertituta, eta batez ere **zor** titulu publikoak eta pribatuak erosita. Berria - Ekonomia
**Zor** agiriak jaulkiko ditu BBK-k, 900 milioi euroko balioarekin. Berria - Ekonomia
Akziodunek ontzat jo beharko dute enpresaren estatutu aldaketa, eta baimena eman beharko diote bonoak eta **zor**-agiriak jaulkitzeko. Berria - Ekonomia
Askotan nahastu egiten baitzituen bere kartak eta besteek kalkulatu behar izaten baitzioten **zor**-agiriak. Irene Aldasoro
Langile atzerritarrek «ekonomiaren eraikuntzan» parte hartzen dute: erosketa bidezko zergak ordaintzen dituzte, banketxe edo kutxetan kontuak dauzkate, **zor** txartelak denda eta saltoki handietan, eta Osasun edo Justizia egituren erabiltzaile dira. Berria - Harian
Zeharo sentsibilizaturik gaudela pobreziak, egitura-doiketak eta **zor** programek [...] Giza Eskubideei eragiten dizkieten kalte larriez. Itziar Eizagirre / Amaia Lizarralde
Akusatuaren alde egiten zen delitu-kasuetan; **zor**-kasuetan, zordunaren alde; oinordekotza-kasuetan, auziperatuaren alde. Iñaki Iñurrieta
1987 ondorengo nazioarteko zuzeneko inbertsioen parte handi bat, nolanahi ere, **zor**-bihurtzeen eta pribatizazio-programen eragiketen ondorio dira. Koro Navarro

## **4** (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa)

1987an, Brasilek banku-**zorrak** ordaintzeko epea luzatzen zuela adierazi zuenean, banku anglosaxoi handien metatze-ahaleginak areagotu egin ziren. Koro Navarro
Txiroak hamarretik zortzi diren herri bat, arazoei erantzunik emateko ahalmenik ez duen herria, lan **zorra** 13.000 milioi dolarretaraino eraman duena. Pako Aristi
1982 urtetik aurrera, industrializatu gabeko herrialdeen kanpo **zorraren** arazoarekin batera suspertu zen FMIren ekimena. Iñaki Heras
1982 urtetik aurrera, industrializatu gabeko herrialdeen kanpo **zorraren** arazoarekin batera suspertu zen FMIren ekimena. Iñaki Heras
Prest zegoela, esan zion, baita maizter-**zorrak** kitatzera ere, baldin neskak, lotara bertan gelditurik, konplitzen bazituen indianoaren gutiziak. Anjel Lertxundi
Herrialde garatuek besteekin duten «ingurumen **zorra**» ordaindu behar dutela nabarmendu zuen Kirchnerrek. Berria - Gaiak

## **5** (elkarketa kopulatiboetan)

Egunoroz izaiten zirèn diru-sartzeak, salerosiak eta **zor**-hartzekoak. Joan Mari Irigoien

## **6** norbaitek edo zerbaitek beste norbaitekiko edo zerbaitekiko duen betebeharra.

Ez diat dirurik behar; inoiz kitatuko ez dudan **zor** bat berdintzen saiatzea diat helburu bakarra. Anjel Lertxundi
Zein **zor** gordeko zuen euskaldunekiko Vladimir Nabokovek, geroko liburuetan horrela hartzeko? Berria - Kultura
Gazte, a zer **zorra** dudan zurekin! Fernando Rey
Halatan, bada, guztiz ere dugu denok ahanztea beharrezko, geure buruari diogun **zorra** xuxen den ordainaz kitatzeko. Juan Garzia

**Zorra** zeukan Harryrekin, Attic liburu-denda bizirik atxikitzeko, esan zuen. Oskar Arana

**Zorretan** sentitzen nintzen Pasteur-ekin eta pasteurtarrekin, hain harrera ona egin eta aurrera egiteko aukera emateagatik. Juan Garzia

"Harreman arriskutsuak" **zorretan** dago orobat XVIII. mendearen bigarren erdian arrakasta handia izan zuen genero batekin: sentimenduaren eta grinaren nobelarekin. Jon Muñoz

**Zor** bat badugu, zuzentasunak manatzen duena, gure aintzinekoen alderat: [...]. Herria

Orduz geroztik bere eskuizkribu guziak "Marques de Toberenea" titulupean sinatuz eta Italian egin zuen etxe dotoreari "Toberenea" izena ipiniz omenduko zuen Goizuetako sortetxeari zion **zorra**. Patziku Perurena

Bere gaiztakeriaren **zorra** ordaintzeko hiru egunetan gorriak ikusi ondoren, heriotza mendekatzailearen mendean erori zen. Askoren artean

Hiltzailea kalean zegoen, legearekiko **zorrak** kitatuta. Anjel Lertxundi

Gaizkile baten heriotzaren ikuskizun lazgarri baina igarokorrak ez ditu kitatzen hark iraindu duen gizartearekiko **zorrak**. Juan Martin Elexpuru

Sakabiren hitzek argi erakusten dute trikitiak Elgetari dion **zorraren** neurria: «Gizon hura izan ez balitz gaur hemen trikitilaririk ez zen egongo». Berria - Kultura

Baina badiat nik hirekin diruz ordaintzen ez den mesede-**zorrik**. Juan Garzia

Eguraldiak behintzat ezeri ez dio **zorrik**. Txillardegi

**Zorretan** nago, izan ere, greziar herriarekin nahiz greziar ez direnekin, ikasiekin nahiz ezikasiekin. Elizen arteko biblia

Antoniorekin dudan **zorra** azaltzeko, edozein hitz litzateke zatarregi, txikiegi. Lourdes Oñederra

Horretan aldatu dira gauzak eta hori dugu **zorra**, **zorretako** bat, Mitxelena zenarekin. Pello Salaburu

Eliza **zorretan** da Euskal-Herriarekin eta **zorretan** dela behar diogu aitor-arazi! Herria

Horien denen ezagutzeak balio du eta ez dute deus **zorrik** beren doinu eta hitzetan lehen izan diren bertsulari ospetsueri. Herria

Ez dio aurtengoak **zorrik**! Igande osoan, goizetik arats, jendea loriaturik eta gostura egon da Baigorrin. Herria

## **7** (izenondo eta izenlagunekin)

-**Zor** zaharrez deus ez zakiat... **zor** berriagoez den bezainbatean, zordunagoa haiz hi, ni inoiz izan naizena baino. Aingeru Epaltza

Ez nekien zergatik bidali ninduen ikazkinarengana, beharbada **zor** zaharren bat egongo zen tarteko. Anjel Lertxundi

Beti harrotu zen bizitzan bere indarrez gora egin izanaz, halabeharrezko gutxieneko mesedeak **zor** bakarra. Bego Montorio

-**Zor** handia dut berarekin, badakit. Lopez de Arana

Ene anaia txoriok, **zor** handia duzue Jainko zuen sortzailearekin. Askoren artean

Zerrenda horretatik gure eginbeharrak eta **zor** afektiboak ezabatzea ezinezkoa da. Harkaitz Cano

Eskribatzaileak ez dio gizartearenganako **zor** zibikoari uko egin behar. Berria - Kultura

Ekialdeak Mendebaldearekiko zertu zuen **zor** kulturala ustekabekoagoa izan zen. Iñaki Mendiguren

Beti ziurtzat izan baitut izpirituko **zor** bat ordain dezakeela izpirituko ariketa batek. Piarres Xarriton

**Zor** morala omen zen, eta ohoreak agintzen zion azkeneraino eustea. Oskar Arana

Apez edo fraide eta euskaldun arrunt askori iduritu zitzaion ezohiko mezua bidaltzen ziola, aspaldiko **zorra** ordainduz, Erromako elizak gure herriari. Piarres Xarriton

## **8** (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

Batik bat bere amaren oroitzapenarekiko **zor**-kitatze zirraragarri bat. Xabier Mendiguren Elizegi

Fernando **zor** eta erru sentimendu oro pikutara bidaltzeko tramankulu maitagarria da. Markos Zapiain

## **9** (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa)

-Ofelia eder hori, kunplimendu-**zorretik** libre zaude eneganako. Juan Garzia

Ene kargu, bada: zintzo erantzungo diot berarekiko heriotza-**zorrari**. Juan Garzia

Aurpegia okertu gabe, ohore-**zor** handi samarrak kitatzera. Anton Garikano

Baldinbetan ez al zaizu gogotik galduko zinez emandako hitza; erabakitako zigor-**zorraren** azpian noski. Patxi Ezkiaga

Lasterketa amaitzean ordaintzen da oxigeno-**zorra**. Irene Aldasoro

Zor batekin jaio haiz gizartera, eta hire jatorrizko kabroi-**zorra** ez duk gainera sekula osotoro ordainduko, eman-ahalak emanda ere. Iñaki Segurola

Soldadu zaharrenek uzki-**zorra** kitarazi nahi izan ziotean. Aingeru Epaltza

## **10** (elkarketa kopulatiboetan)

Ez al daude oraindik bi giza sexuak **zor**-hartzekoetan kito? Iñaki Segurola

## **11** ***egiari zor*** *adlag*

**Egiari zor**, esan dezadan Labaienek beste liburu bat plazaratu zuela 1984an, eta oso bestela azaldu zuen hatxearen auzia -eta batasunarena, oro har- bigarren saio horretan. Koldo Zuazo

**Egiari zor**, sekula ez da golegile aparta izan. Berria - Kirola

**Egiari zor**, nobedade gutxiko zerrenda eman zuen. Berria - Kirola

Eta **egiari zor**, maizegi egiten da huts hiru irizpide horietan. Koldo Zuazo

Aurrekariak, **egiari zor**, ez dira baikor-baikorrak izateko modukoak. Berria - Kirola

Ikuspegi ekonomikotik, **egiari zor**, arrazoirik ez zaie falta. Berria - Kirola

Aurten baino gol gehiago sartzera ohitua nago, **egiari zor**. Berria - Kirola

## **12** ***zor eta lor*** ik **sor**[1] **8.**

## **13** ***zor izan*** du *ad* norbaiti ordaindu edo itzuli behar izan.

Zenbat **zor dizut**? Patxi Zubizarreta

-Emakume bati ala gizon bati **zor diozu** dirua? Matías Mujika

Herritarrek batez beste 21.000 euro inguru **zor dizkiete** bankuei. Berria - Ekonomia

Guztion artean 200 milioi bolibar **zor dizkigute**. Pako Aristi

Gau hartan, Clémencek kalkulua egin eta ordurako bost libera **zor ziola** frogatu zion Charveti. Karlos Zabala

Bil nitzake **zor dizkizudan** hamar mila dolarrak, baina ez gehiago. Oskar Arana

Sosik ez **diot** inori **zor**, inolako endredotan ez naiz sartzen. Karlos Zabala

Langileari bere soldata **zor zaio**. Elizen arteko biblia

-Zuri ere dirua **zor** al **dizu**? Ander Irizar

Erromatarrei **zor zieten** zerga ordaintzeko, Jerusalemen harrapaturiko presoak salduko zituela esan zuena. Elizen arteko biblia

Hizpide ditugun beste estatu horietan, ordea, dirua ez da inoiz itzultzen, hartu dutenek ez **dutelako** ezer **zor**. Iñaki Iñurrieta

Ez **diot** inori **zor**, ez **dit** inork ere **zor**; hala ere, denek madarikatzen naute. Elizen arteko biblia

Barbaroen partizioko lurrek ez **zutela** zergarik **zor**. Iñaki Iñurrieta

Esate baterako, Frantziak Holandari sos-erdi kopuru bat **zor diolarik**, zenbat eta sos-erdi gutxiago balio frantziar ezkutuak, ezkutu gehiago jasoko du Holandak. Iñaki Iñurrieta

Petrolio taldeak zergetan **zor dituen** 5.000 milioi euroak biltzeko asmoa du Errusiako Justiziak bahituraren bidez. Berria - Ekonomia

Minus 4 esatea da esatea pertsona batek ez duela deus, eta **zor dituela** oraino 4. Jon Muñoz

Hari **zorko diot** hobea izatea, zuri **zorko** dizudan bezala zoriontsuagoa izatea. Jon Muñoz

**14** ***zor izan*** du *ad* norbaitek edo zerbaitek beste norbaitekiko edo zerbaitekiko betebeharra izan.

Argi gelditzen da zenbat **zor didan** eta zein gaizki ordaindu duen. Bego Montorio

Baliteke nire miopiari **zor izatea** hori. Juan Garzia

Galera hauek idazkien beren izaerari **zor zaizkio** nagusiki, baina pentsa daiteke ere lehen garaietan ez zirela arduratu Frantziskoren idazkien bilketa sistematikorik egiten. Sare erregulatzaileen sortze-ahalmena sareok hierarkizatuak eta konbinagarriak izateari **zor zaio**. Askoren artean

Kementsua zen eta hari ere fabore bat **zor zion**: bizirik irautea. Elena Touyarou

Ez **zaio** eromenari **zor** ene jarduna. Juan Garzia

Frantziar eraberritzaileen lanaren arrakasta haien zentzuzko neurritasunari **zor izan zitzaiola**. Iñaki Mendiguren

Ez ote **zaie** egundainotik hurbilekoei eta etxekoei **zor** maitasuna, lehenik? Piarres Xarriton

Azalpen bat **zor ziola** onartu zion Ruche jaunak. Jon Muñoz

Ez **diezue** ezer **zor**, zuek zeuengatik zaudete munduan eta ez eurengatik. Juan Martin Elexpuru / Bego Montorio

Hari **zor zaio** formula ospetsua: "Ezagutu heure burua!". Jon Muñoz

Ekitaldia larunbatera atzeratzea erabaki zuten atzo, «aita santuari **zor zaion** errespetua dela eta». Berria - Harian

Arreba hegaztiok, utz kantatzeari, guk Jaunari **zor dizkiogun** gorespenak bukatu arte. Askoren artean

Baina ez zionagu esker onik **zor**. Juan Garzia

Morroiari esker ona **zor** ote **dio** agindua bete duelako?"Neure laguntza", erran nuen gero, "ez **didate** dohakabe horiek niri **zor**". Elizen arteko biblia

Neure adiskide sentikor horrek ez ote **zizkidan** kontsolamendu batzuk **zor**? Jon Muñoz

Fidantzia oso hori **zor** uste **nien** iraganean nigana izan dituzun ontasunei. Jon Muñoz

Eztia **zor duenak** ozpina onartu behar du. Koldo Izagirre

Hitzak hitza **du zor**, eta hitzak hitza du sortzen. Iñaki Arranz

Galderak erantzuna **du zor**. Aingeru Epaltza

Emanak hartua **du zor**, eta bizia eman uste duena hartzekodun egiten da. Iñaki Segurola

Egiari egia **zor**. Arantxa Iturbe

Jaioak hiltzea **zor duela** eta hilak bakea. Iñaki Segurola

**15** ***zor kontu*** *(orobat* ***zorkontu****)*

Joan den astean zure **zor-kontu** guztiak ordaindu nituenean. Antton Olano

Analfabetoen arteko tratuak eta **zorkontuak** eramateko. Patziku Perurena

**Zor-kontua** bazkariengatik da, ez afariengatik. Antton Olano

Zergatik saiatu zara zure **zor-kontu** izugarri hori osaba Jack gizajoari leporatzen? Antton Olano

**16** ***zor kutxa*** *(corpusean* ***zorkutxa*** *soilik)*

**Zorkutxak** sortu ziren, europar funtzionarioek kudeatuak; hala, funtzionario horiek kontrolatzen zituzten estatuaren baliabideak, gaur egun Nazioarteko Diru Funtsak eta Munduko Bankuak abian jarri dituzten baldintzei aurre hartuz. Koro Navarro

**hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 5 aldiz agertzen direnak)**

agindua zor (5); aitari zor (9); asko zor (38); asko zor dio (8); asko zor diogu (5); bakoitzari zor (5); begirunea zor (19); berari zor (30); berari zor diogu (5); berari zor diot (6); bizia zor (9); buruari zor (5); dena zor (7); dirua zor (17); dolar zor (8)

egia zor (9); egiari zor (38); elkarri zor (5); errespetua zor (24); errespetua zor diogu (6); errespetua zor zaio (7); esker ona zor (7); eskerrak zor (7); euro zor (14); euskal herriari zor (5); ezer zor (30); gehiago zor (10); haiei zor (8); hainbeste zor (12); handia zor (5); hari zor (33); herriari zor (7); hiltzea zor (6); honi zor (10); hori zor (19); horri zor (17); horri zor zaio (5)

inori ezer zor (6); jaunari zor (7); milioi dolar zor (5); milioi euro zor (11); niri zor (7); nori zor (5); ordaina zor (5); soilik zor (7); zenbat zor (31); zer zor (17); zerbait zor (10); zeri zor (5)

zor baitiot (5); zor baitzaio (9); zor bat (27); zor dautzuet (9); zor die (6); zor diegu (14); zor diegula (6); zor dien (5); zor diet (17); zor diete (6); zor dio (54); zor diodala (9); zor diodan (16); zor diogu (62); zor diogula (7); zor diogun (11); zor diola (23); zor dion (26); zor diona (8); zor diot (68); zor diot nire (5); zor diote (16); zor dioten (11); zor diozu (12); zor diozun (5); zor ditugu (5); zor dizkio (13); zor dizkiogu (5); zor dizkiot (12); zor dizkizut (5); zor dizugu (6); zor dizut (17); zor du (5); zor duen (6)

zor eta lor (12); zor ez (22); zor genion (8); zor guztiak (14); zor handia (16); zor handiak (11); zor historikoa (7); zor hori (13)

zor izan (10); zor izango (5); zor izatea (5); zor niola (8); zor nion (19); zor nizun (9)

zor omen (9); zor publikoa (24); zor publikoaren (7)

zor zaie (17); zor zaiela (10); zor zaien (33); zor zaien errespetuagatik (5); zor zaiena (5); zor zaio (107); zor zaio hori (5); zor zaiola (28); zor zaion (88); zor zaion errespetua (15); zor zaiona (18); zor zaizkie (6); zor zaizkien (6); zor zaizkio (13); zor zaizkion (9); zor zien (8); zor ziola (13); zor zion (49); zor zioten (9); zor zitzaien (7); zor zitzaiola (15); zor zitzaion (34); zor zitzaizkion (5); zor zizkion (12); zor zuen (7); zuri zor (10)

bere zorra (10); dolarreko zorra (17); dudan zorra (5); duen zorra (17); euroko zorra (29); kanpo zorra (31); milioi dolarreko zorra (14); milioi euroko zorra (18)

zorra barkatzeko (5); zorra bere gain (5); zorra berriz (5); zorra du (15); zorra duela (5); zorra kitatu (21); zorra kitatzea (7); zorra kitatzeko (32); zorra kitatzen (5); zorra ordaindu (9); zorra ordaintzeko (10); zorra ordaintzen (5); zuen zorra (14)

dituen zorrak (10); gure zorrak (7); zituen zorrak (6)

zorrak egin (5); zorrak kitatu (13); zorrak kitatzeko (23); zorrak kitatzera (6); zorrak ordaindu (7); zorrak ordaintzeko (6); zorrak zirela (5)

kanpo zorraren (19); zorraren krisia (7); zorraren krisiak (11); zorraren zati (7)

zorretan dago (5); zorretan dagoela (6); zorretan gaude (7); zorretan nago (8)

zorrez itoa (5)

---

# zorabiagarri *izond* zorabiatzen duena.

Gero konturatu nintzen esferak bere baitan zeuzkan ikuskizun **zorabiagarriek** sorturiko irudikeria zela mugimendu hura. Juan Garzia

Besteak deika hasiko zitzaizkien eskailera **zorabiagarrietan** edo bueltaka ibiliko ziren isiltasun hartan, korridore trabaz beteetan. Koro Navarro

Garbi-usain **zorabiagarri** batek hartu zuen konpartimendua. Anjel Lertxundi

Intsentsuaren usainak ohiko trinkotasun **zorabiagarria** zuen. Anjel Lertxundi

Ez zuen ezer arrarorik sentitzen, pastillak irensteko ahaleginak sorrarazitako goragale **zorabiagarri** antzeko hura izan ezik. Mirentxu Larrañaga

Perspektiba **zorabiagarri** batez igogailu-zulo bat marraztu zuenean, sei urte baizik ez zituen. Xabier Olarra

Beste lauak, ezbaian ibili ondoren, espiral **zorabiagarrietan** gora joan ziren ekialderantz, hodei baxuen artean desagertuz. Agustin Otsoa

Sekula ezagutu den osinik beltzenera amilduko gintuen salto **zorabiagarri** bat eginen zuen. Alberto Ladron Arana

Eskaintzen dituen bai ideiak eta bai nahaspilatzen duen "herriaren psikologoen" zerrenda, **zorabiagarri** samarrak dira. Joxe Azurmendi

---

# zorabialdi *iz* zorabiozko aldia.

Zurezko zubian, etxe zorrotz, ojibaz ildoxkaturiko teilaz gain-estalien, eta piperrontzi tankerako kantoidorre urdin-horien artean, **zorabialdi** bat izan zuen bat-batean Rhin ibaiaren argiaren aurrean. Juan Garzia

Hori dela eta, gaixoak **zorabialdiak** izaten ditu, eta, ohean etzanda dagoela ere, jirabiran dabilela iruditzen zaio. Irene Aldasoro

---

**zorabiarazi**, zorabiaraz, zorabiarazten du *ad* zorabiatzera behartu.

Argia piztu zuenean, ia **zorabiarazi** egin zuen begitazio bat izan zuen. Harkaitz Cano

Berotzeko ematen nizkion musuek zorionez **zorabiarazten** ninduten. Josu Zabaleta

Pentsatze hutsak ere **zorabiarazi** egiten nau. Xabier Olarra

---

**zorabiatu**, zorabia(tu), zorabiatzen **1** da *ad* zorabioa izan.

Nik bizitza eztiagorik ez diat ezagutu, Polixeneren arropa azpiak ireki eta haren soinekopeko pastel usainarekin **zorabiatzen** nintzen arte pasatzen nituen ordu haietakoa baino. Pako Aristi

Istant batez **zorabiatu** eta behera jausiko nintzelakoan egon nintzen. Edorta Jimenez

**Zorabiatzen** hasi orduko, zati bat ahoan sartu, eta mamur ezazu, guztiz xehatu arte, gazitasuna oso ona baita goragaleari eusteko. Anjel Lertxundi

Lucy hasia zen erdi **zorabiatzen**, batetik gasoil edo petrolio usaina eta bestetik ontziaren kulunka etengabea. Joxemari Iturralde

Beharbada pasatu egin nahi zuen nazionaletara eta **zorabiatu** egin da menditarte biluzi honetan, atzera bere lerroetan zegoela usteko zuen gizajoak, iparra galduta, halako taxu oneko mutilak. Koldo Izagirre

Autobusean gindoazen erdiak **zorabiatu** egin ginen bidean. Bernardo Atxaga

Berriro **zorabiatuko** garela inork kulunka eragiten ez dion kuberta horretan. Koldo Izagirre

Isolda **zorabiatu**, eta Tristanen besoetara erori zen. Juan Kruz Igerabide

Kirioak lehertu aginean egon zen, harik eta, **zorabiaturik**, lurrera zerraldo jausi zen arte. Patxi Zubizarreta

**Zorabiaturik**, balantzaka igo zen kaleraino, non etxeen argiak klisk-klask ari baitziren. Lopez de Arana

Txorimalo bat bezala erori nintzen mahai-ilaren artera, erabat **zorabiaturik**, konortea galtzeko zorian. Juan Kruz Igerabide

Buruan hartutako kolpearekin erdi-**zorabiaturik**, ez zuen ondo bereizten non zebilen eta hanka-azpiko lurra ere arrotz zitzaion. J.M. Olaizola "Txiliku"

Raquel Welch bikinian ikusi eta **zorabiatuta** gelditu zen euskal artzainaren pasadizoa. Bernardo Atxaga

Emakumea oihuka hasi zen, **zorabiatuta** zegoela eta umeak nondik irtengo zion ere ez zekiela, eta apaiza bere ondoan nahi zuela. Pako Aristi

Hitz egiten ari zitzaidan bitartean, **zorabiaturik** ahozpez erori nintzen. Elizen arteko biblia

**Zorabiaturik** eta mazpilduta, kedarrez estalita, zutitu egin zen kontuz, betaurreko apurtuak begietara eramanez. Iñaki Mendiguren

Jira eta buelta aritu nintzen **zorabiatzeraino**. Xabier Olarra

· -Ostera **zorabiatu** al zaik heure Refugio? Juan Garzia

**Zorabiatzen** ez zait ba neska! Jokin Urain

**2** (zait aditz gisa)

Andreari **zorabiatu** zitzaion hasieran, baina ontzialdia oso laburra zenez, Coke pare bat hartuta aurre egin genion itsasoak eragindako ondoezari. Javi Cillero

**3** du *ad* zorabioa eragin.

Politika gora eta politika behera, epaileak **zorabiatu** zuen estutu nahian, haserretu zuen arte. Joxe Azurmendi

Hango ardoak nazioetako erregeak **zorabiatzen** zituen. Elizen arteko biblia

Gaur egun begiak kanpora so ezarri ditugu eta munduaren konplexutasunak **zorabiatzen** gaitu. Piarres Aintziart

Gaur musuka **zorabiatu** nau. Alberto Barandiaren

Eten ezineko musuak **zorabiatu** egin zaitu. Lourdes Oñederra

**Zorabiatu** egiten nau horrek! Jon Muñoz

Perfume horrek **zorabiatu** egiten ninduen eta kirats hark jateko gogoa kentzen zidan. Pello Lizarralde

**Zorabiatu** egiten zuen ikusten zuenak, ordeka hilurrena ikuste hutsak, den-dena estaltzen zuen udazkeneko aire astunaz kargatua baitzen. Xabier Olarra

Hitz egiten hasten zenean **zorabiatu** egiten ninduen, haur nintzeneko karrusel txangoen moduan. Lander Garro

Tiro hotsak **zorabiatu** egin zuen. Fernando Morillo

**Zorabiatu** egiten zuen gailur garaien batetiko jauzian pentsatze hutsak. Mirentxu Larrañaga

Minak **zorabiatuta**, judutarra zela oihukatu zuen. Juan Martin Elexpuru

Minak eta nekeak **zorabiaturik** egon arren, Sam ohartzerako suspertu zen. Agustin Otsoa

Txitxikov guztiz lanpeturik zegoen damekin hizketan, edo, hobeto esan, damek guztiz lanpeturik eta **zorabiaturik** zeukaten beren solasarekin. Jose Morales

**Zorabiatzekoa** izan da -esan zuen batek-. Bernardo Atxaga

**4** (begiei, buruari edo kidekoei buruz)

Oisinek eskuak belarrietara eraman zituen, baina min zoliaren eraginez belauniko erori eta begiak **zorabiatu** egin zitzaizkion. Joanes Urkixo

Saihetsak minduta, burua **zorabiatuta**, eta zenbat denbora pasatu den eta non gauden jakiteko larritasunarekin. Joseba Sarrionandia

Burua **zorabiatzen** ari zitzaion kutxa ilunaren barruko astinaldi luzearen eraginez, eta goragaleak zituen. Jose Morales

Zeren egunkarietako izenburuak ematearekin bakarrik nahikoa baita burua **zorabiatzeko**, ugariren ugariz. Jon Alonso

Burua jirabiraka zebilkidan, **zorabiatuta**. Mirentxu Larrañaga

Hutsik sentitzen zen artean, baina burua **zorabia** ziezaioten, bihotza eztenka ziezaioten, gogoa muturreko erabakietara bultza ziezaioten behar zuen premiaz. Karlos Zabala

Burmuina **zorabiaturik** daukatenek, [...]. Xabier Kintana

Begiak lausotu zitzaizkidan, adimena horditu eta barrena **zorabiatu**. Anjel Lertxundi

**5** (era burutua izenondo gisa)

Bere hiltzaileen begi **zorabiatuei** begira, inori ez bezala berari zegozkion Lauaxetaren hitz erabakimenezkoak: [...]. Harry bat-batean kendu zen paretik, ideia bat irmo zuela bere buru **zorabiatuan**: Malfoyrengana joatea. Joseba Zulaika

Merry lau hankatan zebilen arrastaka piztia **zorabiatu** baten antzera. Agustin Otsoa

**hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**

**zorabiatu arte** (5); **zorabiatu egin nintzen** (5); **zorabiatu egin zen** (8); **zorabiatu egin zuen** (3); **zorabiatu egiten da** (3); **zorabiatu egiten zuen** (3); **zorabiatu eta lurrera** (3); **zorabiatu zuen** (3)

**erabat zorabiaturik** (3); **erdi zorabiaturik** (11); **zorabiaturik sentitzen** (4)

**erdi zorabiatuta** (5); **pixka bat zorabiatuta** (3); **zorabiatuta nago** (3); **zorabiatuta utzi** (3); **zorabiatuta zegoen** (4)

**zorabiatzeko zorian** (7)

**zorabiatzen ari** (8); **zorabiatzen hasi** (3)

---

**zorabiatuxe** *adlag* zorabiatu samar.

Pozarren, kantari zoriontsu baten gisara eta bere hitzaldiaren jarioaren erritmoan **zorabiatuxe**, eskuarekin ukitu zuen bere bularralde zabala. Patxi Zubizarreta

Luisak, dantzaldiak **zorabiatuxe**, gizonaren hitzek enpalagatuxe, gogoraturik inork ez zuela bere irudirik pintatu [...] baietz, pintatzaileak modeloa izango zuela erantzun zuen. Felipe Juaristi

## **zorabiatze** *iz* zorabioa izatea.

Hurrengo goizean, Altisidorak **zorabiatze**-plantak egingo ditu zalduna bere aurretik pasatzen denean. Patxi Ezkiaga

Nahiko gogaikarria bazen **zorabiatzea**, edo gertatu zitzaion dela delako hura, gainera mundu guztiak halako iskanbila sortzeko gero. Iñaki Mendiguren

## **zorabiatzearren** *adlag* zorabiatzeko.

Hanken gainean zutik jarri eta ateratzeko gogoa daukat, edozein gauza egiteko **zorabiatzearren**. Monika Etxebarria

Baloia esparru guztietan zatitu nahi dute, zatiketan erratza atera eta Deportivoko mutilak **zorabiatzearren**. Berria - Kirola

## **zorabide** (*orobat* ***zorapide***) *iz* zoratzeko bidea.

Zuk badakizu egun hartan horrelakoez ari ginela, eta mintzo ahala mundua gero eta kaskarragoa iruditzen zitzaigun bere **zorabide** guztiekin, badakizu zuk, Jauna, amak nola esan zidan: "Seme, niri dagokidanez, ez dut jada atseginik mundu honetan". Imanol Unzurrunzaga

Eta ba ote da emagogoa baino **zorapide** haundiagorik munduan. Patziku Perurena

## **zorabio** 1 *iz* konortea urritzea edo nahastea eragiten duen ondoeza, ahulezia eta oreka galtzea ezaugarri dituena; itsasketek, etengabeko birek eta kidekoek eragiten duten buruko eta urdaileko ondoeza.

**-Zorabio** bat izan da, ez besterik. Anjel Lertxundi

Emakume beltz garbitzaile hura, toilettean, izerdizko **zorabio** hura izan nuenean, nire ondoan belaunikatu zena. Joxe Austin Arrieta

Odola taupaka zeukan lokietan, eta **zorabio** arin bat nabari zuen, belarrietan txistua eta urdailean ondoeza. Anton Garikano

Nekaturik eta erdi ahiturik zegoen arren, osabari ez zion bertze **zorabio** hark zentzua galarazi eta. Joan Mari Irigoien

**Zorabioa**, oka hasteko gogoa, handik lasterka alde egiteko beharra, denetarik. Anjel Lertxundi

**Zorabioa** pasatzen hasi zitzaidan. Fernando Rey

Idoiak abioa eman zion nire bizitzari, **zorabioa** sentiarazterainokoa batzuetan. Juan Kruz Igerabide

Denboraren neurriaren **zorabioa**, lehenengoz, orduantxe sentitu nuen. Edorta Jimenez

Konkortu eta sena galduko duzu, harik ere **zorabiotik** irteten hasi arte. Joseba Sarrionandia

Bere bizitzan **zorabioa** eragiten zion amildegirako leiho hura zabal-zabalik zegoen berriro. Josu Zabaleta

Pultsio hutsaren **zorabioa** isiltasunean. Pako Aristi

Iduritu zitzaidan ezen **zorabioak** eta eldarnioak hartu zuela dukesa. Joan Mari Irigoien

Gero, Florent Parisen sartu zen, **zorabioak** hartuta, hortzak estu-estu, azenarioen gainean. Karlos Zabala

Heldu belarrari **zorabioak** jotzen bazaitu, horrelaxe... hara begiratu, beheko eraztun lurrinezko hori baino harantzago, itsasora. Koro Navarro

Baldwinek eskailerak zabuka jaitsi zituen, **zorabioak** jota. Lopez de Arana

**Zorabio** batek eman ziola. Anjel Lertxundi

**Zorabio** antzeko ondoeza egin zaie han barrena pasatzean. Karlos Zabala

-**Zorabioa** egin zitzaion karabinero bati, emakumeen besoetan gelditu zen gurutzetik jaitsitako Kristo bezala! Koldo Izagirre

Berriz ere abian, puntu finko bat bilatu nuen neure aitzinean, **zorabioa** ez berritzearren. Aingeru Epaltza

Gaizkiaren lilurak benetako baloreak iluntzen ditu, eta grina txarren **zorabioak** gizaki tolesgabea desbideratzen. Elizen arteko biblia

**Zorabioaren** aurkako tableta haiek eraman nizkionean, [...]. Joxe Austin Arrieta

Bat-batean, bere **zorabioan**, burua biraka, dorrea hankaz gora egitera doala iruditu zaio. Joan Mari Irigoien

Halakoxe **zorabioan** bizi dira, buruz behera. Jon Muñoz

Halako harridura motel batez hori pentsatu, eta gero, berehala, **zorabioan** babestu zen. Juan Garzia

**Zorabio** batean, ezker eskua haren bular gainean pausaturik nuela urratu genituen azken metroak, karrika hutsean gaindi.· Mugitzeko nekatuegi gelditu zen bertan, eguzkiak begietan **zorabioa** sortzen ziola. Aingeru Epaltza

**2** (izenondo eta izenlagunekin)

Herenegun arratsaldean **zorabio** txiki bat izan zuela jakinarazi zuen eledunak. Berria - Mundua

Lelo hark buruko **zorabio** sorra eragin zidan. Anjel Lertxundi

Izen polita; maitearekin zorionaren eta etsipenaren **zorabio** gozo-mikatzak bizitzeko txoko bat aukeratuko banu, jarriko niokeena. Pako Aristi

Goragalezko **zorabio** jarraitu batean, itomenezko indar ikaragarri batean. Karlos Zabala

Kaperaren hotzikara erlijiosoan, maitasunezko **zorabio** mutu hartan, [...]. Karlos Zabala

Jo ninduen, bada, Finisterre aldean itsasoko **zorabio** gaitzak, jo, karrakak nor-eta neu ninduelarik gabizain. Edorta Jimenez

**Zorabio** biziko herrialde batekoa naiz, non loteria errealitatearen zati nagusi baita. Juan Garzia

Maiatzako eguzkiak halako epeltasunezko **zorabio** bat zuen. Karlos Zabala

Bat-bateko **zorabio** batek goitik behera astindu zuen. Fernando Morillo

Garondoraino iristen zitzaion halako hotzikara bat sentitu zuen, balizko **zorabio** baten iragarle. Lopez de Arana

Harik eta beheraldiaren azkengabearen ideia hutsak **zorabio** ezin jasanezko bat gaineratu zidan arte. Koro Navarro

**3** (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

Barrez irten ginen uretatik eta ohera egin nuen salto; **zorabio** sentimen batek hartu ninduen bat-batean. Juan Martin Elexpuru

**Zorabio**-haizea sartu die Jaunak barruan: bere egiteko guztietan oker daramate Egipto; eta hala dabil, botaka eta balantzaka, mozkor baten antzera. Elizen arteko biblia

Duboisek, berriz, lehen planoak eragiten dituen irrika-efektuak azpimarratzen ditu batez ere, fokatze-efektua, **zorabio**-efektua ("arrakala egin eta amildegi bihurtzen den harri-kozkorra") eta Medusa-efektua, aldi berean liluratzen eta esti eragiten duena. Josu Zabaleta

Gero, **zorabio** moduko batek sena lausotu zion, zuhaitz batean bermatu zuen bizkarra, begiak itsu, belarriak burrunbaka. Karlos Zabala

Dahlmann-ek zoriontasunez ezagutzen zuen toki bakoitza, eta **zorabio** puntu batez. Juan Garzia

**4** (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa)

Bat-bateko mozkorrarena bezalako odol-**zorabioa** igo zitzaion zainetan gora, trumilka eta brastakoan. Anjel Lertxundi

Eta ez da bakarrik gol **zorabioa**, baita ikuskizuna ere. Berria - Kirola

**5** ***zorabiozko*** *izlag*

Edan baituzu Jaunak emaniko zigor-edari samina, hondoraino edan duzu **zorabiozko** kopa. Elizen arteko biblia

Izen bat behar da, begiz jo beharreko puntu bat, ezinkizunezko unibertso azkengabe honetan gogo-bihotzen **zorabiozko** harat-honatek nonbait etsi dezaten, eta betiko [...] atsedena har dezaten. Iñaki Segurola

**Zorabiozko** lehertu behar betean neukan burua. Anjel Lertxundi

Hik lehenengoetan izan duan gaitza, itsasoko **zorabiozko** gaitza izan duk. Edorta Jimenez

Jira eta jira aritu ginen, ez mugimendu uniformeetan, zabu eta astindu **zorabiozkoetan** baizik. Koro Navarro

Sinesten zuen denbora serie infinituetan; denbora dibergente, konbergente eta paraleloen halako sare gero eta zabalago, **zorabiozko** batean. Juan Garzia

Haren gorputzaren beroa sumatzen nuen nirean, **zorabiozko** eta berri, ametsetan nabaritua. Juan Garzia

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
> **bere zorabioan** (3); **etorriaren zorabioz** (3); **hura zorabioa** (3); **zorabio moduko** (5); **zorabio txiki** (3); **zorabioa egin** (3); **zorabioa eragiten** (3); **zorabioa izan** (3); **zorabioa sentitzen** (6); **zorabioa sentitzen nuen** (3); **zorabioak hartu** (6); **zorabioak hartu zuen** (3); **zorabioak izaten** (4); **zorabioak jota** (5); **zorabioak jotzen** (3)

---

# zorabioaldi *(orobat* ***zorabio-aldi****)* *iz* zorabiozko aldia.

Berriro beste **zorabioaldi** hotz bat izan zuen ia; eserleku konkortsuaren kontra-kontra, begiak itxita geratu zen ateetatik igaro arte. Iñaki Mendiguren

Etsirik nengoen hil egingo nintzela, eta behin tumorea erauzi eta erradiazio- eta kimioterapia-tratamenduen oinazealdi ahulgarriak igaro ondoren, larrigura- eta **zorabio-aldi** luzeak pairatu, ilea galdu, gogoa galdu, lana galdu eta emaztea galdu ondoren, zail zen niretzat aurrera nola jarraitu asmatzen. Oskar Arana

---

# zorabiotxo *iz* zorabio txikia.

Ez dakit egun hartan justu, baina eguntsu haietan hasi nintzen sentitzen ordutik utzi ez nauten **zorabiotxoak**. Anjel Lertxundi

**Zorabiotxo** bat ere egin zitzaion, begiak hainbeste behartzearen ondorioz. Mirentxu Larrañaga

Bat-batean, **zorabiotxoa** egin zaio. Anjel Lertxundi

---

# zoradura *iz* zorabioa.

Bada lotura zuzen bat denbora eta espazioaren artean, bertigotik, **zoraduratik**, zerbait duena. Ana Urkiza

Gorputz zurrunari eta buru barneko **zoradurari** ohartuta, goizaldearen alde makurtu nintzen. Aingeru Epaltza

Zakurren **zoradurak**. Gotzon Garate

Egia da, itsasoaren zabaltasunak **zoradura** berezi bat sorrarazten duela, urtuko bazina bezala zabaltasunaren handiz. Ana Urkiza

---

# zoragarra *iz* ezkabia.

Sarna, "gale" eritasuna da (azteria, ezkabia edo **zoragarra** erabiltzen da ere). Herria

---

# zoragarri **1** *izond* zoratzen edo liluratzen duena; guztiz ederra. ik **liluragarri**.

-Emakume **zoragarria** zara, Holly. Koro Navarro

Neska **zoragarriz** betetako paradisua zen hura. Jon Muñoz

Musu ematen zieten zaurien harribitxi eder eta distiratsuz apainduriko esku **zoragarri** haiei. Askoren artean

Aurpegi **zoragarria** du, baina ez da oso-oso bizkorra. Josu Zabaleta

Ahalegintzen denak fruitu **zoragarriak** eskuratzen ditu, eta zuhurtzian oinarritzen denak sustrai iraunkorrak. Elizen arteko biblia

Hango jaki **zoragarriak** dastatzeko. Karlos Zabala

Alde guztietatik mendiz inguratua dagoen itsas golko **zoragarri** haren ertzean etzana. Josu Zabaleta

Beraz, ikus dezadan hain grinatsu desiratzen dudan jainkosa-ipurdi **zoragarri** hau! Juan Martin Elexpuru / Bego Montorio

Orduak eta orduak ematen zituen urruneko ikuspegi **zoragarriei** begira. Jose Morales

Hego-haize **zoragarria** zebilen, zerua oskarbi. Joan Mari Irigoien

Zain dugun estualdiaren ideia zergatik datorkit gogoan darabiltzadan oroitzapen **zoragarriekin** nahastera? Jon Muñoz

Bat-batean lasaitasun **zoragarri** batek hartu ninduen. Ander Irizar

Birjintasunaren eta kastitatearen liliak hain usain **zoragarriz** inguratzen ditu guztiak, non, lurreko pentsakizunak ahazturik, zerukoak bakarrik nahi dituzten hausnartu. Askoren artean

Irrika **zoragarri** horiei jaramon egin soilik; haien ahotsa izango da zorionera gidatuko zaituzten bakarra. Juan Martin Elexpuru / Bego Montorio

Hura momentu **zoragarria**! Karlos Zabala

Korritzen ari naiz... Zein mozkorraldi **zoragarria**! Aingeru Epaltza

Ordea, eta hau da gauza **zoragarria**, gai arrunt horien inguruan umeek idatzi zutena aparta izan zen kasu guztietan. Bernardo Atxaga

Ilargipeko une **zoragarriak** izan dira. Xabier Olarra

Bazegon intxaur-zurezko armairu bat, agian barroko goiztiarra, ziri ilun **zoragarriz** txertatua. Anton Garikano

Garaipen arkuaren azpian gelditu nintzen, ibilbide hura, ibilbide luze, **zoragarri**, izarrez betea, suzko bi lerroren artean Paris aldera nola zihoan ikusteko, eta argizagiak! Josu Zabaleta

Orduan, Dusselek, bere irribarrerik **zoragarriena** eginda, esan zuen: [...]. Josu Zabaleta

Itxura **zoragarriko** dama hark mantu zarpail batez estaltzen zuen gorputza. Askoren artean

Nor da munduko neskarik **zoragarriena**? Mirentxu Larrañaga

Frantzisko gizaki berriak mirari berri- **zoragarri** batez egin zuen distira. Askoren artean

**2** (predikatu gisa)

**Zoragarria** da neska hau. Juan Martin Elexpuru / Bego Montorio

**Zoragarria** zen ikuskizuna. Jon Muñoz

**Zoragarria** zen hegorik gabe hegaz egitea. Julen Gabiria

-**Zoragarria** da hori! -esan zion Hermionek. Iñaki Mendiguren

-Ez al da **zoragarria**, Stan? Lopez de Arana

Ai, zein **zoragarriak** diren sorbalda horiek! Jose Morales

Ez gara asko, baina bai onak eta **zoragarriak**. Iñaki Segurola

Uda aurreko goiz sargoritsuan hemen sartzea **zoragarri** zaigu. Edorta Jimenez

Izena ere **zoragarria** du. Bernardo Atxaga

**Zoragarriak** iruditzen zitzaizkion haren moduak, haren sudur zorrotza eta begi urdin argiak. Anton Garikano

Niri ere **zoragarria** iruditzen zitzaidan harri beltzen olerkia. Fernando Rey

Garbia eta **zoragarria** zen nire bizitza. Jose Morales

Aurrealdeko imajina ugariek eta dorre bikoitzak, bi estaitako klaustro balkoidun ederra, dena iruditu zitzaidan **zoragarri**. Txillardegi

**Zoragarria** begitandu zaidan gela narratsa eman didate. Jon Arretxe

**Zoragarria** irizten ziola esan zidan berriz, sekula egin zioten erregalurik ederrena. Ramon Saizarbitoria

Chris galdezka ari zen bere baitan, ea berak bezain **zoragarri** iritziko ote zieten besteek Stephenen marrazkiei. Xabier Olarra

Bi ume omen zeuzkaten, **zoragarriak** biak. Pako Aristi

"Zer **zoragarria**!", hots egin nuen. Bernardo Atxaga

-**Zoragarria**! -esan zuen-. Agustin Otsoa

**3** (adizlagun gisa) ik **zoragarriki**.

Bazirudien **zoragarri** pasatzen ari zinetela, biok ere, elkarrekin. Mirentxu Larrañaga

Nik esanen nuke eskiatzen ongi pasatzen zuela, **zoragarri** pasatzen zuela. Fernando Rey

**Zoragarri** portatu zen, barkuraino ere lagundu ninduen. Joxe Austin Arrieta

**Zoragarri** idazten duen idazlea, ulertzen duguna, gure hizkuntzan hitz egiten diguna. Berria - Kultura

**Zoragarri** ahoskatzen zuen. Berria - Kultura

Abesbatzakoek oso ahots politak dituzte, eta **zoragarri** abesten dute. Berria - Kultura

Itxaro Bordak **zoragarri** azaltzen du hori olerki batean: [...]. Ana Urkiza

Orduan esan nuen nire artean Jainkoa handia dela eta den-dena **zoragarri** antolatua zegoela, bizitza sinplea da eta jendea ez da konturatzen. Karlos Zabala

Deitu patxada, deitu konfiantza..., baina Fernando Goñi **zoragarri** ari da pilotan jokatzen. Berria - Kirola

Eta eskiatzen ere **zoragarri** daki! Fernando Rey

-Galtza luzetan eta erretzen, **zoragarri**. Koldo Izagirre

**Zoragarri**! -oihu egin zuen Swan andreak. Mirentxu Larrañaga

-Bikain, **zoragarri** -esan zuen Monak-. Fernando Rey

Buruzagi nagusien irudi karikatureskoak zirela, **zoragarri** ondo eginak. Koldo Biguri

**Zoragarri** adeitsu, baina beti ere zeregin zehatzetan. Joxe Austin Arrieta

Guzmudek eskaileretan aurkitu zuen Ishmir, sekula baino **zoragarriago** eta liluragarriago, begiak pozaren pozez. Xabier Mendiguren Elizegi

**4** (-en atzizkiaren eskuinean izen gisa)

O, atseginaren **zoragarria**! Jon Muñoz

Ikusten ari zenaren **zoragarriak** kamera etxean utzia oroitarazi zion, eta damutu. Koldo Izagirre

**5** ***zoragarriko*** *izlag*

**Zoragarriko** ideia hori bihotzez behar dut eskertu. Angel Aintziburu / Jean Baptiste Etxarren

Ez daitezen lehert bi mendi parteak, badira zubi bezala utziak, harria ingurutik janik, **zoragarriko** zutikakoak eta trebesekoak. Angel Aintziburu / Jean Baptiste Etxarren

Adimena aparta, istapeak usain **zoragarrikoak**, planeta honetako ilerik leunena. Karlos Zabala

**6** ***zoragarrizko*** *izlag*

**Zoragarrizko** goiza zen: menditxoak, itzalez beteta, berde kolorea ari ziren hartzen, gailurrak eguzkitara zituztela, eta bailara argiz beterik zegoen. Josu Zabaleta

Nork ez du behar maitatu beraz **zoragarrizko** lurralde hau, bere mendi eta toki ederrekin bestalde? Angel Aintziburu / Jean Baptiste Etxarren

**Zoragarrizko** eskutitz politak idatzi ditu beti. Ander Irizar

Horrekin ere kopeta argitzen ez zitzaigula ikusita, zera bota zigun, **zoragarrizko** doinu kantari batez: "Agian hamar aste. Hortxe daukat topea". Juan Garzia

Asanbladan bildu dira, nola ez, eta usadio duten bezala **zoragarrizko** ardailan hasi dira elkarren artean. Koldo Izagirre

Joanden aste ondarrean pasatu ditugu **zoragarrizko** orenak kirolarier begira, pilotari, bertsulari, aizkolari andana bat. Herria

**hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 4 aldiz agertzen direnak)**

**bidaia zoragarri** (5); **doinu zoragarri** (4); **egun zoragarri** (18); **egun zoragarri batez** (5); **gau zoragarri** (5); **gauza zoragarri** (7); **hain zoragarri** (5); **herri zoragarri** (6); **leku zoragarri** (5); **liburu zoragarri** (5); **neska zoragarri** (6); **sentimendu zoragarri** (4); **udaberriko egun zoragarri** (5)

**zoragarri pasatzen** (5); **zoragarri zegoen** (6); **zuri zoragarri** (4)

**benetan zoragarria** (11); **berri zoragarria** (4); **bezain zoragarria** (7)

**edertasun zoragarria** (4); **egun zoragarria** (11); **eguraldi zoragarria** (7); **eguraldi zoragarria egiten** (4); **emakume zoragarria** (4); **esperientzia zoragarria** (5); **gau zoragarria** (5); **gauza zoragarria** (18); **hain da zoragarria** (4); **hain zoragarria** (6); **hau zoragarria da** (4); **hori zoragarria da** (4)

**ipuinari zoragarria iritzi** (18); **itxura zoragarria** (6); **leku zoragarria** (8); **neska zoragarria** (4)

**toki zoragarria** (4)

**urte zoragarria** (4); **zein zoragarria** (8); **zein zoragarria den** (4); **zeinen zoragarria** (4)

**zoragarria benetan** (11); **zoragarria da** (129); **zoragarria dela** (14); **zoragarria den** (7); **zoragarria du** (7); **zoragarria duk** (6); **zoragarria egin** (5); **zoragarria egiten** (8); **zoragarria eman** (5); **zoragarria ikusi** (5); **zoragarria iritzi zion** (18); **zoragarria iruditu** (15); **zoragarria iruditzen** (17); **zoragarria iruditzen zait** (4); **zoragarria izan** (68); **zoragarria izan da** (13); **zoragarria izan zela** (8); **zoragarria izan zen** (30); **zoragarria izango** (31); **zoragarria izango da** (7); **zoragarria izango dela** (4); **zoragarria izango litzateke** (7); **zoragarria izango zen** (4); **zoragarria litzateke** (9); **zoragarria zara** (10); **zoragarria zegoen** (4); **zoragarria zela** (7); **zoragarria zen** (39)

**are ipuin zoragarriagoa** (18); **ezin zoragarriagoa** (4); **ipuin zoragarriagoa kontatuko** (18)

**gauza zoragarriak** (7); **hain zoragarriak** (6); **une zoragarriak** (4); **zoragarriak dira** (11); **zoragarriak egin** (5); **zoragarriak iruditzen** (5); **zoragarriak izan** (8); **zoragarriak izan dira** (4); **zoragarriak izaten** (4); **zoragarriak ziren** (10)

---

# zoragarriki *adlag* era zoragarrian. ik **zoragarri 3; zoragarriro**.

Horrela joan zen behatzak galduz, banan-banan, eta bi erortzearen tartean **zoragarriki** gozatzen zuen bizitzaz. Xabier Mendiguren Elizegi

Fisikoek berriki materiari buruz egin duten deskribapenaz oroitu da: osagaiek kristal **zoragarriki** ederrak marrazten dituzten arren, materiaren bihotza hutsune bat omen da, non energiaz betetako izpiak etengabe mugitzen diren batera eta bestera, ulertzen ez dugun mugagabetasun sentipen batek isiotuta. Pako Aristi

---

# zoragarriro *adlag* era zoragarrian. ik **zoragarri 3; zoragarriki**.

**Zoragarriro** azaltzen du Atxagak zer egin behar den eta zer egin behar ez den ondo plagiatzeko. Joxerra Garzia

Zeren artista askok, XX. mendean batez ere, idatzita utzi baitituzte, **zoragarriro** idatzita askotan, sorkuntzazko jarduerari eta irudien poetikari buruz zituzten iritziak. Josu Zabaleta

Irribarre egin zion, ezpain-ertz bat **zoragarriro** izurtuz. Mirentxu Larrañaga

Jatorrizko sortzaileak ez bezala janzten zituen arras, baina **zoragarriro** mugitzen ziren jantziak haren soinean. Joxan Elosegi

Horiek guztiek **zoragarriro** hartzen zuten bizia Lajosen eskutitzetan. Ander Irizar

Zure izaera tolesgabea dela eta, **zoragarriro** ulertezina zara niretzat. Antton Olano

**Zoragarriro** urdina. Josu Zabaleta

---

# zoragarritasun *iz* zoragarria denaren nolakotasuna.

Etengabeko joan-etorriak, irekitzen eta ixten diren ateen takatekoak, plater-hotsa, gonbidatuen elkarrizketen marmar gero eta ozenagoa iskanbila bihurtua azkenean, guztia

ere bizitzaren edertasunaren eta **zoragarritasunaren** adierazgarri. Ander Irizar

---

## zorakeria (orobat *zorokeria* g.er.) 1 *iz* zoroari dagokion egite gaitzesgarria, zentzugabekeria. ik **erokeria**.

Mundu honetako jakinduria, izan ere, **zorakeria** da Jainkoaren begietan. Elizen arteko biblia

**Zorakeria** da, "justuagoak" garelako zeruak lagundu egingo digula itxarotea. Joxe Azurmendi

"Zer uste zenuen" esan niezaiokeela ere pentsatu nuen, baina noski, hori **zorakeria** zen. Ramon Saizarbitoria

Nevadakoa ez da **zorakeria**. Koro Navarro

Gizarte-ikuspegitik, aro heroikoa **zorakeria** eta krimena da. Iñaki Mendiguren

Hain poliki engainatu zuen bere nagusia eta halako **zorakeriak** entzuten zizkion. Patxi Ezkiaga

**Zorakeriak** egiten zituen, eta jakinaren gainean egiten zituela esango nuke. Koldo Izagirre

Pailazo batek Tarleton-en **zorakeriak** imitatzen zituen, eta beste batek maindire batean bildurik Hamlet printzea izulaborritzen zuen. Juan Garzia

Niri nazka ematen didate **zorakeriak** esaten dituzten gizonek. Koro Navarro

Hizketan hasi orduko **zorakeria** dio, eta bukatzean ergelkeria gaiztoa dario. Elizen arteko biblia

**Zorakeriak** ari zara esaten -esaten diot. Koro Navarro

Zertarako irakurri behar ditugu **zorakeria** horiek? Patxi Ezkiaga

Jaungoikoak libra nazala halako **zorakeriatik**. Imanol Unzurrunzaga

Nijni Novgorod ez zegoen urrun Siberiako mugatik, eta kokaleku horrek, jakina, **zorakeriatan** ez ibiltzeko eskatzen zuen. Karlos Zabala

**Zorakeriaz** bete zitzaion burua, eta **zorakeria** horiek kontatzera etortzen zitzaidan. Pello Lizarralde

**2** (izenondoekin)

**Zorakeria** handia egingo duzu, ez baituzu batere onurarik aterako. Juan Kruz Igerabide

**Zorakeria** handiagorik esan edo asma ahal ote liteke! Imanol Unzurrunzaga

Ez dut hemen aipatu nahi arestian esandako horren antzeko beste **zorakeria** izugarria, alegia, [...]. Imanol Unzurrunzaga

**Zorakeria** ederra egin duzu! Elizen arteko biblia

**Zorakeria** hutsa, nik dakidana esateagatik pagatzea. Patxi Ezkiaga

Ahalegin hori **zorakeria** hutsa litzateke, eta geure egunotan munduko eskola gehienak horrexetan erortzen dira, beren izkribuetan ageri denez. Xabier Kintana

Hasierako bere **zorakeriak** kaltegabeak izan ziren guztiz. Juan Martin Elexpuru

**3** (hitz elkartuetan)

**Zorakeria** mota honetatik beste askoz ere arriskutsuago batera igaro zen: tigre bat bezala jarri zen Port Royal-en aurka. Juan Martin Elexpuru

**Zorakeria** airea badu horrek denak baina, askoz harrigarriagoa da gertatu izana. Edorta Jimenez

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
> **zorakeria da** (6); **zorakeria dela** (3); **zorakeria hutsa** (3); **zorakeriak esaten** (3)

---

## zorakeriatxo *iz* zorakeria txikia.

**Zorakeriatxo** batzuk barkatuko al dizkidazue! Elizen arteko biblia

---

## zoraldi (orobat *zoroaldi*) *iz* buru nahaste igarokorra.

Hura zen hura, **zoraldia**! Daniel Landart

**Zoraldiak** jotako jendetza hura berriro zentzu onera ekartzeko. Josu Zabaleta

Llumen **zoraldiak** arrastaka ninderamala konturatu nintzen. Antton Olano

Aski eramangarria, lehengo **zoraldien** aldean. Aingeru Epaltza

Horratx amodioaren **zoraldi** betea. Juan Garzia

**Zoroaldi** iragankorra deitu izan den hori? Luis Elberdin

Eruditoek ez dakite ezer izpirituaren **zoraldiari** buruz. Joan Mari Lekuona

Bihotzerre baten azken negarra eta halako **zoraldi** bat kaxko barnean, ohatzean egin denbora luzearen hondakin. Aingeru Epaltza

Damutasunak ezin al du **zoraldi** bateko hutsa ezabatu? Antton Olano

Ahoa zabaldu nuen hura hobeto hartzeko [...] eta asfixiaren lehen **zoraldian** opio xarmatzaile oinaztarriaren pareko baten mozkor sorgingarria ari zen dastatzen. Josu Zabaleta

Hamar segundoan oso bestelako aldartea jarri zitzaidan, zintzurreko korapilotik pozezko **zoraldira** pasatu nintzen. Fernando Rey

Ibiltzen ahal diren deserrituak kanporat lehiatzen dira, orro haunditan, **zoroaldi** ikara batekin. Michel Oronoz

---

## zoramen 1 *iz* zoratzea (irudizko adieran); egoera edo gertaera nahasgarria. ik **eromen**.

Bizitza **zoramena** da. Karlos Zabala

Egonezina, **zoramena**, nahi eutsiezina, ekaitz moduko zerbait. Luis Elberdin

**Zoramenaren** edo eromenaren eta nahasmenaren adierazle ere bada hego haizea. Patziku Perurena

Eta artean sinetsi ez banuen ere, **zoramenaren** atarian nengoen, ametsa errealitate bihurtzeko atarian. Migel Angel Mintegi

Baziren beginienietako hondoa galdutakoak, **zoramenaren** ertzekoak, eta baziren betzuloak leize bihurturikoak, eromenaren mugakoak. Edorta Jimenez

Arimaren **zoramena** dei dakiokeen amodioak ere ez ditu titulu hobeak bere jarraipena zilegitzeko. Juan Martin Elexpuru / Bego Montorio

Amaren **zoramena**, aitaren alaitasunezko oihua. Julen Gabiria

Plazerraren **zoramenak**, bestalde, bekatuaren zama ahaztarazi zion nonbait. Migel Angel Mintegi

Umeen burua **zoramena** da, beti dabil bueltaka. Julen Gabiria

Tribunetan **zoramena** izan zen; marka guztiak hautsi zituen hark. Iñaki Mendiguren

**Zoramena** izan zen, aizue! Migel Angel Mintegi

Odolean zebilzkion harrotasunak eta **zoramenak** eragiten zioten poztasun hura. Patxi Zubizarreta

Beste une batzuetan, urguiluaren **zoramenak** jo zuen. Juan Garzia

Zenbat ez ote ditu **zoramenak** hartu, zenbatek ez ote dute beren gorrotoaren kopa zeru-lurren kontra jaurti? Patxi Zubizarreta

Korapilo bat eginda amildu ginen sofa gainera, **zoramenaren** menpe plazerraren leizera hondoratzera gindoazela, mundu zital honetatik at. Migel Angel Mintegi

Milika ezazu, nire mihiak bere aluarekin gauza bera egiten duen bitartean, eta horrela, bion artean **zoramenera** eramango dugu. Juan Martin Elexpuru / Bego Montorio

Zentzun guztien **zoramenera**, muxuz muxu, larruz-larru. Joxerra Garzia

Hasierako tantoen erritmoan, **zoramenean**, elkar apurtu behar horretan, berak jarri zuen patxada. Berria - Kirola

Petrolioak bereganatzen ditu komunikabideetako lerroburuak, baina urre beltza ez da prezioen **zoramenean** harrapatuta dagoen lehengai bakarra. Berria - Ekonomia

**Zoramenean** erori garelako inpresioa dut batzuetan. Pello Salaburu

1977ko ilbeltzaren 19ko gauerdi aldera, herriko plazan eta sansebastianetako ospakizun ritualen erdian, bertako agintariek, libertaterik handienean eta jende asko eta askoren **zoramenean**, Euskadiko trapu txuri-gorri-berdea udaletxeko balkoian jaso zuten momentua. Iñaki Segurola

Oihukatu bezain laster mustulpika erortzen da mutikoa adiskidearen gainera, gorputz guzia osoki **zoramenean**, errepikatuz: "Xanti!... Xanti! Xanti! ...ezin geldituz. Michel Oronoz

Auzoan autoa aparkatzea **zoramena** da, eta hemendik gutxira ezinezkoa izango da. Berria - Euskal Herria

## **2** (izenondo eta izenlagunekin)

Gaur oraino ez dakigu: "bizia" deitzen diote batzuek, "poza" diote beste batzuek, **zoramen** ona izan liteke. Iñaki Segurola

Kantak Entusiasmoa ematen du aditzera, marinel haiek itsasoratu aurreko uneetan bizi zuten **zoramen** izpirituala. Bernardo Atxaga

Badu gerrak, bere **zoramen** itsuan, bestek ez duenik. Anjel Lertxundi

Gure bizimodua **zoramen** hutsa zen. Karlos Zabala

**Zoramen** osoan dire jarri familiak, Ongi Etorri beroena eginez, beren Saratar aingerutxo berrieri. Herria

Bere irudiko, hura eromena zen, **zoramen** hutsa, demasa, itzela, izugarria. Joxe Austin Arrieta

Oso zaila litzaidake zehaztea bi mihietako zeinek murgiltzen nauen **zoramen** sakonagoan. Juan Martin Elexpuru / Bego Montorio

Isurketa honek **zoramenik** eztienera eramaten du emakumea. Juan Martin Elexpuru / Bego Montorio

-Zure sortzetiko **zoramena** ez balitz, zure semea ez zen sekula zoratuko. Patxi Zubizarreta

Eta ez baita ageri hizpidean barrentzeko prest, baizik, **zoramen** maltzurrez, entzungor egiten du bere benetako egoeraren berri ematera ekarri nahi dugunean. Juan Garzia

Halaxe hiltzea gustatuko litzaidake, plazerrezko **zoramen** izugarrian. Hasier Etxeberria

## **3** (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa)

Londreseko kaleetan zereginik gabe ibiltzea gustatzen omen zitzaion, jende eta zirkulazio **zoramena** square eta kalezulo baketsuen lasaitasunarekin tartekatuz. Ramon Saizarbitoria

Ihaute **zoramenak** jadanik estaltzen hasiak ditu bazterrak, dena mozorro, kantu, dantza eta besta. Herria

Umeen poz **zoramena**, piraten begirada ikaratuak, Kako-okerrek biak ikusi zituen. Julen Gabiria

Horrekin oihu eta txalo **zoramen** bat lehertu zen borreroen artean. Josu Zabaleta

Guregan maitasun **zoramen** hura piztu duen beste pertsona bat agertu delako. Luis Elberdin

## **4** ***zoramenezko*** *izlag*

Bere **zoramenezko** keinuak eginez jarraitzen zuen, ikaragarrizko estuasun bat jabetu izan balitzaio bezala. Josu Zabaleta

**Zoramenezko** gozamena sentitzen nuen neure ahalmena frogatuta. Josu Zabaleta

Hala ere, **zoramenezko** une batez, nire espirituak uko egin zion ikusten nuen hura ulertzeari. Koro Navarro

Eta, erori, ez gau ero bateko sualdi labur batean, baizik eta **zoramenezko** erabateko pozoitze batean, maitasun gori gertagaitz batean. Oskar Arana

Izakari goragoko bat bilakatua nintzen, mendera ezinezko adimen batez armatua, eta **zoramenezko** gozamena sentitzen nuen neure ahalmena frogatuta. Josu Zabaleta

Stevensonek aipatutako haiek eraiki zuten **zoramenezko** Babel hau; baztertuek, desoinordetuek, bere barkuan zetozen haietako batzuek berberek [...] Amerikako beste baztertuekin, beltzekin eta indioekin, estolderietatik hasi eta Empire Statearen gailurreraino. Harkaitz Cano

Lagunok, maitasun **zoramenezkoa** etortzen denean, giza egitateak alde egin beharko du. Joan Mari Lekuona

Ondoren maitasun estua dator, eta laugarrenik **zoramenezkoa**. Joan Mari Lekuona

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
> zoramena da (4)

---

# **zoramendu**[1] *iz* zoramena.

Hain biziki izutzen duen **zoramenduaren** aztarnak berarengan ere kausitu uste ditu batzuetan Xabier Montoia

---

# **zoramendu**[2], zoramen(du), zoramentzen du *ad* zoramena eragin.

Garay de Monglaveren "Altabiskarko Kanta" faltsifikazioa atmosfera horrek sortarazi du, alegia, gaur oraindik ere gure Gorte edo korta kazetero eta intelektuala **zoramentzen** darraien demokraziaren mitologia hori guztia, orduantxe larrosatu da Europan. Koldo Izagirre

---

# zorapide ik **zorabide**.

---

# **zorarazi**, zoraraz, zorarazten du *ad* zoratzera behartu.

Elenaren edertasunak **zorarazi** ez nintzan. Edorta Jimenez

Neure onetik ateratzen nauen bakea, **zorarazten** nauena. Javi Cillero

Diskoan eta kontzertuetan jarri ditugu orain geure buruak, gu zoratu eta publikoa **zorarazteko** izugarrizko gogoa baitugu. Berria - Kultura

---

# **zorarazle** *izond* zorarazten duena.

Horixe zen funtsezko bakarra eta horrixe behar lotu, boz ustez prestuaren itsas lamien kanta **zorarazle** orori sorgor. Aingeru Epaltza

---

# **zoratu**, zora(tu), zoratzen **1** da *ad* zoro bihurtu, zentzua edo burua galdu. ik **erotu**.

-Zahartu da eta **zoratu** da aitona Nikolas. Joan Mari Irigoien

Soldadu-aldraren buruak erotzeraino **zoratu** dira. Anjel Lertxundi

Hiru oren iraun dik eta **zoratu** nauk. Itxaro Borda

-Baina **zoratu** zara ala? Koldo Izagirre

Berlek abandonatu zuenean, guztiz **zoratu** zen. Koro Navarro

**Zoratzen** ari zarete, horrenbeste jan eta edan. Juan Kruz Igerabide
**Zoratu** egin naiz ala? Jose Morales
Odolarekin **zoratu** egiten da jendea. Koldo Izagirre
-Zure sortzetiko zoramena ez balitz, zure semea ez zen sekula **zoratuko**. Patxi Zubizarreta
Gerra igarleei: **zora** bitez! Elizen arteko biblia
Beste behin, sukaldariari gorte egiten saiatu zen, inondik ere emakumeaz **zoraturik**, baina ez zuen arrakastarik izan. Jose Morales
Azken hiru egunetan polizia **zoratu** beharrean ibili zen haren bila. Jose Morales
Madrilen, politikariak eta hizlariak **zoratu** beharrean ari ziren erretorika-ariketa ederretan. Koro Navarro
-Hi ere **zoratzen** hasita hago. Fernando Morillo
Villagrandeko dukea **zoraturik** geratu zela ene anaia Mattinek erakutsi zuen trebeziarekin. Joan Mari Irigoien
Han izpiritua hain eztiki **zoraturik** aurkitzen da, hain jainkotasunez erabat beterik eta blai eginik, Jainkoagan hain **zoraturik**, non batasunean galtzen baita bestelakotasun guztia. Joan Mari Lekuona
**Zoratuta** nago Louri begira, neure neska da, neure lilia. Koro Navarro
Gizon hark **zoratuta** bukatu omen zuen. Jon Maia
Mundu guztiak **zoraturik** zirudiela. Ramon Saizarbitoria
Diskoan eta kontzertuetan jarri ditugu orain geure buruak, gu **zoratu** eta publikoa zorarazteko izugarrizko gogoa baitugu **Zoratzeko** moduan jarri nintzen. Berria - Kultura
Hemengo buila **zoratzeko** modukoa duk. Pedro Alberdi
**Zoratzeko** puntuan egon zen, mataza haren hariari jarraitu ezinik. Jose Morales
**Zoratzekoa** izan zen. Edorta Jimenez
Denik-eta pertsona lasaiena **zoratzeraino** estutzen duen heriotzaren atariko [...] herio hura. Iñaki Segurola
Denak daude **zoratuta**: komunistak, faxistak, demokraziaren predikariak, idazleak, margolariak, elizgizonak, ateoak. Koro Navarro
Gosez erdi **zoratuta** nengoen. Anton Garikano

**2** (zaio aditz gisa)

**Zoratu** egin zaiela beren Euskal Herri hori, burutik eragin eta zeharo joan zaiela? Iñaki Segurola
Hasieran, inondik inora ezin zuela halakorik egin, **zoratu** egin ote zitzaion, bi ordu eman zituztela su-etenerako eta bat joana zela ordurako. Inazio Mujika Iraola

• **3** du *ad* zoro bihurtu, zentzua edo burua galarazi.

Bere meneko egiten gaituenean, aldiz, **zoratzen** da eta **zoratzen** gaitu. Joan Mari Irigoien
-Zarata horrek **zoratu** egiten nau. Juan Kruz Igerabide
Uztaitik bi metrora ez du saskiratzen, baina bere lanak jendea **zoratzen** du. Berria - Kirola
Ez ninduten **zoratzen** prerrafaelita horiek, baina zerbait bazuten erakargarria. Ramon Saizarbitoria
Andreen izuak **zoratzen** zuen. Karlos Zabala
Horrek itsutzen, **zoratzen** eta desesperatzen gaitu; horrek ateratzen gaitu geure onetik. Luis Elberdin
Ni **zoratu** nahi ninduen, esaterako; beste batzuen artean. Unai Elorriaga
Ken niregandik begi horiek, **zoratu** egiten naute. Elizen arteko biblia
Izuak **zoratu** egin ditik: gaizkilea eta espioia haizela ziotek. Jose Morales
Ni **zoratu** nahi ninduen, esaterako; beste batzuen artean. Unai Elorriaga
Lerro haien bidez Eugenia puntu hartaraino **zoratzea** lortu banuen, Victoriarengan ere eragina izan behar zuten. Ramon Saizarbitoria
Konturatu naizenez, pozez **zoratuko** zaituzten erantzunak prestatu zizkizuen Euklidesek. Jon Muñoz
Hau edozein **zoratzeko** modukoa da. Antton Olano
Kartzela presoa **zoratzeko** makina dela. Xabier Montoia
Aferak **zoratua** zela Ingeles polizia. Herria
Marinelek, ikarak **zoraturik**, kareletik botatzen zuten beren burua. Agustin Otsoa
Ero moduan hasi zen kantari, eguzkiak **zoratuta** bezala. Juan Kruz Igerabide
Aspaldian nago zure begiradak **zoratuta**! Paddy Rekalde
Itxaropenik gehiago ez izatea erabakita, joan egin zitzaidan hasieran **zoratuta** eduki ninduen izuaren parte handi bat. Koro Navarro

**4** ***zoratzen*** *adlag*

Chavez gustura, eta emakumea **zoratzen**. Pako Aristi
Bi helduen harridurak **zoratzen** zeukan Max. Jon Muñoz
**Zoratzen** hartu zuen lo Mireiak, bere hamar urterekin, Marco Polo izena gogoan. Pako Aristi
**Zoratzen** entzuten genituen haren kontuak. Arantxa Iturbe
**Zoratzen** hasteko puntuan egon beharko du Martin dotore portatu da ataka honetan. Koldo Izagirre
**Zoratzen** ibili gara, eta hango edozein argazkik balio zezakeen. Joxerra Garzia
**Zoratzen** egongo zen Léa: aurreneko loro matematikaria loro-emea zen! Jon Muñoz
Erleek **zoratzen** behar dute. Oskar Arana

**5** (era buruta izenondo gisa)

Edo hauxe da nire Euskal Herri fededuna, Abrahan **zoratuaren** fedea. Gero, Samen begi **zoratuen** aurretik, Elrond eta Galadriel iritsi ziren zaldiz. Joseba Zulaika
Ikara ematen ziotela txakur **zoratu** haiek. Bernardo Atxaga
Abiada hark egokiera eskaini zien zaldi **zoratuei** lehengo norabidean berriz jartzeko. Karlos Zabala
Jainkoaren botere eta maiestatearen lekuko **zoratuak**. Jon Alonso
**Zoratu** haien artean, bihotzeko mina ematen badit ere, aitortu beharra daukat Malatesta batalloiko zenbait lagun zetozela buru. Koldo Izagirre

**6** ***pozak zoratzen*** *(27 agerraldi, 10 liburu eta artikulu 1 ean)*

Ez zen bertan geratu, baizik eta **pozak zoratzen** bainutik atera eta, zegoen bezalaxe, joan omen zen biluzirik bere etxera. Santiago Iruretagoiena
Zutitu egin da, **pozak zoratzen** dago. Koldo Izagirre
-Zerk pentsarazi dizu -esaten zion Camillak- ni **pozak zoratzen** egoten naizela hemen, egun osoan etzanda? Mirentxu Larrañaga
Pozak **zoratzen** uzten gaituzten arrapostu horietako bat: "Gu ziegaz ziega bezala". Koldo Izagirre
Emakumea **pozak zoratzen** zeukan ezkongai izatearen egitasmoak. Mirentxu Larrañaga
Pentsatuko duzunez, **pozak zoratzen** gauzka gertakari zoriontsu horrek. Mirentxu Larrañaga
Konpainia bikainean negok, **pozak zoratzen**, barrez eta alai. Aitor Arana
**Pozak zoratzen**, urduri, zementuzko etzalekuan eseri zara, eta konbultsio bizi batek harrapatu zaitu. Rafa Egiguren

**7** ***pozez zoratzen*** *(70 agerraldi, 31 liburu eta 13 artikulutan)*

Saltoka hasi zen, **pozez zoratzen**. Julen Gabiria
Kantatu zuen, maitasunak ukitu dituen emakumeek ohi duten bezala, eta **pozez zoratzen**, dardaraz, erregeren bihotz gainera erori zen, haren ezpainen bila. Josu Zabaleta

Batzuk **pozez zoratzen**, besteak haserre bizian. Berria - Harian

-Ona! -esan zuen neskak, **pozez zoratzen**. Jose Morales

-Hik zer esan dion, bada? -galdetu zuen atsoak, zeharo asaldatua, **pozez zoratzen** bi emakumeak haserretu zirela jakinda. Karlos Zabala

Emakumeak **pozez zoratzen** hura entzundakoan. Berria - Euskal Herria

Nafarraren jokaldi bikain bakoitzean, jauntxoek eta karlistek txalo egiten zuten **pozez zoratzen**. Koro Navarro

Handik sei ordura, pasaportea eskuan neukan; **pozez zoratzen** nengoen. Juan Kruz Igerabide

Ukabilaz mehatxatuz, kargu hartu zien; **pozez zoratzen** zegoen, ordea, eta halaxe esan zien: [...]. Jon Muñoz

Txuspo **pozez zoratzen** etorri da etxera gaur gauean. Harkaitz Cano

0-2koarekin **pozez zoratzen** itzuli dira jokalariak eta Vila-realera joan ziren zaleak. Berria - Kirola

Riccardo Frizza zuzendari italiarra **pozez zoratzen** agertu zen bildutako interpretatzaile taldearekin: «Lehen mailako taldea dugu: munduko onentsuenak daude». Berria - Kultura

**8** ***zora-zora egin***

Portugaldarrak **zora-zora** eginda daude gaurko partidarekin, eta inor gutxik espero du galtzea. Berria - Kirola

Batera eta bestera mugitu zuen burua, berezkoa zeukan mugimendu bitxiarekin, eta '**zora-zora** eginda hago" esanez bezala. Fernando Morillo

Haurrak, berriz, **zora-zora** ez ezik txora-txora eginda dauzkate. Joxerra Garzia

**hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**

**zoratu arte** (5); **zoratu beharrean** (11); **zoratu zara** (3); **zoratuta egon** (5); **zoratuta nagoela** (5); **zoratuta zegoen** (6)

**zoratzear jartzen** (8); **zoratzeko moduan** (4); **zoratzeko modukoa** (8); **zoratzeko modukoa da** (3)

**pozak zoratzen** (27); **pozak zoratzen nago** (3); **pozak zoratzen zegoen** (3); **pozez zoratzen** (70); **pozez zoratzen jarri** (5); **pozez zoratzen zegoen** (14); **zoratzen ari** (6); **zoratzen dago** (3); **zoratzen egon** (4); **zoratzen egongo** (3); **zoratzen gaude** (4); **zoratzen geunden** (3); **zoratzen hasita** (3); **zoratzen jarri** (6); **zoratzen jarriko** (3); **zoratzen nago** (8); **zoratzen zegoen** (21); **zoratzen zegoen ruche** (3); **zoratzen zen** (3); **zoratzen zeuden** (3)

---

# zoratxoramen *iz adkor* zoramena.

Pentsa zenbaterainokoa den **zoratxoramena**, zakurra ere liluratuta daukate. Joxerra Garzia

---

# zoratzaile *izond* zoratzen duena.

Jakintsu **zoratzaile** hori edozein zarelarik ere, nire oi-ezinezko historia kondairatu beharko duzun horrek, ez al zaizu ahaztuko (arren eta arren desaizut) nire Rozinante zintzoa, nire bide eta lasterketan beti-betiko laguna. Patxi Ezkiaga

Liluratzaileen, **zoratzailerik** trebeenaren, soinua entzuten ez dutenen antzeko. Elizen arteko biblia

---

# zoratze *iz* zoro bihurtzea.

**Zoratze** hori, dirudienez, goietatik etorri zen. Iñaki Segurola

---

# zoratzear *adlag* zoratzeko zorian.

Ni ere pozik sentitzen nintzen -**zoratzear**, egia esateko- adierazpen harengatik. Ramon Saizarbitoria

Pozak **zoratzear** [...] haranetarantz abiatu zen maldan behera saltoka, arrapalada bizian. Xabier Mendiguren Elizegi

**Zoratzear** zegoela hartu zuen kotxea eta frenoa existituko ez balitz bezala gidatu. Xabier Mendiguren Elizegi

Gure larruazala plazeraren mezulariz josita dago, eta horiek **zoratzear** jartzen dira bi estimulu mekanikorekin, hau da, presioarekin eta bibrazioarekin. Luis Elberdin

**hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**

**zoratzear jartzen** (8)

---

# zordun **1** *izond* zor duena. ant **hartzekodun**.

Orduan langile **zordun** horrek etekina aterako dio inflazioari. Iñaki Heras

Arau inplizitu hori errespetatzen ez badu, estatu **zordunak** arrisku handi bat izaten du, alegia, hartzekoduna herrialde **zorduneko** barne-arazoetan sartzea. Koro Navarro

Estatu Batuek garapen-bideko herrialdeen lekua hartu zuten, beraz, munduko finantza-merkatuetako lehen gune **zordun** gisa. Koro Navarro

Estatu Batuek, munduko finantza-merkatuetan, lehen ardatz **zordun** gisa Latino Amerikaren lekua hartu izana [...]. Koro Navarro

Hartzekodunek eskaturiko ekonomia **zordunen** erreformaren tresna. Koro Navarro

**2** (predikatu gisa)

Fernando **zordun** da Azpeitiko alkatearengana zein markes jaunarengana. Markos Zapiain

Dirassar-ek bezala erran nezake: "Hogoi urteren buruan ere **zordun** gaude Etienne Salaberry-ren alderat". Herria

Beti izango nauk **zordun** hirekin, nola bandera haizearekin. Hasier Etxeberria

**Zordun** sentitzen zen Karlekin. Eider Rodriguez

Ordutik, Boezioren **zordun** da Erdi Aro osoa, hainbeste denboran eragingarriak izango ziren testuak itzultzeagatik. Askoren artean

Mosketariek miliziakoen **zordun** balira bezala jokatu dute oraingoan. Aingeru Epaltza

Katabuta ere -azken etxe-, geometriaren **zordun** da irudian, armiarma bezala. Felipe Juaristi

Jose Antonio Agirre eta Telesforo Monzonen ideologiak egokitu zitzaien inguruaren **zordun** dira. Berria - Kultura

**Zordun** bainuen anaia, eta haren zorra ez zen nik kitatzekoa, baina lehenbailehen koberatzekoa. Joan Mari Irigoien

Baina, ai, Patri, zurekin **zordun** nauzu. Hasier Etxeberria

Gonbitatu nautenei, **zordun** natzaie... -ez diru aldetik, baina haiek nire aldera agertu didaten estimua "itzuli" beharko diet-. Daniel Landart

Nire hobe beharrak eraman zuen Zuzendari txit agurgarria niri walkmana galaraztera, eta arestian esanda dago zein **zordun** natzaion. Anjel Lertxundi

Phips-ek dena galdu zuen, behartsu eta **zordun** bihurtu, eta etsaiak zelatan zeuzkan. Juan Garzia

Halatan, arau-hauslea **zordun** bilakatzen zen kaltetuarengana. Markos Zapiain

Ez zaitez egin fidatzaile zeure baliabideen gainetik; egiten bazara, jo zeure burua **zordun**. Elizen arteko biblia

**3** (adizlagun gisa)

Horretan, Joseba Agirreazkuenaga adiskidearekin **zordun** nago. Edorta Jimenez

Valentziatik atera zutenekin **zordun** geratu zen. Edorta Jimenez

Biziaren **zordun**, hain zuzen. Edorta Jimenez

**4** (izen gisa)

-Diru-mailegari batek bi **zordun** zituen: batak bostehun denario zor zizkion eta besteak berrogeita hamar. Auzitegiko funtzionarioa, **zordunak** atxilotzen dituena, kanpoan da zalgurdi batean zain. Elizen arteko biblia

Hartzekodunen eskaeren eta **zordunen** premien artean. Koro Navarro

**Zordunari** bost eguneko epea eman zaio borondatezko ordainketa egin dezan. Berria - Ekonomia

Ingalaterrako Gutun Nagusiak debekatu egiten du **zordun** baten lurrak edo errentak hartzea, haren ondasun higikorrak edo pertsonalak zorra kitatzeko aski direnean, eta **zordunak** eskaintzen baditu. Iñaki Iñurrieta

Estatuei dagokien zorra Pariseko Klubaren baitan birnegozia daiteke, bertan biltzen baitira, kasuz kasu, **zordunak** estatu hartzekodunekin edo merkataritza-kredituen estatu bermatzaileekin. Ekonomiari dagokionez, Latino Amerikako **zordun** handien barne-merkatuen murriztea kaltegarria gertatzen zitzaien estatubatuar esportazioei. Koro Navarro

**Zordun** nagusiak Errusia eta Hego Amerikako estatuak ziren. Koro Navarro

Kontratuen fede onak eta merkataritzaren segurtasunak legegilea behartu egiten dute hartzekoduna **zordun** iruzurgilearengandik babestera. Juan Martin Elexpuru

Babesleku haiek ugaldu egin ziren Grezian: tenpluak, dio Tazitok **zordun** kaudimengabez eta esklabo gaiztoz beteta zeuden. Iñaki Iñurrieta

**5** (hitz elkartuetan)

**Zordun** ospea daukagu banku batzuen erruagatik. Hala, maitale betiko, maitasun-**zordun** betiko bilakatu zen, lur zuriaren gainean. Berria - Ekonomia

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
> **gure zordunei barkatzen** (4); **herrialde zordunak** (3); **herrialde zordunek** (5); **herrialde zordunen** (6); **zordun da** (5); **zordun gisa** (4)

---

## **zordundu** *izond* zordun bihurtu dena.

Zorraren aldaketa publiko edo pribatuko programek bultzaturik -arindu egiten baitzituzten ordainketa-balantzen arazoak-, latino-amerikar ekonomia **zordunduenek** hiperinflazioa ezabatu ahal izan zuten, eta 1990eko hamarraldiaren hasieran modu ikusgarrian itzuli ziren kapitalen nazioarteko merkatuetara. Koro Navarro

---

## **zorduntze** *iz* zordun bihurtzea.

Hazkundea gehienbat kanpotik bultzatzen denean, lehengo estatus periferikora itzultzeko arriskua dute (kapitalek ihes egitea eta desindustrializazioa), baldin **zorduntze**-krisiren bat gertatzen bada, adibidez. Koro Navarro

Azken puntu horren bidez, 1970eko hamarraldian agertu zen "Hego-Hego" deritzan **zorduntze**-ekonomiaren [...] eta 1980ko hamarraldiko "Ipar-Ipar" **zorduntze**-ekonomiaren artean dagoen oposizioaren nolakotasuna zehatz daiteke. Koro Navarro

---

## **zorgabetze** *iz* zorrik gabe gertatu.

Fernando, **zorgabetzeak** dakarren pozaren aldarrikaria da: amezketarra izaki, eulia, eta euliak uda dakar. Markos Zapiain

---

## **zorgile** *izond* zorra egiten duena.

Benetako galtzaileak, bankuaren zuzendari diruzalea, jokalari **zorgilea**, pistolero profesionala izango ziren azkenerako, kale bakarra zuela ematen zuen Oklahoma hartan. Joseba Sarrionandia

---

## **zori** *(1719 agerraldi, 221 liburu eta 290 artikulutan; orobat* **zohi** *g.er.)* **1** *iz* gertaera on eta txarren iturburutzat hartzen den kausa zehaztugabea; zenbaiten ustean etorkizuna halabeharrez gidatzen duen ahalmena. ik **adu; patu; zorte**.

Bestelakoa du horrek patua, eta alderantzizkoa **zoria**. Jose Morales

**Zoria** kausa bat da, bere aburuz, zioak kontuan hartzen ez dituen kausa berezia, soilik jainkotasun batek gordeko balu bezala. Askoren artean

Batetik, beraz, *le hasard* edo ustekabea, **zoria**, kasualitatea; bestetik, *la nécessité,* beharra, ezinbestea, kausalitatea. Iñaki Segurola

**Zoriaren** geometria deitu zion Pascalek horri: geometriako frogen zorroztasuna **zoriaren** ziurtasunik ezarekin bat eginik! Jon Muñoz

**Zoria**? Jainkoa ez dabil dadoetan. Iñaki Segurola

Bordari jaiotzea meritu da (ez **zori**) haren ustez. Patziku Perurena

**Zoria** baldin badago, askatasuna ez da posible; aitzitik [...] askatasunik baldin bada, ez dago **zoririk**, esan nahi baita [...] gu geu garela **zoria**. Urtzi Urrutikoetxea

Horra gure lapurren **zoria**, gure harrapatzaileen azkena. Elizen arteko biblia

Hona hemen **zoria**! -esan zuen, Txitxikov zirikatze aldera kartak botatzen hasirik-. Jose Morales

Nik ere emandako **zori** bat bizi izan nuen. Urtzi Urrutikoetxea

Kalean ezpatak kenduko dizkie seme-alabak, etxe barruan ikara izango nagusi; denek izango dute **zori** bera, mutil eta neskatxek, bularreko haur eta agureek. Elizen arteko biblia

Zeure jokabide eta egintza txarrek **zori** horretara eraman zaituzte. Elizen arteko biblia

Mikel Strogoff telega bat hartu beharrean egongo zen, tarantas bat aurkitzeko **zoria** izan ez balu. Karlos Zabala

Urkatuak urrikaldu behar ditun gutaz, ez gu urkatuez, hiltzeko **zoria** izan baitute gutxienez! Iñigo Aranbarri

Gertakari historiko baten lekuko izateko **zoria** dugu. Txillardegi

Behaztopa egiten dute mezua onartu nahi ez dutelako: hori da ezarri zaien **zoria**. Elizen arteko biblia

Gure **zoria** onartu edo arbuiatu, madarikatu, onetsi, baztertu, deitoratu, irauli, bedeinkatu, goretsi, iraindu, kakaztu, gurtu dezakegu. Anjel Lertxundi

Bakoitzak bere **zoria** jasan behar du. Juan Kruz Igerabide

Bere **zoria** garbi ikusi eta beldurtu izan balitz bezala. Josu Zabaleta

Paranoia horrexek adiskidetzen du bere **zoriarekin**, neguak gizona etxearekin adiskidetzen zuen gisan. Iñaki Segurola

Urteetan zokoan egon arren, berriz hasi da gora egiten Appleren **zoria**. Berria - Gaiak

Beren **zoria** gainbehera doanean. Iñaki Mendiguren

Esku bakoitza baitzen beharrezko, arma bakoitza berealdiko, gerraren **zoria** batera edo bestera jokatzen zen 37 hartan. Xabier Mendiguren Elizegi

Eguraldia, **zoria** bera bezala, aldakorra da. Jon Alonso

**Zoria** alde badu, 10 edo 20 rupia irabaz litzake egunero. Gotzon Garate

**Zoria** aldekoa izan zuen, eta okela lehor pixka bat aurkitu zuen herriko etxe batean. Karlos Zabala

Neure burua amerikar askorekin alderatu eta benetan iruditzen zait **zoria** lagun izan dudala. Berria - Kultura

**Zoria** etsai izan zuen, ordea. Anjel Lertxundi

Mendietatik etorritako buhameak, ikuslerik inozoenei **zoria** iragartzen. Karlos Zabala

Badator eguna, neure herri honen, Israel eta Judaren, **zoria** aldatuko dudana. Elizen arteko biblia

Erran nion kale-lagunari oraino gazte zela eta **zoria** on bihurtzen dela azkenean. Piarres Aintziart

Dudazkoa da geroak nolako **zoria** ekarriko digun, azareak zer emango digun eta nolako azkena zain daukagun. Xabier Amuriza

**Zori** apur bat nahikoa zen, eta, **zoria** beren alde zutela baieztatzeko bezala, egun hartan ehizara joan zen inuitak bost erbi zuri ekarri zituen. J.M. Olaizola "Txiliku"

Hasierako kolpearen ondoren, onartu egin zuen agian **zori** apur batekin, eguzki, eskuila eta bentzinarekin, itxuroso behintzat geldituko zela trajea. Bego Montorio

Hitz hori, antzinako *az-zahr* hartatik datorrena, eta halabehar, espero ez den **zori**, ustekabe gaizto bezala itzul daitekeena, [...]. Bernardo Atxaga

Kapital txiki bat biltzen dute apurka-apurka, beren **zoria** besteen kontura ondurik. Jose Morales

**Zoriaren** gorabeherez mintzatu zen aurrena. Jose Morales

**Zoriaren** halabeharrez, akaso, ez zuen inork begiratu limusina barrura. Mirentxu Larrañaga

Hizkuntza horien eremua, **zoriaren** halabeharrez, latina hitz egiten zen eremu bera da, eta hizkuntza haietako bakoitza latinaren bilakaeraren ondorio bat baizik ez da. Isabel Arrigain

Programazioa, **zoriaren** zoriz, iragarle suertatu zen. Jon Muñoz

Gizakiek, ordea, esperantza handiak dituzte beren **zorian**. Iñaki Iñurrieta

*ik beherago* 8. Askoren artean

-Hi, hik sinesten al duk **zorian**? -galdetu zion Imanolek besteari. Fernando Morillo

## **2** (izenondo eta izenlagunekin)

**Zori** hutsez, lauko honetan jarri zituen begiak Ruche jaunak: [...]. **Zori** hutsezko kasu bat zatekeen hori, ez ohiko nabigazioa. Jon Muñoz

**Zori** handia izan zuen zeren lana aurkitzea oso zaila baitzegoen eta paper legalik gabe egonik oraindik okerrago. Iñaki Zabaleta

Askoz ere desiragarriagoa da haren **zori** ederra: senitartean bezala dago bere irudien erdian, eta, bitartean, lau haizeetara hedatzen da haren ospea. Jose Morales

Halako batean isilean, xuxurla moduan, labekada berri bat agertzen da auskalo zerk bultzatua (ondo egindako aurrelana, **zori** helezina, magia ukitutxoak...). Berria - Kultura

Argi zegoen hitzordu zehatz bat saihesteko ahalegina zela hura, eta argiago, elkar ikusteko aukera gehienez ere **zori** itsuaren esku uzten zuela. Ramon Saizarbitoria

**Zori** beldurgarria izango da zuena: madarikazioa, gaitzespena eta lotsagorria. Elizen arteko biblia

Gizon errugabe bat bere **zori** ikaragarritik salbatu duzu. Iñaki Mendiguren

Ken iezadazu bizia, arren, begiko banauzu bederen; eta ez dut neure **zori** beltza gehiago jasan beharrik izango. Elizen arteko biblia

Urruneko eltzea urrez, etxekoa lurrez, horra hire amaren ikuspuntu **zoribeltzekoa**! Patxi Zubizarreta

Brasil jaioterria atzean utzi zuenetik **zori** gogorra izan du Claudiak itsaso zabalaren alde honetan. Berria - Harian

Bai **zori** latza, bai zama astuna jasan behar dutena! Oskar Arana

Ezin zuen burutik kendu berarentzat prestatzen ari ziren **zori** ankerra. Jose Morales

Ezpataz hildakoek **zori** hobea izan zuten goseak hildakoek baino. Elizen arteko biblia

Lasai antzean uste dut esan litekeela badela edo izan litekeela munduan zoriontsu izatea baino **zori** hoberik. Iñaki Segurola

**Zori** hobekotzat jotzen ditut hilak biziak baino. Elizen arteko biblia

**Zori** etsaia madarikatu nuen une hartan zinerako dirua lapurtu izan balidate baino zakarrago. Anjel Lertxundi

**Zori** larrian jarriko zaituztete eta hil egingo; herri guztiek gorroto izango dizuete niregatik. Elizen arteko biblia

Geroago [...] nirekiko ulermen moduko bat hazi zitzaion, agian -bere ustez- bion gurasoek ere antzeko **zoria** bizi dutelako. Urtzi Urrutikoetxea

Solas entretenigarri bat entzuteko **zori** aldekoa izan dut. Anjel Lertxundi

Ez nazazu egin bekatarien **zori** bereko, ez nazazu bihur hiltzaileen kideko. Elizen arteko biblia

Egiaren arragoa gaizto hau antzinako legeria basatiaren monumentu bizia da, suaren eta ur-irakinaren frogei eta armen **zori** ezustekoari Jainkoaren epai deitzen zitzaion garaikoa. Juan Martin Elexpuru

Nire gela, zoritxarrez hain txikia, horren jaun ospetsu eta hezibide onekoarekin partekatzeko **zori** ezin hobea (--!) dudanez, [...]. Josu Zabaleta

## **3** (eragile gisa; orobat **Zoria**)

Noraezaren zentzua mundu osoa **Zoriak** -edo Halabeharrak, gauza bera baita- gobernatzen duen sentimenduari zor zaio. Iñaki Mendiguren

**Zoriak** aukeratzen du norako bakoitza, halabeharraren menpe dago erabaki bakoitza. Oskar Arana

*Fortuna audaces iuvat*, ausarten aldera egiten du **zoriak**. J.M. Olaizola "Txiliku"

Adurrak, edo menturak, edo **zoriak**, beste barik, nahi izan baitzuen hara iristekotan ginelarik ni neu joan nendin ontziko gabizain. Edorta Jimenez

Ez zitzaidan egokiera hori gertatu, **zoriak** hala nahi izan zuen, baina horrek ez ditu askorik arintzen nire orduko karga eta kargua. Anjel Lertxundi

Halakorik gertatuz gero, **zoriak** hala ekarririk gertatzen da, kapritxo bat bezala. Juan Garzia

Ematen zuen **zoriak** mundutik guztiz aparteko eremu batera bota ninduela. Anjel Lertxundi

**Zoriak** ematen dituen opari guztiak, emanda bezalaxe, kendu ere, oso erraz kentzen ditu. Santiago Iruretagoiena

**Zoriak**, ordea, joko itsusia egin zion eta, itsas irakinetan barna, portu gabeko bidaia luzera iraitzi. Gotzon Garate

Askotan **zoriak** bilakatzen du ametsa egia. Berria - Gaiak

Horiek ez ziren inoiz iritsi ezagunak izatera, eta ez trebetasunez edo talentuz gutxiago zirelako, baizik eta **Zoriak** huts egin zielako. Santiago Iruretagoiena

Libra gaitzala **zoriak** fikziozkoak ez diren Humpy Dumpty guztietatik. Joxerra Garzia

Garbi zegoen, begi-bistan: **zoriak** bizkarra ematen zion. J.M. Olaizola "Txiliku"

Lucyk, buru apurren bat badu, heriotza bera baino **zori** gaiztoagoak atzeman baino lehen alde egingo du. Oskar Arana

**Zori** gaitzak dena isiltasunean perlesiatu izan balu bezala. Aurelia Arkotxa

**Zoriaren** esku, labirinto batean dabil espiritua ahalegin etsian, mezu-zaparrada gaitz baten pean. Juan Garzia

## **4** (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

Aseguru [...]: Gaurko **zori** joko xelebrea, zeinean jokalariari pentsarazten zaion, lasaitzeko, jokozainari irabazten ahal diola. Xabier Olarra

Zazpitik zortzirako pasaerak, badirudi **zori** aldaera adierazten duela gure balada zaharretan. Patziku Perurena

Inoiz azaldu izan dut, gure literaturan zubia igarotzeak adierazten duen **zori** aldaera. Patziku Perurena

Aurkez dadila Eleazar apaizaren aurrean, eta honek kontsulta egingo dit hari buruz niri, Jaunari, **'Zori**-tresnak' erabiliz. Jose Antonio Mujika

## **5** (elkarketa kopulatiboetan)

Unea iritsirik, alferrik dira azti-igarpenak eta **zori**-asturuak. Juan Garzia

## **6** (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa)

Bere nortasuna hobekienik definitzen duena agirretarra izatea da; ez baita abizen-**zori** bat edo geografiaren gorabehera, izan ere, autoreak [...] esaten digunez, "agirretartasuna ez baitu sorlekuak ematen, baizik eta erorikoen minak". Pablo Sastre

Hil **zoria** jasatekoa zuela segur nintzen. Itxaro Borda

## **7** ik beherago **9.**

Aitaren aurka ezer egiterik ez zuenez, hark berak eman baitzion galtzeko **zori** zuen bizia. Felipe Juaristi

Zenbat eta bortitzago elkarrekiko bultzada, orduan eta indartsuagoa bien topo egitea, orduan eta arriskutsuagoa bidaia; eta itsasontzia, halakoetan, hondoratzeko **zori**. Felipe Juaristi

Nola hodei beltz batek lurra bigunduko, lurra beratuko duen euria gordetzen duen gizen eta leher- **zori** , halaxe tresna haiek ezkutatzen zuten musika, esku eta hatz jaioek hartu eta ferekatuko zituztelakoan. Felipe Juaristi

## 8 ***zorian*** *adlag* aditzak adierazten duena gertatu hurran delarik. ik beherago **14.**

Anai Agustin, orduan Lavoro lurraldean anaien ministro zena, hil **zorian** zegoen. Askoren artean

Anai Agustinek hil **zorian** izan zuen ikuskaria. Askoren artean

Handik gertu itsasora istripuz erori eta ito **zorian** zegoen neska baten oihuak ziren. Martin Anso

Camek ez zuen inoiz tirania heriotzeraino borrokatuko, pentsatu zuen garratz, haren aurpegiari begira, tristea, muturtua, etsi **zorian** . Anton Garikano

Bihotzaren taupadak sumatu nizkion, eta leher- **zorian** bularra. Juan Kruz Igerabide

Oihuka eman zion ongi etorria emakumeak, bihotza leher **zorian** gizonak; plazerrak hordiaraziak biak. Migel Angel Mintegi

-Leher- **zorian** nago -atzeratu zen Idoia postrearen ondoren, sabela igurtziz. Juan Kruz Igerabide

Lehertu **zorian** jartzen zen Yvan gaizoa, lurrean ostikoka, barreari ezin eutsirik. Joxan Elosegi

Erreka etxe zolan isurtzen zen eta, gauez loak har **zorian** zegoela, uraren burrunba elkorra entzun zezakeen. Itxaro Borda

Herria zapalduta, itota, desagertze **zorian** ikusita, herri horren alde jokatzeko prest azaldu zen gazteria sail zabala. Koldo Zuazo

Desagertze **zorian** diren guaiakoen eta ornitorrinko mokourdinen babesle naizen aldetik. Iñigo Aranbarri

Komunitate koxkorra [...] dagoeneko zenbait lurraldetan hizkuntzaren biziberritzea galtze- **zorian** daukana. J. Garzia / A. Egaña / J. Sarasua

· Negar **zorian** zegoen Agata. Itxaro Borda

-Garbi hitz egizu, erotuko naiz bestela! -esan nion negarraren **zorian** . Anjel Lertxundi

## 9 (-tzeko atzikiaren eskuinean)

Lehertzeko **zorian** zeukan burua. Jon Muñoz

Lehertzeko **zorian** zeuzkan lokietako zain txikiak. Anjel Lertxundi

Egun batean, uzta guztia erreta galtzeko **zorian** zeukan batean, aitonak, Aixarekin ohean baitzegoen, ez zuen jaiki nahi izan, bien arteko zoriontasuna ez eteteko. Juan Kruz Igerabide

"Baina nahi gabe izan da", esan zuen Sebastianek negarrez hasteko **zorian** . Bernardo Atxaga

Txorimalo bat bezala erori nintzen mahai-ilaren artera, erabat zorabiaturik, konortea galtzeko **zorian** . Juan Kruz Igerabide

Erotzeko **zorian** , atrakatze-lanetan laguntzen aritutako zirgari herrena ezagutu zuen. Anjel Lertxundi

Behia, berriz, ume egiteko **zorian** jarri zen. Anjel Lertxundi

Haren borondatea bizia zen eta tematia, eta haren lasaitasuna asaldakaitza, baita gizon bat etsia hartzeko **zorian** edo odolak irakin beharrean jarriko zuten egoeretan ere. Karlos Zabala

Bietako inork ez zuen atzera egiten, ekin eta ekin, leher egiteko **zorian** . Juan Kruz Igerabide

Urte horretan munduak harriturik ikusi zuen Harrisburg hirian, Estatu Batuetan, lantegi nuklear bat lehertzeko **zorian** gelditu zela. Pello Salaburu

Alcide Jolivet, aldiz, haserre bizi hura ikusirik, barrez lehertzeko **zorian** zen. Karlos Zabala

Selaurua ideki dutelarik ohartu dira teilatuko bizkar zura arraildurik teilatua erortzeko **zorian** zela. Herria

Hauek salatu zuten nolako giro deitoragarria zen Dachau-ko kontzentrazio zelaian eta nola denak suntsituak izaiteko **zorian** ginen. Michel Oronoz

-A!, egia, ez hinduen biziki maite -esan zuen Quenuk marmarrean, azken indarrak ahitzeko **zorian** . Karlos Zabala

Porrot egin du United eta egiteko **zorian** dago Delta Airlines. Berria - Ekonomia

Etsitzeko **zorian** dago: bezeroek ezin diote mezurik bidali posta elektronikoak gainezka egin duelako Neskak bidalitako mezu iraingarriekin. Antton Olano

Erotzeko **zorian** egon nintzen. Juan Kruz Igerabide

Bi begiratoki zeuden, aurrez aurre, behera erortzeko **zorian** biak. Jose Morales

Elizatxoa zaharraren zaharraz lur jotzeko **zorian** zegoen. Berria - Kultura

Desagertzeko **zorian** dagoen espezie baten ohiko dinamika du bisoiak. Berria - Euskal Herria

Galtzeko **zorian** dagoen espezietzat jo berri da bisoia. Berria - Euskal Herria

Hi galtzeko **zorian** nagon. Eskarne Mujika

Dena galtzeko **zorian** zaudenean, azaleko gauzek ez dutela merezi. Berria - Harian

Ia hiltzeko **zorian** nengoen, gosez. Gotzon Garate

Doina Elvira emazteak, baztangak jota hiltzeko **zorian** zegoela, deitu senarra ohera, eta hala esan omen zioan belarrira ahopez: [...]. Patziku Perurena

Lehertzeko **zorian** banengoen ere, patxadaz hitz egiten saiatu nintzen. Anjel Lertxundi

Hiruzpalau aldiz frantses jendarmeen atzaparretan erortzeko **zorian** egon duk. Txillardegi

Ron erantzuteko **zorian** zegoela, Lupin maisua mugitu egin zen. Iñaki Mendiguren

Trinko-trinko zeuden, kondentsatzeko **zorian** . Karlos Zabala

## 10 ***zori gaitz*** zorte txarra. ik **zorigaitz.**

Hirua, zazpia, hamabia, eta horiek gainditzeak, badirudi, zori aldaera eta maiz **zori gaitza** dakarrela. Patziku Perurena

**Zori gaitzak** dena isiltasunean perlesiatu izan balu bezala. Aurelia Arkotxa

**Zori gaitzagorik** ! Patziku Perurena

## 11 ***zori gaizto*** zorte txarra. ik **zorigaizto.**

Bitarte horretan zintzo jarraitu zion bere kontzientziari, bere **zori gaiztoa** hortik iritsi bazitzaion ere. J.M. Olaizola "Txiliku"

Gautximeletak [...] arima erratua, deabrua, infernukoa, **zori gaiztoa** , heriotza adierazi izan du. *Ánimas* ontziaren zoria, oso **zori gaiztoa** berak entzuna zuenez, hango oholen artean egindako bekatuen zigorra zela. Patziku Perurena

Kaletarrak ere euskaldun gera, batzuek beintzat, ta **zori gaiztoz** edo zori onez, kaletarrok gero ta geiago gallentzen ari. Koldo Zuazo

Abadeak halaxe esan zidan, eta Filiperen Armada azkenean Ingalaterrara joan eta handik **zori gaiztoan** itzuli behar izanez gero,oi orduan! Edorta Jimenez

Lucyk, buru apurren bat badu, heriotza bera baino **zori gaiztoagoak** atzeman baino lehen alde egingo du. Oskar Arana

## 12 ***zori on*** *(orobat **zorion**)* zorte ona. ik **zorion.**

Beren erlijio-fedearen aitorpenean akasgabeak izateko argitasuna edota **zori ona** izan zutenean. Iñaki Mendiguren

Bada **zori ona** sortzen duen gauzakiarentzako izena: kutuna, talismana. Berria - Kultura

Beharbada ez duk oso **zori onik** izan nirekin izan dituan tratuetan. Josu Zabaleta

**Zori onak** hala nahirik gertatu zen azken idunekoa orain gauez Cosmic Diner-eko kutxa erregistratzailean lo egiten zuen beste haren berdin-berdina izatea. Oskar Arana

Profeta guztiak aho batez **zori ona** iragartzen ari zaizkio erregeari. Elizen arteko biblia

-Berriro ikusi arte -esan zien ahul Trelawney andereñoak-, **zori onak** lagun zaitzatela! Iñaki Mendiguren

Maiz zoria, **zori ona** , gogoratzen du Platonek, kontingentzia zoriontsu bat. Askoren artean

**Zori onekoa** naiz Somervell jauna bi aldiz lankide izan dudalako. Iñaki Mendiguren

**Zori onekoa** da gizonentzat halako egoeran egotea. Iñaki Iñurrieta

Gizakiak, **zori onez** edo gaitzez, ezin sentitu edo gozatu dezake deus, sinetsiz ez bada. Patziku Perurena

Esalege horrek, dominstikua berez **zori onaren** edo gaitzaren adierazle izan zitekeela erakusten digu. Patziku Perurena

Ondorenak erakutsi zuen merkataritza eta kultura politika baino garrantzitsuagoak izan daitezkeela hizkuntza baten **zori onerako** . Iñaki Mendiguren

Ez izan bekatariaren **zori onaren** inbidiarik, ez baitakizu zein izango den haren azkena. Elizen arteko biblia

Nik, nire bekatuen erruz, edo nire **zorionez**, hor nonbait erraldoiren bat aurkitzen badut, [...]. Patxi Ezkiaga

Horrela irten zen Tobias Raguelen etxetik, alai eta pozik, zeruko eta lurreko Jauna [...] goretsiz, bidaia **zorionez** bururatzea eman ziolako. Jose Antonio Mujika

## 13 *zori txar* *(orobat* ***zoritxar*** *g.er.)* zorte txarra. ik **zoritxar.**

Batzuetan uste izaten da larrialdi gaitz bat dela infekzioa, zikinarekin edo gaitzarekin kontaktuan egonda edo ezin esplikatuzko **zori txar** batek eraginda sortzen dena. Irene Aldasoro

Emakumearekin ezin bat egitea erabaki duen **zori txar** hori gainditzeko aukera azken ipuinean zabaltzen da soilik. Markos Zapiain

**Zori txarrean** ona nahi dut, onean txarra dut beldur. Imanol Unzurrunzaga

Gizonak gainetik kendu ezin duen eta beti **zori txarrera** eramango duen patu gaiztoaren etsimen geroz eta argiagoa. Josu Zabaleta

**Zoritxarra** besterik ematen ez dion jendearekin elkartzen da. Bernardo Atxaga

## 14 *zori-zorian* ik beherago **8.**

Herria matxinadarako **zori-zorian** zegoen; zer edo zerk, ordea, huts egiten zuen beti: biltzarrekoen artean traidoreren bat bazen. Juan Garzia

Karlos Setimo bera ere bertan erortzeko **zori-zorian** egon zen. Txillardegi

Ez zuen berriz ikusi, orobat, senartzat hartzeko **zori-zorian** egona zen instrukzioko epaile gaztea. Jon Muñoz

Apaiz jauna ere mekaguendioska jartzeko **zori-zorian**, hor nonbait! Karlos Linazasoro

**hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**

**bere zori** (3); **zori aldaera** (3); **zori bera** (6); **zori bera izango** (4); **zori gaiztoa** (3); **zori hobea** (4); **zori hutsez** (6); **zori on** (5); **zori ona** (14); **zori ona izan** (3); **zori onak** (3); **zori oneko** (3); **zori onekoa** (3); **zori onez** (3); **zori txar** (3); **zori zorian** (5)

**aurkitzeko zoria** (4); **bere zoria** (11); **beren zoria** (5); **gizagaixoak bere zoria** (3); **gure zoria** (4); **haien zoria** (3); **haren zoria** (5); **herriaren zoria** (8); **herriaren zoria aldatuko** (5); **ikusteko zoria** (5); **izateko zoria** (6); **nire zoria** (5)

**zoria aldatuko** (15); **zoria aldatuko dut** (10); **zoria aldatzeko** (3); **zoria alde** (3); **zoria izan** (15); **zoria izan zuen** (5); **zoria izango** (3); **zoria lagun** (4); **zuen zoria** (3); **zure zoria** (3)

**abiatzeko zorian** (4); **ahazteko zorian** (3); **aldatzeko zorian** (3); **alde egiteko zorian** (3); **alditxartzeko zorian** (3); **amaitzeko zorian** (5); **apurtzeko zorian** (4); **ateratzeko zorian** (12)

**barrez lehertzeko zorian** (11); **bat egiteko zorian** (3); **betetzeko zorian** (4); **bidaltzeko zorian** (3); **bihotza lehertzeko zorian** (7); **bihurtzeko zorian** (15); **bilakatzeko zorian** (3); **botatzeko zorian** (7); **bukatzeko zorian** (11); **burua lehertzeko zorian** (5)

**desagertzeko zorian** (27); **desagertzeko zorian dago** (4); **desagertzeko zorian dauden** (4); **desegiteko zorian** (3)

**egiteko zorian** (72); **egiteko zorian dago** (7); **egiteko zorian egon** (14); **egiteko zorian gaude** (3); **egiteko zorian zegoela** (3); **egiteko zorian zegoen** (5); **emateko zorian** (10); **emateko zorian egon** (5); **erortzeko zorian** (52); **erortzeko zorian egon** (6); **erortzeko zorian zegoen** (7); **erortzeko zorian zeudela** (3); **erotzeko zorian** (15); **esateko zorian** (18); **esateko zorian egon** (10); **eteteko zorian** (4); **ezkontzeko zorian** (3); **ezustekoa emateko zorian** (3)

**gabe gelditzeko zorian** (3); **gainditzeko zorian** (3); **gainezka egiteko zorian** (12); **galtzeko zorian** (78); **galtzeko zorian dagoen** (4); **galtzeko zorian dauden** (7); **galtzeko zorian diren** (8); **galtzeko zorian egon** (9); **gelditzeko zorian** (4); **geratzeko zorian** (4); **gertatzeko zorian** (6); **goseak hiltzeko zorian** (4)

**harrapatzeko zorian** (4); **hartzeko zorian** (17); **hartzeko zorian egon** (3); **hasteko zorian** (37); **hasteko zorian nengoen** (4); **hasteko zorian zegoela** (3); **hasteko zorian zegoen** (8); **haurra izateko zorian** (5); **hausteko zorian** (7); **helburua lortzeko zorian** (3); **hil zorian** (45); **hil zorian zegoen** (5); **hil zorian zen** (5); **hiltzeko zorian** (66); **hiltzeko zorian egon** (10); **hiltzeko zorian nago** (5); **hiltzeko zorian zegoela** (5); **hondatzeko zorian** (4); **hondoratzeko zorian** (9)

**igarotzeko zorian** (3); **ikusteko zorian** (4); **irabazteko zorian** (13); **irabazteko zorian egon** (7); **irabazteko zorian izan** (4); **irensteko zorian** (5); **iristeko zorian** (3); **irteteko zorian** (20); **irteteko zorian zegoela** (3); **isurtzeko zorian** (5); **itotzeko zorian** (21); **itotzeko zorian egon** (5); **itotzeko zorian zegoen** (3); **itzultzeko zorian** (3); **ixteko zorian** (7); **ixteko zorian zen** (3); **izateko zorian** (24); **izateko zorian egon** (4); **izateko zorian zeudela** (3)

**jaisteko zorian** (3); **jausteko zorian** (4); **joateko zorian** (10); **jotzeko zorian** (18); **jotzeko zorian zegoela** (5); **jotzeko zorian zegoen** (3)

**konortea galtzeko zorian** (6); **kordea galtzeko zorian** (9)

**leher egiteko zorian** (5); **leher zorian** (7); **lehertu zorian** (3); **lehertzeko zorian** (80); **lehertzeko zorian jarri** (4); **lehertzeko zorian nengoen** (3); **lehertzeko zorian neukan** (3); **lehertzeko zorian zegoela** (3); **lehertzeko zorian zegoen** (6); **lortzeko zorian** (20); **lortzeko zorian egon** (7); **lortzeko zorian izan** (7); **lur jotzeko zorian** (7)

**negar egiteko zorian** (12); **negar zorian** (7); **negarrez hasteko zorian** (20)

**ontzia lehertzeko zorian** (3)

**porrot egiteko zorian** (4)

**sailkatzeko zorian** (4); **sartzeko zorian** (14); **sartzeko zorian egon** (4)

**urte betetzeko zorian** (3); **uzteko zorian** (15); **uzteko zorian egon** (3)

**zabaltzeko zorian** (3); **zorabiatzeko zorian** (7)

**zorian aurkitzen** (3); **zorian baitzegoen** (3); **zorian balego** (4); **zorian balego bezala** (4); **zorian bizi** (3); **zorian da** (8); **zorian dago** (29); **zorian dagoela** (12); **zorian dagoen** (20); **zorian dagoenaren** (3); **zorian dagoenean** (3); **zorian daude** (12); **zorian daudela** (4); **zorian dauden** (16); **zorian dauden animalien** (3); **zorian daukat** (3); **zorian delarik** (4); **zorian den** (8); **zorian dira** (5); **zorian diren** (10); **zorian direnen** (3)

**zorian egon** (146); **zorian egon baitzen** (8); **zorian egon da** (6); **zorian egon gara** (3); **zorian egon naiz** (3); **zorian egon nintzen** (19); **zorian egon zela** (3); **zorian egon zen** (61); **zorian egon ziren** (5); **zorian egona** (3); **zorian egongo** (5); **zorian ematen** (4); **zorian ematen zuen** (4); **zorian ere** (10); **zorian ere egon** (4); **zorian ere izan** (3)

**zorian gaude** (5)

**zorian ikusi** (3); **zorian izan** (49); **zorian izan da** (4); **zorian izan nintzen** (4); **zorian izan zen** (17); **zorian izan ziren** (8)

**zorian jarri** (14); **zorian jarri zen** (4); **zorian jarriz** (3); **zorian jartzen** (7)

**zorian nago** (13); **zorian nagoela** (4); **zorian nengoela** (7); **zorian nengoen** (12); **zorian neukan** (3); **zorian nituen** (3)

**zorian ote** (3)

**zorian sentitu** (3); **zorian sentitzen** (4)

**zorian utzi** (5)

**zorian zaude** (4); **zorian zaudenean** (4); **zorian zegoela** (50); **zorian zegoela ematen** (3); **zorian zegoela ikusirik** (3); **zorian zegoelako** (3); **zorian zegoen** (73); **zorian zegoen eta** (3); **zorian zegoenean** (4); **zorian zela** (9); **zorian zen** (18); **zorian zeudela** (10); **zorian zeuden** (14); **zorian zeudenean** (4); **zorian zeukan** (6); **zorian zeuzkan** (3); **zorian ziren** (4)

**zuloetatik irteteko zorian** (3)

**zoriaren arabera** (3); **zoriaren gauza izan** (3); **zoriaren halabeharrez** (6); **zoriaren ondorio** (3)

**bere zoriari** (3)

**hil zoriko** (4)

**zoririk ez** (10)

**zoriz aukeratutako** (3)

---

# zoribeltzeko ik **zori 2.**

---

# zorigabe *izond/iz* zoririk ez duena. ik **zorigaizto 6; dohakabe.**

Ilunabarra etorri eta entzunaldiak bukatzean, enperadore **zorigabea** [...] aulkitik jaiki eta bere apartamentu pribatuetarantz abiatzen zen. Iñaki Mendiguren

Gizakia ezin da aldi berean zoriontsu eta **zorigabeko** izan. Imanol Unzurrunzaga

Hantxe jarraitzen zuen **mutil** zorigabeak, itzal bat zeukala bizkarrean. Koro Navarro

Nire bizitzaren zentzu tragikoa hori zen: gazte zital baten biktima **zorigabea** izatea. Matías Múgica

Multzo **zorigabe** nagusi horien guztien gainetik, esan zitekeen [...] barne-proletalgo bat zegoela. Iñaki Mendiguren

Aldi berean zoriontsu eta **zorigabe** nintzen. Matías Múgica

Baina zuk beti pentsatu duzu zure alaba **zorigabeko** dontsu bat dela. Anjel Lertxundi

Gizakia ezin da aldi berean zoriontsu eta **zorigabeko** izan. Imanol Unzurrunzaga
Hormazko geruza gogortuaren azpian hondoratuko ziren, eta **zorigabeko** haiek beste aterperik ez zuten izango izotz puskak berak baino. Karlos Zabala

# zorigabetsu *izond*

Badira olato **zorigabetsuak**. Herria

# zorigaitz *(815 agerraldi, 128 liburu eta 166 artikulutan)* 1 *iz* zoritxarra. ik **zori 10**.

Ene izaite guztia inarrosiz, bospasei segundoz, bozkarioak **zorigaitzari** gaina hartu zion! Daniel Landart
Zeruko zorion osoaz eta infernuko gizakiaren **zorigaitz** osoaz. Piarres Xarriton
**Zorigaitza** zorion bihurtzen zaio, eta oinazea maitasun. Joan Mari Lekuona
Bekaiztiari deus ez zaio atseginagorik besteen **zorigaitza** baino, eta deus ez zaio jasangaitzagorik besteen zoriona baino. Piarres Xarriton
Begien aurretik pasatzen zirenengan gizartearen kontrasteak zekuskien, zoriontasuna eta **zorigaitza** islatuak, aberastasuna eta miseria. Migel Angel Mintegi
Izen garbi jakinen eremuan, jaun-andreok, zoriontasuna ez dena **zorigaitza** da, eta tristura. Iñaki Segurola
Emakume batentzat edertasuna **zorigaitza** izan daiteke batzuetan, batez ere Aurora bezalako emakume gaztea bazara. Oskar Arana
**Zorigaitza** berehalaxe etorriko zaiela. Xabier Kintana
Jasan behar ote dut, bada, nire herritarren gainera datorren **zorigaitza** ikustea? Jose Antonio Mujika
Eta, hara non, ni zoriontasunean nengoela, **zorigaitza**, erasokor, inguruka zebilkidan. Patxi Zubizarreta
Jabetu nintzen orduan ezinezkoa dela hain pasibo izatea **zorigaitza** edota heriotza hain hurbil dagoenean. Karlos Linazasoro
Hirian hainbat **zorigaitz** gertatu duk, Merry. Agustin Otsoa
Behin berriro konbentzitu nintzen ezen herri madarikatu honetan **zorigaitza** zelatan dagoela, noiznahi eraso egiteko pronto. Patxi Zubizarreta
Inolako **zorigaitzik** opa ez bazioten ere, haren egoera zinez larria izatea espero zuten. Mirentxu Larrañaga
-**Zorigaitzari** maitasunez egiten zaio aurre: garaipena eskuratu, eta bozkarioa itzuliko digu. Patxi Zubizarreta
Ona txarraz ordaintzen duenak ez du inoiz **zorigaitza** etxetik botako. Elizen arteko biblia
**Zorigaitza** zekarren bele bat zen, haren presentziak airea kutsatzen zuen. Elena Touyarou
Heldu zen azkenik nire **zorigaitza** ekarri behar zuen eguna. Jon Muñoz
Desohorea ere jasan behar nuen?, nire alabak ere **zorigaitza** ekarri behar zidan? Fernando Rey
Noiz arte jardun behar digu gizon horrek **zorigaitza** sortzen? Elizen arteko biblia
Hirian hainbat **zorigaitz** gertatu duk, Merry. Agustin Otsoa
**Zorigaitz** honek 100 zauritu ere eragin ditu. Berria - Mundua
**Zorigaitzak** jota nago, eta ez dakit zergatik. Koro Navarro
Abiadura Handiko bizimodura itzuli beharraren **zorigaitzak** harrapatuko zintuela pentsatze hutsak nekea eragiten zizun. Hasier Etxeberria
**Zorigaitzak** emakume ederrenei ere eransten dien patetismo puntu horrekin. Joxean Agirre
Horiek guztiak itxaropen ezainak zirela, hurkoaren **zorigaitzez** doilorki baliatzea bailitzateke. Juan Garzia
Begiak nahigabez lausotuak ditut, horrenbeste **zorigaitzez** ahulduak. Elizen arteko biblia
Ez naiz ni Israeli **zorigaitza** dakarkiona. Elizen arteko biblia
Ez nuen aldez aurretik ikusten horrek zekarkidakeen **zorigaitza**. Jon Muñoz
Baina zein asturugaitzez egintza laudagarri bakoitza bihurtzen zait bertze **zorigaitz** baten seinale? Jon Muñoz
Ez da inor ere bizirik gelditukо, bidaliko diedan **zorigaitzak** jotzean. Elizen arteko biblia
Euskal Herriak mina eragiten zion, galtzen ari zen urte eder haiek ikusteak **zorigaitzera** zeraman. Pako Aristi
**Zorigaitzera** eraman dik gurekin topo egin izanak! Karlos Zabala
Nire **zorigaitzerako**, korridorearen hondoan azaltzen ikusi nuen. Ramon Saizarbitoria
Zure **zorigaitzean** kontsolamendurik eduki nahi baduzu ahaztu itzazu zu baino hobeto daudenak. Joan Mari Lekuona
Hansek, ostera, **zorigaitzean** eta atsekabean hazitakoaren irribarrea bueltatzen ei zion. Hasier Etxeberria
**Zorigaitzaren** tolesduretan ezkutatzen da zoriona, hala nola harribitxia meatzearen arrailduran. Patxi Zubizarreta

## 2 (izenondo eta izenlagunekin)

Herri honi **zorigaitz** handi hau bidali diodan bezala, hala bidaliko dizkiot agindu dizkiodan on guztiak ere. Elizen arteko biblia
Haren herriak bizi duen **zorigaitz** nagusia errusiarren ideien menpe egotea dela gogoratu zuen. Berria - Kultura
**Zorigaitz** beltzak jota nagoelako ari nauk une honetan opilak jaten. Antton Olano
**Zorigaitz** itsu baten itzal hormatuak bazter guziak estaliak, zerua hustu balitz bezala eta lur guzia suntsitu. Janbattitt Dirassar
Izan ere, **zorigaitz** gogorra zuten gainean. Elizen arteko biblia
Halako munduan, indar hutsarena zen zuzenbidea, eta sufrimendu eta **zorigaitz** gordinaren erasopean bizi behar zuten gizakiek. Juan Garzia
Desohorea **zorigaitzik** handiena baitzen, eta ahulezia deliturik handiena. Iñaki Iñurrieta
Menturaz **zorigaitzik** handienaren bezperan nago! Jon Muñoz
Gorroto burrunba isil hark **zorigaitz** zehazgabe bat iragartzen zuen. Karlos Zabala
**Zorigaitz** osoa eta perfektua, ordea, ez da besterik, Jainkoa ezin ikustea, ezin maitatzea eta ezin gozatzea baizik. Piarres Xarriton
Bere haurretatik hiru galtzeko **zorigaitz** izugarria nozitu zuen. Berria - Kultura
Euskal herrietan Ezin-izaki horri gertatu zaion **zorigaitz** ikaragarriena baita bi izen dituela! Iñaki Segurola
Iluntasuna eta oraindik etorriko zaizkigun **zorigaitz** okerragoak ere areagotzen diren heinean. Agustin Otsoa
Bigarrenari, berriz, momentuko **zorigaitzaren** itsumenak gerokoa lausotzen dio. Juan Martin Elexpuru
Ustekabeko **zorigaitza** izan ezean, 2000. urteak ere berri onak emango dizkie errenta aldakorreko merkatuei. Iñaki Heras
Nola baita ere egiazko gaitza eta itxurazko gaitza egiazko gaitza ez dena, gisa berean, bada, itxurazko **zorigaitza**, egiazkoa ez dena. Piarres Xarriton
Izan ere, sardina lata irekitzea ate bat zabaltzea bezala baitzen, ohiko giro itogarria utzi eta **zorigaitz** agerikoaren lasaitasunean kokatzea. Ramon Saizarbitoria

## 3 (pluralean)

Estatuak eskatzen du ordena hori finkoa izan dadila, despotismoan gertatzen diren **zorigaitzak** gerta ez daitezen. Iñaki Iñurrieta
**Zorigaitz** horiek guztiak gorabehera, ondo zebilkion burua Girolamori; ondo baino hobeto, zera. Jon Muñoz
Esku guantedunak zeru aldera altxatuta, bere **zorigaitzak** kontatzen zizkion. Fernando Rey
Era berean, Hark gizonengana erakusten dituen egintzetan **zorigaitz** handiak aurkitzen ditugu. Xabier Kintana
Ortzia eror ez dadin edo beste **zorigaitz** batzuetarik begiratuak izateko. Daniel Landart
Justine edo bertutearen **zorigaitzak**. Juan Martin Elexpuru / Bego Montorio
Zein erraz egin nintzakezun zoriontsu -irriño bat, xera bat-, eta zein aise kondenatzen ninduzun desesperantzaren **zorigaitzetara**! Xabier Mendiguren Elizegi

## 4 (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

Ezin izango dute handik lepoa atera, ez eta burua tente ibili ere, **zorigaitz** -egunak izango baitira. Elizen arteko biblia

ELB sindikatuak joan den uztailaren 27an prefetari gutun bat bidali zion eskatuz departamendu osoa «laborantzako **zorigaitz** gune» izendatzeko. Berria - Euskal Herria

Berri ez dakit pozgarri edo **zorigaitz** -iragarle hura ekarri zuen telegrama larunbatean heldu zen, eguerdi aldera. Ander Irizar

**5** (izenondo gisa)

Haren kontra presentatzen den Stoiber jaunak zion arras ondorio **zorigaitzak** dituela gobernuaren politikak. Herria

Ene soziabilitate naturala zauritua izan zen, ene zortzi urteetarik hamar urteak arte, haurtzaroko urte **zorigaitzenak** Baigorriko Saint Joseph ikastetxean iragan izan bainituen. Ana Urkiza

**6** ***zorigaitzeko*** *izlag* zoritxarrekoa.

Horrelaxe jokatzen zuen Mikel Strogoffek ere bere **zorigaitzeko** lagunekin. Karlos Zabala

**Zorigaitzeko** amodio batek abaildua, bertze kontsolamendurik ez nuen zu ikustea baizik. Jon Muñoz

Berari eta bere **zorigaitzeko** fruituari ziur-ziur itxaroten dien miseria. Juan Martin Elexpuru

**Zorigaitzeko** halabeharrak eraman zuen harenganaino. Agustin Otsoa

Ene arreba hilik jaio baitzen, **zorigaitzeko** 1572ko San Bartolome egunean. Edorta Jimenez

Gogoan diat bere desgrazia gertatu zitzaion egun **zorigaitzekoa** . Juan Garzia

Valmont jaunaren ikustaldi **zorigaitzekoa** . Jon Muñoz

Baliteke estatu **zorigaitzekoren** bat beste herrialdeetan diren salerosgaiez gabetuta egotea. Iñaki Iñurrieta

Ez da izan gerra **zorigaitzekoagorik** . Iñaki Iñurrieta

Ni neu ere egoera luze eta **zorigaitzekoan** bizi beharrean izango naiz. Juan Martin Elexpuru

Whittaker andrearen adeitasunezko jokamolde jasanbera hura ez zen mugatzen soilik beraren ahaide **zorigaitzekoenengana** . Mirentxu Larrañaga

Bazekien heriotzak eragindako tristura ez dela lurreko ilusiorik txarrena baino, zeren hilak utzia baitzion **zorigaitzeko** izateari eta sufritzeari. Juan Garzia

Zure ama gajoa oso **zorigaitzeko** sentitu zen zu trenean utzi eta hoteleko gela hutsera itzuli zenean. Lopez de Arana

Zorionekoak **zorigaitzekoari** begiratzeko moduan agertzen duen gehiagotasunak, edo behekoak goikoari dion bekaitzak ezin dute eraginik izan epaiketa batean. Juan Martin Elexpuru

Jainkoa **zorigaitzekoen** babesa denez, [...]. Iñaki Iñurrieta

**Zorigaitzekoak** gu! Josu Zabaleta

**Zorigaitzekoa** gizona! Josu Zabaleta

**7** ***zorigaitzez*** *adlag* zoritxarrez.

Baina, zorionez -edo **zorigaitzez** -, ez zen halakorik gertatu. Patxi Zubizarreta

**Zorigaitzez** , teilatutik erori da eta han berean gorputz gelditu. Herria

**Zorigaitzez** ez da lana bururatua. Piarres Aintziart

- **Zorigaitzez** , Jaun marexala -ihardetsi zion Ermitak- ezin gira joan. Herria

**Zorigaitzez** Joanesentzat, poloniar hura han zegoen ondoan. Eneko Bidegain

Banuen ere Parisen lagun on bat, **zorigaitzez** gazterik joan zitzaiguna, Michel de Certeau, jesuita argia. Piarres Xarriton

Sortzez Aihertarra, ainitz urtez Isturitze Etxeberrian egon da laborari gisa, etxe hortarat ezkondu baitzen **zorigaitzez** gazterik alargundua zen Xabinarekin. Herria

Soldadutzan ere, **zorigaitzez** , ifernu bera ezagutu bainuen. Daniel Landart

Orobat iruditzen zait -lehen eta orain- gauzak, **zorigaitzez** , holaxe ote diren. Iñaki Segurola

Guduak ez ziren, **zorigaitzez** , hola gelditu. Michel Oronoz

Bere hiru semetan, **zorigaitzez** , bakar batek ere ez zuen lagundu nahi izan. Patxi Zubizarreta

Ez dezakegu **zorigaitzez** erran, teoria zaharkitu horiek ez dutela gehiago jende "aitzinatu" asko liluratu. Piarres Xarriton

Ez zuen **zorigaitzez** luze iraun berpizkunde horrek. Piarres Xarriton

Huts egin nian, **zorigaitzez** . Itxaro Borda

Ginabordako Mari Migel Zuberoara ohildu zuen, soldaduen, Donejakueko erromesen eta Donapaleuko funtzionarioen **zorigaitzez** . Aingeru Epaltza

**8** ***zorigaitzezko*** *izlag* zorigaitzekoa.

Eta **zorigaitzezko** gau hartan, aspaldiko partez pilota hura esku ahurrean harturik, luzaz ferekatu, laztandu nuen, anaiaz hobeki oroitzeko. Daniel Landart

**Zorigaitzezko** istripu baten ondorioz. Joxe Austin Arrieta

Etxean, **zorigaitzezko** Matusaleme, Cain, Abel, Noe eta Job baino ez ziren aipatzen. Itxaro Borda

Bozkariozko soberaniaren eta **zorigaitzezkoaren** artean, zalantza oinaze krudela da. Jon Muñoz

**hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**

**zorigaitz bat** (5); **zorigaitz baten** (3); **zorigaitz eta** (6); **zorigaitz gertatu** (3); **zorigaitz guztiak** (6); **zorigaitz guztien** (3); **zorigaitz handia** (5); **zorigaitz osoa** (3)

**bere zorigaitza** (5); **gure zorigaitza** (3); **hau zorigaitza** (4); **nire zorigaitza** (5); **zorigaitza ekarri** (5); **zorigaitza ekarriko** (4); **zorigaitza izan** (4); **zorigaitza sortzen** (3); **zoriona eta zorigaitza** (3); **zure zorigaitza** (3)

**bertutearen zorigaitzak** (6); **zorigaitzak kontatzen** (3)

**nire zorigaitzaren** (4); **zorigaitzaren berri** (5)

**bere zorigaitzean** (4)

**zorigaitzen bat** (8); **zorigaitzen bat gertatuko** (3)

**baina zorigaitzez** (4); **bainan zorigaitzez** (3); **eta zorigaitzez** (13); **zorigaitzez ez** (11); **zorigaitzez ez da** (4); **zorigaitzez ez dugu** (3)

**zorigaitzik handiena** (7)

---

zorigaixto ik **zorigaizto**.

---

# zorigaizto

*(475 agerraldi, 122 liburu eta 78 artikulutan; orobat* ***zorigaixto*** *g.er.)* **1** *iz* zoritxarra, zorigaitza. ik **zori 11**.

Orain hemen ere **zorigaiztoa** zain ote dudan beldur naiz. Juan Kruz Igerabide

Hondamendiak bi klasetakoak dira: geron **zorigaiztoa** eta besteren zoriona. Xabier Olarra

Beste mutil bat, beste mutil bat, lehenaz gain, nire **zorigaizto** eta oinazeak areagotzeko. Mirentxu Larrañaga

Halabeharra eta zoria elkartzen direnean, **zorigaiztoa** ateratzen da gehienetan irabazle. Joxean Agirre

Ez du batere arrazoirik beren **zorigaiztoa** Lurmutur Hiriko marmarren plazaraino iritsi dela uste izateko. Oskar Arana

Prometheoren gutiziak **zorigaiztoa** bere baitan dauka. Piarres Aintziart

Gero **zorigaiztoa** etorri ohi zaigu gu aldaroka ibil gaitezen. Patxi Zubizarreta

Nik ez zioat **zorigaiztorik** ekarri inori: ez zioat ezin alarguni lapurretarik egin, ez diat inoren hondamena ekarri, soberan zegoenaz bakarrik probetxatu nauk. Jose Morales

Nola jasan dezaket nik neure herritarrak hondatuko dituen **zorigaiztoa** ikustea?

Zerbait esan badut, esan bide dudanez, zu mindu zaituena, arren sinesteko baino ezin dizut erregutu, alegia nire **zorigaiztoak** bultzatu nauela horretara eta ez nire asmoak. Mirentxu Larrañaga

Baina gu biok sufritzen ari garen bitartean, arduraduna, hiltzailea loriaturik eta lasai demonio bizi da, gure **zorigaiztoak** zoriona ekarri izan balio bezalaxe. Patxi Zubizarreta

Izan ere, umezurtzak ziren amaren aldetik, baina patuaren **zorigaiztoa** baino indartsuagoak zirela erakutsi zuten. Ander Irizar

Extremadurako Itzuliko **zorigaiztoa** ahazteko asmoa du Jon Odriozolaren taldeak. Berria - Kirola

**Zorigaiztorik** ere bada, Fred eta Margaret Parsons senar-emazteek berri txarrak jaso zituzten joan den hilean, semea ez zela-eta gehiago etxera itzuliko. Mirentxu Larrañaga

Egungo Espainiako txapeldunak [...] bi urte oso gogor pasatu ditu, **zorigaiztotik** ihes egin ezinik, baina poliki-poliki pasatako garai gazi horiek ahaztuz doa. Berria - Kirola

Ez dagoela ihes egiterik mundua mehatxatzen duen **zorigaiztotik**. Oskar Arana

Nire **zorigaiztorako**, aski izan zuen egutegia erakutsita: [...]. Joxan Elosegi

Ene **zorigaiztoaren** putzu kirastuan sudur-mintzetaraino lokazturik. Aingeru Epaltza

Nortasun sendoegia zuen nahigabearen edo **zorigaiztoaren** haize ezin igarrizkoek beraren bidea galarazteko. Oskar Arana

Pena handia nuen nik **zorigaiztoan** aitonarik gabe gelditua nintzelako, batez ere aitona Alejandro gabe, amonak xamurtasun handiz aipatzen baitzuen. Jon Muñoz

Zeren eritasunean eta **zorigaiztoan** ikasi baitut ezen badirela huts hura baino hutsagoak diren hutsak. Joan Mari Irigoien

**Zorigaiztoan** otu zitzaion amore ematea! Migel Angel Mintegi

## 2 (izenondo eta izenlagunekin)

Bazuten Raymonden **zorigaizto** saminaren berri eta gupida errukibera nazkagarri halako bat sentiarazten zien. Mirentxu Larrañaga

Italiako hegoaldeko **zorigaizto** historikoa iraultzeko. Berria - Kirola

Bakartasuna edo tristura baino gehiago, zahartzaroaren **zorigaizto** izoztua zen. Ibon Uribarri

Beldurrez kuzkurtuta egon naiz babeslekuan, hala egon gara gu guztiok, bakoitza bere kasa, nor bere **zorigaizto** bakartian. Mirentxu Larrañaga

Horretan saiatuko gatzaizkizue biziki, jakiten [...] non auskalo dagoen zazpi gonbidatu maite hauen **zorigaizto** zornetuaren maratila. Karlos Linazasoro

Ahalik eta **zorigaiztorik** eta oinazerik larrienak opatu dizkiegu biei. Mirentxu Larrañaga

Egindako gaiztakeriengatiko damua ere egongo zen, eta arrakastatsuengan arrunta omen den senitarteko **zorigaiztoa**. Ibon Uribarri

Gure gaurko **zorigaiztoak** ez du izanen lekurik inon. Hasier Etxeberria

## 3 (pluralean)

**Zorigaiztoak**, mindurak, izua, saldukeriak, hilketarik zitalenak... Anjel Lertxundi

Ezbeharrak, zoritxarrak, **zorigaiztoak**, atsekabeak, nahasmenduak, gerrak, urperatzeak, lazeriak eta katastrofeak. Askoren artean

Gero eta handiagoa egin zen nire testuek utzitako **zorigaizto** handien eta txikien andana. Iban Zaldua

## 4 (izenondo gisa)

Aire grisean, bele-saldo bat zihoan hegan, armada **zorigaizto** hari segika, haren hondarrak amorruz jateko. Koro Navarro

Nahi duzuna ez lortzea baino **zorigaiztoagoa** da komeni ez zaizuna lortu nahi izatea. Imanol Unzurrunzaga

## 5 (adizlagun gisa)

Ahal duguna egiten dugu froga gainditzearren, nork bere gisan, motz, **zorigaizto** eta liskarti beti, eta isildu egiten gara. Joxan Elosegi

## 6 *zorigaiztoko* *izlag* zorigaitzekoa, zoritxarrekoa.

Han zetzan **zorigaiztoko** ama, esan ezin ahalako atsekabeak hartuta eta tristura izugarrian murgilduta. Askoren artean

**Zorigaiztoko** aita hura korridorean jarri zen gero, eskuak begietan. Julen Gabiria

Ez du, baina, arimak hori zalantzan jartzen, **zorigaiztoko** izaki zoriontsu bizi nahi baitu. Imanol Unzurrunzaga

Noiz arte jardun behar du **zorigaiztoko** herri honek nire aurka marmarrean? Elizen arteko biblia

Bere **zorigaiztoko** ohe bakartian etzanik zegoela, esna eta intzirika, [...]. Askoren artean

**Zorigaiztoko** bala bat txistuka abiatu dela jadanik berarengana, eztarri deiadarkari hori behin betiko isilaraztera. Jose Morales

Ingelesen aldeko **zorigaiztoko** penalti batek 2-2 utzi zuen markagailua. Berria - Kirola

Aldi hartan bizia galdu zuena 22 hilabeteko nini txiki bat izan zela, **zorigaiztoko** bonba baten ondoan pasatzeagatik. Pello Salaburu

Odolez tindatutako **zorigaiztoko** eguna. Berria - Harian

Ezquerroren aukeraren ostean etorri ziren Athleticen **zorigaiztoko** bi minutuak. Berria - Kirola

**Zorigaiztoko** bidaldi horrek galdu nau. Jon Muñoz

Hala eta guztiz ere argi dago **zorigaiztoko** grina hori dela nire alaba oinazetan daukana. Jon Muñoz

Ezin dut jasan **zorigaiztoko** eldarnio etsigarri hau. Mirentxu Larrañaga

Ez zekiela egun horretan zer pasa zitzaion, **zorigaiztoko** istripua izan zela. Berria - Euskal Herria

Auroraren desagertzearen drama berdin nozitu zuten biek, etsipen eta itxaropen berberak, **zorigaiztoko** aurreikuspen berberak, amairik gabeko larrimin berberak sufrituz. Oskar Arana

Han berean ikusi nituen, barreiaturik eta sakabanaturik, neure zorionaren **zorigaiztoko** hondakinak, neure ditxaren desditxak. Joan Mari Irigoien

Ez dator erantzunik bost urteko haur **zorigaiztokoarentzat**. Oskar Arana

Ez dut haurdunaldiz, haurrez eta zikinkeriaz betetako bizitza **zorigaiztoko** bat nahi. Patxi Zubizarreta

-Gizon ilun eta **zorigaiztokoa** -erantzun zuen Peterrek-, prestatu zeu. Julen Gabiria

Neure amodio **zorigaiztokoa** garaitzeko indarra. Jon Muñoz

Suge moduko bat, oilarraren arrautzatik sortua, Basiliskoak begi okerra zuen, eta begirada **zorigaiztokoa**. Xabier Olarra

Zumezko kaioletan sartzen genituen txori **zorigaiztokoak**. Koldo Izagirre

Aukera izan beharko nuen neure buruari esateko egiten ari nintzenak ondorioak izanen zituela... ondorio **zorigaiztokoak**. Monika Etxebarria

Hau zen egoera K.a. 431ko data **zorigaiztokoan**, anaiarteko gatazka sortu baitzen greziarren artean. Iñaki Mendiguren

Auzuneko kronika biziduna zen, batez ere albiste **zorigaiztokoena**, eta eskandaluetan trebatua zegoen. Patxi Zubizarreta

Beharbada hemendik aurrera nirea bezalako istorio turistiko **zorigaiztoko** gehiago irakurtzea tokatuko zaizue. Fernando Rey

Berarekin eraman zituen etxeko neskame-morroiak eta familiako bi maitale; bi emakume menperatu, izutu eta **zorigaiztoko**. J.M. Olaizola "Txiliku"

## 7 (predikatu gisa)

O, zein **zorigaiztokoa** naizen. Pello Lizarralde

Ai, Vania, **zorigaiztokoa** hi! Jose Morales

Triste eta **zorigaiztoko** naiz, ordea, orain. Xabier Aranburu

Ezin **zorigaiztokoagoa** nauk, Charlie gabe, Tommo. Mirentxu Larrañaga

Gizonezkoei ez zaie gustatzen, emakumeok kontatzea, **zorigaiztokoak** garela euren erruz. Inork ere ezingo du arrazoiz esan nahiago duela ez izan **zorigaiztoko** izan baino. Mirentxu Larrañaga

Nahi zuenean zen **zorigaiztokoa** anaia. Pello Lizarralde

Dagoeneko nahikoa **zorigaiztokoa** da garai hau berez. Agustin Otsoa

Ez dagoela ezbeharrik erabat **zorigaiztokoa** denik. Joan Mari Lekuona

Esan ohi zuen goizez alai izaten zela eta arratsaldez izugarri **zorigaiztoko**. Karlos Zabala

Orain, aldiz, **zorigaiztokoena** zen. Eider Rodriguez

Hauts hori hartuz gero, laneguna azkarrago joaten da; bat ez da horren **zorigaiztoko** sentitzen. Eskarne Mujika

Halakoetan, aieneka adierazi ohi nien zein **zorigaiztokoa** eta abandonatua sentitzen nintzen. Mirentxu Larrañaga

Ez bazaude inoren boterepean, orduan arrazoimenak dio zeure buruaren jabe zarela eta kasu honetan, edo oker jokatuz **zorigaiztoko** egingo zara gizalegez. Florentek Lisaren sen guztien kontra egiten zuen talka, zauritu egiten zuen, izu-laborrian jartzen zuen, **zorigaiztoko** bihurtzen zuen benetan. Imanol Unzurrunzaga

Ezbehar hori 1518an izan zela, eta harrezkero hirurogeita hamar urte, zazpi aldiz hamar!, igaroak direnez, **zorigaiztoko** datorrela aurtengo urtea. Edorta Jimenez

Gauean, batez ere, paraje hori tristea eta **zorigaiztokoa** gertatzen da. Koro Navarro

### 8 (izen gisa)

Betiko gauzen maitasunak zoriontsu egiten dituenak betiko legearen arabera bizi dira, nire ustez; **zorigaiztokoak**, aldiz, lege tenporalaren uztarripean. Imanol Unzurrunzaga

**Zorigaiztoko** haiek, errusiarrak edo siberiarrak, militarrak edo zibilak, milaka batzuk ziren, eta osatzen zuten andanak hainbat verstako luzera zeukan. Karlos Zabala

Horiexek izan ziren ganora galdutako **zorigaiztoko** horri esan nizkion azken hitzak. Jon Alonso

**Zorigaiztokoen** hegaldiak isiltasunean. Eider Rodriguez

Ireki ahoa hizgabearen alde, **zorigaiztokoen** eskubidea babesteko. Elizen arteko biblia

-Oraingo erregina Elisabet honen ahizparekin, Mari izeneko **zorigaiztokoarekin** ezkondu zuan, ba, zorioneko Filipe hau. Edorta Jimenez

Betiko ahanzten genituen bai etxe hura eta bai aita ahozabala eta **zorigaiztokoen** miseria ere. Pello Lizarralde

### 9 ***zorigaiztoz*** *adlag* zoritxarrez, zorigaitzez.

**Zorigaiztoz**, goi ipar-mendebalaren aldetik sartzen zitzaigun haizearen mende. Edorta Jimenez

Poe gaixoak, mozkor bihurturik eta eroturik Baltimore-ko estolda batean hil baitzen, Rufus Griswold aukeratu zuen, **zorigaiztoz**, testamentu-betearazle literaturari zegokionez. Oskar Arana

**Zorigaiztoz**, hain gaude gu horretara eginak, aginduak ematera eta onartzera makurtuak esan nahi dut, ez da harritzekoa mutxurdinaren joera duen ama ezkonduren bat tentazio horretan erortzea. Pello Salaburu

### 10 ***zorigaiztozko*** *izlag* zorigaiztokoa.

Oso ezohiko egoera da hau, eta **zorigaiztozkoa**. Berria - Gaiak

**hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**

**ez izan zorigaiztoko** (3); **nire zorigaiztoko** (3); **zorigaiztoko abentura** (3); **zorigaiztoko bat** (3); **zorigaiztoko egun** (3); **zorigaiztoko eguna** (5); **zorigaiztoko gertakari** (5); **zorigaiztoko hark** (3); **zorigaiztoko hori** (4); **zorigaiztoko hura** (5); **zorigaiztoko izan** (12); **zorigaiztoko izango** (4); **zorigaiztoko sentitzen** (4); **zu zorigaiztoko izatea** (3)

**nire anaia zorigaiztokoa** (3); **oso zorigaiztokoa** (4); **zein zorigaiztokoa** (3); **zorigaiztokoa da** (4); **zorigaiztokoa izan** (5); **zorigaiztokoa izango** (6); **zorigaiztokoa naiz** (3)

**zorigaiztokoak izan** (3)

**zorigaiztokoek ere** (3)

---

## zorigaiztokeria *iz adkor* zorigaiztoa.

Horrelakoak dituk hiri triste honetako **zorigaiztokeriak**, entzun nion esaten nire alde irtendako gizonari. Anjel Lertxundi

---

## zorigaldu *izond* zorigaiztokoa.

Uztaileko Pasealeku **zorigalduan** bere burua ispiluek biderkatua, argiek agerkatua eta begi goseek biluztua ikusi zuen beharbada, baina zentzuzkoagoa da noski pentsatzea hasieran noraezean ibili zela, inork arretarik jartzeke, oilandazoka antsikagabean. Juan Garzia

---

## zorigarbi *izond adkor* zori garbikoa.

Don Quixote Espainiaren sinbolo nazionalesentzialista bat bihurtu da, bere aspektu biekin: enigma bat, harengan balego bezala ezkutatua Espainiaren gainbehera eta "desastre"aren sekretua; eta itxaropen iturri bat, harengan gordeko balitz bezala Espainiaren erregenerazio eta etorkizun **zorigarbi** baten edabea. Joxe Azurmendi

---

## zorilari *iz* aztia.

Burua galduko dute eta beren asmoak hautsiko dizkiet. Orduan, idolo eta **zorilariengana**, hildakoen espiritu eta aztiengana joko dute kontseilu eske. Elizen arteko biblia

---

## zorion *(6563 agerraldi, 272 liburu eta 1631 artikulutan)* 1 *iz* gogobetetasunezko egoera. ik **zori 12**. *(ikus beheko konbinatorian* zorion *izenaren agerraldi maizkoenak).*

### 2 *pl adkor* urtemuga.

Nere jardungaia Koldo Mitxelena izan zen, eta haren jaiotegunaren 81. urteurrenean atera zen, hots, haren (hil-ondorengo) urtebetetze edo **zorionetan**, orain -txit ongi-esaten den bezala, nahiz akademiak -txit gaizki- galarazirik daukan. Iñaki Segurola

Etxeko laugarren alaba Mattina behin gaitzeko malko-uholdean lehertu zen, buhameek Parisko osabak bere **zorionetarako** igorri panpina ustez ebatsi ziotelako. Itxaro Borda

Egun batez Antton-ek galdegin zuen zeruan **zorionak** ospatzen direnez? Erran ginakon: Behar ba! Herria

Segur naiz orain zuk zerutik eta guk hemendik horri pentsatuko dugula bakotxaren **zorionen** egunetan. Herria

### 3 *zorioneko* ik **zorioneko**.

### 4 *zorionez* ik **zorionez**.

**hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 4 aldiz agertzen direnak)**

**ainitz zorion** (69); **ainitz zorion desiratzen** (10); **anitz zorion** (4); **bere zorion** (11); **bere zorion osoa** (5); **goresmen eta zorion** (16); **gure zorion** (9); **lertxundiren zorion perfektua** (5); **nire zorion** (6); **osagarri eta zorion** (18); **osasun eta zorion** (4); **suerte eta zorion** (10); **zer zorion** (8)

**zorion agiantza** (5); **zorion ainitz** (10); **zorion ainitz desiratzen** (5); **zorion bat** (5); **zorion beren** (16); **zorion beren bizian** (4); **zorion beroenak** (11); **zorion betea** (8); **zorion betean** (11); **zorion bila** (5); **zorion desiratzen** (11); **zorion desiratzen diotegu** (6); **zorion eta goresmen** (6); **zorion eta goresmenak** (6); **zorion eta osagarri** (11); **zorion eta suerte** (4); **zorion gehiago** (5); **zorion handia** (11); **zorion hoberenak** (10); **zorion hori** (12); **zorion hura** (6); **zorion iturri** (5); **zorion izan** (5); **zorion osoa** (12); **zorion osoan** (4); **zorion perfektua** (14); **zorion publikoaren** (4); **zorion uneak** (5); **zuen zorion** (6)

**bakea eta zoriona** (4); **bere zoriona** (12); **betiereko zoriona** (25); **betiko zoriona** (28); **gure zoriona** (7); **haren zoriona** (6); **hau zoriona** (5); **izateko zoriona** (6); **nire zoriona** (26); **orai betiko zoriona** (9); **poza eta zoriona** (5); **zer zoriona** (8)

**zoriona da** (9); **zoriona eginez** (4); **zoriona ekarri** (5); **zoriona eta kontsolamendu** (7); **zoriona eta zoritxarra** (4); **zoriona ez da** (7); **zoriona ezagutu** (5); **zoriona izan** (11); **zoriona izango** (4); **zoriona nahi** (4); **zoriona opa** (6); **zure zoriona** (6)

**umearen zorionagatik** (4)

**aitameri eta zorionak** (5); **elkarri zorionak** (6); **goresmen eta zorionak** (9); **goresmenak eta zorionak** (11); **gure zorionak** (6); **nire zorionak** (5)

**zorionak aitameri** (5); **zorionak beraz** (17); **zorionak beraz gazte** (4); **zorionak bieri** (5); **zorionak bikote** (7); **zorionak burrasoeri** (5); **zorionak deneri** (7)

**zorionak eman** (54); **zorionak eman behar** (5); **zorionak eman zizkien** (8); **zorionak eman zizkion** (13); **zorionak eman zizkioten** (5); **zorionak emanez** (11); **zorionak emango** (5); **zorionak emateko** (9); **zorionak ematen** (23); **zorionak ematera** (7); **zorionak eskaintzen** (7); **zorionak eskaintzen ditugu** (5); **zorionak espos** (28); **zorionak espos berrieri** (20); **zorionak espos gazteeri** (6); **zorionak eta bizi** (13); **zorionak eta goresmen** (4); **zorionak eta goresmenak** (9); **zorionak eta urte** (4); **zorionak ezkondu berrieri** (6); **zorionak ezkont berrieri** (9); **zorionak ezkont gaieri** (4); **zorionak familia guziari** (9); **zorionak familiari** (4); **zorionak familieri** (4); **zorionak gazte hauier** (4); **zorionak gazte hoieri** (4); **zorionak gazte horieri** (8); **zorionak guzieri** (6); **zorionak ina** (9); **zorionak kuple** (7); **zorionak kuple gazte** (5); **zorionak mutiko** (4); **zorionak sortu** (31); **zorionak sortu berriari** (17); **zorionak sortu berrieri** (13); **zorionak zuri** (14)

**bere zorionaren** (7); **betiko zorionaren** (5); **nire zorionaren** (10); **zorionaren alde** (5); **zorionaren bila** (6); **zorionaren zorionez** (5); **zure zorionaren** (5)

**betiereko zorionean** (5); **erabateko zorionean** (4); **familia guziaren zorionean** (5); **gazteak zorionean** (4); **handi dadila zorionean** (4); **osasunean eta zorionean** (8); **zorionean bizi** (12); **zorionean bizi ditela** (4); **zorionean daude** (11); **zorionean dira** (4); **zorionean ditugu** (7)

**bere zorionerako** (9); **gure zorionerako** (4); **nire zorionerako** (8)

---

# zorionaldi *iz* zorioneko aldia.

Erromara ailegatuta arnasa hartu nuen, eta guretzat **zorionaldi** bat hasiko zela sinetsi. Fernando Rey

---

# zorionbide *(orobat **zorion bide**)* *iz* zoriona izateko bidea.

Aldapa hura guretzat zeruko igoera zen, Jakoben eskailera, ez zorionera iristeko bidea, baizik eta **zorionbide** berbera. Juan Kruz Igerabide

Aitor dizut diruak ez dakarrela zoriona; baina aitortu behar dut halaber **zorionbidea** aise errazten duela. Jon Muñoz

Gizonari, ez zitzaion beste irtenbiderik, emakumeak maita zezan, haren **zorionbidea** zelaitzea eta leuntzea baino. Felipe Juaristi

Eta **zorionbidea** ontsa hiltzeko bidea da. Iñaki Segurola

Ardura bideak bihurriak dira, bainan bihurriak izanikan ere, **zorion-bide** izan ditaizke. Herria

Sinets nazazu, andrea, lasaitasun hotza, arimaren logalea, heriotza dirudiena, ez dira **zorionbide**. Jon Muñoz

Hainbat **zorionbide**. Elizen arteko biblia

Kasu askotan, **zorionbide** batzuk halabehar hutsezkoak zirela jakiteak gutxiagotu egingo zuen haien indarra; eragozpen hori saihesteko, Konpainiako agenteak sugestioz eta magiaz baliatzen ziren. Juan Garzia

Otoi egiten dizut herria uretatik salbatu eta **zorionbide** guztiak eman diezazkiozun. Koldo Biguri

---

# zoriondu, zorion(du), zoriontzen **1** du *ad* zorionak eman.

Orduan, denek **zoriondu** zuten Mouton; behin ere ez zuela deus ebasten adierazi zuten, haragia haren eskumenean laga zitekeela. Karlos Zabala

Armendarizek HZ **zoriondu** zuen, Nafarroan 15.500 boto jaso dituelako. Berria - Euskal Herria

Hura txalotu eta **zoriondu** zutenek aspaldian entzun gabe zeukaten mezu zaharra senaren baitan dardarez sentitu zuten. Pako Aristi

Eguna errepasatu eta bere burua **zoriondu** du, sarritan kinka larrian ibili arren onik atera delako. Itziar Otegi

Eta ez dakit **zoriondu** ala zutaz errukitu gainean duzun erantzukizun guztiagatik. Pako Aristi

Era berean, baina, dokumentuaren egileek Thailandiako Gobernuaren jarrera **zoriondu** zuten. Berria - Gaiak

Bekaizkeria pixka batez, bere karrera artistikoagatik **zoriondu** nuen. Iban Zaldua

Nire lagunak ageri zuen bizitasun bitxia eta larria antzemateko gai izan banintz, neure burua **zorionduko** nuen nire asmoak izan zuen arrakastagatik. Koro Navarro

Neska **zoriontzeko** beren modua zen. Anjel Lertxundi

Ni orain ez naiz gai sentitzen gutun txukun bat ere idazteko, auskalo noiz idatzi dudan azkena, seguru asko zu gabonetan **zoriontzeko**. Patxi Zubizarreta

Erregearen zerbitzariak David gure errege jauna **zoriontzera** joan dira eta honela esan diote: [...]. Elizen arteko biblia

Erruduna salatzen duena onetsia izaten da, jendeak **zoriondu** egingo du. Elizen arteko biblia

Eta **zoriondu** egin zuen harturiko erabakiagatik. Joxemari Iturralde

Hitz haiek haur ahotsez esan zituen, pozik ia, azterketa bat bikain gainditzeagatik **zoriondu** balute bezala. Ander Irizar

Antolakuntza **zoriondu** nahi nuke, etapan igo ditugun aldapatxoak gogorrak eta ikusgarriak zirelako, zoru berezikoak. Berria - Kirola

Ingalaterrako kontsulak opari bat eman nahi baitzion Buenos Airesen zegoen enbaxadoreari, lehengusu propioa izaki, haren urtebetetze eguna **zoriontzeko**; ez asmatzen zer, ordea. Felipe Juaristi

Herriko presoei gutuna idatzi Gabonak **zorionduz**, udal-aldizkarirako artikuluxka bat idatzi. Andoni Egaña

Elkar **zoriondu** genuen elkarri eman genizkion zartadengatik. Pello Lizarralde

Dick zen, nire lurrera-behar arrakastatsua **zorionduz**. Joxe Austin Arrieta

**Zoriontzeko** moduko aukera da. Berria - Kultura

**Zoriontzekoa** da Ugartetxek atzo harrobiaz esan zuena. Berria - Kirola

**2** (adizlagunekin)

Beraz, ez ditut lerro labur hauek bukatu nahi egileak, aldi berean lagun eta adiskide ditudanak, bihotzez **zoriondu** gabe. Juan Ignacio Pérez / Pello Salaburu

Dusko Ivanovicek, aldiz, lasaitasun ezari egotzi zien azken sei minutuetan izandako arazoak, eta bihotz-bihotzez **zoriondu** zuen Estudiantes finalean sartzeagatik. Berria - Kirola

Biziki **zoriontzen** dut Unai Barinagarrementeria, txapelketan egin nuen bezalaxe, eta lasai egoteko eskatzen diot jendeak esango duenagatik, ez baita bere errua jasoaldiak balekoak edo ez izatea. Berria - Kirola

Gero, adore eman zioten Akiorri eta sutsu **zoriondu**. Elizen arteko biblia

Laster, Rory Mor eta Cormac tranpatik irten ziren eta Fionn modu egokian **zoriontzeko** aukera izan zuten. Joanes Urkixo

**3** zorioneko bihurtu, zoriontsu bihurtu.

Maitasuna... ez da afektu bat, norbaitek erakartzen gaituela ulertuz; norberaren maita ahalmenean zuztartuta dagoen saiatze bizia baino, pertsona maitatua hazten eta **zoriontzen** saiatzen dena. Jenaro Garate

**hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**

**bihotzez zoriondu** (3); **burua zoriondu** (3); **chavez zoriondu** (3); **denek zoriondu** (3); **etxeak zoriondu** (5); **etxeak zoriondu nahi** (5); **gobernua zoriondu** (4); **guztiak zoriondu** (5); **herria zoriondu** (3); **herriko etxeak zoriondu** (5); **herritarrak zoriondu** (4); **jokalariak zoriondu** (3)

**zoriondu behar** (5); **zoriondu ditu** (4); **zoriondu du** (12); **zoriondu nahi** (11); **zoriondu nahi lituzke** (5); **zoriondu zituen** (18); **zoriondu zuen** (30); **zoriondu zuen atzo** (3); **zoriondu zuten** (10)

**zoriontzekoa da** (5)

**zoriontzen dut** (4); **zoriontzen zuen** (3)

**zoriontzera joan** (4)

---

# zoriondun *izond* zoriontsua.

**Zoriondun** zagola, ginuen atsegin. Herria

**Zoriondun** eguna urtarrilak hiru. Herria

---

## zorioneko 1 *izlag* zoriontsua. ik **zorionez 2.** (pertsonak)

**Zorioneko** umea, ongi hasi eta hobeto bukatu zuena! Askoren artean

Hona **zorioneko** gizon bat: urrutitik begiratuta ere, pentsatuko dugu sufritu eginen zuela eta bizi izan den norbait dela. Monika Etxebarria

Ez dezagun ahantz ere Makabeoen liburuan aipatzen den **zorioneko** emakume hura: [...]. Joan Mari Lekuona

Hainbeste erokeriatan sartuta ibili ostean, **zorionekoa** naiz oraindik bizirik nagoela-eta. Oskar Arana

Ala **zorioneko** zara zeure monstruositatean? Karlos Linazasoro

Frantses bitxi batean **zorionekoa** nintzela erran zidan, goiz hartara arte gela guztiak hartuta eduki baitzituen. Alberto Ladron Arana

**Zorionekoa** beti begirunez jokatzen duena; bihotz gogorrekoa zoritxarrean jausiko da. Elizen arteko biblia

**Zorionekoa**, bere mendekoen artean, nagusien artean balego bezain apal ageri den zerbitzaria! Askoren artean

**Zorionekoa** zu, ez baitut zuri liskar gehiagorik egiteko astirik. Jon Muñoz

Hortaz, berriro esango diat; **zorionekoa** hi. Edorta Jimenez

**Zorionekoak** zure zerbitzariak, beti zure aurrean daudenak, zure jakinduriaren entzule! Jose Antonio Mujika

**Zorionekoak** zuzentasunagatik sufritzen dutenak. Elizen arteko biblia

Ziur daude munduko mespretxuen bidez **zorioneko** izatera iritsiko direla. Askoren artean

Edota agian inoiz injustua gerta daiteke gaiztoak zoritxarreko izatea eta zintzoak **zorioneko**. Imanol Unzurrunzaga

Oi zeinen **zorioneko** eta bedeinkatuak diren, ordea, Jainkoa maite eta Jaunak berak Ebanjelioan esana betetzen dutenak. Askoren artean

**Zorioneko** dago Xarrien, bai. Edorta Jimenez

**Zorioneko** nengoen; bozgorailuek, konektatu gabe egonik ere, aldean zuten kablea. Aingeru Epaltza

**Zorionekoa** sentitu zen, hogeita bost urteko gizon gazte eta lerdena bere maiteñoa eta maitalea izateko zortea zuelako. Aitor Arana

**Zorioneko** jo izan du ordura arte bere burua. Harkaitz Cano

**Zorioneko** dabil. Aingeru Epaltza

Mutikotxo **zorionekoa** zaitugu, alajaina! Mirentxu Larrañaga

Gehiago dira etsipen uneak, **zorionekoak** baino. Berria - Kirola

**2** (bestelakoak)

**-Zorioneko** aroa eta **zorioneko** mendeak haiek, lehengo zaharrek "urrezko" izendatu zituztenak. Patxi Ezkiaga

Zoritxarreko arazo beste **zorioneko** zerbitzu dago bertan. Berria - Euskal Herria

Duela bost milioi urte, **zorioneko** egun batean tente jarri eta bi hankan ibiltzen hasi ginen. Luis Elberdin

**Zorioneko** neure ausardiez oroitzen naizelarik ere, ezin ausart ninteke horiek baliatzera. Jon Muñoz

Gaixotasun eta atsekabe hauek **zorioneko** altxor horren bahikuntza dira. Askoren artean

**Zorionekoak**, ordea, zuen begiak, ikusten dutelako, eta zuen belarriak, entzuten dutelako! Elizen arteko biblia

**Zorionekoak** egun haiek...! Joan Mari Irigoien

Etxeko taldeari estreinako partidan irabaztea **zorioneko** kolpea izan daiteke. Berria - Kirola

Zureak porrot egin bazuen ere, bada ezkontza **zorionekorik**. Patxi Zubizarreta

Giza pentsamendua haren ernaldien **ustekabe** zorioneko bat baizik ez da, zoko batean gertatutako ustekabe igarokor, antzemanezin, lurrarekin batera desagertzera kondenatua. Josu Zabaleta

Izanen duzula Valmonten itzulera **zorionekoaren** kausa nagusia izatearen poza. Jon Muñoz

**3** askotan aipatu delako, arazoak sortzen dituelako edo kideko arrazoiren batengatik nekagarria edo gogaikarria gertatzen dena. ik **ditxoso 2.**

**Zorioneko** zakila baino ez du buruan, eta ni bere zakilarekin joan egitea, eta ditxozko eiakulazio goiztiarra. Luis Elberdin

Badakizu nolakoa den **zorioneko** burokrazia. Migel Angel Mintegi

"**Zorioneko** presa!", bota nuen nire artean. Edorta Jimenez

**Zorioneko** txartelak, bere langileen gaineko informazio iturri paregabeak diren neurrian baizik ez zaizkio interesatzen gure gizonari. Aingeru Epaltza

Utziko diat **zorioneko** liburua irakurtzen -erantzun nion Mateori. Edorta Jimenez

Erosi nuen bada **zorioneko** liburua, eta harekin batera etsipen dosi berri bat. Berria - Harian

Zer demontre ote zen **zorioneko** txostena? Migel Angel Mintegi

Nik zure lekuan hitzak neurtuko nituzke, nik dakidala ez dut-eta **zorioneko** dirua aipatu telefonozko solasaldi laburrean. Migel Angel Mintegi

-Tira, Ximu, gorde kemenak hire **zorioneko** kamioneta aurkitzen dugunerako, eta gida ezak gisan. Aingeru Epaltza

Plazan hara eta hona ibili gara, **zorioneko** posterdendaren bila. Edorta Jimenez

Ez ziaten ezer irakatsi hire **zorioneko** polizia-eskolan? Alberto Ladron Arana

Akiles horrek herrena izan behar zuela nahitaez, bestela aise harrapatuko baitzuen **zorioneko** dortoka hura. Joxerra Garzia

Orain bi aste edo, nire bezeroa **zorioneko** ilehoriarekin oheratu zen. Migel Angel Mintegi

-Oraingo erregina Elisabet honen ahizparekin, Mari izeneko zorigaiztokoarekin ezkondu zuan, ba, **zorioneko** Filipe hau. Edorta Jimenez

-**Zorioneko** Inkisizioa! -esan nuen nire artean, eta Martin Mihurubikoaren gogora antzeko zerbait etorri ote zenentz egin nuen, begitartean izu keinu bat agertu baitzuen. Juan Martin Elexpuru / Bego Montorio

Baina hori al da poetek hainbestetan goraipatzen duten **zorioneko** maitasuna? Sonia Gonzalez

**hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**

**armada txit zorioneko** (13); **txit zorioneko** (15); **txit zorioneko hartan** (3); **zorioneko bere** (3); **zorioneko egun** (8); **zorioneko egun batean** (4); **zorioneko hartan** (6); **zorioneko izan** (6); **zorioneko izango** (3); **zorioneko nengoen** (3); **zorioneko salbuespenak** (3)

**armada txit zorionekoa** (7); **bai zorionekoa** (4); **zein zorionekoa** (4); **zorionekoa bere** (6); **zorionekoa da** (6); **zorionekoa dela** (3); **zorionekoa hi** (3); **zorionekoa izan** (9); **zorionekoa izan naiz** (3); **zorionekoa jaunaren** (3); **zorionekoa jaunari begirune** (3); **zorionekoa naizela** (3); **zorionekoa nintzen** (6); **zorionekoa zen** (4); **zorionekoa zu** (10)

**zorionekoak bakean sufritzen** (4); **zorionekoak bakegileak** (4); **zorionekoak bihotz** (4); **zorionekoak bihotzez behartsu** (3); **zorionekoak gara** (5); **zorionekoak gogoz behartsu** (3); **zorionekoak gu** (5); **zorionekoak hasitako bideari** (3); **zorionekoak hildakoak** (3); **zorionekoak ikusi** (3); **zorionekoak izan** (3); **zorionekoak jainkoaren nahia** (5); **zorionekoak zuek** (12); **zorionekoak zuek ikusten** (4); **zorionekoak zure** (9); **zorionekoak zure borondate** (4); **zorionekoak zuzenagatik erasotuak** (4)

---

## zorioneria *iz* zorion gaitzesgarria.

Bat-batean mundu munduko nabaritzen nintzen, **zorioneria** dorpe batean amiltzear, kasik uros. Itxaro Borda

---

## zorionez 1 *adlag* pozgarri denez; ordu onean. ik **beharrik.**

**Zorionez**, beste behin ere bera izan zen aurrea hartu zuena. Ramon Saizarbitoria

**Zorionez**, Mary Ann eta Helen azaldu dira. Bernardo Atxaga

**Zorionez**, ordea, ongi bukatu ziren gauzak. Josu Zabaleta

**Zorionez**, euskara mintzo dute etxean beti, xaharretarik eta azken ttipittoraino, agian luzazko. Herria

Esperantza, **zorionez**, gaisotasun sendaezina delako. Berria - Harian

Baina, **zorionez**, eta **zorionez** diot, honetan gauzak gainetik behera aldatu dira eta gaur egun jende anitz dago ongi prestatua Euskaltzaindititik kanpo. Pello Salaburu

**Zorionez** -kasu honetarako **zorionez** behintzat- behin egonda nago zezenetan, eta horrelaxe adierazten diet. Edorta Jimenez

Nik uste dut hemen, euskal hirian, **zorionez** ez genukeela horrelakorik izango. Bernardo Atxaga

Hara, Giulietta, ezbeharren bat gertatzen bazaizu, hau esatea besterik ez duzu: **zorionez**, okerragoa izan baitzitekeen. Baditugu, **zorionez**, nahi gabeko haurdunaldia eteteko bitartekoak. Jon Muñoz

Batzuentzat **zorionez**, beste batzuentzat zoritxarrez. Arantxa Iturbe

Zoritxarrez edo **zorionez**, ohi ez bezalako ikastetxe batera igorri zuten. Jose Morales

Baina, **zorionez** -edo zorigaitzez-, ez zen halakorik gertatu. Patxi Zubizarreta

Zaldi bat aski zuen, eta, **zorionez**, eskuratu ahal izan zuen zaldi hori. Karlos Zabala

Segidan zetorren, **zorionez**, itzulpena: [...]. Jon Muñoz

Zure gutun zorrotzak izituko nindukeen, andrea, baldin, **zorionez**, ez banu hemen segur izateko arrazoi gehiago kausitu zuk gaztigatu bezala beldur izateko baino. Jon Muñoz

Ez gara ezer asko, baina, geuretzat **zorionez**, garbi izan dugu zer izan nahi genuen, eta ez da gutxi. Joxerra Garzia

Gerora, ebakuntzaren ondoren, ez bizkarretik, besotik baizik, heldu beharko zion, makuluak, **zorionez**, ez baitira gorputzaren atal naturalak. Imanol Zurutuza

Bururatu zitzaion Jardines del Moro deritzon parkean orga museoa zabalik egon zitekeela oraindik; baina, **zorionez**, hura ere itxita zegoen. Ramon Saizarbitoria

Keesing jaunak onez hartu zuen, **zorionez**, broma. Josu Zabaleta

Zapartatu balitz, ondorio lazgarriak izan zitazkeen, bainan **zorionez** huts egin du. Herria

Reala akziodun txikien esku dago **zorionez**. Berria - Harian

Harrizko muino bat zen, babes-ezponda baten antzekoa, belar txarrez estalia, eta Baedeker-ak aipatzen ez zuena, **zorionez**. Joxe Austin Arrieta

Ilehori ugari baitago; eta deigarriak... asko, **zorionez**. Migel Angel Mintegi

Tximista-kolpearen punpa antzeko batek iemstxika lurrera bota zuen, baina zauririk gabe jaiki zen **zorionez**. Karlos Zabala

### 2 *zorionezko* *izlag* zorioneko.

Lege humanitarioak egiteko proiektuak taxutzen zituen, arau horien bitartez oinazezko hiri hau aldatu eta **zorionezko** hiria sortuko zelakoan. Karlos Zabala

**Zorionezko** eta pozezko denborak haiek, Mantxako Don Kijote, zaldun txit ausarta, munduko plaza erdira atera zeneko egunak. Patxi Ezkiaga

Garai hartan, **zorionezko** eta lilurazko aldi bat bizi izan nuen berriro, aurrekoaren aldean oso bestelakoa. Juan Kruz Igerabide

Azkenean elgarretaratzen direlarik zer besarkadak, zenbat **zorionezko** nigar! Herria

**Zorionezko** desirek lagun ditzatela uros bizitzen. Herria

Lurrean balitz **zorionezko** paradisu bat, hemen litzateke; hauxe litzateke, eta ez besterik. J.M. Olaizola "Txiliku"

Neska batez ero-ero maitemindurik, **zorionezko** estasi gisako batean ezkondu zen harekin. Josu Zabaleta

**Zorionezko** agiantzak espos berrieri eta goresmenak. Herria

Goresmenak, eta **zorionezko** agiantzak familia huni! Herria

Zentzuz kontrakoa zen **zorionezko** zenbakiak diru-txanpon biribiletan gauzatzea eta zoritxarrezkoak, berriz, kartzela egun eta gauetan. Juan Garzia

Urte berria izan dadila jainkoaren laguntzarekin osagarri eta **zorionezkoa**. Herria

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
> **baina zorionez** (26); **baina zorionez ez** (8); **zorionaren zorionez** (5); **zorionez bete** (4); **zorionez betea** (3); **zorionez beterik** (5); **zorionez betetzen** (3); **zorionez diot** (3); **zorionez edo zoritxarrez** (10); **zorionez eta zoritxarrez** (3); **zorionez ez** (32); **zorionez ez da** (8); **zorionez ez zen** (4); **zorionez gainezka** (3)
> **gure zorionezko** (5); **zorionezko agiantza** (3); **zorionezko agiantzak** (7); **zorionezko eguna** (3)

---

## zoriongarri *izond* zoriona ematen duena.

Auzapezak deneri eskerrak bihurtu daizkiote, azpimarratuz nekeak neketei **zoriongarri** kausitu duela herriaren zerbitzuko iragan denbora. Herria

---

## zorionka *adlag* 'zorion' esaka.

Lagunak ez ziren bibaka hasi lehen bezala, inor ez zen Metxarengana etorri **zorionka**, inor ez zitzaion eskaini gauzak biltzeko, eta gauean tobera jotzeko gogoa ere joana zitzaien. Koldo Izagirre

Itxia dago, ezin dut ireki, eta orduan eskuak luzatuta bizkar zaharra **zorionka** hilduratu nahian edo lepoan hartuta segi aurrera egin beharrez niregana datozen basapiztia hauen ihesi hasi naiz. Koldo Izagirre

---

## zoriontasun 1 *iz* zoriona.

Izen garbi jakinen eremuan, jaun-andreok, **zoriontasuna** ez dena zorigaitza da, eta tristura. Iñaki Segurola

**Zoriontasuna** esku hutsik doan jainko bat da. Joseba Urteaga

Honetan atza **zoriontasuna**, eta horregatik dio gure Jaunak: "Zorionekoak zuzenagatik erasotuak". Joan Mari Lekuona

Hitz egin nahi dut **zoriontasunaz** eta ongizateaz, une arraro eta ezusteko horietaz non zure buruko ahotsa isildu egiten baita eta munduarekin bat zarela sentitzen baituzu. Oskar Arana

Horixe da, hain zuzen ere, gizakiaren **zoriontasuna** [...] egia ongi bilatzea. Imanol Unzurrunzaga

Ezkon-bizitzaren **zoriontasunak** dastatu hituela esan zidaan Hoganek. Irene Aldasoro

**Zoriontasunaren** giltza lasaitasuna da, kontrakoa gaztetan bakarrik izan daiteke egia. Mikel Hernandez Abaitua

**Zoriontasunaren** propagandarik txarrena gizabanako (eta gizabinako) zoriontsu ofizialak eta ezagutuak dira. Iñaki Segurola

Gizakirik jakintsuenarengana bidali zuen bere semea merkatari batek, **Zoriontasunaren** Sekretua ikas zezan. Xabier Aranburu

Etsipen aitortu bat da **zoriontasuna**: "ni honaino iritsi naiz neure bizian; beraz (sic!), hauxe da nik nahi nuena", dio bere artean zoriontsuak lotsa gutxirekin. Iñaki Segurola

**Zoriontasuna** mutua da, eta ez da bere baitarik mintzo; horregatik ditu baitezpadakoak aitorpena eta deklarazioa (esana behar du izateko): norbait jesuita edo ezkertiarra dela ikusten ez den bezalaxe, **zoriontasuna** ere ez da kanpotik ikusten, aitorpenik behar ez duen zinezko poza ikusten den bezala. Iñaki Segurola

Eztarrian gora igotzen zitzaidan **zoriontasunaren** dasta eztia. Juan Kruz Igerabide

Zoriontsu izan aurretik **zoriontasunaren** nozioa arimetan irarrita daukagun moduan, horren kariaz baitakigu eta esaten dugu uste osoz eta inolako zalantzarik gabe zoriontsu izan nahi dugula. Imanol Unzurrunzaga

Lan astunik gabe, **zoriontasunik** ez. Oskar Arana

Bizitzea sufritzea da, **zoriontasunera** iristeko borrokatzen saiatzea. Antton Olano

Jainkoak ez zuen ahalbidetu ene semeak bizitzan eta **zoriontasunean** parte hartzea. Patxi Zubizarreta

**Zoriontasunez** beteriko begi ameslariak ireki gabe, astiro hitz egiten zuen, ia abestuz: [...]. Jose Morales

Itzuli egin zien irribarrea mutilak, bihotza **zoriontasunez** gainezka zuela. Xabier Aranburu

Elkarri eskerrak ematea **zoriontasunezko** une horiengatik. Luis Elberdin

Euren ezjakintasunak **zoriontasunezko** ordu bat gehiago eman zien. Julen Gabiria

**2** (izenondo eta izenlagunekin)

Miragarri hau behar den bezala ausnartuko bagenu, **zoriontasun** handia aurkituko luke bihotz maiteminduak. Joan Mari Lekuona

Pareta erori haien artean behiala izandako familia irudikatzen nuen, denborak gupidarik gabe hondatutako **zoriontasun** apal eta laño hura guztia. Juan Luis Zabala

Jainkoak beste inork ez zaitzake kontsola eta bere baitan eta berarekin bakarrik aurkituko duzu **zoriontasun** betea. Joan Mari Lekuona

**Zoriontasun** material eta ez materialari buruzko eztabaida transzendentala. Iñaki Heras

Leizezulo hark maitasun eta egarri gehiago eragiten eta sortzen du ariman, **zoriontasun** betierekoan jainkozko izaerari buruz irits ditzakegun ezagupide guztiak baino. Joan Mari Lekuona

Neure baitatik kanpo ere desanparorik ez dakarren **zoriontasun** urduri bat badagoela. Pako Aristi

Lur jotze horretatik halako **zoriontasun** zital batera pasatu nintzen. Juan Garzia

Berebiziko **zoriontasun** eroaren zamaren azpian unaturik. Jose Morales

Ezin harrapa dezakegun **zoriontasun** aratza, askea, baliotsua. Berria - Kultura

Beregana erakartzen gaitu santu egin gaitzan eta bizitza zoriontsua izan dezagun, betiko **zoriontasunean**. Joan Mari Lekuona

Jaungoikoa baita gizakiaren benetako **zoriontasuna**. Imanol Unzurrunzaga

**3** (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

Emakume bat ageri zen bertan, egundoko **zoriontasun**-aurpegiarekin, bere sabel loditua laztantzen, atzean gizona zuela. Xabier Mendiguren Elizegi

**Zoriontasun** egun bakar batzuk bere bizitza osoan... Hori izanen zen hil arteko bere poz guztia. Fernando Rey

**Zoriontasun** une horiek egiten baitute bizitza atseginagoa. Luis Elberdin

Orduan, nondik ez dakizula, askatasun-lehertze txiki bat sentitzen duzu tupustean, zinezko eta erabateko **zoriontasun**-une bat edo bi. Oskar Arana

Halako **zoriontasun**-sentsazio bat txinpartaka hasi zen Ellenen baitan, gero eta gorago zihoala, suziri baten gisa. Lopez de Arana

Beharbada okerreko bidea hartu du berriro ere, **zoriontasun** espejismo baten atzetik abiatuta. Patxi Iturritegi

**Zoriontasun**-ahotsek gaua bete zuten. Fernando Rey

Zein dira **zoriontasun**-begi horiek? Joan Mari Lekuona

Bere barruko **zoriontasun**-globoa zulatu balitz bezala izan zen. Iñaki Mendiguren

Literaturazko **zoriontasun** uharte batean eta errealitatetik urrun egotea izan zuen damu. Berria - Kultura

Burmuinak, berriz, esker onekoa bera, maitasun, **zoriontasun**, ongizate eta betetasun sentipena utziko diguten substantzia neurokimiko batzuk askatuko ditu. Luis Elberdin

**4** (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa)

Beste zer da, bada, giza **zoriontasuna**? Luis Elberdin

**5** Jesu Kristok mendiko hitzaldian zorioneko izateko aldarrikatu zituen zortzi bideetako bakoitza.

Jesusen historia, segimendua, **zoriontasunak**, Jainkoaren eta lagun hurkoaren maitasuna, eskatologia, betiko kondenazioa eta salbazioa. Askoren artean

Zortzigarrena, mendiko hitzaldiaz, hau da, zortzi **zoriontasunez**. Patxi Altuna

Bada Loretxoetan "espiritu" bat, bakarra, mugaezina, logikaz gainekoa, apala, ausarta, argia, Jesusen **"Zoriontasunen"** berri duenak bakarrik ezagutzen duena. Askoren artean

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
> **halako zoriontasun** (3); **zoriontasun guztia** (4); **zoriontasunaren sekretua** (3)

---

# zoriontsu 1 *izond* zorionez betea, zorionekoa.

Alexandrek koloso baten alaitasun eder benetakoa zuen, haur handi **zoriontsu** baten antza. Karlos Zabala

Brooklyngo etxekoandre ezkondu **zoriontsu** bat bi umerekin. Oskar Arana

Ez zen gutxiagorako, biek oso bikote **zoriontsua** osatzen baitzuten, ezin lotuagoa, maitasun eredutzat hartzen diren bakan horietakoa. Patxi Iturritegi

Osasunako kide **zoriontsuenetakoak** dira Juanma Ortiz eta Enrique Corrales. Berria - Kirola

Zaldun **zoriontsu** hark altxarazi ninduen. Jon Muñoz

Arriagaren obra bi interpretatu ditu BOSek: Esklabo **zoriontsuak** eta Re nagusiko Sinfonia. Berria - Kultura

-Agur, Judu Herratua, bidaiari **zoriontsu** eta jomugarik gabea! Anjel Lertxundi

Gizen **zoriontsuaren** mitoa. Berria - Harian

Zoriontasunaren propagandarik txarrena gizabanako (eta gizabinako) **zoriontsu** ofizialak eta ezagutuak dira. Iñaki Segurola

Familia **zoriontsua** ginen, baina orain jota gaude. Berria - Euskal Herria

Irakaspen hori, Jainko **zoriontsuak** nire gain utzi duen berrion aintzatsuak ematen duena da. Elizen arteko biblia

Kutxa hartan, unibertso **zoriontsu** hartan sartu nahi nuen, denbora guztian barre egiten eta dantzan ari ziren eta. Juan Kruz Igerabide

Arima **zoriontsu** hura ikusi zuen, izar distiratsu baten itxuran. Askoren artean

Hamabi musikari biltzen zuen banda honek, pop gardena eta **zoriontsua** egiteko. Berria - Kultura

Ispilu honetan, hain zuzen, dirdai egiten du pobretasun **zoriontsuak**. Askoren artean

Senarra eta biak lehen bezala bizi ziren, adiskidetasun handian, bake **zoriontsuan**. Karlos Zabala

Perspektiba espiritual **zoriontsuago** hau, gutxienez, aukera bat zen. Iñaki Mendiguren

Mendebaldeko literaturan nahiz artearen beste diziplina askotan, hala Tristan eta Isoldaren istorioan nola Romeo eta Julietarenean, «amodio **zoriontsuek**» tokirik ez dutela ohartarazi du psikologoak. Berria - Euskal Herria

Agian beste oroitzapen bat aukeratu beharko zenuke, oroitzapen **zoriontsu** bat, eta hartan bildu zeure indar guztiak. Iñaki Mendiguren

Jakin izan banu noski, ederki asko gozatuko nituen azken minutu **zoriontsu** haiek. Jesus Mari Mendizabal

Bere haurtzaroko egun **zoriontsuak**. Joan Mari Irigoien

-Eguberri **zoriontsuak**! -esan zuen pozik, bere pitxerra jasota. Iñaki Mendiguren

Ez zen soilik une **zoriontsu** hartako lilura. Felipe Juaristi

Maitasuna ordezkatzen duen istant **zoriontsu** efimeroa. Karlos Linazasoro

Profita itzazu zure bizitzako garairik **zoriontsuenak**. Juan Martin Elexpuru / Bego Montorio

Zahartzaro **zoriontsua** izan ondoren, zeure arbasoekin elkartuko zara bakean. Elizen arteko biblia

Haurtzaroko opor **zoriontsuak**. Joxan Elosegi

Etorkizun **zoriontsu** baten esperantzan. Herria

Bizitza **zoriontsu** hau [...] ongi aldaezinarekin batera, gizakiaren ongi berezkoa da eta nagusia. Imanol Unzurrunzaga

Toki dohatsu eta santu honetan izan zuen bere hasiera **zoriontsua** Andre Pobreen eta birjina santuen elkarte ospetsuak. Askoren artean

Horrela, hasiera **zoriontsua** amaiera **zoriontsuagoz** izan zen burutua. Askoren artean

Amaiera erabat **zoriontsua** eta neurri batean faltsua bazterturik, esperantzari irekitako atea dugu nobela hau. Berria - Kultura

Bizi ona eta **zoriontsua** , erran nahi baita bertutetsua. Piarres Xarriton

Haren hamar hatzen heldua nabaritzen dut garondoan, eta haren aho epileptiko-**zoriontsua** ikusten, baita paretako koadroa ere. Joxe Austin Arrieta

Francis Macomberren bizitza labur-**zoriontsua** . Edorta Jimenez

Han bizimolde **zoriontsua** izatea beste desirarik ez diat. Patxi Zubizarreta

Bizitza **zoriontsu** eta egokira garamatzan maitasunaren Inspiratzailea. Imanol Unzurrunzaga

Bizitza **zoriontsu** eta betikoan perfektuki kontenplatuko dugun errealitatean. Imanol Unzurrunzaga

Goresmenak aitameri eta agiantza **zoriontsuenak** sortu berrieri. Herria

Bizi **zoriontsu** baten agiantzak diozkategu espos berrieri. Herria

Bizi luze eta **zoriontsu** bat haur sortu berriari eta goresmen beroenak haren familiako guzieri. Herria

Gabon gau luze eta **zoriontsua** izan zen hura. Jon Maia

Hain pozik ikusten nuen bere semearekin momentu **zoriontsu** hura bizi zuelako, ezen [...]. Ramon Saizarbitoria

Une berarentzat ezin **zoriontsuago** haietan. Ramon Saizarbitoria

- Bidenabar, **zoriontsu** diot, eta zoriontasun, eta ez gustura, kontentu edo pozik; hauek "egoteari" dagozkio eta hura "izateari", bai ala ez, banaiz edo ez naiz. Iñaki Segurola

## **2** (izen gisa)

"Zoritxarrekoari mesprezioa, estropezu egiten duenari zartadak" pentsatzen du **zoriontsuak** . Zoritxarrekoarentzat egun guztiak txarrak, **zoriontsuarentzat** etengabeko festa. Elizen arteko biblia

**Zoriontsuak** bizia gauza gertatua balitz bezala bizi du. Iñaki Segurola

**Zoriontsua** ez dago giza eskizofrenia fundazionaletik libre. Iñaki Segurola

Kontuan har ezazu, bada, ahal duzun neurrian, zeinen ondasun handia den izatea bera, **zoriontsuek** bezala zorigaiztokoek ere hori nahi baitute. Imanol Unzurrunzaga

Uztailaren erdialderako esan zitekeen nitaz Obabako nekazari eroriaz besteek - **zoriontsuek** - esaten zutena: "bere buruari ekinda dago". Bernardo Atxaga

**Zoriontsuaren** bizia programatutako gau-pasa baten tankerako bizi-pasa bat da. Iñaki Segurola

Eta **zoriontsuetan zoriontsuena** zure bihotzaren jabe egiten dena, ez baitut inoiz zu bezalako hilkorrik ikusi. Juan Kruz Igerabide

## **3** (predikatu gisa)

**Zoriontsua** Jakinduriari entzuten diona. Elizen arteko biblia

Baina, esadazu: jakintsuak eta **zoriontsuak** gara dagoeneko, ala oraindik horretarantz goaz inoiz izatea lortzeko xedeaz? Imanol Unzurrunzaga

Badakigu **zoriontsuak** izango garela. Mirentxu Larrañaga

Oso **zoriontsua** izango nintzateke Realean berriz ere. Berria - Kirola

**Zoriontsuak** izanak ziren oso, eta maitasun bero hark ez bide zuen inoiz bukaerarik. Berria - Kultura

Senarra dut eta **zoriontsua** naiz berarekin. Koro Navarro

Egiaren ikerlea **zoriontsua** da, egiaren jabe izatera iritsi ezin bada ere. Imanol Unzurrunzaga

Bada aulki gurpildunean egonagatik ere **zoriontsua** den emakume bat. Berria - Kultura

Zurginak **zoriontsuak** dituk oso. Karlos Zabala

Hauxe da, zalantzarik gabe, bizitza **zoriontsua** , bizitza perfektua baita. Imanol Unzurrunzaga

Ezin da amaiera **zoriontsurik** egin, bizitza ez delako **zoriontsua** . Berria - Kultura

Neu naiz gaua zeharkatzen duena, **zoriontsua** naiz eleberri bateko heroi baten gisa. Monika Etxebarria

Baina **zoriontsua** naiz, eta zoriontsu jarraituko dut! Josu Zabaleta

Bizpahiru urteko gizontxoa zen ordurako, lodi-lodia, txit **zoriontsua** bizirik egoteagatik. Karlos Zabala

Arras **zoriontsua** izateko ez zaizu haren maitea izatea baizik falta. Jon Muñoz

Egoera hartan Sara **zoriontsua** zen, oro har; baita oso **zoriontsua** ere, hainbatetan. Joan Mari Irigoien

-Oso-oso **zoriontsua** naiz, maitea. Lopez de Arana

**Zoriontsua** dirudi Jean Claudek, konspirazio unibertsala sinetsita. Koldo Izagirre

**Zoriontsuak** ikusi gabe ere sinetsi dutenak. Imanol Unzurrunzaga

Han mundu guztiak egiten du lan: han mundu guztia da **zoriontsu** . Juan Martin Elexpuru / Bego Montorio

Nik uste hemen **zoriontsu** izan zela, eta han berriz ez hainbeste. Bernardo Atxaga

Ni ere, garai batean, aberats eta **zoriontsu** ninduan. Izan ere, nor jaio da hemen **zoriontsu** izateko? Xabier Mendiguren Elizegi

Ohoratu aitamak, Jaunak zeure Jainkoak agindu bezala, luzaro bizi eta **zoriontsu** izan zaitezen. Elizen arteko biblia

Hiru urte lehenago ibilbide berean **zoriontsu** izanak ere ez zigun askorik laguntzen. Joxean Agirre

Nahia betetzen ez duena ez da **zoriontsu** . Imanol Unzurrunzaga

**Zoriontsu** ez dena dohakabea al da? Imanol Unzurrunzaga

Nolatan izango da **zoriontsu** hain sutsuki desiratzen duen hori eskuratu gabe? Imanol Unzurrunzaga

Zergatik ezin izango da **zoriontsu** egiaren bila dabilena, hura aurkitu ez badu ere? Imanol Unzurrunzaga

Hala eta guztiz ere, oso **zoriontsu** ginen elkarrekin, hala iruditzen zitzaidan behintzat. Joxe Austin Arrieta

Hitz bakar batekin adoretu, eta **zoriontsu** egingo nauzu. Patxi Zubizarreta

Gogoan izan naturak zure herrikideak **zoriontsu** egiteko, zaintzeko, laguntzeko, maitatzeko jarri zaituela eginkizun horretan. Juan Martin Elexpuru / Bego Montorio

Zin egin zion aberats eta guztiz **zoriontsu** bihurtuko zuela. Elizen arteko biblia

Hala ere, neskak **zoriontsu** omen zirudien. Joxean Agirre

Zinez **zoriontsu** izan nadin, emakume horrek behar dit bere burua eman. Jon Muñoz

## **4** (adizlagun gisa)

Han zegoen ama, **zoriontsu** , eguzkia baino argiago, aitari besotik helduta. Iñaki Mendiguren

Ondo nengoen, baina ez **zoriontsu** . Jesus Mari Mendizabal

Ziur nago bere arimak zerura egin duela, **zoriontsu** egon behar genuke. Bernardo Atxaga

Andreak adiskidetsu eta begitarte lasaiarekin begiratzen zion bitartean, Florent **zoriontsu** egoten zen guztiz. Karlos Zabala

Buck **zoriontsu** eta larderiatsu zetorren, eskuak billetez eta tren-txartelez beterik zituela. Lopez de Arana

**Zoriontsu** sentitzen nintzen. Aitor Arana

**Zoriontsu** esnatzen nintzen egunero, gustatzen zitzaizkidan gauzak egiteko, eta pozik oheratzen nintzen. Josu Zabaleta

Eta orain, zu **zoriontsu** ikusteak bihotzeko zauria sendatu dit. Agustin Otsoa

Ez dago gizon bihozberarik berak maite duen pertsona **zoriontsu** ikusita gozatzen ez duenik. Juan Martin Elexpuru / Bego Montorio

Hemen oso **zoriontsu** bizi omen da. Bernardo Atxaga

Ondasunetara makurtzen ez den arima **zoriontsu** bizi da eta libre. Imanol Unzurrunzaga

Ni, Nabukodonosor, lasai eta **zoriontsu** bizi nintzen neure errege-jauregian. Elizen arteko biblia

Berriz ere olatuaren goian nenbilen, **zoriontsu**, marinel ausart. Juan Kruz Igerabide

Egizu hauen bizitza alai eta **zoriontsu** iragan dadin. Elizen arteko biblia

Costak alde egin du, **zoriontsu** eguna hain ongi hasi duelako. Jon Alonso

Frantzisko santua, gorputzeko kartzela utzirik, espiritu zerutarren egoitzetara igo zen **zoriontsu**, behin hasi zuena neurri betera eramanez. Jainkoagana egin zuen hegan **zoriontsu**. Askoren artean

Hiltzen da bat sasoi-sasoian, **zoriontsu** eta lasaitasun betean. Elizen arteko biblia

Ohean lasai etzan eta Jaunagan lokartu zen **zoriontsu**. Askoren artean

Hori esan eta berehala, berak ere atseden hartu zuen **zoriontsu**. Askoren artean

**5** (hitz elkartuetan)

Gizon mozkote gihartsu bat ikusi zuen, **zoriontsu** itxurakoa. Karlos Zabala

**hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 4 aldiz agertzen direnak)**

**alai eta zoriontsu** (6); **aldi berean zoriontsu** (4); **beti zoriontsu** (8); **betiko zoriontsu** (7); **bezain zoriontsu** (13); **bizi eta zoriontsu** (5); **bizi luze zoriontsu** (10); **bizi zoriontsu** (41); **bizi zoriontsu bat** (22); **bizi zoriontsu baten** (17); **bizitza zoriontsu** (5); **bizitze zoriontsu** (4)

**egun zoriontsu** (5); **erabat zoriontsu** (8); **ez da zoriontsu** (5); **ez zoriontsu** (6); **ezin da zoriontsu** (4); **gero betiko zoriontsu** (4); **guztiz zoriontsu** (8); **hain zoriontsu** (12)

**izan zoriontsu** (4); **izango da zoriontsu** (4); **jendea zoriontsu** (5); **luze eta zoriontsu** (41); **luze zoriontsu** (11); **luze zoriontsu bat** (10); **ni zoriontsu** (8)

**oso zoriontsu** (16)

**une zoriontsu** (6); **zein zoriontsu** (5); **zinez zoriontsu** (5)

**zoriontsu bat** (90); **zoriontsu bat desiratzen** (8); **zoriontsu bat diotegu** (7); **zoriontsu bat sortu** (4); **zoriontsu baten** (40); **zoriontsu baten agiantzak** (28); **zoriontsu bizi** (34); **zoriontsu bizi izan** (6); **zoriontsu biziko** (10); **zoriontsu da** (12); **zoriontsu dago** (4); **zoriontsu dela** (13); **zoriontsu dira** (4)

**zoriontsu egin** (18); **zoriontsu egingo** (19); **zoriontsu egitea** (4); **zoriontsu egiteko** (8); **zoriontsu egiten** (33); **zoriontsu hil** (4)

**zoriontsu ikusten** (4); **zoriontsu izan** (103); **zoriontsu izan dadila** (9); **zoriontsu izan nahi** (10); **zoriontsu izan nintzela** (4); **zoriontsu izan nintzen** (9); **zoriontsu izan zaitezen** (5); **zoriontsu izan zaitezten** (5); **zoriontsu izanen** (5); **zoriontsu izango** (48); **zoriontsu izango da** (7); **zoriontsu izango zara** (6); **zoriontsu izango zarete** (4); **zoriontsu izatea** (23); **zoriontsu izateko** (66); **zoriontsu izateko behar** (4); **zoriontsu izaten** (10); **zoriontsu izatera** (5); **zoriontsu naiz** (8); **zoriontsu nintzela** (5); **zoriontsu nintzen** (10)

**zoriontsu sentitu** (12); **zoriontsu sentitzen** (24); **zoriontsu sentitzen nintzen** (6); **zoriontsu sentitzen zen** (5)

**zoriontsu zegoen** (9); **zoriontsu zela** (7); **zoriontsu zen** (7); **zoriontsu zirudien** (4); **zu zoriontsu** (8)

**amaiera zoriontsua** (8); **arras zoriontsua** (5); **bezain zoriontsua** (5); **bikote zoriontsua** (6); **bizi zoriontsua** (4); **bizitza zoriontsua** (19); **egun zoriontsua** (9); **ez da zoriontsua** (4); **gizon zoriontsua** (8); **guztiz zoriontsua** (4); **haurtzaro zoriontsua** (4); **heriotza zoriontsua** (4); **luze eta zoriontsua** (5); **oso zoriontsua** (18); **zeinen zoriontsua** (4)

**zoriontsua da** (16); **zoriontsua dela** (13); **zoriontsua ematen** (4); **zoriontsua ematen zuen** (4); **zoriontsua izan** (34); **zoriontsua izan zen** (9); **zoriontsua izanen** (4); **zoriontsua izango** (19); **zoriontsua izatea** (4); **zoriontsua izateko** (6); **zoriontsua naiz** (25); **zoriontsua nauk** (4); **zoriontsua nintzen** (6); **zoriontsua zela** (7); **zoriontsua zen** (24)

**are zoriontsuago** (4); **askoz ere zoriontsuago** (5); **baino zoriontsuago** (21); **ezin zoriontsuago** (4); **zoriontsuago egiten** (4); **zoriontsuago izan** (5); **zoriontsuago izango** (6)

**baino zoriontsuagoa** (7)

**baino zoriontsuagoak** (4); **zoriontsuagoak izango** (5)

**eguberri zoriontsuak** (5); **egun zoriontsuak** (4); **esklabo zoriontsuak** (4); **oso zoriontsuak** (4); **zoriontsuak dira** (5); **zoriontsuak ginen** (6); **zoriontsuak izan** (15); **zoriontsuak izan ziren** (6); **zoriontsuak izango** (6); **zoriontsuak izateko** (4)

**bizitza zoriontsuaren** (4)

**buda zoriontsuen etxea** (12); **nekazari zoriontsuen** (8)

**bizitzako egunik zoriontsuena** (5); **egunik zoriontsuena** (7); **munduko gizonik zoriontsuena** (8); **zoriontsuena izan** (6)

**burraso zoriontsueri** (11); **goresmenak burraso zoriontsueri** (6)

---

# zoriontsugile *iz* izaki zoriontsuak egiten dituena.

Ezagutzen ez den, izenik ez duen eta **zoriontsugile** den leizezulo hark maitasun eta egarri gehiago eragiten eta sortzen du ariman, zoriontasun betierekoan jainkozko izaerari buruz irits ditzakegun ezagupide guztiak baino. Joan Mari Lekuona

---

# zoriontsuki *adlag* era zoriontsuan. ik **zoriontsu 4.**

Burneteneako ganarrean (Nafarroa Beherean, "ganarrea" ganbara da), 1920, 1930eko aldizkari pilak baziren, *L'Illustration*enak bereziki, **zoriontsuki** irakurtzen eta ikusten nituenak, zorion osoan, bakar-bakarrik xoko gorde batean jarririk. Ana Urkiza

Meritu handiko gizon horiek ikuskeraren sakontasuna aurkezpen argi baten trebetasunari lotzen diote **zoriontsuki** (ez baitakit ni trebetasun horren jabe naizen). Ibon Uribarri

Ea giza arrazoimena bi haitz hauen artetik **zoriontsuki** igaro daitekeen, berari muga determinatuak erakutsi ahal zaizkion. Ibon Uribarri

---

# zoriontze *iz* zorionak esatea edo ematea.

Iaz, 811 espediente kudeatu zituen Hizkuntz Eskubideen Behatokiak: 729 kexa, 38 **zoriontze**, 20 zehaztu gabeko, 16 kontsulta eta 8 prebentzio ekintza. Berria - Harian

**Zoriontze** hark, bere nagusien konfiantza adierazpena izateaz gain, hurrengo eginbeharretarako oxigeno baloi bat zen halaber, segurtasun parentesia hurrengo errietaldia jasotzeko unea iritsiko zen arte. Joxemari Iturralde

Gutunak, gutun berri-emaileak, **zoriontze** gutunak, diplomak, erabilerarako gidaliburuak, iragarkiak, telegramak... Joxan Elosegi

---

# zoritsu *iz* zoriontsua.

Zein gizaki **zoritsurena** zen bazter leku hura? Jose Morales

Monceau parke aldean plazaratu zen, arrandian, bidaiarigai **zoritsuen** sailtxo bat, urtze-puntu sudoriparoaren azken muga hezeetan zena, jasotzera. Xabier Olarra

---

# zoritu, zori(tu), zoritzen *(orobat **zohitu** g.er.)* **1** da/du *ad* heldutasuna iritsi, heldu. ik **ondu 3**; **umotu**.

Pentsatzen dut limoiak **zoritzen** zireneko sasoiaz. Juan Garzia

Estimatua izan ohi da gainera, baba eta artaburu, umotzen eta **zoritzen** joan daitezen. Pello Zabala

Neskatxa guztiz guri, guztiz **zoritu** gabeak. Eduardo Matauko

Mendeku plana **zoritu** bitartean. Xabier Olarra

Forma aldetik ondo bai ondo garatu eta **zoritua** agertzen da bertsolaritza lehen aipamen dokumentatu horietan. J. Garzia / A. Egaña / J. Sarasua

**2** (era burutua izenondo gisa)

Behin, ordea, udazken-egun malapartatu batean, mahats-ale **zorituegi** bat jan beharra fortunatu zitzaion. Joxerra Garzia

Behin, ordea, udazken-egun malapartatu batean, mahats-ale **zorituegi** bat jan beharra fortunatu zitzaion. Joxerra Garzia

Adio: ene benedikapenak hori dezala **zoritu** higan! Juan Garzia

---

**zoritxar** *(1925 agerraldi, 222 liburu eta 438 artikulutan)* **1** *iz* egoera nekagarria edo mingarria; mingarriro jotzen duen ezbeharra. ik **zorigaitz; zorigaizto**; ik **zori 13**.

Asturuzalea den jendeari baizik ez zaizkio **zoritxarrak** edo ezbeharrak hamahiru zenbakiko egunean gertatzen. Jon Alonso

**Zoritxarren**, oinazeen eta irainen menpe jartzen gaituelako. Jon Alonso

Orointxe nator Porta de Ferrotik, **zoritxarren** eta miserien erakusketa bat bezalakoa da. Jon Alonso

Jacques kontramaixuak lehen segadako gutunak denen bistan banatu zituen egunean, hasi ziren sindikalistaren **zoritxarrak**. Itxaro Borda

Don Carlosen **zoritxarrak** gureak bihurtu ziren; eta Don Carlosen pozak, gure pozak. Txillardegi

Mota guztietako **zoritxarrak** gertatuko zaizkio. Fernando Rey

Ez gara konturatzen **zoritxar** bat gertatzen ari zaigun bitartean, badugula beste norbait guri lagundu nahian. Ander Irizar

Gabriellen **zoritxarra** gertatu zen asteburuan? -galdetu zuen isilaldiaren buruan. Migel Angel Mintegi

Inor ez legoke **zoritxar** horretatik salbuetsirik. Xabier Kintana

Istripu hori **zoritxar** anonimo bat baizik ez zen komandantearentzat, zerga estatistiko bat balitz bezala edo. Josu Zabaleta

Zure senarraren eta zure gonbidatuen aurrera nator, **zoritxar** asko jasan ondoren. Juan Kruz Igerabide

Are **zoritxar** gehiago etorriko zaigula. Juan Kruz Igerabide

**Zoritxar** gehiago, ikara gehiago niretzat. Bernardo Atxaga

Gogoratu zenbat **zoritxar** dagoen munduan, eta poztu zaitez **zoritxar** horiek zuri gertatzen ez zaizkizulako. Josu Zabaleta

Hamaika larrialdi eta **zoritxar** pasarazi didazu. Elizen arteko biblia

Bidean **zoritxarren** bat gertatuko balitzaio, agure hau Hilen Egoitzara jaitsaraziko zenukete atsekabez. Hala ikusi zituen Arturrek zetozkion **zoritxarrak**. Elizen arteko biblia

Baina gure **zoritxarrak** ere baditugu. Josu Zabaleta

Beraz, egin ezak lo; laster amaituko dituk hire **zoritxarrak**. Juan Kruz Igerabide

**Zoritxar** hauek bidali dizkizuenak berak salbatuko zaituzte eta poza emango betiko. Elizen arteko biblia

Hilabete behar izan nuen lehenengo **zoritxar** hartatik sendatu arte. Rafa Egiguren

**Zoritxar** guztiak oroituta, tristerik zeuden denak. Juan Kruz Igerabide

Hala da, ezin ohi dira **zoritxarrak** oro saihestu. Jon Alonso

Eleberri huntako protagonistak Otsabideko jendeak dira, beren zorion eta **zoritxarrekin**. Herria

Jasan dituzten **zoritxarrengatik** garrasi eta oihu, hori Frantzian, Errusian, Italian eta Alemanian egin dezakete, baina guk oraindik ez dugu horretarako eskubiderik. Josu Zabaleta

-Eta, **zoritxarra zoritxarraren** gainean, lasto-izpirik ez etxalde osoan! -ekin zion berriro Pliushkinek-. Jose Morales

Arazoak eta **zoritxarrak** ez direla banaka etortzen esan ohi da. Jon Alonso

Askoren **zoritxarra** beste askoz gehiagoren kontsolagarri ez al da? Harkaitz Cano

Gizon kokildua ematen zuenak ausart joka lezake **zoritxarren** aurrean, edo handi-mandia errukarri agertu. Xabier Mendiguren Elizegi

Horregatik, oraintxe ere **zoritxarrez** josiak eta Jaunaren madarikaziopean gaude. *ik beherago* 9. Elizen arteko biblia

**2** (izenondo eta izenlagunekin)

Susmoa eta zurrumurrua zen erbesteratuta edo **zoritxar** ilunen batengatik ihesean etorria zela. Joseba Sarrionandia

Ondorengo gizarte-kataklismoa **zoritxar** handia da inplikaturiko guztientzat. Iñaki Mendiguren

Dibongo urak odolez beteak daude, baina oraindik ere **zoritxar** handiagoak bidaliko dizkiot Diboni. Elizen arteko biblia

Agintzen dizkiguzuen **zoritxar** saihestezin horiei dagokienez, [...]. Jon Alonso

Zintzoen **zoritxar** propioak. Imanol Unzurrunzaga

Gizon etsitua ematen zuen, besteren **zoritxar** beti berdin eta beti berrituak sortzen zion ondoezaren aurrean sor agertzen ez zekien gizona. Imanol Zurutuza

Horrelako **zoritxar** batek berez dakarren atsekabeaz gain, erantzukizun berrien zama datorkio Paxkali bizkar gainera. Daniel Landart

Apaizek interpretatzen zituzten egutegiak, eta kalendarioaren arabera esango zizuten sortu berriak zer-nolako zorion edo **zoritxar** izango zuen bere bizitzan. Zergatik erabaki du Jaunak hain **zoritxar** handia bidaltzea? Pello Salaburu

Hau **zoritxar** alua! Antton Olano

Lotsagarri da gaizki hezitako semearen aita izatea, eta ez **zoritxar** txikiagoa alaba baldin bada. Elizen arteko biblia

Bete egin duzu, gure eta gure gobernarien aurka eman zenuen hitza, beste inon ere ikusi ez den bezalako **zoritxar** izugarria Jerusalemera bidaliz. Elizen arteko biblia

Hura zela-eta pentsatu zuen bazela garaia **zoritxar** hondorik gabea norbaitekin partekatzekoa. Karlos Linazasoro

Hain miragarriro apainduak daude eroapenaren bertuteaz, non inolako **zoritxar**, atsekabe edo nekek ez baitu hausten haien adorea, ez gogoa aldatzen ere. Askoren artean

Horregatik ekarri die Jaunak halako **zoritxarra**. Elizen arteko biblia

Iragan da lehen **zoritxarra**! Baina beste bi falta dira oraindik. Elizen arteko biblia

**3** (adigai abstraktu gisa)

Aukeran jartzen dizkizuet gaur bizia eta zoriona, heriotza eta **zoritxarra**. Elizen arteko biblia

Gora osasuna eta doala pikotara **zoritxarra**! Lopez de Arana

Ez haute beti joko **zoritxarrak** eta atsekabeak. Karlos Zabala

Neu naiz argiaren egilea eta ilunpearen sortzailea, neu zorionaren egilea eta **zoritxarraren** sortzailea. Elizen arteko biblia

Beraz, **zoritxarra** eta pobrezia gauza bat bera dira. Imanol Unzurrunzaga

Orain, ordea, **zoritxarra** eta mina besterik ez diat, gogor egin baitut borroka gizonen kontra eta itsasoa. Juan Kruz Igerabide

-Maisu handia da **zoritxarra**, ezbairik gabe -dio Rousseauk-, baina gogotik ordainarazten ditu irakaspenak maisu horrek. Imanol Zurutuza

Arima bekatarien **zoritxarrak** unibertsoaren perfekzioa osatzen du. Imanol Unzurrunzaga

Bera bizi zen tradizioaren arabera mundura neskatxa ekartzea, **zoritxarra** ekartzea zen. Gotzon Garate

Kalte egiten zizutenak neuk zigortzen nituen: **zoritxarra** zetorkien gainera. Elizen arteko biblia

Mezulari maltzurrak **zoritxarra** ekartzen du, mandatari leialak sendabidea. Elizen arteko biblia

Bidegabekeria ereiten duenak **zoritxarra** jasotzen du, haren irrika guztia ezerezean amaituko. Elizen arteko biblia

Jerusalem, erantzi nahigabe eta **zoritxarraren** soinekoa, jantzi betiko Jainkoak damaizun ospearen soineko ederra. Elizen arteko biblia

**Zoritxarra** bidaliko dizut; desagerraraziko ditut zure ondorengoak eta suntsituko Akaben etxeko gizasemeak oro. Elizen arteko biblia

Zeu izan behar niri **zoritxarra** dakarkidana! Elizen arteko biblia

Herrirako bidean jarriko da, mingostasunez hasieran, onartu egiten baitu bere arazoa ez dela koldarkeria, **zoritxarra** baizik eta horrexegatik utzi behar izan duela bere zaldun "ogibidea". Patxi Ezkiaga

Hainbeste maite zenuen alaba bakarra urkatu egin da, **zoritxarrak** jota. Jose Antonio Mujika

Dardara egiten al duk **zoritxarrak** jotako agure zahar horren aurrean? Juan Kruz Igerabide

Neu ere bat nator zeurekin horretan, geuk irekitzen baitiogu askotan atea **zoritxarrari**. Hasier Etxeberria

Nahigabetuen eredu izateko jaioa naiz ni, eta **zoritxarraren** geziek beren norakoa erdiz erdi nigan izan dezaten. Patxi Ezkiaga

Jerusalem, erantzi nahigabe eta **zoritxarraren** soinekoa, jantzi betiko Jainkoak damaizun ospearen soineko ederra. Elizen arteko biblia

Erbestealditik libre gelditu direnak **zoritxar** handian eta egoera lotsagarrian daude Juda eskualdean. Elizen arteko biblia

## **4** (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

Geroztik, behin baino gehiagotan galdetu izan diot neure buruari, gizon hark ez ote zuen adimena **zoritxar** iturri, hain baitzen argia. Joan Mari Irigoien

XIX. eta XX. mendeetako sarraskietan eta **zoritxar**-katean. Txillardegi

Ez sartu nire herriko hiriburuan haren **zoritxar**-egunean! Elizen arteko biblia

Bere aterpean gordeko nau **zoritxar**-garaian. Elizen arteko biblia

-Herri batzuek **zoritxar**-zaporea diten. Juan Garzia

**Zoritxar**-mehatxuak. Elizen arteko biblia

Ez dut **zoritxar**-igarle izan nahi baina seguru nago datozen urteetan halako beste bat izango dugula. Berria - Euskal Herria

Ahaztea komeni zitzaigula, egun batez bederen, betiko **zoritxar**-igarleek aipatzen dutena. Iban Zaldua

## **5** (hiru osagaiko hitz elkartuetan)

Gainera hustu zien bere haserre-sua, bere sumin, amorru eta suntsipena: **zoritxar**-mandatari taldea. Elizen arteko biblia

## **6** ***zoritxarreko*** *izlag* zoritxarrak joa. ik **zorigaitz 6; zorigaizto 6.**

**Zoritxarreko** aita lurrean iraulka zebilen, Jainkoaren santu Frantziskori etengabe dei egiten, negarrez eta oihuka. Askoren artean

Gari merkatuko langile batekin ezkontzekotan zegoen, baina **zoritxarreko** mutilari zaku bat irin gainera erori eta bizkarra hautsita hil zen. Karlos Zabala

Hainbeste **zoritxarreko** andre etxegabe, sala beltz batean abandonaturik. Josu Zabaleta

**Zoritxarreko** abereak itsutu egiten zituzten tximistargiek. Karlos Zabala

-**Zoritxarreko** atea da hau -esan zuen Halbaradek-, eta badakit heriotza zain daukadala beste aldean. Agustin Otsoa

**Zoritxarreko** egun hartako arratsean. Josu Zabaleta

-**Zoritxarreko** gauza bat gertatu da, izugarrizko zoritxarra -Liebkind Bendel yiddishez hasi zen-. Koro Navarro

-Oso gazte, **zoritxarreko** ezkontza... Lopez de Arana

Gapera bidean izandako **zoritxarreko** erorketa hark ondorio fisiko eta psikologiko larriak eragin zizkion Belokiri. Berria - Kirola

Eta dena **zoritxarreko** telefono dei baten erruz gertatu zen. Jon Arretxe

Kartzela-lagunak tristurak jota zeuden, euren **zoritxarreko** gatibutzaz aieneka. Askoren artean

**Zoritxarreko** ustekabe bat gertatu baitzen, gure harremanen nondik norakoak erabat aldatuko zituena. Jon Arretxe

Zergatik nahi duzu hasi **zoritxarreko** borroka? Elizen arteko biblia

**Zoritxarreko** borrokaizuna Don Kijoteri gertatu zitzaiona. Patxi Ezkiaga

Andrearen bihotzean **zoritxarreko** zalantza sortu zen berriro. Anton Garikano

Oi Jerusalem, **zoritxarreko** hiri, ekaitzak astindua, inork kontsolatu gabea! Elizen arteko biblia

Garai hartan, **zoritxarreko** 1938an, Beanesko harana kartzela zen. Bernardo Atxaga

Gazte-gazterik, haren aita Grazianen manupean ibilia zen, Tafalla aldean, 1521 **zoritxarreko** hartan erregeren alde lehen aldiz armak hartu zituelarik. Aingeru Epaltza

Gizon **zoritxarreko** eta haragikoia, zergatik esaten diguzu gezurra Espiritu Santuari eta niri? Karlos Zabala

Ez zenuke ahaztu behar beti kezkatan dabilela bere anaia gazte **zoritxarreko** hori dela eta. Antton Olano

Ez zuen jende **zoritxarrekoa** gogoko. Karlos Zabala

Lisboako jende **zoritxarrekoa** heriotza beltzez hiltzen uzteko prest zegoen. Jon Alonso

Argitaletxeak erabaki du gertaera **zoritxarreko** hau ahaztea. Jon Alonso

Nondik zetorkion Adelari poz hura zoritxarrik **zoritxarrekoenean**, madarikaziorik madarikatuenean? Juan Kruz Igerabide

Heriotza dohakabea, diogu, ezen ez **zoritxarrekoa**, une egokian ikusiko den bezala. Jon Alonso

## **7** (predikatu gisa)

**Zoritxarrekoa** izan zen margolaria ikusi, eta maitatu, eta esposatu zuen eguna. Koro Navarro

Ordura arte, naturaltasun guztiz, zorionekoa izan den bizitza, naturaltasun berberaz **zoritxarrekoa** izaten hasi da. Pablo Sastre

Gaztetxoa nintzen arren, ongi bai ongi ohartzen nintzen zein **zoritxarrekoa** izan zitekeen gizon hura. Joan Mari Irigoien

Orain zuek bezalakoxea naiz, zikina, galdua, **zoritxarrekoa**. Jose Morales

Haren ustez, «zentzugabekeria eta astakeria» da Urkulluk esandakoa; «erabat **zoritxarrekoa**, ulertezina eta salagarria». Berria - Euskal Herria

Honelaxe nintzen ni zoriontsu edo **zoritxarreko**. Josu Zabaleta

Gizaki orok zoriontsu edo **zoritxarreko** izan behar badu, ez al da erokeria izango zera esatea, alegia, gau eta egun etengabe egiaren bila dihardüen gizakia **zoritxarreko** dela? Imanol Unzurrunzaga

Sendo nengoen fedean, "Bai **zoritxarreko** naizela!" esatean ere. Elizen arteko biblia

Ikusten duzu, bada, jauna, ondo **zoritxarrekoak** garena. Josu Zabaleta

Miguel Buen Gipuzkoako PSE-EEko idazkari nagusiaren arabera, Camachoren adierazpenak **«zoritxarrekoak»** izan ziren. Berria - Harian

Gehienak ez dira horren **zoritxarrekoak** hala ere. Xabier Mendiguren Elizegi

Ez zituen nekazariak maite, ez zoriontsuak eta ez **zoritxarrekoak**. Bernardo Atxaga

-Ai ene, **zoritxarrekoa** zu! Elizen arteko biblia

Ezein gorputz, gorputz izateagatik, ezin da zoriontsu izan, ez eta **zoritxarreko**. Imanol Unzurrunzaga

**Zoritxarrekoa** familiaren legea arbuiatzen zuena! Bernardo Atxaga

**Zoritxarrekoa** Lancelot eta biok elkartu zineten eguna **Zoritxarrekoak** beren buruak bazkatzen dituzten Israelgo artzainak! Juan Kruz Igerabide

**Zoritxarrekoak** bekatu larrian hilko direnak! Anjel Lertxundi

**Zoritxarrekoak** zuzengabeko legeak ematen eta jasanezineko dekretuak idazten dituztenak! **Zoritxarreko** sentitu arren, ez dute mundu honetatik alde egin nahi, bai ordea, euren miseriak uxatu. Elizen arteko biblia

Baina hain **zoritxarreko** sentitzen bada, guk ba al dugu eskubiderik bera geldiarazteko? Lopez de Arana

Jokalari mitikoak bere gain hartu du urteen poderioz galtzaile eta **zoritxarreko** bilakatu den taldea. Berria - Kirola

Ez zitzaizkidan hain **zoritxarreko** iduritzen irteera ordu beranduak edo bi asteburutan behingo lana. Aingeru Epaltza

Berariaz gizonak **zoritxarreko** egin izana leporatzen zien: alegia, aurpegia zerurantz itzularazi eta animaliarik gehienek duten gaitasunaz gabetu izana, lauhankan ibiltzen baitira haiek. Juan Garzia

Charles, etorri, aski dut, **zoritxarrekoegia** naiz! Monika Etxebarria

Gizaseme bat omen daukan hirekin, Troioako gerran ibili zirenetan **zoritxarrekoena**. Juan Kruz Igerabide

## **8** (izen gisa)

Jakinaren gainean jarriko dinat saldu dunan **zoritxarreko** hori. Karlos Zabala

Gutuna bidali didaten **zoritxarreko** horiek izugarrikeriak kontatzen dizkidate. Josu Zabaleta

Ez al dut, bada, negar egin **zoritxarrekoarekin** eta erruki izan behartsuari? Elizen arteko biblia

**Zoritxarrekoari** mesprezioa, estropezu egiten duenari zartadak. **Zoritxarrekoarentzat** egun guztiak txarrak, zoriontsuarentzat etengabeko festa. Elizen arteko biblia

Zenbat komentu ez dira gainezka bete, hainbeste eta hainbeste **zoritxarrekoren** ondra zela kausa. Karlos Zabala

## 9 *zoritxarrez adlag*

**Zoritxarrez**, ezin da gauza bera esan Nafarroan edo Iparraldean dugun egoeraz. Pello Salaburu

**Zoritxarrez**, dagoeneko inork ez du zalantzarik ñimiñoena ere horretaz. Alberto Ladron Arana

**Zoritxarrez** -Obabari buruz idazterakoan ere aipatu nuen-, begiramen edo decorum hori ez da jadanik mundu honetakoa. Bernardo Atxaga

**Zoritxarrez** -edo, txikiak zituen begiak, eta, horren ondorioz, denbora izugarri luzea ematen zuen igurtzitze-lan horretan. Jose Morales

Ez dugu **zoritxarrez** holakorik ikusiko. Herria

Behin **zoritxarrez** sekta honen partaideen artean eztabaida bat sortu zen jaten ari zirenari buruz. Xabier Olarra

Baina, **zoritxarrez**, gure esku ez dauden gorabeherengatik... Iñaki Mendiguren

Bero handia egin zuen, **zoritxarrez**, egun hartan. Joxan Elosegi

Ondoren etorri zen aro liberala **zoritxarrez** ez zen izan prozesuaren bukaera. Iñaki Mendiguren

Gorputza, **zoritxarrez**, oso modu bitxian eraikia dago ingeniariaren begietarako. Irene Aldasoro

Kantitate horiek, **zoritxarrez**, ondo heldu izan balira ere, txikiegiak dira esportazioaren lanak zuritzeko. Bego Montorio

Egia da Sedanori nitaz kontatzen diodan oro iruditzen zaiola neurosi obsesiboari lotua, baina, **zoritxarrez**, arrazoi izateko itxura guztia du. Ramon Saizarbitoria

Formulako puska batek arazoak sortzen zituen: baldin eta, **zoritxarrez**, erroaren azpiko kopurua: (q/2) 2 (p/3) 3 negatiboa bazen, ezin erabilizkoa zen formula! Jon Muñoz

Bai baitira, ugari **zoritxarrez**, jende oro etengabe zordun nahiko luketen banpiroak. Markos Zapiain

Dokumentuak atera nituen karteratik handik pixka batera, lanerako asmotan; **zoritxarrez**, baina, orduan banatu ziguten salda beroa, eta orduantxe bai ez zegoela aleman hura geraraziko zuenik. Joxe Austin Arrieta

Ez naiz inguru honetan bizi, baina mundua txikiegia da; eta mihiak, **zoritxarrez**, luzeegiak. Migel Angel Mintegi

Gure plataforma laburra eta estua da **zoritxarrez**. Ramon Saizarbitoria

-Berri txarrak ditut, **zoritxarrez**. Xabier Olarra

**hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**

**zenbat zoritxar** (3); **zoritxar asko** (4); **zoritxar batek** (3); **zoritxar egunean** (8); **zoritxar eta atsekabe** (4); **zoritxar gehiago** (3); **zoritxar guztiak** (8); **zoritxar guztien** (3); **zoritxar handia** (6); **zoritxar haren** (3); **zoritxar hau** (8); **zoritxar hauek** (4)

**bai zoritxarra** (3); **gure zoritxarra** (5); **haien zoritxarra** (3); **hau zoritxarra** (10); **zoriona edo zoritxarra** (3); **zoriona eta zoritxarra** (4); **zoritxarra baizik** (3); **zoritxarra besterik** (3); **zoritxarra da** (3); **zoritxarra ekarri** (3); **zoritxarra ekarriko** (6); **zoritxarra ekartzen** (5); **zoritxarra izan** (4); **zoritxarra opa** (3); **zoritxarra zoritxarraren** (5)

**bere zoritxarraren** (3); **beren zoritxarraren** (3); **nire zoritxarraren** (4); **zoritxarraren berri** (3)

**bere zoritxarraz** (6)

**eta zoritxarrean** (4)

**zoritxarren bat** (17); **zoritxarren bat gertatuko** (7)

**bere zoritxarrerako** (7); **gure zoritxarrerako** (6); **nire zoritxarrerako** (4)

**gazte zoritxarreko** (3); **gizon zoritxarreko** (4); **hain zoritxarreko** (3); **oso zoritxarreko** (3); **zoritxarrik handiena** (5) bere zoritxarreko (7)

**zoritxarreko egin** (3); **zoritxarreko egoera** (3); **zoritxarreko egun** (9); **zoritxarreko egun hartan** (5); **zoritxarreko eta** (4); **zoritxarreko eta haragikoia** (3); **zoritxarreko gertaera** (3); **zoritxarreko hori** (4); **zoritxarreko horiek** (3); **zoritxarreko hura** (5); **zoritxarreko istripu** (3); **zoritxarreko izan** (3); **zoritxarreko izatea** (3); **zoritxarreko jokaldi** (3); **zoritxarreko neskaren** (3); **zoritxarreko neskaren azpiko** (3); **zoritxarreko sentitzen** (9)

**zoritxarrekoa izan** (8); **zoritxarrekoa izan zen** (3); **zoritxarrekoa ni** (4); **zoritxarrekoa zu** (8)

**zoritxarrekoak bekatu larrian** (4)

**baina zoritxarrez** (23); **zorionez edo zoritxarrez** (10); **zorionez eta zoritxarrez** (3); **zoritxarrez bere** (3); **zoritxarrez diot** (3); **zoritxarrez ez da** (5); **zoritxarrez ez dute** (3); **zoritxarrez oraindik** (5)

---

# zoritxarreko ik **zoritxar 6**.

---

# zoritxarrez ik **zoritxar 7**.

---

# **zoritxartsu** *izond* zoritxarrez betea.

Tiresias da perpaus harrigarriaz gehien eta hobekien gogoratzen, bere iragarle taldearekin, Delpheko suge-anderea eta Kasandra **zoritxartsua** barne, horrelako gauzak ahoskatzeko ohitura handia zuelako. Itxaro Borda

Herritar zenduen ohorezko bi otoitzaldi kudeatu zituen jadanik: bata [...] Manexena eta bestea nehork ere bizirik zegoela ez zekien Bordarenbordako Xaxi **zoritxartsuarena**. Itxaro Borda

---

# **zoritxartu,** zoritxar(tu), zoritxartzen **1** da/du *ad* zoritxarrak jo.

Bere altzora **zoritxartutako** gaixoak arrantzatu nahi zituen Heriok, uranditụen pisupean oihalaren josturak betiko itxiz. Pako Aristi

## 2 (era burutua izenondo gisa)

Honako hau, hitzez hitz, Lousameko laborari gailego batek esan zidan, 'cruce da Pereira' deitzen dioten bidegurutzeko tabernan, maitasun **zoritxartuek** gazteengan zein zaharrengan duten eragin ezberdina adierazteko. Pako Aristi

---

# **zoritzar** **1** *iz adkor* zoritxarra.

Zergatik deitzen didazue oraindik ere Noemi, Jaun ahalguztiduna aurka jarri zaidanean eta honelako **zoritzarra** erakarri didanean? Elizen arteko biblia

Nik lege politikoak deitzen diet unean uneko beharren erantzun gisa egiten direnei, bai boterea sendotzeko, bai **zoritzarrak** aurreikusteko edo ekiditeko. Juan Martin Elexpuru

## 2 *zoritzarrez adlag*

Ez dakit **zoritzarrez** edo zorionez baina gatazka gainditzeko proposamen serio bakarra da Batasunak egin duena. Berria - Euskal Herria

Kosovoko presidente Fatmir Sejdiuk bere espiritua oraindik ere bizirik dagoela adierazi zuen: «Slobodan Milosevicen espiritua, **zoritzarrez**, oraindik bizirik dago Serbian». Berria - Harian

**zorizko** **1** *izlag* zoriaren araberakoa.

Mutazioak **zorizko** gertaerak dira, ez dira egoten norabide jakin batean zuzenduta. Berria - Gaiak

**Zorizko** laginketak. Berria - Gaiak

Josef pasantea kobrezko bi kreuzerrekin zebilen, berak asmatutako **zorizko** jolas zirraragarri batean. Anton Garikano

Zeren irabazteari dagokionez, milizia **zorizko** jokoaren antzekoa baita: asko dira porrot egiten dutenak, gutxi, ordea, irabazten dutenak. Esteban Antxustegi

**Zorizko** bulkada horiek erresistentzia gutxieneko bideetatik igaroko dira, hau da, oroimen-arrastoen ezarpenak -hots, arrasto indartuagoak- eraldatu dituen sinapsietatik. Irene Aldasoro

**2** (izenondo gisa)

Frekuentzien aldaketa faktore anitzen ondorioa izan daiteke, batzuk **zorizkoak** -geneen deriba, esaterako- eta beste batzuek, aldiz, organismoen moldaketan eragina izango dute -adibidez, hautespen naturalak edo sexualak-. Askoren artean

Galdu egiten zitzaizkion behin eta berriz, eta sumatzeko mugimendu **zorizkoak** egiten zituen orduan; xedeak aurkitzen zituen berriro, eta berriro galtzen. Xabier Olarra

Gero, denbora pasatuta, ohartzen da bizitza, osotasunean hartuta, akats eta **zorizko** gertaera guztiekin, aldaezina dela. Ander Irizar

Konputagailu batean, gelditzearen eta jarraitzearen arteko hautua ez da **zorizkoa** izaten, diseinatzailearen instrukzioen araberakoa baizik. Irene Aldasoro

Intimitate tartedun hori, nahitaezkoa eta **zorizkoa** , hiriaren ezaugarri nagusia da niretzat. Bernardo Atxaga

Hainbat topaketa **zorizko** , hainbat ordena ausazko. Piarres Xarriton

---

zorkontu ik **zor 14**.

---

zorkutxa ik **zor 15**.

---

zorna ik **zorne**.

---

**zornadura** *iz* zornatzea.

Handitu, **zornadura** eta orbaini buruzko legea. Elizen arteko biblia

Norbaiti larruazalean handitua, **zornadura** edota orbaina ateratzen bazaio, legenarena bezalako zauria sortuz, Aaron apaizarengana edo beronen ondorengoetariko apaiz batengana eramango dute. Elizen arteko biblia

Apaizak, miatu ondoren, **zornadura** azalean zabaldu zaiola egiaztatzen badu, kutsatutzat aitortuko du; legen-kasua da. Elizen arteko biblia

**Zornadura** saihesteko zenbait neurri hartu behar dira eta, bi aste pasata, ginekologia azterketa egiten da umetokiko hormak garbi dauden ikusteko. Berria - Euskal Herria

---

**zornategi** *iz*

Hitzak odoletan, larru-has dauzkat eta den mendreneko haize firfira beroak zauriak **zornategi** , irekitzen dizkit. Itxaro Borda

---

zornatsu ik **zornetsu**.

---

**zornatu**, zorna, zornatzen *(orobat **zornetu** g.er.)* **1** da/du *ad* zauri edo kideko batean zornea egin.

Begi bat galduko du txakurrak lehenik, **zornatu** eta gaiztotu egingo zaio zauria gero. Imanol Zurutuza

Ondo itxi gabeko zauriak azkenean berriz **zornatu** eta ireki egiten dira. Berria - Euskal Herria

Gaixoa zauriak gaiztotuta hil zen -ez dakigu zein zauri **zornatu** zitzaion amorru handiagoz, izterrekoa ala izterrondokoa. J.M. Olaizola "Txiliku"

Laguntzailea ere zauriak **zornatuta** hil zen. J.M. Olaizola "Txiliku"

Sendatu gabeko zauriak **zornatzen** utzi ziren. Joseba Zulaika

**2** irud/hed

Kafearekin etorriko diren ondasunak izango dira egindako zauriak ez **zornatzeko** ukendua, landare horretan ipiniko ditugu denok elkarrekin aurrera egiteko asmoak. J.M. Olaizola "Txiliku"

Uste du ezingo diola ezerk sendatu barrena **zornatzen** ari zaion zorigaiztoa. Berria - Kultura

Auskalo Seneka edo Charron irakurrita ere ez ote ziren **zornatuko** ! Juan Martin Elexpuru / Bego Montorio

Zirt edo zart egin beharko dudala egoera guztiz **zornatu** dadin baino lehen. Karlos Linazasoro

Lotsatu baino areago esango nuke, bihotzondoraino mindu, **zornatu** , goragaletu. Txillardegi

**3** (era burutua izenondo gisa)

Zakur **zornatuak** nonahi, beren zaurien miazkan. Anjel Lertxundi

Bazuen bekokian zauri **zornatu** bat legena zirudiena. Juan Garzia

Zertarako jardungo dinagu miazka atzera biderik ez duten gertakizunen zauri **zornatuetan** ? Anjel Lertxundi

Eugenik alua eta ipurdia josiko dizkizu arreta handiz, isuri **zornatuak** [...] hezurrak kiskal diezazkizun ahalik eta azkarren. Juan Martin Elexpuru / Bego Montorio

Nola pentsatuko zuen, bada, haren gogoa zauri ireki bat bazen, masa **zornatu** bat, burmuineko materiaren, neurona lehertuen eta jaugin elektriko zirkuitulaburtuen nahasturaz egina? Oskar Arana

Emakume bortxatuen izter izerditsuak, umeen gorputz-atal sakabanatuak, etxe kiskaliek goratzen duten lamara gorrikara, gorpu ustelduek uzten duten ibai **zornatua** . Karlos Linazasoro

Bolondresen artean, azkartu egin ziren arrunt, Madriletikako armada ofizialaren kontrako amorru **zornatua** eta borroka latza. Txillardegi

Irri **zornatu** baten itzalak agerpena egin zuen, une batez, haren begitartean. Aingeru Epaltza

---

**zorne** *(orobat **zorna** g.er.)* **1** *iz* zauri eta handitu gaizkoatuei darien isurkari lodi zuri-horixka.

Infekzioa izan den lekuan agertzen den **zornea** , erlakizten bat lehertu aurretik, adibidez. Irene Aldasoro

Hagin hautsi batek **zornea** eragin dio. Oskar Arana

Une berean, estalkia apurtu eta **zornea** atera zitzaion zauritik denen begi-bistan. Askoren artean

Gorputza harrez eta kozkorrez betea dut, zartatua eta **zorna** dariola azala. Elizen arteko biblia

**Zornea** zeriola zuen eztarri barrena, eta lastotxo batekin aritu behar izan zuen likidoak hartzen. Berria - Kirola

Bezeroari besoa hanpatzen hasi zaiola iruditu zait, **zornez** beteriko zauri handi bat ikusi dut. Koldo Izagirre

Nahiago nuke [...] ahal baniezaio bihotza sentiarazi astun, itzel, eta **zornez** gaiztotua. Mirentxu Larrañaga

Suge baten erdi biak burdinaz zati-zati egiteari ematen badiozu, zati moztu berriak bihurtzen eta lurra **zornez** likintzen ikusiko duzu, eta aurre partea atzeari heltzera itzultzen, haginkada sutsu batez zauriaren mina kentzeko. Xabier Amuriza

**2** (izenondoekin)

**Zorne** urdinaren baziloak eta bakteridia karbunkosoak elkarrekin duten aurkakotasun menderaezinean. Josu Zabaleta

**3** (hitz elkartuetan)

Batzuetan **zorne**-jarioa zuen arratsean. Fernando Rey

Begia ez du oso gaizki, eta lortu dut **zorne**-jarioa gelditzea. Felipe Juaristi

· Erizainaren izaera gero eta jainkotuagoak ez ikusiarena egingo duelakoan gaixoaren gorotz-**zorneen** aurrean. Anjel Lertxundi

**4** (hitz elkartuetan, elkarketak izenondo balioa duela)

Tedesko alu-**zorne** bat!, bota zian karabinero kankailuenak nire pasaporteari begira. Anjel Lertxundi

Baina nor limur dezaket nik zuldar **zorne**-kirats hauekin? Anjel Lertxundi

**5** irud/hed

Behin desmundu behere hauetaraino amildurik, munduko **zorne**, ustel, herio eta ezinbizi guztia neuretzat espresuki egina dela sentitzen dut. Iñaki Segurola

Aurrean duen itsasoak azpian gordetzen duen zikinkeria eta negarra, **zorne** beltza eta odola, gora etorri baitira. Felipe Juaristi

Oso gogor hartzen ditu hitzak, barruko zikin eta **zorne** guztia ateratzerainokoan. Iñaki Segurola

Ada arriskuan, eta hi heure **zorneen** bazkan! Anjel Lertxundi

Hor, eta hor bakarrik, bilatu behar dizu Espainiak bere osasuna, doktrina arrotzen **zornez** herbalarazi nahi duten intelektual erroi eta beletzarrei entzungor eginez. Joxe Azurmendi

Ezpain busti goxoen artean, odol zurbilaz gorrituriko ezpainetan, existentziaz blai, **zorne** argiaz blai eta aharrausika eta taupaka dauden ezpainen artean. Monika Etxebarria

Errealitate gainezkatua besterik ez den jainko edo **zorne** hiltzaile batek darabiltza. Iñaki Segurola

Biziak heriotza **zorne**. Berria - Kultura

**6** ***zorne-belar*** konposatuen familiako belar landare lore-horia *(Senecio vulgaris)*.

Sastrakak zumakeenak eta **zorne**-belarrenak ziren. Lopez de Arana

Kakaz, zaineraino karraskatutako **zorne**-belarrez, aza-zuztarrez eta malba-hostoz egindako pila baten gainean. Itziar Otegi

Autoak **zorne**-belarren eta urrezko makilen lorautsaz guztiz estalirik. Lopez de Arana

**7** ***zorne zaku*** *(corpusean **zornezaku** soilik)*

"Txerrenkume **zornezaku** alaenak!", erantsi zuen irribarre zuriz, entzungo ez ziotela eta, lasai. Inazio Mujika Iraola

**8** ***zorne zorro*** *(orobat **zornezorro**)*

Ondorio horiek guztiak, izurriak **zorne zorroa** bezala, halaxe ekartzen ditu porrotak. Josu Zabaleta

Ez daukagu antibiotikorik, eta, hortaz [...] **zorne-zorroa** ebaki eta itxaron besterik ezin dugu egin. Oskar Arana

**Zorne zorro** bat bezala ari zen gezurra puzten, eta haietako egunen batean lehertuko zen seguruenik. Koro Navarro

Gualterio izeneko Arezzo hiriko beste mutiko bat etengabeko sukarrez eta bi **zorne-zorroz** oinazetua zegoen. Askoren artean

· Bilaua halakoa, **zornezorro** zikina! Jose Morales

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
> **zorne jarioa** (3)

---

# zornetsu *(orobat **zornatsu**)* **1** *izond* zornez betea.

Haragi ustelak garbitzen zizkien eta zauri **zornetsuak** sendatzen. Askoren artean

Orban gorri-horixkak nabari zaizkio, zaldar **zornatsuen** gisan. Urtzi Urrutikoetxea

Haren begiak martiri batenak ziren, haren hatsa hauspo hautsi batena zen... eta han eta hemen garau gorri **zornetsu** batzuk bihitu zitzaizkion, guztioi goragalea eragiten zigutenak. Joan Mari Irigoien

Ez dakit zer den tristeago, batzuen poz gaiztoa ala besteen begirada errukiorra, zakur **zornetsu** bat ikusiko balute bezala. Felipe Juaristi

Etortzen baitzaigu gaur egun gorpu **zornetsu** asko, ehortzi orduko zertuta dagoenik. Juan Garzia

Mukuru beteta, dutxa itxura zeukan lekuak lehen begiratuan, eta haren egurrezko zoru labainkorrean pausatu ninduten, nire aurka estutu eta zapaltzen ninduten hainbat oin, aztal **zornetsu**, orpo eta bernazakiren erdian. Urtzi Urrutikoetxea

**2** irud/hed

Haurtasun ukatuaren ebaki **zornatsua** bihurtzen naiz. Itxaro Borda

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
> **zauri zornatsuz** (5)

---

zornetu ik **zornatu**.

---

zornezaku ik **zorne 7**.

---

zornezorro ik **zorne 8**.

---

# zornotzar *adlag/iz* Zornotzakoa, Zornotzari dagokiona; Zornotzako biztanlea.

Ostegunean, 24 urte egingo ditu kartzelan preso **zornotzarrak**. Berria - Euskal Herria

Mikel Urdangarin kantari **zornotzarrak** bere zortzigarren diska plazaratu berri du,“ Dana” izenekoa. Herria

45 urteko **zornotzarra** baserri baten berritze lanetarako materiala kamiotik ateratzen ari zen. Berria - Ekonomia

Horietako bost **zornotzarrak** dira, eta gainerakoak inguruko herrietakoak. Berria - Euskal Herria

**Zornotzarrek** hamaika manifestazio egin dituzte azken urteotan zentralaren aurka. Berria - Harian

Boto eskubidea zuten **zornotzarren** %43k eman zuen botoa, 5.445 lagunek eta emaitzak adierazgarriak izan ziren: 5.352 **zornotzar** zentrala egitearen aurka agertu ziren, 53 alde, 19 boto zuriak izan ziren eta 21 balio gabekoak. Berria - Euskal Herria

Kadeteetan Urberuaga eta Ibarra **zornotzarrek** 22 - 9 irabazi zieten Zaramagako Albarado eta Berruetari. Berria - Kirola

---

**zoro** *izond* **1** zentzua galdu duena. ik **ero**.

-Griluak kateak! -egin du ahapetik, xuxurlatze batean, agure **zoroak**-. Koldo Izagirre

Marta **zoroa**, Marta burutik egina, Marta ganbaratik joa. Sonia Gonzalez

Hobe, gazte behartsu baina zuhurra, aholkurik nahi ez duen errege zahar eta **zoroa** baino. Elizen arteko biblia

Kalakari isilezina, bidaiari ipurtarina, gautxori nekaezina, edale **zoroa** eta emakumezale gogorra. Aingeru Epaltza

Zentzua betirako galdu zuen mamu **zoro** eta sukartsu baten antzera. J.M. Olaizola "Txiliku"

Boxeolari **zoroa** zirudien. Markos Zapiain

Beharbada biziotsu **zoro** hura sexu hutsez elika zitekeen, baina ni ez. Jon Arretxe

Zuetako norbaitek mundu honen arabera jakintsu dela uste badu, egin bedi **zoro**, egiaz jakintsu izateko. Elizen arteko biblia

Askok iseka egiten zioten eta **zorotzat** hartzen zuten. Askoren artean

Bat egin eta gero, zaldi **zoro** baten gainean bezala ibili zen. Migel Angel Mintegi

**Zoroa** eta basatia. Luis Elberdin

Gaztetxo bat bezain **zoroa** zen, eta horretaz aparte adinak emandako esperientzia zeukan. Migel Angel Mintegi

**Zoro** samarra iruditu zitzaion gizona. Paddy Rekalde

Nire atzetik etorri eta sekulako kolpea ematen dio barre **zoroko** mutilaren eskuari. Anjel Lertxundi

Esaten nuen nik, bai, **zoroegiak** zinetela zuek poliziazaleak izateko. Juan Luis Zabala

Gordin esanda: bizitzen jarraitzeko nire grinak gutxi zuen **zorotik**, are gutxiago etorkizun oparoago baten ametsetik. Anjel Lertxundi

**Zorotzat** hartuko nindukete! Patxi Zubizarreta

Haserre, bere baitan egin zuen: **"Zoro** halakoa! Patxi Zubizarreta

Nolatan egin zuen **zoroarena** eta pailazoarena haien aurrean! Anton Garikano

**2** (izenondoekin)

Shevirev doktoreak ez zuen bere klinikan **zoro** amorraturik onartzen. Jose Morales

Iruditu zitzaion espetxea eta bere bizitza osoa halako zoroetxe bat zirela, eta bera **zoro** nagusia zela. Jose Morales

**Zoro** itsuok halakook! Elizen arteko biblia

Jaunak adierazi zidan, ni mundu honetan **zoro** berri bat izatea nahi zuela. Jon Muñoz

Hantxe ni, hain adimendutsu nintzena **zoro** adimendu gabe bihurtua! Joan Mari Irigoien

**3** (adizlagun gisa) ik **zoroki**.

Hain **zoro** maitemindu ziren etxearekin, amaituta zegoela pentsatzea ezin zuten jasan. Julen Gabiria

Ezkutatu egin zaie herrenka, **zoro** harro tente, muturtuta Ostolazak ez zion ihardetsi, zurbil zegoen, pultsua **zoro**, kopeta izerdi tantaz beterik. Koldo Izagirre

Lehertzeko zorian neukan burua, muinak jauzika eta kirioak **zoro**. Anjel Lertxundi

Autoak zenbait hobekuntza izan baditu ere, talde horretan erabat **zoro** dabiltza pneumatikoekin. Berria - Kirola

Han-hemen orbela bera baino **zoroago** dabiltzan hotsek diote Napoleonek ihes egin duela Elba uhartetik. Anjel Lertxundi

**4** (izen gisa)

Gerra Handiak eragindako **zoro**, itsu, maingu eta herren ugari ikusten zen bazterretan. Anjel Lertxundi

Konturatu zen **zoro** bat eta zuzi bat aski direla dena hondatzeko. Koro Navarro

Nire ustez, aginduak **zoro** batek eman ditu, ez jaun batek. Agustin Otsoa

Burla eta irain asko egiten zioten, **zoro** bati egiten zaion erara. Askoren artean

Badute lógosik ordenagailuek?, eta animaliaren batek?, eta **zoroek**? Askoren artean

**Zoroei** ematen zaien tratua ematen diote. Juan Martin Elexpuru / Bego Montorio

Mundua hau bezalako **zoroez** beterik dago, esan zuen. Jon Alonso

Lapurrak ez direnak **zoroak** dira. Lopez de Arana

Ea ze **zorok** idazten didan orain... Markos Zapiain

Eztabaidatxoren bat tartean, baina **zoroak** bezain pozik, Sekula Betiko Lurraldera gerturatzen hasi ziren. Julen Gabiria

Izan ere, zuek, hain zentzudun izanik, gogoz jasaten dituzue **zoroak**. Elizen arteko biblia

Badakit, nire baitako **zoroak**, edo gogoak, edo dena delakoak badaki, noizbait aterako dela atera behar duena, itxaroten jakitea dela kontua. Iñaki Iñurrieta

Arrazoimenaren atzean dagoen **zoroen** eroetxea, askatasunaren gibelean dagoen presoen kartzela, osasunaren azpian dagoen gaixoen ospitalea. Askoren artean

« **Zoro** » horiek ziren torturatzaileak. Berria - Euskal Herria

Batzuetan iruditzen zait **zoro** ergela naizela. Juan Kruz Igerabide

**Zoro** arriskutsuak. Fernando Rey

Gauero entzuten nituen **zoro** kateatu batenak bezalako oihuak eta karkaixa-hotsak. Anjel Lertxundi

**Zoro** endekatu kexati bat, besterik ez. Fernando Rey

**5** (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

Izan ere, kezka gehiegik amesgaiztoa dakar, eta hitz-jarioak **zoro**-berriketak egitea. Elizen arteko biblia

Zein **zoro**-haizek jo zuen, ordea? Fernando Morillo

**Zoro** begiradako soinu-jole antiojodun marmarti bat. Jon Arretxe

Matematikariek **zoro**-fama dutenez, ez ziren harrituko zer edo zer arraroa antzematen bazidaten. Xabier Mendiguren Elizegi

Han zabaltzen ziren lehenik tabernak, leku egokia **zoro** kontuak aipatzeko. Koldo Izagirre

**Zoro** itxura du Josek, aurpegia bihurritua dauka, izugarria du begirada. Anjel Lertxundi

**Zoro**-itxurak egin zituen haien aurrean, haien artean erotuak bezala jokatuz. Elizen arteko biblia

**Zoro**-plantak eginez. Itziar Otegi

**Zoro**-aurpegiz, haren begi beltzek basatiki eta zorrotz begiratzen zuten buruko eta bizarreko ile nahasien artetik. Jose Morales

-Ematen duenez, nahiko **zoro**-festa zen lekua. Fernando Morillo

**Zoro** dantza-rekin, erritmoak apurtuz, denok gaudela apur bat ero eta ero guztiak ez daudela erabat ero iradoki zuten. Berria - Kultura

-Hala da bai -esan zuen apaizak- eta, haren **zoro**-esanak entzunaz gustu pixka bat ere bai eta, zera galdetu zion. Patxi Ezkiaga

Begien urdinarekin batera, iritsi ote zait niri ere, geneen ibilbide sigi-sagatsuan, haien **zoro**-ukiturik? Xabier Mendiguren Elizegi

Horiek hilketa arinak dira [...]; heriotza bera ergeltzen eta hildakoa lurruntzen bezala duten arintasun eta grazia berezi bat daukate, **zoro**-puntu eder bat. Iñaki Segurola

**6** (gauzez mintzatuz) zentzu gutxikoa.

Garagardo enpresa batek zirko bat babestea, hau bezalako hiri **zoro** batean bakarrik gerta daitekeen zerbait da. Harkaitz Cano

Amodio **zoroek** duten prestigioa. Edorta Jimenez

Margaren gutunaz oroitu eta ideia **zoro** bat etorri zitzaidan burura: [...]. Juan Luis Zabala

Stalinen agindupean, Lyssenko-ren teoria **zoroek** ordeztu zuten genetika. Juan Garzia

Plazer **zoroa** sentitu nuen beheranzko lastertasuna eta albokakoa parekatzean. Koro Navarro

Musika **zoro** batekin egun osoa. Paddy Rekalde

Biak batu dira barre **zoro** eta algaratsu berean. Paddy Rekalde

Alaigarria kaleko zarata eta lasaigarria jendearen joan-etorri **zoroa**. Migel Angel Mintegi

Euliak bere noraez **zoroa** jarraitu zuen kristalpean. Joseba Sarrionandia

Constantis izenekoak proposamen **zoroa** egin digu. Edorta Jimenez

Zuhurtziaren aginduak aztertuz eta asmo **zoroak** baztertuz. Migel Angel Mintegi

Algara **zorotan** hasi zen. Koldo Izagirre

Tamalez, bizitza ez da dibertsio **zoroa** bakarrik. Patxi Iturritegi

Hamaika aldiz damutu ginen bezperan hain parranda **zoroa** egiteagatik. Jon Arretxe

Gero eta gehiagotan jartzen da telebistaren aurrean, kate batetik bestera pasa eta pasa egiten, zaping **zoroan**. Jokin Muñoz

Baten batek [...] tiro egin zion lehoiari, eta ihesaldi **zoro** hartan zenbait emakume eta ume ubelduta eta makatuta atera ziren. Koro Navarro

Alde egizu eztabaida **zoro** eta zentzugabeetatik. Elizen arteko biblia

Amets **zoroak** kontatzen. Elizen arteko biblia

Gizakia hondatzen eta galtzen duten grina **zoro** eta kaltegarri askotan. Elizen arteko biblia

Carroussel **zoro**-eroan, horrelaxe gabiltzala ematen dit niri. Edorta Jimenez

Poz handi bat sentitu nuen, barne-harmonia esanezin **zoro** bat. Juan Luis Zabala

Hor nonbait Enpero kalea da, Arramele zubitik atsegin **zoroan** datorren jendeak laster hartuko duen etxartea. Anjel Lertxundi

Hegazti itxurako buru txiki eta zorrotza aitaren bularraren aurka estutu du une labur batez, baina era basati eta ia **zoroan**. Urtzi Urrutikoetxea

Eta dena egin nuen halako modu **zoroan** non burua galtzekotan izan bainintzen. Edorta Jimenez

Pedantekeria honekin, gaiari guztiz arrotz zaizkion aipuak sartu behar **zoro** honekin, [...]. Juan Martin Elexpuru

Biziaren iturriak, beraz, baliteke serioak ez izatea, eta baliteke oso sakonekoak ere ez izatea [...] baliteke txoroak izatea ere, txoroak eta **zoroak**. Iñaki Segurola

Anduren ideia ez zen hain **zoroa**. Jon Arretxe

Bizi bai, baina beste dibertsio giro **zoro** hori falta. Iñigo Aranbarri

**7** (-en atzizkiaren eskuinean, izen gisa)

Erantzunaren **zoroa** deitoratu dute beren kolkorako. Koldo Izagirre

Hiri honetako adimen andeatuek beren **zoroa** saldoratzeko aurkitu dituzten bertze zenbait kofradiaren berri aski zehatzaz eskolatzen ahalko zen biharamunean gure irakurlea. Aingeru Epaltza

Mugida itxurosoa dago, pastiak gura adina, nor bere **zoroarekin**, eta mukizu kaskamotza eskuma aldean goian. Urtzi Urrutikoeetxea

Garai bakoitzak bere jarrera estetikoak izaten ditu, bere **zoroari** jarraitzen dio. Patxi Iturritegi

Nor bere **zoroak** bizi du. Iñaki Iñurrieta

-"Gogoak bizi gaitu" ala "nor bere **zoroak** bizi du". Iñaki Iñurrieta

Nor bere **zoroak** bizi du, eta nik neurearekin nahikoa daukat. Sonia Gonzalez

Euskaldun guztiok sagar deitzen diogu sagarrari, baina bakoitza bere sagarrak bizi du, bakoitza bere **zoroak** bizi duen bezalaxe. Joan Mari Irigoien

Nire **zoroak** ote neraman entzuten edo ikusten nuen oro nirekin lotzera... Anjel Lertxundi

Garai bakoitzak bere jarrera estetikoak izaten ditu, bere **zoroari** jarraitzen dio. Patxi Iturritegi

Berak bere **zoroarenak** kontatzen zizkidan bitartean, nirearenak isilduko zizkidan. Anjel Lertxundi

· **Zoroak** bizi gaitu. Iñaki Iñurrieta

**Zoroak** jota zaude, inondik ere, baina zeure **zoroan** egia handi bat diozu: [...]. Juan Kruz Igerabide

**8** ***gurpil zoro*** *(orobat* ***gurpilzoro*** *g.er.)* bi gauza, bata bestearen kausa edo azalpena izatean datzan argudioa edo egoera.

**Gurpil zoroa** dun, komprimatuak hartzen ez baditut memoria galtzen dinat, eta memoria galtzen badut hartu behar ditudala ahazten zaidan. Joxemari Iturralde

Beraz, "analitikotasuna", "esanahia" eta "definizioa" **gurpil zoro** batean nahasita dauden kontzeptu ilunak dira. Askoren artean

**Gurpil zoro** batean preso gaude. Ana Urkiza

Saminezko eta erresuminezko **gurpil zoro** bat izan zen hura dena. Josu Zabaleta

**Gurpil zoro** batean gertatu nahi ez badugu. Ibon Uribarri

Ragnar Nurkse-k [...] deskribatu zuen pobretasunaren **gurpil zoroa**. Koro Navarro

Bortizkeriaren **gurpil zoroa** geldiarazteko. Berria - Mundua

Askatasun sintaktikoaren **gurpil zoroan** gero eta barrenduago. Iñaki Iñurrieta

Elikadura munduan ere **gurpil zoroan** biraka gabiltza: gehien kontsumitzen diren produktuak dira, azkenean, gehien gustatzen zaizkigunak. Edorta Agirre

Zenbait doktorek eta nazio batzuek ez dute hiru aldiz baino onartzen **gurpilzoro** gaizto hau. Juan Martin Elexpuru

Jazarpen eta umiliazio gertakari berdintsuak errepikatzen dira soin eta gogo berrietan, labirintotik irten ezinean dabilen **gurpil zoroa** balitz bezala denbora. Jokin Urain

**9** *zoro etxe* ik **zoroetxe**.

**10** ***zoro-moro*** *izond/iz adkor* zoroa.

Pentsatzen zuen adorea dela gizonak kapaz diren bertute bakanetakoa; bertute horren gurtzak, ordea, beste hainbat bezala, gaizkile-jendearenganako jaiera **zoro-moro** batera eraman zuen. Juan Garzia

-Noren anaia duk **zoro-moro** hori? -esan du Jimmy Parsonsek, mespretxuzko irria eginez. Mirentxu Larrañaga

Gasazko musuzapi arrosak erabiltzea ere, **zoro-moro** horrek! Mirentxu Larrañaga

**11** (adizlagun gisa)

**Zoro-moro** ibili ziren borrokan, denek hartu nahi baitzituzten ez arrosa, ez artilezko ez ziren belarri-estalki bakarrak. Iñaki Mendiguren

Ekinera jotzen dute beste batzuek, **zoro-moro** murgiltzen dira egunoroko mila kezketan. Joxan Elosegi

**12** ***zoro-morokeria*** *iz adkor* zorakeria.

Carlos Argentino Daneri, bere **zoro-morokeria** pendante eta guzti, ez da mundua letraz harrapatu nahi duen gizagaixoa baino. Juan Garzia

**13** ***zoro-zoro*** *adlag*

Ez engainatu **zoro-zoro** zeure burua. Elizen arteko biblia

Horixe da euskalkiei **zoro-zoro** bultzatzearen ondorioa. Koldo Zuazo

Era horretara behin edo hamar bider topatu eta hurbilagotik ezagutu izan banitu **zoro-zoro** maiteminduta edukiko ninduketenak. Josu Zabaleta

Musika altuago jarri du Obelixek, eta jendea **zoro-zoro** garrasika eta saltoka hasi da. Jokin Muñoz

Liluratuta ninderaman, **zoro-zoro** eginda: bere menpe, hitz gutxitan esateko. Migel Angel Mintegi

**Zoro-zoro** eginik, laztantzeari utzi gabe, elkar erantziz logelara abiatu ziren. Migel Angel Mintegi

· Gazte aldra asko joan ohi dira bidean soinu joten, dultzaina, pandero, atabal, hauspo soinu eta honakoekaz, ikotika eta ujuka **zoro-zororik** . Koldo Izagirre

**hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**

**agure zoro** (4); **burutazio zoro** (3); **edo zoro** (3); **eta zoro** (12); **gau zoro** (3); **gazte zoro** (3); **gogo zoro** (3); **gurpil zoro** (18); **gurpil zoro batean** (7); **ideia zoro** (5); **zein zoro** (3); **zen zoro** (4); **zoro bat** (30); **zoro bat izan** (3); **zoro batean** (17); **zoro batek** (13); **zoro batekin** (3); **zoro baten** (19); **zoro baten moduan** (6); **zoro bati** (5); **zoro bati bezala** (3); **zoro bezala** (4); **zoro eta** (15); **zoro hartan** (5); **zoro hau** (4); **zoro honetan** (3); **zoro hori** (10); **zoro horiek** (3); **zoro horien** (3); **zoro horrek** (6); **zoro horretan** (4); **zoro hura** (8); **zoro itxura** (4); **zoro moduan** (10); **zoro moro** (5); **zoro zoro** (7)

**atiko zoroa** (3); **barre zoroa** (3); **da zoroa** (3); **den zoroa** (3); **eta zoroa** (6); **gurpil zoroa** (11); **oñ zoroa bezala** (5); **zoroa da** (3); **zoroa dela** (3); **zoroa eta** (12)

**bera baino zoroago** (3)

**bakoitza bere zoroak** (8); **bere zoroak bizi** (15); **ez dira zoroak** (3); **nor bere zoroak** (8); **zoroak bizi** (16); **zoroak bizi du** (10); **zoroak jota** (3)

**dantza zoroan** (5); **gurpil zoroan** (12); **lasterka zoroan** (3)

**zoroen pare** (4)

**zoroenak ere** (3)

**zororen bat** (5)

**munduak zorotzat** (3); **zorotzat hartuko** (7); **zorotzat hartuko nindukete** (3); **zorotzat hartzen** (6)

---

zoroaldi ik **zoraldi**.

---

**zoroastrismo** *iz* Zoroastrok sorturiko erlijioa, bi jainkotasun elkarren aurkako, bat zintzoa eta bestea gaiztoa, hartzen dituena oinarritzat.

**Zoroastrismoak**, nestorianismoak, monofisismoak eta Islamak guztiek jarraitu zioten judaismoaren norabideari. Iñaki Mendiguren

Gizarte Babilonikoak Siriakoan izandako eragin militarrak judaismoaren eta **zoroastrismoaren** epifania sortarazi zuen. Iñaki Mendiguren

Judaismoari eta **zoroastrismoari** heltzen badiegu, ezin dugu esan nolakoak izango ziren beraien azken harremanak ez Neobabiloniar ez Akemenestar Inperioarekin. Iñaki Mendiguren

Oxus-Jaxartes arroa mahayanaren sorlekua izan zen, Ekialde Urruneko mundura hedatu zen forman, eta, horren aurretik, agian **zoroastrismoarena** . Iñaki Mendiguren

---

**zoroastroar** *izlag/iz* zoroastrismoarena, zoroastrismoari dagokiona; zoroastrismoaren jarraitzailea.

Amon Ra-ren apaiz nagusia Tebasko faraoiaren irudira sortu zen; Mobadh **zoroastroar** buruzagia, sasaniar shahinshah-ren antzera; eta aita santua, Dioklezianoren osteko erromatar enperadorearen antzera. Iñaki Mendiguren

Antzerako oinarria eman zion Egiptoko "Inperio Berriak" eliza panegipziakoari Amon Ra-ren apaiz nagusiaren pean Tebasen, eta Sasaniar Inperioak **zoroastroar** elizari. Iñaki Mendiguren

Kristautasunak judu- eta **zoroastroar** sustraiak zituen, eta sustrai horiek bigarren mailako beste bi zibilizazioren -Babiloniko eta Siriakoaren- lehenagoko kolapsotik erne ziren. Iñaki Mendiguren

Aldaera siriakoan inpartzialki balio izan zuen nestorianismoaren eta monofisismoaren kristau-heresia antitetikoentzat; bere pahlavi aldaeraren moldaera avestikoan **zoroastroar** elizaren liburu sakratuak jaso zituen; manikear moldaeran kristauek nahiz **zoroastroarrek** berdin gorrotatzen zuten heresiarka baten zerbitzura egon zen. Iñaki Mendiguren

Aitorpen hori, hasieran judu eta kristauei onartua, gero **zoroastroar** eta hinduengana hedatu zen. Iñaki Mendiguren

---

**zoroastrozale** *izond/iz* zoroastrismoren jarraitzailea.

200000 parsi, **zoroastrozale** . Gotzon Garate

---

**zoroetxe** *(orobat* ***zoro-etxe*** *g.er.)* **1** *iz* zoroak zaintzeko erietxea. ik **eroetxe**.

Psikiatriak kartzela baino okerragoa den zerbait asmatu du: **zoroetxea** . Berria - Euskal Herria

Zororik gabeko **zoroetxe** abandonatu bat. Harkaitz Cano

**Zoroetxe** batean itxita egon behar nuke. Koro Navarro

Umetan, ez dakit zergatik, asko pentsatzen baita kartzelan, eta baita **zoroetxean** ere: hutsegitez sartu eta ez zintuztela ateratzen, eta antzeko gauza ikaragarriak. Ramon Saizarbitoria

72 urterekin amodio -eta sexu- harreman egonkor bati ekingo dio **zoroetxeko** langile batekin, Madeleine Leclerc neska gaztetxoarekin. Juan Martin Elexpuru / Bego Montorio

Andreievek **zoroetxeko** biztanleen eta eguneroko bizitzako gorabeheren freskoa marrazten du, gizakiaren hondorik ilunenean arakatuz. Jose Morales

**Zoroetxe** batera eramaten dute, eta honek ikaragarri zailduko dio edozein lege babes. Juan Martin Elexpuru / Bego Montorio

Chareton-go **zoroetxe** ezagunean sartu zuten 1825ean, eta bertan hil zen 1837an. Koldo Izagirre

Zoroak oso lagun onak izaten dira presondegian, nahiago izaten dute bertan **zoroetxean** baino. Koldo Izagirre

Berak garbi adierazitako nahiari iruzur eginez, **zoroetxeko** hilerrian lurperatu zuten. Juan Martin Elexpuru / Bego Montorio

**2** (hitz elkartuetan)

Donatien Charenton-go kartzela-**zoroetxean** hil zenean, bere gelan aurkitu zituzten aitaren eskuizkribuak, maitekiro koadernatuak eta zainduak. Juan Martin Elexpuru / Bego Montorio

**3** irud/hed

Hau **zoroetxe** bat da. Koro Navarro

-Banoa **zoroetxe** honetatik. Koro Navarro

**Zoroetxea** baldin bada, zuk **zoroetxe** egin duzulako da. Koro Navarro

---

zorokeria ik **zorakeria**.

---

**zoroki** *adlag* era zoroan. ik **zoro 3**.

Zure esklabo eta zerbitzari umil bihurtu naiz, baina handinahikeriaren hegoez hegaldaturik, zu **zoroki** , suharki, kartsuki eta desesperatuki maitatzera ausartu naiz. Joxe

Austin Arrieta

**Zoroki** maitemindu ziren biak. Juan Kruz Igerabide

Erran behar dut hain **zoroki** Erregeri atxikiak agertu nahi direnak berak direla harentzat kaltegarrienak. Piarres Xarriton

Aipatu ditugun asmakizunak [...] **zoroki** asmatzen eta sinesten dituzten fededunetarik, ez da bihirik heretikotzat hartu behar. Piarres Xarriton

Bere bihotza apur batean geratu egin zen, eta ondoren basaki eta **zoroki** hasi zitzaion taupaka. Anton Garikano

Lepoa luzaturik, begiak **zoroki** irekirik, ezpainen ertzetatik odol-lerdea zeriela. Jose Morales

Haien suhartasun garbikoi, aszetikoari, zor zaio milioika liburu hain **zoroki** galdu izana. Juan Garzia

Obsesiboa baita, **zoroki** perfekzionista, ezin pirriagoa. Markos Zapiain

---

**zorokilo** *iz adkor* zoroa.

Zibilizazio modernoari arin-arin egokitzera behartua [...], Aro Garaikidean **zorokilo** samartua ei dabil euskal izpiritu primitiboa, euskaldun guztiak. Joxe Azurmendi

---

**zorokume** *iz adkor* zoroa.

-Zoratuta al hago, **zorokumea** ? Patxi Zubizarreta

---

**zorotasun** *iz* zoroa denaren egoera edo gaitza; buru nahastea. ik **zoramen; erotasun**.

**Zorotasunaz** gain, gastritisa, hezueria eta beste gaitz asko zituen. Jose Morales

Andreieven obrako gai nagusiak **zorotasuna** , heriotza, beldurra eta bakardadea dira. Jose Morales

Eritasun fisikoak pixkana-pixkana barneko dohainak ere ahuldu egiten dituelakoan nengoen, nahiko garbi ikusia nuen hori etxean, eta seguru nengoen frau Gerdaren **zorotasuna** ere aitaren herrena bezalako kasu bat izango zela. Anjel Lertxundi

Arrazoirik onenak baino indar gehiago izaki bere **zorotasunak** eta, lehenengo topatzen zuenaren eskutik arma-hartzea egiteko asmoa hartu zuen. Patxi Ezkiaga

Orduan nabarmendu zen beraren **zorotasuna** . Jose Morales

Zoroen, doktorearen eta erizainen arteko harremanak, zoroen izaera eta bakoitzaren **zorotasuna** . Jose Morales

Paralisi orokorretik entzefalopatia kronikoraino, izaeraren neurositik deliriorik gabeko **zorotasuneraino** . Xabier Arregi

Maitasuna sumintasun eta **zorotasun** gisan kontzebitu zuelako. Xabier Amuriza

---

**zorotegi** *iz*

Bagdaden, beste gauza askoren artean, bidarientzako ostatu eta **zorotegi** ugariek utzi zuten harriturik Benjamin; mendebaldean ez baitzen halakorik. Patziku Perurena

---

**zoroxka** *izond* zoro samarra. ik **txoro**.

Ignatius Gallaher **zoroxka** zela esan ohi zuen jendeak. Irene Aldasoro

---

**zorpeko** *izlag/iz* zorpean dagoena.

Bestela esanda, zilegi dute **zorpekoan** egotea. Irene Aldasoro

Energia- **zorpekoa** . Irene Aldasoro

---

**zorpetu**, zorpe(tu), zorpetzen **1** da/du *ad* zorpeko bihurtu, zorrak egin.

Argentina **zorpetu** egin zen, baina estatu bat ez da **zorpetzen** beste batek hori eragiten ez badu. Berria - Mundua

Hasieran, Agentziako lan osagarrian irabazten nuenak nire bizimodua hobetzeko, hau da, gehiago **zorpetzeko** bidea eman zidan. Jon Alonso

Xede bat bururatzeko urteetarako **zorpetu** behar dugu eta, gainera, gu gara baliabide gutxien ditugunak. Berria - Euskal Herria

Estatu hauek kanpoan **zorpetzeko** zuten ahalmen nahitaez mugatuak baldintzatzen zuen inbertsioen hazkundea. Koro Navarro

Interes tasa aldakorrean **zorpetua** dagoenarentzat [...] interesen zama handitzen du. Berria - Harian

Mailegu horiei loturik herrialde hauen beste arazo larrienetakoa kanpo zorrarena da, Hirugarren Munduko herrialde asko eta asko erabat **zorpeturik** eta hipotekaturik baitaude. Iñaki Heras

Ramirestarrak sosik gabe baitzeuden, sakela hutsik eta begietaraino **zorpetuta** , kapital soziala osatzeko nahiko diru ere ez zutela. Bego Montorio

Soluziobideak 1980ko hamarraldiaren bukaeran hasi zitzaizkion ematen, banku-sektorearekin **zorpeturiko** herrialdeei dagokienez behintzat. Koro Navarro

Programa horien helburu orokorra **zorpetutako** ekonomietan merkatuko mekanismoak sartzea eta zabaltzea da. Koro Navarro

**2** (era burutua izenondo gisa)

Adierazgarria eta, familia **zorpetuentzat** , lasaigarria ere bai. Bestetik, Funtsak finantza tresna berriak sortu zituen, industrializatu gabeko herrialde **zorpetuek** beren ekonomiak neurri jakin batzuen arabera aldatzeaeren truke. Berria - Ekonomia

Amerikako herrialde **zorpetuenen** hazkundea suspertzea zen plangintza haren helburua. Koro Navarro

---

**zorpetze** **1** *iz* zorpeko bihurtzea, zorrak egitea.

Estatubatuarrek ahal dutena baino gehiago gastatzen dute, ez dute aurrezten, **zorpetzea** gero eta handiagoa da. Berria - Ekonomia

Euskal enpresen **zorpetzea** ez da oso handia. Berria - Harian

1991n familien **zorpetzea** oinarrizko errentaren %40ra iristen zen. Berria - Ekonomia

Familien **zorpetzearen** inguruan beste datu kezkagarri bat plazaratu zen atzo. Berria - Ekonomia

Juan Ignacio Perez Iglesiasek Eusko Legebiltzarrean ere eskatu izan du EHUren defizita kitatzeko, edo, bestela, **zorpetzeari** buruzko azalpenak emateko. Berria - Euskal Herria

Neurri horren bidez, Ingalaterrako Bankuak britainiarren kontsumoa eta **zorpetzea** moteldu nahi ditu. Berria - Ekonomia

**2** (izenondo eta izenlagunekin)

277 biztanle dituen herriarentzat **zorpetze** handia izanen dela aitortu du [...] Jean Mixel Galantek. Berria - Euskal Herria

Familiek gastuak aztertu beharko dituzte **zorpetze** handiagatik. Berria - Ekonomia

Eurogunek langabezia altu egonkorra (%8,8 eta **zorpetze** altuarekin). Berria - Ekonomia

Nafarroan dute **zorpetzerik** txikiena: 20.407 eurokoa. Berria - Ekonomia

Gipuzkoaren **zorpetze** neurritsua, altxortegi sendoa, zerga diziplina eta gizarte eta ekonomia eredua. Berria - Ekonomia

Estatu Batuen **zorpetze** masiboak eta garapen-bideko ekonomien zorraren krisiak 1980ko hamarraldian. Koro Navarro

Langabezia izugarri handiaren, **zorpetze** nazional handiaren eta parametro ekonomiko ahulen aurrean, Gobernu Federal gorri-berdeak Alemaniako Errepublika Federalaren ongizate estatua goitik behera aldatzeko planak ditu. Berria - Mundua

Adituak gehiegizko **zorpetzearen** beldur dira. Berria - Ekonomia

**3** (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

Familien **zorpetze** ahalmena ere muga-mugakoa izango da; hortaz, mailegu berririk nekez hartuko da, eta beraz, kontsumoa ere nekez areagotuko da. Iñaki Heras

Araba, Gipuzkoa eta Bizkaiko familiek duten **zorpetze** maila. Berria - Ekonomia

Aldundiek duten beste kezka bat erakundeen **zorpetze** egoera da. Berria - Ekonomia

**Zorpetze**-krisi gogor baten bukaeran gertatu da; krisi horretan, Latino Amerika izan zen berriz ere gertaleku nagusia. Koro Navarro

Ipar-Hego **zorpetze** ziklo berria jarri da abian, XX. mendean 1970eko, 1950eko eta 1920ko hamarraldiak markatu zituztenen ondoren. Koro Navarro

Heldutasun ekonomikorako igarobidea, oroz gain, herrialdearen finantza-posizioa berriz orekatzen denean gauzatzen da, alegia, **zorpetze**-saldo garbiaren erabateko balioa ezabatzen denean. Koro Navarro

**4** (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa)

Ez dakigu zergatik ordaindu behar izan dituen gizarteak, hipoteka-**zorpetze** bidez, lurzoru jabeek eta sustatzaileek poltsikoan sartu dituzten etekin ikaragarri horiek. Berria - Euskal Herria

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
> **familien zorpetze** (3); **familien zorpetzea** (7); **familien zorpetzearen** (3); **zorpetze handia** (3); **zorpetze maila** (4)

---

## zorpetzear *adlag* zorpetzeko zorian.

**Zorpetzear** dagoenarentzat mailegua garestitzen du eta diru iturri finkoa duenarentzat, ordain dezakeen diru kopuru maximoa murrizten (honek etxebizitzen prezioan eragin zuzena du, noski). Berria - Harian

---

## zorri **1** *iz Anoplura* ordenako intsektu bizkarroia, gizakiaren odola xurgatuz bizi dena *(Pediculus humanus)*.

Halako sukarrak **zorrien** eta arkakusoen bidez zabaltzen dituk-eta, ez diat uste hik hor **zorririk** edo halakorik batu izango duanik. Edorta Jimenez

Hondamendiari ez diote etekina ateratzen arkakusoek, **zorriek** eta arratoiek baino. Markos Zapiain

**Zorriek** bartzak jaso eta bere burutik gelakide batenera jauzi egin dute atzerantz, eta han ere bartzak jaso eta beste bost gelakideren buruetatik igaro dira. Eider Rodriguez

Gure adats eta bizarretan **zorriak** hala hazi ahal zirela eta hobe genukeela ileok kentzea, hori ere esan zuen. Edorta Jimenez

Kaleetan emakumeak elkarri **zorriak** kentzen ikusten nituen. Gotzon Garate

Joanesek berehala ulertu zuen ere, **zorririk** ez zuela behar jantzietan eta larruan. Eneko Bidegain

Zaindariek sukar-ustelaren beldur handia zuten, **zorrien** bitartez kutsatzen omen zen. Eneko Bidegain

Eguzkitan **zorriak** ongi ageri ziren, presoak **zorriz** beteak baitziren. Eneko Bidegain

Zikinak nazkagarriak gira, **zorriz** emokatuak, eihartuak. Michel Oronoz

Tuberkulosia, tifus exantematikoa (**zorri** berdea), sarna, eromena... Jokin Urain

Gizakiak zomorroak akabatu egiten ditu; arkakusoak ere hala egiten ditugu guk [...] eta **zorriak**, salbuespenik gabe, hil egiten ditugu edo genituen, orrazi estua pasata. Iñaki Segurola

**Zorri** ikaragarriek kosk egiten zioten, izerdi beldurgarriek indarrik gabe uzten zuten. Karlos Zabala

Azienda ahulari, **zorri** asko! Berria - Kirola

**Zorria** xilkoan bezala bai lotu direla amatur gehienak, ezin barkatuz, bi lapurtar hauk bezala! Herria

**2** (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

**Zorri** bilaketak kontzentrazio handia eskatzen zuen. Joseba Sarrionandia

Lagunaren jakin-mina aseko du **Zorri** kontrolen istorioak kondatu nahiko zituen. Eneko Bidegain

Berekin zuen **zorri** koloniatik parte bat han utzirik atera zen presondegitik. Marzel Etxehandi

**3** (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa)

Batzuetan inurri orbanak agertzen ziren lurrean, beren hegalekin, edo landare-**zorrien** tortikak landareetan. Josu Zabaleta

Baliteke erle langileek, eta inurriei behi gisa balio dieten landare-**zorriek** ere, beren inkontzientearen ilunpeetan, talde-harrotasun hori izatea. Josu Zabaleta

**4** (izenondo gisa)

-Mutil potrozorri hori! -erantzun zion Mateok, gorputzez behintzat neu baino **zorriago** zen baina. Edorta Jimenez

-Bai zera! ez zeukaan ideia **zorririk**! Koldo Izagirre

**5** irud/hed

Festa haietan -esaten digu Lakatosek-, gonbidatu gabe, arraza eta tankera guztietako **zorriek** hartzen zuten parte. Pablo Sastre

Jasanezinak zaizkio beren buruan **zorri** nazionalistak sumatzen ez eta hedabideetatik besteen bartzak arenga belikoz ito nahian dabiltzanak. Markos Zapiain

Etxarri lantegian ez zuten alabaina horrelako **zorri** beharrik! Itxaro Borda

**Zorri** bakoitzari ahoa itxi? -eta mahai gainean kolpe kementsu bat eman zuen galdera indartzeko. Anjel Lertxundi

Beste bat izan balitz, **zorriak** lardaskatzera bidaliko nuen. Anjel Lertxundi

**Zorri** zikiratzen aments? -erasiatu zuen, zakarki, bilkurtik ateratzean. Elena Touyarou

**6** (irud/hed, hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

Handik gutxira, buruko **zorri**-habia bat jarri zidaten eskuan, zenbait tapaki xastar eta pixontzi zulatu bat. Javi Cillero

-Hau **zorri**-zulo zikin nazkagarri bat besterik ez duk -tonu berean jarraitu zuen ahotsak-. Lopez de Arana

Bi karabinero **zorri**-partz haiei bost axola nire une hartako hondoramendua. Anjel Lertxundi

Egun egokia izan zitekek **zorri** lasterketa kontuak eta pixka bat haizatzeko. Jokin Urain

**7** (irud/hed, hitz elkartuetan bigarren osagai gisa)

Badakit, behinik behin, gaulana deitzen ziotela kontrabandoari, eta oihan **zorriak**, berriz, kontrabandoa eragozten zuten karabineroei. Koldo Zuazo

Zaharra eta gaztea, behartsua eta aberatsa, saltzailea eta tratulanta, benetako kulturgilea eta erakunde-**zorria**, traidorea eta labeldun abertzalea. Markos Zapiain

Hik badakik zenbat jende bizi den hortik: zenbat juez eta zenbat polizia eta zenbat paper-**zorri**? Pablo Sastre

Tikitan, gurekin, prima zuhurraren egitekoa, eta handitan, bere lau seme-alabekin, ama ume-**zorriarena** ederki bete baldin bazituen, izeba prestuaren xarmak ateratzen jakinen zuen oraingo aldiko gure Unairekin.vArtistak eta bankariak, gaizkileak eta negozio-jendea, puta-**zorriak** eta espiak. Aingeru Epaltza

**8** ***kolpe zorririk*** *ez jo/jo gabe*

**Kolpe zorririk** ez jotzen ohituta, ikaragarria iruditu zitzaion detektibeak esandakoa-. Migel Angel Mintegi

Askotan aditu izan dut, jende askori gainera, sekula lanik egin gabekoa dela Keneri, inoiz ez duela **kolpe zorririk** jo. Xabier Mendiguren Elizegi

Ez nuen **kolpe zorririk** jotzen egun osoan. Jesus Mari Mendizabal

**Kolpe zorririk** ez jotzen ohituta, ikaragarria iruditu zitzaion detektibeak esandakoa-. Migel Angel Mintegi

Institutuko nire lagun batzuek esana zidaten, Don Frantziskorekin **kolpe zorririk** jo gabe atera zitekeela urtea. Xabier Mendiguren Elizegi

Debalde bazkaltzeko, dirulaguntzak kobratzeko eta **kolpe zorririk** jo gabe bizitzeko. Jon Alonso

Aste beteko oporraldia izango nuela Kuban, **kolpe zorririk** jo gabe. Jon Muñoz

### 9 ***sabel zorri*** *adkor* gosea.

**Sabel zorria** asetzeko gogo izugarriari kontra eginez. Karlos Zabala

Hilei ere **sabel-zorriak** egiteko modukoa. Jose Morales

### 10 ***tripa-zorri*** gosea.

Bihotza pilpiraka zuen, bizi-bizi; **tripa zorriak** zituen gosearen gosez. Fernando Rey

Eta zuek, epaimahaiko jaun andreak, Aliziarenean bezala, epaiketa bertan behera utziko al duzue hamaiketakoari hots egin dioten **tripa-zorriak** dituzuelako? Berria - Kultura

Negarrik egiten ez zuenari ematen zioten jaten, besteak **tripa-zorriekin** eta egun osoko lanean majo nekatuta ohera bidali ondoren. Aitor Arana

**Tripa zorriak** esnatu zitzaizkion, jasanezin, errukigabe. Karlos Zabala

Pastel mordoa jaten dute, okelaz edo katuarrainez beteak, ikuste hutsarekin **tripa-zorria** esnatzen duten horietakoak. Jose Morales

Eta total, **tripa-zorriei** ezeren zaporerik ez zuen ahi okaztagarri hura jaten emateko. Harkaitz Cano

· **Tripetako zorriak** orduko kexatzen hasiak, non zer jango hasi naiz. Anjel Lertxundi

### 11 ***zorri zaku*** (*orobat* ***zorrizaku***) *irud/hed*

Ez dut nehoiz trebezia hori ukan, beti hein bat gogoz kontra **zorri-zaku** itxurako elkarte eta ekintzetan leporaino sartu naizelako. Itxaro Borda

Itzalak bazituen noski: emazte zalea zen, kristaua, Cochinos Badiako **zorri-zakua** debaldetan inarrosi zuen... Itxaro Borda

Halako barne-poz aitorrezinaren bulkadaz, presidentea eriz erakusten zion polizia lagunari: [...]. **Zorrizaku** zurrungari horrek ez du besterik merezi! Itxaro Borda

-Ez mugitu, etxekalte hori! -Eta gaztearengana itzuli zelarik-: Beldurrak al hago, **zorrizaku** alaena? Patxi Zubizarreta

### 12 ***zorri-zorro*** (*corpusean* ***zorrizorro*** *soilik*) *irud/hed*

**Zorrizorro** esker gaiztoa! Patxi Zubizarreta

-Morroi **zorrizorroa** ! -zuzendu zitzaion ifrit mando itxurakoa-. Patxi Zubizarreta

**Zorrizorro** halakoak! Patxi Zubizarreta

-Eta zergatik ez haiz, hire aita bezala, **zorrizorro** batekin ezkontzen? Patxi Zubizarreta

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
> **kolpe zorririk** (9); **kolpe zorririk jo** (8); **tripa zorriak** (5); **zorria bezala** (7); **zorriak kentzen** (3); **zorririk ez** (3); **zorririk jo gabe** (7); **zorriz beterik** (4)

---

## zorrikeria *iz*

“Tirano harrotzik” ez zeitan aipatü; gordinkiago erran zeitan “frantzes **zorrikeria** hori”, erdaraz arrapikatü ere “cette pouillerie de Français”. Herria

---

## zorriketan *adlag* zorriak hiltzen.

Han ikusten genituen batzuk kartetan, esku zikinetan karta zimelduak, eta beste batzuk **zorriketan** . Joseba Sarrionandia

Gurekin etorri zen, hilabete eta erdian tren kalakari batean ibili ere bai; semearen ile zikin eta gozoetan aritu zen **zorriketan** . Felipe Juaristi

Bai **zorriketan** eta baita jolasean ikusitakoan ere: Oiloak jolasean edo **zorriketan** ari direnean, hotza laster. Pello Zabala

---

## zorritsu (*orobat* **zorrizu** *g.er.*) 1 *izond* zorriz betea.

Aski omen da haur **zorritsu** bat agertzea, laster eskola guztia zorriz betetzeko. Gotzon Garate

Borges famatua, terroristen buru heroikoa, munduko kondenatu, legendun eta **zorritsu** guztien esperantza bakarra. Jon Alonso

Kristalezko ateak itxi dituzte, lau emakume ijito eta haien ume **zorritsuekin** gelditu zara. Eider Rodriguez

Federicok bere ohetik erantzuten zion: zaude isilik, zakur **zorritsu** lotsagabea. Pello Lizarralde

### 2 irud/hed

Gobernuan banintz, akabatuko nikek pobre gisa kontsideratzen diren alfer **zorritsu** horiekin. Itxaro Borda

Horri judu zikin horien eta irlandar **zorritsu** horien ezjakintasuna gehitu behar zaio. Lopez de Arana

Uste nian gutarra zela eta hala zuan errepublikar **zorritsu** horiekin nahastu zen arte. Lopez de Arana

Txoto hegalzabaleko begibakarrak, presondegi izugarrienetatik ihes egindako **zorritsuak** . Jon Alonso

Gero beren osasuna, erosotasuna, lasaitasuna, zahartzaroa, nire amaren ustekeria sozialak, hiri **zorritsu** honetan beste gela bat edukitzeko aukera. Xabier Olarra

Ez zuten herria armatu nahi, burokrazia handia gainditu behar zen pistola **zorritsu** bat eskuratzeko. Koldo Izagirre

-Kamionetako morroiak: Txuma eta Jabito, bi junki **zorrizu** . Aingeru Epaltza

Prentsan **zorritsuen** armada gisako izenak ematen zitzaizkien errefuxiatuei. Jokin Urain

---

## zorritxo 1 *iz* zorri txikia.

Zirin, lur, harri, pentsu, luma eta pĕrpôjínezko nahaste-borraste bat da (oiloen **zorritxoak** dira, hegalpean habia egiten baitute: ez dakit nola deitzen diren italieraz). Juan Garzia

### 2 irud/hed

-Perfila nahi dut, **zorritxo** . Harkaitz Cano

---

## zorrizaku ik **zorri 9**.

---

## zorrizorro ik **zorri 10**.

**zorrizto** *izond* zorritsua.

Dagoeneko duda izpirik ez dut, maiteago du bere katu **zorriztoa** , edo behintzat harentzat gordetzen ditu txera guztiak. -Guztiz itsu doaz, baietz atso **zorrizto** bateri ere esan! Patxi Iturritegi

Oilotokiko kakoa baino ezgauzagoa, arrantzale ugerdoa, zikin **zorrizto** halakoa. Edorta Jimenez

Kanpoko **zorrizto** , lotsabako, gosekil orreik ona etorten dira. Juan Luis Zabala

---

zorrizu ik **zorritsu**.

---

**zorro** *iz* **1** ehunez, larruz, paperez edo kidekoz eginiko poltsa modukoa, goialdean itxi daitekeena, eskuarki zakua baino txikiagoa. ik **poltsa**.

Bari hiritik hurbil, poltsa handi bat aurkitu zuten bidean, hizkera arruntean **"zorroa"** deitzen den horietakoa. Askoren artean

Laster hedatu da albistea ordea: **zorro** eta fardelek bertan gelditu behar zuten. Urtzi Urrutikoetxea

Motxila eta **zorroak** lurrean utzirik, sakon hartu zuen Estherrek arnasa. Xabier Montoia

Aitak maleta eta **zorroak** hartu eta urdinez jantzitako emakume bati eman zizkion. Xabier Montoia

Bere **zorroan** miatu, egunkari zimurtu bat atera, eta orrialde jakin batean zabaldu zuen. Jon Muñoz

Berak **zorro** osoa hustu ziok. Bernardo Atxaga

Besteak **zorroen** barrenean tabako-kartoiak ostendu eta portu ondoko estankoan sartu dira. Urtzi Urrutikoeetxea

Une batez Sara kamera ateratzekotan egon zen, baina, azkenean, **zorroan** utzi zuen. Iban Zaldua

Hartu **zorroetan** lurreko fruiturik onenak eta eskaini gizon hari opari. Jose Antonio Mujika

Ez dugu ogirik geure **zorroetan** , ez eta eskuerakutsirik ere Jainkoaren gizon horri emateko. Elizen arteko biblia

**Zorroaren** estalkia kokospean hartu eta partiturak gorde nituen. Anjel Lertxundi

**Zorro** hartan ekarriak zituen Tolosaldean egun batzuk pasatzeko behar zituen guztiak. Juan Luis Zabala

Gero **zorroa** bizkarrean hartuta besteen urratsera hurbildu gara. Urtzi Urrutikoeetxea

Kartak **zorrotik** ateratzeko ahaleginetan ari nintzen, baina oso estu sartuta zeuden, eta ezin nuen. Bernardo Atxaga

Erbi polit bat zeukan **zorroan** . Koldo Biguri

Gero, **zorro** liburuz betea mahai gainean utzi, esku-larruak kendu eta eskuak igurtzi zituen. Anjel Lertxundi

Burua **zorrotik** atera, denei erakutsi eta esan zien: "Hona hemen, asiriar gudarostearen gudalburu nagusia zen Holofernesen burua!". Elizen arteko biblia

Hartu **zorro** hau bete urre, eta etortzen diren mirabe, kantari eta ileapaintzaileei eskukada bana eskaini. Patxi Zubizarreta

Soinekoaren barrenari josia zegoen papera irakurri zuen, eta **zorro** batean mila dinar topatu zituen. Patxi Zubizarreta

**Zorro** bana zeramaten zelari lotuak eta **zorroetan** gutun bana. Aingeru Epaltza

· Zelaren azpian **zorro** bat urre ezarri zuen eta, amorrazio beltzak harturik, noraezean abiatu zen. Patxi Zubizarreta

**Zorro** bete intxaur opari eman ziotela esanez. Urtzi Urrutikoetxea

Ate sarreran esertzera joan zen, **zorroa** bete janarirekin. Juan Kruz Igerabide

**2** zerbaiti, babesteko edo gordetzeko, jartzen zaion telazko edo larruzko estalkia. ik **funda**.

Edredoiaren **zorroa** satinezkoa zen. Fernando Rey

Betaurrekoak gordetzeko **zorroaren** atzean dauzkanak. Xabier Etxabe

Largabistak **zorrotik** aterata, "Feofarren konpainiako lehenengo aktoreak" ikusteko prest jarri zen. Karlos Zabala

Teontzirako **zorro** bat ere egin zion. Julen Gabiria

Atsegin nituen lurpeko korridore haietako oihartzunak, kantak ahots betean abesten nituelarik eta jendeak txanponak eta dolarrak botatzen zituelarik Greg-en biolinaren **zorrora** . Oskar Arana

Egun osoa etxean eman, gitarra **zorrotik** atera gabe. Unai Elorriaga

Bizkor, aizkora txikia atera nuen **zorrotik** , kume hark ama ez zuen urruti ibiliko eta. Jon Maia

Belauniko jarri eta arma txikia **zorroan** sartu zuen. Bernardo Atxaga

Fructuosok, eskua pistolaren **zorrora** eraman, eta hantxe zeukala hark aginpidea, eta zabaltzeko. Inazio Mujika Iraola

*ik beherago* 11. Askoren artean

Lepic jaunak karabina **zorro** berdetik atera eta galdetu du: [...]. Itziar Otegi

Bidaztiak sablea **zorrotik** bizi atera eta borrokarako prestatu zen. Karlos Zabala

Gazteak lurrean belaunikarazi, eta ezpata atera zuen **zorrotik** . Patxi Zubizarreta

*ik beherago* 9. Askoren artean

Ezpata, itzuli **zorrora** ! Elizen arteko biblia

Eurialok brontzezko ezpata bat oparitu zion, zilarrezko heldulekuarekin eta marfilezko **zorroarekin** . Juan Kruz Igerabide

Ezpatak **zorroan** sarrarazi zituen. Aingeru Epaltza

Ikusi zuen Davidek Jaunaren aingerua zeru-lurren artean zegoela, ezpata **zorrotik** aterea eskuan hartu eta Jerusalemen kontra luzatuz. Elizen arteko biblia

Sabaiaren erdian argi-armiarma bat zegoen, artile zarpailezko **zorro** batean bildurik. Gero areto txiki bat, non besaulkiak eta beste eserlekuak, **zorro** zuriz estalirik, lotan baitzeuden inoren arreta bereganatu gabe. Jose Morales

Altzariak estaltzeko **zorroak** zeuden, bai eta alabastrozko pendulu erloju zutabedun bat ere. Karlos Zabala

· Zeregin mekanikoari dagokionez, lehenengo **zorro** termouzkurgarria da larruazala. Irene Aldasoro

**3** (izenondo eta izenlagunekin -lehen bi adierei dagozkienak-)

Penikeko dozena bat opiltxo erosi zituen, denetatik nahasi, eta, azkenean behintzat, **zorro** handi batekin kargaturik irten zen dendatik. Gozotegiko **zorro** zuri bat zabaldu zuen. Irene Aldasoro

Paper grisezko **zorro** soil batek baizik babesten ez zituenak. Karlos Zabala

Agaramonteko kondearen hatzek paper bat eta **zorro** txikiagoa atera zituzten handik. Aingeru Epaltza

Andreak txanpon handi bat atera zuen oihalezko **zorro** txiki batetik. Larruzko **zorroa** bere sokatik askatu eta gizonaren eskuetan utzi nuen. Karlos Zabala

Dozena erdi bat zigarreta erre eta jada tabakorik gabe nengoelarik irten zen, plastikozko **zorro** bat eskuan: zapata beltzak. Xabier Montoia

Amaordeak eskuko **zorroa** zabaldu du, eta izutu egin naiz atzera zapia aterako zuelakoan. Urtzi Urrutikoetxea

Zigarro-pakete baten tamainakoa denez igorgailua, poltsikoan edo besapeko **zorro** batean eraman daiteke. Erlojua, sakelako **zorroa** (dokumentuak eta dirua barru), betaurrekoak, gerrikoa eta zapaten lokarria kendu dizkizu. Irene Aldasoro

Margotek liburuz bete zuen eskolako **zorroa** . Eskolako **zorrotik** hamaiketakoa atera eta jan egin dut. Josu Zabaleta

Kajoian betaurreko zahar batzuk daude, **zorro** berde iluna dutenak. Aingeru Epaltza

Hantxe azaldu baitzen ezpata, sokaren muturrean loturik eta **zorro** babesgarrian lotuta. Joanes Urkixo

Muselinazko **zorro** babesgarritik zehar atzematen zen argi-armiarmarekin. Jose Morales

**4** (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa –lehen bi adierei dagozkienak-)

Mutil zaharrenari, Alphyri, eman zion Mariak opil-**zorroa**, opilak bana zitzan. Irene Aldasoro

Krispeta-saltzaileaganaino joan eta krispeta-**zorro** bat erosi zuen. Xabier Aranburu

Han kontramaisuek etxetik ekarritako janari-**zorroa** zabaltzen zuten. Urtzi Urrutikoetxea

Negarretan joan ziren, hazi-**zorroa** eramanez; poz-oihuka datoz, gari-balak ekarriz. Elizen arteko biblia

Beste mutila geldirik zegoen, patata **zorroa** eskuan. Koro Navarro

Mahai gainean pipa luze bat eta tabako **zorro** bat zeuden. Koro Navarro

-Kendu ezak zabor **zorro** hori nire bidetik! -esan zuen (niri buruz ari zela)-. Oskar Arana

-Hemen daukat billete-**zorroa**, dirua. Jose Morales

Haren atzamarrak bere bideari jarraitu zion eta barrabil-**zorrorantz** joan zen. Juan Martin Elexpuru

Entzima-**zorro** bat da zelula. Juan Garzia

-Egon isilik, akne-**zorro** tentel hori! -hark ere eztenkadaz erantzun nahi izan zidan. Jon Muñoz

Ondoan nuenak nire eskola-**zorroa** zabaldu zuen, eta entziklopedia ateratzen hasi zen. Juan Kruz Igerabide

-Geratu geldi! -purrust egin zion ipotxak, Harryren eskola-**zorroari** heldu eta atzera tira eginez. Iñaki Mendiguren

Bazkari legea egin, bide **zorroa** itxi [...] eta prest egongo zen abiatzeko. Karlos Zabala

Gazta pixka besterik ez dakart nire bidai **zorroan**. Patxi Ezkiaga

Hartu zuen eskuan bere makila, bost errekarri leun-leun aukeratu eta artzain-**zorroko** sakela batean gorde zituen. Elizen arteko biblia

-Tentaldi madarikatua! -oihukatu zuen Pepponek, ehiza-**zorrotik** erbia atera eta urrutira jaurtiz. Koldo Biguri

Gerturatu egiten ziren, galtza **zorrotik** ageri zitzaion makilari so. Ramon Saizarbitoria

Beste jatekorik ezean, hankartetik darion ur-**zorroa** eta egin berri duen haurra bera ere jan egin nahiko baititu ezkutuan. Elizen arteko biblia

Lincolnek ahopeka esan didanez arma beretik atereak dira inguruan aurkitutako sei bala-**zorroak**. Joxemari Urteaga

Armak, kartutxo-**zorroak**, antzinako geziak. Xabier Olarra

Dokumentu guztiz berezi bat aurkitu nuen gutun-paper, zigilu, zetazko gutun-**zorro**, zinta itsaskor bilkari, helbide-txartel eta erantzuteko zeuden gutunen artean. Joxan Elosegi

Arkua eta gezi-**zorroa** eskuan zituela Disko-**zorroko** giza irudiak hilobiaz haraindiko tximino bat ematen zuen. Juan Kruz Igerabide

Astoari belarrira hitz batzuk esan zizkion eta Pelloren bakailaoa basta-**zorroan** sartuta uhalak askatu zituen eta astoak orain batere protestatu gabe mantso-mantso jarraitu zion. Pablo Sastre

Koadroa pintatu, gurpil-**zorro** eta estalki berriak ipini, eta orobat galgak. Juan Kruz Igerabide

Edozein hizkuntza, hitz-**zorro** bat edo izen-zaku bat baizik ez balitz bezala. Piarres Xarriton

**5** ik **poltsa 5**.

Ilearen azpian bekoki txiki nabarmena zeukan, xelebreki zabaldutako belarri-gingilen azpian hantura berri eta zakar bi, beste leku batzuetan betzuloetako **zorro** bigunak. Urtzi Urrutikoetxea

**6** ik **kartera 2; kartera 3**.

Rubalcabak Jose Antonio Alonsoren eskutik jaso zuen Barne ministroaren **zorroa**. Berria - Euskal Herria

Airbusek 2.177 eskaera ditu oraindik **zorroan**, 220.300 milioi dolarreko balioarekin. Berria - Ekonomia

«Ederki» ustiatu du beste enpresetako parte-hartzeen **zorroa**, eta hortik lortu ditu mozkinen %60. Berria - Ekonomia

Kutxak, gainera, enpresa txikiekin eta ertainekin «eskuz-esku» jardun eta partaidetzen **zorroa** «zorrotz» kudeatzen segituko du, garapen sozio-ekonomikoa bermatzeko. Berria - Ekonomia

Ontziola txiki eta ertainek goraino bete dute enkarguen **zorroa**: hileotan itxitako akordioekin, lana daukate 2009ra arte behintzat. Berria - Harian

Ekainaren 30ean 2.760 milioi euroko eskari **zorroa** zuen Beasaingo enpresak. Berria - Ekonomia

2.366 milioi euroko eskabide **zorroa** itxi du, horietariko %32 esportazioak dira. Berria - Ekonomia

**7** ***bide zorro***

Patriarka bat bezalaxe zihoan Santxo Panza bere asto-gainean, **bide-zorro**, zahato eta guzti. Patxi Ezkiaga

**Bide-zorroa** ireki eta arropak antolatzeari ekin zion. Aritz Gorrotxategi

Ostalariak gela bateko giltza emana zion-eta, haraxe eraman zituen bere **bide-zorroak**. Patxi Ezkiaga

Hogei garagar-opil eta gari berria **bide-zorroan**. Elizen arteko biblia

**8** ***bizkar zorro*** *(78 agerraldi, 11 liburu eta 4 artikulutan)* bizkarrean erabiltzen den zorro uhalduna. ik **motxila; zaku 13**.

**Bizkar-zorrotik** argazki-makina atera eta, zergatik edo zertarako jakin gabe, argazkia egin nion. Juan Luis Zabala

Babes horiek guztiak axola handikoak ziren gure amarentzat, eta goizero, mendira atera aurretik, **bizkar-zorroan** sartzen zituen. Fernando Rey

Latak dira gehienak, astunak **bizkar-zorroan** eramateko. Xabier Montoia

**Bizkar-zorroa** miatzen hasi direnean bereak egin duela pentsatu du. Iban Zaldua

Mendirako prest irten ginen pentsiotik, **bizkar-zorro** bana soinean. Juan Luis Zabala

**Bizkar zorroetan** ezarritako txip baten bidez, ikaslea eskolara noiz sartzen eta ateratzen den jakingo du eskolako ordenagailuak. Berria - Gaiak

Lozakua daukat **bizkar-zorroan**. Juan Luis Zabala

**Bizkar-zorrotik** aizkora txikia atera, zuhaitz batera igo eta bi adar moztu zituen beste gudari batek. Inazio Mujika Iraola

Soldaduak beldur baziren Imanen **bizkar zorroan** lehergailuak egon zitezkeela. Berria - Mundua

**Bizkar-zorroa** zabaldu dugu espraiak ateratzeko... Urtzi Urrutikoeetxea

Espainiako Enplegu Institutuaren bulegoaren atarian jarrita zegoen bonba, **bizkar zorro** batetan gordeta. Berria - Euskal Herria

**9** ***diru zorro*** *(orobat **diruzorro** g.er.)* ik **kartera**.

Joan den astean lapurtu zizkioten **diru zorroa** eta sakelakoa. Koldok **diru-zorroa** atera zuen praketako atzeko poltsikotik eta milako bat luzatu zion. Berria - Kirola

Hala ba, **diru zorrotik** helbidea atera eta telegrama bat bidali nion. Koro Navarro

**Diru-zorroa** atera eta bi billete luzatu zizkion. Alberto Ladron Arana

Aitak larruzko diru-**zorrotik** ordaindu dio. Urtzi Urrutikoetxea

Sakelako **diru zorroan** bere aitaren argazkia eramaten zuen. Gotzon Garate

Autodidaktak kartoi bioletazko bi errektangelu atera ditu bere **diru-zorrotik**. Monika Etxebarria

Sidney buruargia zen, iluna eta arduratsua, eta **diru zorro** bat eta kartera bat zeuzkan. Koro Navarro

Sonja ez duk sekula hirekin joango, ezta **diru-zorroa** mila florinekoz beteta baldin badaukak ere. Poltsatik **diru-zorro** bat atera zuen, zilar monedaz betea. Anton Garikano

· Bost errublo bildu zituenean, **diru-zorrotxoa** josi eta beste bat betetzeari ekin zion. Jose Morales

**9a** (ekonomian) ik **kartera 3**.

Asko igo ziren iaz lehengaien salneurriak, eta horrek mesede egin dio Sidenorren **diru zorroari**: 63,4 milioi euroko irabazi garbia izan du. Berria - Ekonomia

Finantza-inbertsioena (edo **diru-zorroko** inbertsioena) ez bezala, sorteritik kanpo jardungo diren enpresak sortzea, garatzea edo menderatzea da nazioarteko zuzeneko inbertsioen helburua. Zuzeneko eta **diru**-zorroko inbertsioetan bakarrik [...] kapitalen irtenaldi gordinen batuketa, edo, bestela esanda, atzerrian egindako inbertsioen

multzoa, igaro zen, 1840an 2.000 milioi dolar baino gutxiago izatetik, 9.000 milioi izatera 1870ean. Koro Navarro

## 10 ***liburu zorro***

Etxetik eskolako **liburu-zorroarekin**, goibeldurik, ateratzen nintzen arte. Josu Zabaleta

Koadernoan oharra idatzi, koadernoa **liburu-zorroan** gorde eta lasaitzen ahalegindu nintzen. Josu Zabaleta

Margot eta biok behar-beharrezko gauzak eskolako **liburu-zorro** batean sartzen hasi ginen. Josu Zabaleta

· Domina nire bularraldean idurikatu nuen, Edu beti erdi lerdoaren garaipena Ttipi **liburu-zorroaren** jakinduria osoagoaren eta zabalagoaren aurka. Aingeru Epaltza

## 11 ***paper zorro*** paperak eta kidekoak gordetzeko zorroa. ik **kartera 2.**

Larruzko **paper-zorro** bat hartu, eta itxura ofizialeko orri batzuk atera zituen handik, zigiluz josiak. Jon Muñoz

Han zegoen, **paper-zorroa** besazpian zuela, barrenean zer zuen sekula jakin ez genuen **paper zorroa**. Ander Irizar

Adibidez, ikasle bati egun batean **paper zorroa** txikituta agertzen zaio. Berria - Euskal Herria

Aspalditik zauzkaat haien buru marraztuak **paper zorro** batean gorderik. Karlos Zabala

**Paper zorroan** sartu zuen txartela. Jon Muñoz

Muranoko idazluma atera zuen **paper zorrotik**. Jon Muñoz

**Paper zorro** bat atera zuen gizonak, egunkari-zatiak txukun-txukun bilduta zeuzkana. Jon Muñoz

Eta erakusteko erabiltzen dudan [Hiztegi Entziklopedikoaren] alea **paper-zorrotik** atera, eta mahai gainean jarri nion. Ramon Saizarbitoria

## 12 ***pistola zorro***

Kiroletako galtza eta jakaz jantzia eta **pistola zorroa** besapean zuela. Koro Navarro

Fructuoso altxatu egin zen, eskua **pistola zorroan** jarrita: berak erakutsiko ziela zenbat jaten duen libertario batek. Inazio Mujika Iraola

Eskerrak eman nizkion, gelara bueltatu, **pistola-zorroa** jantzi eta karrikaratu egin nintzen. Alberto Ladron Arana

Mitxelena isilean begira gelditu zitzaidan, uhalak estutu eta **pistola-zorroa** ezkerreko besazpian egokitzen nuen bitartean. Alberto Ladron Arana

Eskularru zuriak zituen, sable distiratsua eta larruzko **pistola-zorro** lustratua. Matías Múgica

## 13 *titi zorro* ik **titizorro.**

## 14 *tripa zorro* ik **tripazorro.**

## 15 ***sabel zorro****sup_1 (orobat* ***sabelzorro*** *g.er.) adkor* tripa, gilborra.

Etzaulkian zegoen, eskuak **sabelzorro** gainean gurutzatuta, ez irakurtzen edo lotan, baizik eguzkia hartzen bizitzaz okitutako izaki baten antzera. Anton Garikano

Ederki betea zaukan **sabel zorroa** zerri madarikatuak. Karlos Zabala

Alferkerian ohitu haiz, eta nahiago duk eskean ibili **sabel-zorro** aseezin hori betetzeko. Juan Kruz Igerabide

Tea edan, eta **sabel zorroa** hotz -esan zuen, burlaizezko irri labur batekin. Jose Morales

## 16 ***sabel zorro****sup_2* sabelean eramaten den zorroa.

Noiz sortu ote zen turisten gustu txarreko ohitura hori, bizkar-zorroak bizkarrean eraman beharrean **sabel-zorro** bihurtzekoa? Harkaitz Cano

## 17 ***zakutik edo zorrotik*** nondik edo handik.

Buruzagiek, **zakutik edo zorrotik**, Frantzia osatzen zuen lur puska honetan derrigorrezko bakearen segurtatzea manatzen zioten. Itxaro Borda

Ahal zuten guzietan elkar laguntzen zuten eta **zakutik edo zorrotik** erdiesten zuten ogi puxka gehigarria denen artean banatzen. Eneko Bidegain

Nik laguntza ekonomikoak eta errextasunak kausi ditzazket baina lurra lekuko hautetsiek hornitu beharko dute **zakutik edo zorrotik**. Herria

Lanean beharko genukeela **zakutik edo zorrotik**. Itxaro Borda

Zer eskuzartak ez dira gero ere izan! Ibarrolarendako gehienik, hain zen mustupilka joaiten gizona, pilota guzien biltzerat, eta frangotan kintze egiterat, **zakutik edo zorrotik**, edo lurrean herrestan etzanik ere berdin.· Orduan, "**zakutik** ala **zorrotik"** bakoitzak zerbait emaiten zion. Herria

## 18 ***zorne zorro*** *(orobat* ***zornezorro****)*

Ondorio horiek guztiak, izurriak **zorne zorroa** bezala, halaxe ekartzen ditu porrotak. Josu Zabaleta

Ez daukagu antibiotikorik, eta, hortaz [...] **zorne-zorroa** ebaki eta itxaron besterik ezin dugu egin. Oskar Arana

**Zorne zorro** bat bezala ari zen gezurra puzten, eta haietako egunen batean lehertuko zen seguruenik. Koro Navarro

Gualterio izeneko Arezzo hiriko beste mutiko bat etengabeko sukarrez eta bi **zorne-zorroz** oinazetua zegoen. Askoren artean

· Bilaua halakoa, **zornezorro** zikina! Jose Morales

**hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**

**bala zorro** (4); **bere zorro** (9); **bide zorro** (3); **bizkar zorro** (9); **diru zorro** (11); **larruzko zorro** (8); **paper zorro** (8); **paperezko zorro** (5); **plastikozko zorro** (8); **plastikozko zorro batean** (4); **zeraman zorro** (4)

**zorro bana** (4); **zorro bat** (36); **zorro bat atera** (6); **zorro bat erosi** (3); **zorro bat eta** (3); **zorro batean** (18); **zorro batetik** (3); **zorro berdea** (3); **zorro handi** (8); **zorro handi bat** (4); **zorro handia** (4); **zorro hura** (3); **zorro marroi** (3); **zorro txiki** (4)

**barne ministroaren zorroa** (3); **bere zorroa** (3); **bide zorroa** (3); **bizkar zorroa** (21); **diru zorroa** (38); **diru zorroa atera** (10); **eskola zorroa** (6); **galtza zorroa** (3); **larruzko zorroa** (7); **ministroaren zorroa** (3); **paper zorroa** (12); **pistola zorroa** (3)

**zorroa atera** (11); **zorroa bizkarrean** (3); **zorroa hartu** (7); **zorroa hartuta** (5); **zorroa ireki** (5); **zorroa itxi** (3); **zorroa jaso** (3); **zorroa zabaldu** (5)

**bide zorroak** (4); **bizkar zorroak** (13); **zorroak hartu** (4); **zorroak lurrean** (4)

**basta zorroan** (5); **basta zorroan begiratu** (3); **bere zorroan** (12); **bizkar zorroan** (16); **diru zorroan** (7); **ezpata bere zorroan** (3); **ezpata zorroan** (6); **paper zorroan** (3)

**zorroan begiratu** (4); **zorroan gorde** (6); **zorroan sartu** (21); **zorroan sartu zuen** (8); **zorroan sartuta** (3); **zorroan sartzen** (4)

**nire bizkar zorroarekin** (3)

**bizkar zorroetan** (4)

**eskua pistolaren zorrora** (3); **pistolaren zorrora eraman** (3); **zorrora eraman** (3)

**atera zuen zorrotik** (4); **bere zorrotik** (7); **bizkar zorrotik** (9); **diru zorrotik** (9); **ezpata zorrotik** (19); **ezpata zorrotik atera** (9); **ezpata zorrotik aterea** (3); **paper zorrotik** (3); **zakutik edo zorrotik** (6); **zorrotik atera** (32); **zorrotik atera zuen** (3); **zorrotik ateratа** (6); **zorrotik ateratzeko** (3); **zorrotik aterea** (3); **zorrotik ezpata atera** (4)

---

# **zorrodun** *izond* zorroa edo zorroak dituena.

Azpiak balantza egin zuen, eta hosto-**zorrodun** oinak justu-justu bankuan finkatu zituenean, arnasa kendu zion beste urratu batek. Anton Garikano

---

# **zorrogabetu**, zorrogabe(tu), zorrogabetzen da/du *ad* bularrez mintzatuz, zorro gabe gelditu edo utzi. ik **titizorro.**

Lilik, **zorrogabetuak** zeuzkan bularretan jarri zizkidan eskuak eta gidatzen ninduela ahurrak bere sabelean, sabeleko fruitua Jesus! galdu zitzaizkidan. Itxaro Borda

---

# **zorrokada** *iz* zorroa, neurri gisa.

Gure amak gogoan du, etortzen zen bakoitzean, **zorrokada** bete karamelu ekartzen zuela beraientzat. Xabier Etxabe

---

**zorroratu**, zorrora(tu), zorroratzen *adkor* ahoratu, jan.

Hark bezala egin nuen, eskutik ahora **zorroratu**. Aingeru Epaltza

Katilua hustu, bertze galleta bat **zorroratu** eta, marrus-marruska, leku egin nion putzutik atera nintekeelako sentipen lagungarriagoari. Aingeru Epaltza

Orain, adibidez, goiza denez eta deus berezirik **zorroratu** ez duenez, badaki Kixo ari zaiola, eta ez bertze inor. Aingeru Epaltza

---

zorrota ik **txorrota**.

---

zorrotada ik **txorrotada**.

---

zorrotadaka ik **txorrotadaka**.

---

zorrotadatxo ik **txorrotadatxo**.

---

**zorroto ik zorrotto**

---

**zorrotto** *(orobat* ***zorroto****)* *iz* zorrotxoa.

Kalean barrena neska asko pasatzen ziren, zirarekin eta txano garden batekin, nylonezko **zorrotto** bat buruan, huraxe baitzegoen modako. Fernando Rey

Besarkatu baino lehen, eskutan zekarren **zorroto** bat laga zuen bazter batean eta ondoren berokia hartzeko eskatu zidan. Hasier Etxeberria

---

**zorrotxo** **1** *iz* zorro txikia.

Bazkaria ere eramaten genuen **zorrotxo** batean, garbantzuak, arroza, arrautza egosi batzuekin, etxerainoko bidea luzeegia baitzen bazkaltzera joan eta eskolara itzultzeko. Jon Maia

Tabakoa, tabakoa erruz eta era askotara: **zorrotxoetan** sarturik, toxa batean gorderik eta, azkenik, mahai gainean multzo txikietan bildurik besterik gabe. Jose Morales

Larruzko **zorrotxo** batean dirua ipin ziezaion. Iñaki Mendiguren

Zotzak gordetzeko **zorrotxo** bat, beira-alez egina. Jose Morales

Karamelu arrosa batzuk, obalatuak, zuriz hautseztatuak, zelofanezko **zorrotxoetan**. Joseba Urteaga

Mahai gainean hiru platerkada pasta-zopa, **zorrotxokoa**. Juan Kruz Igerabide

**2** (hitz elkartuetan)

Bost errublo bildu zituenean, diru-**zorrotxoa** josi eta beste bat betetzeari ekin zion. Tabako-**zorrotxo** bat ere bazegoen pipen artean. Jose Morales

Tisanak egiteko belar-**zorrotxoak** ere. Oskar Arana

Te-ontzi bat, plastikozko kikarak, ontzi bat kafe-hauts, eta azukre-**zorrotxoz** betetako katilu bat. Oskar Arana

Ia beti zegoen prest eta poltsikoan beti eraman ohi zituen azukre **zorrotxoen** antzeko labangarri **zorrotxoak**. Aitor Arana

Hemen "mirra-**zorrotxoak"**, Frantziskoren bihotzean finkatua dagoen Kristo oinazetua irudikatzen du. Askoren artean

---

**zorrotz** **1** *izond* punta edo ertza guztiz mehea duena. ant **kamuts**; zentzumenez mintzatuz ahalmen handikoa; hotsez eta kidekoez mintzatuz, zolia; besteren hutsekiko bihozbera ez dena; adeitasunik, bihozberatasunik agertzen ez duena. (ikus beheko konbinatorian zorrotz izenondoaren agerraldi maizkoenak)

**2** (adizlagun gisa) ik **zorrozki**.

**Zorrotz** ari da berori, jauna, **zorrotz**. Juan Garzia

Justiziari dagokionez, gainera, alderdiak **zorrotz** aritu behar dutela esan zuen. Berria - Euskal Herria

Ez al nizun **zorrotz** esan norabait ateratzen bazinen, ziur hilko zinela? Elizen arteko biblia

-Ez, sentitzen dut, Harry, baina arauak arau dira -erantzun zion Fudgek, **zorrotz** -. Iñaki Mendiguren

-Ezer erosi du Lucius Malfoyk? -galdetu zuen Weasley jaunak **zorrotz** haien atzetik. Iñaki Mendiguren

**Zorrotz** jokaturik zer irabaziko luke? Jon Muñoz

Errepublika da anarkistekin **zorrotz** jokatzeko eskubidea daukan gobernu bakarra. Karlos Zabala

Belarriak tente neuzkan... eta begiak **zorrotz** jarriak. Migel Angel Mintegi

Sententziak **zorrotz** eskatzen dio: [...]. Patziku Perurena

Dumbledorek **zorrotz** begiratzen zion Harryri. Iñaki Mendiguren

Umbertoren adin bertsuko emakume bat zegoen bertan, **zorrotz** begira. Anjel Lertxundi

Garrantzitsua da odolaren konposizio kimikoa **zorrotz** mantentzea. Irene Aldasoro

Nik ere neure burua behar nuela zigortu, eta **zorrotz** atxilotua behar nuela bederen egon. Jon Muñoz

Inperio horietako eskala zabaleko talde-lanaren antolamenduak erakusten duenez, **zorrotz** banatua zuten lana. Koro Navarro

Ez omen zegoen auzi-egunetan bezain **zorrotz** zainduta. Rafa Egiguren

Ametsezko lekua, **zorrotz** zaindua. Jon Muñoz

Beren buruak **zorrotz** epaitzen zituzten, eta batak bestea nahigabetzetik ardura handiz begiratzen ziren. Askoren artean

Apostoluak deitu eta zigorkatu ondoren, Jesusi buruz hitzik esatea **zorrotz** debekatu zieten. Elizen arteko biblia

Ez ditudala agindu guztiak hain **zorrotz** jarraitu behar. Urtzi Urrutikoetxea

Sozialistak **zorrotz** kritikatu zuen EAJ, bere garaian Madrilen ez zuelako legearen aurkako zuzenketarik jarri. Berria - Euskal Herria

Inkomunikazioa aplikatzekotan «arauak **zorrotz**» beteko direla esan zion. Berria - Harian

Mutila poz-pozik zegoen aihotzez hiru kolpe haiek nola jo zituen ikusi zuelako, hain garbi, hain **zorrotz**. Karlos Zabala

Zergatik ari zitzaidan esaten, orduan, neure barruan oihuka, inolako zalantzarik gabe, **zorrotz** eta bueltarik gabe, ez nengoela oker, egia neukala. Xabier Olarra

**Zorrotz** eta garbi jakin zenuen une hartan bertan dena. Lourdes Oñederra

Hurbiletik ezagutzen dituzte ikasleen eskariak eta oso **zorrotz** prestatzen dituzte ikastaroak. Berria - Euskal Herria

Pamielan ere, «oso **zorrotz** » kalkulatzen dituzte tiradak. Berria - Kultura

Neska gazteen burasoak biziki **zorrotz** eta harro agertzen dira partikulazki diruaren partetik. Herria

Platokoak ez ezik, adi eta **zorrotz** jarraitzen nituen ikusleriaren arteko zer guztiak ere. Karlos Linazasoro

Gizakiak eta paisaiak ere halaxe deskribatzen zituen: **zorrotz** eta zehatz. Ander Irizar

Erantzuna jin zitzaigun labur eta **zorrotz** : "Argitaratuko nik? Sekula ez, kalte gehiegi egin liezaiokete Elizari! Piarres Xarriton

Anker eta **zorrotz** sentitu nintzen, eta halaxe ikusi ninduten haiek. Karlos Linazasoro

Hiru hazbete ere ez zen eta lau berga balitz bezain harro mintzatu zitzaidan, motz eta **zorrotz** : [...]. Aingeru Epaltza

"Ohitua nago kontzentrazio eremuetan" esan nion, hotz eta **zorrotz** . Koldo Izagirre

Gobernuak «bizkor, **zorrotz** eta eragingarri» jokatu duela nabarmendu zuen. Berria - Mundua

## 3 (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

**Zorrotz** susmoa hartu nien haren behakoei. Jon Muñoz

Barkatu beharreko bekatutxoak zein ziren, **zorrotz** plantan noiz agertu behar zuen, zein opari onar zitzakeen irakatsi zion. Karlos Zabala

**«Zorrotz** » fama hartu zuen ikuskatzaileen aurrean. Berria - Mundua

Are **zorrotz** -zimeltasun tematiagoz eta berrikuntzen arbuio grinatsuagoz kudeatzen zuen Ikastegia. Juan Garzia

## 4 (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa)

Eskuak mahaipean gordeta ikusi zuen gizona altua zen itxuraz, aurpegi- **zorrotz** eta ilehoria ere bai. Felipe Juaristi

Bost loro moko- **zorrotz** gozo-gozo lo. Iñaki Arranz

Horretan harri ertz- **zorrotz** batek kopeta erdi-erdian jo zuen piztia. Josu Zabaleta

Holmboek Niels Abelekin bezain begi- **zorrotz** jokaturik. Jon Muñoz

## 5 *zorrotz-zorrotz* adlag

Moskuko gobernuaren aginduak **zorrotz-zorrotz** bete zituzten. Karlos Zabala

Bizitzak gosez amorratzen jan gaitu gu biok, bai gogotik jan ere, **zorrotz-zorrotz** , mokadurik handiena apur bihurtzen duen goseaz. Jon Muñoz

**Zorrotz-zorrotz** eta berariaz aplikatua. Xabier Olarra

-Eta? -galdetu zuen Kristok **zorrotz-zorrotz** . Koldo Biguri

Zeharka begiratuz Mona ikusten nuen, niri so **zorrotz-zorrotz** . Fernando Rey

## 6 (izenondo gisa)

Barazkijale-dieta **zorrotz-zorrotza** egiten zuen eta kaleargi itzali baten amultsutasun eta nortasun berberak zeuzkan. Oskar Arana

Galdera **zorrotz-zorrotzak** egiten saiatzen naiz. Antton Olano

Eta horregatik eman zizkion agindu **zorrotz-zorrotzak** mandatari gazteari. Karlos Zabala

Hortz **zorrotz-zorrotzak** sartu zizkion Harryri hatzean. Iñaki Mendiguren

Galdetu zion ea **zorrotz-zorrotza** zen, zioten bezala, ea maite zuen, ea galtza uhalik zerabilen, ea gauez zurrunga egiten zuen. Karlos Zabala

Bertze txartel bat jaso dut, **zorrotz-zorrotza** hori ere, eta haustura eternala berresten duena, egoki den bezala. Jon Muñoz

### hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 4 aldiz agertzen direnak)

**adimen zorrotz** (4); **agindu zorrotz** (6); **ahots zorrotz** (7); **aizto zorrotz** (4); **arau zorrotz** (4); **arauak zorrotz** (4); **aurpegi zorrotz** (9); **aurpegi zorrotz eta** (5); **baldintza zorrotz** (4); **begi zorrotz** (8); **begiak zorrotz** (11); **begirada zorrotz** (6); **begiratu zorrotz** (6); **bezain zorrotz** (32)

**epaile zorrotz** (4); **esan zion zorrotz** (5); **ezpata zorrotz** (9); **galdera zorrotz** (7); **gezi zorrotz** (4); **gogor eta zorrotz** (4); **guztiak zorrotz** (6); **hain zorrotz** (20); **harryk zorrotz begiratu** (4); **hortzak zorrotz** (5); **hotz eta zorrotz** (4)

**kontrol zorrotz** (4); **kritika zorrotz** (5); **labana zorrotz** (6); **legea zorrotz** (13); **min zorrotz** (8); **min zorrotz bat** (5); **motz eta zorrotz** (6); **mutur zorrotz** (4); **neurri zorrotz** (5)

**oso zorrotz** (19); **punta zorrotz** (6); **sudur zorrotz** (4)

**zorrotz agindu** (4); **zorrotz aritu** (4); **zorrotz asko** (4); **zorrotz aztertu** (11); **zorrotz aztertuko** (7); **zorrotz aztertzeko** (5); **zorrotz bat** (82); **zorrotz batean** (5); **zorrotz batek** (25); **zorrotz batekin** (10); **zorrotz baten** (19); **zorrotz batez** (8); **zorrotz batzu** (6); **zorrotz batzuk** (4); **zorrotz begira** (6); **zorrotz begiratu** (33); **zorrotz begiratu zion** (20); **zorrotz begiratutako** (13); **zorrotz begiratutako trenak** (4); **zorrotz begiratzen** (16); **zorrotz begiratzen zion** (4); **zorrotz behatu** (4); **zorrotz bete** (12); **zorrotz bete behar** (4); **zorrotz beteko** (5); **zorrotz betetzea** (6); **zorrotz betetzeko** (4); **zorrotz betetzen** (9)

**zorrotz epaitzen** (4); **zorrotz erantzun** (4); **zorrotz esan** (5); **zorrotz eta zehatz** (4); **zorrotz haiek** (7); **zorrotz haien** (4); **zorrotz harekin** (5); **zorrotz hau** (4); **zorrotz hitz** (4); **zorrotz hori** (14); **zorrotz horiek** (7); **zorrotz horren** (5); **zorrotz hura** (11)

**zorrotz jokatu** (12); **zorrotz jokatuko** (7); **zorrotz kritikatu** (19); **zorrotz kritikatu dute** (4); **zorrotz kritikatu zuen** (5); **zorrotz kritikatu zuten** (4); **zorrotz mintzatu** (4)

**zorrotz samar** (4); **zorrotz samarra** (4); **zorrotz so** (4); **zorrotz zaintzen** (8); **zorrotz zorrotz** (7); **zorrotz zorrotza** (6); **zorrotz zorrotzak** (5)

**agindu zorrotza** (9); **ahots zorrotza** (4); **aizto zorrotza** (4); **aurpegi zorrotza** (6); **azterketa zorrotza** (7); **begi zorrotza** (8); **begirada zorrotza** (14); **begiratu zorrotza** (34); **begiratu zorrotza eginez** (27); **belarri zorrotza** (4); **bezain zorrotza** (27); **defentsa zorrotza** (18); **defentsa zorrotza egin** (6); **diziplina zorrotza** (10)

**epai zorrotza** (4); **ezpata zorrotza** (18); **gizon zorrotza** (4); **guztiz zorrotza** (4); **hots zorrotza** (4)

**ikerketa zorrotza** (5); **jarraipen zorrotza** (5); **kontrol zorrotza** (7); **kritika zorrotza** (30); **kritika zorrotza egin** (13); **kritika zorrotza egiten** (11); **kritiko zorrotza** (4); **labana zorrotza** (9); **lege zorrotza** (4); **min zorrotza** (8); **mutur zorrotza** (6)

**oihu zorrotza** (4); **oso zorrotza** (48); **oso zorrotza da** (13); **politiko zorrotza** (4); **punta zorrotza** (4); **semeari begiratu zorrotza** (27); **sudur zorrotza** (6)

**zaintza zorrotza** (8)

**(27); zorrotza bota** (6); **zorrotza da** (49); **zorrotza dela** (16); **zorrotza du** (5); **zorrotza dute** (5); **zorrotza egin** (44); **zorrotza egin zion** (7); **zorrotza eginez** (9); **zorrotza eginezñ zorrotza egingo** (8); **zorrotza egitea** (5); **zorrotza egiten** (21); **zorrotza eman** (5); **zorrotza erakutsi** (4); **zorrotza ezarri** (6); **zorrotza izan** (22); **zorrotza izan zen** (5); **zorrotza izanik** (4); **zorrotza izaten** (4); **zorrotza zela** (5); **zorrotza zen** (36); **zorrotza zuen** (11)

**are zorrotzago** (5); **baino zorrotzago** (15); **gero eta zorrotzago** (8); **zorrotzago eta** (4); **zorrotzago jokatu** (4)

**baino zorrotzagoa** (18); **gero eta zorrotzagoa** (7); **zorrotzagoa da** (7); **zorrotzagoa dela** (6); **zorrotzagoa egin** (7); **zorrotzagoa izan** (5); **zorrotzagoa izango** (8)

**askoz zorrotzagoak** (4); **baino zorrotzagoak** (6); **gero eta zorrotzagoak** (7); **neurri zorrotzagoak** (29); **neurri zorrotzagoak hartu** (4); **segurtasun neurri zorrotzagoak** (6); **zorrotzagoak behar** (4); **zorrotzagoak dira** (7); **zorrotzagoak egin** (4); **zorrotzagoak egitea** (5); **zorrotzagoak ezarri** (4); **zorrotzagoak hartu** (4); **zorrotzagoak izango** (6); **zorrotzagoak izango dira** (4)

**agindu zorrotzak** (5); **arau zorrotzak** (14); **baldintza zorrotzak** (8); **begi zorrotzak** (10); **bezain zorrotzak** (13); **biziki zorrotzak** (4)

**ertz zorrotzak** (4); **hagin zorrotzak** (4); **hain zorrotzak** (11); **hitz zorrotzak** (6); **hortz zorrotzak** (5)

**kontrol neurri zorrotzak** (6); **kontrol zorrotzak** (10); **kritika zorrotzak** (33); **kritika zorrotzak egin** (12); **kritika zorrotzak jaso** (4); **lege zorrotzak** (10); **neurri zorrotzak** (84); **neurri zorrotzak ezarri** (11); **neurri zorrotzak hartu** (12); **neurri zorrotzak hartuko** (7); **neurri zorrotzak hartzen** (8); **neurri zorrotzak jarri** (5); **neurriak oso zorrotzak** (4)

**oso zorrotzak** (27); **oso zorrotzak dira** (7); **punta zorrotzak** (13); **segurtasun neurri zorrotzak** (15)

**zorrotzak bete** (5); **zorrotzak dira** (21); **zorrotzak direla** (5); **zorrotzak diren** (6); **zorrotzak ditu** (4); **zorrotzak dituzte** (4); **zorrotzak egin** (16); **zorrotzak egin zizkion** (4); **zorrotzak eginez** (5); **zorrotzak egiten** (10); **zorrotzak eman** (5); **zorrotzak ezarri** (18); **zorrotzak ezarri dituzte** (5); **zorrotzak ezarriko** (4); **zorrotzak hartu** (13); **zorrotzak hartu behar** (6); **zorrotzak hartuak** (4); **zorrotzak hartuko** (7); **zorrotzak hartzen** (9); **zorrotzak izan** (15); **zorrotzak izan zituen** (4); **zorrotzak izanez** (4); **zorrotzak izango** (4); **zorrotzak izaten** (5); **zorrotzak jarri** (8); **zorrotzak jarri dituzte** (4); **zorrotzak jaso** (7); **zorrotzak ziren** (20); **zorrotzak zituen** (4)

**era zorrotzean** (4)

**punta zorrotzeko** (8)

**adimen zorrotzekoa** (5)

**ahalik eta zorrotzen** (5); **neurri zorrotzen** (10); **neurri zorrotzen artean** (5); **segurtasun neurri zorrotzen** (4); **zorrotzen pean** (4)

**ahots zorrotzez** (10); **begi zorrotzez** (23); **begi zorrotzez aztertu** (5)

**neurri zorrotzik** (7); **neurri zorrotzik hartu** (4); **zorrotzik hartu ezean** (4)

---

# zorrotzaile *(orobat* ***zorroztaile****)* *iz* labanak eta kidekoak zorrozten dituen pertsona.

Poteko albaiteroa eta Retolako **zorrotzailea** hil dituzte. Jokin Muñoz

Ourenseko **zorrotzaile** batekin Frantziako muga pasa eta Lurdesen argizarizko kandelak saltzen aldi bat emanda, Parisera egin zuen. Pablo Sastre

Edo beste bailara batean bezala: **Zorrotzailea** datorrenian, eurixa! Pello Zabala

Goioagak Xabier Mendizabal izan zuen sega **zorroztaile** eta Zelailuze laguntzaile. Berria - Kirola

---

## zorrotzar *iz* zorro handia.

**Zorrotzar** okre hura hartu eta sartu egin nintzen lagunek kantoian itxoiten zidatela. Koldo Izagirre

---

## zorrotzarri ik **zorroztarri**.

---

## zorrotzdun *izlag* zorrotzeko.

Etxerako bidean Dibinaren zapata-denda paretik pasa zen eta txarolezko takoi luze eta **zorrotzdun** oinetakoak erosi zizkion Sergiori. Jasone Osoro

---

## zorrozka *adlag*

Harriturik nago nola ez duten oraindik Sant-Ofiziora salatu eta nola ez dioten han, galde **zorrozka**, zeinen izenean asmatzen duen aitorrarazi erro-errotik. Patxi Ezkiaga

---

## zorrozkailu *iz* zorrozteko tresna.

Daratulu bat, marketeria-zerra bat, **zorrozkailu** sail bat, ogi xigorgailu bat, [...]. Joxan Elosegi

Goma pasatuko banio bezala, edo boligrafoa, edo **zorrozkailua**, Inazitori eman nion, Inazitok Emiliori eta Emiliok Goiori. Joseba Sarrionandia

Nik lur-jabeen eta botikariaren alabek adina nuen, panpinak, borragomak, **zorrozkailuak**, neguko zapata forratuak, arrosarioa eta meza-liburua. Joseba Urteaga

---

## zorrozkeria *iz* zorroztasun gaitzesgarria; zorrotza denaren ekintza gaitzesgarria.

Garraio Saileko ardurak hartu zituenetik gorreria eta **zorrozkeria** nagusitu dira haren jardunean. Berria - Euskal Herria

Lau hilabete lehenago, ez nuen Kristinarekin **zorrozkeriaren** bat trukatzeko parada huts eginen, Ximurra halako jendajearekin ikusita. Bakarka, aldiz, **zorrozkeriak** kamusten laguntzen zion alkoholak. Aingeru Epaltza

Sofista baten **zorrozkeriak** dira horiek. Koldo Biguri

---

## zorrozki *adlag* zorroztasunez. ik **zorrotz 2**.

**Zorrozki** eta lotsagabeki eztabaidatzen dute gizakien pertzepzioetan ez dagoela deus egiazkorik. Imanol Unzurrunzaga

Luzaz begiratu zidan, **zorrozki**. Daniel Landart

**Zorrozki** begiratzen zion Yentli, sekretu bat kontatu berri duenaren herabetasun damuzko horrekin. Koro Navarro

Hiru auzapezek **zorrozki** salatu dute jokamolde hori, zerbitzu publiko hurbila zangopilatzen duelako. Herria

Politikoek ez direla aski **zorrozki** jokatu baimenak emaitean. Herria

Aurrenekoa, *ez dakit* esaten ikastea, eta ondoren *zer da?* zuhurki eta **zorrozki** galdetzen ikastea. Iñaki Segurola

Gizon oso jakintsuak direlarik, **zorrozki** eta zolitasunez bereizten dituzte arrazionala eta arrazoigarria. Imanol Unzurrunzaga

Konfiantzazko mediku batek emandako aholkuak **zorrozki** jarraituz. Iban Zaldua

Legea **zorrozki** betez. Berria - Euskal Herria

Polizak **zorrozki** galdekatuko ditu. Marzel Etxehandi

Torturaren bidez polizia funtzionarioek egindako Jose Arregiren erailketa gupidagabea, **zorrozki** zigortu beharrekoa da. Jokin Urain

Zeruko misterioak **zorrozki** aztertzeko gauza izango bazina ere, [...]. Askoren artean

Gero, atzera begira, pasadizo hau **zorrozki** epaituko zuen, egintza horren makurra azpimarratu nahian. Imanol Unzurrunzaga

Denok isilik, basamortuan hitz egitea **zorrozki** debekaturik balego bezala. Joxe Austin Arrieta

Badira, ordea, espazioarekiko bestelako erlazio batzuk, irudiak aurkitu baino lehenagokoak, eta espazioari buruz horren abstraktua ez den eta geometria perspektibistak horren **zorrozki** egituratua ez den kontzeptu batean oinarrituak. Josu Zabaleta

Beste inon ikusi izan ez diren operazio militar korapilatsu eta **zorrozki** antolatuetan. Edorta Jimenez

Saramagori egin zizkioten lehen galderak **zorrozki** literarioak izan ziren. Berria - Kultura

· Zeuden tokia uharte txiki bat zen, lehorretik ozta-ozta banatua, itsasadarraren gainean **zorrozki** moztua. Joanes Urkixo

Laster ziren euren letaginak gure haragi gurietan **zorrozki** sartzen. Jon Alonso

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
> **bezain zorrozki** (3); **hain zorrozki** (6); **zorrozki begiratu** (3)
> **baino zorrozkiago** (3)

---

## zorrozkiro *adlag* zorrozki ik **maisukiro**.

P. García Isasti-k *La España metafísica Menéndez Pidal*-en araketan maisu-**zorrozkiro** erakutsi digunez. Joxe Azurmendi

---

## zorroztaile ik **zorrotzaile**.

---

## zorroztarazi, zorroztaraz, zorroztarazten du *ak* zorroztera behartu.

Gure gizartearen eta kulturaren aurrean gaitasun kritikoa **zorroztarazten** digun egoeran ezartzen gaituen arren, [...]. Joxe Azurmendi

---

**zorroztarri** 1 *(orobat* **zorrotzarri** *g.er.) iz* zorrozteko erabiltzen den harria.

Geziburua **zorroztarriaz** zorroztu. Joseba Sarrionandia

Segalariek erabili ohi duten **zorroztarria**. Koldo Zuazo

Badaude horrelakoak, eta are okerragoak ere, harrizko herri hau **zorroztarriz** jasoa dagoela badakiten arren, elbarri ibili nahiago dutenak. Koldo Izagirre

2 (hitz elkartuetan)

Zer ederra segalariaren geldialdia eta **zorroztarri** hotsa alor bat bukatutakoan eta hurrengoa hasi orduko. Joseba Sarrionandia

---

**zorroztasun** 1 *iz* zorrotza denaren nolakotasuna.

Semeak ez zeukan aitaren osperik, ez **zorroztasunik**, ez agintea bere eskuetan mantentzeko kemenik. J.M. Olaizola "Txiliku"

Errukia bezain handia du **zorroztasuna**, egintzen arabera epaitzen du gizakia. Elizen arteko biblia

Hortik heldu da indioen **zorroztasuna** sexu kontuetan. Gotzon Garate

Ezpain finak estutu, eta begirakunea zorrozten zuelarik, emakumeengan ezohikoak diren **zorroztasuna** eta laztasuna erakusten zuten. Patxi Zubizarreta

Kudeaketan **«zorroztasuna**, gardentasuna eta zintzotasuna» agindu du. Berria - Euskal Herria

Ikasle baten idazlanari, adibidez, ez zaio eskatzen ikertzaile batenari eskatzen zaion **zorroztasun**, originaltasun edo sakontasuna. Askoren artean

Ez zituen garbi ikusten egunkari normal bateko letrak -oraindik 20/80 **zorroztasuna** besterik ez zuen-. Xabier Olarra

Zuhurtasun printzipioak berarekin dakarren segurtasunarekiko **zorroztasun** erregulatzaile hau. Berria - Gaiak

Jaungoikoaren errukiak besarkatzen eta ferekatzen ditu zintzoak eta, era berean, **zorroztasunez** zigortzen eta zentzarazten ditu gaiztoak. Imanol Unzurrunzaga

Morse eta Whitney irakasleek pentsamenduaren ildo desberdinetatik **zorroztasunez** ohartarazi dutenez, [...]. Xabier Olarra

Bere aurrekoek lorturiko bakean gobernatu zuen probintzia, diziplinaz eta **zorroztasunez**, heldutasun handiz eta Erregelaren obserbantzia bultzatuz. Askoren artean

**Zorroztasuna** dopinarekin. Berria - Harian

2 (-en atzizkiaren eskuinean)

Ez da labana gaiztoaren **zorroztasuna** behar hitz emailearen botereaz ohartzeko. Iñigo Aranbarri

Osabaren **zorroztasunari** eta haren buru-argitasunari ezagutza egiteko. Joan Mari Irigoien

Adituaren **zorroztasunaz**. Jose Morales

Ez al dizuet lehen ere esan zuek eromentzat hartzen duzuen hori ez dela izaten zentzumenen **zorroztasun** gehiegia baino? Koro Navarro

Hitzak beren substantziaz bizi dira, formaren **zorroztasunak** ez balin badu errealitatea husten bederen. Piarres Aintziart

Zoriaren geometria deitu zion Pascalek horri: geometriako frogen **zorroztasuna** zoriaren ziurtasunik ezarekin bat eginik! Jon Muñoz

Bere burua astindu behar, kontzientziaren **zorroztasuna** berreskuratzeko. Karlos Zabala

Jendeen jujamenduen **zorroztasuna**. Jon Muñoz

Arkitektura deduktiboaren **zorroztasuna**. Xabier Arregi

Hartu, bada, gogoan Jainkoaren bihotz ona eta **zorroztasuna**: **zorroztasuna** erori zirenentzat, bihotz ona zuretzat, baina haren ontasunean irauten baduzu. Elizen arteko biblia

Askotarikoak konpendio honetan bildutako lanak, baina denetan geratzen da agerian San Agustinen pentsamenduaren sakontasuna eta **zorroztasuna**. Berria - Kultura

Metodoari sistemaren **zorroztasuna** eta erregulartasuna emateko. Xabier Arregi

Legeen **zorroztasuna** zegoen han zalantzan, eta parrizidioa gogor zigortu beharra. J.M. Olaizola "Txiliku"

Tautograma "ahulak" ere aurki ditzakegu, arauen **zorroztasunari** zirrikituren bat hausten diotenak. Iñaki Arranz

Zure **zorroztasuna** egunez egun ari da handitzen, andrea. Jon Muñoz

Erreparatzea nola haren **"zorroztasuna** argitzen eta estiloa fintzen den" eulien eraginaren pean uzten den denboraren proportzio zehatzean. Xabier Olarra

Estatu Batuetako diru-murriztearen ordainetan, Alemania eta Japoniaren aurrekontu-politikaren **zorroztasuna** etorri zen. Koro Navarro

Izeko Aliceren **zorroztasunak** muzindu egin zuten Barbararen edertasun loratzen hasi berria. J.M. Olaizola "Txiliku"

Profeta esatean ulertzen dugu hemen izpiritu handiak, zorrotzak eta arrazoikariak, beren naturazko asmamenaren **zorroztasunari** emanak daudenak. Joan Mari Lekuona

Herri zibilizatuen miresmena eta desesperazioa pizten dituen sentimenen **zorroztasunarekin**. Julen Gabiria

3 (izenondo eta izenlagunekin)

Sokratesek horrek dakarren **zorroztasun** absolutuari ere, eta horri batez ere, jaramon egin nahi dio. Askoren artean

**Zorroztasun** zurrunean dabilen profesional porrokatua. Edorta Agirre

**Zorroztasun** kritikoa, zalantza metodikoa, moderazioa, tolerantzia, besteren ideiekiko errespetua izan dira Bobbioren bertuteak. Berria - Kultura

**Zorroztasun** akademikoaren berritze soila. Ibon Uribarri

Presak ez du justifikatzen **zorroztasun** informatiboa alde batera uztea. Berria - Euskal Herria

**Zorroztasun** formal eta demostratibora heltzeko. Xabier Arregi

Deskribapenetan erabilitako terminoak batere **zorroztasun** zientifikorik gabe ezarriak daude. Isabel Arrigain

Enpresa multinazionalek garapen-bideko herrialdeetan sartu ez sartu erabakitzeko unean duten **zorroztasun** izugarri hori. Koro Navarro

Aristotelesengandik logika osasuntsua ikasi behar zenukete, eta Euklidesengandik, berriz, **zorroztasun** latza. Jon Muñoz

Direnak eta ez direnak ezereztatzen dituen joritasun eragabeari **zorroztasun** neurritsuaz egin nioan buru. Jon Muñoz

Badakit **zorroztasun** gupidagabea leporatuko didatela. Jose Morales

Zuhurtasun printzipioak berarekin dakarren segurtasunarekiko **zorroztasun** erregulatzaile hau Zergatik, erraidazu, merezi izan dut **zorroztasun** suntsitzaile hori? Berria - Gaiak

Alferrik zigortzen nauzu zeure **zorroztasun** hondagarriez. Jon Muñoz

Lan horretan Egidok, bere ohiko **zorroztasunaz**, [...] hipotesi orokor bat zirriborratzen saiatzen da. Iban Zaldua

Are gehiago harrituko zaitu hala ere, horrenbertzeko **zorroztasunari** nik men egin izanak. Jon Muñoz

Nolako **zorroztasuna** haiena! Jose Morales

Legea **zorroztasunik** handienaz aplikatuko dut bi lapur hauen gainean. Lopez de Arana

Apaizak eta kartzeleroek **zorroztasun** gehiagoz behartu zituzten meza entzutera. Jokin Urain

Lantzat hartu zuen nire bisita; gainerako lan guztietan bezalako **zorroztasun** eta arreta nabarmenez egin beharreko lantzat, gainera. bere gaixotasunagatik lehengo **zorroztasuna** bigundu beste aukerarik ez zuenean, honela esaten zuen: [...]. Xabier Olarra

EAJ eta EAren iritziz, plana **«zorroztasun** gabekoa» da eta argudio «zaharkituak» ditu. Berria - Euskal Herria

3 (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

Giza adimenaren izaeraz, erlijio-kontuetan ahalegina eskatzen duen oro maite dugu, moral-kontuan **zorroztasun**-itxura daukan oro maite dugun bezala. Iñaki Iñurrieta

Poema ondo girotu ondoren, han-hemenka inserto indartsuak sartuko ditut, tarteka sakontasun eta **zorroztasun**-uneak nabarmenduz. Pako Aristi

**Zorroztasun**-grina biziz sinatu zuen analisi bakoitza. Juan Garzia

Egինkizunak zerikusia du zientziekin, tankera zientifikoko azterketekin edo **zorroztasun**-irizpideei erantzuten dien teoriekin. Xabier Arregi

Hauek gaiak edo teoriak eratzen dituzte euren koherentzia, **zorroztasun** eta egonkortasun mailaren arabera. Xabier Arregi

**Zorroztasun** eza, goragotik dator. Iñigo Aranbarri

Espainiako Gobernuak inflazioaren gaineko aurreikuspena egiterakoan duen «sinesgarritasun eta **zorroztasun** » falta erakusten du. Berria - Ekonomia

**4** (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa)

Bigarren urrats horretarako, buru- **zorroztasun** handiagoa behar da, tresna hobeak, analisi-bereizmen handiagoa. Juan Garzia

Burumotzek eta beren adimen **zorroztasuna** kamustua dutenek ulertzen duten moduan. Xabier Olarra

Ikusmen- **zorroztasuna** neurtzeko. Josu Zabaleta

Begi- **zorroztasun** izugarria nuen. Xabier Olarra

Efektu honek lehenengo estimuluarekiko sentiberatasuna txikitzen du: kontraste gutxiago nabaritzen da, begi- **zorroztasuna** gutxitu egiten da. Josu Zabaleta

Lote bat, 6,2ko azidotasuna zuela eta, lege- **zorroztasun** zintzoz baztertua zuen sinadura loretsuko ikuskatzaile batek. Juan Garzia

Herrialde industrializatuen aurrekontu- **zorroztasuna** . Koro Navarro

Gutako nork ez du, amets asaldatu, urduri, hasperenez bete horietan, eduki, estutu, berotu halako sentsazio **zorroztasun** aparteko batez, gogoa beterik zion emakumea? Josu Zabaleta

· Gogoko nuen haren ikastaldien zuzen- **zorroztasun** apaingarririk gabea. Juan Garzia

**hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**

**bere zorroztasun** (3); **zorroztasun handiagoa** (6); **zorroztasun hori** (4); **zorroztasun horri** (3); **zorroztasun osoz** (5); **zorroztasun zientifikoa** (4)
**haren zorroztasuna** (3); **ikusmen zorroztasuna** (5); **prozesuaren zorroztasuna** (3)

---

# zorrozte *iz* zorroztasuna ematea.

Badago zerbait, zentzuen bat-bateko **zorrozte** bat, logikarik batere ez duen norabide batean gauzatzen dena eta ez diona hilurren denari deusetarako balio. Harkaitz Cano

Aitak lan egiten zuen **zorrozte** lantegira joaten zen, banku batean eseri eta haren sabelera begira geratzen zen, aitak zerra deztera-harrian zorrozten zuen artean. Koro Navarro

Palmondo berdea hagaxka bat bezain malgua da, eta beraren hostoetan aizto- **zorroztearen** soinua dagi haizeak. Joxe Austin Arrieta

Deigarri gertatzen da nola, aipatutako kasuan, zerbait berria -gaztelania-euskara hiztunari arrotz zitzaiona- entzunarazita, "belarri- **zorrozte"** moduko hori gertatu den. Lourdes Oñederra

Horrez gain, herritartasun legea **zorroztearen** gaineko erreferenduma. Berria - Mundua

---

# zorroztu, zorrotz/zorroztu, zorrozten **1** da/du ad zorrotz edo zorrotzago bihurtu, zorrotasuna hartu edo eman.(tresna ebakitzaileez eta kidekoez mintzatuz)

Burdina burdinaz **zorrozten** da, gizakia lagun hurkoarekin harremanetan leuntzen. Elizen arteko biblia

Harakinak "Badira bi orduan!" egin omen zuen labana **zorrozten** zuen bitartean. Koldo Izagirre

Hobe dun guraizeak **zorrozten** hasten bahaiz, badaezpada ere... Joan Mari Irigoien

**Zorroztu** lantzak, jantzi bular-babeskia! Elizen arteko biblia

**Zorroztu** egin dute ezpata eta leundu, borreroaren eskuan ipintzeko. Elizen arteko biblia

Filistearrengana jo behar izaten zuten israeldarrek beren golde-nabar, haitzur, aizkora nahiz igitaiak **zorroztera** . Elizen arteko biblia

Sega handiak pikatzeko eta **zorrozteko** ere teknika behar da, eta egun ez da erraz aurkitzen horretan ari denik. Berria - Kirola

Aizkora kamutsarekin, **zorrozten** ez baduzu, lan handiagoa egin beharko. Elizen arteko biblia

Haga bat labanaz **zorroztua** hartu eta oldartu zitzaion zaurituari. Aingeru Epaltza

Inguruka ari zaizkit hegazti harrapariak, mokoak **zorrozturik** , atzaparrak aterata, eta bihotza erauzi nahi didate. Fernando Rey

Geure eskuetan dago justiziaren ezpata, baina kamustu egin behar diogu ahoa, **zorroztu** beharrean. Juan Martin Elexpuru

Landabengo fabrikaren gain zintzilik dagoen Damoclesen ezpata **zorrozten** ari direla iradokitzen dute. Berria - Ekonomia

**2** irud/hed

Forma zehatzagoa eman diet azkenerako, ez dakit ertzak **zorroztu** edo leundu egin dizkiedan baina. Xabier Mendiguren Elizegi

Jendea azazkalak **zorrozten** ari da bulego, bide, tunel, ikatz puska eta bestelako gauza trinkoetan harramazka egiteko. Harkaitz Cano

Hortzak ederki **zorroztuta** itzuliko dela minutu bat beranduago hortzaka egitera. Hasier Etxeberria

Banketerako **zorroztuta** dituzun zure hortz horiek, erori egingo zaizkizu. Santiago Iruretagoiena

Arkatza etengabe apurtzen zait eta punta **zorroztu** behar izan diot berriro. Mirentxu Larrañaga

Txitxikov berehala hasi zen lanean, eta, idazluma **zorrozturik** , idazteari ekin zion. Jose Morales

Mutiko ederra izan zen baina urteek beren herexak uzten zituzten, aurpegia **zorroztu** zitzaion, zimurrak agertu zitzaizkion begi xokoetan. Elena Touyarou

Ile bakan blaituek erdizka kukutua eta heriotzak jadanik **zorroztua** , ezin antzik eman begitarte iharrari. Aingeru Epaltza

**3** (zentzumen eta kidekoez mintzatuz)

Ikusle izaiteak, bertzalde, begia eta behakoa **zorroztu** zizkidan. Joan Mari Irigoien

Begirada **zorrozten** ahalegindurik, [...]. Jose Morales

Eta Piarres Oihartzabalek, soa **zorrozten** zidala, erantsi zuen: [...]. Joan Mari Irigoien

Andreak erdizka itxi zituen begiak bere ikusmena **zorrozteko** ahaleginean. Aitor Arana

Anak begiak **zorrozten** zituela ikusirik igarri zuen barre eginen ziola "Koittaua" esanez. Koldo Izagirre

Belarria **zorroztu** zuen, beraz, besterik ezin-eta. Karlos Zabala

Geldialdi laburrak egin ditu belarriak **zorroztu** eta gaueko soinuei adi egoteko. Pello Lizarralde

Belarriak **zorroztuz** , bidezidorraren alboetako haitzen itzal beltzak arakatuz, lehengo pausoen gainera itzuli zen. Agustin Otsoa

Presoa lehen egunetik beretik hasten da entzumena **zorrozten** , automatikoki, oharkabean lehenik, nahitara gero. Filipe Bidart

Janari guzietarik jastaraziz gustua **zorrozten** bada, [...]. Herria

Gabeziak adimena **zorrozten** du, eta adimena **zorroztu** zuten Roberto Rosellinik, Vittorio de Sicak, Pietro Germik, Giuseppe de Santisek. Anjel Lertxundi

Adimendua **zorroztu** beharra zegoela, ipuin haien erranahi gordearen ulertzeko eta endelegatzeko. Joan Mari Irigoien

Ideia etikoen landualdi handiagoak arrazoimena **zorroztuko** luke objektuari dagokionez. Ibon Uribarri

Hau da adibideen onura bakar eta handia: juzgamena **zorrozten** dutela. Ibon Uribarri

Ez dakit nork esan zuen biharamun goizean urkatuko zaituztela jakiteak ikaragarri **zorrozten** duela kontzentrazioa. Karlos Zabala

1980ko hamarraldian, beste bi gertaera nagusik are gehiago **zorroztuko** zuten kontzientzia hori. Koro Navarro

Bost zentzuak **zorroztu** zaizkie han harrapatuta daudenei, irtenbide baten peskizan. Karlos Linazasoro

Eritasunak zentzuak **zorroztu** dizkit, ez ezabatu, ezta moteldu ere. Koro Navarro

Apaiz eta fraideen artean hainbeste urte pasa dituenak oso ongi garatuak eta **zorroztuak** izaten ditu manipulazio-saio bati antzemateko antenak. Xabier Mendiguren Elizegi

Etsipenak asmamena **zorrozten** du. Jon Muñoz

**4** (bestelakoez mintzatuz)

Bataren piramidea zein bestearen putzua zein hirugarrenaren tramankuluak ez dira egia zientifikoa ezartzeko beharrezkoak, eta ez dute, orobat, demostrazioen zorroztasuna **zorrozten**. Jon Muñoz

Enuntziatuen hurbilketa areagotzeko erabilitako baliabideak, baita euren zehaztasuna **zorrozteko** ere. Xabier Arregi

Segurtasuna **zorroztu** dute, Al Kaedaren mehatxuengatik. Berria - Mundua

Uraren kalitatea zehazteko kategoriei buruz, Templierrek argi du: «Irizpideak **zorroztu** arren, lehengo gabeziak ez dira konpondu». Berria - Harian

"Edo gehiago", erantsi zuen kalkuluak **zorroztuz**. Bernardo Atxaga

Aste batzuez, punteria **zorrozten** aritu nintzen, lata batzuekin. Iban Zaldua

Gure gaitasunak **zorroztu** eta autokonfidantzaz zipriztintzea baino ez genuke behar saiakera egiteko. Andoni Egaña

Keinu horiek Kako-okerren bihotza **zorroztu** zuten. Julen Gabiria

"Kameraden" esan zuen, eztarria itotzen ziola zirudien sentimendu batekin borrokan, batean ahotsa zotinka etenez, gero **zorroztuz**, ia txistuka, "wir sind frei!", libre gara. Urtzi Urrutikoetxea

Zuk zeure argudioak ondo landu, nik neureak **zorroztu**. Jon Muñoz

Kasuak aurreikusi, duintasuna noiz urratzen den ebatzi, **zorrozten** joan, azken batean, irudien gaineko sistema morala adostu ahal izateko. Iñigo Aranbarri

AEBetako Gobernuak esteroideen aurkako borroka **zorroztuko** du. Berria - Kirola

Inoiz urratsen bat aurrera egitea lortzen bazen [...] horrekin batera presoen kontrola **zorrozteko** neurriak hartzen ziren. Jokin Urain

Txinak Interneten gaineko kontrol neurriak **zorroztu** ditu. Berria - Gaiak

Segurtasun neurriak **zorrozteko** legea. Berria - Mundua

**5** (era burutua izenondo gisa)

Geziburu **zorroztua** lotu ondoren, ziria hortzen artean sakatuz berriro arteztu. sardeak eta makilak, burdina **zorroztuak** eta azkon zaharkituak. J.M. Olaizola "Txiliku"

Letaginak ziruditen bornu horztun eta koskatuekin eta arroka **zorroztuekin**. Agustin Otsoa

**hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**

**adimena zorroztu** (5); **asko zorroztu** (3); **begiak zorroztu** (9); **behakoa zorroztu** (4); **belarria zorroztu** (6); **belarriak zorroztu** (9); **belarriak zorroztu ditu** (5); **ikaragarri zorroztu** (3); **irizpideak zorroztu** (3); **kontrol neurriak zorroztu** (8); **kontrolak zorroztu** (3); **neurriak zorroztu** (24); **neurriak zorroztu dituzte** (10); **neurriak zorroztu egin** (3); **segurtasun neurriak zorroztu** (12)

**zorroztu behar** (9); **zorroztu behar izan** (4); **zorroztu beharra** (4); **zorroztu ditu** (10); **zorroztu dituzte** (12); **zorroztu du** (4); **zorroztu egin** (14); **zorroztu egingo** (6); **zorroztu egiten** (3); **zorroztu nahi** (3); **zorroztu zituen** (6); **zorroztu zituzten** (4); **zorroztu zuen** (3); **zorroztu zuten** (4)

**neurriak zorroztuko** (4)

**belarriak zorroztuz** (4); **zorroztuz gero** (3)

**kontrol neurriak zorrozteko** (6); **neurriak zorrozteko** (12); **neurriak zorrozteko eskatu** (3)

**begiak zorrozten** (3); **behakoa zorrozten** (9); **behakoa zorrozten zuela** (4); **entzumena zorrozten** (3); **hortzak zorrozten** (3); **neurriak zorrozten** (5); **neurriak zorrozten ari** (3); **zorrozten ari dira** (3); **zorrozten du** (6); **zorrozten zuela** (6); **zorrozten zuen** (3)

---

zort ik **zortu**.

---

zorta ik **xorta**.

---

## zortasun *iz*

Ez ditugu zaindu gizakien arteko hurbiltze horrek dakartzan **zortasun** hiritar eta landatarrak baino. Andres Urrutia

---

## zorte *(1451 agerraldi, 167 liburu eta 546 artikulutan; orobat **xorte** g.er.)* **1** *iz* zoria, eskuarki ona.

Horregatik ezarri ditu Jainkoak bi **zorte**: bata bere herriarentzat, bestea gainerako herri guztientzat. Elizen arteko biblia

Ideia erraza, mundua bezain zaharra, **zortea** bera bezain zaharra. Matías Múgica

-Ez duzu merezi, baina **zortea** duzu. Aingeru Epaltza

Baditugu bestalde asko lurralde Europan berean edo mundu zabalean, ez baitakite oraino zer **zorte** izanen duten bihar! Piarres Xarriton

Leak, orduan, esan zuen: "Hau **zortea**!". Jose Antonio Mujika

Horri **zortea** deitzea ere! Lopez de Arana

Oraingoan, behinik behin, **zorte** pixka bat izan du emakume gaixoak. Alberto Ladron Arana

-Niri esker, bai, baina ez pentsa gauzak beti horren ongi ateratzen direnik, **zorte** pixka izan behar da askotan, eta oraingo honetan alde izan dut. Migel Angel Mintegi

Aukerak sortzen ditugu, baina alor horretan ere **zorte** apur bat falta izan zaigu. Berria - Kirola

**Zortea** alde genuen: sarrailan giltza handi bat zegoen sartuta. Alberto Ladron Arana

Oraingoan ere, **zortea** alde lerratu zitzaion Cesarri. Harkaitz Cano

Okerragotu egin zen halaz ere haren **zortea**. Joxan Elosegi

-Zure aita ezagutzeko **zortea** izan nuen. Josu Landa

Ez zuten denek **zorte** bera izan: San Kristobalgo gotorlekuan laurogeitik gora atxilotu fusilatu zituzten Beunzaren heriotzaren mendekuz. Jokin Urain

**Zortea** nirekin dago eta ez zait burutik pasatzen noizbait nire ondotik alde egin dezakeenik. Harkaitz Cano

Gaurko eguna gogoangarria izango da, elkar ezagutu dugun egun honetan **zortea** lagun izan dugu. Patxi Zubizarreta

**Zorteak** lagundu beharko zion, garbi zegoen, eta horrez gain berak argi eta bizkor ibili beharko zuen. Migel Angel Mintegi

Niri dagokidanez, arranguraz dut neure **zortea** onartzen. Juan Garzia

Hori baita, ez Nazio indartsuek baina bai herri xumeek maizegi jasan ohi duten **zortea**. Piarres Xarriton

Ez duzu besteen **zortea** onez eramaten. Joxan Elosegi

Geure **zorteaz** fidatu gaituk, eta traizionatu egin gaitik. Agustin Otsoa

Zergatik ez **zorteari** bidera irten eta besteen antzera aurrera egin? Patxi Zubizarreta

Inor ez da konforme egokitu zaion **zortearekin**. Jon Alonso

**Zorteak** estualdi asko eta haur asko ekarri dizkio. Juan Garzia

Ondo ezagutzen zituen **zortearen** bat-bateko aldaketa horiek, eta aintzat hartzen zituen. Jose Morales

Ene Jainkoa, aldatuko al zaidak inoiz **zortea**! Lopez de Arana

**Zortearen** alderantzikatze harrigarria, Islamaren kalterako, zegoen gertatzeko zorian. Iñaki Mendiguren

Presazkoa zela zerbait egitea **zorteak** zigortutakoen alde. Bego Montorio

**Zorteak** bizkarra ematen dizunean... Migel Angel Mintegi

## 2 (izenondo eta izenlagunekin)

**Zorte** handia zen Harryk Hagridekin tea hartzeko aukera izatea. Iñaki Mendiguren

Eta nik zortea izan dut, **zorte** handi-handia. Karlos Zabala

Neska-lagunek ez zidaten **zorte** handirik ekarri han. Oskar Arana

- **Zorte** handiko mutila zara. Antton Olano

**Zorte** itzela daukagu. Josu Landa

**Zorte** izugarria izan dut Nagorerekin. Berria - Kultura

Samek bere burua zortekotzat zuen moduan, Frodok bazekien are **zorte** handiagoa zuela. Agustin Otsoa

Denbora pasa, asmatzen dut xingar honen historio arrunt eta ohargarria: zerri edo urde baten **zorte** bitxia bestenaz! Piarres Aintziart

Madarikazio otoitzak marmarikatuz, **zorte** gaiztoak Estatuari lot daitezen. Michel Oronoz

Jokalariek hala eskaturik, Konpainiak **zorte** gaiztoko zenbakiak gehitu egin behar izan zituen. Juan Garzia

**Zorte** gaiztoaren seinaletzat hartzen zen. Pello Zabala

**Zorte** beltza izaten dut ibiltzeko sosaren txintxina entzun behar duten makinekin. Aingeru Epaltza

Halaxe gelditu nintzen [...] burukoaren azpian ehortzirik gelditu zen xake liburua gogoan eta nire **zorte** makurra madarikatuz. Alberto Ladron Arana

"**Zorte** etsaiak" jaurtikitako bala batek jo du eta itsutu soldadu saratarra. Anjel Lertxundi

Negar eginez Aita Santu agure gaixo horren **zorte** tristeagatik. Koldo Biguri

**Zorte** xuhurreko familietan. Herria

Denbora pasa, asmatzen dut xingar honen historio arrunt eta ohargarria: zerri edo urde baten **zorte** bitxia bestenaz! Piarres Aintziart

-Horrek eztu ba **zorte** makala izan! aurrera jarraitzen dut azken hankekin izan dudan **zorte** petrala hobetuko delakoan. Lopez de Arana

- **Zorte** zikin ustela Joe gizajoarena! Lopez de Arana

Ia nirea bezain **zorte** gorabeheratsua izan dute: bonbardaketa eta ihesaldiak jasan dituzte, galdutzat jo nituen aspaldi, eta berrikitan berraurkitu ditut, hamarkada luzez ahantziriko paper batzuk arrantxatzen ari nintzela. Juan Garzia

**Zorte** hutsa da azkenean bizirik mantentzen gaituena. Harkaitz Cano

Azken batean, zu **zorte** hutsak salbatu zintuen nigandik. Iñaki Mendiguren

Mikel Strogoff konturatu zen ustekabeko **zorteari** esker destakamenduak ez zuela inola ere pentsatzen basoa bisitatzea. Karlos Zabala

Harat eta honat behatzen nuen neure inguruan **zorte** kolektiboa erabakitzea erraza izango zen objektu multzo baten bila. Joxan Elosegi

-Hik egundoko **zortea** duk, Herfy, sekula ez haizelako unibertsitatean ibili. Lopez de Arana

Sekulako **zortea** duk, horixe duk dena. Lopez de Arana

-Makaleko **zortea** izan diagu, hi! Pedro Alberdi

Marta Mendiak **zorte** okerragoa izan du. Berria - Kirola

## 3 (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

**Zorte**-kolpe bat! Joxe Austin Arrieta

**Zorte** ukaldi baten ondorioz nintzen hor. Aingeru Epaltza

**Zorte**-txartelik hartzen ez zuena adoregabetzat jotzen zen, gixontzat. Juan Garzia

**Zorte** kontua zen. Harkaitz Cano

Bikote batzuek, **zorte** faltagatik edo arazo fisikoengatik, euren maila ez dutela eman iruditu zait. Berria - Kirola

## 4 ***zorteko*** *izlag*

Diskoan Asier Ituartek tronboia jo du Aurrenak eta azkenak eta **Zorteko** eguna abestietan. Berria - Kultura

Haren lanak ez dira orokorrak, baina bereziak, **zortekoak**, kasuan kasukoak, hala nola, Coimbrako koruak gogoraziko dion Laudorioaren eta gaitz erranaren liburua eta ere Otoitzeko eskuliburua. Piarres Xarriton

## 4a (predikatu gisa)

Berehala esan nion neure buruari **zortekoa** zinela behintzat, salbatuta egoteagatik. Felipe Juaristi

Gerrara joango ziren mutilek Agido azpian egun haiek nola bizi izan zituzten jakiteko, **zorteko** gara, lekukotasun ezin zuzenagoa dugu. Iñigo Aranbarri

Tristura honetan, **zorteko** gara. Iñigo Aranbarri

- **Zortekoa** haiz, motel. Alberto Barandiaren

Georges Brassens poeta eta musikari ezagunaren lagunak **zorteko** daude, gaur Miarritzen haren inguruan sortutako lan eder bat plazaratuko baitu Theatre du Sablier konpainiak. Berria - Kultura

Ez dago **zorteko** Asegarce Logroñoko Sanmateoetako Tornearen atarian. Berria - Kirola

**Zorteko** ibili zen: lehen txanda bietan gerrikoa topatu ez arren zigorretik libratzea lortu zuen, hanka bizkor eta gerri abilekoa baitzen. Urtzi Urrutikoetxea

Atentatuen larritasunaren barrenean **zorteko** ikusten du bere burua, beste askorekin alderatuta, ez baitzuen seniderik edota lagunik galdu. Berria - Harian

## 5 ***zorte on*** ik **zori 12.**

**Zorte on** opatu nion. Joxe Austin Arrieta

**Zorte on**!, opatu zidan irriño adeitsu batez, baina ez zen jaiki. Anjel Lertxundi

**Zorte on**, seme, esan zidan. Harkaitz Cano

«Urtea gogorra izango da eta **zorte on** guztioi», esanez amaitu zuen bere hitzaldia. Berria - Kirola

Tira, **zorte on** zuei! Iñaki Mendiguren

Tira, gau on pasa, Hobie, eta **zorte on** izan, beti. Mirentxu Larrañaga

Bihar arte, beraz, eta **zorte on**. Migel Angel Mintegi

-Adeu eta **zorte on** -nik, Preterito eta Laurari. Patxi Zubizarreta

**Zorte ona** opatu nion. Joxe Austin Arrieta

- **Zorte ona** opa dizut, Harry. Oskar Arana

Espero dut berak ere **zorte ona** izatea. Alberto Ladron Arana

Bizitzan behingoz, **zorte ona** izan nuen. Oskar Arana

Ikaragarrizko **zorte ona** izan genuen, horixe besterik ez dezaket esan. Joxe Austin Arrieta

Ea **zorte ona** duan. Anjel Lertxundi

**Zorte ona** lagun izan zuten, eta egunean zehar ez zuten izaki bizirik edo inolako mugimendurik topatu edo sumatu. Agustin Otsoa

Bere **zorte onaz** txundituta, Harryk azkar alde egin zuen bulegotik. Iñaki Mendiguren

-Baietz honek **zorte ona** ekarri! Patxi Zubizarreta

Gora egin zuen Tauk orduan, **zorte onaren** laguntzarekin. Berria - Kirola

Herritarrek **zorte onaren** seinaletzat zuten txoriaren bisita. Martin Anso

**Zorte onaren** edo txarraren bizkar botatzen ditu sofrimenduak. Joan Mari Lekuona

**Zorte onezko** izpi galdu horiek kontuan hartuta ere, haren sabotajearen ausardian eta eraginkortasunean bazen zerbait ia deabruzkoa. Oskar Arana

Muche txikia **zorte oneko** zegoen, ezbairik gabe. Karlos Zabala

Hilean laurehun eta hogeita zazpi dolar baitzen errenta, hura edukita **zorte oneko** zegoela uste zuen Tomek. Oskar Arana

**Zorte oneko** ibiliz gero, azkena ailegatuko da aterpetxeko gelara. Aingeru Epaltza

**Zorte onezko** izpi galdu horiek kontuan hartuta ere, haren sabotajearen ausardian eta eraginkortasunean bazen zerbait ia deabruzkoa. Oskar Arana

Zer esan diezaioket nik halako gizon horri batez ere, bere herriko lagunekin alderatuta, bera **zorte onekoa** dela uste duenean? Hasier Etxeberria

Ez du «gorrotorik» sentitzen, eta Alavesi eta Pitermani **zorte onena** opa zien. Berria - Kirola

Zinez, ez dugu **zorte onik** Euskaldunek Frantziako buruzagiekin. Piarres Xarriton

Ez zion **zorte onik** ekarri Espainiako Kopako final-zortzirenetako zozketak atzo Osasunari. Berria - Kirola

Beste 63k **zorte hobea** izan zuten, bizirik atera baitzituzten uretatik. Berria - Mundua

Etxola erdi erorian hil zen gazteak baino **zorte hobea** izan nuen. Anjel Lertxundi

**Zorte hobekoa** zara, nire aldean. Mirentxu Larrañaga

Berriro ezkonduko naiz, ea **zorte hoberik** dudan. Patxi Zubizarreta

**6 *zorte txar*** ik **zori 13.**

**Zorte txarra** izan duzu, Lauaxeta jauna, **zorte txarra**. Juan Luis Zabala

-Zuk duzu **zorte txarra** -baietsi zuen Gegenbauerrek-. Anton Garikano

Izan ere, ze **zorte txarra** nirea! Jon Arretxe

**Zorte txarra** izan zen, besterik ez! Harkaitz Cano

Lucyk eta biok **zorte txar** pixka bat izan dugu. Oskar Arana

Buruari eragin zion nahigabetuta, **zorte txarra** madarikatuz edo. Migel Angel Mintegi

Latz egin nuen lan, ahal izan nuen bitartean, eta **zorte txarra** ere bada, gero, muntaia azkenean martxan jarri ondoren, nik neuk lana utzi behar izana urdaileko oinazeengatik. Joxe Austin Arrieta

**Zorte txarra** ekarriko lidake eta bezeroak uxatuko lizkidake. Patxi Zubizarreta

Harrezkero hain **zorte txarra** izan zuen, apurka-apurka saiatzeari ere utzi egin baitzion. Oskar Arana

Hain izan nuen **zorte txarra**, non begi ondoan jo ninduen. Ramon Saizarbitoria

Zorte onak bakarrik ez dizu txapela ematen; **zorte txarrak**, aldiz, itxaropen guztiak ken diezazkizuke. Berria - Kirola

Rajicen kalitateak eta gure **zorte txarrak** erabaki zuten partida. Berria - Kirola

Haren menekoek, usterik azkenean ezen **zorte txarreko** gizona zela, uharte batean utzi zutela, non indiar batzuek harrapatu eta jan baitzuten. Joan Mari Irigoien

Denok izaten ditugu **zorte txarreko** boladak, ezta? Lopez de Arana

Atzo **zorte txarreko** eguna izan zen. Josu Zabaleta

Ez balu **zorte txarrik** izan... Urtzi Urrutikoetxea

Arantxaren amak, berriz, anaia bat zuen, **zorte txarragoa** izan zuena, torturatua izan ondoren Ondarretako presondegian sartu, eta handik berehala fusilatu baitzuten. Joan Mari Irigoien

**hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 4 aldiz agertzen direnak)**

**baino zorte hobea** (6); **bere zorte** (6); **ez da zorte** (4); **ez du zorte** (11); **ez dut zorte** (4); **ez zuen zorte** (11); **ez zuten zorte** (5); **gure zorte** (5); **hain zorte** (8); **hain zorte txarrarekin** (4); **oso zorte** (8); **oso zorte txarra** (6)

**zorte apur** (37); **zorte apur bat** (13); **zorte apur batekin** (19); **zorte askorik** (6); **zorte bera** (8); **zorte bera izan** (4)

**zorte gehiago** (6); **zorte handi** (4); **zorte handia** (55); **zorte handia dugu** (4); **zorte handia izan** (22); **zorte handiagoa** (6); **zorte handiko** (5); **zorte handirik** (31); **zorte handirik izan** (17); **zorte hobea** (26); **zorte hobea izan** (11); **zorte hoberik** (4); **zorte hori** (11)

**zorte kolpe** (4); **zorte kontua** (11)

**zorte on** (42); **zorte ona** (89); **zorte ona izan** (19); **zorte ona opa** (15); **zorte ona opatu** (6); **zorte onak** (5); **zorte onaren** (7); **zorte oneko** (12); **zorte onekoa** (5); **zorte onena** (4); **zorte onik** (16); **zorte onik izan** (6); **zorte pittin** (6); **zorte pittin bat** (4); **zorte pixka** (23); **zorte pixka bat** (10); **zorte pixka batekin** (12); **zorte txar** (10); **zorte txarra** (125); **zorte txarra izan** (55); **zorte txarra ukan** (4); **zorte txarragoa** (4); **zorte txarragoa izan** (4); **zorte txarrak** (7); **zorte txarrarekin** (5); **zorte txarrari** (4); **zorte txarreko** (11); **zorte txarreko gizona** (6); **zorte txarrekoa** (4); **zorte txarrik** (4)

**ea zortea** (6); **haren zortea** (4); **hasberriaren zortea** (4); **hau zortea** (4); **izateko zortea** (4); **nik zortea izan** (9); **zortea alde** (17); **zortea alde izan** (8); **zortea aldeko** (4); **zortea behar** (6); **zortea dugun** (5); **zortea duk** (4); **zortea eman** (5); **zortea izan** (121); **zortea izan du** (9); **zortea izan dugu** (14); **zortea izan dut** (20); **zortea izan genuen** (4); **zortea izan nuen** (12); **zortea izan zuen** (9); **zortea izan zuten** (8); **zortea lagun** (12); **zortea lagun izan** (6)

**zorteak bizkarra eman** (7)

**batere zorterik** (5); **ez du zorterik** (16); **ez dugu zorterik** (9); **ez dute zorterik** (4); **ez duzu zorterik** (4); **ez zuen zorterik** (21); **halako zorterik izan** (4); **zorterik ez** (9); **zorterik gabe** (6); **zorterik izan** (74); **zorterik izan ez** (4); **zorterik izan lesioekin** (4); **zorterik onena** (11); **zorterik onena opa** (4)

---

## zortealdi *(orobat **zorte aldi**) iz* zorte oneko bolada.

**Zortealdi** baten aukera. Iñaki Mendiguren

Esperantza harekin joan zen itsasertzeko herri politak atzean uzten, Itziarrekin hasiriko **zorte aldi** onari eta Teresari esker, txostena eskuratu ahal izateko ea azkena eta erabateko pausoa ematerik izaten zuen. Migel Angel Mintegi

---

## zortedun *izond* zorte ona duena.

Tipo **zorteduna** zen. Harkaitz Cano

Gehienek Basaurin jarraituko dute, batzuek Reinosaraino joan beharko dute, eta **zortedunak** aurrejubilatu egingo dituzte. Urtzi Urrutikoeetxea

Tipula txiki eta mehar bakar baten truke ogi zati bi eskatzen zituzten, eta prezio berean saltzen zituzten aberats **zortedunek** azukre nahiz bazkatarako erremolatxak. Urtzi Urrutikoetxea

Munduko pertsonarik **zortedunena** naizela esan dit. Harkaitz Cano

Ez bazara **zorteduna**, zaila da une egokian toki egokian egotea eta aukeraz baliatzea. Berria - Kirola

---

## zortetsu *izond* zortez betea. • (adizlagun gisa)

Zurrutari dagokionez ez gabiltza hain **zortetsu**. Berria - Kirola

---

## zorton ik **zurtoin.**

---

## zortu, zort, zortzen du *ad* zor izan.

Dena den, elizkizun airosak eta ederrak ginituen, eta **zort** dautzuet hortik landa, holako beroarekin, zintzur bustitzea eta arintzea zela lehen urratsa batzuentzat. Herria

---

**zortzi** 1 *zenbtz* zazpi eta bat, 8. (dagokion izenaren ezkerrean)

Jupiterrek **zortzi** esklabo ditu, Saturnok bat, Neptunok ere bat. Josu Zabaleta

**Zortzi** pieza dira guztira. Iñigo Aranbarri

Beti erraten du hemen edo han mina duela; eta gero, **zortzi** gol sartzen ditu. Berria - Kirola

Ohi denez, pasa-hitzak **zortzi** karaktere izan beharko zituen gehienez, eta lau gutienez. Aingeru Epaltza

**Zortzi** botila xanpain hustu zirela. Antton Olano

Marmolezko **zortzi** mahai. Monika Etxebarria

Funestik ekarritako **zortzi** zezen suhar toreatu ziren. Txillardegi

Itoitzekin Elkartasuna taldeko **zortzi** kidek. Edurne Elizondo

Han goian, tontorrean, kupula bat dago, **zortzi** zutabek eutsia. Jon Muñoz

Quintilianoren *Institutiones oratoriae* izenekoa edota Zizeronen **zortzi** diskurtsori egindako iruzkinak. Santiago Iruretagoiena

Kolomaren altuera **zortzi** eta erdi zatitan banatu eta horietako parte bat izango da kolomaren diametroa edo lodiera. Santiago Iruretagoiena

**Zortzi** idazle hauek **zortzi** unibertso ezberdin eraiki dituzte. Ana Urkiza

**Zortzi** izenera aurrena, eta bostera geroxeago. Bernardo Atxaga

Zaldi horiekin, zazpi edo **zortzi** ordutan jarriko ginateke Frantzian. Bernardo Atxaga

**Zortzi** urtean Alex Calvo Garcia ordiziarra Scunthorpe United taldeko ikur bihurtu da.Zenbaki horren berredura (2139, alegia) kalkulatzeko eskatu zioten, eta han etorri zen [...] hirurogeita **zortzi** zifrako erantzunarekin. Berria - Kirola

Prousten *Denbora galduaren bila*ko **zortzi** aleak. Ana Urkiza

Jaun erretorak **zortzi** banderak bedeinkatu ditu. Txillardegi

Azken **zortzi** silabak errepikatu egiten zituen. Andoni Egaña

Iruñeko espetxean sartu zituzten kableak moztu zituzten **zortzi** solidarioak. Edurne Elizondo

Nire bi lanparak eta tximiniako **zortzi** kandelak piztuta neuzkan. Josu Zabaleta

Ziegetan preso ditudan **zortzi** beaumondarrak ere laxatu eginen ditiat. Joan Mari Irigoien

Arratsaldearen lehen zatian ere **zortzi** bertsolariek jarraituko dute oholtza gainean bertsotan. Berria - Harian

Jokin Zeberioren aitak eta osabak **zortzi** akusatuen gurasoak izan zituzten gogoan zenbait komunikabidetara bidalitako gutunean. Berria - Harian

Gutxienez berrogeita hamar urte izango zituen; **zortzi** seme-alaben ama zen. Anton Garikano

**Zortzi** ginen entzuleak. Anjel Lertxundi

Identifikatu ditugun hogeita **zortzi** zibilizazioetatik (zibilizazio geraraziak zerrendan barne direla) hemezortzi hilda daude. Iñaki Mendiguren

Saltokiak urtean **zortzi** jaiegunetan zabaldu ahal izatea baimentzeko prest dago Eusko Jaurlaritza. Berria - Ekonomia

Azkeneko **zortzi** jardunaldietan **zortzi** garaipen eskuratzeaz gain, jokoan zeuden 30 puntuetatik 28 batu ditu. Berria - Kirola

Hemen Norvegiako kostaldetik gertu gaude, hirurogeita **zortzi** graduko latitudean. Koro Navarro

**Zortzi** eta erdiko pala finala gaur, Plentzian (22: 30). Berria - Kirola

**Zortzi** t'erdiko txapela berak irabazi zuen. Berria - Kirola

**1a** (hitz elkartuetan beste zenbaki batekin)

Sei-**zortzi** lore kontatzen zituen, urtaroaren arabera. Karlos Zabala

Han ere, aste osoari, sei-**zortzi** egunen uztaiari nahi diote begirada finez errepara. Pello Zabala

Hondar lerro batek -**zortzi**-hamar arkabuzari- gibelaldea babesten zuen, noizbehinka tiro eginez. Aingeru Epaltza

Sarasa inspektoreordea, "Manolo Potzolo" goitizenez, **zortzi**-hamar aldiz deitu, eta denetan lelo ezaguna erantzun betiko ahots ongi-aginduak: "ezin orain telefonoan jarri". Aingeru Epaltza

**2** (dagokion izena ezabaturik)

Garai honetan beste gizon zintzo bat sartu zen Elkartean, eta honekin **zortzi** izatera heldu ziren. Askoren artean

Sei jokalari badoaz, eta **zortzi** datoz, San Miguelek nabarmendu zuenez. Berria - Kirola

Musu bat esan eta **zortzi** eman dizkidazu!"Zenbat ogi behar dituzue?" "Emaizkidak **zortzi**.". Pako Aristi

Hogeita **zortzi**, nire betaurreko beti zikinen menera. Aingeru Epaltza

Herriotako **zortzi** azpian hartuko ditu betetzeko probak amaitzen direnean: Artozki, Itoitz, Muniain, Orbaitz, Gorriz, Ezkai eta Ulozi, baita Otsa eta Nagore herrien beheko aldea ere. Edurne Elizondo

R. Yanagimachi agertu zen 31 arratoi klonatu zituela besapean, haietako **zortzi** bere aldetik klonen klonak izaki. Pello Salaburu

**Zortzi** dauzka. Anton Garikano

Hamar batzarkideetatik **zortzik** eman dute baietza. Anjel Lertxundi

**Zortziak** lotara joan ginen. Josu Zabaleta

Ontsalaz, gu **zortziak** baizik ez ginela joanen aipatua genuen. Daniel Landart

Sei metrotik, zazpitik, **zortzitik**, bederatzitik edo hamarretik, berdin zion, distantzia guztietatik modu berean jaurtitzen zuen: gogor, oso gogor, txikitzera. Berria - Kirola

CPEren pareko kontratua da, baina 20 langiletik beherako enpresetan ezar daiteke; hots, Frantziako hamar konpainiatik **zortzitan**. Berria - Harian

Malaria Tropiko Azpiko 102 herrietan hedatzen da, [...] Hego Ameriketako zenbait herritan, eta Asiako beste **zortzitan** endemiko bihurtu da. Pello Salaburu

8-2 galtzen zuen hastetik baina **zortzitan** berdindurik 10-8 pasatua zuen Irujo. Herria

Lau onenek final-laurdenetako kanporaketa jokatzeko txartela lortuko dute zuzenean eta gainerako **zortziek** final-laurdenetara sartzeko kanporaketa jokatuko dute. Berria - Kirola

Saiatuko gara lehen **zortzien** artean sailkatzen. Berria - Kirola

**3** (data adierazteko)

Mila bederatziehun eta **zortzian** hil zuan. Xabier Olarra

Hori hilaren **zortzian** izan zen. Koldo Izagirre

Uztailaren hogeita **zortzian** heldu zen noraezean Pasaiara. Koldo Izagirre

Geu ginen abuztuaren **zortzia** ospagarri deklaratu genuenak. Koldo Izagirre

Gamarra jaunak ere bere adierazpenetan erabateko ziurtasunik gabe baina maiatzaren zazpian edo **zortzian** kokatu zuen desehorzketa. Ramon Saizarbitoria

Edo ez, hobe mandatari bat bidaltzen badiot; baina edozein modutan ez naiz egongo prest apirilaren **zortzia** baino lehen. Juan Garzia

Oginoren metodoak -edo egunen metodoak- proposatzen zuen koitorik ez izatea 14 egunean -**zortzitik** hogeita batera-, arrisku egunak direlako. Luis Elberdin

Abenduaren **zortziko** goiza zen. Juan Garzia

Abenduaren **zortziko** eguerdi sargori hartan. Xabier Mendiguren Elizegi

**4** (ordua adierazteko)

**Zortziak** dira, etxeratzeko ordua. Patxi Iturritegi

Arratsaldeko **zortziak** baino lehen. Karlos Zabala

Arratsaldeko bostetarik harat edozoin egunez jalgitzen ahalko ginela Pariserat [...] biharamun goizean **zortziak** aitzin itzultzekotan, tenoreko xuxen eta molde onean. Janbattitt Dirassar

**Zortziak** xuxen abiatu naizenean. Piarres Aintziart
Bihar goizean **zortzietan** esnatuko zara. Josu Zabaleta
Martin ostatura itzuli zen, jan zuen sekulako apetituz, eta **zortzitan** puntu-puntuan harresiko atean zegoen zain. Koro Navarro
Goizeko **zortziak** arte txortan jardungo dugu eta gero gerokoak. Jon Arretxe
Lucy eta biok **zortziak** ezkero gaude jaikita. Oskar Arana
**Zortziak** aldera irten zen etxetik burua egurastera. Migel Angel Mintegi
Arratsaldeko **zortziak** inguruan. Juan Kruz Igerabide
Arratsaldeko **zortziak** -edo izango ziren Joxanek telefonoaren hotsa entzun zuenean. Paddy Rekalde
Han agertu nintzen, **zortziak** jota, santafe-opil batekin. Juan Garzia
Hormako erlojuan **zortziak** paseak ziren. Josu Landa
Goizeko **zortziak** eta hogei segundo ziren, zehazki. Josetxo Azkona
**Zortziak** eta bost, **zortziak** eta hamar eta Gaizka atzera sukaldean. Jon Arretxe
Goizeko **zortziak** eta bostetan, eta arratsaldeko seiak eta laurdenetan. Herria
**Zortziak** eta hamarrean, azkenean, saloiko argia piztu egin zen. Migel Angel Mintegi
**Zortziak** eta hamarretan deitu ninduen. Daniel Landart
**Zortziak** eta laurden! Jon Arretxe
Gaur goizean, **zortziak** eta laurdenean. Monika Etxebarria
Ondotik, **zortziak** eta laurdenetan: Pello Lizarralde nafartar idazlearen obraz mintzo, idazlea bera eta Itxaro Borda. Herria
Medikua **zortziak** eta hogeian heldu zen. Unai Elorriaga
Ordu erdian iristen ginen gure helmugako geltokira, bertako erlojuan **zortziak** eta hogeita bost zirela. Bernardo Atxaga
Erlojuari begiratu nion; **zortziak** eta hogeita zortzi minutu ziren. Xabier Olarra
Erlojura begiratu nuen, **zortzi** eta erdiak. Aingeru Epaltza
**Zortzi** eta erdiak aldera oso harro ez sentitzeko moduko gauza bat egin nuen. Xabier Olarra
**Zortziak** eta erdi dira. Eider Rodriguez
Gero, **zortzi** eta erdietan atsedenaldia izaten zen, eta jarraian pieza geldoen tartea: *Orfeo negro, Petite fleur.* Bernardo Atxaga
Aratseko meza **zortziak** eta erditan izanen dugu. Herria
Goiz horretan, ordea, **zortzi** t'erdiak aldean gelariak esnatu ninduen, esanez: [...]. Josu Zabaleta
-Bost minutu falta dira **zortzi** eta erdietarako. Anton Garikano
**Zortziak** eta erdietarako alde egin behar zuen. Josu Zabaleta
**Zortziak** laurden gutxiago ia-ia. Jon Arretxe
**Zortziak** laurden gutti. Filipe Bidart
Erlojuari begiratu diozu: arratsaldeko **zortziak** laurden gutxi. Sonia Gonzalez
**Zortziak** laurden gutxiago pasatxo ziren. Pedro Alberdi
Hori liburuetan dator, hogeita hamazazpiko apirilaren hogeita hamarrean, goizeko **zortziak** laurden gutxitan. Koldo Izagirre
**Zortziak** laurden gutxiagotan zehazki. Pedro Alberdi
Oso zoriontsua zen **zortziak** laurden gutxiagotatik bederatziak arte. Unai Elorriaga
Erlojuari begiratu nion; **zortziak** eta hogeita **zortzi** minutu ziren. Xabier Olarra
**Zortziak** jo zuten eta artean ez zuen ez argirik ezta mugimendurik ere sumatu laugarren solairuan. Migel Angel Mintegi
**Zortziak** puntu-puntuan Bulebarrean zegoen Itziarren zain. Migel Angel Mintegi
Artean goizeko **zortziak** ez zirela, Berarako bidean, Guardia Zibilaren kontrol batekin egin genuen topo. Iban Zaldua
Iluntzeko **zortzietako** trenean iritsiko naizela idatzi diet. Eskarne Mujika

**5** (artikulu eta kasu markarik gabe, gaur, bihar eta kidekoekin) zortzi egun barru, zortzi egunera.

Gaur **zortzi** irekiko dute kaiolako atea lehen pilotariak sar daitezen. Berria - Kirola
EHF Kopako final-zortzirenetako itzulikoa Kroazian jokatuko du Akabak gaur **zortzi**. Berria - Kirola
Gaur **zortzi**, pilota partida Eibarko Astelenan. Iñigo Aranbarri
Reala bihar hasiko da lanean eta Osasunak bihar **zortzi**. Berria - Kirola
Uztailaren 15ean, bihar **zortzi**, Orreaga herriaren inguruko hitzaldi batekin hasiko da egitaraua. Berria - Euskal Herria
Eta larunbatean **zortzi**, martxoak 15, oinezko ibilaldia, Donibanetik edo Biriatutik partituz. Herria
Elizkizun berezi bat izanen da ortzegun huntan **zortzi**, urtarrilak 25, aratseko 6-ak eta erdietan, Baionan, protestanten elizan. Herria
Heldu den igandean **zortzi** lehiatuko dira hain zuzen Hondarribian. Herria
Ni ordea, patata pizar bat ereiteko, gorotz harrotzen aritu nintzen atzo **zortzi**. Patziku Perurena
Atzo **zortzi** iragarri zuten datorren larunbatean izango den manifestazioa. Berria - Harian
Atzo **zortzi** irakurri nituen gainerako egunkarietan [...] inon gehiago ez zen adierazten "lehen bilbotarrarena". Iñigo Aranbarri
Marinea -ke hari lerdena ezpain artetik- Donostian zen atzo **zortzi**. Iñigo Aranbarri
Joan den astezkenean **zortzi**, bere azken egoitzara segitu dugu, Kattina Dachaguer, Apairikoa. Herria
· Atzo **zortzitik** ez zegoen haren berririk, baina familia ez zen ostirala arte larritu. Berria - Euskal Herria

**6** (denbora unitateekin)

**Zortzi** minutu denbora dezente da bi maleta eta kapela-kaxa bat paratzeko. Mirentxu Larrañaga
**Zortzi** orduko aldea; arratsalde erdia zen. Jon Muñoz
Berregoeita **zortzi** oren hurbil iragan dira Txominek eta Kattalinek elkar ikusi zutenetik. Eneko Bidegain
Handik **zortzi** egunera eroetxeko ateak zabaldu zitzaizkion. Josu Zabaleta
Baina sukar txiki batek ez zion etxetik irteten utzi **zortzi** egunean. Karlos Zabala
Hots, **zortzi** egunez alaitasun eta omore on. Herria
Baina **zortzi** egun baditu, ez dudala bertzerik entzuten, ez mintzatzen. Jon Muñoz
**Zortzi** egunen buruan, Tonokam deitzen den lekura helduko haiz. Aurelia Arkotxa
**Zortzi** hilabete geroago, Agirrek azpimarratutako errepresioaren datu xeheak aletu zituen "B.B."-k sinatzen dituen artikulu sailean: [...]. Jokin Urain
Inork ez dio esan **zortzi** hilabeteko bizi-itxaropena ematen diotela. Imanol Zurutuza
**Zortzi** hilabetez greban egon diren 140 langileak kaleratuko dituela berretsi zuen atzo Jose Ignacio Gonzalez Caballitoko gerenteak. Berria - Ekonomia
Aitatxi Migelek **zortzi** urte zituen. Aingeru Epaltza
-Hi joan eta handik **zortzi** urtera. Xabier Olarra
**Zortzi** urteko bere semea ikastolatik noiz aterako zain zegoen. Joxerra Garzia
Duela **zortzi** urteko ametsak zer bide egin duen, eta zer emaitza, orroitarazia izan da. Herria
**Zortzi** urtekoekin hain ondo moldatu banintzen, hamarrekoekin ere konponduko nintzela noski. Joxerra Garzia

Narni hiriko emakume batek **zortzi** urtez eskua ihartua izan zuen. Askoren artean

Hurrengo **zortzi** urteetan sei bider baino ez ziren bildu. Xabier Montoia

Orain **zortzi** urte despeditu zuen laguna North Wall-en. Irene Aldasoro

Zakurrak, **zortzi** mende baino gehiagoko tratu txarra odolean eta herentzia genetikoan, burua altxatu zuen. Jon Alonso

## 7 (diru unitateekin)

**Zortzi** dolar eta hamasei zentabo, gasolinarako dolarra barne. Berrogeita bederatzi dolar eta **zortzi** zentabo zauzkaat eta non arraio ibili naiz ni? Fernando Rey

Menua **zortzi** euro eta erdian. Iban Zaldua

Bene-benetako Cliquot bat edaten zutela, **zortzi** errubloan botila. Karlos Zabala

**Zortzi** ginea ordaindu behar zaizkio. Irene Aldasoro

Azkenean kontratu bat sinatu zuten, zeinaren bidez **zortzi** ginea jasoko baitzituen Kathleenek, lau kontzertu nagusietan akonpainamendua jotzen egingo zuen lanagatik. Irene Aldasoro

**Zortzi** libera, sos handi eta txikietan, Aingeru Epaltza

## 8 (luzera neurriekin)

Ez zituen garbi ikusten egunkari normal bateko letrak -oraindik 20/80 zorroztasuna besterik ez zuen-, baina arazorik gabe ikusten zituen **zortzi** milimetrotik gorakoak. Xabier Olarra

Euren zurtoin batzuek **zortzi** oineko luzera dute. Lopez de Arana

Lanak eten egin zituzten orduan eta, aurrerantzean arriskupean ez egoteko, burdinbidea Boscaccion gelditu zuten, gure etxetik **zortzi** kilometrora. Koldo Biguri

Sorterritik **zortzi** mila verstara atzerriraturik. Karlos Zabala

**Zortzi** milia ingeles baino luzeago den harresi batez inguratua. Karlos Zabala

## 9 (bestelako neurri unitateekin)

Arazoa zen mukiak itxi egiten zizkiola birikak arnasa galarazteraino, eta bere gorputz txikiak, zazpi edo **zortzi** kilokoak, ez zeukala ahalmenik muki haiek mugitzeko. Bernardo Atxaga

Likido horrek fluido interstiziala eratzen du; **zortzi** litro in-guru izaten dira, batez beste, pertsona heldu batean. Irene Aldasoro

Zeropetik hogeita **zortzi** graduko tenperaturara ateratzea pentsa zer zen. Eneko Bidegain

## • 10 *iz* zenbaki naturalen sailean zazpiaren ondotik datorren zenbakia.

**Zortzia** egiteko, seiari bere heren bat gehitzen zaio. Santiago Iruretagoiena

Nire notak ez ziren batere txarrak: bat bakarrik nahikoaz behetik (algebran bost bat); gainerako guztiak zazpiak, bi **zortzi** eta bi sei. Josu Zabaleta

Baionako egoitzen kasik hiruetatik bat bizitegi sozial ekarria da, Miarritzen edo Angelun ehuneko haren lau gurpilek, ardatzaren muturretik **zortzi-bederatzi** oinetara jarriak, halako oreka bat bermatzen dute zuloz eta gorabeherez betetako bide horietan. Herria

**Zortzia** ez dutelarik pasatzen. Herria

· Sigmaren gainean etzanda dagoen **zortzi** txiki horrek infinitua adierazten du. Jon Muñoz

Euriak ia ezabaturiko horma-irudiak ikus zitezkeen nonahi: hemen, botak eta **zortzi**-itxurako opilak zeuzkaten pintaturik. Jose Morales

Haietako baten esanetan, **zortzi** kalibrekoa da. Itziar Otegi

## 11 *zortziko* ik **zortziko**.

## 12 ***sei-zortzi***

**Sei-zortzi** lore kontatzen zituen, urtaroaren arabera. Karlos Zabala

Probintziako pope literarioetariko bat zen, **sei-zortzi** poesia libururen egile. Aingeru Epaltza

Bilbao Basketek **sei-zortzi** milioi euro behar ditu ACBn jokatzeko. Berria - Kirola

Azken **sei-zortzi** urtetan gure gogoetagai izan da zenbateraino guneratu edo zenbateraino ertzeko izan. Andoni Egaña

Hemendik **sei-zortzi** urtera begira. Berria - Euskal Herria

**Sei-zortzi** kilometroko atsedentxoa izango dute Olaberriko gaina igo aurretik **Sei-zortziren** bat ginen, isilik, miresmenez, begia gindoazen urrutiko Afrikarantz bihurturik. Ez askorik, **sei-zortzi** bat. Berria - Kirola

## 13 ***zazpi-zortzi***

Astiro-astiro **zazpi-zortzi** lagun bildu dira era horretan, denak gizonezkoak. Urtzi Urrutikoetxea

Hotzikarak nago, baina badakit, **zazpi-zortzi** ordu barru, hemen izango dugula berriro eguzkia. Joxe Austin Arrieta

**Zazpi-zortzi** hilabete iragan zirenean, ordea, bigarren partea ere kontatu behar ziola bururatu zitzaion Sarari. Joan Mari Irigoien

Handik **zazpi-zortzi** egunera, haur gaixoa, berriz gaixotua, ikustera itzuli zelarik, teilapeko gizona, Villasús, hil egin zela esan zioten. Josu Zabaleta

Koadro bat zegoen **zazpi-zortzi** metrora, beheko solairuan, atearen ondoan. Unai Elorriaga

**Zazpi-zortzi** ziren, adin guztietakoak. Aingeru Epaltza

Egutxik hirurogeita lau urte zituen orduan, eta emakumeak hogeita lau-bost edo hogeita **zazpi-zortzi** gehienez. Ibon Uribarri

Zazpi-**zortzi mila** baginen joan beha geundenak, eta kasernako beste hegal batean, emazte alde handia. Marzel Etxehandi

Euskal Herri osoko **zazpi-zortzi** ehun mila euskaradunetarik, 70.000, hots, 10etarik bat bakarrik gara Iparraldeko. Piarres Xarriton

Grosetik ez oso urrun botatako bizikleta saltzailearentzat **zazpi zortziren** bat hitz. Bernardo Atxaga

## 14 ***zortzi bat*** (*49 agerraldi, 27 liburu eta 19 artikulutan; orobat* ***zortziren bat*** *27 agerraldi, 14 liburu eta 5 artikulutan)*

Orduan ikusten ditut bi Jeep eta **zortzi bat** guardia zibil gure aurrez aurre, autobideko sarreraren eta institutuaren arteko bidegurutzean. Banderaren neurriak, **zortzi bat** metro luze eta horren erdia-edo zabal. Anjel Lertxundi

Guztiok ematen baititugu gauero **zortzi bat** ordu ohean. Irene Aldasoro

Orain **zortziren bat** orduko jarduna egiten dugu. Ia konturatu gabe egin nuen, eta, gainera, zazpi edo **zortzi bat** urte besterik ez nituen artean. Berria - Kirola

**Zortziren bat** urteko haurra ekarri dute, istripua eduki duena. Agurtzane Juanena

**Zortziren bat** festalaguneko taldetxo bat osatua genuen ordurako. Hitzaldi honetatik **zortziren bat** egunera, Pedro, Joan eta Santiago berekin hartu eta mendira igo zen Jesus, otoitzera. Anjel Lertxundi

Sei-**zortziren bat** ginen, isilik, miresmenez, begia gindoazen urrutiko Afrikarantz bihurturik. Josu Zabaleta

Lasto fardelak, **zortziren bat**, errepidean barreiatuta gelditu ziren. Berria - Euskal Herria

Biharamunean, San Juan Plaza zabalean, **zortzi bat** mila soldadu bolondresi [...] errebista ikusgarri hunkigarria pasa ziela Don Carlosek. Txillardegi

Urtean zazpi edo **zortzi bat** mila libra. Antton Olano

Sei-**zortziren** bat ginen, isilik, miresmenez, begia gindoazen urrutiko Afrikarantz bihurturik. Josu Zabaleta

Grosetik ez oso urrun botatako bizikleta saltzailearentzat zazpi **zortziren** bat hitz. Bernardo Atxaga

## 15 ***zortzi-bederatzi***

Horrela, aldi berean asaldaturik eta gogogabeturik biziz **zortzi-bederatzi** hilabete egin ondoren, giltzaduretan oinazeak hasi zitzaizkion. Josu Zabaleta

Gizonezkoetan, berriz, dockerrek, esate baterako, astean **zortzi-bederatzi** shilling kobratzen zuten. Pablo Sastre

Haren lau gurpilek, ardatzaren muturretik **zortzi-bederatzi** oinetara jarriak, halako oreka bat bermatzen dute zuloz eta gorabeherez betetako bide horietan. Karlos Zabala

Buelta eman **zortzi-bederatzi** kilometro atzera eta bigarren mailako errepideetatik abiatzen ziren, itzulingurua eginez. Koldo Biguri

Arduraduna eta bi neskato: **zortzi-bederatzi** urte batek, eta hamaikaren bat-edo besteak. Josu Zabaleta

**Zortzi-bederatzi** urtetan, Garrüzeko gaztelutik Donapaleuko karrikara legoa bat eta ehun urrats gehiago direla bezain egia borobila zen niretako bi ama nituela. Aingeru Epaltza

Izan ere, lehen hamarretik **zortzi-bederatzi** zeudean don Kosmerekin, eta orain, berriz, erdia-edo. Joan Mari Irigoien

## 16 *zortzi mila*

Saharaz hegoaldeko **zortzi mila** immigrante bizi dira City Snimen. Berria - Harian

Behar baino zazpi edo **zortzi mila** pieza gutiago baizik ez zituzten zenbatu. Eneko Bidegain

Lehen zenbaki hortarik atera dituzte **zortzi mila** ale. Herria

**Zortzi mila** libera garai hartan ez zen inolako huskeria ni bezalako polizia ziztrin batentzat! **Zortzi mila** dolar garbi desfileko, bidaiak eta aseguru-poliza aparte utzita. Matías Múgica

- **Zortzi mila** eurorekin konformatuko zinateke? -tupustean bota zion mozkoteak. Migel Angel Mintegi

**Zortzi mila** eurotan balioetsitako bitxilorea. Hari batetik zintzilik daraman goiasmo handi batekin, nola oroiberritu lezake orduan gizonak mundua, **zortzi mila** metro lodiko elurpean? Migel Angel Mintegi

Horren ordainetan, **zortzi mila** eta ehun kilo inguru zilar agindu zizkion. Elizen arteko biblia

Honek, ordainez, sei mila tonelada gari eta **zortzi mila** litro olio garbi eman ohi zizkion Hirami urte oroz. Elizen arteko biblia

**Zortzi milaren** bat hil ziren ezpataz nahiz sutan kiskaliak. Elizen arteko biblia

Munduko **zortzi milako** guztiak igotzeko. Xabier Montoia

## 17 *zortzi milioi*

Nola liteke baliabide guztiak dituen **zortzi milioi** biztanleko herri hau oraindik ere pobrezia gorrian egotea? Berria - Kultura

**Zortzi milioi** turista urtean zehar, kasik denak jokoan aritzeko etortzen direnak. Ramuntxo Etxeberri

Urtero, **zortzi milioi** emakumek arazoak izaten dituzte haurdunaldi denboran. Berria - Gaiak

Autobuseko txartelaren truke **zortzi milioi** lira (bost bat euro) kobratu zidaten haranzkoan, deskontua eginda. Jon Arretxe

Ez dut uste gobernuan 17 urte egonda **zortzi milioi** dolar pilatu daitezkeenik. Berria - Mundua

## 18 *zortzi-zortzietan* zortzietan zuzen, zortzietan puntuan.

Hartu nuen, eta **zortzi** -zortzietan iritsi nintzen elkartu behar genuen puntura. Juan Kruz Igerabide

Berak idatzitako beste artikulu batzuk aldean zituela, bila etorri zitzaidan Temple hotelera igande goizeko **zortzi-zortzietan**. Xabier Olarra

**hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 7 aldiz agertzen direnak)**

**atzo zortzi** (14); **aurten zortzi** (7); **azken zortzi** (76); **azken zortzi urteetan** (10); **azken zortzi urteotan** (11); **azkeneko zortzi** (11); **baino zortzi** (20); **bere zortzi** (9); **berrogeita zortzi** (29); **beste zortzi** (107); **beste zortzi lagun** (7); **bihar zortzi** (11); **dauden zortzi** (9); **duela zortzi hilabete** (12); **duela zortzi urte** (47)

**egunean zortzi** (11); **gaur zortzi** (62); **gutxienez zortzi** (32); **gutxienez zortzi pertsona** (11); **guztira zortzi** (11); **handik zortzi egunera** (9); **hogeita zortzi urte** (11); **horietako zortzi** (7); **horietatik zortzi** (13)

**ia zortzi** (15); **igandean zortzi** (31); **jada zortzi** (8); **larunbatean zortzi** (21); **munduko zortzi** (9)

**orain dela zortzi** (13); **orain zortzi** (19); **orain zortzi urte** (8); **orotara zortzi** (8); **sei edo zortzi** (11); **sei eta zortzi** (7); **sei zortzi** (22); **soilik zortzi** (7); **taldeko zortzi** (14)

**urtean zortzi** (11); **ustezko zortzi** (10); **zazpi edo zortzi** (60); **zazpi eta zortzi** (9); **zazpi zortzi** (52); **zazpi zortzi urte** (7)

**zortzi aldiz** (36); **zortzi aste** (9); **zortzi ataletan** (7); **zortzi baino** (10); **zortzi baino ez** (7); **zortzi bat** (49); **zortzi bat urte** (15); **zortzi bederatzi** (27); **zortzi bederatzi urte** (11); **zortzi bertsolari** (8); **zortzi bikote** (7); **zortzi diputatu** (10); **zortzi dira** (25)

**zortzi edo bederatzi** (19); **zortzi edo hamar** (27); **zortzi egun** (111); **zortzi egun geroago** (7); **zortzi egun lehenago** (8); **zortzi eguneko** (12); **zortzi egunen** (16); **zortzi egunen buruan** (11); **zortzi egunera** (21); **zortzi egunez** (55); **zortzi ehun** (31); **zortzi emakume** (8); **zortzi enbor** (12); **zortzi enborrera** (18); **zortzi errebote** (8); **zortzi eta erdiak** (25); **zortzi eta erdietan** (17); **zortzi euskal** (8); **zortzi film** (8); **zortzi garaipen** (12); **zortzi gazte** (10); **zortzi gazteek** (12); **zortzi gehiago** (7); **zortzi gol** (20); **zortzi goleko** (10); **zortzi hamar** (35); **zortzi haur** (9); **zortzi herri** (7); **zortzi herrialde** (7); **zortzi hilabete** (115); **zortzi hilabeteetan** (12); **zortzi hilabeteko** (42); **zortzi hilabeteko espetxe** (9); **zortzi hilabeteko kartzela** (8); **zortzi hilabetera** (7); **zortzi hilabeteren** (7); **zortzi hilabetez** (18); **zortzi hildako** (10)

**zortzi idazle** (8); **zortzi ikasle** (7); **zortzi izan** (7); **zortzi jardunaldi** (8); **zortzi jardunaldietan** (8); **zortzi jokalari** (30); **zortzi jokalarik** (7); **zortzi kide** (22); **zortzi kideak** (8); **zortzi kilo** (21); **zortzi kilometro** (11); **zortzi kilometroko** (7); **zortzi lagun** (71); **zortzi lagun atxilotu** (11); **zortzi lagun hil** (13); **zortzi lagunak** (13); **zortzi lagunek** (7); **zortzi lan** (9); **zortzi langile** (7); **zortzi mende** (10); **zortzi metroko** (7); **zortzi mila** (71); **zortzi milioi** (39); **zortzi milioi euro** (10); **zortzi miliun** (7); **zortzi minutu** (18)

**zortzi onenen** (7); **zortzi ordu** (35); **zortzi orduko** (26); **zortzi orduz** (22); **zortzi orenetan** (7); **zortzi orrialde** (10); **zortzi palestinar** (13); **zortzi palestinar hil** (9); **zortzi parte** (7); **zortzi partida** (43); **zortzi partida jokatu** (15); **zortzi partidak** (8); **zortzi partidetan** (10); **zortzi partidetatik** (10); **zortzi pertsona** (52); **zortzi pertsona atxilotu** (11); **zortzi pertsona hil** (30); **zortzi preso** (9); **zortzi puntu** (26); **zortzi puntuko** (12); **zortzi puntuko aldea** (7); **zortzi puntura** (8); **zortzi sailkatuen** (8); **zortzi sailkatuen artean** (7); **zortzi segundo** (9); **zortzi seme** (22); **zortzi soldadu** (27); **zortzi soldadu hil** (7); **zortzi t** (52); **zortzi t erdiko** (36); **zortzi talde** (42); **zortzi talde onenak** (7); **zortzi taldek** (11); **zortzi tanto** (18); **zortzi tanto egin** (10); **zortzi traineru** (7)

**zortzi urte** (279); **zortzi urte bete** (9); **zortzi urte egin** (8); **zortzi urte geroago** (13); **zortzi urte zituen** (9); **zortzi urtean** (20); **zortzi urteetan** (27); **zortzi urteko** (154); **zortzi urteko espetxe** (13); **zortzi urteko kartzela** (13); **zortzi urteko zigorra** (9); **zortzi urteotan** (18); **zortzi urtera** (10); **zortzi urterekin** (15); **zortzi urteren** (16); **zortzi urteren buruan** (7); **zortzi urtetik** (11); **zortzi urtez** (58); **zortzi urtez izan** (7); **zortzi zauritu** (14)

**arratsaldeko zortziak** (17); **arratseko zortziak** (11); **goizeko zortziak** (43); **goizeko zortziak aldera** (7); **goizeko zortziak eta** (9); **iluntzeko zortziak** (9); **zortziak aldera** (36); **zortziak arte** (21); **zortziak dira** (8); **zortziak eta** (76); **zortziak eta erdietan** (7); **zortziak eta laurdenetan** (7); **zortziak laurden** (20); **zortziak ziren** (10)

**ondoko zortzian** (12)

**zortzien artean** (8)

**arratsaldeko zortzietan** (20); **goizeko zortzietan** (33); **zortzietan puntuan** (7)

**goizeko zortzietatik** (10); **zortzietatik aurrera** (11)

---

# zortzialdi *iz* zortzi eguneko aldia.

Bere zaldiari izena (eta hain egokia) eman eta gero bere buruari eman nahi izan zion; eta, **zortzialdia** asmakizun honetan igarota, azkenik Don Kijote izena aukeratu zuen. *Eguberria zeñekin, urteberri harekin* izateko traza dauka esaera honek, asteko egun bera dela alegia, **zortzialdia** dutelako. Patxi Ezkiaga

---

# zortzidun *iz* oktaba.

Lurretik 30.000 argi urtera dago soinua eta gizakiak entzun dezakeena baino 30 **zortzidun** apalagoa da. Berria - Gaiak

Gero, hasperena, isilaldia, isilunea eta isilune bikoitza egin ondoren, garaipen-doinua lehertu da bat-batean, botoi batek goiko **zortzidunera** pasatzean egin duena. Xabier Olarra

Goiko **zortzidun** batzuen txorrotxioz eta beheko **zortzidun** sakon azkendari batez amaitu zen pieza. Irene Aldasoro

**-Zortzidun** akordea! -bota zuen Nofuturek. Jon Muñoz

Carolina Alassio pianistak irakurketa egokia eskaini zuen, akorde **zortzidun** paraleloak garbitasun osoz interpretatuz. Berria - Kultura

---

# zortziehun *(orobat **zortzirehun** g.er.)* **1** *zenbtz* zortzi bider ehun, 800.

Etsaiak zein ugari ziren ikustean, askok, beldurrak jota, alde egin zuen kanpalekutik; **zortziehun** gizon baizik ez ziren gelditu. Elizen arteko biblia

Ez baitira berdin mintzatzen bostehun arima dituen lurjabearekin eta **zortziehun** dituenarekin. Jose Morales

Kartazal honetan **zortziehun** koroa daude. Anton Garikano

Aho osoa berritzera, **zortzirehun** pezeta. Patziku Perurena

Gure aurretik loftean bizi zenak nonbait, **zortziehun** dolarreko zorra utzi zuen. Harkaitz Cano

Orduko **zortziehun** kilometroko lastertasunean eta minutuko hiru mila eta bostehun biratan ari naiz oldartzen alemaniar armadaren kontra. Josu Zabaleta

Mutikote bat, hiru kilo eta **zortziehun** gramo, pentsa! Iban Zaldua

Set izan zuenetik, beste **zortziehun** urtez bizi izan zen, eta seme-alabak izan zituen. Elizen arteko biblia

Iritzi nion gutxi gorabehera zazpiehun edo **zortziehun** liburu izango zirela hain txukun antolatutako leku hartan. Oskar Arana

Judaren leinuko sei mila eta **zortziehun** gizon, babeski eta lantzaz hornituak eta gudurako trebatuak. Elizen arteko biblia

Florent irakasle hasi zen Estrapade kaleko barnetegi batean, mila eta **zortziehun** liberako sariaren truke. Karlos Zabala

Gure birraitona mila **zortziehun** eta hogeita hamarrean jaio zen eta mila **zortziehun** eta berrogeita zortzian armadako danborjotzailea zen. Fernando Rey

## 2 *zortziehun mila*

**Zortziehun mila** gizoneko armada. Juan Garzia

Abias laurehun mila gudari aukeratu eta adoretsurekin abiatu zen borrokara; Jeroboamek, berriz, **zortziehun mila** gudari ausartekin egin zion aurre. Elizen arteko biblia

**Zortziehun mila** litro ardo eta beste horrenbeste olio emango diet. Elizen arteko biblia

Zazpiehun-**zortziehun mila** bat. Aingeru Epaltza

---

# zortzigarren 1 *ord* zerrenda batean aurretik zazpi dituena (8).

**Zortzigarren** deia, bederatzigarren deia. Harkaitz Cano

Euroligako lehen faseko **zortzigarren** jardunaldia. Berria - Kirola

**Zortzigarren** etxean, zeina Heriotzaren etxea baita, Gorriaren figura kokatzea egokitu zen. Juan Garzia

Rock-and-roll eta punk doinuak dira nagusi 'Aurtengo Gorakada'-ren **zortzigarren** alean. Berria - Kultura

Zazpigarren edo **zortzigarren** mailan, estropezu egin zuen, eta eskua luzatu nion aurreraka eroriko zelakoan; baina ukatu egin zuen nire laguntza, eta orekari eutsi zion. Bernardo Atxaga

Hemezortzigarren Kalean tranbiatik jaitsi eta mendebalderantz abiatu zen, **Zortzigarren** Etorbiderantz. Lopez de Arana

Atzo **zortzigarren** eguna iragan zuen deus jan eta edan gabe. Berria - Euskal Herria

80eko hamarkadan munduko **zortzigarren** bankua izatera heldu zen BCCI. Berria - Ekonomia

**Zortzigarren** hilabeteko hamabosgarren egunean, bere kasketaz asmatua zuen jaiegunean. Elizen arteko biblia

Auzitegi Nazionaleko Administrazioarekiko Auzietarako **zortzigarren** Salako magistratua izan da. Berria - Euskal Herria

Aurten **zortzigarrena** lortuko dut. Berria - Kirola

**Zortzigarrena**: Ez egin barre, ez eta gauza barregarririk esan. Patxi Altuna

Bosgarren tonura aldatzen bada, diapente deitzen zaio; **zortzigarrenera** aldatzen bada, diapason. Santiago Iruretagoiena

Aldarea sagaratzeko jaia zazpi egunez egin ondoren, **zortzigarrenean** biltzar nagusia egin zuten. Elizen arteko biblia

**Zortzigarrenekorik**, 15. artikuluan, erraten eta frogatzen dugu, Jainkoaren, aingeruaren eta arima arrazoidunarena ezagutzeko erak ez direla berdinak. Piarres Xarriton

Hogeita **zortzigarren** liburua. Iñaki Iñurrieta

## 2 (izen gisa)

Erdainkuntza eta eguberri **zortzigarrena**. Anjel Lertxundi

## 3 (adizlagun edo predikatu gisa)

Iaz **zortzigarren** sailkatu zen kanporaketan, eta aurten lehen aldiz ariko da finalean. Hungarian bertan, Schumacherrek **zortzigarren** amaitu zuen, Alonso garaileagandik itzuli batera. Berria - Kirola

**Zortzigarren** bukatzeko moduan gara, baina ezin gara horretan geratu; erabakigarriagoak izan behar dugu. Berria - Kirola

Iaz **zortzigarren** geratu ziren ligan, Astillero irabazlearengandik 70 puntura. Berria - Kirola

Brive **zortzigarrena** da sailkapenean, Baiona baino zortzi puntu gehiagorekin. Berria - Kirola

Mario Gomez **zortzigarren** izan da, 4 punturekin, baina torneoko maila kontuan hartuta ezin da esan emaitza txarra izan denik. Berria - Kirola

Gero **zortzigarren** izan nintzen Valentziakoan, seigarren Kataluniako Astean, bederatzigarren Euskal Herriko Itzulian, eta laugarren korritu dudan azken Itzulian, Aragoikoan. Berria - Kirola

· Bederatzi seme-alabaren artean **zortzigarrena** izan zen, eta anai-arreba nagusien bideari jarraitu zion unibertsitate irakasleak dira bere zazpi anai-arrebak. Berria - Harian

## 4 *final zortzigarren* (*orobat* ***finala zortzigarren***) *ipar final zortzirena.*

Errugbian ASB badoa aitzina, **final zortzigarrenetan** garaitu ondoan Vic-Bigorre 19/16. Herria

Andre Kurutcharryk **finala zortzigarrena** irabazi du 40 eta 28, Yusteden aurka, iragan igandean. Herria

**Finala zortzigarrenen** berriak hemen ditugu egun, igande huntan Lekornen jokatu diren bi azken partidekin. Herria

**hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**

**bere zortzigarren** (6); **berrogeita zortzigarren** (8); **berrogeita zortzigarren urteko** (3); **denboraldiko zortzigarren** (3); **hogeita zortzigarren** (6); **konstituzioko zortzigarren artikulua** (3); **ligako zortzigarren** (5); **ligan zortzigarren** (3); **sailkapenaren zortzigarren** (3); **zazpigarren edo zortzigarren** (5); **zazpigarren eta zortzigarren** (8)

**zortzigarren aldia** (6); **zortzigarren aldia da** (3); **zortzigarren aldikotz** (12); **zortzigarren artikulua** (5); **zortzigarren bat** (6); **zortzigarren da** (5); **zortzigarren denboraldia** (5); **zortzigarren dira** (3); **zortzigarren diskoa** (4); **zortzigarren diskoan** (3)

**zortzigarren eguna** (3); **zortzigarren egunean** (21); **zortzigarren eta bederatzigarren** (6); **zortzigarren etapa** (4); **zortzigarren garaipena** (6); **zortzigarren garaipena lortu** (3); **zortzigarren hilabetean** (3)

**zortzigarren itzulian** (3); **zortzigarren izan** (8); **zortzigarren izan zen** (3); **zortzigarren jardunaldian** (3); **zortzigarren jardunaldiko** (8); **zortzigarren jardunaldiko partidak** (3); **zortzigarren kapitulua** (13); **zortzigarren kapitulua nola** (5); **zortzigarren kapituluan** (3); **zortzigarren lekua** (3); **zortzigarren mendean** (5); **zortzigarren minutuan** (8)

**zortzigarren partera** (3); **zortzigarren partera iristen** (3); **zortzigarren partida** (4); **zortzigarren postua** (4); **zortzigarren postuan** (19); **zortzigarren postuan dago** (5); **zortzigarren postuan sailkatu** (6); **zortzigarren postutik** (4); **zortzigarren proba** (4); **zortzigarren txapela** (6)

**zortzigarren urtea** (5); **zortzigarren urtean** (9); **zortzigarren urteko** (4)

**bere zortzigarrena** (3); **eguberri zortzigarrena** (3); **estudioan grabaturiko zortzigarrena** (3); **zortzigarrena da** (5)

**finala zortzigarrenak** (13)

**finala zortzigarrenetan** (6)

---

# zortziko 1 *iz* euskal bertso mota, zortzi lerro eta lau puntu dituena.

Xedea aho-mihizko bertsülarigoaren piztea beita Xiberoan, hoberena da koblakarien bertset klasikoen erabiltea, hala nola **zortziko** edo hamarreko txipian (13 silabako neurtitzetan: 7/6) ala handian (18 silabakoetan: 5/5/4/4)... Herria

## 2 euskal erritmo mota, 5/8 konpasean idazten dena; erritmo horretan onduriko musika lana.

**Zortzikoa** deitzen diote euskaldunek, eta sakona izan nahi duen doinu arina da. Felipe Juaristi

Plazako **zortzikoan** eskua eman zionekoan, eta musu iheskor hura. Alberto Barandiaren

Santesteban musikalariak 1838an konposatu zuen bere "Marcha de San Sebastian" ere; **zortziko** horrek ez zuen izan Raimundo Sarriegiren Martxaren oihartzuna. Askoren artean

**Zortziko** frantses-euskaldun bat kantatu zuen, honela zioena: [...]. Koro Navarro

**Zortziko** batzuk eta Orfeoirako harmonizatutako beste pieza batzuk idatzi zituen. Askoren artean

Buruan nerabilen **zortzikoari** ekin zioten hatzek: bost zortzi, bost zortzi, bost zortzi... Felipe Juaristi

Euskal kultura eta Espainiako kultura; **zortzikoa** eta jota... Berria - Euskal Herria

**3** zortzi banakok osaturiko gauza. ik **zortzikote**.

**Zortziko** hau aritu zen Badaiotzen: Sanchez, Linaza, Rojo, Gonzalez de Matauko, Chillon, Kaiero eta Etxarri. Berria - Kirola

Abadiñok eta Beti Gaztek **zortzikorik** onenak kantxaratuko dituzte, sailkapenean erabailtakoarekin alderatuta bizpahiru aldaketa eginda. Berria - Kirola

Joseba Albizu, David Lopez, Iñaki Isasi, Unai Etxebarria, Beñat Albizuri eta Ruben Perez txirrindulariek osatuko dute **zortzikoa** eta Gorka Gerrikagoitia izanen da kirol zuzendaria. Berria - Kirola

Gizakion ahotsak naturalki modula ditzakeen akordeei, grezieraz *symphoniae* deitzen zaie eta sei dira: *diatessaron* (laukoa), *diapente* (bostekoa), *diapason* ( **zortzikoa** ), *disdiatessaron* ( **zortzikoa** eta laukoa), *disdiapente* ( **zortzikoa** eta bostekoa) eta *disdiapason* (bigarren **zortzikoa** ). Santiago Iruretagoiena

Zortzigarrenera aldatzen bada, *diapason*; **zortziko** eta erdi batera aldatzen bada, *diapason diatesaronduna*. Santiago Iruretagoiena

Hamarrekoak badira, ehun eta hogei libra; **zortzikoak** badira, ehun libra; eta bostekoak badira, hirurogei libra. Santiago Iruretagoiena

2004/2005 sasoinean, Frantziako xapelgoan, brontzezko medaila eskuratu dute Junior neskek, gidaririk gabeko laueko arraunketan, bai junior/senior neskek, **zortziko** arraunketa gidatuan. Herria

**4** zortzi errealeko diru zaharra.

Brigantin eta galera mordoa hondoratu eta arpilatu zituzten, Brasilgo tabakoz eta azukrez zamatuak, aparte utzita urre-hautsa, eta dobloiz eta **zortziko** pezaz beteriko zakuak. Juan Garzia

Hemen dugu, apur bat aurreratuta, beti belarria erne lurrean jarrita, beso handiak biluzik, belarrietan **zortziko** txanponak apaingarri legez jantzita. Julen Gabiria

**5** liburuen tamaina mota, inprenta orri baten zortzirenari dagokiona.

**Zortziko** formatoan inprimaturiko ale bat zen, oihalez koadernatua. Juan Garzia

**6** ***zortziko handi*** *(**39** agerraldi, **4** liburu eta **20** artikulutan)* 10 silabako lau lerro eta 8ko beste lau, azken hauek puntudunak, txandakatuak dituena.

**Zortziko handia** beraz, lau puntutako ahapaldia da. J. Garzia / A. Egaña / J. Sarasua

Zortziko txikian, **zortziko handian** bezala, lau puntu eta zortzi lerro izango ditugu, eta errimak lerro bikoitzen bukaeran jarriko. J. Garzia / A. Egaña / J. Sarasua

**Zortziko handian** gehiegi jardun duzue eta hamarreko txikian baterez. Andoni Egaña

**Zortziko handiaren** egitura bera du baina puntu bat (edo bi lerro) erantsiko dizkiogu. J. Garzia / A. Egaña / J. Sarasua

Heldu zion gaiari Joxe Mielek, **zortziko handian** , erasoan: [...]. Pello Zabala

**7** ***zortziko nagusi*** *(**32** agerraldi, liburu **1** eta **24** artikulutan)* zortziko handia.

**Zortziko nagusia** hautatu zuen Amurizak orduko hartarako, eta bertso molde horretakoak dira, hain zuzen ere, herri kanta asko, sehaska-kanta batzuk tartean. J. Garzia / A. Egaña / J. Sarasua

Ofiziotan, hiruna **zortziko nagusian** , zortziko txikian eta hamarreko txikian; eta kartzelakoan, bakarka lau bertso, bi puntuari erantzunez eta bertze bi gai bati. Berria - Kultura

Neurria **zortziko nagusia** , batez ere aukeratutakoan, beste zama bat ostean: helburu didaktikoa ere erdiestea, hots, egungo ume euskaldunei onuratsu jazotzeko bidea topatzea, gustuko parabolak buruz ikasi ahal izateko modu-moduan. Berria - Kultura

**8** ***zortziko txiki*** *(**57** agerraldi, **5** liburu eta **32** artikulutan)* 8 silabako lau lerro eta 7ko beste lau, azken hauen puntudunak, aldizkatuak dituena.

**Zortziko txikian** jarduten duen bertsolariak, berriz, zortzi lerro botako ditu nahi eta nahi ez, 7 eta 6 silabako lau lerro pare hain zuzen ere. Iñaki Arranz

**Zortziko txikian** , zortziko handian bezala, lau puntu eta zortzi lerro izango ditugu, eta errimak lerro bikoitzen bukaeran jarriko. J. Garzia / A. Egaña / J. Sarasua

Xk hasi behar zuen eta launa bertso bota behar zituzten **zortziko txikian** . J. Garzia / A. Egaña / J. Sarasua

Egin beharreko lanak ohizkoak: ofiziotean **zortziko handi** eta ttiki eta hamarreko ttikian, bakarkako lana eta kartzelakoa. Herria

**Zortziko txikiko** ariketa ez zen onegia izan. Berria - Kultura

Biak neurri motzekoak dira, **zortziko txikiaren** modukoak, baina askoz gogorragoa egiten zait poesia idaztea. Berria - Kultura

---

## **zortzikoitu**, zortzikoi(tu), zortzikoitzen du *ad* zortzi aldiz handiago bihurtu.

Brown jaunak laster batean eginiko kalkuluen arabera, zazpikoitu egin zitzaion ahalmen masturbatzailea, edo **zortzikoitu** , eta gauza da inolako erru-sentimendurik gabe jotzen zuela orain kanpaia, edonola eta edozein lekutan. Karlos Linazasoro

---

## **zortzikote** 1 *iz* zortzi lagunez osaturiko taldea.

Lehenengo bozketan gehiengo osoa bost hautagaik lortu ostean, beste hiru bozketa egin behar izan zituzten **zortzikotea** osatzeko. Berria - Euskal Herria

Urte hartan bi emakumezko berri zeuden biolontxeloetan, lehendik zeuden beste biekin eta lau gizonezkorekin txelojoleen **zortzikotea** osatzen zutenak. Xabier Mendiguren Elizegi

**Zortzikoteak** zozketa bidez osatuko dira. Berria - Kultura

Nik, irizpide hauek izan ditut kontuan nire **zortzikotea** hautatzeko: belaunaldia (joan den mendeko 40ko, 50eko eta 60ko hamarkadetan jaiotakoak), literatur ibilbidea edo euskal literaturari egindako ekarpena, landutako literatur generoa eta eraiki duten diskurtsoa. Ana Urkiza

Finaleko **zortzikotean** , biga Iparraldekoak ditugu, Amets eta Sustrai lagun ezin berexiak. Herria

Ortzirale aratsean, Donibane Lohizuneko elizan, kontzertua, *Ahoz* **zortzikotea** eta *Itsasoa* koroa, bixta galdua dutenen alde. Herria

**2** (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

Ortziralean eta larunbatean, Kanboko elizan, aratseko 9-etan, Otxote edo **Zortzikote** festibala. Herria

**3** (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa)

Mendelsshon hari **zortzikoteak** joko du etzi Gasteizen. Berria - Kultura

Bata txelo **zortzikoterako** eta sopranorako obra da, eta bestea, berriz, organo, abesbatza eta perkusiorako lan bat, datorren urtean Bilboko Euskalduna jauregian estreinatuko dena. Berria - Kultura

Zer berotasuna barne hartan, 13.000 bertsuzaleak metatuak ginaudela bertsulari **zortzikotearen** inguruan. Herria

Bi zubien artean arratsaldez iraganen den arraunlari **zortzikoteen** lehiaketa ere hor dugu igandekari. Herria

---

## **zortzikun** *iz*

Eta batzuek, **zortzikun** , metalikoak, bazuten Nafarroako kateen eitea. Txillardegi

---

## **zortzimilako** *iz* zortzi mila eta bederatzi mila metroen arteko mendia.

Poz galanta hartu nuen, 14. **zortzimilakoa** lortu zuelako. Koldo Zuazo

Beloki zarauztarrak aldiz bere bigarren **zortzimilakoa** zuen hor. Herria
Iñaki Otxoa iruindarrak baditu ja bederatzi **zortzimilako** igoak. Herria
Shisha Pangma zortzi mila metroko mendia da; **zortzimilakoen** artean txikiena. Unai Elorriaga
Cho Oyura omen da euskal mendizalek gehienik (47 aldiz) igo duten **zortzimilakoa**. Herria
Pasabanek K2 **zortzimilakoa** (8.611 metro) du jomuga, munduko bigarren tontor handiena. Berria - Kirola
Nepal aipatzen denean, mendietako irudiak agertzen dira, **zortzimilakoak** bereziki. Unai Elorriaga
Nik **zortzimilakoak** maite ditut. Unai Elorriaga

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
> **zortzimilako mendi** (5); **zortzimilako mendiak** (4)

---

**zortzina** *banatz* bakoitzari zortzi, bakoitzak zortzi.
Tenplu dipteroak **zortzina** koloma ditu aurrean eta atzean, baina bi koloma-ilara ditu santutegiaren inguru guztian. Santiago Iruretagoiena
Oren bat eta laurdenez bazituzten bi aitzinekoek **zortzina** sake sartuak. Herria
Burutik hasi eta habearen oineraino, hiru soka zeuzkan, lodian **zortzina** hazbetekoa bakoitza. Santiago Iruretagoiena
Hartu ogi-irin garbia, erre **zortzina** kiloko hamabi opil. Elizen arteko biblia
Kale erasoak egotzita, lau gazteren aurka **zortzina** urteko zigorra eskatu du fiskalak. Berria - Euskal Herria
Hogeita **zortzina** egunekiko hamahiru hilabete zituzten. Pello Zabala
Otsoen etzalekuen berri dakiten artzainak badira gure mendi hauetan, janari bila otsoa noiz irteten den kanpora kontuan isiltxorik egon, eta otsokumeak **zortzina** eta hamarna habian dauden tokietatik harturik beren etxeetara ekarri izan dituztenak. Anjel Lertxundi
Laugarren proba binaka jokatuko dute, **zortzina** kanaerdikora. Berria - Kirola
Partidaren lehen zatian bina, hiruna, seina, **zortzina** eta hamarna berdindu zuten. Berria - Kirola

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
> **zortzina urteko zigorra** (3)

---

**zortzinaka** *adlag* zortzinako multzoetan.
Jendea bakarka ezagutzen da ondo, bakarka sartzen zara bihotz baten barruan, ez **zortzinaka**. Pako Aristi
Azoka-egunetan, hara biltzen dira merkatariak, zazpinaka edo **zortzinaka**, ohiturari jarraiki bina katilu te edatera. Jose Morales

---

zortzirehun ik **zortziehun**.

---

**zortziren** **1** *iz* zortzi zati berdinetan banatu den osotasun baten zati bakoitza.
Bere osotasunaren **zortzirena** erakusten du uraren gainetik izozmendiak. Berria - Kultura
Denario horrek zilarrezko ontzaren **zortziren** bat balio zuelarik, esan berri dugun proportzioa ezartzen zuen horrek. Basaren zabalera, alde guztietatik begiratuta, kolomaren diametroari gehitu laurden bat eta hori baino **zortziren** bat handiagoa izango da. Iñaki Iñurrieta
Astragaloek trokiloaren **zortziren** bat neurtuko dute. Santiago Iruretagoiena
Berrogei librakoarentzat, hamabi hatz eta erdi; hirurogei librakoarentzat, hamahiru hatz eta **zortziren** bat. Santiago Iruretagoiena
Denario horrek zilarrezko ontzaren **zortziren** bat balio zuelarik, esan berri dugun proportzioa ezartzen zuen horrek. Iñaki Iñurrieta
Ezkerraldera makurtu eta begiratu nionean erregai-neurgailuari, tankea **zortziren** bateraino beterik zela erakusten zuen. Oskar Arana
Horrekin, hegoaldeko haizearentzat eta iparraldeko haizearentzat markatuta izango ditugu zirkunferentziaren **zortzirenak**. Santiago Iruretagoiena

**2** (hitz elkartuetan)
Esate baterako, entzun dut bat froga-laurdentzat har daiteke, eta beste entzun dut makalago bat froga-**zortziren** bezala. Juan Martin Elexpuru

**3** ***final-zortziren*** lehiaketa bateko kanporaketa probetan, hamasei aurkari lehiatzen diren fasea.
Hemen ere, nola dakigu **final zortzirenak** "ikusgarriak" izango direla? Iñigo Aranbarri
Gaur hasiko den **final-zortzirenetako** ligaxkan partidak irabazi edo galdu, bikote guztiak pasako dira final-laurdenetara. Berria - Kirola
Deportivo, Javier Iruretaren taldea egokitu zitzaion **final-zortzirenetan**. Berria - Kirola
Lehen kanporaketako irabazleek **final-zortzirenetan** ikusiko dute elkar. Berria - Kirola

---

**zortziurren** *iz* zortzi egun jarraituz egiten diren elizkizun berezien multzoa; zortzi egunotako azkena.
Aipaturiko anai Jakobok, sagaratzearen **zortziurreneko** egun batean anaiei meza eman zien elizan. Askoren artean
Eguberri garai honek bere oktabario edo **zortziurrena** izan ohi zuen, ez oso antzina. Pello Zabala
San Lorentzoren **zortziurren** ondoko lehen gauean eta Andre Mariaren Jasokundearen **zortziurren** barruan, elizan beste anaiekin maitinak errezatu ondoren, [...]. Askoren artean
Mendekoste **zortziurrenetik** Abendua arte eta Epifania **zortziurrenetik** Piztuera igandea arte. Askoren artean

---

**zoru** *(orobat **zolu** g.er.)* *iz* oinen azpian dugun zera, lurra. ik **zola 7**.
Lastozko teilatua eta lur zapalduko **zorua** zituen etxe baxu batean bizi ziren. Joseba Urteaga
*Corte Ingles*en etorrerarekin Udalak ondoan dagoen Baluarteko plazaren **zorua** aldatzeko asmoa du. **Zoruak** irentsi behar ninduela iruditu zitzaidan. Berria - Harian
**Zorua** espartzuzko tapiz batek estaltzen zuen. Patxi Zubizarreta
Altzari ilun dotore askoak, **zorua** linolioz eta alfonbraz estalia. Josu Zabaleta
Puntu urrunenetik hasi zen lanbasarekin **zorua** pasatzen. Karlos Linazasoro
Gelara sartu zen ohi bezala **zoruari** argizaria ematera. Anjel Lertxundi
Edontzi bat hartu, **zoruaren** mailaraino jaitsi, eta bere beste beso luzatuaren muturreraino jaso zuen te-ontzia. Jon Muñoz
Oin-zolak **zoruaren** kontra tinko zapaltzea beste biderik ez dut; hotza dago. Monika Etxebarria
Emakume bat espaloiko **zoruan** etzanik, odola bekokitik dariola, esku bat irekia, bestea poltsa merke bati tinko eutsia. Felipe Juaristi

Biharamun beranduan esnatu nintzen, hazkuraz zimitzengatik eta gihar guztietako minez **zoru** gainean botatako lastaira meharraren eraginez. Anjel Lertxundi

Aienatu ziren begien bistatik **zoru** gaineko argi horiak. Joxe Austin Arrieta

Lur gordina zuen **zoru**, goian adarrak nahas-mahas, ilargi apal biribilak lagun zegidala zirudien. Juan Garzia

Gure pausoen hotsak sentitzen genituen **zoru** izozten hasian. Anjel Lertxundi

Jira eta biraka hasi zen, **zoruaren** gainean irristaka. Felipe Juaristi

Kaleko **zoruaren** mailatik hamalaugarren solairuraino. Juan Kruz Igerabide

**2** (izenondo eta izenlagunekin)

Kea, odola eta haragi zatiak alde guztietara barreiatzen zirela, Ximurraren gorputza **zoru** metalikora amildu zen. Aingeru Epaltza

Lo-atorra mehea baino ez jantzita, **zoru** hotzaren gainean etzanda egon nintzen minez. Eduardo Matauko

Kaiolak **zoru** distiratsuan botea egin eta bira batzuk eman zituen. Iñaki Mendiguren

Lerra-lerra joaten nintzen **zoru** ziratu lohitsu hartan barrena. Joxan Elosegi

Kalezuloko **zoru** lauzatuan. Patxi Zubizarreta

Kamioiaren **zoru** altutik jauzi egin beharra zegoen. Juan Kruz Igerabide

Bagoiaren **zoru** grisean zetzan gorpu hura ez zela gizon bat. Karlos Linazasoro

Asteasun nekazaritzarako lurrak **zoru** industrial bihurtzeko asmoa arbuiatu zuen. Berria - Euskal Herria

**Zoru** ezkoztatu berrian josi nuen berriro begirada. Anjel Lertxundi

Pasillo luzeetako **zoru** ezkoztatuan. Joseba Sarrionandia

Ikasgelako **zoru** hautseztatuan. Iñaki Mendiguren

**Zoru** eta horma hutsak, horiek ziren finko segitzen zuten gauza bakarrak. Iban Zaldua

Axuleiuzko **zoru** zuria. Berria - Kultura

Adreiluzko **zoru** gorria, sabaiko trebesak kedarrez beztuak eta paretak karez zurituak. Josu Zabaleta

Behera begira zegoen, begiak oholezko **zoru** zikinean josirik. Jose Morales

Lauzazko **zoru** gainean etzan, eta, han baita eskailera bat, harexen hemeretzigarren mailan finkatzen dituzu begiak. Juan Garzia

Marmolezko **zorua** zuen saloi handi bat, irudimenean dantza aretoa iruditu zitzaiona, zeharkatu zuen ilunpean itsu-mustuan. Felipe Juaristi

**3** (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

Barnean, atezaina **zoru**-garbigailuari eragiten ari zitzaion, mandarra soinean loturik. Aingeru Epaltza

Harry zutik zegoen sukaldean, **zoru**-garbigailuari helduta. Iñaki Mendiguren

Duela hogeita hamar urte Fray Bentos-eko etxe bateko bebarruan ikusitako **zoru**-lauza berak. Juan Garzia

Arroz lastoz egindako **zoru**-estalkia. Ibon Uribarri

Lanbasa nondik pasatzen zuen, **zoru** zati hura desagertu egiten zen, haren tokian zulo nabarmen bat utziz. Karlos Linazasoro

**4** (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa)

Hantxe utzi zuen bide-**zoruan** eserita, etxe aurrean. Juan Garzia

Kalesa-**zoruaren** erdi-erdian zegoen liburua, inoren begiradarentzat nabarmen. Anjel Lertxundi

Hiri-**zoru** edo urbanizagarria, berriz, % 30 handitu da azken lau urteetan. Berria - Ekonomia

**5** irud/hed

Espuru, gezeta, domentxa, inguma, txoleta, mitxirrika: elurraren matazak bezala ari ziren hitz haiek erorika, urtu egiten ziren denboraren **zoru** berria ukitzean. Bernardo Atxaga

Nazionalismo demokratiko deitutakoaren oinarri soziala eta bere pentsamendu-**zorua** ez da gai euskal herriaren garapenak behar duen energia soziala aktibatzeko. Txema Ramirez de la Piscina

**6** oinetakoen azpialdea, lurra ukitzen duena. ik **zola 5.**

Txapin izpiliku-koloreak ziren, erromes-maskor eta lore-irudi soilez apainduak; larruzko **zoru** fin eta malgua zuten. Tranbiako txartel bat eta zapata-**zoru** batzuk josteagatik ordaindutakoaren paper-mutur zimurtu bat erori ziren haien artetik, ez besterik. Mirentxu Larrañaga

Inoiz joana nintzen haren lantegitxora etxekoren baten oinetako-**zoruak** errepasa zitzan. Anjel Lertxundi

**7** *lur zoru* ik **lurzoru**.

**hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**

**zoru bustian** (3); **zoru eta** (3); **zoru gainean** (17); **zoru gaineko** (4); **zoru garbigailua** (3); **zoru grisean** (3); **zoru guztia** (3); **zoru hormetan** (4); **zoru hotzaren** (3); **zoru hotzaren gainean** (3); **zoru osoa** (4)

**harrizko zorua** (4); **lur zorua** (8); **zegoen zorua** (4); **zen zorua** (4); **zorua bustita** (4); **zorua ere** (5); **zorua eta** (13); **zorua garbitu** (4); **zorua jotzean** (3); **zorua ukitu** (5)

**lur zoruak** (4); **zurezko zoruak** (3)

**gelako zoruan** (3); **lur zoruan** (5); **lurrezko zoruan** (4); **sukaldeko zoruan** (3); **zoruan eserita** (5); **zoruan ibiltzen** (3); **zoruan zegoen** (6)

**lur zoruaren** (4); **zoruaren gainean** (13); **zoruaren kontra** (11)

**zoruari argizaria** (3

---

# zorupe *iz* zoruaren azpialdea.

Iruñeko Alde Zaharreko **zorupea** historia liburu bat bezalakoxea dela bazekiten iruindar gehienek lehendik ere. Berria - Kultura

Iruñea zaharreko **zorupeak** etengabeko ondare emaria duela argi geratu da berriz. Berria - Kultura

Mendi magaleko erdian irekiriko **zorupeetan**, Porta de Ferro eta Porta de Alfofaren artean, itxirik zeuden gari, artatxiki, eltzekari eta garagar-karga anitz laga zezaten etsaiaren gosearen aringarri. Jon Alonso

Zorionez, badugu geure ganbera ezkutua egongelako **zorupean**. Iñaki Mendiguren

Orratz kamustuak zerra soinua atera zion New Yorkeko **zorupeko** poeta orduan gaztearen boz lodiari. Aingeru Epaltza

---

# zotal **1** *iz* laiaz edo goldeaz ateratzen den lur zati belarduna. ik **zohi**[1]; **mokor**[1] **3.**

Lily Briscoek, lotan mugituz, maindireei eutsi zien, erortzen ari denak amildegi ertzeko **zotalari** eusten dion bezala. Anton Garikano

Garai hartan, gure herria egurrez, harriz eta **zotal** lurrez egindako etxola multzo bat besterik ez zen. Pako Aristi

Goldeak lurretik erauzitako **zotal** ilararen koloreak soro zabalean ereindako kontrastea bera da nagusi neskaren aurpegian. Pako Aristi

Bere kolkorako hasi zen teilatuko **zotalpeko** txilarrari begira-. Koldo Izagirre

**2** irud/hed

Lur-**zotala** hondoagotik hartzean, azaletik lur mamialdera, zizarea lasai, korapiloz bilduta bazegoen, ez apurorik: Zizare korapillatuak legortea datorrela esan nahi du. Ilbeheran ebakita, gogorragoak eta lehorragoak izango ote ziren, akaso, harri-**zotal** haiek...? Pello Zabala

Eguzkiak urtzen ditu elur-**zotalak**, izoztuak eta hormatuak izan arren. Pello Zabala

Espaloiak aitzurtuko ditut, eta desidiazko **zotalak** irauliko, bizipozaren urregorria kausitu arte. Joxerra Garzia

**3** ***zotal egun*** *(orobat* ***zotalegun****)*

Urtarrileko lehenbiziko hamabi egunei **zotal-egunak** deitu izan zaie: haietan zer-nolako denbora egiten zuen, halakoa izango zen urte osoko eguraldia ere, batzuen ustez. Pello Salaburu

Zeri begira sortu dira **zotalegun** edo igarregun hauek?" **Zotal Egunak** " ipuina zuzena balinbada, aurtengo udan ondartzek izanen dute arrakasta. Pello Zabala

**4** ***zotal ikatz*** erregai harroa eta arina, zingira lekuetako belardietan eratzen dena. ik**zohikatz**.

Mikel Strogoffek zaldiari eragin eta **zotal ikatzezko** belardi batean zehar jo zuen aurrera. Karlos Zabala

---

zotalegun ik **zotal 3**.

---

# zotikeri *iz* ergelkeria, tentelkeria.

Ez dute segurki lehen ministroaren zinominokek edo Sarkozyren **zotikeriek** mehatxua gibel araziko, are gutxiago Fillon-en nagusien alderako amaina keinuek. Berria - Kultura

---

# zotin *(orobat* ***xotin*** *g.er.)* **1** *iz* diafragmaren bat-bateko uzkurtzeak eraginiko arnas hartze hertsatua, ahots bereizi batez gertatzen dena; uzkurtze eta hots horien saila; negar zotina.

Airea eta **zotina** , besterik ez zuen, ordea, bota. Anjel Lertxundi

Sakelak bete-bete eginda simaur-bonbaz, **zotina** eragiteko gozokiz, igel-arrautzen xaboiz eta sudurrari kosk egiten zion te-kikara banaz. Iñaki Mendiguren

Aldian behin, **zotin** bat sortzen zitzaion Sebastiani, Ava eta Mizparen takatekoek segituan irensten zutena. Bernardo Atxaga

Negarrez hasi zen gero, **zotinak** musuzapiaz estalirik, aitak entzun ez zezan. Anjel Lertxundi

Negar-malko gartsuz gorputza bustiz, **zotin** eta intziri artean behin eta berriz laztantzen eta besarkatzen du. Askoren artean

Alde niregandik, gaizkileok, entzun baitu Jaunak nire **zotina** . Elizen arteko biblia

Orkatiletan, bernetan, belaunetan gora dator, eta hormaren bestaldeko xuxurla eta **zotin** itoak ezabatzen ditu. Juan Kruz Igerabide

Intziri eta **zotin** laburren artean, ahopeka, otoitz baten gisan. Joxean Agirre

Quenuk negarrez segitzen zuen, masailak mantalaz lehortzen zituen, **zotinak** apaltzen zituen emazteari entzuteko. Karlos Zabala

-Ai, jauna -hasi zen oihuz eta **zotinez** -, nire nagusi gaixoa, hil egin dutela. Josu Zabaleta

Baina negarrez hasi zen saminki eta, **zotinek** itota, ez zen hitz bakar bat ere esateko gauza izan. Askoren artean

Malkotan zeuzkan masailak, sudur-mintzak erre gorriturik **zotinaren zotinez** , ile-adatsak harro eta mordoiloturik aitaren sorbaldatik behera. Anjel Lertxundi

Gorputza minetan izaten dugu eta izpiritua **zotinka** . Unai Iturriaga

Barruak husten ari zen, negarrez, **zotinka** , bihotzarekin hizketan. Berria - Kirola

**2** ***negar zotin*** *iz*

Hariaren beste puntan **negar-zotin** bat entzun nuen, bihotza erdiratu zidana. Daniel Landart

Eztei-jaia hileta bihurtu zen, eta kantu-soinuak **negar-zotin** . Elizen arteko biblia

Hermioneri negar- **zotin** txiki bat atera zitzaion. Iñaki Mendiguren

Patzikuren ohetik **negar zotin** ahul mehe bat itzuri dela sumatu dut. Txillardegi

Myrtlek negar- **zotin** lazgarri bat egin zuen. Iñaki Mendiguren

Promesak eginez eta negar- **zotin** eta aiene artean lehiatsu erregutuz. Askoren artean

Dagoeneko **negar zotinak** baretzen hasiak zituen. Joxean Agirre

Raymonden **negar-zotinak** gero eta bareagoak ziren eta aurki utzi zion dardaraka aritzeari ere. Mirentxu Larrañaga

**Negar-zotinei** uzten diete hitzek bidea; Llumen aurpegiak ezin du dagoeneko darion tristura ezkutatu. Antton Olano

Axenariok **negar-zotinak** areagotu ditu. Itziar Otegi

Neska negarrez ari zen, Durant jaunak harropuzki zioenez, **negar-zotinekin** bazter guztiak zipriztinduz bezala. Mirentxu Larrañaga

Ivyk berriro ekin zion **negar-zotinari** . Joxe Austin Arrieta

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
> **negar zotin** (31); **negar zotina** (10); **negar zotinak** (28); **negar zotinari** (3); **negar zotinek** (5); **negar zotinen** (9); **negar zotinen artean** (7); **negar zotinetan** (3); **zotin artean** (4); **zotin bat** (5); **zotin batean** (3)

---

# zotinka **1** *adlag* zotin eginez, zotinez.

Aurpegia bi eskuen artean gorderik, **zotinka** hasi zen. Josu Zabaleta

Arratsalde osoan **zotinka** entzuten omen zitzaion. Josu Zabaleta

Guzmud larri zegoen, izerditan blai, eta hizketan hastearekin batera **zotinka** ere bai: "nik.. ø nik..." esaten zion. Xabier Mendiguren Elizegi

Nor ari da aieneka? Nor **zotinka** ? Nor liskarretan? Elizen arteko biblia

Egun batez, israeldarrak Betelen bildu eta han egon ziren Jainkoaren aitzinean, oihuka eta **zotinka** negarrez. Elizen arteko biblia

Deiadar egin zuen oihu handiz, hasperenka, **zotinka** eta garrasika, eta bere jantziak urratu zituen. Elizen arteko biblia

Belauniko erori nintzen, ito beharrean, **zotinka** , arnasestuka. Josu Zabaleta

-Ez, Vernon -izeba Margek **zotinka** , esku bat altxatuta, bere begitxo gorrituak Harryrengan finko zituela-. Iñaki Mendiguren

**2** ***negar-zotinka*** *adlag*

Martin! -esan zion **negar-zotinka** -. Koro Navarro

-Hil egin nahi nuke, hil egin nahi nuke - **negar-zotinka** esan zuen, ahotsa atzamarren artetik jaulkiz. Lopez de Arana

"Zergatik ari zara **negar-zotinka** ?" galdetzen dizutenean, erantzun: laster iritsiko den albiste batengatik. Elizen arteko biblia

Malko mardulak isurtzen zituen orduan, eta **negar-zotinka** ematen zuen ia egun osoa. Jose Morales

Florentek Quenu txikia, hamabi urte besterik ez artean, bakar-bakarrik aurkitu zuen sukaldearen erdian, **negar zotinka** , mahai baten gainean eserita. Karlos Zabala

Koldarrenak dardarka eta **negar-zotinka** ere hasten ziren. Agustin Otsoa

Nire nagusia! -oihuka, ia **negar-zotinka** -. Agustin Otsoa

---

# zotintsu *izond*

Zergatik dira lohadarrak astuntzen, hankak lokatzen, mihia trabatzen, zentzuna lainotzen, begiak lausotzen, orroak eta liskar **zotintsuak** bizitzen eta mozkorrean ohi diren gainerako ondorioak, [...]? Xabier Amuriza

**zotz** *(orobat* ***xotx*** *g.er.)* **1** *iz* abar xehea, eskuarki zuzena.

Lurretik **zotz** bat hartu eta errekara bota zuen. Bernardo Atxaga

**Zotz** batzuk bildu, sua isiotu, metalezko azpil handiak gainean ipini, eta haien inguruan elkartzen ziren. Xabier Montoia

**Zotz** batzuk biltzen ari nintzen, ogi pixka bat egiteko niretzat eta semearentzat. Jose Antonio Mujika

Sua egin eta txori horiek jateko ira-belarraren **zotzak** erabili zituzten burruntzi gisa. J.M. Olaizola "Txiliku"

Ibai ondoko harriak amuarrain eta basoko **zotzak** eper bihurtzen dituen eraztun batena. Anjel Lertxundi

Haurtzaroan **zotzekin** eta papertxoekin pospolo kutxetara gidatzen nituen beldarren antzera. Urtzi Urrutikoetxea

Karraska egiten zuten **zotz** guztiak. Iñaki Mendiguren

**Zotzarekin** arraina zulatu eta txingarretan jarri zuenean, [...]. Pako Aristi

Ez da hots nabarmenik behar; nahikoa da **zotz** baten kraskatekoarekin. Bernardo Atxaga

**Zotza** baino meheago zeuden guztiak. Aingeru Epaltza

Praxkuk besakada batzuk **zotz** lehor bota zituen tximiniara. Koro Navarro

**Zotzezko** gurutzez markatutako gero eta hilobi gehiagok ornatzen zuten leize-ingurua. J.M. Olaizola "Txiliku"

**2** (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

Irolako borda ondoan ustelduxea zegoen **zotz** pila erretzen ari naizela agertu zait [arrabio] bat, aspaldiko partez, azpiko zolan suak erre nahi ezik utzi didan orbel morddo hezean. Patziku Perurena

Xerkatzaile on batek, beraz, aldean darama guztia: buztinezko arragoa, **zotz**-ikatza, ardagaia, sutaltzairua. Juan Garzia

Larrazkenak, munduko herri guztietan, usain bera du, hosto hilezko orbelarena, atsedena hartzen duen lurrarena, erretzen diren **zotz-**azao. Juan Garzia

**3** (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa)

Ubanbek errekara begiratzen zuen mutikoaren hitzei jarraituz bezala, nola pausatzen ziren ur gainean, nola eramaten zituen korronteak egur-**zotzak** bailiran. Bernardo Atxaga

Ezpel-**zotzak** eta ezpel adarrak pilatu dituzte plazaren erdian, ezpelaren suak luze irauten baitu eta gogotik berotzen. Anjel Lertxundi

**4** makiltxoa. ik **ziri.**

Komuneko atearen atzean, erabilitako bi pospoloren **zotzak**, ikusi ere egiten ez dituztenak. Oskar Arana

Panpi Ladutxe aztiak **zotz** magikoarekin Xala ukitu izan balu eraldaketa ez zen handiagoa izango. Berria - Kirola

Mahai gainean jarrita zeuden hiru **zotzak** hartu, eta erakutsi egin zituen. Jon Muñoz

Oinarri erritmikoa hiru perkusio joleek osatzen zuten: bik danbor dundunak **zotzez** jotzen zituzten, grabeak eta agudoak. Berria - Kultura

Bateria jotzaileak makila bat galdu zuen pieza baten erdian eta bandak melodia mantendu zuen hau misterioa **zotza** agertu zen arte. Berria - Kultura

**5** (zotz egitearekin lotua)

**Zotzak** bota eta San Frantziskori egokitu zitzaion. Askoren artean

Hurrengoan ere **zotzik** luzeena tokatu zitzaidan. Joseba Sarrionandia

Hasieran denak ziren bolondres kandelarekin gabiara igotzeko, baina denboraren poderioz, gogoz kontra onartzen zuen zeregina **zotzik** motzena hautatzen zuen marinel koitaduak. Harkaitz Cano

Taldeak Juan Bautistak eta Agustinek aukeratu zituzten, nor hasi **zotzetan** erabakita. Joseba Sarrionandia

Taldeak eginda gero, **zotzetara** aukeratu zen berriro guardia zibilak nortzuk ziren eta nortzuk euskaldunak. Joseba Sarrionandia

**Zotzetara** egitea erabaki genian. Josu Zabaleta

-Dama bat zara; **zotzetan** ez. Julen Gabiria

Hemendik aurrera ere **zotz** joko batean murgilduko diren ustea dute, epaiketari eta epaiari begira. Berria - Harian

Zigorrak jartzen badituzte, horien banaketa **zotz** kontua izango dela deritzo. Berria - Harian

**6** txotxa.

Sineskeriara emana naiz, eta beti iruditu zait seinale txarra hortzetako **zotza** lurrera erortzea. Javi Cillero

Agure mehar bat telebistari so, ezpainetan **zotz** bat hara eta hona. Unai Iturriaga

Hortzak **zotzez** garbitzen ari zen Brooklyn-go zubiaren sarbide lohitik igaro zenean. Lopez de Arana

-Zer? -purrust egin zuen **zotz** bat ahoaren ertz batean zeukan gizon aurpegi luze batek. Lopez de Arana

**Zotz** bat, guztiz horizkatua, inondik ere etxeko nagusiak hortz artean arakatzeko erabilia frantsesek Mosku hartu baino lehenago ere. Jose Morales

Zehatz esateko, **zotz** batean ilkaturiko azeituna bat zirudien. Jon Alonso

**7** (interjekzio gisa)

Gure mutilak, milizianoak, negarrez, atzetik joan eta, **zotz**!, erbiak legez harrapatzeko egokieran izan arren azken kolpe hori jotzeko materiala falta genuelako. Edorta Jimenez

-**Zotz**, hemen polita idatzi nian ba! -Frantxik. Urtzi Urrutikoetxea

-Kagoen **zotz**, Uriarte! Kagoen **zotz**! Edorta Jimenez

Eta bai behean duela baranda, kauen **zotz**! Joan Mari Irigoien

**8** ***zotz egin*** zerbait nork egin behar duen, nori emango zaion edo nola banatuko den erabakitzeko, erdi estalirik dauden luzera desberdineko zotzak -edo zori hutsean oinarritzen den beste sistema bat- erabili. ik **zozkatu; zozketatu.**

Papertxoekin **egin** zuten **zotz**, zigor handienak zituzten presoen artean, eta Pikabeari egokitu saria. Berria - Harian

**Egin zotz**, ni eta nire seme Jonatanen artean. Elizen arteko biblia

Erantzukizuna gogorra zen: **zotz egin** eta aukeratutakoak bere burua hilko zuen tankeen okupazioa salatzeko. J.M. Olaizola "Txiliku"

-**Zotz egingo** dugu ea nori tokatzen zaion, besterik ez. Lopez de Arana

-**Egin** dezagun **zotz**, zoritxar hau noren erruz etorri zaigun jakiteko. Jose Antonio Mujika

**8a** (objektuarekin)

Nire jantziak banatzen dituzte, nire soinekoa **zotz egiten**. Elizen arteko biblia

Etxebidek aurton **zotz egingo** dituen etxebizitza sozial guztiak errentan hartzeko izango dira. Berria - Euskal Herria

**9** ***zotz eginarazi***

Asueroren erregealdiaren hamabigarren urteko lehen hilean, hots, Nisan hilean, "pur" edo **zotz** eginarazi zuen Hamanek. Elizen arteko biblia

**10** ***zotz ala motz egin*** bi zotz, luzea eta motza, erabiliz, zotz egin.

Eta ez zegoen **zotz ala motz** egiterik. Edorta Jimenez

**12** ***zotzik*** (ezezko esalditean) ezer ez.

-Erregeri ez zaio **zotzik** gustatuko urkamendian hiltzen dituzun gaizkileen gorpuak baliatzen dituzula jakitea -erantzun zion soldaduburuak. Anjel Lertxundi

Sekula entzun ez den balentria egin zuen kanpaleku handiko langileetarik izanki-eta urte guzia **zotzik** egin gabe pasatzea. Marzel Etxehandi

· Kanpora apezak, haiek ere ez baitute zergarik ordaintzen, eta lan **zotzik** egin gabe, hamarrekoa biltzen baitute! Elena Touyarou

**13** ***ume zotz*** umegorria. ik **haur 12.**

Ez zuen zorigaitzez luze iraun berpizkunde horrek, orduan oraino **ume zotzak** izanagatik [.] abertzaletasuna zer zen ikasten eta sinesten hasiak ginen Iparraldeko gazte

zenbaitentzat. Piarres Xarriton

**hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
**zotz bat** (10); **zotz egin** (27); **zotz egin zuen** (3); **zotz egin zuten** (3); **zotz eginez** (18); **zotz eginez erabaki** (3); **zotz egingo** (6); **zotz eginik** (3); **zotz egitea** (5)

---

**zotzontzi** *iz* zotzen ontzia.

Laurehun gatzontzi, laurehun **zotzontzi**, haserreak harturiko ehun zerbitzari hara-hona korrika. Edorta Agirre

---

**zozabar** *iz* txori kantaria, luma beltzak orban txuriekin dituena, Euskal Herrian udazkenean talde ugarietan agertzen dena *(Sturnus vulgaris)*. ik **arabazozo**.

Halako batean, plazan bildutako gazteak, eta ez hain gazteak, hiriko kaleetan barreiatzen hasi ginen, **zozabarrak** zeruan bezala, orain kantuan, orain kontsigna aberkoiak oihukatuz. Anjel Lertxundi

Buru gainetik **zozabar** bizkorrak ikusiko dituzu talde handitan. Koldo Biguri

Gozoa da arratsaldea, gereziondoak loretan daude; **zozabarren** saldoek plazako zeru hodeirik gabea edertzen dute beren akrobazia alaiekin, Messerschmitt hegazkinen gisara. Anjel Lertxundi

Letrak aldraka, udazken partean **zozabarrak** bezala. Anjel Lertxundi

---

zozial ik **sozial**.

---

zozialista ik **sozialista**.

---

zozialixta ik **sozialista**.

---

zozietate ik **sozietate**.

---

**zozkatu**, zozka, zozkatzen *(8 agerraldi, liburu 1 eta 5 artikulutan)* du *ad* zerbait nork egin behar duen, nori emango zaion edo nola banatuko den erabakitzeko, zori hutsean oinarritzen den beste sistema bat erabili. ik **zozketatu; zotz 8**.

Saltzen dudan Entziklopediaren etxeak -"LUR kultura herriarentzat, Hiztegi Entziklopedikoa"- Pariserako hamar bidaia **zozkatzen** ditu urtero harpidedun berrien artean. Ramon Saizarbitoria

Zhukovski poetaren erretratua **zozkatu** zuten. Berria - Mundua

3.011 etxebizitza **zozkatuko** ditu guztira Eusko Jaurlaritzak aurten. Berria - Euskal Herria

Sabin Intxaurraga Eusko Jaurlaritzako Ingurumen sailburuak eman zituen datuok, atzo, galdeketari erantzun diotenen artean **zozkatu** dituzten sariak banatzerakoan. Berria - Harian

Bigarren B Mailako igoera ligaxkak **zozkatu** dituzte. Berria - Kirola

---

**zozketa** **1** *iz* zozkatzea.

**Zozketak** erabakiko du bakoitzaren zatia, ugaria nahiz urria izan senitartea. Elizen arteko biblia

Imajina dezagun aurreneko **zozketa** bat, gizon baten heriotza ebazten duena. Juan Garzia

Babes ofizialeko etxeen **zozketa** dela eta. erakunde horrek kudeatzen dituelako babestutako etxebizitzen **zozketak**. Andoni Egaña

Kermezako **zozketaren** lehen saria. Herria

**Zozketaren** txartelak salgai baitira. Herria

Dirutza ikaragarri handia suertatu zitzaidan asteroko **zozketa** milioidun horietako batean. Aitor Arana

Espainiako Kopako finalerdien **zozketa**, gaur. Berria - Kirola

Final-laurdenetako **zozketa** gaur egingo da. Berria - Kirola

Gaur egingo da 2008ko Eurokopako sailkapen faseko **zozketa**, Montreauxen. Berria - Kirola

Ez ote litzateke komeni halabeharrak **zozketaren** urrats guztietan parte hartzea eta ez bakar batean? Juan Garzia

**Zozketarako** bost multzoak. Berria - Kirola

-Orain aterako dugu **zozketako** zenbakia. Unai Iturriaga

Dirutza handia suertatu zitzaiola ez dakit zein **zozketatan**. Aitor Arana

**Zozketan** irabazdun atera diren numeroak: 59-64-171-236-285-[...]. Herria

Horrela, **zozketan** egokitu zitzaigun ondarea murriztua gertatuko litzateke. Elizen arteko biblia

Kehaten senitarteko beste taldeei Efraimen eta Danen leinuen eta Manasesen leinu erdiaren lurraldeetako hamar hiri eman zizkieten **zozketan**. Elizen arteko biblia

Ekialdeko atea Xelemiasi atera zitzaion **zozketan**, eta haren seme Zakariasi, aholku-emaile zuhur hari, iparraldekoa. Elizen arteko biblia

Ez zegokion bizimodua suertatu zitzaion amodioaren **zozketan**. Hasier Etxeberria

**Zozketan** atera ez diren zenbaki txartelak. Pako Aristi

**2** (izenondo eta izenlagunekin)

Finalera arteko kanporaketen **zozketa** irekia. Berria - Kirola

**Zozketa** garbia izango da. Berria - Kirola

Ordenagailuak bere **zozketa** itsuan oparitutako ginekologoa begitan hartu zuen Kristinak, lehen bisitaldi urdurian. Aingeru Epaltza

Imajina dezagun aurreneko **zozketa** bat, gizon baten heriotza ebazten duena. Juan Garzia

Hilabete geroago, nola diren gauzak, dirutza ikaragarri handia suertatu zitzaidan asteroko **zozketa** milioidun horietako batean. Aitor Arana

**3** (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

Zenbakia 56.789 da eta **zozketa** eguna datorren ostirala. Patxi Iturritegi

Abereei dagokienez, abelgorria nahiz abere xehea izan, hamarretik bat Jaunari sagaratuko zaio, **zozketa** bidez aukeratuz. Elizen arteko biblia

Geroxeago, **zozketa** -ageriek ez zuten gehiago aipatu isunen zerrendarik. Juan Garzia

**4** (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa)

Dublinera bidaia bat tokatu zitzaion Eroskin, aurrez egindako bidaia baten promozio **zozketan** berak jakin gabe parte hartu zuelako. Pako Aristi

-Hori bakarrik fata zitzaidan, loteri **zozketa egin** aurretik zenbaki sariduna ematen ibiltzea. Joan Mari Irigoien

Diren eta ez diren loteria eta diru- **zozketa** klase denetan jokatu (bankuko kontuak barne) eta pantallari begira egon: horixe egiten du gaur biziaren urak agortuxeak dituen pertsonak. Iñaki Segurola

Eguneroko Igarlea-ren urteko galeoi- **zozketa** nagusia irabazi du. Iñaki Mendiguren

-Hori bakarrik fata zitzaidan, loteri **zozketa** egin aurretik zenbaki sariduna ematen ibiltzea. Joan Mari Irigoien

**5** ***zozketaz*** *adlag*

**Zozketaz** banatuko duzue lurraldea leinu eta senitarteen artean. Elizen arteko biblia

Beste hirurak, gehiengoa beraz, Espainia osoko irakasle funtzionarioen artean **zozketaz** aukeratutako irakasleak ziren. Joxerra Garzia

Jardunaldi bakoitzean, sei taldeko bi multzo osatuko dituzte eta **zozketaz** erabakiko da taldeak zein multzotan ariko diren. Berria - Kirola

Eskaria eskaintza halako hamar izan denez, **zozketaz** esleitu dira eta gaur salerosiko dira lehenengoz. Berria - Ekonomia

Pentsatzen dut lege onena epaile nagusiari laguntzaileak izendatzen dizkiona dela, **zozketaz** eta ez aukeraz, honelakoetan fidagarriagoa delako sentimenduz epaitzen duenaren ezjakintasuna, irizpidez juzgatzen duenaren jakinduria baino. Juan Martin Elexpuru

**6** ***zozketa egin***

**Zozketa egin** genian, eta niri suertatu zitzaidaan elbarriarena egin beharra. Koldo Izagirre

Harri xapalak erabiliz, **zozketa egin** genuen, eta Eurilokori egokitu zitzaion joatea. Juan Kruz Igerabide

**Zozketa egiteko** agindu nuen, ea nork lagunduko zidan hesola hura jasotzen eta ziklopeari begian sartzen lo hartzen zuenean. Juan Kruz Igerabide

**Zozketa eginik**, Jonasi atera zitzaion. Elizen arteko biblia

Aratsean afaria bazen jende pollita bildu baita eta segidan **zozketa egin** da zointan xartela irabazleak agertu baitira. Herria

Behin ezarleen zerrenda eginda, maiatzaren 3an notarioaren aurrean **zozketa eginen** da. Berria - Ekonomia

Txandak erabakitzeko **zozketa egin** zuten atzo. Berria - Kirola

Kopako **zozketa egin** zenetik asko hitz egin da Eibar eta Real Madrilen arteko partidaz. Berria - Kirola

Bigarren mailako Liga txapelketako **zozketa** ere atzo **egin** zen. Gero afal ondoan **egin** da **zozketa** eta huna irabazdunen zenbakiak: [...]. Berria - Kirola

**hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**

**egutegiaren zozketa** (3); **erabakitzeko zozketa egin** (3); **espainiako kopako zozketa** (3); **final laurdenetako zozketa** (6); **final zortzirenetako zozketa** (5); **finalerdietako zozketa** (4); **kanporaketen zozketa** (3); **kopako zozketa** (4); **multzoen zozketa** (3); **ondotik zozketa** (3); **zozketa bat** (15); **zozketa batean** (8); **zozketa batean parte** (4); **zozketa bidez** (31); **zozketa bidez erabaki** (4); **zozketa egin** (22); **zozketa egin zenean** (4); **zozketa egin zenetik** (3); **zozketa egingo** (11); **zozketa egingo da** (8); **zozketa gaur** (4)

**final zortzirenetako zozketak** (3); **zortzirenetako zozketak** (3)

**zozketako txartelak** (4)

**kopako zozketan** (3); **zozketan atera** (4); **zozketan atera diren** (3)

**zozketaren ateratzea** (6); **zozketaren berri** (5); **zozketaren berri izan** (3); **zozketaren bidez** (4); **zozketaren emaitza** (7); **zozketaren ondoren** (3); **zozketaren tiratzea** (3); **zozketaren txartelak** (5); **zozketaren txartelak salgai** (3)

**zozketarik gabe** (4)

**banaketa zozketaz** (3); **zozketaz banatuko** (3); **zozketaz erabakiko da** (5)

---

# zozketaldi *iz* zozketa.

Zozketak jainkoaren labirintoetan egiten ziren, hirurogei gauz behin, eta hurrengo **zozketaldira** arteko haren patua erabakitzen zuten. Juan Garzia

---

# zozketatu, zozketa(tu), zozketatzen *(32 agerraldi, 2 liburu eta 25 artikulutan)* du *ad* zerbait nork egin behar duen, nori emango zaion edo nola banatuko den erabakitzeko, zori hutsean oinarritzen den beste sistema bat erabili. ik **zozkatu**.

Gibea hiriari eraso egin behar diogu, nork egin **zozketatu** ondoren. Elizen arteko biblia

**Zozketatu** dituzte pistolak. Jon Muñoz

Lakuak nahi du udalek babes ofizialeko etxebizitzak ematea, Etxebiden izena emanda diren guztien artetik **zozketatuz**. Berria - Euskal Herria

1.319 etxebizitza **zozketatuko** dituzte. Berria - Euskal Herria

Parte-hartzaile guztien artean afariak ere **zozketatu** ziren. Berria - Kirola

UEFA Kopako final-zortzirenak **zozketatu** ziren atzo. Berria - Kirola

Finaleko partiden ordena **zozketatuko** da gaur Vienan. Berria - Kirola

UEFA Kopako final-zortzirenak **zozketatu** zituzten atzo. Berria - Kirola

**hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**

**egutegia zozketatu** (3); **zozketatu ziren** (5); **zozketatuko dira** (7)

---

# zozo *(orobat **xoxo** g.er.)* *iz* **1** urretxindorraren familiako txoria, lumadi beltza eta moko horia -arrak- edo luma areak eta moko horixka –emeak- dituena *(Turdus merula)*.

Nafarroako Gobernuak aurreko egun hauetan hilik agertutako beste zazpi hegazti ere (hiru **zozo**, bi uso, oilo bat eta txirriskila arrunt bat) bidaliko ditu Madrilera. Berria - Gaiak

Begitxo distiratsuak dituen **zozo** bat ikusi dut, burdin hari arantzadun haga baten gorenean pausaturik, munduari kanta-kantari. Mirentxu Larrañaga

Baso, zelai, soroak udaberriko janzkera urdinarekin; zuhaitz artean **zozoak** txistulari. Jokin Urain

Isildu ere gabe, **zozoak** udaberrian baino kalakariago. Joan Mari Irigoien

**Zozoak** zurezko kaiolako zura mokoaz jotzean ateratzen zuen zarata bakarrik entzuten zen. Jose Morales

Herritik etxerako bidean, ale bakan batzuk, artean txoil hondu gabeak, izaten genituen garaiaren salatari, batik bat **zozoek** mokoka erdizulatu eta lurrera boteak. Patziku Perurena

Leihoaren pare-parean, kaiola bat zegoen esekirik, eta haren barruan **zozo** bat, iluna, orban zuriekin, hura ere Sobakevitxen oso antzekoa. Jose Morales

Laster egin zituen habiak pagausoek baino hobeto, eta ia **zozoek** bezain ondo. Julen Gabiria

Geroztik, horrelaxe egiten dute euren habia munduko **zozo** guztiek. J.M. Olaizola "Txiliku"

Lau bele eta **zozo** bat zeuden plazaren erdian. Itxaro Borda

Harri batez bi **zozo** ehoz, hautetsiei nahikoa zitzaien laborantzaren subentzionatzea, Herriarekin eta Jainkoarekin bakean jarduteko. Itxaro Borda

Goian zirela eskinoso baten karranka ez oso urruna iritsi zaie, beheitiago **zozo** izuti bat altxatu da sastraka artetik. Pello Lizarralde

-Olivier, **zozo** batek habia egingo dik belarri atzean, motel. Harkaitz Cano

Kantatuko dugunean, gerezi denbora, urretxindor bitxi, **zozo** zirtolari, festan ibiliko dira guztiak. Inazio Mujika Iraola

Laster egin zituen habiak pagausoek baino hobeto, eta ia **zozoek** bezain ondo. Julen Gabiria

**Xoxoa** eta birigarroa. Pello Zabala

**2** (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

Landaren erdian geundean, **zozo** aldrak pasatzen ikusten. Juan Garzia

Han etorri zen, perdigoiei ihesi, izuturik, asaldatuak, istiluan, **zozo** saldo bat hegan. Anton Garikano

Nire potorako nahi nituen, putz egin nahi nien [...] eta kotoizko artiletan bildu, nire **zozo**-arrautzekin eta uso-arrautzekin batera. Mirentxu Larrañaga

**3** irud/hed

Alferrik, ordea, begi-bistakoak azaltzen hastea leku orotan bele ipurbeltzak ikusten zituen **zozo** honi. Aingeru Epaltza

-Beharbada, horko logela horretan dagoen **zozo** zuriari jakitea gustatuko litzaiokeenak, hala ere. Inazio Mujika Iraola

· **4** *izond* gauzez mintzatuz, inozoa, ergela.

Galdera **zozo** bat egin dut! Txillardegi

Ez nuen minbizia gainditu halako bihotzeko hutsegite **zozo** batengatik hiltzeko. Oskar Arana

Lodi zegoen, Buddha tankera zuen, aurpegiera geldo eta **zozoa**. Xabier Olarra

Irri **zozoak** kokotxa desartikulatu zion. Itxaro Borda

Haurra nintzela eta ja apezgai, etxean pasatu zen gizon asto batek, jakinik ene xedea, bota zizkidan irri **zozo** baten araberako hitzak: [...]. Piarres Aintziart

Ihardespenik ezean, irriño **zozo** bat marraztu nuen. Aingeru Epaltza

Hantxe egoten zen, bazter batean, aurpegian irribarre **zozo** bezain ironikoarekin. Juan Kruz Igerabide

Irribarre **zozo** batez erantzun zuen. Aingeru Epaltza

Partida **zozo** batean, zehaztasunik gabekoa, Portok eta Deportivok itzuliko partidarako utzi zuten Txapeldunen Ligako bigarren finalerdia. Berria - Kirola

Gaitzerdi, hori dena haurraren irudimena argitzeko balitz, eta ez eredu **zozo** jakinetara bilduz, bere izate libretik distraitzeko. Patziku Perurena

Egin nuen xantaia **zozo** horretan. Itxaro Borda

Aitak doinu **zozo** hori baizik ez du kantatzen! Ramuntxo Etxeberri

Ez dugu maite modernitate snob eta **zozoa**. Berria - Kultura

Aspaldi danik halako fama **zozo** bat barreiatua baitzen, urrea bazegoela hor nonbait gorderik. Michel Oronoz

Atzera begirako beldurra, noski, eta, aldi berean, harrotasun **zozo** halako bat. Juan Garzia

Gaurgero ordea, neure sutondo **zozoan**, bertute itxuran apaindutako biziatua besterik ez naiz. Patziku Perurena

Binakako Txapelketako sailkatze ligaxka **zozoak** bukaera ezin beroagoa eduki zuen atzo Tolosan. Berria - Kirola

Zeruko gozotasunaz janaritzen zenez, **zozoa** gertatzen zitzaion mundua. Askoren artean

· Zeure maitea ez bada pepelerdo **zozo**-poto bat, eta ez badu liburu hau ezagutzen, kopia itzazu pasarte egokiak, eta gutunez igorri: ezusteko ondorioak agintzen dizkizut. Markos Zapiain

· Pena da zuek *straight* **zozo** parea izatea... Harkaitz Cano

**5** (pertsonez mintzatuz, izond/iz)

Hitza sotiltasun guztiz klasikokoa da; are gehiago, alegia batean erabili omen zuen Georgius Koadjutoreak, hamabosgarren mendeko idazlerik **zozoenetakoak**. Xabier Olarra

Mutiko txiki, potolo eta **zozo** guztiek bezala, soldadu izatearekin egiten nuen amets. **Zozoak**, soroetatik bueltan, abiada bizian agertzen dira haritz artetik. Oskar Arana

Berarekin, emakume **zozo** hitzontzi horrekin, gizon sentitzen zen nonbait. Xabier Olarra

Nik, gaizo **zozoa**, uste nuen arrebek loreak ez zituztela maite. Daniel Landart

Harroputz **zozo** bat besterik ez zen izan, aitatxi bezalaxe. Elena Touyarou

Biarnes **zozo** horiei bezala. Aingeru Epaltza

Horixe ari da bihurtzen: ergel, **zozo**, burugabea. Oskar Arana

Gure aintzinekoak ez ziren ez gu baino **zozoagoak**! Herria

-Josepe, nitaz trufatzen zara, **zozoarena** egiten duzu ala bixta ari zaizu apaltzen? Janbattitt Dirassar

Banekien **zozoa** behar nuela izan neure bizitzako ederrenean horrela pentsatzen hasteko. Hasier Etxeberria

Uste dute jendea arrunt **zozoa** dela! Herria

Ez da dirudien bezain **zozoa** Urruti hori, pentsatu zuen Damianek. Hasier Etxeberria

Holaxekoa zara, ez **zozoago** ez erneago. Patziku Perurena

**Zozoa** ni! Txillardegi

- **Zozo** hori! -esan dit Garazik, higuin muzin bat eginez-. Txillardegi

Ez nizun hau aitortu behar, **zozo** honek. Txillardegi

Irri egin nuen **zozo** honek. Hasier Etxeberria

Agurtu ezazu, eta esaiozu gurekin esertzeko, **zozo** halakoa. Juan Kruz Igerabide

-Egin atzera, **zozoa** halakoa! -zioen oihuka beste gidariak. Jose Morales

-Hago ixilik, **zozo** handia! Janbattitt Dirassar

**Zozo** haundia, ez nian gaur egin dutan bidea eginen hire ikusteko izan ez balitz! Michel Oronoz

-Hori **zozo** burugabea delako -esan zuen Ronek-. Iñaki Mendiguren

**Zozo** hutsa behar nuela izan Hans harekin alderatuta, edozein emakumerentzat. Hasier Etxeberria

Zinezko sineste indarrik gabeko **zozo** gregario batzuk bezala gutiz gehienak. Patziku Perurena

**Zozo** arraioa, emango nion nik formación infantil bikaina parean egokituz gero. Hasier Etxeberria

**6** (adizlagun gisa)

Ilun jartzen nintzen aurrerantzean **zozo** eta kulturarik gabe iraun behar nuela gogoan hartzen nuen aldiro. Joxan Elosegi

Lepoa okerka luzatu eta, sukaldean bainatzen ari zen haur txikiari **zozo** begira zegoen. Pablo Sastre

Bat-batean, ene burua arrunt **zozo** eta galdua kausitu nuen autoaren barnean. Daniel Landart

Zirrara giro hartan, are traketsago eta **zozoago** azaltzeko ikarak hartu nau. Txillardegi

Aldai zutik, Saioaren koadroari **zozo-zozo** so, Dimasek, beti jarririk, apalxko. Pablo Sastre

**7** (hitz elkartuetan)

Betaurreko horiekin eta **zozo**-aurpegi horrekin, intelektuala delakoan dago jende anitz. Alberto Ladron Arana

Begitartean marrazturik gelditu zitzaidan **zozo** aurpegiari, Ttipiren agerpenak itzularazi zion itxura pixka bat. Aingeru Epaltza

Gure aitzinekoak horrelakoak ziren, zapalduezinak beren **zozo** airearekin. Itxaro Borda

**hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**

**irri zozo** (3); **joko zozo** (3); **zozo aurpegi** (3); **zozo samarrak** (3)

**bezain zozoa** (5); **gaizo zozoa** (3); **zozoa behar** (5); **zozoa haiz** (4); **zozoa ni** (3)

**zozoak beleari** (7)

**zozoarazi**, zozoaraz, zozoarazten du *ad* zozotzera behartu.

Botearen izariak bai ontsa hartuak zituela garaztarrak, 17 sartu baititu, gehienak eskuineko murrutik sarerat, **zozoaraztekoa**. Herria

**zozoilo** *izond adkor* zozoa, inozoa.

Voltaire-k jada saldoa tentel **zozoilotzat** zeukan, eta herri gogo edo izpiritua, esaten zuen, gutxiengo batean inkarnatzen da, horretan mamitzen da nazioaren funtsa. Joxe Azurmendi

Beharbada nik txinoak "txino" ulerkaitz batzuk direla, esaten dudan legez, ni europar **zozoilo** bat naizela, esango dute beraiek. Joxe Azurmendi

Irriño **zozoiloa** egin dio neskari, ulertuko ez balu bezala zer egiten duten han bai neskak, bai Josek berak, bai nagusiak. Anjel Lertxundi

**zozokabi** *iz* zozoaren habia.

Eta **zozokabiren** bat, zein mutikok ez du bilatu, ote mordoren baten zokoan egina? Patziku Perurena

**zozokeria** **1** *iz* inozokeria, ergelkeria.

Ez du heldu gabeko gizonen **zozokeria** eramaten sekula ikasi. Hasier Etxeberria

Hori **zozokeria**! Txillardegi

**Zozokeria** bat, txantxaren mailara ere iristen ez zena. Aingeru Epaltza

-Dena **zozokeria** bategatik. Txillardegi

**Zozokeria** horietan sinesten duk? Itxaro Borda

Eskolan irri egiten zidatela aitortu, eta **zozokeria** zela, haurkeria hutsa eta laster ahantziko nindutela. Xabier Montoia

Ganberaburuak erantzun zion buru-buztanik gabeko **zozokeriak** zirela. Jose Morales

Suharki sinesten zuela astrologian, kristalen ahalmenean eta *New Age*-aren **zozokeria** horietako beste pilo batean. Oskar Arana

Ilehoriak, berriz, ez zuen begiratu ere egin nahi izan, eta irainka aritzen zitzaien bi ofizial ergel haiei nazkatuta baitzeukaten beren **zozokeriekin**. Pello Lizarralde

**Zozokeria** horixe esan nion bai, zeruak niretzat asmatu zuela Rita. Hasier Etxeberria

-Oi, Ron, ez ezazu esan **zozokeriarik** -bota zion Hermionek zakar-. Iñaki Mendiguren

-Ez hiza **zozokeriak** erratetik nehoiz aspertzen? Itxaro Borda

Hor egon nauk buru-buztanik gabeko **zozokeriak** esaten eta pentsatzen. Jose Morales

Nor ibiliko duk hire **zozokeriak** entzuten! Hasier Etxeberria

Munduko **zozokeriarik** handiena aditu balu bezalako keinua eginik. Aingeru Epaltza

Zoritxarrez herritarretaraino ez dira beti heltzen ezagutza horiek, eta ez jakiteak, **zozokeriak** egin arazten edo erran arazten ditu. Herria

Rita ez zelako nire betiko **zozokeria** haietan sekula korapilatuko. Hasier Etxeberria

Ez gara **zozokeriekin** liluratu behar. Berria - Gaiak

Ez nuen Idoia galdu nahi; are gutxiago Alberto zozoaren eragin zozoagoaren **zozokeriagatik**. Juan Kruz Igerabide

**2** (izenondo eta izenlagunekin)

**Zozokeria** inozo bat, inozo edo serioa, aski dute aztoratzeko eta bere onetik ateratzeko. Joan Mari Lekuona

**Zozokeria** inozoak, ezertarako balio ez duten irudi ezdeus eta txepelak. Hasier Etxeberria

Harryk Brooklyndik alde egin eta landa-aldeko urrutiko lekuren batera bizitzera joango zelako ideia **zozokeria** hutsa iruditzen zitzaidan. Oskar Arana

Eskuliburuko faxista bat, ergela eta adoretsua, zeina armen lanbideak [...] ezjakintasun sendoz eta **zozokeria** larriz egoki apaindu baitzuen, baina ez baitzuen lortu, hala ere, usteltzerik ez gizagabetzerik. Juan Garzia

Gaztigatu zidaten fiskalaren galderei erantzuteko, "bai" edo "ez" besterik ez esateko, begiramena gordetzeko aretoari, han espainieraz egin behar nuela, betiko **zozokeriak**. Koldo Izagirre

**zozoki** *adag* inozoki, ergelki.

Izarrak **zozoki** dilindan zeruan! Ramuntxo Etxeberri

Damu nintzen nire ikasle kapa lhuriko urei hain **zozoki** oparitu izanaz. Aingeru Epaltza

Gero badarama bi eskuez atxikirik, bularrean babestua, horrela imajinatzen zuen, **zozoki**, emakumea argitzalean dagoen gela batean sartu da, gero makurtu da telefonoa beste hartune batean konektatzeko. Jon Alonso

Batzuetan hunkiduraz urtzen zitzaion bihotza eta besteetan irri egiteko irrikaz zegoen, **zozoki**. Itxaro Borda

**zozokote** *izond adkor* zozoa.

Tipo meharra, ile-horia, betaurrekoduna, beste **zozokote** bat Jan korrikalaria bezala. Fernando Rey

Jan lehor **zozokoteak** zera esan zidan, Antje kanpoan zela eta bere lagun baten etxean pasatu behar zuela gaua. Fernando Rey

Eta iristen dira Tositarrak, **Zozokote**, lehor eta zakarrak. Fernando Rey

**zozokume** (*orobat* ***xoxo-kume***) *iz* zozoaren kumea.

**Zozokumeak**, marti-zozoarenak hortxe ibiltzen direlako dagoeneko. Pello Zabala

Martxoko Ama Birjiña egunez, attonak **zozokumeak** kolkoan eta karga ostroa bizkarrean. Pello Zabala

Besteak eskopetaren mira txikia ikusi du lehenengo, eta miraren norabideari jarraika zuzenean anaiaren begiak gero: hegaldatzera lihoazkeen bi **xoxo-kume**, ahoa zabal-zabal eginda duen aurpegia desorekatuz. Pako Aristi

**zozol** *izond adkor* zozoa.

–Auxe inuxenta! Urrezko ontzi bat baizik ez duk, **zozola**! Itxaro Borda

**zozolisto** *izond/iz adkor* ik **listo**[2]; **listopasatu**; **listomari**; **tontolisto**; **tertulisto**.

Politikara igarota, **zozolistoak** aurkitzen ditugu sozialistak egon behar luketen lekuan. Iñaki Arranz

---

**zozologo** *iz adkor*

Igoal dio eskola maisu, fabrikako txaketila, euskaltzain, bankero, idazle, ekologo, artista, edo beste edozein **zozologo** herrisalbatzaile izan, maleta lodikote beltz bat eskuan zintzilik badakar, akabo: botikario berria duzu, mila teoria laikoz apeztutako eunukoa. Patziku Perurena

---

**zozolotu**, zozolo(tu), zozolotzen **1** da/du *ad* zozotu, ergeldu. ik **txotxolotu**.

Ate hari begira gelditu nintzen, **zozoloturik**, ikusi eta entzun berri nituen hitzei tankera eman nahian. Alberto Ladron Arana

Azken egun haietako lo faltak **zozoloturik** nindukan. Alberto Ladron Arana

Ukabilkadaren bortitzak **zozoloturik** utzi ninduen. Alberto Ladron Arana

-Lapur baten lana... -zezeldu nuen, entzuten ari nintzenak **zozoloturik**. Alberto Ladron Arana

**2** (era buruta izenondo gisa)

Mirespen **zozolotu** batez begiratzen zidan nire adiskide kutunak. Alberto Ladron Arana

---

zozomiko ik **zozomikote**.

---

**zozomikote** *(orobat **zozo-mikote** eta **zozomiko**)* *iz pl* apirileko lehen egunak.

Ez harritu eguraldi txarrak izatea, **zozomikotetan** gaude eta, botatzen dizute artzainek hitzetik hortzera. Pello Zabala

Neguak luze jotzen badu apirilean, **zozomikoteei** luzapena eskatuta, orduan etsipenak joko gaitu. Pello Zabala

Kontuak kontu, **zozomikote** eta tenporekin bueltaka zebilen fraide batek ikusi omen ninduen aurrena, elizako ate ondoan, saskitxo batean. Jon Alonso

**Zozomikote** egunak, tristeak eta ilunak, hala esan ohi da. Pello Zabala

Martxo hondarretako lantzurda eztiak hargatik, **zozomiko** egunetan, gaiztotzen ahal ziren eta lainoak ortzian eguzkiarekiko lehia hilkorrean higatzen zirela, uhar hotz eta basati leher zitezkeen. Itxaro Borda

---

**zozopilo** *iz adkor* zozoa.

Negarrez eta elkar besarkatuz harrapatu gintuen egunsentiak, **zozopilo** hutsak bezala. Harkaitz Cano

---

**zozotasun** *iz* inozotasuna, ergeltasuna.

Bada autismoaren atxikimendu-problemetan askoz bakanagoa den beste zerbait; Templek "emozio-zirkuitu"ez nahiz amigdalaz esandakoak gorabehera, inondik ere ez dago hor soraiotasun edo **zozotasun** osorik. Xabier Olarra

---

**zozotu**, zozo(tu), zozotzen *(orobat **xoxotu**)* du/da *ad* inozotu, ergeldu. ik **zozolotu**.

-**Zozotua** hago, bizirik gabe. Patxi Zubizarreta

Lehen bezala beren inguruaz arduratu eta beren ikusmeneko eremuan zegoen edozer kuxkuxeatu eta zirikatu beharrean, geldo eta **zozoturik** zeuden, edo loak hartzen zituen. Xabier Olarra

Desesperatua zen, **zozotua**, ez jakin nora begira, nora joan, zer egin. Eneko Bidegain

Nik hitz egiten uzten nion, bera ere erdi **zozotuta** baitzegoen bere ametsekin. Pello Lizarralde

Angiek erdizka ireki zituen begiak eta **zozotuta** begiratu zuen orratz fluoreszenteetara: 6'55 a.m. Iñaki Zabaleta

Eguzkia jadanik gora joana da, baina oilarrak **zozotuak** dira [...] eta xoriak eta abereak berdin, usaian hain goixtiar. Michel Oronoz

Buruaz murrua jota **zozoturik** ere egon baita. Herria

---

**zozotze** *iz* inozotzea, ergeltzea.

1880etan, nahikoa argi geratuz joan zen lobulu frontaletako tumorrek modu askotako sintomak eman zitzaketela: nahiz ernetasun eza, **zozotzea** eta gogamenaren moteltasuna, inoiz izaera-aldaketa nabarmena eta autokontrola galtzea, nahiz (Gowersen arabera) "erotasun kronikoa". Xabier Olarra

---

**zoztor** **1** *izond* txikia.

Ez da harritzekoa, sarritan haizez beteriko puxika **zoztor** batek ere, tanpez leherturik, nolako hotsa ateratzen duen ikusita. Xabier Amuriza

**2** ***lur zoztor*** lur zokorra.

Frankoen erregeak Galiako nagusi ziren; errege baketsuak ziren; Justinianok ez zeukan lur-**zoztor** bat ere han. Iñaki Iñurrieta

---

**zu** **1** *izord* singularreko bigarren pertsonaren izenordaina, hitz egiten ari denak aurrean edo duen entzulea adierazten duena. ik **hi**; **zeu**.

**2** ***baita zure ere***

-**Baita zuri ere** -erantzun dio irribarretsu adin ertaineko emakume batek-. Pello Lizarralde

-**Baita zuri ere**! -neska gazte batek. Txillardegi

-**Baita zuri ere**, seme. Jasone Osoro

Eta bi gizasemeek **baita zuri ere** opatu zioten andereñoari. Mirentxu Larrañaga

---

**zuavo** *iz* Vaticanoko armadako kidea.

Badakikezu, nik uste, erlijioaren eta Vaticanoren defentsan, Aita Sainduaren Armadan sartu dela **"zuavo"** gisa. Txillardegi

---

# **zuberera** *iz* Zuberoako euskalkia.

Gipuzkera, bizkaiera, nafarrera, nafar-lapurtera, **zuberera** ... euskalkiak baino, eredu sozialak egon direla esango nuke. Iñigo Aranbarri

Gehienak euskara batuan dira idatziak, zenbaitzu haatik **zubereraz** , hala nola bere lurraldeari buruzko olerkiak. Herria

Badira zenbait zuberotar, **zubereraz** hitz egin, eta zuberotar ez garenok ere ulertzen diegunak. Koldo Zuazo

Ospea dela medio, **zubereraz** erraten den guzia ontzat hartzen da. Herria

XVIII. mendeko **zubererazko** antzerki moldaketa batzuen bilduma. Berria - Kultura

Egun, **zubererazko** azentua morfologizatzen ari delako zantzuak daude. Lourdes Oñederra

Bakoitzak berea eman du, idazleak **zuberera** literarioa baliatuz, jokolariek ahozkatuz ohi den bezala. Herria

---

# **zubereradun** *iz* zubereraz mintzaten den euskalduna.

Hiztunontzat gertatzen diren bokal guztiak dira nolakotasun garbikoak /a, e, i, o, u/; **zubereradunek** /y/, palatal biribila, gehitzen diote sailari. Lourdes Oñederra

---

# **zuberotar** *(orobat **ziberotar** g.er.) izlag/iz* **1** Zuberoari dagokiona; Zuberoako biztanlea.

XIX. mendean instrukzioa Frantziako akademia militarretan egin zuten **zuberotar** gazteen eskutik iritsi ziren dantza urrats zail horiek Zuberoako herri ohituretara. Berria - Kultura

Alta, mende berean, Allande Oihenart **zuberotar** jakintsua ohartu zitzaion gaineko bi erresuma puxanten artetik bere sorterriaren batasunari eta finkatu zituen gure nazioaren oinarri historikoak. Piarres Xarriton

Jean Louis Davant **zuberotar** euskaltzainak historia maite du, gehiago behar bada historia hurbila. Herria

Hendaiako Abadia Urrustoiko irlandar-**zuberotar** jaun jakintsu eta aberatsak sustatzen zituen, baita osoki berak ordaintzen ere. Txillardegi

Lapurtar triunfalismuak **zuberotar** azentua, fonetika, irrigai, parregai bezala dauka. Koldo Zuazo

Hartarik landa, XIX. mendean, Garat lapurtar anaiek, Zamakola bizkaitarrak, Chaho **zuberotarrak** , asmatu xede politikoek ez zuten izan arrakasta handirik beren garaian. Piarres Xarriton

Oihenartekin batera, Joan Tartas da garai hartako beste idazle **zuberotarretako** bat. Koldo Zuazo

Zalgize, Bertrand, XVI. mendearen bigarren zatiko euskal poeta **zuberotarra** . Aingeru Epaltza

Gainera, herrialdearen txikitasuna gorabehera, literatura aberatsa sortu du aspaldiko denboretatik hasita, eta gorputz sendoa eman dio horrek euskara **zuberotarrari** . Koldo Zuazo

Hara *Eperra* izeneko kanta **zuberotar** ezagunaren pasarteak: [...]. Patziku Perurena

4.000 gizon, osotara, Lüküzeren nafar eta **zuberotarrekin** eta biarnes errebelekin bat egin ondoan. Aingeru Epaltza

Lapurdiko XVII. mendeko idazleak denak antzera idazten ahalegindu ziren, eta **zuberotarrek** ere kontuan hartu zuten haien idazmoldea. Koldo Zuazo

Araututa zuten **zuberotarrek** euren euskalkia. Koldo Zuazo

Hogei urte pasatuta, **zuberotar** gazte bat Oloroera joan zen, han egitekoren bat baitzuen. Martin Anso

Igandean Miarritzen jokatzekoa zen final hura, Euskal Herri osoko kantariak lehiakide zirela, baxenabartarrak eta **zuberotarrak** haien arteko asko eta asko. Juan Luis Zabala

**2** zuberera.

"Xori erresiñula", **zuberotarrezko** kantua, ezagutuko bagenu, beharbada ohartuko ginateke dialektoek errespetua merezi dutela. Herria

Ez ginuen beste hauturik, baina espero dugu **zuberotarrezko** argitalpenaren gelditzea behin-behinekoa izanen dela. Herria

Euskarak baditu bi dialektu pixka bat zoko egiten direnak: bizkaitarra mutur batean eta **zuberotarra** bestean, biak nahiko bereziak. Koldo Zuazo

Beterriko euskara giputzari eman zion lehentasuna, baina beste hiru eredu ere indartu zituen harekin batera: lapurtarra, **zuberotarra** eta Markinako bizkaitarra. Koldo Zuazo

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
> **idazle zuberotarrari** (3)

---

# **zubi** **1** *iz* ibai baten edo beste zernahi eragozpenen gainetik igarotzeko eraikuntza.

Hau ez da **zubia** , zubibidea baizik. Piarres Aintziart

Sinketenea Arnegiko aldean dago; eta **zubia** bazihoan Sinketenetik eta Arnegizaharreko alorrera, zeina orain auto aparkaleku bilakatua baita. Angel Aintziburu / Jean Baptiste Etxarren

Areatzako **zubia** igaro duzu ondoren, eta Alde Zaharrera sartu zara gero. Rafa Egiguren

Inoiz azaldu izan dut, gure literaturan **zubia** igarotzeak adierazten duen zori aldaera. Patziku Perurena

Artzain bat zen bere artaldearekin **zubitik** gaindi pasatzen ari. Angel Aintziburu / Jean Baptiste Etxarren

Taberna batetik ohi baino edanago irten zelarik, **zubia** zeharkatzean, haize basatiak jo eta ibaira eraman baitzuen. Felipe Juaristi

La Mercedeko **zubia** gurutzatu eta erriberatik merkatu-plazaraino. Unai Iturriaga

**Zubiak** zartatuak eta hautsiak zituen pilareak eta harroinak, eta **zubia** goiti-beheiti zihoan, baita **zubitik** zihoazen jendeak ere. Joan Mari Irigoien

Ibaia ikusten zen **zubitik** , eta irla bat ibaiaren erdian, eta beste **zubi** batzuk. Unai Elorriaga

Istripua **zubiaren** ainguraketa sistemak huts egiterakoan gertatu zen. Berria - Euskal Herria

Bizikleta uzten dut, **zubiaren** karelaren kontra. Eskarne Mujika

Ni ibaiari begira nengoen besoak gurutze nituela **zubi** bateko karelean. Anjel Lertxundi

**Zubiaren** petrilerantz egin zuen, eta marrubi ziria hartu. Bernardo Atxaga

Auxtin Zamora-k «Trapuetan haizea» bere laugarren liburua, Senpereko Utsalai **zubiaren** gainean aukeztuko du. Herria

La Merced **zubiaren** paretik San Anton zubiraino, kalean zeharka eta gurutzatuta, kontainerretatik sua eta kea. Paddy Rekalde

Alcatraz uharteko argiak ikusten nituen eskuinetara, eta Golden Gate **zubikoak** ezkerretara. Bernardo Atxaga

Brooklyngo **zubiaren** kableen artetik. Lopez de Arana

Brooklyngo **zubiko** arku gotikoak. Harkaitz Cano

Hemen ere, oraino berantean, ageri zen **zubiaren** pitrail muturra, Sinketeneari loturik zegoena. Angel Aintziburu / Jean Baptiste Etxarren

Williamsburgeko **zubia** osatzen duten X itxurako trentzadura haiek, egitura metaliko hura nire buruan daukat honez gero. Harkaitz Cano

**Zubia** 'Z' itxurako hormigoi piezek osatzen dute. Berria - Euskal Herria

Segovian, Eresma ibaia bere bidetik atera eta 2 **zubi** eraman zituen ipurditik. Pello Zabala

Beasain-Altsasu trenbidea egiteko hainbat **zubi** jaso eta tunel zulatu behar zenez, mendiko lan gogor horretan Alpeetan trebatuak ziren bidegile italiarrak ekarri behar izan

zituzten. Koldo Izagirre
Hainbat biadukto, **zubi** eta tunel ere egingo dituzte. Berria - Euskal Herria
Beste **zubi** bat egin zen denbora guti barne eta hirugarren bat ere, bainan hau burdin-bidearentzat. Herria
**Zubia** xahar-berritzen. Herria
**Zubia** ere berreraiki genuen geure tropen pasabidea bermatzeko. Agustin Otsoa
Simone de Beauvoir **zubia** zabalduko dute Parisen, uztailean. Berria - Kultura
**Zubia** 1995ean ireki zuten: enpresa pribatu batek eraiki zuen, eta harrezkeroztik kudeatzen du. Berria - Mundua
Maria Kristina **zubia** inauguratzen da Urumea ibaian. Askoren artean
Bizpahiru aldiz segurik, **zubia** berritu behar ukan zuten, lehertu zelakotz. Herria
Metroaren Etxebarriko **zubia** erori da. Berria - Euskal Herria
Inbasioa eragozteko lehertu genituen **zubiak**. Berria - Mundua
Ezerk ezertarako balio ez duen arren, guk **zubiak** leherrarazten ditugu hala ere, jokoari jarraitzeko. Josu Zabaleta
Etxebarrin **zubia** hondoratzeak ez ditu metroaren epeak aldatuko. Berria - Euskal Herria
Beste karga batekin **zubia** bota eta trenaren gainera erorarazi dute. Fernando Rey
Donibane Lohizunen 350 lagunek **zubia** moztu dute CPE kontratua atzera botatzeko eskatzeko. Berria - Ekonomia
**Zubiak** itxita jarraitzen zuela oraindik, eta ea zer egin behar nuen gauean. Xabier Mendiguren Elizegi
Diapositiban ageri den **zubiak** bi begi ditu, berdinak ikusi batean, zirkulu osoak osatzen dituzte uretan islatzean. Joxemari Urteaga
Arku txapal bakarreko **zubia**, Gareskoaren antzekoa. Txillardegi
Ohartu gabe iragan dut Ages eta Atapuerca herrien arteko arku bakaneko **zubia**, San Juan de Ortega herriak erromesentzat eraikia. Piarres Aintziart
Sinbologia berbera betetzen du, zazpi arkuko **zubian** iragotzen den gure zaldi majikoak. Patziku Perurena
Coloradoko Royal Gorge **zubia** da kableen bidez sostengaturiko munduko **zubirik** altuena. Berria - Gaiak
Heriotza gozoa omen da **zubi** horretatik jauzi egiten duenarena. Harkaitz Cano
Neure buruari esaten nion ezen agian igarotzen utzi zigutela bi postuen artean **zubiaren** erdian harrapatzearren. Juan Kruz Igerabide
Zaldiak trostan hasi ziren **zubiaren** gainean. Felipe Juaristi
Erreka **zubiaren** azpitik igarotzen da, eta putzu handi bat eratzen du zenbait yarda harantzago. Koro Navarro
**Zubiaren** azpialdean, Campo Volantineko paseo luzea eta Guardia Zibilaren komandantzia. Unai Iturriaga
Mozkorkerian ibili, lanik egin ez eta **zubi** azpian lo egin. Matías Mujika
*ik beherago* 12. Askoren artean
Niri bizkarra eman, eta **zubi** azpira abiatu zen modatik pasatutako duintasun baten imintzio eginez. Anjel Lertxundi
**Zubi** azpitik ibai beldurgarri bat zihoan sugez, dragoiez eta harrobioz josita. Askoren artean
**Zubi** azpiko bazter batean uzkurtuta jonki bi ari dira beso ubelduak ferekatzen, gerizpean. Paddy Rekalde

**2** (izenondo eta izenlagunekin)

Etxea trabeska dago kokatua karrikan, Chenonceaux-eko gaztelua bezala Cher-en gainean, eta haren azpitik pasatzen da karrika **zubi** luzeko arku moduko bati esker, estua, bobedatua eta iluna. Koldo Izagirre
**Zubi** moderno eta malgua kulunkan hasten da, batera eta bestera. Fernando Morillo
Arga ibaia gainditzen duen **zubi** ederra hartu arte. Piarres Aintziart
Veneziako **zubi** dotore haietako batetik. J.M. Olaizola "Txiliku"
Garesko **zubi** ospetsuaren erdi-erdian, garai batean, kapera bat zegoen. **Zubirik** sendoenek ere datorren uraren bat-bateko indarrari eutsi ezin diotela. Martin Anso
Brooklyngo **zubi** erraldoiaren oinarriak, kanpotik harripila gotor eta betea diruditenak, hutsik daude barrualdean. Harkaitz Cano
Alde banatatik harri bat jartzea besterik ez zitzaien falta hiru arkodun **zubi** galanta osatzeko. Pako Aristi
Aipatzen du ere [...] Ponte de Mulla deitzen duen zubia, hots, Pisuerga gainditzen duten hamaika arkuek finkatzen duten **zubi** ohargarria. Piarres Aintziart
Oso **zubi** alemaniarra da, nolabait esatearren: altzairuzkoa, x formako trentzaduraz betea, graffitiz estalia, itxura zaharkitua duena. Harkaitz Cano
Ola, errota, harrobi eta meategi zaharrak; **zubi** hautsiak; iturri agortuak. Juan Luis Zabala
Hiriko sarreraren aitzinetik iragatean, **zubi** jasogarriaren kateen karranka entzun dut. Koldo Izagirre
Lehorreko Atearen aurreko **zubi** altxagarri hura. Txillardegi
Sarbide bakarra zegoen harako: **zubi** altxagarri bat, amildegi ezin malkorragoen gainean ezarria. Jon Muñoz
Bonba ordurako **zubi** higikorrean zen eta jai alai jokalari biak loturak askatzen ari ziren, hura jaurtitzekotan. Edorta Jimenez
Hau da **Zubi** Esekia edo Bizkaiko Zubia. Urtzi Urrutikoetxea
**Zubi** eskegiaren argazki erraldoiaren azpian. Josu Landa
Erakusleihoan ageri zen **zubi** arkudunak eta urmaelak zituen loretegi japoniar baten miniatura. Lopez de Arana
Kale horrek bazituen bi **zubi** beiratedun, kale gainetik igarotzen zirenak. Josu Zabaleta
**Zubi** erromanikoa, bere sei arkuekin, ederretsi gabe ezin da pasatu. Piarres Aintziart
Aspera **zubi** erromanoa, xumea bezain pollita, iragan dut. Piarres Aintziart
Zurezko bi **zubi** dauzka, pilote gainean eraikiak, ubidearen zabalera osoa nabigaziorako libre uzteko moduan jarriak. Karlos Zabala
Harrizko **zubi** bat, uztai eder batez egina, mende bat iraunen zuena. Michel Oronoz
Bi arkuko harrizko **zubi** batek lubakia zeharkatu eta gazteluko atera zeraman. Alberto Ladron Arana
Modako **zubia** zen hura; Parisko lehen **zubi** metalikoa! Jon Muñoz

**3** (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

Puyannek hantxe jarri zituen soldaduak **zubi**-saria kobra zezaten. Martin Anso
**Zubi**-begian ozta-ozta sartzen zen uraren emana, **zubi**-gaina ere putzu handi bat zen. Xabier Mendiguren Elizegi
Denbora hori guzia ez duzu emanen ontziaren **zubi**-hegitik so eta so, beha ta beha. Herria
Londongo "Tower Bridge" ezaguna, goiko bi **zubi**-erdiak zabalik. Txillardegi
**Zubi** bat zegoen ibai hartan ertz batetik bestera; eta urkabe bat **zubi**-bukaeran jarria, auzitegi bat-edo ondoan zeukana. Patxi Ezkiaga
Geltokia baino lehentxeago, **zubi** akabuko aterpe horretan, soinujole itsu bat egoten da beti. Harkaitz Cano
Joanes, kezkengatik baino ardoagatik zorabiatuago, **zubi**-hormara hurbildu eta estropezu eginez gorputz erdia ibai aldera kanpoan geratu zenean. Lampedusatik Tripolira doan aire-**zubi** bat ezarri dute etorkinak kanporatzeko. Felipe Juaristi
Moilan, hozkailu biltegi berriak, **zubi**-garabiak, arku-garabiak, ro-ro arrapal haiek, gordailutegi frankoak. Urtzi Urrutikoetxea
Phips-ek ostiko jotzen zuen aurrealdeko **zubi**-gazteluan, draga eta gakoen artean. Juan Garzia
Lurrikara baten zalapartaz **zubi**-galtzadetan jauzi eta gurpil zebilen gurdi ozen, klankatsu hau guztia. Koldo Izagirre
Izen hori **zubi**-izena dela esan liteke. Edorta Jimenez

**4** (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa)

Ez nornahi nola nahika iragaiteko muga-**zubi** horietarik. Herria
Baina oso maite nuen nik atzealdeko sorotik gora igotzen zen egurrezko mandio-**zubia**. Txillardegi

Mikel Strogoffek Volga ibaia gurutzatu zuen zalditeriako kosakoek zaindutako txalupa **zubi** batean zehar. Karlos Zabala

Tropa kopuru handi bat zenbait versta ibaian behera bidali eta beste aldera igaro ziren berariaz moldaturiko txalupa **zubi** batzuen bidez. Karlos Zabala

Gainbehera ttipi baten ondotik, Burdin **Zubian** gaude. Angel Aintziburu / Jean Baptiste Etxarren

Ponferrada, Aimeri Picaudek aipatzen duen "Pons ferratus" delakoa, Sil ibaiko burdin-**zubiak** indartua. Piarres Aintziart

## **5** irud/hed

Isiltasuna **zubi**. Jokin Urain

Eskuinean arkua eta ezkerrean biolinaren **zubia** -hatzak luzeegi eta **zubia** laburregi-. Felipe Juaristi

Bat-batean, Fermin Reinaren begiradak **zubi** bat eraiki du bikotearen eta nire artean. Pako Aristi

Bi **zubi** eraikitzeko: munduaren eta nire artekoa eta nire familiaren baitakoa. Ana Urkiza

Hortaz baliatu zen Mikel Laboa iparraldeko jendearekin **zubiak** eraikitzeko. Herria

Itzulpena dugu bide bakarra **zubi** egiteko: beste hizkuntzen eta gurearen artean; lehenaren eta etorkizunaren artean; kultura unibertsalaren eta euskal gizabanako bakoitzaren artean. Anjel Lertxundi

Idazlea irakurlearengandik bereizten duen ibaia zeharkatzeko **zubiak** dira literatura lanak. Joxerra Garzia

Iraganaren eta ustezko geroaren arteko **zubi**, Coca-Cola iragarkiek egiten dute argi. Edorta Jimenez

Kultura ezberdinen arteko **zubia** izan behar dira hizkuntzak. Berria - Euskal Herria

Unibertsitate eta industri sektore batzuentzat oso onuragarri izan daiteke hezkuntza-sistema hau, bien arteko **zubia** baita. Berria - Gaiak

Editorea bitartekaria da, **zubia** da idazlearen eta irakurlearen artean. Ana Urkiza

40 edo 42 orduko lanaldia, hilabeteko oporraldia, **zubiak** eta ordu erdi ogitartekoarentzat. Berria - Ekonomia

Salbatore egunak ekarri du usaian bezala asteburu luze bat, gero eta jende gehiagok **"zubia"** egiten-eta. Herria

Langile askok **zubia** eginen baidute edo aste guzia lanik gabe zeren abendoaren 6 eta 8 besta buruak baitira. Herria

## **6** (irud/hed, izenondo eta izenlagunekin)

Gizartean integratzeko **zubi** ezin hobea da. Pako Aristi

Sole diabetikoa da, bihotzekoak eman zion eta **zubi** koronario hirukoitza egin behar izan zioten. Berria - Mundua

Bizitzaren eta heriotzaren arteko **zubi** tragikoan, borrokan ari dira biak. Berria - Kultura

Atzerrian hil ondoren, musikazko **zubi** baten bidez jaioterrira joan nahiko balute bezala. Felipe Juaristi

Txiki eta Lauaxetaren artean badago 40 urteko denbora tartea **zubi** labur bihurtzen duen dimentsio bat, bien espirituek elkarri aurrez aurre begiratu eta bat egiten duten trantze bat. Jokin Urain

Koherentzia harrizko **zubi** zahar bat da, agintariak esaten ari zaizkigunaren eta euren bizitzan egiten dutenaren arteko leizearen bi aldeak batzeko luzatu ezin daitekeena. Pako Aristi

## **7** (irud/hed hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

Egun horretan Iralak, BISen eta FBIren **zubi**-gizonari, Agirrek sinaturiko gutunak helarazi dizkio. Edorta Jimenez

## **8** (irud/hed hitz elkartuetan bigarren osagai gisa)

Betaurrekoak, sudur-**zubia** baino dezentez beherago jarriak. Anjel Lertxundi

Erretzeko erabiltzen zituen bi hatzez sudur-**zubia** estutu eta begi keinua kizkurtu zuen berriro ere. Harkaitz Cano

Adarrak belarri-**zubitik** askatu, eta, blaust!, erori zitzaizkion behin, ustekabean, betaurrekoak. Joxerra Garzia

Bi estatuen eta ETAren arteko «komunikazio **zubia**» egotea ona dela nabarmendu zuen. Berria - Euskal Herria

NEBk tradizio luzea du nazioarteko finantza-bizitzaren erregulazio ez formalean, eta horrek, zenbait alditan, garapen-bideko herrialdeen aldeko mailegu **zubi** bat egitera eraman du. Koro Navarro

## **9** bi jaiegunen artean dagoelako jai egun bihurtzen den laneguna.

Salbatore egunak ekarri du usaian bezala asteburu luze bat, gero eta jende gehiagok **"zubia"** egiten-eta. Herria

Langile askok **zubia** eginen baidute edo aste guzia lanik gabe zeren abendoaren 6 eta 8 besta buruak baitira. Herria

40 edo 42 orduko lanaldia, hilabeteko oporraldia, **zubiak** eta ordu erdi ogitartekoarentzat. Berria - Ekonomia

Guk San Jose **zubian** utzi genuen piztuta, ez bi aste luzez. Patxi Iturritegi

Ertzaintzak trafiko operazio berezia egingo du maiatzaren 1eko **zubian** ere. Berria - Euskal Herria

-Kanpina hartuta Aralarrera joan behar dugu urriko **zubian**! Pako Aristi

-Leirerekin mintzatua naiz, 15eko **zubian** Posets aldera joateko. Aingeru Epaltza

Maiatzaren leheneko jai-**zubian**. Patxi Iturritegi

## **10** itsasontzi batean, egitura garaiena, aginteak emateko erabiltzen dena.

-Deabrua beti zelatan eta pilotua beti **zubian**! -esan zidan ontziburuak. Edorta Jimenez

Ontziburua **zubiko** mailetan behera gain-bizkarrerantz zihoalarik. Edorta Jimenez

Ezkutatu egin zen, artilleroek kanoia finkatu eta eskotilan behera egin zuten, serbiola gelditu zen bakarrik **zubian**, prismatikoak begietan. Koldo Izagirre

Halako maukarik, ez da begi bistan edukitzen itsaspeko bat marea guztietan, ez duk sutunpa handirik behar, itsaspekoa ahula duk azalean, eta hura zegoen moduan, izardunak **zubian**, eskotilak zabal, lotua baino lotuago. Koldo Izagirre

*Stella Maris Berria*-k, aldiz, kroskoa eta **zubia** konpondu beharko ditu. Berria - Ekonomia

Eskotilak zabaldu zituzten, **zubi** aurreko kanoia noratu ziguten. Koldo Izagirre

Sukaldeak, okindegiak, itsasontziaren makinak hainbeste berotzen zituzten itsasontziko **zubi** faltsuak, ezen hamar preso hil baitzituen hango beroak. Karlos Zabala

Juan Fructuoso Duñabeitia de la Mota kapitainak, bere kargaontziaren **zubian**, zerbitzu ederrak bideratzen ditu. Edorta Jimenez

De Espinosa eta Lope Iraurgikoa txopako **zubian** geratu ziren. Felipe Juaristi

Gainezka zegoen ontzi **zubiaren** alde hau, eta txopako bidaztiak ez ziren nahasten itxura eta kolore anitzeko talde horien artean. Karlos Zabala

Burdinazko ate arranditsuak harrapatu zidan begirada orduan, gainean itsasontzietako aginte-**zubia** gogorarazten zidan kristalezko eraikuntza bat zeukala. Urtzi Urrutikoetxea

Zenonek, aginte-**zubian** adi, makina erdian zekarren ontzia. Edorta Jimenez

## **11** ***Erromako zubi*** ostadarra.

-Andre Mari Martxokotik 15 egunera, kukuk jotzen ezbadu, idi gurdia hartu eta **Erromako zubira** joan bila. Pello Zabala

Aingeru Guardako egunean kukuak **Erromako zubian** jotzen du lehenbizi. Pello Zabala

Eguna huskeriatan jardun zuenari abisatzera zetorren, dena **erromako zubia** bezain galkorra zela. Anton Garikano

**Erromako zubi** azpitik igarotzen dena, gizona bada emakumetu egiten da, eta emakumea bada gizondu. Patziku Perurena

## **12** ***zubi azpi*** *iz* ik **zubipe**.

Txiroen beste egoitza trenbideko **zubi azpia** duzu. Gotzon Garate

Erran dautate, Parisen **zubi azpi** horietan lo egiten dutenek ere berekin badutela [mugikorra], zer gerta ere. Herria

Horietako askok beren borondatez aukeratu omen zuten kale bazter edo **zubi azpietako** bizimodua. Joxean Agirre

## **13** ***zubi lan*** *(orobat* ***zubilan*** *g.er.)* • *irud/hed*

Ikasleek euskara ikasten urte batzuk igarotzen dituztenean, ez dugu nahi horrekin konformatzerik; **zubi lan** horretan ere lagundu egin behar zaie. Berria - Euskal Herria

Ideia batetik besterako **zubi-lana**, begirada batetik bestera, proposamen batetik bestera. Berria - Kultura

Taldeen eta zaleen arteko bitartekariak gara eta ondorioz **zubi lan** hori eman behar dugu. Berria - Kultura

**Zubi-lana** egiten zuen orria falta zitzaion tituluaren eta hitzaurrearen artean. Anjel Lertxundi

**Zubi-lana** egiten zuen orria falta zitzaion tituluaren eta hitzaurrearen artean. Anjel Lertxundi

Goriev eta Miaja jeneralen arteko **zubi lanetan** zebilela adierazi zion Koltsov Pravda egunkariaren kazetariak. Lutxo Egia

Stephensek bi aldeentzat ona izan zitekeen adostasuna lortzeko **zubi lana** egin zuen, «itzultzaile lana». Berria - Kirola

Habe- zutabe- eta **zubi-lana** egiten duten hezurretako arazoak ezagun zaizkio egitura-ingeniariari. Irene Aldasoro

Lokailuen **zubi-lana**; erakusle eta deiktikoen jendetasuna; sintaxiaren herabetasun ezkutuzalea. Joxerra Garzia

Panel atedunak, baina, desplazatu daitezke agertokian zehar eta **zubi-lan** sinboliko interesgarria betetzen dute mugimenduaren eta interpretazioaren artean. Berria - Kultura

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 4 aldiz agertzen direnak)**
>
> **arteko zubi** (29); **arteko zubi lana** (5); **beste zubi** (13); **burdin zubi** (4); **burdinazko zubi** (6); **gaineko zubi** (9); **harrizko zubi** (10); **hendaiako zubi** (6); **ibaiaren gaineko zubi** (4); **san anton zubi** (4); **txalupa zubi** (4)
>
> **zubi altxagarri** (6); **zubi altxagarria** (5); **zubi azpian** (8); **zubi azpitik** (5); **zubi bat** (103); **zubi bat bagdadentzat** (4); **zubi bat egin** (4); **zubi bat eraiki** (5); **zubi bat eraikitzea** (4); **zubi batean** (14); **zubi batek** (4); **zubi bateko** (4); **zubi baten** (29); **zubi baten azpian** (5); **zubi baten gainean** (4); **zubi batetik** (15); **zubi batetik zintzilikatu** (4); **zubi berri** (16); **zubi berri bat** (9); **zubi berria** (5); **zubi berriaren** (4); **zubi egiten** (4); **zubi esekia** (4); **zubi gainean** (10); **zubi gainetik** (5); **zubi gisa** (6); **zubi handia** (4); **zubi haundia** (5); **zubi izan** (6); **zubi konkorra** (4); **zubi lan** (5); **zubi lana** (35); **zubi lana egin** (7); **zubi lana egingo** (4); **zubi lana egiteko** (6); **zubi lana egiten** (6); **zubi lanak** (4); **zubi ondoan** (5); **zubi ondoko** (7); **zubi ttipi** (7); **zubi zahar** (9); **zubi zaharra** (7); **zurezko zubi** (4)
>
> **arteko zubia** (28); **bizkaia zubia** (6); **bizkaiko zubia** (5); **brooklyngo zubia** (8); **errekako zubia** (4); **erromako zubia** (6); **gaineko zubia** (12); **lastozko zubia** (4); **udaletxeko zubia** (4)
>
> **zubia egiten** (4); **zubia eraiki** (7); **zubia eraikitzeko** (4); **zubia gurutzatu** (8); **zubia igaro** (5); **zubia iragan** (4); **zubia pasatu** (5); **zubia zeharkatu** (22); **zubia zeharkatu zuten** (4); **zubia zeharkatzean** (4); **zubia zeharkatzen** (6)
>
> **artean zubiak** (8); **arteko zubiak** (14); **arteko zubiak eraiki** (4)
>
> **zubiak eraiki** (8); **zubiak eraikitzea** (5); **zubiak eraikitzen** (9); **zubiak eraikiz** (6)
>
> **arnegiko zubian** (5); **brooklyngo zubian** (4); **pannecau zubian** (4); **santiago zubian** (6); **zubian zehar** (4)
>
> **zubiaren azpian** (6); **zubiaren azpitik** (5); **zubiaren beste** (7); **zubiaren erdian** (9); **zubiaren gainean** (12); **zubiaren gainetik** (4); **zubiaren inguruan** (4); **zubiaren ondoan** (8); **zubiaren puntako** (4)
>
> **brooklyngo zubiko** (4); **harrizko zubiko pesta** (4); **itsuaren zubiko** (5); **zubiko pesta** (6)
>
> **zubira heldu** (4); **zubira hurbildu** (4); **zubira iritsi** (6); **zubira joan** (6)
>
> **zubiraino iritsi** (4)
>
> **hendaiako santiago zubirat** (4)
>
> **arnegiko zubitik** (4); **zubitik behera** (5); **zubitik gertu** (4); **zubitik hurbil** (4); **zubitik pasatzean** (4)

---

## zubibide 1 *iz* errepide edo trenbidetarako zubia.

Zarautzen, A-8 **zubibidearen** azpian, 50 autorentzat aparkalekua egingo dute, Zarautz, Orio eta Getaria ingurukoentzat. Berria - Euskal Herria

Denera lau tunel Aritzeta, Menditxo, Perurena eta Aritzmendi eta 33 **zubibide** izango ditu Aritzeta eta Errenteria arteko 16,2 kilometroko ibilbideak. Berria - Euskal Herria

Hau ez da zubia, **zubibidea** baizik. Piarres Aintziart

Izan ere, zubi bat baino gehiago da Millauko **zubibidea**. Berria - Gaiak

San Blas auzora, Igarondo igerilekutik gora, aldapa piko bat igota, autobidea baino goraxeago, Ibarrako **zubibidetik** gertu. Xabier Mendiguren Elizegi

**2** irud/hed

Goresmenak merexi ditu ere Fermin Mihura-k, bertsulari gazteeri juntaturik, lehengo eta oraikoen arteko **zubibide** sano. Herria

---

## zubietar *izond/iz* Zubietakoa, Zubietari dagokiona; Zubietako biztanlea.

Manifestazioaren amaieran, Xabier Arregi **zubietarrak** irakurri zuen idatzia, Lasarte-Oria Bizirik-en, **zubietarren** eta UHLren izenean. Berria - Euskal Herria

Berria zabaldu eta berehala, **zubietarrak** eta inguruko herritarrak, Usurbil eta Lasarte-Oriakoak, errauste planten aurkako taldeak sortu eta mobilizatzen hasi ziren. Berria - Euskal Herria

Ohi bezala, komunikabideen bidez jakin dute berria **zubietarrek**. Berria - Harian

---

## zubigain *iz* zubiaren gaina.

Gu biok, ilunpean **zubigain** hartan, azaro ordurako bukatuko arrats hartan, besarkaturik beroa ematen genion elkarri, biotako bakoitza gogoetan bere gauzak buruan. Fernando Rey

**Zubigainetik** bezalaxe, zubiaren arkupetik iragotzeak zoriaren mudantza sortzen du. Patziku Perurena

---

## zubigile 1 *iz* zubiak egiten dituen pertsona.

Las Vegasko **zubigile** bati saldu nahi omen zion, aintzira artifizial baten erdian edukitzeko. Javi Cillero

**2** irud/hed

Zeru eta lurraren arteko zubia, noski, eta ararteko nor eta *pontifex maximus*-a, hau da, **zubigile** gorena, aita santua, alegia... Iñigo Aranbarri

Euskara batuaren auzian **zubigile** izan zen Mikel Zarate. Berria - Kultura

---

## zubigintza *iz* zubiak egitea. • *irud/hed* zubi lana egitea.

Martina gero Jonez okitu amorostu zen eta beste behin **zubigintzan** zinpurturik, gabe geratu nintzen, tu mikatza irentsiz, haginak tinkatuz eta lepo zainak zapartatzear. Itxaro Borda

Mail guzietan, sail guzietan, badugu segur **zubigintzaren** beharra. Herria

Bere erako zubi lana burutu nahi izango zuen ibai ilun handi batek zubiak oro arrastan eramanak zituenean, zubi lana erdara eta euskararen artean, iraganaren eta orainaren arteko **zubigintza** egin nahi izango zuen, zubiak jaso frankismoaren basamortuaren erdian. Berria - Kultura

Jeltzaleek garrantzi handiagoa eman zioten azken lau hilabeteotan gainerako alderdiekin **«zubigintza** areagotzeko» helburuz egin dituzten bileren zereginari. Berria - Euskal Herria

Bakezko **zubigintza** eta bitartekotza paregabea eta emankorra. Berria - Kultura

---

## zubijauzi *iz*

Goikoekin berdindu -edo homologatu- eta moderno itxura hartu nahiak txotxolokeria galantak egitera ere eraman ohi duenez, *puenting* hitza asmatu dugu **zubijauzi** asmatu beharrean. Koldo Zuazo

---

## zubilan ik **zubi 12**.

---

### **zubiño** *iz* zubitxoa.

Arte eta pago galantak, iturritxoa erdian, beti ura dariola; eta, han-hemenka paseatzeko, enborrezko langak, eta **zubiño** lizunduak latsen gainetik. Txillardegi

Eta arku txapal bakarreko zubia, Gareskoaren antzekoa, Ubago gaineko gure **zubiño** berriantxa baino aise ederragoa da. Txillardegi

Ubago erreka gaineko **zubiñoa** gurutzatu dut. Txillardegi

---

## **zubipe** **1** *iz* zubiaren azpialdea. ik **zubi 12**.

Erietxe bat zela behar zuen lekua, eta ez **zubipea**. Anjel Lertxundi

Ibai bazterreko **zubipe** horietan lasterrago iluntzen zuen kaietan eta zubi gainetan baino. Matías Mujika

**Zubipe** hartako farola bakanetako baten argi eskasaren azpian. Matías Mujika

**Zubipe** ilun batetik irten eta oihu egiten zigun: [...]. Anjel Lertxundi

Hotz haundietan aurkitzen dira karrika, **zubipe** edo hegatz azpi batzuetan dauden etxe edo egoitza gabeak. Herria

Aurkituko zuela orduan txokoren bat **zubiperen** batean. Inazio Mujika Iraola

Zortzi egun lehenago kendua zuen bizarra, nolanahi xamar, jakina, bere **zubipe**-lagun haietako batek kendua. Matías Mujika

Senako **zubipeetan** lo egiten duten alkoholikoek. Matías Mujika

Urumean itsasgora eta beheren arrastoei erreparan, ibaia **zubipeetatik** nola itsasorantz bideratzen zen ikusten egunero. Iñaki Iñurrieta

Marinelek kanpoko arrain horien tripak botatzen dituzte bertara, eta horregatik hazi eta gizendu dira izugarri **zubipeetako** arrainak, lupinak eta korrokoiak batez ere, haragijale baitira. Felipe Juaristi

Emakume bat **zubipean** lotara bilduta zegoena, ur palastak eraman zuen. Pello Zabala

San Anton eliza eta Abastos merkatuaren artean [...] errepide zatitxoa dago, **zubipean**, jonkiek erositako merkantzia probatzen duten lekuan. Sonia Gonzalez

Williamsburgeko zubiaren ondo-ondoan bizi dira, ia-ia **zubipean** geratzen den eraikin batean. Harkaitz Cano

Idazlea topatu nuen **zubipera** joatea proposatu nion Öchlerri. Anjel Lertxundi

Mirafloresko **zubipetik** igarotzean berpiztu zitzaion txipitasun sentsazioa. Unai Iturriaga

**2** (ontzietakoa)

Horretan ari nintzela kareletik dindilizka, izardunen arteko hitzaspertua atzeman nuen estiborreko erdialdean, **zubipean**. Koldo Izagirre

---

## **zubiritar** *izond/iz* Zubirikoa, Zubiriri dagokiona; Zubiriko biztanlea.

Eta huna Tolosan astelehenean nola nausitu den **zubiritarra**. Herria

Rai izango da **zubiritarraren** kontrario lehenengo kanporaketan. Berria - Kirola

4 1/2 ko xapelketan, Mikel Goñi doi doia nagusitu **Zubiritarrari**. Herria

Lan handia egin zuen **zubiritarrak**, aurrean Titin ezin menderatuta atzean jarri zituzten ahalik eta pilota gehien aurkariek. Berria - Kirola

---

## **zubitto** *iz* zubitxoa.

Belaze berdeak, aintzira-bazterreko **zubittoak** eta bidexkak, ihauteriko lore haietaz beterik zeuden pasealekuak. Fernando Rey

Herritik jalgita, **zubitto** batean jarririk [...] ogitarteko xukatuari ausiki aplikatu batzuz lotu natzaio. Piarres Aintziart

---

## **zubitxo** *iz* zubi txikia.

Ubago erreka gaineko **zubitxoa** gurutzatzen hasi naiz. Txillardegi

Begi bakarreko **zubitxo** batetik iragan nuen uhar hau, eta beste aldeko mendiaren aldapa igan nuen. Koldo Izagirre

Ligonde errekako **zubitxo** batean jarririk bazkaldu naiz, usaiako atun, xorizo ta gasnarekin. Piarres Aintziart

Jainkoari otoi egin behar zioten, orobat, **zubitxo** hura pitzatu ez zedin jendea pasatzean. Koldo Biguri

Zurezko **zubitxo** bat pasatzen dut eta bideari jarraitzen diot, etxeen ostera iristen naizen arte. Eskarne Mujika

Rita eta bion artean bazen une hartan zubi bat, zinkezko **zubitxo** bat, erkina baina ibilgarria. Juan Garzia

---

## **zubitzar** *izond* zubi handia.

Barnean, mahai-aulkiek, argazki koloregalduek -Chiado, Bairro Alto eta Teixo ugaldearen gaineko **zubitzarra**-, [...]. Aingeru Epaltza

---

## **zubixka** *iz* zubitxoa.

**Zubixka** berri bat eraiki dute Getaria eta Donibane Lohizune arte hortan, Baldareta deitu ibaixkaren gainetik iragaiteko. Herria

Berriz ere aipu da geltoki hortan egitea edo **zubixka** bat edo lurpez pasaia bat oinezkoak gostuan ibiltzeko, burdin-bidearen gainetik pasatu gabe. Herria

Ontziratzeko **zubixka** kendu dute, *steam-boat*a kai ertzetik aldentzen hasia da. Karlos Zabala

Pitotx-larruzko gainjantziaz babesturik, ontzigaina moilarekin lotzen zuen egurrezko **zubixka** jaitsi zuen. Anjel Lertxundi

**Zubixka** bat pasatu, eta Belesa urtegiaren ezker aldean nago. Piarres Aintziart

---

## **zuendar** *iz* zuen familiakoa, artekoa edo aldekoa den pertsona.

-Ezta ni neu be **zuendarra**. Txillardegi

---

**zugarramurdiar** *izond/iz* Zugarramurdikoa, Zugarramurdiri dagokiona; Zugarramurdiko biztanlea.

**Zugarramurdiarrak** Puerto de Santa Marian eta Salto del Negron pasatu ditu urterik gehienak preso. Berria - Euskal Herria

**Zugarramurdiarrei** entzunik nago tokiari deitzen Alkalarre: alkabelarra garai eldu den larrea. Patziku Perurena

Fernando Arburua **zugarramurdiarrak** dio aitzin-solasa egina. Herria

---

**zuhail** *(orobat **zurail** g.er.)* **1** *izond* koloreez eta kidekoez mintzatuz, bizia ez dena. ik**margul**.

Kolore **zuhail** batzu, iduri du mundua gainerat erori zaiotela. Menane Oxandabaratz

Antzigar eta izozteek artilearena dirudien kolore beis **zuhaila** eman dioten lur erreantza-marroiaren ondoan. Pako Aristi

Goian zeru urdin **zuhaila** ikusten du. Oskar Arana

Bide bazterreko etxe batean argi **zuhail** bat ikusi nuen. Daniel Landart

Gaua zen, mendietako gau zurbila, mendi ostean erortzear dagoen ilargi laurden hori mehe batek odaiertzaren ertzetik argitzen duen gau hits **zuhaila**. Josu Zabaleta

Heriotzaz hain dakigu gutxi, non berarekiko gure harremana irudietan finkatzen dugun: osaba hilaren aurpegi **zuhaila**, senideen negarra, [...]. Pako Aristi

Alde bat kenduko dituzte mugazubiaren ondo-ondoan duela hamabost urte eraiki zutabe luze **zuhailak**. Herria

Hor daude txori-larrosak, arrosa **zuhailezko** orri urriekin. Pako Aristi

Galtza zahar batzuk, gerrian makur jantziak, papoa dena irekia, urrunetik ere ageri bere atorra **zuhaila** dena zurpilkatua zuela. Janbattitt Dirassar

Ile nahasi batzuekin, aurpegia **zuhail**, pilda batzuk soinean, zikinak eta higatuak, dena petatxu, oinetan espartin tzar batzuk, zola jana zutenak. Janbattitt Dirassar

**2** *irud*

Sentimenduek, bihotza gertutik ukitzen dutenez, mintzaira bizia eskatzen dute, ez hizkera hitsa edo eleketa **zuhaila**. Pello Salaburu

Gure euskara, euskara landu hori, sarriegi ahul eta endelua da, indarrik gabea eta motela, hitsa eta **zuhaila**, batasunaren izenean batu behar direnak eta ez direnak batu ditugulako. Pello Salaburu

---

**zuhailtasun** *iz* zuhaila denaren nolakotasuna.

Haietarik bat nihonek ere lehen behin goraipatu nuen zeren bereizten baitzituen eginbidea eta boterea, erranez boterea ez dela ahalmena baizik, eta hori errana da, gehiago zehaztu gabe, **zuhailtasuna** bezala da. Piarres Xarriton

---

**zuhain** *iz* zuhaitza; bazka.

Bereziki 22an eta 23an bildu dira sabaietarat biziki **zuhain** onak eta ausarki ere. Herria

Gari eta **zuhain** uztak hirirako konfiskatu zituzten eta botere moskutarrak ekialde urrunean zeukan azkeneko gotorleku hura prest gelditu zen tatariarren aurka denboraldi batez borrokatzeko. Karlos Zabala

---

zuhaiska ik **zuhaixka**.

---

**zuhaitsu** *izond* zuhaitz asko dagoena.

Dorre jauregia hasteko, Arteta parkea gero (soildua arras), eta betiko ilaran gero Aranbaltz, Loretxu, Unbe, Maitena, Uruburu-ene **zuhaitsua** [...] eta Kantoi, erreka ertzean. Txillardegi

---

**zuhaitz** *iz* **1** landare iraunkorra, lurretik halako garaiera batean adarkatzen den zurtoin zurezkoa duena. ik**arbola; zuhamu**.

Mota guztietako **zuhaitzak** sorrarazi zituen lurretik Jainko Jaunak. Jose Antonio Mujika

Baratze erdian **zuhaitz** bi ernearazi zituen: biziaren **zuhaitza** bat eta ongia eta gaizkia ezagutzeko ahalmena ematen zuena bestea. Jose Antonio Mujika

**Zuhaitzak** ere badu itxaropenik; moztu arren, suspertu egiten da eta kimu berriak ematen. Elizen arteko biblia

Han badira irina, eztia, ardoa edo pozoina ematen duten **zuhaitzak**, arbola klasearen arabera. Aurelia Arkotxa

**Zuhaitzari** ebakia egin behar zaio erdiko bihotzeraino zabalera guztian, eta horrela utzi, ebaki horretatik lehor dadin ondo izerdi guztia. Santiago Iruretagoiena

Sutarako egurra egiten zuen anaiari esaten zion **zuhaitz** osoa ez ebakitzeko; mozteko zati bat, baina beste bat uzteko. Askoren artean

Hartu mujik errusiar bat, eraman ezazu Kamtxatkara, eta emaiozu eskularru-pare beroa: hatzak klaskatu, aizkorari heldu, **zuhaitz** batzuk moztu, eta izba berria eraikiko du berehala. Jose Morales

**Zuhaitza** errotik moztea pentsatu zuen. Askoren artean

Egurra egiten zuten anaiei, debekatu egiten zien **zuhaitza** orpotik ebakitzea, kimu berritzeko aukera izan zezan. Askoren artean

**Zuhaitzak** mantentzeko eta inausteko plan bat. Berria - Euskal Herria

Desertua gehiago zabal ez dadin, milaka **zuhaitz** landatu ditu Txinak azken urteotan. Berria - Gaiak

Gerriko Berdea Mugimenduaren sortzaileak 30 milioi **zuhaitz** aldatu ditu Afrikan 70eko hamarkadaz geroztik. Berria - Mundua

Hango **zuhaitzak** handitzen hasiak zirela kontatzen zion. Karlos Zabala

Inguru hartan ari zirelako zerrategirako **zuhaitzak** botatzen. Bernardo Atxaga

Bota **zuhaitza**, moztu adarrak, kendu hostoak, jaurtiki behera fruituak! Elizen arteko biblia

Euri ugarian handiturik, mendi goietatik urjauzi handian oldartzen denean, oihan zatiak eta **zuhaitz** osoak aurrean eramanez, zubirik sendoenek ere datorren uraren bat-bateko indarrari eutsi ezin diotela. Xabier Amuriza

Ez du ikusten haizea, izadian den indarrik handiena, gizonak lurrera botatzen dituena, etxeak eraisten dituena, **zuhaitzak** erauzten. Josu Zabaleta

Plazako **zuhaitz** baten kontra bizkarra bermatu, poltsikotik erlojua atera, estalkia altxatu, eta orduari begiratu zion. Juan Kruz Igerabide

Autoa bidetik atera zen eta **zuhaitz** bat jo zuen ostiral arratsean. Berria - Euskal Herria

Bidania-Goiazko basoan lanean ari zela hil zen atzo arratsaldean 27 urteko langile bat, **zuhaitz** bat gainera erorita. Berria - Ekonomia

Britainia Handiko **zuhaitza** da gorostia. Pello Zabala

Piztueraren **zuhaitza** da altza. Pello Zabala

Etxeak suntsitu, kaleak desegin, **zuhaitzak** bota, teilatuak hondatu. Pello Zabala

Prest dago aizkora **zuhaitza** hondotik jotzeko.

Hango **zuhaitzak** adarrak goruntz bota ohi ditu. Pello Zabala

Libano mendia ilundu nuen, eta landa zabaleko **zuhaitzak** ihartu. Elizen arteko biblia

**Zuhaitz** batetik urkatuko zaitu eta txoriek haragia jango dizute. Elizen arteko biblia

Zaldiaran mendateko **zuhaitz** batean agertu zen, urkaturik. Berria - Euskal Herria
Ehunka biztanlek etxeetako teilatuetan edo **zuhaitzetan** igota pasatu behar izan dute gaua. Berria - Mundua
Tellagorrik zaildu egiten zuen Martin, ibilarazi egiten zion, lasterka eragin, **zuhaitzetara** igoarazi. Koro Navarro
Erregea, berriz, **zuhaitz** batetik zintzilikatu zuen arratsera arte; eguzkia sartzean, gorpua **zuhaitzetik** eraisteko agindu zuen Josuek. Elizen arteko biblia
Badakizu gure artean ez dela inor sidondarrak bezain trebe **zuhaitz** botatzen. Elizen arteko biblia
**Zuhaitza** handia eta sendoa egin zen: zeruraino iristen zen, munduaren azken ertzetik ere ikus zitekeen. Elizen arteko biblia
Izurako oihanetako **zuhaitzak**. Berria - Kultura
Ibaia entzuten dut behean, **zuhaitzen** azpian. Koro Navarro
Bazirela hirurehun urteko **zuhaitzak**, gure familiaren etxe zaharraren babesgarri. Josu Zabaleta
**Zuhaitzak** libre hazten ziren han, adaburuak zerumugan bat eginik, hodei berdeak bailiran. Jose Morales
Ibilbideko **zuhaitzen** adaburuak haizeak astintzen zituen. Joxemari Urteaga
Euriak **zuhaitzen** hostoetan sortzen zuen mar-mar atsegina besterik ez zen entzuten. Aitor Arana
Plazako **zuhaitzetako** hostoen itzal bihurrien jolasa. Alberto Ladron Arana
Txoriak zalapartaka ari ziren, **zuhaitzetik zuhaitzera**. Felipe Juaristi
[Mostaza-hazia] hazten da eta **zuhaitz** egiten, eta txoriek haren adarretan egiten dituzte habiak. Elizen arteko biblia
-Hosto galkorreko **zuhaitza** da bizitza -dio gizonak-. Imanol Zurutuza
Baratzeko **zuhaitz** guztietatik jan dezakezu, baina ez jan ongiaren eta gaizkiaren ezagutzaren **zuhaitzetik**. Askoren artean
**Zuhaitzek** zuhaiztia ostentzen dute. Javi Cillero
**Zuhaitzengatik** basoa ikusi ezin duen gizon ziztrin horietakoa zara. Oskar Arana

**2** (izenondo eta izenlagunekin)

**Zuhaitz** handi baten itzalean eseria aurkitu zuen. Elizen arteko biblia
Three Riverseko etxe sakabanatuak ikusten ziren **zuhaitz** izugarri handi batzuen babesean. Bernardo Atxaga
**Zuhaitz** zahar baten motzondoan eseri naiz hurrengo. Mirentxu Larrañaga
Urtegiak egin nituen, **zuhaitz** gaztez eginiko basoa ureztatzeko. Elizen arteko biblia
Apur bat urrunago, lainotan galduta, **zuhaitz** sendo eta ordurako biluzien multzoa. Urtzi Urrutikoetxea
Leihoaren eta sutondoaren alboan zegoen Gabonetako **zuhaitz** dotore baten artean. Iñaki Mendiguren
**Zuhaitz** garaia beheratu eta txikia goratu egiten dudala, **zuhaitz** hezea ihartu eta ihartua hezeberritu. Elizen arteko biblia
Vaclav erori egin zen atzeraka eta lurrean zerraldo gelditu eskuak zabal-zabal eginda, **zuhaitz** eroria, **zuhaitz** etzana, **zuhaitz** hila. Felipe Juaristi
**Zuhaitz** trinko eta ilunen artean ibili ziren. Iñaki Mendiguren
**Zuhaitz** mardul eta hostotsuz jantziriko loralegia ezarri digute hiriaren edergarri. Haizete bortitzenetako batek 500etik gora **zuhaitz** sendokote bota, eta hondatu zituen kupidagabe. Jose Morales
Haizeak balantza eztian dilindatzen zituen **zuhaitz** soildu batzuk ikusi nituen. Leku zoragarri batera iritsi ziren; belar heze ederrez estalia zegoen, udaberri-lorez apaindua eta mota guztietako **zuhaitz** atseginez betea. Joxan Elosegi
Irlandan, zeltar kultura erlijiozkoan, han zituzten **zuhaitz** sakratu handienetan bost, santutegietako **zuhaitz** lerdenak, lizarrak ziren. Pello Zabala
**Zuhaitz** izugarriak urak orpotik ateratakoak. Pello Zabala
**Zuhaitz**-igelek iluntzean bezala egiten du girringa. Itziar Otegi
Inez atarian agurtu eta **zuhaitz** diskretu bat bilatu nuen maskuria husteko. Harkaitz Cano
Amerikar **zuhaitz** bat, luze-luzea; fruituetan kotoi moduko bat dauka, burko-betegarri erabiltzen dena. Juan Garzia
Hain ordenatua ikusten duzun izadi honek [...] zertarako sortu ditu fruiturik gabeko **zuhaitzak**? Imanol Unzurrunzaga
**Zuhaitz** barren-hutsak ikusi nituen, azala kendu zieten eta hura bera katabuta bihurtu. Felipe Juaristi
**Zuhaitz** hosto-trinkoenen artean bilatuko du bakartasuna, baina alferrik izango da dena. Koro Navarro
Adar **zuhaitz** gabeetan. Felipe Juaristi

**3** (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

Bada neguan hostoa galtzen duen **zuhaitz**-baso ederrik. Pello Zabala
Zango motz sendoak zituen, **zuhaitz**-enborrak bezalakoak. Iñaki Mendiguren
Jendeak olibondo eta beste **zuhaitz**-aldaska moztu-berriei eragiten die. Askoren artean
Oihua izan zen, tximistak jotakoan **zuhaitz** hostoek egin ohi dutena. Felipe Juaristi
Ederslebenen, berriz, **zuhaitz** haga luze bat tente ipintzen zuten plazan. Pello Zabala
Intxaur-oskolak eta **zuhaitz**-azala erabiltzen ziren ogia egiteko. Askoren artean
Begirada oker eta gorputz izugarriko dragoi ohil **zuhaitz**-gerriari besarkatuak. Xabier Amuriza
**Zuhaitz**-izerdiaren gorakada udaberrian. Joxan Elosegi
**Zuhaitz**-igelek iluntzean bezala egiten du girringa. Itziar Otegi
Hego Afrikako **zuhaitz**-sugearen azala xerrendatan. Iñaki Mendiguren
Haize-izpirik ez zebilen oihan debekatuan **zuhaitz**-gainak mugitzeko. Iñaki Mendiguren
Aurrean duen **zuhaitz** lerroari erreparatu dio. Pello Lizarralde
Maldan gorako **zuhaitz** ilara bikoitz hura. Txillardegi
**Zuhaitz**-mota desberdinek nolakotasunak ere desberdinak izaten dituzte elkarren artean. Santiago Iruretagoiena
*Wellingtonia* izena jarri nahi izan zioten **zuhaitz** genero horri, Wellington jeneralaren ohoretan, noski. J.M. Olaizola "Txiliku"
Igantzin **zuhaitz** landatzeari lotu dira, Pagola eta Egibeltz guneetako 24 hektaretan. Herria
**Zuhaitz** landatzeak, buruan koroak jartzeak, gaueko suak,... ohitura hauek guztiek erakusten digute egun horrek izan duen indarra denbora eta gizaldi guztietan, eguzkia adoratzeko orduan. Anartean, monotonia batean sarturik, **zuhaitz**-landareen artean banoa aitzina. Pello Salaburu
Otate: **zuhaitz**-landare bat, etxeko tresnak egiteko erabiltzen den zur malgua ematen duena. Juan Garzia
Zeltiarren **Zuhaitz** Egutegia. Pello Zabala
Horrela, 13 osaturik, **zuhaitz**-hilabete bakoitzak bazuen bere presentzia: urtea osatuta geratzen zen. Pello Zabala
Horrela, gaurkoan, urtarrilaren 21ean sartzen ziren bigarren **zuhaitz**-hilean: basa-lizarraren sasoi eta babesean. Pello Zabala
Ez dio beldurrik behelaino umelari, eta edozein beste **zuhaitz**-guneri ez dio muzinik egingo. Pello Zabala

**4** (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa)

Arbolaxka txukun inausiak, igali **zuhaitzak** lorez betetzear, marrubi landareak, mahastiak. Pako Aristi
Neskatila ttipi, pollit bat hurreratu eta sokan gora igotzen hasi da, soka hori mango-**zuhaitz** bat balitz bezala. Gotzon Garate
Ez intzentsu-**zuhaitzek** eta ez piperbeltzak ez lituzkete beren baiak emango, ezta mirrak bere bolatxoak ere. Santiago Iruretagoiena
Gorosti **zuhaitzaren** gabon-kantak ere, horixe abestuko du. Pello Zabala
Zelten eta iparraldeko eremu haien parajeotan, maiatz-**zuhaitz** deitzen zioten, sasoi honen adierazgarritako bat delako. Pello Zabala
Eragotzi zitzaien jakite-**zuhaitzetik** jatea. Patxi Altuna

**5** (hiru osagaiko hitz elkartuetan)

Ezproiek **zuhaitz** azal zerrendak urratzen zituzten. Josu Zabaleta

Usain hordigarria zeriok hostaila hezeari, iratzeari, **zuhaitz**-azal puska goroldiotsuen tapiz bigun, labain eta uniformeari. Xabier Olarra

**6** irud/hed

Biziaren **zuhaitza** bizia bermatzen digun arrazoimenaren bidea da. Xabier Kintana

-Zer gisa hamabi-hamalau familien hire **zuhaitz** genealogikoa? Aingeru Epaltza

Gurasoei galdetu, amona Erikarekin jardun, eta udaletxeko artxibategian arakatu, nire **zuhaitz** genealogikoa gero eta adartsuagoa zen. Anjel Lertxundi

Aitarekin batera bere familiaren genealogia **zuhaitza** egiten ari gara. Josu Zabaleta

Ez landatu bihotzean tristuraren **zuhaitza**. Jon Muñoz

Horrela enuntziazio-deribazio **zuhaitz** bat deskriba daiteke: bere oinarrian, eraketa-arauak euren hedadura zabalenean lanean jartzen dituzten enuntziatuak; gailurrean, zenbait adarkaduraren ostean, erregulartasun bera, modu finagoan artikulatua. Xabier Arregi

Arkeologiak horrela diskurtso baten deribazio-**zuhaitza** osa dezake. Xabier Arregi

**7** ***zuhaitz adar*** *(orobat* ***zuhaitzadar*** *g.er.)*

Hartu zuen aizkora eskuan, **zuhaitz-adar** bat ebaki eta, bizkarrean harturik, esan zion bere jendeari: [...]. Elizen arteko biblia

**Zuhaitz-adarrak** ihartu eta hautsi egiten dira, eta suegurretarako biltzen dituzte emakumeek. Elizen arteko biblia

Txoriak isilik zeuden **zuhaitz adarretan**. Bernardo Atxaga

Txoriak armadura ikusi orduko, ezkutatu egiten ziren habietan edo **zuhaitz adarretan**. Felipe Juaristi

Kanpin-gasezko argi bat paratu dute zirkuluaren erdian, eta beste bat aldamen batean goian, **zuhaitz-adar** batetik zintzilik. Xabier Mendiguren Elizegi

Gorazarre eta gorespen artean eta **zuhaitz-adarrak** eskuetan zituztela. Askoren artean

**hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 4 aldiz agertzen direnak)**

**baratzeko zuhaitz** (6); **basoko zuhaitz** (6); **beste zuhaitz** (11); **edozein zuhaitz** (8); **edozein zuhaitz handiren** (4); **hainbat zuhaitz** (4); **ondoko zuhaitz** (4)

**zuhaitz adar** (10); **zuhaitz adar bat** (4); **zuhaitz adarrak** (10); **zuhaitz adarren** (6); **zuhaitz adarretan** (7); **zuhaitz adarrez** (6); **zuhaitz artean** (35); **zuhaitz artetik** (13); **zuhaitz asko** (5); **zuhaitz bana** (5); **zuhaitz banintz** (5); **zuhaitz bat** (74); **zuhaitz bat jo** (10); **zuhaitz batean** (17); **zuhaitz batek** (4); **zuhaitz baten** (106); **zuhaitz baten atzean** (10); **zuhaitz baten azpian** (13); **zuhaitz baten kontra** (8); **zuhaitz baten ondoan** (6); **zuhaitz batera** (11); **zuhaitz batera igo** (5); **zuhaitz batetik** (16); **zuhaitz bati** (15); **zuhaitz batzuen** (8); **zuhaitz batzuk** (13)

**zuhaitz eder** (4); **zuhaitz edo** (7); **zuhaitz enbor** (7); **zuhaitz enborrak** (7); **zuhaitz errasti** (7); **zuhaitz eta** (41); **zuhaitz gainean** (4); **zuhaitz genealogikoa** (9); **zuhaitz gurrutxaga** (13); **zuhaitz guztiak** (17); **zuhaitz guztiek** (6); **zuhaitz guztietatik** (5); **zuhaitz guztietatik jan** (4); **zuhaitz handi** (19); **zuhaitz handiak** (5); **zuhaitz handien** (5); **zuhaitz handiren** (5); **zuhaitz handiren azpian** (5); **zuhaitz haren** (4); **zuhaitz hau** (5); **zuhaitz honen** (4); **zuhaitz hori** (13); **zuhaitz horiek** (4); **zuhaitz horrek** (5); **zuhaitz horren** (13); **zuhaitz hostotsu** (4)

**zuhaitz landatu** (4); **zuhaitz landatzen** (4); **zuhaitz lerden** (4); **zuhaitz luze** (4); **zuhaitz mota** (5); **zuhaitz multzo** (4)

**zuhaitz oso** (4); **zuhaitz sakratua** (4); **zuhaitz sendo** (5); **zuhaitz tantai** (4)

**zuhaitz zahar** (4); **zuhaitzez zuhaitz** (5)

**biziaren zuhaitza** (4); **bizitzaren zuhaitza** (4); **gure zuhaitza** (4); **zuhaitza bezala** (6)

**hango zuhaitzak** (4); **zuhaitzak baino** (5); **zuhaitzak berdeak direlako** (6); **zuhaitzak bota** (7); **zuhaitzak botatzen** (4); **zuhaitzak landatu** (4); **zuhaitzak landatzen** (4); **zuhaitzak moztu** (7)

**zuhaitzaren atzetik** (4); **zuhaitzaren azpian** (6); **zuhaitzaren kontra** (4)

**zuhaitzean gora** (5)

**beste zuhaitzen** (5); **zuhaitzen adar** (10); **zuhaitzen adarrak** (4); **zuhaitzen artean** (49); **zuhaitzen artean desagertu** (4); **zuhaitzen arteko** (6); **zuhaitzen artetik** (14); **zuhaitzen azpian** (12); **zuhaitzen bat** (5); **zuhaitzen egutegian** (4); **zuhaitzen eta** (6); **zuhaitzen gerizpean** (4); **zuhaitzen hosto** (7); **zuhaitzen hostoak** (4); **zuhaitzen pean** (7)

**zuhaitzera igo** (4)

**zuhaitzetako hostoak** (5)

**zuhaitzetan gora** (4)

**zuhaitzetara igo** (4)

**zuhaitzetik jaitsi** (4)

---

zuhaitzadar ik **zuhaitz 7**.

---

## zuhaitzar *iz adar* zuhaitz erraldoia.

**Zuhaitzarrak** traskaildu arren, enbor zartatuak ere gorde nahi zituzten. Pello Zabala

Urte askotan gorde zuten Killuran lizar **zuhaitzar** handi bat, bost lizar sakratu haien oroimen disimulatuan, eta itolarrien kontrako zuhaitza omen zen. Pello Zabala

---

## zuhaitzarte *(orobat* ***zuhaitz-arte****)* *iz* zuhaitzen arteko gunea.

Gero, Sara eta Zugarramurdi arteko mugan, Anttonen benttan, kanpoan bazkaldu ginuen alimaleko harri-mahai baten gainean, iturri eta **zuhaitzarte** fresko baten ondoan. Herria

**Zuhaitz**-arte itxi batetik igarotzen ari zirela, bat-batean geratu egin zen Firenze. Iñaki Mendiguren

Hango mendietan jaiotako errekasto bat besterik ez zen, **zuhaitzarte** batean urmael moduko bat eratzen zuena, eta bertan bainatzen nintzen goizero. Xabier Mendiguren Elizegi

Jendea guti ibiltzen da Zabozen, harri eta **zuhaitzartean** galtzeko arriskua baitago. Herria

---

## zuhaitzeria *iz* zuhaitz multzoa.

Urte batzuetan planta txarra baitu izadiko **zuhaitzeriak**. Pello Zabala

Zainajea lur erosoan duen **zuhaitzeria**, hau bai, hau udazkenak gorritu zuen, mantsoago eta bere garaian. Pello Zabala

---

## zuhaitzondo *(orobat* ***zuhaitz hondo*** *eta* ***zuhaitz ondo****)* **1** *iz* zuhaitzaren hondoa.

Zenbat aldiz ikusia ote nago, mendi muino soilean edo **zuhaitzondo** bakartu baten inguruan, tximistak erretako larregune beztua. Patziku Perurena

Bota zuhaitza eta txikitu! **Zuhaitzondoa**, ostera, utzi lurrean bere erroekin eta lotu burdinazko eta brontzezko kateez zelaiko belarretan. Elizen arteko biblia

**2** zuhaitza.

**Zuhaitzondo** marduletako adarrik adar jauzika zebilena. Jon Alonso

---

**zuhaixka** *(orobat* ***zuhaiska*** *g.er. eta* ***zuhaizka*** *g.er.)* **1** *iz* lurretik gertu adarkatzen den zurezko landare ez oso garaia.

Andromeda landarea, hosto distiratsu eta lore arrosak dituen **zuhaixka** (*pieris japonica*). Ibon Uribarri

Ez zen belarra eta sastraka beste barik, **zuhaixkak** ere bazeuden. Unai Elorriaga

Oihaneko **zuhaixken** eta sasien artean saltaka. Jon Alonso

Artezietan sustraituriko **zuhaixken** enborra baliatzen zen euskarritzat. Juan Garzia

Apirileko eta maiatzeko hilabeteetan, loratzen zirenean, **zuhaixka** haiek beren zurtoin lurrintsuak, beren korola zuriak eta beren mordo txiki urdinak nahasten zituzten. Koro Navarro

Lurra iraultzen, **zuhaixka** bat landatzeko. Eider Rodriguez

47 urteko barakaldoarra **zuhaixkak** mozten ari zela, metro bateko altueratik erori zen atzo eguerdian. Berria - Ekonomia

Parkeko **zuhaixka** gehienak hostorik gabe baitzeuden. Alberto Ladron Arana

Ohitura handia izan da Euskal Herriko baserrietan erromero landare bat edukitzea, **zuhaixka** hori hainbat gaitz sendatzeko erabiltzen baita eta oso maitea da horregatik. J.M. Olaizola "Txiliku"

Biluztu egin zen, arropak kontu handiz tolestuz eta, haiekin fardel bat eginda, **zuhaixka** baten adar artean ezkutatu zuen. Koldo Biguri

**Zuhaixka** honetatik adaxka hau hartuko dugu. Jon Maia

Ayub-ek ondo kimatu ditin bide ertzeko **zuhaixkak**. Iban Zaldua

Ehun bat metro haratago, **zuhaixka** batetik dilindan dagoen zerbait hauteman duzu. Xabier Montoia

Zahatoko ura ahitu zitzaionean, **zuhaixka** baten azpian utzi zuen haurra. Jose Antonio Mujika

Moisesek **zuhaixka** uretara jaurtiki eta ura gezatu egin zen. Elizen arteko biblia

**Zuhaixkak** loretan zeuden aletegiaren atzean. Lopez de Arana

**Zuhaixkez** inguratutako granitozko muino txiki batean. Lopez de Arana

**2** (izenondo eta izenlagunekin)

Barbara Allenen hilobian, herriko hilerrian, txilar bat jaio zen [...] eta denborarekin lore zurixkako **zuhaixka** handi samarra egin zen. J.M. Olaizola "Txiliku"

Bertan geratu ziren hobbitak, **zuhaixka** arantzatsuaren babesean. Agustin Otsoa

Hufflepuffeko Hannah Abbott-ek Herbologiako eskola osoa eman zuen entzun nahi zionari esaten Black **zuhaixka** loretsu ere bihur zitekeela. Iñaki Mendiguren

Behi edo zaldi aterpe zahar baten ondotik, xaradi bat, zernahi **zuhaixka** sistakor elkarri lotuak daudela. Piarres Aintziart

Errepideraino erortzen diren mendi mazelak oihan basa dira, sasi itxiak eta **zuhaixka** moldatu gabeak. Alberto Barandiaren

Mutikoa, belar debekatuan barrena neskei atzetik segika, zuzen-zuzen joan zen irristaka **zuhaixka** soildu baten kontra. Koro Navarro

**Zuhaixka** arreska eta koskor baten atzean ezkutatu ziren. Agustin Otsoa

**3** (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

Hortentsia-**zuhaixka** baten aurrean bilatzen du aitak berea uzteko tokia. Anjel Lertxundi

Gülbaharrek lahar-**zuhaixka** idorretatik egur pila pollita bildu zuen. Fernando Rey

Handik, izan ere, burua isats-**zuhaixka** baten atzean gordeta, ederki menderatzen nuen gure ate aurreko kamioa. Anjel Lertxundi

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
> **zuhaixken artean** (4); **zuhaixken artetik** (4)

---

zuhaizka ik **zuhaixka**.

---

**zuhaizpe** *iz* zuhaitz azpia; zuhaizti azpia.

Jende multzoaren atzealdean jarri ginen, **zuhaizpe** batean. Jon Maia

Ordudanik, maiz ikusi dut haren lagunetako bat, goitik behera beltzez, plazako **zuhaizpe** hartara negar egitera etorria. Joxan Elosegi

Etzan ziren **zuhaizpean**. Iñaki Mendiguren

Altxatu egin nintzen eta **zuhaizpean** ibiltzera behartu ninduen. Patxi Zubizarreta

Bazen arratsaldero joaten ginen promenada eder bat ibaiertzeko **zuhaizpean**. Koldo Izagirre

Urmaelaren ondoan, **zuhaizpeetan** noizbait piztutako su txikien lorratzak ikusi nituen, aspaldikoak. Jon Maia

Txaboletan eta **zuhaizpeetan** lo egin nuen gehienetan. Aitor Arana

**Zuhaizpean** egon nintzen zain, elkarrekin arrantzan aritu ohi ginen leku berean. Mirentxu Larrañaga

---

**zuhaiztar** *izlag* zuhaitzetan bizi dena.

Pedigree [..]: igeritarako puxikaz hornitutako arbaso **zuhaiztar** batetik ondorengo hiritar zigarrodunerainoko bidearen zati ezaguna. Interesatu ez arren, tar-tarrean aritzeko ohitura beren arbaso **zuhaiztarrengandik** jasoa duten pertsonen arteko solasgaia, haiei benetan interesatzen zitzaiena. Xabier Olarra

---

**zuhaizti** **1** *iz* zuhaitzak dauden tokia. ik **arboladi**.

Baso edo **zuhaizti** bat topatu zuten handik mila bitara. Patxi Ezkiaga

Mendi kopeta-ilunek ixten zuten zerumuga, eta **zuhaiztiak** eta baratzetan fruitu-arbolak ikusten ziren. Koro Navarro

**Zuhaiztiaren** erdian zegoen kioskora ere igo ginen. Koro Navarro

Moskuko gaua ederra baita Kremlin inguruko **zuhaiztietan**. Edorta Jimenez

**Zuhaiztia** zeharkaturik, bet-betan kausitu zuen bere burua oihaneko tenplu naearen erdian. Juan Garzia

Mangleez osatutako **zuhaiztia**. Berria - Gaiak

Etxe ondoko **zuhaiztia** gurutzatu, langa atzean utzi, eta zelairantz abiatu ziren bidezidorrean aurrera. Joxemari Urteaga

Kaletik kanpora alde egin hobe dugu noski eta hor inguruko **zuhaiztiren** batean gorde. Patxi Ezkiaga

Jende guztiak begiratzen zidan alkandora odolez blai neramalako, eta urratsa biziagotu nuen komentuaren eta kanposantuaren artean dagoen **zuhaiztian** babesteko, iturria ere bai baitago garbitu ahal izateko. Ramon Saizarbitoria

Zuhaitzek **zuhaiztia** ostentzen dute, bai, egia da, baina **zuhaiztiak** babesa ematen die zuhaitzei. Javi Cillero

**2** (izenondo eta izenlagunekin)

Erretenen inguruan, glazisetan, **zuhaizti** altuak eta erromantikoak daude, sasidiak eta **zuhaizti** txikiak, eta loretxoez zipriztindutako belardi berdeak. Koro Navarro

**Zuhaizti** zabal eta parke handitako ordokian. Berria - Mundua

Enborrek suzirien pare egiten zuten gora, adarrak bihurritzen ziren, korapilatzen, eta mundu bat estaltzen zuten **zuhaizti** zahar baten hostaila bezain arin. Baita hango **zuhaizti** apalean jasotako piku, sagar, udare, eta abar ere. Karlos Zabala

Laranjondo, limoiondo eta mingranondo makatzez betetako **zuhaizti** hostotsu baten erdian geratu zen 404a. Jon Muñoz

Bada muinotxo bat, **zuhaizti** xume batek koroatua. Edorta Jimenez

**Zuhaizti** edo baso alde itzelak dira hemengoak. Edorta Jimenez

Galdetu diodanean Moskova ibaiko ertzean luzatzen den **zuhaizti** ederraz, gizonak erantzun dit New Yorkeko Central Park baino lau-bost aldiz handiagoa dela. Edorta Jimenez

Ghanako **zuhaizti** sakratuen garrantzia ere nabarmendu du dokumentuak. Berria - Gaiak

**3** (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa)

Lorategi hark, gainera, lili- eta intsusa-**zuhaizti** txiki bat zeukan baratzearekin bat egiten zuen lekuan. Koro Navarro

---

# zuhaiztsu *izond* zuhaitz asko dagoena.

Berak gogoko zituen baso eta zelai arteko errepideak: paisaia berdea eta **zuhaiztsua** ederra izateaz gain, oso auto gutxi zebiltzan bertan ostiral arratsalde hartan, eta horrek benetan lasaitzen zuen. Aitor Arana

---

# zuhamu *iz* zuhaitza.

Beste hau ere bai: Xotxetik heldu dira altza, sahatsa eta bertze zonbait **zuhamu** mota. Pello Zabala

---

zuhamuska ik **zuhamuxka**.

---

# zuhamuxka *(orobat **zuhamuska** g.er.) iz* zuhaixka.

Eskolako patioaren barrenean zegoen **zuhamuxka** batean gorde zuen kutxatxoa. Mirentxu Larrañaga

Ume batzuk azaldu zitzaizkigun bidera **zuhamuxken** artetik. Joxe Austin Arrieta

Txikitandik Uruburutarren etxe gorria nuen nik denotan maiteen: zuhatsu, ilun, hamaika **zuhamuxkaren** artean misteriotsu. Txillardegi

Zuhaitzek belarren eta **zuhamuxken** aurka daramaten borroka latza ikusi nuen basoan, lurraren jabe egin nahian. Felipe Juaristi

Mendilerro bihurriak, ordokien gainean zut, gotorleku azkengabe bateko harresi eskerga bailiran, hemen horma-moduko malkar horixkak osatuz, sakongune eta haitzartez josirik, hor biribil-formako konkor berdexkak eratuz, motzondoetan hazitako **zuhamuxka** gazteek estalirik. Jose Morales

---

# zuhandor *iz* zuhaixka abartsua, lore-horia, oso zur idorra duena eta jateko on diren fruituak ematen dituena*(Cornus mas)*.

Lasterka joan zen **zuhandorretik** muxika loratura. Anton Garikano

---

# zuhari *iz*

Adinekoen egoitzan ikasi dut ordea lanbide horretako ofizialeek beren buruari esaten omen diotena: **zuharia**, lurraren astrologoa arabieraz. Koldo Izagirre

Zuk **zuhariari** heltzen diozu barneko morsea hasten zaiolarik joka, eta zirkuitu elektrikoa egiten omen du zure hezurduran, zintzurreraino ekartzen omen bizia. Koldo Izagirre

Adinekoak ez garenon tarifa gehi eskupeko txiki bat utzi dut **zuhariak** egunkarien gainean edukitzen duen saskitxoan. Koldo Izagirre

**Zuhariak** gogoan dauka putz egin zuela norbaitek, eta sotana kedarretan suntsitu zela. Koldo Izagirre

Epai gutxi dago berton; **zuhari** lana aldiz izugarria, aurkikuntzak borborka. Markos Zapiain

---

# zuhaur *(orobat **zihaur** g.er.) izord ipar* zerori.

Hala nola **zuhaur** Nafarroako errege-orde zinelarik, gure andere Ixabel Erregina baketsua Espainiara etortzean egun bateko atsedenaldia ene sortetxean hartu zuelarik, [...]. Piarres Xarriton

-**Zuhaur** ere alegera zarea? gure Erregek arta handirekin irakurtzen ohi ditu ene ihardespen juridikoak, **zuhaurk** dakizun eta beste anitzek aitortzen duten bezala. Piarres Xarriton

Gizonentzat, **zuhaurk** diozunez, desleialtasuna ez baita aldakortasuna. Jon Muñoz

**-Zuhaurk** ere egin dezakezu ihes... -tentatu nuen, ene asmoen bigarren partea agerian jartzen niola. Joan Mari Irigoien

-**Zuhaurek**, eta menturaz **zuhaur** ohartu gabean, eraikia baituzu presondegi bat. Janbattitt Dirassar

Gogoan harturik besteak beste **zuhaurek** berrikitan moldatu bertsuak: [...]. Herria

Bat adoptatu zuen eta **zuhauk** hazi zinuen. Herria

Handik segidan zernahi arrain motaren artetik eta azpitik ibiltzen zira, **zuhauri** iduritzen itsasoaren zolatik behatzen diozutela. Herria

Moneo-rekin ere **zuhauren** sosetik ariko zira, ez bestenetik... Herria

Pentsatzen dut dohain hori anitz gosta zauzula, bainan ez dut pipatzen atxikazu **zuhaurentzat** edo zure adiskidentzat. Marzel Etxehandi

---

# zuhautu lo egin.

Nik irakurri egiten dut apur bat, baina berehala itzaltzen dute duta, eta ezin dut ezer egin **zuhautzeko**. Koldo Izagirre

---

# zuhur 1 *izond* gauzak zentzuz eta neurriz pentsatu edo pisatu artean aritzen ez dena.

Ba ote zegoen jainko bat Herrenkoren barruan, jainko **zuhur** bat, buru-herrenik gabea, Delfoseko orakuluan zegoena bezalakoa? Juan Kruz Igerabide

Bera baino azti zaharrago eta **zuhurragoak** ere engainatu izan ditu lord Voldemortek. Iñaki Mendiguren

Penelope **zuhurrak** honela erantzun zion: [...]. Juan Kruz Igerabide

Gizaki **zuhurrak** aurrez ateratzen omen ditu kontuak halakoetan. Juan Kruz Igerabide

Emakume **zuhurrak** eraiki egiten du etxea. Elizen arteko biblia

Gizon **zuhurra** zen, ez zitzaizkion gehiegikeriak gustatzen. Bernardo Atxaga

Davidek bere osaba Jonatan zuen aholkulari; izan ere, gizon **zuhur** eta ikasia zen. Elizen arteko biblia

Sabinako gotzaina gizon **zuhur** eta zentzuduna zenez, gauza askori buruz galdetu zion. Askoren artean

Jakizue luzaro gabe gizon jakintsu, **zuhur** eta noble asko etorriko direla guregana eta gurekin biziko direla. Askoren artean

Neska **zuhurra** eta kementsua da, eta oso polita.

Seme **zuhurrak** aitari poz ematen, seme zentzugabeak ama mesprezatzen. Elizen arteko biblia

Politiko **zuhur** bat da: inmoralista, alegia. Joxe Azurmendi

Frantziskok, etxegile **zuhur** izaki, etxea harkaitz sendoaren gainean eraiki zuen, hau da, Jainkoaren Semearen apaltasun eta pobretasun txit gorenaren gainean. Askoren artean

Bere atsekabea adiskide ezti eta orobat **zuhur** baten altzoan isurtzeko premian da. Jon Muñoz

Jende sail bat kide **zuhurrena** bezain zuhurra da, hari obeditzen badio; bestela, ez da haietako eroena baino **zuhurrago**. Xabier Olarra

Merkatari **zuhur** bezala, aurkitutako harribitxia sinesgaitzen begietatik ezkutatzen zuen eta, bere gauza guztiak salduz, hura erosi nahi zuen isilpean. Askoren artean

Beldur pixka bat ematen didate pertsona **zuhur** patxadatsuek, gauzak hausnartu eta astiro hitz egiten dute eta egin behar dutena egiten dute beti, beren buruari jarritako mugetatik atera gabe. Karlos Zabala

Xabierrek, eroetan **zuhurrena** edo, bereari eusten dio. Edorta Jimenez

Badakik zer dioen erran zahar-**zuhurrak**: bakoizari berea, zuzenbidea. Joan Mari Irigoien

**2** (gauzez mintzatuz)

Korbata serio, **zuhur**, zurrun, hotz, formalak dibertigarri egin ditu. Berria - Kultura

Mikroan mintzo zen laborantzako teknikariak, prezioen haustea ele **zuhur** eta apurrez aipatzen zuen. Itxaro Borda

Begirada serio, **zuhur** eta adeitsuz. Urtzi Urrutikoetxea

Mikroan mintzo zen laborantzako teknikariak, prezioen haustea ele **zuhur** eta apurrez aipatzen zuen. Itxaro Borda

Honatx Axularren hitz **zuhurrak**: [...]. Gotzon Garate

Lurraren bazter batetik besteraino ez da honek bezain aurpegi ederra duen emakumerik, ez eta honelako hitz **zuhurrik** esango duenik ere. Elizen arteko biblia

Hurrengo goizean, Jainkoaren morroiak anaiak bildu eta gauean gertatua kontatu zien, aholku **zuhur** hau emanez: [...]. Askoren artean

Zein aholku egoki eta **zuhurrak** ematen dizkion lagun hurkoari bizitzako egoera larrietan! Jose Morales

Anaien zauriak argibide **zuhurren** sendagaiez lotzen zituen. Askoren artean

Mintzairaren filosofiari buruzko ohar **zuhurra**. Xabier Kintana

Tenore berean ematen dio nire txartel bat, ez ordea nik izkiriatua, nire arau **zuhurrari** jarraiki. Jon Muñoz

Erantzun guztiz **zuhurra** zurea. Imanol Unzurrunzaga

Gestio **zuhur** baten premia. Anjel Lertxundi

Ironia erremedio **zuhurragoa** da minaren kontra, kinina sukarraren kontra baino. Patziku Perurena

Bekaizkerian ere naretasun **zuhur** bati eusten zion, eta ez zuen arduragabekeriarik edo okerrik egiten. Patxi Zubizarreta

Nola baitaramazu bizimolde **zuhur** eta landara bazterreratua, eskandaluzko abentura horiek ez dira zuganaino heltzen. Jon Muñoz

«Baikortasun **zuhurra**» du OCDEk Eurogunearen hazkundearekin. Berria - Ekonomia

IAEA presio diplomatiko **zuhurra** egiten ari zaio Irani, bere programa nuklearra garden bihur dezan. Berria - Harian

Damu dinat arreta **zuhurragoz** ez erreparatu izana. Juan Garzia

Hansen Citröena hartuta, tarte **zuhur** bat utzita jarraitu zieten. Alberto Ladron Arana

Tarte **zuhur** bat pasa arte ez zen sartu detektibea. Migel Angel Mintegi

Irakaspen ederra, gizakion arteko adiskidantza **zuhur** baterako, bi aberek hartzen duten jarrera hori. Patziku Perurena

Arrazoi honengatik, gobernu **zuhurrek** ez dute onartzen lan eta industria alorrean nagitasun politikorik. Juan Martin Elexpuru

**3** (predikatu gisa)

Heldugabeok, ikasi **zuhurrak** izaten; zentzubakook, ikasi burutsuak izaten. Elizen arteko biblia

Ez da gerra zibila piztuko, irakiarrak **zuhurrak** direlako. Berria - Harian

Jokabide hori **zuhurra** ala ergela zen pentsatu gabe. Jose Morales

Zapateroren diskurtsoa **zuhurra**, neurtua eta ia defentsiboa izan zen. Berria - Harian

Ezin hobeki erabili zituela bai bihotzaren eta arimaren jaidurei buruz zuen jakintasuna, **zuhurra** eta zorrotza. Joan Mari Irigoien

Ganberaburuak ezin zuen inola ere ulertu nolatan Txitxikovek, joko horretan hain ona eta **zuhurra** izanik, horrelako hutsak egiten zituen. Jose Morales

Portaeran gozoa, izaeraz lasaia, hitzetan atsegina, aholku ematen burutsua, hitzemana betetzen leiala, kontseilu ematen **zuhurra**, zereginetan eraginkorra, gauza guztietan onginahiz betea. Askoren artean

Haren ametsak **zuhur** ziren, kamuts ziren, gauzagarri, errealitateari hurbil, ez erromantiko, kosmiko. Juan Garzia

-Ez da batere **zuhurra** -erran zuen azkenean Del Vallek, bere amorrua nekez irentsiz. Alberto Ladron Arana

Pentsatzekoa da, bestalde, **zuhurra** eta trebea zela oso, eraikinak prestatzeko orduan. Santiago Iruretagoiena

Herrialde honetako usadioa oso **zuhurra** da: tratulariak ez dira nobleak, baina noble bihur daitezke. Iñaki Iñurrieta

Behar bezain **zuhur** eta argi bagina, gezurra bilatuko genuke beti, egiaren zamarik ezagutzen ez duen haurraren gisan. Patziku Perurena

Izan zaitezte sugeak bezain **zuhur**. Joan Mari Lekuona

Ez dugu izan behar giza erara jakintsu eta **zuhur**; alderantziz, xalo, apal eta garbi behar dugu izan. Askoren artean

Harroputza zigortzean, **zuhur** bihurtzen da heldugabea, eta zuhurrari dagokion heziketaz lortzen du jakintza. Elizen arteko biblia

Arriskuak **zuhur** bilakatzen du ahoberoena ere. Aingeru Epaltza

Hauteskunde Batzordeak hartu duen erabakiari **zuhurra** deritzot. Berria - Mundua

Inoren zuhurtziagatik ez da gizakia **zuhur** egiten, ez eta indartsu inoren indarragatik. Imanol Unzurrunzaga

Eutanasia pediatrikoa berehala arautzea gehiegi izango zela eta giroa baretu arte itxoitea **zuhurrago** izango zela. Berria - Gaiak

-Honetaraz gero, Joxemai, **zuhurrena** hau izango duk: gure artean Santakrutzi buruz ez hitz egitea. Txillardegi

Zigorraren bidez **zuhurrago** egina, luzatu gabe bete zuen bere promesa. Askoren artean

Mihiari eusten dakiena, hori bai **zuhurra**! Elizen arteko biblia

**Zuhurra** jarrera, zeren iritzia ematen duenak hanka sar baitezake, eta irakasle batek ez baitu hanka sartu behar. Juan Garzia

Halako batean, liburutegitik kanpokoak eramangaitz bihurturik, etsiko zuen bere baratzetxoa lantzea zuela egitekorik **zuhurrena**. Iñaki Iñurrieta

Orain badaki gauzak esateko modurik zakarrenak direla zenbaitetan **zuhurrenak**. Imanol Zurutuza

Akats bat bilatzen nion haren azalpenari: **zuhurregia** zen egia izateko. Pedro Alberdi

**4** (adizlagun gisa) ik **zuhurki**.

Joka ezazue **zuhur** kristau ez direnekin, une egokiez baliatuz. Elizen arteko biblia

**Zuhur** jokatu nahi dut, lehen 30en artean sartzea ondo legoke. Berria - Kirola

Krakaxek oso-oso **zuhur** jokatuko zuela agindu zuen. Koro Navarro

Erresuma Batuko lehen ministro Tony Blair **zuhur** agertu zen atzo: «Oraindik goiz da gurean erreferenduma egin edo ez erabakitzeko». Berria - Harian

**Zuhur** epaitzen duena buru-argitzat har daiteke. Elizen arteko biblia

**Zuhur** nenbilen, zerbait berezi esan nahi zidala sumatzen nuen. Bernardo Atxaga

Baina **zuhur** ibili, mundua putakumez beteta dago eta. Migel Angel Mintegi

Hitza **zuhur** zerabilten. Itxaro Borda

Ezagutu izan ditut gai batean salbu gainerako guztietan adimentsu, argi, **zuhur** jarraitzen zutenak. Josu Zabaleta

Ramon Etxebestek **zuhur** hitz egin zuen atzo, eta azpimarratu zuen argi dagoen gauza bakarra dela hildako gazteak bere buruari eman ziola su eta erre egin zela. Berria - Euskal Herria

Luis Prieto eta Pablo Orbaiz **zuhur** mintzatu ziren atzo prentsa aretoan. Berria - Kirola

Nahiz argi ageri den erresuma hori eta horren historia ezagutzen dutenen arabera, labur eta **zuhur** mintzo naizela. Piarres Xarriton

Zintzo eta eskuzabal jokatzen baduzue nirekin, zintzo eta **zuhur** arituko naiz neu ere. Migel Angel Mintegi

"Uste dut jende askok pentsatzen duela hori", esan nion **zuhur**. Bernardo Atxaga

Tzalerengana **zuhur** hurbildurik eta albo-alboan zuela, egundoko bielakada eman zion kopeta erdian. Josetxo Azkona

Eta horra non aitagaiak, katua bezain **zuhur** begi baten ertzetik ingurua arakatu eta, jabearen arrastorik ez zegoela ikusiz gero, itsumustuan hartzen zuen eskueran zuen guztia. Jose Morales

Batak besteari begiratu zioten hirurek, **zuhur** antzean. Karlos Zabala

Parlamentuak, oso **zuhur**, zoroen eritetxean sartzera zigortu zuen. Juan Martin Elexpuru

Itxaropen mezua zabaldu behar dugu, baina **zuhur**. Berria - Mundua

**Zuhur** eta ezkor samar. Berria - Mundua

**5** (izen gisa)

Bai, zigor-egunean [...] galdu egingo ditut Edomgo jakintsuak, Esauren lurraldeko **zuhurrak**. Elizen arteko biblia

**Zuhurrek** ohorea berenganatuko dute; zentzugabeek, ordea, iraina. Elizen arteko biblia

Txoroak berehala agertzen du bere haserrea, **zuhurrak** isilean gordetzen iraina. Elizen arteko biblia

**Zuhurrari** aholku eman eta zuhurrago bihurtuko da, zintzoari irakatsi eta gehiago ikasiko du. Elizen arteko biblia

Berritsuen mihia ezpata zorrotza, **zuhurrena** osasunbidea. Elizen arteko biblia

Hobe **zuhur** baten zuzenarazpena, tentel baten goraipamena baino. Elizen arteko biblia

Barnetik bizi ninduen **zuhurrak** kontuz ibiltzeko esaten bazidan ere, [...]. Joan Mari Irigoien

-Ulises, Laertesen seme, **zuhurretan zuhur**, ¿zertara hoa heure herrira horrenbesteko presaz? Juan Kruz Igerabide

Ulises, hire aita, beste guztiok baino bizkorragoa zuan, **zuhurraren zuhurrez**. Juan Kruz Igerabide

**6** xuhurra.

Moliereren **Zuhurra** obra objektuen bitartez antzeztuko dute 21ean Canetan. Berria - Kultura

· Zenbait leku euskarazkotan, "laguntzen dizut nahigabean" eta holakoak esan beharrean, "etsi!" soila esan ohi da edo zen, motxean eta **zuhurrean**. Iñaki Segurola

**7** *merke zuhurrean* ik **merke 11.**

**8** ***zuhur-hitz*** *(orobat **zuhurritz** g.er. eta **zuhurtitz** g.er.)*

Latinezko *Quid leges, sine moribus* **zuhur-hitz** labur horretan aita Woronieckik aurkitzen zuen Estatuaren eta Nazioaren arteko eztabaidatik ateratzeko abiabururik ziurrena. Piarres Xarriton

*Nondik ere kea heldu baita, han sua bada,* dio aspaldiko **zuhur hitzak**. Michel Oronoz

Abbadia jauregiko gela guzietan erresuma desberdinetako mintzairetan erabiliak diren **zuhur-hitzak** edo erran-zaharrak aurkitzen baitira. Herria

Esaera zahar eta **zuhur-hitzak** ulertarazten dituzte, bai eta atsotitzak eta asmakizunak ere. Elizen arteko biblia

Aste oroz, erran-zahar edo **zuhur-hitz** batek loratzen du kaseta hau. Herria

Ezin da elbarria bere zangoez baliatu, ez eta zentzugabea ere **zuhur-hitzez**. Elizen arteko biblia

Pentsatzekoa da Zuzendaritzak men egiten diola harako **zuhur-hitz** burutsuaren aholkuari, alegia on dela arteak eta zientziak ez daitezen neurriz gaindi susta. Juan Garzia

Nork esan zuen zahar hitz, **zuhur hitz**? J.M. Olaizola "Txiliku"

Nireak ez dira **zuhur hitzak**, zalantza hitzak baizik. Berria - Kultura

Hainbat barrenago zaurtzen naute ordea salaketa horiek eta horien berme darabiltzaten argudioek, non ez baitezaket horiei deus ihardets, ene burua eta ene etxekoak goretsiz baizik, nahiz **Zuhurtitzen** liburuak 27an dioen: Goraipa hezala beste batek eta ez heure mihiak! Piarres Xarriton

**hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**

**aholku zuhur** (3); **argi eta zuhur** (3); **bala zuhur** (3); **beti zuhur** (4); **bezain zuhur** (12); **emakume zuhur** (3); **gizon zuhur** (14); **gizon zuhur bezala** (3); **hain zuhur** (11); **inguruan zuhur** (3); **oso zuhur** (13); **oso zuhur jokatu** (3); **pertsona zuhur** (4); **sugeak bezain zuhur** (4)

**zuhur ageri** (4); **zuhur agertu** (16); **zuhur agertu da** (4); **zuhur agertu zen** (6); **zuhur antzean** (3); **zuhur ari** (4); **zuhur aritu** (8); **zuhur aritzeko** (3); **zuhur bihurtzen** (5); **zuhur dago** (4)

**zuhur eta arduratsu** (3); **zuhur eta jakintsua** (3); **zuhur eta usoak** (3); **zuhur eta uzkur** (3); **zuhur eta zintzo** (3); **zuhur hartu** (8); **zuhur hartu behar** (3); **zuhur hitz** (14); **zuhur hitza** (4); **zuhur hitzak** (5)

**zuhur ibili** (11); **zuhur ibiltzeko** (3); **zuhur izan** (4); **zuhur izatea** (3); **zuhur jokatu** (60); **zuhur jokatu behar** (21); **zuhur jokatu beharra** (5); **zuhur jokatu du** (3); **zuhur jokatu nahi** (10); **zuhur jokatu zuen** (6); **zuhur jokatuko** (6); **zuhur jokatzea** (12); **zuhur jokatzeko** (20); **zuhur jokatzeko eskatu** (10); **zuhur jokatzen** (9); **zuhur mintzatu** (16); **zuhur mintzatu da** (5); **zuhur mintzatu zen** (6); **zuhur mintzo** (7); **zuhur mintzo da** (4)

**zuhur samar** (3)

**bezain zuhurra** (6); **emakume zuhurra** (5); **erabaki zuhurra** (3); **gauza zuhurra** (4); **gizon zuhurra** (12); **guztiz zuhurra** (5); **hain zuhurra** (3); **itxaropen zuhurra** (4); **izan zaitez zuhurra** (4); **jarrera zuhurra** (3); **jokabide zuhurra** (7); **neska zuhurra** (3); **oso zuhurra** (10); **oso zuhurra da** (4); **penelope zuhurra** (3); **pertsona zuhurra** (3); **prestua eta zuhurra** (3)

**zuhurra bazara** (5); **zuhurra behar** (5); **zuhurra behar du** (3); **zuhurra da** (22); **zuhurra dela** (3); **zuhurra egin** (4); **zuhurra izan** (21); **zuhurra izan behar** (4); **zuhurra izango** (6); **zuhurra izatea** (3); **zuhurra izateko** (4); **zuhurra izaten** (3); **zuhurra ote** (4); **zuhurra zela** (4); **zuhurra zen** (9); **zuzena eta zuhurra** (3)

**askoz zuhurrago** (4); **baino zuhurrago** (18); **baino zuhurrago ibili** (4); **zuhurrago aritu** (3); **zuhurrago egiten** (3); **zuhurrago ibili** (7); **zuhurrago iruditu** (3); **zuhurrago jokatu** (6); **zuhurrago jokatu behar** (3); **zuhurrago jokatzen** (3)

**zuhurragoa da** (3); **zuhurragoa dela** (4); **zuhurragoa izan** (4); **zuhurragoa zen** (3)

**baino zuhurragoak** (3); **zuhurragoak dira** (3)

**aholku zuhurrak** (4); **bezain zuhurrak** (4); **gizon zuhurrak** (5); **hitz zuhurrak** (4); **oso zuhurrak** (6); **seme zuhurrak** (3); **ulises zuhurrak** (8); **zuhurrak dira** (6); **zuhurrak honela erantzun** (4); **zuhurrak izan** (11); **zuhurrak izan behar** (4); **zuhurrak izateko** (3)

**gizon zuhurraren** (3)

**gizon zuhurrari** (4)

**merke zuhurrean** (3)

**eder eta zuhurrena** (3)

---

# zuhurgabe *izond/iz* zuhurtziarik ez duena. ik **zuhurtziagabe.**

-Eta hiri, gizagaixo sarkin **zuhurgabe** ergel hori, adio sekulako. Juan Garzia

Haien istoriorik onenak zigorra jaso duten **zuhurgabeei** eta originalei buruzkoak dira. Monika Etxebarria

Berdintsu eta orobatsu gertatzen baitzen tigre harekin, zeinak baitzirudien ezen, begietan su hotz bat zuela, aitzinean zuen etsaia edo ikusle **zuhurgabea** noiznahi errauts zezakeena. Joan Mari Irigoien

Emiliok laboratorioa gurasoen etxe barruan antolatzeko baimena lortua zuen haiengandik, jende errukitsu, **zuhurgabe** eta bihotz-zabala baitziren. Juan Garzia

Esan orduko damutu zen, bai baitzekien barne-barnetik jalgi zitzaizkiola hitz ausart bezain **zuhurgabe** haiek. Joan Mari Irigoien

Nirekiko daukat behin pentsatu zuela, eta une hartan kolokan egon zela haren asmo **zuhurgabea**. Juan Garzia

Gero printzipio **zuhurgabe** hori gainerako zenbakiei aplikatuz joan zen. Juan Garzia

Ibarrera jaistea deserosoa zen, eta niretzat orobat **zuhurgabea**. Juan Garzia

---

## zuhurgabekeria *iz* zuhurgabetasuna gaitzesgarria; egintza zuhurgabea. ik **zuhurtziagabekeria**.

Halakoen **zuhurgabekeriek** haren balio-gutxitze halako bat eragiten dute. Juan Garzia

Dena dela, anamnesia -hots, agure xaharraren susmoak- kontuan harturik, **zuhurgabekeria** izango zen azukre hura horrela itsu-itsuan kontsumitzea, baita soil-soilik dastatzea ere. Juan Garzia

Formalitate ezeroso eta **zuhurgabekeriazkoek** kreditua desgogara jartzen dute, iruzurrak baztertu gabe; estutu egiten dute, babesa eman beharrean. Andres Urrutia

---

## zuhurgabetasun *iz* zuhurtziarik eza. ik **zuhurtziagabetasun**.

Tomek **zuhurgabetasunez** huts egin zuen prestakizun-lanari ekin nion: ereserkiak eta laudoriozko hitzaldiak, goraipamenezko klake-dantza, Pamelaren amultsutasun gogoangarriaren laudorio luze-luzea. Oskar Arana

---

## zuhurgabezia *iz* zuhurgabetasuna.

Eta moralistak ere hortxe, gehientsuenak behintzat **zuhurgabeziaren** xaxatzaile. Joxe Austin Arrieta

---

## zuhurkeria *iz* zikoizkeria. ik **xuhurkeria**.

Beobidek azaldu duenez, antzerkigile gipuzkoarrak euskararen mundura ekarri ditu zazpi bekatu nagusiak amorrua, lizunkeria, **zuhurkeria**, bekaizkeria, nagikeria, hantustea eta tripazainkeria, «ikusleari egunerokoan euskararen inguruan sortzen diren hainbat egoera bitxi eta batzuetan larri aurkezteko». Berria - Kultura

Zikoizkeria, lukurreria eta **zuhurkeria** gure jainko izaten jarraituko dute oraindik ere pixka baterako. Iñaki Heras

Nik bere zabarkeria edo bihurrikeria astintzen ditudala eta, **zuhurkeriaz** egiten dudala dio, zor diodan soldata ez pagatzeagatik alegia. Patxi Ezkiaga

Sekta txikienetako batzuek ez dute sakramenturik batere... eta **zuhurkeria** horrek erremediorik gabe kondenatzera eramango ditu. Xabier Olarra

Zenbait arrantzale **zuhurkerian** ibiltzen dira zizareekin; oker. Itziar Otegi

"Dotorezia hau guztia, gero paper-**zuhurkeria** nabarmentzeko", pasatu zitzaidan burutik. Anjel Lertxundi

---

## zuhurki *adlag* zuhurtasunez. ik **zuhur 4**.

"Zu pozik zaude, ezta David?" "Bai eta ez", erantzun nuen **zuhurki**. Bernardo Atxaga

Gartsuki mintzo daitezke, baina ez **zuhurki**. Piarres Xarriton

Rufusek jarraitu egin zion, baina emeki, **zuhurki**, ia-ia beldurrez paralizaturik. Oskar Arana

Industriari eraginez, trebezia sarituz, eta Naturak emandako ahalmenak eraginkortasun handienarekin erabiliz, lana zuzenkiago eta **zuhurkiago** banatzen da. Iñaki Heras

Hobe zen **zuhurki** jokatzea, alemanek jendearen mintzarazteko teknikak baitzituzten. Eneko Bidegain

Misterio sakratuekin zeureganatu duzun fedeari tinko eta **zuhurki** eutsi diezaiozula eta bizimodu eta ohitura horien jagole iraun dezazula etengabe. Imanol Unzurrunzaga

Lan-gabeziaren kontrako ANPE erakundea ez dela batere **zuhurki** ari, bere kudeantzarentzat gero eta gehiago xahutzen omen baitu behar handirik gabe. Herria

Munk-ek **zuhurki** azpimarratzen duenez, hitzak argitzean, egileak horien adiera filosofikoak azaltzea du xede. Xabier Kintana

**Zuhurki** aukeratu duzu, zein eta huraxe, gehiena komeni zaizuna delako eta daitekeen ederrena. Iñaki Segurola

Beraz, erabat berdin izan behar zaizue esatea: "Jainkoak **zuhurki** horrela nahi izan du" edo "izadiak **zuhurki** ordenatu du". Ibon Uribarri

Legeak **zuhurki** errespetatuz geroz lohi horien irriskuak kasik zero heinekoak direla. Herria

Sarean **zuhurki** nabigatzeko aholkuak. Askoren artean

Philomène eta Dominique, bi lore ihartu, igandeko arropa berriegiak soinean, mugitu gabe zeuden, isil-isila hango harat-honatei beren abantzu ehun urteetarik **zuhurki** beha. Aurelia Arkotxa

Zorionekoa [...] esan eta erantzun beharrekoak **zuhurki** neurtzen dituena! Askoren artean

Egunsentiarekin batera Nevaren ertzeko basotxo edo lorategi batean elkartu ziren -**zuhurki**, inolako zalapartarik gabe-. J.M. Olaizola "Txiliku"

Euskal Herriarentzat konponbide justu eta iraunkor baten alde zintzotasunez eta **zuhurki** (baina sekretismorik gabe) lanean jarraitzeko konpromisoa berresten du. Berria - Harian

**Zuhurki** eta zentzuz erabiltzeko hamaika aldiz errepikatzen baziguten ere, [...]. Txillardegi

Han bi ikaskizun astinduko lirateke [...] aurrenekoa, *ez dakit* esaten ikastea, eta ondoren *zer da?* **zuhurki** eta zorrozki galdetzen ikastea. Iñaki Segurola

Hortaz zerbait badakit -erantzun zion, **zuhurki**. Elena Touyarou

Haritik azkarregi tiratzeko gogoari eutsi nion **zuhurki**. Ramon Saizarbitoria

**Zuhurki** baikorrak izango gara. Berria - Harian

Sartu eta zoko-moko guztiak behatzen zituen, ahalik eta **zuhurkien** nabarmen ez gelditzeko. Migel Angel Mintegi

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
> **zuhurki erabiltzen** (3); **zuhurki jokatzea** (5); **zuhurki jokatzen** (6)

---

## zuhurrarazi, zuhurraraz, zuhurrarazten du *ad* zuhurtzera behartu.

Jaunaren hitza ezin hobea: gizakia arnasberritzen du; Jaunaren manamendua fidagarria: heldugabea **zuhurrarazten** du. Elizen arteko biblia

---

## zuhurritz ik **zuhur 8**.

---

## zuhurtasun *(283 agerraldi, 70 liburu eta 67 artikulutan)* **1** *iz* zuhurtzia.

Eman diezazkizula Jaunak **zuhurtasuna** eta buru-argitasuna. Elizen arteko biblia

Ikasi non dagoen **zuhurtasuna**, non indarra eta zentzu ona, eta jakingo duzu non dauden bizitza luzea eta benetako bizia, non aurkitzen diren gidatuko zaituzten argia eta bakea. Elizen arteko biblia

Ongi homerikoaren barruan **zuhurtasuna**, ausardia, oldarkortasuna, bortizkeria eta, oro har, gorentasun aristokratikoari dagozkion ezaugarri guztiak sartzen baitira.

Askoren artean

Une zail hauetan, lasaitasuna eta **zuhurtasuna** behar dira. Berria - Kirola

-Dirua eta **zuhurtasuna** duen gizonak oraintxe du nahi adina sos irabazteko tenorea. Lopez de Arana

Ausarkeria **zuhurtasunarekin** behar zuen leundu. Koro Navarro

Nik uste beranduenik hirugarren egunerako itzuliko ginela, eta ez beldurrarengatik, **zuhurtasunarengatik** baizik. Joxe Austin Arrieta

**Zuhurtasuna** azken orduko presa baino kontseilari hobea omen. Joan Mari Irigoien

Jakintza ziurtasuna da, buruiritziaren ziurtasuna, baina ez da **zuhurtasuna**. Iñaki Segurola

Jokoak gutxi falta du bukatzeko, urduritasuna da nagusi, **zuhurtasuna** baino handiagoa da, beldurra baino ausartagoa. Antton Olano

-Eta zer esaten dizu **zuhurtasunak**? Agustin Otsoa

Autoan patxada izaten dut arau, ez **zuhurtasunak** bulkatuta, izaerak baizik. Aingeru Epaltza

**Zuhurtasunak** eskatzen zuena barik gogoak ematen zidana egin nuen. Edorta Jimenez

Kritika zorrotz baina zuzen baten **zuhurtasunak** soilik libra gaitzake itxurapen dogmatiko hauetatik. Ibon Uribarri

**Zuhurtasunak**, ordea, huts egin zion azkenik: arriskua etengabe handitzen ari zela ikusita, harriari so egin ziola uste dut, eta hark engainatu egin zuela. Agustin Otsoa

Etxeko alabak, **zuhurtasunaren** arauak ahaztuta, baserrian nengoela kontatu zion. Rafa Egiguren

Ez dezatela usoaren xalotasuna sugearen **zuhurtasunetik** banandu. Askoren artean

Gorputzari zor zaiona **zuhurtasunik** gabe ukatzea. Askoren artean

Hire hitzak ederrak dituk eta **zuhurtasunez** beteak. Juan Kruz Igerabide

*ik beherago* 5. Askoren artean

## **2** (izenondo eta izenlagunekin)

Non dira, bada, aita, zure eskuzabaltasuna, non zure gupida eta **zuhurtasun** bikaina? Askoren artean

Santutasun eta **zuhurtasun** handiko gizona zen hau. Askoren artean

Jaun Bernardo zuen izena eta **zuhurtasun** harrigarrikoa eta lurreko ondasunetan oso aberatsa zen. Askoren artean

Lagunek, **zuhurtasun** handiz, begiak saihesten zituzten, hark edozein premiagatik eskuak edo oinak agerian jartzen zituenean. Askoren artean

**Zuhurtasun** osoz eta ahalik eta isilen jaitsi nituen eskailerak. Anjel Lertxundi

Barneko sua ez da **zuhurtasun** hutsez itzaltzen. J.M. Olaizola "Txiliku"

Unean unekoa besterik ikusten ez duen **zuhurtasun** beldurtia. Juan Martin Elexpuru

Ausardia hausnargabea balio bilakatu zen; **zuhurtasun** neurtua, koldarkeria; neurria, gizontasunik eza; buru-argitasuna, ekintza ekiditeko amarru; azkartasun eroa, gizontasun; doitasuna, arriskuak ekiditeko bide. Askoren artean

Gauza horietan ezinbestekoak izaten dira **zuhurtasun** arduratsua eta buru argiarekin pentsatzea. Santiago Iruretagoiena

Zeren, bada **zuhurtasun** zehatz bat bidegabekeriara daramana, bai eta maltzurkeriaz jokatzen duena zuzen-itxurak egiteko ere. Elizen arteko biblia

Gure zeregina adimenak **zuhurtasun** kritiko honen arabera benetan a priori sortzen dituen judizioak lotura sistematikoan aurkeztea da, Adostasunik eza dotrinarekin eta **zuhurtasun** politikoarekin lotuta dagoenean. Ibon Uribarri

Batak aparteko **zuhurtasuna** zuen, besteak berezibiko pazientzia. Askoren artean

Kontrako norabidean, kemen gehiegi izateak **zuhurtasunik** eza, arduragabekeria eragin ditzake. Askoren artean

## **3** (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

Erabakia azkarregia eta **zuhurtasun** irizpidearen aurkakoa da. Berria - Euskal Herria

Halaber, EAEko lehendakariak berak sinatutako **Zuhurtasun** Printzipioa ere urratzen da. Berria - Euskal Herria

Alde batera utzi baitituzte beren usadiozko eginkizunei lotutako **zuhurtasun**-arauak eta jarduera arriskutsuagoak jarri dituzte abian. Koro Navarro

**Zuhurtasun** neurriak hartuta. Berria - Ekonomia

Ez da zigorra, Hagrid, **zuhurtasun**-kontua baizik. Iñaki Mendiguren

Galdu egin ziren **zuhurtasun** faltaz, zentzu onik ez zutelako galdu. Elizen arteko biblia

Berehala definitzera eta adigaien determinazioan osotasuna eta zehaztasuna saiatzera edo hori uste izatera ez ausartzeko **zuhurtasun**-erregela garrantzitsua. Ibon Uribarri

**Zuhurtasun** eta itxaropen hitzak. Berria - Harian

## **4** (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa)

Bere inurri-**zuhurtasunarekin**, diru kopuru bakoitzarekin zenbat plazer lor zitekeen kalkulatzen zuen. Josu Zabaleta

## **5** ***zuhurtasunez*** *adlag*

Horretarako, «**zuhurtasunez**, erantzukizunez eta elkarrizketa zintzoaren eta adostasunaren bidetik» jokatzeko eskatu zien. "Gauza berriren batean ari al zara lanean?" galdetzen dio **zuhurtasunez**. Berria - Euskal Herria

Galderari **zuhurtasunez** erantzun behar diola. Pako Aristi

**Zuhurtasunez** arituko direla gaineratu zuen. Berria - Mundua

Jainkoaren zerbitzariak kontu egin behar du bere gorputzari behar duena **zuhurtasunez** emateko, jatean, lo egitean eta gorputzeko beste premiak asetzean. Askoren artean

Neure gogoko buruzagiak emango dizkizuet, jakinduriaz eta **zuhurtasunez** gidatuko zaituztenak. Elizen arteko biblia

## **6** ***zuhurtasunezko*** *izlag*

Hasieran **zuhurtasunezko** tartea gordetzen bazuten ere, ikusleak ugaritu ahala, elkarren arteko babesean ausarturik, kalesara hurbiltzen hasi ziren gero eta adoretsu eta kalapitatsuago. Anjel Lertxundi

Lehengo gau hartan elkarrekin hitz egin ostean, erabaki nuen **zuhurtasunezko** neurri batzuk hartu behar nituela. Oskar Arana

Nork ezarriko du jagolea nire ahoan eta **zuhurtasunezko** zigilua ezpainetan, ez nazaten neure hitzek eroraraz eta mihiak galbidean jar? Elizen arteko biblia

**hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**

**zuhurtasun handiz** (11); **zuhurtasun osoz** (6); **zuhurtasun printzipioa** (3); **zuhurtasun printzipioaren** (4)

**zuhurtasuna eskatu** (4); **zuhurtasuna eskatu zuen** (3)

**zuhurtasunez beteak** (4); **zuhurtasunez jokatu** (6); **zuhurtasunez jokatu behar** (3); **zuhurtasunez jokatuko** (3); **zuhurtasunez mintzatu** (3)

**zuhurtasunezko neurri** (3)

**zuhurtasunik gabe** (5); **zuhurtasunik gabeko** (3)

---

# zuhurtitz ik **zuhur 8**.

---

# **zuhurtze** *iz* zuhur bihurtzea.

Ez dugu sekulan aski errepikatuko **zuhurtze** zorrotzena ekarri behar dela egun hautan hor gaindi. Herria

Ardurenik bere biziko 40 urtetarat delarik heltzen jendea, adimendu **zuhurtze**, gizontasunaren jabe parte egiten da. Herria

**zuhurtzia** *(777 agerraldi, 139 liburu eta 224 artikulutan)* **1** *iz* zuhurra denaren nolakotasuna; aritzeko neurritasun eta zentzua. ik **zuhurtasun**.

Argi honek berak argitu behar luke baita ere ohitura-bertuteen praktika, hala nola **zuhurtzia**, justizia, sendotasuna eta neurritasuna, bertute nagusiak deiturikoak. Joan Mari Lekuona

Luzaz ari izan nintzen, **zuhurtziari**, apaltasunari eta diskrezioari zor zaiena baino luzeago noski. Aingeru Epaltza

Beldurra, ergelkeria edo akidura besterik ez denari **zuhurtzia**, zorroztasuna edo neurtasuna deituz. Patziku Perurena

Atsoa orduan harri eta zur geratu zen emakumearen **zuhurtzia** eta argitasuna ikusirik. Patxi Zubizarreta

Kontsumoa gozamena omen da, eta aurrezkia, berriz, **zuhurtzia**. Iñaki Heras

Hainbestetan aipatu genion juduen **zuhurtzia**, non, **zuhurtziatzat** edukiko baitzuen, eduki, bere ausardia. Josu Zabaleta

Hausnar ezazu orain ea zure ustez **zuhurtzia** ez ote den gutiziatu edota ekidin behar diren gauzen ezagutza. Imanol Unzurrunzaga

Emeki-emeki bertute premiatsuak zein diren ikusten dugu: lehenik, **zuhurtzia** eta zientzia, biak batera *sophia* direlako. Askoren artean

Ez zuen beldur aztarrenik ttikiena ere, eta **zuhurtziak**, mirespenak eta kontrolak eragindako tentsioa baino ez zuen sentitzen. Patxi Zubizarreta

Garenarekin konformatu beharra zaukaagu, eta, gainera, jakin, **zuhurtzia** horren ordainetan ez dugula saririk izango: ez digute inolako merezimendu-dominarik emango handiusteak, geurekoiak, burusoilak eta lodikoteak garela onartzen ikasi dugulako, ez. Xabier Olarra

Jainkoaren laguntzaren ondoren norberaren **zuhurtzia** zela garaipenerako armarik onena. J.M. Olaizola "Txiliku"

Jakintsua gauza asko dakizkiena da, hau da, gezur eta kontu ergel asko irentsi dituena besteak beste, eta beraz, jakintsuarena jakintza da, baina ez da **zuhurtzia**; jakintza ziurtasuna da, buruiritziaren ziurtasuna, baina ez da zuhurtasuna. Iñaki Segurola

Erakusten du gainera praktikotasun gaitza bai eta neurria, **zuhurtzia**, oreka ederra. Piarres Xarriton

Burutsuen **zuhurtzia**. Elizen arteko biblia

Hitzak gogotik ezpainetarako bidea egin baino lehen, isilik egotera deliberatu zen, **zuhurtziak** halaxe agindurik. Joan Mari Irigoien

Maitasuna indarrez ateratzen da **zuhurtziak** lo egiten duenean, legeak idatzirik ez daudenean. Lander Garro

**Zuhurtzia** nagusi izan da arduradun politikoen adierazpenetan. Berria - Harian

Egoera horretan **zuhurtzia** nagusitu da ikastetxeetan zein hezkuntza saileko egituretan. Berria - Euskal Herria

Ikerketa zorrotz batek frogatzen badu inoren gaiztakeriak, edo inoren ezbeharrak, edo gizonaren **zuhurtziak** saihestu ezindako ezustekoek kendu dizkiotela bere ondasunak, [...]. Juan Martin Elexpuru

Hala ere, hain gogor egin die **zuhurtziak** sentimentuei, non tristurarik burutsuenaz gogoratzen baitugu hura, geure buruaz eta erreinuaz ahantzi gaberik. Juan Garzia

PSE-EEk eta EB-Berdeek **zuhurtzia** eskatu dute. Berria - Kultura

Iduritzen zitzaion gainera [...] herritar hoberenen formakuntzak, haien zuzentasunak eta **zuhurtziak** izan behar zutela, oroz gainetik, lehentasuna. Piarres Xarriton

Arinegi eta **zuhurtziarik** gabe mintzatu naiz. Mirentxu Larrañaga

**Zuhurtziarik** gabeko epai ausartegiak. Jon Alonso

Inolako **zuhurtziarik** eta errespetorik gabeko espekulazioak. Patziku Perurena

Aspaldi badakigu neurria dela **zuhurtziaren** hastapena eta iturria! Herria

Ordu erdi inguru ibili zen hara-hona, nola jardun ez zekiela, **zuhurtziaren** aginduak aztertuz eta asmo zoroak baztertuz. Migel Angel Mintegi

Ez nekien zer egin, baina azkenean **zuhurtziaren** kontrako erabakia hartu nuen. Rafa Egiguren

Zeren eta bizitza fisikoa luza baitzitekeen **zuhurtziaren** bidez eta laburtu **zuhurtziarik** ezaren zenbait formaz, heroismotik hasi, erokeriatik igaro eta aberekeriaraino iritsiz. Iñaki Mendiguren

Baina **zuhurtziak** agintzen du lehen galdu garen eztabaidara ez itzultzea. Jon Alonso

Hizkuntza itzultzaleak, hots, egiaren bihurtzale, makurtzale eta traidore direla, "traductor traditor" latinaren **zuhurtziak** dion bezala. Herria

Alabaina, **zuhurtziaren** uhalak eskumenetik urrundu zitzaizkion arren, Herioaren mamua begien bistara agertu zitzaion, hurbil baino hurbilago agertu ere. Patxi Zubizarreta

Jan eztia, ene seme, ona da eta, gozoa da abaraska ahorako; hala izan bedi, zure arimarako, halaber, **zuhurtziaren** jakituria. Xabier Kintana

Nireganako errukiak lehia irabazi zion, nonbait, amaren ahalik eta gas gutxien gastatzeko **zuhurtziari**. Anjel Lertxundi

Ziur naiz miretsirik zinatekeela nire **zuhurtziaz**. Jon Muñoz

*ik beherago* 5. Askoren artean

Ona, lañoa, **zuhurtziaz** betea, irri xuri bat ezpainetan, enetzat zinezko anaia. Marzel Etxehandi

Behar dugula onartu, gure Jainko **zuhurtziaz** beteak ez dituela kreatu arrazoirik gabe eta alferretan hain izate handi. Piarres Xarriton

**2** (izenondo eta izenlagunekin)

Gerra garaian parlamentuak Jeneral Agintari Nagusi izendatu zuen Cromwel, baina gerra amaitu zenean, **zuhurtzia** handirik gabe, titulu hori kentzeko asmoa agertu zuen parlamentu berak, eta hori ez zitzaien batere gustatu Jeneral Agintari Nagusiaren mutikoei. Neurri horretan **zuhurtzia** handia zetzan, legeari buruz, horren bidez geroago egin ziren errakuntza handiak saihesten zirelako. J.M. Olaizola "Txiliku"

Horrelako ezer ez zen gertatuko, ez balidate haginka egin izan... eta ni ez banintz hain **zuhurtzia** gutxikoa izan. Iñaki Mendiguren

Zaila zen orduan bidea nondik nora zihoan ezagutzen, baina, haren **zuhurtzia** apartari esker, gorabeherarik ez zen izan ibilaldi hartan. Karlos Zabala

Orduz geroztik, printzeek berek aurrez pentsatuko zutena baino **zuhurtzia** handiagoz gobernatu behar izan dute. Iñaki Iñurrieta

EAJk, aldiz, **«zuhurtzia** politiko eskasa» izatea egotzi zion Maragalli, «behar bezala ezagutzen ez duen errealitate batez hitz egin baitu». Berria - Euskal Herria

Gizon jakintsua da [Salomon], herriko gorabeheren gobernuan **zuhurtzia** paregabez jokatzen dakiena. Jose Antonio Mujika

Labanorrien indar kontzentratua, **zuhurtzia** zorrotzegiz debekaturik baitzeuden gurean. Juan Garzia

Argitasuna ez ezik, **zuhurtzia** sano eta beldurgabea erakusten du gure bertsolari gazteak, irabaz lezakeen kreditu intelektualari [...] zeharo eta osotoro baitio uko egiten. Iñaki Segurola

Hargatik dira zahar jakintsu kontseilu-emaileak horren antojagarriak, eta maitagarria, aldiz, ez dakitela gozo-gozo aitortzen dakiten atso-agureen **zuhurtzia** ezjakintsua. Iñaki Segurola

Oinarrizko **zuhurtzia** batek esaten zion Gizon Handiari ez zela komeni defentsa-hesiak eraistea hain azkar. Jon Alonso

Aspaldiko **zuhurtziari** jarraikiz, onartuko dugu beraz, helburu bakoitzaren arabera, Estatuaren eta legeen garrantzia ukatu gabe, Nazioari eta ohiturei eman behar zaiela oinarrizko lehentasuna. Piarres Xarriton

Turin inguruko mendiak, egun argietan ikusmenean, eta bizikletaz irispidean, gureak ziren, ordezkaezinak, eta haiek irakatsi ziguten nekea, eroapena eta nolabaiteko **zuhurtzia**. Juan Garzia

Zaindu dezagun geure burua mundu honetako jakinduriatik eta giza erako **zuhurtziatik**. Askoren artean

**3** (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

Kontuan hartzen badugu jarduera ekonomikoa ziurgabetasun eta arrisku esparru batean garatzen dela, aurreko horien osagarri gisako laugarren printzipio bat sar genezake: **zuhurtzia** printzipioa. Itziar Eizagirre / Amaia Lizarralde

Europako Batasunaren 1992ko Itunean jasotako **zuhurtzia** eta kautela printzipioak ere ez zaizkio testu konstituzionalari erantsi. Itziar Eizagirre / Amaia Lizarralde

Benetan azpimarratzekoa eta paradoxikoa da gaur egun, oraindik orain, egunkaria **«zuhurtzia** neurri» moduan itxita egotea. Berria - Harian

Horrela, bada, konfiantza handia hartu, eta autoa propagandaz eta egunkariz gero eta beteago ekartzen joan zen, **zuhurtzia**-arau guztiak ahaztuta. Fernando Rey

Gobernuak [...] herritarrei **zuhurtzia** mezua helarazi nahi die, berritu egin nahi du nafarren erabakiekin duen konpromisoa eta erabaki horiei dien errespetua. Berria - Harian

Ahazkortasun [...]: Jainkoaren dohain bat, zordunei ematen zaiena, **zuhurtzia**-falta berdintzeko. Xabier Olarra

Hau ez da beharrezko **zuhurtzia**-erregela bat. Ibon Uribarri

Apeza isiltzen zen berak ahoskaturiko **zuhurtzia** zamaz jabetzeko. Itxaro Borda

**4** (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

Hondamendi hori, noski, erabat saihets zitekeen aurretik, baldin eta kasu egin baliote ikusmen-urritzeaz estraina kexatu zenean, eta mediku-**zuhurtziaz**, edo are zuhurtzia arruntez, aztertu izan balitz haren egoera. Xabier Olarra

Osaba mediku ezin hobea zen, giza **zuhurtziaz** betea eta diagnostikorako sen finekoa. Juan Garzia

**5 *zuhurtziaz*** *adlag*

Bere mendeko lurrak **zuhurtziaz**, arretaz, ekonomiaz gobernarazi zituen. Iñaki Iñurrieta

Izen hori jakin eta **zuhurtziaz** eta garbitasunez gordetzen duen guztia goian maitatua eta zerupean estimatua da. Xabier Kintana

Bakerako itxaropen ate bat ireki da, baina **zuhurtziaz** eta arduraz hartu behar da. Berria - Harian

-Berrikitan, duela hiruzpalau hilabete oraino, nornahi ibil zitekeen mugaren alde batetik bestera trabarik gabe [...] baina orain **zuhurtziaz** jokatu behar da. Elena Touyarou

**Zuhurtziaz** jokatuz, berriz ere, bertsio honen egileak aldi berean jatorrizkoarekiko leialtasuna eta azaldutako edukien zentzu zehatza bilatzea aukeratu du bere lanean. Santiago Iruretagoiena

**Zuhurtziaz** jokatu izan balu, hainbat denboraz jarraitu ahalko zuen bere txokoan diskrezio osoz. J.M. Olaizola "Txiliku"

**Zuhurtziaz** hitz egiten du eta onginahiz beteriko irakaspena ematen. Elizen arteko biblia

Harriduraz eta pozez hartu zituzten datuok bertan bildutakoek, baina **zuhurtziaz** ere bai. Berria - Harian

ETAk egindako iragarpena Gobernuak **zuhurtziaz** eta lasai hartu duela esan zuen. Berria - Harian

Askatasun horiek **«zuhurtziaz**» erabiltzeko eskatu zuen, «erlijio eta arraza gorrotoa saihesteko». Berria - Mundua

Hala izaten da maitasuna **zuhurtziaz** administratzen duten bikoteetan, poliki xahutzea nahi izaten dute, elkarrekin zabaldu berri duten kontu korrontea balitz bezala. Joxean Agirre

Antikonbultsiboak hartzen aritua zen, **zuhurtziaz**, operazioa egin ziotenetik. Xabier Olarra

**6 *zuhurtziazko*** *izlag*

**Zuhurtziazko** neurri horiek hartu ondoren, erraza zen gutun hura bertzeekin batera jartzea. Jon Muñoz

Kontrolen bat balego, talkiz abisua emango zuen, **zuhurtziazko** distantzia batera zihoan bigarren autoak desbideratzeko adina denbora izango zuela. Harkaitz Cano

Tony Blair eta Bushek baietz bazituela akusatua zuten irakiarra eta akusamendu horren arrazoinean finkatua zuten Irakiari egin dioten gerla, Kelly gizon zintzoak aldiz **zuhurtziazko** dudak zituelarik... ikusi artean. Herria

*Caveamus, igitur, iuvenes dum sumus,* kantatzen zuen nik pianoa jotzen nuen kafe-teatroko kantariak, jatorrizko *gaudeamus* bozkariozkoaren tokian *caveamus* **zuhurtziazkoa** esanez. Anjel Lertxundi

Egungo egunean etengabe egiten dizkiodan ferekuak maleziazkoak baitira **zuhurtziazkoak** bezainbat. Jon Muñoz

**hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**

**bere zuhurtzia** (3); **hain zuhurtzia** (3); **haren zuhurtzia** (5); **jakinduria eta zuhurtzia** (3)

**zuhurtzia behar** (3); **zuhurtzia da** (5); **zuhurtzia erakutsi** (3); **zuhurtzia eskatu** (29); **zuhurtzia eskatu du** (8); **zuhurtzia eskatu zuen** (9); **zuhurtzia eskatzen** (3); **zuhurtzia eta lasaitasuna** (4); **zuhurtzia falta** (8); **zuhurtzia guztia** (3); **zuhurtzia handia** (5); **zuhurtzia handiagoz** (3); **zuhurtzia handiko** (3); **zuhurtzia handiz** (15); **zuhurtzia handiz jokatu** (3); **zuhurtzia izan** (5); **zuhurtzia nagusi** (3); **zure zuhurtzia** (7)

**zuhurtziaren aldeko** (3); **zuhurtziaren erakusgarri** (3); **zuhurtziaren gainetik** (3); **zuhurtziaren hastapena** (3)

**zuhurtziari esker** (3)

**zuhurtziaz betea** (6); **zuhurtziaz beteak** (4); **zuhurtziaz eta arduraz** (3); **zuhurtziaz eta errespetuz** (3); **zuhurtziaz hartu** (7); **zuhurtziaz hartu dute** (3); **zuhurtziaz jokatu** (23); **zuhurtziaz jokatu behar** (11); **zuhurtziaz jokatu zuen** (3); **zuhurtziaz jokatzea** (5); **zuhurtziaz jokatzeko** (6); **zuhurtziaz jokatzen** (5); **zuhurtziaz mintzatu** (3)

---

## zuhurtziagabe *(orobat **zuhurtzigabe** g.er.)* *izond* zuhurtziarik ez duena. ik **zuhurgabe**.

Arzalluzen hitzetan, datozen hauteskundeetan «Ibarretxeren planari beldurra dioten jeltzale **zuhurtziagabeak** harrapatu nahi izango ditu PSE-EEk». Berria - Euskal Herria

Nire Griselle **zuhurtziagabea** zure gomendio uzten dizut. Ramon Etxezarreta

Badakizu orobat, gu bion artean, niri egotzi behar ote zaidan **zuhurtziagabea** izatea. Jon Muñoz

Zuzena ez dena zuzengabea dela, eta zuhurra ez dena **zuhurtziagabea** dela, eta neurritsua ez dena neurrigabekoa dela. Imanol Unzurrunzaga

**Zuhurtziagabeak**, zeren ez baitakite orain duten maitaleagan, etorkizuneko etsaia ikusten. Jon Muñoz

---

## zuhurtziagabekeria *(orobat **zuhurtzigabekeria**.)* *iz* zuhurtziagabetasun gaitzesgarria; zuhurtziagabeari dagokion ekintza. ik **zuhurgabekeria**.

**Zuhurtziagabekeriaren** bat egin ote duzu? Jon Muñoz

Maltzurtasunak guregan buruarinkeriak edo **zuhurtzigabekeriak** baino erro sendoagoak egiten ditu. Fernando Rey

Lagunartera berriz nentorrela, emakume xarmant hori kausitu dut bere gelara sartzen, eta, izan **zuhurtziagabekeria** edo izan ahulkeria, horra non bere boz eztiaz erran didan: [...]. Jon Muñoz

**Zuhurtziagabekeria** bat bakarra konponbiderik gabeko gaitz bihurtzen dela. Jon Muñoz

Abantaila horiek guztiak **zuhurtziagabekeria** bakar batez galduak! Jon Muñoz

Niri dagokit neure **zuhurtziagabekeria** ausartaren atsekabea neure baitan eramatea. Jon Muñoz

Erosoagoa izanen da guretzat **zuhurtziagabekeria** hori gazteen gain ematea. Jon Muñoz

Ertzainak **zuhurtziagabekeriaz** jokatu zuela nabarmendu nahi izan zuen, aldiz, akusazio partikularrak. Berria - Euskal Herria

Orain, ikasle haren ardura zuten lau lagunetako bakoitzarentzat bina urteko espetxe zigorra eskatu du Gipuzkoako Fiskaltzak, **zuhurtziagabekeriaz** eragindako hilketa izan zelakoan. Berria - Ekonomia

---

## zuhurtziagabeki *adlag* zuhurtziarik gabe.

Ahalmen hori okerreko moduan edo **zuhurtziagabeki** erabiliz gero, gizakiari berari zein beronen ingurumenari neurtu ezineko kaltea eragin diezaieke. Itziar Eizagirre / Amaia Lizarralde

---

## zuhurtziagabetasun *(orobat **zuhurtzigabetasun**)* *iz* zuhurtziagabea denaren nolakotasuna.

**Zuhurtzigabetasun** arinegiak ziren haiek, eta trajedia odoltsuak ekarri zituzten. Iñaki Iñurrieta

Batzordeak itunak betetzen direla zaindu behar du, eta, hortaz, **zuhurtziagabetasuna** eragin beharrean, itunak indarrean daudela jakiteak sortzen duen ziurtasuna ematen du. Berria - Ekonomia

Egia esan, bide zuzenetik jokatu zen orduan, nahiz eta beharbada **zuhurtziagabetasunez**. Iñaki Iñurrieta

zuhurtzigabe ik **zuhurtziagabe**.

zuhurtzigabekeria ik **zuhurtziagabekeria**.

zuhurtzigabetasun ik **zuhurtziagabetasun**.

zuiñ ik **zein**.

**zuin**[1] *iz* **1** ereileak eratzen duen marra, bertan hazia botazeko.

Behin lurra berdinduz gero, anisa eta kuminoa erein ohi ditu, ondoren garia eta garagarra **zuinetan**, eta basartoa gero bazterretan. Elizen arteko biblia

**2** marra.

Gaur egun ez dago teoria globalik gai honi buruz, eta ondoren datorrena ez da, beren abiapuntuek elkarrengandik urrunduz daramatzaten ikuspuntuetatik abiatuta horrelako teoria bat zirriborratzeko ahalegintxo bat baizik: gai honen **zuinak** jarri baizik ez da egin nahi, gai honi buruz idatzi diren lan garrantzitsuenak azpimarratuz. Josu Zabaleta

Irudi txikia oso plano handian zegoen, eta tamaina handiko irudia osotasun plano batean, eta bi parametro desberdin horien konbinazioak ikuslearen espaziozko **zuinak** nahasteko berariazko efektu bat eragiten zuen. Josu Zabaleta

Ezinaren **zuin** zurrunez markatu genuen iraultzaren ildoa, odola ongarri. Joxerra Garzia

Ai!, bakea hil egiten da **zuin** sarea birrintzen denean, munduan lekurik geratzen ez zaigunean, maite duguna non topatu ez dakigunean, itsasora doan senarra itzuli ez denean. Josu Zabaleta

zuin[2] ik **zein**.

**zuindu**, zuin(du), zuintzen du *ad* marratu.

Bideo-arteak ez du arazo larririk izan instituzionalki zinema komertzialetik bereizteko ("arte-zinema"-tik bereizteko ere), baina askoz ere zehaztasun handiagoz **zuindu** eta mugatu behar izan du bere eremua, "zinema esperimentaletik" bereizteko, gai asko baitaude harekin berdintzen dutenak Josu Zabaleta

**zuinketa** *iz*

2005eko urriaren 20rako dikea egiteko **zuinketa** akta sinaturik, eta eraikitze lanak hasita behar zuten. Berria - Harian

2005eko urriaren 18an sinatu zuten **zuinketa** akta, eta 19an, lanak hasteko etxolak portuan jartzen hasi ziren. Berria - Harian

Lanak **zuinketa** aktak sinatzean hasten dira, eta beraz, obra legezkoa da. Berria - Harian

zuitzar ik **suitzar**.

zuizidatu ik **suizidatu**.

**zuka** *adlag Zu* izenordaina eta dagozkion aditz formak erabiliz.

Errespetuaren izenean, hemendik aurrera **zuka**, amigo! Anjel Lertxundi

Jaunka, **zuka** nahiz berorika. Juan Garzia

Laster ohartu nintzen hala zela, deneri toka ari baitzen, ni aldiz hari beti **zuka**. Marzel Etxehandi

Denok egiten diogu **zuka** Manterolari, kapitain merkantea da eta gu analfabeto hutsak. Koldo Izagirre

**Zuka** egin zion nahi gabe, eta, okerraz jabetu zen arren, ez zuen zuzendu: neskak lehentxeago emandako estutuan bazegoen zerbait hika egiteko, konplimenduak esateko eta itxurakeriatan jarraitzeko gogoa kentzen ziona. Jose Morales

Ez dakit hika edo **zuka** egin behar dudan, gazte bati hika egitea eskatzen baitu hizkuntzak, edo guri bederen hala eskatzen zigun lehenago. Pello Salaburu

Horrela ohitu ginen haurtzarotik, hamar urteren aldia daukagulako, bera ordea hasieratik niri hika hitz egiten ohitu zen, nik berari **zuka**. Gotzon Garate

Ez duzu denbora asko beharko sasikume horiek aurkitzeko -harritu egin zen Telleria, komisarioa **zuka mintzatzen** hasi zitzaionean-. Harkaitz Cano

Heletako ama familia toka eta noka ari zen koskak zirenekin, **zuka**, aldiz, entterkak zirenekin. Herria

Min hartzen zuenean, **zuka** egitea ateratzen zitzaidan hasieran, hitanoa ez aski samur irudituri, antza. Joxerra Garzia

Gotzainak **zuka** egiten zizkion galderak bere buruari. Joxerra Garzia

Berak **zuka** hitz egiten zuen beti, bereizi egiten zen horretan Obaban ezagutzen nituen beste nekazariengandik. Bernardo Atxaga

Harritu nintzen, halaber, ez zitzaiolako aitari berorika ari, ohi bezala, baina **zuka**. Joan Mari Irigoien

Erleari **zuka** hitz egin behar omen zaio. J.M. Olaizola "Txiliku"

**Zuka** hasitako elkarrizketa hitanoz amaitu dugu, gizon adeitsua da, jatorra eta garbi azaltzen ditu bere egoeraren nondik norakoak. Berria - Kirola

Niri, egia esan, pena ematen zidan Tolosa batean hamahiru urteko umeak elkarren artean **zuka** sumatzeak. Joxerra Garzia

Ez ahantz presuna urgulus batez burlatzeko erraite pollita "bere buruari **zuka** ari da". Herria

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
> **zuka ari** (3); **zuka egin** (7); **zuka egin zion** (3); **zuka egiten** (4); **zuka mintzatzen** (3)

**zukatu**[1], zuka(tu), zukatzen du *ad*

Hala jokatzerakoan, ahozko jardunak duen baliabide petoenetako bat hartu eta, ongi **zukatu** eta gero, adierazpen-premia berrietara egokitzen du Amurizak. J. Garzia / A. Egaña / J. Sarasua

zukatu2 ik **xukatu**.

---

**zuko** *(orobat* ***zuku*** *g,er.)* **1** *izond ipar* lehorra, idorra.

Gutun **zukoa**, barne tzarra duen norbaitek baizik ez baitu holakorik idazten ahal. Janbattitt Dirassar

Basoa gerota **zukoago** da. Piarres Aintziart

Ur nasaia, ezker aldera hedatuz, aintzira garbi eta bizi bat moldatzen duela: tatxa urdin ilun joria, Kastillako leku **zuku** hauen erdian. Piarres Aintziart

**2** (adizlagun gisa)

Bazterrak **zuko** beraz eta asko tokitan jadanik aipu dute idortea. Herria

Bezperako kantu eta solas ozenak belarrietan neuzkan eta ahoa aldiz **zuko**... mihia mortero puska bat bezain gogorra neukalarik. Daniel Landart

**3** ***zuko-zukoa*** *adlag* lehor-lehor.

-Maite ez duk gehiago Baionan eta gisa guziz hori ez duk hire afera, ihardetsi zidan **zuko-zukoa**. Janbattitt Dirassar

---

**zuku**1 **1** *iz* gai organikoei darien isurkaria.

Murtxikatu gabe irentsitako belarra urdailetik berriz ahora ekartzen du behiak, eta han lasaiki murtxikatzen du bere ahoko **zukuekin** ondo nahastuz ostera irensteko. J. Garzia / A. Egaña / J. Sarasua

Ariketak on egingo dit, dio, "**zukuak** abian jartzen dizkik berriro", eta, beraz, baietz esaten diot gogorik gabe, joko bat edo bi jokatuko ditudala. Oskar Arana

Leherrenak eginda ere, ezin zuen erreminta zulotik atera; zeren ordurako neskaren **zukua** substantzia likatsua bihurtua baitzen, loctite hutsa. Patxi Iturritegi

Alua jateko eskatu zidan, blai eginda zeukan bere eta nire **zukuekin**, baina ez zitzaidan axola izan. Juan Martin Elexpuru

Lagunaren **zuku** zuria nire sabelean sentitu nuen irristaka. Aitor Arana

Animaliak uraren indarrik gabe aurkituko balira, odolik gabe eta **zukurik** gabe geratuko lirateke, erabat ihartuta ur elementuaren aldetik. Santiago Iruretagoiena

Alertzea [...] bere **zukuaren** mikaztasun garratzarengatik pipirik eta zomorrorik ez hartzeaz gainera, suarekin ere ez da pizten. Santiago Iruretagoiena

Zerutiarra da, lurreko indar zikinetan kutsatu gabea, zainak garbi, zuhaitzaren **zuku** eta sapatik bizi izan dena: mihuri horixkak ere halaxe dira garbi, ia zeharrargi. Pello Zabala

Izerdia izpirituari gozoro darion **zuku** bat da, inork bedeinkatu gabeko ur izpiritutsu bat. Iñaki Segurola

**Zuku** jariakor honen gorputzak leunak direnean, xuabeki ukitzen eta xuabeki estimulatzen dituzte mihi inguruko sapai heze jariotsuak. Xabier Amuriza

Zuhaitzik eterrean egoterik ez dagoen bezalaxe, ez hodeirik itsas lautada gazian, ez arrainik soroan bizitzerik, ez odolik zurean, ez **zukurik** haitzean. Xabier Amuriza

Urdail-paretako muskuluaren uzkurtze-mugimenduek, edukia irabiatu, eta **zuku** urtsu bat bihurturik uzten dute. Irene Aldasoro

**2** irud/hed

Zuhaitzen sustraiek lurretik hartzen duten **zuku** guztia berentzat hartzen dute eta lehengo sendotasunera bihurtzen dira. Santiago Iruretagoiena

Badaude, gainera, lurraren **zuku** garratzetatik sortzen diren iturriak izugarri garratzak direnak. Santiago Iruretagoiena

**Zuku** handikoa den karea lastoarekin nahasten denean. Santiago Iruretagoiena

Demagun walkmaneko pilari tripak atera, eta haietako **zuku** alkalinoa irentsiz nire buruaz beste egin nahi dudala. Anjel Lertxundi

Badira **zuku** horretan plastaka ari diren alemaniar dibisioak. Josu Zabaleta

**3** (irud/hed, gauza abstraktuez, eskuarki **zukua atera** esapidean)

Bizitzari ahal den **zuku** guztia atera arteko onik izaten ez duen jendilaje mota hori erakartzen zuen Parisek. Anjel Lertxundi

Osasun ona zuen; garai batean, **zukua** ateratzen zion bizitzari; berrogeita hamalau urte besterik ez zuen, artean. Xabier Olarra

Askatasunari **zukua** atera dio Marcos Serranok. Berria - Kirola

Abuztuan hiri alu honetan deus gertatzen ez denez, zorioneko hilketa honi **zuku** guztia atera behar zioagu. Aingeru Epaltza

Tradizioarekin lotura estua duen materialari **zuku** modernoa ateratzeko gaitasun aparta erakutsi baitu. Berria - Kultura

Miren Karmeleri ez zitzaiola dagoeneko interesatzen, bere jokaldi politikorako **zukua** atera zionez gero. Xabier Mendiguren Elizegi

Oso garrantzitsua da gogoan izatea urte asko utzi zutela igarotzen beren jukutria sonatuari **zukua** ateratzen hasi arte. Juan Martin Elexpuru / Bego Montorio

Gaueko hamaikak baino gehiago ziren, beranduxko igandeko **zukuari** bere azken tantak hurrupatu nahi dizkiotenentzat ere. Aingeru Epaltza

Euskalkiek daukaten **zukua** ateratzen ez asmatzea. Koldo Zuazo

TKE Liga amaitu den arren, denboraldiak badu **zukurik** oraindik. Berria - Kirola

Minutu bat geroago, komunzuloak bildu zuen, kondoi eta guzti, nire barne muinetako isurkari zurixka, etsimenduaren **zuku** mindua. Aingeru Epaltza

**4** (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

Lurra ez balego **zuku**-mota desberdin eta bereiziz osatua, ez lirateke Sirian eta Arabian bakarrik emango kanabera, ihi eta era guztietako belarren usainak. Santiago Iruretagoiena

Ez da harritzekoa izango hain lur-zabalera handian ezin konta ahala **zuku**-barietate egotea ere. Santiago Iruretagoiena

**5** (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa)

Bidaiaz joan zen, landare-**zukuen** ibilera astitsuan, hostotik txortenera eta aihen-adarretik enborreraino. Juan Garzia

Laudanoa opio **zukua** da. Ramon Saizarbitoria

Henna **zukuz** tindatutako azazkalak. Karlos Zabala

Bizitza bera da heriotza horren kusku babesle, umetoki egoki eta hazkuntza-**zukua**. Jon Alonso

**6** fruituei, sakatuz, ateratzen zaien isurkaria. ik **ur 6b**.

Frutarik ez geneukan **zukurik** egiteko; berdurarik ere ez saldarik egiteko. Xabier Mendiguren Elizegi

Limoi zati bati **zukua** atera eta basoaren ezpainak igurtzi ditu Anjelek. Paddy Rekalde

Handik gutxira **zukua** egiteko aparatua hondatu zitzaigun. Bernardo Atxaga

Sendagaiak utzi, eta azken asteetan jateari ere uko egin zion; ura eta **zukuak** besterik ez zituen hartzen. Juan Kruz Igerabide

**Zuku** eta freskagarri askok era honetako bitaminak daramatzate. Berria - Gaiak

Aspaldiko partez gosari oparoa prestatu du: **zukua**, gurina, marmelada, ogi xigortua... Patxi Iturritegi

Burtek **zukua** vodkarekin edan zuen kikaratik. Koro Navarro

Mahatsak **zuku** ona duenean, esan ohi da: "Ez dezagun honda, ardoa ugari dakar eta". Elizen arteko biblia

Elikagai funtzional, "probiotiko" edo "nutrizeutikoen" [...] kontsumoa hasia da dagoeneko hedatzen (jogurt eta esnekiak, oro har, **zukuak**, sojazko elikagaiak, gatzak, ogi eta opilak...) gure artean. Edorta Agirre

Eskuak gorritzen zizkion mingrana aleen **zukuak**. Juan Kruz Igerabide

Lau mandarinarekin **zukua** egin, ezti apur bat bota eta ura gehitzen diot. Jokin Urain

**Zuku** gabeko laranjak, eta laranja ustelak. Berria - Kirola

Ahuntz-prakaren **zukua** ona da atakeak jo eta lurrera jausitako dantzariak berpizteko. Julen Gabiria

Utzi egin zuen, **zukua** ondo kendutako laranjak gehiago ez duela ematen-eta. Joxemari Urteaga

Oliba-olio fina zen hura, ordea, hotzean ateratako lehen **zuku** horietarikoa, Toskanatik zuzenean ekarria. Jon Muñoz

**7** (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

Hermionek bere poltsa zabaldu, aritmomantziako liburu berria atera eta **zuku**-pitxerraren kontra jarri zuen zabalduta. Iñaki Mendiguren

**Zuku**-makinak, landare denei ur guztia atera eta fruitu lehorrak irin edo pate bihur ditzakeenez, barazki eta frutak bestela ezagutu ahal izango ditugu. Edorta Agirre

**8** (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa)

Goian, galleta batzuk eta melokotoi-**zukua** atera zizkigun, eta egongelako sofan eseri ginen. Juan Kruz Igerabide

Kaxako laranja **zukua** zuen hozkailuan. Joxemari Iturralde

Alde horretatik, ozpinak aukera zabalagoa ematen du limoi **zukuak** baino, oraingoz: zukua iraupen gutxikoa da, bizidun den aldetik. Edorta Agirre

Borrokara eragiteko, mahats- eta masusta-**zukua** erakutsi zizkieten elefanteei. Elizen arteko biblia

Zerbitzari bat dator ea zer nahi dudan galdezka, kafea edo guayaba **zukua**. Pako Aristi

Pomprefy andrea oraindik esna aurkituko duzu, mandragora-**zukua** banatzen ari da eta. Iñaki Mendiguren

Kanpora paseoan irten eta belardian etzanda egon nahi zuten guztiek, kalabaza-**zuku** hotz-hotza edanez. Iñaki Mendiguren

Sagar hori jo, pasta dolarean tinkatu eta sagar-**zukua** edo jusa kupeleratu. Herria

Berotu dezala litro bat esne, sagar-mahats **zuku** apur bat bota diezaiola ondoren. Jokin Urain

Edontzi txikiak, ardo baso lodiak, fruitu **zukuetarako** kopak. Karlos Zabala

Edalontzi batzuetan fruta-**zukua** zekartela itzuli ziren. Juan Martin Elexpuru

Fruta-**zuku** hartzituetatik jasotako gaiak. J.M. Olaizola "Txiliku"

Tomate **zukua** edan zuen, hozkailu barruko guztia aztertzen zuen artean. Koro Navarro

Patata **zukua** prestatzen zidan ondoren, ohean nagi segitzen nuen bitartean. Joxan Elosegi

Gure lizarki botika kutsua duen lizar-**zuku** estamu libratzaileak ere holako zer edo zer izango du. Pello Zabala

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
> **kalabaza zuku** (3); **mahats zuku** (4); **zuku bat** (5); **zuku gehiago** (3); **zuku gehien** (4); **zuku guztia** (11); **zuku guztia atera** (3); **zuku guztia ateratzea** (3); **zuku guztiak** (3) **izor zukua** (5); **laranja zukua** (7); **sagar zukua** (4); **zukua atera** (8); **zukua ateratzeko** (5); **zukua ateratzen** (15); **zukua edan** (3)

---

zuku$^2$ ik **zuko**.

---

## zukugailu *iz* zukuak egiteko gailua.

Autotik irten eta gauzak miatzen hasi ziren, neska muselinazko zamaua ukitzen, mutila **zukugailua** konektatu eta XEHATU botoia sakatzen, neska plater berogailua hartzen eta mutila telebista piztu eta egokitzen. Koro Navarro

---

zukun ik **txukun**.

---

## zukurutz *iz* beldurraldia, izualdia.

Guztiarekin ere, afera behin eta emazteki bat 'seduzitutakoan' hasi ohi zen niretzat: 'lortu' amodioarekin zer egin ez jakinki, **zukurutzak** paralizaturik bezala gertatu izan naiz eta. Jose Angel Irigaray

A ze **zukurutza** hartu nuen behin baino gehiagotan Ahmedabad-en, unibertsitateko kanpusean paseatzen ari nintzela. Gotzon Garate

Ikusi zuen aitak hildako semea bere aurrean pizturik eta hartu zuen **zukurutzarekin** hil egin zen. Gotzon Garate

Kristautasunak inoiz leundu egin zituela ematen bazuen, kristautasunak errudunei sartzen dien **zukurutzagatik** izan zen bakarrik. Iñaki Iñurrieta

---

## zukutsu **1** *izond* zuku asko duena. (fruituez mintatuz)

Baratze-eremu hark, beti berde, ur arrezko erretenez ebakia, landare **zukutsu**, ilun haiekin, ez zion hartan zehar ibiltzeko gogorik ematen. Josu Zabaleta

"Dan más vueltas que mamón en boca de vieja"; mamon hori fruta txiki **zukutsu** bat da. Pako Aristi

· Udako tximista sigi-sagatsuek urratzen zuten aldian-aldian zerua argi masusta-**zukutsu** batez. Anjel Lertxundi

**2** (bestelakoetan)

Aurpegia hurbildu du arrakalara, haragi **zukutsuak** musukatu dizkio eta mingaina pasatzen hasi zaio ipurditik potxotxeraino. Juan Martin Elexpuru

Orgasmoa olatu bero eta **zukutsuetan** ari zitzaidan etortzen. Juan Martin Elexpuru

**3** (adizlgun gisa)

Begiak itxita, eskua luzatu zuen eta nire hankartean tente zegoen zakila bilatu; honek azalaren tolesduretatik bere buru haragitsua ageri zuen, gorri eta **zukutsu**. Juan Martin Elexpuru

---

## zukutu, zuku(tu), zukutzen du *ad* **1** zuku bihurtu, zukua atera.

Nik Faraoiaren kopa nuen eskuan; mahats-mordoak zanpatu eta kopa gainean **zukutu** nituen. Jose Antonio Mujika

Gaur jan dituan lentejak zorretan jan dituk, bai horixe, baina kreditua bukatu zaik, ez zagok lenteja gehiagorik, garaiz baino lehen azken tanta arte **zukututako** limoia haiz, hik ez duk jada limoi-urik ematen. Jon Alonso

Esterilizatzeko, biguntzeko eta **zukutzeko** makina bat da urdaila, besteak beste. Irene Aldasoro

Orduan makina hark zerbait [...] xukatzen zion, eta **zukuturiko** isuri hori ontzitxo batean geratzen zen. Joxemari Iturralde

Horrela bizitzeko kemena behar zen, eta bazuen, baina azkenaldi hartan limoi pusketatxoen antzera nahiko **zukutua** senti zezakeen bere burua, zurrupatua. Joxemari Iturralde

Ez da aski bihotza estutu eta garunak **zukutzea**. Joxerra Garzia

Begira, masturbatzen ari natzaio, musukatzen, burua galtzear nago... aha! aha! aha! lagunak, ezin dut gehiago! Izan nire erruki... hilko naiz... **zukutzen** ari naiz!... Alajainkoa! Neure onetik irtenda nago! Juan Martin Elexpuru / Bego Montorio

Hik pagatu egin hien, gauza bat erosten duenak bezala, heure musuzapi malkoz heze, behin eta berriro xukatua deskorapilaturik, malkoz hezea artean zapia **zukutuaren zukutuz**, eta hantxe baiheukan gordeta orain hiletarako dirua... Juan Garzia

**2** irud/hed

Gero hartzen ditu hitz horiek eskuetan, eta irakurri egiten ditu [...] eta mutxikindu ere bai ahal badu, eta **zukutu** egiten ditu, elkarren kontra igurtzi-igurtzi egin, estutu eta marruskatu. Iñaki Segurola

Gorputza lizuntzen, izpiritua **zukutzen** eta gogoa kirasten dioten kaiola-zuloraino bota dute legearen atzapar beti bidegabezkoek. Iñaki Segurola

Eskola, talde, koadrila... filosofia berari atxikiak: ahozkotasunak eskaintzen dituen aukerak **zukutu**. Andoni Egaña

Bere gelako txikitasunean idatzi du, inoiz oso intentsoak izan ez diren bere sentimenduak azkeneraino **zukutuz**. Pako Aristi

---

## **zukutze** *iz* zuku bihurtzea; birrintzea.

Ahozkotasunaren aukerak **zukutze** horretan, aisi-tartea ere "bertsolaritzen" hasi gara. Andoni Egaña

---

## **zulaezin** *izond* ezin zulatuzkoa.

Gizonaren pentsaera arautzen duten lege guztiez kanpo geratzen den irudimenezko existentzia batean berriro hasten den eromenaren hodei **zulaezinean**. Josu Zabaleta

Ez zuten Europa zaharrekoen apainkeria ia lizuna, barrokismo beldurgarria eta sendotasun **zulaezina**. Iñaki Zabaleta

Izarrik gabeko, iluntasun **zulaezineko** gauen sakonean, milaka urte lehenagokoak diruditen murmur lakar eta latzak ailegatzen dira Araratetik. Fernando Rey

Nork kenduko dio bere larru-jantzia, **zulaezineko** oskol bikoitza bezalakoa dena? Elizen arteko biblia

---

## **zulagailu** 1 *iz* zuloak egiteko gailua edo makina. ik **zulakari**.

Harkaitz gogorrenak apur ditzaketen **zulagailuak**, zerrategi mugikorrak, aldamio itsaskorrak eta edozein burdindegitan salgai dauden erreminta txikiagoak. Berria - Ekonomia

**Zulagailuaren** azpian jarri, orri guztiak zulatu baliorik gabe uzteko, eta libreta bezeroari itzuli. Xabier Olarra

**Zulagailu** industrialak eta mekanizazio zentroak egiten ditu Ibarmiak, besteak beste. Berria - Ekonomia

**2** (hitz elkartuetan)

Bide nagusitik bi pisuen artekatik, hortxetan agertzen da, langileen mailu eta **zulagailu** ukaldiak seinalaturik. Berria - Kultura

· Handik atera, eta Pedriñoren mahai gainean zegoen paper-**zulagailuaz** behin eta birritan erasotu ondoren, paperontzira bota zuen. Josu Landa

Lurrin-**zulagailuak** atergabe zulatzen eta karraskatzen ari ziren haitz gris izugarrien aurretik igaro zen, baita indusketen aurretik ere. Lopez de Arana

---

## **zulagaitz** *izond* zulatzen zaila dena, ia zulaezina.

Misterio **zulagaitza** izan ohi da denontzat ere gure aurrekoak gazte eta sasoiko imajinatzea: gure gurasoak arduragabe, gazte eta berde zirenekoa; beti zahar eta zimur ezagutu ditugunak mardul eta eder zirenekoa... Xabier Mendiguren Elizegi

---

## **zulaka** *adlag* zuloak egiten.

Gogoan daukat **zulaka** aritutakoetarik batek aitzurra haserre jaurti eta "Ez zenuten zuhariari zertan deitu!" esan zuela. Koldo Izagirre

---

## **zulakari** *iz* zulatzeko tresna. ik **zulagailu**.

Haiek, orduan, deiadar handiagoak egiten zituzten eta, ohi zutenez, ebakiak egiten zizkioten beren buruari ezpataz eta **zulakariz**, gorputzean behera odola zeriela gelditzeraino. Elizen arteko biblia

---

## **zulakatu**, zulaka, zulakatzen du *ad* zulatu.

Dena **zulakatu** du alderen beste bere irri gaiztoaz, eta dena hustu du. Josu Zabaleta

---

## **zulaketa** 1 *iz* zulatzea.

Metro t'erdiz barnera zeuden, aitzurkariek uste zutena baino sakonago, lehen **zulaketa** egina zutenetik ez oso urrun. Koldo Izagirre

**Zulaketa** horietako batean, 3.100 metroko sakonerara iritsi dira. Berria - Gaiak

Antartidan egindako **zulaketen** bitartez, antzina zer klima izan zuten eta geroan izan daitezkeen aldaketak aztertu dituzte Europako hamar herritako zientzialariek. Berria - Gaiak

Karlistaren leizean egiten ari zen **zulaketak** bertan behera uzteko agindu dio Balmasedako Epaitegiak Karrantzako Udalari. Berria - Euskal Herria

Industria gehiegia, kutsadura, berotegi-efektua, itsas zolaren **zulaketaz** baliaturiko petrolio-indusketa. Juan Garzia

Ni zutik eta beste biak lanean ari ziren moduan, uzki hura altuera egokian neukan **zulaketarako** prest. Aitor Arana

Hau duzue Iñaki zaharrak, presoen aittittek, erabili zuen koilara bere azken **zulaketan**. Koldo Izagirre

Lau mozketa egiten dizkizute, abduktoreak ebakitzen dituzte, herniak osatu, pubisean ere **zulaketaren** bat ere badago. Berria - Kirola

**2** (hitz elkartuetan)

Bertan behera utzi zituzten 1999. urtean Antartikako izotzaren azpian 4.000 metrora dagoen Vostok aintzirara heltzeko **zulaketa** lanak. Berria - Gaiak

Bidasoa ibaia zeharkatzeko **zulaketa** lanen ondorioz, lohia sartu da zenbait etxetara. Berria - Euskal Herria

· Enborraren zuraren eta azalaren artean egin du bere zulobidea, bere arrazari berezko zaion suntsi-gose temati eta itsu horrekin; marraska **zulaketa** etengabean hazi da, eta zulohabia bera ere berdin joan da haziz. Juan Garzia

**3** ***zulaketan*** *adlag* zulatzen.

Halako batean txakurka jarri zen eta kanpaia jotzeari ekin zion, nik **zulaketan** bizi-bizi eta orduko izerditan jarraitzen nuela. Aitor Arana

---

## **zulakor** *izond adkor* zulaten duena.

Trasatlantiko guztien ulu anitz eta bateratuak, samin, **zulakor**, gure portua inguratzen duten mendietan durundiozko oihartzun durduzagarri eginik. Koldo Izagirre

---

## **zularazi**, zularaz, zularazten du *ad* zulatzera behartu.

Harresiaren inguruan lubakia **zularazi** zuen Migelek eta, atea hobeki defendatu beharrez, gainean itsu-leihoak irekiarazi. Aingeru Epaltza
Putzuak **zularazi** zituen, hiriak eraikiarazi. Iñaki Iñurrieta

---

**zulatu**, zula(tu), zulatzen *(orobat **zilatu** g.er. eta **zulotu** g.er.)* **1** da/du *ad* zuloa egin. ik **zulakatu**.
Zuhaitz baten ondoko lurra **zulatu** zuen, zakurra zaku eta guzti zulora botaz. Harkaitz Cano
Hondea-makina horiak puzkerka dihardu, lurra **zulatu** eta **zulatu** sagarrondoen gerizpean. Patxi Iturritegi
Mikel Strogoffek lurra **zulatu** zuen ganibetarekin izaki bizi hura hobitik ateratzeko. Karlos Zabala
Lurra **zulatu** eta hilobi bat egin genion, eta hantxe jarri genuen, bakean atseden har zezan. Mirentxu Larrañaga
Barrakoi xume bat lurrean **zulatua** eta lubakiz inguratua bera, frontetik ez oso urruti. Felipe Juaristi
Antartikako 4.000 metroko izotz geruza **zulatzen** ari ziren. Berria - Gaiak
Betiko itoginak harria **zulatzen** duela diote. Xabier Amuriza
Harkaitza **zulatu** burdinazko tresnaz eta urtegiak egin zituen. Elizen arteko biblia
Isaaken morroiek ibarrean **zulatu** eta iturburu bat aurkitu zuten. Elizen arteko biblia
Giltzak atearen begia zarata handiz **zulatu** eta atearen atalasa zeharkatu gabe, norbaitek txaketa beltz bat jaurtiki zuen gela barrura. Harkaitz Cano
Baztangak **zulaturiko** bere aurpegia apur bat beldurgarria zen. Joseba Sarrionandia
Txanpinoiak sardexkarekin ezin **zulatuz** imajinatu zuenean, hotzikara sentitu zuen. Joxemari Urteaga
Induska hasi nintzen, **zula** eta **zula**. Joxan Elosegi
Buenavista auzoan laster egingo diren obretan kontrolatutako leherketak ala **zulatzeko** makina mekanikoak erabili behar diren jakiteko. Berria - Euskal Herria
Quilish muinoa **zulatzearen** kontra daude guztiak. Berria - Gaiak

**2** (lurrean)
Lubakiak **zulatzen** ere, ilaran aritzen ginen. Mirentxu Larrañaga
Bederatzi tona lur eta harri kendu behar izan zituzten tunela **zulatzeko**. Rafa Egiguren
Nire aitona Marcos ez zela izan tunelak **zulatzen** ibili zen haietako bat. Harkaitz Cano
Basamortuan ere eraiki zituen dorreak, putzu ugari **zulatu** zuen, abere-talde asko baitzuen Xefela lautadan eta goi-lautadan. Elizen arteko biblia
Mirto adartxo bat estutu zioten hatzen artean, Mesias etortzean Lur Santurainoko bidea **zulatzen** lagunduko ziona. Itzelezko pasabideak **zulatuak** ditu honez gero. Koro Navarro
Hobia **zulatzen** ari ziren hobigileen aitzurkadak entzuten nituen bide barrenetik. Josu Zabaleta
Erreten bat **zulatu** zuten hesiaren ezpondaren eta kontraezpondaren artean, eta Angararen urez bete zuten. Karlos Zabala
Harritzen al zaitu orain izaki horiek ehun kilometro zabaleko kanalak **zulatu** ahal izanak? Josu Zabaleta
Izotzetan mailak **zulatzeko** erabiltzen den aizkoratxoa. Josu Zabaleta
Espainiarrek meategiak **zulatu**, mendiak induskatu, eta ura ateratzeko, mea hausteko eta bereizteko makinak asmatu zituzten. Iñaki Iñurrieta

**3** (gauza barne-huts bat, eskuarki gurpilak eta kidekoak)
Gau hartan ez ziren etorkinen auzunetara joango haien auto gurpilak **zulatzera**. Patxi Zubizarreta
Gurpilak **zulatu** dizkiote, kolaz bete dituzte sarraila-zuloak, egunkari-orriak itsatsi aurreko beirakian. Oskar Arana
Gurpila **zulatu** du Iker Flores nafarrak. Berria - Kirola
Eskolako tontoen globo hau **zulatzen** segitzeko. Iñaki Segurola
-Ez al dira, bada, baloi guztiak noizbait **zulatzen**? Joan Mari Irigoien
Askotan etorri izan zait begiak **zulatzeko** eta eskuak mozteko gogoa. Josu Zabaleta
Euskaltzale gaixoei maiz xamar **zulatzen** zaie beren kontzientzia sutsuaren kondoia, eta orduan barrengo hazia ixurtzen zaie komeni ez den tokiraino. Iñaki Segurola
Depositua **zulatuta** daudenean, hobe da tresna horiei kasu egin! Josu Zabaleta

**4** (norbaiti gorputza edo gurputz zati bat) ik **ziztatu**.
Zauriz **zulatu** nau, gerlaria bezala oldartu zait gainera erasoan. Elizen arteko biblia
Bere geziez josi nau, errukigabe **zulatu** dit gorputza eta lurrera isuri nire odola. Elizen arteko biblia
Bularra **zulatuko** baliote bezalako ziztada nozitu zuen. Berria - Kultura
Soldadu batek saihetsa **zulatu** zion lantzaz, eta bat-batean odola eta ura atera ziren. Elizen arteko biblia
Lantza hori Longinos soldaduak erabilia da, gurutzean Jesusen bihotza **zulatzeko**; horregatik dario muturretik odola etengabe. Juan Kruz Igerabide
Ilea oso motz zeraman eta bazeukan ezkerreko belarria **zulatzen** zion uztaitxo bat zintzilik. Joxemari Iturralde
Mingaina **zulatzen** zion *pearcing*-a esbastika bilakatzen zen Galderri hurbiltzen zitzaion bakoitzean. Lutxo Egia
Esku-oinak **zulatu** zizkidaten, hezur eta azal gelditu nintzen. Askoren artean
Ziri bat hartu eta atearen kontra belarria **zulatuko** diozue, eta esklabo izango duzue betiko. Elizen arteko biblia
Eta behin hortzak haragia **zulatutakoan**, kitto! Arantxa Iturbe
Hark **zulaturiko** eskuak ikusi zituen, baina ez lokatzez beteta zituen oinetako zauriak. Anjel Lertxundi
Nola erori zitzaion zerraldo aldameneko batailoi-kidea, burua bala batek **zulatuta**. Imanol Zurutuza
Eztandak tinpanoa **zulatu** zion. Berria - Euskal Herria
Abere nekatuaren gorpua astunki abaildu zen, burua **zulatu** zion balak tona bat pisatuko balu bezala. Alberto Ladron Arana
Foruak kendu zituzten urtea, Txirritari betiko **zulaturik** geratuko zitzaion arantza, bertso honek ez ezik Canovasi botatakoek eta beste hainbestek erakusten diguten bezala. Xabier Mendiguren Elizegi
· Klitoria sutsu ferekatzen zuen esku batez, arrak ipurdia plazer emanez **zulatzen** zion bitartean. Aitor Arana

**5** irud/hed
Oroitzapen garratzez betetako etxe batean bizitzen jarraitzen duzu, gertatutakoaren harrak gogoa **zulatzen** dizula. Oskar Arana
Barne borroka batean galdua zirudien, zeinak bi zimur mehe **zulatzen** baitzizkion aurpegi mutuan. Karlos Zabala
Iluna **zulatzen** zuen bere begi bikainekin. Karlos Zabala
Gelaren alderik alde zebilen, pauso luzez, entzuten, aurreko gaueko oihu beldurgarriak kanpoko isiltasun tristea berriro **zulatuko** ote zuen entzuten. Josu Zabaleta
Bafada garratz batek **zulatu** zizkidan sudur-eztarriak. Aingeru Epaltza
Minak burua **zulatu** zion, ordu arte inoiz ez bezala. Iñaki Mendiguren
Belarria sutan neukan, eta soinu mehe batek **zulatzen** zidan garuna. Koldo Izagirre
Snaperen begiek alderik alde **zulatzen** zuten Harry. Iñaki Mendiguren
Haren begiradak paretak **zulatzen** omen zituen. Juan Kruz Igerabide
Hura gurutzeari josia ikusteak gupidazko samina eragiten zion, ezpatak bezala bihotza **zulatzen** ziona. Askoren artean
Gezi bat aski da bihotz bat odolustutzeko, baina bi izen behar dira bihotz bat **zulatzeko**. Iñaki Segurola
Orduan, gupida mingarriak ezpatak bezala arima **zulatu** zizun. Askoren artean
Aitortu beharra daukat ur handiegiak direla hauek nere adimendu motzarentzat eta ez naizela gauza G.-ren hitz horiek ezkutatzen duten misterioa **zulatzeko**. Iñaki

Segurola

Bilbotarrak, aldiz, ezinean zebiltzan, Unicajaren defentsa **zulatu** ezinik. Berria - Kirola

Arsenalek ez zuen amore eman, neurketa berdintzen saiatu zen, baina luzapenean deabru gorri txikiak Lehmanen atea **zulatu** zuen, berriro: Rooneyk bi eta hutsekoa. Berria - Kirola

Txekiak hamaika aukera izan zituen aurretik markagailuan aurretik jartzeko, baina Letoniak lehen aukeran lortu zuen Cechen atea **zulatzea**. Berria - Kirola

Ilusioz joan zen hara, eskubaloian jokatzea eta sareak **zulatzea** ez zitzaiola ahaztu erakusteko irrikan. Berria - Kirola

Bederatzi aldiz **zulatu** zuen Celjeren ateko sarea. Berria - Kirola

## **6** alderik aldeko zuloa egin.

**Zulatu** nuen horma eta irekidura bat egin zen. Elizen arteko biblia

Horma alderik alde **zulatu** ondoren, irteten saiatu zen. Askoren artean

Obus batek pareta **zulatu**, eta hauts hodei bat hedatu zen transmisio aretoan, den-dena lausotuz. Karlos Zabala

Murrua gaindiezina zela, ia erabat ezinezkoa **zulatzen**. Joxemari Iturralde

Etxeko nagusiak, lapurra zein ordutan etorriko den jakingo balu, ez luke etxea **zulatzen** utziko. Elizen arteko biblia

Gauez etxea **zulatzen** harrapatu eta lapurra jo eta hiltzen duena ez da hilketaren errudun. Elizen arteko biblia

Galbahea bezain **zulaturiko** muki zapiak. Karlos Zabala

Horretan, **zulatu** egin zen txalupa eta ura borborka hasi zen sartzen, eta anaia, txalupa eta lagunak hondora joan ziren. Askoren artean

Lehen tiroak atzeko kristala **zulatu** zuen une berean. Harkaitz Cano

Sabai-zulo panoramiko pare batek **zulatzen** zuen arbelezko sabaia. Jon Muñoz

**Zulatutako** kartoiak erabiltzen zituen datuak sartzeko. Pello Salaburu

Zaintzailea igo zen, txartela **zulatu**, eta kalera atera zen berriro. Xabier Olarra

Orain, eguzki printzak neguko laino mardulak **zulatzen** hasi direnean. Berria - Kirola

Haren barne-estaldurak hartzen ditu urdaileko eduki azidotuak; ez da harritzekoa, bada, inoiz duodenoko ultzerak **zulatzea**. Irene Aldasoro

## **7** (hitz elkartuetan)

Kantari aritzeko hobi-**zulatzen**? Juan Garzia

Kristo Jesusen odol preziatuaz askaturiko arimak bekatuaren edonolako zikinez kutsatuak ikustean, esan ezin ahalako samin-ezten zorrotzak bihotz-**zulaturik**, gupida samurrez haiengatik dolu egiten zuen. Askoren artean

## **8** (era burutua izenondo gisa)

Bide bazterreko enbor **zulatu** haietakoren batean. Imanol Zurutuza

Korridoreko ate **zulatura** begira eusten nion pistolari. "Harresi **zulatuen** konpontzaile" eta "Etxe hondatuen berritzaile" deituko dizute. Alberto Ladron Arana

Aska paraleloen lerroa burdinazko hodi **zulatuekin**, atari zabalean, errepidera ematen zuen esparruko aldean. Urtzi Urrutikoetxea

Oinetako **zulatuak** eta jantziak hautsez beteak zeuzkan agertu zen goizean. Karlos Zabala

Sos batzuk izaten zituen sakela **zulatuetan** sartuak. Karlos Zabala

Poltsa **zulatuan** erortzen zaizkizue lanaren irabaziak. Elizen arteko biblia

Eskuekin tripa estutzen segitzen zuen eta denbora guztian bere gorputz **zulatu** horretatik ihes egin nahi balu bezala zen. Fernando Rey

Amaierarik gabeko lan hartan, etengabe azaltzen ziren zenbakiak eta kopuruak, nire zerebro **zulatuari** erraz asko ihes egiten diotenak. Joxan Elosegi

Bere hira adierazteko, Giza ahotsa erabili zuen, zeina baitzegoen berari loturik hezurrezko esfera-antzeko **zulatu** baten inguruan estrukturalki ezarririko haragi-masa batez. Xabier Olarra

Euriak eta likenek ilundu eta maiztutako harriak, bihurrituak, **zulatuak**, zorroztuak. Anjel Lertxundi

Ramalako errepide **zulatuan** ibiltzera ohituta dago Khaled taxi gidaria. Berria - Mundua

· Lur **zulatu** berria estaltzeko sasi bila joan zenean. Harkaitz Cano

Lurraren sabel **zulatuetatik** meatzari esklabizatuek lanaren izerdiaz erauzitako ikatzarena zirudien beltztasuna. Xabier Mendiguren Elizegi

## **9** (era burutua izen gisa)

Odolak, leku guztietan presiopean dagoenez [...] badu irteteko arriskua, nahiko indar handian irten ere, **zulaturen** bat gertatuz gero. Irene Aldasoro

**Zulatua** konpontzea. Irene Aldasoro

Etapa ezeroso horietakoa izan da, eta, gainera, **zulatua** izan dut. Berria - Kirola

Beraskoitzen **zulatu** bat izan ninan. Javi Cillero

Harrezkero, beste seniparterik ez-eta, susmo txar haiek hartu zituen osabaren ondaretzat, eta susmo horien gainetik Aita Morlansenganako herra, bihotzean **zulatua** betiko. Xabier Mendiguren Elizegi

## **10** ***zula-zula egin***

Nonbait ere metraila zain izango zela iruditzen zitzaiguan eta ihesian **zula-zula egitea** baino gauza errazagorik ez zela. Josu Zabaleta

Olio depositUak, gasolina depositUak, **zula-zula eginda** dago dena. Josu Zabaleta

Larrua **zula-zula egingo** ote diozu geziz edo burua arpoiz zeharkatuko? Elizen arteko biblia

**hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**

**alderik alde zulatu** (8); **atea zulatu** (7); **atea zulatu ezinik** (3); **autoetako gurpilak zulatu** (3); **belarriak zulatu** (4); **berriro zulatu** (3); **burmuina zulatu** (3); **burua zulatu** (4); **burua zulatu zion** (3); **gurpila zulatu** (11); **gurpilak zulatu** (11); **harkaitza zulatu** (4); **lurra zulatu** (9); **saihetsa zulatu** (3)

**zulatu bat** (3); **zulatu behar** (11); **zulatu berria** (3); **zulatu eta zulatu** (5); **zulatu ezinik** (5); **zulatu gabea** (3); **zulatu izan** (4); **zulatu nahian** (3); **zulatu ondoren** (3); **zulatu zion** (13); **zulatu zioten** (3); **zulatu zituzten** (5); **zulatu zizkidan** (4); **zulatu zizkion** (3); **zulatu zizkioten** (3); **zulatu zuen** (33); **zulatu zuten** (24)

**lantzaz zulatua** (7); **lantzaz zulatua izan** (3)

**iltzeek zulatuak** (3)

**gurpilak zulatuko** (3)

**baztangak zulaturiko** (5); **haitzean zulaturiko** (4)

**zulatutako putzu** (3)

**atea zulatzea** (5); **defentsa zulatzea** (6)

**atea zulatzeko** (7); **defentsa zulatzeko** (3); **zulatzeko gai** (3); **zulatzeko makina** (4)

**atea zulatzen** (4); **berriro zulatzen** (3); **bezala zulatzen** (3); **bihotza zulatzen** (4); **erraz zulatzen** (3); **etxea zulatzen** (3); **harria zulatzen** (4); **itoginak harria zulatzen** (3); **lurra zulatzen** (3); **zulatzen ari ziren** (15); **zulatzen ari zen** (6); **zulatzen ditu** (5); **zulatzen du** (7); **zulatzen duen** (6); **zulatzen eta** (4); **zulatzen hasi** (3); **zulatzen zion** (5); **zulatzen zioten** (5); **zulatzen zuela** (3); **zulatzen zuen** (11); **zulatzen zutela** (3); **zulatzen zuten** (9)

---

# zulatzaile *(orobat **zilatzaile** g.er.)* **1** *izond/iz* zulatzen duena.

Hotzikara txikiek zeharkatzen diote gorputza; biluzik geratu bezain laster ohazal azpira lerratzen da sator **zulatzaile** baten moduan, eta bizkarra ematen dio berari. Oskar Arana

Banzaiak mila urtez bizi izaten dira, oihu egin zuten **zulatzaile** japoniarren laugarren pelotoiko gizontxo grisek, Yalu ibaiaren gaineko zubia konpontzera zihoazela... Lopez de Arana

## **2** (hitz elkartuetan)

Talde bakoitzak hiruna harri-**zulatzaile** izango ditu. Berria - Kirola

---

# **zulatze** *iz* zuloa edo zuloak egitea.

Ez zuen zirkinik ere egiten baina haren begiratua Aitaren begietan egon zen **zulatze**-lanak iraun zuen bitartean. Xabier Etxabe

Berrehun metro gehiago errepidean gora eginda aurrez aurre zabaldu zitzaion meategi harana, **zulatze** lanen poderioz gorriztutako paraje malkartsuak. Josu Landa

Etorkizunera iragateko unean, margolari ospetsu baten eskuetan jarri ziren, haien aurpegietan diskrezioz egin zitzan dragatze, **zulatze**, ureztatze lanak. Monika Etxebarria

· Gurpil **zulatzeak** zenbait autotan. Koldo Izagirre

**hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
**zulatze lanak** (3)

---

# zuldar ik **zaldar**.

---

# **zulo** *(orobat **zilo** g.er.) iz* **1** gauza bateko alderik aldeko irekidura biribil antzekoa.

Kaputxaren bi **zulo** biribiletan begi argiak nabari ziren. Iñaki Iñurrieta

Aurpegia gorri eta begiak beren **zuloetatik** atera beharrean zituela. Koldo Biguri

*ik beherago* 18.- **Zuloak** dauzkat galtzerdietan. Askoren artean

Zangoko ile beltz luzeak ikusi zizkion galtzerdietako **zulo** batetik. Koro Navarro

Goioren jertseak **zuloak** zituen ukondoan eta amak larruzko adabakiak josi behar zizkion. Joseba Sarrionandia

Lepoa zuzen eusteko plastikozko trastearen uhalari **zulo** bat gehiago estutuz. Hasier Etxeberria

Kablea pasatzeko **zuloa** egina dago. Patxi Zubizarreta

Zednicek kontseilariak sabai txikituei begiratu zien, metrailadoreek egindako **zuloei**. Fernando Rey

Gorantz begiratu eta izarrak ikusi zituen, distiraka, erdi puskatutako sabaiaren **zulotik**. Xabier Aranburu

Maitasuna 100 **zuloko** pegarra da. Jon Muñoz

Horrek erakutsiko bailuke ez dizkizudala erroskilen **zuloak** erroskilen truke saldu. Joan Mari Irigoien

Belarrian beste **zulo** bat; hippy horietako bat emango duzu. Patxi Zubizarreta

Zakurrentzat bi **zulo** eder dituen etxola egin genuen. Gotzon Garate

Kutxatxoak **zuloak** zituen arnasbiderako, eta goma elastikoak inguru osoan. Mirentxu Larrañaga

Baina ez zuen asmatzen, ez zuen sarrailako **zuloa** aurkitzen. Karlos Zabala

Neva ibai jelatuan **zuloa** egin, eta han bota zuten Rasputin. J.M. Olaizola "Txiliku"

Hesiko **zulo** batetik begiratu eta ikusi nuen tunel bat egin zuela bikarioak erretenaren eta putzuaren arteko harrietan zehar. Koro Navarro

Jerusalemgo harresia konpontzeko lanak aurrera zihoazela eta **zuloak** betetzen ari zirela. Elizen arteko biblia

Landare-hesiko **zulo** bat katamarka zeharkatu genuen neke handiz. Mirentxu Larrañaga

**Zuloa** ireki zuten barrukoek harresian eta, gauez, hiriko gudari guztiek ihes egin zuten. Elizen arteko biblia

Haien printzea, gauzak bizkarrean hartu, horman **zuloa** egin eta ilunpetan irtengo da. Elizen arteko biblia

Beraien aurrean, **zulo** bat egingo duzu horman eta handik aterako zeure fardela. Elizen arteko biblia

Jerusalemera jo eta hango harresietan berrehun metroko **zuloa** eginarazi zuen, Efraimen atetik kantoiko ateraino. Elizen arteko biblia

Pixa eta gainerako beharrizanak martxan zihoazela bagoiaren zoruko **zulo** batetik errenditzuz. Jokin Urain

Jarioa duen zirkuitu bati aurre egin beharrean gertatzen den ingeniaria **zuloak** tapatzen saiatuko da lehenik eta behin. Irene Aldasoro

Balbulek **zuloak** ixten dituztenean, barruan dagoen airea eta ura konprimatu egiten dira. Santiago Iruretagoiena

Hiru **zuloko** flauta Euskal Herrikoa bakarrik zela uste nuen. Mikel Hernandez Abaitua

**Zulo** horren parean brontzezko danbor bat ezarriko da, berak ere **zulo** bat duena, eta **zulo** horretatik uharkako ura sartuko zaio barrura. Santiago Iruretagoiena

Itsasoak zikinkeriaz gainezka, ozono-geruzan gero eta **zulo** handiagoa. Migel Angel Mintegi

Ozono geruzaren **zuloa** txikitzen ari den edo airearen kalitatea txartzen ari den aztertuko dute ikertzaileek. Berria - Gaiak

Botoientzako hamabi kako beltz behean -alde bakoitzean seina-, eta goian lau pare **zulo**. Anton Garikano

Bola bat **zulo** batetik ezin bada pasa, zer esan behar da, bola handiegia dela edo zuloa txikiegia dela? Ibon Uribarri

Orduan, bera zegoen parean etxe gaina zulatu eta **zulotik** behera eraitsi zuten elbarria, etzana zegoen ohatilan. Elizen arteko biblia

**Zulo** bat zegoen horman eta bahituak ateratzen hasi ziren. Berria - Mundua

Ilea gogortzeko erabiltzen dituzten laka aerosol horiek egiten dituzte, portugesak dioenez, ozonoko **zuloak**. Joseba Sarrionandia

Atso edo agure horrek itzelezko **zuloak** izanen ditu bularrean, eta bizkarretik bularrerako zuloetatik sartuko zaio haizea ffiuuu eginez. Joseba Sarrionandia

-Zuen eskola horretan jendea buruz behera sartzen dute **komun-zuloan** lehenengo egunean -esan zion Harryri. Iñaki Mendiguren

## **2** (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

Egia da bien bitartean komunak zeuden barrakoia ere bisitatu genuela -luzera osoan oholtza moduko hiru gorauneko lekua zen, bakoitza bi **zulo**-errenkadaz osatua, guztira sei alegia. Urtzi Urrutikoetxea

## **3** (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa)

Artile zuriko azpantarrak botoi-**zulo** beltzekin, espartinak besterik ez oinetan. Koldo Izagirre

Kapela luzea eta botoi-**zulo** batean orkideo bat. Lopez de Arana

Mundua adina zabala, zerura iristeko orratz **zuloa** bezain txikia halaber. Itxaro Borda

Gero eta arinago juduaren hatzak txirula **zuloak** itxi eta ireki. Felipe Juaristi

Horma **zulotik** proiektoreak jaurtiriko argi irakinaren urruma entzuten zen. Joseba Sarrionandia

Motorra itzali, eta atea zabaldu zuen Marrok; ate-**zulo** guztia bete zuen, hartz baten itzal ikaragarriak bezala. Juan Kruz Igerabide

Karelen behe parteko ur-**zuloak** garbitu zituen gero. Anjel Lertxundi

Beiratxo batetik, ate ondoan zegoen zirritu-**zulo** moduko batetik, zuhaitz anabasa multzoak ikusten nituen oinaztargi handien argitan haizeak astindurik. Josu Zabaleta

Ez zen giltza sarraila **zuloan** sartzeko gai izan. Edorta Jimenez

Adi zeukan ondoan, sabai-**zuloan** zehar zeruari begira galduak begiak, Jonathan. Jon Muñoz

Azken solairuko tranpa-**zuloa** itxi eta gero, kanpaijolea mundutik aparte dago. Koldo Biguri

Sabai-**zulo** panoramiko pare batek zulatzen zuen arbelezko sabaia. Jon Muñoz

Borreroak Berdabioren oinetan zegoen urka-**zuloa** zabaldu du. Anjel Lertxundi

Berak katu-**zuloa** ipini zuen logelako atean, handik janari-kopuru txikiak barrura pasatu ahal izateko egunean hiru aldiz. Iñaki Mendiguren

Negutegi-efektua, $CO_2$ jaulkipena, ozono-**zuloa** edo atmosferaren berotzea. Jon Alonso

**4** irud/hed

Aurreneko hiru partidetan Reala zen jokoa sortzeko ahalegina egiten zuena, eta baloia erraz galtzeaz gain, atzean sekulako **zuloak** uzten zituen. Berria - Kirola

**5** zerbaiten azalean edo gainaldean gertatzen den sakonunea edo irekidura, alderik alde igarotzen ez dena.

-Ezin al haiz kontuz ibili bideko **zuloekin**? -esan nion. Koro Navarro

Negarrez ari zen, ume jaioberri batenak bezalako intziriak eginez, leizearen **zuloan**. Anjel Lertxundi

Miranda de Ebron 1,5 metroko diametroko **zuloa** eragin du bonbak, 70 zentimetroko sakonerakoa. Berria - Euskal Herria

Hori onartzen ez badugu, euskararen hilobiaren **zuloa** handiagotu besterik ez dugu egiten. Pello Salaburu

Lehergailu batek eztanda egin ondoren denak biltzen dira lehergailuak egindako **zuloan**. Harkaitz Cano

Eskuineko begiaren tokian **zulo** kiskali bat zegoela, monokulo urdin bat bezala. Fernando Rey

Biktima Zubiaurre pasealekuko supermerkatu bateko igogailuaren **zuloan** aurkitu zuten. Berria - Ekonomia

22:00etan piztu zen sua, eskailerako **zuloan**. Berria - Harian

Hustear den bainuontziko **zuloak** azken ur zurrunbiloa irensten zuen eran. Harkaitz Cano

Horixe dauka futbolak, egun bateko emaitza hurrengo egunekoak irensten duela, eta dena **zulotik** errekara doala. Edorta Jimenez

Belauniko jartzen saiatzen da eta komuneko **zuloan** sartzen du eskua. Oskar Arana

*ik beherago* 33. Askoren artean

Komuneko **zulotik** kanpora tantarik isuri dudan begiratzeko betarik hartu gabe, korrika igo naiz ganbarara. Xabier Etxabe

Hilobi baten neurria izan zezakeen **zulo** bat lurrez estaltzen ziharduen. Ramon Saizarbitoria

Lur beltz bustia nekusan, hilobi baten **zuloa**, eta hondoan Lizzy Siddal, Beata Beatrix gisan. Ramon Saizarbitoria

Gerra garaian edozein **zulo** da lubaki. Pako Aristi

**Zulo** bat egin eta hantxe ehortzi zuen behi hila. Joan Mari Irigoien

Trokolaren beheko aldean burdinazko kurrikak lotzen dira, harrietan egindako **zuloetara** egokitzen diren hortzak dituztenak. Santiago Iruretagoiena

Hegalak gorputz nagusiari irekitako **zuloetan** doi-doi ahokatuta. Joan Mari Irigoien

**Zuloa** egin behar da lur sendoa bilatu arte, eta bertan, ondo finkatu behar dira [zimenduak] obraren tamainari dagokion proportzioan. Santiago Iruretagoiena

Miranda de Ebron 1,5 metroko diametroko **zuloa** eragin du bonbak, 70 zentimetroko sakonerakoa. Berria - Euskal Herria

Ez zuen espaloi erdiko **zuloa** ikusi. Jon Muñoz

Baina horra: Herio Leizera jaitsi zara, **zuloaren** barren-barrenera! Elizen arteko biblia

Elurretan **zulo** bat egin zuen, eta hantxe kuzkurtu zen bere zakurrarekin batera, eraman zuen burusi batean bildurik. Josu Zabaleta

Izuaren erasotik ihes egin dezana **zuloan** jausiko da; **zulotik** ihes egin dezana zepoan harrapatua geldituko. Elizen arteko biblia

Teiletatik tantaka isurtzen zen urak **zulo** bat egiten zuen patioko harean. Juan Garzia

Lur gorrian **zulo** bat egin eta bertara bota zuten […..] izenik gabeko hilobian, izan ez zenaren ezereztegian. Felipe Juaristi

Petatea bere buruaren molde bihurtu da gauez: **zulo** ederra egin dio. Harkaitz Cano

Hainbat orduz bide bazterreko **zulo** batean lo egin zuela uste zuen. Karlos Zabala

15-20 metroko **zulo** batera erori zen, baina zauri arinak besterik ez ditu. Berria - Euskal Herria

Henne ijito bat bezain beltza zen, aurpegia estua, **zuloak** masailetan, ihar-iharra: hezurra eta azala. Koro Navarro

Alessandro lurrean ikusi nuen zerraldo, bekokian **zulo** bat zuela eta **zulo** hartarik odola zeriola. Joan Mari Irigoien

Goiok lata bat galipot bero ekarri zuen eta Juan Bautista gilaren gainean arrelepo jarrita hasi zen, espatula erabiliz, **zulo** txikiak eta zirrikituak betetzen. Joseba Sarrionandia

Irrikan naukazu jostailu polit honekin lehen aldiz tipo bati tiro egiteko, **zulo** politak egiten omen ditu gorputzean. Migel Angel Mintegi

Zilborraren alboan beste hiru **zulo** zituen odola zeriela. Joseba Sarrionandia

Neska galantak -ederrak- dotea aurpegian, zen esaera; lotsagabeagoek toki ezkutuagoan ikusten zuten dote emearen gordeleku edo **zulo** naturala. Iñaki Segurola

**Zulo** batzuk ere dastatuta zegoen nire zakil maitea: zenbait aho, Loreren potxona eta... Aitor Arana

Rodolfo Rodolfo zen, gau guztian jo zigun larrua **zulo** guztietatik. Karlos Zabala

Opsina molekulak badu azalean **zulo** bat erretineno molekula bat garbi-garbi egokitzen zaiona. Irene Aldasoro

**6** (izenondo eta izenlagunekin)

Gerturatzean, lurrean **zulo** biribil bat ikusi zuen, eta handik sortzen zen distira barruko suaren isla zurbil kulunkaria zela. Joanes Urkixo

Ezpata bere zorroan bezain garbi egokitu zen **zulo** angeluzuzenean. Aingeru Epaltza

Ordekara iritsi zirenean, obusek eragindako bi **zulo** handi aurkitu zituzten begien aurrean. Jon Maia

Absalom hartu eta basoko **zulo** handi batera bota zuen; gero, harri-pila handia ezarri zioten gainean. Elizen arteko biblia

Zakurra hil zen eta lurperatu egin zuten, On Camillok eta Pepponek, infernua bezain **zulo** sakona egin eta gero, bakean atsedena izan zezan. Koldo Biguri

Gai zara Zu dena ikusteko [...] ikusten gaituzu eguzkia ezkutatu denean; ikusten gaituzu izarrik ez denean, belztasun trinkoan, **zulo** sakon, sakon, sakon sakonean. Koro Navarro

**Zulo** sakonera jaurtiki nauzu, barren-barreneko ilunpetara. Harrointzat nuen lurra bera ere bertze amesgaizto bat zela, errealitatea **zulo** hondargabe bat bertzerik ez balitz bezala, non hondoratzen bainintzen atergabe eta etengabe. Elizen arteko biblia

**Zuloak** ziren, ur eta lohi zikinez beteriko **zulo** ankerrak, katabuta beltz bi. Felipe Juaristi

Eskua luzatu zuen, baina hautsita zegoen baranda, eta ez zegoen han **zulo** bihurri batetik behera erortzea eragotziko zionik, eta **zuloak** bere garrasia itzuliko eta bikoiztuko zuen, paretetako **zuloetatik** ateraraziko zituen lotan edo erdi esna zeuden familiak, irudi marmartiak, gaua egun bihurtzen duten itsu harrituak. Koro Navarro

Korridore itsu batera iritsi ziren, **zulo** itzaltsu batera. Karlos Zabala

Berak ere ez daki ongi nola erori zen bost metroko **zulo** batean. Gotzon Garate

Hezurretan barrena beldurra irristatzen zitzaidala sentitzen nuen, egiazko beldurra, beldur lazgarria, gorpu maite haren aurrean, hondarrezko lau mendiren arteko **zulo** eguzkiak kiskali hartan. Josu Zabaleta

**7** (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

**Zulo**-galeria luze bat prestatu zuten orduan karlistek komentuaren zoruetaraino, **zulo**-buruan sekulako mina bat lehertzekotan. Tanpez, hondartza lau eta leun batean azaltzen zara, harkaitz, ganbera, arkupe, **zulo** eta leize labirinto galgarri baten erdian. Txillardegi

Txiki goian **zulo** ertzean zain, erabat urduri, intzirika, zuloaren inguru-minguruei usainka. Gotzon Garate

Ez du, sua barrenera sartu ahal izateko batere **zulo**-tarterik izaten. Santiago Iruretagoiena

**Zulo** ertzean jarri zuan, hankak zabalik, eskuak atzean gurutzatuta, arrandiaz beteta. Josu Zabaleta

Sudur bikaina zeukan, **zulo**-handia, eta gailen haren aho simetrikoaren gainean. Karlos Zabala

· Begiak **zulo**-handituta, ahoa paperaren antzera, lehor-lehor eginda. Felipe Juaristi

**8** (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa)

Ez baitugu odolik, arrosa bere adarrean bezala, larru **zuloetatik** barna isurtzen denik. Felipe Juaristi

Abaxik, lertxun-orria baino urduriago, hitz magikoak esan zituen lapurren altxor-**zuloaren** aurrean. Anjel Lertxundi

Hobi-**zuloaren** ertzean daudela, biziek aprobetxatzen ahal dituzten arropak erantziko dizkiete, odolak gogorturik ez badaude. Jon Alonso

Habe bat kanoi-**zulo** batean, usteldua; zati bat hartu dut. Koldo Izagirre

Bahitutako enpresaria Itsasondoko meatze-**zulo** batean eduki zutela ezkutatuta. Xabier Mendiguren Elizegi
Putzu-**zuloan** sartu naute bizirik eta harria ipini didate gainean. Elizen arteko biblia
Aspaldi erakutsi ziguten gure biziak ere ibaien pare direla, nahiz eta gehienean putzu-**zulo** baten tankera gehiago izan. Iñaki Segurola
Pixa arradetan iraitziko ditugu komunetik behera, hiriko hoditerian barrena joanen dira, kolektore **zuloa** beltz nagusian bildu eta handik itsasoraino. Iñaki Iñurrieta
Jebustarrei eraso nahi dieten guztiak sar daitezela ubide-**zulotik**, David gutxiesten duten itsu eta herren horiengana! Elizen arteko biblia
Ez duzu ikusten kea, tximini **zulotik** ateratzen? Xabier Mendiguren Elizegi
Espaloiaren erdian zabaldutako estolda-**zuloan** behera. Jon Muñoz
Obus-**zulo** batean irristatu gara eta hantxe ezkutatuta egon gara puska batean. Mirentxu Larrañaga
Ateetan hainbat bala **zulo** zituela, etorritako bide beretik desagertu zen emakumeak gidatutako auto beltza. Gizon batek poste-**zulo** bat hirurogei segundotan egin dezake. Harkaitz Cano
Elkarrengana kukubilduta, babes **zulo** lirdingatsuetan egiten dugu lo. Pablo Sastre
Soto-**zulotik** behera desagertu zen gero. Anjel Lertxundi
Zur ezpal batzuk erori ziren eskailera **zulotik**. Alberto Ladron Arana
Ez zuen musika eta pianoa beste ikasketarik, eta grande dame baten dotoretasuna erakusten zuen, baita sukaldeko su-**zuloan** ikatza sartzen ari zenean ere. Anjel Lertxundi
Gure arabasoak Pertsiara erbesteratu zituztenean, orduko apaiz jainkozaleek aldaretik sua hartu eta, inork jakin gabe, urik gabeko putzu handi baten antzeko osin-**zulo** batean gorde zuten eta bertan seguru utzi, toki haren berri inork ere ez jakiteko eran. Elizen arteko biblia
Hogeita hamar fusil modernotik gora gorde zituela harkaitz-**zulo** batean. Koro Navarro
Kristal finezko baso bat atera zuen sukaldeko horma nagusian zegoen pegartegi-**zulotik**. Anjel Lertxundi
Gordelekurako bidean Juanek pistola eskatu ziolako harri-**zulo** batean ezkutatzeko. Bernardo Atxaga
Erniok buelta guztian dituen malkar-**zulo** eta amildegi bortitzen ertzean. Pako Aristi
Nire eskua haren saihets-**zuloan** sartzen ez badut, ez dut inola ere sinetsiko. Elizen arteko biblia
Haren bular balantzariak, haren lepo lodia eta partikulazki hain trebeki eskaintzen zidan haren uzki-**zuloa**. Itxaro Borda
Maitetasuna-edo sentitzen ninan nik hor, bihotz **zuloan**. Xabier Mendiguren Elizegi
Zuri-beltzeko irudietan, metro **zulo** luzea agertzen zitzaion, eta bera bagoi batean sartuta, txikia, oso txikia zela. Jasone Osoro
· Laztana ematerakoan, isil isilean belarri **zulo**-zulora hitzok esan zizkion: [...]. Gotzon Garate

## **9** (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa, adkor)

Negu osoa etxe-**zuloan** sartuta eman zuen Raymondek. Mirentxu Larrañaga
Etxe-**zulo** ilun ospela zuen, egurrezko eskailera higatua eta guzti. Javi Cillero
1884. urtean hondakinak jasotzeko ontziak beharrezko zirela esan zien paristarrei, eta bi urte beranduago, kainu eta kainu-**zuloen** beharraz jabetuta, etxe eta kale guztietan jar zitzatela agindu zuen. J.M. Olaizola "Txiliku"
Irabazitakoa benta-**zuloetan** urtzen da, gatza errekan bezala. Bernardo Atxaga
Dot's bezalako ostatu-**zulo** zabar eta ilun batean. Oskar Arana
Lard kaleko etxebizitza hura gela **zulo** bat besterik ez zen; gela zarrastatu bat [...] leiho bakar batek argitzen zuena. Karlos Zabala
Hantxe geratzen zen, mugaldeko auskalo nongo kuartel-**zuloan** gorderik aberria defendatzen. Juan Garzia
Fabrika aterpe-**zulo** zikin eta desordenatu bat zen, haize-lasterrez betea. Juan Garzia
Andreas ere soto-**zuloraino** hurbildu zen, bertako tranpola itxi, eta Nora giltzapean gordetzea pasatu baitzitzaion burutik. Anjel Lertxundi
Beheko galeria hartan ez dago berogailurik, eta ziega-**zulo** haiei hoztasun eta tristura are handiagoa ematen die bertako argi eskasak. Jokin Urain
Viena, azken batean, probintziako hiri bat besterik ez zela egin zuen kontu, herri-**zulo** bat, non txukun antzean jantzitako arrotzari mirari bati bezala begiratzen zitzaion. Anton Garikano
Gorpua aurkitu zuten lekuan aurkitu zutelako, baso-**zulo** bateko errekan, normala zela zomorro batzuk ere aurkitu izana haren arropetan eta azalean itsatsita. Hasier Etxeberria
Zuk, ene Jainko, herio-**zulora** botako dituzu odolzale eta maltzurrak. Elizen arteko biblia
Tabernaren xehetasunetan entretenitu nahi izan nuen gero eta kabitu ezin izutuagoa: aza minduaren usaina zen nagusi koipe-**zulo** hartan; [...]. Anjel Lertxundi
Asko dira, izan ere, kontenplaziorako lekua aisia-leku bihurtzen dutenak eta arimen perfekziorako asmatutako eremitorio-biziera plazer-**zulo**. Askoren artean
Ohi baino ere zurbilago jarri zen Malfoy jauna, baina artean amorru-**zuloak** ziren haren begiak. Iñaki Mendiguren
Bordeleko Parlamentuak -erromazale-**zulo** zikina! -inoiz ez zidaan armagizon gehiagoren soldata ordainduko. Aingeru Epaltza
Nire etxea otoitz-etxe izango da; zuek, berriz, lapur-**zulo** egina duzue.

## **10** (lurpean zehar egiten dena)

-Beraz, Agirre jauna, zuk urteotan egindako **zulo** guztiak ez dira izan presoek kartzelatik ihes egin dezaten, ezta? Koldo Izagirre
Ikusi ote da inoiz **zulo** bat egiten, presondegitik ihes egiteko izan beharrean, barruan sartzeko? Koldo Izagirre

## **11** irud/hed

Mendiz inguratuta, **zuloa** duk erabat; eta zaintzen oso-oso zaila. Txillardegi
Nik bere aitaren **zuloa** betetzen nuen. Haren apetitua: hondorik ez duen **zulo** bat, inoiz betetzen ez dena. Gotzon Garate
Borreroak, norbait exekutatzen duen bakoitzean, heriotz hutsunea sentitzen du bere baitan; halako **zulo** bat, halako bertigo bat, halako huts kosmiko bat. Karlos Linazasoro
Ez zuen aitortzen, baina **zulo** bat zuen, hutsune bat, nola bete ez zekiena; ongi dakit nik zer den hori. Ramon Saizarbitoria
«Gero eta estuagoa» da gizonen eta emakumeen arteko **zuloa**, batzuen eta besteen jarduera-tasaren artean oraindik «tarte zabala» dagoen arren. Berria - Ekonomia
Hogei urteko tartea betetzeko gehiegizko **zuloa** izango da umetan joandakoentzat. Jokin Urain
Tropelak baimena eman zien, eta aitaren batean bederatzi minutuko **zuloa** ireki zuten. Berria - Kirola
Euskara Lanbide Heziketaren **«zulo** bat» dela onartu du Iztuetak. Berria - Euskal Herria
Baina egun batez malapartatu batek drogaren **zulora** eraman omen zuen. Anjel Lertxundi
-Ahaztutako gauzen **zulora** -esan zuen A-k. Bernardo Atxaga
Gabezia bat, **zulo** handi bat bezala sentitzen nuena, zera zen: haren zikoizkeria txerazko hitzak nahiz ferekak eskaintzeko. Ramon Saizarbitoria
Badirudi **zulo** emozionaletik gora egin duela. Patxi Iturritegi
Ondoren, bisitatu ohi zituen **zulo** eta night-club guztiak. Sonia Gonzalez
Lehengo zerua **zulo**, bide zabala amildegi. Xabier Mendiguren Elizegi
Internet Explorerren **zuloak** agerian. Berria - Gaiak
Sailkapenaren **zuloan** zaudenean oso gaitza da partidak jokatzea. Berria - Kirola
Orain, Bakero da onena, entrenatzaile egokia eta Reala **zulotik** aterako duena. Berria - Kirola
Noizbait ezagunak eta printzipalak izandako izen horiek denak ahazturaren **zuloan** amiltzen direnean. Xabier Mendiguren Elizegi
Hori ez da naturala; hori, hori... erokeriaren eta nazkagarrikeriaren **zuloan** sartzea da hori. Xabier Mendiguren Elizegi
Zer den FMI, nola herriak **zulora** doazen erakunde horren erruz. Berria - Mundua
Ni behintzat zazpi putaseme garbituta noak **zulora**! Koldo Izagirre

Doala infernuko **zulora** ! Patxi Zubizarreta

Infernuko hauspoak, infernu- **zulo** guztietako ateak irekitzeko bidea eman zion Jexuxi. Xabier Etxabe

Taberna bera zulo bat bazen, oraindik ere beheragoko **zulo** beltzagoak ere bazirela han konturatu nintzen. Hasier Etxeberria

Galbide- **zulo** batean xahutzeko? Fernando Rey

Gero, gaitzak zintzurretik bularra jotzen eta gaixoen bihotza bera harrapatzen zuenean, bizi- **zulo** guztiak dardaratzen ziren. Xabier Amuriza

Mundu zabal honetako edozein **zulotan** agian herioak harrapatu du! Itxaro Borda

## 12 gordelekua.

"Etxe barruan disimulatuta egoten den **zulo** bat, ezta?", esan nion. Goiko **zulo** horretan egon zen amerikanoa, esate baterako. Bernardo Atxaga

Atxilotua ustez **zulo** batean lehergaiekin ari zela, zerbaitek huts egin eta eztanda gertatu bide zela. Berria - Gaiak

Horretarako prestatua zuen **zulo** batean ezkutatu zen. Askoren artean

Gure aita, anaia eta izeba etxe ondoko **zuloan** gordeta zeuden, beste zazpi euskaldunekin. Berria - Euskal Herria

Felagak beren **zuloetatik** irten arte igurikiko omen duzue. Xabier Montoia

## 13 *adkor*

-Bai ederra -erran nion nik, **zulo** zikin hartan inork minutu bakar bat ere eman zezakeenik sinetsi ezinik. Alberto Ladron Arana

Tabernetako komunak dira komunio horren tenpluak, eta **zulo** haietan, Ostia Biribila gurtu beharrean, karnetarekin egindako Lerro Zuzena gurtzen dugu. Iñaki Segurola

Hegaldatu egin nahi genuke, baina oinez gabiltza, eta ezintasun hori **zulo** bat da, gure nahiaren eta gure gutizien lurretan dagoena, eta irents gaitzakeena noiznahi-den. Joan Mari Irigoien

Eta hona, nire iragana **zulo** izugarri bat besterik ez da. Monika Etxebarria

## 14 abere gordelekua edo egonlekua.

Hor daude piztien gordelekuak, **zuloak**, habiak eta ganaduaren azpiak, bai, baina gauza bat dira esandako horiek eta beste bat oso, ohe zuri garbi epel bigun estalkiduna. Iñaki Segurola

Hartzaren **zulora**. Berria - Kirola

Azeriek badituzte **zuloak** eta aireko hegaztiek habiak.

Gero, Jaunak alde egiten du, bere **zuloa** uzten duen lehoiak bezala. Elizen arteko biblia

**Zuloan** zazpi lehoi zeuden, eta urkatutako bi gizonen gorpuak eta bi ardi ematen zitzaizkien jaten egunero. Elizen arteko biblia

Gero, harri bat ekarri eta lehoi- **zuloaren** sarrera itxi zuten. Jose Antonio Mujika

Haiek lehoi- **zuloan** sartu zuten eta hantxe utzi sei egunez. Elizen arteko biblia

Bazen han azkonar- **zulo** eta azeri- **zulo** ugari, pixatoki ezin hobeak denak. Mirentxu Larrañaga

Badator herri bat iparraldetik istilu handiz, Judako hiriak basamortu eta txakal- **zulo** bihurtzera. Elizen arteko biblia

Txe bere zakur- **zuloan** zegoen. Gotzon Garate

Zakurrak ordea zaunka egin zien ahateei [...] eta untxi **zulo** baten sarreran etzanda geratu zen isatsari eraginez. Koro Navarro

Jendeak eskola aldera egin zuen, eta hango komunetan eta eskaileretan aienatu ziren, baina hura arratoi- **zulo** hutsa zen. Juan Kruz Igerabide

Bekaizgarri zitzaizkien sagutxoak, zeinak, lauzen arteko beren habia- **zuloetatik** alderrai, ogi sagaratuaren apurrak karraskatuz gizentzen baitziren. Juan Garzia

-Ni ez nauk **zulo** bakarreko sagua! Koldo Izagirre

## 15 irud/hed

Halako apartamentu arratoi- **zulo** gisako batean bizi nintzen errentan bi lagunekin, Billy-rekin eta Greg-ekin, C Etorbidearen ondoan. Oskar Arana

Georgia, esate baterako, suge- **zulo** bat da: animaliak baino okerrago tratatzen dituzte elbarriak han. Xabier Olarra

Bazekien nolako listor- **zuloa** izango zuen aurrerantzean bulegoa. Irene Aldasoro

-Hau zorri- **zulo** zikin nazkagarri bat besterik ez duk -tonu berean jarraitu zuen ahotsak-. Lopez de Arana

## 16 *adkor* hilobia.

Hitzalditxoa, hilerrian, hilkutxa **zuloan** utzi baino lehen, berak egin zuen, On Camillok, eta negarrez ari zen jendea. Koldo Biguri

Herriko beste gizagaixo batzuk bezperatik jartzen zituzten kanposantuan **zuloak** egiten. Jokin Urain

Prestatuta omen zituzten haientzako **zuloak**, baina lehenago tiroz botatako batzuk ere ba omen zeuden zanga haietan. Jokin Urain

## 17 *adkor* defizita.

Gastu eta diru sarreren arteko **zuloa** 14.000 milioi euro handitu da. Berria - Ekonomia

Orduan iritsi zen kutxako diruaren hileroko kontaketa, eta neure burua engainatzen saiatu nintzen, esanez hori zela espero nuen eguna, **zuloaz** ezer egin gabe. Xabier Olarra

Tokia hornitzen, apaintzen, neurriko agertzen da (kajahorrosko **zuloa** berdindutakoan ederki jarriko du, Jainkoa lagun). Edorta Agirre

Tanzik 8.000 milioi euroko **zulo** ezkutua onartu zuen, eta baita dirua patrikaratu zuela ere. Berria - Ekonomia

12.000 milioi euroko **zuloa** omen du Parmalatek, iruzurrak eragindako krisia. Berria - Kirola

Dolarra dolarra den heinean, kanpoko inbertsiogileek finantzatzen dute **zulo** handi hori. Berria - Ekonomia

AEBetako merkataritzako defizita eta defizit publikoa dira kezka iturri nagusiak, arazoaren irtenbideak are **zulo** handiagoa eragin dezakeelako. Berria - Ekonomia

Ibexen osagaietatik sei akziok baino ez zituzten atzo galerak izan, **zulo** handiena Repsol-YPFk (%1) eragin zuelarik. Berria - Ekonomia

Zirt edo zart egiteko nengoela, **zulo** ekonomikotik aterako ninduena ezagutu nuen kafean. Anjel Lertxundi

14.000 milioi euroko finantza **zuloaren** sorrera ikertu beharko dute epaileek. Berria - Ekonomia

## 18 ***begi zulo*** *pl* begiak kokatzen diren barrunbeak.

Harrizko sugeen **begi-zulo** hutsek jarraitu egiten ziotela iruditzen zitzaion. Iñaki Mendiguren

Begiek egon behar zuten lekuan, azal ezkatatsu mehe eta grisa baino ez zegoen, hutsik zeuden **begi-zuloetan** hedatuta. Iñaki Mendiguren

Lurrean minez akabatu beharrean, **begi-zuloak** izuaren izuz ia husturik baneuzkan ere, Marrok ez zuen zirkinik egin erruki apur bat bederen erakusteko. Juan Kruz Igerabide

Begitxoak irten egin zitzaizkion **begi-zuloetatik** eta ahoa bi ertzetara tenkatu. Iñaki Mendiguren

Begi txiki-gorri baina hanpatuek **begi-zuloetatik** alde egin behar ziotela zirudien. Unai Iturriaga

Begien beltza argitzen hasia zitzaion, eta **begi zuloak** hanpatzen, denboraren eraginez. Felipe Juaristi

Ironia puntu bat erakusten saiatu zen **begi-zuloen** barnealde ilunetik. Joxemari Urteaga

## 19 *pl* betazpiak.

Gauez ia ez dugu lorik egiten; sekulako **begi-zuloak** dauzkat lo faltaz. Josu Zabaleta

Oso zurbil zegoen, eta **begi-zulo** handiak zituen. Fernando Rey

Makillajea zeukan, eta hala ere **begi zulo** beltzak nabari zitzaizkion begien azpian. Antton Olano

Emakumea ilehoria zen, 30 urte ingurukoa, **begi-zulo** ilunak zeuzkan, zigarroa erretzen zuen ezpain lodiekin, interesgarria zirudien. Pako Aristi

**Begi-zuloetako** ubeluneetan. Josu Zabaleta

Izugarrizko **begi zuloak** zituen. Antton Olano

Nahigabe eta ezbeharretan, hotza sentitzen zuen, zuri-zuri jarri eta **begi-zulo** ilunak ateratzen zitzaizkion begi-azpietan. Fernando Rey

Funtzionarioek ez dute **begi-zulorik** izaten. Unai Elorriaga

**20** *sing*

Lehengo berbera zer artean ere, orduko gelatxo pribatu haren paretako **begi-zulotik** Luteziarekin harrapatu nuenean bezalakoa. Matías Múgica

Nik, aduanako aretoaren eta Komisariaren arteko paretan zegoen **begi-zulotik** zelatatzen nuen jostuna. Matías Múgica

Zurrunbilo baten **begi-zulora** erortzen ariko banintz bezala, inguruko burrunbaren ahotik marmar etengabea entzunez. Juan Kruz Igerabide

Zurrunbilo baten **begi-zulora** erortzen ariko banintz bezala, inguruko burrunbaren ahotik marmar etengabea entzunez. Juan Kruz Igerabide

**21** ***belarri zulo***

Bere egidatik askatu Eriktonio sugea, eta manatu zion bere mihiaz garbi zitzala Tiresiasen **belarri-zuloak**. Juan Garzia

Nik, argizaria eskuetan hartu eta brontzezko aiztoaz zatikatu nuen, eguzkitan bigundurik; lagun guztiei **belarri-zuloak** estali nizkien. Juan Kruz Igerabide

Orduantxe, mirakuiluz bezala, delako neska ile-horail, sudur-fin, ezpain-zabal hura, nire saihetsean kokorikatu zen eta **belarri zulora** erran zidan: "Nik zu ezagutzen zaitut. Daniel Landart

Gabriel tar-tar-tar hizketan, eta gu buruarekin baiezka eta **belarri zuloetatik** sartzen zitzaigun burrundarari ahal bezala eusten. Bernardo Atxaga

**Belarri-zulo** batetik sartu eta bestekotik ateratzen zait. Jesus Mari Mendizabal

Buruko ileak garuna babesten du eguzkiaren bero handiegitik, eta beste ile batzuek, berriz, gorputzeko hainbat zulo babesten dituzte, hala nola sudurzuloak eta **belarri-zuloak**. Irene Aldasoro

Honela xuxurlatu zion Maxek **belarri-zuloan** Ruche jaunari: [...]. Jon Muñoz

Laztana ematerakoan, isil isilean **belarri zulo** -zulora hitzok esan zizkion: [...]. Gotzon Garate

Harridura **belarri zuloetatik** irteten zitzaigun. Karlos Linazasoro

· Belarri **zuloan** eraztuna. Gotzon Garate

**22** ***denda-zulo*** *(orobat* ***dendazulo****)*

Osaba Kamilek aulki batean esertzeko usadioa zuen, bere **denda-zuloaren** atarian, eta lozorroan egoten zen, euli uxatzailea bularraldean hartua. Patxi Zubizarreta

Osaba Kamil bere **dendazuloaren** barnean zegoen, aulkian loak hartua. Patxi Zubizarreta

Bisita labur bat besterik ez zioten egiten etxe zahar kulunkarien beste etxadiari [...], erdipurdiko interesa baizik ez baitzieten pizten hango barraskilo biltegiek, hango barazki egosien saltokiek, hango barruki edo likore **denda zuloek**. Karlos Zabala

**23** ***erreka zulo*** *(orobat* ***errekazulo*** *g.er.)*

Hantxe, **erreka-zulo** batean, haltz luze batzuen artean, hiru figura ikusi genituen, beste garai batekoak ematen zutenak, antzinako margolan baten konposizio landutik irten izan balira bezala. Inazio Mujika Iraola

Oso **erreka-zulo** ezkutua aukeratu zuten, seguru zeuden han, kasik bertaraino joan behar baitzen hura ikusi ahal izateko. Anjel Lertxundi

Jack ezkutatu nahian bezala joan zen **erreka zulo** hezera, eskuak sakeletan. Koro Navarro

Amuarrain nazkante bat dabil horko **erreka zulo** horretan, harrapatzen oso zaila. Bernardo Atxaga

Orduan konturatu nintzen emakumeek lixiba egiteko garbitegia izango zela **erreka-zulo** hura. Xabier Mendiguren Elizegi

Hantxe ikusten nuen, eskuak sakeletan sartuta, **erreka zulotik** zihoan ur-lasterraren ertz lohitsuan urkatu bat bezala balantzaka. Koro Navarro

Animaliari sekulako aizkorakada jo eta, hilik zegoelakoan, **erreka-zulo** batera bota zuen. Martin Anso

Haren adar hostotsuak haran eta **erreka-zuloetara** erori dira hautsita. Elizen arteko biblia

Esne urtsuaren tonua ematen dio ilargiak mendi hegal zabalari, margulagoa gailur aldean, biziagoa erdi aldeko harkaitzetan, apartsuagoa **erreka zulora** hurbildu ahala. Pello Lizarralde

Mary Annek eta Helenek barbakoa bat egitea erabaki dutela "sugez betetako **erreka zuloaren** ertzean". Bernardo Atxaga

**24** ***etxe-zulo*** ik **etxezulo**[1].

**25** ***eztarri zulo*** *(**11** agerraldi, **8** liburu eta artikulu **1**ean)*

**Eztarri zuloan** korapilatutako azken-hatsaren esturak. Anjel Lertxundi

Zerbait erremediaezina, antzinakoa eta mingotsa sentitu zuen **eztarri zuloan**. Harkaitz Cano

**Eztarri zuloan** bola egin zitzaidan, pixkanaka igo eta pixkanaka sudurrean azkura eragin zidana. Jesus Mari Mendizabal

**Eztarri zuloko** azkura antzeko bat dakarkiote oroitzapen mingarriok. Xabier Mendiguren Elizegi

Basahuntzak bere erasotzaileak garaitu dituela ikustean, ahoa uretan **eztarri-zuloraino** egarri biziz sartzen du, bere gogara edanez. Joan Mari Lekuona

Beste norbaitek hamar mila duro bota zituen deabruaren **eztarri zulotik** behera. Harkaitz Cano

Atuna, azal-laua eta bernizatua, larruzko zorro belzkara baten antzekoa; lupina biribila, aho handi-handia zabalka, **eztarri zulotik** ihesi bere arima lodiegia Egileari itzuli berri diona, hilzoriaz txunditurik. Karlos Zabala

**26** ***eztarriko zulo*** *(**14** agerraldi, **11** liburutan)*

Han, zeure **eztarriko zuloan**, aitzurrak eta palak erabiliak zituzten kartzinoma ale zikina kentzeko. Hasier Etxeberria

Bihotza taupaka izaten zuen Geraldek eta hitzak ere trabatu egiten zitzaizkion **eztarriko zuloan**. Mirentxu Larrañaga

Entzundakoa gogoratuz, kosta egin zitzaion **eztarriko zulotik** txistua irenstea. Joxemari Urteaga

Irensteko gaitzak ziren pastillak, lehor-lehorrak eta hautseztatuak, eta setati itsasten zitzaizkion erdibidean, **eztarriko zuloan** behera. Mirentxu Larrañaga

Gerrikoaren zilarrezko belarria irentsi zuen eta, **eztarriko zuloa** erabat itxi ziolarik, ezin zuen inola ere arnasarik hartu. Askoren artean

Pozoiz beteriko goxokiak oparitzen dizkigute inperioaren zerbitzura diharduten intelektualek, non eta ez diguten pozoi hutsa garrafoitik zuzenean ematen, inbutua **eztarriko zuloraino** sartu eta gero. Xabier Mendiguren Elizegi

**Eztarriko zuloraino** gauzkak oraintxe. Aingeru Epaltza

Ezta musuak grinatsuak eta **eztarriko zulorainokoak** badira ere. Luis Elberdin

Gure **eztarriko zuloraino** iristen dira orain ikusentzuleak. Andoni Egaña

**27** *ipurdi zulo* ik **ipurtzulo**.

**28** ***ipurdiko zulo*** *(**17** agerraldi, **6** liburutan)* ipurtzuloa. ik **ipurtzulo**.

**Ipurdiko zuloa** garbitzen hasi zen. Jon Arretxe

Etzan zaitez eta **ipurdiko zuloa** inguratzen duten giharrak indarrez uzkur itzazu. Luis Elberdin

Erakutsi zure **ipurdiko zuloa**, andere, gogoak ematen didan bezala milika dezadan. Juan Martin Elexpuru / Bego Montorio

**29** ***jazz zulo*** *adkor* jazz kluba.

**Jazz zulo** batera sartu eta jendea pianoaren inguruan eserita ikusi dugu. Harkaitz Cano

**Jazz-zulo** guztiak ibiltzeko prest nengoen, baita disko berriak erosteko ere. Javi Cillero

Gau hartan bertan, **jazz-zulo** batera joan nintzen, aspaldiko lagunak ikusteko asmoz: Jack, Neal, Allen eta Dianne. Javi Cillero

**30** *karrika zulo* ik **karrikazulo**.

**31** *kale zulo* ik **kalezulo**.

**32** *koba zulo* ik **kobazulo**.

**33** ***komun zulo*** *(**26** agerraldi **15** liburutan; orobat **komunzulo** **20** agerraldi **7** liburutan eta **komuntzulo** **4** agerraldi **4** liburutan)* komuneko zuloa.

**Komun-zuloko** taparen gainean kristalezko hiru edalontzi zeuden prest. Iñaki Mendiguren

**Komun zuloak** garbitzeko likidoa da. Xabier Mendiguren Elizegi

Emandako botika guztiak **komun-zulotik** behera bota nituen. Eskarne Mujika

Buruz behera zuzenean **komun-zulora** sartu zen, inguruko guztiak urez zipriztinduz eta bistatik desagertuz. Iñaki Mendiguren

Maskuria **komunzulora** hustu. Aingeru Epaltza

-Zuen eskola horretan jendea buruz behera sartzen dute **komun-zuloan** lehenengo egunean -esan zion Harryri. Iñaki Mendiguren

Alferkeria, pentsamendu txar guztien **komun-zuloa,** kosta ahala kosta saihestu behar dela. Askoren artean

**Komunzulokoak** patxadaz egin eta lasai aski garbitu nituen eskuak. Aingeru Epaltza

Allferkeria, pentsamendu txar guztien **komun-zuloa** , kosta ahala kosta saihestu behar dela. Askoren artean

### 34 ***leize-zulo*** *(orobat **leizezulo**)*

**Leize zulotik** ateratzeko garaia ere bazetorkidan. Patxi Ezkiaga

**Leize-zuloa** ireki zuen: kea atera zen bertatik, labe handi batetik bezala. Elizen arteko biblia

Mareajea beheratutakoan baino ez zitekeen iritsi labar-muturraz haratago zeuden **leize zuloetaraino** . Koldo Izagirre

Etamgo haitzartera jaitsi zen eta hango **leize-zulo** batean jarri zen bizitzen. Jose Antonio Mujika

Mila bider irudikatu dute [zakila], tente-tente beti, **leize zuloetako** pinturetan, antzinako eskulturetan, baxuerliebeetan, egiptoarren papiroetan eta baita Interneten ere. Luis Elberdin

Burua behin eta berriro jotzen zenuen sabai gero eta baxuagoaren kontra, eta azkenean lauoinka eta atzeraka irteten zinen **leizezulotik** . Juan Garzia

Egoera hartan jaistea [...] bizia galbidean jartzea baizik ez zen, norbere burua **leize zulora** botatzea. Karlos Zabala

### 35 ***sudur zulo*** *(75 agerraldi, 38 liburu eta 3 artikulutan; orobat **sudurzulo** 53 agerraldi, 32 liburu eta artikulu 1ean, **sudurtzulo** 13 agerraldi, 9 liburu eta artikulu 1ean, **sudurzilo** g.er., **sudur zilo** 6 agerraldi, 2 liburutan eta **sudur xilo** g.er.) iz*

**Sudur-zulo** bakoitzaren atzeko aire-pasabidean dagoen bihurgune estuak eragiten du, neurri batean, arazoa. Irene Aldasoro

Kea eta sua botatzen zituen **sudur-zuloetatik** . Koro Navarro

Bafada bat etorri zitzaion bat-batean **sudur zuloak** mintzera, mingotsa oso. Felipe Juaristi

Sudurra hebrear eredu delikatukoa, baina halakoek izaten ez duten **sudur-zulo** zabalekoa. Koro Navarro

**Sudur zulo** iletsuak hatz batez esploratzen. Koro Navarro

Gero, haragi kiskaliaren usaina sartzen zaik **sudur zuloetan** . Aingeru Epaltza

Berarekin errieta egiten zuenean, pozoizko tua egiten zion Namahk, eta kea eta sua botatzen zituen **sudur-zuloetatik** . Koro Navarro

Buruz behera jarri zenean, **sudur-zuloetatik** ere sartu zitzaion ura. Iñaki Mendiguren

Erosi, bederen, zuen **sudur-zuloendako** material pixka bat. Aingeru Epaltza

· Bizkar beroki arrosa kolorekoa jantzita dagoen Bere Maiestatearen **sudur zulotxoak** egurastu ahal izan ditzan. Josu Zabaleta

### 36 ***taberna zulo*** *(34 esaldi, 22 liburu eta 9 artikulutan; orobat **tabernazulo** 26 esaldi, 15 liburu eta artikulu 1ean; Euskaltzaindiaren Hiztegian **taberna zulo** agertzen da) iz*

Madrilen, gau batez Frank Sinatra **taberna zulo** batera jaitsi, eta han ibili zen, whiskyrik whisky, harik eta bazter bateko ilunpean zegoen piano bati antzeman zion arte. Patxi Zubizarreta

Noraezean, palmondo artean galduta, aurkitu duen lehen **tabernazuloan** sartu eta whiskya eskatu du. Javi Cillero

Euren herriko edozein **tabernazulotan** baleude bezala hitz egiten dute ETBko aurkezle eta aditu gonbidatu zenbaitek. Koldo Zuazo

Portuko zarata eta zirri-barrara ohituriko jendea, **taberna zuloko** musika lodi eta kanta lizunetara eginiko jendea. Felipe Juaristi

**Taberna-zulotik** atera berri den andre lotsagaldua ematen duzu. Karlos Zabala

Ez nintzateke harrituko edozein egunetan hemen inguruko **taberna zuloren** batean erabat trabestituta ikustea. Urtzi Urrutikoetxea

Koadrilakoak harritu egin ziren agerian utzi nuenean nik ere sudurra zikindu nahi nuela, **tabernazulo** hartako komunean. Iban Zaldua

Neurrigabe edaten hasi zen, eta zenbait egunez desagertzen zen, **taberna zulo** miserableenetan. Koro Navarro

Garaje itxura duen **tabernazulo** bat dago ertz batean. Iban Zaldua

-Pasa itzak bi urte Los Angelesko **taberna-zulo** batean sartuta eta urrezko erlojua daraman lehendabizikoarekin ezkonduko haiz. Pablo Sastre

Meatzeetatik ez urruti, **taberna** eta ukuilu **zuloetan** , kimikaren eta magia zuriaren arteko mugan, bada oraindik jenderik, gauez deskargatokira joan, legar grisez beteriko zakuak bizkarrean itzuli, legar hori xehetu, egosi, eta beti ere erreaktibo berriz tratatzen duenik. Juan Garzia

### 37 *ume-zulo* ik **umezulo.**

### 38 ***zulo beltz***

Neskak uzkurtu egin ditu ipurdiak, baina gizonak indarrez zabaldu dizkio eta agerian geratu da **zulo beltza** . Ez zen begi bat, **zulo beltz** bat baizik, **zulo beltz** bat haren buruan, emakume harengan, zabaldua, haren baitan ikusteko, harengana sartzeko bezala. Juan Martin Elexpuru

Kartzela jendea **zulo beltz** batean sartzeko bidea da. Berria - Harian

Sareak botatzen zituen Osin Beltzen, errekaren urak presatzen diren **zulo beltzean** . Koro Navarro

Talde txuri-urdina **zulo beltzean** sartzetik oso gertu dago berriz ere. Berria - Kirola

Mundu deritzogun **zulo beltz** hori. Oskar Arana

Pirouette kalearen sarbideak **zulo beltza** zirudien hango fatxada argituen artean. Karlos Zabala

Taberna bera zulo bat bazen, oraindik ere beheragoko **zulo beltzagoak** ere bazirela han konturatu nintzen. Hasier Etxeberria

Galera batek utzitako **zulo beltz** hondogabea gezur zuri polittez bete. Iñaki Segurola

Oraingoan **zulo beltz** doilor eta jasangaitza sentitu zuen Josebak lehen Mireiak hartzen zuen lekuan. Fernando Morillo

Hondo-hondo hondoratua zen loaren **zulo beltzean** . Iñaki Iñurrieta

Barneko **zulo beltz** sakon batean zerbaitek hots egiten zuen suhiltzaileen kamioiaren modura. Lopez de Arana

Garai bateko hiritar ilustratu edo argituaren argitasun hura [...] pantallak zuzen-zuzenean bi begietatik garuneko **zulo beltzetaraino** helarazten duen argitasun katodiko itsugarria besterik ez da gaur. Iñaki Segurola

Alemania salbatuko zuela agindu zigun, eta **zulo beltzenera** garamatza. Alberto Ladron Arana

-Zer proposatzen duzu, soldadu? -galdegin zion komisariak [...] ahots doinu markaturik gabe, hitzak **zulo beltz** batetik bezala irteten utziz. Felipe Juaristi

Izen hark pozaren zirrarak astindu zituen nire baitan, bat-batean André Armand-en izena memoriaren **zulo beltzetik** azaleratzea lortu zuelako. Ramon Saizarbitoria

Zeintzuk izan daitezke, bada, Euskal Herriko musikak **zulo beltzetik** ateratzeko behar dituen proposamen horiek. Berria - Kultura

Hona hemen gure hildakoak, gure torturatuak; hona gure elbarrituak, ezinduak; gure zurtzak, bakartuak, bihotz-urratuak, bizi-puskatuak, oroimenaren **zulo beltzean** iltzatuak. Iñaki Segurola

Zein den ikastolatik unibertsitaterakoan gertatzen den galera funtsezkoena, beste gainerako irabazi ustekoek estaltzen ez duten **zulo beltz** esentziala. Iñaki Segurola

### 39 (astronomian) ezpaziogune ustezkoa, hain grabitate indar handi duena non argi izpiei ere ihes egiten uzten ez baitie.

Unibertsoan jazotzen ziren gertaerarik biolentoenak omen ziren **zulo beltzak** . Harkaitz Cano

**Zulo beltz** hauek hain dentso eta boteretsuak zirela uste izan da, ezen argiak ere ezingo baitziokeen ihes egin bere erakarpen indarrari. Harkaitz Cano

**Zulo beltzaren** baldintza fisikoak muturrekoak dira, eta betidanik onartu da fisikaren legeak hausten diren mugetatik haratago daudela. Berria - Gaiak

Maitasunaren definizioa izan zitekeen, baina ez: Unibertsoko **zulo beltzak** definitzen ari zen Stephen Hawking. Joxerra Garzia

Hawkingen teoria berriak **zulo beltzek** betidanik izan duten paradoxa konpontzea du helburu. Berria - Gaiak

**Zulo beltzek** edo talka egiten duten galaxiek grabitate-uhinak sortzen dituzte eta, era horretan, haien inguruko espazioa eta denbora aldatu egiten dute. Berria - Gaiak

**Zulo beltz** gehiago aurkitu dituzte astronomoek Spitzer teleskopioari esker. Berria - Gaiak

Adituen esanetan, **zulo beltzek** milioika izarren masa dute. Berria - Gaiak

**Zulo beltzak** krimen perfektuaren egile jo izan ziren, irensten zutenaren arrastorik uzten ez zutelakoan. Harkaitz Cano

Espazioko **zulo beltzak** inguruan duen guztia zurrupatzen duenean han, zuloaren erdian bazeunde legez. Harkaitz Cano

Orduan bazegoen aukera bat, iruditu zitzaion Martari, bazegoen aukera bat **zulo beltzari** ihes egiteko, **zulo beltza** atzeman eta **zulo beltz** horrek bereganatzen ez zuen materia zati ttikiaren, materia iheslariaren zati izateko. Harkaitz Cano

Patrikek baditek berezko joera irensle bat, **zulo beltzen** pareko halako indar desagerrarazle bat. Harkaitz Cano

**40** ***zulo egin*** zulatu.

Arrizuluetako tontorrean **zulo egin** lurrean, sartu bizirik lurpean larru gorritan, estali lepoz behekoa lurrez, eta Sumakilla aurreneko zela, txandan txandan harrikonkor tiraka akatu omen ziaten bertan. Patziku Perurena

Nahikoa azaldurik gelditu da Amabirjinak agindu ziola hantxe **zulo egiteko** aitzurrarekin. Jon Alonso

Azaleko lur-azalaren azpian beste hainbat azal badira eta, nahikoa da sakon **zulo egitea** azalok ikusi ahal izateko. Edorta Jimenez

Hantxe geneuzkan trenbidea eta geltokia, bigarren hori ikastetxearen azpian **zulo eginez** zetorren tunela baino metro batzuk harago. Edorta Jimenez

Arkitektoen zeregina eredu, nahikoa litzateke kontzientziaren azalean **zulo egitea** azpian gorderik datzan horretaraino iristeko. Edorta Jimenez

Kontua da berba erdiak heltzen zirela nireganantz itzaletan barrena **zulo eginez** eta, tarteka, amaitu baino lehenago erditik etendako biraoren bat ere aditzen zela. Edorta Jimenez

**hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**

**arratoi zulo** (5); **azeri zulo** (4); **bala zulo** (9); **begi zulo** (21); **begiak zulo** (7); **bere zulo** (4); **beste zulo** (11); **beste zulo bat** (5); **beteriko zulo** (5); **bi zulo** (21); **egindako zulo** (9); **egindako zulo batetik** (4); **erreka zulo** (10); **espazioko zulo** (4); **etxe zulo** (4); **jazz zulo** (4); **kanoi zulo** (4); **karrika zulo** (5); **lapur zulo** (5); **leize zulo** (23); **leize zulo batean** (6); **meatze zulo** (6); **paretan zulo** (4); **putzu zulo** (6); **sartzeko zulo** (4); **sudur zulo** (12); **taberna zulo** (14); **taberna zulo batean** (4); **txakal zulo** (4)

**zulo asko** (8); **zulo bat aurkitu** (5); **zulo bat egin** (23); **zulo bat egingo** (5); **zulo bat egiten** (6); **zulo bat ireki** (5); **zulo bat zegoen** (6); **zulo bat zuela** (4); **zulo batean sartu** (8); **zulo batean sartuta** (5); **zulo batetik sartu** (6); **zulo beltz** (54); **zulo beltz bat** (10); **zulo beltz batean** (6); **zulo beltza** (14); **zulo beltzak** (26); **zulo beltzaren** (6); **zulo beltzean** (15); **zulo beltzek** (10); **zulo beltzen** (12); **zulo beltzetik** (9); **zulo beretik** (6); **zulo biribil** (9); **zulo biribil bat** (6)

**zulo egin** (7); **zulo erdi** (4); **zulo ertzean** (4); **zulo gehiago** (6); **zulo guztiak** (15); **zulo guztietatik** (5); **zulo handi** (26); **zulo handi bat** (14); **zulo handia** (14); **zulo handiagoa** (4); **zulo handiak** (10)

**zulo ilun** (9); **zulo ilunak** (7); **zulo izango ditu** (10)

**zulo sakon** (10); **zulo sakona** (7); **zulo sakonean** (4); **zulo txiki** (13); **zulo txiki bat** (8); **zulo txikia** (4); **zulo txikiak** (5)

**zulo zabal** (5); **zulo zikin** (7); **zulo zituen** (6); **zuloz zulo** (5)

**arteko zuloa** (6); **egindako zuloa** (4); **erdiko zuloa** (5); **erretratu zuloa** (4); **ipurdian zuloa** (4); **ipurdiko zuloa** (12); **irekitako zuloa** (4); **lau minutuko zuloa** (4); **leize zuloa** (10); **metroko zuloa** (8); **minutuko zuloa** (11); **minutuko zuloa ireki** (8); **utzitako zuloa** (4)

**zuloa aurkitu** (6); **zuloa baino** (5); **zuloa bere** (4); **zuloa betetzeko** (4); **zuloa egin** (33); **zuloa egin zuen** (8); **zuloa egin zuten** (4); **zuloa eginda** (4); **zuloa egitea** (4); **zuloa egiten** (6); **zuloa eragin** (5); **zuloa estali** (7); **zuloa estaltzeko** (5); **zuloa handitu** (4); **zuloa ikusi** (7); **zuloa ireki** (23); **zuloa ireki zuten** (8); **zuloa izango** (4); **zuloa txikitzen** (4)

**azeriek badituzte zuloak** (7); **bala zuloak** (6); **begi zuloak** (20); **belarri zuloak** (5); **botoi zuloak** (5); **egindako zuloak** (6); **leize zuloak** (5); **lurrean zuloak** (4); **sudur zuloak** (28); **zuloak egin** (9); **zuloak egiteko** (6); **zuloak egiten** (13); **zuloak estaltzeko** (5); **zuloak ireki** (6); **zuloak itxi** (5); **zuloak uzten** (4); **zuloak zituen** (4)

**aho zuloan** (4); **ahoko zuloan** (6); **belarri zuloan** (7); **bere zuloan** (8); **botoi zuloan** (10); **egindako zuloan** (4); **etxe zuloan** (15); **etxe zuloan sartuta** (7); **eztarri zuloan** (4); **eztarriko zuloan** (5); **giltza zuloan** (4); **infernuko zuloan** (6); **komun zuloan** (4); **komuneko zuloan** (6); **leize zuloan** (12); **sailkapenaren zuloan** (9); **sailkapeneko zuloan** (15); **sailkapeneko zuloan dago** (5); **taberna zuloan** (7)

**zuloan behera** (11); **zuloan dago** (10); **zuloan dagoen** (4); **zuloan dauden** (8); **zuloan egon** (6); **zuloan jarraitzen** (5); **zuloan sartu** (17); **zuloan sartu zen** (4); **zuloan sartua** (5); **zuloan sartuta** (19); **zuloan sartzeko** (8); **zuloan sartzen** (11); **zuloan zegoen** (5); **zuloan zehar** (6)

**ekaingo leize zuloaren** (4); **leize zuloaren** (8); **nire zuloaren** (4); **zuloaren aurrean** (5); **zuloaren bila** (4); **zuloaren ertzean** (5); **zuloaren gainean** (4); **zuloaren inguru** (4); **zuloaren inguruan** (7)

**begi zuloetan** (4); **belarri zuloetan** (7); **beren zuloetan** (6); **koba zuloetan** (5); **leize zuloetan** (6); **sudur zuloetan** (11); **taberna zuloetan** (4); **zuloetan sartu** (4)

**begiak beren zuloetatik** (8); **begiak zuloetatik** (8); **belarri zuloetatik** (5); **beren zuloetatik** (14); **beren zuloetatik atera** (4); **beren zuloetatik irten** (4); **sudur zuloetatik** (11); **zuloetatik atera** (6); **zuloetatik atera beharrean** (4); **zuloetatik ateratzen** (5); **zuloetatik irten** (6)

**hiru zuloko** (4); **leize zuloko** (4)

**zulokoa da** (4); **zulokoa izango** (4)

**belarri zulora** (4); **erreka zulora** (4); **erretratu zulora** (7); **infernuko zulora** (12); **komun zulora** (7); **lehoi zulora** (5); **lehoien zulora** (7); **leize zulora** (9); **zulora bota** (6); **zulora erori** (5); **zulora erortzen** (5); **zulora hurbildu** (6); **zulora itzuli** (4); **zulora joan** (9); **zulora sartu** (5)

**eztarriko zuloraino** (4)

**zuloren bat** (15); **zuloren batean** (15); **zuloren batetik** (7)

**athletic zulotik** (4); **begi zulotik** (4); **bere zulotik** (8); **erretratu zulotik** (13); **eskailera zulotik** (5); **eztarri zulotik** (4); **komun zulotik** (4); **komuneko zulotik** (6); **leize zulotik** (6); **sailkapeneko zulotik** (12); **sailkapeneko zulotik ihes** (4); **sarraila zulotik** (10); **taldea zulotik** (8); **taldea zulotik ateratzeko** (5)

**zulotik atera** (37); **zulotik atera eta** (9); **zulotik aterako** (7); **zulotik ateratzea** (9); **zulotik ateratzeko** (28); **zulotik ateratzen** (10); **zulotik behera** (16); **zulotik gertu** (7); **zulotik ihes** (13); **zulotik ihes egin** (7); **zulotik ihes egiteko** (4); **zulotik irten** (22); **zulotik irten eta** (4); **zulotik irten ziren** (4); **zulotik irtetea** (7); **zulotik irteteko** (14); **zulotik irteten** (4); **zulotik kanpora** (8); **zulotik sartu** (6); **zulotik sartzen** (4)

**zuloz beteta** (5); **zuloz betetako** (4); **zuloz josita** (9)

---

# zuloanitz *izond* zulo askokoa.

Nik "puta **zuloanitza"** erraten diot. Aingeru Epaltza

---

# zulobide *iz* lurpeko galeria.

Enborraren zuraren eta azalaren artean egin du [intsektuak] bere **zulobidea**, bere arrazari berezko zaion suntsi-gose temati eta itsu horrekin. Juan Garzia

Bospasei belaunaldiren buruan, ordea, mea-hobia horra ahitu: baten batek **zulobideak** eginez lurpean jarraitzeko proposatu du, eta frogatu ere du bere kaltez; azkenean zuhurrenen iritzia nagusitu da. Juan Garzia

---

# zulodun *(orobat **zilodun** g.er.)* **1** *izond* zuloa duena.

Zangoetako galtzerdi **zulodunak**, horixe baizik ez zuen jantzirik. egongelan egokitu genuen eskultura **zulodun**. Aingeru Epaltza

Beste batzuetan, pila bat egin, eta paper batean biltzen nituen, zilindro **zulodun** bat osatu arte. Joan Mari Irigoien

Eta pozik hartu nuen haren eskupekoa: bi errealeko txanpon **zuloduna**. Joan Mari Irigoien

Zurrungaka sumatu nuen saretaren beste aldean; eskerrak instalaturik zeuden leiar **zulodun** horiei, haren mikrobioek harrapatuko ninduten eta bestela. Joxan Elosegi

Haren aurpegia, haren kokots **zuloduna**, baita beragan pentsatzen ari nintzela ere, lausotzen hasi zitzaidan geure ibilaldiaren koloreetan. Koro Navarro

Etxeak goiko aldean teilatu-hegal tailatuak zituen, **zulodunak**, eta tximiniak eta dorretxoak eta latazko oilartxo bat haizeak bultzatuta jira egiten zuena. Fernando Rey

**2** (hitz elkartuetan)

Hurrena begiak zabaldu ditudanean, kafetegiko emakume begi-**zuloduna** alboan eserita daukat. Pako Aristi

---

# zulogile *izond/iz* zuloak egiten dituena.

Eta orduan **zulogileak** hasi ziren aitzurka. Joseba Sarrionandia

Bai horixe, eta hona orain Andre Harretako, masailagabe, eta **zulogilearen** aitzurrak kankarra joa. Juan Garzia

Eta berriro eduki naute bakarrean apurraldi batez, **zulogilea** hazurrobietan ikaratzeko asmoz. Koldo Izagirre

**Zulogilea**, horixe bilakatu naiz ni, askatasunean bizi behar dudala erabaki eta askatasunera iristeko eman behar izan dudan urte luze honetan. Koldo Izagirre

---

# zuloginean *adlag* zuloak egiten.

Giderrik gabeko koilara xume batekin **zuloginean** jarduteko kemena ukanik ere, edukiko ote nuke talenturik, enkofradu bat behar bezala egiteko? Koldo Izagirre

---

# zulogintza *iz* zuloak egitea.

Izagirreren eleberrian gizakiak dira nagusi, jakina; baina bigarren pertsonaiarik garrantzitsuena gauza bat da, giderrik gabeko koilara, **zulogintza** ahalbidetzen baitu, eta hortaz ametsa. Markos Zapiain

Altxa naiz, poliki, oso poliki, arrunt nekatua banengo bezala, **zulogintzak** eraginiko hebaindura guztiek batera heldu balidate legez. Koldo Izagirre

Presondegira etorri baino lehen, **zulogintzan** ari nintzela, behin baino gehiagotan pentsatu izan nuen kanpoko berri eman behar nuela. Koldo Izagirre

Jainkoak ariman jarduten du, arimaren izate berean, **zulogintza** jainkozkoa inork ezagutu gabe. Joan Mari Lekuona

---

# zulogune *iz* zuloa dagoen gunea.

Gailurreko haitzean dagoen **zulogunea** Budaren oinak egindakoa dateke budisten ustez eta musulmandarrek diotenez, berriz, Adanen oinatza da. J.M. Olaizola "Txiliku"

Neon berdeak Alexen aurpegi zatiak argitzen zituen, baina tarteko **zuloguneen** itzalek ageri zuten indar handiena. Fernando Morillo

Gau-ikuskari batean, zaldizko bat ikusi nuen zaldi gorri baten gainean, **zulogune** batean geldirik, sastraka artean; haren atzean, zenbait zaldi gorri, nabar eta zuri. Elizen arteko biblia

Madariaga etorbidean **zuloguneak** jartzen ari gara, autoak astiroago ibiltzeko. Berria - Euskal Herria

Karearen poroak eta **zuloguneak** irekita daudenean, berak hartzen du bere barrenean harearen nahastura, eta hala, itsatsi egiten da, eta lehortzerakoan, harri-koskorrekin juntatzen da eta horma sendoa egiten du. Santiago Iruretagoiena

---

# zulohabia *iz* zuloko habia.

Enborraren zuraren eta azalaren artean egin du bere zulobidea, bere arrazari berezko zaion suntsi-gose temati eta itsu horrekin; marraska-zulaketa etengabean hazi da, eta **zulohabia** bera ere berdin joan da haziz. Juan Garzia

---

# zuloka *(orobat **ziloka**)* 1 *iz* zuloa.

Iduritzen zait norbait badela ate **zilokatik** so. Filipe Bidart

Sarea burdin zorrotzez egina da, eta **zilokak** ttipiegi dira eri punta bat ere sartzeko, salbu atxeman dudan **ziloka** hori, aitzineko presoek handiturik, segur ere. Filipe Bidart

• **2** *adlag*

Bosgarren da AEBetako Zirkuituan azken sei urteetako postu kaskarrena, eta aurten torneo bakarra irabazi du, match-play modalitatean (**zuloka**). Berria - Kirola

Onena txapel-**zuloka** egitea izango da. Julen Gabiria

---

# zulokari *izond* zulatzailea. • (adizlagun gisa)

Esku hutsaz alua zirikatu zion, **zulokari**. Itxaro Borda

---

# zulokote *iz* zulo handia.

Aukeran, nahiago nuela aitaren hilkutxa xumean egotea, eta kanpoaldean lurperatuta, eguzkiaren argi distiratsuak eta haizeak aldika jotzen zuten tokian; eta, ez, **zulokote** ilun eta goibel hartan hondoratuta, hildako beste ahaide mordoarekin batera. Mirentxu Larrañaga

Ez dira bat eta bi konta daitezkeenak, baina honetan ere, **zulokote** berean errenditzen dira guztiak: Diego korrikalaria zen, ez soldadua. Iñigo Aranbarri

---

# zulomiran *adlag adkor* begira.

Hemen, bere terrazan, **zulomiran** eta picnic-ean besterik ez zebilen. Anton Garikano

---

## zuloño *iz* zulotxoa.

Kamera baten **zuloñotik** ikusirikoa eta esku latzetako laborari baten begiek ikusirikoa arras ezberdinak dira. Xabier Montoia

**Zuloñotik** behatu, eta bakoitzak non ezarri behar duen adierazi diezu. Xabier Montoia

---

# zuloratu, zulora(tu), zulorazen da/du *ad* zulora joan; zulora eraman.

Figurak **zuloratu** aurretik zuloak haztatzeko joera zuen artean ere, baina, hori egitea debekatu geniolarik, nahiko erraz **zuloratu** zituen ikusi hutsez. Xabier Olarra

---

zuloska ik **zuloxka**.

---

# zulotto *iz* zulotxoa.

Irri egiten zuenean, **zulotto** batzuk egiten zitzaizkion matraileetan. Fernando Rey

Matrailetako **zulottoak** are politagoak zituen, eta neskaren ileak aurpegia estaltzen zion Ahmeti. Fernando Rey

Haien artean zur beltzeko besaulki batzuk zeuden, **zulottoz** josiak, besoetan elefante buru bana zutenak, aitona Parentek Indiatik ekarraraziak. Fernando Rey
Burua pixka bat makurtua alde batera, betaurrekoak nahiko eroriak sudurrean, bere kalpar beltz sarria, **zulotto** sakona matrailean, bere emakume-eskua. Fernando Rey
Giltza lehen kolpean sartu nuen **zulottoan**. Aingeru Epaltza

---

zulotu ik **zulatu**.

---

**zulotxo** *(orobat **zilotxo** g.er.)* **1** *iz* zulo txikia.

Udagoieneko haize fresko bolada sartu zaizu azalean jertsearen **zulotxoetatik**, milaka orratz txiki balira bezala. Sonia Gonzalez
-Atearen **zulotxoa** da, mirilla, kanpoan zein dagoen ikusteko balio duena. Patxi Zubizarreta
Martak, ateko **zulotxotik** begiratu zuen ireki aurretik. Harkaitz Cano
Ez duzu ezer ikusiko, leihatila modukoa ixten duen burdin-xaflaren **zulotxoetatik** ez bada. Jokin Urain
Uhal bat hautsia zegoen, eta konpondu egin behar izan zuten, labanarekin **zulotxo** bat eginez. Koro Navarro
Koskoilo edo kuku-sagarretan **zulotxo** bat ikus daiteke eta, hala egokituz gero, baita handik jaioberria den eulitxo bat irteten ere. J.M. Olaizola "Txiliku"
**Zulotxo** bat zeukan kokotsean. Jose Morales
Bi masailetan **zulotxo** bana zuen emakume irribarretsu batek atea zabaldu eta esan zien: [...]. Iñaki Mendiguren
Nik neure mingainaz ipurdiko **zulotxo** polita arakatuko diot, ipurmasailetan zapladatxoak ematen dizkiodan bitartean. Juan Martin Elexpuru / Bego Montorio
Muttur horren goiko aldea porotsua da: **zulotxo** batzuk ditu, eta handik ateratzen da pixa. Josu Zabaleta
Tumorea txikia zela eta **zulotxo** bat eginda kenduko ziotela. Imanol Zurutuza
Pipiak jotako **zulotxoak** xiringa batez xilofenaz bete litezke. Javi Cillero
Arropak erantzi gabe erori zen ohean, milaka **zulotxotan** desegindako aspirina hartzea ahaztuta. Unai Iturriaga

**2** (izenondo eta izenlagunekin)

Nabari dira, dena den, iltze zaharrek utzitako **zulotxo** maiztuak, iltze berriak sartu dizkioten **zulotxoen** ondoan. Javi Cillero
Elsbethen masailetan ez zen alaitasunezko **zulotxorik** ageri. Anjel Lertxundi
Kutxa hark ezkutuko **zulotxoren** bat ez ote zuen etorri zitzaidan gogora. Edorta Jimenez

**3** (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

Satisfazio neurriz kanpoko bat nabarituko nuen, neure azal-**zulotxoetarik** gainezka. Joan Mari Irigoien
Sekulako hotza egiten duela Manchako basa-herri hartan, berehala izozten direla patioko putzu **zulotxoak**. Jokin Urain
Beroki arrosa kolorekoa jantzita dagoen Bere Maiestatearen sudur **zulotxoak** egurastu ahal izan ditzan. Josu Zabaleta

**4** irud/hed

Gaixotasuna zirrikituak balioesten ahalegintzen da beti, edozein **zulotxo** aprobetxatzen du sartu eta, bere iraupena ziurtatzeko, inguruan daukan guztia suntsitzeko. Berria - Euskal Herria
2000 urteko apirilean argitaratu zuen ozpineko euliaren (*Drosophila melanogaster*) genoma osoa, bere 14.200 geneekin, *Science* aldizkarian, **zulotxo** batzuk (1.200) argitu gabe utzi bazituen ere. Pello Salaburu
Zorroztasunak **zulotxorik** uzten ez duenean. Berria - Euskal Herria
Beharbada, zu zure senarrarekin etor zintezen, Luisen etxean eta Luisen bizitzan **zulotxo** bat uztera joan zen Elisabeth. Lourdes Oñederra
Huskeria bat, eta horra hor lapsus deitzen den **zulotxoa**, horra azpian zegoena agerian, horra sekretuan gorde nahi zena nabarmen. Bernardo Atxaga

---

**zulotxodun** *izlag* zulotxoa edo zulotxoak dituena.

Eta jantziak erantzi dizkiozu, **zulotxodun** kuleroak, marradun galtzerdiak. Lander Garro

---

**zulotzar** *iz adkor* zulo handia.

**-Zulotzar** honek bingo izateari aspaldi utzi ziola uste nuen. Harkaitz Cano

---

**zuloxka** *(corpusean **zuloska** soilik)* *iz* zulotxoa.

Kamionetak alde egin zuen eta **zulotzarretan** denak batera lurperatu zituzten. Pako Aristi
Otsondoko ataka ondora sartzen den urbidetik bi pausora, bidearen gaineko aldetik, muskerra eguzkitan egoten den losa zabalaren eskuineko **zuloskan**. Patziku Perurena

---

**zulu** **1** *iz* Afrikako hegoaldeko etnia bateko kidea.

Hegoafrikako biztanleen laurdenak **zuluak** dira. Berria - Mundua
Buthelezi **zuluen** liderra Gobernutik kanpo utzi du Mbekik. **Zuluak** edo errusiarrak bezala joaten da erasora, dena kolpe batean jarriz alegia. Berria - Mundua

• **2** *izond* etnia horri dagokiona.

Ez da lehen aldia bertan etnia **zuluaren** eta xhosaren artean borroka odoltsuak gertatzen direna. Berria - Mundua
Herri horren ordezkaria Thabisong Young Club izango da, eta kultura **zuluaren** erakustaldi bat egingo du, ekainaren 26an. Berria - Kultura
DA Aliantza Demokratikoak, berriz, botoen %14 eskuratu zituen; IFP Askatasunaren aldeko Inkhata Alderdi **zuluak** %5 zituen eta NNP Alderdi Nazional Berriak %2. Berria - Mundua

**3** (izenlagun gisa)

Charles Clifford-en margolanak, Hego Afrikako lurraz; Zama Dunyma-renak, **zulu** emazteaz; Colbert Mashile-renak, afrikar nortasunaz. Herria
13 kantu emaiten ditu obra berri hortan, zenbaitzu Hego Afrikako **zulu** kantariz lagunduak. Herria

---

**zuluera** *iz* zuluen hizkuntza.

Alde! (**zulueraz**). Oskar Arana

---

**zululandia** *iz* zuluak bizi diren lurraldea.

**Zululandiako** (Hegoafrika) Unibertsitateko Psikologia irakasleek kezka agertu dute, osasun arazo gehiagoren iturri izan daitekeelako estetika eredu berria. Berria - Gaiak

---

**zumadi** *iz* zumea.

**Zumadi** sarriek latz egiten dute itsasertza, zeinetan makal baso zabal naroak aurkitzen baitziren, gehiago lehen orain baino, han-hemenka haltz eta sahats sailez banatuta. Koldo Biguri

---

**zumaiar** *izlag/iz* Zumaiakoa, Zumaiari dagokiona; Zumaiako biztanlea.

**Zumaiar** gazte baten bertsua nork ez du ulertzen edo konprenitzen? Herria

Herrizaingo Sailak atzo aditzera eman zuenez atxilotutako gizonezkoa **zumaiarra** da, eta 26 urte ditu. Berria - Euskal Herria

Gaurkoan lau **zumaiar** arituko dira nor baino nor gehiago finalerako txartelaren bila. Berria - Kirola

Goixerri mutrikuarra kenduta, **zumaiarrak** beste hirurak. Berria - Kirola

Inaxio Tolosa deitzen da bera, aktorea, musikoa, **zumaiarra**, laguna. Pako Aristi

Egun horiexetan atxilotu zituzten Madrilen ETA militarreko bi lagun, Ixidro Etxabe **zumaiarra** eta Joxe Arregi zizurkildarra. Xabier Mendiguren Elizegi

Hori, hala ere, ez zen oztopo izan Oier Aizpurua Itxas-Gain taldeko piraguista **zumaiarrak** bere eguneroko entrenamendua eten zezan. Berria - Kirola

Zortzi lagunek osatzen dute Ttakunpa, eta gehienak **zumaiarrak** eta zestoarrak dira. Berria - Kultura

**Zumaiarrak** sasoi bikaina egin zuen iaz, Munduko Txapelketa, Europako Txapelketa eta Munduko Kopa irabazi baitzituen. Berria - Kirola

---

zumail ik **zimel**.

---

**zumaitsu** *izond* zukutsua.

Garia bere zoririk onenean, **zumaitsu** nahi zen beti. Pello Zabala

---

**zumake** *iz* mediterranear eremuko zuhaixka, azalean eta hostoetan tanino asko daukana*(Rhus coriaria)*.

Sastrakak **zumakeenak** eta zorne-belarrenak ziren. ibai ertzeko ezpondetan ere, oraindik ere gorritu gabe ikus zitezkeen **zumake** -mordoek, belazea eta lurgorria gerizatzen. Lopez de Arana

Baina kontua da, gainera, ailantoa eta **zumakea** oso antzeko zuhaixkak direla, konfunditzera hel daitezkeenak. Iban Zaldua

Izan ere, ailantoari **zumake** faltsua deitzen zaio Espainiako leku batzuetan, edo are **zumakea**, soilik. Iban Zaldua

---

**zumaldetxo** *izond*

Feliperekin semealabak ondo **zumaldetxoak** aterako zitzaizkion. Joseba Sarrionandia

---

**zumar** **1** *iz* zuhaitz luzea, hosto horztunak eta azpialdean iletsuak dituena*(Ulmus* sp).

Zedro, arkazi, mirto eta olibondoak landatuko ditut basamortuan; zipres, **zumar** eta izeiak eremuan. Elizen arteko biblia

Izeia edo izei hispaniarra urria den lekuetan, altzifrea, makala, **zumarra** edo pinua erabiliko dira. Santiago Iruretagoiena

Orain belarraren gainean atseden hartzen ari ginen, **zumar** baten gerizapean. Fernando Rey

**Zumarrak** eta lizarrak ura daukate gehiena, eta airea eta sua gutxiena. Santiago Iruretagoiena

Badago beste harmonia bat, are gordeagoa, baina ber gisan nabarmena ene aburuz, **zumarraren** eta hareharriaren artean. Koldo Izagirre

Dorretxo karratu lerdenaren soslaia gailentzen zen **zumarraren** adaburuaren gainetik. Txillardegi

**Zumarraren** egurra oso baliatua izana da, bereziki altzarigintzan eta untzigintzan. Herria

Eguerdiak argitasun aparta zuen, **zumarren** ernamuinak indartuz joan eta gerizpe emateko prestatzen hasiak ziren. Joxemari Urteaga

Belazearen azpian, **zumarren** ondoan, zerrategia zegoen. Pablo Sastre

Leiho zabal batetik kaleko **zumarren** adaburu beltzak ageri ziren ilunabarreko urdin kobaltoarekin jolasean. Ramon Saizarbitoria

**Zumarrak** desagertzen ari dira Euskal Herriko oihan, parke eta plazetatik. Herria

**2** (izenondo eta izenlagunekin)

Gaztainondo eta **zumar** handiek itzal gozoa eskaintzen diete italiar literaturako hainbat idazle handiren brontzezko bustoei. Anjel Lertxundi

Eguzkiak Zitadelako hostotza trinkoko **zumar** handietan jotzen zuen, eta gorritu eta kobre-kolore batez tindatzen zituen. Koro Navarro

Ur-Gaziaren eta Longinos-Harpeen parean, **zumar** mardulen artetik batimendua ikusteko tarte bat eskainiz, leiho luzeska gotikoen "Casa Blanca" dotorera iritsi nintzen. Txillardegi

Gaztelu ilun bat dago **zumar** tantaien artean ezkutatua. Koro Navarro

**3** (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

Laster hasiko zen euria, haizeak kale bazterretako **zumar** -orbela harrotzeari utzitakoan. Anjel Lertxundi

[Gurpilen] oihartzunek bi aldeetan lokarturik zeuden etxeen fatxaden kontra jotzen zutela, **zumar** lerro lausoen atzean. Karlos Zabala

Idisko oso bat ikusi zuen bere begien aurrean aurreneko, sutan erretzen zeukatena, **zumar** -tantai oso bat burruntzi-legez sartuta. Patxi Ezkiaga

**4** zumarraren zura.

Hura berunezko beste kutxa batean eta azken hori **zumarrez** eginiko beste batean. Berria - Harian

Azkenik **zumarrezko** hilkutxa lurpean sartuko dute, ez sarkofago batean. Berria - Harian

---

**zumardi** *iz* zumarrak dauden eremua; zumarrak landatu diren pasealekua.

**Zumardian** belarra laburra zen, leuna eta betea; goroldioaren antzekoa. Ramon Saizarbitoria

Santutxoko bentaren ondoan, **zumardi** txiki baten itzalpean, han ari zen etxeko nagusia sega pikatzen. Inazio Mujika Iraola

Etxekoak, Kanpazarretik motorren zurrunga zetorkienean, berrehunen bat metro iparraldera zegoen **zumardira** ateratzen ziren babes bila. Ramon Saizarbitoria

Parkeko **zumardian** behera zihoan bikote batengan erreparatu zuen. Berria - Kultura

Elizaren atzeko aldetik joan ziren ibai aldera eta, bazterrez bazter **zumardian** aurrera ibili ondoren, ibaiak putzua egiten zuen tokian gelditu ziren. Felipe Juaristi

Kolonbiako Gobernuak Bilboko Mazarredo **zumardian** daukan kontsulatuan jendea sartu eta irten ibili da egunotan. Berria - Harian

**Zumardia** ederra zagon paseatzeko, ez dun hala uste? Iban Zaldua

Zalgurdi ugari dator bulebarrera ematen duten kale eta **zumardietatik**, tropelean dator oinezko jendea ere. Anjel Lertxundi

Hondartza inguruko **zumardia**, alemanen hotela, zerrategi zaharrera heldu aurreko etxadiak... mojen komentu aurreko **zumarditik** nindoalarik, Perti, kimikako irakaslea, ikusi nuen etxe tarte batetik ni nengoen ingurura hurbiltzen. Anjel Lertxundi

**Zumardian**, Bahia Hostalaren inguruan zegoen telefono kabina baterantz zuzendu zen Pataki, presaka. Harkaitz Cano

LABek deituta, haren heriotza salatzeko elkarretaratzeak egingo dituzte: 11:00etan, ontzijabeen elkartearen aurrean, eta 19:00etan, **Zumardian**. Berria - Ekonomia

---

**zumarragar** *izlag/iz* Zumarragakoa, Zumarragari dagokiona; Zumarragako biztanlea.

Aitor Gonzalez 30 urteko **zumarragar** txirrindularia, Euskaltel-Euskadi taldekoa, dopatu omen litaike azken Espainiako Itzulian. Herria

Josu Jon Imaz **zumarragarra** hautatua izan da Eusko Alderdi Jeltzalearen lehendakari berri gisa, aspaldiko urtetan alderdi giderrak zauzkan Xabier Arzallus-en ordain. Herria

Asier Ormazabal urretxuarrak eta Iñaki Alvarez **zumarragarrak** Shisha Pagmako gailurrera iristea lortu zuten igande eguerdian. Berria - Kirola

Bertatik bertara entzunda dakit antzuolarrek oso gertukotzat dutela urretxuarren, **zumarragarren** edo azkoitiarren euskara giputza eta urrunekotzat, aldiz, Durangotik sartalderako bizkaitarrena. Koldo Zuazo

---

**zume** **1** *iz* sahats mota txikia, adar malguak dituena *(Salix viminalis)*. ik **mihimen**.

Zurzuria eta makal beltza, eta baita **zumea**, ezkia eta zalitzukia, suz eta airez egoten dira aseta. Santiago Iruretagoiena

Haize eta lehorte etengabeak sufritutako **zumea** bezain jorik zegoen. Anjel Lertxundi

**Zumea** bezain meheak ziren. Jose Morales

Larrua du esnezkoa, gorputza liraina, **zumea** bezain zalua haren gerruntze fina. Aurelia Arkotxa

Hori ote da gogoko dudan baraua gizakiak bere burua zigortzen duen egunean, hau da, **zumeak** bezala burua kulunkatu eta dolu-jantziz hautsetan etzatea? Elizen arteko biblia

Lehen bezala orain, **zumea** haizearen aldera. Jokin Urain

**2** zume adarra.

Begira hemen daukat umea, hankak **zumea** baino meheago, begiak zapoarenak baino irtenago. Jon Maia

Neskatila freskoak, izter, ipurmazel eta titi oparokoak, beste batzuk meharrak **zumea** bezain, deabrukeriaraino erotikoak. Jon Alonso

Ohartu da Joxek labana bat atera duela eta **zumea** zuritzen ari dela. Pello Lizarralde

Bideari lotu aurretik behin eta berriz inarrosi du eskuinean daraman **zumea**. Pello Lizarralde

Gero, pastelak, galletak, gerezi tartak, arbendol opil kurruskatsuak, arto bizkotxoak, lodiak eta horiak, izan zituen saltzeko, **zume** gurutzatu batzuen gainean. Karlos Zabala

Haren alboan etxe txiki eta pobretxo bat bakarrik izatea, buztinez eta **zumez** egina, bertan anaiek atseden hartu eta lan egin ahal dezaten. Juan Garzia

**Zumezko** pareta mehe-mehe batzuek baizik ez zituzten merkatuko jendetzarengandik bereizten. Karlos Zabala

- **Zumezko** kulunkaulki bat bazen hemen. Harkaitz Cano

**Zumezko** mahaitxo baten aurrean eserita, diru-kutxaren ondoan, kontabilitateko koaderno handian murgilduta zegoen Perrette. Jon Muñoz

**Zumezko** aulki kulunkari batean. Anjel Lertxundi

Dendaren eskuinaldean, janlekua zegoen, gela garbi-garbi bat, haritz argiz egindako arasa batek, mahai batek eta **zumezko** jarleku batzuek hornitzen zutena. Karlos Zabala

Ezer baino lehen, **zumezko** kapazuan lo zegoen haurra erakutsi zioten. Harkaitz Cano

Etxeko sukaldera joan eta bere amak ogiaren atxikitzeko zeukan **zumezko** otarrea ebatsi! Ramuntxo Etxeberri

Gero, arrain ederrak zetozen, bakarka jarriak, **zumezko** erretilu banatan. Karlos Zabala

Izozkailuaren gaineko frutontzi **zumezkoan** laranja bat zegoen. Harkaitz Cano

**3** (hitz elkartuetan)

Zorigaiztoko mira-eragile gizatxarrok, nork ikusi zitzakeen zakatzetatik zintzilik sardinak **zume**-zirian bezala. Patxi Ezkiaga

**4** irud/hed

Atean izandako zalantzak amaitu direla berretsi beharko du Aranzubiak, berriro Urzaiz onena ikus daitekeela erakutsi beharko du Tuterako aurrelariak, eta gazteek hazten doazela baieztatu beharko dute, baina Valverdek saski dotorea osatzeko moduko **zumeak** ditu. Berria - Kirola

Ibarretxeren ustez, Estatutu Berrirako Proposamena «oinarrizko ondasun politikoa» da normalizazio akordioari ekiteko orduan, funtsezko gaiei erantzuteko **«zumeak»** ezartzen dituelako. Berria - Harian

PSOE-PP Ituna «aurkaria deskalifikatzeko tresna» dela esan zuen, eta etorkizun «beste **zume** batzuekin» egin behar dela. Berria - Euskal Herria

Geroari begira jarrita, Estatutu Proposamenaren edukiak normalizazio politikoa lortzeko **zume** gisa aurkeztu zituen, bere ustez, indarrean dauden auziei «irtenbidea» ematen dietelako. Bidea erdi-erditik egin nahi dutela esan du bai Ibarretxek bai Imazek, akordioak orain alde batekin orain bestearekin egiten saiatuz, baina herenegungo hitzaldian proposatutako **zumeekin** lankideak alde bakarrean baino ez dituzte aurkituko. Berria - Harian

**5** ***zume negarti*** sahats mota, adarrak beheraka dituena *(Salix babylonica)*.

O, haritza, lizarra eta **zume** negartia! Lopez de Arana

Turgeniev"en aurrean, bidearen bestaldean, zelai muttur bat dago, bizpahiru **zume** negartik babesten duten oasi bat zabor kontainerren artean. Pako Aristi

Bestetik lore sekulakoak eta itxura eta forma guztietako lore pila zeuden aintzira-bazterretan, baita **zume** negartiak ere non-nahi, hostaila ur barrenean sartuta. Fernando Rey

Maitagarri kalekume bat zen, Pasealekuan gora arineketan zihoana, **zume** negartien ondotik. Julen Gabiria

Mintak amonaren brotxea galdu zuela oihukatu zuen [...] perlazko **zume** negartia. Anton Garikano

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
> **zumea bezain** (5); **zumezko aulki** (7); **zumezko aulkitik** (3); **zumezko saski** (3)

---

zumel ik **zimel 5.**

---

**zumitz** **1** *iz* makala; zumea.

Jakobek, **zumitz**-, urritz- eta platano-ziri batzuk harturik zuritu egin zituen eta abereak edatera zihoazen asketan jarri zituen. Jose Antonio Mujika

Pixka batean ezponda berde-berdezko zanga baten ondotik ibili ziren; soro aldera urritz eta **zumitz** gorriztazko ilara batek jarraitzen zuen. Josu Zabaleta

Gurean, arrantzuko kanaberetako eta lekei tente eusteko balio duten bezala, mila lan mota eta baliabide hartu behar izan zituzten bere gain kanaberak eta **zumitz** jenero hauek. Pello Zabala

**2** zume adarra; zurezko zerrenda mehe eta luzea.

Taberna batetik ohi baino edanago irten zelarik, zubia zeharkatzean, haize basatiak jo eta ibaira eraman baitzuen, oso argala baitzen, **zumitza** bezain argala. Felipe Juaristi

Zenbat hesi txukun, zenbat sehaska ttiki eta aulki, zenbat **zumitz** eta gaztantzera, zenbat saski eta otarre klase, [...]. Patziku Perurena

Traktoretxo gorriaren ondoan, **zumitzezko** aulki batean eserita, adineko andre bat zegoen. Bernardo Atxaga

Saloiaren leiho ondoko **zumitzezko** besaulkian esertzen zenean. Anton Garikano

Bertan zeuden, su aurrean, **zumitzezko** jarleku apalak eta keak eta urteek leundu zuten zizailu galanta. Xabier Mendiguren Elizegi

**Zumitzezko** mahai baten gainean. Anton Garikano

**Zumitzezko** saski bat hartu eta, zirrikituak galipotez eta bikez estalirik, haurra bertan sartu zuen eta Nilo ibai-ertzean utzi kanaberen artean. Elizen arteko biblia

-Zer esaten ari zara, postariaren seme, gerria **zumitzezkoa** duzun mutila? Felipe Juaristi

Centaurrek, berriz, joint-venture bat osatu du Indiako enpresa batekin 2005. urtetik aurrera **zumitzak** egiteko Asiako merkatuetarako. Berria - Ekonomia

**3** (hitz elkartuetan)

Egur- **zumitzez** egindako sommier berrietan. J.M. Olaizola "Txiliku"

**4** irud/hed

Eskura dugun informazioa kaskarra bada, nekez egingo dugu zume edo **zumitz** horiekin otarre onik. Askoren artean

---

**zumiztiar** *izond* zumitzezkoa.

Adarretako makilatxo **zumiztiarrak** oso egokiak ziren esku-saski eta otzara eta banastagintzan erabiltzeko. Pello Zabala

---

**zumiztu**, zumiztu/zumitz, zumizten da/du ad zumitza bezalakoa bihurtu.

Ilbeherak desintoxikatu egiten digu gorputza, garbitzearen aldera jotzen du, barruko sapak mugitu, ureztatu eta izerdiarazi, sapa-izerdiak mugiarazi eta atera, garbiketa behartuz; eta horrela lehortu, gihartu eta, aldi berean, indartu, **zumiztu**, larru lehorra bezala, giharrez kemendu. Pello Zabala

---

**zumo** *(orobat **zumu** g.er.)* **1** *iz* zukua.

Hiru **zumo** egiten zizkion Marcosek egunero Mariari. Unai Elorriaga

-Joanma, ekarriko al dizkidak dendatik laranja batzuk eta libra bat azukre, **zumoa** egiteko? Joan Mari Irigoien

Niretzat eta Pantxorentzat **zumu** bana. Bernardo Atxaga

Gin-tonicak, **zumuak**, paper orri bat eta boligrafoa mahai gainean zeuden. Bernardo Atxaga

**2** (hitz elkartuetan)

Gosariko tostada bukatu eta laranja **zumoa** edaten ari zela erabaki zuen Martari deitzea. Xabier Mendiguren Elizegi

Sara noiznahi aritzen baitzitzaion, orain egunkaria nahi nuke, orain laranja **zumo** bat, eta orain kamamila azukre pixka batekin. Joan Mari Irigoien

Gurean Coca-Cola eramaten hasi zirenean fruta- **zumoetara** pasa ziren haienean. Xabier Mendiguren Elizegi

---

zumu ik **zumo**.

---

zunbait ik **zenbait**.

---

zunbat ik **zenbat**.

---

**zunburrun** *iz* burrunba.

Txorien txorrotxioa eta zomorroren baten **zunburruna**, beste soinurik ez zen aditzen. Fernando Rey

---

**zunda** *(orobat **sonda** g.er.)* **1** *iz* berunezko pisu bat duen haria, itsasoaren sakonera edo hondoaren nolakotasuna jakiteko erabiltzen dena.

Slightlyk dozena bat azote jaso zituen, **zunda** jasotzeko aginduaren aurrean harridura-aurpegia jarri zuelako. Julen Gabiria

· Imajinatu nuen eskumuturrean, erlojuaren lekuan, aparatu berezi bat neramala, **zunda** moduko bat, itsasoaren edo ibai baten sakonera neurtu beharrean, puntu geografiko bakoitzaren denbora-sakonera kalkulatzen zuena. Bernardo Atxaga

**2** sendagintzan, gorputz barneko hodi edo barrunbeetara iristeko tresna.

Utero-lepoan **zunda** bat sartzen zizun zabalgailu baten laguntzaz. Joseba Urteaga

Astelehen goizean bost egun bete ziren **zunda** batekin bizitzen hasi nintzenetik. Joseba Urteaga

Bazen gomazko **zunda** bat eta zurezko ardatz bat, zeharka zulo bat zuena: animaliaren hortzen artean bortxaz finkatu behar da, eta gero, zuloan barrena, **zunda** zintzurrean ondo sartu, milikeriarik gabe, urdailaren hondoa ukitzen duela sentitzeraino bultzatuz. Juan Garzia

**Zundatik** barrena erraza da xiringa arrunt batez erauzkinak urdailera helaraztea. Juan Garzia

Salatu zuenez, gose grebalariak aulki bati lotu eta geldi-geldirik edukitzen dituzte elikagaiak **zunden** bidez sarrarazteko, goitikatzea eragotzita. Berria - Mundua

Erizainek **zunda** baten bidez elikatzen dute. Berria - Gaiak

**Zunda** gastrikoen bidez elikatzea baztertu dute. Berria - Harian

**3** neurketa tresnak daramatzan globo edo espaziontzia, atmosfera edo kanpo espazioa aztertzeko erabiltzen dena.

ESAren egitasmoari jarraiki, abiada moteltzen hasi behar zuen atzo Smart-1 **zundak**, Ilargitik 50.000 kilometrora helduta. Berria - Gaiak

Marteren orbitan jarri da 'MRO' **zunda**, planetaren klima ikertzeko. Berria - Gaiak

Datozen egunetan eta urtarrilaren 14ra arte Mars Express **zunda** lurreratze-moduluaren seinalea jasotzen saiatuko da. Berria - Gaiak

Saturnoren ilargirik handiena aztertzea izango da orain Huygens **zundaren** egitekoa. Berria - Gaiak

Titanen lurreratuko da **zunda**. Berria - Gaiak

Atzo **zundatik** banandu ostean, Spirit robotak gaur goizaldean ekingo dio, ondo bidean, Marteko lurrazala aztertzeari. Berria - Gaiak

**4** (izenondo eta izenlagunekin)

Baina zer ote zen espazioan barrena zebilen objektu ezezagun hura? **Zunda** automatikoa? Patxi Iturritegi

Ilargiaren orbitan jartzea lortu du Europako **zunda** esperimentalak. Berria - Gaiak

**5** (izen elkartuetan lehen osagai gisa)

Ezustean harrapatu nau, eta libidoa **zunda** globo baten moduan igo zait, braust!, estratosferaraino. Patxi Iturritegi

**6** (izen elkartuetan bigarren osagai gisa)

Cassini espazio **zunda** Saturnoren orbitan sartu zen atzo eta AEBetako diru politika goranzko orbitan sartu zen herenegun. Berria - Ekonomia

Antartikaren inguruko adituez gain, espazio **zunden** teknikariak izan ziren bileran. Berria - Gaiak

Globo **zunda** goizero bidaltzen denak, han eramango du termometroa, gora eta gora joan ahala, hor goiko tenplearen berri emango duena. Pello Zabala

**7** irud/hed

**Zunda** egokia da arlo honetan ere gauzak nola dabiltzan konturatzeko. Iñigo Aranbarri

Gregorio Urdaniz UNEDeko irakaslearen esanetan, alde handia dago benetako beharraren eta eraikitzen ari den hiriaren artean, eta Gendulaingo proiektua, esaterako, **«zunda** bat» da, bere ustez. Berria - Harian

**hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**

**cassini espazio zunda** (6); **cassini zunda** (4); **espazio zunda** (12); **eta zunda** (3); **express zunda** (7); **horizons zunda** (3); **huygens zunda** (8); **mars express zunda** (7); **new horizons zunda** (3); **rosetta zunda** (4); **spirit zunda** (4); **zunda baten bidez** (3); **zunda plutonera** (3); **zunda saturnoren orbitan** (4)

**cassini zundak** (11); **espazio zundak** (13); **express espazio zundak** (3); **express zundak** (13); **mars express zundak** (10); **spirit zundak** (3); **stardust zundak** (8); **venus express zundak** (3)

**huygens zundaren** (3); **zundaren bidez** (3); **zundaren bitartez** (3)

---

# **zundaketa** 1 *iz* zundatzea.

Iritzi Publikoaren Zentro Palestinarrak herenegun plazaratutako **zundaketa** batek dioenez, berriz, Mahmud Abbas PANeko presidentearen alderdiak botoen %39,6 lortuko ditu, eta erakunde islamikoak, berriz, bozen %28,8. Berria - Harian

Horietatik zazpi besterik ez dira pasatuko bigarren itzulira, Sofres erakundearen **zundaketaren** arabera. Berria - Mundua

Iazko abuztuan, Pegoko udaletxearen lur eremuetan **zundaketak** egin zituzen. Berria - Gaiak

Veleiaren azpian egin diren **zundaketek**, aldiz, agerian utzi dituzte herrixka horren aztarna esanguratsuak. Berria - Harian

Nagoren, atzeko presak eraikitzeko egindako **zundaketetan** sima batekin egin dute topo, eta horma atzerago eraman behar izan dute. Edurne Elizondo

**2** (izenondo eta izenlagunekin)

Hitz honek ez du bultzatzen inolako hasieraren bilakuntzara; ez du azterketa ahaidetzen inolako indusketarekin edo inolako **zundaketa** geologikorekin. Xabier Arregi

Agintaritzak hainbat pista eraikitzeko **zundaketa** geoteknikoak egingo ditu. Berria - Euskal Herria

Putzu zaharrak berriro zulatzen ari gara teknologia modernoen bidez, **zundaketa** horizontalez esaterako, bertan atera gabe geratu zena ateratzeko, arrokari azken zukua atera nahian. Berria - Gaiak

Superportuaren Aurkako Taldeak *Jaizkibel arriskuan!* ***Zundaketa*** *txikitzailerik ez!* lelopean, bihar, 09:30ean mendi ibilaldia antolatu du. Berria - Euskal Herria

**3** (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa)

Hogeita hamar lagunek osatutako talde batek **zundaketa** lanak egiten zebilen makina bat geldiarazi zuten. Berria - Euskal Herria

Arenalean **zundaketa** makina erraldoia dagoen bezala, burtsa ere igotzeko arrazoi oinarrizkoen bila hasi da. Berria - Ekonomia

**4** (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa)

-Ez horixe, alderantziz, azken iritzi-**zundaketak**, eta ez gureak bakarrik, alde ditugu. Migel Angel Mintegi

Orain aztertu beharko dugu hauteskunde kanpainan gertatutakoa, baina nire ustez, hauteskunde **zundaketek** eragina izan dute gure beherakadan. Berria - Mundua

Faila hori petroleo **zundaketak** egiten ari zirenean aurkitu zutela gogoratu zuen Casasek hitzaldian. Berria - Euskal Herria

Axelek itsas **zundaketak** ere eginen ditu, sakoneko harrizko zorua 127 edo 750 metrora dago. Joseba Sarrionandia

**hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**

**zundaketa lanak** (4); **zundaketak egiteko baimena** (3)

---

# **zundatu**, zunda, zundatzen du *ad* **1** eremu bateko lurraren ezaugarriak aztertu.

**Zundatu** eta, urak 75 metroko sakonera duela eta hondoa harrizkoa dela jakinen duzue. Joseba Sarrionandia

**2** zundaren bidez neurtu edo aztertu.

Ura hustu zenean, Andresek maskuria **zundatu** ahal izan zuen, eta gaixoa arnasa aise hartzen hasi zen. Josu Zabaleta

Amildegitik ihes egiteko modu bakarra, amildegia ikustea, neurtzea, **zundatzea** eta bertara jaistea da. Anjel Lertxundi

**3** norbaiten iritzia, asmoak eta kidekoak ezagutzen saiatu.

Interesgarria ere bazen hauteskundeok ikasle, irakasle zein beharginen artean itxaropenik eragin zuten edo ez **zundatzea**. Berria - Euskal Herria

Begira ea zure solaskideak, **zundatu** gogo duzun horrek, inoiz kausitu duenentz aipaturiko gaizkerietan hala salatzen duzun gaztea. Juan Garzia

Ni **zundatu** nahian ote zebilen, nekizkienak esanarazteko? Fernando Morillo

Gizonaren bihotzaren mugidak ezin **zundatuzkoak** dira. Josu Zabaleta

---

# **zundatxo** *iz* zunda txikia.

Lehen aipatu dugun zunda meteorologikoa, beste aurkikuntza bikaina, goizero hainbat gunetatik zeru goira kilometro mordoxka bat joan daitezen bidaltzen diren **zundatxoak**, irratiz datuak bidal ditzaten. Pello Zabala

---

# **zundatze** *iz* eremu bateko lurraren ezaugarriak aztertzea.

Batez ere, neurriak eta garrantzi arkeologikoa finkatu nahi dituzte, eta horretarako 300 **zundatze** baino gehiago egingo dituzte, 2007. urtea bitartean. Berria - Harian

2002an Andoainen egiten ari ziren **zundatze** geoteknikoak geldiarazi zituzten sei lagun horiek. Berria - Euskal Herria

Sei lagun epaituko dituzte gaur goizean [...] AHTren proiektuko **zundatze** lan geoteknikoak geldiarazten saiatzeagatik. Berria - Euskal Herria

---

**zuntoi** *iz* zutoina.

Baina ez al zen ausaz alaia goiz hura? Ate irekitik airea sartzen zunan, huntzaren **zuntoiak** hautsiz. Juan Garzia

---

**zuntz** **1** *iz* hariaren osagai bakunetako bakoitza; eho eta irun daitekeen gaia, hari itxurakoa. ik**izpi; piru**.

Aski zituan milakaren batzuk molekula polifenol, garbiketan lanjantziaren **zuntzek** xurgatuak, eta ile zein haritxo ikusezin batek lanjantzitik hegan eramanak, orban bat sorrarazteko. Juan Garzia

Bazirudien eskailera handia kulunka zebilela, **zuntzezko** alfonbrari eusten zioten letoizko arrabolekin oin-puntez behaztopa egiten baitzuen Thatcherrek. Lopez de Arana

Zeta artifiziala nola bideratu aztertzen ari zirela, Wallace Hume Carothers eta bere taldeak erraz hausten ez zen **zuntz** gogor bat aurkitu zuten, plastikoan oinarritua: nylona. Pello Salaburu

Tximiniaren aurrean, Wendyk kordelak zabaltzen zituen, **zuntzezko** kordelak, eta horietan esekitzen zuen arropa garbitu berria. Julen Gabiria

Zetazko **zuntzak** eta soja-ogia egin nahi du, eta baita gazta ekologikoa ere. Berria - Kultura

Bertan behera gelditu den kuota sistematik at daude poliester **zuntzak** eta, datozen bost urteotarako %49,7ko muga zergak ezartzea hobetsi du EBk. Berria - Harian

**2** landare edo animalien ehunen osagai oinarrizkoa, hari itxura duena; hariaren itxurako gauzakia.

Bizkarreko ilajea laztu egin zitzaion guztia, buztana zurrundu, eta nerbioak, **zuntzak** eta zainak ikusi nizkion tenkatzen, zintzur aldean hasi eta zango zailetan buka. Joxan Elosegi

Irakaslea gutxi gorabehera bere adina edukiko zuen emakumezko bat zen, ikasleak ez bezala, argal eta zaintsua, dena **zuntz** eta gihar. Berria - Kultura

Abentura eta arriskua hurbil sumatzen nituen, nire odolaren ibilera bizkortuz eta gorputzeko **zuntz** guztietara elektrizitate karga biziak bidaliz. Alberto Ladron Arana

Nerbio sistemako, garuneko eta bizkarrezur muineko egiturak meninge izeneko **zuntz** batzuekin daude estalita. Berria - Euskal Herria

**Zuntz** bakoitzak bere erresonantzia-maiztasuna du eta soinu egokia iristen zaionean hasten da mugitzen. Irene Aldasoro

Argi gorriak bortizki estimulatzen ditu gorrirako sentiberak diren **zuntzak**, eta motelkiago, berriz, beste biak, eta hala ematen du gorri "sentsazioa". Xabier Olarra

Adats izurtuan, **zuntzaren** gune batzuk biribilak dira eta, beste batzuk, berriz, obalak. Irene Aldasoro

**Zuntz** eta karbohidrato konplexu gutxiegi eta animalia proteina, lipido saturatu eta azukre soil gehiegi kontsumitzen delako. Edorta Agirre

**Zuntza** jateak minbiziaren aurrean babestu egiten duela ikusi zuten. Berria - Gaiak

Muskulu batek baditu milaka eta milaka **zuntzak** eta, indarra erregulatzeko, uzkurtu beharreko **zuntzen** kopurua eta uzkurtze abiadura egokitzen ditu. Irene Aldasoro

Muskulu ziliarra uzkurtzen bada, **zuntzen** tentsioa gutxitu egiten da. Irene Aldasoro

Bulkada elektriko bat ikusmen-nerbioaren **zuntz** batean. Irene Aldasoro

Ekintza mekaniko soil baten bidez egiten dute muskuluek beren lana: **zuntzak** uzkurtuz. Irene Aldasoro

Kono bakoitza **zuntz** bakar baten bidez konektatzen baita gehienetan ikusmen-nerbiora. Irene Aldasoro

Asteon erresonantzia magnetikoa eginen diote **zuntzen** haustura ote duen argitzeko. Berria - Kirola

Traineruak bezala, egurrezko arraunak ere baztertu egin dituzte klubek, **zuntzezkoak** erabiltzeko. Berria - Kirola

Hantxe bilduta zeuden, azukre-kainaberazko **zuntzez** eginiko hamarka saskitan. Jon Muñoz

**3** (izenondo eta izenlagunekin)

Horrez gainera, **zuntz** elastiko ugari ditu dermisak. Irene Aldasoro

Eraztun-formako muskulu baten [...] barruan kokaturik dago begiaren kristalinoa, **zuntz** elastikozko sare baten bidez hari lotua. Irene Aldasoro

Aluminioz eta **zuntz** sintetikoz egindako lera. Joxemari Urteaga

Izaki pentsatzaileak asmatuko dituzte, **zuntz** misteriozkoz unibertso adierazgarri bati lotuak, osotasunaren ikuspegi sendoak dituztenak. Josu Zabaleta

Tom igaroa zen lehenago ere arrebarekin antzeko egoeratatik, eta harengatik bihotzeko azken **zuntzeraino** ni bezain kezkaturik bazegoen ere, [...]. Oskar Arana

Zelula horiek guztiak nerbio optikoko **zuntzak** osatzen dituzten zelulekin lotuta daude beste sinapsi batzuen bitartez. Josu Zabaleta

Tolesdura oker horrek **zuntz** amiloideak sortzen ditu. Berria - Gaiak

**4** (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

Ainguragune asko dituen **zuntz** sare batek eusten die epidermiseko zelula biziei, geruza basalekoei eta ingurukoei. Irene Aldasoro

Zurda edo tendoia da - **zuntz** -ehun gogor batez egindako kordoi bat- lotura hori egiten duena. Irene Aldasoro

Bi hemisferioak konektatzen dituen **zuntz** sorta lodia. Irene Aldasoro

Milosevicek **zuntz** haustura txikia du, eta bizpahiru astean egongo da jokatu gabe. Berria - Kirola

Erresonantzia magnetikoak uste baino emaitza hobeak erakutsi zituen, ez zegoen **zuntz** hausturarik, gihar distentsioa baizik. Berria - Kirola

**5** (hitz elkartuetan lehen osagai gisa, lehen osagai hori izenondoduna dela)

Gelatinazko soka bat da muskulu normal bat: **zuntz** fin andana bat. Irene Aldasoro

**6** (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa)

Kalamu-**zuntzaz** egindako zaku normal-normalak ziren. Anjel Lertxundi

Kakao **zuntza** hartzeak odoleko kolesterol maila jaisten laguntzen du. Berria - Gaiak

Adarbakoitzaren ilea erabiltzen dugu, edo fenixen isats-lumak eta herensugeen bihotz-**zuntzak**. Iñaki Mendiguren

Nerbio-**zuntz** batetik igaro daitekeen energia elektrikoa ez dela aski muskulu-**zuntz** bat estimulatzeko, askoz lodiagoa baita muskulu-**zuntza**. Giza belarrian, badira 28.000 nerbio-**zuntz** inguru. Irene Aldasoro

Kolageno-**zuntzez** eta **zuntzoi** irmo itsatsirik dauden hidroxiapatito-kristalez egina dago hezurra. Irene Aldasoro

Aluminioa edo karbono-**zuntza**? Jon Alonso

Karbono **zuntzezko** arraunak. Berria - Kirola

Traineruak zein arraunak karbono edo beira **zuntzez** egiten hasi dira asko ez dela. Berria - Kirola

Beira **zuntzez** indartutako poliesterraz eraiki dute ontzi guztia. Berria - Ekonomia

Beira-**zuntzezko** txalupa omen zuten erosia. Koldo Izagirre

Beira-**zuntzak**, tentsioaren eraginpean aparteko indarra erakusten badute ere, erraz okertzen dira, eta ez dira egokiak egiturazko material gisa erabiltzeko. Irene Aldasoro

**7** irud/hed

Neure kimikari-**zuntzak** kizkurtzen sentitu nituen lotsagarrikeria haren aurrean. Juan Garzia

**8** ***zuntz optiko*** material dielektrikoz eginiko zuntza, argiaren eroalea dena.

Material berriak zabaltzen hasi direlako (plastikoak, **zuntz optikoak**, kautxu sintetikoa...), fidagarriagoak, eragingarriagoak eta merkeagoak baitira. Koro Navarro

Informazioa garraiatzeko **zuntz optikoaren** ahalmena 70eko hamarkadaren amaiera aldean ezarri ziren lehen sareetan 30 Megabit segundokoa bazen, gaur egun, milioi bat Megabit baino gehiagokoa dela. Iñaki Heras

Euskaltelek 1.200 milioi euro inbertituko ditu **zuntz optikoa** herri eta enpresa guztietara hedatzeko. Berria - Ekonomia

Japoniak, zeinak tsunami-ak atzemateko munduko **zuntz optiko** sarerik aurreratuenetako bat duen, bere jakituria teknikoa eskaini zuen. Berria - Harian

Teoria kuantikoaren ondorio dira, halaber, laserra era **zuntz optiko** bidezko komunikazioak. Berria - Harian

**hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**

**gorputzeko zuntz** (3); **jokalariak zuntz haustura** (3); **muskulu zuntz** (7); **nerbio zuntz** (17); **serbiarrak zuntz haustura** (3); **zuntz bat** (7); **zuntz haustura** (71); **zuntz haustura**

bat (12); zuntz haustura dauka (3); zuntz haustura du (8); zuntz haustura izan (6); zuntz haustura txiki (4); zuntz haustura txikia (7); zuntz hausturarik (6); zuntz horiek (4); zuntz optiko (6); zuntz optiko bidezko (3); zuntz optikoa (4)

kolageno zuntzak (3)

zuntzen haustura (4)

beira zuntzez (5)

karbono zuntzezko (3)

---

## **zuntztsu** *izond* zaintsua.

Ikusi besterik ez dago Rudolf Nureyev (1961) **zuntztsu** eta dotorea, Richard Avenon da egilea. Berria - Kultura

---

## **zuntzun** 1 *izond* tuntuna.

Elurrak moteldutako parkean txilibituaren hotsa bezain zoliak eta meheak ziren Edithen negar zotinak, eta mutikoak neska **zuntzun** haiei uko egin eta urrundu egin zen badaezpada. Koro Navarro

Cecily ez duk neska erromantiko **zuntzun** horietako bat, eta pozten naik esateak. Antton Olano

-Ignazia neska **zuntzun** horri -erantsi zuen geroxeago agureak-, nahi duana emaiok ezkontzen denean. Koro Navarro

Aldian-aldian, berriro niregana itzuli aurretik, halako **zuntzun** ikusmin zahar baten eraginez bezala, barra atzean zeuden kartel zaharretara irristatzen zitzaizkion begiak, cow-boyen bortxa ederrera eta emakume haien papar gaiztoetara. Josu Zabaleta

-Hago isilik, **zuntzun**-opila! Anjel Lertxundi

**2** ergela, ganorabagea.

Lurra berria eta zerua oraintsukoa zela eta halako animaliak sortu ahal izan zirela uste duenak, munduaren gaztetasunaren arrazoi **zuntzun** horretan funtsaturik, nahi beste ergelkeria jaulki dezake. Xabier Amuriza

Horrela asmatu dira Don Pelaio berkonkistaria, Errege Katoliko arrazista batzuk Espainiaren bategile santuak [...] eta Independentzia Gerra **zuntzun** bat Frantzia aliatuaren aurka, eta tonaka eta tonaka zientzia espainola. Joxe Azurmendi

---

## **zuntzundu**, zuntzun(du), zuntzuntzen da/du *ad* tuntundu.

**Zuntzunduta** nengoen, dukat eta erreal eta zuri, diru haiek mahaiaren gainera zelan uzten zituen ikusten. Edorta Jimenez

Gure amak esaten zuen moduan esanda, **zuntzunduta** nago, hots, zentzumenak berriro beren erroetara ekarri guran. Edorta Jimenez

Laxaturik baina artean **zuntzunduta**, Basurtoko Sanzenen Joanek giltzaz eta urre-zilarren dirdiraz sorgindu gura izan ote ninduen pentsatu nuen. Edorta Jimenez

---

## **zunzdun** *izond* zuntza duena.

Kalamu [...]: leporako janzki mota bat egiteko erabiltzen den azal **zunzduna** ematen duen landarea; maiz, jendaurrean aire zabalean mintzatu ondoren jantzi ohi da, eta jantzita daramana hoztetik babesten du. Xabier Olarra

---

## **zunztu**, zuntz/zunztu, zunzten da/du *ad* zuntz bihurtu.

Bizi ardatz nirearen jiran aihendutako huntza baino areago zuntz ere **zunztu** zitzaidan natura eta naturarekin hainbat bizikideen izpiritua eta poza. Pello Zabala

---

## **zup** *adlag* irenstearen onomatopeia.

Eskaileretan gora jarraitu zuen Sergiok, eta bere atzetik bere itzalak, Abdulek, eta bizilagunak ogiari begiratu eta bere begietako mesfidantza ogiak irentsi egin zuen **zup**, gezi bat iltzatuta geratzen denean bezala ezkutu batean. Harkaitz Cano

**Zup** eta **zup**. Hasier Etxeberria

---

## **zupa** *adlag* zupatuz.

Nik xurgatu eta xurgatu, eta berak, intzirika, burutik heldu eta erritmoa markatzen zuen; azkenetan zegoela, "banoa" esan zuen ahots lakar batek, eta atzera egiten saiatu zen, baina nik **zupa-zupa** jarraitu nion. Juan Martin Elexpuru

Tiradora hark **zupa** eta **zupa** egiten zuen esnea ekarri behar zuen emakumearen titiburutik, eta berak irizten zion besteko saioak egiten zituen, **zupa** eta **zupa**, azkenean, esnea ateratzen zion arte. Jon Maia

Nire zakila gehiago handitu zen, goizeko eszena etortzen zitzaidan, eta su eta gar jartzen ari nintzen, berak **zupa** eta **zupa** jarraitzen zuen. Juan Martin Elexpuru

**hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**

zupa eta zupa (3)

---

## **zupada** *iz* zigarro eta kidekoez mintzatuz, zupatzea.

Pipa sumendi gorri txiki bat zen, **zupada** bakoitzean txinpart indargeak sortzen zituena. Lopez de Arana

Batzuek zigarroak azkar eta **zupada** sakon eta arinetan erretzen dituzte. Sonia Gonzalez

Zigarroari **zupada** eman eta txarraldia sartu zaio. Alberto Barandiaren

**Zupada** bat eman zion porroari. Fernando Morillo

Puruari beste **zupada** bat eman nion, zaldiaren gainean, irabazle. Jon Maia

**Zupada** luzea eman dio Raimundak zigarroari. Urtzi Urrutikoetxea

Txirria sutu eta **zupada** sakon bat eman dio: haxixaren abisua biriketan, mezularia burura abia dadin. Pako Aristi

Hiru **zupada** eder sartu dizkiot haxixari. Pako Aristi

Jimmy Herf gora eta behera zebilen, artega, zigarro bati **zupadak** jotzen. Lopez de Arana

Hori esanda, azken **zupada** jo dio txirriari. Pako Aristi

Beste zigarro bat isiotu, **zupada** pare bat eman eta buztinezko hautsontzian amatatu du. Sonia Gonzalez

Giltza oraindik eskuan zuela, zigarreta piztu zuen, pare bat **zupada** eman zizkion, baina berehala itzali zuen hautsontzian. Ibon Uribarri

**hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**

**azken zupada** (3); **beste zupada bat** (3); **zigarroari zupada** (4); **zupada bat eman** (4); **zupada luzea** (4); **zupada sakon** (4)

---

## zupadaka *adlag* zupaka.

Bazirudien emakume haiek, behintzat, atsegin handiz zihardutela tabakoari **zupadaka**, batere konplexurik gabe, euren senarrak bezalaxe. Jon Arretxe

---

## zupadatxo *iz* zupada laburra.

Astiro egiten zuen berba zigarro bati **zupadatxoak** emanez. Lutxo Egia

---

## zupaka 1 *adlag* zupadak emanez.

Emakume zahartxoa pipari **zupaka** ari zen, itzalita zeukala ohartu gabe. Iñaki Mendiguren

Eskazale tipikoa, kalebazter batean eseria, eskean bildutako puskak ondoan dituela, ardoari zurrut eta pipari **zupaka**. Patziku Perurena

Ondo nahiz txarto, hortxe geratu dira mutil gaixoak, hotzari aurre egiteko zigarroari eta botilari **zupaka**. Xabier Mendiguren Elizegi

Beteta nagon, alajaina, hortz goroldiotsuko bi umerekin -bata bularretik **zupaka** eta bestea behera tiraka-, eta bitartean maisu liburuzalea begiratzen eta idazten. Anton Garikano

**2 *zupaka egin***

Ondoren, **zupaka eginez**, pozoia ere arindu zenion odoletik. Hasier Etxeberria

---

## zupakada *iz* zupada.

Bere puruari **zupakadak** ematen zizkion bitartean. Lopez de Arana

Latarik gabe, jauna, baina pipa-**zupakada** xuabe guztien kalitatea ezin hobea da... socony. Lopez de Arana

---

## zupaketa *iz* zupatzea.

Ondoren **zupaketak** eta bariazio tipikoak, eta horiekin aspertutakoan hasten dira gauzak bihurritzen, animaliekin zerrikeriak egiten, edo snuff-movie zikin horietakoak egiten. Xabier Mendiguren Elizegi

---

## zupako *iz* zupada.

Sakik zigarroari **zupako** bat eman, jaiki zen emeki. Pablo Sastre

---

## zupaldi *iz* zupada.

Ergel samarra ere bada jokaera hori, kanpotik begiratuta: porrua bildu zuen berberak piztuko zuen, hark egingo zuen lehenengo **zupaldia**, eta interesgarriarena izan nahiko zuen aurpegiera serioz esango zuen, ahapeka: "Jotzen du, bai". Xabier Mendiguren Elizegi

Aldamenekoak porrua pasa eta nork bere **zupaldia** jotzen zionean. Xabier Mendiguren Elizegi

---

## zupatu, zupa(tu), zupatzen *(49 agerraldi, 24 liburu eta artikulu 1ean)* du *ad* miaztu, xurgatu. ik **txupatu**.

Hatzak **zupatzen** zituen. Pablo Sastre

**Zupa** zak hatza, anker horrek!, erakutsi dio Lujanbiok erpurua zeruari. Anjel Lertxundi

-Ikusten nola **zupatzen** duen behatza? -ezer ez dakiela frogatuz, ume jaioberriek aho-parean jarritako edozer **zupatzen** baitute. Arantxa Iturbe

Zorroan gorde zituen ondo **zupatzen** nekatu gabeko hezur haragitsuak. Joxemari Urteaga

Igogailuko ispiluari beha, **zupatu** egin ditu ezpainak distira apur bat emate aldera, eta oharkabean urduri dagoela ikusi du ispiluko islak itzuli dizkion begietan. Hasier Etxeberria

Hantxe zegoen osaba, lumetan belaunetaraino sartuta, oilo bizien buruak **zupatzen**. Koro Navarro

Mendazko goxokiak **zupatzen** ditut, ahoko kiratsa disimulatzeko. Joan Mari Irigoien

Txiklea poliki-poliki **zupatu** eta murtxikatu behar da, zapore berezia nabaritu arte. Berria - Euskal Herria

Azukrezko luma paregabeak, ikasgelan lasai **zupa** ditzakezunak. Iñaki Mendiguren

Banpiroengan sinesten dute, hau da, odola **zupatzen** dizueten animalia horiengan. Lopez de Arana

Bazegoen pixka bat oraindik, eta botila muturretik **zupatu** zuen Jacuk. Josu Zabaleta

Bizkarra atean bermaturik, Harland bere pipa ordurako itzalia **zupatzen** ari zen, eskorga hutsen ilarei eta pikatxoi eta pala piloei begira. Lopez de Arana

Mahairaino heltzen zait Idealesen ke garratza, agureak belar-izpi beltz horiek irrikaz **zupatuko** balitu bezala. Javi Cillero

Zertaz ez zen jabetzen han atzealdean hodeiei begira zigarroa **zupatzen** ari zen Sebas? Eider Rodriguez

Narguilea **zupatzen** jarraitu zuten beste puska batean, eguzkia etzaten zen bitartean. Xabier Aranburu

Hango pertsonaiak masturbatu egiten dira, miaztu, **zupatu** eta sodomizatu egiten dute, eta talde-sexuan jardun. Juan Martin Elexpuru / Bego Montorio

Pinudiko lurrak ez du bestelakoak bezainbat **zupatzen**. Pello Zabala

---

## zuperfizial ik **superfizial**.

---

## zur *iz* 1 zuhaitz eta zuhaixken enbor, adar eta sustraiak osatzen dituen gai izpitsu eta trinkoa. ik **egur**.

**Zura**, berriz, gogorra da tentsioarekiko, baina ahula konpresioarekiko, batez ere hariaren norabidean aplikatzen bada indarra. Irene Aldasoro

Nik lagun bat nuen Obaban **zura** lantzen zuena, Adrian. Bernardo Atxaga

Horrela prestatu zuten tenplua eraikitzeko **zura** eta harria. Elizen arteko biblia

Urkiaren **zura** erabiltzen zuela horretarako, ez zegoela urkia bezalakorik. Inazio Mujika Iraola

Zuk behar adina **zur** prestatuko dugu Libanoko oihanetan. Elizen arteko biblia

Oihanean legez kanpo moztutako **zura**. Berria - Gaiak
Irlanda eta Gales lurraldeetan, itsasontzi eta barku guztietan erabilitako **zura**, lizarrarena zen. Pello Zabala
**Zura** ustiatzen duten enpresak eta kolono eta lurjabe handiak arara indigenen bizilekua suntsitzen ari direla. Berria - Gaiak
Urre, zilar, brontze, burdina, **zur** eta harrizko jainko-irudiak goresten hasi ziren. Elizen arteko biblia
Laboratorioaren erdian bazen **zur** eta beirazko aire kanpai handi bat. Juan Garzia
Badaki urrea, zilarra, brontzea, burdina, harribitxiak eta **zura** lantzen. Elizen arteko biblia
Kaian egoten zen **zura** garraiatu behar zuten alak eta gabarrak kargatzen zituzten bitartean. Jose Morales
Zalantza horrek jaten ninduen barrutik, pipiak **zura** bezala. Xabier Mendiguren Elizegi
Atsegin du oinutsik ibiltzea, zoruko **zura** sentitzea oinen azpian. Antton Olano
Arotzak bere lanean urte asko daramatzan arren, oraindik ere harritu egiten da **zuraren** begiekin. Harkaitz Cano
Frantziatik ekarritako **zurez** estalirik daude paretak. Xabier Olarra
Aitzinago, hor bazen besteetan bezala **zurezko** zubi bat. Michel Oronoz
Adulterio egin zuen, harrizko eta **zurezko** idoloak gurtuz. Elizen arteko biblia
**Zurezko** dorre higikorra egin eta, hirira hurbildurik, harresietako dorre bat eraitsi eta hartu egin zuen. Elizen arteko biblia
Etorbide zabal batetik behera zihoazen, **zurezko** etxe beltzuen bi ilararen artean. Lopez de Arana
Eztiz beteriko azpil **zurezko** bat ateratzen ari baitzen une horretantxe. Jose Morales
Hiru ilara izango ditu harlanduzkoak, eta bat **zurezkoa**. Elizen arteko biblia

## **2** (izenondo eta izenlagunekin)

**Zur** horizko bulego handi hartako konpartimentuak eta langileak erakutsi zizkion. Karlos Zabala
Ezer adierazten ez zuen begirada bat josi nion **zur** ilunean distira egiten zuen pistolari. Alberto Ladron Arana
Batek alboan kaxa eder bat bazeukan, **zur** ederrean landua. Edorta Jimenez
Ofirko urreaz gainera, **zur** bikaina eta harribitxiak ere ekarri zituzten. Elizen arteko biblia
Horretarako ahalbiderik ez duenak **zur** ustelkaitza aukeratzen du eta artisau treberen bat bilatzen. Elizen arteko biblia
Luxuzko **zur** sendoz eginak ziren, eta oliba-berdezko belusez estalita zeuden. Jon Muñoz
**Zur** trinkoko maila bi igota sartu behar da bertan. Koldo Izagirre
Gorputza lurrezkoa zen, baina zakila **zur** gogorrezkoa, eta behealdean ardatz bati lotua zegoen. Karlos Zabala
**Zur** arruntez egin pipa eskaini zion. Elena Touyarou
**Zur** merkeko mahai tiki angeluzuzena, funtzionala oso. Aingeru Epaltza
Larru beltzezko besaulki astunak, **zur** distiratsuzko mahaitxoak. Alberto Ladron Arana
Era guztietako **zur** usaintsu, boli eta **zur** baliotsuzko tresnak, brontze, burdina eta marmolezko tresnak. Elizen arteko biblia
**Zur** kontratxapatua zegoen hainbat kristal hautsiren ordez. Fernando Rey
**Zur** urreztatuzko sagrario zahar bat. Josu Zabaleta
Haren kokots bizar-moztua **zur** begitsua bezain zimurra zen. Karlos Zabala
Besaulkiaren **zur** landuari erpeen antzera heltzen zioten esku haiek. Agustin Otsoa
**Zur** bernizatuzko mahaiak. Jose Morales
Mota guztietako ontziak aurkitzen dituzte han pilaturik, **zur** leundu, torneatu, txirikordatu zein zizelatuzkoak. Jose Morales
Oina **zur** ezkoztatuaren gainean. Joan Mari Irigoien
Eserlekuen **zur** antzinakoa, beirez eta teilatuez haraindiko eguzkiaren esfera, ekaineko airean dabiltzan kardu-ilaunen hegaldi hutsala. Juan Garzia
Kriptako freskoak, **zur** landu erre eta polikromatuaz egina, Nestor Basterretxearenak. Jon Alonso

## **3** (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

Zapi bat **zur** txirbilez beteta jarri du Peterrek ate buruan. Josu Zabaleta
**Zur** ezpal batzuk erori ziren eskailera zulotik. Alberto Ladron Arana
Hilobia bi metro eta erdi baino barrenago zen, **zur** oholez, adreiluz eta legarrez estalirik. Gotzon Garate
Obretan zegoen ezkerreko etxea: zakar kontainerra aurrean, **zur** plantxak atarian, kristalik ez leiho zuloetan. Pablo Sastre
Kristoren gurutzearen **zur** puska bat gordetzen duen erlikia. Joan Mari Irigoien
Txirula mahai gainean utzi zuen berriro: **zur** puska zuraren gainean. Felipe Juaristi
Erlikiontzi hark ez zuen *lignum crucis*-aren **zur** zati bat gordetzen. Joan Mari Irigoien
Bannach Ltd. **zur** enpresak zerratoki handi bat ezarri zuen Cachoeira Seca eskualdean. Berria - Gaiak
Urte askoan usteldu den **zur**-lan zaharrak izaten duen osotasun itxura gogorarazi zidan. Koro Navarro
Burdin, harri eta **zur** lanak eginen dituzte denen bixtan. Herria
Irudituko litzaioke Moskuko **zur**-merkatu batean zegoela. Jose Morales
Tximistek zuhaitz beltzezko **zur**-sare trinkoaren atzetik distira egitean, [...]. Joxe Austin Arrieta
Adituek atzo azaldu zutenez, **zur** industriaren eta nekazaritzaren ondorioz, mende honen amaierarako oihanaren %60 desagertu egingo da. Berria - Gaiak
Botilak eta beira zatiak ere bai **zur** hondakinekin nahasian. Josu Landa
Zuhaitza, **zur**-materialetako nahi zuenak, zainduko zuen, bai, noiz botako. Ihesean hil dira asko, eta **zur** ustiatzaileek ekarritako gaitzek jota beste asko. Pello Zabala

## **4** (hitz elkartuetan lehen osagai gisa, lehen osagai hori izenondoduna dela)

Gibelean, hamabi oin karratuko baratze landu bat, **zur** erre zatiz betea. Koldo Izagirre

## **5** (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa)

Zedro-**zura** bidali zenion gure aita Davidi, bere jauregia eraikitzeko. Elizen arteko biblia
Hartu dut zure eskaria eta emango dizut nahi bezainbat zedro eta zipres-**zur**. Elizen arteko biblia
Tenpluetako eta etxeetako ateak ere arte **zuraz** egiten baitziren. Pello Zabala
Santutegiaren sarrerarako olibo-**zurezko** ateak egin zituen. Elizen arteko biblia
Intxaur-**zur** landuzko armairu beltzurietatik, han irten ziren zimitzak osteka. Juan Garzia
Aurrerantzean ez zen halako sandalo-**zurik** etorri, ez ikusi egundaino.Taxuz zaindu eta gordez gero, hagin-**zura** materialik nobleen eta iraunkorrenetakoa da. Elizen arteko biblia
Baserri askotan, sarde-koilarak urki-**zurez** egin ohi zituzten. Pello Zabala

## **6** zur puska.

Eginak zirelakotz etxeak gehienik, teilatuak segurik oholez, lau kantonetako **zur** ttipi batzuz, teila gisa. Angel Aintziburu / Jean Baptiste Etxarren
Paxkal Biscai-en **zur** zizelatuak xutik zauden barne berean. Herria
Zerbitzariak nire paretik kopa hutsa kendu eta, ukalondoa **zur** gainean landatuz, trapu zuri-gorri batean ezabatu zuen barra gaineko arrasto borobil hezea. Aingeru Epaltza
Euskal Herriko bizimodu tradizionala erakusten dute objektuak dira: upelgintzako piezak, zurgintzakoak, **zur** landuak, objektu erlijiosoak eta herri sinesmenen ingurukoak. Berria - Kultura

**Zur** lodiak, ohol lodiak, iltze lodiak dauzka, duela hirurehun urte moldegabe doituak eta josiak. Koldo Izagirre

Jose Ulibarrena zizelkatzen ari den Poeta-ren keinua antzezten dabil: «Ametsak diruditen egiak erraten dituen poeta jalgiko dut **zur** honetatik». Berria - Kultura

Gutxien espero zuen egunean, bidaia batetik itzuli eta aldatuak topatuko zituen ateko **zura** eta sarraila. Harkaitz Cano

Berreroslearen haragia eta Gurutzearen **zura** zulatu zuten iltze ilunak. Juan Garzia

Ohartu dira teilatuko bizkar **zura** arraildurik teilatua erortzeko zorian zela. Herria

**7 *zur egin*** harritu.

-Mairuak? Karlistak? -**zur** eginda zegoen. Edorta Jimenez

Ezkerreko belaunetik gora **zur** eginik gelditu da luzaz Cienfuegos. Koldo Izagirre

· Bera ikusita **zur**, isildu egiten dira. Oskar Arana

Berak emakume garai eta lirain bat zekusan bere aurrean, beso meheak dingilizka, **zur**. Jose Morales

**8 *zur bereko ezpalak*** oso-oso antzekoak.

**Zur bereko ezpalak** ematen duzue. Juan Kruz Igerabide

Eta gobernadoreordea ere halakoxea da; **zur bereko ezpalak** dira biak! Jose Morales

Odol bat gaituzu, **zur bereko ezpalak**. · *sing* Biolin bat ekarri zuen berarekin, bere itsasontzia egiteko erabilitako **zur bereko ezpala**, zioenez, eta Pragako garagardoa hesteetan gainezka zebilkionean, nondik aterako bultzaka, biolina hartu eta joka hasten zen, eta itsasoa ekartzen oroitzara, jotze hutsez. Xabier Mendiguren Elizegi

**9 *harri eta zur*** *adlag* erabat harriturik.

**Harri eta zur** eginik zegoen Florent hari begira. Karlos Zabala

**-Harri eta zur** nagok haren jokabidearekin. Juan Kruz Igerabide

**Harri eta zur** geratu zela ere, hondarrean, emaitza ikusi zuenean. Joan Mari Irigoien

**Harri eta zur** geratu zen aita, begiak zabal. Joan Mari Irigoien

**Harri eta zur** utzi zuten ostaria, berak asma zezakeen edozein kontu baino gehiago zelako hura guztia. Agustin Otsoa

Apaizak, erabat txunditurik eta haren bat-bateko konbertsioaz **harri eta zur**, ezin zuen sinetsi. Askoren artean

"Ez zait buruan sartzen Mary nolatan den Petroliniren hain laguna", esaten zuen **harri eta zur**. Fernando Rey

Florentek, **harri eta zur**, ezetz esan zion. Karlos Zabala

**Harri eta zur** ni: argibideak eman beharko zizkidan, bada, azafatak. Joxe Austin Arrieta

Ez duzu behin ere egin emakume batekin? **-harri eta zur** Viktoria. Fernando Rey

**Harri eta zur**, **harri** eta so, **harri** eta izu, **harri** eta miru baitzeuden, miraz ikusten ari zirena miraritzat ala deabrukeriatzat hartu behar ote zuten erabaki gabe. Felipe Juaristi

Adelak eta Marisak elkarri begiratu zioten, **harri eta zur**. Juan Kruz Igerabide

**Harri eta zur** eginik geratu zela iruditu zitzaidan: **harri,** aitaren heriotzaren berri latzarengatik, **eta zur**, berak ez zekielako aita hila zuela, ez zuelako gogoan jaso, ez zelako gogoratzen. Xabier Olarra

Baina emaztea isilik egon zen denbora luzez, bihotza **harri eta zur**. Juan Kruz Igerabide

**10 *zur eta lur*** *adlag* erabat harriturik

-Zer eskutitz? -galdetu nion **zur eta lur**. Ander Irizar

-Bihar goizean?! - **zur eta lur** gelditu zen. Migel Angel Mintegi

**Zur eta lur** geratu ginen Roman eta biok. Inazio Mujika Iraola

Osabaren erranak **zur eta lur** utzi zuen. Elena Touyarou

**Zur eta lur** begiratu zidan erizainak. Harkaitz Cano

**Zur eta lur** daude korridore ilunean pilatutako anabasari eta trepetei begira. Harkaitz Cano

Hitzik gabe ni, **zur eta lur**. Joxe Austin Arrieta

Eta ni **zur eta lur**, halako emakume fina tenientea dela jakinda. Pako Aristi

**Zur eta lur**, burua Weberrenganantz itzuli zuen. Alberto Ladron Arana

Bat-batean, etxe aurrera iritsita, ama gelditu egin zen, **zur eta lur**. Juan Kruz Igerabide

-Ezetz esan du! -hasi zen Nibs garrasika, **zur eta lur** holako lotsagabekeriagatik. Julen Gabiria

**hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**

**harri eta zur** (363); **zipres zur** (3); **zur beltzeko** (3); **zur bereko** (4); **zur bereko ezpalak** (3); **zur eta lur** (236)

**zur gainean** (5); **zur ilunez** (3); **zur lan** (3); **zur landuzko** (3); **zur lur** (4); **zur puska** (12); **zur puska horrek** (3)

**arkazi zura** (3); **bere zura** (3); **harribitxiak eta zura** (3); **nolako zura** (3); **zedro zura** (10); **zura ateratzeko** (3); **zura lantzen** (4); **zura ustiatzen duten** (5)

**bere zurak** (4)

**zuraren forma** (8)

**arkazi zurez** (5); **arkazi zurez egin** (3); **hagak arkazi zurez** (3)

**arkazi zurezko** (18); **arkazi zurezko hagak** (4); **arkazi zurezko kutxa** (3); **arrosondo zurezko** (5); **arrosondo zurezko kutxatilan** (3); **bere zurezko** (11); **burua zurezko** (3); **harrizko eta zurezko** (4); **intxaur zurezko** (4); **olibo zurezko** (3); **sugi zurezko** (11); **sugi zurezko atea** (6); **zilarrez estaliriko zurezko** (3)

**zurezko armairu** (3); **zurezko asto** (3); **zurezko ate** (9); **zurezko atea** (12); **zurezko ateak** (3); **zurezko atean** (3); **zurezko aulki** (11); **zurezko egitura** (6); **zurezko eserleku** (3); **zurezko eskailera** (11); **zurezko eskaileretan** (3); **zurezko estatua** (4); **zurezko eta harrizko** (6); **zurezko etxe** (16); **zurezko etxeak** (3); **zurezko etxearen** (3); **zurezko etxera** (3); **zurezko etxola** (6); **zurezko gurutze** (3); **zurezko habe** (7); **zurezko hagak** (4); **zurezko hanka** (9); **zurezko hesi** (4); **zurezko idoloak** (5); **zurezko kaxa** (5); **zurezko koilara** (14); **zurezko kutxa** (15); **zurezko kutxa bat** (3); **zurezko kutxatilan** (3); **zurezko mahai** (12); **zurezko nahiz metalezko** (3); **zurezko oholak** (4); **zurezko oholez** (3); **zurezko ontzi** (3); **zurezko zaldi** (3); **zurezko zali** (3); **zurezko zoruak** (3); **zurezko zubi bat** (3)

**zurezkoa zen** (3)

**zurezkoak dira** (3); **zurezkoak ziren** (7)

---

# **zuraidar** *izlag/iz* Lapurdiko Zuraidekoa, Zuraideri dagokiona; Zuraideko biztanlea.

Louis Genin **zuraidarraren** ildotik doa Vincent Bru kanboarra. Herria

Marie Dominique Santesteban Amoztarra eta Olivier Larretchea **Zuraidar** laborari eta pilotaria. Herria

Haatik hemen ere, hendaiarra da amor eman behar izan duena, **zuraidar** trebatuari. Herria

Sabine Megret 68 urteko **zuraidarra** kamiun baten kontra joan da. Herria

13 bote sartu ditu **zuraidarrak**, 5 bakarrik bidarritarrak. Herria

---

# zurail ik **zuhail**.

---

# **zuraje** *(orobat* ***zurtaje*** *g.er.)* *iz* **1** etxe edo eraikuntza baten zurezko egitura edo zuren multzoa. ik**zureria**.

Eraikin guztietan jartzen da goiko aldean **zuraje** bat, hainbat izenez deitzen dena. Santiago Iruretagoiena

Errenazimenduko zintzel zalu eta espiritualak landu du **zuraje** guztia. Koldo Izagirre

**Zurajearen** zirrikituetatik argitasun distiratsu bat sartzen zen, urrezko xafla bat bailitzan. Josu Zabaleta

Ontzigaina alderik alde igaro, eta belaontziko **zuraje** osoak egundoko karraka egiten zuen, hondatutako esku-soinu erraldoi bat bihurturik. Anjel Lertxundi

Senir-eko zipresez egin zizuten **zurajea**, Libanoko zedroz goi-masta. Elizen arteko biblia

Poliki barneratu zen egitura haren **zuraje**, habe eta zutabeen artetik, edozein unetan norbaitekin topatuko zela. Aitor Arana

Buruarekin jo zuen ganbararen sabaiko **zurajea**. Anton Garikano

Ondotik berrikusirik, balio berezia hartzen dute San Pankrazio elizpearen **zuraje** beltzaire horiek. Txillardegi

Kanpoko hondar harri horia zikina, keztatua; teilatuko **zurajea** ustelduta, arbela hautsita. Felipe Juaristi

Haize gozoarekin krak.. krak... krak... aditzen zen; hegaletako **zurajea** zen. Pablo Sastre

Urkamendiko **zurajea** zen paraje laiotz hartan zuhaitz itxurako bakarra. Felipe Juaristi

Zoruko **zuraje** zaharraren gaineko gurpil-aulkiaren kirrinka zen gure etxeko hots bakarra. Alberto Ladron Arana

Sartu aurretik, nobatoetako batek esan zuen eraikineko lehen solairuko lurreko **zurajeak** su hartu zuela, dena erortzeko arriskua zegoela. Jon Alonso

Haginezko **zurajea**, iraupen haundikoa da. Patziku Perurena

**2** irud/hed

Adreilu gorriz eta beiraz egindako eraikina zen, teilatua laua eta **zurajea** aluminiozkoa. Berria - Kultura

Herriko jenteek berriz altxatü züen kapera, bena burdiñazko **zurtaje** bat jarriz. Herria

Senir-eko zipresez egin zizuten **zurajea**, Libanoko zedroz goi-masta. Elizen arteko biblia

Izan ere, Bogart ere **zuraje** apalekoa zen, gizagaixoa. Javi Cillero

Tesiko **zuraje** teoriko-filosofiko guztiari, onberatasun pixka batekin, aprendiz inpresionatuaren zurriburri zentzubakoa iritzi dakioke: [...]. Joxe Azurmendi

---

zurbail ik **zurbil**.

---

zurbaildu ik **zurbildu**.

---

**zurbil** *(orobat **zurpail** g.er. eta **zurbail** g.er.)* **1** *izond* aurpegieraz ete kidekoez mintzatuz, margula. ik**zuhail**.

Beltzez jantzita egoten dira, mojak edo alargun gazteak bezala; aurpegi **zurbila** dute, karminik gabea eta batzuek serioa. Jose Morales

Logelako iluntasunean paralitikoaren aurpegi **zurbil** eroria ikusten nuela iruditu zitzaidan. Irene Aldasoro

Hamasei urte zituela, La Sarriette neska bizi bihurria zen, begitarte **zurbilekoa**, birjina beltzaran batena bezalakoa. Karlos Zabala

Begitarte iluna, aurpegi **zurbila** eta betzulo handiak zituen. Migel Angel Mintegi

Begitarte **zurbila** zuen, harridurak bereganatua. Lopez de Arana

Ilea beti solte eramaten zuenez, bitxia egin zitzaidan Adaren aurpegiera **zurbila**. Anjel Lertxundi

Aldamenean, agure argal, burusoil eta **zurbil** bat zuen, masail-zimela. Koro Navarro

Gizon gaztea zen [...] aurpegi triste eta azal **zurbilekoa**, beltzarana, artista erromantiko itxurakoa. Ramon Saizarbitoria

Beharbada, mutil **zurbil** argal horrek bere lehenbiziko senarra zekarkion gogora. Karlos Zabala

Izenordez Musia zeritzon neska gazte **zurbil** ezezagunak ere hara begiratzen zuen, zerura. Jose Morales

Begira zer larruazal **zurbila** daukan gizagaixoak. Migel Angel Mintegi

Oraindik hazten ari zen neska mehe bat zen Lily, larruazal **zurbilekoa** eta lasto-koloreko ilea zuena. Irene Aldasoro

Ezkerreko begiaren inguruan ubeldu **zurbil** bat ari zitzaion zabaltzen Blacki, eta sudurretik odola zerion. Iñaki Mendiguren

Mutil **zurbil** begi-distiratsu hura. Fernando Rey

Nola eranzten zen begiratzen zuten, irribarre **zurbila** ahoan, elkarri eskua emanda. Karlos Zabala

Oso gizon gaztea zen, begitartea luzea eta malenkoniatsua, hazpegiak **zurbilak** eta finak. Joxan Elosegi

**Zurbila**, baina ez zuria, horia baizik. Joxe Austin Arrieta

**2** (adizlagun gisa)

**Zurbil** zaude, esan dio; Gaixo zaude?, galdetu dio. Eider Rodriguez

Doktorea zutik geratu zen, **zurbil**, izumenak harturik. Josu Zabaleta

**Zurbil** zegoen, ilea erabat banatuta. Bernardo Atxaga

**Zurbil** eta nahasturik, irribarre egin zuten. Xabier Olarra

Paralizaturik eta **zurbil** geratu zen gizasemea. Harkaitz Cano

Zuri-zuri gelditu da Leandro, zainetako odol guztia hustu baliote baino **zurbilago**. Anjel Lertxundi

Geldi-geldi geunden, **zurbil**, gertakizun izugarriren baten zain, belarria erne, bihotza taupadaka, edozein hotsek inarrosten gintuela. Josu Zabaleta

Ohean eseri nintzen, **zurbil** ziur asko. Ander Irizar

Begira jarraitu zuen, hildako bat bezain **zurbil**, kopeta izerdi-patsetan. Koldo Biguri

Andereñoak, **zurbil**, hortzak estututa, sua botatzen zuen begietatik. Koro Navarro

Ilunabar aldera itzuli zen Herbert, nekearen nekez **zurbil**. Joxe Austin Arrieta

Oso **zurbil** zegoen, baina harena ez zen heriotzaren zurbiltasuna. Jose Morales

Esku dardaratiaz lebitaren ertzari heldu, eta, ezpainak **zurbil**, ozen galdetu zuen, aurpegiak lasaitasun handiagoa adierazten zuela: [...]. Jose Morales

Ellie, izugarri **zurbil** zaude. Lopez de Arana

Quenurekin elkarrizketa hura izan eta handik bi egunera, txit **zurbil** iritsi zen azokatik. Karlos Zabala

Korobotxka izeneko lurjabe bat azaldu zitzaion etxera, izuikaraturik eta herioa baino **zurbilago**. Jose Morales

Hogeita hamar urte inguru zituen, eta larmintza **zurbil** eta margula. Juan Garzia

**3** (bestelakoez mintzatuz)

Kolore **zurbila**, masaila hezurtsua eta begirada galdua baldin bazituen ere, ezin zitzaion edertasunik ukatu. Anjel Lertxundi

Arreba, andre Isabel, oso kolore **zurbilekoa** zen. Josu Zabaleta

Agian ahulduta neukan espiritua egunak eta asteak koadernoko zerrenda burutik ezin kenduz egon ondoren, lilurapean egon ondoren kobazuloko errainu geldi eta **zurbilekin**. Bernardo Atxaga

Eskuak eta aurpegiak urre **zurbilezko** orbanak ziren. Monika Etxebarria

Presarik gabe, eguzki **zurbilak** ozta-ozta berotzen zituen karrika mortuak ibili nituen. Alberto Ladron Arana

Andre zahar bat argizari isuriaren malko **zurbil** gatzatuak karrakatzen ari zen ganibet handi batez. Karlos Zabala

Urrutiago, ilargiaren argiak eratzen zuen ordeka **zurbila**, aldika-aldika zeruraino igotzen ziren makal multzoen orban beltzekin. Josu Zabaleta

Mugitu egiten naiz argitasun **zurbil** honetan. Foku elektrikoen dirdai **zurbila** ikusten zen hiriaren gainean, gotorlekuko teilatuen gainetik. Monika Etxebarria

Geltokitik aterata, neguko goiz **zurbilak** argituriko espaloiak urduri ibili nituen. Alberto Ladron Arana

Estalpeko kale nagusiaren gangaren armazoi garaiak argitasunezko ilargi erdi bat ebakitzen zuen zeruaren urdin **zurbilean**. Karlos Zabala

Bidezidorreko harrizko hormak **zurbilak** iruditzen zitzaizkion, lanbro artean ikusiko balitu bezala. Agustin Otsoa

Baiezko **zurbila** egin nien bi emakumeei, mehatxu ilun hark bihotza uzkurtuta. Alberto Ladron Arana

Ilargiaren disko **zurbil** orain ia estaliari begira jarri, eta gogoetan zegoela ematen zuen. Irene Aldasoro

**4** (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

Beharbada, pertsianan barrena gelaratzen den argiarengatik ere izan liteke, **zurbil**-puntu bat itsasten baitio larru-azal belztuari. Joxe Austin Arrieta

· Bi mugimendutan ahoratuta desagertu zen, mihi **zurbil**-zabalak papera blaitu duen koipea milizkatzen du. Jon Alonso

Haren esku zuhurrean dirdir zegien bi errubi **zurbil**-nahasiz txertaturiko eraztun urre berdezko batek. Juan Garzia

**5** (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa, elkarketak izenondo balioa duela)

Emakume ezezagun aurpegi-**zurbil** bat igaro zen, bakarrik, gelatik. Irene Aldasoro

Kalpar lehoi-kolorea zeraman, luze-luzea, kizkurtua garondo aldean, eta gizena eta aurpegi-**zurbila** zen. Fernando Rey

Beste gazte batzuk, ile leun distiratsukoak, aurpegi-**zurbilak**, mozkoteak, matrail--hezur markatuak eta begi sakonak zituztenak, [...]. Koro Navarro

**6** (izen gisa -en atzizkiaren eskuinean) ik **zurbiltasun**.

Izutu zintuen haien bisaien **zurbilak**. Xabier Montoia

Gazte geldi bat zen, "bere **zurbilean** txukun, erruki emateko moduko prestu itxuraz, erremedio gabe desanparatua...". Pablo Sastre

· Bizar zuri egunetan egin gabeak aurpegiko **zurbila** nabarmentzen zion, eta hortzak, aldiz, beltz-beltzak zituen, piparen eraginagatik seguru asko. Anjel Lertxundi

***7 zurbil-zurbil*** *izond*

Ama Doloretakoaren akuarelazko kopia bat, begi larriak zeru hotzerantz so zituela, bikain, eta malko mingotsak masail **zurbil-zurbiletan** behera zerizkiolarik etengabe. Mirentxu Larrañaga

Munduko gizonik eskuzabal eta ahulena zen Ortiz, argala eta **zurbil-zurbila**. Hasier Etxeberria

Nahi duzunaren izenean zin egingo dut **zurbil-zurbila** dela. Jose Morales

Argia, nabar-lorearen antzekoa baina **zurbil-zurbila**. Anton Garikano

**8** (adizlagun gisa)

Kaleko eguzkiak aurpegian jo ziolarik, lotsatu egin zen, zalgurdira igo zen, bizkarra makurtuz, begitartea **zurbil-zurbil**. Karlos Zabala

Bere hanken gainean ikusten zuen trabeska, aurpegiera **zurbil-zurbil**, begi urdin handiak zabalik, oinazea ezpainetan, harri eta zur, hilda egoteagatik, hantxe hiltzeagatik, hain agudo. Karlos Zabala

Bere hanken gainean ikusten zuen trabeska, aurpegiera **zurbil-zurbil**, begi urdin handiak zabalik, oinazea ezpainetan. Karlos Zabala

Dorothy mahai baten gainean zetzan, aurpegia **zurbil-zurbil**. Fernando Rey

Txima horiak ondo lotu gabe, **zurbil-zurbil**, hildako baten gisan. Karlos Zabala

Guardiak, **zurbil-zurbil**, oihu egin zuen: [...]. Josu Zabaleta

Senarra, tabakorik gabe, **zurbil-zurbil** dabil. Josu Zabaleta

Ez goi-maindire ez estalki zegoen, **zurbil-zurbil**, gaixotasun larriren batek jota bezala. ile-izpi harroak, errotik mingarriro erauzirik, hatz-mutur **zurbilduen** artean estutzen ziren, estokan bezala. Anjel Lertxundi

Elurra **zurbil-zurbila** zegoen. Josu Zabaleta

Eguzkiaren eragina da; obraren gainean airean zintzilik dauden lanbro zuri zikinak urreztatzen ditu pixka bat, nire logelara isurtzen da, horail-horaila, **zurbil-zurbila**. Monika Etxebarria

**hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**

**apur bat zurbil** (3); **argizaria bezain zurbil** (3); **aurpegi zurbil** (15); **aurpegia zurbil** (27); **aurpegia zurbil zeukan** (3); **aurpegia zurbil zurbil** (6); **azal zurbil** (4); **bezain zurbil** (30); **bezain zurbil zegoen** (4); **ezpainak zurbil** (4); **gazte zurbil** (3); **guztiz zurbil** (3); **hain zurbil** (4); **kolore zurbil** (6); **masail zurbil** (3); **mutil zurbil** (4); **oso zurbil** (16); **oso zurbil zegoen** (7)

**zurbil ageri** (3); **zurbil bat** (18); **zurbil baten** (3); **zurbil dago** (5); **zurbil dauka** (3); **zurbil eginda** (3); **zurbil geratu** (6); **zurbil geratu zen** (4); **zurbil jarri** (12); **zurbil jarri zen** (7); **zurbil samar** (6); **zurbil zaude** (5); **zurbil zegoela** (3); **zurbil zegoen** (47); **zurbil zeuden** (7); **zurbil zeukan** (4); **zurbil zuen** (4); **zurbil zurbil** (52); **zurbil zurbil jarri** (4); **zurbil zurbil zegoen** (11); **zurbil zurbila** (10)

**argi zurbila** (4); **aurpegi zurbila** (25); **begitarte zurbila** (3); **bezain zurbila** (4); **haren aurpegi zurbila** (4); **kolore zurbila** (3); **oso zurbila** (3)

**zurbila da** (3); **zurbila ikusi** (6); **zurbila ikusten** (3); **zurbila zen** (4); **zurbila zeukan** (3); **zurbila zuen** (8)

**are zurbilago** (3); **baino zurbilago** (23); **gero eta zurbilago** (7); **ohi baino zurbilago** (7); **zurbilago jarri zen** (3)

**baino zurbilagoa** (3)

**aurpegi zurbilak** (10); **aurpegi zurbilak ez** (3); **begi zurbilak** (5)

**neskato zurbilaren** (4)

**aurpegi zurbilari** (3)

**aurpegi zurbilean** (5)

**aurpegi zurbileko** (3)

---

**zurbilarazi**, zurbilaraz, zurbilarazten du *ad* zurbiltzera behartu.

Erruki sakoneko aurpegikera zeukaan, hasieran **zurbilarazi** eta gero gorri-gorri jarrarazi ninduena. Xabier Olarra

---

**zurbildu**, zurbil(du), zurbiltzen *(orobat* ***zurpaildu*** *g.er.)* **1** da/du *ad* zurbil edo zurbilago bihurtu. ik **marguldu**.

Kolpe latz haren ondorioz **zurbildu** eta indarrak gorputzetik ihes egiten ziola sentitu zuen Fionnek. Joanes Urkixo

Jendetza barrez hasi zen eta Peppone **zurbildu** egin zen. Koldo Biguri

Hamida **zurbildu** egin zen, hazpegiak tenkatu egin zitzaizkion. Patxi Zubizarreta

**Zurbildu** egiten zen, ezpainak dardar egiten zioten. Xabier Olarra

Neskari **zurbildu** egin zaio begitartea, eta, kontrola galdurik, dardaran hasi zaizkio ezpainak eta gorputz osoa. Patxi Zubizarreta

Erregina zorabiatu egin zen eta, ahuldurik, aurpegia **zurbildu** zitzaion eta aurrean zuen mirabearen gainean etzan zuen burua. Elizen arteko biblia

Denok harengan josirik genituen begiak; aurpegia noiz moretzen noiz **zurbiltzen** zitzaion. Matías Múgica

Kristinaren bisaiako larruazal beltxarana **zurbiltzen** ikusi nuen. Aingeru Epaltza

Claire izugarri **zurbildu**, eta, ahizparen gainera jauzi eginda, azazkalak sartu zizkion lepoan. Karlos Zabala

Izu-ikaraturik zegoen Belxatzar eta erabat **zurbildurik**. Elizen arteko biblia

Erabat **zurbilduta** zegoen-. Iñaki Mendiguren

Aurpegia **zurbilduko** dian argi bat, herio bera dirudien argi bat. Eskarne Mujika

**2** (gauzak)

Zerua **zurbiltzen** ari zen buru gainean. Josu Zabaleta

Bat-batean, garra **zurbildu**, eta oso bestelako usain bat aditu zen, metalikoa, aliazeoa, ez-organikoa. Juan Garzia

Mantxak toki berean jarraitzen badu eta zabaltzen ez, baizik eta **zurbilduz** badoa, erreduraren handitua da. Elizen arteko biblia

**3** (era burutua izenondo gisa)

Nire lagunak hiru ordu lehenago niri erakutsitako pistola ipurdi zilarkaradunak ikusmiran zuen morroi **zurbildua**. Aingeru Epaltza

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
> **aurpegia zurbildu** (5); **aurpegia zurbildu zitzaion** (3); **erabat zurbildu** (4); **zurbildu egin zen** (24); **zurbildu nintzen** (3); **zurbildu zen** (10); **zurbildu zitzaion** (6)
> **zurbilduz doala** (3)

---

# zurbildun *izond* zurbilekoa.

Izaki zainil eta meharra, aurpegi **zurbilduna**. Itziar Otegi

---

# zurbildura *(orobat **zurpaildura** g.er.) iz* zurbiltasuna.

Karrikari albistea eman nionean ere, **zurbildurak** harrapatu zion eitea. Hasier Etxeberria

Gero haren begiei erreparatu die: zabalik daude sabaira begira, baina aurpegiko **zurbildurak** eta, batez ere, ezpainetatik irristatzen zaion apar ugari batek eman diote aditzera lagunak begiekin ez duela ezer ikusten ahal. Hasier Etxeberria

Noraren **zurbilduraz** kezkaturik, airean utzi zuen kontakizuna. Anjel Lertxundi

Nire bat-bateko **zurbilduraz** ohartu zen idazle kontsakratua. Aingeru Epaltza

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
> **aurpegiko zurbildura** (3)

---

# zurbilduxe *izond* zurbildu samarra. ik **zurbilxe**.

Mugikorra eskuan zeraman -laranja kolorekoa zen- eta aurpegia **zurbilduxea**. Aingeru Epaltza

---

# zurbiltasun 1 *iz* zurbila denaren nolakotasuna. ik **margultasun**.

Ahaztu egiten ziren asaldura txikiak; gorritasuna, **zurbiltasuna**, keinu bitxi bat, argi edo itzalen bat, une batez aurpegia ezagutezina bihurtzen zuena. Anton Garikano

Hildakoaren **zurbiltasunarena** ere berritu nuen, baina ez nekien tiroen eraginez marguldu zitzaion aurpegia, ala berezkoa zuen begitarte argizarizkoa. Anjel Lertxundi

Bere gorputzaren zuriaz gogoratzen naiz, eta **zurbiltasun** horrek biluziago egiten zuen. Joxean Agirre

Kolore are zuriagoa hartu zuen, ahal zen neurrian, haren begitartearen **zurbiltasunak**. Koro Navarro

Izutu egin ninduan haren aurpegiaren **zurbiltasuna** ikustean. Xabier Olarra

Hilotzena zuen larruazaleko **zurbiltasuna**. Koro Navarro

Odol xirripa bat isuri zitzaion ipurtxuntxurretik isatseraino, eta, tantaz tanta, portzelanaren **zurbiltasuna** zikindu zuen. Karlos Zabala

Oso zurbil zegoen, baina harena ez zen heriotzaren **zurbiltasuna**. Jose Morales

Birikeriak jotakoen **zurbiltasuna** zuen. Koro Navarro

Zurda eta zeta multzo handi bat zen hura, batzuk garrezko xerlo gorriekin, beste batzuk trinkotasun beltzekin, edo **zurbiltasun** horiekin, eta adats zuriak ere baziren, hirurogei urteko emakume maitemindueentzat. Karlos Zabala

Aita gogorarazten zioten Norari sendagilearen beste mundu bateko **zurbiltasunak** eta aire serioak. Anjel Lertxundi

Berunarekin aritzen diren langileengan ikus dezakegu adibidea, **zurbiltasunak** janda izaten baitute gorputzaren kolorea. Santiago Iruretagoiena

**2** (izenondo eta izenlagunekin)

Bere begitarteak **zurbiltasun** hotza erakusten zuen. Fernando Rey

Dendako bere ohiko lekuan agertu zen neska ostera, berezkoa ez zuen **zurbiltasun** arin bat kenduta, beti bezalakoxea. Koro Navarro

Amaiak, bere **zurbiltasun** delikatuan, Ertzaintzako inspektore izatea zuen amets. Fernando Morillo

Begiek -arbel-urdinkarak- arintzen zioten **zurbiltasun** eri hura. Irene Aldasoro

Itsas belar lohitsuen lurruntze baten erdian zebilen; haren jainkosa gorputz handiarekin, haren araztasun eta **zurbiltasun** miresgarriekin. Karlos Zabala

Bere azalaren **zurbiltasun** gaixobera. Fernando Morillo

Bart etxerakoan, haren **zurbiltasun** gehiegizkoari erreparatu nion. Josu Zabaleta

Haren aurpegiko **zurbiltasun** ia argizarizkoa. Anjel Lertxundi

Hastapeneko **zurbiltasuna** galduta, Kristinaren bisaiak goritzera egin zuen. Aingeru Epaltza

Nire aurrean, han, amaieran, beltzaren geruza sakonetan barna, **zurbiltasun** arrosa begiztatzen dut: Galvani etorbidea da. Monika Etxebarria

---

# zurbiltxo *izond adkor* zurbila.

Zerua urdin ageri zen, urdin suabea, **zurbiltxoa**, eta hodei zuriren bat edo beste, inguru gogorrekoa, marmolezkoa bailitzan, besterik ez zen azaltzen zeruan. Koro Navarro

---

# zurbilxe *izond* zurbildu samarra. ik **zurbilduxe**.

Hor da, kalean pausaturik, oraina baino **zurbilxeagoa**. Monika Etxebarria

· Bezperan baino askoz ere itxura narratsagoa zeukan, odol-arrastoak **zurbilxeago** bai, baina hedatuago ere bai. Joxe Austin Arrieta

---

# zurda 1 *iz* 1 zaldiaren eta kidekoen lepagainean eta isatsean hazten den ile luze eta latza; basurdearen eta kidekoen ile lodi eta latza.

Ilea baino gehiago **zurdak** hazten zitzaizkion, goizean moztu eta iluntzerako amorruz aurpegiratzen zitzaion bizar itxia, paparreko ilearekin bat eginik. Joxemari Urteaga

Arantzurdearen **zurdak** edo eskorpioiaren isatsa. Iñaki Mendiguren

Bidaztiek Barabako zingira udan zeharkatu behar izatera, **zurdazko** maskara janzten ohi dute. Karlos Zabala

Kasketaren gaineko **zurda** zuria haizeak astintzen zion. Agustin Otsoa

Brotxa pintura zuritan blaitu, bere **zurdek** pintura aski zurrupa dezaten utzi, eta horma zuria pintura geruza berriekin areago zuritzen hasi dira, zuria zuriaren gainean, ezereza ezabatzen. Harkaitz Cano

Fusila sorbaldan hartuta, lehor, zaldiaren **zurdei** heldu eta uretara sartu zen. Juan Kruz Igerabide

Hitzik gabe begiratzen dio Joaquini eta konturatzen da zerutik infernurako aldea, zaldi baten **zurda** meheak erabaki dezakeela. Hasier Etxeberria

**2** (izenondo eta izenlagunekin)

Milaka gamelu txiki zeuden, ongi osatuak, ile luzea gorputzean, **zurda** lodiak lepagainean. Karlos Zabala

Perla koloreko **zurda** zuriak, hosto ilunen gainean zeuden zabalduta. Iñaki Mendiguren

Bat-batean, ordea, **zurda** luzeko pinttoa aztoratu eta kurrinka bizian hasi zen. Joxemari Urteaga

Zerriak garbitzen hasi ziren mutil-koskorrak **zurda** zurruneko eskuila batzuekin, zerriei gero eta kurrixka urratuagoak eraginaraziz. Anjel Lertxundi

**3** (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

Ikusi nituen **zurda**-ileak nahasirik zeuzkaten zaldi batzuk, Kaspio Itsasoko hondartza batean, goiznabarrean. Juan Garzia

Eguzkia **zurda**-oihala bezain beltz jarri zen eta ilargia odola bezain gorri. Elizen arteko biblia

**Zurda** eta zeta multzo handi bat zen hura. Karlos Zabala

**4** (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa)

Gamelu **zurdez** ehunduriko jaka eta zamarra. Karlos Zabala

Zaldi-**zurdaz** egindako jantzia izango zen. Itziar Otegi

Batzuek dutara jotzen zuten [...] beste batzuek kobiza, biolontxelo antzekoa, irekia aurrealdean, zaldi **zurdez** hornitua eta arku batez igurtzitzen dena. Karlos Zabala

Zuk ematen al diozu zaldiari azkartasuna, zuk janzten ote lepoa ile-**zurdaz**? Elizen arteko biblia

-Kixmiren buztan-**zurda**! Anjel Lertxundi

**5** *adkor*

Ibarretxe ikusten duzue ETBn, papar **zurdak** agerian? Iñigo Aranbarri

**6** tendoia.

**Zurda** edo tendoia da -zuntz-ehun gogor batez egindako kordoi bat- lotura hori egiten duena. Irene Aldasoro

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
> **ile zurda** (3)

---

## zurdaki *iz* brotxa.

Margotzeko bi **zurdaki** handi. Inazio Mujika Iraola

Fructuoso, hartu poto bat eta **zurdaki** handia, eta han hasi zen margotzen lehendik ere "CNT" margotuta zegoen lekuan. Inazio Mujika Iraola

Hartu **zurdakia**, poto barruan ongi-ongi busti, eta San ezabatu zuen bi margo-ukaldiz. Inazio Mujika Iraola

---

## zurdatsu *izond* zurda asko duena.

Basurde **zurdatsuen** antzeko, euren basa gorputz biluziak lurrean etzaten zituzten. Xabier Amuriza

Txerriak mendaroari muzin dagio eta lurrin oro gorrotu du; **zurdatsuentzat** pozoin gogorra baita gu batzuetan berpizten bide gaituena. Xabier Amuriza

Zelulitisa nuen halaber sabelean, baina zelulitis arraro bat, dilindan eta **zurdatsua** aldi berean. Joxan Elosegi

---

## zurdatz **1** *iz* zurdazko gerrikoa; zurdazko soinekoa. ik **zilizio.**

Hirugarrena da geure haragia zigortzea; hau da, sentitzen den oinazea ematea, eta hori haragi gainean **zurdatzak**, sokak edo burdinezko barrak erabilirik egiten da, gorputza zigortuz edo zartatuz edo zauriztatuz, eta beste tresna lazgarriz. Patxi Altuna

San Frantziskok, aita txit zuhurra zenez, obedientzia santuaren indarrez agindu zuen, **zurdatzak** eta burdinazko zirgiloak zituzten denek ekar zitzatela eta beraren aurrean utzi. Askoren artean

Bostehun burdinazko **zurdatz** zenbatu zituzten, eta askoz gehiago oraindik beso-, gerri- eta berna-zirgiloak, horiekin guztiekin pila handia egiteraino, eta San Frantziskok han utzarazi zizkien denak. Askoren artean

**2** (hitz elkartuetan)

Eta ekarri zeurekin **zurdatz**-oihala nire gorpua janzteko, eta hilobirako behar den argizaria. Askoren artean

Luze eta beltza zuen gizonak bizarra; gurutze gorri zabal batez markaturiko **zurdatz**-zaku ilun batez jantzia zen. Juan Garzia

---

## zurdo *izond* ezkerra, ezkertia.

Deskuidatu hadi eta bide horretatik azkenean **zurdo** bukatuko duk. Iñaki Iñurrieta

---

## zureganatu, zuregana(tu), zureganatzen da/du *ad* zuregana etorri; zuregana erakarri.

Berak nahi izan du eta agindu, horregatik **zureganatu** da. Joan Mari Lekuona

Nola egin behar den norbait **zureganatzeko** edo gogorik ez zuen norbait zurekin maitemintzeko. Pello Lizarralde

Lehenengo aldia zen entzuten nuena horrela jokatu behar zela emakumeak **zureganatzeko**. Pello Lizarralde

Altxorra nola **zureganatu** erakutsiko dizut nik. Xabier Aranburu

-Nire dirua berreskuratu nahi dut, **zureganatu** egin duzu eta. Anton Garikano

Dama noble eta ausarta zara, eta laguntzarik gabe **zureganatu** duzu aintza ahaztezina. Agustin Otsoa

Oraindik ez duzu ideia **zureganatzeko** astirik izan. Jon Alonso

Beste alde batetik, pakete hori **zureganatuko** bazenu ere ez zenuke non saldurik, ez baituzu inor ezagutzen. Iñaki Zabaleta

---

## zureño *iz* zure gauzatxoa.

Ohore ere zuri, ama, haurtasunean erdizka bakarrik goxatu zinuena, haunditu-eta ere beste urruneko ikasgia edo karriketan barna, hango kulturen landare arrotz bilakatzea onartu beharko duzunean **zureño** hura. Herria

## **zureria** *(orobat **zureri** g.er.) iz* zurajea.

Mugitu gabe jarraitzen nuela ohartuta, bat edo bi **zureriara** igo ziren, ausartenak, eta usain egin zioten xingolari. Koro Navarro

Sua azkarki lotua **zureriari**, su hiltzaileek lanak ukan dituzte gaina ezin hartuz. Herria

Irisarriko etxe batzuen **zureria** ere aztertua da. Herria

Oreka galtzear, dorreak goitik behera karranka egiten zuen, **zureria** guztia aurreikusi ez ziren tentsioen menpe, luze gabe mihiztadura batzuk hautsi egin ziren. Jon Alonso

**Zureriako** zirrikitu batean. Josu Zabaleta

**Zureriaren** kraska hotsa zeruko haserrearen ohartarazpena iruditu zitzaidan. Josu Zabaleta

Beti izan nion beldurra ezkaratz hari, erditsuan-edo bere gau ilunetik ozta-ozta ateratzen zuen lanpara indargabeagatik beharbada [...] isiltasunean kraska hotsak egiten zituen **zureria** garaiagatik, eta hotzagatik ere bai. Josu Zabaleta

---

## **zuresi** *iz* zurezko hesia.

Sakontasun urria zuen etxeak; bebarruko arkutik galeria zabal, eder batera ateratzen zen; galeriak parrala eta berdez margotutako **zuresi** bat zituen. Josu Zabaleta

---

## **zuretar** *iz* zure familiakoa, zure artekoa, zure aldekoa edo zure alderdikoa dena.

-Israeldarra naiz, **zuretarren** artekoa.

Neure amorru sutsua botako dut zure gain, eta suminez jokatuko dute zure kontra; sudurra eta belarriak moztuko dizkizute, eta gelditzen diren **zuretarrak** gerran eroriko dira. Elizen arteko biblia

Mendi horietan bizi diren **zuretarrak** ere lasai utziko nituen, erasotu gabe, arbuiatu izan ez banindute. Jose Antonio Mujika

Itzultzen ez badiozu, berriz, zinez hilko zarete zu zeu eta **zuretar** guztiak. Elizen arteko biblia

---

## zurgagailu ik **xurgagailu**.

---

## **zurgai** *iz* zurezko gaia.

Ilbeherako **zurgaiak** nahi ziren sutarako edo ikatzetarako. Pello Zabala

---

## zurgapen ik **xurgapen**.

---

## **zurgarri** *izond* harrigarria, ikaragarria.

-Duela hilabete batzuk, hasieran tripako mina zirudiena minbizi **zurgarri** bihurtu zitzaidan. Aitor Arana

Gosea ta beldurra buruen **zurgarri**. Patziku Perurena

---

## zurgatu ik **xurgatu**.

---

## zurgatzaile ik **xurgatzaile**.

---

## zurgatze ik **xurgatze**.

---

## **zurgin** **1** *iz* ogibidez altzariak, zurajeak eta kidekoak egiten dituen pertsona. ik **arotz**.

Udaberrian kakamarloak bezala agertu ziren, auskalo nondik etorriak, harginak eta sokagileak, harri-pikatzaileak eta **zurginak**, arotzak eta kisuginak, beren maisu, peoi, ofiziale eta ikastunekin. Aingeru Epaltza

Tiroko errege Hiramek, mandatariekin batera, zedro-zura, harginak eta **zurginak** bidali zizkion Davidi, jauregia eraikitzeko. Elizen arteko biblia

Langile ugari duzu zeure esku: harri-pikatzaile, hargin, **zurgin** eta era guztietako lanetan iaioa den jendea. Elizen arteko biblia

**Zurginak** aldiz teilatuetako zurak ditu lantzen. Xipri Arbelbide

Itsasontzietako **zurginekin** egin beharko duzu lan. Jon Alonso

Arrain-kaxak egiten zituen **zurgina**. Koldo Izagirre

Ogibidez **zurgina** zuen senar zenak berrogei urte lehenago egina zuen sukaldeko mahaian. Elena Touyarou

**Zurginak**, berriz, erreglaz neurtu, arkatzez eta konpasez marraztu eta gubiaz lantzen du eta, giza gorpuzkera eta edertasuna emanik, tenpluan kokatzen. Elizen arteko biblia

Pozgarri zait **zurginak** aizkora ondo erabiltzea. Jose Morales

-Nik ezagutzen diat lanean lagunduko ligukeen jendea -esan dio **zurginari** oholak patio erdiraino bizkarka garraiatzen dituzten bitartean. Koldo Izagirre

Orain arte dena itzuli mitzuli zitzaidan bidea **zurgin** baten eskuaire bat bezain xuxena dut aitzinean. Piarres Aintziart

**Zurginaren** etxean, eskailera zaharrak. Patxi Zubizarreta

**Zurgin** ona eta trebea zela habea leuntzen. Pello Lizarralde

**2** (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

Atzerritarren lana oso atzeratuta dagoela eta **zurgin**-maisu portugaldarrek eztabaida amaitezinetan alferrik galtzen dutela denbora. Jon Alonso

**Zurgin** lana; altzariak konpontzen espezializatu nintzen, zaharrak batez ere. Koro Navarro

Osaba batera eta bestera ibili ohi zelako **zurgin** lanetan; elizaz eliza batik bat. Txillardegi

Pilastren eta koloma horien tartean geratuko diren hiru kolomarteak ere marmolezko edo **zurgin**-lan finez egindako hesi modukoez itxiko dira. Santiago Iruretagoiena

**Zurgin**-lantegi baten ondotik igaro ginen, eta gero ile-apaindegi eta azoka baten albotik. Juan Kruz Igerabide

**Zurgin** enpresa batean aprendizgoan sartu eta bertan kontratatu dute Eric. Berria - Harian

52 urtetan joan zaigu eritasun latz baten ondotik, ainitz artatua eta inguratua izanik, eta bere **zurgin** ofizioa goizegi utzirik. Herria

### 3 (izenlagun gisa)

Gorroto handia ziguten, esan dizut, ezin zuten onartu gu bizirik egotea, eta hain gutxi **zurgin** ibiltzea. Koldo Izagirre

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
> **zurgina zen** (3); **zurginaren arkatza** (3)

---

## zurgindegi *iz* zurginaren lantegia. ik **aroztegi.**

**Zurgindegian** denetariko egur-motak eta zurezko ontziak zeuden gorderik. Jose Morales

Udalak utzitako egoitza baten lehen solairuan jarri zuten **zurgindegia**, eta han egin zuten lehen trainerua 1986an, gas linterna baten argipean. Berria - Kirola

Egunero egiten dio bisita **zurgindegiari**, eta berak egindako mahaian aritu gara solasean. Berria - Kultura

Aurreko astean konpainiak harturiko posizioan biltegi eder bat dago, tresneria eta guzti, **zurgindegi** bat. Koldo Izagirre

Iñigo eta biok, beste hamabosten bat lagunekin batera, sotoan zegoen **zurgindegi** batean jarri gintuzten. Rafa Egiguren

---

## zurgintza 1 *iz* zurginaren lanbidea eta jarduera.

Zurgina **zurgintzan**. Herria

Dudarik gabe, ekoizpen mota hau (ehungintza, larrugintza, **zurgintza**, jostailuak, material elektrikoa, etab.), denborarekin, eta berrikuntza tekniko handiren bat ez badago, soldata apaleko eskualdeetara joango da. Koro Navarro

Irakaskuntza, abeltzaintza, **zurgintza**, igeltserotza, bulegaritza... esperientzia zabala neureganatu nuen. Xabier Mendiguren Elizegi

**Zurgintza** ikasten hasi zen «gustukoa» zuelako. Berria - Euskal Herria

Publizitate-foiletoan ikusi dut badituzuela tailer mekanikoak, **zurgintza**, informatika gelak, negutegi bat eta hori guztia. Jesus Mari Mendizabal

Mutiko ernea zen eta herriko eskolatik ongi atera ondoan, laborantzaz bestalde lotu zen hargintzari eta **zurgintzari**, lan horietan arras trebea agertuz. Angel Aintziburu / Jean Baptiste Etxarren

Asmatu nuen, beharbada, egun batez, ni ere maisturu izanen nintzela, **zurgintzan** gostua hartuko nuela. Menane Oxandabaratz

**Zurgintzan** eta ehungintzan jardun. Xabier Kintana

Estilo doriarrean, bai triglifoen eta bai modiloien neurriak **zurgintzako** lanak imitatu nahi horretatik sortu dira. Santiago Iruretagoiena

Arabako **zurgintzako** enpresen %95 greban aritu direla adierazi dute langileek. Berria - Ekonomia

Arabako Enpresaburuen Elkarteak eta **Zurgintzako** langileek bukatutzat eman zituzten atzo hitzarmen kolektiboa sinatzeko izandako elkarrizketak. Berria - Ekonomia

Euskal Herriko bizimodu tradizionala erakusten dute objektuak dira: upelgintzako piezak, **zurgintzakoak**, zur landuak, objektu erlijiosoak eta herri sinesmenen ingurukoak. Berria - Kultura

### 2 (izenondo eta izenlagunekin)

Iruñeko katedraleko korua, hamaseigarren mendeko **zurgintza** garai eta iluna, karratu luze baten hiru aldeak hartzen dituzten bi ilara aulkik osatua da. Koldo Izagirre

### 3 (hitz elkartuetan)

Gorra izan edo ez, 1920az geroztik zerrategiko peoia izan zen Dummy, Washingtongo Yakimako Cascade **zurgintza** enpresan. Koro Navarro

Arabako **zurgintza** sektorean. Berria - Ekonomia

Zelda barnean kirola egiten eta egunaren barnean **zurgintza**-ateliertera joaten zela segurtatzen zion amari. Itxaro Borda

Langile trebe eta ikasia 36 urtez lan egin du herriko **zurgintza** lantegi berean. Herria

Eskulangileekin konpara nezake, etxean aitatxiri ikusi nion **zurgintza** lanarekin edo amaren dendari lanarekin kidetasuna duena, salbu hemen tresna luma dela. Ana Urkiza

---

## zurgizen *iz* zuhaitz baten enborraren zati argia eta biguna, azalaren ondo-ondokoa.

Horrela, zainetan daukan alferrikako ur guztia atera egingo da **zurgizenetik**, eta barruko izerdia ez da bertan hil arte geratuko, eta egurraren kalitatea ere ez da ustelduko. Santiago Iruretagoiena

Beheragoko partea ere, moztu eta luzetara laurdenetan zerratu ondoren, eta **zurgizena** arbolari berari kendu ondoren, barruko egur-lanetarako erabiltzen da, eta ohol horri "sapinea" esaten zaio. Santiago Iruretagoiena

---

## zuri 1 *izond* elurraren, esnearen edo kidekoen kolorekoa.

Ama sukaldean ari zen, aurreko mantal **zuri** bat jantzita, arrautzak jotzen. Anjel Lertxundi

Barruko gona **zuriak**, toles-toles eginda. Felipe Juaristi

Mihise **zuri** batek estaltzen zion soina. Felipe Juaristi

Alfonbra **zuria** zapalduz sartu gara salara. Joseba Sarrionandia

Sala **zurian**, izara **zuri** eta buruko **zuriaren** artean. Joseba Sarrionandia

Lurrean zerraldo etzanda eta maindire **zuripean** estalita. Mirentxu Larrañaga

Tennis Clubeko saunan, toalla **zurietan** bilduta eta izerdia kopetatik behera ibaika zeriela. igande hura heldu zen; goizetik, bandera **zuriz** bete zen plaza; ikus-entzuleen artean baziren azpildar batzuk, baina baita easatar asko ere. Xabier Mendiguren Elizegi

*ik beherago* 21. Askoren artean

Hari beltza eta **zuria** bereizi ezin diren unean. Bernardo Atxaga

Zeta **zuriko** durbante bat jantzi zuen. Patxi Zubizarreta

Lamina ia beltza izanen da, puntu **zuriekin**. Joseba Sarrionandia

Honela deitzen zaio gorriz tindatutako arrosa **zuriari**. J.M. Olaizola "Txiliku"

Alkandora urdin argi bat zeraman, bakeroa, lore **zuriko** brodatuekin. Bernardo Atxaga

Portzelana **zurizko** suontzi biribila. Xabier Olarra

Lau lerro orri **zuri** baten gainean, odol orban bat. Monika Etxebarria

Harrizko etxe **zuriek** jauregiak dirudite, ezin konta ahal tximinia dituzte. Jose Morales

Etxearen atzealdeko sukaldean bildu ginen, pinuzko mahai **zuri** baten inguruan. Xabier Olarra

Ohe **zurian** etzanda. Koro Navarro

Eskuetan, Safok ezkerrean, Egeak eskubian, guardasol **zuri** bana zeramatzaten. Felipe Juaristi

Ez baitzuen jakin zergatik ageri ziren lerro **zuri** bat goian eta beste bat gorria haren azpian. Felipe Juaristi

Lamina ia beltza izanen da, puntu **zuriekin**. Joseba Sarrionandia

Baldosa **zuri** eta beltzen gainean nire urratsek ez zuten hotsik ateratzen. Monika Etxebarria
Gizon altua zen, ile **zuri** eta kizkurrekoa. Bernardo Atxaga
Eguzkiaren argi **zuri** eta distiratsua. Lopez de Arana
Zutik zegoen, dardarka, ispilu lausotuaren aurrean, atzamarrak masaila **zuri** eta leunetan zehar zerabiltzala. Lopez de Arana
Ikusiko duk zer titi **zuri** eta borobilak dituen. Bernardo Atxaga
Zelula ametatik globulu gorri, **zuri** eta plaketak lortu nahi dituzte. Berria - Gaiak
Errioxako Ardoa Arautzeko Kontseiluak 6.500 kilo baimendu ditu mahats beltz hektarea bakoitzeko, eta 9.000 kilo mahats **zurietarako**. Berria - Harian
Oliba beltzak eta arroz **zuria**, kafe beltza eta jogurta. Xabier Olarra
New York hiri handia da, ogi **zuria** astearen erdian ere jaten dena. Koro Navarro
Iragan 50 urteetan kontinente **zurian**, batez beste, 2,5 gradu epeldu da klima, eta izotza urtzen ari da. Berria - Gaiak
Haren toga **zuri** hondarrez betean, odol-orban bat ageri da. Jon Muñoz
Harengan ezer arrarorik izatekotan, alkandora **zuri** mauka luzeko bat eta lepoan estu lotutako gorbata urdin bat jantzirik edukitzea zen. Oskar Arana
Udako soineko **zuri** tanta horidun bat iltze batean zegoen zintzilik. Karlos Zabala
Ekialdeko leihotik ilargi **zuria** deika ari baitzitzaigun. Joan Mari Irigoien
Ilargiaren argi **zuriak** argiturik. Xabier Olarra
Nire hatzak alfil **zuriaren** buru borobilaren gainean itxi ziren, erregina beltza hiltzeko asmoz. Alberto Ladron Arana
Loreak **zuriak** badira, patatak ere **zuriak** dira. Juan Kruz Igerabide
Aurpegi harrigarri **zuri** batean. Koro Navarro

## **2** (beste izenondo baten ezkerrean)

Dama **zuri** eder bat sartu da eraikuntza zaharrean. J.M. Olaizola "Txiliku"
Neskato eder xarmantak bular jori eta **zuria** erakusten baitzion. Ibon Uribarri
Gizon aurpegiko aker bat eta emakume aurpegiko ahuntz bat, biak ile **zuri** luzez estaliak. Josu Zabaleta
Argi **zuri** itsugarria zerion lurrari. Anjel Lertxundi
Kontsultaren atea oso urruti, tunel **zuri** argitsu baten akabuan. Lourdes Oñederra
Behelaino **zuri** trinkoa zebilen zurrunbiloan bere inguruan, bere barruan. Iñaki Mendiguren
Azaloreen mami **zuri** guriak ernamuintzen ziren, arrosa itzel batzuen antzera. Karlos Zabala
Arropa **zuri** zurrunaren usain larderiatsua. Mirentxu Larrañaga
Gizonaren hortzak puntu **zuri** politak ditun. Anton Garikano
Bain andreak mantar **zuri** zimur bat zuen jantzita. Mirentxu Larrañaga
Oinetan, zapata **zuri** takoidunak. Bernardo Atxaga
Atorra **zuri** botoiduna, lebita urdin argia, galtza zuriak belaunetaraino eta han, lokarriz lotuak, galtzerdi zuriak eta oinetan zapata puntadunak. Felipe Juaristi
Maindire **zuri** mugagabea garbitasun belo bat iruditzen zitzaion. Karlos Zabala
Aza **zuri** itzel baten azpian. Karlos Zabala
Ohe **zuri** handi bat aurkitu zuen, eta barruan amonatxo bat. Koldo Biguri
Blusa **zuri** baporetsua zekarren soinean. Aingeru Epaltza
Mahai obalatu **zuri** distiratsuan, xanpaina eta Rhin-eko ardoa edateko kopak txandakatzen ziren. Lopez de Arana
Bere zapata **zuri** hautsez beteei begira zegoen. Koro Navarro
Karol Schulzek lortzen zizkion paper **zuri** gatz-usainekoetan pintatzen zuen. Felipe Juaristi
Azal **zuri** samarrekoa, baina mulatoa. Jon Muñoz
Ozpinetan bustitako zapitxo batez garbitu zion bekoki **zuri**, hotz, izerditua. Xabier Olarra
Ohe **zuri** garbi epel bigun estalkiduna. Iñaki Segurola

## **3** (beste izenondo baten eskuinean)

Katu handi **zuri** bat, lorezainarena, jauzi eginik belaun magalera etorri zitzaidan. Josu Zabaleta
Har lodi **zuri** bat etorri zitzaidan burura, baina ez zen hura ere. Monika Etxebarria
Bizitza arrasto bat da, klarionaz egindako marra estu **zuri** bat. Karlos Linazasoro
Azazkal mutur gris-**zuri** luzeak irteten zitzaizkion, nabarmen, hatz-puntez haraindira. Mirentxu Larrañaga
Ahazturaren horma mehe **zurian**. Joxerra Garzia
Long Pointen lekuan bururatzen zen legar xehe **zurizko** mihi luze-luzea. Aurelia Arkotxa
· Etxe txiki **zuri** garbiak. Felipe Juaristi

## **4** (adizlagun gisa)

Han zegoen Andres, ohean etzanda, zurbil, ezpainak **zuri**. Josu Zabaleta
Klariona bezain **zuri** zegoen. Iñaki Mendiguren
Halere, barruko papera oso **zuri** zegoen, pittin bat kiribilduta. Bernardo Atxaga
Elurtuta dago mendia, **zuri** eta hotz. Anjel Lertxundi
Ilargiaren argitan harkaitza **zuri** ikusten zen zuhaitz artean. Aitor Arana
Horrela barre egiten dutenean, hortz-hagin guztiak erakusten dituzte, elurra bezain **zuri**. Jose Morales
-Igeltsua bezain **zuria** zaude, zarpail-zarpaila. Koro Navarro
Papera baino **zuriago** jarri bainintzen. Josu Zabaleta
Pareta baino **zuriago** zaude. Koro Navarro
Eguberri-goiza hotz eta **zuri** iritsi zen. Iñaki Mendiguren
Oihala **zuri** geratu zen. Anjel Lertxundi
Karmen **zuri** zegoen. Inazio Mujika Iraola
**Zuri** jarri zen. Koro Navarro
Bere silueta irudikatzen du, hormaren kontra itzal-antzerki txinatarra egiten duenaren erara, argal eta **zuri**, zeruak bidalitako aingeru eroria legez. Sonia Gonzalez
Zeru osoa ikusten zen, hutsik, **zuri**, erdian ilargia bere argi-ziskuarekin. Josu Zabaleta
Argia errezeletatik zehar igarotzen den bezala, lasai eta **zuri**, lasai eta bero. Felipe Juaristi

## **5** (hitz elkartuetan lehen osagai gisa, bigarren osagaia beste kolore bat delarik)

Argi-distira **zuri**-urdin bat irten zen bi makilen muturretik. Iñaki Mendiguren
Denak dauka errautsaren tonu **zuri**-grisa. Koldo Izagirre
Erdi etzanda jarri zen eserlekuan, gora begira, toldo **zuri**-horiari. Bernardo Atxaga
Zaldi-tratulariek mika esaten dieten zalditxo **zuri-horixka** horietako batek tiratzen zuen gurditik. Jose Morales
Marra **zuri**-urdineko korbata eta lastozko kapela zeramatzan ondoko gizagazte bati. Lopez de Arana
Bluestone Roadeko etxe **zuri** grisean. Anton Garikano

Azaloreen mami **zuri** guriak ernamuintzen ziren, arrosa itzel batzuen antzera. Karlos Zabala

Zuri-gorriak **zuri-gorritxoak** dira gaur. Berria - Kirola

*ik beherago* 36. Askoren artean

Kaio **zuri-urdinxka** mordo bat itsasertzean, Iparralderantz militarki noratua. Txillardegi

**6** (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa, elkarketa izena delarik)

Lepo-**zuriak** ofizinetako langileak dira (alkandora zuridunak, nolabait), eta lepo-urdinak berriz ekoizpen-langileak. Iñaki Heras

Bat-batean zerua argitu eta opalo-**zuri** distiratsuaren kolorea hartu zuen. Iñaki Mendiguren

**7** (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa, elkarketa izenondoa delarik)

Mutil aurpegi-**zuri**, arrain itxurako bat, ile solte batzuk bekoki gainera eroriak. Felipe Juaristi

Gizon bizar-gorriak emakume soineko-**zuria** hartu zuen. Felipe Juaristi

Agure ile-**zuri** bat, ero-begia, fusila kargaturik eskuan zuela, geneukan zain sukalde erdian. Josu Zabaleta

Salonika hirian judu txiki bizar-**zuri** batek esandakoaz gogoratu zen da Rua. Felipe Juaristi

Urkamendiaren irudia etorri zitzaion Zeunerri, biolina ikusi zuenean, hatz luze kolore-**zuri** haiek eutsita. Felipe Juaristi

**8** (hiru osagaiko hitz elkartuetan)

Gozokiak martzilikatzen zituen, paperak, batzuk harri **zuri** koxkorrak bailiran, lurrean barreiatuz. Hortz **zuri** distiratsu ilara bat agertu zuen. Itxaro Borda

**9** (predikatu gisa)

Atzo **zuri** zena gaur beltz akaso. Berria - Gaiak

Realaren bigarren elastikoa **zuria** izango da. Berria - Kirola

Dakiguna da odola gorria dela, gehienetan, ikatza beltza, elurra **zuria**. Felipe Juaristi

Irribarrea erdi ironiko erdi mingotsa; hortzak **zuriak**, zorrotzak. Josu Zabaleta

Mototsa garai, xerlo kizkurrez hornitua, haragia **zuri** eta delikatua. Karlos Zabala

Untxiak ere, gordelekura baino urrunago gutxitan egiten duenez lasterkarik, **zuria** du haragia. Irene Aldasoro

Hil ondoren, **zuri** bihurtu zen, gorputza bigun eta aurpegia irribarretsu. Ander Irizar

Otoitzean ari zela, aurpegiaren itxura aldatu egin zitzaion, eta jantziak **zuri** distiratsu bihurtu. Elizen arteko biblia

Bisaia polita zeukan eta sudurra eta kokotsa **zuri** perla-kolorekoak. Lopez de Arana

**Zuri** eta argalxeak masailak, eta zuzena sudurra. Karlos Zabala

Hortzak elurra bezain **zuriak** eta belarrondoko bizarrak ikatza bezain beltzak. Jose Morales

Gauzak ez dira **zuri** edo beltz, baizik eta hainbat ñabardura dituzte, eta hainbat aukera daude. Luis Elberdin

Zapatak ere **zuriak** zituen. Felipe Juaristi

-Beleak bele, **zuri** nahi eta beti beltz. Itxaro Borda

**10** (kolore hitzaren eskuinean) ik beherago **28.**

Graemetarren etxerako bidean txilarrak nabarrak zeuden, udako kolore **zuri**, arrosa eta ubelak galdu eta herdoilaren kolorea harturik. J.M. Olaizola "Txiliku"

Lauki babesgabe hura handitu egin zen nire begien aitzinean, gero eta zabalagoa zen, bere kolore **zuria** gero eta distiratsuagoa. Alberto Ladron Arana

Aurpegi ederrak neurri onez eratua behar du izan, egoki zaindua eta **kolore zuri** atseginekoa. Askoren artean

Lorategian parterre borobilak zeuden, kolore **zuri** eta horiko loreekin. Bernardo Atxaga

Iluntasunean hormaren kolore **zuriak** grisa dirudi. Lander Garro

Almendroak ekarri zituen urrutiko Txinatik, negu hasieran loratzen diren goiztiarrak, bazter guztiak pintatzen dituztenak elurrarena baino kolore **zuriago** batez. Felipe Juaristi

Harri hartatik kolore **zuri**-zuriko printza bat atera omen zen. Santiago Iruretagoiena

'Zafiroaren zuritasuna', esaldi horrek 'gardentasuna' adierazten du, eta ez 'kolore **zuria'**, kristalaren zuritasuna ez baita zuria. Xabier Kintana

**11** irud/hed

Bere gobernua **«zuria** baino **zuriagoa** » izango zen hitza eman zuen orduan orain ustela izateaz akusatzen duten agintaria. Berria - Mundua

1963-1978: Mohammad Reza Pahlavi xah-ak Pertsia modernotu eta Mendebaldera lerratzeko erreforma kanpaina abiatu zuen 1963an, Iraultza **Zuria**. Berria - Mundua

PP: «Zerrenda **zuriak** zerrenda beltzak dira». Berria - Harian

Lan istripuak «etengabeko bortizkeria **zuria** dira». Berria - Ekonomia

Eskuan muin egin ondoren, muin beroa inondik inora, karrikan galdu zen, egun **zurian** gorri. Bera eta Lou batera joango ziren, harri kiskali baten zamapeko gorputz hotz bakar bat bihurtuta, itsaso guztiz **zuri**, erabat hutsean behera. Felipe Juaristi

Denboraldi **zuria**, pentsamendurik gabea. Joseba Urteaga

Ardi beltza zela bera, artalde **zurian**. Hasier Etxeberria

Lepoa eginen nukeen bera ez zela inoiz ibilia egun argiz ere, portu barruko kalma **zurian** entrenatzen ziren. Koldo Izagirre

Zuzendariek kalma **zuria** nahi dute, istripuek uxatu egiten dituzte bezeroak ostatuetatik. Koldo Izagirre

Larunbatero joaten omen zen sabbat-era erratz kirten baten gainean, magia **zuria** eta beltza biak egiten omen zituen. Josu Zabaleta

Bernabeu futbol zelaiko harmailetara beldurra eraman zuten atzo, talde **zuriak** atzeko lerroan dituen gabeziak agerian utziz joko eraginkor baten bidez. Berria - Kirola

Egiazko ugatz baten antzera puzten ari zela ohartu nintzenean, min **zuriak** joko zidala uste izan nuen une batez. Joxan Elosegi

Estatu despotikoetako beldur **zuria**. Iñaki Iñurrieta

Albisteak asko poztu zuen, halako aukerak ikatz **zuria** baino bitxiagoak baitziren orduan. Berria - Harian

Gau **zurietan**, etsipenez egin dut negar. Felipe Juaristi

Gau **zuria**: Gau **zuria** ospatu zuten jaz, Parisen, Delanoe jaun auzapezaren ideia bat onartuz: gau guzian idekiak ziren Hiriko etxea, antzoki, erakustoki eta bertze. Herria

Lepo **zuriko** gaizkileak zigorgabetasunean uztea da, finean, neurri horren asmoa. Berria - Harian

Ezker abertzaleak bakearen aldeko apustuari eutsiko diola dio, baina «esku **zuriko** hiltzaileek mahai gainean jartzen dituzten hildakoak» ez dituztela ahaztuko ere bai. Berria - Euskal Herria

Hatz **zuriaren** gaitza esaten zaiona oso ohikoa da pilotarien artean. Berria - Kirola

Asko izan dira hatz **zuriaren** sindromea, edo eskuko irrigazio faltarengatik lesioak pairatu dituzten pilotari profesionalak. Berria - Kirola

Izen horrekin saltzen ditu Eroskik marka **zuriko** bere produktuak. Berria - Ekonomia

Linea **zuriko** etxetresna elektrikoak. Berria - Harian

Etxetresna elektriko **zurien** artean, Europako bosgarren tokia hartu zuen iaz Fagor Etxetresnak-ek, Brandt enpresa erosita. Berria - Ekonomia

Badira horrelako jende mutur-**zuriak**, bereziki hiritar harroputz batzuk, sehaskatik beribilera zuzenean iganak, egiazki oinez ibili gabe bere bizian. Piarres Aintziart

**12** erregetiarra edo apaiztarra dena. ik **xuri 4.**

Ehun urte lehenago toberak galarazi zituzten jauntxo **zuri** elizkoi haiek jakin behar! Patziku Perurena

Zeren eta, hamar urte barne, iraultzaburu gehienek, **zuriek** ala gorriek, elkar jan baitzuten. Piarres Xarriton

**13** pertsonez mintzatuz, faltsua, losintxaria.

Jakob **zuri** eta iruzurti hura bihurtu zen juduen buruzagi, eta Esau kanpoan geratu zen. Oskar Arana

Ez ote da egiaren kontrako defendagarri tranpazko bat?, gizon koldar **zuri** faltsuaren martingala bat? Iñaki Segurola

Politikari bat prentsaurreko batean bezain **zuri** . Aingeru Epaltza

Filotti etxekoak sasisantu kanpolarrosa mordo bat baino ez dira denak, Judas baino **zuriagoak** -oihu egin zuen mutilak. Koldo Biguri

Berekoia, diruzalea, **zuria** , ustela, oiloa... ez ziren edertzekoak Tomas Atondoren zer-nolakoak agertzeko ahotan erabiltzen zituenak. Aingeru Epaltza

Afroamerikarrak AEBetako hautesleen %12 inguru osatzen dute, eta **zuria** ez den gutxiengo etnikorik handiena da. Berria - Mundua

Gure aita mesfidatia izaten zen ezezagunekin, ez zen fidatzen jendeaz, "jende tolesduna, **zuria"** ote zen beldurrez. Fernando Rey

**14** (hitz, irri eta kidekoekin)

Ipurgarbitzaileen samalda azkengabeak, hitz **zuri** faltsua aho-beteka botatzen bestetan ez dakien jende-modu horrek. Iñaki Segurola

Jende arteko tratua azokako tratuaren pare jartzen da, hitz **zurien** azpitik diru beltza dabil ebaska gure barrengo ixilpoltsetan. Iñaki Segurola

Lehenik, dena ele **zuri** , lekuko jendearen nahia errespetatuko duela -geroxago aldiz beroaldi batean harturik, edozoin gisaz bide handi hori eginen duela mugaraino. Herria

Ele **zuri** parrasta bat erraiten da holakoetan eta aski eleketari abila denak badaki ere konplimenduen artean, alegia-eta deusez, pikoño batzuen polliki sartzen. Herria

Hasiak dira, ez ele **zuritan** , bainan egiazki batzu bertzeen kontra. Herria

Nire irriñorik **zuriena** hautatu nuen. Hipokrisiak eta irri **zuriek** gela osoa gainezkatu zuten. Fernando Morillo

Kristinak irri **zuri** bat egin zuen. Aingeru Epaltza

Eskalatzaileak irri **zuri** batez eman zion azkenburu esaldiaren nabarrari, gibelasmoaz inolako dudarik geldi ez zekidan. Aingeru Epaltza

Browne jaunak baxeragetik irri **zuri** bat egiten ziola ikusirik, [...]. Irene Aldasoro

Ezin sinetsizko gezur **zuri** hartatik ezin irentsizko egia beltz honetara igaro haiz gerta-harian. Iñaki Segurola

Baina, agertu bezain pronto, keinu **zuri** hura suntsitu egin zen. Alberto Ladron Arana

Arrisku handia baitu laudorio **zuriak** . Joxerra Garzia

**15** ardoez mintzatuz, horixka dena.

Langosta jangaitz zegoen, baina Penedesko ardo **zuria** zoragarri. Patxi Iturritegi

Afal aitzin arno **zuria** edan dute Kasinoko tabernan. Berria - Ekonomia

Gizon talde batzuk edaten ari ziren salmahaiaren aurrean zutik, eztulka, listuka, begiak ireki ezinik, erabat esnatu nahian ardo **zuriaren** eta pattarraren laguntzaz. Karlos Zabala

Ardo **zuriaren** kopa argirantz altxatuz. Xabier Olarra

Bere betiko apetito bikainaz segitu baitzuen jaten, hartaz hizketan ziharduela ere, eta Orvieto **zuritik** edaten. Joxe Austin Arrieta

**16** (-en atzikiaren eskuinean, izen gisa) zuritasuna.

Kolore zuriak estaliko du Turin hurrengo egunetan, elurraren **zuriak** , izotzaren **zuriak** . Berria - Harian

Pitzadurari igeltsua bota eta gero, pintura apur batez margotzen ari zen igeltsuaren **zuria** . Koldo Biguri

Oholen **zurian** egilearen marka bera irakurri ahal izan dut; baina ahaztu egin zait. Txillardegi

Bere gorputzaren **zuriaz** gogoratzen naiz, eta zurbiltasun horrek biluziago egiten zuen. Izarren distira moteldu egiten zuen ilargiaren **zuriak** . Joxean Agirre

· Prentsan horren berri ematean bere **zurian** agertu da Ernesten gezurra. Edorta Jimenez

• **17** *izond/iz* azala zuria-edo duen giza arrazakoa dena.

Errusia zen, halaber, arraza **zuriaren** ondarearen eremua, Txina eta Indiako muga kontinentalekin mugakide zena. Iñaki Mendiguren

«Arraza **zuriko** neba-arrebak, lasaitasunean egon zaitezte, ez dugu barkatuko» . Berria - Mundua

Egun, lurraren %87k populazioaren %9,6 osatzen duen gutxiengo **zuriaren** esku jarraitzen du, populazioaren %79 diren beltzek soilik lurraren %13 dutelarik. Berria - Mundua

Hartan mairuekin bizi zen emakume **zuri** bat ageri zen. Fernando Rey

Gizon **zuriaren** beldur ziren batik bat... gizon zuri gehienak deabrutzat zituztenez gero. Joan Mari Irigoien

Arazo bera sortu zen, ez hain era mehatxagarrian, gizaki **zuriaren** lan desatsegin eta oinarrizkoenak egiteko **zuria** ez zen jendea inportatu zen eskualdeetan. Iñaki Mendiguren

Nola larru **zuriek** bereganatu dituzten larru gorriek baliatzen zituzten lurrak, nola zazpi miliun jende bizi zirelarik lur horietan, lau ehun mila bakarrik bizi direla orain. Herria

Neska mulata ia **zuria** . Jon Muñoz

Bi hilabete daramate bost musikari **zuri** hauek, Neal Sugarman saxo jolearen zuzendaritzapean, Europan zehar musika beltza egiten, funk eta soul estiloak gehien batean. Berria - Kultura

Esaldia [...] protagonista maskulinoak -detektibe beltz gihartsu bat, gogorrenetan gogorrena, ordu eta erdian inon diren ukaldi eta tiro guztien banatzaile- protagonista femeninoari -New Orleansko mafioso **zuri** baten andre are **zuriagoa** , ordu eta erdian bere senarrari inon diren adar guztien paratzaile- botatzen zion. Aingeru Epaltza

Tira, zu bai zoragarria, festa ezin zoragarriago hau antolatu ez ezik, jende **zuri** hau dena ezagutzeko aukera eskaini diozulako, alajaina. Mirentxu Larrañaga

Europatik uholdeka hurbildu ziren **zuriek** XIX. mendean txikitu zituzten indio guztiak. Pello Salaburu

Beltzarana zenez gero, beraren gogo guztia **zuri** batekin ezkontzea zen. Gotzon Garate

Beltzek ez dute oroitu nahi, **zuriek** ez dute oroitu nahi. Anton Garikano

**Zurien** eta indigenen arteko ezezagutza eta bazterketa ikaragarria da. Berria - Kultura

Nahitasuna hartu diot neure auzoari, maite dut **zurien** eta marroien eta beltzen arteko hango nahaspila aldakor hori, atzerriko azentuen koru geruza askotako hori. Oskar Arana

**Zurien** negozioei boikota egitera deitu zuten jendea. Berria - Mundua

Texastar batek aukera handiagoa du heriotza zigorrera kondenatua izateko epaiketa batean newyorkar batek baino, eta beltz batek askoz ere arrisku handiagoa du **zuri** batek baino. Pello Salaburu

**Zuri** anglosaxoi protestanteak. Berria - Mundua

Baina, Burtoni esan ohi diodanez, bada **zuri** -jende gaiztorik ere, gure artean. Mirentxu Larrañaga

· Agian Saint Germain des Prés-eko bere auzo **zurien** artean baino hobea. Hasier Etxeberria

Errepublika beltza ez zen oso eredugarria mundu **zuri** zibilizatuarentzat, antza, eta haren produktuei boikot egiten hasi ziren potentziak. Berria - Mundua

• **18** *iz* kolore zuria.

Errekasto urdin bat, estatu-arteko muga-marra zuzen bat, eta latitude-gradu baten lerroa, **zuri** hutsaren gainean...! Joxe Austin Arrieta

Esango nuke ezpainak ere zuriz margotuta zituela, **zuri** urtsu batez. Ramon Saizarbitoria

Bat-batean **zuri** motelez pintaturiko hatzak sartu zaizkit aluan eta barrutik urratu naute, oinaze zahar bat sentitu dut. Eider Rodriguez

Zilarrezko azpil bat zekarren batak, esku-urontzia besteak, zilarrezkoa era berean, eta lepoan esku-zapi bi besteak, **zuri** ederrak zapiak. Patxi Ezkiaga

Pozik daudela badiote, pozik zeuden: zuria **zuri** , beltza beltz. Josu Zabaleta

Margaren azalak **zurira** egin zuen, eta nazka zen begietaratu zitzaiona. Ramon Saizarbitoria

Bere eskutik, eta bere sosei esker, beltzetik **zurirako** bidea egin du Vila-realek azken denboraldietan. Berria - Kirola

Bat-batean **zuritik** beltzera aldatzen zaie egoera. Berria - Harian

Bere larru-kolorea **zuritik** urdinera bidean, bere aurpegia are zuriago. Felipe Juaristi

Harrigarri bizia da Joxeren begien **zuria** . Pello Lizarralde

Isilik eta burua apal etxeko labrita, denak ere elurraren **zurian** beltz. Itxaro Borda

Azkenik printzesa bat geratu omen zen dantzan: **zurian** zuri, dena zuriz jantzita. Felipe Juaristi

## 19 zurikoa, txanpon mota.

Lehorretik ekarriak ziren diruen kontuak zuzen ote zeuden ez ote zeuden ebatziz joan ginen, **zuriak** erreala osatu arte batuz lehenik -hirurogei eta zortzi **zuri**, zilarrezko erreal bat-, eta errealak beste pilotxo banatan batuz, dukatak osatu arte -hamaika erreal, dukat bat-. Edorta Jimenez

Hainbeste dukat, erreal eta **zuri** batera, halakorik inoiz lehenago ikusi gabea nintzen. Edorta Jimenez

-**Zuri** bat, bi **zuri**... erreal bat! Edorta Jimenez

## 20 *aihen zuri* zuztar kiribilkorra eta igokaria duen landarea, lore zuriak eta usaintsuak ematen dituena*(Clematis vitalba)*.

Handik denbora gutxira loretegi bat sortu zen galeriaren eskumatan, eta ortu bat ezkerretan, eta arrosak eta **aihen zuriak** etxearen hormetan. Julen Gabiria

Han-hemenka haltz eta sahats sailez banatuta, edo **aihen-zuri** usaintsuz ezkutatuta, landareak besarkatzen eta txilin-belar koloretsuz jositako estalpeak eta orratzak osatzen baititu. Koldo Biguri

**Aihen zuri** kiribil batek tira egiten dio iletik. Itziar Otegi

Belazean, Matilde txikia geldi-geldi eta tente dago, **aihen zurizko** koroapean. Itziar Otegi

**Aihen zuri** loreak nahastuta daude. Itziar Otegi

## 21 *bandera zuri* errenditze edo bake seinale gisa altxatzen den bandera.

Herritarrek **bandera zuria** ipini zuten; eta armada, jenerala buruan, hirian sartu zen. Koro Navarro

Gure galeoiko kapitainak bandera **zuria** mastaratzen zuela, itsas lapurren lehen kanoi hotsa entzun bezain fite. Joan Mari Irigoien

Izara bat, pentsatu nuen -baina ez, kirtena ere bazeukan, beraz **bandera zuria**, iruditu zitzaidan. Urtzi Urrutikoetxea

**Bandera zuri** batekin hurreratu gara, poliki-poliki, haiekin hitz egitea lortu arte. Berria - Mundua

-**Bandera zuriarekin** natorkizu, eta gauza bakarra eskatu nahi dizut. Joan Mari Irigoien

Bizirauteko modua emango zigun etekin batekin eugenoletik bainilina lortzeko ahaleginean, eta ez genuen arrakastarik izan; hainbat kintal azido pirubiko jariatu genuen, trogloditen duin zen tresneria batez ekoiztua, eta bortxapekoen duin zen lan-ordutegi batekin, eta horren ondoren nik **bandera zuria** altxatu nuen. Juan Garzia

## 22 *alfer zuri* oso alferra.

Beste batzuk, berriz, **alfer zuriak** ziren, zabal eta zabar etzanda egoten ziren beti, eta alferrik zen haiek altxarazten saiatzea: ez ziren sekula jaikiko. Jose Morales

Andrei Ivanovitx ez zen ez ona ez gaiztoa; **alfer zuria** baizik ez zen. Jose Morales

Ez ditudala izan gogoan jende **alfer-zuri** eta ezbairik gabe gaiztoak. Joan Mari Lekuona

## 23 *boto zuri* inor edo ezer hautatzen ez dela adierazten duen botoa.

Ezezko botoa, boto **zuria** eta boto baliogabea. Berria - Mundua

2005eko hauteskunde araudiaren arabera, boto **zuriak** baliozkoak direla kondutan harturik, Hauteskunde Batzordeak ebatzi du boz hauek otsailaren 7ko presidentetzarako bozketan lehiatu diren hautagaien artean banatzea, hauek lorutako boto ehunekoaren arabera. Berria - Mundua

Ezezko botoak %28,07 izan ziren eta **zuriak** %7,29. Berria - Harian

**Zuriak**, aldiz, botoen %6,49 izan ziren. Berria - Harian

· Laborista gehienek **zuri** bozkatu zuten edo bozketa aretotik irten ziren. Berria - Mundua

Beste bost kidek [...] uko egin zioten bozketan parte hartzeari eta lauk **zuri** bozkatu zuten. Berria - Mundua

Durao Barrosoren batzordearen alde bozkatu zuten 449 eurodiputatuk, 149k aurka eta 82k **zuri**. Berria - Mundua

## 24 *ez-zuri izond*

XX. mendearen hasieran zinematografoa entretenimendurako tresna bihurtu zenetik, aktore **ez-zuriek** gaizkileen edota zerbitzarien rolak betetzera behartuta ikusi zuten euren burua. Berria - Kultura

Batzuetan gauzen lehenkiei koloreak esleitzera eroaten eta tentatzen gaituen kausa ezereztu egiten da, zer zurietatik zer **ez-zuriak** sortzen baitira. Xabier Amuriza

## 25 *haize zuri* ik **xuri 10**.

Eta **haize zuria** hasiko da, gainera, haizeak elur hautsa ekarriko baitu. Ikuspegi garai, epel eta leunetik so egingo diozu **haize zuriaren** espektakuluari, haizeak elurra bere ohetik astindu, zirimolatan jaso eta, alde batetik bestera daramala, zurrunbilotan eragiten duen artean. Joseba Sarrionandia

'Portu eta gordeleku ona izan da beti,' esanen du marinel batek, **'haize zuriak** belaontzien zutabeak apurtu dituenean edo itsaso izoztuak ontzi inguratuaren kroskoa hautsi nahi duenean'. Joseba Sarrionandia

## 26 *hartz zuri* hartz ile-zuria, lur guztiz hotzetan eta ur izoztuetan bizi dena, arrea baino handiagoa*(Thalarctos maritimus)*.

Primaderan, Labradorretik heldu diren **hartz zuri** handiek. Aurelia Arkotxa

Negua **hartz zuriaren** moduan etorriko zaigu! Joseba Sarrionandia

Aurtengo neguan, jatekoaren bila zebilela, **hartz zuri** gose hamikatu bat Groyako etxolak puskatu ondoan, Conchera arribatu omen da igerika. Aurelia Arkotxa

Lurralde jelatuetako **hartz zuri** handien larruaren leuntasuna. Xabier Mendiguren Elizegi

Kutsadurak **hartz zuriaren** immunitate sistema ahuldu du, eta aldaketa hormonalak eragin dizkio. Berria - Gaiak

Zulaketak egiteko erabiltzen zuten ontziari eraso zioten bi **hartz zurik**. Berria - Gaiak

## 27 *karta zuri* erabateko eskua.

«Erabakiak **karta zuria** ematen die suizidei, Jerusalemen hautatu eta hautatuak izateko, eta utzikeria diplomatikoa da», esan zuen Alderdi Erlijioso Nazionaleko buru Zvulun Orlevek. Berria - Mundua

Iragan urteko maiatzeko erretreten hilketa obratu zen garaian sindikatuek [...] **karta zuria** luzatu zioten gobernuari eta aurten, seguritate sozialaren aldaketa mailan gauza bera egiten dute. Berria - Kultura

## 28 *kolore-zuri izond* zuri kolorekoa.

Hatz luze **kolore-zuri** haiek eutsita. Felipe Juaristi

Emaztea Elba zen, aurpegi gozoko emakumea, larrua **kolore**-zuri, beti arropa zuri artean bil-bil eginda bizi zena. Felipe Juaristi

Burkoak euskarri harturik, ohean eserita zegoen, eta haren masail puztu **kolore**-zuriek errauts beroak ziruditen. Irene Aldasoro

## 29 *liburu zuri* gobernu edo erakunde batek, herri iritziari aurkezteko, gai publiko bati buruz argitaratzen duen dokumentu, txosten edo programa multzoa.

Europako Batzordeak urte amaierarako kaleratuko duen Mugaz Gaindiko Lankidetzarako lehen **Liburu Zuria** deritzona aipatu zuen Irujok. Berria - Euskal Herria

Osasunaren gaineko **Liburu Zuria** aurkeztu zuen atzo Erresuma Batuko Gobernuak. Etengabeko ikaskuntzaren **Liburu Zuria** prestatu du Jaurlaritzak. Berria - Gaiak

EAJk hezkuntzarako **liburu zuria** aurkeztu du, «eztabaida bizitzeko». Berria - Euskal Herria

Espainiako Hezkuntza Ministerioak aurkeztutako Karreretako **Liburu Zuriak** atzera pauso bat direla uste du IAk. Berria - Euskal Herria

Zuberoako Herri Elkargoak hizkuntza politikaren **liburu zuria** aurkezteko baliatuko du biharko eguna, herrialdeko egoeraren diagnosia plazaratuz. Berria - Harian

Europako Arnasketa Elkarteak Europaren Birikei Buruzko Liburu **Zuria** aurkeztu zuen atzo. Berria - Gaiak

**Liburu zuriaren** modukoa, dokumentazio askoren bidez errealitate politiko hori egiaztatutzat eman nahi du egileak, funtsezkoa baita, bere ustez, estatu hura berreskuratzea. Berria - Kultura

Ilustrazioaren **Liburu Zuria** kaleratu dute sektoreko elkarteek.· Hasierako ETAkoek azal zuriko sakelako liburuxka bat zuten lagun, **Liburu zuria** izenarekin ezaguna zena. Berria - Kultura

· **Liburu zuri** bat banintz bezala hurbildu nintzen emakume harengana, nire bizitzan lerro berriren bat izkiriatuko nuen esperantzan baina, lerro bat ez ezik, historia oso bat jaurti zidan emakumeak altzora. Hasier Etxeberria

**30** ***txeke zuri*** pertsona bati egoera jakin batean askatasun osoz aritzeko ematen zaion baimena.

Horrek, baina, ez du esan nahi Zapaterori **txeke zuri** bat emango geniokeenik. Berria - Mundua

EBk ez dio **txeke zuririk** emango Ibarretxeren Planari. Berria - Euskal Herria

Haren ekonomia ez dago "inori **txeke zuririk** emateko moduan", txostengileak dioen moduan. Edorta Jimenez

Praktikan tortura eta hil egiten duen espetxe politikari **txeke zuria** ematen dietenean, zein eskubidez mintzo zaizkigu? Berria - Euskal Herria

Mendebaldekoen begietara, bazirudien Txina eta Errusiako nekazari-soldaduak bere gobernuari **txeke zuria** eman ziola bere bizitzaren gain. Iñaki Mendiguren

Nolabait, **txeke zuri** bat eskaini die zerrenda horien balizko sustatzaileei, nahi dituzten «urrats guztiak» eskatzeko atea zabalik uzten duelako. Berria - Euskal Herria

**31** ***zikoina zuri*** amiamoko mota *(Ciconia ciconia).*

Amiamoko edo **zikoina zuriek** egindako habia bat kendu zuten joan den astelehenean Zarrakazteluko udaletxeko teilatutik, herriko etxeko agintariek eskatuta. Berria - Euskal Herria

Hegazti fidelak dira **zikoina zuriak**; bizitza osorako aukeratzen dute bikotea. Berria - Euskal Herria

Azken urteotan gora egin du Nafarroan **zikoina zurien** kopuruak, eta, ondorioz, gora egin dute hegaztiok eragindako arazoek. Berria - Euskal Herria

**32** ***zuri-beltz*** *(orobat* ***zuribeltz*** *g.er.,* ***txuribeltz*** *g.er. eta* ***txuri beltz*** *g.er.) izond* zuria eta beltza; zuria edo beltza. ik **txuri 2.**

Grabatu **zuri-beltz** batean eszena errealista bat ikusarazten digu. Josu Zabaleta

Baldosa **zuri-beltz** handiek estaltzen zuten zola. Karlos Zabala

Jada ez diete kartzelaratzen direnei marra **zuri-beltz** paraleloz egindako traje barregarri hori ematen. Harkaitz Cano

Haren aho galanta hantxe, haren ile kixkurra, haren begi **zuri-beltzak**, Afrikako lehen plano berebizikoa. Joxe Austin Arrieta

Amodio izenekoaren aurpegi emea **zuri-beltza** baita, zuria edo beltza, jauzi kuantikoa edo heriotza bera bezain bihozgabea. Iñaki Segurola

Berehala eseri da; eri muturrez laztandu ditu tekla **zuri-beltzak**. Javi Cillero

Xakean aritzen nintzenean bezala: segundo-hamarren bat lehenago pieza **zuri-beltzen** nahaste-borrastea baizik ez zena, egitura jakin bat bihurtzen zen. Alberto Ladron Arana

Arraza nahasiko ar bat, **zuri-beltza**; eta pitbull bi kume, arra eta emea. Gotzon Garate

Zure maitasunik gabe, **zuri-beltza** da nire festa! Xabier Paya

**32a** (izen gisa)

Hazpegi zehaztugabeak zituen, begien **zuri-beltzak** oso nabarmenak. Patxi Zubizarreta

Argazkiaren **zuri-beltzak** berunezko egiten zuen zeruaren pean. Harkaitz Cano

Benetako **zuri-beltza**, ez 30eko hamarkadako filmetako **zuri-beltz** asmatikoa, ez 40ko hamarkadako filmetako **zuri-beltz** perfektua. Berria - Kultura

Bizitzaren festan, esperantzaren urdinak eta odolaren gorriak hartzen gaituzte orduan, udazkenaren horiak eta udaberriaren berdeak, elurraren **zuri beltzak** eta doluaren beltz zuriak, koloreen kontzertu distiratsu bezain iheskorrean. Joan Mari Irigoien

Hain luzaz preso egona, eta Afrikako **zuri-beltzen** baketzaile izana, mundu guziak du ohoratu eta goretsi karia hortan. Herria

Kolore guztiak ezabatu, ukatu, eta **zuri-beltzean** kontatu digute neskatoaren ipuina: batzuek zurian, eta besteek beltzean, alegia. Joxerra Garzia

Koloretako txalupa baten irudi-test klasikoa eman genionean, zorrotz erreparatu, beste alde batera begiratu, eta arin marraztu zuen **zuri-beltzean**. Xabier Olarra

Dena **zuri-beltzean** ikusten dut, aspaldiko telebista-programetan bezala. Iban Zaldua

Pelikula hau **zuri-beltzean** duk, badakik, eta ezin sinetsizko gezur zuri hartatik ezin irentsizko egia beltz honetara igaro haiz gerta-harian. Iñaki Segurola

Bizia bere gorrian atzeman ezinik, **zuri-beltzera** jotzen dugu etsi-etsian. Iñaki Segurola

**33** ***zuri-beltzeko*** *izlag*

Portretak ere margotu zituen, nahiz eta jakin ezin zuela eredutik zuzenean lan egin, baizik eta **zuri-beltzeko** argazkietatik, eta, betiere, ereduetako bakoitzaz zuen ezagueraz eta sentieraz baliatuz. Xabier Olarra

Denboran atzera eginez gero, ordea, histu egiten zitzaizkion koloreak, bizitasuna galtzen zuten, akuarela gris kolorgeen antza hartzen zuten irudiek, **zuri-beltzeko** argazki zaharren tankera. Imanol Zurutuza

**Zuri-beltzeko** telebista, handik hiru urtera asmatzaile berak koloretako bihurtuko zuena. Pello Salaburu

Ceciliak esan zuen **zuri-beltzeko** filmetan aktore guztiak pertsona bera iruditzen zitzaizkiola. Jon Muñoz

Egunsentiak inspiraturik, margotzeari ekin zion berriro; **zuri-beltzeko** margolan bat izan zen lehena. Xabier Olarra

Argazki zaharrak dira: batzuk **zuri-beltzekoak**, eta gehienak kolorekoak. Iban Zaldua

Sistema, **zuri-beltzekoa** nahiz koloretakoa, objektuen forma eta orientazioa aurkitzeaz arduratzen da. Berria - Gaiak

Ez dago deus erosoagorik, **zuri-beltzeko** pentsamoldea baino. Joxerra Garzia

**34** ***zuri-beltzezko*** *izond* zuri-betzekoa.

Hilde anderearen urrats neurtuek oihartzun mekanikoak ateratzen zizkioten harlauza **zuri-beltzezko** zoruari. Alberto Ladron Arana

**Zuri-beltzezko** poster bat. Harkaitz Cano

Horma bat liburu-apalez estalia zegoen, eta bestean **zuri-beltzezko** zenbait argazki zeuden eskegita. Oskar Arana

Zahar kutsua darien **zuri-beltzezko** argazkiak. Joxemari Urteaga

**Zuri-beltzezko** filme zahar bateko fotometrajeen gisara. Aingeru Epaltza

Argazkietako batzuk **zuri-beltzezkoak** ziren, beste asko koloretan atereak. Harkaitz Cano

**Zuri-beltzezko** filme zahar bateko fotometrajeen gisara. Aingeru Epaltza

**35** ***zuri-gorri*** *(orobat* ***zurigorri*** *g.er.) izond* zuri eta gorria. ik **txuri 3.**

Soineko **zuri-gorri** koadroduna. Oskar Arana

Bandera **zuri-gorri** eta gorrien aurrean. Pablo Sastre

Beste bi ertzainek plastikozko zerrenda **zuri-gorri** bat jartzeari ekiten diote, lurrean datzana jendearengandik bereizteko. Anjel Lertxundi

Bi urte geroago, giza kate **zuri-gorriarekin** haitza inguratuz ospatu dute galdeketa haren eraginkortasuna. Berria - Euskal Herria

Ertz kakotu altu bat ezartzen zuten marmolezko oinarri **zuri-gorriaren** gainean. Karlos Zabala

Gero, sabaiko argi guztiak itzali egin ziren eta autoko argi **zuri-gorriak** eta motorra piztearekin batera, metalezko ate erraldoia berriro zabaldu zen. Harkaitz Cano

Haren kamioneta **zuri-gorriak** maiz topatzen nituen han eta hemen. Aingeru Epaltza

Etxe txiki **zuri-gorriak** ageri ziren han-hemenka. Anjel Lertxundi

Raduan Husainiren begitarte **zuri-gorriari** argitasun bizia zerion eta bizar gorriztak ilargi halo gisako batez biltzen zuen. Patxi Zubizarreta

Oihal **zuri-gorrietan** bildurik dago. Gotzon Garate

· Hizkuntza, frantsesa noski; bandera, **zuri-gorri**-urdina, eta ereserkia, Marsellesa odoltsua. Hasier Etxeberria

**36** *izond/iz* Bilboko *Athletic* futbol taldearena, talde hori dagokiona.

Klub **zuri-gorriak** eskaintzen dizkion baldintzak eta jokalariak gura dituenak ez datoz bat. Berria - Kirola

Larrazabalek talde **zuri-gorrian** segitzeko asmoa zuela azaldu zion Ugartetxeri. Berria - Kirola

Jokalari profesionalak zirenean **zuri-gorriak** ziren, eta utzi ostean ere **zuri-gorri** izaten jarraitzen dute. Berria - Kirola

Horrela lortu zuten **zuri-gorriek** gola. Berria - Kirola

**Zuri-gorrien** jokoak eta estatistikek baikor egoteko arrazoia ematen dute. Berria - Kirola

Etxeberria eta Del Hornoren golek lasaitasuna eman zieten **zuri-gorriei**. Berria - Kirola

**37 *zuri-gorrixka*** zuria eta gorrixka.

Baldin buruko edo kopetako soilunean mantxa **zuri-gorrixka** badu, legena ari zaio sortzen. Elizen arteko biblia

Burusoileko mantxaren handitua **zuri-gorrixka** ageri bada, [...]. Elizen arteko biblia

Zakur handi, dotore, **zuri-gorrixka** bat da, begi berdeekin. Gotzon Garate

**38 *zuri kolore*** *iz* kolore zuria.

Hasieran **zuri kolorea** hartzen badu ere, ohikoa da hatz bera urdindu eta azkenik gorritzea. Berria - Kirola

**Zuri kolorea** aldiz, errusiarren esku eta arima garbiaren ordezkagarri hautatu zuen. Harkaitz Cano

Halakoetan iduri zuen biboteari erantsitako **zuri kolorea** irribarrearen indarrez istanteko kendu eta geroz eta horitzenago zitzaiola. Matías Múgica

**38a *zuri koloreko*** *izlag*

Behin logelan izanik, emaztea ikusi zuen **zuri koloreko** xatenezko soineko bikaina poliki eranzten. Josetxo Azkona

Basoan zehar zebilen, Sutximista bizkarrean hartuta, zilar **zuri-koloreko** zerbaiti jarraitzen. Iñaki Mendiguren

Banaketarako furgoneta handi bat zekarten, **zuri kolorekoa** eta dena itxia. Joxemari Iturralde

**39 *zuri-urdin*** *izond/iz* zuri eta urdina. ik **txuri 5**.

Argi-distira **zuri-urdin** bat irten zen bi makilen muturretik. Iñaki Mendiguren

Ama Birjina **zuri-urdinaren** imajina koxkor bat. Txillardegi

Antxeta **zuri-urdin** mordo bat pasa da nire aurretik, karrakari. Txillardegi

Gasez argituriko gela hartako paretak faiantzazko xafla **zuri-urdinez** estaliak zeuden gizonaren garaieraraino. Jertse marradun bat, **zuri-urdina** . Karlos Zabala

· Marinelen jangelako mahaiko hulearen **zuri-urdinari** beha egin nuen hitz, burua jaso gabe. Koldo Izagirre

Oholtzako lau kantoietan, arkabuzero bana, **zuri-urdinez** jantzirik. Txillardegi

**40 *zuri-zuri*** *(orobat **zurizuri** g.er.) izond/iz*

Esaten zion aurreko gauean gizon **zuri-zuri** bat ikusi zuela ohearen oinaldean. Karlos Zabala

Ia zer egiten nuen ez nekiela eman nion musu masail **zuri-zuri** hartan. Alberto Ladron Arana

Joanesen eskuaren aldera esku mehe **zuri-zuri** bat luzatuz. Felipe Juaristi

Baina ez naiz silesiarra -zuzendu zion gizonak, hortz **zuri-zuriak** agerian. Anjel Lertxundi

Ilea **zuri-zuria** zuen, zuriegi haren aurpegiera oraindik gazterako. Josu Zabaleta

Lepoan perla **zuri-zuri** batzuk, handiak eta berdinak, biribilak eta argiak. Felipe Juaristi

Haragi **zuri-zurian** iltzeen beltza nabarmentzen zen. Askoren artean

Ontzi txiki **zuri-zuri** bat ageri zen, itsasertzetik gertu, emakumeen begiraden aurrez aurre. Anjel Lertxundi

Ehun baino gehiago ziren, **zuri-zuriak** gehienak. Felipe Juaristi

Ez da aise enplegu baten ukaitea edo egoitza baten alokatzea Djamel deitzen delarik edo larrua ez delarik osoki **zuri zuria** . Herria

Denetarik bada: beltz beltzak, kafesne kolore, beltzaranak eta zuriak, **zuri zuriak** . Herria

**41** (adizlagun gisa)

Gavard **zuri-zuri** zegoen. Karlos Zabala

**Zuri-zuri** utzi zituen bazter guztiak. Rafa Egiguren

Katalina **zuri-zuri** jarri zen, eta emozioarekin eskuak dardaraka hasi zitzaizkion. Koro Navarro

Iruñea **zuri-zuri** esnatu zen, 20 zentimetroko geruza baten azpian. Berria - Euskal Herria

**Zuri-zuri** azalduko dira bazterrak, negu beltzeko elurraren obraz. Iñaki Segurola

Haren ukabila amorru biziko keinu batean uzkurtu zen, hatz-kozkorrak **zuri-zuri** nabarmentzen zitzaizkiola. Alberto Ladron Arana

Berehala eta luzapenik gabe, igo zen fraidea mando gainera, aurpegia **zuri-zuri** , erabat izutu eta beldurtua. Patxi Ezkiaga

-Hala uste duzu? -oihu egin zuen Lecœur andreak, amorruz **zuri-zuri** . Karlos Zabala

Bai, arrautza bat hantxe utzia, munduaren gainerako guztia bezalaxe **zuri-zuri** . Josu Zabaleta

Aita Riquet **zuri-zuria** jarri zen: [...]. Marzel Etxehandi

**hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**

**alkandora zuri** (14); **apar zuri** (4); **ardo zuri** (13); **argazki zuri** (4); **argi zuri** (21); **arropa zuri** (11); **arrosa zuri** (8); **astigar zuri** (5); **atorra zuri** (7); **aurpegi zuri** (8); **aurpegia zuri** (12); **aurpegia zuri zuri** (6); **auto zuri** (8); **azal zuri** (11); **azala zuri** (6); **baldosa zuri** (5); **bandera zuri** (7); **baserri zuri** (4); **bata zuri** (5); **begi zuri** (4); **begiak zuri** (21); **begiak zuri zuri** (6); **bere hortz zuri** (4); **bezain zuri** (41); **bi zuri** (5); **bibote zuri** (5); **bizar zuri** (20); **boto zuri** (5); **burua zuri** (6); **dena zuri** (18)

**edurne zuri** (9); **elastiko zuri** (29); **elastiko zuri gorria** (11); **elastiko zuri gorriarekin** (9); **ele zuri** (5); **elur zuri** (4); **elurra bezain zuri** (16); **emakume zuri** (12); **emakume zuri bat** (5); **entrenatzaile zuri** (6); **entrenatzaile zuri gorriak** (5); **eskailera zuri** (6); **esku zuri** (14); **etxe zuri** (21); **etxe zuri bat** (7); **etxe zuri handi** (4); **ezpainak zuri** (5); **folio zuri** (4); **galtzerdi zuri** (6); **gauza zuri** (6); **geruza zuri** (6); **gizon zuri** (30); **gutuna zuri** (4); **guztiz zuri** (5); **hain zuri** (4); **handi zuri** (7); **har zuri** (8); **haragi zuri** (5); **harri zuri** (5); **hartz zuri** (5); **hauts zuri** (6); **hodei zuri** (7); **hodeitxo zuri** (4); **hodeitxo zuri batek** (4); **horma zuri** (9); **hortz zuri** (22); **hortz zuri zuriak** (5)

**ia zuri** (4); **ile zuri** (29); **irri zuri** (7); **irri zuri bat** (4); **iruditzen zaizu zuri** (5); **izara zuri** (7); **jainkoak zuri** (6); **jantzi zuri** (15); **jantzi zuri bat** (5); **jokalari zuri** (24); **jokalari zuri gorri** (4); **jokalari zuri gorriak** (4); **jokalari zuri gorriek** (7); **kamioneta zuri** (4); **kamiseta zuri** (8); **kamisoi zuri** (4); **katu zuri** (4); **koadro zuri** (4); **kolore zuri** (13); **laino zuri** (7); **larru zuri** (6); **larruazal zuri** (6); **lore zuri** (7); **loria zuri** (5); **maindire zuri** (10); **makila zuri** (5); **mantal zuri** (13); **mantal zuri bat** (4); **mantxa zuri** (5); **marra zuri** (11); **musuzapi zuri** (7); **neska zuri** (8)

**oihal zuri** (14); **oihal zuri bat** (6); **on zuri** (4); **ona zuri** (4); **orban zuri** (4); **orri zuri** (19); **orri zuri bat** (7); **orri zuri batean** (5); **orri zuri baten** (4); **orrialde zuri** (9); **paper zuri** (15); **paper zuri bat** (4); **pareta zuri** (7); **soineko zuri** (26); **soineko zuri bat** (7); **talde zuri** (184); **talde zuri gorria** (26); **talde zuri gorriak** (55); **talde zuri gorrian** (17); **talde zuri gorriarekin** (12); **talde zuri gorriaren** (18); **talde zuri gorriari** (5); **talde zuri gorriko** (32); **talde zuri urdinak** (4); **teknikari zuri gorriak** (6); **txiki zuri** (6)

**zakur zuri** (4); **zaldi zuri** (31); **zaldi zuri bat** (9); **zaldi zuri baten** (8); **zale zuri** (10); **zale zuri gorriek** (5); **zapata zuri** (6); **zapi zuri** (34); **zapi zuri batean** (6); **zapi zuri batez** (4); **zerrenda zuri** (5); **zezen zuri** (7)

**zuri ala beltz** (4); **zuri ari** (7); **zuri artean** (5); **zuri asko** (5); **zuri bakarra** (4); **zuri bakarrik** (9); **zuri bana** (6); **zuri bat** (261); **zuri bat ageri** (5); **zuri bat atera** (10); **zuri bat ikusi** (12); **zuri bat ikusten** (5); **zuri bat zegoen** (5); **zuri bat zeraman** (7); **zuri bat zeukan** (8); **zuri batean** (37); **zuri batean bilduta** (4); **zuri batek** (35); **zuri batekin** (22); **zuri baten** (51); **zuri baten aurrean** (9); **zuri baten gainean** (12); **zuri batera** (6); **zuri batez** (32); **zuri bati** (10); **zuri batzuek** (4); **zuri batzuk** (19); **zuri beltz** (25); **zuri beltza** (27); **zuri beltzak** (21); **zuri beltzean** (42); **zuri beltzeko** (62); **zuri beltzeko argazki** (5); **zuri beltzeko film** (4); **zuri beltzeko irudiak** (4); **zuri beltzeko telebista** (5); **zuri beltzekoak** (6); **zuri beltzez** (10); **zuri beltzezko** (21); **zuri beltzezko argazki** (6); **zuri bihurtu** (8); **zuri bilakatzen** (4); **zuri bizia** (5); **zuri bozkatu** (20); **zuri bozkatu zuen** (7); **zuri bozkatu zuten** (7); **zuri dago** (5); **zuri distiratsu** (9); **zuri distiratsua** (4); **zuri distiratsuak** (5)

**zuri eder** (8); **zuri eder bat** (5); **zuri edo beltz** (4); **zuri eta beltz** (9); **zuri eta beltzezko** (5); **zuri eta gorri** (4); **zuri eta hotz** (5); **zuri gorri** (37); **zuri gorri bat** (4); **zuri gorria** (61); **zuri gorriak** (123); **zuri gorrian** (20); **zuri gorriarekin** (23); **zuri gorriaren** (23); **zuri gorriari** (7); **zuri gorriei** (4); **zuri gorriek** (83); **zuri gorrien** (34); **zuri gorrientzat** (7); **zuri gorriko** (34); **zuri gorriko entrenatzaileak** (4); **zuri gorrixka** (6); **zuri gorriz** (6); **zuri guztiak** (7); **zuri handi** (30); **zuri handi bat** (16); **zuri handia** (6); **zuri handiak** (6); **zuri horixka** (6)

**zuri koloreko** (8); **zuri lodi** (4); **zuri luze** (11); **zuri luze bat** (4); **zuri luzea** (4); **zuri luzeak** (5); **zuri mesede** (5); **zuri samarra** (5); **zuri txiki** (4)

**zuri urdin** (4); **zuri urdina** (13); **zuri urdinak** (12); **zuri urdinaren** (4); **zuri urdinek** (7); **zuri urdinez** (5); **zuri zabal** (5); **zuri zabala** (4); **zuri zegoen** (25); **zuri zeuden** (8); **zuri zeukan** (4); **zuri zoragarri** (4); **zuri zuri** (126); **zuri zuri eginda** (5); **zuri zuri esnatu** (4); **zuri zuri geratu** (4); **zuri zuri jarri** (12); **zuri zuri utzi** (4); **zuri zuri zegoen** (12); **zuri zuria** (53); **zuri zuria zen** (4); **zuri zuria zuen** (4); **zuri zuriak** (26); **zuri zuriak zituen** (5); **zuri zurian** (4); **zuri zuriko** (4)

**alkandora zuria** (24); **andra mari zuria** (7); **ardo zuria** (16); **argi zuria** (6); **arropa zuria** (12); **arrosa zuria** (4); **arroz zuria** (9); **atorra zuria** (8); **aurpegi zuria** (12); **azal zuria** (8); **bandera zuria** (6); **bata zuria** (9); **begien zuria** (6); **beltza edo zuria** (4); **beltza eta zuria** (4); **bezain zuria** (27); **bizar zuria** (11); **boto zuria** (14); **boto zuria eman** (5); **dama zuria** (7)

**elur zuria** (8); **elurra bezain zuria** (8); **elurra zuria** (8); **elurra zuria dela** (5); **erabat zuria** (4); **erregina zuria** (8); **estalki zuria** (4); **etxe zuria** (37); **gau zuria** (5); **gizon zuria** (6); **gorria eta zuria** (4); **harri zuria** (4); **hatz zuria** (5)

**ilargi zuria** (4); **ile zuria** (13); **ilea zuria** (4); **iraultza zuria** (4); **izotz zuria** (6); **kapela zuria** (4); **ke zuria** (9); **kolore zuria** (10); **laino zuria** (4); **lepo zuria** (4); **liburu zuria** (26); **liburu zuria aurkeztu** (4); **luze zuria** (4); **magia zuria** (5); **mantal zuria** (8); **mari zuria** (8)

**ogi zuria** (5); **oihal zuria** (5); **orri zuria** (7); **oso zuria** (5); **paper zuria** (15); **paper zuria belzteagatik** (5); **soineko zuria** (18); **talde zuria** (4); **txaleko zuria** (5); **txeke zuria** (8)

**zaldi zuria** (5); **zapi zuria** (8); **zuri zuria** (53); **zuria baino zuriago** (4); **zuria beltz** (15); **zuria beltzekoek** (4); **zuria belzteagatik** (5); **zuria besterik ez** (4); **zuria buruan** (4); **zuria edo beltza** (4); **zuria eta beltza** (20); **zuria eta gorria** (4)

are zuriago (4); baino zuriago (35); baino zuriago jarri (5); elurra baino zuriago (6); papera baino zuriago (4); zuria baino zuriago (4)

are zuriagoa (5); baino zuriagoa (13)

are zuriagoak (4); baino zuriagoak (5)

argi zuriak (6); arma zuriak (4); arropa zuriak (5); arrosa zuriak (4); beltzak eta zuriak (10); bezain zuriak (13); bizar zuriak (4); boto zuriak (7); dio etxe zuriak (7)

elurra bezain zuriak (4); emakume zuriak (4); erregina zuriak (12); esku zuriak (8); eskularru zuriak (5); etxe zuriak (189); gailur zuriak (4); galtza zuriak (8); galtzerdi zuriak (8); gau zuriak (4); gizon zuriak (14); globulu zuriak (10); gorriak eta zuriak (4); hartz zuriak (9); horma zuriak (8); hortz zuri zuriak (5); hortz zuriak (10)

ile zuriak (10); izara zuriak (4); kolore zuriak (4); letra zuriak (5); liburu zuriak (18); luma zuriak (5); nano zuriak (6)

oihal zuriak (4); orri zuriak (8); paper zuriak (4); praka zuriak (5); soineko zuriak (4); talde zuriak (4)

zaldi zuriak (6); zaldun zuriak (4); zapata zuriak (7); zapi zuriak (11); ziren zuriak (4); zuri zuriak (26); zuri zuriak zituen (5); zuriak bailiran (4); zuriak bere (8); zuriak dira (12); zuriak edo beltzak (6); zuriak erakusten (5); zuriak eta beltzak (8); zuriak ikusi (5); zuriak ikusten (5); zuriak izan (12); zuriak janzten (5)

andra mari zurian (4); etxe zurian (34); liburu zurian (5); orri zurian (5); paper zurian (6); zuri zurian (4); zurian beltz (8)

ardo zuriarekin (4); arropa zuriarekin (4); dama zuriarekin (4)

ama zuriaren (4); andra mari zuriaren (73); andra maria zuriaren (6); argi zuriaren (4); arraza zuriaren (4); bere zaldi zuriaren (4); dorre zuriaren (5); erregina zuriaren (5); etxe zuriaren (36); gizon zuriaren (10); harri zuriaren (4); hartz zuriaren (5); hatz zuriaren (7); liburu zuriaren (7); mari zuriaren (74); mari zuriaren jaietan (5); mari zuriaren plazan (37); mari zuriaren plazatik (8); maria zuriaren (7); oihal zuriaren (5); orri zuriaren (4); paper zuriaren (7); talde zuriaren (8); zaldi zuriaren (8); zaldi zuriaren gainean (5); zaldun zuriaren (5)

zuriaren arteko (4); zuriaren aurka (4); zuriaren aurrean (10); zuriaren azpian (8); zuriaren esku (4); zuriaren eta beltzaren (5); zuriaren gainean (38); zuriaren gaineko (4); zuriaren gainera (4); zuriaren gainetik (6); zuriaren inguruko (6); zuriaren jaietan (5); zuriaren kontra (6); zuriaren plazan (45); zuriaren plazatik (10)

etxe zuriarentzat (5)

etxe zuriari (27); zuriari begira (5)

gizon zuriek (9)

gizon zuriekin (5)

boto zurien (7); gizon zurien (7); hartz zurien (5); tximeleta zurien (4); zurien artean (17); zurien arteko (5); zurien azpian (4); zurien eta beltzen (4); zurien gainean (7)

horma zurietan (5)

andra mari zuriko (20); andre mari zuriko (4); azal zuriko (4); bizar zuriko (4); dorre zuriko (4); etxe zuriko (109); etxe zuriko bozeramaile (12); etxe zuriko buruak (6); etxe zuriko eledun (8); etxe zuriko eledunak (5); etxe zuriko iturriek (4); etxe zuriko segurtasun (7); ile zuriko (11); ile zuriko gizon (4); kolore zuriko (5); larru zuriko (4); mari zuriko (24); zuri zuriko (4)

beltzetik zurira (5); etxe zurira (17); zurira eraman (4)

etxe zurirako (14)

arropa zuritan (4); ilargi zuritan (5)

etxe zuritik (7); zuritik beltzera (9)

alkandora zuriz (8); arma zuriz (4); arropa zuriz (4); bata zuriz (4); burutik oinetaraino zuriz (4); goitik behera zuriz (6); harri zuriz (6); oihal zuriz (4); oinetaraino zuriz (4); soineko zuriz (11); soineko zuriz jantzia (4); zapi zuriz (5)

zuriz egina (5); zuriz estalia (5); zuriz estalirik (6); zuriz estalita (4); zuriz estalitako (5); zuriz jantzi (5); zuriz jantzia (16); zuriz jantziak (6); zuriz jantziko (5); zuriz jantzirik (11); zuriz jantziriko (4); zuriz jantzita (45); zuriz jantzitako (25); zuriz jantzitako gizon (4)

artile zurizko (4); harri zurizko (4); paper zurizko (4)

---

zuribeltz ik **zuri 31**.

---

**zuribide** *iz* nork bere burua edo besterena zuritzeko erabiltzen duen argudioa edo aitzakia. ik**zurigarri**.

Iruditu zait denerako zuela **zuribidea**, eta hori batez ere beraren lanaren gogorrean, bere lanaren zailtasunean eta estresean zetzala. Patxi Zubizarreta

Guk bizi beharra sentitzen genian, eta horrek ere ez dik inolako **zuribiderik**, berak, motibo berdinak izanik, heriotza hautatu baitzuen. Xabier Olarra

HPk utzitako odol arrasto artean bero-beroen gainean barre trumoitsuan aritzea gizatxarkeria barkaezina iruditu baitzitzaigun, inolako **zuribiderik** ez zuena. Karlos Linazasoro

Horrexegatik igo naiz zuzenean etxera, kalean gelditu ere gabe; ama ikusteko presa nuen **zuribide**. Xabier Mendiguren Elizegi

Eseririk, herabe, Loewenthal-en aurrean desenkusaturik, leialtasun-legea aipatu zuen (salatari zen ber) bere jokabidearen **zuribide**. Juan Garzia

Berraztertu [...]: jadanik hartutako erabaki baten **zuribideak** bilatu. Xabier Olarra

Etxeen jabeak harri eta zur zeuden, eta **zuribiderik** gabeko neurri iritzi zioten. Berria - Mundua

Zenbakiei eta irudiei buruz esandakoaren **zuribideak**, nahiz haiek ez zieten demostrazio deituko. Jon Muñoz

**hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**

inolako zuribiderik (3)

---

**zuridun** **1** *izond* adierazten dena zuria duena.

Galdetu mantal **zuridunei**. Oskar Arana

Ni eta ile **zuriduna**. Fernando Morillo

Chadefaud tratulari ile **zuridunak** Janinari hitza eman zion Eva sano eta salbo Arbidera eta handik Zuberoara lagunduko zuela gau hartan berean. Itxaro Borda

Baztertuta sentitzen direnak oligarkak dira orain, Venezuelako botoeretsuenen seme-alaba aurpegi **zuridunak**. Berria - Mundua

Gizon garaia, mehea, zepilluaren moduko bibote sarri tente **zuriduna**, beti bizikletan joaten zena zira beltz bat eramanez zirimolaka. Fernando Rey

"Hori ez da ezer" edo "hasi al zara kexatzen? Ez zaizu gutxi geratzen oraindik!" esaten dizun bata-**zuridunari** erantzuteko. Arantxa Iturbe

Begia keinatu zidan zapata **zuridunak** jauzi egin aurretik. Harkaitz Cano

Soineko beltz lepoko **zuridun** batez jantzia. Anjel Lertxundi

Ikur **zuridunak** akabatzeak puntu gutxiago ematen du eta, beraz, diru gutxiago. Iban Zaldua

Atera zuen bere jaka-laurden listatu hartako ezker sakelatik botilatxo zapal bat eta zipriztindu zituen hartaz bere jipoiko hegalak, eskuak eta gorbata zabal, urdin, pinta **zuriduna**. Matías Múgica

Lepo-zuriak ofizinetako langileak dira (alkandora **zuridunak**, nolabait), eta lepo-urdinak berriz ekoizpen-langileak (mahonezko jantzidunak, alegia). Iñaki Heras

Gorriak ziren, alboetako marra eta gerriko **zuridunak**. Josu Landa

**2** (beste izen baten ezkerrean) zuriko.

Brusa **zuridun** langile batzuek galtzada zeharkatzen zuten pausoa arin, lanabesak besapean. Karlos Zabala

Parkeko belardian eta bidexketan, kolore motel-tristeetako atorra luzez jantzita, gaixo-taldeak ageri ziren, atzera-aurrera presarik gabean; alboan, mantal **zuridun** erizainak edo, kontrastean, senide-lagunak kale-jantzian. Anjel Lertxundi

Bizar **zuridun** gizontxoak begiak kliskatu zituen orduan. Fernando Morillo

Bi gazteek eta ile **zuridun** jaunak etengabe beren buruari esaten dioten gezur mota. Monika Etxebarria

Kimu **zuridun** kabalatik beheratu eta erran zuen: [...]. Itxaro Borda

Nire begiradak orri **zuridun** koadernora luzatzen zirenez, [...]. Monika Etxebarria

Luzaroan itxaron behar, beraz, gu denok kaleko arropa arruntez jantziak, inguruan soineko **zuridun** hamaika emaztegai eta kamarero-itxurako beste hainbeste senargai genituela. Joxe Austin Arrieta

· Begi ondoan orezta zuen zapata **zuridun** gizon bat inguratu zitzaidan. Harkaitz Cano

**hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
**ile zuridun** (8); **ile zuridun neska** (3); **ile zuriduna** (15); **ile zuridunak** (3); **lepoko zuridun soineko** (3)

---

## zuriezin *izond* ezin zurituzkoa.

Noiz eta ustekabean berriro harrapatzen baikaitu, galtzen dugu bertze behin zentzua eta, **zuriezina** zuritu nahian, asmatzen ditugu zentzurik gabeko zentzugabekeriarik handienak, halako moldez, non bailirudike ezen zentzua galtzeari irizten diogula zentzuzkoen. Joan Mari Irigoien

Zer ez dugu asmatzen gizonok, **zuriezina** zuritzeko eta gure kontzientziaren nolanahi garbitzeko...! Joan Mari Irigoien

---

## zurigarri 1 *iz* hutsegite bat zuritzen duen zera. ik **zuribide**.

-Istripu tiki bat -errepikatu nuen buruz ikasitako **zurigarria** . Aingeru Epaltza

Ez naiz desenkusetan ez **zurigarri** alferretan abiatuko. Aingeru Epaltza

Ezin zitekeen, beraz, gaztetasuna **zurigarri** erabili. Irene Aldasoro

Familian zoritxar ugari eta fortuna-galerak izan zituztela esaten zuen denbora guztian; hori, edari bizitarako zuen zaletasunaren **zurigarria** zela iruditzen zitzaion, nonbait. Josu Zabaleta

Bere ahulaldiaren **zurigarri** , umea ez zuela nahigabeak emateko ardurapean hartu zioen berekiko. Karlos Zabala

Nire buruari barkatzeko asmoz, halabeharra jartzen badut zoritxarraren **zurigarri** , halabeharraren mende jartzen naiz. Josu Zabaleta

Bestela, biziaren gezagarriak, gorri-beltzen **zurigarriak** , xikiñaren garbigarriak... nahi adina atera daitezke hemen. Iñaki Segurola

Lau mota bereizten dira: larriak, barkagarriak, **zurigarriak** eta goresgarriak, baina hildakoari ez zaio asko axola berea batean edo bestean sartzea: sailkapena abokatuen mesedetarako da. Xabier Olarra

**2** (izenondoekin)

Gero, **zurigarri** moral horrekin alaiturik [...] inorekin haserretu gabe, etxera bueltatu zen etsi-etsian, espiritua askeagoa zuela. Karlos Zabala

**3** (izenondo gisa)

Mahonyren arreba zaharragoak ohar **zurigarri** bat idatziko zuen Mahonyrentzat, eta Leo Dillonek anaia gaixo zegoela esango zuen. Irene Aldasoro

• **4** *izond* kolore zuria ematen duena.

Loup-Y-Es-Tu etxeak garai batean merkaturatu zituen krema **zurigarriez** arduratzen hasi zirenean. Joxan Elosegi

---

## zurigorri ik **zuri 34**.

---

## zurigune ik **zuriune**.

---

## zurikin *(orobat **txurikin, xurikin**)* *iz* zuritu den patata eta kidekoen azala.

Gazteek anitz sofritzen dute hortarik, eta sorjeskerietara lerratzen dira lur-sagar **xurikin** jate, kontserbuko boata huts milikatze, bidean isuri salda ondarkin biltze. Marzel Etxehandi

Fruitu azalak edo barazki **zurikinak** jango nituen, fruitu paseak, ezkurrak, zizareak. Joxan Elosegi

Ezkaratzean, arto **txurikinez** eta belar onduzko ohea, gau hori hantxe egin zezan. Pello Zabala

Urriak, hainbat baba-leka, hainbat artaburu beren **txurikinez** jantzita. Pello Zabala

Ez ninan nahi izatea **zurikinez** betetako nire lastaira lekuz aldatzea bakarrik. Anton Garikano

Lur, belar, lokatz, **zurikin** , hosto, lasto, artaburu, txirla... denen gainean zegoen lo eginda. Anton Garikano

---

## zuriko *iz* antzinako zenbait txanponen izena, eskuarki marabedi erdia balio zuenarena. ik **zuri 19; lauzuriko**.

Berdin maite zituen errealak, **zurikoak** eta batez ere urrezko ezkutuak. Juan Garzia

Akabo errealak, akabo **zurikoak** , akabo urrezko ezkutuak; txiroki bizi zen ogiz eta gaztaz, eta bere katilu uraz. Juan Garzia

---

## zurimin *iz* zuritasun bizia.

Betazaletatik zehar egunsentiaren **zurimina** iristen zitzaidan. Juan Garzia

---

## zurinabar *(corpusean **xurinabar** soilik)* *izond* orban ilunak edo arreak dituen zuria.

Sekulan ez zait ahaztuko, argia ihintzak urre bihurtu zuela zirudien soro hartan, hegazti **xurinabar** gorrixta haren ibilera bildurtia. Patziku Perurena

Eta ikusia dut jende frango, pigmentu eskasi horrengatik, gorputzeko zenbat alderditan pinto **xurinabarrak** dituena. Patziku Perurena

---

## zuringo 1 *iz* arrautzaren gorringoa inguratzen duen gai likatsu zurixka.

Arrautzaren **zuringoa** ziruditen kolore argiko begi haiek. Xabier Mendiguren Elizegi

Cesareoren etxetik joan naizenean, hantxe geratu da bera, oskolez, **zuringo** eta gorringo likaz erabat zikindurik, arras tematua, saski bete arrautza banan-banan horman iltzatzeko esperantzaz. Josetxo Azkona

Gorringoa plazeraren sinboloa litzateke, **zuringoa** eginbeharrarena. Xabier Mendiguren Elizegi

Arrautzaren erdigunea, gorringoa, literatura da; eta **zuringoa** , paraliteratura. Berria - Kultura

Aurrean, mahai gainean, tul pilo handi argitsu bat zuen, **zuringo** irabiatu bat zirudiena. Lopez de Arana

**2** (hitz elkartuetan)

Besikula txikien zelula-paretak arrautza **zuringoaren** molekula gantzatsuekin egin dituzte. Berria - Gaiak

Arraultza **zuringoa** goititu da. Berria - Ekonomia

**3** begi globoaren alde zuria.

Geltokia baino lehentxeago, zubi akabuko aterpe horretan, soinujole itsu bat egoten da beti, betaurreko beltzekin, eta, hala ere, begietako **zuringoa** agerian, gorantz begira balego bezala. Harkaitz Cano

Aurpegia zintzilikaria zuen, ardo-kolore ilunekoa, eta horailak bekainak eta bibotea; begiak, berriz, irten samarrak, eta uherrak **zuringoak**. Irene Aldasoro

---

**zuringotu** *izond* zuringo itxura hartu duena.

Aretoetako batean sartu, eta hara zer ikusten duten zure begi **zuringotuek**: gela bat huts-hutsa, baina kontuz, txoko batean erratz bat dago, ondoan hark jasoak diruditen xakar batzuk dituela. Iñaki Segurola

---

zurino ik **zuriño**.

---

zurino ik **zuriño**.

---

**zuripen** *iz* zuritzea.

Orain jendeak ez daki zeren alde trabes egin; orain jendeak **zuripen** guztizko bat behar du, euskarri sendoago bat. Karlos Linazasoro

---

zuriska ik **zurixka**.

---

**zurista** *izond* zurixka.

Nafarrak eta Baskoak antzeko dira jantzitan, janaritan eta hizkeran; baina, baskoek arpegije **zuristagoa** dute nafarren aldean. Patziku Perurena

Diamanteak **zuristak** dira eta biziki gogorrak, altzeirua eta mitra errazki motz ditzakete. Aurelia Arkotxa

---

**zuritasun** *(orobat* ***txuritasun*** *g.er.)* **1** *iz* zuria denaren nolakotasuna.

Ez baitakigu zer den gorria, zer beltza, zer zuria, dakiguna da odola gorria dela, gehienetan, ikatza beltza, elurra zuria, baina odolak ez du zehazten gorritasuna, ez ikatzak beltztasuna, ez elurrak **zuritasuna**. Felipe Juaristi

'Zafiroaren **zuritasuna'**, esaldi horrek 'gardentasuna' adierazten du, eta ez 'kolore zuria', kristalaren **zuritasuna** ez baita zuria. Xabier Kintana

Haren sabelak ogi-mamiaren **zuritasuna** du. Itziar Otegi

Haren begi handien **zuritasuna**, bestelakotasuna, basa animaliena bezalako edertasuna. Joxe Austin Arrieta

Ondikotz, lantokian orrialde garbi eta guztiz birjinal baten **zuritasuna** neukan eginkizun, noiz beteko -noiz belztuko- zain. Aingeru Epaltza

Uhartera heldu eta lehorra harri bel beltza izango da agerian denean, elurraren **zuritasunak** eta glaziarren urdinak estaltzen ez duten guneetan. Joseba Sarrionandia

Gertakari tamalgarri hari esker ezagutu baikenuen elkar, La Roseraie-ko ospitaleko **zuritasunean** gure oheak elkarren ondoan suertatuta. Alberto Ladron Arana

Elur orratzek itzelezko mina eginen dizute, eta haize izoztuak arnasa ostuko dizu, eta **zuritasunak** ikusmena kenduko dizu. Joseba Sarrionandia

**2** (izenondo eta izenlagunekin)

Begia liluratzen du haren **zuritasunaren** ederrak. Elizen arteko biblia

Haren aurpegiaren obaloa polit-polita zen, eta biribila, arrautza errun berria bezala, eta halako **zuritasun** garden bat erakusten zuen. Jose Morales

Zilarraren distira biziak eta **zuritasun** mateak. Karlos Zabala

Inspektorea etorri bitartean, gelaren gelditasunak, soinurik ezak, pareten **zuritasun** hotzak... hustasunaren moduko zerbait eragin dizute barrenean. Rafa Egiguren

[Xaboiak] izan ere, dohain bereziak zituen masailei leuntasun eta **zuritasun** harrigarria emateko. Jose Morales

Kumulu batek elurrezko bere **zuritasun** sinesgaitza zabaldu zuen zeru arbeltsuan gaindi. Lopez de Arana

Hau guztiau guk urrundik lauso ikusten dugu, muino berdearen gainean **zuritasun** geldi bat bezala. Xabier Amuriza

Ezker begiaren **zuritasun** lehertuak begirada izua erakusten zuen. Joxemari Urteaga

Ararat mendiaren **zuritasun** dotorea oso-osorik eta garbi-garbi begiesteko abagunea. Jon Arretxe

Zeruan lainoak zeuden, **zuritasun** erabat garbikoak eta oso trinkoak, eguzkia zapuzteko gauza zirenak. Bernardo Atxaga

Haren arropek sekula ez zuten halako **zuritasunik** izan. Karlos Zabala

Karn mendien inguramendua udaberriko lehen egunetako **zuritasun** distiratsu lausoan hondoratzen da. Josu Zabaleta

Izan ere, ezkontza, estatua, gure paradisu hau, lana, alardeak, erostea, eskola eta **zuritasun** eta zurikeria globala ez baitira ukitu ere egiten. Iñaki Segurola

Eskua luzatu eta ez du ukitzen ahal, lainozkoa da **zuritasun** hau. Koldo Izagirre

Bere aurpegiak, berriz, kriseilu argiaren **zuritasun** gauekoa dauka. Pako Aristi

**3** (hitz elkartuetan)

Leihoak ikus zitezkeen argiro; haietako batean **zuritasun** ukitu bat, eta sastraka ipitz berde bat harkaitz gainean. Anton Garikano

**Zuritasun** zatiak ezkerrera, goian, geldirik.· Erakustokiaren marmola gorria zen, zain grisez tartekatua; haren azpian, arrautza saskiek klera **zuritasuna** zabaltzen zuten. Koldo Izagirre

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
> **haren zuritasuna** (3); **zuritasunean are** (4)

---

**zuritegi** *iz*

Zuriak **zuritegi** dituk. Itxaro Borda

---

**zurito** *iz* garagardo basoerdia.

Zerbitzaria basoerdiak eta **zuritoak** banatzen ari da, salmahai osoa hartuta. Javi Cillero

Guk **zurito** bana eskatu genuen. Iban Zaldua

**Zurito** bat hartzen hasiko naiz eta azkenean zaldia sartuko dut zainetan aurrera. Pako Aristi

Hiru aldiz sartzen ginen tabernaren batera, **zurito** bat edatera. Iban Zaldua

Azkenik, agur esan genion Carlos Sanzi; ez zigun **zuritoak** ordaintzen utzi. Iban Zaldua

---

**zuritu**, zuri(tu), zuritzen *(orobat* ***txuritu*** *g.er.)* **1** du *ad* zuriz margotu.

Bi mujik, haien gainean zutik, hormak **zuritzen** ari ziren kanta amaigabe bat abesten zuten bitartean. Jose Morales

Harritzar batzuk hartu, tente ipini eta karez **zurituko** dituzue. Elizen arteko biblia

Eskailburuaren beste aldera joan zen, karez **zuritu** ere egin ez zuen gela zulo batera. Karlos Zabala

Gero teila horiek kare-urez **zurituko** dira. Santiago Iruretagoiena

**2** kolore zuria edo zuriagoa eman.

Beltzez jantziriko atsoa ikusiko zuten beldurrez, sega eskuan, ilargiak **zuritutako** larrainean. Koldo Biguri

Espartzuarekin dzit-dzat ari zen, baldosaren horia **zurituz**. Jasone Osoro

Courbevoiseko errepidea hautsez **zuritua** ageri zen. Karlos Zabala

Beltzek estatuaren kontura beren azala **zuritzeko** duten eskubidearen alde. Iñaki Segurola

Eguzkiak **zuritutako** zeruan. Monika Etxebarria

· Fonendoskopioa estutu du gogor, ukabila **zuritu** zaio jaulier sutuari moduan. Koldo Izagirre

**3** (arropa eta kidekoak) garbitu.

Komandoko lau mutikoak ez ziren jateko eta garbiketa egiten ohituak, lan hori beren amen gain utzia zuten, klandestinitate hein batean sartu ondoan ere: arropak **zuritzera** etxera ekartzen zituzten. Itxaro Borda

Gero alderantzizko eragiketa egiten nuen, eta arropa **zuritu** ahala ura findu egiten zen berriro ere, ibaietako ur mehea izan arte. Lander Garro

Beren soinekoak Bildotsaren odolean garbitu dituzte eta **zuritu**. Elizen arteko biblia

**4** azala kendu.

Peter lurrean zilipurdika ari zen Muxi katuarekin, eta ama, Margot eta ni patatak **zuritzen**. Josu Zabaleta

Har dezagun arotz bat, adibidez: arbola egoki bat botatzen du, **zuritzen** du trebeziaz, behar bezala landu eta bizitzako beharretarako tresna bihurtzen du. Elizen arteko biblia

Jakobek, zumitz-, urritz- eta platano-ziri heze batzuk harturik, **zuritu** egin zituen. Elizen arteko biblia

Porruak garbitu, azenarioa **zuritu** eta txikitu. Unai Iturriaga

Kakahuete bat mekanikoki **zuritu** eta ahoan sartu zuen. Lopez de Arana

Erraz **zuritzen** nituen gaztainak, oso gogorrak eta lehen baino kakoagoak bainituen azkazalak. Joxan Elosegi

Sethek fruta ukitu eta **zuritzeko** labana hartu zuen. Anton Garikano

Madari bat ebatsi nion frutontziari, eta **zuritu** gabe kosk egin. Aingeru Epaltza

Platanoak **zuritzeko** makinaren planoak. Jesus Mari Mendizabal

Elektrokuzioan, benetako pozoia injektatzean edota gerezi bati azala **zuritu** eta haragi biluzian gatza bota zionean. Berria - Kultura

· Herritarrak arto- **zuritzen** ari dira. Pablo Sastre

**5** norbaitek bere edo besteren hutsegitea-edo garbitu; auzi edo kideko bat konpondu edo ebatzi.

Alkateek argi utzi dute eurek ez dutela Iberdrolaren hutsa **zurituko**. Berria - Euskal Herria

Istorio polit bat baizik ez genioan kontatu beharko, luzapena **zuritzeko**. Aingeru Epaltza

Zer ez dugu asmatzen gizonok, zuriezina **zuritzeko** eta gure kontzientziaren nolanahi garbitzeko...! Joan Mari Irigoien

Zerbait esaten hasi zen, bere jokabidea **zuritu** nahirik. Karlos Zabala

Aitzakiaz mukuru nengoen, bada, neure koldarkeria **zuritzeko**. Juan Kruz Igerabide

Ez dut beste aitzakiarik aurkitzen harenganako erakarpen bitxi hau **zuritzeko**. Antton Olano

Morroi horren hilketa **zurituko** duen legerik ez dago, ordea. Imanol Unzurrunzaga

Legearen errealitatea beren bihotzetan idatzia daukatela erakusten dute, beren kontzientziak aitortzen duen bezala, batzuetan salatu egiten baititu eta besteetan **zuritu**. Elizen arteko biblia

-Denetarik erran behar izan zioat hi **zuritzeko**. Aingeru Epaltza

-Lehenago badiat kontu bat **zuritu** beharra birigarro honekin -lagunari erantzun-. Aingeru Epaltza

"Ez nago ohituta hiriaren alde honetan", **zuritu** zuen gidariak bere ezjakintasuna. Harkaitz Cano

Billeteak erabiltzeak sortzen zion atseginbidearekin **zuritzen** zuen bere bakardadea. Patxi Zubizarreta

Honezkero, neure burua zuen aurrean **zuritzen** ari naizela uste izango duzue. Elizen arteko biblia

Apezak, ordea, bere jarrera **zuritzen** segitzen zuen: apezgoa; eliztarrei zor zien begiramena; [...]. Anjel Lertxundi

Ez duzu zure burua zertan **zuritu**, ez duzu bizitza guztia azalpenak ematen pasatuko. Jon Alonso

Gehexan Jaureneak arbasoen ilobi aitzinean zin egin zuela familiaren desohorea **zurituko** zuela. Elena Touyarou

Jean-Pierre Destrade Hiriburuko kontseilaria da epaituko duten politikari bakarra, Frantziako alderdi sozialistako arduradunak **zuritu** baitituzte. Berria - Euskal Herria

Noiz **zuritu** nahiko zuen Vatikanoak aspaldian Euskal Herriarekin duen auzia. Piarres Xarriton

Tintaren tasunak bitxi eta kontraesankorrak dira: ospea eman eta desegiteko erabil daiteke; ospea belztu edo **zuritzeko**. Xabier Olarra

Acciona (%2,29), Acerinox (%1,71), Altadis (%1,49) eta aberats askok begitan hartu omen duten Bankinter (%1,4) izan ziren egun gorria pixka bat **zuritu** zutenak. Berria - Ekonomia

Zentzugabekeria zentzugabekeriak **zuritzen** du. Karlos Linazasoro

Ez da samurra egoera horretan (mendian hamaiketakoa egiten ari dela) obra horren beharra **zurituko** duten arrazoiak aurkitzea. J. Garzia / A. Egaña / J. Sarasua

«Gasteizko Gobernuaren aurpegia **zuritzeko** saioa da», adierazi zuen Iñigo Elkoro abokatuak protokoloari buruz. Berria - Euskal Herria

1976an Gasteizen jazotako gertakariak ikertu eta erantzukizunak **zuritzeko** eskaria eraman zuen atzo Martxoaren 3ko Biktimen Elkarteak Europako Parlamentura. Berria - Euskal Herria

**6** elurrez estali.

Litekeena da leku batzuetan 700-800 metrotan **zuritzea**. Berria - Euskal Herria

Abenduko gau batean, leihoa irekitzean, elurrez erabat **zurituak** aurkitu zituen teilatuak. Karlos Zabala

Elurrak Nafarroako herri ugari **zuritu** zituen atzo. Berria - Euskal Herria

Kalea **zurituta** zegoen, elurra ari baitzuen gau hartan Parisen. Xabier Olarra

Lehenengo elurrek **zurituak** zituzten ordurako Baikal ondoko mendi gailurrak, udara arte horrela iraungo zutenak. Karlos Zabala

Oraintxe iritsi da elurra kale zuloraino, eder, mantso eta lodi, eta dena **zurituta** utzi du: teilatuak, autoak, zuhaitzak, parkeko eserlekuak... Pako Aristi

· Inguruko tontorrak apur bat **zuritu** ziren, baina ez hiriko karrikak, ordea. Berria - Euskal Herria

Atzo **zuritu** egin ziren Euskal Herriko gain asko, eta negu-negukoa izan zen eguraldia. Berria - Euskal Herria

**7** legezkoa ez den dirua legezko bihurtu.

Senarra eta biok ez gara ezagunak alderdi honetan, apartamentu hau inbertsio hutsa baita, diru beltza **zuritzeko** propio erosia. Migel Angel Mintegi

Deklaratzeak eta aitortzeak ere diru beltz izenekoa **zuritu** egiten dute, diruari bere zikin, gaitz edo bekatu fundazionala ritual edo izapide merke batekin barka dakiokeela erakutsi nahiz bezala. Iñaki Segurola

Hamabi atxilotu, ustez dirua **zuritzeagatik**. Berria - Euskal Herria

• **8** da *ad* kolore zuria hartu.

Lulu gorri-gorri jarri zen bat-batean, gero **zuritu** egin zen, eta aurpegia eskuez estali zuen. Josu Zabaleta

-Margoti eta niri segituan antz ematen zaigu zer tenperatura egiten duen: hotz egiten duenean **zuritu** egiten gara, eta bero egiten duenean gorritu -esan diot. Josu Zabaleta

Haietako bat Ernesto Alvarez zen, gizon beltzarana, begi-beltza eta bizarra **zuritzen** hasia zuena. Josu Zabaleta

Ilea **zurituko** zaik ibilera baldartuko eta atsegin-grina hoztuko. Elizen arteko biblia

Bere adinari, bere zahartzaroaren nagusitasunari eta lanean **zuritutako** ile agurgarriari zegokien jokaera ohoretsua hartu zuen Elezarrek. Elizen arteko biblia

Sekula ez dut halako aurpegirik ikusi, belarra bezain berdea, begiak **zuriturik**. Koro Navarro

**9** buruaz mintzatuz, ile zuriz estali.

Zahartu naiz ni eta **zuritu** zait burua. Elizen arteko biblia

Eta burua **zuritu** zitzaidan eta neure burua zuritzen nabil, badakit. Joan Mari Irigoien

**10** (era burutua izenondo gisa)

Pauso bakoitzean klarion puskaren bat prast prast zapalduz eta bere atzamar lodi eta **zurituak** ezkutatu ezinik. Joseba Sarrionandia

Barazki **zurituak** ziren ama Chantemesseren espezialitatea. Karlos Zabala

Patata **zurituak** hartu eta pure egiteko tresnatik pasatzen dira. Josu Zabaleta

Abereak edatera zihoazen asketan ezarri zituen ziri **zurituak** ardien aurrean. Elizen arteko biblia

Jainkoak joko zaitu, horma **zuritu** hori! Elizen arteko biblia

Otsailean, izozteek otsoak jaitsarazi zituzten mendi **zuritueta tik**. Xabier Olarra

Mendikate **zuritu** biren artean doan errepide zabal eta zelaitik. Jon Arretxe

Erlijiosoak santutasun-ispilu ziren, eta jende santu asko hilobi **zurituen** itxurakeriaz kutsatu gabe zegoen oraindik. Askoren artean

Honela, Bonabenturak bere burua **zuritzen** du, egin ziezaioketen objekzioei aurrea hartuz: hala nola, hainbat kontu isilpean uztearena. Askoren artean

Bibote sendo, oso zaindu, hori-**zuritu**, erabat horizontal batek bereizten zion aurpegiaren goiko zatia beheko zatitik. Matías Múgica

**11** (era burutua izenondo gisa, hitz elkartuetan)

Zein ongi datorkien zentzua ile-**zurituei** eta aholku ematen jakitea adinekoei! Elizen arteko biblia

Lurrez estalia, hagun hori-gorri bat ahotik zariola, begiak itzuli-**zurituak**. Michel Oronoz

**12** ***banana zuritu*** masturbatu.

Imanol ohean etzan zen begiak itxita eta laster banana **zuritzen** ari zen, oso mugimendu trebeez. Aitor Arana

Biharamunean esnatzean, ia egunero bezala, **banana zuritzeari** ekin nion. Aitor Arana

Oso noizbehinka neure buruari hatz bat sartzen nion **banana zuritzen** nenbilenean. Aitor Arana

**13** ***sudurra zuritu*** *adkor* kokaina edo heroina inhalatu.

Sudurra **zuritu** eta eztarria busti, bertzerik ez dik egin bildu dudanetik! Aingeru Epaltza

Susok koka lerro pare batez **zuritu** zituen sudur zuloak, eta gora jo zuen Marilyn itxurako putarekin, logela batera. Paddy Rekalde

Sudurra **zuritu** behar dut eta badakidanez zuk ez duzula gura, gelditu zaitez hemen, edo ni ez nagoen bitartean zoaz hemendik, ez naiz beti zure atzetik ibiliko. Sonia Gonzalez

**hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**

**ardura zuritu** (3); **bere burua zuritu** (20); **burua zuritu** (35); **burua zuritu behar** (3); **burua zuritu guran** (4); **burua zuritu nahi** (11); **burua zuritu nahian** (6); **erabat zuritu** (3); **gobernua zuritu** (4); **guztiak zuritu** (4); **jokabidea zuritu** (3); **karez zuritu** (3); **neure burua zuritu** (9); **patatak zuritu** (3); **sudurra zuritu** (3)

**zuritu ahal izateko** (4); **zuritu arte** (3); **zuritu behar** (12); **zuritu beharra** (4); **zuritu beharrean** (4); **zuritu ditu** (3); **zuritu du** (3); **zuritu ezin** (3); **zuritu gabe** (4); **zuritu guran** (5); **zuritu guran dabilela** (3); **zuritu nahi** (28); **zuritu nahi izan** (6); **zuritu nahi izatea** (4); **zuritu nahi zuela** (3); **zuritu nahian** (17); **zuritu nahirik** (4); **zuritu ondoren** (4); **zuritu ziren** (3); **zuritu zituen** (6); **zuritu zuen** (15)

**ilea zuritua** (4); **zuritua zuen** (3)

**zurituko du** (5); **zurituko duen** (3)

**dena zurituta** (4)

**bere burua zurituz** (3)

**bere burua zuritze** (3); **burua zuritze aldera** (3)

**burua zuritzea** (3); **dirua zuritzea** (8); **zuritzea egotzi** (4); **zuritzea leporatzen** (4)

**arroza zuritzeko** (4); **aurpegia zuritzeko** (3); **bere burua zuritzeko** (21); **beren burua zuritzeko** (4); **burua zuritzeko** (36); **buruaren zuritzeko** (3); **dirua zuritzeko** (8); **erantzukizunak zuritzeko** (3); **euren burua zuritzeko** (3); **jokabidea zuritzeko** (5); **neure burua zuritzeko** (5); **patatak zuritzeko** (3)

**zuritzeko balio** (3); **zuritzeko erabiltzen** (3)

**banana zuritzen** (4); **bere burua zuritzen** (7); **burua zuritzen** (16); **burua zuritzen saiatzen** (3); **dirua zuritzen** (4); **ilea zuritzen** (4); **neure burua zuritzen** (6); **patatak zuritzen** (8); **zuritzen baitzuen** (3); **zuritzen dituen** (5); **zuritzen dituzte** (3); **zuritzen du** (7); **zuritzen dute** (4); **zuritzen hasi** (3); **zuritzen hasia** (4); **zuritzen jarraitzen** (3); **zuritzen saiatzen** (4); **zuritzen zuen** (7)

---

# zuritxo *(orobat* ***txuritxo*** *g.er.) izond adkor* zuria.

Halako batean gune **zuritxo** bat itsaso mugan agertu zen arte. Edorta Jimenez

Aurpegi **zuritxoa** haur irribarrez argitu zitzaion eta hogeita hamahiru kandelatxoek distira egin zioten begi berde ilunetan. Sonia Gonzalez

Osabak berak lotsa handirik gabe eta irri **zuritxo** batekin aitortzen du mozkor galanta eta emakumezale porrokatua dela. Gotzon Garate

---

# zuritzaile *izond* zuritzen duena.

Gauza jakina da suak objektu batzuk urtu egiten dituela, beste batzuk gogortu, egosi, erre, zuritu eta belztu egiten dituela, eta norbaitek suari **"zuritzaile"**, "beltzaile", "erretzaile", "egosle", "gogortzaile" eta "urtzaile" delako atributuak egotz baliezazkio, egia lerrake. Xabier Kintana

Estrategia **zuritzailearen** hirugarren urratsa. Jon Alonso

Hurbiletik, Loup-Y-Es-Tu etxearen gai **zuritzaileak** oraindik erabatekoak ez zirela suma zitekeen: artesiz josia zeukan azala. Joxan Elosegi

Goi mailakoen arteko leku desiragarrienetako bat eskuratu zuela ere jakin nuen bidenabar, patata-**zuritzailearena**. Urtzi Urrutikoetxea

---

# zuritze *iz zuritu* aditzaren aditz izena.

Ganbara handian egin ohi zen arto-**zuritzea**. Pello Zabala

Hau aurpegi **zuritze** bat da. Berria - Euskal Herria

Esan dezagun diru-**zuritze** moduko bat izan zela, ez oso garbia. Jon Muñoz

Diru **zuritzea**, arma erosketa, droga trafikoa. Berria - Ekonomia

Merkatu beltza, trafikanteak, diru **zuritzeak**, adulterioa eta beste hainbat zikinkeria. Berria - Euskal Herria

Buru **zuritze** saio hori, hain merke eta faltsua, irentsezina izan zen azkenik Lucyrentzat. Joxemari Iturralde

Eta orduan, erle batek eztenkatu balu bezala, patatak **zuritzeari** utzi, eta aitarengana hurbildu zen amona Sinforosa, aiztoa eskuan. Joan Mari Irigoien

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
> zuritzeari ekin (3)

---

**zuriune** *(9 agerraldi, 7 liburutan –ETCn 117 agerraldi, 47 literaturan; orobat **zurigune** 8 agerraldi, 3 liburu eta 3 artikulutan –ETCn 21 agerraldi, 7 literaturan eta **txuriune** g.er.)* **1** *iz* gune zuria.

Hamahiru **zuriune**, laukiaren mugek eta hamabi marrek sortuak. Anjel Lertxundi

Zazpi urteren buruan, bela-oihalak alde bietatik idatzita zeuden, **zuriune** bakar bat ere utzi gabe. Harkaitz Cano

Mundua, Joseph Conrad-en ustetan, espazio mugagabe bezain kilikagarria izan daiteke, esploratzear dauden **zuriunez** beteriko mapa bat. Patxi Zubizarreta

Ohartu al zarete lerroaldeen luzeraz, ertzen eta **zuriuneen** zabaleraz, hitzen letra moldeez? Iñaki Arranz

**2** (hitz elkartuetan)

Katean egiten diren argazkilari amateurren argazkiek, ez markorik, ez bazter **zurigunerik** ez dute izaten. Josu Zabaleta

---

**zurixka** *(orobat **zuriska** g.er. **txuriska** g.er. eta **txurixka** g.er.)* **1** *izond* zuria-edo. ik **zurizta**.

Bere begiak urdinak eta **zurixkak** ziren aldi berean. Bernardo Atxaga

Aurpegi **zurixka** zuen, begi irtenak. Patxi Zubizarreta

Bere begitartea, lehenago betea eta horikara, zimeldua ageri zen, matrailezur irtenekin, larruazal **zurixkarekin**. Patxi Zubizarreta

Lore **zurixkako** zuhaixka handi samarra. J.M. Olaizola "Txiliku"

Bakailaoa, abadira, platuxa, oilarra, arrain arruntak horiek guztiak, gris zikin kolorekoak, orban **zurixkez** apainduak. Karlos Zabala

Untxien pixak beheko taulak erretzen zituen; hegaztien zirinak xaflak zipriztin **zurixkez** zikintzen. Karlos Zabala

Badian barrena zebiltzan ontziek estela **zurixkak** uzten zituzten urazal leunean. Bernardo Atxaga

Ur erdibituak bitsa altxatuko du eta apar kizkurtu horrek, enbarkazioaren alboak igurtzi ondoren, lorratz **zurixka** utziko du atzean. Joseba Sarrionandia

Horma **zurixkaren** atzean mendia hasten da. Pedro Alberdi

Arratsaldez eguzkirik gabe gelditzen diren hondartza **zurixka** bukaezinak. Aurelia Arkotxa

Argi **zurixkan** hiru kaio jira-biraka zebiltzan. Lopez de Arana

Goian hodeiak, zuri eta **zurixkak**, gorri eta gorrixkak, hori eta horixkak, kolore guztiak nahasten ziren inauteri bizi batean. Joan Mari Irigoien

Zeru **zurixka** hartan euriak zehar-arraia ilunak osatzen zituen. Bernardo Atxaga

Amonio klorurozko laino itxi **zurixka** batek harturik zegoen beti laboratorioa. Juan Garzia

Azazkalak ubel, besoak arre, eskuak **zurixka**, belakien kolore. Joxe Austin Arrieta

**2** (izenondo elkartuetan)

Berehala, gazteluaren masa gris-**zurixka** izan genuen bertatik bertara. Alberto Ladron Arana

Eguzkia Mendi Harritsuen gainetik agertzen hasten da ekialdean, eta argi **zurixka** urrekara batez blaitzen du kabina. Xabier Olarra

Kokteletik bits berde-**zurixka** isuri zen haien gainera. Lopez de Arana

Lore urdin **zurixken** lorezilak brodaturik. Anton Garikano

Paper hits **zurixka** urratuaren litsak. Anton Garikano

---

**zurixkatu**, zurixka(tu), zurixkatzen da/du *ad adkor* zuritu. ik **zuriztatu**.

"Bera nauzu, bai, baina lehendabizi egunon, gazte!", erantzun dio bisitariak, telefonoz entzuna zuen ahotsa apur bat **zurixkatuz**. Pako Aristi

Hesiaz bestaldeko lorategi txikian landare erkin batzuk zeuden, hiriko hautsak **zurixkaturik**. Jose Morales

---

**zurizta** *(orobat **txurizta** g.er.)* *izond* zurixka.

Hondartza erdiborobil **zuriztan**. Anton Garikano

Lehen kedarra baino beltzagoak, orain alderdi txuriekin, onddo **zurizten** haztegi eta armiarma iheskorren gordeleku. Anton Garikano

Begietako kolorea zurbildu zitzaion, zahartzaro ihartuaren itxura **zurizta** emanez. Anton Garikano

Beltzen artean ere beltzagoak eta **zuriztagoak** bait daude. Patziku Perurena

---

**zuriztatu**, zurizta, zuriztatzen da/du *ad* zurixkatu.

Areto handi baten gisakoa da, karez **zuriztatua**, bi ohekoa, bata handia da eta neskameek el matrimonio esaten diotena. Koldo Izagirre

· Ez zion galarazten leihoan bere burua erakusgai jartzea, begiak ikatz-margoz belzturik, masailak berun-**zuriztaturik**. Juan Garzia

---

zurizuri ik **zuri 40**.

---

**zurkaitz** **1** *iz* zuhaitz gazteei eta zenbait landareri, alboan euskarri gisa ezartzen zaion zuntoia. ik**hesol**.

Baratzea artoski artatzen zuen, arratsalde osoak han iraganez, hau landa, hura jorra, hemen **zurkaitzak** ezar, hantxe tomateak esteka. Daniel Landart

Zuhaixka eta **zurkaitzaren** arteko lokarriasorbaldak zorrotz, besoak argal eta begitsu, biluzik sorbaldetaraino, bi **zurkaitzaren** pare. Karlos Zabala

Etxearen berotasuna, lurraren indarra, horra hor bi **zurkaitz** paregabe lagunduko nindutenak baserriaren ongi kudeatzen! Daniel Landart

Mahastietako **zurkaitzak** bezain lodiak. Koldo Biguri

Mutilak indabetarako **zurkaitz** bat hartu du eskuetan. Oskar Arana

Ilarrak eta babarrunak beren zurtoin meheak kiribiltzen hasiak ziren hango **zurkaitz** basoan. Karlos Zabala

**2** irud/hed

Etxearen berotasuna, lurraren indarra, horra hor bi **zurkaitz** paregabe lagunduko nindutenak baserriaren ongi kudeatzen! Zuek zarete beti nere **zurkaitzak**. Daniel Landart

Euskal Herriko dinamikaren **zurkaitz** bilakatzen bada gauza ederrak egin ditazke. Herria

Ideia egiazkoa bera da bere buruaren zinezko berme bakarra bere egokitasunaren ebidentziarekin, eta ez du behar metodoaren **zurkaitzik** kanpotik eusten. Askoren artean

---

**zurkaiztu**, zurkaiztu/zurkaitz, zurkaizten **1** du *ad* zurkaitzen bidez eutsi.

Suntsitutako lubaki-horma bat **zurkaizteko** zeregina eman didate eta horretan hasi naizenean izan da. Mirentxu Larrañaga

**2** irud/hed

-Zure kuraiak malura **zurkaizten** du. Itxaro Borda

Hainbat urte bakean ginaudela, guk **zurkaiztu** bakean! Itxaro Borda

**3** (era burutuz izenondo gisa)

Portura sarrera aldean ontzi **zurkaiztu** bat zetzan, bere burdinazko gorputza erremediorik gabe eta alferrik herdoiltzen ari zela. Joseba Sarrionandia

Juanek bere ile gorri eta larru zuriarekin gringo itxura du paisaia honetan, moila **zurkaiztu** eta ia usteldu honetan. Joseba Sarrionandia

---

**zurlan** *iz* zura lantzea.

Hor ari dira lanean 180 herbaldu, tailer desberdinetan: ekoizpen muntaketak, **zurlan**, baratzegintza... Herria

---

**zurlandu** *iz* zur landuzko gauzakia.

Aizkoraz eta mailuz bota zituzten **zurlandu** guztiak. Elizen arteko biblia

**Zurlanduaz** eta haren altzorra ixuri lurraz du Odile Lazkarai-ek aitortzen amalurrari zor dion maitasuna. Herria

---

**zurmindu**, zurmin(du), zurmintzen **1** da/du *ad* gorputz atal baten higidura trabatu.

Gero eta **zurminduago** sentitzen nituen hatzak, grask-grask, estekatuak neskaren lepoan... Anjel Lertxundi

**2** irud/hed

Harrokeria zaurituak espirituak ditu **zurmintzen**, hutsegiteak areagotzen, beltzuria ekartzen, herra hedarazten; eta plazer burugabeak zorigaitz luzez ordainduak dira azkenik. Jon Muñoz

**3** lizundu, urdindu; ozpindu.

Haragizko atseginaren janari haiek guztiak denborarekin urdinduz joan izan balitzaizkit bezala, edariak **zurminduz**, eta zeren libertatea ez baitago diruz erosterik, finean. Joan Mari Irigoien

---

**zurmingarri** *izond* zurmintzen duena.

**Zurmingarritik** dute handitik dutena. Iñigo Aranbarri

---

**zurmio** *iz* orkatila.

Gona asko jantzita bata bestearen gainean, urrezko eta zilarrezko txanponek apaindutako kapelu hamaika kolorekoak, gazela-begi handiak, eskumutur eta **zurmio** finak. **Zurmioetan** koral gorriko zirgiloak zeneramatzan. Fernando Rey

---

**zurna** *iz* oboeen familiako musika tresna, mihi bikoa, herrialde musulmanetakoa.

Musika berezi hau sortzeko instrumentu tradizionalak (dukuka, **zurna**, kanuna...) eta modernoak (tronboia, saxoa, tronpeta, baxua, bateria...) uztartzen ditu. Berria - Kultura

---

**zurp** *adlag* irensteko onomatopeia.

Gaueko albistegien ostean, zoratu baino lehen, ohera joatea erabaki nuen, baina han, izarape bukagaitz hartan, bakardadearen mamu galanta zegoen kizkurturik eta irentsi egin ninduen, **zurp**, urreburuak zizarea bezala. Hasier Etxeberria

---

zurpail ik **zurbil**.

---

zurpaildu ik **zurbildu**.

---

zurpaildura ik **zurbildura**.

---

**zurpilkatu**, zurpilka(tu), zurpilkatzen da/du *ad*

Galtza zahar batzuk, gerrian makur jantziak, papoa dena irekia, urrunetik ere ageri bere atorra zuhaila dena **zurpilkatua** zuela. Janbattitt Dirassar

---

zurra ik **zurratu**.

---

**zurra-zurra** *adlag*

Baina **zurra-zurra** egin dut lo bart eta ez naiz logale. Monika Etxebarria

---

**zurragarri** *iz* zurratzen duen gaia.

Ez zidatean esan nahi izan zer zeukan, baina gauza jakina duk, larru- **zurragarri** organikoak polifenolak dituk, ez duk munduan erretxina ioi--trukezkorik hura geldiaraziko duenik, eta polifenol batek zilar bromuroaren baitan nolako eragina izan dezakeen heuk ere imajina dezakek, argazkigintzan kide izan gabe ere. Juan Garzia

---

**zurrakapote** *iz adkor* ardo, azukre, fruitu eta besterekin eginiko freskagarria.

Bolada batean, esaterako, **zurrakapotea** prestatu ohi zuen herriko koadrila batek jaietan: ardoari pattarra, azukrea, fruta-puskak eta auskalo zer gehiago botata egin ohi den edaria. Xabier Mendiguren Elizegi

Txerrikeria haiek, ordea, ez ziguten inondik ere egarria kentzen, are gutxiago kontuan izanik bakoitzak nahi zuena ordaintzen zuela basokada **zurrakapoteren** truke, oso prezio egokia gure ahalmen urrirako. Xabier Mendiguren Elizegi

---

**zurraldi** *iz* zurratzea, zurratzen den aldia.

Oldarrak, **zurraldiak**, suteak eta are hilketak ere albiste ziren egunero. Aingeru Epaltza

---

**zurrategi** *iz* larrua ontzeko lantegia.

Urbietaren kapela lantegia dago, paperola bat, **zurrategi** anitz, iltze, ferra, burdin jotako lapiko, burdin landuko balkoi, haga, ezpata eta fusil lantegi anitz. Edorta Jimenez

**Zurrategira** joan ninduan: jakin nahi nian noiz, non, zenbatean behin, zein egunetan husten zituzten tinak. Juan Garzia

Egun batean esan zidaan bera arrantzalea zela baina, urtebetetik hara, han aldameneko errekastoan, ez zela gehiago arrainik batere harrapatzen: bospasei kilometro gorago **zurrategi** bat jarri zutenik, hain zuzen. Juan Garzia

---

**zurratu**, zurra, zurratzen **1** du *ad* jipoitu.

Bakea hartu zuten gu ongi **zurratzeko** armatzat. Xabier Montoia

Aurpegia lur kolorezkoa zuen, beti kanpoan ibili den batena, lurretik hurbil, euriak eta haizeak joa, iguzkiak eta arratsetako suak **zurratua**. Michel Oronoz

Haren lagunek esan zioten farfailginari orga-ipurdi batean **zurratu** zutela gizona eta Paristik egotzi, prebostearen aginduz, Baudoyer atetik. Juan Garzia

-Larruginak larrua nola, hala **zurratu** haute garaztarrek. Aingeru Epaltza

**2** larruaz mintzatuz, ondu.

Ez alferrik amak larrua ondo **zurratu** zidaan zaildu zekidan. Juan Garzia

Larru- **zurratzeko** tinarik handiena astean-astean husten zuten, astelehenetik asteartera bitarteko gauean! Juan Garzia

Bada, hara, jauna, hain dauka **zurratu** eta ondua larruazala bere lanbidez, urari barneratzen utzeke eusten dio luzaroan; Juan Garzia

**3** (era burutua izenondo gisa)

Hurrengo goizean goiz, larunbatarekin, bere 4x4an hartu ninduen Templek; abeletxeak, arrantxoak, eskortak eta haragi-zatiketako lantegiak bisitatzeko erabiltzen duen ibilgailu **zurratu** bat da. Xabier Olarra

· Mahai gainean tentu handiz botata, ilun-koloreko larru **zurratu** bat zegoen, Indiako sehi ezezagun bat zuena margotuta. Mirentxu Larrañaga

---

**zurratzaile** *iz* larrua ontzen duen pertsona.

Zapataginek larrua lantzen dutelako, larruontzaile, eta larrugintzan dihardutenek eta **zurratzaileek** ere bai. Pello Zabala

Laguntza eske lerrotu zaizkio larru-ontzale eta **zurratzaileak** . Pello Zabala

Peire Vidal Tolosakoa zen, larru- **zurratzaile** baten semea, baina semeak ez zuen aitaren ogibidea hautatu. J.M. Olaizola "Txiliku"

---

**zurrean** *(orobat **surrian** eta **surrioan**)* **1** *adlag*

Bi haurrak herio **zurrean** ikusirik, hiru lagunak bi lehengusuak uretatik ateratzen saiatu ziren. Gotzon Garate

**2** ***labur-zurrean*** *(orobat **laburzurrean** g.er.)* *adlag* laburbilduz; laburtu nahian.

Denok ere pixka bat lasaitu ginenean, Roman hasi zitzaion obispoari **labur-zurrean** kontatzen zer gertatzen ari zen eta nola hurrengo baterako utzi beharko zuen martirioaren loria. Inazio Mujika Iraola

**Labur-zurrean** saiatu beharrean nago, ordea, hartaz guztiaz esan zizkidanetatik oroitzen ditudan apurrak ere asko baitira. Anjel Lertxundi

**Laburzurrean** edo berandu erantzuten duten lagunekin. Harkaitz Cano

Aginte-koadro nagusia azaldu nion neskari gutxi gorabehera, xehetasunetan sartu gabe; **labur-zurrean,** zer den kilowatta, zer hidraulika, zer amperea. Joxe Austin Arrieta

**Labur-zurrean** jasotako horrek bidenabar erakusten ditu Kode Zibilaren ardatzak. Andres Urrutia

Nor zen Walsh? **labur-zurrean:** idazle eta kazetari argentinarra, 1927an jaioa eta 1977an desagertua. Berria - Kultura

**3** ***merke-zurrean*** *(orobat **merkezurrean** eta **merke zuhurrean**; Euskaltzaindiaren Hiztegian **merke-zurrean** agertzen da)* *adlag* ahalik eta merkeena erosten saiatuz.

Gauzek balio dutena balio dute, eta ez gara **merke-zurrean** ibiliko. Berria - Kultura

Interesatzen zitzaizkigun liburuen orri-pasa egoten ginen; **merke-zurrean** jarduten genuen saltzaileekin, ezer erosi aurretik. Anjel Lertxundi

**Merke-zurrean** erositako gerriko estuegi batek atximurkatutako tripa. Antton Olano

Ohikoa da bederatzigarren abenidan jendea beren hildako senitartekoen telebista aparailuak eta janzkiak **merkezurrean** saltzen ikustea. Harkaitz Cano

Hartan, buhame itxurako saltzaile batek **merke zurrean** eskaintzen zuen olioaren kolorea gustaturik, txinta bat erosi du hartatik, laurden erdi bat besterik ez. Anjel Lertxundi

Hiru eguneko epean arazoa konpontzen ez bada karramarroa desizoztu eta hemengo maioristei **merkezurrean** saldu beharko diegu, Euskal Herrian bertan. Harkaitz Cano

Gaur egun politikoki zuzenak diren eta **merke-zurrean** eros daitezkeen kontzeptuak tolerantzia, bakea, elkartasuna sarraskitu egiten ditu. Berria - Kultura

**hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**

labur zurrean (10); merke zurrean (9)

## zurreko

**1** ***merke-zurreko*** *(orobat **merkezurreko**)* *izlag* merke-zurrean lortua.

Tratu labur baten ondoren, nire **merke-zurreko** erlojua prezio onean saldu nion. Juan Kruz Igerabide

**Merkezurreko** azokan eta jantoki ongintzazkoetan emandako haragi erdi-ustela Hipotesi xinpleak, eredu esplikatzaileak, funtzionalak, ekonomikoak edo **merkezurrekoak**... Xabier Olarra

## zurriburri *iz* nahaste-borrastea.

Tesiko zuraje teoriko-filosofiko guztiari, onberatasun pixka batekin, aprendiz inpresionatuaren **zurriburri** zentzubakoa iritzi dakioke. Joxe Azurmendi

Finkielkrautek, liburuaren azken aldera (151 eta hurr.), Shakespeareren defentsa egiten du populista errusiarren, XIX. mendean, eta deskolonizazio-filosofia eta **zurriburri** postmodernoaren anatematik, XX.ean. Joxe Azurmendi

## zurriburritsu *izond* zurriburri askokoa.

Beste parte bat begien bistakoa Unamuno-ren hamalau urteko eboluzio **zurriburritsua** baita, ideietan eta sentimenduetan. Joxe Azurmendi

zurrukuttun ik **zurrukutun**.

## zurrukutun *(orobat **zurrukuttun**)* *iz* arrantzaleek prestatzen duten arrain zopa modukoa. • *irud/hed*

Izkribuok deszifratzea da arazoa, amodioaren bidez maitearen txoko ezkutuetan sartzea, maitearengan kixkurtuta datzana destolestea, **zurrukuttunarekin** batasun jariakor bat osatzea, pitxer berera isuritako ur bilakatu biak. Markos Zapiain

- **Zurrukutun**! Iñaki Arranz

## zurruma *iz* takoia.

Bere buruari eman dion baimen bakarra, **zurruma** apur bat duten zapatak janztea izan da. Hasier Etxeberria

Zapaten **zurrumak** dira mailadiko harrizko lauzaren kontra. Hasier Etxeberria

## zurrumadun *izond* zurruma duena, takoiduna.

Galtzak more-kolore, zapata zilarrezko belarridun eta **zurrumadunak**, buruan lurrin urez bustitako ile-ordea eta eskuan makila, karguari zegokiona. Felipe Juaristi

zurrumilatu ik **zurrunbilatu**.

zurrumilo ik **zurrunbilo**.

zurrumu ik **zurrumurru**.

zurrumur ik **zurrumurru**.

## zurrumurru *(orobat **zurrumur** g.er. **zurrumu** g.er, **surrumurru** g.er. eta **xurrumurru** g.er.)* **1** *iz* hots arina. ik **marmar**[1].

Zarata poliki-poliki motelduz joan da, **zurrumurru** eta aurki isiltasun bihurtzeraino. Juan Garzia

Hildakoen espirituenaren antzeko izango da zure ahotsa, **zurrumurruaren** antzeko zure mintzoa. Elizen arteko biblia

Uraren **zurrumurrua** da ene aitaren aitaren ahotsa. Michel Oronoz

Ibaiaren urak hotsa egiten zuen, **zurrumurru** moduko bat, baina ez zuen jada izen hura ebakitzen: "Isidro, Isidro". Bernardo Atxaga

Eguna argitzear, euriaren **zurrumurrua** iritsi zitzaion ustekabean. Juan Garzia

Haizearen **zurrumurrua** zuhaitzen hosto artetik igarotzen den bezala. Felipe Juaristi

Suge-ezkaten **zurrumurrua** marmolezko eskaileretan. Oskar Arana

Argiro adi zitekeen uraren zaplada eta tanta erorien zalaparta eta olatuen **zurrumurru** eta txistuots antzeko bat. Anton Garikano

Itsasoko uhinen orroetatik basoko haizearen **zurrumurrura** doan itsasontzia bezala. Felipe Juaristi

-Bolada luze batean festa baten **zurrumurrua** entzuten nian ia gauero. Juan Garzia

Atsegina zen jiratze hark sortzen zuen **zurrumurrua** entzutea. Bernardo Atxaga

**Zurrumurru** bat entzuten da; kisketaren hotsa ondoren; ateari bultza egin eta ireki egiten du. Oskar Arana

Hitzak, esan gabe daudenean, **zurrumurru** baten moduan barreiatzen dira gure burmuinean. Pako Aristi

Ahotsa apaltzen zuten hitz horiek esaterakoan, **zurrumurruan** ahoskatzen zuten deabru hitza. Felipe Juaristi

Kalean **zurrumurruan** dabiltzan iritzi, uste eta esamesak jasotzeko. Edorta Jimenez

**2** (izenondo eta izenlagunekin)

**Zurrumurru** txiki bat besterik ez zen entzun lehenengo hitzak euskaraz egin nahi zituela esan zuenean. Berria - Harian

Autodidakta hitz eta pitz ari da, eta haren ahotsaren **zurrumurru** leuna dut belarrietan. Monika Etxebarria

Haizearen **zurrumurru** suabea, erloju zahar baten tiki-taka atsegina, beharbada tren batena izan zitekeen txistua. Berria - Kultura

Euria egin du; uraren **zurrumurru** mehea dator bidezidor-ertzeko erretenetatik. Oskar Arana

Kanpoko euriaren **zurrumurru** lausoa entzuten da. Jon Alonso

**Zurrumurru** gor bat hedatzen hasi zen bere oinen azpian. Joanes Urkixo

Airearen freskurak eta euriaren **zurrumurru** lehiatuak iratzarri nindutenn. Juan Garzia

Steffik bere buruari eutsi, eta **zurrumurru** isil, apalez mintzatu zen. Anton Garikano

Harridurazko **zurrumurru** bat sortu zen entzuleen artetik. Joanes Urkixo

**Zurrumurru** berdin, taxu zehatzik gabeko bat, gauean haizeak zuhaitz baten adarren kontra ateratzen duenaren antzekoa. Juan Garzia

Orduan Katedraleko dorreak zirriborro itzali bat baizik ez ziren, eta Lisboa bera ahots eta doinuen **zurrumurru** zehaztugabea baino askoz gehiagorik ez. Jon Alonso

Kontrako **zurrumurruak** ere badaudela esan zuen Serge Franchou Prou-Askiko idazkariak. Berria - Euskal Herria

EBk presio egiten dion bakoitzean, Bosniako buruzagi serbiarrak atxilotzeko ahaleginen inguruko **zurrumurruak** zabaltzen dira Belgraden. Berria - Mundua

Konpainia une batez gelditzen bazen, inguruan etengabeko **zurrumurrua**, hizkuntza ezezaguneko hitz arrotzen murmurioa entzuten zela iruditu zitzaion. Agustin Otsoa

Gobernu krisiari buruzko **zurrumurruak**. Berria - Euskal Herria

**3** (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

Ahots **zurrumurrua**. Ivy, azazkalak margotzen eta kantu-**zurrumurruan**... Joxe Austin Arrieta

Itsas **zurrumurru** errepikakor leunean kulunka oheratu naiz. Txillardegi

Herriaren bizi-**zurrumurrua** entzuten han behean, eta gu gainean, bizkarrean gora, kalamuzko haria haizeak arrastaturik bazihoakigula. Juan Garzia

**4** (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa)

Gauaren argia baino ez zen geratzen, euriaren zizika kilker-**zurrumurru** baten gisa. Juan Garzia

Eliza barnea [...] beilariez mukurru betea zen, otoitz **zurrumurru** bat goiti zoala zilarrezko Birjinari buruz. Michel Oronoz

Horra non azaltzen den San Floreanoko bidetik, pauso, ahots eta musika **zurrumurru** baten ondotik, mozorro prozesioa. Josu Zabaleta

**5** ahoz aho dabilen berri zehaztu edo egiaztatu gabea.

Argumentu eta kontra-argumentu hauek guztiak, bai eta hamaika berri, albiste eta **zurrumurru** ere, patioan etengabe eztabaidatzen ziren. Urtzi Urrutikoetxea

Orthezen, kanpoko albiste lausoak **zurrumurru** bihurtzen ziren dominikoen behialako komentuko korridore eta ikasgeletan. Aingeru Epaltza

Etxe barruko bizimoduaz **zurrumurruak** bazirela aipatzen duzue txostenean. Berria - Euskal Herria

**Zurrumurruak** badaude, baina ondo ulertuko didazun bezala ezingo dugu politikagintza **zurrumurruen** gainean egin. Berria - Euskal Herria

Akordioarena **«zurrumurru** bat» besterik ez dela esan zuen Frantziako Gobernuak. Jon Muñoz

Astean behin edo bitan Dummy ez zen lanera joaten [...] eta **zurrumurruak** hasi ziren, ez ote zuten kalera botako. Koro Navarro

**Zurrumurruak** dio berrehunen bat itsasontzi izango direla, oraingo honetan gauzak beltz jartzen ari dira. Jon Alonso

**Zurrumurruek** ziotenez, auzo herrietan jende parrasta bat atxilotu zuten apez ihardokitzaileak sostengatzeagatik. Elena Touyarou

Hori dela-eta han edo hemen poltsak kenduko dituztela dioten **zurrumurruak** zalu hedatzen dira. Berria - Euskal Herria

-Euren belarrietara iritsi diren zenbait **zurrumurruk**. Migel Angel Mintegi

Zer eta milioiduna zelako **zurrumurrua** zabaldu zen hirian. Jose Morales

Gexemek esan didanez, **zurrumurru** hau zabaldu da herrien artean: zu eta zure herritarrak erregearen aurka jaikitzeko asmotan zabiltzatela, horretarako ari zaretela harresia eraikitzen. Elizen arteko biblia

**Zurrumurru** bat zabaldu da bazterretan: alegia, zirkuluaren koadraturaren problema ebaztea lortuko lukeenari munta handiko diru-sariak agindu dizkiotela gobernuek. Jon Muñoz

Henneren urdailean vodka piztu zelako **zurrumurru** bat zabaldu zen. Koro Navarro

Londresko irratia entzuten zutenek, amerikanoak jada Ipar Afrikan plantatuak zirelako **zurrumurruak** hedatzen zituzten. Itxaro Borda

**Zurrumurrua** zebilen ahoz aho herri kirgizak altxatu ote ziren eta tatariarrek inbasioari ekin ote zioten. Karlos Zabala

Hirian bolo-bolo zebilen **zurrumurruaren** albistea ilustratzen zuen argazkiak. Anjel Lertxundi

Osaba-izebek baieztatu zioten beste aldean zebilen **zurrumurrua**: espainol armada ingurune hurbilean kokatua zen, frantses eremuan sartzeko asmoz eta nehork ez zekien xuxen zer gertatuko zen epe laburrean. Elena Touyarou

Azken aldian **zurrumurru** bat zebilen: jenerala ez zela bere mendietatik jaisten. Juan Kruz Igerabide

Aspalditik zebiltzan **zurrumurruak** aerodromo bat eraiki zutela hiritik berrogei bat kilometrora. Anjel Lertxundi

**Zurrumurrua** kurri zen Bavariako erresalburako bideak moztuak zirela, bidean ziren presoak, berriz gibelera heldu zirela. Marzel Etxehandi

Madrilen boxeolari zebilen garaian herriraino iritsi zitzaigun **zurrumurrua** ekarri nion hizpidera. Inazio Mujika Iraola

Oraindik bidean zirelarik, norbaitek **zurrumurru** hau ekarri zion Davidi: "Absalomek hil egin ditu erregearen seme guztiak; ez da bat bakarra ere gelditu". Elizen arteko biblia

Harryk bazuen lehenago ere Malfoyren familiari buruzko **zurrumurru** horien berri. Iñaki Mendiguren

Nancyk, beti eskuzabal eta barkabera, ez zituen aintzat hartzen **zurrumurruak**. Oskar Arana

Beldur baitzen agerpenei buruzko **zurrumurru** haiek, halako batean, jende xehe eta sobera sinisbera asaldatuko ote zuten. Bernardo Atxaga

**Zurrumurruak** egiaztatu dira osoki azken Baionako kontseilu bilkuran. Herria

**Zurrumurruak** egia zioen, inondik ere. Josu Zabaleta

Txibatoa zelako **zurrumurrua**, ez da egia; boikotik egin zaionik ere ez; mehatxu eta erasoena, gezur biribila da. Xabier Mendiguren Elizegi

-**Zurrumurruak** asmatu egin du oraingoan. Bernardo Atxaga

Batek jakin egia ala gezurra diren, baina batera jo ala bestera jo, lepoa egingo nuke Osasuna bere bide onetik ateratzeko **zurrumurruak** direla. Berria - Kirola

**Zurrumurruen** zurrunbiloan sartu dira hainbat komunikabide, eta Pantaniren zerraldoaren alboan hauts zuriak azaldu zirela argitaratu du hainbatek. Berria - Kirola

**Zurrumurruen** errotak egia bazioen, bion aspaldiko lagun abokatu batekin ari zen, Jay Sussman-ekin. Oskar Arana

**Zurrumurruak zurrumurru**, beste urtebetez Osasunan jarraitzea erabaki du entrenatzaile mexikarrak. Berria - Kirola

**6** (izenondo eta izenlagunekin)

Albo begirakuneak, **zurrumurru** etenak, irribarre eutsiak, eskuak aurpegira eramanak. Joseba Sarrionandia

**Zurrumurru** kezkagarri batzuk entzunak nituen jadanik Donostian: aspaldi Cabrera jeneral erradikala ingeles protestante batekin ezkondua zela, kristau fedea bera albora utzia zuela, eta karlista izateari ere bai. Txillardegi

Hildakoaren homosexualtasunaz zabaldutako **zurrumurru** zahar bat etorri zitzaidan gogora. Anjel Lertxundi

Paristarrek, ordea, entzungor egiten zieten alarma-deiei: pentsatzen zuten **zurrumurru** interesatuak zirela. Anjel Lertxundi

Asko direla **zurrumurru** edo istorio hilezin horien herri-jatorria erakusten duten ezaugarriak. Bernardo Atxaga

**Zurrumurru** gero eta ozenagoa altxatu denerako, hanka egina da elizatik andregai ohia. Iban Zaldua

**Zurrumurrurik** zentzugabeenak zabaldu dira. Iñaki Mendiguren

**Zurrumurru** makurrenak nahita zabaltzeaz arduratu ziren. Monika Etxebarria

Gezurrezko **zurrumurrua** zen. Marzel Etxehandi

Gezurrezko **zurrumurru** izengabeek. Juan Garzia

1931ko apirilaren hamalauan, amona, beti bezala, Unión kaleko kontsultara joan zen, kaleko **zurrumurruei** kasu handirik egin gabe. Iban Zaldua

Zure etorkizunaren inguruko **zurrumurruak** etengabekoak dira. Berria - Kirola

Berehala zabaldu dira hilketaren arrazoiaren inguruko **zurrumurruak** Baiona-Angelu-Miarritze eskualdean. Berria - Euskal Herria

**7** (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

Xabi Alonso **zurrumurru** iturri izan da, baina Sorian da. Berria - Kirola

Haren desagertzeaz **zurrumurru**-pila sortu zen gainerako ikasleak Eguberrietako oporretatik ikastetxera itzuli zirenean. Iñaki Mendiguren

Irakurri ala ikusi ahal izan duzuen guztia **zurrumurru** mordoa besterik. Berria - Kirola

**8** (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa)

Esperantzaz helduko lieke soldaduak bake-**zurrumurruei**, baina ez du bere burua engainatu nahi. Imanol Zurutuza

-Klanen arteko gerra-**zurrumurruak** dabiltza. Xabier Aranburu

Borrokaldiak eta gerra-**zurrumurruak** daude Iparraldetik Dagorlad zelairaino. Agustin Otsoa

**9** ***zurrumurru ibili***

Eremu haietan badabila **zurrumurru** ur soberakina Seine ibaietik datorrela eta hori egina izana dela Paristarrek ez dezaten jasan uholderik. Herria

**hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**

**beste zurrumurru** (9); **beste zurrumurru batek** (4); **hainbat zurrumurru** (3); **horrelako zurrumurru** (3); **zenbait zurrumurru** (3); **zurrumurru asko** (7); **zurrumurru bat zabaldu** (8); **zurrumurru baten arabera** (4); **zurrumurru batzuen arabera** (3); **zurrumurru guztiak** (6); **zurrumurru makurrenak** (3); **zurrumurru nahasi** (3); **zurrumurru ugari** (3); **zurrumurruak zurrumurru** (5)

**dioen zurrumurrua** (3); **haren zurrumurrua entzun** (5); **inguruko zurrumurrua** (3); **zebilen zurrumurrua** (3); **zelako zurrumurrua** (10); **zelako zurrumurrua zabaldu** (5); **zioen zurrumurrua** (4); **zuelako zurrumurrua** (3)

**zurrumurrua dabil** (4); **zurrumurrua entzun** (9); **zurrumurrua entzun dut** (5); **zurrumurrua entzuten** (4); **zurrumurrua ere zabaldu** (3); **zurrumurrua ez da** (3); **zurrumurrua hedatu** (6); **zurrumurrua hedatu da** (3); **zurrumurrua iritsi** (3); **zurrumurrua kurri zen** (3); **zurrumurrua zabaldu** (33); **zurrumurrua zabaldu da** (9); **zurrumurrua zabaldu zen** (12); **zurrumurrua zabaldu zenean** (3); **zurrumurrua zabaldu zuen** (3); **zurrumurrua zebilen** (5); **zurrumurrua zen** (4)

**buruzko zurrumurruak** (12); **dioten zurrumurruak** (7); **diren zurrumurruak** (8); **inguruan sortutako zurrumurruak** (3); **inguruko zurrumurruak** (11); **sortutako zurrumurruak** (3); **zebiltzan zurrumurruak** (4)

**zurrumurruak baino ez** (4); **zurrumurruak besterik ez** (5); **zurrumurruak dabiltza** (3); **zurrumurruak daude** (3); **zurrumurruak dira** (3); **zurrumurruak entzun** (4); **zurrumurruak entzuten** (7); **zurrumurruak entzuten ditu** (3); **zurrumurruak gero eta** (3); **zurrumurruak hasi** (4); **zurrumurruak hasi ziren** (4); **zurrumurruak hedatzen** (3); **zurrumurruak iristen** (4); **zurrumurruak zabaldu** (10); **zurrumurruak zabaldu ziren** (3); **zurrumurruak zabaltzen** (5); **zurrumurruak zebiltzan** (3); **zurrumurruak ziren** (3); **zurrumurruak zurrumurru** (5)

**zurrumurruaren arabera** (4)

**zurrumurruei buruz** (4)

**zioten zurrumurruek** (3); **zurrumurruek diote** (10); **zurrumurruek diotenez** (4); **zurrumurruek ziotenez** (6)

**zurrumurruen arabera** (20)

**zurrumurruren bat** (10)

---

# zurrumurruka *adlag* zurrumurruan.

Ahots goraz esatekoa den epika handia baino, **zurrumurruka** kontatzen den epika txiki hori da nire egia. Ana Urkiza

Sumatu zuen Dabidek zerbitzariak **zurrumurruka** zebiltzala, eta igarri zuen haurra hila zela. Jose Antonio Mujika

Zeruari begira **zurrumurruka** ari ziren denak. Agustin Otsoa

**Zurrumurruka** legez berba egiten zuten kanpoan zeudenek. Josu Landa

---

# zurrumurrutsu *izond* zurrumurruz betea.

Bulebar asaldatu, gas-argiz izartu, **zurrumurrutsuari** begira. Josu Zabaleta

Artega samar abiatu naiz ikasgela **zurrumurrutsurantz**. Jon Arretxe

Malguki kirrinkarien eta burusi **zurrumurrutsuaren** hots biziaz inguratzen zen. Jose Morales

Eta egunez eta gauez kanpaiek joka segitu zuten, guztiak ere berdin, gero eta indar handiagoz, hura hotsezko kexu **zurrumurrutsu** bihurtzeraino. Juan Garzia

---

# zurrun *izond* 1 malgutasunik ez duena.

Maleta **zurrun** bat zeraman ezker eskuan eta presaka zihoan orain ere. Harkaitz Cano

Eski-bota **zurrun** eta pisu haiek. Joxan Elosegi

Plastiko **zurrunezko** irakurle-txartelean. Jon Muñoz

Aldi bereko memoria sei tetrabytekoa (sei bilioi bytekoa alegia) da, eta disko **zurrunean** 160 bilioi byte sartzen dira. Pello Salaburu

Esku bat, beso **zurrun** baten muturrean, beheraka hasi zen gonan zehar. Monika Etxebarria

Gorpu **zurrunak** ikusi nituen gorputegira eraman baino lehen. Lopez de Arana

Zurda **zurruneko** eskuila. Harkaitz Cano

Aurpegi berezia zeukan, ia **zurruna**. Urtzi Urrutikoetxea

Bi abokatu ari ziren eztabaidan, zein bere espaloitik, biek ere frak beltza eta tximeleta-lepo **zurrunak** jantzirik. Lopez de Arana

Urrats **zurrun** eta behin eta berriz behaztopatu bakoitzarekin, badirudi galdetzen ari direla. Urtzi Urrutikoetxea

Nork janzten ditu gaur egun manoplak, eskuetako lo-zaku **zurrun** horiek? Harkaitz Cano

Margolan **zurrunez** apaindurik zeuden haren barneko gelak, eta ebanozkoa eta altzifrezkoa ziren sabaiak. Juan Garzia

Malgutasunerako urratsa da, hezkuntza sistema inori **zurrunegi** gerta ez dakion. Berria - Euskal Herria

Azkenetan dago Egonkortasun Itunaren oraingo espiritu **zurruna**. Berria - Ekonomia

Newton-en eta Laplace-ren garaitik nagusi zen determinismo **zurrunak** aurkitu zituen oztopoak. Juan Garzia

Espasmo edo postura **zurrun** batean gelditu zela zirudien. Xabier Olarra

Idoiak ulu luze **zurrun** bat baino ez du entzuten. Eider Rodriguez

Haize hotza zetorren aldera, zeru garbi eta **zurrunera**. Agustin Otsoa

Ez dute atsedenik, ordena **zurrun** batek sorrarazi eta suntsitu egiten ditu. Monika Etxebarria

Francoren diktadura **zurrunean**. Joan Mari Irigoien

Eliza hori guardian egon da, jarrera oso **zurrunean**. Iñaki Mendiguren

Zientziarik zehatzen eta **zurrunena** aplikatzen zaiola espekulazio ukiezinenaren lanbro eta espiritualtasunari. Koro Navarro

Badirudi, hortaz, hemen gainean dugun arudi **zurrun** horrek eskaintzen dituen zirrikito guztiak aprobetxatu beharko liratekeela zurruntasun hori hausteko. Juan Ignacio Pérez / Pello Salaburu

Oso egitura **zurruneko** enpresen antolaketak, non erabat bereizten diren lanaren kontzepzioa eta exekuzioa. Iñaki Heras

Lohadarrak laster zeutzan heriotza **zurrunean**. Xabier Amuriza

**2** (predikatu gisa)

Ez da **zurruna** ez malgua, ezkoaren moduko bigun baizik. Juan Garzia

Titaniozkoa arina bezain **zurruna** da, eta mementuz arazorik ez du eman. Berria - Kirola

Arauak oso **zurrunak** eta gogorrak dira. Berria - Euskal Herria

Gelak eta aretoak erabiltzeko dituen baldintzak «**zurrunegiak**» direlako. Berria - Euskal Herria

Hezurrek, eskeletoaren oinarrizko elementuek, **zurrunak** izan behar dute, baina ez **zurrunegiak**, hobe baita presioaren eraginpean zertxobait deformatzea, haustea baino. Irene Aldasoro

Lilia bezain delikatua eta, hala ere, **zurruna** zela jakin nuen, elfoen errementerietan landutako altzairua bezain gogorra. Agustin Otsoa

Konrad **zurrunagoa** zen portaeran, eta beti men egiten zien ezarritako arauei. Xabier Olarra

Izen propioak designatzaile **zurrunak** dira; designatzaile bat **zurruna** da baldin eta objektu bera denotatzen badu mundu posible orotan. Askoren artean

Azkenik, haren gorputz-atalak bigun eta malgu bihurtu ziren, **ez zurrun** hildakoenak ohi bezala, baizik eta haur txiki batenak bezalakoak. Askoren artean

Ordutegiarekin **zurrunenak** alemanak ziren. Edorta Jimenez

Atsedenaldi arte gogor, bizkor eta zehatz aritutako taldea, baldar, bigun eta **zurrun** bihurtu baitzen bigarren zatian. Berria - Kirola

## 3 (beste izenondo baten ezkerrean)

Landare **zurrun**-geldiak eta lur-azaleko erro-multzo nahaspilatuak, erraien gisa distiratzen ari. Platonek, postura **zurrun** seguruan egonkortuz beste eroriko batetik gogotsu babestu nahi zuelarik, idealizatu egin zuen kultura egipziakoaren egonkortasun konparatiboa. Joxe Austin Arrieta

Ez dago lege **zurrun** eta deterministarik gogo-egoerak aurreikusi eta azalduko dituenik. Askoren artean

## 4 (beste izenondo baten eskuinean)

Arropa zuri **zurrunaren** usain larderiatsua. Mirentxu Larrañaga

Eskularru lodi **zurrunez** jantzita ditudan eskuok. Josu Zabaleta

Aulkiak egokiro kokatzen, bere kizkur labur **zurrunak** atontzen. Lopez de Arana

Parpaila txiki **zurrunak** ageri zituen aldaken parean, eta gona motzegia zuen aukeran bere adinerako. Mirentxu Larrañaga

Ez dagoela esparru fisikoa eta mentala lotzen dituen lege psikofisiko **zurrunik**. Askoren artean

Beste mundu batean, zirkuluek, musika doinuek beren ezaugarri aratz eta **zurrunei** eusten diete. Monika Etxebarria

## 6 (hitz elkartuetan)

Kapela, larruzko berokia, soinekoa eta eskularruak, distiratsuak eta **zurrun** itxurakoak zituen, berri-usainekoak. Mirentxu Larrañaga

## 7 (adizlagun gisa)

Alex **zurrun** geratu zen bat-batean. Fernando Morillo

Estatua bat zirudien, hain zegoen **zurrun** eta geldi. Anjel Lertxundi

**Zurrun** eta logaleturik zegoen. Lopez de Arana

Ikertzailea isilik geratzen da, **zurrun**. Gelaren erdian **zurrun**, hotz, geratu zen, ukabilak itxita. Oskar Arana

Objektu urdinxkak oldarka iragaten dira bata bestearen atzetik, zeharo **zurrun** eta hauskor. Monika Etxebarria

Sekula ez dut katu bat hain **zurrun** eserita ikusi. Iñaki Mendiguren

-Hori -erantzun zion Percyk **zurrun**- ez da zure arazoa. Iñaki Mendiguren

Aurre egiten dio berari, lepoa **zurrun**, begiak dirdirka. Oskar Arana

Nerbioak **zurrun** zeuden. Jose Morales

Apezpiku bat bezain **zurrun** eskuinean jarrita. Koldo Izagirre

Perok hitz egin zuen, ontziko maskaratzarra baino **zurrunago** aurpegia. Edorta Jimenez

Emakumea tupustean eseri zen, txontxongilo bat bezain **zurrun**. Lopez de Arana

Bat-batean agondu zen, **zurrun**. Lopez de Arana

Hatz erakuslea eta eri luzea **zurrun** eta estu-estu eginda zituelarik. Mirentxu Larrañaga

Besoak harengana ntz luzatzen ditu, besarkatu egiten du, neska, **zurrun** eta hotz. Oskar Arana

Zutik eta **zurrun** zeuden, elkarren ondoan, bulegoko atean. Lopez de Arana

Hatz erakuslea eta eri luzea **zurrun** eta estu-estu eginda zituelarik. Mirentxu Larrañaga

Agur labur baten ostean oinez joan zen, **zurrun**, zuzen eta, nire irudiko, nahiko pozik ere bai, tronpatzen ez banaiz. Urtzi Urrutikoetxea

Batzuetan, gorputza luze eta **zurrun** zuela, airean altxatzen zen zangoak buruaren pareraino jasoz, berriro era beldurgarrian lurrera erortzeko. Askoren artean

**Zurrun**, hotz eta ubelduta. Iñaki Mendiguren

Bata, paisaia sinboliko baten aurrean estalki artean hantxe **zurrun**-geldi; bestea, berriz, ohe gainean etzana aske eta biluzik. Juan Garzia

Tente- **zurrun** geratu nintzen hantxe, arnasari eusten, beste noranzbait begiratzeko ahalegina saiatuz. Juan Garzia

Ohola bezain **zurrun** zegoen, begiak zabal-zabalik zituela. Iñaki Mendiguren

**Zurrun** samar esan zien "egun on". Iñaki Mendiguren

Hilotz **zurrun** etzana. Juan Garzia

## 8 *bela-zurrun* belari eusten dion haga.

Upela zirudien gauza bat gainditzen genuen jira bakoitzean, edo ontzi baten **bela-zurruna** edo masta, eta haien antzeko beste asko. Koro Navarro

Burua galtzen hasi zen iparrorratzaren eta astrolabioaren artean, nahastuz oihaleria eta artilleria, mesana eta tisana, **bela-zurruna** eta bela-tutua, karonada-argiak eta kanoi-argiak, eskotila eta eskobara. Juan Garzia

## 9 *ez-zurrun*

Zientzia berezietan, biologian esaterako, lege **ez-zurrunak** (*ceteris paribus* klausulak dituztenak) erabiltzen dira fenomenoak azaldu eta aurreikusteko. Askoren artean

Fenomeno mentalak fenomeno fisikoekin lotzeko halako lege psikofisiko ez- **zurrunik** balego, Davidsonen argudioak ez luke murriztezintasuna frogatuko. Askoren artean

## 10 *zurrun-zurrun* adlag

**Zurrun-zurrun** zegoen, higitu ezinik. Lopez de Arana

Bere idazmahairen atzetik soina **zurrun-zurrun** altxatu zen. lantzoi meheek, **zurrun-zurrun**, eztainu txirbilak ziruditen. Lopez de Arana

Ni **zurrun-zurrun** estatua bat bezala, ama iharrarekin. Fernando Rey

**hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**

aurpegi zurrun (4); aurpegia zurrun (4); bezain zurrun (15); hankak zurrun (3); oso zurrun (4); postura zurrun (3)

zurrun eta hotz (3); zurrun gelditu (3); zurrun geratu (6); zurrun geratu zen (4); zurrun hartan (3); zurrun samar (5); zurrun zegoen (3); zurrun zeuden (3); zurrun zituen (3); zurrun zurrun (4)

bezain zurruna (8); jarrera zurruna (5); zurruna da (7); zurruna izan (5)

aurpegi zurrunak (3); oso zurrunak (3); zurrunak dira (4); zurrunak izan (3)

---

# zurrunaldi *iz*

Ospakizun otorduaren osteko **zurrunaldi** berbatsuan zeuden laurak, normalean baino kalaka animatuagoan. Josu Landa

---

# zurrunbilatu *izond* zurrunbilo itxurakoa. ik **zirimolatu**.

Eskortak harrizkoak ziren; ganadua ugaria, argala eta adar-luzea zen; zaldien isats **zurrunbilatuak** lurreraino iristen ziren. Juan Garzia

---

## zurrunbilo 1 *iz* uraren, airearen eta kidekoen higidura lasterra eta birakakoa. ik**zirimola.**

**Zurrunbilo** edo ur-zirimola bat da horren guztiaren emaitza. Koro Navarro

Itsasoaren gaina zerbait berdindu zen, eta **zurrunbiloak**, banaka-banaka, desagertu egin ziren. Koro Navarro

Izan bitez lastoa haizetan bezala, orbela **zurrunbiloan** bezala! Elizen arteko biblia

*ik beherago* 5. Askoren artean

**Zurrunbiloak** inguratu ninduen, zure uholde eta uhinek azpian hartu. Elizen arteko biblia

Harkaitza **zurrunbilo** baten erdi-erdian zegoen, eta nahigabe handirik gabe egon zitekeen bertan, haizea ez baitzen handik biratzen. Karlos Zabala

Zeren **zurrunbiloek** jira eta jira ibili baikintuzten, eta halako indarraz, non azkenean aingura askatu, eta herrestan eraman baikenuen. Koro Navarro

Abiatzeko gogo gutxi daukala, pentsatuz, untzia urperatu balitz, **zurrunbiloaren** jira-biran joan eta atsedena aurkituko zukeela itsas zolan. Anton Garikano

**Zurrunbiloaren** birek indarra galtzen zuten pixkana. Koro Navarro

Aparrezko zerrenda haiek [...] desagertutako **zurrunbiloen** mugimendu birakari bera hartu zuten. Koro Navarro

Ez nazala ur-korronteak eraman, ez nazala **zurrunbiloak** irentsi. Elizen arteko biblia

Iritsiak ginen **zurrunbiloa** inguratzen duen aparrezko eraztunera. Koro Navarro

Uraren sakontasunari dagokionez, ezin ulertu nuen nola neur zitekeen **zurrunbiloaren** inguruan. Koro Navarro

Biok elur eta horma pilo haren **zurrunbiloan** harrapaturik geunden eta amilduz gindoazen -elkarri lotuak, nolabait esatearren- hego aldeko malkortegira, zuzen-zuzenean. Josetxo Azkona

**2** (izenondo eta izenlagunekin)

Hau Maelströmgo **zurrunbilo** handia da inondik ere. Koro Navarro

Pilota **zurrunbilo** sakon batera erori zen, eta neska gazteak oihuka hasi ziren. Juan Kruz Igerabide

Han daude, bihotzean kezkarik gabe, Zorionekoen Uharteetan, ozeanoko lasterraren **zurrunbilo** sakonen ondoan. Iñaki Mendiguren

Uraren **zurrunbilo** bortitz hori niri, gorago idatzi dudan bezala, hipnotizagarria gertatu zait. Patxi Zubizarreta

Izan ere, beroak **zurrunbilo** kiribil motako lasterrak hasten ditu gorantza, lainobide itsu horien barruan. Pello Zabala

Ke-laino itzelak goratzen ziren handik **zurrunbilo** geldiezinetan. Agustin Otsoa

**Zurrunbilo** zaratatsua isiltasun gordin bihurtu zen. Hasier Etxeberria

Besoa luzatu zuen Ruche jaunak, bai eta lortu ere idazlana harrapatzea, bai baitzihoan ur-azalerantz, **zurrunbilo** distiratsuek xurgaturik. Jon Muñoz

**3** (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

**Zurrunbilo**-gune batean sartu zen hegazkina. Jon Muñoz

**4** (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa)

Jaunak haize-**zurrunbiloan** eraman zuen Elias zerura. Elizen arteko biblia

Zeren ene ordu arteko bizitza haize-**zurrunbilo** bat bezalakoa izan baitzen. Joan Mari Irigoien

Kulunka zihoan etorbide zabal batean gora, hauts **zurrunbilo** baten erdia. Lopez de Arana

Ahots jostaria zen: amuarraina ibai **zurrunbiloan**, kometa baten haria mutiko txiki baten eskuetan, txori bat pago baten adarrean bezalakoa. Felipe Juaristi

Gizona erortzen hasi zen, eta bi emakume azaldu ziren, aterki eta guzti, zuhaixka baten atzetik, gizonari begira elur**zurrunbiloan**. Koro Navarro

Su-**zurrunbiloan** eraman zintuzten suzko zaldien gurdian. Elizen arteko biblia

Hazi **zurrunbilo** geldi hori ikusten dut: horrelaxe altxatzen da garia jotzean haren azala! Josu Zabaleta

Ke **zurrunbilo** haiek gero eta lodiago bihurtzen ari ziren, eta gora zihoazen zeruan. Karlos Zabala

**5** irud/hed

Drogaren **zurrunbiloan** sartzen direnak. Gotzon Garate

Modaren **zurrunbiloan** sartu zenetik gora eta gora egin du, xanpain aparrak bezala. Patxi Iturritegi

Metroko eskaileratako **zurrunbilotik** atera eta parez pare itsutzen gaituen eguzkiak sortutako enajenazioaren pean. Harkaitz Cano

Jauzi soil bat, eta berehala jende eta autoen **zurrunbiloan** nahastu da. Urtzi Urrutikoetxea

Hantxe sartu zen, motorrari dena emanda, buruz buru, putre-samalda beltzaren erdira, atzera eta aurrera eginez: hura bai luma beltzezko **zurrunbiloa**! Joxe Austin Arrieta

Leihoa handitzen ari zen, eta bere gorputza ohetik altxatu eta buruz aurrera orrialde hartako irekiduratik zihoala sentitu zuen, kolore eta itzalen **zurrunbilo** batek xurgaturik. Iñaki Mendiguren

Bizitzaren **zurrunbiloak** beste hainbat lekutara eraman ninduen. J.M. Olaizola "Txiliku"

Ez naiz ni sutearen **zurrunbiloan** kiribilean erortzen hasiko dena. Josu Zabaleta

CIAk Ramírez behar zuen, eta Ramírezek ez zeukan beste aukerarik ekintzaren **zurrunbiloan** murgiltzeko Agentzia baino. Fernando Morillo

Goia eta behea eta koadroaren alde guztiak mugimenduak lotzen ditik... eta arestian aipatu numeroen **zurrunbiloek** lotzen ditiztek. Joan Mari Irigoien

Egunetik egunera itzaltzen zitzaiola gizonaren akordua eguneroko gauza txikien **zurrunbiloak** irentsita. Hasier Etxeberria

Iluna jaistear zela, izpiritua desbideratu zitzaion kulparen **zurrunbilotik** aitaren berekiko mututasunaren oinarrien aztertzera. Itxaro Borda

Elkarrizketaren **zurrunbiloan** behera, nire oroitzapen kutunetariko bat kontatu diot. Iban Zaldua

Ke zirimoletako eta ispiluetako lainoez eta argiez osaturiko **zurrunbilo** batek. Monika Etxebarria

**6** (irud/hed, izenondo eta izenlagunekin)

Buruan **zurrunbilo** haizetsua zuela igo zituen, bazkalostean, bigarren solairurainoko eskailerak. Joxemari Urteaga

Han, Mikel Strogoff eta neska gaztea, jendetzaren **zurrunbilo** eroaren erdian, bereizi egin ziren bata bestearen ondotik. Karlos Zabala

Zinemaldiaren antolaketak eragiten duen **zurrunbilo** izugarriaren erdi-erdian aurkitu dugu Mikel Olaziregi zuzendaria Usandizaga kaleko bulegoan. Berria - Kultura

Hermannen aitari buruzko zurrumurruak etortzen zitzaizkidan askotan gogora, **zurrunbilo** betean. Anjel Lertxundi

Lorategiak eta plazak korritzen, eguneroko **zurrunbilo** ardailatsuan murgiltzen, eskaileretan gora eta behera oldartzen. Anton Garikano

Atorra sentitzen nuen nire titiburuak igurtzen eta **zurrunbilo** koloretsu geldi batek inguratu nau eta heldu dit. Monika Etxebarria

Hazkunde hori ikasketa planen aldaketarekin batera suertatu da, eta horrek halako **zurrunbilo** nahasgarri batean sartu du unibertsitatea. Juan Ignacio Pérez / Pello Salaburu

Eguneroko **zurrunbilotik** ihesi. Berria - Harian

Zalaparta, zuhurkeria, diru-gose, lukurreria eta iruzurrezko **zurrunbilo** hartan ausartu zen Demba eskuak herabeti luzatzen bere partea hartzeko. Anton Garikano

Promiskuitatean bizi izan zen, irritsezko **zurrunbilo** baten erdian. Oskar Arana

Delako ordezkaria Jaurenea-ko Enrietaren eta Bittor Ithurbideren semea zela jakiteak gaitzeko **zurrunbiloa** sortu zuen herritarren baitan. Elena Touyarou

Irudi distiratsu baina osatugabe ugari etortzen zitzaizkion burura, borborrean, elkar joka, nahaspilaturik, ziztu bizian igarotzen ziren, ezin geldituzko **zurrunbilo** itsugarri batean. Jose Morales

**7** (irud/hed, hitz elkartuetan bigarren osagai gisa)

Mille agenteak jende-**zurrunbiloa** zeharkatu zuen, begiak Diannerengan. Fernando Morillo

Isurbide batean erortzen bezala sentitu nuen neure burua, irudi **zurrunbilo** baten erdian. Ramon Saizarbitoria

Ladislao Biró jauna hori dena gertatu baino askoz lehenago geratu zen bolalumen ekoizpen-**zurrunbilo** horretatik kanpo. J.M. Olaizola "Txiliku"

Chowder Bentatik bat-batean alde eginez geroztiko gertakizun-**zurrunbilo** hartan, kezkatuegi ibili nintzen datak gogoan edukitzeko. Oskar Arana

Zorionez, nagusiak atera ninduen urduritasuna sortzen zidan buru-**zurrunbilo** hartatik. Ramon Saizarbitoria

Ura ukitu orduko, izu-**zurrunbilo** bat jabetu zen bat-batean nitaz. Joxan Elosegi

Gülbahar alde batera eta bestera zebilen jauregian amodio-**zurrunbilo** batean bezala, ezin zen geldirik egon une batez ere. Fernando Rey

Inork ez du zalantzan jartzen zeharo murgildurik gauden suntsipen **zurrunbilo** hori gizarte, produkzio eta kontsumo sistema baten isla zuzena dela. Itziar Eizagirre / Amaia Lizarralde

8 ***zurrunbiloan*** *(orobat* ***zurrunbilotan****)* *adlag* zurrunbikoak eratuz. ik **zurrunbiloka**.

Hosto horiak **zurrunbiloan** bildu ziren txoriak airean bezala. Agustin Otsoa

Ez zuen ezer ikusi, **zurrunbiloan** zebilen laino zuria izan ezik. Iñaki Mendiguren

Leiho guztietan **zurrunbiloan** pilaturik zegoen elur sendo grisagatik. Iñaki Mendiguren

Behelaino zuri trinkoa zebilen **zurrunbiloan** bere inguruan, bere barruan... Iñaki Mendiguren

· Burua **zurrunbiloan** hasi zitzaitzan eta sabelaldean bihurritu bat sentitu nuen. Xabier Olarra

Irudiak **zurrunbilotan** higitzen ziren margo pintzelkada bortitz eta txundigarrien artean. Oskar Arana

**hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**

**haize zurrunbilo** (3); **ke zurrunbilo** (4); **zurrunbilo baten erdian** (3); **zurrunbilo handi** (3); **zurrunbilo hartan** (3); **zurrunbilo horretan** (5); **zurrunbilo horretatik** (3); **zurrunbilo zuri** (3)

**zurrunbiloak irentsi** (4)

**haize zurrunbiloan** (3)

**haize zurrunbiloan** (3); **zurrunbiloan sartu** (3); **zurrunbiloan sarturik** (3); **zurrunbiloan sartuta** (3)

**zurrunbiloaren erdian** (9)

**haize zurrunbiloen** (3)

**zurrunbilotik at** (3); **zurrunbilotik atera** (3)

---

## zurrunbiloka *adlag* zurrunbiloak eratuz.

Han, elkarren kontrako milaka kanaletan irekitzen eta bideratzen zen uren barren zabala, eta bat-batean lehertzen zen, inarrosaldi eroetan, gora eta behera, irakinean, txistuka, zirimola erraldoi eta kontatu ezinezkoetan biraka, ekialderantz murgilduz, jauzika ez bazen **zurrunbiloka**, urak sekulan iristen ez duen lastertasunaz. Koro Navarro

Emakume bat maiteminduta, maiteminean iraulka; kateme bat teilatuan marraka; proteina konplexuak odolean **zurrunbiloka**, organo sexualak hanpatzen. Oskar Arana

Hara, ekaitza bezala lehertu da Jaunaren haserrea, haize-erauntsiak bezala astintzen du, **zurrunbiloka** dabil errudunen buru gainean. Elizen arteko biblia

**Zurrunbiloka** darabil orbela haizeak, bakan ikusten dira hostoak adarretan, eta igarri egiten da gertu dela negua. Imanol Zurutuza

Aurreko batean janariak bezala, pertsonak hasi zitzaizkion buruan **zurrunbiloka** mugitzen. Bernardo Atxaga

Ke mataza batzuek, gora **zurrunbiloka** hegoaldeko zerumugan, abangoardia tatariarra hurbil zegoela frogatzen zuten. Karlos Zabala

Baina ekaitza etxean sartu zaio, kanpotik, oihuka, **zurrunbiloka**. Itziar Otegi

Haserreak **zurrunbiloka** zeharkatu nau, hotzikararen moduko zerbait zen. Monika Etxebarria

---

## zurrunbilotsu *izond* zurrunbiloz betea.

Unibertsoaren aurretik lurrun nahasmendu **zurrunbilotsu** bat besterik ez omen zegoen: hutsa, leizea, amildegia. J.M. Olaizola "Txiliku"

Neure burua sumatzen dut ametsetatik irten eta ilunpeko mundu **zurrunbilotsu** batean behera amiltzen. Mirentxu Larrañaga

Ikusi zuen heriotzaren desegintzarrea ez zela beste mila mugimendu alferrikakotara oldartzen den tropel **zurrunbilotsu** horren askapena baino. Juan Garzia

Ezerezean galdu ziren kandela luzeak; haien sugarrak guztiz itzali ziren; ilunaren beltztasuna gaineratu zitzaidan; beheraldi ero **zurrunbilotsu** batean ziruditen irentsiak sentsazio guztiak, arima Hadesean bezala. Koro Navarro

Zenbat denborakoa izan ote zen esaten jakingo ez nukeen une **zurrunbilotsu** baten ondoren, ordena perfektua egin zitzaidan buruan. Ramon Saizarbitoria

---

## zurrunbilotu, zurrunbilo(tu), zurrunbilotzen da *ad* zurrunbiloak eratuz biratu.

Zorabialdi bat izan zuen bat-batean Rhin ibaiaren argiaren aurrean; otu zitzaion ezen, monje likitsa bezala, beraren begien aurrean **zurrunbilotzen** zèn ur berde haren erdian itotzen ari zela. Juan Garzia

Bi oilagor, moko luzeen zamagatik motel, aireratu egin dira, elkarri segika maitasun jolasean, eta baso dardarakorraren gainean **zurrunbilotu** dira. Itziar Otegi

---

## zurrunbilotxo *iz* zurrunbilo txikia.

Adderley-k, aldasarean gaindi aterarik burua, irri egiten zuen uhinen **zurrunbilotxoei** so. Juan Garzia

Aspalditxotik nere gogoaren uretan igeri zebilena ixurtzea dagokit gaur, bide-bazterretako seinaleetan eta mapetan ibai baten "izena" ikusten nuen bakoitzean egiten zitzaidan **zurrunbilotxoaren** berri ematea. Iñaki Segurola

---

## zurrundu, zurrun(du), zurruntzen 1 da/du *ad* zurrun bihurtu.

Ondoren zurbildu egin zaizkie aurpegiak, gogortu esku-oinak, **zurrundu** hezurrak. Felipe Juaristi

Gero bildu egin zen, eta azkenean **zurrundu** eta luze-luze geratu zen. Koro Navarro

Haren titiburua estutu nuen nire hortz artean, eta haren gorputza **zurruntzen** sentitu nuen, bizkarrarekin arku sinestezin bat eraikiz. Juan Martin Elexpuru

ATP kopurua gutxituz gero, **zurrundu** egiten da muskulua: *rigor mortis* delakoan, adibidez. Irene Aldasoro

Bizkarra **zurrundu** zitzaidan. Aingeru Epaltza

Gorputza **zurruntzen** sumatu nion traje zimurtuaren azpian. Aingeru Epaltza

Iluntzerako beletako sokak **zurruntzen** hasita zeuden, espartzuaren tarteetako ur-tanta xeheak izozten hasiak baitziren. Anjel Lertxundi

Haren begitartearen edertasun xumea, mozorro tinko eta erne batean **zurrundu** eta finkatua zen, eta birjintasun luzatuaren zauri-markak ageri zituen nabarmen. Juan Garzia

Dantzan hasi ziren, gizona emakumearekin, eta neska mutilarekin, baldar hasieran, esku-oinak **zurrunduak** balituzte bezala. Felipe Juaristi

Oinazeak aurpegia desitxuratzen zion, eta horrela geratu zen, **zurrunduta**. Iñaki Iñurrieta

-Gihar guztiak **zurrunduta** dauzkat -kexatu zen, ohe gainean etzanez-. Iñaki Mendiguren

Trelawney andereñoa **zurrunduta** zegoen bere besaulkian; begirada galdua zuen, eta ahoa eroria. Iñaki Mendiguren

Orain jantzita duzun koipez **zurrundutako** galtza hori hiru urtez ikusi dugu denok auzoan zure anaiaren ipurdian. Karlos Zabala

**2** (du adtiz gisa)

Gauean zehar, *rigor mortis*-ak **zurrundu** egin zituen gorputzak. Oskar Arana

Bat-batean, ordea, neskak besoak **zurrundu** eta berarengandik aldenarazi zuen mutila. Mirentxu Larrañaga

Mendi haietako isiltasuna, hotza, bakardadea, neguko hilaldia bere baitan sartzen zitzaizkiola iruditu zitzaion, odola gelditu eta izoztuko ziotela, soin atalak **zurrunduko** zizkiotela, izaki geldi izoztu bat bihurtuko zutela bera. Josu Zabaleta

Egun luze hartako maitasunak **zurrunduak** zizkion ile-kiribilak. Lopez de Arana

Keinu itsusi bat egin zidan, bere nazkaren adierazgarri, ezpainak **zurrundurik** eta soa zorrozturik. Joan Mari Irigoien

Urduritasunak **zurrunduta**, gurasoen etxeko zenbakiarekin gogoratu ere ez zen egiten. Fernando Morillo

Jakingo bazenu nola geratu nintzen orduan han kanpoan eskailera-buru izoztuan, izuak **zurrunduta**, [...]. Eduardo Matauko

**3** irud/hed

Hamar kilometro egin baino lehen [...] enbragea **zurrundurik** izango du, pneumatikoak zulaturik. Josu Zabaleta

Dorreko atea **zurrunduta** zegoen, eta ezin zen zabaldu. Mirentxu Larrañaga

Lan merkatua **zurrunduko** duen itunik ez duela onartuko aurreratu zuen Jose Maria Cuevas CEOEko presidenteak. Berria - Harian

Bigarren zatian, bilbotarrek, erasoko jokoa **zurrundu** zuten. Berria - Kirola

Dinosauro bat hil hurran lokatzetan hondoratzean bezala, mintzaira **zurrundu** egin da. Oskar Arana

Horrelakoetan, solas laxo-eztia ozpindu eta **zurrundu** egiten da ustekabean. Xabier Montoia

Samaniegok aire berri bat erantsi nahi izan zien berez oso **zurrunduta** zeuden gai batzuei. Berria - Kultura

Gizarte mugimenduek ideiak falta dituzte eta **zurrunduta** daude. Berria - Gaiak

**4** (era burutua izenondo gisa)

Gero gorpua bidaian zehar hildako soldaduen gorpu **zurrunduen** pilara bota zuten. Fernando Rey

Gorputz **zurrundua** biguntzen, abailtzen ari zitzaion. Josu Zabaleta

Diziplina desagertu egiten zen une horietan, eta gorputz **zurrundu** eta asaldatua lasaitu egiten zitzaion, zeremonia militarretan, soldadu taldeak ikuskapen luze bat jasan ondoren, atseden-agindua entzutean bezala. Xabier Olarra

Gurditxoetan ezarri aurretik poltsak palen atzealdearekin jotzeari ekin zioten langileek, gorputz-adar **zurrunduak** haustearren. Oskar Arana

Harrapaketak edo bertzelako lehia jokoak antolaten zizkiguten, gure gihar **zurrunduak** inarrosi nahirik. Aingeru Epaltza

Jangelako mahaiaren erdian, erretilu batean, indioilar baten hezurrak ageri ziren, perrexilezko ohe baten gainean, habia beldurgarri bat balitz bezala, hondakin **zurrunduak**. Koro Navarro

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
> zurrunduta zegoen (3)

---

# zurrunga *(orobat **zurrunka** g.er. eta **xurrunga** g.er.)* **1** *iz* lo egonik arnasa hartzean sudurraz egiten den hots berezia.

Zer da hobe, arnasotsak ala **zurrungak**? Josu Zabaleta

Oihuak eta negarrak, **zurrungak** eta marmariak, zakurren zaunkak eta ofizialen aginduak gehitzen zitzaizkion ur tanten hotsari lurrean lehertzean. Aingeru Epaltza

**Zurrungek**, hasperenek, zurrumurruek zipriztindutako lozorro bat da. Jon Alonso

Guebokinderren lehen **zurrungak** aditu ziren. Jon Alonso

Klimatizazioaren zurrumurrua bere aitaren **zurrunga** bezain azkarki entzuten zen. Ramuntxo Etxeberri

Besteetan baino lehenago entzun ziren aurreneko **zurrungak** jangela gaineko lotegi handian. Koldo Izagirre

Itzuli den autobusean, zer **zurrunga** ez den entzun! Herria

Goiko geletatik haietan lotan zeudenen arnasa entzuten zen, eta zerritokitik, aldian behin, ametsetan zegoen zerri taldearen **zurrunga**. Josu Zabaleta

**2** (izenondo eta izenlagunekin)

Une horretan hain zuzen, **zurrunga** luze baten ondoren, begiak zabaldu zituen espantuz, amesgaiztoren batek izututa. Ramon Saizarbitoria

**Zurrunga** sakon bat egin zuen, gorputz osoa astindu ziona, baina ordukoan ez zen esnatu. Ramon Saizarbitoria

Aurki entzun ziren berriro gela hartan Lauaxetaren **zurrunga** leunak. Juan Luis Zabala

Nire ondoan norbait **zurrunga** isilean ari zen. Aingeru Epaltza

Ondoko gelatik zetorren osaba-izeben **zurrunga** nekoso bikoitza. Lopez de Arana

Osaba Vernonek **zurrunga** loti ozen bat egin zuen ondoko logelan. Iñaki Mendiguren

Haren **zurrunga** beteek kontzientzia lasaia zuela ematen zuten aditzera. Karlos Zabala

Herbertek **zurrunga** betean segitzen zuen. Joxe Austin Arrieta

Ene kidea **zurrunga** bizian ari zuan, baina ez zitzaidaan gehiegi kostatu lokartzea. Mikel Hernandez Abaitua

Ez zen familiakoekin solasean egoten zen horietakoa, lo seko geratzen zen burua mahai gainean jarrita, eta hain **zurrunga** zakarrak egiten zituen, ze izebak ez zuen irratia entzuterik izaten. Pello Lizarralde

Gaztetxoen **zurrunga** txikiak; lokamutsetan intziriak edo hitz nahasiak ahoskatzen dituen haur ameslariren bat. Xabier Mendiguren Elizegi

**3** (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

Asmo horrekin altxatzen ari nintzela egin zuen aitak aurreneko aldiz entzuten nion **zurrunga** hotsa. Ramon Saizarbitoria

Gau hartan garbi asko iritsi zitzaizkidan gonbidatuen gelatik haren **zurrunga** hotsak. Patxi Zubizarreta

Gerrietan zintzilik zeuzkaten talki-walkien **zurrunga**-bitsak ostatuaren barnean oihar. Itxaro Borda

**4** (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa)

Gazteluko zoko guztiak mozkor **zurrungen** sorburu ziren. Aingeru Epaltza

Abereak barne-**zurrunga** argia laxatu zuenean, Edmeak punpa egin zuen, harritua. Itxaro Borda

Biren gelan bakarra bazen, ohe bat libre, hipopotamo-**zurrungarik** gabe. Joxean Sagaztizabal

**5** irud/hed

Etxekoak, Kanpazarretik motorren **zurrunga** zetorkienean, berrehunen bat metro iparraldera zegoen zumardira ateratzen ziren babes bila. Ramon Saizarbitoria

Zaratarik batere ez, olatuen **zurrunga** baizik, han, nire atzean. Josu Zabaleta

Zanpa-auhen luzeko zakur, **zurrunga** xehe eta entzunezineko erle, bakardadea deitoratzen zuen otso-eme. Itxaro Borda

Kanoikadek sortzen zuten **zurrunga** uniforme eta etengabearen erdian. Jon Alonso

Une batez ez zen deus aditu, kanpoko Super-Constellation abiatu berriaren motor-**zurrunga** izan ezik. Joxe Austin Arrieta

**6** (adizlagun gisa)

Zakur handia **zurrunga** ari zen garraren argitan. Josu Zabaleta

**7** ***zurrungan*** *(**25** agerraldi, **14** liburutan; ETCn **45** agerraldi)* ik **zurrungaka**.

Gutako inor baino hobeto egongo da, gelako ohean luze-luze eta **zurrungan**. Bezperako jai-zalapartak jota utzia zian, eta **zurrungan** eman zian gau guztia. Patxi Zubizarreta

Jadanik **zurrungan** ari direnak badira. Marzel Etxehandi

Berehala berriz lokartu zen **zurrungan** hasiz. Ramuntxo Etxeberri

Handik pixka batera, ordea, lo **zurrungan** zegoen. Joxe Austin Arrieta

Haatik besteak ere ez zeuden lo **zurrungan**. Angel Aintziburu / Jean Baptiste Etxarren

Aterpean sartu naiz; lo dago **zurrungan**, ezkerrean, azpiko ohean, begiztatua nuen erromes berezia. Piarres Aintziart

Hiria **zurrungan** lo dagoenean. Itxaro Borda

· Aldaketarik ez: mundua bere **zurrungan**! Itxaro Borda

**8** ***zurrungaz*** *(**6** agerraldi, **5** liburutan; ETCn **20** agerraldi)* ik **zurrungaka**.

**Zurrungaz** ari nintzela leporatu zidan. Itxaro Borda

Gero, **zurrungaz** entzun zuten. Jon Muñoz

Kea darien hitz bafadak **zurrungaz** botatzen dituen pentsamendua. Xabier Olarra

Domengak balditurik so egin zion; gero, buruaz baietz adierazten zion Graxi begiztatu zuen eta, ondotik, lo kuluxka bat egiten ari zen eta **zurrungaz** hasia zen Mathieu apeza. Elena Touyarou

**9** ***zurrunga batean*** zurrungan.

Bat-batean gogoratu naiz bart gauean Dussel eroaren moduan aritu zela **zurrunga batean** (orain asteazken arratsaldeko hirurak laurden gutxi dira, eta Dussel jauna zurrungaka ari da berriro, horregatik gogoratu naiz, jakina). Josu Zabaleta

Begiraiozu osaba Kamili, euliak basbusaren azpilean pozarren dabiltzan bitartean, **zurrunga batean**. Patxi Zubizarreta

Burua belaunetan tinkotua eta **zurrunga batean** ari zen lehen eskekoarengana hurreratu zen. Patxi Zubizarreta

Hori berori da, baina orain **zurrunga batean** lo egiten duzun oheko paisajearen atal bat besterik ez da zuretzat. Iñaki Segurola

**10** ***zurrunga egin***

**Zurrunga egiten** duten haurrek oroimen eta adimen eskasagoa izan ohi dute. Berria - Gaiak

**Zurrunga egiten** badut, esna nazazu eta isilduko naiz. Aitor Arana

Sudurretik **egiten** du **zurrunga**? Itziar Otegi

Aho zabalik **egiten** du **zurrunga**, argia amatatu gabe. Lander Garro

Bizkarraren gainean etzanda zegoen, ahoa zabalik, eta ozen eta zoli **egiten** zuen **zurrunga**. Jose Morales

Egiaz, sakona zuen loa Florak, **zurrunga egitea** sakontasunaren adierazle baldin bada behintzat. Ramon Saizarbitoria

Txinpartak botatzen, **zurrunga egiten**, kantatzen hasten zen. Josu Zabaleta

· *irud/hed* Sutegiak **zurrunga egiten** zuen, eguzkipean lokarturiko txantre baten gisan. Karlos Zabala

**11** (osagaiekin)

Gero, telebista isiotzen zuen eta lokarturik geratzen zen besaulkian, **zurrunga** arinak **eginez**. Eskarne Mujika

Katu siamesek beren saskietan eroso etzanda **zurrunga** eztia **egiten** zuten. Matías Múgica

Behingoan lokartu ziren biak, sekulako **zurrungak eginez**. Jose Morales

**Zurrunga** leunak **egiten** zituen, **zurrunga** baino arnasketa sakan-sakonak, lasaigarriak hein batean. Sonia Gonzalez

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
> **zurrunga artean** (3); **zurrunga batean** (4); **zurrunga egiten** (10); **zurrunga egiten zuen** (4); **zurrunga hots** (3); **zurrunga hotsak** (4); **zurrunga leunak** (4)
> **lo zurrungan** (3); **zurrungan ari** (6); **zurrungan ari zen** (3)

---

# zurrungaka *(**49** agerraldi, **38** liburutan; ETCn **158** agerraldi, **132** literaturan)* *iz* zurrunga egiten. ik **zurrunga 6; zurrunga 7**.

Behingoz lo zerraldo nengoen, **zurrungaka** beharbada. Xabier Mendiguren Elizegi

Apaiza, leher eginda, **zurrungaka** zegoen egongelako sofan. Juan Kruz Igerabide

Zu berehala lokartuko zara eta nik ezingo dut, **zurrungaka** hasiko zarelako! Aitor Arana

Lokartu orduko, ordea, **zurrungaka** hasi da. Itziar Otegi

Banku batean eseri zen, **zurrungaka** ari zen nekazari baten ondoan. Koro Navarro

Ikusten gaituzu eta zelatatzen eta behatzen beti, zoko beltz txikietan, behizainen belardi handietan, maindireen azpian **zurrungaka** ari garenean, itzal ikaragarrietan. Koro Navarro

Gauez, batzuetan, **zurrungaka** aditzen genuen Amama Otso bere ohean. Mirentxu Larrañaga

Klara **zurrungaka** zetzan ohe gainean, utzi nuen planta berean. Aingeru Epaltza

Bernardo jaunak ere antzera, pixka bat geroxeago oheratu eta **zurrungaka** ekin zion gogor, ondo lo hartuta balego bezala. Askoren artean

Nikolas ohean lo gelditu zen, **zurrungaka**, eta Arianna, lo egin ezinik, korridorera atera zen. Felipe Juaristi

Hantxe daude **zurrungaka**, nor bere ohean, bakoitza bere loan. Fernando Rey

Batek baino gehiagok harrapatua zuen leiho bazterrean lo egunsentian, burua beso artean ipinita, **zurrungaka**. Juan Kruz Igerabide

· Eginahalean ekin zion pipa xurgatzeari, hain kementsu, ezen pipa **zurrungaka** hasi baitzen azkenean, fagota bailitzan. Jose Morales

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
> **zurrungaka ari** (10); **zurrungaka ari da** (3); **zurrungaka ari zen** (5); **zurrungaka hasi** (9); **zurrungaka hasi zen** (4)

---

# zurrungalari *iz* zurrunga egiten duen pertsona.

Gaur ere lo tzarra: bizpahiru orduz bederen **zurrungalariek** gaitzeko sinfonia egin digute, nihaur ohartu gabe haien kide nintekeela artetan. Piarres Aintziart

**Zurrungalariak** denbora luzea darama lotan goxo, eta nik ez dakit zer egin. Jon Arretxe

---

# zurrungari *(orobat **zurrunkari**)* *izond/iz* zurrunga egiten duena.

Urrats luzez ibili zen kamaina-ilara **zurrungarian** zehar. Lopez de Arana

Zorrizaku **zurrungari** horrek ez du besterik merezi! Patxi Zubizarreta

Klara **zurrunkariari** zapata takoidunak kendu nizkion, nire gorputzean barik mihisean estali eta alde egin aitzin. Aingeru Epaltza

---

# zurrungatsu **1** *izond* zurrungaz betea.

Mirakulua izanen zen naski gizonezko erkide batekin pornokien komentatzeko ekina, jadanik lizun eta lohi baldin bazitzaion estatistika **zurrungatsuetarik** isuri euskararen desagertzearen aipamena bera. Itxaro Borda

**2** irud/hed

Manex motakoek, hobekuntza genetikoa dela medio, errapeak handiagoak dituztela entzuna dut nonbait eta makina **zurrungatsuz** deizten ahal direla. Itxaro Borda

---

# **zurrungatu**, zurrunta(tu), zurrungatzen **1** du *ad* zurrunga egin.

Nor eta hi, bizidun eta ikustun izan arren, bizia ia hila duana, denborarik gehiena lotan galtzen, itzarrik **zurrungatzen** eta amesgintzari uzten ez dioana. Xabier Amuriza

**2** irud/hed

Hiria eremu librea da, liberalagoa, zabalagoa, argituagoa, eta herriak eta herri-koxkorrak berriz, murritzak, motzak, atzerakoiak, jauntxoaren eta apaizaren mendean luzaz egonak (eta gaur, ezdakitzer-ismo zital usanduren baten mendean **zurrungatuak**). Iñaki Segurola

Banaka harturik, den-dena dakitelako eromen garbiak harrapatuak ez dira asko, egia esanda, baina "denon artean" edo Han Nonbait dena jakina dagoelako sinestean zurrunduak eta **zurrungatuak** bizi direnak asko eta gehiegi dira. Iñaki Segurola

---

# **zurrungatxo** *iz* zurrunga arina.

Bular txiki hartatik **zurrungatxoak** irteten ziren; ezinean hartzen zuen arnasa, eta gero eta okerrago zegoen. Juan Kruz Igerabide

---

# zurrunka ik **zurrunga**.

---

# zurrunkari ik **zurrungari**.

---

# **zurrunkeria** *iz* zurruntasun gaitzesgarria.

Autoritarismo eta nagusikeria guztien erro-errotiko arbuioa, indibidualismo ezin garaituzko bat, formalismoen eta **zurrunkerien** gaitzespen sakona, epelak eta txepelak ezin jasan ia fisiologiko bat. Xabier Mendiguren Elizegi

Eliza ofizialaren **zurrunkeriaren** eredu dogmatikoa. Martin Anso

Oraingoan, erregearen gehiegikeriak eta nobleziaren harrokeria izan ordez, "Nazioaren Aita Lord Protektorearen" aginte tiranikoa eta haren inguruko elizgizon zorrotzen **zurrunkeria** ziren ezinegon jasanezin hartarako bide. J.M. Olaizola "Txiliku"

Deia katolikoen **«zurrunkeriagatik**» arduratuta dauden guztiei egin diete. Berria - Euskal Herria

**Zurrunkeria** itzela, bai. Edorta Jimenez

---

# **zurrunki** *adlag* zurruntasunez.

Umeek besoak **zurrunki** luzatu, eta ahots ozen modulatu gabez esaten zuten: Egun on, Peter dut izena. Xabier Olarra

---

# **zurruntasun** **1** *iz* zurruna denaren nolakotasuna. ik **zurrunkeria**.

Arropa zuriak garbitu berritan izaten duen **zurruntasuna** dute. Anjel Lertxundi

Eserita eta hankak gurutzaturik, Ellen bere gorputzaren **zurruntasunaz** jabetu zen, bere arroparen azpian portzelanazko irudi bat bailegoen. Lopez de Arana

Leiho irekitik sartuta, haize xuriak ile bakanak mugiarazten zizkiola, gorputz hilaren **zurruntasuna** bizi hats ezinezkoaren irudipenaz eztituz. Aingeru Epaltza

Giharretako **zurruntasuna** da parkinsonaren beste sintoma nagusietako bat. Berria - Gaiak

Belarri deformatuak, mikrognatia, aho txikia, garrasi edo oihu berezia, eta giltzaduretako **zurruntasunak**. Berria - Gaiak

Postura behartu hartan makurtuta ere, bularrek ez zuten artean **zurruntasunik** galtzen. Anjel Lertxundi

Eskala batzuk bizi-bizi, hatzen **zurruntasuna** kentzeko. Anjel Lertxundi

Lurrean finkatuta zituen begiak, eta harrizko **zurruntasuna** ageri zuen aurpegian. Koro Navarro

Zenbat gizaldiren historia ezagutu ote dute zuhaitz handi horiek, euren **zurruntasunean** geldi eta mutu! Jokin Urain

Ez baitago ezer bere lehen elementuak estuago eta kohesio handiagoz trabaturik dauzkanik burdinaren izaera gogorra eta **zurruntasun** hotza baino. Xabier Amuriza

Nora galdua zen beira trinkoaren **zurruntasun** amoremangaitz hura? harritu egiten zen oihalaren **zurruntasun** bitxi hartaz. Juan Garzia

Gainetik ematen zaien zarpeatua lehortu egiten da eta kanpotik gogortuta gelditzen dira; gero uzkurtzen joaten dira, ordea, eta ezin izaten dute zarpeatuak duen **zurruntasun**-maila mantendu. Santiago Iruretagoiena

**2** irud/hed

Epe laburreko eskaintzaren **zurruntasuna**, bestalde, are handiagoa izaten da garapen-bideko herrialdeek ekoizpena esportaziora bideratua dutenean. Koro Navarro

Garai keynestarretik heredatutako egiturazko **zurruntasunei** egotzi zitzaizkien europar ekonomiek krisia gainditzeko eta langabezia murrizteko zituzten eragozpen bereziak. Koro Navarro

Bertako oligarkien despotismoa, agintarien ustelkeria edota egitura sozialen **zurruntasuna**. Iñaki Heras

Araudi zurrun horrek eskaintzen dituen zirrikito guztiak aprobetxatu beharko liratekeela **zurruntasun** hori hausteko. Juan Ignacio Pérez / Pello Salaburu

Dogma zorrotz eta bakarren **zurruntasunean** erortzeke. Itziar Eizagirre / Amaia Lizarralde

Mitologia zabalduenaren arabera, lan-merkatuaren **zurruntasunari** dagokio langabezia. Iñaki Heras

Bere naturaltasunak jartzen ninduen urduri, edo neure **zurruntasunak**. Joxean Agirre

Zalutasuna baino bereago baitute batzuek **zurruntasun** zorrotz maiztua. Pello Salaburu

Nobela berrirakurri dudanean halako **zurruntasuna** aurkitu baitiot esaldi askotan, hizkuntzaren ikuspuntutik. Joan Mari Irigoien

Automata batek ez zuen berdinduko keinu haren **zurruntasuna**. Alberto Ladron Arana

Burua makurtuz itzuli zion agurra **zurruntasun** erabat britainiarrez. Karlos Zabala

---

# **zurruntxo** *iz adkor* zurruna.

Haien gainean zebilen gezi **zurruntxoa** zirudien burdin txaplatazko orratza, haizearen nondik norakoa airoso seinalatzen. Pello Zabala

---

## zurruntz *iz*

Bi VTT-dun pasatzen zaizkit aitzinean **zurruntz** goxo bat bideko salbean eginez. Piarres Aintziart

---

## zurruntze *iz* zurrun bihurtzea.

Kontu garbiak genituen jasoak, erietxean egon zen bitartean, odoleko gasen gorabeheren arabera ikusmenean jasan zituen **zurruntze** eta lausotzeari buruz. Xabier Olarra

Uccellok haren gorpuaren **zurruntzea** irudietaratu zuen, eta eskutxoen elkardura, eta begi itxi gaixoen lerroa. Juan Garzia

---

## zurrup-zurrup *adlag* zurrupadaren onomatopeia.

Horrela, ipurdian Antonio zunba-zunba zebilkidan ipurtalde dena goxatuz, Klaudio **zurrup-zurrup** zebilen ene zakil-potroetan, Imanolek xirri-xirri zegidan titiburuetan eta nik xurga-xurga berari buztanean. Aitor Arana

---

## zurrupa *iz* zurrupada. ik **hurrupa**.

Garbi-garbi utzi arte miazkatu zituen bi platerak, mahai azpikoek haren biraoak eta **zurrupak** entzuten zituzten artean. Koro Navarro

Dionisosek bien edalontziak ardoz bete eta, irratiaren marmarra teloi gisa, minutu pare batean sukaldean ez zen bien **zurrupa** hotsa baino entzun. Unai Iturriaga

---

## zurrupada **1** *iz* behingoan ahoratzen edo irensten den edari kopurua; hurrupatzea. ik **hurrupa; trago**.

Bere zigarroari **zurrupada** bat hartzen utzi zigun Josemariri eta bioi. Joseba Sarrionandia

Nik bi **zurrupada** edan nituen nire whiskitik, gogorik gabe, gizalegez jokatu nahian. Fernando Rey

"Gero, eta ez galdetu zergatik", erantsi zuen ardoari **zurrupada** egin eta gero. Aritz Gorrotxategi

Isilunean kafeontzia hartu eta **zurrupada** bat kendu zion. Iñaki Zabaleta

Esan bezala, kikaratxoa **zurrupada** batez hustu eta "bref" esan zuen: [...]. Ramon Saizarbitoria

**2** (izenondo eta izenlagunekin)

Alkandora apur bat laxatu eta banan-banan, leiho ondoan lerraturik zituen Cutty Shark botiletatik **zurrupada** txikiak edaten hasi zen. Harkaitz Cano

Beste batzuk bakarrik daude, errosarioa eskuan edo hausnarketan, teari **zurrupada** laburrak emanez, begirada galduta hormako zuri-gristasunean. Jon Arretxe

Azken **zurrupada** eman dio teari eta berriro hitz egin du. Jon Arretxe

Kafe kikara bi eskuez hartuz, **zurrupada** luzea egin zuen. Iñaki Zabaleta

Atzamar artean zeukan zigarroari **zurrupada** luzea eman eta kea patxadaz bota ondoren. Jon Arretxe

-Putakume horrek geltokira jaisteko aprobetxatuko balu! -erran zuen Hansek, zigarretari **zurrupada** urduriak emanez. Alberto Ladron Arana

Fermin isildu egin da lipar batez, txirriari azken **zurrupadak** emateko. Pako Aristi

**3** (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa)

Ur-**zurrupadak** eztarria gozatu zion. Lopez de Arana

Abelen hitzak entzunda Joxek sudur-**zurrupada** bat egin du, jiratu eta bidera atera da. Pello Lizarralde

Horixe izan omen zen Ferratéren azken bizi-**zurrupada**, inork ez baitzion, El Trovadorrenean ohi zioten gisan, bizitzaren pitxarra berriro bete. Joxerra Garzia

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
> **zurrupada bat** (4); **zurrupada luzea** (3)

---

## zurrupadatxo **1** *iz* zurrupada txikia.

Martiniari **zurrupadatxo** bat eman ondoren, hitz hauek gehitu zituen: Bizitza batzuk salbatu nitian egun hartan. Iban Zaldua

Cutty Shark **zurrupadatxo** bat hartu eta lo, **zurrupadatxo** bat hartu eta lo, amesgaizto bat eta **zurrupadatxo** bat, elkarren segidan. Harkaitz Cano

**2** irud/hed

Filosofia zeureganatzera eta beraren ur gardenetan irrika biziagoz edatera zu bultzatu nahian, zure egarriaren berri ondotxo jakin arren, **zurrupadatxo** hau, nolabait esateko, bidali nahi izan dizut. Imanol Unzurrunzaga

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
> **zurrupadatxo bat** (4)

---

## zurrupaka *adlag* zurrupatzen.

Fusilatze-pelotoia gosaltzen arituko da honezkero, tea **zurrupaka** edaten, gorrotoz, egingo dutena egin behar dutelako. Mirentxu Larrañaga

Gelditu gabe erretzen zuen, **zurrupaka**, arnasarik hartu gabe, zigarroa edanen balu bezala. Fernando Rey

Bero energiak gora, hotzaren zurrunbiloa **zurrupaka** behera, bero berriari bide emanez. Pello Zabala

Hankaren barruko haragi mamitsua atereaz, **zurrupaka** aritu zen nabarmen. Josetxo Azkona

Nola ibiltzen ahal haiz deabru-edabe honi **zurrupaka**? Aingeru Epaltza

Harry sukaldera itzuli zenerako, izeba Margek aurrean zituen tea eta fruta-pastela, eta Ripper **zurrupaka** ari zen ozenki bazter batean. Iñaki Mendiguren

Gozatzen segi dezala bere kidearen konpainian, zeren eta, sumatzen hasia bainaiz zerbait heze ari dela **zurrupaka** nire gainean. Josetxo Azkona

Handik pixka batera, baina, gizon txiki zalapartari bat sartu zen atetik, mukiei **zurrupaka** eta belarriak hotz-hotz eginda. Irene Aldasoro

---

## zurrupaketa *iz* zurrupatzea.

Magenta Hiriko bankaririk entzutetsuenak ez zuen idazkaririk kaleratzen **zurrupaketa** on bat egiten ez zion bitartean. Berria - Kultura

Basorako bi oliobideei eragindako kalteen ondorioz, petrolioaren **zurrupaketa** operazioak gelditu behar izan ditugu eta esportazioak ere etenda daude. Berria - Mundua

---

## zurrupaki *iz* erdi izoztua zerbitzatzen den edaria, gehienetan fruituduna. ik **sorbete**.

Nahi duzu limoizko **zurrupaki** bat? Iñaki Mendiguren

Eta **zurrupaki**-bola handi batzuk ere badaude, zupatzen dituzun bitartean lurretik zentimetro batzuk altxarazten zaituztenak. Iñaki Mendiguren

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
> limoizko zurrupaki (3); zurrupaki bat (3)

---

**zurrupaldi** *iz* zurrupatzea, zurrupatzen den aldia.

Milizkatu berriko zigarroa ezpainetaratu eta isiotu osteko **zurrupaldia** arnas-hartze zaratatsuaz lagundu zuen. Josu Landa

---

**zurrupan** *adlag* zurrupatzen.

Deus emateko gai ez eta beti **zurrupan** edonori. Hasier Etxeberria

---

**zurruparazi,** zurruparaz, zurruparazten du *ad* zurrupatzera behartu.

Zer izan zen zerraren hortzak pasatzea kokots txikiaren azpitik, eskuetan sentitzea haurraren odola olioa bezala ponpaka, aurpegiari eustea burua ez erortzeko, estutu eta herioaren espasmoak **zurruparaztea** gorputz adoratu, mardul eta bizitzaz bete hari. Anton Garikano

---

**zurrupari** *izond* zurrupatzen duena.

Ez ziren Parisen edozein zokotan ageri ziren begi berekoi eta **zurrupari** haietakoak, inguruko guztia irentsi eta trukean ezer ere ematen ez zuten begi nekagarriak. Harkaitz Cano

Hor dituzu azinetido **zurrupariak**, beste infusorio batzuen protoplasma-gaia xurgatzen dutenak. Josu Zabaleta

1978an, Sevillan, tornado **zurrupari** bat pasatu zen, aireportutik gertu: 75 auto kaltetu zituen, DC-4 hegazkin bat, aparkatuta zegoena, irauli zuen, eta teilatu eta zuhaitz, kalte anitz utzi. Pello Zabala

---

**zurrupatu,** zurrupa(tu), zurrupatzen **1** du *ad* edari edo kideko bat hurrupaka hartu. ik **hurrupatu**.

Aulki dotore batean eseri nintzen, naftalina gustua zuen edari bat **zurrupatuz** eta gustura entzunez Ted Williams eta Farr jaunaren arteko eztabaida bat. Koro Navarro

Jimmy baso bat ardo **zurrupatzen** geratu zen, bakarrik, janari-hondarren artean. Lopez de Arana

Garagarnoak **zurrupatzen** ditu bat bertzearen ondotik. Eneko Bidegain

-Halaxe da -esan nuen zopa **zurrupatzen** segitu bidenabar. Fernando Rey

Lehoia bezala altxatu da herria, ez du berriro atseden hartuko, harrapakina irentsi eta biktimen odola **zurrupatu** arte. Elizen arteko biblia

Izozki-koilarakada bat **zurrupatu** zuen bere aho biribila nabarmenduaraziz. Lopez de Arana

Goazen barrura, zer edo zer **zurrupatu** behar dugu. Josu Landa

Ez da berriro etzango harrapakina irentsi arte, biktimen odola **zurrupatu** arte. Jose Antonio Mujika

Koilarakadaka edaten zuen, **zurrupatuz**, zopa balitz bezala. Joseba Urteaga

Dembak xiritik **zurrupatutako** garagardoa bere lana egiten hasia zen. Anton Garikano

**2** irud/hed

Bakardade horretatik **zurrupatzeko** parada ukan dugun aldiro, gure barnea hondoraino bete dugu. Filipe Bidart

Arrainek urpean bezala arnasten zuen ahoa zabalduta eta aire baino, likidoa balitz bezala **zurrupatzen** zuen. Hasier Etxeberria

**3** zerbait aho-mihietan erabili, haren zukua edo zaporea hartzeko.

Isurki berdexkaz melatutako atzamar meheak banan-banan **zurrupatzeko**. Jon Arretxe

Eta izotz zati zorrotzak hartu eta **zurrupatzen** genituen. Joseba Sarrionandia

Behingoagatik patata frijituak mokoka jan, plateretik, hatzekin, eta mertxikaren erdialdea, hezur ingurua, **zurrupatu**. Itziar Otegi

**4** irud/hed

Erpurua **zurrupatzeak** hortz arazo larriak ekar diezaieke haurrei. Berria - Gaiak

Zakila **zurrupatzen** hasi zitzaion, umeek uda beroan izozkiak bezala. Aitor Arana

Ordura arte ahoan korritzen inori utzi ez dionak zakil bat **zurrupatu** nahi du eta haren isuri itsaskorra eztarria bustitzen sentitu. Karlos Zabala

Arras polita zen buztana elkarri **zurrupatzen** ziotenean ere. Karlos Zabala

Kuleroak kendu eta aluko ezpain handiak bereizten zizkidan klitoria agerrarazteko, nik maitasun handiz eskaini eta nola **zurrupatzen** zidan begiratzen nuen. Karlos Zabala

Lupe biluzten ikusten zenuen, Lupe zure gainean dantzari, zeure azpian preso, lau hankan jarritako zakur, zu haren ahoan, zeu haren gutiziak **zurrupatzen**. Hasier Etxeberria

**Zurrupatu**, lamikatu, zupatu, miaztu, txupatu, miazkatu, mizkatu, milikatu, zurgatu, hurrupatu, edoski, murduskatu, xurrup egin behar didazue, ekin zion ostera ere B-12k, denok ongi konprenitzea nahi zuela argi ikus genezan. Jon Alonso

**5** xurgatu.

Gorputz hil baten hezurrak garbitzen dituen hienak, euli bati barrena **zurrupatzen** dion armiarmak. Josu Zabaleta

Fabrika Haundian lan egin eta gero etortzen zen, eta bular gaixotik esnea **zurrupatu**, eta gero harraskatik behera botatzen zuen. Patxi Zubizarreta

Horregatik iristen dira zuhaitz guztien sustraiak munduaren erdiguneraino, ura **zurrupatzeko**. Jon Maia

Espazioko zulo beltzak inguruan duen guztia **zurrupatzen** duenean han, zuloaren erdian bazeunde legez. Harkaitz Cano

Itsas-lamiek barne-hezetasuna **zurrupatu** eta azal huts bihurtu zutela kapitaina diote zenbaitek. Harkaitz Cano

Azkenaldi hartan limoi pusketatxoen antzera nahiko zukutua senti zezakeen bere burua, **zurrupatua**. Joxemari Iturralde

Gutxi hitz egiten zuen, eta gutxi hori eragozpen handiz, aho okertutik erortzen zitzaion elderra **zurrupatu** ezinik. Ramon Saizarbitoria

Mukiak sudurrean gora indartsu **zurrupatu** eta hain karkaxa ugari bota zuen Henchy jaunak, ezen [...]. Irene Aldasoro

Objektuak ankerrak izaten dira batzuetan, gizakiak **zurrupatu** eta haien arimez jabetzen direnean. Harkaitz Cano

**6** irud/hed

Gosetuek jango dute hark bildutako uzta, kendu egingo diote, arantzazko hesiak jarri arren; egarrituek **zurrupatuko** diote ondarea. Elizen arteko biblia

Bazter itzazue indarkeria eta lapurreta, jokatu zuzenbidez eta justiziaz, ez **zurrupatu** nire herriaren ondasunak. Elizen arteko biblia

Metalez betetako zakukada pisutsu bat lepoan hartuta N-1 errepidea zeharkatu eta Pasaiara korrika ihes egiten zuten iluntasunaren zerbitzari haiek, gauak **zurrupaturik** desagertzen zirenak gero. Harkaitz Cano

Inguru dena **zurrupatu** eta trukean ezer ematen ez duen begirada nekagarri horietako bat. Harkaitz Cano

Distantzia apur bat hartu behar duzu, bestela hiriak **zurrupatu** egiten zaitu. Harkaitz Cano

Azkenaldi hartan limoi pusketatxoen antzera nahiko zukutua senti zezakeen bere burua, **zurrupatua**. Joxemari Iturralde

Negar isila darion neure min horrek begiak lausotu egin dizkit, eta gainerako gauza guzti-guztiak **zurrupatu** dizkit tristuraren laino etsiak. Joxerra Garzia

-Gringottseko iratxoa ez den norbaitek egiten badu hori, ateak **zurrupatu** egingo du eta bertan harrapatuta geratuko da. Iñaki Mendiguren

Mekanoak arreta osoa **zurrupatzen** dio. Jokin Muñoz

Askotan, ordea, indarra **zurrupatu** egiten digu aulkiak; ahulki bilakatzen direla, alegia. Iñaki Arranz

**7** irud/hed ik **esplotatu**.

Alargunak larrutzen dituzte eta umezurtzak **zurrupatzen**. Elizen arteko biblia

Ez **zurrupatu**, ez zapaldu etorkinak, zuek ere etorkin izan baitzarete Egipton. Elizen arteko biblia

Ez duzue jornalari dohakabea eta behartsua **zurrupatuko**. Elizen arteko biblia

**8** (era burutua izenondo gisa)

Bai, limoi **zurrupatuak** ziren bihotz eta amodio kontuak. Joxemari Iturralde

---

## zurrupatzaile *izond* zurrupatzen duena.

Biziaren izerdi zahar guzia, parasito **zurrupatzaileok** zurrupa eta ito ez dezaten, bere fruitu puxkari bederen eutsi nahian. Patziku Perurena

Gizon beltzak ene hankartean jarri zuen bere aho **zurrupatzailea**. Aitor Arana

Nire esnea Klaudio **zurrupatzailearen** ahoan isuri zen. Aitor Arana

Esponja **zurrupatzailea** da bertsolaria, ingurukoari adi eta xurgatzeko prest. Andoni Egaña

Nola esango nuke, Polikarporentzat garbigailuko zuloa bezala [...] halakoxe obsesio **zurrupatzailea** sortu zitzaidan Dabiden egiaren gezurraren eraginez. Patxi Zubizarreta

---

## zurrupatze **1** *iz* edari edo kideko bat hurrupaka hartzea, zerbait aho-mihietan erabiltzea haren zukua edo zaporea hartzeko.

Utzi balidate, sikeran, euren sartze, ateratze, miazkatze eta **zurrupatze** saioei begira egoten, hartan inspiratuta kanpaia jo nezan gustura! Jon Arretxe

**Zurrupatze**-ponpa izateko haren eginkizunetik. Monika Etxebarria

**2** irud/hed

Eskaintza modu-modukoak, aprobetxategien diseinuzko diru-**zurrupatzeak** eta iruzurrak. Edorta Agirre

---

## zurrupita *adlag* turrustaka, turrustan.

**Zurrupitan**. Daniel Landart

---

## zurrusta (*38 agerraldi, 21 liburu eta artikulu 1ean; orobat **zurruzta** g.er.)* **1** *iz* iturri, hodi edo zulo batetik ateratzen den isurkari baten jario joria. ik **turrusta**.

Esperimentu hartan, berun urtua isuri zuten pertzetik, eta irakaslearen alabak eskuak pasatu zituen, hatzak zabalik eta poliki-poliki, **zurrustan** zehar. Irene Aldasoro

*ik beherago* 5. Askoren artean

Koheteek buztan gisa uzten duten **zurrusta** zuria begiztatu dute beren etzatokitik. Aingeru Epaltza

**2** (izenondo eta izenlagunekin)

Erretilutik ere ginebra-botila hartu eta **zurrusta** luze bat hustu zuen edalontzian, izotz-puskak erabat estali zituen arte. Josetxo Azkona

Euri zaparrada hotsa zen hura, **zurrusta** tenteen jarioa, hoska eta ziliportaka. Paretan lehoi-buru bat ipiniz, ahoa zabalik zuena, nondik ateratzen baitzen ura **zurrusta** hotsandi batean, aska errektangular zabal samar baterat isurtzeko. Karlos Zabala

Te-ontzia bat-batean makurtu, eta zehaztasun txundigarriz bota zuen edontzira **zurrusta** kiskalgarria. Laba irazekizko **zurrusta** luze eta mantso bat. Jon Muñoz

**Zurrusta** bizian ateratzen zen ura kanilatik. Jon Muñoz

**3** (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa)

Ur **zurrustak** maite zituen arrain txikiek bezainbeste. Karlos Zabala

Dutxako ur **zurrusta**. Luis Elberdin

Likore-botila hartu eta whisky-**zurrusta** on bat atera zuen berarentzat. Irene Aldasoro

Izerdi **zurruzta** ederra isuri nuen denbora gutian. Aingeru Epaltza

Ezkerreko bentrikulutik aortara irteten den odol-**zurrusta** ez da oso urrun joaten hasieran. Irene Aldasoro

Lohi-**zurrustak** zipriztintzen genituen alde banatara, putzuetan barrena igarotzerakoan. Joxe Austin Arrieta

**4** irud/hed

"Ja ez dut hura maite", aitor dio Elisari gizonak; baina baita, hitz **zurrusta** berean: "Hutsik banengo bezala da...". Pablo Sastre

**5** ***zurrustan*** *adlag* ik **turrusta 4**.

Han ikusi nituen irudiak -gizona hilik niri begira, odola **zurrustan**, lore moreak...- lanbro artean galtzen hasi zaizkit. Anjel Lertxundi

Botilatxo berdeen mama goxoa ere neure eztarritik doa **zurrustan**. Javi Cillero

Lehen negar-anpuluak **zurruztan** ziren begi ertzetik beheiti. Aingeru Epaltza

Orain itaxurak **zurruztan**, hots, gutitu dira edo ttuttuldu lehengo osaba zahar puxantak. Herria

---

## zurrustada **1** *iz adkor* zurrusta.

Justina Díaz, guardasolaz estalpeturik, Media Lunatik datorren karrika zuzenetik zetorren, espaloi-oholen gainean borbor egiten zuten **zurrustadak** inguratuz. Juan Garzia

**2** (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa)

Ur-**zurrustada** betaurrekoetara etorri zitzaidan. Aingeru Epaltza

Gero, antzara-zirinezko orban bat enplastatu bertan, eta amorrua adierazteko triangelu gorri bat eta berde-**zurrustada** bat, behazun gora-joa eta izu kakaeragilea marrazteko. Xabier Olarra

Orduan zuzendu du Pernandok hauspoa harengana eta sartu du kirats-**zurrustada** bat paretako zulotik. Koro Navarro

**3** hurrupa.

Sabeth noizbehinka inguratzen zen salto batean, bere *citron-pressé*-tik **zurrustada** bat edatera. Joxe Austin Arrieta

Kafeari **zurrustada** nik. Joxe Austin Arrieta

**4 *zurrustadan*** zurrustan.

Iturri batean gelditiuko zen, ur freskoko antzinako iturburu batean, Pontitotik irten eta berehala baitzegoen bat, eta **zurrustadan** irteten zen urean jarriko zuen aurpegia. Xabier Olarra

---

# zurrustadatxo *iz adkor* zurrustada.

Jainkoaren izenean, atera iezadazu **zurrustadatxoren** bat, bai? Mirentxu Larrañaga

---

# zurrustaka *adlag* zurrustan.

Ni hari **zurrustaka** zerion izerdian igeri sentitzen nintzen. Juan Garzia

**Zurrustaka** jario, hamar litro ur hurrupatu balitu bezala. Juan Garzia

Orain noizean behin haize kirriak granada-arbolaren adarrak astintzen zituen, euri lodi bat **zurrustaka** jariaraziz. Juan Garzia

--Ez, andrea, ez naiz zutaz ahaztuko -esan zuen Txitxikovek, eskuaz izerdia xukatzen zuen bitartean, **zurrustaka** lerratzen baitzitzaion aurpegian behera. Jose Morales

Haizea jotzen hasiko da eta, leihatila zarratzeko inguratu zarenerako, elurra **zurrustaka** sartuko da. Joseba Sarrionandia

Hormako hodi horrek berak ez darama ura barrutik bakarrik; kanpotik ere **zurrustaka** irristatzen zaio, eta prakak mela-mela eginda dauzkat. Aitor Arana

---

# zurrut *(186 agerraldi, 77 liburu eta 5 artikulutan; orobat* **zurruta** *g.er. eta* **txurrut** *g.er.)* **1** *iz* hurrupa. ik **zurrutada.**

**Zurrut** batean hustu zuen slibowitz basokada. Anton Garikano

Nire irribarrerik ederrena zuzendu diot, eta **zurrut** batez amaitu dut vermuta. Iban Zaldua

Beste **zurrut** batera gonbidatuko nauk? Lopez de Arana

Mahai inguruan begiratu bat bota zuen Wilmarth andereñoak, lehen **zurruta** jo aurretik. Mirentxu Larrañaga

-Eta Erregearen hitzaldiari buruz, zer? -esan zuen Lyons jaunak, **zurrut** bat edan eta ezpainak klaskatu ondoren. Irene Aldasoro

Mutilek errespetuz begiratzen zioten, **zurrut** bat egin eta whiskya nola dastatzen zuen. Irene Aldasoro

Beste **zurrut** bat eginda, aurrera ekin dio-: [...]. Joan Mari Irigoien

**Zurrut** bana atera zuen bakoitzarentzat, beraz. Mirentxu Larrañaga

Kanpoko hainbeste ur hotzen partez, ur bero-beroaren **zurrutak** lasaituko eta indartuko ninduela, dudarik ez... Daniel Landart

Ondoren, lehen **zurrutean**, poztasunezko hasperen luzea utzi zuen ezpainetatik irteten. Joxemari Urteaga

*ik beherago* 5. Askoren artean

Horrela ez bada, nola ikus liteke eskazale tipikoa, kalebazter batean eseria, eskean bildutako puskak ondoan dituela, ardoari **zurrut** eta pipari zupaka. Patziku Perurena

**2** (izenondo eta izenlagunekin)

Hazel bere kasa edaten hasi zen, bakarka eta apurka, **zurrut** txikiak tartekatuz egun osoan. Mirentxu Larrañaga

Purua ahora eraman, eta beste ke-ahokada bat egotzi zuen, **zurrut** luzea egin ondoren. Joan Mari Irigoien

Bere oinarri-esakuneak ere dogmatikoki zapuzten dituen pozoina edaten du **zurrut** luzeetan. Ibon Uribarri

**3** (hitz elkartuetan)

Bi pilula zuriak irentsi zituen, ur **zurrut** luze batez lagundurik. Fairliek te-**zurruta** edan zuen. Alberto Ladron Arana

Clémencek, azken biribilkia gorde eta gero, grog **zurrut** bat edan zuen edontzitik. Karlos Zabala

**4** zurrut egitea.

-Ehiza, arrantza eta **zurruta** -esan zuen Roberts jaunak. Koro Navarro

Mintzagai komuna, lehenago edo geroago elkarrizketa guztietan aterako zena, jaiak, festak, ondo pasatzea, dibertitzea, eta nola ez, **zurruta**. Pedro Alberdi

Lo-ezak eraginda, flakiak jota, **zurrutak** nahastua, haren buruak ezin zuen onik egon egoera hartan. Pako Aristi

**Zurruta** utzi behar zuela esan niolako. Joan Mari Irigoien

Akabo **zurruta** niretzat. Mirentxu Larrañaga

Orduan, ez zuen izaten **zurrutaren** ajea gainditu arteko bakerik. Mirentxu Larrañaga

Beti pentsatu izan dut gaua ispilu bat dela, eta ez inondik ere jendeak, **zurrutaren** edo kuelgearen mozorropean itxurakerietan ibiltzeko erabiltzen duen lekua. Pako Aristi

Esan berri dut **zurrutaren** gaitzetik osatu samarra zegoela aita. Joan Mari Irigoien

Bakarkako **zurruta** gaizki ikusia da, baina nazio zurruteroak zibilizazioaren eta boterearen gailurrean daude. Xabier Olarra

**Zurrutari** ematen zion. Joseba Urteaga

Xabi eta biok ondoko tabernara goaz, arratsaldea ondo bukatu nahian, **zurrutera**. Xabier Etxabe

**5 *zurrutean*** *adlag* zurrut egiten.

Gero, gainera, gu ez gaudenean, sotora joan eta ezkutuan aritzen dira **zurrutean**. Josu Zabaleta

-Hi, txo, eta **zurrutean** jardun izan bagenu ere, zer? Anjel Lertxundi

Hazeli ez zitzaion jostagarria iruditzen Herbie **zurrutean** ikustea. Mirentxu Larrañaga

Kristau Eskoletako Anaiengana bidali nuen, eta ahal nuen guztia egin nuen beraren alde, eta hor dabil orain, **zurrutean**. Irene Aldasoro

Eta klink, ontziaren bizkarrean **zurrutean** eta solasean hasiko da jendea. Joseba Sarrionandia

Ezin zintuztedan nirekin hartu, oso gutxi irabazten bainuen, eta **zurrutean** gastatzen nian dena. Eskarne Mujika

Lan bat aurkitzen duenean, okerrago da: **zurrutean** joaten zaio dena. Irene Aldasoro

Jew's Harp tabernan egoten zen gauero, **zurrutean**, kuxkuxean eta erlojuari begira. Koro Navarro

Handik aurrera, **zurrutean** erortzea eta barrako neska haiekin ligatzea txanpon bereko bi aldeak bihurtu zitzaizkidan. Joan Mari Irigoien

Gizonek, aldiz, **zurrutean** edan zuten haren beldurra. Oskar Arana

Hamaketan etzanda eta **zurrutean**, berriro izerditu ahal izateko. Joxe Austin Arrieta

**6 *zurrut egin***

Berotu egin zitzaidaan bihotza, **zurrut egin** banu bezala. Jon Muñoz

Entzule guztiek beren botiletatik **zurrut egin** zuten, isilik. Irene Aldasoro

Maite dut iturri ukigabeak aurkitu eta bertatik **zurrut egitea**. Xabier Amuriza

Tarteka teari **zurrut eginez**, astiro egiten du berba, ingeles txukunean. Jon Arretxe

Ardo zuriari **zurrut egin**, eta kontaketari lotu zitzaion ostera ere. Jon Arretxe

**Egin** daigun **zurrut** banda handi haren omenez! Jon Arretxe

Sofan erdi etzanda, ardoari **zurrut**, Ducadosari tira, behin eta berriro disko bera aditu zuen goizaldera arte... Unai Iturriaga

**7** (osagaiekin)

**Zurrut** gehiegi **eginda** agertu ohi zen. Mirentxu Larrañaga

Urteak ziren **zurrutik egiten** ez genuela. Koldo Izagirre

Ez zuen **zurrutik egiten**, eta moila gainean konpontzeko egoten ziren sareen artean moldatu behar izan zuen ohatzea. Koldo Izagirre

**Zurrutik** ez du inoiz **egin**. Pako Aristi

Aspertu egiten garela etxean, **zurruta** besterik ez dugula **egiten**. Koldo Izagirre

**7** ***zurrut eta zurrut*** *adlag* edan eta edan.

**Zurrut eta zurrut**, berak bakarrik hustu du ia dena. **Zurrut eta zurrut** ari ginen, pitxerra pitxerraren ondoren edaten. Itziar Otegi

Handik aurrera, edanari eman zion, **zurrut eta zurrut**. Joan Mari Irigoien

Berba eta berba, eta **zurrut eta zurrut**. Jon Arretxe

**hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**

**beste zurrut bat** (4); **zurrut bat edan** (3); **zurrut bat egin** (3); **zurrut batean** (5); **zurrut batean hustu** (3); **zurrut egin** (13); **zurrut egin zion** (4); **zurrut egiten** (3); **zurrut eta zurrut** (4)

**zurrutari eman** (5); **zurrutari ematen** (5)

---

# zurrutada

*(143 agerraldi, 47 liburu eta 3 artikulutan; orobat* ***txurrutada*** *g.er.)* **1** *iz* zurruta, hurrupa.

**Zurrutada** bat behar dut, eta ekar iezadazu botila ere. Mirentxu Larrañaga

Emakumeak xanpaina **zurrutada** batez amaitu zuen eta pozarren onetsi zuen eskaintza. Lopez de Arana

Laranjazko edaritik **zurrutada** bat hartu zuen. Aitor Arana

Basoa **zurrutada** batez hustu eta Joxanen belarrira hurreratu zen. Paddy Rekalde

Oinak mahai gainean jarrita, elkarri begietara barrez begiratuz, eta aldiro-aldiro ardo **zurrutada** bat edanez. Josu Zabaleta

Lehendabiziko whiskya bi **zurrutadatan** edan nuen. Migel Angel Mintegi

Gainerakoa, oraintsu esan bezala, zure esku dago -azken **zurrutada** eman zion kopari. Migel Angel Mintegi

Coca-cola poteari azkeneko **zurrutada** eman eta irribarre egiten du. Antton Olano

Eskuan kopa zekarren, eta ezpainetara hurbildu zuen, **zurrutada** bat egin eta zoriona opatuz. Agustin Otsoa

Chandler Txikik lau edo bost **zurrutada** egin zituen edontzitik. Irene Aldasoro

Nik mahai gaineko edalontzia hartu, **zurrutada** bat jo, eta zera pentsatu dut: [...]. Juan Martin Elexpuru

Biek batera jo dute **zurrutada**, isilean. Paddy Rekalde

Asunek zigarro bat isiotu, beste **zurrutada** bat jo eta sukaldera sartu da berriro. Paddy Rekalde

**2** (neurri gisa)

Maskuria libratu ondoren, **zurrutada** ur edan, eta sukaldera bideratu zen, dutxatu gabe. Migel Angel Mintegi

Mozkoteak **zurrutada** bat kafe edan zuen. Migel Angel Mintegi

Oliba irentsi, hezurra platertxoan utzi, eta **zurrutada** bat garagardo hartu zuen. Migel Angel Mintegi

· **Zurrutada** on bat garagardo nuen amets. Agustin Otsoa

Haren ostean, beste **zurrutada** bat besterik ez zegoen botilan. Agustin Otsoa

Kina- **zurrutada** handi bat bota bere baso hustuan, eta marrubizko jarabe pixka batez gozatu zuen. Jon Muñoz

**3** (izenondo eta izenlagunekin)

Izebak ardo-koparen oina haztatu zuen, **zurrutada** txiki bat edan aurretik. Irene Aldasoro

**Zurrutada** handitan edan zuen. Lopez de Arana

**Zurrutada** luzea eman zion garagardoari. Migel Angel Mintegi

Garagardoari **zurrutada** luze bat emanaz, irratia piztu zuen. Joxemari Urteaga

Negar-zotinka egiteari utzi eta berriro tea edaten hasi zen **zurrutada** laburrez. Lopez de Arana

Indarrik gabeko azken **zurrutada** epela gogoratu eta botila lurrean utzi zuen. Joxemari Urteaga

**4** (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

Gero, hortzik gabeko aho baten ausikia aditu zuen, bai eta aldizka emakumeak kafe kikarari ematen zizkion **zurrutada**-hotsak ere. Lopez de Arana

**5** (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa)

Fruta lehor batzuk eta xerra txiki bana haragi ketu, ur- **zurrutada** batzuez bustirik. Agustin Otsoa

Asaldatu egin zen, ardo- **zurrutada** bat edan eta hizketan jarraitu zuen, lotsagorriturik. Lopez de Arana

Cassie te- **zurrutada** txikiak edaten ari zen koilaratxoaz. Lopez de Arana

Phineas Blackheadek korrokada harrigarria egin eta bikarbonato- **zurrutada** handi bat edan zuen. Lopez de Arana

**hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**

**ardo zurrutada** (3); **azken zurrutada** (5); **beste zurrutada bat** (10); **beste zurrutada batez** (3); **te zurrutada** (4)

**zurrutada bat edan** (3); **zurrutada bat egin** (5); **zurrutada bat jo** (3); **zurrutada batez edan** (4); **zurrutada batez hustu** (6); **zurrutada egin** (4); **zurrutada eman** (13); **zurrutada eman zion** (6); **zurrutada handi** (3); **zurrutada handi bat** (3); **zurrutada luze** (9); **zurrutada luze bat** (5); **zurrutada luzea** (5)

---

# zurrutadaka

*adlag* zurrutaka, hurrupaka.

Beste kikara hartu eta **zurrutadaka** edaten hasi zen. Migel Angel Mintegi

Jimmy Herf zoko batean bakarrik gin fizz bat edaten ari zen **zurrutadaka**. Lopez de Arana

---

# zurrutadatxo

*(orobat* ***txurrutadatxo*** *g.er.)* *iz* zurrutada txikia.

**Zurrutadatxo** bat egin zion bere edariari, eta Ignatius Gallaherrek, berriz, trago batean bukatu zuen berea. Irene Aldasoro

Kopari **zurrutadatxo** bat eginik eta puruari eusten zion eskua altxaturik, errepikatzen zuen: [...]. Joan Mari Irigoien

Lauzpabost atxiki eman eta gero, beste **zurrutadatxo** bat whisky hartu, eta isiltasuna urratu zuen. Migel Angel Mintegi

"Zorioneko gazteria", ematen zuen zioela erretoreak erretilutik basoerdi almendra opiltxo bat hartu edo likore **zurrutadatxo** bat edaten zuen bitartean. Josu Zabaleta

Besaulki birakarian eroso ezarririk, kikara bat hartu eta **zurrutadatxo** bat eman ondoren, detektibeari begiratu zion adi. Migel Angel Mintegi

-Ezagunak egiten zaizkizu izenak? -bisitariak ardoari **zurrutadatxo** bat jotzeko burua altxatu zuela aprobetxatuz bota nion. Edorta Jimenez

Uko egin zion **zurrutadatxoari** [...] eta, tabernan denborarik galdu gabe, urkamendira eraman eta urkatu egin zuten, besterik gabe. J.M. Olaizola "Txiliku"

---

**zurrutagailu** *iz*

Agatak deus ez bailitzan begia kameraren **zurrutagailuan** pausatu zuen, solasak, ele-meleak eta karkailak bazterturik, argazkiaren ontzeko petik gora herrokaturiko jendeak jargietara nola hupatzen ziren miretsiz. Itxaro Borda

---

**zurrutaka** *adlag* zurrut eginez. ik **hurrupaka**.

Llumek, malkoak darizkiola, **zurrutaka** edaten du. Antton Olano

Saltzaileak bere kafe hutsa **zurrutaka** edan, eta Suschitzky andreak bat-batean esan zuen, serio eta itzaltsu, otoitz egiten bezala: [...]. Anton Garikano

Agure Jaunaren alabak eta suhia egongela beroan zeuden, itxaroten, sagardoari **zurrutaka**, eta hizketan, isilkako maila gizabidetsuan. Mirentxu Larrañaga

---

**zurrutaldi** *iz* zurrut egiten den aldia. ik **hurrupaldi**.

Rin-eko ardotik tragoa jotzen duen aldiro, atabal-turutak arrantzaka hasten dituk **zurrutaldiari** aupaka. Juan Garzia

Ohi bezala, wisky bana edan zuten, izotzik gabe eta **zurrutaldi** bakar batez. Patxi Zubizarreta

-Eta? -galdetu zuen Mentxuk, segundo erdi bateko **zurrutaldiaren** ondoren. Josu Landa

---

**zurrutatu**, zurruta(tu), zurrutatzen **1** du *ad* zurrupatu, hurrupatu.

Ama zaharra ohean artean, gaupasa eginak kafea berotu eta, katilukada bat erdia baino gehiago pattarra zuela **zurrutatu** zuen. Pako Aristi

Bi urte zaharreko kezkak ez zion kaskoa libre uzten eta galdegaia jaukitzen zitzaion, Louiserekin tea hurrupatzen edo whiskia **zurrutatzen** zuen oroz. Itxaro Borda

Oraingoan, lizentziamendu gutuna erdietsirik, isiltasun astun haren edukiaz arranguratzen zen, sofaren gainean, telebistari beha zegoela, garagardoak bata bestearen ondotik **zurrutatzen**, Martinaren aiduru. Itxaro Borda

**2** irud/hed ik **zurrupatu**.

-Haii... Beti beste aukerarik ez dela diozue, sakelak bete, diru publikoa **zurrutatu** eta ospa egin aitzin. Itxaro Borda

---

**zurrutegi** *iz* harraska.

Apairu arineko azietak **zurrutegian** metatu zituen. Itxaro Borda

---

**zurrutero** 1 *izond/iz adkor* edalea, zurrutaren zalea dena.

Barbara Allen alaba bakarra zen, eta, neskatoa zela ama galduta, aita **zurrutero** eta jokalariarekin bizi zen. J.M. Olaizola "Txiliku"

Musika eta telebista amatatuta, ixteko puntuan zeukan taberna, azken bezero **zurruteroei** azken kopak atera ostean. Paddy Rekalde

Bakarkako zurruta gaizki ikusia da, baina nazio **zurruteroak** zibilizazioaren eta boterearen gailurrean daude. Xabier Olarra

Senarra nahi zuen bihozbera, **zurruteroa** ez zena, afaltzera zintzo-zintzo etorriko zitzaiona, eta lanera garaiz joango zena. Mirentxu Larrañaga

Langile zintzoa zen, hau da, ez alfer, ez **zurrutero**, ez gautxori. Joseba Urteaga

**Zurruteroak** dira (aitonaren baso erdiarekin konformatuko ez liratekeenak), alferrak, liskarrera emanak, eta horrelako bikote batek nola osa dezake eredurik? Anjel Lertxundi

**Zurrutero** galanta zen, eta horrek bihotzekoa ekarri zion Somerako taberna batean zegoela. Paddy Rekalde

Ez nintzen bertso horietako gizonaren neurriko **zurrutero** amorratua, baina gainerakoan alde handirik ez. Juan Luis Zabala

Aise igaro zezakeen, gau osoa, mela-mela egiteraino edaten zuten **zurrutero** kartsuak biltzen zituen mahaiaren inguruan. Mirentxu Larrañaga

**2** (hitz elkartuetan)

Hainbat gau eman zuen etxetik kanpo, luze jo zuen **zurrutero**-festa parrandazaleren batean, nabarmen-nabarmen. Mirentxu Larrañaga

· Azido urikoa, tanta-hezueriak joen borrero, tripazain-**zurruteroen** zigor eta harri-gaitzaren eragile sonatu horixe Juan Garzia

---

**zurrutgarri** *(corpusean **zurrut-garri** soilik)* *iz* zurrut egiteko edaria.

Gosaritarako, baso tiki bat bete kafe-esne, ogirik gabe; kafe-esnea izenez, baina izatez ur zikin poxino bat hauts-esne pixkatez nahastuta; bestalde, **zurrut-garri** hori hotz-hotz ekartzen baitute, nehork ezin izaten du iruntzi. Jokin Urain

---

**zurrutots** *iz* zurrutaren hotsa.

Zergatik ez den **zurrutotsik** egin behar zopa jatean. Joxe Azurmendi

Izan ere, lagunartean gaudela, elkar gogaitarazi nahi ez dugula, albokoen begirunea, etab., bada nahiko arrazoizkoa **zurrutotsik** ez egitea. Joxe Azurmendi

Ez ditu arrazoiketak elkartzen, **zurrutotsik** ez ateratzeko elkartzen dituen kultura berak baizik. Joxe Azurmendi

---

zurruzta ik **zurrusta**.

---

**zurt** *adlag* erne, adi.

Ahalegin bedi bere gogo guztia **zurt** egon ez dadin jaten ari den gauzan. Patxi Altuna

Bertan geldiarazi bainau, erne-erne eta zirkinik gabe, ehizari **zurt** baratu den ora bezalaxe. Juan Garzia

Eskoltako soldaduak adi eta **zurt** zebiltzan, presoei begirik kendu gabe. Karlos Zabala

---

zurtaje ik **zuraje**.

---

zurten ik **txorten**.

**zurtoin** *(orobat* ***zorton*** *g.er.)* **1** *iz* landare hodidunetan, sustraiaren aurkako noranzkoan hazten den eta hostoak ematen dituen zatia. ik **enbor; lasto.**

Zeren landare haiek **zurtoin** bat baitzuten, eta **zurtoinaren** muturrean bi hosto, bi esku tipi bezalakoak. Joan Mari Irigoien

Landare baten **zurtoina** zeharka mozten badugu, sekzioaren gainaldean konplexutasun handiko edo ez hain handiko marrazkia geratzen da agerian. Isabel Arrigain

Kotoiaren hazi, **zurtoin** eta zuztarretik ateratzen den *gossypol* substantzia aztertzen hasi ziren. Luis Elberdin

Kontu handiz, xaflarekin angelu justuan joaz, erruda temati baten **zurtoina** moztu zuen. Anton Garikano

Arrosa gorrien **zurtoinak** aluminio-paperean biltzen ari zen bitartean. Lopez de Arana

Ureztatu bezain laster lehortu egiten zen lurra, eta landareak triste makurtzen ziren beren **zurtoinaren** gainean. Josu Zabaleta

**2** (izenondo eta izenlagunekin)

Ilarrak eta babarrunak beren **zurtoin** meheak kiribiltzen hasiak ziren hango zurkaitz basoan. Karlos Zabala

Nagitasunez egon nintzaion begira, neskek iragarkizunak esateko erabiltzen dituzten **zurtoin** berde horietako bat mastekatuz. Irene Aldasoro

Ontziak arraro kokatuta, **zurtoin** ustelez beteak, kimuak zimelduta orbainen antzera. Anton Garikano

**Zurtoinak** lodiak eta leunak ziren, eta kiribildurik zeuden, borrokan ari balira bezala. Juan Kruz Igerabide

Gustuko espektakulua bihurtu zitzaidan landareen hostoen horitze-prozesua jarraitzea, herioren kontrako beren borroka hura kontenplatzea, azkenik **zurtoin** eroria, indarrik gabe, parketaren gainean nola etzaten zen ikusteko. Iban Zaldua

**3** (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

Ez zen larre mugagabea, **zurtoin** landareez osaturiko baso zabal moduko bat baizik. Karlos Zabala

Hosto-formako plater berde handi bat, **zurtoin**-formako eskulekuz, gainean purpura-koloreko mahaspasa eta almendra zuritu mordoxkak zituela. Irene Aldasoro

**4** (hitz elkartuetan lehen osagai gisa, elkarketak izenondo balioa duela)

Herriko hilerrian, txilar bat jaio zen, sustraiekin pipak egiteko erabiltzen diren txilar **zurtoin**-luze eta zuztar-egurtsu horietako bat. J.M. Olaizola "Txiliku"

**5** (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa)

Belar-**zurtoina** ez zuen hortzetaratu, hatz artean kiribilka erabili baizik. Joxe Austin Arrieta

Loreen azpian itoa eta galdua egoten zen; ihi **zurtoinen** gainean sortak eta sortak prestatzen ematen zuen egun guztia. Karlos Zabala

Kristalezko pegar bat, eta apio-**zurtoin** batzuk pegarrean, zutika sarturik. Irene Aldasoro

Gogorra izan zen han egotea, gogorra, oso gogorra, txakurrak bezain tente, arto-**zurtoinen** dantza ikusten eguerdian. Anton Garikano

-Begira ezak -esan zuen Claudek, azken sarde kolpea ematen zuela-, aza **zurtoin** hori ezagutzen diat. Karlos Zabala

Orburu **zurtoinek**, hostoek eta beste hondarrek galtzada arriskutsu bihurtzen zuten. Karlos Zabala

Mutiko bat bahitzen duk, eta papiro-**zurtoin** bat hartzea debekatzen didak, legeak debekatzen duela eta. Jon Muñoz

**6** irud/hed

Hiru zati dauzka [klitoriak]: glandea, edo mokoa; **zurtoina**, eta zuztarrak. Luis Elberdin

Mokoaren ondoren klitoriaren **zurtoina** edo gorputza dator -pubiseko azalaren azpian justu-, eta, ondoren, bi zuztar luze eta sendo daude. Luis Elberdin

**7** zutoina.

Terrazako aulkiak, sahatsa, arropa zabaltzeko soka bi **zurtoinen** artean, petuniak, hesiak, langa zabal-zabalik. Koro Navarro

Ilargiak dena argitzen zuen, etxeak eta zuhaitzak, **zurtoinak** eta elektrizitate hariak, mundu osoa. Koro Navarro

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
> **apio zurtoin** (3); **klitoriaren zurtoina** (3)

---

**zurtu**, zur(tu), zurtzen **1** da/du *ad* harritu.

Hala-hola iraun egiten zuen gizagaixoak, eta Gavard **zurtu** egiten zen, sei hilabete gabe harenak egingo zuela uste izan baitzuen. Karlos Zabala

Gomazko jostailu bat haur baten atzamarren artean nola, halatsu **zurtu** zitzaion begitartea. Patxi Zubizarreta

**Zurtu** egin zuen ostikadaren gogorrak. Lutxo Egia

Monumentu sinestezin haren bertze ezein ezaugarrik baino lehenago, hura egina zen moldearen antzinakotasunak **zurtu** ninduen. Juan Garzia

Erran behar dizut ezen zure memoriak baino areago harritu eta **zurtu** ninduela aipu eta anekdota haien lotzeko erakutsi zenuen antzeak eta trebetasunak. *The Observer* egunkaria Guggenheimez ari da, eta horrexek **zurtzen** zaitu. Joan Mari Irigoien

**2** (forma ez jokatuetan)

Orain, ordea, hasi aurretik ere **zurtua** eta itoa geratzen zitzaion keinu zehatz bat egiteko saio oro. Koro Navarro

Ni ere, paradoxa haren aitzinean, **zurturik** bezala geratu nintzen. Joan Mari Irigoien

Zientziaz baizik ez zen mintzatu, hogei bat minutuz, eta jendea, **zurturik**, isilik zegoen. Fernando Rey

Harriduraz **zurturik** geratu nintzen. Josu Zabaleta

Fisikarekin zuen harremanak **zurturik** utzi ninduen. Juan Garzia

-Hiru egun! -deiadar egin zuen etxekoandreak **zurturik**-. Karlos Zabala

-Zer? -egin zuen oihu printzeak, elkarrizketaren nondik norakoaren aldaketa ezusteko horrek erabat **zurturik**. Jose Morales

Konpondu nuen lapsusa, eta adiskideek **zurtu** samarturik begiratu zidaten. Karlos Linazasoro

Harrituta geratu gara denok, **zurtuta**. Txillardegi

**Zurtuta** sartu nintzen kotxean eta bueltako bidea hartu, herrirantz. Xabier Mendiguren Elizegi

Gehiago hitz egin beharko nukeen berarekin, baina neu ere **zurtuegi** eta nahastuegi nengoen deus eskaintzeko. Oskar Arana

**3** (era burutua izenondo gisa)

Nobela da huts-hutsik [...] eta gure egunetako gizaki hautsiaren errai ezkutuenak egundaino ez bezala argitara ekartzen dituena, eta irakurle**zurtuaren** bistan ezartzen ohiko estalki oroz gabeturik eta hizkuntzaren trataera harrigarri batez horniturik. Iñaki Segurola

Maite-maite egin diot ilean, eta begi **zurtuak** jaso ditu. Javi Cillero

Jauregiko leiho argituetara begiratzen zuten burua okerturik, begi erne eta serioez, isla urdinekiko begi zoragarri eta **zurtuez**. Xabier Olarra

Adiskideak begirakune **zurtua** josi ziolarik, Abasek, ohi zuen naretasuna berreskuratuz, apaltasunez gaineratu zuen: [...]. Patxi Zubizarreta

Bakarrik geratu nintzelarik, amets gaiztoen ondoren esnatutakoan izaten den nahasmen **zurtu** hori nuen. Josu Zabaleta

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
> **zurturik gelditu** (3); **zurturik geratu** (3); **zurturik nengoen** (3); **zurturik utzi** (5)
> **zurtuta gelditu** (3); **zurtuta geratu** (6); **zurtuta geratu zen** (4)

---

zurtxuri ik **zurzuri.**

**zurtz** *izond/iz* **1** haurrez mintzatuz, aita, ama edo biak galdu dituena. ik**umezurtz**.

Nire arbaso haren alargunak ehizaren gorrotoa sartu zion bere seme **zurtzari**, eta hala heldu da nireganaino gorroto hori. Josu Zabaleta

Merkataritza-herrialdietan, non jende askok beren artea baino ez baitu, Estatua zaharren, gaixoen eta **zurtzen** beharrak hornitzera behartuta egon ohi da maiz. Iñaki Iñurrieta

Patriarkaren haur dira maizterrok, baina haren **zurtz** ere bai, sasikoak seme-alaba eskubiderik ez duen aldetik. Juan Garzia

Hona hemen gure hildakoak, gure torturatuak; hona gure elbarrituak, ezinduak; gure **zurtzak**, bakartuak, bihotz-urratuak, bizi-puskatuak, oroimenaren zulo beltzean iltzatuak. Iñaki Segurola

**2**(adizlagun gisa)

Ez ahal gaitu, Jainkoarren, gaur gauean **zurtz** utziko. Irene Aldasoro

Bertzenaz beha zezatela Frantziari, hango amak alargun eta hango haurrak **zurtz** uzten ari ziren gertakari odoltsuei. Aingeru Epaltza

Laugarren aldiz ene bizian, **zurtz** gelditu nintzen. Aingeru Epaltza

**3** irud/hed

Jazoera horietan guztietan nahasitakoen izen-deiturak -mihi kulunkariaren, beso-zango **zurtz** barreiatuen nahiz ebakiondo odolduaren jabearen- lerro bat baizik ez ziren nire ordenagailuko pantailan antolatu beharreko paragrafoan. Aingeru Epaltza

**Zurtz** bilakatzen dira orobat objektuak. Joxan Elosegi

Zigarroa hautsontzian zikiratu eta **zurtz** geldituriko txingar tikiari so gelditu zen Kristina. Aingeru Epaltza

Elkarrizketa politikoa **zurtz** dago. Berria - Euskal Herria

Hori bai, hautatzaileari eskuak ihes egiten badio, eta jokoari ohikoa baino poztasun gehiago ematea begitartean sartzen baldin bazaio; aurreko koadroetako jokoa **zurtz** geldi daiteke. Berria - Kirola

Nire aita Krapotkin printzearen etxea **zurtz**, harro eta zuri altxatzen zen hiriaren bazterrean. Matías Múgica

Haren begiak bi ilargi zuri ziren, handi-handiak, begi-niniak igerian zeuzkan han, bakez **zurtz**. Jon Muñoz

Lagunaz gabeturiko etxe-**zurtz** alkoholiko honen egoera negargarriak barneak urraturik, lanez arintzeko asmoa duzue? Aingeru Epaltza

---

**zurtza** *iz* zurtz izatea. ik **zurztasun**.

Baina beste **zurtza** batzuk ere utzi dizkigu horrek, Jainkoarekin batera beste gauza asko hil baitugu, tumore txarra kentzeko puska sanoak ere erauzten diren bezala. Joxerra Garzia

---

**zurtzaldi** *iz* norbait zurtz dagoen aldia.

Udagiroaren lasotasunaz profitaturik eta erlojuaren eta kanpo-arriskuen kezkarik gabe, seme-alabak ateaz haratago utziak zituzten, beren gisara molda zitezen, beraiek **zurtzaldi** laburraz profitatu ahala profitatzen ziren bitartean. Aingeru Epaltza

---

**zurtzitu**, zurtzi, zurtzitzen du *ad* pasaratu.

Betidanik liluratu izan nau ehule kontu metaforiko honek, bere aldaera guzietan: ehundu, josi, irun, brodatu, **zurtzitu**... Patziku Perurena

---

zurtztasun ik **zurztasun**.

---

**zurtzuil** *iz*

Beatrice Worden eta Mary Hogan biak **zurtzuilean** tiroa emanda garbitu ondoren, etxe ondoko baratzetxoan lasai-lasai lurperatu zituen. Gotzon Garate

Etzalekuan moldatu da eta bere **zurtzuilaren** atzean dagoena, hegazti harraparia bezala zelatan dago. Gotzon Garate

---

**zurubi** *iz* **1** eskailera, eskuarki bi langaren artean zeharka ezarririko langa mailaz egina. ik**eskailera**.

Astiro, ezinago astiro jaitsi zen **zurubian** behera, bere bota bustien arrastoak utziz maila higatuetan. Jose Morales

Burugabekeria da gaztelura joatea halako eguraldiarekin, babesik gabeko dorreetara igotzea, are, eror liteke ere eskudelik gabeko **zurubi** haietan. Jon Alonso

Eskailera bat ikusi zuen, beheko ertza lurrean eta goikoa zeruan zituena, eta Jainkoaren aingeruak **zurubian** gora eta behera. Elizen arteko biblia

Jakoben **zurubian** gora eta behera zebiltzan zeruko izakiak bezala. Askoren artean

Kontaezinak dira, infinituak ia, idazleak oroimenaren **zurubiko** mailetan aurkitzen dituen bidelagun ospetsuak eta bidelagun apalak ere. Anjel Lertxundi

Eskuineko oina **zurubiaren** oinean ezarri zuen eta ezkerra beherago, uretan sarturik, eta deiadar eztia egin zuen, kantuan. Edorta Jimenez

Eta harek beti zerbait entzuten, **zurubi** bat etxeari kontra emaiten balute bezala, eta gero urrats batzu **zurubiaren** mailetan. Xipri Arbelbide

Zenbaitetan, murruetan **zurubiak** bermatu ere bermatu zituzten. Aingeru Epaltza

Mem Ramiresen sorbalda gainean igo zela **zurubia** mairuen almenetan eransteko. Jon Alonso

Zuzenean igo zen bere gelara, **zurubian** gora ostatuko morroiak besotik leunki eusten ziola. Jose Morales

Azkenean iritsi ginen **zurubiaren** oinera. Koro Navarro

**2** (izenondo eta izenlagunekin)

25 metroko goratasunera heltzen ahal da **zurubi** moderno eta automatiko hori. Herria

**Zurubi** kiribil luze batetik behera abiatu nintzen. Koro Navarro

Inor topatu gabe igo nintzen zurezko **zurubi** ilun eta kiribiletik gora gorengo ganbara esturaino. Joseba Sarrionandia

Etxe aristokratikoko hormen artean hesiturik bizi baita, iristezin, hango kobre distiratsuarekin, kaobarekin, tapizekin eta burdinurtuzko **zurubi** usaintsuekin. Jose Morales

Soa lurrari iltzatua, edo, zehazkiago, hegazkineko **zurubiari**. Joxe Austin Arrieta

"Zerurako **zurubia"** esaten dio Templek. Xabier Olarra

**3** (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

Olentzero pasatu da Kanboko suhiltzaileen kasernan eta **zurubi** kamioi berri bat ekarri. Herria

Sudurrak **zurubi**-itxura zuen eta ezpainak karratuak ziren. Jose Morales

**4** (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa)

Esan egin behar izan ziguten aska genezakeela gerrikoa, zabaldu zuten atea, baina ez zen hara noski inongo gurpil-**zurubirik** inguratu. Joxe Austin Arrieta

Azkenean, soka-**zurubia**! Joxe Austin Arrieta

Gizon bat agertu zen *Ánimas*-eko brankan eskegita geneukan borda-**zurubiko** erpinean. Edorta Jimenez

Antzeman nien, noski, nola begiratzen zioten neskari [...] burdin **zurubia** mailaz maila igotzen ari zen bitartean. Joxe Austin Arrieta

**5** irud/hed

Diruak irudiz kudeatzen ditu gure hara-honaratak eta jendearen balioa diru irabazte-**zurubiaren** arabera haztatzen da. Berria - Kultura

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
> **borda zurubian** (3); **zurubian behera** (13); **zurubian behera jaitsi** (3); **zurubian gora** (14)

---

zurxuri ik **zurzuri**.

---

**zurztasun** *(orobat **zurtztasun** g.er.) iz* zurtz denaren nolakotasuna edo egoera. ik **zurtza.**

**Zurztasunaren** antzeko sentipena nagusitu zitzaidan oihal gaineko errekaren irudi eder hura ezabatzearekin batera. Hasier Etxeberria

---

**zurzuri** *(orobat **zurtxuri** eta **zurxuri** g.er.)* **1** *iz* makalaren familiako zuhaitza, garaia eta hostotsua, leku hezeetan hazten dena, zura zuria, arina eta uretan usteltzen zaila, azala grisa eta hostoak gainetik berdeak eta azpitik zuhailak dituena *(Populus alba)*.

Hor dira haritzak eta ametzak, pagoak eta gaztainondoak, urkiak eta erreka bazterretik igan **zurzuriak**. Michel Oronoz

Txilarra, udako solstiziokoa; **zurzuria** edo makal txuria, iraileko ekinozioan. Pello Zabala

Goiz-argian erreka baten bazterra segitzen nuela, uraren jario mutua ene urrats isilekin jarraikiz, ikusi dut **zurzuria** ari laino eztiaren artilea sistatzen. Piarres Aintziart

Raulen hiletatik etxerako bidean nentorren, **zurzurien** itzalpe isilean barrena. Aritz Gorrotxategi

**Zurzurien** dardara nabari da Mendi Harritsuetako azken maldetan. Xabier Olarra

Hantxe, dotzena bat **zurzuri**, pintore batek erretaularen behereko tatxa berdean pintzel ukaldi batez landatuak balitu bezala. Piarres Aintziart

**2** (hitz elkartuetan)

Sare-sare ari zuen euria, eta noizbehinkako haize-adar nahasiek, elkar jorik, bihurrika harrotzen zituzten bide bazterretako **zurzuri**-sail biluzien hosto horixkatuak. Anjel Lertxundi

---

**zut** *(orobat **txut** g.er.)* **1** *izond* plomuaren norabidean doana. ik **xut; zutik 3**.

Egunero, Karol Schulz geologoak emandako harriez askatasunaren irudia egiten zuen, dorre **zut** bat. Felipe Juaristi

Eskua luzatu eta lanpara **zuta** piztu zuen. Koro Navarro

Lerro **zuta** sustrai sakon lurrari atxekia. Iñaki Arranz

Oinez ibiltzeko Pirineotan trebeska, behar da osasun edo osagarri azkarrekoa izan, kasik beti patarrak baitira eta ardura aski **zutak**. Angel Aintziburu / Jean Baptiste Etxarren

Mendian gora hoala, bizikletaz eta eguerdiko eguzki **zutaren** galgan, itzal bat ikusten duk asfaltoa alderik alde gurutzatzen, uzkur. Joxerra Garzia

Izarteko labar **zutaren** erditsuko koska hartan. Txillardegi

Eskuinetara Daubenhorn mendiak bere harkaitz beltz **zutak** erakusten zituen Wildstrubel gaineko Loemmern izoztegiko morrena erraldoien ondoan. Josu Zabaleta

Etxalde bat zen eta inguratzen zuen sarrerako horma **zuten** begi bistan. Joxemari Urteaga

Ondotxo zekien Léak minus ikurra plus ikurra baino lehenagokoa zela; azken hori, izan ere, minus ikurra bera baitzen, lerro **zut** bat alderik alde ipinia zeukana. Jon Muñoz

**2** irud/hed

Horrekin ez aski, harria atera ondoan, haste lan dorpeena: malda **zutari** goiti burdin harria karreatzea mandoz, sigi sagaka bidea eginik mendi gainera. Angel Aintziburu / Jean Baptiste Etxarren

Mendi **zutaren** bizkarrean sigi-sagan, itzuli eta itzuli doan bidezidorraren ertzean gelditu zen mandoa. Josu Zabaleta

Luperen ahoa irudikatzen zenuen zeure haragi **zuta** mihiztatzen. Hasier Etxeberria

Zeren ene haragi **zutak** gehiago baitzirudien, bertze ikusmolde batetik, lakioz atrapatu txoria, korapilo hartarik ihes egin nahi eta ezinean zebilena, jostetan edo joste-lanetan ari zen ofizialaren hatza baino. Joan Mari Irigoien

**3** beste lerro edo planu bati buruz, harekin angelu zuzena egiten duena. ik**elkarzut; perpendikular.**

Bi zuzen paraleloak dira, baldin eta hirugarren zuzen batekiko **zutak** badira. Jon Muñoz

Ikusten dena, egindako ebakiaren ordez ebaki **zuta** egiten badugu ikus ahal izango diren zuntz luzeen perspektiba da. Isabel Arrigain

Neurketa une jakin batean eginez moldatu behar izango zuen Talesek: eguzki-izpiak onarriaren aldearekiko zehazki **zut** zirenean! Jon Muñoz

Ondotxo zekien Léak minus ikurra plus ikurra baino lehenagokoa zela; azken hori, izan ere, minus ikurra bera baitzen, lerro **zut** bat alderik alde ipinia zeukana. Jon Muñoz

**4** (hitz elkartuetan, elkarketak izenondo balioa duela )

Hantxe zeukan bere aurrean, gori-gori, trikutzar arantza-**zut** baten gisa. Juan Garzia

**5** (adizlagun gisa) ik **zutik; tente.**

Hala branka altxatuz, txopa gainean **zut** eusten zion eskuak ontziari. Jon Muñoz

Burua **zut** zeukan, uniforme tradizionala jantzita, ukabila gerrian jarrita. Juan Kruz Igerabide

Desfile izuzkoa antolatu zuten, pauso irmoz, sorbaldak **zut**, begiradak aurrera. Karlos Linazasoro

Hantxe begiztatu zuen, ordoki zabal baten erdi-erdian **zut**, ibaitik urruti ez, Keopsen piramidea! Jon Muñoz

Han goitik, enbor lerdena eskuetan **zut**, esan zuen: [...]. Karlos Linazasoro

Nireak, behinik behin, basamortu lau bat; eta han urrutian, haitz bat, **zut**. Jon Muñoz

Tente jarri da, lepoa **zut**, amorrarazitako antzara zuriaren antzera. Itziar Otegi

Galtzontzilo barrenean gogor eta **zut** zeukan zakila. Unai Iturriaga

Aterantz jo zuen, burua **zut**. zure minean sartua,burua makur bai, baina gogoa **zut**. Lopez de Arana

· Edertasunaren halako zantzu dotore asko gordetzen jarraitzen zuen artean, haren aurpegi leun doi makilatuak, orrazkera jasoak, gorputzaren gerritik gorakoari zuzen-**zut** eusteko manerak erakusten zutenez. Anjel Lertxundi

**6** ***piano zut*** hariak zut ezarriak dituen pianoa.

Katek, asko ibiltzeko ahulduegi, musikako klaseak ematen zizkien hasiberriei atzeko gelako **piano zut** zaharrean. Irene Aldasoro

**Piano zut** itxiaren gainak ere jaki fin eta gozokientzako apalaren zerbitzua egiten zuen. Irene Aldasoro

**7** ***zut-zut***

Malda **zut-zuta** igan eta bi etxeren artetik pasatuz, han dauka Ahuzkia, landare eta zuhaitzek babestua. Berria - Kultura

· Huts-neurgailuaren orratza, hantxe zeroan **zut-zut** egona, gainbeheran hasi zen, ezkerrerantz lerratuz. Juan Garzia

**8** ***zut-zutik*** *adlag*

**Zut-zutik** altxatu zen nire izena esaten entzun zuenean: eta finkotasun harrigarri batez gurutzatu zitzaizkigun bion begiak. Josu Zabaleta

-Mandatari batek ekarri berria du -esan zuen ehiza-zainak, **zut-zutik** baitzegoen gorapean. Xabier Olarra

Hamalau urteko mutiko bat ikusiko duzue, burua lurrean sartua eta zangoak **zut-zutik** zerura begira. Gotzon Garate

Ikara biziak jota bezala hasi zen Santxo dardaraz, eta **zut-zutik** jarri zitzaizkion buruko ileak Don Kijoteri. Patxi Ezkiaga

**9** ***zut-zuta*** *adlag*

Bortuko jendeak zirela egiazki agertzeko, horma artifizialez atxikiarazi biloak **zut-zuta** zituzten. Itxaro Borda

Kontuz ibili zen, gainaldeko ile zapa ukitu gabe, zeina, ezin trinkoago eta harrotuago, Husainek **zut-zuta** baitzeukan. Patxi Zubizarreta

Orduan **zut-zuta** egon zitzaidan ondoan, eta haren begirada bortitz gogorra sentitu nuen nire kaskarraren gainean, ganibetaren punta bailitzan. Matías Múgica

· Begira zure zamalko argala; belarriak **zut-zutak** paratzen ditu kanoiaren erlatsa hurbilegi entzuten duenean. Jon Alonso

---

**zutabe** *(1044 agerraldi, 154 liburu eta 288 artikulutan)* **1** *iz* eraikin edo kideko baten euskarri zuta, gehienetan zilindro eitekoa, oinarri baten gainean ezarria. ik **koloma; zutarri.**

Han goian [...] kupula bat dago, zortzi **zutabek** eutsia. Jon Muñoz

Etxea lau **zutaberen** gainean bezala, horien gainean sostengatzen zen Frantzisko aita dohatsua. Askoren artean

**Zutabez** eta peristiloz apainduriko etxeak. Karlos Zabala

Adreilu, hormigoi eta burdina barra-barra, teilatu asimetrikoak, ageriko funtziorik betetzen ez zituzten **zutabeak**, sabai altuak, ate irristatzaile erraldoiak. Iban Zaldua

Sarrerako hallean **zutabeak** marmol arrosazkoak ziren. Lopez de Arana

Aurrez aurre, purpurinaz pintatutako **zutabeen** alboetan, San Juan, San Pedro, San Sebastian eta beste hainbat santu geneuzkan, eztitasunez begira. Bernardo Atxaga

Haien paretak, **zutabeak** eta kolomak, behekoen gainean erdiratuta jarriko dira perpendikularrean, sendotasunez erantzun dezaten. Santiago Iruretagoiena

Brontzea urtuz, bi **zutabe** egin zituen. Elizen arteko biblia

**Zutabeen** gaineko habe haiek berrogeita bost ziren, lerro bakoitzean hamabost. Elizen arteko biblia

Lau **zutabeko** bost ohe zeuden belus gorriarekin, eta leiho altu eta estuak. Iñaki Mendiguren

Oheko **zutabe** lodien eta belusezko errezel astunen gerizan. Jon Muñoz

**2** (izenondo eta izenlagunekin)

Eskailera bikain baten gainean sei **zutabe** korintiar galant zituela. Hasier Etxeberria

Horregatik aletegi bihurtu zen, munduko aletegi dotoreena, **zutabe** erromatar eta grekoetan barnako sarrera zuena. Fernando Rey

Nola jotzen zuen zubiko **zutabe** nagusiaren kontra traktore koskor batek. Joxean Sagaztizabal

Hango galeria alimalekoak, hango lorategi ederra, uztail hartan arbola eta lore hostatuz betea, hango **zutabe** borobilak, apaingarri loretsuz bururatuak. Aingeru Epaltza

**Zutabe** potoloak zituen eta aingeru are potoloagoak bazterretan. Unai Elorriaga

Bere zaldien apatxez kale guztiak zanpatuko dizkizu, bizilagunak ezpataz garbituko eta **zutabe** sendoak botako behera. Elizen arteko biblia

Ibaiaren gainean distira egiten zuen eguzki berotsu berak argitu zituen harresi leunak eta **zutabe** sendoak. Agustin Otsoa

Bete-beterik dago gangen azpian zapaldurik dauden gela apalez eta **zutabe** meheek eusten dieten galeriez. Josu Zabaleta

Arkupea ere, dena maila berdinean egina eta alderik alde **zutabe** berdinez euskarritua izan arren. Xabier Amuriza

Musikako kioskoaren **zutabe** urdinxkak. Monika Etxebarria

Saget andereñoak fatxadaren hondoko kolore urdin leuna, **zutabe** horiak, zutarri maskorduna atsegin zituen. Karlos Zabala

Harrizko **zutabe** astun biren erdian zabaltzen zen burdinazko ate arranditsuak harrapatu zidan begirada orduan. Urtzi Urrutikoetxea

Harrizko **zutabe** garaiak zeuden, elkarri lotutako suge gehiago grabatuta zituztela, eta **zutabe** haiek eusten zioten iluntasunean galdutako sabaiari. Iñaki Mendiguren

Porlanezko zazpi **zutabeek** taula horri eusten diote. Berria - Gaiak

Urrezko **zutabeak** zilarrezko oinarrietan bezala dira zango ederrak oin sendoen gainean. Elizen arteko biblia

**3** (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

Zedrozko lau **zutabe**-lerro zituen. Elizen arteko biblia

Zeruaren eta lurraren artean, badira marmolezko **zutabe**-ilarak, altuera izugarrietaraino jasoak; haien gainean jarririk, lauza itzelak. Jon Muñoz

Azken **zutabe**-pareraino iritsi zenean, Ganbera bera bezain estatua garai bat bistaratu zen. Iñaki Mendiguren

Urreztatu egin zituzten **zutabe**-gainak eta ziriak. Elizen arteko biblia

Habe- **zutabe**- eta zubi-lana egiten duten hezurretako arazoak ezagun zaizkio egitura-ingeniariari. Irene Aldasoro

**4** (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa)

Lehengo arkupe-**zutabe** aldera bueltaturik, Txantoi anaiak ikusi zituen etortzen. Pedro Alberdi

Kanpadendan atsedenean zegoenean ere loa eteten zitzaion berme-**zutabe** bat agian oso tinko ez zela gelditu pentsatzen zuenean. Jon Alonso

Ondoren, Holofernesen burualdean zegoen ohe-**zutaberaino** joan, beraren ezpata hartu, [...]. Elizen arteko biblia

**5** irud/hed

Gerra amaituta, Walt Disney egungo inperioaren **zutabeak** eraiki zituen. Berria - Ekonomia

Karpetaz osaturiko bi **zutaberen** artean ageri zen Potzoloren burua, purgatorioko kontuhartzaile, enpresa ezinezko bateko auditore. Aingeru Epaltza

Esan daiteke ikusmenezko pertzepzioa kokatuta dagoen kortex ildaskatuaren eremua **zutabetan** antolatuta dagoela -120 zelula inguru **zutabe** bakoitzeko- eta **zutabe** bakoitza erretinako eremu bati dagokiola. Josu Zabaleta

Txinatar bolazko kalkulagailuen baliokidea zen abakoa: **zutabez** osatutako taulak, **zutabeetan** fitxak ipini ahal izateko eran. Jon Muñoz

**Zutabez** eratutako antolamenduetan, bederatzi zifretariko batez irudikatzen zen zenbakia. Jon Muñoz

Gortina erdi zabalduetan zehar, egongelako leihotik, ke zurizko **zutabe** bati so. Lopez de Arana

Ur irakinezko **zutabe** handi bat sortu eta pare bat metroraino altxatu zen, guztiak zipriztinduz. Joanes Urkixo

Gorputz gihartsu hura zen, zinez, Sarak behar zuen **zutabe** sendoa, haren inguruan hazi eta garatu ahal izateko. Joan Mari Irigoien

Judutasunaren **zutabe** deitu zuen Walden doktorea. Koro Navarro

Nazionalismoaren etika politikoa hiru **zutabetan** oinarritu dut. Berria - Euskal Herria

Patxi Izkok lau **zutabetan** oinarritu zuen bere presidentetza. Berria - Kirola

Demokraziaren oinarri sakratuak, gure zibilizazio osoak **zutabetzat** duen merkataritza-askatasun horren oinarri sakratuak ez dira sekula honelako egoera larri batean egon. Lopez de Arana

Borondatearen subjektu existentzialista (Sartre) eta pertsonalista (Mounier) hartzen du ekintzaren **zutabetzat**. Joseba Zulaika

Euskal Haur eta Gazte Literatura modernoaren **zutabea** zara... Ana Urkiza

**6** (irud/hed, izenondo eta izenlagunekin)

Antiteismoa bai izan zen erromatar munduaren legitimazioaren **zutabe** nagusietako bati eraso ziona. Xabier Amuriza

Teetetoren ostean epistemologiaren hurrengo **zutabe** nagusia Descartes da. Askoren artean

Estrategia horrek hiru **zutabe** nagusi izan behar ditu, Kontseiluko kideen ustez. Berria - Euskal Herria

Egiptotik irtetean basamortuko beroetatik hebrearrak babesten zituen hodei-abar edo **zutabe** mirarizkoaz ari da. Xabier Kintana

Bizitzeko manera eta munduaren ikusmolde baten ezinbesteko **zutabea** . Piarres Aintziart

**7** (irud/hed, hitz elkartuetan)

Kirol zelaira zuzenki iristen zen argiak aparteko zehaztasuna ematen zien txirristei, saski-**zutabeei** , lurreko marrei. Bernardo Atxaga

Intsentsu, mirra eta beste hainbat usaingarrizko ke-**zutabea** dirudi. Elizen arteko biblia

Ordu betean itsasora iritsi eta han amiltzen zen orroka, lurrun-**zutabe** bat altxaraziz. Juan Garzia

Espaloiaren bi muturretan, antzerki afixez beteriko bi iragarki **zutabe** zeuden, karratu berde, hori, gorri, urdinez estalirik, arlekinen antzera jantziak. Karlos Zabala

**8** zutarri bakartu batek osatzen duen oroitarria.

**Zutabeak** eta obeliskoak aldatzen dituztela leku batetik bestera. Jon Muñoz

Bastille plazako **zutabearen** puntan dagoen estatua. Karlos Zabala

Herkulesen **zutabeak** misterioaren eta abenturaren atari ziren: harantzago ausartzen zenak ezezagunaren ederra eta izua espero zitzakeen. Anjel Lertxundi

Gero, Saint-Honoré kalean barrena, Vendôme **zutabea** miretsarazi zien Albertek. Jon Muñoz

Gero, apaindu egin zituen [piramedak], inguruan **zutabe** garaiak eraikiz. **Zutabeetan** arma-sortak zizelkarazi zituen, betiereko oroigarri, eta haien ondoan itsasontziak, itsasoz zihoazenek ikus ahal izan zitzaten. Elizen arteko biblia

Idazkun bat brontzezko oholetan grabaturik, Sion mendian ezarri zuten **zutabe** batzuetan. Elizen arteko biblia

-Hor ikusten dituzun aurreneko sei problemak -esan zuen, Ruche jaunari hieroglifiko-**zutabeak** seinalatuz-. Jon Muñoz

**9** batzuk besteen atzean kokatzen diren unitate militarren edo kidekoen multzoa.

Bere zaldizkoen arteko bostehun onenek osaturiko **zutabearen** buru joango zen. Agustin Otsoa

Armadaren **zutabe** hau Semipalatinsk probintziaren muga zeharkatu, Balkash aintziraren hegoaldean barrena igaro, Altai mendien oinen ertzetik pasa eta Jenisei ibaiaren goiko aldera iritsi zen, bazter guztiak arpilatzen eta errausten zituela. Karlos Zabala

Ekinaldiak jarraitzen zuen, baina handik gutxira bazetorren mendian gora, beste aldetik, armadaren **zutabe** bat, eta arrapaladan eskapatzen ziren karlistak Frantzia aldera. Koro Navarro

Tatariar armadaren bi **zutabeek** eratzen zuten sardearen erdian kokaturik, inbasioaren lazgarrikerietatik urruti egon zen ordu arte. Karlos Zabala

Falangistak agertzen ziren, atarte batetik edo edozein **zutaberen** ostetik enboskadan. Joseba Sarrionandia

Atzera zihoan **zutabeak** buelta erdia egin zuen, eta etsaiaren aurka oldartu zen oihuka. Agustin Otsoa

Basse-de-Vieille karrikaren kantoian gure **zutabeak** mezatik ateratzen ari diren eliztarren **zutabearekin** egin du topo. Monika Etxebarria

Apur bat urrunago beste **zutabe** bat antzeman dut: emakumeena. Urtzi Urrutikoetxea

Nahiko al zenuke bihar Artxurira igoko den soldadu-**zutabearentzat** gidari-lanak egin? Koro Navarro

· Horregatik, Sobietar Batasunak Txinan -beste edonon bezalaxe- "bosgarren **zutabe"** itzela ezar zezakeen. Iñaki Mendiguren

**10** orrialde idatzia banatzen den zerrenda edo zati zut bakoitza; egunkari edo aldizkarietako artikulua, eskuarki egile ezaguna duena.

Orrialdean estilografikaz idatzitako oharrak daude bi **zutabetan** banatuak; ezkerrekoan herriak eta eskuinekoan dendak ageri dira. Pello Lizarralde

Titularra ederki zegokien eman nahi nizkion neurriei: bi lerrotan, lau **zutabetara** , 42 tamainako letra. Aingeru Epaltza

Zelanoren "Lehen Bizitza"ri dagokion taula hartzen badugu, lehen bi **zutabeetan** 1 Zel-ren zenbakia eta gaia aurkituko ditugu, eta gainerako **zutabeetan** beste iturrietako pasarte paraleloak. Askoren artean

Hemen -esan zuen, egunkaria nik ikusteko moduan jarriz eta lehen orrialdeko **zutabe** bat seinalatuz. Fernando Rey

Arrazoia ez da hori, taula horren hirugarren **zutabean** ikusten denez. Juan Ignacio Pérez / Pello Salaburu

**zutabea** : % 20 aberatsenaren eta % 20 pobreenaren BPGen arteko harremana. Pello Salaburu

Udan, edozein gauza, baita zirtzileriarik agerikoena ere, bilaka daiteke lau **zutabeko** albiste. Aingeru Epaltza

Sei **zutabe** goitik beheiti, argazkiz ongi hornituak. Aingeru Epaltza

**Zutabe** estu bateko zazpi lerro txiroetan zetorren gainkontatua istorio xumea. *La Voz de Navarra* egunkarian **zutabe** ugari argitaratu zituen, -Eta, jakina, "argitara" emanaraziko zenuen *Daily Telegraph*eko **zutabeetan** . Pako Aristi

*Deia*n, *Berria*n edota *Argia*n irakur daitezke bere **zutabeak** eta artikuluak. Ana Urkiza

Azken batean, zenbateko aldea dago ba, egunkarirako **zutabe** , irratirako kolaborazio eta hiru bertsoko sorta baten artean? Andoni Egaña

Oroitzen naiz, Irakeko gerra piztu berritan nola idatzi nuen, ez dakit zein hedabidetan, Jean Pierre Chèvenement ministro frantsesaren aldeko **zutabe** bat. Hasier Etxeberria

Hurrengo astelehenEko *El País*-en ematen zuten detektibearen heriotzaren berri, **zutabe** labur batean. Iban Zaldua

2000. urteko neguan, Euskaldunon Egunkaria-n, Kirmen Uribe poetaren **zutabe** bat argitaratu zen, "Bizilagunak" izenburukoa. Iban Zaldua

Behinola Etxabek sinatutako **zutabe** bat irakurri genuen egunkari batean: ekonomia-kontuez aritzeko kontratatu zuten. Iban Zaldua

Nire biografia laburbiltzen zuen laudoriozko paragrafo koxkor batekin eta **zutabe** bakarreko argazki batekin batera. Juan Luis Zabala

**11** (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

Orain Danik gustua hartu dio **zutabe** -idazle lanari. Jokin Muñoz

**12** (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa)

Bere mahaian adi-adi lanean segitzen zuen, zifra-**zutabeak** jo eta ke zenbatzen. Anton Garikano

Bada jende normala, kopuru **zutabeak** behin eta berriro kopiatzeko gai ez dena. Joxan Elosegi

Horretaz jakitun zegoen Marko Andrescu, Bukaresteko egunkari nagusiko zuzendaria, zeinean argitaratzen baitzituen Duvrescuk, larunbatero, bere kritika-**zutabeak** . Iban Zaldua

Egunkari atzerakoi handi honen zine-**zutabearen** puska bat. Fernando Rey

**13** ***zutabe-buru*** *(orobat* ***zutabeburu****)* zutabe baten goialdea.

**Zutabeburuak** lili-lorearen tankerakoak ziren. Elizen arteko biblia

**Zutabe-buruetako** kapitel haien gainean bina metroko lili-lorearen tankerako irudiak zeuden. Elizen arteko biblia

**Zutabe-buruetan** ezartzeko, brontzezko bi kapitel egin zituen, bina metro eta erdikoak. Elizen arteko biblia

Hango **zutabe-buruetan** emango dute gaua hontzak eta trikuak. Elizen arteko biblia

**hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**

**bi zutabe nagusi** (6); **burdinazko zutabe** (5); **harrizko zutabe** (5); **hiru zutabe nagusi** (5); **hirugarren zutabe** (7); **kezko zutabe** (3)

**zutabe artean** (3); **zutabe baten atzean** (3); **zutabe baten kontra** (13); **zutabe buruetako** (3); **zutabe buruetan** (4); **zutabe gainak** (4); **zutabe garaiak** (3); **zutabe gisa** (3); **zutabe handi** (4); **zutabe izan** (5); **zutabe nagusi** (21); **zutabe nagusi ditu** (8); **zutabe nagusi izango** (3); **zutabe nagusia** (14); **zutabe nagusiak** (7); **zutabe nagusietako** (6); **zutabe nagusietako bat** (5)

**bigarren zutabea** (3); **hirugarren zutabea** (6); **oinarrizko zutabea** (3); **zutabea idazten** (3); **zutabea izan** (3)

**herkulesen zutabeak** (4); **lanaren zutabeak** (3); **zutabeak idazten** (3)

**zutabearen kontra** (4)

**hiru zutabeen gainean** (4); **jasotako hiru zutabeen** (4); **zutabeen artean** (8); **zutabeen gainean** (6); **zutabeen gakoak** (3); **zutabeen inguruan** (4); **zutabeen oinak** (4)

**irtenbidearen zutabeetako bat** (3); **zutabeetako bat** (16)

**herkulesen zutabeetatik** (5)

---

zutabeburu ik **zutabe 13**.

---

**zutabedi** *iz* zutabe multzoa.

Plaza apaintzen zuten mosaiko-uhinak, operaren sarrerako marmolezko **zutabediaren** oinetaraino. Jon Muñoz

---

**zutabedun** *izlag/izond* zutabea edo zutabeak dituena; zutabeko.

Lehengo sarrera Felipe II.aren garaiko **zutabedun** ataria da, Errenazimentuko artista zoragarriek landua. Koldo Izagirre

Altzariak estaltzeko zorroak zeuden, bai eta alabastrozko pendulu erloju **zutabedun** bat ere. Karlos Zabala

Honen aurrean **zutabedun** beste atari bat ere egin zuen, bere aterpe eta guzti. Elizen arteko biblia

Bost **zutabedun** ohe, belusezko errezel gorri-gorriz apainduak. Iñaki Mendiguren

---

**zutabegile** *iz* egunkarietan-eta zutabeak argitaratzen dituen idazlea.

"Zergatik ez dituzue zutabe errazagoak idazten?" leporatzen zaie askotan euskal prentsako **zutabegileei**. Iñigo Aranbarri

Hain gaude politikari, jakintsu, kirolari, aberaskume, artista eta **zutabegileek** liluratuak, komunikabideetan agertzen diren horiek guztiek liluratuak, ezen [...]. Fernando Rey

Aitortu behar dizut, Patri, lagun asko galdu ohi dituela **zutabegileak**, bere lanari zintzoki heltzen dionean. Hasier Etxeberria

Liderraren eta bufoiaren artekoa, egunkariko **zutabegilearen** eta marrazkilari satirikoaren artekoa. J. Garzia / A. Egaña / J. Sarasua

Harkaitz Cano **zutabegileak** atzo zioen bezala, beldurra sortzailea baldin bada, pentsatzeko akuilu bada, ideia berriez gainezka etorri behar luke kanpaina hasi berriak. Berria - Euskal Herria

*El País* egunkariko **zutabegile** finkoa da Millas. Berria - Kultura

Idazle eta **zutabegile** milizia antolatu batek, dudak, kritikak edo soilik ohar anodinoek betetzeko xedea lukeen zirrikituak oro tapatzen ditu, gure bi eskaera hauei erantzunik ematen ez duten artikuluak biderkatuz. Berria - Kultura

---

**zutabegintza** *iz* egunkarietan-eta zutabeak argitaratzea.

**Zutabegintzak** zutabegileei ematen omen dien status igoera zalantzagarriaz. Berria - Kultura

Literaturaz gain **zutabegintza** eta artikulugintza jorratu dituzu. Ana Urkiza

Nik **zutabegintza** eta artikulugintza ariketa gisa bizi izan ditut, eta literatura egin ahal izateko, oso ariketa onak dira. Ana Urkiza

---

**zutabekide** *iz* egunkari edo aldizkari berean zutabeak idazten dituen pertsona.

Baina hil ziotelarik Andoaingo ekintza negargarrian Lopez de la Calle lagun eta irizkidea, berak hartu zuen harroki hark utzitako lekua, eta akabo Yankee **zutabekidea**. Hasier Etxeberria

**Zutabekide** ditudan Juanra Madariaga eta Lutxo Egiaren arteko elkarrizketa, hain zuzen. Berria - Kultura

---

**zutabetu**, zutebe(tu), zutabetzen du *ad* zutabea edo zutabeak ezarri.

Zu bakea hitzaz baizik ez zara gogoratzen gaurkoan, zure pazifismo motel eta kontserbadorearen **zutabetzeko**. Itxaro Borda

Gauzak izadiaren bizia finkatzeko moduko oinarri hilezkorretan **zutabetu** nahi baditugu. Xabier Amuriza

Ez dirudi bestela ere nazioko ekonomia oso ondo **zutabetua** zegoenik. Berria - Mundua

---

**zutabetxo** 1 *iz* zutabe txikia.

Gangak adreiluzko zerrenda zuri eta gorriak zeuzkan, eta haren arku beheratuek burdinurtuzko nerbioekin bat egiten zuten, **zutabetxo** batzuetan oinarri harturik. Karlos Zabala

Metro bat luzeko **zutabetxo** bat, goi-goian nolabaiteko onddo bat zuena, larruz inguratua. Koldo Biguri

Zurezko ostatu denboraren joanak belztuak bere teilape abegitsu eta estuaren azpian hartu zuen Txitxikov, antzina elizetan egon ohi ziren argimutilen antzera landuriko bere **zutabetxo** zurezkoen artean. Jose Morales

2 *adkor* egunkarietan-eta idatziriko zutabea.

Euskaldunon Egunkarian astero **zutabetxo** bat idazten nuen garaian. Joxerra Garzia

Orain astean behin ikusten dute Daniren **zutabetxoa** egunkarian. Jokin Muñoz

---

**zutar** *iz* zure familiakoa, zure artekoa, zure alderdikoa dena; zurekin bat datorrena, zure iritziak dituena.

**Zutarrak** gira Banka. Herria

---

**zutargi** *iz* kandelaren argimutila.

**Zutargi** bat zekarren eskuan eta, haren argi mehean, inork ez zuen bereiziko non finitzen zen artile zuria eta non hasten larruazal are zuriagoa. Aingeru Epaltza

Ellen besaulki malgu batean eserita zegoen, gela luze baten bukaera aldean, non solasen txintxina eta **zutargien** eta harribitxien ñirñirra sumatzen baitziren. Lopez de Arana

Kristalezko **zutargi** dardarati baten azpian. Lopez de Arana

**Zutargiak**, festa izoztuak, uniformeak, lepo eder dardaratiak desagertu egin dira. Monika Etxebarria

---

**zutarri** **1** *iz* zut dagoen harrizko zilindro edo paralelepipedo modukoa. ik**harroin; pilare**.

Erdigunean lurrezko tontor txiki bat nabari zitekeen, eta honen gainean Fionnek berehala ezagutu zuen **zutarri** bat. Joanes Urkixo

Kultu-lekuak, **zutarri** eta zutoin sakratuak egin zituzten muino guztien gailurretan eta zuhaitz hostotsu guztien azpian. Elizen arteko biblia

Biharamunean, goizean goiz jaikirik, aldarea eraiki zuen mendiaren oinean, eta hamabi **zutarri** ere bai, Israelgo hamabi leinuen izenean. Jose Antonio Mujika

Goian, **zutarriaren** alboetan, druida maisuetako bik zenbait belar erretzen ziharduten, garbiketaren errituala betez. Joanes Urkixo

Atzean, bide ertzetik bi pausora, **zutarri** bat zegoen, euskaraz eta gaztelaniaz grabaturiko idatzi bat zuena: [...]. Ramon Saizarbitoria

Heliopolisko **zutarriak** hautsi eta Egiptoko jainkoen jauretxeak erre egingo ditu. Elizen arteko biblia

**Soalarreko zutarria** Elizondoko Oteiza museo etnografikoan jarri dute. Berria - Kultura

**2** (izenondo eta izenlagunekin)

Urki baten enbortzar zuriak [...] gaina hartzen zion baso tapituari, airean zut, biribil, marmolezko **zutarri** erregular eta distiratsu baten antzera. Jose Morales

Berak kendu baitzuen aitak Baali eraikia zion **zutarri** sakratua. Elizen arteko biblia

Ez egin sasijainkorik, ez eraiki idolorik, ez **zutarri** sakraturik. Elizen arteko biblia

Egiarteko eliza erromaniko ederra ere bai (arku laukoitza eta **zutarri** karratuetakoa, une hartan batera Allotzen eta Lakarren parrokia bikuna), pausagune atsegin epelsko. Txillardegi

Soalarren bertan beste **zutarri** bikia dago, etzanda hau ere. Berria - Kultura

Azkenean hiri inguruan uzten dute **zutarri** momiaduna. Patziku Perurena

**3** irud/hed

Eman, hartu, galdetu, onetsi dira haurridetasunaren lau **zutarriak** edo pilareak. Herria

Mendebaldeko zibilizazioaren **zutarri** handiak, faltsukeria hutsa guzti-guztiak. Oskar Arana

Irudi eta metaforak baino haratago ostera, Europan erlijio fedeek gehiengo zabal aunitzen sustrai, sustarri edo **zutarri** izaten segitzen dute. Edorta Jimenez

Ziklo bateratuko zentralak eta parke eolikoak dira konpainiaren plan estrategikoaren **zutarriak** . Berria - Ekonomia

Makina-erreminta euskal ekonomiaren **«zutarri** » dela azaldu zuen. Berria - Ekonomia

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
> **ekonomiaren zutarri** (3); **soalarreko zutarria** (3); **zutarri sakratuak** (14)

---

**zutarte** *iz* harrizko habea.

Murru gorenek ez dute gehiago teilaturik atxikitzen, **zutarte** guziak eroriak dira, salbu pitrail bat edo beste, oraino trebeska daudenak, suak eta eguzkiak beltzatuak. Michel Oronoz

---

**zutasun** *iz* zut dagoenaren nolakotasuna.

Ikus zitekeen masten **zutasuna** , oihalen zuritasuna eta soken nabardura, soken txirikorda. Felipe Juaristi

---

**zuti** *izond* tentea.

Bi aulki **zuti** biribil, limonada bat, garagardo bat. Josu Zabaleta

Aldiro-aldiro druiden harri bat edo beste, mamu **zuti** bat bailitzan, nola igarotzen nintzen begira geratzen zitzaidan. Josu Zabaleta

---

**zutiarazi**, zutiaraz, zutiarazten du *ad* zutitzera behartu. ik **xutiarazi**;

Eskutik heldu, eta **zutiarazi** egin zuen. Juan Kruz Igerabide

Pedrok **zutiarazi** egin zuen, esanez: "Altxa zaitez, gizaki hutsa naiz ni ere". Elizen arteko biblia

Lehen solairutik zetorren oihu batek jauzi batez **zutiarazi** zuen. Elena Touyarou

Gero berriz ere **zutiarazi** nau; eta emango didan lezioarekin [...] inoiz ez omen dut atzera zaku bat jausten utziko. Urtzi Urrutikoetxea

Aldarrilariak, ederrenaz aurrera, banan banan **zutiaraziz** , hasten zuen bere eskaintza, eta mutilik aberatsenek elkarren lehian sekulako dirualdiak botatzen zituzten neskatxik ederrenak berenganatzeko aiherrez. Patziku Perurena

Aitatxik inoiz ez zuen han etxerik **zutiarazi** , baina lehen harria eman zuen bederen. Aingeru Epaltza

Urkabea ere luze gabe **zutiarazi** zuen dorre gainean. Aingeru Epaltza

---

**zutik** *(orobat **zutika** g.er.) adlag* **1** oinen edo oinarrien gainean zuzen, ez eseririk, ez eroririk, ez etzanik. ik**xutik; tente; zut 5**.

Gizasemeak **zutik** jarri ziren azken bazak jokatzeko, berriketan eta keinuka. Irene Aldasoro

Ezetz egin nion eskuaz, eta **zutik** jarraitu nuen. Bernardo Atxaga

Txalupari biek **zutik** egiten zuten arraun. Koldo Izagirre

Victoria, Joseba eta Susana besotik hartuta daude, **zutik** , ezkerretara. Bernardo Atxaga

Gau hura goizaldeko ordu tikietan bukatu nuen, Alde Zaharreko barra amerikar batean, **zutik** egoteko gauza ez nintzela. Aingeru Epaltza

Borreroak ezagutu zuen kondenatu dohakabe bat beti belauniko bizi eta urkamendian **zutik** hil zena. Karlos Linazasoro

Zerk eusten zion **zutik** ? Jon Muñoz

**Zutik** eta atezuan zegoen. Mirentxu Larrañaga

**Zutik** eta azkar afaldu dute, platerik zikindu gabe, zartaginetik bertatik. Harkaitz Cano

Zaude **zutik** harkaitz gainean. Elizen arteko biblia

Ez zen egokia emakumea han **zutik** edukitzea. Koro Navarro

Halaxe, **zutik** , esan genion agur elkarri. Joxe Austin Arrieta

Denak, Herbert eta biok izan ezik, kanpoan **zutik** , eguzki-galda kiskalgarri hartan. Joxe Austin Arrieta

Parez pare ikusi zuen ama biluzik, ohearen alboan **zutik** , eta amak gizon gaztea besarkatzen zuela, gizona ere biluzik eta **zutik** . Joseba Sarrionandia

Eta gure Perkain, futxo, beti **zutik** , sekulan ez mozkortzen. Angel Aintziburu / Jean Baptiste Etxarren

Gizakia izateko bi printzipio bederen beharrezko dira, hotz, gorputza eta arima, haiek biak elkarretaratuz **zutik** baitago egiazko gizona. Piarres Xarriton

Sabaian margotze hori benetan nekagarria zen; ez **zutika** eta ez etzanda, ezin gustuko jarrera aurkitu. Xabier Mendiguren Elizegi

**2** (gauzak)

Nork, artista batek ez bada, asma lezake bestela bonba bat jendea hiltzen duena gainerako guztia bere horretan **zutik** utzirik? Pello Salaburu
Bikote famatua Miarritzetik iritsi zenean, oraindik Donostiako harresitzarra **zutik** zegoen. Txillardegi
Etxea **zutik** zegoen, baina hartuta; haur batzuk zebiltzan ate aurrean, jolasean. Juan Kruz Igerabide
Zintzoen etxeak **zutik** dirau. Elizen arteko biblia
Gehiago harritzen da bat eraikin horiek **guztiak zutik** Olinpiar Jokoengatik daudela jakitean. Berria - Kirola
Gari landetan **zutik** dauden errotak. Felipe Juaristi
Bihar bertan prefetari idatziko diot lantegia **zutik** atxikitzeko erreserba fondoko dirua desbloka dezan. Itxaro Borda
Donostian sartuko zirela aurki, eta, sartzen zirenerako, gauza askorik **zutik** ez uztea zela agindua. Inazio Mujika Iraola

**3 *zutikako*** *(orobat **zutiko** g.er.) izlag* ik **xut 3; zut.**

**Zutikako** seinalea duen zebrabide bat igarotzen ari zirela harrapatu zituen furgonetak. Berria - Euskal Herria
**Zutikako** erloju handia. Koro Navarro
Monak **zutikako** lanpara piztu eta sarrerako leihoko errezelak itxi zituen. Fernando Rey
90.000 metro koadroko **zutikako** siloa eraikitzeko asmoz. Berria - Ekonomia
Gainerako primateek katuaren antzeko gorputza badute ere, antropomorfo handiek **zutikako** jarrerak dituzte. Berria - Gaiak
Eragin fisiologikoak ditu **zutikako** gure jarrerak. Irene Aldasoro
Neurri handiko bederatzi **zutikako** horiekin batera, beste 40 argazki ere ikusgai dira Photomuseumeko hormetan, guztiak neurri berekoak, eta altuera berberean kokatuak.
**Zutikako** enborrak ere ebaki beharko dituztelako. Berria - Kultura
Lehen proban ez dago aldaketarik eta **zutikako** oinbikoa ebaki beharko dute. Berria - Kirola
Instrumentuak hauexek dira: arpa, psalterio, laut etzanikoa, laut **zutikakoa**, zitola, fidula edo biola obala, zanfona, gaita, organeto eta aulos bikoitza. Berria - Kultura
Eskuak gerrikotik eskegita igaro zituen ardandegiko tertulia **zutikakoak** iraun zuen geroztikako denbora guztia. Josu Landa
Ez daitezen lehert bi mendi parteak, badira zubi bezala utziak, harria ingurutik janik, zoragarriko **zutikakoak** eta trebesekoak. Angel Aintziburu / Jean Baptiste Etxarren

**hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 4 aldiz agertzen direnak)**

**alboan zutik** (5); **ama zutik** (4); **artean zutik** (19); **atarian zutik** (5); **ate ondoan zutik** (6); **atean zutik** (6); **atzean zutik** (8); **aurrean dago zutik** (4); **aurrean zegoen zutik** (4); **aurrean zutik** (69); **bera ere zutik** (5); **bera zutik** (5); **bere aurrean zutik** (4); **bere ondoan zutik** (6); **berriro zutik** (4); **berriz zutik** (6); **bertan zutik** (8); **beti zutik** (10); **biak zutik** (6); **burua zutik** (4); **buruari zutik** (5); **dago zutik** (14); **denak zutik** (5)

**egon zen zutik** (4); **erdian zutik** (27); **ertzean zutik** (8); **gainean zutik** (43); **gainean zutik jarri** (4); **gelaren erdian zutik** (4); **gelditu zen zutik** (9); **geratu zen zutik** (12); **guztiak zutik** (4); **han zutik** (11); **hanken gainean zutik** (5); **hantxe zutik** (21); **haren aurrean zutik** (4); **hor zutik** (7); **hura zutik** (4)

**inguruan zutik** (7); **jarri zen zutik** (7); **jendea zutik** (7); **kontra zutik** (9); **leiho ondoan zutik** (6); **nahiago dut zutik** (4); **nengoen zutik** (5)

**ohe ondoan zutik** (6); **ondoan zutik** (58); **ondoan zutik geratu** (4); **orain zutik** (4); **oraindik zutik** (12); **otoitzerako zutik** (6)

**zaude zutik** (4); **zegoela zutik** (5); **zegoen zutik** (27); **zeuden zutik** (9); **zut zutik** (5)

**zutik baitzegoen** (6); **zutik dago** (26); **zutik dagoela** (4); **zutik dagoen** (12); **zutik daude** (6); **zutik dirau** (4); **zutik dirauten** (8)

**zutik egin** (5); **zutik egiten** (6); **zutik egon** (54); **zutik egon behar** (9); **zutik egon zen** (7); **zutik egondako** (7); **zutik egongo** (4); **zutik egotea** (14); **zutik egoteko** (19); **zutik egoteko gauza** (4); **zutik egoten** (14); **zutik egotera** (4); **zutik eman** (4); **zutik emana** (5); **zutik eta bakarrik** (5); **zutik eta geldi** (5); **zutik eusteko** (8); **zutik eusten** (10); **zutik eutsi** (8); **zutik ezarri** (9); **zutik gelditu** (32); **zutik gelditu zen** (16); **zutik gelditzen** (10); **zutik geratu** (51); **zutik geratu zen** (27); **zutik geratuko** (5); **zutik geratzen** (12); **zutik geunden** (7)

**zutik ikusi** (12); **zutik iraun** (27); **zutik iraun zuen** (7); **zutik iraungo** (19); **zutik iraungo duela** (6); **zutik irauteko** (12); **zutik irauten** (5); **zutik jarraitu** (7); **zutik jarraitzen** (4); **zutik jarri** (177); **zutik jarri zen** (65); **zutik jarria** (4); **zutik jarriko** (5); **zutik jarririk** (4); **zutik jarrita** (29); **zutik jarritako** (6); **zutik jartzeko** (15); **zutik jartzen** (38); **zutik jartzen da** (6); **zutik jartzen saiatu** (4); **zutik jartzen zen** (6); **zutik jartzera** (6); **zutik nengoen** (7)

**zutik segitzen** (5)

**zutik utzi** (5); **zutik zegoela** (13); **zutik zegoen** (86); **zutik zeuden** (34); **zutik zirauen** (8); **zutik zirauten** (7)

**zutikako enborra** (4); **zutikako jarrerak** (5)

---

zutika ik **zutik.**

---

**zutiko**[1] *iz* zutoina.

Atera hurbildu nintzen, bihotza gogoz taupadaka, eta langako **zutikoetako** batean iragarki handi bat ikusi nuen: [...]. Josu Zabaleta

---

zutiko[2] ik **zutik 3.**

---

**zutikor** *izond* zutitzeko joera duena.

Glandeak, estalgarriak, zurtoinak, zuztarrek, barne ezpainek, himenak eta ehun **zutikorrek** osatzen duten organo konplexu guztia da klitoria, eta hor sartzen dira, halaber, klitoriko erraboilak, uretrako esponja, perineoko esponja, gihar genitalak, nerbio bukaerak eta odol hodien sarea. Luis Elberdin

---

zutin ik **zutun.**

---

zutinik ik **zutunik.**

---

**zutitu,** zuti(tu), zutitzen **1** da *ad* zutik jarri. ik **xutitu.**

**Zutitu** eta ate aldera abiatu zen. Anton Garikano
**Zutitu** eta egun bereziren baterako gordeta zeukan botila ardoa atera du. Arantxa Iturbe
Kuleroak jazteko **zutitu** den istantean neskari agerian geratu zaizkio izter zuriak. Pello Lizarralde
Gerri ukaldika saiatu nintzen, baina alferrik, ezin **zutitu** nintzen. Joxan Elosegi
Ondorioz, gauak bazterrak setiatzen zituela, mahaitik **zutitu** ziren gizonak. Itxaro Borda
Romani deitu, eta, aulkitik **zutituta**, esan zion: [...]. Inazio Mujika Iraola
Emaztea aulkitik **zutitu** zen, elkarrizketa bukatutzat emanez. Elena Touyarou
Batzuek **zutitu** eta gezurrezko testigantza hau egin zuten Jesusen kontra: [...]. Elizen arteko biblia
Ai, dama gazte, **zuti** zaitez. Juan Kruz Igerabide
David erregeak, **zutiturik**, esan zuen: [...]. Elizen arteko biblia

Zergatik dago lurrean zure idi sakratu hori? Zergatik ez da **zutitzen**? Elizen arteko biblia

Emaztea batzuetan **zutitzen** zen eta esku-ahurrak gerrian pausatzen zituen aiaiaika. Itxaro Borda

Gizona **zutitu** egin zen. Aitor Arana

Bat-batean, amona **zutitu** egin zen, lanean hasteko presa sentitu izan balu bezala. Anjel Lertxundi

Joantto **zutitua** zen, Domengari beha. Elena Touyarou

Hogeita hamar segundoren buruan, mugimendu bat eginez polliki-polliki **zutitzera** entseatu zen. Daniel Landart

Harryk **zutitzea** pentsatu zuen, baina gero ezetz erabaki zuen. Iñaki Mendiguren

Elbarri nago eta ezin naiz inola ere **zutitu**. Askoren artean

Aitak seinalea egin, eta kanabera botatzera **zutitu** ginen. Koro Navarro

Edan eta edan aritu zen, **zutitu** gabe. Matías Múgica

Uhinen jauzietan barna bultzatzen baikaitu denborak, itsaso haserretuaren esku, eroriz eta **zutituz**. Juan Kruz Igerabide

**Zutitzearekin**, Ximurrak mugikorra bildu zuen mahai gainetik. Aingeru Epaltza

Sagua **zutitu** egin zen. Patxi Ezkiaga

## **2** (adizlagun eta kidekoekin)

Bizkor **zutitu** eta osaba Vernoni jarraitu zion etxeko atera. Iñaki Mendiguren

-Tira, Petunia -esan zuen osaba Vernonek, baldar **zutituz**-, geltokira noa, beraz. Iñaki Mendiguren

Isilik **zutitu**, eta argiaren giltza jiratu zuen. Jose Morales

Berriro **zutitua** zen, sasiartetik zelatan jarraitzeko. Joxe Austin Arrieta

Raimundok boligrafoa pausatu du, poliki **zutitu** da [...] bat-batean bizitzeko gelditzen zitzaizkion urte guztiak gainera erori izan bailitzaizkion. Jon Alonso

Larri eta pozik **zutitu** nintzen, eta bidea irekitzen hasi nintzen berriz arantzetan barrena. Koro Navarro

Halako barne-ximikoa sentitzen nuela, eta urduri antzean paratzen nintzela, eta ttentteago **zutitzen**. Txillardegi

Haserre **zutitu** zen gizona, liskarrerako prest. Jon Muñoz

Telefonoa hoska hasi zen hotelaren inguruko txoriak ere izutzeko moduko indarrarekin, eta kolpetik **zutitu** nintzen ohean. Bernardo Atxaga

Deliberatuki **zutitu** zen, eztei tradizio zaharreko urratsak konplitzekoak zituela oroituz. Itxaro Borda

Horra gizon oinutsetan **zutitua** bere oinuts zintzilikatuei begira. Patziku Perurena

Kristinak eten zuen josteta, ezustean **zutituz**. Aingeru Epaltza

Adieraz diezazukedana baino askoz hunkituagoa, itsumustuan **zutitu** naiz. Jon Muñoz

Black saltoan **zutitu** zen. Iñaki Mendiguren

Gandalf salto batean **zutitu** zen. Agustin Otsoa

Salto batez **zutitu** eta ibiltzen hasi zen. Elizen arteko biblia

**Zutitu**, zurbil-zurbil, eta bere makila magikoa atera zuen. Iñaki Mendiguren

Neke handiz **zutitu** nintzen. Joxan Elosegi

Braust **zutitu** eta orria atzitu nuen mahai gainetik. Aingeru Epaltza

Zaldiak, brau, **zutitu** eta jendetzarengana oldartu ziren. Lopez de Arana

Artega, bertan erreko ninduela edo hormaren kontra **zutitzeko** agindu eta fusilatuko ninduelakoan. Joseba Sarrionandia

Esku bat mahai gainean bermatuz **zutitu** zen agurea. Ibon Uribarri

Pilotuaren ondora **zutitu** zen Laxaro. Koldo Izagirre

## **3** irud/hed ik **matxinatu**.

Holandarrak, ez zaitezte pasiboak izan, **zuti** zaitezte! Josu Zabaleta

Haren seme garenoi eskatzen digu tiraniaren kontra **zuti** gaitezen. Elena Touyarou

Guri balitz bezala basa hizkuntza horien bizirik atxikitzea, alta Iraultzaren aurka **zutitzen** direlarik. Herria

## **4** (gauzak)

Patioaren erpinean **zutitzen** zen dorre nagusirantz jo genuen. Alberto Ladron Arana

Zubiak gora **zutitzen** ziren. Paddy Rekalde

VIII. mendean **zutitutako** meskita toki sakratua da musulmanentzat Meka eta Medina ondoren hirugarrena. Berria - Mundua

Pianoaren notak soilik **zutitzen** ziren, itsas-uhinen gisako itxura bat harturik. Anjel Lertxundi

Lurralde palestinar okupatuetan **zutitzen** ari diren banaketa hesiaren eraikuntza bertan behera gelditu behar da, Jerusalem ekialdean **zutitzen** ari den zatia barne. Berria - Mundua

## **5** (du aditz gisa) ik **zutiarazi**.

Ikara batek **zutitu** ninduen aulkitik. Patziku Perurena

Anaia txikiak itsuak argitu, konkortuak **zutitu**, deabruak jaurti eta gorrei entzunarazten badie ere [...] idatz ezazu ez dagoela hor poz betea. Askoren artean

Haizexka arin batek ilea **zutitu** zien. Iñaki Mendiguren

-Printzea -esan zuen bere soin karratu eta bere karratuan biribil hura nekez **zutituz**-, betarik ba al duzu nirekin fiskeria batez mintzatzeko? Matías Múgica

Haurrak, oihal, adar eta makilaz **zutituriko** denda barruan zeuden eta beren aurretik etxerantz pasatzen ikusi zuten. Joxemari Iturralde

## **6** ***zutitzera egin***

**Zutitzera egin** du, eta, istant horretan zaztada bat sentitu du bizkarrean. Pello Lizarralde

Ejerzito guztia zegoen mahaian eta Mariolino sartu zenean aurpegia atzaparkadaz betea zuela, aitak **zutitzera egin** zuen, baina Ciro zaharrak keinu batez josiarazi zuen aulkira. Koldo Biguri

-Gizagaixoak! -**zutitzera egin** zuen. Koldo Biguri

**Zutitzera egin** du, baina bidaiantak bi ostikada jo dizkio saihetsean eta goardia, berriro oihu egin, mosketoia utzi eta luze-luze geratu da lurrean. Pello Lizarralde

**hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**

**zuti zaitezte** (3)

**abel zutitu** (3); **alde egiteko zutitu** (3); **ama zutitu** (6); **andereñ astiro zutitu** (4); **aulkitik zutitu** (9); **aulkitik zutitu zen** (3); **bat batean zutitu** (12); **bazterretik zutitu** (3); **berehala zutitu** (9); **berehala zutitu zen** (6); **berriro zutitu** (4); **berriz zutitu** (5); **bezala zutitu** (7); **bezala zutitu zen** (3); **bizkor zutitu** (5); **brau zutitu zen** (3); **burua zutitu** (3); **demba zutitu** (5); **denak zutitu** (3); **oa zutitu** (3)

**eginez zutitu** (6); **eginez zutitu zen** (3); **egiteko zutitu** (3); **emakumea zutitu** (6); **erdian zutitu** (3); **eserlekutik zutitu** (3); **gisa zutitu** (3); **gizona zutitu** (7); **guztiak zutitu** (5); **harry zutitu** (13); **hartu eta zutitu** (3); **hermione zutitu** (4)

**jauna zutitu** (4); **jauzi batez zutitu** (11); **jendea zutitu** (3); **joateko zutitu** (3); **joxe zutitu** (3); **kolpetik zutitu nintzen** (3); **lockhart zutitu** (3); **mahaitik zutitu** (4); **mentxu zutitu** (3)

**orain zutitu** (3); **raimundo silva zutitu** (6); **salto batean zutitu** (9); **salto batez zutitu** (5); **salto eginda zutitu** (4); **saltoan zutitu** (16); **saltoan zutitu zen** (9); **sam zutitu** (3)

**zutitu da** (16); **zutitu denean** (4); **zutitu egin da** (21); **zutitu egin nintzen** (23); **zutitu egin zen** (187); **zutitu egiten** (19); **zutitu egiten da** (10); **zutitu eta esan** (3); **zutitu eta harengana** (3); **zutitu eta ibiltzen** (6); **zutitu eta jarraitu** (3); **zutitu ezinik** (3); **zutitu gabe** (4); **zutitu ginen** (10); **zutitu nintzen** (28); **zutitu nintzenean** (3); **zutitu ondoren** (4); **zutitu zaitez** (3); **zutitu zen** (167); **zutitu zenean** (14); **zutitu ziren** (24); **zutitu zirenean** (3)

**zutitua zen** (4)

**erdi zutiturik** (3)

**zutitzeko agindu** (4); **zutitzeko keinua egin** (4)

**lockhart zutitzen ari** (3); **zutitzen ari** (16); **zutitzen ari zen** (4); **zutitzen da** (15); **zutitzen hasi** (3); **zutitzen ikusi** (3); **zutitzen lagundu** (11); **zutitzen lagundu nion** (3); **zutitzen saiatu** (6); **zutitzen saiatu zen** (4); **zutitzen saiatzen** (4); **zutitzen saiatzen da** (3); **zutitzen zen** (27); **zutitzen ziren** (4)

**zutitzera egin** (3)

---

# zutitze *iz* zutik jartzea.

Israelek 2002an ekin zion **zutitzeari**. Berria - Mundua

Piztia arraren izaera dela-eta, horrelako irudiek nekez huts egiten dute zakil-**zutitze** gogor eta pilpiratsuak eragiteko orduan. Oskar Arana

---

zutoi ik **zutoin**.

---

# zutoihal 1 *iz* estandartea.

Nafarroako **zutoihalaren** pean egundaino gudukatu den armadarik handiena. Aingeru Epaltza

Zalditeria kapitainaren **zutoihalaren** ondoan bilduta. Agustin Otsoa

**Zutoihalak** eta banderatxoak airean ikusten dira, ikusgarria da, garretan dauden suak ere ikusten dira, auskalo zertarako diren. Jon Alonso

Ekialdetik jotzen zuen haize leunak hodei zurien azken zarpailak bultzatzen zituen, gotorlekuko **zutoihalak** eta bandera zuriak ere eraginez eta astinduz. Agustin Otsoa

Zaldunetako batek erregearen bandera hartu zuen **zutoihalaren** eramailea izan ohi zen eta orain hilik zetzan Guthlafren eskutik. Agustin Otsoa

**Zutoihala** tolesteko agindu zuen. Agustin Otsoa

Besaulki berezian jarrita, eta eskutan urrez brodatutako **zutoihal** zuria zeramalarik, Bizkaiko Sindiko jauna agertu da. Txillardegi

K.o. 26an Pontzio Pilato erromatar prokuradoreak, isilean eta gauaren babespean, medailoietan enperadorearen irudia zeukaten erromatar **zutoihal** militarrak Jerusalemera sartu zituenean. Iñaki Mendiguren

Frankismoaren aurkako eta demokrazioaren aldeko **zutoihala** da ikurrina Zabaletaren ustez. Berria - Euskal Herria

## 2 (hitz elkartuetan)

Bere gainean toldo bat eraiki dute, brisak leunki zapart eginarazten duena, errege-**zutoihalarekin** konpasean. Jon Alonso

## 3 irud/hed

Demokraziaren **zutoihala** daramaten AEBek, ahalik eta gehien atzeratu dituzte bozak. Berria - Harian

Jainkoaren eta beronen Fedearen egia hutsezinek akuilaturik, karitatearen **zutoihaletan** dotrinaren banderak jaso zituen, penitentziaren kuarteletan Gurutzearen armak, eta Jainkoaren hitzaren tronpeta ebanjeliko bilakaturik, ahotsa goratzearen eta bizioei zintzur egitearen alde jo zuen. Jon Alonso

**hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**

**zutoihala eramanez** (3)

---

# zutoin *(orobat **zutoi** g.er.)* 1 *iz* haga modukoa, eskuarki euskarri edo seinale gisa zutik ezartzen dena. ik**paldo**.

Egundoko kable elektrikoen azpitik zihoan trena, kilometrotan eta kilometrotan, eta **zutoin** bakoitzeko, hala egiten nuen neure kolkorako: [...]. Jesus Mari Mendizabal

Bide haren bi aldeak telegrafoaren **zutoinen** eta harien bidez elkarrekin albaindurik zeudela ematen zuen. Lopez de Arana

Lanpararen **zutoinaren** kontra jarri eta hantxe geratu zen. Irene Aldasoro

Gero semaforoaren **zutoinera** igo nintzen, eskailera batera bezala. Fernando Rey

Lerak abiada izugarria hartzen zuen, alboetara okertzen zen, bide-ertzeko **zutoinen** kontra jotzen zuen. Jose Morales

San Sebastian martiriaren nekaldiari buruzko estanpa sepia bat; lokarriek hondoraino zulaturiko besoak agerian, **zutoinetik** askatu nahian minez iraulita baitzituen, eta gorputz sendoa bezain leuna, gezi tenkatuek alderik alde josita ziotena. Mirentxu Larrañaga

Santua **zutoin** batean lotua ageri da, Mirakontxako harkaitz batean, biluzik eta geziak gorputzean sartuta. Askoren artean

Charlie **zutoinera** lotuta dago. Mirentxu Larrañaga

Glorietatxo haren sarreran, adreiluzko **zutoin** banaren gainean, igeltsuzko bi estatua zeuden, Flora eta Pomona. Josu Zabaleta

Kantoiak babesteko espaloietan ezarri ohi dituzten burdinurtuzko **zutoinen** antzekoak. Jose Morales

Izbetako batzuk mendiaren maldan sakabanaturik zeuden, ahate-saldo baten antzera; besteak, berriz, behean zeuden, **zutoin** gainean eraikita, eta kurriloak gogorarazten zituzten. Jose Morales

Bat-batean jiratu eta sartu ziren erdian etxebizitza handi bat zegoen espazio batean, garabiez, zutikako eskailerez, **zutoinez** eta habeez, esku orgez, adreilu mordoez inguratua. Koro Navarro

**Zutoinak** sartuak zituzten, sokak tenkatuak, eta, azkenean, toldoa zabaldu zuten. Patxi Zubizarreta

Tenplu joniar iduriko aterbe batean, zeinak baitzuen zorua marmolezko, eta aitzinean hiru **zutoin**, hirurak ere arrosa-landare batzuek izurtuak eta kiribilduak. Joan Mari Irigoien

Absidearen alboetan, urrezko zutabe batzuk zeuden sabaitik zintzilik, **zutoin** zilarrezkoak zeuden zoruan xut. Anjel Lertxundi

Potsdam-en lau egun ematea eta Orangerie-n ibiltzea lerde-jarioka eta poloniar guztiak **zutoina** ipurditik sartuta akabatuko zituela amets eginez. Karlos Zabala

Egun batean, txikitan, kalean barrena zebilela Milanen, **zutoina** baino tenteagoko gizon bat ikusi zuen. Fernando Rey

## 2 (izenondo eta izenlagunekin)

AEBko bandera gehitu zion **zutoin** luze batean esekirik. Xabier Olarra

Handik metro gutxitara pasealekuaren erdi-erdian altxaturik, **zutoin** luze biribil bat zegoen, goitik beheraino gezi itxuran eta zurezko oholez josiriko hainbat leku izen tinta gorriz idatzita zeuzkana, hiri bakoitzaren azpian Londrestik bertarainoko distantzia, miliatan eta kilometrotan, argitzen zuena. Bizkor-bizkor geratzen ziren tarantasaren atzean bideko **zutoin** distantzi erakusleak. Joxemari Iturralde

Antzinako etxe asko, aintzira inguruetan eraikitzen zituztenak, altza-zuatz edo **zutoin** sendoen gainean eraikiak ziren, urak nekez usteltzen duelako. Pello Zabala

Paldotzea, hain zuen, beste hau da: **zutoin** zorrotz bat gorputzean sartuz hiltzean, biktima eserita geratzea. Xabier Olarra

Bere kasa bizitzen hasi zen, luzatu egin zen, neurrigabeko **zutoin** beltz baten itxura hartu zuen, eta erdi bi egin zuen bizitza osoa. Jose Morales

**Zutoin** elektrikoek gas toxikoa sortzen dutela diote adituek. Berria - Gaiak

Postuen lau kaxoiak argitzeko, brontzezko **zutoin** bat zegoen, bi gas argiontziri eusten ziena, eta argi haren pean saltzailea nabarmen agertzen zen. Karlos Zabala

Argindar-kablerik gabeko alferrikako **zutoinak**. Juan Luis Zabala

## 3 (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

Ikusarazi diot nola jenero hura mailuaz jotzen den: ez hori bakarrik, hartan ari ginela mailu bat eta **zutoin**-harri bat inguratu, eta ikusarazi diot zein erraz den xafla eta orritan ematea. Juan Garzia

## 4 (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa)

Jauzi egin zuen pozez, eta, lanpara-**zutoinaren** ondotik aldendu gabe, haien ibileran saiatu zen emaitza antzemateko. Irene Aldasoro

Argi **zutoin** batetik urkatzea nahi genuen. Pello Lizarralde

Autoak BI-625 errepidetik atera eta argindar-**zutoin** bat jo zuen. Berria - Euskal Herria

Telefono-**zutoinek** infinituranz eramaten zuten hari beltza. Berria - Kultura

Estepa hartan goragune bakar bat ere ez zen ageri bistara, telegrafo **zutoinen** profilak izan ezik. Karlos Zabala

Berak bakarrik zekien zer esaten zioten zelaiek eta telegrafo-**zutoinek**, baina jendearen elkarrizketak kezkatsuak ziren, hilketei, lapurretei eta suteei buruzko zurrumurruz beteak. Jose Morales

Bizpahiru taxilari zeuden telefono **zutoinaren** inguruan solasean. Ramon Saizarbitoria

Lurrez bete ordez, haritz-**zutoinak** erabili zituzten; milaka eta milaka **zutoin** lurperatu zuten han. Jon Muñoz

**5** irud/hed

Zeintzuk dira bestelako eredu komunikatibo horren **zutoinak**? Txema Ramirez de la Piscina

Ortzaizean altxaturiko errauts **zutoina** zen atake horien iragarlea. Itxaro Borda

Isiltasun une laburraren ondotik, klarinetearen hots eztia altxatu zen errauts **zutoin** baten pare. Itxaro Borda

**6** futboleko eta kideko kirol batzuetako ateko bi albo hagetako bakoitza.

22. minutua zen, eta Morientesek **zutoinera** eta Gudjohnsenek langara bidalitako baloiek erakutsi zuten hurrena partida bizi-bizirik zegoela. Berria - Kirola

Kovacevicen burukada gogorrak eskuineko **zutoina** jo zuen. Berria - Kirola

Pablok eskuinetik erdiratu zuen, Magnok ezker **zutoinaren** aurrean baloia gelditu eta Navarrori gola oinetan jarri zion. Berria - Kirola

Muñozek berak aukera ona izan zuen 18. minutuan, Pablo Garciak kornerra atera, Mateok baloia orraztu eta bigarren **zutoinean** errematatzeko aukera izan zuenean. Berria - Kirola

Areaz kanpotik ezker oinarekin egin zuen jaurtiketak Eliaren ateko sareetan amaitu zuen **zutoina** jo ostean. Berria - Kirola

Neure debutean –[...] Herrerako futbol-zelaian-, defentsa bati txapela egin eta, baloia airean zegoela, obus bat atera zitzaidan, zurezko **zutoina** dar-dar jarri zuena, atean sartu aurretik. Joan Mari Irigoien

Zortea ez du lagun izan, hiru bider errematatu duelako **zutoinera**. Berria - Kirola

**7** (Quidditch jokoan)

Zazpi jokalari izaten ziren *quidditch*-taldean: hiru jazarle, eta haien eginkizuna puntuak egitea zen, *quaffle*a (futbolekoaren tamainako pilota gorri bat) zelaiaren mutur bakoitzean, hamabost metroko altueran, **zutoin** batzuetan zeuden uztaietako batetik sartuz, [...] zaintzaile bat, **zutoinak** zaintzen zituena; eta bilatzaile bat. Iñaki Mendiguren

*Quidditch*a, kirolik ospetsuena aztien munduan (sei **zutoin** altu, lau pilota hegalari eta hamalau jokalarirekin erratzetan). Iñaki Mendiguren

**8**

Kultu-lekuak, zutarri eta **zutoin** sakratuak egin zituzten muino guztien gailurretan eta zuhaitz hostotsu guztien azpian. Elizen arteko biblia

Jaunaren, beren Jainkoaren, aginduak baztertuz, bi zekor-irudi egin zituzten, bai eta **zutoin** sakratua ere; izarren aurrean ahozpeztu ziren eta Baal jainkoa gurtu zuten. aldareak eta **zutoin** sakratuak bota, idoloak xehe-xehe egin eta intsentsua erretzeko aldareak desegin zituen, eta halaxe Israel lurralde osoan. Elizen arteko biblia

Jaunarenak dira lurraren **zutoinak**, mundua haien gainean du kokatua. Elizen arteko biblia

**9** (oheetan) zutabea.

Ohearen lau **zutoinen** goialdea pinaburuz ederturik zegoen. Lopez de Arana

Gero, ohe buruko **zutoineraino** joan, Holofernesek han zintzilik utzia zuen ezpata hartu, eta esan zuen: [...]. Jose Antonio Mujika

Lau **zutoineko** ohearen inguruko zintzilikarioen artetik dorreko leihoan elurra ikusten zuen pasatzen, eta bere artean gogoeta egiten zuen. Iñaki Mendiguren

**10** irud/hed

ELAren proiektuaren **zutoin** sendoenetarikoa. Berria - Ekonomia

Horregatik idazten dizut, jakin dezazun nola jokatu Jainkoaren etxean, egiaren **zutoin** eta oinarri den Jainko biziaren elizan. Elizen arteko biblia

Euskal Herri askearen **zutoinak** eraikitze bidean. Berria - Harian

Lantegiko sarrerak greba-**zutoinez** blokatuko eta nagusia gurekin atxikiko dugu. Itxaro Borda

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
> **bigarren zutoinean** (7); **bigarren zutoinean** (7); **zutoin sakratua** (8); **zutoin sakratuak** (18); **zutoinaren kontra** (3); **zutoinaren ondotik** (3); **zutoinera bidali** (4); **zutoinera joan** (3)

---

# zutoindu, zutoin(du), zutointzen du *ad* zutoinetan bermatu.

Izan ere, janariak behar du dena indartu, berritu eta **zutoindu**, janariak du dena iraunarazten. Xabier Amuriza

---

# zutun *(orobat **zutin**)* **1** *izond* zuta.

Gortinaren zirriztuetatik Monikaren zango **zutun** eta beso luzeei begira. Joxean Agirre

**2** (predikatu edo adizlagun gisa)

Takoien gainean ibiltzen ikasiago iruditu zitzaidan, **zutun**, lerden eta dotore baina oraindik erabat emakume izatera iritsi gabe. Joxean Agirre

Ez orduan, takoien gainean **zutun** eta pitin bat harro, atzetik begira ninduela jakitun, kafetegiko atetik irten eta espaloian barrena galdu zenean, [...]. Joxean Agirre

Denak ahanzten zituen, ordea, lo-gelako mirailaren aitzinean **zutun** plantatzen zenean: bertan eta berehala inguruan zebilzkion gizonei atsegingarri agertzeko mila arrazoi finkatzen zituen. Itxaro Borda

---

# zutundu, zutun(du), zutuntzen **1** da *ad* zutitu.

Kolpe batean jiratu eta **zutundu** zen Dionisos. Unai Iturriaga

Ikusleen samalda ikara baten **zutundu** da, haizeak astindutako zuhaitz gazteak dira. Koldo Izagirre

Halako batean, baina, mutila **zutundu** eta eszenatokira igo zen antolamendukoek zor ei zioten dirua eskatzeko. Berria - Kultura

Esan diozu lepotik helduta eta **zutuntzen** lagunduz. Sonia Gonzalez

-Bai -erantzun zenuen **zutundurik**-, aldizkarirako hartu behar nuen hitzaldia. Koldo Izagirre

**2** irud/hed

Aitaren ahotik herotsik gabe jazartzen imajinatzen zuen, hor klinikako ganbaran, eta dolorea, puñal zorrotz, **zutundu** zitzaion bihotzaren basamortuan. Itxaro Borda

---

# zutunik *(orobat **zutinik** g.er.)* **1** *adlag* zutik.

Ezinezkoa zitzaion **zutunik** jartzea. Unai Elorriaga

Matiasek, baina, ez zeukan ohiturarik hain altuera desberdinetatik hitz egiteko, gizona lurrean eta bera **zutunik**, eta lurrean jesarri zen, gizonaren ondoan. Unai Elorriaga

Dagoen lekuan gelditu da Iker **zutunik**, aldamenean jesartzen ausartu barik. Urtzi Urrutikoeetxea
Gu biok, gazteenok, **zutunik**, noski. Txillardegi
**Zutunik** aditzen dituzte olerkiak, **zutunik** musika. Edorta Jimenez
Jente guztia **zutunik** txaloka altzaten zan. Xabier Amuriza
Zuri-beltzeko aiton-amonak dotore eta serio, andra jesarrita, beraren atzean eta **zutunik** gizona. Sonia Gonzalez
Nagusia jesarrita berbetan eta mutikoa **zutunik** mugitzeari utzi barik. Josu Landa
Arraunetan zetozen gizonak ez nituen ezagun, ezta txopan **zutunik** zetorren gizon lar duin eta zurruna ere. Edorta Jimenez
Aita **zutunik** brankan zegoen, neure aurrean, istriborreko mandan, bere Lee-Enfield 303a prest paratzen. Edorta Jimenez

**2** (gauzak)

Granito arrosazko etxe zoragarria hor dago oraindik, **zutunik**, egoera onean, tiraniei iraganeko arkitektura gustatzen baitzaie. Berria - Kultura
Gezurra zirudien XXI. mendean Erdi Aroko halako egitura bat ikustea **zutunik**. Harriaren maldan ttottotu zen kapitaina, fusila zango artean **zutunik**, etsia. Hasier Etxeberria
[Junkers] hegazkinek ez dute etxerik **zutunik** utzi Gerrikaitzen. Edorta Jimenez
Filmetako plano orokor batean bezala, milaka gurutze, milaka hilobi-harri agertu ziren, denak lerro zuzen eta gurutzatuetan paratuak, **zutunik**, belar motx eta sarriaren eremu orlegian zain hartuta. Iñaki Zabaleta

---

## zuzemen *iz* arazo edo egiteko bat konpondu edo bideratzeko egiten den urrats multzoa. ik **izapide; diligentzia**[2].

**Zuzemen** eta prestaketa anizkunak egin ondoren helburura iritsi ahala aurrera egin ezinik gertatzen baldin bada, edota helburua betetzeko maiz itzuli egin behar baldin badu, beste bide bat urratzeko. Ibon Uribarri

---

## zuzen *(orobat* **txuxen** *g.er.)* *izond* **1** norabidez aldatzen ez dena, alde batera nahiz bestera makurtzen edo okertzen ez dena; helburua iristen duena. ik **xuxen; artez.**

Harantzago, Urtza inguruko haltz **zuzenek** gaztainadiaren aurreko lerroa osatzen zuten. Bernardo Atxaga
Ibil zaitezte bide **zuzenean**, hanka okerra hauts ez dadin, sendatu baino. Elizen arteko biblia
*ik* zuzenean.
Ilea beltza; bekainak **zuzenak**; sudurra neurrikoa, fina eta **zuzena**. Askoren artean
Marra **zuzenak** marrazteko erabiltzen genuen erregela. Joxerra Garzia
Lerroen artean bada bat nabarmena: lerro **zuzena**. Jon Muñoz
Bi punturen artean lerro **zuzen** bakarra egon daiteke. Ibon Uribarri
Hiru lerro **zuzen** behar dituzue espazio lerrozuzen bat mugatzeko. Jon Muñoz
Bi punturen arteko lerro **zuzena** motzena da. Ibon Uribarri
Lerro **zuzenak** deshumanizaziora eramaten gaitu. Harkaitz Cano
Berehalaxe saiatu zen taxista autoa behar bezala jartzen, besteekin batera ilara **zuzena** osatuz. Joxemari Iturralde
Bufalo bat hantxe zutik, gure aurrean, trenbidearen lerro-pare **zuzenaren** erdian. Joxe Austin Arrieta
Amsterdam hiriko karrika **zuzen** bezain estuak. Felipe Juaristi
Ai galtzak ongi lisaturik eta erdiko marra ongi **zuzena** ez bazuen! Fernando Rey
Haren begiak urdin ilunak ziren, begikera **zuzen** argi tolesgabekoak. Karlos Zabala
Rosie gelaren zokoko aulki **zuzen** batean eseri zen. Lopez de Arana
Haien buruek ilara **zuzen** bat osatzen zuten, lepoak loturik, pixkanaka ito zitezen. Juan Kruz Igerabide
Hogeita hamar kilometro orduko, nahiz eta lurraldea lau-laua eta trenbidea erabat **zuzena** izan. Joxe Austin Arrieta
Argi sumatu baitzuen hark kanoi-bola baten ibilbidea ez zela **zuzena**, parabolikoa baizik. Jon Muñoz
-Presakako kolpea ez da **zuzena** izaten. Agustin Otsoa
Uste dut haien artean hori esan zuena zentzu oso **zuzeneko** gizona zela. Xabier Kintana

**2** itzulinguru edo bitartekorik gabekoa. ik **zuzeneko.**

-Shinjuku NSn, bada pasabide **zuzen** bat. Jon Muñoz
539 enpresa berri eratu eta 2.481 lanpostu **zuzen**. Berria - Ekonomia
Mahoma profetaren ondorengo **zuzena** baitzen kalifa. Jon Muñoz
Liburuko kontakizun gehienak lekuko **zuzen** izan zirenen ahotik jasoak direla ematen du. Askoren artean
Salmenta **zuzena** apustu. Berria - Harian
EHNEk diru laguntza **zuzenak** eskatu ditu. Berria - Gaiak
Behera egin zuten, ordea, zerga **zuzenek**. Berria - Ekonomia
Ekintza **zuzenaren** eta baketsuaren bidea, desobedientzia zibilarena, alegia. Edurne Elizondo
-Txostena nahi dut -bide **zuzena** hartu zuen detektibeak, luzamendutan ibiltzeke. Migel Angel Mintegi
Nola ez, ezagutza **zuzenak** -intuizio zuzenean edo razionalean oinarrituta- proposizioaren edukia edo esanahia ulertzea eskatzen digu. Askoren artean
Teknika zorrotz eta **zuzen** baten bitartez. Koro Navarro
Testu **zuzenak**, italianismoak tartean dituztenak, sinpleak idazmoldeari eta esaldien loturari dagokienez. Askoren artean
Urte luzeetako gerren ondorio **zuzen** edo zeharkakoak. Pello Salaburu
Ez dira zuzenean ideologia baten ondorio, ez eta jaso den heziketaren ondorio **zuzen** ere. Juan Kruz Igerabide
Gizarte eta eliz giro berriak isla **zuzena** izango du Frantziskoren bizi-esperientzian. Askoren artean
Iritzi trukaketa **zuzenak** egiteko foroa ere badu. Berria - Euskal Herria
Biblian agertzen da ohitura honi buruzko erreferentzia **zuzen** bat Ezekielen liburuan (Ez, 8, 14). J.M. Olaizola "Txiliku"
Finantzaketa **zuzenaren** mekanismoak. Koro Navarro
Horrela, espiritutik espiritura komunikazio **zuzenaren** ezintasuna gainditu, gizakiak sentimenez baliatu ziren, bitarteko gisa, elkarrekin bat egiteko. Imanol Unzurrunzaga
Emakumeak normalean estilo **zuzenaren** aurrean ez direla atzera egitekoak. Ramon Saizarbitoria
Harreman **zuzen** horren bitartez zeozer lortuko delakoan gara. Edorta Jimenez
Sateliteko telefonoa hartu zuen, Pentagonoarekin linea **zuzena** lortzeko. Fernando Morillo
Materia gisa agertzen dena ezin dela izan eragin **zuzen** baten bitartez errepresentazioen kausa, hau efektuen era erabat heterogeneoa baita. Ibon Uribarri
Ez dirudi helburu **zuzen** eta nagusiaz onartzen ahal denik. Piarres Xarriton
Hori esateko argibide **zuzen** eta zehatz gutxi daukagu. Koldo Zuazo
Argitaletxeetan lan egiten duten profesionalei kalte **zuzena** egingo lieke mailegu sistemak. Berria - Harian
Bada lotura **zuzen** bat denbora eta espazioaren artean, bertigotik, zoraduratik, zerbait duena. Ana Urkiza

Estaltzeko orduan, ugaztun emeak estimulazio **zuzena** jasotzen du, zakilaren mugimenduen bitartez klitoria igurtzen baita. Luis Elberdin

Esplotazio ageri, lotsagabe, **zuzen** eta basati bat. Iñaki Heras

Zergen bidezko diru iturri **zuzen** hori ere beste amu bat da, herriak elkartu daitezen. Berria - Harian

Galdera **zuzenari** erantzun gabe. Aingeru Epaltza

Horiekiko dugun esperientzia, esperientzia **zuzena** da, bitartekaririk gabekoa. Askoren artean

Espiralak konotazio **zuzenak** ditu ekologiarekin, naturarekin eta sorkuntzarekin. Karlos Linazasoro

Inbertsio **zuzenek** urtebete baino gehiagorako transferentzia-fluxu pribatu garbien erdia hartu dute 1990-1996 aldian. Koro Navarro

Aurkari **zuzenek** huts egiten badute itzela izango litzateke emandako pausoa. Berria - Kirola

## **3** zuzentasunaren araberakoa; arauen edo ereduen araberakoa; egiaren araberakoa.

Haren ustez, arima **zuzen** batek, eskubidea ez ezik, betebeharra ere bazuen gaizkia eragozteko. Karlos Zabala

Egiazko bake **zuzen** eta iraunkor bat eraiki beharretan gabiltzalarik. Piarres Xarriton

Okerrak zuzentzeko eta biziera **zuzenean** hezteko baliagarria. Elizen arteko biblia

Joan ohi ziren bide **zuzen** eta ziurretik aldentzen hasi zirela, eta heriotzara daraman bide lasaiagoa hartuz, ez ziotela beren bokazio eta profesioari eta etsenplu onari kasurik egiten. Askoren artean

Jokabide politiko **zuzena** erakusten digu Heraklitok: giza legeak partaide dira jainkoaren legeetan. Askoren artean

"Nire aitaren etxea" defenditzeko Arestik zioen bezala, edo "gure amaren etxea" bestela, guk hogeitaka urte geroago modu politikoki **zuzenagoan** genioen moduan. Juan Luis Zabala

Bi gauza oker eginek ez dute gauza **zuzen** bat egiten. Oskar Arana

Egin nezakeen gauza **zuzen** bakarra egin nuela: zauritua ospitalera eraman. Joxe Austin Arrieta

Nire teoria **zuzena** baldin bada, jendea ezagutzeko balioko du. Josu Zabaleta

Natura legearen ala Jainko legearen kontra doana, ez baita ez zilegi ez **zuzen**. Piarres Xarriton

Komertsio **zuzenaren** ezaugarria baita argitasuna, maila guzietan argi izan baitute gauzek. Herria

Zeren uste baitut, nahiz agian ez naizen batere **zuzen**, ez duzula guk gure garaian irakurtzen genuen adina irakurtzen. Pello Salaburu

**Zuzen** da zu izan zaitezen nagusi: sakrifikatzaileari baitagokio tenpluaz baliatzea. Jon Muñoz

**Zuzen** da hura laudatzea, ozarra litzateke hari jarraitzea. Jon Muñoz

Ihardetsi nion baietz, nahi nuela, **zuzen** den bezala, lurreko edozein lekutan Jauna zerbitzatu. Piarres Xarriton

Horra beraz zergatik **zuzen** den, Erroman egitea auziaren epaia. Piarres Xarriton

Iragan hilabetearen 20ko gutun batean ikusten dut zenbat nahi zenukeen zure (Burgoseko) elizara itzuli eta hori **zuzen** dela iduritzen zait eta nik ere atsegin nuke gerta baledi. Piarres Xarriton

Euskara batu estandar **zuzen** egoki dotoreenaren arrastotik. Juan Garzia

Hasiko naiz hastapenetik, **zuzen** den bezala. Janbattitt Dirassar

**Zuzen** den bezala ongi zigortuak izanen dira. Herria

Zeren arabera erabaki dezakegu ekintza bat **zuzena** ala okerra den? Askoren artean

Ez litzateke **zuzena** izango inor bere buruaz harrotzea. Askoren artean

Zigor batek, **zuzena** izateko, gizakia delitutik atzeratzeko adinako gogortasuna izan behar du, ez gehiago. Juan Martin Elexpuru

Jainkoaren epai **zuzenaren** bidez, gizon haren azken egoera lehengoa baino okerragoa gertatu zen, esker txarrekoa izateagatik eta Jainkoa mespretxatzeagatik. Askoren artean

Teoria honen printzipio oinarrizkoaren arabera, ekintza bat moralki **zuzena** da bere ondorioak kaltegarri baino gehiago onuragarri badira, besterik gabe. Askoren artean

Aldi baterako legea betiko legean oinarrituta dagoen heinean izango dela **zuzena** eta bidezkoa. Imanol Unzurrunzaga

Politikoki eta estetikoki **zuzenak** diren albiste irakurle horiei *anchorperson* esaten diete. Txema Ramirez de la Piscina

Esakune paradoxal **baina** zuzen hau oharrarazi behar da: [...]. Ibon Uribarri

Kasu horri buruz emandako azalpen **zuzen** nahiz okerrak. Xabier Olarra

Kritika zorrotz baina **zuzen** baten zuhurtasunak soilik libra gaitzake itxurapen dogmatiko hauetatik. Ibon Uribarri

Cesar Telleriaren informazioa **zuzena** zen. Harkaitz Cano

Izadian halako printzipioaren arabera ordena bilatzeko metodoa [...] dena dela, arrazoimenaren printzipio erregulatzaile **zuzen** eta egokia da. Ibon Uribarri

Horiek denak, hara, lortu ahal izan ditiat urte mordoan ibili ondoren zerean... ehizan, horra hitz **zuzena**. Jon Muñoz

"¿Puede usted por favor tomarnos una fotografía?", esan zuen espainol **zuzenean**. Bernardo Atxaga

**Zuzenago** litzateke esatea odol beroko animaliek barne [...] eta besteek, berriz, ingurunearen araberako barne-tenperatura, batzuetan beroagoa edo beste batzuetan hotzagoa. Irene Aldasoro

## **4** bakoitzari dagokiona ematen diona, zuzentasunez jokatzen duena; Jainkoaren legearen edo lege moralaren arabera jokatzen dena. ik **zintzo**.

Aitortzen dut gizakia **zuzena** ez denean injustua dela. Imanol Unzurrunzaga

Hala nola justiziaren edo zuzentasunaren bertutea, bakoitzari berearen ematera bultzatzen duena gizon **zuzena** eta, injustiziaren bizioa, besteari berea kentzera bultzatzen baitu gaiztoa. Piarres Xarriton

Bi apezpiku frantses, gizon **zuzenak** eta katoliko zintzoak. Piarres Xarriton

Pertsona **zuzena** zen, eta zorrotza. Xabier Mendiguren Elizegi

Pertsona **zuzenaren** sufrimendua pertsona doilorraren kondenazioa da. Karlos Zabala

Gizon **zuzena** zen Noe eta akatsik gabea bere garaikoen artean, Jainkoak nahi bezala jokatzen baitzuen. Jose Antonio Mujika

Zer gizon **zuzen** eta tolesgabea den!; aurpegian antzematen zaio guztiz xaloa dela. Jose Morales

Gabriel Cueva, Alburquerqueko jaun duke, Milango gobernadore, printze txit **zuzen** eta guztiz bihozberari, Martin Azpilkueta, Doktor Nafarrak Agur! Piarres Xarriton

Jaungoikoa **zuzena** dela aitortzen badugu (eta hori ukatzea sakrilegoa litzateke), onak saritzen dituen moduan zigortzen ditu gaiztoak. Imanol Unzurrunzaga

Bera baino hobeak ziren bi gizon jator eta **zuzen** hil baitzituen ezpataz. Elizen arteko biblia

Justiziaren arabera emango dira epaiak, hari jarraiki ibiliko bihotz **zuzenekoak**. Elizen arteko biblia

*ik* zuzeneko.

Bihotz okerrekoak bere jokabidearen fruituak jasoko, bihotz **zuzenekoak** bere egintzenak. Elizen arteko biblia

Ez zuten eskandalu-bide izan zitekeen lanbiderik onartzen, baizik eta eginbide santu, **zuzen**, onest eta onuragarrietan jarduten zuten. Askoren artean

Luza zeure maitasuna aintzat hartzen zaituztenei, zeure justizia bihotz-**zuzenei**. Elizen arteko biblia

## • **5** *iz* zuzentasuna; zuzenbidea; eskubidea.

Zorionekoak **zuzenagatik** erasotuak. Joan Mari Lekuona

Karbonoaren organikotzea egunero geure begien aurrean gertatzen ikusiko ez bagenu, astean-astean mila miloika tonak, hosto baten berdea azaleratzen den edonon, **zuzen** osoz legokioke mirari izena. Juan Garzia

Politika omen da, gure on eta **zuzen** guzien baitezpadako iturburua. Edorta Jimenez

Ez baita gizakiarentzat beste biderik, iritzi kontrajarriak izpirituaren balantzan haztatzea besterik, hots, **zuzenaren** makurretik bereizteko ala egiaren gezurretik banatzeko, eztabaidaren zubitik iragaitea baizik. Piarres Xarriton

## **6** geometrian, lerro zuzena.

6 geometrian, lerro zuzena.

Irudi geometrikoetan interesatu zen bereziki: zirkuluak, **zuzenak**, triangeluak. Jon Muñoz

Hiru dimentsioko espazioetan elkarren paralelo diren **zuzenak** puntu bateranzko konbergentzia duten **zuzen** (edo kurba) bilakatzen dira. Josu Zabaleta

-Plano bereko bi **zuzen**. Jon Muñoz

Bi puntutatik, **zuzen** bat pasatzen da. Jon Muñoz

**Zuzen** baten zuzenkia nahi beste luza daiteke. Jon Muñoz

Erantsi zuen: "Lerrokatu gabeak puntuak", zeren eta, hirurak lerrokaturik baldin badaude, orduan ez da zirkulu bat pasatuko, **zuzen** bat baizik. Jon Muñoz

Talesen arabera, bi **zuzen** elkar ebakitzean eratutako angeluetatik, berdinak dira erpinekiko aurkakoak. Jon Muñoz

-Plano bateko angelua bata bestearekiko makurduran dauden bi lerrok eratzen dute, elkar ukitzen dutenean eta **zuzen** berean kokaturik ez daudenean. Jon Muñoz

**Zuzenak** zirkulua bi zati berdinetan zati dezan, zentrotik pasatu behar du nahitaez. Jon Muñoz

Bi **zuzen** paraleloak dira, baldin eta hirugarren **zuzen** batekiko zutak badira. Jon Muñoz

Errepide zabalagoan sartu orduko jabetu da han aurrean duten **zuzen** laburraren bukaeran hasten dela herriaren sarrera aurreko **zuzena**, bazterretan alboak dituena. Pello Lizarralde

Ruche jauna onez onean ulertzen ari zen trigonometrian ere kurbaren eta **zuzenaren** arteko erlazioan zegoela koska. Jon Muñoz

• **7** *adlag* norabidez aldatu gabe, alde batera nahiz bestera makurtu edo okertu gabe; lerro zuzenaren arabera; helburua iristen duela.

Gero eta zailagoa zen erratzari **zuzen** eustea. Iñaki Mendiguren

Gorputzak euren pisuz hutsunean behera **zuzen** jausten direnean. Xabier Amuriza

Kikara utzi du eta **zuzen** gelditu da, kutxaren ertzean bere esku itxiak bermaturik. Monika Etxebarria

*Parliament square* gurutzatu, eta **zuzen** jarraitu genuen Milbank-etik Tate-raino. Ramon Saizarbitoria

On Camillok **zuzen** Udaletxera jo zuen. Koldo Biguri

Lerroa ezin **zuzenago** luzatzen zen tarte batez; gero, eskumuturraren higitze doi atzemanarekin batera, kurbatzen hasten zen. Iñaki Iñurrieta

Anbulatoriora **zuzen** itzuli beharrean, buelta txiki bat egitea erabaki nuen, Altzako kaskotik. Joan Mari Irigoien

Etxerantz **zuzen** joan beharrean Saint Paul gainetik Kristalezko Jauregira jo zuen. Julen Gabiria

Gero, bilatu Zazpigarren Errepidea, eta jo hortik **zuzen** Burlington-era. Oskar Arana

**Zuzen** aurrera jo, eta har ezazu bidean aurkitzen duzun guztia! Jose Morales

Sarreratik **zuzen**, metro gutxitara aurkitzen da. Ramon Saizarbitoria

Muturretako palak zentrotik tarte batera mugituz itsasoko olatuen artean, bultzada indartsua sortu eta aparra atereaz ontzia **zuzen** eramaten dute, brankak ura ebakitzen duen bitartean. Santiago Iruretagoiena

Trainerua aurrera eramaten ikasteaz gain **zuzen** mantentzen ere jakin behar delako. Berria - Kirola

Beste versta bat ibili behar duzu oraindik, daramazun bidetik, hau da, aurrera **zuzen** eta gero eskuinetara. Jose Morales

Azkenean, alferrik ari zirela oharturik, **zuzen** ibiltzeari ekin zioten, kontuan hartu gabe non zegoen lokatz gehiago eta non gutxiago. Jose Morales

Gure karrakak, bere bideari **zuzen** ekin beharrean, Getariara egin zuen lehenik. Edorta Jimenez

Matematikan, berriz, **zuzen** jartzea da zuzentzea. Jon Muñoz

Eskuak gerrian, zango bat **zuzen** eta bestea plegaturik, txapela buruan trebes. Itxaro Borda

Masailak eroriak; tente kokotsa; sudurra **zuzen**; azala, berriz, ia leun, zimurrik gabe. Jon Muñoz

Gure begion bi ikusmen ardatzak ez datoz bat, ez begi bat ez bestea ez baita egoten aurrera **zuzen** begira. Josu Zabaleta

"Arrazionalista hutsa nauzu" esan nion irribarrez begi bustietara **zuzen** begiratzen niola. Ramon Saizarbitoria

Manera kausitua zuen aho-zulora **zuzen** isurtzeko. Aingeru Epaltza

Matrazaren lepotik sugar bizi bat irten zen, harraskatik hurbil zegoen leihorantz **zuzen**, eta hango errezelek su hartu zuten. Juan Garzia

Nozdriovek ikusia zuen orduko, eta **zuzen** zihoan berarenganantz. Jose Morales

Nire begietara **zuzen** so egin, hantxe hodeia atzeman, eta galdetu zidan: [...]. Juan Garzia

Angelo **zuzen** eta zurrun eserita zegoen, niri entzutea beste lanik gabe. Anjel Lertxundi

"Nola jaisten da kristal hau? Bestela kez beteko zaigu autoa", galdetu zidan **zuzenago** eseriz. Bernardo Atxaga

Errepidea **zuzen** zihoan, mahastien artetik eta olibondo zahar eta makurtuzko olibadiren bat edo bestetik zehar. Josu Zabaleta

Jainkoak -edo historiak- lerro okerretan **zuzen** idazten omen dakielako axioma hura. Joxe Azurmendi

Ezpataren punta lurraren kontra tinko eta **zuzen** zuela. Jon Alonso

Nola gauez zaila zen tiroa **zuzen** egitea, perdigoi lodiak aukeratu zituen. Koro Navarro

Tiroa **zuzen** bota zuten, bazekiten gu zein ginen. Jokin Urain

Itsu-itsuan bota nion tiroa, baina **zuzen**. Jon Muñoz

**8** itzulinguru edo bitartekorik gabe. ik **zuzenean**.

Infernura **zuzen**! Xabier Olarra

**Zuzen** burura. Sonia Gonzalez

Letrek, hizkuntza bakoitzaren arau ortografikoen arabera, hotsak islatzen dituzte **zuzen** edo zeharka. Lourdes Oñederra

**Zuzen** aritu zen, alferrikako hitzik gabe. Anjel Lertxundi

Virginiak lan egiten zuen kafetegira joan eta **zuzen** galdetu beharrean, jarri beharrean berarekin aurrez aurre, begiz begi, eta ikusi istant bakar batean nireganako zeukan disposizioa, postal batez baliatzen nintzen. Bernardo Atxaga

Labetik harako burdina goria karrankatzen den bezala, ur hotzetan **zuzen** sartzen dugunean. Xabier Amuriza

Emakumearen salaketa gordina eta zuzena izatean, (nire gonei begira...), **zuzen** erantzun beharra dauka. J. Garzia / A. Egaña / J. Sarasua

**Zuzen** ematen den dirua da, eta ez da bereizketa nabarmenik egiten jardueren artean. Juan Ignacio Pérez / Pello Salaburu

Barrura sartzeko hamaika modu desberdin bilatu zizkion arkitektoak argiari: saiheska, goitik, **zuzen** zein islatua. Jon Muñoz

Paragrafoak: luzeegiak izatea ez da ez praktikoa ezta itxurosoa ere, ideia **zuzen** eta zehatz aurkeztea komeni baita. Askoren artean

Lisa, galderari **zuzen** ihardetsi gabe, aukeraz baliatu zen irakaspena egiteko. Karlos Zabala

Labetik harako burdina goria karrankatzen den bezala, ur hotzetan **zuzen** sartzen dugunean. Xabier Amuriza

Polemika eta ika-mikarik gordinenek baino ez zidaten pizten benetako jakinmina eta interesa -edo morboa, **zuzenago** esateko-. Juan Luis Zabala

**9** zuzentasunaren arabera; egiaren arabera. ant **oker; makur**.

**Zuzen** bizi denak bakarrik du aldeko; oker bizi denak, berriz, aurka. Imanol Unzurrunzaga

Gauzak bere balioan estimatzen dituena **zuzen** eta zintzo bizi da. Imanol Unzurrunzaga

**Zuzen** ote gabiltzan ziurtatu nahi dut. Xabier Olarra

Ez dakigu **zuzen** ez noiz ez zergatik hara joan ote zen. Piarres Xarriton

Nor dabil **zuzen** eta nor oker, nork du arrazoi eta nor dago erratuta, eta nork du hori erabakitzen? Mirentxu Larrañaga

Oker edo **zuzen**, ordea, egin beharrekoa egina zegoen. Joan Mari Irigoien

Jakin ezak Hark **zuzen** egin zuena guk okertzen dugula, eta gurea dela errua. Joan Mari Irigoien

Ordu arte adeitsu, **zuzen** eta zintzo portatu zen jende hura bultzaka hasi zen. Ramon Saizarbitoria

Zigorrak **zuzen** banatzen ez direnean, herriek ez zakitek non duten oina eta non eskua. Juan Garzia

Ximurra **zuzen** zegoen: kokak on egiten zion. Aingeru Epaltza

-Hamazazpi -kantatu zuen Slightlyk; baina ez zegoen guztiz **zuzen**. Julen Gabiria

**Zuzen** zioen, ze, ezizen, goitizen eta gaitzizenetara emanak gara gu denok. Edorta Jimenez

- **Zuzen** hitz egin duzu, jaun agurgarri hori. Jose Morales

Inoren zuhurtziagatik ez da gizakia zuhur egiten, ez eta indartsu inoren indarragatik, ez eta neurritsu inoren neurritasunagatik, ez eta **zuzen** inoren justiziagatik. Imanol Unzurrunzaga

Ez dituzte **zuzen** balioetsi haren gizarte-ondorioak. Juan Garzia

**Zuzen** ikusi zuen Maxek. Jon Muñoz

Bere asmo bakarra, **zuzen** eta oker dauden formak bereizteko arauak ematean datza. Isabel Arrigain

Portugaldarrak **zuzen** edo makur errazki trufatzen eta gutiesten zituztenei. Piarres Xarriton

Gauza batean behintzat **zuzen** nengoen: Ekialdean mundu bat amaitzen da. Edorta Jimenez

Lor dezazula desiratzen duzun bedeinkazio oro eta bete dadila **zuzen** eskatzen duzun guztia. Askoren artean

Bizitzan, zuzentzea arteztea da, **zuzen** ematea. Jon Muñoz

Jaunari otoitz egiten hasi zen bere urratsak **zuzen** bideratu zitzan. Askoren artean

Zure aurrean leial, **zuzen** eta bihotz zintzoz jokatu zuelako. Elizen arteko biblia

Ez baitzuen galdatzen zu ere onest izatea eta zurekin egoki eta **zuzen** jokatzea baizik. Jon Muñoz

Leial, **zuzen** eta bihotz zintzoz jokatu zuelako hark beti zure aurrean. Jose Antonio Mujika

Moralki **zuzen** jokatzeko, gehiengo horren nahia betetzera behartuta al gaude? Askoren artean

Esan nahi dudana **zuzen** uler dadin, [...]. Koldo Zuazo

Kalkulagailua behar, ordea, kontu hori **zuzen** ateratzeko. Aingeru Epaltza

Aita Sainduak, hiru urteen buruko buldaren etenaldia erabakitzen ahal duela, **zuzen**, horren egiteko arrazoi zuzenik baldin badu. Piarres Xarriton

Ez naiz saiatuko haren hitzak **zuzen** aldatzen, berreskuraezinak baitira jadanik. Juan Garzia

Karlos Santamariak ahaleginak egiten zituen, etsipen ilun horri buru eginez, bere ikasleei erakusteko politikoki **zuzen** jokatzea, moralagoa ez ezik, historian efikazagoa ere badela, luzarora. Piarres Xarriton

*ik beherago* 17. Askoren artean

**10** zehazki.

-Zer da **zuzen** proëlla? Itxaro Borda

Nor zen **zuzen** Xaxi? Itxaro Borda

Ez dut **zuzen** gogoratzen. Jokin Urain

Nork zekien **zuzen** zer bilakatzen ziren lainoak... Itxaro Borda

Ez dakit **zuzen** noiz joan zen Argentinara eta ez **zuzen** noiz itzuli zen ere. Ana Urkiza

Ez dakit **zuzen** zergatik. Matías Múgica

Ez nekien **zuzen** nor ziren "bertze" horiek. Aingeru Epaltza

Lan txikiagoa dela ere badio zenbaitek, **zuzen** zer esan nahi didaten ulertzen ez badut ere. Berria - Kultura

Oraindik ez zakiat **zuzen** maitasuna den. Aingeru Epaltza

Ez nekien **zuzen** horrela zen. Aingeru Epaltza

Ihardetsi zien semea oporretara joana zela, ez zekiela **zuzen** nora. Itxaro Borda

Ez dakigu **zuzen** zer sineste mota ukanen zuen, baina segur dena da ez zuela gutarik onartuko euskaldun fededun bezala aurkeztea bere burua jakin gabe **zuzen** fedea bazuen ala ez, gai guztietan egia xerkatzen baitzuen Manexek. Berria - Kultura

Denok, ostera, ez dugu **zuzen** asmatzen eginkizun horretan, edo ez dugu berdin ikusten eginkizuna bera. Koldo Zuazo

**11** ereduaren, arauen arabera.

Terminologia teknikoa **zuzen** erabili. Askoren artean

Gramatika aldetik **zuzen** egonagatik, bada esaldi baldarrik. Iñigo Aranbarri

Hedabideetan jarduteko, berriz, hizkuntza **zuzen** eta egoki erabiltzea da ezinbesteko. Koldo Zuazo

Zenbait hitz **zuzen** idazteko ezintasuna. Oskar Arana

Polizia gogorra zen zeharo, bai, baina Mikel Strogoffek **zuzen** zeuzkan paperak. Karlos Zabala

Paperak denak ei ditu **zuzen** eta artez; ba ei dauka pasaportea, Valentziako Dirección General de Seguridadek luzatua eta Wenceslao Carrillok sinatua, eta ba ei dauka ibiltzeko baimena ere. Edorta Jimenez

Egin ezak **zuzen** zatiketa hori... Jesus Mari Mendizabal

Batzuk **zuzen**, besteak gibelekotz aitzin. Herria

**12** *ipar* orduez mintzatuz, ez minutu bat lehenago ez minutu bat geroago. ik**puntu 23**; **xuxen 5**.

Espainiako ateetan, arratsaldeko seietan **zuzen** idekiko dituzte bestako ateak. Herria

ACCA ihizlarien batasunak eginen ditu urteko biltzar nagusiak, Donoztirin, uztailaren ortzegun 12 an, Donamartirin uztailaren ortzirale 13an, aratseko 9 orenetan **zuzen**. Herria

Ihiztarien batasunak urteko biltzarrak eginen ditu aste huntan Donamartirin ortzegun 8an arratseko 9etan **zuzen**, Herriko Etxeko salan. Herria

**13** *zuzenean* ik **zuzenean**.

**14** *zuzeneko* ik **zuzeneko**.

**15** ***angelu zuzen*** 90°-ko angelua.

**Angelu zuzen** guztiak berdinak dira beren artean. Jon Muñoz

Hiru lerro zuzenen bitartez mugatua dagoen figuran hiru angelu daudela zuzenki ezagutzen da; baina angelu hauek batera bi **angelu zuzen** direla inferitu baino ez da egiten. Ibon Uribarri

Kartzela berria zen, aseptikoa, dena ertz eta **angelu zuzenak**. Iban Zaldua

**Angelu zuzenean** ebakitako horma handi bat da fatxada. Koldo Izagirre

Pasabideak **angelu zuzen** bat egin zuen eskuinerantz, gero beste bat ezkerrerantz. Jon Alonso

Laukizuzen ia perfektu bat, **angelu zuzenetan** elkar ebakitzen zuten kale nagusiz zeharkatua. Jon Muñoz

**16** ***ez-zuzen*** *izond*

Teologoen lana da **zuzenaren** eta ez-**zuzenaren** arteko mugak zehaztea, eta ekintzaren berezko ontasuna edo txartasuna erabakitzea; pentsalariari dagokio politikoki **zuzena** edo **ez-zuzena** zer den zehaztea, gizartearendako mesedea eta kaltea neurtzea. Juan Martin Elexpuru

Honek ez du esan nahi lege **ez zuzenak** hobetu ez daitezkeenik, ezta hobekuntza hori etengabeko lana ez denik ere. Esteban Antxustegi

Zurean zizelkaturik "Recht oder unrecht, mein vaterland" - "Zuzena edo **ez-zuzena**, ene aberria". Marzel Etxehandi

Begira jarriz gero, 70 eta 80ko euskal erreferente kultural asko eta asko PEZ dira, alegia, politikoki **ez zuzenak**, gaur egungo irakurketa diakroniko batetik. Berria - Gaiak

**17** ***politikoki zuzen***

Gizarteak bereganatu duen hainbat eskubide berreskuratzeko borrokaren ondorioz **'politikoki zuzena'** deitzen den hizketa molde bat sortu da, ankerkerien aurrean gauzak bere errespetuzko bidera datozela agertu nahi duen diskurtsoa. Pako Aristi

Gure gaurko gizarteko alor askotako jendearentzat ( **politikoki zuzena** maite duten maila goratsuko profesionalentzat, besteak beste) errepublika batek eman ditzakeen alderik txarrenen eredu eta biltegi dira gaur idazleak. Anjel Lertxundi

Elseren lagun tolerante, postmoderno eta **politikoki zuzenegiei** . Patxi Iturritegi

Pentsalariari dagokio **politikoki zuzena** edo ez-zuzena zer den zehaztea. Juan Martin Elexpuru

Haren jardunaren zintzotasun gaindiezinak erruz aseko ditu baserria euskal esentzien gordailutzat duten irakurle **politikoki zuzenak** . Anjel Lertxundi

Pornografia **politikoki zuzena** eskaintzen da hoteletan. Edorta Jimenez

## 18 ***zuzen onez*** zuzentasunez, eskubide osoz.

Donostia hiri gazteegia da; izan ere, esan daiteke, **zuzen onez** esan ere, 1813. urtean jaio zela, hain zuzen ere herritarrek, Zubieten, hiria oraindik ere sutan zegoela, berreraikitzeko erabakia hartu zutenean. Askoren artean

Stede Bonnet maiorra, **zuzen onez** nauzu beldur gaztaroan zure arimaren bazka izan diren erlijio-oinarriak [...] ez ote dituen usteldu zure bizimodu gaiztoak eta literaturari eta egungo filosofia hutsalari eskaini diozun arreta gehiegiak. Juan Garzia

**Zuzen onez** , ordea, gizartean gailu jakin baten bidez zabaltzen den irudi oro ere ikuspegi horrixe dagokio, zeren presentzia baten eta absentzia baten erregistro bikoitz horrekin ("errealitate bikoitzarekin") jokatzen baitu irudikapenezko irudiak. Josu Zabaleta

## 19 ***zuzen-kontra*** (*orobat* ***zuzenkontra***) *adlag* zuzen denaren kontra.

Funtsezko kalterik egin gabe apezpikuari horrelako auzi ordezkaritzak egin ohi direlako, *praeter jus*, zuzenaren gainetik gehiago, *contra jus*, **zuzen kontra** baino. Piarres Xarriton

Herri hortan **zuzenkontra** gobernuaren buru jarriak dira taliban deitu islamista extremistak. Herria

Gogo onez jasan beharko dute gertatzen zaien guztia, zuzenbidez datorkiena edota **zuzen-kontra** . Joan Mari Lekuona

Hervé Malgorn gaixoa **zuzen kontra** kartzela arazi duten suen egilea nor den aztertzeko ardura eman dit Fanch aspaldiko adiskideak. Itxaro Borda

Heien hutsa dela diru frango dutela **zuzen kontra** beretu. Herria

## 20 ***zuzen-kontrako*** *izlag*

Hain **zuzen kontrakoa** adierazi nahi zuela azaldu nahi luke Gabinek, irudimenari, aukeratzeko askatasunari ateak zabaltzea, baina eztabaidak hartu duen bidea ikusirik, isilik geratu da. Iñaki Iñurrieta

Ez da funtsezko arrazoirik errateko kasu horretan izan dela **zuzenkontrako** preso sartze zuzenik. Piarres Xarriton

## 21 ***zuzen-zuzen*** (*orobat* ***zuzenzuzen*** *g.er.*) *izond* guztiz zuzena.

Aurkari **zuzen-zuzena** zen, puntu kopuru bera geneukan, eta finala izan zen biontzat. Berria - Kirola

Jaen aldean olibadiak lerro **zuzen-zuzenetan** antolatuta daude. Iban Zaldua

Denbora historikoa ez da lerro **zuzen-zuzen** bat. Joxe Azurmendi

"Izatearen formagabetasunerako bide **zuzen-zuzena** ematen dizu", esango zion, bere iragan akademikoko mordoiloaren trufa egiten zuelarik ez irri egiteko ahaleginez. Oskar Arana

Loditasuna gaixotasun kroniko ugariren eragile **zuzen-zuzena** da. Berria - Euskal Herria

Hortxe du zientzialariak erantzukizun **zuzen-zuzena** . Juan Garzia

Arrazoi **zuzen-zuzenak** mutu utzi ninduen istant batez. Aingeru Epaltza

Bi lerro **zuzen-zuzenetan** banatuta, adin ezberdinetako mutiko taldea ateratzen ari zen handik, batere zalapartarik gabe. Aingeru Epaltza

Mezua ere **zuzen-zuzena** izan da: [...]. Berria - Harian

Belarrondoko bizarrak luzeak eta **zuzen-zuzenak** ziren. Jose Morales

Txikiak ziren hortzak, eta **zuzen-zuzenak** , ederto antolatuta zeuden ilaran. Ibon Uribarri

Eguraldiaren egoerari buruz egin zituen iruzkinak ez ziren **zuzen-zuzenak** izan. Irene Aldasoro

Agerian geratu da erabaki hura ez zela **zuzen-zuzena** izan. Berria - Kirola

Hark egina benetan bikaina, haren jokabidea **zuzen-zuzena** . Elizen arteko biblia

Jauntxoaren mehatxuek beldurtzen eta apaizaren esanak itsu-itsuan sinesten zituzten herritar otxan gixaixo haien ondorengo eta oinordeko zuzenak, hau da, **zuzen-zuzen-zuzenak** . Iñaki Segurola

## 22 (adizlagun gisa)

Batzuetan **zuzen-zuzen** , beste batzuetan zeharka. J. Garzia / A. Egaña / J. Sarasua

**Zuzen-zuzen** kontatzen ari naiz guztia, neure kabutakoei izkina egiten saiatu naiz. Anjel Lertxundi

Abnerren ondoren abiatu zen Asahel **zuzen-zuzen** , inora okertu gabe. Elizen arteko biblia

Lepoa luzaturik eta **zuzen-zuzen** ibiltzeko mania zuelako. Fernando Morillo

Atea zabaltzera jaitsi naiz; **zuzen-zuzen** joan da harira. Josu Zabaleta

Makila bat uretan sartzen baduzue, irudituko zaizue okertu egin dela, nahiz eta **zuzen-zuzen** egon. Joan Mari Lekuona

**Zuzen-zuzen** jotzen zuen han denboraleak. Karlos Zabala

**Zuzen-zuzen** zihoan helburura, lortuko zuen astinaldirik gabe, zorion bete-betean. Karlos Zabala

Kamioiaren aurrean, lagun bat fusilez guri **zuzen-zuzen** apuntatzen. Inazio Mujika Iraola

Goiz edo berandu, **zuzen-zuzen** eroriko ginela, eta buruz behera gainera, infernuko galdara gorietara. Joseba Sarrionandia

Frantziskoren jarraitzaileetako batek -santutasun fama handikoa bera- haren arima **zuzen-zuzen** zerura igotzen ikusi zuen. **Zuzen-zuzen** begiratzen zizun begietara, esaten zenuen guztia ulertzen zuen. Askoren artean

Ez zuen ezer ikusten, begirada **zuzen-zuzen** nire gain jarria bazuen ere. Josu Zabaleta

-Gaurkoa araudiaren aurka doa **zuzen-zuzen** -forentsearen ahots zolia, hilerriko txori ugarien txortxorrekin lehian-. Aingeru Epaltza

Eta eskerrak dena **zuzen-zuzen** komuneko zulotik joan den. Pedro Alberdi

Baina zer erraiten digu "kontrabando" hitz horrek? Hiztegiek diote italianotik heldu dela **zuzen zuzena** . Angel Aintziburu / Jean Baptiste Etxarren

Bazinakien, ama, jinen zela eguna etxe xokotik hegaldatuko zena baina ez ordea amaren besotik beretik andereño batenetara **zuzen zuzena** orain bezala. Herria

## 23 ***zuzen-zuzenean*** (*orobat* ***zuzenzuzenean*** *g.er.*) *adlag* zuzen-zuzen.

**Zuzen-zuzenean** jaitsiko dira hilobira, haien arrastoa ezabatu egingo da eta Hilen Egoitza izango dute bizileku. Elizen arteko biblia

Likatsua iruditzen zitzaidan, melenga, ia-ia lizuna, ez sexuari zegokionez **zuzen-zuzenean** , baina bai halako sexualitate "sublimatu"tik zetorkion zerbaiten kariaz. Juan Kruz Igerabide

Nekazariei, arrantzaleei eta garraiolariei **zuzen-zuzenean** eragiten die arazoak. Berria - Ekonomia

Nahiago izan zuen ezagutza preziatu hori bere ikasleei **zuzen-zuzenean** azaldu. Berria - Euskal Herria

Harryk ahaleginak egiten zituen begi hotz haietara **zuzen-zuzenean** begiratzeko. Iñaki Mendiguren

Proposatu nuen sal geniezaiola **zuzen-zuzenean** hiriko liburutegiren bati. Oskar Arana

Infernuko zulora **zuzen-zuzenean** . Alberto Ladron Arana

Herritar hauek euren lurraldeetara itzultzeko eskubidea dute; izan ere, itzultzea **zuzen-zuzenean** dago lotuta euren iraupenarekin. Berria - Mundua

Ezkerraldean abian diren eraso txikitzaile guztiak laburbiltzen ditu Alonsotegik, **zuzen-zuzenean** ez bada ere, gertutik sufritu behar izango dituelako proiektu guztiak. Berria - Euskal Herria

Epaiak euskal hiztunon eskubideen kontra jotzen du **zuzen-zuzenean**. Berria - Harian

### 24 *zuzen-zuzeneko izlag*

Kode sinple batzuk aski ziratekeen bizitzaren alderdi **zuzen-zuzenekoei** buruzko informaziotik partekatu beharrekoa tratatzeko. Juan Garzia

Eta hara non, di-da, eskuinez **zuzen-zuzeneko** muturreko bat jaurti dion. Koldo Biguri

Haren ikuspegiak, nire irudiko, balio berezia du, munduaren ikuspegi **zuzen-zuzenekoa** eta kontzeptu landu gabea helarazten baitizkigu. Xabier Olarra

Bere testigantza, beraz, **zuzen-zuzenekoa** da. Askoren artean

**hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 9 aldiz agertzen direnak)**

**aurkari zuzen** (34); **aurkari zuzen bat** (12); **baina hain zuzen** (9); **begietara zuzen** (10); **bezain zuzen** (11); **bi zuzen** (11); **bide zuzen** (14); **da hain zuzen** (68); **dira hain zuzen** (10)

**eta hain zuzen** (82); **ez dakit zuzen** (10); **ez hain zuzen** (18); **ez zuzen** (11); **hain zuzen** (6915); **hain zuzen ere** (2971); **hain zuzen horregatik** (9); **harreman zuzen** (12); **horregatik hain zuzen** (18)

**lauki zuzen** (9); **lerro zuzen** (33)

**on eta zuzen** (9); **oso zuzen** (13)

**zuzen ari** (13); **zuzen bakarra** (11); **zuzen begiratu** (22); **zuzen begiratzen** (21); **zuzen da** (15); **zuzen den** (32); **zuzen den bezala** (20); **zuzen dena** (17); **zuzen edo** (23)

**zuzen egin** (18); **zuzen ekintza** (9); **zuzen erantzun** (10); **zuzen esanda** (23); **zuzen eta bidezko** (10); **zuzen eta egoki** (12)

**zuzen jarri** (11); **zuzen jo** (16); **zuzen joan** (19); **zuzen jokatu** (47); **zuzen jokatzen** (27)

**zuzen** (179); **zuzen ote** (11); **zuzen zaude** (9); **zuzen zebilen** (17); **zuzen zegoen** (17); **zuzen zihoan** (11); **zuzen zuzena** (37); **zuzen zuzenak** (9); **zuzen zuzenean** (210)

**arrazoi zuzena** (9); **aurkari zuzena** (61); **aurkari zuzena da** (26); **baina zuzena** (9); **batere zuzena** (13); **berri zuzena** (9); **bide zuzena** (44); **da zuzena** (92); **dei zuzena** (22); **dei zuzena egin** (18); **den zuzena** (10)

**ekintza zuzena** (13); **epaiketa zuzena** (9); **erabaki zuzena** (30); **erabakia zuzena** (10); **erabat zuzena** (14); **eragin zuzena** (111); **eragin zuzena du** (18); **eragin zuzena izan** (45); **eragin zuzena izango** (12); **erantzun zuzena** (15); **eskaera zuzena** (23); **eskaera zuzena egin** (19); **esku hartze zuzena** (9); **esperientzia zuzena** (13); **ez da zuzena** (73); **ez dela zuzena** (19); **ez litzateke zuzena** (11); **ez zela zuzena** (12); **galdera zuzena** (11); **gizon zuzena** (20); **guztiz zuzena** (11); **harreman zuzena** (76); **harreman zuzena izan** (11); **hartze zuzena** (48); **hartze zuzena izan** (12); **horrek eragin zuzena** (20)

**isla zuzena** (18); **jokabide zuzena** (9); **joko zuzena** (10); **lekuko zuzena** (9); **lerro zuzena** (10); **lotura zuzena** (54); **lotura zuzena du** (9); **mezu zuzena** (13)

**ondorio zuzena** (47); **ondorio zuzena da** (14); **ordezkaritza zuzena** (10); **oso zuzena** (17); **parte hartze zuzena** (38); **politikoki zuzena** (28)

**zerikusi zuzena** (54); **zerikusi zuzena izan** (12); **zuzen zuzena** (37)

**zuzena bada** (18); **zuzena baita** (17); **zuzena da** (159); **zuzena dauka** (13); **zuzena dela** (60); **zuzena den** (32); **zuzena du** (43); **zuzena duela** (17); **zuzena dute** (21); **zuzena dutela** (9); **zuzena egin** (65); **zuzena egin zien** (10); **zuzena egin zion** (14); **zuzena egiten** (19); **zuzena ematen** (13); **zuzena ez** (56); **zuzena hartu** (13); **zuzena iruditzen** (17); **zuzena izan** (193); **zuzena izan da** (12); **zuzena izan du** (23); **zuzena izan zela** (19); **zuzena izan zen** (16); **zuzena izan zuen** (20); **zuzena izan zuten** (12); **zuzena izango** (51); **zuzena izango du** (10); **zuzena izatea** (28); **zuzena izateko** (15); **zuzena izaten** (17); **zuzena ote** (9); **zuzena zara** (13); **zuzena zela** (12); **zuzena zen** (33)

**baino zuzenago** (14)

**baino zuzenagoa** (10)

**zuzenagoa da** (10)

**aurkari zuzenak** (18); **erabaki zuzenak** (10); **ez dira zuzenak** (9); **laguntza zuzenak** (22); **lerro zuzenak** (11); **politikoki zuzenak** (10); **zuzen zuzenak** (9); **zuzenak dira** (31); **zuzenak izan** (16); **zuzenak ziren** (10)

**arrazoi zuzenaren** (12); **ekintza zuzenaren** (10)

**bide zuzenean** (23); **lerro zuzenean** (16); **modu zuzenean** (22)

**zuzen zuzenean** (210)

**aurkari zuzenen** (28); **aurkari zuzenen arteko** (9); **aurkari zuzenen aurka** (12)

**biderik zuzenena** (14)

**bide zuzenera** (11)

**bide zuzenetik** (54)

**harreman zuzenik** (13); **zerikusi zuzenik** (11); **zerikusi zuzenik ez** (9)

---

## zuzenarazi, zuzenaraz, zuzenarazten du *ad* zuzentzera behartu.

Harroputza zentzarazten duenak mesprezioa jasotzen du, gaiztoa **zuzenarazten** duenak iraina. Elizen arteko biblia

**Zuzenarazi** zuhurra eta maite izango zaitu. Elizen arteko biblia

Gu zigortzeko eta **zuzenarazteko** haserretu da une batez Jauna. Elizen arteko biblia

Hainbertzeraino trabatzen zitzaidan mihia, ezen aitatxik basokada bete arno edanarazi baitzidan, mintzoa **zuzenarazi** beharrez. Aingeru Epaltza

Berak nahi du, bide beretik ere, bi sexuen arteko batuketak erakar ditzakeen betebeharrak adimenak eta sentimenduak **zuzenaraztea**. Andres Urrutia

---

## zuzenarazpen *iz* zuzenaraztea.

Hobe zuhur baten **zuzenarazpena**, tentel baten goraipamena baino. Elizen arteko biblia

---

## zuzenbide *iz* 1 gizartean bizi diren gizakien arteko harremanak bideratzeko hastapen eta legeen multzoa.

Kontu izan **zuzenbide** eta indar hitzak ez direla elkarren aurkakoak, baina lehena, beste ezer baino gehiago, bigarrenaren aldaera dela, aldaerarik egokiena gehiengoarentzat. Juan Martin Elexpuru

Estatu honen aurka eta, beraz, **zuzenbide** honen eta bere erabileraren aurka jaiki ziren argien mendeko figura nagusiak. Juan Martin Elexpuru

Justiziak eta **Zuzenbideak**, alderdiaren interesek baino indar handiagoa izatea espero dut. Berria - Euskal Herria

Nafarroako legeak Itoizko Koordinakundearen tesien kontra egiten du, baina ezin erran dezakegu lege hori onartu denik **Zuzenbidearen** nagusitasunari ihes egiteko asmoz. Berria - Euskal Herria

Espainiako Botere Judizialeko lehendakariaren berbak ekarri zituen gogora, **zuzenbidearen** arauak ez direla abstraktuak esateko. Berria - Euskal Herria

Klimaren aldaketari dagokionez, **zuzenbideak** tresnak eta irtenbideak eskaintzen dizkigu. Berria - Euskal Herria

Klimaren aldaketari dagokionez, **zuzenbideak** tresnak eta irtenbideak eskaintzen dizkigu. Berria - Euskal Herria

Florent **zuzenbidea** ikasten hasi berria zen Parisen, ama hil zitzaionean. Karlos Zabala

**Zuzenbidean** doktorea da. Berria - Mundua

Anai Oton lombardiarra, **zuzenbidean** aditua, jarri zuten Rhineko ministro eta anai Simon Saxoniakoa, esan bezala. Askoren artean

Apalategi batzuetan, **Zuzenbideko** liburu batzuk. Lopez de Arana

**Zuzenbideko** ikasle adoretsuaren espiritu hura ez zuen inoiz galdu. Ander Irizar

LL.D. laburdurak zehazki *Legum Doctor* (**Zuzenbideko** Doktore) adierazten du. Xabier Olarra

Jose Maria Desantes **zuzenbideko** doktore eta informazioaren zientzietako doktorearen esanetan, [...]. Berria - Gaiak

**Zuzenbideko** formazio propioaren aldetik ordea, ez zuen Azpilkuetak izan, prestakuntza tinko eta oroz gainetik berritzeko bide berriei ireki baten aldeko inguramena aurkitzeko zortea. Piarres Xarriton

Nahiz **zuzenbidezko** bi sailak landu, bakarrik sail kanonikoaren doktoregoa zuen eskatu. Piarres Xarriton

Nola fabrikatzen den **Zuzenbideko** Estatuan Askatasuna, Berdintasuna eta Anaitasuna. Joxe Azurmendi

**Zuzenbidezko** estatu liberalaren zuzenbide penalak zein bereizgarri duen galdetzen ari gara. Juan Martin Elexpuru

**Zuzenbidezko** akatsagatiko apelazioa, jaun baten epaitegian alderdiei justizia egitea atzeratzen, saihesten edo ukatzen zenean egiten zen. Iñaki Iñurrieta

**Zuzenbidea** okerbide denean, erresistentzia beste biderik ez dago. Joxerra Garzia

**2** (izenondo eta izenlagunekin)

Gizakia hainbat lege-motak gobernatzen dute: **zuzenbide** naturalak; **zuzenbide** jainkozkoak, hots, erlijioarenak; eliz **zuzenbideak**, hau da, kanonikoak, zeinek erlijioa gobernatzen baitu; Jende **Zuzenbideak**, zein munduko **zuzenbide** zibiltzat har baitaiteke, herri bakoitza hiritartzat hartuz gero; **zuzenbide** politiko orokorrak, zeinek gizarte guztiak sortu dituen giza zuhurtzia hori baitu xedetzat; **zuzenbide** politiko partikularrak, gizarte bakoitzari dagokionak; konkista-**zuzenbideak**, herri batek beste bati egin nahi, ahal edo behar izan dion indarkerian oinarrituak; gizarte bakoitzaren **zuzenbide** zibilak, zeinen bidez hiritar batek bere ondasuna eta bizia defenda baititzake beste edozein hiritarren kontra; azkenik, **zuzenbide** domestikoak, zein gizarte bat familiatan banatuta egotetik baitator, familia horiek gobernu partikular baten premia dutelarik. Iñaki Iñurrieta

Jendeen arteko **zuzenbide** naturalaz eta Jendeen arteko **zuzenbide** positiboaz hitz egiten bada, xedea, beti-beti, hauxe da: [...]. Andres Urrutia

**Zuzenbide** Zibila, lege politikoen azpikoa. Andres Urrutia

Nola galdu zen **zuzenbide** erromatarra frankoen mendeko lurraldean, eta nola iraun zuen godoen eta burgundiarren mendeko lurraldean. Iñaki Iñurrieta

**Zuzenbide** Penala gauzatzean egiten ziren gehiegikeriak, lehen aipatu dugun Calas kasua, Damiens-en urkamendi ezaguna eta beste anitz, bateraezinak ziren beharrizanaren irizpidea eskatzen zuen hitzarmen ideiarekin. Juan Martin Elexpuru

Alcalatik iragan zen **zuzenbide** zibila eta kanonikoa ikastera, Tolosako Unibertsitatera. Piarres Xarriton

**Zuzenbide** Konstituzionaleko katedradunak Batzar Nagusiek duten eskuduntza defendatu zuen. Berria - Euskal Herria

Euskadi eta Nafarroaren eskubide historikoak, **Zuzenbide** Komunitarioaren baitan. Berria - Euskal Herria

Iusnaturalismo eta **zuzenbide** positiboaren arteko harremanei buruzko galdera. Askoren artean

**Zuzenbide** administratiboan bere ospea duen Tomás Ramón Fernández irakasleak. Joxerra Garzia

Iruditu zitzaidan erakundeetan boterea lortzera iristen diren neurrian **zuzenbide** laboraletik administratiborako bidea egiten duen jende ezkertiarrez osatuta zegoela bulegoa. Ramon Saizarbitoria

Probintzia horiei "erromatar **zuzenbideko**" edo **"zuzenbide** idatziko lurralde" izena besterik ez zitzaien geratu. Iñaki Iñurrieta

Usadioen arabera gobernatutako eskualde frantziarren eta **zuzenbide** idatziaren arabera gobernatuen arteko bereizketa egina zen jadanik Pistesko ediktuaren denboran. Iñaki Iñurrieta

Biziarteko zigorrik ez, **zuzenbide** komuneko krimenengatik izan ezik! Karlos Zabala

Probintzia, printzerri, herrialde, kantonamendu, hiribildu eta biztanle-komunitateen pribilegio partikular guztiak, diruzkoak nahiz beste edozein eratakoak, abolituta gelditzen direla errekurtsorik gabe, eta frantses guztien **Zuzenbide** Komunean izango direla batuak. Andres Urrutia

Nazioarteko **zuzenbide** pribatua. Harkaitz Cano

Gure artean ezarritako klausulak, alargun irautekoak, **zuzenbide** zaharraren kontra doaz. Iñaki Iñurrieta

Ez dago lege unibertsalik eta, ondorioz, ezin da egon **zuzenbide** unibertsalik. Askoren artean

**Zuzenbide** kosmikoa eta politikoa, eta moraltasun indibiduala, lotu-lotuta daude. Joxe Azurmendi

Nazio Batuen Kartarekin eta nazioarteko **zuzenbidearen** printzipioekin bat, Estatuek bere baliabideak ustiatzeko eskubide subiranoa dute. Itziar Eizagirre / Amaia Lizarralde

**3** (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

**Zuzenbide** estatuaren egituran, legegilea ez da legeak egiten dituena, hitzarmena onartu zutenen ordezkaria baizik. Juan Martin Elexpuru

**Zuzenbide** Estatuaren tresnak muturreraino erabiltzen jarraituko dutela ere esan zuen. Berria - Harian

Demokrazia, **zuzenbide** estatua eta nazioarteko politika arabiar munduan. Berria - Kultura

**Zuzenbide** estatuak banda terrorista garaitu dezake. Berria - Euskal Herria

Ezin baita beren erabileraren eskuduntza nabaria bihurtuko lukeen **zuzenbide**-oinarri nabaririk aurkeztu, ez esperientziatik abiatuta, ezta arrazoimenetik abiatuta ere. Ibon Uribarri

Laguntza psikologikoa eskaintzen dutenekin eta **zuzenbide** eta polizia izaera duten zerbitzuekin lotuta ere izango da. Berria - Euskal Herria

Giza auzietan, soilik indarrez berdinak direnen artean erabiltzen dira **zuzenbide**-arrazoiak; aitzitik, hala ez denean, indartsuenak jartzen du zilegizkotasunaren muga. Askoren artean

Indarrean diren legeek diotena, indarrean den **zuzenbide**-ordenamenduak dioena da nik esan nuena. Berria - Euskal Herria

Erlijio-testu batez dihardugunean edo **zuzenbide**-araudi batez edo egia zientifiko batez dihardugunean. Xabier Arregi

**Zuzenbide** neurriekin bakarrik ez goazelako inora. Berria - Euskal Herria

Zertarako joan **Zuzenbide** Fakultatera eta abokatu-ikasketak aurrera atera, defendatzeko auzirik ez badago? Lopez de Arana

Garai hartan Bologna **zuzenbide** zientziaren gune nagusi zen. Askoren artean

Alcalan nabari zen **zuzenbide** ikasketen aurkako aiherkunde bizia. Piarres Xarriton

Hamazortzi urterekin **zuzenbide** karrera egiten hasi zen arte. Unai Elorriaga

Nahiz hiru erreinu ezberdinetan eta bost unibertsitatetan berrogei urtez hurbil **zuzenbide** irakasle izan naizen, [...]. Piarres Xarriton

**Zuzenbide**-liburuko paragrafo joriak, hasieran lausoak, gero argitu egin ziren. Lopez de Arana

**Zuzenbide**-liburuko paragrafo joriak, hasieran lausoak, gero argitu egin ziren. Lopez de Arana

**Zuzenbide**-akatsagatiko apelazioa agertu zen orduan. Iñaki Iñurrieta

Portalisen testu hori klasiko egin zaigu **zuzenbide** munduan. Andres Urrutia

**4** (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa)

Osmanliarrek kontrol zorrotza zertu zuten administrazio- eta krimen-**zuzenbideaz**. Zigor **Zuzenbidea** gogortzeko eskaera hori sistemak berak sortu, sustatu eta kudeatutakoa da. Iñaki Mendiguren

Bernhard Docke zigor **zuzenbideko** ofizioko abokatua da Alemaniako iparraldeko Bremen hirian. Berria - Mundua

Kanonistak zuzenbide zibileko Bolognako eskola senide zen eliz **zuzenbideko** fakultate batekin ari ziren osatzen. Iñaki Mendiguren

Lan **zuzenbidea** estatu mailakoa da, hemen beste errealitate bat badagoen arren. Berria - Harian

Teresa Perez del Rio Lan **Zuzenbideko** katedradunak [...] gizarte elkarrizketaz, negoziazio kolektiboaz eta generoaz esanak hartu dituzte abiapuntu. Berria - Euskal Herria

Alejandro Torres NUP Nafarroako Unibertsitate Publikoko Eliza **Zuzenbideko** doktoreak azaldu duenez. Berria - Harian

Kartagok Jende **Zuzenbide** berezia zeukan: irato egiten zituen Sardinian eta Herkulesen zutabeen aldean merkataritzan aritzen ziren atzerritar guztiak. Iñaki Iñurrieta

Konkista une bateko kontua besterik ez zen izan, eta orduan erabili zen **jende-zuzenbideak** zenbait joputza ekarri zituen. Iñaki Iñurrieta

Hesiodo herri-**zuzenbidearen** alde aterako da nabarmen Jainkoari legeak ezartzeko eskatzen dionean. Askoren artean

Bizkai, Araba eta Gipuzkoan, 3/1992 Legea, uztailaren 1ekoa, Euskal Herriko Foru-**Zuzenbide** Zibilari buruzkoa. Andres Urrutia

Gerra zenean, eta ahaide batek borroka-bahiak ematen edo hartzen bazituen, gerra-**zuzenbidea** amaitu egiten zen. Iñaki Iñurrieta

Badaki ez dela jolasean ibili behar **jende-zuzenbidearekin**, eta ez du inongo interesik gu atxikitzeko, bestetara baizik. Karlos Zabala

Halakoxea zen garai hartan gure ohitura-**zuzenbide** idatzia. Iñaki Iñurrieta

**5** bakoitzari dagokiona emanaz, zuzentasunez jokatuz aritzeko era. ik **justizia; zuzentasun**.

Halaxe egin ohi zuen erregeagana **zuzenbide** eske zetozen israeldar guztiekin. Elizen arteko biblia

Ez nahasi sinesgabeekin: ba al dute zerikusirik elkarrekin **zuzenbideak** eta gaiztakeriak. Elizen arteko biblia

Edonork onartuko dizu ez dagoela **zuzenbiderik** haiek preso eta urrun, eta beste zenbait bahitzaile eta torturatzaile, kalean libre eta aberasturik dabilen artean. Hasier

Etxeberria

Jaunak Israel beti maite izan duelako egin zaitu zu errege, **zuzenbidez** eta zuzentasunez goberna dezazun. Elizen arteko biblia

Jainkoak **zuzenbidez** epaituko mundua. Elizen arteko biblia

Zuek, ordea, **zuzenbidea** pozoi bihurtu duzue, justizia samindura. Elizen arteko biblia

Niretzat eskatzen dut gaur **zuzenbidea**. Itziar Otegi

Herri honetako epaile egingo banindute, niregana etorriko litzateke auziak dituen jendea, eta nik **zuzenbidea** egingo nieke. Elizen arteko biblia

Entzun zuk zerutik, bizi zaren toki horretatik, beraien otoitza eta eskaria, eta egiezu **zuzenbide**. Elizen arteko biblia

Errudunari diru-truke arrazoi ematen eta errugabeari **zuzenbidea** ukatzen diozuenok! Elizen arteko biblia

Hi, iruzurti eta gezurrontzi, deabrukume eta **zuzenbide** ororen etsai hori, ez ote haiz Jaunaren bide zuzenak okertzen aspertuko? Elizen arteko biblia

Ez dute ezagutzen bake-bidea, **zuzenbiderik** ez da haien urratsetan. Elizen arteko biblia

Eta "zuzenen arteko hautatuak" dio egiazko osasuna eta salbazioa **zuzenbidean** datzalako. Xabier Kintana

-Batzuek uste dute pertsona ustez errugabeei erasaten dieten tragediak **zuzenbide** mendekatzailearen seinale direla, gizakiontzat ulertezina den jakituria baten seinale, alegia. Patxi Zubizarreta

**6** (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

Gehienak bezala isilik geratu beharrean, **zuzenbide** eske joan zitzaion Enperadore Horiari. Felipe Juaristi

Utzi zeure bekatuak **zuzenbide** eginez, uko egin gaiztakeriari, behartsuekin errukitsu izanez. Elizen arteko biblia

Lege horren aurrean ez du balio **zuzenbide** eskakizunak: "Zerbait indarraren bidez lor dezakeenak ez baititu inoiz lehenetsi arrazoi horiek". Askoren artean

Berak emango die epai-mahaikoei **zuzenbide**-sena eta hiriaren defendatzaileei kemena. Elizen arteko biblia

Behinola justiziaz betea, **zuzenbide**-leku zena, orain hiltzaileen bizileku. Elizen arteko biblia

**7** konponbidea.

Okerrak ez zuen honezkero **zuzenbiderik**. Aingeru Epaltza

**8** helbidea.

Idatzirik zeramazkien **zuzenbide** eta telefono zenbakien papertxo zuria luzatu zion. Itxaro Borda

Ez deat nik emanen, ez Peter Forster, ez Elizabeth Hamel, ez Theo Wennenean-en **zuzenbiderik**, segur nuk jadanik atxemanak dituzkala hire ikerketan; horiek edo horien iduri zonbait. Herria

Bozkatzaile kartarik ez diagu, **zuzenbide** zehatzik ez daukagunez. Itxaro Borda

Igorri CV-a **zuzenbide** honetara: [...]. Herria

Parte hartu nahi dutenek beren izena eman behar urtarrilaren 30-eko **zuzenbide** huntarat: BP 215, Carhaix 29270. Herria

**hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**

**benetako zuzenbide** (4); **donostiako zuzenbide fakultatean** (3); **foru zuzenbide** (3); **gure zuzenbide** (3); **jende zuzenbide** (9); **nazioarteko zuzenbide** (7)

**zuzenbide akatsa** (4); **zuzenbide akatsagatik** (4); **zuzenbide akatsagatiko** (5)

**zuzenbide erromatarra** (6); **zuzenbide erromatarreko** (5); **zuzenbide eske** (3); **zuzenbide estatu** (23); **zuzenbide estatu batean** (6); **zuzenbide estatu baten** (5); **zuzenbide estatua** (59); **zuzenbide estatuak** (26); **zuzenbide estatuan** (6); **zuzenbide estatuaren** (47); **zuzenbide estatuaren barruan** (3); **zuzenbide estatuari** (15); **zuzenbide estatuari iseka** (3); **zuzenbide estatuetan** (3); **zuzenbide estatuko** (3); **zuzenbide estaturik** (4); **zuzenbide fakultatean** (8); **zuzenbide fakultateko** (3)

**zuzenbide idatzia** (7); **zuzenbide idatziaren** (4); **zuzenbide ikasketak** (23); **zuzenbide ikasketak egin** (3); **zuzenbide ikasleak** (3); **zuzenbide irakaslea** (3); **zuzenbide irakasleak** (3); **zuzenbide kanonikoa** (4); **zuzenbide kanonikoak** (3); **zuzenbide kanonikoaren** (4); **zuzenbide konstituzionaleko** (7); **zuzenbide naturalaren** (11); **zuzenbide penal** (5); **zuzenbide penala** (4); **zuzenbide penalak** (7); **zuzenbide penalaren** (8); **zuzenbide penalari** (3); **zuzenbide penalean** (3); **zuzenbide penaleko** (4); **zuzenbide politiko** (5); **zuzenbide politikoa** (3); **zuzenbide politikoaren** (3); **zuzenbide publikoko** (4); **zuzenbide zibil** (3); **zuzenbide zibila** (10); **zuzenbide zibilaren** (15); **zuzenbide zibilaren printzipioen** (4); **zuzenbide zibilari** (4); **zuzenbide zibilean** (3); **zuzenbide zibileko** (15); **zuzenbide zibileko irakasle** (4); **zuzenbide zibileko irakaslea** (5)

**erromatar zuzenbidea** (24); **hesiak nazioarteko zuzenbidea** (3); **justizia eta zuzenbidea** (6); **lan zuzenbidea** (4); **nazioarteko zuzenbidea** (19); **nazioarteko zuzenbidea urratzen** (6); **zigor zuzenbidea** (4)

**zuzenbidea eta justizia** (3); **zuzenbidea eta legeak** (5); **zuzenbidea ikasi** (14); **zuzenbidea ikasi zuen** (7); **zuzenbidea ikasten** (9); **zuzenbidea ikasten ari** (3); **zuzenbidea ikasten hasi** (5); **zuzenbidea urratzen** (7); **zuzenbidea urratzen duela** (5)

**erromatar zuzenbideak** (5); **jende zuzenbideak** (3); **justiziak eta zuzenbideak** (3); **nazioarteko zuzenbideak** (3)

**nazioarteko zuzenbidean** (5); **zigor zuzenbidean** (3); **zuzenbidean aditu** (3); **zuzenbidean aditua** (9); **zuzenbidean doktore** (3); **zuzenbidean doktorea** (3); **zuzenbidean lizentziatua** (4); **zuzenbidean oinarritutako** (3)

**erromatar zuzenbidearen** (10); **nazioarteko zuzenbidearen** (14); **zuzenbidearen alde** (3); **zuzenbidearen arabera** (12); **zuzenbidearen araberako** (3); **zuzenbidearen eskola** (5); **zuzenbidearen eskola historikoa** (3); **zuzenbidearen ikuspegitik** (4)

**erromatar zuzenbideko** (3); **lan zuzenbideko** (4); **zuzenbideko estatuak** (3)

**zuzenbidez epaituko** (3); **zuzenbidez eta justiziaz** (12)

**zuzenbidezko epaiketa** (3); **zuzenbidezko estatu** (5); **zuzenbidezko estatua** (3); **zuzenbidezko estatuaren** (5)

---

**zuzendari** *iz* **1** zenbait erakunderen burua; hainbat talderen jarduna zuzentzen duen pertsona; administrazioko zuzendaritza bateko buruari edo enpresa batzuetako zenbait sailetakoari ematen zaion izena.

Izan ere, **zuzendariak**, Jainkoaren etxezain denez gero, akasgabea izan behar du: ez harro, ez haserrekor, ez ardozale, ez sesiozale, ez okerreko irabazien gose. Elizen arteko biblia

-Ni naiz **zuzendaria**; nik hautatuko ditut protagonistak. Fernando Rey

Dirudienez **zuzendariak** produkzio-bulegora deitu du, eta handik publizitatera deitu dute. Fernando Rey

Thierryk keinu konplize bat egin dit orduan, eta Werner Herzog **zuzendariaren** filmak asko gustatzen zaizkiola gaineratu du. Iban Zaldua

Maisonnave **zuzendariak** Seminario handian sartzeko egiten dion ageria oso baikorra da. Xipri Arbelbide

Erromatik itzuli zenean beraz, apezpikuak kendu zuen bere kargutik beste **zuzendari** bat izendatu, 'interdit' zigorraz mehatxatu, [...]. Xipri Arbelbide

Kantariek abesti-saioa egin zuten, Jizrahias **zuzendari** zutela. Elizen arteko biblia

Koru batek laguntzen ziola, zeinaren buru eta **zuzendari** Madama Scílimberg izeneko sorgin bat baitzen. Juan Garzia

Berehalaxe izango da hemen **Zuzendaria** entsegurako. Josu Zabaleta

Bi **zuzendarien** filmetan behin eta berriz agertzen da heziketaren gaineko ardura. Berria - Kultura

Presidentearen eta **zuzendarien** karguak profesionalizatzea ez zaigu burutik pasatu ere egin. Berria - Kirola

Fresnesen gizonentzako dibisio bakoitzak bere **zuzendaria** du. Jokin Urain

**Zuzendari** jaunak haur bat bezalatsu gogoberoturik azaldu eta erakutsi zidan makina. Juan Garzia

- **Zuzendari** jaunarekin hitz egin nahi dut. Xabier Paya

Orduan ikusi nuen **zuzendari** "jauna" ez baina, "andrea" zela. Jesus Mari Mendizabal

Behin, matematika orduan, **zuzendariak** deitu zidan. Juan Kruz Igerabide

**Zuzendariagana** deitu naute. Koldo Izagirre

Noizean behin, kontzientzia profesionalak bultzaturik, **zuzendariarengana** jo, eta lan bat eskatzen nion. Juan Garzia

Doinu bat asmatu, eta, makilak hartuta, biak jarri ziren **zuzendari**. Koro Navarro

Lurjabearen eginkizun guztiak betetzeko, aldi berean epaile, **zuzendari** eta ordena-zaintzaile jarduteko. Jose Morales

Gizon gaztea genuen, **zuzendaritzara** igan berria. Koldo Izagirre

**2** (-ko atzizkiaren eskuinean)

Uztaritze eskualdeko **zuzendaritzaren** meneko ziren herri guzietako beste funtzionarioak. Elena Touyarou

NDF Nazioarteko Diru Funtseko **zuzendari** Rodrigo Rato eta Nazioarteko Lan Erakundeko **zuzendari** Juan Somavia bildu ziren goi bileran. Berria - Mundua

Kontuak kontu, egun batean Arrasateko Ikastolako **zuzendari** Jose Martin Kamino azaldu zen Iratxera. Joxerra Garzia

Euskalerria Irratiko **zuzendari** Mikel Bujandak atzo Berriari adierazi zionez, [...]. Berria - Harian

Hala zioen Elhuyar kultura elkarteko **zuzendari** Jose Mari Fernández Ibabek. Iñaki Heras

Periodikoko **zuzendariarekin** eta argazkilariarekin hitz egin nahi duela. Anjel Lertxundi

Goizean, berriz, ontziolako **zuzendariekin** bildu zen langileen batzordea. Berria - Ekonomia

Eroetxeko **zuzendariek** eta emakume zaintzaileek neska gaixoei arropa eta jana ebasten zizkieten. Gotzon Garate

Saileko **zuzendariari** zegokionez, urte asko zeramatzan administrazio publikoan, eta kudeatzaile ona omen zen. Migel Angel Mintegi

Ikuskapenerako Informazio eta Plangintza Ataleko **zuzendariak** zaletasun ezkutuak eta amodio gordeak deskubritu ahal izan ditu [...] bere langileen ordenagailu bakoitza banan-banan miaturik. Aingeru Epaltza

Herrialde Katalanetako Vilaweb albiste webguneko **zuzendaria** da Vicent Partal. Berria - Harian

Larresoroko **zuzendari** (1834), kalonje (1850), Bikario nagusi (1852), 1869 hila. Xipri Arbelbide

Hona Ithurbide herritarra, Sarako komisarioa, **Zuzendaritzaren** ordezkaria. Elena Touyarou

Horra non goiz batez presondegiko **zuzendari** nausia eta zuzendariordea zeldan sartzen zaizkidan. Filipe Bidart

Bi urte egin nituen plazako akademia zaharrean, musika-bandako **zuzendari** zaharraren oihuen artean. Xabier Mendiguren Elizegi

Hizkuntz Politikako **Zuzendari** bati neronek aditua: [...]. Patziku Perurena

Marmeladagintzako holandar konpainia bateko **zuzendari** izendatu zuten. Josu Zabaleta

**3** (-en atzizkiaren eskuinean)

FAOren **zuzendari** nagusi Jacques Diouf jaunaren iritziz, arazoa gehiago da borondate politikorik eza elikagai eza baino. Itziar Eizagirre / Amaia Lizarralde

Ez zen artean Pasteur Institutuaren **zuzendari**, baina garbi geneukan guztiok aurki izango zela. Juan Garzia

Liburutegiaren **zuzendari** berria, entzun dudanez, antzinako hizkuntzen ikasketari buru-belarri emana dagoen letragizon bat da. Juan Garzia

Mailarik goreneko erakaslea, Florence-ko eskolaren **zuzendari** ohia, literatura kritikari bezala ezagutua zen bereziki. Marzel Etxehandi

Enpresa multinazionalen **zuzendariei** egindako galdetegietan oinarriturik. Koro Navarro

Ez zuen uste Gabilondok azken emaitza horri begira ezusteko handirik jasoko zuenik, filmaren **zuzendariek** aspaldidanik baitute Salvadorrek egindako lanaren berri aski zehatza. Berria - Kultura

Lihozko mantua zeraman Davidek soinean, kutxa zeramaten lebitarrek, kantariek eta zeremoniaren **zuzendari** zen Kenaniasek bezalaxe. Elizen arteko biblia

Hire **zuzendaria** nauk, ezin diat onartu afaria hik ordaintzea, hierarkiarekiko errespetua bukatuko huke menpekoak hasiko balira hortik zehar harrokeriatan beren agintariekin. Jon Alonso

**4** (izenondo eta izenlagunekin)

Donostiako Zinemaldian **Zuzendari** Berrien atalean. Berria - Kultura

**Zuzendari** gazteen lanekin abiatu da Cannesko jaialdia. Berria - Kultura

**Zuzendari** onenaren Oscar saria. Berria - Harian

-Ukitzen banauzu, neu arduratuko naiz ez zaitezen inoiz izan Presondegien Erakundeko **Zuzendari** Nagusia! Koldo Izagirre

EITBko **zuzendari** nagusiak Lege Biltzarrean emandako erantzunaz "pertsonalki" zer pentsatzen nuen galdetu zidan.Laboratorio-buruaren sinaduraren bermea bildu zuen, eta **zuzendari** teknikoarena eta **zuzendari** orokorrarena ere han joan ziren atzetik. Joxerra Garzia

Txus Perez enpresako **zuzendari** komertzialak atzo Berriari azaldu zionez [...]. Berria - Gaiak

Zer egingo dugu morroi horrekin, galdetu zuen **zuzendari** orokorrak, eta **zuzendari** literarioak egileari deitu zion gertaera absurduaren berri emateko. Jon Alonso

Bilboko Arriaga antzokiko **zuzendari** artistiko izendatu dute berriki. Berria - Kultura

Trena jakina, burdinbideetako **zuzendari** alkoholikoak hautatzen zituen tokietan baizik ez zen geldituko. Itxaro Borda

Gero Arbelbide izendatu zuen **zuzendari**, Hiriart **zuzendari** lagun eta Soubelet nobizioen buru. Xipri Arbelbide

Teologoa, Jansenioren laguna, jansendarren egoitza izan zen Port-Royalgo abadiaren **zuzendari** espirituala. Juan Martin Elexpuru

"Zer daukazu esateko?", galdetu dit **Zuzendari** txit agurgarriak bere hatzak nire besoan estuturik. Ganorazko **zuzendari** batek inoiz ez zukeen hemen Creevey bezalako zaborrik onartuko. Anjel Lertxundi

**5** (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

Himno kantari joan zen, baxu ahots artifizial batez, Gorsehilleko bide guztian barrena, **zuzendari** lanak zigorrarekin eginez. Koro Navarro

Ez du zertan nire **zuzendari**-bulegora sartu. Iban Zaldua

Jauna, zergatik ez duzu zeure burua **zuzendari**-posturako aurkezten? Iñaki Mendiguren

Hogwartseko **zuzendari**-segida luze batek ez badu ezer aurkitu. Iñaki Mendiguren

Ez naiz jenio bat, **zuzendari**-karguduna izan arren, baina gero eta jasangaitzago egiten zaizkit gazte jende horiek, beren tonua, beren hantustea. Erran gabe doa haatik konduak ez direla bat-batean xuxenduko **zuzendari** kanbiatze horrekin! Joxe Austin Arrieta

**6** (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa)

Egia da elkarte-**zuzendari** izan nahi duenak eginkizun ona nahi duela. Elizen arteko biblia

Jexuxen ametsetako bat zen bere semea banku-**zuzendari** izatea. Xabier Etxabe

Jean Louis Cazenave eta Eric Lipsky, Safam-eko sail **zuzendariekin** mintzatu da, lehenik enpresa komitearen aitzinean. Herria

Fabrika-**zuzendari** baten seme hura desafiatzeko. Joseba Urteaga

Duela sei urte arte, Manhattan Proiektuko zientzia-**zuzendaria** izan nintzen. Fernando Morillo

Bi urte eta hamar hilabeterako kartzela zigorra Luis Bastida finantza **zuzendari** ohiarentzat. Berria - Ekonomia

Frantziako Gobernuko Osasun **zuzendari** nagusi Lucien Abenhaimek dimisioa eman zuen. Berria - Harian

Geroago, arte-**zuzendari** eta iragarki-diseinatzaile aritu zen. Xabier Olarra

Gaur egungo zinema-**zuzendari** askok nahi lukete Nestor Almendros baten ospea izan. Josu Zabaleta

Sabino Angoitia kirol **zuzendari** jardunera itzuliko da 2005. urtean. Berria - Kirola

Geroztik antzezle, antzerki **zuzendari** eta eszenografo askok egingo zizkioten ekarpen askoren abiapuntutzat baizik. Josu Zabaleta

Kapitaina koru-**zuzendari** eta irakasle izandakoa da. Mirentxu Larrañaga

Karsten Dobers, musikari **zuzendariak** ditu kudeatzen Baionako kontserbatorioko gazteen orkestra zinfonikoko 60 musikariak. Herria

Pianista fina zen gizona, eta itsasoan barrena ibili izan zen gaztetan Alfonso XIII transatlantikoan orkestra-**zuzendari**. Josu Landa

Tesi **zuzendari** bat, unibertsitateko bi errektore, literatura-irakasle bat, [...]. Jon Alonso

Goizeko hamarrak jo berritan, Excelsior estudioetara deitu eta telefonistari publizitate-**zuzendariaren** izena galdetu nion. Fernando Rey

Eusko Jaurlaritzako inmigrazio **zuzendari** Omer Okek ere Oskorriren musikarekin abestuko du. Iñigo Aranbarri

Fraide **zuzendari** nagusiak Baionako zuzendariari. Xipri Arbelbide

**7** (izenondo gisa)

Austriako klase **zuzendariek** harrokeriaz bizi dute dekadentzia hori, inperio zaharraren lekuan beste ordena berri, sendo eta indartsuago eraikitzeko gai izango direlakoan. Anjel Lertxundi

Batzuetan Frantzia Librearen jeneral **zuzendariaren** ahots dardaratia hautematen zuten. Itxaro Borda

Alferrik joango zara esanez: "begira, nere jaun **zuzendari** material eta ideala: huts egin dut larriki, honenbeste milioi behar ez bezala erabili, [...]. Iñaki Segurola

### 8 irud/hed

Bakea jarriko dizut gobernari, justizia **zuzendari**. Elizen arteko biblia

### 9 *zuzendari ondoko*

Eliseo Newman erakundeko **zuzendari ondokoa** komunitatearen ezaugarrietaz mintzatu da berriarekin. Berria - Mundua

McLaughlin **zuzendari ondokoak** dimisioa eman zuen herenegun erakundean dauden barne arazoak direla medio. Berria - Mundua

«Lehen aldiz, tripulazio gabe gelditu zen ISS», esan zuen horren harira Victor Blagov Errusiako Espazio Hegaldietarako Kontrol Zentroko **zuzendari-ondokoak**. Berria - Gaiak

**hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 6 aldiz agertzen direnak)**

**agentziako zuzendari** (11); **aldizkariko zuzendari** (10); **antzerki zuzendari** (6); **antzokiko zuzendari** (7); **argazki zuzendari** (6); **aspeko zuzendari** (6); **batzordeko zuzendari** (15); **behatokiko zuzendari** (21); **berriako zuzendari** (17); **bertako zuzendari** (6); **beste zuzendari** (9); **bulegoko zuzendari** (8); **ciako zuzendari** (8)

**egunkaria ko zuzendari** (7); **egunkariko zuzendari** (27); **eitbko zuzendari** (10); **elkarteko zuzendari** (11); **emakundeko zuzendari** (6); **enpresako zuzendari** (18); **erakunde horretako zuzendari** (6); **erakundeetako zuzendari** (13); **erakundeko zuzendari** (33); **erakundeko zuzendari nagusi** (7); **eskolako zuzendari** (10); **eskubideen behatokiko zuzendari** (6); **espetxe erakundeetako zuzendari** (13); **euskalerria irratiko zuzendari** (8); **federazioko zuzendari** (6); **fundazioko zuzendari** (7); **hezkuntza zuzendari** (6); **hizkuntza politikako zuzendari** (7); **hizkuntza politikarako zuzendari** (9)

**iaeako zuzendari** (8); **ikastetxeko zuzendari** (6); **ikastolako zuzendari** (17); **immigrazio zuzendari** (17); **institutuko zuzendari** (18); **irratiko zuzendari** (11); **jaialdiko zuzendari** (8); **jaurlaritzako immigrazio zuzendari** (8); **kirol zuzendari** (68); **ko zuzendari** (22); **konpainiako zuzendari** (8); **ministerioko zuzendari** (15); **museoko zuzendari** (17)

**orkestra zuzendari** (18); **orkestrako zuzendari** (7); **osakidetzako zuzendari** (6); **osakidetzako zuzendari nagusiak** (6); **osalaneko zuzendari** (6); **politikako zuzendari** (10); **politikarako zuzendari** (9); **publikoko zuzendari** (6); **ren zuzendari** (10); **saileko zuzendari** (16); **taldearen zuzendari** (6); **taldeko kirol zuzendari** (8); **taldeko zuzendari** (17)

**ueuko zuzendari** (6); **zentroko zuzendari** (15); **zine zuzendari** (13); **zinema zuzendari** (30)

**zuzendari artistiko** (7); **zuzendari artistikoa** (14); **zuzendari artistikoak** (14); **zuzendari bat bilatzen** (6); **zuzendari berri** (14); **zuzendari berria** (29); **zuzendari berriak** (20); **zuzendari berriaren** (8); **zuzendari berrien** (14); **zuzendari bezala** (12); **zuzendari dela** (14); **zuzendari den** (13)

**zuzendari estatubatuarrak** (9); **zuzendari gisa** (22)

**zuzendari izan** (32); **zuzendari izan zen** (12); **zuzendari izana** (6); **zuzendari izandako** (7); **zuzendari izateko** (8); **zuzendari izendatu** (14); **zuzendari izendatu zuten** (8); **zuzendari jauna** (42); **zuzendari jaunari** (8); **zuzendari javier** (9); **zuzendari jose** (22); **zuzendari jose antonio** (7); **zuzendari josu** (6); **zuzendari juan** (25); **zuzendari juan inazio** (10); **zuzendari kargua** (11); **zuzendari lana** (6); **zuzendari lanak** (13); **zuzendari lanetan** (15); **zuzendari literarioa** (12); **zuzendari literarioak** (12); **zuzendari martxelo otamendi** (7); **zuzendari martxelo otamendik** (9); **zuzendari mercedes gallizok** (8); **zuzendari mikel bujandak** (7); **zuzendari mohamed el** (10); **zuzendari nagusi** (102); **zuzendari nagusia** (42); **zuzendari nagusiak** (109); **zuzendari nagusiak atzo** (12); **zuzendari nagusiarekin** (7); **zuzendari nagusiaren** (19)

**); zuzendari ohi** (21); **zuzendari ohia** (35); **zuzendari ohiak** (14); **zuzendari ohiaren** (9); **zuzendari onenaren** (32); **zuzendari onenaren saria** (18); **zuzendari onenarena** (7); **zuzendari ordeak** (6); **zuzendari orokorrak** (10); **zuzendari tekniko** (9); **zuzendari teknikoa** (14); **zuzendari teknikoak** (14); **zuzendari teresa aranazek** (6); **zuzendari txit agurgarri** (7); **zuzendari txit agurgarria** (12); **zuzendari txit agurgarriak** (30); **zuzendari txit agurgarriaren** (19); **zuzendari txit agurgarriari** (14); **zuzendari zela** (6); **zuzendari zen** (6)

**agentziako zuzendaria** (8); **aldizkariko zuzendaria** (16); **argazki zuzendaria** (7); **behatokiko zuzendaria** (14); **berriako zuzendaria** (21); **bulegoko zuzendaria** (10)

**egunkariko zuzendaria** (12); **eko zuzendaria** (11); **elhuyar aldizkariko zuzendaria** (6); **elkarteko zuzendaria** (6); **emakundeko zuzendaria** (10); **enpresako zuzendaria** (8); **erakundeko zuzendaria** (14); **eskolako zuzendaria** (19); **eszena zuzendaria** (37); **filmaren zuzendaria** (8); **filmeko zuzendaria** (8); **finantza zuzendaria** (8)

**ikastetxeko zuzendaria** (7); **ikastolako zuzendaria** (10); **ingeniaritza eskolako zuzendaria** (6); **institutuko zuzendaria** (15); **irratiko zuzendaria** (6); **katearen zuzendaria** (9); **kirol zuzendaria** (97); **ko zuzendaria** (32); **kontseiluko zuzendaria** (6); **museoko zuzendaria** (13); **musika zuzendaria** (12); **orkestra sinfonikoa zuzendaria** (14); **orkestra zuzendaria** (14); **otamendi berriako zuzendaria** (19); **realeko kirol zuzendaria** (6); **saileko zuzendaria** (13); **saiz kirol zuzendaria** (6); **taldeko kirol zuzendaria** (22); **taldeko zuzendaria** (13); **taula zuzendaria** (6)

**ueuko zuzendaria** (7); **zentroko zuzendaria** (19); **zinema zuzendaria** (15)

**zuzendaria bera** (10); **zuzendaria buru** (8); **zuzendaria da** (95); **zuzendaria hil** (7); **zuzendaria izan** (46); **zuzendaria izan da** (7); **zuzendaria izan zen** (23); **zuzendaria izango** (20); **zuzendaria izango da** (10); **zuzendaria oso** (7); **zuzendaria pozik** (7); **zuzendaria zela** (8); **zuzendaria zen** (18)

**aldizkariko zuzendariak** (8); **artiumeko zuzendariak** (9); **ataleko zuzendariak** (7); **azaldu du zuzendariak** (8); **behatokiko zuzendariak** (19); **bellamy unicefeko zuzendariak** (6); **bere kirol zuzendariak** (7); **berriako zuzendariak** (15); **bulegoko zuzendariak** (10); **durana artiumeko zuzendariak** (6)

**egunkariko zuzendariak** (14); **ekeko zuzendariak** (6); **eko zuzendariak** (6); **elkarteko zuzendariak** (11); **erakundeko zuzendariak** (21); **esan zuen zuzendariak** (7); **eskolako zuzendariak** (15); **espetxe erakundeetako zuzendariak** (13); **espetxe zuzendariak** (8); **espetxeko zuzendariak** (10); **eszena zuzendariak** (11); **euskalerria irratiko zuzendariak** (6); **filmaren zuzendariak** (8); **finantza zuzendariak** (7); **fundazioko zuzendariak** (11); **gorospe kirol zuzendariak** (7)

**ikastetxeko zuzendariak** (7); **ikastolako zuzendariak** (13); **institutuko zuzendariak** (13); **irratiko zuzendariak** (14); **jaialdiko zuzendariak** (11); **katearen zuzendariak** (17); **kirol zuzendariak** (138); **ko zuzendariak** (17); **kontseiluko zuzendariak** (7); **kultura zuzendariak** (11); **museoko zuzendariak** (15); **musika zuzendariak** (10)

**olabe kirol zuzendariak** (7); **otamendi berriako zuzendariak** (8); **realeko kirol zuzendariak** (13); **saileko zuzendariak** (13); **taldeko kirol zuzendariak** (16); **taldeko zuzendariak** (16)

**unicefeko zuzendariak** (6); **zinema zuzendariak** (19)

**zuzendariak adierazi** (18); **zuzendariak adierazi duenez** (8); **zuzendariak argitu** (7); **zuzendariak atzo esan** (7); **zuzendariak azaldu** (42); **zuzendariak azaldu duenez** (20); **zuzendariak azaldu zuenez** (16); **zuzendariak berak** (21); **zuzendariak bere** (17); **zuzendariak berriari** (6); **zuzendariak deitu** (6); **zuzendariak dimisioa** (7); **zuzendariak dio** (6); **zuzendariak egin** (8); **zuzendariak erran** (6); **zuzendariak erredakzioa** (8); **zuzendariak esan** (21); **zuzendariak esan duenez** (8); **zuzendariak esana** (11); **zuzendariak jakinarazi** (9)

**kirol zuzendariarekin** (15); **zuzendariarekin batera** (7); **zuzendariarekin hitz egin** (7)

**erakundeko zuzendariaren** (7); **eskolako zuzendariaren** (9); **kirol zuzendariaren** (25); **taldeko kirol zuzendariaren** (6); **zinema zuzendariaren** (7)

**zuzendariaren arabera** (59); **zuzendariaren aurrean** (7); **zuzendariaren bulegora** (6); **zuzendariaren esanetan** (34); **zuzendariaren eskutik** (6); **zuzendariaren gidaritzapean** (6); **zuzendariaren hitzak** (9); **zuzendariaren hitzetan** (20); **zuzendariaren iritziz** (8); **zuzendariaren lana** (7); **zuzendariaren ustez** (23)

**zuzendariarengana jo** (7

**koru zuzendariarentzat** (55)

**eszena zuzendariari** (8)

**kirol zuzendariek** (8); **osasunako zuzendariek** (7)

**hezkuntzako ikastetxeetako zuzendarien** (8); **ikastetxeetako zuzendarien** (11); **ikastetxeetako zuzendarien elkarteak** (6); **zuzendarien artean** (6); **zuzendarien elkarteak** (8); **zuzendarien lanak** (6)

---

## zuzendarigai *iz* zuzendari izateko aurkezten den pertsona.

Agirien egile eta hartzaileek **zuzendarigaiei** buruzko informazioa jaso zutela eta hautagaiez iritziak ematen zituelaG Berria - Euskal Herria

---

## zuzendarikide *iz* zuzendaritzako kidea.

Ugartek *La Barraca* taldean **zuzendarikide** moduan egindako lana eta antzerkigintza profesionalean egindako sartu-irten arrakastatsuak nabarmendu dituzte liburuan. Berria - Kultura

---

## zuzendariorde *(orobat **zuzendari orde** g.er.)* 1 *iz* zuzendariaren hurrengoa, eta, egoera jakin batzuetan, haren ordekoa.

Ikusia naiz erredakzioko laguntzaileak erredaktore bilakatzen, erredaktoreak sekzioburu, sekzioburuak erredakzioburu eta erredakzioburuak **zuzendariorde**. Aingeru Epaltza

Erredakzioburuak eta atalburuak **zuzendariordearen** bulegotik ateratzen ikusteak arrasta paratu zion nire abiadari: bukatua zen goizeko erredakzio-bilera, ni gabe bukatu ere. Aingeru Epaltza

Ez dira iraultzaile baten hitzak, Larry Summers, AEBetako Altxorraren **zuzendariordearenak** dira. Iñaki Heras

Errusiako Energia Nuklearraren Segurtasunerako Institutuaren **zuzendariorde** Igor Lingeren ustez, [...]. Berria - Mundua

Halaxe uste du Joxe Mari Otermin ETBko Programen **zuzendariordeak**. Berria - Kultura

Kautxu-lantegiko kredituen departamentuko **zuzendariordea** zen Durant jauna. Mirentxu Larrañaga

CIAko **zuzendariorde** Jami Miscikek dimisioa eman du. Berria - Mundua

Astelehen arratsean beti ere, Bagdadetik 30 kilometro hegoaldera dagoen Mamudia ospitaleko **zuzendariorde** Kassem El Abadi hil zuten tiroz, bere lantokian bertan. Berria - Mundua

Bizkaiko Ogasuneko Ikuskaritzako **zuzendariordea** kargugabetu dute. Berria - Euskal Herria

Austriako Eliza Katolikoak kargutik kendu ditu apaiztegiko burua eta **zuzendariordea**. Berria - Gaiak

NATOren aldeko kanpainaren ondoren, Madrilgo ministerio bateko **zuzendariorde** izendatu zuten. Iban Zaldua

Dai Zhicheng hiesaren eta sexu bidez transmititzen diren gaixotasunen prebentziorako eta kontrolerako erakundeko **zuzendariordea** da. Berria - Gaiak

Eusko Jaurlaritzako **zuzendariorde** izatera heldu zen, PSEk hiruko gobernuan izan zuen Sailetako batean. Iban Zaldua

Eskakizunak «enpresen eta langileen arteko arazoa» direla erantzun die Jose Antonio Arratibel Osakidetzeko kontratazioko **zuzendariordeak** langileei, sindikatuen arabera. Berria - Ekonomia

**Zuzendariorde** orokor izendatu berri dute. Lopez de Arana

**2** (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

Jerry orduko bi umeren aita zoriontsua zen eta **zuzendariorde** postura igoa zen Robby'sen. Koro Navarro

**3** (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa)

Espetxeko osasun **zuzendariordea** kargugabetu zuten, tratu txarren egileetako bat izan zelakoan. Berria - Mundua

Boterea, ordea, Operazio-**zuzendariordearen** esku zegoen. Fernando Morillo

Scott Operazio-**zuzendariordeari**, edo Washington-eko beste artaburuen bati, xehetasun txiki bat pasatu baitzitzaion: gaztelania eta ingelesa ez ziren preseski neska haren hizkuntza bakarrak. Fernando Morillo

**4** (izenondo gisa)

Nire klinikako mediku **zuzendariordea** Afrikan izana da, eta halaxe esan ohi du hitzez hitz: [...]. Joxe Austin Arrieta

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
> **kontseiluko zuzendariorde** (3); **zuzendariorde ohiak** (3)
> **burua eta zuzendariordea** (3); **ko zuzendariordea** (3); **zuzendariordea da** (3)
> **erakundeko zuzendariordeak** (3); **operazio zuzendariordeak** (4)
> **zuzendariordearen arabera** (3); **zuzendariordearen esanetan** (3)

---

# zuzendariordetza *iz* zuzendariordearen kargua, titulua edo betekizuna.

Herenegun Zarauzko hondartzako hainbat lekutako urak bildu eta aztertu ostean, bainatzeko baimena eman zuen atzo Gipuzkoako Osasun Publikoko **Zuzendariordetzak**. Berria - Euskal Herria

Biktimen Arretarako **Zuzendariordetzari**. Berria - Euskal Herria

---

# zuzendaritza 1 *iz* erakunde batzuen jarduera zuzentzen duten kargudunen multzoa; zuzendariaren kargua, titulua edo betekizuna.

**Zuzendaritzak** uste baitu musikaren laguntzaz langileek hobeto egiten dutela lan. Eskarne Mujika

**Zuzendaritza** ez zegoen Jairekin ere pozik. Gotzon Garate

Bulego-hizkeramodu jatorrez txosten bat idatzi, eta **Zuzendaritzak** soldata igo zidan. Juan Garzia

Itzulia zela Pertsia eta Mediatik erregearekin joandako gudarostearekin eta gobernuaren **zuzendaritza** hartu nahian zebilela. Elizen arteko biblia

Etapa politiko jakin bati dagokion estrategia eta taktika erabakitzen duen **zuzendaritza**. Rafa Egiguren

**Zuzendaritza** gabe, herria behera; aholkulari asko bada, orduan aurrera. Elizen arteko biblia

**Zuzendaritza** eta langileak ez dira ados jartzen soldaten igoeran. Berria - Ekonomia

**Zuzendaritza** eta sindikatuek hamalau hilabete daramatzate lan hitzarmena negoziatzen baina oraindik ez dute deus sinatu. Berria - Ekonomia

Ondotik 35 kidetako **zuzendaritza** horrek Bernard Darretche ber-hautatu du lehendakari karguan. Herria

Madrilen zentralizatuko du **zuzendaritza**. Berria - Ekonomia

Gidoia eta **zuzendaritza**: Markeliñe. Berria - Kultura

Sorkuntza eta **zuzendaritza**: Ana Valles. Berria - Kultura

Gomitatzen dute **Zuzendaritzan** ez ezik, lan egiteko metodoetan ere aldaketak egingo ditu. Berria - Mundua

Hiru kidek jardungo dugu **zuzendaritzan**, lanaldi erdiz hirurak ere. Berria - Ekonomia

Xose Manuel Beiras buruzagi historikoa **zuzendaritzatik** kanpo gelditu zen. Berria - Mundua

Gérard Godreuil, **zuzendaritzako** kidea bilkura horren animatzera. Herria

Atzerritar teknologiak eta antolaketa-sistemak bereganatzen dituzte tokiko eragileek: bazkideek, **zuzendaritzako** kideek, teknikariek eta langileek. Koro Navarro

**Zuzendaritzakoek** hasperen egin zuten. Jon Alonso

**2** (-ko atzizkiaren eskuinean)

Alemaniako **zuzendaritzak** Nafarroako Volkswageni aurten 10.000 Polo gehiago ekoiztea proposatu zion. Berria - Ekonomia

Bizkaiko PSE-EEko **zuzendaritzak** gaur bertan igorriko dizkio bere hautagaiak Herrialdeko Batzordeari. Berria - Euskal Herria

Departamentu horretako kontseilaria halako enpresako **zuzendaritza** taldeko kide izana edota izango denez, enpresa herri halako pagotxa egokitu zaio. Edorta Agirre

Presondegiko **zuzendaritzak** ez zuen onartu parteka genitzan, preso bakoitzak ez bazuen bere puxka ukaiten. Marzel Etxehandi

Hizkuntza Politikako **Zuzendaritza** Nagusiaren aurrekontuetatik. Berria - Euskal Herria

Orain arteko ikerketak Parisko PJko **zuzendaritza** zentraleko Poliziak burutu ditu. Berria - Euskal Herria

Ikastetxeko **zuzendaritza** eta irakasleak kezkatu egin ziren, ordea, eskutitzek bukaerarik ez eta gero eta mehatxagarriago bihurtzen ari zirelako. Gotzon Garate

Atean karteltxo bat zuen, "Argitaletxeko **zuzendaritza"** zioena. Fernando Rey

Baina herri elkargoetako **zuzendaritza** ez da hauteskunde zuzenen bidez hautatua izaten. Berria - Harian

Zalantzarik gabe, batasunak aurrera egiteko oztopo handiegia zen EAJko **zuzendaritza** aurka izatea. Koldo Zuazo

Pasoko hotela dun... baina Flamingoko **zuzendaritza** bera ere harrituta gelditu zunan Blanche endereñoarekin! Xabier Paya

Telebistako **zuzendaritza** baino trebakuntza hoberik ez dago, antza, gero alkate izateko. Joxerra Garzia

Espetxeetako **Zuzendaritza** Nagusiak zuzendari zibil bat bidali zuen administrazioaz arduratzeko. Jokin Urain

Club-eko **zuzendaritzak** ez zekien zer egin nahaste-borraste hura konpontzeko. Joxemari Iturralde

Realeko **zuzendaritza** Nihat ez saltzea aztertzen ari da. Berria - Kirola

**3** (-en atzizkiaren eskuinean)

Jaien **Zuzendaritza** Batzordea Donosti Zarra eta Unión Artesanarekin lankidetzan hasten da. Askoren artean

Markosek bereganatua zuen, Lukas, Peli eta beste zenbaiten iritziaren gainetik, obraren **zuzendaritza** . Antzezlanaren idazketa eta **zuzendaritza** : Aristides Vargas. Jon Alonso

Bazen *Directorio Revolucionario* -Iraultzaren **Zuzendaritza** - izeneko mugimendua ere. Edorta Jimenez

Pragako Zirkulu Linguistikoaren **zuzendaritzak** zure 1931 XII/6ko gutuna bidali dit eta erantzutea eskatu. Lourdes Oñederra

Nahiz eta batasunaren beharra eta batasunaren onurak zuzen eta egoki erakutsi -Eleizalderen eta Belaustegigoitiaren txostenetan, bereziki-, aurka agertu zen Alderdi Jeltzalearen **zuzendaritza** . Koldo Zuazo

Juan Monge Espainiako Auzitegi Nazionaleko auzi-medikua lau aldiz izan zen Martxelo Otamendirekin, Guardia Zibilaren **Zuzendaritza** Nagusian inkomunikatuta egon zen egunetan. Berria - Euskal Herria

Erreferente karismatiko bezala mantenduko da azkenera arte, jatorrizko inspirazioaren defendatzaile sutsu, baina Ordenaren **zuzendaritza** besteen esku geratuko da. Askoren artean

Horrela hartuko luke bere gain erabaki guztien ardura [...] eta erakundearen arazoen **zuzendaritza** . Juan Ignacio Pérez / Pello Salaburu

Ez al zuen berak esan kuartel haren **zuzendaritza** , handik egun gutxira, SSen eskura pasatuko zela? Juan Garzia

Espainiako espetxeen **zuzendaritza** nagusia. Koldo Izagirre

Hantxe biltzen da meatzeen **zuzendaritza** nagusia. Karlos Zabala

Bizirik uzten banaute proposamen bat eginen diodala Espetxe Erakundeen **Zuzendaritza** Nagusiari egin dut zin: [...]. Koldo Izagirre

Arana kargutik kentzea erabaki du EAren Bizkaiko **Zuzendaritzak** . Berria - Euskal Herria

Lamikizen **zuzendaritzak** izan duen jarrera gogor kritikatu zuen. Berria - Kirola

## **4** (izenondo eta izenlagunekin)

Pedro Pegenaute zuzendari nagusi izendatu berria zela, irratia deialditik kanpo utzi zuen **Zuzendaritza** Nagusiak, hain zuzen ere oraingo arrazoi berberengatik. Berria - Euskal Herria

Demokraziaren izenean, alderdi politiko legal baten **zuzendaritza** osoa kartzelara sartu. Xabier Montoia

Aurrerapen teknologikoek asko erraztu dute **zuzendaritza** deszentralizatua eta malgua. Iñaki Heras

PSE-EEren helburu nagusia Patxi Lopez **Zuzendaritza** Federalean sartzea da. Berria - Euskal Herria

Beste mahaikide batzuek ere badakite **zuzendaritza** nazionalean ibili zarela. Rafa Egiguren

Veneziak Bizantzioko Inperioaren **zuzendaritza** politikoa hartzeari uko egin zionean. Koro Navarro

Gainerakoek, **zuzendaritza** iraunkorra osatu eta gero, Baionara jo genuen. Rafa Egiguren

Bestalde, **zuzendaritza** politikoa ahuldu egin liteke. Rafa Egiguren

**Zuzendaritza** literarioko lanetan. Jon Alonso

**Zuzendaritza** euskalduna eta emakume askorekin. Berria - Ekonomia

**Zuzendaritza** eszenikoa: Ainhoa Pineda. Berria - Kultura

**Zuzendaritza** artistikoa: Satur Idarreta. Berria - Kultura

Tokiko **zuzendaritza** , Biarritz 2001 elkartean oinarrituko da. Berria - Kultura

## **5** (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

Hirugarren argudioak, berriz, enpresaren barne dimentsioarekin du zerikusia; enpresaren management edo **zuzendaritza** sistemarekin, hain zuzen ere. Iñaki Heras

Dekorazioa dotoreagoa da, **zuzendaritza** -lana profesionalagoa, eta aktore nagusia berria. Oskar Arana

Enpresa multinazionalek kontrolatzen zuten osorik kapitala, **zuzendaritza** - eginkizunetan tokiko jenderik ez zen izaten, lan-eskua sarritan oso gaztea izaten zen eta errotazioa handia zen. Koro Navarro

**Zuzendaritza** organoak: Kontseilu Politikoa (75 edo 80 kidekoa) eta Presidentzia (17 kidekoa) aukeratuko ditu igandean biltzarrak. Berria - Euskal Herria

Hiru organo izango ditu: **Zuzendaritza** Kontseilua, Aholkularitza Batzordea eta **Zuzendaritza** taldea. Berria - Euskal Herria

ORT ia erabat desegin zuten, eta beste alderdi txiki batzuk, berriz, betiko ezabatu zituzten, ekintzaileak espetxeraturik edo atzerriraturik, eta batik bat **zuzendaritza** taldeak harrapaturik. Juan Kruz Igerabide

Finantza, merkaturatze, giza baliabide eta ekoizpen **zuzendaritza** sailetan banatuta. Iñaki Heras

**Zuzendaritza** karguetarako aukeraketan ez zen zerrenden arteko lehiarik izan. Berria - Euskal Herria

Gure inguruko edozein enpresa handi eta eredugarrik ez du besterik egiten: barneko jendea promozionatzen du, eta **zuzendaritza** postuetako jendea kanpotik ekarri, kontratu berezi batzuekin. Juan Ignacio Pérez / Pello Salaburu

Partiduko **Zuzendaritza** Batzordeari jakinarazi nion dena. Jon Alonso

**Zuzendaritza** Batzordekoek ezker-eskuin mugitu zuten burua, aitakeria ulerkorraz. Jon Alonso

## **6** (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa)

Bost lurralde **zuzendaritzak** berrituko dituzte martxotik aurrera. Greba egiteko aurre-abisua sartu zuten Bilbon, Jaurlaritzako Lan **Zuzendaritza** Orokorrean. Lekuko izatera bidali nau neure kazeta- **zuzendaritzak** . Berria - Euskal Herria

Eusko Jaurlaritza, Herrizaingo Saila, Trafiko **Zuzendaritza** . Ipar Euskal Herrian, Departamenduko Ekipamendu **Zuzendaritza** arduratzen da lanaz. Iñaki Arranz

Dekoratu itogarri bat, aktore- **zuzendaritza** oso estrabertitu bat. Josu Zabaleta

Eusko Jaurlaritzako Meteorologia eta Klimatologia **Zuzendaritza** . Pello Zabala

Eszena **zuzendaritza** : Enrique Santiago. Berria - Kultura

Musika **zuzendaritza** : Juanjo Ocon, Javier Jacinto. Berria - Kultura

## **7** zuzendaritza horren egoitza.

Eussako notario baten manuz, Bresteko Itsas Merkataritza **Zuzendaritzan** izan nintzen, Denez zein ontzitan zebilen jakiteko asmoz. Itxaro Borda

Walkman bat edukitzeko baimena eskatu nuen asteartean, **zuzendaritzara** igorritako gutun adeitsu batez. Anjel Lertxundi

Zigor horien baitan, 2005eko otsailaren 16tik 2006ko urtarrilaren 12ra arte 4.343 agiri jaso zituzten Donostiako Finantza **Zuzendaritzan** . Berria - Harian

## **8** zuzentaraua.

CO2 emisioak gutxitzeko, **zuzendaritza** atera zuen Europako Batasunak. Berria - Euskal Herria

Emisioen kontuarekin Alemania ondo doanez, Espainiako enpresentzat **zuzendaritza** kaltegarria dela esaten da. Berria - Euskal Herria

### hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

**abesbatza zuzendaritza** (3); **abesbatzen zuzendaritza** (4); **alderdiaren zuzendaritza** (8); **alderdiko zuzendaritza** (11); **aldizkariaren zuzendaritza** (4); **arte zuzendaritza** (3); **athleticeko zuzendaritza** (4); **batzordea eta zuzendaritza** (4); **bere zuzendaritza** (5); **bizkaiko zuzendaritza** (3)

**eajko zuzendaritza** (3); **eajren zuzendaritza** (9); **eako zuzendaritza** (8); **egungo zuzendaritza** (5); **eko zuzendaritza** (3); **elkarteko zuzendaritza** (6); **enpresako zuzendaritza** (8); **erakundeetako zuzendaritza** (4); **espainiako trafiko zuzendaritza** (3); **espetxe erakundeetako zuzendaritza** (4); **etako zuzendaritza** (4); **gipuzkoako zuzendaritza** (3); **guardia zibilaren zuzendaritza** (3); **haren zuzendaritza** (4); **hegoaldeko zuzendaritza** (4); **hizkuntza politikako zuzendaritza** (5); **hizkuntza politikarako zuzendaritza** (13)

**kirol zuzendaritza** (5); **ko zuzendaritza** (3); **midaseko zuzendaritza** (3); **musika zuzendaritza** (4)

**orkestra zuzendaritza** (3); **politikako zuzendaritza** (6); **politikako zuzendaritza nagusiak** (3); **politikarako zuzendaritza** (17); **politikarako zuzendaritza nagusiak** (8); **politikarako zuzendaritza nagusiaren** (3); **politikarako zuzendaritza nagusiko** (3); **poliziako zuzendaritza** (3); **psnren zuzendaritza** (6); **psoeko zuzendaritza** (4); **psoeren zuzendaritza** (4); **realeko zuzendaritza** (3); **sindikatuak eta zuzendaritza** (4); **sorkuntza eta zuzendaritza** (3); **taldeko zuzendaritza** (5); **trafiko zuzendaritza** (7); **trafiko zuzendaritza nagusiak** (3)

**uciko zuzendaritza** (3); **udalbiltzako zuzendaritza** (3); **vwko zuzendaritza** (3)

**zuzendaritza aldatu** (3); **zuzendaritza artistikoa** (7); **zuzendaritza aukeratzeko** (3); **zuzendaritza bat** (3); **zuzendaritza batzorde** (6); **zuzendaritza batzorde berria** (3);

zuzendaritza batzordea (15); zuzendaritza batzordeak (19); zuzendaritza batzordean (6); zuzendaritza batzordearen (13); zuzendaritza batzordeko (31); zuzendaritza batzordeko kide (9); zuzendaritza batzordeko kidea (4); zuzendaritza batzordeko kideak (6); zuzendaritza berria (35); zuzendaritza berria aukeratu (4); zuzendaritza berriak (13); zuzendaritza berriarekin (4); zuzendaritza berriaren (8); zuzendaritza berriari (5); zuzendaritza berriko (5); zuzendaritza berriro (4); zuzendaritza berritu (4); zuzendaritza bildu (3)

zuzendaritza eman (3); zuzendaritza eta langileen (5); zuzendaritza federalean (6); zuzendaritza hartu (11); zuzendaritza hartu zuen (6)

zuzendaritza karguak (3); zuzendaritza kide (3); zuzendaritza kontseiluko (3); zuzendaritza lan (3); zuzendaritza lan ituna (3); zuzendaritza lana (6); zuzendaritza lanak (6); zuzendaritza lanetan (4); zuzendaritza nagusia (10); zuzendaritza nagusiak (32); zuzendaritza nagusian (10); zuzendaritza nagusiaren (9); zuzendaritza nagusiari (7); zuzendaritza nagusiko (15); zuzendaritza nazionalak (5); zuzendaritza nazionalaren (3); zuzendaritza nazionalari (4); zuzendaritza nazionalean (3); zuzendaritza nazionaleko (8); zuzendaritza nazionaleko kide (3)

zuzendaritza organoetan (4); zuzendaritza orokorrean (3); zuzendaritza oso (3); zuzendaritza osoa (5); zuzendaritza pean (4); zuzendaritza prest (3); zuzendaritza talde (6); zuzendaritza taldea (21); zuzendaritza taldeak (7); zuzendaritza taldean (13); zuzendaritza taldeko (14); zuzendaritza taldeko kide (7); zuzendaritza teknikoko (3); zuzendaritza utzi (3)

alderdiaren zuzendaritzak (6); alderdietako zuzendaritzak (3); alderdiko zuzendaritzak (10); alemaniako zuzendaritzak (8); alemaniako zuzendaritzak iruñ alkartasunaren bizkaiko zuzendaritzak (3); aspeko zuzendaritzak (4); athleticeko zuzendaritzak (7); aurreko zuzendaritzak (5); babcockeko zuzendaritzak (3); babes zibilerako zuzendaritzak (3); bizkaiko eako zuzendaritzak (3); bizkaiko zuzendaritzak (11); caballito enpresako zuzendaritzak (5); caballitoko zuzendaritzak (14); correoseko zuzendaritzak (5); eko (3)

eajko zuzendaritzak (6); eajren zuzendaritzak (6); eako zuzendaritzak (14); eeren zuzendaritzak (3); egungo zuzendaritzak (6); eko zuzendaritzak (3); elkarteko zuzendaritzak (3); enpresako zuzendaritzak (35); erakundeen zuzendaritzak (3); erakundeetako zuzendaritzak (7); esan du zuzendaritzak (3); eskubideen zuzendaritzak (3); espainiako espetxe zuzendaritzak (5); espetxe erakundeen zuzendaritzak (3); espetxe erakundeetako zuzendaritzak (7); espetxe zuzendaritzak (14); espetxeko zuzendaritzak (4); etako zuzendaritzak (3); euskotreneko zuzendaritzak (5); gipuzkoako zuzendaritzak (4); giza eskubideen zuzendaritzak (3); hizkuntza politikarako zuzendaritzak (3)

ea volkswageneko zuzendaritzak (4); esako zuzendaritzak (5); esako zuzendaritzak eta (3); ingurumen partaidetzarako zuzendaritzak (3); iruñ jaurlaritzako trafiko zuzendaritzak (10); jaurlaritzaren lan zuzendaritzak (3); kartzelako zuzendaritzak (4); kirol zuzendaritzak (8); klubeko zuzendaritzak (8); kontseiluko zuzendaritzak (4); lan zuzendaritzak (8); landabengo zuzendaritzak (3); lantegiko zuzendaritzak (5); lurralde zuzendaritzak (4); mccko zuzendaritzak (3); metroko zuzendaritzak (3); montañ montañ nafarroako vweko zuzendaritzak (3); nafarroako zuzendaritzak (4); nahi ditu zuzendaritzak (4); nahi du zuzendaritzak (7)

onartu zuzendaritzak (3); oraingo zuzendaritzak (4); osakidetzako zuzendaritzak (7); ospitaleko zuzendaritzak (4); partaidetzarako zuzendaritzak (3); politikarako zuzendaritzak (3); ppko zuzendaritzak (4); proposatu du zuzendaritzak (3); pse eeren zuzendaritzak (3); psnko zuzendaritzak (7); psoeren zuzendaritzak (5); realeko zuzendaritzak (8); ruggeberg caballitoko zuzendaritzak (3); taldearen zuzendaritzak (3); taldeko zuzendaritzak (12); tourreko zuzendaritzak (4); trafiko zuzendaritzak (15)

volkswageneko zuzendaritzak (17); vweko zuzendaritzak (3); vwko zuzendaritzak (12); zibilerako zuzendaritzak (3)

zuzendaritzak adierazi du (3); zuzendaritzak alerta egoera (3); zuzendaritzak atzera (5); zuzendaritzak aurkeztu (3); zuzendaritzak aurkeztutako (5); zuzendaritzak azaldu (6); zuzendaritzak azaldu duenez (4); zuzendaritzak azpimarratu (3); zuzendaritzak berak (5); zuzendaritzak bere (17); zuzendaritzak bertan behera (3); zuzendaritzak bilera egin (3); zuzendaritzak dio (4); zuzendaritzak dioenez (3)

zuzendaritzak egin (6); zuzendaritzak egindako (12); zuzendaritzak egiten (3); zuzendaritzak emandako (4); zuzendaritzak erabaki (4); zuzendaritzak ere (8); zuzendaritzak erran (3); zuzendaritzak erredakzioa (3); zuzendaritzak esan (3); zuzendaritzak eta sindikatuek (3); zuzendaritzak hartu (6); zuzendaritzak hartutako (11); zuzendaritzak hartutako erabakia (4)

eko lantegian (3); zuzendaritzak indarrean (3); zuzendaritzak iragarri (8); zuzendaritzak iragarri du (4); zuzendaritzak iragarritako (3); zuzendaritzak iruñ zuzendaritzak jakinarazi (7); zuzendaritzak jakinarazi du (3); zuzendaritzak jasotako (3); zuzendaritzak langileei (3); zuzendaritzak lantegia (4); zuzendaritzak nahiago (4); zuzendaritzak negoziatzeko (3); zuzendaritzak onartu (5); zuzendaritzak produkzioa (3); zuzendaritzak proposamena (3); zuzendaritzak proposatu (6); zuzendaritzak proposatutako (6); zuzendaritzak proposatutako txosten (3); zuzendaritzak sindikatuei (7); zuzendaritzak soldata (3); zuzendaritzak uko egin (4); zuzendaritzak uste du (3)

abko zuzendaritzako kideak (5); alderdiko zuzendaritzako (4); arabako zuzendaritzako (3); aralarreko zuzendaritzako (3); bizkaiko zuzendaritzako (3); eako zuzendaritzako (6); eako zuzendaritzako kide (3); eeko zuzendaritzako (14); eeko zuzendaritzako bozeramailea (3); eeko zuzendaritzako eledun (5); eeko zuzendaritzako koordinatzaile (3); elkarteko zuzendaritzako (3); etako zuzendaritzako (5); gipuzkoako zuzendaritzako (5); ko zuzendaritzako (6); kontseiluko zuzendaritzako (5); lan zuzendaritzako (3); pse eeko zuzendaritzako (14)

zuzendaritzako arduradun (3); zuzendaritzako arduradunak (4); zuzendaritzako bozeramaile (4); zuzendaritzako bozeramaileak (4); zuzendaritzako buru (4); zuzendaritzako eledun (6); zuzendaritzako inork ez (4); zuzendaritzako kide (47); zuzendaritzako kide guztiak (3); zuzendaritzako kide izatea (3); zuzendaritzako kidea (19); zuzendaritzako kidea da (3); zuzendaritzako kidea izan (3); zuzendaritzako kideak (41); zuzendaritzako kideei (4); zuzendaritzako kideek (15); zuzendaritzako kideek ere (3); zuzendaritzako kideekin (4); zuzendaritzako koordinatzaile (4); zuzendaritzako ordezkari (4); zuzendaritzako ordezkariek (5); zuzendaritzako partaide (3); zuzendaritzako zenbait kidek (3)

etako zuzendaritzan (3); federazioaren zuzendaritzan (3); hegoaldeko zuzendaritzan (3); zuzendaritzan aldaketak (3); zuzendaritzan esku (3); zuzendaritzan eta (6); zuzendaritzan ez (3); zuzendaritzan izan (3)

azurzaren zuzendaritzapean (3); baten zuzendaritzapean (3); bere zuzendaritzapean (4); en zuzendaritzapean (4); juanjo menaren zuzendaritzapean (5); mandealen zuzendaritzapean (3); menaren zuzendaritzapean (6); ren zuzendaritzapean (3); zuzendaritzapean ariko (3); zuzendaritzapean aritu (3); zuzendaritzapean dagoen (3); zuzendaritzapean egin (3)

kirol zuzendaritzarako (5); zuzendaritzarako hautagai (4)

egungo zuzendaritzarekin (3); enpresako zuzendaritzarekin (3); etako zuzendaritzarekin (4); volkswageneko zuzendaritzarekin (5); zuzendaritzarekin ados (3); zuzendaritzarekin bildu (8); zuzendaritzarekin bilduko da (3); zuzendaritzarekin harremanetan (5)

alderdiko zuzendaritzaren (3); aurreko zuzendaritzaren (5); bizkaiko zuzendaritzaren (3); caballitoko zuzendaritzaren (5); eitbko zuzendaritzaren (3); eitbko zuzendaritzaren kontrako (3); enpresako zuzendaritzaren (4); erakundeetako zuzendaritzaren (3); erraztiren zuzendaritzaren (3); eskualdeko zuzendaritzaren (5); espainiako espetxe zuzendaritzaren (6); espetxe erakundeetako zuzendaritzaren (3); espetxe zuzendaritzaren (7); etako zuzendaritzaren (3); gipuzkoako zuzendaritzaren (3); kartzelako zuzendaritzaren (4); langileek zuzendaritzaren (3); sindikatuen eta zuzendaritzaren (5); trafiko zuzendaritzaren (3)

zuzendaritzaren aginduz (4); zuzendaritzaren arabera (12); zuzendaritzaren aurka (3); zuzendaritzaren azken eskaintza (4); zuzendaritzaren babesa (4); zuzendaritzaren egoitza (5); zuzendaritzaren erabakia (9); zuzendaritzaren eskaintza (7); zuzendaritzaren eskaintzaren (3); zuzendaritzaren esku (7); zuzendaritzaren esku uzteko (3); zuzendaritzaren iritzia (3); zuzendaritzaren izenean (4); zuzendaritzaren jarrera (17); zuzendaritzaren jarrera salatu (3); zuzendaritzaren kontrako (7); zuzendaritzaren kontrako auzia (3); zuzendaritzaren kudeaketa (4); zuzendaritzaren lana (4); zuzendaritzaren proposamena (6); zuzendaritzaren ustez (3)

batzordeak zuzendaritzari (4); eako zuzendaritzari (4); egotzi dio zuzendaritzari (3); enpresako zuzendaritzari (6); eskatu diote zuzendaritzari (5); espetxe zuzendaritzari (4); espetxeko zuzendaritzari (3); landabengo zuzendaritzari (3); nafarroako volkswageneko zuzendaritzari (3); volkswageneko zuzendaritzari (5)

zuzendaritzari dagokio (3)

alderdietako zuzendaritzek (5)

---

## zuzendaritzakide *(orobat **zuzendaritza kide**)* *iz* zuzendaritzako kidea. ik **zuzendarikide**.

Nafarroako Ikastetxeetako **Zuzendaritzakideen** Elkarteak matrikulazio kanpaina jarri du abian. Berria - Euskal Herria

**hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**

ikastetxeetako zuzendaritzakideen elkarteak (3); ikastetxeetako zuzendaritzakideen elkarteko (3); nafarroako ikastetxeetako zuzendaritzakideen (6)

---

## zuzendu 1 du *ad* zuzen, alde batera edo bestera okertu gabe ezarri.

Burdina-harizko kako bat **zuzendu** eta huraxe sartu nuen. Oskar Arana

Gero arin-arin lehortu, eta bizkor orraztuz **zuzendu** zuen ileko erretena. Anton Garikano

Altxatu zen, lepokoa **zuzendu** zuen eta begiak igurtzi zituen musuzapi gorriaz. Koro Navarro

Emakume ttikiak semeari gorbata **zuzendu** eta hauts-izpi batzuk haizatu zizkion uniformearen sorbaldetatik. Alberto Ladron Arana

Itsuei ikusmena itzuli, konkordunak **zuzendu**, eta beste gauza harrigarri asko. Juan Kruz Igerabide

Geziburua zorroztarriaz zorroztu, gero gezi hori arkuan ipini eta arteztasuna frogatzen zuen, ziria hortzen artean sakatuz **zuzendu**. Joseba Sarrionandia

Lepoa **zuzendu** eta neure oheko estalkia erabili nuen gorpua estaltzeko. Lopez de Arana

Berehala, Quirrell presaka irten zen ikasgelatik, bere durbantea **zuzenduz**. Iñaki Mendiguren

Estropezu egiten zuena zeure hitzez altxatu eta okertutako belaunak **zuzendu** izan dituzu. Elizen arteko biblia

Petrusek brida lotu eta estutu egiten du, zutik jartzen da, bizkarra **zuzentzen** du. Oskar Arana

Idatzi behar zuena idatzita burua altxatu eta gorputza **zuzendu** du. Pello Lizarralde

Prestatu bidea Jaunari, **zuzendu** bidexkak hari.

Kurba bat **zuzentzea** kurba hori "zut jartzea" da, haren luzera kalkulatu ahal izateko moduan. Jon Muñoz

Matematikan, berriz, zuzen jartzea da **zuzentzea**. Jon Muñoz

· Bazen han, hemezortzi urte hartan espiritu baten menpe gaixo zegoen emakume bat: erabat konkortua zegoen eta ezin zen inola ere **zuzendu**. Elizen arteko biblia

Gizon txit santuaren merezimenduei esker, lepoa **zuzendu** eta burua bere egoera normalera itzuli zitzaion. Askoren artean

**2** irud/hed

Orain, hori aski ez, eta makur hasitako goiza, **zuzendu** beharrean, are gehiago nahaspilatuko zelako aierua nuen. Aingeru Epaltza

Entrenatzaile aldaketak hobekuntza txiki bat ekarri du, baina oraindik galtzak bete lan izango dituzte egoera **zuzentzeko**. Berria - Kirola

Gebararen ustez, «EAJ hasi da 1998ko nora eza **zuzentzen**». Berria - Euskal Herria

**3** zerbaitetik okerrak, akatsak edo kidekoak kendu.

Bizitzan, **zuzentzea** arteztea da, zuzen ematea. Jon Muñoz

Hutsegiteen **zuzentzeaz** eta zuzenketen hutsegiteaz aldez aurretik eduki zuen elkarrizketa labirintiko samarrean. Jon Alonso

Desegin beharreko kalteak, **zuzendu** beharreko okerrak, onbideratu beharreko bidegabekeriak, neurriratu beharreko gehiegikeriak, ordaindu beharreko zorrak. Patxi Ezkiaga

Bazekien, agintean jarraituz gero, indarra erabili beharko zuela okerrak **zuzentzeko**. Askoren artean

Abusua **zuzentzerakoan**, zuzenketaren beraren arriskuak ikusi behar dira. Andres Urrutia

Hitzak dira sentimenduak salbatzen dituztenak, egoera konpontzen dutenak, gaizki ulertuak **zuzentzen** dituztenak. Pako Aristi

Badira sekula **zuzentzen** ez diren estatu-bizioak. Juan Martin Elexpuru / Bego Montorio

Moskun egindako hutsa **zuzendu** nahi du Pragan. Berria - Kirola

Ezin utziko ditugu noski oker horiek, labur bada ere, ahalbait **zuzendu** gabe. Juan Garzia

Hurrengoak **zuzendu** beharko du oraingoak konponduko ez duena. Berria - Ekonomia

Perrettek lehenago adoptatu izan balu Max, haren gorreria **zuzendu** ahal izango zuen agian, edo hobetu, behinik behin. Jon Muñoz

**Zuzen** dezadan berehala oker hori. Koldo Izagirre

Okerrik egingo balu, **zuzendu** egingo nuke, gizakiek erabili ohi dituzten makilaz eta zigorrez. Elizen arteko biblia

Globalizazio prozesuak sortu dituen desorekak **zuzentzeko** ahalmena duten nazioz gaindiko erakundeen gabezia. Iñaki Heras

Odol hotzean aztertu zituen bere legeak, haien akatsak **zuzendu** zituen, indarkeria gerarazi zuen, boterea arautu. Iñaki Iñurrieta

Ez dut gogoan aitortzaren eta hoben-ordainaren bidez **zuzendu** gabeko inolako bekaturik. Jon Muñoz

Segurtasun Kontseiluak akats larri hori **zuzendu** behar du. Berria - Mundua

Bisitariak irribarre egin zuen, eta balizko okerra **zuzendu** nahi izan zuen: [...]. Patxi Zubizarreta

Burugogorkeria nekez **zuzentzen** baita zigorren bidez ez bada. Askoren artean

Haien utzikeria **zuzendu** baino, haien jarduera mugatu beharra zegoen. Iñaki Iñurrieta

Batzorde horren lan onuragarriek gureak **zuzendu** eta laburtu dituzte. Andres Urrutia

«Bere politika **zuzendu** eta aldatzeko» eskatuko dio PPk Ibarretxeri biharko politika orokorreko eztabaidan. Berria - Euskal Herria

Harrigarria gure ikaskolaren jokabidea: zuzen dagoena **zuzentzen** ekin beharra! Koldo Zuazo

Hiesaren tratamenduak eragiten dituen estigmak, eta horrek gaixoarengan sortzen duen ezinegona **zuzentzeko** neurri zehatza abian jarriko du Osakidetzak. Berria - Euskal Herria

· Magistratuak zigortu egiten ditu delitugile batzuk; beste batzuk **zuzendu** egiten ditu. Iñaki Iñurrieta

**4** (hitz egitean edo idaztean egiten direnak)

"Nirekin dago haserre, ez gurekin", **zuzendu** diot. Bernardo Atxaga

-Papiroan esan nahiko dun- **zuzendu** zion Jonathanek, gupidagabe. Jon Muñoz

Aitittek **zuzendu** egiten zion beti, mendiak ez, haitzak zirela. Joseba Sarrionandia

-Nik esango nuke, eta **zuzen** nazazu oker banago, nire emazte ohiak bezala, zeuk ere garbi duzula bizitzari zer atera nahi diozun. Migel Angel Mintegi

Gezurra **zuzentzeko** kemena ez baikenuen izan. Jon Alonso

Arinkeriaz baieztatu duzuna orain **zuzen** dezakezu. Imanol Unzurrunzaga

Komunztadura-falta batzuk **zuzendu**, zenbait argibide proposatu ditu, eta are, diskretuki, ortografia-akats batzuk ere **zuzendu** ditu. Jon Alonso

Astebete eman zuen eskuizkribua berrirakurri eta **zuzentzen**. Harkaitz Cano

-Thomas Wentworth Higginson-ek **"zuzendu"** egin bide zituen Emily Dickinson-en poemak. Lehenengo hiru bertsoak ekarriko ditugu hona, bere garaian ohi zen gaztelaniaren eraginezko idazkera **zuzendurik**: [...]. Oskar Arana

Zuk asko **zuzentzen** al dituzu zure testuak? Ana Urkiza

Bazkalordua baino lehen probak **zuzenduta** zeuden, eta bi aldiz irakurrita, argitaletxera eramateko gertu. Jon Alonso

Liburuko materiala ikuskatu, **zuzendu** eta txukuntzen hasiak dira. Berria - Euskal Herria

Makinaz idatziak ziren eta asko eta askotan eskuz **zuzenduak**. Juan Garzia

Mahai gainean proben laurehun eta hogeita hamazazpi orriak daude, berrehun eta laurogeita hamahiru **zuzendu** ditu, falta dena ez da izutzeko modukoa. Jon Alonso

Aralarrek eta EB-Berdeek **zuzendu** egin dute Berriak atzo argitaratu zuen informazioa, herenegun Eusko Legebiltzarraren osoko bilkuran egin zen eztabaidari buruzkoa. Berria - Euskal Herria

Detaile horiek **zuzendu** al daitezke? Berria - Kirola

Italiarra iritsi baino lehen, holandarrak aztertuak, eta **zuzenduak**, hobetuak alegia, zituen Dionisoren planoak. Felipe Juaristi

Ziur nago programa zoragarria izango dela, zuzentzekoak **zuzendurik**. Antton Olano

**5** zerbait norabide jakin batean jarri. ik **gidatu; bideratu.**

Lagunak txanela arrantzaleen auzuneko hareatzara **zuzendu** zuen. Edorta Jimenez

Ate guztietara **zuzendu** dut ezpata sarraskitzailea, distira botatzeko egina, sarraskirako leundua. Elizen arteko biblia

Aita dohatsuak, lehenbizi guztiei predikua egin ostean, gizon haren kontra **zuzendu** zuen Jainkoaren hitzaren ezpata. Askoren artean

Hark atzamarra nora **zuzendu**, denok batera burua hara jiratuz ibili gara. Patxi Zubizarreta

Hitz haiek entzun orduko, amak ahotsa goratu zuen, hatz erakuslea Sararengana **zuzendurik**, mehatxu gisa edo: [...]. Joan Mari Irigoien

Linterna piztu zuen, eta gordeleku barrurantz **zuzendu**. Bernardo Atxaga

Etsi gabe, kanoia berriro gaztelura **zuzendu**, eta tiroka jarraitu zuen. Patxi Zubizarreta

Flexoa piztu eta atrilerantz **zuzentzen** dut. Anjel Lertxundi

Saihetsetara **zuzendutako** kolpe guztiek bestearen ukondoa jotzen zuten. Josu Landa

Bi azkenekoak ondo **zuzenduak** bularrera eta burura -askok pentsatu izan dute azkeneko bi tiro zuzen horiek Dimitrik bota zituela. J.M. Olaizola "Txiliku"

Errebolber irmoa harengana **zuzendu**, eta bihotz-zeken hura bere erru zekena aitortzera behartzen zuen. Juan Garzia

Bere emazte isilarengana **zuzendu** zuen arma eta tiro egin zion bi aldiz bularrean. Aitor Arana

Joxanek atzera egin eta *uppercut* bat **zuzendu** zion mutur aldera. Paddy Rekalde

Otoitzean jarri zen bere gelako atarian, aurpegia ekialderantz **zuzendua**. Askoren artean

Begira inguru guztira; **zuzendu** begiak zauden lekutik iparralde nahiz hegoaldera, ekialde nahiz mendebaldera. Elizen arteko biblia

Oraindik entzun egiten dudala iruditzen zait -esaten dio begiak sabaira **zuzenduz**. Arantxa Iturbe

Ordura arte ez bainion begirik **zuzendu** ere egin, minaren minez eta larriaren larriz. Juan Kruz Igerabide

Begiak zabaldu, bekokia altxatu, begirada aurrera **zuzendu** ahalik eta urrunen. Joseba Sarrionandia

Lagunei **zuzenduriko** begi keinu batzuk ere badira han-hemenka. Monika Etxebarria

Irribarre idor bat **zuzentzen** dio Hakim jaunari. Oskar Arana

Emakumeak, aurrenekoz, begirada iheskor bat **zuzendu** dit leihatilatik. Iban Zaldua

Pilar zutitu egin zen eta bi metrora zuen neskatoarengana **zuzendu** zituen oinak. Aitor Arana

Amaren lo gelara **zuzendu** zituen urratsak. Itxaro Borda

Naturak ez zituen ibai ertzak ura gelditzeko jarri, bere bidea **zuzentzeko** baizik. Esteban Antxustegi

Pilotaren norabidea **zuzendu** behar dugu [...] norabidea indarra baino garrantzitsuagoa da. Berria - Kirola

## **6** irud/hed

Atzeraka mugitu da Huck, itzuli laurdena eginik eskuinerantz, abioa itsasora buruz **zuzentzeko**. Koldo Izagirre

Nadiak igarri zuen Mikel Strogoffen ekintza guztiak eragile isilpeko batek **zuzentzen** zituela. Karlos Zabala

Bere bihotza Jainkoarengana **zuzendu** zuen, legegabeen egunetan zintzotasuna sendotu. Elizen arteko biblia

Beren bizitza zerurantz **zuzendu** nahi duten guztientzat penitentzia beste biderik ez dagoenez, [...]. Askoren artean

Norbaitek okerreko arrasto berri bat aurkitu zuen, eta hara **zuzendu** zituzten bilatze-lanak. Jose Morales

René Cassin irakasle jaunaren bizia eta obra **zuzendu** duen printzipioa izan da Gizonaren duintasunari, bere nazionalitate, bere arraza, bere erlijio, bere sexu, bere graduaren gainetik zor zaion errespetua. Piarres Xarriton

Haien pausoak bake-bidetik **zuzentzeko**. Elizen arteko biblia

## **7** (nori osagaiaz)

Entzun nolako irainak **zuzendu** dizkizun Senakeribek zuri, Jainko bizi horri.

Zergatik mintzen nau areago niri **zuzendutako** irainak, besteri zitalkeria berberaz nire aurrean egozten dioten laidoak baino? Imanol Unzurrunzaga

Orduantxe entzun ziren zaldi irrintziak, zamariei **zuzendutako** oihuak, kosakoen birao beltzak, eta bota-hotsak eskaileretan gora. Felipe Juaristi

Langabetuei **zuzenduriko** laguntza eta sarien bidez finantzatuko litzateke ekimena. Iñaki Heras

Nekazariei bereziki **zuzenduriko** heziketa programak ere eskatu dituzue. Berria - Gaiak

Zortzigarren aldikotz antolatzen da gazteriari **zuzendutako** jaialdi hori. Herria

Bereziki egoera desegokiena bizi dutenei, langabetu, elbarri edo kanporatuei laguntzera **zuzendutako** programa sozialen multzoari. Iñaki Heras

## **8** (helburua adieraziz)

Osasunaren kaltegarri diren gauzak eta lagun hurkoari dirua ateratzeko modua ikastera **zuzendu** zituzten beren ahalegin guztiak. Jose Morales

Interes handia zegoen ugalketara **zuzentzen** ez zen edozein sexu-jokaera itotzeko. Juan Martin Elexpuru / Bego Montorio

Erleen eta antzeko sorkarien sena harmoniatsua da eta guztien onera **zuzenduta** dago. Esteban Antxustegi

· Helburu komun batera **zuzentzen** baitituzte euren ekintzak. Esteban Antxustegi

Edozein helbururantz **zuzendutako** egoskortasun ulertezin horrek. Xabier Olarra

Borondate asko helburu batera **zuzentzera**, baina ez (Estatuan izan behar duen bezala) borondate bakar batera. Esteban Antxustegi

## **9** (mezuez eta kidekoez mintzatuz) ik **bidali.**

PSE-EEko buruak PPri ondoko mezua **zuzendu** zion: «Frogatu da Ibarretxeren Plana ez dela akordio politikoak lortzeko oztopo bat». Berria - Euskal Herria

Joiakimen erregealdiko laugarren urtean mezua **zuzendu** zion Jaunak Jeremiasi Judako herriari buruz. Elizen arteko biblia

Mezu argia **zuzendu** dio Espainiako Gobernuari. Berria - Euskal Herria

Ali Sistaniren Basorako ordezkari Ali Abdul Hakim al-Safik eskutitza **zuzendu** dio Bushi: [...]. Berria - Mundua

Nori **zuzentzen** zaio protesta euria egiten duenean? Anjel Lertxundi

Kataulfok Karlosi honen erreinaldiaren hasieran **zuzendu** zion gutunean. Iñaki Mendiguren

Trenean Bruselako Parlamentuari **zuzenduriko** postal bana idatzi arazi digute. Edorta Jimenez

OIP taldeak, galdeketa bat **zuzendu** du hainbat presuneri: presoeri, ahaide eta laguneri, baita ere presondegietako langile guzieri (zaintzaile, sozial arloko) eta kanpotik etorri parte hartzaileri. Herria

Hitzaldian zehar, kritika gogorrak **zuzendu** zizkion Elorrietak EITB hedabide publikoari: «Gaurko manifestazioan ez daude; Jaurlaritzaren jaialditxo guztietan bai, ordea». Berria - Ekonomia

Espainiako eta Frantziako gobernuei **zuzendu** zien kritika, haiek, ETA aitzakiatzat hartuta, herritarren hitza onartu nahi ez dutela esanez. Berria - Euskal Herria

Gutuna fededun guztiei **zuzendua** dela. Askoren artean

Aitari bidali zion gutuneko hitzek ere, Corneilleren lerro bat hain zuzen, bere aita ez zen norbaiti **zuzenduak** dirudite. Felipe Juaristi

Alemanez idatziak ziren, nire aitaren amak hain zuzen ere, aitari berari **zuzenduak** eta 1938an, barnetegi batean zegoen garaian bidaliak. Joxan Elosegi

Gizonezkoei **zuzendua**, jakina. Edorta Jimenez

Eskaintza nekazari eremuetan bizi diren herritarrei **zuzendua** dago. Berria - Gaiak

Egilea teologo musulmanen artean profetei, eta bereziki Muhammad-i **zuzenduriko** jainkozko hitzaz sorturiko eztabaidaz ari da. Xabier Kintana

Prestamen-otoitza egingo da otoitza **zuzentzen** zaion pertsonari dagokionez. Patxi Altuna

Niri **zuzendutako** gutunazal deigarri bat apartatu nuen ohiko kamera-iragarki eta bideo-zerrenden artetik. Anjel Lertxundi

Paulinori eta Jeronimori **zuzendutako** lehen gutunak 395-6an hasi zituen. Imanol Unzurrunzaga

## **10** erakunde, enpresa, talde edo kideko baten jarduera kudeatu; egiteko bat bideratu.

Berrogei urte zituela Akademia eskola ospetsua hasi zen **zuzentzen** eta antolatzen. Askoren artean

Izan ere, neuk antolatu, ordezkatu, **zuzendu**, gauzatzen ditut negozioak... dena neuk. Anton Garikano

Kooperatiba hau neuk sortu nuen eta neuk **zuzendu** dut beti, kontuak zuzen egon dira beti eta azken zenbakiraino zuzen egotea nahi dut. Koldo Biguri

AEBetako Energia Departamenduak **zuzentzen** duen Kaliforniako Lawrence Livermore Laborategi Nazionaleko kidea da Craig Smith. Berria - Gaiak

Izan ere, hauxe baitzen egia: negozioak nola **zuzendu** behar diren fitsik ere ez zuela ikasi Harryk. Oskar Arana

Gidatzen zituzten eramaileak eta **zuzentzen** gainerako langileak. Elizen arteko biblia

Besteren lana **zuzentzeko** barruko bulegoa erabiliko zuela erabaki zuen. Jon Alonso

Cornelleko Unibertsitateko ikertzaile John Loseyk **zuzendu** du lana. Berria - Gaiak

Esku artean zituen gainerako beste zereginez gain, Zorrozabaleneko garbiketa- eta eraberritze-lanak **zuzendu** zituen. Agustin Otsoa

Berak zuzentzen du erarik egokienean gure erreinua, gure arbasoena ere **zuzendu** zuen bezala. Elizen arteko biblia

Moncadako erasoa **zuzendu** zuen egun Kubako presidente den Fidel Castrok. Berria - Mundua

Lula boterera eraman zuen kanpaina **zuzendu** zuen. Berria - Mundua

Mathieu Jaboulay izeneko kirurgialariak **zuzendu** zuen ebakuntza hura. Berria - Gaiak

Iaz 70 hildako eragin zituen operazio militarra **zuzendu** zuen Winek. Berria - Mundua

Etxeko gorabeherak **zuzendu** ondoren, urkatu egin zuen bere burua. Elizen arteko biblia

Ez nintzela itzuliko etxeko kontuak **zuzendu** aitzin. Joan Mari Irigoien

Koldo Bigurik euskaratu ditu testuak, eta Emilio Palaciosek **zuzendu** du edizio kritiko hau. Berria - Kultura

Berak **zuzendurik**, guduketak arrakasta izan zuen, eta hogei mila lagun baino gehiago hil zuen bi dorreetan. Elizen arteko biblia

Orain zera bakarrik interesatzen zaigu: gizon horrek, Weberrek alegia, **zuzendu** dituela bilaketa... bitxi horiek. Alberto Ladron Arana

Brasilgo talde indartsuenak ere **zuzendu** ditut. Berria - Kirola

Erresistentziaren fronte intelektualean sartu zen [...] Albert Camusek **zuzentzen** zuen *Combat* aldizkarian eta idazleen batzorde nazionalean parte hartuz. Monika Etxebarria

*Papeles de Son Armadans* aldizkaria sortu eta **zuzendu** zuen Celak. Berria - Kultura

Eduardo Voltasek **zuzendu** du egitasmoa, eta Josep Maria Sole izan da zuzendari zientifikoa. Berria - Kultura

Narrazio-aldizkaria, Pitigrillik **zuzendua**. Fernando Rey

1989 eta 1992an, Vienako Orkestra Filarmoniakoa **zuzendu** zuen Urte Berriko kontzertuan. Berria - Kultura

Donostiako Orfeoiak, garai hartan Peña y Goñi handiak **zuzendurik**, pozaren pozez hartu zuen Usandizaga. Askoren artean

## **11** (antzezlanez eta kidekoez mintzatuz)

Aristides Vargasek idatzi eta **zuzendu** du antzezlana. *I tre volti del terrore* Stivalettik **zuzendu** duen bigarren filma da. Berria - Kultura

Gabonetan zinema aretoetan agertuko da Anthony Minghellak (*Gaixo ingelesa*) **zuzenduriko** *Ripley trebea*, Matt Damon eta Guilni Patrol oskarduna protagonista. Markos Zapiain

Orain dela gutxi estreinatu dira Ana Díez-ek **zuzendutako** *Galíndez* dokumentala eta [...] Gerardo Herrerok egindako film luzea. Martin Anso

Filma bila ezazu, ahal dela Elia Kazan-ek **zuzendutakoa**: Marlon Brando eta Vivien Leigh. Xabier Paya

Bera da *El correo del Presidente* delakoaren zuzendaria; berak **zuzendu** eta aurkezten du igande goizetan irratiko *Aló Presidente* programa Chavezen ondoan. Pako Aristi

Euskal Telebistan beste sei joan zitzaizkidan, Hitzetik Hortzera bertso programa **zuzendu** eta aurkezten. Joxerra Garzia

## • **12** da *ad* norabait edo norbaitengana jo.

Kafetegiko mahaia utzi eta komunera **zuzendu** zen emakumea. Harkaitz Cano

Orduan, etsi-etsian **zuzendu** zen ertzerantz. Koldo Biguri

Lasterka eta erregeari oihuka zebilen jendearen zarata-hotsa entzutean, Atalia Jaunaren etxera **zuzendu** zen, jendearengana. Elizen arteko biblia

Redin **zuzendu** zitzaigun azeitunen platertxoarekin. Bernardo Atxaga

Zein bidetatik **zuzendu** diren euren jakitearen batasunerantz eta koherentziarantz. Xabier Arregi

Semeari adeitasunez **zuzendurik**, galdegin zion: [...]. Patxi Zubizarreta

Ondoren, bihotz-berotasun handiz anai Maseorengana **zuzendurik**, esan zion: [...]. Askoren artean

Hauek dira Moisesek Israel herri osoari **zuzenduriko** hitzaldiak. Elizen arteko biblia

## **13** (zerbait esateko)

Maistra nire alboan eseritako mutilarengana **zuzendu** zen: "Eta zuk? Zer izen duzu zuk?". Bernardo Atxaga

-Zure alabak badaki irakurtzen, ezta? -**zuzendu** zitzaion zutik eta giharrik mugitu barik jarraitzen zuen besteari-. Josu Landa

Gero umeei **zuzendu** zaie, serio serio, besoak gurutzatuta. Jokin Muñoz

"Ez nian Cesarrena esan ez deprimitzearren", **zuzendu** zait Joseba euskaraz. Bernardo Atxaga

-Lasai zaitez -**zuzendu** zitzaion emaztea, eztiki-. Patxi Zubizarreta

Ni Lotte deituz **zuzendu** nintzaion. Edorta Jimenez

Udalbiltza ere **zuzendu** da diasporarengana, Aberri Egunean ekimen bateratuak egin ditzala eskatzeko. Berria - Euskal Herria

"Uzkudun omen zetorrek herriko festetara", esan zuen gizonak zortzi ogiak besarkatu eta Lubisengana **zuzenduz**. Bernardo Atxaga

Hi ez -niri **zuzenduz** esan zuen-. Edorta Jimenez

Hemendik aurrera, zuri **zuzentzen** natzaizun guztietan Nathan deituko dizut. Oskar Arana

## **14** (era burutua izenondo gisa)

Jarraian Dekalogoaren edizio **zuzendua** dago, meridiano honetarako kalkulatua. Xabier Olarra

Harri eta zur entzuten ari zen Ruche jauna Jonathanen araberako Biblia **zuzendu** hori. Jon Muñoz

### hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 4 aldiz agertzen direnak)

**akatsak zuzendu** (10); **asko zuzendu** (6); **aurka zuzendu** (5); **batasunarengana zuzendu** (4); **batasunari zuzendu** (6); **batera zuzendu** (7); **bati zuzendu** (4); **begiak zuzendu** (4); **begirada bat zuzendu** (4); **begirada zuzendu** (5); **behera zuzendu** (4); **berak zuzendu zuen** (4); **berehala zuzendu** (9); **berriro zuzendu** (5); **bizkarra zuzendu** (4); **burua zuzendu** (5)

**egindako hutsak zuzendu** (5); **egindakoak zuzendu** (4); **egoera zuzendu** (6); **film zuzendu** (4); **filma zuzendu** (6); **gauzak zuzendu** (5); **gazteei zuzendu** (6); **gehiagotan zuzendu** (4); **gelara zuzendu** (4); **gorputza zuzendu** (5); **hara zuzendu** (4); **harantz zuzendu** (4); **harengana zuzendu** (5); **hitzak zuzendu** (5); **honela zuzendu** (4); **hutsa zuzendu** (4); **hutsak zuzendu** (13)

**idatzi eta zuzendu** (9); **ikerketa zuzendu** (9); **ikerketa zuzendu duen** (6); **lanak zuzendu** (6); **lehendakariari zuzendu** (5); **mezua zuzendu** (10); **mezua zuzendu zion** (4); **niregana zuzendu** (6); **niri zuzendu** (8); **nola zuzendu** (9); **nora zuzendu** (7); **norabidea zuzendu** (6); **nori zuzendu** (4)

**okerra zuzendu** (12); **okerrak zuzendu** (4); **sortu eta zuzendu** (7); **taldea zuzendu** (4)

**zer zuzendu behar** (4)

**zuzendu ahal** (16); **zuzendu ahal izango** (4); **zuzendu ahal izateko** (7); **zuzendu barik** (4); **zuzendu behar** (78); **zuzendu behar dugu** (5); **zuzendu behar izan** (11); **zuzendu beharko** (28); **zuzendu beharko ditu** (6); **zuzendu beharra** (13); **zuzendu beharra dago** (4); **zuzendu beharrean** (6); **zuzendu beharreko** (15); **zuzendu beharrekoak** (4); **zuzendu da** (20); **zuzendu dio** (11); **zuzendu dira** (5); **zuzendu du** (93); **zuzendu du ikerketa** (6); **zuzendu du lana** (4)

**zuzendu ezean** (5); **zuzendu gabe** (13); **zuzendu gabeko** (4)

**zuzendu izan** (6); **zuzendu nahi** (43); **zuzendu nahi izan** (13); **zuzendu nahian** (5); **zuzendu nintzaion** (5); **zuzendu nintzen** (8); **zuzendu nion** (11); **zuzendu nituen** (10); **zuzendu nizkion** (4); **zuzendu nuen** (14)

**zuzendu ohi** (4); **zuzendu ondoren** (12)

**zuzendu zen** (72); **zuzendu zion** (67); **zuzendu zion jonathanek** (5); **zuzendu zion mezua** (5); **zuzendu ziren** (14); **zuzendu zitzaion** (101); **zuzendu zuen** (212); **zuzendu zuen begirada** (6)

**berari zuzendua** (4); **zuzendua da** (20); **zuzendua dago** (7); **zuzendua izan** (10); **zuzendua izango** (5); **zuzendua zegoen** (5); **zuzendua zen** (4)

**zuzenduak dira** (4)

**berak zuzenduko** (9); **berak zuzenduko du** (4); **dena zuzenduko** (4); **euro zuzenduko** (5); **zuzenduko da** (4); **zuzenduko dira** (7); **zuzenduko du** (121); **zuzenduko du gaur** (4); **zuzenduko dute** (10)

**gazteei zuzenduriko** (6); **umeei zuzenduriko** (10); **zuzenduriko taldeak** (5)

**dago zuzenduta** (7); **ikasleei zuzenduta** (4); **zuzenduta dago** (29); **zuzenduta dagoen** (4); **zuzenduta daude** (11); **zuzenduta zegoen** (8)

**aebek zuzendutako** (4); **berak zuzendutako** (5); **bereziki zuzendutako** (4); **carrerek zuzendutako** (5); **gazteei zuzendutako** (10); **haurrei zuzendutako** (5); **langileei zuzendutako** (4); **nekazariei zuzendutako** (4); **orori zuzendutako** (4); **pasqualek zuzendutako** (4); **reyes carrerek zuzendutako** (5)

**zuzendutako diru** (6); **zuzendutako film** (5); **zuzendutako filmak** (4); **zuzendutako kanpaina** (4); **zuzendutako programa** (4); **zuzendutako taldea** (11); **zuzendutako taldeak** (18)

**niregana zuzenduz** (4); **niri zuzenduz** (4)

**handi bat zuzentzea** (5)

**akatsak zuzentzeko** (12); **bidea zuzentzeko** (4); **egoera zuzentzeko** (4); **gauzak zuzentzeko** (4); **hutsa zuzentzeko** (5); **hutsak zuzentzeko** (7); **kluba zuzentzeko** (4); **okerra zuzentzeko** (10); **okerrak zuzentzeko** (14); **politika zuzentzeko** (5); **taldea zuzentzeko** (8); **taldea zuzentzeko ardura** (5)

**zuzentzeko ardura** (17); **zuzentzeko asmoz** (6); **zuzentzeko aukera** (15); **zuzentzeko behar** (4); **zuzentzeko beste** (4); **zuzentzeko duen** (6); **zuzentzeko ere** (7); **zuzentzeko eskatu** (23); **zuzentzeko eskatu zion** (6); **zuzentzeko eskatu zuen** (5); **zuzentzeko gai** (6); **zuzentzeko neurriak** (6); **zuzentzeko prest** (5)

**akatsak zuzentzen** (6); **azkarragak zuzentzen duen** (7); **azterketak zuzentzen** (5); **batera zuzentzen** (6); **berak zuzentzen** (27); **berak zuzentzen duen** (17); **berehala zuzentzen** (5); **bidorretak zuzentzen duen** (6)

**ekisoainek zuzentzen duen** (6); **hutsak zuzentzen** (6)

**ivanovicek zuzentzen dituen** (5); **lanak zuzentzen** (4); **madrazok zuzentzen duen** (6); **mendilibarrek zuzentzen dituen** (5); **netanyahuk zuzentzen duen** (4); **nik zuzentzen**

**dudan** (4); **nola zuzentzen** (6); **norabidea zuzentzen** (4); **nori zuzentzen** (4)

**ohiak zuzentzen duen** (6); **pegenautek zuzentzen duen** (4); **taldea zuzentzen** (8); **txakartegik zuzentzen duen** (4); **txus bidorretak zuzentzen** (8); **valverdek zuzentzen duen** (10)

**zuzentzen ahalegindu** (4); **zuzentzen ari** (30); **zuzentzen aritu** (4); **zuzentzen da** (10); **zuzentzen dira** (9); **zuzentzen ditu** (9); **zuzentzen dituen** (45); **zuzentzen dituen jokalariak** (6); **zuzentzen dituen jokalariek** (20); **zuzentzen du** (56); **zuzentzen du taldea** (5); **zuzentzen dudan** (4); **zuzentzen duen** (285); **zuzentzen duen aliantza** (4); **zuzentzen duen erakundeak** (8); **zuzentzen duen sailak** (6); **zuzentzen duen taldea** (30); **zuzentzen duen taldeak** (63); **zuzentzen duen taldean** (4); **zuzentzen duen taldearen** (9); **zuzentzen duen taldeari** (7); **zuzentzen dute** (14); **zuzentzen hasi** (10); **zuzentzen hasteko** (4)

**zuzentzen lagundu** (5)

**zuzentzen saiatu** (4); **zuzentzen zen** (5); **zuzentzen ziren** (4); **zuzentzen zuen** (66); **zuzentzen zuen taldea** (5); **zuzentzen zuen taldeak** (5); **zuzentzen zuten** (4)

---

# zuzenean 1 *adlag* itzulingururik gabe, bitartekorik gabe. ik **zuzen 8.**

**Zuzenean** joan zen bigarren lantegira. Jon Muñoz

Orduan, une bigun haren zain egon balitz bezala, tximeleta bat atera da hegan hilerriaren bazter batetik, eta guregana **zuzenean** abiatu. Bernardo Atxaga

Eguzkiari **zuzenean** begiratzeak begiko lesio larriak eragin ditzake. Berria - Gaiak

-Esaten dute **zuzenean** etorri zela Italiatik hona -esan zuen Romanek-, bota egin zutela handik. Unai Elorriaga

-**Zuzenean** iparraldera -esan zuen Ronek, aginte-koadroko iparrorratzari begira-. Iñaki Mendiguren

**Zuzenean** begietara so egin, eta saiatu begiak ez kliskatzen... Iñaki Mendiguren

Bezeroei begietara **zuzenean** begiratuz. Ramon Saizarbitoria

Bakarrik geratu ginenean, **zuzenean** galdetu zidan: [...]. Juan Kruz Igerabide

Gauzak behar bezala egiteko, telefonotik **zuzenean** grabatzeko aparatu bat erosi nuen. Ramon Saizarbitoria

Lisboatik **zuzenean** ekarritako galtzada-harriz zolatutako kaleak. Jon Muñoz

Neu naiz -zioen- bekatu egin duena, neu bidegabe hitz egin duena: ni zigortu behar ninduzun **zuzenean**. Askoren artean

Udaletxetik etxera joan nintzen **zuzenean**. Ramon Saizarbitoria

Bludgerra tximista bezala zetorkion ostera, bigarrenez erasotzera; oraingoan aurpegira **zuzenean**. Iñaki Mendiguren

Itzulpen hau japonieratik **zuzenean** egin da. Ibon Uribarri

Erregai-piletan, erregaiak oxigenoarekin erreakzionatu [...] eta elektrizitatea sortzen du **zuzenean**. Irene Aldasoro

Dendei **zuzenean** saltzen dieten saltzaile horietakoa izanen zara. Alberto Ladron Arana

Jekaterinburg eta Irkutsk **zuzenean** batzen dituen bidetik kanpo, estepak, zingira huts leku askotan, ez dira ibiltzeko modukoak. Karlos Zabala

Mailegu sistemarekin, ikastetxeek argitaletxeei eta banatzaileei **zuzenean** erosiko dizkiete liburuak, eta ez litzateke liburu dendetara joango. Berria - Harian

Medikua hautatzeko askatasuna: Jendea **zuzenean** joan zitekeen nahi zuen medikuarengana edo espezialistarengana. Berria - Harian

Txapeldunen Ligarako **zuzenean** sailkatzeko aukera ere badu oraindik Osasunak. Berria - Kirola

Gure biperra alorretik **zuzenean** merkaturatua dela. Herria

ETAk ez du autodeterminazioa **zuzenean** aipatzen agirian. Berria - Harian

## 2 (kideko esapideekin batean)

Ez baitzegoen **zuzenean** iristerik, baizik eta itzulingurua eginez zelai eta galsoroetan barrena. Jose Morales

Kalea lurpeko igarobidea erabiliz igaro beharrean **zuzenean** gurutzatu zutela eta, poliziak geldi arazi zituen. Edorta Jimenez

Atal horren VIII. Kapituluak biltzen ditu, zeharka edo **zuzenean**, proiektu militarren inguruan aurrez ikusten diren ikerketetarako diru laguntzak. Juan Ignacio Pérez / Pello Salaburu

Testu hauek guztiek, **zuzenean** edo zeharka, harreman estuak dituzte elkarrekin. Zeharka, **zuzenean**, edozein ispilutako islen bitartez. Askoren artean

Ez ninduan ausartu galdetzera ea astearte gauean maitasuna egiten zuten: nolanahi dela ere, ez **zuzenean** eta ez interpretariaren bitartez, ez nian lortu deus ateratzerik. Juan Garzia

Horri esker Jainkoak **zuzenean** eta naturalki ematen dio gizaki bakoitzari, bere biziaren eta gorputzaren zaintzekoa, hutsik gabeko geriza bermatuz. Piarres Xarriton

Ez dute gaia **zuzenean** jorratzen, baizik besteek esandakoa ekartzen, laburtzen, biltzen, erkatzen edo aztertzen. Askoren artean

Sokratesek ez du deus argitzen **zuzenean**; bai, aldiz, galderen bidez. Askoren artean

Anaia guztiei tinko agintzen diet, ez dezatela inolaz ere dirurik edo sosik har, ez **zuzenean** eta ez bitartekoen bidez. Askoren artean

Era berean badakit eta ikusten dut, niri **zuzenean** gaitzik ezin didatenean egin, nire lagunen bitartez saiatzen direla niri kalte egiten. Askoren artean

Hori baita bere estiloa, hitza **zuzenean**, luzapenik eta interpretaziorik gabe, praktikan jartzea. Askoren artean

Bada joera pentsatzeko erabaki hori **zuzenean** har daitekeela unibertsitatearen barnean, kanpora baimenik eskatu gabe. Juan Ignacio Pérez / Pello Salaburu

## 3 irud/hed

Hortik zera etorri zen, jaun gehienak **zuzenean** koroaren mende egotetik, zeharka mendean egotera pasatu zirela. Iñaki Iñurrieta

Nire laguna eta biok langabeziara gindoazen **zuzenean**, eta une haietan ez zen batere erraza lana aurkitzea. Juan Kruz Igerabide

Asko eta asko ikusten nituen **zuzenean** bazoazenak aspaldiko eta gaurko heresia batzuen aurka. Piarres Xarriton

Garai hartako Estatu Batuen eta Latino Amerikaren arteko harremanak ez ziren **zuzenean** kolonialak, baina horrek ez du benetan gertatua faltsutu behar. Koro Navarro

Faxismora goazak **zuzenean**, motel. Iban Zaldua

Baina Lakatosek **zuzenean** Infernura eraman ninduen. Matías Múgica

## 4 emanaldiez mintzatuz, aldez aurretik grabatu gabe.

Hego Koreako telebistak **zuzenean** zabalduriko prentsaurreko batean. Berria - Gaiak

Gertatzen ari dena **zuzenean** eman beharrak erotu egiten du esataria. Iñigo Aranbarri

Zeremonia **zuzenean** transmititzen ari diren esatariak. Iban Zaldua

Korrikaren heltzea Baionan **zuzenean** eskainia izan da berrogoi bat irrati elkarri lotuz, Gure Irratiak Baionako herriko etxean finkatua zuen loturari esker. Herria

Musika, emanaldi guztietan, **zuzenean** eskainiko dute Iñaki Salvador pianistak eta Pello Ramirez biolontxelo jotzaileak. Berria - Kultura

"Plasma" telebistetan XXI. mendeko 'Cyber' bertsolariak **zuzenean**! Ramuntxo Etxeberri

10.30: Meza nagusia, Molères apezpikua buru, Lapurdi irratitik **zuzenean** zabaldua 96,8 megahertzetan. Herria

Jazz eta soul kutsua zuen emanaldi hark, eta pentsatu nuen haize sekzio bat gehitzea, jazz sonoritatea indartzeko eta **zuzenean** grabatzeko. Berria - Kultura

## 5 *zuzen-zuzenean adlag* zuzen-zuzen.

**Zuzen-zuzenean** jaitsiko dira hilobira, haien arrastoa ezabatu egingo da eta Hilen Egoitza izango dute bizileku. Elizen arteko biblia

Likatsua iruditzen zitzaidan, melenga, ia-ia lizuna, ez sexuari zegokionez **zuzen-zuzenean**, baina bai halako sexualitate "sublimatu"tik zetorkion zerbaiten kariaz. Juan Kruz Igerabide

Nekazariei, arrantzaleei eta garraiolariei **zuzen-zuzenean** eragiten die arazoak. Berria - Ekonomia

Nahiago izan zuen ezagutza preziatu hori bere ikasleei **zuzen-zuzenean** azaldu. Berria - Euskal Herria

Harryk ahaleginak egiten zituen begi hotz haietara **zuzen-zuzenean** begiratzeko. Iñaki Mendiguren

Proposatu nuen sal geniezaiola **zuzen-zuzenean** hiriko liburutegiren bati. Oskar Arana

Infernuko zulora **zuzen-zuzenean**. Alberto Ladron Arana

Herritar hauek euren lurraldeetara itzultzeko eskubidea dute; izan ere, itzultzea **zuzen-zuzenean** dago lotuta euren iraupenarekin. Berria - Mundua

Ezkerraldean abian diren eraso txikitzaile guztiak laburbiltzen ditu Alonsotegik, **zuzen-zuzenean** ez bada ere, gertutik sufritu behar izango dituelako proiektu guztiak. Berria - Euskal Herria

Epaiak euskal hiztunon eskubideen kontra jotzen du **zuzen-zuzenean**. Berria - Harian

**hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 4 aldiz agertzen direnak)**

**berak zuzenean** (17); **berari zuzenean** (7); **dena zuzenean** (6); **diskoa zuzenean** (6)

**egoeraren berri zuzenean** (5); **egoeraren berri zuzenean** (5); **gero zuzenean** (7); **guztiak zuzenean** (5); **handik zuzenean** (5); **herria zuzenean festibala** (24); **herritarrek zuzenean** (6)

**jainkoak zuzenean** (6); **jo zuen zuzenean** (12); **joan nintzen zuzenean** (5); **joan zen zuzenean** (18); **kateak zuzenean** (11); **kateak zuzenean emango** (7); **kontra zuzenean** (6); **lana zuzenean** (7); **lehen kateak zuzenean** (5); **musika zuzenean** (6); **niri zuzenean** (6)

**ostaturat zuzenean** (12); **partida zuzenean** (15); **prozesuan zuzenean** (6); **prozesuan zuzenean parte** (5); **telebistak zuzenean** (9)

**zeharka edo zuzenean** (5)

**zuzen zuzenean** (210); **zuzen zuzenean eragiten** (7); **zuzen zuzenean joan** (6)

**zuzenean abiatu** (6); **zuzenean aipatu** (12); **zuzenean aipatu gabe** (6); **zuzenean ari** (10); **zuzenean aurkezteko** (8); **zuzenean aurkezten** (5); **zuzenean aurkeztu** (6); **zuzenean begietara** (5); **zuzenean begiratu** (7); **zuzenean begiratzen** (6); **zuzenean bizi** (14); **zuzenean bizi izan** (8)

**zuzenean edo zeharka** (24); **zuzenean egin** (26); **zuzenean egin zion** (5); **zuzenean egindako** (5); **zuzenean egiteko** (5); **zuzenean egiten** (11); **zuzenean eman** (13); **zuzenean emango** (20); **zuzenean emango du** (14); **zuzenean emateko** (7); **zuzenean ematen** (7); **zuzenean entzun** (11); **zuzenean entzuteko** (6); **zuzenean eragiten** (27); **zuzenean eragiten die** (5); **zuzenean eraman** (7); **zuzenean erantzun** (5); **zuzenean eraso** (8); **zuzenean esan** (12); **zuzenean eskaini** (7); **zuzenean eskainiko** (18); **zuzenean eskainiko du** (10); **zuzenean esku** (7); **zuzenean etorri** (10); **zuzenean etxera** (7); **zuzenean ez bada** (9); **zuzenean ezagutu** (11); **zuzenean ezagutzeko** (5); **zuzenean ezagutzen** (9); **zuzenean galdetu** (12); **zuzenean grabatu** (7); **zuzenean grabatutako** (8); **zuzenean harremanetan** (6); **zuzenean hartu** (13); **zuzenean hartzen** (5); **zuzenean hitz egin** (13)

**zuzenean ikusi** (13); **zuzenean ikustea** (5); **zuzenean ikusteko** (19); **zuzenean ikusteko aukera** (5); **zuzenean jakiteko** (5); **zuzenean jarraitu** (6); **zuzenean jaso** (10); **zuzenean jo** (38); **zuzenean jo zuen** (7); **zuzenean joan** (51); **zuzenean joan zen** (19); **zuzenean joango** (7); **zuzenean jotako** (7); **zuzenean jotzeko** (10); **zuzenean jotzeko aukera** (5); **zuzenean jotzen** (14); **zuzenean lortzen** (5); **zuzenean lotzen** (5); **zuzenean parte hartu** (21); **zuzenean parte hartzeko** (14); **zuzenean parte hartzen** (6); **zuzenean sailkatu** (7); **zuzenean sailkatuak** (6); **zuzenean sailkatuta** (5); **zuzenean sartu** (8); **zuzenean sartzen** (12)

---

## zuzeneko 1 *izlag* itzulinguru edo bitartekorik gabekoa. ik **zuzen 2**.

Bedeinkatu dut Jauna, neure nagusi Abrahamen Jainkoa, **zuzeneko** bidetik ekarri nauelako. Elizen arteko biblia

Orain arte bederen ez zuten **zuzeneko** bidairik segurtatzen Angelu barnean, auzo gune batetik bestera. Herria

Ni ere ibilaldien eta munduko bakearen alde nengoela, nahiz eta **zuzeneko** ekintzaren kontua ez nuen batere argi ikusten. Fernando Rey

**Zuzeneko** esperientziaz egiaztatu ahal izan zuten uraren indar mirarigilea. Askoren artean

**Zuzeneko** informazioez baliatu zen Zelano. Askoren artean

Bezero ziren printzerriak probintzia bihurtuta zeuden, eta probintziak, berriz, **zuzeneko** eta zentralizaturiko administrazioaren organo bilakatuta. Iñaki Mendiguren

Indiako britainiar gobernuak Ingalaterrako Lege Arrunta sartu zuen [...] bere **zuzeneko** agintea ezarri zuen Indiako lurralde guztietan. Iñaki Mendiguren

PAN Palestinako Aginte Nazionalari luzatzen dizkioten **zuzeneko** diru laguntzak eten egin zituzten atzo Ameriketako Estatu Batuek eta Europako Batzordeak. Berria - Mundua

Nazioarteko banku-sistema errotik inarrosi zuen 1980ko hamarraldiko zorraren krisiari, **zuzeneko** finantzaren berrindartzea jarraitu zitzaion 1990eko hamarraldian. Koro Navarro

**Zuzeneko** zergak, sarreren gaineko zergak edota oinordetzen gaineko zergak, hauek izan daitezke, besteak beste, errenta eta aberastasunaren desberdintasunari aurre egiteko tresna aproposak. Iñaki Heras

1975ean, hirugarren sektoreak nazioarteko **zuzeneko** inbertsioen munduko stockaren %30 inguru baino ez zuen hartzen. Koro Navarro

**Zuzeneko** eta diru-zorroko inbertsioetan. Koro Navarro

Hargailu bakoitzak bereganatutako argiaren uhin-luzeren **zuzeneko** adierazgarria da kolorea. Xabier Olarra

Anarkistak dira, batik bat, orduko errepresioaren **zuzeneko** helburu. Jokin Urain

Asmakuntzek ez dute **zuzeneko** inolako eraginik zientziaren garapenean. Josu Zabaleta

Ugaria da frantziskotar iturrietan Bibliaren erabilera, ez bakarrik **zuzeneko** aipamenetan, baita zeharkako erreferentzietan ere. Askoren artean

Banekian ziur gertaera hark nirekin zuela zerikusia, **zuzeneko** eta zorigaiztoko zerikusia. Xabier Olarra

Ekonomian **zuzeneko** eta zeharkako efektuen eragina zaila baita aurreikusten. Iñaki Heras

Garai hartan pinturari zegokionez nagusi zen irizpidearekin duten **zuzeneko** edo zeharbidezko lotura aztertzen du. Josu Zabaleta

Gizakien interes materialetan oso **zuzeneko** eragina baitu ezagutza arlo honek. Iñaki Heras

Baionak, heldu den larunbatean Montpellier menderatu beharko du neurri bateko lasaitasuna ukan ahal izateko, Montpellier ere **zuzeneko** aurkaria baitute lapurtarrek. Berria - Kirola

Espainiako Estatuak autonomia erkidegoen **zuzeneko** parte-hartzea galarazteko erabiltzen dituen argudioei aurre eginez, [...]. Berria - Euskal Herria

## 2 (izenondo gisa)

Horiek bai harreman **zuzeneko** eta lagunartekoak, bereziki garbiak kanpo-kontsultetako gaixoekin. Xabier Olarra

Dena Jainkoari dagokio jabego bete eta **zuzenekoa**. Joan Mari Lekuona

Handik ordu erdi batera nire nagusi **zuzenekoarekin** nintzen. Matías Múgica

Ustez jainkoaren presentziaren agertze **zuzeneko** edo zeharbidezko baten bidez. Josu Zabaleta

Bere ekintzen bidez adierazten du gazteak jokaera garbi eta **zuzeneko** izango ote den. Elizen arteko biblia

Ez zuen batere zailtasunik zentzumen-mugimenaren mailan; alegia, maila konkretuan, **zuzenekoan**, animaliantzekoan. Xabier Olarra

3.850 langile ditu, **zuzenekoak**. Berria - Ekonomia

Bi eratako zergak daudela esan daiteke: **zuzenekoak**, Ogasunari zuzenean ordaintzen zaizkionak, eta zeharkakoak, artekari baten bidez ordaintzen direnak. Iñaki Heras

Konderriak oinordetzazkoak izan zirenean, kondearen basailu haiek ez ziren izan erregearen basailu **zuzenekoak**. Iñaki Iñurrieta

Usher arrazaren leinuak ez zuela inoiz albo-adar iraunkorrik sortu; beste hitzetan, familiaren ondorengoak denak ziren **zuzenekoak**. Koro Navarro

## 3 emanaldiez mintzatuz, jendaurrean egiten dena edo aldez aurretik grabatu gabe egiten dena.

Ez gara **zuzeneko** emanaldietara joaten, ez gara konturatzen zein zirraragarria den norbaitek musika edo antzerki arloan guri **zuzeneko** emanaldi errepikaezin bat eskaintzeko prest egotea. Berria - Kultura

Bospasei **zuzeneko** kontzertu. Berria - Harian

Ideia hori are gehiago indartu du telebistak, **zuzeneko** transmisioaren bidez. Josu Zabaleta

Goizeko ordu batean, badakizu, **zuzeneko** programa horietako bat, bere arazoak nola konpondu ez dakien jendeak deitzen duena. Pako Aristi

Ongi amaitutako berbaldia arrakastatsua da **zuzeneko** emanaldi orotan. J. Garzia / A. Egaña / J. Sarasua

Lokal askotan **zuzeneko** musikaren gehigarria dute. Harkaitz Cano

Urte osoan hemen programatzen ez diren **zuzeneko** musika berrien erakustaldia ikusteko parada. Berria - Kultura

Badakizue, **zuzeneko** saioen arazoak dira horiek. Jon Arretxe

Albisteak **zuzeneko** ekintza-telefilm bilakatu dira. Txema Ramirez de la Piscina

Bartzelonan urtarrilean emandako kontzertua **zuzeneko** disko batean argitaratu du Fermin Muguruzak. Berria - Kultura

Ez da Benito Lertxundi **zuzeneko** diskoen zalea. Berria - Kultura

Irratiak ez zuen gezurrik esan, **zuzeneko** antzezpen sinesgarri baterako bide baino ez zen izan. Iñigo Aranbarri

Irratsaioen eta **zuzeneko** irakurketen bitartez. Koro Navarro

*Reggae*aren, *rhytm n'blues*-aren, *dancehall*aren eta *lovers rock*-aren elementuekin egiten du bere musika, beti **zuzeneko** instrumentazioa erabiliz, ez baitu gustuko soinu elektronikoa. Berria - Kultura

Telebista kate guztien eta webgune ugariren aurrean **zuzeneko** 51 minutuko agerraldia egin zuen. Berria - Mundua

Kirol taldeekin harremanak garatu, **zuzeneko** kirol saioak antolatu. Edorta Jimenez

Ez da atzo goizekoa **zuzenekoak** bailiran saltzen dizkiguten telesaio aurrez grabatuen asmakuntza. Harkaitz Cano

Bazekien eta edozertarako aukera nuela berez, programa **zuzenekoa** izanik. Joxerra Garzia

**4** (izen gisa)

Diskoa gauza bat da eta **zuzenekoa** beste bat. Berria - Kultura

Nola moldatu zarete **zuzenekoa** prestatzeko? Iaz kaleratu zuen azken lana, Altxerri tabernan grabatutako **zuzenekoa**. Berria - Kultura

Ohikoena, hamarretan emititzekoa den saioa zortzietan grabatu eta **"zuzeneko** faltsua" bezala ondoren emititzea izaten da, akats eta guzti, akats hauek ikaragarriak izan ezean behintzat. Harkaitz Cano

Euskal tradizioa eta gaskoia uztartzen ditu, eta Mendebaldeko Pirinioen bi aldeetako dantza eta doinuak eskaintzen ditu **zuzeneko** bizi-bizian. Berria - Kultura

**Zuzeneko** indartsua prestatu nahi dugu, eta horretarako egingo dugu lan. Berria - Kultura

1989an egin genuen azken **zuzenekoa**. Berria - Kultura

· 1.400 talde aurkeztu dira eta **zuzeneko** atalean europar talde ugari izango dira. Berria - Kultura

**5 *zuzen-zuzeneko*** *izlag*

Kode sinple batzuk aski ziratekeen bizitzaren alderdi **zuzen-zuzenekoei** buruzko informaziotik partekatu beharrekoa tratatzeko. Juan Garzia

Eta hara non, di-da, eskuinez **zuzen-zuzeneko** muturreko bat jaurti dion. Koldo Biguri

Haren ikuspegiak, nire irudiko, balio berezia du, munduaren ikuspegi **zuzen-zuzenekoa** eta kontzeptu landu gabea helarazten baitizkigu. Xabier Olarra

Bere testigantza, beraz, **zuzen-zuzenekoa** da. Askoren artean

**hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**

**komertsio zuzeneko** (3); **nazioarteko zuzeneko inbertsio** (3); **nazioarteko zuzeneko inbertsioa** (3); **nazioarteko zuzeneko inbertsioak** (15); **nazioarteko zuzeneko inbertsioei** (4); **nazioarteko zuzeneko inbertsioen** (55); **zuzen zuzeneko** (4)

**zuzeneko diru** (4); **zuzeneko disko** (20); **zuzeneko disko hau** (3); **zuzeneko diskoa** (13)

**zuzeneko ekintza** (6); **zuzeneko elkarrizketa** (3); **zuzeneko emanaldi** (8); **zuzeneko emanaldia** (11); **zuzeneko emanaldiak** (8); **zuzeneko emanaldien** (3); **zuzeneko emanaldietan** (18); **zuzeneko emanaldietara** (3); **zuzeneko eta zeharkako** (9); **zuzeneko harremana** (6); **zuzeneko harremanik** (3); **zuzeneko hiru** (4)

**zuzeneko inbertsio** (7); **zuzeneko inbertsio gurutzatuak** (3); **zuzeneko inbertsioa** (5); **zuzeneko inbertsioak** (19); **zuzeneko inbertsioei** (4); **zuzeneko inbertsioen** (55); **zuzeneko inbertsioen fluxuen** (4); **zuzeneko inbertsioen munduko** (4); **zuzeneko inbertsioen parte** (5); **zuzeneko informazioa** (3); **zuzeneko kideek** (6); **zuzeneko kideen** (3); **zuzeneko laguntzak** (3); **zuzeneko lan** (3); **zuzeneko lan bat** (3); **zuzeneko lotura** (3); **zuzeneko musika** (18); **zuzeneko musikarekin** (6)

**zuzeneko osagai** (4); **zuzeneko parte** (4); **zuzeneko parte hartzea** (3)

**zuzen zuzenekoa** (3)

---

## zuzenekotasun *iz* zuzenekoa denaren nolakotasuna.

Kalekotasun, **zuzenekotasun** eta taldekotasun hau berezkoa du bertsolaritzak, hor sortzen da sortzaileen eta entzuleriaren arteko konplizitatea, bat-bateko bertso-sorkuntzarako ezinbesteko orea. J. Garzia / A. Egaña / J. Sarasua

Templeren artikuluak irakurri nituenean (eta haren artikulu autobiografiko mordoxka), berehala aurkitu nuen halako xehetasun eta sendotasun bat -**zuzenekotasuna**-, iritzia aldarazi zidana. Xabier Olarra

---

## zuzeneste *iz* zuzentzat jotzea, zuzentzat hartzea.

Hizkuntz teoriari buruzko eztabaida honetan zehar daukagun kezka nagusia gramatiken **zuzenestea** da. Itziar Laka

Horrelako **zuzenesteak** behin-behinekoa izan behar du nahitaez, gramatikaren atal bat soiltzean beste bat konplexuago bihur genezakeelako. Itziar Laka

---

## zuzenetsi, zuzenets, zuzenesten du *ad* zuzentzat jo, zuzentzat hartu. ik **onetsi**.

Arrazoia kendu nahi al didazu eta ni gaitzetsi zeure burua **zuzenesteko**? Elizen arteko biblia

Uste dut hausnarketa hauek argiro **zuzenesten** dutela gorago egin dugun baieztapena, hots, osagai-egituran soilik oinarritutako ereduak desegokiak direla funtsean. Itziar Laka

Abrahamek sinetsi egin zuen Jainkoarengan eta, horregatik, Jainkoak **zuzenetsi** egin zuen. Elizen arteko biblia

Zerbait gertatu zen, nire ustez garbiki frogatzen zuena Probidentziak berak **zuzenesten** zuela nire asmoa. Matías Múgica

Laugarren argudio nagusiak, erakusteko ez dela saiatu behar lehiatzera gure auzia Espainian berean epai dadin ez du bakarrik frogatzen horren **zuzenesteko** ez dugula arrazoi funtsezkorik, baina alderantziz anitz arrazoi badela auziaren ez hor epaitzeko. Piarres Xarriton

Hala nola, helburuak ez duela nehoiz edozein helbide **zuzenesten** eta gainera, baliabide gaizto batek kutsatzen duela helburu zuzena dioten printzipio nagusiak laster ahantziak zituzten zenbaitek, apezgaitegitik atera orduko. Piarres Xarriton

**2** zuritu.

Beheititze hori **zuzenetsi** du auzapezak erranez, sei urtez segidan beti goititu duela elkarteen sustengua, eta izariz kanpoko heinera heldua zela. Herria

---

## zuzenezin *izond* ezin zuzenduzkoa.

Askotan esan zioten ez zela logikoa norberak bere galderei ozenki erantzutea, baina Angieri **zuzenezina** gertatzen zitzaion eta bere nortasunaren zatia zela irizten zion. Iñaki Zabaleta

Alde batetik, norberak bere gogo-egoerak ziurtasun osoz eta modu **zuzenezinean** ezagutzea, eta, bestetik, besteen gogo-egoerei buruz ziurtasunik ez izatea. Askoren artean

Ba al dago gauza bati buruzko ezagutza ziur eta **zuzenezinik**, norberaren gogo-egoerak esaterako? Askoren artean

---

## zuzenezko 1 *izlag* zuzen denaren araberakoa.

Irakeko giza talde guztien artean finka daitekeen hautsi-mautsi bat litzateke guztiz egokiena, horrek bermatuko bailuke **zuzenezkoa** eta sinesgarria litzatekeen anarteko gobernu baten eraketa. Berria - Mundua

Ausartzen naiz zure Handitasunari bidaltzera delako kausaren artikulu guztiz garrantzitsu batez ene **zuzenezko** aburua eta hori isileko bidetik, nehork jakin ez dezan eta horrela Jauna hobeki zerbitzatua izan dadin. Piarres Xarriton

Euskal Preso Politikoen Kolektiboak, errefuxiatuek eta iheslariek Euskal Herriko gatazka politikoaren konponbidean izan behar duten lehentasunezko eta **zuzenezko** partaidetza eta lana aldarrikatu nahi dugu. Berria - Euskal Herria

**2** (izenonedo gisa)

Israelekiko harremanak bi elemenduk baldintzatzen dituzte: nazioarteko ebazpenak betetzea eta agintari arabiar guztiek, palestinarrek barne, ontzat hartuko luketen Ekialde Hurbileko gatazkaren konponbide orokor eta **zuzenezko** bat. Berria - Mundua

---

# **zuzengabe** 1 *izond* zuzen denaren aurkakoa. ik **bidegabe**.

Alcoleako bizitzaren ankertasuna, aberatsek txiroei ezartzen zieten esplotazio **zuzengabea**, instintu sozialik eza, [...]. Josu Zabaleta

Epai **zuzengabeak** eman dituzu, errugabeak kondenatuz eta errudunak askatuz. Elizen arteko biblia

Haur errugabeen sarraski **zuzengabeaz** eta Jaunaren kontra botatako biraoez oroitu eta gaiztakeriari zion gorrotoa ager zezala. Elizen arteko biblia

Begira zer dioen epaile **zuzengabeak**. Elizen arteko biblia

Ausartuko al da inor lege hauek **zuzengabeak** edota baliogabeak direla esatera? Imanol Unzurrunzaga

Lehen Zatiko Eranskinean hitz eman nuen esplikatzea zer den gorespena eta zer gaitzespena, zer meritua eta zer bekatua, zer zuzena eta zer **zuzengabea**. Piarres Xarriton

Kasu denetan zuzena edo **zuzengabea** dena erregelaren arabera jakin ahal izan behar da, gure eginbeharrekin zerikusia baitu. Ibon Uribarri

**2** (adizlagun gisa) ik **zuzengabeki**.

Izan ere, neurri faltsuak erabiliz **zuzengabe** jokatzen duena higuingarri zaio Jaunari zuen Jainkoari. Elizen arteko biblia

«Terrorismoa sustatzeaz **zuzengabe** akusatua» izan zela Libia. Berria - Mundua

**3** (izen gisa)

Honen argitan nahiago ditugu bizidunak bizigabeak baino, sentiberak sentitzen ez dutenak baino, adimendunak irrazionalak baino, betikoak hilkorrak baino, ahaltsuak ezinduak baino, zuzenak **zuzengabeak** baino, ederrak itsusiak baino. Hark zintzoentzat eta gaiztoentzat ateratzen baitu eguzkia, eta zuzenentzat eta **zuzengabeentzat** isurtzen euria. Imanol Unzurrunzaga

Itxaropena ematen dio ahulari eta ahoa ixten **zuzengabeari**. Elizen arteko biblia

**Zuzengabeak** jarrai beza zuzengabekerian, eta zikinak zikinkerian; zintzoak jarrai beza zintzo izaten, eta Jainkoarena denak Jainkoarena izaten. Elizen arteko biblia

**4** ***zuzengabeko*** *izlag*

Zoritxarrekoak **zuzengabeko** legeak ematen eta jasanezineko dekretuak idazten dituztenak! Elizen arteko biblia

Peter Cherif frantziarraren abokatuak **«zuzengabeko** atxiloketa eta gatibu atxikitze» batentzako justizia denuntzia egin zuela iragarri zuen atzo. Berria - Mundua

Itxuragabeko eta **zuzengabeko** egoera hortara ez heltzeko administrazio batzordeak frantses barneko ministeritzak argituriko "auzapezaren gida" irakurtzen ahal zuen: [...]. Herria

---

# **zuzengabekeria** *iz* egite zuzengabea; zuzengabetasun gaitzesgarria.

-Egia da **zuzengabekeria** horrek heriotza baino ez duela merezi. Patxi Zubizarreta

Horrez gainera, Kuban usatar militarren batek **zuzengabekeriaren** bat egin baleza, balizko hori militar usatarrek epaitzeko eskubidea ere adosturik dute. Edorta Jimenez

Alderantziz, beste norbaiti harena den zerbaiten beretzetik eta ebastetik sortzen den kostuma deitzen da bizioa eta **zuzengabekeria** edo bidegabekeria. Piarres Xarriton

Zuzenbidea espero zuen harengandik, eta horra: **zuzengabekeria**! Justizia espero zuen, eta horra: aieneak! Elizen arteko biblia

**Zuzengabekeriaz**, txarkeriaz, diru-gosez eta gaiztakeriaz josiak daude. Honezkero, zuzengabeak jarrai beza **zuzengabekerian**, eta zikinak zikinkerian; zintzoak jarrai beza zintzo izaten, eta Jainkoarena denak Jainkoarena izaten. Elizen arteko biblia

Ikusten ari gara Jainkoak bere haserrea agertzen duela gizon-emakume guztien gain zerutik, sinesgabe eta zuzengabe direlako, eta beren **zuzengabekeriaz** egia ito egin dutelako. Elizen arteko biblia

Besteen osasuna **zuzengabekeria** bat bezala hartzen du. Piarres Aintziart

---

# **zuzengabeki** *izlag* zuzen denaren aurka. ik **zuzengabe 2**.

Berezkoen arabera, 7 pilotari **zuzengabeki** baztertuak izan dira. Herria

Hona non oraingoan **zuzengabeki** belzten gaituzten ni neu eta ene etxekoak, eta ez nornahik, baina dirudienez, ene herritar batzuk. Piarres Xarriton

-Zergatik jo du berorrek ene laguna hain **zuzengabeki**? Joan Mari Irigoien

Hortaz, sufritzen duen inork ez badu **zuzengabeki** sufritzen, [...] ondorioz, Jaungoikoa ez da inolaz ere lehen motako gaitzaren egilea, bai, ostera, bigarren motako gaitzarena. Imanol Unzurrunzaga

---

# **zuzengabetasun** *iz* zuzengabea denaren nolakotasuna.

Izadiaren egoera **zuzengabetasunaren** eta bortizkeriaren egoera da eta utzi egin behar da. Ibon Uribarri

Osorik ziurra da inork ez duela inoiz jabego honen **zuzengabetasuna** frogatuko. Ibon Uribarri

Diruaren barreiatzearen **zuzengabetasun** bermatua baino egokiagorik ez zen, batzuk zoriontsu, besteak errabiaz kexu, eskualde baten kudeatzeko. Itxaro Borda

---

# **zuzengarri** 1 *izond* zuzen daitekeena, zuzentzeko modukoa.

Ildo horretan, kritikatu zuen PP eta PSE-EEren forma akatsak «onartezinak» direla Hirukoarentzat, eta SArenak, berriz, **«zuzengarriak»** direla. Berria - Euskal Herria

Justizia ministroaren arabera, «legez kanpokoa» litzatekeen herri galdeketa «ordenamendu juridikoaren bidez guztiz **zuzengarria**» litzateke. Berria - Euskal Herria

Horregatik, beharbada, leienda honetako apaizaren kontestua ere, joera beltz haien beldurgarri edo **zuzengarri**. Patziku Perurena

**2** *iz* zentzagarria, zigorra.

Berekin bezain gogorra zen ikasleekin, **zuzengarririk** gabe baina. Anton Garikano

Haiek eskainitako informazioari lotsagabekeria irizten zion, eta **zuzengarri** batzuk antolatu zituen. Anton Garikano

---

# **zuzengune** *(orobat* ***zuzenune*** *g.er.) iz* bide bateko zati zuzena.

Zirkuituak **zuzenguneak** ditu nagusiki, eta bihurgune azkarrak. Berria - Kirola

Gilles Villeneuve zirkuitua **zuzengune** eta txikane lotura bat da funtsean. Berria - Kirola

Azken **zuzenguneak** 200 metro eskas zituen, eta erabakigarria zen hara iritsi aurretik zegoen bihurgune zitalean tropel buruan jartzea. Berria - Kirola

**Zuzengune** horretan hautsi dira azken urteetan txapelketako abiadura errekor gehienak. Euskal Y-ak, Andoain parean, iparrera egingo luke, Santa Barbara eta Oriamendi auzoetako mendebaldeko mendi magalen lurpetik; Miramonera iritsi eta ekialdera hartuko luke; eta kilometro bateko **zuzengune** baten bitartez Anoetako lurpeko geltokira iritsiko litzateke. Berria - Kirola

Xerezen badira bi **zuzengune** luze, eta, oraindik ere Honda RC211V motoa hobea denez, Yamahari eta Rossiri ahalegin tekniko handia egitea eskatzen dio horrek. Berria

- Kirola

Gaztelako paraje lehor batean gertatu zen dena, **zuzenune** amaigabeek erdibitzen dituzten herri txiki eta bakartien monotoniara menderatutako paisaje baten erdian. Pako Aristi

---

**zuzenka** *adlag* zuzenean.

Adrien eta Michel Tolosan jaitsi ziren, beren bidaiaren jo-muga Port-Vendres zelako eta handik Oranera **zuzenka** . Itxaro Borda

Segur nuxu xure xahartasuna etxeko kontura doala **zuzenka** ! Itxaro Borda

Ontzi gidariek uste zuten Tour-Tan zelakoak zirela eta **zuzenka** hondamendira segitzen zituzten Itxaro Borda

---

**zuzenketa** **1** *iz* oker-edo esan dena edo dagoena zuzentzea.

Zalantza, saio eta **zuzenketa** askoren ondoren baizik ez du ikasten haurrak bere inguruan entzuten duen guztia ebakitzen. Isabel Arrigain

Argumentu hauek azkenean bilatzen zena eskuratzen ez badute ere, dena dela, beti onuragarria eta gure judizioen **zuzenketarako** zerbitzagarria den zerbait eskuratzen dute. Ibon Uribarri

Hutsegiteen zuzentzeaz eta **zuzenketen** hutsegiteaz aldez aurretik eduki zuen elkarrizketa labirintiko samarrean. Jon Alonso

Demagun andereñoak barru-barrutik bizi duela euskararen kalitatearekiko kezka, eta honako **zuzenketa** hau egiten diola haurrari: [...]. Joxerra Garzia

Beti estimatuko dugu, ostera, tankera analitikoaren eskuzabaltasuna eta zintzotasuna, Hempelek bere artikuluetako hainbat ideiari egindako berraztertze eta **zuzenketa** liburuko oin-oharretan ikusten dena. Askoren artean

Etnozentrismoaren behar-beharrezko **zuzenketa** bat izan zen erlatibismoa gure mendearen lehen erdian; baina, batzuen ustez, **"zuzenketaren zuzenketa** da orain premiatsuki beharra dagoena". Joxe Azurmendi

Txostenak 199 **zuzenketa** jaso ditu. Berria - Euskal Herria

Txostenari aurkeztutako **zuzenketek** gogoeta eta eztabaida egon dela, eta egongo dela, ageri dute. Berria - Ekonomia

Elkarrizketaren berri eman bezain laster, Eskoziako BBCk hainbat dei jaso zituen, Poliziak esandakoak gogor salatzen eta BBCri **zuzenketa** bat eskatzen. Berria - Kirola

**Zuzenketa** ez ezik, barkamena eskatzea exijitu zioten BBCri. Berria - Kirola

**2** (izenondo eta izenlagunekin)

**Zuzenketa** berantiarrak irri motz bat eragin zion, ni are ergelago sentiaraziz. Aingeru Epaltza

**Zuzenketa** erraz bat nahikoa izango da gramatikariaren tresna horiei berez legozkiekeen zentzu bidezkoa eta zehatza emateko. Isabel Arrigain

Gizakiaren begia izaten duela beti gainetik, hori ondo frogatua dagoela ikusten da, egia esan, Vitruviok **zuzenketa** optikoak nola onartzen dituen ikusita, hautemangarritasunaren mesedetan moteldu eta aldatu egiten baitute "proportzioaren" zurruntasun geometrikoa. Santiago Iruretagoiena

Sistema izatez kaotiko baten partezko **zuzenketa** bat denez, hizkuntzaren izaerak berak inposaturiko ikuspegia onartzen da. Isabel Arrigain

Gogaitzen dira **zuzenketarik** txikiena ere egiten bazaie eta aurkituko dituzte aitzakiarik faltsuenak. Joan Mari Lekuona

Sei hilabeteko **zuzenketa** judizialpean ezarria izan baitzen SAFAM altzairu lantegia joan den otsailean. Herria

Poundek **zuzenketa** publikoa egingo ote duen da orain kontua. Berria - Kirola

**3** (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

D'Addosiok auzitegietako paperetan ageri diren zerri, zezen, zaldi, oilar, zakur, aker etabøen auzi asko aipatzen ditu, haien zentzatze eta jokabide **zuzenketarako** izugarri mesedegarriak, uste izatekoa denez. Xabier Olarra

Zoritxarrez, begiko material optikoen artean ez dago kolore- **zuzenketa** egina duen kristalinorik. Irene Aldasoro

Batuketa- **zuzenketak** egiterakoan okerren bat edo beste egingo zutela aurrez banekien. Joxerra Garzia

Hizkuntza **zuzenketa** txikiak gorabehera. Bego Montorio

**4** idazlan eta kidekoetan egiten den zuzentzea.

Raimundo Silvak badu, liburu baten **zuzenketa** bukatzen duenean, bere buruari egun bateko atsedenaldia emateko ohitura osasungarria. Jon Alonso

Argitaletxetik deitzen zioten, **zuzenketa** zertan zen jakin nahi zuten. Jon Alonso

Austrian idazten den alemanari **zuzenketak** egiten dizkietela Alemanian argitaratuz gero. Edorta Jimenez

Gero, **zuzenketak** egin eta azkenik inprimatu behar da. Koldo Biguri

Bere ikasliburuaren edizio berri baten **zuzenketak** egiten laguntzen nion, hartara diru pixar bat irabaztearren. Joxe Austin Arrieta

Ez du merezi, egilearen **zuzenketak** eginik daude, gainerakoa azken **zuzenketaren** errutina baizik ez da. Jon Alonso

Balzac-ek berrikusten zituen probez oroitzen ari naiz, hura **zuzenketa** eta gehiketen piroteknia itsugarria. Jon Alonso

Azken berrikustea eta aurkezpena: arreta handiko berrirakurketa eta **zuzenketa** , ezaugarri formalak, inprimatzea, koadernaketa. Askoren artean

**Zuzenketak** eta berridazketak egiteko (ortografia, gramatika...). bizpahiru urte emanen zituen jadanik inprimatu liburuen **zuzenketak** egiteko eta beste berri batzuen inprimatzeko. Askoren artean

Biharamunean, **zuzenketa** argitara eman behar izan zuten, orrialde baten bazter-bazterrean eta letra txikiz: "atzo zina genion lekuan ezina behar zuen". Joxerra Garzia

**5** (izenondo eta izenlagunekin)

Zerikusirik ba al du horrek **zuzenketa** tipografikoarekin. Jon Alonso

Esku artatsuz eta amodioz eginiko nire lehen poemak erakusten nizkion, eta berak **zuzenketa** gramatikalak, lexikalak eta estiloari zegozkionak egiten zizkidan, euskaldun berria nintzen hartan. Berria - Kultura

Hori argitaletxeak gordetzen du lehen **zuzenketa** bukatu ondoren. Jon Alonso

Azken **zuzenketak** egin, ohiko klabea idatzi eta behar baino indar handiagoaz zanpatu nuen itzulera-tekla. Aingeru Epaltza

Nik neuk egingo dut azken **zuzenketa** hori. Jon Alonso

Adostutako **zuzenketen** bidez, besteak beste, lan istripuei aurre egiteko milioi bat euro gehiago bideratuko dira. Berria - Harian

Nire testua muntatu eta gero azken orduko **zuzenketekin** zoratu dudan Pantxike Agirreri. Iñigo Aranbarri

**6** (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

Litekeena da, baita ere, **zuzenketa** fase horretan egotea, zeinean idazle batzuk -zoritxarrez ez denak- luzatu egiten diren. Ramon Saizarbitoria

Hemendik aurrera **zuzenketa** -lanak argibide hauetan esaten denaren arabera bideratuko dira. Jon Alonso

Lana aurkezterakoan akademiaren **zuzenketa** -irizpideak kontuan izan behar dira. Askoren artean

Beren eskuizkribuak eta **zuzenketa** -orriak aztertzen. Anton Garikano

**7** (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa)

Aralarreko Aintzane Ezenarrok aurkeztu zuen proposamena eta, horren aurrean, EAJk eta EAk adostutako transakzio- **zuzenketa** onartu zuten Gipuzkoako Batzar Nagusiek. Berria - Euskal Herria

Bihar ez badut liburu hori inprentan sartzen kristorenak eta bi gertatuko dira, eta dena proba- **zuzenketarengatik** . Jon Alonso

Ez da hil ala biziko gauza, oker- **zuzenketa** batek konponduko du afera. Jon Alonso

Ongi da, liburua oker- **zuzenketa** batez zabalduko da. Jon Alonso

**8** legegai batean eta kidekoetan, egiten den aldaketa proposamena.

**Zuzenketek** zuzentarau polemikoa arintzen dute, baina eduki nagusiak bere horretan dirau. Berria - Harian

PSOEk aurkeztu asmo dituen **zuzenketak** salatzea da kanpainaren helburua. Berria - Harian

Egitasmoari 197 **zuzenketa** aurkeztu zizkieten alderdiek: PPk 71, Sozialista Abertzaleek 51, PSE-EEk 51 eta EAJ, EA eta EB-IUk 15. Berria - Euskal Herria

UPNk eta CDNk azken unean *in voce* aurkeztutako **zuzenketak** piztu zuen Aralarrekoen eta oposizioko gainontzeko kideen haserrea atzoko eztabaidan. Berria - Euskal Herria

75 **zuzenketa** aurkeztu dizkiote afiliatuek lehenengo ponentziari eta 169 bigarrenari. Berria - Ekonomia

Gipuzkoako Batzar Nagusiek onartutako ez arauzko proposamenari **zuzenketa** bat aurkeztu zion Gipuzkoako PSE-EEk. Berria - Kultura

Txinako Herri Asanblea Nazionalak **zuzenketa** hori ezarri nahi du 1982. urtean onartu zen Konstituzioaren 33. artikuluan. Berria - Mundua

Oposizioak 3.800 **zuzenketa** jarri zizkion enpresa publikoak pribatizatzeko proposamenari. Berria - Ekonomia

Sexu bereko bikoteen arteko ezkontzak galarazteko, Konstituzioari **zuzenketa** bat egitea onartu zuen herenegun Massachusettseko Legebiltzarrak. Berria - Harian

Nafarroako Parlamentuko taldeek proiektuari egindako **zuzenketak** aztertzeko prest agertu da Etxebizitza kontseilaria. Berria - Euskal Herria

245 **zuzenketa** ailegatu dira osoko bilerara. Berria - Harian

Imazen arabera, PSOErekin hitzartutako **zuzenketek** bermatuko dute proiektua 2010. urterako amaituko dela. Berria - Harian

PP, PSE eta SAren **zuzenketak** izan zituzten eztabaidagai Legebiltzarreko Erakunde eta Herrizaingo Batzordean. Berria - Euskal Herria

Eusko Legebiltzarrean 42 **zuzenketa** proposatu ditu EAk asmo horrekin. Berria - Euskal Herria

SAk bere **zuzenketei** eutsiko die «testua hobetu nahian». Berria - Euskal Herria

Jarrera kontrajarriak dituzte EAJk, EAk eta EB-Berdeek, eta atzo nork bere **zuzenketak** defendatu zituen. Berria - Euskal Herria

**Zuzenketak** eztabaidatzen hasiko dira gaur Legebiltzarrean. Berria - Euskal Herria

PPk eta PSE-EEk **zuzenketa** aintzat hartzearen aurka bozkatu zuten, Sozialista Abertzaleak taldea «deseginda» dagoela argudiatuta. Berria - Euskal Herria

UPNk eta CDNk gehiengo osoa dute, 27 boto, eta oposizioaren **zuzenketa** bakarra onartu zuten. Berria - Harian

Eusko Jaurlaritza osatzen duten alderdien bi **zuzenketa** baino ez ziren onartu, SAren abstentzioarekin. Berria - Euskal Herria

**Zuzenketak** atzera botata, aurrera doa aurrekontuen tramitazioa. Berria - Euskal Herria

Azkenean ez zen **zuzenketa** bat bera ere aurrera atera, EAJ, EA eta EB-IUk guztien aurka bozkatu baitzuen. Berria - Euskal Herria

Guztira, hiru puntu zituen Ezker Abertzalearen **zuzenketak**, eta atzo horietatik bi onartu ziren. Berria - Euskal Herria

«Ziklo autonomikoaren amaiera iritsi dela jabeturik, lehentasunezko helburuak izan behar du gure herriak bizi duen gatazka politiko eta armatua behin betiko gainditzea», **zuzenketaren** laugarren atalean azaltzen denez. Berria - Harian

EB-Berdeetako legebiltzarkideak dio **zuzenketen** araberako botoa emango diotela. Berria - Euskal Herria

**Zuzenketek** jatorrizko testua «erradikalizatu» nahi dutela salatu zuen atzo Leopoldo Barreda PPko eledunak. Berria - Euskal Herria

Martxoan, zenbait kongresukidek Byrd **Zuzenketa** bertan behera uzteko lege proiekturako proposamena aurkeztu zuten, baina ez atzera ez aurrera geldituta dago kontua. Berria - Ekonomia

Byrd **Zuzenketa** 2000. urtean onartu zuten AEBek, eta hura bultzatu zuen Robert Byrd senatariaren izena darama. Berria - Ekonomia

## **9** (izenondo eta izenlagunekin)

Estatu Batuetako Senatuak atzera bota zuen atzo sexu bereko pertsonen arteko ezkontza debekatzea helburu zuen **zuzenketa** konstituzionala. Berria - Gaiak

Badira, ordea, **zuzenketa** berriarekin bat ez datozenak ere. Berria - Gaiak

Edonola ere, «ez dago txosten politikoari eginiko **zuzenketa** ideologiko handirik», esan zuen. Berria - Euskal Herria

Atal horri aurkeztu zaion **zuzenketa** kritikoenak lau kapituluetatik bi kentzea proposatzen du. Berria - Ekonomia

EABk eta Aralarrek erdibideko **zuzenketa** bat hitzartu zuten, baina ez zuten babes nahikorik erdietsi. Berria - Euskal Herria

Bilkuran ziren talde politiko guztiek [...] erdibideko **zuzenketa** hitzartu zuten eta metadona darabilten programetan nahiz antzekoetan porrot egindako droga-hartzaileekin erabiltzea eskatu zuten. Berria - Euskal Herria

Askatasunak Hirukoaren hipokrisia salatu nahi du, azaleko **zuzenketa** honekin beraien aurpegia garbitu nahi dutelako. Berria - Euskal Herria

Saio haietan, 10 lagun (produktore bat, bi zuzendari eta zazpi gidoilari) Bosgarren **Zuzenketaren** babespean jarri ziren. Berria - Kultura

## **10** (hitz elkartuetan)

Legebiltzarrak atzera bota zuen kontserbadoreek egindako **zuzenketa** proposamena. Berria - Gaiak

Nolanahi ere, **zuzenketa** proposamena 2006 urtean jarriko da indarrean, betiere aurrez beste bi urratsak gainditzen baditu. Berria - Gaiak

· Buruko arazoak dituzten «gaixo arriskutsuak» atxilotu ahal izango dira Erresuma Batuan, atzo aurkeztutako lege **zuzenketa** onartzen bada. Berria - Gaiak

Gay eta lesbianen eskubideen aldeko erakundeen arabera, ordea, lege **zuzenketa** ez zen beharrezkoa. Berria - Gaiak

## **11** ***atalkako zuzenketa*** *(20 agerraldi 9 artikulutan)* zuzenketa partziala.

Hain justu ere, Sozialista Abertzaleak taldeak 7 **atalkako zuzenketa** aurkeztu dizkio testuari, EAJk 17, EAk 42 eta EB-IUk 69. Berria - Euskal Herria

Eztabaidaren hasieran iragarri zuen **atalkako zuzenketen** bitartez defendituko zutela euren proposamena. Berria - Euskal Herria

**Atalkako zuzenketak** eztabaidatzea eta osoko bilkuran eztabaidatuko den azken txostena egitea. Berria - Euskal Herria

Aste honetan, EAJren legebiltzarkide taldeak Eusko Jaurlaritzaren Estatutu Proposamenari **atalkako zuzenketak** aurkeztu dizkio. Berria - Euskal Herria

## **12** ***osoko zuzenketa*** *(234 agerraldi, liburu 1 eta 106 artikulutan)*

Bost alderdik aurkeztu diete **osoko zuzenketa** aurrekontuei PP, CiU, EAJ, BNG eta EA, baina IUren eta ERCren sostenguarekin denak atzera botako ditu PSOEk. Berria - Euskal Herria

Ibarretxeren Planari jarritako **osoko zuzenketa** aurkeztu zuen atzo Sozialista Abertzaleak taldeak. Berria - Euskal Herria

PPk eta Sozialista Abertzaleak taldeek **osoko zuzenketak** egin dituzte, eta PSE-EEk ehunka zuzenketa aurkeztu ditu. Berria - Euskal Herria

Nafarroako aurrekontuei ezarritako **osoko zuzenketak** ez dituzte onartu. Berria - Euskal Herria

**Osoko zuzenketa** gisa sailkatu zion Mahaiak ekimena eta, eztabaidaren egunean, erretiratu egin zuen. Berria - Euskal Herria

Martxoko autoaren aurrean, bere testuari **osoko zuzenketa** aurkeztu zion Gobernuak berak. Edurne Elizondo

**Osoko zuzenketak** aurkeztu dituzten taldeek [...] beren zuzenketak gordeko balituzte, haien eztabaida osoko bilkuran egingo litzateke. Berria - Euskal Herria

Haiek proposaturiko **osoko zuzenketa** «terrorismoaren kontrako itunaren espirituaren aurkakoa» dela dio PPren oharrak. Berria - Euskal Herria

Sozialistek, eurek aurkeztutako zuzenketetan oinarri-oinarrizkoak diren hiru proposamen Etxebizitza Sailak aintzat hartu ezean, kontrako botoa emango dute batzarrean **osoko zuzenketak** aztertzen direnean. Berria - Euskal Herria

EB-IUk **osoko zuzenketa** tramiterako ez onartzea ez zutela espero aitortu zuen. Berria - Euskal Herria

SAren ustez, bere **osoko zuzenketa** aintzat ez hartzea «oinarrizko eskubideen urraketa nabarmena» izan da. Berria - Euskal Herria

Lan-talde horrek **osoko zuzenketak** eztabaidatu eta bozkatu ostean, adituen ekarpenak jasotzeko epea zabaldu zuen, Jaurlaritzaren egitasmoa osatze aldera. Berria - Euskal Herria

**Osoko zuzenketez** gain, 1.227 zuzenketa partzial aurkeztu dituzte: PSNk 171, IUN-NEBk 201, Aralarrek 247; EAk 313, eta EAJk 264. Berria - Euskal Herria

Madrazo «pozik» agertu zen Jaurlaritzaren egitasmoak **osoko zuzenketak** «gainditzea» lortu duelako. Berria - Euskal Herria

Ika-mika sortu da berriro Eusko Legebiltzarrean, oraingo honetan **osoko zuzenketen** bozketa sistemaren inguruan. Berria - Euskal Herria

## **13** ***osotasunezko zuzenketa*** *(2 agerraldi, artikulu 1ean)* osoko zuzenketa.

SAk, berriz, **osotasunezko zuzenketa** aurkeztu zuen, testu alternatiboaren gisara antolatuta. Berria - Euskal Herria

Atzera egin behar izan zuen atzo, arautegian oinarriturik, horri jarraiki ez baitago legezko proposamenei **osotasunezko zuzenketarik** aurkezterik. Berria - Kirola

## **14** ***zatikako zuzenketa*** *(28 agerraldi, 19 artikulutan)* zuzenketa partziala.

Irailaren 16an Aralarren osoko zuzenketa bat eztabaidatuko dute Parlamentuan; legea atzera botatzen ez badute, gero **zatikako zuzenketak** eztabaidatuko dituzte. Berria - Euskal Herria

EAJk Udalbide elkarteari diru sail bat bideratzeko aurkeztutako **zatikako zuzenketak** ere ez zuen aurrera egin. Berria - Harian

Legebiltzar taldeek aurkeztutako **zatikako zuzenketak** aztertzeko lan taldea sortuko da. Berria - Euskal Herria

SAk eta PPk eutsi egin zieten beren 37 eta 95 **zatikako zuzenketei** ; hala ere, denak bertan behera geratu ziren. Berria - Harian

Euskal Kontseilu Judizialaren eskumenak eta jurisdikzio-organoak zehazten dituzten artikuluei aurkeztutako **zatikako zuzenketak** hizpide izan zituzten atzoko saioan legebiltzar taldeek. Berria - Euskal Herria

### 15 *zuzenketa partzial* (*68 agerraldi 35 artikulutan*)

PPk, berriz, osoko zuzenketa aurkeztu zion txostenari, eta zenbait **zuzenketa partzial** . Berria - Ekonomia

**Zuzenketa partzialak** eztabaidatu bai, baina ez dituzte bozkatu. Berria - Euskal Herria

Sozialista Abertzaleen **zuzenketa partzialak** aztertzen ari ziren unean Juan Maria Atxutxa Legebiltzarreko presidenteak hitza hartu zuen. Berria - Harian

Berdintasunerako Kontseilua eta Emakumearen Euskal Kontseilua eratu beharra agertu du SAk **zuzenketa partzialetan** . Berria - Euskal Herria

Osoko zuzenketaz gain, **zuzenketa partzialak** ere aurkeztuko ditu SA taldeak. Berria - Euskal Herria

Hori dela eta, **zuzenketa partzial** gisa kalifikatua izatea proposatu zuen Bilbaok. Berria - Euskal Herria

Sozialista Abertzaleek, berriz, **osoko zuzenketa** bertan behera utzi eta negoziatzeko eskaintza egin diote Jaurlaritzari . Berria - Euskal Herria

**hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**

**atalkako zuzenketa** (3); **aurkezturiko zuzenketa** (4); **aurkeztutako osoko zuzenketa** (5); **aurkeztutako zuzenketa** (12); **aurkeztutako zuzenketa partzialak** (5)

**egindako zuzenketa** (5); **eginiko zuzenketa** (4); **eginiko zuzenketa partzialak** (3); **erdibideko zuzenketa** (5); **hainbat zuzenketa onartu** (3)

**jarritako osoko zuzenketa** (7); **jarritako zuzenketa** (3); **konstituzioari zuzenketa** (4); **lege zuzenketa** (3)

**oker zuzenketa** (3); **osoko zuzenketa** (142); **osoko zuzenketa atzera** (3); **osoko zuzenketa aurkeztu** (37); **osoko zuzenketa aurkeztuko** (9); **osoko zuzenketa bana** (6); **osoko zuzenketa bat** (6); **osoko zuzenketa bertan** (3); **osoko zuzenketa gisa** (14); **osoko zuzenketa jarri** (6); **osoko zuzenketa moduan** (4); **osoko zuzenketa tramiterako** (6); **ppk osoko zuzenketa** (5); **proposamenaren zuzenketa** (3); **proposamenari osoko zuzenketa** (4); **saren osoko zuzenketa** (4); **saren zuzenketa** (6); **taldearen zuzenketa** (3); **testua osoko zuzenketa** (7)

**zatikako zuzenketa** (5)

**zuzenketa aintzat** (4); **zuzenketa asko** (4); **zuzenketa atzera botatzeko** (3); **zuzenketa aurkeztu** (73); **zuzenketa aurkeztu ditu** (6); **zuzenketa aurkeztu dizkio** (5); **zuzenketa aurkeztu dute** (3); **zuzenketa aurkeztu zioten** (6); **zuzenketa aurkeztuko** (13); **zuzenketa baino gehiago** (3); **zuzenketa bana aurkeztu** (4); **zuzenketa bat aurkeztu** (5); **zuzenketa baten bidez** (5); **zuzenketa batzuk** (10); **zuzenketa bertan behera** (8); **zuzenketa bidez** (3); **zuzenketa bozkatu** (3)

**zuzenketa egin** (13); **zuzenketa egin dizkiote** (3); **zuzenketa egitea** (4); **zuzenketa egiteko** (8); **zuzenketa eskatu** (3); **zuzenketa gisa** (15); **zuzenketa gisa kalifikatzearen** (5); **zuzenketa guztiak** (9)

**zuzenketa horren bidez** (3); **zuzenketa jarri** (12); **zuzenketa judiziala** (3); **zuzenketa judizialean** (3); **zuzenketa lanak** (5); **zuzenketa moduan** (6); **zuzenketa nagusiak** (3)

**zuzenketa onartu** (14); **zuzenketa partzial** (15); **zuzenketa partzial aurkeztu** (11); **zuzenketa partzialak** (33); **zuzenketa partzialak aurkeztu** (4); **zuzenketa partzialak ere** (3); **zuzenketa partzialak eztabaidatu** (3); **zuzenketa partzialak eztabaidatzen** (3); **zuzenketa partzialen** (11); **zuzenketa partzialen eztabaida** (4); **zuzenketa proposamena** (3); **zuzenketa proposatu** (3); **zuzenketa tramitera** (4); **zuzenketa tramiterako** (6); **zuzenketa ugari** (3)

**atalkako zuzenketak** (8); **atalkako zuzenketak aurkeztu** (4); **aurkeztu dizkiote zuzenketak** (3); **aurkeztutako osoko zuzenketak** (8); **aurkeztutako zatikako zuzenketak** (7); **aurkeztutako zuzenketak** (25); **beren zuzenketak** (5)

**egin beharreko zuzenketak** (3); **egindako zuzenketak** (13)

**jarritako zuzenketak** (3)

**oharrak eta zuzenketak** (3); **onartutako zuzenketak** (3); **osoko zuzenketak** (50); **osoko zuzenketak atzera** (10); **osoko zuzenketak aurkeztu** (9); **saren zuzenketak** (4); **testuari zuzenketak** (7); **testuari zuzenketak aurkezteko** (4)

**zatikako zuzenketak** (15); **zatikako zuzenketak eztabaidatuko** (3); **zirriborroari aurkeztutako zuzenketak** (3); **zuzenketak aintzat** (3); **zuzenketak atzera bota** (13); **zuzenketak aurkezteko** (28); **zuzenketak aurkezteko epea** (19); **zuzenketak aurkeztu** (23); **zuzenketak aurkeztu dituzte** (3); **zuzenketak aurkeztu zizkioten** (3); **zuzenketak aztertzeko** (5); **zuzenketak aztertzen** (6); **zuzenketak banan banan** (3)

**zuzenketak egin** (11); **zuzenketak eginez** (3); **zuzenketak egiteko** (8); **zuzenketak egiten** (3); **zuzenketak eztabaidatu** (7); **zuzenketak eztabaidatuko** (5); **zuzenketak eztabaidatuko dituzte** (3); **zuzenketak eztabaidatzeko** (4); **zuzenketak eztabaidatzen** (3)

**zuzenketak onartuko** (3); **zuzenketak onartzen** (3); **zuzenketak proposatzeko** (5); **zuzenketak proposatzeko epea** (4)

**osoko zuzenketan** (5)

**osoko zuzenketaren** (6); **zuzenketaren arabera** (6); **zuzenketaren aurka** (3)

**inolako zuzenketarik** (3); **osoko zuzenketarik** (5); **zuzenketarik aurkeztu** (7); **zuzenketarik egin** (5)

**aurkeztutako zuzenketek** (5)

**aurkeztutako zuzenketekin** (3)

**atalkako zuzenketen** (8); **atalkako zuzenketen eztabaida** (3); **aurkeztu dizkioten zuzenketen** (3); **aurkeztutako osoko zuzenketen** (4); **aurkeztutako zatikako zuzenketen** (5); **osoko zuzenketen** (19); **osoko zuzenketen eztabaida** (10); **osoko zuzenketen eztabaidan** (3); **zatikako zuzenketen** (6)

**zuzenketen artean** (3); **zuzenketen bidez** (5); **zuzenketen bitartez** (4); **zuzenketen eztabaida** (21); **zuzenketen eztabaida amaitu** (3); **zuzenketen eztabaidan** (7); **zuzenketen eztabaidarekin** (7); **zuzenketen eztabaidari** (3)

---

## **zuzenketatxo** *izond* zuzenketa txikia.

Ostiral Santuan Miserere hori bera berriro entzuteko aukera izan omen zuen, eta zenbait **zuzenketatxo** egin ahal izan omen zituen, kapelan ezkutatuta eramandako izkribuan. Imanol Zurutuza

Ezaguna dugu, noski, azpiraturiko arraza ustel hauei autore guztion aldetik dagokien balioespena (euskaldunena, adibidez), eskema horri Ortega-k **zuzenketatxo** bat egiten badio ere, bi arraza geruza horizontalen tokian bat horizontala (garaitua) eta bestea bertikala (konkistatzailea, germaniarra) irudikatuz. Joxe Azurmendi

---

## **zuzenki**[1] *(orobat* ***zuzentki*** *g.er.)* **1** *adlag* itzulinguru edo bitartekorik gabe. ik **zuzen 8; zuzenean**.

Bilboko metroak ere **zuzenki** gune hortara darama. Herria

Bere begi olio kolorekoek **zuzenki** begiratu zidaten. Bernardo Atxaga

Ezinezkoa zen, beraz, zaletasun berri hura **zuzenki** zabaltzea; mezulariak behar ziren, irakurleak, aktoreak, hizlariak. Bernardo Atxaga

Sortzaileak egozentrikoak dira baina kreatzen dutena energia alor bat da, besteengana **zuzenki** doana. Ana Urkiza

Baina galdera bat egingo dizut **zuzenki** . Txillardegi

**Zuzenki** aitortu ez arren, berriro idazkari posturako aurkeztuko dela iradoki zuen Lizarbek. Berria - Euskal Herria

Norbaitek zerbait dastatzen duenean, egiazta dezakeela **zuzenki** bere dastamenaren testigantzaz badakiela gozoa ala kontrakoa den. Imanol Unzurrunzaga

Frantzian gaindi, urte oroz alkoholak 23.000 presuna ditu **zuzenki** hiltzen (xankre, gibelerradura eta bertze eritasun). Herria

Gotzaina edo beste edozein eliz edo herri-agintari izango zen, hau da, erakunde eklesiastikoaren glorian **zuzenki** interesatutako norbait. Bernardo Atxaga

Hautagai batek gutxienez hautesleen %50en babesa behar du **zuzenki** bozak irabazteko. Berria - Mundua

Existentzia ororen gure kontzientzia (izan dadin hautemapenari esker **zuzenki** edo inferentzien bitartez zerbait hautemapenarekin elkarlotuz), berriz, esperientziaren batasunari dagokio guztiz. Ibon Uribarri

Pentsatze orok, ordea, **zuzenki** (directe) nahiz zeharka (indirecte) ezaugarri jakinen bitartez azkenean begiespenetara jo behar du, eta beraz, gugan sentimenera. Ibon Uribarri

Hortik ekartzea zegoen bidaiari haiek guztiak edo inpartzialak edo arerioak zirela; inpartzialak, jukutria edo, hobeto, trajedia hura antzezteko kontratatuak [...] izan ziren neurrian; arerioa, ni, **zuzenki** nahiz zeharbidez, akabatzeko agindua izan zezaketen neurrian. Karlos Linazasoro

Lege enpirikoen arabera **zuzenki** eta osoki bilduak badaude. Ibon Uribarri

Ni neure baitan dagoenaz, hots, kanpoko gauzen nire errepresentazioaz besterik ez naiz kontziente **zuzenki**. Ibon Uribarri

**Zuzenki** doaz tiroak lurrari buruz, jainko baten suzko tua. Xabier Montoia

Laster, koro horren **zuzenki** entzuteko parada ere izanen da: Azkainen, agorrilaren 28 an. Herria

Kantaldi hori da **zuzenki** grabatua izan. Herria

**2** (izenondoen ezkerrean)

Gertaera **zuzenki** pertsonalera lerratuz, oso garbi gogoratzen dut zein lasai ibiltzen nintzen, baita gauez ere, Languedoc-Rousillon-eko haran bakarti eta harritsuetatik paseatzen. Honek esan nahi zuen arazoa ez zela **zuzenki** literarioa, baizik eta etikoa. Bernardo Atxaga

Esakune apodiktiko guztiak (frogagarriak zein **zuzenki** ziurrak direnak) dogmetan eta matemetan sailkatzen ditut. Ibon Uribarri

Hemen gomendatzen denaren **zuzenki** aurkakoa egin behar da irakaskuntza akademikoan. Ibon Uribarri

Haren justifikaziomaila fidagarritasunaren mailaren araberakoa izango da, **zuzenki** proportzionalak baitira. Askoren artean

Baina haren indar fisikoa eta kemen falta **zuzenki** proportzionalak ziren. Fernando Morillo

**3** zuzentasunaren arabera. ik **zuzen 8**.

Bizkitartean gaineratikotzat frogatuko dugu, gure ustez **zuzenki**, ez bakarrik ez dela zilegi, ez gisa, ez onuragarri, baizik eta areago, debekatua dela, desegokia eta kaltegarria. Piarres Xarriton

Delako Marexalaren alderdikoei erakutsi nien gero, ene argudio zuzenez eta ene urratsez, nahiz ez lanik gabe, kontzientzia garbi izan zezaketetela Errege Katolikoek Nafarroa **zuzenki** berena zeukatela sinesten baldin bazuten. Piarres Xarriton

**Zuzenki** bizitzea ontzat ematen duenak eta horretan atsegin hartzen duenak. Imanol Unzurrunzaga

**Zuzenki** jokatu nahi eta ezin baduzu, orduan ez zara zeure buruaren jabe. Imanol Unzurrunzaga

Zuhaurk **zuzenki** eta bidezki aitortu behar izan dizkiozu bere dohainak. Jon Muñoz

Eskubidez egina **zuzenki** egina da segur aski; zuzenbidearen aurka egina, berriz, ezin da eskubidezko bihurtu. Imanol Unzurrunzaga

Jesu Kristo gure Jaunak mundu osoaren denborako nagusitasuna zeukalarik, bere nagusitasun hori **zuzenki** ordenatu zuela izpirituko biziari buruz. Piarres Xarriton

Halako gisaz non gizakiaren arima deitzen ahal baita **zuzenki** arima begetatiboa. Piarres Xarriton

Naturak emandako ahalmenak eraginkortasun handienarekin erabiliz, lana **zuzenkiago** eta zuhurkiago banatzen da. Iñaki Heras

Kasetaritza da, dudarik gabe, ofizio ederrenetarik; bete zazue **zuzenki** euskaldunen eta euskararen onerako. Herria

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
> **zuzenki aipatu** (3); **zuzenki eragiten** (5); **zuzenki handi** (3); **zuzenki hauteman** (3); **zuzenki joan** (4); **zuzenki jokatzen** (3); **zuzenki lotzen** (4); **zuzenki proportzionalak** (3); **zuzenki ziurrak** (4)

---

# zuzenki[2] *iz* lerro zuzen zatia. ik **zuzen 6**.

Zuzen baten **zuzenkia** nahi beste luza daiteke. Jon Muñoz

Luzera jakin bateko zuzen bat hiru **zuzenkitan** ebakitzea, horiekin triangelu angeluzuzen bat eratu ahal izateko moduan. Jon Muñoz

Zirkuluak bere baitan hartzen duen **zuzenkirik** luzeena da diametroa. Jon Muñoz

-Aldea eta diagonala, horra karratu baten bi **zuzenki** nabarmenak! Jon Muñoz

Zirkulu bat ez da absurdoa, oso ongi azaltzen du **zuzenki** baten tarte batek bere muturretako baten inguruan eginiko errotazioaren bidez. Monika Etxebarria

Irudiaren planoaren paralelo dauden **zuzenkien** zabalera, **zuzenki** horiek errealitatean urrunduz joan ahala, txikituz doa irudian. Josu Zabaleta

---

# zuzenkide *iz*

Indarrak **zuzenkidea** du garaitu. Herria

---

# zuzenkiro *izond* zuzenki.

Zeren, batak bestea **zuzenkiro** bultza dezakeenez gero fraide egitera, non hiru zinitz egin ohi baitira, [...] eta zeren zinitzpean egiten den eginkari onak zinitzik gabe egiten denak baino meritu handiagoa baitu, ongi aztertu eta neurtu behar ditu bere izaera eta aiurria. Patxi Altuna

Horregatik, kristauek **zuzenkiro** menderatu zaituzte, eta zuek bizi zareten lurrak eskuratu dituzte, madarikatu egiten baituzue Kristoren izena. Askoren artean

---

zuzenkontra ik **zuzen 19**.

---

# zuzenlandia *iz adkor*

Badut etxean, gordea, *Berria*-ko titulu handi bat, Hizlandiarako baino **Zuzenlandiarako** egokiagoa den txatala, urtarrilaren 23ko egunkaritik artaziz moztua: "Norvegiako 20 otsotik bost hilko ditu Gobernuak". Iñigo Aranbarri

---

# zuzenlege *iz* legea; zuzenbidea.

Hala zuten Ibrahim Rugova lehendabizi presidente aukeratu 1992an, nahiz eta nazioartekoak ez zituen bozak **zuzenlegezkotzat** jo. Berria - Mundua

Ezagun da oraino Euskal Herria Krixtoren **zuzenlegeari** dela jarraikia. Herria

Ez da ordea gizakirik adimenduaren jabe izatera heldua denik lege arruntak zuzen egin dezakeenik non ez duen aitzinetik berak zerbait ekintza **zuzenlegez** ona, bere nahitara egin. Piarres Xarriton

Alta bere ikasketak herritik urrunxago eginak zituen, hala gertaturik, Arcachonen, eta, ondarrik, Parisen bururatuak, **zuzenlege** edo dretxoari buruz bigarren gerlaren ondar urteetan barna, huntan ere bere zerbitzu partea bete behar izana zuelarik, armadetan. Herria

---

# zuzentarau *iz* Europar Batasunean, kide guztiek bete behar duten araua.

Europako Legebiltzarraren eta Kontseiluaren 2003/4/EE **Zuzentaraua**, 2003ko urtarrilaren 28koa, publikoak ingurumen arloko informaziorako izan behar duen sarbideari buruzkoa. Itziar Eizagirre / Amaia Lizarralde

Kapitalen mugimenduen liberalizazio osoa, 1988ko Europako Erkidegoko **zuzentarau** batek aurrez ikusia, 1990ean egin zuten herrialde gehienek. Koro Navarro

**Zuzentarauak** emaitza jakin bat lortzera behartzen ditu tokian tokiko gobernuak, baina Estatu horren esku uzten du emaitza lortzeko modua eta bitartekoak aukeratzea. Berria - Gaiak

Orain 25 estatuetan planak atondu beharko dira **zuzentarau** horretara egokitzeko. Berria - Gaiak

Ontzi enpresa handientzat bakarrik izango da mesedegarri **zuzentaraua**. Berria - Ekonomia

Europako Batasuneko Energia ministroek eraginkortasun energetikoa bultzatzeko **zuzentaraua** onartu zuten atzo. Berria - Ekonomia

Euskal Telebistak Ikus-entzunezkoen Europako Legea deitua (Mugarik Gabeko Telebistaren **Zuzentaraua**) ez duelako betetzen. Berria - Kultura

**Zuzentaraua** bozkatu eta onartu egingo da. Berria - Ekonomia

Gaur hasiko dira eztabaidak eta ostegunean bozkatu da Bolkestein **zuzentaraua**. Berria - Harian

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
> **bolkestein zuzentarauaren** (3)

---

# zuzentasun 1 *iz* zuzena denaren nolakotasuna. ik **zuzen 5**.

Gogoan hartu behar da, jakintsua eta Jakinduria, egiazalea eta Egia, ona eta Ontasuna, zuzena eta **Zuzentasuna**, bata bestearen baitan ikusi ohi direla. Joan Mari Lekuona

Haren tasunak ene kontrakoekin erkatu: haren jakinduria ene ezjakintzarekin, haren ahalguztiduna ene ezerezinarekin, haren **zuzentasuna** ene okerkeriarekin, haren ontasuna ene txarkeriarekin. Patxi Altuna

Zoriontsuak gogo-behartsu direnak, otzanak, errukitsuak, negarrez daudenak, **zuzentasunaren** gose-egarri direnak. Patxi Altuna

Zaldun zintzoa **zuzentasunaren**, behartsuen eta emakumeen babesle zen, eta zaldun maltzurren jokabide gaiztoa zigortzen zuen, aurrez aurreko borrokaren bitartez. Juan Kruz Igerabide

Haren **zuzentasuna** eta zintzotasuna ezin garaituzkoak ziren, ia naturaz haragokoak. Jose Morales

Gizaki garbiak maite du garbi dena, zuzenak maite du **zuzentasuna** eta beronetara du joera. Joan Mari Lekuona

Bere zeregina arautegia betearaztea da, bere lana esparruan **zuzentasuna** eta ordena zaintzea. Urtzi Urrutikoetxea

Badakit, ene Jainko, gure asmorik gordeenak aztertzen dituzula eta **zuzentasuna** maite duzula. Elizen arteko biblia

Beharbada justizia eta **zuzentasuna** batera doaz, baina ez legeen mende, ez modu zientifikoan ulerturik. Askoren artean

Hizkuntz teoria baten **zuzentasuna** neurtzeko. Itziar Laka

Haren **zuzentasuna** eta zintzotasuna ezin garaituzkoak ziren, ia naturaz haragokoak. Jose Morales

Zorionekoak **zuzentasunagatik** sufritzen dutenak. Elizen arteko biblia

Nork jartzen du zalantzan justiziaren eta **zuzentasunaren** ideia gure baitan dugun joera bat dela? Josu Zabaleta

Izadiaren Metafisika eta ohituren Metafisika arrazoimen espekulatibo nahiz praktikoaren kritikaren **zuzentasunaren** egiaztapen gisa. Ibon Uribarri

**Zuzentasunaren** alde eta Gaizkiaren kontra. Alberto Ladron Arana

Guk orain zuzentzat jotzen duguna, ez arrazoimen espekulatiboak bere **zuzentasunaren** uste osoa ematen digulako, baizik bera arrazoimenaren printzipio moralekin osorik ados dagoelako. Ibon Uribarri

**Zuzentasunaren** makilaz zigortu zuenak graziaren gozotasunaz bisita egin zion gau-ikuskariaz. Askoren artean

**Zuzentasuna** honela definituko genuke: logika batentzat sistema formal bat proposatzen denean, sintaktikoki ondorioztatzen dena sistema horretan semantikoki ere ondorioztatu egin behar da. Askoren artean

Demostrazio baten **zuzentasuna** atzematen jakin duenak ondo ezagutzen dik demostrazioa! Jon Muñoz

Abiaduragatik txoria zen, **zuzentasunagatik** gezia. Anton Garikano

Aditu horiek artikuluan esaten direnen **zuzentasuna** aztertzen dute, baina balioeste-prozesuaren oinarrian ikertzaileekiko konfiantza dago. Berria - Gaiak

Horra zergatik Euskaltzaindiak azpimarratzen duen "Euskal Herria" izenaren egokitasuna, **zuzentasuna** eta zehaztasuna zazpi probintzia edo lurraldeen osotasuna adierazteko. Herria

Zer-nolako begi zorrotzez irakurtzen dituen jatorrizko testuak eta zer-nolako zorroztasunez juzgatzen euskal testuen **zuzentasuna** eta jatorrizkoarekiko leialtasuna. Patxi Altuna

Adreilu metaren ondoan Jabi, makurtuta, begi bat itxi eta bestearekin paretaren **zuzentasuna** konprobatzen ari zen. Pablo Sastre

## 2 (izenondo eta izenlagunekin)

Bazter guztietan goraipatzen zuten Lisaren zintzotasuna; azken finean, txanponak beretzat gorde zitzakeen, Quenuri tutik ere esan gabe; **zuzentasun** hutsez kontatu zion, inork ez baitzuen sotoan ikusi. Karlos Zabala

Adigaiari baldintza hau gaineratzen bazaio eta esaten bada gauza oro agerpena den aldetik [...] denboran dagoela, orduan oinarri-esakuneak a priori jasotzen du bere **zuzentasun** objektiboa eta orokortasuna. Ibon Uribarri

Jainkoaren legeen ala gizalegeen arabera errana da, bere arteziaren eta **zuzentasun** propioarengatik nornahiri ematen zaion egitekoa ez zaiola beste bati emanen egitera. Piarres Xarriton

Hortaz, "baldintzen ilara [...] baldintzatugabekiraino luzatzen dela" dioen oinarri-esakuneak bere **zuzentasun** objektiboa duen ala ez duen. Ibon Uribarri

Zenbait autorek salatu du erlatibismoaren eta pluralismoaren arteko banaketak **zuzentasun** politikoari baino ez diola erantzuten. Askoren artean

Idazleak -edo artistak, berdin dio- ez du ez egiaren ez **zuzentasun** moralaren monopoliorik. Anjel Lertxundi

Kasu horietan, guk, **zuzentasun** linguistikoaren aurrean ikuspegi filosofikoa hobetsi dugu. Askoren artean

**Zuzentasun** politikoaren garai hauetan oso itsusitzat jotzen dira esaera misoginoak, baina egon, sorginak legez, badaude. J.M. Olaizola "Txiliku"

**Zuzentasun** politikoak baldintzatutako ekitaldia. Berria - Kultura

Teorema psikologiko haiek guztiek beren **zuzentasun** eztabaidaezina dute. Ibon Uribarri

Gero, larru-soinekoz jantzita eta paradisutik jaurtita, galdutako jatorrizko **zuzentasunik** gabe bizi izan ziren bizitza guztian lan handietan eta penientzia latzetan. Patxi Altuna

Beren panfletoen **zuzentasun** gramatikalaz sekulako ika-mika piztu eta, [...]. Aingeru Epaltza

## 3 (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

**Zuzentasun**-irizpide objektibo onartuak badaudenez, horiei jarraitzeko aholkatzen dizugu. Askoren artean

Hizkuntzak bakarka hartuta, **zuzentasun**-zantzu ahula da hori, gramatika ezberdin askok azal litzaketelako adibide argiak. Itziar Laka

Tokian tokiko **zuzentasun** arau aldakorrera egokitzen dena. Xabier Olarra

Ez dugu beraz zeren lotsa, gizakiaren gogo-bihotzetan bizirik baitirau oraino **zuzentasun** goseak. Piarres Xarriton

Baina gure **zuzentasun**-ezak Jainkoaren zuzentasun nabariago egiten badu, ez al genuke esan behar [...] zuzengabea dela Jainkoa bere haserrea gure gainera isurtzean? Elizen arteko biblia

Indukzioak eta dedukzioak bakoitzak bere **zuzentasun**- eta zentzuzkotasun-estandar propioak dituelako. Askoren artean

Bere Semeaz hau esaten du: Zure tronua, oi Jainko, betikoa da, zure erregetza **zuzentasun**-erregetza. Elizen arteko biblia

## 4 (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa)

Bestalde, gobernuen *raison d'être* negatiboa mendekoen artean gizarte-**zuzentasun** pixka bat ziurtatzea da. Iñaki Mendiguren

«Klientelismo fiskal hutsa da, errentaren gaineko zergaren jaitsiera ezkutua zerga handiena ordaintzen dutenentzat», salatu du Vincent Drezet-ek, zerga **zuzentasunaren** alde jarduten duen Sniu taldeko bozeramaileak. Berria - Ekonomia

· Gogoko nuen haren ikastaldien **zuzen**-zorroztasun apaingarririk gabea. Juan Garzia

## 5 ***zuzentasunez*** *adlag* zuzen.

Ireki ahoa **zuzentasunez** epaitzeko, dohakabe eta behartsuen eskubideak babesteko. Elizen arteko biblia

Zu egin zaitu errege, zuzenbidez eta **zuzentasunez** goberna dezazun. Elizen arteko biblia

-**Zuzentasunez** mintzatu zara, bai horixe -esan zion alfakiak-, baina mihiak galdu zaitu, zere argudioak zure kontra baitaude eta kalte egiten baitizute. Patxi Zubizarreta

Justizian konfiantza gutxi nuen lehen, baina Itoizko urtegiaren aferaren ondoren... **zuzentasunez** bizi nahi duten hiritarren lepotik barre egitea da. Edurne Elizondo

Merkatuek ez dituztela, nahitaez, errenta eta ondasunak **zuzentasunez** banatzen; hots, errenta eta aberastasun desberdintasun onartezinak sor daitezkeela merkatu jokoaren bidez. Iñaki Heras

Kazan hiria "Asiako atea" deitu izan dute **zuzentasunez**. Karlos Zabala

Hizkuntza **zuzentasunez** erabiltzen ez badugu, akabo Jokoa, ez da ongi aterako. Antton Olano

Jendaila hori ez dabil ez egiaz, ez **zuzentasunez**, hautsi egin baititu eginak zituen hitzarmena eta zina. Elizen arteko biblia

· Merkatuaren aurrean elementu garrantzitsuena pertsonak izango diren elkartasunezko eta **zuzentasunezko** gizarte bateranko proposamenak eztabaidatzen eta jorratzen dituzte. Itziar Eizagirre / Amaia Lizarralde

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
>
> **bere zuzentasun** (5); **zuzentasun osoz** (3); **zuzentasun politikoaren** (3)
>
> **bere zuzentasuna** (6); **gizarte zuzentasuna** (4); **haren zuzentasuna** (3); **hitzen zuzentasuna** (3); **nire zuzentasuna** (3); **zure zuzentasuna** (4); **zuzentasuna frogatu** (3); **zuzentasuna maite** (3)
>
> **bere zuzentasunaren** (3); **gizarte zuzentasunaren** (3); **neure zuzentasunaren ordaina** (4); **zuen zuzentasunaren** (4); **zuzentasunaren alde** (7); **zuzentasunaren ordaina eman** (4)
>
> **zuzentasunari buruzko** (4)
>
> **zuzentasunez goberna dezazun** (3)
>
> **zuzentasunik gabe** (4)

---

zuzentki ik **zuzenki**[1].

---

**zuzentza** *iz* justizia.

Egungo egoerak erakutsi digu zein beharrezkoa den kanpotik eragitea **"zuzentza"** emakumeen kontrako erasoen aurrean zorrotzagoa eta justuagoa izan dadin. Iñigo Aranbarri

**Zuzentza** eta eskubideak euskararen oroitzan. Berria - Kultura

**Zuzentzaren** maitez bil diran semeekin ixuri daidala bizitz-iturria. Jokin Urain

---

**zuzentzaile** **1** *izond* zuzentzen duena.

Eta benetan argitasuna egiten zuten, nola izango zen bada bestela, horretarako luma **zuzentzailea** erabiltzen hasi ziren lehenek. Pello Salaburu

Epaimahaietan parte hartzen dugun emakumeok, neurri **zuzentzaile** bat sartu behar diogula askotan gure buruari liburu edo lagin batean ikusten ditugun baloreak baliagarriak direla aldarrikatzeko. Ana Urkiza

Bere pentsamolde bereziaren oinarri **zuzentzailea**. Ibon Uribarri

Hemen ez dago egiaren desideratum **zuzentzailerik**. Askoren artean

Aireportua handitzeko Plan **Zuzentzailea** bertan behera utziko dute. Berria - Euskal Herria

Bilbon egin ditu sailburuak adierazpenok, 2002-2005 eperako Jaurlaritzak egindako Etxebizitzaren Plangintza **Zuzentzailearen** balantzea egiteko izandako agerraldian. Berria - Euskal Herria

Ez gara inoiz gai izango Google-k eskaintzen duen posta zerbitzua emateko, baina gureak katalaneko ortografia **zuzentzailea** izango du. Berria - Gaiak

• **2** *iz* zerbait zuzentzen duen pertsona.

Egile guztiak dira Apeles, baina zapatariaren tentazioa gizakion artean arruntena da, tira, **zuzentzaileak** baizik ez zuen ikasi bere lana, zuzentzea, alegia, munduan sekula bukatuko ez den bakarra dela. Jon Alonso

Hasieratik bereizi izan zirela [...] "kopiatzaileak" alde batetik, alegia artista mimetikoak, errealitateari xehetasunez xehetasun lotzen zitzaizkionak, eta artista heuristikoak bestetik, hau da, asmatzaileak, naturaren **zuzentzaileak**. Bernardo Atxaga

Gero **zuzentzaileek** etorri beharko dute arazoei konponbidea bilatzera. Jon Alonso

-Zatoz hona, ene seme, nire zorra pagatu nahi dizut-eta, oker-**zuzentzaile** hark agindurik utzi didan bezala. Patxi Ezkiaga

Anitz urte iragan zituela han, Tres Arroyos-en trenbideetako orratz **zuzentzaile** egon zela. Ana Urkiza

Ideia horren inguruan du antzerki hau antolatu Antton Luku obraren idazle eta **zuzentzaileak**. Herria

**3** inprenta probak eta kidekoak zuzentzen dituen pertsona.

Ni bezalako idazle batentzat luxu bat da Inazio Mujika bezalako **zuzentzailea** edukitzea. Joseba Zulaika

Egileek (idazleek, **zuzentzaileek**, itzultzaileek eta ilustratzaileek), beste edozein langilek bezala, beren lanagatik ordain-sari duina jasotzeko eskubidea dute. Berria - Kultura

Costak galdetu du, Asko zuzendu behar izan al duzu, eta **zuzentzaileak** erantzun du, Ez, irribarre eginez. Jon Alonso

**Zuzentzaileak** uste du Costak orriak begiratuko balitu, eta errakuntzaz konturatuko balitz, oraindik komentzitzen ahalko lukeela, testuinguru nahaspilatuzko bizpahiru esaldi ukazioz beterikoekin, bizpahiru esaldi kontraesankor eta itxurazkorekin, [...]. Jon Alonso

Egin ezazu kontu nolakoa den **zuzentzaileen** eguneroko bizitza, pentsa ez ote den tragedia liburu bat behin, eta birritan, eta hiru, lau, bostetan irakurri behar izatea. Jon Alonso

Iraganeko zenbait egile espezie horretakoa da, **zuzentzaile** izugarriak, alegia, Balzac-ek berrikusten zituen probez oroitzen ari naiz. Jon Alonso

Ez da itzulpenaren zehaztasunaz duda egiten duela, bera bezalako **zuzentzaile** arrunta latinez urri baitabil, baizik eta ezin daitekeelako, benetan ezin daitekeelako sinetsi klerigoa izan ez zen Afonso errege honen ahotik halako harenga korapilotsua atera zitekeenik. Jon Alonso

Beste jende mota bati dagokio arauak jakitea: irakasleei, itzultzaileei, argitaletxe eta hedabideetako hizkuntza **zuzentzaileei** eta, azken batean, euskara lan tresna dutenei. Koldo Zuazo

Euskal Itzultzaile **Zuzentzaile** eta Interpretatzaileen Elkartea. Edorta Jimenez

**4** (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

Ez dudala ia **zuzentzaile**-lanik egin. Jon Alonso

Raimundo Silvak, **zuzentzaile**-ogibidean zeukan eskarmentu luzeari esker, ez zuen besterik behar alde egin behar zuela konprenitzeko. Gogorarazi beharko dizut **zuzentzaile**-jendea jende urria dela, soila, literatura eta bizi asko ikusitakoa. Jon Alonso

Raimundo Silva libertitzen da gogoeta sakonaren imitazio honekin, bere **zuzentzaile**-oroimena bertsoz eta prosaz beteta dago, puskak, zatiak dira, baita esaldi osoak ere, esanahidunak, beste munduetatik etorririko zelula geldi eta dirdiratsuak bailiran oroimenean ilkatzen direnak. Jon Alonso

**5** (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa)

Editoreak eta proba **zuzentzaileak**. Iñigo Aranbarri

Ni proba-**zuzentzailea** baino ez nintzen, nire ardura nagusia deleatur bat egoki trazatzea zen, eta gero egileari horren zergatia azaldu. Jon Alonso

Egunen batean, Ala handia da, edozein liburu-**zuzentzailek** ordenagailu bat edukiko du. Jon Alonso

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
> **babesle eta zuzentzaile** (3); **zuzentzaile eta interpretarien** (4); **zuzentzaile eta interpreteen** (12); **zuzentzaile jauna** (4)
> **plan zuzentzailea** (3); **proba zuzentzailea** (3)
> **neurri zuzentzaileak** (6)

---

## zuzentzaileburu *(corpusean **zuzentzaile-buru** soilik)* *iz* zuzentaileen burua.

Ez zuen uste izango domina bat jarriko ziotenik edo eguneko gai-zerrendan aipatuko zutenik, **zuzentzaile-buru** izendatzeko, lehen ez zegoen lanpostua eta orain, agi denez, bai. Jon Alonso

---

## zuzentze *iz zuzendu* aditzaren aditz izena.

**Zuzentze** eta maisutza hauek nahikoak dira uste izateko berau dela langileek egindako lan guztiaren autore. Joan Mari Lekuona

**Zuzentze** batetik koadratze bat ateratzen zen! Jon Muñoz

Safam **zuzentze** judizialpean dago eta sei hilabeteko epea dauka egoera konpontzeko eta enpresaren iraunkortasuna frogatzeko. Berria - Ekonomia

Egun horretan amaituko zaie Muxikako Udalak agindutako **zuzentze**-neurriak hartzeko daukaten epea. Berria - Euskal Herria

Egun erabat anakronikoa dirudien Maurice Dobd autore marxistaren kritikari 60-70eko urteetako **zuzentze** senaren kutsua antzematen zaio. Iñaki Heras

Atal honetan orain arte aztertutako puntu guztiek, **zuzentze** eta bideratze aukera bat dute Programa 21 honen eta horretarako ezarritarako metodologien bidez. Itziar Eizagirre / Amaia Lizarralde

---

## zuzentzearren *adlag* zuzentzeko.

Ahal dudan guztia egingo dut okerrak **zuzentzearren**. Agustin Otsoa

Horregatik, huts -edo bekatu- barkaezintzat jotzen zuen zera hura **zuzentzearren**-edo, Donald ahatearen osabak esaten zuen aipu bat ekarri zuen akordura, guztiz aipu jostaria: [...]. Karlos Linazasoro

---

## zuzentzeke *adlag* zuzendu gabe.

Neskaren izena errepikatzen hasi zen mutila beste behin, erantzuna jasotzeko baino gehiago terapia katartiko gisa, begiak neskagana **zuzentzeke**, edalontziari eusten zioten bere eskuetan finko, etengabe esaten baitzion: [...]. Xabier Mendiguren Elizegi

---

## zuzenune ik **zuzengune**.

---

## zuzenxeago *adlag* apur bat zuzenago.

Zinez karriketan inor egon ez balitz bezala edo, **zuzenxeago** esateko, espaloietan ikusi zena ikustea komeniko ez balitz bezala... Koldo Izagirre

---

## zuzenzale *izond* gauza zuzenen zalea.

San isidoro-k eta monarkia bisigodoak jada, eta Vitoria eta Suárez-ek, komuneroek, etab., izpiritu espainol jatorra espresatzen dute, tirania ororen kontrarioa, **zuzenzalea**, etc. Joxe Azurmendi

---

## zuzenzuzen ik **zuzen 21**.

---

## zuzenzuzenean ik **zuzen 23**.

---

## zuzi 1 *iz* zur erretxinatsuzko zatia edo makila, argi egiteko eskuan eramaten dena. ik **lastargi**.

Armaturik eta **zuzi** eta argiontziz horniturik zihoazen. Elizen arteko biblia

**Zuziak** eta danborrak zeramatzaten, ongi ikusiak eta hobeki entzunak izateko maneran. Aingeru Epaltza

Pippinek **zuziak** ikusi zituen, eta gero bi zaldizko, astiro zetozenak, atzean jendetza handia zekartela. Agustin Otsoa

Eguzkia sartu eta erabat ilundu zuenean, labe bat ketan eta **zuzi** bat sutan igaro ziren hildako abereen zatien artetik. Jose Antonio Mujika

Gaua heldu zenean, **zuziak** piztu zituzten, eta emakume zerbitzariei eman eusteko. Juan Kruz Igerabide

Gau beneragarri hura distiraz eta ospez jantzi zen, mila **zuziren** argitan eta gorespen-kantu gardenen soinutan. Askoren artean

**Zuzien** sugarrek argitzen zuten areto hura, eta marmolezko eskailera zoragarri bat zegoen goiko solairuetara igotzeko. Iñaki Mendiguren

Haizea hain zen han gaiztoa non gure **zuziek**, sugarra galduta ia, ozta-ozta argitzen baitzuten. Koro Navarro

Apurka-apurka, **zuzien** sugarrak moteldu eta itzali egin ziren, eta Merry ilunpean zebilela ohartu zen. Agustin Otsoa

Jaunaren **zuzia** ez zen oraino itzalia. Elizen arteko biblia

Ia ahituriko **zuzia** txinpartaka itzali zen, eta ilunpeak marea gisa bildu zuen. Agustin Otsoa

Han, eskaileran, **zuziak** eta ezpatak eskuetan, Denethorren zerbitzariak zeuden. Agustin Otsoa

Gero, eskuetan **zuziak** genituela, ziudadelako sotoetara gidatu gintuen Domingok. Aingeru Epaltza

Haren hitzak **zuziak** bezala erretzen zuen. Elizen arteko biblia

Jo zuen turuta hirugarren aingeruak, eta zerutik izar handi bat jausi zen, **zuzia** bezala sutan. Elizen arteko biblia

Harry, Ron eta Hermioneren aurretik igaro eta **zuziaren** argimutiletik askatu zuen Norris andrea. Iñaki Mendiguren

Bildu eta kiribilduz, **zuzitarako** balio dizu. Pello Zabala

Konturatu zen zoro bat eta **zuzi** bat aski direla dena hondatzeko. Koro Navarro

**Zuzi** bat besoa luzatuta bizkor birarazten baldin bada, suzko eraztun bat ikusiko da. Josu Zabaleta

Askatasunaren Estatuari **zuzia** erori zaiola. Harkaitz Cano

Nork jaso nahi du **zuzia**? Bernardo Atxaga

Gas kantitate gehiegi dagoenean **zuzian** erretzen da atmosferara bidali aurretik, negutegi efektua eragin baitezake, eta legeak mugatzen du metano isurketa Berria - Euskal Herria

**2** (izenondo eta izenlagunekin)

Urrezko domina erakusten du, eta **zuzi** olinpikoaren irudiak gainjartzen dira, kea dariola, eta ehunka uso hegatsez. Joseba Sarrionandia

Enpedoklesen alboetan, esklabo zenbaitek **zuzi** handi batzuk zeuzkaten jasorik. Juan Garzia

Bere leiho garaien argitan, horma-sabaien edergailuetako margolanen pean, ostatu-zuloetako **zuzi** ketsuak imajinatu zituen. Juan Garzia

Kriseilu eskegiak eta ke ugariko argi zalanzkorrez dizdiz egiten duten **zuzi** erretxinatsuak. Xabier Amuriza

Zurdazko **zuzi** izeki bat astinduz eskuan. Juan Garzia

**Zuzi** izeki berrien argipean. Joan Mari Irigoien

Gudu-gurdiak arrapaladan doaz kale eta plazetan barrena, **zuzi** piztuak bezala, tximista bezain bizkor. Elizen arteko biblia

Hain zen sakona ilunpea, non erretxinazko **zuzi** batez argitu behar izan baitzuen ehorzleak etxe izurri-joaren sarbidea. Juan Garzia

Begiak suzko **zuziak** bezalakoak zituen. Elizen arteko biblia

Greziarrek Maia jainkotxar hau aplakatzeko, elorrizko bost **zuzi** zeramazkioten tenplura. Pello Zabala

**3** (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

**Zuzi**-sail handi bat ikusi zuten, bide hartan bertan beraiengana zetorrena; izar-taldea zirudien, dantza ibilian. Patxi Ezkiaga

**4** (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa)

Harrizko hormak Gringottsekoak bezalako gar-**zuziek** argitzen zituzten. Iñaki Mendiguren

Neure egoitza izateko aukeratu nuen hirian, Jerusalemen, ene zerbitzari Davidek argi-**zuzi** bat izanen du beti nire aurrean. Elizen arteko biblia

Ezko-**zuzi** bat erosi du eta, gaua heldu denean, aitaren ohe aurrean piztu. Anjel Lertxundi

Pazko-**zuziaren** argizaritik ezer ea lortzen zuten, kortako ganaduari adarrean ginbeletaz zuloa egin eta han sartzeko. Pello Zabala

**5** irud/hed

Suak, izan ere, hamar segundoren buruan **zuzi** bihurtu dizu hegazkina! Dresden osoa **zuzi** bat egina dago. Josu Zabaleta

**Zuzi** gartsu bat zeukan bularraldean sutan, horditasun magiko batek ureztatzen zion arima, bizigogo berri batek eragiten zien bere kirioei. Patxi Zubizarreta

Filosofiaren **zuziak** asmakeria hauek argitu zituenetik, jainkoaren kimera zapalduta geratu zenetik, [...]. Juan Martin Elexpuru / Bego Montorio

Juanito Muñagorri izan zen gure herrian abertzaletasunaren **zuzia** piztu eta indartu zutenetako bat. Xabier Mendiguren Elizegi

Ezin da sinetsi nolako inozokerietan eror gaitezkeen arrazoiaren **zuzia** bazterrean utzita argudiatzen saiatzen garenean. Juan Martin Elexpuru / Bego Montorio

Soinean zeraman, bera ere ezin egon konturatu gabe, edertasunaren **zuzia**. Anton Garikano

Denbora laburrean bizidunen belaunaldiak aldatu egiten dira eta, lasterkariek bezala, biziaren **zuziak** elkarri ematen dizkiote. Xabier Amuriza

Idien izaeran aire mantsoa bizi da, eta hura ez du inoiz asaldatzen suminaren **zuzi** ketsuak. Xabier Amuriza

-Dresden osoa **zuzi** bat egina dago. Fernando Rey

Heriotzatu behar dituztenek horixe besterik ez omen zaukatek gogoan, ile bustiaren **zuzia** haragi zurian. Koldo Izagirre

**6** (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa)

Pobretasunaren argi-**zuzia** ipini zien eskuetan fedearen atetik sartzen zirenei eta huraxe ezarri zuen etxearen lehen oinarritzat. Askoren artean

Ortziko gau-**zuziak** ere, goraki hegan, ez al dakusu nolako gar ildo luzeak egiten dituzten, naturak ibilerari emandako edozein norabidetan? Xabier Amuriza

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
> **argi zuzi** (3); **eskuan zuziak** (3); **zuzi bat sutan** (4); **zuzi piztuak** (5); **zuzia piztu** (3); **zuziak bezala** (3); **zuziaren argimutiletik** (3); **zuzien argi** (3)

---

**zuzidun** *izond/izlag* zuzia duena.

Gauez zelatan, hura hiltzen saiatu zen, haren esklabo **zuzidunak** hankaz gora botarik. Juan Garzia

Plaza utzi zuen, **zuzidun** soldaduak berekin eramanez. Karlos Zabala

---

**zuzitu**, zuzi(tu), zuzitzen da *ad* birrindu.

Han bizi zen, bakarrik eta etsita, saminak **zuziturik**, zoritxarraren zoritxarrez bere buruaz beste egitea baizik gogoan ez zerabilela. Josu Zabaleta

---

**zuzkidura** **1** *iz* hornidura.

Aspirina eferbeszenteen kaxa hor zen, nire ekarpen bakarrenetariko bat etxe horretako **zuzkidurei**. Aingeru Epaltza

Bigarren liburuan egokiagoa iruditu baitzait lehendabizi eraikinetan prestatu behar diren material-**zuzkidurari** buruz hitz egitea, zertarako erabiliko diren aipatuz. Santiago Iruretagoiena

**2** irud/hed

Giza izaeraren **zuzkidura** bikaina. Ibon Uribarri

Arrazoimenaren **zuzkidura** osoa Filosofia hutsa dei dakiokeen landualdian egitatean aipatu diren hiru arazoetara bideratzen da. Ibon Uribarri

---

zuzmur ik **surmur**.

---

zuzpergarri ik **suspergarri**.

---

zuzpertu ik **suspertu**.

---

zuzpertze ik **suspertze**.

---

zuzpirio ik **suspirio**.

---

**zuztar** *(129 agerraldi, 46 liburu eta 10 artikulutan; orobat **txustar** g.er., **txuster** g.er. eta **txuztar** g.er.)* **1** *iz* sustraia.

Mihura landarerik sakratuena bilakatzen da horrela: haritza berez landare "aukeratua" izanik, haritzaren izpiritua mihurari iristen zaio, **zuztarrik** lurreraino sartu gabe ere, gainean fotosintesia egitea eta bizia ateratzea lortu baitu. Hobe zela barrabas-belarra bilatu, eta **zuztar-zuztarretik** ateratzea, artoa galtzen ikusi, eta negar egitea baino. Pello Zabala

Buruaz baiezkoa egin zuen neskatxak, bere ile gorrien **zuztarretaraino** gorrituz eta ukondoa gurinaren platertxoan sartuz. Iñaki Mendiguren

Hagina **zuztarretik** atera ezkero, minxor bat gelditzen da luzaroan, "han dagoela esaten du". Iñaki Segurola

Orobat, zakilaren gorputza eta klitoriarena ere berdinak dira, baita bien **zuztarrak** ere. Luis Elberdin

Laster estropezu egiten hasi da **zuztarrekin**, enbor ustelak gainditu ezinik. Pako Aristi

Gizon harengatik balitz, Collion gintuan ordu honetan, **zuztarrak** jaten. Josu Zabaleta

Subertsioak **zuztar** luzeak ditu Gipuzkoan. Koldo Izagirre

Horiek denak **zuztar** bateko jakiteak dira, jakite huts zertangabeak. Iñaki Segurola

Azken buruan, ez al zuen **zuztar** bera, aldez behintzat, determinismoaren eta kausalitatearen banderadun gelditu zen [...] Einsteinek Bohr, Heisenberg eta abarren inderterminismoarekin eta probabilismoarekin izan zuen zeingehiagoka edo zeinegiagokak? Iñaki Segurola

**2** (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

Sustraiekin pipak egiteko erabiltzen diren txilar zurtoin-luze eta **zuztar**-egurtsu horietako bat. J.M. Olaizola "Txiliku"

Hiru lore **zuztar**-luze hartuta. Patxi Iturritegi

**3** (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa)

Ikusirik hosto-**zuztar** horiek, adarrak apaintzen dituen parpaila berde hori haize kirriaren pean ikaraz, kale egiteko beldur balego bezala. Juan Garzia

Gosarikoak jaso gabe zituen oraindik eta harraskako putzua tipula**zuztarrez** eta txikoria hostoz leporaino beterik. Berria - Kultura

Autoa arbola-**zuztar** baten kontra, eta une batez irratiko pieza irentsi zuen krakatekoa. Anjel Lertxundi

Eguzkipean urtzen ari diren gari-**zuztar** jelatuak dirudite. Itziar Otegi

Hesi ondotik pasatzerakoan, elorri **zuztar** bat moztu, hostoak kendu eta arantzak utzi ditu. Itziar Otegi

Kakaz, zaineraino karraskatutako zorne-belarrez, aza-**zuztarrez** eta malba-hostoz egindako pila baten gainean eserita. Itziar Otegi

**4** irud/hed

Jakin egin behar nuen gai nintzela Hansen itzala betiko hondoratzeko Katedralaren **zuztarretan**. Hasier Etxeberria

Tonto **zuztar** horiek gu atzoko astakeriaz ahaztea nahi dutela ematen din, esaien bestela horko hiru gazte horiei. Anjel Lertxundi

Amonaren ipuin maitagarrien kontu hori **zuztarreraino** sarturik daukagu gure topikoen altxorrean. Xabier Mendiguren Elizegi

Janari gehientsua neke handirik hartu gabe irensteko moduan salduko da, bere ontzian, kuzinatua, hezur, **zuztar** eta azalik gabe, txikituta. Edorta Agirre

**5** zigarroez eta kidekoez mintzatuz, punta, hondakina.

Ez zitzaion zigarro **zuztarrak** lurrean zanpatzea gustatzen: hormen aurka eta ateen markoen aurka itzaltzen zituen beti. Harkaitz Cano

Puru baten **zuztarra** hortzetatik kendu barik agurtu zituen. Josu Landa

Puru-**zuztarrari** ausiki egin dio ondoren. Harkaitz Cano

Garrasi egiterakoan, puru **zuztarra** ez zitzaion ahotik mugitu. Joxemari Iturralde

Cesar Telleriak, urte luzetan bere buruzagi eta orain lankide parekide zuenak zigarroa **zuztarreraino** ahitu arte itxaron zuen. Harkaitz Cano

Lasaitasunez uretara bota du musuzapi odolez zikindua, zigarroaren **txustarra** botako lukeen sosegu berberaz. Paddy Rekalde

Ez nion esan Madrilgo Santa Anako taberna batean erre nuela neuk azken aldiko **txusterrik** onena. Iñigo Aranbarri

**6** mutxikina;.

Kamioi altu bat zen, sei gurpilekoa, eta tu egin geniezaiekeen goi hartatik aldamenetik igarotzen zitzaizkigun autoei, eta sagar **zuztarrak** bota espaloiko emakumeei. haien amaordea zeharo txundituta geratzen zen goizero, harri koskorrak, hostoak, sagar **zuztarrak**, trapu puskekin egindako panpinak, eta han bildutako beste gauza bitxiak aurkitzen zituenean. Koro Navarro

· Tomate-**zuztarrak**, zabor-poltsara. Anjel Lertxundi

**7** zakila.

Jakina, zuk orain uste duzu mandingoak kristoren **zuztarra** zeukala esango dudala, baina hala uste baduzu, ez dakizu zer den sexu adultoa. Jon Alonso

Gihartsuena ohera hurbildu da, baina besteak gelditu egin du, bere haragi gogor eta sutsuko **zuztar** zaintsua erakutsiz. Juan Martin Elexpuru

**8 *hanka zuztar*** *(orobat **hankazuztar**)* hanka giharrak.

Ikaragarri sufritu zuten zati horretan zaldiek, **hanka zuztar** sendoko mutil handiek, ordokizale petoek. Berria - Kirola

Egoi Martinez [...] **hankazuztar** sendoko mutila da, ordokizalea, zaldi indartsua. Berria - Kirola

Suitzako eguzkiak sutan jarri zizkien **hanka zuztarrak** Phonak taldeko txirrindulariei, baina haien giharrak bakarrik berotu zituen, nonbait. Berria - Kirola

Eta Pirinioetan gora baten baten **hankazuztarrek** behartu ederra hartu behar dute. Berria - Kirola

Hauspoak kito esaten du eta **hanka zuztarretako** giharrek bale. Berria - Kirola

· Ann Pudeatorren baso-mutil baten neurriko beso-**zuztarretan** jarri zuen gero arreta. Anjel Lertxundi

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
> **hanka zuztarrak** (5)

---

**zuztarbako** *izond* sustraigabea.

Eta hauek ez dira literatoen, semiotikoen edo psikotikoen solas merkeak: hauek, injineruek eta zientifiko **zuztarbakoek** besterik uste badute ere, fisiko teoriko argienen solas zuhurrak eta jolas zintzoak dira. Iñaki Segurola

---

**zuztardun** *izond* sustraiduna.

Eboluzioaren alde dauzkagun datuak, hau da, gaurko, atzoko eta herenegunekoo 'fotoak', gero eta ugariagoak, eboluzioa teoria metazientifiko onargarria egiten dutenak, teoria zientifiko **zuztardunak** deitu ohi ditugun horietakoa. Jenaro Garate

---

**zuztarpeko** *izlag*

Zeinu harritua margotzen zen bere aurpegian, zeinaren ahotik, porru gordin baten **zuztarpeko** bixarrak ateratzen baitziren. Jon Alonso

---

**zuztartu**, zuztar(tu), zuztartzen **1** da/du *ad* sustraitu.

Halako batean, erroak **zuztartzen** joan ziren. Pello Zabala

Baina non **zuztartuta** dagoen gizakiagan eginbeharra, askatasuna beragan daraman eginbeharra, ezin du zuzen erakutsi. Jenaro Garate

Gizona ez da jiratzen ausartzen; ezin du aurrera egin; oinak lurrean **zuztartu** zaizkio. Eskarne Mujika

Horrenbeste **zuztartua** zegoen zelten kulturako ospakizuna, kristau erlijioak zain beretik bereganatu zuen. Pello Zabala

Egiptoko Irteera izango da justuki, Pazkoarekin betiko lotuko dutena: herriaren zain eta hezurrak hantxe baitituzte **zuztartuta** sentitu. Pello Zabala

• **2** (era burutua izenondo gisa)

Han artaburu bat sumatu nuen, landare **zuztartuan**, liana batez inguraturiko leka bat gainean zuena. Xabier Olarra

---

zuzulu ik **zizelu**.

---